

sermoiak **1771 - 1800**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak, (Rosa Miren Pagola eta taldearen edizioa). CD-ROMa, Bilduma osoaren edizio digitala. Deustuko Ubibertsitatea / Eusko Jaurlaritza, 2004

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

sermoiak

1771 - 1800

LIZARRAGAREN SERMOIAK - 1

ZENBAIT PREDIKU TA PLATIKA USKARAS

Urte guziko igandeetan ta berze zenbait jaietan
predikatuak aldiritan
Jangoikoaren gloria ta arimen protxutako,
milla zazpitan egun ta iruetan ogei
ta amekagarren urtetik alzina,
ta libru gontan nasteka ezarriak.

Fede, Esperanza ta Karidadearen
Aktak uskaras

Nik sinestazen dut zurebaitan, nere Jangoikoa, Aita Jangoiko, Semea Jangoiko, Espiritu Sandua Jangoiko, irur Persona distinto ta jangoiko bat berdaderoa. Nik sinestazen dut zurebaitan, Jesu-Kristo ene Jauna, Jangoiko ta Gizon egiaskoa, ta zure misterio guzietan. Nik sinestazen dut Aldareko Sakramentu Sanduan, zeintan baizaude ain errealki nola zeruan. Nik sinestazen tut gure fedearen berze misterio guziak, ta nai dut bizi ta il fede goneki.

Dut esperanza zurebaitan, nere Jangoikoa Jesu-Kristoren merejimentue gatik, Maria Santisimaren ta sandu guzien interzesioagatik emanen didazula mundu gontan zure zerbitzazeko grazia ta berzean zure gloria. Nai dut bizi ta il esperanza goneki.

maitazen zaitut, nere Jangoikoa, gauza guziak baño ia, zeuroi zarenagatik infinitoki ona ta maitagarria. Ta maitazentut zure gatik nere proximo guziak. Damu dut, Jauna, zu ofendituas. Dut damu milla aldis. Miserikordia, Jauna, Miserikordia ta grazia. Amen.

1. Serm.
In die omn. ss.
ann. 1771

De audiendo verbo Dei, et quomodó.
Euntes in mundum universum praedicate
evangelium omni creaturae. Marc. 16. Exordium

1. Egun guzien eguna, jai guzien jaia ta festa guzien festa da zelebrazen dugun au; zerengatik urte guziko egunak, jaiak ta festak enzerrazen ditu egungo egunonek. Zelebrazen dugu egun lurrekoek zeruko en gozo, kontentu ta gloriak, anima gaizengatik gu ere aien konpañiara joatera. Ah zer konpañia ta zer lekua zeruko konpañia ta lekua! An dago kapitan, errege ta enperadore andia, Trintate Jaun poderoso, lenbiziko tronoan glorias ta edertasunes beterik. Urbilenean dago Ama Birjina, zeruaren ta lurraren erreina, bere oñetan duela ilargia, bere koronan izarrak, ta bere inguruan iruzkia, ta bera erdian iruzki, ilargi ta izar guziak baño galantago. Gero daude angiruak, gero patriarkak, gero profetak, gero Apostoluak, gero martirak, gero konfesoreak, gero birjinak ta gañarakoak guziak beren koroneki buruetan, zeren guziak baitire errege, guziak iruzkia baño argiago, guziak galant, guziak alegre beterik gustos ta kontentus, guziak, en fin, nauten guziareki sekula guzian galzeko peligrorik gabe. Nork estu arara joan nai? Nork nai du galdu alako konpañia? Niork ere. Baña aien konpañia lograzekos, bear dugu bizi aiek bekala. Egin zagun alguzia, ezi Jangoikoak estigu faltako. Guk baño ia nai du, gu arara goazen. Obedi zогun solamente ta segi zagun, ta ezkara galduko; orgatik jautsi ze zerutik lurrera, orgatik egiten du ainberze dilijenzia. O! Korresponde bagindez!

2. Anitz, andiak ta admirableak dire Jangoikoak arkitutuen moduak, injenioak ta artifizioak beregana eramateko ta salbazeko gizona. Baña guzien artean bat prinzipala da, predikua. Estaike erran, zenbat eta zenbat salbatutuen predikuaen medios denbora guzietan ta leku guzietan. Denbora guzietan, zerengatik mundua mundu denas geros estire faltatu predikariak ta predikuak ta eben medios konbersio andiak. Lege Zarrean Noe, Moises, profeta guziak ta berze anitz. Lege Berrian Apostolu guziak, San Gregorio, San Ambrosio ta berze doktore guziak, San Ignazio, San Bizente Ferrer ta berze asko. Leku guzietan, zerengatik in omnem terram exivit sonus eorum, et in fines orbis terrae verba eorum, ezpaita lekurik, nora esten ellegatu predikazaleen otsa ta predikuen birtutea. Joaten bagara jentilen errietara, ikuskotugu millaka konbertitu ta konbertizen direnak predikuaen medios. Etorzen bagara kristioen lekutara, aurkitukotugu ziudade, erri txiki, andi guzietan predikariak, ta anitz bekatarik ta gaisto onera itzuliak aien medios. Arrazio andiareki, bada, predikarien ofizioa da ofiziorik obrena. Orgatik Kristoren Majestadeak artu zue beretako ofizio gau, coepit facere et docere. Orgatik zio berak profeta baten agos: Ad evangelizandum pauperibus missit me. Pobrettoei predikazera bialdu nau nere Aitak. Orgatik azkenean bere Apostolu maiteeri ta Elizako burueri erakutsi ta enkargatu ziote ofizio gau, erraten ziotelaik: Zoaste mundu guzia barna, ta predika zozie kriatura guziei Ebanjelioa. Euntes in mundum universum praedicate Evangelium omni creaturae.

3. Baña predikarien ofizio gau ain ona izateak estigu baliatuko, ezpadugu adizen, ta ongi adizen. Orgatik lenbiziko predikuan iduri zaida erakustea gauza gau, esteien gerta, erran ta erran, aitu ta aitu ta protxurik ez logratu. Goazen bada.

4. Len lenbiziko jakin bear dena da bear tugula predikuak aditu; gero, nola beartugun aditu. Aditu bear tugula esta dudarik, zerengatik nola jakinentugu kristioaren obligazioak, ezpadugu adizen predikaria eben explikazen? Estu ofizialeak ofizioan ikasten, ezpadio nausiak edo norbaitek erakusten; ta estu kristioak ikasten kristiotasuna ezpadio predikariak erakusten, quomodo audient sine praedicante? Berze alde, jakinik ere geuren obligazioak, nola baikabilza lakios, peligros, okasios, tentazios ta bekatus beterik dagon mundu batean, fite faltazen dugu Jangoikoaren zerbitzuan, orgatik beartugu aditu predikariak, zeñek bere itzeki zuzen gaizaten. Soldado diestroak ere, barin badabila bere etsaien ezpata ta lanzaen ertean, on du adizea noizean noiz bere kapitanaren boza, arima daien ta indarres bete daien. Kristoren Majestadeak San Juanen Ebanjelioaren zorigarren kapituloan dio: Qui ex Deo est, verba Dei audit, propterea vos non auditis, quia ex Deo non estis. Jangoikoarena denak, adizentu Jangoikoaren itzak, orgatik zuek adizen estuzie, zerengatik Jangoikoareki parterik ezpaituzie. Au erraten zioten judatar gaistoei. Beras, Jangoikoareki parte izatekos, bear da aditu Jangoikoaren itza, baita predikua; orgatik ere erraten du an amargarren kapituloan: Oves meae vocem meam audiunt, nere ardiek aizeunte nere boza. Beras, Jangoikoaren boza adizen estutenak estire Jangoikoaren ardiak, klaro da.

5. Testamentu Zarreko asko lekutan ere manazen du, adizeko predikuak, ta ofrezizen diote adizentutenei anitz premio, ta adizen estutenei anitz kastigo; ta egiten du anitz keja, zeren esten adizen Jangoikoaren itza. Leku batean dio: Audi populus (sic) meus. Israel, si audieris me, non erit in te Deus recens. Ai nazazu, nere puebloa, Israel, adizen banauzu, estuzu izanen berze Jangoikorik baizik ni. Eta an berean kejazen da, ezi etzuela aditu beraren boza bere puebloak, ta utzi zituela bere eskutik galdu-aintzu; eta añaadizen du ezi aditu bazue bera bere puebloak, garaituko zituela bere esku omnipotenteari arren etsaiak. Berze leku batean dio: Vocavi, et renuistis, despexistis omne consilium meum, et increpationes meas neglexistis, ego quoque in interitu vestro ridebo et subsannabo vos. Deituzindustet, ta ez ninduzie nai aditu, despreziatu zinduste nere konseju ta erreprehensio guziak, bada, nik ere irri inen dut zuen eriozean. Arrigarrisko gauza! Berze leku batean dio: Audi tacens, aizazu isil isilttoa predikua. Berze leku batean dio: Filii mendaces filii nolentes audire legem Dei. Hume gezurtiak, hume falsuak dire hume nere legea aditu naiestutenak. Berze asko lekutan dio berze asko gauza, baña aski bear lukete errantugunak. Ordea, zer gertazen da? Nola geuren pasioneek baikauzkite itsuturik ta sorturik, estugulaik nai emendatu, estugu, por konsigiente, nai aditu Jangoikoaren itza, ta ala gabilza makur infernurako bidean.

6. Jangoikoak goarda predikua aitu naiestuenetik; alakoak erremediorik estu. Zer errain dugu, medikua ikusi edo aditu nai estuen erias? Il nai duela, ta estuela erremediorik. Predikariak dire gure medikuak; bekatoriok gara eriak; bada, ezpadugu aien erranik aitu nai, desauziatuak gaude. Den gogorrena izanik bekataria, izan daike esperanza konbertituko dela, baldin barin badu predikuen adizera afizione. Orgatik Eliza gure Ama Sandak eskomekatueri ere permitizen diote adizea predikua, ta ez meza, zerengatik posible baita predikuen medios itzuli daizen bere baitan. Eztiote Elizak debekazen eskomekatuei predikuen adizea; ta zenbait bekatarik eskomekazentuste beren buruak predikuen adizetik. Izaten da platika edo predikuren bat. Eldu dire anitz, zenbait ez. Estuzie ikusten nola eskomekazen bekala tuten beren buruak? ellegazen da igande edo jaia, oben direnek akudizen dute beren sazerdotearen predikura, eta berze anitzek bilazen dute orduko biaje bat edo berze; ta meza labur bat enzun nolapait, ta egun guzia enplegazen dute beren

munduko gauzetan. Aste guzian lanean, ta igandean biajes. Ta gero? Bere kristioen obligazioak jakin gabe. Ta gero? Bere humeak erakutsi gabe. Ta gero? Berak bere humeeki galdu. Beren asteguziko lanari estiotela piska bat kenduko, ebasten diote Jangoikoari bere egun guzia, zein baita igandea. Sei egun emantigu Jangoikoak guretako, bat solo erreserbatu du beretako; ta guk au ere estugu enplegatu nai beraren gauzetan. Alakoak deizen dire jaien atzaparkariak, Jangoikoareki murrirtxak. Orgatik abrastu uste dute? Bada, nik estut uste; ta abrasten badire orgatik, aien ondasunak izain dire beren galzeko, Judas bekala, zein galdu baizue bere kodiziak. Estut ontan erra nai, estela ligito bjaierik batere jaiean; erreprehendizentut exzesoa, erabilzea afanaturik, aitu gabe predikurik, izan gabe deskansurik kondenatuak bekala, zeñeki konparazen baititu San Buenabenturak. Izan bedi, bada, ia afizione adizera predikuak.

7. Goazen orai ikustera, nola bear diren aditu. Zenbait gauza bear dire, ongi adizeko, ala nola janario batek ongi arzeko, bear baitire zenbait zirkunstanzia. Emanentut bada zenbait erregla ta adbertenzia, adizeko predikua; ta biz lenbizikoa, afizionereki adizea. Afizione duenak adizera predikuak, edozeintaik atrako du probetxu. Afizione gau zue Dabidek erraten baizue: Laetabor ego super eloquia tua, sicut qui invenit spolia multa. Alegratuko naiz, Jauna, zure itzetan, ala nola arkizen duenak despojo edo tesoro montio bat. Tesoro anitz sines ematen digula Jangoikoak predikuaren medios; bada, nork estu joan nai gusto andiareki adizera? Zatoste, dio Espiritu Sanduak, zatoste ta bilzaiste jakinduriaren etxera. Zertan detenizen zarate? Erosazie jakinduria dirurik kostatu gabe. Egia erratera, diru kosta baledi ere, gogotik joan bear ginduke geuren arimengatik. Mundukoek estute erreparazen diru ustean adizeagatik edo beirazeagatik komedia edo alako dibersio bat; eta oietaik, dañu ezipaliz, protxurik benzait esta atrazen. Predikutik atrazen da anitz probetxu; dirurik esta eskotazen; eta alaere estugu ia afizionerik adizera? Señale, ezkaudela ongi Jangoikoareki; ala nola afisiones izatea baita señale Jangoikoaren grazian gaudela ta arima sano dugula. Nork dio? San Juan Krisostomok, ta ezarzen du konparazioa: Jateko gose izatea den bekala gorputzaren osasunaren señale, gisa berean Jangoikoaren itzaren gose edo deseo izatea da arimaren osasunaren señale. Biz, bada, afizione.

8. Bigarren erregla, adizeko ongi predikua, da pensazea dela Jangoikoaren itza, ta predikariak errepresentazen duela Kristoren Majestadea ta predikaria adizen duenak adizen duela Kristo bera, ta predikaria despreziazen duenak despreziazen duela Kristo bera, beraren erranaren konforme. Qui vos audit, me audit, et qui vos spernit, me spernit. Orgatik kejazen da anitz aldis gure Jangoikoa, zerengatik eztuten bera aditu nai, estutelaik aditu nai predikaria, guzia baita bat. Orai, bada, baletor Jesu Kristo bera personan pulpitora, ezlizake mundu guzia etorriko laisterka adizera beraren Majestadea? Baña, zer diot baletor Jesu Kristo? Baletor aingiru bat ere, ez lezake niork ere faltatu elizara, ura adizeagatik. Bada, ala nola baletor zerutik aingiru bat, dio San Krisostomok, ta ekar balezkigu notizia andibazuk, guziok joanen baikinake prisaka arren aditzera, oroat egin bear dugu orai ere. Sines, aingiru edo enbajadore andi bat zerutik etorri zaigu Jangoikoak bialdua, gauza arrigarri prezisoak dakarzkigula; ta gu, arren enbaxada utzirik, eskapatuko gara munduko boberietara? Esta milagro dei dezan predikaria zeruko aingirua ta enbajadorea San Krisostomok, ala deizenduenean Jangoikoak berak, Angelus Domini exercituum est. Ta au ere esta anitz, dakigulaik, predikariak errepresentazen duela Jangoikoa bera, ta arren itza dela Jangoikoaren itza. Orgatik eldu garenean predikura, erran bear dugu Dabideki geuren biotzean: Audiam quid loquatur in me Dominus Deus.

Banoaie adizera zer erraten didan nere Jangoikoak. Ta predikuaren alzitntoan erran zugun Samuelek bekala: Loquere Domine, quia audit servus tuus. Minza bedi, Jauna, zerengatik adizera prest dago orren esklaboa.

9. Irugarren erregla da biotza prebeniturik eramatea, nai dut erran, etorzea erresolbiturik egitera pulpitorik erraten zaigun guzia. Zertan dago batzueri predikuak probetxu anitz ematea, berzebazuari batere ta berzebazuari dañu egitea? Zertan, baizika egotean prebeniturik ongi batzuen biotzak, berze bazuenak gaizki ta berze bazuenak ez ongi ta ez gaizki. Lur ongi moldatuak ta ongi prestatuak errezebizen du ongi azia, ta geien komun itzulzen du ongi garia; al rebes, gaizki prestatuak. Predikaria da eraikizalea, predikua da azia, ala dio Kristok berak parabola batean. Joan ze, dio, eraikizalea eraikizera, ta pikorbazuk erori zire bidearen ondoan, eta etorri zire txoriak, ta janzituste. Berzebazuk erori zire kaskalluan, ta bereala jaio zire, baña zañak axal izateareki lur faltas, sekatu zire iruzkiaren beroas. Berzebazuk erori zire aranzeen ertean, ta anditu zire aranzeak, ta sofokatu zute garia. Berzebazuk erori zire lur onean, ta eman zute batek egun, berzeak iruetan ogei, ta berzeak ogei ta amar. Parabola gau explikatu zue erran zuen bekala Kristok berak. Dio, bada, ezi bidearen ondoan erorzen den azia dela entendazen estuenaren biotzean erorzea Jangoikoaren itza; etorzen dire txoriak ta jaten dute azia, zerengatik alakoeri Deabruak kenzen dio gogotik Jangoikoaren itza. Kaskalluan erorzen den azia omen da inkonstante baten biotzean erorzen den itza edo predikua; aizen du gustoreki, baña nola ezpaitu zañak barna egiten, trabaju edo tentazioaren orduan faltazen du. Aranzeen ertean erorzen den azia omen da biotz munduko kuidado ta ondasunekin okupaturikakoan erorzen den itza; zein ere ondasun ta kuidado lurreko gaiek atzenarasten baitute fite. Lur onean erorzen den azia omen da biotz ongi prestatuan erorzen den itza, orduan ematen omen du fruitu ia ta ia. Guziok dire Jesu Kristoren agoko itzak. Ekarzkigun, bada, biotzak ongi prestatuak, egiteko erraten zaiguna, zerengatik ez egitea da ain gaisto edo gaistoago, nola ez adizea. Ez, bada, despreziatu erraten dena. Despreziazen duzu pregonaria? Bada, beldur izazu Juezari, dio San Agustinek. Eta San Anbrosiok dio, juizioko egunean errespondatuko diotela anitzei Jangoikoak. Zer? Demonioari obeditu zindiot, zeuren kontra manazen bazize ere; ta ni ez ninduzie nai aditu zuen onerako gauzak erraten nitezienean? Kuidado, bada; ekarri biotzak prebeniturik ongi, ta sazerdotea igaterakoan pulpitora erran Dabideki: Paratum cor meum, Deus, paratum cor meum. Prest dago, Jauna, nere biotza, prest dago.

10. Laugarren erregla da ez beirazea nork edo nola predikazen duen, baizik solamente zer erraten duen. Zer zaida niri nor den egia erraten didana, dakitelaik egia erraten didala? Esta, bada, kaso egin bear, andia edo txipia den, jakinsua den edo esten, boza ta modu ona duen edo estuen, bera gaistoa edo ona den. Aski da jakitea, egia diola, nolana dela. Demonio batek erraten badida egia ta on dena, admititu bear dut Jangoikoari graziak eman. Badire iturribazuk, baitute kañutako burriñasko serpiente bat; orai bada izanik ura ona, ezlizake erreparo banoa ez edanaia, zerengatik datorren burriñasko serpiente garren agotik? gisa berean, beira bedi Jangoikoaren itza, ta ez erreparatu noren agotik ematen zaigun. Moisesen katedran jarri dire eskriba ta fariseoak, dio Jesu Kristok, egin zazie erraten dizien guzia, ta ezazela egin aiek iten dutena. (Predikariain gaisto izateak estio niori lizenziaik ematen gaisto izateko. Nik predikazen baut, estela orditu bear, neurau ordizen banaiz ere, orditu beazu zuk? Nik erraten baut estela butzura botatu bear bere burua, nik botaturik ere nere, estuzu obe segizea nere errana ezi ez nere exenplua?). Beira, bada, zer erraten den, eta ez ona edo gaistoa den erraten duena, ain guti jakinsu den

edo esten, zerengatik aur titikoen agotik atrazentu Jangoikoak bere laudarioak; ta badaki astoeri ere minzarasten konbeni dena, Balaanen astoari bekala.

11. Borzgarren erregla da eskazea Jangoikoari alzinetik, eman dezon arimaren erremedioa prediku gartan; ta aizerakoan egon atenzio, errespeto ta silenzio andiareki. Erregeren ordenanza bat leizen denean, guziak egoten dire ixil ixila beldurak ta atent, zer ote dion erregeek. Bada, errege guzien erregearen ordenanzak pregonazen dire pulpitotik. Non da atenzioa? Non da beldurtasuna? Zoazi, dio San Krisostomok, eskultore baten etxe ta gelara, ikusikouzu zein atento dauden formazen ta moldazen imajinak. Bada, Eskultore Dibinoaren etxea da Eliza; emen formazen ta moldazen dire Jangoikoaren imajinak, baitire gure arimak. Eskultorea da Espiritu Sandua; instrumentua da mia. Gaizki moldatuzaike ezpazara atento ta geldi egoten. Imita zazu errege Dabid, zeñek erraten baizue: Os meum aperui, et attraxi spiritum, quia mandata tua desiderabam, Agoa zabaldurik, ta atsa gelditurik nindego, Jauna, orren itzen adizeko deseoain utses. Dabid sandua etze atrebizen ats arzera Jangoikoaren itza adizerakoan, bada, ikas dezakegu arrendandik, sandu ezkarenek, atenzio adizeko Jangoikoaren itza.

12. Seigarren erregla, admitizea kuido andiareki doktrina, esker anitzeki konsejuak ta exortazioak, ta humiltasun andiareki erreprehensioak, zerengatik guzia pensatu bear da eldu dela gure onerako intenzioareki, benzait Jangoikoaren partetik, naiz uki gaizan geuren zaurian, zerengatik medikuak ere ukizen du ta lanzetazen du zauria, baña ez gaiztu naies, baizik sendatu naies. Aizenduzularik doktrina, errazu zeure biotzean: kuidatu beaut, bada, estakidan atzen. Aizeunzulaik konsejua, errazu: Bai egin bear dut, konbeni zaida. Aizen duzulaik erreprehensioa, ezpazaizu tokazen, emozu Jangoikoari graziak. Tokazen bazaizu, errazu: Egia dio, ni emendatuko naiz. Estakizula gertatu murmurazea zeure biotzean predikuain aitzerakoan, au tokazen zaio alakoari, berze gau berze garri atzendurik zeure buruas, trintxante tontoa bekala, zati bat oni, berze bat arri plateretik eman, ta beretako deus geldizen eztuena.

13. Zazpigarren erregla da memorian konserbazea predikazen denaren substantzia berere, zerengatik San Gregoriok dion bekala, arimaren janarioa da Jangoikoaren itza; eta estomagotik janarioa itzulzea bezanbat da memoriatik ustea Jangoikoaren itza. Bada, janarioa estomagoan iduki ez dezakena ilzeko peligro andian dago, jan ezpalu bezain gaizki dago. Oroat diot, Jangoikoaren itza atzenzera usten duenas, bearri batetik sartu ta berzetik atra, oroat ze ezpalu aditu, ta kondenzazio iagotako aditu du. Jardin batera joaten denak, emen arzen du lore bat, an fruita bat, aratago berze gauza bat, ta goardazen du, protxazeko gero egunaren edo urtearen barnean. Gisa berean predikutik atra bear da memorian ia konparazio bat, ia exenplutxo bat, ia doktrina edo konsejuren bat rumiazeko ta pensazeko gero atra ondoan. Ta egin bear da San Juan Krisostomok bere puebloari ematen zion adbertenzia. Zein da au? bazkal ondoan edo afalondoan, zio sanduak, ezarribeausie berze plazer edo postre espirituale bat, zein baita konbersazio sandua. Konta bez senarrak emen erraten diren exenplutxoak bat edo berze, konparazio bat edo berze, itz on bat edo berze; adi bez emasteak, ikas bezate humeek ta nirabeek, ta gisaontan alako etxea izain da eliza txiki bat bekala. Esta, ez arara arrimatuko demonioa, zerengatik aien erdian egonen baita Jangoikoa. Ubi duo, vel tres congregati sunt in nomine meo, in medio eorum sum, dicit Dominus. Gisaontan guziok izain dire predikari ta guzia izain da prediku, ta atrako da akaso fruitu ia. Ebek dire platika onak, eta ez jardukizea, ongi in duela edo gaizki in duela predikariak; ebek dire platika superfluoak. Zerengatik ongi in barin badu, estio deus protxazen zuen errateak, zerengatik Jangoikoa baita ura juzgatu

bear duena, ta bazuetan guri ongi iduri zaiguna, arri iduri zaio gaizki; dibersoak dire alabañere Jangoikoaren ta gizonen juizioak. Gaizki in barin badu, gaistoago da ori konbersazioan erratea, zerengatik ori baita predikariain faltak atrazea, ta murmurazea. Auta zagun ongi errana, ta ezkaizala izan armirmaua bekala, loretik atrazen baitu benenoa, baizik erlea bekala, lore beretik egiten baitu esti gozoa.

14. Erregla eben konforme adizen bada Jangoikoaren itza, onduko dire gaistoak, ta obetuko dire onak. Betozi, bada, maiz ardiak adizera beren arzaiaren boza, ta guziok arima gaizen segizera Jesu Kristoren bandera. Obedi bezate guziek, ta lagunbenazate ezinegotzi ta etxetako buruek, eramaten arimen kargua, zerengatik zer ai naiz bakarrik? Lagun gaizen guziok elkar Jangoikoaren zerbitzuan; ta asi gaizen berla eman zogun belauriko itz firmea Jangoikoari, egiten tugulaik alzinetik fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik, etc.

2. Serm.
ann. 1771

De fine ultimo hominis.
Porró unum est necessarium. Luc.10

1. Joan den egunean erran nue, nola bear den aditu predikua, orai ia asi bear dut predikazen. Eta nondik asiko naiz? Prinzipiotik. Zeren prinsipiotik? Gizonaren prinsipiotik. Zein da gizonaren prinsipioa? Bere kriazioa. Zertako kariatua da gizona? Au bear dugu ikusi egungo predikuan, zertako kariatua izan den gizona. Badut uste, badakitela geienek, zertako kariatuak diren, ta zertako jaio diren; baña askori atzenzen zaiote asko aldis. Posible da gizon bat eta kristio bat atzen daikela gauza gontas? Posible da, fielak, posible da bai, sobra ta erraz ere, ta gertazen dena maiz da. Atzenzen dire anitz, zertako jaio diren, zerengatik ezpaitute pausu bat berere ematen jaio diren itekora, solamente animaleak bekala jaiki, lanera joan, andik itzuli, jan ta edan, lo egin, berriz jaiki, ta ala ingur ingur bizi guzian, ontan balego bekala iteko guzia. Eta zer errain dut bitartean anitz bekatu iten dutenes?

2. Jakin zagan guziek, ezkarela kariatuak ta ezkarela jaio jateko ta edateko, estare lo iteko, estare nolanai laneko ere, estare deskansazeko, ta geldi egoteko, ta deus baño gutiago, bekatu egiteko. Iduri zaio nekazariari, kariatua dela kanpoko lanen egiteko; iduri zaio merkatariari jaio dela salzeko ta erosteko. Iduri zaio ofizialeari, etorri dela mundu ontara bere ofizioaren lanetarako; baña engañazen dire guziok. Jakin bez nekazariak, jakin bez merkatariak, jakin bez ofizialeak, jakin bez mundu guziak. Kariatua da solamente zerbitzazeko Jangoikoa emen, ta gero gozazeko glorian. Bada, Jauna, estu trabajatu bear bakotzak bere ofizioan? Bai, baña ezin berzeas bekala, zenbatenas ori gabe estaiken mantena bizia, bidanabar bekala; ta solo, zerengatik ontan ere zerbitzazen den Jangoikoa. Gizon guzien ofizio prinsipala ta lenbizikoa da zerbitzazea bere Jangoikoa. Berze ofizio goiek dire bidanabar, ta ezinberzeas bekalakoak, desuerte ezi al bagindezake pasa oriek gabe, ezkinduke kasorik egin bear oietas, baizik solo Jangoikoa zerbitzatzetas; baña nola aiek gabe ezin bizi baitaie, ta bizi gabe ezin zerbitza baitaie Jangoikoa, orgatik nezesidades gaude obligaturik bakotxa bere ofizioan trabajazera bizizeko; ta ontan zerbitzazen ere da Jangoikoa. Baña esta gure fin prinsipala izan bear ofizioetan jateko, ta edateko, ta bizia atrazeko, baizik Jangoikoa zerbitzazeko; ta ala gure ofizioa, gure lanak, ta gure bizia ere; solo izan bear dugu medio bat bekala zerbitzazeko Jangoikoa; ta ontara erreduzitu bear dugu guzia. Ala nola Madrila doaien batek, joatekos, jan ta edan bear du, baña esta arren fin prinsipala jatea ta edatea, solo Madrila joatea. Eta jaten du ta edaten du, medio bat baita nezesarioa joateko, zerengatik ezpaitaie joan jan ta edan gabe. Oroat gure fin prinsipala mundu ontan da zerbitzazea Jangoikoa, baña trabajatu bear da, zerengatik ezpaitaie alimentatu trabajatu gabe, esta bizi ere alimentatu gabe, estare Jangoikoa zerbitzatu bizi gabe. Oneki guziareki gure memoria, pensamentu ta intenzio guzia bear da izan zerbitzazean Jangoikoa, ta au bear dugu sinestatu dela gauza soil soilik nezesarioa, ala baitio Kristok berak: Porró unum est necessarium, ta au solo afanazen ta suspirazen dugulaik emanen zaitzugu berze gauzak. Quærite primúm regnum Dei, et justitiam eius, et hæc omnia adjicientur vobis.

3. Ortako beira bedi ezi gauza guziek dutela beren fina, guziak direla zerbaitetako,

guziak gizonarendako, gizona solo Jangoikoarendako. Esta gauzarik debalde mundu ontan; guziak dire gizonari zerbitzazeko, gizona solo Jangoikoa zerbitzazeko. Ikus bedi, bada, nola gauza guziek kunplizen duten bere fina, ta alke bedi gizona ez kunplizeas berea. Ikus bedi nola iruzkia, ilargia ta izarrak dauden zerbitzazen gizona; nola berozen, argizen ta lagunzen duten kontino atertu gabe ala egunas nola gauas konzertu ta orden admirable bateki. Ikus bedi nola datozin euriak, aizeak, elurak ta tenporaleak gizonarendako, segun ta nola konbeni zaion. Ikus bedi nola laur elementuak, sua, aizea, ura ta lurra enplegazen diren gizonaren zerbitzuan, zein bere gisa ta ariora. Ikus bedi nola animale, egaste ta arraiek mantenazen duten gizona. Ikus bedi biziestiren gauzak ere nola enplegazen diren gizonaren zerbitzuan, oianak bere arboleeki, arbolak bere fruitueki, azkenean arriak, burriñak ta metale guziak, ta itz bates mundu guzia, zerengatik guzia in baita zerbitzazeko gizona; eta gizona egin delaik zerbitzazeko solo Jangoikoa, estu zerbitzazen! alke bedi bada, zerengatik gauza guziek obeki kunplizen baitute gizonak baño bere finareki.

4. Bada, gauza guziek gizonari baño obligazio ia dio Jangoikoari gizonak. Ezpadugu berze mertxedeak kontazen ere, aski da egin zigun mertxede gu kriazeas, ta dugun bizia emateas. Zenbat eta zenbat kriatuzuzke, ta estu kriatu? Eta gu kriatu gaitu mereji gabe; ta kriatugintuzkelaik arbole, arri edo berze edozein gauza, kriatu gaitu gizon. Onengatik solo zor diogu Jangoikoari justizias garen guzia. Arbola bat plantazen duenak du deretxo arbola gartara, ta arrek dakarzkien fruituetara. Plantatu gaitu mundu ontan Jangoikoak; nola estiogu ematen Jangoikoari geure bizia ta obra guziak? Jangoikoak eman digu arima; bada, ezkinduke bizi ta ez atsik ere artu bear, ezpada Jangoikoaindako. Jangoikoak eman digu memoria; bada, ezkinduke oroitu bear, baizik Jangoikoas. Jangoikoak eman digu entendamentua; bada, ezkinduke pensatu bear, baizik jangoikoa baitan. Jangoikoak eman digu borondatea; bada, ezkinduke deseatu bear, baizik Jangoikoa. Jangoikoak eman digu biotza; bada, ezkinduke maitatu bear, baizik Jangoikoa. Jangoikoak eman digu gorputza ta gorputzaren mienbro guziak; bada, ezkinduke ia mogitu bear, ezkinduke ia ikusi, aitu, minzatu ta deusere egin bear, baizik solamente Jangoikoaindako. Orai, bada, kontazen badugu egin digun mertxede konserbazeas eman zigun guzia, aurkituko dugu, ezi zenbat instante bizitu garen, berze ainberze benefizio in digula, ta berze ainberze aldis zor garela berari. Eta kontazen badugu in digun mertxede infernutik librazas ta bere odol ta biziareki erredimizeas, noraño ellegazen da gure zorra? Bada zer, kontazen badugu mertxede iten diguna bere gorputz preziosoareki alimentazeas? Infinito, inmenso da zor dioguna, Jangoikoak balio duen bezanbat zor diogu. Ezlizake, bada, milagro guk zerbitzazea Jangoikoa gure gorputz ta arimen potencia ta sentido guzieki.

5. Baña zer gertazen da? Guzieki zerbitzatu bearrean Jangoikoa, guzieki ofendizen dugu. Ofendizen dugu arimareki, ofendizen dugu gorputzareki. Ofendizen dugu arimaren potencia guzies, ta gorputzaren sentido guzies. Ofendizen dugu memorias oroi ze gaistoeki; entendamentuas pensamentu gaistoeki; borondateas naikunde gaistoeki; biotzas amorio ta afizione gaistoeki; begies beiraze gaistoeki; bearries adize gaistoeki: agoas jan ta edan sobraskeoki, ta itz blasfemo, maldiziente, desonesto, murmuraziosko, ta berze asko gisas gaisto izaten direneki; eskues ta oñes obra ta pausu gaistoeki; ta en fin, ofendizen dugu Jangoikoa, berak emantigun gauza guzieki. O, gizonaren esker gabe itsusia! errege batek bestitu ondoan kaballero bat bere arma erreal urre zilarreskeoki, kaballero garrek erregeek emanikako arma gaieki il balez errege bera, nor ezlizake pasmatuko kaballero garren atrebenzias ta eskergabeas? Bada, au berau iten dugu guk Jangoikoareki. Esta

modurik, esta injeniorik arkitu eztugunik ofendizeko Jangoikoa.

6. Posible da ainberze odio izan daikela Jangoikoaren kontra gizonain biotzean? Zer motibo du? Multa bona opera ostendí vobis, propter quod eorum opus me lapidatis? Aizagun zer erraten digun Jangoikoak: Anitz obra on egin diziet, oietaik zeñengatik ofendizen nauzie? Zer erresponda dezakegu, ezpadugu errespondazen, ezi zerengatik sobra ona den gureki, gara dela gu gaisto berareki? Numquid redditur pro bono malum? pagazen dugu ona gaizareki. Bekatu iten dugun aldioro, bota balezki ausnarriak gure kontra, ezkindezake ez ainberze ofendi; baña nola baitago beti ixil ixila, nola beti barkazen baitigu, orgatik ofendizen segizen dugu. Mertxedeetaik, zeñen kasos ia maitatu bear baikinduen, arzen dugu okasio ia ofendizeko. O, erokeria andia! Estugu Jangoikoareki goardazen edozeñeki goardazen dugun legea baita, ezi batek iten badigu mertxede andi bat, estakigu nola agradezitu, biotza ere emaingindioke. Jangoikoareki estugu iten arla, baizik mertxede guzien bortxa ofendizen dugu, ta dakigulaik galzen garela sekulako gisa ortan. Nork galdu nai du bere burua galarasteagatik bere etsaia? Bada guk galdu nai izaten dugu asko aldis agrabiazegatik ez gure etsaia, baizik gure adiskiderik obena! Aizazie zer noaien erratera: Jangoikoa zerbitzazegatik galdu bear baginduke zerua ta erori infernuan, alaere bear ginduke zerbitzatu; baña al rebes da, Jangoikoa zerbitzazegatik dugu zerua, ez zerbitzazegatik infernua; eta autazen da infernua ez naies zerbitzatu arren majestadea. Nola, bada, deitu gaizke kristioak? Nola deitu gaizke ere gizon entendamentudunak? Animaleak obeki portazen dire, dio Espiritu Sanduak. Cognovit bos possessorem suum, et asinus praesepe Domini sui, Israel autém me non cognovit. Idiak ezaunzen du bere nagusia, ta astoak bere jabearen ganbela, ta nere puebloak eznau ni ezaunzen.

7. Bada, zer erreparo izan dezakegu, ez zerbitzazeko Jangoikoa? Akaso esta nagusi ona? Ona da segurki, ta sobra ona, guziek dakiten bekala. Akaso estugu nai zerbitzua ta sujezioa? Baña esta posible sujeziorik gabe mundu ontan izatea. Aizagun zer dion San Bernardok: Sine jugo interim esse non potes homo nimirum natus ad laborem. Etzaudezke, dio, bustarri edo sujeziorik gabe, gizona zarelaik zerbitzazeko ta trabajurako jaioa: Sed grave jugum super filios Adam, utique qui sequuntur eum. Baña bustarri pizua daramate Adanen humeek ura segizen dutenek; non super eos qui Xristum sequuntur, leve est et suave. Ezi Jesu Kristo segizen dutenek, arina ta suabea dute bustarria. Ala erran zue lenago Jesu Kristok berak ere: Jugum meum suave est, et onus meum leve. Nere bustarria edo zerbitzua da suabea, ta nere karga arina. Eta ala aurkituko dugu dela, ongi beirazen badugu. Aisago ta gustosoago da zerbitzazea Jangoikoa, ezi ez demonioa, mundua ta aragia, ez solamente gerokoan, baita mundu ontan ere. Zertas paga daike Jangoikoa zerbitzazen duenak duen gozo sanoa, alegria konstantea, sosegu perfektoa ta bake admirablea bere ariman? sinesta zazie estela gusto ta ongi osorik baizik Jangoikoaren zerbitzuan. Finji dezakete mundukoek alegre daudela ta kontent bere munduko festa, danza, janedan ta dibersioetan, baña engañazen dire, zerengatik alako kontentua esta sanoa, ta fite turbazen da; ez ordea Jangoikoaren zerbitzazaleena. Testigo ainberze errelijioso ta errelijiosa gaste, noble, abrats, honratuak izanzeiskenak, orai baitaude bere erretiroan zeruko iduri batean bekala, penitenzian alegre, ta pobre zan nauten guziareki. Proga zazie zuek ere, ta ikusazie, zerengatik txoil suabea da gure Nausi dibinoa, dio Profeta Errealak, gustate et videte quoniam suavis est Dominus; doatsua arren baitan fundazen duena bere esperanza, beatus vir qui sperat in eo. Eta berze leku batean dio munduko ondasun ta gauza deseazen direnengatik: Ditxosoa deizen dute alako gauzes abastaturik dagon puebloa, baña nik diot, ditxosoa da solamente pueblo gura, zeñek

zerbitzazen baitu Jangoikoa bere nagusia bekala, beatum dixerunt populum, cui haec sunt; beatus populus, cuius est Dominus Deus eius.

8. Iduri zaiote batzueri, Jangoikoa zerbitzazekos, kondenatu bear duela batek bere burua egotera triste, isil eta ilun kalabozo batean bekala; baña esta alakorik, antes bien, nai du Jangoikoak bere zerbitzazaleak dauden alegre. Servite Domino in laetitia. Eta San Pablok erraten digu guzieri: Gaudete in Domino semper, iterum dico, gaudete. Alegrazaite beti jangoikoa baitan, berriz diot, alegrazaite. Benturas estaike alegratu, dibertitu, jan ta edan modu onean, ofenditu gabe Jangoikoa? Bai ziertoki. Niri iduri zaida berze alde, ezi estaikela nior egon alegre ofendizen duelaik Jangoikoa; ta zerbitzazen duelaik arren Majestadea, estagokela baizik alegre; zerengatik ofendizen duena Jangoikoa niork ezpaitu ikusi nai; ta zerbitzazen duena maitazen du Jangoikoak berak, maitazen du Ama Birjinak, maitazeunte aingiruek ta sanduek, ta azkenean munduko obenek ere bai. Zer nai du ia gizonaren biotzak? eska bez, ezi emanen zaio, zerbitzazen badu Jangoikoa... Nai du sosegu, kontentu ta alegria osoa? zerbitza bez Jangoikoa, ta badu. Nai du honra ta estimazioa? zerbitza bez Jangoikoa, ta izain du. Nai du ondasun ta fortuna? zerbitza bez Jangoikoa, ta izaintu oiek ere konbeni zaizkion bezan bates. Alderdi guzietaik dire ditzak ta ondasunak Jangoikoaren zerbitzazaleendako; ta, al rebes, zerbitzazen dutenendako mundua, edo demonioa, edo aragia dire desditzak ta miseriak mundu ontan ta berzean.

9. Eleji zazu, bada, kristioa, nori nauzun zerbitzatu, Jangoikoari edo zeure etsaiari ta bekatuari. Zerbitzatu bear duenak Jangoikoa, bear du aborrezitu bekatua, ezi bekatua iten duena da bekatuaren esklabo, qui facit peccatum, servus est peccati; ta, por konsigiente, estaike izan Jangoikoaren esklabo. Zein nauzie bada nausitako? Bekatariak naiago du bekatua, zerengatik nai duelaik egiten du; ta beras, estu nai Jangoikoa. O, erokeria indigno! Alakoas erran daike Judases erran zuena Jesu Kristok: obe ze, ezpaze jaio alako gizona, zerengatik ezpaita egiteko gauza, zeñetako ere jaio baita. Ta gisa berean guziek obe ginduke ezpagina jaio, ez zerbitzazekos Jangoikoa, zerengatik au sollik baita gure itekoa, au sollik baita gauza nezesarioa; au sollik egiten badugu, eztugu berzerik bear, ta au ezpadugu iten, omnia perdidimus, guzia da galdua, mundua, zerua, gorputza ta arima, grazia ta gloria.

10. Ikusi duzie bada, fielak, ta ikusi dugu zertako jaio garen, baita zerbitzazeko Jangoikoa; ikusi duzie zenbat obligazio dugun ortako; ikusi duzie zein ongi dagokigun oraiko ta geroko berari zerbitzazea; ikusi duzie nola estugun zerbitzazen, ta zein txarkeria itsusia den au. Zer falta da orai, baizik eskazea Jangoikoaren, ta geure buruen amorioagatik zerbitza zagula jaun bat ain ona. Anima gaizen, bada; irri in bez gutas nai badu munduak, etzagula kasorik egin ortas; Jangoikoak eman digun plazo gau enplea zagon ongi, naiz dela trabajuen kostus, izateko deskansu eternoa bizitza sekulakoan. Domine, hic ure, hic seca, hic non parcas, ut in aeternum parcas. Ea zarrak, ezpadioze Jangoikoari eman adinaren lorea, emozie sikiera ondarra ta txirdilak. Ea gasteak, enpleatu ongi gastezutua, ezi lastima da malograzea. Guziok asi gaizen beingoas zerbitzatzen Jangoikoa, goardatus bere mandamentuak, segitus bere Ebanjelioko konsejuak gogotik, ezi biotzak ta obrak naitu Jangoikoak, ez itxureriak ta hipokresiak. Obliga gaizen ortara ta firma zagon obligazio iten dugun au fede, esperanza ta karidadearen aktaeki. Nik sinestazen, etc.

3. Serm.

De Mandatis Domini.

ann. 1771

Custodite leges meas, atque judicia,
quae faciens homo vivet in eis. Levit. 18.

1. Joan den igandean erran gindue jaio garela Jangoikoa zerbitzazeko, ta Jangoikoa zerbitzazea dela beraren mandamentuak goardazea; orai asi bear dugu eben explikazen. Eta beñik pein egun erranen dugu zerbait jeneralki mandamentuen gañean; eldu diren igandetan explikatukotugu bapanaka mandamentuak. Asi gaizen, bada.

2. Len lenbizikorik jakin bear duguna da badirela Jangoikoaren legea ta mandamentuak. Erreinu txipi andi guzietan erregeek dituste beren legeak, ala nola Nafarroan, Kastelan ta berzeetan baitituste; bada, arrazio ia da izan dezkien Errege guzien erregek bere erreinuan, zein baita mundu guzia. Guziok garade beraren soldadoak ta basalloak; bada, ongi gobernazekos ainberze jende, bear zire zenbait lege ta ordenanza. Ezarririk dauzki ebek, ta dire deizen direnak Jangoikoaren legearen amar mandamentuak. Legeak obligazekos, bear da publikatu. Publikatu ze Jangoikoaren lege gau orai ainberze milla urte Sinaiko oianean, ta publikatu ze solemnidade andiareki gisaontan.

3. Israeldarrak zeudenean Sinaiko oianaren ondoan, igan ze Moises, pueblo garren burua, Jangoikoaren mezus oianaskora, non minzazen baizio Jangoikoak; manatu zio prebeniarazi zela puebloa irugarren eguneko. Jautsirik Moisesek eman zio bere puebloari Jangoikoaren mezua. Prebenitu zire, bada, guziak irur egun gaietan, ta bazeude esperazen eguna. Ellegatu ze ta asi zire ortotsak, tenpestadeak ta ausnarriak, zeudelaik lotsarriturik oianain inguruan israeldarrak. Arroitu guzionen ertean paratu ze lañu sugarresko bat oianaskoan, ta andik intimatu zue Jangoikoak boza fuerte bateki bere legea itz ebetan: Ni naiz zure Jangoikoa Israel. Etzazula berze Jangoikorik adoratu. Etzazula juramentu falsurik egin. Santifikazkizu nere jaiak. Honrazkizu zeure Aita ta Amak. Etzazula nior il. Etzazula fornikatu. Etzazula ebatsi. Etzazula falso testimoniorik ta ez gezurrik erran. Etzazula proximoaren bizikidea deseatu. Etzazula arren hazienda kodiziatu. Au da Jangoiko Omnipotenteak orduan publikatu zuen legea, ainberze arroitu, zalaparta ta ortotseki, ezi israeldarrek lotsaturik uste zute an ilen zirela guziak.

4. Zertako ordea ainberze prebenzio, ainberze arroitu, lege gonon publikazean? Zertako? Oroigindeizengatik beti, ta sekula ezkindeizen atzen. Legeak denborareki doazi atzendus ta galdus, bada, etzeien alakorik gertatu lege dibinoareki, publikatu zue ainberzeko solemnidadeareki. Beldur ze nonbait atzenduko zela fite, ta estu nai nioiz ta niolateren atzen gaizen. Orgatik ere manazen ziote Israeldarrerri anitz lekutan bere mandamentuen memoria edo oroitzea. Numeroen 15 kapituloan manazen diote, ezarridezkitela beren bestiduretan señaile edo benda azulbazuk, zein ikusteareki oroiz zeizen Jangoikoaren legeas, ta etzeizen atrebitu bekaturik egitera. Deuteronomioaren 6 kapituloan manazen diote gordezkitela beraren mandamentuak biotzaren erdian, erakutsidezkitela beren humeei, ta pensadezkitela beren etxean daudenean, bidean dabilzanean, idatzarririk ta lo daudenean ere, ta lotu dezkitela beren eskuetan, ta eskribidezkitela beren etheen atarietan. Proverbioen 3 kapituloan ere dio: Nere humea, etzaitela atzendu nere legeas, zerengatik emain dizu bakea ta bizi luzea. Amazazpigarren kapituloan ere dio:

Goardazkizu mandamentuak zeure begien ninia bekala, lozkizu erietan erastuna bekala ta inprimizkizu biotzaren oletan. Berze anitz lekuetan enkargazen du gauza gau berau. Ezta, bada, arrazio atzen gaizen beñ ere Jangoikoaren mandamentues.

5. Lege edo mandamentu ebetan daude enzerraturik birtute guziak ta debekaturik bekatu guziak. Lege gau goardazera gaude obligaturik munduko guziok, espezialki kristiok, zerengatik egonik guziok sujeto Jangoikoari, kristioei berritu zigu Kristok mandamentuen memoria etorri zelaik mundura ez soltazera, baizik perfekzionazera lege gau. Onen goardazean dago gure iteko guzia mundu gontan. Deum time, et mandata ejus observa, hoc est enim omnis homo. Lege gau goardazen badugu, egin dugu bear den guzia; ta ezpadugu goardazen, deus ezkara ai, eginik ere gañarako guzia. Esta berze biderik zerurako; esta birtuterik, esta ontasunik batere, non ta esten goardazen lege gau. Penitentzia, baru ta errezu, ta berze alako gauzek lagunzen dute goardazeko lege gau; baña au ezpaliz goardazen, banoan lirazke aiek. Etorri garenas geros mandu gontara, garenas geros gizon gorputz ta arimadunak, gure gain dugu lege gau; onen konforme progatuko gaitu Jangoikoak, nola bizi garen neurturik daukagun emen egoteko plazoan; ta atra ondoan emendik, lege gonon neurrira examinatuko gaitu, ta juzgatuko gaitu, ta sentenziatuko gaitu Jangoikoak; ta segun izan den gure bizia konforme edo deskonforme lege goneki, ala emanen zaigu premio edo kastigo sekulakoa. Lege gonon kontra estu balio kostunbreak. Munduko legeetan zenbait aldis exkusazen gara, zerengatik kostunbrea baita kontrarioa; Jangoikoaren legean esta alakorik; esta zer erran, kostunbrea da kontra. Manazen du Jangoikoak estaiela juramentu banorik egin? Bada, esta zer erran, iteko da kostunbre ia, berzeek iten dute, guk ere in dezakegu: Estu balio. Oroat diot berze mandamentues; estela balioso kostunbrerik aien kontra, naiz direla berregun milla urtetakoak, ezkaitute eskusazen; dire gaistoak ta indignoak. Ezaigu galdeinen zer iten zuten berzeek edo zer kostunbre den, solo zer egin dugun ta zer in bear ginduen Jangoikoaren legearen konforme. Ontan ez dezake dispensatu erregek, estare Aita Sanduak Jangoiko beraren komisorik gabe. Orra lege dibino aren mandamentuen nezesidadea ta kondizioa.

6. Baña lege gau, zerurako bide bakar gau iduriturik ta izanik ere aragiaindako latz ta ertxi, Jangoikoaren amorioareki ta graziareki kunpli daike, pasa daike tropezurik gabe. Estu Jangoikoak manazen inposiblerik; posible da ta suabe da bustarri gau; arin da karga gau Jangoikoarenganako amorioaren olioaren dutenendako, beraren graziareki trabajazen dutenendako. Guzia dezaket, zio San Pablok, Jangoiko lagunzendiranareki bateo, ta Dabidi ere orgatik zizaizkio zabal ta aisa Jangoikoaren mandamentuak erabilzeko eben bidetik laisterka ere. Latum mandatum tuum nimis. Viam mandatorum tuorum cucurri, cum dilatasti cor meum. Benzait bekatu mortalerik egin gabe goarda daizke mandamentuak, anitzek goardazentusten bekala. Zer? Estaike bizi egin gabe juramentu banorik? Zenbatek estute egiten? Jai egunean zer gauza andia da meza bat enzutea, arimaren itekoak egitea, gorputz lanataik deskansazea! Antes bien, aisago da au trabajazea baño. Bizio puros, bada, auxten da mandamentu gau. Bada, Aitetamak ta superioreak honrazea kunpli daike, benzait gauza larrietan. Bada nior ez ilzea, niori gaizik ez deseazea posible den gauza da. Seigarren mandamentuak dirudi latzago gure aragiaren inklinazio gaistoaren kasos, baña goarda daikena da. Ikusten da anitz sazerdote, anitz mutil garbi, anitz neskaxa honesta mantenazen direnak kastidadean; ta, en fin, gure Jangoikoak ezarri du matrimonioaren probidencia, naiduenaindako estado gau, zeintan bizi daien exzesos ta bearestenkeriaik gabe. Zazpigarrena aisago baizik esta; zorzigarrenak du difikultade ia,

baña mia desenfrenaturik utzi nai dutenendako; ezarri bekio freno, ta goarda daike. En fin, mandamentu guziak goarda daizke, izanik juizio ta konsiderazio, maitazen delaik Jangoikoa, eskazenzaikolaik bere grazia, ezarzen delaik diljenzia prudentea, ta beirazen delaik esperazen digun premioa, goardazen baitugu, ta meatxazen zaigun ta emanen zaigun kastigoa, ezpaitugu goardazen. Goazen onen pensazera.

7. Munduko legeak goardadaizengatik, ezarzentuste erregeek penak ta ematentute premioak. Baitu Jangoikoak ere mundu ontan ta berzean premio andiak goardazentutenendako bere legearen mandamentuak, ta kastigo arrigarriak goardazen estutenendako. Goardazen baituzu nere mandamentuak, dio Lebitikoaren 26 kapituloan, emanentiziet euriak bere denboretan, ta lurreko fruituak abasto; baña ezpaituzie goardazen, nik ere kastigatukozaistet pena jenero guzieki. Deuteronomioaren 28 kapituloan erraten du: Ezarzen diziet zeuren alzinean bedeizioa ta maldizioa; bedeizioa goardazen barin bauzie nere legea; maldizioa goardazenezpauzie; ta berla asten da kontazen bedeizioak, ta dio: Goardazen baduzie nere legea, bedeikatuak izanen zarate errian, bedeikatuak kanpoan, bedeikatuak zuen humeak, bedeikatuak zuen lurreko fruituak, bedeikatuak zuen haziendak, zuen idiak, zuen mandoak, zuen ardiak, zuen graneroak, ta zuen gauza guziak, ta berze anitz bedeizio; baña ezparin baduzie goardazen, etorko dire zuen gain, ta lotukozaizkizie maldizio ebek guziok; madarikatuak izanen zarate etxean ta kanpoan, madarikatuak zuen humeak, madarikatuak zuen haziendak, zuen graneroak, zuen ondasunak ta zuen jenero guziak; igorriko dut zuen gain gosea ta nezesidadea, ta maldizioa zuen obra guzietara; añaditukotiziet pesteak, eritasunak, otzak, beroak ta desdixak, konsumitu zaisten artaño. Zuen gañean dagon zerua izanen da bronzeskoa bekala, zerengatik euri tanta bat ere ezpaitu soltatuko. Zuen oñen pean dagon lurra burriñaskoa bekala sekuraren utses. Ebek ta berze berregun milla maldizio meatxazentu kapitulo artan berain legea goardazenestuenaren kontra. Arri dezake leizeak solamente.

8. Esta bada zer galdegin zertan dagon ainberze urte gaisto, ainberze miseria, ainberze kalamidade, eritasun, gose ta pobreza izatea; klaro da ezi, zerengatik ezpaitugu goardazen Jangoikoaren mandamentuak. Temas bekala gabilza Jangoikoa ofendizen, arren mandamentuak despreziazen, bada, on dakigula, orra zer irabaziak atrazen tugun. Zer? Biziak ta kostunbreak estire onzen, ta nai dugu urteak mejora daizen? Esta posible ones. (Itz emanik dauka Jangoikoak, ezi ezpadugu obedizen, madarikatu ta kastigatuko gaituela; estu faltako bere itzera. Estuzie zer esperatu urteok meyoratuko direla, ezpagara geurok meyorazen Jangoikoa miserikordioso bezain justo da, miserikordian bezain zuzen da justizian. Ea, urteok gaistatu dire; gariak, ardoak, fruituak txurtu dire; gutitu dire orgatik bekatuak? Esta ezaun. Bada, estugu zer esperatu obeak eldu diren urteak, ezpagara geurok obeak. Egin daizke prozesioak, soña daizke triste ezkilak, atra daizke mezak, forma daizke errogatibak, ezarri daizke belauriko Jangoikoaren aurrean sazerdoteak, enpeña daizke sanduak, lutos besti daizke aingiruak, otoi zindezoke bere seme Jangoikoari Ama Birjinak; baldin, ezpadire goardazen mandamentuak, esta palakatuko Jangoikoa. Au da prozesio, errogatiba ta enpeñurik obrena, mandamentuen goardazea. Au iten bada, ikusko dugu zein fite palakazen den Jangoikoa, onzen diren urteak, suplituko diren graneroak, añadituko diren haziendak, etorkozaizkigun tropaka bedeizioak ta felizidadeak, zeren ala itz emanik baitauka Jangoikoak).

9. Baña estire mundu ontan akabazen mandamentuen goardazaleen ditzak ta goardazen estutenen desditzak; segizen dute berze munduraño. Esta zerua agotzes betezeko, errateunten bekala konfianza bano bat dutenek; baña, esta infernua ere agotzes

betezeko; biak dire gizonendako. Gizonendako da zerua, baña goardazen tustelarik mandamentuak; gizonendako ere da infernua, baña goardazen estutenendako. Orgatik bataiazerakoan erran zigu Jangoikoaren sazerdoteak: Si vis ad vitam ingredi, serva mandata, nai bauzu sartu bizitzan, goardazkizu mandamentuak. Orgatik dio Dabidek: Maledicti qui declinant â mandatis tuis. Madarikatuak goardazenestutenak mandamentuak. Gizonendako da zerua, baña estire an sartuko erranes: Jauna, Jauna, deus in gabe, baizik Jangoikoaren borondatea kunplizen dutenak. Non omnis qui dicit mihi Domine Domine intrabit in regnum coelorum; sed qui facit voluntatem Patris mei. Gizonendako da infernua, baña esta ararako goardazentuen mandamentuak. Qui facit haec, non morebitur (sic) in aeternum. Gizonendako da zerua, baña estireellegatuko arara, mandamentuen bide ertxi ta ajustatutik joaten diren gutiak baizik. Arcta est via quae ducit ad vitam, et pauci sunt qui inveniunt eam. Gizonendako da infernua, ta bide zabaletik joaten diren guziendako. Lata et spatiosa via est, quae ducit ad perditionem, et multi sunt qui intrant per eam.

10. Nora nauzie bada joan? Infernura? Ez. Zerura? Bai, bada, haec est via, ambulate in ea, et non declinetis ad dexteram, nec ad sinistram. Au da bidea erakutsi dutena; zoaste emendik zuzen, makurtu gabe ez ezker ta ez eskui. Bide gontaik joan ze Jesu Kristo, ontaik Ama Birjina, ontaik sandu guziak; segi segi emendik zeruko atarietaraño. Esta berze biderik ararako, au da bide erreala; orai nola guti pasazen baitire, latzago dirudi infernukoak baño; baña segi gutieki, akonpañatukozaiste zeuren aingiruek, argituko dizie zeuren Jangoikoak; tropezazen bazarate noizean noiz, in zazie berla jaikizera, emain dizie eskua Ama Birjinak, ta ermakozaste besotik sanduek. Alako lagunzaleeki zer beldur izandezakezie? Asizaiste goardatus mandamentuak joaten aldapagora zeuren inklinazioen kontra; lenbizian dirudi latz, baña gero suabezen da. Jangoikoaren amorio ta beldurtasunaren egaleki ellegatuko zarate zerura; idikiko dizie ataria San Pedrok; errezebitukozaiste aingiruek; ongietorria emain dizie sanduek, ta ermakozaste guzien erdian alegre Jangoikoaren aurrera; admititukozaiste Jangoikoak ta errain dizie bakotxai: Euge serve bone et fidelis, guia super pauca fuisti fidelis, suprâ multas te constituam intra in gaudium Domini tui. O, nere sierbo ona ta fiela, zeren gutietan izan baizara fiel anitzen gañean paratuko zaitut, sar zaite zure Jaunaren gozoan. Animo bada; emagun prinzipio mandamentuen bidetik, goardazkigun mandamentuak, ezpaitugu goardatu orai arteo, emendik alzina. Zertan detenizen gara? Berantetsirik dago Jangoikoa. Goazen bada berla, ta belaurikaturik erran zogun, berant barin bada ere, orai asi nai dugu kunplizen orren lege sandua, gure Jangoikoa. Ematen dugu itza, ta firmazen dugu fede esperanza ta karidadearen aktaeki. Nik sinestazen dut, etc., etc.

Serm. 4.

De Gratia Sanctificante

Quicumque Spiritu Dei aguntur, hi sunt filii.

Dei. Ad Rom. 8. Ann. 1771.

1. Joan den igandean erran gindue zerbait mandamentuen gaiñean, ta ofrezitu gindue explikazea bat-banaka mandamentuak, baña explikazen asi baño len, iduri zaida deklarazea mandamentuen goardazean dugun ondasuna ta ez goardazean iten dugun gaiza. Goardazean dugun ondasuna da Jangoikoaren grazia santifikantea; ez goardazean iten dugun gaiza da bekatua. Onen gañean gero; egun predikatu bear dugu Jangoikoaren graziaren gaiñean; au digula grazia guzien emanzeak, zein gabe deus ezpaitezakegu, ta zeñaki guzia baitezakegu, sine me nihil potestis facere. Omnia possum in eo, qui me confortat. Asi gaizen.

2. Zer da grazia? Grazia da obra on, irabazi ta merejimentu guzien prinzipioa ta kausa, zerengatik grazia gabe deus estaike mereji. Grazia da arimaren osasuna ta bizia, zerengatik ura gabe ila baitatza gure arima. Grazia da arimaren urresko bestidura ta gala, zerengatik ura gabe itsusia baita eta molde gaiza gure arima. Grazia da zeruko perla ta diamante ederra, zeñek adornazen ta ederzen baitu gure arima. Grazia da gure arimaren iruzki ta argitasun flamantea, zein gabe ilunbetan baitago. Grazia da salbatu bear direnen marka ta señaleara, zerengatik grazia gabe nior, graziareki guziak admitituak baitire zeruan. Grazia da zerurako pasaporte Jangoikoak berak firmatua, zeñeki doaienai niork ezpaitezoke debekatu entrada. Grazia da zeruko ondasun guzien gilza, zerengatik grazian dagonak baitauzki bere eskura ango preziosidadeak. Grazia da esposo dibinoaren arra edo erastuna, zeñeki dagon arima, baita Jangoikoaren esposa. Grazia da zeru guziak adiña balio duena. Grazia da Jangoikoareki amistanza edo adiskidetasuna, zerengatik grazian dagona baita errealki Jangoikoaren adiskide, ala nola erregeren grazian dagona deizen baita erregeren adiskide. Grazia da pribilejio guzien pribilejioa, anditasun, ditxa; ta gauza on guzien korona, zentroa ta konpendioa. Baña explikazeko grazia bere esenzias, da izate dibino bat iten baitu gizona Jangoikoaren seme ta zeruko heredero. Orai graziaren balioa galdeiten bazaida, diot estakitela; serafin ta kerubinek ere estute explikatuko den bezanbat; solamente entendatu ta explika dezake Jangoikoak berak beraren balio inmensoa.

3. Juntabeites munduko preziosidade guziak, Indietan sarzen diren perla, diamante, urre, zilar guziak, erregeen palazioetan arkizen diren grandeza ta edertasun guziak. Añadibeites oriei zeruan diren iruzki, ilargi, izar ta gañarako esplendore guziak, ta en fin, pensa daizken ta estaizken gauza guziak Jangoikoaren pean; oriek guziek junto estute deus balio Jangoikoaren graziaren aldean. Konparazen badire graziareki dire arren aldean, area edo loi piska bat bekala diamante baten aldean, krisallu baten argia bekala iruzkiaren aldean, ur tanta bat bekala itsaso guziaren aldean, ta en fin, lurra bekala zeruaren aldean. Esta gauza preziosoagokorik, estare gustosoagokorik, estare argiagokorik, estare ederrago, obeago ta amableagokorik, Jangoikoaren grazia baño. Zer bilazen duzie Adanen humeak, sufrizentuzielarik trabajuak, otzak ta beroak, isurzentuzielarik izerdiak, igatentuzielarik oianak, pasazentuzielarik itsasoak, minazentuzielarik infernuraño lurra ta peñak? Billazentuzie ondasunak? Ondasunik obreena da Jangoikoaren grazia. Billazentuzie gustoak? Gustorik gozoena da Jangoikoaren grazia. Billazentuzie honoreak?

Honore andiena da Jangoikoaren grazia; ta onen erdetxteko, estugu ixuri bear izerdirik, ez igan bear oianik, estare pasatu bear itsasorik. Geuren barrenean aurki dezakegu nai badugu gogotik Jangoikoaren grazia.

4. Jangoikoaren grazia erran dugu dela Jangoikoaren amistanza; Jangoikoaren grazian daudenak direla Jangoikoaren adiskideak, humeak ta zeruko herederoak; konsiderazkigun, bada, graziaren pribilegioebek berere nolapait, ia ke ta estaizken entendatu ta explikatu dituen guziak. O, gauza arrigarria! Posible da sines izan daikela gizon bat Jangoikoaren adiskidea ta humea? Nor da Jangoikoa ta nor da gizona? Gizona da loi puska bat orai duen figuran moldatua. Jangoikoa espirtu purisimo bat gauza guzien prinzipioa ta fina, zeruaren ta lurraren nausia, Jauna ta Jabea, aingiru ta potestade guzien erregea, ta en fin, diren ta estiren gizon, animale, arrai, egaste ta gauza guzien gobernazalea. Ta alako Jaun baten adiskidea ta humea in daikela gizona nai delaik? Esta dudarik, fedesko gauza da, dio San Pablok berak: Quicumque Spiritu Dei aguntur, hi sunt filii Dei. Ta ez solamente Aita Sanduak, obispoak, erregeak ta gizon andiak egin daizke Jangoikoaren adiskide ta hume, baitaere nekazari ta ikazgin pobreenak ere. Videte qualem charitatem dedit nobis Pater, ut filii Dei nominemur, et simus. Ikusazie, dio San Juan Ebanjelariak, zer mertxede iten digun Jangoikoak, deizean gu ta izatean beraren humeak!

5. Pasma zaite biotz humanoa, ta emazkiozu Jangoikoari ainberzeko mertxedeagatik eskerrak; erran zozu Dabideki: Domine, quid est homo quod memor es eius, aut filius hominis, quoniam visitas eum? Jauna, nor da gizona, zeren artas oroizen baizara edo gizonaren humea, zeren artas kaso iten baituzu, ta ainberze kaso? Aingiruak admiti dezkie Jangoikoak bere amistanzan, gauza andia da, baña gizona admitizea gauza arrigarria da. Zer du ikusteko aingiruareki gizonak? Esta akaso aingirua baño apalago gizona? Bai. Minuisti eum paulo minus ab angelis. Baña alare estio zer inbiatu aingiruari gizonak. Aingiruak bezain ongi izan daike Jangoikoaren adiskide ta hume; ta artako aingiruak bezanbat nai gaitu gizonok Jangoikoak, ia ezpada ere; errain bezate barkazioreki aingiruek, benturas artu zue Jangoikoak aien naturaleza edo egin ze noizbait aingiru idukizeagatik aiek bere adiskidetako? Ez, bada, aiek baño ia dugu gizonak, guregatik egin ze gizon ta artu zue gure naturaleza Jangoikoak, bere humeak izangindeizengatik, propter nos homines descendit de coelis, et incarnatus est. Beras, ia nai gaitu aingiruak baño gizonok Jangoikoak bere adiskidetako? Benzait ia in digu gizonak, aiei baño. Ikusazie, bada, zein sines nai gaituen gizonok Jangoikoak bere adiskide ta humetako.

6. Eta guk estugu admititu nai ainberzeko dignidade ta mertxede, Jangoikoagatik ezipaliz ere, sikiera geurengatik? Eskaizela izan ain desagradezituak ta tontoak geure aldera. Trabaja zagon alguzia, erdetxteagatik Jangoikoaren grazia. Mandamentuak goardatus erdexten da; bada, goardazkigun; estigu gauza andia eskazen Jangoikoak ain premio andiaindako. Iago iten dute mundukoek errege baten edo Aita sandu baten grazia erdexteagatik. Zenbat enpeñu ta medio ezarzen dire ortako? Afanaturik dabilza sufritus otzak ta beroak, isuris izerdiak ta anitzek bere odola ere, emateagatik gusto ta erregeren grazian parazeagatik. Eta posible da estugula egin bear ainberze Jangoikoaren graziagatik? Etzaigu manazen goazela gure etsaien ezipata ta lanzen erdira, ta gal dezagula bizia, solo goardazkigula Jangoikoaren mandamentuak ezipaitire anitz latzak ta gogorak; ta ebek sikiera estugula goardatuko Jangoikoaren graziagatik, iten dutelaik aiek ainberze lurreko errege baten amistanzagatik? Eta zer ikusteko du lurreko errege batek errege guzien Erregeren aldean? Errege Españakoaren amistanzak edo Jangoikoaren amistanzak balio du ia? Bada, nola, erregek konbidatu ta errogatu gabe nai dugu izan ta trabajazen dugu

izateagatik arren adiskide, eta konbidazen ta errogazen gaituelaik Jangoikoak, estugu izan nai beraren adiskide fortunosoak?

7. Ia ke ta asi garen errege Españakoaren konparazioareki, nai dut segitu konparazioa, albadezazket konbenzitu entendamentuak. Errege Españakoak dei balez, konbida balez, mana balez ta erroga balez ikazgin pobreto bat zoeiela berain palaziora, jarri zeila berain maian, ta izan zeila berain humea ta adiskidea, nola ukazezoke gauza gau ikazgin garrek erregeri? Bada au ezela aski, utzi balezki erregek bere bestidura errealak, ta disfrazaturik bestimenta zar-zar bazueki balidoeie ikazginarren etxolara, ta nigarres ta belaurikaturik eskabalezo ikazginarri, inzezola gusto bere seme bekala etorzeas bere palaziora, bestituko zuela urre zilarres, ta inen zuela bere erreñuaren heredero, nor ezlizake pasmatuko ainberze amorios; eta nola izan bear zue biotzik ikazginarrek ukazeko erregeri eskazen ziona? Iago, errege Españakoak ikusirik au guziau ezela aski ikazginarren erreduzizeko, ar balez azote bat bere eskuan, ta zatika balez bere korputza, ta isuri balez bere odol erreala gizon arren alzinean konbertitu naies, nork ez luke erranen amorios zoraturik zegola errege? Eta baldin ikazginura ezpaze konbertizen, nor etze asarratuko arren kontra? Nork estio erranen, gizon esker gabe, entendamentu ta biotzik estukena, estu sobra mertxede egiten erregek admitizen bere grazian? Ezuke eurorrek alzinetu bear indar guzieki pretendizera? Ta orai ainberzeko extremoeki eskazendikelarik, bauk aurpegi ta biotzik, ukazeko? Ezuke mereji edozein kastigo?

8. Gutibana, fielak; ezkaizala asarratu ainberze ikazginarren kontra; itzul gaizen geurengana, ura baño gaistoagokoak gara gu. Jangoiko andiak deizen gaitu, manazen gaitu ta errogazen ere gaitu, inzogula gusto berain adiskide ta hume izateas, dion bekala San Krisostomok: Mirandum! Inhortatur, et obsecrat Deus mortalem, obsecrat Deus lutum, obsecrat creator creaturam, obsecrat Dominus servum. Jangoikoak errogazen dio mortalari, loia den bati, Kriadoreak kriaturari, Nausiak bere esklaboari; ikus bedi ia den errege Españakoak ikazgin bati eskazea edo Jangoikoak guri, eta ia den arren adiskide edo Jangoikoarena izatea; bada, alaere ukazen diogu Jangoikoari petizio gau. Disfrazatu ze Jangoikoa ta bestitu ze gure naturalezaren bestidura pobreareki, jautsi ze munduko etxola gontara zeruko palaziotik, ezarri zizaigu belauriko ta nigarres Judasen oñetan, artu zue gero ainberze milla azote ta tormentu, gu erreduzizeagatik bere seme izatera, ta bere erreñuko errege; ta ezkindio obeditu. Iago iten du Jangoikoak. Injeniazan du nola sartu gure biotzetara ogiaren ta ardoaren idurian, unizeagatik gu berareki. Nork ikusi du ainberze amorio? Estu iduri zoraturik dagola gure amorios Jangoikoa. Eta logratu du pretensioa? Egin gara berain aiskide firmeak? Estugu, antes bien, despreziatu berain amistanza ta zeruko herenzia, ta elejitu Demonioaren amistanza ta infernua?

9. Ezkaizela, bada, admiratu ia ikazginarren txarkerias, txarrago gara gu; guk obeki mereji ginduke edozein kastigo. Etzizaizkigu mertxedeak sobrazen, admitizean gu Jangoikoak, eskatu gabe ere? Guk ezkindio, antes bien, eskatu bear mila modus admiti gaizan? Nori dagokio berain aiskide gu izatean, Jangoikoari edo guri? Estago Jangoikoa ondasunes beterik adiskidees, aingirues ta sandues inguraturik? Ez dezazke kriatu millaka naituen guziak? Bai, bada, zer bear izan dezake gutas? Deus ere. Gu gara, gu sines arren bearrean. Guri dagokigu beraiki ongi etorzean. Zenbat dagokigun bear ze explikatu, baña esta denborarik. Solamente diot, mundu ontako ta berzeko ondasun guziak tugula Jangoikoaren grazian egoteas. Jangoikoa duenari bere baitan, zer falta dakioke? Jangoikoaren adiskide denaren kontra, nor atrebituko da? Si Deus pro nobis, quis contra nos? Au baita aiskide firmea ta bear bekalakoa. Munduko aiskide guziek ezipagaituste

usten bizi garen bitartean, utziko gaitute benzait, gu edo aiek il zen garenean, nai baute ezpaute, nai badugu, ezpadugu. Jangoikoak solo ezkaitu utziko ez bizian ta ez ilzean, berain adiskideak bagara; ta espezialki asistituko digu ilzerakoan, noiz ta ia bear baitugu.

10. Obeki entendazeko Jangoikoaren grazian egotearen inportazioa, konsidera bez bakotxak bere burua tranze gartan goazean ezin mogitus gorputza, ezin erdetxis atsa, turbaturik potenziak, mortaldurik pulsoa, penetan arima; gora beirazen badu, ikusten du Jangoikoaren justizia seberoa; bera beirazen badu, idikirik infernua; ezkerreko aldean esperazen ta tentazen demonioak, eskuiekoan bere aingirua, alzinean urbil ia kontu ertxia; gibelean bere bizi guzia pasatu dena. Zer inen du orduan tristeak? Medikuek ez dezoke luzatu bizia, etxekoek nigarres pronostikazen diote eriozea, aiskideek silenzioareki ematen diote despedida, berzeek prebenizen dute mortaja ta atauta, bera dago esperazen sekulako zerua edo infernua, sazerdoteak notifikazen dio emendik joatea, profeciscere anima xptiana de hoc mundo. Nora errekurrituko du miserableak? Baldin ezpada bizi Jangoikoaren grazian; ezpadu au, niora, niora; munduko adiskideak akabatu dire, ijiji ajajak pasatu dire, diruek baliazenestute, munduko gauzek ezin protxa dezakete; sanduek ezaundu naiestute; Ama Birjinak bere etsaitako dauka Jangoikoaren etsai dena; Jangoikoak aborrezizen du, zeren despreziazen duen berain amistanza ta grazia. Ikusazie zer desdixta! Zenbat obe da izatea Jangoikoa adiskide, zeñek, guziek faltaturik, estigu faltatuko, au baita adiskide ona. Asenta zagun, bada, jaun oneki amistanza sineskoa, ta ikusko dugu zein ongi biziko garen, ta zein aisa ilen garen berain eskuetan, ellegazen delaik ordua; bere tribunalean ere izain digu piedade. Nork ez luke nai izan adiskide juzgatu bear duen Jueza? Juzgatu bear gaitu Jangoikoak; iragazi zogun borondatea; bizi gaizen berain grazian; egin zagun guzietan berain gustoa. Bai, Jauna, bai, nai dugu; baña au da lastima, ezi orai nai duguna, berla estugu nai; deus estugu balio orren grazia gabe, bigu au, Jauna, abasto; oneki ofrezizen dugu bizitzea orren manura, ta galzea lenik bizia ezi ez ofenditu orren Majestadea, ta sines dugulako fedeetan diogu biotzes guziek: Nik sinestazen dut zure baitan, etc., etc.

Serm. 5.

De peccato, ut contra Deum.

ann. 1771

Nullus est qui agat paenitentiam

super peccato suo dicens, quid feci? Jerem. 8.

1. Alzineko predikuan erran gindue grazia dela Jangoikoareki amistanza, egun errain dugu bekatua baita Jangoikoaren desgrazia edo etsaitasuna. Zertan dago, Jaunak, ezi, delarik bekatua gaiz guzien gaiz andiena, edo obeki errateko, gaiz solla, alaere gaiz iduri guziei beldur ia izatea, bekatuari baño? ikusten dugu nola eskapazen diren suge edo serpientebatengandik, nola beldur diren eritasunas, pobrezas ta eriozeas, ta gutiagokoes ere, armirmau txar bates ere; ta estugu ikusten eskapazen direla arla bekatutik, zein baita ebek guziok baño gaistoagokoa. Zertan dago au? Espiritu Sanduak dio dagola konsiderazio faltan. Quia nullus est qui recogitet corde; zerengatik ezpaitu konsiderazen bekatariak bekatuan; zerengatik ezpaitu erraten biotzetik, nik zer in dut? Nullus est qui paenitentiam agat super peccato suo dicens, quid feci? Ea bada, asi gaizen konsiderazen zer den bekatua; errejistra zagun ongi bekatuaren barrendegi itsusia. Zer da bekatua? Da egitea, edo erratea edo pensazea gauza bat Jangoikoaren legearen kontra, delaik bekatu mortala materia grabean, delaik beniala materia lebean, edo adbertenzia edo konsentimentu perfektoa gabe. Orai dardukat bekatu mortalas materia grabean, ta adbertenzia ta konsentimentu osoareki iten denas. Zer iten duzu bekataria, iten duzunean bekatua? Anitz gauza gaisto Jangoikoaren kontra ta zeure kontra. Egungoan solamente errain dugu bekatuas zenbatenas den Jangoikoaren kontra.

2. Beñik bein bekatu iten duzunean, despreziazen ta desobedizen duzu Jangoikoaren legea ta manua. Manazen du Jangoikoak bere legean ezazula juramentu banorik egin, goardazkizula jaiak, honrazkizula aita eta amak, ezazula nior il, ezazula fornikatu, ez ebatsi, ez murmuratu, etc. Ta zuk kasorik iten estuzula Jangoikoaren manuas edo iten duzu juramentu bano, edo fornikazen, edo murmurazen, edo berze gauza debekaturen bat iten duzu, etc. O atrebimentu horroroso, ongi pensazen bada! Gizon txar miserablea atrebi daikela desobedizera Jangoiko omnipotentearen manua! Zenbat erreparoz ezarzen dute gizonak, estaizengatik despreziatu beren manuak? manatu zue Saulek ezezala niork bokadorik artu iragazi arteo batalla bat; eta zerengatik bere seme Jonatasek aitua etzuenak manu gura artu zuen zaro baten puntas ezti puska bat, ta erman zuen agora, jakin orduko Saul bere Aitak iten du juramentu, edeki bear diola bizia. Baña estugu zer ain urruti joan; zeurorrek manazen bauzu gauza bat etxean, ta ezpadu iten zure humeak edo nirabeak, kulparik ezpadu ere, nola alborotazen, nola asarrazen zara? Bada, culpa barin badu zer? Orduan zure oiuk ta espantuak! Eta zu atrebizen zara Jangoiko andiaren manua despreziagera! Manazendizularik Jangoikoak gauza bat, ta demonioak edo zure pasioneak berze bat, zuk estuzu iten kasorik Jangoikoas, ta iten duzu kaso demonioas edo zeure pasioneas. Paraturik zure borondatearen balanzan Jangoikoa ta zure etsaia, ia estimazen duzu zure etsaia, ezi ez Jangoikoa. Jangoikoak erraten bekala dizu: Ikusazu, konteni zaite, ezazula in gauzagoi; ta zuk alare iten duzu, ta oroat da nola erran bazindez, zer Jangoiko ta Jangoiko alde, fuera Jangoikoaren legea, nik in beaut; oroat nola ezarririk zure alzinean Jangoikoa, onen gañetik pasabazindeiz itera, zerengatik oñen pean ezarzen du Jangoikoa

despreziazen duenak beraren legea, dio Krisostomo andiak. Zer atrebimentua iduri zaizu au?

3. Erran zadazu, bekataria, nor zara zu, atrebizen baizara despreziazera Jangoikoaren borondatea, kunplizeagatik zeure tirria? Nor zara zu, ukazenbaitiozu Jangoiko andiari obediencia ta sujezioa? Estakizu ezi orai zenbait urte ezinala deus, ta orai zarela errauts piska bat, ta fite arren ta mormoten janarioa? Estakizu zarela miseria guzien sujeta, ezurres ta aragisko estatua bat, zikinkerias beterikako zaku bat bekala? Ta alaere nai duzu bizi suzejorik gabe? Ta alaere estuzu nai obeditu Jangoikoa? Ta alaere estuzu nai sujetatu Jangoikoaren legera zure gustoa, baizik zure gustora Jangoikoaren legea? Bada, au iten duzu, bekatu iten duzunean.

4. Zer ia? Bekatu iten duzulaik, tratazen duzu Jangoikoa zure etsaia bekala, ta iten diozu gerra. Nori? Jangoiko omnipotenteari, zeruaren ta lurraren Jaunari, zure mertxedegille infinitoki onari. Ah, konsidera bazindez ongi gauza gau! Edekazu bada begien estalkia, ta beira zazu ongi okasioan. Atra zire kanpañara Glauko ta Diomedes bata berzearen kontra; prestatuzituste armak, estalizuste morrioneeki buruak ta aurpegiak, artuzuste ezkerreko eskuetan eskudoak, eskuiekoetan ezpatak, ta zoezi ia ematera golpeak. Orduan detenitu ze Diomedes, ken duzue bere aurpegiaren estalkia, ta erran zio kontrarioari: Esta arrazio asi naien peleazen jakin gabe noreki, ager zazu aurpegia, ta erran zadazu nor zaren. Agertu zue orduan Glaukok bere aurpegia, erran zio bere izena, bere sortuerria, ta bere guratsoak. Aitu zuelaik Diomedesek sartu zue lurrean ezpata, ta erran zue, esta posible ni zure kontra peleazea, egon naizelarik ainberze aldis, ta jan ta edan dutelaik zure etxean, nola izan beaut eskurik, zu ofendizeko? Orduan besarkatu zire biak, ta erregalatu zire elkar. Aitu duzu, kristioa? Bada ikasazu ongi lekzioa. Noren kontra zoaz bekatu iterakoan; ezoazela itsu itsua, beira zazu nori iten diozun gerra; deteni zaite guti bat, ta erran zazu, zer noaie egitera? Ni Jangoikoaren kontra? Nere Aita, nere Kriadore ta Erredenptorearen kontra? Estut eskurik ortako. Nik ofenditu nere Jauna, nere nausia, nere mantenazalea, ta nere ongigille infinito? Ez alakorik, ez inporta balez mundu guzia ere.

5. Au konsideratu bear zinduke, bekataria, bekatu iterakoan; baña estuzu konsiderazen, ta orgatik iten duzu bekatua ta Jangoikoari gerra. O esker gabe itsusia! Absalon izan ze ain esker gabea bere aita Dabideki, ezi bildurik tropa plantatu baizio batalla, kenzeagatik aitari bere burutik korona. Zer du ikusteko Absalonen eginak bekatariaren txarkeriareki? Bekatu iteunzun aldioro, kendu bekala nai diozu Jangoikoari bere burutik korona, ta dezakezun gisan edeki ere bai Jangoiko berari bizia. Jesus, Jauna, nik ez, nik estut beñere nai izandu kenzea Jangoikoari bizia. Baietz diot berriz ere. Aizazu berzela San Bernardo: Ipsum, quantum in ipsâ est, Deum perimit voluntas propria. O albanekzike erran bear den bekala uskaras sanduaren itzak! erran zadazu, bekataria, bekatu in duzunean, etzindue nai ezezan jakin Jangoikoak zure bekatua? Bai; beras, nai zindue Jangoikoa, etzeien izan infinitoki jakinsua. Ezindue nai etzezaken kastigatu zure bekatua Jangoikoak? Bai; beras, nai zindue etzeien izan infinitoki poderoso. Ezindue nai orduan etzeien izan infernurik ta kastigorik zure bekatuendako? Bai; beras, nai zindue etzeien izan justo, ta, por konsigiente ezeien izan Jangoiko Jangoikoa. Ikusazu, bada, nola bekatu iten duzunean, nai diozun edeki Jangoikoari bere bizia ta izatea. Gauza horrorosoa! Noraño ellega daiken bekatariaren desbergenzoa! Baña erran zagun ia.

6. Erran daike ia? Bai; ai nazazu, bekataria. Bekatu iten duzulaik, baliazen zara Jangoikoaren benefizioes ofendizeko bera! Benefizioak atzentzea, esker gabea da; despreziazea, injuria da; baña benefizioes baliazea ofendizeko faborazalea, zer da? oroizen

zelaik Josef Ejiptoko gura bere nausiak inikako benefizioes, iduri zizaio imposible konsentizea bere nausiaren kontrako agrabioan, ta ala erran zio bere etxeakoandeari: Quomodo possum hoc malum facere, et peccare in Dominum meum? Nola in dezaket gauza gaisto gau, ta agrabiatu nere nausia? Saul erregek ere, izanik Dabiden enemigo, aitu zuelaik Dabidek in zion fineza, palakatu ze, ta juramentatu ze etziola gaizkirik eginen. San Polikarpo zeramatenean martiriora, ta manaturik uka zezala Jesu Kristos, errespondatu zue: 86 urte du zerbitzazen dutela, ta estida beñere egin gaizik txikiena, bada, nola nauzie orai ofendizaten? Ederki errespondatua. Ta orai galdein bear diot nik bekatariari: Zenbat urte tuzu? galdinen diot nere buruari? Zenbat urte tuzu? Nik 23 urte ta zenbait ilabete. Eta orietan guzietan egin dizu Jangoikoak agrabiorik den txikiena? Ez Jauna. Bada, non da biotzik, ofendizeko alako Jauna?

7. Baña erran dugun bekala, esta au gaistoena, baizik baliazea benefizioes ofendizeko. Ez solamente estigu gaizkirik egin Jangoikoak, baizik ere bai anitz benefizio. Nork eman digu dugun bizia, baizik Jangoikoak? Nork gorputza ta arima, baizik Jangoikoak? Nork ezarri gaitu kristioetan, baizik Jangoikoak? Nork libratu gaitu infernutik? Nork konserbatu digu orai arteo bizia, baizik Jangoikoak? Nork emantigu begiok, bearriok, eskuok, biotzok, entendamentuok ta gutas landarako gauza guziok, baizik Jangoikoak? Ta ebeki atrebizen gara ofendizera Jangoikoa? Zer erranen gindue pobre bates, zeñek eros balez guk emanikako limosnes beneno, gu ilarasteko? Limosnas emantigu guri Jangoikoak orai tugun potencia, sentido ta gauza guziok. Nola limosna goneki ilarazi nai dugu Jangoikoa? Erregek besti balez bere arma errealeki miserable bat, ta onek bestidu orduko arma gaietas traspasabalezo erregeri biotza, zer idurituko zizaigu? Eta au berau iten dugu guk. Pintatu zue Aristofanesez auz bat otsokume bateki bere bularretan, ta letrero goneki: Mea me post ubera pascet. Orai, zio: Nik alimentazen duten gonek nere esneas, gero zatikatuko nau. Guri eldu zaigu ongi letra gura, zerengatik guk izanik dugun bizia Jangoikoak emana, izanik erredimituak Jesu Kristoren odolaz, ta mantenatuak beraren sakramentuaz, ta espezialki aldarekoaz, itzulzen gara berain kontra, ta au da sentizen duena txoil Jangoikoak: Quoniam si inimicus meus maledixisset mihi, sustinuissem utique, tu vero homo unanimes qui mecum dulces capiebas cibos. Nere etsai batek, dio, gaizki nai banindu, nonbait or lizake, baña zuk nere elizako humea, nere gorputzeko mienbroa, nere elizako maiean ain ongi alimentazen zarena, nazakezula ofenditu?

8. Baña estut orañik erran puntu gontan erran daiken guzia. Ez solamente baliazen gara Jangoikoaren benefizioes Jangoikoa ofendizeko, baizik ere baliazen gara Jangoikoas beras, bera kruzifikazeko. Ala dio berak Isaiasen agos: Servire me fecistis in peccatis vestris. Obligatu nauzie zueri zerbitzazera zeuren bekatuetan. Zer erranai du? Badakizie guziek, ezdezakegula deus egin Jangoikoaren lagunza gabe; ezkaizkela mogi, ezkaizkela bizi; ez dezakegula, en fin, atsik ere artu bera gabe; orgatik ematen digu miseriordia andiareki bere lagunza; eta ezkinduke baliatu bear lagunza gontas, bekaturik egiteko, baizik obra onak obrazeko. Baña Jangoikoaren lagunzareki mogizen duzu eskua, mia ta berze mienbroak Jangoikoaren kontra! nai balu Jangoikoak, debeka lezake edo uka lezake bere lagunza, baña orduan ilen ginazke guziak; ta naiago du, gaizki iten badugu ere bere borondatearen kontra, gaizetik on zerbait atrazea, ezi ez gaizik batere estaien izan ez permitizea, maluit de malis bona facere, quam mala nulla esse permitere. Orai, bada, zerengatik permitizen du nior bizi daien berain kontra? Zerengatik estiote kenzen berla bizia? Zerengatik den sobra ona. Eta guk zerengatik Jangoikoaren miseriordia gau

konbertizen dugu berain kontra? Ziertoki esta berze kausarik, baizik zerengatik garen sobra gaistoak. Pasmao da iten duguna. Zein krueldade andia izan leike, gizon batek berze bat ilzeko, obliga balez onen aita erman zezan argia? Bada, arrapaturik aitaren eskua bereas emanbalezo humeari golpea, zein brutalidade andia lizake au? Ezitzake alare ainberzekoa nola gurea Jangoikoareki, zeñen Semea Jesu Kristo berriz kruzifikazen baitugu, baliazen garelaik Jangoikoak ematen digun bizias, indarras ta lagunzas, geuren bekatuen medios.

9. Arrigarria Jangoikoaren pazienza ta bekatariaren atrebenzia puntu gontan! Badaki bekatariak, pendiente dagola Jangoikoaren eskutik; nai badio instate kendu bizia, ken dezokela; ta alare atrebizen da Jangoikoaren kontra! Baleuka gizon batek ezkindorretik dilindaka kuerda batetik berze gizon bat, ta au dilindaka zegolaik asi baledi gaizki erranka ta eskuen gorazen kuerda zeukanaren kontra, ezkinduke erranen zela eroa edo txoil gaistoa? Gizona, oiuiuen gindio, zer aiaiz? Estuk ikusten solta dezakela kuerda goitikoak, ta utzi erorzera, ta mila zati in aikela? Gizona, erraten diot nik bekatari edozeñi, estuzu ikusten zure arima, bizia, salbazioa ta kondenazioa dagola Jangoikoaren eskutik pendiente? Estakizu, soltazen badu bere eskua, usten bazaitu, eroriko zarela infernuan? Bada, nola atrebizaike ofendizera jaun bat, zeñen menean baitago zure biziaren ari frajila?

10. Aumentazen da bekatuaren malizia, zeren iten baita Jangoiko beraren alzinean. Quid feci? Zer in dut? egin dut bekatua Jangoiko beraren presenzian, beraren begietan dakitelaik beira beira dagola. Deizen du San Agustinek Jangoikoa guzia begia, zerengatik guzia ikusten baitu bere jakinduria infinitoareki: betezen du zerua, ingurazen du mundua, ikusten du infernua ta presente dago leku guzietan. Barin bagabilza, ikusten gaitu; geldi barin bagaude, ikusten gaitu; sarzen edo atrazenba gara, ikusten gaitu; argi edo ilun barin badago, ikusten gaitu; en fin, gure pensamentu sekretoenak ere ikustentu; ta ala estaike niolas ere eskapa Jangoikoagandik. Orgatik erraten zio Dabidek: Si ascendero in coelum, tu illic es, si descendero, etc. Jauna, igaten banaiz ere zerura, ori an dago; jausten banaiz infernura, an ere bai; joaten banaiz ere boladan itsasbasterretara, an ere arrapanazake orren eskuak. Baña akaso ilunbeak defendanazake? Ez, por zierto, zerengatik ilunbea orrendako esta ilunbe, da eguna bezain argi. Nola bada ezkara beldurzen bekatu egiteas? Errege Españakoa beira balego, atrebituko ote ginazke egitera gauzarik arren kontra? Ez; bada, nola beira dagolaik Jangoikoa, in dezakegu bekatua? ladron batek balu ausardia ebasteko urkabe ta juezaren alzinean, nor ezlizake pasmatuko? Ausardia horrorosoa da bekatariak ilen ta bizien Juezaren alzinean, ta infernuaren alzinean bekatu egitea, beira dagolaik Jueza, ta oñen petan infernua! asarratu ze bein Asuero erregea Amanen kontra, ta joan ze baraze batera diskurrizera zer inen zuen artas. Bitarteo beldurres beterik Aman botatu ze erreina Esteren oñetara barkazio eske. Ellegatu ze orduan errege, ta ustes zerbait in nai zion erreinari, manatu zue bereala para zezatela urkabe batean. Gutibana errege Jauna, zerengatik ain fite? Estu erremediorik, urka zazie. Appendite eum. Zerengatik? Etiam Reginam vult opprimere me praesente. Zerengatik nere begien alzinean nai baitu ofenditu nere esposa; nola iduki bear dut pazienza? Nola dauka Jangoikoak, ofendizen dugulaik ainberze aldis bere begien alzinean? Nola eskaitu instante kastigazen? Errege edo obispo jaun baten alzinean ezkinake atrebituko irri egitera; ta bekatu itera bai Jangoikoaren alzinean? Barin bagaude murmurazen persona baten kontra, ta agerzen bada derepente, isilzen gara, erraten dugulaik elkarri: Ara ara urlia; bada, nola ezkara oroizen, Jangoikoa beti dagokigula beirazen? Nola estugu erraten, ara ara Jangoikoa beira? nai bauzu bekatu egin, dio San Agustinek, eskapa zaite Jangoikoagandik; bila zazu zoko bat, non

etzaizan ikusi Jangoikoak; ta inzazu an nauzuna; baña bere alzinean etzaitela atrebi. Eta orai nola ezpaita nion lekuri non ezpaitago presente, nion etzaike atrebi, ta atrebizen bazara, da atrebimentu andia ta malizia fuertea.

11. Explika zagon geiago bekatuaren itsustasuna. Ofendizen da Jangoikoa ta Jesu Kristo Jangoiko Gizona bekatuas. Nork luken orai San Pablaren zela? Posible da izan daikela atrebimentu, egiteko bekatuak, ikusten dugularik Jesukristo ilik bekatuaingatik guruze batean? Jesu Kristo il zenean, jautsi omen zire triste demonioak infernuko kalabozaetara, zerengatik uste baizute ezkinala ia atrebituko bekatuak egitera, ainberzeko mertxedearezibitu ondoan. Baña demonioek berek pensazen ezutena, iten dugu guk. Jesu Kristo guregatik il ondoan, ofendizen dugu orainik! Bekatuengatik ilze Jesu Kristo; ta estire akabatu bekatuak! Zein gauza arriagarria (sic) da, fielak, bekatua, zeñengatik il bearizan baizue Jangoiko Gizona? Ikusazie: Juntabaleites sandu guzien merejimentuak ta penitenziak, lutos bestibaleites aingiruak, negarres urtu baledi Ama Birjina bera, au guzia ez lizake aski barkazeko ta pagazeko bekatu mortale bat soil soila, zerengatik baita Jangoikoaren ofensa, ta alde gontaik, infinito txoil ezpada ere, kasi infinito; ta orgatik izan bear ze Jangoikoa satisfakzio eman bear zuena. Ikusazu, dio orai San Bernardok, zein andiak diren zure arimaren llagak, zeñengatik preziso izan baize llagazea Jangoikoa!

12. En fin, akaba zagon errateareki aixelan aipatu duguna, ezi bekatu iten duenak berriz kruzifikazen ta burlazen duela Jangoikoaren Semea; Rursus crucifigentes filium Dei, et ostentui habentes. Estut, errain dugu, alako gogorik bekatu iterakoan; baña errealki ematen dugu gure partetik motibo, kruzifika daien berriz Jesukristo, ta iten dugu bano len padezitu zuen guzia guregatik. Zein da motibo, zeñengatik kruzifikatu baizute Kristo? Bekatua. Au iten duzu naiduzularik, zerengatik nai ezpazindu, ezinduke eginen; beras, nai duzu eman motibo kruzifika daien Jesu Kristo, ta por konsigiente kruzifikazen duzu dezakezun gisan. Ala dio Santo Tomas Akinokoak. Ainberze odio izan daikela Jesu Kristoren kontra? egon bagina presente Jerusalem agertu zituelaik Pilatosek Jesus ta Barrabas autara, zein eskojituko gindue librazeko ta zein kruzifikazeko? Gure obrek diote ezi librazeko Barrabas ta kruzifikazeko Jesu Kristo, zerengatik egunoro iten baitugu elezio gonon ariora, naiago dugulaik demonioa Jangoikoa baño, iten dugulaik demonioaren gustoa ta Jangoikoaren kontra. Orgatik dio San Agustinek, gutiago bekatu in zutela judioek kruzifikatu zituelaik Kristo emen munduan zegoenean, ezi ez kristioek despreziazen dutenek orai zeruan erreinazen dagonean. Nimis peccaverunt Judaei crucifigentes in terra ambulantem, quam qui contemnunt in coelo sedentem. Au da gure Aita Amorosoari diogun korrespondenzia! Ontan ezaun da garela hume falsuak ta traidoreak, filii alieni mentiti sunt mihi.

13. Aita batek azi omen zitue irur hume, zeñetaik bat solamente jakin zue zela bere seme propioa. Ilzerakoan utzi zue testamentuan bere hazienda guziaren heredero hume gura, zeñek ere progazen zuen zela beraren hume propioa. Ilze aita, ta berla irurak asi zire pleituan, nori tokazen zizaion herenzia. Ezue aurkizen juezak fundamenturik, emateko sententzia nioren alde, zerengatik ezpaizeike proga, zein ote zen seme propioa. Ezaunzeko, bada, baliatu ze traza gontas. Atrarazi zue lurpetik aita garren gorputza, ta ezarri ondoan palo batean, erran ziote, iruretaik zeñek ere azertazen baitio saetas biotza, ura izanen da heredero. Tiratu zue bata saeta, berzeak ere bai. Betor irugarrena, erran zue juezak; etorri ze, artu zue eskuan ballesta; beiratu zue bere aitaren gorputza; ta instante deskoloritu ze, desmaiatu ze, ta itzulirik berebaitan bota zitue ballesta ta saetak lurrera, naiago zuela galdu herenzia, ezi ez traspasatu bere aitaren biotza. Baña, por lo mismo, juezak eman zue onen

fabore sententzia, juicio iten zuelaik, au bidezela hume propria, zeñek baizio ainberze atenzio aun il ondoan ere. Aizazu orai, kristioa, zer iduri zaizu dela etorzea bekatuaren tentazioa, baizik ezarzea zure eskuetan ballesta ta saetak traspasazeko zure Aita dibinoari biotza? Nola etzara desmaiazen? Nola etzara sikiera beldurzen, erreparazen duzula, ofendizera zoazin ura dela zure Aita krianu ta erredimitu zaituena? Numquid non ipse est Pater tuus, qui creavit te? konsentizen bauzu, tirazen diozu saeta, traspasazen diozu biotza. Eta zerengatik? Gusto zikin batengatik? Esta motiborik batere ofendizeko Jangoikoa. Pilatosek erran zue etzuela aurkizen Kristoren baitan kulparik. Asarrazen zara Pilatosen kontra, zeren kruzifikarazi baizue Kristo kulparik etzuen, ta Judasen kontra, zeren saldu baizue diru puska batengatik; ta ezara asarrazen zure kontra, salzen ta kruzifikazen duzulaik gutiagorengatik? Edo bauzu motiborik Jangoikoaren kontra? Zer izan dezakezu? Ezpada sobra ona izatea zureki Jangoikoa? Ezpada sobra mertxede zuri egindua? Ala galdeiten dizu berak: Multa bona opera ostendi vobis, propter quod eorum opus me lapidatis? Anitz obra on, dio, in digula; zeñengatik ofendizen dugun? Ea, esta arrazio ofendizea obra on intigunongatik, antes bien, da obligazio maitazea ta zerbitzazea. Ea, aborrezi zagun bekatua, nigar inzagun egindugunas. Eta zuek, nere hume maiteak, bekatu mortalerik orañik inestuzienak, ezazela ikasi egiten; ezaistela beñere asi; ezazela galdu duzien inozentzia ta ditxa. O, nork luken zuen estadoa! O, nor legoken orai bataiatu ta berla bekala? Baña bekatu indugunendako esta ia berze bataiorik, baizik dolorea ta urrikimentua. Ellega gaizen gure Aita onagana hume gaistook, ta erran zogun: Pater, peccavi in coelum, et coram te; jám non sum dignus vocari filius tuus. Aita dibinoa, bekatu in dugu orren kontra ta zeruaren kontra; ezkara ia digno deizeas berorren humeak. Admiti gaiza bere mutiltako. Enplegatu dugu orren kontra denborarik obreena; baña, alare, dugu esperanza admitituko gaituela alzinako; berzela, zerengatik luzatu digu orai arteo bizia, utzi gabe erorzera infernuan? O berorren ontasun infinitoa, ta o gure ingratitude itsusia! O gaizki enpleaturikako denborak ta potenziak! Berze gisas emendik alzina; deseo goneki diogu biotzes: Nik sinestazen dut, etc, etc, etc.

Serm. 6.

De peccato, ut contra nos.

An. 1771

Scito, et vide quia malum, et amarum

est reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

1. Azken predikuan erran gindue zein gauza gaistoa den bekatua, zenbatenas baita Jangoikoaren kontra; orai erran bear dugu zein gaistoa den zenbatenas baita gure kontra. Esta mundu ontan sines gauza gaistorik osoki, baizik bekatua. Gauza gaistoa iduri zaigu pobreza, eritasuna, eriozea; baña engañazen gara, zerengatik oriek ezdezakegute dañatu, ezpadugu bekaturik, Nulla nocebit adversitas, si nulla dominetur iniquitas. Orgatik San Krisostomo andiak egin zue berarias prediku bat luzea ta admirablea, solamente erakusteagatik deusek ere ez dezokela gaizik egin gizonari, baizik berak: Nemo laeditur nisi a semetipso. Ta klaro da. Nor pobreago, Lazaro baño? Ta estio gaizik egin bere pobre zak, emantio bai zeruko ondasunak. Nor llagatu ta miserableago Job sandua baño? Ta lлага ta miseria gaietaik estu kalterik, eder dago orai zeruan. Zenbat trabaju ta tormentu pasatu zute martirek? Ta segitu zaiote kalterik? Ez; baizik anitz probetxu ta anitz gloria. Trabajuak finalki balire gauza gaistoak, etzitue artuko beretako, ta bere Ama Santisimaindakoa Jesu Kristok. Esta, bada, gauza gaistorik mundu ontan kristio onendako, guziak dire on: Diligentibus Deum omnia cooperantur in bonum. Bekatua sollik da gauza gaistoa, eritasunak baño, llagak baño, pobreza ta miseriak baño, eriozea baño, ta azkenean infernua bera baño gaistoagokoa. Ikusagun, bada, ezi ikusi faltas iten dugu ain kaso guti artas, ezi ikus bagindez ongi, aborrezi gindezake geiago. Agripina, Erromako andre abrats batek, zue seme bat lazki jokaria; galdu zio aldi bates kantidade bat andia diru; ta edeki naies kondizio gaisto gau deitu zue kuartora, ta berain alzinean barratu zue maibaten gañean diru kantidade gura guzia, erraten ziola: Ikusazu, nere humea, zenbat galdu duzun solo oraiko aldian. Arriturik humeak erran zio, ama, ori guzioi galdu dut nik? Fuera barajak, fuera jokua. Oroat guk ikusi beartugu bekatuak intigun dañuak, bearbada errain dugu, fuera bekatua. Asi gaizen.

2. Beñik bein bekatuak kausazentu mundu ontako desditzak. Zertan uste duzie dagola ainberze gose, urte gaisto, pobreza ta miseria izatea, baizik ainberze bekatu izatean? Eritasunak ta eriozeak ere nondik jaio dire, baizik bekatutik? Zeudenean Adam ta Eba bekaturik gabe paraisoan ezute alako trabajurik; egin zute bekatu, ta instante galdu zute paraisoa, ta logratu zute trabaju, eritasun ta eriozearen sentenzia. Orduas geros asi zire ainberze jenero miseria negarresko balle gontan; ta nola ezpaitire gutizen, baizik añadizen bekatuak, orgatik estire gutizen, baizik aumentazen miseriak. Beti daude gure bekatuak oius zeruko atarietan justizia eske gure kontra; ta nola gure Jangoikoa baita ain ona naiago gaitu kastigatu pena tenporale lureko ebeki, ezi ez sekulako merejitugun tormentueki. Zoaste beiratus, mundua mundu denas geros, izan diren miseriak; ikusikouzie nola kausatutuen bekatuak. Zerk ekarri zue dilubio andi gura, zeintan ondatu baize mundu guzia, baizik bekatuak? Zerk kausatu zue azufresusko erauntsi gura Pentapolisko ziudadeetan, baizik bekatuak? Zerk urratu zue Jerusalengo ziudade ta tenplu eder famoso gura? Bekatuak. Zerk galdu ta aldatutu inperioak? Bekatuak. Zerk galdu zue gure España? Bekatuak. Zerk kausazentu terremotoak, pesteak ta gerrak? Bekatuak. Zerk inkietazentu

kriatura guziak gure kontra? Bekatuak. Milagro da, fielak, nola dirauen orañik munduak; nola estiren akabatu jendeak ta gauza guziak, daudelaik beti ta beti oius justizia eske gure bekatuak. Esker, Jangoikoaren miseriakordia baita infinitoa, ezi kastigazera bekatu iten den aldioro, etzue iraunen gure denboretaraño munduak, diones sandu batek. Kastigazen gaitu gutibana, zerengatik ezpaikaitu nai galdu; kastigazen gaitu esku beratxareki, ta orgatik dire ikusten diren egunoroko miseria ebek; baña estire ebek bekatuak kausazentuen dañurik andienak.

3. Iagokoak dire gure arimetan itentuen estragoak. Bekatu mortalak kenzen dio arimari bizia, ta orgatik deizen da mortala, quia mortem infert anima, zerengatik kausazen baitio arimari eriozea; ta ala bekatu mortalean dagon arima ilik dago. Zenbat eta zenbat paseazen diren beren arimak ilik damazkitela beren barrenean? Zein banak dabilzan asko emakume, ustes esten berak bekalakorik; ta estute erreparazen daukatela petoaren pean estalirik arimaren eriotzea? Dio San Krisostomok: ikus bagindez gizon bat dabilala karrikak barna ta elizak barna, bere soñean daramala korputz il ustel bat, edo ataut urrinzu bat, nor etze arrituko? Nor etze arregandik eskapatuko? Egunoro dabilza, bada, ezpaitugu ikusten ere, franko gizon ta emasteki dakarzikitela, ez korputz ilak, baizik arima ilak, gorputz ilek baño usai gaistoago botazen dutela Jangoikoaren alzinean, ezpadugu ere guk sentizen, da zerengatik ezpaitugu bear bekalako sudur espiritualak. Sentizen dute aingiruek, sentizen du Jangoikoak. Orgatik alakoagandik apartazen du aurpegia Jangoikoak ta aingiruak. Biaje bates zoaie gizon bat akonpañazen zuela bisible bere aingiruak. Aurkitu zute gorputz il bat usteldurik bidean; bereala tapatu zitue gizonak eskus sudurrak, baña etzue demonstrazio puskarik egin aingiruak. Pasaturik alzinago aurkitu zute kaballero galant bat zirikus ta urres bestiturik zaldi arrogante batean; ikusi zueneko aingiruak bereala erman zitue sudurretara eskuak; pasmatuak gizonak galdein zion, joan ondoan kaballeroa, aingiruari, zerengatik gorputz ustel gura aurkitu zutelaik etzuen egin demonstraziorik, ta orai bai kaballero garren ikustean? erran zio aingiruak: jakin beazu ezi kaballero gura zegola bekatu mortalean; ta bekatu mortalean dagon arimak usai ia ta gaistoago botazen du, ezi ez zakur ustel guziek. Ikusazie orai zer den bekatu mortalean egotea. Ah, ikusi al bagindezake, zein triste ta nigarti dagon bekatar denaren aingiru goardakoa, bearbada onengatik ere ezkina atrebituko egotera instante bat bekatuan. Eta zer bizi da edekizen zaiona arimari bekatuas? Da Jangoikoaren grazia, zein gabe geldizen baita ilik arima; zerengatik ala nola gorputzaren bizia baita arima, ala arimaren bizia da Jangoikoaren grazia eta Jangoikoa. Guzia galzen da bekatu bateki; ta posible da ain ajola guti iten dela? Ta geuren eskus ardezakegula erioze gau?

4. Ez solamente kenzen dio bekatu mortaleak arimari bizia, baitaere por konsigiente edertasun ta gala zuen guzia; ta geldizen da arima demonio bat bezain itsusia, infernuko sutillite bat bezain belza. Ikusazie berzela Luzifer beraren baitan. Zego zeruan aingiru guzien buru, guziak baño ederrago, ainberze ezi eraturik bere edertasunas, egin zue soberbiasko bekatu mortale bat; ta bereala aingiru zena itzuli ze demonio, galdu zue edertasun guzia, ta da orai ain itsusia, ezi lotsazen baitu solo ikusteak. Oroat, ikusten ezpada ere, iten du batxotxaren ariman bekatu mortalak, ezarzen du ain itsusia, ezi ikus bagindez, ilen baiginazke sustos. Doña Santxa Karrillo benerealeak eskatu zio aldi bates Jangoikoari erakutsi zezala nola zegon berain arima. Erakutsi zio aur baten figuran, guzia lllagas ta granos beterik, ikusi zueneko itxura gartan bere arima sanda garrek, desmaiatu ze sustos; ta etzue bekatu mortalerik, baizik zenbait inperfekzione ta falta txipiak. Bada aiek ain itsusia, ta ain eria paratu bazute arima on gura, nola paratuko dute bekatu mortaleek?

bulusten du arima bekatu mortalak birtuteen gala ta adornuas; bekatu mortala sartu orduko, atrazen dire boladan birtuteak ta Espiritu Sanduaren donoak: ala nola usadorre batean sarzen delaik usojanzale bat, bolazen baitire uso guziak; ta ala nola palazio batean sarzen direlaik ladronak, ta errobazen dutelaik den guzia. Zein pobre geldizen den arima triste! Ikusbazindezate erreina bat iruzkia bezain ederra, munduko urre, perla ta diamanteeki adornatua, ta ellegazen dela arregana berdugo itsusi belz bat, ta tenturik gabe kenzen diola bizia, ta moldegaizki zatikazentiola adornu gaiek guziak, etzinate lastimatuko? Bada, au iten du demonioak gure arimareki bekatuaren medios. Bekatu in baño len, zego erreina bat galanta birtute ta dono guzies adornatua; egiten du bekatua, ta istante edekizen dio bizia, ta edertasun, ta adornu guzia. O lastima! Quomodo obscuratum est aurum, mutatus est color optimus! Nola, dio Jeremiasek, nola belztu da urrea, ta itzuli da arras lengo kolore galantura? O Jaunak, ta emastekiak, ainberze kuidado gorputza galanzeas, ta ain guti arimaren edertasuna goardazeas? Ainberze inbenzio ta itxureria idurizeagatik ongi gizonei, ta ain ajola guti Jangoikoari gaizki idurituagatik? Zer lastima! Gorputza nai ginduke iruzki bat bekala, ta arima tratazen dugu zatar edo ikaz puska bat bekala; bada, au iten dugu iten dugulaik bekatua. Zein bana doaie emastekia, galastaturik gorputza, daukalaik akaso arima demonio bat bezain itsusia! Obeluke arimagrazian, ezi ez nai duen gala guzia gorputz loiesko gartan. Baña au da perbersio andia, gorputza, baita esklabo, izatea ia kuidatua, ta anima, baita erreina, izatea desetxatua. Ikusiko da ta ezaunduko da ekarzen dutelaik lauren ertean gorputza obiara, ta arima infernura deabruen ertean gorputz likitsaren kausas.

5. Zer ia iten du bekatuak? Kenzentio gizonari obra on itentuen guzien merejimentuak, desuerte ezi bekatuan dagonak estu protxurik lengo obra on guzietaik, ta orai ta gero itentuenetaik ere ez Jangoikoaren alzinean. Naiz iten balitu milagroak, naiz biztu balezki ilak, naiz pasa balezki ere martirio andiak, deus estu mereji daukan bitarteko arima bekatu mortalean, zerengatik baitago Jangoikoaren desgrazian ta odioan. Zeruan dagon sandurik andienak in balu bekatu mortale bat ilzerakoan, erremediorik gabe kondenatuko ze. Gauza arrigarria! Pensamentu gaisto bat grabe konsentizen den instantean gal daikela berregun milla ta ia urtes iragazi zena edo zeikena? Bai fielak, ala da, fedeak dio. Eta nola atrebizen gara bekatu egitera? ken balezote gizonari bere hazienda, dignidadea ta ondasuna bekatu batengatik, ezleike atrebi egitera; ta orai edekizen diolaik bekatuak arimaren hazienda guzia, lengo irabazi guzia, ta inposibilitazen duelaik iragazteko alzina, alare iten du? Ea, pensa bedi ongi zer den lengo baru, meza, penitenzia, limosna ta obra on guzieki irabaziaren galzea, ta ezin deus balia orai in dezkie gauza guziek bekatuaren kasos; ta inen da apprehensio ia bekatuas.

6. Zer ia iten du bekatuak? kenzen dio bekatariari zerurako zuen dretxoa ta sentenziazen du infernura. Deretxo du Jangoikoaren grazian dagonak eman dakion zeruko gloria, ta ala ez dezoke ukatu Jangoikoak, zerengatik zor baitio justizias, zeren itz eman baitu ortas; iten du bekatua, ta instante galdu du zerua; estu ia ikustekorik glorian, ta sentenziatu du infernura bere burua, dion bekala San Krisostomok: Quoties peccasti, toties te ipsum condemnasti. Zenbat aldis in duzun bekatu, anbat aldis kondenatu duzu zeure burua; ta ala zeure partetik kondenaturik zaude, ezipazaitu libratu nai miserikordiosoki Jangoiko onak. O bekatariaren tonteria, gusto zikin batengatik nai dezakela despeitu sekulako gloria ta eskojitu sekulako infernua! Españako prinziipe bati, bere koronara dretxo duenari, erranbalezo aitak, tori, ezipauzu sagar gura jaten, izain zara Españako errege; baña jaten bauzu, presidario (sic) betiko kalabozo ilun batean; ta

prinzipie garrek kasorik in gabe jan balez sagar ura, ta gerta balekio meatxatu zizaion guzia, nork ez luke erranen, tonto miserable bat zela? Tonto miserableago da bekataria, zeñi erraten dio daia Jangoikoak, ezi usten badu bekatuaren gusto fatala, izain dela zeruko errege; ta ura kunplitu nai badu, infernuko kalabozaon sekulako preso, alaere naiago baitu kunplitu bekatuaren tirria gaistoa, erran balez bekala, naiago dut gusto gau ezi ez zeruko erregetasuna, naiz egoin banaiz ere sekulakos errabiazzen infernuan ta ziertoki instante gartan gertalekioke desdixta gau ezpalezo mantenu bizia Jangoiko ofendituak denak berak. Bekatariak itentu inalak erorzeko zerutik infernura, baña estu usten frankotan Jangoiko maitagarriak, baña bai berze frankotan. Zenbat kondenatu dire lenbiziko bekata in ta berla? Ta berze franko ezipadire oroat kondenazen, oroat mereji dutelaik, esker Jangoikoari, zeñek baitauzki bere besotan tieso, naiz ofendizen baute ere, ala nola ama batek idukizen baitu bere humea, naiz atzaparkazen badu ere, estaiengatik erori. Eroririk egoin niza ni, eroririk egoin zina zu, baldin utzibaginduza Jangoikoak, geurek mereji ta pretendizen ginduen bekala geuren obres. Ziertoki erran dezokegu Dabideki: Domine, eduxisti animam meam ex inferno, Jauna, orrek atra du nere arima infernutik; ta berriz: Eripuit animam meam de morte, oculos meos a lacrimis, pedes meos â lapsu, libratu du nere arima eriozetik, nere begiok negarretaik, ta nere oñok irristazetik. Ta San Agustineki: Eripuisti me de inferno semél et secundó, et tertió, et justé millies damnasses me, si voluisses, Jauna, libratu nau infernutik bein, bi, irur aldis; mila aldis kondenaduninduke justoki, nai izan bazue. Egon baliz bat ol mear irristabera batean, erreparatu gabe, barranku andi batera erorzeko, zer sobresaltoa erreparatu ondoan! Jesus, nola ez naiz erori ta galdu, Jangoikoari graziak. Ezta ez berriz itzuliko ol gartara. Ario gontara egon da ta peligro ia ta gaistoagoreki; nola daike bizi instante bat bekatuan, galdurik zeruko dretxoa, ta sentenziaturik infernura?

7. Ematen du berze kalterik bekatuak? Bai. Kenzen ere dio arimari sosegua, seguridadea ta bakea, desuerte ezi bekatuan dagonak ez dezake mundu ontan ere izan sosegu egiaskorik konzienzian. Zer ia? erran zugun beingoas: bekatuak kenzen dio Jangoikoaren grazia edo amistanza. Au baita kalte lastimosoa. Bekatu in baño len gina Jangoikoaren adiskide; egin ze bekata, ta berla egingina Jangoikoaren etsaiak. Sines, Jauna, bekatuan barin banago, naiz Jangoikoaren etsaia? Sines, bai, sines, da fedesko gauza. Odio est Deo impíus et impietas eius; odisti omnes qui operantur iniquitatem. Aborrezizen du Jangoikoak bekatu iten duena, naiz lenago in badu ere anitz obra on; desuerte ezi San Pablo bera, in ondoan ainberze prodijio, erori baze bekatu mortale batean, aborrezituko zue biotzes ia instante gartaik Jangoikoak. Zer diot San Pablo? Ama Birjina bera izateareki Jangoikoaren Ama, kriaturarik ederrena, serafin guziak baño ia maitatu zuena. Jangoikoa, ta por konsigiente Jangoikoagandik nior baño ia maitatua; erori baze, etze erori, baña erori barin baze bekatu mortale batean, aborrezituko zue arras Jangoikoak; etzio beiratuko bere amari bekala, baizik bere etsaiari bekala; etzue tratatuko zeruko erreina bekala, baizik demonioaren esklaba bekala; ta kondenatuko zue erremisiorik gabe, ilzen baze bekatu garreki. Orai, bada, Ama Birjina bera aborrezituko barin bazue, baldin in bazue bekaturik, nola iduri zaizu aborrizen zaituela zu, barin bazaude bekatuan? Eta aborrizen bazaitu Jangoikoak, nork maitatuko zaitu? aborrituko zaitute por konsigiente aingiruek, sanduek, Ama Birjinak ta kriatura guziek. Nor izanen da zure adiskide, baldin barin badaukazu zure etsai zeruko korte guzia? maitazen bazindute ere munduko guziek, zer protxu duzu? Jangoikoak maite bazaitu esta deus inport, mundu guziak ez zu ikusi naia; baña ezipazaitu ongi nai Jangoikoak zertako duzu nioren onginaia? Nola, fielak,

gaudezke instante bat ere bekatuan, dakigulaik gaudela Jangoikoaren odioan? Ah, konsidera bagindez ongi zer den Jangoikoaren etsai izatea! galdein zozu San Krisostomori, ta errain dizu, mila infernu baño gaistoago dela, mille gehennis durius et intolerabilius judico exosum esse Christo. Errege edo obispo jaun batek aborrezizen bazinduza, konsumitukozinaske tristuras; aborrezizen zaitu errege guzien Erregeak, ta estuzu ajolarik? Ah tristeia, jakinen duzu fite zer den au?

8. Zer ia iten du bekatuak? botazen du noramala arimaren etxetik Jangoikoa, ta sarrarasten du artan demonioa, desuerte ezi lenago zena Jangoikoaren palazioa, itzulzen da bekatuaren medios demonioen kueba; lenago aingiruak zeuden ariman, orai daude deabruak. Erran zadazie, Jangoikoaren tenplu sandu gau, non baitago orai bere aingirueki Jangoikoa, egin baledi hazienda belzen tegi, ezinate lastimatuko? Bai, bada, zure arima ze Jangoikoaren tenplua; bekatuagatik itzuli da infernuko estrabille zikina; nola etzara lastimazen? iretsi bazindez ustekabetzean suge edo zapo bat, sustos ilenzinake. Iretsi duzu bekatuareki bateo serpiente infernalea; nola ezara asustazen? Bekatuan zaude kristioa? Bada, Jangoikoa dago ausente zuregandik; demonioak dauka inguraturik zure biotza; itozeko peligro duzu; bota zazu fite, arzazu konfesioaren kontrabenenoa. Nola bizi zaizke jangoikoa gabe? Nola sosegazaike daukazulaik deabrua zeure barrenean? Zer esperanzareki zaudeske ia, despeiturik ta botarik Jangoikoa zuregandik, ondasun guzietaik bulusirik, demonioaren dominiora utzirik zaudelaik? Bekatuan zaude? Bada, zara desdixatua ta pobrea arras; zara itsusia, molde gaiza ta ila ariman; zaude inposibilitaturik iragazteko deus ere bitartean; galdurik zeruko dretxoa, sentenziaturik infernura, sosegu, bake ta grazia gabe etsaiturik, ta aborreziturik Jangoikoaren, Ama Birjinaren, ta aingiru ta sandu guzietaik; despeiturik artas, ta demonioaren esklabo ta presidario, ta en fin, pensa daiken desdixta guzieki. Ea bada, ezipazindue aborrezizen bekatua Jangoikoaren amorioagatik, aborreziz zazu zeure buruaren amorio ta onginaiagatik. Ondasun guziak tugu egotean bekatuareki gabe Jangoikoaren grazian; desdixta guziak bekatuan egoteas; nor, bada, atrebituko da egotera artan instante bates? Nor in duenik bekatu, esta injeniatuko edozein trabajuren kostus lograzera barkazioa ta grazia? Nor esta prebenituko egitera konfesio bat ona? Ta bitartean nor esta joanen laisterka Jangoikoaren oñetara, oiuegitera barkazio eske, damuturik, urrikiturik ta sentiturik biotzes ofendituas Jangoikoain ona? Ea, goazen guziok, ta belauriko erran zogun, Jauna, barkatu; dugu sentimentura bizia orren Majestadea ofendituas; ez ia bekatuareki bizi guzian; ta orai firmatuko dugu deseo gau fede, esperanza ta karidadearen aktaeki: Nik, etc.

Serm. 7.
de 1º Decalogi Mandato.
ann. 1777

Non habebis Deos alienos corám me. Exod. 20.

1. Explikaturik bekatuaren malizia, goazen ia explikazera Jangoikoaren legea, zein baita lege guzien konpendioa ta suma. Jangoikoaren legeak ditu amar mandamentu edo Jangoikoaren legearen mandamentuak dire amar. Lenbiziko irurak dagozkio Jangoikoaren honrari, berze zazpiak proximo lagunaren probetxuari. Lenbiziko irur mandamentuak deizen dire lenbiziko olekoak, berze zazpiak bigarren olekoak, zerengatik Jangoikoak bi oletan eskribiturik eman zizkio Moisesi guziak, lenbiziko irurak lenbiziko olean, berze zazpiak bigarren olean. Orgatik ere amar mandamentuak konprehendizen ta enzerrazen dire bidetan, au da, Jangoikoaren amorioan ta proximo lagunaren amorioan, edo klaroago errateko, amar mandamentuak erreduzitzen dire onestera Jangoikoa gauza guzien gañetik ta onestera proximo laguna geuren buruok bekala Jangoikoagatik. Ta alaber bekatu guziak debekazen dire amar mandamentuetan; ta ala guziak erreduzi daizke ebetara, zein batera, zein berzera; ta ala nola aborrezitu bear baitire bekatu guziak batere utzi gabe, ala goardatu bear dire amar mandamentuak batere utzi gabe, zerengatik, quicumque totam legem servaverit, offendat autem in uno, factus est omnium reus, dio Santiago apostoluak, goardazen balu batek lege guzia, baña faltazen balu batean, galdua da, kondenatuko da, infernurako da ain ongi nola faltazen duena guzietan. Goazen, bada, goardatus guziok, ta ortako prinzipalki da nere explikazioa. Asi gaizen lenbizikotik.

2. Lenbiziko mandamentua ezarzen digu Jangoikoak gisaontan: Ni naiz zure Jaun ta Jangoikoa; ezazula berze Jangoikorik izan nere aurrean. Ta explikazen digu Jesu Kristok bere ebanjelioan itzebeki (Luc. 10). Onetsi zazu zure Jangoikoa zeure biotz guziareki, zeure arima guziareki, zeure indar guzieki ta zeure entendamentu guziareki. Diliges Dominum Deum tuum ex toto corde tuo, ex totâ animâ tuâ, et ex omnibus víribus tuis, et ex tota mente tuâ. Eta guk itz gutiagos errateagatik, erraten dugu lenbizikoa, Jangoikoa onetsi ta adora zagula gauza guzien gañetik. Laur birtute manazenzaizkigu mandamentu gontan, baitire fedea, esperanza, karidadea ta errelijionea; ta birtuteebek intimazentigu Jesu Kristok laur itz gaietan, erreparatu: onetsi zazu, dio, Jangoikoa zeure biotz guziareki; ontan intimazen du karidadearen birtutea, zeñek baitu bere asentua biotzean. Dio berriz: Arima guziareki; ontan intimazen digu esperanzaren birtutea dirijizentugulaik gure deseo ta ansia guziak Jangoikoagana. Dio ia: Entendamentu guziareki; ontan intimazen digu fedearen birtutea, sujetazen dugulaik gure endamentua sinestazera egi eta fede guziak. Dio ia: Indar guzieki; ontan intimazen digu errelijionearen birtutea, ajustazentugulaik gure akzione exterioreak bear diren errelijioneko kulto ta adorazioetan; ta orgatik birtute eben kontrako bekatuak dire mandamentu gonon kontra. Anitz da explikazeko, goazen zatika ta lenik karidadea, baita onestea Jangoikoa gauza guzien gañetik. Zer da onestea gauza guzien gañetik? galdu naia lenago gauza guziak, ezi ez ofenditu Jangoikoa.

3. Mandamentu gau da, explikazeunten bekala teologoek, afirmatiboa ta negatiboa, nai du erran, manazen duela egitea gauza bat, ta debekazen duela berze bat. Debekazen du jeneralki edozein ofensa, edozein bekatu, ta espezialki debekazen du aborrezizea

Jangoikoa ta edozein akzione edo itz blasfemo Jangoikoaren kontra. Itz blasfemoak edo blasfemiak dire Jangoikoaren afrenta edo despreziotan erraten diren itzak. O zer bekatua! explikatuko da berze egun bates. Obligazen gaitu mandamentu negatiboak beti ta instante guzietan, nai dut erran, instante bates ere, beñ ere ez dezakegula aborrezitu ta ofenditu Jangoikoa. Eta Jauna ezpadugu beñere aborrezizen, kunplitu dugu mandamentu goneki? Ez, zerengatik ortas landara manazen digu onesteko Jangoikoa. Zenbat gauza da aborrezizen estugunak? Ta orgatik ez berla maitazentugu. Esta, bada, aski ez aborrezizea Jangoikoa; bear dugu maitatu ta in zenbait amoriosko akta. Eta Jauna, nik kunplizen baitut berze bedrazi mandamentuak, zeren ezpaitut juramentu banorik iten, goardazen baitut jaiak, honrazen baitut aitetamak ta gañarako guzia, kunplizen dut oneki mandamentu gontan manazen zaidan karidade edo amorioareki? Ez; zerengatik berze mandamentues landara da au ere, ta onen medios gaude obligaturik izatera Jangoikoari biotzesko amorio edo karidade, eta egitera beraren amorioaren edo karidadearen aktak. (Ta bego asentaturik ezi oroat dela amorio, nola karidade).

4. Eta noiz edo zein denboretan gaude obligaturik egitera karidade edo amoriosko aktoak? Beñik bein gaude obligaturik egitera amoriosko akta, ura gabe libratuezkaizkenean arimaren galzetik, b.g. Dagolaik bat bekatu mortalean ta ilzeko peligroan konfesorarik gabe, egin bear du kontriziosko akta, zein baita amoriosko akta perfektoa. Gaude ere obligaturik egitera amoriosko akta, ezaumentura ellegatu ta berla, ta Jangoikoaren notizia ta ezaumentu izan orduko; zerengatik arrazioak erakusten du ezi Jangoikoak inikako gizona dagola obligaturik maitazera bere Kriadorea Jangoikoa, noiz ta ia den kapaz ezaunzeko, ta maitazeko beraren Majestadea. Baitare eriozeko peligroan naiz errezebi daizen sakramentuak. Zerengatik obligaturik gaudelaik egitera anitz aldis, zer aldi edo zer denbora da ain ertxi ta nezesario nola eriozeko ordua? Baita ere peligro dugun aldioro erorzeko bekatumortalean, ezpagindez egin amoriosko akta, ta dugulaik tentazio grabea, zein eztaiken garaitu in gabe amoriosko akta. Baita ere bear dugulaik egin edo errezebitu edozein sakramentu, ta barin bagaude bekatu mortalean ta konfesorarik gabe. Okasioebetas guzietas landara gaude obligaturik egitera Jangoikoaren ganako karidade edo amorioaren akta anitz aldis bizi guzian, zerengatik izanik karidadea ain inportazioskoa, ta ain obligazioskoa, esta arrazioaren konforme exerzitazea solo bein edo bein, eta mandamentuan añadizen diren itzetaik ere atrazen da dela obligazio gau anitz aldis, zerengatik dio Deuteronomioan: onetsi zazu Jangoikoa biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki; ta itz nik manatuebek iduki beartuzu zeure biotzean, kontatu bear tiozute zeure humeei, pensatu beartuzu jarririk zaudelaik, ta bides zabilzalaik etziterakoan, ta jaikizerakoan; eta loturik iduki beartuzu eskuan, ta zeure begien alzinean; ta eskribizkizu zeure etxearen atarietan. Aski klaro ezaun da itzebetaik, bear dela anitzaldis egin amoriosko akta; ta berze alde anitz denboras bizitzea egin gabe amoriosko aktarik da desprezio iduri bat Jangoikoaren amistanzas.

5. Baña neurzea zenbat aldis urtean gauden obligaturik egitera Jangoikoaren amoriosko akta, esta erratz. Zierto dena da, daukala kondenaturik Inozenzio XI erratea estela obligazio errigurosorik borz urtetaik borz urtetara, ta solo dela noiz ta gauden obligaturik grazian pasazera, ta estelaik berze biderik ortako, baña estu señalatu Elizak denbora orañik. Autoreek ere estute guziek opinione bat. Eskotok dio, gizon ia eginak daudela obligaturik egitera Jangoikoaren amoriosko akta igande ta jai guzietan. Kardenasek dio, dela bekatu mortale ilabate bat (sic) osoa pasazea in gabe. Suarezek dio, gaudela obligaturik ez egitera in gabe anitz denboras; baña noiz den deskuido grabea edo

zein den bear den frekenzia, ori juzgatu bear duela prudenteak. Opinionerik obena da gaudela obligaturik maiz egitera amoriosko akta. Eta ala gure Obispo Jaunak, Don Juan Lorenzo de Irigoien ta Dutari bere edikto Pastoralean manazen gaitu parroko guziok iganderoko prediku edo platikain ondorean egiteko puebloareki fede, esperanza ta karidadearen aktak, ta ala inen dugu. (ann. 1769).

6. Eta nolako amorioa izan bear da Jangoikoagana akta goietan? Amorio puroa, desinteresatua ta amistanzaskoa, bera denagatik Jangoikoa, ez zeru emandezakegunagatik, ez infernuagatik, baizik solamente beragatik. Amorio gau, klaro da, dela biotzaren semea, ta por konsigiente estuela konsistizen itzetan, ta estela obligaziorik errateko itzes amoriosko akta, baizik aski dela, borondateareki maitazea Jangoikoa, ta ori bere barrenean Jangoikoari konfesazea; eta antes bien, erratea itzes maitazen duela batek, ezpadu biotzean miareki diona, estela aski. Baña biotzean izanik amorioi nai dionak konfesatu itzes Jangoikoari, asko modutara explika dezake, ia erranes: Jauna, nik onesten zaitut nere biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki zeuroi zarenagatik infinitinoki ona ta maitagarria; ia ere: Jauna, nor debekalezazken orren ofensa guziak munduan, gogotik ixuri nezake orrengatik nere odola; ia ere: Jauna, ezpaliz ere zerurik, ezpaliz ere infernurik, nik maita nezake, ta maitazen dut solamente beroi nor denagatik; ia ere: Ojala al banezake onetsi angiruek ta sanduek, ta Maria Santisimak onesten duten bezanbat, ala nainuke nik onetsi. Ojala ala onetsi banu! O zein berant asi naizen ezaunzen ta onesten orren edertasun infinitogoi, nere Jangoikoa! Quám sero te amavi, pulcritudo tám antiqua, et tam nova! Quam sero te amavi! (Aug.) Ebek ta alakoak deizen dire karidadearen edo amorioaren aktak, zeintaik abundanzia inen du edozeñek duenak Jangoikoaren amorio fiña bere biotzean, zerengatik izanik bekala su bat andia, ezpaitagoke goratu gabe garra ta txindiak, ala estaike sosega, in gabe anitz amoriosko akta duenak bere barrenean Jangoikoaren amorioaren sua. Onen etxekizera noaie.

7. Ziertoki da gauza lastimosoa erran bearizatea, maitazeko Jangoikoa. Baliz berze jangoiko bat, baleike izan duda zeñi izan amorio edo guzia, edo geiena. Baña estelaik baizik jangoiko bat guzis perfektoa, guzis ona, guzis maitagarria, guzis ederra ta guzis maitazen gaituena, nola falta dezokegu amorioa? Zertako da biotza, ezpada maitazeko Jangoikoa? Bazuek enpleazen dute munduko ondasunetan; berzebazuek honra ta gustoetan; berzebazuek edertasun lurekoetan; guziok doaza utsinik. Esta gauza onetsigarririk, baizik Jangoikoa; au da ontasun, edertasun, honra ta gusto guzien iturria ta itsasoa; ontan bear du ondatu gure biotz piskak guziak; zertako dabila munduko balsa ta ur zikinetan? Baliz biotza mundua ta zerua baño andiagokoa ere, orañik etze aski Jangoikoarendako, zerengatik estu kabizen zeruak arren anditasuna; orai, bada, izanik ain txipia gizonaren biotza, nola aski bear du Jangoikoarendako? Ala erraten zio San Felipe Nerik: Jauna, ainberze nai badu maita dezaten, bida biotz bat andiagokoa; zerengatik eman dida ain txipia? Eta orgatik amorioaren suaren abundanzias saltazen zizaio bere lekutik biotza, ta ezin kabituz autxi zizaizkio bi kostilla eta guk dugun biotz piska gontan nai dugu akomodatu Jangoikoaren amorioa ta munduaren amorioa? Estaike. Asarraturik Jangoikoa ikustas iten zaiola biotzean leku berze norbaiti, despeizen da, ta guziaren nausi geldizen da demonioa. Orgatik dio Jesu Kristok: Niork ez dezake zerbitzatu bi nausi, Jangoikoa ta mundua. Orgatik ere dio: onesten duenak aita edo ama ni baño ia, esta neretako digno; onesten duenak semea edo alaba nere gañetik esta digno neretako. Orgatik ere dio: Estuenak errenunziazen gauza duen guzietas, estaike izan nere diszipulo. Entendazen da, biotzean bear dugula izan ainberze amorio berari ezi egon bear dugula prebeniturik galzera

gauza guziak, ofenditu baño len bera.

8. Baña zertan dago ezi ezpaitezakegu aurki geuren biotzetan Jangoikoaren amorio gau? Ezpaitezakegu inklinarazi biotza Jangoikoagana? Ain aisa atzenzen baikara beras; ta bear baitugu manu edo abisu oroizeko, ta sentizen baitugu difikultade idukizean beti presente? Jangoikoa guzia da ontasuna, ta ezin onetsi? Inguraturik gaude berain finezes, ta atzenzen? klamazen daude gauza guziak Jangoikoaren onetsigarria, ta eztugu maitazen. Zer bilazen dugu, zer deseazen dugu, zer kuadrazen zaigu beras landara? Berak egintu gauza guziak; berak ditu guziak; bera da guzia. Pensa zer nai dugun, ta berain baitan arkituko dugu edozein gauza on, edozein gauza eder, edozein gauza gustoso ta dulce berain baitan aurkizen da perfektoki, bere iturrian bekala. Non da gozo ta gusto onik bera gabe? Non da ondasun ta edertasunik zeruan ta lurlean Jangoikoas landara? Non da honra, bake, deskansu ta gauza onik, ezpada jangoikoa baitan? Non nai zauden bera gabe, gaizki zaude ta gaizki joanen zaizu. Non nai zauden berareki, ongi zaude ta ongi joanen zaizu, dio San Bernardok. Ezpada aski nor den bera obligarasteko gure biotzak, biz aski digun amorioa, korrespondiarasteko albas. Ainberze amorio digu, ezi ezpaitaie ia. Kriatu gaitu bearezkinduzalaik; jautsi ze zerutik lurrera arzero gure naturaleza gure amorios; emen egin ta padezitu zue anitz ta erran daiken baño ia; ilze, ta gero ere gelditu da injeniosoki gure erdian elizaetan; mantenazen gaitu emen bota gabe infernura obligatudugunaren bortxa; barkazen digu, konbidazen gaitu ta ainberze iten digu, ezi ezpaizue eginen ia, bearrianbaginduz; ta oneki guziareki estugu onesten? Oneki guziareki bear dugu mandamentu, onesteko? Esta ia berak admitizea gure amorioa, ezi ez guk bera maitazea? Badu akaso berak protxurik guk maitazeas? Ta guk badezakegu izan miseria andiagokorik nola ez maitazea? Arrazioreki erraten zio San Agustinek: Quid tibi sum ipse, ut amari te jubeas â me, et nisi faciam, irascaris mihi, et mineris ingentes miserias? Parvane ipsa est miseria, si non amem te? Nor naiz ni orren aldean, manazen bainau ones dezatela ta ezpaut egiten asarrazen baizaida, ta meatxazen baitida miseria andiak. Miseria txipia da ez onestea bera? Ziertoki onesteagatik dugu zerua, ez onesteas dugu infernua; baña berze aldera baliz ere, ta ez onesteas logra bagindez zerua, ta onesteas infernua, bear ginduke onetsi jaun bat ain ona. Mila arima barin baginduz, ta guziak emanbagindezki beragatik, idurizaizie zerbait korrespondi gindezakela digno beraren amoriain aldean? Ez, niolater, dio Krisostomo andiak. Eta berriz; Idurizaizie ezi egunoro ilbagindeites beragatik, paga gindezokela zerbait digun amorio infinito? Estare. Ziertoki, dio San Buenabenturak, ezpaliz arima edozein bestia baño gaistoago, ta zentzugabeago, onetsiko luke gauza guzien gañetik bere Jangoikoa. Diligamus ergó Deum, quoniam ipse prior dilexit nos, dio San Juan Ebanjelistak llanoki, maita zagun, bada, guk Jangoikoa, zerengatik berak lenik maitatu gaitu gu. Nola ordea? Berak erakusten digu. Maita zagun ez itzes ta mias, baizik obras, ta egias, diligamus non verbo neque linguâ etc.

9. Ortako nai dut eman modua. Beñik bein edozein bekatu iteko okasioan edo tentazioan, oroi gaizen Jangoikoas, ta erran zagun Josef Ejiptoko garrek bekala: Nola in dezaket nik gauza gau, ta agrabiatu nere Jauna? Berze alde, berzeen baitan debekazkigun al guzia Jangoikoaren ofensak. Egin zagun ta padezi zagun al guzia, alkea, desonra, pobreza, trabajua ta eriozea bera, estaiengatik ofenditu Jangoiko maitagarria. Ontas landara iduki bear dugu beti presente Jangoikoa, ta ofratu maiz gure obra, itz, pensamentu, ta bizi guzia beraren honra ta zerbitzutuan; ta egin usu amoriosko aktak biotz oso ta desinteresatuareki, ez beiraturik premio esperazen dugunera, ez kastigo izandezakegunera, baizik solamente Jangoikoak merejiduenara; ta solo motibo gontas sentizen dugula

ofenditua. Au da kontrizio ta karidade perfektoa. Exenplu ona dugu monje batean, zein leizeunten aldioro berasten baizaida biotza.

10. Desengañaturik munduas mutil bat erretiratu ze desertura asegurazera salbazioa zar (sic) venerable baten eskolan, zeñek ikusteas zenbat alzinazen zen birtutean maitazen zue mereji zuen bekala. Demonioa enbidias beterik aparezitu zizaio eder ta erresplandeziente zarrari, zeñek sinestatu zue zela aingiru ona. Ni, erran zio, eldu naiz errebelazera Jangoikoaren sekreto bat, etzazungatik afliji penitenzias gastegoi, zerengatik jakin beazu ezi iten duen guzia dela debalde; kondenatuko da erremediorik gabe. Au erran ta joan ze aingiru falsua, ta gelditu ze zarra txoil deskonsolaturik; etzio erran itzes gastearri mensajea, baña ikusten zuen aldioro asten ze kongojas ixurzen negarrak. Erreparatuzue berzeak, ta galdeiten zio egunoro zer zen motiboa. Ainberze galdein zio ezi erresolbitu ze deklarazera: Jakin beazu ezi iteunzun guzia dela banoan, zerengatik izan dut errebelazio zerutik, kondenatu bear duzula. Aita, erran zio orduan gasteak, ortas aflijizen da? Estu zer aflijitu; egin bez nai duena Jangoikoak nik estut zerbitzazen, emandezadangatik gloria, baizik solamente ikusirik beraren ontasuna, ez dezaket baizik zerbitzatu, onetsi ta maitatu bizi guzian. Orai nai badida eman zerua, biz bedeikatua; botazen banau infernura, justoki inen du; baña nik maitatu ta zerbitzatu bear dut al guzia duten bitarteo denbora. Ainberze merejitu zue akta goneki, ezi apareziturik zarrari aingiru bat berdaderoa erran zio demonioaren enbustea; ta ia iragazi zuela mutilak amoriosko akta garreki, ezi bizi guzian egin zuenareki. Imitatu albas fielak, etc., etc.

Serm. 8.

de Spe:

Sperate in Domino. Ps. 4.

ann. 1777

1. Explikaturik lenbiziko mandamentuak manazen digun karidadea, edo onestea Jangoikoa, zer den, noiz ta nola bear den; orai explikatuko dut esperanza, mandamentu berean enzerrazen dena. Zer da esperanza? Da birtute teologale sobrenatural bat, zeñeki esperazen baitugu gloria Jangoikoaren graziaren ta gure obra onen medios. Da ankora seguroa, zeintaik eutxizen baikara fuerte mundu ontako biaje edo nabegazioan. Da gure dibertimentu ta konsolua negarresko balle gontan, gure patria ta Jangoikoagandik desterraturik ausente bizi gara den bitartean. Da esperanza idazarzen, arimazen ta bizkorzen gaituena trabajazeko, obra onak egiteko ta padezizeko bear dena, emen egoteko seinalaturik daukagun plazoan. Da esperanza, martirei martirioak dulce, penitentei penitenziak suabe ta sanduei beren trabajuak aisa iduriarazitiena. Da edifizio kristioaren pilarea edo puntala mantenazen duena tieso infernu guziko aize, ur, tentazio ta furia guzien kontra. Da begietaik beti ere galdu bearestugun izarra itsaso gontan, naiz tenpestade, naiz peligro, naiz tropezu izan dezagun. Da, en fin, kristioendako birtute, nezesarioena ezpada ere, benzait txoil nezesarioa, zerengatik nola ezpaitugu emen gure egoteko ziudadea, baizik bilazenbaikaude gerokoa ta betikoa berze leku batean, Non habemus hic manentem civitatem, sed futuram inquirimus. Orgatik emen deus estugu posesio firme ta perpetuos, ta guzia dugu esperanza sollean. Pasajeroak gara guziok, ta emen duguna dugu prestaturik onenberze denboratako, nork ia nork gutiago. Bides goaz guziok, ta bidanabar tugu tugun gauzak emen, direla onak, direla gaistoak. Aita Sandua esta Aita Sandu perpetuoko; erregea esta errege betiko; andia esta andi, honratua esta onratu, abratsa esta abrats, pobrea esta pobre, ta en fin, zer ere baita bakotxa esta dena posesios ta asentus, baizik edo aldatuko da, biajea akabaño (sic) len, edo segurki biajea akabazeareki. Figura edo errepresentazio bat da pasazen dena mundu gontan, dio San Pablok, praeterit enim figura huius mundi. Orgatik, ia ke ta denbora den brebea, kontadaizen dutenak bizikide estuten bekala; nigar iten dutenak ezpalute bekala; gozazen direnak ezpalire bekala; ta usazen dutenak mundu gau ezpalute bekala usazen, reliquum est ut et qui habent uxores tanquam non habentes etc. Ta errepara bedi ezi diola usazen dutenak, zerengatik solamente eman zaigu mundu gau usazeko bidanabar, ez gozazeko posesios; ala nola eman balezote bati bestidura bat ez beretako, baizik usazeko biaje batean. Beras, emen garena ezkara sines ta firmeki, ez, baizik denbora piska bateko, tempus breve est, akabatu arteo mundu ontako teatroan errepresentazen den tragedia. Ikusi duzie tragedia edo errepresentazio bat? Adornazen da teatroa, prestazen dire bear diren gauza anitz ta diferenteak; batek iten du erregeren papela, berzeak kaballero errepresentazen du, berzeak dama, berzeak soldado; onek arzai, arrek lakaio, bakotxak duen papelaren konforme: iten da errerepresentazioa; ikusten da; dibertizen da; alabazen da, biba, biba; baña akabatu da errerepresentazioa? gorazen da teatroa, erretirazen da jendea, buluxten du bakotxak zuen trajea, ta atrazen dire karrikara; ta non da aixteko errege gura, aixteko kaballero, aixteko dama, aixteko soldado, arzai, lakaio gura? Estire ageri. Errege iduri zuena esta orai errege, akaso da zapetain, ta doaie trintxete ta lesnain arzero. Kaballero iduri zuena esta kaballero, akaso da esklabo bat, doaie manazen dioten errekaituain itera. Dama iduri zuena esta dama, akaso da esklaba,

doaie onzien itera. Arzai iduri zuena esta arzai, akaso da paseante, doaie paseazera; ta ala berze errepresentanteak. Ario gontara da gure biziaren tragedia; emen iduriagatik nai dena, akabatu orduko bizia, andi zena, akaso jausten da beiti infernura; ta txiki zena goiti zerura; abrats zena akaso pobrezen da sekulako, ta pobre zenak bearbada, lograzentu sekulako ondasunak. Orai, bada, substantzia dago geroko gauzetan esperazen tugun, ikustenestugunetan, sperandarum substantia rerum, argumentum non aparentium. Estugu, bada, ikusten Jangoikoa, estugu gozazen gloria, baña esperazen dugu manazen zaigu esperazeko, ta esperatu bear dugu firmeki.

2. Eta noiz gaude obligaturik egitera esperanzaren akta? Karidadearen aktaen ariora: Ezaumentura ellegatu orduko, baitare eriozeko peligroan, baitaere tentazio dugulaik esperanzain kontra garai ez dezakeguna in gabe esperanzaren akta; ta ontas landara anitz aldis bizian; ta berze alde, edozein sakramentu edo gauza sobrenaturala in edo errezipitu bear delaik, ezparin badaike logratu efektoa, in gabe esperanzaren akta. Eta zein da gure esperanzaren motiboa? Da Jangoiko guzis poderosoa ta guzis miserikordiosoa ematentiguna bere auxilioak ta graziak; espezialki Kristoren pasio ta odolaren merejimentuengatik. Nai dut erran, bear dugula esperatu, iten dugulaik gure partetik inala Jangoikoaren graziareki, Jesu Kristoren pasio ta merejimentuengatik emanen digula emen grazia ta perseberanzia, ta gero gloria, zerengatik baita ain ona ta miserikordiosoa. Eta nola bear dugu esperatu? bear dugu esperatu konfiaturik osoki jangoikoa baitan, ta deskonfiaturik gutas, desuerte ezi in dezagun dezakeguna, ta alaere ezkaizen fia geuren baitan, baizik jangoikoa baitan; ta konfiazten dugulaik jangoikoa baitan, ez dezagun utzi egiteko dezakeguna, goardatus alde bat desesperaziotik, berze alde presunziotik, ta berze alde temeridadetik, berla errain dugun bekala.

3. Eta zer da egitea esperanzaren akta, edo nola egiten da? Esperanzaren aktak suponizen du fedea ta deseo bizi bat erdexteko sinestazen duguna; ala, bada, sinestazen dugulaik dela gloria, dela bienabenturanza eternoa, ta alaber dela Jangoikoa guzis poderosoa ta guzis ona, ta eman dezakegula ta emanai digula deseazen duguna, mogizen da biotza ta arimazen da konfianza seguro bateki logratuko dugula Jangoikoaren graziaren ta gure obra onen medios. Explikazen da biotza akta ebeki: Esperazen dut firmeki, Jangoikoa, orren baitan Jesu Kristoren merejimentuengatik emain didala mundu ontan berorren zerbitzazeko grazia, ta berzean bere gloria. Berze bat: O nere Jangoikoa, berori da gure Aita amantea, Jesu Kristo da gure anaia gizontasunas, Maria Santisima da gure Ama dulzea; oien menean dago zeruko gloria; ez dezaket baizik esperatu erdetxiko dutela, ezpanaiz ere digno, dutelaik alako aita, alako anaia ta alako ama. Berze bat: O nere Jangoikoa, nago zeruaren ta infernuaren ertean; tirazen nau zeruaren edertasunak; beldurzen nau infernuaren horroreak; estakit zeintarako nagon, estakit zeintara joain naizen; zer inen dut? sartuko naizitsu itsua Jesu Kristoren bularreko lllagan; eutxiko naiz tieso berain pasio ta odolareki. Zierto nago estuela permitituko malogra naiien, zerengatik ni malograzekos malogratu bear du Jesu Kristoren pasio ta odolak nere baitan. Berze bat: O nere Jangoikoa, bonum est sperare in Domino quam sperare in principibus, obeda esperatu orren baitan ezi ez prinzipieen baitan, zerengatik estut ori bekalako aiskiderik arkituko; guziak faltaturik ere, orrek anparatuze nau. Tu es qui extraxisti me de ventre, spes mea ab uberibus Matris meae, in te projectus sum ex utero. Orrek jaioarazi nau, ori da nere esperanza ni jaioaskerostik, orren besotara botaturik nago. In manibus tuis sortes meae, orren eskuetan dago nere salbazioa edo kondenazioa. Tibi derelictus est pauper, orphano tu eris adjutor. Aur jabe gabea bekala orren anparora utzia nago; eznau utziko

erorzera; ta erorzen banaiz, eznau utziko gal nadien, ezarriko baitu pean bere eskua, cum ceciderit, non collidetur, quia Deus supponet manum suam. Berze bat: O nere Jangoikoa, zenbat aldis libratu nauen infernutik nere bizian! galdu naiak nere burua erabili naiz, ta eznau utzi; gutiago utziko nau orai naiestutelaik. Eznau debalde goardatu. Berze bat: Andiak dire nere bekatuak, baña andiago da orren miserikordia. Kostatu natzaio bere odola, inik dago ia kostua; estu utziko galzera ainberze kostatu zizaiona, dezakelaik salbatu orai ia aisa. Berze bat: Gaizki iduri du, Jauna, orren ardi bat bere odolareki eresia, bere markareki seinalatua, bere gorputz preziosoareki alimentatua egotea infernuko otso gaien atzeparretan; orren honra da librazea, ta libratuko nau. Ta en fin, elduzaigulaik tentazioa garen edo ezkaren predestinatuak, apartatu pensamentua, ta erran konfianza andiareki: Etiámsi occiderit me in ipso sperabo, ilzen banau ere Jangoikoak, arren baitan izain dut nere esperanza. Izain dena izain daiela, galzen banaiz, neuronek izain dut kulpa, salbazen banaiz, Jangoikoarena izain da miserikordia. Aita ona dut, nai dut zerbitzatu, beraiki konponduko naiz, ta inen du nereki, ona ta sobra ona den bekala. Au da, en fin, akta bat exzelentea San Pablok erakutsia, Proprio filio suo non pepercit, sed pro nobis tradidit illum, quomodo non etiám cum illo omnia nobis donabit? Bere seme proprioari etzio barkatu, baizik neregatik entregatu zue; bada, nola estigu emanen guzia Jangoikoak emanzigulaik bere semea? Seme bera ofrezitu ze gizon eginik ilzera, Espiritu Sanduak konkurritu zue berain gizon egitean ni salbazeagatik; bada, nola estut salbatu bear daudelaik ain enpeñaturik Aita, ta Semea ta Espiritu Sandua? Certus sum. Zierito nago ezi ez eriozeak, ez biziak, ez aingiruek, ez oraiko ta ez geroko gauzek, ta eztare niork ere eznauela apartatuko Jangoikoagandik.

4. Goazen orai ikustera, zenbat modutara falta daiken esperanzaren kontra. Irur modus faltazen da, edo irur dire bekatuak esperanzaren kontra: Desesperazioa, presunzioea ta temeridadea. Bear da moderazioa, berzetan bekala, esperanzan ere, ez sobra ta ez gutiegi. Gutiegis da desesperazioa, zein baita galzea esperanza, iten duelaik juizio bekatariak ia estakela salba; edo dela sinestatus estiola naiko barkatu Jangoikoak, edo sinestatus ez dezokela barkatu. Azken sineste goneki juntazen bada desesperazioa, da herejia, ta iten dire bi bekatu mortale fedearen ta esperanzaren kontra; lenbizikoareki bat, baña ura ere horroroso. Agrabio txoil andia iten diote Jangoikoaren miserikordiari galzen dutenek esperanza; alakoak dire Kainen humeak ta Judasen anaiak; arrek erran zue, iagokoa zela bere maldadea esperazeko baño barkazio; ta onek urkatu zue desesperaturik bere burua traiziatu ondoan bere maestraua Jesus. Ta diote San Agustinek ta San Jeronimok, ia gaizki in zuela Judasek beretako, ta ia ofenditu zuela Jangoikoa bere desesperaze gartan, ezi ez salze gartan. Beras esperatu zuke Judasek barkazio, saldu ondoan bere maistru dibinoa? Nola da esperatu zuken? Esperatu bear zue dudarik gabe zerengatik dudarik gabe salbatuko ze, konbertitu baze. Au ematen du adizera fedeak, ta progazen du esperienziak; zerengatik juramentu iten du Jangoikoak eskritura sagratuan, estuela nai gal daien bekataria, baizik konberti daien, ta salba daien, Vivo ego, dicit Dominus, nolo mortem peccatoris, sed ut magis convertatur, et vivat. Ta dio ere, ezi edozein ordus konberti daien, atzenduko dela Jangoikoa arren bekatu guzies. Ta exenplu ere dugu bekatari jenero guzietan. Orra Lonjinos, lanzada eman ziona, da orai sandua ta dago zeruan. Zenturiona ta berze zenbait ere judioetaik konbertitu zirenak seguroki salbatu zire. Andiak barin badire ere bekatuak, beti da andiago Jangoikoaren miserikordia. Gizonaren malizia dena dela Jangoikoaren miserikordian aurkinzean da oroat nola txindi bat itsaso guziain barnean. Dio Krisostomo andiak: Testigo ladron ona, San Pedro, San

Mateo, Magdalena; testigo denbora guziak; testigo ere mundu guzia, zerengatik betea baitago berain miseriakordias, Misericordia Domini plena est terra. Testigo, en fin, gloria bera, zeintan millonka baitire len bekatar izanak, ta konbertiturik miseriakordia erdetxi zutenak.

5. Baña berze alde kuidatu bear da estaien falta sobras, edo esperatus salbatuko garela Jangoikoaren miseriakordiareki sollik geure obra onik gabe, edo geuren obra oneki sollik Jangoikoaren miseriakordia gabe. Au deizen da presunziona, ta sinestazen delaik erran dugun konforme da herejia. Esta aski sollik Jangoikoaren grazia, estare sollik gizonaren dilijenzia beraren salbazeko. Jangoikoaren grazias naiz naizena, zio San Pablok, ta estago debalde arren grazia nere baitan. Trabajatu naiz guziak baño ia, baña ez sollik, baizik Jangoikoaren grazia nereki bateo. Bi gilza ditu zeruko erreinuak, bata dago Jangoikoaren eskuan, berzea gure eskuan. Nai dut erran, ezi sarzekos zeruan bear dugula in dilijenzia guk Jangoikoareki ta Jangoikoak gureki. Konfiazeta bere baitan da kana me batean parazeta karga bat andia ta bidrioskoa bekala. Ezkara sufiziente geurengandik egiteko sikiera pensamentu bat ona. Konfiazeta jangoikoa baitan sollik in gabe gure partetik dilijenzia da oroat nola batek ezpalez nai eraiki konfianzareki ezi Jangoikoak emain diola; da oroat nola erremedioik in ezpalez eriak konfianzareki ezi Jangoikoak kuratuko duela. Prest dago Jangoikoa, baña zuk idikozu biotzeko ataria. Jangoikoaren eskua edaturik dago; edazazu zuk ere zeurea, trabajazeko zure salbazioan, zerengatik eskuak eskua gabe deus ez dezake, zio Junipero benereak erakutsi zion bekala Jangoikoak agertu ziolaik esku bat bisionean. Baña aun itentugulaik ere obra onak Jangoikoaren lagunzareki, beñere ez soberbia, beti izan bear dugu beldurtasuna, izan daien arreglatua gure esperanza, cum timore et tremore vestrâ saltem operamini, zerengatik beñere esta sobratu salbazeko dilijenzia, ta estakigu aski iten dugun; ta beti pensatu bear dugu estugula iten bear den guzia: ta iten dugun piskan ere izaten dela zerbait imperfekzio. Nola ezkara beldurtuko, dio San Gregoriok, dakigulaik gure obra gaistoak direla gaisto utsak, ta gure obra onak estirela on utsak? Ta guzien gain ez dezake jakin gizonak, ezpada errebelazios, den edo esten predestinatua, dagon Jangoikoaren grazian edo Jangoikoaren odioan. Nescit homo utrûm amore an odio dignus sit. San Luis Beltranek, milagroak iten zituelaik ere, erraten zue bazekiela ziertoki kondenatuko zela, ezpazue salbazen bere merejimenturik gabe Jangoikoak; ta paseazen zegolaik laguneki, erretirazen ze nigarres beldurak salbatuko ote zen. Eta San Franzisko beldurberareki aflijiturik zegolaik, komekatu zue milagrosoki Jangoikoak, ta errebelatu zio salbatuko zela, ta orañik beldurzen ze. San Jeronimo, San Krisostomo, Santo Tomas de Akino ta berze franko aflijizen zitue beldur berak; ikas dezagun deskonfiazzen geuren burues ta konfiazzen jangoikoa baitan, iten dugulaik bitarte inala lograzeko salbazioa.

6. Orain eldu da irugarren bekata esperanzaren kontra, baita esperazeta banoki Jangoikoaren miseriakordian, ta ez ongi bizitzea, ta ustea eriozeko orduko konbertizea; au deizen da temeridadea. Irri egiteko gauza da; gaizki erran dut, negar egiteko gauza da ikustea arroago bizi direnak esperanza iagoreki justoak baño, estutela nai ajustatu, gero inen dutela penitencia, estela zerua agotzes betezeko; noiznai aizen duela ta admitizen duela Jangoikoak bekatar konbertitua; ta zein konsolaturik bizi diren beren bizioetan, espezialki gasteak, baleukate bekala eskritura eginik izain dutela denbora, konbertituko direla ongi, aitukotuela Jangoikoak, idikiko tiotela par en par zeruko atariak; bitarte ajustaturik bizi direnak daudelaik beldurak izain duten edo estuten leku piska bat zeru basterrean. Milagro iduri bat da au. Frai Gil benerealea bisitatu zute personabazuek, ta

despeizerakoan erran ziote: Enkomenda gaiza Jangoikoari. Detenitu zitue sanduak, ta erran ziote: Jaunak, Jaunak, nor naiz ni, oien enkomendazeko? Oiek bai enkomendatu bear naute ni, itenbaitidate bentaja fedean ta esperanza. Nola da ori? erreplikatu ziote; ta Sanduak: Ala Jaunak; oiek munduko enredo, banidade, lisonja, ondasun, gusto ta erregaloen ertean sinestazen ta esperazen dute salbatuko direla; ta ni oietara guzietara ukaturik, nago ikar ikar, estutela kasi ikusten erreskiziorik esperazeko nere salbazioa. Ikus bezate ia estidaten iten bentaja fedean ta esperanza? Kardenaleak zire aiek, ta akaso zire sanduak, baña beren grandeza ta trafagoengatik erran ziote: Baña bekatari arro konsolatuei errandakiokete bentaja iten diotela birtuosoei fedean ta esperanza, baña fede bilean ta esperanza banoan.

7. Sinesta bezate, bada, dela esperanza temerarioa bizi gaisto baten ondorean esperazea gloria bat sekulakoa, sanduek erosi dutena trabaju ta pena kontinoen kostus. Il daike ongi, erraten dute, baña ori da kasualidade bat ta milagro bat. Errefran erregulara da, ezi nola den bizia, ala dela eriozea, ta arrazioak ere erakusten du, zerengatik eriozea da biziaren ekoa. Erreparatubideuzie oian ertetan oiur bat egin ta nola aizen den berze aldetik ekoa geroxago; ala, bada, nola oiurten delarik «belz», ezpaitu errepetizen ekoak «txuri», oroat bizi belz itsusiari estio korrespondizen erioze preziosoak. Eriozea da biziaren ispilua: Izan beti gaistoa, ta orduan on agertu estaike. Eriozea da biziaren itzala: Gorputz andiak iten du itzal andia, txikiak txikia; ala bizi onak erioze ona, gaistoak gaistoa. Eriozea da biziaren uda: Eraiki zizaña ta bildu gari, plantatu malda, ta bildu mats, esta ikusten; ta oroat kasi bizian deabru ta eriozean sandu. Baña, Jauna, aborrezi dezkiere orduan bekatuak, konfesa daike. Beñik bein estakigu izain duen denboraik; ta izanik ere au, aisa falta daike dolore berdaderoa. Nai duzu in penitencia bekaturik in ezdezakezulaik, ori da zu bekatuek ustea, ez zuk ustea bekatuak, dio San Agustinek, ta esta fiazan alakoen orduko konfesioes ta absoluciones. Orduan, dio, konfesazen ta absolbizen dena doaien emendik seguro, ni eznago seguro. Zer diot? kondenatuko dela? Estiot ori. Salbatuko dela? Estare. Zer dio bada? Estakit, estut presumizen, estut ofrezizen, estakit. Nauzu libratu dudatik? emenda zaite, sano zaudelaik. Demonioak ia tentatuko du orduan ta engañatuko du, ta bera ere esta egoin ain dispozizio onean, ta Jangoikoak estu obligaziorik emateko bere auxilio espezialak bere etsai bizitu denai. Ezkaizala izan inprudenteak ta temerarioak, ezpadugu nai izan sekulako petardo bateki engañatuak.

8. Konzertatu ze bat deabruareki, ezi onek abisatu bear ziola irur urte lenagotik bere eriozea. Ongi da, erran zio deabruak; ta berzea bizitu ze bizioetan seguridade falsu goneki. Azkenerat agertu zizaio deabrua, ta erran zio: urdindu zaizu ia biloa, zartu zara. Botatu zue berzeak ordu gaistoan. Itzuli ze berze urtean, ta erran zio: Bizkarroi ere ia anditu zaizu, in zaizu ia korkoba. Koleratu ze berzea ta bota zue len bekala. Irugarren urtean itzuli ze, ta erran zio. Ia larki zartu ta konsumiturik zaude. Suturik berzeak bazoeie botazera; ta deabruak orduan: Ori, ez, ia nerea zara, erran zio agerturik bere figura. Kejatu zizaio berzea ia zerengatik etzuen abisatu, ofrezitu zion bekala. Errespondatu zio: Nik kunplitu dut, zer abisu ia nai zindue? Ta erran ta egin, erman zue infernura. Berze bati kasi gisa berean gertatu zizaio; pasatu ondoan bizi infame bat, erdetxi zue Jangoikoaren kastigoak lurreko justiziaren medios. Kondenatu zute urkazera, ta deitu bearrean Jangoikoa, deitu zue demonioa libra zezan. Etorri zizaio demonioa kargaturik zapeta zarres, ta erran zio: Tori, zapeta ebek guziok gastatutut zure bila zure denboran, ta orai dutelaik okasioa ermateko zure arima, ain tonto naizela uste duzu ezi libratu bear zaitutela? Ez alakorik. Guti aski dut, erraten zue berze gaisto batek, nola nik errandezazketen irur itz

il baño len, estut beldurrik. Irur itz gaietan entendazen zue kontrizioaren itzak. Pasazen ze, bada, aldi bates zubi batetik bere zaldian, tropezatu ze zaldia ta erori ze ugaldere gizona; ta erorzerakoan erran zitue irur itz; baña zer itz? Ebek irurok: Guziaz erman du deabruak. Ta egia izan ze errana. Berze batengana eriozeko orduan joan ze asistizera Belarmino kardenala, ta exortazen zue forma zezala kontrizioa biotzes. Zer da kontrizioa, erran zio eriak. Kontrizioa da sentimentu andi bat bekatues Jangoikoa bera denagatik. Errespondatu zue eriak: Estakit, ez dezaket; ta ala ilze sekulako. Logrero bat abrastu zena gananzia injustoes abisazen zue konfesoreak emendazeko ta errestitu zio egiteko; baña exkusazen ze erranes bazela denbora orañik. Pasatu zire urteak ta erori ze eritasun peligruso batean; orduan instazen zio finki konfesoreak egin zezala konfesio bat ona ta errestituzioa. Au berau akonsejazen ziote humeek ta adiskideek, ta dotoreek, zeñek ia desauziatu zute. Baña eria beti zego erraten bazela denbora, ta solamente kuidazen zue eman zezoten zukua, edaria ta gañarako erremedioak. Lokumatu ze, ta idazarri zelaik asi ze oius ta aspamentus deizen konfessorea, ezi nai zuela konfesatu. Eldu da konfessorea ta erakusten dio examinazen konzienzia, formazen dolorea, ta prinzipalki enkargazen errestituzioa, baña debalde, zerengatik gauza lurrekoak aipatu orduko, zego txoil abil ta erne, baña aipazean arimako gauzak, berla ezarzen ze turditurik, konfuso ta perplexo. Oiu inzue ia orduan: O urrikimentua, non zara? exortazen zue sazerdoteak egitera kontrizioa, ta errespondatu zue azkenean: ez dezaket orai nautelaik, zerengatik ezpainue nai izandu nukelaik. Ta ala ilze. Ez fia, bada, esperanza banoan; ain guti deskonfiatu beñere Jangoikoas baizik izan esperanza firmea, bitarteo trabajazen delaik iteko inala. Unitu gure merejimentuak Jesu Kristoren merejimentueki, ta Jaunonen pasioaren kaparen pean estali gure buruak, barkadakizkigungatik bekatuak, ta agradadakizkiongatik ia Jangoikoari gure obra onak. Gisaontan pasa zagun sandu ta justoki gure biajea, ellegatuartaño zeruko portura, ta asi gaizen erranes fede, esperanza ta karidadearen aktak: Nik sinestazen dut, etc.

Serm. 9.
De Fide.
ann. 1777

1. Explikaturik ia karidadea ta esperanza, explikatu bear da fedea, lenbiziko mandamentu berean manazen dena. Fedea, zein ere baita gure salbazioaren prinzipioa, zaña ta zimendua; arimen argitasuna, gauza on guzien ama, iturria ta fundamentua, zein gabe imposible baita Jangoikoari agradazea, zein duena salbazen baita, estuena estaike salba. Fedea, zein baita ispilua, zeintan ikusten baita Jangoikoaren ta zeruaren grandeza ta marabillak; zein baita arimaren eskuieko begia, ala nola arrazioa baita ezkerrekoa. Fedea, zein baita Jangoikoaren esposaren erastuna, errelijione berdaderoaren marka ta dibisa, Jangoikoaren exerzitoaren bandera, Jangoikoak emen plantaturikako elizaren zimenduko arria edo peña, zeñen kontra ezpaita indarrik asko infernu guziak; kolumna edo pilarea, zeintan sustentazen baita zeruko edifizioa; eskalera lurretik zeruraño ellegazen dena, ta en fin, atari solla ta bakarra an sarzeko gizona.

2. Baña zer da fedea bere esenzias? Da ikustenestugun gau zain sinestazea, zeren errebelatu baitio Jangoikoak Elizari, ta Elizak ala erakusten baitigu guri. Da birtute sobrenaturala ta teologala Jangoikoak infundizen duena ariman, Jangoikoak obrazen, plantazen ta ezarren duena nai duenaren baitan, hoc est opus Dei, ut credatis, Jangoikoaren fabore ta don espeziala ta graziosoa berzei; erregalazen diotena, zeñengatik eman bearbaitiogu anitz grazia guk, munduko guzietaik berexiak garenek beraren miseriordia ta probidenzia merejituezkindukenaren medios. Fedearen motiboa edo gure sinestearen motiboa da Jangoikoaren itza, zein ezpaitaie engaña, ta ezpaitezake engañatu. Estaike engaña, zeren baita infinitoki jakinsua; ez dezake engañatu, zeren baita infinitoki ona; ta orgatik ain zierto da fedeak diona, ezi ezpaitaie izan ia. Da nezesario salbazekos txiki andi guziendako; aiendako fede habituala bataioaren medios infundizen zaiotena; ta ebendako artas landara fede aktuala ere bai, auda, sinestazea errealki Jangoikoak errebelatu duena. Nondik dakigu nezesidade ain ertxi gau? Ebanjeliotik, zeintan baitio expresoki Jesu Kristok ezi estuenak sinestazen kondenatuko dela, qui veró non crediderit, condemnabitur.

3. Eta zer gauza gaude obligaturik sinestazera? Jeneralki Eliza Ama Sanduak sinestazen duen guzia. Ta aski da ala jeneralki sinestazea Elizak sinestazen duen guzia? Ez, esta aski; bear da ortas landara sinestatu partikulariki, espezialki ta berex zenbait gauza: Lenbizikoa, dela jangoiko bat, ta premiazentuela onak ta kastigazentuena gaistoak. Bigarrena, enkarnazioko misterioa, au da, Jangoikoaren Semea in zela gizon guregatik, zein deizen baitugu Jesu Kristo, dela Jangoiko ta Gizon, jaio zela, il zela ta erresuzitatu zela. Irugarrena, Trintateko misterioa, au da, dela jangoiko bat ta irur persona distinto, Aita, ta Semea ta Espiritu Sandua, bakotxa delaik Jangoiko, estirela alaere irur Jangoiko baizik bat solla ta bakarra. Au guziau bear da jakin ain preziso, ezi ezpaitaie nior exkusatu ignoranzias. Ontas landara mandamentuaren obligazios gaude obligaturik sinestazera, ta por konsigiente, jakitera bekatu mortalaren azpian gure fedearen artíkulo ta misterio guziak kredoa daudenak, aldareko sakramentua ere bai, Aita gurea, Jangoikoaren legearen mandamentuak, Elizakoak ta sakramentuak, guzia expresoki ta berex. Eta nola bear dugu sinestatu? Ain firme ta seguro nola begis ikusten duguna, ta seguroago ere bai, zerengatik gure begiak engaña daizke, baña ez Jangoikoa

errebelatutuena fedearen egiak. Baña, Jauna, nik zer dakit errebelatu duen Jangoikoak? Orai eldu da Eliza ala proponizen diguna, orgatik errespondazen da doktrinan galdeiten digutelaik ia zerengatik sinestazen dugun; zerengatik Jangoikoak errebelatu baitio Eliza Ama Sanduari, ta Eliza Ama Sanduak ala erakusten baitigu guri. Entendazeko obeki, aizagun parabola gau: Emasteki pobre bat edo bere kulpas edo bere desgrazias izan ze desterratua izorra zegoelaik kalabozo ilun batera lurraren pean, zeintan ezpaizue berze argirik baizik krisallu batena. Erdi ze bere denboran, ta azi zue seme izan zuena ilunbe gartan. Ellegatu ze ezaumentura aurra, ta ezaun duzue bere burua estado desdixatu gartan, baña ama zerbait konsolazen ze ia izateas konpañia, ia emanen konbersazio. Aizazu, erraten zio, nere semea, emen gure gañean dago mundu bat, zein ederra! ikus bazindez! Nik ezdezakezut explikatu, ta zuk estuzu entendatuko; zeren ezpaituzu ikusi, baña emain dizut adizera zerbait emengo desdixatik. Ikusteunzu ematendiguten ur eskas ta turbio gau? Bada, ikus bazindez an zein abundante dagon itsasoan, nola doaen ugaldetan, nola sorzen den iturrietaik, ta nola erorzen den lañuetaik. Ikusteunzu krisallu gonon argi gau? Bada, ikus bazindez iruzkia zein ederra, zein argia bolazen den zeruan. Nola entendatukouzu? pensa zazu juntazen direla batean milla argi au bekalakoak, estire deus arren aldean; doblazkizu milaka, estire idurituko ere beraiki, ez lukete ere argituko berain aurkinzean; berak bakarrik argizentu munduko zoko guziak; zenbat milla legua bidean ordea? Nola egoin ze mutiko gura aizen gauzaebek? Sinestatuko ote luzke? Ongi tontoa izain ze, ezpazitue sinestazen eta krisallu argi garreki kontent, ezpalu igan nai ikustera iruzkia, balu lizenzia zer lizake? Aur gura bekala, kalabozo gartan, gaude gu mundu gontan desterraturik ausente zeruko gloriatik, baña ango notiziak ematentigu gure Ama Elizak, zein baita kristio guzien kongregazioa, Espiritu Sanduak gobernazen duena, zeñek azi baikaitu esne goneki. Guk aurrak bekala aski dugu txupazea esne ematen diguna baitire egi eta fedeak, ezdezazkegulaik entendatu ta txegatu; guri zer zaigu? Gure Ama Elizak txegatu ta rumiatutu bere apostolu, doktore, konzilio ta sanduen medios, mila zazpitan egun ta ia urte ebetan; niri ematen tida konbertiturik esnean, aski dut txupazea txegatu gabe; diot, aski dut sinestazea diskurritu gabe, zerengatik ongi ikasirik dauka gure Ama elizak Jangoikoagandik. San Roman zego tormentuen ertean konbertitu naiak bere berdugoa ta tiranoa gure federa. Zego berze asko jenderen artean ama bat bere aur titikoareki besotan; ta ikusirik sanduak erran zio tiranoari: Ni ezpanau sinestazen galdein bezo aur garri; berla aur len minzazen etzekienak erran zue klaro guzien alzinean: Jesu Kristo da Jangoiko berdaderoa. Aturditurik tiranoak erran zio koleriko aurrari: Bada, nork errandik iri? errespondatu zue aurrak: Niri erran dida nere amak, ta nere amari Jangoikoak. Aur gonek erakusten digu fedearen doktrina, zerengatik sinestazen dugun; zerengatik guri erakutsi baitigu gure Ama Elizak, ta gure Amari Jangoikoak; ta au da seguroago guresinestaindako ezi ez ikus bagindez geuren begis, zerengatik ebek frankotan engañazen gaituste. Ikustentugu uso baten lepoan anitz kolore, bein moratu, bein pajizo, bein gorri, ta engañazen gaitu bistak. Ikusten dugu urean palo bat, iduriarasten digu dela makurra, ta atra ondoan uretik desengañazen gara dela txuxena. Ikusten dugu iruzkia, ta begiek diote geldi dagola, ta da engañua zerengatik dabila, ta lazki alaere. Ala engañazen gaitute begiek, ta alaere engañazen gaitu gure entendamentu ta diskurso flakoak, baña ez beñere fedeak, naiz ez ikusi, ta ez entenda.

4. Borz prezeptu ditu fedeak, irur afirmatiboak, ta bida negatiboak. Lenbizikoa da jakitea fedearen misterioak. Prezeptu gonon medios gaude obligaturik, arraziora etorri ta berla ikastera ta jakitera aistean errantugun gauzak, edo katezismoak dion bekala,

laurebek: Zer sinestatu, zer eskatu, zer obratu ta zer errezibitu; au da, Kredoa, Aitagurea ta Abe Maria, Mandamentuak, obra miserikordiasakoak, sakramentuak ta ebendako disposizioak, mezaren sakrifizioa, sanduen inbokazioa, errelikia ta imajinen benerazioa, eriozea, juizioa, gloria, infernua, purgatorioa ta arimaen sufragioak, zeñazen ta santiguazen, fede, esperanza ta karidadearen aktak egiten; ta en fin, bakotxaren bere estadoko obligazioak. Zenbait orazio gaietaik da obligazio Elizako prezeptu ta kostunbrearen medios jakiteko memorias ebek ta gañarakoak bear dire jakin entendatus benzait substanzian, desuerte ezi galdeinik eman dezaken arrazio sufiziente aietas. Aite ta amek, superioren ta kargudunek dute obligazio erakusteko beren kargukoei, ta por konsigiente, jakiteko obeki, erakuts dezaketen gisan. Emendik ere da obligazioa asistizeko doktrinara, ta estakitenak beren kulpas edo floxezas daude bekatu mortalean, dire indigno errezibizeko sakramentuak, ta oroat aien kargudunak baldin eben faltas barin bada ignoranzia. Juntatu zire anitz obispo ta sazerdote konzilio batean Franzian; enkargatu ziote bati predikua, emateko prinzipio konzilioari. Zego aflijiturik diskurrizen zer erran. Aparezitu zizaio demonioa gizon itsusi baten figuran, ta erran zio: Zerk aflijizen zaitu? errespondatu zio sazerdoteak etzekila zer predikatu, ta ortas aflijizen zela. Orduan demonioak, bada, nik erakutsiko dizut, predikazkio zute solamente itz gebek: Infernuko erretore ta prinzipiek bialzen tiote gorainziak elizetako prelado ta parrokoiei, ta ematen tiote anitz grazia duten deskuidoas doktrinazean puebloak, zerengatik ignoranziatik datoz bekatuak, ta bekatuetaik kondenazioak. Au erran beauzu; ta jakin zazu ni naizela demonioa, ta Jangoikoak manazen ta obligazen nauela zuri abisu gau ematera. Baña nola, erran zue sazerdoteak, nola sinestatuko naute? errain dute, nik finjitu edo amets in dutela. Erreplikatu zio demonioak, nik emain dizut señailea, sinesta zaizaten; ta pasazen ziolaik eskuas aurpegia, utzi zio ikaza bezain belz, ta erran zio: Nauzun guzia garbiturik ere, estuzu kenduko koloregoi, baizik solo erran ondoan nik errana, garbi zaite ur bedeikatus elizan berean, ta itzuliko zaizu lengo kolorea. Ala izan ze. Agertu ze konzilioan belz itsusia, arriturik zeudela guziak, erran zitue itz enkargatu gaiek, ta berla pasatu orduko ur bedeikatus txuritu zizaio aurpegia len bekala. Pasmatu zue kaso gonek Franzia guzia. Kuidado deskuidoareki doktrinan.

5. Bigarren prezeptua fedearena da asentizea fedeari geuren gogoan, au da, sinestazea misterio fedearenak, ta egitea fedearen aktak. Noiz dugu obligazio egiteko fedearen aktak? Beñik bein ezaumentura ellegatuaskeros berla; eriozeko orduan ere bai, dugulaik tentazio fedearin kontra garaituestaikena egin gabe fedearen akta; ta ebetas landara maiz bizian, oroat nola esperanza ta karidadearenak; ta berze alde, konfesatu edo berze gauza sobrenaturale bat in bear dugulaik, bear da fedearen akta, zerengatik au gabe estaike eman pausurik orden sobrenaturalean. Fedearen akta txoil ona da Kredoa erratea bear bekala, zerengatik an erraten da: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso baitan etc. ta expresazen dire gure fedearen misterio prinzipialenak. Oroat egin daike fedearen akta expreso misterios misterio, iten dugun bekala jaietan; solamente bear da kuidatu sinestazen duguna sinestazeas biziro, ezi ala sinestazen badugu, kasi da imposible bekatu egitea, barin bada juizio. Orgatik zio diskreto batek, ezi kastigazeko gure bekatuak ez lizakela berze karzelik bear baizik eroena eta inkisizioa; zerengatik edo iten dugu bekatu sinestatu faltas fedeak diona, ta ala inkisizioak bear ginduzke kastigatu hereje bekala; edo iten dugu sinestaturik fedeak diona, ta ala juiziorik estugula erakusten dugu, ta kastigatu bearginduzkete eroak bekala. Da por konsigiente gauza txoil protxugarria ta nezesarioa maiz egitea biziro fedearen akta. Erran zagun, bada, ebanjelioko gizon garrek bekala.

Ekarri zue bere seme bat espiritua Jesu Kristorengana, zerengatik ezpaizukete libratu izandu apostoluek. Erran zue orduan Jesu Kristok: O jenerazio fede gabea, ekarzie neregana; ta aiturik gizonaren otoia librazezangatik bere semea, erran zio: al badezakezu sinestatu, guzia da posible sinestazen duenarendako. Errespondatu zue gizonak klamores ta nigarres debozio andiareki: Sinestazen dut, Jauna, supli bez nere fede falta, credo Domine, adjuva incredulitatem meam. Ta berla sendatu zue Kristoren Majestadeak. Ala guk ere in bear dugu maiz fedearen akta: Credo Domine, sinestazen dut, Jauna, baña oneki bateo eskatu ere bear dugu maiz supli dezala gure fede falta, adjuva incredulitatem meam. Zerengatik barin badugu fede osoa ta bizia, logra dezakegu santidade perfektoa, bizi bat zerukoa, gloria bat andia, ta ebetas landara añaditukozaizkigu emengo gauzak, omnia possibilia sunt credenti: Haec Domina adjuventur vobis.

6. Irugarren prezeptua fedearena da publikoki konfesazea fedea; ontara obligaturik gaude, galdeitenbaligu juez edo tiranoren batek. Ikus bagindez ultrajazen Kristoren edo sanduen imajinak; ikus bagindez proximo laguna flakeazen fedearen konfesioan; ta en fin, beti ta noiz Jangoikoaren honrak, gure edo proximolagunaren salbazioak grabeki peligrazen duen, ezpadugu konfesazen publikoki fedea, gaude obligaturik konfesazera, naiz biziaren kostus, zerengatik dio Kristo gure Jaunak, ezi nork ere bera konfesazen duen munduaren alzinean, ura berak ere alabatuko duela bere Aita Jangoikoaren alzinean, ta nor ere alkezen den beras, oroat artas alketuko dela Aita dibinoa. Exenplu anitz ta admirableak tugu fedearen konfesio publiko gonetak lengo denbora floriga gaitan, zar, gaste, aur, birjin ainberze ta ainberze gaitan, zeñek firmatu baizute bere odolareki fede katolikoa. Eta guk ere ellegaturik okasiora egin bear ginduke gisa berean. Estugu okasiorik presentean; estakigu ellegatuko den; benzait prebenitu bear dugu, ta erakutsi orduan inen gindukena, orai sufritus persekuzioak, irriak ta burlak segitukozaizkigunak mantenazen bagara Kristiotasunean, omnes qui pié volunt vivere in Christo Jesu, persecutionem patientur, zerengatik debalde diogu sufrutuko gindukela ezpata, isuriko gindukela odola Kristorengatik, ezpada arimorik orai sufrizeko punzada txikiebek, desprezio ta burla ebek beragatik.

7. Laugarren prezeptua fedearena da ez ukazea bere gogoan ta ez dudazea fedea. Borzgarrena, ez publikoki ukazea fedearen artikulorik batere. Dudazea positiboki eta ukazea fedearen edozein artikulorik da herejia, ta alakoa da hereje; ukazea artikulorik guziak edo geienak deizen da apostasia, ta alakoa apostata. Bataiatuak esta gonak ez sinestazea gure fedean deizen da infidelidadea, ta alakoa infiel; lege zarra goardazea ta ez admitizea berria deizen da judaismo, ta alakoa judio. Entendatu bada, judioak dire bataiatu gabe goardazen dutenak Moisesen legea, ta eztutenek sinestazen etorri dela Kristo ta lege berria; alakoak dire Kristo gure Jauna gurzifikatu zutenak, ta aien arraza gaistoak erreinu beretik gabe munduan nasteka bizi direnak or Baionako Sankti Spiritusen bekala. Infelak dire ez bataiatuak, ez lege zarra ta ez berria goardazen estutenak, anitz Jangoiko falsu adorazen dutenak; alakoak dire turkoak, moroak ta indietako franko jende legerik gabekoak. Apostatak dire bataiatuaskeros apartatu direnak gure fedetik, ala nola berberian ernegazen dutenak Jesu Kristos. Erejeak dire bataiatuaskeros dudazen edo ukazen dutenak artikulorik bat edo ia gure fedearena; alakoak dire luteranoak, kalbinistak ta berze sekta gaistoak Eliza Ama Sandu Katoliko Erromakoaren fedea osoki sinestazen estutenak. Orai herejia edo fedearen ukazea publikoki egiten bada, da bekatu txoil andia, zeintako ezpaitugu fakultaderik konfesoreek. Au da brebeki fedearen birtutearen gainean errain bear zena. Baze anitz ia errateko, baña aski da au, entendazeko zerbait.

8. Orai geldizen zaigu betiko obligazioa, emateko Jangoikoari graziak, zeren Jangoikoaren grazias baikara kristio gu, berze franko ez bekala; zeren beresi baikaitu gu jende guzien erlean, utzirik infidelidadean infinito akaso guk baño obeki zerbitzatuko zutenak. Zeren daudelaik guziendako ertxirik zeruko atariak, guri soillik eman digu gilza sarzeko, nai dugulaik, gloriako palazio gartan; zeren ustentuelaik jende guziak galzera infernuko itsaso susko gartan, gu sartu gaitu Elizako arka Noen gura bekalako gontan, zeintan libra gaizen nai badugu. Ziertoki erran dezakegu Salomoneki: Non est alia natio tam grandis, esta alako nazionerik munduan nola kristioena. Ta Dabideki: Non fecit taliter omni nationi, estu Jangoikoak egin guzieki gureki bekala. Gloria gaizke, bada, fede dugunas. Galdeiten badigu edozeñek ia kristioak garen, erran dezakegu glorioso: Bai, Jauna, kristioa naiz Jangoikoaren grazias; ta au da nere dignidade ta ditxarik andiena. Errege intitulazen da Don Karlos, Jangoikoaren grazias, errege Kastelako, Leongo, Araguako, Nafarroko etc.; obispo Jauna ere bai, Jangoikoaren grazias, Iruñeko obispo etc., baña titulo guzien lena ta andiena da kristio izatea Jangoikoaren grazias. Ontas gloriazen ze diakono sandu gura, zeñi galdin ziolaik tiranoak: Nor zara? erran zue: Ni naiz kristio. Nongoa zara? Kristio. Nola deizen zara? Kristio. Zer ofizio duzu? Kristio: Ta beti zego itz gontan, zatikaturik akabatu zuten arteo. Baña barin badugu honra ta kuadrazen bazaigu, ikasagun obligazioa ta kunpli zagun. Zer nai du erran kristio? Kristoren gizona, gizon bat duena Kristoren fedea bataio sanduan profesatua ta ala dago ofreziturik arren zerbitzu sandura. Bizi bear dugu, bada, kristioek Kristoren ariora; zerengatik zer balio du dugun fedeak ta izenak, ezpaitugu obra korrespondienteak? Gure obrek erakutsi bear dute nor garen, zerengatik izenean kristio ta obretan antikristo da kimera ta monstruo indignoa. Izan gaizen deizen garena, ta erakutsagun zeruaren ta lurraren alzinean dugun fedea, ta asi gaizen erranes irur birtuteen aktak: Nic sin, etc.

Sermo 10.
De doctrinâ cristianâ.
ann. 1778

(Hinc possunt incipi sermones cathetici conformiter
ad cathechismum Rom..ideo haec sit prima.)
Haec est vestra sapientia, et intellectus
corám populis. Deuteron.4.

1. Egundanik asi nai dut explikazen doktrina kristioaren parteak berex bat banaka; ta lenik erran bear da, zer den doktrina kristioa, zein protxugarria ta prezisoa, zenbateko obligazioa den ikasteko ta erakusteko, ta ontako modua. Asi zelaik Moises explikazen Israelgo puebloari Jangoikoaren legea, animazeko ikastera erran ziote: Torizie, au da zuen jakinduria ta entendamentua jende guzien alzinean, haec est sapientia vestra, et intellectus corám populis. Oneki inen dioze munduko guziera bentaja andia; au ikasten bauzie ongi, jendeak admirazios beterik asiko dire erraten: Zer jende da au? Ona pueblo jakintsua ta entendatua, jende andia, jende inportazioskoa (sic), en populus sapiens, et intelligens, gens magna. Zenbat obeki errandezoket (nere feligres) kristioei nik doktrina kristioas, au da zuen jakinduria, ta au ongi dakitenei, dutela ziertoki ditxa, honra ta grandeza andia? Zer da, bada, doktrina kristioa? Au da jakinduriako tesoro prezioso gura jangoikoaren baitan altxaturik egon zena eternidadean, ta gero menifestatu zena munduari jesukristoren baitan, zeñen ezpain dibinoetaik errezibitu baitu Eliza Sandak. Doktrina gau da lege zarreko figurek, profeta ta patriarkaen orakuloek signifkazen zutena. Au da doktrina kristioa apostoluek barratu zutena mundu guzitik; martirek firmatu dutena bere odolas; doktoreek ainberze ta ainberze libruetan explikatu dutena. (Doktrina kristioa da, zeñen artikuloen deklarazeko juntaturik emezorzi konzilio jenerale izan direnetan kristiandadeko gizon sanduenak, doktoenak ta andienak, noizean noizka, ia Nizean, ia Konstantinoplan, Efeson, Kalzedonian, Erroman, Leonen, Bienan, Florenzian ta Arenton Espiritu Sanduareki bateo erakutsi baitigute egi eta fedea. Doktrina kristiora erreduzizen da zientzia guzien prinzesa, baita teologia bere argumentu, disputa ta asunto guzieki.) Doktrina kristioan enzerrazen dire medio guziak, onzeko bizia, lograzeko salbazioa, sakramentu guziak erdexteko grazia, bide guziak iragazteko birtuteak ta merejimentuak, ta en fin, modu prezisoa ellegazeko gozazera gure fina, Jangoikoa. Doktrina kristioa da, en fin, errelijione kristio, berdadero ta sollaren zimendua, firmamentua ta gloria.

2. Ikusteko zein protxugarria den, aski da beirazea zein den prezisoa. Galdeitea ia preziso den jakitea kristioak doktrina kristioa, da oroat nola galdeitea, ia txoriak beartuen egalak bolazeko, ta animaleak beartuen zangoak erabilzeko; da oroat nola galdegitea ia jakin bear duen josten txastreak, zapeta egiten zapetaiak, nekazariak nekazalgoan ta ofizialeak bere ofizioan. Debalde, bada, deizen da kristio estakiena doktrina kristioa, ellegatuaskeros ezaumentura. Doktrina kristioa da arimaren alimentua; eta nola biziko zara alimenturik gabe? Doktrina kristioa da zerurako bidea; ta nola joain zara, ezpauzu ikasten bidea? Baiña esta medio obeagokorik, ezaunzeko doktrinaren nezesidade gau, nola ikustea, Jesu Kristok, ta bere Elizak, ta Elizako buru ta mienbro prinzipalek iten dutena, erakusteko guziera.

3. Kristo gure Jauna, zeintas erran baizue Aita eternoak, bataiazerakoan San Juan

Bautistak: Au da nere Seme keritua, zeintan baitut nere konplazentzia; aizazie berau. Zertara jaio ze ta etorri ze mundura, baizik erakustera bere zeruko doktrina, baita doktrina kristioa edo Kristorena? Ala erran zio Pilatosi: Ni ontako jaio naiz ta etorri naiz mundura, emateko testimonio egi eta fedeari. Ta ala kunplitu zue bizi guzian, ta prinzipalki azken irur urtetan, enpleatu baizitue guziak erakusten bere doktrina. Egunoro, dio ebanjelioak, zegola erakusten tenpluan, et erat quotidie docens in templo. Baña ez solamente tenpluan, baizik karrikaetan, plazaetan, etxeetan ta oianetan ere. Ta ez solamente egunas, baizik gauas ere erakusten zue. Itsasonzitik ere, butzu baten ondoan ere izan ze okasio erakutsi zuena; ta en fin, etzue galzen okasiorik ontako nioiz ere. Zer egin zue baizik erakutsi doktrina, erran zuelaik Aitagurea bere ago sanduas? Zer egin zue baizik erakutsi doktrina, deklaratu zituelaik bat banaka amar mandamentuak? kontatu zituelaik obra miserikordiasakoak, enkargatuzikigulaik barua, orazioa ta limosna, ta berze birtuteak? explikatu zituelaik zorzi bienabenturantzak? Aipatu zuelaik Trintateko misterioa? Bere erresurrekzioa? Gure bekatuen barkamentua, sekulako premia ta sekulako kastigoa? En fin, ebanjelio guzia zer da, baizik doktrina erakutsiziguna? Eta ainberzeko zeloareki erakusten zue, ezi aldi bates erakusten zegolaik, erran baizitue, beraren galdes zeudela bere Ama ta aidebazuk, erran zue zeloso: Nor da nere Ama, ta nor nere anaiak? Edozein ere baita egiten duena nere zeruko Aitaren borondatea, uraxe da nere anaia, arreba ta ama. Eta ainberze nai zue inprimi zekioten biotzetan bere doktrina, ezi berze aldi bates explikazerakoan dibinoki anitz jenderen alzinean emasteki batek goraturik oiua erran baizio: Ditzoxoa berorri ekar zuen sabela, ta berorri azi zuten bularrak. Erreplikatu zue Jaun dibinoak: Ditzoxoak dire antes bien adizen dutenak Jangoikoaren itza ta kunplizen dutenak. Eta ez dezagun pensa solamente dignozen zela erakustera doktrina andiei, ta ez aurrei, aldi bates apartarastenzustenei aur elduzizaizkionak berain ganako afiziones, erran ziotue: Uzkizie aurroko datozin neregan, zerengatik alakoena da zeruko erreinua. En fin, akabazeko alde gontaik doktrina kristioaren inportantzia ta nezesidatea, aski da erran zuena: Ezi bere ardiek adizen dutela berain boza; ta Jangoikoarena denak adizentuela Jangoikoaren itzak. Ta orgatik etzutela aitu nai eskriba ta fariseoek, zerengatik ezpaizire Jangoikoarenak, baizik deabruarenak.

4. Erresuzitatu ondoan ere, erakusten zuela zuen deshea instruizeko mundu guzia doktrina kristioan, erran ziotue bere ameka apostoluei (Marc. c. ult.): Zoaste ta erakutsi zozie jende guziei. Ta ala egin zute, joan ta predikatu zute leku guzietan, Jaun berak lagunzen ziotela, ta konfirmazen zituela milagroeki aien itzak. Baña prinzipalki erreparazeko da, San Pedro apostoluen prinzipa ta bere bikario usten zuenari erran ziona ta errateko modua. Zerura igateko egunetan Jesu Kristo gure Jaunak enkargazeko San Pedrori Elizaren kargua, kristioen kuidoia, galdein zio kariñoso: Pedro, maitazen nauzu ebek baño ia? errespondatu zio San Pedrok: Bai, Jauna, orrek daki maite dutela. Bada, alimentazkizu nere axuriak. Erreplikatu zio berriz gure Jaunak: Pedro, maitazen nauzu? Berriz errespondatu zio San Pedrok: Bai, Jauna, orrek daki maite dutela, ta orduan berriz erran zio Jaunak, bada, alimentazkizu nere axuriak. Irugarren aldian galdegin zio: Pedro, maitazen nauzu? tristatu ze San Pedro, ta eskarmentaturik bere lentxagoko inkonstanzias ukatu baizue Kaifasen etxean bere maestraua, anitz ofrezimentu egin ondoan, beldurrak bekala, humilki baña txoil sines erran zio: Jauna, orrek daki guzia; bada maite dutela. Orduan JesuKristok: Bada, alimentazkizu nere ardiak. Zer alimentu da au, baizik doktrina kristioaren alimentua? Baña ortako ainberzeko examina, ain progu fuertea, ain kontu errigurosoa zion amorioas? Bai, zerengatik ainberzeko estimazioa egiten du bere axuri ta

ardi kristioes Jesu Kristok, ta eben alimentazeas doktrinan, ezi bein, bi irur aldis maite, ta txoil maite bear du izan Jesu Kristo kargugoi artu bear duenak, eta etzio fiatu nai Jaun berak, baizik bere adiskide amantefiñari. Baña berze gauza bat erreparazen dut, lenbiziko bi aldietan, bi aldis erraten dio Kristok: Alimentazkizu nere axuriak, ta solo bein irugarren aldian, alimentazkizu nere ardiak. Zer da au? Axuriak entenda daizke aurrak; ta ardiak ia anditu direnak; ta ario gontara da erratea, doble kuidatu bear dela erakustear aurrei doktrina, kuidatu bearbada ere erakustear andiei. Kunplitu zue San Pedrok guzieki. Kunplitu zute berze apostoluek. Ta guzien gain San Pablok trabajatu zue itzes ta kartes erakustean doktrina kristioa. Eta izanik elokentea ta jakinsua, akomodazen ze ama on bat bekala ematera doktrinaren esnea aur zirenei Kristorenbaitan oraño. Ala explikazen da bera: Tanquám parvulis in Cristo lac vobis potum dedi. Apostoluen ondoretik aipa zugun San Franzisko Xabier Indietako apostolua amabitan egun milla arima ta ia konbertitu zituen Jesu Kristorengana Indietan amar urte ta ogeita amar milla legua pasatu zituen aietan. Zein ze lenbiziko dilijenzia? Erakustea doktrina. Izanik Aita Sanduaren legado, alare humiltasun andiareki zoeie karrikas karrika bilzen jendea, soñazen zuela txintxa bat ta erraten zuela oius: Kristio fielak, Jesu Kristoren adiskideak, bialzkizie zerbitzen humeak doktrina kristiora Jangoikoaren amorioagatik. Eta ain ongi instruiturik zauzkie aurrak, ezi baizire bere guratsoen maestru, ta obrazen baizuste milagroak joanik San Franzisko Xabierren mezus eriengana; ta juntaturik jendea eriaín aposentuan errezazenzustelaik Kredoa ta berze zenbait orazio. Entendarasteagatik obeki doktrina baliazen ze barbaro gaien itzkuntza llano ta molde gaizes; ta en fin, ainberze ze doktrinarako afizionea ta exerzizioa, ezi andi txikien kantu ordinarioak etxeetan, karrika ta kanpoetan zire doktrinako orazioak. Ah zer exenplua kristiandadeain erdian gaudenendako, ta sanduain lekukideendako!

5. Bada, zer kuidadoa paratu dute Elizako buruek ta konzilio jeneraleek doktrinako asuntoan? Berek erakustea estela aski, enkargazen dute sazerdoteak, guratsoak ta eskolako maestruak, erakus dezatela dilijenzia andiareki. Letrango irugarren konzilio jeneralak iru egun ta ia obispoes juntatu zenak Alexandro Aita Sandu irugarrenaren ordes hereje albijenseen kontra, erremediata naies prinzipiotik kristiandadea, manatu zue sinki instrui daizela doktrina kristioan deskuidorik gabe aurrak. Urrengo jendamendean laugarren konzilio lateranenseak Inozenzio irugarrenaren azpian juntatu baize milla berregun ta laueretan (sic) ogei ta borz Aita espiritualees konfirmatu zue dekreto gura, ta añaditu zue ezi doktrina aurrei erakuste gonek lazki protxu ematen diola Elizari, ta ontan den deskuidoak lazki dañu. Azken konzilio jeneralak, izan baize Trentokoa, borzgarren sesionean manatuginduz arimen kargudunok guziok, predikazeko ta erakusteko doktrina geuren puebloei geuren agos, edo inpedimentu lejítimo dugulaik, berzeen medios, benzait igande ta jai solemneetan, erakustentugulaik salbazeko guziek prezisoki jakin beartusten gauza, ta deklarazentiotutelaik itz brebe, llano ta klaroeki bizio iges in beartustenak, ta birtute segitu beartustenak, libradaizengatik infernuko penetaik, ta logra dezaten zeruko gloria. Eta ogeitalaugarren sesionean, erran ondoan obispo jaunen predikazeko obligazioa, erratentu itz gebek doktrinaren gain: Obispo Jaunek berek kuida bezate erakus dezoten aurrei kargu gau dutenek parrokia guzietan doktrina, ta obediencia Jangoikoari ta guratsoei, benzait igande ta berze jaietan. Berze kapitulo batean alaber enkargazen du explikazea sakramentuak konzilio berak konponarazi zuen katezismoaren konforme, ta au da segituko duguna urrengoan. Aita Sanduek izan duten kuidadoa doktrinan ezaun da konzeditutusten induljenzia ta grazietan onengatik, ta emantusten dekretoetan ortako.

Guzia koronazen du Benedikto XIV. bere pontifikadoko bigarren urtean, orai ogeitaamasei urte (Nempe ann. 1742.) otxallaren zazpigarren egunean kristiandade guzira despatxatu zuen bulan, non lenik deklarazen du zein preziso den jakitea ta entendazea doktrina kristioa; arimen kargudunek duten obligazioa ontan ta kunplizeko modua. Eta sazerdote bat estelarik aski erakusteko sufizienteki guziei, ematen diote obispoei injenio, obligarasteko ordenatu nautenak lagunzera parrokoari ofizio gontan. Kunpliarazi dezotela eskolako maestruei duten obligazioa doktrina erakustean, ta mana dezotela predikari guziei instrui dezkiten guratsoak obligazio dutenean erakusteko beren humeei. Inpedi dezaketela erri txipietako edo kanpoko elizaetan ez dezan niork zelebra meza zenbait zirkunstanziaki zelebratuartaño ta predikatuartaño erriko parrokoak, ta erri andietan alaber injenia dezatela estaian beñere falta doktrina enkargazen du usa daien Belarmino kardenalearen katezismo, edo berzeren bat usazen bada, kuida daiela ez dezon ekarri bearestenik; eta disponi dezala erakus daizen fede, esperanza ta karidadearen aktak, ta igandeoro ta jaioro belaurikaturik aldare nausiaren alzinean parrokoak erran dezkiene klaro, ta errepeti dezkiela puebloak itzes itz, eta estaizela izan itz anitzes, bazik (sic) gutis ta prezisoes. Zer gauza da doktrinaren au, fielak, zeintan ainberze kuidado baitute, ta enkargazen baitute elizako buruek? (Haec de Benedicto XIV. Concina in principio compendi morals).

6. Zer errain dut sanduek emandiguten exenpluas ontan? San Jeronimo, San Agustin, San Anbrosio, San Juan Krisostomo, San Zirilo ta berze infinizio bat enpleatu zire erakusten doktrina kristioa. San Gregorio andia Aita Sandu, elizako doktore, ta ia dena, kontinoki eri zegolaik, ermanarasten ze katedra batean eskolara, non berak, arturik palmatoria eskuan, erakusten ziote aurrei doktrina. San Franzisko Asiskoa joaten omen ze aldirita ta montañetara, ta an bildurik alzuken guziak erakusten omen ziote doktrina. San Kutbertok Inglatteran arzen omen zitue biajeak leku desertuetara, berze predikariak ellegazen etziren errietara, ta an detenizen omen ze erakusten rudo ta ignorantei doktrina. San Norberto Alemanian izanik arzobispo joaten omen ze oroat aldiritara, ta an predikatu ziotena berriz repetizen omen zue galdegines pobre ta rustikoei. San Lanberto, ta San Willibrordo obispo izanik joaten omen zire alor ta oianetara ta an aurkizenzusten nekazari, arzai, unai ta gizon erdi brutoei erakutsirik doktrina itzulzen omen zire etxera. San Bizente Ferrer misionero apostolikoak ez solamente pulpilotik guziei, baita ere zenbait ordus beittik aurrei erakusten omen ziote zeñazen, santiguazen, Aitagurea etc. San Pedro M. Nork estaki, izanik herejeen humea, zazpi urtetan zegola ikasirik doktrina ta gero erakusten zuela asko modus ta asko lekutan? San Ignazio de Loiola esta zer erran, mundu guziak daki doktrina erakusteko zuen afizionea, ta imini zituen probidenziak. Bada, San Karlos Borromeok, kardenale ta arzobispo izanik, zer predikuak, zer legeak paratu zitue erakutsi zeingatik doktrina bere arzobispadoan? Eta izanik prinzipie bere etorkias, ain famosoa bere jakindurias, ain okupatua beti bere elizako ta berze negozios, ta ain erikor bere osasunean, alaere erabili omen zue bere arzobispado guzia, igaten omen ze oian elurres beteak zeudenetara, ta asko aldis atzaparka, erakusteagatik doktrina ignorantei. Zertako exenplu ia?

7. Aizkigun Gerson Parisko kantxiller andi garren itz gebek ain guti kuidado dugunek aures: Ain gauza indignoa iduri du anitzendako, barin bada bat teologo edo famoso jakindurias, apalzea erakustera doktrina aurrei ta ignorantei, ezi bainaukate burlatoko. Baña konbenzientu Kristoren exenpluak, zeñek baitio: Uzkizie datozila neregana aurak. O Jesus piadosoa, nor ia alketuko da izateas humil aur ta rudoeki, dignazen delaik berori izanik Jangoiko inklinazera bere besook aur inozentengana? Idazu

gizon bat, dena espiritualea, bilazen duena ez berea baizik Jesu Kristoren gustoa, dagona beterik karidades, humildades, zelos ta piedades, zeñen biotzean ezpaitu lekurik banidadeak, zein Jangoikoaren aingiru bat bekala ezpaita mogizen ez ongi ta ez gaizki erranes, ezpaitu kasorik gorputzen itxures, baizik bere arrazioaren gasteluan erretiraturik solamente, kuidazen baitu arimes, alakoak entendatuko du diotena nik. Baña errateunte nere okupazioa gauza andiagokoetan izan bear dela. Estakit zierto, badaiken izan gauza andiagorik, nola atrazea infernuko atarietaik arimak, eta plantazea bekala ta erregazea aurttoen ta ignoranteen arimak, baitire Elizako jardin gonon parte bat ona. Baña au, diote, logra dezaketela prediku publikoeki honratuago; bai ponposoago, baña ez nere ustes obekiago. Zatoste, bada, neregana aurrak ta ignoranteak, ta nik emain diziet doktrina, ta zuek niri orazioa; eta ala alegratukotugu geuren aingiruak. Guziau dio Gerson gizon andi garrek. Asi gaizen, bada, guziok nor bere ariora erakusten gure kargukoei doktrina, zeruko bidea, arimen alimentua; planta zagun kostunbre, oroat nola enzuteko meza, bezperak ta gañarako elizako gauzak; baitare oroat nola baitugu Jangoikoaren probidenzias asteoro egun bat deskansazeko gorputzak ta kuidazeko arimak, ar zagun erregla sikiera egun bates asteoro urte guzian erakusteko doktrina. Ai bedi doktrina elizan, doktrina etxeetan, doktrina dibersio ta lanain lekuan, orreki alegratukotugu aingiruak, inen dugu elizaren borondatea, kuadratuko diogu Jesu Kristori ta erdetxiko dugu zeruko gloria. (Haec omnia feré ex claus in praefatione ad 1 catech.).

Serm. 11.
de Doctrinâ Christiana.
ann. 1778

1. Ikusirik doktrina kristioaren inportanzia ta nezesidadea, orai ikusagun zer gauza ikasi bear diren, ta ikasteko modua. Gauzabazuk dire nezesario medioaren nezesidades, explikazen diren bekala teologoak, au da, gauzabazuk dire ain preziso jakiteko mundu guzian, ta munduko guziek, ezi ignorazentuena edozein gisas, estaike niolaterre salba. San Pablok aipatu zitue gauza goiek: Accedentem ad Deum, oportet credere, quia est, et quia inquiredibus se remunerator sit. Da preziso jakitea dela Jangoiko bat, ta premiazentuela onak, ta kastigazentuela gaistoak. Au sinestazea dela preziso dio San Pablok, por konsigiente jakitea. Ontas landara orai ebanjelioa publikatu ondoan da preziso gisa berean jakitea Trintateko misterioa, au da, dela Jangoiko bat, ta irur persona dibino, Aita, ta Semea ta Espiritu Sandua, zerengatik au da fedearen zimendua, ta salbazioarena. Zoaste, zio Jesu Kristok, erakuskizie jende guziak, bataizentuzielaik Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean, euntes docete omnes gentes etc. Eta San Atanasioren sinboloan erraten da: Au da fede katolikoa, benera dezagun Jangoiko bat bakarra irur personetan, ta irur persona Jangoiko bakar batean. Ta akabanzan erraten da: Au da fede katolikoa, zein ezpadu bakotxak fiel ta firmeki sinestazen, ezin daike salba. Ta prinzipioan alaber: nai duenak salbatu, gauza guzien alzinetik da preziso izan dezan fede katolikoa, zein estuenak goardazen osoki ta faltarik gabe, galduko da sekulakos dudarik gabe. Beras, da ere preziso jakitea Trintateko misterioa. Ontas landara da preziso gisa berean jakitea Enkarnazioko misterioa, au da, Trintateko bigarren persona, baita Semea, egin zela gizon, ta dela Jangoiko ta gizon, deizen baita Jesu Kristo, il ta erresuzitatu zela guregatik. Au guziau jakitea da preziso guziek expresoki mundu guzian.

2. Ontas landara da preziso kristio errietan prezeptu grabearen pean ezaumentura ellegatuas geros jakitea laur gauza gaiek: Zer sinestatu, au da, Kredoa; zer eskatu, au da, Aitagurea; zer obratu, au da, mandamentuak; ta zer errezibitu, au da, sakramentuak, benzait errezibitu beartuenak batek. Au guziau jakin bear da, benzait substantzias, de suerte ezi galdeiten diotelaik erresponda dezaken ongi, entendazen dutenek bekala bere kapazidadearen konforme. Au guziau memorias ere jakin bear dela diote autore grabee; berzebazuek estela preziso jakitea memorias, baizik substantzian (Parra plat.21. prima p.). Baña guziak konformazen dire, estela aski memoria solles jakitea, bear dela jakin entendamentus, au da, entendatus doktrina. Ta ez solamente garizuman, baitaere beti exaumentua etorriaskerostik ilartaño. Por konsigiente daude bekatu mortalean ignorazen dutenek edo ikastenestutenek doktrina deskuidos, floxezas, suberbias edo kaso in faltas. Alaber, Aita eta Ama, nausietxokandre, ta apetxaun parroko, ta eskolako maestru, ta berze gisas kargu gau dutenek, ezpaute kuidazen erakustean bereei ebek obligazios jakin bear dutena. Ta ebek dire omisionesko bekatuak gutiago erreparazen direnak, ta gutiago emendazen direnak, ta por konsigiente ixilago kondenazentutenak superioreak. Aizazie kaso notable bat Franzian gertatu zena (Parra ibi) (hic pag.45).

3. Juntatu zire konzilio probinziale batean anitz obispo ta apetxaun, ta enkargatu ziote bati platika, emateko prinzipio konzilioari. Zego diskurrizen afanaturik, zer erran bear zuen; aparezitu zizaio demonioa ta galdein zio, ia zerk aflijizen zuen. Errespondatu zio sazerdoteak motiboa. Orduan demonioak, ta zer! Ortas du pena? Nik errain diot in

bear duen platika; solo au erran bear diote: Infernuko prinzipieek salutazentute, ta bialzen tiote anitz goraintzi ta esker arimen kargudunei duten deskuidoas doktrinazean puebloak, zerengatik ignoranziatik sorzen dire bekatuak, ta bekatuetaik kondenazioak. Au erran bear du; eta jakin bez, ezi ni naizela demonioa, ta Jangoikoaren manus etorrina zela nere gogoaren bortxa gauza gonon erratera. Erran zio sazerdoteak: Eta nola sinestaraziko diotet ori? errain dute ezi nik finjitu edo amets in dutela. Nik, erran zue demonioak, emain diot señailea sinesta dezoten, ta pasazen ziolaik aurpegitik eskua, utzi zio aurpegia ikatza bezain belz, ta aseguratatu zio ezi niolateret etzizaikola kenduko kolore gori, erranartaño nik enkargatua ta erran orduko garbi bedi ur bedeikatus eliza berean, ta itzulikozaiko lengo kolorea. Ala izan ze. Agertu ze biramonean pulpitoan sazerdotea infernuko kolore belz arreki, arriturik zeudelaik guziak; egin zue platika, erran bekala; berla garbitu ze ur bedeikatus, ta gelditu ze txuri len zen bekala. Ez ote du orai ere demonioak bialzen anitz goraintzi ta esker kargudunei ixil ixila, leku gartara joaten zaizkion arimengatik doktrina faltas? Estugu aizen, baña noiznai galzen den gure karguko bat alde gontaik gure kulpas, pensatu bear dugu iten dela Jangoikoaren tribunalean memoria gutas. Nor ze onen karguduna? Urlia. Ta asarrazenden bekala alakoain kontra Jangoikoa arima garren kaltearen miñes; alaber gozazen dela demonioa arrapatuas gure kasos tristea.

4. Eta zer medio, ez galzeko nior alde gontaik? Izan dilijente guziok, bazuek erakusteko, berzeek ikasteko; ta ala nior esta galduko, naiz izan dezan ignoranzia zerbait ezin ikasias. Au da medio ordinarioa Jangoikoak nai duena, esta esperatu bear milagrorik, ikasteko doktrina; aitu sazerdotea, aitu kargudun berzeak, ta orreki kunplizen da. Kondenatu ze abrats abarientoa, kontazen da ebanjelioan; ta zegolaik errezen infernuan, ezin logratu zuelarik ur tanta bat sikiera freskazeko mia, eskatu zio Abrahami bial zezala mundura Lazaro arren etxera, erakutsezoten beraren borz anaiei, etzeizengatik aiek ere ellega bera zegon tormentusko leku gartara. Errespondatu zio Abrahamek: An dauzkite Moises ta profetak, ikas bezate aiengandik. Ez, Aita Abraham, erran zue abrats kondenatuak, baizik iletarik norbait joaten bada, inen dute penitentzia. Erreplikatu zio Abrahamek: Ezpaituste aizen Moises ta profetak, esta erresuzitazen bada il bat ere, estute sinestatuko. Moises ta profetaen ordes dire orai sazerdoteak ta doktrina erakutszaleak. Ebetaik ikasi bear da. (Quomodo autem audient sine praedicante? zio San Pablok, nola aitukoute, ezpada nork erakutsi? Eta Jeremiasek zio: Parvuli petierunt panem, et non erat qui frangeret eis, aurttoak zeude ogi eske, eta etze nork eman. Ogi gontan entendazen du Trentoko konzilioak doktrinaren alimentua, zein estaien beiñ ere falta, manatugindua erakusteko igande ta jaietan. Eta ala in bear dugu emendik alzina, ezparinbada enbarazurik. Explikatuko dut goizean mezakoan zerbait doktrinako puntu itz brebe, fazil ta klaroeki, manazen duen bekala konzilioak, ta obeki geldi daiengatik galdeinen dut ura berbera arratsaldean bezperetakoan). Au izain da medio bat, baña nola ezpaita aski au solamente, ikusten den bekala experiencias, da preziso enkarga daizen aitetamok ta familetako buruok erakustetas edo erakutsarasteas beren etxetan, obligazio duten bekala. Eta zenbat obligazio dute, edo zenbat denboras? Estaike eman erregla fijoia, solamente jeneralki ainberze, ezi ez dezaten ignoratu beren subditoek aien faltas prezisoki jakin beautena. (nai banaute aitu, ongi inen dute guziek arzeas kostunbre erakusteko zorritik zorzira urte guzian ordu erditto bates gure aiora, ta maizago garizuman. Estut erran nai guziek dutela ainberze obligazio, ez; estare au aski dela zenbaitendako, ain guti; solamente lizakela au kostunbre bat sandua, ta ez anitz kostosoia. Zer gauza andia da aitu ondoan elizan, berriz errepetizea etxean familiareki doktrina! Estaike deitu obeki dibersio edo errekreazio bat

espirituala, ezi ez nekea?) Noiz den bekatu mortale ontan faltazea, esta fazil neurzea; au da zierto ezi baldin humeak edo nirabeak ezpadaki preziso dena aitetamen ta nausietxokandren faltas, orduan katea berean preso daudela infernurako batak eta berzeak; baña ez, in ondoan inala buruek, ezpaute ikasten alaere subditoek, zerengatik orduan esta aien kulpas. Ai ordea beñere erakustenestutenes doktrina!

5. Emendik eldu da klaro obligazio dena akudizeko ikastera, aizera explikazioa, zerengatik zertako erakutsi, ta explikatu, ezpada nork aitu? Arzaiek barin badute obligazio explikazeko jai ta igandetan, konsigiente da izan dezaten feligresek akudizeko. (Expresoki erran zue konzilio berak dagola bakotxa obligaturik akudizera bere parrokiara al dezakelaik komodidadereki, adizera Jangoikoaren itza, baita doktrina. Moneat episcopus populum diligentér teneri unumquemque parochiae suae interesse, ubi commodé id fieri potest, ad audiendum verbum Dei (..28.c.1)). Estakitenetan ebidente da obligazioa akudizeko, gañarakos beren kulpas izain da beren ignoranzia. Frankok estute afizionerik ortara; frankok estute arimorik; ebek dute humiltasuna falta, aiek kristiotasuna. Afizioneik estutenei errain diotet, estado txarrean daudela, zerengatik alimentua ikusi nai estuen eria estado txarrean dago. Doktrina da arimaren alimentua; estuzu goserik ontas? Eri zaude ariman. Arimo ta humiltasunik estutenei errain diotet, ia izain duten arimo, aizeko kondenazioko sententzia, ta sekulako sua. Bada, sufritu bearkoute, baldin orren kasos joaten badire emendik, ikasi gabe doktrina. Dakitenek ezpaute ere ainberze obligazio, dute zerbait alaere akudizeko explikaziora; ia estakiotengatik atzendu; ia entendazeko obeki ikasia; ia ikasteko ia; ia ere emateko berzei exenplu. Jauna, erraten zio Dabidek Jangoikoari, orren doktrinaren explikazioak argizen du, ta ematen diote entendamentu txikittoei. Declaratio sermonum tuorum illuminat, et intellectum dat parvulis. Bi gauza dire argitasun ta entendamentu; ta da, zerengatik entendazen dutenei ematen diote explikazioak, ia entendazeko, argitasun; ta entendazen estutenei ematen diote entendamentu entendazeko. Orrengatik nior estaike exkusa, guziendako da nezesario explikazioa. Emen urbil dagon gauza baten ikusteko, aun bista laburra duenak aski du beakai edo antiojo senzillo bat; baña ikusteko an urrutiko gauzak, esta aski antiojo senzilloa, beartu bi kristale, bear du larga bista. Doktrinako gauzak dire gauza gorakoak; esta aski, entendazeko aiek, entendamentu solla, bear da ere explikazioa, ezi iruzkia klarazen delaik lañuetaik, obeki ikusten dire gauzak. (Desengañazeko ia doktrinaren desertoreak, ezarragun klaroago errana).

6. (erran dugu laur gauza jakin beartuela kristioak, eta memorias jakitea estela aski, bear direla entendatu: Lenbizikoa, zer sinestatu, ta au dugu Kredoan. Badakit, Jauna, Kredoan. Bai memorias. Eta entendazen duzu? Bada, entendazeko bear da explikazioa. Zer diferenzia doae dakienetik Kredo ala montonean ta konfuso, klaro entendatus dakienera? errain dizut konparanza goneki. Ikuskouzu tapiz edo tela bat bildurik, doblaturik. Jesus, ebek kolore goapoak? Ori ikusten da, ta an doble batean buru bat burriñasko txapelareki; emen beso bat bere ezpatareki erdi ikusten da; eskina batean kastelu iduri bat, berzean arbole monstra bat. Zer historia ote da au? Dire Flandesko gerrak; baña nola baitago bildurik tapiza, esta ongi ikusten. Etxi, zabal bezate; zabalzeunte. Jesus, zein gauza ederra! Orai ikusten baita ongi gauza bakotxa! Ara soldado pila gura enbestizen, berze gura erretirazen; zein propioki! ikus bezate gizon gura erorzen bekala murallatik, zein bizi! Berzeebek zer trajea daramaten, nongoak ote dire? Turkoak. Zein fixoki! Au guziau zego bildurik tapiz gontan? aplika zagun konparazioa. Kredoan daude enzerraturik fedearen misterio prinzipalenak, Trintateko misterioa, Enkarnaziokoa ta berze anitz; baña estu

ikusten ongi marabilla bildurik daudenak itz brebe gaietan kristio pobreak. Explikazen zaizkio ta admirazen da len erreparazen etzuenas. Bigarrena jakin bear dena da zer eskatu, ta au dago Aitasurearen orazio Jesu Kristok erakutsi zigun gortan. Zer da gero, ezpada entendazen petizio bakotxaren mamia? Explikazioareki entendazen da. Irugarrena da zer obratu, ta au erakusten da mandamentuetan. Baña zenbat entendazeko dute mandamentuek? Zenbat bekatu erreduzizen da mandamentu bakotxera? Explikaziorik gabe estaki ignoranteak; explikazioareki ikusten du manazen ta debekazen den guzia bakotxean. Laurgarrena da zer errezibitu, ta au daki dakizkienak sakramentuak, medizina poderosoak; baña ezpadaki, zer birtute duten, zer disposizio bear duten bakotxak, ezpadaki nola usatu, zer ai da? Explikazioareki ikasten da. Explikazioa da linterna bekala argizen duena bidea, ta butzatorea bekala atrazen duena butzutik ura. Bidea zerurako duzu mandamentuetan, baña explikaziorik gabe zara kaminante bat ilunbetan zoazina. Ur salublea duzu sakramentuetan, baña explikaziorik gabe zara oroat nola egarriak dagona butzu baten ondoan estakiela nola atra ura. Ofrezizen zio Jesu Kristok samaritar garri ur bizia, ta errespondazen dio emastekiak, butzu gau lazki dago barna, ta estu orrek zereki atra! O ignoranzia! Ala franko kristioei iduri zaiote butzu bat barna konfesioa, komunionea ta berze sakramentuak; estakite nola konfesatu ta komekatu, ta por konsigiente nola atra graziaren ura. Ai bezate explikazioa ta ikuskoute badela zereki atra.).

7. Aizera, bada, doktrinaren explikazioa guziek akuditu, zerengatik guziek dute zer ikasi jakinduria dibino gontan beti. Zorzitik zorzira ematen da lekzio eskola gontan, esta anitz akudizea; ia eskazen da munduko estudioetan, egunoroko asistenzia. Kristiandadearen prinzipioan juntazen zire kristioak arratsetan, galzen zutelaik loa, ikastera doktrina, orgatik deizen dire bijiliak, nai baitu erran belazeak; ta zeude obligaturik guratsoak erreparasera aitu zutena, gero beren etxeetan etxekoeki, dio San Agustinek (Hom. 26.). Orai egunas explikazen da elizetan doktrina ta jai egunetan desokupaturik daudelaik kristioak berze lanetaik. Akuditu bear da, ta ain etsiturik kuarto ordu bates doktrinaindako, nola meza indako. Ain seguro pensa bez kristioak eldu dela aizera doktrinaren explikazioa, nola meza bera; ta iduri bekio, faltazaikolaik jaiegunean doktrina, faltazaikola jaieguneko ofizio bat prinzipala. Eta ala nola erleak, egun klaro iruzkia denetan, atrazen baitire txupazera loreen zumoa egiteko gero bere estia erlategian, ala kristioak jaieguna pensa bez dela egun bat klaro munduko itekoen goibeleitak garbi dagoena, ta betor txupatxera doktrinaren lorea, rumiazeko gero ta erreparasazeko etxean aitu duena, joateko labratus jakinduria dibino gonon ezta bere ariman. Afizionazeko ontara erran zue Jesu Kristok: Jangoikoarena denak aizentuela Jangoikoaren itzak; ta orgatik ezustela adizen Fariseoek, zerengatik ezpaizire Jangoikoarenak, baizik deabruarenak. Qui ex Deo est, verbo Dei audit etc. Eta bere ardiak, au da, bere eskojituak direnek aizeuntela berain boza, oves meae vocem meam audiunt. Eta ezkindezan atra eskusa ezdezakegula aitu Jesu Kristo bera, erran zigu sazerdoteengatik: Ebek aizentuenak bera aizen duela; ta ebek aitu naiestuenak estuela aitu nai bera. Qui vos audit, me audit, et qui vos spernit, me spernit. Nork nai du bada izan Jesu Kristoren ardi eskuieko aldetik egon beaunenetatik juizioko egunean? Statuet oves à dextris. Ai bez doktrina. Nondik dugu elizan San Agustin, baizik maiz joatetik adizera San Ambrosioren doktrinak? O zer exenplua afizione edo humiltasunik estutenendako doktrinara! San Agustin jakinsurik andienak akudizen du ta maiz doktrinatar; alkebeites tonto presumituak. Jesu Kristo bera dignatu da aur baten figuran zenbait aldis akudizera ta errespondazera doktrina. San Pedro Paskasioren bizian kontazen da, ezi zegoelaik sandua kautibo lagundu ziola meza Jesu Kristo berak aurtto

baten idurian, ta ondorean galdein ziola sanduak doktrina, ta errespondatu ziola aur dibinoak. Galdein zio: Aita Jangoiko da? Bai Jauna, errespondatu zio; Semea Jangoiko da? Bai Jauna, ta ori naiz ni etorri nai zena zure amorios. Ta au erran ta desperezitu ze Jesu Kristo. Baña ebanjelioan kontazen dena da, ezi zituelaik amabi urte Jesu Kristok igan zela Jerusalem bere Ama Birjinareki, ta gelditu zela an, goartu gabe bere Amak, zeñnek itzulirik etxera aurkitu zuelarik falta, bilatuzue, ta irugarren egunean aurkitu zue tenpluan zegola maestruen erdian aizen ta galdeiten doktrina. Kexatu zizaio amorosoki bere Ama Santisima, ta errespondatu zio aur dibinoak: Zer zute, Ama, zer erabili ene bila? Etzekite dela preziso enpleazea ni nere Aitaren gauzetan? Asko erakusten digu lanze gontan, ta lenik doktrinas iten duen estimazioa, deizen baitu bere Aita eternoaren gauza, ta beraren enplegu guzia. O baldin galzen diren oraiko gasteak aurkibaleites Jesu Kristo bekala elizan doktrinan! Ez jokuan, edo edatean, edo gaistakerian, komunke bekala. Bada Jesu Kristok ikastekorik izan gabe eman zigu exenplu doktrinarako asuntoan, segi zagun kristioek, ta izan zagun afizione ikastera doktrina kristioa, zeintan ikasiko dugu modua kristioki bizizeko ta ilzeko, ta erdexteko bekatuen barkamentua, birtuteak, grazia ta gloria.

Serm. 12.
De Homine.
ann. 1778

1. Erranik laur gauza jakin beartuela kristioak, eben explikazen asibaño len, explikatuko dut kristioaren izatea, izena, señaleara ta obligazioa. Bai ta nola lenbiziko duena kristioak, baita gizon izatea, egun erran nai dut, zer den gizona ta alde gontaik ikasi dezakena. Eta lenik tontoendako adbertitu bear da, ezi erraten delarik gizona, entendazen dela oroat emastekia ta aurra ere, zerengatik gizonaren izen gau da komuna; ala nola aipazen delarik leona, entendazen baita ainberze arra nola emea, andia nola txipia, gisa berean aipazen delarik ala jeneralki gizona, entendazen da arra, deizen dena espezialki ere gizona; entendazen da ere emea deizen dena emastekia bere izen propios, ta entendazen da aurra ere, zerengatik baita persona humanoa ta baitu gizonaren esenzia guzia. Au suponiturik, zer da gizona? Da animale razionala. Da Jangoikoaren kriadura gorputz ta arimas konponzen dena. Jangoikoaren kriadura da oroat nola Jangoikoak kriatua. Da gizona Jangoikoak kriadurikako gauzetaik ez andiena, ta ez txipiena. Aingiruak, espiritu bienabenturatu gaiek, dire kriadura exzelenteenak ta gorenak bere naturalezas; ezta ainberze gizona, guti bat apalago da, minuisti eum paulo minus ab angelis. Gañarakos da gizona berze kriadura guziak baño gorago ta exzelenteagoko kriadura, omnia subiecisti sub pedibus eius. Beira zazu alde guzietara. Zer ikusteunzu lurrean? Kanpoak, oianak, arbolak, plantak, animaleak; ia da gizona. Zer ikusteunzu airean? Zer itsasoan? Egaste ederrak, arrai diferenteak, aizeak, lañuak, euriak, iturriak, urak; ia da gizona. Zer ikusteunzu zeruan? Iruzkia, ilargia, izarrak; ia da gizona, zerengatik oriek guziok gizonagatik dire, dio San Krisostomok (Claus p.2. cat. c.6). Zer segizen da? Aizazu: Ala nola ikusten dugulaik prebeniturik palazio eder bat urres, zilarres, mai, tapiz, kuadro ta preziosidade guzies, dudarik gabe juizio iten baitugu, prinziipe andia dela persona gura zeñendako baita alako palazioa. Oroat, ikusten dugulaik gizonaindako eginak direla zeruko ta lurreko gauza guziok, pensatu bear da guziok baño ia dela gizona. Eta barin bada ere bere izates gizonaren naturaleza apalago aingiruena baño, alaere orai Jangoikoaren mertxede ta pribilejio espeziales aurkizen da honraturik aingiruen gañetik gizona Kristoren baitan ta Ama birjinaren baitan, zerengatik etzue artu Jangoikoak aingiruen naturaleza, baizik gizonarena; diot: Etze Jangoikoa egin aingiru, baizik gizon, nusquam angelos apprehendit, sed semen Abrahae. Ta orgatik Jesu Kristo Jangoiko-Gizona delarik aingiruen Errege, beraren Ama Santissima gizon solla delarik aingiruen Erreina, ikusten da honraturik gizonain naturaleza egun aingiru, kerubin ta serafin guziak baño ia alde gontaik; baña bere izates da gizona gutiago aingirua baño, erran duten bekala, ta berze kriadura guziak baño ia.

(2. Jangoikoaren kriadura bat espeziala da gizona, baña kriadura guzietatik zerbait duena, dio San Gregoriok (Hom.29) Ebanjelioko itz gaien gañean: Zoaste mundu guzia barna ta predika zozie ebanjelioa kriadura guziaz, baizio Jesukristok; eta ontara San Gregoriok: Akaso predikatu bear ze ebanjelioa sentido gabeko gauzei, edo animale brutoei, errateko gure Jaunak, predika zozie kriadura guziaz? Baña kriadura guziain izenean signifkazen da gizona, dio sanduak. Dire arriak, baña estire bizi; dire arbolak, ta bizi dire, baña estute sentidoik; animale brutoak dire, bizi dire, ta baute sentido, baña estute arraziorik; aingiruak dire, bizi dire, baute sentido ta arrazio. Kriadura guzietatik bada,

zerbait du gizonak: Du izatea komun arrieki, bizitzea arboleeki, sentizea animaleeki, ta entendazea aingirueki. Beras, zerbait bezan bates, gizona da kriadura guzia. Ala konkluizen du San Gregoriok. Baña ikusagun gizonaren lenbiziko kriazioa, ta agertuko da daraman bentaja kriadura guziei Jangoiko beraren estimazioan. Orai sei milla bedrazitan egun ta ia urte, fundatu zuelarik Jangoikoak mundu gau sei egunen barnean, dio Jenesisko libruak, portatu zela modu gontara: Lenbiziko egunean erran zue egin bedi argia, ta egin ze argia. Bigarren egunean erran zue egin bedi firmamentua, ta egin ze. Irugarrenean, bilbeites ur guziak leku batera ta ager bedi leorra, ta ala egin ze; ta gisa berean Jangoikoaren itz sollera egin zire arbolak, belarrak, iruzkia, ilargia, izarrak, egasteak, arraiak, animaleak ta gauza guziak. Ellegazen da seigarren eguna, ta kriazeko gizona, aldazen du Jangoikoak minzaze modua, estu erraten egin bedi, baizik irur persona dibinoak konsejuan jarririk bekala errateunte: egin zagun gizona gure imajina ta semejanzara, presidizeko itsasoko arrai, aireko egaste, lurreko animale ta gauza guzien gañean. Nork estu adbertizen diferenzia? Baña goazen alzina.) Erranik dago,

3. Dela gizona Jangoikoaren kriadura konponzen dena gorputz ta arimas. Formatu zue Jangoikoak lenbiziko gizonaren gorputza lurren, ta gorputzari infunditu zio arima bere ats dibinoareki. Lenbiziko gizon Adan deizen den gontaik eldu gara guziok, aitetamen obras, jenerazio humanoaren bideas: Adanek enjendratu zitue humeak, hume gaiek berzebazuk, berze gebek berzebazuk, orai artaño; ta Jangoikoak nai duen artaño, alaber prosegituko dute urrengoek enjendratu bazuek berzeak. Prinzipio bat dute erregek ta esklaboeak, andiek ta txipiek; estute diferenziarik batere substanzian, esenzian ta naturale zan. Baña, Jauna, nola deizen da gizona Jangoikoaren kriadura, formazen delaik aitetamen obras? Zerengatik lenbiziko gizona, zeintaik eldu baikara guziok, formatu ta kriatu baizue Jangoikoak bere eskus nior gabe; baitare zerengatik orai ere ta noiznai formazen delaik edozeñen gorputza bere amaren sabelean, Jangoikoak ez deusetaik kriazen baitu ta infundizen baitu gorputz artan arima, baita gizonaren parte prinzipalena; baitare zerengatik gorputzain lenbiziko formazalea baita beti Jangoikoa, naiz aitetamek administrazen baute ere formazeko materia. Testigo Makabeoen ama jenerosa gura, martirizazen zizkiotelarik bere zazpi semeak, erraten ziote: Estakit nola egin edo agertuzinaten nere sabelean, zerengatik nik estiziet eman espiritua ta arima ta bizia, ta ez nitue nik konpondu ta ordenatu zuen bakotxain mienbroak, baizik munduaren Kriadoreak, zeñek formatu baitu gizonaren jaozea (2 Macab. 7). Testigo Job sandua, erraten baizio Jangoikoari: Orren eskuek, Jauna, egin ta formatu nindute, orrek bestitu nau larrus ta aragis, ta orrek konpondu nau ezurres ta zañes. Testigo da experientzia, ezpaitute deus balio dilijenzia humanoek, estuelaik nai Jangoikoak. Exenplu dugu lurreko plantaetan. Eraikizen du nekazariak gari edo maiza alorrean, baña estaki nola atra belarra, osto, agotza, burua ta pikorrek pikor gartaik; Jangoikoa da atriastan duena planta; estu deus balio ura gabe gizonain industriak. Neque qui plantat est aliquid, neque qui rigat, sed qui incrementum dat Deus. Ario gontara ta espezialkiago da gizonain jenerazioan. Beras, Jangoikoaren kriaturak gara, berak kriatuak.

4. Bai Jauna, ta zertan dago dugun bentaja ta diferenzia berze animale ta kriadura guziei? Gorputzaren aldetik ere diogute bentaja ta diferenzia; baña diferenzia ta bentaja (edo abantalla) substanziala dago arima razionalean. Badaizke izan nai adiña ederrak, indartsuak, preziosoak munduko gañarako gauzak, baña falta dute arima razionala; au du gizonak, ta onen kasos, naiz gañarakos dela txoil erruina, du abantalla gloriosoa. Arima razionala da gizonaren distintibo ta prenda preziosoa, zeñengatik baita propioki gizon, ta

zeñen medios urbilzen baita zerbait aingiruei ta idurizen baita nolapait Jangoiko berari. Ta arreatatik erraten da egin dela gizona Jangoikoaren imajina ta semejanza; ezi gorputza bezan bates estu gizonak semejanarik batere Jangoikoareki, zerengatik estu gorputzik Jangoikoak, da espiritu puroa. Zertan dago bada, Jauna, gizonaren semejanzagoi Jangoikoareki? errain dut. Ariman dago, ta bida dire semejanak: Bata da akzidental edo sobrenaturala, graziaren medios duena, zeñen medios iten baita arima naturaleza dibinoaren partizipante, diones San Pedrok: Consors divinae naturae, ta semejanza gau borrazen ta galzen da edozein bekatu mortale egiten den aldioro, ala nola errenobazen ta berrizen baita parazen delaik berriz grazian; berze semejanza da substanziala edo esenziala, konsistizen duena arimaren substanzia ta potenzieta, zerengatik ala nola Jangoikoa baita gorputzik gabekoa, espirituala, inmortal, presente leku guzietan ta guzia edozein lekutan, entendamentuas enjendrazen duena berbo dibinoa, borondates amorio dibinoa, guzia gobernazen, bizten ta sustentazen duela. Ala, ario gontara, arima bere moduan (dagolaik gure gorputzean) da espiritu, estaike il; guzia dago gorputz guzian ta guzia edozein mienbrotan, bizten ta sustentazen duela gorputza, memoria, entendamentu ta borondateareki gobernazeko gizon guzia. Arima gau, erran dugun bekal, da Jangoikoak kriatua bere eskus ez deusetaik ta nioren laguntzarik gabe. Du Jangoikoak bere probidenzia, kriazeko arimak gorputz formazen diren guziendako mundu guzian. Zenbat jenerazio gertazen den amen sabeletan European, Asian, Afrikan, Amerikan, kristio, judio, moro, jentil ta jende jenero guzietan, prest dago beti Jangoikoa kriazera ta infundizera arimak. Gorputza ere da prinzipalki Jangoikoak egin, naiz baliatu baze ere aitetamen obras; zerengatik nork baizik Jangoikoak dezake formatu gorputz humanoaren erloxo gau, ain prodijiosoa? Ainberze mienbro, ezur, zain ta instrumentuen bariedade admirablea? Solamente ezurak gorputz batean dire iru egun ta ia andi txiki, segun dioten filosofoek ta medikuek; ta ezur baktzak ditu amar propiedad (Granad. simbol. p.1. c.33). Bada eben unionea elkarreki, konformidadea ta neurri ajustatua nork estu admirazen? Gero juntura, nerbio, arteria ta gañarako instrumentuen proporzioea nork erran? Pasmazeko da Jangoikoaren jakinduria alde gontaik ere, ta en fin gizon guzian, gorputz ta ariman bildutu Jangoikoak gauza guzien perfekzioak, ta orgatik deizen da gizona mundu txikia, zerengatik ontan, zifra edo mapa batean bekal dibuxatu baitu mundu andi gontako marabillak, ala nola kontuatzale batek anitz numerotan paratu duena sumazen baitu azkeneko errenglon batean. Eta nork ia estu ikusten dugun obligazioa Jangoikoari gizonen jenerazioak? Zenbat eta zenbat kriatuzuzke, guk baño obeki zerbitzatuko zutenak, ta estitu kriatu? Ta gu kriatu gaitu gure merejimenturik gabe bere borondate solles, ta egin gaitu gizon entendamentu dunak, eginginduzkelaik arriak, arbolak, edo animale brutoak; orgatik zor diogu ainberze nola baitugu potencia, sentido ta mienbro, en fin zor diogu garen guzia. Arbola bat plantazen duenak bere alorrean, du dretxo arren fruitu guzietara; plantatu gaitu gu Jangoikoak bere mundu gontan ta du dretxo gure operazio guzien, ta orgatik ezkinduke ez oroitu bear, ez pensatu, ta ez nai izan bear deus, baizik Jangoikoaren gusto dena. Ezkinduke ez itz, ez obra, ta ez pensamentu, ta ez pausu, ta atsik ere artu bear, baizik solamente zerbitzazeko Jangoikoa. Ah, ez ala eginas, dugun beti sentimentu andia, ta erresoluzio on baten testimoniotako inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak: Nik etc.

Serm. 13.
De humanitate.
ann. 1778

Formavit igitur Dominus Deus hominem de limo terrae,
et inspiravit in faciem eius spiraculum vitae. Gen.2.

1. Erranik dela gizona Jangoikoaren kriptura noble bat konponzen dena gorputz ta arimas, orai eben diferenzia ikusi bear dugu, ez dezagun galdu gorputzagatik arima, baizik sujeta dezagun arimaren fabore gorputza, salbazeko biak. Gertatu da noizbait aurkizea arrai baten tripan perla bat pobre batek, (Claus p.2. Cath. c.5) zein lenbizian, ustes zen bidrio puska bat, guti estimaturik, azkeneko atra zue artas diru andia. Arima da margarita prezioso gura, zein tratante dibinoak emanik bere gorputz odolaren prezio infinitoa, erosi baizue, ta zein lazki guti estimazen baitugu gizon ignoranteek. Baña desengañatu bear gaitu Jesu Kristoren exenpluak ta sentenzia erran zigunak, erakusteko balio duela mundu guziak baño ia. Zer protxu, dio, atrako du gizonak iragazirik ere mundu guzia, galzen barin badu bere arima? Edo zer emain du bere arimaren truk gizonak? Arimagatik bear barin baliz, erran zigu Jesu Kristok, ebaki bearginduzkela eskuok ta oñok, ta atra bear ginduzkela begiok, si manus tua vel pes tuus scandalizat te, abscinde eum. Eta mienbro guziok destruiturik ere, odol guzia ixuririk ere, gorputz guzia zatikaturik ere, ta en fin bizia ta mila bizi galdurik ere estela sobra salbazeagatik arima, erakutsi digute bere exenpluas ainberze gizon, emasteki, aur gaste martir triunfanteek. Estu alabañare zerikusi gorputzak arimaren aldean. Konparatu naia arimareki gorputza da igoalazea perla preziosoareki kontxa, urre zilarrareki larrusko bolsa, ta mamiareki kaskilla; itz bates, zeruareki lurra, zerengatik zerutik lurrera adiña diferenzia doaie arimatik gorputzera.

2. Ikusagun gizonaren formazioa, ta bere bi parte geben prinsipioa ta gañarako zirkunstanziak. Formatu zuela Jangoikoak gizonaren gorputza lurreko loietik dio eskrituran, de limo terrae, ta inspiratu ziola bere ats dibinoareki arima; Et inspiravit in faciem eius spiraculum vitae. Begira, ats gura baño len gizona zer ze? Lurresko figura edo bulto bat. Infundizen zaio arima ta ia da kriptura bizia, aingirues landara exzelenteena. Beras, loi gonek arimari zor dio gizon izatea. Baña erreparazeko da eskriturain errate-modua arimagatik, atsas eman ziola Jangoikoak biziaren espiritua. Zer da au? Au da erratea ezi ala nola atsa atrazen baita ematen duenaren barrenetik, arima dela Jangoikoagandik, gauza bat dibinoa Jangoikoaren biotzain aldetik; ez zerengatik den dibinidadearen parteren bat, zenbait herejeek pensatu duten bekala, baizik zerengatik partizipazen baitu anitz kondizio ta propiedade dibinidadearenak (Granad. simbol. p.1. c. 34) orgatik ere deizen da Jangoikoaren imajinara. Ad imaginem et similitudinem nostram. (Bai ta orai zer prinsipio du gizonaren gorputzak? pensa daiken likitsena, alakoa du bere formazioa, alakoa du jaiiozea; arima, ordea, Jangoikoaren esku garbies kriazen da, espiritu puroa materiari gabe. Beras, diferenzia andia dute prinsipioan ere gorputzak ta arimak).

3. Goazen alzina. Gorputza esta berzerik orai, baizik buru, aurpegi, bular, esku, oin ta gañarako mienbro ikustentugunok ta ikusten estugunok; arima da substantzia espiritualea ikustenestena begis, baizik efektos. Bizten ta animazentuena mienbro guziak. Borz sentido ditu gorputzak baña borzek ez dezakete senti arima gabe, ta ala arimaren birtutes ikusten dute begiek, aizeunte bearriek, gustazen du gustoak, mogizen dire ta

obrazen dute esku, oin ta berze mienbroek. Au guziau progazen da experienziak, zerengatik ilzen delaik gizona, ezpaita berzerik ilzea, baizik arima gorputzetik apartazea; ia orduan ez begiek ikusteunte, ez bearriek aitu, ta ez berze sentidoek deus egin dezakete, baizik ere gorputz guzia geldizen da tronku bat bekala. Arimak, ordea, estu bear gorputza oroizeko memorias, entendazeko entedamentuas ta maitazeko edo aborrezizeko borondateas. Gorputzak bizizekos bear du prezisoki arima, ta au faltatu orduko, berla datza ila, naiz erresuzitatu bear barin badu ere azken juizioko egunean, itzulzen zaikolaik berriz arima. Baña arima da inmortal, estu bear gorputza bizizeko, ta ala dagon junto, edo aparta daien gorputzetik, beti bizi da; Ta ala bizi dire sanduen ta kondenatuen arimak, dauden bitarteo obietan aien gorputzak. Por konsigiente da eternoa arima, ta erraten delaik bekatu mortalak ilzen duela iten duenaren arima, entendatu bear da erioze espiritalas edo moralas, ez erioze errealkas, zerengatik edekizen dio Jangoikoaren grazia, usten du itsusi Jangoikoaren begietan, ta au deizen da erioze morala; ala daude ilik bekatarien ta kondenatuen arimak, ta bitarteo bizirik daude errealki sekulakos. Erioze espirituale gortarik estaike erresuzitatu kondenatuaren arima, zerengatik estakioke kendu bekatu mortala; baña edozein munduko bekataria arima erresuzita daike ta erresuzitazen da espiritualki, barkazenzaikolaik bekatu mortala edo bataioaren, edo konfesioaren medios, edo berze gisas.

4. Arimak bere entendamentuaren medios errejistraren du mundu guzia, bisitazentu infernuko kalabozaok, paseazentu zeruko zelaia; arima da kapaz gobernazeko erreinuak gizon batean, ikusten den bekala erregen baitan, ta munduguzia ere, ikusten bekala Aita sandua baitan; da kapaz ikasteko gauza admirableak, ikusten den bekala doktore sanduetan; arimak entendamentuareki inbentatutu arte ta habilidade guziak, ainberze ofizio, ainberze makina, ainberze gauza eder, prodijioso nola baita munduan, ta solamente baliaren da gorputzas instrumentu bates bekala, obrazeko entendamentuak manazen duena. Arima bere borondatearen medios da kapaz maitazeko Jangoikoa ta errezibizeko Jangoikoaren erregaloak, birtuteak ta graziak ellegatuartaño egitera gizona aingiruak baño sanduagoa, ikusten den bekala Ama birjina baitan, ta obrazera milagro pasmosoak ere, ikusten den bekala experienziak; Ta en fin, estanpazera bere baitan Jangoikoaren imajina ta iduri bat ain perfektoa al daiken moduan, ezi orgatik bere humeak, bere esposak deizen baitu franko Jangoikoak. En fin, barin bada gauza onik ta alabazekorik gizona baitan, guzia da arimagatik ta ez gorputzagatik.

5. Akabazeko asunto gau, estimazeko estimatu bear duguna, ta despreziatzeko despreziatu bear dena geuren baitan, irur gauza konsideratu beartugu arimaren aldetik; berze irur gorputzaren aldetik. Lenbiziko konsideratu bear duguna arimaren aldetik da onen preziosidadea ta exzelentzia, zerengatik baita espiritu ta inmortal; memoria, entendamentu ta borondatea dituen, Jangoikoaren imajina ta semejanza, zein ainberze estimazen baitu Trintate guziak, ezi onengatik Aitak bial duzue bere Semea, Semea etorri ta enkarnatu ze Espiritu Sanduaren obras, ta ixuri zue bere odola, ta ilze guruze batean. Balio du anitz? piza bedi guruzearen balanzan, non gure arimagatik paratu baize dilindaka Jesu Kristoren gorputz dibinoa. Orgatik exklamatuzue Eusebio Emisenok: Ainberze kostatu da arimain erredimizea, ezi iduri du balio duela Jangoiko guzia. Tam pretioso munere ipsa redemptio agitur, ut homo Deum valere videatur (Cl. p.2. cat. c.5). Bigarren konsideratu bear dena: Ariman dire peligroak ainberze ta ain andiak, zeñen erdian baitago; Irur dire arima gonon etsaiak: Mundua, demonioa ta aragia; munduak ponpa ta banidades, demonioak tentazios ta artifizio gaistos, ta aragiak, bere laguna delaik, enemigo traidore

andienak, bizioes, inklinazio ta pasione gaistoes iten diote gerra perpetua. Irugarrena da miseria padezizentuenak gorputzaren kartzela gontan, zeñengatik erran baizue San Pablok: Infelix ego homo, quis me liberabit de corpore mortis huius? Nere desdixatua, nork libratuko nau gorputz eriozeko gontaik? Gorputzaren aldetik lenbiziko konsideratu bear dena da, nola den formatua loietik ta materia pensa daiken itsusienetik, barin bada ere berze alde Jangoikoaren obra exzelentea, bera alabazeko, baña ez geurok ortas. Esta berzerik gorputza, dio San Bernardok, baizik espuma aragi itzulizen bat, bestiturik itxura frajil bates, ta sarri izain dena kadaber miserablea ta ustela. Esta berzerik, baizik zaku bat ongarris betea, arren ta mormoten janarioa. Iduri barin badu ere galanta, da larruaren estalkiagatik, da gañeko bañu edo kolore iduriagatik, ezi beirazen bauzu zer atrazen den ago, sudur ta gañarako atarietaik, estuzu ikusi estrabile zikinagorik. Belar ta plantek ekarzentuste loreak ta fruituak; gorputz humanoak barzak, zorriak ta animale likitsak. Aiek exkorriizeunte olio, ardo, balsamo, onek gargaju ta zikinkeria; aiek atxon kuadrablea, onek usai abominablea. Da por fin gorputz ederrena, figura bat ezurres ta aragis konpondua, ta larru bates estalia, fite deseginen dena; ta onen despreziazeko ezpada aski errana, beira obien barnetara: or dauden ezur, kalabera ta ustelkeriak zire len gizon ta emasteki presumituak bere itxuras; kendurik itxura orra zer ziren, ta orra zer garen. Bigarren konsideratu bear dena da gorputzaren inklinazio gaistoa, zerengatik beti dago tiraka Jangoikoaren ta arimaren kontra, ta ezpada domazen ta erresistizen, ofendiaraziko du Jangoikoa, galdu arima ta bera ere bai; zerengatik arimain suertea izain du gorputzak erresuzitatu ondoan. Beras, bere kontra doaie inklinazen duelaik arima gauza debekatueta. Irugarren konsideratu bear dena da dela gorputza arimaren etxea, edo kartzela, emen dagon bitarteo arima; dela arimaren instrumentua ta esklaboa, obrazeko arimaren konforme; por konsigiente etxokandrea dela arima, onek manazen duena in bear duela gorputzak, ta ez gorputzain gustora arimak, zerengatik ezperen lizake manatu bear duenak zerbitzazea, ta zerbitzatu bear duenak manazea, baita trastornu andia, diones San Bernardok (In manuscr. de homine. Lipsin p.1).

6. Nork estu ia ezaundu diferenzia gorputz arimain ertean? Ta nork estu atrazen konsekenzia, ezi arimas kuidatu bear dela ia ezi ez gorputzas? Parte prinzipalena gizontasunean da arima, gorputza esta protxal. Spiritus est qui vivificat, caro autem non prodest quidquam. Arima razionalain medios distingizen gara animale brutoetaik, ta iduri zen gara aingiruei ta Jangoikoai; beras, arimaren neurrias neurritu bear da gizona. Gorputza ere diferente dugu animale berzeetaik, ta au ere jakinsu baten erranes da misterio andiareki: Pronaque cum spectent animalia coetera terram, os homini sublime dedit, coelumque tueri jussit, dio, ezi formatutuelarik Jangoikoak animale berzeak lurrera beira, solo gizonari eman diola aurpegia gora. Zertako? Beirazeko zerura. Beras, ezpadu beirazen zerura, mundontako (sic) gauzetan barin badago beti, zer balio du gorputzaren figura diferenteak, imitazentuelaik kondizioetan animaleak? Animaleen kondizioa da appetitua segizea, ta ala gorputzain appetituak segizentuen gizona, zenbatenas ia segizentuen, gutiago du gizontasunes, ia animaletasunes. Orgatik zio San Juan Krisostomok, etzekiela nola ezaundu zenbait ziren kristio, esta ere ziren gizon. Zerengatik, zio sanduak, baldin suberboa barin bazara zezen bat bekala, luxurioso zaldi bat bekala, jatean imitazen baduzu arren borazidadea ta mandoen gisara solo kuidazen baduzu gizenzeas gorputza; inbidian iduri barin baduzu kamelloa, ladronkerian otsoa; baldin asarrazen barin bazara serpiente bat bekala, ta eskorpionain gisa punzazen bauzu; tranposoa barin bazara axariain gisa, malizia ta traizioaren benenos beterik barin bazaude suge ta bibora baten aintzu, nola

paratu bear zaitut gizonen listan? Estutelaik zurebaitan aurkizen naturaleza humanoaren señaileak? (Omil. 4. Math.) Berze leku batean dio: Justoa solo da gizon, berzeak ez gizon, baizik gizonain itxura dutenak ta bruto itzuliak. (Hom. 23 in genes.) Ontara akaso erran zio Dabidek Jangoikoari: Homines et jumenta salvabis Domine. Gizonak ta animaleak orrek salbatukotu. Animaleak ere bai? Entendatu bear dire ziertoki animaleen kondizioak tusten gizonak. Eta ala erran zue berze leku batean: Homo cum in honore esset, non intellexit, comparatus est jumentis etc. Gizonak, honra andian zegolaik, galdu du ezaumentua, in da animale tontoa. Beras, nor da proprioki gizon? Zein gobernazen den arima razionalain konforme. Nor da gizonago? Entendamentu ia ta borondate obeago duena; ez por ziert gorputz ia duena. San Juan Bautista jaio zen egunean ze gizon andia, Elisabet Zachariae magnum virum genuit, ta eskritura sagratuan alaber erraten da gaistoas, ilen dela egun urtetako aurra, puer centum annorum morietur. Estaiela gureki gerta, kuida zagun arima razionalas izan gaizengatik gizon egias Jangoikoaren imajina ta semejanbara, bizi zen garelaik beraren grazian salbazeko arima, ta onen medios gorputza ere bai erresurrekzio egunean; ta ortako goazen utzis gizon zarra, dion bekala San Pablok, exuentes veterem hominem, au da, kendus pasione, inklinazio gaistoak, ta artus berria, et induentes novum, au da, birtuteak ta santidadea Kristo gure Jaunaren exenplura; ta asi gaizen berla paratus erresoluzio firme baten prinzipioa edo zimendua fede, esperanza ta karidadearen aktaeki.

Serm. 14.

De fine ultimo hominis.

ann. 1778

Servi facti Deo habetis fructum vestrum

in sanctificatione, finem vero vitam aeternam. Rom. 6.

1. Explikaturik ia gizonaren prinzipioa ta izatea, orai nainuke erabaki zein den gizonaren azken fina, ta por konsigiente lenbiziko obligazioa. Ura deizen da gauza baten fina, zeñengatik ta zeintako ere baita gauza gura. Gauza guziek dute bere fina mundu ontan, zerengatik guziak dire zerbitetako; lurra, aizea, sua, ura, plantak, animaleak guziak dire gizonagatik ta gizonaindako; por konsigiente, gizona da gauza guzien fina. Bai, eta gizonaren azken fina zein da? Berze gisas, zer fines da gizona? Berze gisas, zertako kriatua da gizona? Ala galdeiten dute zenbait katezismoek, ta ainberze da ignoranzia, ezi frankok estakite zertako diren. Galdein zagun bada ta ikasagun, zertako kriatua da gizona? Maitazeko ta zerbitzazeko Jangoikoa mundu gontan, ta alabazeko ta gozazeko glorian. Oroat, zer fines da gizona? Maitazeagatik ta zerbitzazeagatik Jangoikoa mundu ontan, ta alabatu ta gozazeagatik glorian. Ongi, beras, Jangoikoagatik ta Jangoikoaindako da gizona, dago klaro. Gerostik zein da gizonaren azken fina? Jangoikoa orai ta beti. Eta zerengatik erraten da azken fina? Zerengatik berze anitz gauzetako ere delarik gizona, guzien gañetik guzia erreduzitu berbaita zerbitzazera ta lograzera Jangoikoa. Nekazariak errain du: Ni naiz lanzeko lurra. Beras, zure fina da lanzea lurra. Ala da, baña esta ori azken fina, zerengatik esta ortan parazen zure izatea, pasatu bear da alzina. Ikusagun. Erran duzu zarela lanzeko lurra, ta lurrain lanzegoi berze zerbitetako da; zertako da? Bilzeko gorputzain sustentoa. Eta sustentogoi zertako da? Bizizeko. Ta bizitzegoi zertako? Zerbitzazeko Jangoikoa. Eta zerbitzazegoi? Gozazeko glorian Jangoikoa, desuerte ezi beti baratu bear da jangoikoa baitan, zerengatik bera da gizonain azken fina. Oroat diot berze ofizio ta estado guzikoes. Guziok jaioak gara trabajazeko nor bere gisa, ala nola egastea egazeko; baña trabajazegoi azkeneko zertako da? Zerbitzazeko Jangoikoa emen ta gozazeko an, desuerte ezi berze fin goiek bear dute izan medio erdexteko guzien gain Jangoikoa, baita gure azken fina. Orai eldu da obligazioa: Obligazio du trabajazeko nekazariak nekazalgoan, ofizialeak bere ofizioan, ta guziek bere estadoan; baña lenbiziko obligazioa da zerbitzazea Jangoikoa guzietan, zerengatik lenik da bat gizon, ezi ez nekazari, ofiziale, edo estadoduna. Berze ofizio goiek dire bigarren lekuan: Lenbizikorik gizontasuna, bada, ofizio goien kasos barin bada obligazio trabajazeko aietan, gizontasunain kasos da zerbitzazeko Jangoikoa. Debalde deizen da nekazari estena trabajazen nekazalgoan, ofiziale estena trabajazen bere ofizioan; bada, guzien gain debalde deizen da gizon estena enpleazen Jangoikoaren zerbitzuan, zeintako jaio baita, gozazeko gero glorian; ta alakoas erran bear da Judases Jesukristok errana, obe zuela ezpaze jaio alako gizona. Berze ofizio goiek dire bidanabar ta ezinberzeskoak bekala, mantenezeko bizia; baña bizia den bitarteo, guzietan guzien gain da zerbitzazea Jangoikoa lenbiziko ofizio indispensablea ta bakarra, porro unum est necessarium, zerengatik ori da preziso lograzeko gero Jangoikoa, baita azken fina, zeintako kriatu baitu gizona. Goazen ikustera guti bat Jangoikoaren probidenzia gure kriazean etc.

2. Zegolarik Jangoiko andia ta bakarra irur persona dibinoetan bere eternidadean,

nioren bearrik gabe, gauza guziak kriatu baño len, ain glorioso bere esenzias nola orai, nai izan zue bere borondate ta jakinduria dibinoain conforme kriatu aingiruak; ta kriatu zitue espiritu eder exzelente gaiek bedrazi koro ta irur jerarkietan, berak dakien numeroan, guretako innumerableak. Gisaontan plantatu zue bere soldadeska ta goardia Errege andiak. Utzi ziotte libertadea edo posibilitadea onerako ta gaizerako bere juizio dibinoen conforme; eta Luzifer, baize aingiru txoil ederra, itsaturik bere edertasunas, bete ze suberbias, ta usazen zuelaik gaizki, eman zion libertadeas, izan bearrean agradezitua, errebelatu ze Jangoikoaren kontra bere lagun aingiru kantidade andi bateki. Indignaturik Jangoikoak desterratu zitue zerutik, San Migel aingiruen prinzipa ta bere ministro lenbizikoaren medios, errebel guziak; ta aiendako prebenitu zen infernura erori zire sekulakos. Zenbat eta zenbat ordea? Aingiruen irugarren zatia, ta daude orai infernua demonio deizentugunak, len zeruan aingiru zirenak; ta gelditu ze Jangoikoa zeruan San Migel ta berze aingiru oneki. Etze oraño gizonik, ta etziote faltarik egiten Jangoikoari faltatu ziren aingiruek, ain guti gizonik; alaere bere borondate dibinoak nai izan zitue kriatu gizonak bera zerbitzazeko, gozazeko ta glorifikazeko; ta ortako, orai sei milla bedrazitan egun ta iruetan ogeitaamazazpi urte kriatu zue mundua ta munduko gauzak borz egunes, ta seigarrenean gizona bere imajina ta semejanza, erran nuen bekala berze platika batean. Plantatu zue paraisoan Adam, ta Adanengandik formatu zue Eba laguntako. Zeude Adan ta Eba inozenziaren estadoan adornaturik dono espirituale ta korporalees nai zuketen konbenienzia guzieki. Baña ikusagun gertatu zen desdita, desdita guzien ama.

3. Nola kriatu baizitue berain zerbitzazeko ta gozazeko, zerbitzazen bazute, utzi ziotte libertadea aingiruei bekala egiteko ongi edo gaizki; ta progazeko aien agradezimentua, obediencia ta fidelidadea, eman ondoan lizenzia jateko paraisoko arbola guzien fruitetaik, solamente debekatu ziotte batena biziaren penan. Eta demonioa, enbidias ikusteas galdurik bere burua ta honraturik gizona, galarazi naiak gizona ere bera bekala, aparezitu zizaio Ebari serpiente batean ta erran zio: Zerengatik manatu dizie Jangoikoak ez jateko arbola gonon fruitatik? errespondatu zio Ebak: Guzietaik jan dezakegu, solamente ontaik ez, ezkaizengatik il. Erran zio serpienteak: Etzarate ilen niolater; badaki Jangoikoak ezi noiznai jan dezazien ontaik, izain zaratela Jangoikoak bekala. Ah Eba, nola engañazen zaituen gezurti orrek! Tentaturik emastekiak, beiratu ta ikusi zue fruta ona zela jateko, ta ederra bistara; artu zue ta jan zue, eman zio Adani ta jan zue arrek ere, ta ala galdu ziotte biek Jangoikoari obediencia ta fidelidadea. Au da bekatua gure lenbiziko aitetamek ta guk aien baitan in ginduen. Ikusagun erresulta. Botatu zuzkelarik berla infernura, aingiru gaistoak bekala, etzue egin; desterratu bai paraisotik negarresko balle gontara, pasazera trabajuak ta miseriak, ta azkenean eriozea, baña esperanzareki ondorean ellegazeko gloriara. Errebelatu ze aingiruen zati bat, desobediente izan ze gizonen jenerazioa; Aingiruak kondenazentu, gizonak ustentu nai baute salbatu, sinestazen dugun bekala salbatu zirela Adan ta Eba. Zer da au baizik Jangoikoaren piedade espeziale bat gizoneki? Zer da au baizik salbatu naia gizonak?

4. Jangoikoaren borondatea da guziok salba gaizen, Deus vult omnes homines salvos fieri; solamente beti gelditu da kondizio prezioa zerbitzazea Jangoikoa, ta ortako, ia keta paraisoan gelditu zen fruta debekatua, arren aiora debekaturik dauzkigu anitz gauza, manaturik berze anitz lege naturalean ta amar mandamentuetan. Guziok kriatu gaitu gozazeko Jangoikoa glorian, baña sollik gozatukoute fiel ta obediente direnak berareki munduan. Difikultosoago da andik onat, zerengatik andik onat tugu trabajuak, tugu

pasione ta inklinazio gaistoak; baña guziareki esta imposible salbazea; Jangoikoak nai du, guk ere nai dezakegu; ta ongi nai duen guziak lograzen du. Ortako emantigu medioak ta erremedioak: Ariman emantigu memoria, oroi gaizen bear denas; entendamentua, ezaun dezagun ona ta gaistoa; ta borondatea, onets dezagun on dena ta aborrezi dezagun gaisto dena. Gorputzean emantigu borz sentido proporzionatuak, instrumentu onak obrazeko bear bekala; begiok ikusteko, bearriok aizeko, sudurrok usmazeko, agoa ta mia gustazeko ta jardukizeko, eskuok trabajazeko, oñok erabilzeko, ta gorputz guzia en fin enpleazeko bear diren gauzetan. Ortako probidenziatu du izan daien beti nork erakutsi ignorantei, nork zuzendu makur doazinak, nork erremediatu utsak. Ortako disponitu du izan daizen irur estadoak: Libretasuna, matrimonioa ta alarguntasuna; ta oietan ofizio guzietaik gorputzain ta arima mindako bear direnak, eskoji dezan bakotxak konbenizaikona, ta ortako ematen dio bakotxari bokazio ta inklinazio bear duen estado ta ofiziora; ta guzietan utzi du modu zerbitzazeko bera, ta guzietaik atratu sanduak. Ortako ordenatu du izan daizen inferioreak ta superioreak tenporalean ta espiritualean: alde batetik guratsoak, juezak, erregeak; berze aldetik sazerdoteak ta pontifizeak. Ortako guzien gain dago presente leku guzietan Jangoikoa gobernazen gauzak, ematen ofrezitu duen bekala guziei auxilio aski dena obrazeko ongi, nai baute, ta emanaiak ia, barin bada korrespondenzia. Ortako en fin erakusteagatik iragarten gloria, ta eramanaies artara gizonok, etorri ze gizon eginik Jesu Kristo Jangoikoaren Seme Jangoiko dena; erakutsi ta pregonatu zue bere ebanjelioa; plantatu zue bere eliza, ta ontan Sakramentuak ta gañarakoak; bizitu ze ogei ta amairur urtes ta gexago biziaren exenplu ematen; ilze gero, ta erresuzitaturik igan ze zerura idikizera atariak ta prebenizera lekua segitu nai dutenendako. Zer ia? gelditu ze sakramentaturik errealki ta eskunara gure erdian, ta munduonek dirauen bitarteo, balia gindeizen beras medio pasmagarrias bekala, salbazeko guziok. Zer errain dut Elizan ordenatu duen gobernu admirableas? buru bat bisiblea baita Aita Sandu Erromakoa; gero ainberze obispo an emenka; gero ainberze sazerdote kasi errioro? Zer errain dut Jesu Kristoren probidenzia espezialas, estaien beñere falta eliza, ez dezan utsik egin, ta izan dezkie ministro bearbekalakoak? Zer errain dut emanaz gizon bakotxai bere aingiru goardakoa? Zer izateas gutartetik ainberze sandu ta sanda zeruan daudenak, pasatu ondoan beren emengo peregrinazioa ta utzi ondoan idikirik bidea, deskuidaturik beren burues kuidazen gutas, eskazen guregatik, gure beira, gure deies edazen eskuak, ta señaizen, onara, onara?

5. Nondik ia geldizen zaio niori erreskiziorik eskusazeko? Ebidenteki progaturik dago, Jangoikoak kriatu gaituenak salbazeko, salbatu nai gaituela, nai badugu. Zer falta da Jangoikoaren partetik salbazeko mundu guzia? (Solamente falta ze edekize zagan libertadea, au da, lotzezagun borondatea ez nai izateko baizik bear dena; lotuzezkigun esku, oin ta mienbro guziok, ez mogizeko baizik onera. Au izain ze kenzee libertadea. Etzue nai izandu kriatu gizona, ala nola aingirua ere ez, libertaderik gabe, baizik libertade osoareki; orreki bakotxak iragazi zezan bere indarres, Jangoikoaren graziareki, palma sekulakoa; ta gal zezan, alaber, iragasten estuenak bere kulpas. Ezpagindu libertade, (libertade diot ez lizenzia) ezpagindu libertade edo posibilidadade gaizki egiteko, nola merejituko gindue korona? Zer balioko zue gure on izateak, ezkindukelaik berzerik? Merejimentua dago, egindezakegulaik gaizki, ez egitean baizik ongi, ta alako moduan kriatu ta bialdu gaitu mundu ontara; berze gisas izatera, oroat ze plantatubaginduz zeruan. Baña plantatu gaituenas geros munduan, txoil ezpada jaio ta il zen bat aurra galdu gabe bataiarriko grazia, ezi alakoei ematen diote herenzias bekala Jesu Kristoren dretxoagatik

gloria, aur alakoes landara diot, geurek irabazi bearko dugu zerbitzatus emen Jangoikoa. Errain dut nola urbilen platikan.).

6. Ots, bada orai, servi facti Deo habetis fructum in sanctificatione, Jangoikoaren etxe gontan ta bere zerbitzuan nirabetako alistatu gara; gure ofizioa da onak ta sanduak izatea; premioa bizitza sekulakoa, finem vero vitam aeternam. Oroï gaizen zertako garen. Deteni gaizen serioki pensazen gizonaren fina zer den ta zertako onara jαιοzea, emen bizitza ta emendik joatea. Joan dire lenagokoak, gu ere goazi joanes; nora joan dire? Nora goazi? Ah zenbat sor sorra bizitu ondoan aurkitu diren infernuan ustekabetzean, ta beiraturik alde guzietara aurkitutuste ertxirik atariak; atra nai ta ezin atra, itzuli nai ta ezin itzuli, ta daude orai desesperaturik nigarres, emen pensatu faltas? Kuidado, estaiela gureki ala gerta. Gizonak, emastekiak, aurrak, gasteak, zarrak, guziek galdein zogun geuren burueri geuren izenas, San Bernardok bere buruari galdeiten ziona noizean noizka: (Bernardo ad quid venisti? Bernardo, zertara etorri zara? Badaki bakotxak bere izena, nerea da Joakin; bada galdein bear naiz: Joakin, zertara etorri zara mundu ontara? Zure izena nola da? Bada galdein zaite artas, urlia) Zertako jaio zara? Espezialki inzazu dilijenzia gau bekatu iteko okasioetan; ta anima bedi bakotxa trabajazera Jangoikoaren zerbitzuan emen bizi den bitarteo, garaitus bere inklinazio gaistoak; fite pasatuko da trabajuain denbora ta etorko da deskansazekoa zeruan, non esta penarik batere; baña izatera, ezlizake berzerik izain baizik ez ia emen zerbitzatuas Jangoikoa. (Orgatik San Ignazio jenerosoak erraten zue ezi barin baleki berla il ta seguro lukela gloria, ta ia bizitus zerbitza lezakela ia Jangoikoa, naiago lukela bizitu inzierto bere salbazioas Jangoikoari zerbitzu iteagatik, ezi ez berla il seguro joateko zerura. Orgatik aizazie San Dunstano Konturbelgo arzobispoaren exenplutto gau. Gelditu ze sandua maitinak kantatu ondoan bartko arratsean bekalakoan bere elizan, kontenplazen Kristoren egungo triunfoa: Nola igan zen zerura, nolako errezebimentua, nolako festa ta alegria izan bide zen aingiruetan. Au pensazen zegolaik, debozios bekala, deseos beterik gozatu naiak, ikusi zue sarzen zela elizako atarietaik kuadrilla andi bat mutil gaste eder, txuris bestiturik ta urresko koroneki buruetan guziak. Ellegatu zizaio bat ta saloa egin ondoan kariñoso erran zio: Jesu Kristok salutazen du, Dunstano, ta konbidazen du datorren orai gureki zerura, zelebrazera beraren triunfoa, baikara guziok kerubinak ta serafinak orren eske etorriak. O zer konbitea! Baña sanduak bere deseoa garaiturik feligresei zioten amorioas, erran zioten: Egun estaike, zerengatik biar predikatu bear diot nere puebloai ta erakutsi nola igan bear duen zerura segitus nere Jaunaren atzetik. Bada larunbatean izain da, erran zioten aingiruek, disponi bedi orduko. Predikatu zue bada egungo egunean aingiru batek bekala, ta despeitu ze ilzeko; erori ze eri goazean, ta ellegatu zelarik larunbata, errezibitu ondoan sakramentuak, anitzen alzinean joan ze iganes goaze ta guziareki kuartoko bobedaraño; gertatu ze au irur aldis, ta gero itzulirik presente zeudenengana, erran zioten: Ikusteunzie bidea zeintak noaien, imita nazazie nai banauzie segitu; ta oneki despeitu zue bere arima. Parra plat.1.de sacramentos. Imita nazazie nai banauzie segitu, dio Jesu Kristok, egun igten denak zerura. Nai dugu imitatu) Jauna, bigu bere eskua ta laguntza: Salvum me fac, et salvus ero, salba gaiza ta salbatuko gara, ezkaizke berze gisas salba. Orreki bateo nai dugu ta esperazen dugu, ta onen señaletan erraintugu fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik etc.

Serm. 15.

De modo, consequendi.

1778

Quae enim seminaverit homo,

haec et metet. Galat. 6.

1. Explikaturik ia nola den Jangoikoa gizonaren azken fina, edo gizona dela kriadua maitazeko ta zerbitzazeko Jangoikoa mundu ontan, ta alabazeko ta gozazeko glorian, orai erranai dut nola bear garen portatu mundu gontan zerbitzazen Jangoikoa, gozazeko gero; au erdexten duenaren ditxa ta estuenaren desditxa, bitarteko peligro andia; ta por konsigiente beldurtasun, dilijenzia, ta gañarako beartugunak. Atenzio, otoi, zerengatik tratazen da negozio guzien negozioa, sekulako salbazio edo kondenazioaren suertea. Ikasi dugu ia, Jangoikoaren probidenziak bota gaituen bekala mundu gontara, utzi digula libertade; (libertade diot, ez lizenzia, baizik libertade edo posibilitade obrazeko ongi edo gaizki mundu gontan: Appono tibi ignem et aquam, ad quod volueris porrige manum. Ezarzen dizut, dio, alzinean sua ta ura, zeintara nauzun bota zazu eskua; erran balez bekala: Zure eskura daude ona ta gaistoa; obrazeko ongi, ematen dizut grazia; obrazeko gaizki, estizut kenzen posibilitadea; orreki obrazen bauzu ongi, nik nai nuken bekala, iragazi dezazun nere graziaren medios gloria ta obrazen bauzu gaizki nere borondatearen kontra, gal zaizen zeure kulpas. Bear dugu ontas landara konsideratu seinalaturik daukagula ta neurturik bakotxak onenberze denbora, bazuek ia, berzebazuek gutiago, egoteko mundu ontan Jangoikoaren juizioen konforme; ta utzidigulaik seguridadea ilzeko noizbait, inzierto ta okulto utzi digu guri noiz; orreki ezkaizen nioiz deskuida. (Jangoikoak daki zein egunes edo zein gaues den gure bakotxain azken ordua, zeintan erxten baita plazoa ta in bear baitigu emendik despedida; ta ez dezake niork jakin, ezpadio errebelazen Jangoikoak. Guziei jeneralki errebelatu diguna bere ebanjelioan da, izain dela uste estugun orduan: Qua hora non putatis. Deklaratu bazigu zein den azken ordu gura seinalaturik daukana gure bakotxaindako, akaso franko deskuidatuko zire an urbil ellegatuartaño, esperanzareki emendazeko gaizki bizitua ilze on bateki. Orai, estaien nior balia esperanza temerario indigno gortas, estaien nior eskusa deustas, gastea dela gaste, aurra dela aur, edo berze edozein gisas, ta kunpli dezagungatik zarrek, gasteek, aurrek ta guziek dugun obligazio ertxia ongi bizizeko denbora guzietan, estigu erran nai noiz arteo bizi bear dugun emen. Franko gaizki bizi direnak ustentu luzaro; franko bulkazentu emendik lenbiziko bekatuetan; franko anitz ta ongi bizitu ondoan, bekatu bat in ta berla saltarastentu eternidadera; ustentueneki emendazeko iten du miserikordia; estitueneki usten iten du justizia; aiek dute ditxa ezin andiagoo, ez berei, baizik Jangoikoari eskerrak; ebek dute petardo irremediablea, ez Jangoikoaren, baizik beren kulpas. Magdalena ta berze anitz, gaisto izanik, onzentu ta salbazentu; Judas ta berze anitz on izanak, ustentu gaistazera beren naies ta kondenazentu; guzieki iten du ongi Jangoikoak, aieki grazia, ebeki justizia. Ta zer zaio Judasi ta bere lagunei, nai badu Jangoikoak salbatu Magdalena ta berze gaisto izanak? Kondenazen barin badire, mereji zute, tolle quod tuum est et vade: ar bezate beren pagua ta bidoezi infernura). Estaiela nior fia bekatari salbatu direnetan, atrebizeko egitera bekatu soil bat, ezi instante gartan bota dezake infernura, ta mereji du; ta a Dios, botazen badu, etzaiko deus inportako utzi baitu millaka ta millaka intustenak.

2. Ontas landara paratu du Jangoikoak ordena ta dekreto dibinoa, ta pregonatu du San Pabloren agos ezi bein solamente il bear dugula, statutum est hominibus semel mori, ezdezanatik niork esperatu il ondoan erremediazea utsegina. Bi edo ia aldis ilbagindeizke, atrebituko zire zenbait esperazera bigarren aldian ongi atrako zirela, lenbizikoan gaizki atra zirenak. Esta lekurik, dio dekretoak. Salto bat sollik in bear da eternidadera, begira nola iten den ura: Estaike itzuli gibela, in ondoan saltoa; nora erorzen den, an egoin da; barin bada zerura, zeruan sekulakos, barin bada infernura, infernuan sekulakos. Ala gertatu da len, ala gertazen da orai ta ala gertatuko da emendik alzina. (joan dire ta doazi kunplitus plazoak; il dire ta ilzen dire gizonak; apartazen dire gorputzetaik arimak ta zein doaie zerura, zein infernura, nola mereji duen, bakotxa. Itzuli dire zenbait Jangoikoaren permisos ematera notizia bere suerteas, baña orgatik bakotxak prosegitu du bere lekuan. Eta zenbait erresuzitatu barin badu Jangoikoak bizizeko ta emendazeko, estakit zer erran Jangoikoaren juizio profundo gontas; edo zen etziotela eman oraño sentenzia ta lekua berze munduan, edo zen dispensatus Jangoikoak admirableki bere legean, edo berze gisas. Dakitena da Jangoikoaren dekreto unibersala, bein ilzeko guziok, ta por konsigiente niork ez dezakela berzerik espera, baizik ilbaño len in bear dela in bear dena).

3. Konsideratu bear gara bada, mundu ontara jaio garenok gaudela zeruain ta infernuain ermean; goitian dugula zerua, beitian infernua; batera edo berzera joan bear dugula falta gabe il ondoan, ta bitarteo dela mundu gau batallako kanpo bat bekala, zeintan baikaude peleazen munduaren, demonioaren ta aragiaren kontra, ta Jangoikoaren alde berain soldadoak bekala; beira daudela Jangoikoa ta bere kortea alde batetik, demonioa ta bere lagunak berzetik, ia nola peleazen dugun; Jangoikoa animazen ta lagunzen peleazeko ta erdexteko biktoria; Demonioa ta berze etsaiak indar ta mañareki persegizen eroriarasteko; Jangoikoa ofrezizen ta emanaiak prebeniturik daukagun gloriako korona; demonioa ermanaiak bere infernuko kalabozo lotsagarri sekulakora; ta gu biktoriain erdexteko edo galzeko peligroan, Jangoikoak nai duen bitartaño. Pensa gaudela mundu ontan nobiziado batean bekala, egiteko progu gutas, gauza garen edo ezkaren profesazeko zeruko sanduen konpañian, ta estugula denbora jakinik akabazeko nobiziado gau, baizik noiz ere nai gaituen deitu Jangoikoak examinara, orduan joan bear dugula; ezin eskusa, ezin luzatu; ta nor ere orduan aurkizen duen bekaturik gabe, ura admitituko duela; ta nor ere bekaturen bateki, ura desetxatuko duela. Pensa gaudela emen ez egotes, baizik biajes gabilzanok peregrinazioan. Nora goaz? Zerurat. Nondik? Mandamentuen bidetik. Nolako bidea da? Aldapa gora, ertxia ta latza geuren pasione gaistoendako. Bada peligrorik? Inguraturik dago etsaies, okasio gaistos, tropezus ta peligros. Utsik edo kargaturik goaz? Kargaturik aragiaren pizu gaizera inklinazen gaituen gontas. Eta bada nork lagundu? Bai ta anitz: Jangoikoa bere graziareki, aingiru goardakoa bere inspirazioeki, Ama Birjina ta sanduak beren interzesioareki. Bada armarik ta erremediorik ez erorzeko edo erori ondoan jaikizeko? Bai ta abasto Eliza Ama Sanduan, ezpada erxten bidea. Beras, espera daike ellegazea zerura? Bai ta bear da. Beldur ere daike orde? Baitare ta anitz. Eta noiz arteo erabili bear da? Noiz ellegazen da? Noiz nai duen Jangoikoak. Kuidado, ez makurtu beñere. Pensa gara dela nabenganteak, gorputz eben aragisko onzi frajil ebetan daramaguna arimen tesoro ta flota Jesu Kristoren odolaz erosia, habemus thesaurum istum in vasis fictilibus. O zer onzi gaistoak! Zein tesoro delikatua! Munduaren itsaso gontas goaz zeruko porturat, o zer itsaso nasia! Zer aize ta kontrario fuerteak! Baña piloto ona dugu Jangoikoa, ta monstrozen daude bidea deies ta konbidazen portutik sanduak edaturik eskuak, goazela segido ta zuzen; goazen bada errematus al guzia.

4. Pensa gaudela mundu ontan eraikizen, bilzeko gero eraikizendugunain ariora. Orai da azaroa, gero da eraizioa; guziok gara nekazari jenero gontan; trabaja gaizen fielki guziok; aizagun San Pablo sobrestantearen boza erraten diguna: Opus suum probet unusquisque etc. Uskaras: Bakotxak ikus bez zer obra iten duen, zerengatik bakotxak ermako du bere karga. Etzaistela engañatu, Jangoikoari esta irrik. Zer ere eraikizen duen gizonak, ura bilduko du; eraikizen duenak aragiain konforme, artaik bilduko du sekulako korrupzioa; eraikizen duenak espirituain konforme, artaik bilduko du bizitza sekulakoa. Ezkaizela, bada, neka beñere ta ez atertu obra on itetik, zerengatik bere denboran bilduko dugu faltarik gabe. Beras, denbora dugularik inzagun ongi. Guziok dire San Pabloren itzak (Galat. 6). Pensa en fin errealki dena, gara dela kriatuak izateko errege zeruan, solamente kondizioareki maitazen ta zerbitzazen dugulaik Jangoikoa mundu ontan.

5. Zerbitzazera bada. Eta zer da Jangoikoaren zerbitzatzea? Egitea beraren borondatea, berak manazen ta akonsejazen duena ebanjelioan. Gorputz ta arima duzu, esta ala? Ariman irur potentzia: memoria, entendamentua ta borondatea; gorputzean borz sentido: Begiok, bearriok, agoa ta gañarakoak. Bada, Jangoikoaren zerbitzazera da potentzia ta sentido goiek enpleazea berain borondatearen konforme. Zerbitzu gonon zimendua, zaña ta prinzipioa dago biotzean. Zein da? Jangoikoaren amorioa. Onen kasos garaitu pasioneak, goardatu mandamentuak ta konseju ebanjeliokoak, sufritu trabajuak ta montiatu obra onak. Au da Jangoikoain zerbitzazera. (O! Estago burua makurturik egotean, dilin dilin errosarioa eramatean, atsanka egitean, listu botazean, zeñu-meñu ta alako exterioridadeetan). Eta Jauna, gorputz-lanak geuren ofizio ta obligazioskoak, laiazea, jostea ta alako obra bere izates gaisto estirenak egitea da Jangoikoain zerbitzazera? errain dut, barin baute obra goiek arima, bai. Zein da obra goien arima? Intenzio ona, Jangoikoari agradazeko intenzioa. Ta ala ofrezitu maiz Jangoikoari trabaju goiek, ta artu arren izenean ta fin ones, ta ala zerbitzazen da Jangoikoa oietan ere, sazerdote ta errelijosoen ofizioen ariora; berze gisas gaizki leudezke, nekazariak ta ofiziale berzeak, ezpaitezakete akuditu obra espiritualeetara berze gaiek bekala. Emozie arima beautena lan goiei, diot, inzkizie fin edo intenzio ones, zerbitzatu naies Jangoikoa beraren agradoan, ta zerbitzatu ta agradatukouzie oietan. (Baña fin gaistos, kodizias edo nastekatus bekatueki itenbaituzie, fabrikazen duzie zeuren infernua. Eta in barin bezkite lan goiek ez fin gaistos, ez fin ones ere, baizik ala baleke bale, erraten den gisa, orduan ezlizake ain gaisto; baña zerbait gaisto dire, akto oziosoak bekala, falta dutenak bear den intenzioa, zeintara obligazio baita jaioak garenas geros. Zerbitzazeko Jangoikoa ta intenzio ones jatea, edatea, paseazea, dibertizea ta alakoak, faltatu gabe obligazioetan, dire gauza onak). Eta zer diot trabajues? Trabaju Jangoikoagatik ta arimengatik soportazen direnes diot direla Jangoikoain zerbitzuain parterik obrena; eta trabaju korporale, pobreza, eritasun, desgrazia ta alakoes, guk bilatu gabe Jangoikoagandik eldu zaizkigunes, diot direla tesoro bat altxaturik dagona alor gontan, barin badakigu eramaten. Diot direla zerurako bide erreala ta medio propioa; zerbaitengatik eskojitu zituste berendako Jesu Kristok ta Ama Birjinak, zeizkelaik eskusa, izanik gauza guzien jabeak. Baña bear da trabaju goietan ere zirkunstanzia prezisoa, konformidadea ta Jangoikoari agradatu naia; ta al baleike alegria trabajues. Ah zer urresko fabrika ta mina! Baña galzen bada oieki pazienza, añadizen da trabajua, ta itzulzen da zerurako zen eskalera, infernurako. Eta zer diot errezu ta debozioes? Gaisto dire? Ez por zierito, baña estire aski; ia bear da aieki bateo Jangoikoaren grazia. Nola pintatuko dut? iduri zaida ala nola edificio batean puntaleak, tellatua ta errebokazea direla Jangoikoaren zerbitzuan debozioak. Planta zazu edificio espiritual:

Zimendua, amorio dibinoa, biotzain barren barrenean; pareteak goardazeareki mandamentuak; Goapoki eldu dire orai debozioen puntalak, tellatua ta errebokazea, konserbazeko edifizioi. Baña erreza ta erreza, ta egin bekatu, ta ezna emendatu, da engañaturik bizitzea ta errosarios kargaturik infernura joatea. Bai ta grazian zaudelaik ere, beazu intenzio ona, ezi balire gabe, lirazke itxureriak. Obrak ta trabajuak dire prinzipalenak Jangoikoaren zerbitzuan berain amorioagatik, ezi aun ebek balire banidades, ori lizake ez edizio, baizik itxura ta engañua. Jangoikoari solo atenditu bear da guzietan, zerengatik bera da Nausia eman bear duena pagua; berak dauka librua, zeintan eskribizen baitu guk bere zerbitzukoek itentugun faltak ta obra onak; sarri deituko gaitu kontuetara, ajustatu ta emain digu zerbitzuain konforme sekulako premioa edo kastigoa.

6. (Bada, Jangoikoaren zerbitzazera etorri barin bagara mundu ontara, zerbitzu edo ez zerbitzuain konforme izain bear barin badugu soldata, zertan deskuidazen gara? Tempus breve est, denbora laburra da, dio San Pablok. Aurzutua pasatu ze deus kasi onik egin gabe; orai, ta beti ere eguneko ogei ta laur orduetaik anitz pasazentugu lo egiten, non ezpaitaie egin Jangoikoaren gauzarik, ezpada loa bera artus ta ofrezitus Jangoikoari obeki gero zerbitzazeko bera. Bada, zer geldizen da? Zer segizen da? Aizagun San Pablo bera) Ergo dum tempus habemus, operemur bonum. Beras, denbora dugulaik, inzkigun obra onak. Baita aufer Nausiain fabore pasatua denbora guti baliz ere. Zer izain da pasatudugunas Nausiain kontra bekatuetan? bearko da suplitu, ezperen alkanzatuak ta zorrean aurkitu gara kontuetan; doble, bada, bearko dugu zerbitzatu bekatari izanek, atrazeko lengo faltak ta betiko obligazio inekusabile. Len ze obligazio, orai da obligazio; len ezpadugu kunplitu, orai lengo ta oraiko partes suplitu bearko dugu, da klaro, ezperen arin aurkituko gara juizio dibinoaren balanzan; arin, diot, obra ones. Ala aurkitu ze Baltasar erregea. Inzue anitz gaizki, guti ongi, ta azken arratsean zegolaik afari andi baten postrean edaten galanki ta brindazen (bere aldakan zeuzkien emasteki likitsaiei) baso sagratuetan, ikusi zue esku soil bat zegola eskribizen letrabazuk paretean argi ain aurkasean. Lotsarritu ze, ta asustaturik, kongojas galdeiten ziote jakinsuei ia zer signifkazen zuten letra gaiek, ta niork ezin entenda. Or dago, erran ziote, kautibo ekarrietan bat deizen dena Daniel, txoil entendatua; bearbada, arrek leituko dio, errege Jauna. Betor berla, erran zue erregek. Etorri ze maiain alzinera Daniel justoa: Zer ofrezizen da errege Jauna? Emen, erran zio erregek, ikustentuzu eri gaiek eskribizen paretean? al badezakezu entendatu eskritura, explika zadazu; bestituko zaitut purpuras, paratuko dizut urresko kollare bat lepoan ta izain zara irugarren gizona nere erreinuan. Beiratu ondoan pareterat, Danielek sereno errespondatu zio erregeri: Estut bear orren erregalorik, emandezozke berze bati; baña leituko diot ta explikatuko diot eskritura gau. Au da diona irur itzetan: Mane, Thecel, Phares. Mane nai du erran, Jangoikoak kontaturik edo neurturik zeuka orren erregetasuna, ta kunplitu da neurria. Thecel nai du erran, pizatu dute berori ta aurkitu dute arin obra ones justizia dibinoaren balanzan. Fares nai du erran, berzeri emanik dagola orren erregeza. Gauartan berean il zute errege ta aurkitu ze infernuan, non baitago sekulakos. Falta ze orai erratea gloria lograzen duenaren ditxa ta estuenaren desditxa ta gure emengo peligroa, baña esta denboraik; errain dut Jangoikoaren graziareki berze egun bates. Balia gaizen orai erranas: Gizonak gara jaioak zerbitzazeko Jangoikoa gurebizian, neurturik daukagu plazoa ta estaike il ondoan erremedia; ilbaño len zerbitza zagun sinki nork bere estadoan salbazeko nork bere arima guziek. O estaiela geldi itz ta itxuretan. Beretako izain du bakotxak bere ona ta gaiza. Goazen bada ondus Jangoikoaren alzinean ta asi gaizen beingoas, ta eginzkigun fede, esperanza ta

karidadearen aktak. Nik sin. etc.

Serm. 16.

De felicitate infelicitate

et periculo consequendi etc.

1778

Si justus vix salvabitur impius

et peccator ubi parebunt? (Petr. 4).

1. Erran ondoan kariatua dela gizona gozazeko Jangoikoa glorian, kondizioareki zerbitzazen badu munduan, ta ontako duen libertadea, denbora ta modua, orai ia urbilago ellegaturik aipatu nainuke fin azkengoi lograzen duenaren ditxa ta estuenaren desditxa, ta gure bitarteko peligro duguna, ta por konsigiente beldurtasun ta dilijenzia bear duguna. Asi gaizean. Nolako ditxa da lograzea Jangoikoaren gozaze gau, sekulako salbazio gau? Itz bates, da ditxa solla, berdaderoa ta perfektoa, zerengatik ontara erreduzizen da gizonaren izate guzia. Orgatik au deizen dute teologoez benefizio dibinoen korona. Benefizio da Jangoikoak gu gizon kriazea, kristio egitea, konserbazea, erredimizea ta gañarakoak; baña guzien gain azkena ta andiena da gloria ematea, zerengatik ezpada lograzen gloria, estu balioko gizon ta kristio izanak, konserbatu ta erredimituak, zerengatik malograzen da gizon guzia. Orgatik esta ditxa perfektoreki munduan ta estaike ere izan, zerengatik esta au estado konstantea, baizik peregrinazio edo pausua pasazeko estado sekulakora; baña emen daiken gisan ditxa emengo andiena da artarako disposizioa ta prebenzioa, baita bizitzea Jangoikoaren grazian. Ditzatako kontazen dire honrak, gustoak, ondasun ta gauza mundu gontakoak, ta ebek tuena ditzoso; baña engañu andia, zerengatik ditzosoa emen solamente da duena Jangoikoa bereki, dio Dabidek: *Beatum dixerunt populum cuie haec sunt, beatus populus cuius Dominus Deus eius*. Ta Kristo gure Jaunak orgatik erran zigu, zer inporta zaion bati iragaztea mundu guzia, galzen barin badu arima. Gauza munduko goietan barin balego ditxa, atrebizen naiz erratera etzela gisa ortan izan ditzoso Jesu Kristo, zerengatik dutelaik animaleek kuebak ta egasteek kafiak, Jesu Kristok etzue izan nora erreklinatu bere burua. Ditzosoa ze ta bienabenturatua errealki bere lenbiziko instantetik; beras, segizen da estagola ditxa berdaderoa gauza goietan. Guziak dire ugaldetako urak bekala, baitoazi pasatus atertu gabe, ta ezpadire mudazen ere bizi guzian, benzait faltatu beaute prezisoki biziaren akabanzan. Deus gabe sartugina mundu ontan, deus gabe atra bear dugu. (1 Tim. 5).

2. Komedia edo errepresentazio edo figura bat bekala da mundu gau, dio San Pablok: *Praeterit figura huius mundi*. Estaike niores erran ditzosoa perfektoreki den, esten, ikusiartatzen zertan parazen den. Ikusi duzu komediarik? kontu in zazu goazela biok komedia batera: asten da komedia, atrazen dire komediantek, bata tibus bestiturik ta koronareki buruan, berzea ministro aintzu, berzea kaballero iduri duela; au arzai baten figuran, ura soldado bekala ta guziak diferenteki nor bere papelain konforme. Ezpadakizu errain duzu: Ura da errege, berzea ministro etc.; baña nik irri inen dut ta errain dizut: Etxezu guti bat ta ikuskouzu. Akabazen da komedia, usten du bakotzak bere trajea; ikusazu orai. Non da aisteko errege, ministroa, kaballeroa ta berzeak? Itxura ze ura ta orai ageri da, zerengatik guziak dire persona komunbazuk. (Ala erran daike mundu ontas, emengo andi, abrats ta gañarako alakoes. Errepresentazeunte emen nork bere papela: Ura, erraten dugu, da poderoso, au abrats, urlia pobre bat, sandia desditxatua, baña engañazen

gara. Etxi guti bat, goratuko da teatroa, bulusiko da bakotxa itxura goietatik ta ikusko da orduan nor zer den. Orgatik Augusto Zesarek ilzerakoan erran ziote bere andiei: Zer idurizaizie? Estut ongi errepresentatu enperadoreain papela? Geldizaiste bada a Dios ta zelebra zazie. Akaso berze munduan ere izain da andi, abrats, ditzoso emen dena; akaso izain da pobre, desditzatu emen dena. Ori kausatukoute bakotxain obrek, ezi persones estu kasorik eginen Jangoikoak: Non est acceptio personarum apud Deum; baizik personen birtutes ta akaso andia emen zena izain da an txiki, abratsa pobre, ditzosoa desditzatu).

3. Berze konparazio bat. Ikusituzu jiganteak? Lenbiziko ikustean errain duzu: Jesus, eben temenarioak! Auda errege moroa, au turkoa. Etzaitela engañatu, zoaz ustentusten lekura ta ikuskouzu nola atrazen den gizon txiki bat bulto andi gartaik; urra zazu ta ikuskouzu dela guzia palo, karton ta pinturasko armatoste bat. Orduan errain duzu: Au ze ura? Au ze ta ez ia errealidadean. Ala diot gizon guzies, estugu berzerik substantzian, baizik gorputza ta arima; arima prinzipala, urbilena gorputza; ingurazeunte bazuen baitan gorputz arima gau ondasunek, honrek, gusto ta konbenienziek; berze bazuen baitan pobreza, eritasun, trabaju ta miseriak; baña ez aiek ta ez ebek estire gizonaren substantzia, baizik zirkunstanziak ta akzidenteak; bulusirik guzietatik solamente geldizen da il ondoan on edo gaisto izana, ta onen ariora izain da ditxa edo desditzaxa. Noiz arteo nigar in bear du pobreak ta desditzatu deizen dugunak? Barin bada ona, sarri arteo; sarri izain du ditxa inmensoa. Noiz arteo suberbatuko da fortunoso? Sarri arteo; sarri ikusko da desditzaxa sekulakoan, barin bada gaistoa. (Fortunoso gaisto direnak mundu ontan iduri zaizkida niri oroat nola susko kasteluak. Egiten dute makina andi bat gora ederki formaturik ta pinturriaturik kanporat, baña barnetik guzia beterik tiros ta polboras; plantazen dute plazain erdian, etxekizen diote su ta errezen da guzia; zatikazen dire figurak ta geldizen da makina solla itsusturik, belzturik ta morroxxaturik guzia. Esta zer subertu fortuna izateas edozein jenerotan mundu gontan, zerengatik gaistazen badu bat bere fortunak, zenbatenas ia fortuna, ia polbora, ia materia da errezeko infernuan alako fortunoso. Eta zer inportako zaio orduan luzitua ta kanpatua mundu ontan?). Emengo luzimentu guzia ain brebe ta frajila da nola istupa baten garra. Au signifikaizeko, koronazen dutelaik Aita Sandua, berze zeremonien ertean errezen dute istupa puska bat kana baten puntan, erraten diotela: Aita Sandua, ala pasazen da munduko gloria. Zer diot ondasunes? Dabidek diona, amets batean bekala gertazen dela. Idurizen zaio bati ametsetan dagola bilzen erreguka ta montonka doblonak; idazarzen da ta deus estu aurkizen. Ala dio Dabidek, ondasunen gizonek pasatu dutela bere mundu ontako loa ta deus gabe aurkitu direla, idikitustelaik begiak joan ondoan berze mundura: Dormierunt somnum suum etc. Zer diot gusto emengoes? Direla engañuskoak. Dabila demonioa salzen mundukoei, ta anitz prezioin kostus gustoin nonbrean, zer? Baso bazuk gañetik esti bañu bateki estaliak ta barnetik pozios beteak, zerengatik azkeneko emengo gustoek dakarrate erioze sekulakoa. Usa daizke ordea honrak, ondasunak ta gustoak bekaturik gabe; zenbait ez, ta daizkenek ere dakarrate peligroa, ala nola sarnain arraskazeak tentazen baitu sobra arraskazera ta azkeneko usten baitu erresumiña. Zerbaitengatik Jesu Kristok ta sanduek bilazenzuste desonrak, pobreza ta trabajuak.

4. Beras, pobreak ta desditzatu deizen denak du bere baitan salbazeko okasioa bilatu gabe. Beras, disposizio obean dago lograzeko gloria. Beras, ditzosoa da errealki zerengatik emengo ditxa anbatenas ia da, zenbatenas ebeki disponizen duen lograzeko sekulakoa. Entenda zagun, bada, ezi deus estuela balio emen denbora piska bates ongi

pasazeak, izatekos gero sekulakos gaizki. Ta por konsigiente, guzietan gerokorat beiratu bear dugula. Estudiante bat familia on batekoa zego legeen estudiazen, esperanzas beterik gogoa, kanpeazeko ta triumfazeko munduan. Deitu zue beregana San Felipe Nerik ta saioa egin ondoan erran zio kariño andiareki: Ditxosoa zu, orai estudiatu ta artukotuzu gradoak; ondorean iragazikouzu anitz estimazio ta ondasun, goratukouzu zure etxea, inen zara abogatu, logratukouzu dignidaderen bat andia; ta nor ellegatuko da orduan zuri minzazera? Ala zegokio erraten bere gogoko gauzak, aldioro asten zela, ditxosoa zu; ta estudianteak aizen zue gustoreki, ustes sines erraten zion. Gogoain konforme aipatu ondoan arren alzinamentu esperazen zituenak, arzen zuela burutik sanduak ta arrimaturik bere bularrera arren aurpegia, erran zitio bearrira ixil ixila bi itzttoebek: Ta gero? Ainberze inprimituzekizkio biotzean estudianteari, ezi etxera joanik etzezazke atzendu errepetizen zuela bere buruareki maiz: Eta gero? Nik orai estudiazen dut honra izateko. Ta gero? Gero arturik gradoak, izain naiz abogatu. Eta gero? Erdetxikout dignidade andi bat, pasazeko bizia honratuki. Ta gero? Ta gero? Pensamentu goneki erresolbitu ze arras zerbitzazera sollik Jangoikoa, asegurazeagatik gerokoa.

5. Ez, estago gure ditxa emen, bizi labur gontan ongi ta gustora pasazean, baizik sekulako ongi izatean; ta estago desditxa emen gaizki ta desgustora bizitzean, baizik sekulako gaizki izatean. Desditxatua da emen ongi pasaturik sekulako gaizki izan bear duena, ta ditxosoa da emen gaizki pasaturik sekulako ongi izan bear duena. Ta o zenbat alako buelta arrajo iten den emendik atrazean! Boboen danza bekala da emengo bizitza zoroa. Boboen dandan ikus daike ezi bazuetan goiti zegona berzeen gañean, saltoa eginta parazen dela pean, ta pean zegona gañean; ario gontara gertatuko da frankoeki ilzerakoan. Franko orai pobre desetxatuak guzien oinpetan daude ta gañean abrats suberboak; estaizela deskonsolatu sobra pobreak ta ez alegratu sobra abratsak, au da boboen danza; ellegatuko da fina, ta akaso gora zegoena joain da bera ta beiti zegona igain da gora. Nork emain digu onen exenplu bat? Jesu Kristok bere ebanjelioan. Kontazen du San Lukasen 16 kapituloan, zela gizon poderoso bat bestizen zena purpuras ta olandas, ta egunero ederki baskalzen zuena; eta ze, alaber, pobre bat Lazaro deizen zena, zegona etzanik arren atarian beterik llagas, ta etzue berzerik nai, baizik abratsain maietik erorzen ziren desperdizioak; ta etzio niork ematen. Solamente zakurrek etorri ta lamikazen zizkiote llagak. Ah lastima! Nork etzue kontatuko ditxosotako erregalatu abrats gura ta desditxatutako Lazaro? Baña etxi, aizazie orañik Jesu Kristo kontazen. Gertatu ze, dio, ilzea pobrettoa, ta erman zute aingiruek Abrahamen senora; ilze abratsa ere, ta orzi zute demonioek infernuan. Zegolaik tormentuetan beiratu zue gora ta ikusi zue urruti Abraham ta arren senoan Lazaro, ta asi ze oius erraten nigarti: Aita Abraham, lastima bedi, otoi, nitas ta bial bezada Lazaro, zeñek bustirik eria ur guti bates freska dezadan mia, zerengatik erreispilzen nago su gontan. Urtanta bat eskazen du. Esta anitz baña estu lograzen ori ere. Errespondatu zio Abrahamek: Seme, oroi zaite erman zinduzala onak zure bizian ta Lazarok gaizak. Bada, orai au dago konsolazen ta zu errezen, estaike erremedia. Jesu Kristo da kontazen duena, fielak. Beras, banidadeen banidadea da emengo guzia, ezpada zerbitzazea Jangoikoa; guzia dago ontan ta au gabe deus esta guzia. Berze exenplare pare bat. San Franzisko Asiskoa ta Henriko zorzigarrena Inglaterrako errege. San Franziskok etzue deus mundu gontaik baizik Jangoikoa, ta ala erraten zio: Ori da Jauna nere Jangoikoa ta gauza guziak. Henrikok zue anitz ta egiten zue nai zuena mundu ontan, solo etzue Jangoikoa. Ilzen da Henriko ta erraten diote bere lisonjeroei: Omnia perdidimus, guzia galdu dut; ta orai progazen du infernuan. Ilzen da San Franzisko ta errepetizen du:

Deus meus et omnia, nere Jangoikoa ta gauza guziak; ta orai progazen du glorian. Klaro dago, bada, ezi deus estela guzia, ezpada lograzen gozazea Jangoikoa glorian, ta onen lograzea dela ondasun, honra ta ditxa guzia.

6. Ontako kriatuak gara guziok, baña ebidente da ez guziek lograzeuntela, zerengatik ez guziek kunplizeunte obligazio prezisoa, baita zerbitzazea emen Jangoikoa. Zenbat diren lograzeuntenak ta zenbat estutenak, daki sollik Jangoikoak. Beira zagun zenbat gizon ta emasteki jaio den mundura, munduau mundu denas geros, 6977 urte ebetan ainberze baitu fabrikaturik munduonek, ta zenbat jaioko den akabatuartaño. Jesus, au saldo andia! Saldo gau guziau ikusirik ta kontaturik zeuka burus buru Jangoikoak bere eternidadean, zerengatik berak, Jaun supremoak bekala, bere jakinduria ta probidentzia profundo admirableas disponitu zue guzien lista jenerala: Onenberze jaiobeautenak, ebetaik berze bi lista partikularak; onenberze au ta au ta au joain direnak zerura; onenberze joain direnak infernura. Lista bakotxa berak dakien numero fixoan, esta jaioko ia ta ez gutiago, ez salbatuko ia ta ez gutiago; ta esta kondenatuko ia ta ez gutiago bat berere, daudenak baño lista bakotxean. Lista ta numeroain konforme joan dire ta joain dire errezibitus nork bere suertea ta bildus zerurako daudenak zeruan Jangoikoaren grazias ta infernuan arara doazinak beren kulpas, ta azkeneko aurkituko da logratu direla onenberze ta malogratu direla onenberze txusto, txustoa aiek berak Jangoikoain jakindurian zeudenak; au deizen dut lista. Salbatu direnetaik nor edo nor etor dire ematera notizia bere ditxas, ta kondenatu direnetaik ere zenbait kontazera bere desditxa sekulakoa; baña geien komun, espezialki denbora ebetan, geienak edo guziak doaz arzera posesio bere lekuas ixil ixila, diot, guri adiarazi gabe nora doazin; ta franko gutiago ustetugunak bidedoaz zerura ta franko uste estugunak infernura akaso, nork daki? ilzen direnen gorputzak guzien komun gizonen ermatentuste obietara prozesioan; baña ilari aldioro berze prozesio bat iten da berze munduan. Baita ezpada ere orzizen gorputza emen, esta falta nork errezibitu arima an, ta frankotan honratuki emen ermasteuntelaik baten gorputza gizonen, terribleki ermasteunte arren arima demonioek; ta frankotan, pobreki orzizen den edo orzi gabe geldizen den gorputzaren arima ermasteunte gloriosoki aingiruek zerura. (Crysost. hom. 13. in psalm.) salbazen diren ia edo gutiago disputazeunte teologoen ta estute dudazen ia kondenazen direla agitzes, kontaturik jende guziak, hereje, judio, infiel ta kristio guziak, zerengatik ia agitzes dire kristio estirenak direnak baño; ta da fedesko gauza estaikela salba kristio estena. Kristio andietaik da duda, gutiago edo ia kondenazen diren; ta bazuek diote ezi ia, berzebazuek ezi gutiago; ta Jangoikoak solo daki ebidenteki dena ontan ta guri etzaigu inporta jakitea, dakigulaik salbazen direnetaik estela nior salbazen baizik Jangoikoaren grazias ta kondenazen direnetaik estela nior kondenazen baizik bere kulpas. Experiencia lotsazen du entendamentua, zerengatik delarik kondizio prezisoa zerbitzazea Jangoikoa, ikusten da zein gutik zerbitzazen duten. Errebelazio zenbait izan direnek ikarazen dute bat. Aita Sandu geienek triste ematen digute errespuesta. San Pedro apostoluen prinzipiak erraten digu: Justoa apenas salbatuko barin bada, gaistoa ta bekataria zer inen dire? Baña aizagun Jesu Kristo. Galdein zio batek: Gutu ote dire salbazen direnak? errespondatu zio Jesu Kristok: prokura zazie sarzea atari ertxitik. Au, dio San Agustinek, dela erratea guti direla salbatuko direnak: Confirmavit Dominus quod audivit. (Serm. 32 de verb. Domini.) San Mateoren zazpigarren kapituloan oroat erran zue: Sar zaiste atari ertxitik, zerengatik andia da ataria ta zabala bidea perdiziora daramana, ta anitz doaz artaik. Ah zein ertxia den ataria ta mearra bidea salbaziora daramana, ta guti dire aurkizeuntenak! En fin, ogeigarren kapituloan erran zue: Multi sunt vocati, pauci vero

electi. Anitz dire deituak ta guti eskojituak. Ta explikazen du San Gregoriok: Zerengatik anitz datozi federa ta guti zeruko erreinura. (Hom. 19 in evang.).

7. Nork ia ezaundurik salbazean dugun ditxa ta kondenazean dugun desdixta, esta ikarazen peligro dugunas bien ertean mundu gontan? Akaso izain gara emen ongi, akaso gaizki, akaso ilen gara fite, akaso berant, peligro da ebetan; baña salbazen bagara, esta deus inport izan ongi edo gaizki emen, il fite edo berant. Baña akaso salbatuko gara, akaso ez. Zerk konsola gaizke peligro gontan? Gure frajilidadeain kuerdareki dilindaka gaude Jangoikoaren eskutik zeruain ta infernuain ertean; auxten bada kuerda gau galduak gara, ta fazil da auxtea, zerengatik beti gaude erraten gara dela frajilak. Bidrio bat fazil da auxteko; ta zer bidrioago gu baño bekatuetarako? Bada, nor esta beldurzen kondenazeas? Nola daike bat atzendu gauza gontas? Zer izain ote da nitas? Zein suerte ote dago neretako? Ote nago eskribiturik biziaren libruan edo ez? Salbatuko ote naiz edo kondenatuko ote naiz? Beldurtasun goni berla juntatu bear diogu esperanza bat andia Jangoikoa baitan, erraten diogula finki: In manibus tuus sortes meae. Orren eskuetan daude nere suerteak. In te Domine speravi non confundar in aeternum. Orren baitan konfiazten dut ez nai zela izain konfunditua sekulakos. Beldurtasun ta konfianza goneki berla juntatu bear dugu dilijenzia bat andia, obrazeko geuren salbazioa atertu gabe bizi guzian ilartaño; il ondoan deskuida gaizke logratu ondoan gure azken fina. O ezkaitzela atzen ontas beñ ere. Atzendu ta orgatik ezpalu gertatu bear gertatuko denak, nonbait or; baña atzen gaizen edo ez, gertatuko da. Kuidado, ezkaizela idazarri ta adbertitu berze munduan. Emen, emen, asegurazeko guzia. Bitarteo eskatu Jesu Kristo Jaunoni espezialki gorazerakoan Hostia ta Kaliza. Salvum me fac et salvus ero. Salva benaza ta salbatuko naiz. Asi gaizen erranes fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinest. etc.

Serm. 17.

De Nomine et circumstantias Christiani.

ann. 1778

1. Kristioa zara? Galdetze goneki asten da gure katezismoa. Berzebazuk asten dire galdegiten baktxaren izenas gisaontan: Nola deizen zara? Erakusteko zer fines parazen zaion baktxari bere izena bataioan. Ikasagun guk ere. Da zierto, estela preziso bataioaren substantziaindako izenain parazea, zerengatik izenik ezpalekio ere paratu, ain bataiatu rik ta kristio eginik geldi leike persona; baña ala ere da Elizaren kostunbre konstante ta perpetua, lege zarrean ere usazen zena; eta ainberze kuidazen du Jangoikoak izenaren para ze gontas, ezi berak zenbaitei paratu ta errebelatu diote izena. Testamentu zarrean da anitz testimonio gauza gonon, berrian ere bai: Orra San Juan Bautistaren izena, Jesusena, expresoki erabaki zitue aingiruak Jangoikoaren mezus. Kristok berak San Pedrori ta Zebedeoaren semeeri paratu zizkiote izenak egin zituelaik bere diszipulo. En fin, Nizeako konzilio jenerale lenbizikoak ordenatu ta manatu zue parazeko kristio guziei bere izena bataiazerakoan. Da seña le, badela zenbait motibo ortako ta estela solamente izena elkar ezaunzeko ta distingizeko munduan. Irur motibo, ontas landara, dire dakizkitenak (Parra pl.2).

2. Lenbizikoa, ala nola mutil batek asentazen duelaik plaza soldadotako errejimentu batean, eskribizen baita arren izena ta seña leak libruan testimoniotako, dela ia bandera gartako soldado, ala jaioginanok eskribiturik demonioaren listan ta arren markareki bekatu orijinalaren kasos, bataioan pasazen gara arren bando infernaletik Jesukristoren konpañia berex eskojitura, ta alistazen gara beraren diszipulo ta soldadotako. Orgatik ezarzen ta asentazen digute izena. Bigarren motiboa da, ezi nola bekatu orijinalaren kasos jaiosen baikara iraren hume ta Jangoikoaren enemigo, orgatik ezkindue izenik Jangoikoaren alzineko, zerengatik solo justoek dute izena Jangoikoaren presenzian. Ala erreparatuzue San Gregorio andiak ebanjelioko abrats abariento garren gañean, ezpaitigu aipazen arren izena, erratendigulaik berze alde klaroki arren atarietan eroririk zegon pobre gura deizen zela Lazaro. Ze justo, naiz pobre, orgatik Jangoikoaren libruan badu izena. Orgatik Sardisko obispo deskuidatuari iten dio kargu Jangoikoak: Habes pauca nomina in Sardis. Arzai ajolakabea, zure ardi guzietan guti tuzu izen dutenak, zerengatik gutik goardatu dute bataioko grazia, ta goardazen estutenen izenak borratuak daude biziaren librutik. Bataioan, bada, errezibitu gindue grazia ta eskribitu ze gure izena Jangoikoaren libruan; au signifika zeko paratu zigute izena; kuidado, ezagula borra bekatuareki. Irugarren motiboa da, ezi ala nola batek otorgazen duelaik eskritura bat edo obligazio bat pagazeko berze bati kantidaderen bat, zeñendako obligazen baititu bere persona ta haziendak, seguridadetako parazen baitu eskriturain ondarrean bere izena edo firma. Ario gontara bataioa da eskritura edo obligazio bat, zeñen medios baikaude obligaturik Jesu Kristoren zerbitzu sandura; ortako paratu zizaigu izena, firma bat bekala asegurazeko, konfesazeko ta patente egiteko guziei artu dugun obligazioa. Oroi gaizen ontas aipazendiguten aldioro gure izena.

3. Ori entendaturik, erran bezagu, Jauna, zerengatik parazentiguten sanduen izenak. Berze irur motiboengatik. Lenbizikoa, egiteagatik sandu garri zeñen izena arzen baita, zerbait obsekio ontan, seña lazzen delaik ala personaren patrono, anparo ta tutore bekala sandu gura; desuerte ezi esta paratu bear izen bat zerengatik ura izan zuen aita k edo atxunak edo berze norbaitek, baizik autazeagatik patrono bat zeruko sanduetaik

aurraindako. Bigarren motiboa da, izateko debozio espeziala ta enkomendazeko maizago sandu garri zeñen izenas honrazen baikara. Obligazio iduri du ta da gauza ederra egunoro zerbait orazio edo obsekio egitea geuren izenen sandueri. Irugarrena ta prinzipalena da, izan daien sandu edo sanda gura gure hispilu bat bekala, zeintan beira gaizen ta konpon dezagun arima sandu garren ariora, imitazen dugulaik al guzian, ta ezpadugu imitazen alke gaizan dugun izenak. Oroi zaite, eskribizen zio Susana deizen zen bati San Ambrosiok letra baño nigar iagoreki, oroi zaite deizen zarella Susana. Zer maldadea da mantxazea zure bizimoduas alako matrona baten izena? edeki zaite izengoi gezurres ematendizutenoi edo izan zaite deizen zarena, zerengatik gauza itsusia da deizea Susana kasta estena. Ala predikazen zio San Ambrosiok. Ario gontara zenbatek tugu izenak edeki bearrak, ezpaikara deizen garena? Anitz, zio San Juan Krisostomok, deizen dire Juan ta estire Juan. Ni ere, zio sanduak humilki, deizen naiz Juan ta ez naiz Juan. Eta zer errain dugu zuk eta nik, indignoki tugunek izenak korrespondizen estugunak? Izen onak ta izan gaistoak da perbersidade abominablea. Sardisko obispoa Zozimo deizen omen ze, nai baitu erran, bizi dena; egiten dio kargu Jangoikoak bere izenas: Zure kontra nago, erraten dio; zer du, bada, Jauna? Zer delito arkizen du enebaitan? Ikusitut ongi, dio, zure obrak, eta duzulaik bizi denaren izena, ila zara. Nomen habes quod vivas, et mortuus es. Beira zagun bakotxak geuren izena ta berla beira zagun geuren bizimodua, ia konformazen diren; ta ezpadire, alketurik emenda gaizen. Ainberze Joakin, Josef, Franzisko, Migel, Maria ta alako nonbreak sobreeskritoan daramazkitenak ta ain guti San Joakin, San Josef, San Franzisko, Maria Santisimari ta berze sandueri idurituak? Zer da au? Au da izatea basobazuk triakaren letreroareki gañean ta beterik pozios barnean, fruita ederrak itxuras ta errealki ustelak. (Parra Plat.2.).

4. Kaballero bat, kontazen du San Pedro Damianok, deizen ze Bonifazio, nai baitu erran ongigillea, ta etze ain ongi bizi nola baizue izena. Aldi bates atra ze kanpora dibertizera ta dibertizerakoan erreparatuzue hermita bat; sartu ze artan ta ikusi zue zela San Bonifazio martiraina ta bere izenaren sanduarena. An zegolaik etorri zizaio pensamentura: Bonifazio sandu gau, ni ere bai, nola imitazen dut? Bonifazio da ongi eginzalea, nolako obrak dire nereak? Ainberze konfunditu ze pensamentu goneki, ezi an berean artu zue erresoluzio firme bat: Edo estut deitu bear Bonifazio, edo Bonifazio izan bear dut. Erresoluzio goneki atra ze, errenunziatu zue gauza guzietatik, despeitu zue enperadorearen kortea ta mundua, ta eginik errelijioso bizitu ze ain ongi, ezi ellegatu ze obispo ta sandu izatera. Au da San Bonifazio obispo ta martir aldaretan zelebrazen duguna. Orra zer kausatu zuen bere izenain konsiderazeak.

5. Izenetik pasa gaizen izanera. Kristioa zara? galdeiten du katezismoak, ta errespondazen dugu: Bai Jauna, Jangoikoaren grazias. Estigu galdegiten ia kristioak deizen garen, baizik ia garen kristioak, zerengatik kristioaren izena izanik ain honrosoa, esta protxatuko ezipagara kostunbreetan kristio berdaderoak. Kristioaren izen gau lenik asi ze usazen Antiokiako ziudadean, non paratu baizue bere katedra San Pedrok. Lenago deizen zire fielak, nazarenoak, anaiak ta sanduak, ta komunkiro diszipuloak; baña zerengatik hereje lenbiziko gaietarik ere zenbait asi baizire nonbrazen diszipuloak, orgatik apostoluek ordenatu zute Kristoren diszipuloak dei zeizen kristioak. Baña zerengatik geroagoko zenbait hereje gloriazen baizire kristioen izenas, distingizeagatik herejeetarik kristio berdaderoak, ebek deizen dire kristio katolikoak, baita oroat nola unibersalak, zeren sinestazen baituste fedearen ta Elizaren misterio ta doktrina guziak; ez herejeek bekala, bazuk bai, berzebazuk ez, bere opinioneain konforme. Okasio goneki eskribizen duelarik

Pazianok herejeen kontra, erraten du: Kristioa da nere nonbrea, katolikoa nere sobrenonbrea; erakusteko sinestazen tuela Elizako doktrina guziak faltarik gabe, aiek ez bekala. (Lipsin t.1. de nomine cristiano) Bidanabar esta gaisto jakin dezazien, ezi honratakola Españako errege deizen dela errege katolikoa. Onen prinzipioa izan omen ze Toledoko konzilio batean, 638 urtean, non ordenatu baizute konzilioko Aita Sandu gaiek etzeiela niori permiti igatea trono errelaera, non ta etzuen lenik iten juramentu, ez konsentizeko bere erreinuan personarik fede katolikoa guzis sinestazen etzuenik. Erdetxi zue titulo gau Alfonso erregek konzilio artan asistitu zuenak, ta heredatu dute andik onat segitu diren Españako erregek. Franziako errege deizen da kristianisimo, ta omen du titulo gau Aita Sandu Gregorio III emana Karlos Martelori 740 urtean, zeren Franziako errege garrek faboratu baizue anitz Aita Sandu gura Longobardoen kontra, zeñek anitz aflijizen baizute Eliza denbora gartan; andik onat heredatus joan dire Franziako erregeak apellido gau. Alaber, elizako orazio Orzilar Sanduan iten direnetan deizen da enperadorea kristianisimo. Portugaleko errege apellidazen da fidelisimo, ta du titulo gau Benedikto XIV emana orai zenbait urte. Zertako au guziau? Erakusteko ezi anitz estimatu bear dugula kristioaren izen gau, zeintas iten baitute sendagalla gloriosoa alako errege andiek nork bere gisa.

6. Idukagun, bada, beti presente biotzean ta patente mian kristioaren izen gau; konfesa zagun zeruain ta lurraín alzinean: Kristioa naiz Jangoikoaren grazias. Au da gure izate prinzipala. Ontas erraten zue Diakono sandu garrek, galdein ziolarik tiranoak: Nor zara? errespondatu baizio: Kristioa. Nola deizen zara? Kristioa. Zer ofizio duzu? Kristioa. Ta ala etziokete berze itzik atrarazi tormentu ta eriozeain ertean. Au ze errealki kristio berdaderoa. Izan gaizen gu ere, estaiela gerta izatea izenas kristio ta izanas antikristo edo Kristoren kontrario. Oroi gaizen lenbiziko izendugunas bakotxak, imitazeko izenaren sandua, ta guziok kristioen izen jeneralas imitazeko Kristo; ezperen ez sanduek ta ez Kristok ezkaitute kontatuko bereak. Aizagun Jesu Kristo: Anitzek, dio, errain didate juizio egunean: Jauna, Jauna, ezkindue akaso egin orren izenean prodijio gau ta berzea ta berzea? Ta nik erran diotet: Zierto diot, etzaistet ezaunzen; zoaste enegandik maldadearen obrazaleak. Asi, bada, kristio egiaskoak izaten ta erresoluzio goneki inzkgun fede, esperanza ta karidadearen etc.

Serm. 18.
De Felicitate Christiani.
1778

Non ex operibus justitiae, quae fecimus nos,
sed secundum suam misericordiam salvos nos
fecit per lavacrum regenerationis. Ad Tit. 3.

1. Kristioa zara? galdeiten du doktrinan; ta errespondazen da: Bai, Jauna, Jangoikoaren grazias. Zer nai du erran kristioa? Kristioa da oroat nola Kristoren diszipuloa, Kristoren soldadoa, Kristoren gizona ta Kristorena guzia; ala nola Mahomarena deizen baita mahometanoa; Kalbinorena kalbinista. Norengandik dugu Kristoaren izen gau? Kristo gure Jaunagandik. Bere izenetik nonbrazen gaitu bere humeok gure Aita amanteak; bera deizen da Kristo, gu kristio. Eta zerengatik diogu garel kristio Jangoikoaren grazias? Jangoikoaren grazias oroat da nola Jangoikoaren fabore, mertxede ta benefizio andi baten kasos. Ezkara kristio ez geuren prenda ta merejimentuen kasos, ez ziertoki, baizik Jangoikoaren miserikordia solles. Aizagun San Pablo: Non ex operibus justitiae, quae fecimus nos, etc. Ez guk inikako obra onen kasos, baizik bere miserikordiaren grazias Jangoikoak paratu gaitu salbazioko bidean bataioaren medios. Konsidera zagun benefizio andi gau, ezaunzeko gure ditxa espeziala, ta entendazeko zenbat arrazioreki diogun garel kristio Jangoikoaren grazias.

2. Kriatuak izanik guziok Jangoikoaindako, guziok errebelatugina Jangoikoaren kontra gure aita Adanenbaitan; ta por konsigiente guziok jaio zen gara mundura Jangoikoaren enemigo, bere iraren seme, ta kondenaturik Jangoikoaren presenziatik sekulako pribazio ta desterrura, ertxirik zeruko atariak sekulakos bekatu garren kasos, idikirik solamente infernukoak, ta geurok inklinazio ta pasione gaistos beterik, nior estaikela bere indarres libra; sollik zein nai duen bere esku poderosoas Jangoikoak libratu, librazen da. Estado miserable gartan zegolaik gizonen jenerazioaren masa kondenatua, zoeie eroris inguraka gaizetaik gaizetara, aliketa Jangoikoak berak urrikaldurik gutas bial duzen artaño gure erremediazera bere Seme dibinoa gizon eginik Jesu Kristo deizen dena. Jaunonen kasos salbazen da salbazen dena gerostik onat, ta lenago ere alaber etzeike nior salba baizik Jaunonen atenzios, ta beronen merejimentu lenetik Jangoikoak ikusirik zeuzkienen birtutes. Orgatik deizen da ta da errealki guzien erredenptorea; orgatik deizen da ta da gure bidea, zeintaik solamente joan baitaike zerura; gure ataria, nondik solamente sar baitaike glorian. Ego sum via. Ego sum ostium. Da, en fin, gure bizia, ta gure salbazio solla sollik Jesu Kristo, ta esta berze nioren baitan salbaziorik. Non est in alio aliquo salus. Jaunau da ebanjelioko arzai gura, zeñek utzirik desertuan laueta ogeita emerezi ardiak, au da, glorian aingiruak, etorririk gizonen jenerazioaren ardi galdu gonon bila, ta arturik bere soñean, au da, bere trabajuen kostus, ermaten baitu zeruko saldora. Jaunau da bekatuaren dilubio ta galmende unibersale gartan edifikatu zuena eliza edo kristiandadearen arka, zeintan libra daien libratu bear dena. Orai, bada, arka gontan estagona ondazen da, diot, kristiandadean estena kondenazen da sekulakos. Ondatu zelarik mundua uresko dilubio gartan, solamente libratu zire zorzi persona Noen arka gartan. Orai librazen dire, estiot zorzi persona, baizik Jangoikoak daki zenbat, nik estakit, elizako arka gontan; solo dakit librazen dena librazen dela arka gonon barnean, ta kanpotik

dauden guziak galzen direla; ta ikusten da ia ta ia direla kanpotik daudenak, diot kristio estirenak, agitzes, direnak baño.

3. Nork, bada, berexi gaitu gu ainberze jende desdixatuen monton gortatik? Geurok? Ez, zerengatik jaiobaño len ezkina deus, ta ezkinduke deus egin; jaio ondoan ezkindeizke atra ainberzeko loietik geuren indarres, zerengatik ezkara geurengandik kapaz izateko sikiera pensamentu bat ona, diones San Pablok. Non sumus sufficientes cogitare aliquid ex nobis, quasi ex nobis. Berze esku batek, bada, Jangoikoaren eskuak, ontasunak, ta miserikordiak atra gaitu. Jangoikoak, diot, berexiginduza gu munduau in baño len bere naies, izateko kristio. Elegit nos in ipso ante mundi constitutionem, ut essemus sancti. Jangoikoak jaioarazi gaitu kristio-errian; Jangoikoak in gaitu kristio. Bai, ta zerengatik gu geiago berze jende guziak baño? Zerengatik gureki nai izan baitu in grazia, ta aieki justizia. Zer ia ongi ikusi zue gure baitan? Akaso da, zerengatik garen jakinsu, abrats, galant edo berze prenda zenbaitengatik? Ez, zerengatik anitz jakinsuago, abratsago, galantago ta prenda iagotakoak daude jentilidadean. Beira ainberze filosofo, enperadore, enperatriz, errege, erreina ta persona jenero, nola baita turko, moro, hereje, barbaro, judio, jentil munduan, ta guziak infernurako estadoan; eta zu pobrettoa, zu tontoa ta tonta, itsusia ta deus iduriestuzuna aien aldean, jaioarazi zaitu kristio errian; in zaitu kristio, garbitu zaitu bataioan, markatu zaitu bere anditako ta paratu zaitu elizan ainberze medio ta erremedioen erdian, ta salbazioko karreran, emateko gero gloriako korona eternoa. Zerengatik? Zerengatik? (Gatozin urbiltxago. Zenbatek emen zaustenetaik akaso izanbidetuzie anai edo arrebak konzebituak zuk konzebituzinaten sabel artan berean, ta akaso il zire jaio bañolen, edo jaio ondoan bataiatu gabe, ta joan dire linbora ez ikusteko beñere Jangoikoaren aurpegia, ez progazeko sekula zeruko gloria. Zerengatik, bada, zure anaitto garri, zure arrebato garri estio konzeditu Jangoikoak bataioaren grazia, ta zuri bai? Zerengatik?) Estakigu baizik Jangoikoak in digula guri grazi bat anitzei ukatu diotena. Au da zure ta nere ditxa, kristio izatea nola estakigula, baizik solamente Jangoikoaren grazias.

4. Grazia gau obeki ezaunzeko, balia gaizen zenbait exenplus, Alexandro andiaren bizian kontazen da, ezi iragazi zuelaik Sidoniako ziudadea, galdetu zuela personaren bates digno izanzeienas, parazeko arren buruan ango korona. Bada bat, erran ziot, erregeetaik duena bere etorkia, baña pobrea bere ontasunain kasos, lanzen dagona barazetto bat, atrazeko bizia. Naiz bai, erran ziot andiei Alexandrok, zoaste insignia errealeki, ta ekarrazie, koronazera erregetako. Joan zire andiak baraze gartara, aurkitu zute Abdolomino, guzia zatar bat eginik, ta zikindurik loies, atrazen belar gaistoak, deustan gutiago pensazen etzuela, nola errege izatean. Egin ziot bere saloa ta erreberenzia; korresponditu ziot pobrettoak admiraturik ikustas ainberze grandeza bere baratzean. Orduan batek erran zio: Ea Jauna, ona nere eskuetan ikusten duen traje gau aldatu bear du zatar goien lekuan; garbi bezki eskuok, ta ar bez erregeren arimoa, ezi errege da, emengo jendeen bizi ta eriozearen jaun ta jabe. Amets bat iduri zekio pobre garri pasazen zena, ta erraten ziot etzezatela burlarik egin pobrettoas. Baña etze burla, serioki juramentu eginik sinestarazi ziot. Ta aldaturik tisu ta purpurasko tresenak, erman zute guzien erdian palaziora, ta aklamatu zute errege (Curt. 1.4. c.3). Ditxa uste gabekoa izan zue; baña ustegabeago izan zue ta mereji zuenaren kontra Klaudio enperadoreak. Konsient izanik enperadore alzinekoaren eriozean, eskapaturik beldurrak il zezaten bera, erdi altxatu ze palazioko atari baten gibelean, ageri zizaizkiola oñak. Ellegazen da soldado bat furioso ezpata buluxiareki eskuan ilzeko gaistofikatua; erreparazen du non dagon, ta ematera dakiolaik golpea, parazen da Klaudio belauriko esperazen eriotzea. Orduan derepente

soldadoak arzen du gizonoi soñean, ta atrazen da oius erraten, Klaudio enperadore, Klaudio enperadore. Etze ia bear izan, segizen dute tropaek, ta parazen diote korona lentxago iletsiturik zegonai. Zer ditxa! errain duzie. Zer fortuna! Baña guziareki orai dago Klaudio infernuan. Gurea baita sinesko ditxa, ezi kondenaturik gindeudelaik sekulako eriozera, orduan elejitu baikaitu Jangoikoak sekulako gloria, ta koronarako, egines kristio (Parra plat.3.).

5. Asunto gontara ekar nezazke Aita Sanduak, erregeak ta enperadoreak, kuna humil apaletik ta aun kalabozotik igan direnak, baña aien guzien ditxa gureareki estaike konpara; ta aietan baño, gure baitan obeki kunplizen da Dabiden sentenzia gura, Jangoikoa dela gorazen duena lurretik pobrettoa, ta igaten duena ongarritik desdixatu miserablea. *Suscitans â terra inopem et de stercore erigens pauperem.* Utzirik kanpoko exenpluak, eskritura sagratuan tugu obeak adiarasteko gure ditxa berexteas gu kristiotako Jangoikoak. Guzien artean ikusagun Saul ta Dabiden elekzioa erregetako. Saulena izan ze arla. Zebila Saul bere Aitaren astoen bila, ta ezin aurkitu ondoan joan ze Samuel profetagana ikastera zerbait notizia; ta okasio goneki Jangoikoaren errebelazios erran zio Samuelek: Etzazula penarik izan zure astoes, ezi aurkitu dire; eta Israelgo gauzarik obreenak norendako dire, baizik zuretako? Zu eskojitu zaitu Jangoikoak errege Israelgo. Ta despeitu zue unjiturik erregetako. Orra asto batzuen bila zebilalaik Saul, aurkizen du Israelgo zetroa sekula pensatu etzuen. Zer felizidadea! Ikusagun Dabidena. Erraten dio Jangoikoak Samuel berari: Arzazu olio, ta zoaz Belena Isai deizenden baten etxera, ezi arren semeetaik bat daukat elejiturik erregetako. Ellegazen da Samuel Belena; deiarastentio Isai Aitari bere semeak. Parazen dio Isaik alzinean lenbizikoa, Eliab. Au ote da eskojitua? errebelazen dio Jangoikoak: Ez, esta ori, etzazula kasorik egin orren itxuras ta anditasunas. Betor berze bat; plantazen diote Abinadab. Au ote da? Esta au ere. Ekarzen diote Samma. Esta au ere. Presentazentio bere zazpi semeak. Esta ebetaik, erraten dio Samuelek. Estuzu berze semerik? Bai Jauna, errespondazen dio Isaik, txikiena da falta, ta dago artxaiko ardien goardazen. Ekarzu, bada, ura. Ta ekarri orduko errebelazen dio Samueli Jangoikoak: Jaiki ta unji zazu ori errege, ezi ori da nik eskojitua. Unjitu zue instante ta gelditu ze inik errege gasteena, ta lentxago arzaingoan zebilana. Au baita ditxa! Baña au ere esta konparazeko gureareki, zeren utzirik ainberze ta ainberze munduan, gu eskojitu gaitu Jangoikoak, ez Israelgo errege, bai kristio, ta ontan eman digu deretxo, izateko Jangoikoaren humeak, gozazeko elizan Jesu Kristok bere odolaren kostus paratutuen sakramentuak, ta merejimentuak, ta gero glorian prebeniturik dauzkien tronoak, grandezak, koronak ta kontentuak.

6. Au baita grazia, grazia guzien prinzipioa! Begira klaro. Erran zadazie: Ainberze jentil, idolatra ta gañarako alakoek dute dretxo gau? Gozazentuste pribilejioebek? Ez. Zerengatik? Zerengatik ezpaitire kristio. Beras, kristio izatea da ataria, da gilza sarzoko lograzera ainberze benefizio. Bagindeude iletsiturik erremediorik gabe; ta derepente baletorkigu bat kofretto bateki ongi ertxirik eskuan, ta erran balezagu: Torizie, kofretto gontan dago medizina, zeñeki instantean sendatukobaizinazkete arras; baña gilza esta ageri, ta kofrea estaike idiki. Zer dilijenziak inen ginduzke, bilazeko gilza? Zer ezkinduke emanen arren truk? Ta aurkibalei, zenbat estima gindezake? Bada, zenbat estimatu bear da kristio izatea, baita gilza, zeñen medios sartu baikara elizan, idikizen baizaigu artxibo ta botika dibinoa, sendazeko eritasun espirituale guziak, aurkizeko grazia galdua, lograzeko Jangoikoaren benefizioak, bere odolaren prezio infinitoa, bere eriozearen merejimentu inmensoak, bere doktrinaren argitasuna, bere misterioen fedea, bere sakramentuen fruitua,

ta bere gloriaren ditxa sekulakoa? Kristio izatea barin bada gilza ontako guzirako, grazia eben guzien erdexteko grazia, Jangoikoak gure dilijenziarik gabe eskuetan paratu diguna, arrazioreki diogu, garela kristio Jangoikoaren grazias. Konfesa zugun agradezituriK zeruain ta lurraIn alZinean: Kristioa naiz Jangoikoaren grazias. Ta emozkiogun Jangoikoari gau ta egun graziak grazia gontas, biotz, arima ta indar guzieki, potenzia ta sentido guzieki, obra, itz ta pensamentu guzieki, bizitus Jangoikoaren gustora guzietan. Intenzio goneki inzkigun orai fede, esperanza, ta karidadearen aktak. etc. etc.

Plat. 19.
de Dignitate Christiani.
Anno 1778

Videte qualem charitatem dedit nobis Pater,
ut filii Dei nominemur, et simus. 1. Joann. 3.

1. Kristioa zara? Bai Jauna, Jangoikoaren grazias. Explikaturik, ezi erraten dugula garena kristio Jangoikoaren grazias, signifikaizeko Jangoikoaren benefizio andia ta gure ditxa espeziala kristio izateas, orai explikatu bear da berze arrazio bat, zerengatik erraten dugun arla, baita monstrazeko dignidade exzelentea kristioarena. Aita Sanduek, obispoek, enperadore ta erregeek beren zedula ta ediktoetan akostunbrazen dute parazea itzkuntza gura, ala Don Karlos Jangoikoaren grazias Españako Errege etc., Don Juan Lorenzo de Irigoien Jangoikoaren grazias Iruñeko Obispo etc., ta ario gontara berzeek. Zerendako? Adiarasteko ezi honra bat ain andia, nola baita korona inperiala ta erreala, dignidade bat ain gorakoa, nola baita tiara ta mitra izatea, dela Jangoikoaren grazia espeziale bat Jangoikoak in nai izan diotena. Zerengatik garen guzia ta dugun guzia barin bada ere Jangoikoaren grazias, alaere ia manifestazen da ura, ematen diolaik dignidade ta honra extraordinario goietaik utzizukenai atzendurik ta apal apala. Orgatik ere diogu arrazioreki garena kristio Jangoikoaren grazias, au da alabañare munduan izan daiken dignidade ta honrarik andiena, dio Tertulianok. Nemo maior, nisi christianus. San Luis Franziaiko errege jaio ta bataiatu ze Poisi deizen den leku batean, ta gero anditu ta errege in zelaik etzue gusto andiagorik, nola joatea maiz leku gartara, ta zio, an errezibitu zuela Jangoikoaren eskutik lurrean izan daiken dignidadarik andiena. Au aiturik erran zio pribado batek: Bada, non usten du orren majestadeak Remsko ziudadea, non unjitu ta koronatu baize Franziaiko errege? errespondatu zue: Remsen errezibitu nue Franziaiko korona, fite utziko dutena biziareki; baña Poisin bataioareki zeruko korona. Ala estimazen zue errege sandu diskreto garrek kristio izatea, zenbaitek guti estimazen dutena (Parra p.1. pl.4).

2. Dignidade gontas aizagun zer dioten sanduek. San Pedrok deizen gaitu linaje eskojitua, sazerdozio erreala, jende sandua. (Vos autem genus electum, regale sacerdotium, gens sancta.) San Pablok erraten digu: Ene anaiak, ia etzaratte arrotz ta estranjero, baizik zarate sanduen lekukideak, Jangoikoaren etxe edo familiakoak, fundatuak apostolu ta profetaen zimenduain gañean, arri prinzipala delarik Kristo Jesus. (Fratres, jam non estis hospites et advenae, sed etc.) San Juan Ebanjelistak Apokalipsiko libruan dio: Gu egin gaitu gure Jangoikoaren erreinu, ta erreinatuko dugu. (Fecisti nos Deo nostro regnum. Et regnabimus.) San Pablok berze leku batean dio: Bataiatuzaraten guziok bestitu zarate Kristo beras. (Quotquot baptizati estis, Cristum induistis.) Gutti baliz bekala bestizea zeruko erregeren trajeas, persona beras dio bestitu garena, Kristoreki bat in bagina bekala. Orgatik dio berze leku batean apostolu berak: Zuek zarate Kristoren gorputza ta beraren mienbroak. (Vos estis corpus Christi, et membra de membro.) Ta ontara dio San Leonek: (In Nat. D. Serm. 1) ezaun zazu, kristioa, zeure dignidadea; ta egin zarelaik naturaleza dibinoaren partizipante, etzaitela itzuli lengo billanietara bizimodu indignoaren medios. Oro i zaite nolako buruain, ta nolako gorputzain mienbro zaren. San Juan Krisostomok dio, ia estimazeko ta maitazeko dela Jangoikoaren Eliza edo

Kristiandadea, ezi ez zerua bera, zerengatik esta Eliza zeruagatik, baizik Elizagatik da zerua (Hom. 11. de expulse ipsius). En fin, aingiruen gañetik parazen du gure honraren primazia, egin delarik Kristo ez aingiru, baizik gizon guregatik, ta gisaontan gu Kristoren aide propioak (Hom. 3. in ep. ad Ephes.).

3. Zer dignidade andiago Jangoikoaren Amarena baño? Bada, aizagun ontas erraten San Agustin (Felicior fuit Maria, recipiendo fidem Christi, quam concipiendo carnem Cristi.) Felizago, dio, izan ze Maria Santissima errezibitus kristoren fedea, ezi ez konzebitus Kristoren gorputza bere sabelean. Jesu Kristok berak deizen gaitu bere ardiak, bere adiskideak, bere erreinuko semeak, bere zarmenduak ta planoak, ta berze alako izen bazueki bere ebanjelioan. Eta aldi bates zegolaik predikazen, abisatu zute, zeudela beraren galdes bere Ama ta anaiak; ta errespondatu zue: Nor dire nere Ama, ta nere anaiak? Ta edazen zuela eskua bere diszipulo lenbiziko kristio gaitara, erran zue: Ona, ebek dire nere Ama ta anaiak, zerengatik iten duena nere Aita zeruan dagonaren borondatea, ura da nere anai, arreba ta Ama (Math. 12). Zenbat modutara expelikazen duen gure estimazioa? Anaia, arreba ta aun Ama ere deizen du Kristok kristioa, zer falta da, baizik esposaren nonbrea, deklarazeko estimazio gutas iten duenaren azken extremo? Bada, esposa Kristorena deizen du Kristiandadea edo Eliza San Pablok klaroki. (Despondi emin vos uni viro, Cristo.) Zer ia? Azkenean bere gorputza ta bere persona bekala kontazen gaitu kristiok Jesu Kristok; ta ala kristioengatik erran zue: Txikittoebetaik bati iten diozena, niri iten didazie. (Quod uni ex minimis meis fecistis, mihi fecistis.) Eta au erakutsi zue il ondoan, noiz ta persegí ze zuen Saulok Kristiandadea, bidean zoeielarik, estorbatu baizue Kristok, ta botatu baizue trastornaturik lurrera, oiua andi bateki zerutik erraten ziola: Saulo, Saulo, zerengatik persegínzen nauzu? Zer da au? Etzego ia orduko iganik Kristo zerura, ta jarririk Aita Eternoaren eskuieko aldean? Bai. Akaso zoeie Saulo zerura Kristoren kontra? Ez. Damaskora zoeie kristioen kontra. Nola dio, bada, Kristok: Zerengatik persegízen nauzu? Da zerengatik ain estimatuak ditu Kristok bere kristioak, ezi aien persekuzioea bere persona propioaren persekuzioea bekala kontazen du; orgatik erraten dio: Zerengatik persegízen nauzu? Ah zer doktrina kristio gaistoendako, zeñek erakusten baitiote berze kristioei gaisto izaten, edo exenpluas, edo itzes! Elkar galzen zarate, elkar bulkazen zarate infernurat; aizazie, otoi, Kristoren oiua lagun gaistoak, pestilenziaren katedratikoak: Zerengatik persegízen nauzie? Baña goazen alzina.

4. Erran zagun itz bates nolako dignidadea eman digun errealki Jangoikoak kristio egiteas. Jaioarazibaginduz errege edo enperadore baten seme, lurreko erreinu bateko eredero, dignidade andia lizake gurea? Bai. Ta nor da ia? Errege ta enperadore nor nai, edo Jangoiko omnipotentea? Klaro da. Lurreko erreinu bat edo zerukoa? Zer du zer ikusi? erran banez, bada, nik orai, ezi Jangoikoak gu kristio egiteareki in gaituela bere seme, ta zeruko erreinuaren eredero, sinesta zindezakete? Akaso iduri leike ponderazioa. Bada, esta baizik egi eta fedea, ta ebanjelioa, San Pablok ta San Juan Ebanjelistak baitiote. Aizazie Agila ebanjeliokoa klaroki erraten bere ebanjelioaren lenbiziko kapituloan, egunoro kasi mezan azkenik leizen denean: Dedit eis potestatem filios Dei fieri. Eman diote, dio, potestade, izateko Jangoikoaren seme. Nori? Iis qui credunt in nomine eius. Kristioei Kristoren izenean sinestazen dutenei. Aski klaro dio; baña klaroago orañik San Pablok Galaziakoei eskribizen dioten kartaren irugarren kapituloan: Omnes filii Dei estis per fidem, quo est in Christo Jesu. Guziok, dio, zarate Jangoikoaren Seme Jesu Kristoren fedearen medios. Zer klaroago erran daike? Baña aizazie berriz ere Erromakoei eskribizen dioten kartaren zorzigarren kapituloan. Dio arla: gobernazen direnak Jangoikoaren

espirituas, oriek dire Jangoikoaren humeak. Bada, estuzie errezipitu esklabitudearen espiritua berriz beldurtasunean, baizik hume adoptiboen espiritua, zeñen medios klamazenbaitiogu Jangoikoari, Aita. Zerengatik espirtu berak ematen dio testimonio gure espirtuari, gara dela Jangoikoaren hume. Bada, hume barin bagara, erederu ere bai, erederu Jangoikoarenak, ta Kristoren erederu lagun. Hume adoptiboak deizen gaitu, ez hume naturalak, zerengatik seme naturala Jangoikoarena esta baizik Jesu Kristo Trintateko bigarren persona dibinoa, enjendratua bere Aitagandik, bera bekala Jangoiko dena. Ezkara gu, ta ezkaizke izan ala. Baña adoptiboak bai. Seme adoptiboa deizen da batek semetako bere etxera arzen duena. Ario gontara garade kristiok Jangoikoaren seme, ez solamente izenes.

5. Beira zazie, dio orai San Juan Ebanjelistak, beira zazie ta ikusazie nolako karidadea in digun gure Aita dibinoak, gu nonbrazeas Jangoikoaren Seme, ta izateas. Videte qualem caritatem etc. Gerostik alde gontak zerbait gisas dei gaizke Kristoren anaiak. Estu ukazen baizik konfesazen du berak, aitu dugun bekala, aixtean, ta onen progutako ez solamente konsentitu zigu dei gindezan gure Aita beraren Aita, baita manatueregindua bere ago sanduas erran zuen Aitagurearen orazioan. Zuek, manatugindua, zuek orazio in nauzielaik, erran zazie arla, Aitagurea zeruetan zaudena. Aita bat deizen dugu Kristok ta kristioek. Gauza andia, lurreko gizon batek deizea Aita zeruan; au du kristio izateas. Bai ta nolako tratamentua iten digu? Munduko aita eta amarik amanteenek bere hume maiteei baño ohea. Itz bates diot, ta estaike erran ia: Alimentazen gaitu kristiok Kristoren gorputz odol sagratueki. O zer den, ta zer dugun kristio izatean! Orgatik dio San Agustinek: Iago inporta zaio gizonari izatea kristio ezi ez izatea gizon (Parra pl.3. part.1). Gizona gizontasunes da alde batetik, diot, gorputzarenetik loi puska bat, arimaren partetik Jangoikoaren imajina ta semejanzara egina; baña bekatuareki ain desfiguratu, desluzitu ta borratu zue imajinagoi, ezi konparatu ze animale brutoeki, ta itzuli ze aien semejante. (Comparatus est jumentis insipientibus et similis factus est illis.) Kristiotasunes ordea errenobazen, ta luzizen da ainberze, ezi estu iduri lengoa; zeruak lurrari adiña, aingiruak monstruo bati adiña bentaja darama. Ikusagun exenplutto gontan, baitakar San Antonino Florenziakoak.

6. Kasano tartaroen errege poderosoak eskatu zio Armeniako erregeri bere alaba bat andretako. Ukazea ze galzea bere burua; ematea ze galzea bere alaba; baña en fin, ezin berzes erresolbitu ze entregazera barbaro jentil garri bere alaba honesta, galanta, juiziosa ta guzien gain kristioa, kondizioareki ezi utziko zuela bizizera erreljione kristioan. Egin zire bodak, ta pasaturik denbora, ellegatuzizaizkiolaik erdizeko egunak, esperazen zutelaiak erregek ta erreinuak seme bat bere edertasunain konforme, erdi ze bulto itsusi belz lotsagarri bates. Zer konfusioa erreinarena! Nolakoa erregerena! Zeñek itsuturik koleras, ustes ura zen bere esposaren infidelidadearen señaile, manatu zue instante in zezatela hogera bat andia, ta bota zezkitela artara ama-semeak, errezeko bizirik. Etzute baliatu erreina gaizoaren nigarrek ta juramentuek, zeñeki asegurazen baizue bere inozenzia. Badamate; badoaie inguraturik goardies ziudade guzitik barna erreina desbenturatua. Ellegazen dire hogera zegon lekura, ta ia botazera zoezilaik, eskatu zue nigarres utzezen ematera bere entrañetako hume garri lenbiziko ta azken besarka. Erdetxi zue. Arzen du besoetan monstruo gura. O nere entrañetako semea, erraten dio, nik uste nue neukala nere sabelean prinzipie bat, ta ikusten dut zela kondenatu bat. Nik kontazen zinduzada koronarako, ta sortu zara eriozera. Desdixatua zara, bada, estuzulaik berze kulparik baizik jaiozea, zuk galzen duzu korona, ta niri edekizen didazu honra ta bizia. Ah ezipazina jaio

sikiera izatekos ainberze desdixta! Baña ia keta galdu duzun lurreko erreinua, etzazula guzia gal, logratukouzu zerukoa. Eta Kasanok ezpazaitu errekonozitu nai bere semetako, logratukouzu izatea Jangoikoaren seme. Erran zue, ta arturik baso bat ur, bataiatu zue an berean. Ta berla guziak beira zeudelaik, itzuli ze aurra ain galant ta agraziatu, nola aingiru bat. Pasmatu zire guziak, ta Kasano konbertitu ze prodijio goneki kristio, ta itzuliarazi zue honra andiareki erreina bere palaziora. Au da monstra bat exteriorea egunoro gertazen denaren mudanzarena ariman bataioaren medios. Zein ongi, diot berriz ere, zein ongi erraten den, gara dela kristio Jangoikoaren grazias! Ikasagun estimazen; ta konserba gaizen konstante ta fiel hume onak bekala Jangoikoaren amorioan, ezi guk ezpadiogu falta zen, estigu faltatuko gure Aita amante dibinoak sekula guzian. Inzkigun ia fede, esperanza ta karidadearen aktak etc.

Serm. 20.

De Obligatione Christiani.

ann.1778

Qui dicit se in (In Festo omnium Sanctorum) Christo manere,
debet sicút ille ambulavit et ipse ambulare.

1. Explikaturik kristioaren ditxa ta dignidadea, orai explika zugun obligazioa. Junto dabilza kargua ta karga, ta solo letra batean distingizen dire gure lengoa jean, ta latinean honrak ta kargak honos onus letra bat eterdirena dute diferenzia. Kristioaren ditxa bada, dignidadea ta honra barin bada munduan daiken andiena, obligazioa da alaber korresponditea. Aizagun doktrina. Zer nai du erran kristioa? Kristoren diszipuloa ta Kristoren gizona. Eta zer nai du erran Kristoren gizona? Atenzio, otoi. Kristoren gizona da gizon gura, zeñek ere baitu Kristoren fedea, bataio sanduan profesatua, ta ala dago ofrezitu ta obligaturik arren zerbitzu sandura. Kristoren fedean entendazen da Kristoren doktrina guzia, ebanjelioak, apostoluen kartak, ta eskritura sagratuaren egi eta fedeak Elizak proponizentigunak sinestazeko. Bataio sanduan profesatua erraten da, zerengatik ala nola San Franzisko edo berze baten errelijionean iten baita profesioa geldizeko obligaturik ango erregla ta legeetara, ala bataiazera koan in gindue profesioa errelijione kristoan, ta gelditugina obligaturik Kristoren errelijioso bekala Kristoren zerbitzu sandura guzietan. Errepasa zugun pasatu zena gureki, ta edozeñeki bataiazera ekarri zutelaik; ta bidanabar adbertitu bear da ezi nola ezpaitezake aurrak erresponda, arren partes errespondazen duela aita edo amabitxiak, fiadore parazen delaik Jangoikoaren alzineko, ta dio San Agustinek (Apud Claus p.4. Cathec. c.14) bearliokela adiarazi bere xaxiari, adinera ellegazen delaik, onen partes in zuen ofrezimentua ta obligazioa.

2. Aizagun. Lenbiziko galdeiten diona eliza atarian da nonbre paratu bearzaikonas alistazeko ia Kristoren esklabo (Crisost. h. de conversione Pauli.). Berla Jangoikoaren ministroak erraten dio: Zer eskazen diozu Eliza Ama Sandari? errespondazen du: Fedea. Fedeak zer ematen dizu? Bizitza sekulakoa. Orduan Jangoikoaren ministroak: Bada, nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goardatu mandamentuak. Onetsi zazu zure Jaun Jangoikoa zure biotz ta arima guzias, ta zeure proximo laguna zeure burua bekala. Ats ematen dio aurpegira, desterrazen duela aurragandik espiritu gaistoa ta leku manazen duela Espiritu Sanduaindako. Berla formazen dio guruze bat kopetan, berze bat bularrean, erraten diola: errezibi zazu guruzearen señaleara ala kopetan nola bularrean, arzazu mandamentu zerukoen fedea; ta izan zaite alakoa kostunbres, ezi izanzaizken ia Jangoikoaren tenplua. Prosegizentu orazioak ta zeremoniak, zeñen explikazeko ezpaita orai aski denbora; ta ondorean estolareki sarzen du elizan, erraten diola: sar zaite Jangoikoaren tenpluan, izan dezazun parte Kristoreki bizitza sekulakoan. Eramanik bataiarrira, bataiazzen du berla? Ez. Lenik galdeiten dio: errenunziazen duzu satanasengandik? Bai, dio, errenunziazen dut. Ta arren obra guzietaik ere bai? Baitare. Ta arren ponpa guzietaik ere bai? Baitare. Errenunzia gontas oroiarasten zaitu kristioa San Anbrosiok; dago, dio, zure itza, ez ilen sepulkroan, baizik bizien libruan apuntaturik. Eman zindue itza, presente zeudelaik testigotako aingiruak; estaike engaña, estaike uka (Lib. de his qui myster. initiant. c.2). Eta San Agustinek ematen dizu aurpegira, kristio banoa, itz gebeki: Preso ta konbenziturik zaude, dio, gauza bat egin, ta berze bat profesazen duzulaik; fiel nonbrean, berzerik monstraizen

duzula obretan; ezpaituzu kunplizen zure itz emana. Zer iteko duzu deabruaren ponpa errenunziatuzinduzaneki? (1.4. de Simb. ad catech. c.1).

3. Errenunzia solemne gau in ondoan unjizen du sazerdoteak olio sanduareki bularrean ta bizkarrean, signifikaizeko prest egon bear duela sufrizera alde guzietaik Kristoren legeagatik trabajuak ta golpeak. Eta bataiazen du orduan? Ez orañik. Galdeiten dio ia. Sinestazen duzu Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadorea baitan? Bai, dio, sinestazen dut. Sinestazen duzu Jesu Kristo, arren seme bakar gure Jaun, jaio ta padezitu zuena baitan? Bai, sinestazen dut. Sinestazen duzu Espiritu sandua baitan, Eliza Ama Sanda Katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa, aragiaren erresurrekzioa, bizitza sekulakoa? Bai, sinestazen dut. Guziareki estu oraño bataiazen. Galdeiten dio azkenean bi aldis: Nauzu bataiatu? nai dut, nai dut, errespondazen du. Orduan ia bataiazen du Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean. Eta estu oneki ere despeizen. Unjizen dio burua krismareki, ta markazen bekala du Kristoren saldoko ardia. Zer ia? Bakea zureki, erran ta ematen dio pañolo txuri bat, grazia ta pureza errezibitu duenaren señaile bekala; ta añaizzen du: errezibi zazu bestidura txuria, ta beira erman dezazun mantxatu gabe Jangoikoaren tribunalerano. Ematen dio bela itxekirik, ta erraten dio: Tori argiau, ta goarda zazu kulparik gabe bataioko grazia; orreki zure Jaunak deizen zaituelaik sar zaiten sekulako bodetara Kristorengana sandu guzieki bateo. Au erran ta despeizen du: Zoaz bakean, ta biz zureki Jangoikoa Amen, erran ta doaie.

4. Zer da au fielak? Debalde uste duzie direla zeremoniaebek apostoluen tradizioz kristiandadearen prinzipiotik elizan usazen direnak, ta lenbiziko aita sandu gaiek San Anbroziok, San Juan Krisostomok, San Agustinek, ta berzeek aipazentustenak! Ez. Zerbaitengatik dire, ta ain preziso, ezi bataiazen bada ere nezesidade orduan aurra etxean, gero izanik denbora, suplitu bear dire elizan elizaren prezeptus. Zertako, bada, ainberze zeremonia ta gauza? Zer da au? Au da konsagrazea persona Kristorendako guzia. Au da armazea soldado Kristoren soldadeskan. Au da sarzea diszipulo Kristoren eskolan. Au da admitizea ta ajustazea nirabe ta hume Kristoren familian. Au da injerizea zarmendu Kristo aien dibinoan. Au da egitea Kristoren mienbro, ta parazea begien alzinean obligazio arzentuenak, kondizio kunplitu bear duenak, ta soldata emanenzaikona, kunplizen baitu, baita sekulako bizia. Ots, bada, kristioa, Kristoren gizona, zeñek ere baitu Kristoren fedea bataio sanduan profesatua, ta ala dago obligaturik arren zerbitzu sandura: Bi parte tuzu, bata da fedea, berzea da obligazioa zerbitzazeko Jangoikoa. Ikusi dugu nola profesatu zinduen fedea; ikusagun nola kunplizeunzun obligazioa. Zer usten zindute, aski zela sinestazea ta bataiazea, salbazeko? Ori da aur ez ongirik ta ez gaizkirik indezakenetan. Sinestazen ta bataiazen dena, dio Jesu Kristok, salbatuko da. Orai San Gregoriok, akaso, dio, errain du norbaitek berebaitan: Nik sinestatu dut, salbatuko naiz. Egia dio, baldin obres konfirmazen badu bere fedea, zerengatik fede txuxena da zein ere itzes dion gartan ezpaitu diskordazen obres. Zer balio du, dio Santiagok (cap.2), erratea batek duela fedea, ezpaitu obra korrespondienteak? Akaso sal badezake bere fede sollak? Ez. Fedeak, errespondatu zindue, ematen dizula bizitza sekulakoa, baña atendi zazu zer erran zizun berla Jangoikoaren ministroak: nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goardatu mandamentuak. Esta errelijione, soldadeska ta eskolarik, ezpaititu bere legeak ta erreglak; nola faltatu bear zute Kristoren errelijionean?

5. Munduko guzietaik berexi zaitu Jangoikoak; munduko guziak baño obeki bizitu beazu. Ezpada bat bataiazen, estaike sartu zeruan, erran zue Kristok. Bai, dio San Agustinek, baña berak erran zue, ezparinbada zuen birtutea iagokoa eskriba ta fariseoena

baño, etzarate sartuko zeruko erreinuan. Zerengatik arren beldurres anitzek kuidazen dute bataiazeas, ta ontas beldurrik ez izanes ez anitzek kaso iteunte justo izateas? (1.21. c.27. de civ. D.). Ezpaliz baizik bataiazea, zertako lirazke laur ebanjelioak, apostoluen kartak, mandamentuak, sakramentuak ta gañarakoak? Kristoren gizon, soldado, diszipulo, nirabe, hume, zarmendu ta mienbroa zara; segizkizu Kristoren doktrinak, mandamentuak, exenpluak ta berain borondatea guzietan. Berak itz bates erran zigu nola izan bear dugun: Ianzaiste zuek perfekto ario gartara, nola baita perfekto zuen Aita zerukoa (Math. 5). Etzue erran nola bainaiz ni, zerengatik entendazen da, direlaik bat biak. Erran zigu klaro San Juan Ebanjelistak egungo platikaren teman, qui dicit se in Christo manere, debet sicut ille ambulavit, et ipse ambulare. Dio, ezi kristio dela dionak bear duela bizitu ario gartara nola bizitu baize Kristo bera (Joann. 1. c.2). Kristioa aipazen dutelaik, dio San Anbrosiok, aipazen dut gizon bat perfektoa, zerengatik Kristorenbaitan dago Jangoikotasun guzia. Noren nonbrea artu duzun, zerengatik nonbre gorren signifkazioa ta perfektioea estuzu? (In Ps. 118. Oct. 12). Kristioak, dio San Gregorio Nisenok, bear du izan berze kristo bat bekala imitatus al guzia. (Hom. de perfect.) Eta San Leonek dio: oroi zaite nolako buruain ta nolako gorputzain mienbro zaren; Ta egin zarelaik naturaleza dibinoain partizipante, etzaitela itzuli lengo billanietara bizimodu indignoaren medios. (S.1. in nat. D.) Ta berze leku batean dio: Debalde deizen gara kristio, ezpadugu imitazen Kristo (Ap. Claus p.1. Cath. c.9). Atendi zagun otoi, dio San Krisostomok, (H. 95 in epist. Ephesso) ta benera zagun gure buru gau. Ziertoki arrazio da aingiruak ere baño obeak mostra gaizen. Estima zagun Kristo gure buruareki erdetxi dugun aiko proprio urbil gau. Gutaik bati pare balezote korona erreala buruan, zer ez lezake egin idurizeagatik digno perla gaien eramateko? Eta orai ez korona buruan paratu ezi, Kristo bera in da geuren buru ta estugu kasorik ontas. Ekarrazu memoriara trono erreale gura, beira ortaik tokazen zaizun honra. Pensa noren ondoan jarririk dagon zure buru gura. Dago jarririk aingiru ta prinzipado guzien gañetik Aita eternoaren eskuieko aldean. Eta alako buruain gorputza, gu baikara, oin petara dezakela demonioak? Estaiela alakorik gerta (H.3 m ep. ad Ephes.).

6. Baña ai, dio berak, berze leku batean, anitz dabilza Kristoren izena dutenak, ezpaitute Kristoren espirituak. Orgatik ez Kristoren izenetik kristioak, baizik Kristoren espiritutik ezaundu bear dire. (H. 19 in Math. incert.) Zure izenak dio zarela kristio; ta zure obrek progazen zaitute Antikristo, edo Kristoren kontrarioa, erraten dio kristio gaistoari berak. (H.12. ex variis in Math. loc.). Aumentatu da Kristiandadea. Anitz dire ia kristio; baña ezpadire onak, zer ai gara? Etzazula, dio, desea hume inulen kantidadea, zerengatik alakoek ia desonrazeunte Jangoikoa, ezi ez ezpalire izan beñere kristio. Zertako duzu alakoan anitz izatea? Jago, zebo infernuko suain. (H. 24 in act. Apost.) Gu, dio berak, gu gara kausa ezpaitire ia konbertizen jentilak. Ia utziko zute beren doktrina, segituko zute gurea, ezpalitu detenizen gure bizimodu gaistoak. Eta onen arrazioa da San Pablok diona, ezi guregatik desonrazen dela Jangoikoaren izena jentilen ertean. (Ad Rom. 2. Crysost. h. 71 in Joann.) ez dezake, dio, izan fama ona Jangoikoak duelaik familia gaixtoa. (H. 10 in Math. incert.) Kristio gaistook erreparazentuste jentilek, ta berla botazen diote errelijioneari kulpak. Zer errelijione, diote, da kristioena, baitire berak alakoak? Estire eskusazen aiek orgatik ongi, baña kulpak anitz dute alde gontaik alako kristioek. Zerengatik, oiuiten du San Ziprianok, zerengatik estalzen da otsoa ardien elleareki? Zerengatik kristio gezurres nonbrazen denak desonrazen du Kristoren saldoa? (1. de zelo, et livor). Gezurreko kristioa deizen du, zerengatik alakoak estire berdaderoki kristioak, baizik apostatak. Bi modus apartazen da bat Jangoikoagandik, dio San Gregoriok, edo

fedear, edo obras. Ala nola bada fedear apartazen dena baita apostata, ala obras deskonformazen dena Jangoikoaen alzineko da oroat apostata, naiz iduri duela fedea (H. 9). Ebetas, dio San Bernardok, anitz dire katoliko itzes, baitire hereje obretan; herejeek iten dutena doktrina gaistoes, au iteunte anitzek exenplu gaistoes. (S. ad Pastores.) Eta ia, dio berze leku batean, ia agitzes dañu iten du katoliko falsuak, ezi ez hereje deklaratuak (S. ss. in Cantic.). Ebetas dio San Pablok, konfesazeunte agos ezaunzen dutela Jangoikoa, ta ukazen dute obres (Ad Tit. 1.). Ez ongi zierto, dio orai San Bernardok, baizik inpioki mia eman diozu Jangoikoari, arima demonioari (S. 25 in Cantic.). Ebetas kejazen da Jangoikoa Dabiden agos: Hume bortek gezur in didate. (Psalm. 17).

7. Alakoa barin bazara, oiuiten dizu San Buenabenturak, nola zu, desdixatua, zaizke edo bear duzu deitu kristioa, guzia iten baduzu Kristoren kontra? (Stim. amor. p.2. c.11). Beira bez bakotxak bere bizimodua, ia Kristoren konforme edo kontra portazen den. Guziek Kristoren konforme dugu izena, baña anitzek ta sobra anitzek kontra daramate bizimodua. Orgatik errebelatu zio Kristok Santa Maria Kortonakoari: Iago dire denbora gontan kruzifikazen nautenak, izan zirenak baño nere pasioaren egunean (Ap. Cl. p.2. Cath. c.54). Eta Maria Santisimak Santa Lutgardisi: Kristio falsuak dire berriz orai kruzifikazen dutenak nere Semea (Ib.). Orduan zego Kristo lurrean, ta kruzifikatu zute judioek; orai dago zeruan, ta kruzifikazeunte kristioek. Progua San Anbrosiok, Dabiden itz aien gañean: Praevaricantes reputavi omnes peccatores terrae; Traidorebazuk bekala kontazentut lurreko bekatari guziak. Beras, dio sanduak, badire zeruko bekatariak ere, ala nola erran zuen gura, zeruain kontra in dut bekatu. Zerua da Jangoikoaren ziudadea, ta ziudade gau da ere Eliza. Zeruan kontra iten du bekatu ziudade gontako legeak auxtentuenak. Zein puntualki orai Dabiden itz gaiek Kristoren agoan: Extraneus factus sum fratribus meis, et peregrinus filiis Matris meae. (Ps. 68). Estranjero ta ezaun gabea bekala naukate nere anaiek, ta nere Amaren humeek, ta kantikoen gaiek, filii Matris meae pugnaverunt contra me. Nere Amaren humeek peleatu dute nere kontra. Nor da Ama gau? Eliza Ama Sanda. Nor dire hume gebek? Elizako humeak, kristioak. Ebek geienenik dire Kristoren kontra. Eta esta penarik alakoendako? Bai, ta andia justoki. Zoeie paseatus kanpo bat barna San Makario ta ikusi zue gizon baten kalabera arbola baten ondoan; iduri zekio zerbait zerdukala. Urbil duze, ta galdegin zio, norena zen. Errespondatu zio kalaberak, ni izan niza jentilen sazerdote aldakako erri gortan, ta orzi nindute emen. Eta non dago, erran zio sanduak, non dago zure arima? errespondatu zio, Ai! Dago ta egoin da sekulakos infernuan. Galdein zio ia sanduak: erran zadazu, ta badago infernuan kristiorik? errespondatu zio kalaberak, badire anitz arrigarri, ta aiek infernuain ondarrean tormentu iagoreki tormentazentuste (Claus p.3. Conc. c.111).

8. Kristioak, ezpauzie nai joan arara, baizik zerura, beira ta errepara ongi lenbiziko lekzioa. Zer nai du erran kristioa? Kristoren gizona. Eta zer nai du erran Kristoren gizona? Gizon gura, zeñek ere baitu Kristoren fedea, bataio sanduan profesatua, ta ala dago obligaturik arren zerbitzu sandura. O gizonak, o emastekiak, bauzie fedea ondasun guzien zimendua, salbazioaren prinsipioa, diones San Agustinek (S.38 de tempore). Orai falta da obligazioaren kunplimentua. Lekzio gura ongi ikasi, ta praktika ongi, ezi artas examinatukozaiste zeruko atarian. Artan examinatuak ta aprobatuak dire orai zeruan dauden guziak. Gure eskola ta familia berekoak dire aiek, gure beira daude, edazen bere eskuak, monstutzen beren palmak, koronak ta gloriak; baña bateo erakusten segituzusten bideak. O zenbat gizon, emasteki, aur, zar, gaste dagon an triunfazen! Gu ere ararako eginak gara, ararako bidean paraturik gaude, beira nola goazen. Oiuiten digu San Pedro

zeruko llaberoak: Fratres, magis satagite, ut per bona opera certam vestram vocationem, et electionem faciatis. Nere anaiak, dio, kuida zazie anitz asegurazeas zeuren bokazioa ta elekzioa obra onen medios (Ep. 2. c.1). (Joan lenik kendus bizioak; gure bizioetaik, dio San Agustinek, iten dugu eskalera, garaizen baitugu bizioak. Zerengatik santidadearen auktoreareki esta igaten malizia, esta Birjinaren Semeareki desonestidadea. Estaizke igan bizioak ta bekatuak zerura (S. 176 de tempore). Galzkigun, bada, emen; ta nola grazia bear baitugu guzietarako, eska zogun Jangoikoari, ta guzien gain azkena baita gloria mezako itz gaieki: Nobis quoque peccatoribus famulis tuis de multitudine miserationum tuarum sperantibus partem aliquam, et societatem donare digneris cum tuis sanctis... intra quorum nos consortium non aestimator meriti, sed veniae, quaesumus, largitor admitte. Per Christum etc.).

Serm. 21.

De signo christiani, cruce.

Anno 1778

Mihi autém absit gloriari nisi in cruce

Domini nostri Jesu Christi. Ad Galat. 6.

1. Explikaturik ia kristioaren izena, ditxa, dignidadea ta obligazioa, orai explikatu bear da kristioaren señaleara. Zein da kristioaren señaleara? Guruze sandua. Zerengatik? Zerengatik baita Kristo gurutifikatuaren figura, zeintan berak erredimitu baikinduzan. Jakin bear da ezi guruzea len zela oraiko urkabearen ariora, zeintan justiziatuak ilarasten baizituste ignominia ta dolore andiareki. Ze bi palos edo zures egin. Alakoan paratu zute Judioek josirik itzeeki Jesu Kristo, ta orduan konsagratu ta santifikatu ze gorputz dibino garren ukizeareki guruzea; ta len madarikatua zena, andik alzina izan ze bedeikatua, ta lenbiziko kristio gaiek zeukate benerezio ta debozio andian, beren Maestru dibinoaren trono erreala ta katedra zerukoa bekala. Orgatik San Pedro sentenziaturik ilzera gurutifikaturik guruzean, alegre ilzeas bere Maestruaren erioze jeneroareki, baña berain erreberenzias ez atrebiturik ilzera modu edo forma berean, eskatu ziote berdugoei gurutifika zezaten burus bera; ta ala inziote, ta ala ilze apostoluen buru ta prinzipte humil jeneroso. Orgatik San Andres apostoluak, eman ziotelaik sentenzia bera, estaike ponderatu nolako alegria izan zuen solamente aizeas. Bada, joaterakoan ikusi zuelaik urrutitik guruze prebeniturik zegokiona, asi ze kontentus guruzeari saloa egiten gisaontan: O guruze ona ta prezioso, errebitu duzuna nere Jaunaren gorputzetik anitz edertasun ta honra, anitz denboras deseatu, beti maitatu ta bilatu, ta orai noizbait ia nere biotzeko deseoin konforme prebeniturik aurkitu zaitutena, errebitu nazazu gizonetaik ta itzuli nazazu nere Maestruagana, admiti nazan zure medios zure medios erredimitu ninduenak. Errebitu nazazu ni ere, zurebaitan egon zen Kristo nere Maestruaren diszipuloa. Gurutzifikatu zute por fin ta bi egunes egon ze guruzean alegre predikazen Kristoren alabanzak, ta solamente beldurrak jautsiazaz zezaten artaik il gabe; ilze gero ere artan kontentago ezi ez goaze delikatuenean. Berze frankok il zirenak guruzean, au zeukate beren ditxa honratuena bekala, ta guziek deseazen zute ilzea besarkaturik guruzeareki. Alako debozioa ziote guruzeai Kristo gurutifikatuarengatik.

2. Gero, ellegatu zelaik denbora ikusteko munduan enperadore kristioak, lenbiziko (benzait publikoan) izan zenak, Konstantino andiak paratu zue lege, etzeiela nior justiziatu guruzean Kristo gure Jaunaren erreberenzias, motibo gonon kasos. Iragazi ondoan enperadoreak biktoria insigne bat Maxenzioren kontra, beraren ama Santa Elena Jangoikoaren errebelazios joan ze Jerusalem bilazera Jesu Kristoren guruze propioa, zein altxatu ta orzi baizute jendeek, paraturik arren lekuan Benus desonestaren estatua, borrazeko Kristoren pasioaren memoria. Sanda, destruitu ondoan estatua gura, asi ze bilazen guruzea, ta zulatu ondoan lurra aurkitu zire irur guruzeak, bi ladron gaienak ta Kristorena, ta berex titulo Kristorenean paratu zena; ta orgatik, etxakines zein norena zen, aplikatu zizkiote irurak eri bati; ta lenbiziko biek deus protxatu ez ta irugarrenak ukitu orduko eman zio osasuna. Ontan ezaun duze ura zela Kristo gure Salbadoreain guruze propioa. Ta ala arturik errelikia preziosoena bekala arren zati bat ta engastaturik zillarresko kaja batean ekarri zio bere seme enperadoreari, ta gañarakoa utzi zue an

kalbarioan berean fundatu zuen tenplu eder batean. Ta au da Maiatzain irugarrenean zelebrazen den festibidadea, deizen baitugu guruzearen inbenziona edo aurkizea; ta au okasioa parazeko lege gura.

3. Gero, Kosroas persaen erregeek iragazirik Jerusalem, erman zue Persiara guruze sandua; baña Eraklio, berze enperadore kristio batek, irur batalla ta irur biktorien kostus erreskatatu zue, amalaur urte Persian pasaturik zegola guruzea; ta nai izan zue enperadore debotoak berak bere soñetan eraman oian bere gartara, nora erman baizue salbadoreak. Baña gertatu ze ontan ere milagro bat. Nola baizoeie enperadorea urres, zillarres ta perlas adornaturik guruzeareki, gelditu ze ezin pasatus alzina atarietan, ta zenbatenas ia indar iten zuen pasazeko, ia iduri zekio tirazen zutela gibelat. Pasmaturik zeudelaik ontas guziak, Zakarias Jerusalengo obispoak erran zio enperadoreari: beira bez, Jauna, ezi traje gorreki guti idurizen zaiola Jesu Kristori eramatean guruzea. Adbertenzia goneki enperadoreak buluxirik gala guzias, oin urtuxian ta bestimenta pobre bazuk arturik, aisa erabili zue bide guzia bere guruzeareki ta kolokatu zue berriz Kalbarioko leku gartan. Au da Urriain amalaugarrenean zelebrazen den festibidadea, deizen dena guruzearen exaltazioa. Gisaontan Jangoikoak disponitu zue zoeien publikatus ta barratus guruze dibino garren benerazioa munduaren alzineko ere, zerengatik honra substanziala du Kristo artan kruzifikaturik egonas. Onen kasos errepartitu da anitz eta anitz zatitto munduko franko lekutara, zeñek estimazen baitute tesoro bat bekala.

4. Guruze dibino arren kasos ta artan gurezifikaturik egon zen Kristo gure Jaunaren kasos edozein figura edo monstra guruzearena edozein materiatan, edo eries solamente forma daien, da honra prezioa; ta len ignominiatako zena itzuli da gloriatako, ta San Agustinek dion bekala, justiziazeko lekuetaik pasatu da enperadoreen kopeta errealetara. *A locis suppliciorum fecit transitum ad frontes imperatorum* (In psalm. 36.) Kristo gurezifikatuaren kasos da en fin guruzea kristioen señailea, distingizen gaituena ta insignia honrazen gaituena. Da insignia honrazen gaituena, zerengatik korona ta diadema guziak baño gloriosoago egin da guruzea, ta esta ainberze honrazen burua korona errealas nola guruzeas, dio San Juan Krisostomok; ta len guziek aborritzen zutena, orai guziek bilazen, estimazen ta besarkazen dute solo figura. Orgatik leku guzietan aurkizen da prinzippeen baitan, subditoetan ere bai, gizon, emasteki, birjin, ezkondu, libre, esklabo ta berze gañarakoetan, ta guziak señaiazzen dire artas inprimitus mienbro noble ta gorenean, baita kopeta. Guruzea usazen da aldareko maian, bataioan, sazerdoteen ordenazean ta gauza espirituale guzietan. Guruzea ikusten da etxeetan, karrikaetan, kanpoetan, oianetan, bideetan, itsasoan onzietan, goazeetan, bestiduretan, armaetan, baso preziosoetan, urre, zillar ta perlaen ertean, pareta ta muralletan, gerran, bakean, gauas, egunas, noiznai ta nonnai, ta nior esta alkezen artas. Guziau dio Krisostomo andiak. (*Demonstr. quod Christus sit Deus.*) Exerzitoek daramate zeñek beren bandera: Kristoren exerzito ta eskudronen bandera, kristioen dibisa da guruzea, zeñen pean militazen dugunok gloriabaikaizke gara dela soldado zerukoak. Persona distingituek munduan dute nork bere insignia: Erregeek korona ta zetroa, Aita Sanduek tiara, obispoek mitra, sazerdoteek korona, kaballeroek abitua ta benera, doktoreek borla, alkateek bara, ta ario gontara berzeek; baña guzien gain kristioen insignia dibinoa da guruzea, zeruko erregeek emanikakoa, munduko zetro, tiara, mitra, korona, benera, borla, bara ta gañarako insignia guziek baño ia honrazen gaituena.

5. Gloriazen dire mundukoak beren blason ta noblezas, ta orren monstratako ostentazentuste beren armaetan agilak, leonak, kateak, kasteluak, lirioak ta alako itxurak;

baña kristioen eskudo ta arma da gurutzea, pregonazen gaituena noble, Kristoren odol jenerosotik etorkia dugula, Jangoikoaren seme ta zeruko erreinuain herederor. Orgatik señalazen dugu gorputzaren leku patenteenean, kopetan. Ofrezitu zue Jangoikoak Isaiasen medios, paratu bear ziotela bere kristioei insignia edo dibisa bat: Ponam in eis signum. Ta ontas dio emen San Jeronimok: Au da insignia utziziguna ta paratuziguna kopetaetan Kristok igan zelaik zerura, errandezakegungatik: Signatum est super nos lumen vultus tui, Domine. Señalatutik daude, Jauna, gure baitan orren aurpegi dibinoaren errañu brillanteak. (Isai. 66. ib. S. Hyeron. ap. Parra. plat.6. p.1.) Emendik duela prinzipio zeñazeak, diote zenbait autore grabeek, zerengatik Kristo gure Jaunak despeizerakoan munduontaik zerura, eman zioten lenbiziko kristio gaiei bere bedeizioa formatus aien gañean gurutzearen señalea bere esku sagratuas. (Parr. ib.) Gure Aita dibino garrek utzi zigu bere humei bere noble zaren blasona gurutzearen señalean. Mundukoetan bat izaten da iragazten duena noble zaren distintiboa zerbait hazañaren medios, ta arregandik segizen diren guziek linea txuxenean lograzen dute pribilejio bera, pasazen dela humes hume guzietara. Jangoikoaren Seme Jesu Kristok humillatus bere majestadea, eginik obediente eriozeraño ta gurutzeko eriozeraño, logratuzue gloria bat gorakoa ta izen bat izen guzien gañekoa, diones San Pablok. (Ad Philippens. 2.) Bere herederoei, kristioei, komunikatu digu bere testamentu berriko odol prezioso ixuri zuenaren birtutes bere izen dibinoa gure merejimenturik gabe; berak eraman ignominia ta guri eman digu gloria; berak egin gurutzeko hazaña pasmoso gura ta guri utzi digu probetxua, honra ta insignia gloriosoa, baña ain gloriosoa, ezi baitio San Pablok: Ezdezala permiti Jangoikoak gloria naiaren in deustan, baizik Kristo nere Jaunaren gurutzean. Mihi autem absit gloriari nisi in cruce Domini nostri Jesu Christi. Aingiruek berek gala iten dute insignia gontas, zerengatik diones Agredako Serore Maria benerableak (P. 1. c.23. n.372), aparezizen zizaizkio Maria Santisimari bere aingiru goardakoak zeramatela gurutze bat petxoan, berze bat besoan, edertasun ta erresplandore anditakoak.

6. Gloria gaizen kristiok espezialki gurutzean, zein baita kristioen señalea ta insignia, ta onetsi zagun Kristo guregatik gurutzikatua. Gloria gaizen, baña ala nola San Pablo portazen garela, balego bekala guretako Kristoren medios gurutzikaturik mundua ta gu munduaindako; ta en fin, delarik sollik Kristo gure bizitzea. Mihi vivere Christus est. Kopetan parazen dugu ta andik asten dugu gurutzearen señalea; andik berako guzia Kristorena da: Pensamentuak, itzak, obrak, bearriak, begiak, agoa, eskuak, oñak, gorputza, arima ta biotza guzia; ta arren amorio ta zerbitzuan enpleatu bear dire guziak, ta guzien lenetik biotza, baita biziaren prinzipioa. Ala enpleazen zue Erromako sazerdote exenplare batek ta ala ilze. Il ondoan nai izandu zute enbalsamatu arren gorputza ta ortako idiki zute barbarek, ta errejistraturik entrañak etziokete aurkitu biotza. Zer da au? Non dago sazerdote gonien biotza? Bada biotzik gabe etzeike bizi. Guzia ze admirazioa, guzia pasmazea barberak. Juntazen dire etxeakoak, berriz errekonozizeunte ta estute aurkizen biotzain errestorik ere. Guziak suspenso daudelaik, gorazentu batek begiak Kristo gurutzikatu batengana ta erreparazen du arren oñetan zegola biotz bat pegaturik. Ona non dagon sazerdote orren biotza, oiuiten du. Beirazeunte guziek ta ikusteunte milagroa, zeñeki Jangoikoak nai izan baizue monstratu bere sazerdote garren amorioa Kristogana. Ah balego nere biotza, baleude zuenak ain uniturik Kristoreki! bear lukete. Ainberze obligazio dugu, bada, Kristoren gurutzea daramagu insigniatako agerrian, bizi gaizen uniturik Kristoreki biotzean. Bai, otoi, ta deseo goneki inzkigun fede esperanza ta karidadearen aktak. Nik sin.

Serm. 22.

De eodem signo quoad mundum,
quoad Deum et quoad nos.
ann. 1778

Hoc est signum foederis, quod constitui
inter me et omnem carnem super terram. Genes. 9.

1. Erranik nola den gurutza kristioaren insignia honrazen gaituena, orai ikusi bear da nola den kristioaren señaleara distingitzen gaituena, munduaren ta Jangoikoaren alzineko ta geuren baitako ere bai. Duenak ardi saldo bat berze anitzeki nasteka dermio batean parazen diote baktaxai bere marka, distingizeko; ala Jesu Kristo gure Arzai dibinoak paratu digu bere ardi kristioei bere marka gurutza, ezaun gaizan mundu guziak norenak garen. Ta ala da experiencias ezi ikusi orduko bat zeñazen dela, iten da juizio kristio dela. Oroat, lekutan ikusten delarik gurutzearen señaleara, iten da juizio kristioerria dela; ta al rebes, ikusten badugu bat estela beñere zeñazen, au ezpide da kristio, erraten dugu; ta, oroat, ikusten baitugu lekuren batean destruiturik gurutzeak, au ezpide da kristioen lekua. Orgatik kristioen instrumentu prinzipalena da gurutza. Leku distingituenetan aurkizen da gurutza; funtzio erreligioneako espirituale guzietan gurutza bear da. Gloriatzen gara, dio San Ziprianok, gure Jaunaren gurutzean, zeñen birtutes obrazen dire sakramentu guziak, zein gabe esta gauza sandurik ta estu konsagrazio batek ere mereji efektoa. (Ap. 3 Lipsin p.1. De signo Christiani) Bataiazeraoan gurutza presente dago ta asko aldiz formazen da gurutza. Konfirmazioan gurutzeareki señaleara da konfirmazen denaren kopeta. Konfesioa gurutzeareki asten du penitenteak ta gurutzeareki akabazen du absolbizerakoan saserdoteak. Komunioan gurutzearen monstra iten da Hostia sandas. Oliazean gurutzearen figura inprimizen da sentidoetan. Matrimonioan gurutzearen señaleara ki juntazentu saserdoteak. Ordenazean gurutzeareki konsagrazen dire Elizako ministroak. Prozesioetan lena da gurutza. Urain, ogia in ta edozein gau zain bedeizioa gurutzeas iten da. Konjurioak gurutzearen señaleara ta birtuteak akonpañazentu. Predikua gurutzeareki asten da. Ofizio dibinoa asten, prosegizen ta akabazen da gurutzeareki. Ilariak, en fin, gurutzeareki zelebrazen dire. Itz bates, funtzio espirituale guziak; desuerte ezi nai duenak progatu garen edo ez kristio, aski du erreparazea erreligioneako aktoetan usazen dugun edo ez gurutza. Sakrifizioak dire prinzipalena erreligione guzietan. Gurean da sollik mezaren sakrifizioa. Preziso da egotea aldarean gurutza, ta nortaki zenbat aldiz formazen da gurutza; au da kristioen señaleara munduaren alzineko.

2. Da alaber ta espezialkiango Jangoikoaren alzineko, ia ebitazeko beraren ira ta kastigoak, ia lograzeko beraren agradoa ta benefizioak. Au da señaleara bakearena Jangoikoaren ta lurrekoen artean gure Jaunak paratua. Hoc est signum foederis quod constitui inter me et omnem carnem super terram. An ondatu ondoan mundua dilubio unibersalean, erran zio arkan libratu zen Noei Jangoikoak: Bakearen señaleara paratuko dut nere ta lurrain ertean, ez galzeko berriz dilubio berze bateki mundua. Paratuko dut ostadarra lañuetan ta ura izain da señaleara. Guziareki ures ez, baña bekatus bai berriz ere gaingatu ze mundua ta zoeie ondatus infernuko penaen susko dilubio eternoan. Orduan paratu zue Jangoikoak zeruain ta lurrain ertean ostadar prezioso, bakearen señaleara seguroena, Kristo Jesus guruzifikatua; au da, zein ikusteareki Jangoikoak palakazen baitu

bere justizia ta detenizen baitu bere beso fuerte armatua deskargazera zoeiena. Eta bein gertatu zen ariora errealdadean gertazen da maiz figuran, oroiarasten duelaik guruzearen señaleariangoikoa Jesu Kristo bere Seme maite guruzifikatuas, desuerte ezi presentazea guruzearen señaleari kristioak, da oroat nola erratea obras Dabiden petizio gura: Respice in faciem Cristi tui. Beira bez, Jauna, bere Seme Jesu Kristoren aurpegira. (Psalm. 83.) Ta berze gura: Averte faciem tuam â peccati meis. Aparta bez, Jauna, bere atenzioa gure bekatuetaik (Ps. 50.).

3. O! Nork daki zenbat gaiz ta kastigoetaik librazen gaituen kristiok guruze sanduak! An Ejipton manatu ziote bere israeldarreiangoikoak hisopo bateki señaleari zezatela nork bere etxeko atariak axuritto baten odolas, orreki zoeielaikangoikoaren aingirua urbilen gauean egitera Ejipton estrago manatu ziona, ikusirik atarietan señaleari, pasa zeien alzina, deus in gabe etxe gartan. Ala inzute israeldarrek ta ala inzue aingiruak. Gauartan il zire ejipzioen primojenito guziak arras, ta etze etxerik non ezpaize il bat aurkitu biramonean; solamente israeldarren etxeetan etze izan desgraziarik, egonas markaturik axurittoaren odolas. Figura bat ze au: Errealdadea da axuri dibino Jesus, guruzean il zenaren odol sagratua, zeñen birtutes señaleariurik kristioen arimak librazen baitire munduko guzien erteanangoikoaren iraren estragoetaik. Hisopoain ariora da guruzea, oneki markaturik egones gure sentidoen atariak, esta sarzen gure baitanangoikoaren azotea, baizik pasazen da alzina. Destruizeko Jeriko, bialdu zitue alzinetik Josueangoikoaren kapitan famoso garrek bere espiak, ta errezibiturik bere etxean Rahab emasteki batek, altxatu ta libratu zitue eriozetik, engañatus aien bila etorri ziren enemigoak. Atra zitue kuerda bates leiotik, eskazen ziotela, berak in zioten bekala miserikordia in zezoten aiek ere berai ta bere familiai destruizen zutelaik ziudadea. Bai, erran ziote, kuerda gorri gau berau idukazu dilindaka leioan ta izain da señaleari librazeko zure etxea. Destruitu ze en fin ziudade guzia ta jende guzia, solamente Rahab ta bere familia libre izan ze señaleari garren medios. Zer signifikaZen zue kuerda garrek baizik guruzea zeintan egon baize pendiente Jesus dulce maitagarria? Adbertizen du eskriturak zela gorri kolores, au da signifikaZeneko Kristoren pasio ta odol sagratu ixuri zuena. Libratu baze Rahab ta bere familia señaleari garreki, salbazen da Kristoren familia kristiandadea guruze sanduaren sentidoareki, ta gañarako guziak nasteka botazentuelaik infernura, sollik kristioak libra daizke ta guruze sanduaren atenzios.

4. Aun Apokalipsiko libruan dio San Juan Ebanjelistak ikusi zuela aingiru bat igaten zena iruzkia atrazen den aldetik, zekarranaangoiko biziaren señaleari, ta oiuiten ziotela boza andi bateki laur aingiru itsaso ta lurrain kontra bialduei, etzazela dañurik ez lurrean, ez itsasoan, ta ez arboleetan ere, aliketa markatuartaño gureangoikoaren sierboak beren kopeteetan (Cap.7.). Zein daangoiko biziaren señaleari, baizik guruze sandua, zeintan il baize Jesu Kristo gizontasunes, gelditurik beti bekala bizirik bereangoikotasuna? Iruzkia atrazen den aldetik igan ze señaleari arreki aingirua, ta alde gartan dago Jerusalem, non izan baize Kristo guruzifikatua. Onen señaleari lenik paratu ziguangoikoaren aingiru humanoak, sazerdoteak, kopetan, bataiora ekarriginduztelaik, accipe signum crucis tam in fronte quam in corde; orai zer falta da baizik manteni zagun biotzean bigarren paratu zigun lekuan? Quam in corde, ta kunpli zagun bateo in zigun enkargua, et talis esto moribus, ut templum Dei jam esse possis. Ianzaitez alakoa kostunbres, ezi iaangoikoaren tenplu izanzaizken. Ortako ere da guruzea kristioaren señaleari beraren alde, signifikaZeneko nolakoa izan bear duen. Guruzeareki markatuak lei dezake marka duen gortan noren esklabo den ta nori ta nola bear dion zerbitzatu. Biz conforme señaleari

obrak. Señaleak dio kristio ta Kristoren diszipulo. Obrek konfirma bezate imitazen duela Kristo ta Kristo guruzifikatua. Eznue uste, dio San Pablok Korintotarrei, banekiela nik deus ere zuenartean, baizik Jesu Kristo ta au kruzifikaturik. (1. Cor. 2.) Estu kristioak jakin bear baizik imitazen Kristo humiltasunean, purezan, mansotasun, karidade ta berze birtuteetan, ta prinzipalki pazienzia ta trabajuen sufrizean. Ori erakusten dio guruze daramanak, Kristo guruzifikatuaren figurak. Zein gaizki iduriuten suberbiak, desonestidadeak, irak, enbidiak, erregalo, bizio ta bekatuek guruzearen aldakan! Orgatik dio San Agustinek, ezi obrazen badu gaizki zeñazen delaik guruzeas, andiago iten dela arren bekatua (Ap. Parr. pl.6.). Eta berriz dio: Zer balio du eramatea guruzearen señalea kopetan ta agoan, baldin altxazen baitugu delitoak ta bekatuak ariman? (Ib. in serm. 215 de tempe) Au da baso batek triakaren letreroa gañetik erakustea ta barnean pozios ta benenos beterik egotea. Kulpa andiago da, konfusioa ta pena ia izain da.

5. Judasi erran zio Jesu Kristok: Adiskidea, zertara etorri zara? apa baten medios salzen duzu Gizonaren Semea? O zer itzak! iduri du ia senti duela Jesus dulzeak Judasen apa gura, ezi ez Malkoren bofetada. Bai, estuzie ikusten, ezi aiskide traidore falsu garrek bake ta amorioain señalearen pean bilazen diola eriozea? Zenbat Judas da Kristioetan daramatenak Kristo guruzifikatuaren señalea agerrian ta ustes Kristoren honratuko, ta makinazen tiote orreki guziareki ofensak ta indignidadeak! Kristio nonbrean ta itxuran, Judas ta anti Kristo errealdadean! Nolako alkaizuna ta pena izain dute Judasek, Pilatos, eskriba ta berdugo judatar gaiek, ikusteuntelaik preso humil ain indignoki tratatu zuten gura bera jarriarik guzien juez trono gora batean, ta Kalbario ta Jerusalendik ez aparta andi? Eta nolakoa kristio indignoek? Bada, ilundu ondoan iruzki-ilargiak, erori ondoan zerutik izarrak, trastornatu ondoan zeruen makina guzia, gau delarik guziok erresuzitaturik Josafatko ballean Juez Supremoaren esperan, orduan idikirik par en par zeruak, lenbiziko agertuko dena da Guruze Sandua zeintan il baize Jesu Kristo gure erredenptorea, tunc parebit signum filii hominis. Orduan asiko dire negar ta zapartas gaisto guziak, et tunc plangent omnes tribus terrae. Baña lenean guruzea zerengatik? Solamente ikustea ia estaien izan akusazio bearrik, dio San Juan Krisostomok, (H. 20 in Math.) Señale garrek ikusiaraziko diote kristioei beren obligazioa kunplituestutena ta itzuliko zaiote kondenazioaren señale. Kristioa, dio San Juan Krisostomok, zure kontra oiuiuen dute itzeek ta zure kontra fiskalizatuko du guruzeak. Clavide te conquerentur, crux Christi contra te perorabit. Eta mundu guziain alzinean konfundituko da kristioa, izanik medio guziak salbazeko, galdu baita; ta infernuan ere etzaiko borratuko sekula kristioaren karakter ta marka ia penatuko. Gauza terriblea, salbazioaren instrumentubera izatea kondenazioaren aumentazeko okasioa! Estakit zereki konpara. Arritu zue mundua, Pirro herejeain kontra Teodoro Aita Sanduak usatu zuen exkomekazioain formak. Juntaturik anitz obispo konzilio batean, igan ze tribunalera pontifize sumoa ta San Pedro ta San Pablaren sepulkroain gaiñean zebraturik meza sandua, artu zue Kaliza sagratutik Jesu Kristoren odol porzione bat tinterora ta artas firmatu zue hereje arren kondenazioa. Baña esta au ere ainberze gertatukodenain aldean kristioareki juizio egunean Kristoren presenzian. Emain digu zerbait adiarastera lanze gonek. Ikusi nai zue kristioen Jangoikoa Indiako errege batek, ta ekarririk alzinera Santo kristo bat, au da, erran ziote, kristioen Jangoikoa. Desprezioaren zeñu bat inzue erregek ta Jangoikoaren probidenzias Santo Kristoak egin zio beiraze bat ain lotsagarria, ezi irur ordus egon zire transtornaturik lurrean errege ta andiak, baizire iru egun guziak. (Claus p.1. Cathec. c.4. illud et hoc, c. 107.) Bada, fielak, guruze sandua da kristioaren señalea munduaren alzineko,

Jangoikoaren ta geuren ganako, balia gaizen dignoki bizitus ta obeki ezi jende guziak, lograzeko Jangoikoaren agradoa. Niork estu bear ofenditu Jangoikoa; baña ofendizen baute sobra ere jentilek, eztu benzait ofenditu bear kristioak niolaterre. Maita zagun sikiera guk ta asi gaizen fede, esperanza etc, etc.

Serm. 23

De modo signandi et significatione

ann. 1778

Per signum crucis de inimicis nostris libera nos

Deus noster. Ex officio ecclesiastico.

1. Explikaturik ia kristioaren insignia ta señaile dela, ta nola den guruze sandua, orai erran bear da nola usazen den ta uso gorren signifkazioa ta probetxua. Bi modutara usazen du kristioak guruzearen señailea bere gañean: Bata deizen da zeñazea, berzea santigoazea. Zer da zeñazea? Eskuieko eskuko eri beatzas irur guruzeen egitea: Lenbizikoa kopetan, bigarrena agoan, irugarrena bularretan minzazen garelaik gure Jaun ta Jangoikoareki. Ia nola? Guruze sanduaren señaileagatik gure etsaietatik libra gaitzazu gure Jaun ta Jangoikoa. Bada misterio itzetan ta akzioneetan ere bai. Explikazkigun lenik mias erraten diren itzak ta berla eskuas iten diren akzioneak zeñazerakoan. Guruze sanduaren señaileagatik eskazen diogu Jangoikoari libra gaizala gure etsaietatik. Zer misterio enzerrazen da ontan? errain dut konparazio goneki. Figura gaizen ziudade bat galanta, erregeren seme maite kerituak berak bere personan, bere eskus iragazi duena etsaiengandik anitz trabaju, eri da ta odol errealaren kostus, berea orgatik kontazen baitu ziudade gura ta bereak espezialki ango personak, ain kario erosiak bekala, ta orren monstratuko parazen baitiote ziudade ta persona gaiei bere señailea ta ematen baitiote pribilejio eramateko beraren arma errealak edo beraren figura zenbait medallatan. Gertazen da ingura dezaten ziudade gau barnetik ta kanpotik etsai gaistoek, zeñei ezpaitezake erresisti bere indarres. Klamazen du erregegana: Fabora gaiza otoi errege Jauna, ezi galduak gara. Disimulazen du erregek ta luzazen du sokorrizea aien kulpas zenbaitengatik. Bitarteo aumentazen da peligroa ta ellegazen da azken extremoraño. Orduan zer iteunte? baliazen dire azken errekursoas, arturik ziudadeko armak presentazen tiote erregeri: beira bez, Jauna, dela ziudade gau ta gu guziok berorren sememaite orrek iragaziak bere personan ta bere odol errealaren kostus, orgatik ditugu berorren arma, insignia ta beraren figura geuren gañean; figura presentazen dugun gonengatik sikiera fabora gaiza, aski da norenak garen; berorren honra da gure librazea. Zer in bear du ia erregek baizik faboratu? Faborazentu ta librazentu beren merejimentuengatik ezpada ere, benzait bere seme maitearen atenzios.

2. Ala, nere fielak, da kristiandadea Jangoikoaren ziudadea, ta Jangoikoarenak kristiok Kristo Jangoikoaren Seme bakarraren kostus iragaziak ta bere armaren insigniareki markatuak, inguraturik alde guzietatik etsaies ta ezkaizkela libra geuren indarres ta estugula mereji libra gaizan Jangoikoak geuren kulpas. Zer inen da? presentazen diogu geuren gañean gure erreskatearen insignia ta Kristoren figura guruze sandua, erraten diogula: Guruze sanduaren señaileagatik gure etsaietatik libra gaizazu gure Jaun ta Jangoikoa. Zer da au? Au da erratea Jangoikoari: Jauna, señaile gontas ezaunzen gaitu nork erosiak ta norenak garen; señaile gontak oroi bedi zenbat kostatuak garen Jesu Kristo Jangoiko Gizonari, onen atenzios libra gaiza. Desuerte ezi erratea guruze sanduaren señaileagatik, da erratea Jesu Kristoren trabaju, bizitza, pasio, erioze ta odol preziosoagatik. Au da obligazea Jangoikoa zerbait gisas. Orgatik Eliza Ama Sandak apostoluen tradizios bere prinzipiotik konserbazen du orai arteo guruzearen señaileareki

zeñazeko oraziotto gau, ta Jangoikoak librazen gaitu dakigun ta estakigunetaik, gure merejimentus ez, baizik Jesu Kristoren atenzios. Agertu dugu zeñazeko itzen misterioa, orai akzioaneen signifkazioa.

3. Beñik bein eskuieko eskuas zeñazen gara ta estaien pensa motiborik gabe dela, ai bedi eman zuen arrazioa orai ia milla ta seietan egun urte San Justino Martir Aita Sandu zarrenak ta apostoluen denboretara urbilenak. Dio ala: (Apud Parra p.1. plat.9.) Nola geuren mienbro ta gauza honrosoenak berexten baitugu Jangoikoaren honraindako, orgatik zeñazen gara eskuieko eskuas, zerengatik honrosoago estimazen baitugu, ezi ez ezkerrekoa. Irur guruze formazentugu ta iruretan signifkazentugu Trintateko irur persona dibinoak: Lenbizikoa kopetan, non baitago entendamentuaren tronoa, arimain potenzien prinzipioa; errekonozizen dugu ontan Aita eternoa, Trintateko lenbiziko persona, berze bi personen, Seme ta Espiritu Sanduaren prinzipio ta orijina. Bigarrena agoan, non baitago itzen ofizina ta lekua deklarazeko geren pensamentuak; ta ontan errekonozizen dugu Seme dibinoa, bigarren persona Aitaren entendamentutik enjendratua, deizen baita Aitaren itza ta latines berbo dibinoa. Irugarrena bularretan, non baitago biotza, amorioaren labea ta fabrika; ta ontan errekonozizen dugu Espiritu Sandua, irugarren persona Aitaren ta Semearengandik prozedizen duena ta bien amorio esenziala, ta zeñi atribuizenbaitiogu amorioa. Orra irur guruzetan signifkaturik irur personak; bada, eri beatzas sollas egitean guruze goiek, entenda daike aisa jangoiko bat bakarra direla irur personak. Agertu dugu misterio bat Jangoikoaren alde, orai gure alderakoa.

4. Zerengatik zeñazen gara kopetan? Jangoikoak goarda gaizan pensamentu gaistoetaik. Kopeta da paretea bekala estalzen duena organo ta ofizina, non fabrikazen baititu entendamentuak bere pensamentu onak eta gaistoak. O zer peligroa ainberze gauza gaisto ikusten, aizen, sentizen ta direnen kasos forja daizen an barna gartan ixilkias bekala, estalkumean bekala pensamentu gaistoak, ta konsenti edo firmaarazidez kion berla borondate itsuari franko benzait edo guziak! Zein bizi imajinazioak pintazentuen gauzak, nolako itxures, diskurso ta sofisteries engañazen duten borondate pobrea konplazi daien ta konsenti dezan! Bai, ta zein maiz ta zein aisa iten diren pensamentuak! Estigute usten denbora ta lekuri batere libre, non ta noiz ezpaitigute persegizen: Etxean, kanpoan, erretiroan, desertuan, elizan, egunas, gauas, bizi guzian ta ilzerakoan ere bai, ia baita. Eta zenbat kondenatu da pensamentu konsentitu batengatik? Biz aski, ezi lenbiziko sartu zirenak infernuan, Luzifer ta bere aingiruak, baitaude an soberbiasko pensamentu batengatik. Eta ai, zenbat gerostik luxuriaskoengatik? Zer ai gara izateas inozente eskuak, oñak ta mienbro guziak gauza gaistoetaik, baldin gogoan atzizen badike hipokresiak, falsukeriak, odioak, inbidiak, irak, adulterioak ta indezenziak? Estire trebe egitera gauza gaisto exterioreak jendeengatik franko, gozazen direnak pensazen beren interiorean sekretoan, kasorik in gabe Jangoikoas, ikusten dagonas. Zer iteunzu? Gizonen alzineko on izan zaizke, ezpaitute ikusten baizik ageri dena, baña Jangoikoaren alzineko izain zara gaisto, ikusten baitu barrendegia ta ezpaitu juzgazen gizonen bekala iduri duenas, baizik errealki denas; ta ura da eman bear dizuna sekulako sentenzia, ez gizonak. Egia da ezi naiestugulaik niolatero pensamentu gaistoa estela bekatu, baña peligro da izan daien naies, edo erdi naies, edo deskuido ta floxezas. Ta en fin bekatuaren lenbiziko grada da pensamentua, bigarrena plazer arzea, irugarrena deseazea, laugarrena obrazea; ta nola gradaebek baitire irristabera ta piko, aisa pensamentutik pasazen da plazer izatera, ontaik deseazera ta ontaik obrazera; ta ala beti pensamentuak dire lenbiziko prinzipioak bekatuan, ta deus esta bekatutik egiten pensamentutik ezpaita lenik pasazen. Beira, bada, ia bear den

guruze bat berex ta lena kopetan, Jangoikoak goardaizan pensamentu gaistoetaik. Bigarrena agoan.

5. Zerengatik zeñazen gara agoan? Jangoikoak goarda gaizan itz errate gaistoetaik. Agoain barnean dago mia, deizen baitu Santiagok maliziaren unibersidadea, universitas iniquitatis. Mia, dio berak, da mienbro txiki bat, baña andiak itentu dañuak. Beira nola txindi txiki batetik errezen den oian bat andia. Bada, mia ere sua da. Onen ataria da agoa. Biotzean sortu, mias formatu ta agotik atrazen dire itz gaistoak, maldizioak, juramentuak, blasfemiak, torpe zak, gezurak, falsu testimonioak, murmurazioak ta alakoak. Zenbat fama ta honra edekizen da, zenbat diskordia itxekizen da ta zenbat arima galarasten ta infernurat botazen da itz baten kasos! Beira bear den berze guruze bat agoan, Jangoikoak goarda gaizen itz errate gaistoetaik. Dabidek eskazen zio Jangoikoari: *Pone, Domine, custodiam ori meo et ostium cirumstantiae labiis meis, ut non declinet cor meum in verba malitiae*. Para bezo, Jauna, goardia bat nere agoari ta zirkunstanziasko atari bat nere ezpañeri, estaien makurtu nere biotza maliziaren itzetara. Zer goardia ohea Kristo gurezifikatua baño? Ta zer zirkunstanziasko atari propioago guruzea baño, txuzenarasteko itz onetara biotza? Bi esi, bi parete edo bi muralla paratutio naturale zak miari, baitire orzak ta ezpañak. Baña guziau esta aski goardazeko anitz aldis mi gaistoa, estaien propaga; bear da oien gañetik guruzearen antapara. An Espiritu Sanduak dio in dezagula balanza bat pizazeko geuren itzak: *Verbis tuis facito statéram*. (Eccli. 28.) Eta zer balanza izan daike pizazeko itzak ain arin bolazen direnak ta espezialki zenbaitenak? Guruzea, guruzea, ezi balanza deizen du Elizak: *Statéra facta corporis*. Guruzeak ditu bi beso igoalak, erakusten digu neurri berean estima zagula proximo laguna nola geuren burua; nola estugun nai niork gaizkirik erran dezan gutas, ala niori ta niores guk ere etzagula erran. Nork emain dida, zio Eklesiastikoak (C.22.) nere agoaindako goardia bat ta nere ezpañendako sello bat seguroa, ez naien erori aien kasos ta ez nazan galdu nere miak? eman digu Jesu Kristok txoil seguroa, baita guruzea. Au fixazen edo señalazen da ezpain gañekoan, pekoan ta bi saietsetan, ez minzazeko goitirat Jangoikoaren kontra blasfemia ta juramentu banoes; estare beitat itz torpees; estare bi aldetara makur proximoen kontra injuries, murmurazioes ta alakoes. Arrausia iterakoan guruzea formazen da agoan, ta ongi iten da estaien sar aize edo espiritu gaistoa barnean; zenbat obeki formatu bear da guruzea agoan estaien atra barnetik itz gaistoen aize pestilente benenatua. Irugarrena bularretan.

6. Zerengatik zeñazen gara bularretan? Jangoikoak goarda gaizan obra ta deseo gaistoetaik. Bularra da kamara erreala, non baitago biotza, nondik gure borondateak erreina batek bekala errepertizen baitiote gorputzeko mienbro guziei bere or denak ta dekretoak, manatus bakotxai zer nai duen in dezaten: Begiei, ikus dezatela au edo ura; bearriei, ai dezatela gauza bat edo berzea; miai, erran dezala itz gau edo ura; eskuei, in dezatela ongi edo gaizki; oñei, doazila onat edo arat, edo geldi daudela; ta ario gontara guziei ta guziek obrazeunte borondateain manuairen konforme, direlaik on edo gaisto obrak, segun den on edo gaisto borondatea, baita aien prinzipioa; desuerte ezi obra onak lirazkenak iten badire borondateain kontra, ia estire onak. Ta, alaber, gauza gaisto iduriak gertazen badire borondaterik gabe edo nai estugula, ia estire bekatu; zerengatik diones San Agustinek, bekatua da ain borondatesko gauza, ezi niolaterre esta bekatu ezpada borondateskoa. (De verâ religione c.14.) Eta ala borondatea da lenbiziko errueda bekala, zeñek mogizen baitu gizonaren makina guzia; biotzain lekua da konsejuko sala gobernatu bear duena mienbro guzien errepublika. Baña ai, zein gobernu gaistoa zenbait aldis? Zenbat obra arrazioaren ta Jangoikoaren kontrakoak inarastentigu borondateitsuak?

Biotzetik, zio Jesu Kristok (Math. 15.), sorzen dire pensamentu gaistoak, gizeriozeak, adulterioak, ladronkeriak, falso testimonioak, blasfemiak. Bada, para bedi bularrean gurutzearen bara edo erregla, ordenazeko biotz edo borondatearen gobernu desordenatua. Obra gureak dire moneda zeñeki, onak badire erosten baita zerua, ta gaistoak badire, infernua. Guruzea da kuñoa edo marka zeñeki bear baitire markatu atra daizen Kristoren konforme, estaizen desetxatu moneda falsutako. Orgatik erraten zio esposoak esposari: Ezarranazu sello edo kuño bat bekala zeure biotzaren gañean. Poneme ut signaculum super cor tuum. Iduri dute anitz obra onak, ezpaitire pasatuko zerengatik ezpaizire egin intenzio ones ta berze zirkunstanzia bear direnes. Zenbat meza, errosario, limosna, baru desetxatuko ditu Jangoikoak, obra gaistoak bekala, faltaizanes intenzio on eta berze zirkunstanzien kuñoa; bada, obra gaistoak gaisto ta onak ere gaistotako konta barin badaizke, beira bear den guruzea bularrean, Jangoikoak goarda gaizan obra ta deseo gaistoetaik. Baña errepara diola ere deseo gaistoetaik, zerengatik deseoak, ezin kunplitis kunplizen estirenak obras, obratako kontazentu Jangoikoak: Qui viderit mulierem ad concupiscendum eam, jam moechatus est in corde suo. Estuzu iten eskandalosko gauzarik baña beterik zaude deseo gaistos. Zara kontrabandista Jangoikoaren alzineko, daramazuna kontrabandoa itxura on baten pean. Estuzu despreziazen agerrian nior, baña zaude suberbias ta banidades beterik barnean; zara sano itxuras ta idropiko entraña dañatuak tuzu. Estuzu ladronkeria publikorik egiten, baña ixilkias, raterias ta deseos bai; au da gañetik ardiaren elleas bestizea, barnetik otso gosetia. Estuzu luxuriazten klaroan, baña konplazentzia ta deseo torpes errezen zara biotzean; au da sagar bistosoaz azalean ustela barnean, ta Kristok erran bekala, sepulkro txuritua gañetik, barnean ezur-aragi ustel ta arres beterik egotea. Ezpauzu il zen jenderik baña barin bazaude biotzean beterik iras, errenkores ta mendekus, au da idurizea aingiru lagun bat ta izatea suge edo bibora bat benenosoaz. Au da susko makina bat gañetik pintatua ta barnetik polboras ta tiros disponiturik egotea. En fin, berze jeneroetan ario gontara izanik itxuras Jangoikoaren aiskide, errealki etsai izanen zara, ta Jangoikoak ikusten baitu biotza, biotzain konforme neurrituko zaitu. Para zazu gurutzearen señalear bularrean, Jangoikoak goarda zaizan obra ta deseo gaistoetaik. Esta posible kontazea gurutzearen birtutes Jangoikoak in dituen prodijioak materia gontan. Zenbait kontatuko dugu urbilan aldian. Balia gaizen arma gontas sines bizizeko, ongi pensamentu, itz, obra ta deseoetan Kristoren konforme. Bai ta orai arteo gaizki bizituas urrikiturik inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinest. etc.

Serm. 24.

De 2o modo signandi et virtute.

ann. 1778

Accipite armaturam Dei, ut possitis
resistere in die malo. Ad Ephes. 6.

1. Explikaturik zer den zeñazea, orai explikatu bear da zer den santiguazea. Zer da santiguazea? Eskuieko bi eri andienes guruze baten egitea, kopetatik asi ta bularretaraño, ezkerreko soñetik eskuiekoraño, inbokazen dugularik Trintate Jaun poderoso. Ia nola? Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen. Santiguazean klaroki signifkazen da Trintateko misterioa, irur persona ta jangoiko bat bakarra; baitare Kristoren enkarnazioa ta pasio sandua. Inbokazen da Trintate erranes Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, zerengatik Trintate da Aita ta Semea ta Espiritu Sandua. Erraten da izenean ta ez izenetan, signifkazeko irur persona dibinoak direla jangoiko bat bakarra, dutela podorio, jakinduria, majestade ta esenzia bat ber bera. Kopetan erraten da Aitaren, signifkazeko dela Seme ta Espiritu Sanduaren prinzipio Aita; baitare dagola beti bere tronoaren goratasunean ta estela jautsi egitera gizon. Berla, jautsis eskua kopetatik bularrera erraten da ta Semearen, signifkazeko Seme dibinoa Aita eternoagandik enjendratua jautsi zela lurrera guregatik ta enkarnatu edo gizon egin zela Ama Birjinaren sabelean. Berla, ezkerreko soñetik eskuiera atrabesatus erraten dugu ta Espiritu Sanduaren izenean, signifkazeko ez solamente Espiritu Sandua dela Aita ta Semearen amorio ta unione esenziala, baitare arren obras ta medios enkarnatu zela Semea Ama Birjinaren sabelean. Bi eries formazean guruzea signifkazentugu Kristoren bi naturale zak, dibinoa ta humanoa, edo dela Kristo Jangoiko ta Gizon batean. Guruzeain formazioan signifkazen dugu Kristoren pasio ta eriotzea. Ta ezkerretik eskuierat akabazean signifkazen dugu, ezi pasio ta erioze garren medios berexi gaituela kondenazioko estadotik salbaziokora, bekatutik graziara, sekulako infernu merejiginduenetik sekulako gloria iragazidigunera. Begira ia mereji duen formazea guruzeak atenzio, erreberenzia ta espazioreki, enzerrazentuelaik ainberzeko misterioak bere baitan.

2. Bai ta noiz usatu bear dugu señaile gau? Edozein lanen astean, kausten garelaik nezesidade, tentazio edo peligrotan; partikulariki goatzetik jaikitzean, etxetik atrazean, elizan sarzean, jatean ta etzitean. Lenik edozein lanen astean formatu bear da guruzea kunplizeko obeki San Pablaren mandamentu gura, baitio: iten duzien guzia edo itzes edo obras, guzia egin zazie Jesu Kristo gure Jaunaren izenean. (Ad Coloss. 3.) Nola utziko du bedeikazeko ta fortunazeko Jangoikoak zure lan gura gisaontan asten duzuna? Ikasazu Elizagandik, erakusten baitu asterakoan predikua, edozein bedeizio ta ofizio dibinoa formazen guruzea lenbizikoa. Ala zuk asterakoan laian, alzurtean, josten, errokan ta edozein lanetan, lenik santigua zaite. Santa Edita, edozein gauza erran edo egin bear bazue, lenik asten ze guruze sanduas. Erreparaturik San Dunstano arzobispoak ta ukiturik eri gura zeñeki zeñazen baize, erran zio: Ezdezala permiti Jangoikoak beñere ustel daien eri gau guruze sanduaren erreberenzias. Ala gertatu ze, il ondoan sanda, usteldurik gañarako mienbro guziak sepulkroan, solamente eri gura konserbatu ze oso ta sano, deklarazen zuelaik ontan Jangoikoak, zenbat kuadrizen zaion guruzearen formazea edozein lanen astean (Ribad. in vit. S. Editae). Formatu ere bear da edozein nezesidadeetan, dela

eritasun, dela desgrazia, dela berze edozein, Jangoikoak erremedia dezan edo benzait konsola gaizan. San Roke jaio ze markaturik guruze gorri bateki ta pestes erizen ziren guziak sendazen zitue guruzearen señalear. San Franzisko Xabierrek bere nezesidade guzietan guruzeagana. Zue bere errekursoa ta alzinean beti bereki zerama guruzea, ta berak kurazea etzela aski, bialdurik aurrak, sendazen zire aiek zeñazenzusten eriak. Gisa berean usazen zute sandu geienek beren milagroetan. Baña ezpada ere orai milagrorik, usa bedi guruzearen señalear edozein nezesidadeetan.

3. Tentazioetan ere bai, zerengatik irri iten baute ere erejeek gure zeñaze ta santiguazeas, errateuntelaik ongi iten dugula ulien apartazeko guregandik, errealki señalear gorreki botazen dire tentazioen uli molesto diabolikoak. Au da abaniko dibinoa apartazen duena tentazioen aize pestilentea. Eldu ze mutil bat bere guratsoek bialdurik Nikolao de Rupe abadeagana, irur mantekasko bolaeki limosnas konbentuaindako; ikusi zueneko abadeak, urrutitik asi zizaio egiten guruzeain señalear arren alderat. Erreparatuzue mutilak ta ellegaturik erran zio: Zerengatik iten zida ainberze guruze? Akaso naiz ni demonioa? Ez, erran zio abadeak, baña jakin zazu ezi zure gañean eldu zirela uliak bekala demonioak tentazen pensamentu zindeukanera. Bada, zer nindego pensazen ni? Zindeude pensazen ebasteen mantekagoi, joatea berla salzera alako lekura; ta nik formazeareki guruzea, kendu zaizu tentazioa. Konfesatu zue klaro baiez ala zela. Peligro guzietan ere bai. Anitz sandu libratu dire prebeniturik zeukaten tormentutik solamente zeñatus eta santiguatus. Eta Santa Tekla apostoluen denborakoa guruzearen señalear libratu ze hogearain garretaik. Ain alzinekoa da guruzeain usoa ta birtutea. San Martinek erraten zue: Ni estalirik ez brokelas ta morrionas, baizik guruzearen señalear, pasatuko naiz etsaien eskudronen erditik seguro. (Brev. in ej. offic.) San Franzisko Xabierrek armarik batere ia gabe, baizik guruze bateki eskuan geldiarazi zue ta itzuliarazi zue gibela barbaroen exerzito bat osoa. (In ej. vit.). San Konstantinok emasteki torpe bat, tentazera etorria, ilik utzi zue oñetan solo formazeas arregana guruzearen señalear. San Juan Krisostomok paraturik kanpo batean guruze bat, biramoneko aurkitu ze ilik arren ondoan leon bat kanpoa ta jendeak galzen zituen. (Parr. pl.9. p.1.). San Benitok guruzearen señalear autxi zue baso bat pozios betea, edateko presentatu ziotena. San Hilariok il zue señalear beras dragon bat horrorosoa. San Magnok garbitu zue serpienteetaik errejione guzia. San Liziniok urratu ta lurreratu zitue karzelako atariak. San Biktorinok itzali zue hogera ta su bat andia; ta guziek anitz peligro garaitu dute guruzearen señalear. (Claus. p.2. cath. c.12.).

4. Peligro andienetaik bat da tenpestade, arrerauntsi, ortots, oñestur, ausnarri ta terremotoarena. Okasio goietan in bear da guruzearen señalear, erakusten digun bekala Elizak bere konjurioetan; zerengatik edo datozin aiek Jangoikoaren partetik edo deabruaren partetik Jangoikoaren permisios, beti edozein gisas guruzea da brokel dibinoa librazeko golpe guzietaik konbeni barin bada. An Ezekielen bedrazigarren kapituloan kontazen da, ezi etorrririk sei aingiru, zein bere baso eriozearenareki eskuan Jangoikoaren alzinera beraren mezus, berze bat presentatu zela aien erdian tintero bateki. Erran zio oni Jangoikoak: Zoaz Jerusalengo ziudadea barna zu alzinetik ta marka zazu letra Tau nik erraindizutenen kopetetan. Eta berze seiei erran ziote: Zoaste zuek orren atzetik eritus ta iles jendeak, barkatu gabe niori ta lastimarik gabe guziak. Ilzkizie zar, mutil, donzella, aur ta emasteki guziak arras; solamente ez il Tau letrareki markatuak bere gañean. Ala kunplitu ze. Tau letra hebreoan da guk te deizen duguna, ta da guruzearen figura propia, beitirat palo bat luzea ta berze bat goitian atrabesatus formazen dena. Baliazen da Jangoikoa zenbait aldis edo aingiru ones edo gaistoes, kastigazeko Jerusalem kristioa, diot

Eliza, plantatus tenpestadea bere iraren demonstrazio on bat bekala, noiz lañuen artilleries, ortotsen tiroes, oñesturen suas ta ausnarrien bala lotsagarries ostenta zen baita errege guzien Errege ta exerzitoen Jaun poderoso, indignaturik batallan bekatarien kontra. Zer eskudo, zer muralla, edo zer makina izan daike erresisti dezakena Jangoikoaren ira? Esta berzeik baizik Tau gurutzearen señailea, zein ikusirik gure gañean libre utzi gaizan Jangoikoak. Dire anitz exenplareak. Aizkigun bat edo bida. Zoezi bein bi lagun bides, forjatu zelaik airean tenpestade bat terriblea ortots ausnarrieki. Bata zeñazen ta santigoazen ze humilki, berzeak irris erraten zio: Zer, ala naituk apartatu sudurretik uliak? Baña pagatu zue burla, zerengatik instante disparatu zio ortots bateki Jangoikoak ausnarri bat utzi baizue ilotzturik lurrean irrigillea; ta berzea aldakan libre gelditurik joan ze kontazera kasoa. (Lips. de usu Cr.). Ain gaizki ez, baña obeki erakutsi zio berze bati Jangoikoak zeñazen alako okasioetan. Irri egiten zue zeñazeas Inglaterrako mutil batek, ta ezin desengañatus lurrekoek, artu zue kargu gau zeruak. Dibertizen zegolaik mutiloi aldi bates kanpoan, ezarri ze goibel bat terriblea gañean soltazen zena ortots, oñestur ta ausnarrietan. Etzue kasorik iten sikiera santiguazeas ta alakoates ausnarri batek inguratu zue bere suas, gelditu zelaik gizonoi, ilik ez, baña iletsiturik lurrean. Akorrizen da ta erreparazen du suak utzizizkiola formaturik anitz gurute kapan ta bestiduran grazia andiareki, ikas zezan grazien ematen Jangoikoari bizi guzian. Ala inzue, ezi sarturik monasterio batean bizitu ta ilze agradeziturik ta deboto gurutzearen señaileas. (Parr. pl.X. hoc.) (Lips. ubi supr. illud).

5. Usatu ere bear da arrausia iterakoan. Kostunbre gonon prinzipioa diote izan zela Italian 590 urtean. Iles zoezi jendeak pestes ta lastimosoena ze ezi arrausia iterakoan franko erorzen zire ilik derepente; ortaik asi ze formazea gurutzearen señailea agoain gañean arrausia iterakoan defensatako. Usazen ere da gurutea ilzerakoan, peligro andiena delaik, bear baita defenza andiena lograzeko ilzea Kristoreki ta Kristoren besoetan. Exenplareak estaizke konta zerengatik zenbat sandu ta sanda baita, berze ainberze exenplare dire gauza gononak, guziek deseatu baizute ilzea besarkaturik ta armaturik gurutzeareki. Begira guzien ertean San Franzisko Xabier, pasatu ondoan infinizio bat trabaju, il zen Santxoango islan, oian desertu batean ta etxola pobre batean, desanparaturik munduko guzietaik, solo akonpañatu ta anparaturik Kristo guruzifikatuas, beti bereki zermanas; oneki besarkaturik ilze konsolu ezin iagokoareki ta ala aurkitu ze il ondoan ere zeukala kruzifixoa bi eskus besarkaturik petxoain gañean. O nor il leiken gisaontan!

6. Bear da ere usatu gurutzearen señailea, partikulariki goatzetik jaikizean, etxetik atrazean, elizan sarzean, jatean ta etzitean; kostunbre gau apostoluen tradizio bekala kontazen du Tertulianok. (Lips. ib.). Goatzetik jaikizean lenik, asten dugulaik eguna gurutzearen señaletik, Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, bestizen gabela Kristo guruzifikatuas, berain konforme egiteko obra, itz, pensamentu ta pausu guziak, ta sellazen dugula kopeta, agoa, bularra ta sentidoak guruteas, ajustaturik enplea daizen Jangoikoren legean. Etxetik atrazean ere bai santiguatu bear da, Jangoikoak señaile gorren medios libra gaizan tropezu ta peligro guzietaik bereak bekala Babilonia gontan; ala nola kanpañara atrazen den soldadoa ezpaita atzenzen parazeas gerrian ezpata. Elizan sarzean ere bai, asistizeko dignokiro Jangoikoaren presenzian, parazentugulaik preso bekala guruteas sentidoak ta potenziak, estaizen enplea baizik Jangoikoaren gauzetan, ta en fin insignia garreki estalirik persona beira dezan Jangoikoak berea bekala; ta apartaturik gure bekatuetaik bere atenzioa, atendi dezan gure baitan bere Seme Jesu Kristo, zeñen insignia baitamagu. Jatean ere bai, astean ta akabazean, protxa dezan gorputz arimei ta izan daien Kristioen jatea ta ez animaleena bekala; zeñek ez izanes diskreziorik, jaten ta edaten baitute

deus erran ta in gabe. Ez ala kristioak, baizik Kristoren konforme, zeintas baitio ebanjelioak, ezi lenik bedeikatu ta ebaki zuela ogia, lenik bedeikatu ta eman ziotela edaria, benedixit, fregit; benedixit, deditque ta akabazeen ematen zituela graziak, et hymno dicto. Desuerte ezi erresuzitatu ondoan ezaundu zute bi diszipuloek bera zela ogia in ebakizean. Erran nue len ta orai erra nai dut nola asi ta akabatu bear den jatea. (Prinzipioan, Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen. Jauna, bedeika gaizazu gu ta zure erregaloebek zure eskuetaik errezibizera goazinok, Kristo gure Jaunagatik. Amen. Aitagurea, Abe Maria ta gloria Patri etc., ta berla, Jangoikoak egin gaizala zeruko maiaren partizipante. Amen. Akabanzan arla, Aitaren etc. Ematentizugu graziak zure mertxede guziengatik Jaun dibinoa, sekulako bizi ta erreinazen zaudena. Amen. Aita gurea. Ama Birjinari Abe Maria. Ilze on batengatik Aita gurea ta Abe Maria. Arima purgatoriokoengatik Aita gurea ta Abe Maria ta gloria, ta azkenean: Mantenazen gaituenak lurrean bedeika gaizala zeruan. Amen.).

7. Bear da ere usatu gurutzearen señaleari etzitean, ta espezialki, zerengatik dion bekala San Maximok, nork baizik Jangoikoak goardazen du gizona lo dagolaik? Zein bere loan ain estago bere baitan, ezi ezpaitaki orduan zer den bera, non dagon, ta por konsigiente estaike deustaik defenda. Prezisoki, bada, asistizen dio Jangoikoak, zerengatik ezpaitaie asisti bere buruai berak, ta goardazen du gauasko peligroetaik linaje humanoa. Jangoikoa, bada, nik lo indezatengatik seguro dago idatzarririk zentinelan. (Hom. de grat. post cib. agendis.). Eta nork kontu gauas izan daizken peligro korporalak? Eta nork espiritualak? Ia amets gaistoes, ia berze gisas, kausa baitezazkete naturaleza berak, demonioak ta arren diszipulo sorginek? Nor, bada, esta oroituko etziterakoan, belauriko bearlizake baña, benzait bidanabar ur bedeikatuas egitea bere gañean ta goatzean gurutzearen señaleari, kontriziosko aktareki bateo, eskatus Jangoikoari ar dezan arren kuidadoa? Zeñatu ta santiguatu, alaber, aurrak etziterakoan, zerengatik gu lo gaudelaik, idatzarririk egoten dire gure enemigoak. Orgatik enkargazen du anitz Fr. Bartolome Espinak zeñatu ta santigoazeko aurrak etzitean, zerengatik sorgin batek deklaratu omen zue, ezi joanik gauas ia ezi berrogeita amar aldis ilzera bere aldameneko bati aurrak, beñere ezin logratu zuela zeren beti aurkizen baizue defendaturik gurutzearen señaleari, zein iten baizio gauoro bere amak. Akaba zagun exenplu goneki, zein gertaturik Murzian estuela anitz denbora, kontazen baitu aita Alonso Andradek (Itiner. gr. 4. ss. 8). Preso sorgin bazuek inkisizioan konfesatu omen zute inkisidorei, berze anitz gauzen ertean lanze gau. Zebilzalaik bere tratu gaistoan granja baten ondoan gau bates, aurkituomen zitue errelijioso batek ta erreprenditu omen zitue zeren baizebilza bakarrik kanpoan garai gartan. Asarraturik ontas sorginak, erresolbitu zire joatea gau bates arren aposentura maltratazera errelijioso. Joan zire demonioaren birtutes arren zeldara, baña ez omen zire atrebitu sarzera zeren ikusi baizute arren gañean susko guruze bat txoil resplandezientea, ta ala itzuli omen zire lotsaturik señaleari dibino garren ikusteari. Deitu zute inkisidoreek errelijioso, ta galdeinik, egia zela erran zue, eman ziotela erreprehensioa. Galdein ziote ia, ia zer debozio usazen zuen etziterakoan. Errespondatu zue zuela debozio formazeas ur bedeikatus irur guruze bere gañean, enkomendazen zelaik Jangoiko Aita ta Seme ta Espiritu Sanduari, Maria Santisimari ta aingiru goardakoai goardatzezatengatik gauartan, ta oneki botazen zela lo egitera ilzera bekala. Orduan deklaratu ziote inkisidoreek pasatu zena ta nola baliatu zizaion bere debozioa, zeintan konfirmatu baize. Aski iduri zaida errana, estimarasteko guruze sanduainganako debozioa; zer falta da orai, baizik exortazea San Pablaren itzaieki: Accipite armaturam Dei, ut possitis resistere in die malo. Ar zazie

Jangoikoaren armamenta, dezakeziengatik erresisti gaiz guzietan. Usatu guruzearen señaleara edozein lanen asteen, nezesidade, tentazio ta peligro guzietan, partikularki goatzetik jaikizean, etxetik atrazezan, elizan sarzean, jatean ta etzitean, portatus beti Jangoikoaren sierbo onak bekala; intenzio goneki inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak, etc.

Plat. 25.

De virtute crucis, et adoratione

1778

Sicut Moyses exaltavit serpentem in deserto,
ita exaltari oportet filium hominis. Joann. 3.

1. Erranik usatu bear dela guruzearen señaleara edozein lanen astean, kausten garelaik nezesidade, tentazio edo peligrotan, partikularki goatzetik jaikizean, etxetik atrazean, elizan sarzean, jatean ta etzitean, galdeiten du orai katezismoak: Eta zerengatik ainberze aldiz? Zerengatik leku ta ordu guzietan geuren etsaiek tentazen ta persegizen baikaituste. Zer etsai dire oiek? Mundua, demonioa ta aragia. Munduak bere itxura, banidade ta ponpaeki, munduan diren gizon, emasteki, animale ta gauzaeki tentazen gaitu; ta ezin mundutik eskapa. Demonioak bere inbidiaren kasos mila astuzia ta indar guzieki persegizen gaitu; ta ezin geuren indarres debeka. Oriek aski ezpalire bekala, geuren aragiak, etxeko enemigo traidore geurek mantenizen dugunonek, geienenik peligrarasten gaitu; ta ezin geurengandik bota. Ezkaude seguro ez etxean, ez kanpoan, ez publikoan, ez erretiroan, estare elizan berean; ez egunas, ez gauas, ez bizi guzian nioiz, estare eriozeko orduan berean sikiera etsai gebetaik eskusa gaizke. Orgatik zio ongi Job sanduak, ezi gizonaren bizitza lurrean dela milizia edo gerra bat kontinua. (C.7.). Eta zer atrabesazen da gerra gontan? Ez gutiago, baizik ofendizea edo iragaztea sekulakos Jangoikoa; baizik galzea edo lograzea betikos geuren arima solla. Txoil andia da gure peligroa. Ongi bear dugu zerbait arma erdextekos biktoria. Baña arma ona dugu, arma dibinoa, San Pablok manazen diguna arzeke: Accipite armaturam Dei, ut possitis resistere in die malo. (Ad Efes. 6.) ar zazie Jangoikoaren armamenta, dezakeziengatik erresisti mundu ontako denbora gaisto gontan. Armazaiste guruze sanduas. Kontrarioak usu ta noiznai barin baitugu, aisa ta eskunara txoil utzi digu bere arma dibinoa Jesu Kristo gure Jaunak.

2. Eta badu guruzeak birtuterik etsai goien kontra? Bai. Zerengatik? Zerengatik Kristok garaitu baizitue bere eriozeareki guruzean. Etsai gaiek lenago garaitu zute ta pean zeukate gizona; baña Kristok, iganik guruzera, garaitu zitue etsai gaiek ta libratu zue gizona. Ikusagun. Zer intenzio dute gure etsaiek gu persegizean? Eroriarastea gu bekatuan ta Jangoikoaren desgrazian. Bai, ta oneki zer naute? Gure sekulako kondenazioaren sententzia. Guziau logratu zute gure Aita Adanen medios. Per unum hominem peccatum intravit in mundum et per peccatum mors, et ita in omnes homines mors pertransiit in quo omnes peccaverunt, dio San Pablok (Rom. 5.). Gizon baten medios bekatua sartu ze munduan ta bekatuaren medios eriotzea, eta ala gizon guzietara pasatu ze eriozea arreatatik zeintan guziek bekatu in baizute. Baña gizon baten medios sartu baze bekatua ta eriozea, berze gizon Jangoiko denaren medios etorri ze grazia ta bizitza; eta abundatu zen bekala delitoa, ia abundatu ze grazia. (Ib). Aizagun San Pablo eleganteki erraten: Eta zuek ilak zindeustelaik zeuren deliktoetan, biztuzinduste Kristok Jangoikoainganako, barkatus zuen delito guziak, borrazen zuelaik gure kontra zen dekreto edo sentenziaren eskritura; eta edeki zue erditik fixazen zuela guruzeareki, eta despojaturik prinzipado ta potestadeak, pasatu ze animosoki triunfatus aietatik publiko ta klaroki berebaitan. (Coloss. 2.). Ikusteunzie erresuzitaturik gizona bekatuaren eriozetik, barkaturik bekatua, borratutik kondenazioko sententzia, garaiturik ta despojaturik gure etsaiak, ta triunfante Kristo

guruzearen medios. Ontara erran zue Kristok berak: Ala nola Moisesek paratu baizue gora serpientea, ala da preziso gora para dezaten Gizonaren Semea, estaien gal arren baitan sinestazen duena, baizik izan dezan bizitza sekulakoa. Zer da au? Da kasoa ezi iles zoezilaik Israeldarrak desertuan, Jangoikoak manatu zio Moisesi para zezala gora patente serpiente bat bronzeskoa, zeintara solo beiratus libra zeizen eriozetik Israeldarrak. Ala egin ze ta ala gertatu ze. Serpiente bronzesko gura ze Kristo guruzifikatuaren sinbolo, zein itsusturik ta desfiguraturik arrigarri tormentuen utses guruzean, izan ze gure biziaren kausa. Ontara zio Jesu Kristok, zela preziso bera gora parazea; entendazen da guruzifikaturik guruzean, ez galzeko nior sinestazen duenik bera baitan, baizik salbazeko guziak. Orgatik dio Elizak guruzearen himnoan, ezi lastimaturik gure Kriadorea gure Aita Adanek izan zuen engañuas, erori zelaik eriozean jateareki fruta debekatua, orduan notatu zuela arbola erremediazeko arren dañuak. Ipse lignum tunc notavit etc. Eta guruzearen prefazioan, ezarri duela Jangoikoak gizonen jenerazioaren salbazioa guruzearen arbola edo zurean, zetorrengatik bizitza andik nondik sortu baize eriozea, ta zur baten medios izan zeien garaitua demonioa, zur baten medios garaitu ginduzana.

3. Ikusi dugu nola Kristok guruzifikaturik guruzean garaitu zituen gure etsaiak, emendik du guruzeak birtute etsai goien kontra; ezi ezpaze il Kristo guruzean, etzue izain onek birtute ia duen baño urkabeak edo berze edozein justiziazeko instrumentuk. Baña gorputz dibino arren ukizeareki konsagratu ze guruzea ta artan iragazi zuen triunfo andiaren medios Kristo gure Jaunak, gelditu zaio guruzeari ta arren señaleari birtute lotsazeko, garaizeko ta urrazeko gure etsaiak, ezpaitezakete soporta instrumentu gura pintaturik ere, zeintan bein experimentatu baizute beren kastigo, estrago ta derrota irremediablea. Entendatu baeduzie? Bai Jauna, baña erreparo bat dugu. Il barin baze Kristo edo degollaturik ezpatas, edo arrikaturik arris, etzute izain birtute bera ezpata ta arri gaiek orai? Bai. Bada, berengatik etzue permititu il zezaten inozenteen erlean, Herodesek nai zuen bekala, edo arrikaturik, fariseoek meatxatu zioten gisa, baizik solamente guruzean ain txusto? Erreparo ona da Aita Sanduek lenagotik adbertitu zutena. Zenbait arrazio emateunte berek, ta aipatu dut bat, baita ezi arbola baten medios garaitugindizana, izan zeien guruzeako arbolaren medios garaitua Jesu Kristorengatik. Baña gure asuntorako da singularra San Agustin prodijiosoak ematen duen errespuesta. Nai izan zigula Jesu Kristok bere eriozearen instrumentuan utzi guretako armak erdexteko guk ere biktoriak. Etzue, bada, nai izandu il arris edo ezpatas eriturik, zerengatik ezkin dezazke erman guk beti geureki arriak ta burriña geuren defendazeko; baizik usteagatik eskunara ta eskuan bekala guri armak, elejitu zue ilzea guruzean, zein eskuaren mogimentu lebe bates formazen baita ta zeintas defendazen baikara etsaien kontra. Orra nik erranuena, ezi kontrarioak usu ta noiznai barin baitugu, aisa ta eskunara txoil utzi digula bere arma dibinoa Jesu Kristo gure Jaunak. Il baze arris edo ezpatas, arriak ta ezpata izain zire arma fuerteak, baña pizuak, ez ainfazilak noranai ermateko leku ta ordu guzietan. Eta nola formatu edo figuratukoginduz? il da guruzean zur batean, arinago baita ta eri bates edo bidas noiznai ta nonnai formazen baita. (Agust. s. 181 de temp). Zein ongi orai edozein kristioren agoan Dabiden itz gaiek! Benedictus Dominus Deus, qui docet manus meas ad proelium et digitos meos ad bellum. Biz bedeikatua nere Jaun Jangoikoa, ala erakusten baititu nere eskuak pelearako ta nere eriak gerrarako. Zer da au? Zer du ia nere eskuak ta nere eriak, nola esku sollak? Esta guzia bat? Ez, zerengatik eriek erdetxi dezakete biktoria bat aparta konsegizen duenas landara eskuak. Iten dugulaik guruzearen señaleari, eskua da peleazen duena, eriak dire iteuntenak gerra, zerengatik eriek formatu guruzea zerbitzazen

diote eskuari armatako. Ainberzetara ellegatu gara guruzearen señaletatik, ezi bi eris, eri bates botazentugu derrotaturik etsaien eskuadronak. Guziau da zerengatik Kristok garaitu baizitue bere eriozeareki guruzean.

4. Onen kasos bear dugu, alaber, aduratu guruzea, Kristoren mienbroen ukizeareki konsagratua, bere obra andi gure salbaziokoaren instrumentu prinzipala baita. Eta adorazen delaik guruzea, nola erraten da? Adorazen zaitut ta bedeikazen zaitut Jesu Kristo ene Jauna, zeren zure guruze sanduaren medios erredimitu baizindue mundua. Berze gisas: adorazen zaitut guruze bedeikatua, zeintan izan baize guruzifikatua nere erredenptorea. Au da agerrian iten dena, baña estalian edozein kristio agradezituak paratu bear du bere petxoain barnean tenplu edo sagrario bat, non fixaturik biotzain erdian Kristo guruzifikatua, dei dezkien arara bere potentzia ta afekto guziak zeñeki besarkatu, aduratu ta maitatu bear du Jaun dibinoa maiz egunas ta gauas, pensatus jaun arren fineza il nai izanean guregatik palo batean ta erreparasatus jaun arren pausu ta lanze guziak pasioain denboran, ta gorputz dibino garren zauri ta tormentu guziak ta bakotxa guregatik toleratu zuena; mogizen delaik ontaik, ia aborrezizera bekatuak kausatu zutenak, ia lastimazera Kristo beras, ia agradezizera berain amorio extremo gure amorio ta korrespondenzias, ia ere imitazera zerbait trabajuetan ta sufrimentuan. Deusek, dio San Buenabenturak, estu ain ongi obrazen santidade unibersala ariman nola meditazeak Kristoren pasioa. (Ap. cl. p.1. cat. c.5). Iago balio du Kristoren pasioas oroï ze senzillo bat, ezi ez baruzeak urte guzian ogi ta ur solles, dio Alberto Magnok (Ib). Meditatus pasioan kurazen bekala zaizkiola bere Ila gaiek, errebelatu zio Santa Jertrudisi Kristok berak (Ib). Meditazio gonon kasos aurkitu zire Jangoikoaren milagros inprimiturik Santa Klara de Montefalkoren biotzean pasioaren señaletak: Guruzea, lanza, itzeak, korona, azoteak ta gañarakoak (Ribad. in ej. vit.). Debozio gonon premiotan inprimituzizkio San Franzisko Asiskoari Kristok bere borz llagak. Jangoikoak ezdezala permiti, zio San Pablok, gloria naien ni deustan, baizik Kristo gure Jaunaren guruzean (Galat. 6). Ta, berriz: Neretako bizitzea da Kristo; oroat nola erran balu: Ondasun, honra, gusto, ta gauza guziak ditut Kristo guruzifikatuan. Eta errealki, fielak, esta digno dei daien kristio estuena deboziorik Kristoren pasio, erioze ta guruzeagana, zeñen medios obratu baita gure erredenzionea. Demonioek, bada, aborriren baute Kristoren pasioa ta guruzea, beren erioa bekala, guk gure erremedioa bekala medita, estima ta adora zagun afekto guzias. Señala zagun geuren gañean guruzea maiz, ermagun biotzean ta ala adora zagun agoas; ez Judasek bekala apatu ezpañes ta traiziatu obras. Zenbatek erraten bide du Kristok, adurazeuntelaik: *Populus hic labiis me honorat, cor autem eorum longe est á me*. Onok honrazen nau ezpañes ta biotza dauka apart enegandik. Nor dire alakoak? Izenes kristio ta obres ofendizeuntanak Jaun dibinoa, zeintas baitio San Pablok, rursus crucifigentes filium Dei, berriz kruzifikazen dutela Jangoikoaren Semea. Nola atrebizen dire urbilzera alakoak biotz gaistoareki adurazera Kristoren oñak ta guruzea? Nola estute entendazen erraten diotena Jesu Kristok bakotxai, Judasi erran ziona: Judas, apa bates salzenduk eure maestrúa? Iduri aiskide, izan etsai? etorko da denbora, guruze gorrek klaroki konbenzituko baititu. Orai, fielak, emendatu ta señaletan erran fede, etc, etc.

Platica 26.

De 4. Partib. Doctrina Christianae.

ann. 1778

Fluvius egrediebatur á loco voluptatis
ad irrigandum paradysum,
qui deinde dividitur in quatuor capita. Genes. 2.

1. Explikaturik ia Kristioaren izena, dignidadea, ditxa, obligazioa ta señailea, orai ia explikatu bear da partes parte doktrina kristioa. Deizen da doktrina kristioa zerengatik Kristok erakutsia baita ta kristioak ikasi bear duena. Anitz modu ta gisatara len gure aitei profeten medios minzazen zioten Jangoikoak; azkenean minzatu digu guri denbora ebetan bere Semearen medios, zein in baitu gauza guzien heredero ta zeñengatik fundamentatu baititu sigloak, dio San Pablok. Hebr. Orgatik deizen da ta da errealki Jesu Kristo Berbo dibinoa, Jangoikoaren ta Aitaren itza, ta gure Maestru dibinoa. Orgatik azken afariaren gauean erran ziozte diszipuloei: Zuek deizen nauzie ni Maestru ta Nausi, ta ongi dioze zerengatik ala naiz. (Yoann. 13.) Orgatik bataiatu ondoan Kristo gure Jauna Jordango ugaldean San Juan Bautistaren eskus, idiki zire zeruak ta jautsi ze berain gañera uso baten figuran Espiritu Sandua, ta alaber, aitu ze ortots baten aintzu Aita eternoaren boza erraten zuela: Au da nere Seme keritua, zeintan baitut nere konplazenzia. (Math. 3) Orgatik, alaber, trasfiguratu zelaik Taborko oianean, agerturik zerbait bere dibinidadearen erresplandorea, aitu ze lañu batetik boza oroat ziona: Au da nere Seme keritua. Aizazie au (Ib. 17): Konfirmaturik dago Aitaren ta Seme beraren ta Espiritu Sanduaren testimonios dela Kristo gure Maestru aitu bear duguna.

2. Baña zer erakutsi digu Kristok? Trintate Jaun andiak konpondurikako doktrina, au da, doktrina kristioa. Orgatik erakusterakoan Kristok jaiegunean tenpluan, admiraturik Judioak nola zekien ainberze ikasi gabe letrarik, errespondatu ziozte: Nere doktrina esta nerea, baizik bialdunauenarena. (Joann. 7) Nola daike au? Ezparinbada berea doktrina, nola dio, nere doktrina? Ta berea barin bada, nola dio, esta nerea? Nere doktrina esta nerea erraten diotelaik Judioei, nai du erran, nik erakusteuntena esta munduko eskoletan ikasia, esta gizon sollaren doktrina, zuek uste duzien gisan naizela ni; baizik Jangoikoarena da ta ala nerea ere da, zerengatik bainaiz Jangoiko ni. Zer ia? Azken gauartan despeidako predikuan erran ziozte diszipuloei: Oraño anitz gauza errateko dut, baña zuek ez dezazkeze jasi ta soporta orai. Baña Espiritu Sanduak, bialirik nere ta Aitaren borondates, etorzen delaik erakutsiko dizie guzia. (Joann. 16) Ala kunplitu ze. Erakutsi ziozte apostoluei ta apostoluek Elizari, ta au guziau da kristioen doktrina, doktrina dibinoa, Aita eternoaren podorioas, Semearen jakindurias ta Espiritu Sanduaren amorioas munduari komunikatua, ta Elizak konserbazen, sinestazen ta erakusten duena.

3. Doktrina kristio gau da ta deizen da ongi Jangoikoaren itza, ta ala onen ikastera eldu dena eldu da aizera Jangoikoaren itza. Kontenizen da guzia tradizio ta eskritura sagratuetan. Txoil abasto ta estenditua da, ta ala dio katezismo Romanoak (In proem. n. 12): Zeren ainberze ta ain diferenteak baitire Jangoikoak errebelaturikako gauzak, ezpaita fasil guziak entendazea, estare konserbazea memorian, orgatik erakustean izan daien metodo pronto ta desenbarazatu bat explikazeko, jakinsuki gure alzinekoek errepartitu zute doktrina sandu gonon substantzia ta mami guzia laur parteetan, baitira: Kredoa,

Sakramentuak, Mandamentuak ta Aita gurea. Emendik segizen da, dio bere artan beixago, ezi explikatorik laur gauzaebek, baitire eskritura sagratuko berze ainberze iturri bekala, ia kasi deus esta falta entendazeko kristioak jakin beartuen gauzak. Orgatik galdeiten du katezismo komunak ala: Zenbat gauza jakin beartu kristioak ezaumentura edo arrazioaren usora ellegatuaskeros? errespondazen da ezi laur. Zein dire? Lenbizikoa, jakitea zer bear duen sinestatu; bigarrena, jakitea zer bear duen eskatu; irugarrena, jakitea zer bear duen obratu; ta laugarrena, jakitea zer bear duen errezibitu. Itz gutiagos, bear du jakin zer sinestatu, zer eskatu, zer obratu ta zer errezibitu. Eta nola jakinen du zer sinestatu? Dakielaik kredoa edo artikulo fedeskoak, guzia baita bat. Nola jakinen du zer eskatu? Dakielaik Aita gurea ta Abe Maria ta Elizako gañarako orazioak. Nola jakinen du zer obratu? Dakizkielaik Jangoikoaren legearen mandamentu sanduak, Elizako borzak ta obra miserikordiasakoak. Nola jakinen du zer errezibitu? Dakizkielaik Elizako Sakramentu sanduak. Beras kredoa, Aitagurea, mandamentuak ta sakramentuak dire doktrinaren laur buru ta parte prinzipalenak? Bai, zerengatik Kredoa daude sinestatu bear diren gauzak; Aita gurea erreduzizen dire otoizik obrenak; Mandamentuetan fundazen dire obratu bear diren gauzak; ta Sakramentuetan errezibitu bear direnak. Segizen dire Kredoi Artikulo fedesko ta eskritura sagratuan dauden egi eta fede guziak, zein sinestatu bai, baña ikasi ez dezazkete guziek guziak; orgatik Kredoa bildu dire misterio prinzipalenak. Aita gureari segizen zaizkio Abe Maria ta Elizako gañarako orazioak klaridade ta abundanzia iagos, ta jakin dezagun Ama Birjinai ere ta sanduei ere eskazen gure medianeroei bekala, ta Jangoikoari ere bai berze gisas. Jangoikoaren legeko mandamentuei añaizen dire Elizakoak, jakindezkigungatik Elizako humeek Elizak iminikako obligazioak ta kunplizeko Kristoren ebanjelioko konsejuak, obra miserikordiasakoetan enzerrazen direnak, debozios beti ta noizean noiz obligazios. Sakramentuei esta deus añaizen zerengatik esta berze Sakramentu errezibizekorik, baizik zazpiak. Gisaontan laur gauza gaietaik asten da ta aietan akabazen da jakinduria kristioa, ta aietak examinatu bear da munduguzia zeruko atarian, sarzekos glorian.

4. Instruizen ta gobernazen ze len mundua Jangoikoak aingiru ta profeten medios paraturikako erregla, zeremonia, lege ta doktrines, beteartaño denborak; baña beterik ebek etor zelaik Maestru dibinoa ta Lejisladore sumoa Jesu Kristo, bazuk aldatu zitue, berzebazuk erreformatu, berzebazuk konfirmatu ta berzebazuk, en fin, berri berritan paratu zitue. Eta ala Kristoren doktrina testamentu zar ta berritik konponzen da: Berriak dire Kredoa, Aitagurea ta Sakramentuak; zarrak baña Kristok konfirmatuak legeko Mandamentuak; gañarako lege ta zeremonietaik bazuk ia dire akabatuak, anitz erreformatuak, nola disponitu duen Kristoren majestadeak, denbora ta gauza guzien Jaun ta Jabeak. Orgatik aixtean aipatu dugun Kristoren transfigurazioan aparezitu zire an Moises ta Elias, prestazera bekala obediencia ta rendimentu, ta sujetazera berain dispoziziora lege zar ta profeteen doktrinak. Disponitu zue ezin obeki andik alzina munduan izan bear zen doktrina solla, unibersala ta perpetua, erreduzizen baita laur aipatutugun gauzetara. (Apocalipsico libruan dio San Juanec (21) Jerusalem zelestialas, zerutik jautsias ta prebenituas esposa bat bekala, zeukala Jangoikoaren klaridadea ta muralla bat andia ta amabi atari, irur alde baktotetik, orientetik irur, okzidentetik irur, egerdialdetik irur ta nortetik berze irur; ta amabi zimendu ta aietan markaturik amabi apostoluen izenak. Eta dio ia, ezi ziudadea dagola formaturik kuadroan: Et civitas in quadra posita est. Zer figura obeago daike kristiandadearen, zein bildu baitu munduaren laur aize edo kantonetaik, sarzen direlaik artan, nondik nai dela, irur atarietaik, au da, ze

irur persona dibinoen fedeas, bataiazen direlaik Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean? Amabi apostoluen zimenduen gañean dago fundaturik; du Jangoikoaren klaridadea ta muralla andia doktrina kristioa, klaroa ta garaituestaikena, dagona fundaturik kuadroan, au da, laur gauza gaietan: Kredoan, Aita gurean, Mandamentu ta Sakramentuetan.).

5. Baña onen figura txoil-propioa dugu Jenesisko libruan, bigarren kapituloan; dio an, ezi fundatu zuelaik Jangoikoak paraisoa, paratu zuela artan gizona lanzeko ta goardazeko; ta gustoaren lekutik atrazen zela ugalde bat erregazeko paraisoa, zein andik partizen baita laur buru edo zatitan. Zein da ugalde andi preziosoa erregazen duena elizako paraisoa, baizik doktrina sandua Kristoren agotik sortu zena? Ta zein dire laur buru edo errepartimentu gaiek, baizik Kredoan, Aita gurea, Mandamentuak ta Sakramentuak, zeintan partizen baita doktrina? Paraiso gontako plantak dire kristio guziak; erregatu gabe eztaizke azi zerurako; erregazen dire, bada, Kristoren doktrina gontas, baita ur espirituale salbazalea. Onen progutako aizagun Kristo bera. Dio San Juan Ebanjelistak, ezi festa egun andi bates zegola Kristo txutirik ta oiuiten zuela: Niork barin badu egarririk betor neregana ta edan bez. Zer baizik doktrina berain fedearena? (Joann. 7). (Onen progutako zerbitza dezake lanze gonek. Joan ze Kristo gure Jauna Samariako ziudade batera non baize iturri bat, ta nekaturik Jesus dibinoa biajeas, gelditu ze jarririk iturri gañean, egerdi inguruan. Ellegazen da emasteki bat ere eske ta erraten dio Jesusek: Idazu edatera. Errespondazen dio emastekiak: Nola zuk izanik judatarra eskazen didazu edatera niri, bainaiz samaritarra? Zerengatik ez omen zute tratazen judatarrek samaritarreki. Erraten dio Jesusek: Bazindeki nor den eskazen dizuna edatera, akaso eska zindezoke zuk ta emainzizu ur bizia. Erreplikazen dio emastekiak: Estuzu zereki atra ura ta butzu gau dago barna, nondik emain didazu ur bizia? errespondazen dio Jesusek: Ur gontaik edateunten guziak egarrituko dire berriz, baña edaten duenak nik emain dioten uretik, esta egarrituko sekula ta ur gura inen da arren baitan iturri bat sekulako biziraño saltatuko den urekoa. Orduan emastekiak: Idazu Jauna urgoi, ez nai en beñere egarritu ta ez etorri onara ur eske. Platika ebetan batetik berzera deklaratu zizkio emastekiai bere bekatu sekretoenak ta bizimodu gaisto zuena, desuerte ezi ezin ukatus erran zio zela profeta, ta paratu ze emendazeko desean, galdeines konsulta espiritualak; ta azkenik erran zio: Jauna, badakit Kristok etorri bear duela, ta etorzen delaik arrek erakutsiko digu guzia. Erraten dio Jesusek: Ni zureki minzazen nagonau naiz Kristo. Orra nola gutibana eman zion edatera emasteki garri ur bizi gura erakutsis doktrina, desuerte ezi utzirik an ferrata, joan ze ziudade guzitik barna ematera notizia Kristo gure Jaunas.).

6. Orai, bada, oiuiten du Isaiasek: Omnes sitientes venite ad aquas (55). Egarri duzien guziok zatoste iturrira: Esta bear dirurik, emazie prisa, zatoste, erosazie dirurik ta deus gabe ardo ta esne. Zer ardo da au? Birtute ta debozioaren ardoa. Zer esne da au? Ura zein baitio San Pablok eman digula txikittoei bekala Kristobaitan, doktrina klaroa ta fazila, tamquam parvulis in Christo lac vobis potum dedi. Guzia ematen da Elizan. Solo falta da ezi ala nola oreñak laister iten baitu iturrira, ala gure arimek desea dezaten Jangoikoaren itza, Dabidek zion bekala. (Ps. 21.) Guziek baute bearra, ojala baliz egarría ta gana! Gorputzaren bearretan izaten gara dilijente; nola deskuidazen gara arimarenetan? Asi gaizen afizionatus doktrinara geuren onetan, idikizkigun orai begiak, ezi berzela urrikutuko zaigu erremedioik estelaik. Orai da denbora ta berladanik goazen ines fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinestazen etc.

Serm. 27.

De symbolo fidei et fide.

ann. 1779

Ergo fides ex auditu; auditus autem
per verbum Christi. Ad Rom. 10.

1. Erranik laur gauza jakin beartuela kristioak, au da, zer sinestatu, zer eskatu, zer obratu ta zer errezibitu, ta laurebek direla doktrina kristioaren laur buru edo errepartimentuak, enzerrazen dutenak arren mami ta substantzia guzia; ta erranik, alaber, jakinen dugula zer sinestatu dakigulaik Kredoa, zer eskatu dakigulaik Aita gurea, zer obratu dakizkigulaik mandamentuak, ta zer errezibitu dakizkigulaik Sakramentuak; orai bat banaka explikazeko asi bear da lenbizikotik, baita jakiteko zer sinestatu, Kredoa. Deizen dugu Kredo zerengatik lenbiziko itza latines asten baita Kredo, nai baitu erran uskaras: Nik sinestazen dut. Izen griegoas deizen da apostoloen sinboloa edo fedearen sinboloa, signifikaizen baitu kristioen dibisa ta señailea, distingizeko berzeetaik, edo obeki, bilgura ta suma bat zeintan baitaude konprehenditurik artikulo fedeskoak ta apostoluen sentenziak. Kredoa da tenore gontan: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren kriadorea baitan, eta Jesu Kristo arren Seme bakar gure jaunaren baitan, zein konzebitu baize Ama Birjinaren entraña sanduetan Espiritu Sanduaren obras ta birtutes; jaio ze Birjina Mariabaitatik; pasatu zue pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaaren azpian, gurzifikatu zute, ilze, orzi zute, jautsi ze linboetara an zeuden arima sandaen librazera. Andik il ta irugarren egunean erresuzitaze ilen ertetik bere propio birtutes. Igan ze zeruetara. An dago jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean, nondik etorko baita azken juizioko egunean onen ta gaistoen juzgazera. Alaber, nik sinestazen dut Espiritu sanduaren baitan, Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa, aragiaren erresurrekzioa, bizitza sekulakoa. Amen.

2. Nork erran zue Kredoa? Amabi apostoluek. Zertako? Guri fedearen erakusteko. Ortako jakin bear da ezi Jesu Kristo gure Jauna, Jangoikoaren Seme gizon egin zena munduaren erredimizeagatik, ez kontent berak bere agos erakutsias orduan, probidenziatu zuela gerorako ere izan zeien nork erakutsi bere partes; ta ortako bere diszipulo anitz zituenetaik eskojitu zitue amabi, zein nonbratu baizitue apostoluak, baita oroat nola bialduak zerengatik bialdu zitue mundu guzia barna bere enbajadore bekala podorio guzieki; ta ala egun bates erran zioten: eman zaida niri potestade guzia zeruan ta lurrean. Zoaste bada ta erakutsi zozie jende guziei bataiazentuzielaik Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. (Math. 28). Apostoluek dire: San Pedro, San Andres, Santiago andiena, San Juan, Santo Tomas, Santiago txikiena, San Felipe, San Bartolome, San Mateo, San Simon, San Judas Tadeo; ta San Matias, Judas galduaren lekuan eskojitu zena gero Jangoikoaren probidenzias. Ainberze kuido ze izan zeitzen amabi, ta ez ia ta ez gutiago. Sakramentu andi bat da amabiren numero gonon signifikaizioa, dio San Agustinek, (De expositione in ps. 86) ta konponzen du gisaontan: Laur dire munduaren parteak. Laur gebetaik bildukotuela bere eskojituak dio Jaunak ebanjelioan; bada, laur gebetaik deizen da Eliza. Ta nola deizen da? Trinitateren izenean, Aita ta Seme ta Espiritu Sanduaren izenean, irur persona dibinoen izenean. Orai bada, laur irures multiplikaturik dire amabi (Ib). Amabi dire, alaber, urtearen ilak, zein etan ingurazzen baitire denbora

guziak: Bada, amabi ere dire apostoluak, leku guzietatik ta denbora guzietan bilzen dutenak kristiandadea. (Numero gonien signifikaziotako).

3. Amabi zire Jakob Patriarkaren semeak, amabi Israelgo tribuen prinzipiak, amabi Elimgo iturriak, amabi Jordango ugaldetik atrarikako arriak, amabi idiak sustentazen zutenak tenpluko berz edo bañu bronzesko gura deizen zena itsasoa, amabi izarrak adorenzen zutenak esposaren korona, amabi en fin zimenduak ta amabi atariak Jerusalem zelestiale garrenak; ta au guziau dire bere ariora apostolu sanduak. Dire Jakob dibinoaren seme espiritualak, zeintas propioiki erran baizue Jangoikoak: Ego dixi Dii estis et filii excelsi omnes. Nik diot ezi zaratela zuek Jangoikoak ta Altisimoaren Semeak guziok. Dire prinzipie, ez Israelgo tribuen baizik kristioen, daukatenak bere gain kristiandadearen gobernua. Dire Elimgo iturriak alimentazen dutenak pueblo kristioa, doktrina ta Sakramentuen ur biziak munduko desertu gontan. Dire Jordango arriak muga ta señaletako paratuak, jakin dezagun eben medios Jangoikoaren bideak ta marabillak. Dire idi razionale espirituale indartsuak jasten dutenak Eliza sandaren fabrika andia. Dire Kristoren esposa elizaren amabi izarrak, onen korona esmaltazen dutenak. Dire, en fin, Jerusalem espiritualaren amabi zimenduak zeintan fundatu baita ta amabi atariak zeintatik sarzen baita. Ainberze ta ia dire apostolu sanduak, zeñen alabazeko ezpaita mi sufizienterik. Aiek, bada, kunplizeko Kristok emanikako enkargua, joanbaño len nor bere aldera, nai izanzute konpondu fedearen formula bat zeintatik balia zeitzen guziak erakustean, izateko konforme doktrinan ta explikazioan; ta ala konpondu zute amabiek Kredoa erranes nork bere sententzia, ta juntaturik batean enzerratu zute ebanjelio, eskritura sagratu ta fedearen mami ta substantzia guzia guri fedearen erakusteko. Eta ala andik onaraño konserbazen da Elizan formula edo suma fedearen gura, baita Kredoa, ta guziek jakin beaute).

4. Eta guk zertako erraten dugu? Dugun fedearen konfesazeko ta deklarazeko. Zer da fede? ikusi gabeko gau zain sinestazea. Sinestazea, zeren afirmazen baitute gizonek, da fede humana; esta alakoa gurea, baizik fede dibinoa, baita sinestazea zeren Jangoikoak errebelatu baitio Eliza Ama Sandari ta Eliza Ama Sandak ala erakusten baitigu guri, desuerte ezi gure fede edo sinestea fundazen da Jangoikoaren itzan, ta ala engañazen bagara, dio Ugo de San Biktorek, atrebizen naiz erratera ezi Jangoikoak engañazen gaituela (In manuscr. de fide); baña ez dezake engaña Jangoikoak, baita egia bera, ta por konsigiente ezkaizke gu engañatu fedesko gauzetan. Estugu ikusi Kristo jaio zen, il zen, erresuzitazen, zerura igaten ta gañarako misterioak; baña sinestazen dugu zerengatik ala errebelatu baitu Jangoikoak. Bai ta nondik dakigu ala errebelatu duela Jangoikoak? Orain eldu da, zeren ala erakusten baitigu guri Elizak, zein baita egiaren kolumna ta firmamentua, desuerte ezi dio San Agustinek: ez nuke sinestatuko ebanjelioa ere ezpanindu mogizen Eliza katolikoaren autoridadeak. (Apud Barrad. t.1. l.1 c.16. in evang.) Ainberzekoa da gure fedean seguridadea! Baitu berze anitz progu ere. Lenbizikoa da ainberze jende ta jendamendeen konsentimentua ta konformidadea fede gontan, zein predikaturik apostoluek gizon pobre, arranzari izanek, admititu baitute konbenziturik ainberze jendeek, errege, enperadore, filosofo, jakinsu, doktore ta letrado andiek. Esta au progu on bat fede gonien egiarena? berze bat da sazerdoteen suzesio ta jerarkia kontinua ta ordenatua, San Pedrotik orain arte, Aita Sanduak, obispoak, sazerdoteak beti izan baitire pasatus bekala batetik berzera Elizako ofizioak; guziek lege bat, doktrina bat, Sakramentu ta zeremoniabazuk ain konforme erakusteuntela mundu guzian. Irugarrena da milagroen autoridadea ta abundanzia. Estute atrako jentil, judio ta munduko sekta guziek

milagro bat sikiera egiaskoa bere errelijionearen progutan; gurean dire ainberze, ain klaroak ta patenteak ezi itsu batek ere ez dezake duda. Laugarrena da martiren kantidadea ta martirioen dibersidadea. Nork erran zenbat persona zarrak, aurrak, gizonak, emastekiak, andiak ta txipiak, ta zenbat ansia ta gustoreki il diren fedeagatik? Amabi apostoluek pasatu zute martirio ta guziak il zire martirioan fedeagatik San Juanes landara. Ogei ta amirur Aita Sandu Erromakoak lenbiziko izan zirenak kerro kerro il zire martir lenbiziko denbora gaietan. Bitarte berze kristioetaik zenbat ugalde odolesko egin zire? Amaborz enperadore kontazen dire persegitu dutenak Eliza. Zenbat milla ta milla kristio koronatu zire palma martiriokoas? Solo Dioklezianoren amar urtetan atrazen da kontua, iloro amazpi milla martir ilzen zirela kristiandadean. Antonino enperadoreak ezin kaborik eman il zen kristioak eriozera laisterka zoezinak bandaka, oiuiten ziote: Miseableak, il nai baduzie ortuzie sogak, ezpatak ta prezipizioak; ta izan da denbora, eman baita lizenzia edozeñek ta nonnai topa zezkien kristioak, edekizeko bizia. Bada nork erran tormentu jenero, makina, errueda, parrilla, instrumentu ta injenio usazen zirenak ilarasteko espazio ta oñaze al guzieki, ia ke ta bein baizik etzeiken il bakotxa? Nola ezpaita munduan lekuri martiren odolas erregatuestenik, ala esta gorputzean lekuri non ezpaitute sufritu tormentu martir gloriosoek. Iduri du konjuratu zirela mundukoeki infernuko deabru guziak, espezialki prinzipio gaietan, akabazeko kristiandadezen puxka. Eta akabatu zire kristioak? Ez. Biramonean atrazen zire ia, ta aun martirioa ikusteas beras lotsatu bearrean, aumentazen zire kristioak; desuerte ezi dirudi zenbatenas ia odol kristio ixurzen zen, ia erregazen zela bekala Elizako heredadea, segun añaadizen zen kristioen saldoa. Esta au gure fedean egiaren progu andia? Baña guziau ala izanik, alaere sinestatu bear dire fedesko gauzak, solamente zerengatik errebelatu baitio Elizari Jangoikoak ta Elizak ala sinestazen ta erakusten baitigu.

5. Eta zer gauza gaude obligaturik sinestazera kristioak gara den bezan bates? Eliza Ama Sandak sinestazen duen guzia, Eskritura Sagratuan, ebanjelio ta apostoluen kartaetan dauden guziak; baña prinzipalki artikulo fedeskoak, kredoan dauden konforme. Artikulo fedeskoak dire gure fedearen misterio prinzipalenak, ta dire guri emateko notizia ta ezaumentu Jangoiko Jaunas ta Jesu Kristo gure erredenptoreas. Artikulo deizen dire gure gorputzeko ezur berexak ta eben konparazios fedearen gauza ta dibisioneak deizen dire artikulo fedeskoak. Amalaur kontazen dire geien komun klaridade iagos, dibinidade ta humanidade Kristorenarenak berex erratentugun katezismo komuneko suma gartan; baña Kredoan amabi apostoloen ariora erreduziturik daude amabitara. Ebek bat banaka explikatukotugu urrengo platikaetan. Edozeñek munduan kuidazen barin badu jakitea ta emendazea bere errelijioneko profesioa, ta gauzak, zenbat obeki bear du jakin ta entendatu errelijione bakar egiaskoaren profesioa ta gauzak, baitaude Kredoan, kristioak, zeñi Jangoikoak in baitio mertexte berexteas munduko guzietaik zerurako bide sollera? Gauza lastimagarria da izatea entendatuago bere errelijione falsuetako doktrineta judioa, erejea ta jentila, anitz kristio diren baño bere kristiotasuneko prinzipioetan. Kredoa anitzek dakite soillik memorias papagaioen gisa entendatu gabe, ta lastima da, baitoaz berze mundura estado gortan. Kuidazen da gorputzas ta ikasten dire oni dagozkion gauzak. Nola ez arimas? Nola ignorazen dire arimari dagozkionak? Ta nola, ia dena, enfadazen dire eben explikazioas? Idiki begiok, beira inporta dena ta afizionatu ikastera sekulako ongi izateko diren erreglak. Inzkigun ia fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sin., etc.

Serm. 28.

De Deo uno et trino.

ann. 1779

Tres sunt qui testimonium dant in coelo, Pater.

Verbum et Spiritus Sanctus, et hi tres unum sunt. 1. Joann. 5.

1. Explikaturik ia zer den Kredoa, nork konpondua ta zertako; ta, alaber, amabi apostoluen konforme amabi artikulio edo puntutan errepartiturik dagola; ta artikulioebek direla fedearen misterio prinzipalenak, orai eben explikazeko bat banaka Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, para zagun lenbizikoa fedearen zimendua, misterio guzien misterioa, jangoiko bat bakarra irur personetan ta irur persona Jangoiko bakar batean, deizen duguna Trintate, zeñen konprendizeko osoki ezpaita entendamentu aski denik aingiru ta gizonetan; estare explikazeko mi sufizienterik zeruan ta lurrean. Sollik Jangoikoak konprehendizen du arras dena ta ez berze niork ere, (zerengatik diones San Pablok, (1. Timot. 6.) habitazen du argitasun ellega estaiken batean, zein niork ikusi ezpaitu ta ezpaitezake, zeren ezpaita kapaz bista humanoa penetrazeko ainberze erresplandores; ta berriz pasmaturik exklamazen du (Rom. 11.): O Jangoikoaren jakinduria ta zientziain ondasunen goratasuna). Kerubinek ta serafinek ikusten baitute aldezaketenes, admirazios beterik, ezin explikatus berze gisas, proklamazen dute atertu gabe: Sandua, sandua, sandua exerzitoen Jaun Jangoikoa; beteak daude zerua ta lurra orren gloriaren majestadeas. Biba, biba goraetan.

2. Au da misterio profundo, sekreto, gora, inkonprehensiblea, zein goazilaik zerura ikustera Jangoikoaren aurpegia, ikusko baitugu geuren kapazidadearen konforme beraren argitasunareki; ta bitarte sinestatu bai, admiratu ta adoratu, baña eskudriñatu estugu bear, zeren baitio Espiritu Sanduak proberbioetan (25), Majestadearen eskudriñazale dena oprimitu ta abrumatuko duela arren gloriak. Au da misterioa zeñen gain diskurrizen zegolaik munduak ikusi duen entendamenturik andiena, desengañatu baizue Jangoikoak konprehendizeas. Da kaso: Zoeie San Agustin paseatus itsasbasterrean, diskurrizen Trintateko misterioan, ta desengañutako parazen dio Jangoikoak bisionean aur bat zegona botazen kontxa bateki itsasoko uretik lurrean in zuen zulotto batera. Galdeiten dio sanduak: Zer ai zara or, aurra? errespondazen dio: Nago emen ustu zen itsasoau zulotto gontara. Errepetizen du sanduak: Zertan nekazen zara banoan aurra? Estuzu ezaunzen dela imposible ustuzea ur inmenso goiek zulo ain txiki gontara ta kontxa ain txiki gorreki? Bai? erreplikazen dio aurrak, bada, ain imposible da konprehendizea orrek pensamentuan dakarrana, Trintateko misterioa, gizonaren entendamentuas. Au erran ta desapareztu ze, utzirik an sandua ongi desengañaturik. (Ap. Claus p.1. cath. c.12.) Eta guk naiko dugu entendatu, eta explikatu dugunek entendamentu laburragokoa ta mia ez ain diestro? Baña zer inen da? Balaanen astoaren mia minzarazi zuen Jangoikoak (Num.12) goberna dezake gurea ere, adiarasteko, berak errebelaturik, sinestazen duguna misterio gontan.

3. Nor da Trintate? Itz gonek signifkazen du irurekoa (edo irurtasuna, irur persona dibino direnengatik. Trintate, bada, da Jangoikoa bera, Aita ta Semea ta Espiritu Sandua, irur persona distinto ta jangoiko bat bakarra. Misterioa dago izatean Jangoikobakarra irur persona ta irur personak jangoiko bat bakarra. Lenik da jakitea zer

den Jangoikoa, gero irur personak. Jangoikoa gure lengua-jean da oroat nola Jaun goikoa edo gorena. Jaun da gizona gauza insensible ta animale guzien gain. Gizonetaik nor baño nor gorago da, familia batean norbait da ia; au baño ere, berriz, ia da erri guzian manazen duena; onek ere izain du superiore, erreinuan manazen duena. Beira estado militarean. Bazuk dire soldado senzillo gaien gañetik sarjentoak, aien gañetik kapitanak, aien gañetik koronelak, aien gañetik jeneralak, aien ta guzien gañetik errege. Beira Elizako jerarkian. Bazuk dire elizagizon ordena txikienetakoak, ebek baño gorago sazerdoteak, ebek baño gorago obispoak, ebek baño gorago kardenalak, ebek ta guziak baño gorago Aita Sandua. Eta emen akabazen da? Estute errege ta Aita Sanduek beren gañekorik? Bai, pasa alzina. Aingiru txikiena da ebek guziok baño gorago. Angiruetan bazuk dire andiago berzeak baño. Ta azkenean geldizen da? Ez, norbait bada, animale, gizon, errege, Aita Sandu, aingiru ta guzien gañetik, guzien Jaun, guzien gorena. Au da Jangoikoa, nondik ezpaita pausurik alzina zeren bera baita prinzipio ta fin guziena (baitauka eskribiturik azpian ta bestimentan: Erregeen Errege ta Jaunen Jaun (Apocal. 10.), zeintas erraten baita psalmo batean (112): Nor gure Jangoiko Jauna bekala, goienean habitazen duena ta bere pean dauzkiena gauza guziak zeruan ta lurtean? Zeñen aurkinzean dire jende guziak deus ezpalire bekala, diones Isaiasek (40), edo berriz arren agos berak: Zerua da nere silla ta mundua nere oñen peaña (Ib. 66.), zeñek palmo bates neurzen baititu zeruak ta irur eris jasten baitu mundu onen makina, ta baitauzki balanzan oianak. (40)).

4. Nor da, bada, Jangoikoa? Moisesi erran zio bere Majestadeak: Ni naiz naizena. (Exod.3). Ta ala erran dezakegu guk ere: Jangoikoa da dena. Zer dio katezismoak? Jangoikoa da gauza bat ain exzelentea ta ain admirablea ezpaitaie erran ta ez pensa. Jaun bat infinitoki ona, poderoso, sabioa, justoa, prinzipio ta fin gauza guziena. Ta iduri zaigu zerbait erran dugula? Deuserez denaren aldean. Jangoikoa da inefablea, dio San Agustinek, aisago diogu zer esten ezi ez zer den. Lurra pensazeunzu? Esta ori Jangoikoa. Itsasoa pensazeunzu? Esta ori Jangoikoa. Lurrean diren animale ta gizon guziak? Esta ori Jangoikoa. Itsasoan diren arraiak, airean bolazen diren egasteak? Esta ori Jangoikoa. Brillazen duen guzia zeruan, iruzkia, ilargia, izarrak? Esta ori Jangoikoa. Zerua bera esta Jangoikoa. Ekarzkizu pensamentura aingiruak, tronoak, dominazioneak ta gañarakoak, esta alakorik Jangoikoa. Eta zer da au? Solo erran dut zer esten. Galdeiteunzu zer den? Begiak ikusi ez, bearriak adituestuena, ta gizonaren biotzera igan estena? Nola nauzu datorren naira? Guziau dio San Agustinek (In ps. 85). Esta gauza guzietaik deus ere ta bera da gauza guziak, zeren gauza guzien perfekzioneak baitauzki bere baitan bere iturrian bekala. Bil zazie batean errege ta andi guzien poderioa ta majestadea, gizon ta aingiru guzien jakinduria, sandu guzien santidadea, kriatura guzien edertasuna; infinitoki poderosoago, jakinsuago, sanduago ta ederrago da Jangoikoa zerengatik bera da perfekzione guzien itsasoa, ta aiek beraingandik komunikaturikako tanta bat bekala. Kontuin zazie oso jenero guziak direla libruak, itsasoak ta ugaldeak direla tinta, area pikor guziak direla eskribienteak; lenago beteko lirazke libru goiek guziok, lenago akaba leike tinta gori guzioi, lenago nekaturik geldi leizke eskribiente goiek guziok, eskribitubañolen dignokiro Jangoikoaren perfekzione bat solamente.

5. Baña nora noaie zoraturik itsaso barna inmenso gontan? aski dut doktrina aintzu explikazea. Jangoikoa da espiritu purisimo bat gorputzik gabekoa; ta ala, aipazen bada ere zenbait aldis Jangoikoaren besoa, eskua, eskuieko aldea, oñak, biotza ta alakoak, esta entendatu bear dituela errealki, baizik ala erraten da gure mintzaze modura, signifikazeko besoa poderioa, eskuan bere obrazea, eskuieko aldean honra, biotzean amorioa ta ario

gontara. Da, alaber, prinzipiorik ta finik gabe gauza guzien prinzipio ta fin; bera niorengandik ta beragandik direla guziak, niork ez bera ta berak kargutu beartuela guziak. Da ere eternoa, denbora guziak baño lenago dena ta denbora guziak baño alzinago dirauena. Da ere inmensoa, nion kabizenestena ta leku guzietan dagona esenzias, presenzias ta potenzias. Esenzias, gauza guziei izatea ematen ta konserbazen; Presenzias, guziak ikusten; ta potenzias, guzia gobernazen. Baña espezialki dago zeruan ta aldareko Sakramentu sanduan. Da, en fin, Jangoikoa bakarra ta solla. Deuteronomioan dio: Aizazu Israel, gure Jangoiko Jauna bera sollik bakarra da (6). Ta berriz: Ikasazu, bada, egun ezi Jauna bera dela Jangoiko zeruan goiti ta lurrean beiti, ta estela berzerik (4). Ta berriz dio: Ni naiz lenbizikoa ta azkena, ta ni gabe esta Jangoikorik. (Isai. 11.). Oroat San Pablok: Bat da Jangoikoa, bat fedea, bat bataioa. Ezlizake denboraik kontazekos eskritura sagratuko bersoak au diotenak.

6. Baña fedea landara arrazioak ere demonstrazen du badela Jangoiko, ta estela baizik bat. Badela beñik bein, zerengatik norbaitek eginak dire ainberze oian, itsaso, ugalde ta gauza nola baita munduan; ta au guti iduri bada, norbaitek eginak dire gure gañeko zeruen arko eder goiek; norbaitek paratuak dire izar ainberze, ain diferente goiek; norbaitek fabrikatuak dire iruzkiaren ta ilargiaren luminaria bolante goiek; norbaitek gobernazentu ta dabilzki ain perenne ta ain ongi arreglaturik; norbaitek aldiskazentu egunak eta gauak, udak eta neguak, otzak eta beroak, lañuak, serenidadeak, euriak, elurrak, kazkaragarra ta gañarako tenporaleak. Nork baizik guzien gobernadore supremoak, Jangoikoak? Berze gisas: Nondik datozi jaios beti ta beti ainberze jenero belar, planta, animale ta jende munduan? Beren azitik, errain didate; bai, ta nork kausazen du ekar dezan gari pikor batek belarra, burua ta ainberze pikor artan? pipita batetik arbola bat, materia likits batetik gizon bat, ta ala gañarakoetan? errain didate ezi gauzen naturale zak. Bai ta, nork eman diote gauzei naturalezagoi, ta naturalezai birtutegoi? Klaro da ezi artifize gorenak, Jangoikoak. Berze gisas. Gizon bakotxak du gorputz ta arima; gorputzean ainberze ezur, zain, arteria, erze ta instrumentu admirableak; orgatik deizen baita gizona mundu txipia. Nork du habilidade fabrikazeko alako erloxu edo makina gau gure baitan? Baña goazen arimara. Da arima espiritu bat bizten duena gorputza, ta ezaunzen da ontan ezi faltatu orduko arima, geldizen da gure gorputzain makina gau mogimenturaik gabe bere instrumentu guzieki. Arima gau, bada, klaro da ez dezaketela aitetamek egin ta komunikatu aurrai formazearakoan gorputza amain sabelean; bada norbaitek kriazen du, norbaitek infundizen dio gorputzari. Orain bada, ainberze milla ta milla gorputz formazen direlaik amen sabeletan mundu guzian, European, Asian, Afrikan, Amerikan, kristio erri, judio, hereje, moro ta gañarakoetan, bear direlaik berze ainberze arima gorputz aiendako, nork du bururik asko kriazeko ta infundizeko bateo puntual bere orduetan mundu guzian konzebizen direnei, emen bat edo bida, aratago berze bat edo ia, milla ta millon bideetan, ziudade, erri, zoko guzietara probidenziatus ala pobre nola abrats, kristio nola mora diren amen sabeletan? Probeedore dibinoak, Jangoikoak. Berze gisas. Goazen gauzen prinzipioen bila. Planta gau b.g. aien bat, nondik da? berze batetik: Ta berze gura? berze batetik, ta berze gau berze batetik; ala segituko da lenbiziko aieneraño. Ta lenbiziko gura nondik ze? Orduan etze azirik, ezperen etze izain lenbizikoa. Prinzipio berze bat sekulakoa izan bear da. Oroat gizonen jenerazioan. Nork in zaitu zu? Zure Aitak. Ta zure Aita? berze batek. Ta berze gura, berris, berze batek. Ta ala iganes iganes guziok ellegatuko gara Aita batera zein baita lenbizikoa, Adam. Ta au nork egin zue etzelaik gizonik? Bera egin ze? Ez. Etzelaik deus, nola in zeike? Bada, norbaitek egin zue;

Jangoiko eternoak, guzien kriadore ta prinzipio denak. Arrazios ebidente dago badela Jangoiko.

7. Orai estela baizik bat. Guziek suponizen dute dela Jangoikoa guzien buru, bada, konfusio lizake anitz buru izatea. Berze alde, suponizen da dela Jangoikoa gauzarik andiena, gorena ta perfektoena; bada, balire bida edo ia, lirazke bardin edo desbardin? Desbardin balire, ia bata izan leike txikiago edo apalago edo ez ain perfekto; beras, etzeike izan Jangoiko. Bardin balire, ia ez bata ta ez berzea etze izanen andiena ta gorena, ta bati faltalekiok berzeak duen perfekzioena; beras, ez bata ta ez berzea ezin leizke izan Jangoiko. Beras, bat solamente izan daike ta da Jangoiko, dion bekala fedeak. Bat bakarra, dio San Ziprianok, da guzien Jaun Jangoikoa, zerengatik Majestade goien gorrek ez dezake izan lagunik daukalaik potestade guzia berak bakarrik (Dendolor. Vanit.) Jentilek kontazeunte anitz Jangoiko baña falsuak, arrak eta emeak, gaistoak edo deabruak, edo gizon ta emakume gaisto famoso izanak; ordiak, desonestoak, jende ilzaleak, ladronak ta bizio guzies beteak. Ta ala berek pintazentuste ia gerran, ia iten ladronkeria, ia biolazen donzella, ia milla jenero gaistakerietan; ta orgatik zelebrazentuste aien festak danzes, ordikeries ta brutalidades, kuadrazenzaizkiotela bekala beren Jangoiko gaiei gauza goiek, alke baita pensazea alako jeniotaakoak iduki dezkiten Jangoikotako. Berze alde, ilzen zelaik bat nonbratua ones edo gaistos, berla mundukoek dekretazen zute Jangoikotako ta ala berek nai zutena iten zute Jangoiko. Esta milagro alako Jangoikoak izatea montonea. Berze alde, aski ze eskultore edo pintore batek egitea ta deizea bulto bat Jangoiko, berla Jangoikotako zego. Orgatik irri iten du Dabidek aien Jangoikoes, diolaik: Jendeen Jangoikoak, urrea ta zilarra gizonen eskuen obrak; Ago (sic) baute ta estire minzatuko, begiak baituste ta estute ikusko, bearriak baituste ta estute aituko, sudurrak baituste ta estute usmatuko, eskuak baituste ta estute palpatuko, oñak baituste ta estire erabiliko; ezin klama dezakete beren txintxurrias. Ta azkenean dio: Alako Jangoikoak bekala izanbeites itentustenak ta aien baitan konfiazeeuntenak. (Ps. 113). Berze alde, adorazen tuste jangoikotako gatuak, serpienteak, saguak ta animale likitsak; baitare iruzkia ilargia ta izarrak; esta milagro izatea millaka alako Jangoikoak, baña falsuak. Errore gontan daude oraño jentilak baña guk arrazios ta fedes dakigu estela baizik jangoiko bat. Orai falta ze explikazea irurpersonen misterioa, baña Jangoiko sollareki luzatu zaigu platika gau ta utziko dugu Trintaterena urrengo. Balia gaizen doktrina emanask ta sinestazen dugun bekala, adora ta serbitza zugun Jangoiko andi bakarra guzien buru ta nausi, bizitus berain legeain konforme, eman dezagun bere soldata prebeniturik daukana ongi zerbitzazendiotenendako, zeruko palazio gartan, sekulako glorian. Ta inzkigun ia fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinestazen dut etc, etc, etc.

Serm. 29.

De Deo Uno et Trino.

ann. 1779

Tres sunt qui testimonium dant in caelo, Pater, Verbum
et Spiritus Sanctus, et hi tres unum sunt. Joann. 1. c.5.

1. Erran gindue azken platikan dela Trintate Jangoikoa, Aita ta Semea ta Espiritu Sandua, irur persona distinto, ta jangoiko bat bakarra; ta misterioa dagola jangoiko bat izatean irur persona, ta irur persona jangoiko bat. Ta akabatu zizaigu denbora, ematen zerbait monstra Jangoikoas, ta progazen badela Jangoiko, ta estaikela izan, ta estela baizik bat, ellegatu gabe explikazera irur personen misterioa. Orai ia explikatu bear da, ez entendazeko osoki nola den, baizik jakiteko zer dion fedeak, ta zer sinestatu bear den ontan, kautibatus geuren entendamentua Kristoren obsekiotan (2.ad Cor.10.) fiazen garelaik Jangoikoaren itzean, konprehenditu ez dezakegun gauzan. Aizagun katezismoa. Zenbat Jangoiko dire? Bat. Zenbat persona? Irur. Zein dire? Aita ta Semea ta Espiritu Sandua, irur persona distinto ta jangoiko bat bakarra. Aita Jangoiko da? Bai. Semea Jangoiko da? Baitare. Ta Espiritu Sandua Jangoiko da? Baitare. Ta irur Jangoiko dire? Ez, baizik irur persona distinto, ta jangoiko bat bakarra. Aita da Seme? Ez. Semea da Aita? Ez. Espiritu Sandua da Aita edo Seme? Ez. Zerengatik baitire irur persona distinto, ta diferente personalidadean. Nola da au, izatea irur persona, ta irur personak ta bakotxa errealki Jangoiko, ta alare ez izatea irur Jangoiko? Zerengatik irurek baitute naturaleza bat, esenzia bat, ta substantzia bat; direlaik distinto personan. Irur personetan zein da andiena? Nior ez, zerengatik irurak baitire igoal. Aita edo Semea edo Espiritu Sandua da zarrago, edo poderosoago, edo jakinsuago, edo justoago, edo ederrago, edo perfektoago? Irurak igual, zeren irurak baitire bat Jangoikotasunean; ta ala nola nik ezpaitut diferenziarik neregandik deustan, ala irurek estute diferenziarik elkarreki esenzian ta perfekzioneetan, baizik solamente personalidadean. Gutartean aita lenago da bere semea baño; ta bietan bat edo berze andiago, ta ia berzea baño. Baña Trintaten esta lenago Aita Semea baño, ta ain guti ia deustan, zerengatik eterno baita bata ta berzea, infinito bata ta berzea anditasunean, podorioan ta gañarakoetan; solo distinto personan. Bata esta gutiago Jangoikotasunean berze bi personak baño; biak estire ia bata baño; ta irurek estute ia iruretaik edozeñek baño Jangoikotasunean. Nola da ori? Nik estakit, baizik ala diola Jangoikoak, ala proponizen digula Elizak ta ala sinestazen dutela kristio katolikoek; ta misterio gonek garaizen ta exzedizen duela gizonaren entendamentua, nai dut erran, dela andiago guk entenda dezakegun baño, San Agustini adiarazi zion bekala kontxa garreki itsasoa ustu nai iduriarasten zuen aur garrek.

2. Bada, estigu emain zenbait konparazio misterio gonon? Da inkonparablea, estaike konpara deuseki txoil, estu admitizen konparazio justo, perfekto ta guziz kuadradakionik. Parazen da sagar batena; ala nola sagarrak baititu kolorea, atxona ta zaporea; alaere sagarra ezpaita baizik bat. Baña esta konparazio perfektoa, zerengatik kolorea ta oiek dire sagarrain akzidente edo kualidadeak, ta sagarrain kolorea esta sagar, ta kolorea ta zaporea estire igual. Trintaten ordea Aita, ta Semea ta Espiritu Sandua irur personak ta bakotxa dire Jangoiko ta irurak dire igoal Jangoikotasunean. Parazen ere da arimaren konparazioa. Ala nola gure arimak baititu irur potencia, memoria, entendamentua

ta borondatea, ala ere arima ezpaita baizik bat. Esta au ere konparazio justoa. Parazen ere da iruzkiarena. Iruzkian dire errañua, argia ta berotasuna, ta iruzkia esta baizik bat. Esta guzis kuadra daikena Trintatereki konparazio gau ere. Berze bat dakarra San Agustinek (Lib. de Simbol. et fide. apud Lipim). Dio sanduak: Guziek konzedizeunte au, ezi iturri batetik betezen badiere irur baso ures, erran daizkela irur baso ures beteak, baña solo ur bat, naiz galdeiten badiote bakotxas errespondatuko baitu ura dagola edozeintan. Konparazio gau sanduarena den bekala da obrena, baña bazekie sanduak, etzela txoil sufizientea ta igoala, explikazeko Trintateko misterioa, zein etzeikela konprehendi, konbenzitu zue aur garrek itsasoko urain aldakan. Baña erraten dire adiarasteagatik nolapait guri entendazenestuguna, daikela izan ta dela errealki jangoiko bat irur personetan, ta irur persona jangoiko batean, Jangoikoak dakien ta dion bekala. Baginduz emen Santa Klara de Monte Falkoren biotzean aurkitu ziren bola gaiek, izain ginduke sinbolo on bat, adiarasteko Trintateko misterioa. Il zelaik sanda, aurkitu zire arren biotzean irur bolatto bardin bardinak kolorean ta anditasunean, ta ia dena, pizuan ere bai. Paratuz uste balanzan bat bateki, ta igoal pizatu zute. Paraturik bida alderdi batean ta bat berzean, etzue bata pizazen gutiago biek baño, ta ez biek ia bata baño. En fin, pizaturik junto irurak, ta gero bat sollik, aurkitu ze pizu berbera zuela bat sollak, nola irurek junto; deklaratu naizuelaik Jangoikoak ontan Trintateko misterioa, zeñen debota izan baize sanda.

3. Bola gaien partes biz San Atanasioren sinboloa, brebiarioan para diguna Elizak errezazeko igandetean, baitio ala: nai duenak salbatu guzien lenetik da preziso iduki dezan fede katolikoa, zein ezpadu bakotxak oso ta faltarik gabe goardazen, dudarik gabe sekulakos galduko da. Au da, bada, fede katolikoa. Benera dezagun jangoiko bat bakarra irur personetan, ta irur persona jangoiko batean, konfunditu gabe elkarreki personak ta separatu gabe sustanzia; zerengatik bat da Aitaren persona, berze bat Semearena ta berze bat Espiritu Sanduarena, baña bat da Aita ta Seme ta Espiritu Sanduaren dibinidadea, igoal gloria, ta bardinki eternoa Majestadea. Nola baita Aita, ala da Semea, ala da Espiritu Sandua. Niork kriatu gabea Aita, niork kriatu gabea Semea, niork kriatu gabea Espiritu Sandua. Inmensoa Aita, inmensoa Semea, inmensoa Espiritu Sandua. Eternoa Aita, eternoa Semea, eternoa Espiritu Sandua; baña alare estire irur eterno, baizik eterno bat; ala nola ezpaitire irur kriatu gabeak, ta ez irur inmensoak, baizik bat kriatu gabea, ta bat inmensoa. Gisa berean Omnipotentea Aita, Omnipotentea Semea, Omnipotentea Espiritu Sandua; ta alare ez irur Omnipotente, baizik omnipotente bat. Ala Jangoikoa Aita, Jangoikoa Semea, Jangoikoa Espiritu Sandua; eta alare ez irur Jangoiko, baizik jangoiko bat. Ala Jauna Aita, Jauna Semea, Jauna Espiritu Sandua; ta alare ez irur Jaun, baizik jaun bat. Zerengatik ala nola egi eta fede kristioas obligatuak baikaude konfesazera persona bakotxa Jangoiko ta Jaun, ala irur Jangoiko edo Jaun erratea debekazen digu errelijione katolikoak. Aita niorengandik esta egina; Semea Aita soillagandik da ez egina ta ez kriatua, baizik enjendratua. Espiritu Sandua Aita ta Semeagandik ez egina, estare kriatua, estare enjendratua, baizik prozedizen duena. Bat, bada, Aita, ez irur Aita; bat Semea, ez irur Seme; bat Espiritu Sandua, ez irur Espiritu Sandu. Eta Trintate Sanda gontan esta deus lenago edo geroago, deus andiago edo txipiago, baizik irur personak dire igoalki eternoak elkarreki, ta bardin bardinak, desuerte ezi, goiti erran bekala, Trintaten unidadea, ta unidatean Trintate beneratu bear da. Au da San Atanasioren Sinbolo edo Kredoan, ezin obeki enzerrazen ta explikazen duena Trintateren misterioa.

4. Apostoluen Sinboloan ere Kredoan adiarasten da Trintateko misterioa jangoiko

bat ta irur persona; jangoiko bat lenbiziko itzean. Nik sinestazen dut Jangoiko, señaletako, estela baizik bat. Irur persona, aipazen dire alaber, lenbizikoa Aita lenbiziko artikuluan erraten delaik: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadorea baitan. Bigarren persona Semea aipazen da erraten delaik: Eta Jesu Kristo arren Seme bakar gure Jaunabaitan. Irugarren persona Espiritu Sandua aipazen da erraten delaik: Alaber nik sinestazen dut Espiritu sandua baitan. Orra nola kredoan daukazu Trintate. Alaber ebanjelioetan. Beñik bein bataiatu zelaik Kristo San Juan Bautistaren eskus Jordango ugaldean, kontazen du San Mateok irugarren kapituloan, igan zeneko uretik, idiki zela zerua, ta jautsi zela Espiritu Sandua figura korporalean uso baten aintzuran Kristoren gañera, ta aitua zela Aitaren boza erraten zuena: Au da nere Seme keritua. Orra non tuzun Aita ta Semea ta Espiritu Sandua. Berze anitz lekutan ere adiarasten da, baña expresoki ogei ta zorzigarren kapituloan, bialdu zituelaik Kristok apostoluak predikazera mundu guzia barna erraten ziotela: Joanik erakuskizie jende guziak bataiazentuzielaik Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Eta San Juan Ebanjelariak, ortotsaren semeak, pregonatu zue bere lenbiziko kartan erraten zuelaik: Irur dire ematen dutenak testimonio zeruan, Aita, Semea ta Espiritu Sandua, ta irur gebek dire gauza bat. Onen progutan ere da serafinen kantu perenne gura errepetitus irur aldis sandua, sandua, sandua, irur personen signifikaizekos (In hymn. te Deum).

5. Orgatik ere Aita Sandu Xisto lenbizikoak ordenatu zue santusau edo trisajon deizen den au erreza ta kanta zeien mezan kristiandadearen lenbiziko denboretan, ta konserbazen da orai arteo, ikusten dugun bekala (Bur. in ej. vitâ). Orgatik ere paratu ze Elizan Trintate Sanduaren festibidadea, ta Juan 22 señaletatu zue ortako Espiritu Sanduaren bazkoes geros lenbiziko igandea. (Bur. in ej. v.); eta Klemente XIII ordenatu zue urteko igande inpediturik estauden guzietan erran zeien Trintate Sanduaren prefazioa, lenago ere manaturik zegona (Idem in huj. v.). Orgatik alaber Gregorio lenbizikoak ordenatu zue, kanta zeien mezan Kirie eleison irur aldis errepetitus Trintate Sanduaren honratan; (Idem in h. v.), ta numero gau gelditu da ia orgatik numero honratu ta pribilejiatu bekala. Orgatik San Damaso Aita Sandu español gloriosoak orai 1400 ta ia urte duela ordenatu zue, psalmo guzien akabanzan erran zeien: Gloria Patri, et Filio et Spiritui (sic) Sancto, nai baitu erran, gloria Aitari, ta Semeari ta Espiritu Sanduari, (In huj. v.) ta ala erraten da, ta erran bear da debozio ta erreberenzia andiareki, suplitu naies bekala oneki lengo orazioan faltatu duguna, ta bateo monstratus erreberenzia exteriorea, kurzen dugulaik itz aietan gure burua Trintate Jaunari. Santa Rosa Limana paseatus bere laguneki baratze batean kantazen zuelaik: Glória Patri et Filio, et Spiritui Sancto, ikusi omen zire ango arbola guziak kurzen bere buruak ta erramak lurreraño. (Apud Claus p.3 conc. c.89) Santa Magdalena de Pazzis pronunziazerakoan berso gau, maiz baize, ainberze itxekizen ze Trintate Jaunaren amorioan, ezi ze preziso ur otzes bustizea arren petxoa, ez ilzekos amorioain suas. Frai Gil venerablea, San Franziskoko fraile zena, aipazeas solamente Trintate Jauna, arrobazen ze kasi betiro. Bada, venerablea ainberze usatu ze bersotto gartara ezi agonian ere beti zego erraten: Gloria Patri etc., ta etzue utzi agotik aliketa faltatuartaño atsa. Iago guziak baño da au, ezi San Agustinen biotza goardaturik daukatena errelikia andia bekala Pabian aldare gañean bidriosko anpolla batean, erraten delaik an Trintateren meza, ikusten omen da andizen, ta saltazen bere anpolla gartan orai berean. Sinestazen dugunek, bada, Trintate, Jangoikobakarra irur personetan, arrazio baño ia da benera dezagun guzien Jaun andia bekala guk beraren esklaboek, zerbitzazen dugulaik gorputz ta arima guzies mundu ontan, ellegazeko ikustera berzean. Bai, ta berladanik inzagun fede gonon akta ta berze

misterioena, baitare speranza ta karidadearenak. Nik etc.

Serm. 30.

De 1º Simboli Artículo.

ann. 1779

Credo in Deum Patrem omnipotentem, creatorem coeli,
et terra. Ex symbolo apostolico. S. Petrus.

1. Plantaturik ia fedesko artikuloen prinzipioa ta zimendua, Trintateko misterioa, jangoiko bat ta irur persona; orai goazen segidoan erabakis Kredoaren amabi artikuloak. Lenbizikoa da au: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren kriadorea baitan. Itz gebek iteunte sentido gau; nik sinestazen dut ziertoki, ta profesazen dut dudarik batere gabe, Jangoiko dela Aita eternoa, ta Trintateko lenbiziko persona dibinoa, zeñek bere podorio infinitoareki egin baizitue deusetaik zerua ta lurra, ta ebetan den guzia, ta egin ondoan au guziau, berak konserbazen ta gobernazentuela. Baña ez solamente sinestazen dut biotzas, ta konfesazen dut mias, baitare anelazen ta aspirazen dut bera gana ansia ta piedade sumoas. Biz au lenbiziko artikulo gonon deklarazio brebe bat, dio katezismo romanoak. (P. 1. c.2. SS.1). Baña, dio berla, zerengatik kasi itz guzietan enzerrazen baitire misterio andiak, bear tugula parrokoek explikatu dilijenzia andiareki, ellega daiengatik pueblo fiela, Jangoikoak konzedizen dion gisan, kontenplazera arren Majestadearen gloria. Aizazie, bada, estaien gerta erratea Kredo papagaioek bekala, entendatu gabe erraten denaren mamia ta substantzia.

2. Zer nai du erran: Nik sinestazen dut? Nik daukat ziertotako; ta zein ziertotako? Al guzia ezin iagos, niolaterre faltaestaiken gauza bekala, duda pixkarik gabe, desuerte ezi lenago pensatuko dut bida ta bida estirela laur, ezi ez estela egia artikuloek diotena. Lenago dudatuko dut, bizirik nagon edo ilik, ezi ez den edo esten fedeak erakusten duena. Ikusi gabeko gauza da, baña zeren errebelatu baitu Jangoikoak, seguroago sinestazen dut, ezi ez begis ikusten dutena. Egiago da dela Jangoiko Aita guzis poderoso ta gañarakoa, ezi ez iruzkia dela argi, zerengatik au erraten didate begiak, ura Jangoikoak. Ta begiak engañanazakete ta engaña daizke, baña Jangoikoa estaike engañatu, ta eznazake engaña. Zer ia nai du erran nik sinestazen dut? Nik ez biotzes solamente, baita agos ere konfesazen dut fede gau, ta nago prest publikoki erakustera barnean duten sineste gau, preziso barin baliz.

3. Erraten da: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita, adiarasteko Trintateko lenbiziko persona, deizen dena ta errealki dena Aita eternoa, dela Jangoiko, ta orgatik galdeiten da katezismoan: Aita Jangoiko da? Bai Jauna. Nor da Aita? Da Trintateko lenbiziko persona dibinoa, zeñek enjendratu baizue Semea igoal esenzian, ta distinto personan, au da, bera bezain poderoso, jakinsu, justo ta perfekto, ta bera bezain Jangoiko, solamente distinto personan, au da, bera persona bat dela, Semea dela berze persona bat. Aita deizen da lenbiziko persona, esta entendatu bear dela lenago denboran edo dignidadean, ez; zerengatik igoalki eterno ta igoalki andi dirade irur personak, diferenziarik gabe ontan; baizik lenbizikoa da, zerengatik bera baita prinzipiorik gabeko prinzipioa, ta enjendratu zuena Seme dibinoa bere entendamentutik eternidadean; baña orgatik esta galzen igoaldadea irur personena Jangoikotasunean. Erraten ere dugu Aita, ez solamente zerengatik enjendratu zuen bere Seme bakarra, baitare zerengatik baita kristioen Aita berze modu bates, ta gu beraren seme adoptiboak. Ontara dio San Juan Ebanjelariak, ezi Jesu

Kristo errezibitu ginduen guziei emanzaigula potestade, izateko Jangoikoaren seme (1). Ontara dio San Pablok, (Rom. 8), estugula errezibitu kristioek esklaboen espiritua lege zarrekoek bekala, baizik hume adoptiboen espiritua, zeñen medios deizen baitugu Aita. Orgatik Kristo berak orazio iteko lenbiziko itzak paratuzizkigu ebek: Aita gurea zeruetan zaudena. Baña edozeñek daki berze gisas dela Kristo Aita eternoaren Seme; ura da propioiki ta naturalezas; gu espiritualki ta grazias.

4. Erraten da, guzis poderoso, zerengatik bere podorioareki in baitezake nai duen guzia. Gizonek egiteko gauza bat, bear dute edo instrumentua, edo lagunza, edo bere eskuak, edo mogizea, ezpada ere nekazea, Jangoikoak estu deusen bearrik egiteko nai duena, naiz berze mundu bat, naiz milla, ta ia guk pensa dezakegun baño; ta estu zer nekatu, estu zer dilijenziarik egin gauzarik andienaindako; aski du nai izatea, inik dago gauza. Orgatik fedesko gauzetan esta zer arritu, gutiago dudatu, nola daiken au edo ura; Jangoikoaren podorioaindako aisa da guzia, guzis ta infinitoki poderoso baita. Baña guziareki, ez dezake gezurrik erran estare engañatu, estare deus ignoratu, estare bekaturik egin. Alaere guzis poderosoa? Orrengatik berorrengatik, dio San Agustinek, da guzis poderosoa, zeren ezpaitezazke gauza goiek, zein al balezazke, ezlizake guzis poderoso. Baña ez dezazke, zerengatik ezpaitu nai, ta ez dezake nai ere. (Ap. Lips.). Guk badezazkegu, zerengatik baikara flakoak ta frajilak, ta zenbat ia dezakegun, ain bat gutiago podorio dugu, zerengatik gezurra, engañua, ignoranzia ta bekatuak datoz naturalezaren bizio ta imperfekzionetik, ta esta alakorik jangoikoa baitan, orgatik da guzis poderoso. Estu ere nioren bearrik deustako; esta berain podorioa emengo erregeena bekala, ezi bear baituste soldadoak ta lagunak, ta ezpaluste podorio guti edo batere ez lukete. Esta alakoa Jangoikoaren podorioa, ain gloriosa, ta Jangoiko zego, aingiruik ta gizonik etzelaik, ta oroat legoke, faltabaleites guziak; ta ala ez andiak ta ez txipiak estio faltarik egiten; bera bai guziek bear dugu, ta ainberze, ezi instante bates falta balezagu, instante gartan akabagindezke guziok. Bera gabe deus esta, beragandik da podorio, ondasun, jakinduria, edertasun, nobleza, birtute, grazia ta den ongi guzia. Solo bekatua esta beragandik, baña ezpalu nai permititu bere juizioen konforme, ezlizazke kapaz mundu ta infernu guziak konjuraturik garaizeko berain borondatearen kontra. Zein poderosoa dugun gure Jaun Jangoikoa. Errealki guzis poderosoa, dion bekala Kredoak.

5. Zeruaren ta lurraren kriadorea baitan, erraten da zerengatik berak in baizitue gauza guziak deusetaik. Zeruan ta lurrean entendazen dire zeruko ta lurreko gauza guziak. Eta explikazeko klaroago erejeen kontra añaditu zue Nizeako konzilioak: Gauza bisible ta inbisible guzien. Vissibilium omnium, et invisibilium. Au da, ikus daizken ta estaizken guziak krietudituela Jangoikoak. Bakarrik zego bere eternidadean Jangoikoa, etze zerurik, ez mundurik, ez iruzki, ilargi ta izarrik, ez oian, arbola, planta, animale, gizon ta aingirurik. Izan zue borondate kriazeas; ta erran ta egin, manatu ta kriatu zire guziak; ipse dixit et facta sunt, ipse mandavit et creata sunt. Eta kenzeko guzia oroat, ez luke baizik nai izatea, zerengatik berain menean dago dena, berak mantenizen ta gobernazen du; ta San Pablok aipazen duen gisara: berain baitan bizi gara, mogizen gara ta gaude, ta faltabalekigu bere asistenzia kontino gau, guzia itzuli leike ila. Beira orai zenbat amorio ta erreberenzia zor diogun Jangoikoari; ta nolako atrebimentua ta agrabioa iten duen ofendizen duenak alako Jauna. Aur titikoak anitz zor badio besotan daukan ta bular ematen dion amari, ta horrorea balizake aurgoi amain kontra krueiki jokazea sierpe bat bekala, al baleike, orai gaudelaik guziok pendiente Jangoikoaren eskuan, berak egin ta berak mantenizen gaituela, aur baliaezkaizkenak bekala bera gabe, zer estiogu zor alako Aitari, Aita ta Ama guzia batean

denari? Ta nola itzul gaizke berain kontra niolaterere? ikusi dugu artikulo gontan gure Jangoikoa gure Aita, gure Jaun guzis poderoso, ta gure kriadore, ta ala konfesazen dugu baktzak erraten dugulaik: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadore baitan. Konfesa zagun obras dioguna itzes! benera zagun alako Jangoikoa, onetsi zagun alako Aita, obedi zagun alako Jauna, ta zerbitza zagun alako kriadore. Arbola bat plantazen duenak bere alorrean du deretxo, jabe den bekala, arren fruituetara; gure Jangoiko Aita, Jaun ta kriadoreak plantatu gaitu lurrean bere heredadean; du deretxo gure gorputz arimen fruituetara; ta agrabio iten diogu, baldin berain desgustora enpleazen baitugu gure potenziak ta sentidoak.

6. Biz, guri erakusteko, exenplu, ta bidanabar alkaizun gureta herejeen hume bat. Nor ote da? Estuze adibinazen? San Pedro Martir da, zeñek zazpi urtetan ain ongi ikasi zue; ikasi solamente memorias? Ain ongi entendatu zue; entendatu solamente? Ain ongi biotzean sartu zue Kredoaren mamia, ezi galdein ziolaik bere osaba batek ia zer ikasi zuen eskolan: ikasi dut, erran zue, Kredoa. Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren, gauza bisible ta inbisible guzien kriadore baitan. Zaude, zaude, erran zio osabak, estiozu ongi; berze gisas erran beazu. Ongi diot, erreplikatu zio aur andiak, ta ala da; ta progatu zue errana, ta konfunditurik utzi zue osaba herejea. Au baita aur donoso! Estakite ain ongi Kredoa ebetako aurrek urte iagotan; zer diot aurrek? Estare asko gizon bizardunek, ta azi direnak kristio errietan. Eman bezote lekzio, otoi, nere kargukoei orrek, San Pedro Martir gure patronoa. Bada, zazpi urtetan ala fedea defendatu zuelaik, zer izain ze gañarako adin guzian? Baña ikusagun erdi ilik dagolaik. Komotik Milanako bidean ematen dio barbaro batek alfánje bateki buruan; erorzen da lurrean sandua; ta zer iten du? Erdi ilik bustizen du eria burutik zerion odolas, ta eskribizen du lurrean. Zer eskribizen du? Zatoste ikastera ignoranteak ta epelak Kredoa. Eskribizen du: Nik sinestazen dut Jangoiko, bitarteo ematen dio bularretik puñalada bat, ta bolazen da arima Jangoikoagana, errezibizera bere lekua, korona ta gloria prestaturik zegokiona. Ah zer exenplua! Etzeike izan obeago gauden asuntorako; ala bagindeki imitazen sikiera al dezakegun gartan. Sikiera itxekirik gure biotzok gure Jangoiko guzis poderoso ta guzien kriadorearen amorioan inzkigun sin sines fede, esperanza ta karidadearen aktak, paraturik belauok lurrean: Nik sinest. etc.

Serm. 31.
De 2o Symboli Articulo.
ann. 1779

Et in Jesum Christum, filium eius unicum,
Dominum nostrum. Ex. symbolo Apostolico S. Andreas

1. Explikatu ondoan Kredoaren lenbiziko artikulo fedeskoa, baita: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren kriadorea baitan, segizen da bigarrena, baita au: Eta Jesu Kristo beraren seme bakar gure jaunaren baitan. Entendazen da: Nik sinestazen dut Jesu Kristo, au da, Jesus ta Kristo batean deizen den, beraren seme bakar, au da, Jangoiko Aita erranaren Seme proprio ta soillaren baitan, zein baita gure Jaun ta Nausi. Lenbiziko artikuloan Aita eternoa; bigarren gontan Seme dibinoa; artan Trintateko lenbiziko persona, ontan bigarren persona aipazen da, zein baita gure erredenptorea Jesu Kristo. Beragandik dugu kristioek izena; txoil preziso da jakitea nor den. Nor da Jesu Kristo? Jangoiko biziaren semea, gizon egin zena gu erredimizeagatik, ta biziaren exenplu emateagatik. Da Jangoiko? Bai, Jauna. Da gizon? Bai, Jauna. Beras, da Jangoiko ta gizon? Bai. Berze gisas. Zenbat naturaleza dire Jesu Kristoren baitan? Bida, dibinoa ta humanoa. Ta zenbat persona dire Kristoren baitan? Bat, ta au dibinoa. Da erratea, ezi Jesu Kristo dela Jangoiko, ta gizon persona batean. Da Jangoiko Aitaren Seme bezan bates ta Trintateko bigarren persona den bezan bates. Da gizon Ama Birjinaren Seme den bezan bates, ta sabel birjinale gartaik artu zuen gorputzaren kasos. Jangoiko perfektoa; ta gizon perfektoa gorputz ta arima duen bekala. Aita eternoareki igoal Jangoikotasunes; gutiago gizontasunes, zein izanik ere Jangoiko ta gizon, orgatik esta bida, baizik Jesu kristo bat. Bat da, ez itzulis edo aldatas Jangoikotasuna gizontasunean; baizik juntatuas gizontasuna Jangoikotasunari. Bat da osoki, ez konfunditus substantzia, baizik personaren bakarkatasunes. Zerengatik ala nola arima ta gorputza baita gizon bat, ala Jangoiko ta gizona batean da kristo bat. Au da San Atanasioaren sinboloan diona, ta Kristoren misterio guzien zimendua, Jangoiko ta gizon batean izatea Kristo gure Jauna. Nola duen gizontasuna aituko dugu Kredoaren irugarren artikuloan. Orai ikusagun ta explika zagun sinestazen duguna artikulo bigarren gontan Jesu Kristos, erraten dugulaik: Jesu Kristo, beraren Seme bakar gure jaunaren baitan. Sinestazen dugu deizen dela ta dela Jesus; deizen dela ta dela Kristo; deizen dela ta dela Aita Jangoikoaren Seme bakarra; deizen dela ta dela gure Jauna. Laur gauza dire, goazen ikusis batbanaka. Lenik, deizen da ta da Jesus:

2. Zer nai du erran Jesus? Salbadorea edo salbazalea. Eta zertaik salbatuginduza? Gure bekatuetaik ta demonioaren kautiberiotik. Izen gau du bere izen propioa, jaio ta zorzigarren egunean zirkunzizioan manifestatua mundukoendako; baña Trintate Jaunak lenagotik ezarria, ta aingiru San Gabrielen medios Ama Birjinari deklaratua konzebitubañolen berain sabelean aur dibinoa, erran ziolaik, saloa egin ondoan: izain duzu seme bat, ta deitukouzu bere izena Jesus: Eta alaber San Josefí, utzi naizuelaik bere esposa Maria Santisima, etxakines berain sabeleko misterioa, errebelatu zio aingiruak erraten ziola: Etzazula utzi zure esposa Maria, zerengatik bere sabelean konzebitu dena, da Espiritu Sanduaren obras, ta libratuko da seme bates, ta deitu bear duzu Jesus; ta ematen dio arrazioa, zerengatik berak salbatuko du bere puebloa bekatuetaik. Ikusteunzie zenbat

kuidazen duen Jangoikoak izen gontas? Da signifkazezko ofizio zerutik jautsirik izan zuena, baita salbazea gizonak; ta estela berze bat zeruaren pean, zeñen izenean espera dezakegun salbazea. Jesus deitu zire zenbait lege zarrekoak; baña au deizen da propiokiago Jesus Jangoikoaren seme bekala, zirkunzidazen delaik Abrahamen semea bekala, dio San Bernardok, zerengatik estarama, lenagoko gaien gisa, nere Jesus gonek izen utsa, esta onen baitan izen andi baten itzala, baizik egia ta errealidadea. (S. de Circuncis.) Eta izenas monstutzen duena, baita Salbazalea, kunplitu zue obras salbatus mundua bere eriozeareki. Errepara pasioko historian. Eskazen ziotelaik Judioek Pilatosi Jesusen eriozea, errespondatu zue Pilatosek etzuela aurkizen kausarik batere jesusen baitan, kenzeko bizia; ta gero gurutifikatu ondoan Jaun dibinoa, dio ebanjelariak, paratu zuela Pilatosek arren kausa gurutzearen buruan eskribiturik. Nola da au? Ezpadu kausarik, nola dio eskribitu zuela arren kausa? Edo eskribizen badu, nola dio estuela? Bazue ta etzue kausarik Jesusek ilzeko. Ikusagun gurutzeain gañeko letreroa, baita Jesus Nazarenus Rex Judaeorum. Nai du erran: Jesus Nazaretdarra judioen errege. Etzue Jesusek berebaitan kulpa errestorik, ilzeko gisa gartan; baña guk bagindue anitz kulpa; ta gure salbazeko, il bear zue gure salbazalea arturik bere gain gure kulpen satisfakzioa. Etzue kulparik, ta etzuke izan kausarik, ilzeko; baña bazue izena Jesus baita salbazalea, ta bere izena paratu zute kausatoko, zerengatik au da kausa, Jesus izatea, gure salbazale nonbrazea. Jesus Nazarenus.

3. (ikusi dugu nola den Jesus gure salbazalea, bada, non aurki dezakegu salbazioa, ezpada Jesusen baitan? Estugu aizen Eliza akabazentuela orazio guziak, gure Jaun Jesu Kristogatik? Per Dominum nostrum Jesum Christum etc. Esta berze nioren baitan salbaziorik ta gauza onik. Non est in alio aliquo salus. Ta jesusen baitan ez ezi, bere izenean ere dago patente gure salbazioa. Orgatik Jesusengana, guregatik zerutik jautsia den bekala, izan bear dugu gure errekursoa nezesidade guzietan, erratendiogulaik: O Jesus, izanzaitez neretako Jesus, nere salbazalea; edo erakutsadazu berze bat, nora errekurritu; baña esta. Bada, zu izain zara beti nere Jesus; ta inbokazen duen guzia zure izena salbatuko da Omnis qui invocaverit nomen Domini salvus erit. Au da izen poderoso, sandu ta terriblea, izen guzien gañekoa, zeñen aipazean solamente belaurikatu bear baitute zeruko, lurreko ta infernuko guziek, diones San Pablok, in nomine Jesu omne genuflectatur coelestium, taerrestrium et infernorum. Au da izen laudagarria iruzkiaren atrazetik sarzeko lekuraño, ta bedekiatua orai ta betikos, Dabidek diones (Ps. 112). Au da izen admirablea, fuertea, birtute anditakoa ta prodijiosoa guzietarako. Duzu tentaziorik? erran zazu Jesus. Senti zara asarre? aipa zazu Jesus. Arzen zaitu tristurak? Ekarzu pensamentura Jesus. Persegizen zaitu enemigoak? inboka zazu Jesus, ezi itzau sollik da artilleria andia arren kontra. Edozein trabaju ta peligrotan, dei zazu Jesus, ezi experimentatukouzu arren birtutea. Ikusagun ta aizagun San Pedro. Jesus il ta fite zoeie San Pedro San Juaneki elizara; ta zego atarian pobre bat mangi ezin mogi zeikena, parazen baizute egunoro eskazeko limosna. Ikusi zituelaik biak sarzen elizan, eskatu ziote limosna. Beiratu zio San Pedrok, ta erran zio: Urrerik ta zilarrik estut, baña dutena ematen dizut, Jesusen izenean jaikizaite, ta erabili zaite. Ta goratu zue eskutik, ta berla sendatu zizaizkio oñak eta zangoak. Ta saltoka sartu ze aieki alegre tenpluan. Ta arrapaturik zeuzkielaik gozos San Pedro ta San Juan, bildu ze jende guzia admiraturik, ta erran ziote guziei San Pedrok: Zertas admirazen zarate? Edo zerengatik guri beirazendiguzie, sendatu bagindu bekala guk geuren birtutes gizon gau? Abram, Isaak ta Jakobon Jangoikoak honratu du bere Semea Jesus, zuek entregatu ta ukatu duziena. Eskatu zindute Barrabas, ta ilarazi

duzie biziaren emanzalea, Jangoikoak erresuzitatu duena, zeñen testigo baikara, ta arren izenaren fedean ona non dagon sendaturik guziek ezaunzen duzien pobre gau. Biramonean juntaturik prinziipe, eskriba ta sazerdote Jerusalengoak, ekarra zizuste biak, ta galdein ziote ia zer birtutes, edo noren izenean in zuten gauza gura. Orduan beterik Espiritu Sanduas San Pedrok erran ziote baleroso: Prinziipe ta sazerdote Jaunak, ai bezate, ia ke ta kontu eskazendiguten pobre goni ongi eginas, jakin bezate oiek guziek, ta Israelgo pueblo guziak, ezi sendaturik aurkizen dela au oien alzinean Jesus Kristoren izenean, zein oiek kruzifikatu baitute, ta Jangoikoak erresuzitatu baitu. Au da arri prinzipala oiek desetxatu baitute; ta esta berze nioren baitan salbaziorik, zerengatik etzaiote eman zeruaren pean gizonei berze izenik, zeintan espera dezaten salbazea. Au izan ze, fielak, orduan pasatu zena; ikusteunzie nola den prodijioa Jesusen izena?

4. Da ere izen dulzea ta konsolagarria. Benturas etzara konsolazen oroizen zaren aldioro izen gontan? Dio San Bernardok. Zerk dezake ain ongi erregalatu gure biotza? idor da arimain janario guzia, ezpada Jesusen izenaren olio gontas gisazen. Estu zaporerik, ezpada gaz goneki sazozazen. Eskribizen bauzu, etzaida kuadrizen, eypadut an leizen Jesus. Disputazen bauzu, etzaida kuadrizen, eypadut aizen Jesus. Jesus da esti gozoa agoan, musika dulzea adimentuan, ta alegria sana biotzean. Guziau dio San Bernardok, eta elizako himnoak, estela, dio, kantazen gauza suabeagorik, estare aizen gauza gustosoagorik, estare pensazen gauza dulceagorik, nola Jesus Jangoikoaren Semea. Alako izena da Jesusen izena).

5. Bigarren izena du Kristo. Zer nai du erran Kristo? Unjitua. Eta zertas izan ze unjitua? Espiritu Sanduaren donoes ta grazies. Ortako jakin bear da ezi len unjizen zirela olio sanduas profetak, sazerdoteak ta erregeak, ta orgatik deizen zire Kristoak, baita oroat nola unjituak. Bada, deizea Kristo gure Jesus da signifikaizeko dela profeta, dela sazerdote ta errege. Da profeta, zerengatik prometizen baitigu sekulako gauzak, baitare zeren errebelatu baitigu zeruko sekretoak, ta gero gertatu zirenak. Da sazerdote eternoa, bein ofrezitu zuena bere gorputz arimak gurutzearen aldarean odolesko sakrifizio gartan, ta berze bein azken afariaren gauean ogi ta ardoen akzidenteen pean ofrezitu zue bere gorputz odol sagratuak odol ixurzerik gabe, ta orai egunoro alaber sakrifikazen da sazerdoteen eskus mezan. Da ere errege, zerengatik beraren manura daude gauza guziak zeruan ta lurrean, ta berak etorri bear du guzien juzgazera azken juizioko egunean. Errege da espezialki judioen, zerengatik bilazen zutelaik errege magoek galdeiten zute: Non da jaio dena judioen errege? nai du erran ere Kristo Mesias, baita oroat, zerengatik baita Trintate Jaunak bialdua munduaren erredimizera. Ebengatik guziengatik deizen da Kristo, baita izen bat ofiziokoa, ez Jesus bekala lenbizikoa. Kristo izen gontaik deizen gara gu kristio, baita oroat nola Kristorenak, orgatik bear dugu maitatu, zerbitzatu, segitu ta imitatu alguzia, geuren burua den bekala.

6. Jesu Kristo, beraren seme bakar, au da Jangoiko Aitaren Seme bakar; erraten da ala signifikaizeko dela Trintateko bigarren persona dibinoa Aita eternoagandik enjendratua, igual Aitareki guzietan, bera bezain ona, poderoso, sabioa, justoa ta perfektoa ta bera bezain Jangoiko. Ta ala galdeiten da: Semea Jangoiko da? Bai, Jauna; ta Seme gau da in ondoan gizon deizen dena Jesu Kristo. Nola den enjendratua Aita eternoagandik? Quis enarrabit? Nork erran dezake? Biz aski konparazio gau. Ala nola gure entendamentuak entendazen delaik bera zerbait gisas formazen baitu bere imajina ta semejanza, deizen dutena teologoek berbo edo konzepto, ala Jangoikoak entendatus bere dibinidadeta enjendrazen du bere Semea, deizen dena Berbo dibinoa (Cath. Rom. p.1. c.3. SS.9), baña

obeda, ta aski da sinestazea dela Jangoikoaren Seme, beraren imajina perfektoa, berain substantziaren figura ta erretrato esenziala, estuena diferenziarik batere Aitareki naturale zan, izatean ta Jangoikotasunean, duelaik diferenzia personalidadean; nai dut erran Aita dela persona bat, berze persona bat Semea, Aita estela Seme, Semea estela Aita, baña ain Jangoiko dela Semea nola Aita, biak baitire jangoiko bat, ta ontara erran zue JesuKristok: Ni ta Aita gara gauza bat, ego et Pater unum sumus (Joann. 20), ta orgatik estaike aurki Aita semea gabe, estare Semea aita gabe; Aitak iten duena ta nai duena, iten duela ta nai duela Semeak. Ta bidanabar errateko, ofendizen duenak bata ofendizen du berzea. Fede gonon progutako, dio San Juan Ebanjelistak (4): Edozeñek konfesazen duenak Jesus dela Jangoikoaren Seme, Jangoikoa dago arren baitan, ta ura jangoikoa baitan. Orgatik galdein ziolaik San Pedrori Kristok: Nor dioze zuek naizela ni? errespondatu zio: Ori da Kristo Jangoiko biziaren Semea. Ta Jaun dibinoak erran zio orduan San Pedrori: Ditzosoa zara zu, ezpaitizu errebelatu aragi ta odolak, baizik nere Aita zeruetan dagonak (Math. 16). Orgatik asi zue San Juanek bere ebanjelioa itzebeki: Prinzipioan zego berboa, eta berboa ze Jangoiko. Orgatik erresuzitatu ondoan Jesus etzuelaik nai sinestatu Santo Tomasek, sarturik bere eriak Jesusen llagetan exklamatzue: Nere Jauna ta nere Jangoikoa. (Joan. 20). Ukitu zue gorputza, ta sinestatu zue Jangoiko zela persona gura; ta ala Jangoikotasunes, edo Jangoiko den bezan bates deizen da ta da Jangoikoaren Seme. Bakarra deizen da zerengatik bat baizik ezpaita Jangoikoaren Seme naturala ta propioa, naiz deizen badire justo guziak Jangoikoaren Seme adoptiboak grazias (Exempl. de libr. Eufemae Calsedons. Abreu hic).

7. Gure Jauna deizen da mila arrazios, zeren kriatu ta mantenizen baikaitu Aita ta Espiritu Sanduareki bateo, ta zeren berak gizon eginik erredimitu baikaitu bere eriozeareki; ta ala kristiok garade beraren esklabo markatuak, ta berain zerbitzura obligatuak bataiatuginduzten egunetik; ortako galdein zigun ia errenunziazen ginduen Satanas, ta arren obra ta ponpa guzietaik; ta erran gindue bai, ta errenunzia gau in ondoan galdein zigun ia nai ginduen bataiatu; ta erran gindue baietz; ta bataiatuginduzte. Sartugina, bada, bataioaren medios Elizan, Jesu Kristoren etxean. Nausi ta Jaun artu gindue Jesu Kristo, leitu zizkigute zerbitzu gontako kondizioak: Ea zer ai gara? Nor dugu Jaun? Jesu Kristo. Bada, aizagun zer dion orai: Si ergo Dominus sum, ubi est honor meus? Jaun barin banaiz, dio, non da zor zaidan honra ta zerbitzua? Konbenziturik gaude; sinestazen dugu Jesu Kristo Jangoikoaren Seme bakar gure jaunaren baitan; ta zerbitzatu nai dugu ilartaño, ta damu dugu biotzetik ez zerbitzatuas, nai ginduzke suplitu lengo faltak, ta erredimitu denbora gaizki enplegatuak, zerbitzatus sinki faltazaizkigun egunetan. Intenzio goneki inentugu fede, speranza ta karidadearen aktak etc, etc, etc.

Serm. 32.

De 3o symboli articulo.

ann. 1779

Qui conceptus est de Spiritu Sancto, natus
ex Maria Virgine. Ex simbolo apostolico S. Jacobus.

1. Explikatu ondoan Kredoaren bigarren artikulo fedeskoa, baita: Nik sinestazen dut Jesu Kristo Jangoiko Aitaren Seme bakar, gure Jaunabaitan; zein konzebitu baize dio irugarrenak, zein konzebitu baize Ama Birjinaren entraña sanduetan, Espiritu Sanduaren obras; jaio zela Birjina Mariabaitatik. Itz gebetan enzerrazen da enkarnazioko misterioa edo Jangoikoaren Seme Jesu Kristoren gizon egitea, baitare berain jaiozea. Da misterio prezioso andia, jakin ta agradezitu bear duguna guziek al guzia. Goazen atenditus explikazioa. Zein konzebitu baize. Zein. Nor da zein gau? Lentxago aipatu zena Kredoan: Jesu Kristo Jangoikoaren Seme bakarra ta gure Jauna. Eta zer nai du erran konzebitu baize? konzebitu baize da, oroat, nola enkarnatu baize; eta, oroat, nola gizon egin baize. Ala explikazen du klaroagos Konstantinoplako Konzilioak formatu zuen sinbolo edo Kredoan, mezan kontazen denak itz aietan zeintan belaurikazen baikara erreberenzias: Qui propter nos homines et propter nostram salutem descendit de coelis, et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine, et homo factus est. Nai du erran: Jesu Kristo Jangoikoaren Seme Jangoikoa, gu gizonengatik ta gure salbazioagatik jautsi ze zeruetaik, ta enkarnatu ze Espiritu Sanduaren obras Maria Birjinagandik ta gizon egin ze. Irur modus dio gauza bat: konzebitu ze, enkarnatu ze ta gizon egin ze, ta irurek signifikaunte igoalki. Konzebitu izatea da amain sabelean formazea edo sorzea aurra; enkarnazea da gorputz edo aragia humanos bestizea Seme dibinoa; gizon egitea da gizontasuna berari unizea Jangoikoak. Ta guziau egin ze Jangoikoaren Seme Jangoikoa. Baña ala egin ze gizon, galdu gabe orgatik bere Jangoikotasuna, baizik gelditurik len bekala Jangoiko. Etzue trukatu Jangoikotasuna gizontasunagatik, baizik bere Jangoikotasunari unitu zue gure gizontasuna; ta ala gelditu ze, len Jangoiko soilla zena, gero Jangoiko ta gizon batean. Au guziau adiarasten zaigu itz gebetan: Zein konzebitu baize. Baita non konzebitu ze? Edo non enkarnatu ze? Edo, non gizon egin ze?

2. Amaen sabel edo entrañetan konzebizen dire gizon guziak, ta Jangoikoaren Semea ere ama baten sabelean konzebitu ze. Norenean? Maria Ama Birjin garbi sandarenean. Orgatik añadizen dugu: Ama Birjinaren entraña sanduetan. Jangoikoak ikusten zitue lengo, oraiko ta geroko andre guziak; batengandik nai zue sortu gizon, baten sabelean in bear ze; eskojitu zue nai zuena, dudarik gabe obrena, au da Maria Santisima. Andre andi grazias ta birtutes beterikako gonon sabel birjinalan konzebitu ze Espiritu Sanduaren obras. Zer nai du erran ontan? Aizagun. Jakina da edozein gizon edo persona datorren mundura bide natural ordinarioas konzebizen dela bere amain sabelean gizonaren obras; ez ala Jesu Kristo, baizik sobrenaturalki ta milagrosoki Espiritu Sanduaren obras. Desposaturik zego San Josefeki Maria Santisima, baña kastidadearen boto eginik bizizirade anai arrebak bekala. Inposible ze naturalki gisa artan semerik izatea Maria Santisimak, baña imposible gau garaitu zue Jesusen enjendrazeko, Jangoikoak obratus milagro andi bat arren sabelean. Nola izan zen obra milagroso gau, Quis enarrabit? Nork erran dezake? Zerbait erraten da errateareki ezi Jangoikoak Ama Birjinaren odol garbitik

formatu zuela gorputz bat ta deusetaik kriatu zuela arima bat, ta arima ta gorputz gau uniturik elkarreki unitu zituela beregana Seme dibinoak; ta gelditu zela Jangoiko ta gizon Ama Birjinain sabelean, Jangoikotasunes Aita eternoaren Seme amarik gabe; gizontasunes Ama Birjinaren Seme aitarik gabe; eta Maria eginik Jesu Kristo Jangoiko gizonaren ama egiaskoa, ta bateo Ama ta Birjin, ordu arteo alakorik gertatu etzena ta gerostik sekula gertatuestena berze batean. Eta Jauna, dei daike orgatik Maria Jangoikoaren Ama? dei daike ta da Jangoikoaren Ama, fedesko gauza baita, baña ez zeren komunikatu zion Jangoikotasunik bere Seme garri. Nola komunikatuko zio etzuen berak? Baizik zerengatik Seme izan zuen gura baize Jangoiko, Aita eternoaren seme bekala. Ala deizen da ta da obispoaren ama, ta estio eman obispadoa Amak. Obeki. Edozein gizonak du gorputz ta arima, ta estio arima eman bere amak, alare deizen da ta da gizon arren ama. Bada, ala nola arima ta gorputza baita gizon bat, ala Jangoikoa ta gizona batean da Kristo; esta, bada, ajol ez emana Jangoikotasuna Mariak, deizeko ta izateko Jangoikoaren Ama.

3. Eta, Jauna, enkarnazioko obragoi zerengatik erraten da Espiritu Sanduaren obra? Zier to da, Aitak ta Semeak ta Espiritu Sanduak obratu zutela igoalki, ta ala Trintate guziaren obra da zerengatik persona irurek obraren dute junto guzietan (Ad extra) ta estaizke aurkitu elkarrengandik apartaturik deustan, ta ala bata iten duena irurek iten dute; baña ala ere Aitari espezialki atribuizen diogu podorioa, Semeari jakinduria ta Espiritu Sanduari amorioa, direlaik igoalki poderoso, jakinsu ta amante irurak; ala ere nola atribuizen baitiogu Espiritu Sanduari amorioa, Espiritu Sanduaren obra deizen da au, zeren baita amoriosko obra zeintan Trintate Jaunak gizonari erakutsi baitio finezarik andiena, Aitak entregatus bere Semea, Semeak etorris bera ta Espiritu Sanduak konkurritus Semearen enkarnaze gontan guregatik. (Jauna, Aitak ta Semeak ta Espiritu Sanduak konkurritu barin bazute obra gontan, nola Semea solamente gelditu ze gizon eginik? Ala nola sazerdote bat bestizen da bestidura sagratues ta lagunzen diote bi lagunek, irur dire konkurritzen dutenak bestie ze gartan ta bat sollik, sazerdotea diot, geldizen da bestiturik. Eta Jauna, zerengatik ia in ze gizon Semea ta ez Aita edo Espiritu Sandua? Ori ia da sobra jaki naia, Jangoikoak daki. Zier to da, in baze gizon Aita edo Espiritu Sandua, oroat erremediatuko zutela mundua zerengatik oroat dire Jangoiko bakotxa; baña zerengatik in zen Semea gizon ta ez berze personetaik, da Jangoikoaren sekreto. Arrazio konbenienziaskobazuk ematen dire. Bata da, zerengatik gure lenbiziko aitetamek, Adam ta Ebak, inzute desobediencia gura ta galduginduzte guziok jakinduriain izateko kodizias ta Jangoikoa bekala izanaia, ofrezitu zioten gisa demonio engañazaleak; bada, konbeniente ze erremedia zezan Seme dibinoak, zeñi atribuizen baizaio jakinduria ta zein baita Aita eternoaren iduri esenziala. Berze arrazio bat: Bekatuaren medios itsustu ginduen imajina Jangoikoarena geuren baitan, errenoba zeingatik Jangoikoaren imajina naturala denaren medios. Berze arrazio bat: Jangoikoaren Seme propioak errekonzilia gindezkien gu hume adoptibook Jangoikoareki. Berze arrazio bat: izan zeingatik denboran Ama baten Seme aitarik gabe, zena eternidadean Aita eternoaren Seme amarik gabe. Berze arrazio bat: Estorbazeko nonbreen ekibokazioa, zerengatik Aita in baze gizon, Aita izain ze Aita ta Seme, bere Seme dibinoain Aita ta Ama Birjinain Seme; eta Espiritu Sandua in baze gizon, orduan bi seme deituko zire Trintaten. Baña arrazioebek estire txoil fuerteak ta esta inport jakitea zerengatik in zen Semea gizon, dakigu in zela ta aski da au).

4. Eta, jauna, konzebitu barin baze Kristo Espiritu Sanduaren obras, dei daike orgatik Espiritu Sandua Kristoren Aita? Ez por zier to, niolater, zerengatik gisa ortan bera

ere bere Aita izanen ze, zerengatik berak oroat konkurritu zue obra gartan nola Espiritu Sanduak. Deizeko bat Aita, esta aski obrazea gauza bat nolana, baizik bere substantziatik bere semejanza komuniazan diola bere espezie gartan; orgatik argin batek obratuagatik bere eskus ta industrias parete bat, estugu deizen parete garren aita argina. Espiritu Sanduak, bada, ez bere substantziatik baizik Ama Birjinaren odol garbitik formatu zue Kristoren gorputza, obratus milagro bat andia. Orgatik Kristo esta Espiritu Sanduaren Seme, baizik Jangoiko den bezan bates Aita eternoaren Seme, arrendandik baitu Jangoikotasuna; ta gizon bezan bates Ama Birjinaren Seme, zerengatik onengandik du gorputz humanoa. Eta San Josef zer da Kristorendako? San Josef da Ama Birjinaren esposo berdaderoa, baña ez Kristoren Aita berdaderoa, baizik aita putatiboa. Esta aita errealki, zerengatik etzue batere obrarik ta komunikaziorik izan Kristoren enjendrazean, zerengatik sollik Maria Santisimak bere odol solletik Jangoikoaren birtutes eman zue materia formazeko Kristoren gorputza, ta ala sollik Maria Santisima da Kristorendako gizontasunes Aita ta Ama, ala erran badaike. San Josef deizen da Aita putatiboa, au da, jendeen ustean, opinioean ta faman, zerengatik nola ikusten baizuste jendeek Maria Santisima ta San Josef ezkondurik biak ta etxe batean biak ta libratuak Maria seme bates, uste zute bien obras izan zela berze guzietan bekala, ta por konsigiente San Josef zela Kristoren Aita; ta ala erraten zute admiraturik arren jakinduria dibinoas: Esta au akaso ofiziale baten semea? Nonne hic est fabri filius? erraten zute au ustes Josef ofiziale zurgingoan zenaren semea zen, baña engañazen zire arras beren gogoan; baña itzak etzire txoil gezurreskoak, zerengatik ze Kristo, dio sandu batek, ofizialearen seme, baña ofiziale zerua ta lurra fabrikatuzituenarena, edo Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadorearen Seme bakarra Jangoikotasunes. Jendeen opinione gonengatik dio ebanjelistak zeukatela Jesus Josefene seme, ut putabatur filius Joseph, ta itz gontaik gelditu da deizea Aita putatiboa edo Aita pensazen zena. Guziareki ez izanik ere Aita errealki, Jesu Kristok tratazen zue Aita bekala, zegokio sujeto ta obediente Jangoikoaren Semea: Et erat subditus illis. (O pasmoa ta o hume desobedienteen alkaizuna! Maria Santisimak berak deizen zue bere Semearen Aita. Ala galdu zelaik, aiendako diot, baña etze galdu; gelditu zelaik Jesus tenpluan, aurkitu zutelaik San Josefek ta Maria Birjinak, erran zio onek: Seme, zerengatik in duzu gureki ala? Orra zure aita ta ni erabili gara zure bila penas beterik. Guziau da honra andia San Josefendako ta esta dudarik duela poderio andia orai zeruan. Galdegin bekio Santa Teresari, zeñek baitio estuela eskatu gauzarik San Josefene medios erdetxiestuenik. Zer ukatuko dio bere esposa amanteak, zeruko erreinak? Zer estio emanen Jesus dulceak, berain besotan ainberze aldis egon zenak? Baña atra gara asuntotik).

5. Itzul gaizen. Bego asentaturik fedesko gauza bekala San Josef estela Kristoren Aita propioa, zerengatik arren obrarik gabe Espiritu Sanduaren obras konzebitu zue Ama Birjinak beregandik ta berebaitan aur dibinoa. Bada, Jauna, ala izan bear baze, zerengatik Jangoikoak disponitu zue desposazea San Josefeki Maria? Da Jangoikoaren sekreto; San Jeronimok ematentu zenbait motibo. Bata da San Josefene jeneraziotik monstrazeko Maria Santisimarene etorkia, zerengatik etzeizke ezkondu baizik berene etorkikoeki. Berze bat da kuidazeagatik Maria Santisimarene famas, zerengatik ikusten bazute Semeareki ta esposorik gabe, izain ze desonra ta arrikatuko zute judioek. Berze bat da izanzezangatik konpañia ta konsolu Jaun dibinoarene aurzutan ta iges Ejiptora joaterakoan. Berze motibo bat izateko esposo, izan ze okultazeko gaistoei Jesu Kristorene konzeptzio garbia, uste zutelaik zela berze aurrak bekala konzebitua. Da berze bat en fin ze, izateko San Josef

testigo Ama Birjinaren pureza ta birjinidadearen, zekielaik etzela bere obras, baizik Jangoikoaren milagros aur dibinoain konzepzioa. O Jangoikoaren probidentzia. Nai izan zue jautsi zerutik, in gizon ta erremediatu mundua, baña altxatu zue bere grandeza, okultatu zue bere majestadea. Zukelaik monstratu nor zen bialdus tronpetaeki pregonazera alzinean aingiruak, mogiarazis beren lekuetaik iruzkia, ilargia ta izarrak, ta trastornatus elementu guziak, etzue sikiera eskojitu sortuetxetako palazioen bat, etzue sikiera autatu amatako erreina erreinante bat, baizik ixil ixila mundukoendako jautsi ze lurrera; eskojitu zue Nazaretko etxe pobre bat, autatu zue amatako donzella humil bat, ta au zurgin bateki desposatua! Berriz ere diot, o juizio dibinoak, nola jakinduria infinitoak disponizentuen suabeki ta fuerteki gauzak! Guk akaso pensatuko gindue etorko zela ostentatus bere majestade soberanoa, jakinzezangatik mundu guziak nor zen bere erredenptorea. Ala pensazen dute Judioek orañik ta estute sinestazen etorri dela, ta gutiago Maria andre pobre, humil, ezaunga bearren sabelean konzebitu dela. Suberboak dire ta ala uste dute munduko anditasunes inguraturik etorri bear duela. Etorko da orañik, baña juzgazera. Ai orduan! Baña guk dakigu fedes etorri dela Jesu Kristo ta konzebitu izan zela Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras. Agradezi zagun, ezi demonioak berak aldi bates monje bati, itz enkarnazioko goiek kredoan kantazerakoan belaurikatu ezen bati, eman zio errebes bat terriblea, erraten ziola: Neregatik in bazue ori Jangoikoak, sekula agradeziturik bizikonu ni. Ezkaizela izan demonioa baño ingratoagoak, baizik, etc, etc.

Serm. 33.

De 3o symboli articulo.

ann. 1779

Qui conceptus est de Spiritu Sancto,
natus ex Maria Virgine. simb. S. Jacobus

1. Erran gindue azken platikan Kredoaren irugarren artikuloa dela: Zein konzebitu baize Ama Birjinaren entraña sanduetan Espiritu Sanduaren obras, jaio zela Birjina Maria baitatik. Eta artikulogontan erakusten dela Kristoren enkarnazioa edo gizon egitea, baitare berain jaiotzea. Jaio ze gau ezkindue deklaratu ta enkarnazio gura ez ongi, ta ala orai explikatuko dut bata ta berzea alikako klaro ta praktikoki, ia ke ta den misterio prinzipalena Kristoren fedean. Atenzio otoi. Zein konzebitu baize, dio. Eta irur persona dibinoetaik zein konzebitu ze edo enkarnatu ze edo gizon egin ze? Aita eternoaren Semea, Trintateko bigarren persona. Aita konzebitu, enkarnatu edo gizon egin ze? Ez Jauna. Espiritu Sandua konzebitu, enkarnatu edo gizon egin ze? Ez Jauna. Nor bada? Sollik Semea, zein gizon eginik deizen baita Jesu Kristo. Zer da konzebitu izatea edo enkarnaztea? Oroat da nola gizon egitea. (Eta zerengatik egin ze gizon Semea eta ez Aita edo Espiritu Sandua? Zerengatik gure lenbiziko aitetamek, Adan ta Ebak, in baizute bekatu jakinduria ta Jangoikoaren semejanza izan naies; ta nola Semeari atribuizen baizaio jakinduria ta semejanza gau, orgatik konbeni ze in zeien gizon Semea, erremediazeko bekatu galgarri gura). Eta non in ze gizon? Ama Birjinain entraña sanduetan, edo sabelean. Noren obras? Espiritu Sanduaren obras. Obra gortan konkurritu zue Aita eternoak? Bai Jauna. Semeak berak konkurritu zue? Baitare. Ta Espiritu Sanduak erebai? Baitare. Zerengatik? Zerengatik irur personek obraren baitute junto gauza guzietan ta batek iten duena iten baitute irurek (Ad extra). Bada, irurek konkurritu bazute, nola sollik Semea gelditu ze gizon eginik? Zerengatik sollik Semeak unitu baizue beregana gizontasuna. Bigu semejanza bat. Ala nola sazerdote bat bestizerakoan ornamenta sagratues, lagunzen badiote bi lagunek, irur izain dire enpleazen direnak besti ze gartan, ta bat sollik, au da sazerdotea, geldizen da bestiturik ornamentes.

2. Irur persona dibinoek obratu barin bazute Kristoren gizon egitean, nola erraten da Espiritu Sanduaren obras? Zerengatik obra gau baita amorioskoa ta amorioa atribuizen baizaio Espiritu Sanduari. Eta orgatik Espiritu Sandua dei daike Kristoren Aita? Ez, niolater, zerengatik ezpaizio komunikatu bere substantzia, baizik solamente formatu berain gorputza Birjinaren odolas; ala nola argin batek obratuagatik parete bat, ezpaita orgatik parete garren Aita, ezpaitio komunikazen bere substantzia. Nor da, bada, Kristoren Aita? Jangoikotasunes da Aita eternoa amarik gabe; gizontasunes da berain Ama Maria Santissima aitarik gabe. Baña nola Jesu Kristo batean baita Jangoiko ta gizon, orgatik Kristoren Ama deizen da Jangoikoaren Ama, au da, Jangoiko denaren Ama. Eta San Josef da Kristoren Aita? deizen da Aita putatiboa, au da, jendeen ustean, opinionean ta faman; baña errealki esta Kristoren Aita, ezpaizue izan parterik edo obrarik arren enjendrazean, baizik Ama Birjinak arren komunikaziorik gabe solamente Espiritu Sanduaren obras bere odol garbi ta solletik enjendratu baizue. Eta nola izan ze Kristoren enkarnazio edo gizon egitearen obragoi? Espiritu Sanduak eta Trintate guziak Maria Santisimaren odol garbias formatu zue gorputz bat, deusetaik kriatu zue arima bat, gorputz

ta arima gau juntaturik elkarreki unitu zitue beregana Seme dibinoak. Ta ala len Jangoiko soilla zena gelditu ze Jangoiko ta gizon batean Ama birjinain sabelean, ta Ama Birjina gelditu ze Kristoren Ama ta Birjin bateo, zeukala bere barrenean bere seme ta aur eginik Jangoikoaren Semea, Jangoikoaren milagro andi ta pasmoso baten medios. Zenbat denboras in ze ori guzioi? instante bates, zerengatik obratu zuena baita infinitoki poderoso. Au da Kristoren enkarnazio edo jenerazioaren misterioa, sekula alakorik ikusi etzena len ta ikusiko estena berriz sekula. (Irur jenerazio jenero ikusi zitue len munduak, dio San Agustinek: Lenbizikoa gizonik ta emastekirik gabe, au da Adanena; bigarrena emastekirik gabe, au da, Ebarena; irugarrena gizon ta emastekiagandik, au da, gure guziena. Falta ze laugarrena, Amagandik gizonik gabe, au da, Kristorena, emateko berze irurei erremedioa. Lenbiziko gizona, Adam, etze jaio, baizik egin ze aitarik gabe ta amarik gabe Jangoikoaren obras; au da gizonain lenbiziko kondizioa. Bigarrena da Ebarena, zein amarik gabe kriatu baizue Jangoikoak Adanen kostadotik. Irugarrena da berze guziena, jaiozen baitire gizon ta emastekiagandik. Laugarrena da Jangoiko Gizonarena, jaio baize emasteki batetik gizonik gabe. Baze ia lenbizikoa gizonik ta emastekirik gabekoa, baze bigarrena emastekirik gabe gizonagandik, baze irugarrena gizon ta emastekiagandik. Falta ze laugarrena gizonik gabe emastekiagandik; baña laugarren gonek libratu zitue berze irurak zerengatik lenbizikoa ta bigarrena erori zire ta bere erruinan irugarrena enjendratu zute; baña laugarren gontan salbazioa aurkitu zute. (Ap. Barrad. t.1. l.5. c.31. in Evang.)).

3. Nola deizen da Seme dibinoa gizon egin ondoan? Jesu Kristo. Zer nai du erran Jesus? Salbazalea. Zertaik salbatuginduz? Gure bekatuetaik ta demonioain kautiberiotik. Zer nai du erran Kristo? Unjitua. Zertas izan ze unjitua? Espiritu Sanduaren donoes ta grazies. Da Jangoiko? Bai. Da Gizon? Baitare. Gerostik da Jangoiko ta gizon? Baiki. Nola da Jangoiko? Aita eternoaren Seme bekala bere eternidadean. Nola da Gizon? Ama Birjinain Seme bekala denboran. Zenbat naturaleza dire Kristorenbaitan? Bida, dibinoa ta humanoa, edo Jangoikotasuna ta gizontasuna. Zenbat persona dire Kristorenbaitan? Bat sollik, ta au dibinoa. Zenbat entendamentu ditu Kristok? Bida, dibinoa ta humanoa. Zenbat borondate? Bida, dibinoa ta humanoa, Jangoiko ta gizon bekala. Eta zenbat memoria? Bat ta au humanoa, gizon bezan bates, ezi Jangoiko bezan bates estu memoriarik zeren baitauzki presente gauza guziak, ta memoria da gauza pasatuena. Kristok badu gorputzik, begi, esku ta gañarako mienbrorik? Bai Jauna, zeren baita gizon egiaskoa. Eta non dago orai Kristo gizontasunes? Zeruan ta aldareko Sakramentuan. Eta gizon in ta berla non zego? Bere Ama Birjinaren sabelean bedrazi ilabeteak kunplitu arteo. Zer egunes in ze gizon? Martxoaren ogeitaborzgarrenean, baita Ama Birjinain Anunziazio eguna ta Jesu Kristoren Enkarnaziokoa. Aizagun nola ta zer motibos gertatu zen, entendazeko obeki.

4. Deabruaren enbidias sartu ze bekatua ta eriotzea munduan, zerengatik Luzifer zerutik erori zenak infernura, len aingiru, gero deabru denak, inbidias beterik ikustas ain ongi zeudela Adan ta Eba paraisoan, inarazi ziote desobediencia gura, zeñenkasos galdurik berak galdubaiginduzte bere humeok. Andik dugu bekatu orijinala, andik pasione ta inklinazio gaistoak; orgatik zoeie eroris bekatus bekatu ta gaitzetaik gaitzetara gizonen linajearen masa kondenatua. Etze aski izan garbizeko mundua dilubio unibersala, zeñeki ondatu baizue Jangoikoak jende guzia zorzi persones landara; estare su azufresko erauntsi gura, zeñeki errautstu baizitue pentapolisko ziudadeak; estare gañarako erremedio beratx ta gogorrak, aliketa Jangoikoak bialduartaño bere Seme propioa mundura egin zeien gizon. Ortako elejiturik zeuka donzella bat pobre, humila, baña txoil sanda, Nazaretko errian etxe txiki batean desposaturik zegona zurgin bateki, baña kastidade perfektoan. Bete

ondoan, bada, denborak martxoaren ogeitaborzgarren batean, bial duzue Jangoikoak enbajada goneki enbaxadore San Gabriel aingirua donzella pobre Maria deizenzenarregana. Sartu ze aingirua arren kuartoan ta erran zio: Jangoikoak salba zaizala grazias betea, Jauna da zureki, bedeikatua zara zu emasteki guzien erlean. Aitu zuelaik au turbatu ze Maria ta zego pensazen zer salutazio zen au. Erran zio aingiruak: Etzaitela beldurtu, Maria; aurkitu duzu grazia ta agrado Jangoikoaren begietan; orra konzebitukouzu zeure sabelean seme bat deitu bear duzuna Jesus, au izain da andia ta Altisimoaren Seme nonbratua. Erran zio orduan Mariak: Nola izanen da ori, zerengatik nik estut ezaunzen gizonik? errespondatu zio aingiruak: Espiritu Sandua etorko da zure gana ta Altisimoaren birtuteak obratukodu zurebaitan, zerengatik Jangoikoarendako esta inposiblerik. En fin, seguraturik bere birjintasuna Mariak eman zue konsentimentua itz gebeki: Ona Jangoikoaren esklabak, egin bedi nereki zure itzaren konforme. Au errateareki (prensatu zizaio amorio dibinoain utses ainberze biotza, ezi destilatu baizue zenbait odol tanta) formaturik Jesusen gorputza (diones Maria Agredako serore venerableak) eta denbora berean arima kriatu zuena Jangoikoak uniturik gorputztto garreki, artu zitue beregana Seme dibinoak ta gelditu ze gizon eginik Ama Birjinain sabelean. Noiz arteo? Bedrazi ilabeteak kunplitu arteo. Ondorean, abenduaren ogei ta borzgarrenean txustoki jaio ze Birjina Mariabaitatik. Au da artikulo gonon bigarren partea.

5. Eta nola jaio ze, ta non? Berze aurren miseria ta mantxarik gabe, ta Amaren doloreik batere gabe Belengo etxola batean, Jangoikoaren probidencia admirables. Ellegaturik ordua, jaio ze aur dibinoa autxi gabe purezaren kristalea, ta usten zuelaik osorik bere Ama Santisima biolatu gabe deusere birjinidadearen selloa, ala nola pasazen baita iruzkia bidrio klaro batetik autxi gabe bidrioa. Oroat, nola gero erresuzitatu baize Jesus bera obiatik mogitu gabe gañeko losa; oroat, nola sartu baize gero bere diszipuloen afaltegian, idiki gabe atariak; oroat, jaio ze Birjinagandik obratus ontako ere milagro bat andia. Bi gauza tugu sinestazeko ontan: Bata, dela Maria Jesus Jangoiko denaren Ama egiaskoa; berzea, gelditu zela birjin erdi ondoan len ta beti bekala. Ori nai du erran jaio zela Birjina Mariabaitatik. Eta berze bi gauza signifikaizkigu: Bata da Jangoikoak iten duen estimazioa birjinidadeas ta purezas, ezi etzezangatik galdu au Maria Santisimak, trastornatu zue Jangoikoak naturalezaren legea konzebizeko gizonik gabe Espiritu Sanduaren obras, ta erdizeko doloreik ta mantxarik gabe Seme gartas. Permititu zuelaik il zeien Maria gero bere denboran, etzue permititu niolaterre falta zekion birjintasuna, zeikelaik falta bekaturik gabe berze ama on guzietan bekala; baña ez, etzue permititu milagro andien kostus; ta ontan da, non ezpaitu len ta gero izan semejanterik Mariak, baitu bateo Ama izatea ta birjinidadeain honra. Nec primam similen visa est, nec habere sequentem, gaudia matris habes cum virginitatis honore. Berze signifikaiz zaiguna da, Maria Santisimain anditasuna ta Majestadea, ta por konsigiente duen poderioa, kontazen duelaik bere Seme Aita eternoaren Semea, ta zor diolarik berau Jesu Kristok bere gizontasuna, ta Espiritu Sanduak konsagratu zuelaik bere tenplu. Nai ba diogu kuadratu Jangoikoai, prokura zagun pureza, ta au eska zagun Ama Birjinain medios: Vitam praesta puram etc, etc, etc.

Serm. 34.

De 4o symboli articulo.

ann. 1779

Passus, sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus,
et sepultus. Ex symbol. Apostolico. S. Joannes.

1. Explikaturik Kredoaren artikulo irugarrena, baita Jesu Kristo Jangoiko Aitaren Semea izan zela konzebitua Ama Birjinaren entraña sanduetan Espiritu Sanduaren obras, jaio zela Birjina Maria baitatik, segizen da laugarrena, baita pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaaren manuaaren azpian, gurzifikatu zutela, il zela, orzi zutela. Kristoren jaozetik berla aipazen dute apostoluek Kredoan berain pasio ta eriozea, delarik zierto etzela il jaio ta berla, baizik bizitu zela ogei ta amirur urtes, ta irur ilabetes. Baña kontazekos Kristoren bizi guzia, sobra luzatuko ze kredoan, non solo aipazen baitire misterio prinzipalenak; orgatik estute paratu Kredoan Kristoren biziko pasajeak, ezpaitire ain prinzipalak, ta berze alde kontazenbaituste laur ebanjelariak. Brebeki pasatukotut nik orai jakin dezazien.

2. Belenen jaio ta zorzigarren egunean zirkunzidatu zute aur dibinoa lege zarraren konforme, ta paratu ziote izena Jesus, zelebrazen duen bekala Elizak; zirkunzizio egunean, jaozearen oktaban. Amirugarren egunean etorririk orientetik, Errege Magoek adoratu zute errege guzien Errege bekala, zelebrazen baitu Elizak egun gartan deizendugunean Erregeen eguna ta Epifania. Berrogeigarren egunean, lege garren konforme atra ze elizara Ama Birjina Jerusalem ta presentatu zue aur dibinoa, zelebrazen dugun bekala egun berean, kandelera ta purifikazioa deizendugunean. Gero, nola judioen errege Herodes turbatu baize, ustes eldu zen berai edekizera korona, erresolbitu ze edekizera Jesusi bizia maioletan; baña Jangoikoak baizekie Herodesen intenzio gaistoa, abisatu zue aingiru baten medios San Josef eskapa zeien bere esposa ta aur dibinoareki Ejiptora. Ta ala egin zue, jakin gabe Herodesek, zeñek ezin aurkitu aur dibinoa, etzekiongatik eskapa, manatu zue il zezkitela Belen bereko ta aldamenetako aur guziak bi urte bete ezitustenak; ta ala egin ze, erregazen zutelaik lurra kruelki aur inozente gaien odolas, zeñen martirioa zelebrazen baita inozenteen egunean, zegolaik bitarteo aur dibinoa libre Ejipton (zazpi urteak arteo bere Ama Santisima ta San Josefen konpañian).

3. Il ondoan Herodes, abisatu zue San Josef Jangoikoaren aingiruak (Math. 2) itzul zeila bere esposa ta Jesuseki Israela; itzuli ze ta erretiratu ze Nazaretko ziudadera, Maria Santisimaren sortuetxera, non enkarnatu baize Jaun dibinoa lenago; ta ziudade ta etxe gontan bizizirade irurak. Eta guti dardukate ebanjelariak Kristoren aurzutu ta mutilzutuas; solamente dio San Lukasek (2), zoeila anditus ta indar artus, beterik jakindurias, ta Jangoikoaren grazia zegola arren baitan. Eta zoezila berain guratsoak urteoro Jerusalem, bazkoa egunean. Eta amabi urtetakoa zelaik Jesus, joan zirelaik Jerusalem festa gartara, akabatu ondoan egun solemne gaiek itzulzerakoan berak, gelditu zela Jesus Jerusalemene erreparatu gabe guratsoek, eta ustes eldu zen aideen konpañian, pasatu zutela egun bateko bide; ta zebilzala berain bila aide ta ezaunen ertean. Eta ezin aurkitu zutelaik itzuli zirela Jerusalem berain bila. Eta gertatu ze ezi iru egunen buruan aurkitu zute tenpluan jarririk doktoeren erdian aien aizen ta aiei galdegiten, eta guziak omen zeude pasmaturik berain prudenzia ta errespuestes. O zer exenplua ikustea

Jangoikoaren Semea Jesus, tenpluan aizen ta errespondazen doktrina! Alkezaiste ignoranteak, alke ta pereza duzienen aizeko ta errespondazeko doktrina. Etzue Jesusek ikastekorik zerengatik guzis infinitoki jakinsua ze Jangoikotasunas, ikasi gabe letrarik emengo eskolatan, segun erran zuten gero judioek: Nola daki onek letrarik, estuelaik ikasi? (Joann. 7.) Etzue ikasi ta bazekie guzia Jangoiko bekala, alaere akudizen du doktrinara, emateko guri tonto suberboei exenplu.

4. Aurkitu zutelaik an bere Ama Birjinak ta San Josefek, admiratu omen zire ta erran zio Amak: Seme, zerengatik egin duzu ala gureki? Ona zure Aitau ta ni penas beterik erabili gara zure bila. Errespondatu ziote: Eta zerengatik erabili dire ene bila? Etzekite dela preziso ni enpleazea nere Aitaren gauzetan? Au erran ta joan omen ze aieki Nazareta emen zegokiote sujeto ta obediente. Ona berze exenplu admirable bat humeendako. Jangoikoaren Semea Jesus dago sujeto ta obediente bere Amari, ta ia dena, San Josefi ere bai, zein ezpaize errealki berain Aita; eta izain da hume kristorik aitetamei desobedienterik? Bada, ia ke ta ontan garen, ai bezate berze exenplu bat. Ilzen zegolaik guruzean Jesus, aldakan baizego bere Ama Santisima, itzulirik burua onengana erran zio San Juanengatik: Ona zure Semea; eta San Joanengana itzulirik erran zio: Ona zure Ama; enkargazen ziolaik ontan berain kuidadoa, ia ke ta ilzen zen bera. Orra bada, azken atsetan du Jesusek kuido bere amas; zer hume zarate zuek aborrezizen ta despreziazentuzienak zeurenak? Etzazela erran, alakoak barin bazarate, zaratela Jesusen eskolakoak, Kristoren diszipuloak ta kristioak. Baña itzul gaizen Nazareta.

5. Estute deus aipazen ebanjelariak Jesusen urrengo bizimoduas ta enpleguas, aliketa sarzen asiartaño ogei ta amar urtetan, noiz bataiatu San Juan Bautistaren eskus Jordango ugaldean nezesidaderik gabe, kunplizeagatik justizia guzia, ta gero joanik desertura ta barutu ondoan berrogei egunes ta gaues deus jan gabe, ondorean asi ze barrazen bere jakinduria dibinoa mundua barna, predikatus ta erakutsis guziei zeruko bidea, ta obratus milagro andiak ta benefizio pasmagarriak guzien erredenptore ta salbadore bekala, ta kontazen duten gisa laur ebanjelariak; ta azkenean bete ondoan jaiorik gizon ogeita amirur urte ta zenbait ilabete, gertatu ze Kredoain laugarren artikuloak diona: pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian, gurzifikatu zutela, il zela, orzi zutela. Zein itz gutis zenbat dion!

6. Latinean itz bates signifikaizen du Kristoren pasio guzia errateareki passus, padezitu zuela. Añadizen da sub Poncio Pilato, ta uskaras Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian, adiarasteko nor zen jueza ta presidentea Jerusalemene orduan sentenziatu zuena Jesu Kristoren pasioa ta eriozea; ura ze, Tiberio enperadorearen ordes, gizon bat deizen zena Ponzio Pilato. Onek eman zue bortxas bekala, baña eman zue sentenzia Kristoren kontra, zekiellarik etzuela kulparik batere preso dibinoak, konfesatu zuelaik publikoki etzuela aurkizen kausarik edekizeko bizia, garbitu zituelarik bere eskuak erakusteko bekala etzela partizipante inozente ta sandu garren eriozean. Baña, o Pilato, zer inporta da garbizea eskuak urareki, mantxazen badu arima Jangoiko-Gizonaren odolareki? Añadizen da erioze jeneroa errateareki crucifixus, gurzifikatu zutela; erioze egiaskoa errateareki mortuus, il zela; ta ilaria, errateareki sepultus, orzi zutela. Baña egungo aski dugu pasio doloresko pasatu zuena. Explikatu bear da nork padezitu zuen, nola, norengatik, zer motibos ta zenbat, al badaike.

7. Nork? Jesu Kristok, Jangoiko-Gizon denak batean; Jangoikotasunes Aita eternoaren Seme, gizontasunes Ama Birjinaren Seme denak, kulparik izan etzuenak ta izanetzuenak. Nola? artu zuen gorputz ta ariman, edo gizontasunean padezitu zue

Jangoiko-Gizon den Jesu Kristok; ortako artu zue gizontasuna, orgatik in ze gizon, padezizeagatik, ezi Jangoikoa da inpasible, ez dezake padezitu. Ta ala, ezpaze in gizon, ezuke padezitu; baña ezpaze bateo izan Jangoiko, ez ginduzke erredimitu. Ze, bada, Jangoiko ta gizon zerengatik Jangoiko sollak etzuke padezitu eriotzea ta gizon sollak etzuke garaitu eriozea, ta salbatu mundua. Norengatik? Gizonen jenerazioagatik. Onek zeuka ofenditurik Jangoikoa, asarraturik bere kriadorea; ertxirik zego orgatik zerua; ta etzeike nior sartu idiki gabe ataria; ta etzeike idiki eman gabe Jangoikoari satisfakzio sufizientea; ta etze nork eman gizonetan zerengatik Jangoikoaren ofensak estaizke ordaindu, askitatu ta satisfazitu gizon sollen obra ones. Orgatik etorri ze Jangoikoaren Seme Jangoikoa, ta gizon eginik berak egin zue gure bekatuen penitentzia, pagatu zue gure kulpen pena, ta padezitus satisfazitu zue justizia dibinoai gure partes ta guregatik. Zer motibos padezitu zue? Lenbiziko motiboa izan ze Jangoikoaren ontasun infinitoa, zeñek ezpaizio barkatu bere Seme propioari, baizik entregatu baizue gu guziengatik. Aingiruak bekatu eginik, gizonak ere eginik, etzue nai izandu erridimitu aingirua; bai ordea gizona, bere karidade exzesibo digunagatik: Propter nimiam caritatem suam, qua etc. Bigarren motiboa Jesu Kristo bera, zein ez bortxas baizik bere borondates ofrezitu baize padezizera guregatik: Oblatus est quia ipse voluit; ezi nai ezpazue izan, etzute judio ta demonio guziek ukituko bilo batean. Motiboebek izan zire Jangoikoaren aldetik gure ones. Berze motibo bat izan ze Judas, saldu zuena; berze bat judioak, Pilatosi entregatu zutenak; berze bat Pilatos bera, sentenziatu zuena; berze bat ministro ta soldadoak, exekutatu zutenak Kristoren pasio tormentosoa.

8. Baña motiborik prinzipalena, indirektoki, zearrez, izan zire gure bekatuak, ezi ebek ez izatera, Jangoikoak etzue entregatuko guregatik bere Semea; Seme bera etze etorriko padezitza; Judasek, judioek, Pilatosek ta ministro gaisto gaiek infernuko deabru guzieki etziokete deus egin. Gure kulpak, bada, dire lenbiziko motiboa Jesu Kristoren pasioain; mereji zute gure sekulako kondenazioa, baña gure ditxas ain gure fabore izan ze Jangoiko ona ofenditurik ere, ezi ezpaizue dudatu bere etsaiengatik padezitza artu zuen gizontasunean. Orgatik Elizak, arriturik bekala, Bazkoa bezperan zirioain bedeizioko prefazioan, erratentu itz notable gebek: Etzigu deus protxatu mundura jαιοzeak, ezpazigu protxatu erredimitu izateak, garen bekala, Jesu Kristoren pasioas. O berorren gureganako piedadearen dignazio admirablea, Jauna. O karidadearen amazea aski estimaestaikena sekula! Erreskatazeko esklaboa, entregatu zue bere semea. O ziertoki nezesarioa Adanen bekatua, Kristoren eriozeareki borraratu dena! O kulpa ditxosoa ta afortunatua izan duena erredenptore bat alakoa ta ain andia! Orai ze erratea zenbat padezitu zuen, baña berze egun bateko utzagun. Oraiko aski motibo dugu maitazeko Jangoikoa ta aborrezizeko bekatua, zerengatik au da berdugo lenbizikoa kausatu ziona Jesu Kristori pasio doloreskoa. Bada, egitea ia bekaturik zer da baizik aborrezizea bekala Jesu Kristo, ta konfirmazea ta errenobazea motiboa padezizeko, ezpalu padezitu aski bekala? Esta gauza pasmagarria, dio San Buenabenturak, pensazea Jesus gu esklabo xoilengatik padezizen ta il zen alako eriozeas, ta ez ilzea bat penas ta amorios? Ain gogor dugu biotza, dio San Bernardok, ezpaita beraxten axuri inozente garren ainberze odoles? senti zagun bekatu egina bera denagatik etc, etc, etc.

Serm. 35.

De 4o symboli articulo.

Anno 1779

Passus sub Pontio Pilato, crucifixus, mortuus et sepultus est. Ex symbolo apostolico. S. Joannes.

1. Laugarren artikulo fedeskoa Kredoan da, pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaaren azpian, gurezifikatu zutela, il zela, orzi zutela Jesu Kristo; entendazen da Jangoiko Aitaren Seme bakar gure Jauna, gizon egin zena Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras, ta jaio zena Birjina Maria baitatik. Zein merejitu gabe berak padezitu zuen. Klaro dago aipazeas solamente nor den padezitu zuena! Norengatik padezitu zuen, nola ta zer motibos, erranik dago ezi gurengatik artu zuen gizontasunean, salbazeagatik gizonen jenerazioa. Zenbat padezitu zuen estio Kredoak, zerengatik etze posible konprendizea itz gutitan; nik ere estut errain guzia, ezpaitezaket, baizik zerbait ala jeneralki ta tormentu prinzipalenak partikularki idukizeko memorian kristioak, konsiderazeko ta agradezizeko sekula guzian. Bear ze anitz, emateko satisfazio Jangoikoari munduko guzien bekatues ta erreskatazeko ainberze milla millon bekatari nola baita orai, izan ta izanen baita len ta gero. Da zierto, gizon guziek in bagindez itsaso bat geuren odoles penitenziatan, aingiru guziak lutos bestibaleites gure faboretan, Maria Santisima bera ere urtubalei negarres bere bizi guzian gure gatik, ez leikela satisfazitu ta pagatu dignoki Jangoikoaren justizia bekatu mortale soil batengatik; zenbat gutiago ainberzeengatik? Baña da ere zierto ezi Jesu Kristo Jangoiko-Gizonaren akzione bakar bat, berain suspiro ta negar txorta bat, ta berain odol tantarik txikiena aski zela erreskatazeko ta salbazeko guziak, ta pagazeko osoki justizia dibinoa, zerengatik prezio infinitoa baitu Kristoren edozein akzione, suspiro, nigar, odol tanta txikienak. Baña ain bizarroki portatu da gure Erredentore dibinoa ezi ezpaita kotentatu aski denas, baizik abasto ta sobra in ta padezitu baitu erreskatazeko mundua ta mila mundu. Beras, bada merejimentu kristauen pasioan, salbazeko guziok? Bada ta abasto, bagina ere infinitoki ia bekatariok. Nola, bada, estire salbazen guziak? Nola kondenazen dire ainberze? Zeren ezpaitire aprobe txazen aietas beren borondate ta obra onen medios. Ala nola balidoeie erredentore bat Arjela ta ofrez i balez diru asko ta sobra erreskatazeko kautibo guziak, ta ezpaleite nai baliatu artas zenbaitek ongi aurkiturik daudenak kautiberioan. Ario gontara, abasto ofrezitu du Kristok salbazeko guziak nai baute; baña ezpaute nai, estu prezisazen libertadea, zein gaizki enpleatus beren kaltetan kondenazen dire beren kulpas.

2. Etzue Kristok padezitu Jangoikotasunean zerengatik Jangoikotasunes ze inpasible, baña gizontasunean padezitu zue ainberze ezi berdaderoki deizen baita doloreen gizona: Virum dolorum. Eta erran daike padezitu ta il zela Jangoikoa? Bai, zerengatik padezitu ta il baize gizon bat Jangoiko dena. Baña ekibokazioain kenzeko, klaroagos erraten da padezitu ta il zela Jangoikoa gizon eginik edo gizontasunean; bada, Jangoikoak ez dezake padezi ta estaike il bere Jangoikotasunean. Zer baliatu zio, bada, Jesu Kristori bere pasioan Jangoiko izateak? Iago indar izateko, padezizeko ia gizontasunean, baitare baliosoago izateko bere pasioa. Zenbat, orde, padezitu zue bere gizontasunean? padezitu zue al guzia, alde guzietaik ta jenero guzietan. Orgatik erraten digu Jeremiasen agos: Ô vos omnes qui transitis per viam, attendite et videte, si est dolor sicut dolor meus. O zuek

guziek mundu ontako bide gau pasazenzaustenek, atendi zazie ta ikusazie ia baden dolorerik nere dolorea bekalakorik. Padezitu zue ariman tristura, deskonsolu, kongoja ta aflikzione; ala erran zue pasio alzinttoan: Triste dago nere arima eriozeraño. Eta ilzeko puntuan: Nere Jangoikoa, nere Jangoikoa, zerengatik desanparatu nau? padezitu zue memorian, oroitus batbanaka tormentu jenero guziak, entendamentuan, konsideratus zenbat bere pasioaren bortxa galduko ziren; ta borondatean errepugnantzia zuen artas gizon bekala tormentu horrendo gaietara. Orgatik erran zue: Nere Aita, posible barin bada, pasa bedi enegandik trago gau; baña estaiela egin nere borondatea baizik orrena. Borondate humanoas zerduka ezi borondate dibinoas, oroat, nai zue nola Aita eternoak bere pasioa; baña ez dezan niork pensa etzuela sentizen pasio ta eriotzea gizon bekala, zio au. Padezitu zue gorputz guzian ainberze ezi oñetaik bururaño etzue parte sanorik, zion bekala Isaiasek: A planta pedis usque ad verticem capitis non est in eo sanitas. Ainberze ezi ezpai zizaio gelditu itxuraik ere denai ederrena. Non est ei species neque decor, et vidimus eum, et non erat aspectus. Padezitu zue esku oñetan, zerengatik traspasatu zizkiote itzees. Padezitu zue buruan, zerengatik zulatu zioite alde guzietatik aranzees. Padezitu zue aurpegian, zerengatik zikindu zioite gargajues ta heritu zioite bofetades. Padezitu zue gorputz dibinoain errejione guzian, zerengatik guzia zauritu zioite azotees. Padezitu zue gustoan, zerengatik edanarazi zioite beazun ta ozpin. Padezitu zue adimentuan, zerengatik aitu zitue infinizio bat blasfemia ta injuria. Padezitu zue bistan, zerengatik ikusi zitue guruzean zegolaik bere Ama dulzea triste aflijiturik aldakan ta judioak burla ta eskarnio egiten. Padezitu zue libertatean, zerengatik lotu zute katees. Honran, zerengatik desonratu zute itz ta obres. Faman, zerengatik publikatu zute gaisto, infame gezurres. Ta en fin guzietan, zerengatik eman zizkiote pena jenero guziak inbentatu zuzketenak gizonen ta demonioek. Aizagun pasioaren tragedia itz gutis.

3. Lenik saldu zue Jesus bere apostolu batek ogeitaamar dirutan, eta gauartan berean zeintan entregatua izan bear baize, zekialaik gertatuko zena, fundaturik aldareko Sakramentua bere benefizio guzien memoria ta iturri perennea bekala gizonendako, ondorean despeiturik bere Ama Santisima, joan ze orzegun sanduko gau gartan Jetsemaniko baraze erretiratu batera orazio egitera ta esperazera bere etsai enbidioso kruek. Orazio egin zue luzaro eroririk lurrean ta kongojain utses itzerditzen odoles. Ondorean, zekien bekala eldu zirela ia Judioak berain arrapatzera, alzinatu ze otso gaiengana axuri inozentea, erakusteko guri padezitu zuela bere borondates. Galdein zioite: Nor billazen duzie? erran zute ezi Jesus Nazaretarra. Ni naiz, erran zue; ta erran zueneko, erori zire guziak lurrean, oroat nola ausnarri bates; ta nai izan bazue, ala ilik utziko zitue sekulakos; baña etzue nai baizik padezitu guregatik, ta ala, eman ondoan jaikizeko lizenzia, alzinatu ze Judas traidorea ematera señale konzertatu zuena, ezaunzeko nori eutxi berdugo gaiek. Eman zio bada, apa falsu gura Jesusi, erraten ziola: Agur, Maestru Jauna. Etzue apartatu aurpegia Jesusek zekielatik arren intenzioa, baizik erran zio manso: Adiskidea, zertara etorri zara? apa bates entregazeunzu gizonaren Semea? Judasi au erran ta erran zioite judioei: ladron batengana bekala eldu zarate ezpata ta paloeki nere arrapazera? Egunoro nindegolaik zuen erdian predikazen, ez nauzie in preso. Baña auda zuen ordua ta tenebren potestadea. Oneki eutxi zizaizkio guziak otsoak bekala, ta bakarrik usten zutela bere apostoluek iges in zutenek, lotu zute axuri inozentea kateas ta soges indignoki ta erman zute erdi arrastaka bide guzian, ta Jerusalengo karrikak barna gau artan, beirazera atrarik leioetaik jendeak, ta zerutik pasmaturik aingiruak.

4. Presentatu zute Anas pontifizearen etxean preso dibinoa, ta galdetu ondoan

Anasek bere doktrinas, ta errespondaturik humilki bear zena, eman zio bofetada kruel bat ministro batek aurpegi gartan zeintan gozazen baitire aingiruak beiratus. Andik erman zute algazara ta deskortesia berareki Kaifasen etxera, non baizeude bildurik Jerusalengo sazerdoteak ta eskribak. An izan ze konfusioa ta desordena, goratus nork baño nork testimonio falsuagokoak ta ezin progatus deus ere. Eta zerengatik galdeinik ia zen Jangoikoaren Semea, errespondatu baizue egia, baietz, deskargatu zute listu, bofetada, golpe ta injuria guzien erauntsi bat Jesusen gañean. Au etsai enbidiosoek, baña etzeien falta sentizekorik aiskideetaik ere, bere adiskideenak, etxe gartan baizego San Pedrok, diot, ukatu zue irur aldis, etzuela ere ezaunzen. Alde guzietaik penak Jesusendako! Nekaturik ia tratamentu gaisto egines eskriba ta sazerdoteak, zerengatik baize ere ia gauerdia, utzi zute preso dibinoa kalabozo ilun batean ministro kruelen disposiziora. Utzikoal dute zerbait deskansazera? Ez instante bat ere; dibertizen dire ministro inhumanoak Jesusen kostus gau guzian. Berze burlaen ertean, paraturik erdian preso dibinoa bendaturik begiak, ematen dio nork bofetada, nork ostikoa, nork errebesa aurpegian, bizkarrean, nonnai, irriabarres galdeiten diotela bidanabar: Profetizazak nork emandiken. Nola ote zegon Jesusen biotza? Nola ote zeuden kerubinak ta serafinak ikusten beren Errege Jauna gaistofikatuen dibersio ta burla eginik? Baña guzia ze sufrizea sufrizera etorri zenak; guzia da nekea gau guzian biramoneraño.

5. Ellegazen da orzilaragoiza. Argitu zue Jangoikoak eguna, padezizeko ia ta ia Jangoikoaren Semeak. Bilzen dire goizik berriz bere etsaiak, ikusten dute itsusturik, maltrataturik ta figura lastimosoan Jesus, baña estire lastimazen. Esta deskansu puxka bat preso pobre orrendako? Esta. Esta trago bat sikiera alibiazeko? Esta. Estute pensazen baizik ilarastean. Daramate, ia bete zirelaik karrikak jendes, Ponzio Pilato presidenteagana; alegazentute delito falsuak, eskazen dute berain eriotzea bortxas bekala, justiziako formalidadarik gabe, derepente, algarabia ta konfusio andiareki; ezaunzen du Pilatosek aien inbidia zela, deklarazen du estuela aurkizen kausarik ilarasteko, baña ezin errehaba. Bialzen du Herodesengana, Herodesek ere estu aurkizen kausarik edekizeko bizia; solamente tratazen du eroa bekala ta berriz bialzen du Pilatosengana. Doaie juezes juez loturik, beti humil ta modesto Jesus. Berriz examinazen du Pilatosek. Berriz deklarazen du kulparik gabe dela, baña ezin pasa Judioeki. En fin azotarasten du ain kruelki ezi borz milla ta ia izan zire azotukaldiak, aldatus berdugoak ta arramaleak; paratu baizute guzia zauri bat eginik, agerizizaikiola kostillak, saltazen zirela aragizatiak ta in zelaik odolesko balsa bat lurrean. O pasmoa, nola bide zeuden arriturik aingiruak ikusten gisa artan Jangoikoaren Semea ta beren erregea, permitizen zuelaik Jangoikoak. Ondorean frinkazen diote buruan aranzesko korona bat, ta eskuan kana bat paraturik zetrotako ta soñetan purpurasko zatar bat, jokazen dute irris ta eskarnios errege burlaskoa bekala. O Jangoikoaren pazienza!

6. Pilatosek, ustes lastimaturik judioak kontentatuko ziren eginikakoas, presentazen diote bere balkonean itxura triste gartan. Kruzifika bez, kruzifika bez, oiuiten dute gaistofikatuek, ta meatxatus juezari ezpazue egiten. Etzekie ia zer egin Pilatosek. Oroizen da dela bazkoa bezpera, noiz baize kostunbre librazeko preso bat. Proponizen diote autara Jesus edo Barrabas, gizonilzale bat. Au autazen dute libretako, Jesus guruzifikazeko. En fin, garaiturik porfia diaboliko gartas Pilatosek garbizentu eskuak, etzuela nai parterik izan justo garren eriozean; ta ematen du alare sentenzia ilarasteko guruzean bi ladronen erdian. Pregonazen da ta ermanarasten diote bere guruzea soñean, ta guruzifikazen dute irur itzes esku oñetaik, ta parazen dute dilindaka itze gaietaik zeruain ta

lurra in erte an, ta bi ladronen erdian gaistoena bekala. Ia etzuket e sufritu ia kriaturek bere Kriadorearen tratametu indignoa, ta iaketa etzuten lizenziarik mendekazeko, monstratu zute bere sentimentura. Ilun duze iruzkia egerdian nigar iten zuela ta estalzen zuela bere argitasuna lutos, ez ikusteagatik bere Jaunaren trajedia gura. Izarrak ikusi zire zeruan garai gartan ta lurra ikaratu ze terremoto andi bateki, ematen zutela ta zatikazen zirelaik elkarreki arriak. Guziareki etzire konbertizen judioen biotzak, baizik burlazen zute aun gurutzean.

7. Irur ordus iraun duzue agonian Jaun dibinoak gurutifikaturik, ta zegolaik bere Ama Santisima gurutzeain ondoan, pensa nola! Iruretakoa bekala orzilar e gartan oi u andi bat egin ta ilze Jesus, akabaturik tormentua. Ala gertatu ze munduak ikusi duen justizia ze injustoena bezperako gauetik arratsalde gartaraño, utzi gabe deskansazera instante bat ta eman gabe lekuri aizeko arrazioak, edozein presori ematen zaiona. Ilze bada guregati k Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Semea, Jesu Kristo Jangoiko-Gizona, apartatus arima gorputzetik, au baita ilzea. Joan ze Arima Abrahamen seno edo linbora, an zeuden arima sanduen atrazera bere dibinidadeareki; ta gorputza gelditu ze gurutzean dibinidade berareki, baña arima gabe. Orzi zute geroxago gorputz dibinoa sepulkro berri batean zenbait persona justoe k, Maria Santisima, San Juan ta Magdalenareki bateo. Guziau signifikazen da Kredoa in laurgarren artiku lo gontan, erraten delaik pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian, gurutifikatu zutela, il zela, orzi zutela. Bear dugu lastimatu, admiratu, maitatu ta agradezitu Jesusen amorioa; aborrezitu, sentitu ta desterratu geuren bekatuak; ta espezialki izan esperanza bat andia, dugulaik odolesko itsaso gau garbizeko gure arimak, ta merejimentuen tesoro gau ain inmensoa, salbatuko gaituela Jangoikoak; ta bitarte o beldurtasun izan espera dezakegun kastigoas, ezipagara baliazen ainberzeko fineza extremoas. Orgatik da mediorik obrena maiz pensazea Jesusen pasioan obrazeko santidade jeneral bat ariman, dion bekala San Buenabenturak. Alberto Magnok dio ia balio duela Kristoren pasioas oro i ze senzillo batek, ezi ez baruzeak urte guzian ogi ta ur solles. Santa Brijidari errebelatu zizaio, enplasto bat bekala parazen dela Jesusen lla getan meditatus berain pasioan; ala nola Santa Lutgardisi errebelatu baizizaio, kristio gaistoek berriz kruzifikazen bekala dutela Jesu Kristo, San Pablok ere aipatu baizue: Rursus crucifigentes filium Dei. Beira fielak, zer ai garen, galdu bizia lenik ofenditu baño len etc.

Serm. 36.

De 5o symboli articulo.

ann. 1779

Descendit ad inferos, tertia die resurrexit à mortuis.

Ex symbolo apostolico S. Thomas.

1. Explikatu ondoan Kredoaren laugarren artikuloa, baita pasatu zuela Jesu Kristok pasio doloreskoa Ponzio Pilato juezaren manuaaren azpian, guruzifikatu zutela, il zela, orzi zutela, orai segizen da borzgarrena, baita jautsi zela linboetara an zeuden arima sanden librazera, andik il ta irugarren egunean erresuzitatu zela ilen ertetik bere proprio birtutes. Artikulo gonon sentidoa da au: Kristo il ondoan gurutzean, bere arima bere gorputzetik apartaturik, gorputza gurutzean ta obian zegon bitarteo dibinidadeareki, jautsi zela dibinidade berareki arima Abrahamen seno deizen den linbora; ta irugarren egunean itzulirik gorputz dibinoa zegon obiara, unitu zela beraiki glorioso ta biztu zela Jesu Kristo, ta bizturik jaiki ta atra zela obiatik triunfante, garaiturik eriotzea nioren lagunzarik gabe bere birtute propios. Bi parte ditu artikulo gonek: Lenbizikoa, jautsi zela linboetara; bigarrena, erresuzitatu zela Jesu Kristo. Goazen explikatuz bat banaka.

2. Badakizie il zela Jesu Kristo Jangoiko-Gizona guregatik ta il zela gizon bezan bates ta il zela gurutzean. Eta zer da ilzea? Da apartazea gorputzetik arima. Au gorputzari uniturik dagon guzian, bizi da gizona; apartazen delaik ura, au ilzen da. Apartatu ze, bada, Kristoren arima gorputzetik zerengatik errealki ilze Kristo, ta onen signifikaizeko errateunte San Markos ta San Lukas ebanjelariak: espiratu zue. San Mateok dio: Bialdu edo despeitu zue espiritua. San Juanek dio: entregatu zue espiritua edo arima. Baña Jesu Kristoren dibinidadea edo Jangoikotasuna etze beñere apartatu ez gorputzetik, ta ez arimatik. Ta ala bere gorputz dibinoa gelditu ze gurutzean, ta gero orzi ta egon ze obian uniturik dibinidadeareki; ta arima, alaber, uniturik dibinidade berareki jautsi ze linboetara. Nola bateo gorputzareki obian ta arimareki linboetan zegon Jangoikotasuna esta fasil entendazea, baña fasil da sinestazea, delarik inmenso Jangoikoa.

3. Linboetara jautsi zela dioguna uskaras, latines dio Kredoak infernuetara: Descendit ad inferos. Infernuak nai du erran lurrairekiko lekuak. Ortako jakin bear da zirela lurrairekiko barnean irur leku edo estanzia, nora bildus baizoezi arimak beren merejimentuen konforme. Bata da barren barrenagokoa, iluna, horrendoa, sus, tormentus, desditxas ta horrores betea, nora erori baizire zerutik, aingiru len, orai demonio direnak, ta nora baitoaz len ta orai gaistoen arimak bekatu mortalean mundutik doazinak; au da proprioki deizen duguna infernua. Berze bat da nora baizoezi ta baitoaz Jangoikoaren grazian ilzen direnen arimak, baña pagatu gabe osoki Jangoikoari beren bekatuen penak, edo bekatu benialeeki doazinak, ta por konsigiente, zerbait garbizeko edo purgazezko dutenak; au deizen da purgatorioa. Sus au ere ta penas betea, solamente diferentziareki ezi infernua esta erremisiorik, esta sekula akabazen, estaike libra sekula kondenatua, ta purgatorioan bada fin ta librazen da purgatu ondoan osoki, edo satisfazio eman ondoan justizia dibinoari pena gaien kostus, edo emendik ofreziturikako sufragioen medios. Berze bat da gorago deizen dena Aita Sanduen linboa edo Abrahamen senoa; penarik ta dolorerik gabe, nora baizoezi len justoak ta ongi purgatuak, ta baizeude an depositaturik, aliketa etorriartano Jesu Kristo guzien erredentorea; etxideten idiki zezoten ango ta zeruko ataria,

atrazeko andik ta joateko gozazera gloriara, non ezpaize nior ere sartu, aliketa Jesu Kristok iganik lenbizikoa idiki zuen justo guziendako ataria; Ta ala, orai esta detenizen nior estuenik purgazekorik, baizik doaie zuzen zerura. (Catech. Rom. hic).

4. Emen aipa dezakegu aurren linboa, nora baitoaz aur bekaturik in estutenak, baña bekatu orijinale aita Adanengandik heredatuareki jaio ta bataiatu gabe il diren guziak. Estute kulpa personalerik pobrettoek, orgatik estute pena sentidoarenik; baña bekatu orijinalaren kasos estaizke sartu zeruan sekula ta pena dañuarena deizen den gau dute, ezin ikustea beñere Jangoikoaren aurpegia. Ai aur pobrettoak, baña ai aitetama tigreak, kruelak, edo malizias edo deskuidos estiotenak humei lograzen sikiera arimak bataioaren medios, ain aisa delaik, ta kausazentiotenak desdixatuei sekulako desterru triste gau beren kulpas! Noiz erremediatuko diote dañu irremediable gau? Noiz inen diote Jangoikoari errestitu zio arima gaietas? Kuidado bada, kuidado.

5. Baña goazen alzina. Erraten delaik bada Kredoan, jautsi zela linboetara entendatu bear da Aitasanduen linbora edo Abrahamen senora, an zeuden arima patriarka, profeta ta justo guzienen librazera. An zeude Abraham, Isaak, Jakob, San Joakin, San Josef ta lengo santu ta sanda guziak esperazen zeruko ta infernuko gilzaduna, Jesu Kristo; zeñek obratu ondoan lurraín gañean guzien erredenpzioea bere guruzeko eriozearen medios, berla jautsi ze linbo gartara erakustera bere podorio dibinoa, an ere kunpli zeiengatik San Pablok diona: In nomine Jesu omne genuflectatur coelestium, terrestrium et infernorum. Jesusen izenean belaurika bedi zeruetan, lurean ta infernuetan den guzia. Sartu ze, bada, an ta berla bere presenziareki linbo gura egin ze paraiso, ta kunplitu ze ladron onai erran ziona lentsago guruzetik guruzera: Hodie mecum eris in paradyso. Egun egoin zara nereki paraisoan. (Catech. Rom. hic). Bete zitue gozos ta glorias guziak, eta nork erran sandu gaien ongiotorriak, bedezioak ta enhorabuenak? Diote zenbait teologoek egon ere zela Jaun dibinoa purgatorioan librazera andik ere edo guziak, edo anitz, ellegazen zelaik odol ixuri zuenaren fruitua, ez solamente mundu guzitik barna, baitare lurperaño. (Abreu hic cit. Bonaventuram liberasse omnes, D.Toman aliquas é purgantib. Christum).

6. Irugarren egunean libratu ondoan arima sanda gaiek, garaitu ondoan eriotzea, triunfante itzuli ze Kristoren arima berain gorputza zegon monumentura, ta uniturik gorputzareki jaiki ze bizirik berriro ez beñere ilzekotan; au da artikulo gonon bigarren partea: erresuzitatu zela ilen ertetik bere proprio birtutes. Sanson azkar famatu gartas kontazen du eskriturak (Judic. 16) atrebitu zela sarzera bere etsai filisteoen errejionean bakarrik, ta Gazako ziudadean. Armatu zire filisteoak, ertxizuste portaleak etzeien niondik eskapa; ia uste zute seguroki zeukatela preso Sanson. Baña zer iten du Sansonek? Jaikirik gauas, atrazentu txangaetaik portaletako atariak ta ermatentu soñean oian batera, usten zituelaik burlaturik filisteoak. Nor, dio San Gregoriok (H. 21), nor signifkazen du Sansonek, baizik gure erredenptorea? Eriotzeak ikusi zuelaik ilik guruzean uste zue zela bere sujekziokoa, berzeak bekala. Infernuko prinzipiek ikusi zutelaik jautsirik linboetara, uste zute kautibo ia patriarka gaiek bekala; baña ilen ertean libre dena, inter mortuos liber, libratu preso gaiek guziak, erresuzitatu ze bere indarres nioren bearrik gabe ta niork debeka ezokela. O eriotzea, ni naiz zure eriotzea; o infernua, ni naiz zure destruizalea, erran dezake Jaun dibinoak okasio gontan: Ô mors, ero mors tua; morsus tuus ero, inferne.

7. Pronostikaturik zeuka bere erresurrekzio gau lenagotik. Bein erran zue bere gorputzain tenpluas: desegin zazie tenplu gau ta iruegunes erredifikatuko dut. (Joann. 2).

Berze bein: Ala nola Jonas egon baize balearen sabelean iruegunes, ala egoin da Gizonaren Semea lurraren biotzean. Etze iru egun osorik egon ilik Jesu Kristo, zerengatik orzilarre sanduaren arratsaldeko iruretaikoan ilze ta igande goizean goizik erresuzitatu ze; baña iruegunen parte egin zue ilik: Orzilarre gaua iruretaik alzina, larunbate guzia ta igandeko goizetik zerbait; orgatik erraten da irugarren egunean erresuzitatu zela. Etzue nai izandu esperatu erresuzitazeko azken juizioko eguneraño, erakusteko zela Jangoiko. Esperatu zue irugarren eguneraño, erakusteko zela gizon berdaderoa ta il zela errealki gizon bekala, aski baita orren progutako iruegunen testimonioa ta espazioa. Erresuzitatu ze ilen primojenittoa bekala primogenitus mortuorum, baitio San Pablok (Coloss. 1), zerengatik lenbizikoa ta prinzipalena baita guzien ertean, baitare zerengatik ala nola Adanengatik etorri baize eriotzea, ala Kristorengatik ilen erresurrekzioa; baitare zerengatik nior ez len ta ez gero ezpaita erresuzitatu ta ez erresuzitatuko beregandik, solo Jesu Kristo; gañarako erresuzitatu direnak ta izain direnak, Kristoren birtutes. Baitare zerengatik ordu arteo ta gerostik erresuzitatu direnak erresuzitatu baitire berriz ilzeko; Jesu Kristo sekula ez ilzeko. *Cristus resurgens ex mortuis jam non moritur etc.*

8. Ikusagun erresurrekzioaren modua. Potestade dut, erran zue Kristok, usteko nere bizia, ta potestade dut, berriz arzeko bizi bera. (Joan. 10). Potestade zuen bekala, nai izan zuelaik, juntaturik gorputz il orziareki bere arima, jaiki ze bizirik obiatik glorioso ta eder, lentxago zauries, listus ta odoles itsusturik zegona. Ala nola goibel ilun bat gauas ageri zena, atra orduko iruzkiak goizean parazen baitu bere errañueki askotan brillante luzitua; ario gontara eriotzearen kasos itsusturik zegon gorputz dibinoa, juntazeareki bere arima dibina, itzuli ze bizi ta erresplandeziente, ta (ilauri gañeko losa, trastornaturik zentinela goardian zeudenak) atra ze biziaren ta eriozearen iabea. Il zen biramonean bazarre eginik eskribak ta fariseoak joan zire Pilatosengana ta erran ziote: Jauna, oroitu gara ezi engañazale garrek (engañazalea deizeunte Jesu Kristo!) erran zuela bizi zelaik orañik: erresuzitatuko naiz iruegunen buruan. Mana bez bada, goardia iteko sepulkroan irugarren eguneraño, estoazingatik bearbada bere diszipuloak ta ebas dezaten, ta erran dezoten gero jendeari: erresuzitatu da ilen ertetik; eta gaistoago izain da azkeneko engañua lenbizikoa baño. O malizioso gaistofikatuak, judio billanoak. Errespondatu ziote Pilatosek: Or daukazie goardia, zoaste ta goarda zazie dakizien bekala. Aiek joanik, sellatu zute sepulkroain losa ta inguratu zute goardies. (Mat. 27.). Baña esta dilijenziarik, ez indarrik, ta ez astuziarik Jangoikoaren kontra. Jangoiko bekala Jesukristok erresuzitatu zue bere gorputza judio ta goardia guzien bortxa, ez beñere ilzekotan. Au da sinestazen duguna artikulo gontan, diogulaik jautsi zela linboetara, irugarren egunean erresuzitatu zela ilen ertetik bere birtute propios. Ta au da zelebrazen duguna bazkoako egun gebetan erratendigulaik elizak: *Haec dies quam fecit Dominus, exultemus et laetemur in eâ*. Au da Jangoikoak in duen eguna, izagun plazer ta alegria ontan; baitare Juan de Salbore (sic) eguneraño guzietan, ainberze alleluiaeki ta zirio paskoale itxekirik egon bear duenareki signifkazen duguna, kunpliarastendigulaik bazkoareki guziei denbora gontako, erresuzita gaizengatik gu bekatuen eriotzetik graziaren bizitzara. Aizagun, bada, guziek San Pablo erraten digula: *Si consurrexistis cum Cristo, quae sursum etc.* Erresuzitatu barin bazarate Kristoreki, deseatu ta billazkizie ia gorako gauzak, ez lurrekoak. Ala fielak, zer probetxu dugu bizizeas bekatuen korrupzioanean, baizik infernu sekulakoa? Bizi gaizen Jangoikoaren grazian, igateko gero ikustera ta gozazera Jangoikoa bere glorian. Deseo goneki inzkigun biotzes fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinestazen dut, etc, etc, etc.

Serm.37.

De eodem 5o symboli articulo.

ann.1779

Tertiâ die resurexit (sic) â mortuis.

Ex symbolo apostolico S. Thomas.

1. Erranik borzgarren artikuloan diona Kredoak, erresuzitatu zela Kristo iltarugarren egunean, ekarragun zenbait progu erresurrekzio gonena, zerengatik da sinestatu bear diren artikuloetaik prinzipala; ta dion bekala San Pablok (1 Cor. 15): Ezpada erresuzitatu Kristo, banoa da gure fedea. Ikusagun, bada, zenbait testimonio. Laur ebanjelistek beñik bein iten dute anitz aldiz menzione erresurrekzio gontas. San Pedrok ta San Pablok aipazen dute firmeki beren kartaetan, ta beren predikuen zimenduan parazen dute au, asegurazeko doktrina predikatu zutenaren egi eta fedea. Apostoluen akta edo akzioneer libruan prinzipiotik azkenearno erresurrekzio gonena testimonio ematen da, eta suponizen da apostoluen ofizio prinzipalena bekala izatea testigo Kristoren erresurrekzioneer. Eta ala, konzilio inzutenean elejizeko amabigarren apostolua, baita San Matias Judas galdu zenaren lekuan, minzatu ze San Pedro ta erran zue: Da preziso elejizea norbait, izateko gureki bateo testigo Kristoren erresurrekzioneer; oroat, nola erran balu: Da preziso elejizea apostolu. (Act. 1).

2. Jesu Kristo berak bere bizian anitz aldiz aipatu zue. Bein, berze askoen ertean, konfesatu zuelaik San Pedrok Jangoiko biziaren seme, erran zue: Da preziso nik padezitzea, ilzea ta irugarren egunean erresuzitazea. (Math. 16). Berze bein, transfiguratu zelaik Taborko oianean, erran ziote San Pedro, San Juan ta Santia gori etzozuela niori kontatu bisione gau, aliketa erresuzitatuartaño Gizonaren Semea ilen ertetik. (Math. 17). Berze bein, zoezilaik Jerusalena, erran ziote: Orra, bagoaz Jerusalena, ta izan bear dut entregatua ta sentenziatua ilzera; burlatua, azotatua ta gurezifikatua; ta irugarren egunean erresuzitatuko naiz. (Math. 20). En fin, azken gau gartan erran ziote apostoluei: Zuek guziek eskandalo padezituko duzie nere baitan gau ortan, zerengatik eskribiturik dago: ilen dut arzaia ta barratuko dire saldoko ardiak; baña erresuzitatu ondoan alzinatukonazaistet Galileara, an ikusiko nauzie. (Ib. 26.). Ainberze kuidatu zue adbertizeas bere erresurrekzioa il ondoan. Baña erresuzitaturik ikusi zutenak ta paratu ziren lanzeak dire testigorik obrenak, zerengatik dion bekala apostoluen akzioneer libruak lenbiziko kapituloan, monstratu zizaiote bere pasioas geros bizirik anitz progutan berrogei egunes, aliketa igan zen artaño zerura, Juan de Salbatore deizen dugun bekalakoan.

3. Lenbiziko testigoak dire sepulkroain goardiak. Paratuz uste goardiak judioek, erranik Pilatosi ezi engañazale garrek erran zuela erresuzitatuko zela irugarren egunean, orgatik zela preziso goardazea sepulkroa etzezen ebatsi bere diszipuloek, ta erran gero erresuzitatu zela. (Math. 25.). Goardatu zute sepulkroa soldadoek, baña ezukete debekatu etzeien jaiki sepulkrotik Jesu Kristo Jangoiko dena. Aien guzien erditik, terremoto andi bat eginik, Jangoikoaren aingirua zerutik etorria sartu ze ta ilauri zue sepulkroain losa ta jarri ze arren gañean, erakusteko Maria Magdalenai ta berze Mariai ikustera joan zirenai, etzegola ia an Kristo, baizik erresuzitatu zela. Goardietatik zenbaitek, joanik, kontatu ziote sazerdoteen prinzipieei gertatu zen guzia. Eta batzarre eginik, eman ziote gaistofikatuek diru kantidadea goardiei, erran zezatengatik ezi aiek lo zeudelaik, etorririk berain

diszipuloek ebatsi zutela gorputza. Kunplitu zute enkargua. Baña irri iten du San Agustinek judioen malizia itsuas itz gebeki: Zer da erran duzuna, astuzia desdixatua? Ainberze dezakezula despeitu konsejuaren argitasuna, errateko alako gauza? Erran zazie ezi lo zaustelaik ebatsi dutela gorputza? Testigo lo daudenak dakarzkizu. Lo barin bazeude, nola ikusi dute ebasten, errateko ebatsi dutela lo daudelaik? Zuek baizauste lo, ez ikusteko egiaren argitasuna (Math. 28. Aug. in psalm. 63. Sabb. Sancto).

4. Anitzei agertu zizaiote erresuzitaturik Jesu Kristo, ta bere Ama Santisimari lenbiziko lekuan dudarik gabe; baña au estute kontazen ebanjelariak, zerengatik izanik ere Maria Santisima egiaren ama, alaere testigo sospetxaskoa bekala bere Semearen fabore etzute sinestatuko judioek. Kontazentuste, ordea, berze franko zeñek ikusi baizute: Santa Maria Magdalena, berze emasteki piadosabazuk, San Pedro, bi diszipulo Emausa zoezinak ta diszipulo guziak junto, ta zenbait berex okasio diferenteetan. Emastekibazuk, Maria zutenak izena, izan zire lenik progatu zutenak Kristo erresuzitatu zela. Igande goizean, lazki goizik, joan zire sepulkroa ta ikusi zute ilauririk losa; ta aingiruak erran ziote etzegola ia an Kristo, baizik erresuzitatu zela, ta zoezila ematera abisu apostoluei. Bazoezi laixterka ta atra zizaiote bidera Jesu Kristo ta erran ziote: Jangoikoak salbazaistela. Eta aiek belaurikaturik berain oñetan adoratu zute. Eta erran ziote Kristok: Zoaste, konta zozie apostoluei ta doazila Galileara, an ikusiko nautela. Ala kontazen du San Mateok ogei ta zorzigarren kapituloan.

5. Maria Magdalena, dio San Juan ebanjelistak joan zela igande goizean, iluna zegolaik orañik, ta ikusi zuela kendurik losa monumentutik. Joan ze laisterka ta kontatu ziote San Pedro ta San Juani erraten ziotela: edeki dute nere Jauna obiatik ta estakigu non paratu duten. Joan zire berla biak laixterka ta San Juan ellegaturik lenik ta beiraturik monumentura ikusi zitue oialak an baña etze sartu monumentuan. Ellegatu ze San Pedro ta sartu ze, ta ikusi zitue oialak ta buruan paratu zioten pañoloa berex. Itzuli zire biak baña Magdalena gelditu ze monumentuain ondoan nigarres. Ala zegolaik, beiratu zue monumentura ta ikusi zitue bi aingiru txuris bestiturik zeudela: Bat bururdikoa aldean, berzea oñen aldetik, Kristoren gorputza egon zen lekuan. Erran ziote: Emastekia, zerengatik iten du nigar? errespondatu ziote Magdalenak: Zerengatik erman baitute nere Jauna ta estakit non paratu duten. Au erran ta itzuli ze atzerat, ta ikusi zue Jesus txutirik ta etzekia Jesus zen. Erraten dio Jesusek: Emastekia, zerengatik iteunzu nigar? Zer billazeunzu? Arrek, ustes zen baratzezaia, erraten dio: Jauna, orrek kendu barin badu, erran bezada ta nik ermako dut. Erraten dio Jesusek: Maria. Orduan, ezaundurik erraten dio Magdalenak: Maestru Jauna. Zoaz, manazen dio Jesusek, ta erran zozute apostoluei, igan beautela nere Aita ta aien Aitagana, nere Jangoiko ta aien Jangoiko denaingana. Joan ze Maria Magdalena ta kontatu ziote ikusi zuela bere Jauna, ta erran ziola orai aitu duguna. (Joann. 20)

6. Egun gartan berean zoezi, dio San Lukasek (24), bi diszipulo kastelu batera Emaus deizen zenera, Jerusalendik iruogei estadio aparta zegonera; ta zoezi platikazen Jerusalem gertaturikako gauzes. Ala zoezilaik konbersazioan, urbildurik Jesus, zoeie aieki, baña etzute ezaundu nor zen. Erran ziote: Zer platika dire dardukazien goiek elkarreki? Ta zertas zauste triste? errespondatu zio bietaik batek: Zer? Ori solo da etorriberria Jerusalem, ezpaitaki gertatu dena an egun gebetan? galdein ziote: Bada, zer da gertatu dena? erran ziote aiek Jesus Nazaretdarras, baize profeta poderoso itzetan ta obretan, Jangoikoaren ta puebloaren alzineko, eta nola entregatu duten eriozera sazerdoteek ta prinzipeek, ta guruzifikatu duten. Guk esperazen gindue bera zela

erredimitu bear zuena Israel, ta orai, guzien gañetik au da irugarren eguna gertaturik gauzaebek. Bai, ta gure emastekibazuek lotsatu gaituste, zeren joan dire argitubaño len monumentura, ta estutelaik aurkitu gorputza, etor dire errateareki ezi ikusitustela aingiruak ere, diotenak bizi dela. Eta joan dire gure lagunetaik zenbait monumentura, eta aurkitu dute ala dela, emastekiek erran bekala, baña bera estute aurkitu. Orduan erran ziote berak: O tontoak ta biotzes tardoak sinestazeko profetek erranikako gauzak! Estakizie zela preziso padezizea au Kristok ta ala sarzea bere glorian? Eta asirik Moises ta profeta guzietaik explikazen ziote bere gain ziren eskritura guziak. Bitarteo, urbildu zire zoazin kastelura ta berak iduriarazi ziote alzinago zoeiela. Baña obligatu zute geldizera, errateareki: geldi bedi gureki, Jauna, zerengatik alzina doaie arratsaldea ta sarri iluna da. Ta sartu ze aieki. Eta gertatu ze jarri zirelaik maian, artu zue ogia, bedeikatu, partitu ta ematen ziote; ta idiki zizaizkiote begiak ta ezaundu zute, baña desaparezitu zizaiote instantean. Orduan erran zire elkarri: Etzego akaso gure biotza itxekirik debozioan minzazenzigulaik bidean ta deklarazenzizkigulaik eskriturak? Eta jaikirik, ordu berean itzuli zire Jerusalem ta aurkituzuste ameka apostoluak bildurik berze frankoeki, ziotela ezi erresuzitatu zela errealki Jesu Kristo ta aparezitu zizaiola San Pedrori. Eta aiek kontatu zute pasatu zizaiotena bidean ta nola ezaun duzuten ogia in partizean. (Luc. 24.).

7. Platika ebetan zeudelaik, paratu zizaiote erdian Jesus ta erran ziote: Bakea zuei. Ni naiz, etzaistela beldurtu. Turbaturik ta lotsaturik, diszipuloek uste zute ikusten zutela espirituaren bat; baña erran ziote Jesusek: Zerengatik zauste turbaturik? Ikuskizie nere eskuok ta oñok, ezi ni neurau naiz errealki; uki nazazie ta ikusazie, ezi espirituak estu aragi ta ezurrik, ni ikusten nauzien bekala dutela. Au erran ta erakutsi zizkiote bere eskuak ta oñak. Alare etzutelaik sinestazen, baizik zoraturik zeudelaik gozos, erran ziote: Bauzie emen zerbait jateko denik? presentatu ziote arrai porzione bat errerik ta esti orratze bat, ta jan ondoan aien alzinean, eman zitiote sobratuak. (Luc. 24). Okasio gartan eman ziote apostoluei potestade barkazeko bekatuak. Etzego an Santo Tomas, etor zelaik Jesus; erran ziote gero apostolu lagunek: ikusi dugu gure Jauna. Errespondatu zue Santo Tomasek: Ezpaut ikusten arren eskuetan itzeen kuntzea ta ezpaut sarzen nere eskua berain bularreko lllagan, estut sinestatuko. Zorzi egunen buruko, bada, zeudelaik bere diszipuloak ta Santo Tomas ere bai junto, sartu ze Jesus ertxirik atariak ta erran ziote: Bakea zuei. Gero erran zio Santo Tomasi: sar zazu zeure eskuoi nere kostadoko lllagan ta ikuskizu nere eskuok, ta etzaitela izan sinesta gaiza, baizik fiela. Errespondatu zio Santo Tomasek: Nere Jauna ta nere Jangoikoa. Orduan Jesusek: Zerengatik ikusi nauzun, Tomas, sinesta zeunzu; ditzosoak ikusi gabe sinestazen dutenak. Ainberze modus progatu ziote bere erresurrekzioa (Joan. 20).

8. Gero berriz manifestatu zizaiote Jesus diszipuloei Tiberiasko itsasoan gisaontan: Zeude junto San Pedro, Santo Tomas, Natanael, Zebedeoain semeak ta berze bida diszipuloetaik. Erran ziote San Pedrok: Banoaie arrantzara. Errespondatu ziote berzeek: Bagoaz gu ere zureki. Joan zire ta sartu zire onzian ta deus etzute arrapatu gauartan. Ellegatu ondoan goiza, agertu ze itsasbasterrean Jesus, baña etzute ezaundu. Erran ziote Jesusek: Bauzie jateko zerbait? Ez Jauna. Bada, bota zazie sarea eskuieko alderat ta aurkitukouzie. Botatu zute ta ia etzukete tiratu sarea bere gana arrai kantidadeain kasos. Erran zio orduan San Juanek San Pedrori: Gure Jauna da. Aitu zueneko, San Pedrok paratu zue tunika ta bota ze itsasora, ta joan ze oñes itsasoan. Ellegatu zirenko guziak lurrera, ikusi zute brasa eginik, ta arrai bat errezen ta ogia. Erran ziote Jesusek: Ekarzie orai arrapatu duzien arraietaik. Joazen San Pedro ta atra zue sarea beterik egun ta

berrogeita amirur arrai andis. Erran zioten orduan Jesusek: Zatoste ta bazkal zazie. Eta berak arturik ogia eman zioten, ta oroat arraietik. Azkenik agertu zizaioten zerura igan zen egunean; orduan kontatuko dugu. Asko progaturik dago solo lanze gebetas, erresuzitatu zela Kristo glorioso, ta ez ilzeko berriz. Ojala gure arimak erresuzitatu balire bekatuain eriotzetik ain zierto, ez itzulzeko berriz ilzera, izandezatengatik ditxa, apartazen direlaik gorputzetaik bolazeko ikustera Jesu Kristo; ta gorputzek ere bai, azken juizioko egunean erresuzitaturik, partizipa dezaten arimen glorias Jesu Kristo berain merejimentuen medios. Au sollik pretenditu bear da, ontara biz gure ansia guzia. Bai, ta inzkigun ia orai fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinest., etc.

Serm. 38.

De 6o symboli articulo.

ann. 1779

Ascendit ad coelos, sedet ad dexteram Dei Patris

Omnipotentis. Ex symbolo apostolico S. Jacobus.

1. Erranik Kredoaren borzgarren artikulo fedeskoa, baita jautsi zela Jesu Kristo linboetara ta irugarren egunean erresuzitatu zela ilen ertetik, segizen da seigarrena: igan zela zeruetara ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean. Artikulo gonek ditu bi parte: Bata da Kristoren igatea zerura, berzea zeruan duen gloria exzelente soberanoa. Sinestazen duguna substanzian da au: Ezi Jesu Kristo Jangoiko Gizona, guregatik zerutik jautsi, enkarnatu, bizitu ta il zena ta irugarren egunean erresuzitatu edo bizitu zena uniturik bere gorputz ta arima gloriosorik, gero nai izan zuelaik igan zela bere birtute propios gorputz ta ariman zerura; ta an duela Aita eternoak ta Espiritu Sanduak bezanbat gloria Jangoiko ta Trintateko persona bekala, Aita ta Espiritu Sanduareki bat dena bekala; ta gizon bezan bates, aingiru ta sandu guziek baño gloria ia bakarrik berak, bere trono goienean.

2. Au berau atraraziko dut obeki, galdetus ta errespondatus. Nor igan ze zeruetara? Jesu Kristo gure Jauna. Jangoiko bezan bates edo gizon bezan bates? Gizon bezan bates. Nola etze igan Jangoiko bezan bates? Zerengatik Jangoiko bezan bates an zego beti ta etze andik apartatu beñere. Nola bada, erraten da jautsi zela zeruetatik Berbo Dibinoa enkarnazera? Ala erraten da signifikaizeko humillatu zela unizera bereki gizontasuna; baño ez signifikaizeko utzi zuela zerua etorzeagatik mundura. Beras, jautsi zelaik mundura, etzue utzi zerua? Etzue utzi. Eta igan zelaik zerura, etzue utzi mundua? Estare. Entendazen da Jangoiko bezan bates, zerengatik Jangoiko bezan bates beti da inmenso ta beti dago leku guzietan. Baña gizon bezan bates utzi zue mundua, igan zelaik zerura presentzia bisiblea bezan bates, zerengatik presentzia bisiblean ikusi daiken moduan estago munduan len egon zen bekala; baño presentzia inbisibleas, au da, ikusi estaiken moduan, dago presente errealki aldareko Sakramentuan mundu ontan. Ta ala da egia igan zela errealki ta gelditu zela errealki; dagola zeruan errealki ta dagola munduan ere errealki, baño egoteko modu diferentean. Igan ze ta dago zeruan presente leku okupatus ikusi daiken moduan. Gelditu ze alaber bera, ta dago munduan sakramentaturik ikusi estaiken moduan; baño ain errealki ta berdaderoki nola zeruan. Guziau adiarazi zue Kristok berak bere despedidan: Banoaie, erran zue, nere Aitagana, vado ad Patrem; eta orra zueki ere geldizen naiz sekula guzian, et ecce ego vobiscum sum usque ad consummationem saeculi; zein ezpa dezakegu ere konprehendi nola den gure entendamentu laburres, dezakegu ta bear dugu sinestatu posible guzis poderosoaindako zerengatik baitio fedeak. (Trid. de euchar.).

3. Eta nola igan ze zeruetara? Bere birtute propios niork lagundu gabe: Nai ta igan; ez Elias bekala, izan baize eramana susko karroza batean; ez Abakuk profeta ta Filipino diakona bekala, zein goraturik airean bolatu baizire anitz legoa bide berzeren birtutes. Etze ala igan Jesu Kristo, baizik bere birtute propios, ta ez solamente bere Jangoikotasunaren poderio infinitoagatik, baitare gizontasunes zuenagatik; zerengatik ezpazake ere egin au indar naturales, baño bere arima dotaturik zeukan birtuteak mogitu zuke gorputza nai bekala, ta gorputzak erdetxi zuenak ia gloria obedizen zue aisa arimaren

impulsora. Orgatik sinestazen dugu Kristo igan zela zeruetara bere birtute propios, ez solamente Jangoiko bezan bates, baita gizon bezan bates ere. (Catech. Trid. v. Rom. hic n. 2). Baliatu ze aingirues igateko? baliatu ze aingirues, ez lagunzalees bekala, baizik akonpañazalees bekala, honrazen zutela soldado zeruko gaiek beren Errege biae triunfante gartan. Akonpañatu ere zute linbotik zerura erman zituen justo gaiek ezaun zeien zela aingiruen ta gizonen Jaun ta Prinzipe, akonpañaturik zoeiena aingirues ta gizonen. Zeruetara, erraten da, signifkazezko pasatu zituela guziak, ellegatu arteo goienara bere Aita eternoaren tronoraño, artus posesio guzietas; ta an dago orai jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean.

4. Zer nai du erran dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean? nai du erran, daukala an Aita eternoak adiña gloria Jangoiko bezan bates, ta ango bienabenturatu guziek baño ia gizon bezan bates. Dagola jarririk, erraten da, ez adiarasteko gorputzain postura, zerengatik nai duen posturan dago, ta San Estebanek ikusi zue zegola txutirik; baño jarririk dagola erraten da, adiarasteko asentus ta betikos duen posesio firme konstantea potestade ta gloria erreale supremoarena. Aita eternoak estuelaik eskuieko ta ez ezkerrik, izanagatik espiritu puroa, erraten da alaere dagola Aita eternoaren eskuieko aldean gure minzaze modura, adiarasteko honra egin diona Kristoren gizontasunari. Zerengatik ala nola gutartean iduri baizaigu honra ia iten diogula parazen dugunai eskuieko aldean, ario gontara guri adiarasteko, Aita eternoak ia estimazio, honra ta gloria egiten diola Jesu Kristori aingiru ta guziei baño, erraten da dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean dauzkielaik bere pean zerua ta lurra, aingiru, gizon ta kriptura guziak. Humillatu ze ezin iagos bere pasioan, orai dago gora ezin iagos bere glorian. Entendazeko orañik obeki artikulo gau, konta zagun llanoki gertatu zena San Lukasek ta Aita Sanduek diotenes. (Actor. 1.)

5. Berrogei egunes, erresuzitatu ondoan, mostratu zizaiote bere apostoluei Jesu Kristo bizirik mundu ontan anitz argumentu ta proguren medios, ta minzazen ziotela Jangoikoaren erreinuas. Azkenean, bazkal ondoan joanik Olibeteko oianera, guziek ikusten zutela, goraturik bere eskuak, botatu ondoan bedeizioa bereei, elebatu ze ta joan ze iganes zerura gutibana, beira zeudelaik bere diszipuloak nola igaten zen; ta azkenik lañu batek estali zue zeruan aien begietaik. Akonpañatu zute linbotik atrarikako arima sanduek, ta idikirik zeruak ta etorririk ango aingiru guziak, nior gelditu gabe, paratu zire bi hileratan zerutik lurreraño edertasun ta ordena andiareki: Goienean serafinak, urbilenak kerubinak; gero tronoak, dominazioneak, prinzipadoak, potestadeak ta gañarakoak; ta guzien erditik igan ze Jaun dibinoa majestade, ponpa ta triunfo exzelenteareki, diotenes Aita Sanduek (Cl. cat. p.2. c.19.), garaiturik mundua, demonioa ta bekatua; akabaturik gure erredenzioneko obra miragarria; idikirik nautenendako zeruko bidea ta ataria. O egun zelebrea andia! Nork erran zeruko festak ta alborozoak egun gartan! Zer nobedadea ainberze habitante berri sarzeas? Obeak dire konsiderazeko gauzaebek, errateko baño. Konsidera bez bakotxak.

6. Motibo izan zituenetan igateko zerura da bat, zeren gorputz dibino gura etze arrazio gelditzea mundu gontako habitazio lurrekoan, baizik kolokazea zeruko palazio brillante gartan; baño ez solamente joan ze arzerara posesio erreinu gartas, baitare disponizera gure salbazioko gauzak. Igan ze ere adiarasteko bere erreinua etzela munduontakoa, emengo ondasun ta gauza terreno banoetan fundatua, baizik eternoa, espirituala, inmensoa; birtute ta merejimentus iragazten duena naiz pobreak naiz despreziatu denak mundu ontan (Cath. Rom. hic). Benefizio dugunes Kristo gure Jauna

zerura iganas, nork erran dignokiro? Beñik bein berabaitan ikusten da gure naturaleza goraturik izarren gañera aingiruetatik alzinago, ta berze alde, bera sarzeareki idiki zire ango atariak sarzeko orduan justu lenagoko gaiek ta gerostik onat izaten diren guziak. Dugu berze alde berabaitan abogatu ta patrono andi bat gizonek, Jangoikoaren alzineko beti bizirik dagona, interzedizeko gure faboretan, erakustentuelaik trono supremo gartan, guregatik errezebiturikako llogen kuntzeak. Ta en fin, dago an prebenizen kristioendako lekua gloria gartan, erran zioten gisan apostoluei: Vado parare vobis locum. Banoaie disponizera zuendako lekua; baña baldin segizen badiogu erakutsi digun bideas ta utzitigun exenplues. Espiritu berak, dio San Pablok, ematen dio testimonio gure espirituai, gara dela Jangoikoaren semeak; semeak izanik, herederok ere bai, herederok Jangoikoarenak ta Kristoren herederok lagunak: Si tamen compatimur ut et conglorificemur. Baña baldin padezizen badugu berareki, izateko berareki glorifikatuak, añaizzen du apostoluak. (Rom. 8.). Baña uste dut, dio, estirela korrespondiente emengo trabajuak esperazen dugun gloriaindako; ta berriz dio: Oraiko trabajuen puxka labur gonek obrazen du gloria kantidad bat eternoa zeruetan.

7. Baña da imposible ellegazea gloria berera ta ez bide beras: Zerura infernuko bideas, goien gartara bide beiterakoas; diot, estaikela nior sartu Kristoren konpañian estuenak bizi nai Kristoren konforme. Kristoren imitazioa bere ebanjelioko erregla da, ararako bide erreala; estu gozatuko an Kristo estuenak emen imitatu nai bere ariora; estu izain lekuri glorian estuenak goardazen berain mandamentuak. Gure bizioetaik inen dugu eskalera, dio San Agustinek, baldin garaizen ta oinperazen barin baitugu bizioak. Zerengatik ontasunaren aukoreareki esta igaten malizia, estare Birjinaren Semeareki desonestidadea. Estaizke igan bizioak birtuteen Aitaren atzean, estare bekatuak justoa ta sanduaren atzean. (S. 176). Orgatik suberbo denak, edo emendatu suberbia, edo errenunziatu zeruas. Kodiziosoak inbeites liberal, edo errenunziatu glorias. Luxuriosoak inbeites kasto, edo errenunziatu Jangoikoaren aurpegia ikustear. Biziosoak ta gaistoak, edo ondu ta in birtuoso, edo errenunziatu Kristoren, Maria Santisimaren ta sanduen konpañias sekulakos. Peregrino gaude orai ta biajante, zeruain ta infernuain ertean; sarri izain da gure emengo despedida sekulakoa, edo gora, edo bera; zertan deskuidazen gara bitarteo plazo brebe gontan? Nola estugu suspirazen, digula zerutik Jesu Kristok bere eskua, igateko gu ere naiz arrastaka? Nola estugu klamazen gauas ta egunas, in dezagula karidade admitizeas gu ere bere konpañian? Goardazeas guretako leku puxka bat, naiz dela azkena bere glorian? Zeruko erreinua iragazten da indar egines, dio Jesu Kristok, regnum coelorum vim patitur. (Math. 9.). Esta floxo, deskuidatu ta ajolarik estutenendako. Obra, trabaja, suspira, eska ta eskatu bear da dilijenteki, ta guzien gain Jesu Kristoren amorios anhelatu bear da beragana, ta ezkaitu utziko kanpotik gisa ontan.

8. Aizagun exenplutto gau. Kontazen du San Bernardino de Senak, joan zela kaballero birtuoso noble bat bisitazera leku sandu gaiek zeñetan Kristok obratu baizue gure erredenzionea, lendanik konfesa komekaturik, bisitazeko fruitu iagoreki. Joan ze Nazareta ta bisitatu zue lenik Ama Birjinaren etxe sagratua, kontenplatus Kristoren enkarnazioa donzella garren entraña sanduetan gure salbazeagatik. Pasatu ze andik Belena ta kontenplatu zue portale gartan Kristo Jangoikoaren Semea aur eginik ta erreklinaturik ganbela gartan. Bisitatu zue Jordango ugaldea, non bataiatu baize bekaturik in etzukea; desertu gura, zeintan barutu baize Jaun dibinoa. Pasatu ze Jerusalem ta kontenplatu zitue an pasaturikako lanzeak Kristoreki bere pasioan. Igan ze kalbarioko oianera, an kontenplatu zue il zen ta ilik biziaren autore guregatik, desegiten zela negarres kaballero

ona. Bisitatu zue sepulkro Kristorena ta azkenik joan ze Olibeteko oianera, nondik Kristo igan baize zerura; apatu zitue oin dibinoen kuntzeak, arri batean estanpaturik utzi zituenak, kontenplatus misterio gau; ta ia enfadaturik munduas ta zerura naies, ansia guziareki eskatu zio Jesu Kristori, in zezon mertxedeia eramateas berain arima bere gana ordu gartan. Aitu zue Jesu Kristok petizioa ta konzeditu zio, ta emanik amoriosko delikio edo desmaio dulce bat, ilze an berean kaballero jenerosoia; ta bolatu ze arima ikustera glorian Jesu Kristo deseatu zuena. Ala guk ere kontenpla dezazkegu misterio gebek, ta espezialki azkenik egungoa, prokurazen dugulaik bialzea gure biotza zerura lendanik, gure tesoroa dagon lekura, apartaturik munduko afizionetaik. Estigu faltatuko Jangoikoak, emateko bere denboran leku piska bat glorian.

Serm. 39.

De 7o symboli articulo.

ann.1779

Inde venturus est judicare vivos et mortuos.

Ex symbolo apostolico. S. Philippus.

1. Expelikaturik Kredoaren seigarren artikulo fedeskoa, baita igan zela Jesu Kristo zeruetara ta an dagola jarriarik Aita eternoaren eskuieko aldean, segizen da zazpigarrena, baita andik etorko dela azken juizioko egunean ilen ta bizien juzgazera. Arrazio andiareki paratu zute apostoluek artikulo gau Kristoren zerura igatetik urbilena, zerengatik Jangoikoak berak triunfo zelebren gartan oroiarazi ziote apostoluei juizioko eguna; zerengatik zeudelaik apostoluak beira zerura Jesu Kristo igaterakoan ta igan ondoan, etorriarik bi aingiru aiengana, erran ziote: Zertan zauste beira zerura? Jesu Kristo Jaunau zuetaik ta zuen alzinean orai zerura igande nau, ala etorko da nola ikusbaituzie igaten. (Actor. 1.). Doktrina ona ematen zaigu guziei zerengatik estakit zer den ezi ausentazen delaik karguduna, sueltoago ta deskuidatuago iten dire subditoak geien komun, zeñek ezpaileizke atrebi egitera asko gauza, presente balego ura. Bada, ez dezagun pensa ezi iganagatik Kristo zerura, ain ausente dagola ez dezan ikusi iten dugun guzia. Etorko da, errateunte aingiruek, igan ondoan Kristo, etorko da guzien juzgazera; erranbalezagute bekala: Beira zer aizaraten ta nola bizizaraten, ezi zeruan dagolarik ere, ikusten du guzia; ta ala etorko da guziei beren obra, itz ta pensamentues kontu arzer ta ematera aien konforme sententzia. Artikulo gonon sentidoa da ezi zerutik Jesu Kristo egun bates mundua akabazen delaik, guziok erresuzitatu ta bildu ondoan Josafatko zelaian, jautsiko dela majestade andiareki guzien Juez soberano bekala ilen ta bizien juzgazera. Ilak ta biziak entenda daizke lendanik ilik zeudenak ta orduan bizirik egoin direnak, egun gartan il ta berla erresuzitatuko direnak; edo ilak ta biziak entenda daizke onak ta gaistoak. (Aug. Enchirid. c.55.)

2. Entendazeko obeki. Goazen galdetus ta errespondatus. Etorri da ia Jesu Kristo mundura? Bai, Jaunak. Noiz? Bere enkarnazio egunean edo gizon egin zenean Ama Birjinaren entraña sanduetan, orai duela milla zazpitan egun ta lauetan ogei urte. Eta igan ze zerura? Baitare. Noiz? Ogei ta amalaur urte pasaturik munduan, kontaturik bere amain sabelean egonikako ilabeteak ta ia berrogei egun erresuzitatu ondoan pasaturik, igan ze Joan de Salbatore egunean bekalakoan. Bai, ta itzuli bear du berriz mundura? Bai orañik. Noiz? Azken juizioko egunean. Noiz izain da egungoi? Estaki niork, esta angiruek ere egun ta ordu gura, solamente Jangoikoak daki puntualki. De die autem illâ, et hora nemo scit, neque angeli, dio Jesu Kristok. (Math. 24). Solo dakigu ala jeneralki, izain dela munduaren akabanzan azken juizioko eguna. Zer da juizioa? Da Jangoikoak artu bear duen kontu ta erresidenzia, guzien obra ones ta gaistoes. Eta zerengatik deizen da azken juizioa? deizen da juizio azkena ta unibersala ura, zerengatik lenago izan bear dugu bakotxak geuren juizio ta sententzia partikulara. Bi juizio izaintugu beras: Bata partikulara, berzea unibersala.

3. Juizio partikulara iten da bakotxa ilzen den instantean, zeintan artuko baizaio kontu bizi guzias ta emanen baizaio sententzia mereji duena, nioiz aldatuko estena. Ontas dio San Pablok (Hebr. 9): Statutum est hominibus semel mori, post hoc autem iudicium.

Dago dekretaturik gizon guziei ilzea bein, ta il ondoan juizioa. Por konsigiente, exekutatuko da sententzia ta bazuk joain dire sekulako infernura, berzebazuk sekulako gloriara. Juizio unibersala deizen da eta iten da guziei bateo ta junto leku batean guzien alzinean, guzien onra ta gaistoak agerzen direlaik ta konfirmazen delaik len emanikako sententzia; egun batean zein deizen baita Jangoikoaren eguna, iraren, kalamidade ta miseriaren eguna, egun andia ta txoil amargoa. Dies illa dies irae, calamitatis et miseriae, dies magna et amara Valde. Ontas dio San Pablo berak (2o Corint. c.5): Omnes autem nos manifestari tribunal Cristi, ut referat unusquisque propria corporis, prout gessit, sive bonum sive malum. Gu guziok da preziso presentazea Kristoren tribunalaren alzinean, kontu emateko bakotxak gorputzean bizi zelaik in zuenas in zuen bekala, on edo gaisto. Jauna, bada, esta egia Jangoikoaren grazian ilzen direnen arimak berladanik doazila zerura? Bai. Ta purgazeko zerbait dutenak purgatoriora? Baitare. Ta purgatu ondoan berla zerura? Baitare. Ta Jangoikoaren desgrazian ilzendirenenak infernura? Baitare. Beras, juizioko egun gura baño len il direnen arimak joanik egoin dire zerura, edo infernura. Ala da. Orduko bakotxa egoin da bere lekuan, ez galzekos ta ez librazekos beñere? Ala da. Bada, zer motibos izan bear da juizio unibersala, ezpada berritu bear nior bere estado sekulakoas, onas edo gaistoas? Da Jangoikoaren probidenziaren sekreto misterioa, berak disponitu ta berak daki.

4. Ala ere zenbait motibo emateunte Aita Sanduek. Bata da, Jesu Kristo Jangoikoaren Semea, izan zena indignoki tratatua bere bizian ta ilzean, egun gartan jarriarik tribunale supremo gartan izan daien honratua denaren ariora zeruaren, lurraren ta infernuaren, denbora, eternidade ta gauza guzien buru, Jaun ta juez bekala, goienean bera, ta bere pean humillaturik daudelaik ez solamente lurreko ta denbora guzietako gizon ta emastekiak, errege, enperadore ta andi deizen zirenak, ta bera juzgatu ta il zuten Pilatos, eskriba, fariseo ta judio guziak, baitare infernuko demonio guziak ere, ta zeruetako aingiru guziak ere bai. Orduan ikusko da nor den ainberze humillatu zen ura. Humillatu ze, dio San Pablok, (Philip. 2) eginik obediente eriozeraño, ta guruzeko eriozeraño, orgatik exaltatu du ta eman dio izen bat izen guzien gañekoa, belaurika daien Jesusen izenera zeruan, lurrean ta infernuan den guzia, ta mi guziak konfesa dezan Jesu Kristo Jauna dagola Jangoiko Aitaren glorian. Berze motibo bat da ager daiengatik guziei Jangoikoaren justiziaren txuxentasuna, ala unibersoaren gobernuan, nola bienabenturatupei ta kondenatupei eman zioten sententzia. Gertazen da emen ilzea gastea, bizitzea zarra, gaistoa triunfante, ona pobre miserable, ta berze mila gauza deskonforme iduriutenak. An ikusko da arrazio duena Jangoikoak bere probidenziain juizioetan, ta zein justoki bota duen infernura an dagona ta zerura zeruan dagona. Berze motibo bat da, nola emen desonrazen baitire ta gaistotako pasazen baitire franko on direnak, ta al rebes franko gaisto direnak ontako baitaude ta honrazen baitire, itzuli dakion an onari mundu guziain alzinean honra emen injustoki edekia; ta desonratuak izan daizen, alaber, guzietaik gaistoak, emen injustoki daramatenak honra, publikazen direlaik antxe obra on ta gaisto; sekretoenak ta biotzetako intenzio okultoenak. Berze motibo bat da, nola gizona emen gorputz ta arimareki bateo bizi baita, iten duelaik ongi edo gaizki, izan daiengatik juzgatua ere gorputz ta ariman; ta nola zenbait bakotx infernura gorputz ta ariman doazines landara, ta zenbait bakotx, alaber, zerura gorputz ta ariman joanikakoes landara, gañarakoen arima sollak egoin baitire gozazen edo penazen, daudelaik aien gorputzak gozorik ta penarik gabe munduan egun gartaraño, da arrazio egun gartan juntaturik elkarreki gorputz ta arima guzienak, izan daizen ia ordutik alzina gorputzak ere partizipante arimen premioas edo

penas, ia ke ta izan ziren partizipante obra onetan ta bekatuetan.

5. Eta, Jauna, non izan bear da juizio unibersala? Mundu gontako leku batean, Josafatko zelaia deizen den batean, baitago Jerusalem urbil, Kalbarioko ta Olibeteko oianen ertean; egoin direlaik leku sandu gaiek presente-testigotako Jesu Kristok egin ta padezitu zuenas guregatik. Eta zerengatik erraten da, Jesu Kristo etorko dela juzgazera? Estu juzgatu bear Trintate guziak, Aitak ta Semeak ta Espiritu Sanduak? Bai, baña Jesu Kristok gizon bezan bates ere du Juezaren ofizio gau, ta bera ikusko da gorputzaren begies, aituko dugu bearries berain boza ta sentituko dugu sentidoes juizio gura (Cath. Rom. n.5. hic). Orgatik erraten da Jesu Kristo etorko dela onen ta gaistoen juzgazera. Nola etorko da? Anitz señaile gertatu ondoan iruzkian, ilargian ta izarretan, baitare lurreko jende, animale, itsaso ta elementu guzietan ebanjelioak dion konforme, barratu ondoan sua mundu guzitik; deitu ondoan tronpetas aingiruek il guziak, ta erresuzitatu ondoan bildurik gaudelaik guziok leku gaietan; idikirik zerua ta atrarik lenbizikorik guruze sandua estandarte dibinoa bekala; ondorean jautsiko da Jesu Kristo majestade ta poderio andiareki, akonpañaturik aingiru guzies. Nork erran munduaren orduko alborotoa? Justoek goratukotuste bibak ta aleluiak alegre; gaistoek marraxkas maldizioak ta blasfemiak. Bilatukoute eriotzea ta ezin aurkitukoute. Oiane eskatuko diote arrapadezkitela pean, ta ezin logra. Naiago lukete egon infernuan orzirik ordu gartan ezi ez jaun arren presenzian ta mundu ta zeru guziaren bistan. Baña naiestutela bortxa, jautsirik Juez soberanoa jarriko da bere tronoan inguraturik aingirues ta sandu prinzipalenes. Zer teatroa, zer tribunalea ura! manatuko diote aingiruei berexdezkitela elkarrengandik onak eta gaistoak, ala nola arzai batek berexten baititu axuriak ta antxumeak; onak eskuieko aldera, ta goiti gaistoak ezkerreko aldera, ta beiti deabrueki nasteka. Zer diferenzia orduan oraikotik? Zenbat errege, andi, poderoso ta abrats egoin dire beiti an! Ta zenbat oraiko pobre desdixatu abatitu egoin dire goiti? Anaietaik bat goiti joain da, berzea beiti. Konsorteetaik oroat; aiskide, lagun ta guzietaik oroat.

6. Berexirik ala, agertuko dire guziei guzien onak ta gaistoak; esta sekreto publikatukoestenik, esta gauza txipirik ta andirik jakinenestenik. Nork erran inentigun karguak Juez dibinoak? Nork adiarazi konfusio rabioso gaistoek izain dutena, estaikelaik exkusa, estaikelaik erremedia ta estaikelaik niora apela? Pensa bakotxak. En fin, emain diote onei beren sentenzia Jesu Kristok amorosoki erraten diotela: Zatoste nere Aitaren bedekatuak, ar zazie posesio zuendako dagon erreinuas. Zer alegria ta algazara justoen orduan! Ta zer enbidia ta errabia gaistoena, ikusirik franko berak baño gaistoago izanak, baña emendatuak, doazela zerura. Itzulirik gaistoengana Juez dibinoa aurpegi lotsagarri bateki, botako diote ausnarri baten gisara sentenzia: Apartazaiste enegandik madarikatuak infernuko su eternora deabrueki sekulakos. Au izain da azken despedida betikos. Ai! Zer iskirituak ta marrakak! Otoi sanduei, ta ez kasorik. Oiu Maria Santisimari, ta ezin balia. Juez dibinoai mila plegaria, ta debalde. Idikiko da lurra ta iretsikotu deabrueki infernuko kalabozo susko gartan, infizio bat lamentu ta nigarren ertean, ta ertxiko da ataria betikos; adio Jangoikoa Jangoiko den bitartaña. Justoak berla milla ta milla grazia ta kontentueki i gain dire zerura gozazera betikos, ta ertxiko da ataria ta Jangoikoak gelditukotu bien gilzak, ez soltazekos sekula. Akabatu da mundu gontako itekoa ta joanetorriak; esta ia jenderik ta deus emen. Kunplitu ze fina ta dago nor bere estado sekulakoan. Orduan urrikia, infernuan daudelaik beti ta beti penetan erremediorik gabe ta esperanzarik ere gabe.

7. Zenbat obe da orai pensazea orduan gertatuko dena ta ajustazea bizimodua?

pensazen badugu ortan, tristetuko gara, jauna. Naiz trista denbora pixka bates, segituko da alegria sana betikoa, ta emen ere bai. Ei, jauna, alegreki suelto bizi bear da atzendurik pensamentu goietas. Naiz bai, baldin atzentzeareki exkusa baledi gertazea; baña zu atzenduagatik, ezpadu atzendu bear Jangoikoak, zer ai zara? Oroitu, oroitu noizean noiz ta erran: Bada juizio, bada nork eska kontuak: Est qui quaerat et judicet; bada nork eman onei premio ta gaistoei kastigo; ta biak sekulakoak, dela goiz, dela berant. Zer ai gara bizitzeas laur egun gustora segitus apetituak, nai bekala arro arroa, zerengatik dagon ixil orai Jangoikoa? Beti egoin da ixil? Edo oroat da gure suertea nola idi, mando ta zakurrena; ilaskeros deus ezpaitute, ta biziareki akabazen baituste nekea ta gustoak? Esta gureki animale goieki bekala. Il ondoan da gure ongi edo gaizki izatea. Orduan ez akabatu, ezi asten dire gure trabaju edo gusto egiaskoak. Oraikoak dire pasajeroak. Esta ditxoso orai ditxoso dena, baizik ditxoso izan bear duena il ondoan. Esta desdixatu orai desdixatu dena, baizik orduan desdixatu dena. Au jakinik, goazen obratus geuren salbazioa, ta asi gaizen fede, esperanza, etc.

Serm. 40.

De 8º symboli articulo.

ann. 1779

Credo in Spiritum Sanctum.

Ex symbolo Apostolico S. Bartolomeus.

1. Akabaturik explikatus Kredoaren lenbiziko zazpi artikuloak, Aita eternoas ta Seme dibinoas dardukatenak, segizen da zorzigarrena, Espiritu Sanduas dardukana, baitio: Alaber, nik sinestazen dut Espiritu Sandua baitan. Sinestazen dugu ontan, dela Espiritu Sandua Trintateko irugarren persona, distinto Aita ta Semeagandik, biengandik prozedizen duena ta bieki jangoiko bat dena. Zein fite ta aisa erran dugun? Ala entendatu bagindu. Entendazeko, explika zagun ia. Nor da Espiritu Sandua? Da Trintateko irugarren persona dibinoa, zeñek prozedizen baitu Aita ta Semeagandik. Espiritu Sandua da Jangoiko? Bai Jauna, oroat nola Aita ta Semea; ain poderoso, ain jakinsu, ain sandu, en fin ain Jangoiko nola berze bi personak, guziak bat baitire Jangoikotasunean. Ta Espiritu Sandua da Aita edo Seme? Ez Jauna, zerengatik baitire distinto personan edo personalidadean. Ezin entenda dezake pobrettoak. Nola adiaraziko diogu? Betor San Agustin: Beira, dio, iruzkia. Irur gauza tuzu artan: Sua, argia, berotasuna. Nondik da argia? Su gartaik. Nondik berotasuna? Su ta argi gartaik. Sua da gauza bat, argia berze bat, berotasuna berze bat; baña su, argi ta berotasun gura estire baizik iruzki bat. (Marsal hic). Esta konparazio kabala, estaike ere izan. Estu orañik entendatu pobrettoak. Gutiago entendatuko du orai diotena.

2. Aita esta niorengandik ez egina, ez kariatua, ez enjendratua ta ez prozeditua. Semea da Aitagandik ez egina, ez kariatua, baizik enjendratua. Espiritu Sandua da Aita ta Semeagandik ez egina, ez kariatua, estare enjendratua, baizik prozedizen duena. Nola da Semearen enjendratu izategoi? Esta lurrekoa bekala, ez milla legoa bides; baizik Aita eternoak bere entendamentuareki beirazen delaik bere esenzian, hispilu batean bekala produzizen du bere iduri bat esenziala: Au da Semea, ta ura deizen da enjendrazea. Nola da Espiritu Sanduaren prozedizegoi? Aita ta Semeak elkar onesteareki produzizen dute amorio bat esenziala: Au da Espiritu Sandua, ta ala da onen prozedizea (Estu entendatu pobrettoak teologia gora gau, nik ere ez. Entendatuko dugu, goazelaik ikustera patente Trintate Jauna. Bitarteo, aski da sinestazea dela Espiritu Sandua Trintateko irugarren persona, Aita ta Semeagandik prozedizen duena; baña orgatik ez geiago edo gutiago dena, baizik igoalki eterno, igualki andi ta igualki Jangoiko dena.

3. Zerengatik, Jauna, irugarren personagoi deizen da Espiritu Sandua? Aita esta oroat espiritu, ta esta sandua? Bai. Seme dibinoa esta oroat espiritu ta sandu? Baitare. Iago diot nik, aingiruak ere dire espirituak ta sanduak. Nola bada, Jauna, estiogu ematen persona gorri izen propioaren bat, ala nola deizen baitugu lenbiziko persona Aita, bigarrena Semea? deizen dugu Espiritu Sanduaren izen komunareki, ez persona gorren perfezione faltas, baizik gure kapazidade faltas; zerengatik nola atribuizentigu Jangoikoari emen usazentugun izenak, ta nola enjendrazen duena deizen baitugu aita, enjendratua semea, ala dakigulaik lenbiziko personak enjendrazen duela, deizen dugu Aita; bigarrena dela enjendratua, deizen dugu Semea; baña irugarrenain prozedize gura estakigulaik nola deitu, ez deizera espirazioa, orgatik deizen dugu Espiritu Sandua. (Catec.

Rom. hic).

4. Orai adbertitu bear da ignoranteendako, ezi pintazen baituste ere Aita eternoa zar benerable baten figuran, Seme dibinoa gaste baten figuran ta Espiritu Sandua uso baten figuran, estirela alakorik batere, baizik irurak espiritu purisimo bat, jangoiko bat; eta nola ezpaitaizke pintatu diren bekala, ala nola ezpaitaizke pintatu aizea, orgatik pintazentuste nauten moduan, ez diren gisan, ezpaitaizke; ta permitizen dire pintura goiek, oroiarasteagatik gu Jangoikoas, ez pensazeko direla desbardinak bere izatean. Adbertitu ere bear da ezi guk atribuizen diogula Aita eternoari podorioa, Seme dibinoari jakinduria ta Espiritu Sanduari amorioa, delarik igoalki poderoso, jakintsu ta amante persona bata nola berzea; orren kasos irurek igoalki obrazentustelaik gureganako obra guziak, ala ere amoriosko obra prinzipalenak atribuizen dire Espiritu Sanduari. Orgatik enkarnazioko misterioan erraten da izan zela Semea konzebitua Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras, izan zelaik, oroat, Aita ta Semearen obras, zerengatik obra gura baita amorioskoa ta amorioa atribuizen baizaio Espiritu Sanduari. Orgatik ere Espiritu Sandua bazkoa maiazekoetan etorri ze apostoluetara susko mi batzuen figuran, signifikaizeko migaieki predikaizeko grazia ta jakinduria ematen ziotena, ta su gartan amorioaren ferborea itxeki zuena aien biotzetan.

5. Denbora gebetan ordenazen duelaik bat sazerdote obispo Jaunak, parazentio eskuak ta erraten dio: Accipe Spiritum Sanctum etc. Errezibi zazu Espiritu Sandua; noren bekatuak barkatukouzun, barkatuak geldizen zaizkio, ta norenak ustentuzun barkazeko, barkatu gabe geldizen zaizkio; signifikaizeko ematen zaion potestade dibinoa. En fin, Espiritu Sandua da bere inspirazioeki gobernazen duena kristiandadea, ta onen burua Erromako Aita Sandua, ala nola Eskritura Sagratuetan dagon guzia baita Espiritu Sanduak diktatua len ta gero: Lenagokoas erraten da mezan kantazen den Kredoan, qui luquutus est per profetas, profetaen agos minzatu zela Espiritu Sandua len erakutsiziguten guzian; ta gerokoas ofrezitu zigu Jesu Kristok, igorriko zuela Espiritu Sandua, erakutsikoiziguna egi eta fede guzia; ta kunplitu ze apostoluen denboran, prosegizen duelaik orai ta beti asistizen Eliza sandari, desanparatu gabe beñere; ta ontan fundazen da ezin utsik edo errorerik izatea Elizako dekreto ta proposizioetan. Orgatik, juntatu zirelaik apostoluak duda baten erresolbizera, erresolbitu zute Espiritu Sanduaren inspirazios, ta ala eskribitu zute itz gebeki: Visum est Spiritui Sancto et nobis. Iduritu zaio ala Espiritu Sanduari ta guri. (Act. 15). Orgatik orai berean juntazen delaik Aita Sanduareki obispo jaunen konzilio jeneralen bat, beren dekretoetan parazentu alzinean itz gebek: Konzilio sanduak juntaturik bear bekala Espiritu Sanduan, edo Espiritu Sanduareki etc. Erran daike azkenean egiareki Espiritu Sandua dela Elizaren biotza bekala. Kristo gure Jauna da Elizaren burua, kristioen superiore, fundadore ta Errege andia den bekala. Maria Santisima dei daike Eliza sandaren lepoa, nondik baitatorzkigu fabore guziak zerutik. Obispo ta arzai espiritualeak dire begiak bekala, zerengatik zentinelan gisa kuidazen baitute elizak eta datorkien gaizik niondik. Doktoreak dire mia bekala, instruizen baikaituste Jangoikoaren gauzetan. Predikariak dire orzak bekala xegaturik ematen baitigute doktrinaren ogia. Konfesoreak dire Elizaren bearriak bekala, lenik aitu ta kurazentigutenak eritasun arimarenak. Eskuak ta oñak dire enpleazen direnak piedadesko gauzetan kristiandadean. Mienbro eben guzien biotza da Espiritu Sandua, guziok animazen ta biztentuena guzien erdi erdian.

6. Kristio bakotxain ariman, alaber, Espiritu Sandua da espiritu, bizten ta bizirik mantenizen duena graziaren ta karidadearen medios: Ta ala, Espiritu Sanduari zor diogu (barin bagaude) egotea Jangoikoaren grazian ta karidadean. Orgatik Jangoikoaren grazian

zeudenengatik erran zue San Pablok (Rom. 5): Jangoikoaren karidadea infunditurik dago zuen biotzetan Espiritu Sanduaren medios, zein eman baizaize zuei. Orgatik erran ziote Jesu Kristok apostoluei: Nere Aitak emanen dizie berze konsolazale bat zueki geldi daien betikos; zueki geldituko da ta zuetan egoin da (Joan. 14-15). Desuerte ezi grazian dagon kristioa baitan dago bere palazioan edo tenpluan bekala Espiritu Sandua. Onen kasos oiuiten zue San Pablok (1. Cor. 6): Estakizie ezi zuen mienbroak diradela Espiritu Sanduaren tenplu? Orgatik bataiazera koan eta konfesazera koan norbait, agertu du Espiritu Sanduak bere presenzia zenbait aldiz zenbait figuratan, signifika zeko grazia errezibizen zuena persona garrek. Beras, ditzoso konta daike grazian dagon persona, baitauka bereki alako arrotz dibinoa, ala nola desdixatua arras bekatu mortalean erorzen dena, despeizen baitu beregandik Espiritu Sandua ta admitizen arren lekuan demonioa. Orgatik San Estebanek erraten ziote bere kontrario gaistoei: Zuek beti erresistizen dioze Espiritu Sanduari. (Act. 7). Orgatik San Pablok erraten ziote, apartarazi naies bekatuetarik kristioak: Ezaziela tristatu Jangoikoaren Spiritu Sandua; trista balez bekala despeizen duenak beregandik bekatuaren medios. (Ephes. 4.).

7. Prinzipalki aragiaren bekatuek desterrazen dute arimatik Espiritu Sandua, zerengatik nola baita espiritu, ta txoil garbia, ez dezake soporta desonestidadearen usaia; Spiritua da aragiaren kontra, aragia Espirituaren kontra; zenbatenas bada den karnaleago persona, ain bat da Espiritu Sanduaren kontrarioago, ta zenbatenas kastoago, ain bat da Espiritu Sanduari kuadrableago. Galdein zio tiranoak Santa Luziari: Dago zurebaitan Espiritu Sandua? Bai, errespondatu zio sandak, ezi kasto ta kristioki bizi direnak dire Espiritu Sanduaren tenplu. Bere tenplu ta errelikarioa bekala goardatu zue sanda bere Espiritu Sanduak, ezi ezin mogiarazi zute bere lekutik munduko indar guziek.

8. Guzien gañetik Jangoikoaren amorio edo karidadea dutenak dire propioiki ta espezialki Espiritu Sanduaren esposo. Jangoikoa, dio San Juanek (1-4), da karidade, ta karidadean dagona, dago jangoikoa baitan, ta Jangoikoa arren baitan. Karidade gau da Espiritu Sanduaren sua, eskazen duena Elizak egunoro itxeki dezan gure biotzetan: Ignem sui amoris accendat Deus in cordibus nostris. Ontas eskazen du erre dezkie gure biotzak ta arimak: Ure igne Sancti Spiritus renes nostros. Ojala su gau baliz gure kalentura kontinuo konsumi gaizana akabatuartaño bizia! Zertako da biotza, ez onestekos bere Jangoikoa? Orgatik au da lenbiziko mandamentua ta andiena, onestea biotz guzias Jangoikoa. Ta lastima da bear izatea mandamenturik, onesteko gizonak Jangoikoa; baña ia lastima alaere ez ia onestea. San Felipe Neriri amorioain suaren indarres autxi zizaizkio bi kostilla, ta erraten zio Jangoikoari: Jauna, ainberze nai bazue onetsi nezan, zerengatik estida eman biotz bat andiagokoa? Inposible da ez onestea berori ezaunzen duenak. Orgatik, fielak, bear dugu eskatu maiz elizareki: Veni, veni Sancte Spiritus. Betor, betor guregana Espiritu Sandua, itxeki bez bere argia ta bere sua gure baitan, ezaunzeko ta onesteko gure Jangoikoa; bizizeko arren amorios ta ilzeko beragatik. Amen, Amen.

Serm. 41.

De 9o symboli Articulo

ann. 1779

Credo sanctam Ecclesiam catholicam,
sanctorum communionem. Ex symb. ap.

1. Deklaratutugu ia artikulo Kredoarenak Jangoikoari dagozkionak; orai deklaratu beartugu Jangoikoaren esposa ta gure Ama Eliza sandari dagozkionak. Eta ala nola jangoikoa baitan esenzia bat baita, ta irur persona, ala Eliza delarik bat, ditu irur ondasun andiak: Lenbizikoa bekatuen barkazioa, baita arimen ondasuna; bigarrena aragiaren erresurrekzioa, baita gorputzen ondasuna; ta azkena bizitza sekulakoa, baita arimen ta gorputzen ondasuna. Guziau konprehendizen da Kredoaren azken laur artikuloetan. Explika zagon oraingoan Eliza sanda katolikoa, sanduen komunioa, baita bedrazigarren artikuloa Kredoan. Nik, dio, sinestazen dut Eliza sanda katolikoa, sanduen komunioa. Anadizen da uskaras Eliza Ama, zerengatik kristioen ama da Eliza, ala nola kristioak baikara Elizaren humeak. Adbertitu bear da emen, ezi estela erran bear Eliza Ama sanda katolikoan, sanduen komunioan etc, zenbaitek errateunten bekala; baizik Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa etc, distingizeko Trintateko personetan sinesta ze-modua berze gauzetaik; zerengatik aietas diogu: Nik sinestazen dut Jangoiko Aita guzis poderosoa baitan, nik sinestazen dut Jesu Kristo arren Seme bakar gure Jaunabaitan, nik sinestazen dut Espiritu sandua baitan; baña emendik alzina erran bear da: Sinestazen dut Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa etc. Ala dio Katezismo romanoak ta latinesko Kredoak (Cat. Rom. hic).

2. Elizaren artikulo gontan, bada, erakusten zaigu bear dugula sinestatu dela eliza bat sanda katolikoa, ta ontan dela sanduen komunioa edo komunikazioa. Irur gauza tugu explikazeko emen: Lenbizikoa, zer den Eliza ta nola bear den sinestatu; bigarrena, nola den Eliza gau bat, sanda ta katolikoa; irugarrena, zer den ta nola den ontan sanduen komunioa. Zer da Eliza? Da kristio fiel guzien kongregazioa edo junta, zeñen burua bisiblea, edo ikusten dena, da Aita Sandu Erromakoa, ta buru inbisiblea, ikustenestena, da Kristo Jesus. Eliza, en suma, da kristiandadea. Eliza deizen dugu tenplu sandua zeintara bilzen baikara kristiok; baña au da eliza materiala, arris ta gañarako materiales egina; estarduka eliza gontas artikulo gonek, baizik Eliza formalas, zein baita kristioen kongregazioa. Ala nola Iruñeko ziudade materiala dire ango etxeak, karrikak ta gañarako fabrikak, baña ziudade formala dire ziudadeko personak. Ala erraten dugulaik, ziudadea doaie mezara edo bezperetara, esta entendazen doazila etxeak ta pareteak, baizik ziudadeko personak; ario gontara, Kredoan sinestazen dugulaik Eliza sanda katolikoa, esta entendazen tenpluen fabrika materiala, baizik kristioen kongregazioa ta kristio guziook (sic). Au da Jangoikoaren familia eskojitua mundu guzitik, zeñen nausi baita Jesu Kristo. Au da Jangoikoaren heredadea, Jangoikoaren puebloa, jende guzietatik berexia beraren eskus beretako. Au da deizen dena Jesu Kristoren ardi-saldia, Jesu Kristoren soldadeska edo tropa, Jesu Kristoren esposa ta gorputza, zeñen buru, esposo, kapitan ta arzai baita bera. Au da Jesu Kristoren ardanze espirituala, zeintas baitio Ebanjelioan Jesu Kristok, ezi bere Aita eternoa dela nekazaria, Jesu Kristo dela aiena ta gu kristiok zarmenduak: Ego sum vitis, vos palmites, Pater etc.

3. Eliza gau da en fin, Noen arka gura bekala, zeñen barnean baita salbazioa ta zeintak kanpoan nior ezpaitaibe salba. Eliza gonon ataria da bataioa, nondik sarzen baita; ta bataiatu estena, estago Elizan ta estaike sartu zeruan. Eztaude Eliza gontan jentilak, judioak ta gañarako jende sinestazen estutenak Kristo Jangoiko gizon egin zena baitan; galduak dire, ezpadatoz. Eztaude Elizan herejeak, bataiatuaskeros zenbait artikulo ukazentustenak; desertoreak dire, galduak dire ezpadire itzulzen; eztaude Elizan exkomekatuak, zeren botatuak dire, mienbro ustelak bekala; galduak dire ezpadire emendazen. Estaude Elizan zismatikoak, ukatu diotenak Aita Sanduari obediencia, zeren ardi errebelak dire iges dabilzanak arzaigandik; galduak dire ezpadire errekonziliazen. Eliza gontan daude solamente fede kristioa bataioan errezibitua mantenizen dutenak. Ebek solamente daude salbazioko bidean mundu guzikoen ertean. Salbatuko dire, bizizen badire fedearen konforme obretan ere; galduko dire, baldin Elizan egonik ezpadire bizi konforme obretan. Zerengatik zer balio du erratea batek duela fedea, baldin ezparin baitu obrak? dio Santiagok.

4. Orgatik Eliza gonon barnean edo kristiandadean dire bi jenero persona, auda, onak eta gaistoak; ala nola arranzako sare batean baitire arrai onak eta gaistoak; ala nola alor batean baita gari ona ta zizaña; ala nola ardanze batean baitire zarmendu fruituosoak ta sekoak; ala nola saldo batean baitire ardiak ta antxumeak; ala nola amar birjina gaietan baizire borz prudentak ta borz fatuak; ala nola Ebanjelioko boda gaietan baizire konbidatuak boda aintzu bestituak, ta ez bestitua ere bai. Guziok dire Kristok erranikako konparazioak. Zer protxatuko dizu aurkizea Jesu Kristo arranzari dibinoaren sare gontan, baldin atrarik basterrera, au da, ellegaturik ilzera, ta asterakoan berexten, au da, juzgazen, aurkizen bazaitu arrai gaistoa? Zer protxatuko dizu egotea Jesu Kristoren alor gontan, barin bazara zizaña? Zer protxatuko dizu ardanze gontan Jesu Kristo aien dibinoareki uniturik fedes zarmendu izatea, barin bazara zarmendu fruiturik estakarrazuna, kendu bearra, ta eartu ta sura botaturik erre bear zaitutena? Zer balio du Kristoren saldokoa izatea, barin bazara antxumea? Zer inporta da birjina gaietaik bat izatea, barin bazara fatuoa? Zer da ajol Kristoren Elizaike desposorioko konbite gontan konbidaturik asistizea, ezpauzu bodetako bestidura, baita grazia? Zer protxu duzu Kristoren larrain ta eulzi gontan nasteka egotea, baldin aizerako egunean, au da, juizioko egunean agertuko bada zaradela agotz sekoa ta ilaun banoa? Aream video et grana quaero, dio San Agustinek Elizas; ikusten dut larraña, ikusten dut eulzia, ta granoen billa nabila. Zenbat agotz, zenbat ilaun kristiandadean, ta apenas dibisa daizke granoak! Bada su ilaunain, granero granoain.

5. Bitarteo nasteka dago granoareki agotza, aliketa etorri arteo aizerako eguna, au da, bakotxaindako eriozeko eguna ta guziendako azken juiziokoa, zeintan bere eskuan sardea daukan Jaun garrek aizeratuko baitu bere eulzia, berexteko zein bere lekura. Cuius ventilabrum in manu eius, et purgabit aream suam. Orgatik kristioen estado diferente dutenengatik, bi parte prinzipalki kontazen dire Elizarenak: Eliza triunfantea ta Eliza militantea. Eliza triunfantea da, zeruan glorioso triunfante dauden sanduen konpañia gura; eliza militantea da, munduan orañik gauden kristioen tropa. Deizen da militantea zerengatik baitugu gerra kontinuoan arimain etsaieki: Mundu, demonio ta aragiareki. Añadizen dute bazuek Eliza purgantea, zein baitire purgatorioan purgazen dauden arima kristioak. Baña guziok dire eliza bat irur estadotan errepertitua: Eliza militanteas darduka Kredoak, diolaik Eliza sanda katolikoa, ta nai du erran sinestatu bear dugula dela munduan jende porzione bat berexa, sollik profesazen duena egi eta fedea, ta sollik zerura joan daikena.

6. Laur dire Elizaren señale edo propietadeak, zeintan ezaunzen baita dela berdaderoa ta Jangoikoarena: Lenbizikoa da izatea bat bakarra, bigarrena izatea sanda, irugarrena izatea katolikoa, laugarrena izatea apostolikoa. Da bat bakarra, zerengatik kristio guziek laur munduko kantonetan errepartiturik gaudenek bat baitugu geuren Jauna, bat fedea ta bat bataioa: Unus Dominus, una fides, unum baptismum. Bat guzietan da sakrifizioa mezarena, sakramentu berberak, doktrina bat ta en fin buru bat, baita Kristo zeruan ta berain bikarioa lurrean. Deizen ere da bakarra Eliza edo kristiandadea, zerengatik gañarako sekta guziak baitaude zeruko bidetik aparta, ta au solamente baitago zeruko bidean; ta Jangoikoaren porzione eskojitua bekala Jangoikoaren espirituas gobernazen da, ta ala da egiaren kolumna ta firmamentua. Deizen da sanda, zerengatik baitago konsagraturik Jangoikoari; eta naiz izanik anitz gaisto kristioetan, errelijione profesazen duguna sandua da, sanduak zeremoniak, sakramentuak sanduak, legeak ta prezeptuak ere sanduak; baitare zerengatik kristiandadean solamente iten baitire personak sandu, ta anitz baitire sanduak, ta guzien gain zeren baitugu buru sanduen sandua Jesu Kristo. Deizen da katolikoa, baita oroat nola unibersala, zerengatik iruzkiaren pean diren jende guzietaik admitizen baitu nauten guziak, ta ala erran ziote Jesu Kristok apostoluei: Zoaste ta doktrinazkie jende guziak, bataiazten tuziela Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Euntas docete omnes gentes etc. Ta mundu guzia barna barratu da doktrina kristioa, in omnem terram exivit sonus eorum etc. Baitare zerengatik denbora guzietan iraunen baitu kristiandadeak. Deizen ere da apostolikoa, zerengatik apostoluak izan baizire lenbiziko plantazaleak, ta apostoluetatik orai arteo baitoaie segitus ta komunikatus Elizako ministroen potestadea, ta ala edozein sazerdote eta obispok nonbra dezake ordenatu zuena, onek berze bat, berze gonek berze bat, ta ala guziek ellegatuartaño apostoluetara, zein ordenatu baizitue Jesu Kristok sazerdote eternoa denak. Prinzipalki da klaro Elizako buru edo Aita Sanduetan, zein San Pedro lenbiziko Aita Sanduagandik baitatoz segitus ta sukzeditus (sic) batak berzeari katedra apostolikoan, ta pasatus batetik berzera Elizako gilzak edo potestadea, ta prosegitus Espiritu Sanduaren asistentzia. Gañarako sekta guziak gerostik dire etorriak, ez apostoluetatik. O Eliza sanda, o porzione eskojitua, o Jangoikoaren ardi saldoa, sollik duzuna zeure baitan zerurako esperanza! Galduak dire jentilak, galduak judioak, galduak herejeak, luteranoak, kalbinistak ta gañarakoak sekulakos; Elizako mienbroak, kristioak sollik sar daizke zeruan. Anitz grazia Jangoikoari, alista arazi baikaitu gu kristioen ertean elizan. Prokura zagun bizitzea Kristoren mienbro bekala, lograzeko ellegazea juntazera kristio sandueki Eliza triumfantean. Proposito goneki inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinest. etc.

Serm. 42.

De 9o simboli articulo.

ann. 1779

Credo sanctorum communionem. Ex symb.

1. Explikaturik bedrazigarren artikuloaren lenbiziko partea, baita Eliza Ama sanda katolikoa, segizen da bigarrena, baita sanduen komunioa; biok enzerrazen dire artikulo batean, zerengatik Elizan da sanduen komunio gau. Ta zer nai du erran sanduen komunioa edo komunikazioa? nai du erran, kristio fielak direla partizipante elkarren ondasun espiritualeetan, mienbro diren bekala gorputz batenak, zein baita Eliza. Onengatik erran zue San Pablok (Rom. 12): Multi unum corpus sumus in Xpto etc. Anitz izanik ere kristiok, guziok gara gorputz bat Kristobaitan, ta bakotxa gara bata berzearen mienbro. Ta, berriz, ala nola, dio, gorputza izanik bat, baititu anitz mienbro, eta gorputzeko mienbro guziak izanik ere anitz, ezpaitire baizik gorputz bat, ala kristiandadea ere; zerengatik espirtu batean guziok bataiatu gara izateko gorputz bat, naiz judio, naiz jentil, naiz libre, naiz esklabo zirenak. Zuek bada, kristiok, zarate Kristoren gorputz gau ta elkarren mienbro-lagun. Orai bada, ala nola gure gorputz naturale gontan jaten duelaik agoak, dijerizen duelaik estomagoak alimentua, partizipazen baitute oñek, eskuek ta gañarako mienbroek bere ariora, ala Kristoren gorputz gontan edo kristiandadean batek iten duen obra onean, parte dute gañarako kristioek artan bere ariora. Ori signifkazen da sanduen komunioan.

2. Eta zerengatik erraten da sanduen komunioa, eta ez kristioen komunioa? Zerengatik sanduak edo justoak baitire espezialki komunikazen dutenak ondasun espiritualeetan, daudelaik Jangoikoareki ta elkarreki uniturik graziaren ta karidadearen medios; ala nola gorputz batean mienbro sanoek gozazen baitute alimentuaren efektoa, ta ez ustelek; ala nola aien batean zarmendu berdeek partizipazen baitute aienaren zumoa, ta ez earrek. Beras, bekatariek estute parterik sanduen komunio edo komunikazio gontan, direlaik mienbro ustelak ta zarmendu earrak Elizan? Zierto da, kristio bekatriak bekatu mortalean, ta por konsigiente Jangoikoaren desgrazian daudenak, diradela mienbro ustelak ta zarmendu earrak, ta estutela partizipazen sanduen komunio perfektoa, karidadearen medios den gura; baña kristio diren bitarteko, fedea galduestuten bitarteko, gozazen dute komunio edo komunikazio imperfektoa fede ta esperanzaren medios den gura, zenbatenas kristio onen kasos erdetxibaitezakete grazia emendazeko, ta erreko brazeko mienbro ta zarmendu sanoen bizitza galdu zutena. Eta ala, Elizako orazio ta obra onen medios, ta en fin kristio onen kasos, anitz aldis Jangoikoaren miseriak beirazentu piadosoki kristio gaistoak ere, ez kastigazeko, baizik esperazeko ta inzitazeko emendazera. Zenbat aldis kristio onengatik gaistoak ustentu kastigazeko Jangoikoak? Ala nola Sodomako ziudade gaien arrasazera zoezilaik aingiruak Jangoikoaren mezus, ta eskaturik Abraanek etzekitela galdu nasteka onak eta gaistoak, ofrez baizio Jangoikoak lenik ezi barin bazire berrogei ta amar justo, aiengatik barkatuko ziotela berzei, ta azkenean jautsi baize erratera ezi solo amar justo balire, amar gaiengatik barkatuko ziotela guziei, (Gen. 18) ala orai, kristio onen kasos askotan librazen dire gaistoak, solo zerengatik diren kristioen familia edo kongregazio gontakoak. O kristio gaistoak, zuek irritazen zaustelaik Jangoikoa zeuren bekatues, franko kristio on zeude palakazen arren Majestadea beren orazio ta obra ones,

esker aiei, berzenas... Begira ia nola gozazeunten kristio gaistoeke ere zerbait parte sanduen komunioan edo komunikazioan; baña parte prinzipalenetik daude pribaturik, beren kulpas.

3. Onen entendazeko obeki jakin bear da obra onetan diren efekteak. Lenbizikoa da meritoa edo merejimentua, baita obra onaren efekto bat, zeñen medios lograzen baitu aumentu graziarena, agrado ia Jangoikoaren begietan, ta deretxo gloria iagotako. Sollik justoak edo grazian dagonak iragazten du efekto gau, zerengatik sollik grazian dagonak izan dezake aumentu, ta beretako du sollik, ta esta komunikazen berzeeki efekto gau, ez justoeke ere, gutiago bekatarieki; baña zer da au? Bere obra on guzietan bekatariaik, diot, bekatu mortalean dagonak estu meriturik batere, zerengatik grazia estuenak ez dezake aumentatu, ta ain guti du deretxo gloriarako naiz eginik infinizio bat obra on, aliketa paratuartaño grazian. Ah zer kaltea au, ezin deus ere merejitu naiz eginik milagroak; guzieki joan bear infernura, solo zerengatik daukan bekatu mortala ariman! Bigarren efektoa obra onarena da satisfakzioa edo pagazea bekatuengatik zor den pena. Efekto gau ere sollik iragaz dezake grazian dagonak, zerengatik barkaturik egon bear da kulpas, barkazekos kulparen pena. Satisfazio gau komunikazen da grazian daudenei aplikatus aiendako; alaber, purgatorioko arimeik, zerengatik grazian daude ta zor dute pena. Eta ala justoak, bere obra on, penitentzia ta induljenzieki doaken bekala pagatus Jangoikoari bere kulpengatik zor duen pena, gisa berean aplikazen baitu obra on, penitentzia ta induljenzia goiek berze norbait grazian dagona indako edo purgatorioko arimendako, baliatuko zaiote admitizentuelaik Jangoikoak aiendako. Al rebes, bekatarieik etzaiote komunikazen efekto gau, zerengatik barkatu gabe kulpas estakiokete barkatu pena; eta ala aplikaturik ere sandu batek zuretako anitz obra on, penitentzia ta induljenzia, barin bazaude bekatu mortalean, estizute deus baliatuko, satisfakziotako diot, edo penain pagazeko, zerengatik kulpas barkatu arteo esta pena barkazen. Zer diot berzein obra ones? Zeurorrek ere ez dezakezu deus satisfazitu edo pagatu zor duzun pena gartaik inagatik nauzun guzia obra on, penitentzia ta gauza, esta ere iragazi induljenziarik batere, aliketa botatuartaño arimatik bekatu mortala.

4. Irugarren efektoa obra onarena da inpetrazioa edo erdextea zerbait onki Jangoikoagandik. Au ere errigurosoki sollik logra dezakete justoek edo grazian daudenek, zerengatik sollik justoek dute zerbait deretxo ai dezkiene Jangoikoak; deretxo gau fundazen da Jangoikoareki amistanzan ta agradoan, zenbatenas baita gauza razonablea in dezan Jangoikoak bere adiskideen borondatea, ia ke ta ebek iten duten berarena. Efekto gau komunika daike berze justo ta bekatarieik ere Jangoikoaren borondatearen konforme, eta ala ikusten da anitz ongi erdexteuntela onek berzeendako, ta aun bekatariendako; baitare judio, hereje, infiel ta exkomekatuendako ere erdetxi daike konberti daizen. Solamente daude pribaturik orazio publikoetaik; alaere orazio iten du publikoki Elizak aiengatik Orzilar Sanduan. Zer diferenzia da bekatari kristio diren ta estiren orien ertean efekto gontako? Da, ezi bekatari kristioek gozazeunte sanduen komunioa erran dugun gontan, naiz estaien expresoki eskatu ebengatik; ta kristio estirenek ez, baldin ezpada expresoki eskazen aiendako.

5. Ia ke ta ontan garen, entendazeko obeki orai arteo eman dugun doktrina, explika zagun obraen izenak ta diferenzia dutena, itentuenaren estado diferentearen kasos. Irur jenero obra dire ta deizen dire: Obra biziak, obra ilak ta obra mortifikatuak. Obra biziak dire batek grazian dagolaik itentuen obra onak; deizen dire biziak, zerengatik kuadrableak Jangoikoaren begietan ta merejizen dutenak sekulako bizitza baitire itentuenaindako. Obra ilak dire ta deizen dire, bekatu mortalean dagolaik batek egitentuenak, zerengatik

faltazaiolaik personari bizitza espirituala, baita grazia, ia ez dezake egin obra bizirik deus mereji dezakenik, ta ala estado gartako obra onak ilak dire. Obra mortifikatuak dire grazian inikako obrak, gero bekatuan erorzen garelaik, biziak zire len, gero erorzen bazara bekatu mortalean, mortifikazen dire; ala nola berriz grazian parazen bazara, berriz bizten baitire. Ontara zio Jangoikoak Ezekielen agos: apartazen bada justoa justiziatik, lengo obra on guziak in zituenak estire estimatuko ia deus. Ala dakigu norbaites ezi biziturik ongi bere bizian, solamente eginagatik bekatu mortale bat ilzerakoan, izan dela kondenatua sekulakos. Au jakinik

6. Jakin bear da ere dela berze modu bat sanduen komunionearena, baita justoeak dutena Kristoreki ta zeruko sandueki, zenbatenas Kristok buru bekala komunikazen baitiote graziak ta faboreak bere mienbro kristioei, ta sanduek, alaber, gure anaiak ta mienbro lagunak bekala erdexten baitigute Jangoikoagandik anitz ondasun beartugunak. Ortako, daudelaik Jangoikoaren presenzian, ikustentuste gure nezesidadeak ta aizen tuste gure orazioak, ta dutelaik karidade ta podorio andia, duten bekala, bialzentigute faboreak parte ikustentugunak, parte ezaunzenestugunak. Prokura zagun lograzea ta mantenizea sanduen komunio edo komunikazio gau mundu ontan, ta eska dezagun sazerdoteareki izatea betikoa glorian itz gebeki: *Nobis quoque peccatoribus famulis tuis de multitudine miserationum tuarum sperantibus partem aliquam, etc., intra quorum nos etc. Act. fid., spei, etc.*

Serm. 43.

De 10º symboli articulo.

ann. 1779

Credo remissionem peccatorum.

Ex symbolo apostolico.

1. Explikaturik Kredoaren bedrazigarren artikuloa, baita Eliza Ama sanda katolikoa, sanduen komunioa, segizen da amargarrena, baita bekatuen barkazioa. Sinestazen dugu artikulogontan, badela Elizan medio ta erremedio, barkazeko bekatuak. Zekien bekala Jesu-Kristok, bekatuak inenginduzala mundu ontan, utzi zue erremedio aien barkazeko atrabañolen mundu gontaik. Ote da zenbait bekatu, zeñendako ezpaita erremediorik? Ez esta batere; guziendako da erremedio. Zerengatik? Zerengatik Kristoren merejimentuak baitire ia bekatu guziak baño. Aitu dugu, bada, erraten ezi Espiritu Sanduaren kontra diren bekatuak estirela barkazen ez mundu ontan, ta ez berzean. Bai, baño ori erran ze bekatariak alako bekatuen aborrezizeko duten difikultadeagatik. Eta baldin aborrezi balezkite, barkalezozke Jangoikoak? Bai ziertoki, da fedesko gauza. Ote da bekatuak barkazen estenik ez emen ta ez an? Bai, au da inpenitentzia finala; nai dut erran, ilzea urrikitu gabe bekatuas. Onendako esta erremediorik, ez Kristoren merejimentu faltas, ez, baizik bekatariaren dolore faltas, zein gabe ilzen delaik, galdua baita, zeren il ondoan ezpaita urrikizeko denbora. Nisi poenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis, zio Jesu Kristok. Ezpauzie iten penitentzia, au da, ezpazarate urrikizen bekatues, guziok galduko zarate; baño biz urrikimentu ta izain da erremedio guziendako.

2. Zer da bekatua? Da egitea, edo erratea, edo deseazea, edo pensazea gauza bat Jangoikoaren legearen kontra. Naut erran, ezi amar mandamentuetaik baten kontra zerbait egiten bada, ori dela bekatu; baño ez solamente egiten, baizik erraten bada solo; ez erran, ezi deseazen bada ere; ez deseatu, ezi solo pensazen bada plazer artus gauza debekatu batean, ori dela bekatu ta Jangoikoaren ofensa mortala, barin bada materia grabean; ta beniala, barin bada materia lebean. Mortala deizen da, zerengatik ilzen duen iten duenaren arima, pribazen duelarik Jangoikoaren graziatik; beniala deizen da berzea, zerengatik aisa barkazen baita. Bekatu benialen barkazeko dire Sakramentuak erremediorik oberenak, baño aski dire sakramentalak ere. Sakramentalak deizen dire bedrazi gauza gaiek: Enzutea meza, komekazea, predikuain adizea, obispo Jaunaren bedeizioa errezibitzea, Aitagurea errezatzea, Ni bekatorea erratea, ogi bedeikatu ta ur bedeikatu arzea, ta bularrean golpe ematea eskatus Jangoikoari barkazio ta miserikordia. Dilijenzia ebetaik edozeñengatik barkazen dire benialak, baldin bitarte detestazen badire gogoas. Eta ala, ogi bedeikatu ta ur bedeikatu arzean, ta gañarako errantugun oriek egiterakoan prokuratu aborrezizea bekatu benialak, lograzeko barkazioaren efektoa.

3. Bekatu mortalain barkazeko medioak jakiteko, adbertitu bear da ezi bi jenero direla orietan: Bata deizen dena bekatu orijinala, berzea bekatu personala. Bekatu orijinala da bekatu gura zeñeki guziok jaiobaikina, gure aita Adanengandik heredatua, guziek Adanen humeak bekala dakarraguna jenerazioz, zein barkatu gabe ezpaitaie nior sartu zeruan; baño arreki soillik ilzen dena estoaie infernu kondenatuenera, baizik linbora, non ezpaitu izain berze penarik baizik ezin ikustea ta ezin gozatzea Jangoikoa. Pena da au alare ezin explika daikena. Bekatu orijinale gonon barkazeko erremedio bakarra da bataioa, ta au

errezibitu ezdezakena indako kontriziosko akta bat bataiazeko deseoareki, edo martirioa Kristorengatik. Bekatu personalak dire geurek geuren borondates itentugunak; ebek mortaleak badire ta in badire bataiatu baño len, barkazen dire dolore berdadero bateki bataiazten delaik persona. Bataiatuaskeros inikakoak barkazen dire konfesioareki, entendazen da bere zirkunstanzia guziaki; ta ezpada konfesorerik, kontrizioareki ta konfesazeko propositoareki. Bataioaren medios barkazen da ain perfektoki bekatua, ezi barkazen da kulpata pena guzia; ta ala, il baledi orduan bataiatuberria, joan leike zuzen zerura, sinestazen dugun bekala aur bataiatu ta arrazioaren usora ellegatu gabe ilzen direnes. Konfesioaren medios, alaber, barkazen da kulpata guzia; baña pena eternoa zor zuena len aldazen da pena tenporalan, emen edo purgatorioan pagatu bear denean txoil, ezpadu kontrizio bat ain perfektua ezi arren kasos barka dezon Jangoikoak pena ere guzia, zenbaites dakigun bekala. Baña komunki gertazen dena da au: Zego arima bekatu mortalean ta Jangoikoaren desgrazian, mereji zue pena eternoa infernuan; konfesazen da ongi. Zer iten da? barkazen zaio bekatua, parazen da arima Jangoikoaren grazian, librazen da infernu mereji zuen gartaik ta solamente geldizen zaio zerbait pena, Jangoikoak daki zenbat, pagazeko edo emen obra ones ta penitenzies, edo purgatorioko suan; orgatik ere parazen dio konfesoareak zerbait penitenzia, ta akaso au ere esta askiko pagazeko pena guzia, ta por konsigiente, prokuratu bear da anitz ia obra on ta penitenzia egitea ta iragaztea induljenziak; ezi il baledi konfesatuta berla ia in gabe, komunki joainlizake purgatoriora pagazera falta zaiona azken marabidiraño: Non exies inde, donec reddas novissimum quadrantem, txoil, ezpadu konfesazerakoan kontrizio bat ain perfektua ezi barka dakion guzia, erran duten bekala. Orgatik deizen da konfesioa bataio bat trabajoso edo nekoso. (Conc. trid. de poenitencia).

4. Baña pensazen bada ongi bekatuaren horrorea, Jangoikoaren ofensa, ematen duen kalte inmensoa, deus esta idurituko nekoso arren barkazeagatik. Zer idurilekioko kondenatu bati konfesioaren trabajua librazegatik pena gaietaik? Deus bekala. Eta librazen da pena beretaik edozein, bizian ongi konfesazen dena, errezibizen duelaik sazerdoteagandik absoluzioa; ezperen bear luke egon sekulakos infernuan. Obeki errain dugu, dela Jangoikoaren benefizio andia, barkazea gizon baten medios bere ofensak. Eta ala da zierto, ezi gizon delaik zu bekala sazerdotea, barkazentizu Jangoikoaren partes berain ofensak. Nork, erran ziote judatarrek Jesu Kristori, nork barka dezazke bekatuak, baizik solo Jangoikoak? Ala da zierto, ezi bere potestade ta autoridade propios solo Jangoikoak dezazke barkatu bekatuak, baña Jangoikoaren komisiok Eliza sanduan dezazkete berain ministroek, sazerdoteek ere barkatu. Aizagun Jesu Kristo Jangoikoaren Semea erraten San Pedrori: Tibi dabo claves regni coelorum, quodcumque ligaveris super terram, erit ligatum et in coelis, et quodcumque solveris super terram erit solutum et in coelis (Math. 16.). Zuri emaintzut zeruetako gilzak, zuk lotzen duzun guzia lurrean, loturik egoin da zeruetan, ta zuk soltazen duzun guzia lurrean, soltaturik egoin da zeruetan. Eta, berriz, erran ziote alaber ario gontara apostoluei, baña espezialki erresuzitatu ondoan, signifikaizeko ematen zioten potestadea. Ats emanik erran ziote: errezibi zazie Espiritu Sandua. Noren bekatuak barkazen tuzien zuek, barka zenzaizkiote, ta norenak ustentu zien barkatu gabe, barkatu gabe geldizen zaizkiote. Auda potestadea apostoluek obispo jaunei, obispo jaunek sazerdoteei komunikazen diotena ordenazerakoan. Aliketa Kristo etorriartaño, niori etzizaio konzeditu fakultade gau, lenbizikoa izan ze Kristo gure salbadorea; baña nola igan bear baizue zerura Kristok, konzeditu ziote obispo ta sazerdoteei bere ministro bekala exerzita dezaten Elizan; ez solamente bein edo bi aldiz,

baizik noiznai duten bekatariek. Eta ala, galdein ondoan San Pedrok ia zenbat aldiz barkatuko zioten bekatariei, ia zazpi aldiz ote, errespondatu zio: Ez solamente zazpi aldiz, baita iruetan ogei ta amazazpi aldiz ere; signifikazen ziolaik ortan, ezi noiznai zetozin ongi disponiturik. Au da sinestazen duguna artikulo gontan, bekatuen barkazioa. Zer mertexteada, fielak!

5. Zer protxatuko zigu kriatuak izatea Jangoikoaren imajinara, baldin bekatu orijinalaren kasos egon bear bagindue betikos pribaturik Jangoikoaren gloriatik? Baña orra erremedioa, bataioa. Baña zer baliatu zigu kristio izatea bataioaren kasos, in badugu gerostik anitz bekatu, baldin ezpaliz erremediorik ebendako? Orra konfesioa. Bai, ta konfesatu ondoan, berriz ta berriz erorzen bagara, nora joain gara? Orra berriz ere konfesioa, esta beingo solo, beti irauzen du birtute berean. Bai ta txur balire, edo ezaunak solamente konfessoreak, izan leike enbarazu edo trabajuain edo alkeain kasos baña orra abasto leku guzietan paratutu Jangoikoak bere ministroak estaien nior eskusa lograzetik bere bekatuen barkazioa. Bai ta seguro da barkazioa ongi konfesatu ondoan? Ain seguro nola Jangoikoa baita Jangoiko, ala erran baitu, ala monstratu baitu. Ar zazie demostrazio gau Erroman gertatu zena. Bizi ze an emasteki noble bat ezkondurik kaballero bateki, ta zustelaik abasto gauza guziak, solo falta zizaiote hume bat; erdetxi zute orazios au; ta arturik kariño sobra, deskuidatu zire Jangoikoaren zerbitzuas; ta ezaundurik kaballeroak determinatu zue bere emastearen lizenziareki erretirazea desertu batera, utzirik guzia solo zerbitzazeagatik obeki Jangoikoa: gelditu ze bere semeareki ama, ta anditu ondoan ura, añaditu ze kariñoa ere ainberze ezi allegatu ze konzebizera bere semeagandik ama gaistoa, ta añaditus bekatua bekatuari, il zue ta orzi zue ixilkias artaik jaio zen fruitua. Ala bizitzelaik galdurik Jangoikoaren begietan, baña fama onean oraño jendeen aurkintzean, agertu ze Erroman letratu bat, baize demonioa, zeñek bere jakinduria ta astuzieki agertus delito sekretoenak iragazi zue kredito andia ez solamente jende komunaren aurkintzean, baitare konsejuarenean ere. Egun bates junto zegolaik konseju guzia, erran zue zeukala deklaratu bearra gauza bat txoil inportazioskoa, zela Jangoikoaren milagro andia, nola etzuen errautstu Erroma guzia an gertatu zen bekatu baten kasos. Manatu ziote deklarazela nork ta zer egin zuen. Orduan erran zue gaistofikatuak, urlia da egin duena au ta au. Arriturik guziak asi zire erraten nola daike ori izan matrona bat ain birtuosa, ain noblea, ta alako gauza? Baiez porfiazen zue letrado finjituak, ta arren instanzias ekarrarasten dute emastekia ta senado guziaren alzinean iten diote kargu delito gartas. Nola geldituko bide ze, aitu zuelaik bere infamia alako publizidadean, emastekia? errespondatu zue diskreto etzela ura gausa proponizeko gisa gartan, ta defendazeko ain berla; eman zezotela denbora ta señaleta zezotela egun bat nai zutena, itzuliko zela ematera errespuesta. Señalatu ziote eguna, atra ze emastekia, ia se be, nolako turbazioareki! Zer inen zue? joan ze berla bilazera sazerdote bat deizen zena Luis; kontatu zio bere desgrazia ta onek erran zio, nik ez dezoket eman ia, baizik barkazea bere bekatu guziak duten potestadeas; disponi bedi konfesazeko goiz gartan, ta enkomenda bedi Maria Santisimari biotz guzias. Ellegaturik eguna, konfesatu ze ongi, ta errezibiturik absoluzioa, ta enkomendaturik Maria Santisimari joan ze konsejura, non baizeude ia bildurik juezak ta puntual akusazalea, ta berze anitz jende bildu zena notiziain kasos. Paraturik erdian emastekia, manatu zio presidenteak letradoari erran zezala zer nai zuen. Orduan etzue berzerik iten baizik beiratu ta beiratu emastekiari pasmatutik bekala, erran bez, ots, zer duen onen kontra manatu zio presidenteak. Azkenean deklaratu zue etzela ura arrek zion emasteki gaistoa, baizik zela sanda bat, ta guardazen zuena Maria Santisimak. Au erran ta desaparexitu ze, utzirik

guziak arriturik, ta emastekiai honra iagoreki konfesioain kasos, etc, etc,etc. (Parra tract. de Sacram. pl.19.).

Serm. 44.
De indulgentiis.
ann.1779

Tibi dabo claves regni coelorum:
Quodcumque solveris super terram,
erit solutum et in coelis. Math. 16.

1. Bekatuen barkazioari atzetik darraio penaren barkazioa, explikazerakoan bada artikulo gura, erran gindue ezi barkatu ondoan bati konfesioan bekatuaren kulpā, geien komun geldizen zaiola pena zerbait pagazeko emen edo purgatorioan; pagazen da emen orazio, limosnas, barues, ta gañarako mortifikazio, penitēzia, ta obra on indezagunes, baitare Jangoikoak bialzentuen trabajues ere sufrizentugulaik konformidade onean. Pagazen da purgatorioan su bizi garren toleranzias. Kostoso dirudi edozein gisas; ta berze alde ainberze izan daizke kulpengatik zor dezazkegun penak, ezi bizi guzian ez dezagun akabatu pagatus, naiz eginik medianoki penitēzia; zenbat gutiāgo, ain penitēzia guti edo baterez iten dugulaik? Zer erremedio? Zer arbitrio? Induljenzia: Bada sinestatu bear dugu dela elizan induljenzien konzedizeko potestade gau; ongi eldu da bekatuen barkazioa explikatu ondoan explikazea penaren barkamentua induljenzien medios, baita pagazemodu bat txoil aisa Jangoikoaren miseriordiagatik, faltatu gabe piskarik justizari. Nork explika dezake estimazio duena ugalde batzuek dakarraten urreak? Ez solamente zeren baita obrena, baitare zeren baita gutiāgo kostazen dena, bada idiki gabe lurraren entrañak, nekatu ta konsumitu gabe meatzetan, solo egoteareki bat jarririk ugalbasterrean, edazeareki eskua bilzen da urrea, ematen diguna eldu den urak erregalos bekala. Ario gontara da induljenzien tesoroa igoalki baliosoa ta aisa. Ikusagun zer den, ta nondik datorren, ta nola lograzen den.

2. Zer da induljenzia? Da barkaturikako bekatuei zor zaioten penaren barkamentua: Ia klaro duzu, lenik barkaturik egon bear duela bekatuak, lograzekos induljenziaren fruitua eta ala bekatu beniale bati korrespondizen zaion pena ere barkazekos induljenziaren medios, lenik egon bear du barkaturik bekatu garrek berze zerbait medios. Itz bates da induljenzia zuk bekatuengatik in bear zinduzan penitēzien edo pasatu bear zinduzan trabajuen trukada bekala. Induljenzia bata da plenaria, ta da ura zeñengatik barkazen baizaizu zor zinduen pena guzi guzia; eta ala egun urtes penitēzia edo iagos ere in bear bazindue pagazekos txoil arras zor zinduen guzia, oroat nola in bazindez penitēziāgoi guzioi, lograzeunzu solo egines bisita, edo estazio, edo berze edozein dilijenzia, zeñengatik konzeditu baita induljenzia plenaria, diot, pagazeko kontuan. Esta trukada bentajosoā? Induljenzia parziala da berze gura, zeñengatik ez guzia, baizik parte barkazen baizaizu zor zinduen pena edo penitēziatik, konforme den induljenzia barin bada berrogei eguntakoa, berrogei egunes in bear zinduen penitēzia lengo kanonen konforme; barin bada urte bat, zazpi edo amartakoa, urte bates, zazpis edo amarres in bear zinduen. Ortako jakin bear da ezi len manazen zirela bekatuen konforme berrogei egunes penitēzia, edo urte bates, edo zazpis, edo amarres edo iagos; zer penitēziak ordea? Bizpiru baru asteoro ogi ta ur soilles; zaku bates bestiturik erabilzea denbora gortan guzian; beti bijilia jatea; ardorik ez progazea, beti oñes joatea noranai; beñere ez ikustea teatro, festa, danza ta alako dibersiorik, ta en fin, berze asko mortifikazio gogorrak; orai bada berze ainberze egunes

edo urtes egines bezanbat penitentzia goiek, satisfazizeunzu errezatus edo egines dilijenzia gura zeñengatik konzedizen baitute induljenzia ainberze egun edo urtetakoa. Da trukada ona? Alako sandu edo sandari errezatus Aitagure bat, edo abemaria bat, edo en fin egines dilijenziabazuk ain fazilak, iragaz dezakela batek ainberze satisfakzioaindako, nola lengo kristioa gaiek nekatus, alketus ta padezitus ainberze egun edo urte gaietan? Esta au aorraze andia? Esta milagro enpeña zezkiten karzeletan zeuden martirak ain gogotik, nai bazute eskribitu beren esku katees beterikakoeki obispo Jaunei, lograzeko zenbait induljenzia.

3. Eta nondik, Jauna, datoz induljenzia goiek? Elizako tesorotik. Eta zer da, edo nola da tesorogoi? Sanduek, Ama Birjinak ta Jesukristok utzitiguten satisfakzioen monton gartaik. Ortako beirazea aski da ainberze ta ainberze penitentzia ta obra on nola in baizuste sanduek, ta agitzes ia beren bekatues zor zuten baño. Gero Ama Birjinak bekaturik in gabe padezitu zituen trabajuak, ta doloreen itsaso inmenso gura gurutzeain ondoan bildu zuena. Añadi bedi Kristoren pasio ta obra satisfaziosko ofrezitu zituenak guretako, aski zelaik bere odol tanta bat, pagazeko gure zor guziak. Ikusten da ia satisfakzioen kaudale abundantea, zeintaik formazen baita induljenzien tesoro gonon abismo infinito akabaestaikena: Ponens in thesauris abyssos. Au da errenta utzidigutena kristioendako Kristo gure Aitak, Maria Santisima gure Amak ta sanduek, gure anaia andien direnek. Alii laboraverunt et vos in labores eorum introistis. Erran dezakegu guri gure Jaunak: Berzeek trabajatu ta zuek gozazeunzie aien trabajuen fruitua, itzalean jarririk zaustelaik; berzeek eraiki ta zuek bildu dilijenzia aisa bateki. Inbenzio gau sortu da gure Jaunak gutas duen konpasionetik, ez dezakelaik faltatu justiziara, injeniatu baitu nola paga dezagun berzeen kostus. Orgatik induljenzia esta proprioki barkazea txoil pena zor duguna, baizik ematea zereki pagatu, dio Doktore Aingiruak: Qui indulgentias suscipit, non absolvitur, simpliciter loquendo, a debito poena, sed datur illi, unde debitum solvat. (In suppl. q. 25. art.2 in cor.)

4. Adin guti dutenen deliktoetan, dio legeak, mitigazen dela pena adinain kasos. Ala gureetan iten du Jangoikoak kobrazentuelaik gure zorrak ez gure kostus, baizik gure fiadore abrats sanduen kostus tratazen gaitu; obeki errateko, aur titikobazuk bekala, zeñen partes amari ematen baizaio medizina bat desabritua, amak gero esnean komunikazen baitiote erremedioa. Lengo kristioak, hume robustoak bekala, etzire ain delikatuki tratazen. Pagazenzuste guzien komun nork beren kulpak pena gogorreki, irauten zutelaik penitentzia jenero batean urteak eta urteak bekatu mortale batengatik, ta aun gutiagokoagatik. Baliazen da orai Eliza, Ama prudenta bekala bere liberalidadeas, idikis maizago ta barratus bizarroago induljenzien tesoroa, ez usteagatik bere hume ia delikatu in direnak joatera mundu gontaik, deus pagatu gabe emen, pagazera errigurosoki purgatorioko suas. Aita Sandu Erromakoak dauzki tesoro garren gilzak edo fakultadeak osoki, zerengatik lenbizikoari, baize San Pedro, eman zitio Kristok erran ziolaik: Tibi dabo claves regni coelorum. Zuri emaintizut zeruetako erreinuaren gilzak. Quodcumque solveris super terram erit solutum et in coelis. Zuk soltazen duzun guzia lurrean, soltaturik egoin da zeruetan ere. Eta etzitio eman gilza gaiek, akabazeko aien usoa ilzeareki San Pedro, baizik geldizeko katedra apostolikoan berain suksesoreendako ta betikos. Da bada Erromako Aita Sandua administradore absolutoki tesoro garrena; ta obispo jaunak bere partean solamente; ta ala dispensa dezake nai duen adiña induljenzia Aita Sanduak, ta beren neurritiaño obispo jaunek. Eta nork estu ikusten bizarria dutenak nork bere ariora egungo egunean? Lastima da ez dezagun logra ain aisa dezakeguna kristio perezoso oraikoek.

5. Eta Jauna, zer in bear da lograzekos induljenzia? Lenbiziko dilijenzia grazian

egotea, zerengatik bekatu mortalean dagonak ez dezake iragazi induljenzia bakoitxik, benzait beretako, ta solamente opinione piadosoan purgatorioko arimek baliazen zaiote alakoen induljenzia. Bigarren dilijenzia da egitea ongi enkargazen den orazioa edo gauza induljenziain kasos, ezi diote doktore zenbaitek, estela iragazten induljenzia iten direlaik dilijenziak zerbait falta benialeki; ala nola erreza baledi desatentoki, in baledi baru enkargatua exzeditus jatean edo edatean etc. Irugarrena da, sinestaturik induljenziaren balioa, estimazea mereji bekala. Bota balezate erregeren balkonetik diru arrabutxa zenbait festain kasos, nolako ansiareki joan leiken jendea al bazezake zerbait logra, naiz bulkatu ta ostikatu aldakakoek? Eta orai zeruko tesoro gontaik barrazen delaik ain abastoki induljenzia, esta kasorik joateko sikiera pausu bat bidean, zerengatik esten ikusten begis aien probetxua! ellegatuko da anitzendako denbora noiz, daudelaik penazen purgatorioan, deseatuko baitute orai aisa ustentuten induljenziak. Orduan naikouzie doazan zuen humeak edo aideak minerba, estazio, edo alakoetara iragaztera zuendako zerbait induljenzia; eta akaso zuen oraiko deskuidoagatik permitituko du Jangoikoak, aiek ere deskuida daizen, edo ez deskuidaturik ere aiek, ez dezazien protxa zueri; ezi da opinione, difuntoei aplikazen zaizkion induljenziak niori gutiago protxazen diotela aiei baño, zeñek bere bizian in ezpaizute kaso aietas. Eta akaso egoin da obligaturik Jangoikoa admitizera zuendako, zuendako berzek aplikazentusten sufrajoak? Prokuratu merejizea bakoitxak egines inala, ezi esta arrazio maltrabajas oziosoendako enplea daien tesoro depositaturik dagona trabajari bearsu direnendako. (Concin. de indulg.)

6. Orai aizagun Jangoikoak inikako demonstrazio bat adiarasteko induljenzien balioa. Frai Bertoldo predikari insigne jausterakoan bein pulpitorik, ellegatu zizaio emasteki noble baño pobre bat eskazera limosna zerbait. Zer emain diot nik, andrea, erran zio Frai Bertoldok, ezpaut zer eman ez ematera amar eguntako induljenzia, Aita Sanduak konzeditu duena aizeuntenei nere predikua? Bada orrek aitu du, emaintiot eskribiturik zedula batean, ta bidoeie aurki al badezake nork eman diru pizazen duena zedula gorrek. Joan ze merkatari batengana ta erran zio ia nai zion eman limosnas induljenzia gorrek pizazen zuena. Bai, erran zio, aisa emain diogu; zer piza dezake papel puxka gorrek? paratu zue balanzain alderdi batean ta berla erori ze lurreraño alde gortarik. Paratu zue berze alderdian erreal bat, etze aski; paratu zitue bida, ogei, berrogei ta eguntaraño, ta etze igualatzen balanza aliketa paratuartaño kantidade andi bat txustoki bear zuena emasteki garrek. Eman zio arriturik ta ezaundurik zenbat pizatzenteen induljenziek Jangoikoaren alizean (Parr. pl. de indulg. p.3.). Eta guk akaso ia estima gindezake lurreko ondasunen bat induljenzia gura baño. Au da ez ezaunzea gauzak, edo ez baliazea ezaumentuas animalettooak bekala, ezpaitute kasorik baizik begis ikusteuntenas. Baña zertako gara gizon? Zertako kristio? Ez estimazekos ikustenestuguna? Jubileo urte batean erakutsi zio Jangoikoak beata Maria de Kunitori, bisione batean plaza bat zabala, ta artan anitz mai beterik doblones, perlas ta preziosidadees, ta erran zio: Tesoroa publikoan dago patente, bakoitxak ar bez artaik nai duen ta bear duen adiña; signifikaizen ziolaik artan Jubileoaren egi eta fedea, ta balio andia.

7. Baña guzien gain adiarasteko Aita Sanduaren potestadea konzedizeko induljenziak, esta lanze obeagorik nola Porziunkulako induljenzian gertatu zena. Aparezitu zizaizkio San Franzisko Asiskoari Jesu Kristo ta bere Ama Santisima, ta Jaun dibinoak erran zio eska zezala zerbait grazia. Orduan sanduak eskatu zio Maria Santisimaren atenzios nai bazue konzeditu induljenzia plenaria bat, konfesaturik bisitazen zutenendako eliza gura. Errespondatu zio Jaun dibinoak, plazer zuela artas, ta zoeiela bere bikario

Erromako Aita Sanduagana, ta arri eska zezola berain izenean induljenzia gura. Joan ze sandua Honorio irugarrenagana, ta konzeditu zio induljenzia eskatua (Lipsin de indulg.), zeñen seguridadetako, aldi bates joanik egun ta ogei persona itsasos Esklaboniatik eliza gartara iragazteagatik induljenzia, ta in ondoan dilijenzia enkargatuak, ia itzulzera zoezilaik bere errira, ilze an beren konpañian etorrikako emasteki bat. Prosegitu zute biajea, ta bidean aparezitu zizaiote arren arima erresplandores beterik ta erran ziote eldu zela Maria Santisimaren mezus aien konsolutako erratera, ezi iragazi zuen induljenzian kasos il zen instantean igan zela zerura, detenitu gabe purgatorioan. Au erran ta desaparezitu ze. (Parr. ibid) O! Eskaizela izan deskuidatuak iragazteko induljenziak, estaien gerta urrikitzea denboraik estelaik. Obeda ala, aisa pagatu bekatuen zorrak ezi ez purgatorioko su terrible gartan. Balego eri bat esperazen barbera ebakizeko besoa edo zangoa, beldurres beterik biotza, prebeniturik braseroa, burriñak goriturik ia, ta karra prestaturik; lanze gortan sar baledi arren kuartoan bat, ta erranbalezo: Ea ez izan beldurrik, ebaki gabe, doloreik ta tormentuik gabe sendatuko zara; zein kontent ofrez leiken arren erremediora? Bai, ta gero erranbalezo ezi arrosa ur guti bates, edo listu iñar bates kuratuko zela, ta errealki ala kura baledi, zer kontentua? Admiti ote lezake? Bai, zierto. Bada ario gontara da induljenzien erremedioa purgatorioain aldean etc. (Segneri Christ. instr. de indulg. fere omnia et Parra ib.).

Serm. 45.

De undecimo symboli articulo.

ann. 1779

Credo carnis resurrectionem.

Ex symbolo apostolico.

1. Amekagarren artikuloa Kredoarena da aragiaren erresurrekzioa. Sinestazen dugu ontan, il bear dugun bekala gizon guziek, guziek alaber, erresuzitatu bear dugula egun bates orai tugun gorputz ta arimeki. Erresuzitazea da il bat biztea, berriz itzulzen zaikolaik gorputzari arima len apartatu zena. Da txoil preziso sinestazea ilen erresurrekzio gau, eskritura sagratuek ez solamente proponizendigutena sinestazeko, baitare konfirmazen dutena anitz arrazios, zimendu bat firmea bekala, zeintan fundazen baita gure esperanza; zerengatik dion bekala apostoluak (1. Cor. 15): Ezpada ilen erresurrekziorik, etze Kristo ere erresuzitatu beras, ta ezpada erresuzitatu Kristo, inutila da gure predikatzea, ta banoa zuen fedea. Orgatik trabajatu du anitz demonioak bere diszipulo gaistoeki kenzeagatik artikulo gonon sinestea munduan, zekien bekala ezi sinestara bazigu gure ilzea oroat dela nola animale irrazionaleena, ta il ondoan guzia akabaturik ezkinduela deus ia zer esperatu aiek bekala, aisa logratuko zue bizi gindeizen ilartaño animale irrazionaleen gisa segitus geuren apetituak, ta egines gustazenzizaizkigun maldade guziak; arreki engañaturik ermazeginduza arranzari falsuaren gisa, aragiaren gustoen zeboareki infernuko su leze eternora. Orgatik trabajatu dute arren kontra Jesu Kristok, apostoluek ta doktore sanduek, sinestarasteko artikulo gau anitz argumentatus ta milagroz ere bai, bizigindeizengatik dakigunak bekala erresuzitatu bear dugula: Ongi bizi dena sekulako bitzitzara ta gaizki bizi dena sekulako kondenaziora. Da, bada, arrazio trabajazea nik ere explikazean egia gau.

2. Erran zute apostoluek aragiaren erresurrekzioa, adiarasteko arima dela inmortal, ta estela il zen gorputzareki bateo, ta solamente aragia edo gorputza dela il zen ta lur biurzen dena; ta por konsigiente, gure gorputz gau ilen dena apartazeareki arima onengandik, biztuko dela noizbait itzulzenzaikolaik unizera arima len apartatu zena. Onen progutako anitz dire ilak erresuzitatutuenak Jangoikoak testamentu zarrean ta berrian profeten, apostoluen ta bere sanduen medios, sinesta dezagungatik aiek erresuzitatu zituenak erresuzitatuko gaituela gu ere, azken juizioko egunean. Dire, alaber, anitz eskritura sagratuko testimonioak konfirmazen dutenak au berau. Testamentu zarrean zio Job sanduak: Badakit bizi dela nere erredimizalea; ta azken egunean erresuzita beautela lurretik ta berriz bestituko naiz larru gontas beras, ta nere gorputz gontan ikusiko dut nere Jangoikoa, zein ikusi bear baitut neuronek ta ez berze batek nere baitan, ta begi gebeki bereki ikusi bear dut. (Job. 19). Oroat, Danieli errebelatu zizaio bere bisione gartan, lurreko errautsean daudenetaik bazuk erresuzitatuko direla sekulako bizitzarako, berzebazuk ignominia eternorako. (Dan. 12). Oroat, Makabeoen libruan, martirizatu zituelaik Antiokok zazpi anaia gaiek beren amareki, asegurazen zire sekulako bizitzas erresurrekzioneareki, ta meatxazen ziate errege gaisto garri sekulako tormentua infernuan. (Macab. I.2. c.7) Testamentu berrian Kristok berak konbenzitu zitue saduzeoak klaroki, badela erresurrezio ta biztu bear dugula guziek egun gartan. Ta au berak anitz aldiz adiarazi zue, aipatus juizioko eguna ta zirkunstanziak egungo ebanjelioan bekala (D^a 1^a

Advert.). Guzien gain expresoki ofrezitu zue San Juanen borzgarren kapituloan erran zuelaik: eldu da ordua, noiz obietan dauden guziek aituko baitute Jangoikoaren Semearen boza, ta erresuzitatuko dire ongi in zutenak sekulako bizitzarako ta gaizki in zutenak sekulako kondenaziorako. Alaber, San Pablok berze anitz aldis ere bai, baña klaroki erran zue korintiotarrei eskribitu zioten lenbiziko kartaren 15 kapituloan ilen erresurrekzioa, erreprehenditus sinestazen etzutenak; ta azkenean dio: Guziok erresuzitatuko gara instante batean, begiain ertxiidiki batean, tronpeta garren deiera, zerengatik soñatuko da tronpeta ta ilak jaikiko dire, sekula ez ilzekotan berriz.

3. Eta adiarasteko aun obeki, konparazios dio an berean: errain du norbaitek, nola erresuzitatuko dira ilak? Edo, nolako gorputzareki? Ta errespondazen dio: O tontoa, zuk eraikizen duzun azias esta bizten, ezpada lenik il zen; eta zuk eraikizen duzuna estuzu eraikizen gero izan bear duen gorputzareki, baizik grano solla; baña Jangoikoak ematen dio arri gorputza nai duen gisan. Ario gontara da ilen erresurrekzioa, eraikizen da korrupzionean, erresuzitatuko da inkorrupzionean. Konparazio goneki mostrazen du San Pablok, ezi Jangoikoak añadi barin badezake azian etzena, agiz obeki dezake errenobatu erresurrekzioan len zena ia gizonaren gorputzean. (Lipsin hic). Berze anitz konparazio bada, ala nola diona San Gregoriok: egun asko argia erretirazen da gure begietaik il baledi bekala ta itzulzen da biramonean erresuzita baledi bekala. Arbolak sekazen dire denbora batean ta berriz berdazen dire berze batean, erresuzitabaleites bekala etc.

4. Arrazios ere progazen da egia gau. Lenik nola gizona konponzen baita gorputz ta arimas, delarik arima inmortale edo ilestaikena, apartaturik bein gorputzagandik, beti egon bearko zue bere lagun gau gabe, ez izatera erresurrekzioa, ta lizake naturaleza beraren kontra separaturik beti egote gura; orgatik da konforme junta daitzen berriz da betikos azken egun gartan. Bigarren arrazioa da ezi nola gizonak iten baititu onak eta gaizak gorputz ta ariman, justo da izan dezan premia edo kastigoa ere bietan. Zenbat penitenzia ta mortifikazio pasarasten diote sanduek beren gorputzei mundu ontan? Esta bada justo, aien arimak beti gozazendau delaik, dauden beti gorputzak errautseginik, ellegatu gabe partizipazera arimen gloria, zeñen iragazten lagundu baiziote. Orgatik konbeni da erresuzita daizen, estakioten falta beren premia. Orgatik dio eskriturak ezi Jangoikoak goardazentuela sanduen ezurak, estela bat berere malogratuko: Custodit Dominus omnia ossa eorum, unum ex his non conteretur. (Ps. 33). Orgatik erraten zioten bere diszipuloei Jesu Kristok (Luc. 12-21): Zuen buruko billo guzi guziak kontaturik daude. Esta galduko biru bat ere. Orgatik San Pedro Alkantarak ta berze zenbaitek inzute tratu beren gorputzeki, ez emateko gustorik ta deskansurik mundu gontan, lograzeko osoa berzean. Onen seguridadeain signifkizeko guziei, Jangoikoak zenbaiten gorputzak ermanik dauzki zeruan arimeki bateo; berze zenbaitenak goardazentu osorik usteldu gabe fragrante mundu gontan. Al rebes zenbat bekatu kausazen du gorputz gaistoak bere inklinazio ta pasioneeki bekataria baitan? Esta bada arrazio, arimak sollik paga dezan pena beti, gabe legokelaik gorputza bere obian; baizik erresuzita daien noizbait gorputza ere, ta juntaturik arimareki, paga dezan arreki bateo sekula guzian. Orgatik dakigu historietarik, zenbait kondenatu direla gorputz ta ariman berladanik ta daudela infernuan ia, entenda dezagungatik ezi gaisto berzeen gorputzak ere orai emen orzirik daudenak noizbait biztuko direla, pagazeko arimekibateo pena eternoa. Irugarren arrazio da, nola ezpaita gizon perfektoa, ez sollik arima, estare sollik gorputza, baizik biok batean, ala esta lograzen felizidade txoil perfektoa deus faltatu gabe, aliketa juntatuartaño gorputzareki arima; orgatik justo da erresuzita daien gorputza, logra dezan perfektoki ta gizon perfektoak ditxa

gura zeñetako krianu baitu Jangoikoak gorputz ta arimareki (Catech. Trident. in. hoc. artic.).

5. Eta, Jauna, gorputz gebeki bereki erresuzitatu bear dugu? Bai ziertoki, ta bakotxa bere sexoan, au da, gizona gizon ta emastekia emasteki. Eta, Jauna, suan erre zirenak, edo arraiek edo animaleek janzustenak nola erresuzita daizke? Jangoikoaren birtutes formaturik berriz osoki len ziren bekala. Aisa dezake au Jangoikoak, itz bates kriadutuenak deusetaik gauza guziak. Eta erresuzitatuko dire lengo defekto naturalak gabe gorputz perfektoareki, ta ala, len mangi, edo itsu, edo sor, edo berze gisas inpeditu izanak erresuzitatuko dire defekto goiek gabe guzis perfekto, ta oso gorputzean; zerengatik erresurrekzio gau da Jangoikoaren obra sollik, ta perfekto dire Jangoikoak sollik itentuen obra guziak. Alaber, martirak erresuzitatuko dire edeki zizkioten mienbro guzieki edeki ezpaliote bekala; solamente geldituko zaizkiote llogen señaleak erresplandeziente ia honra ta gloriatako, ta guziok erresuzitatuko gara ia beñere berriz ez ilzeko, baizik bizizeko eternoki edo glorian edo penan. Eta Jauna, noiz ta nola izain da erresurrekzio jenerale gau? akabatu ondoan munduau, trastornaturik elementuak, auts biurturik gauza guziak, atrazen delaik aingiru bat Jangoikoaren mezus, ta pregonazen duelaik oiui andi bateki: Surgite mortui, et venite ad iudicium. Jaikizaiste ilak, ta zatoste juiziora. Pregon gau aituko da munduaren laur kantonetan, zeruetan ta infernuetan ere bai; ta juntatu ondoan arima guziak, justoak ta kondenatuak, zein bere gorputzareki, lengoak, oraikoak ta gerokoak, nior faltatu gabe, munduau mundu denaskerostikakoak bilduko dire erresuzitaturik Josafatko zelaiean juiziora aizera publikoki nork bere sententzia sekulakoa, errezibizeko premio eternoa edo pena eternoa gorputz ta ariman. Salbazen dena sekulakos salbatuko da ta kondenazen dena kondenatuko da sekulakos, Jangoikoa Jangoiko den bitartaño. Ala da gizon guzien suertea, ala da azken fina munduan bere aldia in ta doazinena. Egungarrek deklaratu du nor den ditzoso ta nor desditzatu. Orain estaike ezaun ongi mundu engañoso gontan, ta gaistoak dirudi ditzoso zeren iten baitu emen gustoak, ta onak dirudi desditzatu zeren baitamazki trabajuak, guzien komun; baña emengoa esta iraupetsu, gero jakinen da. Zer mudanzak ikusko diren! Zenbat emengo andi, goapo, suberbo ta gustoso bizitu direnak eginen diren infernuko presidario perpetuo! Ta zenbat abatitu, nekatu ta despreziatu izanak igain diren arzeria korona errealek glorian! Teatro bat edo komedia bat bekala da mundu gau bere gauzetan: Onak iten du andiaren itxura, arrek desditzatuarena; au abrats, ura pobre kontazen da, ta guzia da itxura bat pasazen dena, praeterit figura huius mundi. Etzadazula erran, au da ditzoso, berze gura desditzatu orañik; etxizu guti bat, akabatuko da komedia gau, orduan errain didazu. Solamente da bakotxa zer ere baita Jangoikoaren begietan, ta substantzia dago zerbitzazean Jangoikoa, ta iragaztean berain agradoa, ta onen medios sekulako suerte ona. Ortako eman zaigu biziaren plazo gau, ta ortako etorri gara mundura. Proguan gaude orain, ta disponizen geroko estado izan beardugunera. Bizi gaitzen geroko bada, geroko, ez oraiko solamente. Erran zoguñ geuren buruari egunoro: N. Zertako etorri zara mundura? Zein da zure fina? Ta zerengatik gorputz gaistoak estorbazen digun geienetik Jangoikoari zor diogun zerbitzu ona erran zoguñ gorputzari: Ea gorputza, etzaitela izan errebel, lagun zozu arimari goardazen Jangoikoaren legea; esta arrazio zuregatik asarrazea Jangoikoa. Il beazu goiz edo berant, ta etzara geldituko zakurren ta mandoen gorputzak bekala betikos errautsean; erresuzitatu beazu ta erman beazu zuk ere arimaiki bateo gloria edo pena eternoa. Idukazu, bada, orain guti bat pazienza, agoanta zazu mundu gontan, ukazkizu zeure inklinazio ta gusto gaistoak; deskansatuko zara beingoas betikos. Ea fielak, ia ke ta etorri

garen mundura, ezkaizke eskapa sekulako suerte on edo gaistotik; por konsigente, denboran gaudelaik asegurazeko, zerbitza zagun gorputz ta arimareki Jangoikoa, ezperen urrikituko zaigu erremedioik estelaik: Eta denboraik obena enpleatuas Jangoikoaren kontra, urrikiturik orai, intenzio firmeareki enpleazeko obeki falta zaiguna, humilla gaizen gorputz ta arimas Jangoikoaren etc, etc.

Serm. 46.

De duodecimo symboli articulo.

ann. 1779

Credo vitam aeternam.

Ex symbolo apostolico.

1. Gure arzai, maistru ta kidari sanduek, apostoluek, guri fedearen erakusteko erran zutenek Kredoa, azken artikuloa imini zute bizitza sekulakoa, ia zerengatik aragiaren erresurrekzioaren ondorean ezpaita ia deus esperazekorik, baizik bizitza sekulakoa, ia ere ontara dirijitu ta erreduzigindezkiengatik gure deseo ta atenzio guziak oraiko bizi guzian. Bizitza sekulakoan entenda daike betiko bizitza izan bear duguna secula seculorum edo glorian, edo infernuan; Jangoikoaren grazian ilzen direnak glorian, ta Jangoikoaren desgrazian ilzen direnak infernuan. Baña zerengatik infernuan beti biziko baitire errabiazten ta il zen il gabe, orgatik ango bizitza propriokiango deizen da eriotze sekulakoa. A morte perpetuâ libera nos Domine. Eriotze perpetuo gartaik libra gaiza Jauna, dio Elizak letanian; ta ala, bizitza sekulakoan prinzipalki ta propioki entendazen da gloriako felizidade eternoa, ta ala entendatu zue jakinsu garrek ebanjelioan, galdein ziolaik Kristori: Jauna, zer in bear dut lograzekos bizitza sekulakoa? (Luc. 10). Ta ontas jardukizen da eliza atarian galdeiten diolaik bataiatu bear duenai sazerdoteak, ia zer eskazen dion Elizari; errespondaturik ezi fedea, berriz galdeiten diolaik ia fedeak zer emanen dion, errespondazen baitio ezi bizitza sekulakoa. Erraten baitio gero sazerdoteak, nai badu sartu bizitza sekulakoan, goarda dezkiela mandamentuak. Goardatus bada mandamentuak, lograzen den bizitza sekulakoa, felizidade perpetuoa ta gloria eternoa da adiarazi nai nukena artikuloa azken gonon explikazioan. Atenzio, otoi.

2. Zerengatik gloria eterno gura deizen da bizitza sekulakoa? adiarazi naies guri dela ondasun desea daizken guzi guzien posesione perfektoa, ala nola mundu gontako gauzetan ezpaita gauza estimatuagorik nola bizitza, ta bizitzaren truk utziko baitu edozeñek gauza guziak; zerengatik bizia faltaturik, ia deus ezpaitute balia guziek. Ala, bizitza sekulakoa aipazen zaigulaik, aipazen zaigu ongi guzia gaizik batere gabe ta gure deseo guzien kunplimentu osoa; ainberze ezi arren aldean emengo bizi ainberze estimazen dugun gau obeki deitu bear da ilzea, bizitzea baño, dionas San Gregoriok: Temporalis vita aeterna vita comparata mors est potius dicenda quam vita; zerengatik oraiko bizitza gau zer da baizik espazioreki iles joatea, delarik zierto ezi zenbatenas ia bizi zen garen, ia urbilzen goazila eriotzera? Etzue Jangoikoak fabrikatu gizona, ez, bizi miserable gontako sollik. Estu egin ainberze kostu, ixuriartaño bere odol dibinoa Jangoiko gizon eginak, emengo denbora laburreko. Estugu ikusten ilzen direla franko aur ta gaste, eginik emengo aldia urte gutitan? Bada, urte gutitako bizitza bateki akabazekos guzia kriatu ta erredimitu bear zue Jangoikoak gizona ainberze kostureki? Ez; berze bizitza bat da, zeintarako erreserbaturik baitago gizona, berzerik da gure kriazio ta erredenpzionearen, ta gañarako obra guregatik inikakoen fina, au da, bizitza sekulakoa. Berze animaleek akabazen dute bere finareki emen, zerengatik emengo solamente dire eginak; ez, ordea, gizonek, zein baitire kriatuak emengo ta geroko: Emen zerbitzazeko Jangoikoa bere denboran, ta gero gozazeko sekulako gloria eternoan, bizitza sekulakoan.

3. Au da deizen dena Jangoikoaren erreinua, zeruetako erreinua, paraisoa, zitudade

sandua, Jerusalem berria, gure Aitaren etxea ta gure patria sandua, zeintarako kriatuak baikara ta zeintan sosegazen baita osoki gizonaren ansia; ta ala, galzen duenak ez dezake izan sosegurik sekula guzian, ala nola bere tokitik atrarikako ezurrak, eta Jangoikoak berak ere alakoa ez dezake onetsi sekula, desertatu dena bekala bere kulpas estado gortarik zeintako kriatu baizue bere Majestadeak. Egia da ezi zerurako kriatu zituela guziok? Bai, fielak, solamente obligazioareki zerbitzazeko emen kriatu zue nior infernurako? Nior ere ez por zierto. Nola, bada, ainberze galdurik gloria doaza infernura? Bere perdizioa berengandik dute, ez Jangoikoagandik: Perditio tua ex te, Israël; ezi Jangoikoak egin du asko salbazeagatik guziok, ellegatuartaño orgatik arzera gure naturaleza ta ematera bere bizia guruze batean guziengatik, guziek logra dezagungatik bizitza sekulakoa. Ta ontan ageri da geienenik bizitza sekulako garren balioa, kostu egin duen ontan logragindezangatik guziok. Alaere estugu logratuko, baldin geurek ere ezpadugu prokurazen geuren obra onen medios gure partetik iragaztea. Beraz, inporta zaigu anitz arren lograzea? Ainberze inporta zaigu, ezi au solamente da inporta zaiguna, porro unum est necessarium; eta galdurik gauza guziak arrengatik, esta deus galdurik ura lograzen bada, eta ura galzen baliz, iragazirik ere gauza guziak, guzia galdu da. Eta orai da denbora zeintan galdu edo iragazi bear baita, ta il ta berla emain zaigu sententzia galdu edo iragazi dugun, ta bein galduaren sententzia daramanak, ia ez dezake logra sekula; ta bein iragazi duelako sententzia daramanak, ez dezake galdu sekula. O bizitza sekulakoa, nork leukan lograturik beingoas!

4. Eta zertan dago gloriako bienabenturanza esenziala? Ikustean Jangoikoa ta gozazeen berain edertasuna. Estaike explika ontan arimak izain duen gozoa, zerengatik delarik Jangoikoa ondasun guzien prinzipioa, iturria, itsasoa ta zentroa, daukalarik arimak Jangoikoa uniturik, dagolaik seguroki edertasun infinito arreki, ia nai duen guziareki, deus ez falta, abasto alde guzietaik ongi guziak, egoin da giri-giri, urean bekala arraia, errebosazen gustos, alegrias ta kontentus; ainberze ezi erraterakoan Jesu Kristok berak bere sierbo fielari emain dion gozoa, erraten dio: Intra in gaudium Domini tui; sar zaite zure Jaunaren gozoan, signifikaizeko ain andia izain dela ango gozoa ezi estela sartuko au gure biotzean, ezpaitezake kabitu; baizik biotzak sartu bear duela gozo gartan egoteko beterik gozos gaingatuartaño barnetik ta kanpotik ta alde guzietaik. Solamente progarazis mundu ontan Jangoikoak zenbait martirei ango delizien tantatto bat, etzute sentizen ez suain berotasuna, ez lanza ta instrumentu horrorosoen dolorea, estare azote ta tormentu exkisitoen erresumina; ta eriotzea iduri zizaiote bizi guziak baño gustosoago. En fin, kondenatuen infernuan komunika balez Jangoikoak gloriako itsaso delizioso gartaik iñartto bat, ia ez lezakete senti deus ango penarik, infernua itzuli leike paraiso. Zer ia erran daike? pensa zazu desea daiken gusto guzia; guzia izain duzu eminenteki glorian, disgusto pixkarik gabe ta peligrorik batere gabe.

5. Eta Jauna, guziek izain dute an igoal gloria? Guziek izain dute naiadiña abasto, baña estute guziek igoal izanen; ala nola izar batek diferenzia baitu berze batetik argitasunean. Kristoren humanidade sanduak izain du gloriarik andiena, urbilena, Maria Santisima berain Amak; gero guziek bere merejimentuen ariora; gloria ia izain du nork izan zuen grazia ia. Gutiago duenak izain dio inbidiarik ia duenari? Ez por zierto, glorian esta inbidiarik, ezi baliz, ia ezlizake gloria. Bakotxa egoin da txoil kontent bereas ta berzeenas, ia duena ta gutiago duena. Guziak kontent, ikustee pagaturik ongi abasto bere merejimentuak, ala nola aita batek in balezote bere bi seme andiari ta txikiari tela batetik bestidura bana bakotxain neurrian, ain kontent legoke txikia bere bestiduras nola andia

bereas naiz tela ia sartu baze ere onenean. Eta Jauna, il orduko bakotxai ematen dio berla bere gloria? Arima dagolaik Jangoikoaren grazian deus purgazekorik gabe, berla; ta purgazekorik barin bada, purgatu orduko berla, gorputz ori erresuzitatu ondoan gero bere animareki bateo. Eta añadizen da gloria egones an? Gloria esenziala dagona ikustean Jangoikoa esta añadizen; bai gloria akzidentalaz azken juizioko eguneraño. Explikatuko naiz konparazio gonekin: suponi zagun sarzen dela bat estanke batean ta ellegazen zaikola ura gerriraño; zenbatenas ia persona sarzen diren ia iganes joain zaio ura estelaik orgatik ur ia añadizen estankean. Ario gontara, berbera delaik gloria esenziala beti, zenbatenas ia bienabenturatu sarzen den zeruan, anbat ia añadizen da alegria lagun berrien kasos, baitare Jangoikoagana konbertizen diren bekatai bakotxain kasos, gaudium erit corám angelis Dei super uno peccatore poenitentiam agente.

6. En fin, zerbitzatu zinduen ariora mundu ontan gorputz ta arimas Jangoikoa, gorputzean ta ariman izan duzu gloria erresuzitatu ondoan. Zure arimak izain du bere dote korrespondienteak ta gorputzak ere bai bereak. Irur dire arima bienabenturatuaren doteak: Bisioea, konprehensioea ta frukzioea. Dago bisioeain dotea ikustean Jangoikoa patente klaroki; korrespondizen zaio dote gau fedaren birtute emen izan zuenari, zeñeki sinestatu baizue ikusten etzuen. Konprehensioain dotea dago poseizean Jangoikoa, ondasun inmensoa; korrespondizen zaio dote gau esperanza emen izan zuenari, zeñeki esperazen baizue gerokoan. Fruizioaren dotea dago gusto ta konplazenzia izain duen artan ikusteas Jangoikoa; korrespondizen zaio dote gau karidade emen izanari, zeñeki onesten baizue Jangoikoa ikusten etzuen. Ala pagazen du Jangoikoak arimaren zerbitzua. Gorputz bienabenturatuaren doteak dire laur: Ajilidadea, klaridadea, inpasibilidadea ta sutileza. Ajilidadea izain du gorputzak, ta dago bolazean noranai arinago luma ta aizea baño. Klaridadea izain du, ta dago erresplandezizean iruzkiak baño ia. Inpasibilidadea izain du, ta dago ezin padezitzean deus niondik. Sutileza izain du, ta dago pasazean nora nai ta nondik nai, naiz diamantesko parete batetik aisa. Ala pagazen du Jangoikoak gure gorputza enpleatu dena berain zerbitzuan mundu gontan. Alaber, potencia ta sentido guziak egoin dire an, beterik beren gusto proporzionatues. Memoria oroizen beti gauza kuadrablees. Entendamentua pensazen Jangoikoaren dulzurak ta bere ditxa sekulakoak. Borondatea plazer arzen zeruko delizia gaietan naigaberik batere gabe. Begiak ikusten ango ikusgarri prezioso enfada ez dezaketenak adimentua adizen ango musika ta kantu sonagarriak. Usma deleitazen atxon fragante miragarrieki; gustoa saboreazen ango dulzura ta suabidadea dibinoetan, ta sentido guziak satisfazizen osoki Jangoikoaren plazer erregalatu inefable gaieki eternidade guzian. O bizitza sekulakoa, bizitza egia eskia, non urteak idurituko baitute instanteak, ta milla urteak egun bat bekala, diones Dabidek: Mille anni ante oculos tuos sicut dies hesternae, quae praeteriit. Mila urte, dio, Jangoikoaren presenzian dire, orot, nola atzoko eguna pasatu dena ia; baita erratea, dirudidutela deus bekala gustoain utses. Konsideratzen zego Dabiden erran gau monje bat, nola zeiken izan egia, ta mostratu zio Jangoikoak txori baten kantuas. Leireko monasterioan gertatu ze. Zoielaik monjea pensamentu garreki, aitu zue txori bat kantazen, segitu zio oianeraño, ta an gelditurik txoritto, gelditu ze monjea ere zoraturik arren kantuas; ta egon ze, zenbat urte idurizaizie? iru egun ta iruogei urte sentitu gabe negetako otzak ta udetako beroak ta gañarako tenporale gaisto pasatu zirenak denbora gontan guzian. Noizbait ixil duze txoria, ta tristaturik monjeoi ain fite ixilduas bere ustes txoritto gura, idurituri orduren bat pasatu bide zela, itzuli ze konbentura ta aurkitu zitue mudaturik kasi gauza guziak, nior ezaunzen etzuela berak ta bera ere niork an zirenetaik. Porfiazzen zue zela konbentu gartako monje, ta

atra zela lentxagoko korualdian. En fin ikusizuste libruak, berain ta bere abadeain izenak, ta atra zute kontua ainberze urte nola erran dugun zuela atrarik bere txori arren kantuain segimentuan. Ala monstratu zue Jangoikoak iñar batean gloriako delizien itsaso inmensoa. Ala arrotatu barin bazue monje gura kantu garrek sentido bati solamente pertenezizen zaikonak, zer izan da glorian, non sentido bat ez solamente, baizik sentido ta potentzia guziak egoin baitire beterik konplazenzias ango gauza delizioso miragarrien kasos? Nor esta animazen joan naiak Jangoikoaren zitudade berak fabrikatu duen artara errekreazeko bere sandueki? Sed ad magna praemio perveniri non potest, nisi per magnos labores, dio San Gregoriok (H. 37 in evang.). Estaike ellegatu premio andi gaietara, ezpada trabaju andien medios. O Jauna, naiz dela arrastaka erman gaiza, naiz ondasun, honra ta biziaren kostus sekulako bizitza gartara. An diren guziak dire sanduak, badakigu, ta gu bekatariak; baña Jesus etorri ze mundura ez sanduenbila, baizik bekatarien bila santifikazeko ta ermateko saldo zeruko gartara: Non veni vocare justos, sed peccatores. Eta badire an franko lenik bekatari, ta gero sandu eginak; badezake gureki egin berze ainberze. Eta baldin erreparazen badu izatean gu ain erruinak, beira bez ezi berorren gloria ia dela, zenbatenas erruinagokoa den konbertizen duena beregana. Au da gure esperanza fundazen dena orren ontasun infinitoan. Gauza extremo da ar benenoso okagarri bat, nola baita bekataria, gorazea parazeko bere zeruko prinziipe gaien konpañian; baña extremoago da Jangoikoaren Semea apalzea izatera preso, azotatua ta gurutifikatua, ta egotera ogiaren akzidenteen pean, dagon bekala; au in duenak in dezake ura, ta inen du. Suscitans â terrâ inopem, et de stercore erigens pauperem, ut collocet eum cum principibus cum principib. Populi sui etc, etc.

Serm. 47.

Preparatione ad vitam aetern.

ann. 1779

Si vis ad vitam ingredi, serva mandata. Math. 19.

1. Akabaturik explikatus Kredoa, ongi da errepeti zagun azken artikulua gura, bizitza sekulakoa, ta erakutsagun arren lograzearen inportanzia ta lograzeko modua. Bada bizitza sekulakoa, diote apostoluek; sinestazen dugu kristioek, ta zer ai gara? Atzentzen gara bizitza sekulakoas, ta bizi gara oraiko solamente. Guziok gabiltza nondik mantenitu oraiko bizi gau, geienak doaz pasatus denbora bilzen emengo ondasunak, honrak, gustoak ta gauzak; ta guti prebenizen sekulakoak. Ta bitartean guziei doakigu kunplutus plazoa, guziei akabatus emengo itekoa; ta gelditurik emen iles gauza usatuzustenak, berak doaz paratus sekulako estado on edo gaistoan, ta nior esta itzulzen onat erremediatzera utsa. Badu sei milla ta ia urte dagola eginik mundu gau, ta doazila aldatus jendeak; joanes batzuk, etorris berze batzuk, ta guziak kolokatus zein bere tokian gero, edo infernuan edo zeruan; joanak ia estire aldatuko estados. Gozazen daudenak gozazen betikos, ta penazen daudenak penazen betikos. Gurea zer izain den estakigu orain. Orain dugu iragazteko edo galzeko okasioa, orain da gure aldia, ta sarri il zen garelaik gu ere, gutas errain da, orain, gaudela gozazen edo penazen betikos. Eta gertazen bazeu ilzea Jangoikoaren desgrazian, sartuko gaitute infernuko suletze andi ito gartan, errezeko bizirik eternidade guzian; ta bitartean, doazilaik pasatus munduan gauak ta egunak, udak ta neguak, ta dabilzalaik jendeak fabrikazen, tratazen, dibertizen ta jenero guzietan, orain bekala, gu egoin gara errabiazan marrazkas ta desesperazio, estelaik nior izain lastima izaindigu ta suletze garren ataria idirikidigu, ez, *secula seculorum*. Zer urrikiak orduan bekatu eginas, baña dekalde; zer damuak ez sufritu naitas bizian zenbait naigabe gerokoagatik, baña berant; zer deseoa itzulzeko mundura egitera penitentzia, baña esta erremediorik. Ala egoin gara milla urtes, egun millas, infizioat millas; ta ain berri. Lenago, lenago bear ze in kaso. Al rebes, gertazen bazeu ilzea Jangoikoaren grazian, sartuko gaitute zeruko korte gartan, Jangoikoaren, Ama Birjinaren ta sandu guzien konpañian koronatu gaitute errege ta erreina, ta asiko gara gozazen bizitza delizioso gura nai dugun guziareki betikos, galzeko peligrorik gabe. Ta bitartean, doazilaik gertatus mudanzak munduan, gu egoin gara gozoan giri giri nai dugun bekala, eritasun, tristura ta naigaberik batere gabe; ta ala milla urtes, ala egun millas, ala milla millas, ala beti Jangoikoa Jangoiko den bitartean. Zer idurituko zaigu orduan emen izanikako trabajuas garaizen geuren jenioak, ukazen aragiaren gustoak ta ajustazen legeeki?

2. Aitu duzie bi suerte goien diferenzia? Zein ote dago zureta, fiela? Zein ote dago neretako? Bietaik bat edo berze prezisoki izan bear dugu, ta emendik urte gutiren buruan, ta ezin eskapa batetik edo berzetik. Zein nai dugu? Klaro da. Bada, orain da iragazteko plazoa, bizian. Beras, inporta zaigu bizitzea ongi? inporta zaigu ainberze ezi guzia doae ontara, ta kasi niork estu iten aprehensio aski inportazen duenas, ta franko ta franko bizi dire oraikoai beira solamente, ta atzendurik gerokoas; ta ilzen direlaik, ertxi orduko gorputzaren begiak idikizentuste arimarenak, ikusteko zer in bear zuten bizi zirelaik, ta nola ertxi zaiten plazoa in gabe bear zena; ta ia ezin itzuli gibela. Beras orain joan estirenei konbeni da adbertizea prebenizeko. Aizazie, bada. Jaio orduko aurra ideazen

da zertako nai luketen; gaste iten delaik ideazen da estado bear duena; gero nola bear duen pasatu bizia, nola in ondasunak, nola izan gustoak ta konbenienziak; eta lenbizikoas, zein baita iragaztea ilondoreko estado ona, nor oroizen da? Aizazie bada, ta aizagun.

3. Parazen den bekala nirabe bat zerbitzuan urte bateko edo iagotako iragaztera bere soldata, ario gontara jaio garen guziok mundura paratu gara Jangoiko andiaren zerbitzuan bizi emanai digun denborako; soldata dago erreserbaturik ilondoreko, au da gloria eternoa. Zerbitzua dago egitean Jangoikoak manazen duena, ta ez egitean debekazen duena. Zerbitzazen badugu ongi, estigu ukatuko soldata, zeruko gloria; baña ezpadugu zerbitzazen, etzaigu faltako sekulako kastigoa. Ala delaik gizonaren izatea mundu ontan, lenbiziko kuidatu bear duguna da zerbitzazeas Jangoikoa, goardatus berain legeak; naiz kosta daiela trabaju, ezi zerbitzuak trabaju dio, ta edozein nirabeek estu zerbitzazen trabajurik gabe; ta estuelaik esperazen baizik soldata miserable bat, zenbat ia bearugu trabajatu Jangoikoaren zerbitzuan, esperazen dugulaik soldata bat eternoa, ta berze alde zerbitzazeneztiotenei goardazenzaiotelaik kalabozo betiko tormentosoa? kuida bedi gorputzaren bizias, bilazeas estado ona, egiteas ta konserbazeas ondasun sufizienteak mantenizeko bizia, ta ez ia; ta au ere solamente zerengatik bizi bear baita zerbitzazekos Jangoikoa, ta ezpada bat bizi, ezpaitezake zerbitza; baña len lenbizikoa da zerbitzazea Jangoikoa, ta au ezpada egiten galdua da guzia.

4. Jangoikoaren etxe andi gontan, munduan diot, dire anitz estado, ta guzietan zerbitza daike Jangoikoa; ta bakotxak autatu bear du Jangoikoak zeintara deizen duen, ura, solamente Jangoikoari bere zerbitzu iteko intenzioareki. Kunplitu bear dire estadoaren obligazioak, kuidatu bear da humees, izan bear da probidenza lurreko ondasun ta gauzes, arrazioak manazenduendiña ta ez ia; guzietan oroitu bear da lenik Jangoikoa zerbitzazeas, zerengatik Jangoikoa da lenbizikoa, ta bigarrena geuren arima. Ta guzia geldizen da emen, solo ez in diogun zerbitzua edo falta. Esta inport ezpadigu emanai Jangoikoak emengo ondasun, honra ta gauzetaik, nola eman dezagun berain zerbitzatzea; ta esta deus protxal emen izatea andi, honratu edo abrats, ezpada zerbitzazen Jangoikoa. Jangoikoain alzineko esta diferenziarik, baizik nork obeki edo gaizkiago zerbitzazen duen. Erregeak estire deus, obispoak ta emengo andiak estire deus, baldin ezpadire Jangoikoaren zerbitzazaleak. Al rebes, zokottoan dagon pobrea zar zarres bestiturik ta atzendurik, baldin ongi zerbitzazen badu Jangoikoa, errege, obispo ta andia da Jangoikoaren estimazioan. Estaiela andia ta abratsa gloriatu emengo anditasun ta gauzetan, ezi ezpada ongi bizi, estio izain errespetorik Jangoikoak ez botazeko demonioen pera. Estaiela deskonsola pobrea ta atzendua deustas, ezi ongi bizi bada, estu atzenduko Jangoikoak; ain biotzean dauka nola andiena, ta emain dio premio sekulakoa. Akaso beldur izain dio abratsari Jangoikoak? Akaso despreziatuko du pobrea? Jangoikoak nior estu bear, ta arrendako esta abratsik ta pobrerik, solamente zerbitzazen duen edo estuen bere Majestadea.

5. Orai bada, ala nola erregeren zerbitzuan estimazen baitire ongi inikako azañak premiazeko, ta gaizki eginak kastigazeko, obeki Jangoikoaren zerbitzuan eskribizen dire bakotxain ongi eginak ta gaizki eginak, batere faltatu gabe. Ta akabatu orduko emengo bizia, esta galdeiten zer izan den emen, baizik nola bizitu den ta nola zerbitzatu duen edo estuen Jangoikoa. Ta zerbitzatu badu ongi, emanen zaio sekulako gloria ta korona, naiz izan baliz ere emen txoil zarratrakoa. Ta zerbitzatu ezpadu, emanen zaio sekulako infernua, naiz izan baliz ere emen monarka. Etzazula niores deus erran, aliketa ikusiartaño zertan parazen den il ondoan; solamente konforme zerbitzazen duzun edo estuzun Jangoikoa, atra dezakezu kontua zer izain den zutas, ta ariora berzeetas. Ezi oraiko ondasun, onra,

podorio, gusto, disgusto, desdixta, desonra, pobreza ta alakoek deus estute pizazen Jangoikoaren alzinean, solamente ongi edo gaizki bizitzeak, emateko premio edo kastigo sekulakoa. Aizazie bada, ia orai, ta aizagun Jesu Kristo erraten gure sekulako ongi ikusi naies: Quid prodest homini, si mundum universum lucretur, animae vero suae detrimentum patiatur? Zer protxazen dio gizonai iragaztea mundu guzia, baldin galzen badu bere arima? Aut quam dabit homo commutationem pro animâ suâ? Edo zeren truk emain du gizonak bere arima? dio Jaun dibinoak. Eta nik diot ezi frankok, ez iragazteagatik mundu guzia, ez librazteagatik bizia, baizik ondasun triste sarri utzi beartutenengatik, gusto labur berla akabazen direnengatik estutela dudazen salzeas deabruai bere arima, ezi salzen dio iten duenak bekatu mortale. Orai estute ezaunzen, estute ere pensazen, baña atrako da Jesu Kristoren errana egietan, ezi sarri ebakiko zaiote bizi miserable gau, ertxikotute gorputzeko begiak ta idikikotuste arimarenak, ikusteko zein tonteria andia in zuten bizitzeas emengo, emengo ta ez prebenituas geroko. Orduan, ikustentustelaik emen despreziatuzustenak iganik Jangoikoaren gloriara, ta berak demonioen pera, errain dute errabia ta angustia andiareki Espiritu Sanduak afirmazen duen gisan: Ebek dire len txufeatu ta burlatu ginduzanak; guk, tontoek, uste gindue erokeria ta sinpleza eben bizimodua, ta fina honrarik gabe, ta orra orai nola kontatuak diren Jangoikoaren semeetan, ta nola dauden sanduen ertean. Beras, uts in gindue egiasko bidea, uts in gindue. Ala da, ta ezin ia erremedia utsa. (Sap. 5).

6. Tontoa da ematen duena marabidi batengatik india bat balio duena. Tontoa da emanai duena bizia diruagatik. Tontoena da emanai duena sekulakoa emengoagatik, dena dela; ta ematen da, usten delaik atzendurik Jangoikoa emengo ondasun, gusto edo gauzengatik. Ala dio Jesu Kristok, zegola abrats bat diskurrizen bere buruareki: Ea, bauzu anitz ondasun ta anitz urtetako; deskansa, jan ta edan zazu, ta erregala zaite. Erran zio ontan Jangoikoak: Ah tontoa, gau ontan atrakodie arima, ta bildutuketak noren izain dire? (Luc. 12.). Arima dugu sekulakoa, fielak, ta bakarra; ontas kuidatu bear da zerbitzatus Jangoikoa ta iragazis soldata eternoa. Galzen bauzu ondasuna, geldizen zaizu honra, galzen bauzu ondasun ta honra, geldizen zaizu bizia; galzen bauzu ondasun, honra ta bizia, geldizen zaizu Jangoikoa, geldizen zaizu arima; baña au galzen bauzu, zer geldizen zaizu? Miserere ergó animae tuae placens Deo. Izazu, bada, lastima zeure arimas edo zeure buruas, agradatus Jangoikoari, dio Espiritu Sanduak. Guziareki estuzu nai ertxitu Jangoikoaren zerbitzura, naiagouzu bizitu suelto zeure gustora bizi labur gontan, bai? Bada, nik naiago dut bizi emen arrastaturik, preziso baliz, ez agrabiazteagatik Jangoikoa. Ala bizibaniz ni, ta zeure gisa zu, ikusko dugu fite nor atrako den obeki. Aizagun Jesu Kristok berak kontazen duen exenplu gau (Luc. 16.): gizon bat ze abratsa, bestizen zena purpuras ta olandas, ta erregalazen zena egunoro galanki; ze, alaber, pobre bat Lazaro deizen zena, zegoena arren etxeko atarian guzia beterik llagas, deseazen zuena jatea abratsaren maietik erorzen ziren atapurrak, ta niork etzio ematen; solamente etorzen zizaizkio zakurrak, ta lamikazen zizkiote llagak. Gertatu ze ilzea pobregoi, ta erman zute aingiruek Abrahamen senora; ilze abratsa ere ta orzi zute demonioek infernuan. Tormentu gaietan goraturik begiak ikusi zue goiti urruti Abraham, ta arren senoan Lazaro, ta nigarres oiuin zio: Aita Abraham, izan bez lastima nitas ta igorri bezada Lazaro, bustirik urean eri punta, freska dezadan nere miao, zerengatik txoil tormentazen nago su gontan. Errespondatu zio Abrahamek: Seme, oroi zaite erman zinduzala onak zeure bizian, ta Lazarok gaizak; orai bada, au dago konsolazen ta zu tormentaturik. Bada, egon. Etzue logratu, zein guti eskazen zuen, ur tanta gura. Au da ez kontu fabulosoren bat, baizik Jesu

Kristok dakarran exenplua, adiarasteko bizi direnei emengo, oroitu gabe gerokoas, zer pasatuko zaioten. Oroitu bada gizonak, oroitu emastekiak beti, badela bizitza sekulakoa, inporta dela txoil lograzea, ta lograzen dela zerbitzatus Jangoikoa, egines beraren borondatea, ez geuren naikundeak. Goartu bada, il baño len, pensatu serioki; ta naitugunas geros ongi geuren buruok, segura zagun bizitza sekulakoa, pasatus oraiko trabajua zerbitzazen Jangoikoa deskansazeko betikos bizitza sekulakoan; intenzio goneki inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak etc.

Serm. 48.

De praeparatione ad Agricolas.

ann. 1779

Recepisti bona in vitâ tuâ, et Lazarus similiter mala,
nunc autem hic consolatur, tu verò cruciaris. Luc. 16.

1. Erran gindue azken platikan, zenbat inporta zaigun lograzea bizitza sekulakoa, ta lograzen dela zerbitzatus emen Jangoikoa, ta zerbitza ze gau estaikela egin zerbait trabaju gabe. Erran ere gindue franko bizi diradela emengo emengo sollik, kuidatu gabe prebenizeas geroko, ta akabatu gindue platika Kristoren exenplu garreki, non baitio salbatu zela Lazaro pobrea ta kondenatu zela abrats erregalatua, ta tormentazen zegolaik eskaturik ur tanta bat, etzizaikola eman, baizik errespondatu zizaiola oroi zeuela ezi bere bizian erman zituela onak ta Lazarok gaizak, ta orai au konsolazendagola ta ura errezen. Okurritu zaida egungo, zer errain den nekazari kondenazen denas; ta por konsigiente nekazariak izanbeauten kuidoas, lograzeko bizitza sekulakoa.

2. Erraten zue sandu batek admirazen zela nola kondenatubeautenei oñes ukizeunten guzia etzaioten itzulzen arrosa, ta salbatubeautenei guzia aranzea mundu ontan; nai zue erran, ezi salbatu bear dena estaikela keja edozein trabajus mundu ontan, ia ke ta sekulakos deskansatu ta gozatu bear duen berze munduan, ta al rebes estaikela izan inbidiarik batere, kondenatubeautenek emen ditusketen gusto ta konbenienziei, ia ke ta egonbeuten errezen ta errabiazten beti beti infernuan. Eta au da gure Jangoikoak praktikazen duena anitzeki, munduan mortifikatus ta humillatus trabajueki bereak onak, ta utzis bizi daizen abrats, fortunoso ta prospero gaistoak, orreki onek zenbait kulpas lebe tustenak purga dezaten trabaju gaieki, ta alaber bil dezaten merito ia sufritus; ta gaistoei al rebes, zerbait onki itendutenura paga dakioten emengo konbenienzia laburreki, erran dezoketen gisa: Receperunt mercedem suam, in bauzie onki zerbait, pagatuzaizie munduan, estuzie deretxorik iagotara. Orgatik sanduak etzutelaik trabajurik zeude beldurak. Orgatik Santa Magdalena de Pazzis anitz urtes ilbaño len errenunziaturik zerutik zetozkion deliziak exklamazen zue: Padezitu, Jauna, ta ez il. Orgatik Santa Teresak eskazen zio Jangoikoari: Jauna, edo padezitu, edo il. Eta kexazen ze sobra fabore iten zionas Jangoikoak, ta atzendas ain fite bere kulpas lengoes. Da alabañare txoil zierto ezi zerurako bide erreala dela trabajuena; orgatik Kristo etorri zenak erakustera autatu zue bizi bat penoso, ta eriotze bat txoil tormentosa, zeikelaik eskusa guziotaik Jangoiko bekala. Orgatik diszipulo arrituik zeudenei kruzifikatu izanas Erredenptore uste zutena, erran ziote erresuzitatu ondoan: Ah tontoak, akaso etze konbeniente au guziau padezizea Kristok, ta ala sarzea bere glorian? Orgatik, erakusteko itzez ere zerura joateko modua utzi zue estanpaturik ebanjelioan sententzia gura: nai duenak etorri nere atzean, uka bez bere burua, ar bez bere gurutzea ta segi benaza. Au da, trabajatu ta padezitu bear du ellegazekos ni noaien gloriara. Qui vult venire post me, abneget semetipsum etc. Orgatik apostoluak alegre atra zire konzilio judioen gartaik, izanas digno padezizeko zerbait Jesusen izenean. Orgatik martirak zoezi boladan padezitza ta ilzera tiranoen eskus Kristogatik, etzutelaik estimazen bizi deustako, baizik padezizeko, aun emasteki ta donzella delikatuek. Orgatik San Pablok ezaunarasteko zein diren Jangoikoarenak erran zue: Espiritu berak ematen dio testimonio gure espirituari gara dela Jangoikoaren semeak, semeak izanik heredero ere

bai, heredero Jangoikoarenak, baña Kristoren heredero lagunak, baña baldin padezitzen barin badugu berain ariora, izateko berareki gloria ere. Zerengatik uste dut estirela digno igoalki denbora gontako trabajuak geroko gloria izan beardugunain aldean. (Rom. 8) Orgatik sandu guziak konformatus guzien buru den Jesu Kristoreki bizitu zire trabajatus ta padezitus nor bere moduan, iragazteko orai duten gloria, ta esta bat berere an estuenik izan trabaju emen zerbait gisas, ezi esta zerua iragazten ozioso ta gustora bizitus, baizik indar nai du, ta trabajazen direnek artako arrapazeunte; ta ontako jaio da por fin gizona, trabajazeko, homo natus ad laborem, ta iragazteko sekulako bizitza glorian.

3. Por konsigiente, bizi denak emen bere gusto guziak kunplitus, batere trabajurik ta naigaberik gabe daukanaskeros emen bere gloria, estu zer esperatu berze munduan gloriarik, ezi gure Jangoikoak destinatu du oraiko bizirako denbora trabajazeko ta padezizeko, orgatik ain labur eman digu trabajuen denbora bekala, ta berze bizitzako denbora destinatu du gozazeko trabajuen fruituak, orgatik disponitu du iraun dezan eternidade guzian. Orai, bada, trastornazen duenak lege gau logratu naies emen zeru iduri bat beren gustora, esta arrazio izan dezan parterik berze munduko glorian. Aizen nago ia erraten norbait bere gogoan, trabajatu ta padezitu bearbada emen, trabajus trabaju nork du ia nekazari batek baño munduan? Izenak berak dio, zer den nekazaria, edo nekezaia, edo nekazalea; ta ikusten da errealidadean, ezi nekazaria nekazen dela geienenik mundu ontan, aguantatus negetako otzak, elurrak, euriak, udetan beroak ta izerdiak, beti lurrareki pelean bekala, ta bitarte ezin atras, edo doi doia bizitzeko, kendus gorputzari deskansu ta erregalo ordinarioak ere, gutiago jaten ta edaten, gutiago lo egiten ta erreposazen, ta bitarte mundu guzia mantenizen delaik nekazariain izerdias, nior esta despreziatu ta arrastatuago bizi denik nekazari pobrea baño. Zer nai du trabaju ia? Ala da, ta orgatik miseria miserableena da kondenazea nekazari bat, emen neke, an neke, ta sekula deskansurik ez. Kondenazen bada abrats erregalatua, nonbait or da, erranen zaio oroi daiela egin zituela gustoak munduan; baña nekazari kondenatuai estakioke ori erran txoil guzis, baizik emen gaizak ta an gaiz iagokoak: Ala nola beti ernegazen ta odioan bizi den batek, emen baitu infernuto bat, gero berze infernu bat. Ala nola kodizioso, afanatu desegiten den batek ondasunen kasos, emen ezpaitu lograzen deskansurik, ta gero gutiago.

4. Baña, Jauna, nekazariain trabajua ona da, ta por konsigiente Jangoikoak manazen duena, ta ala mereji du deskansazea bizitza sekulakoan. Diot ezi baiez, baldin batek iten badio Jangoikoari zor dion zerbitzua. Nai du Jangoikoak, nik ere nainuke estaien gal nekazaririk bat berere, ia keta ainberze trabaju duen mundu ontan. Baña nork dispensa dezoke bere trabaju goiengatik obligazio lenbizikoa? Eta zer probetxu edo zer zerbitzu du Jangoikoak zure trabaju goietas? Etzara akaso trabajazen zeure gorputzaindako? Bai, Jauna, baña Jangoikoak ere nai du trabaja naien bizitzeko, ta ortan ere zerbitzazen da. Zerbitzazen da baldin trabajatus atrazeunzun bizigoi enpleazen bauzu Jangoikoaren legeain conforme, ta intenzio gorreki trabajazen bazara. Baña trabajatu bizitzeko, ta bizitu gero ofendizen Jangoikoa, zure trabajua ta bizia demonioaindako da, ta estizu gisa ortan zer agradezitu Jangoikoak; por konsigiente, nekazaria bere neke guzieki ermako du demonioak. Estuzu zer alegatu Jangoikaren alzinean emendik joan ondoan, o Jauna, oroi bedi ezi bizian erma nituela trabajuak, ta orai bida deskansua; ezi errespondatuko dizu, zer probetxu dut nik zure trabajues? Zeuretako trabajatu zina, ta luzazeko zeure bizia, ta ofendizeko nere Majestadea. Estizut zor soldata, zeren etzaren trabajatu nere zerbitzuan. Zoaz paga dezazula demonioak infernuan.

5. Orgatik, nere fielak, ia ke ta paratuzaiten Jangoikoak okasio onean iragasteko zerua zeuren trabajueki, estaien malogra guzia, kuidatu bear duzie bi gauzes beti zeuren ofizio nekoso gortan. Lenbizikoa da, konsagrazea Jangoikoari trabaju goiek ofrezitus berain zerbitzutako, estuzielaik berze intenziorik baizik mantenizea bizitza, zerbitzazeko Jangoiko andia. Bigarrena da, trabaju goietas landara aguantazea berze trabaju bat, baita ajustazea bizimodua Jangoikoaren legeareki, ukatus zeuren naikunde gaistoak, sujetatus gorputza ta arima Jangoikoaren manura humiltasun, pazienza, kastidade ta berze birtuteetan. Au da gauza dispensatuestaitena mundura etorri den niori. Konsidera bedi, nekazaria, dagola kunplizen Jangoikoak Adani emanikako penitenzia: In sudore vultûs tui vesceris pane tuo. Zeure izerdias atra beazu alimentua, baña zertako baizik egiteko Jangoikoari bere zerbitzua, satisfazitus lengo bekatuengatik ta apartatus urrengoetaik. Baña trabajatu laias edo alzurraz egun guzian, ta ezpauzu memoriarik Jangoikoas; urraturik lan egines bateo iten baituzu bekatuak; izerditurik gorputza indarka, ta bitarteo ezpauzu kuidadorik kenzeas orditasun, ira, desonestidade ta berze bizioak, zer ai zara? Debalde dire zure trabajuak, nekeak ta izerdiak, zerura admitizeko kontuan. Nekazari ona ta kristio gaistoa esta eskribizen zeruko kortesanoen ertean, bear da lenik kristiotasuna. Adam desterratu ondoan paraisotik bedrazitan egun ta ia urte bizitu ze beti trabajazen nekazalgoan, baña penitenzia iten neke goieki lengo bekatuain purgazeko, ta bitarteo ajustaturik Jangoikoaren legeareki, ala logratuzue orai duen zeruko tronoa, baña prosegitu bazue desobedizen Jangoikoa, bere neke guzieki joain ze infernura. Ala zuk nastekazen baituzu bekatueki zeure lanak bizitus desobediente Jangoikoaren mandamentuetara, madarikatua izain zara zeure lan guzieki, ta kondenatua. Baña bizi barin bazara bekatu mortalerik gabe ofrezitus Jangoikoari zeure nekeak, ebek zerbitzatuko dizute eskalerain orokiak bekala igateko zerura; ebek izain dire balioso zureta, nola diszipinak, silizioak, baruak ta penitenziak erreljiosaindako. Gisa ortan nekazariandako izain da alorra, fraileaindako konbentua bekala, ardanzea korua bekala; laiak, alzurak, igitaiak ta berze instrumentuak oroat nola fraileaindako libruak, disziplinak ta gañarako arma espiritualak. Nekazaria ze San Isidoro, ta orai du zeruan gloria andia, ta munduan estimazio espeziala, nola baita izatea patrono Madrilgo kortearena. Berze franko bide daude ofizio gortakoak zeruan, baña franko alaber infernuan; ta ofizioak estu kulpa, baizik personak; ta zeruko bidea delarik trabajuen bidea, okasio ona eman dio nekazariari Jangoikoak nai badu baliatu, ta bearko du ez malograzekos guzia, ez izatekos emen neke ta an infernu; ta orrengatik bear luke espezialki nekazariak kuidatu asegurazeas guzia, añaaditus gorputzeko nekeari arimaren kuidadoa. Pribazen zarena asko erregaloetaik, etzaitzke pribia ardoaren exzesotik? Zaudena aperreaturik aste guzian nekazen gorputza, estuzu izain birtute ukazeko indezenzia ta gauza debekatuak? Bada, ez ala itera, joain zara galdurik sekulako infernura, au da egia, ta etzaitute atrako lagun banoen algoek etc, etc, etc.

Serm. 49.

De non differendo praeparationem.

Ann 1780

Ecce nunc tempus acceptabile,

ecce nunc dies salutis. 1 Corinth. 5.

1. Nik sinestazen dut bizitza sekulakoa, dio kristioak, ta erraten dio Jangoikoak: nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goardatu mandamentuak, ta zerbitza nazazu oraiko bizian. Prebeni orai dilijenziareki. Ezaunzen du kristioak ia preziso dela bizi gontan zerbitzazea Jangoikoa, lograzekos gloriako soldata eternoa, solamente dio baduela orañik denbora, gero ilbaño len suplituko duela guzia. Ala dio, baña gero dionak bego dio, ta engañaturik pasazen zaizkio urteak, ta ellegaturik eriotzea doaie deus in gabe, ta ondorean naiko du suplitu, ta ezin ia itzuli gibela. Zenbatei gertatu zaiote petardo gau, ta daude orai marraxkas infernuan? Baleukate zure eskaida orai aiek, fiela, zer ez lukete eginen? Zuk duzu eskaigoi orai, ta ala orai beauzu zerbitzatu Jangoikoa utzi gabe geroko. Oroizen bazara, ala zindio orai zenbait urte, ala zindio joan den urtean, ta orañik etzara txoil erresolbitu. Noiz bear duzu? Gero, gero. Ta ertxibazizu Jangoikoak plazoa? Eztu ordea ertxio Ta erxten badu? Ez al dida ertxiko. Franko konbertitu dire zarzutuan, franko eriotzeko orduan. Bearbada izain dut nik ere ditzagoi ilbaño len. Orai nago adinaren lorean, eman bear da denborai berea. Ta alaxe diskurso gebeki galzen da sekulako. Egun nai dizut adiarazi, beauzula berladanik asi zerbitzazen Jangoikoa, zerengatik bizi guzia ortako baita, zerengatik ezpaitakizu deus gerokoas. Aizazu egia zure onetan.

2. Ecce nunc tempus acceptabile, ecce nunc dies salutis, dio San Pablok; orra, orai da denbora propioa, orai dire egunak iragazteko salbazio sekulakoa. Ecce nunc. Orai, dio. Núnc. Orai, ez gero. Bizi guziau señalaturik daukagu, guzia enplegazeko Jangoikoaren zerbitzuan, obligazio goneki sartu gara ta ajustatu gara Jangoikoaren etxe gontan; zertako diozu gero ta gero? Orai ta gero, diot nik. Ajustatu bazina nausi bateki urte bateko onenberze soldata eman beaizula urtea bete ondoan zure zerbitzuagatik, lizake kontu ona erratea: He an urteain azken egunetan trabajatuko naiz nausiaindako, bitarteo jan ta edan ta dibertitu beaut urte guzian; azkenean errain diot nausiari barka dezadala gaizki zerbitzatu, ta ona da, ta emain dida soldata osoa? Lizake au diskurso ona? Ez. Bada, au iten da puntualki Jangoikoareki: He! pasa zagun alegreki gure denbora egines geuren naikundeak, gero an azkenerat urrikiturik konfesatuko gara, ta barkatuko digu, ta emain digu sekulako gloria. Abundantia clementiae coelestis libidinem facit humana temeritatis, zio Tertulianok. Jangoikoaren on izanas baliazen gara ofendizeko ia bere Majestadea. Ona dela, ta barkatuko dizula, ta orgatik nauzu ofenditu orai? Orrengatik berorrengatik, zerengatik den ona, bear dugu zerbitzatu beti. Gastea zara; eta gastea estago obligaturik Jangoikoari zarra bekala? Eman bearzaikola denborai berea. Eta zer du berea denbora edozeñek, ezpada zerbitzazea Jangoikoa? Orai zaudela adinain lorean; eta adinain lorea estu mereji Jangoikoak? Beras adinain lorea emanai diozu munduari, demonioari ta aragiari; ta adinain ondarra ta farraskak Jangoikoari. Edo sobra iduri zaizu bizi guzia Jangoikoarendako ta iragazteko soldata eternoa? puntu bat da gizonaren bizi guzia eternidadearen aldean; ta alaere ain mezkino zatizen, au nere, au Jangoikoaren! iduri zaizu nirabe ona mantenizen zaituela zu Jangoikoak bere etxe gontan? Edo berze norbait da

mantenizen dizuna bizia gastezutuan? Ah zer nirabeak gaituen gu, Jauna! Ezpalu oberik, zerbitzu txarra luke.

3. Goazen berze alde batetik. Urteain lenbizio egunetan itentuen faltak nirabeak oroat apuntazen dire kontuetako, nola azken egunetan intuenak; bada, zer engañu da gizonarena faltazean sueltoki biziaren zati lenbizikoetan Jangoikoaren zerbitzuari? Akaso estire montonzen gastezutuko bekatuak juizio eguneko oroat nola zarzutukoak? Edo uste dugu atzenduko dela orduko Jangoikoa aietas? Ez, esta atzenduko, eskribizentu ain fuerteki niork borraezdezazken gisan, ezpadu nai bere Majestadeak. Zein itsuturik dauden uste dutenak defendatu bere bekatuak gaste direlako eskusareki! Orrengatik berorringatik zeren baizara gaste, bear duzu obeki zerbitzatu Jangoikoa, ia zeren baituzu indar ia, ia ez galzeagatik bataiarriko grazia. Baña gaistoak beti dabilza ingur ingur eskusas eskusa ez ajustatu naies Jangoikoaren legeareki, gaste direlaik, zeren diren gaste, ta zar direlaik, zeren diren zar. O ezaun bazindez, zein bat obeago zinduen ilzea aur, ezi ez erorzea bekatu mortalean! O nork eman lezadaken itzulzea berriz aur bataiatu berria, ez asteko bekatuen bidea sekula! in bauzu bekatu mortale bat, badakizu zierto merejitu duzula infernua; estakizu ta estuzu jakinen ia bizi guzian, barkaturik zauden edo ez, baldin ezpadizu errebelatu nai Jangoikoak. Berze alde, zenbat trabaju emateunte lengo bekatuek konzienzan? Berze alde, habito ta kostunbre iten dena bekatuetara. Orai akostunbrazen bazara gaizki, doble nekoso izain da gero garaizea kostunbregoi. Arbolatto bat gastea delaik zuzen daike aisa; baña makur azizen ta andizen bada, nork zuzenduko du? Berze alde, zenbait bizio ikusten da doazila anditus denborareki, usten bazaiote leku biotzean prinzipiotik. Ardora emana, zenbatenas zarrago, lisiatuago da. Asarrea gastezutuan inpertinenteago izaten da zarzutuan. Kodiziosoa len, gero kodiziosoago, estakit nola, ta Jangoikoaren milagros ezpada, esta emendazen kostunbre goietaik orziartaño gorputza obian ta arima infernuan. Fia fia emendatukozarelakoan.

4. Ontas landara gerogoi, gero baitiozu, nork aseguratu dizu? konbertizen denai ofrezitu dio Jangoikoak barkamentua, baña niori estio ofrezitu biarko eguna; ta alaere zuk atrazentuzu kontuak an zarzutukoak, bazina bekala denboren jabe. Gero au, gero berzea, ta deus etxakin gerokoas. Ikusagun berzela, mostra zaguzu zenbait papel firmatua Jangoikoaren eskuas, non asegurazeinzun geroko denbora, urte bat sikiera. O Jauna, franko bizizen dire zartuartaño bekatariak; akaso biziko naiz ni ere. Eta akaso gortan fiatu nauzu sekulako ongi edo gaizki izatea? Etzara emanen estokada bat, errateareki akaso kuratuko naiz. Estiozu eginen traizio erregeri, errateareki ezi an berze denbora batean zerbitzatuko diozula; ta iten diozu Jangoikoari esperanzareki ezi berze denbora bates zerbitzatuko duzula; ta Jangoikoa izaki denborain jabe. Frankori eman diotela, baita frankori ez; ta zu bulkazen bazaitu bekatuen ertean infernura, zer konsolu izain duzu jakiteas frankori esperatu diotela? gertatu da urkazerakoan bat auxtea sog, erorzea gizona, oiuitea puebloak: Libre, libre, ta librazea; ta orgatik exponizindeizke urkabera? gertatu da botazerakoan batek bere burua butzura, enredazea tresenak butzuko pokalean, ta gelditzea dilindaka erori gabe persona; ta esperanza gorreki bota zindezake zeurea? gertatu da kapillan dagolaik bat, etorzea indultoa erregegandik zerbait casualidades; ta eroa lizake exponileikena orgatik. Eroa da, bada, bizi dena Jangoikoaren kontra gastezutuan esperanzareki ezi ellegatuko duela zarzutura Jangoikoak. Antes bien, obeki espera dezake gaste onak emain diola Jangoikoak zar izatea konbeni bazaio.

5. Baña izanik ere denbora konbertizeko, estaike seguratu konbertituko zarela, ta barkatuko dizula Jangoikoak; lenik, zerengatik demonioak ia tentazen baitu azkenerat,

estakion eskapa bere izan duena bizi guzian, ez malograzeagatik dilijenzia intuen guziak len, dakielaik falta dela denbora guti arrapazeko ta segurazeko betikos. Bigarrenik, zeren bekataria bera kostunbreain utses inbaiba ia bekatuetara, ta naturale bekala itzuli baizaio gaistakeria, ta orgatik askiko du guti erorzeko, ta bear du anitz jaigizeko. Bekataria zarra da lazaro bat orzia bere sepulkroan, loturik eskuak ta oñak, ta losa andi bateki gañean; bear da Jangoikoaren milagro andiago bat arren santifikazeko, ia ezi bizteko. Il usteldu bat. Bekatueki ilunzen da entendamentua ez ezaunzeko ongi gauzak; gogorzen da borondatea; galzen da ajola; ta ala ilzen dire ain sereno franko, nola balidoazi kuarto batetik berzera, ta idatzarzen dire infernuan. Aumentazen da ongi egitearen difikultadea, ta gaitzerako inklinazioa fuertezzen da. Eta konfessoreain adbertenziek goarzen bada ere zerbait beirazera infernu esperazen diona, badezake iduriarazi dolore bat andia, ta frankotan solo izain da errezeko beldurra, ez bekatuen aborrezimentu fina. Ustea bekatua inestaikelaik esta señale seguroa biotzaren konbersioarena. Proponituko du ilzerakoan estela berriz joain okasio gaistora, sinesta daike ezi barin doaie obiara, estela joain okasio gaistora, baña nork daki proposito garren fintasuna edo falsedadea? Progua ikusten da ezi konbalezitu ondoan anitz itzulzen dire lengo kostunbreetara. Orgatik dudazen dute anitz konbersio berant goietas San Jeronimok, San Ziprianok, San Agustinek, San Gregoriok, San Anbrosiok, San Isidorok, San Bernardok ta berze anitzek. Orgatik bataiazera esperazen zutenak ilzearen peligroko deizenzuste eskarnios len goazeko kristioak; ta oroat eritasunain beira daudenak konbertizeko dei daizke goatzeko penitenteak. Aski dire eritasunaren molestiak, enbarazazeko dilijenzia bearlizakena ongi konfesazeko. Ala errateunte aun medianoki bizitu direnek tranze gartan: Nola nai du oroi nai den deustas orai? us benaza guti bat. Eznago deustako. Zer izain da, bizi guzian gaizki bizitu ta konfesio falsus, proposito finjitus pasatu direnes, tranze gartan?

6. Geldizen da solamente Jangoikoa esperanzatako. Egia da ezi noiznai konberti daien bat sinki, admitituko duela Jangoikoak, baña itekoa da sinki konbertizea; ta egia ere da ezteikela bat sinki konbertitu, ezpada Jangoikoaren grazias. Erori gaizke gerok bekatuan, baña ezkaizke geurok jaiki Jangoikoaren grazia gabe. Estu beñere ukazen bere ontasunak grazia aski dena, baña estu beti ematen grazia efikaza ta abundantea. Eta zer dretxo du bekataria gaistoak bizi guzian Jangoikoaren kontra obratu duenak, eman dezan grazia gau ain espeziala bere hume fielei ere doaiik ematen diotena? gauza bat txoil arritzen nauena da, ezi San Jeronimo, San Gregorio, San Luis Beltran ta berze franko bizitu zirenak sanduki bizi guzian, zeude ikar ikar beldurrak tranze gartas; ta bekataria desreglatuek dutela ainberze satisfakzio nola baleukate zeruko giltza bere eskuan! Edo aiek edo ebek dire tontoak. Eta aietas estaikelaik ori erran, ebetas erran bear da, ta arrazioreki, zerengatik esta ordinario fabora dezan ainberze ordu gartan gaistoa bere enemigo izana Jangoikoak, nola ona bere sierbo fiel izana, ezi ala izatekos nor arima leike bizizera trabajutan bizi guzian ez ofendizeagatik Jangoikoa? izan bez konfianza ongi bizi denak ezi fiela da Jangoikoa. Izan bez beldurtasun gaizki bizi denak, ezi justoa da Jangoikoa, ta berain itzak dire ebek: Deituzinduztet, ta etzindidate in kasorik, nik ere irri eginen dut zuen eriotzean, ta burlatuko naiz zuetas. Vocavi et renuistis, ego quoque in interiore vestro ridebo etc. Kunpli, kunpli bakotxak obligazio duena zerbitzazeko bizi guzian Jangoikoa; ala da seguro bizitza sekulakoa, ta berladanik erremediatu denbora galdua etc.

Serm. 50.
Praxis vivendi Agricol.
ann. 1780

Omnia honesté et secundum ordinem fiant. 1. Cor. 14.

1. Gure Jangoiko andiak nai duen bekala guziok salba gaizen, guziei utzitigu salbazeko medioak. Eta ofizio guzietan salbadaikelaik persona, nekazalgoan du okasio espeziala salbazeko, ia zeren baita ofizio bat llanoa ta humila, ia zeren baita trabajosoia, ta baliarazi daikena arimaindakoa, ia ere zeren baita erretiratuago okasioetaik, ta ez ain peligrrosoa gaistakerietako, nola berze asko ofizio, ia ere zeren gorputza lanean enpleazen den bitarteo, baitagoke arima okupazen jangoikoa baitan, espezialki zenbait lan jeneroetan diskursoa guti bearzendutenetan. En fin, zeren Jangoikoak lenbiziko kriatu zuen gizonari berak manatu ta erakutsi baizio nekazalgoa. Au ala delaik, diren ia edo gutiago nekazarietaik salbazen direnak, estigu erran Jangoikoak, ta ez dezake erresolbitu nere diskursoak; guretako aski da jakitea, estiotela estorbazen bere ofizioak nekazariei salbazea nai baute ajustatu Jangoikoaren legeareki. Erranik, bada, ia lastima dena kondenazea nekazaria, nik nola feligres guzienok baititut ofizio gortakoak, naies ebendako neretako bekala salbazioa, nainuke egun plantatu bizimodu ta erregla bat egunoro segi dezaziena, zeñen medios zoasten pasatus bizia bekatu gutiagoreki, zerbitzatus Jangoikoa ta kunplitus fina, zeintako baikaude munduan, ta erdexteko emen Jangoikoaren agradoa, ta gero leku puxka bat sanduen ertean. Eta adbertizen dut, ezi berze edozeñek kunpli dezakela erregla gau bere ariora, nai badu. Goazen attenditus.

2. Lenbizikoa da jaikizea goizetan garai onean dilijenziareki, eta ezpadaike belauriko, benzait bestizen bidanabar, eman Jangoikoari graziak bere benefizio guzies, ta ofrezitu bere persona, bere gorputza ta arima, bere potenziak ta sentidoak, bere pensamentuak, itzak, obrak, lanak ta gauza guziak egun gartakoak, ta bizi guzikoak Jangoikoari berain zerbitzu ta agradotan; eskatu barkazio ordu arteo inikako gaizki guzies; ta grazia ez ia iteko desgustadakionik, ta proponitu ez egitea albas. Guzien gain unitu ta juntatu bere obra ta lan guziak Jesusek bizi zelaik inikako obra ta trabajueki. Guziau in daike itzik erran gabe, solamente gogoas modu gontan, edo berze alako batean. Nere Jangoikoa, graziak ematentiot biotz guzias intidan mertxede guzies; ta ofrezizen naiz berri berritan neurau naizen guziau orren zerbitzuko. Ofrezizentiot nere gorputz arima gebek, nere potencia ta sentido guziok, nere pensamentu, itz, obra, lan ta gauza guziak egun ta bizi guzian indezkitenak orrendako; ta en fin, nere bizi guzia ta nere eriotzea. Barkatu, Jauna, barkatu orai artañoko gaizki guzia; bida grazia efikaza, ez egiteko berriz bekaturik egun ta sekula, ta proponizen dut estudala eginen albas. Unitzentut nere obra ta trabaju guziok, Jesus, orren obra ta trabajueki. In benaza bere mutil on bat alguzia, amen, otoi. Anitz balio du ofrezimentu gonek, zeñeki konsagrazen baitire gure obrak, ta in daike aisa edozein modus, ta aski da borondatea.

3. Bigarrena, posible barin bada, estiot meza enzutea, txoil ongi inen luke lezakenak egunoro, baña al menos sar atra bat elizan, non baitago guzien Aita dibinoa Jesus, benzait anitz luzazenestelaik, ta obeki bidanabar dutenek, utzi alzurra edo laia atarian, sartu ta erran: O Jauna, orrena naiz ta nai dut izan; ez nazala utzi galzera, ia ke ta nere amorios dagon sakramentu gortan; o al banezake egin orren gustoa guzis. Bida

grazia, ez naiz atzenduko ortas; orai noaie lanera orren lizenziareki, Jauna, bida bere bedeizioa ta grazia. Modu gontan edo berze batean bizpiru itzes in daike, ta estiot zaustela kuarto bates, esta kuarto erdi bates ere, esta erdia in erdian ere, baizik sar atra bat memoria ta afektoain erakusteko. San Isidoro nekazaria ze, ta zerbitzuko; ta egunoro enzuten zue meza, baña jaikis argibañolen; ta bisitazen zue ez eliza bat, baizik anitz eliza; ta Jangoikoak deklaratu zue kuadrazenzizaikona, igorzeareki aingiruak trabajazera arren partes. Baña estut nik ainberze eskazen, baizik bisita brebe bat, eta ori obra gaistoik segizen estelaik. Ah ta nola erran dut au? segi daike akaso, obra gaistorik bilazeagatik Jaunau? O fedea, non zara? Etorrialdioro aurki balezate berendako doblon bat, injenia lezakete noiz ta nola etorri. Oroat diot lanetik bidanabar, edo biaje, edo berze gisas pasaturik elizaondotik bisitazea brebeki. Barka bez, Jauna, nik ia nainuke, baña pixka gebek solo erratentut, ez dezaten pensa sobra dela ta gero ez in baterez.

4. Irugarrena, lanean trabajazen delaik moderazioareki aplikaturik oroitu noizean noiz Jangoikoas beirazen dugulaik presente aizen ta ikusten gaituela leku guzietan, ta gogoas erran mirik mogitu gabe, batzuetan: O Jaun andia, dela posible iten duela kaso berorren Majestadeak ni pobreones oroat nola errege andienas! Eta zierto da, anitz esker, Jauna, orrena naiz, in bez nitas nai duena. Berze batzuetan: Barkatu, Jauna, nere gaizki zerbitzatua, nainuke enplea ta akaba daien nere bizia orren zerbitzuan. Berze batzuetan: orren baitan, Jauna, dut esperanza, goardatuko duela leku piska bat neretako gloria gortan, akabatu orduko bizi miserable gau. Berze batzuetan: maitazen dut berori nik, Jauna, ta nainioke kuadratu sandu batek bekala. Berze batzuetan: Ni ez naiz deustako, goberna benaza berorrek bere astokoa bekala, nai duen gisan. Berze batzuetan: O bekatu madarikatuak, noiz akabatuko dire? Nork ez luken ikasi sekula? Ojala ezpanu egin beñ ere! nai dut, Jauna, ez dezan balia deus orren kontra pasadaienak nere baitan. Eta modu gontara dibertizen, ta bedekazen da lana, ta trabajazen da kristioki nekazaria.

5. Laugarrena, jan ta edan tenplanzareki Jangoikoaren eskutik bekala, pensazen artara doaielaik bakotxa, doaiela alimentazera Jangoikoaren astottoa arri zerbitzazeko obeki; ta ala beti Jesu Kristoren exenplura asterakoan beti bedekatu maia, ta akabatu ondoan beti eman graziak, estaien gure jate edatea izan oroat nola irrazionaleen gisa, baizik kuadra dezogun Jangoikoari jatean ta edatean ere. Maiain bedeizioa erakutsinizie len, ots ikasis. Ala erraten da prinzipioan: Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen. Jauna, bedeika gaizazu gu, ta zure erregaloebek zure eskuetatik errebitutu beartugunak, Kristo gure Jaunaingatik. Amen. (Aita gurea, Abe Maria ta Gloria Patri,) ta gero ala: Jangoikoak egin gaizala zeruko maiaren partizipante. Amen. Graziak ematen dire ala: Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen. Ematentizugu graziak zure mertextede guziengatik, Jaun dibinoa, sekulakos bizi ta erreinazen zaudena. Amen. (Aita gurea bat. Ama Birjinaren alabanzetan Abe Maria. Ilze on batengatik Aitagurea ta Abe Maria. Arima purgatoriokoen faboretan Aitagurea, Abe Maria ta Gloria Patri. Ta azkenean ala: Mantenazen gaituenak lurrean bedeika gaizala zeruan. Amen. Eta klaro errezzatu bear da guzia; esta luze, brebe aski da.

6. Borzgarrena, etziterakoan pensa goazela arzera deskansu puxka bat Jangoikoaren lizenziareki gero obeki trabajazeko berain zerbitzuan; ta gauoro ezpadaike belauriko, benzait buluxten bidanabar ta lokartu arteo eman errepaso bat konzienziai ia zer in den Jangoikoaren kontra egun gortan; ta azkenean il bear balu bekala gauartan egin kontriziosko akta bat biotz guzias erraten duela: Jesu Kristo ene Jauna, Jangoiko ta gizon, etc. Artu ur bedekatu, zeñatu goatzea ta bere burua, ta Ama Birjinari bere konzepzio

garbiagatik errezatu irur Abe Maria goardadezangatik garbi gure gorputz arima, ta libra gaizan amets gaistoetaik. Au da modua pasazeko ongi eguna ta gaua; gisaontan baliarasten dire berze gisas debalde lidoazken lanak; ta egiten zaio zerbitzu pixka bat estadoaren konforme, ia ke ta ez karen gauza egiteko gauza andiak, iragazteko arimak, emateko bizia ta odola Jangoikoagatik. Falta da explikazeko jaietan portazeko modua, ta gañarako obserbatu bear diren gauza prinzipalenak. Baña utzi bearko dugu urbilen platikako, ezi ia beldurrak nago nekatu zaratela. Egin, bada, errana guziek beren modura aplikatus gauza gebetara, ta bizitus zerbitzazen Jangoikoa artako eman zaigun plazo gontan, estaien gerta lan ta lan, neke ta neke, bizitu ta bizitu, ta gero il ondoan deus ez aurkitu, zeren deus esten egin Jangoikoagatik. Ah bazuk badire aplikatuak aizera ta ikastera Jangoikoaren gauza gebek, ta dute marka direlako predestinatuak, Kristok diones: Ki ex Deo est, berbo Dei audit. Baña berzebazuk dire dauzkitenak gauza gebek sinplekeriak bekala, ta estutenak kasorik iten, baizik bizi al badaizke aisa, ta logratus emengo ondasunak, ta alkabo arrastaturik bizitu ondoan oietaik zenbait gorputzaindako sollik, ilen dire ta ikuskoute beren bizia izan dela animaleen bizia, protxurik ez trabajues berek, ta zerbitzurik ere ez Jangoikoak ta ala galzen dute sekulako soldata. Ea, bizi Jangoikoaindako, ezi ortako etorri gara mundura; arreglatu gorputza ta arima Jangoikoaren gustora, fiela da emateko mereji dugun baño ia gloria.

Sermo. 51.

Praxis viv. Agricol.

Anno 1780

1. Erranik azken platikan egunain ongi pasazeko modua, baita ofrezitzea goizean Jangoikoari bere obrak, bisitazea al badaike Jaun sakramentatuan, oroizea noizean noiz lanen ertean, bedekitzea maia ta ematea graziak jaterakoan, etzitea garaionean, ta examinazea gauoro konzienzia, ta egitea kontriziosko akta, falta da orai adbertizea egunoroko errosarioa, edo dela bakarrik bakotxak errezatus, edo familiareki, edo elizan sazerdoteareki. Ezpada au egiten, nola erakusten du fielak duen debozioa Maria Santisimari, zein baita Jangoikoas landara lenbiziko persona zeruan ta lurrean, Jangoikoaren ta bekatarien Ama, ta gure esperanza solla artas landara. Obedia jan gabe pasazea eguna ezi ez errezatu gabe errosarioa. Orai nainuke erran asteoro, iloro ta urteoro in bear lukena nekazariak. Asteoro jaiegunean desokupatzea osoki Jangoikoarendako, exkusatzea al daiken lan ta biaje guzietaik oroiturik ezi jaieguna dela Jangoikoaren eguna, akuditzea, posible bada, bere elizara, aizea prediku edo doktrina, barin bada, adelantatu naies Jangoikoaren eskolan, ta orgatik bilatzea, ta etsiturik etorri predikuas ain ongi nola mezas, ta en fin, egitea berze obra on anitz ezaundaien Jangoikoaren eguna bekala enpleazen dela Jangoikoaren zerbitzuan espezialki. O jaiegunak, nork ezaundukozaiste noren zaraten! (O kristio izeneskoak lurrean sartuak arima guziareki, satorrak bekalaitsuak, estuzienak memoriarik beirazeko Jangoikoagana, etorriak mundura zerbitzazera Jangoikoa ta ezin aurki dezakezenak denboraik arrendako bizi guzian, asteas nekatzen, jaiean ez aterzen, deabruaren presidario perpetuoak, il ta deus aurkitukoestuzienak zerbitzu eginik Jangoikoari, por konsigiente soldatarik ere ez arrendandik, demonioagandik bai infernu eternoa, zeren in diozen gustoa emen arrastaturik beti kodiziaren sokas, secula seculorum deskansurik izan bearestuzienak zeuren kulpas, estuzie berexiko egun bat sikiera Jangoikoaindako ta arimaindako?) Memento. Oiuitten dizie Jangoikoak. Memento ut diem sabbati santifices. Idazarri, oroitu santifikazeas jaieguna.

2. Iloro in bearlizakena da konfesazea bere bekatuak, ta komekazea ta asistizea Jaun sakramentatuaren funzionera debozioreki. Txoil ajolakabea da deskuidazen dena garbitzeas noizean noiz bere arima, kuadrizeko ia Jangoikoari, eta iloro garbitzea esta sobra. Baña kuidatu bear dena da ez kostunbres konfesa komekazea aldatu ta meyoratu gabe, baizik aldioro doaien bekala egitera munduan den gauzarik inportazioskoena, prebenitus ala nola balidoeie ematera Jangoikoari kontu bere bizimoduas, erdextera barkamentu, ta jarzera aingiruen maian. Urteoro alaber, konbenilizake urtearen konfesio jenerale bat suplizeko urteasko konfesioetan akaso izan diren faltak. En fin, beti portatu Jangoikoaren gauzetan dilijente ta afizionatu, nekazari bezain kristio on bekala, montiatu naiak zerbait onki Jangoikoaren alzineko, ta zerengatik mereji duen Jangoikoak. Bi adbertenzia tori, lenbizikoa ez egitea onak solo zeren intentusten berzeek, noaie mezara zerengatik doazin berzeak, konfesazen naiz zeren berzeak ere konfesazen baitire, ezperen ezpainezake egin; esta ala bear, baizik iten baute ezpaute berzeek, zuk inzazu alikako onki guzia solo Jangoikoagatik. Bigarren adbertenzia ez egitea deus banidades, edo niri edo berze bati kuadratu naies, ezi ori lizake debalde trabajazea, antes bien, okultatu bear da alguzia iten den onkia jakinik ikusten duela Jangoikoak. Ai, ta zenbat ingorante den ontan, ezpaitute estimazen gauzak, baizik iduritzea, arrautze txar bat ta anitz karaka. Iten bada

deus, jakin bear du mundu guziak, berzela ez ganarik ere. Zertan nauzu jakin dezagun zaudela elizan, zoazela prozesioan, iteunzula au ta ura? Akaso guk eman beardizugu soldata? Eztizie zer agradezitu Jangoikoak, ezpaituzu arreatatik egin. Nekeareki gelditu zara, ta debalde aizeain truk. Zenbat obeago lizake anitz egitea, ta guti iduritzea? Obeda biotzeain barneko debozio ixil niork ikusten estuen bat ezi ez munduko exterioridade guziak ura gabe. Substantzia, ez itxura, fiolak.

3. Orañ nainuke erran gauza zenbait prinzipalenak, zeintan paratu bear baitu kuido nekazariak, ta obligazioak. Lenbizikoa da aprensio egitean kristiotasunas, fedesko gauzes, Jangoikoaren zerbitzuak, arimaren salbazetas, ta por konsigiente ez bekatu egiteas, ta ikasi naitas nola bizitu akuditus erakustunetara. Ai badire anitz animale bi oñetakoak aldiritan estutenak ajolarik deustas, baizik jateas, edateas ta gorputzaren gauzes, ta nola baitute diskurrimentu guti, ain konsolaturik bizi dire nola ezpaliz berze bizirik baizik au, ta aisa admiñ lezakeñ edozein bekatu obeki, ezi ez trabaju edozein, trukadan. Biztu fedea, pensatu gauzak, ta in aprensio bear denas. Ortako zara gizon fiela.

4. Bigarren, kuidatu bear dena da kaso ia egiteas obligazioes, ezi ez debozioes. Badire zenbait fundazen dutenak bere seguridadea gauza exteriore debozioskoetan ta ez substantziaskoetan. Kuido anitz alako sandu edo sandaren eguna señañatu bear dela, ta igandea guti. Prozesio gau edo berzea in bear da sin falta, ta deabruen prozesioak danzak defenda, ta indaiena in daiela. Nai badut erreza dezan errosario bat, bida edo ia, ori bai; nai badut iduki dezan pazienza, aparta daien okasiotik, ta alakoak, ori ez. Guziau da engañua. Beira zer dioten: Iago balio du Jangoikoaren alzineko aorrazeta edo edekizea bekatu bat, ezi ez jai ta prozesio ta errezu guziak. Egia diot, ezi pueblo bekatari debozio goieki kontentazen zenas erran zue Jangoikoak: Populus hic labiis me honorat, cor autem eorum longé est à me. Pueblo gonek honrazen nau ezpañes, baña biotza urruti enegandik. Zein bat engañu ebetaik aldiritan! Biz debozioak, baña obligazioak len dire, ezi obligazioak kunplitu ez ta fizea debozioetan da parazeta dilindaka istupasko ari batetik, utzirik eskalera, utzirik bide erreala.

5. Irugarrena da, nola geien komun baita estudiorik gabeko jendea, segizea bere sazerdotearen konsejuak ia ezi berze niorenak arimako gauzetan. Eta zertako paratutu Jangoikoak erriro sazerdoteak, ezpada izateko kidari ta erakustun bere ardien? Badire zenbait estutenak iten kasorik sazerdoteen erranes. (Badire berze zenbait iteuntenak sendagalla oponizeas, ta aurkizen bada kuadrillan, burlazen da bano sazerdoteas, ta alabazeunte, zeñebreazeunte disparatea, ta apostus bekala doaz zeñek baño zeñek ia erran sazerdoteain kontra, ta ala nola zegon Kristo judio gaien erdian burlatu zutelaik, ala atrazen dute sazerdotea zenbaitek irri egiteko. Au esta ongi, barin balu ere kulpa sazerdoteak; modua da abisazeta bera niori adiarazi gabe beren edo berze norbaiten medios. Kuido despreziatetas, kuido ez atendizeas sazerdotea, zure salbazeko paratu dizuna Jangoikoak; berze gisas, zoaz galdua.)

6. Laugarrena, nola baita geien komun jende ez abratsa, kuidatu bear da gobernuas, ta estaien sobra apegak kodizia. Bazuk dire floxoak, ajolakabeak, gorputzaren esklaboak, estutenak kuidazen baizik jateas ta edateas ta triposkeries beren denboran, (naiz doazila ura bera gauzak, naiz kexa daizela gero ondorekoak. Barin bada apostu, esta eskusazen; joku barin bada, esta erretirazen; ta bitarteo petardo emen ta an, zorrak ez pagatus, baizik añaditus. Au da desgobernua ta bekatu mortale.) Berzebazuk berze aldetik dire ain biotz ertxiak, ezi daude beti afanaturik ez utzi naites kea ere etxetik, beldurrak egiteko limosna bat, emateko jendeei trago bat, mila gezur diskurrizen, mila injenio

pensazen ez emateko miseria bat, desonratus beren buruak, galdurik jendeen alkea, ta ia dena, bere tripari ere ukatus konbeniente ta moderazio dena, ta galdus osasuna ez soltatu naies bolsa. Au da miseria, ez gobernazea ondasunak, baizik aien esklabo bizitzea, ta bitarteo deus ez lograzea gorputzain ta ez arimain. Bildu ta bildu, ta bizian ez gozatu, il ta ezin erman, ta il ondoan berzei txukatu nigarrak zure dirues. Ala izatekos, obe zindue deus ez izan, ezi padeziturik orai bekala, benzait nior etze alegratuko zure ilzeas, nola alegrazen baita ilzeas abratsa. Gaisto da ez izatea bere kulpas bear dena; gaisto da izan ta ez gobernazea bear den bekala; gaistoago da izan ta ez baliazea izanas deustako, oroat nola ezpalu. Goardatu moderazioa.

7. Borzgarrena da ez izatea enbidiarik, ta ez egitea ñakadarik elkarri nekazarielik. Anitz inbidioso da ofizio gortan, ta ikusi orduko bat mejorazen, berla diote inbidia, baliz bekala beren gaiza berzearen ona. Kuidado dañues berzeen heredajeetan, kuidado lapurreries. Seigarrena da kuidazea mia, ezi txoil suelto usteunte zenbaitek, ta estute iten aprensiorik, esta konfesazen ere, balire bekala itz aizearenak, ta estakit nola daizken salba. Ainberze murmurazen, iten bada deus, berla erraten, ta gloria nork lenik; deus ez okultazen, ta zierto estena, oroat, eskrupulorik gabe. Berze alde mia zein suelto publikoki erraten itz desonestoak, alkaizungarriak, baliz alkerik; ta irri guziek niork ez korrejizen, nior ez itzulzen Jangoikoaren legearen alde. (Eta gero ezin aurki zer konfesatu; baut uste zenbaiten biotzetan egotes habitazeuntela bekatu mortaleek bizi guzian, ia zeren estuten iten aprensio baizik txoil disformees, ia zeren estuten sentitzen bear bekala gauzak, ta alde gontaik dut uste iretsten duela anitz nekazari infernuak. Da deskonsolu aizea ainberze disparate okasio batzuetan, erakustea malizia gisa ortan inozentei, ta ala dibertizea, ta ia dena, exkusazeko erratea, dibertizeagatik iteuntela. Zein urruti dauden sentizetik bear bekala! il baliz idi bat, bai, baña ortas, ori da sinplekeria, ala diote, beira nola izan daiken lekurik zeruan pestearen katedratikogebendako. Ai bezate egia, zer den itz desonesto bat. Itz desonesto bat tentagarria da bekatu mortale bat sekula pagatu ezin daikena aski infernuan; ta zenbat lagunuen alzinean erraten den berze ainberze bekatu mortale ia da eskandaloarena. Au da teologia ziertoa.)

8. Zazpigarren kuidatu bear dena da ardoan; edan bai indarraindakoa, baña ez edan sobra. Nork erran dañu datozinak? Aste guziko trabajuak edaten dire jai bates batzuetan; ardoaren aiskide sobra dena miserien ostatari da. Gero segizen da desgovernua, gero burua berotu ta edozein gauza erratea ta egitea, gero diskordia etxean ta kanpokoeki; eta eskusa indar emateaina kenzeko, erran bear da ezi ardoan exzesoa estuela ematen, baizik galzen indarra, gaistazentu humoreak, itxekizen du odola, turbazen du burua ta laburzen du bizia. Baña guziau ezlizake anitz inport, ezpaliz dañu espiritualerik, au da, bekaturik. Baña ardoan da anitz bekatu, ta lastima da ez ia kuidazea. Tentazen du gulak, baña tenplanza da kontra, etzaitela utzi garaizera; aski duzulaik, geldi, naiz tenta. Baña gertazen bada geienean bekala afizionazea ardora, geroago ta ia, ta ala bizi ta ala il. Jokua da kausa askotan. Ta kuidado ontan ere. Jauna, estaike dibertitu? Estaike edan? Bai, baña biz dibersio dezentea, biz edate moderatua, ez pasiones, ez bizios, ez desgaraiean. Desorden guzia bekatu da, ta esta eskusa ona nik ere iteuntela. Iten baut iteunt gaizki, zuk ere iten bauzu, gaizki inen duzu. Baña leku emateuntenek ain beranduraño dute kulpia ia. Goarda moderazio guzietan.

9. Banue ia adbertizeko, baña akaba zagun errateareki, kuidatu bear dela txoil guzis bekaturik baterez egitetik, nola ezpaita aski bedrazi mandamentuak goardazea, bat auxten bada, orgatik kuidado guzietas. Errepara bakotxak bere inklinazioak, ta joan kendus

okasioak, garaitus tentazioak, ta iragazis biktoria. Trabaju da inklinazea bat ta ezin konsenti, izatea tirria ta kontra egitea; baña au da Jangoikoaren zerbitzuko trabajua eskusaestaikena. Uste duzu orai zeruan dauden sanduek etzutela pasione ta tentazio, edo suberbian, edo abarizian, edo luxurian, edo iran, edo berze bizioetan? Bazute, zeren gu bekala gizon zire ta materia berekoak; baña erresistitus, trabajatus ta kuidatus iragazi zute biktoria. Bide beras joan bearko joan bear duenak, berzela estaike ellega. Zure gañarako trabaju guziak estire aski ararazeko, ezipazara trabajazen Jangoikoaren zerbitzuan (egin naies sandu zeure buruoi Jangoikoaren graziareki, ezi esta an admitizen baizik sandu dena.) Emendatu len gaizki egina, suplitu alguzia, ta orai intenzio goneki in fede, esperanza ta karidadearen aktak, etc.

Serm. 52.

Praxis vivendi faeminar. rustic.

ann. 1780

Mulierem forum quis invenies? Parab. Salom. c.31.

1. Erranik ia gizon nekazarien salbazeko modua, pasazen naiz erakustera emastekiei nola bizitu bere estadoan, iragazteko gloria. Estaike uka deizen duela Elizak debotoa emastekigendea, ta errealki geien komun daramagutela abantalla gizonei zenbait birtuteetan: Purezan, ferborean, piedadean ta Kristorenganako amorioan, diones San Juan Krisostomok (h. 13. Ep. Ephes.) Ta orgatik da zenbait autoreen opinione, salbazen direla emasteki ia gizon baño. Baña estaike ere uka, gaisto den emastekiak kalte ia in dezakela askotan, gizon gaistoak baño. Ta guzietaik da. Emasteki batek galdu zue mundua, Ebak; berze emasteki batek ekar zue erremedioa, Maria Santisimak. Guzia dago arimain ontasun edo gaistotasunean. Arima biz ona ta ia ona da emastekia. Zenbait medio ortako emaintut, ta zenbait kalidade. Atenzio otoi.

2. Lenbizikorik, goarda egunain ongi pasazeko erregla: Goizetan ofrezizea obrak, bisitazea albas Jaun sakramentatu gau, oroizea noizean noiz Jangoikoas lanen erlean; gauoro examinazea konzienzia, errosarioa, maiz konfesa komekazea, etc. Orai pinzipalena ikasi beartuenak: Lenbizikoa, doktrina kristioa gastetik; estakiena zer ai da? O zer memoria, ikasteko koplak ta kanta banoak! Bestizeko moduak ta modak, ta itxureriak! Bada, arima bera delaik arimain potentzia, memoria ere bera da onerako ta gaizerako. Zertan dago ikastea bearestirenak, ta bear direnak ez? Borondatean; ezpaita parazen dilijenzia bera. Ignoranzia ta uts bakotxa doktrinan itzulbalei berze ainberze mantxa aurpegian, izain ginduzke doktrinista obeak orai tugun ignorantak. Lege parabalei ezi estakiena ongi doktrina, dagola zokoan atzendurik bizi guzian, zer laisterrak Elizara aizeagatik ezplikazioa? Zer galdeitea batai ta berzeai, nola da Enkarnazioko misterioa? Nola Trintatekoa? Nola konfesa komekazeko modua? Bada, lege dugu examinazeko doktrinan ezkondu baño len guziak, ezi zer erakutsiko du estakienak? Astoain humea astoko.

3. Alaber, ikasi gastetik emasteki lanak: Josten, errokan, ogi ta lixua egiten, kozinazen ta gañarakoak, ta afizionatu ta usatu lanoietara trabajazeko, bere moduan bizitzeko, ta izateko emasteki protxuskooa ta honratua munduain alzinean ere. (Zuri akaso iduri zaizu inporta dela zerbait erakustea zeure burua, danboreain soña ze, danzaze ta alako aurkeriak ikastea, ta engañazen zara, ezi tonto batek ezpada nork naiko du emasteki erakutsia, ibildaria ta danzaria? Orduan lizake pareja ona gorazeko familia.). Ezpauzu, bada, malogratu nai, ai nazazu; eginzaitez lenik kristio ona, ikasazu emasteki lanetan ta izan zaite aplikatua, ezi mundu guziak nai du emasteki trabajaria, juizioduna ta gobernari ona. Orai, bada, ezpazara egiten gauza onetara, zer izain da gero? Zigarra joan omen zizaio negu bates txinurriari janario eske. Erran zio txinurriak: Zer aitu zina udan? Ni kantazen. Bada, danza zaite orai arin duzulaik tripa. Nik udan bildu nuena orai aurkizen dut. Aisa entendatu du aguda denak. Tontaindako explikatuko dut, ezi gaste ezpada ongi atzizen malogratuko dela, ta fundarik ta gobernurik gabe, oziosa usatu ta oziosa nai, estela faltako ai. Estugu ikusten zer iten duen ikasiak len? Nola mantenizen diren zenbait emasteki beren eskuetako lan txurras ia anparorik gabe? Al rebes, berze batzuek galzeuntela bere ta

berzen guzia? Substantzia, ez itxura.

4. Irugarren prenda emastekiarena, juizioa ta prudenzia. In aprezio bear denas, disimulatu obe dena disimulazea, minzatu preziso delaik, ixildu anitz, diskurritu ia, in ongi bere obligazioak ta guti iduriarazi. Zenbaiten buruek dirudidute daudela huekoan, ain arinak dire, aski da aize guti itzulzeko alde batera ta berzera. Bada, zoaz prudenziain bila, estago etxe gontan. Gizon batek zio, paraturik eskua kopetan: Bi eri gebetan dago gizontasun guzia. Ta zio ongi, juizio ta prudenziaingatik. Zertako duzu kaskil anitz ta mami guti? Itxura franko ta errealidade guti? Idiak manso ta ixil iten du bere lana. Inarkak eman anitz ta anitz buelta airean, ta apenas arrapazen du eltxo bat. Estuzu ikusten zenbaitek zein asentatua duten juizioa, zein ixil gobernazeunten familia ta etxea? Berze zenbaitek plater baten ekartzeko, mila aspamentu, mila itxura. (Lixua edo ogi barin bada, jakin bear du barride guziak. Lan puxka bat barin badu, adiarazi bear diote katuli ta alki guziei, tripili trapala. Zer da au? Au duende zenbait da.). Zer errain dut inportazioskoagoetan? Zenbat aldis parazen du bakea prudentak? Okultazen ta defendazen du berzeain honra? Bitarteo galzera botazen duelaik guzia kaskarinak.

5. Laugarren prenda ixiltasuna. Errepara nola daukazun mia paraturik Jangoikoak bi murallen pean bekala, ezpain ta orzen barnean. Jangoikoak egiteko gauza guziak itz bat erran zue: Ipse dixit, et facta sunt. Franko guziak dire itzak egiteko deus. Piza ongi itza erranbaño len; baliz urrea, obeki piza leike beldurrak eman sobra. Ala, bi aldis diskurritu bear da erranbaño len itza, zerengatik erranaskeros, estaike itzuli gibela. Nescit vox missa reverti. Salutatuzuelaik aingiruak Maria, zego diskurrizen andre andia zertara ote zen salutazio gura, ta emateko bere baimendea ama izateko, Jangoikoaren Ama, aseguratu bear izan zitio aingiruak anitz gauza. O Maria, zenbat semejante tuen izenean, ainberze deizen direnak Maria! Baña zein guti izanean! Zein guti ixilak emastekietan! Zenbaiten mia dirudi azoges emana, ain platikari, ain oiulari. (Etzue nai izandu San Pablok permititu izan zeien emastekirik predikari. Docere autem mulierem non permito. Baizik egotea ixil. Sed esse in silentio. Eman baliote pulpitoa, zer predikuak! Orai kexazen direnak luzez, estakit zer inen zuten orduan. Bada, konfessore in balitu, zenbaitei paratu bearko zizaiote katea mian, ainberze kontu, ainberze enbusteria, ainberze sekreto agerzen direnak, ainberze murmurazio! Mienbro txiki bat da mia, baña itentu dañu andiak; txindi bat ere txipia da, ta aski da errezeko oianak, dio Santiagok. Zenbaitei solamente konfesazeko, mutuzen zaiote mia, ta al rebes bearlizake. Itz guti ta onak, ez anitz ta gaistoak). Bein minzatu ze Eba ta galdu zue munduan, zer izain da anitz jardukian? Estaike falta bekatu. In multiloquio non derit peccatum.

6. Borzgarren prenda humiltasuna banidade ta suberbiarik gabe. Inposible da juizio ona duen persona bana izatea, beiraturik beregana. Zer da edozein? Gorputz ta arima. Ariman izan daike zerbait onki, baña guzia solo Jangoikoagandik. Eta bekatuak solamente geurengandik. Bada, nondik dator banidadea? Gorputzain kasos, ta gorputza esta baizik aragi ezurresko bulto bat, zikinkerias beterikako zaku bat. Baña idurias da banidade. Biar emain dizu kalentura batek ta joan da zure tintura gañekoa. Etzi ilen zara, ta janen zaitute arrek ta mormotek. Estuzu ikusten zure pean dauden obia goietan? (Orko zenbait ezur, kalabera ta kanilla, zire len zu bekala banak; orra zer diren orai. Prokura zazu iduritzea ongi Jangoikoari adornatus birtutes arima; gañarakoa da patarata. Gorputza estali dezente ta txukunki, ta aski da. Esta sinplekeria banagloriazeta gañeko tresenes? Akaso oriengatik zara ia substantzian? Ta nork edeki burutik alakoei presunziogoi? Bakotxai iduri zaio dela erreina bat, ain bana nola pabo erreala erakusten bere ponpa, ta guzia da luma.

Bai, ta kostuak nork aguanta? Nork konta ladronkeriak? Biz aski erratea obe dela tellatuan itaxura, ezi ez emasteki bana etxean. Ta bateo suberba delaik, nor bizi arreki? Esta potrorik ain domatuestaikenik, nola emasteki altiba. Estakioke mintza baizik alabatus, guzia gaitzat arzen du, ta bizi da beti gogo gaistoan). Izanzaitez humila, pensa zazu obeak direla zu baño guziak, ta tratazkizu ongi. Nork estu onetsiko humila? Ta nork estu aborrezituko suberba?

7. Seigarren prenda, tenplanza ta bizio gabea. Non nago? Nekazari errian, nekazari izerdiain utses ogi puska bat atrazeuntenen ertean; ta izan daikela alakoen andrerik enplea dezakenik senarrain izerdia triposkerian ta laminurian? Zenbat kontrario tuen nekazariak? Txinurriak kanpoan, saguak graneroan ta despensan, ta sagu gaistoena da emakume tripa gaisto ta orz ona duena. Estuzu alako arratorik estregazeko zuk bildua. Zizaña esta aterzen txupatus aliketa bete artaño guzis; esta aterzen biziosoa txupatus ondasunak aliketa akabatu arteo. Nola inen du, dirurik esten lekuan? Estire falta alkahueteak, ta esta erreparazen prezioan. O ladronkerias estalzen direnak, agertuko dire noizbait. Estardukat preziso bear denas, solo erreprendizen dut sobraniatua. Izan zaite bizio gabea, ez sobra ta ez gutiegi, ez gula ta ez kodizia. Mortifikatu gustoa ta suplitu nezesidadea. Ebita extremoak, moderazioa segi.

8. Zazpigarren prenda, modestia ta alkea goardazeko pureza. Jangoikoak eman dio alkea emastekiari probidenzias, ezperen non ze mundurik? Baña zenbait doaz galdus donogoi gaizki usatus ta lagun gaistoeki. Grazia grazia in gain, juiziosa ta alkekorra, dio Espiritu Sanduak. Gratia super gratiam, mulier sensata et pudorata. Zein gauza ederra apartazea leku publikoetaik! Zein begi ederrak apalzen direnak gizonen aurkintzean! Zein kolore onak atrazen direnak aurpegira norbait minzazea! Baña gaisto gaistoain gain da buru arina ta alkegabea, pestearen katedratika, zapo pozios betea, bere ta berzeen galzalea. Biz aski erratea alkerik esten lekuan falta dela prenda preziosoena, pureza.

9. Zorzigarren prenda, pazienza ta mansotasuna; dulzazen dire trabaju guziak emasteki oneki ta sufritua delaik, ta parazen da bakea etxean. Kristoren ta Maria Santisimaren karanza du jenioan, dena mansa ta humila; ta señaile guziak estire ain seguro gara dela Jangoikoarenak, nola baita sufrirea arreatatik trabajuak. Baña erruina delaik emastekia, an dago infernua. Digula guziei Jangoikoak grazia ezaunzeko ta emendazeko jenioak, bizizeko emen sosegatu ta obekiago ta gero izateko bizitza sekulakoa glorian. Nik sinestak. etc, etc, etc.

Serm. 53.

De Sacramentis ut sic.

ann. 1780

Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris. Isai. 12.

1. Ugalde bat atrazen zela gustoaren lekutik, erregazeko paraisoa, dio Eskriturak, zein gero partizen baita laur buru edo zati prinzipaletan. (Gen. 2). Paraisoa espiritualki entendazen da Eliza edo kristiandadea, ugalde erregazen duena da doktrina kristioa, zein partizen baita laur parte prinzipaleetan: Lenbizikoa, jakitea zer sinestatu; bigarrena, zer eskatu; irugarrena, zer obratu; ta laugarrena, zer errezibitu. Explikaturik ia zer sinestatu, baitago Kredoan, segitus katezismo erromanoaren ordena, explikatuko dugu orai zer errezibitu. Nola jakinen dugu zer errezibitu? Dakizkigulaik Elizako Sakramentuak. O iturri preziosoak, nondik batatorkigu graziaren ur abundantea kristioei! Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris, zio Isaias Profetak; logratukotuzie ur salubleak gozo andiareki Salbadorearen iturrietaik. Iturri gebek entenda daizkela sakramentuak dio Kartusianok (hic); baña lograzeko eben ondasun miragarria, da preziso entendazea, ta entendazeko explikatzea ta aditzea kuido andiareki.

2. Sakramentua jeneralki da gauza bat guziz sagratua ta sekreto; baña partikulariki Elizako sakramentu gebek dire señale exteriorebazuk Kristok ezarriak, emateko guri aien medios bere grazia ta birtuteak. Jangoikoak usatu du egiteko gizonei zenbait fabore ofrezitu duena, ematea zerbait señale, zeñen medios asegura zeizen fabore ofrezituas. Ala, ofrezitu ziolaik Noeri etzuela berriz ondatuko mundua dilubio unibersalas, eman zio otsadarra señale bekala bakearena. Ala, ofrezitu ziolaik Abraani eskojizea bere pueblotako arren jenerazioa, eman zio señale zirkunzisia. Ala, bialdu zuelaik Moises bilazera Israelgo puebloa Ejiptotik, eman zio señaletako bara prodijioso gura. En fin, lege zarreko zeremonia ta gauza franko eman zitue Jangoikoak señale bekala, Jesu Kristo gure erredentorea bialduko zuela, ta bialiduenarenak. Etorririk, bada, Jaunau mundura, ta paraturik erremedioa bere odolaren kostus, prosegizeko obrazen beti odol beraren birtutes grazia ta santidadea gure arimetan, utzi zitue señale exteriore gebek, diot, Sakramentuak, seguridade anditakoak. Baña zertako eskojitu zitue ortako gauza exterioreak, nola baita ura bataioan, olio konfirmazioan ta ario gontara berzeetan, zukelaik kausatu grazia gure baitan alako gauzarik gabe? Akomodazeagatik gure naturalezareki, ezi nola kidazen baikara ikusten diren gauzes entendazeko zerukoak, ala emanzitigu Sakramentuen gauza exteriore gebek, entenderasteko aien medios obrazen duena gure arimaetan. Orgatik dio San Krisostomok: izan baliz gizona gorputz gabekoa, emain zitio dono espiritualak Sakramentuen materialidade edo belo goriek gabe. Baña nola arima baitago uniturik gorputzareki, emantigu gauza espiritualeak gauza korporale goien medios. (hom. 60. ad pop. 38 in Mash. vel 83).

3. Baña zeren señale dire Sakramentuak? Grazia ematendutenarena. Mostrazen da agerrian iten dena estalian; gorputzean figurazen da gertazen dena ariman. Ala nola bataioan garbizen da ures gorputza signifkazezko santifikazen dela arima Jangoikoaren alzineko, konfirmazioan untazen da kopeta olio sanduas, sinjifikazezko indar ematen zaiola arimai ta konfirmazen dela fedean. Konfesioan humillazen da sazerdoteari persona, ta sazerdoteak ematen dio absuluzionea, signifkazezko parazen dela arima Jangoikoaren

agraduan. Komunionean ogi ardoen akzidenteak ageri dire ta errezibizen dire agoas, signifikaizeko alimentazen dela arima Jesu Kristo beras; ta ario gontara berzeetan. Baña erreparatu bear da ezi Sakramentuak estirela señaile utsak signifikaizen dutenak gauza kausatu gabe, ala nola otsadarrak signifikaizen baitu Jangoikoaren ta gizonen artean bakea, baña espaitu kausazen. Sakramentuek signifikaizen ta kausazeunte signifikaizen duten grazia ziertoki, ezpadu estorbazen disposizio gaistoak errezibizentuenarenak; zerengatik beren baitan daukate birtutea Jesu Kristok emana bere odolaren kostus, eta ala estago ere aien birtutea gure on edo gaistoaren menean, diot, asministrazentugunen menean, ezi dela on edo dela gaisto sazerdotea administrazen duena Sakramentua, oroat obrazen du onek. Eta ala, dela San Pedro edo dela Judas bataiazen duena, ain ona da bataioa, dela sazerdote dignoa edo indignoa absolbizen edo konsagrazen duena, ain baliosoa da absoluzioa, ain ziertoa da konsagrazioa, zeren Kristoren birtutea baitago Sakramentu guzietan, eta bere pasio ta odolaren prezioa.

4. Guziau entendazen da zenbatenas egiten den Sakramentua errealki, ta ortako irur gauza bear dire: Lenbizikoa materia, bigarrena forma, irugarrena intenzioa potestadeareki. Materia da gauza gura zeñeki iten baita Sakramentua, nola bataioan ura ta uraiki garbizea, konfirmazioan olio sandua ta artas untazea etc. Forma dire itzak erran bear direnak bataiazean edo konfirmazean, ta berzeetan. Intenzioa da nai izatea sinki egitea Sakramentu, ta potestadea bear den sakramentuetan ura ere izatea. Orgatik esta aski ures garbitzea, edo olios untazea, edo konfesazea, edo ostia izatea, ezpadire bateo erraten itzak Kristok disponituak Elizan; estire aski gauza ta itzak ere, ezpada intenzio sina egiteko; ta guzia esta aski, ezpada potestade bear dena; ta ala konfirmazioa indako ta ordenazeko bear du izan obispo; absolbizeko ta konsagrazeko ta oliazeko sazerdote, dagon bekala disponiturik Elizan.

5. Ikusagun orai zenbat diren Sakramentuak ta aien diferenzia elkarren artean, ta lengoei daramaten abantalla. Sakramentuak dire zazpi, ez ia ta ez gutiago: Bataioa, konfirmazioa, konfesioa, komunioea, oliadura, ordena ta matrimonioa. Konbenianziasko (sic) arrazio bat ortako eman daikena da, ezi ala nola gobernu tenporalean zazpi gauza bear ta aski baitire, ala Elizain arimen suplizeko, guzis medio guzietaik aski dire zazpi sakramentuak. Tenporalean beñik bein jaio bear da persona, gero anditus ta indar artus joan bear du, gero alimentua du preziso bizizekos, gero erremedio kurazeko erizen bada, ta indarren erreko brazeko modua; ontas landara bear dire gobernariak joateko zuzen gauzak; gero, konserbazea jenerazio humanoa. Guziau da espiritualki Elizan zazpi Sakramentuen medios, zerengatik bataioaren medios jaio zen bekala da ta sarzen da kristiandadean persona. Konfirmazioaren medios atzizen ta indar arzen du fedean; komunioaren medios du alimentu zereki mantena bizi espirituala, baita grazia; konfesioaren medios sendazen da eritasun espirituale edo bekatuetaik; oliaduras kenzentu bekatuen erreata ta efekto gaistoak. Ontas landara, ordenaren medios dire ministroak ta sazerdoteak, gobernazeko Eliza; ta en fin, matrimonioaren medios da probidenzia aumtazeko ta atzizeko humeak Jangoikoaren zerbitzazeko Elizan. Esta ia deus falta. Eta nor da sakramentu geben autore edo fundadore? Jesu Kristo Jangoikoaren Semea zerutik etorri zena gure erremediazera, berak paratutu ebek, ta ala, zerutik ekarriak bekala estimatu beartugu anitz Sakramentuak. Ebek dire zazpi kolumnak plantatutuenak Jangoikoaren jakinduriak, zeñiek sustentazen baitute Jangoikoaren etxea, Elizako fabrika. Dire zazpi sello gaiek zeñeki ertxirik baitago axuri dibino garren librua misterios betea. Dire zazpi tronpeta gaiek zeñen soñura erori baizire Jerikoko murallak, ta orai bekatuak,

demonioaren, munduaren ta aragiaren artifizioak. Dire zazpi zeruko planetak, zeñen birtutes jaiozen baitire Elizako kanpoan birtute ta grazia jenero guziak. Dire zazpi antortxak argizen gaitutenak Elizako kandelero andi gontaik, pasazeko zerurako bidea. Dire zazpi saetak zazpi bekatu kapitaleen kontra dispartutuenak Jesu Kristoren besoak. Dire, errateko itz bates, zazpi baso beteak Jesusen odol preziosoas guzien erremedio unibersala enzerrazen dutenak bereki, ia deseaestaiken gisan.

6. Sakramentuak, bida deizen dire ilen Sakramentuak, berzeak bizienak. Bataioa ta konfesioa deizen dire ilenak, zeren baitire arima ilen bizteko, ezi ila da bekatu mortalean dagon arima, ta bizten da parazen delaik grazian. Berze borzak deizen dire bizienak, zeren errezibitubañolen grazian paratu bear baita. Alaber, irur sakramentuk, au da, bataioak, konfirmazioak ta or denak, inprimizeunte karakter edo marka espirituala ariman; ta ala, bataiatua, konfirmatua ta ordenatua ezaunduko dire zeruan ta infernuan ere marka bakotxain kasos zer izan ziren emen. Alaber, irur Sakramentu goiek estaizke bi aldis errezibitu; ta ala, bein bataiatua estaike berriz bataia, bein konfirmatua estaike berriz konfirma, ta bein ordenatua estaike berriz ordena. Baña berze Sakramentuek, au da, konfesioa komunioneak, oliadurak ta matrimonioak estute inprimizen karakter edo marka gura, ta errezibi daizke bi ta ia aldis, goardatus Elizaren legea. Alaber, estire igoalki preziso Sakramentu guziak: Bataioa da guzis preziso, konfesioa ere bai, bekatu mortale inaskeros; konfirmazioa, komunionea ta oliadura dire preziso manuren azpian, ta despezios ustentuen estaike salba. Ordena ta matrimonioa dire borondateskoak, zein nai duen bakotxak, ta ezpadu nai, ez bat eta ez berze. Sakramentu gebek daramate abantalla andia lege zarrekoei, zeren aiek zire eben figurak, ta ebek dute bere birtutea Jesusen odol ta pasiotik. Elkarren ertean, alaber, bata da berzea baño noble ta dignoago; Jangoikoak daki zein baño zein den ia, guziek dakiguna da eukaristia edo komunionea dela txoil gorena, zeren ez solamente kausazen du grazia baizik ere enzerrazen du bere baitan graziaren autorea, Jesus dibinoa.

7. Baña guzien efeko lenbizikoa da kausazea grazia, naiz diferenziareki, zerengatik bataioak ta konfesioak ematen diote arimai grazia etzuena, ta berzeek aumentazen diote ia bazeukana. Ta zer da grazia? Da izate dibino bat, arimaren bizia ta edertasuna, ta merejimentuaren prinzipio, zerengatik grazian parazen den instantetik personak, len Jangoikoagandik apartaturik zegonak, partizipazen du ia Jangoikotasunain doaia, bizten da arima len ila zegona Jangoikoaren begietan, ta asten da merejizen ta iragazten obra ones len deus mereji etzukuena munduko baru, penitenzia ta obra on guzies. Grazia gorren medios agrado aurkizen du personak Jangoikoaren begietan, desuerte ezi esta posible ustea Jangoikoak maitazeko bere grazian dagona; ontas landara lograzen du deretxo zeruko gloriara, ta iten da heredero ango ondasunen, desuerte ezi grazian ilzen denai ez dezoke uka Jangoikoak bere gloria. Beras, estimazekoa da grazia gau? Bai, ta ia ezi munduko korona ta gauza guziak, ta errateko beingoas, zeru guzia ere baño ia, ezi grazian estagonaindako guzia da deus bekala, ta grazian dagonaindako da Jangoikoa aiskide, aita, esposo ta nai duen guzia. O nor legoken grazian! Por konsigiente, estimagarriak dire txoil sakramentuak, zeñen medios lograzen baita graziagoi.

8. Kontazen du Binzenzio Belbazensek (Cl. p.4 Cats. 2), ezi Franziaiko Leonen zegola estudiante bat diskurrizen nola bizi zeiken beti bekaturik gabe Jangoikoaren grazian. Gau bates eman zio Jangoikoak amets misterioso gau. Iduri zekio ikusten zegola oian kasko batean zitude eder bat, guzia argia ta brillantea. Asi ze prisaka iganaies artara, baña oianain beitiko aldean aurkitu zue ugalde bat andia ta odol koloreko urak

zemazkiena. Beirazen zue alde guzietara, al bazuke aurkitu zubirik edo pausurik (sic) pasazeko ugaldea, ta alko bates ikusi zitue amabi gizon eldu zirenak garbizera beren tresen zikinduak. Erreparatuzue, alaber, Kristo berak, etorririk aien erdira, atrazen ziotela ur baso kristalesko batean, edateko ta garbizeko gizon gaiek. Au ikusirik urbilzen da estudiantegoi ta galdeiten dio Jaun dibinoai, zer ema nai zion adizera ur atra ze ta garbi ze gartas. Errespondatu zio: Ara, goitiko ziudade eder gura da nere kortea, an gozatuko naute gero orai ugalde gontan, baita nere merejimentuetaik bildua, garbizentutenek bere arimak. Baña zeren in ezpaitzakete au ni gabe, orgatik neuronek lagunzen diotet partizipa dezaten nere odol preziosoaren birtutea. Zuk bilazen duzu zubia pasazeko artara, baña debalde; esta berze biderik baizik au, Elizako sakramentuen medios aurkizen dena. Au erran ta desapareztu ze Kristo, ta kendu zizaio ametsa estudiantearri; jaiki ta kontazen dio Kabilonako obispoari pasatu zaiona. Akonsejazen dio obispoak sar daiela Zisterzioko errelijionean. Ala iten du. Doaie desertu gartara, deizen du atarian, ta atra orduko porteroa, ezaun duzue zela bat ugalde gartan Kristok garbizen zituenetaik. Abadeas galdein ta ikusirik berze amar monjeeki, ezaun duzue aiek berberak zirela amabi ikusi zituenak, zein sakramentuen medios garbizen baizire ariman. Eskatu zue admiti zezaten; adimititu zute ta an aien imitaziora garbizen zuela maiz arima, konfesio ta komunionekeo Sakramentueki bizitu ze ta ilze sanduki, ta dudarik gabe ellegatu ze ziudade goitiko gartara. Ea, ikasi exenplu gontan; goazen garbitus sabadorearen iturri gebetan (Haurietis aquas in gaudio de fontibus Salvatoris) aurkizeko agrado Jangoikoaren begietan, bizizeko arren grazian ta ilzeko ere bai. Intenzio goneki inzkigun fede, esperanzako ta karidadearen aktak.

Serm. 54.

De Baptismo quid, et ad quid.

ann. 1780

Nisi quis renatus fuerit ex aqua et Spiritu Sancto,
non potest introire in regnum Dei. Joann. 3.

1. Asi gaizen ia explikazen Sakramentuak batbanaka, ta asi gaizen lenbizikotik. Lenbiziko Sakramentua da bataioa: Au da ataria nondik sarzen baita Elizan edo kristiandadean, onki guzien prinzipioa, zein gabe ezpaita nior kapaz errebizizeko berze Sakramenturik batere. Bataiatu ze Kristo gure Jauna, emateko exenplu, San Juanen eskutik. Joan ze Kristoren Majestadea San Juanengana, bataia zezan Jordango ugaldean. San Juan exkusazen ze erraten ziola: Jauna, nik bear dut izan bataiatua orren eskus, ta ori eldu da neregana? Utzazu orai, erran zio Kristok, ala konbeni da emateko guzietan exenplu. Orduan bataiatu zue ta berla idiki zire zeruak, ta etorri ze Espiritu Sandua uso baten figuran Jesusen gañera, ta aitua ze Aita eternoaren oiua: Au da nere Seme maitea, zeintan baitut nere konplazentzia. Orra non tuzun Aita ta Semea ta Espiritu Sandua bataioaren honrazen. Misterio gau zelebrazen ere da Errege egunean; ta bataiatuagatik Kristo San Juanek, deizen da San Juan Bautista. Bataiatu ze, alaber, Maria Santisima, dudarik gabe bere Seme dibinoaren eskus; bataiatuzirade apostolu guziak; ta en fin, kristio izatekos bear da izan bataiatua, ta zeruan sarzekos.

2. Zer da bataioa? Bataioa da jaiotze berri espirituale bat, zeñen medios ematen baizaigu graziaren izatea, ta kristioen insignia edo marka. Jaiotzen da persona mundura bere amagandik, au da jaiotze naturala; baña arima dakar mantxaturik bekatu orijinalas, or dago bataioa, an jaiotzen da espiritualki berriro, zerurako grazia ematenzaionaren medios; au da jaiotze espirituala. Ortako aizagun Kristok izan zuen platika Nikodemus deizen zen bateki (Joan. 3): joan ze au gau bates Jesusengana ta erran zio: Maestru Jauna, badakigu etorria dela Jangoikoagandik berori guri erakusteko, zerengatik niork ez dezazke egin orrek itentuen milagroak, ezpadago arreki Jangoikoa. Errespondatu zio Jesusek: Sines sines erraten dizut ezi ezpada bat berriro jaio zen, ez dezake ikusi Jangoikoaren erreinua. Erran zio Nikodemusek: Nola daike jaio gizona delarik zarra? Daike akaso itzuli berriz bere amaren sabelera, ta berriz jaio? erran zio Jesusek: Ziertu ziertoki aseguraen dizut, ezi ezpada bat berriro jaiotzen uraren ta Espiritu Sanduaren medios, estaikela sartu zeruko erreinuan. Aragitik jaio dena aragia da, ta espiritutik jaio dena espiritu da; adiarasten ziolaik ontan arimaren jaio ze espirituala bataioaren medios.

3. Kristo gure Jaunak instituitu zue edo fundatu zue bataioaren Sakramentu gau, berzeak bekala; ta lenbizioa den moduan, da ere prezisoena, desuerte ezi nior estaikela sartu zeruan bataiatu gabe, dela andi, dela txipi, dela kulparik gabe, errebizizenestuela aurrak, edo andiak usten duela bere kulpas. Orgatik aur bataiatu gabe ilzen direnak doaz sekulako desterratuak zerutik linbora bekatu orijinalaren kasos. Eta andiak ezpadire bataiazan, daizkelaik, doaz infernura; baña estaikelaik, baldin barin balute kontriziosko dolore perfektoa bataioaren deseo fin bateki, kontrizioak deseo gorreki lanze gortan supli lezake bataioaren falta (Baptismus flaminis). Alaber, lanze berean ezin bataiadaikelaik ures, padezitzen barin badu martirio fedeagatik, martirioak orduan suplizen du bataioaren falta. (Baptismus sanguinis). Baña errealki aldaikelaik, bear da errebizitu uraren bataioa, baita

soillik bataioaren Sakramentu bakarra, diones San Pablok: Unus Dominus, una fides, unum baptisma. Bat da Jangoikoa, bat fedea, bat bataioa, zein ain preziso da errezibitzea, posible barin bada andiak, ezi Jangoikoak egintu milagroak errezibiarasteko, imposible zelaik. Kontazen du San Antonino Florenziakoak, ezi Franzian nekazari bat zegolaik lanzen lurra, ikusi zuela saltazen mi bat humanoa, ain gorri ta fresko nola balego gizonain agoan. Gelditu ze arriturik, ta ia aitu zuelaik minzazen. Galdein zio ia norena zen, errespondatu zio zela jentil baten mia, len orzi zutena leku gartan; izan zela juez, ta ezpazue ere ezaundu Jangoikoa, ain amante izan zela justiziain, ezi sekula etzuela makur eman sentenziarik; ta onen premiotan etzuela permititu il zeien guzis errezibitu gabe bataioa, ta ortako konserbatu ziola mian arima. Zoaz, emozu kontu obispo Jaunai, datorren ene bataiazera; ta egia diotelako señaletan, bataiatu orduko, instante, autsbiurtuko da mi gau, ta bolatuko da nere arima zerura. Eman zio nekazariak kontu obispoai, ta etorririk pueblo guziareki, galdein zio, ta gero bataiatu zueneko autsbiurtu ze, erran bekala. (Parra. Pl. 1. de Baptismo) Ontan ageri da ongi aski, zein preziso den bataioa sarzekos zeruan Jesukristok erran zuenas landara.

4. Orgatik kuidatu bear da anitz, aurrei prokuratus edozein kostus, ezi ezpaute errezibizen, naiz imposible izanik, nola ezpaitire kapaz suplizeko kontrizio ta deseoreki, eztaizke sartu sekula glorian, txoil ezpadire il zen martir, aur inozenteak bekala Kristogatik. Lenbiziko instante konzebizen denetik aurra sabelean, aliketa bataiora ellegatuartaño, kuidatu beaute txoil guzis aita eta amak; ta espezialki amak, logra daien arren arima. Edeki beartuste peligroak eriotzea kausadezoketenak, baitire anitz; enkomenda bezate Jangoikoari gañarako dilijenzies landara; ta biziaren penan ere obligaturik daude arima garren kuidatzera estaien malogra, ezi ia inporta da arima garren iragaztea ezi ez ondasun, honra ta bizi tenporalain galzea, amak. Ta ai zenbat aldis gutiagogatik ama eta aita gaistoek kausazen diote sabeleko fruituei sekulako dañu korporala ta espirituala beren deskuidos, edo malizias ere bai? O aur pobre desdixatuak, zuek kulparik in gabe joan zaratenak linbora, desterraturik betikos ez kuster a Jangoikoaren aurpegia ta zeruko gloria guratsoen kulpas! O guratso tigreak, kruelak alakoak, zer inziote inozente gaiek botazeko gloriatik, zuzketelaik salba guti kostarik? Noiz inen dute errestitu zio arima garren galduas? Fortuna du bialdu duenak aur bat zerura bataioaren medios; arrek agradezituko dio, oroituko da guratsoas Jangoikoaren aurrean. Baña dagona linboan guratsoain kulpas, nola kexatuko da onen kontra? Atzendurik biziko da akaso guratsoa artas, jan ta edaindu, dibertitu, alegre egoin da; ta bitarteo arima gura kexazen kontino, ta erraten desterru ilun gartaik guratsoai, ezpadu ere aizen: Zerengatik il nau? Zerengatik galdu nau? kontazen du Safroniok, (Parr. pl. 2. 37) ladron batek il zuela aur bat, ta berla ain damutu ze eginas gaizki gura, ezi sartu ze monje konbentu batean. Bedrazi urtes bizitu ze, ta beti lo egitera joaterakoan, parazen zizaio aur gura alzinean erraten ziola: Zerengatik il nauzu? Korura barin bazoeie, aurra nigarres an erraten: Zerengatik il nauzu? Errefektoriora zoeielaik, an oroat: Zerengatik il nauzu? Etzue usten sosegazera ordu bates. Ain apuratu ze monjegoi, ezi eskatu zio lizenzia abadeari, joateko pagazera bere biziareki aur garren eriotzea. Joan ze ta utzi ze degollazera justiaeren eskus mereji zuen bekala. Oi eta lurreko justiziak ezpaitu ere kastigazen ez jakines, nola kastigatukotu Jangoikoaren justiziak anitz guratso, malogratuagatik humeen arimak bataioa estorbatuas.

5. Zertako da, bada, bataioa? Entendazekos au, jakin bear da ezi lenbiziko gure aita ta amak, diot, Adanek ta Ebak, desobeditu zutela Jangoikoaren manua paraisoan ta orgatik

erori zirela Jangoikoaren desgrazian, ta por konsigiente, aien deszendiente guziak jenerazio humanoaren bideas datozenak, mundura datoz maldizio, desgrazia ta bekatu garreki; au deizen da bekatu orijinala. Guzien galzeko izan ziren bekala Adam ta Eba, guzien erremediazeko izan zire Jesus ta Maria; Maria, ekarris mundura bere Semea Jesus, ta Jesus, obratus gure erredenzionea bere odolaren kostus. Bere odol prezioso garren birtutea dago depositaturik, ta aplikazen zaigu sakramentueki. Ta lenbizikorik, bataioaren medios edekizen da bekatu orijinala gura ta berze edozein aurkidaiena bataiaz dena baitan. Bigarrena, ematen zaigu grazia, zeñeki inbaikina Jangoikoaren aiskide ta hume maiteak. Irugarrena, parazen zaigu karakter edo marka espirituala ariman, Kristoren gizon ta esklaboena. Laugarrena, barkazen zaigu pena sekulakoa izan bear ginduen ezperen, desuerte ezi ilzen bada bataiatu ta berla, zuzen doaie zerura. Borzgarrena, infundizenzaizkigu fede, esperanza ta karidadearen birtuteak, Espiritu Sanduaren donoak ta graziak. Solamente etzaigu kenzen gaitzerako inklinazioa, baizik geldizen da, erresisti ta pelea dezagun bizkorki, iragazteko korona eternoa. Zein ongi deizen den bataioa errejenerazio edo jaiotze berriaren Sakramentua! Lentxago ze persona monstro bat Jangoikoaren begietan; bataiatu da? Bada, ia da aingiru bat Jangoikoaren agradoan. Lentxago Jangoikoaren enemigo, gero Jangoikoaren hume maitea; lentxago sekulako pena batera kondenatua, berla zeruko heredero deretxos ia tokazen zaiona; lentxago infiel tristea, berla kristio eskojitua ta markatua; lentxago pobre arras onki guzietatik, berla adornaturik anitz birtute ta donoen joies. Zer mudanza! gerta baledi gorputzean, zer pasmoa! ikus baledi begis, zer arrizioa! permititu du Jangoikoak anitz aldis agerrian ikusiarastea gorputzean, entenderasteko gertazen dena ariman.

6. Konstantino enperadoreari bere leprain kurazeko ordenatu zioten dotoreek bañu bat aur jaioberrien odoles. Bildu zire aurrak iru millataraño segizen ziotela nigarres ama triteek. Lastimaturik, enperadoreak etzue nai izandu kuratu ainberze odol inozenteren kostus; ta San Pedrok ta San Pablok gauartan, lo zegolaik, erakutsi zioten berze bañu bat saludableago ta aisagokoa; ta por fin, bataiatu enperadorea, ez solamente ariman sendatu ze, baitaere gorputzean. Baña notableago da oraño Tiridates erregeareki gertatu zena. Persegizen zuten krukri kristiandadea, ta Jangoikoak nai izan zuten kastigatu piadosoki. Egun bates, de repente, agertu zire errege ta bere palazioko andi guziak itzulirik hazienda belzen figuran, zerdas beterik, mutur ta letagin ta gañarako mienbro guzietan proprioki iduri zutela txerriak, ez minzazen, baizik murruxkas elkarreki. Zer izain ze ikustea palazio gura itzulirik txerritegia, ta korte guzia txerri saldoa? joan zire jende guziak aturditurik ikustera, ta aien ertean Gregorio deizen zen martir bat, zeñi lentxago erregek pasarazi baizio anitz tormentu fedeagatik. Sartu ze, predikatu zioten, aizen zute ixil. Proponitu zioten ia nai zuten errebitu bataio kristioa. Eman zute adizera baiez murruskaeki. Eta bataiatu bekala, banaka banaka joan zire itzuliz beren figura humanoan, adiarasten zuela ala Jangoikoak, bataioaren efekto iten duena ariman. (Parr. pl. 2. et 4 de Baptismo)

7. Guzien gain da notablea San Antonino Florenziakoak dakarran kasoa. Kasano tartaroen erregeak, atrarik tropa andiareki, bete zituen leku urbilenak estragos, ta urrutikoak beldurtasunes. Okasio gontan bialdu zion Armeniako erregeri enbajada bat, eskazen ziola berain alaba bat esposatuko. Ezin uka ta ezin eman bere alaba honesta, kristioa ta sanda errege jentil barbaro bati. Baña, por fin, asentaturik utzi bear zuela bizizera kristioen legean, egin ze eskonza. Ta pasaturik denbora, esperazen zutelaik guziek seme bat bere iduriain konforme, erdi ze bulto bates, ezaizke ezaundu zen persona humanoa. Pensa nolako konfusioa izain bide zuen erreina triteak! Nolakoa korte guziak! Ta nolakoa

erregek, zeñek kolera bizian juizio gaisto eginik bere esposaren fidelidadeas, manatu zue in zezatela hogera andi bat ta erre zezatela bizirik bere aur garreki ama. Etzute baliatu erreina tristearen negarrek ta juramentuek. Badamate hogera inik dagon lekura erreina inozentea karrikas karrika, inguraturik soldados ta ministros, lastimarastentuela arriak ere. O erreina desbenturatua, ia ez erreina, baizik errezero doaiena. Ellegaturik lekura, ikusirik hogera, etsiturik eriotzeas, eskazen diote ministroei nai badiote ekarri bere fruitu gura, emateko lenbiziko ta azken besarka. Ekarzen diote, arzen du besotan ta erraten dio nigarres: O nere entrañetako humea, nik uste nue sabelean neramala prinziipe bat, ta ikusten dut dela kondenatu bat. Uste nue zure buruan paratu bear zela korona, ta solamente ilzeko jaio zara, ta niri ere kausazeko desonra ta eriotzea. O ezpazina jaio sikiera ainberze desdixatako! Baña ia ke ta galdu duzun lurreko erreinua, logratukouzu zerukoa. Eta Kasanok ezpazaitu nai ezaundu bere semetako, logratukouzu Jangoikoaren seme izatea. Au erran ta arturik pitxera bat ur, bataiatu zue an berean; ta oroat izan ze bataiatzea, nola itzulzea lengo monstruo gura aingiru bat bezain galanta, guziak beira zeudelaik. Goratu ze puebloaren klamoreak gozos ta admirazios, ta aiturik Kasanok, ez solamente itzuli zue erreina bere semeareki, baizik bera ere kristiatu ze berze anitzeki bateo. Au da bein gertatu zena gorputzean ta egunoro gertazen dena ariman bataioaren medios. Beira zer grazia in zigun Jangoikoak, ta nola goardazen dugun. Baña desagradezituiek galdu dugu. Bataia gaizen, bada, ia nigarres etc, etc, etc.

Serm. 55.

De materia, forma etc.

ann. 1780

Euntes ergo docete omnes gentes baptizantes eos
in nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti. Math. 28.

1. Erranik ia bataio sanduaren dignidadea, nezesidade ta fruituak, da preziso orai explikazea zertan dagon bataioaren esenzia edo izatea. Bi modus administrazen da bataioa; solemnekiro, au da, bataiarrian elizako zeremonia sagratueki, ta partikularkiro, au da, zeremonia goriek gabe nezesidade orduan. Ta orgatik bi nonbres adiarasten da diferenzia gau, zerengatik deizen da bataio solemnea administrazen duena obispoak edo sazerdoteak elizako ur konsagratu, aitabutxi ta gañarako solemnidadeeki, zein usatu bear baitire al daiken guzian, ta suplitu bear dire, len etxean bataiatua baitan, barin bada denboraik, bekatu mortalain azpian. Bataio partikulara da nezesidade orduan ematen dena edozeñen eskus, ta oroat da substantzian, solamente da diferenzia moduan. Baña ain balioso da arimain lograzeko ta ain bataiaturik jeldizen da, zerengatik esta falta deus substantziaskorik.

2. Zer gauza dire substantzialak, esenzialak ta prezisoak izateko bataioaren sakramentua? Zein direlaik, egiten baita sakramentua, naiz deus ia ez izanik; ta zein estirelaik, ezpaita egiten, naiz izanik gañarako guzia? Irur dire sollik ta guzis esenzialak. Attenditu, zerengatik nola baita preziso bataioa sarzekos glorian, ta nola izaten baitire lanze ertxiak, estaien gal arimarik nioiz jakin faltas, konbeni da guziek jakitea; ta emaginak ofizios daude obligatuak jakitera bataioaren administrazen. Irur, bada, dire gauza esenzialak, baitire materia, forma ta intenzioa. Materia, au da ura, ta ures garbitzea edo ures ukizea. Forma, au da, itzak erran bear direnak urain ematean. Ta intenzioa, au da, deseoa egiteko sakramentu.

3. Bataioaren materiatako disponitu zue Kristo gure Jaunak ura, (zerengatik joan ze bere Majestadea Jordango ugaldera izatera ures bataiatua, ez zerengatik zuen barkazeko bekaturik, baizik usteagatik santifikaturik urak gero bataiatu bear zutenendako, diones San Krisostomok (H. 4 Math. Incert.) eta mantxaturik zeudenak lurraren maldizioareki lurrean dauden urak garbizeko bere ukizeareki Kristok, ta erakusteko bekatariei nora joan, au da, bataiora, garbizeko bekatuetaik, diones San Agustinek (Ap. Lir. in c.2 Math.). Ellegatu ze Kristoren Majestadea Sikarko butzu gartara, ta ellegaturik emasteki bat ur eske eskatu zio Jaun dibinoak eman zezola edatera, okasio goneki konbertizeagatik arima gura Jangoikoagana, ta ala itz batetik berzera erran zio, bazindeki nor den ur eskazen dizuna; zuk berai eska zindezoke ur bizia... Ta nik emain duten ura izain da uresko iturri bat saltatuko dena bizitza sekulakoraño (Joan. 4). Entenda daien ur gartan fedearen edo graziaren donoa, zierto da ezi bataioko urak ematen duela fedearen ta graziaren donoa bizitza sekulakoain.) Ura bear da izan ur berdaderoa, naturala, dela iturrikoa, dela ugalde, butzu edo itsasokoa, dela dulce edo gozo, dela euritik edo elur edo arri urtua, nola den ur naturala, aski da sakramentuaindako. Eta bekatu mortalain azpian barin bagaude ere obligaturik sazerdoteok bataio solemneain konsagrazera ura, alaere bataia bagindez konsagratu gabe, bataioa lizake balioso, ta ala da bataiazen delaik partikularki nezesidade orduan, zeintako ezpaita batere obligaziorik usazeko ur konsagratua, baizik edozein aski

da, nola den ur naturala. (Irur modus in daike bataioa, per aspersionem, per immersionem et per infusionem. Per aspersionem nai du erran roziatus hisopo edo berze instrumentu bateki aurra. Per immersionem nai du erran, sartus urean aurra. Per infusionem nai du erran botatus gañetik ura, ta edozein gisas lizake balioso bataioa, baña lijito izateko bear da segitu elizain kostunbrea emen baita botazea gañetik ura, ezperen in leike bataio, baña bekatu mortale ere bai.) Alaber, da obligazio prezeptus bataiazeko buruan, baña nezesidade orduan, peligro delaik ilzeko nion bataiatu gabe, bataiatu bear da daiken mienbroan dela besoan, edo zangoan, edo non den posible.

4. Zerengatik disponitu zuen ura ta ez berze elementu bat bataiazeko Kristo gure Jaunak, berak daki; baña alaere diskurrizeunte zenbait motibo teologoe. Bata da ezi nola baita ain preziso bataioa, etzeien nior il bataiatu gabe, utzi zue materiatako ura ain komun ain usual, ain nonnai dena. Berzea da nola ures garbizen baita edozein gauza, signifikaizeko ariman iten duen efektoa bataioak, disponitu zue ures bataiatzea, adiarasteko garbizen dela bekatuetaik arima. Orai, bada, bataiatzea nai du erran garbitzea, ta ortako bear da ura kantidade alakoan, erran daiken garbitzen dela, ta ortako esta anitz bear. Esta deus inport den bero edo otz, klaro edo turbio, nola geldi daien ur naturala. Zukua esta on bataiazeko, zerengatik esta ur ia. Loia ere ez, zerengatik estu garbitzen; ain guti ardoa, esnea, olio, aguardientea ta alako likorrak, ezpaitire ur naturalak. Franzian gertatu omen ze zoeielaik obispo jaun bat funzione andi batean, ikusirik atso on batek ta joanik beragana erran omen zio: O nere seme maitea, zenbat alegrozen naizen ikustea, zerengatik jakin bear du ezi nik bataitunuela berori nere esku gebetas, ta seña iagotako bataitu bainue aingiru ures. Turbatu ze txoil obispoa, ta erran zio: Andrea, betor nere palaziora arratsaldean. Etorri ondoan examinatu zue ia zer gisas bataiatu zuen, ta beti zio atsoak ezi aingiruen uras, edo loreen uras. Egin zitue obispoak berze anitz dilijenzia ta aurkitu zue etzegola bataiatu baliosoki. Bataiarazi ze, konfirmarazi ta ordenarazi ze berriz obispo zena ustes primatik asi ta grados, epistolas, ebanjelios ta mezas, ta berriz konsagratu ze obispo, ta len ordenatu zituen guziak itzuliarazirik berriz gero ordenatu zitue, zerengatik bataiorik gabe etzire balioso gañarako guziak. Zenbat dañu ignoranzia batetik. (Parr. Pl. 2 de Baptism.)

5. Baña, Jauna, ura delaik garbitzeko gauza exterioreak, zer ikusteko du arimareki? Nola dezake garbi arima? Ortan dago misterioa, ortan dago sekreto, ortan dago sakramentua, ukizean gorputza ta garbitzean biotza eta arima. Eta nondik du birtutegoi? Firme erraten denaren medios, itzen kasos. Quae est tanta virtus aquae, ut corpus tangat, et cor abluat, nisi faciente verbo? Dio San Agustinek. Ura da indiferente anitz gauzatako, ta itzen medios Kristoren instituzios da arimain garbitzeko bataioan. Kenzkizu itzak; ia zer da ura baizik ur? Detrahe verbum; et quid aqua nisi aqua? juntazen da urareki itza, ta iten da sakramentua. Accedit verbum ad elementum et fit sacramentum. Au da bigarren gauza esenziala bataioan, forma, baitire itzak, Kristok erakutsiak, bialdu zituelaik diszipuloak mundus mundu, zoaste, erran ziote, erakuskizie jende guziak bataiazen tuziela Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Euntes docete omnes gentes baptizantes in nomine Patris et Filii et Spiritus Santi. Au da, bada, forma; ebek dire itzak erran bear direnak ura botazerakoan: Nik bataiazen zaitut Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, Amen. Forma gontan expresazen dire Trintateko irur personak, Aita ta Semea ta Espiritu Sandua. Konfesazen da Jangoikoaren bakantasuna edo bat izatea errateareki: Izenean, ta ez izenetan, ta alaber bataioaren errealdadea errateareki: Nik bataiazen zaitut, baitare bataiatuzen denaren ta bataizalearen persona. Esta balioso erraten bada: Nik

bataiazen zaitut Jangoikoaren izenean, zerengatik ezpaitire expresazen irur personak. Estare erraten bada: Trintateren izenean. Bates kontazen du San Bizente Ferrerek botazerakoan ura erraten zuela bataiazen zaitut Trintateren, Maria Santisimaren ta aingiruen izenean. Añaditu bazue ere zeruko sandu ta sanda guzien izenean etze deustako bataio gura. Berze bates dio Markanziok, beti botazen ziotela ura Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, erran gabe: Nik bataiazen zaitut. Berze bates dio erraten zuela laur borz aldis forma ia segurazeko. Zer disparteak! berze bates dio, erraten zuela osoki forma, baña botatus berze batek ura. Ta au ere esta bataio baliosoa, zerengatik berzeak botazen badio ura, gezurra diot nik diotelaik: Nik bataizen zaitut. Xerez Andaluziako ziudadean emagin aprobatuetaik batek denbora andian bataiazen omen zitue nezesidade orduetan aurrak forma goneki: Nik bataiazen zaitut. Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren graziaren izenean. O Jauna, itz baten añadizeko batxilleriagatik, zenbat arima peligrazen! Ala pensatu zue arzobispo angoak Don Pedro de Kastro ta Kiñones, zeñek bataiarazi zitue berriz bataiatuak emagin garren eskus. Eta il zirenak! O Jangoikoa! itz bat sollik edeki edo añadi daien pizazen du ain bat nola arima baten salbazioa. Aizazie, bada, batere kendu ta añaditu gabe, Kristok erakutsirikako forma: Nik bataiazen zaitut Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen.

6. Irugarren bear dena da intenzioa edo gogoia iteko Elizak iten duena ta Kristok disponitu zuena, au da, kristiazea aurr. Bazuek estute pensazen administrazeuntela sakramentu andi bat, baizik ala zeremonia bat piadosoa; au da errorea. Ain sakramentu iten du gizon edo emasteki edozeñek bataiazen duenak ur ta itz ta intenzio bear direneki, nola San Pedrok, ta edozein aita sandu ta obispok, zerengatik Kristoren merejimentus ta birtutes obrazen du sakramentuak ariman. Orgatik dela on edo dela gaisto administrazalea, beti igoal da bataioaren birtutea, ezpaitago ministroen kalidadearen menean, baizik Kristoren disposizioan; ta ala San Pedrok bataia dezan, edo San Pablok, edo Judasek, beti daike erran Kristo dela bataiazen duena, hic est qui baptizat, San Agustinek diones, zerengatik Kristo da graziaren obrazalea sakramentu garren medios.

7. Eta nor dire bataioaren ministroak? Bataio solemnearenak dire solamente obispo jaunak, ta sazerdote arimen kargudunak potestade ordinarioas, ta aien komisio edo presenziareki edozein sazerdote libre ta aun diakonak. Au entendazen da, lijito izateko bataioa, ezi edozeñek administra dezan noiz nai bear den materia, forma ta intenzioreki, beti da balioso, baña ez lijito, ezpada nezesidade orduan. Nezesidadeain lanzean, ia ilzen dela aurr, estelaik elizara esperazeko denboraik, balioso ta lijito da bataio edozein edo gizon edo emastekik administrazen duena bear bekala. Baña aun orduan al badaike goardatu bear da ordena bataiazean; presente barin badago sazerdotea, len da nior baño; diakona presente badago len da legoak baño, ta lizake bekatu mortale diakonak sazerdotearen presenzian, edo legoak sazerdote edo diakonaren aurkinzean bataiazea; alaber, presente barin badago gizona len da emastekia baño; baña ontan esta agrabio andirik egiten naiz bataia dezan emastekiak legoain aurkinzean; ta emastekiak obeki barin badaki bataiazeko modua, edo barin bada lekuan non esten dezente aurkizea, edo solamente aurrain aitain aurkinzean, orduan len da emastekia bataizeko aur gura. Ta begira orai Kristoren probidenzia bataioain administrazioan, estakion niori falta edozein lanzeetan. Ezpazaude konfirmaturik, niork etzaizke konfirma, baizik obispoak, naiz presente baleude ere egun sazerdote, naiz ilzen bazara ere gabe. Konfesioan alaber ezpada sazerdoterik niork etzaizke absolbi, naiz ilzen bazaude ere, joan bearkouzu absoluziorik gabe, baliatu bearko dizu kontrizioak. Komekadura ez dezakezu niork eman, ezpada

sazerdoterik, ain guti oliadura. Matrimonioa estaike errezibi ezpadago presente sazerdote propioa arimen karguduna, edo berze bat arren komisios. Ordena estu niork emanen, ta ez dezake baizik obispoak. Ta solamente bataioa nornaiek noiznai eman dezan bear den zirkunstanzieki, beti da balioso, ta nezesidade orduan lijito ere bai. Orai adbertitu bear da ezi dela obligazio bataiarasteko aurra len baño len, ta anitz luzazea, au da, zorzi egun eta ia dela bekatu mortala, anitz peligro direnen kasos. Alaber, jaio ondoan aurra erikor ta biziaren peligroan barin badago, estaike luzatu elizara eramatea bataiazera al badaike len baño len, ta estaike deteni konpadreja edo komadreja señalatuena beira anitz denbora, ta ala lanze goietan alde bat estakioke falta elizako solemnidadea, ta berze alde señalatuak ezpa daizke ain fite, señalatu berze norbait atrazeko bataiarritik. Alaber, jaio ondoan aurra laur sei edo ia ordus irauten duena bizirik ia ke ta estaiken erman elizara, bear da deitu sazerdotea errian dagona delaik denbora, edo bataia dezan, edo supli dezan ezpadago ongi bataiatu; eta beti bataiatu ondoan nezesidadeain lanzean, gero bizi barin bada deitu bear da sazerdotea informazeko nola bataiatu den, estaien malogra arima zuen ignoranzias, edo turbazioain edo prisain kasos. Baña ala nola peligroik estelaik, ezpaitezake niork bataia lijitoki, ala peligro delaik, esta bear deskuidatu, baizik eman ura bear den forma ta intenzioreki edozein dakienak ongi. Eta, Jauna, peligro delaik il daien aurra jaio gabe guzis? Orduan zertan jaio den, edo besoan edo zangoan, ezpadaike buruan, eman ur kondizioreki: balia al badezake, nik bataiazen zaitut Aitaren etc. Ta gero jaiosen delaik guzis? Peligroan barin badago, berriz bataiatu kondiko goneki: Ezpazaude bataiatu, nik bataiazen zaitut etc. Eta duda delaik, dagon edo estagon bizirik? Orduan alaber kondizioreki: balia al badezake, nik bataiazen zaitut etc. Alde bat, bear da prokuratu ez egitea irreberenziarik sakramentuari emateas banoan, estuelaik izan bear balioso; ta irreberenzia gau kenzen da paratus kondizio gaiek. Ta berze alde, bear da dilijenzia guziareki prokuratu salbazea arima, ezi balio du ainberze nola Kristoren odolak, ezi Kristoren odolas eresia da edozein aurren arima. Zer dañua arima garrendako, ta zer kargua zure edo neretako galzen barin bada sekulakos zure edo nere faltas! Zer faborea arrendako, ta zer probetxua zuretake, lograzen bada sekulakos zure dilijenziak. San Franzisko Xabierrek ongi enpleatutako emanten zitue bere Indietako trabaju gaiek, solamente iragazias bataioaren medios ainberze aur il zirenen arimak, ta aien orazioetan enkomendazen ze sandua bere biotz guzias etc.

Serm. 56.

De Ceremoniis solemn. Bapt.

An. 1780

An ignoratis quia quicumque baptizati sumus,
in Christo Jesu, in morte ipsius baptizati sumus?
Consepulti enim sumus cum illo per baptismum
in mortem, ut quomodo Christus surrexit
â mortuis per gloriam Patris, ita et nos
in novitate vitae ambulemus. Rom. 6. v. 34.

1. Explikaturik ia zertan dagon bataio sanduaren substantzia edo izatea, baita materialian, forman ta intenzioan, au da, ur ematean, itzak erratean ta intenzio izatean bear bekala, orai pasa gaizen explikazera bataio solemnearen zirkunstanziak ta zeremoniak, zein gabe barin bada ere balioso bataioaren sakramentua, alaere Eliza Ama Sandaren ordenanzas dire ain obligazioskoak, ezi bataiatu ondoan ere ongi persona nezesidade orduan, gero baliz denbora, bear da erman elizara, ta suplitu zeremonia sandu gaiek bekatu mortalaren azpian. Zertako ote da ainberze solemnidade aur baten bataiazean? Aita butxiak; presentazea aurra eliza atarian; guruzeain atrazea, sazerdotea, ministroak, gatza, bela, pañoloa, olio sanduak, ainberze orazio, ainberze galde erresponda, konjurio, zeñatze, ats emate, listus ukitze ta gañarakoak? Zerbaitetako dire. Lenik idatzarzeko fedea, itxekizeko debozio erdi ila dagona kristio askoetan. Baña prinzipalki adiarasteko obligazioak, zeintan sarzen baita kristiazten dena. Nirabe bat sarzen delaik enplegu bateko, ajustazen da soldata, adbertizen dire zirkunstanziak. Matrimonio andi bat zelebrazen delaik, iten ta firmazen dire kontratuak. Bada, erreñu batek erregereki egiteko pakto ta obligazio bataberzearenganakoak an dire podorioak, juramentuak, instrumentuak, testigoak, eskriturak, selloak, firmak. Zertako? Baizik asegurazeko ia ta ia gauzak solemnidade goieki. Bataioa da pakto ta kontratu bat iten dena Jangoikoareki; obligazen da Jangoikoa, ta obligazen da gizona nor bere aldetik; itz ematen da, zer ta nola. Firmazen da presente daudelaik elizako ministroak, testigo zeruko aingiruak; ta goardazen da eskritura Jangoikoaren libruan eternidadeko artxiboan, dio San Anbrosiok. Tenetur vox tua non in tumulto mortuorum, sed in libro viventium; praesentibus angelis locutus es; non est fallere, non est negare. O kristioa, Jangoikoak ofrezitu ta emanizitu bere grazia, in zinduz bere hume, kristauen mienbro, Espiritu Sanduaren tenplu, zeruko heredero. Ofrezituzitu geroko bere gloria kondizio batzueki; zuk ofrezitu zindue goardatzea; ia estaike uka, estaike erreboka. Bada, orduan etzindue adbertitu zer in zen, aurra zinan bekala. Zatoz orai nereki konsiderazioas eliza atarira, ikusteko zure obligazioak zein etan sartu baizina.

2. Lenbizikorik señalatu zizaizu aitabutxi bat, edo amabutxi bat, edo biak, au da, aitetamen partetik; ezi Jangoikoak bere partetik señalatuzitu aitabutxi zelestiale bat, au da, zure aingiru goardakoa, zein amaren sabeletik barin bazindauka ere señalaturik, baña (sic) bataiotik asi ze espezialki zure kuidazen dilijent. Eliza Ama Sandak señalatuzitu alaber berze aita edo amabutxi bat, au da, zure izeneko sandu edo sanda, zeini segi zindezon, zeñek fabora zaizan. Aitetamek berze bat, ikusteunzu zer kuidadoa zutas? Zein inguraturik alde guzietaik kuidazalees? Baiki bidriosko erredoma bat Kristoren odol preziosoenas betea bekala, ezi ala deizen du San Krisostomok arima Kristoren odolas erredimitua. Baña

orai solamente dardukat aitabutxi lurrekoes. Kristiandadeareki asi ze kostunbre gau señalazeko aitabutxia, ta nai du erran bigarren aita, ta aitaren partes kuidatu bear duena bataiatuas. Orgatik eben obligazioa da aitetamen faltas erakustea doktrina, ta egitea arren salbazeko dilijenziak. Lengo denboretan bataiatu baño len parazen zute persona katekumenoen ertean ikasten doktrina, ta etziote konzedizen bataioa, aliketa ikasiartaño ongi; baño gero kontentatu ze eliza bataiatu gu aurzututik. Baña nola? Aitetamek emateunten itzareki estiotela aurrai faltatuko bear den doktrina, ta aitabutxiak iten duen fianzareki suplituko duela faltarik barin bada. Orgatik dio San Agustinek ezi atrazen duenak aur bat bataiarritik, bera fiadore parazen dela arrendako Jangoikoaren alzinean. Qui alium de sacro fonte suscipit, pro illo apud Deum fidejussor existit. Alaere zer lastima! Ain atzendurik dago obligazio gau, ezi, batzuen baitan estaike ezaun baduten aitarik ta amarik, edo aitabutxi edo amabutxirik munduan, ta esta izan duten ere; ain gaizki doktrinatuak ta aziak daude!

3. Egiten da alaber aitabutxi ta amabutxia aide espirituale aurrareki lenbiziko lekuan, ta berain aita ta amareki bigarren lekuan, ta erresultazen da inpedimentu matrimonioaren. Aiko gau kontrahizeko esta aski idukizea aurra berze zeremonia guzietan, bear da ukitu urain ematerakoan edo benzait errezibitu bataiarritik bataiatu ta berla. Manatu zue Trentoko Konzilio jeneralak etzeiela admiti aurrain jasteko baizik bat dela gizon edo emasteki, edo gorenas bida, gizon bat ta emasteki bat, estaien konfundi anitzen ertean doktrinazeko obligazioa, ta utzi bata berzeagatik; ta estaien ere erresulta sopra inpedimentu matrimonioaren. Baña aitabutxi amabutxiek estute kontrahizen aikorik batere elkarreki ofizio gorren medios, baizik erran bekala, aurrareki ta arren guratsoeki. Orgatik ez aita ta ez ama estaike izan aitabutxi ta ez amabutxi bere humearen, ezi baliz, in leike aide espirituale bere konsorteareki. Orgatik ere aita ta ama dire azkenak bataiazeko beren humea, aun nezesidade orduan, barin bada berze edozein dela gizon edo emasteki ain ongi dakiena lenago da, ta solamente berze nior dakienik estelaik, ta peligrazen duelaik ilzeko aurrak, dezake bataia bere aitak edo amak ta orduan estu kontrahizen aiko espirtualerik bere konsorteareki, estare inpedimenturik usazeko matrimonioas. Estire admititu bear jasteko aurra ez herejeak, infielak edo judioak estare eroak, sinpleak edo arrazioaren usora ellegatuestirenak, ezpaitezakete kunpli obligazioak eta errespondatu aurrain partes.

4. Señalaturik, bada, zeure aita butxi edo ama butxia, ekar zinduste elizara, gaizki diot, gelditu zinduste eliza atarian, etzinan bekala digno sarzeko elizan, aliketa adbertituartaño nola bizi bear zinduen kristiandadean. Atrarik elizako ministroak galdeginzizu: Zer eskazen diozu eliza ama sandari? Zure partes errespondatu zue aitabutxiak, ezi fedea. Eta fedeak zer ematen dizu? errespondatu zue zure nonbrean, ezi bizitza sekulakoa. Estuzu fortuna guti logratu baituzu ararako bidea, kristiazeareki idikizen da, baño esta aski kristio izatea, baldin gero ezpada korrespondizen bizimoduan. Orgatik erranzizu sazerdoteak: nai bauzu, bada, sartu bizitza sekulakoan goardatu mandamentuak, onetsi Jangoikoa biotz guzias, arima guzias ta indar guzias, ta zeure proximo laguna zeure buruoi bekala. Au izan ze lenbiziko paktoa. Kunplizen duzu? Berla sazerdoteak botazeko zure gandik espirtu gaistoa, fu eginzizu aurpegira erraten zuela: Exi ab eo immunde spiritus etc. Atraadi onengandik espirtu immundoa, ta utzok lekua Espirtu Sanduari. Ondorean adbertitu ondoan obligazio gura, admititu ondoan zuk zure gain, ta gero botatu ondoan demonioa zuregandik, zer segizen da? Jangoikoaren partes bere sazerdoteak artu zinduza Kristoren soldadotako bere banderain pean, ta paratuzizu gurutzearen señailea kopetan ta bularrean erranzizulaik: Accipe signum crucis tàm in fronte, quàm in corde etc.

Errezibi zazu guruzearen señaleara ala kopetan nola bularrean. Ala kopetan, etzaitengatik beñere alketu izateas ta idurizeas kristio, nola bularrean, guruzifikadezkizungatik zeure afekto guziak biotzes. Ala kopetan, mostradezatengatik zure obrek exteriorean ta agerrian noren zerbitzukoak zaren; nola bularrean, konformadezkizungatik zeure inklinazioak ta pensamentuak Kristo guruzifikatuareki. Ala kopetan, orreki ikusteareki señaleara gau demonioak zure fatxadan, ertxirik aurki dezan ataria sarzeko zure baitan; nola bularrean, bizi daiengatik solo Kristo ta arren legea zure biotzean. Prosegizen du: Arzazu zeruko mandamentuen fedea, ta izanzaitez alakoa kondizioetan ezi zaitezken izan ia Jangoikoaren tenplu. Ala izan zara beti? Ta ala zara orai? Ezperen, traidore ta desertore zara, izenez kristio, ta izanes Kristoren enemigo.

5. Berla sazerdoteak egiten du orazio Jangoikoari, ta gero berze orazio bat paraturik eskua aurrain buruain gañean, eskatus Jangoikoari ken dezon biotzeko itsutasun guzia, desegindezkion satanasen lakio guziak, idiki dezon bere piedadearen ataria, estaien mantxa afekto gaistoen usaieki, baizik alegre zerbitza dezan elizan aprobetxatus egunetik egunera Kristo gure Jaunaingatik. Ondorean bedeikaturik gatzia eman zizu guti bat agora erranes: Accipe salem sapientiae etc. Errezibi zazu jakinduriaren gatzia; biz zuretakeo medio, erdexteko bizitza sekulakoa. Zer signifkazen ote du gatz gonek? Nik errain dizut. Gatzia da, emateko sazon ta gusto janarioei. Bada, ematean jakinduriain gatzia adiarasten zaio izan bear duela gusto ta afizione enzuteko Jangoikoaren itza ta doktrina, baita janario dibinoa, zeñeki alimentazen baita arima zerurako, ta zein gabe il zen ta ustelzen baita bizioetan. Zer in zaizu gatz enkomendatu zizutena, diot, apetitua ta ansia Jangoikoaren itzaindako? Orgatik berla sazerdoteak eskatu zio zure gatik Jangoikoari ala: O egietafedearen Jangoikoa, eskazen diogu humilki beira dezan begi ones bere esklabo gau, ta gustazen duelaik lenik gatzaren sustentu gau, ezdezala permiti bizi daien goseak ariman alimentu zerukoaren faltas, baizik izan daien ferboroso beti espirituari ta konstante orren zerbitzuan, Kristo gure Jaunagatik. Berla berriz konjuratu zue espiritu gaistoa atra zeien zure gandik, etzezazun edeki doktrinaren aizeko afizionea. Berriz zeñatu zinduzala kopetan, berriz eskatu zio Jangoikoari eman zezazun argitasun entendazeko Jangoikoaren jakinduria, doktrina, predikua, egietafedea baitire medio seguroak lograzeko on guzia.

6. Zertako ainberze dilijenzia? Zerengatik bat Jangoikoaren izateko mostra ta modua da aizea beraren itza. Qui ex Deo est verba Dei audit. Ala nola ez aizea baita señaleara estela bat Jangoikoarena. Bos non auditis kia ex Deo non estis. Prinzipioa apartazeko Jangoikoagandik da bere doktrinas ta itzas enfado, desgana edo disgusto izatea, dio Paladiok. Zer ia? eman ondoan gatzia, konjuratu ta orazio egin ondoan, sartu zinduzala sazerdoteak estolareki elizan erraten zizula: Urlia, sar zaite Jangoikoaren tenpluan izanzaitengatik Kristoreki partizipante bizitza sekulakoan. Ta errate zue klaro Kredoa ta Aita gurea, signifkazeko bear zinduela ikasi, posible baliz, aun aurra zinalaik; zer izain da ezpauzu ikasi, aun andia izanik? Konjuratu zinduzala berriz, adiarasteko dilijenzia bear duzuna izan bizizeko garbi guzis ariman utzi gabe demonioari ta bekatuari lekuri artan. Listus gero ukitutuzkizu bi bearriak, erraten zuela: Epheta, idiki zaite adimentua, berla sudurretan, in odorem suavitatis, sentizeko Jangoikoaren dulzurak ta suabidadea. Zer da au? Da idikizea adimentutik bidea sarzeko ariman Jangoikoaren itzareki grazia ta santidadea. Ikusteunzu zein fite sartu orduko lenbiziko aldian elizan, bataiatubaño len, enkargatu zizaizun idikizea adimentua, prebenitzea atenzioa? Bai, ta orai akaso pesadunbre arzeunzu, delaik doktrina edo platika; ta zaudelaik gustoso bi irur ordu kontu banoak aitzen, ta aun murmurazen, egunain zati andian dibertizen, gauain anitz ordu jokuan,

etzaizu iduri luze, estizu ematen loak, estuzu senti molestiarik; ta orduerdi bat platikan eznai soporta, berla enfadaturik, lo ta arkumas berla, ta ez aitu naiak erabili igeska? Zer da au? Da borrazea kristioaren lenbiziko señalearak. Da zerurako mostra guti, infernu urrin anitz izatea. Aizazu kontazen duena Jakobo de Bitriakok (Parr. pl.7. Baptis.).

Serm. 57.

De caeremonias reliquis baptism.

ann. 1780

Expoliantes vos veterem hominem

cum actibus suis et induentes novum. Coloss. 3.

1. Explikaturik ia bataio solemnearen zenbait zeremonia, faltazaizkigu prinzipalena. Eginik paktoa goardatu bear zinduzala mandamentuak, dirudi aski zela, konzedizeko bataioak baña ez, oraño falta da berzerik, au da, errenunziazea munduas, demonioas ta aragias bataiatubaño len. Edozein errelijioneetan iten da profesioa, obligazen delaik persona goardazera ango erregla, ta eginik pobreza, obediencia ta kastidadearen botoak, bateo egiten da errenunzia solemnea kontrako gauzetaik, ta konsagrazen da persona Jangoikoarendako guzia. Orai, bada, kristiandadea da Kristoren errelijionea; bataioan profesazen da persona, ta erakusteko ezi ia bataiatuaskeros bear duela izan berze gizon bat, au da, San Pablok dion gisa, buluxi bear dela bat gizon zarras bere kondizioeki, ta bestitu bear dela gizon berrias Kristoren konforme denas, expoliantes vos veterem hominem cum actibus suis et induentes novum, eginarasten dio alzinetik errenunzia solemne gura, ta arzen dio itza bataiarrian zeruaren ta lurraren alzinean.

2. Arrizen naiz nola diren bazuk, edo nola nauten izan kristio estirelaik Kristoren konforme. Zertan ezaundukouzu, baleude nasteka kristio zenbait ta zenbait jentil, zein diren kristio ta zein jentil? Zeñazean? Errosarioan? Zenbait gauza exterioreetan? Baña oriek finji dezazke jentilak ere, nai badu engañatu, ta estire kristioaren substantzia. Bitarteo barin badire ain mundano, ain suberbo, ain luxurioso, ain asarre, ain kodizioso ta gaisto nola jentilak? Alako kristioak dire kristiandadearen desonrazaleak, kristio muxixarkoak, kristio itxurak, modako kristioak, ta ez Kristok formatuak. Lenbiziko kristioei erran ziote Kristok: Zuek etzarate mundukoak, non estis de mundo, au da, etzarate mundanoak, munduaren konforme bizi zaratenak. Baña zenbait orai dire kristio ta mundukoak, munduan sartuak, munduareki pegatuak arima guzias, munduko ponpa, banidade ta bizioes gozatu nautenak bateo, ta bateo iragazi bizitza sekulakoa. Emen bizi nauten bekala, ta an alaere arrapatu sanduen gloria. Estaike, estaike. Zego mutiko bat enredazen ta gaistakerian laguneki; ta erran ziote: Nauzu joan zerura? An bada anitz dulce ta txotxxo, baña an estuzu ibili bear gaistakerian trabeseazen, ori ez. Gelditu ze suspensio mutikoa, ta alde bat nai zitue ango dulceak, berze alde emengo trabesurak; ta ala erran zue azkeneko, nik nainuke iduki burua zeruan jateko ango dulceak, ta oñak lurrean enredazeko laguneki. Ario gontara nai lukete zenbait kristioek bizitu arro ajustatu gabe legeeki, ta oroat nola errelijiosoek, nola sanduek izan gloria. Erraten bazaiote mortifika daizela, erretira daizela munduko gala, banidade, danza, joku ta alako dibersio banoetaik, ala in zutela sanduek, ala iteuntela errelijiosoek, errespondazeunte ezi aiek zirela sanduak ta errelijiosoak, berak estirela. Bada, beira ezi kristioak zaratela, beira espera zeunziela aien gloria, beira errezibitu zindutela bataio bera, beira in zindutela bataiarrian profesio bera, errenunzia bera. Ikusazie ongi fielak.

3. Recordare tirocinii tui diem quo in sacramenti verba jurasti. Oroi zaite aur nobiziadoko egun gartas, erraten dizu San Jeronimok, ta nai du erran: oroi zaite kristio izaten asi zinan egun gartas, zeintan eman baizindio itza Jesu Kristori Trintate guziaren

alzinean. Sartu zina bigarren jaiotzearen iturrian, errateinzu San Ambrosiok, nai du erran, ellegatu zina bataiarria, ingressus es regenerationis lavacrum. Errepasazu zer galdegin zizuten, repete quid interrogatus sis. Errekonozi zazu zer errespondatu zinduen, recognosce quid responderis. Galdeginzizu Jangoikoaren partes sazerdoteak: Abrenuntias satanae? errenunziazen duzu Satanases? Zer errespondatu zindue? Aitabutxiain agos: Abrenuncio, errenunziazen dut. Et omnibus operibus eius? errenunziazen duzu arren obra guzietatik ere? Zer errespondatu zindue? Abrenuntio. Bai, errenunziazen dut. Et omnibus pompis eius? errenunziazen ere duzu arren ponpa guzietatik? Atendi, otoi, zer errespondatu zinduen: Abrenuntio. Bai, errenunziazen dut. Ofrezitu zindue baietz, testigo Trintate guzia, testigo aingiruak, testigo sazerdotea, testigo gurutzea an presente zegona, testigo bataiarria. Ezpauzu kunplizen, gezur in diozu Jangoikoari. Eta nai bauzu jakin zer den ofrezitu zinduen, nik explikatuko dizut. Errenunziazea Satanases da errenunziazea deabruaren arte gaisto, sorgindaria, superstizione ta alakoes. Errenunziazea arren obra guzies da errenunziazea bekatu guzietatik, zerengatik bekatuaren lenbiziko autorea da deabrua, ta deabruarena da iten duena edozein bekatu mortale, qui facit peccatum, ex diabolo est. Ta Jangoikoaren semea ontako etorri ze, destruiteko deabruaren obrak, au da, bekatuak. In hoc aparuit filius Dei, ut dissolvat opera diaboli. Errenunziazea arren ponpa guzietatik da errenunziazea anbizione, arroganzia, banidade, gala superfluo, itxureria, presunzio, fantasia ta alakoetaik, segun dioten konzilioek ta Aita Sanduek (Parr. pl.8). Beira kunplizeunzun edo ez; Jangoikoari esta irrik. Deus non irridetur, estaike engaña; engañazekos zeuroi engañazen zara zeure kaltetan.

4. Egin ondoan errenunzia gau unjitu zinduz sazerdoteak olio sanduas bularrean ta bizkarrean, ta izan ze oroat nola prebenitzea zu lutzadore ta peleazale Jangoikoaren enemigoen ta zureen kontra, ta adbertizea bekala beti pelean, beti indarka bizi bear zinduela munduaren, demonioaren ta aragiaren kontra, ez ofendizeagatik Jangoikoa. Markatu zinduz bularrean erakusteko ofrezu beazula egitera al guzia; ta bizkarrean padezizeko ta aguantazeko edozein trabaju Jangoikoagatik. Oteki guziareki etzizu oraño konzeditu bataioa, aliketa eginartaño fedearen profesioa. Galdeinzizu, bada: Sinesta zeunzu Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadorea baitan? errespondatu zindue: Bai, Jauna. Sinestazen duzu Jesu Kristo arren Seme bakar gure Jaun jaio ta padezitu zuena baitan? Bai, sinestazen dut, erran zindue. Sinestazen duzu Espiritu sandua baitan, Eliza Sanda Katolikoa, sanduen komunioa, bekatuen barkazioa, aragiaren erresurrekzioa ta bizitza sekulakoa? Bai, sinestazen dut, erran zindue. Ondorean galdeinzizu ia nai zinduen bataiatu. Zertako debalde galdetze gau? Zertara doaie ezpada bataiatzera? Esta debalde. Da erratea bekala, orai bada, bataiatuaskeros geldituko zara obligaturik bizitzera ofrezitu bekala goardatus mandamentuak, aditus ta ikasis doktrina, errenunziatus ta ukatus deabruaren obra ponpa guzietatik, ta sinesta zeunzuna bekala Kristoren fedean. Ez ala izatekos zure kondenazio iagotako izain da bataioa, obe zinduke ez bataiatu, zerengatik esta ain gaisto jentil gaistoa nola kristio gaistoa. Au ala delaik, beira bauzun gogorik kunplizeko ofrezitua; ezperen, etzaitela bataia, ta ala nai izatea bataiatu da oroat nola obligatzea. Nauzu bataiatu? Vis baptizari? errespondatu zindue: Bai, nai dut. Volo. Orduan bataiatu zinduz ematen zizula ur bateo ta bateo erran zituelaik itzak: Nik bataiazen zaitut Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, Amen. Au izan ze markazea edo sellazea zu Kristoren gizon ta esklabo Trintate guziaren markas edo sellos.

5. Ia instante gartaik konsagratua zaude Jesu Kristori ta obligatua arren zerbitzu sandura. Ia estu izan bear parterik zurebaitan ez munduak, ez demonioak ta ez aragiak;

gizon berri bat ta zeruko bat bekala bizi beauzu lurrean, ez izatera zeure itzaren kebrantadore, Jangoikoari traidore, ta Jesu Kristorengandik desertore. Orgatik berla sazerdoteak unjitu zinduza krismas buruan adiarasteko unitu zarela Kristoreki zarmendua aienareki bekala, ta gorputzareki mienbroa bekala; ta ia burutik oñetaraño den guzia zure baitan dagola Kristoren konforme enpleazera obligaturik. Memento cuius capitis sis membrum. Oiuiten dizu San Leonek: oroi zaite, bada, noren mienbro zaren. Kaballeroak ta nobleak obligatu beartu beren alzinekoen odol jenerosoak portazera nobleki, aski baita nondik duten bere etorkia; ezpaleitez ala portatu lirazke bere odolaren ta alzinekoen desonrazaleak. Orai, bada, noble espiritualki egin zara bataioan, ta ain noble ezi ez solamente duzu Kristogandik zeure etorkia, baizik ere arren mienbro zara; indignoki portazindeizke, baldin iten, pensazen edo deseazen bauzu deus alako Jaun bati estagokiona. Ezaunbeza mundu guziak zure bizi moduan norena zaren, ta ainberze diferenzia erman bear dio kristioak estenari ongi bizitzean, nola argiak baitama abantalla iluntasunari, zeruak lurrari. Kristiandadearen prinsipioetan parazen ziote kristio berriei bataiatu ta zorzi eguntaraño bestidura txuri bat adiarasteko diferenzia lenetik urrengo bizimoduan bear zutena, ta ala orai arren partes parazen zaio aurrari pañolo txuri bat, signifikazen duena grazia ta santidadearen preziosidade galanta. Paratu zizute zuri ere ta erranzizu bateo sazerdoteak: Arzazu bestidura txuria, zein erman dezazun mantxatu gabe Jesu Kristoren tribunalariaño erdexteko bizitza sekulakoa. Esta kontent emanaz grazia bataiarrian, nai du konserba dezazun ilartaño, ta juiziora joanartaño bataiarriko grazia gura. Eta konserbatu duzu ala mantxarik gabe? Zoazilaik kontuetara, aurkituko ote zaitu Jangoikoak, ikusiko ote zaitute aingiruek ain garbi, nola zindeuden bataiarrian? Ah zenbat mantxa! Zenbat deslustratu duzun bestidura txuri gura! Botauzu anitz aldis bekatuaren loiean, zikindu duzu luxuriaren inmundizian. Bada, garbi zazu ongi negarresko urean, ezperen etzara izain admititua zeruko glorian, ezi an esta sarzen gauza mantxaturik, non intrabit in eam aliquod comquintum.

6. Azkenean emanzizu bela itxekirik itzebeki: Arzazu kandela itxeki gau, ta bizitza erreprehendi estaiken baten medios goardazkizu bataioan artutuzun obligazioak. Kunplizkizu Jangoikoaren mandamentuak, ezi ala datorrelaik Jauna zelebrazera bodak, atrazaizken errebizitza zeruko palazioan, sandu guzieki bateo, ta bizi zaitezen an eternidade guzian glorian, Amen. Ta ondorean despeitu zinduza itzebeki: Zoaz bakean, ta biz Jangoikoa zureki, Amen. O zer kandela ura ain misterioa! Arren argia da fede eman zizaiguna bataioan, zuzenzeko gure pausuak zerurako bidean. Arren garra da esperanza beti goitirat doaiena erakutsis nora beiratubeauten gure ansia guziek, zerurat, zerurat. Arren sua ta berotasuna da karidadea erakusteko ezi errezen dagolaik beti gure biotza Jangoikoarenganako amorioan, ala akaba daien gure bizia arren zerbitzutan. Au da gure obligazioa; ta ortako paratuzigute eskuan argia luziarasteko gure obretan emanaz munduari exenplu. Eta baldin fu bat aski barin bada itzalzeko bela bat, zer kuidadoa da preziso goardazeko itxekirik anberze aize ta tenpestade mundukoan ertean argi gura, zein izatean itxekirik gure ilzeko orduan baitago gure salbazioa? Zer izain da mirazen gaituelaik Juezak bere jakinduriain argitasunareki ia nola bizitu garen? Zer errain dute orduan demonioek gure enemigoek, baldin ezpagara bizi kristio onak bekala Jangoikoaren presenzian? An oroiarazikotigute orai atzendurik ustentugun bataioko obligazio artutugunak.

7. Au da, errain dute kristio gaistoas, au da sepultatu zena Kristoreki bataioan, consepulti ei in baptismo, erakusteko ia ilik zegola bekatuetarako, ta in du ia maldade ezi ez guk. Au da artu zuena alako sandu edo sandaren izena, ta deus estu in gutiogo nola

imitazea sandugoi. Au markatu ze guruzearen señalear, ta guruzearen enemigo izan da beti, ta bere aragiaren aiskide. Au da nori paratu baiziotu agoan gatz, izateko afizioe ta gusto Jangoikoaren itzetara; ta estitu baizik aborrezitu beti. Onek errenunziatu zitue deabruaren ponpak ta banidadeak; ta oroat bizitu da nola in balu proposito segizeko. Au unjitua izan ze krismas persona bat Jangoikoari guzis konsagratua bekala, ta obeki bizitu dire anitz turko au baño. Oni eman zizaio bestidura txuria signifikaizeko santidade bear zuena, ta zikindu du kulpen pozioas. Oni eman ziote kandela itxekirik; ta itzali du pasioeen aize turbioes. Kristioaizan da izenes, baña batere konformatu gabe Kristoren exenplueki bizimoduan. Zer izain da alako kristioas? Ah! Beldur naiz ezi anitz kristio beren señalear ta markareki izain direla paratuak asko jentilen pean infernuan, zerengatik ezuten kunplitu kristioen obligazioeki. Zenbat bizi dire atzendurik in duten obligazioas bataioko profesio solemne gartan? Ta solamente kuidazeuntela gorputzeko gauzes, ondasunes, honres, konbenienziez ta gustoas, biar edo etzi utzi beartustenes, nai baute ezpaute?

8. Jende guziak baño gaizkiago bizi dire kristio gaistoak, dio San Agustinek; ta alakoes beterik dago eliza. (In psalm. 30) Debalde ta aun beren kaltetan itzulzeunte anitz Jangoikoaren fabore espeziala egiteas kristio, debalde Kristoren odola, debalde arren guruzea, debalde ainberze sakramentu, ainberze prediku, ainberze exenplu, guzia debalde ta aun kalte iagotako. Kristioak, edo izan kristio, edo joan jentiletara gaizki bizitzekos. Edo borraratu kristioen karakter, marka ta krisma zeurengandik, edo bizitu kristioki ta sanduki. Zuetas kexazen da Jesu Kristo, ezi blasfematua dela bere izena zuengatik jendeen artean, zerengatik desonrazen baituzie bizi gaistoas. Per vos blasfematur nomen meum inter gentes. Zuen kontra izain dire zuen aingiru goardakoak, ezpaituzie in nai kaso aien inspirazioes; zuen kontra zuen izenetako sanduak, ezpaituzie nai imitatu; zuen kontra Jesu Kristo, ezpaituzie obeditu; zuen kontra berain odolak, ta berain guruzeak, azoteek ta itzeek ta pasio guziak klamatukoute, zeren malogratu tuzien; zuen kontra testigo izain da bataiarri gura zeintan bataiatuzinaten, izateko traidore; zuen kontra tenplua, pulpitoa, aldarea, konfesonarioa ta kristioen onzeko medio guziak gaizki enpleatuak; zuen kontra bataiarri berean, bataiaturik zerura joan direnak. Zuen kontra San Franzisko Xabier zuen lekukidea ain diferenteki bizitu zena zuetaik. Zuen kontra Maria Santissima zuen patrona izana, ezpaitioze deseotan segitu. O kristioak, estu niork nai bizitu kristioki? Ea, nauzien guziok zatoste nereki, ta belaurikaturik errenoba zagun bataioan inikako obligazioa, ta inzkigun fede etc.

Serm. 58.
De confirmatione.
ann. 1780

Accipietis virtutem supervenientis Spiritûs Sancti
in vos, et eritis mihi testes. Act. 1.

1. Explikaturik ia bataioaren sakramentua, eldu da orai explikaziora bigarren sakramentua, baita konfirmazioa, zein deizen baitu San Dionisio Areopajitak bataioaren perfekzioa, ta San Ziprianok konsumazioa, Rabanok, Terulianok, San Ambrosiok ta berze Aita Sanduek bataioaren konplementoa. Desuerte ezi San Klemente, San Pedoren diszipuloak omen zio, aitu ziola erraten bere maestruari, estela kristio perfektoa estagona konfirmaturik. Ta San Urbanok exortazen gaitu erreizibitzera konfirmazioa, izateko osoki kristioak. (Parra hic plat.1.) Nola dateke ori, Jauna, delarik zierto, ezi bataioaren medios barkazenzaizkigula bekatu guziak, ematenzaigula grazia ta birtuteak, iten garela Jangoikoaren humeak ta zeruko herederoak, ta andik deizen garela ia kristioak, ta berla ilzen dena bataiatu ondoan, naiz konfirmatu gabe, doaiela zuzen zerura? Guziau da egi eta fedea, baña guziareki geldizen da egia ezi konfirmazioak ematen diola kristioai perfekzioa. Explikatuko naiz konparazio goneki. Erorzen da akaso aurtto bat balsa loizu batean, golpazen ta zikinzen da, dabila atra naies ta ezin atra, ia indarrak joanik, erdi itorik dagolaik, ellegazen da bere ama, ikusten du, doaie lastimaturik laixterka, atrazen du pobrettoa, darama etxera, garbizen du loi gartaik, aldazentio tresenak oñetik bururaño, ta ia pasaturik sustoa, erraten du ta ongi, kontu egun jaio dela aur gau. Baña oneki kontentazen da? Ez. Baizik nola aurra erorze gartaik, golpe ta osasunetik gelditu baita lastimaturik, eriturik ta indar usturik, ama onak kuidazen du emateas medizinak, erreparoak ta fomentoak bizkorzeko guzis aurtto gura. Pintatu dut nolapait gureki gertazen dena. Erori ze gizonen jenerazioa Adanenbaitan bekatuaren loiean; gure Amak Eliza Sandak garbituginduza, ta jaioaraziginduza graziaren bizitzara, baña guziareki nola baikara frajilak, bekatuta inklinatuak ta indar gutitakoak, orgatik konfirmazioaren medios bizkorzen gaitu. Bataioan izan ze gure bigarren jaiotzea, espirituala; konfirmazioan da gure atzizea ta indar arzea bekala.

2. Da, bada, konfirmazioaren sakramentua gu konfirmazeko bataioan erreizibitu ginduen fedean. Bataioan eman zizaigu fedea ta grazia; konfirmazioan aien defendazeko indarra. Esta preziso, salbazeko bat izatea konfirmatua, ta ezpada usten desprezios, ura gabe sal badaike; baña ainberze etsaien ertean peligro andia da izan gaizen garaituak, ezpagaude konfirmatuak. Orgatik lengo kristioek prokurazen zute erreizibitzea sakramentu gau gogo guzias, armazeko soldado balienteak bekala tiranoen kontra. Ta gure Jaunak agerzen zue klaroki sakramentu gonon efektoa, jausten zelaik Espiritu Sandua aien gañera, betezero indarres ta arimos. Nork estu erreparazen apostoluak ain beldurti Kristoren pasioan? Baña gero beira zein balerosoak! erran ziote Kristok erresuzitatu ondoan: Zauzte ziudadean, aliketa eman dakizien artaño zerutik birtute, zerengatik erreizibitu beauezie Espiritu Sandu etorko zaizenaren birtutea, ta izanbeauezie neretako testigo Jerusalem, Judea guzian ta munduaren azken basterreraño. Ala izan ze, erreizibiturik Espiritu Sandua ta konfirmaturik arren birtuteas, ia nioren beldurrik gabe exponizen zire trabaju ta eriotzeetara animoso Jesu Kristoren fedeagatik; au da konfirmazioko sakramentuaren

efektoa.

3. Sakramentu gonon ministroa da obispo jauna, sazerdoteen buru bekala, ta ez dezake niork administratu obispo baño gutiago denak, ta ontan ere ageri da sakramentu gonon dignidadea. Materia sakramentu gonena da krisma, baita olio ta balsamo konsagratues unjitzea bataiatua. Olioak signifkazen du graziaren erauntsia Espiritu Sanduaren medios arimara datorrena. Balsamoak signifkazen du birtuteen fragranzia edo fama ona izan bear dutena fielek, desuerte ezi erran dezaketan San Pabloreki: Garade Kristoren atxon preziosoa leku guzietan (2 Cor. 2), zerengatik alako exenplua eman bear du kristioak, ezi edozeñek ezaun dezan Kristoren eskola ta doktrinain santidadea arren baitan. Forma erraten duena obispo jaunak konfirmazerakoan da au: Nik markazen zaitut guruzearen señalear, ta konfirmazen zaitut salbazioaren krismas Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, Amen. Itz gebetan signifkazen da Trintate Sanduaren podorioa obrazen duena sakramentuain efektoa. Signifkazen da arimaren bizkortze ta indar ematea, iragazteko biktoria; baitare signifkazen ta deklarazen da marka parazen zaiona soldado Kristorena den bekala peleazeko etsai espiritualen kontra. Baña ez solamente agerrian parazen zaio guruzearen marka, baizik ere ariman inprimizen da karakter edo señalear espiritualak sekula borratuestaikena, ta orgatik ere estaike bi aldis konfirmatu nior bizi guzian. Kopetan unjizen du krismas konfirmazen duena obispo jaunak, ta kopetan sellazen du guruzearen señalear, erakusteko estuela beldurrik ta alkerik izan bear kristio izateas ta konfesazeas Kristoren fedea publikoki; zerengatik nola beldurra ta alkea monstrazen baitire kopetan, orgatik pasione gorien desterrazeko fedean faboretan, kopetan unjizen du obispoak. En fin, ematen dio obispoak konfirmatuari eskuas lebeki matelean, signifkazeko bear duela sufritu edozein trabaju kristiandadearen faboretan. Ta en fin, ematen dio besarkaren demostrazioa signifkazeko Jangoikoareki bakean egon bear duela ta etzaikola deus gañarakoas, nola ez dezan gal Jangoikoaren amistanza.

4. Sakramentu gau berzeak bekala instituitu edo fundatu zuela Kristo gure Jaunak, dauka deklaraturik Elizak; ta por konsigiente da zierto, obrazen duela ariman Kristoren birtutes ta merejimentus signifkazen duena, au da atzitzea, bizkortzea ta konfirmazea kristioa fede sanduan, ezpadu estorbazen disposizio gaistoak errezibitzenduenarenak. Orgatik bizien sakramentua den bekala, bear da errezibitu grazian dagolaik; ta ortako dena ia ellegatua ezaumentura ta bekataria, prebenitu bear da errezibizeko prokuratus kontrizioa, ezpada konfesazen; baña disposizio obrena ta seguroena da lenik konfesazea, ta ala exortazen du iteko katezismo Romanoak. Bear da sakramentu gontako ere, bataioko bekala, aita-butxi, zerengatik soldado peleatu bear duenai ematen bazaio direktore ta erakustun bat peleazeko diestroki, arrazio da izan dezan konfirmatuak ere aita espirituale bat, au da, aita-butxia; ta onek konfirmatuareki ta onen guratsoeki kontraizen du aiko espirituale ala nola erran ginduen bataioaren explikazioan. Esta preziso adin jakinik errezibitzeko, ta obe barin bada ere errezibitzea alako adinean, ezi entenda dezaken zer errezibitzen duen, alaere nola ezpaita askotan konbenienzia, errezibitzeko noiznai zeren solo baitezake administratu obispo jaunak, orgatik akostunbrazen da konfirmazea aurrak ere okasio delaik, estaien gerta ilzea konfirmatu gabe. Salbatuko da orgatik, baña guziareki esta izan bear deskuidorik errezibitzean, sakramentu gau txoil inportazioskoa baita, ikusko dugun bekala exenplu gontan (Parra. pl.1. de Confirme.).

5. San Maurilio Ansou Franziaiko obispo sanduak milagrotan famatuak erdetxi zio Jangoikoagandik hume bat ezkondu bati, esteril anitz urtes bizitu zen bati, baña txikittoa zelaik oraño aurre, etorri ze andre gura elizara eskazera konfirma zezan ilbañolen, ezi ia

ilzen zegola. Au izan ze, sandua erraten zegolaik meza, zeintan ainberze detenitu ze debozioain utses egun gartan, ezi lenago akabatu ze aurra ezi ez meza. Gero ikusi zuelaik ilik, ta konfirmatu gabe, iduri zekiola bere kulpas joan zela sakramentu gau gabe, ainberze sentitu zue, ezi penitenzia iteko desterratu zue obispadotik bere burua. Ala iteunte sanduek eskrupulo guri deus idurietzaizkigun gauzes. Joan ze, bada, okultoki sandua, ta ellegaturik Bretañara eskribitu zue an arri batean bere izena, ta bere desterru borondateskoaren motiboa, ta enbarkatu ze gero itsasoan barna. An zoeielaik oroitu ze zekarzkiela bereki bere elizako errelikarioain gilzak, zegolaik ontan pensazen bere gilzeki eskuan, etorririk demonioak bota zizkio itsasora. Orduan erredoblatu zue bere sentimentua ta egin zue boto ez itzulzeko bere obispadora, aliketa agertuartaño gilza gaiek. Ellegaturik leorrera, aldaturik trajes paratu ze zerbitzazen baratzezai gizon bateki. Bitarteo bere feligresek bialduzuste mundus mundu laur persona arren bila. Zazpi urtes erabili zire bila, ta ezin aurkitu zute; ta en fin, ellegaturik Bretañan topatu zute arri gura zeintan eskribitu baizue bere izena ta desterrua. Enbarkatu zire konsolaturik zer bait, ta zoezilaik itsasoan ikusi zute saltazen arrai bat onzira; il zute ta aurkituzuste arren barnean sagrarioko gilzak. Iago konsolatu zire oneki, baña etze ageri nion obispo sandua. Ellegaturik leorrera, ta granja batera, aizeunte arren jabea erraten, dei dezatela Maurilio baratzezaia. Biotzak saltatu zizaizkio aipazerakoan izen gau. Ikusteunte etorzen, ta ezaunzeunte beren arzai sandua. Ta belaurikaturik eskazen diote, itzuli daiela bere elizara. Arriturik sanduak erraten diote, zeukala eginik boto ez itzulzeko aliketa agertuartaño gilzak itsasora erorizizaizkionak. Emen daude, erraten diote, ikus bezki, arrai batek ekartigu onzira Jangoikoaren probidenzias. Ezaun duzue Jangoikoaren borondatea itzul zeien bere elizara, ta ala itzuli ze. Baña orai da prodijioaren andiena. Etzizaio joan biotzetik aur garren ilzearen miña konfirmazioa gabe, ta ala ellegatu orduko elizara joan ze arren obiara, ta idikiarazirik obia, eskatu zio belauriko Jangoikoari erresuzitatu zezan; ta zazpi urtes ilik egon zen aurra erresuzitatu ze instantean. Konfirmatu zue, imini zio izena Renato, nai baitu erran berriz jaioa; bizitu ze gero anitz denboras, ta izan ze obispo eliza berekoa arren ondorean, sandua ura ere.

Serm. 59.

De Beneficio Confessionis.

ann. 1780

Tibi dabo claves regni coelorum, etc. Math. 16.

1. Jesu Kristo gure Jaunak ala nola bere odolaren kostus paratu baizue mundukoen erremedio unibersala, ala nai izan zue aplikazekigun erremediogoi sakramentuen medios. Ala, bataioaren medios barkazen zaigu bekatu orijinala ta berze edozein aurkidaiena bataia zendena baitan; konfirmazioaren medios konfirmazen gara fede errezibitu ginduen artan; konfesioko sakramentuaren medios barkazenzaizkigu bekatu bataiatuas geros inikakoak; ta ario gontara, berze sakramentuen medios itentigu grazia espezialak. Ia, bada, kristio izanaskeros, geienenik bear dugun sakramentua da konfesia; por konsigiente onen parazeas in digu Jesu Kristok mertxede espeziala. Ikusagun zerbait egungo platikan.

2. Onen entendazeko obeki, figura gaizen estela konfesorik munduan, ta ez bekatuen barkazeko modurik; dela bat bataiatua, konfirmatua ta berze sakramentuak errezibitutuena; dela noizbait errege, edo obispo, edo pontifize sumoa; dela Jangoikoaren adiskide ta sandu bat guzis; gerta daiela erorzea bekatu mortale batean, adio, guzia galdu da sekulakos, deus estiote protxazen lengo pribilejio guziek; etsai itzuli zaio Jangoikoa, sanduek ez dezakete anpara; ertxi zaio zeruko ataria; noranai beira dezan, niondik esta erremediorik, estu zer esperatu baizik il ta errezen egotea infernuan sécula seculorum. Zer deskonsolua! Zer desesperazioa! Figura gaizen orai ezi Jangoikoak ematentiola zeruko gitzak bere ministro bati, ta erratendioela ezi nola persona garrek konfesa dezon bere bekatua humilki, barka dezola bere partes, admitizen duela bere grazian, ta idiki dezola zeruko ataria, sarzeko an gozazera betikos. Zer idurilekioke mertxede gau persona garri? Puntualki da au gertazen dena gureki, fielak, eman zitio Jesu Kristok, San Pedrori zeruetako gitzak, tibi dabo claves regni coelorum, au da, bekatuen barkazeko potestadea; potestade gau komunikatu zaiote sazerdoteei, desuerte ezi ebek barkazeunten guzia barkatua dago zeruan, ta ebek barkatu gabe usten dutena barkatu gabe geldizen da zeruetan; testigo da Jesu Kristo: Quodcumque ligaveris super terram erit ligatum et in coelis, et quodcumque solveris super terram, erit solutum et in coelis. Zer mertxede pensa daike andiagoo?

3. Jangoikoa, dakien bekala edozeñek, da guzien buru ta Jaun goiena; bekatua da Jaunonen ofensa; nork dezake pondera ofensa gonon pizua? Ta nork libratuko du ofendizalea jaun arren eskuetaik? Niork ez, ezpalu nai berak; ala da, Jangoikoa solo da artu bear duena kontu bekatu gartas, egiteko justizia. Kontu gau artu bear da tribunale dibinoan, an ematen da sententzia korrespondiente, ta egiten da justizia. Baña zer egin zue Jesu Kristo Jangoikoaren Semeak bere Aita eternoaren borondates? Bekatari triteen onerako fundatu zue munduan berze tribunale bat, au da konfesioren sakramentua; jueztako utzitu bere sazerdoteak, zeñek aitu ondoan bekatuak eman dezaten sententzia. Emen, bada, justoki barkatutako deklarazenba gaitu sazerdoteak konfesioko tribunalean, pasatuko gara barkatutako Jangoikoaren tribunalean; testigo Jangoikoaren itza: Quodcumque solveris super terram, erit solutum et in coelis. In duenak bada bekatu bat, pensa bez bear dela bekatu gortas kontu artu, edo emengo tribunalean, edo angoan;

angoan estaike barkatu, ezpada emengoan barkazen; ta emengoan barkazen bada, angoan esta peligrorik. Si nosmetipsos dijudicaremus, non utique judicaremur. Ontan agerzen da Jangoikoaren benefizioa ta guri barkatu naia, utzidigulaik barkazeko potestadea gu bekalako gizon batzuen eskuetan; ta ontan ere agerzen da bere podorio infinitoa.

4. Desegiteko gauza bat, esta ainberze bear nola egiteko, geien komun. Ala, Eliza gau egitea txoil anitz kostatu bide ze, ta desegitea ezleike ainberze kosta. Baña al rebes da bekatuetan, egitea guti kostazen da; aski da itz bat, aski da pensamentu bat; baña desegitea txoil kostoso da. Oian batek arrapabazindeza pean zu, etzindeizke atra zeuroi arren petik; baña por fin juntabaleites munduko guziak, azkeneko ken lezaket zure gañetik oian gura, ta aingiru soil batek instantean. Baña bekatu baten barkazeko zuri, juntabaleites ere patriarka, apostolu, martir, birjin, sandu ta sanda, aingiru, ta espiritu gaiek guziak, orroat lizake nola txinurri baten bulka aldia mogiarasteko pirineoak. Bear izan ze jaustea zerutik Jangoikoaren Semea bera gizon eginik, kostatu zizaio ainberze injuria, ainberze azote, ainberze tormentu, ainberze odol, irur itzeetaik ta irur ordus agonizazen egotea ta ilzea dolores akabaturik. Baña ontan dago milagroa, ezi kostu gonon guziaren birtutea utzi baizue depositaturik konfesioko Sakramentuan sazerdote baten eskura; aplika dezagun konfesazen garen aldioro. Bizpiru itz errateareki iten du ia ezi ez fabrika balez mundu bat berria; atrazen du alabañare gure arima infernurako estadotik zerurakora, ta itz aien medios doaie zerura, ezperen infernura joan bear zuena. Baña ala nola ur mineraleak baitu birtutea pasazen den mina gaietaik, ala sazerdotearen itzak du birtute Jesu Kristogandik; ta beti da podorio dibinoa bekatuen barkazeko potestadea; ta ar zazie iagoreki, sazerdotearen medios monstrazen duelaik. O zein gauza andia deñ konfesioa!

5. Entendazeko obeki oraño, kontu inzagun zoazala oian erte batetik; atrazen zaizkizula ladronak, ta ematen dizutela anitz estokada, ta usten zaitutela ilzat; kontu inzagun zaudela bekatu mortalean ta ez duzula kontrizioko dolore biotzean, (zerengatik kontriziosko doloreak konfesazeko intenzioareki suplizen du konfessoreain falta ta barkazentu bekatuak) baña solo atriziosko doloreareki lanze gartan, zer lastima! il zen erremediorik gabe, ta ori da gutiena! Il ta joan bear erremisiorik gabe infernura, ori da gaistoena! Bitarteo zabilza ildorka maldorka erioareki pelean; oiuiteunzu, niork estu aizen; nigar ta suspiros betezeunzu oiana, ta nior ez ageri. Noizbait senti duzu abre arroitu bat. Ellegazen da. Nor da? Errege andi bat bere goardieki. Eskazen diozu zerbait alibio. Monstrazen dizu borondate ona, baña ez dezakezu alibia konzienzia. A Dios, doaie alzina, geldizen zara len bezain triste. Geroxago sentiuzu berze arroitu bat zeruko fragranzia bateki. Nor ote da? Da sanduen konpañia bat, alegra zaizke. Ofrezizen dizute bere patrozinoa, zuk eskazen diozute bekatu garren barkamentua ilzeko ongi; baña erraten dizute prokura zazula kontrizioa, estutela potestaderik barkazeko, ta ezpauzu kontrizioa etzaisketela aiek libra. Geldizen zara berriz ia aflijiturik ta ezin erdetxis kontrizioa, ta ezin seguratus bauzun edo estuzun. En fin, tristura geben ertean ellegazen da gizon pobre bat, galdeiten dizu estadoas, ofrezizen dizu bere inala. Ai Jauna, gauza bat solamente nainuke, ta da nere bekatuen barkamentua, ilzeko ongi; ta emen egon da errege bat, ta ezin konsolatu nau ontas, egon da gero sanduen konpañia bat ta estidate eman nai nuen konsolua, baizik erran didate prokura dezatela kontrizioa, ezperen galzen naizela; ta nik estakit bauten edo ez kontriziogoi, ta ala triste dago nere arima; ta zer espera dezaket orrengandik? Orduan erraten dizu pobre garrek: anima zaite, otoi, ezi ni naiz sazerdote ta dezaket barkatu zure bekatu guziak Jesu Kristok emanikako potestadeas, ta errege garrek ta sanduek in eztizutena inen dizut nik; presta zazu biotza, errazkizu zeure bekatuak.

Erratentiozu, ta ondorean goraturik eskua, ematen dizu absoluzioa bizpiru itzes. Gelditzen zara konsolaturik, ta andik guti il ta errezibitzen duzu zeruko korona, ezperen joan bear zinduen orrek infernura. Zer iduri zaizu fabore gontas? O konfesioa, esta gauzarik zureki konpara daikenik: Zuk zena lentxago kondenatua iteunzu instantean bienabenturatua, ta au gizon baten ministerios. Zierto da ezi dion bekala elizak, ia deustan baño mostrazen duela Jangoikoak bere omnipotenzia barkazean: Deus qui omnipotentiam tuam parcendo maximé et miserando manifestas. Orgatik ellegazen garelaik konfesazera, erraten dugu: Ni bekatorea, ni konfesazen natzaio Jangoiko omnipotenteari, confiteor Deo omnipotenti. Zerengatik ia ostenta zen du bere podorioa Jangoikoak barkatzean bati bekatu bat, ezi ez botazean infernura kondenatu guziak. Ta ala, infernuko atarietan para barin badaike letrero gura, digitus Dei est hic, Jangoikoaren eria da emen, konfesonarioetan paratu bearlizake berze letrero gau: Dexterâ Domini fecit virtutem, Jangoikoaren eskuieko eskuak enpleazen du emen bere birtutea; ez zerengatik duen eri edo esku materialerik Jangoikoak, baizik zerengatik infernuan ezpaita ain andia mostrazen duen podorioa kastigazen, nola baita andia monstrazen duena konfesioan barkatzen, ikusko dugun bekala exenplu gontan.

6. Jendamende gontan ze Salamankan, kontazen du ala Aita Señerik, merkatari bat, zein izanik len abrats, pobretu ze guzis jokuain kasos; ainberze ezi desesperaturik artu zue bere biotzean odio bat ain rabioa Jangoikoain kontra, ezi erresolbitu ze egitera alzuzken bekatu andienak, solamente ultrajazeagatik Jangoikoaren Majestadea; ta egozten zitue alzuzken blasfemiaik horrorosoenak ta iten zitio despezio pensa al guziak, mendekazeagatik desbentura etorrizizaizkiones jokutik. Eta ia naies, erosi zue Nabarro doktoreain libru bat, ikasteko diren bekatu andienak ta obrazeko al bazezake obras, ezperen deseas; ellegatu ze deseazera izan zeizen bere bekatuak munduguzikoak baño iagokoak, ta desafiazen zue Jangoikoa, kastigazezangatik mila modus; ta zeren etzuen kastigatzen, burla ta eskarnio iten zio indar gabea baliz bekala. Ala bizitu ze zerbait denboras triste, konfesatu gabe, noiz oroitu baize ezi ofensa in zioken andienetaik bat zela gaizki konfesazea, ta ala erresolbitu ze joatera konfesazera gezur inaiak Espiritu Sanduari, ta ostikazeagatik Kristoren odola. Jarri ze konfesonarioan, baña nola baizego guzia turbaturik, ezaun duzue konfesoareak batzuela zerbait enbarazu, ta sospetxatu zue alketzen ote zen errateas bekatoren bat, ta ala ala asitzekio ponderazen Jangoikoaren ontasuna ta miseriordia, ta konfesioaren podorioa barkazeko edozein bekatu, ta au ainberzeko zeloareki, ezi merkatariak suspiro bateki erran zio: Jauna, egia ote da ezi askiko dela konfesioa, nere bekatuen barkazeko? Nola aski den, erran zio konfesoareak, bazinekarzki onara zuk mundu guziko bekatuak, nola zauden dolore sineskoareki, instante zindeuzke barkatua. Erran bekala progatu zio arrazios ta testimonios, ta konbenziturik ia gizonoi erresolbitu ze konfesazera sines. Eman zio denbora examinazeko bere konzienzia, itzuli ze puntualki, konfesatu ze, absolbitu zue, ta penitenziatan sartu ze errelijione batean non biziturik irur urtes publikazen Jangoikoaren piedadeak, ilze utzirik seña andiak bere salbazioarenak. Biz mila ta mila aldis bedeikatua Jesu Kristo gure Jauna eman baitigu alako erremedioa konfesioan. O zenbat aldis gindeuden ia kondenaturik sekulakos ezipagindu konfesioa! Zein ertxirik legoken guretako zeruko ataria, ezipaligu utzi gilza angua sazerdoteen eskuetan! Tibi dabo claves regni coelorum. O Jesu Kristoren odol prezioso, ain liberalki aplikazen zaiguna sakramentu gontan! Balia gaitzen, fielak, ta alzina gaizen erdextera barkamentua emen konfesatus geuren kulpak, praeoccupemus faciem eius in confessione, ta berladanik konfesatu orduko prebeni gaitzen fede, esperanza ta karidadearen aktaeki. Nik sinestazen dut etc.

Serm. 60.

De necessitate et facilitate confessionis.

An. 1780

Ite, ostendite vos sacerdotibus. Luc. 17.

1. Atra zizaizkio aldi bates bidera Jesu Kristori amar leproso eskazera garbitzekien lepra gartaik. Jaun dibinoak erran ziote: Zoaste, agerzaiste sazerdoteei. Bazoezi ta joaterakoan aurkitu zire guziak garbiturik. Da orai nere erreparoa: Zierito delaik zezazkela garbitu instantean, zerengatik bialzentu sazerdoteengana? Ote da zeren ala baizego manaturik lege zarrean? Badaike, baña lege zarreko zeremonia gura ta Kristoren portazemodu gau dire figura ta errepresentazio gero manatu zuen konfesioarenak. Leprosoek signifikaizeunte bekataria; manazea agertzeko sazerdoteei, da signifikaizeko konfesioain nezesidade prezisoa; garbitze gura joaterakoan, da mostrazeko konfesioain aisura edo fazilidadea. Goazen ikusis ebek egun.

2. Baliz, dio Trentoko konzilio sanduak, baliz kristioetan alako agradezimentua Jangoikoagana, ezi goardalezaketen beti firme grazia bataioan errezibitua beraren mertxedes, etze nezesidaderik fundazeko berze sakramentu bat bataioas landara; baña nola baizekie Jaun andiak gure frajilidadea, utzi zue bizitzako erremedioa, au da, konfesioaren sakramentua erori direnendako bekatuan bataiatuas geros. (Cap. 1. de poenit.). Estaikelaik, bada, bi aldis nior bataiatu, Kristok nai izan zue, dio konzilio berak, (C. 2) mantxatu direnak bekaturen bateki presenta daizen kulpante bekala konfesioko tribunale gontan, librazekos intusten bekatuetaik sazerdoteen sentenziaren medios; ez bein solamente, baizik zenbat aldis doazin urrikimentu sinareki. Da, bada, --akabazen du kapituloa konzilioak gisaontan-- da, bada, konfesioaren sakramentu gau bataiatuas geros erori direnendako preziso salbazekos, oroat nola bataioa bera bataiatu estirenendako. Ezpauzu, bada, egin bekatuik beñere, fiela, etzaitela konfesa, estuzu konfesio bearrik; ala sinestazen dugu Maria Santisimas etzuela egin beñere bekatuik batere, ta por konsigiente, etzela ere konfesatu sekula, ezpaizue zertas. Baña non da berze alako bat? Gañarako guziei, bekatu in dugunei erraten digu Jesu Kristok: Ite, zoaste, ostendite vos sacerdotibus, agerzaiste sazerdoteei, konfesazaiste. Obligazio gonon pean daude erregeak, obispoak, aita sanduak ta guziak, ta ez dezake niork dispensatu, zerengatik baita lege bat, ez elizak, ez gizonek, baizik Jangoikoak paratua. Zoaste errepasatus jendamendes jendamende memorias lengo denborak Kristos gerostik, guzietan ikuskouzie praktikaturik obligazio gau, ta nioiz ta nion ez dispensaturik. Esta zer progatu egia gau, ezi fedeskoa da.

3. Solamente, bada, gelditzen da ia erori garen nioiz bekaturen batean. Baña ai ta zein goizik asiginan ikasten geuren perdizioa! Ez ongi ellegatugina arrazioaren usora, ta ia bazire peligroak, bazire tentazioak, ta guk indar guti espirituan; erorigina ta erorzen gara beti zertan edo zertan. Ala nola, bada, asten delaik nabegatzen bat itsasoan, mogizen bada tenpestadea, nastekatzen urak, onzia banboleazen goiti beiti, alakoates bete zen baita ures, alako bates ematen baitu peña baten kontra, auxten, urrazen, ondazen baita, ia nabegante pobrea kongojaturik eriotzeareki agoan, ia ondazen, ia agerzen dela, indar besoes, ta ezin balia, etsiturik ia ta erdi ilik, aurkizen badu ol bat, eutxizen da artaik tieso, ta naiz nekaturik, kontent noizbait atrazen da artan leorrera. Ala gu nabegante mundu gontakoek erori bagara bekatu mortalain abismoan, galdu dugu grazia, galdu dugu arima, galdu dugu

gloria Jangoikoa ta guzia; ia estugu berze errekursorik baizik konfesio on baten ola, eutxi gaizen ontaik salbazekos, naiz zerbait kosta. Orgatik, propioiki aita sanduek deizeunte konfesioa bigarren ola naufragioain ondoreko: Secundam post naufragium tabulam. Jauna, dezakegulaik barkatu Jangoikoak edozein gisas, zerengatik nai izan zue kostazekigun konfesazea? Nik estakit ori, solo dakit ala disponitu duela bere Majestadeak, ta ori aski da. Ite, dio, et ostendite vos sacerdotibus. Zoaste, agerzaiste sazerdoteei. Nai izatea guk berze gisas, da Jangoikoak baño ia manatu naia. Gauza latza baita, Jauna. Latza da? Latzago da egotea sekulakos infernuan. Latza da? Bada, estugu ikusten barkazentietela berzeai zorrak gizonek solamente erranagatik zor duela. Latza da? Bada, estu lurreko justiziak ala usten presoa solo konfesazeagatik bere delittoa. Baña biz zerbait latza, zerbait bear da infernuaren truk. Ta orai noaie progazera estela anitz latza konfesioa, naiz iduri badu ere estakienai.

4. Zer den ez ezaunzea gauzak! Librazeko eritasun, trabaju ta eriotze gorputzarenetik, edozein dilijenzia iduri leike aisa; ta konfesatus bat librabalei aietaik, gogotik konfesa leike, ta orai librazeko arimaren eritasun ta eriotzetik delaik konfesioa, iduri bearliguke gauza latza? Naaman Siriako erregeren kapitan jenerala, beterik lepras etorri ze Eliseogana aurkitzera erremedio. Eliseok bialdu zio erratera, zoeiela Jordango ugaldera ta garbitzeiela an zazpi aldis. Enfadaturik kapitana errespuesta goneki, ustezulaik ezi etorririk Eliseo berak inen ziola zerbait dilijenzia kurazeko, nola ezpaizio baizik gastigatu joateko ugaldera, sumindurik profetain kontra itzulzen ze bere etxera deus in gabe. Orduan bere nirabeek erran ziote: Jauna, manatu batzio ere gauza bat andia, in bear zue librazegatik lepra molesto gortaik; zenbat obeki orai, estiolaik manatu baizik xautzea ugaldean? proga bez, Jauna, ia ke ta onaraño etor den. Itzuli ze kapitana, ta joanik Jordanera xautu ze zazpi aldis, erran bekala; ta gelditu ze guzis garbi ta libre lepra gartaik. Bekatua da lepra bat mortala. Diot orai nik, manatu bazigu Jangoikoak gauza latzagoko bat ere, in bear gindue librazegatik artaik; zenbat obeki, estigulaik baizik manazen konfesazea bekatua sazerdote bati sekretoan?

5. Kontu inzagun ezi lo dagolaik bat sarzen zaiola agotik serpiente bat tripara, ezaunzen duela zer daukan bere barnean, baña estakiela zer egin librazeko, beldurrak ozka bates kausa dezon eriotzea. Konsultazen du doktore bateki ta onek manazen dio ezi paraturik dilindaka oñetaik, dagola idikirik agoa esnes beterikako pitxera baten gañean, orduan esneain urrinera atrazen da bere kabo serpientea agotik pitxera gartara utzirik libre gizonoi. Ote legoke kontent? Exponi ote leike egitera berriz ere dilijenzia bera librazegatik berriz, berriz iretsi balez berze serpiente bat? Esta dudarik. Balia bez, bada, arrazioak ta fedeak. Da bekatua serpiente bat bekala kausazen diona arimari eriotze espirituala orai, ta gero eternoa; manazen dio bekatariak Jangoikoak agotik atra bear dela serpientegoi, erranes bere bekatua konfesioko sakramentuan, zein baita guretako esnesko baño bat bekala; ta izain du alaere errepugnantzia ortako bekatari miserableak? errain du kostoso dela? Iago kostatu zizaio Jesu Kristori parazea erremedioa, arrendako izan ze odolesko itsaso bat guretako esneskoa itzuli dena. Ezaunduko du bekatariak galzen delaik ta dramatelaik infernura deabruek, ta oius konfesazen ta madarikazen duelaik bere bekatua erremediorik gabe; zenbat obetzen emen konfesazea bati?

6. Esta ain benigno portazen lurreko justizia. Arrapatzen badu bat solamente sospetxas dela erregeren kontra, darama publikoki loturik kalabozo batera, an usten da desdixatua anitz ilabetes bakarrik ta konsolurik gabe egin arteo proguak. Examinazeunte ta bearbada maliziareki, ta peligro da arrapa dezaten itzen batean; ta konfesazen badu edo

probazen bazaio delitoa, estu zer esperatu baizik eriotze infame ta doloreskoa. Zein diferente den Jangoikoaren tribunale gontan? Jangoikoaren kontrario progaturik bekataria, nola solamente konfesa dezan humilki bere kulpazazerdote bati, libre usten da. Eta latz dirudi alaere konfesazea? Galdein nai diziet: Baldin urkabera daramatelaik bat alguazilen ertean, atrabanekio ni eskin batean juezaren mezu, ta erranbanezo: Gizona, nauzu libratu? Nauzu uz dezazuten bizia? Bada, tori, orai berla libre izain zara, baña kondizio bateki. O Jauna, errespondatuko zida, dena dela admitizen dut gustoso edozein kondizio. Bada, esta baizik au, ezi emen niri edo berze bati sekretoan konfesa dezazun zeure kulpaz. Ori baizik ez? errain zida: Sekretoan ez ezi, oius ere publikoki errain dut emen guzien alzinean. Orai bada, fiellak, etorri bear duenak onen ta gaistoen juzgazera, Jesu Kristok eman du itza ta fakultadea, ezi sazerdote konfesoreai errateareki bekatuak bear bekala izan daizela barkatuak; ta sazerdote garrek barkatutako ematen duena emen, barkatutako pasatuko dela zeruan. Quodcumque solveris super terram, erit solutum et in coelis. Esta konbenienzia ona bekatoriendako? Zerbait trabajurik gabe estaike, ta ezkinduke ere nai izan bear gabe, ia ke ta ofenditu ginduen majestade bat ain andia.

7. Guzien gain pensa bedi mereji ginduen pena eternoa, zer gauza iduri daike latz arren aldean? progatu bazindue, ta gero andik atra, deus etzizaizu idurituko konfesioain trabajua; asperiora vidi errain zindue, latzago dire ikusituten penak. Zer ez lukete inen atrazeagatik, estiot infernukoek, baizik purgatoriokoek ere? konfesa ote leizke gogotik? Bai, ziertoki; oroat da, bada, edo ia da merejitu izana ta ez eroria, nola erori ondoan atrea ofrezizeko bat egitera konfesioain trabajua. Solamente erratea bekatuak bekatar den bati ni bekala ta bear duenari beretako ere barkazio nik bekala, zer latz da? Konfesatu bear bagindu aingiru bati, lotsa gindezazke arren purezak, ta santidadeak; baña gizon bati geurok bekala, au zer milagro da? Zerengatik uste duzie eman zitiola konfesioain gilzak, au da, zeruetako gilzak San Pedrori espresoki, delarik zierto, oroat, eman zitiotela berze apostolu ta sazerdoteeri? Da zerengatik Pedro erori baize bekatuan, ukatzean, diot, Jesu Kristos, izan zedien benigno aizerakoan berzerenak, dio San Agustinek. (Ap. Parr. pl.2.). Utzi zuke potestade gau baten baitan Jesu Kristok, b.g. Erromako pontifizea baitan, desuerte ezi preziso lizaken joatea Erromara erdextekos absoluzioa, ezpailizake anitz au ere benefizio erdexten ginduenaren aldean; baña orai leku guzietara barratutu Jesu Kristok bere ministroak, ta libre utzi digu nor nai dugun autatu. Bein solo berrogei urtetaik berrogeitara, edo ogeita borztaik ogeita borztara jubileoa bekala, utzi bazigu konfesioain benefizioa, mertzede andia lizake; nolakoa da orai, dugulaik nai dugun guzian? En fin solamente baliz bekaturen batendako edo berze, lizake estimazeko orañik, zenbat ia, delarik guziendako? Zerengatik solamente ez konfesatu naia, ez urrikitu naia sekula da barkatuestaikena; gañarakoendako guziendako da barkazio konfesioan.

8. Bego asentaturik, bada, estela ain latz konfesioa, delarik ain prezisoa. Ain prezisoa, diot, ezi solamente exkusa gaizke, ezkaizkelaik konfesa, egines orduan kontrizioa konfesazeko intenzioareki. Onen progutan egintu milagroak ere Jangoikoak. Santo Domingoren bizian kontazen da, ezi pasazerakoan karrikan butzu baten ondoan aitu zuela oiuegiten butzu barnetik: Konfesio, konfesio. Detenitu ze, urbil duze butzuain agora, galdegin zue nor zen. Ze persona bat il ta arara botatu zutena, ta arima buruan konserbatu zizaiona Ama Birjinaren interzesios konfesazeko. Manatu zio igan zeila butzu gañera, ta gauza pasmosoa! Paraturik buru gura butzuain pokalean konfesatu ze, ta absolbiturik bolatu ze arima zerura. Modu gontara berze bat kontazen du Bonifaziok. Eman omen ze batalla bat turkoen kontra Ungrian, ta gelditu zire kanpoan anitz gorputz

ilen montioak; ta bi urteen buruan pasazerakoan andik bidesko batzuek, aitu omen zute ezur gaien ertetik boza bat ziona: Jesus Maria, Jesus Maria. Detenitu zire, ta urbildurik, ikusi zute zela buru bat berex zerdukana. Arriturik zeudelaik, aitu zute ziola nola izanik kristio ta Maria Santisimaren deboto, il zuten batalla gartan; ta Maria Santisimak erdetxi ziola konserba zekion arima buruan etzeien kondena; ekar zezatela konfesore bat. Ekarri zute, konfesatu ta absolbiturik gelditu ze buru gura, ain mutu nola ila. (Parr. ib). O! Jangoikoari graziak! Ta zein sinki deseazen duen gure salbazioa! desea zagun guk ere ta balia gaizen medio utzidigunas. Ta orai fede, esperanza ta etc, etc.

Serm. 61.

De effectibus confessionis.

ann. 1780

Si confiteamur peccata nostra,
fidelis est et justus, ut remissat nobis peccata nostra,
et emundet nos ab omni iniquitate. Joan. 1. c.1.

1. Explikaturik ia konfesioaren benefizioa, nezesidadea ta fazilidadea, orai ezplikazkigun arren efektoak edo fruituak. Guziak pintazeko erretrato batean, estaike pensa pintura obeagorik nola Jesu Kristok kontatu zigun parabola San Lukasen 15 kapituloan. Gizon batek izan zitue bi seme, ta aietarik gasteenak erran zio Aitari: Aita, bida niri tokazen zaidan dote porzionea. Partitu zioten biei bere hazienda, ta andik egun guti, arturik berea, joan ze seme gasteena urrutu berze leku batera; ta an destruitu zue ondasun guzia bizitus luxuriosoki. Ta guzia akabatu ondoan gertaturik leku gartan gose bat fuertea, ura ere asi ze progazen nezesidadea. Joan ze, bada, ta ajustatu ze ango bateki zerbitzuan, ta onek bial duzue bere hazienda beltzen goardatzera; ta tristea ain gose ze, ezi deseazen baizue betetzea tripa txerriek jatenzusten farraskes, ta niork etzio ematen. Itzulirik ia berebaitan erran zue: Ai! Zenbat nirabeek dute abasto ogia nere aitaren etxean, ta ni emen il zen goseak! jaikiko naiz ta joain naiz nere aitagana, ta errain diot: Aita, bekatu egin dut zeruain ta orren kontra. Ia ez naiz digno dei nazaten berorren seme. Admiti benaza bere nirabeetaik bat bekala. Intenzio goneki jaiki ta joan ze bere aita gana, ta oraño urruti zoeielaik, ikusi zue bere Aitak, ta lastimaturik bere biotzean, atra zizaio bidera prisaka ta besarkatu zue kariñoso. Erran zio Semeak: Aita, bekatu egin dut zeruain ta orren kontra, ia ez naiz digno dei nazaten berorren seme. Berla aitak manatu zioten mutilei, zekartela lenbiziko bestidura, ta besti zezatela, ta erastun bat eskuko ta zapetak oñetako; ta ontas landara zekartela aretxe bat gizendua, ta il zezatela, zelebrazeke konbite bateki bere semeain ongietorria. Zerengatik nere seme gau, zio, ilze ta biztu da, galdu ze ta aurkitu da. Ta asi zire zelebrazen. Parabola gau erran zue Kristok okasio batean, noiz ta murmurazen baizute fariseoek, zeren admitizen zituen bekatariak bere gana. Ta erran zue adiarasteko zuen desoea konberti daizen, ta añaditu zue: Gisaontan izain da alegria zeruan, Jangoikoaren aingiruen presenzian konbertitzeas bekatari bat Jangoikoagana.

2. Bekataria da seme prodigo gau bere inklinazio gaistos apartazen dena bere Aita Jangoikoagandik; malograzen du arren hazienda, au da, Jangoikoak emanikako libertadea, potenziak, sentidoak, indarrak ta graziak; ta erorzen da ainberzeke miserian, ezi parazen da deabruaren zerbitzuan bete naitas bere gogoa txerrien farraskes, au da, bizioen fruitu likitses; ta itzulzen delaik berebaitan pensatus nola dagon ta nola zegoken, jaikizen da ta doaie Aita dibinoagana konfesatus bere kulpak humil ta nigarti; alzinazen da errezibitzera bere Aita besoak zabaldurik, besarkazen du, barkazen dio, erastuna ta lenbiziko estola parazen dio, ta en fin, zelebrazen du bere hume galduaren konbertitzea oroat nola il ta biztu barin baliz. Orra ia ikusirik plantan konfesio on baten efektoak; baña ikuskigun berex.

3. Beñik bein konfesio onak palakazen ta beraxten du Jangoikoa, asarratua zegona. Bekatua in zen instantetik ia erori zina Jangoikoaren aborrezimentuan, kondenatu zinduz ordutik ia infernura, ta milagro bat da ez botatzea. Oroat da gero ikustea zu humilki

konfesazen zeure kulpak, nola beraxtea berain biotza, aldatzea sentenzia, ta ustea eskutik zure kontra zeuzkien armak. Testigo ninibetarrak. Bial duzuen Jangoikoak Jonas profeta ziudade andi gartara predikazera nola berrogei egunen buruan destruitu bear zen ziudadea. Predikatu zue, ta guziok humillaturik erregegandik pobreeneraño, asi zire penitentzia egiten konfesatus beren kulpak; ta Jangoikoak, palakaturik, etziote kunplitu meatxua. O konfesioa! O penitentzia! Zu zara miseriordiaren ama, birtuteen maestra, dio San Juan Krisostomok. O nigar ditzosoa konfesioan iten dena! Zurea da podorioa, zurea erreinua, dio San Agustinek. Zuk solamente estuzu beldurrik juezaren presenzias, zuk ixilarastentuzu enemigo akusazaleak. Zuk garaizen duzu garaituestaikena, zuk lotzentiozu omnipotenteari eskuak. (Parr. pl.1. de penitencia). Ala nola juez bati firmaturik daukanari eriotzearen sentenzia baten kontra, onen fabore minzabalezo abogatuak ain ederki, ezi gustoain utses zoraturik juezai erorilekion eskuetaik sentenzia; ala konfesioas ain kuadrizen zaio Jangoikoari, ezi atzenarastentio gure bekatuak, errateko ala: Omnium iniquitatum eius non recordabor; ta lentxago etsai zena gure kontra, ia gero adiskide itzulzen zaigu konfesioain birtutes; au da musika egiten duena armonia bat ain dulzea Jangoikoaren adimentuan, ezi doakio instante ira zuen guzia. Orgatik zio Dabidek: Confitemini Domino in citharâ, konfesazaiste Jangoikoari zitaran, et in psalterio decem cordarum psallite illi, ta kanta zozie amar kuerdetako psalterioan, au da, konfesatus amar mandatuetaik bekatuak.

4. Konfesioak garbitzen du bekatuetaik arima. Dago figuraturik konfesioa Jerusalemgo pizina gartan, zeiniek baizitue borz portale; ta jausten ze aingiru bat Jangoikoaren mezus, ta nastekazen zue ura; ta zein lenik jausten zen ur artara mogitu ondoan, geldizen ze libre edozein eritasun zuenetik. Borz portale edo zirkunstanzia ditu konfesioak ere: Examina, dolorea, propositoa, konfesazea ta satisfakzioa. Konfesioaren ur admirable gau mogizen ere du aingiruak, alakoa da sazerdotea ofizioan, angelus Domini exercituum est; ta edozein datorren garbizen da, barin badator ongi disponiturik. Diferenzia da ezi an bat solamente ta bein urtean sendazen ze; emen guziak ta noiznai. Borratutut lañuak bekala zure bekatuak, dio Isaiasen agos Jangoikoak (C.44). Borratzea ongi eldu da, baña lañuak bekala? Bai, ta da arrazioa, ezi borrazen delaik paperean tintas uts zenbait, gelditzen da zenbait borron; baña iruzkiak kenzentuelaik zeruan lañuak, ala borrazen dire ezi esta gelditzen errestorik ere. Ontara zio Dabidek: Lavabis me et super nivem dealbabor, jautuko nau, Jauna, orrek, ta geldituko naiz elurra baño txuriago. Zer lizaken ikusialbagindezki arimak, nola doaien bat ikatza bezain belz, ta nola itzulzen den elurra baño txuriago konfesiotik Jesu Kristoren odolaren birtutes? mostratu du Jangoikoak zenbait aldis begietara ere. Ain beterik kontrizios ellegatu ze bat konfesazera, dio Zesariok, ezi doloreain utses etzuzke erran bekatuak mias; artu ze probidenzia, zekarzkien eskribiturik papel batean, ta leiturik konfesioan guziak, erranik akusa zenzela guzietas, absolbitu zue, ta itzulzerakoan papela aurkitu ze letarik gabe txuri guzia, etc.

5. Konfesioak erresuzitazen du arima. Edozeñek daki bekatu mortalain kasos ilik geldizen dela arima Jangoikoaren begietan faltaturik graziaren bizitza, ta orgatik deizen dela bekatu mortala, zerengatik ilzen baitu iten duenaren arima; ta sentido gontan erran zue aita garrek bere seme prodigoas: Perierat et revixit, ilze ta erresuzitatu da. Il geben erresuzitazeko da konfesioa. Il zute ladronek gizon bat, dio eskrituran, ta okultazeagatik botatu zute arren gorputza Eliseoen obian; ta oroat izan ze ukizea sandu garren errelikiak, nola biztea gizon ila. Eliseoen sepultura bekala da konfesonarioa arimendako: Doaz arara ilak, ta itzulzen dire biziak Jesu Kristoren odolaren birtutez sakramentu gartan enzerraturik

dagonas. Irur il leizen da ebanjelioan biztu zituela Jesu Kristok: Bata prinzipa baten alaba, mortajaturik zegolaik koartoa (sic), arturik eskutik jaikiarazi zue erraten ziola: Jaikizaite neskata; berzea Naingo alargun garren seme bakarra, zeramataleak atautean, geldiarazirik ermanzaleak ta arturik besotik ila, itzuli zio bizirik bere Amari. Irugarrena Lazaro, laur egunes orzirik egona ta urrinzen asirik, atrarazi zue oiu bateki bizturik obiatik. Il gebek signifikaizentute bekatai diferenteak: Mortajatu garrek signifikaizendu bekatuan eroriberria, atautean zeramatenak egon dena ia denboras bekatuan, ta Lazaro urrintzen asiak bekatai kostunbreskoak ta errematatuak, erraten den bekala. Ta guziendako da erremedio konfesioan, an irur itzes biztendu konfesoreak Kristo beraren birtutes. Orgatik erran zue Jangoikoak: Estut nai bekataiain eriotzea, baizik konberti daien ta bizi daien, nolo mortem peccatoris etc.

6. Konfesioak itzulzentio arimai grazia ta birtuteen adornuak; ebek dire aita garrek semeari pararazi zizkion erastun ta galak. O Jangoikoaren piedade inkomparablea! Bera izanik ofenditua, bera Juez sentenziatu bear duena, ta daukalaik progaturik kulpante bekatai indignoa, bota dezakelaik instantean suletze eternora; solamente ikustas humildurik bekataria konfesazen bere kulp, berla admitizen du bere grazian, ematentio birtute ta obra on lengoen fruitu galdu zituenak; ta errateko geiago, aun aumentazen dio fineza. Ortas kezazen ze prodigo garren anaia, beti etxean aitareki egon zena, zeren etzion berari egin alako demostraziorik, nola seme galdugarri etor zeneko etxera. Erran bear dugu Isaiaseki, ezi delarik bat Jangoikoa, dela anitz bekala barkazeko kontuan, multus est ad ignoscendum. (Erroman ze kostunbre, aurkizen baze bekatu desonestoan donzella bestal gaietaik bat, orzitzea bizirik bera, ta berareki bere gala ta joia guziak. Orai, emen arima progaturik ere adultera Jangoikoaren agrabiotan, itzulzen bada konfesioaren medios, itzulzen zaio lengo grazia, ta adornu espiritualak, ta aumentureki). Ofrezitu zue Oktabiano enperadoreak pregon publikoareki emain ziola amar milla eskutu nork ekarzen zion ladron famoso bat deizen zena Kokrota. Ikusten ze au saldurik bere bizia, guzien beldurrak; ta zer egin zue? joaten da bera enperadoreagana, urtikizen da arren oñetan ta erraten dio: Jauna, emen presentazen diot Kokrota ladron gura, ni naiz. Konpadeziturik enperadoreak ez solamente barkatu zio bizia, baizik eman ere zizkio amar milla eskutuak, ta gelditu ze libre ta abrats, ta enperadoreain grazian. Konfesio ona inzue, esta gutiago baliosoa gurea. Galdurik bizia gindeude, bekatu mortalea inikako instantetik, galdurik obra on, baru, limosna, meza, orazio ta ondasun espirituale lengo guzien merejimentuak; sentenziaturik, alaber, sekulako infernura, niora ezin eskapa. Zer in bear da? Presentatu geurok Jangoikoaren oñetan ta konfesatu geuren kulp, ta orreki guzia itzulzen digu Jangoikoak, ta zeruko gloriara deretxoa.

7. Konfesioak erxten digu infernua ta idikizen digu zerua. Ia zindeude infernuain agoan, ia prebeniturik zindeuka lekua an, ia esperan zeude tirrikaturik ango ministroak; zer izan da? Konfesatuzareneko guzia aldatu da; zaude ia zeruain antesalan, deretxoreki izateko admititua; ia infernukoek ez, baizik zeruko ministroek dute kargua zure ermateko beren eskuetan, in manibus portabunt te. Kruzifikatuzuste bi ladron Kristoreki bateo bi aldetaik, ta bata konfesatu zue ala: Guk zierto da padezizen dugula mereji duguna; baña Jaunonek zer egin du? oroi bedi, Jauna, nitas, doaielaik bere erreñura. Erran zio Jesu Kristok: Sines sines diot ezi egun izain zara nereki paraisoan. O ladron ditxosoa, zein diestroki arrobazen duen zerua! Orduartaño ladronkerian, orduan gurutzean, ta berla paraisoan? Vide quanta res est confessio. Ikusazu, dio San Agustinek, zein gauza andia den konfesioa! konfesatu zeneko ladrona, idiki zue paraisoa. Jesu Kristoren ta arren

eskuan zeude gilzak, arrek manejatu zue berea ongi konfesatus, Kristok berea absolbitus, ta ala idiki zizaio paraisoa. Gilza gebek eman zizaizkio San Pedrori: Tibi dabo claves; ta komunikazen zaizkio sazerdoteari; baktxak, alaber du bere borondatearen gilza; konfesa bedi ongi, biz absolbitua, ta idikirik dauka zerua.

8. Konfesioak, en fin, konfundizen du demonioa, ta sosegazen du gure konzienzia. Akusazen dena konfesioan, estu zer akusatu demonioak juizio egunean. Fiskale gaisto gonek daramazki apuntatus gure gaistakeriak gure galzeko; baña konfesa gaizen, ezi naiestuela bortxa borrazen dire, ta aurkizen da konfunditurik ta utsik eskuak, uste zuelaik gananzia andia; ta orgatik Erromako emasteki konfesatu zen garri erran zio gaistofikatuak: Madarikatua erakutsidinena ni garaizeko artifiziogoi. Bada zer diot konzienziain sosegu lograzen denas zenbait aldis? Etze atzendu Konzilio Tridentinoa, ziolaik ezi grazias landara zenbait aldis gertazen dela debozioreki konfesazen direnetan konzienziaren bake ta serenidadea espirituaren konsolu andi bateki. (C.3. de paenit.). Testigo ere da experientzia. Dago bekatuan dagonain arima itsaso nastekatu baten ariora turbulento, inkieto; konfesa bedi, ta ia da, oroat nola agerzen delaik zeruan iruzkia, desegin ondoan tenpestadea. Alde guzietatik dago beterik fruitus konfesioa. Turbazios beterik bizi ze Adelaide etxakines zer egin garaizeko demonioa; akonsejatu zioten in zezan konfesio jenerale bat. Bazoeie disponiturik ortako, ta atrarik bidera gaistoak erran zio: Nora zoaz Adelaide? Noaie ire ta nere konfundizera, errespondatu zio. Ala izan ze, konfesaturik ongi, logratuzue barkamentua, grazia, bizitza espirituala, birtuteak, erxtea infernua, idikizea zerua, konfundizea demonioa, bere konzienziaren sosegua ta Jangoikoaren piedadea. Balia gaizen erremedio dibino gontas bear bekala, ezi San Juanek dion gisa, konfesazen baitugu gure bekatuak, fiela da ta justoa Jangoikoa barkazeko, etc.

Serm. 62.

De ministro, formâ etc. confessione.

ann. 1780

Accipite Spiritum Sanctum:

Quorum remisseritis peccata, remittuntur eis,
et quorum retinueritis, retenta sunt. Joann. 20.

1. Bi tribunale plantatu ditu Jangoikoak bekatariendako: Bata miseriakordien tribunalea mundu gontan bizi gara delaik, baita konfesioa; berzea justiziaren tribunalea ilondoreko, baita juizio dibinoa. Esta personarik mundura etorri denik, ezpaitu bear presentatu juizio gartan il orduko, ematera kontu bizitu denas, omnes nos manifestari oportet ante tribunal Domini nostri Jesu Christi. Jakinik, bada, gure Jangoikoak, inenginduzala gaistakeriak ta bekatuak zeñen kasos ezpaikaizke sartu zeruan, zeren justizia in bear baitu eman bakotxai mereji duena, estuelaik nai alde bat utzi galzera bere gizonak, ta estuelaik nai berze alde faltatu justiziari, plantatu du mundu ontan berze tribunale gau, alzina gaizengatik bilazera emen an izainestugun miseriakordia. Ortako utzi zue bere itz errearen seguridadea, ezi emen barkazen den guzia an izain dela barkatua, ala nola emen estena barkazen, ezpaita an ere barkatuko sekula. Zein ongi erran duten, bada, konfesioaren tribunalea dela miseriakordien tribunalea, zerengatik emen ere in bear delaik bere justizia-modua, benzait seguroki erdetxi daike miseriakordia, berze munduan estaikena; ta orgatik, naiestuelaik aurki zer kondenatu bere tribunale gartan, utzi digu konfesioaren gau zeintan libra gaizen oraiko ta geroko. Ikuskigun ia onen zirkunstanziak.

2. Munduko erregek ta gobernariak ikasirik Jangoikoagandik gobernazeko modua, plantatutuste lekutan an emenka beren tribunaleak, ia graziaren, ia justiziaren egiteko, ta ortako dauzki guzietan bere ministroak eta juezak. Ario gontara Kristo gure Jaunak utzi zuelaik konfesioa bekatariendako, señalatu zitue bere ministroak ta juezak; ebek dire sazerdoteak: Lenik San Pedro, gero apostolu guziak, gero obispo ta sazerdote aien eskus ordenatuak. Eman ziotte ofizio ta potestade gau, erresuzitatu ta zorzigarren egunean aparexiturik zenakulo gartan erran ziotelaik, bere ats dibinoa komunikatzeareki bateo: Accipite Spiritum Sanctum. Errezibi zazie Espiritu Sandua: Quorum remisseritis peccata, remittuntur eis, et quorum retinueritis retenta sunt. Noren bekatuak barkazen tuzien zuek, barka zenzaizkiote, ta norenak estuzien barkazen, geldizen zaizkiote barkatu gabe. Eta berriz: Quaecumque ligaveritis super terram erunt ligata et in coelo, et quaecumque solveritis super terram erunt soluta et in coelo. Zuek lotzentuzien guziak mundu gontan, loturik egoin dire berzean ere, ta lazazen tuzien guziak emen, lazaturik egoin dire an ere. Zer erran daike klaroago? Ofizio ta potestade berau komunikazen diote obispo Jaunak sazerdote ordenazentueni itzaieki bereki. Geldizen da bada, klaro, ezi sazerdotea dela konfesioaren ministro Jesu Kristoren partetik. Bi gauza beartu prezisoak, administratzekos baliosoki konfesioa: Bata da ongi ordenaturik egotea, berzea superiorearen fakultadea. Ordenatu zelaik eman zizaio bekatuen barkazeko potestadea, baña au ez dezake usatu, ezpadu berze alde jurisdikzione edo fakultade erran duguna. Solamente eriozeko orduan edozein sazerdoteek dezake absolbi edozein kristio ongi disponiturik dagona. Ontas landara usatu da denbora guzietan Eliza Sanduan ertxizea edo laburzea aita sanduak, obispoek ta superioreek konfesore komunei fakultadea zenbait bekatu espezialeen

absolbizeko; ta au deizen da erreserbazea, ta alako bekatuak deizen dire bekatu erreserbatuak, zeintak ezpaitezake absolbi konfessore ordinarioak, ezpadu erdexten fakultade berex aien absolbizeko, edo ezpadu penitenteak zerbait pribilejio absolbizeko aietak, edo bularen kasos, edo berze gisas. Zein diren bekatu erreserbatu goiek, esta fazil, ta ez nezesario ere erratea guziak; anitz erreserbatu ditu beretako Aita Sanduak, anitz inkisizioak, ta anitz obispoek, ta obispado gontan benzait dire ogei ta ameka. Solamente adbertitu bear da ezi alako bekatuak izaten direla andienetak, ta ez ordinarioetak; adbertitu ere bear da bula kruzadakoa dugunen konsolutako ezi onen birtutes edozein konfessoreek gaizkela absolbi edozein bekatu obispoei erreserbatuetak noiznai, ta aita sanduai erreserbatuetak bein benzait bizian, ta berze bein eriozeko peligroan bula batengatik, ta bi bula arzen badire, bi aldis.

3. Irur ofizio itentu konfessoreak konfesioan: Da juez, da maestru, da mediku; juez bekala emateko sentenzia korrespondientea, maestru bekala erakusteko bear den guzia, ta mediku bekala sendazeko diestroki arimak. Exprikazea ortako beartuen prendak, prudenzia, jakinduria, birtutea ta gañarakoak, etzaida tokazen. Biz aski zuendako erratea, ezi ala nola bazindute pleitu bat inportazioskoa, edo arte bat prezisoki jakin bearra, edo eritasun bat peligrosoa, eskoji baizindezakete, al baizindezakeze juez, maestru ta medikurik obrena zirkunstanzia guzietan, ala arimaren pleitu gisaontan zeintan baitoakigu sekulako salbazioa edo kondenazioa, arte gontan, baita bere buruain sekulako ongi parazeko artea, ta eritasun espirituale kulpen gebetan, zeintan peligrazen baita sekulako ditxa edo desditxa, da justo, dugunaskeros libertade eskojizeko, eskojizea konfessore obren uste duguna, ta kuidado ta dilijenzia iagoreki manejaizen duena ofizio andi gau. (Ai dabilzanes bila konfessore ajola guti, jakinduria, prudenzia, birtute ta kaso guti dutenak! Zer iteunte? Itsuak bilazen du kidari itsua, ta biak erori infernuko lezean. Eriak bilazen du disimulazentiona zauriak, ta bera ez kuratu, ta biak galdu. Nai bauzu sines sendatu, bila zazu konzienzia onetakoa, ta erreparazen duen konfessorea naiz ertxi zaizala ongi, ezi obeda sendatu naiz min artu, ezi ez disimulatu ta eskuas pasatu llagak ta galdu. Al kabo konfessorea esta graziaren jabe, baizik administrazale, ta etzaigu baliazen absoluzio ematen diguna ezpada konforme Jangoikoaren sentenziareki. Ta baldin konfessore ajolagutiain kasos pasazen bazara konfesatu ta konfesatu, absolbitu ta absolbitu erremediatu gabe zure arimain gaizak, len gaizki, orai gaizki, beñere ez mejoriaik, ori da bizitzea engañaturik, ustes protxal diren absoluzio gaiek, direlaik kalte iagotako. Idikikotute begiak berze munduan alakoek ikusteko berak beren konfessoreareki inbolokaturik kondenazioan).

4. Baña zuen alde da berze zirkunstanzia izan bear duena konfessoreak, au da, sekreto perpetuo inbiolablea, deizen dena sijilo; au da, sello bat zeñeki erxten baita seguroki bekatu konfesatua juizioko eguneraño, desuerte ezi ez dezake erran, ez aipatu, estare monstratu niolako maneran konfesioteik kanpoan; esta berari ere, esta inporta balez ere mundu guziain erremediazea, esta atra bearbalute orgatik infernuko guziek ere, esta in balezate ere orgatik egun mila (sic) zati konfessorea. Desuerte ezi zure bekatua konfesaturik konfessoreari, ain seguro dago errebelazeko kontuan, nola konfesatu bazindio konfesonario soillari. Quod per confessionem scio, minus scio quam id quod nescio. Konfesioteik dakiten gauza gutiago dakit estakitena baño. Lotzen zaio mia errebelazeko konfessoreari alako maneran ezi lenago utzi bear du atrazera zañetak, lenago galdu bear du bizia ezi ez errebelatu konfesioa; ta il balezate orgatik, ain martir lizake, ta ain pagatua Jangoikoaren alzinean, nola fedeagatik il direnak, ikusten dugun bekala San Juan Nepomuzeno martir gloriosoa baitan.

5. Benzeslao Bohemiako erregek eskojitu zue bere predikaritako San Juan Nepomuzeno zelarik Pragako Kalonje, ta erreinak bere konfesoretako. Gaistaturik errege ezin soportatus bere esposa erreinaren erreprehensioak, sospetxaturik gaizki artas, bera gaisto zen bekala, asi ze porfiazan San Juan Nepomuzenoreki, deklaratu bearzizkiola zer bekatu konfesatu zizkion erreinak. Lenik loxentxus, gero meatxus tentazen zue konfessore sandua, zein mantenitu ze konstante silenzioan anitz denboras. Prosegizen zue erregek porfia endemoniatu gartan, baita sanduak ere bere porfia sanduan. Monstratu zio Jangoikoak sanduari espera zenzizaion eriotzea orgatik, ta sanduak joanik Ama Birjinaren imajina baten alzinera, eskatu zio balore ta grazia galzeko bizia motibo gorrengatik. Atrarik andik, ikusi zue etorzen erregek bere balkonetik; deitu zue, ta berriz ta berriz pofiatuzio bere pretensio gaistoan, ezperen, itoaraziko zuela an urbil pasazen zen Moldaba deizen den ugaldetan. Berladanik itoarazinazake, erran zio sanduak, zerengatik naiago dut galdu bizia ezi ez errebelatu konfesioa. Erran bekala botarazi zue ugaldeta gauas, ta antxe ito zute sanduaren gorputza, bolazen zelaik zerura arima. Baña erakusteko Jangoikoak kuadratu zizaiona martirain konstanzia, kuidatu zue arren gorputzas ere, zerengatik zoeielaik urain gaiñean agertu zire anitz tortxa ta argi honrazen zutela inguruan, de suerte ezi biramonean joanik Kalonjeek prozesioan, erregeren beldurrik gabe artu zute gorputz sandua, ta ermanik katedralera orzi zute solemnidade andiareki. Baña esta akabatu prodijioa. Iru egun ta ia urteen buruan joanik errekonozizera gorputza, aita sanduak igorrikako juezek aurkitu zute arren mia ain gorri, fresko ta flamante nola bizian, erakusten zuelaik ontan Jangoikoak kaso ta estimazio egiten duena konfesioas ta onen sekretoas. Ezkaizala bada engaña demonioak, ta geuren pasioneak. In barin badugu bekatu, nola in baitugu, eman bear badugu kontu aietas presentaturik Jangoikoaren tribunalean, egiteko gure baitan justizia, alzinu gaizen presentazera geurok emen Jangoikoak paraturikako konfesioaren tribunalean, erdexteko miseriordia. Praeoccupemus faciem eius in confesione. Ezi humilki ta fielki konfesazen baitugu emen geuren gaistakeriak, barkadakizkigun joan baño len goitiko tribunale gartara, zeintan barkatutako emain dire emen barkazen direnak; fiadore Jangoikoaren itz erreala. Berladanik nai dugu Jauna, konfesatu; bekatu in dugu, gaistoak gara, gaizki portatu gara orreki, Jauna; bagindezazke berorrek kondenatu justoki gu, nai balu; baña barkazio eske gaude, ezkaizala kondenatu, otoi; emen nai duen guzia padezi dezagun, admitituko dugu berorrek paraturikako penitenziak bekala gure bekatuen satisfakziotan. Emen pena nola nai duen, baña gero ez kondena. Eman emen, Jauna, bigu pazienza ta bigu padeziarazi nai diguna; esta izain ainberze nola infernuan, esta izain ainberze nola Jesu Kristok padezitu zuena. Onengatik ta bere ontasunagatik barkatu, Jauna, barkatu; ofrezizen dugu ez ia bekaturik egitea, ta orai inentugu gogotik fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinestazen dut etc, etc.

Serm 63.

De formâ, materia etc.

ann. 1781

Quodcumque solverit super terram, erit solutum et in coelis. Math. 16.

1. Zein tritea, ta zein estado tristean dagon persona gura, zein ere progaturik erregeren traidore baitaukate preso, loturik esku, oin, lepoa ta gerruntzea burriñasko katea fuerteeki, esperazen sentenzia, eramateko tormentu ta eriotzera. Ala dagolaik, ellegazen zaio bat erregek esku emanik, erratera ezi nai badu ezaundu kulpante bere burua kulpante, ta konfesatu duela kulp, soltatukodizkiola kate guziak, atrako duela kalabozotik, libratu tormentu ta eriotzetik, ta ermako duela erregeren palaziora gozazera erregeren konpañian ta maian delizia errealak. Kulpante naiz, erraten du presoak, izandu naiz erregeren traidore, andia da nere kulp, mereji dut edozein pena, ta solamente erregeren ontasunagatik esperazen ta eskazen dut grazias barkazio. Bai? Bada, libre zara, erraten dio erregeren mandatariak; ta bereala soltaturik kate guziak, zato nereki, erraten dio; ta erran ta egin, atrazen du kalabozotik ta beira daudelaik goardiak, arriturik guziak, guzien ertetik, niork estorbazen estiola, eramaten du erregeren palaziora; ta besarkazen duela erregek admitizen du bere humea bekala, bestizen du tresena erreales ta jarrarasten du bere humeen ertean gozazeko aien pribilejioak ta deliziak, lentxago traidore zena ta preso, ta tormentaturik ilzeko zegona. Non gertatu da ori, Jauna? gertatu da ta gertazen da espiritualki egunoro Eliza sanduan. Jangoikoaren traidorea da edozein egin duena bekatu mortale; preso dago katea fuertees, ta sentenziaturik infernuko tormentuetara ta sekulako eriotzera. Baña konfesatus bere kulp, Jangoikoaren mezus soltazen du irur itzes konfesoreak, ta iten du Jangoikoaren adiskide ta hume, zerurako dretxoareki, ezperen izan bear zuena infernuan presidario perpetuo, il zen beti akabatu gabe iles beñere.

2. Bego, bada, suponiturik bekatuak direla katea espiritualak daukatenak preso loturik eriotzearen kalabozoan arima tritea, etxideten solamente gorputzetik apartazea, exekutazeko artan sentenzia. Jangoikoaren mandataria da konfesorea, zeñi erran baizaio Jangoikoaren partetik: Quodcumque solveris super terram, erit solutum et in coelis. Zuk soltazen duzun guzia munduan, soltaturik izain da zeruan ere. Itz geben conforme da teologoe deizen dutena konfesioaren forma, baitire absoluzionearen itzak: Ego te absolvo â peccatis tuis etc. Zeñek signifkazen baitute au: Nik soltazen zaitut edo librazen zaitut zure bekatuetaik Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen, ala da. Eta esta itzebeki solamente deklarazen libre edo suelto dagola bekatuetaik, zerengatik au erratea kondenatu zue Trentoko Konzilioak errorea bekala (s. 14. c.6), baizik ere Jesu Kristoren Ministro bekala, ta bekatarien Juez Jesu Kristoren partes ematen du sentenzia ta obrazen du erraten duena baldin sines erraten badu, ta aurkizen bada konfesazen dena baitan bear den dolorea, propositoa ta gañarako dispozizioak. Eta esta inport konfesazendenaindako, dagon edo estagon konfesorea grazian, nola duen bear den potestadea ta zirkunstanziak, zerengatik konfesoreen bekatuek ez dezakete estorba absoluzionearen birtutea; ala nola izanik ere bekatari, bataiazen badu, bataiatu rik geldizen da ongi aurra; konsagrazen badu, oroat egiten da sakramentu aldarekoa; ta ala gañarakoak, zerengatik sakramentuek estute bere birtutea ta efikazia pendiente ministroaren ontasun edo gaistotasunetik, baizik Jesu Kristoren birtute ta itzetik, zein beti da igoal, nornaiek

administra dezan sakramentua. Ta orgatik, bataia nazan edo absolbi nazan edozeñek, orot da neretako, dela on dela gaisto, nola duen potestade ta zirkunstanzia bear direnak berze alde. Ta ala, absolbizen banau konfessore aprobatuak, ta potestade ta zirkunstanzia bear direneki, bera izanik ere bekatari ta gaisto, beretako iten du dañu usazean bere potestadea estado gaistoan; baña neretako esta ortaik dañurik, ta ain ziertoki barkazen zaizkida bekatuak arren absoluzioneareki, nola absolbibanindeza San Pedrok berak. Ta orgatik estu balio ia konfessore justo ta sanduak ematen duen absoluzioneak, nola bekatari ta gaistoak ematen duenak, suponiturik duela berze alde ordenaren ta jurisdizionearen potestadea igoalki, zerengatik konfessorearen itzen medios obrazen du Jangoikoak.

3. Franzian izan omen ze emasteki bat ain galdua bizio desonestoan, ezi ez solamente gizonkieki, baitare amanzebatu ze demonio berareki, zein baizetorkio figura humanoan. Zenbait urtes bizitu ze gisaontan, pensa nola, zuelaik alako konsortea! Aliketa Jangoikoaren ontasunak erremediatu naies ardi galdu gau, disponitu zuen arteo zoeien Fr. Oton, San Franziskoko errelijiosoa, predikazera Orleansen. Predikatu zue konfessioaren birtuteain gaiñean ain ferboroso, ezi aiturik emasteki garrek, biotza mogiturik esperazera zerbait, bilatuzue errelijiosoa; agertu zizkio bere arimaren llagak, galdeiten ziola ia bazen arrendako erremediorik. Bai por zierto, solamente konfesazeareki absoluzionearen medios barkatua izain zara, erran zio errelijiosoak. Orduan emastekia paraturik belauriko, negarresko itsaso bat eginik, konfesatu ze. Errezibitu zue absoluzionea, ta deskargaturik bekala pizu andi batetik joan ze txoil kontent etxera, non demonioak prokurazen zue inkietazea arroitus, oius ta meatxus, zeren utzi zuen; baña ia beti urrutitik, zerengatik estu demonioak indar ia gizonen kontra, baizik berek ematen diotena bekatueki. Ematen zio kontu pasazenzizaionas konfessoreari, ta onek konsolazen ta erakusten zue bear zuen guzian. Rabioso demonioa ikusteas garaiturik bere burua, erran zio azkenean emastekiari: Etxon etxon, orai etor zaizkion Fr. Otoni kartak, joateko emendik; gelditukoaiz bakarrik, ta nere podorioan; estun izain nork baliatu. Mezu goneki joan ze laisterka ematekia Fr. Otonengana triste, ta erran zio konfessoreak, Andrea, nik absolbitu dut, edo Jangoikoak? Bada, Jangoikoak absolbitu badu, ta ez Fr. Otonek, zer beldur du? Ni joanagatik, Jangoikoa geldizen da orreki, ta amaparatuko du utzi gabe, ezpadu berorrek usten. Izan bez konfianza arren baitan ta irri egin bez demonioaren meatxues. Itzulirik etxera erran zio aparezitu zizaion gaistoari: Esta Fr. Oton absolbitu nauena, baizik Jangoikoa; au egoin da nereki beti, ta libratukonaik iregandik. Errespondatu zio infernaleak: Madarikatua i ta erakutsidinena errespuestagoi; au erran ta desaparezitu ze, ez itzulzeko berriz. (Andrad. Itin.)

4. Konfessioaren materia bekala dire konfesazen denaren aktak, baitire dolorea, erratea kulpak ta satisfakzioa. Dei daizke ere konfessioaren materia bekatuak, ala nola suaren materia baitire egurrak, zein errezen ta konsumizen baititu suak; ario gontara zeren konfessioaren sakramentuak konsumizen edo desegiten baititu bekatuak, ebek dei daizke konfessioaren materia. (Cath. Rom. SS. 13. hic). Konfessioaren sujetoa deizeuntena teologoez da sujeto ta obligaturik dagona konfesazera. Onen gañean aizagun erreberenziareki Trentoko Konzilio sandua erraten ala: (Ses. 14. c.1.) Barin baliz kristio bataiatu guzietan ainberze agrediezimentu (sic) Jangoikoagana, ezi mantenilezaten konstante bataioan Jangoikoaren mertxedes errezibitu zuten grazia, orduan ezleike bear berze sakramenturik bataioas landara bekatuen barkazeko. Baña zerengatik Jangoikoak, abrats miserikordian, ezaunzen baitu gure frajilidadea, aiendako ere, zeñek bataioaskeros entregazen baitire bekatuaren kautiberioan, ta demonioaren potestadean, utzi du bizitzaren

erremedioa, au da, penitenziaren, edo konfesioaren sakramentua, zeñen medios aplikazen baizaiote Kristoren pasioaren benefizioa erori direnei bataioas geros. (Item. 2.). Nai izan zue Kristo gure Jaunak ezi kristioak ta bere familiakoak, in zituenak bere mienbro beingoas bataioan, baldin gero mantxazen badire bekatu mortalareki, garbi daizen; ez ia berriz bataiatu, ezpaitaie au niolater kristiandadean, baizik presenta daizen kulpante bekala konfesioaren tribunalean, libra daizen bekatuetaik ez bein solamente, baizik urrikiturik doazin guzietan, sazerdoteen sentenziaren medios. Da, bada, ain preziso salbazekos konfesioa bekatar direnendako bataiatuas geros, nola bataio bera bataiatuestirenendako oraño.

5. Ontaik atrazen da klaro, ezi solamente kristio bataiatua bekatu egin duena bataioas geros, dela konfesioaren sujetoa. Orgatik ere deizen da konfesioa bigarren ola naufragioas geros, ta orgatik ere deizen da bataio jenero bat trabajoso, (Ib. c.2) zerengatik Jangoikoaren justiziak ere dirudi eskazen duela, modu bates admitizea bere graziara bataiatubaño len bekatu in dutenak ignoranzias; ta berze gisas, bein libratu ondoan bekatuaren ta demonioaren kautiberiotik, ta errezibiturik Espiritu Sanduaren donoa, atrebitu direnak mantxazera Jangoikoaren tenplua ta kontristazera Espiritu Sandua. (Ib. c. 8). Au berau klaroki ageri da Kristoren mintzaze moduan, eman zitiolaik Elizari ta onen ministroei potestadeak barkazeko bekatuak, deizeareki zeruko gilzak. Tibi dabo claves regni coelorum. Zerengatik ala nola ezpaitaie bat sartu leku ertxi batean arren gilzak dituenaren asistenzia gabe, ala nior estaike sar zeruan, ezpadiote idiki zen ataria sazerdoteek, zeñi fiatu baizizaizkio ango gilzak. Berze gisas, deustako ez lirazke gilza gebek Elizan, al baleike sartu zeruan berze nondikbait, idiki gabe atariak ango gilzadunak. Au entendatu zue ongi San Agustinek, erran zuelaik: Estaiela nior fia errateareki: Nik iten dut penitentzia sekretoan Jangoikoaren alzinean. Jangoikoak, barkatu bear didanak, daki nik iteuntena biotzean. Beras, debalde erran zue Kristok: Zuek soltazen duzien guzia lurrean, soltaturik egoin da zeruan. Beras, debalde entregatu zire gilzak Elizai. Guziau dakar katezismo Romanoak. (SS. 43.).

6. Zer adines dagon kristioa obligaturik konfesazera estaike txustoki determinatu urteetaik. Beñik bein ellegatu gabe ezaumentura, estu obligazen konfesioak. Asenta daikena jeneralki da, ezi noiz ta ellegazen den persona ezaunzera ona ta gaistoa, ta egiten den kapaz bekatu egiteko, orduan sarzen dela konfesioaren obligazioa. (Ai dakitenes ia bekatu mortaleak ere egiten, ta estakitenes konfesazen! Ta ai estiotenes erakusten!) Gañarako bakotxain nezesidadeas landara, dago kristioa obligaturik Eliza Ama Sanduaren manus konfesazera benzait bein urtean (Catech. Rom. hic. SS. 42.), baitare eriotzeko peligroan, baitare komekatubañolen senti dena bekatu mortalean. Ots, bada, in bada bekatu, edo konfesatu, edo kondenatu; aut paenit. kendum aut ardendum (Exempl. Andrad.)

Serm. 64.

De bonâ et malâ confessione.

ann. 1781

Gaudeo non quia contristati estis,

sed quia contristati estis ad poenitentiam. 2 Cor. 7.

1. Erranik ia konfesioaren ministroa, materia, forma ta sujetoa, nainuke ia asi erakusten ongi konfesazea, supositurik gauza ziertoa bekala, ezi dakienak ongi konfesazen, dakiela salbazen bere arima, iragazten gloria ta bereganazen Jangoikoa; ala nola estakienak konfesazen, ezpaitaki deus onkirik. O konfesioa, zu ezpazina munduan, zer lizake munduas? Nor sal baleike? Baña, o konfesioa, diot berriz orai, zu izanik ere, zenbat galzen den, zeren ezpaizaitute ongi usazen! mereji du asunto gonek serioki tratazea, adiarazis konfesio on ta gaistoaren diferenzia, joateko ikasis konfesazen.

2. Jangoikoak, inzinduzanak zu zeuroi gabe, etzaitu ia orai salbatuko zeuroi gabe, dio San Agustinek. Qui fecit te sine te, non salvabit te sine te. Jangoikoa alzinazen da, argizen dizu, asitizen dizu salbazeagatik zure arima; guziareki etzara salbatuko, ezpaduzu zerbait egiten zuk ere. Zer eginen dut salbazeko nik? Goardatu mandamentuak. Eta autxi badut bat edo berze, zer inen dut? Konfesatu ongi. Esta berze biderik zerurako. Bi estadotan konsidera daike persona: Edo autxi gabe mandamenturik, au da, bekaturik in gabe; edo autxi ondoan mandamenturen bat, au da, bekatu in ondoan. Lenbiziko estadoa da inozentzia, ura da lenbiziko bidea zerura; au galdu ondoan esta berze biderik baizik penitentzia, au da, konfesioa. Lenbizikoain gañean erran zizute aski bataiazerakoan, lenik eliza atarian: nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goardatu mandamentuak. Gero bataiatu ta berla, emanik pañoloa, erran zizaizu: Tori graziaren bestidura txuria, ermazu mantxatu gabe Kristoren tribunalerano, izateko partizipante Kristoren glorian. Gero, berriz, bela itxekirik eman zizaizulaik: Arzazu argi itxeki gau, goarda zazu erreprentiorik merejitu gabe bataiarriko grazia. Baña ia galdu ondoan grazia gura, aizazu: Aut paenitentium aut ardentium, edo konfesatu edo kondenatu. Konfesazen bagara ongi, fiela da Jangoikoa, au da, bere itzaren kunplizalea da, barkatuko baitigu, dio San Juan Ebanjelariak (1. c.1). Baña ezpagara konfesazen, edo gaizki konfesazen bagara, galduak gara dela dio Jesu Kristok: Nisi paenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis. Ez konfesazea, ta gaizki konfesazea bardin dire zenbatenas estiguten ematen lengoen barkamentua; diferenzia dute ontan, ezi ez konfesazea esta ain gaisto nola gaizki konfesazea; ez konfesatus estaike logra barkamentua, baña gaizki konfesatus, estaikelaik logra barkamentua, añadizen da kondenazioa konfesio gaistoaren bekatuareki. Bada, konfesio gaistoa gaistoago barin bada ez konfesazea baño, beira zenbat diferenzia doaien konfesio gaistotik onera: Ainberze, nola infernutik zerura. Da klaro, zerengatik konfesio gaistoareki erxten da zerua ta idikizen da infernua, ta al rebes, konfesio onareki erxten da infernua ta idikizen da zerua.

3. Estakit erran daiken ia konfesio on ta gaistoaren diferenziain gañean. Esta desditxa andiagorik nola kondenazea infernura, esta ditxa andiagorik nola salbazea glorian. Orai bada, beirazen delaik bat bi gauza diferente geben peligroan, diot, infernuaren ta zeruaren ertean, zer nailuke ia baizik izatea adiskide bien gilzaduna, ertxiarasteko infernuko ataria, ez erorzeko artan ta idikiarasteko zerukoa, sarzeco ontan? Etzinduke nai ia? Bada, ia duzu, zerengatik ez solamente duzu adiskide zeruko ta

infernuko atarien gilzaduna, baizik, errateko ala, zure eskuan dago idikizea edo erxtea atari goiek. Sazerdoteai eman zaizkio zeruko erreinuko gilzak, tibi dabo claves regni coelorum, baña alako maneran ezi ez dezake idiki nai duenai ta ertxi nai duenai, baizik obligaturik dago idikizera ongi disponiturik dagonai, ta erxtera gaizki disponituik dagonai zeruko ataria, nai ezpadu ere. Baña zuk konfesazeareki ongi, obligazeunzu ematera absoluzioa, au da idikizea ataria; ta gaizki konfesazeareki absolbi bazindez ere, ezleike balio absoluzionegoi, ezleike idiki ataria; Beras, zure eskuan dago idikizea edo erxtea, oroat nola baitago zure eskuan ongi edo gaizki konfesazea.

4. Orai ia erran daiken guzia gutiago da erran duguna baño, adiarasteko konfesio onaren probetxua ta gaistoaren kaltea. Baña pinta zagun zenbait konparazioeki au berau. Baliz gizon bat lukena bereki erredoma bat beterik balsamos, zeñeki solo untatus senda leizen eritasun ta abernu guziak, balidoeie disponiturik modu gontan ta berzean untatu bear dena, ezperen itzulibalei beneno ilarasteko eria, zer kuidadoa disponizean bear bekala? Konfesioan dugu depositaturik Kristoren odolaren balsamo preziosoa administrazen duena konfesoareak, errizibitu bear duena bekatariak; baña kuidado, nolako disposizioareki ellegazen den, ezi ongi disponituei ematen diote osasun espiritualea ta bizitza sekulakoa; ta gaizki disponituei eriotzea eriotzeain gain beren kulpas. Baliz gitarra bat zein soñazeareki, Dabiden arpa bekala, ongi, igesinbailezate gorputzetik gaistoek ta malurreria guziek, ta arimatik tristurek, penek ta kuidadoek, baña gaizki soñatus firmabaleites ia gaistoak gorputzean, ta aumentabaleites naigabeak ariman, zenbat eman gindezaken ongi soñazeagatik? Konfesioa da zitara amar kuerdetaik soñazen dena, au da, amar mandamentuetaik iten dena, ta borz diferenziaeki, au da examina, dolore, proposito, konfesio ta satisfakzioareki; iten bada ongi konfesioaren soñugoi Jangoikoaren agradoan, esta deabru, ta ez bekatu, ta ez gaiz espiritualerik, ezpaita desterrazen penitenteagandik; ala nola gaizki iten bada, firmazen baitire deabruak ta bekatuak ariman sakrilejio garren medios. Nork estu naiko ikasi ongi konfesazen?

5. Baliz baño bat edo iturri bat, non bañazeareki solo, lenetik eginik zerbait prebenzio, garbibaleiz sarnosoak, txuribaleiz belzak, ederbaleiz itsusiak, gastetubaleiz zarrak, ilak biztu; baña, al rebes, prebenzio piska baten faltas geldi baleitez an sarnosoak sarnosoago, belzak belzago, itsusiak itsusiago, zarrak ezinduago, zein gogotik kuidatuko luketen askok joateas prebeniturik ongi. Orai bada, konfesioa da iturria non garbizen, ederzen ta itzulzen baitire arimak Jangoikoaren agradora, baldin konfesazen badire ongi, baña ezperen joanbaño gaizkiago atrazen dire. Baliz, en fin, arbitrio ta medio bat aisa guziek usazezaketena, iragazteko aita sanduen, erregeen ta prinzipie guzien grazia, ta aien adiskide estimatua ta honratua izatea, zer kuidadoreki usalezaketen askok medio gura, baldin ezperen iduki bear balire aien traidore aborrezitutako? Orra konfesioa, non ellegaturik ongi konfesazera Jangoikoaren etsai bizitu dena, berla iten da berain adiskide ta hume maitea; ta ia da Jangoikoa sollik ezi ez errege ta prinzipie guziak; ta artas landara lograzen du Ama Birjinaren, aingiruen ta sandu guzien onginaia; baña ezperen, aborrezizen du Jangoikoak, estu ikusi nai Ama Birjinak, estare batek sikiera sandu guzietaik.

6. Au guziau dakigulaik fedes, nola estugu ikasten obeki konfesazen? Ain aisa baliz gorputzendako erremedioa, nola ezkindeizken deskuida! Eta gorputza ain bat da arimaren aldean, nola kaskilla mamiaren aldean, loia urrearen aldean, ta lurra zeruaren aldean. Bada, estuenak kuidazen ongi konfesazeas, edo estu estimazen bere arima, edo estu sinestazen erran dutena. Ezpadu estimazen bere arima, zer errain diot, baizik ikus

dezala kostatu dela Kristoren bizia ta odola? Ezpadu sinestazen errana, zer inen diot ia, ekarri baño testimoniota Jangoikoaren itza? Testigoak ekardezazket millaka ta millonka. Testigo San Pedro: ukatu zue bere Maestru Dibinoa, merejitu zue arren kastigoa; baño konfesazeareki bere kulpaa, ain grazian ain adiskide itzuli ze Jaun andiareki, ezi in baizue bere bikario lurrean, ta apostoluen buru. Testigo Magdalena, zein eginik espiritualki sarnosa, itsusia, belza ta ila ariman, konfesazeareki Kristoren oñetan garbitu, edertu ta itzuli ze ain kuadrable Jangoikoaren begietan, ezi lograzen baitu birjina ta sanda guzien alzinean egotea letanian. Testigo San Pablo, zein izanik len Kristoren ta kristioen persegizale, konfesaturik bere kulpaa, garaitu zue demonioa ta bere afekto gaisto guziak, ta da orai Jesu Kristoren baso eskojitua. Testigo San Agustin, zein eriturik ta txoil mantxaturik desonestidadeen ta herejien bekatues, garbitu ze ain ongi Kristoren odolas, konfesaturik bere bekatuak, ezi orai da Elizako doktore afamatua. Testigo ladron ona, zein bizi guzian biziturik ladronkerian, zeren gurzifikaturik zegolaik Kristoren saietsean konfesatu zuen bere kulpaa, nos quidem digna factis recipimus, ta eskatu zion miseriakordia, instantean idiki zue paraisoa ta errobatu zue zeruko gloria. Zertako testigo ia? akaba zagon: Biz persona bat Judas baño gaistoagokoa, Luzifer baño demonioagokoa, zeñek dituen bildurik bere baitan munduan in diren gaistakeria guziak; konfesa bedi ongi, errezebi bez absoluzionea, ta instantean barkaturik dago guzietatik, zerengatik bekatu guziak Jangoikoaren piedadeaindako ain bat dire nola armirmau sare bat desegiteko; ta andiago da Kristoren odolaren birtutea, zeñek obrazen baitu konfesioaren sakramentuan.

7. Orai bada, guziau ala delaik, zerengatik galzen da sekulako ainberze kristio? Zerengatik, edo zer fundamentus diote anitz aita sanduek, kondenazen direla kristio geienak? Esta berze estorburik zeruko, baizik bekatua, ta esta berze motiborik infernuko, baizik bekatua; baño onen barkazeko dugulaik konfesioa, zer gisas dire gutienak salbazen direnak, konfesazen direlaik geienak? Numquid resina non est in Galaad, aut medicus non est ibi? Esta medizinarik, esta konfesorik Elizan? Esta medikurik, esta konfesorerik? Bada, ta abasto. Quare ergo moriemini domus Israel? Zerengatik, bada, kondenatu bear zarate Kristoren familiakoak? Zerengatik konfesioa, dena bere izates erremedio, itzulzenbaituzie beneno, gaizki konfesatus. Santa Teresa de Jesusek erraten zue, direla konfesio gaistoak daukatenak beterik infernua; ta predikari bati eskribizen diolaik erraten dio: Aita, predika bez anitz aldis konfesio gaistoen kontra, zerengatik deabruak estu berze lakiorik, non ia arima arrapazen duen nola ortan. Nor esta pasmazen adizeas au, ta diolaik sanda batek ain diskretak? istari batek arrapazeko txoriak parazentu lekeda ta lakioak iturri bakan zenbait den lekuan; an da non iten duen baza obrena. Badaki demonioak, istari infernaleak, estugula bekatariak berze iturririk, baizik konfesioa, arara guziek akuditu bear dugula ezin berzeas, estelaik berze erremediazeko modurik; bada, an da non armazen baititu bere lakioak, an da non arrapazen baitu ia arima. O lastima!

8. Zenbatek uste dute konfesazegoi estela berzerik baizik zeremonia bat, belauriko paratu ta erratea bekatuak, kuidatu gabe iagos? Zenbat doaz konfesazera kostunbres, zerengatik doazin berzeak? Zenbat examinatu gabe dilijenteki konzienziaren zokoak? Zenbat kuidadorik gabe, sustorik ta pena gutiagoreki bekatues, nola despatxatukotusten fite kuidazen dutela ia, ta baruik egoteas? Zenbat doaz ain sereno ta ajolakabe, nola ezpalute baizik erratea mandamentuak, ta kontazea historia bat? Zenbat egoten dire konfesio alzinean estakitela zer egin, diskurritu gabe zer egin duten Jangoikoaren ta beren kontra, ta ansiarik gabe nigar egiteko gaizki egin guzias, ta despeizeko beingoas bizimodu gaistoa? Zenbat konfesazen dire bearestiren sinplekeries, utzirik bekatu andiagokoak?

Zenbatek estute deklarazen beren biotzetako intenzio gaistoak, malizia ta pikardia sekretoak? Zenbatek estute agerzen beren kodizia, beren subergia, beren ira ta gañarako eritasunak? Zenbatek konfesazeunten inbolokatus bere malizia maliziareki estaiengatik entenda, edertu naies beren buruak, exkusatus beren faltak, botatus berzeeri kulpak? Zenbat berze defekto egiten da konfesioan, ta bizizen da engañatus bere burua? Zenbatek, en fin, konfesazen direlaik maldizio ta gezur lebees, estute iten memoriarik beren obligazioetan faltatu dutenas, inporta baitu anitz ia? Idatzarri, artu kuido, egin aprehensio, ezperen aurkituko zarate konfesios ta bekatus beterik batean, lo engañosoareki deabruain lakeoan, idatzarzeko infernuan. In bada bekatu, edo ongi konfesatu, edo betikos kondenatu! Esta barkazen, ezpada ongi konfesazen, ala nola ongi konfesazen delaik, barkazen baita guzia, dena dela. Aizagun exenplutto gau konforme egungo misterioai, non presentazen baizaigu Ama bere Semeareki eskuetan (In die Purific.) (Abreu spec. paroc lib. 7. sect. 5. SS. 3).

Serm. 65.

De praeuiis ad confessionem

ann. 1781

Derelinquat impius viam suam,
et vir iniquas cogitationes suas,
et revertatur ad Dominum. Isai. 55.

1. Ia ikasirik estela berze biderik zerurako bekatu egin ondoan, baizik konfesio ona, ikasi naiak daude nere fielak nola in konfesioa ongi. Beñik bein ongi konfesatu nai duenak bear du inprimitu bere gogoan konfesioaren inportanzia, fina ta esenzia. Inportazen du ainberze ongi konfesazeak, nola arimaren salbazeak, nola sekulako ongi izateak, nola Jangoikoareki ongi parazeak, nola Jangoikoari honra edeki zaiona itzulzeak, nola Jesu Kristoren pasio ta eriotzea ta odol preziosoa ez malograzeak bere baitan. Zerengatik nola gizona etorri baita mundura zerbitzazeko Jangoikoa emen ta gozazeko an, nola Kristo jautsi baize zerutik lurrera erredimitzera gizona, ta gizonak bekatueki deserrespetazen baitu Jangoikoa, galzen baitu bere burua, ta malograzen baitu Kristoren erredenpzionea; bekatuorien konfesazea da oroat nola errebokazea ta desegitea Jangoikoaren ta bere kontra egina. Fin gonengatik paratu zue Jesu Kristok konfesioa, ta fin berorreatatik artu bear du bekatariak, au da, borrazeagatik gaizki egin guzia, baketzeagatik Jangoiko andiareki, eskazeagatik ta erdexteagatik barkazio ofenditu duenas, supliceagatik faltatu dion errespeto ta atenzioa, baitare lograzeagatik Kristoren odol prezioso ixuri zuena, zein malograzen baita bekatariaindako, ezpadu konfesazen bere kulpak; ta gisaontan salbazeko bere arima, nai duen bekala Jangoikoak ta Jesu Kristok.

2. Da konfesioaren esenzia erratea batek bere kulpak Jangoikoaren ministroari bear bekalako sentimentura ta propositoareki, sujetaturik errezibizera ematen zaion sentenzia ta pena. Bear du, bada, gogoratu konfesazera doaienak doaiela Jangoikoaren tribunalera ematera kontu bere bizimoduak. Kontu in zazu, bada, bekatu induzun orrek, zaradela nirabe bat ajustatua Jangoikoaren etxean ta arren zerbitzuan, fiatu tizula zeure arima, potenziak ta sentidoak, enpleazeko berain honratan; eta zuk zerbitzatu ez, ezi agrabiatu duzula Nausi dibinoa, ta enpleatu tuzula gaizki berak emanikako ondasunak; ta orgatik juizio egunean il ta berla sentenziatuko zaituela sekulako kartzelera pagazera tormentuen utses gaizki zerbitzatu, ala nola ongi zerbitzatu duenai pagatuko baitio soldata sekulako glorian. Dakizulaik bada bekatu mortale baten kasos prezisoki atra bear duzula gaizki tribunale gartan, non iten baita justizia rigurosoa; apelazen duzu il baño len berze tribunale gontara, zein baitakizu alaber paratu duela Jangoikoak, egiteko justizia ere bai, baña miseriordia ere bai, Jangoikoaren itzean fiaturik, baitio ezi emen barkazen dena, an izain dela barkatua. Beras, pleitu bat bekala figuratu beauzu duzula Jangoikoareki, baña pleitu bat txoil extraordinarioa ta diferentea mundukoetaik, zeintan ez ia fiaturik zure arrazioetan baizik antes bien desengañaturik zeure arraziogabeas alzinazen baizara akusazera zeure buruoi kulpante bekala, erdexteko ala mereji estuzun barkazioa, solamente zerengatik den ona ezin iagos Jangoikoa. Berze lurreko tribunale ta pleituetan bakotxa doae progazera bere arrazioa ta estalzera kulpak; emen zoazi deklarazera zeure arraziogabea ta manifestazera zeure kulpak. Berze tribunaleetan progazen badizute kulpak, izain duzu sentenzia zeure kontra, edo desterru, edo eriotze, edo multa segun nolakoa den

kulpa. Emen estalzen baduzu kulpa, sententzia gaistoa izain duzu, ta deklarazen baduzu, ona. Berze tribunaleetan izaten dire abogatu ta prokuradoreak fabore, baitare kontrarioak, ta berze alde fiskala, testigoak ta proganzak. Emen al rebes zeurorrek izan beazu akusazale, testigo ta fiskal zeure kontra, izatekos fabore sententzia. Aietan akusazen ta progazen bada bat gaisto, kondenazen da; agerzen bada on edo inozente, libre da, naiz balu kulpa ere; emen al rebes baldin bekataria iten badu inozente bere burua, kondenazen da; ta akusazen badu kulpante, librazen da. Orai, bada, konfesatu baño len in bear duzu konsiderazio gau: Nik in dut bekatu; Jangoikoak badaki berdin; ta emanen dida sententzia kondenazioarena arrapazen banau, arrapabainazake instante, bere tribunale goitiko gartan, ezpanaiz neurau alzinazen emen presentazera konfesatus duten kulpa; ta alzinazen banaiz, barkatuko dida. Naiago dut garaitu nere alkea ta subergia, ta presentatu bere Ministroaren oñetan emen, izateko libre an. Botako naiz, bada, nere Aitaren oñetan ta errain diot: Pater, peccavi in coelum et coram te.

3. Prebenzio goneki asi bear duzu oroizen zeure kulpes, konfundizeko zeure buruoi, ta demonioa ere bai. Ala nola Adelaida zerizon emasteki garrek joaterakoan konfesazera, agertu zizaion gaistoari erran baizio: Noaiek ire ta nere konfundizera. Bear duzu, bada, pensatu zeuroi zarela zeure kontrarioik andiena; ta ala nola bazindu pleitu bat kontrario fuerte bateki, ezpaizinduke disimulatuko arrenkontra aurki al zindezakenik batere, ala joan beazu intenzio goneki examinazera, estiozula disimulatu bear, baizik atra dituen falta guziak zeure buru ori.

4. Ontas landara aurkizen bazara errestitu zio iteko obligazioan zerbait kausas dena dela, al badezakezu, inzazu errestitutuzioa konfesatubañolen. Zerengatik egia barin bada ere aski dela konfesazeko ongi, errestitu zio iteko gogo firmea, ala ere duzulaik posibilidade, konbenienzia ta okasio egiteko lenetik, inzazu, ezperen da señaile estela gogo firmea, txoil ezpada usten, egiteagatik konfesoreain eskus, edo geroxago obeagos, zerengatik berzearen gauza beti dago klamazen jabeagana, ta ez solamente debekazen da ebastea edo perjuizio egitea, baitare detenitzea; ta San Agustinek diona da egia: Si res aliena reddi possit, et non reddatur, paenitentia non agitur, sed simulatur. Al badaike itzuli berzeren gauza, ta ezpada itzulzen, esta egiten penitentia, baizik itxureria. Soltazkizu len baño len lakio lotzen zaitutenak aldeazakezulaik, zerengatik berdin etzaizke lazatu, ezpazara lazazen zeuroi errestitutuzioain obligazioaren lakioetaik. Ez dezake konfesoreak barkatu berzeren zorra, estare bekatua, ezpada pagazen ura. Bada in bear dena gero nai bauzu ezpauzu, obe da in lenago, egoteko guzis libre konfesatu ondoan, zerengatik alkabo ezpada itzulzen berzeren gauza, naiz konfesatu, esta barkatu, non remittitur peccatum, nisi restituatur ablatum. Au da gauza, zeintan ezpaitezake dispensatu aita sanduak ere. Orgatik tratante gaistoak, usureroak, engañazaleak daude beti kondenazioko estadoan, zerengatik ezpaitute egiten errestitutuzioa; konfesazen dire, baña debalde, ta alakoen salbazea ain difikultoso da, nola kamello bat orratxuste baten begitik sarzea, erran zuen bekala Kristoren Majestadeak: Facilius est camelum per foramen acûs transire quam divitem intrare in regnum coelorum. Erran dutena itzulzeas berzeren gauza diot itzulzeas edeki den honra edo fama murmuratus, edo berze gisas, in bear dela errestitu zio lenbaño len ta in bear denas geros konfesatu ondoan barkazekos, obe dela in konfesatu baño len.

5. Alaber da preziso, konfesazekos ongi, apartazea bekatuaren okasioa al badaike, zerengatik zer balio du erratea estuzula inen ia bekatu rik, ezpauzu utzi nai bekatuaren okasioa? Nola sinestatu bear da estuzula nai erre, zaudelaik suain ertean zeure borondates? Baña estaikelaik aparta, zeren ezpaitago bere eskuan, konfesatu bear da alako intenzioan,

ezi dagon preso arzera edozein erremedio, naiz gogorrak.

6. Alaber da preziso izan duenak diskordia edo enemistade norbaiteki, konfesazekos ongi, ermatea biotza ain libre odiotik, ta ain sines itzulirik amoriora, ezi dagon erresuelto egitera bakeak honratuki; ta orgatik, ia ke ta konfesioa ona izatekos bear baitu biotzean amorioa etsaiagana, baitare desoea bakezeko arreki len baño len, orgatik diot konbeni da alzinetik baketzea, aurkizeko libre guzis konfesatu ondoreko. Erran zue Jesu Kristok sentenzia gau: Barin bazaude aldareain alzinean ofrazen zeure limosna edo dona, ta an oroizen bazara zure proximoak duela zer bait zure kontra, utzazu an zure ofrenda, zoaz ta bake zaite zure proximoareki, ta gero etorri ta ofra zazu. Au dio Kristoren Majestadeak. Zertako da luzatzea gero, gero? Badaike, estut ukazen, badaike izan gogo firmea bakezeko, ta au aski da zenbait aldis, baño beti da obe egitea alzinetik. Ta frankotan gertazen da engañazea bere burua ta konfesorea itz falsues, ta errefrana da: Gero dionak bego dio, zerengatik ala gertazen baita komunki. Eta aski da prokurazea batek gogotik, ezpadu nai kontrarioak, libre da berzea eginduenaskeros inala, manifestatu zuen bekala Jangoikoak Saprizio ta Nizeforo deizen ziren bideki. Izanzute elkarreki diskordia; ta Nizeforok ia beras turik biotza bilatuzue Saprizio egiteko bakeak; onek izanik sazerdote, (nola or denak ezpaitu kenzen bakotxain erruintasuna) ukatu zio bake eskatu ziona berzeak. Gertatu ze gero egitea jentilek preso Saprizio gau, zeren baize sazerdote ta kristio. Sufritu zitue tormentuak ukatu gabe fedea, ta sentenziatu zute eriotzera Kristogatik. Bazoeie Saprizio arrapazera palma martirioarena, ta orduan Nizeforo, idurituri ura zela okasiorik obrena bakezeko elkarreki, atra zizaio bidera, ta emanik enhorabuenak arren ditxas martir izateas Kristorengatik, eskatu zio berriz barkazio ofendituas. Baña o gizonaren miseria, aun orduan etzue nai izandu errekonziliatu etsaiareki, antes bien, Jangoikoaren permisios ukatu zue fedea ere orduraño defendatu zuena, ta ala utzi zute libre jentilek. Ikusirik au Nizeforok oiuegin zue: Bada, onek indignoki ukatu du fedea, emen nago ni, kristioa naiz, ona nere lepoa ematen dut fedeagatik. Ala izan ze. Edeki ziote oni burua, ta igan ze martir triunfante gloriara; eta berzea barkatu nai etziona etze gelditu emen, zerengatik nola baizego konsumiturik lengo tormentues, ilze andik guti, ta joan ze infernura, galdurik padezitu zuen guzia, padezizera sekulakos ez naies garaitu bere odio gaistoa. Kuidado, alaber, errekonziliazeas solamente itxuras, ezpaitu deus balio Jangoikoaren alzinean. Kordoban ellegatu ze konfesazera errelijioso bateki kaballero bat odioan ta eriotzeko peligroan zegoena, abisatu zue konfesoareak bakeak in bear zituela, ezperen etziokela eman, ta etzela balioso izain absoluzioa. Kaballeroak egin zue itxura, ta ala engañaturik bere burua ta konfesorea, erdetxi zue absoluzioa ta komunioa, ta ilze. Ilariain urbilen gauean ellegatu zire kolejiora bi mutil, bakotxa bere tortxareki eskuan, konfessore difunto garrenas galdetzera, zutela zer komunikatu gauza bat inportazioskoa. Jautsi ze, ta ermateunte eliza nausira, ta batek ematentio gilzak ta erraten dio: idiki bezki atariok ausarki, estaiela beldurtu. Andik akonpañazeunte aldare nausira, ta ematen diote eskura sagrarioko gilza, ar dezala kopon sagratua; artu ta akonpañazeunte argieki bi aldetaik kaballeroain obiarano. Ellegatu ondoan erran zio batek: Aita, emen dago orzirik Don Fulano orrek akonsejatu zuena serioki baketzera bere kontrarioareki, egin zue itxuras, ez biotzes, ta onen gorputz madarikatuak dauka orano agoan forma sagratua iretsi etzukea, zeren etzuen sartu nai Jaun sakramentatuak alakoaren biotzean. Au erran ta ematen diote ostiko bat lurrai, gorazen da ila, idikizen du agoa, erakusten du forma sanda; ta errelijiosoak arturik parazen du koponean. Orduan ukiturik berriz lurra, orzizen da abismoan gorputza; ta paraturik kustodia sagrarioan, itzuli zute errelijioso bere kolejiora,

ta desapareztu zire. Orra zer den konfesazea, utzi gabe biotzetik odioa edo utzirik itxuras.
Sines sines, ezi biotza ikusten du Jangoikoak. Sines nai dugu guziek baketu
Jangoikoareki ta proximoareki, ta ala inentugu fedearen, esperanzaren etc.

Serm. 66.

De partibus paenitentiae sacramenti.

ann. 1781

Confitemini Domino in citharâ. Psalm. 32.

1. Erremedio exelenteenak (sic) ditu bere zirkunstanziak obserbatu bear direnak, izatekos probetxurik artas. Konfesioko sakramentua da bekatariendako erremedio exzelentea Jesu Kristok paratua, ta ainberze balio duena, nola beraren odol preziosoak, zeñen kostus fabrikatu ta depositatu baita elizako botikan, baña estiote alaere guziei probetxazen, obserbatu faltas bear diren zirkunstanziak. Ikusagun ta ikasagun konfesiorearen esenzia ta parteak jakiteko erremediazen geuren arimak.

2. Irur direla konfesioko edo penitenziako sakramentuaren parteak dio Trentoko Konzilio sanduak, baitire biotzesko dolorea, agosko konfesioa, ta obrasko satisfakzioa; ta ematen du arrazioa Katezismo Romanoak irur parte goietas diolaik, ezi nola bekatuak, zeñeki ofendizen baitugu Jangoikoa, iten baitire biotzas, itzes ta obras, orgatik dela txoil konforme aplakazeko Jangoiko ofenditua ta erdexteko barkamentua, sujetazen garelarik Elizako gilzetara, balia gaizen instrumentu gaietas beretas, zeñeki ofenditu baitugu arren Majestadea (P.2. c.5. SS. 22.) au da, biotzas, izateko bear den sentimentura, damua ta urrikimentua; agoas, deklarazeko berain sazerdoteai geuren kulpak; ta obres, pagazeko zor dugun pena, ta emateko kunplimentu justizia dibinoai kulpen ariora. Au berau dio konfirma daikela berze alde batetik gisaontan, zerengatik penitentzia edo konfesioa da ala nola ordaiñ edo errekonpensa bat bekatuengatik datorrena bekataria in borondatetik, ta paratu duena Jangoikoak, zeñen kontra in baitire bekatuak. Orgatik da preziso alde batetik errekonpensatu naia, ta ontan prinzipalki enpleazen da kontrizioa edo dolorea, ta berze alde da preziso sujetazea konfessoreari, zeñek errepresentazen baitu Jangoikoaren persona, paradezongatik pena kulpain ariora. (Ibid.)

3. Irur direla, diot berriz ere, konfesioko edo penitenziako sakramentuaren parteak: Biotzesko dolorea, agosko konfesioa ta obrasko satisfakzioa, baña irur gebetan daude enzerraturik borzak, zeñeki explikazen baita geien komun, zerengatik biotzesko dolorean enzerrazen du konzilio sanduak propositoa ez ia bekaturik egiteko, ta agosko konfesiorean entendazen du konzienziain examinazea in bear dena lenagotik. Orgatik klaridade iagos diogu borz direla konfesio on baten iteko bear diren gauzak: Lenbizikoa da bere konzienziain ongi examinazea; bigarrena, dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofenditua; irugarrena, proposito firme bat ez beñere ia bekaturik egiteko; laugarrena, bere bekatuak enteroki konfesazea; ta borzgarrena, konfessoreak ematen dion penitenziain kunplizea. Konzienziain examinazea da oroitzea bere bekatues edo memoriara ekarzea bere bekatuak konfesatubañolen errateko gero konfesiorean, zein, zenbat ta nolakoak aurkizentuen bere konzienzian. Biotzesko dolorea da urrikimentu bat bekatu eginas, zeren ofenditu baitu Jangoiko andia. Propositoa da gogo ta erresoluzio firme bat ez berriz sekula ofendizeko. Agosko konfesioa da erratea bere bekatuak konzienzian aurkizentuen bekala, ziertoak zierto bekala ta dudosoak dudoso bekala, batere kendu ta batere añaditu gabe. Obrasko satisfakzioa da kunplizea ematen zaion penitentzia faltarik gabe. Emagun orai zerbait arrazio, zerengatik bear diren prezisoki borz gauza gebek egiteko konfesio ona ta lograzekos barkamentua ta grazia.

4. Beñik bein bear da examinatu konzienzia aldaikelaik, zerengatik ezperen, nola erranentu bekatuak, zeñetas ezpaitu prokuratu lenago oroizea? examinatu gabe edo gutiegi examinaturik konzienzia doaiena konfesazera, exponizen da erratera duen baño gutiago edo ia bekatu, ta por konsigiente egitera konfesio gaistoa. Dolorea da preziso, zerengatik nola baikoazi eskazera ta bilazera barkazioa agrabio intiogunes Jangoikoari, zeren kasos barkatu bearliguke Jaun andiak, ezpagindu sikiera dolore ta sentimentu ofendituas? Propositoa ere da preziso, zerengatik ezpaitugu orañik despeitu biotzetik sekulakos bekatuak, ezpadugu gogo, intenzio ta erresoluzio ez egiteko berriz bekaturik, nola nai dugu barkazkigun intugunak? Da preziso agosko konfesioa, zerengatik ala disponitu zue Jesu Kristok, ezi barkazekos orai bekatuak, zeñetas kontu arturik juizio dibinoan mereji baigindue kondenazioa, presenta gai zela gerok emen bere sazerdoteain oñetan, ta manifestazogula geuren kulpas humilki, ezpadugu nai gero aurkitu konbenziturik ta sentenziaturik sekulako infernura. Da preziso obrasko satisfakzioa, zerengatik mereji bagindue infernuko pena eternoa bekatuengatik, esta arrazio barkaturik ere kulpas Jangoikoaren grazias, ustea batere pena ta satisfakziorik gabe infernukoaren trukadan. Benzait izatekos balioso konfesioa, bear dugu konfesatu alako intenzioan, ezi gauden prest admitizera sazerdotearen sententzia ta señalazen digun pena edo penitentzia. Intenzio sin goneki konfesaturik, gero ezpaledi kunpli penitentzia, orgatik ezlizake galduko lengo konfesioa, baño in leike bekatu berri bat, ez kunplizeas.

5. Orai eldu da ongi Dabid erregeren sententzia gura: Confitemini Domino in citharâ, konfesazaiste Jangoikoari zitaran. Zer zitara da au? Au da konfesioko sakramentua, zeintan baitire borz gauza gaiek, ala nola zitaran edo gitarran borz boza diferenteak. Gitarra edo zitara batean kuerda bat diskonforme barin badago, galzen da armonia, naiz izanik gañarakoak ongi tenplatuak. Ala konfesioan gauza bat faltaturik prezisoetaik, esta ongi erorzen Jangoikoaren alzineko. Examinarik gabe, daikelaik egin, estaike ongi konfesatu; konfesazen ezpada den guzia, daikelaik, esta protxal dolore solla; au ere propositurik gabe eztaike entenda; eta guzia alaber penitentzian kunplizeko intenziorik gabe estaike logra. Beras, gauza goiek beaute joan konforme elkarreki faltarik gabe, egitekos soñu ona konfesioain zitaran Jangoikoaren gustora, confitemini Domino in citharâ. Alzinean bidoeie bekatuen oroizea examinatus ta pensatus bere bizimodua. Segi bez biotzesko dolore finak ofendituas Jangoikoa; onen atzetik propositoa ez bekaturik ia iteko sekula; betor gero konfesazea humilki bere kulpas guziak; ta ondorean kunplizea penitentzia osoki. Alako konfesioak inen du soñu ona Jangoikoaren adimentuan. Confitemini Domino in citharâ, et in psalterio decem chordarum psallite illi. Bi instrumentu aipazentu Dabidek, soñatu bear direnak bateo, zitara ta amar kuerdatako psalterioa. Estuzu aditu soñazen batean bi instrumentu? Zein akorde ta konforme elkarreki? Ortan dago dulzura. Baña baldin batek soñu bat, berze bat berze soña balezate, guzia lizake konfusio. Bidoeie bada konfesioa zitaran akonpañatus ta segitus amar kuerdetako psalterioa, au da, amar mandamentuena. Confitemini Domino etc.

6. Borz gauza gaitan prinzipalenak dire dolorea ta konfesazea; eta oietaik arzen du sakramentuak bere izena, zerengatik deizen da penitenziaren sakramentua, au da, urrikimentuaren sakramentua, oroat baita penitentzia nola urrikimentua, latines deizen dena paenitentia uskaras da urrikimentua, zerengatik sakramentu garren parte esenziala baita urrikimentua. Deizen ere da konfesioaren sakramentua, zerengatik berze parte esenziala baita konfesazea bekatuak. Ebek biok konfesioan dire ala nola biotza ta burua gizon bizia baitan; baleike izan gizona, naiz ez perfekto, oñik edo eskurik gabe, baño ez biotzik edo

bururik gabe; oroat diot konfesioas, estaike izan dolorerik gabe edo konfesatu gabe. Bi gebetara ordenazen dire berzeak. Joain gara batbanaka explikatuz ikasteko konfesazen ongi.

7. Orai jeneralki eman daiken adbertentzia da ezi nola ongi konfesazean baitoakigu ainberze, nola baita geren arima ta Jangoikoaren amistanza, ta nola falta baitaике zirkunstanziaren batean aisa aski, para zagula kuido bat andia joaterakoan konfesazera, oroat nola bagindoezi atrazera geuren eskus suertea edo boleta, izateko Jangoikoaren seme kerituak, edo deabruaren esklabo aborrezituak betikos; ez goazela kostunbres ta itxuras ajolarik gabe, baizik oroat nola baliz azken konfesioa, ta il bear bagindu bekala konfesatu ta berla, ta por konsigiente, oroat, nola balidoeie bat judio edo moro izana errezibitzera bataioa, despeiturik beingoas bekatu guziak, ta aldatzera bere izatea, pensaturik ezi ia konfesatu ondoan ezkaizen izan len ginanak, baizik diferenteak. Konfesatu ze bat ala ongi, ta gero aurkitu zue bere lagun bekatuetan izana, disimulatu zue, ezaunzenespalu bekala; ta berzeak admiraturik erran zio: Bada, eznauzu ezaunzen? Ni naiz urlia lengo gura. Bada, ni ez naiz lengo gura, errespondatu zio, baizik berze bat naiz. Au konfesatu ze ongi. Zein al rebes, berze gura, zein zoeielaik konfesazera aurkiturik bidean tentazalea, erran zio: Orai ez, orai noaie konfesazera, gero konfesatu ondoan. Ah zer intenzioa ta zer konfesioa! Ez orai ta ez gero, erran bear zue. Baña anitz konfesazen dire zeremonias, segun diren guti aldazen direnak kondizioetan.

8. Il zizaio bati bere aita, ta egunoro semeak iten zue orazio bere aitain arimagatik, utzi gabe egunik ogeita amabi urtes. Al kabo agertu zizaio aita garres inguraturik kexazera etziola laguntzen atrazeko purgatoriotik. Nola da ori, erran zio semeak, in dutelaik egunoro orazio orrengatik? Bai, erran zio aitak, egia da, baña etzaida deus baliatu, zerengatik egon zara beti bekatu mortalaren estadoan. Ez aita, ezi urteoro konfesatu naiz. Bai seme, baña gaizki, solamente zeremonias ta kostunbres, ajolarik gabe; ta orgatik etzara paratu grazian. Pensa, ogeitaamabi urtes konfesazen, ta beti gaizki, ta uste zuela seguro bere burua. Berze bates Santa Ines de Monte Polizianoren bizian kontazen da iten ziola Sandari ta bere monasterioari anitz limosna, ta eskazen ziotela enkomenda zezatela Jangoikoari. Ala iten zute, ta aldi bates zegolaik sanda orazio egiten ferborosa, ikusi zue bisionean infernua, ta an leku bat berex ta txoil dilijent demonioak prebenizen su lotsagarri baten gañean elze bat andia, ta juntazen erruedak, garfioak, parrillak, tenazak ta berze anitz instrumentu tormentazeko eginak. Galdegin zue lotsaturik sandak: Norendako prestazen da leku gau ain prisaka? errespondatu zizaio ezi urliaindako, nonbrazen ziotela kaballero beren deboto garren izena. O Jauna, erran zue zelos beterik sandak, ala sokorrientuenaindako orren esposak ainberze desdixta? Zer motibos? Zerengatik ogeitaamar urte du konfesazen dela, baña ain gaizki, ezi beñere estu erdetxi grazia, ta ellegazen zaio plazoa etorzeko leku gontara. Itzulzen da sanda bere sentidoetara, ta berla gastigazen dio kaballero garri datorrela berla berla. Etorzen da. Zer prisa da au? Da, zeintan baitoakio bere salbazioa. Kontazen dio ikusi zuena, ta alako itz ta lotsamenturareki, ezi kaballeroa antxe berla disponitu ze konfesazeko, ta deiturik sazerdote bat konfesatu ze denbora gortako bekatu guzies ongi; ta joanik bere etxera, andik fite ilze, ta errebelatu zizaio sandari ezi konfesio garren kasos libratu zela infernutik. Kaballero bat ta debotoa ta limosneroa, ta enkomendazen zena sandain orazioetan, ta ainberze denboras konfesa ta konfesa, ta beti gaizki? O Jangoikoa, bada estu nai gal gaizen nior, ta orgatik utzi digu konfesioaren erremedioa, bigu anitz grazia oroizeko ongi geuren bekatues ta konfesazeko dolore ta proposito egiaskoeki, baitare emateko satisfazio zordugunas kulpengatik,

lograzeko emen grazia santifikantea, gero gloria sekulakoa. Amen.

Serm. 67.
De examiné etc.
Anno 1781

Serutemur vias nostras, et quaeramus
et revertamur ad Dominum. Jerem. 3.

1. Osasunaren prinzipioa da ezaunzea gaiza. Ezaunzenestuen estu kurazzen medizinenak. Orgatik ikusten da medikuak galdegiten duela, informazien dela gaiztasun ta gaiztasun zirkunstantzies ezaunzeko, ta ezaundurik kurazeko. Delarik, bada, konfesioa medizina bakarra kristio bekatarientako, artako lenbiziko dilijentzia da examinazea konzienzia, ezaunzea bekatuak, baitire arimain gaiztasun. Aizagun Seneka mintzazzen, kristio baliz bekala: Initium salutis notitia peccati, onzeko prinzipioa da ezaunzea bekatua. Qui peccare se nescit, corrigi non vult. Estuenak ezaunzen gaiztasun iten duela, estu nai emendatu. Deprehendas te oportet, antequàm emendes. Da preziso aberiguatzea zeure utesak, emendazekos. Ideò quantum potes, teipsum argue. Orgatik aldeakezun guzia, bilazkizu, aberiguazkizu zeure faltak ta culpa guziak. Accusatoris primùm partibus fungere, deinde iudicis. Inzazu lenik akusazalearen ofizioa zeure buruorrek, gero juezarena. Baña aizagun klaroago Jeremias: Serutemur vias nostras, et quaeramus, et revertamur ad Dominum. Eskudriñazkigun geuren bideak ta pausuak, ta itzul gaizen Jangoikoagana.

2. Itz gebetaik atra daike zer den konzienziain examinazea. Konzienziain examinazea da bekatues oroitzera prokuratzea, pensazea ta memoriara ekartzea bekatuak errateko gero Jangoikoaren ministroari konfesioan. Galdegitea bere buruari: Quid feci? Zer egin dut? Lo bekala ajolarik gabe dago bekataria bere eriotzeareki ariman; estu kasorik egiten bere peligroas; estu senti bere dañua; idatzar bedi, beira bez ongi nolako estadoan dagon, zer diren bekatuak; ta ene kontura ezi mogituko da botazera beregandik ainberze beneno. Gertatu da noizbait arrapatzea biajante bat gauak oian batean. Doaielaik nora estakiela ilunbean, tropezatus pausuoro, utseginik bideak, beterik beldurres erorzeko barrankuren batean, dibisazzen du etxola iduri bat erdi eroria; ta naizbai, alare kontent, berla astatus eskues, apartatus arramak, kendus enbarazuak, sarzen da, ta erreparatu gabe goatzeain gogortasunean, etzaten da an arrimuturren ertean. Arzen du loak ta mogizenestela nekeain utses, pasazzen du gaua, aliketa goizeko argiak idikiartaño begiak; beirazzen du orduan non dagon; ta ikusten du inguraturik bere burua alde batetik bibora karabilkaturikako saldo bates, berzetik arrero benenosoes; ikusten du an tigre bat mogizen dela lostorditurik, aratago dragon bat edazzen dela horroroso. Jesus, zer da au? Instante egiten du salto bat; atrazzen da, eskapazzen da laisterka boladan, palpatazzen diola biotzak petxoan, ezin erdetxis kasik atsa; turbaturik begiak, deskoloriturik lotsamenturas aurpegia. Gizona, errain nioke, ainberze denboras, ta alako soseguan lo, ta orai ainberze prisas? O Jauna, errainlidake, andia da peligroa. Bada, zerk deskuidara zizaitu ainberze ordus? Ez ezaunzeak. Zerk orai mogiarazi zaitu? Ezaunzeak peligroa. Zertas duzu beldur? Beirazeuntenas. Zertas zaude ikar ikar? Ikusteuntenas. Bada, beirazeak, ta ikusteak kausatu dute ainberze beneno? Ez, baizik erreparatzea. Lenago ikusi banu, lenago atrako nitza. Jangoikoari graziak atra bainaiz bizirik. Estut kontatu agitzen dena material, baizik gertazzen dena bekataria baitan. Zenbat eta zenbat daude lo ilunbeetan bekatuen ertean,

beiratu gabe, erreparatu gabe, ezi bekatu mortaleak direla gaistoago ezi ez serpienteak, eskorpionak ta tigreak, daudenak ez inguruan, baizik arimain barnean. Argi bezote Jangoikoak; ikus bezate arimain eriotze presentea, infernua esperazen pean, demonioak etxideten ermateko, agrabiaturik ta asarraturik Jangoikoa, asarraturik alaber Ama Birjina ta sandu guziak, nior ez aiskide, guziak kontra. Nola daike bizi ala instante batean sikiera? Solamente ezauntzenestuena. Asi bedi examinazen bere konzienzia librazeko.

3. Eta noizaskerostik bear da examinatu konzienzia? Azken konfesio onaskerostik. Diot au, zerengatik ezpada konfesioa izan ona, berriz bear dire konfesatu konfesio artako bekatuak, ta konfesiobera ere bai, sakrilejio den bekala, zerengatik konfesio gaistoak estu garbitzen bekatuetatik arima, antes bien aumentazen du mantxa, ala nola nai balu batek garbitu aurpegia tintas. Konfesio gaistoa berritu gabe konfesazea alzina, da oroat nola kuraturik falsuan prosegitzea estalis zauria. Da nola zimendua tranpas banoan paraturik prosegitzea pareteak añaditus karga ruina iagotako. Da nola utsin ondoan bidea joatea alzina, ta zenbatenas ia doaien, makurrago ta nekeago erremediazeko utsa. Da, errateko konparazio llano bateki, oroat nola polaina batean boton bat utsiten bada, guziak baitoez makur, ta guziak berriro txuxendu bear baitire. Eta zer bekatues in bear da examina? Bekatu mortale guzies egin direnes naiz obras, naiz itzes, naiz deseos, naiz pensamentus; dudaskoes ere bai; konfesatuestirenes; gaizki konfesatues; ta zirkunstanzia bariazen edo aumentazen dutenes bekatua grabekiro, zenbat ta nolakoak diren, al daiken moduan dilijenzia prudentebatenmedios. Esta, bada, aski konfesazea ala montonean erraten dela, anitz aldis au, franko aldis ura, naiz bekatari andia etc.; bear dire berexi numero txustoan al badaike, ezperen, gutigorabera, ezi Jangoikoak ongi kontaturik dauzki gure bekatuak. Tu quidem gressus meos dinumerasti, zio Jobek, orrek, Jauna, dauzki kontaturik nere pausuok, et signasti quasi in sacculo delicta mea, ta berex ezarritu ala nola bolsa batean nere deliktoak. Bolsa batean bekala? Bai errepara zazie. Nork sarzentu bolsan errealak kontatu gabe? Iago. Milla otxin dauden bolsa batean ez solamente dago kontaturik zenbat, baizik ere kontazerakoan distingizen dire ogeiotxinekoak, borzekoak, amarerrealekoak etc. Ala, bada, examinatu bear dugu konzienzia, ez solamente berexis zenbat, baitare nolakoak diren kulpak ta zirkunstanziak.

4. Eta nondik egiten da konzienziaren examina? Amar mandamentuetatik, erreduzitus aietara an expresoki deklarazenestiren bekatuak ere. B. g. Lenbiziko mandamentuan examinatu bear da ia aborrezitu duen Jangoikoa, baitare ia erran duen blasfemiarik, ukatu edo dudatu duen fedean; dakien edo estakien doktrina kristioa, errezibitu duen gaizki sakramenturik, galdu duen esperanza etc. Bigarrenean ez solamente egin duen juramenturik banoan, baitare ia maldizio graberik bota duen. Irugarrenean ez solamente trabajatu den jaiegunean, baitare ia enzun duen meza, eta nola. Laugarrenean ez solamente galdu duen errespetoa guratsoei edo iagokoei, baitare ia kunplitutuen bere obligazioak edozein jenerotan, ia atzitzentuen ongi humeak ta bere kargukoak, ia doktrinazentuen, ia korrejitzentuen, ia faltazen duen exenpluan ta edozein obligazio duenetaik. Borzgarrenean ez solamente il edo eritu duen nior, baitare ia odioik edo diskordiaik izan duen, ia gaizki portatu edo mintzatu den, ia deseatu dion gaizik, ia alegratu den berzeain gaizas, tristatu den berzeain onas, ia bere buruari ere in edo deseatu dion gaizkirik, ia egin duen exzesorik jan edanetan edo berze gisas. Seigarrenean ez solamente egin duen bekatu desonestorik, baitare deseatu edo pensatu duen librekiro, berzeeki edo bere buruareki, estadoa, aikoak ta gañarako zirkunstanzia aldazen ta anditzen dutenak anitz bekatua. Zazpigarrenean ez solamente ebatsi duen artus berzeren gauza

eskus, baitare ia perjuizioik kausatu dion haziendan, tratu gaistos, medio lijito estirenes, ia kunplitutuen ongi bere kargura dituen manejuak, pagatutuen zorrak aldeazken gisan, egintuen txustoki amarren primiziak maliziarik gabe, ia detenitu duen berzeren gauza, ia konsentitu duen nolapait berzeain dañuan etc. Zorzigarreanean ez solamente falso testimoniorik goratu duen, baitare ia in duen juizio gaistorik, agertu duen sekretorik, kontatu duen enbustearirik, erran duen gezurrik ta edozein gisan in duen perjuiziorik honran edo faman. En fin, examinatu bear da ia edozein modus ofenditu duen Jangoikoa.

5. Eta, Jauna, zer kuido paratu bear da examinazean konzienzia? kuido bat dilijentea ta prudentea, parazen dena negozio anitz inporta duen batean, zerengatik inporta du anitz konfesazeak ongi. Iragazteko pleitu bat, bilazen dire dilijenziareki arrazioak, testigoak, proguak etc. Ezarzeko zensuan kantidade bat, informazen da finkes, karges seguridadeaindako, estaien izan engañurik. Akomodazeko alaba bat, zenbat diskurso, zenbat galdetze, zenbat informe? Bada, guziau baño ia da ongi konfesazea; esta bear gutiago dilijenzia. Errepasatu gogoan zer iteko, zer leku, zer laguneki erabili den, alako denboran, alako egunean, alako gauean, oroitu zenbat faltatu duen jenerobakotxean, bein, bi, edo irur aldiz, bear den bezanbat. Baña bitarteo kondenazen den bekala floxedadea ta deskuidoa, enkargazen da prudenzia. O! Bearbada, errain du norbaitek, egon banitza ia denboras examinazen, oroituko nitza ia. Esta au argumentu sufiziente, egon bazara dilijent denbora moderatuan konfessoreain juiziora, aski da, esta manazen sobraniatua galduartaño burua, turbatuartaño konzienziain sosegua. Beñik bein konsolazeko arima intenzio onetakoak, diot, ezi ala nola ezpaitugu obligaziorik konfesazeko bekatu benialeak, baizik mortaleak, alaber estugu obligaziorik examinazeko baizik mortaleak, ta ala nai baitugu ere konfesatu benialeak, esta aflijitu bear ez oroituagatik guziak. Bigarrena diot ezi egin ondoan examina dilijente bat, aski dela konfesazea oroitu garenes, ta konfesioa dela ona, ta barkazen direla atzenduak ere ezin berzeas, solamente obligazioreki konfesazeko oroizen garelaik. Irugarrena diot, ezi egin duenak ia sinki konfesio bat jeneral arturik denbora sufiziente konfessoreain juiziora, ta aldatu duenak bizi modua, estuela obligaziorik examinazeko lengoak, suponitu bear baitu konfesaturik bide daudela. Orai oroi baledi zerbaites, zein prudenteki iduri bailekio etzuela konfesatu, konfesa bez ori. Gañarakoan ez aflijitu errepasazen ia ta ia lengoak.

6. Eta, Jauna, zenbat denbora in bear da examinazen konzienzia? Estaike eman erregla fixorik. Denbora ia bear dute, argalago konfesazen direnek, ala nola anitz denboras loiareki dagon onzia nekesago garbitzen baita. Baitare anitz iteko dutenek ia ezi ez libre dagonak kargetaik. Bilo guti duenak aski du orraxa guti, baña bilo anitz nasi ta zorrizu duenak orraxa ia bear du. Beldurti bizi denak kuidatus ez ofendizeko Jangoikoa, estu bear ainberze examina, nola arro ajolakabe nolanai bizi denak. Aisago izain da oialtxurizale batek garbitzea eskuak, ezi ez ikazgin edo arotz batek. Zer erremedio, iteko examina aisa ta fite? Erremedioa da maiz konfesazea ongi, ta egunoro errepasazea konzienzia, ta joatea bildus memorian ines doaien bekatuak egunetik egunera. En fin, alako maneran bear dugu examinatu konzienzia, bear bagindu bekala joan berla ematera kontu Jangoikoaren tribunalean gure bizimoduas, eta an rigurosoki arzen da kontua. Kontazen du San Juan Klimakok bizitu zela desertuan monje bat, Esteban izenes, bizimodu pasmagarri batean; arren nigarrak zire kontino, baruak perpetuo, goatzea arri gogorak, deskansua disziplina odoleskoak. Ala biziturik berrogei urtes arrapatu zue azken eritasunak, ta ia ilzera urbil zegolaik, asi ze egiten amostrazio andiak, beirazen zue ia alde batera ia berzera beterik kongojas; bein erraten zue: Ala da, eginue ori, baña ortako in dut ainberze urtes

penitenzia. Berze bein erran zue: Esta ori ala, estut nik egin alakorik. Ala zego aflijiturik beira beira, norbait ikusten bekala, aliketa azkenean erranartaño: Bai ala da, ta estut zer errespondatu, baizik baliadakidala Jangoikoaren miserikordia. Au erran ta ilze, utzirik dudoso presente zeudenak, salbatu ote zen edo ez. Zer izain da suelto bizi direnes? Etc. etc. etc.

Serm. 68.

De defectibus examinis et occultor.

ann. 1781

Delicta quis intelligit? Ab occultis meis munda me,
et ab alienis parce servo tuo. Psalm. 48.

1. Nork entendazentu deliktoak? erraten zue beldurres beterik Dabidek. Jauna, garbi benaza nere bekatu okultoetaik, ta barka bezkida berzeren bekatuak. Zer da au, fiolak? Zer bekatu dire okulto goiek? Dire bekatu omisioneskoak geienenik, zein ezpaitire erreparazen askotan. Ori entendazen dut. Baña zergatik dio Dabidek barkadezkiola berzeren bekatuak? Bereak esta aski barkadezkion? Ez, baizik bereak ta berzerenak. Bereak dio berak, bere personas intuenak; berzerenak dio, berzeek arren kasos edo arren deskuidos intustenak, guziok baitire berain gain. Bada, ongi dio Dabidek: Nork entendazentu deliktoak? garbi benaza, Jauna, nere bekatu okultoetaik, ta barka bezkida berzerenak, nere gain direnak. Orgatik nik ere trataturik konzienziain examinain gainean azken platikan, egun dut intenzio jardukizeko examinatzearen gain bekatu okultoak, ta berzerenak gure kasos direnak, baitare examinain faltaen gain.

2. (erran gindue solamente obligatuak gaudela konfesazera bekatu oroitu garenak examina dilijente ta prudente baten medios, ta atzendu direnak ezin berzeas, barkaturik geldizen direla, naiz ez konfesaturik, solamente obligazioareki konfesazeko oroizen garelaik aietas. Baña difikultade dena da, ia egiten den examina dilijentea ta prudentea; ezi ezpada egiten, gure kulpas da, ta gure kulpas atzendurik gelditu zire, ta por konsigiente gure kulpas etzire konfesatu, estare barkatu. Atzentze gura da borondateskoa, kuido ta dilijenzia faltas, ta por konsigiente estu exkusazen. Estu exkusazen ere ignoranziak geien komun, zeren baita deskuido ta floxeza ikastean, delaik ainberze doktrina ta ainberze erakustun. Defecerunt serestantes serutinio. Faltazen dute eskudriñazaleek eskudriñan, au da, examinazean, zeren estuten errejistrazen ongi konzienziaren zokoak atrazeko begietara bekatuen kontrabandoa. Zer errain gindue doaienas eskudriñazera etxe bat, ta zerengatik den apasionatua etxeoengana, solamente in lezaken eskudriña zeremonias, axal axala, miraturik solamente patente ta gainean daudenak, idiki gabe arka sekretoak, errejistratu gabe zokoak? Etzuela kunplizen bere obligazioareki, etzuela nai aurkitu kontrabandoa, zerengatik au geienenik prokurazen da estalzea zoko sekretoenetan. Ala bada, franko engañazentu bere buruain amorio sobrak, bere pasioneak, bere suberbiak, ez mirazeko ongi konzienziain zokoak, ez aurkizeko bekatuak. Da konzienzia gaistoa, ala nola kuarto ilun bat traste zarres betea, zeinen ertean okultazen baitire saguak, zapoak ta mormotak. Xauzekos ongi, bear da argia, bear da dilijenzia. Da bekatariain konzienzia, nola mataza bat nasia; bear da argia, bear da miratu pazienza ta kuidadoreki nondik nora doazin arien kaboak. Baña ertxibaleites begiak berarias, apartabalei argia, utzibalei floxezas errejistratzeko, ia ezleike dei examina dilijenta. Bada, redite praevaricatores ad cor, dio Jangoikoak; itzuli, itzuli bekatariak biotzain barnera, errejistratzera bekatu okultoak, agerzako ta garbizeko).

3. Bekatu okultoak dire gutiago ta nekesago ezaunzen direnak; alakoak dire biotzean geldizen diren bekatuak atra gabe obrara. Pravum est et inscrutabile cor hominis, quis cognoscet illud? Maliziosoa ta eskudriña estaikena da gizonaren biotza, nork

ezaunduko du? dio Espiritu Sanduak. Eta delarik biotza gizonaren parte prinzipalena, klaro da bear dela artas zerbitzatu Jangoikoa, ta biotzak admitizen badu deus Jangoikoaren legeain kontra, agrabio iten zaiola Jangoikoari, eta ainberze ezi estu estimazen honra iten zaiona orazio ta laudarioen medios, ezpadago Jangoikoagana biotza, kexazen den bekala bere Majestadea. Populus hic labiis me honorat, cor, autem, eorum longe est â me. Pueblo gonek honrazen nau ezpañes, baña beren biotza urruti dago enegandik. Badire zenbait, zeñek ezparin baute obras egiten gaistakeriak, ezpaitute ajolaik, naiz gogoan admititu baituste ere. Eta Jesu Kristok erran zuena da ezi solamente beirazea emasteki bati deseazeko, aski dela bekatuaindako, ia alakoak kometitu duela adulterioa biotzean. Qui viderit mulierem ad concupiscendam eam, jam noechatus est cum eâ in corde suo. Orgatik, bada, bear dire examinatu, ez solamente obrasko gaistakeriak, baitare deseo gaistoak ere; ez solamente deseoak, baitare pensamentu konsentitu direnak biotzean. Pensamentu gaistoa ezpada konsentizen, esta bekatu; baña zenbat aldis gertazen da egotea gozazen pensamentu gaistoan? Ta au mortale da. Zenbat aldis egoten da deskuidaturik ta engañaturik bere floxezas, edo malizias, ta guzia examinatu bear da ta konfesatu, baldin gogoa joan barin bada guzis, edo dudan barin badago joan den edo ez, oroiturik beti ezi Jangoikoak, oroat, ikusten ta manazen duela biotza, ta eskatuko duela kontu, oroat, biotzesko bekatues. Ab occultis meis munda me.

4. Berze bekatubazuk erran dugu omisionesko bekatuak edo omisioneak obligazioetan deizen direla, geienenik okultoak, zeren ezpaitire erreparazen askotan. Eta zer dire omisionesko bekatuak edo omisioneak? Omisioneak dire, ez egitea obligazio dena; ala nola egitea zer bait debekazen dena baita komisionea. Komisioneak klaro dire, erratea juramentu falsuak, ta maldizioak, trabajazea jaietan, galzea obediencia ta errespetoa iagokoei, ilzea, herizea edo afrentazea norbait, egitea bekatu desonestoa, ebastea, murmurazea etc. Ebek guziok dire komisioneak, edo komisionesko bekatuak, zerengatik eben egitean kometizen baita debekatua den gauza. Omisioneak estire ain klaro zenbait, zeren konsistizen baitute ustean egin gabe in bear ziren gauzak, b.g. ez ikastea doktrina, ez itea erreparorik asko gauzetan bere floxezas, ez bilazea erremedioak onzeko arima, ez trabajazea bere obligazioan, ez kuidazea familias ta bere kargukoes, ez ematea limosna beartsuei, ez korrejitzea gaizki iteuntanak, ez jakitea bere deskuidos humeen ta nirabeen perdikeriak, ez apartazea okasioak, ta berze alako era franko; ebek deizen dire omisionesko bekatuak edo omisioneak. Esta aski ez egitea gaizkirik, bear da in ongi, ezi ezpada egiten ongi, ezkaizke sar zeruan. Zarmenduak ezpadakar fruitu onik, ebakizen du nekazariak, naiz ezpadakar ere gaistorik. (Ebanjelioan leizentugu kastigo andiak omisione sollengatik. Ellegatu zena boda gaietara bodako bestidura gabe, desterratua izan ze loturik esku oñak, ta etzue erran itz gaistorik, etzue egin akzione torperik, solamente zeren izan zuen omisionea ez ermatean bestimenta dezentea. Berze garrek, zeñi eman baizizaio talentoa, etzue jokatu, etzue malenpleatu, solamente zeren utzi zuen enplegazeko nausiain fabore, izan ze kondenatua. Borz birjina gaiek birjinak zire, etzute in torpezarik, ta ertxi zizaiote ataria alare. Zer kulpazute? Omisionea, omisione solla, ez prebenitzea olioia. Abrats abariento gura orzi ze infernuan. Zergatik? bestizen zen purpura ta olandagatik? Ez, baizik omisioneagatik, ez eman Lazaro pobreaki limosna. Biku bat madarikatu zue Jesu Kristok ta sekatu ze, zergatik? Akaso zekarra fruitu benenosoak? Akaso zekarzkie aranzeak? Ez, osto galantak zitue; solamente zeren ezpaizekar fruiturik. Lege zarrean Heli sazerdotea ilze derepente Jangoikoaren kastigos, in gabe bere personan gauza gaistorik, solamente zeren etzituen korrejitu bear bekala bere semeak).

5. Orgatik espezialki berzeren kargu dutenek beaute examinatu omisioneak edo faltak bere obligazioetan. Zer ai naiz ez inagatik neuronek ordikeriarik, torpezarik, ladronkeriarik ta alakorik, baldin nere kargukoek iten baituste nere kulpas, deskuidos edo ignoranzias? aplika zazie zeurendako ere doktrina gau aitetamek ta nausi etxokandreek. Bere burua baizik kuidazekorik estuenai solamente bere buruas kargutuko diote; baña berzeen kargu duenai, bereas ta berzeenes. Jauna, iten baute gaizkirik, iteunte nik jakin gabe. Esta eskusa ona, bear zindue zelatu jakiteko ta erremediazeko. Arzaiak estakielaik, otsoak ermaten baitu ardiak, etzaio admititzen exkusatako ez jakina, jakin bear zuelaik. O omisione lotsagarriak! Daikela bat kondenatu in gabe batere obra gaistorik berebaitan, solamente zeren iteunten bere kargukoek arren faltas? Ura lo dagolaik, errezazen, edo konfesazen, kargadakiokela bere pekoain bekataua oroitzen etzena, pensamentazen etzuen? kontazen du Belarminok, zegola ilzeko peligroan prelado sandu bat, ta galdeginik ia bazuen zertas errekonziliatu, errespontatu zue (sic) etzela oroizen deus eginas Jangoikoaren legeain kontra. Eta omisiones estu erremordizen konzienziak? Orduan saltazen zizaizkiola begietaik nigarrak erran zue: Omissiones nimium me exterrant. Lazki lotsazen naute omisioneek. Au gertazen bada gizon sandu batean, zer izain da deskuidatuas, ta floxo ajolakabeas? Orgatik berzeren kargudunek beaute examinatu, ez solamente berek intusten kulpak, baitare izantusten faltak obligazioetan. Ellegatu ze Karlos B enperadorea konfesazera sazerdote bateki okasio batean, ta akusatu ondoan berak kometitu zituen kulpes, erran zio konfessore diskretoak: Estu ia akusazekorik? Dixisti peccata Caroli, dic nunc peccata Caesaris. Konfesatu da Karlos bekala intuen faltes, konfesa bedi orai enperadore bekala bere ofizioko omisiones; ezi duenak bere kargura mundua, estu kunplizen solamente akusazean bere burua intuen kulpes, bear du examinatu mundu guziari faltatu dionas. Oroat diot, etxeko nausi edo etxokandreak estu aski examinazea berze partikulare batek bekala, zer in duen, bear du examinatu ere zer utzi duen in gabe bere familiaren gobernuan; oroat, nik ez solamente examinatu beaut gizon komun bat bekala nere personan kometiturikako kulpas, baitare arzai bekala nere puebloan ta nere ofizioan faltatu dutenas. Ario gontara diot berze kargudunes.

6. Omisione gebetan, bidanabar apuntatutugu parte berzeren bekatuak, zeñetas eskazen baizue Dabidek barkazio, et ab alienis parce servo tuo, ta zeñetas examinatu bear baikara, zenbatenas diren gure gain gure kulpas. Estut erranai ontan bear tugula examinatu berzeren kulpak kontazeko konfessoreai, garbitus geuren buruok ta botatus berzeei kulpak; ez por zierto, zerengatik au esta konfesazea, baizik murmurazea konfesonarioan; au esta akusazea bere burua, baizik exkusazea; au da fariseoain konfesioa. Diotena da ezi bear dugula examinatu ta konfesatu guk dugun kulpa berzeen bekatuetan, zeñetan iten baikara partizipante anitz modus. Lenbizikoa da manatus: Zer da inport ez inagatik zuk zeure eskus ladronkeria? Manatu barin bauzu, zure gain da. Dabidek etzue il bere eskus Urias, manatu zue. Pilatosek etzue kruzifikatu bere eskus Kristo, sentenziatu zue. Herodesek etzitue il bere ezpatas aur inozenteak, manatu zitue bere ministroak, ta aski da. Bigarrena da konsejus, au da, akonsejatus gaistakeriak. Kaifasek konsejuareki edeki zio Kristori bizia. Herodias adulterak konsejuaren medios edekiarazi zio San Juan Bautistari burua. Zenbat bekatuetan diren lagun lagun gaistoak, erakusten diotenak berzeari gaistakeria? Inzitazeuntenak inozentea ebastera, torpezatara? Erakuslari infameak, konsejari gaistoak, deabruaren enbustarak, infernuko fuelleak, zuen gain da berzeak ikasi duen ebastea, desbergenzoa (sic) ta pikardia; ta zuen gain da arima garren kaltea, pizazen duena oian batek baño ia, ezpauzie ere sentizen; sentitukouzie ondazenzaistelaik infernuan, ezpauzie

prokurazen erremediazea. Irugarrena da konsentizea gaistakeriak. Arrikazean San Esteban Saulok, etzue baizik konsentizen ta goardazen arrikazaleen tresenak, ta orgatik dio San Agustinek ezi Saulok arrikazen zuela guzien eskus. Ezpalire konsientak, guti lirazke ladronkeriak, desonestidadeak ta exzesoa. Kontazen du Eroltok, zegola neskakotto bat errezazen bere amain obia gañean arren arimain fabore; ta ala zegolaik, ikusi zuela derepente itzal ilun bat bere aldakan erran ziona triste: Etzazula errezatu neregatik, ni naiz zure ama, kondenaturik bainago. Bada nola da ori, ama, ikusi ginduelaik il zen elizako ordenamentueki? Bai, erran zio, egiada, baña ez naiz kondenatu nik inikako bekatuengatik, baizik konsentituas neskatoei, ta erreprehenditurik konfesoreek anitz aldis, beñere ez nuen erremediatu; aiek naukate infernuan. (Parr. de Poenit. pl.8) Laugarrena ta gutiago ezaunzen dena da lisonjezea, algo ematea. Estisko lakioa deitu zue au Diojenesek, zerengatik ala nola uliak estian, ala arrapatzera usten dire anitz persona adulazioan edo lisonjan. Ori ikusten da non nai, direla algo emanzaleak, estela biziorik zein esten dorazen, errateuntela on direnei, oriek direla eskrupuloak, bear dela zabaldu konzienzia, gaste delaik gozatu bear dela mundua, gizon emastekien komunikazio libreak direla dibersio inozenteak, estuela izan bear simple, estuela sinestatu bear sazerdoteek errateunten guzia, ponderazeuntela den baño ia etc. Algo gebeki galzen dena! Eta nork erreparazen du? Bada, inzalea ta algo emanzalea daude lakio berean, ta fuertego algo emanzalea. Examina bedi ta konfesa bedi alako algoes, ezpadu nai galdu. Borzgarrena da ematea leku, defensa edo fabore. Apenas aurkizen da lapurrik, jokari ta perdidorik, emakume gaistorik estuenik ogeitaamar anparazale, alkahuete ta estalzale. Eta deustako estirenak gañarakoan, badire estalzeko gaistakeriak, ala nola elze zar autxia estelaik protxal elzetako, da berze elze baten estalkitako. Txinurriek bilazeunte kueba non altxatu garipikor ebastentustenak udan. Badire berze txinurribazuk uda ta negu, ta bilazeunte zenbait zoko ladronen kueba, non estalzen dioten ebatsia. Baña estiote estalzen Jangoikoari. Examinabeites Jangoikoaren alzinean, ezi estalzaleek partizipazeunte bekatua. Seigarrena da partizipatus edo lagundus gaistakerian, eben bekatua estaike disimula. Zazpigarrena da isildus gaistakeriain egitean bear zuenak minzatu, oiuegin ta estorbatu etzeien egin. Zorzigarrena, estuenak inpedizen dezakelaik inpeditu. Bedrazigarrena, ez manifestatus bear denai, duelaik obligazio, emendazeagatik. Zenbat modu kondenazeko bat berzeren bekatuengatik! Azkenik da berze modu bat botazeko bere gain berzeren bekatuak, au da, inzitatus, tentatus edo mogitus bekatuetara edozein gisas. Txismosoek ta enbusteroek zenbat dañu kausazeunte beren kontues? Irrigilleek zenbat arima birtuosa galarasteunte beren burles? En fin, eskandalo emateuntenek edo akzione edo itz gaistoeki? Zenbat eskandalizazen duten, berze ainberze lakio erredoblazen dute, galzeko beren arima. Bada, oroitu ta aberiguatu berzeren bekatuak zeuren gain tuzienak, zeren in diren zuen kausas, zeren partizipatu duzien modugebes edo berzees; ezi gauza lotsagarria da ezin jasis gaudelaik geuren kulpa propioak, kargazea eben gañetik berzerenak. Kontazen du Kantinpratok bere kondiszipulo bates ezi biziturik ongi, galdu zuela gero lagun gaisto batek. Arrapatu zue eriotzeak, ia konfesorik ta dolorerik gabe, baizik itz gebeki: Ni banoaie infernura, baña ai erakutsi zidan gartas bekatu egiten! (Parra p.2. pl.40) Zer izain da gutas, baldin barin badoaie edo joan bada norbait arara gure kulpas! Examina gaizen ongi konfesazeko, ta berladanik prebenizeko biotza inzkigun fede, esperanza etc, etc.

Serm. 69.
De praxi examinis.
ann. 1781

Recogitabo tibi omnes annos meos
in amaritudine animae meae. Isai. 38.

1. Eman dugu ia doktrina konzienziain examinatzeain gañean, ta ori izan da ala nola prebenitzea materialeak, arriak, zurak, morteroa ta gañarakoak, gorazeko fabrika bat; orai ia ezarri bear dugu forman edo plantan doktrina emanikakoa; nai dut erran, erakutsi bear dutela konzienziain examinazeko modua, estaien gerta ellegazea konfesazera, lendanik pensatu gabe bere bekatu konfesatu beartuenak, fiaturik galdeinen diotela konfesoreak, errespondazeko agora eldu zaiotena, gezur errateko peligro andian. Ez luke bear izan prezisiorik konfesoreak galdegiteko deus ere, zerengatik al kabo konfesorea dago aizeko konfesazen zaiona, ta penitentea doaie konfesazera duena, ta bear luke konfesatu naiz ez galdeginik ere; baña penitenteain kapazidadeain konforme egonagatik konfesorea obligaturik galdegitera, ta galdegines laguntzera penitentea, egindezangatik konfesio osoa, alaere estaie ellega au diskurritu ta aberiguatu gabe al guzia bere kulpak; espezialki denbora luzeko konfesioan, zerengatik nola errespondatukouzu derepente, orai sei edo zorzi ilabete in duzun gauzas, zenbat aldis ta nola, ezpauzu lenetik aberiguazen? Ontas landara konfesoreak estakizki zure inklinazioak, kostunbreak, okasioak ta peligroak, nola nauzu adibina dezan instantean? Botiga jenero infinizio bat den batean nola da posible joatea atras tentus an izan daizken jenero guziak? Bada, konzienzia arro batean izan badaizke ainberze jenero bekatu, nola doake konfesorea galdetus guzietas, ta penitentea errespondatus derepente? Da imposible. Supli dezake konfesoreak anitz aldis zerbait falta examinarena, baña deus ezpauzu pensatu lendanik, zer dezakezu erresponda? Bego, bada, suponiturik ezi nezesidade orduas landara, beti konfesiara baño len in bear dela examina dilijentea, dion bekala irur aldis, ez gutiago, Trentoko Konzilioak: (lenbizikoan dio, omnia peccata mortalia, quorum post diligentem sui discussionem, conscientiam habent, in confessione recesere etc., bear direla erran konfesioan bekatu mortale guziak konzienzian aurkitutuenak bere buruaren examina dilijente baten medios: Berriz dio: Postquam quisque se diligentius excusserit, et conscienciae suae sinus omnes, et latebras exploraverit, ea peccata confiteatur. Examinatu ondoan bakotxak txoil dilijenteki bere burua, ta errejistratu ondoan bere konzienziaren zokoak ta estalkumeak, konfesa bezki aurkizentuen bekatuak. Irugarren aldian dio: Singula peccata quorum memoria cum debita et diligenti praemeditatione habeatur etc. Konfesazeko bekatu bakotxak edo guziak berex, zeintas oroitu den, pensatus lenetik bear den dilijenziareki. Por konsigiente, bear den dilijenzia gabe examinan in diren konfesioak estire onak, zeikelaik geldi bekatu mortale zenbait konfesatu gabe bere kulpas). Au suponiturik

2. Kontu inzagun arzen duzula intenzio konfesazeko alako egunean. Lenbiziko ekarri beazuna pensamentura da eman beazula Jangoikoari kontu zeure arimas ta zeure bizimoduas, errezibizeko mereji duzun sententzia; eta Jangoikoak, ez aurkitu naies motiborik zure kondenazeko an, utzi dizula emen konfesioaren tribunalea, non konfesaturik barkazen zaizun guzia, an barkatutako emain baita, eypadio gezurra Jangoikoak. Au suponiturik, oroat nola joan bear bazindu bigarren bataiora, erresolbi zaite

errepasazera ta erratera zeure kulpak guziak, ez ia ta ez gutiago, nola Jangoikoaren tribunalean; ta ortako, lendanik arzazu denbora sufizientea, baitare leku erretiratua, examinazeko konzienzia. Arenal konfesazen barin bazara, da preziso arzea denbora ia, ta errepasazea irur, laur edo ia aldis konzienzia espazioreki. Maiz konfesazen bazara ta ongi, edo akostunbrazen barin bauzu gauoro pensazea egunoroko bekatuak, askikouzu denbora guti berexteko mortaleak, zein solamente baita obligazio konfesazea, ta zeñen kasos solamente in baitaiken konfesio gaistoa. Edozein gisas, konfesioren baño len prebenitu bear da bekataria, ez solamente atrazeko bekatuak memorian, baitare itxekizeko biotza dolorean. Paraturik leku erretiratuan, dela elizan, dela etxean, asi zaite zeñatus kontriziosko aktareki; au da prebenzio bat txoil konbenientearen edozein gauza espiritualeetan. Gero, lenbiziko in dezakezuna da ematea Jangoikoari graziak intizun mertxede guzies bizi guzian ta lenagotik, zeren kriatu zaituen, zeren erredimitu zaituen, zeren eskojitu zaituen kristiotako, zeren sufritu zaituen ta mantenitu ainberze denboras mundu ontan bota gabe infernura, ta zeren paratutizun sakramentuak --espezialki konfesioa-- zuri barkatu naies, ta zeren konbidazen zaituen bere Majestadeak alzinaturik zure bila etzaitzengatik galdu. Errandezokezu Jesu Kristori gisaontan, edo berze alako batean: O nere Aita dibinoa, ona non eldu naizen orrengana ni, berorren hume galdua, ezaundurik ia naizela gaistoa ta sobra gaistoa; baño ori da ona ta agiz ona, nik bear bekalako Aita inkomparablea: Non da nior ori bekalakorik zeruan ta lurrean? Bada, Domine ad quem ibimus? Norengana joain naiz, baizik berorrengana? Esker milla milla, Jauna, ematen diot, zeren ni jaio baño len kaso in baizue nitas, ta kriatu bainindue beretako; esker milla milla, zeren erredimitu ere bainindue bere bizi ta odol preziosoaren kostus; esker milla milla, zeren eskojitu bainau kristiotako ta jaioarazi bainau kristio errian, ta ellegarazi bainau bataiora berze franko ez bekala; esker milla milla, zeren sufritu ta mantenitu bainau bizirik ni, gaistofikatuau, bota gabe infernura mereji nuen bekala, --milla aldis botaninduke justoki, nai izan bazue--; esker milla milla, zeren utzi baitu elizan sakramentuak, espezialki konfesioarena, barkatu naies nere kulpak; esker milla milla, zeren nik bilatu bearrean berorri, berorrek ni billazen ta konbidazen bainau bear ez nauelaik deustako; esker milla milla berze gañarako ezauntzen estuten benefizioes. Biz bedeikatua ta alabatua guzien agos ta leku guzietan orren ontasun infinitoa, nere Aita ezin ohea.

3. Graziak eman ondoan da preziso eskatzea argitasun, ezauntzeko ta sentizeko bear bekala zeure kulpak, zerengatik ala nola ebanjelioko emakume garrek galdu zuenak dratxma itxeki baizue argi, xautu etxea ta bilatu baizue dilijenzia andiareki, ala aurkizeko grazia galdu duena bekatariak bekatuen kasos, bear du eskatu zerutik argitasun, errejistratzeko konzienziain zokoak; ezperen, nork entendatu deliktoak? Delicta quis intelligit? Zerengatik zenbatenas bekatu ia, ilunago parazen da konzienzia, ta eskatu bear da argi dezagun Jangoikoak. Eskadezokezu modu gontan edo alakoan: O Aita dibinoa, sobra sobra ofendizen dugu guziek berori, ta erraten badugu estugula bekatuak gezurra diogu; ez naiz ni bekataririk txikiena, baizik ingrato gaisto andiena. Zein goizik asi nitzan bekatu egiten! Eta asiaskerostik estut pasatu egun bat bekatuak gabe, baizik ere egunoro noaie añaditus ta montiatus bekatua bekatuain gain pensa dezaketan baño ia. Nik solo dakit egiten gaistakeriak, estakit sikiera ezauntzen nere gaistakeriak; bida, otoi, Jauna, argitasun ezauntzeko nere kulpak, ta grazia berexteko ongi nere bekatuak, konfesazeko diren diren bekala; baitare debozioaren su andi bat sentizeko bear bekalako doloreareki gaizki egin guzia. Orren laguntzaren esperanza noaie examinazera nere konzienzia

intenzio finareki.

4. Eskatu ondoan Jangoikoari grazia, ia bildurik zeure baitan, ertxirik begiak, apartaturik berze estorbu guziak, asi beazu examinatzen. Ta lenbiziko examinatua beazuna da, ia azken konfesioa izan zen ona, ia faltatu zinduen deus edo examinatzean, edo dolorean, edo izan zinduen proposito firmea, edo utzi zinduen deus konfesatu gabe, edo kunplitu zinduen penitencia; ezi erran nuen bekala azken platikan, gaistoa barin baze lengo konfesioa, berritu bear da, konfesio artako bekatuak ta konfesio bera konfesatu bear dire berri berritan, ezperen, prosegitzea alzina da edifikatzea banoan, añaditza sakrilejioak ta engañatzea bere burua, ta palakatu bearrean, joatea añaditus Jangoikoaren ira. Au supuniturik, beazu joan mandamentus mandamentu, detenitus bakotxean zer manazen duen, ta diskurritus egin duzun, edo erran, edo pensatu duzun deus arren kontra; ta zenbat aldis, ta zer zirkunstanzieki, adbertitu nuen bekala berze egunean; ta ez pasatu berze mandamentura, aliketa idurituartaño aberiguatu duzula mortale den guzia. Etzaizulaik ia okurri zen mandamentu garren kontra, pasa zaite berzera, ta artan, oroat, diskurritu zer ta zenbat aldis in, erran edo pensatu duzun arren kontrako gauzarik; ta ario gontara guzietan, errekorritus memoriareki izantuzun okasioak, erabilituzun lekuak, okupazioak, dibersioak etc. Orreki joain zaizu okurritus alako lanzean au, alako egunean, alako gauean, alako okasioan berze gau, ta au, ta alaxe joain zara bildus zenbat diren kulpak mandamentu bakotxain kontra. Eta baldin konfesioa barin bada luzea, examina daizke mandamentu bat edo bida egun bates, berze bat edo bida berze egun bates, edo bat edo bida goizean, berze bat edo bida arratsean, segun den bakotxain nezesidadea. Examina daike, alaber, konzienzia asis bere pasione dominantetik. Pasione edo inklinazio dominantea deizen da ura, zeñek iagotan garaizen duen bat, edo zeintan iagotan faltazen duen. Batek faltazen du ia iran, onen pasione dominantea da ira; berze batek ia faltazen du luxurian, onen pasione dominantea da luxuria; berze batek ardoan, onena da gula. Ta ario gontara, bada, asi daike, nai badu, examinazen lenik zer faltatu duen bere pasione gortan, ta gero prosegitu berzeetan; baña aisago ta seguroago da mandamentus mandamentu. Adbertizen dut orai ere, berriz, persona Jangoikoaren beldur direnen konsolutako, ezi ala nola nai ezpalu, ezpaitu obligaziorik konfesazeko benialeak, ta konfesa baitezazke naituenak ta nai eztuenak ez benialeetaik, ala estu obligaziorik niork examinazeko bekatu banialeak; ta nai baitu ere examinatua, esta aflijitu bear ez aberiguatuagatik zenbat. Solamente, bada, gaude obligaturik examinazera mortalak ta dudaskoak, zenbat diren beren zirkunstanzieki. Orgatik, persona Jangoikoaren beldur direnek, supuniturik ezi beñereez edo gutitan erorzen direla bekatu mortalean, aski dute denbora guti examinazeko konzienzia, zerengatik fite okurrituko zaiote gauza grabe in dutena Jangoikoaren kontra; ta lebees esta obligaziorik, ta por konsigiente, ebetan esta bear ainberze dilijenzia.

5. Eta, Jauna, ezpadezaket aberiguatu zenbat diren bekatu mortale intudanak, zerengatik baitire anitz, zer in bear dut? Bego asentaturik, ezi konfesioain legeak solamente manazen gaituela erratera aldeazkegunak aberiguatu examina dilijente ta prudente baten medios, ta gisaontan atzendu badire ere zenbait, guziak barkazen dire; solamente geldizen da obligazioa konfesazeko, oroizen garelaik atzendu ziren gaitetas. Por konsigiente, esta bear nior aflijitu, guziendako da erremedio, nola den dilijenzia ta kuidado examinazean. Orai bada, ezpadezakezu aberiguatu txustoki zenbat, benzait atra zazu kontua guti gora bera. Ez dezakezu au ere? Bada, a lo menos aberigua zazu iloro zenbat aldis, edo asteoro, edo egunoro zenbat guti gora bera bata berzeareki, desuerte ezi entenda dezan konfesoreak zure arimaren estadoa sikiera modu gontan, ta askiko da estaikelaik ia.

Baña ezpada egoten diskurrizen, edo axal axala diskurrizen baitu bere bekatuak, guzia barin bada errezazea, arat onat beirazea, ezpada pazienziarik arzeko denbora bear dena egun bates, bidas, irures edo iagos bear barin bada, zer examina izain da? Uzkizu, bada, iteko, kuido ta pensamentu guziak; uzkizu errosario ta errezuak ere examinazean konzienzia, ta solamente paraturik ansia guzia oroizean ta aborrezizean intuzun bekatu guziak, erretira zaite pensazera ta errepensazera Jangoikoaren alzinean zure egun ta urte guziak arima ta biotzeko min berdadero bateki Ezekiassek bekala: *Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritione animae meae. Zerengatik biotzas sentitu ta agoas konfesatu bear da in dugun gaizkia, salbazekos; ore autem confesio fit ad salutem. Santo Domingoko nobizio bat zego konfesaturik esperazen komunionea aldareain alzinean; aitu zue zerutik boza bat erraten ziona: Afeita zaite berriz burua, berri zazu korona. Au aizeareki astatu zue burua ta korona, ta ikusi zue etzuela berritu bearrik artan. Baña examinaturik berriro bere konzienzia, oroitu ze etzuela konfesatu zenbait zirkunstanzia. Itzuli ze Santo Domingorengana ta konfesatu ze osoki guzies, ta itzulirik aldarera ikusi zue aingiru bat zekarrana eskuetan urresko korona bat brillantea, ta paratu ziola buruan usten zuelaik beterik gozos ta konsolus ezin iagos. Orra nola zeruak ere deklarazen duen nola bear den dilijenzia konzienziain examinatzean. Examina gaizen emen kontuetara baño len, ta borra zagun gaistakeria guzia kontriziosko negarres, erdexteko miserikordia. Zerengatik ala nai du Jangoikoak, ta oraidanik intenzio berareki inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak etc. (Parra hic).*

Serm. 70.

De Dolore supernaturali.

ann. 1781

Convertimini ad me in tuto corde vestro,
in ieiunio et fletu et planctu, et scindite
corda vestra et non vestimenta vestra. Joel. 2.

1. Konbertizaiste enegana zeuren biotz guzias barus, negarres ta aies; ta zatikabeites zuen biotzok, eta ez zuen tresenok, dio Jangoikoak Joel profetaren agos. Zer da au, fielak? Au da adiarastea dolore ta sentimentu erman bear duguna bekatues biotzean, goazilaik konfesazera. Begiek ikusten eztutenas estu negarrik biotzak, da errefrana; baña berze aldera erran daike ezi baldin ikusten bada begis, segituko dela biotzean pena. Ala bada, konzienziain examinatzeari segizen da bekatuen dolorea, baita konfesioko sakramentuaren parte prinzipalena, diones Trentoko Konzilioak eta andik ere deizen da sakramentu gau penitenziaren sakramentua, oroat delaik penitentzia nola urrikimentua ta dolorea, zerengatik au baita geienenik bear dena konfesioan, zein gabe ezpaitaie barkatu deus. Gerta daike lanzea, examinarik gabe emateko absoluzioea ta barkamentua, estaikelaik erdetxi denbora; gerta daike konfesatu gabe deus mias, estaikelaik mintza, absolbitzea ta barkatzea; gerta daike kunplitu gabe penitentzia ezin kunpliagatik, eta eman gabe ere penitenziarik barkatzea bekatuak, baña ezpaliz biotzean bekatues dolorea, sekula estaie gerta barkatzea, naiz examinatu, naiz konfesatu, naiz penitentzia kunplitu. Batzuek parazeunte kuidado guzia examinazean konzienzia, bilzean memoriara bekatuak; ta guti, urrikitzeas gogoan; ta estu deus balio. Lenik da ezauntzea, baña ezauntze goni segitu bear zaio biotzeko dolorea ta pena. Gertazen da otsoek egitea dañu andia haziendetan. Zer iten da? Señalazen da egun bat, bilzen da jendea, doaz armaturik, erabilzentuste oianak, errejistrzentuste sasiak, ta en fin atrarastentuste otsoak. Eta zer? kontentazen dire ikusteas? Ez. Antes bien, ikusirik, orduan da arroitua, jendeen oiuegitea, zakurren laisterrak, tiroak, golpeak arrapatu arteo, il arteo animale gaistoak. Ario gontara, esta kontentatu bear bat atrazeareki begietara bere bekatuak, examinatus; atra ondoan, orduan eldu da urrikitzea, damutzea, sentitzea eginikakoa. Presentazea konfessoreain oñetan, erratea bere kulpak, kurtzea burua, ematea bularrean golpeak, ta kunplizea ere penitentzia esta aski, baldin ezpada biotzean dolore bear bekalakoa. Dolorerik gabeko konfesioa da nola arimarik gabeko gorputza, zerengatik konfesioaren arima, errateko ala, ta mamia da dolorea. Dolorerik gabeko konfesioa da erakustea lllagak ta ez kuratzea, dio San Gregoriok. Dolorerik gabeko konfesioa da sakrilejio bat garbitzen ez, ezi, seilazentuen lengo bekatuak bekatu andiagoareki. Dolorerik gabeko konfesioa esta konfesio berdaderoa, baizik iduriskoa, baizik itxureria, poenitentia theatralis, baitio galanki Krisostomo andiak. Denbora guzietan izan da preziso urrikimentu edo dolore biotzesko gau barkazekos bekatuak, eta estu izandu nai Jangoiko andiak beñere barkatu ofenditu dutenei beren ezaumentu ta borondates, ezpada damutus lenik beren biotzean ofendituas. Orai berean, noiz abundazen baitu graziak Kristoren kostus, guziareki esta posible (aures landara) barkazea dolorerik gabe, ez konfesioaren medios, estare bataioaren medios, estare berze sakramentuen medios, estare deusen medios. Akaba zagun itz bates, ezi dolorerik gabe estakigukela barkatu kulparik ez sakramentueki, ez aiek gabe, ez lanze batean ere,

nioiz ez. Dolorerik gabe esta salbaziorik bekatu induenaindako grabeki. Nork dio? Jesu Kristok: Nisi poenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis. Ezpauzie urrikimenturik, guziok guziok galduak zarate. Aski da Kristok erratea; utzagun ia au suponiturik ta ikusagun zer den, ta nolakoa, manazen zaigun dolorea.

2. Dobre bear dena konfesioan da gogosko dolore sobrenaturale bat Jangoikoa ofendituas. Dolorea deizen da, zerengatik den gogoan izaten den damu, urrikimentu, pena, ta sentimentu andi bat. Baña errepara dela gogoaren edo arimaren dolorea, ez gorputzarena, eta ala esta sentitu bearrik gorputzean; izan daike suspiroik, kongojarik, nigarrik ta deus alakorik gabe; eta al rebes, anitz suspiro ta zinkurieki badaike gerta ez izatea biotzean bear den dolorea konfesazeko. Nigar ta oriek batzuetan dire itxururiak ta iduripenak; berze batzuetan konplexio beratx tiernotik kausazen dire; berze batzuetan ere bai errabia ta ezin mendekatzetik; berze batzuetan, en fin, dire Jangoikoaren doaiak ta dolore egiaskoaren humeak, ta ala direlaik, ongi etor direla, estimatu; baña berze gisas ez fiatu. Eta ezpada ere senti deus alakorik, ez deskonsolatu, non ta den gogoan damu sina ofendituas Jangoikoa, zein baita dolore espirituala sentidoes perzebitzenestena. Santa Magdalenak anitz nigar inzue Kristoren ofetan bere bekatuengatik, ta erran zue artas Kristok: barkatu zaizkio anitz bekatu, zeren duen amorio andia biotzean Jangoikoagana; etzue erran, barkatu zekizkiola, zeren anitz nigar egin zuen, baizik zeren anitz onesten zuen Jangoikoa. Quoniam dilexit multum. Ladron onas, berriz, esta leizen egin zuela nigar txortarik, solamente bai konfesatu sinki bere kulpas, ziolaik mereji zuela zeraman kastigoa: Nos quidem digna factis recipimus. Eta arri ere barkaturik guzia Jesu Kristok, eman zio leku paraisoan egun gartan berean. Esta, bada, lotsatu bear aurkituagatik bere burua seko nola dagon sines penaturik bere gogoan gaizki bizituas. Erregla seguroena ezaunzeko bazen edo etzen dolore berdadera, da urrengo bizimodua. Goazen konparazio bateki. Baldin emasteki batek eginik anitz extremo, zinkuria ta aspamentu orzizerakoan bere senarra, andik fite ikus baledi danzan, ijiji ajaja, ta berze norbaiten eizian, nork errain luke izan zuela dolore sineskoa bere senarrain ilzeas? Baña naiz ezpalu in nigar txortarik, baizik prudenta bekala disimulatus barnean sentimentura, akudi balez ilarian serena, disponi balezki gauzak petxo andiareki, ta kuidadoreki sufragioak, baldin gero bizi baledi ukaturik dibersio guziei, atzendurik bigarren matrimonioas, estuela ere nai aipa dakion berze senarrik ilzekionain amorioagatik, nork ez luke errain onek izan zuela dolore sinagokoa? Arion gontara, konfesazen denak inagatik anitz demostrazio, baldin berla itzulzen bada lengo bekatuetara, zertako tuzu demostrazio gaiek? Zer dolore ze ura? Baña ez inagatik ere nigar txortarik, aldazen bada persona gaistotik onera, fia daike zuela dolore bear bekalakoa.

3. Erranik estela preziso izatea dolore sentizen dena sentidoes, baizik biotzean, edo gogoan biotzeskoa, gogoskoa, espirituala ta sina, orai eldu da erratea nola bear duen izan sobrenaturala. Sobrenaturala itzain konforme da, oroat, nola natural baño iagokoa. Alakoa bear da izan, konfesazeko ongi, dolorea; alakoa da Jangoikoaren doaia, ta Espiritu Sanduaren inpulsoa mogizen duena biotza, donum Dei et Spiritus Sancti impulsu, ta motibo sobrenaturaleagatik. Ezaunzeko, explika gaizen. Ladron batek in ondoan ladronkeria, daramatelaik karzelera, sentizen du, nigar iten du, damu du ebatsias; baña zer motibos? Bere desonra, bere pena, bere peligroengatik? Dobre naturala da; esta aski konfesioko, naiz ito daiela ere pena gortan. Sinki damuzen da jokatuas galdu duena, kantidadea, orditu dena galduas bere estimazioa; motibo goietan solamente geldizen bada, dolore naturalak dire; estire aski barkazeko kulpas. Klaroago. Emasteki libre bat sobra

fiatus, guti erreparatus, anitz loxentxu, anitz festaen ondorean ellegazen da galzera birjinidadea. Ezaunzen du berant, ta ezin desegin. Ikusten du galdurik honra, niork naiestuela, guziek txufeazeuntela, ia deustako; ta asten da orgatik kongojazen, lamentazen, negar ta zaparta. Au guziau da dolore naturala, esta aski konfesioko, zeintako bear da izan sobrenaturala dolorea, au da, bear da urrikitu ofenditua Jangoikoa; edo datorren urrikimentu gau ikustas arimaren kalteak, galduas zerurako deretxoa, merejitua infernua, edo bekatu berain itsustasunagatik; edo datorren beiraturik Jangoikoaren ontasuna ofenditu duena, beti aborrezizen dela bekatua sines ta propositoreki ez admitizeko berriz. Motibo gebetaik bietaik bat edo berze ezpada mogizen duena biotza urrikimentura, gañarakoan bano da dolorea, natural solamente, alako nigarrak estire protxal erdexteko barkamentua, lacrimae volvuntur inanes, ta grazia, zein delaik gauza bat sobrenaturala; onen erdexteko bear da dolore sobrenaturala bi motibo gaietaik bat edo berzeagatik, zein baitator Jangoikoagandik mertxedes ta grazias, ta zein ezpaitezakegu izan geurengandik bera gabe; ta ala eskatu bear diogu limosnas ta karidades, zerengatik gu geurengandik erori gaizke, baña ez jaiki; mantxa gaizke, baña ez garbitu; in dezazkegu bekatuak, baña ez kendu bakarrik, estare sikiera urrikitu bear bekala dolore sobrenaturale bear denareki.

4. Dolore gau da bi gisatara, perfektoa ta imperfektoa. Lenbizikoa deizen da kontrizioa, bigarrena atrizioa. Kontrizioa da dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofenditua bera denagatik, ta zeren ofenditu baitu jaun bat ain ona, intenzioreki konfesazeko ta proposito firme bateki ez ia bekatu egiteko. Atrizioa da dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofenditua, zeren bere bekatu gaistoen medios galdu baizue zerurako deretxoa ta bota baizuke infernuko penetara, edo zerengatik den bekatua ain gaisto itsusia. Dolore geben diferenzia klaro dago bien motiboetan: Kontrizioaren motiboa da Jangoikoaren ontasun infinitoa beiraturik ofenditua bekala. Atrizioaren motiboa dire arimaren dañuak, bekatuaren itsustasuna, grazia ta gloriain galzea, ta infernuko penak. Berze gisas. Dolore geben diferenzia da klaro ikusteareki nondik eldu den, edo zerengatik den baxotxa. Bekatuen dolorea barin bada zerengatik aieki ofenditu duen jaun bat ain ona nola Jangoikoa etzuen mereji ofendizea, baizik maitazea biotz guzias? Orduan da kontrizioa. Baña bekatuen dolorea barin badator zerengatik aieki galdu duen grazia ta zerurako deretxoa, edo zerengatik merejitu duen infernua, orduan da atrizioa. Da bekatua bi puntatoko lantza bat bekala: erizen du, erran badaike, Jangoikoaren biotza, ta galzen du lastimosoki bekatari berain arima. Jangoikoari, diot, egiten dio agrabio, esker gaiz, desprezio andia, ta bekatari berari dañu inkomparableak, nolakoak baitire infernuko penak, ta grazia ta gloriain pribazioa. Orai, bada, in duenak bekatu, beiraturik Jangoikoari urrikizen bada solamente, zeren alako Jaun maitagarri infinitoki onari egin dion agrabio ain itsusia, onek du kontrizio. Baña beiraturik beregana ta ikusirik nola galdu duen Jangoikoaren grazia ta gloriarako deretxoa, ta nola merejitu duen infernu sekulakoa, ontai mogizen bada urrikitzera bekatu eginas, ta aborrezizera intuen guziak, ta emendatzera guzietaik, onek du atrizioa. Klaro da kontrizioaren abantalla, zerengatik da nobleagokoa ta atenditzen duena solamente ofenditua denaren agrabiora, ala nola hume jeneroso batek sentizen duelaik ofenditua bere aita, ez zerengatik galdu duen orgatik herenzia, baizik zerengatik den aita ofenditu duena ta ofenditu bear etzuen. Atrizioa esta ain noble, zerengatik esta sorzen Jangoikoaren ganako amoriotik, baizik geuren kalteak ikustetik; ala nola esklabo batek ikusirik bere burua azoteen pean, ortaik ar balez motibo urrikitzeko nausiai in dion ofensas. Kontrizioak beirazen du Jangoikoa Aita maitagarri bekala, atrizioak juez justizieroa bekala; kontrizioa dator amoriotik, atrizioa

beldurtasunetik.

5. Ongi klaro da ontaik, obeago dela eramatea kontriziosko dolorea konfesiara, zerengatik aien konfesorik gabe ere dezazke barkarazi bekatuak, estaikelaik konfesatu konfesazeko intenzioareki; eta ala, konfesazera doaielaik il baledi bidean, kontrizioareki sal baleike, ta noiznai, nola duen konfesazeko intenzioa. Al rebes, il baledi bat atrizio sollareki konfesorik gabe, naiz izanik ere intenzio konfesazeko, kondena leike, zerengatik atrizioak bakarrik estu barkazen bekatu mortaleak; baña, dion bekala Trentoko Konzilioak, disponizen du bekataria erdexteko Jangoikoaren grazia konfesioko sakramentuan. (Ses. 14. c.4) Baña kuido, eztaien nior engaña ustes duen atrizioa, ta ez izan, zerengatik atrizioaindako esta aski beldur izatea infernuas, baizik ere beldur gorren medios pasatu bear du aborrezizera bekatuak gogotik, ta kendu bear du bekatu egiteko desoea, si voluntatem peccandi excludat, adbertizen duen bekala konzilio berak. Ah zenbategi beldur infernuko penes, ta alare mantenizen dute biotzean afizionea bekatuetara? Alakoei erraten diote San Agustinek: Times ardere, non peccare: Beldur duzu errezeas, ez bekatu egiteas. Alegrazen naiz zure fedeas, baña beldur naiz geldizen zaizun malizias biotzean. Gaudeo fidei tuae, sed timeo malitiae tuae. Zer gauza andia da beldur izatea penas? Quid enim magnum est poenam timere? Ladronak ere beldur du kastigoas, ta ez dezakelaik, estu ebasten; baña alare ladron geldizen da. Et latro timet malum et ubi non potest, non facit et tamen latro est. Zoeie ebastera, ikusi zue justizia, erretirazen da beldurrak, baña intenzioa biotzean. Malitiam autem non odivit. Estu aborritzen malizia, baizik onen pena. Zenbaten biotzeko falsukeria erizen duen itz gebeki Augustino andiak? Espezialki bekatari kostunbreskoes beldur daike naiz eriotzeko orduan, naiz in dezatela nigar ta suspiro, direla solamente beldurraren efektoak, ta ez ia, aborrezitu gabe sinki bekatuak. Ikusteunte bere bizi gaistoa, idikirik infernua, ia ia erorzeko peligroan; badute fede, zer in beaute baizik nigar? Baña nigar (sic) oriek ezpadire bekatuain odio andi bateki, ta despeiturik betikos beregandik bekatuen afektoa, estire balioso. Orgatik, asegurazeko guzis, obrena da prokurazea kontrizioa, zeinek ezpaliz ere konfesorerik, ezpalu ere bear den potestadea, edozein falta izanik, para lezake arima Jangoikoaren grazian. Predikazen zue San Bizente Ferrerek, ta zego adizen emasteki galdu bat etzena joan intenzioreki emendazeko. Baña nola Jangoikoaren eskuan baitaude biotzak, eritu zue sanduaren itzen medios arrena, alako kontrizioareki ezi antxe berean sofokaturik penas ilze. Erreparazeunte ilik, an ze alborotoa, an lastima; sakramenturik gabe, señalerik ta denborarik gabe konfesazeko, ilozturik, zekitena nola bizitu zen. Sosegatu zitue sanduak errateareki il zela emasteki gura kontriziosko dolore andi baten birtutes; ta bereala konfirmatu zue zeruak, zerengatik aitu ze boza bat ziona: Etzazela errogatu etc. (Parra hic platic.9).

Serm. 71.
De motivis doloris
ann. 1781

Scito et vide quia malum et amarum est
reliquisse te Dominum Deum tuum. Jerem. 2.

1. Jakin ta ikusazu ezi gauza gaistoa ta samiña dela ustea zuk despreziaturik zure Jangoiko Jauna, dio Espiritu Sanduak, Jeremiasen agos. Gaistoa da, Jangoikoari iten zaion agrabioagatik; samiña, geure arimai ematen zaion kalteagatik. Ezaundu ta frinkatu bear ginduke egun egia gau biotzetan. Explikaturik ia konfesioko bear den urrikimentua, edo dela kontrizioa, edo dela atrizioa, baitare bien motiboak, iduri zaida gelditu direla goseak bekala zenbait arima, nai luketela izan ez solamente atriziosko dolorea, baitare kontrizioskoa ta andia; baña diote estakitela nola edo zer gisas mogitu biotza, nola sentitu finki Jangoikoaren ofensak. Ala da, zerengatik guk solo dakigu bekatu egiten ta estakigu sikiera urrikitzen gaizki eginas. Estugu aprehensorik asko bekatuas ta bekatuain gaistakerias; eztugu estimazen asko geure arima. Estugu maite anitz geure Jangoikoa. Sanduak, posible baliz, urtuko lirazke sentimentus ta negarres ofendizendenagatik Jangoikoa, baitakite nor den, ta nolakoa. Aingiruak bete leizke tristuras. Maria Santisimak lastima lezake zerua aies ta lamentus ia ezi ez il ziotelaik gurutzean bere seme maitea. Baña guk estakigu tristazen bear denas (ta tristura solamente egin da bekatuengatik, dio Krisostomo andiak, ta gu tristazen garelaik berze gaiz iduries, ezgara tristazen bekatuas, baita gaiz guzien gaiza. Gertazen da azare bat lurreko ondasunetan, tristazen da ta esta erremediatzen. Injuriazen dute bat, golpazeunte; tristazen da ta estu erremediazen. Ilzen da humea; tristazen da ama ta estu erremediazen. Erizen da bat; tristazen da ta estu erremediazen gaiza. Estuzie ikusten deus estuela protxazen tristurak gaizorietan guzietan? Baña eroririk bat bekatuan, tristazen bada, sentizen badu sinki, erremediatu du orreki bekatua. Berze leku batean dio, munduko tribunaleetan emanaskeros sentenzia, zuk sentituagatik, nigar inagatik, etzara eskapatuko kastigo ta penatik. Baña konfesioko tribunalean sentizen bauzu biotzetik ofenditua Jangoikoa, aldatu duzu sentenzia, logratu duzu barkazioa. Ongi dio urresko pikoak, baña guk estugu entendatu nai.) O miseria! Egin bekatu; ta etxakin sentitzen! Etxakin urrikitzen! Estirudi milagro bat? Eslizake milagro infernuan egotea ta ez tristazea? Ez nigarrik egitea? Bada, infernua baño gaistoago da bekatu mortala, zerengatik au ezipaliz, arrek ez lezake atormenta. Nik orai nainuke Jeremiasek eskatzentzuen negarresko iturri gura, ziolaik: Quis dabit capiti meo aquam et oculis meis fontem lacrimarum? Et plorabo die ac nocte. Nork emain dio nere buruoni ur ta nere begiei negarresko iturri bat, negar iteko gau ta egun? Zergatik? Ez solamente bekatu inagatik, baitare zeren esten sentizen egin. San Pedrok bein ukatu zue bere maestra; ta bizi guzian egunoro nigar egiten zue artas ollarrain kantura jaikizen zelaik, in baizizaizkio bi erreka bi begien pean orren kasos. San Luis Gonzagak, zeren aurra zelaik, erran zituen itz batzuk, aituak soldadoei, gero erran ziolaik bere maestruak etzirela erran bear itz gaiek, ainberzeko kontrizioak arrapatu zio biotza, ezi joanik konfesazera, gelditu ze konfessoreain oñetan desmaiaturik doloreain utses, ezin akorritus anitz denboras. San Estanislao Kostka solamente aizeas maiean berze batek erraten zituen itzbazuk, arriturik lotsas ta penas desgatanu ze an berean autsturik kolore guzia arras. Blanka, San Luis

Franziako erregeren amak erraten zio maiz ta sines bere seme goni: Nere humea, naiago nuke ikusi zu ilik nere begien alzinean ezi ez bekatu mortalean. Santa Magdalena de Pazzisek erran zue ilzerakoan: Banoaie munduontaik ikasi gabe orañik nola atrebi daiken bat egitera bekatu mortalerik munduan; ta len erran zue gogotik sufri lezazkela infernuko penak, ezlezatengatik ofendi Jangoikoa. (San Ignazio egon ze gau bates estanke itzostu batean sarturik debekatzegatik berze baten bekatu bat. San Franzisko Xabierrek, zeñek konbertitu baizue India, solamente bat mogiarasteagatik bere bekatuen dolore izatera, erabili zue anitz lekoabide, ta alkabo arturik aparta zatikazen zue arren alzinean bere gorputza azotes alako maneran, ezi ellegazen zelaik berzeagana ixurzen zuen odola, konbertitu ze. Ontara enkaminatu zire sanduen obra ta trabaju guziak, estorbazera bekatuak; orgatik inzute inala ta padezitu zute padezuala munduko gizon obrenak. Orgatik etzute dudatu galzea beren bizi preziosoak. Orgatik, en fin, Kristo bera utzi ze tratazera zakur bat baño gaizkiago, pasatuartaño tormentu infameak, ta ixuriartaño bere gorputz sagratuko odol guzia, akabatzeagatik bekatuak. Beira zer ote den bekatua, zein gaistoa, zein sentigarria.)

2. Alaere ez dezake entenda ta kasi ez sinestatu ere entendamentu laburrak daikela izan ain gaisto akzione torpe bat, itz bat ta alako falta bat, naiz dela mortala, zeren iten duen ain aisa ta aun ausarki, etzaio iduri ain gauza andia, ta erratenzaiolaik ere baiez, uste du dela ponderazioa. Ah zer den ez ezauntzea gauzak! Goazen ezaundus, beira zugun ez solamente azala, baitare mamia gau zena. Zer inzue Adam guzien aitak? jan zue sagar bat. Etzaizu iduri gauza andia; baña alaere, zeren debekatu zion gauzagoi Jangoikoak, ainberze agrabio monstratu zue errezipitu zuela ortan, ezi len zeukana paraisoan grazias beterik estimazio andiareki, bota zue paraisotik, aborrezitu zue, madarikatu zue, kondenatu zue eriotzera, naiz emenda zeien, ta ezpaze emendazen infernuko suletzera; ta ia dena, arren kasos madarikatu zue gizonen jenerazio guzia, jaio zen garelaik orgatik guziok Jangoikoren desgrazian, ta orgatik tugulaik gorputzeko eritasun, trabaju ta miseria ikustentugunok munduan, gure pasioenen errebeltasuna, ta guzien gañetik pena eternoa ezipagara garaizen. Orra zer den Adanen bekatua, sagar baten jatea debekatu ziona Jangoikoak. Ta orgatik paratu zio debekua sagar batean ta ez gauza andiangoan, entenda dezagungatik neurzen bekatuain gaistotasuna ez gauzen iduri solletik, baizik Jangoikoari iten zaion desobedienziatik. Zertako diozu estela gauza andia juramentu falsu bat, orditze bat, desonestidade bat, murmurazio bat ta alako berze bat, barin badakizu nork debekatu duen? Ah ezaun bazindez ongi! Zein ongi senti zindezaken!

3. Bada, scito et vide quia malum et amarum est reliquisse te Dominum Deum tuum, jakin ta ikusazu, gauza gaistoa ta samiña dela ustea zuk despreziaturik zure Jangoiko Jauna. In duzu bekatu mortale bat? Bada, aski duzu damu izateko bizi guzian, ta damu andia, ia zeure partetik ia Jangoikoaren partetik. Goazen ikusis. (eskribizen zio San Anbrosiok Susana deizen zen bati, mogiarasteko bekatu egin zuen baten urrikimentura, ta erraten dio ala: Unde incipiam? Nondik asiko naiz? Bona commemorem quae perdidisti, an mala defleam quae invenisti? Kontatukotut galdutuzun ondasunak, edo sentitukotut aurkitutuzun gaizak? Zina len, ta errateuntelaik zinala, da preziso aldioro nigar egitea, ezpaizara orai len zinana. Zina len Jangoikoaren adiskidea ta maitea, arren esposa, errekreoa ta delizia; onesten zindute aingiruek ta sanduek, ta Maria Santisimak; orai ia bekatu in ondoan in zara Jangoikoaren enemigo aborrezitua, abominazioa ta horrorea; aingiruek ta sanduek ta Maria Santisimak estizute beiratu nai sikiera. Esta au sentizeko? Zina len Espiritu Sanduaren tenplua, orai demonioaren kueba; len paraiso bat grazias,

birtutes, merejimentus ta doaies adornatua, orai desertu bat desanparaturik onki guzietaik. Len galanta ariman aingiru baten gisara, orai itsusia demonio baten aintzuran. Esta au sentizeko? Zina len Jangoikoaren hume, zeruko heredero, Maria Santisimaren maite, ta sanduen anaia, aide, adiskide ta lagun; orai despeiturik ordugaistoan ango guzietaik, infernurako presidario perpetuo, demonioen esklabotako. Esta au sentizeko? Zina len sandua, sana, kuadrablea Jangoikoaren begietan, orai bekataria, il bat urrintzua, okagarria. Esta au sentitzeke? Zina len... Baña nola nai dut joan erabakis kalte guziak kontaestaizkenak? Berdin estuzu konprendituko, ta akaso ez sinestatuko ere bekatu batengatik galdu duzula ainberze. Erran bear zizukete ilfernuan daudenek bekatu mortale soil batengatik. Joaten bazara, an sinestatukouzu.

4. Baña kristioen ertean nago, sinesta zeunte fedesko dena). Banoaie kontazera berex bekatu mortale edozeiñen dañuak fedes dakizkigunak, ta por konsigiente damutzeko motibo tugunak. Beñik bein bekatu mortale bat in zinduelaik galdu zindue Jangoikoaren grazia, amistanza ta agradoa beraren begietan. Egin zina armirmau belz, zapo okagarri ta basilisko pozios bete bat baño abominableago Jangoikoaindako, admititu zinduelaik bekatu gura ariman: Ain egia da au, ezi ez dezake Jangoikoak baizik aborrezitu alako arima instante gartaik alzina, naiz izan dela len agiz onetsia, desuerte ezi baldin Maria Santisimak berak, Jangoikoaren Amak, Jangoikoari sandu ta sanda, aingiru ta kriatura guziek junto baño ia kuadratu zionak, konsentitu barin bazue pensamentu mortale batean noizbait bere merejimentu innumerableen ondorean, ia ordutik aborrezitu lezake Jangoikoak serpiente bat bekala, ta il zen barin baze estado gartan, zer inen zio? kondenatuko zue bere ago propioas egotera demonioeki su eternoan sekulakos, egin gabe batere kasorik bere ama izanas, eman zion esneas ta egin zion zerbitzu guzias. Horrorea da pensazea, ta ala izain ze. Eta al rebes demonioak botaal balezake beregandik bekatuain gaistotasuna, instante maita lezake ta besarka lezake Jangoikoak bere hume keritua bekala. Estakizu nor den Jangoikoa, bazindeki, neur zindezake ongi zer kalte den galzea berain agradoa; galdu duzu ainberze nola balio baitu Jangoiko andiak; ta ortaik segizen dire kalte guziak.

5. Bigarren kaltea da arimaren eriotze espirituala, konsistizen baitu faltazean arimatik Jangoikoaren grazia, desuerte ezi ala nola geldizen baita gorputza arima gabe itsusia, urrintzua, ustela, ario gontara geldizen da arima Jangoikoaren alzineko. Zego serpiente disforme bat lo oian batean, noiz ta pasazerakoan andik biajante desgraziatu bat, ustes tronkuren bat zen an eroria, jarri ze arren gañean deskansazera. Serpientea ertxiturik kargareki idatzarzen da, ta sumindurik jaiki ta inguratu ta ermaten du arrastaka gizonoi bere kuebara, non furia andiareki zatikazen, akabazen ta iresten du arras guzia. Au esta baizik pintura bat iten duenarena bekatuak ariman. Irugarren kaltea da lengo birtute, obra on, merejimentu ta ondasun guzien desperdiziatzea, desuerte ezi len intuen orazio, penitenzia, limosna, konfesio, komunione ta gañarako guzien irabaziak malograzen dire bekatua iten den instantean. Ia estire kontuan sarzen premiazeko, galdua da guzia. Kontu inzagun dela gizon bat munduau mundu denas geros kontinuatu duena zerbitzazen Jangoikoa faltatu gabe deustan; bildutuela berebaitan izan diren sandu ta sanda guzien merejimentuak, Maria Santisimaren ta aingiru guzien graziak. Doblabeites milla ta milla aldis, milla ta milla jendamendetan. Zer montioa! Bada, in balez gero gizon orrek bekatu mortale bat, ia instante gartaik galdu lezake erremisiorik gabe montio gura guzia; geldi leike buluxirik merejimentu gaietaik guzietaik, ta guziareki kondena leike deus in ezpalu bekala, il baledi estado gartan. Solamente geldilekieke mundu ontan legoken bitarteo

errekobrazeko esperanza, konfesio on baten medios; ezperen, adio sekulakos.

6. Laugarren kaltea da edekitzea zerurako deretxoa arras; ainberze pizazen du kalte gonek nola balio baitu zeruko gloriak. Entendazeko figura gaitzen dagola persona Jangoikoaren tribunalean esperatzen sententzia, atrazen dela gaizki, madarikatzen duela Jangoikoak, arrapatzeuntela demonioek eramateko infernura, iten duela iskiritu ta lamentu Maria Santisimai, aingiru goardakoai, sanduei; ta niork kasorik itenestiola, ta naiestuela bortxa arrastazeuntela zeruko atarietaik infernurat despeiturik, ez ia ikusteko sekula Ama Birjinain aurpegi ederra, sanduen konpañia dulzea, ez ia beñere izateko deus onkirik, estare esperanzarik nioiz. Galdurik guzia sekulako. Zer da au? Au da bekatu mortale soil batek merejizen duena. Zenbat obe zindue ez jaio, ezi ez bekatu egin ta galdu! Borzgarren kaltea da infernuko pena eternoa kausazen duena, desuerte ezi bekatu in duzun instantean mereji zindue eraman zindezaten deabruak leku gartara, ta ain justoki, ezi etzindeizke arrazioreki kexatu; ta Jangoikoaren milagros ta sobra on izanes geldizen da erori gabe instante berean; ta zenbat instante bizi den, berze ainberze milagro dire Jangoikoarenak, ministro gaiek naiestutela bortxa. Kalte gau solamente konprendizen du dagonak leku gartan tormentaturik atertu gabe gaiz guziek, deus alibiorik gabe, ertxirik atariak, desauziaturik esperanzas. Ah zenbat dauden bekatu bateki! para zazu imajinazioa leku gartan, arrima zaite pensamentuareki atari triste gaietara, aplika zazu adimentua, aizeko ango suain arroituua, ango erruedenkirrituak, ango azoteen fistuak, ango iskirituak, ango errabiak, nigarrak, lamentuak, desesperazioak. Ta ala egun, ala biar, ala emendik egun urte, ala milla millon urteen buruan, ala beti, beti, beti. Au merejitu dut nik, au zuk gizona, ta au zuk ere emastekia ez dezakezuna soporta eri baten idukitzea kandela baten suan kuarto ordu bates. Egon bearko zindue, egon bearko nue an, ilzera utzibaginduz Jangoikoak okasio batean. Lekua prebeniturik zego, solo faltatu ze bulkazea emendik Jangoikoak. Ai bulkatubaginduz! Ta ai oraño bulkazenba gaitu alako estadoan! Zertako ia orai erran berze kalteak ariman ta gorputzean ere kausazentuenak bekatuak? Asko motibo da izateko dolore.

7. Baña motibo gebek guziok solo dire atrizioaren motibo, falta da kontrizioaren motiboa, baita Jangoikoaren partetik. Deus estu balio gure kalteak Jangoikoari in diogun agrabioaren aldean, ta ezleike inport ainberze erorzea zeruko tronoetaik serafinak, aingiru ta sandu guziek ta Maria Santisima bera ere infernuko letzera nior gelditu gabe zeruan, nola inporta baitu Jangoikoari iten zaion agrabioak bekatu mortalean. Desobeditu dugu, despreziatu dugu Jangoikoa guzien burua, guzien Aita dibinoa, mertxedegille infinito, guzis ona, sandua, maitagarria, inkonparablea. Malogratu dugu bekatua iterakoan Kristoren odol ixuri zuena, ta ostikatu bekala dugu bere Majestadea. Edeki nai izan diogu bere korona ta dominio guzien gañean duena guk ezkarenok txinurri baten diña berain aldean. Zer atrebimentua! Zer ingratitueda! Ezpaliz ere zerurik obedizeuntenendako, ezpaliz ere infernurik desobedizeuntenendako, esta motibo aski ta sobra desobeditua alako Jauna, sofokazeko bat sentimentus ta penas? Nor uste dugu dela Jangoikoa? Ah nork luken zeruko argi erraño bat ezauntzeko! ez naiz orai admirazen galdu niais ain gogotik munduko gauza guziak ta beren bizi preziosoak munduko personarik obrenek, ez ofendizeagatik Jangoikoa. Ezaun zagun ia gauza gaistoa ta samiña dela itea bekatu mortale edozein, Jangoikoain agrabiotan dena, ta urrikiturik sines presenta gaizen belauriko berain alzinean etc.

Serm. 72.

De proposito, et qualitates.

ann. 1781

Et dixi, nunc coepi, haec mutatio dexterarum excelsi. Ps. 76.

1. Eta erranue nere gogoan, orai asten naiz, auda Jangoikoaren eskuak obratu duen mudanza nere baitan, dio Dabid penitenteak, erakusteko zuen propositoa, ta izan bear duguna konfesazeko ongi. Explikaturik ia dolore bear dena, tokazen da propositoa, baita dolore egiaskoaren semea, ta enzerrazen dena dolorean. Biz dolore egiaskoa ta izain da proposito, eta ala nola ezpada dolorerik ezpaita propositorik, ala ezpada propositorik, esta dolorerik, ezi orgatik erraten da dela dolorea urrikimentu bat Jangoikoa ofendituas intenzioreki konfesazeko ta proposito firme bateki ez ia bekaturik egiteko. Bi aurpegi izan beartu urrikimentu siñak, edo bi atenzio, bata lengo bekatueta, urrengotara berzea; borrazeko leneginak, ta ez egiteko berriz in bearestirenak. Au da proposito deizen duguna. Zer da propositoa? Da gogo ta erresoluzio firme bat ez beñere ia bekaturik egiteko. Ain preziso da erresoluzio gau, ezi au gabe konfesazen denak, barkazio ez ezi ia kondenazio lograzen du bere kontra; garbitu ez ezi, ia zikinzen da konfesioaren iturrian bere faltas. Aizagun San Agustinen konparanza ontako: Qui plangit peccatum, et iterum admittit, quasi si quis lavet laterem crudum, quia quanto in agis lavat, tanto magis lutum facit. Ellegazen dena konfesazera bekatuak, emendazeko erresoluzio firme gabe, da oroat nola xautu nai duenak ures ladrillu gordin bat, ezi zenbatenas ia xauzen duen, ia loi iten du. Ladrillu gordina da bioz ongi erresolbituestena emendazera. Explikatubaño len proposito onaren kalidadeak, nai dut gutti bat aipatu ontan faltazeain lastimak. Ah zenbat konfesio iten diren sakrilejio proposito-faltas! Ah zenbat bizi diren engañaturik konfesio iduri goieki, irri iten diotela demonioak! kontazen du Heroltok, ezi espiritatu batek agerzen zituela guzien bekatuak, solamente ez konfesazen zirenak. Nai izan zue progatu batek, ta konfesaturik zeremonias joan ze espiritatuagana, zeñek berla erran zio: O nere adiskide ona, zein ongi garbitu zaren! Orduan publikatu zitue an guzien alzinean arren gaistakeria guziak baizire txoil alkaizungarriak desuerte ezi alketurik gizonoi joan ze andik, ta ezaundurik bere falta konfesatu ze berriz proposito firmeareki, ta itzulirik gero espiritatuain alzinera, onek etzue ezaundu ere. Ona zure atzoko adiskidea, erran zioze presente zeudenek; au da atzo desonratu zinduen. Nik ez au, erran zue espiritatuak, estut beñere ikusi, ta estut zer erran deus onen kontra. Orra klaro propositorik gabe ta propositoreki iten diren konfesioen diferenzia. Ah fielak, ainberze konfesio, ta ain guti mudanza! Zer balio du humillazeak konfesoareain oñetan, ezpazarate aldatzen bizimoduan! Bigarren bataioa da konfesioa, eta ala nola lenbiziko bataioa joan zena jentil itzulzen baita kristio, ala konfesiara joan zena bekatari itzuli bear da justo ta sandu. Desegin bear zara gizon zarras bere kondizioeki, ta bestitu berrias: Len bat, orai ia berze bat. (Amistanza gaisto bat izanzute bidek ta gizona joan ze urruti, konfesatu ta emendatu ze. Itzuli ondoan gero zoeielaik karrikan aurkitu zue emakumeak, ta admiraturik kasorik ez egiteas, ustes etzuen ezaundu, erran zio: Aizen, ni naiz ura. Errespondatu zio gizonak: Bada, ni ez naiz lengoa, naiz berze bat). Au konfesatu ze ongi. Egia da ezi bekatariendako dela konfesioa, ta ezpaliz bekaturik, ez lizakela konfesio bearrik; baña bekatari joan zena itzuli bear da justo, otsoa axuri, otsorraia uso, tigrea ardi; ezi geldizekos len bekala, obeda ez konfesatu.

Konfesio bakotxa bear da izan muga bat bekala, berexteko bata berzeagandik lengo bizimodua ta urrengoa. Ezarri zio Jangoikoak itsasoari muga, ta erran zio: Onaraño pasatukoaiz, ta ez emendik alzina. Ala ikusten da: Andik arat guzia da ura, andik onat leorra. Itsaso bat bekatus betea izan da gure bizitza; bada, para zagun konfesioaren muga: Onaraño nere bekatuak, emen akabatu dire, ez ia bekatuak. Et dixi, nunc coepi. Emendik aste naiz, konfesio gau da prinzipio nere bizitza berriaren. Haec mutatio dexteræ excelsi. Au da Jangoikoaren eskuak iten duen mudanza nere baitan; baña konfesiota bekatuta, bekatutik konfesiota, ta ala beti, ta beñere ez aldatzen kostunbreak, zer da au? Au da engañatzea bere burua, au da desonratzea konfesiota, zikintzea konfesonarioak; au da proposito ez izatea bear bekalakoa.

2. Eta nolakoa bear du izan konfesiota propositoak? bear du izan firmea, unibersala ta efikaza. Berexis, firmea beñik bein, au da, arzea bere gogoan sinki intenzio ta erresoluzio ez berriz iteko lengo bekatuetaik, ezi edozein motibo, tentazio edo okasio para dakion, estaien erresolbi egitera, naiz galdu bear balu ere orgatik bizia. Itzuli bear da, arras biotza, ezi ori nai du erran konfesiota, conversio dicitur quasi cordis undique versio. Bear da aborrezitu len maitazentzen bekatuta ta maitatu len maitazen etzen Jangoikoa. Esta aski gogo floxo bat, erdi bai erdi ez; bear da gogo firmea, ala nola peña bat itsasoan, zein naiz akometi dezaten aizeek, naiz golpa dezaten urain bagadek, beti dago tieso mogitu gabe. Estire proposito firmeak aiek, zein edozein okasio edo tentazioeki garaizen baitire. Dire ametsetako erresoluzioak bekala, dire perezosen intenzioak bekala, nai lukete jaiki, ta ez lukete nai utzi goatzea, ia mogizen dire jaikizeko, ia sarzen dire barnago, ia diote, goazen jaikis, ia diote gauden oraño guti bat. Dire ez erresoluzioak baizik beleidadeak, edo nai iduriak. Dire beletak bekala edozein aizes itzulzen direnak. Dire otsoaren propositoak, dion bekala San Agustinek exzelenteki: Lupus venit fremens, lupus redit tremens, lupus tamen est et fremens et tremens. Otsoa eldu da sumindurik, otsoa itzulzen da uzkuriturik, ta dela sumindurik edo uzkuriturik, beti da otso. Da konparazioa, ezi doaielaik otsoa ardietara doai arrapatzera ardiren bat. Sentizen du arzaik, usmazeunte zakurrek, oiua aiek, aunka ebek; ikuskouzie otsoa beldurrak doaiela atzerat utzirik ardi saldoa, baña esta zer fia, otsoa da, dirudi urrikitu dela, baña gogoan dauka oraño intenzio gaistoa. Esta difikultoso aplikazea konparazioa. Zer balio du zure belaurikatzeak sazerdoteain ofetan, zure errateak bekatuak, zure golpe emateak bularrean, ezipauzu kenzen intenzio gaistoa. Qui pectus tundit et non corrigit, peccata solidat et non tollit. Dio, berriz, Agustino andiak, golpazen duenak bularra ezipada korrejitzen estu kentzen bekatuak, baizik ia firmazentu. Ni eznoaie, Jauna, intenzio gaistoareki. Alaere esta aski, ezipauzu berze alde intenzio ona ta firmea guzis emendatzeko.

3. Bigarren kalidadea izan bear duena propositoak da izatea unibersala, au da, ez egiteko bekatuak batere batere, ta beñ ere ez; ebitazeko bekatu guziak ta denbora guzietan. Esta aski ustea bekatu jenero bat edo berze, utzi bear dire guziak. Esta aski urte bates edo bidas, bizi guzian bear da, azken atsa emanartaño. Erresolbizen bazara garaizera juramentu iteko kostunbrea, zer ai gara, geldizen bazaizu murmurazekoa? ofrezizen bauzu edekitzea odioa, zer ai gara, gelditzen bazaizu amorio gaistoa ta afizione desonestoa? Proponizeuntzu ez ebastea, zer ai gara, ezipauzu nai garaitu ardoaren bizioa? En fin, zer da inport ustea guziak, solamente bat geldizen bada? txori batek idukiagatik suelta gorputza ta egalak, guziareki estaike bola, barin badauka ari bateki loturik zangoa. Zer ere bekatuetaik gelditzen zaizun biotzean, artaik zauzki arrapaturik deabruak infernura eramateko. Bizio ta bekatu gutiagoreki joaten bazara, estuzu izain ainberze pena, baña al

kabo sopra izain duzu joaten bazara solo batengatik. Despei guziak, bota guziak arimatik. Saul erregeri edeki zio Jangoikoak korona, zeren etzion obeditu osoki. Manatu zio Jangoikoak destrui zezala arras amaleziten jendea. Saulek destruitu zue guzia bai, baña sollik utzi zue bizirik aien erregea, ta orgatik solamente asarrazen zaio Jangoikoa ainberze, ezi edekizen baitio berai erregetasuna. Akabatu duzu bizio guzieki, ta oraño utzi diozu leku gogoan bizio dominanteari, prinzipalenari, galdua zara, estuzu erreinatuko zeruan. Oroat israeldarrei manatu ziote, errautsteko madianiten jenerazio gaistoa; ilzuste bai guziak aiek, solo utzizuste bizirik emakumeak. Emanik Moisesi mezua erraten du asarraturik. Zerengatik utzituzie bizirako emakumeak? Estire ebek galarazitustenak israeldarrak? Edekizkioze guziei buruak instantean! Ontan ematen zaigu aditzera, estela aski aborrezitza bizio berzeak, bear dela destruitu alaber aragiaren bizioa. Kromaziok eri zegolaik eskatu zio San Sebastiani osasuna. Bai logratuko dizut, erraten dio sanduak, nola zatikadezkizun etxean tuzun idolo guziak. Baiez ofrezitu zio, ta joanik etxera autxi zitue guziak, solo erreserbatu zue bat geien estimazen zuena. Itzuli ondoan, sanduak bota zio bere bedeizioa, ta etze sendatu. Emen zerbait da, erran zue orduan sanduak, errazu egia, autxituzu guziak? Prezisios ia orduan konfesatu zue, nola gelditu zuen bat. Bada, zoaz, autxazu ori ere, erran zio. Joan ze, autxi zue, itzuli ze ta sendatu ze. Estu sendazen arima konfessoreain bedeizioak ta absoluzioneak, non ta esten gogo ta erresoluzio unibersale bat destruikezu bekatu guzi guziak. Bat geldizen bada, esta graziarik, esta osasunik.

4. Baña emagun duzula proposito konbertizeko osoki Jangoikoagana, usteko bizio guziak, noiz arteo ordea? eldu den urteraño? Urbilen okasioraño? Esta aski; sekulakos bear dire despeitu gogotik. Stultus ut luna mutatur. Mudatzen dena denboretan, ilargia bekala, tontoa, juizio gabea da. Ia ilzar, ia ilberri. Ia deboto, ia eskandaloso; ia errezazen, ia danzazen; ia ertxi iduri eskrupulos, ia arro ta desenbuelto nola nai; ia konfesazen, ia konfesazeko langai egiten; egun elizan komekatzen, biar edo etzi plazan edo tabernan ordizen, urdekeriak erraten ta egiten. Zer jendaki jenero da au? Jangoikoaren edo deabruaren? Onendako, onendako dire, da klaro, zerengatik estunai Jangoikoak alako biotz erdiskatuak, ta ikusten badu biotz berean duela leku berze zerbaitek Jangoikoas landara, despeizen da andik Jangoikoa, ta guzia geldizen da deabruaindako. Ah zenbatek iduriute nai dutela bekala Jangoikoa, konfesazen diren egunean? Daude modestoago, erretiratuago ta kuidadosoago? Zenbatek irauteunte kuidado gortan? Zenbat neguan ta garizuman dire iduris on, ta udan ta okasioetan atrebitu, libre, gaistoak? Lengoak dire? Bai, solo mudatu da ilargia gure bistara, ezi Jangoikoaren alzineko alakoak beti dire aborrezituak, zerengatik ezpaizute beñere proposito unibersala. Zer? Esta oroat Jangoikoa konfesazen den egunean, nola berzeetan? Garizuman, nola urte guzian? Udan ta neguan? Nola, bada, berexten tioze denborak? uste duzie dela lurreko nausiak bekala, alokazeko astekal, edo ilka, edo urteka? Ez. Edo beti nai du, edo baterez. Ah mudableak, noiz erteo zabilzte aldaketan? Jangoikoa barin bada zuen Jaun, segi Jangoikoa; demonioa barin bada, segi ura, eta ez bein bat, bein berzea. Por konsigiente, estuenak proposito unibersale gau, esta garbitzen konfesioan, esta soltazen bekatuen lakioetaik.

5. Irugarren kalidadea bear duena propositoak da izatea efikaza edo obrazalea, nai dut erran bear dela izan gogo ta erresoluzio, ez solamente apartazeko bekatuak, baitare iges egiteko okasioak, parazeko medioak ta erremedioak ta dilijenziak emendazekos ezperen propositoa da banoa, inefikatza. Aitu bideuzu noizbait ezi proposito ta deseo ones beterik dagola infernua, ta ala da, ezi andauden guziei galdein baziote emen zeudelaik ia nai zuten joan zerura, guziek errain zute baiez; ta deseo goneki joan zire infernura. Aiek

joan dire. Joain direnek kuido ia ematen didate. Galdein nai diotet: Nauzie joan zerura? Bai, Jauna; bada, nai duena doaie, nai duena, sinki diot, paratus artako dilijenziak ta medioak, obras bear da konfirmatu desea, ezperen da deseo futila. Oportet reipsa voluntatem confirmare. Goazen konparazioeki. Pobre zaude. Nauzu abastu? Ta nai, ta egoin zara eskua eskuain gain? Ori da nai izatea? Dago errezen etxea; nauzu itzali? Eta zaude geldi geldia? Ori da nai izatea? Nai izatea sinki da trabajazea, aorrazea, diskurizea abasteko, jaikitzea prisaka, deizea jende, ekarzea ur itzalzeko sua. Oroat diot zenbaiten propositoes; naute kendu bekatuak, baña ez sinki, zerengatik ezpaitute kenzen okasioak, peligroak ta iten gañarako dilijenziak. Duzu proposito ez ordizeko; ta ain maiz tabernan, jokua den lekuan ta okasioan? Duzu proposito izateko kasto; ta nauzu zuk, gizonkia, tratatu emastekieki, ta zuk emastekia gizonkieki? Duzu proposito ez murmurazeko; ta zabilza okasio bila platikazeko berzeren kontuak? Duzu proposito ez admitizeko pensamentu gaistorik; ta estuzu nai goardatu begiok? Alako propositoak dire pataratak engañazeko, ez Jangoikoa, baizik beren buruak. Bear da, diot berriz ere, kendu bekatuen kausa, kenzekos bekatua, ala nola nai badu sendatu eriak, bear baitu goardatu eritasuna kausazendietenetaik. Onen faltas iten dire anitz konfesio gaisto, ta usteutelaik libratu direla demonioain lakioetaik, loturik daude erresoluzio faltas. Txostazen da demonioa, oroat nola aur bat txori bateki. Dauka aur batek txori bat loturik lizas, ta sueltazen dio bein liza, bein tirazen du, bein usten du doaiela geixago, baña beti loturik dauka. Ala demonioak ustentu konfesazera, ustentu zer edo zer errezu egitera engañazeko, baña ez kenzearreki okasioak ez parazeareki medioak, nola baitabilza saltoka konfesiotik bekatua bekatutik konfesiara, ta beti ala, ustes suelto dauden batzuetan, beti daude loturik deabruaren sarean.

6. Ai bezate Kristoren doktrina penitente guziek. Niork ez dezake zerbitzatu bi nausieri; ezdezakezie zerbitzatu Jangoikoari ta bekatueri. Ai bezate berriz: Baldin bekatu inarastenbaizu zure begiak, edo eskuak edo oñak, ebakazu, atra zazu; obeuzu sartu oker edo manko edo mangi zeruan, ezi ez bi begi, bi esku ta oñeki erori infernuan. Nai du erran, ezi baldin barin bada persona edo gauzaren bat ain estimazendugunanola begiak, eskuak edo oñak, baña okasionazen badigu bekatuak, aparta zagula, ta aparta gai zela, naiz kosta, naiz molestia. Zer? nai dugu zerua nekerik gabe? Ikusagun proposito fin baten exenpladea Babiloniako irur mutil gaste gaietan. Manazen ziote Nabukodonosor erregek, adora zezatela, arrek egin zuen estatua bat, ta zeude konstante adorazeen solamente Jangoikoa, ta ez berzerik. Ordenatu zue erregek etxeki zeila labe bat sugarretan zazpi aldis ia akostunbrazen zena baño; ta itxekirik bam bam bam zegolaik, ta loturik irurak aldakan, erraten diote: Sines estuzienai adonatu nik goratu duten estatua? Orain bada, prest barin bazauste, edozein ordus aitu dezazien señailea, belaurikazaiste ta adora zazie, ezperen instantean izain zarate botatuak labe gontara; ta nor da Jangoikoa libratuzaizketena nere eskuetaik? errespondatu ziote sanduek, etzaigu guri tokazen errespondatzea onen gain; zierto dena da ezi gure Jangoikoak gaizkela libre labe gontak ta orren eskuetaik, nai barin badu; baña nai ezpadu ere, iduki bez entendaturik estugula adonatu berze Jangoikorik, bera baizik. O zer proposito galanta au gure proposito delikatuen alkaizuntako! Badike franko ezi ezpalute peligrorik, ezpalute miseria ta trabajurik, baleude giri giri beterik konbenienziak, guzia gertaturik nai bekala, ezpailezakete akaso galduko pazientzia, kastidadea ta konstanzia; baña frankotan apretura pixka baten kasos usten baitire erorzeren Jangoikoaren ofentsatan. Baña biotz jenerosoak erraten du ala: Nere Jangoikoak nai badu, baldin zerbitzazen baut, emandezadake osasuna, honra, ditxa ta on den guzia; baña nai ezpalu ere eman, baizik trabajuak, desonrak, desditzak ta miseriak eriotzeraño, estut

ofenditu bear. Lenago galdu gauza guziak, ezi ez ofenditu Jangoiko ona, aski da nor den, mereji du maitatzea ilartano. Alako propositoa izan zute munduan izan diren gizon ta emastekirik obrenak. Nork bildu ainberze odol, nola ixuri baitute? Ainberze azote, burriña, espata, tenaza, parrilla, potro ta tormentu jenero, nola pasatu baitute? Imitazkigun zerbait etc. Exempl. Parra p.1. plat.17. de Puella Neapolitana quae omnia vendi et etiam capillum voluit, ne peccaret etc.

Serm. 73.

De signis doloris et non etc.

ann. 1781

Cumque quaesieris Dominum Deum tuum,
invenies eum, si tamén in toto corde quaesieris,
et in tota tribulatióne animae tuae. Deuteron. 4.

1. Itzulzen barin bazara ta bilazen barin bauzu zure Jangoiko Jauna, aurkitukouzu, baldin biotz guzias bilazen bauzu, ta zure arimain dolore egiaskoareki; baña ontan dago difikultadea, ia konbersioa den egiaskoa. Explikatu ondoan dolore ta proposito bear dena konfesioaindako, nai dut eman zenbait señale, ezauntzeko den edo esten bear bekalakoa dolorea ta propositoa; alde bat, konsolazeko txuxen doazinak ta intenzio siñareki Jangoikoaren bideas; ta berze alde, desengañazeko makur doazinak ta intenzio falsuareki. Zerengatik ezpadaike ere jakin mundu ontan, baizik Jangoikoaren errebelazios, dagon edo estagon barkaturik bat, dagon edo estagon Jangoikoaren grazian ta agradoan, alaere supuniturik fedesko gauza bekala ezi konfesatu ondoan ongi, barkazen digula Jangoikoak, señale gebetaik atra dezakete batzuek konsolu, berze batzuek desengañu beretako Jangoikoaren alzinean. Atenzio eskazen du espezialki asunto gonek.

2. Lenbiziko señalea, duela batek dolore egiaskoa bekatues, da beti eskatzen egotea Jangoikoari, beti deskontent estuela aski, ta beti deseazen ia ta ia. Deseaze ta eskatze gau esta izatea, baña da señale, edo duela edo izain duela fite. Orgatik aflijiturik daudenak, ai ote dut bear bekalako dolorea, ortan berean dute mostra ona; ezi doloreik estuenak, ajola guti du ortas. Bigarren señalea da kontinoki edo maiz oroizea bere len intuen bekatues, daramatelaik biotzean atrabesaturik bekala, arantze baten aintzu, gaizki eginaren memoria. San Pedrok, naiz jakinik barkatu ziola Jesu Kristok, beti bere bizi guzian oroizen ze in zuen bekatuas ukatzean bere maestraua, zeren baizue urrikimentu bizia ortas. Irugarren señalea da noreki nai konfesazea, jakinik, Jangoikoaren kontra indudanas geros, estela nior sopra errigurosoa; naiago izatea erreprendi nazaten ia; iduritzea guti edozein penitenzia; konfesazea bekatuak ponderatus kulpas, itsustus bere burua, exkusatu gabe; ta gero kunplitzea puntualki ematen zaizkion or denak ta konsejuak. Laurgarrena da maiz konfesatzea (naiz ez komekatu), solo solo garbitu naies ia, ez berze fin makurres. Borzgarren señalea da lotsatasun ta ikaratze bat ellegazen delaik okasio edo tentazioa bekatu egiteko; ta dilijenzia baliente bat ez usteko lekurik gogoan pensamentu gaistoei deskuidatu gabe batere. Seigarren señalea da apartatzea okasio gaistoetaik, erretiraturik ta altxaturik bizitzea dibersio peligrosoetaik, ta ez kasorik egitea lagun gaistoen burles ta desprezioes. Zazpigarren señalea da ez ikusi naia bekatuak ez bere ta ez berzeren baitan, tristazen delarik izateas ainberze gaizki; ta alegrozen dela aizen duelaik zerbait ongi iteuntena anitzek Jangoikoaren honratan. (Zorzigarren señalea da alketze bat aipazeas solamente medio edo kausa gaiek, zeñen kasos ofenditu baizue Jangoikoa. B.g. ofenditu badu Jangoikoa presunzio edo ongi iduri naies, danzes, edo komunikazio librees, jokues, gau galzees, atrebenzies ta alakoes, alketzea bat alabazeuntelaik arren garboa, habilidadea, edo goapeza, kontazen direlaik balentia bekala gauza gaiek zeñen kasos bera erori baita; alketzea, diot, ta ez naia aipa daitzen alako gauzak, da señale duela dolore egiaskoa). Bedrazigarren señalea humildadea ta penitenzia, agoantatzea desprezioak ta trabajuak,

ezaundurik ia mereji zuela, ta injeniazen delaik egitera zenbait mortifikazio sekreto: Ia belauriko egotea gexago, ia besoak zabaldurik gurutzearen figuran, ia azotatzeta, ia barutzeta, ia mortifikatzeta jatean ta edatean, niork errepara ez dezaken gisan. Amargarren señaletia da aldatzeta bizimodua; zena gaisto, egitea on; zena suberbo, humil; zena kodizioso, limosnagille; zena luxurioso, kasto; zena ausart, sufritu; zena goloso, tenplatu; zena arro, ajustatu; zena dibertitua, erretiratu; zena indeboto, deboto; zena platikari, ixil; zena presumitu ta iduri naia, llano ta modesto; zena buru arin ta bano, juzioso, langin ta birtuoso. Au da señaletik obrena, dela dolore siña lenagokoas izatea diferente lenagokotik, duelaik lenbezanbat okasio, peligro ta konbenienzia gaizerako; ezi ez egitea bekatutik, solamente zeren esten okasiorik edo posibilidaderik, ori esta señaletia seguroa, ori esta ustea bekatuak batek, baizik ustea bat bekatuek. Baita axari garrek ere utzi zitue matsak, baña ezin arrapatus. Zauste ia aitu naiak fabula. Da ala, ezi axari bat joan omen ze goseak parra batera mats jateagatik; goregi zeude matsokoak, ezin erdetxibaizuske. Egon ze salta ta salta erdetxi naies, ta ezin; alkabo desengañatu zelaik, beira beira gelditutik matsokoetara erran zue: Berdeegi daude oraño, goazen emendik. Ariora diot, ezi ustea bekatuak estaikelaik, esta señaletia biotzaren konbersio sinarena, baizik ustea daikelaik, delaik okasio, edo peligro, solamente Jangoikoaren ta bere arimain amorios.) (Hic partère unum sermonem addendo aliquid, reliqua ad alium).

3. Ezaunzeko obeki oraño konfessioan diferenzia, emaintut, alaber, berze alde zenbait señaletia ezakunzeko dolore falsua ta proposito flakoa! Lenbiziko señaletia da tranpa zenbait usatzeta konfessorea autatzetan fin gaistos: Bata da bilatzeta konfessore kaso guti iten duena, prisakari, ta erraten den bekala pasala pasa, lazo, ta ez ain prudentea autatzeta, solamente estakiongatik errepara bere malizia. Konfessore guziak dire onak ongi disponitutik dagonaindako, baña intenzio gorreki joatea da disposizio gaistoa. Estuzu anbateko irina, solo daikelaik pasa irazelarrian. Barin bauzu anitz dolore bekatues, edozein konfessore idurituko zaizu aski benigno? Berze tranpa da erabilzeta konfessore aldatzen fin onik gabe, okultazeagatik gaiz zarra, engañatus bein bata, bein berzeta, ta beti bere burua. In circuitu impii ambulat. Ingur ingur dabilzki gaistoak kapestrutik bekala, ta beti bekatuen estado berean. Daike ta konbeni da aldatzeta konfessoreak noizbait, baña begira izan daien emendatzeko intenzio siña. Bigarren señaletia gaistoa da konfessazeta estali naies bere kulpa, exkusatus malizia, diskulpatus bere burua, erdikal explikatzaeta disimulatus ingura mingura, ia bai ia ez, nai ta eznai, ezpaitaizke entenda. Sagarroia bilzen da berebaitan ta egiten da bola bat bekala, baña ain punzas betea, ezpaita nondik arrapatu. Ala, penitente iduriak ingurazen dute beren malizia ainberze errebozes, ezi estaki zertaik eutxi sazerdoteak; edo pensarasten diote estela kulpaik, edo estela ainberze; ta au esta konfessazeta bekatuak, baizik estalzeta bere gaistakeria, ala nola sarnosoak bere sarna. Ah zer sendatzeko modua! Klaro, klaro, au in dut, ura erran dut etc. Ezperen da señaletia, dolore guti dela.

4. Irugarren señaletia da Aste Sanduraño edo eriotzeko orduraño ustea konfessioa, zutelaik lenago konbenienzia ta nezesidade konfessazeko; beldurak, atra dezkiten deabruain leketa ta lakiotik. Alakoak ellegatzen dire disposizio labur bateki, beiraze bat brebea eman konzienziari, ta gero emen bekatu bat, an berze bat agora eldu zaiotena erran, pasatzeko nolapait, ta librazeko exkomekazio ta desonretik (sic). Etxe bat urte guzian garbituestena esta erraz instante bates garbitzeta, pasatu eskoa arin arina. Urte guzian atzendurik bere arimas, ta gero zeremoniasko konfessio bateki, ta au ere bortxas? (Alakoak, dio Barziak, daude kondenatzeko prezisio batean, zerengatik beti baitaude

bekatu mortale kontinoan, ezpaitire ongi konfesazen, gogotik geldi baileizke konfesatu gabe ezpaliz exkomekazioain beldurra. Zor duenak, duelarik zereki pagatu, ezpadu pagazen baizik karzelean sartu ondoan, da señaile orduan ere estuela gogotik pagatzen. Oroat diot konfesioaren zorras, ezna konfesatu baizik bortxas, da señaile orduan ere konfesazen direla dolore sinagabe, ta por konsigiente, beti, bizi guzian daudela kondenazioko estadoan; baña Jangoikoari graziak, guti uste dut direla alakoak, ta estut uste dela nior nere auditorioan). Berze batzuk, Aste Sandura il bat edo ogei egun daudela, konfesazen dire, usten dute iduris kostunbre gaistoa, ez izateko estorburik komekatzeko Bazkoan; baña aborrezitu gabe biotzes arras gaistakeria. O ignoranzia maliziosoa! O malizia ignorantea! Zer uste dute, akaso engañatu Jangoikoa? Edo estakiela Jaun andiak aien biotzeko berri? Edo uste dute tratazen dela geldizeas ongi gizonen aurkintzean, edo Jangoikoaren begietan? Alakoek estuste usten baizik interrumpizen bekatuak. Usten dute alforja parazeko atzekia, ta gero arzeko berla; ala nola daudelaik murmurazen, soñazen bada ilunezkila usten baita murmurazioa guti bat, segitzeko berla. Erabili zuzen Jangoikoaren bideas, ezi esta diskursoik, habilitaderik ta agudezarik aski denik engañazeko Jangoikoa.

5. Laurgarren señaile gaistoa da, konfesazeko esperanzan, añaditzea bekatuak; berdin konfesatu beaut, zer du ia konfesatu ogei nola berrogei? Guzia atrako da lixuan. Au da burla egitea Jangoikoaren pazienzias; au da baliatzea Jangoikoaren ontasunas, ofendizeko ia Jangoikoa. Zer nai du erran, berdin konfesatuko naiz, inzagun bekatu gau? Berdin ona da Jangoikoa, ofendi zagun. Iduri zaizu alakoak mereji duela eman dezon Jangoikoak grazia bear dena konfesazeko ongi? Eta seguro baliz ere konfesazea, seguro da urrikitzea ongi? Bada, urrikitu bear zaizu ta sines, baliatzeko konfesioak. Bada, zer erokeria da egitea urrikitu bear zaizuna? erraten diogute berzei: To, etzakela in alakorik, itenbauk, urrikitukozaik. Ta geuren buruari erraten diogu: Inzagun, berdin urrikituko gara; ori nai du erran, inzagun, ezi konfesatuko gara. Bazindeude eri da mortale bateki goatzean, emanen zina berze bat, erraten zinduelaik, berdin etorko da barbera, oroat da kuratzea bat nola bida? Estakizu konfesioan barkazen den aldioro bekatu bat, iten duela Jangoikoak milagro andi bat bizteas arima ilik zegona? Ta alakoak mereji du in dezon Jangoikoak milagrogoi? Estire itz oriek miserikordiarra mogitzeuntanak, baizik ira ta justiziara. Ori da irri egitea bekala Jangoikoas; ori da penitente ez, baizik muxisarko penitente iduri izatea: Irrisor est, non poenitens, qui adhuc agit unde poeniteat, dio San Bernardok. (Baliz emasteki bat erranlezakena: Goazen traizio egines senarra, berdin urrikituko zaida ta errain diot berai; ezlizake eroa? Bada, au iten du konfesioaren konfianzan bekatu iten duenak: Goazen, dio, Jangoikoari traizio egines, berdin konfesatuko diogu berari). Konfesiotik arzeunte atrebenzia ia ofendizeko Jangoikoa. Gaistoago dire por lo mismo ezi baita aieki sobra ona Jangoikoa. Ah zer doloreain mostra!

6. Borzgarren señailea, gaisto edo sospetxoso dela konfesioa, da bekatu batzues sentimentura anitz, kasi deus ez berze batzues izatea, guziak direlaik mortalak. (infinizio bat gaste da estutenak kasorik egiten akzione desonesto, txostaketa, itz torpe ta irriabarres ta pensamentu admititues, ta kaso andia estaien ellega azken obrara bekatua. Zerengatik? Desonrain beldurragatik; au ezpaliz, emateunten bekala aurpegia, eman lezakete gorputza). Señaile gaistoa, señaile estela usten ofendizeko Jangoikoa motibo sobrenaturales, ta por konsigiente, estela dolore sina. Seigarren señailea da bizitzea ta konfesatzea sosegu ta serenidade andi bateki ajolarik gabe, oroat nola ezpaliz baizik friolera bat Jangoikoaren ofensa. Zer errain gindue justiziatu bates, baldin notifikazerakoan sentenzia, atrazerakoan

karrikak barna, barin balego deus ere ajolarik gabe? Edo dela eroa, edo estuela estimazen bizia. Bada, konfesioan presentazen da bekataria reo bat justiziatu bearra bekala; estu biziaren kausa, baizik sekulako gloria edo infernuain gain; ta daki merejitu duela sententzia gaistoa, ta estaki logratuko duen errebokazea ere, ta lograzea faborablea, ta ortara doaie konfesazera; ta alare ain sereno, ain ajolakabe, ain desatento, ain dibertitu, ain suelto, nola ezpaliz baizik zeremonia exteriore bat guti inporta duena? Ta plega Dios estuten kaso ia despatxazeas len baño len, joateko almorzazera. Ah zer doloreain señalea!

7. Zazpigarren señalea da joatea disponiturik konfesazera alako intenzioan ezi ezpanaiz konfesazen alakoai, edo iten badida zerbait akaz isilzeko bekaturen bat. Estago, estago alako biotza sinki urrikiturik ta erresolbiturik guzis, ezi ala baliz, pensa lezake, merejitu duelaik ia infernua, ez dezokela niork egin tratamentu gaistorik mereji estuenik, ta guzia dela gutiago mereji duena baño. Zorzigarren señalea da zenbait futots suberbo konfesazeen berean, zenbait erreplika atrebitu, zenbait puntu ar ze, ta zenbait enfado ta erresistenzia, baliz bekala arren kontrario konfesorea. Badakit nik zer inbeauten, estut orren erran bearrik; esta ene puntua. Zer errain dute jendeek? mana bez berze edozein gauza, ori estut eginen; bada, ez naiz konfesatuko berriz, ta alakoak. Ziertu da ezi guti dela gisa ontako penitenterik, baño gutiago ta obeago. Alaere zenbait dire ain puntoso ta errabioso, ezpazaiote usten nautena, ezi beren enemigotako kontazeunte konfesorea, ta berzeen fabore, delarik ziertu, ezi estakiolaik deus konfesoreai, solamente deseazen duela penitenteain ona. Ala erran zio konfessore bati emasteki batek: Bada, ez naiz berriz konfesatuko, botako naiz butzu batera. Konfessoreak turditu gabe erran zio: Bai? Baña biz butzugoi lazki barna. Ah tonteriak, barberain kontra asarratzen, ta ez eri da indizienain kontra! Zer zaio demonioai ezpadire beñere konfesazen? Aien bearrean dago benturas Jangoikoa?

8. Bedrazigarren señalea da konfesatu ta fite akuditzea bekatuen okasio ta peligroetara, zeintan baitaki len galdu duela grazia. An quisquam istam poenitentiam, putet? dio San Ambrosiok. Akaso izain da bat pensako duenik dela au urrikimentua? Goizean konfessoreain oñetan, ta arratsaldean emastekien ondoan? Goizean aldareko maian komekatzen, ta arratsaldean tabernan orditzen? Goizean erraten bekatuak, arratsaldean bilatzen bekatu iteko okasioak? Goizean dolore ta urrikimentu mostrazen, ta arratsaldean itz desonestoeki irri inarasten? Au da penitenzia? Figurazaiste esposa bat, zeñi ekarri baitiote bere esposoaren gorputz ila josirik puñaladas, odolestaturik. Erregular da desgantzea penas, baña baldin iduriarazi piska bat, ta andik fite barin badoaie triskeatzera, nork errain du zuela sentimentura fiña? Kasi erran daike alegratu bide dela bere esposoain ilzeas. Ario gontara, presentazen dugu konfesioan geuren arima josirik ta ilik puñaladas; baldin gero bagoaz munduko festa goietara, estaike pensa, etzaigula anbat gure arimain ilzeas? Amargarren señalea da errekaizea fite lengo bekatuetan. Posible da, ongi konfesaturik ere, erorzea bein edo bein bekatuan; baña fite ta maiz erorzea, espezialki len ere abisatu ondoan, da señale etzela proposito firmea. Inanis est poenitentia quam sequens culpa coinquinat; dio San Agustinek: Deustako esta konfesioa, mantxazen bada fite urrengo bekatuas. Eri bates, zein errekaizen baita maiz bere exzesoenatik, erraten dugu estuela sendatzeko gana anitzik, estuelaik goardatu nai agoa. Aplika zazie. Zer balio du, fielak, garbitzea, zikintzekos berla? Gauza horroroso da bein bomitatu den bekatua konfesioan, berriz irestea zakurrak bekala, dio San Pedrok; canis reversus ad vomitum.

9. Amekagarren señalea da zelebratzea txungas bere bekatuak, kontatus sendagallas nola in zuen pikardia, zer medios baliatu zen, zer gisas portatu zen, salzen

duela goapetzatako. Zer urrikituaren señailea egitea banidade alketu bear zenas, ta orzi bear zenas lur pean, estaien aipatu sekula? gizon bat progaturik erregeen traidore, presentaturik erregen oñetan nigar iten badu ta gero andik fite barin badoaie zeledatus injenioa, trazak ta habilidadeak zeñeki armatu baizue traizioa, nork errain du dagola urrikiturik traidorea? errain dugu, erregeren oñetan in zituen nigarrak izan zirela itxuras. Oroat diot, ezi bekatu bakotxa da traizio bat Jangoikoaren kontra; konfesatu berain ministroain oñetan, ta gero iten bada sendagalla artas ta arren zirkuntanzies, da señaile etzuela urrikimentu egiaskoa. Amabigarren señailea da burlazea konfesoreas, eman zion penitenzias, estuela arrapatuko berriz, maunka ertxi dela, estela aiendako on, ta alako gauzak. Zer lengoaje da au? Zer pena, gaizki eginas! Zer emendazeko gana! Mertzede terdi inen diozu ez ellegazeas zu ta zu bekalakoak. Odrinak bekala neurzen dire konfesoreak, au zabal, ura ertxi; delaik zierto ezi ez zabalak pasatu, ez ertxiak laburtu dezakela Jangoikoaren neurria, ta ezdezakegula protxa niork baizik Jangoikoaren konforme obrazen duenak. Señaile gau esta orgatik ziertoa, errateko zela konfesioa gaisto, zerengatik dator anitzetan muiñ guti izatean buruan; baña bakotxak beira bez bere intenzioain fintasuna edo falsotasuna, atrazeko desengañua. 13 señailea ez errestitu zio itea, ez pagazea dañuak etc.

10. Señaile geben konforme atra dezake bakotxak bere konfesioen on edo gaisto diren sospetxa; ta baldin aurkizen badu makur ibili dela Jangoikoaren bideas, intenzio falsuareki, engañatus bere burua, konfesioaren kapas estalis ta disimulatus bere gogoain falsedadea, esta berze erremediorik, baizik artu erresoluzio bat suplizeko konfesio jenerale bateki konfesio gaisto edo sospetxoso guzien faltak, frinkaturik bere biotzean ezi deus estuela balio munduain alzinean zerbait iduritzea; delaik sollik Jangoikoa ikusten duena biotza ta sentenziatu bear gaituena garenaren, ez iduridugunaren, konforme. Bizitze Italian gizon bat abrastu zena usuras ta tratu gaistos, etzuenai absolbitu apetxaunak, ezpazue iten errestituzioa. Joan ze konbentus konbentu, ta guziek oroat. Noizbait tropezatu zue konfesore bat bere gogorakoa, zeñek absolbitu baizue, ta absolbitzen zue garbosoki; zein kontent gizonoi, ustes orreki zuen ia len baño, balego bekala konfesoreain eskuan idikitzea zerua Jangoikoaren legearen bortxa. Berla in zire adiskide. Erregaloak gizonak liberal konfesoreai, ta konfesoreak liberal gizonai ematen zizkio absoluzioneak. Urteak pasazen, konfesioak segi, errestituzioa geldí. Arratsalde bates merendu andi baten ondorean, joanik konfesoreoi bere konbentura, eman zio berzeai apoplejia batek ain fuerte, ezi ordugutiren barnean edeki zio bizia. Ia sarturik gaua, bi mutilek deizeunte porterian, datorla fite erreljioso gura etc. (Parr. p.3. pl.14.)

Serm. 74.

De confessione peccatorum.

ann. 1781

Delictum meum cognitum tibi feci et
injustitiam meam non abscondi. Psalm. 35.

1. Nere deliktoa manifestatu dut ta estut ixildu edo okultatu nere injustizia, zio Dabid errege penitenteak; ontaik ikas dezagun kristioek obligazio duguna konfesazeko geuren bekatuak. Explikatu ondoan examina, dolore ta proposito bear duguna, segizen da berze zirkunstantzia, baita bere bekatuak enteroki konfesazea. Zer nai dut erran ontan? Erran bear direla sazerdoteari bekatu mortale guziak konzienzian dauden bekala: Ziertoak zierto bekala, dudosoak dudoso bekala, batere kendu ta batere añaditu gabe. Bekatuen errateko obligazio gau da deretxo dibinos; da, diot, Kristok manatua, bataioas gerostik erori direnendako bekatu mortalean preziso indispensablea. Ala dauka deklaraturik Trentoko Konzilio sanduak azkenik, baitare Elizako kostunbre unibersalak ta betikoak, segitu denak apostoluen denboretaik orai artaño jendamendes jendamende, beñere floxatu gabe; antes bien, konfirmatu duela Jangoikoak milagro anitz ta andieki, ia abisatus zerutik bekatariei konfesatzeko bere kulpak; ia konserbatus arima buruan edo mian ellegazeko konfesazera ilbaño len; ia erresuzitatus ilak librazeko infernutik konfesazeareki, leizen den bekala kasi pausuoro exenpluen libruetan, espezialki Ama Birjinaren debozioskoetan. Demostrazeunte aita sanduek ta doktoreek kostunbre gau zerengatik lenbiziko jendamendean bazela adiarasten du San Dionisiok, San Pablaren diszipuloak, bigarreanean Tertulianok ta Orijenesek, an urbil bizitu zirenak; irugarrenean, ta laugarrenean San Ziprianok, San Basiliok, San Agustinek ta berze sandu ordukoek; borzgarren, sei ta gañarakoetan San Gregoriok, San Bernardok, Santo Tomas ta berze urbilagokoek guregana, desuerte ezi esta aurkituko denboraik noiz esten izan obligazio konfesazeko bekatuak kristiandadean; estare konzilio edo aita sandu Erromakorik lenbiziko inbentatu duenik obligaziogoi, zerengatik baitator Jesu Kristo beragandik. Ala ezpaliz ta paratua baliz Elizaren manus, aurki leike noiz edo noiz aita sanduetaik nork edo nork dispensatu duela lege gontan zenbait erreinu, edo enperadore, edo errege, edo persona andiren baten graziatan; baña estu niork ta ez nioiz ere dispensatu, ez dezake ere, zeren ezpaitu paratu lege gau Elizak baizik Jesu Kristo Jangoiko-gizonak. Elizak manatu duena da urtean bein berere egitea konfesioa Jesukristok ordenatu zuena señaletu gabe denboraik; solamente, bada, Elizak in duena da señaletzea denbora zeintaik estaian pasa nior konfesatu gabe, ala nola komunionea ere Kristok paratu zuena ertxitu gabe noizko, ertxitu baitu Elizak Bazkoa garizumakoetara.

2. Noiz, bada, paratu zue Jesu Kristok konfesioaren lege gau? eman ziotelaik apostoluei potestade barkazeko ta gelditzeko bekatuak, zerengatik ontan egin zitue juez eman zezaten sententzia bekatarien fabore edo kontra. Ta dion bekala konzilio sanduak, Jesu Kristok, igateko zegolaik mundutik zeruetara, utzi zitue sazerdoteak bere bikario, presidente ta juezak bekala, zeinen alzinean presenta daitzen kristioek itentusten kulpa mortale guziak, zeñien konforme pronunzia dezaten barkazioaren edo ezaren sententzia; eta klaro da ezi sazerdoteek etzuketela exerzitzatu juizio gau ezaundu gabe kausak, estare goardatu igualdade penak parazean, ezpazaizkiote deklarazen bekatuak berex ta diren diren

bekala. Ontaik segizen da dela preziso deklaratzeari penitenteek konfesioan bekatu mortale guziak konzienzien tustena exaina dilijente baten ondorean, naiz izanik aiek txoil sekretoak, ta solamente biotzeskoak, ta azken bi mandamentuen kontra direnak. Zerengatik benialeak, zeintan maiz erorzen baikara, ta zeinen medios ezaikara apartazen Jangoikoaren graziatik, erraten badire ere ongi ta probetxutako, piadosoen praktikak mostrazen duen bekala, daizke alaere ixildu konfesioan, ta barkatu berze anitz medios. Baña nola bekatu mortale guziek, naiz solamente pensamentuskoek, iten baikaituste iraren seme ta Jangoikoaren enemigo, da nezesario bilatzea Jangoikoagandik guzien barkazioa, konfesio klaro ta humil baten medios. Eta ala, prokurazeuntelaik Kristoren fielek konfesatzea oroizen diren bekatu guziak, dudarik gabe guziak exponizen tiote Jangoikoari barkazeko; baña ala itenestutenek, baizik zenbait ixilzentustenek bere naies, deus estiote presentatzen Jangoikoaren bondadeari barkatzeko sazerdotearen medios, zerengatik eria ezpada atrebitzen erakustera medikuari lliga, medizina estu sendazen ignorazen duena. Segizen da, alaber, konfesatu bear direla ere zirkunstantzia gaiek aldazen dutenak bekatuaren kalidadea, zerengatik aiek gabe ezaikara konfesazen osoki bekatuak, estare adiarasten juezei aski, emateko konforme sententzia. Orgatik da arraziotik aparta dagon gauza, erratea ezi zirkunstantzia goiek pensatutustela gizon alferrek. Da ere gauza inpioa erratea ezi alako konfesioa dela imposible ta konzienzien tormentu, zerengatik estiote ia eskatzen penitentei Elizak baizik erratea oroizen diren bekatuak, errejistratu ondoan konzienziaren zokoak dilijentekiro; baña berze bekatuak okurrizenestirenak memoriara pensatu ondoan dilijenteki, entendazen dire sartuak daudela konfesio berartan. Egia da ezi alako konfesio gonon difikultadea ta bekatuen manifestazeko alkea ba lezakela iduri andiskoa, ezaikara alibiatzen ainberzeko konsolueki, nola ematen baizaiote ziertoki absoluzioaren medios, sakramentu gontara dignoki ellegatzen diren guziei. Baña sekretoan konfesazeko moduain sazerdote soillareki ezaikara inpeditu Jesu Kristok konfesatzea publikoki, nai duenak bere kulpen satisfakzioan ta Elizaren edifikaziotako, alaere au estu manatu Jangoikoak; solamente sekretoan konfesatzea, len ta gero usatu dena Elizan, ta enkargazen dutena aita sanduek konformidade andian. Guziau dio Trentoko Konzilioak (Sess. 14. cap.5.) Diot, bada, ia orai ausarki egia gau: In barin baduzu grabeki bekatu, edo konfesatu, edo kondenatu; bat edo berze estaike exkusa. Autatu bada.

3. Eta zer bekatu gaude obligaturik konfesazera? Bekatu mortalak, guziak, estirenak len konfesatu; gaizki konfesatuak; konzienzien aurkizen diren gisa, ziertoki zierto bekala, dudosoak dudoso bekala, batere kendu ta batere añaikara gabe, zenbat ta nolakoak diren; baitare zirkunstantziak bekatua berritzen edo diferente egiten dutenak, edo anitz andizen dutenak ere bai. Explikatus. Ezkaude obligaturik konfesazera bekatu benialeak edo lebeak, zerengatik ebek berze anitz medios ere barka daizke: b.g. meza enzuteareki, komekatzeareki, predikua aditzeareki, obispoaren bedeizioareki, Aitagureareki, Ni bekatoreareki, ogi ta ur bedeikatuareki, ta bularrean golpe emateareki, delaik bitarte biotzean desplacer eginas bekatu gaiek, naiz benialeak izanik. Bekatu mortalak, bada, dire prezisoki konfesatu bear direnak, au da, bekatu grabeki ofenditzen dutenak Jangoikoa, ezaikara len konfesatu, edo gaizki konfesatu badire; zenbat diren, al badaike atra numero txustoa, ezperen guti gora bera, edo iloro edo asteoro edo egunoro zenbat; baitare dudaskoak, au da, aiek zein dudan baitago intuen edo estuen; edo jakinik intuela, dudan baitago konfesatutuen ongi edo estuen, edo diren mortale edo estiren. Baitare zirkunstantzia aldazen dutenak, b.g. Bekatu desonesto bat da bat, baña elizan da zirkunstantzia sakrilejioarena lekuaren kasos; persona konsagratu edo kastidadearen boto

duena izanik, da berze zirkunstanzia sakrilejioaren personain aldetik, aideareki da inzestoaren zirkunstanzia; ezkonduareki da adulterioain zirkunstanzia; ta guziau konfesatu bear da. Oroat, diot, maldizio bat, emanka bat, gaiz deseatzte bat edozeiñi da bekatu bat bakotxa; baña guratsoari da zirkunstanzia berria piedadearen kontra, konfesatu bear da. Oroat, diot, ebastea da bekatu bat; baña ebastea elizan, edo elizako gauza, da berze zirkunstanzia sakrilejioarena, adbertitu ta deklaratu bear dena. Bear da ere deklaratu eskandalo eman dena bekatuas landara, ta zenbat diren eskandalizatutuenak: b.g. bekatu desonesto bat sekretoan, bat da kastidadearen kontra; egitea berze baten alzinean, da berze bekatu bat eskandaloarena, biden alzinean bida, iruren alzinean irur etc. Gutiena. O zein guti erreparazen diren eskandaloak, ta nola montiazten diren bekatuak arren kasos! tiro bat da bat, gaisto izateko, aski du intenzio gaistoa, ilzen badu bat, gaisto da; bida ilzen baitu, gaistoago; irur ilzen baitu, gaistoago; ta orra, tiroa delaik bat, bekatuak estire bat, baizik ilzentuen bezanbat; oroat da eskandaloan. Eskandaloaren zirkunstanzia ere da tentatzea, ematea kausa edo prinzipio berzeain bekatuai: b.g. egin badut bekatu bat berze bateki berzeain tentazios nik, nik in dut bat, arrek bida, tentazio emanizidanain kasos; nik tentatu barin baut, edo eman badut prinzipio edo kausa, berzeain bekatua da bat, ta nereak bida gutiena. Bear da ere deklaratu kostunbrea, galdeiten duelaik konfesoreak. Dauka ala erakutsirik aita sandu Inozenzio amekagarrenak, ta arrazioreki, zerengatik kostunbreak diferente parazen du arimaren estadoa; eta alde gontaik esta ajol len konfesaturik egotea lengoak. Galdeiten bada len egin duen orai konfesazen duena, erran bear da, zerengatik berze juiziorik iten da bekatu berries, ezi ez errekaides ta zarres. Medikuak galdeiten du ia len izan duen eritasun bera, ta erraten zaio, zerengatik ezpaita bardin lenbiziko eritasuna ta errekaida, ta esta igoal guti aldis nola anitz aldis errekaitzea. Bear da ere deklaratu galdegiten bada okasio urbil edo proximoas, ala dauka au ere deklaraturik aita sanduak. Bear da ere deklaratu opinione obrenean, zirkunstanzia anitz andizen duena kulpas: b.g. laur erreal ebastea delaik mortale, egun edo berregun ebastea andiago da, ta ario gontara berze jeneroetan.

4. (Goazen au berau explikatus, obeki entendazeko galdetus ta errespondatus. Zein da konfesioaren laugarren kalidadea edo zirkunstanzia? Bere bekatuak enteroki konfesatzea. Zer nai du erran bere bekatuak enteroki konfesatzea? Erran bear direla bekatu mortale guziak: Barkatu estirenak, konzienzian dauden bekala; ziertoak zierto bekala; dudosoak dudoso bekala; batere kendu ta batere añaditu gabe. Gaude obligaturik konfesazera benialeak? Ez, zerengatik ezpaitute galzen Jangoikoaren grazia, baizik solamente gutizeunte karidadearen ferborea; ez il zen, baizik flakazeunte arima; alaere da on konfesatzea nai badu. Dagoke bat obligaturik noizbait konfesazera bekatu leberen bat? Bai, noiz ta nai duen errezibitu absoluzionea, ezpadu berze bekaturik, bear da erran leberen bat, zerengatik izatekos konfesio, zerbait bekatu konfesatu bear da; ezperen, estaike eman absoluziorik ezpada zertas eman. Eta mortaleak esta aski erratea direla anitz edo guti? Ez, zerengatik erran bear da zenbat diren numero txustoa al badaike. Eta direlaik ainberze kantidadeen ezi ezpaitaibe aberigua zenbat? Orduan guti gora bera, edo astein onenberze, edo egunean onenberze. Eta konfesazen badu batek laur, ta gero aurkizen badu borz? In barin bazue examina dilijenta, laur konfesatuak daude ongi konfesatuak, solamente borzgarren atzendu zizaiona izain du obligazio konfesazeko oroizen delaik: Baña baldin examina faltas gelditu barin baze, konfesioa izan ze gaistoa, ta guziak berriro konfesatu bear dire, ta izan zuen falta examinan, ori ere bai. Eta konfesazen baitu batek ogei, ta usten badu bat bere kulpas, ogeiak barkazen dire? Esta bat ere, dio

Trentoko Konzilioak, zeren konfesioa da gaistoa, ta barkatu bearrean ia lotzen da sakrilejio berriareki. Eta dituenak solo ogei konfesazen baitu ogeita bat, konfesazen da ongi? Ez, zerengatik bear da erran dena, batere kendu ta batere añaditu gabe. Eta len konfesatuak bear dire berriz konfesatu? Ez, baldin juizio prudentea iten badu konfesioa izan zela ona; baña konfesioa ezpaze izan ona, edo dudazen badu arrazioreki izan zen edo ez ona, berritu bear da eta zirkustanzia explikatu etzirenak, bear zirelaik, aski da konfesatzea urbilen aldian? Bai, baldin atzendu baze kulparik gabe; baña malizias edo floxezas utzi bazire, guzia berritu bear da. Eta galdeiten badu konfesoreak lengoes, bear dire explikatu? inporta delaik jakiteko zure arimain estadoa, bear dire, eta oroat diot, galdeiten badu okasio proximo duzunak; baña gañarako bekatu mortale guziak, konfesaturik estaudenak edo gaizki konfesaturik daudenak, bear dire konfesatu, naiz ez galdeginik; oroat diot dudaskoes, bear direla konfesatu nola sentituen etc. En fin, ala konfesatu bear gara Jangoikoaren ministroai konfesioko tribunalean, nola il zen garelarik, kontu artuko baizaigu Jangoikoaren tribunalean; orgatik, konfesaaldioro joan bear dugu prebeniturik alako maneran, nola baliz azken konfesioa, ta il bear bagindu konfesatu ta berla, estaien geldi zertas akusatu Jangoikoaren tribunalean. Santo Domingoko errelijioso bati, zegolarik ilzeko tranzean, erran zio superioreak, disponi zeila konfesazera ilzeko bekala; errespondatu zio errelijiosoak: Ogeitaamaborz urte du konfesazen naizela egunoro meza errateko, oroat, nola il bear banu konfesio bakotxain ondorean berla; beras, estut orai ia itekorik baizik disponitzea meza errateko bekala, estut zer deus berritu. O! Ala konfesa bagindeiz, zer arimain sosegua, zer satisfakzioa! Alzina gaizen, bada, konfesazera emen, kargu dezakegun guzia Jangoikoak an: Praeveniamus faciem ejus in confessioe; ta orái fede, esperanza etc.

Serm. 75.

De confessione occulorum.

ann. 1781

Beatus vir, cui non imputavit Dominus peccatum,
nec est in spiritu eius dolus. Psalm. 31.

1. Ditzosoa da gizon gura, zein ezpaitu Jangoikoak akusazen bere kulpagatik, ta zein gogoan ezpaita falsukeria edo doblerik, dio Dabid profetak. Zer da au? Nor daike izan jaio denik, zein ez dezan akusatu zerbait kulpagatik Jangoikoak? Eta zergatik añaizen du itz gura, zeinen gogoan ezpaita falsukeriarik? Goazen entendatus, fiolak. Jakina da estela nior bekaturik iten edo inestuenik, Kristo ta Maria Santisimas landara; baña franko dire zein ezpaitu akusazen Jangoikoak kulpas; nor dire oriek? Falsukeria gogoan estutenak, naiz izanik bekatu zenbait. Erran zagun klaro, aiek, zein ere eginik zenbait bekatu, akusazen baitire guzietas konfesioan dolore ta proposito finareki, senzillo ta klaro, den den bekala, falsukeria ta doblerik gabe okultazeko bere malizia; aiek, diot, estitu akusazen Jangoikoak beren bekatues. Si tu te accusas, Deus te excusat, dio San Gregoriok, zu zeuroi akusazen bazara, Jangoikoak ia etzaitu akusatuko. (Eta lenago erran zue San Juan Ebanjelariak: Si confiteamur peccata nostra, fidelis est Deus et justus ut remittat nobis, geurek konfesazen baitugu geuren bekatuak, fiela da Jangoikoa ta justo, barkatukobaititigu. Eta San Pablok ere bai: Si nos metipsos dijudicaremus, non utique judicaremur, gerok akusazenbaginduzta geuren buruok ezkinazkela izain akusatuak Jangoikoaren aldetik, explikazen baitu San Krisostomok ala: Hoc est, si nostra tantum modó voluerimus cognoscere peccata, si condemnare nosmetipsos, liberaremur utique et ab huius, et a futuré saeculi suppliciis (In Ej. 1. Cor. c. 11). Nai baginduzke, dio, errekonozitu geuren bekatuak, ta konfesatu kulpante geuren buruok, libragindeizke mundu ontako ta berzeko penaetaik. Eta anitzes lenago ere erran zue Jangoikoak berak Ezeielen agos: (18) Gaistoak baldin iten badu penitentzia bere gaistakeries, estuela ia inen Jaun andiak memoriarik aietas; ta exenplarea paratu zigu Dabid berean zein erreprehendizera bialirik Natan profeta, konfesatu zueneko bere kulpas, peccavi Domino, instante notifikatu zio, Jangoikoak ere barkatu ziola, Dominus quoque transtulit peccatum tuum. Orai ia entendazen da lenbiziko erran gura: Ditzosoa zein ezpaitu akusazen Jangoikoak bere kulpagatik, ta zein espirituan ezpaita falsukeria edo doblerik, baita oroat nola erratea, ditzosoa konfesazentuen bere kulpas guziak okultatu edo disimulatu, edo exkusatu gabe deus gogoaren falsukeria ta dobleen medios. Beras, desditzatuak dire dabilzanak okultatzen, disimulazen edo exkusazen bere gaistakeriak bere gogoain ingura, astuzia ta doble falsueki, zeren alakoak estaizkelaik estali Jangoikoaren begiendako Jangoikoak akusatuko baititu bekatues, ta beren konfesio falsues, zerengatik zion bekala San Bernardok, konfesio falsa esta konfesio, baizik doble konfusio. Orgatik erran zigu San Juan Ebanjelariak, ezi erraten badugu estugula bekaturik, engañatzen tugula geuren buruok. Si dixerimus quia peccatum non habemus, ipsi nos seducimus. Zierto da ezi ez dezakegu engañatu Jangoikoa ikusten duena guzia, baitare astuto dobleen malurreriak ere; beras, sollik beren buruak engañazentuste.) Ikuskigun bi engañu konfesioko asuntoan.

2. Bata da ez konfesazea baizik galdeiten zaiotena; geldizen direla erran gabe zenbait kulpas, zeren estioten galdegin aietas. Etzoazi konfesazera? Bai, bada, zure

obligazioa da erratea duzun guzia, naiz ez galdeginik. Gerostik in baduzu sorgindaria bat ere, eman badiozu ere deabruari arima firmaturik eskrituras, estuzu errain ori, ezpadizu galdegiten konfessoreak, erregular baita ta ala geldizindeizke satisfetxo? Beras, konfessoreak adibinatu bearkotu zure bekatuak, edo egon bearko du egun guzian konfesio bakotxean galdegitekos egin daizken bekatu jenero guzies? Ta aun orduan ere balekioke atzen azertatzea galdegitean ain txusto zure falta gura. Goazen klaro: bear dugu erran duguna, ez galdeturik ere, zerengatik biotz humanoa da ain fekundo malizian, ezi in baitezake gogoratuko etzaiona askotan konfessoreari. Ezkaizela ontan deteni, zeren esta ordinario errore ta ignoranzia gau.

3. Ordinarioago da berze errorea ta engañua, baitago ez konfesatzean baizik dena expesoki mandamentuen kontra, erreduzitu gabe aietara aietan enzerrazen den guzia, ta zerengatik puntu gau baita guzis inportazioskoa deteni gaizen ontan berexis mandamentu bakotxean falta daikena. Egia da aski dela konfesatzea bat amar mandamentuetaik, baña bear da konfesatu aietara erreduzi daiken guzia, naiz ezpadago expreso debekaturik itzain lenbiziko aurkintzean. Ikusagun: Lenbiziko mandamentua da onestea Jangoikoa gauza guzien gañetik. Akusazen zara aborrezimenturik izan bauzu arren kontra. Ori ongi, baña esta aski. Izan bauzu zenbait enfado Jangoikoaren probidenzias, errezen egon bazara zeure gogoan edo aun marmar egin bauzu bialdu dizun eritasun, desfortuna, tenporale gaisto edo berze edozein kuadrasetzaizunas, ori esta Jangoikori zor diogun sujekzio ta errespetoain kontra? Iago: akusazen zara ukatu edo dudatu duzun fedean, galdu duzun esperanza jangoikoa baitan; eta superstizioeak non dire? Fiatzea bat friolera batzuetan: errezazen baut alako debozioa, estaikela kondena; eraikizen baut alako egunean, iten badut alako dilijenzia, izain dut fortuna, ezperen desfortuna, ta ario gontako erreparo futilak. Eta non dire duda malizioso gaiek itsuzeko arrazioa bere tirrien fabore, he! Au ezpide du debekatzen ain sines Jangoikoak; ez al du onengatik kondenatuko bat sekulakos; ezpide da infernua dioten bezanbat; ponderazeunte guri sararasteagatik beldurra; goazen orai bizitus nolana, gero estakigu zer izain den; ta gisa ontako konsolazio falsuak. Eta non dire sakramentuen desprezio iduriak, nola nai errezibitzea, ta sakrilejio iresten direnak? Bada, au guziau, ta ia ere da mandamentu gonon kontra.

4. Bigarren mandamentuan akusazen zara juramentu ta maldizioes; bai, ta non dire bella aisa ofrezitu ta nekes kunplizentuzunak? Bada, ofrezituaskeros zor da, ta anitz denboras kasorik ez egitea, luzatzea anitz motiborik gabe, bekatu mortale da. Eta non dire juramentu saldu erosietan intuzunak, informazioetan pasiones intuzunak? Eta ia dena, non dire botatutuzunak erreparorik gabe kostunbres gezurti orrek? Eta gero dañuen errestituzioak non dire? Irugarren mandamentuan akusazen zara utzi duzun mezaik edo gaizki enzun duzun ta trabajatu zaren. Bai, ta non dire peligro izantuzunak ez enzuteko zeure kulpas? Zerengatik paratzea bat meza usteko peligroan, naiz gero erdexten badu ere ustekabetzean, da bekatu mortale. Eta non dire atenzio galarastentuzunak mezakotan zeure kulpas? Goazen trabajazeain asuntora. Egia da ezi nezesidade puroak ta egiaskoak exkusazen duela jaiegunean, lizenziareki publikoan ta naiz lizenziarik gabe sekretoan, baña zenbat aldis engañatu duzun zeure burua falseatus Jangoikoaren manua? Zenbat lan intuzu jaiegunean alzinatuzinduzkenak? Zenbat biaje kargareki intuzu jaiean exkusatuzinduzkenak galdus lan puxka bat astregunean? Zenbat maña bilazen duen kodiziak trabajazeko estaikelaik? Ta zein guti konsultazen den? Zenbat fiazan dire ikustas berzeak zeñek akaso baitute nezesidade andia, edo akaso konzienzia galdua! Jangoikoa estaike engaña.

5. Laugarren mandamentuan akusazen zara galduas obediencia edo errespetoa iagokoei; ta uste duzu ori aski dela? Mandamentu gontan da anitz ia enzerrazen dena. Onara erreduzizen dire obligazio guziak nork bere ofizioan ta estadoan, senarrak diona emasteai, emasteak senarrai, guratsoek humeei, humeek guratsoei, nausi etxokandreek nirabeei, nirabeek nausi etxokandrei, ofizio ta estado edozeintakoak bere ofizio ta estadoai. Ezkonduak akusatu bear du matrimonioan izantuen faltas ta exzesoes; guratsoak ia deskuidoes etxeko gobernuan, malgastazen duen deus zertan edo zertan, faltazen duen humeen azitzean, erakusten ezpadiote doktrina ta legea Jangoikoarena, ustentuen erabilzera pausu gaistoetan edo okasio peligrasoetan, estuen zelatzen aien salbazioa, erreprendizen gaistakeriak, parazen dilijenzia prudenteak ta kuidatzen aien arimes orokat nola Jesu Kristoren odolaz, aien kargura dagonas humeetan. Humeek akusatu beaute faltazen dioten amorioas guratsoei, desobediencia, akzione, keñu ta itz gaisto egitentiotenes, alaber desprezio ta ladronkerias. Nausi etxokandreek akusatu beaute nirabeeki duten deskuidoas arimako gauzetan guti gora bera orokat nola humeeki, ta berze alde ia faltazen dioten soldata, alimentua ta gañarako entendazen direnak ajustean. Nirabeek alaber desobediencia, deserrespeto ta alakoes, baitare ia desleal, edo konsient diren etxeko dañuan, ia malizias usteunten trabajazeko ta zelazeko nausien fabore bear bezanbat. Ofizio edozeintakoak alaber bere ofizioan intusten faltas edozein gisas. Ah mandamentu laugarrena, zein guti kunplitzen zaituten, ta zein aisa pasazen zaituten konfesioan akusatu gabe zure kontra direnes!

6. Borzgarren mandamentuan akusazen zara il edo heritu duzun nior, edo alakorik deseatu duzun. Akusa zaite alaber ia malizia sobras edo kuido faltas jaio den ilik aurra edo eriturik; edo niolateko maneran partizipante izan zaren norbaiten eriotzean edo eritasunean. Baitare ia izan duzun diskordia edo asarrerik, edo odiorik, ta errantiozun ta egintiozun gaizkika. Baitare jan edan sobratu, ta faltatu denas baru ta bijilietan. Baitare karidade ta limosna inestirenes, zeikelaik ta bear zelaik, guziau manazen baita Seigarren mandamentuan akusatzen zara intuzun akzione eta itz desonestoes, baña estakiskizula geldi akusatu gabe zirkunstanziak, zen persona sagratua edo boto egin, zen aidea, edo ezkondua, edo birjina, edo bortxarik egin den. (Estakizula atzen akusatu gabe matrimonioko exzesoa ta bearestenkeriak legeain ta arrazioain kontra direnak.) Ez okultatu zeure buruorrek okultoan izantuzun indezenzia gaistoak, gogoan admititutuzun deseoa, pensamentu pasatutuzun urdekeriak zeure naies, zerengatik guzia ikusten du Jangoikoak, biotza ere bai, ta ango sekretoak. Estakizula atzen beiratze maliziosoak, okasio proximoak, ta medio edo tentazio paratutuzunak ta gañarako arramak.

7. Zazpigarren mandamentuan akusatzen zara, ebatsi barin bauzu deus berzeenik artu zeure edo berzeen eskus; esta aski, anitz falta da oraño. Non dire ebaste deoseoak, intenzioak ta medioak? Non dire proximoari inikako dañuak haziendan zeurorrek, edo zure pekoek edo zure animaleek zure deskuidos? Non dire gutika gutika ebasteak kantidade notablea iten dutenak azkeneko? Non dire salderostean iten diren perjuizioak? Non dire tatxa okultatu direnak bear zirelaik manifestatu; ta engañu eginak prezio lijitoas landara? Ta alakoik ez izanik ere, non dire intenzio makurrak salzeko balio baño iagotan, edo erosteko merkeago juxto den baño, balu nori engañatu? Non dire usurak, sobra pagaraziak, zeren den pobre, zeren eman den gerora? Non dire pizu edo neurriko injustiziak, nastekatze fraudulentuak; injenio, traza ta maulak tratuetan? Non dire konsient izana, leku edo laguntza emanak? Non dire manuak, konsejuak, algoak, isilzeak, ez estorbatzeak, ez manifestazeak, erremediazeko lapurkeriak? Non dire errestitu zio in

bearrak; itzulzea gauza aurkituak; suplizea dañu izanak; pagatzea zorrak, amarren primiziak; ta ontan fraude iten direnak konzienzia gaistos, doktrina falsus?

8. Zorzigarreanean akusatzen zara murmurazioes ta gezurres, ta oroitu zara dañu segitu direnes? beiratu duzu ongi zenbat famatu den zure faltas? erreparatu duzu publikatzean sekreto zena? Bati konfianzan, berze bati ta berze bati, ta ala anitzei erranes? in duzu juizio gaistorik niores motibo sufizienterik gabe? Zelo inprudenterik izan duzu zuk senarra emasteas, zuk emastea senarras, solamente zure buruko aprensio fundamentugabeas? Bada, guziau ta ia debekazen da mandamentu gontan. En fin, estaikelaik pulpitotik erran guzia, zeintan falta dezaken malizia humanoak, guzia erran bear da konfesioan, naiz ez galdeginik, izatekos osoa ta ona konfesioa. Erloju batean errueda bat sollik falta daien, zer diot, errueda bat? orz bat solamente falta daien, aski da izateko gaistoa erlojua. Korputz humanoan guzia sano izanik, solamente erze bat usteldurik izatea aski da ilzeko guzia. Zitara batean kuerda bat sollik makur egotea aski da galzeko armoniain konzertua; oroat diot konfesioan bekatu guziak konfesaturik ere bates landara, oroat da nola deus ezpaliz konfesatu. Confitemini Domino in citharâ, konfesa zozie Jangoikoari zitaran, dio Dabid erregeak, et in psalterio decem chordarum psallite illi, ta egin zozie soñu ona amar kuerdetako psalterioan, konfesatus amar mandamentuen kontra in, erran, deseatu ta pensatu den guzia.

9. Kontazen du Juan Raulinek (Andrad. Itiner. grad. 2SS. 22) emasteki bizi zen bates piedade ta deboziosko obra egiten beti erretiraturik orazio, penitenzia ta birtute andieki, desuerte ezi guziek zeukate sanda bat bekala, ta ala ze azken eritasuneraño; ontan izan zue desgrazia beirazeas kuriosidadereki bere etxeko gizon grazia oneko bati, izan zue biotzean pensamentu bat admititurik borondatean, baña nola ezpaize pasatu pensamentutik naiz konsentiturik, etzue in kasorik konfesazeas, sinestarasten ziola bere alkeak, etzela prezisiorik, deklaratzeko konfesoreai zeñek eman zio absoluzioea, komunioea ta oliadura sandua, ta ala ilze opinione andian, guziek uste zutela joaten bide zela goatzetik zerura txuxen txuxena. Asistiturik berze akonpañamentuareki obispo Jaunak ere artas zuen opinioneagatik, ta honratu naies bere kapilla arren gorputzareki oroat nola errelikia prezioso bateki, orziarazi zue artan, ta disponitu zitue honra luzituak zelebrazeko arren birtuteak. Baña nai izan zue zeruak desengañatu obispo engañatua bisione goneki. Il zen biramonean joan ze obispogoi ila zegon kapillara orazio egitera; ta akaso enkomendazera bere ilaren merejimentuetan; ainberzekoa ze zuen opinioea arren santidadeas! Baña ellegatubaño len ikusi zue argitasun andi bat atrazen zena atari ta leioetaik, balego bekala su andiren bat barnean. Admiratu ze, eman zue prisa, ellegatu ze atarira, ta ikusi zue andik kapillain erdian hogera andi bat, ta artan parrillabazuk, ta eben gañean persona bat, inguraturik demonioes, zeñek etiope edo xitotzar belz bazuen figuran sutillite batzueki erretzen zute aurpegian, bularretan ta gañarakoetan; ta tormentu iagotako itzulzen zute tenaza ta punza zorroz bazueki alde batera ta berzera, ematen zituelaik miserableak oñatzeain utses iskiritu ta ai lastimagarriak. Gelditu ze obispoa pasmatutik ikusteareki, lazturik bilo guziak izerdi otz bat zeriola aurpegi guzitik barna, beira beira ta ezin ezaundu nor zen, ikaraturik justizia iten zutenas infernuko ministroek desdixatu arreki. Bada, lotsatu baze ikusteas, ia lotsatu ze adizeas, zerengatik animaturik Jangoikoaren birtutes, manatu zio erran zezola nor zen. Errespondatu zio tristeak: Ni naiz erenegu il zen emastekia, ta emen orzi zuena, zein nai baitu zelebratu sanda bekala nator Jangoikoaren ordenanzas desengañatzera, ta erratera nola naizen kondenatua pensamentu konsentitu batengatik ilbaño len izan nuenas, zein ezpainue konfesatu. Predika bez nere desdixta

eskarmentutako. Au erran ta desaparezitu ze bisionea. etc.

Serm. 76.

De reticentibus in confesione peccatorum.

ann. 1781

Pro animâ tuâ ne confundaris dicere

verum Ecclesiastici c.4. v.24.

1. Zeure arimagatik etzazula alkes utzi errateko egia den den bekala, dio Espiritu Sanduak. Konfesio batean doakigu ainberze, nola balio baitu arimak Kristoren odol preziosoareki erreskatatuak, ainberze nola balio baitu Jangoikoaren graziak ta gloriak; ta konfesio gaistoas guziau galzen da, ta onas guziau iragazten da. Erranik, bada, ezi konfesio ona iteko, examina, dolore ta propositoas landara, bear dela bere bekatuak enteroki erratea sazerdoteari Jangoikoaren lekuan dagonari, ta erranik alaber erran bear direla prezisios bekatu mortale guziak ez konfesatuak, gaizki konfesatuak, bere numero espezie ta zirkunstantzia berritzenduteneki bekatua, konzienzian aurkizen diren bekala, ziertoak zierto bekala, dudosoak dudoso bekala, batere kendu ta batere añaditu gabe, beras, ongi eldu da orai diona Espiritu Sanduak, etzagula alkes utzi errateko egia den den bekala geuren arimagatik. Malizias ustea da gaiz bat kasi kasi fedean falta mostrazen duena, benzait bai fedean epeltasuna. Da ertxizea zerroju fuerte bateki erremedioaren ataria ez kuratzeko sekula; da despeizea ta botazea eskutik zeruko gilza bere naies. Alako guti bide da munduan, uste dut, usten dutenak, diot, konfesatu gabe kulpak bere malizias, ta berarias alkerik gabe. Iago bide dire alkes usten dutenak, zeñiek alaber malograzen dute konfesioain benefizioa bere arimen kaltetan, erranzoguten, bada, alakoei Espiritu Sanduareki, pro anima tua, etc. Zeure arimagatik etzazula utzi etc.

2. Bekatu egin baño len, sana zego arima, Jangoikoaren agradoan, zerurako deretxoareki, ongi zego ala bataioko erremedio aisareki. Baña egin ondoan bekatu mortala, berze bataio bat bear da trabajosoagokoa, deizen duen bekala Trentoko Konzilioak, sendazeko ta bizteko arima, librazeko infernurako sentenziatik, itzulzeko Jangoikoaren agradora ta zerurako deretxora; bear da erremedio kostosoagokoa, au da, erratea bere kulpak. Benenoa iretsiduenaindako esta aski gañetik edozein enplasto suabe, bear da barnetik zerbait medizina efikaz botarazi dezana benenoa kanpora. Bekatuaren benenoa admititu duenai bere ariman errezetatu dio Jesu Kristo mediku espiritualeak biotzaren kontrizioa, zeñen medios erresolbi daien botazera agotik benenogoi konfessoreain oñetan. Borondateas egin dire bekatuak, ta borondateareki bateo askotan gorputzaren sentidoes, begies, eskues, mias ta gañarakes arimaren eriotzeko; baña agoas iten da konfesioa bizitzaindako, dio San Pablok, ore autem confessio fit ad salutem. Munduko tribunaleetan nola ezpaitakite juezek berzeren gogoko berririk, baliazen dire juezak berzeren informazioes ta reo beraren deklarazioas emateko sentenzia, ta ezpada informaziorik kontra, ta ezpada deklarazen bera, libre atrazen da kulpante dena juezen ignoranzian kasos. Baña Jangoikoak nola baitaki guzia, ta ezpaitu bear nioren informaziorik emateko bekatariari sentenzia utzi du bekatari beraren mian sentenzia on eta gaistoaren suertea, baldin okultazen badu bere bekatua Jangoikoak dakiena ia, sentenziazan du kondenazio sekulakora; baña baldin deklarazen badu bere ministroaren oñetan dakiena ia Jangoikoak, prometizen dio barkazioa. Orai, bada, hume batek eginik gaistakeriaren bat, ta jakinik ellegatu dela bere Aitaren notiziara, estaikelaik eskusa bere Aitaren manutik alas edo olas,

in dezake diskurso gau berebaitan; berdin nere Aitak badaki, ta ukazen baut, eznaike libra; naiago dut alzinatu neuronek ta konfesatu nere kulpak; agian ala barkatuko dida. Eta zierto da, fiolak, ezi edozein beraxten da aun bere kontrarioaindako ikusteareki konfesazen dela kulpante. Ario gontara bear gara geurok alzinatu Jangoikoaren aurrean konfesazera geuren kulpak, praeoccupemus faciem eius in confessione, berdin notiziatu dago, berdin badaki; agian ala barkatuko digu. Zer erran dut? Agian? Ez, baizik zierto da barkatuko digula konfesazeareki bear bekala, ta au solo nai du barkazeko. Si confiteamur peccata nostra, fidelis est Deus et justus, ut remittat nobis peccata nostra, et emundat nos ab omni iniquitate. Dio San Juan Ebanjelariak baldin konfesazen baitugu geuren bekatuak, fiela ta bere itzaren goardazalea da Jangoikoa barkazeko ta garbizeko gu gaistakeria guzietaik. Aski da Jangoikoaren itza.

3. Baña demonioak, Jangoikoaren ta gure enemigo perpetuoak, beti injeniaz du nola estorbatu Jangoikoaren borondatea ta gure salbazioa, ta gezurraren Aita den bekala dakiela ezi egia erratea konfesioan dela gure erremedioa, porfiaz du erranarasteagatik gezurra aun an ere Espiritu Sanduaren kontra. Eta zer lastima! Frankoeri inarazi diotenei bekatua bere tentazioes okultarasten diote egia ta erranarasten diote gezurra konfesioan, pribazeko erremedioetaik guzis arras; eta nola jaikizen baitire penitente gezurta goiek bizirik ta nobedaderik gabe gorputzean konfessoreain oñetaik, ta nola ezpaitute ikusten bere arima, ta fedea baitaukate erdi ila, segizen dute ala infernuraño. Ah! gerta balekiote Ananias ta Safirai bekala San Pedrokei. Zauste ia aitu naiak historia sagratua. Lenbiziko kristio gaiek apartazeagatik lurreko kuidaioetaik arima, salzenzuste bere heredajeak, ta prezio egin zutena presentazen zute apostoluen oñetan, errepartizeko gero an mankomun kristio lagunei. Ananias ta Safirak saldu zute alor bat ta erreserbaturik beretako zati bat, gañarakoa presentatu zue Ananiak San Pedroren oñetan. Erran zio San Pedrok: Ananias, zergatik admititu duzu biotzean Satanasen tentazioa, gezur errateko Espiritu Sanduari, ta xixazeko alorrain prezioetik? Etzindeuka zeure eskuan naibazindue ez saldu, edo saldurik ere gelditu zeuretako? Nola izan duzu biotzean alako intenzio gaistoa? Estiozute gezur egin gizonei, baizik Jangoikoai. Aizeareki itz gebek, Ananias gelditu ze an berean ilozturik San Pedroren oñetan, eta etorririk mutil batzuek artu ta erman, ta orzi zute. Pasaturik irur ordu bekala, etorri ze bere emastea Safira etzekiela zer pasatu zen, ta presentatu ze San Pedroren oñetan. Erran zio San Pedrok: Errazu egia, emakumea, onenberzean saldu duzien alorra. Errespondatu zio Safirak: Bai Jauna, onenberzean. Eta San Pedrok suturik: Zer protxu duzie tentazeas Jangoikoaren espiritua? Orra zure senarra orzi dutenen oñen arroitua senti dire atarian, ta ermako zaitute zu ere. Derepente ilze ura ere ta erman zute mutil gaiek berek, ta orzi zute bere senarrain obian. Ta beldurtu zire kristio guziak aizeareki gauza gebek, ez errateko gezurrik Jangoikoaren ministroei.

4. Baña ia orai nola ezpaita manifestazen alako portentoeki Jangoikoaren ira bekatuak ixilzentutenen kontra konfesioan, lokararastentu demonioak bere eriotzeko estadoan, ta poseizen diote demonioak mia, estaizengatik mintza konfesatus egia, ta ala dire mutu endemoniatuak. Bai ta nola baitaki enemigoak, adimentutik datorrela fedea, fides ex auditu, ta fedetik erresoluzioa, sorrarasteneretu, ez dezaten aditu Jangoikoaren itza bere erremediotako, ta ala dire ere sor endemoniatuak. Orgatik kuratu naizuelaik Jesu Kristok alako endemoniatu sor ta mutu bat asi ze sorreriatik lenik, edekizeko berla mututasuna. Sartu zizkio eriak bearrietan; ta gero listureki ukitu zio mia, ta ala idikirik adimentua saltatu zizaio miaren enbarazua, ta ia minzazen ze txuxen (Marci 7). Aditu, bada, aditu egia diona Espiritu Sanduak: Pro animâ tua ne confundaris dicere verum,

zeure arimagatik etzazula utzi alkes errateko egia. (Aditu ziona Josue famatu garrek Akan ladron garri: Nere humea, emozu Israelgo Jangoiko Jaunari gloria, ta konfesa zaite, ta erran zazu zer in duzun, etzazula estali (Josue 7). Aitu San Bernardo: Cur te pudet peccatum tuum dicere, quem non puduit, facere? (In Sentent.). Zergatik alkezen zara errateas kulpa alketu etzinalaik egiteas? Edo zergatik beldur zara konfesazeas Jangoikoai, zeinhen begietan ezpaizaiske estali? Aizagun San Pedro Krisologo: Simus simus peccatores confessione nostra, ut Xpti venia non simus peccatores, monstra gaizen bekatari geuren konfesioan, ezkaizengatik izan bekatari Kristok barkatzeareki. Aizagun San Zipriano: Confiteantur singuli delictum suum, dum adhuc qui delinquit in saeculo est, dum admitti confessio eius potest, dum satisfactio et remissio facta per sacerdotes apud Dominum grata est. Konfesa bez bakotxak bere kulpa bizi den bitartean mundu ontan, admitidaikelaik berain konfesio, ta kuadrable delaik Jangoikoari bere sazerdoteen medios ematen den barkazioa ta satisfakzioa. Aizagun San Juan Krisostomo: Omnis qui sua in isto saeculo peccata dolendo accusat, et si se fuerit accusatus, a Deo erit excusatus (In Psalm. 84). Una siquidem et sola est, etc. Oratione adver. Judaeos.) Guziek, nork ere akusazenbaituste dolorereki beren bekatuak, ta beren buruak, Jangoikoas izain dire exkusatuak. Zerengatik bat da ta bakarra bekatuetaik barkazeko moduak, baita konfesatzea beren gaizki eginak. Aizagun San Agustin: Omnis spes veniae in confessione consistit (S. 3. Dom. 4. quadrag.). Barkazioaren esperanza guzia dago konfesioan. Qui seipsum accusat in peccatis, hunc diabolus non habet iterum accusare in die iudicii. Akusazen dena bere bekatues estu akusatuko berriz deabruak juizio egunean. Eta berriz: konfesatu gabe okulto barin bazaude, konfesatu gabe kondenatuko zara. Beldur zara konfesatzeas etzaizkena okulta, naiz ez konfesaturik; kondenatuko zara ixilzeareki zindeizkena libra konfesatuareki. Ta berriz dio Dabidek tion itz aien gañean: Non absorbeat me profundum, neque urgeat super me puteus os suum, Jauna, ez nazala iretsi butzu barrenak, ta estaiela ertxi onen ataria nere gañean. Ontara dio Sanduak: Butzu andia da malizia humanoa, zeintan erorzen dena erorzen da barreanean. Baña an dagoelaik, konfesazen baititu bere kulpak, estu butzuak erxten ataria arren gañean; baña ezpadu kasorik konfesatzeas, ia orduan erxten da ataria; nolas? Zerengatik ertxi baitu arren agoa ta galdu baitu konfesioa. (In Ps. 68). En fin, Kristo berak dio: Nisi poenitentiam egeritis omnes similiter peribitis. Ezpaduzie egiten penitentia konfesatus zeuren kulpak, guziok galduko zarate.)

5. Arrazio geben konforme erran bear diotet alkezen direnei konfesazeas, kapitan batek erran ziotena soldadoei, ellegaturik alako leku ta tranze batean nondik ezpaizeizke eskapa bizirik, ez garaizera kontrarioak. Erran ziote, bada: Aut vincendum, aut moriendum. Edo garaitu, edo il. Oroat nik bekatariei erraten diotet: Edo garaitu alkea konfesazeko, edo galdu sekulako. Zer lastima, ezi dugulaik konfesioan erremedioa, aurkitzea dañua, ez pasazeagatik instante bateko alkea! Zeruko gilzeki eskuan, ta gelditzea zerutik kanpoan! Zeruko atariak barna joatea infernura, ez errateagatik laur itz! Orai ain aisa dezakegulaik burlatu demonioa, ta aseguratu arima trabaju ta alke pixka baten kostus, nai izatea izan sekulako sapitea gero, ta burlazen dela demonioa gure tonterias. Karzeletan daudenei erran balezote erregek, libre izain direla solo errateareki bati beren kulpak, zein fite ustu leizken karzel guziak! Zein gogotik pregonalezazketen beren kulpak, bear baliz librazeko! Ezlizake sobra erratea guk ere publikoki geureak librazegatik infernutik, manatu balu ala Jangoikoak; baña orai estu manatu baizik konfesio sekreto. Nor exkusa daike? Ladronen kapitan bat joan ze monasterio batera eskazera habitua, ta konfesaturik bere bizimodua ta gaistakeriak abadeari, onek erran zio progazeagatik ia izain zuen balore,

konfesazeko klaro monje guzien alzinean; baietz erran zue, ta juntaturik komunidadea, guzien erdian publikatu zitue oius bere maldade horrendoak; ta Jangoikoak manifestatu zue barkazenzizkiola, zerengatik ikusi ze demonioa arren aldakan zoeiela borratus arrek erranes bekala kulpak libru andi batean zeuzkienak apuntaturik, aliketa gelditu zen arteo garbi garbia. Orreki emendatu ere zire an ziren alkekorrak konfesazeko etc. (Parr. pl.21 de paenitentia).

Serm. 77.

De verecundia reticentium peccata.

ann. 1781

Est confusio adducens peccatum, et est confusio
adducens gloriam et gratiam. Eccli. 4.

1. Bada alke bat dakarrana bekatu, ta bada alkea dakarrana gloria ta grazia, dio Espiritu Sanduak. Bi aldis egunean zerua aldazen da kolores, goizean ta arratsaldean, baña zein diferenteki! Goizean agerzen da kolore argi galantareki dakarralaik egunain klaridade alegrea; arratsaldean kolore ubelareki, dakarralaik gauain iluntasun tristea. Ario gontara da alkea arimetan. Bekatuain alzineko alkea, detenizen ta estorbazen duena estaien egin gaizkia da alke ona, alegrazen duena arimain zerua ta dakarrana gloria ta grazia; baña bekatuain ondoreko alkea estorbatzera ellegazen dena estaien konfesa, da alke gaistoa kausazen duena arimain eriotze doblatua, ta erremedio gabea. Aizagun orai diona San Juan Krisostomok: Pudorem et verecundiam dedit Deus peccato et confessioni fiduciam, Jangoikoak paratu du bekatuaindako alkea ta konfesioaindako konfianza; invertit rem diabolus, et peccato fiduciam praebet, et confessioni pudorem et verecundiam (H. 3 de paenit.). Trukatu du orai guzia deabruak, ta bekatuaindako ematen du ausardia ta konfesioaindako alkea. Onen konforme ikusi zue arima batek aldi bates deabrua zebilala konfesonarios konfesonario, penitentes penitente konfessio egun batean; galdein zio ia zertan zebilan gisa gartan, ta errespondatu zio, ezi zebilala errestitu zio egiten len edeki ziotenas; edeki ziotela alkea, bekatu egiteko; ta itzulzen ziotela, konfesazeko egina. Bada, ministro infernalak ainberze kuidazen badu kenzeas ta emateas arimei alkea galarasteko, arrazio da Jangoikoaren ministroak prokura dezan berze aldera ematea ta kenzea alkea bear den bekala salbazeko. Aizazie, bada, zer dioten Jangoikoaren partetik: Bekatuen iterakoan bear da alkea, alketu bear da diot, lenago ez egiteko bekatuik; baña in barin bada bekatu, ia esta bear alkerik konfesazeko humilki gaizki egina. Diot berriz, ezi ezipagina alketu egiteko gaistakeriak, estugula orai alketu bear konfesazeko egintugunak. Jauna, esta bat alketu bear gaizki eginas? Estu konfesatu bear konfusio ta alkereki bere gaistakeria? entenda zagun, fielak, estaien ekiboka. Bekatua egin ondoan ta konfesatzean ere bear da bat alketu, baña alako maneran, ezi konfesa dezan bere kulpalke ta humiltasun onareki; ta au esta erreprehendizen; solamente erreprehendizen da alke sobras ustea konfesatu gabe kulpalke. Alke zaite orduonean, ta konfesa zaite alkereki; baña alkeain kasos etzazula utzi konfesazeko, ezi alako alkea da alke suberboa, ta alako konfessioa da konfusio doble. Aizagun San Ambrosio: Cum omnes peccatores simus, ille laudabilior qui humilior; ille justior qui sibi abjectior. Guziok, dio, gara delaik bekatari, ura da laudagarriago nor baita humilago; ura justoago nor sujetoago baita konfesazeko.

2. Estardukat egun okultazentustenekin kulpak konfessioan berarias, suberbias ta ajolagabeas, ebei bear zaiote biztu edo berritu fedeak, ta kristiotasuna, ezi kristio barin balire sines, sinesta balezate ongi fedeak diona, estaikela salba konfesazene estuena kulpalke mortala, ez lezakete utzi konfesatu gabe berarias. Dardukat solamente alkekorreki, alkes ustendutenekin, zeini demonioak erxten baitiote agoa, ez errateko kulpak, ala nola otsoak arrapatzen baitu ardia txintxurritik ez dezan errespiratu. Nai diotet eman sei arrazio fuerteak konfesazeko dena den bekala guzia; bata Jangoiko beraren aldetik dena, bigarrena

deabruaren aldetik; irugarrena konfesorearen aldetik; laugarrena kulpa beraren aldetik, ta berze biak bekatari beraren aldetik.

3. Goazen lenbizikora. Jangoikoaren aldetik zerk eskusa dezake konfesazetik edozein bekatu? Akaso estaki Jangoikoak? Akaso atzenduko zaio ez konfesatuagatik? Zein al rebes! Antes bien beti, konfesazen esten bitarteo, idukiko du apuntaturik borratu gabe sekula, agerzeko gero mundu guziaren alzinean. Nai badugu, Jangoikoa atzen daien gure kulpes, medioa da konfesatzea, zerengatik ezpadaike ere atzendu Jangoikoa errealki, alaere konfesazen den bekata borrazen du, ezpalez bekala, ta esta ia oroizen artas kastigazeko. Nork dio? Jangoikoak berak. Si impius egerit poenitentiam... omnium iniquitatum eius non recordabor (Ezechiel. 18). Ario gontara dio San Gregoriok: Si tu te accusas, Deus te excusat, zeuroi akusatzen bazara, Jangoikoak exkusazen zaitu; desuerte ezi bekatuak dire zorbazuk bekala Jangoikoari pagatu beartiogunak; konfesioa admitizen du Jangoikoak pagutako; ta ala in ziren egunetik daude gure bekatuak Jangoikoaren libruan asentaturik gure kontra; oroat da konfesatzea guk, nola borratzea Jangoikoak eriotzearen libru gartaik. Disputazen da ia bekatu ongi konfesatuak agertuko diren juizio egunean; ta aita sandu batzuek diote ezi baietz, baña guziak konformazen dire, agertze gura solamente izain dela honratako, ta ez konfusiotako, konfesazenestirenak ez bekala. Berzela ikusagun, zer desonra du orai San Pedrok, lei daien munduan bere ukatzea Kristos? Zer kalte du San Pablok, publika daien bere agos izan zela Kristoren persegizale? Eskribiturik bere eskus utzi zitue bere bekatuak San Agustinek; zer du ortaik baizik anitz honra ta gloria? Zer galzen du Dabidek, jakiteas guziek bere adulterioa? Magdalena leizen da izan zela bekatari famatua Ebanjelioan; baña estu deus galzen leizeareki bateo bere konbersioa; ta aun Elizak parazen du berze sanda guzien alzinean letanian; eta franko izan bide ze bekaturik in etzutenak, ta atzerago daude alaere dignidadean. Santa Jertrudisek ikusi zue bisione batean Santa Magdalena bestiturik gala prezioso bates, zein guzia baizego bordaturik perles ta diamantes; ta errebelatu zizaio ezi perla gebek zirela arren bekatuak ain ongi konfesatu zituenak; desuerte ezi konfesazen den kulpa esta ia desonratako, baizik gloriatako; eta Jangoikoa kontentazen da guk konfesatzeas; ta ia zelebrazen da zeruan bekatari bat ongi konfesazen dena, ezi ez lauetanogeita emerezi justo konfesio bearrik estutenak: Ita gaudium erit in coelo super uno peccatore poenitentiam agente, quám super nonaginta etc. (Luc. 15). Al rebes, konfesazenestena ongi ez dezake onetsi, ez dezake soporta Jangoikoak, aborrezi zeunte aingiruek, despreziazeunte sanduek, ez dezake maita Ama Birjinak, tristazen da artas bere aingiru goardakoa, zeru guzian monstrozen da disgusto artas, ta azken juizioko egunean jakinaraziko digute arren bekata, ta nola utzi zuen konfesazeko; ta ala instante bateko alkea trukazen du konfesazenestuenak sekulako alke irremediable batean berze dañu inkonparableeki bateo, beras, Jangoikoaren aldetik estaike eskusa alkes usteko bekaturik konfesioan, antes bien ia alke daike ez konfesazeas konfesazeas baño.

4. Bigarren arrazioa demonioaren partetik da, zerengatik konfesatu den bekatuas ez dezake ia akusatu bat demonioak, ala nola konfesatu gabe dagon bitarteo, baitu deretxo akusazeko fiskal bekala Jangoikoaren tribunalean. Konjurazerakoan San Norbertok espiritatu bat, onen baitan zegoen demonioak publikazen zitue elizan zeuden geienen bekatu ez konfesatuak, atrazen baizire alkegarriturik bekatariak; baña ongi konfesatues etzue itz bat ere aipazen. Ala leizen da berze anitzetan: Eta famoso da Erromako emasteki garrena, zein akusaturik demonioak munduko tribunalean delito horrendo in zituenes, gero konfesaturik etzue ezaundu ere, antes bien alabatu zue Jangoikoaren partes; ta gelditu ze

honratuago emastekia, izanik ere egia, in zituela delito gaiek, solamente zerengatik konfesatu zituen ongi (Parr. pl.20. de poenitentia). San Antonioren bizian ere kontazen da, ezi igaterakoan sandua bisiones zerura atra zizaizkiola estorbazera demonioak akusazen zutela lengo bekatues, ta defendatu zutela aingiruek errateareki ezi aiek barkatuak zeudela konfesioain medios, etzutela deretxorik aiengatik arren kontra. Ala da, fielak, ezi deabruari agoa tapazeko modua da geurek konfesazea, orgatik erran zio Adelaide konfesazera zoeien garrek: Noaiek ire ta nere konfunditzera. En fin, klaro, dio San Agustinek, ezi akusazen dena emen bere bekatues, estuela ia akusatuko demonioak juizio egunean. Qui seipsum accusat in peccatis, hunc diabolus non habet iterum accusare, in die iudicii. Baña gaistoaren bizia da, ezagun konfesatu emen, akusazeagatik ausarki an. Zer tonteria da, bada, ixilzea emen konfesioan gizon baten alkes publikatuko duena demonioak zeruaren ta lurraren alzinean, ezpada konfesatzen? Zer irriak ta burlak itentusten gaisto gaiek alako tontoes? Zer dilijenziak ezdezazkitengatik konfesatu! Baña biz fede, biz entendamentu, biz arimo, errateko humilki geuren culpa guziak; orreki Jangoikoari emain diogu gusto andia, geurei probetxu inkonparablea, ta deabruei sentimentura arrigarria, ezperen guzia da galdua. Kontazen du Zesariok ezi zegolaik ilzeko Santo Domingoko errelijioso sandu bat ikusi zuela zeldain zoko batean demonioa. Galdein zio, ia zerk ia dañu egiten zion Eliza Ama Sandan, ta errespondatu zue ezi konfesio humil ta frekenteak, zerengatik konfesatubañolen, dago arima demonioen eskuan etc. etc. (Parra. pl.14 de poenitae. sacro.)

Serm. 78.

De verecundia reticentium etc.

ann. 1781

Non habemus pontificem, qui non possit
compati infirmitatibus nostris. Adeamus
ergo cum fiducia ad tronum gratiae. Haebr. 4.

1. Esta gure pontifize ta sazerdotea estakiena izaten konpasionen gure miseries, baizik progatua trabaju guzietan solamente bekaturik gabe, erraten zue Jesu Kristos San Pablok, animazeko kristioak akuditzera konfianzareki Kristorengana trabaju jenero guzietan. Adeamus ergo cum fiducia ad tronum gratiae, ellega gaizen, bada, konfianzareki graziaren tronora. Zer trono da au, baizik konfesioaren tribunalea, non iten baita grazia ta miseriak konfesazten duenari bere kulpak? Baña garaiturik konfesazeko erreparoa urratu, bi aldetatik, Jangoikoaren ta demonioaren aldetik, orai nai dut urratu erreparoa izan daikena konfesoaren aldetik; ta egiten dut argumentu gau: Delarik ala ezi San Pablok segurazten gaituela izain digun konpasioeak Kristok, solamente zeren pasatu zituen trabaju jenero guziak bekaturik gabe, zenbateki amentzen da seguridategoi utzi duelaik konfesioaren tribunalea sazerdote frajil ta bekatarik direnen eskuetan? Au da berze arrazio bat fuertea, zeren estugun ixildu bear bekaturik konfesioan, zerengatik edozein konfesoerik baita gizon, ta bekatarik, ta frajila, ta beartsua, ta miserablea, dena dela.

2. Paratubaligu Jesu Kristok serafinen bat konfesoerik, bagindeizke alketu konfesoerik geuren miseriak espiritu garbi arrek; baña orgatik, dio San Krisostomok, estioe utzi kargu gau aingiru bekaturik inestutenei, baizik gizoni, aientutelaik berzeengandik bere ere tusten miseriak, mostra daitzen benigno (Hom 80). Edozein konfesoerik bila dezagun, estaike admiratu gure bekatuak, zerengatik bera ere, edo erori da, edo erori daikela alako batean. Zenbatenas sanduago den, gutiago admiratuko da, zerengatik nola baita humil, ezaunzen du erori daikela bera oroat, ta beldurzen da estaien erori; ta ez admiratu, ezi konpadezizen da erori denas. Esta lotsazen konfesoerik aditzeak edozein bekatu, nola den dolore; ia lotsazen da, ikusten duelaik dabilala okultatu naiak, zerengatik beldur da estaien izan dolore bear dena. Al kabo konfesoerik bekatarikendako da, ta ezipagindu bekaturik, ezkinduke konfesoerik bearrik: Betor bekatarik andiena, konfesoerik bezki munduko bekatu guziak; andiak, enormeak, extraordinarioak, ikusten barin badut dolore siña, ez lotsatu, ezi konsolatzen naiz ikusteak arima atrazen dela demonioan lakiotik Jangoikoaindako; ala nola arranzaria alegutzen baita arrapatzeak arrai andiagokoa. Baña ez konfesoerik baizik bekatu bat edo berze, ta ori eskusatus, ori botatus berzei kulpak, ori da lotsazen duena edozein konfesoerik. Konfesoerik estu berzerik nai baizik dispozizio ona penitentea baitan. Biz anitz dolore, ezi gerostik bota nai duen bekatu jenero guziak; sereno dago konfesoerik, ausarki usazen du bere potestadea; baña penitente iduri beti batean dagona, guti bekatu, baña ebek ere dolore ta proposito siñagabe explikatzea erdik, au da aflijizen duena konfesoerik, au da kausazen diona izerdi ta lotsa, ote duen edo estuen dolore sufizienteak, delarik ain suberbo, ain pagatua bere buruak, ezi ezipaitu humildaderik konfesoerik dela desdixatu bat.

3. Jauna, konfesoerik baut alako miseria, galduko dut opinioerik konfesoerik. Bada, zoaz ezaunzen ezkaituen batengana, ori esta debekutzen ta beterik dago

kristiandadea konfessorees autazeko, estaien nior eskusa. Baña deabruaren engañua da galduko dela konfessoreaiki. Gezurgoi pensatu du gezurraren aitak. Antes bien, konfessore ona edifikazen ta alegrozen da ikusteas humildadea: Nores iten duen opinione gaistoa da konfesatu naiestutenes bere miseria, estutenes aitu nai direla bekatariak, pazienza gabeak ta miserableak. Baña bere burua itsusten duenas, artas iten du opinione ona; zerengatik alkabo, dion bekala San Ambrosiok, guziok gara delaik bekatari, (zerengatik guziok guziok gara bekatari, naiz estali naiak dabilan gure subergia), gara delaik bada guziok bekatari, dio sanduak, ura da obeago nor baita humilago. Cum omnes simus peccatores, ille est laudabilior qui humilior, ille justior qui sibi abjectior (46.2 de poenit. c.50). Bida joan zire tenplura, kontazen zue Jesu Kristok, bata fariseoa, berzea publikanoa. (Luc. 18). Fariseoak txutirik zio ala: Jauna, eskerrik asko, ezpainaiz berzeak bekala, ladronak, injustoak, adulteroak, ala nola publikano gau. Ni barutzen naiz bi aldis asteen, iten dut amarren guzietaik; baña publikanoak, zegolaik urruti zokotto batean, etzelaik atrebitzen goratzera begiak zerura, golpatzen zuela bere bularra zio: Bekataria naiz, Jauna, izan bez piedade ni bekatari triste gontas. Sines diot, ezi au joan ze paraturik Jangoikoaren grazian bere etxera, ta ez berze gura, zerengatik gorazen dena bera izain da humillatua, ta humillazen dena izain da goratua. Au kontazen du Jesukristok, erakusten duela zer opinione in bear den konfesazen denas bekatari.

4. Berze aldi bates eskriba ta fariseo superbeok ekarri ziote emakume adultera bat, ta erran ziote: Jauna, emasteki gau oraietan aurkitu da adulterioan, ta gure legeak dio, il bear duela arrikaturik alakoak. Zer dio orrek? Zein ausart diren superbe utsak, ezpalute bekala berek bekatuturik! Baña fite konfunditu zitue piedadearen Maestruak; kurtu ze ta asi ze eskribitzen lurrean bere eri dibinoas; baña porfiazen ziotelaik erran zezala bere iduritua, txutitu ta erran ziote: Zuetaik nor den bekatuturik gabe, tira bezo lenbiziko arrikaldia. (Joann. 8) Au erran ta berriz kurturik, eskribitzen zue lurrean. Ta oneki alketurik, joan zire iges andik bata berzeain atzean, ta gelditu ze bakarrik Jesus, ta alzinean sollik emastekia. Erran zio oni Jesusek: Emastekia, non dire akusazen zindutenak? Etzaitu niork kondenatu? Niork ere ez, Jauna. Bada, nik ere etzaitut kondenatuko; zoaz ta etzazula ia bekatuturik egin. Orai aita sanduek emen disputazeunte, zer eskribitzen ote zuen Kristok lurrean bitarte gartan. San Jeronimok uste du eskribitzen zituela fariseo superbe gaien bekatuak, zeintas ain kaso guti, ta berzeenas ainberze baizute. San Ambrosiok uste du eskribitu zuela: Zergatik erreparazeunzu zure anaian begian dagon agotza, ta estuzu erreparatzen zeure begian duzun soliboa? Hipokrita, ken zazu lenik soliboa zeure begitik, ta gero prokura zazu edekitzea agotza zeure anaian begitik. (Barrad. t.3. lib.1. c.12.) Ala da, ezi bekatuturik andiena, konfesazeareki humilki, da agoz bat bekala; baña subergia da solibo azkar bat bekala. Orgatik dio ta txoil ongi San Bernardok: Melior est peccator humilis, quam justus superbus, obe da bekatari humila ezi ez justo superbea (S. 22 de modo viv.), zerengatik bekataria humillazeareki egiten da justo ta justoa superbazeareki ia itzulzen da bekatari.

5. Baña erreprehendinazake, edo penitencia andia eman dezadake, konfesazen barin badut. Etzaizu idurituko penitencia andia edozein dela, baldin barin bauzu dolore andia; ta dolore andia kasos labur dezake konfessoreak penitencia, ta anitz endolorituik ta urrikiturik dagonai estio emanen ere erreprehensio fuertea konfessore prudenteak. Esta deus ere ala beraxten duenik biotza, nola ikustea humillaturik bekataria. Estaki, estaki Kristoren jenioa ta espiritua estituenak tratazen amolsuki bekatari konfesazen direnak. Kristo bekatarien bila etorri ze mundura ta ellegatu ze ilzera gurutzean; ta figurazen da bera

arzai baten aintzuran, zeiniek utzirik lauetan ogeita emerezi ardiak, joaten baita bat galdu denaren bila; ta aurkitzen duelaik, arzen du soñean ta itzulzen da alegre arreki. Eta zer da bekataria in konfesatzea, baizik aurkitzea ardi galdua, ta arzea soñean Jesu Kristok, ermateko zerura? Kristoren tratu geiena ze bekatarieki, iragazteagatik; ta orgatik ere murmuratzen ziote eskriba ta fariseoek. En fin, ellegatu ze erratera ezi ainberze kontentu izain dela aingiruen ertean bekataria konfesazen den batengatik nola lauretan ogeita emerezi justoengatik. (Math. 18). Zein urruti dagon asarratzeas konfesorea aituagatik edozein bekatu, barin bada Kristoren konforme konfessore ona? Nork enfadazeunten konfesorea dire eskriba ta fariseoak bekala diren bekataria suberboek, bere burues pagaturik daudenek, estutenek ezaundu nai bere miseria, sandatako daudenek beren ustean, hipokritek, gaisto izan ta on iduri nai dutenek, dabilzanek estali naies beren maliziak, konfesioan ere exkusazentustenek beren kulpak ta kontazen birtute iduriak, iduriarazi naies direla onak, direlaik pobreak, miserableak,itsuak, pasiones beteak, ta guzien gain suberboek; ebek enfadazeunte konfesorea ta Kristo bera; baña humilki konfesazeuntenek beren miseria, ebek beraxteunte, konsolazeunte ta errobaseunte konfessoreain ta Kristoren biotza. Ikusagun progua magdalena baitan. Zegolaik Kristo bazkalzen fariseo baten etxean, ellegatu ze emasteki bat bekataria famatua zena ziudadean, ta erreparatu gabe garaiean, okasioan ta deustan, solamente doloreain utses konfesatu naies bere kulpak, urtiki ze Kristoren oñetan, apazen zizkio humildade andiareki, erregazen zizkio nigarres, garbizen zizkio bere buruko biloes; ta bitarteo, ia se bee, zego Kristo gozazen ikusteas itzulirik ardi galdua. Baña fariseo suberboa zego bere biotzean murmuratzen ziola: Au baliz profeta, jakin bear luke zer emasteki den ukizen duena, bekataria baita. (Luc. 7). Eta Jesus dibinoak ikusirik arren biotzain erruintasuna, erprenditu zue ura ta alabatu zue Magdalena, ia estimazen zuelaik onen humildadea ta konfesioa, ezi ez arren konbite ta fantasia guzia. Konfesio humila da kuadrizen zaiona Jesusi ta bere sazerdoteari; ura da estimazeko deus baño ia.

6. Bada, zer erreparo izan daike konfesatzeas edozein bekatu? O Jauna, estire Kristo bekala konfessore guziak. Bilazkizu, bada, arri iagoenik idurizenzaizkionak. Baña zer dire? Dire bekataria? Por lo mismo izan beaute piedade ia, ta estiote in bear nobedaderik aizeuntenak berzeen baitan, ikusirik berek ere iteuntela berze ainberze, edo in dutela, edo in dezaketela. Gerta daike mediku bat ez konpadezitzea erias, zeren berak estuen progatu eritasun bera; baña eri bati berze eri batek kontazeas bere eritasuna, nola esta konpadezituko aizen duena, dakielaik trabaju berain berri? Zertas admira daike zure baitan progatu duelaik bere baitan edo beldur delaik gerta dakion berze ainberze bere baitan? Akaso da bronzeskoa konfesorea? Estago bestiturik aragis zu bekala? Aizagun San Agustin orai: Quid erubescis, ô homo, confiteri? Zergatik alketzen zara konfesatzeas, gizona? Dio sanduak. Peccator sum sicut et tu. Bekataria naiz zu bekala. Confitere ergo homo homini homo peccator homini peccatori. Konfesa zaitte, bada, gizona gizonari; gizon bekataria gizon bekataria. Quid times confiteri? Zer beldur duzu konfesatzeas? Homo sum, humani â me nihil alenum puto. Gizon naiz, ta dut uste gizonari gertazenzaionik deus estela estakidakenik niri ere gerta. Beras, estaike utzi alkes konfesazeko dena dela. Ala konbenzizen du San Agustinek, (In psalm. 66.) ta ala da, ezi anitz aldis uste duzielaik arrizen dela konfesorea, ez arritzen ezi konfundizen da berebaitan, ikusteas ain humil konfesazen duela arima garrek bere kulpak, dituelaik sazerdote berak andiagokoak. Parisen ze konfessore errelijioso bat sobra gaistoa. Estudiante zego an San Ignazio, ta emendarazi nai ta etxakin nola; alkabo injeniatu zue ala. Joan ze konfesatzera arregana, ta konfesatu

ondoan bere falta lebeak, eskatu zio lizenzia konfesazeko lengo batzuk ia erremordizen ziotenak. Asi ze konfesazen ta bidanabar ponderazen Jangoikoaren miseriakordia ta bere eskergaiza; ta bitarteo kongojazen, suspirazen, ta nigar egiten, ainberze ezi konfesoreoi asi ze itzulzen bere baitan, ta zio: Onek ala nigar iten badu len konfesatues, zer estut egin bear nik neure oraikoes? Eta au da estudiante lego bat, ni sazerdote ta konfessore ta errelijioso; gexagokoak dire nere obligazioak. En fin, akabaturik konfesioa absolbitu zue, ta ondorean ukiturik biotza Jangoikoaren eskuas, atra ze ta erdetxi zue ta erran zio: Ignazio, konfesio gura etze zure kulpeena, baizik nereena; ni gar gaiek etzire zure bekatuengatik, baizik nereengatik; nai dut ia aldatu bizimodus egun danik. Ala egin zue. Zein ongi konfesazen diren sanduak!

7. Ontas landara ezpalu ere egin alako bekaturik konfesoreak, estaike admiratu, zerengatik egin dezake, erran dugun bekala, ta asko alako leitu ta aitu ere bide du; zer nobedade in dezoke? Aita Kalataiud misionari famatu garrek, ofrezizen zue pulpilotik onenberze meza nori ere konfesa zezon bekaturen bat len aitu etzuen; ta apenas iragazi zion niork, berak kontazen duen gisan. San Felipe Nerik agertu zizkio bati bere pensamentu desonestoak konfesazen etzituenak. Berze bati, zeren altxazen zen, izanagatik gau bates tentazio grabe bat, akaso zeren etzen portatu bear bekala; etzelaik atrebitzen agerzera sanduain alzinean, sandua bera alzinatu zizaio erratera: Kon ke eskapazen zara enegandik gizon ona, he? Badakit zer izaunzun. Berze batek utzi zitue alkes zenbait bekatu konfesioan, ta sanduak azkenean erran zio: Zu etzara ongi konfesatu, au ta au ta au utzi duzu. Orduan berzea urturik negarretan konfesatu ze osoki. Berze bat, konfesazerakoan asi ze turbazen ta detenitzen; erran zio sanduak: Zergatik turbazen da? Jauna, errespondatu zio, zerengatik alkezen bainaiz konfesazera bekatu bat. Bai? Bada, estu zer turbatu; neuronek erranen diot, au da orrek in duena. Orai diot nik guziei, izan zindute alkerik errateko edozein bekatu alako konfessore errebelazios zekizkien bati? Ez. Bada, ez izanik ere konfesoreak alako argitasun soberanorik, esta bear utzi alkes, zerengatik badaki benzait exponiturik zaudela guzietara nor nai zaren, ta aitu du len ere alako bat zu bekalako bati gertatu zaiona, ta estaike admira ortas.

8. Ontas landara nor estu animatuko konfesatzera obligazio ertxi duenak edozein konfessorek, ixilzeko sekula guzian aitu duena konfesioan? Sekretoaren obligazio gau deizen da sijillo, zerengatik baita sello bat erxtentiona ezpañak ain fuerte, ezi lenago galdu bear du bizia, lenago utzi bear da egitera mila zati, ezi ez eman aditzera niolako maneran aitu duena konfesioan; ta estaike izan kasorik zeintan ager dezake, esta mana balez ere inkisizioak, esta porfia balez ere Aita Sanduak, esta zerutik baletor ere aingiru bat manatzera, esta atra bear balitu ere erranes purgatorioko ta infernuko arima guziak; estare, en fin, ez erranagatik galdu bear baluke munduak ta erori bear balukete ere zerutik aingiruek ta sanduek, ez dezake erran, ez aipatu, ez mostratu, ez sospetxarazi niolateko maneran. Ta ala, utzi bear da ilzera lenago; ta ilzen bada orgatik, ain martir izain da ta koronatua, nola ilzen dena fedeagatik. Alako martira benerazen dugu San Juan Nepomuzeno, il zena ez deklaratu naies aditua konfesioan; ta Jangoikoak monstatudu kuadratu zizaiona arren silenzioa asunto gortan goardatzeareki ain gorri ta fresko, flamante, arren mia, nola bizi zelaik. Mutu da, bada, ta mutu baño ia konfessorea, mostrazeko konfesioko sekreto, zerengatik mutuak, mias ezpada, dezake adiarazi keñus; baño konfesoreak ez ala ere. Da, oroat, nola palo edo arri bat manifestazeko kontuan; eta nork luke alkerik konfesazeko bere kulpak konfesonario soillari? Bada, ain seguro dago sekretoaindako nola ezpalu aditu deus. Konfesiotik dakitena gutiago dakit estakitena baño,

dio San Agustinek. Id quod per confessionem scio, minus scio quam id quod nescio. Bai, zerengatik estakitenas badezaket galdegin, baña konfesioan dakitenas ez dezaket galdegin ere; esta sikiera konfesatu duen berari ere, ezpadida lenik berak ematen lizenzia. En fin, nai bauzu goarda dezazun sekreto, estuzu medio obeagorik nola konfesatzea berareki, norengandik ere beldur duzun jakin daien. Esta bada alde gontaik motiborik usteko alke? Exenpl. (Itiner Andrade grad.20. SS.18).

Serm. 79.

De aliis argumentis ad non reticend.

ann. 1781

Surgam et ibo ad patrem meum, et dicam ei;

Pater, peccavi in coelum et coram te. Luc. 15.

1. Ebanjelioan kontazen da ezi seme prodigo gura joan zena bere aitagandik urruti, alkabo itzulirik berebaitan, erresolbitu zela itzulzera bere aitagana, ta konfesazera bere kulpa arren oñetan; ta ala egin ta logratuzue barkamentua, grazia ta semetasunaren konbenienzia len bezanbat edo ia. Baña erreparatu bear da bere itzultze garren prinzipioa ta modua. Zegolaik desterraturik ausente berzengandik, konsumiturik ondasun guziak, beterik miserias, hazienda belzen goarda, baña aun ebek baño goseago, ai! erran zue, zenbat nirabe daude nere aitaren etxean dutela abasto ogia, ta ni emen il zen goseak! jaikiko naiz ta joain naiz nere aitagana ta konfesatuko diot: Aita, bekatu egin dut zeruain ta orren kontra; ez naiz digno dei nazaten berorren seme. Et dicam ei, Pater peccavi in coelum et coram te. Historia goneki nai izan zigu Jesu Kristok adiarazi bekataria in konbersionea Jangoikoagana, ta nik ere segitus konfesioaren asuntoa, nai dut egun monstratu garaitu bear dela konfesazeko alkea, sikiera bekatari berain miseria presente ta sekulakoen kasos, ezpaliz konfesatzen; ta felizidadeen kasos, konfesazen baliz; ta lenik aisatu bear diot konfesatzea bekatu berain aldetik, zeren franko alakoak ta andiagokoak eginik, orai baitire sandu, zeren in zuten konfesio osoa ta ona.

2. Jangoikoa in dako bekaturik andiena ain aisa da borrazeko instantean, nola armirmauain sare bat urrazeko: Ori badakite, baña konfessoreai uste dute kausatuko diola arri zio andia. Ote da kulparen bat sekula adituestena munduan? Ez por zierto, zeruan daude anitz kometitu zutenak alakoa, dena dela. Da itsusia ta alkaizungarria desonestoain utses? San Bonifazio bat len adultero izana, Santa Maria Ejipziaka, Santa Pelajia ta berze asko orai sandak, len bekatari publiko izanak, zenbat inpurezas zikindurik garbitu zire konfesioan? Da fedeari kontra, sorgindaria, demonioaiki tratu gaistoa edo alakorik? San Marzelinok, Aita Sandu izanik, ukatu zue fedea beldurrak; San Zipriano, Santa Anastasia izan zire sorginak, ta orai daude zeruan barkatu ondoan konfesioain medios. Entregatu da demonioari arima firmaturik bere odolas? Borraturik konfesioaiki asko alako leizentugu libruetan. Desesperazio zenbait, edo odio rabiosoaren bat artu da biotzean Jangoikoain kontra? Au da bekaturik andiena, baña anitz dire barkatu izan direnak konfesioaiki. Guzien ertean bat San Franko de Sena, zein izanik ladron, blasfemo, desonesto, jokari ta perdido bat, ellegatu ze ernegazera Jangoikoas, zerengatik jokuan aldi bates galdurik zuen guzia, errabioso Jangoikoaren kontra erran zue eskua ermanik begietara: Nork naitida jokatu ebek? Zerengatik errenunziazen dut emanizkidanes; ta alaere konfesaturik ongi ellegatu ze izatera Jangoikoaren agradokoa, sandua ta milagrosoa, ta ala berze anitz. (Baña exenplu ona dugu Salamankako merkataria batean gertatu zena joan den jendamendean (Parra de poenit. pl.20). Galdurik onek ondasun, konzienzia ta arima jokuan; artu zue ainberzeko odioa biotzean Jangoikoaren kontra, ta ala mendekazen ze al zuken maldizio, ta blasfemieki. Eta etzeiengatik geldi itz soilletan, erresolbitu ze egitera aluzuzken bekatu jenero guziak, enormeak, horrendoak, extraordinarioak, solamente ofenditu naiak ia ta ia Jangoikoa. Ortako erosi zue libru bat, zein etan ikasi zezkien pensatuetzuzken bekatuak;

demonio bat ze aragiskoa, ta desafiazen zue Jangoikoa kastiga zezan. Ala, pasaturik denbora puska bat konfesatu gabe, aiturik agrabio andia iten zaiola Jangoikoari konfesatzean ixildus zenbait bekatu, determinatu ze ortara ere. Joan ze intenzio gorreki, ta belaurikaturik konfesoreain oñetan inkierto biotza, turbaturik guzia detenitzen ze itzen ertean. Konfesoreak ustes alketzen ote zen errateko zenbait bekatu, asi ze animazen ponderatus Jangoikoaren miseriakordia barkazen duena edozein bekatu, nola den dolore berdaderoa. Posible da, Aita, erran zio arrek, izan daikela ia Jangoikoaren miseriakordia nere bekatuak baño? Badaki nolakoak diren nere kulpak? Estitut aitu oraño, erran zio konfesoreak, baño zierto nago ezi direnak direla, doblaturik ta erredoblaturik milla millon aldis, estirela Jangoikoaren miseriakordia aurkintzean ia ezi su txinar bat itsasoain erdian. Orduan, ia urturik arren biotza negarretan, erran zio zer intenzios etorri zen; ta ia aldaturik, nai zuela konfesatu ongi, señaleta zezola egun bat, noiz ai zezaken espazioraki. Señalatu zio, ta ellegaturik konfesatu zue, zenbat montio bekatu! Baña kontrizio andiareki. Errezibitu zue absoluzioa, ta sarturik gero erreligione batean bizitu ze irur urtes ejiten (sic) penitentzia ta ondorean ilze opinione andian).

3. Estire erraten exenplare gebek, añadizeko bekatariei atrebenzia bekatu egiteko, baizik emateko konfianza konfesatzeko egin direnak. Ta oneki juntazagun berze arrazioa, baita desdixta lastimagarria dagonarena konfesatu gabe alkes, akaso solo bekatu bakanen bat. Erran dezake prodigoarrek bekala: Quanti mercenarii in domo patris mei abundant panibus, ego autem hic fame pereor! Zenbat nirabe nere Aitaren etxean, zeruan, daude orai nauten guziareki, ta ni emen akabaturik miserias konfesatu ez naies! Biz kostoso agertzea bere kulpazaserdote bati, naiz bai; diot ezi baietz, kostoso dela; baño zer du zer ikusi kostu gonek kostu ta trabaju izain direnen aldean konfesatu faltas, orai ta gero? Bekatu okultazenduenura izanen da lanza bat bekala atrabesaturik biotzean. Esta sosegurik, esta konsolurik, esta plazer osorik, ura daukan bitarteo konzienzia. Ikusten da Jangoikoaren desgrazian, galdurik obra on guzien irabaziak, malograturik sakramentuak, ezin irabazi induljenzia bat sikiera, ta guziak baliazan direlaik elizako gauzes bere probetxutako; arrendako deus esta protxal, de balde enzutentu mezak, de balde predikuak; da kristio iduris, ta dabila kristioeki nasteka kristioen funzionetan, ta berak daki dela otsorrai bat bekala usoen ertean Jangoikoaren begietan, ez dezokela deustas kuadratu, non ta esten konfesazen ongi. Disimulazen du aldiska, baño estaike ase biotza zeren kongojain kausa goseak dago barnean. Ikarazen da aipazeas infernua, zeintaik ezpaitaie eskapa; tristazen da adizeas zerua ere, non baitaki estela lekuri arrendako konfesatu faltas; normai il daien, punzazen dio biotzean beldurtasunak: Ai ilzen banaiz, galdua naiz. Edozein destenplanza dela, ia uste du datozila Jangoiko justoarene ministroak arren eske. Konfesa daien, aumentazen zaio tristura, baitaki estaike deus barka, ezpada erraten guzia. Ala segi segi ta beñere ezin sosega. Ah! Estire konfesio gaistoak kuxina onak lo iteko deskansaturik konzienzia gaistoan. Desengaña, ezi agin dañatua atraartaño itzuliko da oñatzea. Asko gaiz kurazentu denborak, baño ixilzen delaik bekatua, zenbatenas doaien denbora ia, ia aumentazen da arimain gaiza ta konzienziain karga; ia andizen da biotzean frinkaturik dagon aranzeta. Arzai bates kontazen da ezi deskuidaturik atrazeas aranze bat petxoan sartu zizaiona kasualidades, gero ongi pagatu zuela deskuidogoi, zerengatik aranzegoi eginik zañak aragian anditu ta barratu zizaio gorputz guzia barna ainberze ezi guzia ze oñaze: Ezin lo egin, ezin jaiki, ezin mogi. O atra bazue len! O al baluke atra aun orduan! Bekatua usten bada bein alkes konfesazeko, geroago ta alke ia dakar, ta doaie aumentatus sakrilejioak. O zenbat obe zen konfesatua lenbiziko aldian añaditu gabe sakrilejioen

horroreak! Baña gero da preziso ez solamente konfesatzea ura, baitare berritzea bitarte gortako konfesio guziak, berriz deklaratzeko oietan konfesaturikakoak. Beras obe da len baño len botatzea pozioa arimatik. Instante bates pasazen da konfesazearen trabajua, ezperen bizi guzia da pena kontinua; eta daikela autatu infernuko bizitza bat, ez pasazeagatik instante bateko trabajua! (Flandesen gizon batek etc. Parr. pl.17. poenita.).

4. Baña goazen aberiguatus. Gogo du ez konfesatzeko sekula, edo an gero noizbait? Gero noizbait egin bearbada, zerengatik ez orai? Si aliquando, cur non modo? oiuiten du San Agustinek. Geroago ta ia andituko da alkea, añadituko dire estorbuak, ta beti gelditzen da agertzeko obligazioa, ezin dispensa niork. Bada, berriz diot: Si aliquando, cur non modo? Baña barin badago erresolbiturik ilzera konfesatu gabe, gertatuko zaio kondenatzea ixiltzeagatik, zeikelaik libra errateareki instante batean: Eta orai zertas duen beldur, ori beroi gertatuko zaio, ta añaditurik anitz, zerengatik sazerdote garrek berak zeintas alketzen baize, jakinen du, ta ontas landara jakinen dugu guziek; ta nola kondenatu den ere bai ez manifestazeagatik, zeikelaik aspaldian ta sekulako egon sepultaturik ta atzendurik, baldin konfesatu barin baze artas. Zer burlak inentioten demonioek, ta zer damua izain duen orduan berak, ikusteareki asko ta asko bekatu andiagokoeki doazela zerura, zeren konfesatuzusten; ta bera infernura ixilduagatik emen, berdin publikatuzen dena an ia konfusiotako. Konsidera despedida irremediable gura sanduetaik, Ama Birjinagandik, Jangoikoagandik sekulakos. Zenbat lagun, zenbat ezaun, zenbat ere ezaun gabeak ikuskotu gaistoago, bekataria go izanak, doazela alegre boladan zeruetara, ta bera amarraturik sarzeuntela infernuko kalabozoan, ez ainberze bekatu berzeengatik, nola konfesatzeko alke tonto irrazionaleagatik. Ah! Baldin preso guziei eman balekiote libranza konfesatzeareki bati bere kulpas, zein fite ustu leizken karzelak ta kalabozoak; ta nola esta eginen, infernuko karzeletik libratzeagatik, barin bada fede? Osunako dukea joan ze presidarioetara aldi bates dibertizeagatik aieki. Galdezen ziote batai ta berzeai motiboa, zergatik zeuden presidioan, ta batek errespondazen zue: Ni, Jauna, nago kulparik gabe informazio gaistos; berzeak: Ni, Jauna, desgrazias; berzeak: Ni, Jauna, lagun gaistoengatik; ta ala guziek zoezi exkusatus. Alkabo batek erran zio: Jauna, ni nago emen arrazio andiareki, zerengatik txikitututik eldu nitza errebel ta desobediente, eskapatu nitza guratsoengandik ta bizi guzia enpleatu dut ladronkerian, pikardia, trabesura ta gaistakerietan; orgatik bota nindute onara. Orduan dukeak erran zue: Bada zoaza zu libre emendik; esta ongi dagon alako gaisto bat ainberze onen ertean. Ura libratu ze konfesatus bere kulpas, ta berzeak gelditu zire presidioan konfesatu faltas. Ah nolako sapitea! Ah jakin bazute! Bada, orai badakigu fedes, konfesatu gabe estaike salba ta kondenazen dela baliatu gabe deusek ere, ta konfesatzeareki lograzen dela grazia ta gloria. Gloriagatik estaike soporta instante bateko alkea? Korona zerukoagatik estaike pasa konfusio pixka bat? Karlos Franziaiko errege Filiporen semeak tratazen zue ezkontza Siziliako erregeren alaba Klemenziareki, baña nola onen aita baize guti bat maingi, beldurrak, alabak ere ote zuen defekto bera ta disimulatzen ote zuen, lenbiziko kondizioa paratu ze utzi bear zela errejistratera medikuetaik. Alkegorritu ze lenbizian prinzesa honesta aizeareki alako pretensioa; baña gero, ikusirik zoekiola Franziaiko korona pasatzean alke pixka bat, utzi ze errejistratera, solo erdexteagatik korona. Ta zer korona? Lurrekoa, aizeskoa, ia pasatu dena, zeintaik ia ezpaitu deus izan ezpalu baño. Zenbat arrazio iagoreki pasatu beazu konfesatzearen alke brebea, logratzeagatik zeruko korona eternoa? Etzara erresolbituko? Beras, ikusteunzulaik zeure begis ladronak, murmurazaleak, desonestoak, gizonilzaleak, maldizienteak, blasfemoak, sorginak ta perdidoak bandaka doazila erremediatu

konfesatzeareki ta lograzeuntela Jangoikoaren grazia ta gloria, zu geldituko zara bakarrik ta desauziaturik akaso bekatu batengatik, solamente ez garaizeagatik alke irrazionalagoi? erresolbi zait, prodigoa bekala errateunzulaik: Ah zenbat nirabe nere aitaren etxean daude nauten guziareki, ta ni emen beterik miserias nere buruko aprehensio fatuoagatik! jaikiko naiz ta joain naiz nere aita konfessoreagana ta errain diot: Au ta au egin dut. Infernuko penetaik librazea ta zerua logratzea doakizu konfesatzean zure kulpa, ta berdin badaki Jangoikoak, berdin apuntaturik dauka demonioak, ta estaike atzenaratzi baizik konfesatzeareki, ta zeuroi ere etzaizke serenatu baizik medio gortas; bada, konfesatu, iake estuen nai Jangoikoak barkatu berze gisas. Bila zazu konfessore satisfaziokoa, etzaunzen etzaituena ta ikusi ere etzaizkena, estalazu nai bauzu aurpegia, ta lenbiziko itzean erran zozu kulpa gura, zeintas alketzen zaren. Au ere ez? Bada erran zozu sikiera: Jauna, alketzen naiz erratera. Orreki konfessore prudenteak emaneinzu bidea ta libratuko zara beingoas betikos. Guziau ala izanik, guziareki errebelatu zio Jangoikoak Santa Teresari, geienak, espezialki emastekietaik kondenazen direnak, kondenatzen direla ixilzeagatik bekatuak konfesioan (Andrad. itiner. grad.20. ss.XV). Ah orai balute erremedio joan direnek! Orai an publikazeunte oius beren bekatua, ta debalde; ta publikatu da ia juizioko egunean, ia konfusiotako. Kendu, kendu aprensio fundamentu gabekoak parazentuenak buruan enemigoak; idiki agoa, botazeko benenoa, ia keta egin den kulpa. Demonioak len etzue nai baizik eroriarazi kulpa gartan, ta orai estunai berzerik baizik okultarazi egin dena, irriegiteko gutas ta gure tonterias; da otsoa bekala, arrapatzen duelaik ardia, lenbizikorik erxten baitio txintxurria. Baña arimo, fiolak, enemigoaren bortxas bear dugu konfesatu humilki egin duguna arren tentazios, ez dezan kanta biktoria; gisaontan bere armeki autxiko diogu burua demonioai, emain diogu geuren buruai erremedioa, aingiruei kontentua, Ama Birjinai plazer ona ta Jangoikoai gloria. Inzkigun fede etc.

Serm. 80.

De evitandis in confessione.

ann. 1781

Confessio et pulcritudo in conspectu eius: Psalm. 95.

1. Jangoikoaren presenzian bateo daude konfesioa ta edertasuna, dio Dabid erregeak, edo zerengatik konfesioareki edertzen baita arima berain begietan, edo zerengatik nai baitu konfesioa bera eder izan daien. Eder izatekos gauza bat guzis, estu izan bear deus falta, ta ain guti sobra. Aurpegi eder bati edeki balekio sudurra, ia ezlizake eder arren faltas; añaadi balekio eri bat, lizake, alaber, itsusi arren sobras, zeren ezpaitu admitizen ez sobrarik ta ez faltarik edertasunak. Kuidazeuntzu estaien deus falta, esta orratz bat ere; eta nola estuzu kuidatzen estaien deus sobra? pintatu zue pintore alaxeko batek Elena, ta ezin atraziokelaik aurpegia bear bezain kabal, botatu zue erreto guzia tresena ta aderezuetan; bete zio lepo guzia perles, petoa diamantes, ropaje guzia lores ta diferenzies. Ikusirik berze pintore famatu batek, irria saltaturik, erran zio: Ezin pintatu duzu galant ta pintatu duzu abrats. Estu deus balio fantasia ta gala gorrek, estuelaik galant aurpegia; ta au balu kabalki eder, ez lioke faltarik eginen gala superfluo guziak. Konfesioain aurpegia bekala da arren substantzia prezisoki bear dena; substantzian, substantzian kuidatu bear da estaien falta ta ez sobra. Uste dute anitzek, konfesatzea ongi, dagola anitz platikatzean; ez. Konfesazea ongi, dago erratean osoki ta klaro geuren bekatuak diren diren bekala, batere kendu, batere añaaditu, batere disimulatu, batere exkusatu ta batere falta ta sobraik gabe. Egun kendu beartugu zenbait sobra edo superfluidade ozioso inutil direnak.

2. Superfluidade oziosoa ta gaistoa da ematea egunonak konfesoreai; antes bien, pensaturik dagola an Jangoikoaren lekuan, Jangoikoagana bekala ellegatu bear du erreberenzia ta humiltasun andiareki. Da alaber superfluo, berze edozein itz estaiena erreduzitu deklarazera penitentearen arimain estadoa. Da alaber superfluo, erratea: Akusazen naiz estutela maitazen Jangoikoa mereji duen bekala, zerengatik estaike mereji duen adiña, ta por konsigiente esta bekaturik ortan; ta solo erran bear da zertan den bekatu, baldin aborrezitu barin badu, edo blasfematu, edo murmuratu Jangoikoas, edo zerbait alakorik; gañarakoa da denbora gastatzea debalde. Da alaber superfluidadea, disponitu delaik bere ustes medianoki, erratea: Akusazen naiz eznatorla bear adiña disponiturik, ez bear adiña dolore ta propositoreki etc. Zerengatik, zer nai du erran ortan? Estuela preziso den examina, dolorea, propositoa ta gañarakoak? Bada, zertara etorda? jaiki bedi, bidoeie, estaiela konfesa ez dezan in sakrilejio bat; disponi bedi lenik ta betor gero. Ez Jauna, ez, estut erraten orgatik, ezi baut dolore ta proposito. Gerostik itz gaiek dire falsu, edo benzait superfluo. Da ere superfluo erratea, akusazen naitz ofenditu duten guzias Jangoikoa ta bekatu gaietas guzietas zeintas akusabainazake demonioak juizio egunean. Deus estu balio ala montonean akusatzeak; barin bada deus erremorditzen dionik konzienzia, berex ta klaro akusatu bear da, ez ala jeneralidade goieki; ta ezpadio erremorditzen examinatu ondoan ongi, zertako erran prosagoi, estuelaik ortaik deus atrazen konfesoreak ezaunzeko zure arimain estadoa.

3. Berze superfluidade bat andiagokoa da ta ordinarioagokoa: Lenbiziko mandamentuan estut deus, Jangoikoari graziak. Bigarreanean estut juramentu ta maldizio

iteko kostunbrerik, antes bien, aborrezizen dut biziogoi ta ez dezaket soporta. Irugarrenean enzuntut mezak jaietan, ta astreguntan ere kuidatu dut enzutea alnezakelaik. Laugarrenean estiotet egin desobediencia gaistorik, antes bien, neuronek errespetatu ta berzeei errespetarazi diotet zarragokoak. Borzgarrenean... Geldi, geldi. Zer konfesio da ori? Fariseoain konfesioa: Alabatzea bere burua, kontazea bere birtuteak, iduriarazi naia dela birtuoso. Konfesioa, fielak, da itsusteko geuren buruok, errateko zer den gure kontra, ixildu bear da fabore den guzia. Dabidek zio: Confitebor adversum me injustitiam meam Domino, konfesatuko diot nere kontra nere gaistakeria gure Jaunai. Job sanduak zio: Dimittam adversum me eloquium meum, itzuliko dut nere itza edo mintzoa neuronen kontra; ta ontan dago konfesioain grazia ta substantzia, mintzazea geuren kontra, geuren kontra. Zenbait alakoek subergia anitz dute, benzait diskrezio guti, ta estakit mirazeunten beren barrendegia. Moisesek sartu zuelaik eskua bere petxoan, uste aterako zuen garbi, atra zue beterik lepras, ta uste zuelaik zikin atra, orduan atra zue garbi. Kulpak erran bear dire konfesioan, fielak, ta geuren kulpak, zerengatik esta nior estuenik, ta erraten badugu estugula, geurek engañatzentugu geuren buruok, dio San Juanek (1.Joan.1). Zein mandamentutan estuen arkitu gorenas erran, estut arkitu deus ontan, ta pasa alzina añaditu gabe deus, bere alabazeko.

4. Berze superfluidade bat oraño ia ordinario dena da akusatzea por si akaso. Akusazen naiz por si akaso ezpaut maitatu. Jangoikoa, por si akaso in baut maldizioik edo juramenturik, galdu barin baut atenzioa mezan edo zarragokoei, in barin badut zerbait indezenzia etc. Ala esta konfesatzeko modu ona, zerengatik dugun bekatuetan, edo gaude zierto tugula, edo gaude zierto estugula egin, edo gaude dudan. Zierto barin bagaude, erran bear dugu zierto bekala, in dut au edo ura, eta esta aski erratea por si akaso in barin badut; eta ala konfesatu barin bada, gaizki konfesatu da, zerengatik estu konfesatu ziertoa zierto bekala. Dudan barin bagaude, esta orduan ere aski erratea por si akaso in barin badut, zerengatik esta explikazen aski duda gisa ortan; bear da erran, dudan nago, edo duda dut ontas. Ta en fin, ezpada oroizen eginik alakorik, ezpadu ere dudaik ortas, debalde erraten da por si akaso, zerengatik ala izatekos akusa zaizke munduko bekatu in daizken guzies: Por si akaso il barin baut norbait, por si akaso galdu baut fedea, por si akaso aborrezitu baut Jangoikoa. Alaber, da superfluo erratea: Akusatzen naiz por si akaso izan badire ene konfesioak gaistoak examina edo dolore faltas; zerengatik uste barin bauzu izan direla, erran beauzu: uste dut izan zela gaistoa alako konfesioa. Dudan barin bazaude, erran beauzu: Dudan nago izan ote zen gaistoa; ta ezpauzu uste, ta ez dudatzen, zertako debalde gastatu listua ta denbora itz alferretan.

5. Baña, Jauna, ainberze dire nere nezesidadeak, ainberze nere trabajuak, ezpaitut bokadorik zer erman agora; askotan pasazen zaizkida goizak desaiunatu gabe. Zer nai du, Jauna, esta karidaderik pobreeki, esta nork eman deus, ta anitz eskatzale. O nere Jangoikoa, zer konfesio dire ebek? Konfesioa da bekatuak errateko, ta ez kontatzeko miseriak. Baña Jauna, konsolatzen da bat kontatus ere. Bada, bila zazu berze leku ta okasio bat, ezi konfesioan solamente arimain miseriak erran bear dire; gañarakoa da superfluo ta txoil peligroso. Ah, zenbatek nigar anitz bere pobreza ta miseries, ta ajola guti Jangoikoari intioten ofenses! Eta zer dakigu ez ote doazin zenbait alako arrapatzeagatik zerbait limosna ia, ezi ez despeizeagatik bekatuak! San Felipe Neris kontazen da ezi gose andi bateko urtean errepertizen zuela limosna beartsuei. Ellegatu zizaio bat konfesatzera bekala, ta ezaundurik errebelazios arren intenzioa, baize logratzeagatik limosnaren bat, belaurikatu zeneko, utzi gabe erratera itzik, erran zio: Andrea, esta orrendako ogirik,

bidoeie Jangoikoareki; ta etzue nai izandu konfesatu, izanik sanduaren entrañak karidades beteak, etzeiengatik usatu gaizki konfesioaren sakramentua zerbait lurreko irabazi txarragatik. Kuidado, estaien nior konfesa iragazteagatik konfessoreain borondatea, iduriarasteagatik direla birtuosak. Ah zein delikatua den materia gau! Eta zer lizake, baldin ez galzeagatik erreputazioa konfessoreaiki, ixil balezate zenbait kulpa? Ziertoki erran daike alakoes direla nola zakurrak, zeñi demonioak ogi zati batengatik erxten baitiote agoa. Jangoikoaren agradoa solamente bilatu bear da konfesioan, ez ia; arimain erremedioa, ez gorputzeko sustentoa. Onengatik in balezate konfesio gaistoa, erran daike salzeuntela sakramentua ogi puska baten truk, ta por konsigiente, ezdeus bat bekala estimazeuntela Kristoren odola, zeñen birtutea lograzen edo malograzen baita konfesioan. Confitemini Domino, quoniam bonus; konfesa zaizte Jangoikoai, zeren baita ona, ta zuek gaistoak; zeren mereji zuelaik onetsizea, ofenditu baituzie alako Jauna. Egin nigar bekatues, ta ez pobrezas edo trabajues.

6. Alaber da superfluo, ta esta aski erratea: Nik estakit deustan zerbitzazeunten Jangoikoa, iteunten deus onkirik, bekatari andia naiz, akusazen naiz bekatu intusten guzies; ta alako jeneralidadeak, baldin bitarteo izanik zerbait kulpa grabe, ezpadu erraten expreso ta berex duen gura. Bekatari andia ta deus ez konfesatzen, anitz bekatu ta deus ez berex erraten? Duenak zenbait bekatu, edo solamente bat, esta konfesatzen ongi, errateareki dut anitz bekatu; erran bear du zein ta nolakoak diren. Asko diotenek direla bekatari andiak, estute aitu nai; ez dezakete soporta atra dezoten falta bat; inkietazen dire erraten bazaiote direla jenio suberbo, edo pronto, edo enbidioso, edo ertxitakoak. Aipadakioteneko gaizki in duela ontan edo artan, berla mila exkusa; erreprehensio ematen bazaiote, berla sumindurik defendazen bere buruak. Ta alare ain bizarroki gero, naiz bekatari andia; ta deustan eznaiz agertu direla, egia dena da, direla bekatari ta direla suberbo errateuntenoi errateuntela humildade falsus ta subergia malignos, iduriazi naiak direla onak ta humilak. Estaizela engaña, denak bekatari, badu bekatu; bekatu duenak bear du expresatu; expresazen duenak naiko du aitu; aitu naiestuenak ta ez expresatu, esta konfesatzen diolaik dela bekatari, baizik dabila nondik logra ontako daukaten. Konfesa geuren kulpak, ta ortako ezaundu jenioain doble malignoak.

7. Baña senzillo ta beldurtiago dire berze batzuk, zeñek beñere estaude satisfetxo konfesatu direla ongi. Batzuetan diote estiotela akarrik egin konfessoreak; eta zer da ajol? Akar egitea esta beti preziso. Berze batzuetan diote ezpide direla ongi explikatu. Bada, utziute malizias edo alkes deus? Ez Jauna. Berarias egon dire bilatzen itzak zeñeki estali malizia? Ez Jauna, antes bien nainuke erran alikako itz klaroeneki. Eta en fin, estuzu erran senti zinduen guzia zeure baitan, ta al zinduken modurik obrenean? Bai Jauna. Bada, sosega; konfesatu da ongi. Baña Jauna, ezpide nau entendatu konfessoreak? Zertan ezaunzeuntzu ori? Ezpaitu in ajola eta aspamenturik nere kulpas. Ai tonteria. Eta zein librutan dago, bear duela egin aspamenturik konfessoreak? Antes bien, prudente denak estu inen. Eta askotan zuei idurizaizelaik arrituko dela, esta batere turbazen, inik baitago aditzera geiagokoak. Baña, Jauna, nola akabatu baitut ain fite konfesioa ta ikusten baitut berze batzuk daudela denbora iagos. Au da erreparo futil bat. Konfesioain ontasuna estago espazio anitz egotean, ta espazio anitz egotea estago bekatu ia izatean; batzuek konfesio brebean errateunte anitz bekatu; berze batzuek luzean estute kasideus erraten. Batzuek pasazentuste mandamentu guziak, ezpaute ere baizik batean edo berzean, ta ez dezazke niork atra ortaik; berze batzuek errateunte dutena instante, pasatu gabe debalde mandamentuak. Batzuek dute explika ona ta entendamentu klaroa; berze batzuk dire

tardoxago. Batzuek errateunte preziso dena txusto txustoa; berze batzuek mila itz alfer, ta preziso estiren kontuak. Ta ala estaike adrendurik artu luzean ta laburrean. Niri iduri zaidana da examina daien konzienzia, bai amar mandamentuetaik, mandamentus mandamentu, baña konfesa daien solo zertan aurkitu duen; ontan ta ontan dut, pasatu gabe guziak. Baña en fin, au esta anitz inporta dena, solo ahorratzeagatik zerbait denbora; inporta dena da konfesatzea den guzia deus utzi gabe. En fin, nola den intenzio ona, dolore fiña, dilijenzia prudentea, humiltasun ta gañarako medioak al daiken moduan, fiatu bear dugu Jangoikoaren ontasunean, konfesatubide garela ongi ta barkatubidetigula gure bekatuak, ezpadaike ere jakin ori mundu ontan, baizik errebelazios. Etzagula guk malizias edo floxezas, edo alkes, edo berze modus faltatu konfesatzean dugun guzia, ezi ona dugu Jangoikoa barkatzeko; abogatu ona dugu Jesus; fiadore ona dugu bere odol preziosoa, konfesioan aplikazen dena gure garbitzeko.

8. Errelijioso kartuxo bat zoeielaik bides arrapatu zue azken eritasunak erri batean, Jangoikoaren probidenzia, aurki zeien an berze errelijioso bat Huberto deizen zena, zeñek eman zizkio sakramentu guziak. Au egin ondoan, erretiratu ze guti bat Huberto usteagatik deskansatzera eria, ta bitarteo sartu ze demonioa eria in kuartoan, zekarrala libru andi bat, zeintaik asi ze leizen meatxu ta irri andieki, bizi guzian eriak in zituen bekatuak. Orduan eriak erran zio: Eta zer dugu orreki, gaistofikatua? Intutela bekatu goriek eta ia nere bizian, baña konfesatutut alikako obekiena, ta daukat esperanza Jesu Kristoren merejimentuetan barkatubidetidala. Orduan demonioak erran zio: Anitz ixildutu erran bear zituenak, anitz disimulatutu, exkusatu berze anitz, ta estu explikatu asko bear bekala. Orduan asi ze kongojazen eria, ta dudazen bere salbazioas. Baña berla agertu ze an Maria Santisima bere Seme dibinoareki besotan, zeñek desterratu ondoan andik gaistoa, erran zio: Etzaitela turba, konfesatu zara ongi; ni naiz testigo nola nere Seme Jaunonek barkatu dizun guzia. Desaparezitu zeneko Ama Birjina, sartu ze berze errelijioso; kontatu zio eriak gertatu zena, ta errezturik psalmo penitenzialak ta letania, azken itz aietan (omnes sancti et sanctae Dei etc.) ziolaik eriak alegre ikusten zituela anitz sandu ta sanda arren eske etorri zirenak, ilze dulzekiro. Orra konfesio onain efektoa; anima gaizen intenzio onareki konfesatzera etc. (Claus cathech.3. conc.25.)

Serm. 81:
De vitandis excusationes.
ann. 1781

Non declines cor meum in verba malitiae
ad excusandas excusationes in peccatis. Psalm. 140.

1. Jauna, erraten zio Dabidek Jangoikoari, para bezo nere agoari goardia bat, ta zirkunstanziasko atari bat nere ezpainei. Pone Domine custodiam ori meo, et ostium circumstantiae labiis meis. Nork estu erreparatzen eskatzegonen propietadean ta moduan? Goardia agoaindako ta zirkunstanziasko ataria ezpañendako. Zer nai ote du erran zirkunstanziasko atari gontaz? Badakigu atari edozein dela erxteko ta idikitzeke; baña eskatzea zirkunstanziasko ataria ezpañendako iduri zaida dela eskatzea grazia idikizeke ezpañak ta minzazeko zirkunstanzien gisa, konbeni delaik bai, ta konbeniestelaik ez. Konfesioa iten da agoas salbazeko, ore autém confesio fit ad salutem, eta ala ezpañen ataria idiki bear da konfesioan. Baña zirkunstanziareki idiki bear da, errateko geuren kulpak; ertxi bear da ez defendatzeko gaizki eginak; idiki bear da, akusatzeko geuren buruok; ertxi bear da, ez exkusazeko bekatuak. Dabid berak explikatzen du errateareki klaroago an berean petizio bera: Non declines cor meum in verba malitiae, ad excusandas excusationes in peccatis. Ezdezala Jauna, permiti makur daien nere biotza itz maliziaskoetara exkusatzeko exkusak bekatuetan. Berze difikultade bat agertzen da itz gebetan, zerengatik estio libra dezala exkusazetik bekatuak, baizik exkusak bekatuetan. Baña guzia eldu da batera, solamente añaizen du zerbait; zerengatik lenik biotz humanoai gertazen zaio exkusatzea bekatuak, ta berla exkusatzea exkusa gaistoak, ta ala montiazan du exkusa exkusain gaiñetik, desuerte ezi konfesio zenbaitenak estirudi konfesio, baizik exkusa montio bat estorbatzeko konfesioain fruituak. Ongi dio, bada, profeta errealak, digula Jangoikoak goardia bat agoaindako, ta zirkunstanziasko atari bat ezpañendako, ta ez dezola utzi biotza makur daien exkusazera kulpak ta kulpen exkusak.

2. Explikaturik ia idiki bear dugula agoa konfesatzeko geuren kulpak, ta ertxi bear dugula ez gastazeko an denbora itz superfluotetan, orai bear dugu erakutsi estela exkusatu bear edo diskulpatu bear konfesazen dugun kulpak. Esta konfesioaindako propioago den gauzarik nola akusatzea bat bere kulpes; edo obeki errateko, esta berzerik konfesatzea baizik akusatzea bere bekatues, ta por konsigiente txoil-inproprio da exkusatzea konfesioan. Bekatua bezain zar da exkusatzea bekatuas, ta bekatuareki urbil sortu ze exkusatzea. Adan ta Eba gure lenbiziko aita ta amatik izan zue prinzipio. Egin zue bekatu Ebak janes fruta debekatu ziona Jangoikoak ta desobeditus Jangoikoaren manua; ta berla karguturik bere desobedienziak, konfesazen du baña exkusatus ala: Serpienteak engañatu nau ta jan dut. Egin zue Adanek ere bekatu janes fruta bera bere emastearen ordes, ta kargutu ondoan bere desobedienziak, konfesazen du, baña exkusatus arrek ere, ziola: Orrek emanikako emasteak eskindu dida ta jan dut. Ikusteunzie zein goizik sortu den exkusatzea? Andik onat segizen digu alakoen hume garenei exkusatzearen kondizio gau, ta dugun bekala inklinazio naturala bekatu egiteko, dugu alaber exkusatzeko; baña konfesioan autxi bear da naturalegaisto gau, ta an ez exkusatu, baizik akusatu bear gara intugun gaizkies. Estaien, ordeak, gaizki entenda emain duten doktrina asunto gontan, nai dut asentatu zimendutako erregla bat, zeintak ezaundaien noiz den mortale exkusatzea ta

noiz ez. Bekatu lebeetan exkusatzea bat, (nola duen berze alde zerbait, zeintas akusa ta damuzen den ongi) beñere esta izain mortale, zerengatik ala nola benialeak edo lebeak ezpaitugu obligaziorik konfesazeko, baizik nai badu konfesatu, nai ezpadugu, ez, gisa berean estu peligrorik konfesioak aiek exkusatuagatik, nola den zertas akusatu ta damutu sinki berze alde. Baña mortale edozeintan exkusazen bada bat alako maneran, ezi iduriarasten baitio konfessoreai estela bekatu edo estela mortale, ia orduan da bekatu grabe, ta konfesioa gaistoa, zerengatik adiarazi bear da dena den bekala; b.g. In du batek desonestidade bat bere kulpas, konfesatzen du, baña berla exkusatzen da errateareki in ziotela bortxa, ezin erremediatu zukela niolateko maneran, ia iduriarasten dio estuela kulparik; ta da oroat, nola ezpalu konfesatu desonestidade gura, ta aun gaistoago, zerengatik dakielaik kulpante dela artan, errateareki gezurgoi ezi in ziotela bortxa ta ezin erremediatu zukela, ia ontan dio estela kulpante, estuela bekaturik, ta por konsigiente konfesioa da gaistoa. Baña ezpada bat exkusatzen alako maneran, ezpaitu iduriarasten mortalea dela beniale, edo agitzes gutiago den baño; ia orduan izanik ere zerbait falta konfesatzemo du gortan, esta izain mortale; ta konfesioa imperfekzione gorreki izan daike ona bere substantzian; baña beti da peligro. Konfesa ongi dena den bekala, batere añaditu, batere kendu, batere gutitu ta batere exkusatu gabe.

3. Baña, ala nola sangria batean, ezpada aski idikitzen zaña lanzetas, odol mea solamente atrazen baita, ez humore lodia ta gaistoa, ala Espiritu Sanduak diones, delaik justoaren agoa bizitzaren zaña, vena vitae os justi, ezpada aski idikitzen explikazeko bekatuen gaistotasuna, bizitza eman bearrean emain du eriotzea; eta zenbatetan explikatu faltas eta exkusatu sobras atrazen dire bekatuak ain meaturik ta ain txikiturik exkusas, defensas ta diskulpas, ezi estalian, barnean, geldizen da malizia, entendatu gabe konfessoreak? Batzuen konfesioak, dio San Pedro Damianok, estire baizik konfusioak; berze batzuen konfesioak estire baizik ofensioak; ta berze batzuen konfesioak estire baizik defensioak. Dirudi jokazen dela itzeki sandua, ta estu baizik erraten izen propioeki gauza bakotxa. Asi gaizen explikazen. Batzuen konfesioak dire konfusioak, zerengatik ainberze enredo, ingura mingura ta maña ta marañaeki erratentuste bekatuak, ezdezazkitengatik entenda, ez dezazkiten ertxi ta obliga beardenartara, ezi iteunte koropillo gordiano gura bekala, non ezpaitire ageri kaboak, ezpaitaki nondik eutxi konfessoreak; ia dirudi bai, ia ez, ia anitz, ia deus, ta guzia da konfusio ta iluntasun bat linboan bekala. Kalamar deizen den arrai bates erraten da, txoil neke dela arrapatzea zerengatik botazerakoan amua arranzariak, botazen emen du arrek agotik tinta bat ain beltza, ezi turbiazen ta ilunzen omen du ur guzia, ta ala eskapazen omen da. Ala eskapatzen ez, bai erorzen dire kondenazioan konzienzia falsuain bidetik dabiltzanak okultatu naiak agertu bear dena klaro. Ai bezate klaro, ontaik estaike eskapa edozein bekatari; edo dago zierto in duela, edo dago zierto ezetz, edo dago dudan? Zierto barin badago, konfesa bez den guzia ta den bekala; barin badago dudan, erran bez zertan duen duda, nola duen; ta zierto barin badago ezetz, esta deus zer erran.

4. Berze batzuen konfesioak dire ofensioak, zerengatik ofendizeunte proximo laguna konfesatzean berean. Estuste konfesatzen beren bekatuak, baizik berzerenak; botatus kulpa berzeain jenioari, berzeain tentazio ta okasio emateari; eta zenbat obeki lizake itsustea bere burua, akusatzea bere jenioa ta ruintasuna, ta erratea bere kulpa propioak, utzirik berzerenak konfesadezkitela berek. Konfesioan ere murmuratzen! Estute, estute damu anitz bere kulpes; estute, estute konfusio anitz beren gaisto izateas, ainberze kaso iteuntelaik berzerenes. Saulek desobeditu zue Jangoikoa ez destruitus

Amaleziten gauza guziak manatu bekala; ta kargu iterakoan, dio ezi puebloak gelditutuela haziendarik obrenak, puebloa zela kausa, ainberze porfiatu ziotela. Pepercit populus melioribus ovibus. Zein al kontrario Dabidek konfesatzen duen bere kulpak: Ni naiz, zio, ni naiz bekatu in dudana, ni gaizki portatu naitzena. Ego sum qui peccavi, ego qui malum feci. Zer da ajol emanagatik zerbait okasio, motibo edo tentazio? Orgatik gaizki iten bauzu, esta izain zurea kulpak? Zenbatek okasio ta tentazio iagoreki estute falta zen zuk bekala? Zertako duzu juzioa ta birtutea? Edo zer pazienza, edo kastidatea, edo kristiotasuna da zurea, solamente okasio ta tentazioik estelaik? Edozein da soldado baliente, peligrorik estelaik. Peligroan da noiz monstraizen baita balentia kristioa. Konfesa zazu humilki zeure falta, zeure miseria, zeure birtute gabea, ta utzazu geldi ta ixilik berzeain jenioa, akzioea edo okasioa; berak bear du ori konfesatu, ta ez zuk. Bakotxak bereak. Zer idurizaizie, dela konfesioan or munduko pleitu ta diskordietan bekala, zeinek baño zeinek ia garbitu bere burua, ta botatu, ta ponderatu berzeen falta? Beñere esta ala bear, baño gutiago konfesioan, nora baikoaz akusatzera geuren buruok, ematera geure kontra, agertzera geuren erruintasunak, barkadezazkigungatik Jangoikoak, zeinek ia piedade digu, zenbatenas ia humillazen garen.

5. En fin, berze bazuen konfesioak dire defensioak, zerengatik ezpaitute deus iten baizik defendatu beren buruak ta beren bekatuak. Egin nue au, baño, Jauna, bakeagatik. Galdu dut pazienza, intuit maldizioak, baño preziso da, Jauna, estute beldurrik berzela, ta estaike erreka. Konsient izanaiz ladronkerian, baño nik obligazio personai eznezoke falta; berze batzues diote, obligaturik nezesidadeak, ta enplegazeko ongi. Orditu naiz, baño zer nai du, Jauna? Nai batek indar zerbait. Zer modu da au konfesatzeko? Bekatua bear da aborrezitu, bear da detestatu, bear da madarikatu, ez defendatu; defendatzea gaizki egin gaistoago da egitea bera baño, zerengatik defendatzeareki ia frinkatzen da, ta erxten zaio bidea barkazioai. Gal dezogun San Agustini, zer iduri zaion defendazeas bekatuak. Bada, dio sanduak, bada gaistakeria bat zein iten duenai esta posible izan dezan Jangoikoak miseriordia, est quaedam iniquitas, quam qui operatur non potes fieri, ut misereatur ei Deus. Galdeiteunze zer gaistakeria den ori? Da defendatzea bere bekatuak, ipsa est defensio peccatorum: (In psalm. 58). Baiki estelaik berze modurik erdexteko miseriordia, baizik ezauntzea ta konfesatzea geuren kulpak, erxten dugu miseriordiain ataria defendatus gaizki egin. Bere bekatua aumentazen edo andizeunte nautelaik ukatu, edo defendatu, dio San Ambrosiok, peccatum suum ingravant, dūm negare cupiunt aut defendere (Apol. 1. de David). Bekatu in duzu, dio berriz San Agustinek, zertako defendatzen zara itzes? (Ib). Medikua etorri zara, ta diozu sano zaudela; bada, estizu emanen erremedioak, beti geldituko zara eri. Konfesa zaite eri, sendatzekos.

6. Konfesa gaitzen alako maneran, nola bear baita konfesatu Jangoikoari guzia dakienari, ta ala pensa ezkarela gizon bateki konfesatzen, baizik Jangoikoareki, ta gezur iten badiogu konfesoari, estiogula gezur iten gizonai, baizik Jangoikoai, zein errepresentazen baitu konfesoariak. Non es mentitus hominibus sed Deo. Bada, gure bekatu guziak patente barin badaude Jangoikoaren begietan, ezpagaizke okulta, zertako da ainberze exkusa, ainberze diskulpa, ainberze defenza ta maraña? Zertako bilatu itzak disimulazeko edo txikitzeko bekatuak, berdin estire disimulatuko ta txikituko Jangoikoaren alzinako, baizik solamente manifestatus geurek dakiena ia gure Jaun soberanoak. Kontazen da santa Lutgardaren bizian gizon batek egin zuela bekatu bat txoil sekreto ta alkaizungarria. Difikultoso iduri zekio konfesatzea klaro, ta zebila kongojaturik diskurritzen nola libratu ta zer gisas konfesatu. Pensamentu gebetan zegolaik ellegatu ze

peregrino iduri bat arren etxera, ta eskaturik ostatu ta eman, sartu ta egon ondoan an zerbait denboras, erran zio peregrinoak: Estida eginen mertxede bat? Ala Jangoikoak libra dezala geien aflijitzenduenetik. Zer mertxede? erran zio berzeak: Jauna, nai badida garbitu buruau. Gogotik inen diot, erran zue; ta ekarririk palangana, ta kurturik burua garbitzeko, erreparatu zio etxekoak buruan begi bat guzis argia. Turditurik detenitu ze ta erran zio: Zer gizon da ori? Ezi nik estut ikusi sekula gizonik begia duenik buruan. Orduan peregrinoak erran zio: Ori da begia, zeñeki ikusten baizaitut uste duzulaik etzaitutela ikusten, zeren inklinaturik daukaten burua; ta orreki ikusi zinduzada in zinduelaik bekatu gura ain sekretoan; eta ikusi barin baut, zertako orai nauzu disimulatu? Erran au ta desapareztu ze, ta utzi zue arriturik bezain erresolbiturik konfesatzera klaroki zena zen bekala. Estu ain bat inportazen jakin dezan gizon batek gure kulpak; kuidado eman bear digu Jangoikoaren begiak sekula lokartzenestenak ta ikustentuenak zoko sekretoenak, biotzeko estalkume barrenak ta gauzarik altxatuenak. Dakien bekala nola den, ala konfesa zogun erdexteko barkamentua, ta berladanik inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik etc.

Serm. 82.

De methodo pract... confit...di.

ann. 1781

Dixitque ei filius, Pater peccavi in coelum,
et coram te; jam non sum dignus vocari filius.

1. Seme prodigo garrek ikusi zue bere estado desdixatua aitagandik aparta egoteas; berla artu zue erresoluzioa joateko beragana ta konfesatzeko bere kulpaa; ta azkenean joan ta belaurikaturik konfesatu ze humilki, apaldurik begiak, alkegorriturik aurpegia, urturik sugarretan biotza, ta itz senzillo klaro, brebe ta humileki ziola: Aita, bekatu egin dut zeruain ta orren kontra. Ia ez naiz digno dei nazaten berorren seme, admiti benaza otoi berorren nirabeetaik bat bekala. Peccavi in coelum, et coram te etc., estaike pinta propriokiago bekatari konfesazen den baten konbersio-modua. En fin, aski da nork ezarri zuen pintura gau, izateko propioa. Onen konforme goazen egun erakutsis praktikan konfesazeko forma. Explikaturik len anitz gauza konfesioan gain, egun izain da platika paratus plantan len explikatua.

2. Jakin bear da ortako zer in bear den ta nola konfesatzeain alzinean; zer ta nola konfesatzean berean; zer ta nola konfesatu ondoan. Konfesatuondorekoa errain dugu urrengo platikaetan, orai konfesatzeko berekoa ta konfesaalzinekoa. Konfesa alzinean in bear dena da ezauntzea bere estado miserablea bekatuan, apartatua Jangoikoagandik, ta ortako bezperan edo bezperagokoan konforme duen nezesidadea, bear da erretiratu examinatzeraz konzienzia, pensatzeraz ibilituen pausuak, ta erreperasazera egintuen ofensak Jangoikoain kontra mandamentus mandamentu, erakutsi dugun bekala ia lenago. Bildu ondoan memorian kulpaa egintuenak azken konfesiotik onaraño, bear du ere beiratu ia lengo konfesioetan faltatu duen deustan, zerengatik debalde segizen da alzina obran ondarrekoa barin badoaie falsuan. Bear du ere konfesatzeraz bañolen, paraturik bere begien alzinean in duen gaizki guzia, prokuratu mogitzeraz biotza, izateko anitz dolore, pena, sentimentu, damu ta urriki ofendituz Jangoiko on andia, ia beiratus alde batetik nor den Jangoikoa ofenditu dena, ta nor zen ofendizalea. Jangoiko ofenditu dena da Jaun guzien Jauna, zeñi guziek zorbaitiogu obediencia ta errespeto al guzia, kriatu gaituena guziok, eman diguna dugun gorputz, arima ta fakultade guziak, gaizkirik ez beñere ta beti ongi iten diguna; zeñiek alaber eginik gizon erredimitu baikaitu bere odol dibinoaren kostus, zeñiek konserbatu baitigu bizia mundu ontan, gindezazkelaik bota aspaldian infernura, zeñiek barkatu baitigu anitz aldis len ere konfesioan, zeñiek alimentazen baikaitu bere gorputz odol preziosoes komunionean, ta zein, en fin, baita ezin ohea berebaitan ta ezin ohea guretako; berze aldetik gu gara bere kriaturak diogunak obligazio geuren gorputz arimen fakultade guzies, ta ain ez deusak berain aldean, ezi gutiago baikara, arkakusoak, txinurriak ta bartzak diren baño gure aldean; berze alde zenbat kalte in diogun geuren buruei bekatu gaietas, galdu baitugu Jangoikoaren agradoa ta grazia, ta zerurako deretxoa, arimain edertasuna, lengo obra on guzien irabaziak, ta egin baikara desdixatuak, miserableak, itsusiak ta larrapo okagarriak bekala zerukoen begietan. Konsiderazioebetaik berla atrakouzu konsekenzia, edo dela kontrizioain edo dela atrizioaindako, ta errain duzu gisaontan: O zer in dut bekatu egiteareki? Zein ingrato izan naizen! Alako jaun bat, ain ona, ain mertxedegillea bear nue nik ofenditu? Ofenditzea jentilek ta herejeek gaisto da,

baña nik? Nik? Eta zer probetxu atra dut neretako gauza gartan? Deusez baizik galdu Jangoikoaren agradoa, Ama Birjinaren ta sanduen amorioa likitskeria batengatik, ta exponitu naiz erorzero infernuan, ta nazake bota, nai duelaik arrazio andiareki. Egin naiz demonioain esklabo, Judasen lagun ta gaistoen banderakoa, itsusiago zakur ustel bat baño, abominableago erregeren traidore txar bat baño, ta desdixatu guziak baño desdixatuago; obe nue miseria guziak ta il ere bai bekaturik gabe, ezi ez bekatu egintudanak. O ezpanue ikasi sekula bekatu egiten! O bekatu madarikatuak! O nere gizatxar eskergaiza! Estut mereji barka dezadan Jangoikoak. Baña barkatu, Jauna, barkatu bere ontasun infinitoagatik. Damu dut mila ta mila aldis; ojala banu damu ia. Ofrezizen diot estudala ia ofendituko sekula.

3. Afekto gebeki edo alakoeki prebenitzen da gizona konfesatzeko, eta ezpadakizu nola erran, erran zazu sikiera anitz aldis kontriziosko akta, Jesu Kristo ene Jauna etc. Manso, espazio andiareki, sentitus itzen conforme biotzean. Guziau entendazen da konfesatzeko disposizioan, ta zenbatenas ia alako afekto iten duen, obeki joain da disponiturik. Au diot, zerengatik batzuek konfesatzeko, estute ia iten, baizik examinatu konzienzia, ta examinatu ondoan estute kasorik mogitzeas biotza dolore ta propositora, ta estakite zer egin ia, ta ala ellegatzen dire konfesioko tribunalera gogor, seko ta otz, bear den debozio ta sentimentura gabe. Egia da, aski dela konfesioain fruituaindako izatea dolorea konfesatzean berean, nola den absoluzioa baño len; baña lendanik estena prebenitu, aisa da instante batean itxekitzea dolorean? Ain aisa da itxekitzea zur berde bat instante bates, naiz arrimaturik ere su ongi, naiz fu eginik sendoki, ezpada lendanik sekutzen? Konfessore onain ferborea da sua bekala, arren atsa edo itzak fua bekala, itzekitzeko biotzak; baña guziareki Jangoikoaren milagro izain da itxekitzea, lenetik disponiturik estagona bere kabos. Etzazula, bada, enpleatu denbora guzia examinazen konzienzia, ta gutiago errezaen, enplea zazu eskatzen Jangoikoari ta Ama Birjinari dizutela dolore ta proposito egiaskoa, ta mogiarasten zeurorrek biotza, egines anitz konsiderazio ta anitz kontriziosko akta konfesatzera baño len zeren konfesioan den bearrena da kontrizioa.

4. Konfesatubeauzun goizean jaiki goizik prebenitzeko ia ta ia, ta idatzarri orduko lenbiziko pensamentuak biz konfesioain gain, ta berladanik asi ematetik Jangoikoari graziak, eskatzen argitasun ta fabore, konfesatzeko ongi ta Jangoikoaren gustora. Barin bada disgusto edo diskordiarik, baketu lenik joan gabe konfesatzera; senarra emasteareki ta ematea senarrareki errekonziliatu, ta gelditu barkaturik elkarri inikako agrabioes ta disgustoes. Humeek eskatu barkazio aite ta amei, ta apatu eskuan, ta erran nola doazin konfesatzera ta nora doazin, zerengatik konbeni da jakin dezaten. Garbitu eskuak ta aurpegia, ez ongi iduritzeagatik jendeei, baizik nola baitugu Jangoikoak emana gorputza ere arima bekala, joateko gorputz arimen garbitasun dezenteareki Jangoikoaren tribunale ta maiera. Bestitu tresenarik obrenak modestia ta dezenia on batean, zerengatik konfesiara joan bear badugu ere reo ta justiziatu bearrak bekala, (ta orgatik len joaten baizire kristioak inguraturik zilizios edo zaku bates, ta aun soka bateki lepoan, ta autses estalirik burua) alaere nola geien komun orai konfesioai segizen baizaio komunionea, ellegazeko mai erreale dibino gartara joan dezenteki traje korrespondientean (gizona gizon bekala, emastekia emasteki bekala, itxureria ta moderia fatuo nota daikenik gabe, ta gutiago bestizemodu indezenteareki, ala nola agerturik bularra ta besoak, edo arropa labur, edo berze edozein indezenziareki; ala ellegazen dena komekatzera, justo lizake Jaun andiaren goardian dagon ainguruak bi zati egin dezan; bada, ain itsusi da ala ellegatzea konfesatzera,

nora baitoai bekataria tribunalera bekala errezibitzera sententzia; ta erdexteagatik faborablea, doai penitente, ta monstratu bear du trajean ere penitentzia. Estuzie ikusten nola reo preso daudenak ta presentazen direnak bisorraian alzinean Egerri bezperan atrazen diren kargaturik grillos ta kateas, naiz barin badatoz ere eskatzera libranza? Por lo mismo ezi nai duten libratu, monstrazen dire humilago, ta mostrabaleites bano ta arrogante, akaso gibelalekiokete libranza; ala leizen da Milon kaballero erromako bates, ezi zeren atrazen bestitirik galas, solamente orrengatik kondenatu zutela desterru perpetuora, ezperen zeudelaik juezak inklinaturik barkatzera). Ellegatu bear da, bada, humildade interiore ta exterioreareki konfesiara, eta sakramentu gonon ta aldarekoain errespetoagatik solamente erman bear da arroganziarik ta indezenziarik gabe traje modesto, txukun, dezentea, naiz dela asteegunean, naiz niork ikusi bearestuelaik, solamente Jangoikoagatik. Tomas Moro famatu gartas leizen da ezi aun karzelean zegolaik aldazen zela tresen obrenes mostrazeko trajean ere Jangoikoari errespeto espeziala egunain kasos jaietan. Jai da ontarako komekatzeko eguna komekatzendendaindako. Bear da, alaber, ellegatu orrastaturik ta lazaturik biloa gizonkia; baitare despeiturik etxeko kuido guzies, emanik lendanik ortako probidenzia, estagon gero pensamentuareki etxeko itekoetan, bear delaik solamente kuidatu ongi errezibitzeas sakramentuak, ezpaliz bekala berze itekorik batere batere munduan. (Alaber bidean joan bear da modestia ta silenzioreki platika superfluorik gabe. Zer errain dugu arzeuntenes konfesiortik okasio egoteko ta joateko ta etorzeko platikatzen gizona emastekiareki ta emastekia gizonareki? Aparta, aparta, sikiera konfeszatzeko, demonioaren tentabideak). Elizara ellegaturik, egon pazienziareki ta apaldurik begiak, ta bildurik bere barrenean eskatzen Jangoikoari, examinatzen, kontrizio ta propositoen aktak egiten ta disponitzen ia ta ia, berantetsi gabe, enfadatu ta saratraketan ibili gabe, ta ain guti arat onat beira, jarririk edo errekestaturik edo berze edozein modu indezentereki, ezpadu obligazen nezesidadeak. Etzoaste penitenziaren sakramentura? Etzoaste presentazera zeuren buruok bekatari ta kulpante? Etzoaste erdextera Jangoikoaren piedadea humillatze garren medios? Bada, konbenilizake joatea penitenteain trajean, loturik eskuak, soka bateki lepoan, autsareki buruan, lenbiziko kristio gaiek bekala; baña ia ke ta ori esten egiten orai, konbenilizake joatea inguraturik silizios barnetik reo bekala Jangoikoaren presenzian; baña ia ke ta au ere esten egiten, ar bedi sikiera bekatuen penatiko egotea barurik, modesto, humil, geldi, belauriko pazienziareki, bear baliz ere goiz guzian, benzait okasioain konforme bear den guzian, kexatu edo inkietatu gabe. Barin bazoaste ongi pizaturik bekatu mortaleain horrorea, etzaize anitz idurituko trabajuttogoi Jangoikoari in diozen agrabioaren partes, ta infernu merejituduzienaren truk. Pensa zazie zenbat eta zenbat dauden marraxkas infernuan ta akaso bekatu gutiagoreki zuek baño denbora gortan berean, zeintan baizauste zuek esperatzen Jangoikoaren piedade grazioso konfesoreain eskus, ta ain neke gutiren kostus.

5. Baña orai errantugunak dire gutienak, ta ez preziso prezisoak geienak; goazen substantzia iagotako adbertentzia batzuk emanen, ellegatzeko konfesonariora. Au bear da imajinatu dela den bekala, Jangoikoaren tribunalea ta graziaren tronoa, non Jangoikoak Kristoren merejimentuen kostus bere ministro sazerdotearen medios sentenziazen baititu bekatariak alzinetik, ez aurkitzeagatik zer kondenatu gero berze tribunale goien riguroso gartan, zeintan goardatuko baitu ontan eman zuen sententzia; ta ongi disponituak emen barkatzentuela ta admitizentuela bere grazian, garbitzentuela bekatuen beneno pestilentetik, bitzentuela eriotze triste gartaik, lazazentuela demonioain kateatik, borrazen diotela arren

esklabitudearen marka, aldatzentuela guzis, ederzen ta adornazentuela, ta en fin, paraturik Jangoikoaren humeen listan ta emanik zerurako pasaportea destinazentuela ararako deretxoareki. Pensa berzela San Franzisko Saleskoak zion bekala, konfesonariora joatean, zoazila kalbarioko oianera ta parazen zarela Jesu Kristo gurezifikatuaren oñen pean, ta berain odol preziosoa doaiela destilatus alde guzietaik zure gañera zure garbitzeko bekatu guzietaik (Parr. pl.14 de penitencia). Ala da, ezi Jesu Kristoren odolaren birtutes konfesioak garbitzen du arima. En fin, ellegatu beazu, oroat, nola seme prodigo gura, zeure aitagana konfesatzera zeure kulpak, etzarelaik kontazen ia digno dei zaizan bere humea, izanzarenaskeros ain ingratoa, baña alaere Aita on dibinoak botazeinzula lepora besoak admitizeko bere grazian.

6. Humiltasun, fede ta konfianza goneki, eskatu ondoan lenik Ama Birjinai, aingiru goardakoai ta nauzun sanduei bere asistenzia konfesatzeko ongi, ellega zaite ia, oroat, nola ura baliz azken konfesioa mundu ontan, ta akabatu orduko joan bear bazindu bekala ematera kontu Jangoikoai, ta belaurikaturik konfesonariora urbil, ta kurturik guti bat zeñatu ta erran zazu Ni bekatorea etc., edo Jesu Kristo ene Jauna etc., eta gero ertxirik begiak, nai bauzu, edozein gisas monstratus humiltasun ta sentimentu, erran zazu: Aita, onenberze denbora du konfesatu nitzala; uste dut konfesatu nitzala ongi, edo faltatu nue ontan; kunplitu nue edo eznue penitenzia, eta examinatu dut konzienzia ta dut damu Jangoikoa ofendituas, ta proposito ez ofenditzeko berriz sekula; ta azken konfesiotik onaraño aurkitu dutena nere konzienzian da au; lenbiziko mandamentuan au, berzean au ta au, berzean, ta en fin guzietan zer duzun, ta zenbat aldis. Non zauden dudan, erran duda dut ontan; non estuzun deus, pasa alzina, gastatu gabe debalde denbora; ta en fin, guzia alikako itz brebe, ta preziso, ta modesto, ta klaroeki, utzi gabe deus erran bear denik, ta utzirik bearresten-kontu, historia, superfluidade, diskulpa ta alako platika enfadosoak, antes bien, beti kulpatus ta akusatus bere burua. Akabatu ondoan aitu galdetzen zaiona ta errespondatu bearbada: Obeditu konseju ta manu guziak, admititu humilki erreprehensioak, artu puntualki erremedioak, sartu biotzean doloreain motibo ematentionak, ta azkenean berriz kurturik ta golpatus bularra alikako dolore sin biotzesko guziareki erran mansoki Jesu Kristo ene Jauna etc. Balidoeie bekala artan sentenzia sekulakoa.

7. Kaputxinoen koronikaetan kontazen da, ezi itzulzerakoan gerratik Erromako kaballero bat kaputxino bateki, zein deizen baize frai Lukas de Fano il zela kaballeroa errelijioso gonon eskuetan, baña andik ordu guti itzuli ze bitzizara (sic) ta erran omen zio Frai Lukasi: Ni, aita, itzuli naiz biztera Jangoikoaren miseriordiagatik kontazeko berorri gertatu zaidana. Joan nitza Kristoren tribunalera, ta an izandu naiz kondenatua nere bekatu andiengatik, zein konfesatu banitue ere berorreki, ez bear bekala; botatu nindute infernura, non estaixe explika zenbat pasatu duten denbora gontan. Ikusi dut an nere andrea utzi nuena ongi Erroman, ta galdeturik bere kondenazioain motiboa, errespondatu dida: Urliak persegitu nindue zure ausenzian ainberze porfiareki, ezi konsentitu nue flaka bekala Jangoikoaren ofensan, zeintas ainberze pena artu nue ezi orgatik eritu nitza ilartaño; baña eznue izan baloreik konfesatzeko bear bekala, ta gaizki konfesa komekaturik il nitza, ta naiz kondenatua sekulakos pena gebetara. Ura, zio kaballero erresuzitatuak, gelditu da an errezen, ta ni eldu naiz Jangoikoaren miseriordias erremediatzera konfesioaren medios; ellega bedi onaraño ta ai benaza. Konfesatu ze, ta zein diferenteki lenekotik; monstrozen zue nolako peligroan egon zen, ta errezibiturik absoluzioea berriz iltze. Konfesorea joan ze Erromara ta bilatuzue berze gura, zeñen izena ongi gelditu zizaio memorian, ta

kontaturik au guziau, konfesatu ze ain ongi, ezi andik alzina izan ze Erroma guziaren
exenplu (Andrad. itiner. gr.20. ss.23). Konfesa gaitzen ala nola konfesatuko bagina
itzulbagindeites infernutik; ta erranzkigun orai fede etc. etc.

Serm 83. De satisfactione sacramenti.
ann. 1781

Facite ergó fructus dignos poenitentiae. Luc. 3.

1. San Juan Bautista Kristoren alزنداریاک erraten zioten beraingana konfesatzera zoezin bekatariei: Facite ergó fructus dignos poenitentiae, eginzkizie, bada, penitenziaren fruitu dignoak ta korrespondienteak. Ez solamente nai diote erran ontan urriki daizela ongi bekatu eginas, baitare egindezkizela penitenziaren fruituak, au da, penitenziasko obrak ta trabajuak satisfakzio emateko Jangoikoaren justiziai zor zuten penagatik; ta ortako añadizen du itz gura fruitu dignoak, edo korrespondienteak, au da, nork ia bekatu egin duen, ia penitentzia, nork gutiago, gutiago. Ontaiken arzen dut okasio explikatzeke konfesatzeko bear den borzgarren gauza edo zirkunstantzia, baita Aita konfesoreak parazen duen penitenziain kunplizea, zein deizen baita berze izenes obrasko satisfakzioa. Satisfakzioa da, orot, nola osoki pagatzea zor dena; ala dardukagulaiken baketzeas bat berze bateki, satisfazio ematea da errekonpensatzea injuria in ziona. Ario gontara penitenziain kunplitzea edo satisfakzioa da errekonpensa iten diona gizonak Jangoikoari len inikako agrabio ta injuriengatik. Satisfazio osoa ematea gizonak orietas esta posible, solamente Jesu Kristo Jangoiko ta gizon denak eman zue satisfakzio kunplittua gure partes, eta ala arren kasos dirade balioso ta admitituak aieki bateo gure satisfakzioak. Eta izanik ere egia Jesu Kristok pagatu zuela osoki gure bekatuengatik, alaere da Jangoikoaren probidentzia, baliazekos guri bakotxai geurek ere egitea zerbait gere aldetik aplikadakigungatik Kristoren satisfakzioa. Biz iturri edo butzu bat ur abasto duena, alaere estu gozatuko artaiken deus dilijenziarik itenestuenak; gozatu nai badu, ar bez berak ere edo butzatorea edo basija zenbait, bidoeie, ar bez eskues, atra bez besoes, egin bez zerbait; ezperen, an egoin da butzuan ura, edo joain da kañoetaiken, baña ez arrendako. Zierito da, bada, Kristoren pasio ta eriotzeain medios dugula geurendako utzirik merejimentu ta satisfakzioen butzu ta iturri bat inmensoa ustuestaikena sekula, guziendako aski ta sobra dena, ta patente dagona naiduenaindako; baña bakotxai aplikatzen zaio disponitzen den gisara: Anitz disponitzen denai, anitz; guti disponitzen denai, guti; ta deus disponitzen estenai, deus. Ontara erran zue San Pablok: Jangoikoaren humeak barin bagara, heredero ere gara, heredero Jangoikoaren ta Kristoreki heredero lagun, baña baldin arreki bateo guk ere padezizen ta trabajazen badugu, erdexteko gloria ere berain konpañian, si tamen compatimur, ut et conglorificemur. Gelditzen da, bada, ezi deus in gabe guk, ezkaizkela salba solamente Kristoren kostus; oneki bateo guk ere zerbait in bear dugula.

2. Egin dut, Jauna, zerbait, ezi konfesatutut nere kulpak, ta esperanza dut barkatua naizela; zertako ia penitentzia? Goazen klaratus (sic); konfesioa da dilijenzia prezisoa ta obrena bekatu in ondoreko, ta dilijenzia gorren medios aplikazen zaigu Kristoren merejimentua sakramentu andi gortan; baña errepara edozein bekatu mortaleetan dire bi gaiz, duo mala fecit populus meus: Bata da kulpa konsistizen duena Jangoikoari iten zaion agrabioan, berzea da pena agrabio gorrengatik mereji duena bekatariaiken. Kulpa da guzis andia, por konsigiente, zor da pena eternoa. Orai, bada, konfesatzeareki, gure Jangoiko onak barkazen digu kulpa edo agrabio in dioguna, ta barkazen ere digu pena eternoa infernuan pagatu bearko ginduen; baña geien komun estu barkatzen pena guzia ta guzis, zerengatik aldatzen du pena berze tenporale batean pagatu bear baitugu emen edo

purgatorioan; ala dio Trentoko Konzilioak (Ses. 14), gezurra dela erratea estela barkatzen kulpa non ta esten barkatzen pena ere guzia. Beras, askotan ta geien komun barkaturik ere kulpa, gelditzen da zerbait pena zor, ia edo gutiago pagatu bear dena emen edo an. Txoil ezpada kontrizio bat ain perfektoa, zeñen medios barka dakion ez solamente kulpa, baitaere pena guzia arras. Au, ordea, esta ordinario ta regular, regular ta ordinario dena da aldatzea pena eternoa pena tenporalean, ta ala ez konfesaturik, infernuan pagatu bear zuen pena eternoa trukazen zaio konfesazeareki berze pena akabadaiken batean, zein paga dezan emen edo purgatorioan. Exenplua dugu dabiden baitan, zeñi barkaturik ere kulpa kometitu zuena, alaere beti eskazen zue garbitzea ia ta ia bere bekatutik, ez solamente kulpa bezan bates, baitare pena bezan bates; ta Jangoikoak pagarazi zio au, ia ilzeareki bekatutik izan zuen semea, ia permitizeareki errebelatzen Absalon bere kontra, ia ere berze anitz pena ta kalamidade len meatxatu zioneki. Baña nola da, Jauna, ezi bataioan barkatzen duela Jangoikoak kulpa ta pena guzia de suerte ezi il baledi berla, bailidoake zerura, ta konfesioan geldizen dela atzetik zer pagatu edo emen penitenzien medios edo purgatorioan tormentuen medios? Konzilio Sanduak ematen du erresposta: Arrazio dirudi ta justiziaren konforme, gisa batera admitidezken bere grazia Jangoikoak bataioa baño len ignoranzias (edo ezin berzeas) erori zirenak; ta berze gisas bein libratutik bataioareki demonioaren kautiberiotik, ta errezibiturik Espiritu Sanduaren donoa, atrebitu direnak mantxazera bere arima Jangoikoaren tenplu konsagratu zena, ta kontristazera Espiritu Sandua (Sess. 14). Aita batek bota balu ta deseredatu balu bere seme bat onen kulpa gaistoengatik, gero au itzulirik ta humillaturik admitizen badu bere grazian ta herenzia partean, baña eskabalezo lenik doaiela borrazera hazaña zenbaitteki gerran len eman zion desonra familiar, ezlizake petizio justoa? Bai, ta seme berak bear luke egon alzinaturik ortara.

3. Emendik dator penitenziain seinalatzeko obligazioa konfesoareai ta admitizeko penitenteai. Konfesoareai tokazen zaio ematea penitentzia juez den bekala, zeñi eman baizaio potestade ez solamente barkatzeko, baitare obligatzeko justu den pena batera mereji duen konforme penitenteak. Eta txoil serioki manatzen digu paratzeko espiritu ta prudenzia al guziareki satisfakzio salubreak ta konbenienteak bekatuen ariora, ta penitenteen fakultadearen konforme, estaien gerta, ezi disimulatus bekatuak ta paratus penitentzia agitz txikiak bekatu agitz grabeengatik, egin gaitzen partizipante berzeren bekatuetan; eta idukagula begien alzinean presente ezi parazen dugun penitentzia izan daien ez solamente bizimodu berriaren goardatzeko ta fragilidadeain erremediotako, baitare lengo bekatuen mendeku ta kastigotako, zerengatik sazerdoteen gilyak, ez solamente laztatze, baita lotzeko ere emanak direla entendatzen ta sinesta zeunte lengo Aita Sanduek (Sess. 14. c.8). Itzebetiaik atrazen da penitenziak direla bi gisatara: Bazuk penalak edo satisfaktorioak, berze batzuk medizinalak. Medizinalak dire parazen direnak erremediazko ez dezan ia egin bekatutik urrengoan, ala nola okasiotik apartatzea, konfesatzea alako denborain barnean, egitea egunoro edo asteoro dilijenziaren bat ez erorzeko, erorzen den aldioro pena gau edo berze etc. Penalak edo satisfaktorioak dire solamente direnak lengo bekatuen purgatzeko, ala nola baruak, mortifikazioak, limosnak, errezuak etc., eta en fin, barin badire penitenziak purgatzeko lengoengatik ta erremediatzeko urrengoetaik, deizen dire bateo penalak ta medizinalak. (Da konfesoarea maestru, mediku ta juez; maestru bekala bear du erakutsi penitenteai duen obligazio guzia; mediku bekala prokuratu bear du kuratzea lengoetaik ta goardarazi urrengoetaik; ta juez bekala bear dio eman sententzia ta kastigo mereji duena justiziaren konforme). Orgatik ala

nola zauri baten sendatzeko guzis, lenik bear baita idiki llaga, gero atra apostema ta ondorean paratu enplastroa, ala sendatzeko bekatuetaik, bear da lenik idiki llaga, au da, kontrizioaren medios partitu biotza; gero atra apostema, au da, deklaratzeta bere kulpaa; ta ondorean paratu enplastroa, au da, penitenziain seinalatzeta, satisfactio cataplasma apponit; da San Bernardo dulzearen konparanza. (Eta orai Trentoko Konzilioak dio: dudarik gabe satisfazitzeko ematen diren pena gebek apartazeunte arima bekatuetaik ta erretirazen edo kontenizeunte freno bateki bekala, ta egiten gaitute dilijente ta kuidadosoago alzinako; erremediazen ere tuste bekatuen errelikia gelditzen direnak, baitare doazi edekis habitu ta kostunbre gaisto egiten direnak bekatu egines. Eta ontas landara esta medio seguroagorik apartazeko guregandik Jangoikoaren justiziaren kastigo meatxazentigunak, nola segido ta sinki egitea geurek penitenziasako obrak; eta guziain gañetik gisaontan padezizen dugulaik geuren bekatuengatik konformatzen gara Kristoreki, zeñiek gure bekatuengatik padezitu baizue, ta ortaik atrako dugu arha edo prenda seguro bat glorian akonpañatuko dugula, baldin partizipatzen badugu penan mundu ontan (Ibid.)).

4. Baña konfesioain balioaindako penitentearen aldetik preziso ta aski dena da gogo ta intenzioa kunplitzeko eman dakion penitentzia. Gogo ta intenzio gau sines erman bazue konfesoraa, konfesioa izan ze ona, ta barkatu zire artan konfesaturikako bekatuak, naiz gero ezpadu ere kunplizen penitentzia; eta orgatik esta izain nezesidaderik berrizeko konfesio gura, nola zuen, diot, konfesatzean intenzio ta gogo sina kunplitzeko; solamente ez kunplitzea gero izain da bekatu berri bat berze konfesio batean akusatu bear dena, segun nola den penitentzia. Andia izanik penitentzia edo notablea, ez kunplitzea izain da mortale; eta berze gisas ere obligaturik barin bazego penitentzian manatu dioten gartara, orduan ez kunplitzea izain da doble bekatu bere lenbiziko obligazio zuen garren kontra ta obediencia konfesioan paratuzaioren kontra; baña, erran bekala, konfesio pasatua orgatik esta gaistatzen, balioso gelditzen da, naiz imperfekto zerbait alde gontaik; ala nola besoa falta duen gizon bat gizon da, ezpadu falta ia, baña gizon imperfekzione garreki; ala konfesioain esenzia edo izateaindako aski da berze zirkunstanziaki penitenziain kunplitzeko gogoa; baña ezpada kunplizen gero, falta zaio bere parte integrale deizeuntena teologoe, au da, falta zaio perfekzionea; baña orgatik balioso da konfesioa.

5. Bitz, bada, intenzio ta gogo kunplitzeko edozein penitentzia eman dakion, ezperen esta balioso izain konfesioa; baña ez solamente gogo ta intenziogoi izan bear da, baitare errealki kunpli parazen dena, eta ia ere bai nai duenak pagatu ongi Jangoikoaren justiziai, ta estuenak nai izan tormentatua gero purgatorioko suan, ezi erregulariki estire aski konfesoreek emamentusten penitenzia pagatzeko zor guzia, errain dugun bekala berze egun bates; solamente ikusirik oraiko kristioen epeltasuna, ematen dire ain lebeak penitenzia, beldurak erretira daizen konfesiotik ta gal daitzen sekulakos orgatik, naiago duelaik Elizak konfesa daitzen ta salbatu, naiz penitentzia laburreki geldituko bazaiote ere anitz purgatzeko emen edo purgatorioan. Baña obeda purgatu emen artus geuren eskus penitenzia pagatzeko zor duguna Jangoikoaren justiziai. Sartu ze Antioko deizen zen bat monasterio batean, ta lenbiziko gauean aparezitu zizaizkio bi personaje, zeñiek bi liburu andi paraturik mai baten gañean deitu zute ta erran ziote: Ikusazu zure zorra noraño ellegazen den, egun libra urretaraño. Desaparezitu ze bisionea ta monjeak atonito etzue berzerik errepitzen baizik bere buruari: Antioko, zor andia dugu. Pensamentu goneki enferborizatu ze ainberze, ezi guzia ze penitentzia, erretiroa, trabajatzea, sufrizea, orazioa, ta en fin, guzien exenplua. Irur urteen buruan berriz agertu zizaizkio kontadore gaiek, ta erran ziote: Anitz uste duzu pagatu duzula zorduzunetik? Bada, solamente amar libra

deskitatu dire, falta zaizkizu lauretan ogei ta amar. Orduan berriro asi ze bilazen okasio padetzizeko, ta egintze ero aintzu. Berla ia arren gain zire burlak, desprezioak, golpeak, ta trabaju gogorrenak asto bati bekala, ta bera beti ixil; solamente erraten zio bere buruai: Antioko, oroi zaite zor duzunak. Amirur urte ala pasaturik, ia agertu zire berriz kontadore gaiek zekarratela borrarurik kontua. Bai ditxosoa ura, baña zenbat kostatu zizaio: Amasei urte alako bizimoduan (Parra de poenit. pl.23). Oroi gaizen zor diogunas Jangoikoari gure bekatuengatik, ta naiz borrarurik kulpak konfesioan, ezkaitzela deskuida pagatzeas aien pena gelditu garena zor; galduaskeros inozenzia esta berze erremediorik baizik egin penitenzia. Facite fructus dignos poenitentiae. Eta kuido ez añaaditzeas culpa berriak! Inzkigun fede etc.

Serm. 84.

De correspondenti satisfactione.

ann. 1781

Appensus in statera, et inventus

es minus habens. Danielis 5.

1. Baltasar errege gura zegolaik afari baten postrean atzendurik Jangoikoas ta bere arimas, brindatzen, orditzen, erokeria egiten, bitarteo zeukate Jangoikoaren justiziaren ministroek pizazen juizioko balanza lotsagarri gartan, ta aurkitu ze arin ta eskas obra onetan, kontrapizazeko bere bekatuei. Eta ala notifikazeko sententzia, gutienik uste zuenean, agertu zire an paretean kandeleroain aurkasean eri batzuk eskribitzen irur letra, zeintan notifikatu baizizaio mereji zuen sententzia. Batean zio Thecél, nai baitu erran: Pizatua izan zara Jangoikoaren balanzan ta aurkitu zara eskas obra ones. Balanza gartan guziei adiarasten zaigu justizia dibinoaren igoaldadea emateko baktotxai obraen konforme. Erran gindu azken platikan ezi bekatuak barkaturik ere konfesioan kulpa bezan bates, pena guzia estela barkatzen geien komun, baizik aldazen dela infernuan izan bear zen pena eternoa, pena tenporale edo akabadaiken batean, pagatzeko emen edo purgatorioan. Zenbat pena zor den bekatu mortale baktotxaingatik, daki solamente Jangoikoak, zeiniek baitezake txustoki bere ofensaren pizua neurritu; guk nola ezpaitezakegu konprehendi Jangoikoaren anditasuna, ez dezakegu ere pizatu bere ofensaren grabedadea ta zor zaion pena. Dakiguna da sanduek manazen zutela anitz pagatzeko zor zutena, ta orañik etzirela seguro guziareki. Potamo obispo batek zeren egin zuen akzione gaisto bat sartu ze bera karzel batean bedrazi ilabetes, ta presentaturik Toledoko konzilio batean akusatzeraz bere burua, ta eskaturik penitentzia, eman zioite obispo sandu gaiek usteko bere obispadoa ta bizitzeko beti ofizio humil despreziatuetan iltartaño. Pedro monjeak, zerengatik erran zuen itz bat adbertitu faltas, baruarazi zue superioreak berrogei egunes ogi ta ur soilleki. Oton enperadore irugarrenak, zeren iras kondenatu zuen eriotzera gizon bat, konfesaturik San Romualdoreki, manatu zio penitentzian zoeiela oin urtuxian San Migel Napolesko erreinuan den tenplu batera, non berrogei egunes baruturik, etzitzenze lurrean bestiturik zaku bates, ta egiten zue berze anitz aspereza. Teodosio enperadoreak, zerengatik ilarazi zuen koleran anitz persona Tesalonikan, in gabe diferenziarik errebelatu zirenes ta etzirenes, debekatu zio San Anbrosiok elizan sarzea ta manatu zio zorzi ilabetetako penitentzia lenik. Kapuako prinzesa batek, zeren bere bi semeei akonsejatu zioten il zezatela bere lengusu bat, joanik absoluzioain eske, obispoak manatu zio errebazeko irur aldis asteoro Dabiden psalterioa, baitire egun ta berrogeitamar psalmo, ta ontas landara limosna andi bat. Ez kontentaturik penitentzia goneki, joan ze berze obispo San Nilo deizen zen batengana; onek erran zio kunpli zezala manatu ziona bere obispoak, ta akonsejatu zio eman zezala bere semeetaik bat il zuenaren partes. Ta etzelaik atrebizen egitera au prinzesa, erran zio sanduak: Bada, estu egin nai sazerdoteek manazen diotena, Jangoikoak emanen dio korrespondizen zaion pena: Bere bi semeak ilen zaizkio mala manera ta beroi izain pribatua bere estadoetaik. Ala gertatu ze, zerengatik andiak il zue bere anaia elizan, ta erregek kastigatu zue ilzalea, ta despojavu zue bere estado ta ondasun guzietaik Ama (Andrad. itin gr.20. SS.30).

2. Zertako kontatu exenplu partikularak? Aski bear luke kanon penitentzialek

señalazen duten penitenzia bekatu bakotxaingatik, zerengatik lenbiziko Aita Sandu gaiek obeki ezaunzen zutelaik bekatuen gaistotasuna, señalatu zute bakotxaindako penitenzia egin bear zutena bekatariek kristiandadeain prinzipioetan ta geroago ere. (Aizagun ta konfundi gaizen. Lenbiziko mandamentuain kontra fedean faltazen zuenai amar urtetako penitenzia. Sorginei solamente konsultatuagatik edo alako zerbait eginagatik borz urte. Judioeki solamente bazkalduagatik amar egun ogi ta ur soilles. Bigarrenain kontra juramentu falsu iten zuenai berrogei egun ogi ta ur soilles, ta gero zazpi urtes penitenzian, ta beñere ez zerbait penitenzia gabe, beñere etzeikela izan admititua testigotako, ta ondorean permitizekiokela komunionea. Bere nausiain manus iten bazue juramentu falsu, irur gariza penitenziatako, ta nausiak berrogei egun ogi ta ur soilles; ta gero zazpi urte penitenzia. Norbaitek botazen bazue blasfemiaren bat publikoki Jangoikoaren, edo Ama Birjinaren, edo sanduen kontra, egon bear zue zazpi igandes txutirik publikoki eliza atarian meza erraten zen bitartean, ta azken egunean kapaik edo gañeko bestimenta gabe ta oin urtuxian, ta soka bateki lepotik; ta bitarte ortako zazpi orzilareetan baru, ogi ta ur soilles, ta igande goietan bizpiru pobre mantenitu al bazezake, ezperen, berze zerbait orren truk, ta elizan ezin sartu denbora gortan; ta etzuenan nai kunplitu, etzeike ortzi eliza lurrean. Irugarrenain kontra zerbait lan iten zuenak igande edo jaiegunean, irur egun penitenzia ogi ta ur soilles. Danzazen zena jaiegunean irur urtes penitenzia. Elizan jardukizen egon baze, amar eguntako penitenzia ogi ta ur soilleki. Garizuman nezesidade andia gabe jaten zuenak aragi, Bazkoan etzeike komeka, ta bear zue goardatu bijilia. Barua auxten zuenai egun bakotxaindako zazpi egun penitenzia. Laugarren mandamentuain kontra maldizio botazen zuenak guratsoei, berrogei egun ogi ta ur soilles penitenzia. Injuria in ziotenak, irur urtes; emanka in ziotenak, zazpi urtes. Despreziatzen zuenak obispoain edo parokoaren manuak, berrogei egun ogi ta ur soilles. Borzgarrenain kontra, sazerdote bat ilzen zuenak, amabi urtetako penitenzia; ilzalea barin baze sazerdote, ogeita zorzi urtetako. Ilzen zuenak bere guratsoa, edo anaia, edo arreba, sekula etzeike komekatu, baizik eriotzeko tranzean. Bizi zen bitarteo etzezake jan aragirik ta ez edan ardorik, ta barutu bear zue astelen, asteazken ta orzilaretan. Emasteki ilzen zuenak bere aurra, amabi urtes egon bear zue penitenzia regulare gartan, ta sekula ez zerbait penitenzia gabe. Gaizki librazen zena bere naies, irur urtes penitenzian; naigabe, irur garizuma. Naigabe deskuidos sofokazen bazue bere humea bataioas geros, berrogei egun penitenzia ogi, ur ta hortaliza, edo elzari soilles, ta apartaturik bere konsorteaganik berze ainberze egunes; ta irur urte penitenzia egun jakin aietan, ta irur garizuma urteoro. Bataiatubañolen barin baze, penitenzia gartas landara, borz urte. Humea ilzen zizaionai bataiorik gabe deskuidos, irur urte penitenzia ta bat ogi ta ur soilles. Zerbait dilijenzia iten zuenai ez izateko humerik matrimonioan edo gabe, ilzalea bekala kastigazen ze. Ilzen zuenak bere konsortea nolapait, bear zue sartu konbentu batean, etzeike ezkondu sekula, ez jan aragirik, ez edan ardogendeik Bazkoa ta Egerriegunas landara, ta ez komekatu sekula baizik eriotzeko peligroan. Ilzen zena bere eskus etzeike in memoriarik artas mezan, estare orzi elizako sufrajioeki. Il zen zuenak edozein bere naies, beti elizaatarian, ta solamente komekatu eriotzeko orduan; kasualidades ilzen bazue, zazpi urtes penitenzia. Koleran ta diskordian ilzen bazue irur urtes. Nork erizen zuen norbait, urte bat penitenzia egun jakinetan; itsusten bazue, berrogei egun ia ogi ta ur soilles. Golpazen zuenak norbait heridaik gabe, irur egun ogi ta ur soilles. Sazerdotea barin baze golpea eman zuena, urte bat eta erdi. Etzuenak nai baketu bere etsaiareki, ogi ta ur soilles barutu bear zue aliketa baketuartaño. Seigarren mandamentuain kontra bekatu iten zuenak libreareki, irur urtes penitenzia, ta añaadizen

baze kulpak, añaadizen ze penitencia. Emasteki ezkonduak adulterazen bazue, konsient izanik senarra, ezeike komekatu ilzeko orduan ere; eta baldin iten bazue penitencia korrespondienteak, permitizen ziote amar urteen buruan. Gizon libreak izaten bazue ezkonduareki, zazpi urte penitencia; emastekiak, borz. Emasteki libreak izaten bazue ezkonduareki, amar urte penitencia; senarra izan baze adultero, borz urte penitencia. Aideareki izan zuenak, batzuek amabi, berze batzuek amaborz, berzebazuek amar, berzebazuek zazpi urte penitencia seña-lazen ziote. Akzione zerbait indezente iten zuenak ogeitamar egun, ta desonesto barin baze irur ilabete. Solamente itz desonesto edo beiratze gaistoagatik ogei egun. Eta nor zen alkahuete gaistakeriaindako, bi urte penitencia, eta ez komekatu, baizik eriotzeko orduan. Zazpigarrenain kontra ebasten zuenak deus elizakorik, laur aldis ia itzuli bear zue, ta zazpi urte penitencia. Amarrenetik fraude iten zuenak, alaber, laur aldis ia eman bear zue, ta ogei egun penitencia ogei ta ur soilles. Bein edo bi aldis ladronkeria ez andia iten zuenak, errestituzioa in ta urte bat penitencia. Aurkitzen zuenak gauzaren bat ta ez itzulzen, oroat nola ebasten zuenak. Usura iten zuenak errestituzioas landara irur urte penitencia, bat ogei ta ur soilles. Zorzigarren mandamentuain kontra testigo falsuak bear zue egin penitencia oroat nola adulteroak ta gizonilzaleak. Murmurazen zuenak ala fazilidades, gezur erran bazue, zazpi egun penitencia ogei ta ur soilles. En fin, solamente deseazeas desonestidadea, sazerdoteai ematen ziote borz urte penitencia. Lotan deseo desonestoain kasos mantxazen zenai, jaiki ta errezatu psalmo penitenzialak, ta gero egunas ogei ta amar psalmo. Sazerdote bat garaizen bazue ardoak ustekabetzean zazpi egun penitencia, deskuidos, amaborz egun, ta desprezios, berrogei egun. Lego ordizen zena ze lazki erreprehenditua ta obligatua egitera penitencia) (Haec excerpta sunt ex catechismo, Lipsin tom.2. in fine).

3. Baña neurririk obrena dire sanduen exenpluak. Ikusten dugu Santiago hermitaño bat amar urtes orzirik sepulkro batean bizirik, goratu gabe bururik zerura, alimenta ze an inguruan jaiozen ziren belarres, eta zergatik au? Solamente frajilidadesko bekatu batengatik. Ikusten dugu Santo Domingo de la Loriga, ala deitua zeren zekarran aragiain gaiñetik burriñasko peto bat, zein ezaizue utzi beñere utzizuenartaño biziak bera, ta asteko egun guzietan barutzen ogei ta ur soilles, ta igandetan erregalos arzen zuela zerbait belar; eta garizumako denboran solamente sei egun milla azote ematen zela, zer izain ze bizi guzian? Eta zer kulpagatik? Zerengatik bere aitak, ez berak, bere aitak egin zion estakit zer erregalo obispoai, emanzezongatik beneficio bat. Ikusten da San Pablo bat egun urtes kueba batean, San Antonio abade bat monasterioan berze ainberze kasi; San Simeon bat pilare baten gaiñean uda ta negu agerrian, ta zirelaik sanduak. San Pedro Alcantara bat bizitza sandu bateki ta penitencia lotsagarri bateki. Eta estaien pensa solamente gizonak zirela ain penitente, ikusten dugu Santa Maria Ejipziaka, Santa Pelajia ta berze franko pagazen penitencia miragarrieki lengo libertadea; ikusten dugu Santa Magdalena pakzisko bat bekaturik gabe ta beti mortifikatzen, Santa Rosalia borz urteko aurra kueba batean zatikatzen bere gorputz inozentea azotes, barus, nekes; Santa Rosa, Santa Teresa, Santa Klara ta berze anitz seño-ra prinzipalak ta delikatuak, alare akabaturik penitenzias, izanik sandak. Eta geien admirazen nauena da ezi guziareki ain beldur izatea beren salbazioas, ala nola San Hilarion, zeñek erraten baizio eriotzeko orduan bere arima beldurres beteai: atra zaite ene arima, zertas duzu beldur? Iruetan ogei ta amar urtes zerbitzatu diozu Jesu Kristoi ta beldur zara ilzeas? Ala nola San Jeronimo bat, zeñek eginik ainberze zerbitzu Elizai edozeñek adiña, ta konsumiturik penitenzias bere kueba gartan, ikarazen baize dal-dal-dal iduri zekiola soñazen ziola bearrietan juizioko tronpeta garrek: Zatoste juiziora; ala

nola San Luis beltran bat, zein izanik ain sandu ta ainberze arima iragazi zuena Jangoikoaindakoa, atrazen baze noizbait paseatzera laguneki, aurkizen zute nigarres ziola, guzis beldur zela bere kondenazioas ta kasi kasi etzuela esperanzarik salbatzeas, baizik solamente Jangoikoaren piedade infinitoan. Zer da au, fielak? En fin, ikusten dugu sanduen bidea guzia penitenzia ta nior penitenziarik gabe; Kristorengandik asi ta azken sanduraño estela bat igan denik in gabe penitenzia, nork ia, nork gutixago; eta Kristok bekaturik inezukenak eman zigun exenpluas landara, lenbiziko prediku egin zuena, lenbiziko asi zelaik idiki zen bere ago dibino erakusteko munduai, izan ze itz gebeki: Poenitentiam agite, appropinquavit enim regnum coelorum (Math. 4) egin zazie penitentia, zerengatik urbil duda zeruetako erreinua; eta bere alzindaria San Juan Bautista, bialdu zuenak erakutsirik, asitze itz berbereki predikatzen (Math. 3), eta bera izanik santifikatua ta konfirmatua grazian bere Ama Santa Isabelen sabelean saltoka asi zelaik, bisitatu ta mintzatu zelaik Maria Santisimak, alaere eman zue exenplu penitenziarena bizitus desertuan, bestitus kamelloen bilosko tresena latz bat, ta janés solamente oianetako langosta ta estia. Zerengatik aun inestuenak bekaturik, bear luke egin penitenzia ia ke ta jaio den bekatu orijinalan, ta inklinazio gaistoareki, sujetazeko gorputza ta librazeko bekatuetatik, zerengatik penitenzia da gatza bekala preserbatzen duena gure aragisko gorputz gau bekatuen usteldura, korrupzioe ta usai gaistotik.

4. Baña egun solamente dardukat penitenzia bear denas bekatu in direnengatik. Ezpagindu egin bekaturik, eznezake ertxitu penitenzian, baña eginaskeros bekatu, penitenzia estaike dispensa, zerengatik dion bekala San Agustinek, bekatua estaike pasa kastigatu gabe, peccatum néquit esse impunitum, aut punis, aut punit, edo kastigatu beazu zeurorrek, edo kastigatuko du ezperen Jangoikoak. Eta bear dire egin penitenziaren fruitu dignoak edo korrespondienteak; bekatu guti in duenak, gutiago, ia in duenak, ia. Esta ia kontentatu bear solamente ez egiteareki bekaturik, bear dire pagatu len eginak, bear dire suplitu lengo faltak, desuerte ezi onenberze obra onen gananzia montiatu bear da penitenziain medios, zenbat ere dañu egin zen kulparen medios, diones San Gregoriok (H. 20 Eva.). Ebatsibaligute gauza bat, ezkinazke kontent solamente ez berriz ebasteareki, nai ginduke itzuli lezaguten len ebatsizigutena. Galdu badu anitz egun nirabeak zerbitzuan, etzarate kontent egin dezan solamente bere zerbitzu erregulara berze egunetan, naiko duzie atra dezkie falta gaiek zerbait gisas; ala, estugunek zerbitzatu Jangoikoa ainberze egunes, orai ia ez solamente in bear diogu zerbitzu erregular, naturale, obligazioskoa guzietan; doble zerbitzatu bear dugu presenteko obligazioagatik ta len faltatudiogunagatik. Zena suberbo, in bedi humil; zena luxurioso, in bedi kasto; zena asarre, sufritu; ez kontentatu ez bilatzeareki okasioak, aparta direlaik; ez solamente utzi gaizki egitea, egin anitz ongi. Paga bez arimak faltatu duena memorian, entendamentuan ta borondatean, oroitus, pensatus ta maitatus orai ia Jangoikoa. Paga bez gorputzak gaizki egina mortifikatus mereji duenaren ariora; paga bezate begiek intusten atrebenziak egoteareki ertxirik edo apaldurik; paga bezate bearriek gaizki aditua ez aizeareki bearestirenak ta aizeareki predikuak, erreprentzioak, konsejuak ta Jangoikoaren gauzak; paga bezate eskuek ta oñek beren exzesoa obratus obra onak, limosnak, lanak, penitenziak ta segitus bide sanduak; pagabeza agoak jan edanen exzesoa barutus ta emanés ia desgustazen zaiona; pagabeza miak itz gaistoen kaltea, alabatus Jangoikoa orazio ta konbersazio sanduen medios, ta ukatus lizenzia platikazeko nailukelaik. Zierto da ezi neurtu bear balire rigurosoki zorrak ta satisfazio gureak Jangoikoagana, ezin gindezokela paga sekula, zerengatik alkabo in dezakegun guzia zor diogu beti leneko

zorrik kontatu gabe, ta berze alde ia suponitzen du bekatu batek ezi ez in dezokegun zerbitzu guziak, zerengatik bekatua injuria da, ta injuria bearlizake suplitu mertxede zerbaiteki; eta guk deustan ez dezokegu egin mertxederik Jangoikoai, ta iten diogun onkia esta erregalo, esta mertxede iten dioguna, baizik zor pagazen dioguna. Alaere nola Jangoikoa bere ontasun infinitoagatik kontentazen baita gure in alas, in bear dugu ia obra on obra gaisto intugunen ariora, ezpadugu nai aurkitu eskas Baltasar bekala. Ai dutenek anitz kulpa ta guti obra on! Pizaturik balanzan kondenatuak izain dire kontuetan. Eman prisa egiteko anitz penitenzia, obra on, birtute ta oraidanik fede, esperanza ta karidadearen aktak etc.

Serm. 85.

De operibus satisfactorius.

ann. 1781

Si impius egerit poenitentiam... et fecerit iudicium
et iustitiam, vita vivet etc. Ezechiel 18.

1. Galdudugunek Jangoikoaren grazia, arimaren bizitza, birtute ta obra on guzien merejimentuak, zerurako deretxoa eta, itz batean, ondasun guziak bekatuen kasos, aizagun Jangoikoaren itz dibinoa ta erreala, zeñen medios asegurazen baitugu barkamentua ta galdu den guziaren errekoarua. Baldin, dio, baldin gaistoak iten badu penitencia bere bekatu intuen guziengatik, eta goardazen baitu nere mandamentuak, eta iten badu juizio ta justizia, biziko da bizitzas ta esta ilen; ez naiz oroituko egin zituen gaistakeria guzietas, inezpalitu bekala. Akaso da nere borondatea gal daien inpioa? Ez, baizik bizi daien ta logra daien. O Jangoikoaren ontasun inkonparablea, nion ez ia bekatarietan baño agertzen dena! Aski du konfesatzen ikustea gu geuren kulpa barkatzeko, eta egiten obra onak obligazios in beartugunak, itzulzeko malogratu ginduen guzia, desuerte ezi bekatari bat ellega daike nai badu izatera ain Jangoikoaren agradokoa ta ain abratsa merejimentus, nola bekatuak inestuen sekula. Ain arras borratzen du Jangoikoak gure gaistakerien memoria, nai badugu! Ikusagun nola ta zer medios.

2. Erranik ezi konfesio onaren medios barkazen dela kulpa ta pena eternoa, baño geien komun geldizen dela zerbait pagatzeko mundu ontan edo berzean, txoil ezpadu konfesazen denak kontrizio bat ain noblea ta fiña, ezi arren atenzios in dezon Jangoikoak grazia barkatzeas pena ere guzia arras, ezpaita ordinario, baizik extraordinario den kasoa; alaber, erran bear da ezi komunki oraiko denboretan ematen diren penitentiak, beiraturik penitenteen delikadeza ta epeltasuna, estirela aski satisfakzio osoa emateko Jangoikoaren justiziai, espezialki ofensa anitz indionagatik, eta ala berak edo purgatorioan pagatu bearko duela azken marabidiraño, donéc reddat novissimum quadrantem, edo emen egines obra onak. Ikusagun zein diren obra gebek, zeñeki pagatutako ematen baita Jangoikoaren justizia misericordiosa.

3. Irur burutara erreduzi daizke obra gebek, zein baitire orazioa, limosna ta barua; guzia da Jangoikoarenganako, baño memoriain fabore berexi daizke bata Jangoikoaren aldetik, berzea proximoaren aldetik, ta berzea geuren aldetik; Jangoikoaren aldetik da orazioa solamente Jangoikoari iten zaiona; proximoaren aldetik da limosna solamente proximoai ematen baita, ta geuren aldetik da barua, zeñeki kastigatzen baita geuren gorputza. Errepartimentu gonon berze arrazio bat ere da, zeren gure arima ta gorputza biak in zire kulpante bekatu egitean; biek eman beaute satisfakzio Jangoikoai; bada, orazioaren medios enpleazen da prinzipalki arima bere irur potenzieki desagrabiatzen Jangoikoa; baruaren medios gorputza prinzipalki enpleazen da sufrizen pena merejitua; ta limosnaren medios biak, arima manatzen ta gorputza obraren karidadea. Berze alde, nola ezpaitugu guk berze ondasun jenerorik baizik arimaren eta gorputzaren ta fortunaren ondasunak, orazioaren medios sakrifikazientio gu Jangoikoari arimain ondasunak, limosnareki fortunarenak, ta baruareki gorputzarenak.

4. Goazen lenbizikora. Orazioa, itzak diones, esta baizik eskatzea; baño orazioan enzerrazen dire Jangoikoaren honra ta errelijioneko akta guziak, nola baitire ez solamente

errezatzea, baitare mezak enzutea, ofizioetara asistitzea ta birtute guzien exerzitatzea arimareki, nola fedearen, esperanzaren, karidade, kontrizio, humiltasun, agradezimentu, alabanza, adorazio ta gañarakoen aktak. Ofenditu barin badu, bada, Jangoikoa arimak, ia itzulzeko Jangoikoari edeki dion errespetoa ta erreberenzia, ta errekonpensazeko egin dion agrabioa, enplea bedi honrazen Jangoikoa oraiko ta lengo partes. Enzun bez anitz meza, zeintan geienik honrazen baita Jangoikoa. Alaba bez bere elizan alguzia kristio laguneki ta aingirueki ofizio sagratuetan. Erreza bez ere anitz orazio zerbitzadezangatik Jangoikoari miak ere biotzareki, baña prinzipalki enplea bedi humillatzen bere burua Jangoikoaren presenzian, adoratzen Jaun andia, eskatzen barkazio ofendituas, sentizen ta nigar egiten ortas, maitatzen alako Jauna, sinestazen, esperazen ta graziak ematen, ofrezitzen emendatzea ta bere gorputz, arima ta guzia guziak, eta au guziau maiz ta gogotik; gisaontan Jangoikoa konplazizen da, ta doaie kontentatus ta dispensatus mereji ginduzan penak lengo ofensengatik.

5. Baña esta kontentatu bear kristioa solamente arimain barneko akta gebeki, agertu bear du obra exterioreetan ere zor diona, ta pagatu nai diola. Zerengatik Jangoikoak maite baititu gizonak ta ebengatik in baizue anitz berak, ta estimazen baitu pobreaki iten zaiona, oroat, nola berari iten zaiona, ezpadio gezurra Jesu Kristo berak, quod uni ex minimis meis fecistis, mihi fecistis; orgatik bear du kristioak Jangoikoagatik egin limosna pobreei. Peccata tua eleemosinis redime, pagazkizu limosneki zure bekatuen zorrak, dio Jangoikoak Daniel profetaren agos. Dutenek zer eman, dute zereki kontentatu Jangoikoa, dute bere eskuan zeruain idikitzeke gilza, limosnaeki dezakete erosi bere arimain salbazioa. Baña estuteneke zer eman limosnas, izain dute zer egin karidades: bisita bezkite eriak, konsola bezkite tristeak, konseja bezkite ongi bear dutenak, erakutsi bezkite ignoranteak on den guzian, sufri bezkite proximoen faltak ta agrabioak, izan bezote konpasionen trabajutan direnei, sokorri bezkite orazios berere aiek ta purgatorioan daudenak, exerzita bezkite obra miserikordiasko espiritualak ta korporalak bere posibilidadeari dagozkionak, guzia da limosna dirurik gabe in daikena, aski da espiritualeendako biotz ona, ta zenbait korporaleendako biotzaiki bateo oñak edo eskuak edo itzak. Nor eskusa daike bizitazeas eriak nai badu, barin baitu oñak? Nork ez dezake konsola tristea, itzes in daikena? Nork estu izain okasio sufrizeko nai badu? Nor da emanez dezakena konseju on bat eta erakutsi ere doktrina? Benzait nor da ain pobre ezpaitezake sokorritu orazios berere proximo neketan direnak ta arimak? En fin, guziek dutenek biotz petxoain barnean, ta biotzean karidade, dezakete izan konpasionen proximoen. Bada, limosna dire ebek ere ta proximoareki iten den guzia beretako admititzen du Kristok; eta zor anitz badiogu ere, pagazen da egiteareki alako anitz, zerengatik nola Jangoikoak ezpaitu bear deus beretako, traspasatu du bere arzekoa gure proximo beartsu edozein jenerotan direnen fabore, eta utzirik dauka bere despatxu erreala ta firmaturik bere nonbreareki bere Ebanjelioan, ezi bere txikitto ta pobretto goiei iten diogun guzia dela, oroat, nola berai inbagindezo, ta, oroat, admitituko duela deskontuan zordiogunain alde. Quod uni ex minimis etc.

6. Baña irugarren satisfakziomodua da barua, ta baruan enzerraten da gorputzain mortifikazio jenero guzia: Abstinentzia janean ta edanean, beiratzean, aditzean, platikitzean, erabiltzean ta gañarako apetituen naikundeetan. Kastigatzea aragia disziplinas, silizios, nekees, belauriko egones, besoak zabaldurik, edo lurrean auspeskaturik egones, ta berze edozein penatzemodus, asko injenia baitezake arima ongi penaturik dagonak bekatues kastigatzeko gorputz gaistoa ofendiarazi diona Jangoikoa.

Baña anitzek estute entendatzen lengoaje gau, ta uste dute solamente errelijiosoendako dela mortifikazioa ta penitentzia korporalea. Beras, solamente errelijiosoek dute bere enemigotako aragia? Beras, zure gorputz ori da guzis inozentea, estizuna egin gerra ta erresistenzia? Zein al rebes den! Errelijiosoek estute iten ainberze bekatu, ta nai dugu in dezaten ia penitentzia; ta guk ia bekatu eginik nai dugu utzi libre penetaik gorputz gaistoa. Eta aipazen bada joateas zerura, ainberze deretxo iduri zaigu dela izateko guretake ere leku palazio gartan, non ezpaita sarzen gauza mantxaturik. Au da engañua. Kuadrazen zaizu egitea kulpata ta ezaizu kuadrazen ermatea pena, ori esta justizia. Errelijiosoek bai ta zuk ez, eta zergatik ala? Duzu zerbait pribilejio berex? Edo bide berriren bat agertu ote du zuretake Jangoikoak? Edo sandu ta sandak neke ta penitenzien medios iragazi dutelaik gloria, zu aisa ta jarriarik naikouzu erman zaizaten aingiruek andetan gloriara? Eta zer motibos? Zure edertasunagatik edo zure bear izanes an? Desengaña, estuenak izan erreparorik bekatu egitean, ez dezake izan exkusarik egiteko penitentzia bere gorputzean, dela gizon, dela emasteki, dela azkar, dela delikatu. Ezpazindue nai egin penitentzia, zergatik nai izan duzu bekatua? Eta delikatu izanes exkusatu nai bauzu, nola zara ausart admitizeko gorputzain gusto debekatuak, kastigatu gabe pasaestaizkenak? Azkar gaistakeriako ta delikatu penitenziaindako? kontazen du Belarminok ezi gaste noble erregalatu batek arturik bizitza austero fuerte bat baru, disziplina ta penitentzia anitzen ertean, erraten ziotela aideek ta lagunek, beira zezala ongi, etzela ura artako, delikatuegi zela. Orrengatik berorrengatik nai dut egin penitentzia emen, zeren bainaiz delikatu, zerengatik ezaunzen baitut ez nai zela gauza agoantazeko purgatorioko penak, ta gutiago infernukoak, orgatik autatu dut pagatzea emen nere eskus, baita agitzes suabeago (Parra. pl.24 de poenita).

7. Baña ia ke ta nior ez dezakegun eskusa egitetik penitentzia, konpondu bear dugu guzieki nola egin dezaken bakoetak. Ez dezake azotatu ta sujetatu silizios gorputza? Bada, idukiarazi bez postura gaisto batean, nekarazi bez asto errebela bekala, dagola belauriko naiz bortxas, niork erreparazen estuela, baitare zenbait aldis auspeskaturik kopeta lurraian kontra, edo zabaldurik besoak sekretoan Jangoikoaren alzinean. Estaike barutu? Bada, neur bedi sikiera janean ta edanean, us bez bokado kuadrazen zaiona, tragoa, txokolatea ta berze laminuria zeintara duen tirria. Baru bedi mia goardatus silenzio, ez utzis erratera nai luken platika gura; baru bedi adimentua, ez utzis aditzera murmurazioak ta indezenziak; barubeites begiak, apalzen direla ez ikusteko nai lukena kuriosidades. Estagoke enzerraturik errelijiosoa bekala? Bada, exkusa bedi sikiera jaietan dibersio peligrosoetaik, danza ta alakoetaik, goarda bez zerbait erretiro, lei bez zerbait edo ai bez leizen. Ez dezake egin anitz humillazio itentustenak errelijiosoek? Bada, benzait ezdezala deustan bilatu bere honra; ken bez banidadea, aparta bedi ikus dezaketen lekutik, ezdezala presunzios ongi iduritu nai, bestizean bila bez bere desprezioa. En fin, asko modu da egiteko penitentzia, ta itz bates, guzietan bidoeie bere naiaren kontra, ta ori da penitentzia, nai duelaik platikatu, ixildu; nai duelaik errespondatu, ertxi agoa; nai duelaik ibili, egon geldi; nai duelaik gusto gau edo berze ukatu; ta ala beti kontra kontra, diot, apetituen kontra, ala da penitentzia Kristok guziei manatuziguna, qui vult venire post me, abneget semetipsum etc.

8. O Jauna, nekazariak asko neke dugu, egin gabe ia penitentzia. Zer penitentzia ia, nola bizitzea urraturik beti lanain pean uda ta negu? Ontara diot, ezi lan goiek izan daizkela penitentzia, ta ez ere. Baldin ofrezizen badire Jangoikoari bere bekatuen satisfakziotan ta sujetazeagatik aragiain errebeltasuna ta mendekatzeagatik gaizki eginarazi diotena, orduan dire penitentzia. Baña fin onik gabe ala segi, segi lanean oroitu gabe Jangoikoas ta arimas,

ori esta penitentzia, baizik trabajaze bat materiala, ala nola idiaren trabajatzea. Alaber, trabajazea kodizias goseegi izanes, ori ere esta penitentzia, antes bien da bizio ta deabruain penitentzia, ala nola nekatzea berze edozein biziotan. Alaber, trabajazea sustentazeagatik honratuki familia, esta penitentzia, birtute da bai trabajazea bizitzagatik, zeren ala manazen baitu Jangoikoak; baña au ere esta penitentzia, ezpada egiten kastigatzeagatik gorputza, edo bekatuen satisfakzioan. Izatekos, bada, penitentzia, esta aski edozein neke, bear da juntatu gogoan intenzioa pagatzeko neke garreki bekatuen zorrak. Onen konforme nekazariak badezakete trabajatu anitz ta ez iragazi deus; ta badezakete trabajatu ta iragazi Jangoikoaren alzineko. Baldin neke goiek dirijizen baituste bekatuen penak pagatzeko, Jangoikoaren desagrabiatzeko, ta gorputzain kastigatzeko, orduan izain dire penitentzia ta balioso agian ainberze nola erreljiosoen disziplinak, silizioak ta mortifikazioak. Baña ezpadire dirijitzen, estire balioso Jangoikoaren begietan; zerengatik? Zerengatik ezpaitire egiten Jangoikoagatik; ta Jangoikoagatik itenestena estu zer estimatu, ta estu zer pagatu Jangoikoak. Orra zer tesoroa daukazien altxaturik zeuren alor ardantzetan ta zeuren neketan, nai bauzie logratu, solamente egiteareki Jangoikoagatik ta arimagatik iten duzien gura bera. Eta nola malograzen den guzia, eman faltas Jangoikoari ta arimari parte neke goietan! Debalde nekatu, zeikelaik anitz iragazi! Nekazalgoain nekeak dirijitzen ezpadire, dire lur puska bat bekala; ta dirijitzeareki itzulzen dire urre prezioso Jangoikoaren estimazioaindako.

9. Baliatu, bada, bere ofizioko nekees ta egin nezesidadetik birtute, ta berze alde bere borondates injeniatu egitera penitentzia erran duten modu gaietan, joateko pagatus Jangoikoari bekatuen zorrak, ainberze ezi borra daitzen Jangoikoaren aurkintzean; ta estaie ia oroi Jangoiko justoa ia ezi ezpalire egin sekula, ofrezitu zuen bekala Ezekielen agos. Bekaturik inezlukenak ere bear luke in penitentzia ez erorzeagatik ta imitazeagatik Kristo, Maria Santisima ta sanduak; zenbat obeki bekatariak in bear du? Estuenai egin nai penitentzia zer errain diot, baizik lazki gaizki egin duela ines bekatu, in baitu pasaestaikena kastigatu gabe; edo kastizeunzu zeurorrek, edo kastigatuko du Jangoikoak. Bekatu egin duena heritu da bere borondates, bada, kuratzekos pasatu bear da pena. Ikusagun San Buenabenturak dion konparazioa. Lenbizikoa da idikitzea llaga, au da nola kontrizioas partitzea biotza. Bigarrena, botazea kanpora apostema, au da konfesatzea bekatuak. Irugarrena da dieta, au da propositoa apartazeko bekatuetaik. Laurgarrena, sangria, au da errestitu zio egitea zor denas. Borzgarrena, enplasto, au da mortifikazioa gorputzarena. Seigarrena, kuratzeko llaga ogi guti, ardo gutiago, au da nola barua bekatariaindako. Zazpigarrena, zerbait promesa, edo bella, edo dilijenzia espirituale sendatzeko, au da nola bekatariaindako orazioa. Zorzigarrena, medikuain salarioa, au da nola penitenteen limosnak pagatzeko Jangoikoari bekatuen zorrak. En fin, bear da iduki presente, ezi erdetxiginduenek barkazio osoa bataioaren medios eginginalaik kriatura berriak Jangoikoaren alzineko, baldin galdu badugu grazia gura, ezkaizkela ia ellegatu lengo estado garren garbitasun ta igualdadera, ezpada anitz nigar ta trabajuen medios, penitentiareki, dion bekala Trentoko Konzilioak (Sess. 14. c.2): Trabajatu, bada, egin penitentzia bekatuen konforme, anitz duenak, anitz, guti duenak, guti; barutu daikena, estaikena, mortifika berze gisas; orazio egin ta limosna; paga bezate sentido ta potenziak faltatu dutena, supli bezate gorputzak ta arimak al dezaketen gisan erdexteko barkamentu osoa, ta berladanik inzkigun fede, esperanza ta karidadearen aktak. Nik sinestazen dut etc.

Serm. 86.

De Adversitatem satisfactione.

ann. 1781

Momentaneum hoc et leve

nostrae tribulationis aeternum gloriae

pondus operatur in coelis. 2^a ad Corinth. 4^o.

1. Gure trabaju puxka gebek, mundu ontan momentu bates dirautenek eternidadeain konparazioan, doazi obratus guretako zeruan gloria montio bat eternoa, dio San Pablok; erakusteko emengo trabajuen fruitu andia, sufrizen badire ongi. Gaudelaik, bada, explikatzen satisfakzio eman bear dena bekatuen penagatik, erranik barua, orazioa, limosna ta berze obrak zeñeki pagatzen baita Jangoikoaren justizia, egun erran bear dugu pagatzen ere dela trabaju sufrizen direnen medios arren izenean, diones Trentoko Konzilio Sanduak kapitulo berex batean itzebeki: erakusten du ontas landara Konzilio Sanduak, ainberzekoa dela Jangoikoaren liberalidadearen abundanzia, ezi baitezokegu Aita eternoari Kristoren medios eman satisfazio gure bekatuen penes, ez solamente geurek arzentugu penitenzies kastigazeko bekatuak, ta sazerdoteak parazentigunes, baitare Jangoikoak bialzentigun azotees, ta guk pazienziareki sufrizentugunes, zein baita amorioaren progurik andiena (C.9. Sess. 14). Lenbiziko itzak aisa dire entendatzeko, baña zer nai digu erran Konzilio Sanduak azken itz gebetan, dela amorioaren progurik andiena bialzentigun trabajues pagatzea? Bai, zerengatik zerurako bide erreala da gurutze edo trabajuena. Bai, zerengatik emen trabaju izatea da señaile eskojituena, estiotela nai erreserbatu sekulako trabajua infernuan. Bai, zerengatik maite tuenak kastigatzentu emen Jangoikoak, diones berak Apokalipsi sagratuan. Bai, zerengatik ustentuenak nauten guziareki emen naigaberik gabe, señaile da estiotela goardatzen berze premiorik geroko baizik pena eternoa, ta in baute zer bait ongi ere, errain diote errezibitu dutela emen bere pagua. Bai, zerengatik trabajuek idatzarrarasten dute arima, desgustarasten diote mundua, desearasten diote zeruetako deskansua ta bilarasten diote Jangoikoa; bai, zerengatik sandu ta sanda guziak, Maria Santisima ta Jesu Kristo bera ere joan zire zerura trabajuen bidetik; ta guri trabaju ematea da señaile, aien prozesioan ta banderan iten digula guri ere leku joateko bide beras ta deskansu berera. Guziau egia delaik, alaere solamente aipatu nainuke nola trabajuen medios satisfazio ematen zaion Jangoikoari gure bekatuengatik, edo obeki errateko, Jangoikoak berak trabaju bialzentigunen medios arzen du satisfazio gure bekatues.

2. Obeki entendatzeko doktrina, bear dugu suponitu, ezi trabaju guziak, nondik nai datozin, datozila Jangoikoaren probidenziaren disposizios, batzuetan bialzentuela zuzen zuzena bere majestadeak, berze batzuetan permitizentuela gure proximoen eskus gure onerako. Eta naiz proximoak in dezan bekatu guri molestia egiteas, alaere Jangoikoaren aldetik guretako au da on, nai badugu, ta berzeain bekatutik atra dezakegu gananzia guk geurendako. Eta ala edo datorren gure trabajua proximoen kulpas, edo kulparik gabe, edo nola estakigula, beti pensatu bear dugu dabilala Jangoikoaren eskua gure on naies, guri iragazibide emanaies. Zer? Estigu erran ia Jesu Kristok, estela txori bat ere eroriko lurrean ezpada Jangoikoaren borondateareki? Estakigu, niork ezdezakegula egin gaizkirik nai ezpadugu? Solamente bakotxak bere buruari iten diola gaiza? Maitazeuntenei Jangoikoa gauza guziak itzulzenaizkiotela onetan? Baña espezialki trabajuak? Zerengatik?

Zerengatik naiz dela demonioen, naiz gizon gaistoen eskus datorren gure trabajua, Jangoikoa da nork bialzen digun. Ikusagun berzela Kristoren baitan; zer gaistoago judioak baño? Zer pena, neke ta trabaju injustoago aien aldetik, nola pasatu zituenak? Alaere ebengatik erran zio Aita eternoari: Aita, egin bedi orren borondatea; eta San Pedrori atra zuelaik ezpata judioen kontra, defendatzeko bere maestraua erran zio: Nere Aitak igorzen didan trago gau estuzu nai pasa dezaten? Bada, judioek eman zizkieten neke tormentu indignoak deizen barin baditu Jesu Kristok bere Aitak igorrikako tragoa, zenbat obeki gure edozein trabaju bear dugu pensatu dela Jangoikoaren borondates ta bere eskutik?

3. Suponiturik, bada, trabaju jenero guziak direla Jangoikoaren borondates, beartugu errezibitu, Jangoikoak parazentigun penitenziak bekala, gure garbitzeko. Konfessoreak ezarzen digun penitenzia kunplizen dugu, ta ontas landara nai ginduke egin geuren borondates zerbait orazio, edo limosna, edo mortifikazio, edo obra on pagatzeko gure bekatuen zorrak; bada, arrazio iagoreki beartugu admititu ta soportatu pazienziareki Jangoikoak berak manazentigunak, zein baitire seguroago ta baliosoago. O zer tesoroa dugun trabajuetan, barin badakigu baliatzen! (Galdegini San Ignazio, zein den bide laburrena ta seguroena zerurako, ta erdexteko santidadea, erran zue zela trabajuak sufrizea Jangoikoagatik, ta ala Jangoikoak ematen zizkionai iten ziola mertxede andia. Orgatik Santa Teresa kexazen ze, zerengatik ematen zion ainberze konsolu, ta zerengatik ain fite Jangoikoak utzi zituen atzenduak bekala arren bekatuak. Orgatik Santa Katalina de Senari agertu zizaiolaik Kristo bi koronaeki bi eskuetan, bata arantzeskoa, berzea loreskoa, ta eskinzen zitiolaik zein nai zuen, autatu zue arantzeskoa padezitzeagatik. Orgatik Santa Magdalena Pazisek egin zue tratu Kristoreki etziola eman bear deskansu, ta konsolu espiritualerik ere mundu ontan; gero konsolazen zuelaik Jaun dibinoak, erraten zio kexa amoroso bateki sandak: Ala atzenzen da, Jauna, in dugun tratuas? Eta zuelaik ansia andia ikusteko Jangoikoa ta ilzeko, alaere nola zeruan ezpaita trabajurik, oiuiten zue: Padezitu, Jauna, ez il. Orgatik Santa Bona anitz trabaju desprezio ta miseriaen erdian zego alegreago; ta espezialki izanik petxoan llaga bat ia usteldua ta arres betea, etzue nai ken zekion bat sikiera. Eta aldi bates arturik Santo Domingok bere eskuan ar gaietaik bat, itzuli ze perla, ta etzeike konsola sanda, aliketa itzuli zion artaño bere llagara ar kendu ziona. Orgatik San Paulo ermitaño batek sendazen zituelaik berzeak, etzue sendatu nai bere burua. Orgatik San Esteban abadeak kangrena ustel bateki zegolaik, etzue berzerik erraten, baizik: merejitu dut, merejitu dut. Orgatik San Felix de Kantalizio dolore ta oñatzeen ertean erraten ziotelaik aipa zezala Jesus, librazeko pena gaietaik: Estut erranen fin gortas sekula, zerengatik oñatzeak iduri zaizkida paraisoko arrosak. Orgatik San Joan de Diosi paraturik buruan arantzesko korona bat pasatu bear zituen trabajuen señaletan, Jauna, erraten zue, penak ta nekeak, ta arantzeak orren eskutik dire neretako lore preziosoak. Orgatik San Pedro Armengol arrastatu ondoan moroek karrikak barna krueldade inhumanoareki, utzi zutelaik, erraten zue: O Jesus, zein fite permitizen duen uz nazaten zein dulce diren tormentuak orren amorios; ta egonik gero urkabeen zorzi egunes bizirik Jangoikoaren permisios, gero galdeiten ziotelaik frailek, nola iraun duzuen, erraten ziote nola Maria Santisimak libratu zuen, ta gero: Dakitena da agitz ditzosoa dela padezizen duena Kristogatik. Orgatik San Franzisko Xabierrek, paraturik Jangoikoak arren begien alzinean pasatu bear zituen trabaju andiak ta innumerableak Indietan, itxekirik ansia deboto batean oiuiten zue: Iago, Jauna, ia; eta konsolazen zuelaik berriz, oiuiten zue: Aski da, Jauna, aski da konsolu. Orgatik San Ignazio martirak zeramataleik martirizazera, kontentus erraten zue: Orai asten naiz izaten Kristoren diszipulo. Beto z nere kontra suak,

guruzeak, ezpatak, ezur auxteak, zatizeak ta deabruain tormentu guziak, solamente nola logra dezaten Kristoren gustoa. Barka zadazie, nere humettoak, zio, badakit nik zer den nere probetxu. Orgatik San Pedro padezizeko zegolaik Erroman, kristioek joanarazirik andik librazegatik, atarietaik atra ta fite aparezitu zizaio Kristo kargaturik guruze andi bateki; ta galdeginik nora zoeien, noaie, erran zio, ilzera berriz zuregatik. Entendaturik zer nai zion adiarazi, berla itzuli ze San Pedro padezitzera. Orgatik kexazen zelaik aldi bates berze San Pedro martira, erran zio Jaunonek: Eta nik zer kulpa nue padezizeko ainberze? Noiz akabatuko dugu, nai bagindu kontatu exenplare direnak ontako, baitire sandu ta sanda guziak, zeiniek izanik Kristo guruzifikatuaren diszipulo ta diszipula etzute nai bizitu padezitu gabe mundu ontan, padezitu zuenas geros ainberze gure gatik Jesu Kristok? (In manuscrito.)

4. Ontas landara) estaikelaik pasa bekatua pena gabe mundu ontan edo berzean, zenbat obe da emen sufritu Jangoikoak bialzentigunak joateko pagatus gure bekatuen zorrak? Ontas landara zer dire emengo trabajuak berze mundukoen aldean? Kontu an kastigazen duela Jangoikoak burriñasko ta susko azoteeki, ta emen ellesko suabeeki ta arin arina; ta alaere ia balio du emen gutiagok ezi ez an geiagok, eta dion bekala San Pablok: Emengo trabaju lebe momentaneo gebek fabrikazen digute gloria bat inmensoa zeruan. Zein ongi erran zuen, beras, San Henriko Susonek: Egun urtes orazio egiten Jangoikoari egonik ere ezkinazkela digno erdexteko guruze bat, au da, trabaju bat. Eta guk ezin entenda sanduen teologia gau; eta guri gaizki iduri trabajuak. Bada, aiek edo gu engañazen gara. Baña klaro da, ezi gu. Ondasun andia dire aflikzioneak, dio San Juan Krisostomok; ta berriz, irabazi andia da sufrizea nobleki trabajuak; eta berriz, zenbatenas ia trabaju diozun, ain bates ia gusto diozu. Estakigu, estakigu zer den sufrizea trabajuak Jangoikoagatik. Trabajua, dio San Ambrosiok, da Jangoikoaren grazia ta mertxede bat andia. Nork bilazen duen Kristo, bilazen du trabajua; ta trabajuek ta nezesidadeek bilazeunte justoa, ta batzuetan aurkizeunte, berzebazueta estute aurkitzen. Aurkizeunte ura, nori ere zor baizaio korona; estute aurkitzen gauza estena Jangoikoaren soldadotako. Apostoluei, nola baizire eskojituak zerurako, erraten ziate Kristok: Zuek tristatubeauzie ta mundua alegratuko da. Ditzosoak zarate noiz ta madarikatzen, persegitzen, ta mortifikatzen zaisten munduak. Esta diszipuloa ia maestrau baño; ni persegitu banaute, zuek ere izanbeauzie persegituak. Nai duenak etorri nere atzean, uka bedi bere naikunde guzietara, ar bez bere guruzea ta segi benaza. Estuenak artu nai guruzea ta segitu ni trabajuen bidetik, esta digno neretako. Guziau dio Jesu Kristok. Ta orgatik San Juan ta Santiagoren amak eskatu ziolaik mertxede gura mana zezan ezi arren bi seme goiek jarri zeizen bata Kristoren eskuieko aldetik, berzea ezkerrekotik, erran ziate itzulirik bi seme gaiengana Kristok: Estakizie zer eskatzeunzien. Dezakezie pasa nik pasatubeauten tragoa? Oroat, Taborko oianean transfiguratu zelaik Kristo ta agertu zuelaik gloriako figura iduri bat, xoraturik San Pedrok erran zio: Jauna, ongi gaude emen. Ta orgatik dio ebanjelistak, etzekiela San Pedrok zer zerdukan. Eta berze aldi bates aipatu zuelaik Kristok zenbat padezitu bear zuen judioengandik, San Pedro apasionaturik asi ze erraten: Ez Jauna, estu alakorik bear orrek. Eta erreprenditu zue gogorki Kristok San Pedroren piedade iduri gura, erraten ziola: Goaie ene atzera Satanas, eskandalo aiz neretako, zerengatik solo beirazenduk mundu gontako gauzetara, ta ez Jangoikoarenak. Ikasi zute San Pedrok ta berze apostoluek ongi trabajuen doktrina dibino gau, zerengatik alegrazen zire ia gero, pasatzeas trabaju Jesusen izenean. Ikasi zue irugarren zeruan San Pablok ere, zeiniek iten baizue gala ta sendagalla pasatzeas trabaju: Gloriamur autém in tribulationibus. Ikasi zute

munduan izan diren on guziek, doktore andi gaiek, konfesore exzelenteek, martir gloriosoek, birjina galant gaiek ta gañarako gizon, emasteki, zar, gaste, aur jeneroso gaiek, munduau baño ia zirenek, ezpaizute berzerik ansiatzen, baizik padezitzea ta ilzea Jangoikoagatik. Eroak ote zire? Edo ez otezekite zer zen ona ta gaitza? Ah bagina gu alako eroak! Guk, guk estakigu zer den ona, ezpaitugu maite nekeak ta trabajuak. (erakus bezagu San Juan Krisostomok San Pablo ta San Pedro preso zeudenen personetan. Guk akaso izain gindiote lastima preso ikusbagindezki, ta sanduak ziote inbidia noblea; aizagun zer dion: Esta gauza ain honrosorik nola preso egotea Kristogatik, desuerte ezi San Pabloren eskuak lotzenzusten katea gaiek ilustreago dire bere apostolado ta doktoretasuna baño. Nork duen maite Kristo entendazen du diotena. Nor dagon zoraturik ta errezen Jangoikoaren amorioan auta lezake egotea preso Kristogatik lenago ezi ez zeruain erdian egotea gozazen. Norbaitek eman balezada autara zeru guzia edo San Pabloren katea, ia estima nezake au. Norbaitek eginbaneza Jangoikoaren tronoain inguruan dauden gaietaik bat, edo alako preso bat, alakoa naiago nuke izan naiz preso, zerengatik esta gauza obeagorik nola trabajuak padezitzea Kristogatik. Guziau dio sanduak ta guri akaso iduri zaigu pondera zio dena egia llanoa (L.5 de patientia Job. t.5. ad fin). Eta berriz dio: Estaukat ain ditzosotako San Pablo, zeren igan zuten aingiruek paraisora, nola zeren sartu zuten gizon gaistoez karzelerara. Kristo berak neregatik sierbo eginik ta buluxirik bere majestadetik, ezpazue estimatu ainberze egotea glorian, nola ilzea gurutzean, zer estugu soportatu bear guk berain izenean? Eta berriz dio: O katea bedeikatuak, o esku ditzosoak adornatuak edo onratuak katea gaieki! Etzire ain honratuak esku gaiek sendatu zutelaik instantean maingi gura Listrisko errian, nola loturik zeudelaik Kristoren izenean. Ario gontara darduka San Pedros ere, honratua, dio, izan ze Pedro ere katea garreki. Zegolaik preso idatzarri zue ta soltatu zue aingiruak. Emen niri erran balida norbaitek: auta zazu zer nauzun; nauzu izan aingiru idatzarren ta saltazenduenura edo Pedro bere ala preso ta libratua dena? naiago nuke izan Pedro, zeifengatik jautsi baize aingirua, naiagonuzke arren kateak. Nola, bada, San Pedrok eskatzen zue berze okasio batean librazea gaiz andietatik? Esta zer admiratu, dio; eriotzeain beldurak eskazen zue, ta orgatik beldur ze eriotzeas, zeren oraiño baize trabajuen okasio, ta akabatuko baizizaizkio eriotzeareki (H.8. in ej. Ephes).

5. Orai, bada, ezpagaitute engañatzen sanduek ta Jesu Kristok, trabajuak ez solamente soportatu pazienziareki, ezi alegreki ere bear ginduzke, ez solamente besarka errezibitu elduzaizkigunak, ezi laixterka boladan joan bear ginduke trabaju bila; eta bekatariek motibo dobleareki, bata Jangoikoari zerbitzu iteagatik, berzea gure bekatues satisfakzio emateagatik; bada, Kristok padezitu bazuen ainberze ebengatik, geurek arrazio da akonpañia zagun padezitzen geurengatik. Ala bearlizake, baliz Jangoikoaren amorio ta honragana zelo txindi bat; baña orai kontentatuko gara exortazeas ta lograzeas sufri daitzen trabajuak Jangoikoagatik pazienziareki. Alegratu bear gindue dugulaik pobreza, elduzaigulaik oñazea edo eritasuna, itendigutelaik agrabioa, ta edozein trabaju dugulaik, baña asko tristazen, asko ernegazen, ta kasi guziak deskontentazen dire alakoetan; ta gorenas erresolbitzen dire, padezitza bai, baña ez trabaju dutena, berze bat, ustes aisago izaindenura. Baña au ere da engañu bat, zerengatik agian emanbalekigu berze trabaju bat, ain deskontent ginazke artas, ta berze alde zerengatik ezpaitugu bear guk nai duguna, baizik Jangoikoak nai duena, akaso preso ta kulpanteak berak bear du autatu pena? Baizik admititu juezak ematen diona? Zenbat obeki guk, zerengatik gure juez manazen diguna pena, bateo da gure Aita; ta ainberze ta ia amorio erakusten digu trabaju igorzean, nola

erregalo ematean. Orgatik fariseo erregalatu konbenienzias beterik zeudenaietas erran zue Jesu Kristok: Receperunt mercedem suam, errezibitu dute bere pagua, zerbait onki in baute ere, estute zer eskatu berze munduan. Orgatik abrats erregalatu garri, infernuan zegolaik erre kiskilzen ta eskatzen ur tanta bat freskazeko mia, erran zio Abrahamek: oroi zaite munduan zuk izan zinduzala gustoak ta Lazarok trabajuak; ta orai au dago deskansatzen, ta zu zaude ta egon beazu errabiaz. Orgatik leizen dugu zenbait sandues, etzutelaik trabajurik, zeudela ikar ikar beldurrak emen akabatuko zen aien obra onen premioa. Orgatik espezialki, dion bekala Eskritura Sagratuak (2 Machab.6), ezi ez ustea bekatariak anitz denboras bizitzera gustora ta nauten guziareki, dela benefizio andia, zerengatik bereak estitu usten Jangoikoak kastigatzeko juizio eguneraño, ala nola gaisto galduak.

6. Orai, bada, admitizkigun trabajuak edozein direla Jangoikoaren penitentzia amoroso beratxak bekala. Kaballero bat sentizen delaik golpaturik elur peilla bates, asarrazen da, baña ikusten duelaik prinzipain eskua dela tiratu diona, alegutzen da. Orai, bada, ikusagun zer ai garen disponizenduenaskeros Jangoikoak trabaju zerbait gureta; ezpadugu nai sufritu, trabajua esta orgatik gutituko, ta malogratuko da; baña sufrizen badugu, agian alibiatuko du Jangoikoak ta ezperen logratuko da irabaztea artas. Kontu inzagun garela Jangoikoaren txakurrak. Ikusagun zer gertazen den ebeki tirazen diolaik arriren bat nausiak; txakurra ruina barin bada itzulzen da nausiain kontra ta arriain kontra, ta ozkatus arria, ia gaiz iten da bere buruai, ta berze alde ia kolerausten du nausia; baña txakur noblea barin bada, joaten da laixterka ta botazen da humilki nausiain oiñetan, ta ala librazen da obeki. Trabajuetan, bada, ezkartzela itzuli trabajuen kontra, ta gutiago Jangoikoain kontra txakur errabiosoak bekala, baizik humillatu, apaldu burua, admititu trabajua, ta apatu azotea, ta adoratu Jangoikoaren eskua, erraten dugula ladron on garrek bekala, zegolaik gurutzean: Guk justoki padezizen dugu, mereji gindue. Esta igoal mereji nuena ta padezizen dutena. Andia goko trabajuak ikusi bearko nitue, utzi banindu Jangoikoak. Berari graziak nai baitida purgarazi ain lebeki emen intioten ofensak. Arrazio da padezitzea nik nere Aitak igorzen didan trabajutto. Berak pasatu zue odolesko itsaso tormentoso bat; zer milagro da nik pasatzea tanta bat alako Jaunaren eskutik? Nausia da, egin bez nereki zer iduri zaion ongi. Aita da, ain maite nau azotazen nauelaik nola erregalatzen nauelaik. Biz berain izenean ta amorioan trabaju gebek; gisaontan baliazeunte pagatzeko zorrak, erdexteko grazia ta gloria.

Serm. 87.

De satisfactione per indulgentias.

ann. 1781

Tibi dabo claves regni coelorum. Math. 16.

1. Zein ditxoso konta leiken gizonura, nori erregek eman lioken bere artxibo errearen gilzak, idikitzeke, ta arzeke, ta emateko nailukelaik ta nai lukena? Orai, bada, dakigu nori eman zaizkion zeruko artxiboaren gilzak; ta erregeren artxiboari darama onek ainberze abantalla, nola erregerenak txinurrienari. Nor da, bada, gizonura nori eman baizaizkio gilza gaiek mundu gontan? Da San Pedro ta arren sukzesore Erromako Aita Sandua, bere denboran bakotxa. Tibi dabo claves regni coelorum. Zuri emaintzut zeruetako erreinuko gilzak, erran zio Jesu Kristok. Bida dire atariak edo estorbuak debekazen dutenak sarzea zeruko erreinuan, bata da kulpak, berzea kulpak zor duen pena. Kulpak barkazen da konfesioan; pena gelditzen da pagatzeko emen edo purgatorioan. Erran dugu nola in bear den konfesioa, baitare nola paga daiken zor den pena, au da, barus, limosnas, orazio, penitenzias, obra on indezazkegunes ta trabaju pasadezazkigunes. Lazki kostoso iduriko zaigu pagatzemodu gau; ta ezin sar zeruan pagatu gabe azken korradoa. Baña konsola gaitzen; ortako da San Pedroren bigarren gilza, idikitzeke artxibo soberanoa, induljenzien tesoroa, ta emateko guziei zereki paga. Potestade gau du erran bekala Aita Sanduak Eliza guzian ta tasarik gabe, kardenaleek, arzobispoek ta obispoek, tasaturik.

2. Ots, bada, zor andietan gaudenek Jangoikoareki idiki begiak ikusteko zer ondasun ta ustekabeko fortuna dugun induljenzietan, ta eda zugun eskua lograzeko guti kosta ta anitz balio duena. Ikusagun nondik datorren induljenzien tesoro gau, ta zer den induljenzia. Induljenzia esta bekatuain barkamentua, ez, baizik bekatua barkatu ondoan, pena pagatzeko gelditzen denaren barkamentua. Plenaria barin bada, da barkamentu osoa, ta zein iragazirik, ezpaita ia deus gelditzen zorrean estorbadezokenik sarzea libre guzis zuzen zuzena zeruan. Berrogei eguntako edo egun eguntako induljenzia da barkatzea berrogei edo egun egunes in bear zuen penitenzia lengo Elizako kostunbrearen konforme, ta onen ariora irabazia; desuerte ezi iten duenak obra edo orazio manazen dena induljenziaindako, iragazten du ainberze satisfazioindako, nola iragaziko baizue len egines penitenzia berze ainberze egunes, zenbaten induljenzia baita. Nola dateke ori? Jauna, ez, libratus bekatuen zorretik, errateko propioiki, baizik emanen zereki pagatu (Segner. p.3. disc. 21 cristian. instr. citans S. Roman). Zerengatik estagoke pagatu gabe Jangoikoaren justizia zerbait gisas; baña gertatzen dena da ezi obra edo orazio manatu gura egiteareki aplikazen digu onenberze satisfakzio Elizako tesorotik Aita Sanduak edo Elizako prinzipte konzedizen duenak induljenzia, zein zereki paga dezagun.

3. Eta zer deizen da Elizako tesoroa? Da satisfakzioen montio abundante exzesiboa utzi zutena Kristok, Maria Santisimak ta sanduek Elizan. Ortako jakin bear da ezi obra on guzietan dela bi ondasun, bata meritoa, berzea satisfakzioa. Meritoa da dispozizio ta deretxo gura izateko premia; ta ala zenbatenas obra on ia iten duen batek, du ia merito, au da, mereji du ia, ta parazen da dispozizio obean, premia dezan Jangoikoak. Merito gau esta komunikatzen berzei; bakotxak errebituko du bere obren konforme. Berze ondasuna da satisfakzioa, au da, pagatzea zor dena; ta au komunika daike berzei, ala nola

abrats baten eskuan baitago pagatzea pobrettoain zorrak, nai badu. Orai, bada, nork estaki asko sandu ta sandek anitz bekatu ez eginik, anitz satisfakzio eman zutela, ta zor zuten baño ia, bere penitenzia, obra on ta trabajuen medios? Bada, nork konta Maria Santisimak bildu zuen satisfakzioen montioa, izan gabe bekaturen zorrik batere berak? Bada, Kristo gure Jaunak egin ez ezi, etzuke ere egin bekaturik, alare zer satisfakzioa eman zue Jangoikoaren justiziai bere bizias ta eriotzeas? Aski zelaik bere odol tanta bat pagatzeko mila munduen bekatuak, zenbat sobratu ze satisfakzio, ainberze odol dibino ixuri ondoan? Ubi abundavit peccatum, ibi superabundavit et gratia. Orra, bada, nondik bildu den Elizako tesoro inmenso akabaestaikena; orra mina perpetua, errenta seguroabastoa txurestaikena, nondik atrazen baita induljenzien ondasun gau, pagatzeko guk geuren bekaturen zorrak, zein ezpaitugu pagatzen aski berze gisas. Kristoren, Ama Birjinaren ta sanduen satisfazioen abundanziak suplizen du gure pobreza; aien kostus desenpeñatzen gara bekadari andi ta penitente txiki garenok, anitz kulpa ta guti penitenzia; anitz zor ta guti ondasun dugunok; aiengatik ezi bankirrot inenginduenok. Aien izerdis bizi gara gu; aiek trabajatu ta guk gozatu; aiek eraiki ta guk bildu aien eraizioa, gaudelaik jarririk itzalean. Au da herenzia preziosoa, au da pio legado miragarria utzi dutena gure fabore, lenik gure Aita Jesu Kristok, gero gure Ama Mariak ta gero gure anai arreba sandu ta sandek, ta zein errepertizen baizaigu Aita Sanduaren eskus, zein baita testamentari ta kabezalero bekala herenzia ta legado gontako.

4. Zer iduri zaigu intenzione dibino gontas? Au sortu da gure Jesusek digun konpasionetik; alde bat estaikelaik utzi pagatzeko Jangoikoaren justizia, berze alde gu izanik ain pobre miserableak, ta berze alde pagazale gaistoak, utzi zue seguridadea fiadore abratsetan, bera ta bere sanduetan, zeñen kasos ia pagabaitezakegu kostu gutiagos. Tratatu gaitu ontan aur titikoak bekala, zeñen gaiza kuratzeko, ezdezoketelaik aurrai arrarazi medizina miñ desabritua, arzen du amak, zeñek komunika dezon esnearen medios medizina garren birtutea. Ala guk arimen eritasun anitz ta andiak kuratzeko, artu bear gindue penitenzia anitz ta andien medizina; baña zer da? Sanduek artu zute au, bear etzutelaik beretako ainberze, ta guri esnean bekala komunikazen zaigu penitenzia gaien balioa, zerengatik dilijenzia suabebatenmedios lograzen baitugu induljenzia. Lenbiziko kristioek bere besoen indarres, bere trabaju ta obra onen kostus pagazenzuste beren kulpen zorrak; guk delikatuago bekala maña goneki lograzen dugu pagatzea ez ain neke andieki. Eliza len ta orai bat da, esta mudatu; gure kostunbreak bai mudatu dire, ta orgatik gure erremediatu naiak len baño abasto ta bizarroago ixurzen du induljenzien tesoroa. Len enpeñu andiak bear zire lograzeko induljenziak Aita Sandu ta obispoetaik; orai eskatu gabe alzinaturik daude ematera, ikusirik gure nezesidadea ta gose falta, ezkaizengatik galdu. Granero publikoak ertxi idukitzen dire abundanzia delaik, baña nezesidadeaiki idikizen dire, alimentazeko jendea; eta eriak estuelaik ere nai artu alimentua, ematen dio bere amak estakiongatik il alimentu faltas. Len, konparazioaindako, urre gau atrazen zute meatzetaik izerdi anitzen kostus, orai dugu nola balekar ugaldeak area pikorretan, ta guk edatus eskua bagindaude berexten jarririk basterrean.

5. Eta zer in bear da, iragazteko induljenzia? Lenbizikorik egotea Jangoikoaren grazian, ezperen ila dago arima, ta ilak ezin dezake partizipatu satisfakzioaren fruitua, zein nola baita penaren pagatzea, suponizen du barkaturik kulpa. Alaere ikusten da doazila estazio, prozesio, ta jubileoetara bekatu mortaleaiki ariman, adbertitu gabe ez dezaketela logra induljenzia, aurkitu gabe grazia. Orgatik bearlizake asi beti konfesiotik, ta konfesio sin on batetik, ezi konfesio falsuak barkatu ez ta añadizentu bekatuak. Benzait edozein

lanzeetan prokuratu bear da kontrizioa konfesatzeko intenzioareki asi baño len berze dilijenziak iragazteko induljenzia. Bigarren in bear dena da kunplitzea ongi manatzen den orazio, limosna edo diljenzia induljenziagatik, estaien gerta deus gabe gelditzea gure kuidado faltas. Berrogei egunes egon bear zindue len egiten penitenzia ta orai berrogei eguntako induljenziak balia dezakezu arrek adiña, ta akaso solamente erreztas Aitagurea bat, edo kredo bat; eta estuzu eginen atenzioreki errezu pixkagoi ainberzeko penitenziain truk? Bada, zer errain dut induljenzia plenarias? Agian bizi guzian ezin dezake paga zor duzun guzia Jangoikoaren justiziai, ta orai induljenzia gorreki estazio edo berze diljenzia mediano baten kostus, dezakezu paga; ta estuzu inen inala gauza brebe gortan suplizeko bizi guziko falta? Zer ez lezake egin batek balego purgatorioan librazegatik? Bada, joan gabe, libra daike joatetik bat eginen gauza gura zeinengatik iragazten baita induljenzia. Ala kontazen da ezi porziunkulako jubileoan konfesa, komekatu ta berze dilijenziak egin ondoan il zela emasteki bat, ta aparezitu zela berla erratera nola igan zen zerura pasatu gabe purgatoriotik, induljenzia garren birtutes (Parr. pl. Ult. de poenit.). Egin zagun, bada, estimazio anitz induljenzies; emagun Jangoikoari anitz grazia inbenzionegonengatik, Kristori ta sanduei ere bai, utzias gure fabore ainberze ondasun elizako tesoroan; apa zagun Aita Sanduaren eskua ta gilza zeineki idikizen baitigu ain bizarro tesorogoi; balia gaizen etc. etc. etc.

Serm. 88.

De confessione generali.

ann. 1781

Amplius lava me ab iniquitate mea,
et à peccato meo munda me. Psalm. 50.

1. Barkaturik ia Dabid, ta garbiturik Jangoikoaren grazias, alaere oiuz eskatzen dio: Iago garbi benaza nere maliziatik, ta xau benaza nere bekatutik. Barin badago garbi, zertako eskazen du ia? Zeren ezpaita beñ ere sobra kuidadoa ta dilijenzia garbitzean beneno gaisto gartaik, ta arren efekto ta errelikiaetaik. Konfesio partikulare edozeintan ongi iten bada, garbitzen da arima, baña ia garbitu nai badu edo ezpada guzis fio garbituas, or dago konfesio jenerala, zein baita ala nola kontu guzien ajuste bat jenerala. Esta berzerik konfesio jenerala baizik batean konfesatzea len anitzetan konfesatuak edo konfesatu bearrak ta enzerratzea batean konfesio gaiek; ta aietan faltatu dena ta dudazen dena suplizea beingoas. Egin daike bizi guzikoa edo denbora zati batekoa, konforme den bakotxain nezesidadea edo konbenienzia.

2. Zier to da estela guziendako preziso salbazekos, ez, estare konbeniente zenbaitendako; ta orgatik distingizeunte doktoerek gisaontan. Konfesio jenerala bazuendako da dañoso, berze batzuendako nezesario ta berzebazuendako konbeniente. Goazen, bada, distinzio goneki. Norendako da dañoso egitea konfesio jenerala? Aiendako, zeñek eginik ere len kuido sufizienteareki ta bere konfesoerain satisfakziora, alaere ezpaitire sosegatzen motibo justorik gabe, ta ia turbazen baitire errepetus lengo konfesioak. Esta ere konbeniente, ta dañoso da aiendako, zeñek biziturik luxuriain edo odioain kostunbreren batean len, baña konfesaturik beingoas, utzi ondoan ia kostunbrea konfesio jeneraleon batean, ia errebolbitzea kostunbre gura bailizake errebolbizea ongarri ustela gora dezana usai pestilentea. Da ere dañoso eskrupulosoendako, zeñek zenbatenas ia errepasatzeunten lengoa, ia inkietazen baitire, uste dutelaik fundamenturik gabe estaudela konfesaturik ongi, ta beñ ere ezpaitire satisfetxo gelditzen. Arima beldurtiak, in bada bein konfesio jenerale bat, malizias deus utzi gabe, paraturik antes bien dilijenzia prudente bat errateko guzia, emendatu bada, beude geldi lengo konfesioak ia, utzi guzia ondaturik Jangoikoaren miseriordiaren itsaso ondargabea, ez oroitu ere ia bapanaka lanze partikulares, baizik solamente ala montonean bizi gaizki bizituas, sentizeko ofenditua Jaun andia. Errautsa mogitzen dena xautzean sala bat, esta gelditzen xautus berriz, ez, baizik utzis asenta daien. Balsa bat turbiatu dena klarazekos, utzi geldi serena daien. Purga batek bear duenai ta ongi disponiturik dagonai ematen dio osasuna, ta berze bati bear estuenai eman dezoke dañu anitz ta eriotzea ere. Ala da konfesio jenerala, on batzuendako, dañoso eskrupulosoendako: Baña au entendazen da eskrupuloso egiaskoeki, ez eskrupuloso gaieki, zeñek kaso guti gauza andies iten baitute, ta anitz kaso sinplekeries, engañatus berak eta berzeak. Obrena da konsultazea.

3. Baña norendako da preziso egitea konfesio jenerala? Aiendako, zeñek baitakite lengo konfesio zenbait edo guziak izan direla gaistoak; au da, edo examina faltas, edo dolore edo proposito, edo berze edozein zirkunstanzia prezisoain faltas. Por konsigiente, nork ere jakinik edo sospetxaturik izan zukela anitz bekatu mortale, alaere konfesatu baize detenitu gabe aski examinatzean, ta erran baizue solo agora eldu zizaiona, atzendu barin

bazizaio zerbait, konfesioa izan ze gaistoa, bear du errenobatu; baña atzendu baliz zenbait bekatu examinatu ondoan dilijenteki, konfesioa ona izan ze orgatik, solamente du obligazio konfesatzeko atzenduak, oroizen delaik, baña ez konfesio gura, zein izan baize ona; solamente, bada, atzenzen direlaik bere faltas, floxezas edo ajola gutis, orduan da kulpa ta konfesioa gaistoa ta errenobatu bear da. Alaber, ixildu duenak edozein bekatu mortale edo dudoso, edo konfesatu zuenak ia edo gutiago ziren baño, edo entenda etzeizken moduan, edo bilatus konfesore entendaetzezana, bear du in konfesio jenerala prezisoki. Alaber, konfesatu denak dolore sinagabe, edo emendatzeko gogo firmea gabe, bear du konfesatu jeneralki. Alaber, dudazen duenak arrazioreki ziren edo ez bere konfesioak onak, edo zeren zoeien zeremonias debozio ta ajola gutireki, edo zeren bitartean segitzen zuen beti egiten bekatu berak guti gora bera emendatu gabe, naiz iduriturik zuela proposito ona konfesatzerakoan, eta en fin, kostunbre gaistoa ziraueneko denborako konfesioak, ia gexago ia gutixago bekatuueki nastekatzen zirenak, bekatutik konfesiara, konfesioteik bekatuta, ta ala segitus autxi gabe guzis kostunbre gaistoa, bear dire errenobatu konfesio jenerale batean, zerengatik estaike seguratu salbazioa berze gisas, zeren duda baita prudentea ziren gaistoak bitarte gortako konfesioak.

4. Jauna, an lenago bizpiru konfesioetan ixildu nue bekatu mortale bat, baña gero konfesatu nue. Eta konfesatu ere zindue ixildu zinduela, ta zenbat aldis? Bai, Jauna, bada, ura izan ze konfesio jenerala; esta bear berritu. An len isildu nue bizpiru urtes bekatu bat, baña gero atzendu zizaida arras, zer in beaut? Esta fazil kaso gau, atzentzea diot, alako sakrilejioak izanik examina dilijentea; ta ala diot, ezi atzendu bazire kulparik gabe, solamente bear dela konfesatu bekatu gura, ta bizpiru urte gaietako konfesioak ta ez urrengoak, zeintan ezpaize oroitu; baña atzendu baze examinatu faltas, ta konzienzia sopra arro ta ajolakabe izanes, guziak guziak berritu bear dire. Eta esta aski konfesatzea bekatu ixil duzena? Ez, bear da konfesatu konfesio gaisto in zituenak, baitare ebetan konfesatu zituen bekatu guziak ere, zerengatik konfesio gaistoan esta barkatzen konfesatzen dena ere, antes bien, añaadizen da sakrilejioa ta firmazen da kondenazioa. En fin, dakienak in zuela bein konfesio gaistoa, naiz gero segitu badu ere konfesatus ines zoeien guzia, ezpadu sanatu konfesio gaisto gura, guzia doaie banoan, guzia bear da berritu konfesio gartaik asi ta orai artañokoa; kontubazuetan numero bat utsin bada goiti, guzia joain da utsinik, estaike atra beiti zuzen suma. Parete batean, naiz gañarakoa arri ta mortero ones fabrikaturik ere, baldin peko arri bat barin badago falsuan, baldin faltatu barin bada zimenduan, naiz estali, naiz disimula daien poliki gañarakoan, guzia dago ruinoso, gaistoa da obra guzia. Txupa batean boton bat soillik doaien makur sartus bear etzen ojalean, guzia atrako da makur azkenean, berri berritan asi bear da soltatus guziak. Eskribiturik ere berrogei edo ia errenglon papel batean, ixurzen bada tinta azkenean, guzia galdu da. Examinatuagatik ongi konzienzia, konfesaturik ere anitz kulpa, dolore ta proposito izanik ere, baldin bat soillik utzi bada, guzia galdu da, guzia borraratu da sakrilejioaren tintas. Jakina da emasteki garren exenplua, nola konfesatus zoeien bekala kulpa bakotxa, zoezin atras arren agotik zapobazuk itsusiak, ta azkenean zeren erratera zoeielaik bat andiagokoa, ta utzi zuen errateko, ikusi ze zapo andi bat ia atrazera baña erretiratu zela gibela, ta berla atzetik len atra ziren guziak ere bai. Esta barkatzen bekatu bat, non ta estiren guziak barkatzen; eta ala konfesatzea ta konfesatzea alzina, utzirik lendanik zerbait barkatuestena, da joatea montiatus sakrilejioak, ta bildus infernurako su ia, ta añaaditus Jangoikoaren ira, tesaurizas tibi iram; esta berze erremediorik, baizik konfesio jenerale bat ona.

5. Erran dugu norendako den preziso konfesio jenerala, orai erran zagun

norendako den konbiniente, naiz ez izanik ere preziso. Estuenak bere ustes alako faltarik bere konfesioetan, estu obligaziorik iteko konfesio jeneralerik; baña konbeniente da egin dezan beñere inestuenak, edo denbora anitzes estuenak egin, espezialki aldatzen bada estados edo errenobazen bada ferborean ta bizimoduan obero ta espezialkiago beldur delaik estagola urruti eriotzea. Guziau entendatzen da nola esten segitzen berze zerbait inkonbiniente bakotxain konzienziain kasos, ta ala obeki azertatuko da consejatus bakotxa prudenteareki materia gontan, ezi ez predikatus pulpitotik ala jeneralidade goneki. Inkonbinienteas landara entendatu bear da diotena azken gontan ta obligazioik estelaik; eta añaadizen dut, ezi obligaziorik esten gontan, egiten baliz ere konfesio jenerale, ezleike izain bearrik egiteko ainberze examina, zerengatik supuniturik konfesatu zirela len ongi, ta solo naituela debozios konfesatu batean, libre du ez berextea ainberze, ez kontazea puntualki guziak, baizik ala guti gora bera montonean, edo nola nai duen, supuniturik --diot berriz-- iten dela debozios ta ez obligazios konfesio jenerala. Alaber, nai balu egin zatika konfesio jenerala, au da, konfesio batean mandamentu baten kontrakoak, berze konfesio batean berze batekoak len konfesatuak, au ere da konfesio jenerala jenero bat, zeñeki baitoaie bat ekarris memoriara len gaizki egina, ta borratus dolore ta konfesio berriareki ia ta ia. En fin, anitzek dute kosunbre iteko urtetik urtera edo bitaik bira konfesio jenerale bat urte bat edo bidetakoa, ta egiten delaik konfessore jakinareki ta progatu duenareki arren konzienzia denbora gontan, estaike izan batere nekoso; ta berze alde lazki da probetxoso, zerengatik alde bat ala suplizen dire gerta zeizken falta lebeak berze konfesioetan ferbore ta debozio gutis, egiteareki bat guzis erresuelto; ta berze alde parazeareki junto batean kulpa guziak, ia mogitzen da biotza, ia konfundizen da, ia betezen da kontrizios ta propositos usteko beingoas ta asteko berri berritan obetzen bizitzemodua. Da ere konbeniente geroko, zerengatik egonik ia ajustaturik kontuak Jangoikoareki, sosegu duenas landara bere konzienzian oraiko, beti dago prebeniturik noizko nai datorren eriotzea. Nor da nai ez lukena atra munduontaik konfesio jenerale on bat eginik, ia keta dakien doaiela Jangoikoaren alzinera errezibitzera bere biziaren konforme ta ez itzulzekotan onat sekula? Bada, egiteareki lendanik, dago seguraturik guzia. Nork ordea explika dezake konfesio jenerale on batek dakarran alegria ta biotzaren ase? Testigo experienzia, apelazen dut progatudutenetara ia egia esten ezi errezibizeareki absoluzioea dirudiduela bota duela bere gañetik oian bat pizua, ta edeki bekala diola Jangoikoai bere zorren fin de paga. Estuenak sinestazen, proga bez bere baitan.

6. Baña Jauna, izanik egia ori guzioi, ta nai izanik ere batek egin konfesio jenerala, alaere lotsazen du orren difikultadeak? Nola oroitu ainberze kulpes, ainberze denbora ta ainberze jenerotan? Esta posible. Au da deabruaren tentazio bat, au da fantasma bat alzinean parazen duena ikaratzeko lotsakorrak; baña ellegaturik ikustera, esta baizik itzal bat ta ezdeus bat Jangoikoaren graziareki. Beñik bein au da zierto, ezi solamente gaudela obligaturik konfesatzera oroizen garenas; ta atzendurik ere anitz, konfesioak estuela peligrorik. Ontas landara solamente da obligazioa prokurazeko oroizea mortalees; ontas landara estaike laika atra numero txustoa, aski da guti gora bera, ta au ere ezpadaike, aski da asteka edo ilka zenbat, deklaratus alikako obekienik bere arimain estadoa. En fin, beñere estaike egin konfesio gaistoa memoria faltas, nola den deseo ona ta dilijenzia prudentea oroizeko al guzia; eta guziau aisatuko du konfessore prudenteak, zeñek emanen baitio argia ta eskua errejistratzeko konzienziain zokoak. Numeroik gabe dire exenplareak gauza gonendako, eta gure Jaunak nai duen bekala konfesa gaizen ongi, ta manatu duen bekala ere asko aldis, ala ematen du bizarroki bere grazia. Animo, bada, artu denbora, egin

dilijenziak parazeko ongi Jangoikoareki betikos ajustazeareki kontu guziok konfesio jeneral batean ta berladanik inskigun etc.

Serm. 89.

De nominib., institutione,
et fide eucharistiae

Memoriam fecit mirabilium suorum
misericors et miserator Dominus,
escam dedit timentibus se. Psalm. 110.

1. Ala nola Kristok guri utzizizkigun misterio guzietan graziaren instrumentu bekala, ezpaita bat berere konpara daikenik eukaristiako sakramentuareki, ala esta gauzarik zeintas izan daiken ainberze beldurtasun, nola ez tratazeas sanduki sakramentu sandu admirable gau, edo santidadearen autore bera, edo iturria dagona ontan. Orgatik ellegaturik ia explikatzero sakramentu gau, Jangoikoaren milagroen andien gau, ta zeintan bildu baizitue Kristok batean bere marabilla guziak, ta jakinik estaikela explika, estaikela erran ta estaikela konprehen di den guzia, esta kerubinen entendamentuas ere, esta serafinen mies ere, ez deslustrazekos nik nere mi pobreas ainberzeko misterio bat erabaki naies onen preziosidade miragarriak, kontentatukon naiz explikatzeas llano llanoa ta axal axala emen ikasi beartugun gauzarik prinzipalenak. Argi bezada iruzki eder enzerraturik dagon orrek sagrario gortan, estaien gerta, ezin ikusis ilunbetan, tropezazea nere mia ustekabetzean; zerengatik ez solamente gauaren ilunak debekazen du bista, baitare iruzki beraren argitasun ta erresplandoreak askotan turbazentu begi flako aragiskoak.

2. Asi gaitzen izenetaik. Laugarren sakramentu Elizakoa, gure kontazemoduan ta katezismo romanoaren konforme irugarrena, da komunionea edo komekatzea, edo eutxaristia, edo aldareko sakramentua, ezi izen gebeki guzieki nonbrazen da. Komunionea edo komekatzea, zerengatik bokado baten aintzuran hostia sandan, ta trago baten medios kalizan komunikazen baita Kristo arimari, ta unizen baita bata berzeareki, arimareki Kristo ta Kristoreki arima modu admirable batean. Qui manducat carnem meam et bibit sanguinem meum, in me manet et ego in illo, dio Jesu Kristok; jaten duenak nere gorputza ta edaten duenak nere odola, dago firmeki uniturik nere baitan ta ni arren baitan. Deizen da eutxaristia, baita latines bona gratia ta uskaras grazia ona, zerengatik sakramentu guziak direlaik emateko grazia, ontan ez solamente ematen da grazia, baitaere graziaren jabe ta emanzale bera, ta geroko gloriaren prenda seguroa; mens impletur gratiâ et futûrae gloriae nobis pignus datur. Deizen da ere biatiko, espezialki ematen delaik eriari, zerengatik baita sustentu ta sokorru andia emendik zerura dugun biajean bizi guzian, ta prinzipalki despedidan. Deizen ere da afaria, zerengatik Kristok fundatu baizue azken afari zelebregartan Jerusalemgo zenakulo artan. Deizen ere da hostia sagratua, zerengatik baita asuri dibinoa ofrezizen dena Aita eternoari munduagatik. Deizen da meza edo mezaren sakrifizioa obra gura, zeintan ofrazen baita hostia dibino gau ain errealki, nola guruzean ofrezitu baize il zelaik, solamente diferenziareki moduan. Baña an ta emen Kristo berbera Jangoiko Gizon dena.

3. Baña izatekos sakrifizio edo meza, dire preziso bi espezie edo materiak, ogia ta ardoa, hostia ta kaliza, errepresentazeko Kristoren pasio ta eriotzea, ta odolaren gorputzetik apartaze gura gertatu zena bere pasioan, baitare signifika zero konbite edo bazkari bat perfektoa, zeintan ez solamente da janario soilla, edo edari solla, baizik biak: Ala, aldareko maiean parazen da hostia sanda ta kaliza sagratua monstrazeko janario ta

edari dibino ematen zaiguna bere gorputz odol preziosoena. Baña ia orai, solamente dut intenzio tratatzeko sakramentu den bezan bates, ta ontako aski da edozein bi espezie sagratuetaik, edo hostia konsagratua, edo kaliza konsagratua; zerengatik ala hostia konsagratua deizen da aldareko sakramentua, ta ardo konsagratua ere bai gisa berean, zerengatik ainberze dago batean nola bietan errealdadean. Deizen da sakramentu, zerengatik baita señaile exteriore bat Kristok paratua, emateko guri arren medios bere grazia ta birtuteak; ta ontan, diot, graziaren señaile edo monstra izatean bardin da berze sakramentueki, desuerte ezi ala nola bataioan burura botatzeak ura signifiktzen baitu arimain garbitzea, konfesioan penitenteain humillatze garrek ta konfessoreain absolbitze garrek signifiktzen baitute bekatuen barkamentu ematen zaiona; ario gontara eukaristian ogi ardoen figuran signifiktzen da arimaren alimentu ta bitzkortzea kausazen duena komekatzeak; ta au da sakramentu izatea, gauza bat sagratua, sekreto ta misterioa, ezi iduriturik agerrian begiari gauza bat, obrazen baitu ariman ikusten esten graziak, bataioan, b.g. urak ukitzen du gorputza ta garbitzen du arima; konfirmazioan krismak unjizen du kopeta ta atzkarzen du arima; konfesioan gizon batek ematen du sententzia ta Jangoikoak obrazen du barkamentua arimarena; ala eukaristian pasazen da agotik estomagora ogiaren edo ardoaren aintzura, ta arima da alimentazen dena errealki Kristoren gorputz odol sagratues. Baña ontan darama abantalla berze sakramentuei onek, ezi aiek obrazeunte bere birtutea noiz ta errezibitzen diren, baña ontan niork errizibitubano (sic) len dago ia Kristo graziaren autore. Aiek dire sakramentu, errezibizerakoan sujetoak ta ematerakoan ministroak; baña sakramentu gau inik dago, niork eman eta errezibitu bano len; b.g. bataioan esta sakramenturik aliketa ellegatuartaño botazera ura ta erratera itzak personain gain; lenago ur an zegona etze sakramentu, ta gero ere ez; solamente da ematerakoan ta errezibitzerakoan; oroat konfirmazioan olio sandua esta sakramentu, aliketa unjituartaño obispoak artas, ta in orduko akabatzen da; oroat, konfesioan esta sakramenturik, aliketa etorri arteo ematera ta errezibitzera absoluzioa; oroat, oliaduran solamente da sakramentu unjizerakoan, ta ez lenago ta ez geroago. Zerengatik sakramentu gaiek konsistizeunte akzione pasazen den batean; baña eukaristian bein konsagratuas geros beti dirau sakramentuak, aliketa galduartaño ogi ardoan aintzurak, naiz ezpadu ere errezibitzen niork ere, ikusten dugun bekala orai berean ezi sagrario gartan baitago aldareko sakramentua gau ta egun, estelaik ere nork eman ta errezibitu; ez ala bataiarrian ta konfesonarioan, non esta sakramenturik ellegatuartaño bataiatzeain edo konfesatzeain akzione gartara.

4. Fundatu zue sakramentu andi gau Kristo gure Jaunak ortzegun bates Jerusalem, bere eriotzearen bezperan, azken afari gartan, bedeikatu ondoan ogia ta ardoa, erran ziotelaik apostoluei ematen zioten ura zela errealki bere gorputz ta odol prezioso berbera, itz klaro ta ekspreso gebeki: *Accipite et comedite, hoc est corpus meum*, ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza; ta artu ondoan kaliza erran ziot: *Bibite ex hoc omnes. Hic est enim sanguis meus* (Luc. 22), edan zazie guziek ontaik, ezi au da nere odola. *Hoc facite in meam commemorationem*, egin zazie au nere memoriatan. Itz gebek dakarkitelaik ebanjelistek, errepetitu zituelaik gero San Pablok, admititurik eliza guzian, entendaturik sentido llano ta klaro ageri den artan Elizako Aita Sandu guziek, ta amar Konzilio Jeneraleek, ta azkenik Trentokoak, estute usten lekuri dudazeko, baizik obligazeunte sinestazera sinestatzen dugun bekala kristio fiel katoliko guziek, ezi konsagratu ondoan ogia ta ardoa, dagola aien aintzurain pean errealki Kristo gure Jauna, Jangoiko ta gizon egiaskoa; zerengatik esta errepugnante ta konponestaiken gauza egotea Jesukristo jarriarik Aita eternoaren eskuieko aldean egotemodu naturalareki, ta bateo,

alaber, egotea berze anitz lekutan presente bere substantzia gureki sakramentuan dagon modu gartan, zein ezpa dezakegu ere kasi explikatu itzes; baña fedearen argitasunes dezakegu gogoas erdetxi, ta bear dugu firmeki sinestatu; ezi ala sinestatu ta konfesatu dute gure alzineko guziek fede katolikoan bizitu direnek (Sess. 13. c.1). Au da fede edo sineste katolikoa izan dena beti Elizan, dio Trentoko Konzilio sanduak (Ib. c.3). Konsagratu orduko instantetik dagola gure Jaunaren gorputz berdaderoa, ta bere odol berdaderoa hostian ta kalizan ogi ta ardoaren aintzurain pean bere arima ta dibinidadeareki; gorputza itzen birtutes hostian, ta odola itzen birtutes kalizean, baña gorputz bera, alaber, kalizean, ta odola hostian ta arima bietan unione naturale garren birtutes, zeñeki baitaude uniturik Kristo bizirik dagonaren gorputz odolak, erresuzitatu zen bekala ez berriz ilzekotan. Dago Jangoikotasuna edo dibinidadea unione admirable garren kasos, zeñeki unitu baize gorputz arimaiki Trintateko bigarren persona; orgatik da egi eta fedea onenberze dagola hostian nola kalizean, batean nola bietan, zerengatik Kristo guzia ta osorik dago ogiaren akzidenteen pean, ta zati txikienean, guzia alaber ta osorik dago ardoaren akzidenteen pean ta tantarik txikienean. Esta txikitzen Kristo txikituagatik hostia, esta zatizen, zatika eginik ere akzidente gaiek, ta bateo dago mila ta mila lekutan nonnai konsagra daien hostia edo kaliza.

5. Dago Kristo sakramentu admirablean ain erreal, zierto ta seguroki nola baitago zeruan, baña berze modu batean; ezi zeruan dago ikus daiken gisan, ta leku okupazen bera den adiña kantidadean; ta emen ikusiestaik gisan, ta modu sakramentale, sobrenaturale, espirituale ta inefablean, ala nola baitagozke espirituak leku batean okupatu gabe leku neurriturik. Para zagun exenplua: Arima gurea ainberze dago eskuan nola gorputz guzian; iruzkia pasaturik milla xuloetaik, bat da; boza bat aiturik ere anitz bearri, bat da berebaitan; hispilu bat mila zati eginik ere, zati bakotxean agertuko da aurpegia osorik, oroat, nola len hispilu osoan. Baña konparazio gebek estire deustako misterio andi garren aldean. Estago an ogirik ta ez ardorik ia konsagratu ondoan, zerengatik itzen birtutes ogi ardo gaien substantzia aldatu da Kristoren gorputz odolain sustanzian, deizen baita transubstanziazioa (Ib. c.4). Zer da, bada, an ikusteuntena begiek, sentizen duena usmak, ukizeuntena eskuek, gustazen duena agoak? Dire deizen direnak ogi ardoen akzidenteak, nolakoak baitire kolorea, atxona, bultoa ta pizua, ta gustoa, baña ogi ardoin substantzia ta errealdaderik gabe. Esta juizio in bear sentidoen konforme, baizik entendamentu ta fedearin konforme. Bistara hostiak dirudi ogi, ta esta ogi; atxonean, txuritasunean, gustoan dirudi ogi, baña esta ogi errealdadean; da ogiaren figura edo itxurain pean Kristoren gorputz preziosoa, zein ezpaitaiki senti ez begis, ez usmas, ez eskus, ez gustoas, baizik adimentuaren medios sinestatus Jangoikoak diona, naiz ezpadaiki ere guzis entenda.

6. An dagona esta Kristoren figura edo monstra, edo seña, edo birtute solla, baizik da errealki Kristo bera Ama Birjinain sabelean konzebitua, Belenen jaioa, munduan bizitu zena patente, guruzean il zena ta irugarren egunean erresuzitaturik gero igan zena zerura, ta an dagona jarririk Aita eternoain eskuieko aldean, ta etorko dena azken juizioko egunean guzien juzgazera; ura berbera dago errealki, ez jarririk, ez txutirik, ez etzinik, ez postura naturale gaietan, baizik erran bekala modu sobrenaturale dibinoan berak dezaken ta dakien bekala. An dagona esta Kristoren errelikiaren bat, ala nola ezur edo aragi puskaren bat ila, sanduenak dauden bekala errelikarioetan; ez ala, baizik dago Kristo bera bizirik, guzia presente estalirik ta disimulaturik bere sustanzian, bere personan, bere Jangoikotasun, gizontasun, gorputz, arima, odol ta izate guziareki; ta Jangoiko izanes nola baita bat Aita ta Espiritu Sanduareki, Aita ta Espiritu Sandua ere daude an, zeren irur

persona dibino gaiek baitire Jangoiko bat, ta ezpaitaie elkarrengandik aparta. Guziau enzerrazen da hostia txipi batean. O Jangoikoaren podorioa! O milagro montioa obrazentuena elkarren gainka misterio gontan! Nioiz esta monstratu andiago Jangoikoa, nola bokado txipi gartan, non guti iduriturik ematen baitu infinizio bat. Ez deus bat iduri zaio sinestagaiz denai, zeren neurzen baitu sentidoen neurri laburras; baña au da Jangoiko andiaren nobleza jenerosoaren gloria, ezi ez deus bat iduriarazirik, ematen baitio, gizonak kasi sinesta dezaken baño ia. Zein ongi eldu den emen Dabiden erran gura: Memoriam fecit mirabilium suorum, Jangoikoak egin duela bere marabilla guzien memoria, bilgura, suma edo zifra bat bokado eman dioten gontan bere sierbo beldur ta errespeto diotenei, escam dedit timentibus se. Alako erregaloea egin zigu bere despedidan, etzeizen malogra, etzeitzen atzendu len eginak; guziak bateo emanzizkigu bildurik ontan, emateareki bera den guzia ta duen guziareki bokado batean.

7. Innumerableak dire prodijioak, zeñeki monstratu baitu Jangoikoak sakramentu gonon egi eta fedea anitz lekutan, ia ixuris hostia sandatik odol dibinoa, ia artus aragiaren kolore propioa, ia despeitus beregandik errañu brillanteak, ia agertus aur baten figuran edo berze gisas, desuerte ezi egun berean monstrozen dire milagro gertatu direnen señaleak anitz zitudadeetan munduan. Baña guretako seguroago da Jangoikoaren itza. Konbidatu zute San Luis Franziako errege, ikustera aur eder baten figuran Kristo monstratu zena hostia sandan; ta erran zue sanduak: Bidoezi ikustera fede guti dutenek, ezi nik sinestazen dut, ikus banez baño seguroago ikustenestutena, dagola Kristo sakramentuan ain errealki nola zeruan. Biz bedeikatua Jesus ona in baitigu alako faborea bere ontasun soilles, ta agradeziturik balia gaitzen bizizeko alimentu dugunaren konforme graziasko bizitza, segizeko betiko glorian.

Serm. 90.

De fine institutionis eucharistiae.

ann. 1781

Desiderio desideravi hoc pascha manducare

vobiscum, antequam patiar. Luc. 22.

1. Deseos deseatu dut egitea otronze gau zueki, nere pasio ta eriotzea ellegatubaño len, erran ziate Jesu Kristok amabi apostoluei orzegun gartan bere pasioain bezperan, bere despedidan, azken afari garren alzinean jarri zelaik ia maiean. Anitz aldis artu zitue otronzeak apostolueki, bada, zer emanai du adizera otronze gonon deseo espeziale ta notable gonek? Adiarazi nai du in bear duela ontan ta utzi bear duela fundaturik eukaristiako sakramentua, fineza guzien korona, ta urrengo ere ondasun guzien iturri perennea bekala; orgatik deseazen zue ain lendanik ta ain biotzetik ellega zeien ordua. Esta oraño ellegatu nere ordua, erran zio bere Ama Santisimari Kanako bodetan, zeintan ura ardotan itzuli baizue. Baña afari azken gartan ze bere ordua, noiz aldatu bear baizue ogiaren ta ardoaren substantzia bere gorputz odol sagratuen substantzian, orgatik ezi zaio atzendu ebanjelistari, kontazerakoan lanze gau, errateko bazekiela Jesusek ellegatu zela bere ordua joateko munduontaik Aitagana, noiz in bear zioten amorioain demonstrazioik andiena beti maite izan zituen bereei, fundatzeareki eutxaristia, sciens Jesus quia venit hora eius. Erran gindue azken platikan nola fundatu zuen ta zer den eutxaristia; erran bear dugu egungoan zer fines fundatu zuen. Bigu Jaun beronek bere eskua ta argia errejistratzeko bere biotzeko intenzioak, konformazeko guk ere hume onek bekala geurenak gure Aita dibinoareneki.

2. Beira dezazkegu Kristok izan zituen finak eutxaristiaren fundazioan, ia Jangoikoaren aldetik, ia Kristo beraren aldetik, ia ere gure aldetik. Jangoikoaren aldetik izan zuen fina da ematea Jangoikoari gloria ta honra dignoa, ia keta aingiruek faltatu zioten zeruan ta gizonek munduan. Galdu zio Luziferek Jangoikoari errespetoa bere lagun aingeru gaistoeki; galdu zio Adanek obediencia bere humeeki. Ofenditua ze len, ofenditua orai, ta gero ere izain da ofenditua Jangoiko andia munduan, jentil, judio, hereje ta aun kristioetaik. Suplizeko guzien partes zor diogun honra Jangoikoari, jautsi ze zerutik bere seme proprio bakarra, ta gizon eginik ogeitaamirur ta ia bizitu zen aietan adoratu, alabatu ta honratu zue Jangoikoa, ta etzeien falta mundu ontan nork pagatu zor noble gau, bera igan ondoan zerura, gelditu ze misteriosoki baña errealki eutxaristian modu admirable batean, ta ala dago perenne ematen Jangoikoari gloria munduan ia ezi ez aingiru ta sandu guziek zeruan. Jaio zelaik Belenen kantatu zute aingiruek gloria in altissimis Deo, biz Jangoikoari gloria goienetan; ta orai urna sagratu gortaik dago Jesus pregonazen Jangoikoaren gloria. Zeruek, dio Dabidek, publikazeuntela Jangoikoaren gloria, coeli enarrant gloriam Dei, zeren solamente agerrian egotea fabrika miragarri goiek da Jangoikoaren jakintasun, podorio ta ontasun infinitoen progu andia. Zenbat obeki kantazen du Jangoikoaren gloria eukaristiaren obra admirableak, non botatu baitu bere fineza ta ondasun guzien errestoa, non bildu baititu bere marabilla guziak batean Jangoikoak. Memoriam fecit mirabilium suorum.

3. Da ere sakramentu andi gau, emateko Jangoikoari graziak mertxede intigunengatik. Izanbañolen gizonik munduan, ia Jangoikoa zego egiten grazia guri idukis

presente bere entendamentu dibinoan gizona, ta disponitus kariatzea, ta gero kariatus bere ontasun soillaren birtutes gure merejimenturik gabe; kariatuas geros gizona, guzia izan da gizonain faborazea; onen fabore eginak dire zeruan izarrak, ilargia, iruzkia, airean egasteak, itsasoan arraiak, lurlean plantak ta animaleak, ta en fin, munduaren fabrika eginik emen diren gauza guzieki bizi zeingatik gizona ongi; prestatu zue, alaber, onendako zeruetako palazio erreala, posidete regnum quod vobis constitutum est ab origine mundi. Zer ia? kiatu zuen bekala, kuidazen ta mantenizen du. Zer ia? Errebelaturik aingirua Jangoikoaren kontra, ta gizona ere bai desobediente eginik bere manuain kontra, aingirua izanik ere naturaleza goragokoa, botazen du infernura erremediorik gabe, ta gizona kastigaturik ere suabeeki estu usten erremediorik gabe; ematen dio eskua, disponizen dio erremedioa. Zer ia? ellegatzen da Jangoikoa egitera gizon gizonain amorios, ta utzirik aingiruain naturaleza exzelentea, arzen du gizonarena, apalago dena, nusquam angelos apprehendit, sed semen Abrahae. Ebek dire benefizio jeneralak, berze alde benefizio partikularak bakotxai egintionak nork konta? Nola pagatu? Nola agradezitu? Etzezakete gizon soillek; eben partes agradezitu zio Jangoiko gizon denak; eta izan zeingatik beti Elizan grazien emate bat perpetua, instituitu zue eutxaristia, baita, oroat, nola grazia ona edo grazien emate bat ona, non presente dagolaik errealki Jesus Jangoikoaren Seme keritua, presentazen zaio bere Aitari gure alde bera; eta guk ere dugu eskunara Jaunau ofrezizeko edo dela mezan, edo komekatzean, edo noiznai dugun erregalo zeruan ta lurlean aurki daiken obrena bekala, ta guzis kuadrizen zaiona Jangoikoari. Orai, bada, estaik erran estugula zertas korresponditu Jangoikoaren liberalidadea. Zer emain diot Jangoikoari niri eman tidan guziengatik? Zio Dabidek. Quid retribuam Domino? Eta ikus balez bekala sakramentu gau bere begis, dio berla: artuko dut kaliza salbadore Jesusena, calicem satutaris accipiam; oneki dut zereki agradezitu; de suerte ezi eutxaristian bateo errezebizen dugu benefizio bat inmensoa, ta bateo paga dezazkegu errezebituak. Alakoa da Jangoikoaren jenioa, pagatzen da emanen berak ta errezebitus guk. Orgatik diolaik mezan sazerdoteak: Gratias agamus Domino Deo nostro, emozkiogun eskerrak gure Jaun Jangoikoari, ta errespondazen duelaik puebloak: Dignum et justum est, gauza dignoa ta justoa da, segizen du sazerdoteak: Vere dignum et justum est etc., sines gauza digno, justo ta arrazio dena da ta saludablea, guk berorri beti ta leku guzietan eskerrak ematea, Jaun sandua, Aita omnipotentea, Jangoiko eternoa, ta añaizen du per Xptum Dominum nostrum, Kristo gure Jaunaren medios, ezipaliz bekala nola ezipaita medio obeagorik eskerrak emateko nola Jesu Kristo eutxaristian presentazen dena, eta ortako ere Jesus berak fundatu zue eutxaristia.

4. Berze fin bat Kristo beraren aldetik da izan daiengatik munduan memoria beras, ta berak egin ta padezitu duenas munduagatik. Eta ala, dioten gisan ebanjelistek ta San Pablok, enkargatu zue Kristo berak azken afari garren postrean fundazerakoan sakramentu andi gau itzebeki: ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza zuengatik traizios saldukoutena; egin zazie au nere memoriatan. Oroat, ematerakoan kaliza erran zue: Au da nere odolaren kaliza; egin zazie au ere nere memoriatan, zerengatik jateunzien aldioro janario gontaik ta edateunzen aldioro edari gontaik errenobatuko duzie Jaunaren eriotzearen memoria, datorren artaño bera guzien juzgatzeraz. Etze arrazio ustea atzentzera Jesusen fineza ezin iagoko gura, ilzea diot gizonengatik; eta oroiarasteko, zer egin zuke obeagorik nola gelditzea bera sakramentaturik gure erdian? Amanteen kondizioa da, ausentazen direlaik urruti despedidan, ustea zerbait señaile, ezipada baizik ere beren erretratoa maite duteneri, oroidaizengatik emanzaleas ikusteareki erretrato edo señaile gura.

Gure Jesus elizaren amante berdaderoa zegolaik despedidan igateko zerura, ezin exkusatus joatea, ta eznaies utzi bere humeak desanparaturik bere presenzia gabe, etzeizengatik atzendu bere Aita onegias, izanik ain atzenkorrak, utzi zigu memoria gau; baña nolakoa? Zeintan dagon ez bere erretratoa edo imajina, baizik bere substantzia errealki; ta gisaontan despeitu ze ta etze despeitu txoil; ausentatu ze ta gelditu ze; despeitu ta ausentatu ze gure bista korporaletik ia ez ikusteko mundu ontan begieki, baña gelditu ze presente misterio gontan naiz estalirik ta ikusietaiken gisan; bai, ordea, goza daiken gisan fede ta karidadearen medios. Zer medio ohea, bada, oroiarasteko bere pasio sandua, nola gelditzea bera errepresentazen figura gortan pasatu zuen guzia? Zeruan dauzkiela Kristok, diote, eskuoñetako llogen kuntzeak erakusteko Jangoikoari padezitu zuena gure faboretan. Emen ez llogen kuntzeak, baizik bere bizi ta eriotzeko merejimentu guziak dauzki bildurik presentazeko gure onetan, ezi orgatik zio Dabidek, memoria edo suma bat bere marabilla guziena in duela janario gontan. Orgatik ere dio Elizak: O konbite sagratua, non errezibitzen baita Kristo, ta errenobazen baita bere pasioaren memoria. Orgatik, en fin, sakramentuaren orazioan dio ala: O Jangoikoa, utziziguna bere pasioaren memoria sakramentu admirable gontan, konzedi bezagu, otoi, benera dezkgun berorren gorputz odoleno misterio sagratuak alako moduan, ezi senti dezagun kontino geuren baitan bere redenpzioaren fruitua.

5. Berze fina, fundazeko eutxaristia, izan ze gure aldetik, au da, errateko itz bates, betezeko gu ondasun guzies oraiko ta geroko beartugunes, dagolaik presente ain eskunara erakusten bere eskuan daudela gauza guziak, sciens quia omnia dedit ei Pater in manus ta sarzen delaik gure arimetan alimentu aintzu komekatzean komunikatzeko kabi dezaketen onki guzia gaingatuartaño, gu nor bagara; orgatik erran zue propioki Trentoko Konzilio sanduak ezi eutxaristian erauntsitu duela bere gure ganako amorioaren ondasunak: Divitias sui ergá homines amoris velut effudit. Bialdu zitue len bere alزندariak gure on naies; gero jautsi ze bera gizon egin ta obrazera ta padezitza ezin iagos, guzia gure on naies, zer in zuke ia? Estirudi in zukela ia. Baña errepara azkenean zer egin zuen. Utzi zue sakramentu admirable gau fineza guzien artxibo bekala, non eman dezagun bateo guzia sarzen dugulaik geuren baitan, kontu inzagun diskurritu zuela, gure errateko modura, gisaontan: Esta aski bialdua nik nere alزندariak gizonain onetan, esta aski neurau etorririk egitea ta padezitzea ainberze; guzia malograzeunte eskergaizek, bada, paratuko naiz neurau nere ondasun guzieki ogiaren aintzurán ta sartuko naiz gizonen arimetan, ta unitukotut aiek nereki ta ni aieki estakioten deus falta ta aun kasi ez dezaketen erresisti. O Jangoikoaren amorioa, zenbat egin duen gure onagatik! O balitz ezaumentu, zer falta zaigu mundu ontan, ez ermatekos instantean txuxen zeruain erdira boladan andetan? Iago in digu ematean eukaristia, baita sines grazia ona, ezi ez iganbagindezki egunoro zerura aizera aingiruen musika, Magdalena bekala; ezi ez inprimibalezkgu bere bere llagak, San Franziskori bekala; ezi ez eman balezagu txupatzera Ama Birjinaren bularreko esnea, San Bernardori bekala; ta ezi ez Kristok berak bere kostadoko llagara ermanik gure ezpañak eman balezagu gustazera bere dulzetasuna, dio autore batek (Ardias), Santa Ludgardisi bekala. Zein ongi eldu den kristioendako San Juanek erranziotenura judatarrei: Medius vestrum stetit quem vos nescitis, zeuren erdian dago ezauntzen estuziena, ezi zierto da, estugula ongi ezaunzen ondasun duguna eutxaristian; dago, alabañare, estalirik akzidente gaien beloés, eta gure fedea esta agiz bizia, ikusteko misterio soberano gortan enzerrazen den guzia. Alaere, dakigulaik fedes, dagola errealki Kristo bera, estima zagun ta usa zagun sakramentu gau fin gaietako zeintako instituitu baizue Jesu Kristok; au da, honrazeko

Jangoikoa dignokiro, emateko eskerrak Jaun sakramentatuain medios, oroizeko bere pasio ta eriotze miragarris ta betezeko geurok ondasunes, grazias ta birtutes. Duenak atenzio piska bat Jangoikoai ta bere arimai ez dezake baizik izan anitz debozio aldareko sakramentuari, ta estionak debozio misterio goni, estu estimazen ez Jangoikoa ta ez bere arima ere, baizik da animale brutoa bekala, lurrean begiak ta atenzio guzia orzirik daukana; ta estaike ellega gozazera patente Jaunau zeruko glorian estuenak atendizen ta estimazen, estalirik dagolaik emen eutxaristian. Gora begiok, atenditu Jangoikoaren gauzak, pensatu zer dugun ta zertako eutxaristia, ez malograzekos ainberzeko grazia ta grazia ona, ta geroko gloriaren prenda.

Serm. 91.

De communione et effectib.

ann. 1781

Qui manducat meam carnem et bibit meum sanguinem,
in me manet, et ego in illo. Joan. 6.

1. Akabatzerakoan azken platika erran gindue egiareki Ardiasek diona, ezi iganbagindezki Jangoikoak egunoro zerura aitzera aingiruen musika, inprimibalezkigu bere borz llagak Jesukristok, eman balezagu edatera bere Ama Birjinain bularreko esnea, ta ezpañak ere paraturik bere kostadoko llagan erregalabagindezki bere dulzetasunas, etzigula eginen ainberzeko mertxede, nola iten baitigu emateas eutxaristia, zeñen medios komunikatzen baita Kristo janario aintzu arimareki modu admirable batean, ta arima Kristoreki unizen baita medio gartas, au deizen baita komekatzea edo komunionea, ta fin gontako instituitu zuela Jesu Kristok; ta betezeko gu gisaontan ondasun guzies tokazen da, bada, orai explikatzea komunionea, ta onen efektoak, zeñen entendazeko bear ginduke berexi arima aragisko sentido gebetaik, ezdezazkigun neurtu Jangoikoaren obrak sentidoen neurri txarras, baizik espirituaren kapazidade ta kondizioas, estaizen iduritu gogorrak Jesu Kristoren itzak judioei bekala. Aizagun kontazen duena San Juan ebanjelariak seigarren kapitulan (v.30): erran ziot judioek: Bada, zer seña egiten du orrek, guk ikusi ta sinesta dezogun? Zer hazaña obrazen du? Gure alzinekoek jan zute manna desertuan, baitago eskribiturik, eman ziotela jatera zeruko ogia. Errespondatu ziot Jesusek: Egi eta fedea sines erraten diziet, estizie Moisesek eman zerutik ogia, baizik nere Aitak ematen dizie zerutik ogi berdaderoa; ezi Jangoikoaren ogia da zerutik jautsi dena ta ematen diona munduari bizitza. Erran ziot aiek: Bigu Jauna beti ogigoi. Errespondatu ziot Jesusek: Ni naiz bizitzaren ogia; datorrenak enegana estu izanen goserik ta ez egarririk sekula. Eta erran diziet eta ikusi nauziela ta ez nauzela sinestazen... Murmurazen zute, bada, fariseoek artas zeren erran zuen zela ogi bizia zerutik jautsia, eta erraten zute: Esta au Jesus Josefen Semea, zeñen aita ta ama ezauntzenbaititugu? Nola dio, bada, zerutik jautsia dela? errespondatu ziot Jesusek: Etzaziela murmuratu elkarreki. Sines-sines diot, ezi sinestazen duenak nere baitan, duela bizitza sekulakoa. Ni naiz bizitzaren ogia. Zuen alzinekoek jan zute manna ta il dire. Au da ogia zerutik jautsi dena, jaten duena ezpaita ilen. Ni naiz ogi bizia, zerutik jautsia. Nork jaten duen ogi gontaik biziko da sekulakos; eta ogi emain dutena nik da nere aragia munduaren bizitzagatik. Disputazen asi zire elkarreki judioak ziotela: Nola eman dezakegu onek bere aragia jateko? erran ziot Jesusek: Sines-sines diot, ezi ezpaduzie jaten Birjinaren Semearen gorputza ta edaten odola, estuziela izain bizitza zeuren baitan. Nork jaten duen nere gorputza ta edaten duen nere odola, arrek du bizitza sekulakoa, ta nik erresuzitatuko dut azken egunean. Nere gorputza da berdaderoki janario ta nere odola da berdaderoki edari. Jaten duena nere gorputza ta edaten duena nere odola, dago firme uniturik enebaitan ta ni arren baitan. Ala nola igorri ninduen ni nere Aita bizirik dagonak ta ni bizi bainaiz Aitagatik, ala ni jaten nauena biziko da neregatik. Au da ogia zerutik jautsia, ez jan zuten bekala manna zuen alzinekoek ta il baitire. Jaten duena ogi gau biziko da sekulakos. Au erran ta anitz diszipuloetaik erraten zute: Gogorra da mintzaze modu gau! Nork dezake soporta? Ontara erreplikatu zue Jesusek: Zer? eskandalizazen zarate nik erranas? Espiritua da bizitza

ematen duena, aragia esta protxal; nik erranikako itzak dire espiritu ta bizitza.

2. Au da pasatu zena judioeki orduan ta ikusten duguna kunpliturik gure denboretan. Aiek entendazen zute makur, uste zute janarazi nai ziotela Jesusek bere gorputza zuen figuran ala nola berze aragigendeak, ta orgatik eskandalizazen zire; baña orai ageri dire klaro Kristoren itzak eukaristian, non dagolaik errealki bere gorputz preziosoa, baña ez agerrian, ez modunaturalean, baizik substantzia-aintzu, jaten baitugu komekazerakoan. Ta ortako instituitu zue Jesusek berze motiboes landara, komekatzeko gu ta komunikatzeko guri bera bere birtute ta ondasuneki, ta unizeko gureki desposorio miragarri inefable gontan, alakoa baita komunionea. Erranbaño len onen efektoak, us nazazie erratera laur itz Jesusen dignazio gontas. Jesus Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Semea, Jangoiko ta gizon, ta zeruetako errege dena, sar daikela ni bekalako desetxatu miserable baten barrenean alimentu aintzu! Aingiruen ogia, zeru guziaren honra, gozoa ta delizia dena, itzuli daikela gizon desterratu geben janario! jan dezakela egi eta fedean bere Jaun andia pobreak, esklaboak ta despreziatuenak! O gauza miragarria! Solamente Ama Birjina sarzeas bere lengusia Santa Isabelen etxean exclamatuzue onek: Nondik niri ainberze ondasun, datorkidan nere Jaunaren Ama nere gana? Seme dibinoaren enkarnazeas Ama Birjinaren entrañetan arriturik bekala kantazen dio Elizak: Orrek, Jauna, librazegatik gizona, etzue erreparo edo horroerik izan egoteas Birjinaren sabelean. Tu ad liberandum suscepturus hominem non horruisti Virginis uterum. Beira orai ia arrizeko esten sarzea Jaun bera zure ta nere baitan, ain desbardin izanik Birjina garren aldean. Baña geldibeites konsiderazio gebek pensazeko komekatze alzinean. Orai goazen ikusis komunionearen efektoak.

3. Zertako da komunionea? Alimentazeko gure arimak ta aumentazeko grazia, dio katezismoak. Ematentu auxilioak erdexteko fin gura, zeintako instituitu baize; kausazen du unione admirable bat Kristoren ta errezibitzen duenaren artean; barkazentu benialeak bere birtute propios; librazen du erorzetik mortaleetan; ta gerta daike borrazea mortala ere nezesidade orduan ta konfesaestaikelaik, da teologia korrientea. (Katezismo romanoak enkargazen duelaik explikatzea sakramentu gonon fruituak (P.2. c.4. ss.47), dio, ezi nola ezpaita mirik explika dezazkenik, zeren baitire inmensoak, tratatu bearkoutela arimen arzaiek puntu bat edo berze, adiarasteko zenbat abundanzia ondasun jenero guzietaik enzerrazen den misterio gontan; ta agertu ondoan berze sakramentuen birtutea, konpara dezatela au aieki nola iturri bat perennea errekattoeki; zeren ziertoki deitu bear da grazia guzien iturria eutxaristia, enzerrazen duena berebaitan zeruko dono ta grazien autorea).

4. Baña jardukitzeko berex ta llanoki, komunioneak obrazentu ariman, janarioak ta edariak kausazentuen probetxuak gorputzean. Janarioak, ta bere ariora edariak, sustentazen du gorputza, baitare janario gonok ere arima. Sustentat. Da misterio gontan Jesus ez ia solamente Aita, baizik ere Ama bekala alimentazen gaituena humeok bere bularretan. Gaizki erran dut, Ama baño ia da, ezi Amak atzizen du humea sobrazen zaion esneas ta dañu inenliokenas, ezpalezo tira aurrak; ta askok ematentuste humeak berzeei azizera; baña Jesusek berak azizen gaitu ta bere gorputz odol berdaderoos. Zein arzaiek alimentatutu oraño bere aragies ta bere odolas bere ardiak? Ona bat, baña bat soilla, estuena noreki konpara. Diferenzia aurkizen dutena alimentu berzeetaik ontara sustentazeen da ezi aiek itzulzen dire personain substantzian, baña emen janario gonok itzulzen du persona bere kondizioetara. Non tu me mutabit in te, sed tu mutaberis in me, erran zio San Agustini. Ongi alimentatuek agertu bear lukete osasunean, ta aun exteriorean. Ezlizake milagro alimentazen garenok Jesus beras iduritzea berari

kondizioetan. Santa Magdalena Pazzisek, aurttoa zelaik, eskazen zio amari erman zezala elizara bera komekatzera zoeielaik, ia keta etzioten usten arri komekatzera aur txikia izanes; ta egun gartan arrimazen ze beti amagana erraten ziola, sentizen zuela Jesusen atxon bat arren baitan. Ala bear ginduke guk izan Kristoren atxon ona leku guzietan Kristoren exenplu ematen, San Pablo bekala, baizio: Christi bonus odor sumus in omni loco. Baña zer exkusa izain dugu, baldin alimentu ain onareki azizen bagara gaistoak, otso iten bagara, sustentazen garelaik axuri dibinoas?

5. Bigarren efektoa gorputzean iten duena alimentuak da indar ematea; ala eutxaristiak ariman. Reparar. Erikorrak, flakoak ta frajilak gara espiritualki geuren naturaleza biziatuaren kasos, ta berze alde tugulaik etsai anitz eta andiak, aski dugulaik guti erorzeko, erorzen gara kasi pausuoro, ta eroris eroris bekatuetan erikorrango iten gara, ta agian il zen gara sobra aldis espiritualki bekatu mortalaren medios; ta naiz erresuzitaturik ere konfesio onaren medios, konbaleziente bekala indarrrik gabe edo gutireki ellegazen da arima komuniora, zeññek kordiale dibinoak bekala bizkortzen ta azkartzen du sendoki, desuerte ezi atra gaizke mai gartaik leonak bekala su botazen dugunak ta lotsagarriak enemigoari, diones San Juan Krisostomok: Tanquam leones ignem spirantes etc. Aur batek estu indarrrik jasteko pizu andiko arri bat oian kaskora, baña arrima bekio jigante bat, dezake onek paratu aurra bere arriareki instante oian kaskoan. Jigante da indarres Jesus Judako leona, gu aurak jasiezdezakegunak obligazioen karga zeruko oianera igan arteo; baña edozeñek alaere bota dezake erronka San Pablareki: Omnia possum in eo qui me confortat, guzia dezaket indar ematendiraneiki. Si Deus pro me, quis contra me? Jangoikoa barin bada ene fabore, nor nere kontra? Eta Jobeki: Pone me juxta te et cuiusvis manus pugnet contra me. Para benaza, Jauna, bere ondoan, ta betor nornai ene kontra. Gure ondoan parazen da Jesus komunioneareki alako maneran, ezi unizen ta bat egiten baikaitu bereki; beira, azkarrak egin gaizken ariman. Orai ez naiz ia aturditzen izan zeizen ain balienteak lenbiziko kristio gaiek, izanik anitz zarrak eta emastekiak eta aurak, alaere garaizenbaizusten tormentuak, eriotzeak, tiranoak ta deabru guziak koraje andiareki; da, zeren armazen baizire Jesus beras komunionean martiriora baño len, diones San Ziprianok. Zein estimatua lizaken ungendu bat, zeññek komunikalezkien Sansonen indarrak, ta ez lezaken utzi mellarik itera gorputzean ezpatek, balek ta suek! Espiritualki ala da komunionea; du birtute erresistizeko infernu guziaz ta kontrarestazeko aien tiroak dañurik gabe, ala nola aizesko pilota bat muralla diamantesko batek.

6. Irugarren efektoa alimentuarena da azitzea edo aumentazea gorputzean, auget. Ario gontara eukaristiarena ariman, abantallareki, ezi adintsu batera ellegatuas geros persona esta ia azitzen alimentu nai duen guziareki; baña arima komekatus azi daike ia ta ia tasarik gabe bizi guzian. Arimain kuantidadea da grazia ta birtuteen estadoa. Komunione bakotxean añadizen da grazia ta birtutea disposizioain ariora. Bada, anitz komunione baliz anitz disposizioareki, anitz azi leike arima santidadean. Komunione bat aski da egiteko bat sandu; anitz komunioneek in dezakete jigante, santidades ellegadaiena zeruraño. Lagun oneki komunikatzea barin bada aski egiteko bat ona, komunikatzea alako moduan, nola komekatzean Jesuseki, nola esta aski izanen santifikazeko nornai? Aldioro zerbait pagabalekigu Kristoren kondizioetaik, anitz aldis anitz añadi leike; ezpada añaditzen, ezpada medrazen, alimentu sanduak estu kulpaa, baizik errezibitzeuntenen disposizioak.

7. Laurgarren efekto obrazen duena gorputzean alimentuak da gustoa, batek ia berze batek baño. Eukaristiako ogi dibinoak du gusto inefablea, defectat, arima indako.

Zierto da, estutela entendazen gusto gontaik gizon animaleek gorputzaren esklaboek, (antes bien, gustosoago ustetuste munduko gauza likitsak; baita mormota belzari ere iduri zaio gustorik andiena inbolokaturik funditzea ongarrarian). Baña au alimentu espiritualala da; ez sentidoes, espirituas gozazen da; betor gizon espiritualala, gusta bez ta ikus bez zein suabea den Jesusen erregalo eskojitu gau, aingiruen alimentua da; biz aingiru bekala komekatzen dena; ta ene kontura ezi gauza guziak utzirik solamente ansiatuko du Jesusen bularreko esne gau ala nola aurrak Amarena. Ta estu izain penarik deustas, baizik pribaturik egoteas alimentu gontaik. Esta milagro goseak beti ta egarriak zeuden mai gontara, kontatus orduak, ainberze sandu ta sanda, gusto sanoa zutenak. Agilak zire iruzkiara beirazen ta zerura gora bolazen zirenak, ubicumque fuerit corpus, illic congregabuntur et aquilae; gu barin bagara nola otsorraiak aragiaren eizian gabilzanak, esta milagro ez sentizea zeruko ogi gonon dulzetasuna. Manna igorri ziote israeldarrei Jangoikoak, ta artas dio eskriturak, aingiruen ogia jan zuela gizonak zituen gusto guziak; alaere enfadatu zire artas israeldar eskergaizak, ta suspirazen zute Ejiptoko elze, baratxuri, borru ta farraska gaiengatik. Au da ziertoki zeruko ogia, Jesus bera zerutik jautsia; gusto guziak ditu, baña arimas solo sentizen dire. Memorias, oroizeareki ainberze fineza, ta guziak ontan ematentigula Jangoikoak. Entendamentuas, pensatus ainberzeko ansia Jangoikoarena gizonagana, izanik bera Jangoiko, gu txinurriak ta arrak. Borondateas, onetsis ta besarkatus esposo bat ain ona, ain dulzea, ain gure amante jeneroso. Du bianda dibino gonek humildadearen gustoa; proga zazu ikusis nola erreduzitu den guruzean ilzera, ta orai egotera alako forman Jangoiko andia dena; nola kuadra dakiguke guri soberbia? Du ere mansedunbre ta pazienziaren zaporea; nork estu ikusten zein manso ta sufrutua beti izanik, orai ere monstazzen den axuri inozentea bekala? Du ere kastidadearen atxona; bera birjin, Ama Birjin, Aita espiritu puroa, garbiak aldareko patena, kaliza ta korporalak, txuria hostia, ta hostian bere gorputz prezioso errespiratzen pureza, azizeko Birjinak, aingiruen ogia den bekala. Du ere karidadearen zaporea, da alabañare amorioaren ofizina amorioak fabrikatua, amorioaren suan dagona destilazen amoriain dulzurak guziengana, sartu artaño biotzetan ebek urzeagatik bere amorioan. Ila dago sentizenestuena su gonon flamada biotzean. En fin, du onki guzien gustoa, ta gloriako erregaloen suabidadea, ezi andik etorria da, hic est panis, qui de coelo descendit, ta ararako azizentu arimak ta iganarastentu arara, si quis manducaverit ex hoc pane, vivet in aeternum; ta en fin, zeruan berean esta ia, au da erregaloo an gozazen dena, glorias, gustos, delizias betezentuen aingiru ta sandu guziak; diferenzia da ezi an agerrian, emen estalian; an gozazeunte osoki bere estado glorioso gartan, emen errebozoareki ogiaren figuran sakramentuan.

8. Borzgarren efektoa iten duena gorputzean alimentuak da edekitzea gosea, saturat. Edekizen du komunioneak munduko farrasken gosea. Joan zelaik iges aitaren etxetik seme prodigoa, ellegatu ze ainberzeko gosea izatera, ezi deseazen zue betezea tripa hazienda belz goardazen zituen gaien ezkurras, ta erraten zue: Ai zenbat nirabe dauden ogis asean nere aitain etxean, ta ni emen goseak! Dabilalaik iges arima Jangoikoagandik aparta, dabila ase naies bere apetitu gaistoa gusto falsues, baña ezin aurki biotzaren ase; betor, betor, itzuli bedi bere Aita Jesusen graziara konfesatus bere kulpak, jar bedi mai erreale gontan; emen, emen aurkituko du arimain sosegu ta kontentu bete betea. Orgatik sazerdotea igaterakoan aldarera parazentio Elizak agoan itz gaiek: Quare tristis es anima mea et quare conturbas me? Zergatik zaude triste ene anima? Eta zergatik turbazen nauzu? Introibo ad altare Dei etc., i gain naiz Jangoikoaren aldarera Jangoiko alegrazen

nauenagana. Ala da, ezi deusek ez dezake alegra munduan arima guzis, baizik Jangoikoak. Biz festa, biz dibersio, biz danza, biz erregalo ta nai duen guzia; nork lokararazi dezake oiñaze kausazen duena puntxa garrek: Ai, zerurako ote naiz? Edo infernura? Baña betor arima fiela konzienzia onareki komunionea, uni bedi Jesuseki ertxi ertxia, sar bedi arren bularrean; ia errain du alegre: Haec requies mea in saeculum saeculi, au da nere deskansua betikos. Elegi abjectus esse in domo Dei magis quam habitare in tabernaculis peccatorum, naiago dut Jangoikoaren etxean egon naiz azkena ezi ez munduko palazioetan.

9. Seigarren efektoa alimentu korporalarena da luzatzea bizia, vivificat. Ain luzea egiten du arimaren bizia eukaristiak, ezi edazen du sekulako Jangoikoarena den adiña. Qui manducat meam carnem etc. habet vitam aeternam. Estela aski kenza bekatu benialeak, baitire arimaren lakrak, preserbazen du erorzetik mortaleen eriotzean. Benenoa da bekatu mortala; kontrabenenoa da eutxaristia. Borra dezazke lengo bekatuen efektoak ta para dezake arima alako estadoan, ain sendo, ain bizkor, ain perfekto, ezi ez dezaten ia heritu ez peligroek, ez okasioek, ez lagun gaistoe, esta ere deabruek berek. Gorputzean berean tenplazen du inklinazio gaistoa, sedat saevientem membrorum nostrorum legem, diones San Zirillok, ta prinzipalki enjendrazen du pureza, vinum germinans virgines. Itz bates, doaie pegatus Kristoren kondizioak ta egiten komekazen dena Kristoren konforme daiken bezan bates, ta esta zesazen, sandu inartaño glorian.

Serm. 92.

De dispositione ad communionem.

ann. 1781

Probet autém seipsum homo

et sic de pane illo edat. 1 Corinth 11.

1. Erranik ia komunionearen efekto admirableak, (ta ezpaginduza erran ere, solamente pensatzeas, solamente sinestazeas dela Jesus bera datorrena ta unizen dena arimareki komunionean, ura berbera zeñnek solamente ukitus, ta ukitu gabe ere, sendazen baizitue eriak, bere itz soillas) bereala eldu da begietara, nola guziareki ez karen ontzen ta sandu itzulzen komekatus anitz eta anitz aldis. (Sua sarzen biotzean, ta ez itxekitzen karidadean biotza? Kastidade, humiltasun, pazienza ta birtute guzien Jauna komunikazen arimai komekatzean, ta ez pegatzen ia? Ain desonesto, ain suber, ain asarre, ain bekatari gu alaere? Alako janarioas alimentazen, ta ain erikor ta miserable?) Zer da au, edo zertan dago? Klaro da estaikela tatxa alimentua, baizik arzen duena. Biandarik obrenak estio onik iten estomago gaistoa duenari. Ala komunioneak ez probetxazea dago gure disposizio faltan. Ongi disponituai iten dio probetxu ona; obeki disponituai, ohea; guti disponituai, guti probetxu; ta en fin, gaizki disponituai, iten dio dañu. Probet autém seipsum homo. Oiuiten du orai San Pablok: disponi bedi, bada, gizona, et sic de pane illo edat, eta ala ellega bedi jatera mai gartaik. (Ongi aski erakutsi zue Jesus berak instituitu zuen gauberean, garbituzitotelaik apostolueri oñak, erran ziolaik San Pedrori: Garbi dagonak estu bear ia baizik garbitu oñak, eta zuek garbizauste, baña ez guziok. Eta dio ebanjelistak, añañadu zuela itz gau zerengatik an baizego Judas. Exenplu gontan ageri da, zein den disposizio gaistoa Judasen aipazeareki. Ageri da disposizio ona ta prezisoa, garbi egotea mortaleetaik; ta ageri da disposizio konbinientea garbitzeareki oñak; ontan deklarazen zaigu konbeni lizakela komekatzera doaiena egotea libre lurreko erresabio ta apego ta imperfekzio guzietaik serafin bat zerukoa bekala. Eta orgatik Aita benerable Juan Eusebio Nierenbergekek ellegatzeko mai gontara deseazen zue, sarzeko bekala zeruan, purifika zezan Jangoikoak purgatorioko suas, ezeien geldi kulparen motarik txikiena arren ariman. Orgatik sanduek bizi guzian bizitus prestazen, alaere komekatzeko alzinean berriro ia ta ia prestazen zute arima asi ta ezin akabatus. Bazekite alabañare obra andia dela, ta ez gizon batendako, baizik Jangoikoaindako prestazen dela habitazioa: Opus grande est, neque enim homini praeparatur habitatio, sed Deo, baizio Salomonek.

2. Baña platika gontan solamente dardukat disposizio preziso nezesarioas. Suponiturik errezipitu bear duena baitan notizia edo ezaumentu sufiziente misterio gonena, (ta fedea, alaber, ta debozio korrespondiente) nai dut erran bear duela jakin zer errezipizera doaien, (ta sinestatu dagola Kristo errealki sakramentu artan, ta por konsigiente ellegatu debozio ta afekto onareki, ta ez ala nola munduko otroneetara edo zeremonia axal batera bekala). Diot, bada, ezi ezaumentu (fede ta debozio) gartas landara bida direla disposizio nezesarioak: Bata gorputzaren partetik, berzea arimaren partetik. Gorputzaren partetik da barurik joatea, arimaren partetik Jangoikoaren grazian edo erraten den gisan, gorputza barurik ta arima garbirik. Barua bear da guzis perfektoa, jan gabe ta edan gabe deusere egun gartan aliketa komekatuartaño, ta eguna asten baita gauasko amabietatik, andik alzina egon bear da jan ta edan gabe deus komekatuondoreraño; ezi

arrazio da ta dezenia, sartu bear duelaik gure barnean zeruko biandak, estaien lenago sartu deus mundukoetaik, eta orgatik dauka ala ordenaturik Elizak, ta pasatu ondoan amenik edo tragarik txikiena ere komekatzea lizake sakrilejio mortala. Solamente dispensazen diote Elizak eriei errezipitzeuntelaik komunionea biatiko aintzu, ezi errezipitu naibalute debozios nezesidaderik gabe, bear lukete egon barurik al baleizke. Grazian egotea da bekatu mortalerik gabe, zeñek solamente galzen baitute grazia, ez ordea benialeek; ta orgatik konbeni da garbizea benialeetaik ere komekatzekos, ezdezangatik aurki gure ariman deus desgustazenzaionik Jangoikoak; baña ezlizake sakrilejio komekatzea beniale soilleki, lizake bai zerbait irreberenzia ta desatenzio; komekatzea, ordea, bekatu mortalariki ariman da sakrilejio horrendoa, ta orgatik Jangoikoaren manus gaude obligatuak garbitzera mortaleetaik komekatzera baño len, dion bekala San Pablok: Probet autem seipsum homo; eta deklaratu zue Trentoko Konzilio sanduak, bear dela alzinetik konfesatu prezisoki senti dena bekatu mortalean, naiz iduriturik ere duela kontrizio andia (Sess. 13. c.7), barin badu konfesorerik ta al badaike eskandalo andirik gabe. Eta izanik ere egia ezi kontrizioak barkatzentuela bekatuak konfesatzeko intenzioareki, alaere, sakramentu dibino gonon atenzios deklaratu ta manatu zue konzilio sanduak, in bear dela alzinetik prezisoki konfesio sakramentala, al badaike; eta onen kontra erakusten, predikatzen edo porfiazzen duena exkomekaturik gelditzen da. (Eta sazerdoteari prezisio izanes zelebrazeko, dagolaik bekatu mortalean ta estuelaik noreki konfesatu, zelebratu balu konfesatu gabe, manazen dio konfesa daiela len baño len. Esta, alabañare, deus sopra garbitzeko kontuan aposentu gura, non sartu bear baitu Jesus pureza ta graziaren autoreak).

3. Probet autem seipsum homo, proga bedi, bada, garbi bedi ta presta bedi gizona, dio San Pablok; et sic de pane illo edat, eta ala ellega bedi jatera ogi dibino gartaik eta edatera kaliza gartaik, Quicumque enim manducaverit panem, vel biberit calicem domini indigne, reus erit corporis et sanguinis Domini, zerengatik ezi nornai dela jaten edo edaten duena indignoki, izain da gure Jaunaren gorputz ta odolaren reo, au da, explikazen duen bekala Santo Tomas de Akinok, kulpante izain da ta merejiko du kastigoa, oroit, nola il balu Kristo bera ta ixuri balu arren odola, ac si Christum occidisset. Beitixago dio apostolu berak: Qui manducat et bibit indigne, iudicium sibi manducat et bibit, jaten ta edaten duenak indignoki iretsten duela bere kontra juizioa, au da, explikazen duen bekala San Krisostomok, bere kondenazioaren sententzia: Id est, damnationem. Goazen guti bat ikusis komunione indignoaren gaiza, ia maldade iten denas, ia ere orgatik merejizen duen penas. Kulpa da ala nola gaizaren gorputza; pena da gorputz gorren itzala bekala. Jigantea da kulpagoi; temerarioa dakar atzetik itzala (nai dut erran) pena segizen zaiona. Goazen beiratus, otoi, fielak.

4. Federik barin bada, dakigu guziek dagola Kristo gure Jauna sakramentuan ain errealki nola zeruan; ta komunioan komunikatzen ta unizen dela arimareki Kristo unione admirable bates kasi explikaestaiken moduan. Orai, bada, paratuduenaskeros Kristok sakramentu gau komekatzeko, ez komekatzea da gaisto, baña gaistoago da gaizki komekatzea. Ez komekatzea da ala nola apartazea atzerat aurpegia konbidazen duen Jesus amanteagandik; komekatzea gaizki da ala nola sarzea Jesus leku loizu, zikin, urrintzu batean. Zer gauza horrorosoago nola juntatzea biotz batean Jesus ta bekatua? Eta da ala, ezi ez solamente parazentu batean bekataria Jesus ta bekatua, baizik ere bekatuai ematen dio lekuri obrena dion afizioneagatik, ta Jesusi zokorik gaistoena desprezio arrigarriareki. Maldade andia da gaizki komekatzea, bai sines, ezpada ere pensazen.

Bekatu guziek desonrazeunte Jangoikoa, baña komekatzen denak indignoki despreziazen du ez solamente bere gauza edo mandamentuetan, baizik zuzen zuzena bere persona propioan; dei daike orgatik au lesa majestadearen delittoa, ta igaten da berze delittoa baño gorago, nola baleak, itsasoen lotsa denak, baitama berze arraiei abantalla anditasunean. In reliquis Deum offendimus in rebus suis, hic autem in persona suâ, dio Santo Tomas aingiruak; berze bekatues ofendizen dugu Jangoikoa bere gauzetan, baña emen bere personan, ta edozeiñek daki estela oroat ofenditzea errege desobeditus arren legeak, nola berai botatus eskuak. Esta zeruan ta lurrean gauza honrratuagorik nola Jesu Kristo Jangoiko ta gizon dena. Eta Elizan esta gauza sagratu estimatuagorik, nola eukaristia, ta arrazioreki, zeren an baitago bere majestade erreala errealki, ta orgatik ere debozio guzia kristiandadean ordenazen da sakramentu gontara, dion bekala Eskoto subtilak: Quasi omnis devotio in ecclesiâ est in ordine ad hoc sacramentum. Bada, ultrajatzeta eliza, zikintzea ongarris pulpitoa, konfesonarioa, bataiarria, loiera botatzeta krismak, libruak, ornamentak, imajinak, desprezios barin balizake gauza lotsagarria, zenbates ia funditzea inmundizian kaliza, patena ta berze baso sagratuak? Ta zenbates ia Jesus sakramentatua bera? Aizeas solamente bat ikarazen da, eta au adiña iten da komunione indignoan.

5. Arrizen du leizeak in dutena zenbait herejeek sakramentu goneki, nola botazea urera, loiera, sura, ematea mandoei gabelan, traspasatzeta kanibetes ta aun usatzeta sorginek demonioeki zuten tratu gaistoan. Ia esta falta baizik urtikitzea deabruai oinpetatzean; baña goardatuko da deabrua atrebitzeas; lotsazen du Jaun sakramentatuaren presenziak. Badire, ordea, berze deabru batzuk, diot gaizki komekazen direnak, ezi lenbiziko gaizki komekatu zena izen goneki deitu zue Jesus berak ziolaik: Unus ex vobis diabolus est; badire, bada, diot berriz, berze deabrubazuk Judasen lagunak, gizon ta emasteki inpioak, atrebitzen direnak parazera Jesus deabruaren oin petan ostikazeuntela arreaki bateo berek al daiken moduan. Nola au? Sarrarazis arima bekatarian, non deabrua baita nausi, non deabruak baitauka gilza, non deabruak manazen baitu, non deabrua txostazen ta burlazen baita. Nola uste duzie dagola an Jesus ona? Kanpoko pobrea bekala despreziaturik ta oinpetaturik; desuerte ezi lotsaturik zenbait desorden gontas ezin sinestatus posible alako gauza, ellegatu zire erratera, ezi bekatar baten ezpañak ukitu orduko hostia sandak, ausentazen dela andik Kristo instantean. Baña au da errorea fedearen kontra (Segneri p.3. disc. 10. ss.9. citans S. Thomam). Sarzen da, bada, Jesus ona bekatarian barnean ere, ta dago, dirauten arteo ogiaren akzidenteek. Baña pensa daike nolako desgustoan! Manabazindezate zueri egoteko goatze batean leproso oñetaik bururaño lllagas ta apostema likitses beterik dagonareki junto, nola soporta zindezakete? Bada, amaborz edo ogei eguntako il bateki arres ta pozios beterik dagonareki lotubazindeizte katees, zer lizake? Eta gorputz il, ustel guziek junto estute ainberze okazen, nola arima bekatu mortalean dagonak desagradazen baitio Jangoikoai; eta alako arimain gorputzean sarrarazi dezakela niork Birjinaren ta Jangoikoaren Semea? Filipinetako ziudade batean komekatu ze gaste bat bekatu mortalean, ta bereala sentitu zue ainberzeko oñazea entraña guzietan, ezi ezin soportatus atra ze elizatik ta botatu zue bideko zoko batean hostia sanda, ta oneki zesatu ze instante oñazea, dirudiduela emanai zuela aditzera gure Jaunak naiago zuela egon zoko gartan ezi ez gaste garren biotz likitsean (Segner. crist. instr. p.3. disc. 10). En fin, dio autore batek ezlegokela ain deskontent gure Jauna infernuan, nola biotz bekatarian (Paul. Pal. ibid.)

6. Ikarazen da pensatzeas nola Jesus, izanik Jangoiko, in zuten preso ta lotu zuten bere eskus judioek; ta lastimatzen da nornai ikustetas axuri inozente gura otso gaien

atzaparretan. Eta azken afari gartan erran zuelaik Kristok: Birjinain Semea izain da entregatua bekatarien eskuetan eta zuetaik batek salduko nau; ikaratu zire apostoluak, ta ez fiaturik aun bere konzienzia onas galdeiten ziote bakotxak: Ni ote naiz, Jauna? Orai zeurorrek dakizulaik zaradela bekatari, ellegatzen zara ausarki mai gartara, jakinik ematen dela doazin guziei, ta entregazeunzu ez solamente bekatarien eskuetan, baizik bekataria in ortzen barnean ta biotz indignoan, reo iten zarela Jesu Kristoren gorputz odolaz, oroit nola preso in, azotatu ta kruzifikatu bazindu. Reus erit corporis et sanguinis Domini. Ala entendazentuste itz gebek San Agustinek, San Jeronimok, San Krisostomok, San Ziprianok, Santo Tomasek ta berze anitzek. Eta oraiño malizia ia aurkizeunte indignoki komekatzen dena baitan kruzifikatu zuten aietan baño; ia baita ultrajazea Jesus orai zeruan dagolaik, ezi ez kruzifikatzea munduan zebilalaik, eta kruzifikazalees erran zue Kristok berak etzekitela zer iten zuten, nesciunt quid faciunt. Eta San Pablok geroago erran zue: ezaundu bazute, etzutela kruzifikatuko egundaño gloriaren Jauna (Segner. ibid.). Baña zuk, kristio barin bazara, badakizu ta sinesta zeunzu dela zeruetako Jauna errezibitzeunzuna komunionean, ta atrebizen zara igatera aldarera ta entregatzera ta ultrajazera gisa gartan, dakizulaik inguraturik dagola bere goardia erreales, aingirues, dakizulaik estuela nai sarzea zure barnean Jesus berak, sentizen duela Aita eternoak, lastima duela Ama Birjinak, sapite dutela sanduek ta aingiruek, ta daudela irrikaturik debekatu naiak edo mendekatu naiak bere Jaunaren ofensa bat ain temerarioa. Zuk, alaere, guzien bortxa duzu atrebenzia guzien erditik arrapatzeko otsoak bekala axuri dibinoa. Etzara oroizen ortas; ta nola ez? Delarik ala, ezi sazerdoteak emanbañolen erakusten duelaik goraturik hostia sanda patenain gaiñean erraten baitu: Ecce agnus Dei, ona Jangoikoaren axuria? Zu, alaere, etzara detenitzen, naizbai, diozu obras, nik iretsi beaut, nai ezpadu ere sazerdoteak, nai ezpadu ere berak, naiezpaute ere Aita eternoak ta Ama Birjinak, naiezpaute ere zeruko sanduek ta aingiruek. Ta etzara beldur erraustu zaizaten antxe berean jaun arren goardiek, zu ar okagarria bekala, baitezakete fu bates aisa, balute lizenzia? Esta egiten beti eskarmentu gau, baña orgatik esta txikiagokoa maldade zurea.

7. Botatzea loiera gizon batek bere igoala, agrabio andia da; andiago lizake botatzea kaballero bat; andiago botazea errege koronatu bera; ta nolakoa lizake funditzea loiean Aita Sandua bere insignieki? Bai, ta dagolaik Aita Sandua bere katedran inguraturik kardenalees, balu atrebenzia gizon txar batek joateko guzien erditik, ta arrapatu, ta arrastaka ermateko funditzera loi artan, zer oiua kardenaleek, zer aspamentuak jendeek, ta zer arrizioa luken munduak? Orai, bada, emen esta Aita Sandu lurrekoa, da Jesus sazerdote guzien burua, da Jangoiko andia dagona hostia sandan ta dago bere tronoan bekala inguraturik aingerus ta goardies. Da gizon edo emasteki bekataria zapo bat okagarria; da arren arima nola sierpe bat pozios betea; da arren gorputza polziga bat urrintzua; alaere zapogoi ta sierpegoi atrebi daikela joatera aingeruen presenzian, ta idikirik ago gaisto gura errezibitzera ta sarzera Jaun andi gura bere polziga gartan? Nola uste duzie geldizen direla arriturik aingeruak? Estaien pensa dela au ponderazioa, Jangoikoak berak erakutsi zio arima bati komunione indignoaren maldadea bisione batean. Zego arima gura enzuten meza zelebrazen zuena sazerdote batek bekatu mortalean, ta ikusi zitue tratatua zela Jesus pensa daizken ultrajerik lotsagarrienekei, ellegatuartaño eramatera ala nola axuri inozente bat degollatzera, arriturik geldizen zirelaik ta triste guzis aingiruak ezezaketela defenda, ta al rebes, alegranzia andiareki deabruak ortas. Oiu inzue beterik zelos arima garrek: Nola da posible, Jauna, sufri dezan ainberzeko agrabioak, monstratu gabe sentimenturarik? Ta errespondatu zio Jesusek: Ene alaba, etzaitela lotsa; indignoki

errezibitzen nauenaren bekatua da ain temerarioa, ezi komunki estut kastigatzen mundu ontan, non ezpaita penarik asko arrendako, ta erreserbazen dut berze munduko (Segner. ib. ss.21). Sinesta, fielak, sinesta dela sakrilegio horrendoa komekatzea bekatu mortalean. Senti bada au konzienzian, joan lenik garbitzera konfesioan, probet autém seipsum, ta aun gero ellegatzekos komekatzera, ellegatu humiltasun andiareki, et sic de pane illo edat, aurkizeko bokado gartan graziaren bizitza etc. etc. etc.

Serm. 93.

De damnis indignae communionis.

ann. 1781

Qui manducat et bibit indigné, iudicium

sibi manducat et bibit. 1. Corint. 11.

1. Erranik azken platikan San Pablok diona, disponidadiela ongi gizona, probet autém seipsum homo, ellegatzekos komekatzera, baita ere pintaturik nolapait indignoki komekatzen denaren maldadea, orai zerbait gisas apuntatu nainuke mereji ta segituko zaion pena sakrilejio goni. (Ortako kuadrazen zaida parazea emen iru jenero komunione erakustentuenak Trentoko Konzilio sanduak: Komunione espirituala, komunione sakramental ta komunione bateo sakramental ta espirituala. Espiritualki solamente komekazen da, noiz ta ezpaita errezipitzen sakramentua, baña deseos ta amorios suplizzen baitu biotzak ansiatus estuena errizibitzen agoas. Au deizen da komunione espirituala, deseo soillekoa. Sakramental ta espiritualki bateo komekatzen da, noiz ta errezipitzen baita errealki sakramentua, ta bateo arren grazia ere bai, zeren baitoaie ongi disponiturik arima; orduan deizen da komunione sakramental ta espirituala bateo. Komekazen da sakramentaliki sollik, noiz ta errezipitzen baita errealki sakramentua, baña ez arren grazia, zeren baitoaie gaizki disponiturik edo bekatu mortalean; orduan deizen da komunione sakramentale soilla, baita oroat nola komunione sakrilegoa, zeintas baitardukagu (Trident. Sess. 13. c.8). Aizagun onen gain San Buenabentura: Bekatuan dagonak errezipitzen du sakramentua, baña ez sakramentuaren efektoa, zein baita Kristoren grazia ta arren unione amoriosko gura; jaten da gustoas, baña estu alimentazen arima; iresten da abrotanoa bekala mellarik gabe ta estu bitzten arima, estare unizen ta bat egiten berareki, baizik, antes bien, okasioain utses alakoa Kristok botazen du bereganik ala nola gorputz il ustel bat, jan dezaten animaleek; ala arima desdixatu gura entregazen du Satanasi atormenta dezan, segun dion eskriturak Judases, satanas sartu zela arren baitan bokado gura artu orduko. Itz ebetan pintatu da zerbait komunione gaistoaren kastigoa. Goazen explikatus). (Bonav. in praepar. admiss. 14).

2. Ezpaliz baizik ez errezipitzea graziarik komunionean, lizake asko desgrazia; iturrira joan ta itzuli deus gabe? Sartu bere barnean sua, ta ez sentitu berotasuna? Gloriako tesoro guzia bereki, ta deus ez gelditu? Jangoiko guzia ostatatu berain etxean, ta ez baliatu korradoates? Ez logratu arren grazia? Desdixta da andia, baña pasagarri idurilekiokete ajolakabeei. Gaizkiago ordea agitzen da, ezi joan bekatuan ta añadizen ta firmazen da sakrilejioas; joan etsai Jangoikoaren, ta etsaiago itzulzen da; beneno egiten du triakas, bizitzaren ogian topazen du eriotzea, gloriako prendadenagandik atrazen du kondenazioaren marka, zeruko giltzareki idikitzen du infernua. Mors est malis, vita bonis. Aizagun San Pablo: Qui manducat et bibit indigné, iudicium sibi manducat et bibit, jaten duenak Kristoren gorputz preziosoa eta edaten duenak arren odol preziosoa indignoki, jaten ta edaten du juizioa beretako; au da, bere kondenazioa, diones San Krisostomok. Estakiola iduritu, Jesu Kristori solo iten diola desprezioa; bere buruari ere iten dio dañu andia, errepara dezan nola ellegazen den bere kalteagatik sikiera, ezpa zizaio ere deus Kristoren desprezioas. Baña errepara zugun itz aietan: Komekatzen dena indignoki, bera da iresten dena kondenazioa. Estugu ikusi alako reorik oraño bere buruari botazen dionik

ilzeko sententzia; juezak botazen diote guziei, berek nai estutela bortxa; baña emen, arimagaisto komekatzen denas berak, berak bere eskues arzen du ta bere agos iresten du kondenazioa, ala nola arraiak iresten baitu hamua zatikatukotiona erzeak ta edekiko diona bizia. Baña bada ia ere zertan erreparatu; ez solamente iresten du nolanai kondenazioa, baizik ere jaten ta edaten du, nai du erran, alimentazen dela bere perdizioneas, sarzen zaiola entrañetan, unitzen ta aragitzen zaiola, desuerte ezi da kondenatu bat bizia; arren ezur, aragi, entraña ta sentido guziak dire madarikatuak. Dabid profetak madarikatzerakoan ingrato bat gaizki komekatzen dena bekalakoa, dio: Ongi egin nik ta gaizki itzuli dida, aborrezizen nau onetsi bearrean (Ps. 108. v.4). Maldizioa nai izandu, bada, etorko zaio; estu nai izan bedeizioa, bada, urruti egoi da arrenganik (v.16); bestitu da maldizioas ala nola tresenas ta sartu zaio entrañetaraño ala nola ura, ta ezurretaraño ala nola olio; itzuli bekio egunoro jaunsten duen tresena bekala, ta zeñidorea bekala zeñeki beti zeñitzen baita. Baña komekatzen den indignoari, ez solamente bestimentak ta zeñidoreak bekala ingurazen dio kondenazioak, baizik itzulzen bekala zaio bere substantzian, janario jaten duena bekala; desuerte ezi ala komekatu dena, infernuko markareki bekala ezauntzeunte aingiruek ta demonioek, ta beirazeunte ala nola sentenziatu bat ia notifikatu ondoan sententzia dagona infernuain pokalean ez erori, bai erori; bulkatu nai dutelaik guziek, solamente espera zeunte in dezoten keñu bat juez soberanoak, iudicium sibi manducat. Ikusazie ezuten obe, joaterakoan komekatzera ertxi baliote aingiruak agoa ezin idiki zezaketen gisan, itzulzeko gibela komekatu gabe, agitu zizaion bekala mutil bati Akitanian. Ikusazie ezuten obe, erraterakoan sazerdoteak: Domine non sum dignus, apartatu bazuste andik demonioek arrastaka lurraia kontra, naiz iskiritu ta nigar in zezaten, agitu zizaion bekala emasteki bati joan ondoan komekatzera ixildurik bekatu bat konfesioan (Claus. p.3. cath. conc. 46). Jangoikoaren milagroa da nola estiren geldizen ilotzurik an berean, ta estiren grada gaiek aurkizen beterik iles.

3. Ezpadire gertatzen kastigo gebek agerrian ain maiz, esta mereji faltas, da kastigatzeko osoki berze munduan ta botazeko sakrilegoain gain bateo Jangoikoak bere iraren ugaldea, bildus bildus doaiena emen: Tesauroz tibi iram in die irae. Mostrazen da au aisa eskriturako testimonioeki. Testamentuaren arka etze baizik figura bat eutxaristiarena, ta karroan zeramatelaik, zeren saiestu zen guti bat, arrimaturik Ozak, edatu zuen eskua detenitzeko etzeien erori; bera antxe ilotzturik utzi zue Jangoikoak bere temeridadeagatik. Kontazen du ebanjelioan (Math. 22) parabola bat, nola errege batek zelebrazen zituen bere Semearen bodak ta konbidatu zituen anitz. Ia jarri ondoan guziak, sartu omen ze errege ikustera, ta ikusi omen zue an gizon bat bodetako soñekorik gabe; joan arrengana ta erran omen zio: Adiskidea, nola izan duzu atrebenzia sarzeko onara bodetako soñekoa gabe? Mututurik gizonoi, manatu zue erregek erman zezatela loturik eskuioñetaik leku ilun batera, non nigar in bearko zue ta ortzen karraska. Boda gebek signifika zeunte Jesusen desposorioa arimaiki komunionean; konbite gonek signifika zen du eutxaristiako janario dibinoa. Errege garrek errepresentazen du Jangoiko omnipotentea; konbidatuek kristio fielak; bodetako bestidurak arimain grazia ta garbitasuna; gizon molde gaitz joanzenarrek indezente, signifika zen du komekatzera doaien atrebitu desalmatua bekatu mortalean ta Jangoikoaren desgrazian. Paraturik dago mai erreala, presente dago errege andia, alerta bere ministro zerukoak, doaza ellegatus konbidatuak, ta jarris, zu ere bai, dakizulaik daramazula arima graziaren gala gabe; sor ezipazara ai dezakezu oi u iten dizuna orai ere: Nola etorri zara onara bodetako adornua gabe? Solamente falta da mana dezoten bere ministroei bota zaizaten loturik infernuko suletzera. Ezpadu egiten au lanze

bere artan, da zerengatik bizten ta andizendagon zuretao sua infernuan errabiarasteko sekula guzian. Bitarteo tratazen zaitu bere etsai madarikatu, erreprobo, Judasen laguna bekala naiz utsten bazaitu ere ellegatzera beregana. Errepara zazu berzela.

4. Ellegatu ze Judas ere ematera Jesusi apa falsu gura ta erratera: Agur maestru Jauna. Etzio ukatu bere aurpegi dibinoa Jesus onak, baña bitarteo erran zio: Adiskidea, zertara etorri zara? apa baten medios salzen duzu Birjinaren Semea? admititu zue aiskide baliz bekala, baña ortan berean justifikatu zue bere kausa ta despeitu zue Judas, desauziatua bekala. Estakit pinta daiken obeki, komekatzera doaien indignoaren akziona ta erresulta. Ellegazen delarik ia mai gartara alakoa, erraten du Jesusek artas Judases bekala: Ecce appropinquat qui me tradet, ona non urbilzen den entregatuko nauena; ta berai erraten dio ixil ixila: Aiskidea, zertara etorri zara? Apa gonon medios saldu bear nauzu gisaontan? usten da ala ere errezibitzera ta sarzera biotz gaisto gartan, baña bateo apartazen du arrendandik bere aurpegi amorioskoa; urbil egonik errealdades, urruti dago borondates; laburzentio auxilioak, estio frankeatzen ain abasto argitasunak ta inspirazioak onerako, ta gizonoi ia ilundurik entendamentua, gogorturik biotza, doaie galdus ajola, deskuidatus Jangoikoas ta bere arimas, saltatus bekatuetatik bekatuetara lotsa gutireki, Jangoikoaren eskutik utzia bekala Satanasen manura, ta ala doaie fabrikatus bere perdizioaren sarea, komunione sakrilegotik asi ta, juizioa jan zue, segitzen da perdizioa. Sartu bearrean Jesuseki ariman osasuna, grazia ta onki guzia, Jesuseki despeizen da on guziaren iturria ta sarzen da Satan tirano bekala arzera gilzak, manatzera, egitera ta desegitera nola nai duen. Post bucellam introivit in eum Satan, bokado gura artu ondoan sartu omen ze Satan judasen baitan, ta au atra ze berla Satanasen esklaboa bekala, et exivit continuo, egitera arren manua ta akabatzen Jesusen traizioa ta entrega ajustatu zuena. Gaistoa ta galdua joan ze gizona komekatzera ta gaistoago ta galduago itzuli da. Balsamoak konserbazentu gorputz freskoak ustelzen asi estirenak, baña ustelzen asiak ia ustelzentu. Iruzkiak argizaria beraxten ta urzen du, baña loia gogorzen ta errauts egiten du. Ario gontara komunioneak bizia ematen dio onai, eriotzea ta perdizioa gaistoai, mors est malis, vita bonis; komunione gaistoa da exkomekazio birtuale bat bekala, zeñen medios apartazen baita Jesu Kristoren aldetik arima erreproboa bekala infernurako markareki; eta au da berze pena bat.

5. Señale klaro bat dela bat predestinatua zerurako, da atratzea ona gaitzetik, ala nola erleek konbertizen baitute samiña esti dulce; badakigu, dio San Pablok, gauza guziek onerako zerbitzazen diotela maitazen dutenei Jangoikoa, aiei, zein ere deizen baitire sanduak elekoaren konforme. Scimus quoniam diligentibus Deum omnia cooperantur in bonum etc. Beras, erreprobo infernurako dagonain señalea da gaitza atratzea onetik, ala nola armirmauek dulce itzulzen baitute beneno samiña. Ala iteunte indignoki komekatzen direnek atrazen baitute bizitzaren alimentutik eriotzea, salbadoreberagandik kondenezioa. Zer bake edo zer sosegu izan beaute alakoek mundu ontan ere? Dakitelaik sartu dutela beren barnean juez sentenziatu beartuena, iretsi dutela juizioa? Bada, berze munduan zer pena izain da sobra alakoendako? Errege mundukoei in badio batek agrabio bere personan, estela aski kastigatzea tormentu exkistoei bera bizirik, il ondoan ere idikizentute obiak, errezentuste ezurak ta aizerazen tuste arren autsak, deklarazeko ira diotena. Zer estu inen bere ultrajazaleeki Jesu Kristok, duelaik, erregeek ez bezala, potestade mendekazeko eriotzetik alzinago infernuan, naiz arima, naiz gorputza, naiz biak? Esta zer fiatu ez kastigatuagatik berla; ezpada emendazen doaie atesoratus Jangoikoaren ira deskargazeko golpes batean guzia iraren egunean, tesaurizas tibi iram in die irae. Iras

beterik daude zeruko guziak ikustean bekatariain ortzen ertean ta estomagoan indignoki beren Jaun andia. Iras beterik daude aingiruak beirazeas zakur bati emanik aien bianda erregalatua. Iras beterik dago Maria Santisima beirazeas bere entrañetako fruitua ta bere bularreko esneas azirikako ogi dibinoa arima gaisto batean. Iras beterik Aita ta Semea ta Espiritu Sandua sakrilegoain kontra, zeren ez kontentaturik ilzeas Kristo gurutzean bekatuengatik, oraño guruzifikazen baitu bere biotzean bekatuen itzees kruelak.

Deskargatukoute guziek egun bates ira guzia arren gaiñean asi ta ez akabazeko sekula guzian. Zeuroi ta guziok asarrazen gara berdugo Kristoren tormentazale gaien kontra, zeren ain inhumanoki portatu ziren Jaun inozente onegiareki; bada, egiaren konforme den gauza da, pagatukoutela pena berbera errezibizeuntenek arima gaistoareki, nola itze gogorres josi zutenek gurutzeareki, dio San Juan Krisostomok, non est vero dissimile Domini corpus inpurâ mente suscipientes eamdem subire vindictam cum his qui clavis ipsum disciderunt (Hom. 61 ad pop. Antioch.). Orain, bada, estaien gerta gaizki komekatus pribatzea Jesusen grazia, amorio ta besarka dulce ematendiotenartaik oneri; estaien gerta reo gelditzea arren gorputz odol preziosoan; estaien gerta botazea geuren gain Jangoikoaren maldizioa, exkomekazio ta despedida; ta en fin, estaien gerta biziaren maiean jatea eriotze ta kondenazioa, idiki begiak, biztu fedea, garbitu konfesioan arima lograzeko emen grazia ta gero gloria etc.

Serm. 94.

De dispositione convenienti.

ann. 1781

Probet autém seipsum homo,

et sic de pane illo edat. 1. Cor. 11.

1. Proga bedi, bada, ta disponi bedi gizona, ta ala ellega bedi erreizibitzera komunione sanda, dio San Pablok; ta guk ia erran dugu disposizio preziso indispensablea, jakin ondoan zer erreizibitzera doaien, joatea grazian ta barurik debozioraki; baitare aipatu dugu komunione indignoaren sakrilejioan kulpata ta pena temerarioa. Jangoikoak, otoi, goarda gaizala alako desdixatik. Amen. Baña kristio onak estu kontentatu bear solamente ez kometizeas sakrilejio horrendo gura ta ez atras beneno ta eriotzea bizitzaren maietik, bear du prokuratu kunplizea Kristoren desoea zuena fundatzean eutxaristia, egines Jangoikoari zerbitzu al guzia ta atras beretako ere probetxu alguzia komekatus; por konsigiente, estu ere kontentatu bear disposizio preziso, indispensable soillareki, bear du prokuratu disposizio konbeniente ere, ala gorputzaren partetik, nola arimaren partetik. Gorputzaren partekoa, baruas landara, itz gutis erran daike, (abstenitzea matrimonioaren usotik zenbait egun lenago dezenziagatik, erakusten duen bekala Katezismo Romanoak ta Dabid erregeren exenpluak, zeiniek jatekos lege zarreko ogi sandu gaietaik konfesatu zue etzuela usatu lizenzia matrimonioarena iruregun aietan (Cat. rom. p.2. c.4. SS.5.8)). Joatea, alaber, soineko dezenteeki garbi ta txukun, fantasiarik ta indezenziarik gabe, garbi, alaber, eskuak ta aurpegia, ta exteriore guzian mostrazen modestia, debozio, erreberentzia ta kristotasun, doaien bekala arzeria zeruko erregeren konbite andi gura mai erreale soberano gartan.

2. Anitz ia da adbertizeko arimaren partetik; mortaleetaik garbi joateas landara, konbeni da garbitzea benialeetaik ere albas ta adornatzea birtute zenbaiten aktes ellegatzeko obeki aldarera. Baso sagratuak naitugu ez solamente garbiak, naiz pobre, baitare zillarreskoak edo urreskoak, eta perlas ta esmeraldes bordatuak al baleike, guzia guti delarik alako Jaunaindako. Bada, zuk izan beazu sakramentu andi garren sagraio ta baso erreizibitu bear duzuna zeure barnean; ez solamente garbi mortaleain benenotik, baitare izan zaite zillarreskoa bekala pureza ta kastidadearen medios, urreskoa amorioain kasos, ta perla diamantes adornatua berze birtuteen medios. Disposizio jenero gau daike izan habituala ta aktuala. Disposizio habituala da urutiagotik asi ta segitzen dena, au da, bizimodu bat ona ta sandua ta korrespondizen zaiona alako Jaunaren sagraio denari, goardatus lenik biotza mantxa guzietaik, mia itz bearestirenetaik, interiore ta exteriore guzia jaun arren gustoain kontra direnetaik, dagolarik bitarteo adornaturik birtute korrespondiente sandu bat bekala. Orgatik dio Jangoikoak: Sancti estote, quia et ego sanctus sum, sanduak izanzaiste, zerengatik ni sandua bainaiz. Birtute bazuk alaere dire propioagokoak erreizibitu bearduenaindako gure Jauna berzeak baño; aiek dire, errateko itz bates, zein ia luziarazi baizitue Maria santissima baitan Jangoikoak, izateko Jangoikoaren Ama; ala nola kastidadea ta pureza, zeinen amorios transtornatu baizue Jangoikoak naturaleza, egines milagro bat andia izateko bere Ama, bateo Ama ta Birjin, naturalki izan etzeikena. Beira zein apart egon zen permitizeas mantxarrik kulpareki purezaren kontra, etzuelaik permititu mantxa kulparik gabe izan zeikena matrimonioan; ain

apart nola iruzkia iluntasunetik egon ze Maria inpureza txikienetik; orgatik izan ze Jangoikoaren Ama maitea amorostu zuena Jangoikoa bera ta atraitu zuena bere kastidadeain atxon fragrantearen medios etorzero bere entraña sanduetara. Bada, komekatzen denak erreizibitzen du Jaunura bera egon zena entraña birjinale gaitan; arrazio baño ia da segi dezon Ama Birjinari purezan. Ezperen gauza horrendoa da unizen dena ta bat egiten dena Kristoreki komunionean, funditzea aragiaren loi likits desonestoan; biotzura, non ostatazen baita Jesus dibinoa, egitea su desonestoaren zeboa; migura, izan dena sakramentu garren patena, enplegatzea luxuriaren bitzteko fuelleain ofizioan; ta en fin, persona, errelkario ta sagrario izan dena hostia sandain, itzulzea estrabille luxurian. Tollens ergó membra Christi, faciam membra meretricis? Absit.

3. Berze birtute bat propia, alaber, da humiltasuna. Esta ikusten zein humila zen Maria? Deizen Jangoikoak bere Ama ta bera konfesatzen esklaba? Ecce ancilla Domini. Baña ez solamente Jangoikoaren, baizik guzien esklaba iten ze Maria, izanik guzien erreina. Orgatik kuadratu zizaio Jangoikoari jaustea arren entrañetara beiraturik ainberzeko humiltasuna, quia respexit humilitatem ancillae suae. Humil bear du sines izan erreizibitu bear duenak Jesus humil eldu dena sakramentu artan. Noren baitan sosegatuko da gogotik nere espiritua, baizik humilaren baitan? dio bere Majestadeak, super quem requiescet spiritus meus, nisi super humilem? Suberboen kontrario da Jangoikoa, Deus superbis resistit, ta humilei ematen diote bere agradoa, humilibus autém gratiam. Munduan ere guziei kuadrazen zaiote humila, niori suberboa; zenbat ia amatuko du humila ta aborrezituko du suberboa Jesusek, zein humilki jaio baize, humilki bizitu ta humilki il baize, ta orai ere baitago figura humil artan eutxaristian? Beti izan zue bere tratua humileki, arrantzari ta txikittoeki; beti meatxazen ziote abrats ta suberbo banoei, vae vobis; ta beti deizen zitue ta orai ere deizentu bere gana humilak, pobreak ta txikittoak: Venite ad me omnes qui laboratis; sinite parvulos venire ad me.

4. Berze birtute bat propia komekatu beardunaindako da mansotasuna ta pazienza. Ebanjelio guzietan esta letra bat sikiera, non aipa daien Maria Santisimaren enfado edo kexa edo turbazio errestorik, baizik beti pazienza, serenidade, dulzura ta jenio onegia esneskoa, naiz eman baziote ere asko motibo asarratzeko judioek. Alako jenioa zue Ama Birjinak, ta alakoa Jesus bere Semeak, zeñiek oiuiten baizue: Discite â me quia mittis sum et humilis corde, ikasazie enegandik, bainaiz mansoa ta humila biotzes. Alakoak naitu bere komunionean, ta estu ikusi nai inpaziente rabiosorik bere maiean. Karidadea guzien gain nai du, ezi au da bere mandamentua, hoc est praeceptum meum, ain sines enkargatua, nola ezpaliz berze manazekorik. Eta espezialki eutxaristia deizen da karidadearen sakramentua, sacramentum charitatis, nora estunai ellega daien nior odioaren erresuminareki, ta aun orgatik ordenatu da elizan pazea ematea komunioneain alzinean, egoteko baketurik guziok komekatu orduko. Birtute gebek espezialki ta jeneralki guziak beartu izan egon bear duenak digno beti ellegatzeko komunionean, ta au deizen da disposizio habituala ta obrena, zeintas baitio San Agustinek: Sic vive ut quotidie merearis accipere, bizi zaite alako moduan, ezi egunoro mereji dezazun erreizibitzea gure Jauna. Guti, ai! Sobra guti da alakorik mundu miserable gontan.

5. Berze disposizioa deizen dena aktuala, da prebenitzea bat komekatu alzinean dilijenzia ta afekto korrespondienteeki. Exenplutako: palazio bat urte guzian dagona alhajaturik, errege sar daiken gisan, deizen da habitualki prebenitua, ta prebeniturik beti egotegoi deizen da disposizio habituala; baña bezperan edo bezperagokoan garbitzen ta alhajazen bada, deizen da prestazea aktualki, ta disposizio aktuala. Ario gontara ariman

disponitzen da aktualiki komekatzeko arima konfesatus ta garbitus konzienzia ellegatu naies mai dibino gartara, au da dilijenzia prezisoena ta obrena, baitare gero konsideratus zer itera doaien ta exerzitus birtuteen aktak biotzeko efekto dignoeki. Eta zerengatik zenbaitek ia konfesatuaskeros ezpaitakite zer egin, daudelaik ezin pasatus denbora, ia distraiturik gogoa pensatzen bearrestiren gauzetan, ia arat onat beira nor sarzen, nor atrazen den, zer iten den, guziau baita desatenzio ta ez bear den disponizeko modua errezibitzeko jaun bat ain andia; berzebazuk, en fin, baitaude erreza ta erreza, ta agian atenzio ta deboziorik gabe erabilis mia agoain barnean ta gogoa elizatik kanpoan, ezpaita deus berotzen biotza, ta por konsigiente, ezpaitu deus balio; berze batzuek errezazen dute ongi atenditus diotena, ta debozioreki, ta au ere da disponitzea komunione; ta ala bearko dute estakitenek berze gisas, espezialiki errepetitus Aita gurea, zein baita Kristok emanikako orazioa, Kredoa ta kontriziosko akta, baitire propiak ordu gartako. Baña adbertitu bear da lazki gauza bat, estaien gerta anitz jatea ta guti dijeritzea, estela tiratu bear errezazera anitz, baizik guti ta ongi, zerengatik errezu luzeak erregulariki prisaka sekazen du debozioa ta laburrak, al rebes, errepasatzen ta xegatzen delaik ongi mogitzen du biotza; eta estu neurzen Jangoikoak kantidadeas baizik kalidadeas, nai dut erran, estuela erreparazen ainberze zenbat diren orazio iten direnak, nola zer gisas iten diren, naiago duelaik guti ta ongi ezi ez anitz ta komunki; ala nola edozeiñek naiagoko du moneda bat urre fin fineskoa ezi ez anitz estañu edo plomu edo ere kobreskoak. Eta orazioa izatea balioso urre edo zillar edo estañuain ariora, kausazen du debozio ia edo gutiagoak ta ez miain erabilzeak. Emateko ontan ere erregla, ia ke ta zenbaitek estuten izain fadorik deustako baizik erretzazeko komunione alzinean, ia kuadrazen zaida, errezatu bear baute b.g. Aita gurea doazin detenitus itz bakotxean, ta akonpañatus gogoareki ta glosatus gisaontan, edo nola erakusten dioten debozioak. Aita gurea bai sines Aita, ta ezin obea; gurea, guk ezpadugu ere mereji, zeruetan zaudena, baitare emen aldareko sakramentuan guri onginaies, santifika bedi zure izena, bai por zierto, ojala honra balezate guziek leku guzietan alako Jaunaren izena! etorri bedi zure erreinua, etorri bedi ordu ontan, estugunai berze erregerik gure arimendako baizik berori; erreina bez nere baitan graziaren medios emen ta gero bida parte niri ere bere glorian. Kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere. Ai, ojala in bagindu ta inbagindezke lurrekoek orren gustoa, oroat, ez ia ta ez gutiago, nola zeruko sanduek. Emandra zaguzu egunerosko ogia egun eta beti. Bai Jauna, niri ere bai pobre oni bida aingiruen ogi bizigoi, bere gorputz preziosogoi, protxu ta bizia eman dezadan, otoi. Barkadazkiguzu guri geuren zorrak etc. Barkazentietet gogotik agrabio in badidate niork, ala orrek barka balezada niri, baña obeki ere barka bezada ofenditu duten guzia. Ezkaizazula utzi tentazioan erorzero. Aparta bezki enegandik okasio ta peligro guziak, Jauna, ezi naiz guzis frajila, estakit baizik bekatu egiten, iduki benaza bere eskutik. Libra gaizazu gaizetik, Amen. Ala biz, ene Aita amantea, bai. Libra benaza gaiz guzietatik, baña ia bekatuain gaizetik. Fuera bekatuak sekulakos, despeizentut madarikatuak, beude urruti berorren hume gonengandik; oraiarteokoes ere dut pena, desegin, borratu ta erraustunainuzke. Orrek, ordea, obratu bear du, ezi ni ez naiz deustako; prinzipalki orai libra benaza ez nai en ellega komekatzera indignoki, ez dezaten iretsi juizioa mai soberano gortan, estakidan gerta kondenaziotako, baizik salbaziotako bere gorputz prezioso errezibitu nainukengoi. Amen. Ario gontara balia daike berze orazioen itzes, disponitzeko arima komunione.

6. Baña modurik obrena prestazeko bat konfesatu ondoan komekatzeko, da gogoas konsiderazea nor den Jesus eldu dena gure gana, ta nor garen gu; ta gero atra

afekto biotzeskoak ta birtuteen akta korrespondienteak, nola diktazen dion bere espiritu ta debozioak Jangoikoaren graziareki. Amabi birtuteetan partikularki exerzita daike bat komunione alzinean. Iagotan ere bai, baña ebetan parazen dut exenplua berzeendako, baitire fedea, esperanza, karidadea, kontrizioa, humildadea, beldurtasuna, admirazioa, agradezimentua, erreberenzia, desoea, petizioa ta ofrezimentua. Fedean lenik, sinestatus bizi, ikus bagindez bekala begis, dagola zeruko Errege hostia errezibitu bear dugun artan. Ah ikus bagindez! Zer ajola, zer kuidadoa, zer dilijenzia prestazeko? supli bez fedeak, ta ortako bidoeie lenean zimendu bekala berze dilijenzien. Urbilena esperanza, esperatus Jangoikoagandik falta zaiguna geurengandik. Nor lizake digno komekatzeko sekula, ezipalez supli Jangoikoak? Berla karidadea, maitatus gogotik jaun bat ain ona, ta beragatik proximo guziak ta etsaiak ere bai. Auda urrea zeñeki urrestatu bear baita arima; au da sua, zeñeki biotza itzuli bear baita brasa flamantea. Berla kontrizioa, sentitus finki nordenagatik Jaun guzis on ona ofenditua malamente, propositoreki ez iteko berriz ia sekulan ofensarik den txikiena. Gero humildadea, humillatus bere burua errautsa baño ia, lurperaño, infernuraño, ezaundurik ezi infernua egotea mereji zuena doaiela zeruko erregeren maiera jatera aingiruen ogia. Estela digno mila ta mila motibos. Gero beldurtasuna, oroiturik Judases ta arrek eman zion apa falsuas, ez dezan erran nitas artas bekala: Ecce appropinquat qui me tradet, urbilzen da traiziatu bear nauena; ta ez dezaten iretsi nere kondenazioa biziaren iturrian nere faltas. Gero admirazioa, arritus nola alako Jaunak sartu bear duen alako ar baten baitan. Zeruetan kabitzen estuenak majestadeain utses pobretto baten agoan ta estomagoan. Duena bere tronoa guzien gainean, guzien Juez dena nere biotzaren etxola urratu gontan. Berla agradezimentua, emanen graziak ainberzeko finezas, estuela zereki pagatu, nai lukela borondateas berere kunplitu albas. Berla erreberenzia, adoratus biotzaren errespeto guziareki, ta bakarrik balego, kurtus lurreraño burua ta a lo menos goardatus modestia ta belauriko honratu naies Jaun sakramentatua emen ia, por lo mismo ezi humillazen baita ainberze bera. Gero desoea, deseatus ellegatzea jaun arren gustora prestaturik, nai lukela izan serafinen ta Maria Santisimaren pureza, humildadea, karidadea ta berze birtuteak. Gero petizioa, eskatus Jaun berari bear duen grazia, baitare sanduei ta Ama Birjinai bere birtute ta merejimentuen adonuak estalzeko bere arimain miseriak. Ta en fin, ofrezimentua, ofrezitus bere partes Ama Birjinain ta sandu obekienik komekatzen zirenen disposizioak, nailukelaik segitu naiz arrastaka agila goien atzean; ta azkenik ofrezitus bere arima ta gorputza, ta den guzia, presta dezan Jaun berak ta in dezan nitas nai duena. Paratuko dugu forma praktiko klaroan doktrina gau berau berze platikan. Bitarteo baliatu erranas, zerbitzazeko al guzian Jaun andia, ta bizitu beti prebeniturik presentazeko eukaristiako maiean ta gero bere glorian. Inzkigun fede, esperanza ta etc.

Serm. 95.

De methodo practico disponendi se.
ann. 1781

Probet autém seipsum homo,
et sic de pane illo edat. 1 Corinth. 11.

1. Proba bedi, bada, gizona, ta ala ellega bedi komekatzera, dio San Pablok. Ta nolapait explikatu da nola bear den probatu edo disponitu, gorputzaren aldetik barurik ta dezenia onean, arimaren aldetik grazian ta garbi al guzia, ta ontas landara, alaber, konsideratus norengana ta nor eldu den, ta exerzitus biotzes birtute korrespondienteen afektoak, zein baitire batzuk espezialki berexirik berzeetaik amabi gebek: Fedea, esperanza, karidadea, kontrizioa, humildadea, beldurtasuna, admirazioa, agradezimentua, erreberenzia, desoea, petizioa ta ofrezimentua. Baña nola ezpaita aski txipittoendako erakustea itzes ala jeneralki au ta au in beazu, ezpazaiote parazen begien alzinean forman, ortara noaie orai. Ojala logra bagindez, alaere, ikas dezaten prestazen arima ongi komekatzeko; lizake au prinzipio lograzeko Jesusen ondasunak dauzkienak bildurik eutxaristian. Goazen, bada.

2. Oroiturik komekatu beazula alako egunean, bezperan ta bezperagokoan ere artu beazu ia kuido prebenitzeko, ongi pensatus sartu bear duela zure etxola gortan zeruetako Jaun andiak; ala nola gastiga baleazute etorzeko dagola Españako errege zure ikustera alako egunean, afanazen asiko baizinazke: Ai, errege Jaunak etorri bear omen du nere etxera, nola moldatuko dut dezenteki? Benzait garbitu beaut arras, bilatukotut aldeazketen alhajak adornatzeko, paratu beaut guzia daiken obekienik nere pobre zan. Ojala al banezake ia! Jesus, errege Jauna, nere etxera! Ainberze ta ia kuido artu beazu, prestazeko arima Jesus sakramentatuain errezibizeko dignoki, diozulaik zeure buruorrek: Opus grande est neque enim homini praeparatur habitatio sed Deo, obra andia da, ezi esta gizon bat norendako prestatu bear baitugu habitazioa, baizik Jangoikoa da. Kuido goneki zoaz Ama Birjinagana ta erran zozu: O Maria Santisima, orren Seme dibinoa nainuke errezibitu nik nere baitan alako egunean, orrek daki nola kuadrizen zaion presta daien arima, progatu zuen bekala, enkarnatu zelaik orren entraña sanduetan ta egon zelaik bedrazi ilabetes bere gustora, baitaere gero errezibitzen zuelaik sakramentu bere gontan; bida otoi otoi anitz grazia, errezibi dezaten nik ere ezpada ain ongi nola orrek, daiken obekiena nere pobre zan. Disponi bez, Jesus Jauna, berorrek nere arima. Lagun bezadate aingiruek, sanduek ta sandek. Berla asiko zara konfesiotik prebenitus artako explikatu zaizun bekala len, zerengatik etxe bat prebenizekos lenbizikoa da garbitzea zikintasan, armirmau, errauts ta farraskaetaik; gero eldu da adornatzea kuadros, kortinas ta alhaja bear direnes. Oroat, ariman lenbizikoa da garbitzea konfesioas, gero adornatzea birtutees.

3. Ellegaturik eguna, oroat, lenbiziko pensamentua biz nola bear den prebenitu komekatzeko ongi, ta asi berri berritan eskazen Jangoikoai, Ama Birjinai ta sanduei grazia ortako. Jaiki goizik izateko denbora, bestitu bidanabar eskerrak ematen ellegatuas egun gartara edo errezazen, gero ofrezitu Jangoikoari bere obrak, bere gorputz, arima ta gauza guziak; eskatu Jangoikoaren bedeizioa ta laguntza enplegatze berain zerbitzuan, garbitu eskuak ta aurpegia, paratu tresena garbiak ta dezenteenak, ez banidades, baizik onratu naies Jangoikoa al daiken moduan arimas ta gorputzas, interioreas ta exterioreas.

Santiguatu ta enkomendatu aingirugoardakoi etxetik atrazea, ta joan modestiareki elizara. Presentaturik Jangoikoaren etxean belaurikatu ta in erreberenzia, ta enplegatu konfesatuartaño denbora prestazen konfesatzeko ongi, examinatus konzienzia, egines kontrizio ta propositoaren akta anitz, ta beranzen bada konfesazeko eskaia, iduki pazienzia ta prebenitu, alaber, komekatzeko. Konfesatu ondoan, brebea barin bada penitenzia, dezake kunpli, nai badu, ezperen utzi geroko; eta berladanik asi beauzu prebenitzen komekatzeko gisaontan, injeniazen bazara.

4. Begiak ertxirik ta bildurik gogoa zeure barnean asi zaite konsideratzen, mogitu gabe mirik, solo pensamentuas, nor norengana eldu den; ez errege lurrekoa, ez obispoa, ez Aita Sandua, baizik oriek guziok baño iagokoa milla aldis, Jesus Jangoiko ta gizon dena, gloriako Jauna, estuena noreki konpara, Ama Birjinain sabelean egon zena bera, jaio ta bizi ta il zena munduagatik, baitago emen sakramentu admirable gontan. Nere gana eldu da janario aintzu; nor naiz ni? pobretto bat munduko zoko gontan nagona, zeintas ezpaita memoriarik munduan, zeintas ezpaitute kasorik baden ere erregeek ta munduko andiek, ezpainaiz kasi deus aien aldean; zenbat gutiago Jangoikoaren aurkintzean? Neregana eldu da, bainaiz ar bat nabilana lurra gairan, ezpainaiz dibisa zerutik txarrain utses; gorputzain aldetik ezur aragis formaturikako bulto bat, arimain aldetik bekataria, eskergaiza, itsusia, indignoa; alakoingana eldu da Jesus ona! Zer fineza! Eta zer fines? Ni bereki besarka unitzeagatik, ona ta sandua egiteagatik. Beras, nere barnera bear du Jesus onak? Nik unitu bear dut denareki guzien juez ta jabe? Estut eskaida gaistoa lograzeko nauten guzia, atrazeko miserietaik beingoas ta asegurazeko nere sekulako salbazioa, zerengatik Jauna da salbatu edo kondenatu bear duena bear dena salbatu edo kondenatu. Orain dezaket atra sekulako seguridadea ta firma ez nagan kondena. Bai, ordea, Judas ere komekatu omen ze ta iretsi zue bere kondenazioa bokado gontan. Ai Jesus, ez al du permitituko alakorik nere baitan; faboratuko naute nere aingiru goardakoak, nere anai arreba sanduek ta sandek ta nere Ama Santisimak, ta neuronek in beaut inala errezibizeko ongi.

5. Pensamentu gebeki edo alakoeki doaie disponitus biotza ta itxekis barnean debozioaren sua, ta ala nola su anitz delaik gozazen baitire garrak ta saltazen txindiak, ala itxekiaskeros biotza prorunpizen du birtuteen aktaetan afekto gebeki edo berze alakoeki. Fede, esperanza, karidade ta kontrizioen aktak indezazkezu, nai bauzu, komunki itentugun bekala, solamente esta inport ez erranagatik itzik mias, baizik guzia gogoas ta afektoas; alaber, esta inport estaizen segi kerro kerro bere orden artan; oroat da itz gutiagos, ta nolana kansatu gabe memoria anitz, solamente bai afekto andiareki. Alaber, esta inport detenitza ia afekto batean berzean baño, antes bien, deboziorik ematenestion gartan detenitu gutiago ta ia debozio sentiduen artan; ta agian itz batean sentituko du anitz debozio, bada, bego artan geldi errepetitus aseartaño biotza, b.g. senti bada mogiturik San Pedoren bi itz gaietan: Tu mihi? Jauna, ori neregana? Egon geldi errepetizen: Ori neregana? Ori neregana? Etc. Baña para zagun forma zeinen konforme enplezaizken amabi birtute errantugun gaien afektoetan komekatubano len: Fedean, diot, esperanza, karidadean, kontrizioan, humildadean, beldurtasunean, admirazioan, agradezimentuan, erreberenzian, deseoan, petizioan, ta ofrezimentuan.

6. Ara lenik fedeara. O nere Jesus, kristioa naiz, gaistoa, baño sinestazen tut fede katolikoaren egia guziak ta espezialki au: Dagola berori aldareko sakramentu gortan ain errealki nola zeruan; ala logra banez nik joatea zerura, ez nuke nai seguroago. Fede gonengatik eman nezake gogotik nere bizia. Sinestazen dut hostia sanda gortan

errezibitzen duela komekazen denak Jesus berori, ain zierto nola egon zen Maria Santisimaren sabel birjinalan; sinestazen dut dignoki komekatzen denak lograzen duela bizitza bera ta gaizki komekatzen denak iresten duela bere juizioa ta kondenazioa, Judasek bekala. Ezdezala permiti nitas alakorik, Jauna.

7. Ara non eldu den orai esperanza. Esperazen dut, nere Jesus ona, orren ontasun infinitoan beiratuko didala miseriakordiasiko begieki, barkatukotidala bekatu guzi guziak ta suplitukotueta nere faltak, ta emain didala abasto grazia ellegazeko orren izenean errezibitzera nere onki guziaren iturria ta gaiz guzien erremedioa. Nora joain gara pobre miserableok, ezpada orrengana, o nere Aita ta Ama ta guzia dena? Gaistoa banaiz ere ni, ez naiz ain gaisto, nola ori on baita. Deskonfiaturik neure buruas, fiazzen naiz solamente orren baitan. Orrek, orrek in bear du nereki piedade puroa, solamente zerengatik den guzis ona, guzis noblea ta jeneroso, ta guk bear bekalako Jangoikoa.

8. Segitzen da karidadea. Maitazen dut Jauna biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki gauza guziak baño ia, berori denagatik ain ona ta maitagarria. Maite dut ta nainuke maitatu serafinek ta Ama Birjinak maita zeunten bekala. Maite dut ta nainuke il orren amorioain utses. Ojala orren amoria balitz nere bizitzaren mantenu soilla! Ojala au baliz nere kalentura konsumi dezana nere gorputza ta bolarazi dezana nere espiritua orrengana! Nork estu maitatuko jaun bat alakoa? Zertako da biotza, ez maitazekos berori? Gaizki enplegatua berze gauzetan parazen den amoria. Malamente da nior estuenik maite berori.

9. Ara non sarzen den kontrizioa. Ni ere izandu naiz bat maitatu estutenetaik, baizik ofenditu berori, nere Aita amantea. Damu dut bai ziertoki, damu ta damu dut milla ta ia aldis ofenditua jaun bat ain ona. Ah ezpanu sikiera ofenditu sekula! Obe ze il banitza ikasi gabe gaistakeria. O bekatu madarikatuak, gaizki agertuak; aborritzen ditut, Jauna, gogotik; konfesazen dut zeruain ta lurrain alzinean indignoki portatu nai zela berorreki. Nik berori bear nue ofenditu? Nik berori? Txinurri txar gonek Jangoiko andia? Eznue bear ala; baño in da ia, ta nainuke desegin, errebokatu, erraustu ta borratu in duten gaizki guzia in ezipalitz bekala. Borra bez, Jauna, bere odol preziosoak, ta oneki juntazeko atra bez nere biotzetik negarresko iturri bat.

10. Ara humildadea. Baña ni ez naiz gauza deustako, baizik bekatu egiteko. Estakit sikiera sentizen gaizki egin; poderoso malizian, flako onerat, beterik kulpes nola sagarroi bat puntzes. Itsasoko areak ta buruko biloak baño ia dire nere bekatuak. Egin naiz nola zapo bat okagarria maliziaren pozios betea orren begietan. Judas bat naiz, traidore billanoa. Nola atrebituko naiz ellegatzera orren mai gortara? mereji nue egotea infernuain erdian, ta admitizen nau aingiruen maiean? Eta berorrek sartu bear du alako biotzean? ez naiz digno datorren berori nere etxera, zio zenturionak; aparta bedi enegandik, bainaiz bekataria, zio San Pedrok; nondik neri ainberze ondasun, nola etorzea nere Jaunaren Ama neregana? zio Santa Isabelek. Eta nik zer errain dut naizelaik bekatari utsa, ta berori sanduen sandua? Tu mihi? Ori neregana? Ori neregana? O Jesus bere parerik estuen!

11. Ara orai beldurtasuna. Baña ni, Jauna, nola atrebi naike ematera pausu bat aldarerat, ellegazeko mai zeruko gortara ta idikitza nere agoa errezibitzeko berori, dakitelaik naizela indigno ta ori dela nere jueza ikustentuen nore konzienziaren zoko guziak? Beldur naiz, Jauna, bota nazaten ordik aingiruek ordu gaistoan, edo parti nazaten erditik beren Jaunaren traidore izana bekala, mereji baitut. Beldur naiz bizitzaren iturri gortan ires dezaten benenoa ta kondenazioa, o nere Jesus, ezipadu berorrek egiten nereki grazia puro puroa.

12. Orai admirazioa. Eta posible da nai duen berorrek etorri pobretto gonengana? Eta dagokela kontent bearbada nere barnean, ta uninazakela bereki ni besarka dibino admirable baten medios? Posible da, zerengatik ezpaitu neurrik (sic) orren ontasun inkonparableak. Errege lurrekoek estute memoriarik nitas, naizen ere munduan; eta Jesus zeruko erregek nai dukela etorri nere gana ta unitu nere arima bereki ain amoroso alako moduan? Nola egoin dire pasmaturik serafinak berak ikusteas, infernura botazen ez ezi, Jesus Jauna, orrek besarkatzen nauela ni, traidore izana!

13. Ara agradezimentua. Biz bedeikatua milla millon aldis alako ontasuna, zein ezpaitzaket korresponditu, niolater, banitu ere mila bizi emanen guziak orren amorios. Nondik niri, datorkidan nere Jaun andia neregana ain zierto, nola etorri baize Birjinaren entrañetara? Ta datorkidan forma gontan janario aintzu? Etze aski jaustea zerutik, egitea gizon ta ilzea neregatik, erreduzitu baita akzidente goien pera sarzeagatik nere baitan? Progu ona da au, maite nauela nere jaun orrek; ta ez naiz ni zoratzen amorios, agradezimentus ta gozos, beautelaik errezibitu nere Jangoiko guzia.

14. Segitzen da erreberenzia. Benzait, Jauna, por lo mismo ezi berori ainberze apalzen baita, nik honratu ta adonatu beaut al guzia misterio gontan. Adorazen dut nere fakultade guzieki erregen errege ta Jaunen Jaun bekala: Andia, poderoso, infinito, inkonparablea, naiz dagon ain humil hostia txipi gontan. Adorazen dut paraturik lurrean nere burua, ta ojala eroribalei partiturik lepotik orren etsaien eskus orren honratan! Adorazen dut, ta adonatu bezate nere partes aingiruek ta sanduek ta Ama Birjinak, ezi nik zer honra eman dezoket?

15. Orai deseoa. Ez naiz deus ta estut deus, solamente deseo ona, bai Jauna. Nainuke izan sanduetarik bat bekala. Nainuke izan arima ta gorputza guzis orren gustora. Nainuke ez desonratu baizik estimatu ta honratu orren mai preziosogoi, ellegatus sanduen atzetik medianoki berere. Ojala banu nik sandu obekienik komekatu zirenen dispozizioa! Ojala nere Ama Birjinak komunika balezada bere graziaren abundanziatik kabi daiken guzia nere ariman! Baña neuregandik estut mereji egotea ere berorren etxe gontan. Zenbat gutiago jatea bere mai erreale gortarik zeruko erregalogoi? ez nuke, bada, nai agrabiatu ellegatus indignoki, ez por zierto; bada, zer inen dut?

16. Orai petizioa. Oiengana errekuritzen dut, sandu ta sandak, in dezaten karidade pobretto goni Jangoikoaren amorios. Orrengana nere aingiru goardakoa; orrengana guzien gain, nere Ama Santisima, akuditzen dut, erremedia dezaten nere arimaren miseria, garbi dezaten mantxa guzietarik, besti dezaten birtuteen adornues ta graziaren gala preziosoas arima gau, presentazeko dignoki Jangoikoaren mai gontan. (Ontan garenas geros, nere fielak, idukazie guti bat pazienza, adizeko Maria Santisimak bere agos erran zition itzbazuk Maria de Jesus Agredako serore venerable gari, baitire preziosoak urrearen gainetik (Mist. civ. p.3. l.8. c.10). Dio ala: garbi zazu zeure arimaren tenplua examinatus Jangoikoaren argira ta adornatus birtute exzeleenteeki (sic), ezi Jangoiko eternoa da errezibitzen duzuna; ta bera bakarrik izan ze digno bereganik errezibitzeko bere gorputza sakramentaturik. Eska zazu aingiruen ta sanduen enpeñatzea, erdetxi dezazuten grazia bere majestadeagandik. Ta guzien gain adbertitzen dizut dei nazazula ni ta eska zadazula benefizio gau, zerengatik jakin beazu naizela ni komunione sagratura pureza andiareki ellegatu nai dutenen abogada ta protektora espeziala. Eta inbokazen nautelaik ontako, presentazen naiz zeruan Altisimoaren tronoaren aurrean ta eskazen diot bere faborea ta grazia ala deseatzeten dutenendako errezibitza sakramentaturik, ezauntzen duenak bekala nolako dispozizioan egon bear duen leku garrek, zeintan sartu bear baitu Jangoiko berak.

Eta estut utzi zeruan egonagatik berain gloriaren kuido ta zelo gau, zeintas kuidazen bainue ainberze nindegolaik lurrean). Esker milla, gure Ama Santisima, duen kuido gortas ta eman digun doktrinas. Onen konforme eskatuko diozu amari bekala ta ondorean Jesus berari anitz grazia.

17. Azkenean ofrezimentua. Ofrezizientiot, Jauna, sandu ta sanda guzien ta bere Ama Santisimaren merejimentuak, ta berorrenak ere bai, suplizeko nereen falta. Ofrezizientiot, alaber, aieki bateo nereak, barin badire deus; baitare nere potenziak ta sentidoak, ta nere arima ta gorputza; ta neurau guziau enkomendatzen naiz orren eskuetan. Bego nereki, otoi, ez nazala utzi. Bida bere bedeizioa, ta oneki noaie komekatzera Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santuaren izenean.

18. Ellegaturik modestiareki ta eskaturik barkazio guziei bere belareki eskuan, al badaike jarri belauriko, ta kurturik burua erran Ni bekatorea debozio berriareki, ta errezibiturik sazerdotearen absoluzioa, ia gero itzulzen delaik ta gorazen duelaik hostia sanda, bitztu fede guzia, mogitu sinki biotza ta afekto guziareki erran irur aldis: Jauna, ni ez naiz digno orren Majestadearen errezibitzeko, baizik solamente erran bez ta nere arima izain da sana ta salba. Paratu agoain pean oiala, baita por si akaso erorzen baliz hostia, errezibitzeko artan, gero idikirik medianoki agoa ta mia pokalera atrarik guti bat, errezibitu sereno ta mansoki; ta berla prokuratu pasatzea etc. Biz aski egungo doktrina; orai fede, esperanza ta karidadearen aktak etc.

Serm. 96.

De gratia actione post communionis.

ann. 1781

Benedic anima mea Domino, et omnia quae
intra me sunt, nomini sancto eius. Psalm. 102.

1. Notizia bat, fielak, egun joandirenorietaik bater (sic) bere gustos. Joan omen da gure errege gizon pobre baten etxola lurreko zar zar batera berarias, erremediatu naiak arren nezesidadeak, ta etxea berritu ta urres beterik usteko ongi bizi guziko; idiki omen dio pobre garrek ataria, sartu omen da errege, ta pobregoi kasi saloik ta deus in gabe joan omen da nai duen lekura; arren irur hume zituenak, bata iges, berzea enredatzen kanpoan, ta berzea lo etzanik omen zeude, ta erregeai niork kasorik itenestiola aurkitu omen da desertuan bekala, desabriturik arrazioreki pobrain ta arren humeen deskortesias; ta egon ondoan denbora puxka bates etxideten ia etorko ote zaion kaso egitera, ez ageri ta ez ageri, ta itzuli omen da bere ondasun guzieki utzirik kexak solamente in zaion deskortesias. Non gertatu da ori, Jauna? etor baliz gure etxera, kortejatuko gindue obeki geuren pobrezas; benzait errezebimentu ta saloa egin ta ez gindue utziko instante bates familia guziak, aliketa despeizeienartaño. Ala inen zindue? Bada, inzazu ala emendik alzina, ezi orai arteo estuzu ala egin. Esta ordea etorri errege nere etxera, etorri balitz... Etorzeko asmoa badu berriz ere, baña etorri ere da anitz aldis agian, ta zureki gertatu dena kontatu dut. Entenda zazu kontua. Errege diotena da gure Jesus, zeruko ta lurreko Jauna, dagona aldareko sakramentuan. Zu zarade gizon pobre gura, ta etxola lurrekoa da zure gorputza, zeintan sartu baita utzi naiak zu beterik ondasunes ez solamente oraiko, baita sekulako biziko ere. Idiki diozu ataria, au da, agoa, errezebizeko Jaun sakramentatua; sartu da ta kasi salorik egin gabe ta kasorik, joanziña gogoas nai zinduen gauzetara, ta personas ere fite atra zina elizatik atzendurik nor den etorri zaizun arrotza. Zure irur humeak ain deskorteski portatu dire nola zu: Bata iges, berzea jostan, berzea lo; irur hume gebek dire arimaren irur potenziak: Memoria, entendamentua ta borondatea. Memoria joan da iges, zeren oroizen baizina solamente bearrestirenes, atzendurik Jesus zeure barnean zegas. Entendamentua txostan, zeren egon baizina dibertiturik pensatzen gauza batean ta berzean, ta ez Jaun andi garren honrazean. Borondatea lo, zeren ezpaituzu mogiarazi ta idatzarri afekto bear zirenetara; ta ala, gure Jauna egon da zure etxean desertuan bekala, estuzu kortejatu ongi, estiozu eman eskerrik kasi, ez konbersazio pixka bat sikiera, ez monstratu ere borondate ona, ta eskatu ere ez deus zegolaik emanaiak; ta ala, joan da disgustaturik zure errezebimentu txarras bere ondasuneki, ta zu len bezain pobre, errumes gelditu zara. Orra zer den komekatu ta ez ematea ongi graziak, ta ez baliatzea okasioas. Orra berze motibo bat, zergatik ezpaitu egiten bere efekto egin bear zuena komunioneak ariman. Ontaik arzen dut okasio emateko doktrina komekatu ondoreko. Atenzio, otoi.

2. Baña uz nazazie lenik erreprehendizera bi deskortesia iten direnak komekatu ondoan elkarri idurizen direnak: Bata da atrazea berla elizatik komekatu orduko; berzea egotea atenzio ta deboziorik gabe lanze gartan. Atrazeas ain berla diot Judas imitazeuntela, zein artu orduko Jesusek eman zion bokado gura atra ze instante, naiz gelditu bazire ere an berze apostoluak, et postquam accepisset bucellan, exivit continuo. Dire ebek nola astoak daramatenak gaiñean errelikario prezioso bat guziek adorazeuntena, baña aiek orgatik

estire deskuidatzen edatzera muturra ganbela edo ale batera arrapatzeagatik bokado bat, ia estimazen baitute ezi ez gaiñean daramaten errelikia. Ala, deskortes gebek beiratu gabe nor errezibitu duten, itzulzen diote bizkarra joateagatik jatera edo lurreko negozioetara. Ta agian daramatelaik oraño estomagoan Jaun sakramentatua, zein baitago konsumitu artaño ogiaren akzidenteak, ta ebek estomago batean fitexago, berze batean beranxago konsumitzen dire; orgatik baliz erreberenzia anitz, bearlizake egon sikiera ordu kuarto bat errezibituaskeros gure Jauna jan gabe lurreko janariorik, ez botazeko lurreko ogia zeruko ogiaren gaiñean. Erran daike alakoes, atrazen direlaik berla berla elizatik, arima on batek erran zuen txistea sazerdote sakristiatik txusenean kanpora atrazen batengatik: Soña soña bezkite ezkilak, zergatik an baitoaie aldareko sakramentua. Non? Sazerdote garren petxoan.

3. Berze deskortesia, naiz egonik elizan, da edo erabiltzea arat onat, edo egotea ain fresko, desatento ta ajolakabe, nola iretsibalute oblea pizka bat. Non dago fedea? Edo non dago juizioa? Jangoiko guzia petxoain barnean; ta ez kasorik biltzeas berebaitan? Jesus bera etorri, ta fite joan bear; ta esta kuidatzen enpleatzeas ongi instante prezioso gaiek? Santa Teresak utzi zue eskribiturik, ezi arrazio prinzipala zerengatik estiren probetxazen ia arimak komunioneas, dela zeren ezpaitire detenitzen arrotz etorri zaioten andi garreki. (Segn. Christ. instr. p.3. dite. 8. ss.17.). Etzazula utzi pasatzera egun onaren parterik txikiena, dio Espiritu Sanduak, particula boni diei non te praetereat. Egundona da komunioneke eguna proprioki, ta egungarren zatittorik preziosoena da komekatu ta dagon bitarte gure Jauna geuren barnean. Orduan da ordua, noiz lograbaitzeakegu sekulako bizitzaren grazia. Estakit ordea zer egin denbora gartan, Jauna. Lograbazindeza errege Españakoa dagon zure etxean kuarto ordu bates, aurki zindezake zer egin. Eman ongi etorria ta eskerrak, humillatu zeure burua, monstratu amorioa, deitu familia guzia ta kortejatu errege Jauna. Ofrezitu guzia berain zerbitzura; proponitu fidelidadea ta eskatu bere grazia ta eskua. Bada, ala Jaun sakramentatuareki: Ikasazu orai modua.

4. Errezibitu orduko forma sagratuan Jaun andia, erretiratu ta ertxirik begiak, geldia geldia zaudelaik, biztu fedea sinesta zeunzulaik bizi dagola errealki Jesus zurebaitan. Eman ongietorria agasajo andiareki; agradezitu borondateas fineza bat ain inkomparablea; ponderatu zeure indignidadea ta nola etzinduen mereji alakorik; erakutsi amorio ta ongina andia zeure ongigille dibino garri; deitu potentzia ta sentido guziak jaun arren alzinera; adonatu guzieki guzien errege sumoa; konfesatu zertan faltatu duen bakotxak berain zerbitzuan ta eskatu barkazio; ofrezitu guziak berain manura nai duen gisan; proponitu obekiago zerbitzazea falta zaizun biziain denboran, ta espezialki aldioro eman itz firmea emendazeko gauza berex batean, zeintan faltatu duzun ia; ta gero eskatu bere grazia efikaza biziguziko ta ondoreko gloria; enpeñatu, alaber, Ama Birjina, ta aingiru goardakoa, ta sandu debozioskoak, ta en fin, eskaturik bere bedeizioa joan etxera. Baut uste ala iten duelaik joaten zaiola aisa kuarto erdia ta kuartoa ere. Solamente inik estaudenei errekojitzera gogo, kostako zaiote ia trabaju; baña ez anitz anitz: In ajola, paratu dilijenzia, erresisti prinzipioan gogo ta pensamentu ibildariari. Biz en fin borondate ona, ta guzia lograzen da gutibana. Erraintut zenbait afekto, zein arioren bere biotzean mintza dezoketen Jaun sakramentatuai itzik gabe, gogoas solamente.

5. Posible da etorri dela nere gana ta dagola nere barnean Jesus bera errealki? Ain zierto da nola Jangoikoaren itza. Aski da berak baitio. Sinestazen dut dagola nere baitan Ama Birjinain sabelean egon zena. Ongi etor dela, bada, Jesus maitagarria, nere Aita dibinoa. Nor da ori bekalakorik Jaun ta Jangoiko andia, guzien goienean dagolaik

beirazen baititu bere txikittoak zeruan ta lurrean? Esker milla milla in didan mertxedeas, ezpaitezaket paga sekula. Ene partes agradezi bezote sanduek ta aingiruek, ta bere Ama Santisimak, ta aieki bateo nik nere fakultade guzieki nainioke korresponditu. Baña guzis pobrea naiz, borondate ta afektoa admiti bez. Ojala baleude nere eskuan mundukoen biotz guziak ekartzeko loturik orren amorioain kateas onara honrazera ta bedeikatzer berori. Bedeikatua biz ta alabatua guzietaik orai ta beti, nere Jesus ona. Bedeika bezate nere arima ta zain guziek alako ongigille dibinoa. Nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea enegana Jesus berori, izanik Jangoiko andia ta ni txinurri bat txarra? Berori neregana? Nondik mereji nue nik ainberzeko ditxa? mereji nue bota nindezan infernura neure ofensa ainberze inikakoengatik, ta orai datorkela berori eskergaiz gonengana? Nik estiot in zerbitzu protxuskoik; naiz guzis inutila ta txarra; zer espera dezake enegandik baizik txarkeria? Alaere dignatu da sarzera traidore gonon baitan! Bada, ia ke ta ala nai duen, ar bez posesio nitas ta neure arima, gorputz, potentzia ta sentido guzies, orrenak baitire mila titulos. Lotu gaiza guziok bere borondateareki, ta ezkaizala utzi apartazera puntu bat sikiera sekula guzian. Amen.

6. Zatoste, zatoste nere potentzia ta sentido guziok Jaunonen presenziara, humillazaiste emen ta korteja, honra, ta adora zazie gure guzien Jauna: Zuk nere memoria, oroitus Jaunones ta intigun benefizioes; zuk entendamentua, pensatus jaun onen baitan solamente, ta Jaunonen gustoko gauzetan; zuk borondatea, onetsis Jaunau ta Jaunonengatik manazen duen guzia; zuk nere biotza, ez admititus deus baizik Jaunonen agradokoa dena; zuek nere eskuak, estuzie in bear akzionerik kuadragnetzaionik; zuek nere oñak, estuzie eman bear pausurik ezpada onerako; zuek nere begiak, ez beiratu baizik nola ta zer nai duen beronek; zuek nere bearriak, ez aitu baizik nai duena ai dezazien; zuek nere agoa ta usma, ez gustatu ta sentitu deus Jaunonen borondatearen kontra; zuk nere mia, solamente mogitu beauzu explikazeko Jaunonen alabanzak ta beronen gloriarako diren itzak; zuk nere gorputza, egon beauzu sujeto ta obediente Jaunonen legera; eta zuk nere arima, guziok gobernatu beartuzu Jaunonen zerbitzuko. Ni naizen guzia orrena naiz, ta orrendako orai ta beti, Jaun andia; ta barin banoaie kontra, gaizki inen dut, ta oraidanik errebokazen ta anulazen dut betikos, ez dezan balia orren kontra in, pensatu, erran ta desea dezatenik batere batere. Eta orai arteo inikako ofenses damuturik nago barkazio eske. Nere arimak konfesazen du orren oiñetan estela izan fiel orrengana bear bekala; barka bezo, Jesus ona, otoi. Nere memoriak konfesazen du atzendu dela sobra ortas, ta oroitu dela sobra bearrestirenes; barka bezo, Jesus ona, otoi. Nere entendamentuak admititutu pensamentu gaistoak sobra aldis; barka bezo, Jesus ona, otoi. Nere borondateak deseatu, nai izan, ta ez ere du orren borondateain kontra; barka bezo, Jesus ona, otoi. Nere eskuek ez obratu orren zerbitzuko gauzarik ta indute anitz akzione gaisto; barka bezote, Jesus ona, otoi. Nere oiñak erabili dire bear etziren pausuetan; barka bezote, Jesus ona, otoi. Nere begiek, bearriek, usmak, agoak, miak ta mienbro guziek exzesu ta falta anitz indute malamente; barka bezote, Jeus ona, otoi. Neurau konfesatzen naiz desleal ta ingrato izandu naizela; barka bezada, Jesus ona, otoi, ta emendik alzina enpleatuko naiz obeki berorren zerbitzuan potentzia ta sentido guzieki; ta espezialki goartuko naiz ontan ta ontan, zeintan baitaki ofenditu dela asko aldis. Noiz asi bear dut, Jauna, nik on izaten? Alako alimentuareki atzinaikela gaisto? Dezaketela ofendi jaun bat ain ona? Ezdezala permiti, otoi.

7. Baña ez naiz fio, ta estaike fia enebaitan. Orrek, orrek, Jauna, in bear du nereki bere milagroetaik bat. Senda bez nere arima eria, enfrena bez nere aragiaren inklinazio

gaistoa, sujeta bezki nere pasione guziak, ez dezaten nai baizik orrek nai duena. In benaza berorren biotzaren konforme, ez nadien bizi ta ez nadien il baizik orrengatik. O banitz orren nirabe fieletaik bat ni ere! Orrek in nazake ta in bear nau; ta eznau utziko gal nai, baizik salbatuko nau ta emain dida leku naiz azkena bere sierboen konpañian glorian. In bez grazia gau nereki bere ontasun soillagatik, bere odol prezioso ixuri zuenagatik, bere fabore iten didan gonengatik komunionean. O Maria Jangoikoaren Ama ta gure abogada, nik ofrezizen diot bere Seme dibinoaren komunione gau, berorrek bere sabel Birjinalan iduki zuenagatik bedrazi ilabetes. Orrek dignoki, nik indignoki, baña berbera logratu dut izatea. Enpeña bedi, otoi, komunika dezadan anitz grazia bizi nadien ta il nadien Jangoikoaren zerbitzuan. O nere aingiru goardakoa, emanbezkiore nere partes eskerrak Jangoikoari in didan mertxede gontas, ta goarda benaza bizi nadien ta il nadien Jaun beronen gustora guzis. O zeruko sanduak ta sandak, alaba bezate neregatik Jangoikoa iten didan benefizioas, ta eman bezkiote graziak nere partes, ta logra bezate bizi ta il nadien alako maneran, ezi ellega nai oien konpañiara glorian. Orren eskuetan Jauna usten naiz guzia, bego beti nereki, ez nazala utzi apartazera orrenganik sekula. Bida otoi bere bedeizioa.

8. Gisaontan edo ario gontara emanik graziak komunione ondorean, enpleatuko da denbora sufizientea ta joan gero; ta egunes, alaber, noizean noiz in memoria benefizio errezibituas; ala baut uste eginen dutela fruitu komunioneek ariman, joan direla ondus persona, pegatus Kristoren kondizioetaik zerbait, aumentatus grazia ta birtuteak, lograzeko medio gortas salbazioa. In ala zeuren onagatik; ta orai fede, esperanza ta etc.

Serm. 97.

De frequentia communionis.

ann. 1781

Accipite et comedite,

hoc est corpus meum. Math. 26. v. 26.

1. Erranik ia nola bear den komekatu, goazen erratera noiz bear den. Nola bear den komekatu, da eukaristiaren dignidadeagatik; noiz bear den, da arren uso ta utilidadeagatik. Eta ontan ere sakramentu gonek darama berzeei abantalla, izatean diot, ia usual edo iagotan errezi bi daiken konfesioareki berzeak baño. Zerengatik bataioa, konfirmazioa ta orden bakotxa solamente bein errezi bi dezake batek bizi guzian; oliadura ta matrimonioa bein baiño iagotan errezi bi daike, baiña ez anitz anitz aldiz gizonain bizi laburrean, zerengatik oliadurain errepetizekos bear da izan biziaren peligro berria, ta errepetizekos matrimonioa, il bear du lengo konsorteak. Baiña konfesioa ta komunioea errepeti daizke ta errepetizen dire anitz ia ta ia aldiz bizian. Kristo gure Jaunak etzue expresoki deklaratu noiz komekatu bear duen kristioak; utzi zue Elizaren disposizioa denborain tasa edo neurria; berak solamente erran zue jan gindezala bere gorputza, accipite et comedite, hoc est corpus meum, diones San Mateok, ta konformeki kontazeunte San Lukasek, San Markosek ta San Pablok; ta añaditu zue San Juanek erran zuela Jesu Kristok: Amen amen dico vobis, nisi manducaveritis carnem filii hominis, et biberitis eius sanguinem, non habebitis vitam in vobis. Zier to, bai, ziertoki erraten diziet ezi ezpaduzie jaten Birjinaren Semearen gorputz prezioa ta edaten arren odol prezioa, estuzie izain bizitza zeuren baitan. Itz gebetan adiarazi zue ain nezesario dela arimain bizitzaindako komunioea, nola gorputzarenaindako alimentu korporala; baiña ontai k estaike atra konsekenzia, egunoro komekatu bear dela, nola egunoro arzen baita gorputzaren sustentua, zerengatik komunioe soil batek ia bizkorzen du arima, asko ta asko otronzee k baño gorputza; por konsigiente, etzue manifestatu expresoki noiz komekatu bear den, solamente dago errezi biturik Elizan prezepto dibinoa bekala komekatzea eriotzeko peligroan, zerengatik, nioiz izatekos, orduan da, noiz baitu ainberze peligro arimak (Lorrage de necesit. eucharistiae). Gañarakoan estai kelaik bat libratu erorzetik mortaleetan ta obetu ariman baizik komekatus, arrazio naturalak erakusten du dagola obligaturik komekatzera bere arimain biziagatik. Nezesidade ertxi gebetas landara utzi zue Elizain eskuan obligatzea fi elak zer denboretan iduri zekion ongi.

2. Kristiandadeain prinzipioan obligazen zitue Elizak komekatzera usuago, gero argalago ta orai azkenik argalenik; ta ario gontara joan da epeldus kristioen karidadea, debozioa ta birtutea. Konparaziotako eldu da ongi ontara Nabukodonosorek lotan ikusi zuen estatua gura: Burua zue urreskoa, petxoa zillarreskoa, azpiak bronzeskoak, zangoak parte burriñaskoak, parte lureskoak. Apostoluen denboran mantenitu ze firme egunoroko komunioeain kostunbrea: Erant perseverantes in communicatione fractionis panis (Act. 2). Baiña iduriturik zoeiela zerbait autxis kostunbre gau, San Anakleto borzgarren Aita Sanduak Pedros geros berri tu zue parte dekreto fuerte garreki: Peractâ consecratione omnes communicent, sagra in ondorean komekabeites guziok, ezpau te nai ertxidakizkioten elizako atariak, ezi ala ordenatu zute apostoluek ta ala dauka Erromako Eliza Sandak. Iraun du zue kostunbre gonek denbora zati on bates. Etzaize iduri au buru bat urreskoa?

Baña segizen da petxo zillarreskoa. San Basiliok dio bere denboran usazen zutela fielek komekatzea laur aldis asteoro: Igandean, asteazkenean, orzilarean ta larunbatean. Segitzen da zintura ta azpiak bronzeskoak. San Agustinek dio bere denboran zenbaitek usazen zutela komekatzea igandeoro, ta orren memorian ematen dela orai igandeetan ogi bedeikatua dio San Eutxeriok (V. 20. c.16. de sacr. euch.). Baita ere dio Katezismo Romanoak akostunbratu zela zerbait denboras elizan itzulzea sazerdotea aldaretik puebloagana aurpegis ta erratea: Atoste fielak komunionea, ta orduan komekazen zirela prebeniturik zeudenak. Baña guziareki ikusirik erresfriatu zela debozioa ainberze ezi ia gutitan komekazen baizire, San Fabian Aita Sanduak manatu zue prezisoki komeka zeielu mundu kristio guzia gutienean irur aldis urtean, irur Bazkotan: Garizumakoetan, maiatzekoetan ta egerrietan. Baña gure denborako gelditu da burriñasko ta lurreko zatia, zerengatik ikusirik Elizak etzirela ia obserbazen lengo mandamentuak komekatzeain gain, etzeizengatik montiatu bekatuak desobeditus Elizari, komekatu-faltas denbora seinalatu gaietan, erreduzitu zue mandamentua Inozenzio irugarrena zelarik Aita Sandu Letrango Konzilio jenerale andian, komekatzeko kristio guzia a lo menos Bazkoa garizumakoetan, sopena ez usteko sarzera elizan bizidenbitartaño, ta il ondoan ez orzizeko eliza lurrean faltazen duena komunione gortara. Ta estado gontan dirau Elizako mandamentu gonek ia sei egun urte gebetan. Eta nai dut adbertitu emen, estela kunplizen Elizaren mandamentuareki gaizki komekatus, deklaratu zuen bekala Inozenzio XI (Prop. 55), eta ala diolaik Elizako mandamentuetan: Irugarrena, Bazkoa garizumakoetan komekatzea, entendatu bear da, ongi komekatzean.

3. Estitu obligatzen mandamentu gonek aurrak diskrezio sufizientea estutenak orañik ezaunzeko sakramentu gonon diferenzia munduko janarioetaik ta errezeibizeko bear den piedade, reberenzia ta debozioreki; ezi izanik lengo denboretan zenbait lekutan kostunbre komekatzeko aurrak, Elizak berak justoki kendu du kostunbregoi (zenbat aur doktrinabaleites etc.); esta ere eroak ta juizio gabeak ere estaizke komekatu, txoil ezpada eriotzeko peligroan, eman bazute sano zeudelaik monstra errezeibizeko komunionea, ta aun orduan solamente daizke komekatu estelaik irreberenzia in peligrorik (Cath. Rom. hic.). Gañarako fiel guziak obligazentu eriotzeko peligroas landara Bazkoa garizumakoetan a lo menos, eta orduan komekatzeareki ongi kunplitu dute obligazioa. Baña orai eldu da debozioa, obligaziorik gabe komekatzeko maiz, zein baita konforme Kristoren intenzioareki, Elizaren deseoei, Aita Sanduen ta doktoeen konsejueki, ta arima beren nezesidade ta utilidadeareki. Goazen probatus alde guzietaik. Lenik Kristoren aldetik.

4. Deseos deseatu dut arzea otronze gau zueki, erran ziote apostoluei Kristok; akaso ordukoaingatik solamente? Baitare usteagatik betiko patente bere mai erreala, ta eskunara guziendako ogi bizi dibino gau, baita bere gorputz preziosoa. Ta orgatik ere autatu zue materiatako ogi ardoa, baitire alimentu komunena. Bazuke egin urre edo diamante urtu edo errauts itzulietatik sakramentu gau, baña etzeien nior exkusa konsagrazeas edo komekatzeas maiz, izanes eskas edo txur materia gura, paratu zue ogian ta ardoan, baitire usualak, konsagra daizen noiznai, ta komeka daien nai duen guzia. Utzi zue, alaber, kosturik gabe otronze miragarri gau: Venite et emite absque argento, zatoste, ar zazie dirurik gabe, aski da arima garbia. Ezaun daike Kristoren deseoa komeka gaizen maiz, izan zuen finagatik ere ta erran zituen itzengatik: Ni etorri naiz, zio, izan dezaten bizia, ta abastoki orde (Joann. 10). Ortako egin ze sakramentu gontan bera bizitzaren alimentu; ni naiz, zio, bizitzaren ogia ta ogi bizia, jaten duenak ogi gau izain du bizitza sekulakoa; eta ia ere erran zue, ezi ezpagindue jaten bere gorputz preziosoa, ezkinduela

izain bizizarik geuren baitan (Joann. 6); beras, nai zue errezihi gindezan ain maiz, nola preziso den alimentua konserbatzeko arimain bizitza. Orgatik ere afari andi garren parabola gartan, zein baize onen figura, biali zue mutila deizera konbidatuak zetozi; ta exkusatu zirelaik aiek, bial duzue berriz karrika ta plazaetara, ta ekar zezkiela aurkizen zituen pobre, mangi, itsu ta lazerioso guziak. Ta izanik orañik leku maiean, igorri zue berriz bide ta kanpoetara sarrarazi zezkiela guziak beteartano bere etxea (Luc. 14). Zer da au, baizik adiarazi naia duen deseo datozin ia ta ia komekatzera bere fielak, goseak ta miseries beteak dabilzanak, erremediatzeko guziak. En fin, egotea bera sakramentu gontan perenne dago konbidatzen. Aur ibildari ta pausuoro erorka dabilana ezin ekarrarazis bere gana amak, ekarrarasteko zer iten du? erakusten dio bularra, ofrezizen dio esnea. Ala, Kristo gure Jauna presentazea ain franko sakramentuan zer da baizik erakustea bere bularreko amorioain deliziak ta konbidatzea guziok itzaieki: Venite ad me omnes qui laboratis, et onerati estis, et ego reficiam vos, zatoste ene gana neketan zausten guziok ta nik errekreitu ta erregalatukozaistet. Alzinaturik bera ematera, konbidazen du pobrea errezihitza. Etzue Zakeok iganik arbola batera pretendizen ia, baizik ikustea Jesus pasazerakoan andik; ta Jaun onegiak erraten dio: jautsi zaite fite Zakeo, ezi zure etxean egon nai dut nik egun. Monstratudu deseo gau milagroen medios ere eukaristian; Jangoikoak berak abisatu zue Berzelasko obispoa zoeiela ematera komekadura San Ambrosiori eri zegolaik. San Ramon, San Estanislao Kostka ta berze anitzei igorri zizkiote aingiruak komekatzeko, sazerdoteik ez izanes. San Buenabenturai meza enzuten zegolaik ta ezin atrebis komekatzera, hostia sandatik zatitto bat partiturik joan zizaio agora Jesusen borondates. B. Simoni, zeren ustekabetzean eroririk lurrean hostia, uste zuen ezipide zuela nai sartu arren baitan, hostia bera goraturik bere kabo sartu zizaio agoan. Aur bat, Imelda deizen zena, etzutena usten komekatzera adin gutis, zego beirutzen komekatzen berzeak ta ansias beterik komekatu naiak ura ere. Gure Jaunak kunplitu zio deseo milagrosoki, zerengatik hostia sanda bera bolatu ze sazerdoteain eskuetaik, ta argia zeriola joan ze ta jarri ze aurtto garren buruain gainean. Au ikusirik sazerdoteak komekatu zue lenbiziko ta azken aldian orduan, zerengatik auroi itxekirik amorioain suan amorioain utses ilze an berean, ta erman zue Jaunak zerura gozarastera agerrian deseatu zuena estalirik sakramentuan (Ribad. Claus. Segneri). Biz pureza, biz gose ona gure partetik, ezi Jaun sakramentatuak nai du gogotik sartu arimetan anitz ta anitz aldis.

5. Eliza Ama Sandaren deseo da berbera, ta ezipadu ere manazen komekatzea obligazios baizik bein urtean, ori da estaizengatik egin sakrilejioak komekarazis iagotan, ellegazen balire bortxas arima gaistoak; baiña manatzean berean ezaun da duen deseo komeka daizen iagotan fiel debotoak, zerengatik ezin berzeas bekala dio: Komekabeites sikiera Bazkoan, a lo menos bein urtean. Ala, ama batek nailiokelaik arrarazi hume eriai alimentua ta medizina eman bear diona bizia, ezipadezake arrarazi ia, erraten dio: Arzazu sikiera bokadotto gau, a lo menos urrupatto gau, nere humea. Baña ia ere ar lezaken nailuke amak. Iago aldis komekarasten zitue len, baiña ikusirik kristioen pereza ta desgana, mila ta ia urteen buruan erreduzitu da Eliza manatzera komunionea Bazkoan sikiera urteoro, ia ke ta ez dezaken logra ia hume malderretaik. Eta azken Konzilio Jeneralean, Trenton, mostratu zue Eliza Ama Sandak duen deseo bizia orai ere ainberze nola apostoluen denboran, ziolaik (22 Sess. 6 capº): Nailuke gogotik Konzilio Sanduak komeka leizen ez solamente espiritualki, baita ere errealki, meza guzietan kristio fiel guziak asistizeuntenak, logradezatengatik abastoago meza sandutik datozin fruituak. Eta iaketa au estaiken logra, exhortazen, errogazen ta eskazen diote kristio guziei

Jangoikoaren miseriakordien entrañengatik sinestadezkitela ain fede firmeareki, ta beneradezkitela ain biotzesko debozio onareki Jesusen gorputz odol sagratuen misterio gebek, ezi izan daizen digno errezibitzeko maiz egunorosko ogi sobresubstanzialegoi; desuerte ezi egiareki izan dakioten arimaren bizitza ta sanidadea, zein birtutes ellega daizken peregrinazio gontaik zeruko patriara jatera belorik ta estalkirik gabe aingiruen ogi berbera, orai jaten dutena akzidenteen belo sagratues estalirik (Sess. 13. c.8). Zer ia erran bear zue Eliza Ama Sandak mostrazeko duen desoea errezibi dezaten maiz bere hume kristioek komunione sanda?

6. Konforme dire Aita Sanduen ta Elizako doktoreen intenzioak, beti supositurik arimaren disposizio korrespondiente. San Juan Krisostomok dio, errenditus Bazkotan edo berze alako jai berex batean ellegazen zirenak ia erreparorik gabe, solamente zergatik den Bazkoa: Ala nola kulparik estuena ongi baita ellega daien egunoro, ala bekatus betea esta ongi jai andietan ere ellegatzea, zerengatik urtean bein ellegazeak ezkaitu exkusaten; baldin indignoki ellegatzen bagara, antes bien da gure kondenazio iagotako, ezi bein solamente joanik, orduan ere ezpaikoaz ongi disponiturik (S. de S. Philo). Eta berriz: Garizuma ta abenduko denborak ezkaitu iten digno komekatzeko, baizik arimaren purezak; oneki beti ellega, au gabe beñere ez (H. 61 ad pop. Antioch.). Eta berriz: Estakizu ezi komekatzeak indignoki, ezpada ere baizik bein, galzen zaituela? Eta dignoki anitz aldis komekatzeak emain dizula osasuna? Esta atrebimentu komekatzea anitz aldis, baizik indignoki komekatzea naiz ezpada baizik bein. Kristo gurzifikatu zutenek ere, bein gurzifikatu zute. Esta au neurtu bear denbora luzeas edo laburras, baizik konzienziaren garbitasunas; au delaik, beti da bazkoa (H. 5 in ep. 1. Corinth.). Eta berriz: Zein idurizaizkigu, bada, obeki? Edo komekazen direnak bein, edo anitz aldis komekazen direnak, edo guti aldis? Esta bein komekazen direnak, estare anitz edo guti aldis, baizik konzienzia garbiareki ta biotz onareki komekazen direnak; ebek betoz beti, alakoak estirenak esta bein ere (H. 17 Haebreor.). San Anbrozio dio: Kristoren odol prezioso barin bada garbitzeko arima, beti errezibitu bear dut, beti barkadezkitangatik bekatuak; beti bekatu egiten nagolaik, beti errezibitu bear dut erremedioa. Eta berriz dio: Egunorosko ogia barin bada, zergatik errezibitzeunzu urtetik urtera? (L. 5. de sacramentis.). Au berau errepitzen du San Agustinek, ta añaizen du: bizi zaite alako maneran, ezi mereji dezazun errezibitzea egunoro (S. 28 de V. D.); eta en fin, dio sandu gonek: Egunoro komekatzea estut alabazen, esta ere errenditzen; igandeoro komekatzea akonsejazen dut, baldin arima barin badago bekatuain afektorik gabe (1. de Eccl. Dogm. c.53). Baña diradelaik ain diferente estadoak, bazuk erreljioso, berzebazuk sazerdote, berzebazuk ezkondu, berzebazuk libre, nork neurtu dezake guziendako tasa justo bat? Ori solamente dezake konfesoarek ikusirik bakotxain konzienzia. Solamente dion bekala Basileako Konzilioak: Doktore katoliko guziek alabazen, eskatzen ta akonsejazeunte guziei ellegatzea komekatzera dignoki ta debotoki maiz, gauza probetxoso ta nezesarioa bekala (Segner. Christian. instr. p.3. disc. 9). Aizagun guzien gaitetik San Franzisko de Sales azken jendamentean bizi zena, baitio ala: erraten baizute mundukoek zergatik komekatzen zaren ain maiz, erresponda zozute ezi ikasteagatik maitazen Jangoikoa, garbitzeagatik zeure imperfekzioneetaik, librazagatik zeure miserietaik, konsolatzeagatik zeure aflikzioetan ta indar arzeagatik zeure flakezen kontra. Erran zozute bi persona jenerok beutela komekatu maiz: Perfektoek, zerengatik egonaskeros ongi disponiturik inen bailukete gaizki, ezpaliz ellegatzen perfekzioaren iturrira; eta imperfektoek, ikasteko ongi perfekzionea. Fuerte direnek, estaizengatik itzuli flako ta flakoek, indaizengatik fuerte; eriek, sendaizengatik

ta sanoek, estaizengatik eritu (Introd. ad vit. devot. p.2. c.21). Zer klaroago erran daike?

7. Erregla bat ona persona gutartekoendako, estaien gal erreberenzia sobra usus, ta estaien gal fruitua ta ferborea sobra argales, dirudi dela komekatzea iloro iloro, nola estaien in zeremonias ta nolanai, baizik ajola ta dilijenziareki prestatu berri berritan aldioro, konfesatus dolore berriareki ta emendatus zerbait berere batetik berzera; ala konserba daike grazia ta debozioa bizi guzian, ezperen luzazen bada anitz konfesatzea ta komekatzea, doaie lokartus konzienzia, gutitus ajola, ilundus entendamentua, gogortus biotza, natural bekala itzulis bizioa ta kostunbre gaistoa, ta por konsigiente, fabrikatus perdizioaren soka deabruain atzean sentitu gabe nola. Orgatik alakoeek murmurazeunte komekatzen direnes, ala nola katean dagon zakurrak aunka iten baitu pasazen direnei bere bide txuxenas, baña esta in bear kasorik; pasa alzina, ez detenitu, ez dezakete in ozkarik baizik arrimazen zaiotenai. Orgatik alakoeek diote ezi aun urteain buruan ere estutela apenas aurkitzen zer konfesatu. Ia se bee, itsuturik barin badaude, nola erreparatukoute? Barin bada konzienzia ain zabal nola ostatu publikoain ataria edozein sarzen dela, esta milagro sar dakioten kontrabandoa erreparatu gabe. Estiote iten nobedaderik bekatuen usaiak, beti daukatelaik etxe barnean inik baitaude ortara; senti lezakete kanpotik sarzen direnek. Atrabeites guti bat kanpora beirazeko zerura, ilarrosi bezate konzienzia errejistratus ongi maliziaren efektoak, konfesabeites humilki ta asibeites gustazen Jangoikoaren gauzak, ta espezialki komunionea; erregular da muda daitzen kondizios gutibana. Eta ala ikusten da experiencias, direla gaistoenak argal konfesa-komekazen direnak ta obenak maiz konfesa-komekatzen direnak; aiek, diot, zein ez zeremonias, kostunbres ta berzeak ikusis, baizik errealki ondu naies konfesa-komekatzen baitire ongi. Ah Jauna, agiz garbi bear du izan komekatzekos maiz. Diot baietz, baña au da modua garbizeko: Konfesa-komekatzea; ta ezpada trebe komekatzera, benzait konfesatu. Ala diona dago akaso ellegatu gabe sakramentu gebetara garbitu naies ia? Estakit ez ote den, garbi bear delako eskusareki, apartazen iturriebetaik, zeren kuadrazen zaion bere zikintasuna; ezi dakiguna da gutitan garbitzen dena zikinago egoin dela erregulariki, maiz garbitzen dena baño. Geldi geldia usten dena bere loiean aisago lokartuko da ezi ez idazarzen dena ia konfessoreain itzes, ia komunioneain atenzios. Estadiela urbil enegana bainaiz gizon bekataria, zio San Pedrok. Recede â me, quia homo peccator sum, ez naiz digno sar dadien berori nere etxean, zio zenturionak; ta bitarteo ezeizke apartatu, ezeizke aurki jaunau gabe; ala gure apartazea komunietik solamente humildades izan daike ongi noizbait, baña bitarteo ezkarrelaik komekatzen, biz ansia ta memoria, baña obena da komekatzea maiz humilki, etc. Fede, esperanza, karidadeain.

Serm. 98.

De gratitudine perpetua
et communione spirituali

Benedic anima mea Domino,
et noli oblivisci omnes retributiones eius. 102.

1. Erranik ia zein konbeniente den maiz komekatzea, segitzen da komekazen dena baitan agradezimentu kontinua. Mertextedeginak nai du korrespondenzia, ta maiz egiten denak ia korrespondenzia. Benedic anima mea Domino, zio Dabidek, ene anima, bedeika ta lauda zazu Jangoikoa, et noli oblivisci omnes retributiones eius, ta etzaitela atzen berain emateas ta ematera itzulzeas. Ori nai du erran itz garrek, retributiones, berriz ta berriz ematea. Esta Jangoikoa kontent bein emateas, beti ai da eman ta eman mertexteada mertexteain gain; bada, zu ere, ene arima, etzaitela atzen alako emateas ta alako emanzealeas. Ongi eldu da au maiz komekatzendena indako, ezi bein komekatzeak obligazen badu izatera agradezitua, zeren eman baizaio, ez gutiago, baizik Jangoikoa. Maiz komekatzeak zenbat ia obligatuko du? Bizi guzia guti da agradezizeko komunione bat soillik, bada, iletik ilera komekazen denak esta anitz enplea dezan il bakotxa grazia ematen. Baña estut ia eskatzen, baizik komunietik komuniera doaien denbora enplea daien ematen graziak, ta ala bizi guzian, ta au izain da bateo agradezitzea lengo komunionea, ta bateo prestazea urregorako, ta au izain da mundu ontan imitazea zerukoan bizitza albas, ezi an beti daude honrazen, gozaen ta bedeikatzen Jesu Kristo agerrian ikusteuntena, ta emen beaute egon fielek honrazen, gozaen ta bedeikatzen Jesu Kristo bera estalian daukatena.

2. Baña nola? Nola? Ortara noaie orai. Ez naiz kontentazen emandezkioten graziak solamente komekatu ta berlako denbora guti gartan, gero atzenzen badire. Ori lizake ala nola konbidatu balitu erregek bere maiera pobrettobazuk; ebek bazkaldu ondoan, postrean erran baliote: Esker milla errege Jauna, ta andik atra orduko atzenbaleites in zioten faborees. Ez, ala ez fielak; beti beti bizi guzian agradezitu bear da. Ez naiz ere kontentazen honrazeas solamente komuniekoko egunean Jangoikoa akuditus elizara, erretiratus, errezatus. Ori lizake ala nola baletor errege gure etxera, akonpañatzea gero bere palaziora, pasatzea an eguna, ta gero gauonak emanta joan ta ez oroizea ia baden ere erregeik. Ez ala, fielak; egun gura ta berze guziak segido enpleatu bear dire alako moduan, ezi ezaundaien nolako Jauna errezibitu dugun ta nola agradezimentua diogun: Memorias oroitus Jaun andi garren fineza amorosoas gure alde; entendamentuas pensatus zein ongi ta nobleki portazen den txar gebeki Jangoiko andia; ta borondateas onetsis ta maitatus alako ongigille inkonparablea, ta por konsigiente, tiratus zenbait amoriosko fletxa, edo zerurat, edo sakramentuagana; batzutan diola: Ah, zein ona den nereki nere Jesus maitea! Berzebazutan: Ah, baneki agradezizen sikiera nik! Ez al dut ofendituko sekula! Berzebazueta: Biz bedeikatua nere Jesus ona, maite dut ta nai dut maita dezaten zeruko ta munduko guziek; al banezake maitatu nik bere Ama Santisimak bekala; ar bez Jauna nere biotzau ta maita bedi oneki, berorrek nai duen bekala etc.

3. Berze modu bat komunione batetik berzera enpleazeko ongi denbora, ta bidanabar agradezizeko lengoa ta disponizeko urbilenekora, ta bitarteo gorazeko komunionearen fruituak kontino, da komekatzea espiritualki maiz maiz. Zer da

komekatzea espiritualki edo komunione espirituala? erakutsiko digu Trentoko Konzilio sanduak (S. 13. c.8). Irur komunione jenero distingizentu Konzilioak: Komunione sakramentale ta espiritualea batean, komunione sakramentala solamente ta komunione espirituala solamente. Berzegisas, irur modus komeka daike bat: komeka daike sakramental ta espiritualki batean, komeka daike sakramentalki solamente ta komeka daike espiritualki solamente. Komunione sakramental ta espirituala batean edo komekatzea sakramental ta espiritualki bateo, da errezibitzea ongi disponiturik sakramentua errealki, ta arren grazia ta efektoa ere bai; au da modurik obrena. Komunione sakramentale soilla edo komekatzea sakramentalki solamente, da gaizki disponiturik errezibitzea sakramentua zakur batek bekala, baña ez arren grazia ta efektorik; ta au da modu gaistoa. Irugarren modua da komunione espirituale soilla edo komekatzea espiritualki solamente, au da, estelarik errealki errezibitzen sakramentua, baizik solamente fede ta amorio biziaren medios deseatzten ta ansiazen baita errezibitzea, ta deseos suplizen dela albas komunione errealarren falta; au deizen da komunione espirituala edo deseoskoa; ta gisaontan komeka daike bat, nai badu, instanteoro ta nonnai: Elizan, etxean, kanpoan, karzelean, ta en fin, nonnai; zerengatik konzienzia ona duelaik, zerk estorba dezoke oroitzea nonnai ta noiznai Jaun sakramentatuas, ta bizturik fedea ta karidadea beregana konzebitzea biotzean deseo ta ansia bat komekatzeko ta ekartzeko Jaunura bere barnera? Bada, au soillik da komekatzea espiritualki, ta lograzeko modua sakramentuain fruitua ta probetxua. Orai, bada, diotena da ezi ala komekatzea espiritualki maiz maiz, dela modu on bat emateko graziak komunione erreal errezibitutas ta disponizeko urrengo komunionea. Paratuko dut exenplua: Noiznai daike, baña okasiorik obrena da mezakoan, komekatzen delaik sazerdotea. Konsiderazeunzu presente an Jesus bera ta sinesta zeunzu biziro ta firmeki; ta ontaik mogitzen da zure biotza maitazera jaun bat ain ona ta ongigillea; ta konzebitzeunzu zeure baitan deseo fin bat ekartzeko zure barnera ta sarzeko zeure biotzean Jaun gura estuzuna errezibitzen errealki orduan; bada, fede ta amorio gorreki deseogoi deizen da komunione espirituala; ta sazerdotea komekatu delaik errealki hostia sanda errezibitus, zu komekatu zara espiritualki, au da, deseos. Entendatu ote didate? Ara forman: nai dut orai berean komekatu espiritualki nik, bada, diot: O Jauna, sinestazen dut firmeki, dagola aldareko sakramentuan erregalazeko gure arimak; nor estu maitatuko berori nai gaituelai ainberze gu? Maite dut nik nere biotz guzias. Ojala balu gusto sarzeas nere ariman! Ojala banitz ni orren agradokoa sanduak bekala! Ona Jauna, nere arimau ta biotzau orrendako, betor Jauna, sar bedi, ar bez posesio nitas, berea nauen bekala. Nainuke errezibitu errealki. Orra inik komunione espirituala. Ario gontara zuk ta berzeak ta edozeiñek in dezakete noiznai, esta bear itzik, aski da konzienzia ta deseo ona. Ala erakutsirik bere konfesoreak, egiten zue B. Juana de la Kruz deizen zen venerable garrek, ta ain maiz ezi bizi guzia ze komunione bat espirituala kontinuatua, ta kuadrazen zizaiola Jangoikoai, agertu ze anitz aldis milagroeki ere. Bein zegolaik elizatik kanpoan, aiturik txintxo gorazeko gure Jauna, jarri belauriko bere deseo ansioso gaieki, idiki zizaio par en par elizako paretea ikusi zezan deseazen zuen Jaun sakramentatua, ta ertxi ze gero gelditurik idikiaren señalear memoriatako. Eta berze aldi bates errebelatu zio Jaun berak ezi espiritualki komekatzen zen guzietan errezibitzen zuela ainberze grazia, nola komekatu baliz errealki. Eta Santa Jertrudisi, alaber, aldi bates etzeikelaik komekatu errealki berze monjaeki, zegolaik deseatzten ta suspiratzen komunionea, erran zio Jangoikoak ainberze ta ia grazia logratu zuela berak deseosko komunioneareki berze guziek baño komekatus errealki. Zierto da komunione sakramentalean ia errezibitu bear dela komunkiro komunione espiritualean

baño, zeren an obrazen du sakramentu errezipitu denak ta emen solamente arimaren debozioak; baña au izan daike ainberze ferbore, deseo ta karidadereki, ezi orgatik arima gonek ia grazia logra dezan, ezi ez floxo, epel ta desatento errezipitzen duenak sakramentua. San Franziskoko lego bat orzegun sandu bates limosna eske egonik bere superioarean manus, itzuli ze berant, ia komekatu ondoan berzeak ta akabatu ondoan ofizioak. Joan ze triste elizara, ta paraturik belauriko kustodiaren alzinean, asitze suspiratzen komekatzeko deseoareki egun gartan. Ala zegolaik asi ze idikitzen kustodia bere kabo niork ukitu gabe, ta ikusi zue atrazen zela andik aur bat guzis galanta, ta paseazen zela aldare gaiñean, ta paseatus bekala zoeiela anditus ellegatu arteo estatura perfektora. Gero asi ze joaten legoagana, ta au erretiratzen erreberenzias ta beldurtasunes, ta gure Jaunak segitzen; ellegaturik elizaatariraño, an erdetxirik gure Jaunak eman zio apa bat kopetan, zeintaik sentitu zue ainberzeko suabidadea, ezi antxe erori ze etzegola bere baitan gozoain utses, etorri ziren artaño berze fraileak ta ikusi arteo nola zegon, ta gure Jaunain oiñen kuntzeak ere bai ladrillu ango batean. Ainberze baliatu zio bere deseo onak, baita, zer signifikaizen ote zio anditus joate gartan paseatus bekala? Deseoa ta debozioa andizen den ariora ariman, grazia ere doaiela aumentatus.

4. Komunione espirituale gau, bada, da modu on bat agradezizeko len errezipitua errealdadean ta disponizeko errezipitzera berze aldian; ta akostunbrazea ortara da guzis probetxoso aun eriotzeko orduko, zerengatik agian orduan ezpaliz denborarik, edo posibilidaderik komekatzeko errealki, zer erremedio, baizik deseos komekatzea, komunione espirituale diogun gau? kontazen du San Buenabenturak ezi Bartolome deizen zen gizon bat zegola trabajazen debozio andiareki San Franziskoren honratan fabrikazen zen tenplu batean. Obenean zegolaik, zur bat eroririk goitiagotik gizon orren gaiñean, ideki zio erdi erditik burua. Oiuin zio fraile bati instante ekar zezola komekadura; fraileak ustes ilzen zen berla ta etzela denboraik, erran zio San Agustinen konseju gura: Crede et manducasti, idukazu fede ta deseo, ta kontu komekatu zarela. Utzi zue ala ta gauartan ikusi zue gizon orrek San Franzisko bera aparezitu zizaiola axuritto bateki besotan, ta goazera urbidurik erran zio: Bartolome, ona deseazen zinduen axuritto, zein errezipitu baituzu ia zure deseo onaren kasos, ta orai Jaunonen birtutes errezipitu bear duzu osasuna ere. Au erran ta pasaturik eskua llagain gaiñetik utzi zue perfektoki sano, ta manatu zio zoeiela trabajazera len bekala, ta ala egin zue. Beira ia komunione espirituala esten gauza andia ta esten guzis konbiniente anitz aldis komekatzea deseos, diogun bekala komunione sakramentale batetik berzeraño (Haec de comunione spirituali Parra plat.12 et ulteriora de euchar.).

5. Baña oraño nai dut erakutsi berze exerzizio bat komunione ondoreko, zein izan daien Jaun sakramentatuain honraze bat perpetua ta grazien emate bat perennea; au da bizitzamodu bat ajustatua ta alako alimentuas azizen denari korrespondizen zaiona. Bizitzemodu gau erran gindue len dela disposizio habituala ta obrena ellegatzeko komekatzera, ta orai diot ezi au berau dela grazien ematemodu exzelenteena. Ezi zenbat esta honrazen Jaun sakramentua bizitzeas komekatu dena alako maneran, ezi daien ia gizon bat berria bestitua bekala Kristo beras, akzione, pausu, itz ta gauza guzietan errespira dezan Kristoren atxon ona? San Pablok bekala, Christi bonus odor sumus, desuerte ezi ikusirik arren bizitzemodua aingiruek, gizonak ta herejeek ere, ta aun demonioek ezaundezaten sakramentu errezipitu duenaren birtutea ta erran dezaten: Klaro da komekatu dela, ageri da zer errezipitu duen. Baña ala nola disponizeko ongi ellegatzeko komekatzera berexi baikinduza zenbait birtute, zeintan espezialki luzitu bear duen, aiek itz

bates zeñetan Jangoikoaren Ama distingitu baize izateko Jangoikoaren Ama, ala gisa berean komekatu ondoreko berexikotugu birtute korrespondienteak.

6. Beñik bein bear du komekatu denak luzitu gorputz ta arimain kastidadean, purezan ta garbitasunean, ala obra itzetan, nola pensamentuetan, izan den bekala Jesus beraren errelikario; eta jakinik daramala tesoro gau lurreko ta bidriosko baso batean, apartatu ez solamente indezenziaetaik, baitare okasio ta peligro ta tropezazeko bideetaik ainberze tentureki nola balema bereki bidriosko erredoma bat Jesusen odol preziosos betea. Zein gaizki iduri duen emastekien konpañia, konbersazio, danza ta tratamentu libreetan, egon dena jarririk aingiruen maiean, jan duena aingiruen ogia --Jesus Birjinaren Semea Birjin dena! Gorputzgoi konsagratu da Kristoren gorputz preziosoain ukimentuas; estaiela propasa akzione indezenteetara. Migoi izan da patena errezibitzeko sakramentu dibinoa; estaiela atrebi formazera itz bat desonestoa. Biotzgoi izan da Jesus beraren tenplu, trono ta aldare; estaiela belztu amorio desonestoaren suan, ta zikindu deseo inpuroen kedarreas. Aurkiturik zu Belenen jaio zelaik aur dibino gura, inbazizu Ama Birjinak mertxede admitizeas aurzaitako ta fizeas zure eskuetan zeruetako prenda amable gura, lizake ongi zindebilzan loies loi, balsas balsa zikintzen, ez tresenak solamente, baita esku-aurpegiak ere, ta guzioi? Ta idurilekioke ongi bere Ama Birjinai? Edo emain lizuke gogotik aurra urbilen aldian? Garbi bear du, errain lizuke, garbi bear du guzis erman bear duenak aur dibino gau. Bada, atra bedi kontu bera, zerengatik an jaio zen Jesus berbera errezibitzen da Eliza Ama Sanduain eskutik komunionean, ta ez eskuetan, baizik petxoain barnean eramaten da. Bada, nago errateko, ezi dela nola txoil gaizki iduri baileike edozein mantxa Ama Santisima bere entrañetan iduki zuena baitan, ario gontara iduri duela gaizki inpureza komekatu dena baitan. Pensa ongi, ta gero errain didazie bauten edo ez zerbait arrazio dioten gontan.

7. Luzitu bear du, alaber, humiltasunean komekatu denak; ta ala nola Dagon garren estatua aurkitu baize eroririk lurrean sarzeareki arren tenpluan testamentuko arka, ala Jesus sakramentatua sartu den biotzean errautstu bear da subergia guzis. Jesus humil apalduartaño zuregana ta zu suberbo goratu naiak berzeen gaiñera, izanik ar miserablea? luzitu ere bear du pazienziak ta mansedunbreak komekatu dena baitan, desuerte ezi axuri jan duen garren presenzian dagon preso loturik ira zakurra bekala; lizake ongi, izanik Jesus bera ain mansoa ta sufritua, izan daien komekatu dena rabioso inpazientea? Paraturik katedra zure biotzean sartu delaik, erakutsi dizu pazienza, discite â me, quia mittis sum, ta estuzu ikasiko gisa ortan sikiera? luzitu ere bear du guzien gain karidadeak, au da, Jangoikoaren ta proximo lagunaren amorioak. Ontan ezaunduko du mundu guziak zaratela ene diszipulo, onestean elkar amorio onas, dio Jesu Kristok, ta au da nere mandamentua, maita zaiztela elkar, nola nik maitatubaizaistet. Noren baitan dirauen odioa, esta Kristoren diszipulo, baizik Judas bekalakoa. Nork estuen nai proximo lagunain ona, nork estion konpasionen, nork estion sokorrizen bear duen artan, ezdezala erran dela kristio, ezdezala aipa komekatu dela, etzaiolaik deus pegatu Kristoren kondizio amoroso gartaik. Baita prinzipalki Jangoikoaganako amorioa, itxeki bear da komekatudenain biotzean. Su gau da errespiratu bear duena afektoetan ta mostratu bear duena akzione, itz ta pausu guzietan. Bekaturik ia esta aipatu ere bear arren baitan, nec nominetur; berzeetan ere ezin soportatu bear du, ta orgatik trabajatu bear du estaien izan; agoantatu beartu desprezioak defendazeagatik Jaun andiain honra; ta onengatik ilzea bear du deseatu bere gloria bekala; ta ez dezakelaik ia, konsumitu bere baitan, suspiratu ta nigar egin ofenditua denes bere Jangoikoa. Au da kalentura akabatu bear diona bizia komekatu denai; ta au ere

da atsa bekala ta espiritua, zeintas solamente bizi daien bizi guzian San Pablo bekala, zeñek baizio: bizi naiz ni, baña ez ia ni, baizik Kristo bizi da enebaitan, vivo ego, non jam ego, vivit veró in me Christus. Eta berriz: Neretako bizitzea solo da Xpto, ta ilzea arreatatik da gananzia, mihi vivere Christus est, et mori lucrum. Exenplutako sandu guziak, ta espezialki martir gloriosoak, zein Elizaren prinzipioan komekatzen zire ta aun zera mate bereki sakramentu dibinoa komekatzeko noiznai zuten okasio, emateko bizia Jaunarreatatik, ilzeko bekala berain besarkan. Exenplutako Paraguaiko alargunura, zein bere aur txiki bateki bizi zelaik erretiraturik etxean, solamente elizara agertzen zela, egun bates joan bear zuelaik prezisoki ikustera bere heredaje bat, jakinik peligro izan zukela ofendizeko Jangoikoa, prebenitu ze goiz goizean komekatus ta atra ze erresolbiturik galzeko lenik bizia mila aldis ofenditubaño len Jangoikoa. Bereala izan zue okasioa. Ikusi zue batek atrazen, segitu zue, erdetxi zue ta itzes lenik ta loxentxuz tentatu zue, ta gero meatxus, bortxas ta golpes. Ezkerreko eskuan zerama bere aurttoa andre on garrek, ta eskuiekoas erresistizen zuela al guzia erran zio: Lenago admitituko dut milla puñalukaldi bularretaik ezi ez amorio desonestoaren erreto ta meillarik biotzean. Egun komekatu naiz; ta bear nuke ofenditu torpeki Jaun errezibitu dutena? Ez alakorik; naiago dut il, ezi ez apartatu nere Jesus Birjinamaren Seme ta kastidadearen amanteagandik. Bizia edekidezakedazu baña ez pureza. Bada, ilen dut emen berean, erraten zio berzeak; naizbai, errespondazen zio emasteki jenerosak. Ala izan ze. Arturik gaistofikatuak an urbiletik bilur zimail luze bat, bota zio lepora, ta naiz klamaturik Jangoikoari andreak, naiz nigar eginik aurrak, alaere ito zue antxe arrastaka tigre kruelarrek. Eta au etzela aski, aurra ere akabatu zue golpeka lurrain kontra. Berla jakinze guzia publikazen zuelaik gaistoak berak konzienziaren tormentuareki, ta an zeuden misioneroek akonpañamentu andiareki orzi zute ama bere aurrareki alabatu zutelaik kastidadearen martir gloriosa bekala; ta atra ze jende guzia konpunjiturik ta purezaren deseo andiareki (Claus. p.3. Cathech. Conc. 51). Erakus bezagu exenplu gonek komekatzen ongi ta atrazen andik fruitu korrespondiente, bizizeko amorosturik Jesus dibinoas ain fuerteki, ezi uniturik beingoas Jaun oneki betikos, ezkaitzan aparta beragandik bekatuen medios ez munduak, ez demonioak, ez aragiak, estare eriotzeak ta infernuak berak ere, et â te numquam separari permittas, desuerte ezi bizi gaitzen Jesuseki biotzean ta il gaizen Jesusen besoetan bolazeko gloriara. Amen.

Serm. 99.

De sacramento extremae unctionis.

Quit sit, â quo, ad quid, quando, etc.

ann. 1782

1. Borzgarren sakramentu Elizakoa da oliatzea edo oliadura, zein ez solamente da penitenziaren, baizik bizitza kristioaren konsumatiboa edo azken perfekzioa ematen diona. Bizitza guziko eman ondoan Kristo gure Jaun ta Aita amanteak erremedio korrespondienteak, disponitu zue alaber, etzekigun falta akabanzan. Zein aiskide ona ta firmea dugun! Adiskidea ezaunzen da nezesidade ta apreturain orduan; eta zein izain da fabora dezakegun aiskidea azken tranzean? Deus meus es tu, Jangoikoa solamente, dio Dabidek, ta egia dio. Ne discesseris â me, estadiela aparta enegandik Jesus ona. Quoniam tribulatio proxima est, ezi apretura ertxia da, et non est qui adjuvet, eta esta nork sokorrinazaken. Guratsoek ezin balia, naiz desea dezaten; aideek ezin anpara, naiz senti dezaten; aiskideek ezin libra, naiz suspira dezaten; medikuek ezin atra, nauten guzia estudiaturik ere. Nora, nora joain gara? Or dago prest Jesus Salbatzalea, zeïnek alzinetik disponitu baizue orduko ere auxilio oportunoa, au da, oliadura sandua. Etorri orduko mundura prestatu zigu bataioa, deizen baita sarzen direnen sakramentua, markatzeko bere saldokoak ta bereak bekala. Andik fite konfirmazioa, konfirmatzeko gu bere grazian, fedean ta amorioan. Gero erigin deizeneko bekatuen kasos utzi zue penitenziaren sakramentua edo konfesioa; gero alimentazeko ta bizkortzeko graziasko bizitzan, paratu zue bere mai dibinoa ta aingiruen ogia eutxaristian. Ia bizi guziko etze deus falta; gero, en fin, emendik atra beargindueneko depositatu zue oliadura, deizen baita atrazen direnen sakramentua, sacramentum exeuntium eta extrema unctio, azken unkzioea, edo zerengatik ematen den azken peligro bizitzarenean, edo zerengatik berze sakramentues geros ematen baita, edo en fin, zerengatik azken unjitzea baita au. Unjizen da kristioa lenik bataiatzerakoan, gero berriz konfirmazioan ta azkenik oliatzean; sakramentu guziak dire emateko grazia ta disponizeko arima joateko zerura, baña sakramentu gontan disponitzen da azkenik errebizitzeko inmediateki gloria, dio Santo Tomasek: In extremâ unctione praeparatur homo, un recipiat immediate gloriam. Berzeak dire bideak, au da ataria zeruko; berzeek dirijitzen dute bizitza kristioa, onek ematen dio azken perfekzioa, totius christianae vitae consummativum (Tridm s.14. c.1).

2. Da oliatzea propioiki ta egi eta fedes sakramentu berdaderoa, zein, berzeak bekala, instituitu baizue Kristo gure Jaunak, ta gero publikatu zue Santiagok ziolaik (c.5): eritzen da norbait zuen artean? dei bezki Elizako presbiteroak (edo sazerdoteak) eta orazio in bezate arreatatik unjizeuntela olios gure Jaunaren izenean; eta fedearen orazioak salbatuko du eria, ta alibiatuko du gure Jaunak, ta bekatuetan barin badago, barkatuko zaizkio. Ebek dire Santiago apostoluaren itzak; ta ebetan, segun Elizak ikasi duen apostoluen tradizios, erakusten da sakramentu gonon materia, forma, ministroa ta efektoa. Materia da olio sandua obispoak konsagratua; unjitzea artas da signifikaizeko klaroki Espiritu Sanduaren grazia, zeïneki unjizen baita inbisibleki eriaaren arima; forma dire sazerdoteak erratentuen itzak. Sakramentu gonon efektoa da Espiritu Sanduaren grazia, zeïneki garbitzen baita bekatuetaik barin badaude oraño ariman ta bekatuen errelikietaik; ta alibiatzen ta bizkorzen du eriaaren arima emanen konfianza andi bat Jangoikoaren miseriakorian, zeïneki konsolaturik eriak damazki aisago eritasunain molestiak ta

trabajuak, ta erresistizen du obekiago deabruen tentazioei. Eta zenbait aldis lograzen du gorputzeko osasuna, konbeni bada arimaindakoa. Ministroa administrazeko sakramentu gau da sazerdotea. Sujetoa errezipitu bear duena da eria, ura espezialki zein iduri baitu dagola biziaren akabanzan. Baña errezipitu ondoan senda balei eria, berriz gero ere errezipi dezakete erorzen badire peligro alakoan. Guziau da Trentoko Konzilio sanduaren doktrina (14 Sess. 1.2 ta 3.capituloan). Eta añaizen du Katezismo Romanoak, ezi unjituagatik anitz mienbrotan eria, ta bakotxean bere orazio ta forma propioareki, estirela orgatik anitz sakramentu, baizik bat; ala nola etxe bat konpondurik ere anitz zatis bat baita (Hic. ss.4). Unjizen dire ez mienbro guziak, baizik aiek zein baitire sentidoen instrumentuak bekala, nola begiak ikusteingatik, bearriak adimentuaingatik, sudurrak usmaingatik, agoa gustoain ta itzengatik, eskuoiñak ukize ta ibilzeagatik (SS 10). Ta unjitzen dire orazioain formareki diola sazerdoteak: Unione gonengatik ta bere miseriordiagatik barka dezazula Jangoikoak bekatu in duzun guzia, bistaren, edo adimentuaren, edo usmaren, edo gustoaren medios etc. Eta esta sakramenturik administrazen denik ia orazioeki au baño; ta anitz arrazios, zergatik ura baita denbora, noiz sokorritu bear baita arima kristioa orazioeki. Orgatik orduan presente aurkitzen direnek, ta espezialki sazerdoteek, arimen kargudunek, eskatu bear diote Jangoikoai ta enkomendatu biotz guzias berain miseriordiari eriaren bizia ta osasuna, dio Katezismo Romanoak (SS. 7).

3. Da guzis konbeniente ta agian preziso ere daike izan, ta usten bada desprezios, estaike salba kristioa; baña estelaik usten desprezios, au gabe sal badaike; baña izain da bekatu ia edo gutiago, deskuidazen bada, deskuidoaren ariora. Ta ontan faltazeunte askotan guratsoek, konsortee, etxekeek ta aun sazerdoteek berek, luzazen diotelaik erremedio gau eriari sobra, aprehensio bano baten kasos. Errezibizekos bear du izan ezaumentura ellegatua persona, eta bekatu zerbait in duena, edo zeintas duda baita in duen edo ez; por konsigiente, aur bekatu indezaketenei ongi da ematea oliadura, naiz ezpadire ere komekatu orañik, zerengatik arren salbazioa dagoke ontan agian zenbait aldis; eta duda delarik, duten edo ez ezaumenturik asko, eman bear zaiotela kondizioaren pean, dio Larragak (Hic ss.II). Bear du egon eri errezipitu bear duena, diones Santiagok: Infirmatur quis in vobis? Inducat praesviteros ecclesiae etc., ta Elizako kostunbrea da orai lenik ematea penitenziako ta eukaristiako sakramentuak. Baña ezpaleizke ere eman ebek, bearlizake eman oliadura, supuniturik nai lukela errezipitu, al balezake eskatuko lukela. Bear du egon grazian errezipitzeko sakramentu gau, eta ezpaleike konfesatu, bear luke prokuratu kontrizioa, eta gerta daike lanze ezi, ustes grazian dagon, egon bekatu mortalean, barin balu atriziosko dolorea errealki, ustes duen kontrizio, sakramentu goneki bateo para leike Jangoikoaren grazian, diote teologoek. Ta orgatik, dio Kornelio Alapidek, gertatzen dela anitz aldis salbatzea oliaduragatik kondenatuko zena au gabe. Non raro fit ut per extremam unctionem salvetur, qui sine eâ periisset. (Parra Plat.de extrem.uncte).

4. Beira, bada, ia anitz dagozken orai zeruan oliadura sanduaren medios; ta onen faltas agian berze anitz infernuan. Estimazen bada arima, maitazen bada gorputza, bien erremediotako paratu du sakramentu gau Jesu Kristok; nork estu deseaturik ta eskatuko len baño len. Egia da errizibitzekos eri egon bear duela grabekiro, baña esta bear esperatu azken punturaño; eta izanik ere egia eman daikela pribaturik ta sentidoak galdurik dagonai, nola suponizen baita eskatuko zuela, al bazezake, obe da alaere ta konbeni da errezipitzea akordu onean, alde bat akonpañazeko bere biotzeko afektoes sakramentua ta errezipitzeko ia grazia disposizio iagokoagatik; berze alde lograzeko osasuna edo alibio eman dezakena,

milagrorik gabe; ta berze alde ez esponizeko ilzera Elizako sokorru on gau gabe, zeñen falta senti baitezake berze munduraño. San Juan de Dios pobreen Aitak zeuka eri bat Granadako hospitalean; nai izandu zio eman oliadura; ta eriak, tontoen beldur ordinario garreki, beldurak il oliaduraiki, etxiden zezala oraño erran zio; ta sanduak in zio gustoa ta joan ondoan ziudadea barna limosna billa, itzuli orduko ia iltze eria oliadura gabe. Jarri ze mortaxatzen sandua, ta derepente ila jaiki ze ta erran zio: O pobreen Aita, izan dudan deskuidoagatik erreizibizeko oliadura orrek eman nai zidana, sentenziatua naiz pasatzera ogei urte purgatorioan. Au erran ta etzintze berriz ila (Parra hic). Ogei urte purgazeko deskuido izana erreizibizeko oliadura! Bebilza orai sakramentu goneki luzabideetan.

5. Baña, Jauna, nola oliadura emanaskeros segitzen baita eriotzea... Eta akaso dakarra oliadurak? Akaso ez emateareki libratuko da? Edo emateak ilen du? il dezake bere aprehensio banoak, ez oliatzeak; antes bien, oliatzeak dezake libra ilzetik, ta edozein kasos alibiatuko du eria Jangoikoak, diones Santiagok, et alleviabit eum Dominus. Fede guti ta juizio gutiago dutenei iduri zaiote, sarzen delaik ataritik oliadurareki sazerdotea, sarzen dela berze aldetik bere igitaiareki eriotzea; ta da engañu bat miserablea, ta beren faltas askotan agitzen da petardoa ilzeas oliatu faltas, biziko zirenak oliatu bazire. Proguak bienak ditugu Jangoikoaren probidenzias. Roberto Erromako enperadoreak ala errehusazen zue lenbizian, ta gero erreduzitu ze oliatzera; ta zegolaik ortan, aizerakoan elizako orazioak, sentizen zuela ia efektoa alibioarena gorputzean ere, erran zue: Ah jakin banu ainberze birtute zuela sakramentu gonek sendatzeko gorputza, eskatuko nue neuronek lendanik. Ara marabilla! akabatu orduko erreizibitus, instante gelditu ze guzis sano ta robusto; ta jaiki ze ta bizitu ze anitz urtes gero erreinazen. Nola estu egiten milagro goietaik orai sakramentu gorrek? Ontara errespondazen du Markanziok, ezi bi motibos: Bata, zeren fede gutireki erreizibitzen baita; berzea, zeren berantegi erreizibitzen baita (Ap. Claus p.4. cath. c.24). Baña esta esperatu bear milagrorik, nola bailizake azken atsetan dagona sendatzea; esperatu bear da osasuna konbeni bada, erreizibitzen bada bere denboran sakramentu gau ta fede onareki; ta orduan gutiengan konsolatuko du ariman ta alibiatuko du gorputzean; ta erreizibitu faltas malograzen da arimaren konsolua, gorputzaren alibioa ta bizia ere bai agian. Zegolaik eri kaballero bat, proponitu ziote oliatzea; etzadaziela aipa alakorik, zio, ezi oliatzen diren guziak ilzen dire. Gezurra erran zue, ta petardoa agitu zizaio al rebes, il baize oliatu gabe ta oliatu faltas; zerengatik orzibaño len jaikirik atautean itzulzera sakramentuari honra edeki ziona, erran zue: Zerengatik ez nuen nai izandu erreizibitu oliadura, padezitu bear dut egun urtes purgatorioan Jangoikoaren juizio justos; ta añaditu zue: erreizibitu banu, ez nitza ilen ta jaikiko nitza nere eritasunetik (Parra hic).

6. En fin, da sakramentu gau berze sakramentuen selloa bekala, bizitzaren korona, biktoria guzien kunplimentua ta arima kristioain imajinaren azken perfekzioa, ta gure eriotzeko orduko defensa bat agiz fuertea, diones Konzilio Sanduak: *Extremae unctionis sacramento finem vitae tanquam firmissimo quodam praesidio munivit*; ta zein erreizibiturik, estaien deus geldi estorba dezakenik arimai, atra orduko gorputzetik erreizibitzea gloria, dio Santo Tomas de Akinok (Ap. Segner. Parroc. instr. c.20). Orgatik beira zer falta zaion kristioai, ilzen baliz au gabe. Faltalekioke sakramentu bat Kristok berarias utzia biziaren azkenean garbitzeko guzis arima bekatuen erreto guzietaik sarzeko zeruan garbi garbia, ezpaitaie an sar gauza mantxaturik. Beras, faltaturik sakramentu gau, faltalekioke arimai azken bañua ta erretokea, izateko digna presentazeko Jangoikoain palazio ta presenzian. Santo Domingoko errelijioso frai Bonifazio deizen zenbatek, eri

zegolaik grabekiro, eskatu zio bere prigoreai eman zezola oliadura, ta arrek, berandua zela juntazeko komunidadea, utzi zue biramoneko, ta biramonean eriak lazki aflijiturik erran zio: Ai Aita, zer obra gaistoa in didan, ezi bart oliatu banindue, egoin niza ia orai palazio eder ikusiduten batean. Ikusi dut zeudela frai Rejinaldo ta berze anitz fraile sandu il direnak, ta atrarik ene erreizibitzera sartu nautela ni ere, ta jarririk negolaik aieki gozoso ezin iagos, etorda Jesu Kristo ta erran dida: Zoaz zu emendik, ezi etzaudezke nere sandueki, ezpaituzu erreizibitu oliadura purifikatu bear zaituena guzis. Oneki itzuli naiz. Ah baleki, zer kaltea eman didan! Alako konzeptoa in bear luke mundu guziak oliadura sanduas. Egia da, ezi daikela garbitu arima berze gisas ere, ta orgatik estela preziso bekatu mortaleain azpian, ezpaliz eskandalorik ustean, direlaik diot berze medioak garbitzeko arima; baña guziareki sakramentu gau ortako da ta ortako du berebaitan birtutea Jesu Kristok emana, ta orreki seguratzan da guzia, eta en fin, dion bekala Konzilio Sanduak, estaike despezia sakramentu ain andi gau in gabe maldade andia ta Espiritu Sanduari agrabio. Nec veró santi sacramenti contemptus absque ingenti scelere, et ipsius Spiritus Sancti injuria esse posset (Sess. 12. c.3. de extrem. uncte).

7. Biz au azken argumentua. Esta oliatzea garbitzeko arima lengo bekatuen efekto ta errelikietaik, ta emateko arimai indar ta konfianza, ta gero gorputzai ere osasuna konbeni bada? Beras, ala arimaren partetik nola gorputzaren partetik ongi izan nai duenak bear du deseatu len baño len oliatzea. Ontas landara, ezpaliz konbeni sendatzea oliatzeareki, senda leike akaso oliatu gabe? Klaro da ezez, zerengatik ezpada sendatzen Kristok ortako paratu duen erremedioareki, gabe nola daike sendatu? Beras, il bear badu alas edo olas, obe du il oliaturik a tienpo, benzait seguratuko du arimain erremedioa ta gorputzaindako in du dilijenzia bear zena. Orgatik sandu guziek indute estimazio ta deseatu dute sakramentu gau, ta eskazen zute lendanik beldurak galdu okasioa. Orgatik estimarasteko arren erreizibitza, leizen da Maria Santisimas etorri zela bera Frai Rejinaldo eri zegonagana ta bere eskus unjituzizkiola begiak, bearriak, agoa, eskuak eta oñak. Orgatik Einolfo deizen zen mutiko bati leizen da eman ziola aingiruak sakramentu gau, zeren ilzenbaizego ta ezpaizue lenago erreizibitu (Claus p.4. cat. c.26). Guziau baño ia da gertatu zena Santa Lidubinareki, zeñek eskazen baizio Ama Birjinari, etzeien il oliatu gabe; kunplitu zizaio eskatu baño obeki. Aipatu dugu sanda bat ezpaitaie pasa erran gabe deus ontas, on guzien exenplu, ta eri desetxatu ta trabajutan direnen konsolu, Jangoikoaren aiskide maitea, ta eritasun ta miseria mundu gontakoes alaere betea Jangoikoaren permisios. Aizazie, otoi, kexazenzaratenek min pixka bates. Gastea zelaik ta galanta, baña guzis garbia, pretendizen zutelaik anitzek, eskatu zio Jangoikoai ta erdetxi zue itsusi zezan mundukoen begietarako. Erorialdi batetik autxi zizaio kostilla bat, ta autxi gartaik ustelzen asi ta lenik atrazen zizaio apostema anitz, gero arrak montonka; ontas landara kanzer idor batek zeramazkioxanes petxo, besoak ta aurpegia desuerte ezi begi bat galdu zue arras ta berzeas etzezake sufri iruzkiaren argia. Ogeita emezorzi urtes bete betea iraun duzue padezitzen, nork daki zenbat? Pensa. Beti, orde, pazienza inalterable bateki. Ah gure miserableak, ezpaitakigu zer den ona ta zein den Jangoikoaren tratazemodua bere aiskideak mundu ontan! Nork errain zue maite zuela ta anitz lazeria gau, gure erratera, etzuelaik librazen zukelaik ain aisa? Etzue librazen, bada, ta alare maite zue ta maiteago ezi ez olandas ta purpuras, ta erregalos, ta gusto guzies beterik triunfazen dutenak emen. Begira berzela. Bisitazen zute Jesusek ta Mariak ta sanduek, ta etzute kuratzen; ta alare maite? Bai ta sines. Bazkoa egun bates jautsi zizaizkio zerutik Jesus ta Maria akonpañaturik aingirues, ta bera goazeain eskuieko aldetik ta bere Ama Birjina

ezkerreko aldetik paraturik, ta berzeak inguruan, ta guti bat egon ondoan, arturik mai
batetik olio sandua Jaun berak, oliatu zue Elizaren modura; ta emanik eskura bela bat ta
guruzea, asistitu zio il zen laguniten eman arteo azken atsa. O eriotze ditxosoa! Anima
gaizen fielak etc. etc. etc.

Serm. 100.

De effectibus extremae unctionis.

ann. 1782

Circumdederunt me dolores mortis,
et pericula inferni invenerunt me. Psalm. 114.

1. Eriotzeko oñatzeek inguratu naute ta infernuko peligroek arrapatu naute, zio Dabidek; ta erran dezake edozein bekatarik ilzeko tranzeaingatik. Eta zer erremedio? Akuditzea Jangoikoagana, et nomen Domini invocavi; eta zer modus? Paratuduenaskeros Kristok artako oliadurain sakramentua Elizan, deizea Santiagoren konsejuain konforme elizako ministroak, inducat praesviteros ecclesiae; ta orazio in bezate ebek arreatatik, oliatzen dutelaik gure Jaunaren izenean, et orent super cum ungentes eum oleo in nomine Domini; eta fedearen orazioak salbatuko du eria, et oratio fidei salvabit infirmum, eta alibiatuko du Jangoikoak, et alleviabit eum Dominus, eta bekatuetan barin badago, barkatuko zaizkio, et si in peccatis sit, remittentur ei. Guziok dire Santiagoren itzak; eta guk erran gindue azken platikan zer den oliatzea, nork iminia ta zertako, ta noiz bear den ta konbeni den errezibitzea. Orai berexago nainuzke erran sakramentu gonon efektoak.

2. Aizagun katezismoa. Zertako da oliatzearen sakramentua? Irur gauzatak: Lenbizikoa, kentzeko lengo bekatuen efektoak ta errelikiak; bigarrena, emateko arimain konfianza ta indar tentazioen kontra; irugarrena, emateko gorputzai osasuna, konbeni bada. Doktrina gonon konforme irur dire eria in kontrarioak, unitzen direnak poberein kontra estado gartan: Lenbizikoa, eriotzea bere doloreeki; bigarrena, konzienzia bere erreprentzioeki; irugarrena, demonioa bere tentazioeki. Zein kontrario fuertak! Banaka aski direlaik lotsazeko edozein, zer estute inen irurek junto eri tristeareki? Baña onen fabore plantatu du bateria firme bat iruren kontra Jesu Kristok, oliadura sandua, dio Trentoko Konzilio sanduak, extremae unctionis sacramento finem vitae tanquam munivit firmissimo quodam praesidio (Sess. 14. c.1. de unct.). Ikusagun.

3. Eriotzea da lenbiziko kontrarioa, zein bere alzinetik igorzen baitu tropa bat dolore, desmaio, trabaju ta molestia. Lenbiziko asalto goneki apoderatzen bekala da muralla exteriores, errateko ala, postrazen duelaik gorputza goazean ta parazen duela kuidaotan arima. Zein nekoso den orduan obratzea ongi arimain gauzak! ez dezazke egin eri tristeak kasi akzione naturaleak ere, baitire jatea, edatea, itzulzea, lo egitea etc. ta nola inentu gauza espiritualak, nola konfesatzea, komekatzea, orazio egitea etc.? Geien komun atenzio guzia edo prinzipalena ermaten dio bere gaitzak. Eskritura sagratuan Sunamitis garren semeak etzue berzerik erraten baizik: Caput meum doleo, caput meum doleo, au buruko miña, au buruko miña; ta ala iltze (4 Reg.4). Anitz eriei gisa berean guzia doakiote kexazeen ia ezin lo eginas, ia ezin mogitzeas; ai alde batetik, ai berzetik, ezpaitute memoriaik ta fadorik arimas kuidatzeko. Terriblea da lenbiziko asalto gau heritzeareki gorputza, peligra arasten baitu arima. Dolore eriotzekoek inguratu naute, zio Dabidek, circumdederunt me dolores mortis, ta berla añadizen du: Ta infernurako peligroek arrapatu naute, et pericula inferni invenerunt me, ezi mugakide dire eriotzeko doloreak ta infernuko peligroak. Eriotzearen memoria soilla amargoa da askoendako; zer izain da presenzia? Itsasoko ura gazi da gainean ere, baña gaziago ondarrean. Ala, eriotzeak aipatzeas ere turbazentu zenbait; zer inen dute ikusteuntelaik urbildus doaiela, ta daudelaik ia tragaturik

artas? Ezin kasi mintza, ezin aitu, ezin sosega, zein neke den ongi konfesatzea bekatuak; mogitzea biotza kontriziora, eskatzea Jangoikoai gogotik ta gañarako dilijenziak!

4. Ontarako du bere birtutea oliadurak, emateko konbeni baliz osasuna, alibiatzeko benzait segurki eri tristea, konsolatzeko arregogoa ta dulzazeko eriotzearen angustiak. Et alleviabit eum Dominus. Oneki eriak alibiaturik, aisago damazki eritasunain trabajuak ta molestiak, dio Konzilioak, quâ infirmus sublevatus et morbi incommoda et labores levius fert. Beñik bein du sakramentuak birtutea berebaitan Jesu Kristok emana; juntatzen da sazerdoteain orazioa, Kristoren promesa, Santiagoren testimonioa, Konzilioen autoridadea; biz fede oliatzen dena baitan, ta ikusko du experiencias alibio dioguna. Aun olio beraren birtute naturala dago signifkazen sakramentu gonon birtute sobrenaturala. Olioia, untazen ezipada ere baizik exteriorea, komunikatzen da barnera. Ala sakramentu gonek, aplikaturik gorputzai, komunikazen dio indar, konsolu ta alibio arimai. Olioak lagunzen du burriña latz gogorra, zaluitzentu zañak, tenplazen du oñazea ta mantenitzen ere du argia; obeki oliadura sanduak suabetzen du lanze gogorrura, konsolazentu potentzia turbatuak, tenplazentu arimain kongojak ta gorputzain nekeak, ta mantenizen du konfianzaren argia ikusteko zeruko bidea. Baletor lanze gartan zerutik aingiru bat erredoma bateki ungendu dibino bates beterik, konfortazeko ta alibiazeko eria, zer nailuke ia? Orai sakramentu gau digno lizake administra zezan aingiru batek, baña sazerdoteak, Elizako ministroak, Jesu Kristoren mezus dire orai doazinak administrazera edo komunikatzera bere Jesusen odolaren birtutea depositatu zuena sakramentu gontan. Bera triste, agonian eriotzeraño egonik izerditzen odoles, tristis est anima mea usque ad mortem, utzi zue ainberze kostaturikako errezeza gau, konfortazeko ta alibiatzeko bere hume kristioak eriotzeko amarguren ertean. Ilze Kristo; guk ere il bear, baña Kristok, pasaturik berak eriotze gogorra, dulzatu zue guretako arren amargura. Bera iltzeareki kamutstu zio eriotzeai bere punta zorrotza, etzezagun guri kausatu ainberze pena, ubi est mors aculeus tuus? Ô mors, ero mors tua. Prestaturik arima konfesioareki, bizkorturik komunioneareki ta oliadurareki, armaturik brokel fuerteariki bekala, espera dezake eriotzea; ez ia etsai bekala, baizik Jangoikoaren mandatari bekala idikidezona ataria pasazeko paraisora. Ilbeites triste inkonsolable jentilak, judioak, herejeak baitezakete jakin doazela atari gartaik infernura erremediorik gabe. Baña kristioak, ez joatekos il gabe, pasatu bear duenas geros eriotzearen eskuetaik, zer desea dezake ia, baizik ilzea sakramentueki, ta guzien gaiñetik oliaturik, pasatzeko suabekiago pausu gura? lotsa bezki berzeak eriotzearen aurpegi bortitzak, baña armaturik dagonak sakramentu geben eskudoas beira dezoke alegre eriotzeai ta beldurrik gabe, erraten den bekala sandues, mortem laetus aspexit. Au da iltzea? Lokartzea da ta lo pasatzea Jesusen besotan, dion bekala sandues eskritura sagratuak. Ta argatik ala ilzen direnes, dio San Pablok, ezkaitzela trista lokartu direnes, nolumus vos ignorare de dormientibus ut non contristemini. Orra nola lenbiziko kontrarioa, eriotzea, bere doloreeki dezaken garaitu oliatzearen sakramentuak, edo emanen osasuna, konbeni bada, edo alibiatus gorputz ta arima, pasatzeko aisago azken pausua.

5. Bigarren kontrarioa eritasunean da konzienzia bere erreprehensioeki, zeñiek asaltazen baitio paratus alzinean lengo bekatuak, ponderatus, akusatus ta tormentatus biotz humanoa. Merkatarik bat autxi ondoan onzia, galdurik ondasunak, dagolaik itsasbasterrean triste pensamentuan, da figura erdi bat moribundo pekatariarena. Non dire zure ondasunak? dio arrek bere buruari gurutzaturik eskuak; nekatu gara debalde, nola pasatuko dugu orai bizia? Tristeago diskurritzen du moribundoak montiazenzaiolaik bere

bekatu bizi guzikoen tropa begien alzinean. Zuk intuzu zeure gustoak, erraten dio bere buruari, estuzu kasorik egin Jangoikoas, galdutuzu egunik obrenak munduko patarataetan, guzia pasatu da, ta orai joan bear sekulako sententzia errezibitzera obren konforme. Zer duzu orai gusto pasatues? Quem fructum habuistis in illis in quibus nunc erubescitis? Ah in banue kaso erratenzidatenes predikariek ta konfesoreek! Orduan irri iten nue; orai zer inen dut? Ala da, fielak, itsu itsua gabilza orai begiak ertxirik erreparatu gabe deustan, eriotzeak idikizentigu begiak satorrei bekala. Torrentes iniquitatis conturbaverunt me, dio Dabidek, maliziaren ubilduek turbatu naute. Da ala ezi udan oñes aisa pasazen den errekattoa busti gabe, neguan andizen da batean ainberze ezi turbio eginik baitamazki ubilduareki alorrek ta arbolak ere. Uda bekala da osasunain denbora; negua eritasun peligrrosoarena. Osasuna delaik pasa pasa erreparorik gabe, au zer da inport? Konfesatuko dugu gero. Estugu izan bear ain beldurti, ta ala kometizen dire orai bat, gero bida ta segi segi; ta eriotzeko orduain neguan, bildurik guziak, iteunte ugalde andi bat turbioa, desesperatua. Antioko suberbo garrek inzue mila maldade Jerusalemen ajolarik gabe, sendagallareki antes bien. Ikusazie ia erioain presenzian triste, aprehensibo, kongojas beterik ikar ikar klamazen: Nunc reminiscor malorum quae feci in Jerusalem, orai oroitzen naiz in nituen gaizkies Jerusalemen, ai ene! Zer? Au da baliente animoso gura? Au berau; baña len eriotzea zeuka ustes aparta; orai dauka begien alzinean, ark turbazen du bere konzienziareki. Eskribitzentzue San Franzisko Xabierrek Indietatik, ezi asistitu zioten moribundo guzietan etzuela aurkitu deskonfiatuagorik Jangoikoas, nola zirenak konfiatuago ta sueltoago bizian (Segner. p.3. disc. 22. Crist. instr.).

6. Fuerte da guzis konzienziaren asalto gau, baña fuerteak dire erremedioak ere. Konfesioa lenik, gero komunionea; guzia ezpaliz aski, segitzen da erretaguardian bekala oliadura, sosegatzeko turbazio guziak; zerengatik irur modus destruizen du bekatua: Lenik kendus bekatuak, gero arren zorra ta gero arren efektoak ta errelikiak. Lenbiziko lekuan nola gerta baitaie gelditzea ariman bekatuak, zeintas ezpaita bat oroitzen ta ez pensatzen espezialki orduko turbazioareki; edo ez izanes konfesorarik, edo au ezpaliz kapaz absolbitzeko, edo en fin, in balez onek faltaren bat zeinengatik ez leiken geldi barkaturik errealki penitentea, orduan sakramentu azken garrek barkalezozke guziak duenari atrizio ustes duen kontrizio, ta para lezake grazian ta salbazioko bidean. Et si in peccatis sit, remittentur ei. Zer nauzie ia seguratzeko konzienzia? Ontas landara barkazentu bekatu benialak naiz ez konfesaturik. Barkatzen du, alaber, bekatuari korrespondizen zaion pena, edo parte edo guzia arras, baldin eriak errezibitzen badu konformidade andi bateki Jangoikoaren borondatean. Kenzentu, en fin, bekatuen errelikiak bizkortus, alibiatus ta animatus gogoa, bekatuek eritzen, turbatzen ta desanimatzen dutena. Guziau itz gutiagos baña galantagoes dio Trentoko Konzilio sanduak: Unjitze garrek signifikatzen du klaroki Espiritu Sanduaren grazia, zeinēki unjitzen baita barnetik eriaen arima inbisibleki (Hic. c. 1). Eta berriz: Sakramentu gonon gauza edo efektoa da Espiritu Sanduaren grazia, zeinēn unzioneak borrazentu barin baliz bekatuak barkatzeko, ta bekatuen errelikiak ere bai alibiatzen ta asegurazen du eriaen arima, infunditus konfianza andi bat Jangoikoaren miseriak (Hic.c.2). Bada, zer sosegareki il daike edozein, baldin afektoas akonpañazen badu sakramentu garren birtutea? Naiz turbaturik dagon konzienziaren itsasoa kasi kasi ondatuartaño arimaren onzia bagades, ita ut navicula operiretur fluctibus, deitu Kristoren diszipuloak, sazerdoteak, oliatzeko, ta aiek zureki ta zuk aieki orazio egin ta klamatu: Domine, salva nos, perimus, Jauna libra benaza, galzen naiz. Orduan Jaunak manaturik itsasoai ta aizeei, eginen da serenidade ta kalma, et facta est tranquillitas magna.

Eri bat konfesazerakoan pribaturik juiziotik, gaizaren erruareki asi ze klamazen ezuela erremediorik, kondenatua zela, etzeikela salba. Konfesoreak akuditu zue erremedio dibinoetara, ta zeren lendanik eskatu zuen oliadura, ekarrarazi zue berla; oliatuzen instantean sentitu zue arimain serenidadea, ta geroxago gorputzaren meioria (Segner. Parroc. instr. infin. de unct. num. 56). Ikusi dugu experiencias ere, zirenak beldurti ta eskrupuloso bizian, sakramentu gau errezibitu ta il zen sereno ta alegre Jangoikoaren grazias.

7. Irugarren kontrarioa ilzerakoan da demonioa bere tentazioeki, zeintas baitio Konzilio Sanduak, ezi gure bizi guzian dabilalaik ingur ingur okasio bila iresteko gure arimak, nioiz alaere estuela ia enpleazen bere astuziaren artifizio guziak gure galzeko arras ta edekitzeko Jangoikoaren miseriordiaren konfianza, nola ikusten duelaik akabatzen dela gure biziaren plazoa (C.1. hic.). Eta lenago erran zue Espiritu Sanduak, jautsi dela deabrua ira andiareki, dakielaik denbora guti falta zaiola, descendit ad vos diabolus habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet (Apoc. c.12. v.12). Dutelaik soldadoek lizenzia sakeazeko ziudade bat, ta solo egun bates, zer prisa orduan! Zer krueldadea! Zer furiak! Diote: Egun estutena arrapatzen, estut arrapatuko sekula; bada, goazen azkarki egun. Berze ainberze dio deabruak arima ia ia despedidan dagonas: Orai beaut arrapatu edo sekulan ez. Esta inport, fielak, ez sentituagatik ain fuerte orai tentazioak, esta bardin orduan. Gutti kaso iteunte goardek zoazilaik bidean, baña portalean pasatzean miratzen zaitute, ia badamazun kontrabandorik. Eriotzea da portalea eternidaderako; deabruak ez solamente daude aient akusazeko ta preso egiteko zure arima, barin badama bekatuaren kontrabando, baitare porfiazente ezazun bota, lenago artu bazindue, ta aumenta dezazun karga galgarria. Bai ta zenbat uste duzie juntazen direla baten kontra? San Agustini eskribitu zio batek, aitu zuela gizon bat erresuzitatu San Jeronimoren meritos erraten, ezi zegolaik il zen, presentatu zirela kuartoan ainberze demonio niork kontaktezazken numeroan; ta zio ia, ezi bakotxak artu zuela figura horriblea, ta porfian zebilzala elkarreki botazeagatik ura lenik desesperazioan ta gero infernuan (Segn. Christ. instr. p.3. disc. 23). Zer idurizaizie kantidade gontas? Balire eltxoak solamente, ze beldur emateko. Zer izain da, direlaik deabruak fuerteak ta astuto rabiosoak? Eta ia eriotzeko orduan. Testigo Esteban abadea, bizian manazen ziotena leopardei; eriotzean ain kongojaturik arat onat beira, ia erraten: Estut ori egin, ia: bai, egia da, in dut; ta ala il, jakin gabe norendako gelditu zen biktoria. Testigo Elzeario kondea, zeintas sinestazen da, erman zuela bataiarriko grazia obiarano; alaere ilzerakoan, kongojaturik, suspiro bateki zio: Ai zein andia den deabruen potestadea ilzendaudenen kontra! Testigo San Eusebio, San Jeronimoren diszipuloa, zein biziturik aingiru bat bekala, alaere ilzerakoan ematen zue anitz señaile beldur andiarenak ziolaik: Estuzie ikusten zenbat eskuadron enemigo dauden ene inguruan? Testigo berze infinizio bat progatu dutenak.

8. Baña dilijent barin badabilza otsoak galzeko axuria, esta lokumatzen ta lokartzen arzai dibinoa, Jesus, arren goardian dagona. Utzitu orduko ere erremedioak, konfesioa, komunioa, ur bedeikatua, sazerdotearen asistenzia, Elizako orazioak ta oliadura sandua, baita esperanzaren sakramentua. Onen atxonera etorko dire agian aingiruen tropak, izan daizen ia gure fabore kontra baño. B. Maria Ogniazek ikusi omen zue bein berak, Kristo anitz sandueki asistizen eri bati oliazerakoan (Segn. ib. ubi supra). Benzait presente egoin da Kristoren auxilioa, birtutea ta grazia sakramentuarena konfirmatzeko ta azkartzeko eriaren arimoa, ta garaizeko tentazio guziak, ta atrazeko biktoriareki Kristoren medios. Ezi dion bekala San Pablok, Jangoikoa gure fabore izanik, nor gure kontra? Si Deus pro

nobis, quis contrá nos? Nola uste duzie doazila iges espiritu gaistoak aposentutik, sarzen delaik sazerdotea an oliadura ta gurutzeareki ta ur bedeikatuareki? Prisaka, laixterka, boladan, zaluiago ezi ez gatuak ematenzaiotelaik suas. Da, alabañare, sua baño fuerteago Kristoren birtutea dagona sakramentu gortan.

9. Guziau ala izanik, duelarik Kristok emanik grazia oliadura sanduak, kenzeko lenik lengo bekatu altxaturik daudezkenak ariman, ta bekatuen errelikiak, ta efekto gaistoak, gero emateko arimai indar ta konfianza andia, gero gorputzari ere alibio ta osasuna, konbeni barin bada, nor esta alzinatuko eskatzera Elizai sokorru andi gau denbora oportunoan? Eta nor deskuidatuko da, maite barin badu bere arima ta gorputza ere? Estaiela, bada, pensa, datorrelaik sazerdotea sakramentu garren ematera, baizik eldu dela Kristo bera edo Kristoren mezus bere aingirua, konsolatzera, alibiatzera, bizkortzera ta sendatzera arima ta aun gorputza ere, konbeni bada. Emanik Jangoikoari graziak erdetxias medizina soberano gau, (askok lograzenestutena ilzen direlaik oian ta desertu ta itsasoan sazerdoterik ta deus gabe) errezibitu gogotik kontrizio fin bateki, akonpañatus unjizerakoan begiak, bearriak etc. Bere afektoeki, Elizako orazioa eskatus barkazio sentido gartas ofendituas Jangoikoa, joateko mundu gontaik garbi guzis presentazeko glorian. Inzkigun fede, esperanza ta etc.

Serm. 101.

De sacramento ordinis.

ann. 1782

Sic nos existimet homo ut ministros Christi,
et dispensatores mysteriorum Dei. 1. Cor. 4.

1. Segitzen da ordenaren sakramentua seigarrena explikatzen, zeintan solamente aipatuketan gauza konbeni direnak jakin dezkiten fielek sazerdote estirenak. Deizen da ordena, signifikazeko Kristoren ministroen dignitatea ta exzelenzia; zerengatik orden onean joateko gauzak Elizan, batzuek ofizio bat, berzebazuek berze bat izan bear zute; bazuk gorago, berzebazuk apalago, bazuk segitzeko Kristoren milizian atzetik, berzebazuk izateko alzindari ta kapitan bekala. Jenero gontakoa da eliza- gizonen estadoa Kristoren ordenagatik. Ordenaren sakramentu gau da lege berriko sakramentu bat Kristok paratua, ta ematen duena potestade espiritualeen grazia. Aizagun katezismoa. Zertako da ordena? Konsagrazeko Elizako ministroak ta sazerdoteak. Fundaturik Eliza, utzirik doktrina, iminirik legea, paraturik sakramentu ta gauza sanduak Kristo gure Jaunak, ze konsigiente planta zezan probidentzia izateko zenbait persona berex kuidazeko Elizak, doktrinas, legeak, sakramentuek ta Jangoikoaren gauzes, zeinek baño zeinek gorago, nor bere gradoan ordena duenaren arioren.

2. Zazpi dire or denak, ta alaere esta kontazen bat baizik ordenaren sakramentua, bakotxa delaik sakramentu, zerengatik guziak enkaminazen dire batera, baita sazerdozia; ala nola eskalera bat anitz gradak konponzen baita, ta gradak grada igaten baita azken gradaraño. Ario gontara zeruko eskalera gontan grados grado, ordenes orden igaten da sazerdoziora, errateko ala, eliza ataritik asi ta aldareraño, zeruko atariraño. Lenbiziko gradoa ta ordena da ostiario izatea, baita oroat nola portero, zeini ematen baizaio potestade idikitzen elizako atariak dignoei ta erxteko indignoei. Bigarrena, lektore, baitu potestade leizeko lege zarreko ta berriko libruak Elizan, baitare erakusteko doktrina kristioa. Irugarrena, exorzista, konjuratzeko espiritatuak etzezaten inkieta mezakoan. Laurgarrena, akolitoa, zerbitzazeko diakonei binajerak, inzensarioa, ta ermateko argiak, ta soñazeko txintxa mezakoan. Ebek dire laur orden menoreak edo gradoak deizen direnak. Segitzen dire subdiakona zerbitzazeko diakonai, diakona zerbitzazeko sazerdoteai; ta sazerdotea zertako? Ofrezizeko Jangoikoai sakrifizio dibinoa, tratatzeko Kristo sakramentua aldarean, idikitzen zerua, presentazeko memorialak munduain faboretan, ekartzeko errespuestak, ta en fin, Jangoikoain ta gizonen erlean medianero bekala ajustatzeko bakeak, emanen Jangoikoari honra ta ekarris gizonei probetxu. Orden bakotxaren medios konsagratzen da persona Jangoikoari ofizio gaitako, zeinen potestade ematen baizaio, baño espezialki irur orden superioreetan konsagratzen da, ia berze bideik artu ez dezaken gisan; ta dakarte bereki kastidade perpetuaren botoa, ta deizen dire orden andienak ta sagratuak, ta persona ala konsagratuari orden bakotxean inprimizen zaio karakter deizen den marka edo seña espirituala ariman, sekula borratukoestena ez zeruan ta ez ere infernuan, ta ala da eternoa. Orgatik ezkondu bat ilbalei ta erresuzitatu, ia ezlizake ezkondua; lazatu ze eriotzeareki matrimonioaren katea. Errege bat il ta erresuzitabalei, ia ezlizake errege, ez itera berri berritan ezi lengo erregetasuna akabatu ze eriotzeareki. Baña sazerdote bat il ondoan erresuzitaturik ere, beti lizake sazerdote ta ez luke ordenatu bear

berriz, ta estaike ere. Eta ezaundukoute zeruan ta infernuan ere sazerdotea bere karakter edo marka gartaik, ta oroat diakona ta gañarakoak; zerengatik ordenan inprimitzen da karakter korrespondientea, ala nola bataioan ta konfirmazioan ere bai.

3. Ordena guzien ertean sazerdozioa da goiena; ontan ere bada dignidade ta potestadeen diferenzia, izanik ere bat sakramentu gau, zerengatik sazerdoteen gaiñetik da obispoa edo pontifizea kuidatu bear duena arimes ta arimen kargudunes bere obispadoan; obispoen gaiñetik dire berriz arzobispoak edo metropolitanoak an emenka errepartiturik, presiditzen baitute nork bere peko obispoei. Berze urbilen gradoan dire patriarkak, au da, lenbiziko ta goren aita espiritualak. Guzi guzien gaiñetik da Erromako Pontifize, Papa ta Aita Sandua deizen dena, sazerdote guzien burua, kristiandade guziaren gobernaria, San Pedoren sukzesorea ta Kristoren bikario bisiblea lurrean, zeñi mundu kristio guzia baitago obligaturik obedizera.

4. Baña direla bata ia, berzea gutiago dignidadean, orden sazerdotalaren sakramentua guzietan da bat, ta ontas solamente nainuke aipatu zerbait. Da sakramentu gau berzeen iturri bekala modu admirable batean, ezi guziek beaute ordenaren laguntza ia edo gutiago, izateko ministroak, edo substanzaiindako, edo solemnidadeaindako. Eta ala konfirmazioak, konfesioak, komunioneak ta oliadurak beaute sazerdote ordenatua balioaindako ere; bataioa eman badezake ere edozeiñek nezesidade orduan, gaiñarakoan ministro ordinarioa da sazerdote ordenatua; matrimonioan bear da sazerdotearen asistenzia solemnidadeaindako berere; eta ala berze sakramentuak errezibitzentuenak, beretako errezibitzentu; bataiaz dena beretako bataiaz dena, konfirmazen dena beretako konfirmatzen da; baña ordenatzen dena ordenatzen da konsagratuak gelditzeko Jangoikoaren ta Elizaren zerbitzuko. Ordenatzen delaik sazerdote bat berexten da lurreko gizonen ertetik igateko aien gaiñetik Jangoikoaren ministro ta aingiru izatera santifikazen ta konsagrazen ta ofrazen da, izateko ia bere ofizio ta iteko guzia zeruko gauza sagratu, sandu, dibinoetan. Atendi izena, beira ordenatzeko modua.

5. Sazerdotea da izena, ta presbitero, au griegos, nai baitu erran anzianoa edo alzinatua, zeren gaste balitz ere adines, bear baitu izan birtutes zar desengañatua ta despeitua bekala munduko gauzetaik. Latines sacerdos, baita nola sacer dux, kapitan edo kidari sagratua, edo sacris datus emana gauza sagratuei, edo sacra dans ematentuenen gauza sagratuak, edo sacra docens erakustentuenen gauza sanduak. Nolanai entenda daien izengoi, errealki sazerdotea guziau da; da kapitan ta kidari sagratua, da emana gauza sagratuei ta da ematen ta erakustentuenen gauza sagratuak. Gizon bat Kristoren ministro ta Jangoikoaren misterioen dispensadore edo maiordomo. Sic nos existimet homo ut ministros Christi, et dispensatores mysteriorum Dei. Persona bat guzia konsagratua gorputz ta ariman, barnetik ta kanpotik, ibili bear duena bekala Jangoikoaren etxean, Jangoikoaren gauzetan ta presenzian beti tratazen ofizios gauza sanduak, artako berexia bekala mundu gontan, ala nola aingiruak trono dibinoain inguruan daudenak tinel gloriako palazio gartan.

6. Ikusagun nola konsagratu zen. Ia epistolas ordenatzean asitze despeitzen mundutik kastidadearen boto solemnearen medios; ia obligatu ze kunplitzera ofizio dibinoa egunoro emanen Jangoikoari orazio ta alabanzen sakrifizioa; ia ere obligatu ze eramatera exteriorean ere elizako ministroain trajea, ezaun zeien noren familiakoa den, ala nola erregeren soldadoak distingitzen baitire bere libreas. (Ia prima tonsuratik, zein ezpaita orden, baizik ordenetarako disposizio bat, ebaki zio obispoak biloa saiets guzietaik, monstrazeko bota beartuela bere gandik munduko gauza bano ta superfluoak, ta

debekaturik dago ez azizeko biloa apostoluen tradizio) (Cath. Rom. p.2. c.7. SS.14). Korona, alaber, darama buruan, edo signifikaizeko duen dignidade erreala, edo Kristoren aranzeko koronaren memoriatan, edo erreprezentazeko burutik oñetaraño Kristo bera, zeñen ministro baita (Ib.). Ordenatzean sazerdote paratu zizkiote beren eskuak obispo Jaunak ta presente zeuden sazerdoteek buruain gainean, ta estola soñetaik petxoain alzinera guruzearen forman, signifikaizeko zerutik ematen zaiola birtute ermateko alzinean Kristoren guruzea ta bere legearen bustarri suabea, ta erakusteko berzei itzes ta obras. Gero unjitu zizkio bi eskuak olio sanduas, konsagratua delako señaletan. Gero eman zio eskuetan kaliza ardoareki ta patena hostiareki erraten ziola bitarte obispo Jaunak: errezi bi zazu potestade ofrezizeko sakrifizio Jangoikoari ta zelebrazeko meza ala bizien, nola ilengatik. Itz ta zeremonia geben medios egin ze bitarteko Jangoikoaren ta gizonen erdian. Berriz azkenean paraturik buruain gainean eskuak, erran zio obispoak: errezi bi zazu Espiritu Sandua; noren bekatuak barkazentuzun, izain dire barkatuak, ta norenak ustentuzun barkatu gabe, barkatu gabe geldituko dire. Eta ontan eman zizaio potestade barkatzeko bekatuak.

7. Zer errain dut ia gizon artas? Estela ia gizon puro bat ala nolana; dela gizon baño ia dignidades. Dionak sazerdote dio persona bat sagratua ta guzis dibinoa, dio San Dionisiok. Da errege adiña? Iago da, nola zeruak lurrari, arimak gorputzari baitama abantalla, ezi erregek lurrekoa du potestadea, ta lurreko gauzetan; ta sazerdoteak zerutik du bere potestadea, ta zeruko gauzetan; ta orgatik erregek doblazentu belan ta kurtzen du bere buru erreala sazerdoteain eskuain pean. Da aingiru? Ez naturalezas, bai ofizios, ta ala ere deizen da eskritura sagratuan, angelus domini exercituum est, eta oraño ageri da abantalla, ezi sazerdoteak obrazentu prodijioak ez dezazkenak aingiruak, eta dagolaik ura txutirik zelebrazten, aingiruek zerbitzazen diote humil erreberente inguruan. En fin, guti delaik izatea gizonen artean diren honore guzien goiena, ziones San Ignazio M., estu bere parekorik sazerdotearen potestadeak, Jangoikoas geros, dio San Bernardok (Hic in caen. 2. ille ep.10 ad Smyrn): Esta sazerdotea Jangoiko, esta Kristo, baña partizipazen du Jangoikoaren potestadea berak emanik ta erreprezentazen du Kristo bera, berak ala nai duelaik; ala nola erregeganik bialirikako personak bere fakultadeeki erreprezentazen baitu errege bera; eta aun ia autoridade emateko, deizentu bere izen soberanoeki sazerdoteak Kristoak ta Jangoikoak, diolaik eskrituran sazerdoteengatik: Nolite tangere Christos meos, etzazkiziela uki nere Kristoak; eta berriz bereri: Ego dixi, Dii estis, nik diot, zarate Jangoikoak; entendazen da, partizipazios ta erreprezentazioagatik. Eta orgatik apostoluei, lenbiziko sazerdoteei, igorri zituelaik bere partes enbaxadore, erran ziote: Qui vos audit, me audit, et qui vos spernit me spernit, zuek aizenzaistenak aizen nau ni, ta zuek despreziazen zaistenak, despreziazen nau ni.

8. Sazerdoteain ofizioak berak emain digu progu; Jangoikoaren ta gizonen erdian bekala bi aldetara du bere fina ta atenzioa, Jangoikoaren alde ta gizonen alde, Jangoikoari emateko gusto, honra ta gloria ofrezitus sakrifizioak, otoizak ta laudarioak, ta gizonei errepartizeko Jangoikoaren ondasunak sakramentu, prediku ta berze gauza sanduen medios. Orgatik ere eman zaizkio ordenatzerakoan bi potestade prinzipalak, bata konsagratzeko, berzea absolbizeko; ura Kristoren gorputz errearen gain, au Kristoren gorputz mistikoaren gain, zein baita kristiandadea. Ikusagun lenbizikoa. Zer potestade da ura duena gizonarrek, zein bestiturik ornamenta sagratues asistizen baitu txutirik aldarean daudelaik guziak atzerat humil ta belauriko, ura guzien goienean guzietaik berex, guziengatik, ilen ta biziengatik baitago ofrezizen Jangoikoari sakrifizio dibinoa, ematen

honra ta eskerrak Jangoikoari, presentatzen guzien memorialak, ta porfian ta pelean bekala mano a mano Jangoiko berareki bere tronoain alzinean, lograzeko berain piedadeak munduaindako, munduaren Aita ta enbaxadore jeneral bat bekala? Anitz da au? Etxi oraño. Ellegaturik bere ordua, laur itz errateareki, baliz bekala arren mia zeruaren giltza, idikitzentu par en par ango atariak, jautsiarasten du aldarera Jesus, ta parazen zaio eskuetan. Ah fedea; non zara? Baliz fede bizia, nola ezleike pasma ontas mundua? Josue famatu gartas dio eskriturak, deteniarazi zuela iruzkia bere karreran errateareki solamente: Sol ne movearis, iruzkia, etzaitela mogi; ta obeditu zuela, dio, ez iruzkiak solamente baizik Jangoikoak gizonaren bozai, obediente Deo voci hominis, jautsiarazi balez sazerdoteak konsagraziosko itzen medios iruzkia aldarera, ikusteuntela guziek, arri leike mundua. Ta orai ez iruzkia, baizik iruzkiaren Jauna jautsiarasten du, sentitu gabe baña errealki; ta esta arritzen, zeren ezpaita fede bizirik. Enkarnatzen da Jangoikoaren semea berriro sazerdoteain eskuetan, ala nola Ama Birjinain sabelean, errateko San Agustinen itzkuntzas. Zer ia? tratazen du bere eskus, bedeikazen, adoratzen ta errezibitzen du, ofrezizen du Aita Eternoai ta ematen ere diote fielei. Esta ofizio gau lazki iduritua Ama Birjinarenari? Orgatik andre andiak monstatudu zenbait aldis konplazenzia duena meza sanduan. Aita Antonio Ruiz de Montoia ai aparezitu zizaio errebestizerakoan errateko lenbiziko meza, ta gero berain alzinean atra ze sakristiatik amabutxi bekala, ta asistitu zio meza guzian kariño andiareki. Berze sazerdote bat tentatua ze lazki misterio gonon fedean; klamazen zio Maria Santisimai, libra zezan. Eta egun bates konsagratu ondoan, Pater noster baño lentxago desaparezitu zizaio hostia sanda alzinetik. Gelditu ze pasmatuturik, ta bila arat eta onat, ta nion ez ageri; ta goratu zitue begiak biotzareki zerurat, ta ikusi zue Ama Santisima bere Seme preziosoareki besotan, ta beirazen ziola sazerdoteai kariñoreki erran zio: Tori, ikusazu nik konzebitu nuena ta zuk konsagratu duzuna, ta eskuetan iduki ta goratu duzuna ta maiz errezibitzen duzuna, au berau da; ezazula duda; orra usten dizut errezi dezazun komunionean. Au erran ta despereziturik guzia, solamente aurkitu ze hostia sanda korporaletan lengo forman. Infinitio bat milagros mostratu du Jangoikoak potestade sazerdotearenaren efektoa.

9. Ikusagun berze potestadea absolbitzeko bekatuak. Nor da kapaz barkatzeko bekatuak baizik Jangoiko soilla? ziote judioek; baña emen gizon bati eman dio eskugoi Jangoikoak. Goratzeareki eskua ta errateareki bizpiru itz, borrazentu arimetaik bekatuak; eta fede gonek ekarrarastentu arren oiñetara ta eskuain pera gizonak, emastekiak, erregeak, poderosoak, jakintsuak ta guziak, jakinik Jangoikoaren itzas, ezi zer ere lazazen baitu sazerdoteak emen, lazaturik izain dela zeruan, ta emen estena, an ere ez. Balu erreinu Españakoan batek potestade kartzel guzietaik atrazeko libre nailuzkenak, ta igorri bere firmareki, niork ezin debeka, naiz ladron, gizon ilzale, sakrilego ta infame izanak, andia idurilekiguke potestadegoi. Eta doble ta erredoble da sazerdotearena, zenbat baitoaie zerutik lurrera ta infernuko karzeletik emengoetara ta bekatuen kateetaik burriñaskoetara, ezi onek absolbi dezazke ladronak, ilzaleak, sakrilegoak ta gaisto jenero guziak deabruain karzelean prisionero daudenak infernurako; absolbi dezazke, diot, ta igorri libre bizpiru itzes; (ta ia ez deabruak, ez aingiruek ta ez Jangoikoak berak dezazkete estorba sarzetik zeruan; antes bien, au da lenbiziko galdeiten dena an, ia doazin libre sazerdoteain sentenzias, ta estoaiena estu libratuko Jangoikoak berak, ta doaiena sarrarasten du bere palazioan alegrozen delaik ortas, in balu bekala sollik bere Majestadeak). Para daike au berau exenpluan: kontu inzagun dagola il zen bekatari bat; pean ia idikirik infernua iresteko, goitian Jangoikoaren justiziaren ezpata deskargazeko, inguruan deabruen tropak

eramateko. Eldu da errege grandeza guziareki; errandezozke itz onak ta eman ere lurreko gauzak, baña ezin libra. Eldu da sandu ta sandaen tropa bat sazerdoteik gabe; dezakete anima ta konfesarazi, ta ez dezakete libra. Eldu da aingiruen errejimentu bistoso, ingurazeunte, konsolatzen ta konsejazeunte, baña doaz libratu gabe; ezpata goiti dago, len bekala, prest oroat infernua ta deabruak. Eldu da, en fin, Maria Santisima bera; nork erresisti? Dezoke mogi biotza, disponi dezake konfesazeko, baña esperatuko dio sazerdoteai ta zedituko dio barkamentuaren sentenzia ematea. Eldu da ia sazerdotea; naiz pobre, naiz ezaun gabe, naiz despreziatua, parazen du adimentua, aientio kulpak; goratzen du eskua ta ematen dio absoluzioa; ta bereala instante gartan justizia dibinoak erretirazen du bere ezpata, burlaturik doaz deabruak, erxten da infernua ta idikizen da zerua. Ikusazie or denak zer in zuen etc.

Serm. 102.

De sacerdotio. Anno 1782

Sic nos existimet homo ut ministros Christi. 1. Cor. 4.

1. Erranik dela ordenaren sakramentua konsagrazeko Elizako ministroak ta sazerdoteak, aipatueregin due sazerdotearen potestadea Jangoikoagandik errezibitua bi aldetara: Ia konsagratzeko hostia ta kaliza Kristoren gorputzodol preziosotan, ia barkatzeko bekatuak konfesioan. Gelditu da explikat gabe nola potestade gau emanik ordenatzean, alaere anitz diren sazerdoteak estutenak absolbitzen, ez izanes konfesore? Ona motiboa: Zerengatik absolbitzekos, potestadeas landara, bear da jurisdikziona, zein nola baita juezaren ofizioa, solamente usa daike bere subditu edo feligresiki, ta solamente obispoek ta parrokoek, arimen kargudunek, dituste subditoak ta feligresak beren ofizioain kasos; sazerdote senzilloek, ordea, estute subditoik ta feligresik, ta orgatik ez dezakete nior absolbi, ezpadiote ordenako potestadeas landara ematen obispoak edo Aita Sanduak jurisdikziona beren subditoendako, au da, fakultade absolbitzeko beren subditoak. Klaroago: Sazerdoteek ordenatzean errezibitzeunte potestadea absolbitzeko, baña etzaiote seinalatzen subditorik edo feligresik, ta orgatik nola berzenetan ezpaitaika usa potestadea ta ezpaitute bererik nior, ez dezakete absolbi nior, baldin obispoak ezpadiote ematen berze alde fakultade bere obispadoko feligresen gain (au deizen da jurisdikziona delegatua), edo baldin ezpadiote ematen elizaren bat gobernatzeko abade edo bikario bekala, orduan eliza gartakoak iten baizaizkio feligres ta subdito, zeinien gain baitu fakultade bere ofizios (ta au deizen da jurisdikziona ordinarioa). Orgatik ere obispoek ta Aita Sanduek bere feligresen gobernu obeagatik erreserbatzentuste aien bekatu zenbait, zeinetaik ezdezazketen absolbi sazerdote inferioreek. Baña bego adbertiturik ezi eriotzeko peligroan normai dezakela absolbi edozein sazerdoteek, naiz estela parroko, naiz estela konfesore, zerengatik ordu artako eman diote Elizak jurisdikziona edo fakultae sazerdote guziei, estaiengatik nior gal tranze gartan, dion bekala Trentoko Konzilio sanduak (Sess. 14. c.7). Au adbertitu ondoan,

2. Bi potestade prinzipale gaien atzetik datoz bere iturrametaik bekala gañarakoak, ezpaitire ain prinzipalak, nola administratzea sakramentuak dutenek berze alde komisio korrespondientea, bedekitzea gauzak, konjuratzea gaistoak ta egitea elizako funtzionaek, predikatzea Jangoikoaren itza, zuzentzea makur doazinak, kidatzea kristioak zeruko bideas, ta en fin, arimen onki guzia prokuratzea Kristoren ministro bekala, sic nos existimet homo ut ministros Christi. Da, alabañare, sazerdotea gizon bat konsagratua Jangoikoaren gloriain ta arimen probetxuaindako, errebestiturik Kristo beras Kristoren ofizioak in beartuena albas bere ariora; da Kristoren enbaxadore, apostoluen segizale, jaun arren familiaren urbilenetaik, ta bere goardia de korps eskojitua; da gauza sanduen dispensero ta administradore, Elizaren sekretario, Jangoikoaren borondatearen interprete, egi eta fedeen kanale, fielen Mediku, Maestru, Arzai, Aita ta Ama. Dire sazerdoteak, errateko Kristoreki, munduaren argia ta gatz, kristiandadeain alزندariak, Kristoren familia ta saldo eskojitu gonon goardiak, fedearen alferez, lege dibinoain defensore, santidade ta birtuteen operario edo langin, plantatzeko ta erregatzeko arimetan; bizioen ta bekatuen etsai deklaratuak, ta en fin, Kristo kapitan jeneralaren ofiziale kargudunak, zein bere gradoan. Pensa zer lizaken mundua sazerdoterik gabe; oroat, nola falta balekio

iruzkiaren argia; zer lirazken jendeak aiek gabe, nola ardisaldoak peña ta barrankuetan gauas ta arzayik gabe otsoen ertean; ala ta aun gaizkiago.

3. Zertako erran dut au guziau? erran dut, ez alabazeko ta goratzeko nere burua duten ordenagatik, baizik konfunditzeko ta nigar egiteko, zeren Jangoikoaren aldetik delaik ainberze onki, gure aldetik ezpaita baizik gaizki, ofizio sandua ta bitzitza (sic) indignoa; konsagrazio dibinoa ta arima bekataria; sazerdozio venerablearen marka, ta insignia errealak, ta deabruaren esklaboen obrak; Kristoren ministro ta goardia de korps jaun arreki kontino dabilana ta munduaren atzean alaere traidore bekala; agerrian ostenta zen Jangoikoain mutil ta estalian zerbitzazen deabruai; guzietaik berex ta guzien lenean honrazeko ta eskatzeko Jangoikoai guzien partes ta agian guziak baño gibelago birtutean. Berzeren arimen kargudun ez dezakena eman kontu ona bere soillas; bekatu egiten estorbatu bear zituenak aun berzeetan; Kristoren kostus Kristoren etxean, Kristoren maiean alimentaturik, honraturik ta bear den guzias supliturik ariman ta gorputzean, ta ez trabajutzen ta nekatzen Kristoren honra ta zerbitzuan; mutil braboa, soldado fijoia jateko ta ez laneko, mormota beltza bekala erlategian alfer ta estis asean; gaistoago orañik, Kristoren ministro deizen ta Kristo ofenditzen, sazerdote izenas ta animale izanas, diszipulo ta apostolu idurian, Judas traidore errealdadean; orra zergatik errantuten sazerdozio errealararen exzellenziak aixtean nere aldetik.

4. Berze alde errantut, baliz por si akaso nior nere auditorian aspiratzen duenik estado gontara, beira dezan zer itera doaien; grado andia da, baño kargua ta kontua ere korrespondiente; igate ona da, baño goragotik aisago da erorzea ta golpea andiagokoa; estuela ia izan bear gizon aragiskoa bekala konsagratuaskeros, baizik aingiru bat lurrean ibili bear duena zeruan bekala; estuela aski on izatea berebaitan, onarazi beartuela berzeak ere albas; estuela eman bear kontu solamente bere arimas, baitare berzerenes ta Kristoren gorputz odol preziosoes ta sakramentu ta ofizio sazerdotale guzies, ez solamente iten duen gaizkias, baitare iten estuen onkias; estela en fin neurtu bear orai sazerdote garenas, portazeko gu bekala, ez, baizik Kristo beras, zeñen ministro ta imajina izan bear baitu, ezpaitote kontuetan artuko ontzat nola garen berzeok, baizik nola bear zuen izan berak bere konsagrazioain kasos; beira dezan guzien gain azken fina, ta asko kondenazen direla sazerdozioan salbatuko zirenak berze estado batean. Orgatik espera bez Jangoikoaren deia igaten asibaño len; ta zertan ezaunduko du? 1. Bere inklinazio propioan, delaik ona, zerbitzazeagatik obeki Jangoikoa, salbatzeagatik bere ta berzeren arimak; ez, ordea, bilatzeagatik deskansua, honra, ondasunak edo konbenienziak. Atzerat, atzerat intenzio gebeki doaiena, estu deizen au Jangoikoak. Trabajatzeko bere zerbitzuan naitu Jangoikoak bere mutilak, arrazio den bekala. 2. Ezaunduko du, alaber, eskatus Jangoikoai maiz maiz ez utsiteko bidea prinzipiotik, ezi utsiten badu, gero zenbatenas alzinago doaien, urrutiago doae bidetik (ta en fin, niork ez dezake logra bere fina, estaike nior salba estoaiena Jangoikoak destinazen dion bideas). 3. Berze progu bat ezaunzeko, da akostunbratzea bizimodu erretiratu ta sandu izan bearduenartara, oraidanik ia gauza ote den bizitzeko munduko plazer, dibersio, danza ta iteko, tratu ta joanetorriak gabe, ta espezialki gorputz arimain kastidade perpetuoan; ezi aprendiz gaistoa estaike izan ofiziale ona; nobizio errebela errelijioso nauzu sandua? Ain argal da nola zisne bat belza. Sazerdozioaren aprendiz ta nobizio dire artarako karreran direnak, bizibeites ario gartara; ezpadire senti azkar aski artako, atzerat, atzerat. Atzo mundano ta biar sazerdote? Atzo emastekien atzean ta biar aldarean aingiruen ertean? Atzo plazer mundukoetan funditurik ta biar ezpañak kalizean? Non potestis mensae Domini participes esse, et mensae daemoniorum. Esta esta

zakurrebendako ogi dibinoa; esta alakoendako on konsagrazioa, foris canes. 4. Berze progua da konsultatzea, zerengatik, ixil dagolaik Jangoikoa, mintzazen dire arren partes bere sierbo fielak ta prudenteak, zeñetas erran baizue: Qui vos audit, me audit, aizenzaistenak zuek, aizen nau ni. 5. En fin, beiratu ere bear da bakotxain talentua, ta gañarako prenda naturalak diren edo ez korrespondiente ofizioareki; ezpadire, pensa bez estuela nai sazerdote Jangoikoak, estitiolaik eman prenda bear direnak. Orra berze motibo bat, zergatik aipatu duten sazerdozioain exzellenzia.

5. Baña berze alde egin dut guratsoengatik, beira dezaten nola kidatzentusten bide gortaik humeak. Beiñik bein bortxa egitea edozein estadotara inklinazioain kontra, da botatzea lepora soka galzeko humea; baña estado gontara bortxatzea da botatzea errotarri pizu bateki soka, galzeko infernuain barren barrenean. Gauza galanta izatea seme bat sazerdote ona, enkomenda dezkién aldarean guratsoak bizian ta il ondoan; baña bortxas igan dena izain da arrastazeko bereki guratsoak infernura. Etzazkiziela gal humeak ta etzaistela gal zeurok errenta edo banidade fatal baten atenzios, ezi erori ondoan infernuan estuzie aurkituko sokarik atrazeko ez berak ta ez zeurok. (Eta zer errain dugu estudio ematendiotenes abratsteagatik etxea edo erdexteagatik nonbre, ta andik zenbait lurreko abantalla? Lenik, ezi askotan gerta daikela berze aldera, pobretzea, diot, ta desonratzea ellegatubañolen, eta Amen, ala izan daiela beti, otoi, ta ez ia; intenzio goietako guratsoeki, Amen, ezi au da minik txikiena; eta ellegaturik ere logratzera intenzioa, ez fia, ezi anitz aldis sazerdoteen dirus goraturikako etxeak, mundu ontako ere dire desgraziatuak, ta urzen dire estakit nola; ta esta milagro kontra dutelaik pobreen Aita Jangoikoa zeruan, kontra tuelaik pobreak lurrean, ta kontra geien komun inzaleak berak infernuan, zeñek dutelaik bere penes landara infamiaren pena, dauden bitarteo tieso etxe gaiek, nailuzkete urratu ta desegin, ta bearbada permitizen du Jangoikoak baña au ere esta min andia; andiago da bekatuain ta erresulten mina, nai izatea diot sazerdozioa, tratus bekala, gananzia iteko artaiek. Zer iteunte orreki? judas bat sarzeunte Kristoren apostoladoan, in daien bolsero ta ez sazerdote, bil dezkién fielen limosnak ta sufragioak, sal dezkién Kristoren gorputz odol preziosoak diruagatik, uz dezkién ilzera pobreak ta urka daien bera Judas bekala. Zer iteunte? nai dute aldarea izan daien bere etxeen finka seguroa ta elizako sufragio, limosna, amarren ta oblaje iten direnak arimengatik izan daitzen beren banidade ta faustoen zelo. Elizak, dio San Dionisiok, dire aldareendako, aldareak sazerdoteendako, sazerdoteak sakrifizioendako ta sakrifizioak Jangoikoaindako. Baña guratso gaistoek naituste elizak, aldareak, sazerdoteak, sakrifizioak ta Jangoikoa bera izan daitzen etxeain zimendu ta tellatutako. Au guziau diot, ez zerengatik gertazen den alakorik, baizik estaién gerta (Segner. Christ. instr. p.3. disc. 24). (Orai noaiena erratera bai diot guziendako; nailuketelaik konsagratu Jangoikoai hume bat, ez kodizias, ez banidades, ez gauza ez izenes nekazalgoko edo ofizio nekosoetako, baizik solamente iteagatik Jangoikoari zerbitzu ta bere arimei probetxu humeas, orduan lenbizikorik beiratu bear dire humeain prenda mostrazentuenak den aski adbertitu, dozil, humiltto, ongi inklinatua elizara ta elizako gauzetara, doktrina, meza ta gañarakoetara afizionatua; gero ia duen beregandik inklinazio elizagizontako; gero eskatu Jangoikoari azertazeko grazia, ta humeak berak ere eska dezala erreztatus zenbait errosario edo orazio; gero konsultatu persona espirituale prudenteareki, konfessore edo parrokoareki; ta gero, atzitzean kuidatu artas oroat nola presenta delikatu bates erregeri biali bear denas, estaién makur, estaién mantxa konpañia gaistoeki; ezi Babiloniako erregek nai bazitue pajetako mutiko eskojituak, fixoak ta mantxa gabeak, arrazio baño ia da nai izatea Jangoikoak bere ministrotako obren

obrenttoak.

6. Aipatu ere dut sazerdozioaren exzelentzia ta ofizioa elejitzeko esku dutenengatik, beira dezaten nor iten duten, atenditus solamente Jangoikoaren honrari ta feligresen onkiari; por konsigiente, aberiguatus zein den obrena jakindurias, birtutes, prudenzias ta gañarako prenda bear direnes arimen aita batean. Ardi irrazionaleen amorios autazen da al badaike altsai ona ezdezangatik bota galzera hazienda, eta arima Kristoren odolas erosien atenzios esta beiratu bear zein den dignoena? Bai, ziertoki, bekatu mortalaren azpian. Eta ala egiten da munduan? Nigar konsolurik gabe iteko asuntoa da nola ta zer fines sarzen diren asko arimen karguan ez dignoenak baizik... Baña ontan ixil bedi mia, ia ke ta estaiken erremedia, ta konsumi bedi doloreain prensan biotza).

7. Aipatu dut, en fin, sazerdozioaren exzelentzia guziengatik, ikas dezaten nola onetsi ta errespetatu sazerdoteak, gure Jaunaren Kristoak, errege andienaren ministro urbilenak, korona daramatenak ta konsagrazioa, guzietaik berexiak, guzien aita espirituale direnak, zeñen eskus iten baitire kristio bataioan, zeñen medios lograzen baitute barkazio konfesioan, Kristo bere eutxaristian, graziak oliatzean ta matrimonioan; zeñen agos aizen baituste Jangoikoaren doktrinak, zeñek baitaukate Kristo munduan, zeñek bedeikatzen gauzak, konjuratzen gaistoak ta detenitzen baituste Jangoikoaren kastigoak ta ekartzen piedade dibinoak; zeñengana guziek baitute errecurso nezesidade guzietan, zein baitaude zentinelan arimen salbatzeagatik ta paraturik bereak peligroan berzenengatik; zeñen eskuetan, en fin, il bear baitugu guziek, ongi izatekotan. Estugu onetsi bear ta errespetatu bear alakoak geuren aingiru goardakoak adiña ta ia? Ah! Señale gaistoa du aborrezizen tuena sazerdoteak eta iten duenak sendagalla? Zer dute ia guk baño, koronas landara? Diote batzuek. Eta guti da korona ta koronain pean signifkazen dena? Oroat errandezagukete erregees, Aita Sandues ta edozeiñes, baitire gizon; baña ia dute, baitute ordena sagratua. Korona salbo, diote berze batzuek, erratean zerbait injuria, ta dirudi zerbait atenzio orden sagratuas; alaere esta ongi, zeren personagandik estaike aparta korona edo ordena, ta al kabo, ezpata bates eman balekio personai, lizake sakrilejio, naiz ez izanik gogo ultrajazeko orden sagratua. Berze batzuek, en fin, diote exkusatako, direla gaistoak sazerdoteak, ta ez estadoaren konforme bizi direnak. Ontara zer errain dut? Ala dela sobra aldis, ta gauza fuertea iduri duela honratzea bekatari bat duen estadoagatik; alaere fedeak ta entendamentuak luzitu bear du kristioa baitan, izateko errespeto estadoagatik ta konpasiene bekatuengatik; ala nola errelikia andi bat errelikario bil batean ikusirik lastima alde bat, ta berze alde inenbaikindioke erreberenzia. Baña ezpadauka arrazio, baizik iten badu agrabio edo perjuizio sazerdoteak, arren atenzios galdu bear dugu guk? Ez, baña segi zazu ta billa zazu zeure dretxo bide ones, salbatus beti estadoari erreberenzia, ezi alde gortaike esta deus galzen. Ala nola eroribalekigu geuren gaiñean gurutze edo imajina pizu bat: Apartatu bai geurengandik ezkaitzan heritu, baña erreberenziareki, bota gabe maldizioik, in gabe tratamentu gaistoik imajinai ta gurutzeai; ario gontara sazerdoteareki portatu. Gañarakoan, solamente bear baginduzke honratu sazerdote birtuosoak, ori lizake estimatzea birtutea edozeiñen baitan estimatu bear dena, ta ez orden sagratua gaistoetan ere errespetatu bear dena. Loiean ere ikusi bazindez kustodia sagratua, etzindezake adora? Bada, ario gontara. Konstantino enperadoreari presentatu zizkiote anitz memoriale kexas beteak sazerdote zenbaiten kontra, ta leitu gabe erre zitue guziak ziola: estagoki da niri ongi juzgatzea sazerdoteak, ni juzgatu bear nautenak, eta ikus banez gaizki egiten sazerdote bat, estal nezake nere kapa inperialas. On guziek izan diote errespeto sazerdoteei. San Anton abadeak, zeñi obedizen baizioten enperadoreek, jendeek,

animaleek ta deabruek berek, aurkizen bazue sazerdote bat karrikan, jarzen ze belauriko lurrean ta etze jaikitzen aliketa apatu eskua ta logratuartño arren bedeizioa. Santa Katalina de Senak ez eskuak, ez oñak sazerdotearenak, baizik apazen zue lurra non frinkatu baize sazerdotea. San Franzisko Asiskoak, ez atrebitzeas landara ordenatzera sazerdote, erraten zue ezi aurki balez bidean bateo sazerdote bat ta aingiru bat, lenik inen ziola sazerdoteari ezi ez aingiruari errebeenzia. San Franzisko de Salesek ordenatu ondoan bat sazerdote, ikusi zue zegola au elizatik atrazeen porfiatzen norbaiteki atra zeila lenean; deitu zue, ta galdeturik, sazerdote berriak erran zio nola Jangoikoak iten zion mertxede ikustean begis bere aingiru goardakoa; ta lenago ikusten zuelaik bere eskuieko aldean, ta sarzen ta atrazen lenenean, egunartan nola ordenatu baize, aldatu zela aingirua ezkerreko aldera, ta atzenik, orgatik iten ziola porfia gura. Extraordinarioa mostrazen zioe sazerdoteei erreberenzia Maria Santisimak, belaurikatus ta eskatus aien eskua ta bedeizioa (Mist. ciud.). Kristok mostratu zue laboratorioan etc.

Serm. 103.

De matrimonio quid, â quo etc.

ann. 1782

Non est bonum hominem esse solum,

faciamus ei adjutorium simile sibi. Genes. 2.

Quod ergo Deus conjunxit,

homo non separet. Math. 19.

1. Zer falta zekio munduari kriatu ondoan Jangoikoak lenbiziko sei egun aietan zerua ta lurra ta ebetako gauza guziak, ta guzien gaiñetik gizona bere imajina ta semejanzara? Zer falta zekio? diot berriz ere. Falta zekio probidentzia bat, suplizeko jendeas kontino, segitus bata berzetik ta sartus bata berzeain lekuan jenerazios jenerazio, izateko beti nork gozatu ta gobernatu gauza kriatuak munduan. Ario gontara berze sei sakramentues landara falta da explikazeko zazpigarrena guzis nezesarioa. Zerengatik plantaturik ere Elizan bataioa kristiazeko gizonak, konfirmazioa konfirmazeko kristioak, konfesioa barkazeko bekatariak, komunioea alimentazeko arimak, oliadura seguratzeko bizitzaren akabanzan mortalak ta ordena konsagrazeko Elizako ministroak, zer aigina ezpaliz modu suplizeko personak, emateko ta errezibitzeko sakramentu goiek? Falta ze, bada, sakramentu bat, zein en medios kristiandadean zoezin segitus segitus personak bata berzeain atzetik, beti mantenizeko kristiandadea ta Jangoikoaren zerbitzua munduan, ta joateko iganes zerura okupazera ango katedrak ustu zirenak erorzeareki infernura aingiru gaistoak. Ortako dago matrimonio sandua; ia oneki esta deus falta, guzia dago perfekzio onean. Nik ere explikatzeareki au, akabatuko dut sakramentuen materia, eta lograzen badut ontan fruitu bear dena, iteko guti izan nezake erremediatzeko feligresia guzia, zeren matrimonio onak izatean ta onen obligazioak kunplitzean dago geien komun guzien erremedioa ta ontzea. Inporta da, beras, explikatzea ongi matrimonioaren asuntoa ta aditzea ongi arren explikazioa. Paratuko dut nik dilijenzia explikatzean, esmerazaiste zuek ere ongi atendizean ezkonduak ta ezkondugabeek. Guziendako izain da doktrina, ar bez bakotxak tokazen zaiona.

2. Nere Aitaren etxean dire anitz mansiones edo toki diferenteak, zio Jesu Kristok gloriako palazioagatik, in domo Patris mei mansiones multae sunt. Bada, beiti gontako bere etxe gontan ere, Elizan, diot, dire bide diferenteak, nondik doazken guziak, bakotxa bere bideas, estaien nior exkusa; dire, diot, bizimodu ta estado dibersoak, auta dezan bakotxak Jangoikoaren deiaren ta bere inklinazio onaren konforme; or dago errelijioea, emen sazerdozioa; berze alde legoen estadoa, ta ontan estena trebe joatera pureza ta kastidade perpetuoaren bideas, dauka matrimonioarena llanoago ta aisagokoa bekala. Zier to da, ta Trentoko Konzilio sanduan deklaratu fedesko gauza bekala, ezkonduen estadoa estela ain perfektoa nola ezkondugabeena, eta obe dela ta sanduago bizitzea birjinidadean ta ezkondu gabe, ezi ez matrimonioan (Sess. 24. can. 11). Eta lenago erranik utzi zue San Pablo apostoluak, etzuela Jangoikoaren mandamenturik obligarasteko bizizera birjinidadean, baña konseju bai ematen duela. De virginibus praeceptum Domini non habeo, consilium autem do. Eta konsejua beti da gauza obeagoas; eta eman ondoan zenbait arrazio, zeinengatik obeki zerbitza dezaken Jangoikoa libreak, añaadizen du: egin bez nai duena, estu bekaturik egiten ezkontzen bada. Quod vult faciat, non peccat si nubat.

Duelaik autara ta prezisioik ez, arzen duenak gogo bere biotzean goardazeko birjin, ongi iten du; baita ezkonzen denak ere ongi iten du, baña ezkontzen estenak, obeki iten du. Qui matrimonio jungit virginem suam, bene facit, et qui non jungit, melius facit. Obligatorik dago legeari bizi den bitartano konsortea, ta ilzen baliz, librazen da, ezkon daike naiduenaike solo Jangoikoaren borondatearen konforme. Baña obeki inen du ala mantenizen bada ezkondu gabe nere konsejuain ordes, ta uste dut mintzazen naizela Jangoikoaren espirituas (1. Corint. cap.7.).

3. Ario gontara lenago Kristo gure Jaunak aipatu ondoan matrimonioain lege ta lozaki ertxia lazaestaikena bizi guzian, erran ziote fariseoek: Ala izatekos, esta konbeni ezkontzea. Errespondatu zue Jaun dibinoak: Estute guziek arzen konsejugoi; eta kontaturik zer in zuten zenbaitek bizizeagatik purezan ta erdexteagatik gloria zeruan, dio: Qui potest capere, capiat, ar dezakenak ar bez konsejugoi (Math. 19). Baña San Pablok dion bekala karta berartan (1 Cor. c.7), nai lukela bai guziok lizazken bera bekala, baña bakotxak duela bere dono proprio berexa Jangoikoagandik, batak arla, berzeak orla. Erraten diotela ezkondugabeiei ta alargunei obe dutela mantenitzea ala bera bekala; baña ezpa daizke konteni, ezkon daitzela, zeren obe baita ezkondu ezi ez erre. Bego, bada, ikasirik ezi libreen estadoa perfektoago ta obeago dela ezkonduena baño.

4. Guziareki matrimonioa da nezesario ta konbeniente Eliza Ama Sandan, eta estado gontan daike zerbitzatu ta kuadratu Jangoikoari, ta salbatu deizen duena Jangoikoak bide gortas; eta errateko egia bat, asko agian estire salbatuko baizik estado gortan, ta asko kondenazen dire sazerdote, errelijioso ta libre, etzirenak kondenatuko sujetatu bazire matrimonioain bustarriain pera. Estado gonek estu enbarazu ematen birtuterako. Anitz dire ezkondu birtuosoak ta birtuosak bizi direnak munduan; anitz dire sanduak ta sandak bolatu direnak zerura estado gortas sentitu gabe estorburiak matrimonioaren aldetik. Personan dago guzia, nolakoa den. San Ignazio martirak zio: Ojala baniz digno emandezadaten leku zeruan anitz ezkondu izanen oñetan, opto ut dignus sim in regno coelorum ad horum pedes locum mihi dari. Jakina da San Paphnuzio andiaren kaso, nola mostratu zion aingiru batek iten ziotela abantalla birtutean bi ezkonduk. Alaber, berze kaso gura, nola zegolarik Juan abade venerablea konjurazen anitz egunes ta anitz konjurios ezin botatus espiritu gaistoa gorputz batetik, ellegatu zen nekazari pobre bat ofrazera bere primiziak, ta solamente ikustas, solamente aizeas arren izena, atra ze instante lotsaturik deabrua iges. Arriturik abadeak galdegin zio zer estado zuen, zer ofizio ta zer birtute. Errespondatu zio: Ni naiz nekazari ezkondu bat enpleazen naizena kanpolanean. Bai, baña nola bizi zara? Zer birtute exerzitazentuzu? Jauna, nik estakit deus onkirik nitas, solamente ezi egunoro lanera baño len noaie elizara ofrezizera nere lanak ta eskazera grazia Jangoikoai, ta lanetik berriz etxera baño len noaie berriz ematera graziak bere mertxedeengatik. Estut deus biltzen, ezpaitiot artaik pagazen puntualki Jangoikoai bere amarren primiziak, eta dut anitz kuidado ez iteko dañurik den txikiena proximoen heredaje ta gauzetan. Guziau guti iduri zekio orañik abade sanduari, ta porfiatu zio ia etzuen berze zerbait, erran zezola. Orduan errespondatu zio: Jauna, ameka urte du ezkonduzala ta beti bizitu naiz bake ta amorio onean nere konsortearerki, lagundus elkarri zerbitzazen Jangoikoa, utzi gabe pasazera egunik iteko zerbait onki Jangoikoaren agradotan; eta orai, en fin, elkarren konformidades bizi gara kastidadean anaiarrebak bekala. Orduan ezaun duzue abade sanduak, zergatik iten zion abantalla birtutean ainberze, ezi aipazeas solamente izena, lotsatu baize demonioa berak botatu etzukea. Salba daizke, bada, ta in daizke sandu ezkonduak matrimonioan, ta salbarazi

dezakete agian bere hume ta familia, bizi badire, estadoak manazen duen gisa, ta ortako da diogun matrimonio gau (Parra hic.1).

5. Eta zer da matrimonioa? Matrimonioa, itzkuntzak diones, da nola matris munium, amaren kargua, ofizioa ta itekoa, zeren prinzipalki baita atzizeko humeak, ta ontan amak baitu lenbiziko ta geien nekea. Errealidadean matrimonioa da gizon ta emasteki baten unionea bizi guziko enjendrazegatik humeak, ematen direla bata berzeai deretxo ta potestade bere gorputzain, obligazen direla bizizera konpañia onean ta separaestaizken gisan, baizik elkarreki beti bizikide bekala, elkar maitatus, elkar lagundus ta konformatus bizizeko bakean ta azizeko humeak zerurako. Matrimonioaren sujetoak ta ministroak dire ezkonzen direnak berak, estutenak inpedimenturik artako. Parrokoa asistitu bear duena da testigo bat autorizatua Elizaren nonbrean presente, entendatu bear duena bien konsentimentua prezisoki baliatzekos Eliza Ama Sandaren ordenanzaren kasos. Da esenzialki ere preziso matrimonioko gizon ta emastekiain konsentimentu librea, ta deklaratu edo monstratu bear da Elizaren alzinean nai duela emastekiak errezibitu, ta errezibitzen duela gizonura senartako, ta bera entregazen dela esposatako, ta alaber, nai duela gizonarrek errezibitu ta errezibitzen duela emasteki gura esposatako; ta bera entregazen dela arren esposatako, ta elkarren konsentimentu, pakto, entregatze ta errezibitze gontaik dator obligazio, binkulo edo lokura fuerte soltaestaikena bizi guzian, ta artan dago matrimonioaren izatea edo esenzia (Cath. Rom. hic. SS.4), desuerte ezi ia obligazio ta lozaki fuerte garren kasos senarra da emastearena ta ematea senarrarena, estuela ia senarrak potestade bere gorputzas baizik emasteak, estare emasteak bereas baizik senarrak, dion bekala San Pablok, matrimonioaren asunto edo finerako; aliketa ilartaño bata edo berzea, dirau obligazio edo binkulo garrek, bein akabatuaskeros edo konsumatuaskeros matrimonioa. Baña solamente itzetan gelditu baliz pasatu gabe iagotara, libra daike profesatzeas bata edo berzea errelijionean, edo Aita Sanduaren dispensazios. Begira zer iten den ezkontzera doazelarik. Esta urte bateko edo berzeko, nirabe bat ajustazen baliz bekala, baizik betiko, on bada, gaisto bada, ezin aparta.

6. Kristioen matrimonio gontan dire bi gauza: Kontratua ta sakramentu. Matrimonioak kontratu bekala dakar obligazio gizonari emasteas, ta emasteari gizonas, baña eztakarra graziarik, sakramentu bekala dakarra grazia Kristoren meritoes kunplizeko aisago obligazioak; kontratu bekala daike izan hereje ta infielen ertean, sakramentu bekala solamente kristioen ertean; kontratu bekala da munduau mundu denas geros Jangoikoaren dispozizios, sakramentu bekala da Kristo etorriaskeros Kristoren instituzios. Jangoikoak, diot, fundatu zuela matrimonioa munduaren prinzipioan, ta gero Kristok konfirmatu ta konsagratu zue sakramentutako. Honorabile connubium in omnibus, beras, honroso da matrimonioa alde guzietatik, dion bekala San Pablok. Beirazen bada onen autoreta, da Jangoikoa bera, beirazen bada erreformazalea, da Kristo bera; beirazen bada arren antigedadea, da mundua bezain zar, beirazen badire dakarzkien ondasunak, beterik dago Eliza orietas, eta guziek dute prinzipio ortaik komunki. Deteni gaizen solamente onen fundazioan. Ikusagun Jangoikoa ta bere Semea Jesu Kristo enpleaturik plantazen ta sanktifikatzen matrimonioa. Kriatu ondoan Jangoikoak gauza guziak ta gero Adam lenbiziko gizona, ta paratu ondoan au paraisoan, konsultatu zute, gure errateko modura, Trintateko Irur Personek matrimonioaren negozioa, ta erran zute: Non est bonum hominem esse solum, esta ongi, dagon bakarrik gizona. Faciamus ei adiutorium simile sibi, egin zогun lagun bat iduridakiona. Eman zio, bada, Jangoikoak Adani lo bat, ta lo gartan zegolaik, edeki zio bere kostilletatik bat ta arren lekua bete zue aragis, eta Adani

edeki zion kostilla gartaik formatu zue emastekia Eba, ta presentatu zio Adani gero, ta erran zue Adanek argatik: Au da orai ezurra nere ezurretaik ta aragia nere aragitik; au deituko da birago, gure uskaran erran badaike gizakidea, zeren gizonagandik artua baita. Onengatik utziko du gizonak bere Aita ta Ama, ta ezkonduko da bere konsorteareki izateko biak bat. Guziau dio eskriturak Jenesisiko libruain bigarren kapituloan. Ona lenbiziko matrimonioa munduan izan dena, zeñen kasamentari, errateko ala, izan ze Jangoikoa bera.

7. Baña orduan ta urrengo jendamendeetan solamente ze kontratu bat naturala, aliketa Kristo Jangoikoaren Semea jautsirik lurrera goratu zuen arteo sakramentuaren dignidadera, kausazeko grazia ta signifikaizeko Elizaren unionea Kristoreki, baitare naturaleza dibino ta humanoain unionea Kristoren personan. Ainberze diferenzia ta abantalla darama orai matrimonioak lenekotik, nola zeruak lurretik, nola gorputz biziak iletik. Lenago ze, errateko ala, nola estatua bat lureskoa espiriturik gabe; Kristok animatu bekala zue espiritu dibinoas, itzulis sakramentu, zena kontratu naturale soilla. Len ta gero da Jangoikoaren eskuen obra, baña len utzi zue naturale zain neurri laburrean, gero goratu zue izatera graziaren instrumentu ta kausa. Orgatik, ofiziale onak bekala edeki zitio sartu ziren abusoak, nola baizire, izatea batek bi edo ia konsorte ta despeizea bein arturikakoa, eta ala erreprobaturik gizona malizias sarturikako exzesuak, aprobatu ta konfirmatu zue matrimonio justoa Jangoikoaren obra bekala, ta gero santifikatu ta egin zue zazpi sakramentuetaik bat. Urruti zego erreprobazeas matrimonioa in zuelaik ainberze estimazio ontas. Galdegin zioten fariseoek, zillegi den despeizea gizonak bere konsortea edozein motibos. Eta Jaun dibinoak errespondatu zioten: Estuzie leitu, ezi kriatutuenak gizonak prinzipioan, egin zituela arra ta emea? Eta erran zue ezi onengatik utziko duela gizonak Aita ta Ama, ta inen duela konpañia bere konsorteareki, ta izain direla bida batean. Orgatik ia estire bida, baizik gorputz bat. Bada, Jangoikoak juntatu duena ezdezala separa gizonak (Math. 19).

8. Ala honratu zue itzes ere matrimonioa Jesu Kristok. Baña exenpluas ere honratu zue joan zelaik Kanaa Galileakoan in ziren bodetara, non ere in baizue lenbiziko milagroa Ama Birjinain petizios, itzuli zuelaik ura ardotan. An zire apostoluak, an ze Maria Santisima, an ze Kristo bera, an inzue lenbiziko prodijioa, erakusteko mundu guziari matrimonioa dela beraren probidenzia; ezkondu nai duenak deitu beartuela Jesus, Maria ta apostoluak, auda, ezkondu bear duela enkomendatu ondoan Jangoikoai ta Ama Birjinai, ta konsultatu ondoan gizon sanduei; eta ezkonduen falta dutelaik edo amorioaren edo bakearen edo berze zerbait onkiren ardoa, errekurri deizatela Ama Birjinagana. Baña ontas errain dugu gero. Orai biz aski erratea, dela Jangoikoaren obra matrimonioaren sakramentua, ta andia, diones San Pablok, sacramentum hoc magnum est. Eta barin baliz nior dionik matrimonioa estela berdadero ta proprioki zazpi sakramentuetaik bat Kristok instituitua, baizik gizonen inbenzioa, ta estuela ematen graziarik, biz eskomekatua, dio Tridentinoak. Bada, gloriazen badire erreligjioneak fundadorees, matrimonioa fund. etc.

Serm. 104.
De matrimonii finibus
bonis effectibus etc.
ann. 1782

Et erunt duo in carne unâ.
Sacramentum hoc magnum est;
ego autem dico in Christo, et in Ecclesia. Ephes. 5.

1. Erranik ia dela matrimonioa gizon ta emastekiaren unione bat Jangoikoak disponitua ta Jesu Kristok konfirmatua ta konsagratua sakramentu, zeintas baitio San Pablok dela sakramentu andia, zeren signifkazen baitu misteriosoki unione sandu dibino gura zeinêki desposatu baize Jesu Kristo Eliza sandareki, sacramentum hoc magnum est, ego autem dico in Christo et in Ecclesiâ (Cath. Rom. hic. SS.16). Diot, alaber, signifkazen duela ematen duen grazia gura sakramentu gonek, Kristoren merejimentuen medios perfekzionazeko amorio naturale gura konsorteetan elkarren gana, ta konfirmazeko unione fuerte gura, ta santifikazeko ere bai konsorteak berak (Ib. SS.17). Goazen orai ikustera zer fines prinzipalki paratu den matrimonioa edo zein diren finak zeinengatik imini zuen Jangoikoak.

2. Lenbiziko fina da izateko bizitzako laguntza, konpañia ta konsolu gizonak emastearreki ta emasteak gizonareki, zein apetezizen baita instinto naturales; ta bilazen baita esperanzagatik ezi elkar lagunduko direla eginaskeros biak bat bekala, ta orreki bakoitxak bizikideain laguntzaren medios aisago pasatukotuela bizitzaren molestiak ta zarzutuko nekeak. Orgatik ere erran zue Jangoikoak prinzipioan: Non est bonum hominem esse solum, esta ongi, dagon bakarrik gizona, faciamus ei adjutorium simile sibi, egin zogun lagun bat bera bekalakoa. Egia da ezi askotan bizikidea, ez laguntzeko, baizik galarasteko, ez alibiazeko nekeak, baizik añadizeko molestiak izaten dela; ez emateko emen zeruko deskansu iduri bat ta laguniteko igaten zerura, baizik parazeko infernu txiki bat emen ta bulkazeko erori daien beitiko ta betiko infernura, ezi orgatik zio San Bizente Ferrerek txistes, ezi orai erran lezakela Jangoikoak: Ongi da dagon bakarrik gizona, etzogula eman galzale bat bera bekalakoa, non faciamus ei destructorium simile sibi (Dom. 2. p. Trinit. c. 2. ap. Claus t.1 cat. conc. 42). Baña esta au kulpâ matrimonioarena, esta fundatuzuenarena ere matrimonioa, baizik ezkondu bereena; beiratu al zute ezkondubañolen zer itera zoezin, ta orai ere dezakete erremedia, humillatus, sufritus, ongi egines ta eskatus Jangoikoai, ezi Jangoikoaren aldetik paratua da matrimonioa elkar laguntzeko zerbitzazen bere majestadeai, ta au da lenbiziko fina.

3. Bigarren fina da, propagare naturam, jenerazioaren aumentazea, zerengatik animale jenero guziek dute naturalki afizione beren humeengana, ta argatik itentuste dilijenziak, kafiak, probisioneak ta gañarako bear direnak, juizio balute bekala. Bada, ia inporta delaik mantenitzea gizagendea munduan arrazioduna den bekala, ta kriptura prinzipala, argatik Jangoikoaren disposizios da arrazionaleetan matrimonioa, edazeko ta aumentazeko beren linajea edo kasta; eta zeren ezpaliz probidenza berexteko bat bateki, bailizake nastekazio ta konfusio desordenatua, ta por konsigiente deskuido humeen azizean etxakines zein zeinênak ziren, orgatik Jangoikoak instituitu zue matrimonioa, prokurazeko ta azizeko nork bere humeak, ez ainberze usteagatik bere ondasunen

heredero, nola karraiazeagatik Jangoikoaren esklabo ta esklaba, ta konserbazeko fedea, errelijionea, birtuteak ta santidadea, ta igorzeko zerura ia ta ia, zerbitzatu ondoan emen Jangoikoa, gozazera ta bedeikazera glorian. Ta au da berze fina izan zuena Jangoikoak ziolaik: Crescite et multiplicamini, aumentazaiste, ta añadizaiste anitz. Ta au ere da izan bear dutena ezkonzen direnek, solamente izan daiengatik ia zerbitzazale Jangoikoain etxe gontan munduan ta ia sandu ta sanda berze munduan; fin gau zute lengo sanduek ta sandek, Jangoikoari kuadratu ziotenek matrimonioan, ta fin gortas usatu bear da matrimonioaren lizenzia, ez apetituain asetzeagatik nola zaldiek eta astoek entendamenturik estutenek, nolite fieri sicut equus et mulus, quibus non est intellectus. Baña alaere esta fin gonon kontra in zutena berze anitz sanduek, bizitzea diot, matrimonioan ta kastidadean, elkarren konsentimentus, entendazen da (ezi bakotxak ez dezake ori berzeain konsentimentua gabe); dena fin garren kontra da prokuratu ondoan berek inpedizea, galzea edo malograzea fruitu izan bear zena. Estire guratsoak alakoak. Zer diot guratsoak? Estire otsoak ta tigreak alakoak, dire gaistoagokoak; dire Herodesak; gaistoago dire, ezi aiek kuidazeuntelaik beren entrañetakoes, ebek dire ez berzerenen baizik berenen ilzaleak, inhumanoak, inpioak, Jangoikoaren intenzioain kontrarioak, zein baita azitzea humeak eman naituenak guzien kriadoreak; ta orgatik inpedizentuenaren eskutik eskatukotu aien arimak. Eta noiz inen diote errestituzioa? Erit anima tua pro anima illius. Arimas pagatu bearbada arima galdu dena, anitz galdutuenak nola pagatuko du bere arima soillas? Arimagoi tormentatua izain da anitz kondenatuen penes; doble ta erredoble infernu izain da arrendako justizias ere.

4. Irugarren fina matrimonioarena da sedare concupiscentiam, erremediatzea aragiaren inklinazio gaistoa, goardatzea moderazio justoan appetitu errebela matrimonioain frenoareki ta librazea erorzetik Jangoikoaren ta arrazioaren kontrako desordenetan pasione brutoain furiaren kasos. Ortako jakin bear da, ezi kriaturik Jangoikoaren eskus Adam ta Eba inozenziain estadoan, gorputz ta arimain tenple on justo batean, maliziaren appetiturik gabe, desobedizeareki aiek gero Jangoikoai, errebelatuzizaizkiotela aiei beren arima ta gorputzain pasioneak; ta gaizera inklinaturik gelditu zizaizkiote bere bekatuain penan, zeñnen gaitza kutsuskoa bekala pasazen da aietak guziei jenerazios, ta ala da preziso egotea beti zentinelan ta armeki eskuetan geuren pasioneen kontra, erdextekos biktoria; eta garbiturik ere bataioaren medios bekatu orijinala heredatu ginduena, esta edeki zen culpa garren efektoa, baita inklinazio gaistoa ta pasioneen errebeltasuna. Au esta bekatu, nola ez dezon batek obeditu baizik erresistitu; baña bekatutik sortua da ta bekatura tirazen du persona, ta artaik du gizonak egotea beti gaizera inklinatua orma zarra bekala erorzera; ta ezpada erresistizen, trabajazen ta apuntalazen bekala, eroriko da. Guzien ertean enemigorik andiena da aragia, etxe barneko traidorea, ta ezin aparta geurengandik, antes bien, mantenitu bear estaien il; bitarteo, ordea, arrazio da ta justizia kastigatzea ta domatzea barus, nekees, mortifikazios ta espezialki goardatus begiak, kendus okasioak, erretiratus peligroetaik, txurtus ardoa, erregaloak, laminuriak ta berze direnak luxuriain zeboak, zeñneki suberzen baita ia gorputzaren asto domagaiza. Beti dago gaizera, bada, beti tiratu freno; beti da inklinazio gaistoa, biz beti erresistenzia. Beti dago tentazen, bada, gauden beti kontrarestazen (sic). Beti, en fin, garade frajilak, erikorrak, ez erori bai erori, bada, beti usatu bear dire erremedioak ez erorzeko. Bat berzees landara da matrimonioa, zeintara daizken erretira portura bekala direnak flako garaizeko appetituain furiak berze gisas; ta au da berze fin bat zeñengatik paratu baita matrimonioa, diones San Pablok: Propter fornicationem autem unusquisque suam uxorem habeat, et unaquaeque suum virum,

eskapazeko erorzetik desonestidade gaistoan, izan bez bakotxak bere ematea ta bakotxak bere senarra. Gisaontan zerbitzarasten zaio pasioneari Jangoikoaren honratan azizeko humeak matrimonioaren legean, ezperen galaraziko ziolaik arima legeain bortxa. Dugu exenplutto bat ontako. San Toribio bizi zelaik Etrurian, ze an otso bat dañu anitz iten zuena ermanes ozka axuriak, ardiak eta aur txikiak ere bai. Juntatu zire sanduagana amak eta arzaiaik dañu izan zutenak kontazera ta eskazera erremedio. Eman zue sanduak, zerengatik zoeielaik bein otsoa aur bateki agoan segizen ziola atzetik ama tristeak oius ta lamentus, sanduak aiturik lastima gaiek ta ikusirik otsoa nola zoeien, manatu zio instante zekarrala aurra; instante etorririk laisterka, utzi zue sanduaren oñetan aurra, ta sanduak entregatu zio sano bere amari. Eta gero itzulirik otsoagana erran zio: O animale gosetia, Jangoikoaren izenean manazen diat ezakela ia dañurik egin; ofrezizenbadidak, egunoro idukiko diat prestaturik nere zeldako atarian ire alimentua beaiken adiña. Otsoak, apaldurik burua, obedizen ziola bekala joan ta ia sekula etzue dañurik egin baizik kontent bizitu ze sanduak ematen zion janarioas egunoro bere neurrian. Otso goneki konpara daike appetitu desonestoa, zeñen kontenizeko bere erreglan in gabe desordenik ta exzesorik, dago matrimonioa Jangoikoaren probidenzias; ta orgatik konbeni da gasteak maliziara inklinatuak senti direnak, ezkon daitzen len baño len mantxatu gabe gorputz arimak berenak ta berzerenak. Ai gizonas matrimonioaren sakramentu errezipitu nauten artara doazines mila zikinkerien bideas! Ai emastekies anitzei beitate, anitzeki llaneza indigno konsentizientiotenes arrapatzeagatik bat senartako! Eta ai guratsoes ta kuidado dutenes estiotenes probidenziazan matrimonio honratu bat bere denboran, ez soltazeagatik dote justoa edo erreparo friboloen kasos, edo ajola faltas! izain da nork eskatu kontu iten diren ta montiazan diren bekatues munduan, paratu faltas, a tienpo, matrimonio sandu baten erremedioa, ezi ortako da.

5. Baña konsagrazeko sakramentutan matrimonioa Kristok berze fin bat izan zue goragokoa, au da, ematea ezkonzen direnei bigarren grazia bat unizeko amorio sanduan konsorteen biotzak, zerengatik delarik sakramentu gau signifikaizeko Kristoren unionea ta amoriosko desposorioa kristioeki, signifikaizekos ongi, ongi unizeko grazia eman bear zue, zerengatik ongi, bai, sines ongi onesten du Kristok Eliza bere esposa. Deizea graziagoi bigarren grazia da, zerengatik errezipitzean sakramentu gau egon bear baita ia grazian, ta grazia gorreki doazinei ematen diote diogun bigarren grazia gau, seguratzeko bekala zeruko lotzaki dibino bates amorio naturale beardutenura elkarrengana, ta ingurazeko bekala berze katea bat urreskoa lenbiziko katea lurreko garren gaiñetik. Sakramentu gonek, bada, obligazentu konsortearak motibo superiores onestera elkar Kristoren amorioareki, eta aun itzes erran zue San Pablok, onesteko bere konsortea ala nola Kristok Eliza. Suabezen tiote bizitzaren molestiak, aisazen tiote trabajuak, dulzazen tiote amargurak ta legunzen diote matrimonioaren bustarri latza, ta arren prisionea itzulzen diote prisione bat pasagarria. Kateak dire ta grilloak dire fuerteak ta soltaestaizkenak ta burriñasko kate gogorak; baña biz Jangoikoaren grazias amorio ona, onetsibeites Jangoikoagatik, ta itzulzen dire urreskoak katea goiek, dio San Agustinek, ament se, et aurea erunt. Esta inport ez sentituagatik anitzek sakramentuain efekto ta grazia gau; beren baitan dute estorbua, ken bezate ta progatukoute berze askok bekala, ezi, en fin, ortako konsagratu zue Kristok matrimonioa, emateko unione onaren grazia; au da bere fina, causare gratiam unitivam.

6. Ia orai explikaturik matrimonioaren finak, erdi explikaturik daude arren ondasunak deizen direnak, baitire irur: Lenbizikoa, bonum prolis, humeen ondasuna;

bigarren, bonum fidei, fedearen edo fidelidadearen ondasuna; irugarrena, bonum sacramenti, sakramentuaren ondasuna. Baña klarazeko geiago ta estaien ekiboka, ara lenbizikoa: Bonum prolis, jenerazioaren ondasuna, hume izatea ta azizea Jangoikoaren zerbitzuko. Ondasun gau da nola ematen duen Jangoikoak. Ematen duelaik on, ta ematenestuelaik ain on; ezi, al kabo, esta onik deus, baizik Jangoikoaren borondatearen konforme dena, zein delarik guzien kriadore, errepartzentu bere kriaturak nola nai duen. Laur giltza, ziate lengo hebreoek, gelditu zituela bere eskuan Jangoiokoak fiatu gabe niori: Bata, zeruko giltza, soltazeko erauntsiak; bigarren, bere granero dibinoen giltza, au da animale bizi guzien sustentua; irugarrena, eriotzearen ta obien giltza, ilzeko ta erresuzitazeko; laugarrena, bizitzaren ta jaiotzearen giltza. Giltza gebeki igorzentu mundura ta atrazentu mundutik kriatura bereak; ematentu edo ez erauntsiak; abastazentu edo txurzentu alimentuak, nola dakien bear dela. Estago, bada, ezkonduen menean suplizea mundua jendeas, gora dago suplizalea. Aiek solamente dezakete eskatu ta prokuratu ta esperatu Jangoikoaren dekretoa kiatzeko kriatura bat, ezi Dabidek dion bekala, ezpadu Jangoikoak fabrikazen etxea, banoan nekazen dire fabrikazaleak, nisi Dominus aedificaverit domum, in vanum laboraverunt qui aedificant eam. Bego guzia Jangoikoaren eskuan, ezi guk estakigu zer izain diren humeak ta noiz den on izatea. Hume onak dire guratsoen konsolu, gaistoak tormentu; batzuetan dire salbazeko berak ta bere guratsoak; berze batzuetan galzeko bata eta berzeak. Zenbat obe zue, ezpaze jaio Judas! Eta zein on, berriz, jaiotzea San Pedro! Estutenek naute ta dutenek askok obe dela gabea diote. Eta errealki humeengatik anitz galzen dire. Beras, esta galzen matrimonioaren ondasun gau ez izanes, nola esten kulparik beren aldetik ez izateko, zerengatik ala nai du orduan Jangoikoak, ta ala obe da; esta ere lograzen ondasungoi izanes hume gaistoak, baizik onak, ta artako da matrimonio kristioa, ta au du lenbiziko ondasuna.

7. Bigarren ondasuna da bonum fidei, fedearen edo fidelidadearen ondasuna, ezi artan iten den obligazioaren kasos ia gizon gura da emaste garrena ta emaste gura gizon garrena; por konsigiente, lege arzen dio bakotxak bere konsorteari, zeintas landara admitizea nior da adultero ta ladron izatea, da legearen ta fedearen auxtea. Ezpaliz matrimonioaren koropillo fuertea, nor fia itzes? Nor seguratu señaless? Lizake konfusio, inkonstanzia ta gerra bat nastekatua. Orai, orde, matrimonioak lozentu alako maneran, ezi solo dezazke laza eriotzeak, orgatik ere deizen dire bizikide. Utzituste aita ta amak juntazeagatik konsorteari; ia emastekiak bizi bear du, nola ezpaliz berze gizonik munduan; ia gizonak, nola ezpaliz berze emastekirik asunto gontarako. Solamente bere konsortearindako da kristio arra ar ta emea eme, zio Tertulianok, Christianus uxori sua soli masculus. Bat egin dire; beude fiel, nola bere buruaindako, konsortearindako. Libre zire; lotu dire bustarri baten pean; segi elkar ez solamente amorioan, baitare etxean ta bizitokian; eta legeak nailuke aun ilik estaizen berex obian. Zein gauza fuertea exkomekazioa! berexten du kristio guzietatik; alaere exkomekaturik konsorte bat usten dio libre Elizak komunikazioa bere konsorteari guzietan. Zein fuertea den fede obligatuzirena matrimonioan! Ta au da bigarren ondasuna (Parra hic).

8. Irugarren ondasuna da bonum sacramenti, sakramentuaren ondasuna, konsistizen baitu binkulo edo lozaki fuerte gartan, zeñeki elkar obligatu baizire, ilartaño bata edo berzea. Zer ondasun da ori? Antes bien, dirudi dela prisione bat. Ala da, baña prisione bat, zeinek segurazen baitio gizonai emastea ta emasteai gizona, ez dezan utzi, ez pretendi, ez ere logra. Esta sazerdotea proprioki ezkontzentuena, esta ere Eliza, da Jangoikoa bera; mulier quam dedisti, Elizak eman balio konsortea, Elizak ba lezoke edeki,

baña orai Jangoikoak juntatu duena ez dezake niork separa. Quod Deus conjunxit, homo non separet. Ain aide urbilak egin dire, ezi biok dire gorputz bat; buru da gizona, ematea da bere kostilla propioa, biotzain ondokoa; orgatik, ala nola niork ezpaitu aborrezizen bere burua, oroat portatu bear du konsorteareki; nola ezpaitu botazen bere gandik batek besoa, edo burua, edo berze edozein mienbro, estu apartatu bear bere konsortea.

Akonpañabeites elkar onetan ta gaitzetan; bataren ona berzearen ona, bataren gaiza berzearen gaiza; lagunbeites elkar zerbitzazen Jangoikoa ta igaten zerura, igan ondoan bata idiki dezon berzeai ataria. Exenplu andia dugu San Adrian ta Santa Natalian. Preso zegolaik ura fedeagatik, erdetxi zue karzelerogandik diru anitzen kostus, utzi zezan joatera despeizera bere esposa. Deitu zuelaik atarian, ezaundurik boza, etzio idiki nai ataria, ustes eskapatuzen eriotzeain beldurrak; baña erranik sanduak solamente eldu zela despeizera ta animazera padezi zezan arrek ere gogotik eriotzea eman nai baziote fedeagatik, orduan, elkar besarkatu ondoan, biak itzuli zire karzelerara, ta asistitu zio presente azken atseraño emasteak senarrai tormentu guzietan, ta ebaki nai ziotelaik besoak ta zangoak, ebakizerakoan idukizen zitio bere eskus Nataliak animazen zuela anitz. Ala iltze ura ta gero bera Jangoikoatik, ta orai daude biak gozazen mereji duten gloria. Etc., etc., etc.

Serm. 105.

De obligationibus matrimonii.

ann. 1782

Verum tamen neque vir sine muliere,
neque mulier sine viro, in Domino. 1 Cor. 11.

1. Explikaturik ia matrimonioaren esenzia, finak eta ondasunak, segitzen da explikatzea ezkonduen obligazioak tustenak ia elkarrengana, ia hume ta familiagana, bakotxak bere ariora. Matrimonioa edo eskontza deizen da berze izenes conjugium, baita nola bien bustarri komuna, biek konpañia onean erman beautena, estaien pensa dela estado libre obligazioetaik, zeintan parte dire bardin, parte desbardin, guzietan ordea lagun konsorteak. Emastekiaren buru da gizona, gizonaren buru Kristo ta Kristoren buru Jangoikoa, dio San Pablok (1 Cor. 11). Gizona da Jangoikoaren imajina ta gloria, dio berriz, baña emastekia da gizonaren honra. Etzue izan prinzipio gizonak emastekiagandik, baizik emastekiak gizonagandik, zerengatik etze kriatu gizona emastekiaingatik, baizik emastekia gizonagatik. Baña ez gizona emastekia gabe, estare emastekia gizona gabe, jangoikoa baitan, neque vir sine muliere, neque mulier sine viro, guziok dire San Pabloren itzak. Ekarri memoriara erran ginduen Adam bakarrik lenbiziko kriatuagatik, nola Jangoikoak erran zuen etzela ongi egotea bakarrik gizona, egin bear ziola laguntza bat bera bekalakoa; ta nola arren kostillatik formatu zuen Eba, eta nola presentaturik Adani onek erran zuen ura zela bere ezurretaik ezurra, ta aragia bere aragitik artua, arrengatik utziko zituela gizonak bere guratsoak juntazeko biak batean, eta nola gero Jesu Kristok erran zuen, ezi juntatu duena Jangoikoak ezdezala separa gizonak. Itzebetaik ta matrimonioaren fin ta ondasun ia explikatuetaik rastreatu beartugu ezkonduen obligazioak brebekiro emen, ezi nola laurgarren mandamentura pertenezizen baitute proprioki, arren explikazioan explikatukotugu aiek ere geiago. Atendi orai diotena.

2. Matrimonioaren lenbiziko fina ta ondasuna da izatea konpañia bizitzaindako, ta orgatik iten dire ta deizen dire bizikideak, ta ontaik dute biek igoalki obligazio bizizeko elkarreki elkarren konpañian ilartaño bata edo berzea; bitarteo ez bata ta ez berzea estaike aparta bere bizikideaganik onen konsentimentua gabe, ezpada txoil denbora gutitako, ezi biok egin zire gorputz bat ta beaute segitu elkar; solamente konbeni baliz aldatzea bizilekuas, senarrai buru bekala tokazen zaio autazea ta emasteai segitzea, baña aun orduan prokuratu bear da egin daien bien konformidades. Despeizea beregandik konsortea edozein motibos debekatu zue Kristo gure Jaunak (Math. 19). Solamente adulterio edo infidelidadea da motibo diborzio perpetuoain. Diborzio tenporalain, au da, denbora gutitako aski dire motibo berzebazuk ez ain andiak; baña nola pasioneak engaña baitezake bakotxa bere kausa propioan, Elizari tokazen zaio juzgatzea den edo ez aski motibo; ta edozein kasos, naiz betiko, naiz denboraren bateko separa daizen, ia ez bata ta ez berzea estaike ezkondu berze nioreki, bizidenartaño lenbizikoa zeinēki konsumatu baizue matrimonioa, zerengatik binkulo ta obligazio gau da perpetuoa, lazaestaikena baizik eriotzearen eskus. Bizikideak bizi guzian bizikideaikei bear du akonpañatu. Au da lenbiziko obligazioa dakarrana matrimonioak.

3. Nola matrimonioaren berze fin ta ondasun bat baita jenerazioa, argatik bigarren obligazioa da artako preziso den komunikatze naturala. Obligazio gontan igoal

konprehendituak dire biak matrimonioaren legeas, zeinengatik ia ezpaitu gizonak potestaderik bere gorputzas, baizik emasteak, estare emasteak bereas, baizik gizonak; eta estuelarik niork obligaziorik eskazeko zor zaiona, ta baitezake exkusa, baña estaike exkusa pagatzetik eskatzen dionai zor duena, ezparinbada kausa graberik ukatzeko, estaike uka, zeren zor baita justizias, dion bekala San Pablok, uxori vir debitum reddat, similitér et uxor viro. (Solamente elkarren konformidades daike ta bear da abstenitu komunionearen atenzios, eta jai, baru ta penitenzia iteko egun prinzipale zenbait bakotxes (Cath. Rom. hic. ult. ss.). Alaere baliz peligro zerbait dañu espirituale abstenitus batean edo berzean, usa bedi matrimonioaren lizenzia, ezdezkiengatik tenta Satanasek beren inkontinenziaren medios; guziau da San Pablaren doktrina (Ibid. Corint. 1. c.7). Bear da, alaber, goardatu moderazio justoa, lizenzia gonon usoan, naturale zak berak ta arrazioak eta aun irrazionaleen exenpluak erakusten duen gisa bere denboretan, baitare usatzemoduan berean ere, in gabe exzesu ta desorden gaistorik lege edo arrazioaren kontra. En fin, bear da usatu intenzio eta fin ones, au da, edo jenerazioaren amorios, edo fragilidadearen erremedios, propagatione naturam, sedare concupiscentiam, ezi gobernatzea pasione soillas, ta ez juizios, da agrabiatzea sakramentua, atzentzea kristiotasuna ta arrazonaletasuna, ta izatea ala nola zaldi desenfrenatua, nolite fieri sicút equus et mulus, quibus non est intellectus).

4. Berze fin ta ondasun bat matrimonioarena da fede edo fidelidadea, bada, au ere da irugarren obligazioa biak bardin konprendizentuena, zeñen kasos goardatu bear da ala bata nola berzea garbi gañarako guzietak, nola ezpaliz gizonaindako berze emastekirik munduan ta emastekiaindako berze gizonik, baizik bakotxaindako bere bizikidea; zeintas landara ez dezake admiti ta ez permiti nioreki ez tratamentu, ta ez itz, estare deseo edo plazer gaistorik, Jangoikoaren legeas landara matrimonioaren leges ere, ta onen fedeagatik, so pena izateko ladron, adultero ta infiel, zein baita bekatu bat andia, diones Eskritura Sagratuak, peccatum grande (Gen. 20), eta Job sanduak berriz deizen du indignidade ta injustizia txoil gaistoa, nefas est et iniquitas maxima (31), eta San Pablok Korintotarrei eskribizen diotelaik, nola aitu zuen zela aien artean adultero bat zirkustanziareki txoil enormea, erraten diote: Eta alaere zuek zauste ain bano, ta estuzie lamentu egin ta luto artu, botazeko zuen artetik alako lana egin duena. Nik, bada, naiz ausente personas, baña presente espirituas, ematen dut sentenzia, juntaturik zuek ta nere espiritua Jesu Kristoren birtuteareki ta arren izen sanduan, entregazeko alako gizongoi Satanasi, etc. (1. Cor. 5). Lanze gontas zio San Krisostomok: Bat soillik ze adulteroa, ta alaere San Pablok iten du ainberze sentimentu, nola galdu baliz ziudade guzia (Ibid). Emastekia baitan du delikto gonek horrore ia, baitakar peligro hume adulterinoas matrimonioaren ta lejitimoen perjuiziotan. Eta estu fakultaderik konsorteak permitizeko bere konsortean infamia, ezi da estado guziaren agrabiotan, ta, por konsigiente, orot adulterio, naiz konsient izanik bere konsortea, eta, antes bien, au da berze horrore bat extraordinarioa, jentilek ere ez dezaketena soporta. Zer diot jentilek? Esta animale brutoek ere, zeinék zelatzen baitute bere lagunain bakantasuna. Da, bada, adulterio senzilloa bekatu doble, edo bi bekatu mortalak: Bata, purezaren kontra, berzea, matrimonioaren fedearen kontra; eta, baldin bi bekatariak balire ezkonduak, bakotxak in lezake irur bekatu mortale purezain ta bi matrimonioen kontra. Baña nezesidaderik gabe dardukat au guziau nere auditorioan, solamente segitzeagatik asuntua ta erakusteagatik ikasteko dena ontan, estaien ignora urrengo ere, ezi Jangoikoari graziak, emen arima obeak ustetut guziak, ta goardatzen diotenak Jangoikoai ta konsorteari zor dioten fedea; eta, antes bien, ez dezake

niork sospetxa infidelidaderik bere bizikideas arimaren penan progu onak gabe, ta inen luke ortan bekatu mortale andia.

5. Berze fin ta ondasuna matrimonioan delaik sakramentuarena, unitzea elkarreki amorio sanduan, au da laugarren obligazioa, onestea elkar ta bizitzea unione ta bake onean. Eta au da zimendu prinzipala berze ondasun guzien, ta zeñien gain inen dut platika bat aparte gauza gorren inporta zio andia in kasos, eta orai ere errain dut zerbait. Proximo laguna onestea geuren buruok bekala manazen du Jangoikoak; eta nor da proximoago nola bizikidea bizikideaindako? Arrengatik utzi zue aita ta ama; nolako amorioa bear dio arri, zeñengatik utzi baizitue geien amazen direnak? Nola errain dut? Ala diot: Errege ta Aita Sandu ta guziak baño ia onetsi bear du bizikideak bizikidea, eta edozeñeki gaizki etorzea estu sentitu bear ainberze, nola bizikideareki, Jangoikoa salbo. Biok dire gorputz bat, onetsibeites nola mienbro lagunak elkar. Buru da senarra, baño ematea esta oñak; nausi da senarra, baño ematea esta esklaba; manazen du etxean gizonak, baño emateak estu zerbitzazen, baizik gobernazen. Laguna ematen dizut ta ez esklaba, erran zio Elizak gizonai fedazerakoan, onetsi zazu ala nola Kristok bere Eliza. Biak dire elkarren lagun, biak berzeen superiore; ezin guzis bardin izan bi buru, bat bear ze buru, bat bear ze gexago izan, ori da senarra, baño amorioaindako igoal dire biak. Bego bai ematea sujeta senarrak, dion bekala San Pablok; baño senarrak onetsi bez ematea bere biotzeko prenda bekala eta, antes bien, por lo mismo, ezi baita flakoago, egin bezo ia estimazio dion bekala San Pedrok, quasi infirmiori vasculo muliebri impertientes honorem. Senarrain honra da izatea honratua ta errespetatua bere ematea, ala nola oni iten zaion despezioa senarrain kontra da. Bataren ona berzearen on, bataren gaiza berzearen gaiz. Orgatik prokuratu berzeain ongi guzia berea bekala, alegratu arren onas nola bereas, tristatu arren gaizas nola bereas, alibiatu elkar al guzian, injeniatu nola gustoa egin, disimulatu faltak, sufritu jenioak, eta baliz diskordiaren bat, dela kulparik gabe edo kulpareki bietan, benzait estaiela pasa alzina, ezdezala iraun iruzkiak buelta bat emateko bear duen denboran, sol non occidat super iracundiam vestram. Itzali, orzi, ito, txindi gaistoa len baño len, estaien senti etxeko paretetaik alzina. Izan da, pasatu da, deus esta. Baño estaike sufri jenioa, du falta gau, du berzea; bada, izozu konpasione ta ez aumenta sua. Espezialki trabajuetan alibiatzera bizikideain trabajua itz ones, orazios ta dilijenziak. Galdurik korona, botaturik bere erreinutik zebila iges Mifridates leku batetik berzera, ta Hipsikratea bere esposak segitzen zio itsasos ta leorres gizonain trajea konsolatzen, animatzen, desuerte ezi, errege garrek orgatik erraten zue ia estimazen zuela bere esposaren kariñoa, bere korona ta erregetasuna baño. Eritasun ta lazerietan espezialki alibia al guzia asistitus, konsolatus, ines dilijenziak, paratus medioak, naiz saldu paretetako itzeak, kontu inik ezi zeuroi zaradela eri zaudena zaratalaik biok bat; ta ilaskeros zu, zuretako esta protxal etxe ta gauzak; orroat inzazu kontu bizikideas. Ai estutenek konpasione bizikide eri dagonas! Zer errain dugu, ojala progarazi balezote Jangoikoak; zer den eritasuna? Ez, guk estugu erran bear, Jangoikoak du kuido ortas, ta alako kruelei al kabo progarasten diote, ikas dezaten, ezi progatu duena da konpasiboena. Baño progatu gabe ere, bear da konpadezitu bizikideas, ala nola aranze bat sarzen bada oin puntan, ai min artu dut, dio miak, begiak berla doaz ikustera, eskuak kurazera, ta gorputz guzia kurtzen da. Da San Agustinen konparazionea. Nolas ala? Zeren baitire mienbro lagunak, ta senti baitute berzeain mina orroat nola berea. Bada, ala bizikideak bizikideain trabajuetan.

6. Eta ia oraño. Nauzie aitu egia bat? Aizazie: Iago konpasione izan bear luke batek bere konsortea bere buruas baño, ia kuidatu arren mines bereas baño, ponderatu

berzearenak ta txikitu ta disimulatu bereak, zerengatik ala estu engañatuko bere burua izanes sobra konpasiōe, ponderatus bere gaizak, bilatus beretako aisurak, erregaloak ta konbenienziak pretextoareki ezi dela erikor. Oh delikatuki tratazen bada gorputza, atrako du ia ta ia min andik eta emendik engañazeko bere burua, ta peligro gau da bere buruas sobra kuidazeaz; orgatik konbeni da beretako izatea gogorkara, berzeaindako beratx, bere buruas ta bere mines ez ainberze kaso nola berzearenes; eta erran duguna ala entendatu bear da kuidazeko ez batek bereas, baizik berzeak bere konsortear ia ta ia; ontan estaike izan engañurik amorio propioarenik, baizik antes bien batat disimulatus, txikitus, ta ez loxentxatus bere gaiz propioak, izain du mortifikazioaren birtutea; ta berzeak kuidatus ta alibiatu naies konsortearenak, izain du karidadearen gananzia. Uts andia in nezake, ezpanecki para exenplutako bi esposorik obrenak Maria Santisima ta San Josef. Leizen da Agredako serore venerable garrek eskribitu zuen Ama Birjinain bizian beti biak elkarri gusto egi naiak zebiltzala guzietan, eta Maria Santisimak atra bear zuelaik etxetik, beti eskazen ziola San Josefi lizenzia, eta San Josefek akonpañazen zuelaik Santa Isabelen bisitazera, beti galdezen ziola ia nekazen zen, ia zerbait alibiatu zioken, mana zezola zerbait; alaber, Ama Birjinak kuidado guzia zuela bere esposoas eta errogazen ziola igan zeien astokora jautsirik Andre andia. Alaber, Belengo biaje ta Ejiptoko gaietan bere buru propioain nekees penarik ez, ta zuela pena andia San Josefek Ama Birjinainas ta Ama Birjinak San Josefenas. Eta, en fin, azkenerat ia asi zelaik erizen sandua, kuidazen ziola dilijenzia extremoareki bere esposak erreparatu gabe bere nekean, aliketa azken atsa emanartaño, ta gero ere. Ar bezate ezkonduak exenplu, gizonak San Josefengandik, emastekiek Ama Birjinaganik, bizizeko elkarreki unione onean Jangoikoaren agradotan, ta guziek zerbitzazeko ta maitazeko Jangoikoa, a porfia, etc. Inzkigun fede, esperanza, etc.

Serm. 106.
De amore, pace,
adjutorio conjugum.
ann. 1782

Viri diligite uxores vestras sicut
et Christus Ecclesiam. Ephes. 5.

1. Aipatuginduza ia ezkonduen zenbait obligazio nola bizitzea elkarren konpañian, komunikatzea matrimonioaren legeain konforme jenerazioaren ofizioan, goardatzea elkarri fede edo fidelidade perpetua, onestea elkar amorio onas bizitus unione ta bake sandu batean, ta emen gelditugina. Goazen orai prosegitus Jangoikoaren graziareki bateo. Irur gauza dire kuadrazenzaizkidanak, dio Spiritu Sanduak (Eccli. 28): Concórdia fratrum, anaien konkordia; amor proximorum, proximo lagunen amorioa, et vir et mulier bene sibi consentientes, eta senarremasteen konformidade ona. Aizagun Kristo orai: Non dauden bi edo irur uniturik nere izenean, aien erdian nago ni (Mat. 18). Eta zierto ezi jaio zelaik Jaun dibinoa kantatu zute aingiruek: Gloria Jangoikoai goienetan, ta lurrean bakea borondate oneko gizonen. Bizi zelaik, bakea enkargatu ziote apostoluei; il zelaik, bakea utzi ziote testamentuan, pacem relinquo vobis. Apostoluek beren karten prinzipioan, grazia ta bakea zueki eskribizen zute, gratia vobis et pax. Pazea edo bakea ematen da mezakoan guziei komunione alzinean. Doaielaik komekadura, lenbiziko salutazioa da: Pax huic domui, bakea etxe gontan. En fin, probidenza guziak dire konserbatzeagatik bakea ta unione ona kristioetan, jakinik au dela zimendu ongi guzien. Eta orgatik jendeak bizi dire ziudades zitudade, erris erri junto elkarreki ta ez berex animale fieroak bekala; ta orgatik ere deizen da gizona, animal sociabile, animale lagunkoia edo konpañia naia. Esta aurkituko konpañia ta unione ertxiagorik nola matrimonioarena, zeintan bat bekala iten baitire bi konsorteak edo bizikideak; begira zein inportante den ebetan amorio ta bake ona, ta zein dañoso, berriz, diskordia ta desamorioa elkarren artean.

2. Bi konsorte diskorde dire leon bat ta dragon bat bustarri batean; zakur bat ta gatu bat zaku baten barnean, elkar zatikazeko ta errabiazeko. Gauza lotsagarria bizi bearra junto, ta ezin bizi elkarreki! Au da guruzerik andiena mundu ontan, ta gurutze bat daramana bizi apedreatu baten ondorean sekulako infernura. Au da etxeen, humeen ta kristiandade guziain plaga, guzia galzera botazen duena. Eta alaere gaiz gau ain usu da, ezi Erromako bide batean obia baten gaiñean zego letrero gau: Miraculum, viator, hic vir et uxor non litigant. Biajantea edo pasajeroa, errepara milagro bat, emen senarremasteek estute diskordiaik; adiarasteko, ezi dela ori milagro bat solamente obian ikusten dena, ilik ia ezdezaketelaik elkarreki porfia (S. Hieron). Baña badire ezkonduen pareja anitz konformeak elkarreki, zeruain aintzura bat iduriarasteuntena etxean bakeain medios, sanduki bizi direlaik sandu itzulzen baitute bere familia, alegrazeuntela Eliza, barrazeuntela exenpluonaren atxon fragantea; aieki bizi da Jangoikoa; aieki dute alegria ta festa aingiru goardakoek; aien erdian da Jesu Kristo.

3. Ala nai luzke Elizak ezkondu guziak. Baña erran bez San Pablok nola. Viri diligite uxores vestras, sicut et Christus Ecclesiam, gizonak, dio, onetsizkie zeuren bizikideak, nola Kristok bere Eliza. Eta fedazerakoan juntaturik eskua eskuareki, erran zio sazerdoteak: Laguna ematen dizut ta ez esklabela; onetsi zazu nola Kristok Eliza (Rit. vet.).

Zer idurizaizie konparazio gontas? Ia erran dezakegun guzia gutiago da onen aldean. Kristok onesten du Eliza egines benefizioak montonka, padezitus onengatik ainberze, barkatus kristioen ofensak, etc. Elizak, berriz, obedizen dio Jesu Kristori guzietan, sentizentu iten zaizkion ofensak, nai du berain honra ta plazer guzia. Ario gontara ezkondu kristioak. Ez, ordea, konjeniatzen biok. Bada, supli bez juizioak ta birtuteak jenioen desigualdadea. Domazen dire leonak ere mañas; elkar konponzen dire gatua ta zakurra etxe batean kostunbreain kasos; eta estu bakotxak akomodatuko bere jenioa, nai badu? errelijione bat da matrimonioaren estadoa, ta errelijione ertxia, usazeko birtutera ukatus bere naikundeak. Da eskola bat, joateko ikasis pazienza. Baña estaike aguantan nere konsortea, du kondizio gaistoa, mi desenfrenatua, tema bat fuertea, estaike arraziorik atra. Zer errain dut ontara? Oroat errain duela zutas berzeak. Diot, bada, ezi batean falta delaik arrazioa, birtutea ta ontasuna, berzeak orduan doblatu bear duela pazienza, juizioa ta birtutea. Estelaik zer sufritu, esta pazienza bearrik. Nornai da soldado, kontrarioik estelaik; baña delaik gerra ta injuria, orduan agerzen da baden birtute. Etzindue ezkondu bear, ezpazindue nai sufritu inpertinenziak. Argizarisko burua duena estaiela bara iruzkira. Delikatu ta puntoso denak edo etzue ezkondu bear, edo bearko du in patxorra. Itz gaistoei bearriak sor; akzione txarrei begiak itsu. Datorrelaik ubildu, turbio, desesperatua, ez oponitu, ez erresisti, in leku, pasatuko da; eta ixiltze grabe serio bateki garaizen da obeki ezi ez erreplikatus. Batek erreplika, berzeak erreplika, da añaditza deabruari gananzia joku gontan, ala nola trukean, zenbat ia truko ta erretruko den, doaz añaditus tantoak. Batak itz bat, berzeak berze bat, koleran moko moko da nola fu ta fu ematea itxekizeko ia kolerrain sua, eta deabrua esta deskuidazen axikazeas eta ia dena, eskutara datozi itzak abasto orduan, esta milagro delaik deabrua apuntadore; baña esta ordua, ikusiarasteko arrazioa naiz argumenta, zerengatik turbio dagolaik ura, estaike ikusi ondarrean dagon moneda edo perla. Zer erremedio, bada?

4. Barin bauzu humildaderik asko, erran txanzoneta bat edo berze, edo erran: Bego ortan, ta ixildu; noizbait ixilduko da berzea ere. Bi leio idikirik parean par, daramalaik guzia aizeak, ertxi leio bata berere sosegazeko zerbait. Beñ ere esta diskordia luze malignorik, delaik bata bakeskoa ta ixila. Aize bat soillik dabilalaik naiz fuerte, desabri dezake denbora; baña formatzeko tenpestade gaistoa ta arrerauntsia, bi aize izaten dire enkontratuak. Nork bear du ordea ixildu? Duenak juizio ia ta arrazio ia. Pensatuko da berzeak zuela arrazio ni ixilzen banaiz, ta ia goratuko da. Bada, nola inen dugu? ukatuko dugu geuren arrazioa? Ez, baizik proponitu itz gutis ta grabeas, ezpada au aski, estire askiko egun milla; utzi artan, pensazen badu berzeak duela arrazio ta gorazen bada, agian eroriko da noizbait kontuan, ezperen zure ixilzeak berak alkearaziko du alkabo; eta prudente guziek ezaundukoute nork duen; eta, en fin, aski da testigotako Janoikoa, ark ikusten du zure arrazioa ta pazienza. Ezi oiuan anitz iten duenak monstutzen du arrazio guti ta birtute gutiago; pleitu txarra duenak oiuan nasten du guzia, baña arrazioak estu bortxarik nai. Kristok itz bakotx bazuk grabeak erran ta ixilzen ze bere pasioan; judioek, ordea, anitz oiuan, testimonio, argumentu; ta alare Pilatosek ezaun duzue etzuela kulparik ta solamente inbidias zerdukatela arren kontra. Baña kulpante barin bada konsortea, esta bear erreprehenditu? Bai, baña modu onas eta kulpas barin bada grabea, ta ezpada emendazen zure erranes, bila zazu superiore bat nork emenda dezan; guziau serio, tieso ta bizkorki, baña itz gutis. Gañarako gauza ez andietan erranaskeros ia bere arrazio justoa, zertako ia porfia ta porfia? Iago galduko da ortan ezi ez balio duena gauzak. Obe da zeditu bere deretxotik bata edo berzeak, ezi ez segitu kimera ta pleitua anitz kostu ta kaltes;

zerengatik errealki nai badugu ezaundu, berzeren erranek ta eginetik estigute kalterik ematen, baizik geurek; por konsigiente, ark lograzen du biktoria, nor ahorrazen baita itz ta akzione gaistoetaik. Eta, en fin, konsortea barin bada ain zenzu gabea, moldegaiza ta erruina, ezpaitaie arrazios ekarrarazi beardenera, esta baizik konpasione izan; ta orazio egin Jangoikoai arren fabore, ta zeuretako in pazienzias probisione andia, kontenplatus Kristoren ta sanduen trabajuak ta eskatus anitz grazia pasazeko martirio luzegoi Jangoikoaren izenean; ezperen kongojazen, konsumizen ta errabiazzen bazara, galdukouzu irabazi zinduken guzia, ta esta alibiatuko, baizik añaadituko trabajua, ta infernu batetik pasatuko zara berze sekulakora. Baña sufritus sufritus, alde bat alibiatukouzu trabajua; berze alde, iragazikouzu premio andia; ta berze alde, agian, al kabo, onarazikouzu konsortea. Exenpluak dire montonka; eta arrazioak ere mostrazen du, ezi gizonkia da animale jenero bat ez palos, ez bortxas, ez furias domazen dena, baizik dulzuras ta modu onas; dulzazeko idisagarra, usatu bear da almibar ta zukure. Ario gontara jenioetan. Baña, zer da au, ezi bakotxak aizen duelaik bere kontra sentizen du, ta erraten duelaik berzeain kontra, estu sentizen? Eta ziertoki guk erratendugunas izan bear dugu sentimentu, eta ez erratendigutenes; antes bien, bear ginduke alegratu izateas zerbait sufrizeko.

5. Bi itzes, ez egin baizik ongi elkarri, ta sufritu elkarren faltak; orreki dago bakea; eta ongi egines ta sufritus ezpada emendazen kulpantea, ia esta berze erremediorik, baizik Jangoikoaren esku poderoso, zeñi eskatu bear zaio alda dezon biotz bat berria onesteko Elizak eman dion konsortea. Atzendu kexak; oroitu solamente bakotxa bere faltas; izan ez ira, baizik konpasione konsorte gaizki portazen denas, eta naiz galdu berze gauza guziak, estadiela gal bakea ta amorioa. Solamente orai azkenean nai dut adbertitu amorioa izan daikela tiernoa ta apreziatiboa. Tiernoa da kariño gura mostrazen dena anitz loxentxu ta finezatan. Apreziatiboa da estimazio mazizo gura, zeñen medios bere burua bezain ongi fabora lezaken konsortea. Ala nola aur txikitto bati guzia da itea festa, ta andiareki esta alakorik, ta alaere bietaik bat galzekos, eleji lezakete galzea txikia lenago ezi ez andia. Oni zaion amorio gau, bada, deizen da apreziatibo ta da ohea, ta txikiari zaiona deizen da tiernoa, ezpaita ain estimazeko. Ario gontara askok ezin dezakete monstra konsorteei amorio diotena, trata ze ta mintzaze moduan; baña orgatik biotzean estimazeunte ainberze, ezi aiengatik ezpaitute erreparatuko trabaju, dilijenzia ta edozein molestiatan bear orduan; ta en fin, itzes ez, baña obras monstraizeunte; ta au aski ta obe da, baita amorio apreziatiboa, solidoa ta sineskoa. Ala Santa Monikak onesten zue bere senarra herejea ta gaistoa, sufritus ta ez kexatus, obeditus, gusto in naies, ta eskatus Jangoikoari, ta ala merejitu zue ikustea kristiaturik ta ondurik arras al kabo. Ebek zire San Agustinen guratsoak. Ala onesten zue Tesea Siliziako tirano Dionisioren arrebak bere senarra Polixeno, zein eroririk bere koñatuaren desgrazian, joan ze iges utzirik andrea ta guziak. Asarraturik tiranoak ustes bere arrebak eskaparazi zuen, deizen du ta erreprehendizen du gogorki Tiesa andreak, ta lotsarik gabe defendatu zue anitz arrazios bere senarrain inozenzia, ta añaaditu zue: Nik jakin banu nere senarrak eskapatu nai zuela, dudarik gabe akonpañatuko nue, ezi honra iagotako daukat izateko desterratu inozente baten esposa, ezi ez anaia tirano baten arreba. Ala onesten zue Fernan Gonzalez bere andreak, zein joanik arren ikustera karzelean, atrarazi zue andik aldaturik bere tresenak ta gelditurik bera arren trajean. Ala onesten zire senar emaste gaiek presidario zeudenak, zeñetaik senarrai galdeginik zer emain zuen librazegatik bere emastea: Bizia ere eman nezake, erran zue; libratu gero biak ta galdeginik emastea ia zer iduritu zekion errege ta arren grandezas, erran zue etzezakela eman arraziorik, zeren ezpaizue beñere apartatu bere gogoa

emanaizuenagandik bizia beragatik (Ap. Claus hic). Ala onesten zire ongi Weinspergko senar emasteak, zeren inguraturik erria sitios Konrado enperadoreak, ta zegolaik galzeko guziak erremisiorik gabe, solamente utzi ziote emastekiei libertade atrazeko erritik erman nai zuteneki bere soiñetan; gauza admirablea! Biramonean, idikirik portalea, ikusi zire emasteki guziak, zein bere senarrareki, soiñean pregonazen bekala etzutela gauza estimatu ta bearragorik. Eta piedade gau ikusirik, barkatu ziote guziei enperadoreak. Ala onesten zue Modenako Kondea bere esposak, zeren Enperatrizak tentatu ondoan Kondea gaistakeriara, etzukelaik erreduzitu, akusatu zue errabiareki Enperadorearen alzinean konde birtuoso, gaistofikatuak in nai zuen delitoas. Kondenaturik ilzera, solamente utzi ziote denbora despeizeko bere emastea, zeñi erran zio nola ilzen zuten kulparik gabe; defenda zezala arren honra ura il ondoan. Kunplitu zue, zerengatik Kondesa, arturik eskuetan bere senar justiziatuaren burua, presentatu ze Enperadorearen alzinean ta erran zio ausart: Enperadore Jauna, zer mereji du ilarazi duenak inozentea? mereji du eriotzea, errespondatu zio. Orduan Kondesak: Bada, ori da egin duena alako lana, ilarazi baitu nere senarra berorren andrearen akusazio falsus, eta sinesta dezan, betor burriña bat goritua, inen dut nik progua artan. Ekarririk burriña sugarretan, utzirik eskuetaik burua, artu zue burriña ta erabili zue eskuetan monstratus guziei, nola baliz palo bat otza. Milagro goneki progatu zue bere senarraren inozentzia, ta Enperadoreak inzue penitenzia eman zuen sentenzias ta Enperatriza izan ze kondenatua botazera hogera batera. Ala onesten zue Eduardo, Inglaterrako errege bat, bere esposak, zeren arma benenatu bates eriturik Errege, etzuelaik erremediorik niondik, ezpazio norbaitek txupatzen lllagatik benenoa, nior trebe etzelaik ortara, ofrezitu ze Erreina; eta etzutelaik utzi nai, bera gau bates joanik ixil ixila, lo zegolaik ta lazaturik benda, txupatu zio humore benenoso, kariño andiareki (Cl. hic). Esta denboraik kontazeko exenplareak, ta solamente geldizen zaida exortazea ezkondu kristioa, imitazera amorio gau gutiagoko gauzetan, agrabiorik in gabe elkarri, ongi egines, antes bien, ta sufritus faltak, ta eskatus Jangoikoai bakearen grazia, bizizeko konforme elkarreki ta Jangoikoareki, zeñiek junta dezkiene gero bere glorian.

Serm. 107.

De adjutorio conjugum
et educatione familiae.

An. 1782

Faciamus ei adjutorium simile sibi. Genes. 2.

1. Luzaro gaude explikatzen matrimonioaren obligazioak, baña guziareki ez aski. Erranik obligazio tustenak ezkonduak bizitzeko konpañia onean elkarreki, pagatzeko zor direnak matrimonioaren legeas, goardazeko fidelidade perpetua ta konserbazeko elkarren amorio ta bake onean, ia oneki iduri zue aski zela, zerengatik izanik bakotxa kristio ona, ta biak conforme elkarreki, zer falta daike ia etxe gartan, non baitago Kristoren asistentzia erakusteko in bear dutena? In medio eorum sum (Math. 18). Alaere berxi naitut egun berze bi obligazio: Lenbizikoa lagunzeko elkar; bigarrena gobernazeko familia. Goazen lenbizikora.

2. Egin zagun bera bekalako lagunza bat, erran zue Jangoikoak Adanen fabore formatu zuelaik Eba. Faciamus ei adjutorium simile sibi. Beras laguntzeko ere du emastekia? Ziertoki, ia arimain salbatzeko bear direnetan, ia ere gorputzain bizitza mantenezeko bear direnetan. Ebetan parterik prinzipalena du gizonak, zeñi erran baizio Jangoikoak desterratu zuelaik paraisotik: In sudore vultûs tui vescêris pane tuo, zeure kopetako izerdias atra beauzu zeure ogia edo sustentua; ta, por konsigiente, jaiotzeareki bateo dakar trabajazeko pensioea, bada, ezkontzeareki esta dispensatzen, baizik añadizen, zerengatik ia ainberze ago suplitu beartu, zenbat persona diren bere familian; eta orgatik ezkondu alferrak bi motibos mereji du botazea mundutik: Bates, zeren ezpaitu kunplizen gizontasunari darraion obligazioa; berzeas, zeren faltazen baitu matrimonioareki añaditu zuena berak. Trabajazenestenak ezdezala jan, dio San Pablok, qui non laborat, non manducet. Eta kunplizen du akaso trabajazeareki solamente? Ez, por zierto, baldin ezpadu gobernu ona, malgastatu gabe joku, bizio ta ordikerietan bear zuena emaste, hume ta familiain mantenezko; eta ontan faltazea notableki da bekatu mortale. Bear du, bada, beti izan atenzio prokurazera, mantenimentu dezentea bere ta bere esposain ta bere familiaindako. Esta ikusten, nola usoek, txoriek ta gañarako animaleek kuidazeunten bere humees? Baldin usoak in ondoan kafia, atra ondoan usakumeak, ezpalezote ekarri jatekoa, edo berak iretsi balez guzia, il leizke nezesidades. Ario gortara emen.

3. Egia da ezi emasteak lagundu bear diola, lenik trabajatus bera ere emasteki lanetan errokan, josten, gisazen, ogi, lixua ta gañarako bere lanoietan dilijente; gero konserbazen ta mejorazen senarrain lanak, nekeak ta irabaziak, gubernatus ongi etxe barneko gauzak; kuidatus, partitus noiz ta nola bear den falta ta sobrarik gabe, ala nola erle dilijent injeniosa bere erlategian, desuerte ezi egiareki izan daien laguntza ona bere moduan senarraindako, deskansa ta fia daiken gisan arren birtute, gobernu ta ekonomian. San Pablok ere erran zue: Mulieres domûs curam habentes, custodes domûs (Ad Tit. c.2). Emastekiak etxeain kuidazeko, etxeain goardazeko. Eta Demostenesek ere erran zue: Faeminarum tota philosophia est aeconomica, emastekien filosofia edo estudioa dela etxeko gobernu ona (Parra). Baña lenago erran zue Espiritu Sanduak: Qui possidet mulierem bonam, inchoat possessionem, prinzipio ta zimendua gizon batek ongi pasazeko dela emasteki ona. Eta berriz: Mulier diligens corona est viro suo, emasteki dilijenta dela

bere senarrain korona, luzimentua ta honra. Ta berriz: Sapiens mulier aedificat domum suam, emasteki prudentak ta juiziosak edifikazen edo gorazen du bere etxea, insipiens extructam quoque manibus destruet, imprudentak ta juizio gabeak destruituko du goraturik zegona. (Au da habilidadea ikasten dutena presumitu xoroek, erakutsiek, danzariak, kontulariek, laminerek ta alakoek. Ezkondu baten gloria dago bestizean, etxea txuritasun ta bear direnes, ez konponzean bere burua adornu banoes. Garbi ta orden onean idukizean etxeko zokoak ta gauzak, ez popintzean bere burua zintes, pañoloes ta itxureries; jakitean ogi egiten, errokan, xosten, lisuazen ta garbitzen, ez danza ta paseaketan; gobernatzean ongi, ez platikatzean berzees, partizean, en fin, ta manejazean ongi dena etxean guziendako, ez sixazen bere bizioendako.

4. Ah baliz manejazekorik, kuida gindezake. Baut uste anitzes, eta seguroago leudezkela aien eskuetan gauzak senarrenetan baño. Zer kuidatukoute ezpada zer? Ezpazaiote ekarzen? bolazen badire senarrain eskuetaik, ellegatu gabe aien eskuetara? Ezi erraten den errefrana, «zenbat emasteki on, ainberze etxe on», nik entendazen dut, konforme delarik gizona, edo zeren askotan baitezake txuxendu emastekiak; baña anitz aldis malograzen ere dire gizonaren izerdiak emastekia in faltas. Eta baldin biak nor bere aldetik barin badire desgobernatuak, orduan ez laguntzale bat bera bekalakoa, baizik destruiatzale bat parejoa juntatu da, ziona San Bizente Ferrerek: Destruitorium simile sibi. Senarra esta aski on izatea, bear du emasteki ona; esta ere aski emastekia on izatea, bear du senarra ere ona, bata bear du berzeain laguntza; delarik ona senarra, lagun bezo emaste onak, orduan du bera bekalako lagunzalea, baizio Jangoikoak: Faciamus ei adjutorium simile sibi. Eta esta zer erran, ebek direla munduko gauzak, zeintas estuen mintzatu bear sazerdoteak; zerengatik munduko gauza goietan iten dire bekatu mortalak, ta da matrimonioaren obligazioa arimaren penan laguntzea elkar senarremasteak lurreko gauza bear direnetan, bizizeko berak ta beren familia honratuki. Solamente estaiela entenda bear dela izan sobra miserable ta txur emateko gorputzei sustentu ta besti ze dezentea, ta kunplizeko jendeeki nobleza ta bizarria moderatu batean, ta egiteko ere bai bere limosnak, zerengatik miseria edo txurreriagoi esta gobernu, baizik esklabitude; esta manejaze ona, baizik erremazea kodiziaren tiranian; esta ori laguntzea elkar, baizik desonrazea ta tormentazea beren buruak ez gastazeagatik gastazeko diren gauzak).

5. Bigarrenik lagundu bear dire elkar ta prinzipalki arimain gauzetan ta Jangoikoaren zerbitzuan, prokuratus korrejitzea bata bere baitan ta berzea baitan kondizio makurrak ta exzesuak edozein asuntotan itz amoriosko on suabeas, destruitus suberbia ta banidadea, ez permititus tratu ta irabazi gaistorik, apartarazis okasio gaistoetaik, palakatus asarre dagolaik konsortea, konsolatus trabaju ta nekeetan Jangoikoaren graziareki; consejatus gizona espezialki estaien sar ardoan ta emastekia murmurazio edo berze bizioren batean; enbidiarik niori, karidade guzieki, ta espezialki plantatus kostunbrea elkarren konformidades egiteko zenbait limosna; konfesa, komekazeko bere denboretan, akudizeko Jangoikoaren ta sanduen funzionetara dezenia onean, ta en fin, portazeko elkarreki, Jangoikoareki ta jendeeki alako maneran, ezi errespira dezaten juizio, kristiotasun ta santidade, ezaun dadien Jangoikoak juntatutuela ta Jangoikoa dagola aieki. Iago dezake logra konsorte onak, barin badaki maña onzeko berzea, ezi ez predikari edozeñek. Anitz dire senarrak sanduarazitustenak bere esposak; eta berze ainberze edo ia dire emasteak senarrei persuaditu diotenak birtutea. En fin, elkar lagundu bear dire igaten zerura, ta ez baratu aliketa sarraraziartaño an konsortea. Zer gozoa ikusteas an lagun gloriako delizia gaietan izan zirenak emen nekeetan!

6. Azken obligazio dutena ezkonduak da hume ta familiaren gobernu kristioan. Kunpli balezate erran duguna elkar santifikazeas, iteko guti lizake erakusteko bereen alde duten obligazio gau. Dire humeak, da familia bat deposito ta tesoro bat fiatu duena Jangoikoak nausietxokandreen eskuetan, zeintas eman bear baitute kontu guzien nausi den Jangoikoari. Ezpaliz baizik ezkontzea, ezpaliz baizik hume izatea, ezpaliz baizik deizea nausi edo etxokandre, ezkinduke zer adbertitu anitz; baña azala utzirik, beira ongi substantzia gau zena. Konzebitubaño len, beaute ezkonduak kuidado hume izaindenes edo izandaikenas, enkomendazeko Jangoikoari, balia daien aietas bere zerbitzu ta gloriatako. Konzebizen den instantetik añadizen da kuidadoa ellega daien errezibizera arima Jangoikoak kriatu ta unitu bear diona. Arimatu ondoan ia ez solamente gorputztto garren kasos, bear da kuidado, baitare ta ia arima garrengatik, zein bizi bear baitu eternidade guzian edo ongi edo gaizki betikos, bein kriatuaskeros, zerengatik arima da inmortal, ilestaikena; por konsigiente, nola ongi betiko izatearen prinsipioa ta kondizio prezisoa baita bataioa, artara ellega daien, in bear da al guzia. Dilijenzia naturalak lenik konserbazeko bizirik ta sano, ez permititus exzesorik edozein jenerotan dezakenik kausatu malogratzea arima gura sekulakos. Dilijenzia espiritualak, orazio egitea Jangoikoari, enkomendatzea Ama Birjinari ta bere aingiru goardakoari, Amak espezialki, zerengatik amaren aingiru goardakoa da goardazen duena sabelean daukana ere jaioartaño. Pensabeza dagokiola arimatto gura klamazen bere barnetik, ezdezala utzi galzera Jangoikoagatik Kristoren odol preziosoagatik. Ala San Patriziori agertu zio Jangoikoak infinizio bat aur beren amen sabeletaik oius bekala deizen zutela zoeiela, zoeiela aien bataiazera ta salbazera jaio zeizeneko (In ej. vit. Ribad.). Ellegatu sakramentuetara ta espezialki komunionera, ta errezibitu ondoan Jaun sakramentatua eskatu bedeika dezan bera ta bere sabeleko fruitua. Lengo denboretan ze kostunbre eskazea sazerdoteei ere bedeizioa (Ap Marchant. t.8).

7. Jaio ondoan aurre, beti beti lenbiziko kuidadoa bataioas, ezi au ezpaliz lograzen, obe zue ezipaze jaio ta ez konzebitu sekula. Orgatik len baño len bataiarazi bear da utzi gabe sobra denbora konbite edo prebenzioen exkusak; ta bitarteo, dilijenzia extrematua espezialki gauas, estaien ito, estaien il sentitu gabe. Kulpa gau kastigazzen zute kanon sagratuek, exkomekazioaren penas, eta anitz obispadoetan da au bekatu erreserbatua; ta Iruñeko gontan ere da itzebeki: «il zen edo itozen duenak aurren bat, bereki etzines edo berze gisas, deskuidos, edo ez adbertitus, eta eznaies ere» (As. res. 20). Ni benzait, bataiatuarterko denboran egoten naiz beldurrak il daien, eta il baledi bat, izan nezake biotzeko min andia, eta nere ordes jaio ta egun berean bataia leizke albas: alde bat, alzinazeagatik graziaren dono prezioso arimai; berze alde, exkusazeagatik peligroak. Presentazen delaik gero ama bere aurrareki tenpluan, ofrezu bezu biotz guzias Jangoikoai ta gogotik in bez orazio sazerdoteareki mezan izan daien Jangoikoaren agradoko, ezperen il dezan galdu gabe bataiarriko grazia. Alaber, azitzean, berak ezipadezake, kuida bez azi dezan unide birtuosak, ezi agian esneareki komunika daizke kondizioak. Santa Katalina Sueziakoas kontazen da, etzuela artu nai bularrik desonesta zenaganik. San Pedro Nolaskos, etzuela egon nai gaistoen besotan, ikusi orduko sazerdode bat, asten zela joan naiak arren besotara. En fin, apunta nai duelarik ia mintzoak, kuidatu fite in daien aipazera Jesus, Maria, ta gero alzinago ta kuidado ia. Aitak ere bear du, baña amak dezake obeki azi prinsipioetan, barin badu maña ta zelorik, eta bear du, zerengatik dago anitz on edo gaisto izatea gero azi ze modutik aurzutuan. San Luis Franziko errege, nork asi zue sandu egiten baizik bere ama Blankak, erraten ziola berze anitz konsejuen ertean: Nere semea, naiago nuke ikusi zu ilik derepente, ezi ez bekatu mortalean eroririk! San

Edmundo Inghaterrakoa bere amak akostunbrarazi zue penitenziatara aurzututik. San Andres Korsino galdurik zebilalaik ta erreprenditus bere amak, alkabo itzulirazi zue axuri manso bat otso zena. Benzeslao ta Boleslao anaiak, au deabrua, ura sandua, zertaik etorri ze? Ura azi baizue bere amiña sanda Ludmillak, au bere ama gaistofikatu Drahomirak. San Agustin, nori zor dio Elizak, baizik bere Ama Santa Monikain nigar, konseju, otoi ta dilijenzia kontinoei? Egia da ezi askotan guratso onetaik atrazen direla hume gaistoak; azi nai ongi ta estaikela logra, baña guziareki in bear da al daiken guzia.

8. Andixago direlaik humeak (ta au berau guti gora bera diot nirabeas ta familiaguzias, zeren aitetamen lekuan sarzen baitire nausi etxokandreak), kuidatu bear da len lenik estaizen akonpaña gaistoeki ta ez dezaten ikasi begis maliziaren pestea deabruaren katedratikoetaik, zeñetaik erri guzietan badu bere probisioa gaistofikatuak, dela gizonkietan, dela emakumeetan; ta estakit nola, ezi Jangoikoaren ministrook gaudelaik urte guzian erakusten doktrina ta birtuteak, ezin atra dezazkegu diszipulo medianoak, ta deabruaren ministro goieki ikasteunte jokua, desordena, desonestidadea, kanta zikiñak, akzione ta atrebenzia indignoak; maestru iten dire laur egunes pestearen eskolan. Bada, ar zak ere mias moldazenementu bere humek, mias beartu aita ta ama familiakoak amoldatu bere pekoak, erakutsis, erreprenditus, konsejatus, meatxatus ta artus al daizken probidenziak. Len lenean joan bear dute buruek exenpluareki. An Josef Jakoben semeak inzue amets misterioso bat, zeintan figuratu baizizaizkio bere aita ta ama iruzkia ta ilargia bekala, bere anaiak berze ainberze izar bekala. Iruzkia nausiak, ilargia etxokandreak bear du errepresentatu exenplu onaren argitasunean gobernazeko kristioki familia. Nausiak buru bekala bear du ordenatu bizitzamodu on bat familian; ta lagundu bear dio emasteak desterratus etxetik bizioak, desordenak ta bekatuak, ta plantatus erregla on bat Jangoikoaren ta jendeen alde; ez utzi lekurik etxean juramentu ta maldizioei; ertxi atari ta erreskizio guziak murmurazio ta desonestidadei, estaizen aipa ere; bada, enbusteriei tapa bearriak, ta leio ta guziak, ezi dirade errietako pestek; debekatu ordikeriak, desgaraiak ta joku sobraniatuak, transtornazen baitute familia kristio baten orden justoa; aparta banidadea, gala ta itxureria, admihi solamente dezenia bat moderatua; fuera usurak, tratu gaistoak ta edozein ondasun injusto, ezi dire oriek nola arri falsuan daudenak fabrikari; ta Jangoikoak nola baitu besoa luze, alkabo kastigazen du arimetan lenik, gero gorputzeko gauzetan ere, eta, al rebes, bedeizioa prometazen du bere irabazi justoas bizi direnei: *Labores manuum tuarum quia manducabis, beatus es et bene tibi erit etc.*, zeren sustentazen zaren zeure eskuetako lanes, ditxosoa izanen zara ta ongi joanen zaizu; zure emastea ala nola aien bat abundatea zure etxean, zure humeak nola oliben plantak zure maiaren inguruan. Au dio Dabidek: *Atra zañetaik enbidia, baita arimaren etika ta ondasunen zedena; diskordiaren zizaña erre, ito, orzi, sofoka, akaba; planta bedi bake ona, ezi diskordiaen ertean esta bizi Jangoikoa ta bere grazia; non orde den bakea, arara doaie ditxa guzien iturrara; trabaju, pobreza ta naigabeetan goarda konformidadea, oneki dulzazen dire aiek, eta aski da Jangoikoak emanai duena gustoso edo amargo; berak daki zer konbeni zaigun bere humeei, artan dago gure ona, ta ez anitz gusto izatean mundu ontako; ez izan gorputzain adiskide, ez biziorik egin, ez erregala bere burua, ezi itaxurbazuk dire ebek arruinazentustenenak etxeak ta birtuteak; kontra kontra bere naiari baktxa; berzeendako beratx, bizarro ta konpasibo, gogor beretako; en fin, ez admihi deus kristiotasunain kontra denik.*

9. Ontas landara bete etxea Jangoikoaren gauzes, plantatu doktrina bere denboretan, errosarioa egunero, au da musika, zeñen aizen gustoso egoten baitire aingiru

goardakoak sukaldean, kuartoan nonnai erreza daien; konfesa, komekarazi familia maiz; akudiarazi dezente Elizako gauzetara, espezialki prediku ta doktrinetara; bedeika maia ta eman graziak jatean ta edatean; arimes izan piedade oroitus aplikazeas induljenziak, ofrezitus sufrajioak; pobrees kuida nola Kristo beras ta bere buruas, alojitus ta asistitus limosnattoes. San Agustinen konsejuain konforme, konta bat ia etxean mantenezeko, au da Kristo pobreetan. Laur edo sei edo zorzi zarate familian? Konta borz edo zazpi edo bedrazi. Ez utzi kodiziai engañazaisten, ezi dio, hume anitz, gastu anitz, estaike in limosna, balu hume edo gastu gutiago, oroat in lezake. Aisa da Jesu Kristorendako edekizea nondikbait zuk emanai estiozuna bere pobreai, ta aisa dobla ta erredobla dezake ematen diozuna pobreai, zergatik berai ematen zaio, ezpadio gezurra Ebanjelioak, quod uni ex minimis meis fecistis, mihi fecistis; begis beterik egon bear du etxeko buruak adbertizeko ta zelazeko on den guzia: Jaiki goizik, etzin ere bai, ertxi atariak bere garaiean; zela, en fin, zela etxeko guzies obeki, iduribazaizie, ezi ez mandoes, idies ta animalees. Biz etxe bakotxa eliza bat txikittoa, biz mintegi bat nondik atra daizen planta onak plantazeko Elizan, honrazeko Jangoikoa, alegrazeko Kristo, imitazeko sanduak birtuteen fruitueki ta gero trasplantazeko gloriako paraisoan.

Serm. 108.

De requisitis ad matrimonium.

ann. 1782

Cui vult, nubat, tantúm in Domino. 1 Cor. 7. v.39.

1. Explikaturik ia nolapait matrimonioaren esenzia, finak, ondasunak ta obligazioak, goazen orai ikusis modua, nola bear den joan matrimonia. Atenzio, otoi, aitetamak ta kargudunak, baitare ta ia zuek libre zaustenek, ezkontzeko edo ez. Erran ondoan San Pablok birjinidadearen abantalla ta matrimonioaren ertxidura ilartaño konsortea, libre dagonas ia dio: Cui vult, nubat, tantum in domino, ezkon daike nai duenareki; solamente, ordea, jangoikoa baitan. Itz gonek signifkazen du ezkon daiela ongi, honratuki ta sanduki Jangoikoaren borondatearen konforme ezkontzekotan. Ortako noaie berextera zenbait zirkunstantzia goardatu bear direnak; konsiderazioa, bokazioa, orazioa, fin edo intenzio ona, elekzioa, medio onak.

2. Lenik konsiderazioa obrazeko prudenteki eta azertazeko prinzipiotik errefran garren konforme, «ezkondubaño len begira zer iten den»; begira ezi estadoaren azertazean dagola salbazio sekulakoa; begira matrimonioaren obligazioak ta difikultadeak; begira dela biziguziko presidioa; begira noreki, nolako jenio, birtute, bizio ta zirkunstantziak tuen, estaien aurki betiko petardo bateki, sierpe bateki, ustes zen aingira; ta pasa ez dezan martirioa matrimonioan, zerengatik instante bates, iten den utsa konsiderazio faltas pagazen da bizi guzian ta erremediorik gabe. Erosteke animale bat informazen da kondizioes ta gañarakoes; ta juntazeko bereki konsorte bat betiko, esta bear ongi konsideratu? Faltazeunte ontan ezkonzen direnek pasiones itsu itsua, zerengatik ala nola ardoan sartuai bista turbaturik gauza bat andiago den baño, argi bat bida iduri baizaio, ala amorios zoraturik dagonai iduri zaio iruzkiain parekoa itsusi dena, dituela estituen prendak ta estuela dituen faltak. Disputazen da obe den ezkontzea amorios, baña esperienziak desengaña dezake gobernazen direnak amorio itsuas eskarmentuen eskolan, zerengatik ardo obeak ozpin fuerteagoa iten du hozpintzen bada (sic), ta ala askotan agizen da amorioa itzulzea odiotan erman ondoan bere etxera, eginik ia bere gauza, erreparazen direlaik len erreparazen etziren faltak, zerengatik fite ozten da pasionearen ferbore lenbiziko gura; batzuei ezkondubañolen ere egun kuadrazen zaiote bat, biar berze bat. Ta zer izan daike ezkonzen baliz lenbiziko amorioarren su gartan beiratu gabe deustara? Esta gaisto izatea amorio ta inklinazio konsortetako artu naiduenagana, baña biz amorio bat kristioa, juiziosoak, arren birtute, prenda ta zirkunstantzia onengatik. Bi ezkundu abratsek zute seme bat soilla, zein nai zute enpleatu berze abras bazuen alabareki dirus diru, dena dela. Baña seme juiziosoak, diskurriturik ongi, etzue konsentitu ta joan ze etxetik. Ellegatu ze peregrino egerdis, zar pobre baten etxera, ta eman ondoan zuen pobreza, alaba bat zuena zerbitzatu ondoan maia modestiareki, jarri ze an zoko batean errokan; ta bitarteo adbertitu zue gizon orrek ezi aldixka, ixil ixila, bere lanain bidanabar, botazen zuela zenbait suspiro neskaxa garrek, ziola: Bedeikatua biz ene Jangoiko ona; esta ori bekalakorik; ah baniz ni orrena; maite dut biotz guzias, o Jesus dulzea. Orduan pasajeroak erran zio: Bada, emakumea, zer duzu emen baizik pobreza ta trabaju, baizau de ala bedeikatzen Jangoikoa? Orduan, neskatak ponderatu zio ainberze arrazios Jangoikoaren ontasuna ta gure obligazioa agradezizeko, ezi arriturik arren kapazidadeas ta birtuteas,

eskatu zio bere Aitari esposatako ta deklaratu zio nor zen. Zarrak erran zio: Etzaizke ezkondu ni bekalako pobre baten alabareki, izanik zu ain poderoso. Porfiatu zio berzeak etzela berze nioreki ezkonduko, baizik arreki, ematen bazio. Bai, baña nola? erran zio zarrak. Estut nik berze anparorik baizik alaba gau; apartazea lizake edekitzea bizia. Bada, nik iten diot juramentu, erran zio mutilak, estutela atrako emendik, baizik biziko garela junto emen Jangoikoa zerbitzazen. Ta ortako, aldaturik tresenas, bestitu ze zarres enpleazeko arren ofizioan. Alaere etzio emanai zar juiziosoak, aliketa progatu arteo anitz egunes; alkabo eman zio ta ezkondu ziren biramonean artu zue eskutik ta erman zue leku sekreto batera, ta an erakutsi zio anitz urre, joia ta ondasun; ta erran zio: Tori, au guziau zurea da, zerengatik baita nere alabarena, ezi etzeiengatik nior ezkondu diruagatik, iduki dut emen altxaturik, etzekiela niork ta ez berak ere. Gisaontan mutilura aurkitu ze andre juiziosa, sanda, abratsa ta naibekalakoareki kontent bizi guziko. Konsidera ongi len, izateko ongi beti (Parra hic plat.).

3. Bigarren zirkunstantzia da bokazioa, au da, Jangoikoaren deia edo tiratzea estado gortas; ta ortako enkomendatu bear da Jangoikoari eman dezoten azertu, ta beiraturik berebaitan zertara duten inklinazioa, nola daizken obeki salba, konsultaturik Aita espiritualeeki; iduri bazaiote ori dela obe, segi ordik, ta dute obligazio grabea laguntzeko guratsoek ta berze interesatuek, enplea dadien honratuki sopena galzeko beren ta bereen arimak. Trade filiam, et grande opus feceris, dio Jangoikoak (Eccli 7). Enpleatzeas ongi zeure humea inen duzu obra bat andia. Jangoikoagana, bada, beaute izan atenzio lenbizikoa, eman dezoten ezaumentu bere borondatearen, ta azertu. Ortako egin berek ta bere kargudunek zenbait orazio, zenbait errosario, zenbait meza, al badaike, benzait, zenbait limosnatto arimei. Neke izain da us dezan alakoa galzera Jangoikoak, antes bien, probidenziatuko du berak guk nola estakigula. Palermo Siziliakoan erregeren tesorerora akusaturik ebatsi zuela artxibo erreala kalumnias, izan ze kondenatua urkazera. Tranze gontan enkomendatu ze Ama Birjinaren imajina Katanan benerazen zenaren anparora, ta boto egin zue ezi librazen bazue, ezkonduko zela pobretto bateki. Libraturik, bada, joan ze txuxenean Katanara, ta aurkiturik portalean donzella pobre bat galdein zio non zen Ama Birjinaren tenplu famatu gura. Ta erakutsi zio pobrettoak guzia piedade andiareki; ta admiraturik onen birtuteas gizonoi ezkon duze oneki, zeñi lendanik ofrezitu baizio Ama Birjinak akomodu andia. Begira orai Jangoikoaren probidenzia. Zein urruti zegon pobre gura oroizeas ezkondu bear zuela erregeren tesoreroreki! Nola Jangoikoak permititu zuen onen peligro gura! Nola inarazi zion bella gura! Nola aurkiarazi zuen portalean batak berzea niork bietaik etzekielaik! Guzia gobernazen du Jangoikoaren eskuak guk estakigun bide sekretoas (Cl. c.59. p.3).

4. Exenplus beterik dago eskritura sagratua. Lenik Adani Jangoikoak soillik formatu zio bere eskus Eba nioren mediorik gabe. Bada, Abrahani nork probidenziatu zio bere Sara, Isaaki bere Rebeka, Jakobi bere Rakel, baizik Jangoikoak? Desengaña ezi Jangoikoaren eskutik estatoren konsortea estaikela izan ona; domus et divitiae dantur â parentibus, â Domino autem proprie uxor prudens, etxe ta ondasunak eman dezazkete guratsoek, baña Jangoikoak proprioki ematen du konsorte ona, dio Espiritu Sanduak (Prov. 19). Admirablea da ontako Tobiasen exenplua. Bizi ze Tobias kautiberioan konstante Jangoikoari al zuken guzian zerbitzazen; deizen du bere semea, baize ere Tobias, ta erraten dio: Aizazu, nere Seme, ni il zen naizelaik, orzi zazu ene gorputza; honra zazu beti zeure ama ta oroi zaite zenbat pasatu duen zuregatik; ta ilzen delaik, orzi zazu nere obian. Biziaian egun guzietan idukazu Jangoikoa beti gogoan, eta goarda, etzaiten

erori sekula bekatuan Jangoikoaren legearen kontra. Zure haziendatik inzazu limosna, ta ez aparta niorengandik zeure begitartea; anitz barin bauzu, inzazu abasto limosna; guti barin bauzu guti oi ere borondate ones, nola aldeakezun; ezi ala iragazikouzu premio on bat bear orduko, zeren limosnak librazen du bekatuetaik ta eriotzetik ta estu utziko doaien arima ilunbeera. Seguridade andia emain dio limosnak emanzaleai Jangoiko andiaren aurrean. Aparta desonestidadetik eta kontenta Jangoikoak emain dizun bizikideareki. Subertiaik ez admiti gogoan ta ez mintzazean, ezi suberbiatik du prinzipio kalte guziak. Zerbait lan iten dizunai paga zozu berla bere alokairua. Eta ezozula niori egin nai estuzuna in dezazun zuri niork. Ermazu zeure ogia obia justoarenaren gaiñera. Beti konseja zaite jakintsuareki. Beti bedeika Jangoikoa, ta eska goberna dezken zure pausuak. Eta orai joan beauzu kobrazera arzeko bat gabelo batenganik. Ez lotsa, nere seme, pobre bizi gara, baña ondasun anitz izain dugu, barin bagara Jangoikoaren beldur ta apartazen bagara bekatuetaik ta iten badugu ongi. Alako konsejuen konforme ze semea ere, igoal nonbrean ta kostunbretan, biak Tobias ta biak justo.

5. Adbertitu bear da emen ezi bitarte gortan aflijiturik Sara an urruti Ragesen, zeren nirabe batek deitu zuen bere senarren ilzalea; ta okasioa izan ze, zeren zazpireki ezkonduzik zazpiak il zitue demonioak beren kulpas, zein bere aldian. Triste, bada, emastekia baruturik iru egunes, jan ta edan gabe urtikizen da Jangoikoaren aurrean nigarres ta erraten dio: Jauna, biz bedeikatua orren izena, ezi naiz asarraturik oroituko da bere miserikordias. Orrengana dago ene bioza ta nere atenzio guzia, libra benaza otoi kalumnia gontaik. Orrek daki estutela nik deseatu gizonik sekula, ta garbi daukatela nere arima; ez nai zela izan txostagale ta alkegabe. Solamente obeditu dut errebitizean senar ez pasiones, baizik orren zerbitzuko. Eta edo ni izandu naiz indigna aiendako edo aiek agian etzire digno neretako, zeren agian berze norbaitendako bainauka orren majestadeak. Estakigu orren probidenziaren sekretoak. Zierto dena da, ezi zerbitzazen badugu naiba gaitu progatu trabajus koronatu gaituela, aflikzioetan libratuko gaituela, ta estuelaik plazer gure kaltees, tenpestadeain ondorean igorko du serenidadea, nigarren ondorean konsolu ta alegria. Au ze orazio in zuena Sarak bere erretiroan; ikusazie orai zerutik ideatzen gauza lurrekoak Jangoiko andia. Atra zeneko Tobias semea bilazera lagun bat biajeko, San Rafael aingirua Jangoikoaren mezus plantazen zaio alzinean gaste gallardo prestu baten aintzuran. Saloa eginik ta sarturik aitagana ofrezizen da akonpañazera, ermatera ta ekarzera sano arren semea. Despeitu zitue Tobiassek itzebeki: Ibili ongi, biz Jangoikoa zueki bidean, ta bere aingiruak akonpañña zaizatela. En fin, guzia ezin erran, joanik bideas ta ugalde batean arturik arrai baten beazuna kuratzeko bere aitaren begiak, baize itsu, guzia aingiruain ordes, non geldituko gara? erraten dio mutilak. Errespondazen dio lagun disimulatuak ta aingiru berdaderoak: Emen da Rakel deizen den bat, zuen aidea, baitu alaba bakar bat deizen dena Sara; arren etxean alojitu bear dugu; eta zuretako da aien hazienda guzia, ta zuk beauzu artu esposa bera, eska zozu bere aitai ta emain dizu. Ai Jauna, erraten dio mutilak, aitu dut zazpieki ezkondu dela kerro kerro, ta zazpiak il direla, ta diote demonioak edeki diotela bizia. Beldur naiz gerta dakidan niri berze ainberze, eta nola bainaiz seme bakarra, ilzenbaniz, ilen dire nere aita ta ama ere sentimentus. Erraten dio aingiruak: Aizazu, nik erakutsiko dizut noren kontra dezaken demonioak garaitu. Hi namque qui conjugium ita suscipiunt ut Deum â se et â suâ mente excludant, et sua libidini ita vacent sicut equus et mulas, quibus non est intellectus, habet potestatem daemonium super eos. Ellegazen direnak arzera matrimonioaren estadoa, atzendurik Jangoikoas, solamente asetzeagatik bere apetitua zaldiek ta animale entendamentugabeek bekala, aien

kontra du potestade demonioak. Baña zuk inzazu lenik orazio Jangoikoai irur egunes, ta gero errezibi zazu esposa Jangoikoaren beldurtasunareki humeen amorios ia ezi ez pasiones.

6. En fin, ellegaturik etxe gartara ta ezaundurik noren seme zen, disponitu ziote otronzea; baña mutilak erran ziote: Estut artuko bokadorik ta urruparik, aliketa agindezadaten arteo eskatu naidiotetena, baita beren alaba Sara nere esposatako. Beldurrak guratsoek gerta zekion lengoei bekala, ta arren ongi naies, etziote errespondazen. Orduan lagunak (baitze San Rafael) erran ziote: Etzaziela duda ematean oni zeuren alaba, ezi onendako da, zeren baita Jangoikoaren beldurduna, ta orgatik ezin logratu dute berzeek. Bereala egintze ezkontza, ta mutilak aingiruin konsejuain konforme erran zio Sarai: In bear dugu orazio Jangoikoai, ezi sanduen humeak gara ta ezkaizke junta ala nola Jangoikoa ezauntzen estuten jendeak. En fin, gisaontan logratuzue mutilak esposa bat sanda, onek esposo bat sandua, gozo andia guratsoek, ta berek ditxa guzia. Orra zer den Jangoikoaren borondateain konforme portazea, orazio, limosna ta obra on egitea lograzeko azertua Jangoikoaganik. Itzulirik gero bere etxera itzuli zio bere aitari bista aingiruak emanikako erremedioas; manifestatu zizaiote San Rafael nor zen ta nola biali zuen Jangoikoak beren orazio ta limosnaen atenzios. Gero bizitu zire anitz denboras prosperidade guzies beterik; guziau dakar Eskritura Sagratuak Tobiasen libruan. Esta milagro segitzea bandaka fortunak, delarik Jangoikoa ajustatu duena matrimonioa. Oroitu, bada, doktrina gontas zeuren onerako, lenbizikorik bear dela konsiderazio juiziosoa, bigarrenik Jangoikoaren bokazioa, ta, por konsigiente, otoiz egitea berai matrimoniora baño len, eta beti aiek eta guziok bizitu Jangoikoaren agradora; eta orai inzkigun fede etc.

Serm. 109.

De aliis requisitis ad matrimonium.

ann. 1782

Cui vult nubat, tantum in Domine. 1. Cor. 7.

1. Erranik azken platikan bear dela ezkontzeko lenik konsiderazio juiziosoa, Jangoikoaren bokazio ta deia, ta por konsigiente, orazio egitea berai azertuaindako, paratu gindue exenplu Tobias ta Saran, zeñetan, alaber, dugu progu orai erraindugunaindako bear dela, baita intenzio edo fin ona ta medio onak, zerengatik Sarak bere aflikzio gartan erran zio Jangoikoari: Jauna, orrek daki ezi nik beñere estutela deseatu gizonik pasione gaistos, ez nai zela ibili txosta ta dibersio peligrosoetan, estare akonpañatu buru arineki; solamente obeditu dut admitizean guratsoek ematenzidaten senarra orren beldurtasunareki, ta ez intenzio gaistoareki (Tob. c.3). Alaber, Tobias mutilak San Rafaelen konsejus egin zuen orazioan erran zio Jangoikoari: Jauna, biz bedeikatua zeruan ta lurrean ta kriptura guzietatik; orrek kriatu zue Adam lurren ta eman zio laguntako Eba; eta orai, Jauna, berorrek daki estutela arzen ene konsorte gau fin gaistos, baizik solamente humeen amorios, zeñetan izan dadien berori bedeikatua denbora guzietan (Ib. c.8). Ia ebetan bietan dugu hispilu bat beirazeko ta konponzeko intenzioa ta medioak Jangoikoaren gustora matrimoniorako. Baña goazen arrazios ere.

2. Plantatu duelaik Jangoikoak matrimonioa lagunzeko elkar, estendizeko jenerazio humanoa, erremediazeko frajilidadea ta bizizeko kristioki uniturik bakean, ta azizeko humeak zerurako, fin goietatik edozeinengatik apetezi daike matrimonioa. Ta ala ezkontzen da Jangoikoaren borondatearen konforme, baizio San Pablok: Cui vult, nubat, tantum in Domino. Ezkon bedi, baña solo jangoikoa baitan. Orgatik Katezismo Romanoak ezkondu nai dutenes dio estutela pensatu bear doazela egitera lurreko gauza bat, baizik gauza bat dibinoa, errekerizen baitu biotzeko piedade ta pureza singulara, nola monstutzen baitu lengo Aita Sandu zar gaien exenpluak, zeñen matrimonioak etzirelaik oraño sakramentu, alaere uste zute zela obligazio aien zelebrazea anitz erreberenzia ta santidadereki (Hic ss. 31). Zenbat ia orai noiz baita matrimonioa sakramentu Kristok konsagratua? San Rafaelek Tobiasi aipatu ziolarik ezkontza Sarareki, zeñeki ezkondu ziren zazpiak malogratu baizire, beldurrak berai ere aiei bekala edeki zezon bizia deabruak, eman zio aditzera aiek izan zirela kastigatuak beren intenzio gaistoagatik, zeren animaleak bekala atzendurik Jangoikoas gogo guzia parazen baizute deleite soillean, ta alakoeki zio duela potestade deabruak; baña zuk, erran zio, errezibitu beazu esposa Jangoikoaren errespetoreki, ez pasiones, baizik humeen amorios, erdexteko Jangoikoaren bedeizioa humeetan (Tob. 6). Galdein balezote askoei zertako ezkonzen diren, edo errainligukete gezurra, edo konfesa lezakete zerbait fin lurreko indignoa. Bazuk librazegatik aitetamen sujeziotik ta iteagatik nausi edo etxokandre, ta au da banidade; berzebazuk lograzeagatik kuadratu zaioten persona itxura edo grazia falsu batengatik, dena dela gañarakoan, ta au da tonteria; berzebazuk gogo guzia daukate inmundizian nola mormota beltzek, ta au da luxuria; berzebazuk abrazeagatik gisa ortan, logratu diruduna dena dela, ta au berriz da kodizia, da ezkontzea ondasuneki ta ez personareki; ta guziok doaza utsinik. Lenbizikoa estado gontan beiratu bear dena da Jangoikoa; bigarrena, bere arima, ta orgatik lenbiziko fina erman bear da honrazea Jangoikoa berebaitan ta bere humeetan; bigarrena, salbatzea bere

arima aisago medio gortas; gero, fin gebetas landara gorputzaren aldetik desea daike ondasun mediania bat laguntzeko bizitza, atendi daizke personain prenda naturalak, nola itxura ona, dilijent, trabajari, azkar, mañoso ta habil izatea ta gañarakoak zerbitzazen dutenak egiteko matrimonioa ditzoso; baña lenik eta azkenik beti intenzio prinzipala Jangoikoagana ta arimagana; ta ontara enkaminatu beaute berze medio guziek. Marzia Katonen alaba, abrats izanik, etze erresolbizen ezkontzera, zerengatik, erraten zue: Estut aurkizen gizonik nainauenik ni ia nere ondasunak baño. Ondasunak daizke akaba, ta izanik ere estute inen persona estena. Itxura deslustrazen da nola loreen kolorea; habilidadeak, indarrak ta gañarako prenda naturalak malograzen dire, ezpada birtute mazioa barnean, ala nola etxe baten pintura ta adonu exterioreak aize, euri ta tenporaleeki, ta gabe ere arruinazeareki etxea, barin bazue zimendu falsua. Zimendura, bada, ta sustanziara atendi, noreki den obe zerbitzazeko Jangoikoa ta salbazeko bera, ta ontako baliatu medio honratu justoes; ta au da bigarrena.

3. Lenbiziko medioa, ala nola erran ginduen autazean estadoa, oroat, autazeko persona da orazio egitea ta enkomendazea Jangoikoai, Ama Birjinai, aingiru goardakoai ta sandu debozioskoei, eta arimei ere bai; ta fin gontako egin zenbait limosna, obra on ta gauza, ta guzien gaiñetik bizitzea Jangoikoaren beldurtasun ta erregla onean obligarasteko Jangoikoa kuidazera bere esklaboes; zerengatik, nor paratu duenik esperanza jangoikoa baitan izan da konfunditua oraño? Nor malogratu da justo ta fiel izan denik Jangoikoari? Eta ongi edo gaizki lograzea dago ongi edo gaizki ezkonzean. Eta ontan espezialki, obeda fiatu jangoikoa baitan ezi ez gizonetan. Gizon guzia gezurti, dio Dabidek, baña asunto gontan abasto dabila gezurra. Jangoikoak, ordea, nior ez dezake engaña. Dote ona agian eman dezake gizonak, baña konsorte ona propioiki Jangoikoak ajusta dezake, zerengatik berak daki solamente nor den bakotxa ta zer izain den gero; ta nola ezpaita aski ere on izatea berebaitan, ezpada on zuretake, Jangoikoak daki zein zeinendako den on. Mundua porta daike, nola merkatari bat ematen duena gaia, ta agian idurituko du berria ta izain da zarra, fiña ta izain da floxa; baña Jangoikoak ofiziale onak bekala ajustazen du bear bekala txusto engañatu gabe kalidadean ta ez ere kantidadean. Bada, konsorte ona da nola bestidura ajustatu bat ez sobra ta ez falta. Gizonak gobernazen dire ageri denas begietara; Jangoikoak, ordea, ikustentu biotzak. Fatxadan iduri daike etxe bat primoroso, ta zimenduan ta barnean izan ruinoso. Emastekias erran zue eskriturak: Nork aurki bat ona? Mulieren fortem quis inveniet? Eta gizonkias erran daike agian berze ainberze. Ala nola, bada, biderik ageriesten desertu batean beiratu bear baita zerura gobernazeko izarretaik estaien gal biajantea, ala asunto gontan bear da errekurritu zerura eskatzera azertazeko grazia. Maria Santisima ez solamente desposazeko enkomendatu zute Jangoikoari sazerdoteek, baitare jakiteko noreki; eta ala Jangoikoak monstratu zue, zerengatik juntaturik tenpluan Jangoikoaren mezus tribu gartako mutil guziak Jerusalemene, nor bere bara edo bastonareki eskuan, ta eginik berriz orazio manifesta zezan Jangoikoak nor zen aietaik logratu bear zuena Birjinaren eskua, bereala loratu ze San Josefén bara; ta ala desposatuzuste biak, ta izan ze au matrimonioan pareja ikusi den obreena; etze milagro, zelarik kasamentari Jangoikoa bera. Ario gontara ezkontzeko zuek zeuren humeok ta kargukook, akuditu zerura orazios, limosnas, obra ones, ezi andik dator dono perfekto guzia, omne donum perfectum desursum est descendens â patre luminum.

4. Ontan faltazeunte bistas solamente gobernazen direnak, ta ia bekatus bekatu, loies loi doazenak matrimonioa, atzendurik Jangoikoas ta gerokoas. (asten da beiratzetik, pasazen da bilazera okasio platikazeko, aurkizeko elkar; propasazen da gero komunikazio

libreagoetara, ia plazaetan, ia bideetan, ia ere zokoetan; segitzen dire atrebenziak, doaie galdus alkea, seguratus berzeain firmezas bere gogoan, ta agian ematen dire itzak, ta agian ia; ta ala doaza forjatus loi ta ongarrisko zimendu bat matrimonio triste bateko; ta agian segitzen da, ta agian esta segitzen, zeren mudazen dire borondateak, ukazen dire itzak, iten dire juramentu falsuak, betezen dire infamias, ta montiazen dire desgraziak ta gero urriki ta nigar banoak. Desengaña, gasteak, ezi modestia, erretiroa, juizioa, birtutea, trabajari, bizio gabe izatea dire mediorik obrenak Jangoikoaren ta gizonen aurkintzeko; erakutsia, ordea, ibildaria, platikari, libre, suelto ta atrebitu izatea, medio onak ez ezkonzeko ongi, baizik geldizeko engañatuak. Zerengatik goazen ontara. Galdein bekio ezkongai prudente edozeiñi: Nauzu andre juiziosa, modesta ta birtuosa, edo kaskarina, arroa ta merkea? Klaro da ezi lenbizikoa. Nola, bada, iduri zaiote logratu matrimonio ona erakutsis beren buruak, konsentitus llanezak, bizarreatus sopra beren buruas? Ori da solamente izan bearduenaiki konsorte. Bada, galzen zara, zerengatik otsoa da ori dabilana ez zure on naies, baizik bere pasionea ase naies; ta aun orrek atrako du kontua, ola: Au ain liberala nereki, badaike izan berzeeki ere ala, petardoa da, fuera fuera; obe dut modesta erretiratu bat, pesadunbrerik emanez dezadan. Eta gisa ontan utzi zaizke agoa beterik orzes, arima bekatues, gorputza infamies, biotza errabies, gogoa tristures, begiak nigarres ta betiko desesperazios. Baña logratu ere pretendizen dena, nork kenduko dio oni gogotik deskonfianza bere gorren fidelidadean? Badaki experiencias dela fazila, ta pasalarraia, ta beldurtuko da izan daien ala gero ere; ta ara zeloak, ara deskonfianzak, ara matrimonioa martirio. Eta berze alde, non dago Jangoikoa kastigatuko baitu in zaizkion ofensak erdexteko matrimonioa, botatus bere maldizioa alako matrimonioari? Exenplu dugu dabiden baitan, zeñek beiraze batetik itsuturik tratatu zue desonestoki Betsabee, ta gero ezkon duze arreki. Baña naiz eginik penitenzia, naiz deklaraturik profetak barkatu zizaiola kulpa, alaere pagarazi zio Jangoikoak pena, zerengatik hume gura il zizaio, nai ezuela bortxa, zazpigarren egunean; gero berze hume Amnon deituak desloratu zue bortxas bere arreba Tamar, ta onen mendekus il zue Amnongoi traizios bere anaia Absalonek; au gero errebelaturik bere aita Dabiden kontra, ilze dilindaka biloak enredaturik artea baten arraman, traspasaturik irur lanzas; berze anaia Adonias, gero izan ze kondenatua eriotzera, Salomon anaiaren ordes. Ala zoezi segitus desgrazia desgraziain gain matrimonio gaizki artuaren atzetik. Ezpada beti gertazen ala, esta au mereji faltas, baizik Jangoikoaren miseriak; baña orgatik, oroat, da maldade mereji duena Jangoikoaren ira, igatea matrimonioa bekatus bekatu autxis kristiotasunaren, arrazioaren ta honraren lege guziak).

5. Berze medio ona ezkontzeko da konsultatzea guratsoeki, zeñek experiencias ere ta juizio iagos baitezakete obeki azerta. Egia da ez dezaketela guratsoek bortxarik egin ezkontzeko ezkondu naiestuen humei, estare ezkontzeko naiestuenai; baña dute esku ikusirik arren bokazioa proponizeko konbenienzia iduri zaiotena, ta humeek dute obligazio konsejatzeko bere aitetameki asunto gontan. Aitetamek enjendratu, aitetamek azi, bestitu, mantenitu anitz trabajus; ta humeak estu bear komunikatu aieki matrimonioan parazeko? Bai por zierto, bekatu mortalaren azpian; eta gero ezpalu nai ezkondu aiek proponizendiotenareki, izanik motibo justoak, estu eginen bekatu ortan, zeren aiek ezpaitute arraziorik; baña nai balu berak konbenietzaikona desigual, edo berze gisas ez ona izanes, orduan in lezake bekatu alakoaike ezkontzeas aitetamen bortxa. Eskritura sagratuan ikusten dena da ematea guratsoek humei konsortea ta humeek errezibizea ematen diotena. Entrega zazu zeure humea, dio eskriturak, ta entrega zazu juiziodunari ta inen duzu obra andia. Trade filiam et grande opus feceris etc. Eta San Pablok ere suponen du guratsoen

kargua bekala parazea matrimonioan bere humea, qui matrimonio jungit virginem suam etc. Arrazioak ere erakusten du, zerengatik akomodazeras geros humea, arren on guzia dago ongi akomodazea; bada, guratsoak beiratu bear badu humeain onagatik, baitare por konsigiente jakin bear du noreki enpleatu, ta aun berak prokuratu bear dio konsorte ona; eta humeak autazen balu korrespondientea, admititu bear du guratsoak; baña gaistoa autazen balu, desakonsejatu bear dio guratsoak. Ontan faltazeunte grabekiro humeek ematen baute ezkontzeko itza guratsoen atenziorik gabe, adiarazi gabe edo absolutoki, paratu gabe kondizioa, baldin ontzat arzen badu nere aitak. Gaste zenbaitek solamente beirazeunte aurpegira atzendurik gañarakoas, ala nola erosteko etxe bat solamente beira baledi fatxadara ta ez barneko firmeza ta sustanziara. Guratsoak, ordea, kuidatuko du ez solamente itxuras, baitare arren azitze izan duenas, arren kondizioes ta gañarako zirkunstanziak. Kontazen du San Basiliok senadore baten alaba amorostu zela etxeko nirabe bateki. Eskatu zio aitai eman zezola ura esposotako, ezperen eman bearko zuela Jangoikoa kontu arren arimain perdizio sekulakoas. Aitak aturdirurik errepugnatu zio anitz arrazioreki; baña alabak porfiaturik eman zezola, edo ikusko zuela ilik bere eskus, alkabo ezin berzeas erran zio: Goaie desdixatua, ikusikoun ta sentitukoun erremedioik estelaik. Egin ze matrimonioa, ta denbora labur asi ze erreparazen ezi nobio gura etzela sarzen elizan, ez errezebizen sakramenturik, ta en fin, etzela kristio, ta ontas landara zela bruto barbaro bat kondizios. Ia orduan desengañaturik emastekiak, errabias ta kongojas oiuiten zue: Niork desobediente izanik guratsoei estu izan sekula fortunaik. Eta en fin, ala konsumiturik desdixes, miseries, naigabeas ta desesperazios akabatu zue emengo bizia. Estakigu zer izan zen sekulakoan (Parra hic. pl.3). Honratu aitetamak ontan ere, ezperen or dago Jangoikoa kastigazeko desobediente ta desatentoak; alaber, artu espazio ta konsiderazio emateko itza, ezi adarretik lotzen da idia eta itzetik persona; eta inkonsiderazio bat paga daike bizi guziko penas; eta ezpada kunplizen itz emana, zor da beti, ta da nola arantze bat frinkatu ta atrazenestena, ta Jangoikoak du kuidado kastigazeko gezur iten duena. Saronian batek eman zio itz ezkonzeko kaballero bati, ta segurazeko ia, añaditu zue: Deabruak ermanazatela desposazen banaiz berze bateki. Baña aldatu ze beleta ta tratatu zue ezkonzea berze bateki. Ta bodetako arratsean, alegre guziak soñu, trago, danza ta erokerien artean, punzazen zio biotza nobiai bere konzienziak. Ortan ta artan abisazen du pajesak, daudela bi kaballero lizenzia eske sarzeko. Sarbeites. Sartu zire, ta segitus dibersioa, batek atra zue eskutik nobia danzara; ezpideze danzari gaistoa, baña oraingoan gaizki atra zizaio danza, zerengatik buelta arat buelta onat, alako bates arturik eskutik kaballero finjituak ta deabru berdaderoak, atra zue airean, ta paraturik zaldi batean eraman zue infernura. Atra zire etxekoak ageri ote zen gorputza berere, baña etze ageri; agertu ze bai, berriz, deabrua nobiain gala ta joiaeki ziola, ebek etzustela bear infernuan, baña gorputz arimak ermanzustela berak ofrezitu bekala etc. (Parr. p.2. pl.18).

Serm. 110.

De electione conjugum.

ann. 1872

Noli timere dare eam isti, quoniam

huic timenti Deum debetur conjux filia tua

propterea alius non potuit habere illam. Tobias 7.

1. Zein diferente diren matrimonioen suerteak, delarik sakramentua guziendako igoal, ta grazia ere bai prest mereji dutenendako? Senarremastebazuk ain konforme ezi propioiki biek bat iduri baitute; berzebazuk ain diskonforme, ezi baitire bata berzeain kontra beti! Eta ia dena, bat konformazen dena konsorte bateki, ura ilik, ezin konforma berze bateki; eta al rebes bigarrenareki, agian konformazen ezeikena konforma lenbizikoareki! Anitz dago konsiderazioan ezkundubañolen, Jangoikoaren bokazioan ere bai, ta orazio egitean; anitz dago ermaten den intenzioan ta parazen diren medioetan ezkontzeko, baña espezialki iduri zaida anitz dagola autazeen persona. Triste zego Sara, zeren zazpieki (sic) ellegaturik ezkontzera, nioreki ezpaize logratu matrimonioa, zeren zazpiak ito baizitue deabruak lenbiziko egunean bakotxa, ellegatzen da Tobias guratso sanduen hume sandua, eskatzen du esposatako Sara, dudazeunte ematea eskarmentaturik lengoes, ta San Rafael aingiruak erraten dio Sarain aitari: Noli timere dare eam isti, ezazula izan beldurrik emateko oni zeure alaba, quoniám huic timenti Deum debetur conjux filia tua, zerengatik Jangoikoaren beldur denoni zor zaio esposatako zure alaba, propterea alius non potuit habere illam, orgatik berzeetaik niork ezin gozatu du. Kunplitu ze matrimonioa ta Jangoikoak bete zue bedeizios berendako, beren guratsoen, beren humeen, elleben (sic), familia, hazienda, ta gauza guziendako. Sara bat ze len ta gero, baña lenbiziko esposo malogratuak ezire oroat nola Tobias sandua. Beras anitz dago autazeen persona nolakoa den. Ontan azertazeko, Jangoikoa da bearrena; aingiru bat bearlizake kasamentari juntazeko onareki ona, biak konforme guzietan.

2. Nik eman nai dut zenbait erregla autazeko konsorte. Eta bidoeie lenean adbertenzia gau, ezi nola persona konponzen baita gorputz ta arimas, atendi daikela ta bear dela ere zerbait gorputzain kalidade ta prendatara, den sanoa, den sendoa, den ongi iduritua, baitare zer ondasun duen; baña nola arima baita prinzipalena, onen kalidade ta prendatara beiratu bear da prinzipalki; ta disimula daike korputzaren gauzetako falta zerbait, nola den ariman kabala. Au suponiturik, ta suponiturik orazio in bear duzuna Jangoikoai, ezi Jangoikoa da ematen duena konsorte ona, beira bez lenik personaren birtutea; ta ortako beira nolako guratsoak dituen, nola izandu den azia, nolakoeki akonpañatu den, ezi geien komun azi onetik fruitu onak, gaistotik gaistoak atrazen dire, eta lagunak konforme iten da bakotxa. Guratsoek faltazeunte ontan atenditus solamente ondasun, dote edo etxealde, ta alakoetara, atzendurik personaren birtuteas. Esta aizen ezkontza batean berzerik, baizik: Nolako etxaldea da? Dote ona du? Badu ondasunik? Eta esta galdegiten askotan: Kristio ona da? Da humila? Da birtuoso? Da ongi azia? Estiot nik estaiela atendi ondasun mediania batera; diotena da, errepara daiela ia personan deustan baño, zerengatik alkabo personak in dezazke ondasunak, ta ondasunek in dezakete persona. Al badaike persona ona ondasun oneki, ezi lizake doble gananzia; baña faltazekos batean edo berzean, pasagarriago da ondasunen falta persona berarena baño.

Personareki ezkondu bear da, ez dirueki; baña atendizea solo diruak eta gauzak, da ezkontzea dirueki personaik gabe. Ondasun anitz ta birtute guti, da izateko suberboago, kruelago, biziosoago ta deabruago. Etxalde ona du, dote ona du, ondasun ona du, aialdeko onak tu; ta zer da ajol, bera ezparinbada ona? faltazen ere dute ontan, beirazeuntenek solamente itxurara, plantara ta exteriorera, atzendurik kondizio barneko; ala nola beirabalei etxe baten gaiñeko tinturara, ta ez barneko parete, zimendu ta sustanziara. Au mutil goapoa, erraten da; neskato fijoia; zer planta! Zer garboa! Bai, ta goapoa ta fijoia du arima? Du jenio noblea, kondizio prestuak? Bada, begira, ezi sagar batzuk ere izaten dire kolore onekoak azalean ta ustelak barnean; zapobazuk badire dutenak larrua urre kolore ta benenos barrendegia. Gizon bat planta onekoa ta ez ia, da bulto bat ongi atrea ta pintatua; emasteki bat polita ta ez ia, da popiña bat ongi adornatua; onak izan daizke bistarako baña ez matrimonioko; adornazeko kuarto bat, baña ez gobernazeko familia bat. Plantak estu suplituko falta dena; itxura joain da fite, edo kaso guti inen da artas denborareki; birtutea da balio duena; au da substantzia, in kaso ontas, ez solamente itxuras, ondasun ta alako exteriorees.

3. Bigarren atenditu bear dena ala gizonen nola emastekian da juizioa, diskrezioa, ezaumentua ta buru ona, erranain gisa. Buru onak erremedia dezake anitz falta; buru gaistoak gal dezake anitz gauza. Erraten zue jakintsu batek, paraturik bi eri kopetan: Bi eris neurzen da gizona, bi erien espazioan enzerrazen da gizonain izatea; adiarazi naizuelaik ontan guzia konsistizen duela juizio ona izatean. Au arbola andi, galant ta fruitu ekarlea? edeki bekio burua, ta ia deus estu balio, ezpada suaindako edo ezpazai berriz iten burua. Ario gontara planta ona ta buru gaistoa, ondasun anitz ta onza bat juizio ez, petardo da, nola itxaur bat fufuta mamiarik gabe. Uts iteunte ontan amorosten direnek goapo naies, bolkazalees, erakutsies, danzaries ta alako kaskarines; ala nola balebila bat luma eizian ta ez egaste onain atzean. Matrimonioan bear da gobernu, idea, ta prudenzia bizizeko ongi, ala arimain nola gorputzain aldetik; bila zazu juiziosoa, prudentea, detenitua konsortea, ez eroa, ez fatua, ez banoa.

4. Irugarren erregla. Bila bez gizonak emasteki modesta, alkekorra ta garbia; por konsigiente erretiratua, geldia, ezauntzera ematenestena, gorritzen dena mintzazean gizonak, leioan gutitan, karrikas karrika, festas festa, plazas plaza estabilana. Gratia super gratiam mulier Sancta et pudorata. Grazia graziaren gain da emasteki sanda ta alkekorra, dio Espiritu Sanduak (Eccli 26). Eta berriz dio: Ditzosoa senarra emaste ona duena, doble biziko da (Ib. 25). Eta berriz dio proberbioetan, ezi aurkizen duenak emaste ona, aurkizen duela ondasuna ta gustos beteko duela Jangoikoak (18). Zertan ezaunduko da ordea? Erretiroan ta modestian. Ori da señaile on bat. Gauza on guzia txur da, merkaduria nonnai aurkizen dena esta ain baliosoa; obrenak egoten dire ongi goardaturik. Ardo jenerosoa jakiten da non den ta bilazen da, ta enpeñus lograzen da askotan; baña salzekos eramaten dena erris erri badaike izan ez anbateko ardoa, ta petardoa. Edozein bideetan aurkizen diren arrosak estire obrenak, ebek goardazen dire jardinetan. Perla goiek edozeiñek daramazkienak hebillan, perendenge ta erastunetan dire ordinarioak, ez fiñak, zerengatik diamante, topazio ta esmeralda fiñak leku gutitan aurkizen dire, ta ongi goardaturik. Ario gontara nai bauzu azertatu elejizean esposa, bila zazu modesta, erretiratua, gutitan agerzen dena. Baña berze alde estaien engaña emastekia senarrain autazean, estadiela paga arroses, atrebitues ta ajolakabees, baizik juizioso, modesto ta atentoas. Indezenzien kostus erreparazenestuena ellegazeen matrimonia, mirua da, ta otsoa da galdu nai zaituena. Esta inport monstrozen duela orai anitz kariño, agasajo ta loxentxu; gero segi dezoke bere

kondizio zarrak, ta kausatu anitz naigabe. Otsoa bestiturik ere ardi larruas otso da beti; deabruak naiz paraturik goante bat eskuan, deabru da beti. Obrak, obrak beiratu bear dire.

5. Laurgarren erregla. Ez kuadrzea emasteki banas, fantasiosas, gala naias ta itxureras, baizik humilas, llanas ta dezenteki txukunas. Esta ere konbeni falder, moldegaiz ta indezente, ezi ontan monstutzen da ajolagutikara, baizik San Pablok dion bekala, monstutzen dutenak traje txukunean alke ta modestia: Mulieres in habitu ornato cum verecundia et sobrietate ornantes se (1 Tim. 2). Birtute, prenda ta habilidade onen adornua da lenbizikoa. Au duenak ongi iduri du mediania bateki ere Jangoikoaren ta jendeen alzineko; eta errateko egia, aun gorputzain aldetik galantak aski du guti idurizeko ongi; bear duenak anitz adonu monstutzen du estela bereganik ta notarastentu korputz ta arimain faltak. Emastekia in izatea estago idurian, ta adornazean bere burua, baizik birtutean, juizioan ta prenda onetan. Alaber, gizonean estaiela bila moderia ta alakorik, baizik aski da dezenia. Ezperen popintzeagatik gorputzak bulusiko dire etxeak; ta esta alakorik bear, ongi izatekos matrimonioan.

6. Borzgarren erregla. Bila zazu dena bizio gabea mantenuan, kontentadaiena Jangoikoak ematen duenareki zeure lekuan, laminuriarik ta triposkeriarik gabe; ezperen, arzen bauzu andre bizioduna, gerta daike zokoak zikin ta despensak ta graneroak garbi izatea sobra, ta berze alde maiz izanen duzu mutur zuku. Denaiki kontentatu bear da osasunean; ta estelaik au, orduan konsorteari dagokio bera baño obeki kuidazea. Adbertenzia gau berau iman diot emastekiai, autazeko senarra bizio gabea ta espezialki ardoan tenplatua. Ezi ardora emana arzen bauzu, askotan doloresko afaria ta negarresko edaria izain duzu, merke arrobaka agrabioak, ta agian golpeak ta onzaka ogia. Ezi edanzaleak atropellatuko du arrazio, gobernu, konzienzia ta arimaiki ere barin bada etsia ia ortara. Guruze fuertea da, ta ezin erremedia; de balde ineunzu nigar, arraziatukouzu de balde, ezpaita gizon orduan, baizik odrina. Eta esta fiatu bear ezi gero gutituko dela bizioa, zerengatik bizio gau geien komun adinaiki doaie añaditus. Jangoikoak guzia dezake, baña lenetik beira kondizioa.

7. Seigarren erregla. Bila konsortea dena habilidade duna, trabajaria, dilijente ta ajolatakoa. Habilidaderik estuen emastea etxelanetan da zugar infruktusoa bekala; habilidade duna, ordea, da nola aien abundantea mats ekarlea, sicút vittis abundans in lateribus domûs tuae. Gizon estakiena bere ofizioan da soldado armarik gabekoa bekala; jateko ta ez laneko. Berriz trabajari ezpada ta dilijent, ta ajoladun, izain da nola geli zebona, zerbitzuko ez, ta jateko bai. Esta aski bada habilidadea, bear da trabajazea; esta aski trabajazea habilidadereki, bear da dilijenzia ta ajola, tamaña gañarako gobernuaindako; ezi or konpon or konpon esta nausitako on, esta etxokandretako on.

8. Azken erregla. Gañarako prendaen gañetik auta zazu emaste jenio onekoa, sufrutua, ixila ta prudenta. Obe dela bizi dragon edo leon bateki kueba batean, dio Espiritu Sanduak, ezi ez emakume karrañosareki etxean (Eccl. 25). Eta berriz dio, dela itaxur kontinua emakume temosa (Prov. 19). Ainberze diferenzia da izatean onegia edo inpertinenta nola izatean ardo bat jeneroso suabea edo hozpin ta pitar bat latza. Bada, au berau diot senarras, bila daiela bakeskoa, ta ez atarantatua, oiularia ta brutoa, zezen fieroa bekala. Baña ez fia ezkon alzineko itz legunetan, ezi orduan guziak dire esti dulceak; baita arranzariak ere estalzen du hamua zeboareki, ta gatuak atzaparra; gero, ordea, agertzen du. Examinatu ta informatu bear da sinki lenetik, ezpadu nai aurkitu sierpe bateki ustes zen aingira. Oroat diot ixiltasunas, ezi platikariak ta oiulariak anitz pesadunbre eraikizen du etxean ta kanpoan; oroat humiltasunas, ezi superbak ta itxurerak guzia du itxura ta

aparienzia sustanziarik gabe; ta berze alde nola beti gobernazen baita berzeen ongi edo gaizki estimazeas, beti egoin da mudanzatan, ia alegre, ia triste, ia afable, ia asarre, konforme uste duen alabazeuntela edo ez; zerengatik suberbo puntosoei solo dakiokete mintza alabatus ta loxentxatus aurei bekala. Humilek, ordea, nola solamente beirazen baitute Jangoikoai ta arrazioai, goardazeunte beti moderazio naiz alaba, naiz ez. Oroat diot prudenzias, ezi prudenteak itz bates konponzen duelaik guzia, inprudenteak galzera botazen du. Oroat diot gañarako prenda estimazen direnes. Jauna, ala izatekos, non aurkituko da konsorte bat kabalki perfekta? Ori beroi diot nik, ta erran zue lenik Espiritu Sanduak: Mulierem fortem quis inveniet? Urruti urruti dago ainberze ondasun. Baña emantut erregla gebek, autazeko, ezpadaike guzis alakoa, al daiken obrena gorputz ta ariman; al daiken noble ta prestuena; al daiken juiziosoena; modesta, llana, humila, bizio gabea, habila, trabajaria, dilijenta, prudenta, onegia, ixila, ta en fin, sandaena. Oneki bateo al badaike junta gorputzain forma ona, ondasun ta konbenienzia lurrekoetaik, da obe; baña faltazekos ebek edo aiek, ebek gabe tuena aiek autatuko du ero estenak.

9. Onen konfirmaziotan biz exenplu gau, baitakar Petrarkak (Ap. Claus. p.3 Cath. c.57): Gualtero, prinziipe andi bat, ain afizionatu ze eiziara, ezi etze oroizen ezkontzeas ere usteko suzesio, agian ez erorzeagatik gaistoren baten eskuetan. Andiek errogatu ziote anitz; alkabo erreduzitu ze bortxas bekala; solamente ontzat erman bear zutela ezkon zeien nekazari pobre baten alabareki deizen baize Grifeldis. Arturik aien baimendea doaie pobre garren etxe alderat; aurkizen du bere ferraturareki eldu dela Grifeldis pobre, humil, modesta. Non da zure aita? erraten dio. Aiturik etxean dagola, sarzen da ta mintzazen zaio ala: nai du admititu suitako duena bere Jaun? Pasmaturik zar pobreak errespondatu zio: Jauna, nik orrek manazen duena nai dut. Deizeunte Grifeldis ta erraten dio Gualterok: Zure aitonek eta nik nai dugu izan zaizen nere esposa, baña kondizioareki ezi nik in beautela nautena zutas, ta zuk estuzula errepugnatu bear ez itzes ta ez keñus ere. Estare pensamentus, erran zue neskatzak. Ilzen banau ere ermain dut pazienziatan. Aski da, erran zue Gualterok; ematen dio erastun esposarena, adornazen du gala korrespondienteas, eta ermaten du bere palaziora akonpañamentu andiareki. Pasaturik urte bat, librazen da neskako bates; ta azi ondoan erraten dio amai markesak: Badakizu nondik etorri zinan ta zer ofrezitu zinduen. Zuk kuadrizen didazu niri, baña ez nere aikoai, ezpaitute nai sujetatu andre ain apal jaio denari; bada, bakearen onagatik utzazu aurroi. Grifeldisek turbatu gabe, ez itz bat ere, ez mudanzaik senblantean batere eginik, erraten dio: Jauna, ori da gure Jaun, in bez nitas ta nere alabas, zer nai duen. Gualterok deiturik mutil bat manazen dio ar dezala aurra, ta amak ustes ilzeko den, zeñaturik guruze sanduas, entregazen dio baña nigar ta suspirorik in gabe. Ta Gualterok igorzen du ixil ixila Boloniarra bere arreba konde baten andreagana azi zezan humea bekala deklaratu gabe niori norena zen. Laur urteen buruan berriz librazen da seme bates; ta oroat ermanarazi zue Gualterok erraten ziola: Estute nai nere basalloek izan beren Jaun dena itzai baten alabaren seme, ezpadut kenzen aurgoi, peligraren dugu biek. Grifeldis len bezain humil ta serena gelditu ze. Bitarteo famatu ze il zituela bi humeak, ta markesak tratazen zuela diborzio bere esposaganik; okasio goneki finjizen du igorri zuela Erromara dispensa eske, ta deiturik andiak ta Grifeldis, erraten dio: Nik maite aski zaitut, baña neurek obligazen naute ta Aita Sanduak konsentizen du ezkon nadien berze bateki daiena nere igoala noble zan ta ondasunetan, ta ala zeditu bearkouzu berzeari, ta arturik zeure dotea itzuli zeure etxera. Grifeldisek aurpegi humil modestareki, erran zio: Jauna, nik banekie etzela proporzionerik orren anditasun ta nere apaltasunean; beti errekonozitu naiz indigna; ta orgatik alako maneran izandu naiz señora, ezi gogoan

beti bainiza esklaba, testigo da Jangoikoa. Zedizen diot gustoreki nobia berriari, zein deseazen diot guzis bere gustorakoa; ni itzuliko naiz nere etxolara pasazera zarzutua non pasatu duten aurzutua; aski ditxa dut izanas alako Jaunaren esposa; ez nue ekarri doterik, ta ala estut deus atrazekorik. Au erran ta utzi zitue an bere erastun, gargantilla ta gala prezioso gaiek, eskazen zuelaik solamente zereki estali gorputz gura bi hume izan zituena beraganik. Ia ezezazke deteni Goalterok nigarrak, ala ere itzulirik aurpegia berze aldera, erran zio, erman zezakela barreneko tresena. Au erran ta joan ze andik Goaltero, ta Grifeldis ere bai oin urtusian bere etxolara, lastimazen zirela guziak; sentiturik jendeain arroitua, aitak atrarik eta ikusirik, bai, erran zue, ala uste nue gertatuko zela lenbiziko amorioa pasatu ondoan. Eman zitio lengo tresenak ta len bekala segitu zue bere pobre zan in gabe kexarik txikiena. Andik denbora guti famatu ze eldu zela konde Boloniako gura esposa berriareki; deizen du Gualterok Grifeldis, ta manazen dio adorna dezala etxea bear bekala nobiain errezibizeko. Arturik bere eskoba garbizen du instante etxe guzia, prebenizentu maiak, goatzeak ta gañarakoak. Urbilen egunean ellegazen da kondea, nobia, aideak ta berze nobleak; guziak kortejazera esposa berria, ta guzien ertean Grifeldis bere tresena zarreki belauriko humil salutazen du bere señora bekala, zeññen zerbitzazen zebilalaik arat onat, galdeiten dio Gualterok: Zer iduri zaizu nobia gortas? Jauna, txoil galanta; baña nola baita ain gastettoa, estut uste tratatua izain dela lengoa bekala. Ia etzeike disimulatu ia Gualterok, ta admiraturik ta konpasionaturik Grifeldisen pazienziak, erraten dio: O nerea, bai, nerea betiko; aski progatua izandu zara; esta zu bekalakorik; zu zara ta izain zara beti nere esposa; au da zure alaba, berze gau zure semea; uste zindue il nituela, ta or tuzu bizirik. Berla, ia se bee, besarkazentu bere humeak, zoraturik kontentus; jakiten da lanzea, bestizeunte berriro tresena preziosoes ta iten da festa ia ezi ez boda egunean. Deitu ze palaziora bere aita, ta guziak junto bizitu zire anitz urtes bake onean. Orra exenplare bat pazienziarena etc., etc., etc.

LIZARRAGAREN SERMOIAK - 2

Ortzegun sanduko misterioa
Aldareko sakramentuaren fundazioa:
Dezake zerbitzatu predikutako

Gure salbazale Jesus onak, Jangoiko ta gizon egiaskoak paratutuen sakramentu guzien goren gorena; guziei, nola iruzkiak izarrei, daramana abantalla; fedearen misterio barna; eukaristia deitzen dena, au da grazia ona, ta oh zein ona! Aldareko sakramentu sandua, señaile sekreto sagratu soberanoa; berak inikako milagroen milagro andiena; bere amore ta fabore guzien memoria, bilgura ta korona, non altxaturik dagon presente errealki bere majestadea berritzen ta errepresentatzen bere amoresko exzesook, ta guri ongi eginak, bere jaiotzea gizon, bere bizitza, bere obra on, trabaju, neke-pena, pasio, eriotze, llaga ta merejimentuak; itz batez, bere gureganako amorearen azken fineza egin zue ta utzi zue plantaturik betiko, despedidan bekala, bere eriotzearen bezperan, Ortzegun Sandu arratsean, azken afari-ondorean. Artarako prebenzioa kontatzeko asten da San Juan ebanjelaria itz gebeki: Sciens Jesus etc. Zekielarik Jesus onak ellegatzen zela bere ordua, pasatzeko mundu gontaik bere Aita-gana, onetsi zituelaik beti bereak munduan zirenak, azkenerat onetsi zitue, edo azken punturaño ezin iagos. Baña zenbat onetsi zitue, edo nola? Eztu erraten, zeren imposible baita erratea. O gure Jesus ona ta onegia, orren Majestadeak sobra, bai sobra, amatzentu gizonak munduan direnak; baña gizonek munduan direnek eztute amaten orren Majestadea bear-bekala, ezeta ere ongi ezauntzen geienek! ezaun balezate, ama lezaket alako amazalea; ta ditzosoak lirazke. Nor da, bada, Jesus dioguna? Izen propioas Jesus, baita salbazalea, salbatzentuena nauten guziak; ta beragatik ezpada, ezpaita nior salbatzen, ta ez salbatu, ta ez salbatuko sekulan ere. Izen gañekoas Kristo, baita konsagratua errege ta sazerdote eternoa. Bere izates da Jesu Kristo Jangoiko biziaren Semea, gizon egin zena, gu erredimitzeagatik, ta bizitzaren exenplu emateagatik; batean Jangoiko ta gizon egiaskoa, guzis amablea berez, ta guzis gure amazale amante apasionatua; alde bat, guzis poderoso andi gora, berze alde, guzis amoroso txipi apal apala; guzien Jaun ta Jabe, ta guzien beartsu egina; miseriakordias betea ta miserias; abrats ta liberal, ta etzuela non erreklinatu burua izan; ona, sandua, manso, humila ta persegitua bekatar gaixtoa bekala; ederra miragarriro ta maltratatu itsuskiro. Da onegi bakar gura, gure fiadore atra zena, pagadore ta redentore; gure amores egin ta desegin zena, gure desterru gontara etorria gure on naies, gure zamarra jaintsi zena izanik erregeen errege gorena; gloriako errege ta gure arimen esposo, aita, anaia, aide ta adiskide, ta on guzia, bere parerik eztuena. Da zeruan ta lurrean len ta gero izan dugun amante bakar gura, ginduzkelaik kondenatu, nai izan gaituena erremediatu, erregalatu, honratu ta salbatu bere kostus. Non da nior ain maite gaituenik? Maiteago gaitu gu, ezi bere gorputza, bere bizia ta odola, ezi aisa eder zegokenak zeruan bere glorian, gure amores jautsirik, ta bizia emen neke-penatan pasaturik, gaur bekalakoan preso eramatera utzirik, biar bekalakoan utzi ze ultrajatzera, azotatzera, guruzifikatzera ta iltzera dolores guregatik. Eta agian uste dugu, ezi justoengatik sollik? Bekatariak zire nai zituenak len lenik. Ortas murmuratzen ziote, ta etzue ukatzen, bai erraten: ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak. Galdu zenaren billa etorri naiz. Galanki pagatu ziote esker-gaitzek. Etzire baratu botatu arteo mundutik beren ongiegillea.

1. Baña il ondoan bizturik igan ze zerura. Zer gisas diogu dagola sakramentu aldarekoan? Ori da tema amoresko admiragarri amorosgarria, eznai apartatu guganik, ezin

aurki (sic) gu gabe, ez utzi nai gu galtzera! Bizia bukatzeareki uzte gindue sobra in zuela. Ta ala da, baña etzue bukatu bere ongi egitea guri. Zergatik ainberze exzesu len ta gero, gure amante dibinoa? Zergatik den ona, ta amatzen gaituen gu sobra. Ikusagun azken fineza ta betirokoa, sakramentu aldarekoa ta artako prebenzioa. Zekielarik, dio San Juan bere sekretario ta ebanjelariak, zekielarik Jesus onak, guzia zeukala bere eskuan, ta Jangoikoaganik etorri ta doaiela Jangoikoagana, jaiki maietik, ta utzirik mantoa, paratzen du gerruntzean eskutako oial bat, ta ur palangana batean, garbitzeko oñak bere diszipuloeri. Ellegatzen da San Pedrorengana; eta sanduak arriturik erraten dio: Jauna, orrek niri garbitu oñak? Jesusek dio: Nik iten dudana zuk eztakizu orai, baña jakinen duzu gero. Sanduak: Jauna, eztiot utziko garbitzera niri oñak sekulan ere. Jaun dibinoak: Ezpazaitut garbitzen, eztuzu izanen itekorik nereki. Orduan San Pedrok: Jauna, ala izatekos, ez solamente oñak, baita eskuok ere ta buruau. Jesusek dio: Garbiturik dagonak eztu bear baizik oñen garbitzea. Eta zuek garbi zauzte, baña ez guziok. Au zio, zeren baizekie nor zen traiziatuko zuena, baize Judas. Zeñi alaber garbitu zition oñak Jaun onegiak. Garbitu ondoan guziera, jarririk exortatu zitue segitzera beraren exenplua, izanes karidade ta humildade elkarreki.

2. Ondorean arturik bere esku sandu ta benerableetan ogia eta goraturik begiak zerurat bere Aita Jangoiko guzis poderosoagana, eman berari esker milla, bedeikatu, partitu ta eman ziote bere diszipuloei erraten ziotela: ar zaze ta jan zaze ontaik guziek, ezi au da nere gorputza. Oroat artus kaliza ardoareki bere esku benerable sanduetan, eskerrak eman Jangoikoai, bedeikatu eta eman ziote diszipuloei, ziola: Artu ta edan zaze ontaik guziek, ezi au da ene odolaren kaliza, testamentu berri eternokoa, zuengatik ta anitzengatik ixuriko dena bekatuen barkaziotako. Añaditu zue: Au egiten duzien aldioro egin zaze ene memoriatan. Ala konsagraturik ogia ta ardoa, ordenatu zitue lenbiziko sazerdoteak, ebek ere ala konsagratzeko andik alzina. Ala Jesu Kristoren itzaren birtutes agitzen da kontino milagro andi gura, itzultzean ogi ta ardo zirenen sustanzia Jesu Kristoren gorputz ta odolaren sustanzian, gelditus sollik an aien iduriak beren sustanzia gabe, ta altxaturik errealki presente an Jesu Kristo guzia bizirik bere gorputz odol, arima, gizontasun ta Jangoikotasunareki; ta bateo Aita eternoa ta Espiritu Sandua, por konsigiente Trinitate guzia.

3. Ala gure amazale apasionatuak Jesus onak kunplitu zue bere tema amoroso, gelditurik gureki alako manera miragarri amorosgarrian, depositaturik Elizan guziendako betiroko erremedio, erregalo, erredenzio, salbazio ta nai dezaketen on guzia, barin badute fede, esperanza ta karidade. Fede, sinesteko egiasko exzesu amoriosko gebek. Esperanza, konfiatzeko Jesus ain poderoso amorosoan; ta karidade, amatzeko alako amazalea. Irur estado-gisatan dezakegu beiratu; mezan egunoro; sagraioan kontino; ta komunionean nai dugun aldioro. Mezan lenik beira. Zer da meza? Da Jesus onaren pasio ta eriotzearen memoria ta errepresentazio bizi erreala; edo sakrifizio bat, zeintan Jesu Kristo ofratzen den bera bere Aita Jangoikoai sazerdotearen eskus ogi ardoaren idurian. An presentatzen da axuri dibinoa manso amoroso. An ofratzentio bere pasio doloresko pasatua, bere llagak, gorputz odol preziosoak, eriotze ta merejimentu guziak gure faboretan. O munduko ajolakabeak, beira Jesus axuritto bat bekala prisionari-gisa aldarean ematen dela gure on naies! Nola guti balitz bein pasatua pasio doloresko ta eriotze samiña, gu salbatzeagatik, egunoro berritzen duela sakrifikatus manera alakoan! Eta zer iten du orreki? Jangoiko Jaunai gure partes ematen dio esker milla, plazer, honra ta gloria; bere Ama Santisimari obsekio, gozo ta gusto berria aldioro; aingiruei ta sanduei ere gloriaren amentu;

purgatoriokoei satisfakzio, sufragio, alibio; mundukoei karraiatzen onak zerutik, bekatoriendako piedade, miseriakordia, barkazio; justoendako graziaren aumetu; pena zor direnen satisfakzio; ta gorputz ta arimen, oraiko ta geroko beartuten on guzien erdetximentua. Nork estimatzen du, edo goartzen ere bearradiña axuri garren ona? Ofenditu bai itsu itsua malamente! erran ziona hostiatik sazerdote bati: Zergatik zara gaixtoa nereki, naizelaik ona ni zureki?

4. Beira bigarren estado-gisan, au da, kontino sagrarioan, guri egiten konpañia, gure lekukide, gure lagun bekala desterru gontan. Fortunosoak zire zuketena tratatu ta mintzatu Jesus ona bizi zelaik. Eta etzuket ori guziek, eztare nai zuten guzian. Emen bai nautelaik dezakete bisita, mintza, tratatu Jaun soberanoa, laur pausu emanen! Zer falta zaigu? Ikustea begis. Supli bez fedearen bistak eta fortunoso gara. Baña non da fede bizia? Balitz au, oh! Zer lasterrak onat bearretan, trabaju ta tristuraetan! Zer konsolazioak, zer gozo ta gustoak senti gindezazke? Zenbat probetxu, dela gorputzaren, dela arimaren? Ta zenbat amore beragana? Ezin ikustea begis da gure faboretan, ezi ikus baledi, nola gindeizke trebe agertzera alzinean? Orain dago estali, ez gaitzen lotsa sobra, ta ellega gaitzen konfiaturik. Bagindu errege poderoso bat ain amoroso, ain llano, ain eskunara, oh! Nola ezkindeizken deskuida! Errege da, ta poderoso da Jesus dagona sakramentuan; eta deskuidatzen gara!

5. Beira irugarren estado-gisan, komunionean. Zer da komunionea edo komekatzea? Da komunikatzea Jesus ta arima elkarreki milagroso ta amorosoki. Da besarkatzea bekala ta bateratzea, eta ala nola desposatzea gloriako errege ta pobreaken arima miragarriro. Da errezibitzea batek berebaitan errealki Jesus guzia Jangoiko ta gizon egiaakoa arimaren alimentutako. Da Jaun guzis poderoso ta amorosoak erregalatzea lurreko desterratu pobrettoa zeruan den oben obenareki! Quis loquetur potentias Domini? Nork erran Jaunaren prodijio miragarriak? Nork pensa amoresko exzesu ta injenio alakoak? Nori gogoratu, bear zela sartu gure Jesus on onegia gure petxoan barnean alako maneran? bizi zelarik agerri, noren etxean sartzen zen, fortunosoak zire etxeak. Bada, zer fortuna ezta beiratzea sarturik biotz-barnean? Ditzosoak, diozu, ikusi zutenak Jangoiko humanoa, mintzatu, aditu, tratatu zutenak. Eta orra dio San Krisostomok, berbera ikusten duzu fedear; berbera artzen duzu zeure barnean; berbera jaten duzu. Bere palazio iten du zure petxoan, zure biotza bere trono erreala. Nola, nola ezten zorutzen ariturik kontentus arima? O fede bizia, non zara? O Jesusen amore geiegi admiragarria! Nork estimatzen, nork pizatzen zaitu bear adiña? Jaun guzien Jauna, gloriako errege propioa eta ene arimaren esposu ta erregalo! Ene arima, zeren zara beldur? Zeruaren ta infernuaren giltzak bere eskuan ditu; ta etzaitunai kondenatu sines nai zaituenak ala erregalatu.

6. San Juan Bautista bere Ama Santa Isabelen zeukalaik bere sabelean seigarren ilabetea, Jesus izan ze konzebitua Espiritu Sanduaren obras Ama Birjinaren entrañetan; eta bereala joan ze Ama Santisima bisitatzera; eta ellegaturik mintzatu zeneko, istantean San Juan saltatu ze bozkariundes bere sabel-barnean, ezaundurik nor zen mintzatu zena, ta bereki zekarrana. Eta berbera eldu zaizu altxaturik hostia txipi garren beloas. Samariako iturri edo butzu garren pokalean zegolaik Jesus nekaturik, ellegatu zen emasteki bati eskaturik ur trago bat erran zio: Bazindeki Jangoikoaren donoa, ta nor den mintzatzen dizuna! Eta berbera da eldu zaizuna, ez ur eske, bai alimentatzera zure arima komunionean. Zakeo ze gizon txipitto bat nai zuena ikusi Jesus ta ezin jendetzearen utses. Igan ze arbole batera, ikusteko andik pasatzerakoan. Jaun dibinoak ikusi zio biotza, ta oi

egin zio: Ea Zakeo, jautsi ordik bereala. Jautsi ze bereala, ta akonpañatu zue alegre bere etxera, ta konbertitu ze arras. Eta Jaun dibinoak erran zue, egun obratu dela salbazioa etxe gontan. Eta berbera da sartzen dena zure arimaren etxe gontan. Santa Marta ta Magdalena zire bi aizpa maiz errezibitzen zutenak beren etxean. Bein zegolaik urrun, heritu zekioten beren anaia San Lazaro. Biali zioten berri gau: Jauna, orrek amatzen duena, dago heri. Detenitu ze berarias bi egun; bitarteo iltze Lazaro. Ellegatu ze gero an Jauna; eta Santa Martak erran zio: Ah Jauna, ori egon baze emen, ene anaia etze ilen. Jaunak dio: biztuko da zure anaia. Badakit, dio Martak, biztuko dela azken juizioko egunean. Jaunak erraten dio: Ni naiz erresurrekzio ta bizitza. Ni baitan sinesten duena naiz il daien, biziko da, ta ezta ilen betikos. Sinesten duzu au? Sandak, bai Jauna, sinesten dut, ori baita Kristo Jangoiko biziaren Semea mundu gontara etorri dena. Eta laur egunes ia ilik zegona ta ortzirik, biztu zue. Bada, berbera da orai ere eldu zaizuna. Nola da posible alako emana sinestea ta ez onestea emanzalea? Lendanik ori jakinik profeta errealak, zio, bere miragarriak batean bildutuela Jaun miseriakordioso ongi-egilleak, jatera ematean bere beldur direnei (Ps.110) O, dio arriturik doktore aingiruak, o konbita sagratua, zeintan artzen den Jesu Kristo, berritzen bere pasioaren memoria, betetzen grazias arima, ta ematen zaigun geroko gloriaren prenda. Dio berriz: o konbita preziosoa, ta admirablea, ta osasungarria, ta gozo gozoa! Preziosoa, balio baitu Jangoikoak adiña, Jangoiko dena ematen baita emen amen batean. Admirablea, milagroak iten baititu emen abasto. Osasungarria, salbazalea bera sartzen baita gure barnean. Ta gozo gozoa, txastatzen baita emen bere iturrian arimaren gusto guzia, gozatzen Jangoikoaren ona ta amorosoa, beraren besarka espirituala. Nori etzaio goxo bere barneratzea Jesus, betetzentuen glorias bere eskojituak zeruan? Israeldarrei atra ondoan Ejiptoko presondegitik desertuan erauntsitzen zioten goizoro intz gisa bat alimentutako, zeintas kantatzen duen Elizak: eman diote zerutik ogia, duena berebaitan gusto guzia; zeintas admiraturik zioten manhu, nai baitu erran, zer da au? Andik gelditu zekio izena Manna. Ta etze baizik sakramentu gonon itzal-iduri bat. Auxa baita admiratzeko guzis, zein baño ia, obeago ta gustosoagorik ezta, ez dezake ta eztaki zer eman Jangoikoak berak, naiz den guzis abrats, guzis poderoso ta guzis jakintsu.

7. Indartsuaganik gozotasuna, zio Sanson indar milagrosko anditako garrek, beti zegonak argumentuan filisteoei, eztuziela astatzen zer nai duen erran, indartsuaganik gozotasuna? Apostu eginik, zebiltza diskurritzen ta konsultatzen, baña niondik ezin azerta, aliketa beraren esposa Dalilak erranarazi zion berai, ta arrek filisteoei. Ze lanzea, ezi bein zoeielaik Sanson bides, atra zekio leon lotsagarri bat. Arrek au arrapatu muturretik bi eskus, erdiskatu ta urratu antxe utzi zue ilik. Andik pasatzean geroago, nai izan zue ikusi zer egin zen bere leon gura. Ta aurkitu zue, erleek arren agoan in zutela ezti-orratze bat, zeintaik jan zuen goxo. Orgatik zio: Indartsuaganik gozotasuna. Judako leon indartsu guzis poderosoa, Jangoiko bekala, da Jesus dibinoak, utzi zena urratzera bere pasio doloreskoan, ta iltzera gurutzean. Andik dator aldareko erregalo gau, berai ongi kostarik, guk goxo gozatzen duguna. Ezpalio berak errebelatu Elizari egia gau, nork pensa? Nori gogoratu? Baña ain egia da nola ebanjelioa. Komekatzen zara, ta eztuzu senti gustorik? Etzaizu goxo Jesus amoroso gura? Etzaizu kuadratzen beraren amore gura? Beira, ia baduzun federik edo karidaderik! Beira eztagon arima ilik, bentzait desganaturik, gustoa galdurik. Fede, karidade, gusto ona ta gose ona duenak naiago du amen gura, ezi munduko plazer, dibersio, alegranzia ta gauza guziak. Baña askori agitzen zaiote agitua israeldarrei, enfadaturik manna gartas suspiratzen baizute naiak Ejiptoko elze, ta tipula, ta baratxuri, ta farraskeriak. Ala kristio falsuek, batzuek naiagotute munduko banidadeak, ta

geienek bentzait eztute gose ta gustorik Jesusen erregaloas, delarik egia diona Maestrrro Juan de Abila benerableak, ezi balute fede bizia, karidade ta gusto ona, bandaka lidoazkela mai gartara, ta bear luketela elizagizonek egon paloka ezin apartarazis andik jendeak.

8. Zer gusto du, bada? Zer gusto eztu izan bear ain amable denak ta ainberze amatzen gaituenak? Baña sentiarazten du disposizioaren ariora. Den gutienean du humildade, mansotasun, ta pazienziaren gusto, ezi beiratus Jaun ain gora gura ain humil, manso sufritu, nori eztio emanen deseo imitatzeke? Du kastidadearen gusto, ezi da eskojituen ogia ta Birjinak azitzentuen ardoa. Du amore-gusto, ezi amoreak amore, suak su itxekitzen du. Eta nola eztugu amatu bear ala desegiten dena gure amores? Ain andia ta ain txipi, Jesus ori enegatik! Badakusat zergatik, amorosteagatik ni. Barin badut biotzik, Jesus nai dut ilartaño; ia ori guziak baño, ori nai dut bakarrik. Jesus onak maite ni, nik ere maite Jesus; ai amore gonon sus erre ta il banindedi. Du dolore amorosoaren gusto, ezi bereala dakar negargale ez ia amatuas alako amazalea. Bereala exklamarazten du San Agustineki: o edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! O amore geiegia enegana, zein gaizki korresponditu dioten! Etc. Du gloria-gusto, salbazio-urrian, esperanza gozoa, ezi eztu nai kondenatu ala erregalatzen duena. Iago disponitu direnei ia gusto sentiarazten diote, deseaala ta pensaala baño ia ta ia. Galde San Franzisko Xabieri, ez solamente komekatzean bera, baitare komekatzera ematerakoan, belauriko ematen baizue erreberenzias, ikusten baize airean gora goraturik espirituaren indarres, eta ondatzen zelarik gozoaren abastoan, klamatzen baizue: aski da, Jauna, aski da. Galde Santa Teresari, zein komekatzen zelarik, ala nola iruzkia kristalesko urna batean, istargitzen zue barratus errañuak inguruan, paratzen zela eder ederra iruzkia bekala. Eta nork daki arimak gozatzen zuen gloria? Galde Imelda deitzentzen aur borz edo sei urtetako garri, zein monja sartu naies, etzutelaik artu nai adin gutis, eztare utzi nai komekatzera, berzeak komekatzerakoan, egoten zen inbidia sandu bateki negar ta negar koruan. Bein sazerdotearen eskutik boladan joanik forma sagratua sartu zekio agoan, ta iltze gozos Jaunaren besotan, gozatzeko zeruan. Parasti in dulcedine tuâ pauperi Deus.

Komekatzeko doktrina forman

Bi disposizio-gisa badire: Bata ona ta prezisoa; berzea obeago ta konbeni dena. Disposizio preziso bear denaren erakusten dire bi gauza: Arimaren aldetik grazian, ta gorputzaren aldetik barurik joatea. Gorputza barurik ta arima garbirik, zer den ikasirik, ta debozioa bizturik. Disposizio konbeni den obeagoaren berzebida: asko denboras lendanik ongi bizitzea, eta lentxago konsiderazio ta afektoetan egotea. Ontako ona zenbait in daizkenak: Debozioaren sua itxekitzen da Fuka. Itztto gonon laur letraetan entenda laur letra laur afekto mostrapentutenak: Fedea, Humildadea, Kontrizioa, ta Amorea.

1a Fedea. Jesus da. Sinesta, arima.

2a Humildadea. Humilla zaite zarena.

3a Kontrizioa. Indigna zu, ta artu pena.

4a Amorea. Baña Jesus da, ama, estima.

1a Fedea. Beras sinetsi bear da Jesus Jangoiko ta gizon egiaskoa, gloriako errege soberanoa datorrela ene barnera hostia txipi gartan? Sinetsi bear da, zeren ala baitio berak, ta aski da bere itz erreala. Gauza andia da; baña andia ere da bere Majestadea, bere podorea, xakintasun ta ontasuna; andia bere digun amore; ta andiak amoresko exzesu

intuenak, obrak ta trabajuak bizian ta iltzean guregatik, ta azkenean injenio gau!

sinesten dut, bada, firmekiro, ta nainuke sinetsi bizi, nola ikus banez begis, berori dela jautsi zena zerutik, ta konzebitu Maria Santisimaren entraña sanduetan Espiritu Sanduaren obras, jaio zena Birjina Mariaganik, pasatu zuena etc. Kredo. (Daizke errepara pausu prinzipalenak etc.)

sinesten dut, bizturik igan zela zeruetara, ta an dagola jarririk etc. Sinesten dut. Bizkortu bez ene fede heria.

2a Humildadea. Baña nondik niri ainberzeko faborea? Nor da berori ta nor naiz ni? Berori Jaun guzien Jauna, ta ni lurreko ar miserablea. Berori guzis poderosoa, ta ni guzis pobrettoa. Berori ona, ta ni gaixtoa. Berori garbia, ta ni etc. San Pedrok zio: Jauna, orrek niri garbitu oñak? Ta berriz: aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria. Zer errain dut nik? Santa Isabelek zio Ama Birjinai: Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea enegana ene Jaunaren Ama? Zer diot nik etortzeas ene barnera orren Majestadea? Pobre izateas eztut ainberze beldur; baña pobre ta bekatari naiz. Ellegatzen banaiz gaizki, zer izanen da nitas? Eta norengana joanen naiz, ezpada berorregana? Jauna, ez naiz digno etc., baña etc.

3a Kontrizioa. Oh! Nor litzaken sanduetaik bat! Baña kontra naiz. Eztut berze erremediorik, baizik konfesatu ene gaizki egin penaturik. Nik bear nue milla bizi eman orren amores; bear nue obratu ta trabajatu orren zerbitzutan; bear nue bentzait onetsi biotz guzias etc. Baña guzia egin dut kontra. Naiz guzia galdurik, naiz deus gabe ni gelditu, ez nua bear ofenditu ene Jauna nik, ez nik. Orai berori agrabiatu, ta neurau galtzera botatu! Ah! Nola nindegoken, ta nola nagon! Ah! Zenbat dauden ene Aitaren etxean nauten guziareki; ta ni etc. Itzuliko naiz ene Aitagana ta erranen diot: Aita, bekatu egin dut etc. O edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! O amore geiegia, zein gaizki korresponditu duten! O ontasun! O gusto etc. Confitebor tibi in citharâ etc. Orren ona, nere gaixtoa etc.

4a Amorea. Esperanza dut barkatzen didala, ta amatzen dut biotz guzias, arima ta entraña etc.

amatzen dut ia ezi gauza guziak, ia ezi gustoak, ia ezi honrak, ia ezi ondasunak etc.

amatzen dut, ta nainuke amatu ilartatxo etc. Ojala orren amore balitz ene espiritua, zeñeki bizi nadien, ta sua zeñeki konsumi nadien etc.

amatzen dut, ta nainuke amatu nola sanduek, nola serafinek, nola Maria Santisimak etc. Ez nuke nai ofenditu, bai plazer egin komunionean etc.

komekatu ondoan, eskerrak

1a. Ongi etorria da lenik. 2a. Sinetsi. 3a. Onetsi. 4a. Laudatu. 5a. Dena eman. 6a. Bear dena eskatu. 7a. Ofratzea da azkenik.

1a. Ongi etorria. Ongi etorria dela bere pobrettoagana ene Jesus onegia; gloriako errege ta ene arimaren esposo! Ain gora ta ain apal! Ain admirable ta ain amable! Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea bere Majestadea neregana? Ain andia ta ain txipi, Jesus ori enegatik! Badakusat zergatik: Amorosteagatik ni.

2a. Sinetsi. Zeren ezi bear dut sinetsi, ta sinesten dut firmekiro, dagola ene barnean ene Jesus sakramentatua, jautsi zena zerutik, konzebitu zena Maria Santisimaren entrañetan, pasatu zuena pasio doloresko, guruzifikatu, il, erresuzitatu etc.

3a. Onetsi. Nola dezoket pagatu? Eztut baizik borondate ona. Oneki onetsitzen, amaten ta estimatzen dut ia ezi gauza guziak etc.

4a. Laudatu. Ene partez, ta eneki bateo ama, estima ta lauda bezate orren Majestadea aingiruek ta sanduek Maria Santisimareki. Bedeika ta lauda bezate zeruek, izarrek, iruzkiak, ilargiak ta or gorako gauza guziek. Bedeika ta lauda bezate laur elementuek: Suak, aireak, urak, lurak, eta emen beiti diren gauza ta animale mota guziek. Bedeika ta lauda bezate gizonen, zeñen faboretan eginik gizon in baitu ainberze amoresko exzesu. Bedeika ta lauda bezate arima onek, baitare nereak entraña guzieki. Ene memoria oroi bedi beti orren ones; ene entendamentuak pensa; ene borondateak nai bez nai duena orrek, ene biotza bego beti amorosturik Jesus onas; ene potentzia ta sentido guziak enplea beitez orren gustora. Orrendako bizi, orrendako il etc.

5a. Dena eman. Egiten diot entrega emen den guziaren. Ar bez posesio nitas ta nere deitzen den guzias. Emengo giltza guziak orren eskuan. Jabe bedi ene biotzas, gorputzas ta arimas; ene libertadeas, memorias, entendamentuas, borondateas; ene potentzia ta sentido guzies; ene bizitzas, iltzeas, eternidadeas. Guzietas mana bez, egin ta desegin bez nola duen plazer, solamente naukala ni bere grazian beti. Ene petxoia orren sagrario, biotza biz orren trono; ta den guzia biz orren zerbitzuko; neurau orren pregonari klamatzeko: Biba errege, biba Jesus etc.

6a. Bear dena eskatu. Orai, bada, ezta etorri baizik ongi egiteagatik pobreak, eskatzen diot: 1a. Ene bekatuen barkamentua ta grazia berorren begietan. 2a. Grazia idukitzeas ni bere eskutik, ez nadien erori beñere sekulan. 3a. Berri nazan guziau, kendus bizioak, plantatu birtuteak, humiltasun bat sendoa, kastidade, mansotasun, etc. 4a. Grazia finala bukatzeko ongi, asisti dezadan espezialki arimaren despeidan, zein orren eskuetan bego enkomendaturik betikos etc. 5a. Baitare gorputz asto gonendako zer den konbeni, ta orrek nai duen. Eskatzen ere diot ene kontrario direnen faboretan, ene kargu ta obligazioskoen, aide ta adiskideen, eliza guziaren, Aita Sandu, obispo, apez aita, sazerdote, errelijioso, prinzipte, superiore ta inferiore guzien etc. Baitare purgatorioko arimen, berexki N., baitare mundu guziaren, on dezkien etc. Anima Christi etc. O Kristoren arima, sandu benaza, sandu benaza ni. Kristoren gorputza, salba benaza. Kristoren odola, amoros benaza. Kristoren bularreko ura, garbi benaza. Kristoren pasioa, bizkor benaza. O Jesus ona, adi benaza, bere llogen barnean altxa benaza. Ez nazala utzi apartatzera bereganik. Eriotzeko orduan dei benaza bere sandueki berorregana, lauda dezaten bere sandueki beti. Amen.

7a. Ofratzea. O Trintate Jauna, ofratzen diot Jesus gure bitarteko bakarra; onen atenzios guri in dezagun fabore. O Maria Santisima, ofratzen diot bere Seme dibinoa etc. O aingiru etc. etc. etc. O ene Jesus ona, ene arimaren amoreta, ni orrena, ta ori nerea. Eztut utziko ezpadida ematen bere bedeizioa ta baimendea.

LIZARRAGAREN SERMOIAK - 3

Sermones breves in lingua vasconica
ad populum (sic) rusticanum in Dominicis
et aliquibus aliis Festivitatibus

Aucthore D. Ioachimo de Lizarraga,
Presbitero, Parocho Oppidi Elcano in Navarra Hispan..
Anno 1800

Pro Dominicis totius anni sermones breves
de diversis materiis pro diversitate evangeliorum.

Sermo in Dominica 1^a.
Adventus,
De iudicio vitae nostrae

Et tunc videbunt filium hominis venientem etc. Luc. 21

Egungo ebanjelioan aipatzentigu Jesu Kristok señaile izanen direnak iruzkian, ilargian, izarretan, itsasoan ta lurrean azken juizioko egunaren alzinean. (Señaile gaietas zerbait erran ze azken ebanjelioan, (dom. 24 post Pent.). Egun erragun juizio egin bear denas gure bizimodu, obra, itz, afekto, pensamentu ta omisioneek. Bi aldis in bear da juizio gau, edo bi juizio dire: Bat da juizio partikulara persona bakotxas iltzen denean: Berzea da juizio unibersala mundu guzias azken egunean. Lenbizikoas dio San Pablok, (Hebr. 9.). Statutum est hominibus etc. Dago emanik sententzia ilzeko gizonak, ta onen atzetik juizioa. Bigarrenas dio Kredoak, inde venturus iudicare. Nondik etorko baita azken juizioko egunean onen ta gaixtoen juzgatzea: Edo explikatzen duen bekala mezako Kredoak, et iterum venturus est iudicare etc. Eta berriz etorri bear du Jesu Kristok glorioso juzgatzea biziak ta ilak. (Egun gura izanen da azken eguna, egun guzien eguna, zeintara erreduzituko diren gizon guzien egunak, lengoak, presenteak ta urrengoak, Jangoikoaren eguna propioki; iraren eguna, kalamidade, miseria, iluntasun, tenpestade, tronpeta, soñu ta arroituaaren eguna, egun andia ta amargoa lazki (Sophon.1).

Agian juizio gartan aldatuko ote da sententzia len emana? Agian ongi atra zena len egonen da peligroan, edo gaizki atra zena erremediatuko da orduan? Ez por zierto, baizik konfirmatuko da sententzia lenbizikoa mundu guziaren presenzian. Zertako da bada juizio unibersala? Zenbait kausa edo motibo dakarte Autoreek: 1^a. Deklaratzea guziei an, len bakotxai eman zekion sentenziaren justizia ta txuxentasuna. 2^a. Suplitzea artan faltatu zena lenbizikoan, ezi solamente arima izan ze juzgatua, ez gorputza, zein agian eraman zute honra andiareki obiara emen, zeramatelarik infernura arren arima; orduan, bada, erresuzitaturik guziak inen da juizio ta justizia gorputz ta arimas batean, biak unitu ziren bekala Jangoikoaren zerbitzatzean edo ofensatzean. 3^a. Juzgatzea ez solamente on eta gaixto bakotxan in duena, baitare arren egunes geros segitu ziren erresultak arren kasos. 4^a. Paratzea orden onean ta xuxen, paratu zuena munduak makur; ezi askotan munduak honratzen du gaixtoa, ta deshonoratzen ona; onak pasatzen dire gaixtotako, gaixtoak ontako; bada, an desengañaturik emanen zaio nori berea. 5^a. Explikatzea ta ikusiarastea guziei Jangoikoaren probidenziaren juizio sekretoen tela miragarria ta guzis justoa, entendatzenetzuguna orai, nola usten duen gaixtoa luzaro ta fortunoso, ta eramaten duen goizik ona, au trabajutan, ura aisuran etc. ta kontra oroat; guk ezin entenda orai nola den, an entenderaziko digu. 6^a. Itzulzea Jesu Kristori honra ta gloria dagokiona bera denagatik, tratatu zutena ain gaizki len judioek, gero herejeek ta bekatariek. Orgatik, zegolaik preso Kaifasen etxean, nai zutelaik ilarazi, ta motibo-iduririk ere ezin aurki, galdeginik furioso Pontifizeak ia bera zen Kristo, desengañatzeko, nai bazute, errespondatu zue Jaun dibinoak (Math. 16): Zierto sines erraten diziet, ikusten duzien gau ala emen, ikusiko duziela etorzen Majestade ta podore guziareki Zeruko lañuetan. Orra zerbait motibo juizio unibersalaren. Au bada Jesus ona, zeintas zion San Juan Bautistak etzela bera digno laatzeko arren oñetakoen lotzakia, ta zeukala eskuan sardea aitzeratzeko bere eulzia, an, bada, agertuko da guzien juez; an aizeratuko du gizagendearen eulzi andia, ta berexiko du

granoa bere granerorako, agotza ta ilauna infernuko surako. Emen orai askok eztute ezaundu nai, askok galzen diote amore ta errespeto zor zaiona. Dago beira sufritzen ixil bere Majestadea. Numquid sempér tacebit? Agian beti egonen da ixil? Ez, ezi bere denboran mendekatuko da. Orai dago etxideten, konbidatzen, nai baute akorritu ta in penitentzia, meatxatus ezperen, señalaturik daukala eguna egiteko justizia munduas. (Act. 17). Egun gura noiz ellegatuko den, niori eztio erran nai, ezkaitzen deskuida. Trata zugun solamente juizio in bear duenas gutas len ta gero. Por konsigiente trata zugun ongi bizitzeas ta errespetatzeas ongi bere Majestadea, atrazeko ongi lenbiziko juizioan; orreki ongi atrako gara bigarrenean ere. Nior eztaike eskapa beraren eskuetaik: Inzagun inala al badezakegu logra beraren grazia ezkaitzan kondena; ezi bida, dio, egoin dire alor batean: Bata artu, berzea utziko da. Bida goatze batean: Bat artu, berzea utzi. Bida errota batean: Bat eskojitu, berzea kondenatu. (Math. 24). Logratzeko eskojituen ditxa ta felizidadea da eskojituki bizitzea; ortako da ongi pensatzea juizioan; guzietako da eskatzea Ama Birjinai grazia. Abe Maria.

Jangoiko andiak guzien Jaun ta labeak, fabrikatu zituenak berze gauzen artean zerua ta infernua, señalaturik dauzki eternidadetik nor ta nor naituen eraman zerura, nor ta nor utzi infernura; ortako emengo plazoa akabatzen duen instantean deitzen du bakotxa bere juiziora kontuen artzera, ta notifikatzera sententzia dagokiona bere obren conforme. Lan gau brebekiro iten da, baña guk pinta zugun imajinazioan espazioreki; ta ojala pensa bagindez maiz ta kontino. Egon erne, dio Jesu Kristok, eta prest, zeren ezi uste eztuzien orduan etorriko da. (Luc. 12). Ellegaturik bada plazoa, ezin exkusa ezin luza daikena, despeitzeareki arima, gorputza gelditzen da ilik. (soñatzen dire ilezkilak. Galdegiten da: Nor il da? errespondatzen dute: Urlia il da. O ditxosoa, diote; alzinatzea in digu: Guziek in bear dugun bidea, ezta berze erremediorik. Batek enkomendatuko du, berzeak kasorik ez, ta guziek segi bere bideas. Mortaxatzen da gorputz miserablea; tratatzen da orzitzeas, ezperen urrindu lezake guzia, eta ia ezta baizik estorbutako munduan. Prestaturik ilaria, eramaten dute lauren ertean akonpañatus gurutze, argi ta kantueki. Ortzitzen dute lurbarnean; ta doaz guziak jatera, edatera ta beren joanetorrietara, utzirik ura an or konpon, nola ezpalitz sekula izan alako personarik munduan. Zoaz ikustera gero, ta ikusikouzu lenik ustel korronpiturik, geroxago ar likitsen bazkari; geroxago guzia auts ta inmundizia. Onen amores daikela egin ainberze ofensa Jangoikoai, eta galdu sekulakos ainberze arima? Zoaz andik urte bat edo gutiago ere, ta ikuskouzu guzia deseginik, emen kalabera, an kanillak, ta berze ezurak. Non dago orai lengo presunzio ta konpontze gura iduritzeagatik ongi? Auda zebilan gura burua gora, guzia antuste ta arroitu zena? Ia diferenzia guti du zamari il batenganik. (Jezabel erreginak persegitu zue Elias profeta sandua; baña Jangoikoaren permisos laster ellegatu zekio kastigoa. Errege berri bat eginik, baize Jehu, sarzerakoan au ziudadean, zego ura bere balkonean bera guzia beterik galas ta adornus. Galdetu zue Jehuk nor zen, ta aiturik zela Jezabel, botarazi zue balkonetik bera; an ixtikatu zute zaldiek, ta jan zute zakurrek, utzirik solamente kalabera ta zenbait ezur-puska. Gero ikusteareki ala jendeek galdeiten zute arriturik, haecine est illa Jezabél? Auda Jezabel gura? Ontan baratu da presunzio ta subergia gura guzia?).

Miserablea da estadoa, zeintan erorzen den gorputza. Bai, baña bitartes zer da arimas? Non ote dabila? Emengo ataria ertxirik sekulakos, ez itzulzekotan zer errejionetara eraman ote dute? Eta nork? Aingiru zerukoek edo infernukoek. Ikusi duzu nola eraman duten gorputza elizara akonpañaturik emen; baña ez duzu ikusi arima nork akonpañatu duen eta nora. Jangoikoaren presenziara eraman dute aditzera azken sententzia betikos.

Bara gaitzen guti bat emen. Lanze gontan nolako bizia nailuke batek bizitu? Diolarik berebaitan, emendik guti xakinen dut egon beauten zeruan erreinatzen edo infernuan erretzen kontino beti. Akabatu da Jangoikoaren zerbitzuaren trabajua, baitare banidadeen gustoa. Orai premia bear da, edo kastigoa. O zerbitzatu banu sollik Jangoikoa, naiz trabaju andieki? Orai akabatuak zire, ta esperanza ona nuke. Baña eztut ala egin, ta erremedia ia ezin! Ai zer izanen da nitas? Goartu gaizen orai lanze gartako.

Presentatu bear da arima Jangoikoaren tribunalean, nai badu ezpadu. Presentatu bear dire an bere on eta gaixto guziak. Gaixtoak nai luzke utzi emen; baña opera illorum sequuntur illos, dio Espiritu Sainduak. Beren obrak darraizkiote atzetik; eta San Pablok, unusquisque onus suum portabit, bakotxak eramako du bere karga, ta azaroain konforme izanen du eraizioa. Emen geldituko dire mundua, munduko ondasunak; gauzak ta gorputza, baña ez obraik, ez itzik, ez afekto, pensamentu ta deskuidorik ezta geldituko agertu gabe an. Nailuke bakotxak utzi edo altxatu bekatuen kontrabandoa, baña agertuko da an nai eztuela, bortxa. Zein gaitz zaion agertzea an gauza gura ta berze gura emen altxatzen duena guziei, aun konfessoreai ere; baña an eztu erremediorik, iruzki justiziasakoaren argira atrako da klaro patente, ala nola gaizkiegillea arrapatu dutena gaixtakerian atratzen dutelaik bere ladronkeriain instrumentueki dilindaka lepotik guziek ikus dezaten. Nola beiratuko duten an hipokrita engañazalea, ta desengañaturik erranen duten, auda ain ongi iduri zuen gura? Zenbat abominazio zeukan altxaturik? Nork pensatuko zue?

Emengo tribunaleetan daike agian disimula deliktoa ta engaña jueza, abogatu, prokuradore, testigo ta ajenteen mañaeki; agian erregalo, enpeñu, promesa, nigar ta alakoeki beraxtu justizia. An ezta protxal batere alakorik. Guzia dago juez soberanoaren menean, ezpaitu deusen bearrik. Gauza lotsagarria da gizon aragisko miserablea presentatzea Jangoiko andiaren begietan, zeñen presenzian izarrak ere ezpaitire garbi, ta ikaritzen baitire zeruko kolumnak, dagolarik akonpañaturik aingiruen millare ta millareeki! Nola, nola bear dut agertu alako Majestadeen presenzian? Ta ezin exkusa. Lanze ikaragarria da ura sines! Plazoa ertxirik, ia erremediorik ez; pleitua da, sekulakos ongi edo gaizki paratzeko gizon ta nola daike segura bere kausas? Goiti juez soberanoa, beiti prestaturik infernua; alde batetik bekatuak, berze aldetik deabruak kontra, barnetik konzienziak akusatzen, kanpotik Jangoikoaren argiak guzia manifestatzen, ta niolaterere ezin eskapa!

Scrutabor Jerusalem in lucernis, dio Jangoikoak, inen dut eskudriña Jerusalemene antortxaeki. Zer izanen da Babilonian, egiten delaik alako eskudriña Jerusalemene? atrako da librua, non dauden asentaturik gure on eta gaixtoak azken punturaño; libru gau da Jangoikoaren xakintasun infinitoa, zeñek ala nola iruzkiaren argi klaroak ikusiaraziko du guzia batean. Eskudriña ta examinatuko dire gure obrak, agerriak ta sekretoak beren zirkunstanzia guzieki, nola eskudriña ta examinatuko dire gure omisioneak obligazioen kunplitzean. Eskudriña ta examinatuko dire gure itzak, ez solamente gaixtoak, baitaere oziosoak. Eskudriña ta examinatuko dire gure biotz barnekoak, deseoak, intenzioak, afektoak, hipokresia ta falsedade guziak. Eskudriña ta examinatuko dire bekatu oroitzenezkinan ere, ta uste ezkinduzanak, eta ia dena, berzeren bekatuak gure gain, ez solamente egintustenak guk inzitatus klaroki, baitare gure deskuidos ta gure okasios intuztenak, naiz guk ez uste, ta ez memoriaik ere ortas. Alaber, eskudriña ta examinatuko dire gure obra onak nola in ziren edo Jangoikoaren amores edo banidades, edo berze fin makurres, edo floxoki, epelki ta faltaeki. Guzia pizatuko da Jangoikoaren balanzan urrea

bezanbat tentureki. Alaber, inentigu karguak bakotxai ia edo gutiago emandigunaren ariora, bere kriaizioas, konserbazioas, erredenpzioneas, kristiatuas, emantigun inspirazioes onerako, doktrines, predikues, sakramentues, konfesioes, komunioes ta gañarako medioes ta erremedioes. Ezpagara ongi baliatu, zer atxekia atrako dugu? Nork dezoke errespondatu millaetaik batera ere?

Anitz exenplu kontatzen dire juizio garren justoas. Bat kontatzen du Aita Alonso Andradek, (itin gr. 31 s v) Inglaterrako mutil gaste on bates, zein sartuzen Santo Domingoren errelijioean, eta len barin baze birtuoso munduan, ia ta ia aumentatu ze errelijioean; prinzipalki ze Ama Birjinaren deboto biotzes, maite zue Ama amorosa bekala. Pasaturik nobizio-denbora, eman ziote profesioa gogotik, ikusirik zela sanduaren imajina bizi bat ain ona. Baña guti iraundu ziote gozoak, ezi alako loreak eta perlak tiratzentu goizik beretako zeruak. Biali zute biajes, ta eritu ze bidean erri batean, non baize San Franziskoren konbentu bat; errelijiosoek kuidatu zute al guzia, baña Jangoikoak eramanez nai duena, niork ezin iduki; ellegatu ze azken tranzera errezipiturik sakramentu guziak debozio andiareki; ta zeudelaik errelijiosoak asistitzen ta egiten arimaren errekomendazioa, idiki zitue begiak, egin zue erreberenzia buruas mostratus anitz alegria. Galdegin ziote nori egiten zion erreberenzia, erranzioe ezi ta Errejinaldori, etorri baizaida anitz aingirueki laguntzera. Andik guti egin zue erreberenzia andiago alegria iagoreki ziola: etorri da gure erregina, saluta zagon. Bete ze leku gura zeruko fragranzias, ta errelijiosoek debozio ta gozo andiareki kantatu zute Salbea; eriak erran zue, o zenbat kuadratu zaion Ama Santisimari zuen orazioa! Eze guti konsolu sentitzen zutena errelijiosoek aditzeas ta progatzeas gauza gaiek eri ditxoso garreki; baña laster akabatu zekiate; zeren eria andik guti asi ze mudatzen guzia turbaturik, begiak armatzen zituela lotsamenturas, ta izerdia zeriola agoniain utses; batzuetan zio: Gezurra diote, eztut in alakorik; berze batzuetan: Ori egia da, baña konfesatu dut, ta egin penitentzia. Berze batzuetan negarra zeriola erraten zue: O Maria, anpara benaza; berze batzuetan, Jesus Jesus, miseriordia nitas. Ai ene tristes; ai nitas, zori gaixtoan jaioas! Errelijiosoak zeude arriturik aitzen ta ikusten pasatzen zena, batzuk ikar ikar beldurres, berze batzuek negar iten zutela konpasiones, berze batzuek orazio egiten, ta erraten konfia zezala gure Jaunaren miseriordian, eska zezola grazia, bazela orañ denbora. Bitarteo asi ze sosegatzen, ta galdeginik zer ikusi zuen, errespondatu zue: Lenbiziko aldian ikusi nue Rejinaldo akonpañaturik serafines; bigarrenetan gure Ama Santisima akonpañaturik birjines; ta ezin dezaket explika gozo izan nuena ikusteas; baña irugarrenean etorri da Jesu Kristo juez bekala eskatzera kontu ene bizias ain ertxiki, ezi ia ematen nitza kondenatutako. Zego jarriarik Majestade guziareki, aingiruek akonpañatzen zute; agertu dire deabruak ere, ta akusatzen nindute asko kulpa ineztudanes, baitare nik egines ta konfesatues, eta nik lebetako neuzkienak ponderatzenzuste ainberze, ezi ez nuen zer errespondatu. Baña mintzatzeareki ene fabore Ama Birjina ta ene aingiru goardiakoa juez dibinoak eman du ene fabore sententzia. Zuei ematen diziet anitz grazia eginduzienagatik eneki; Geldizaiste Jangoikoareki, ezi ni banoaie goatzera bere Majestadea. Au erran ta iltzen utzirik errelijiosoak konsolaturik bere salbazioaren prenda gaieki. Eta gu ezkaitzela atzen juizio pasatu beardugunas, nai badugu ezpadugu, oroitzen bagara ezpagara. Ezkaitzela deskuida admititzean kulpak; eta admitituak konfesa dolore ta proposito sinareki, alzinatus berratzera axuri dibinoaren birtutes penitenziako tribunalean emen, ezkaitzan kondenatu an. Beti enpeña Maria Santisima fabora gaitzan amatus ta estimatus Ama obena bekala. Guzien gañetik paratu Jesu Kristo gure partes fiadore ta pagadore, beraren merejimentus

indakigun grazia merejietuguna, ta betiko gloria. Amen.

Sermo in Dominica 2^a

Adventus.

De Pariendo adversa pro Deo

Cum audisset Joannes in vinculis

opera Christi etc. Math. 11.

Egungo ebanjelioa da au: Aiturik Kristoren obrak San Juanek zegolaik preso karzelean, bialirik bi diszipulo galdegin zio: Berori da etorri bear duena, edo berze norbait esperatzen dugu? errespondatu zue Jesusek, joan ta kontazkioze San Joani aditu ta ikusituzienak, itsuak ikusten, estropeatuak ibilzen, leprosoak garbitzen, sorrak aditzen, pobreak ebanjelioa predikatzen eta zori onekoa da eztena eskandalizatzen enebaitan. Aiek joan ondoan asi ze erraten jendeei San Juanes: Zer ikustera joanzinate desertura? kanaren bat aizeak dabilana? Baña zer ikustera atrazinate? gizonen bat delikatuki jaintsirik? Alakoak erregeen palazioetan dire. Baña zer atra zarate ikustera? profetaren bat? Bai ta profeta baño iagokoa ere diot nik: Ezi auda ura, zeintas dagon eskribiturik, ona nik bialiko dut ene aingirua prebeni dezana zure bidea zure alzinean. Zierto erraten diziet, emastekietaik jaioen erlean ezta atra nior andiagorik Joan Baptista baño. Baña txipiago dena zeruetako erreinuan da andiago ura baño. Orra ebanjelioa. Atratzeko bear den fruitua, saluta zagun Birjina Maria. Abe Maria.

Lenbiziko itzak gaizke admira, San Juan Bautista preso karzelean. Nor ezta admiratuko? gizon bat ain sandua, ain kuadrablea gure Jaunaren begietan, ain alabatua bere Majestadeen agos, alakoa preso karzelean! Eta zergatik? Zergatik Herodesi erraten zion etzezakela konzienzias iduki bere anaiaren andrea. Kulpanteak libre, suelto, nola nai jan, edan dibertitzen, eta sandua loturik prisiones! Eta dagolaik Jangoikoa beira! Nola permititzen du? Progatzeko ta errefinatzeko sanduaren santidadea, irabazteko ta labratzeko ala korona gloriakoa. Andia ze San Juan Bautista Jangoikoaren presenzian, agertu bear da sufrimentu ta pazienza andian. Trabaju andiak dire birtute andiaren lagun. Mostratu ze sanduaren birtutea bizimodu penitentean, predikatzean, trabajatzean, milagroak obratzean: falta ze progurik obena, padezitzea persekuzioak, karzelak ta eriotzea Jangoikoaren amoreagatik. Gizon sandua ta andia zerk iten duen da sufrimentu andiak. Onaraño ezta kontatzen andi Jangoikoaren presenzian. Arrai txipiak badire erreka txipietan ere, baña arrai andiak eztuzu aurkituko ezpada itsaso amargoan. Bizi aisitan on izatea ezta gauza andia, andia da irautea konstante trabaju ta tormentu amargoetan. Erregeek adornatzen tuste bereak insignia eder luzitueki; Jangoikoak bere prinzipalak gurutze gogorreki. Erregeek kapitan obenei fiatzientote lanik andienak; Jangoikoak sanduenei trabajurik andienak. Arri prinzipalak paratu bear direnak fabrikain fatxadan labratzen dire golpeka; sandu prinzipalak eztire pintatuak, baizik trabajuen golpes moldatuak.

Irur eskus bear dire labratu onak, Jangoikoaren eskus, beren esku propios ta proximoen eskus; baña kontu beti dela Jangoikoaren eskus, zeren beti Jangoikoa baita manatzen duena sufritzea beraren amores. Beren eskus beaute labratu egines penitenzia, ukatus beren naikundeak, mortifikatus pasioneak, bizioak ta kostunbre gaixtoak, eta kastigatus gorputza. Jangoikoaren eskus, agoantatus Jangoikoa ganik eldu diren trabajuak, desfortunak, plagak ta eritasunak, baitire ala nola Jangoikoak paratzentuen penitenziak. Proximoen eskus, sufritus aien agrabioak, persekuzioak, erran ta egin

gaixtoak. Kristio imperfektoa guzia da kexatzea in diotela arraziorik gabe, falsedades ta mereji etzuelaik. Kristio perfektoak, berak erranes edo egines du pena, ez berzerenes, baizik pazienza ta alegria, barin bada zerbait kulpaa, izan daien satisfakziotako; ezpadu kulparik, izan daien merejimentu ta gloriatako. Auxe da grazia, dio San Pedrok (1.c.2) sufritzea Jangoikoa gatik desarrazioa mereji etzuenaa. Baña sufritzea naiz bofetadak bekatu in duzielaik ta mereji duzielaik, ori zer gauza andia da? Baña egin ongi ta sufritu pazienziareki, ori da balio duena Jangoikoaren alzineko. Ortara zarate deituak ta konbidatuak, zeren Kristok padezitu zue guregatik, emanex enenplu segitzeko beraren pausuak; zeñek etzue egin bekatu rik, ta etze aurkitu bere agoan itz bear etzenik; gaizki erraten ziotelaik, etzue erraten gaizki, padezitzen zuelaik etzue meatxatzen, baizik usten ze obediente kondenatzen zuenai malamente, ta eraman zitue gure bekatuak bere gorputzean guruze gartan. Guziau dio San Pedrok: Eta berriz, (ib.c.4.): Niork zuetaik ezdezala padezi gaizkiegille ta ladron bekala, baña kristio bekala bai, sendagalla egin bez izen gortas.

Padezitzea kristio bekala da on alde guzietatik; lenik emateko satisfakzio bekatu pasatuengatik, diogulaik humilki, au ta ia mereji dute ene bekatuek, biz ene bekatuen satisfakziotan. Gero da ere on padezitzea libratzeko bekatuetan erorzetik, ezi duenak anitz trabaju gana guti du egiteko bekatu, erremedio ederra da goartzeko. Gero da ere on, imitatzeko Kristo gure Jauna; zeñen bizi guzia zer ia izan ze baizik padezitzea? Eta pregonarazi zue ebanjelioan, nai duenak joan beraren atzetik, ar dezala bere gurutzea ta segi dezala. Gurutzea da padezitzea, ta au da Zerurako bide erreala. Beira emendik doaien prozesio ederra, Jesu Kristo lenean, aldakan bere Ama Birjina, atzetik sanduak ta sandak, guziak beren gurutzeeki, ta gabe nior ez. Orgatik eztuenak nai padezitu, eztu nai segitu Kristo, eztoaie Zeruko bides. Padezitzea da ere on mostratzeko Jangoikoak guri digun amorea, ta guk dioguna Jangoikoai. Zertan ia, erran zio Santa Teresari (In fin. vitae), zertan ia mostradezakezut dizuten amorea, nola ematean zuri eskojitu nuena neuretako, baita padezitzea? Bada, gizon lurrekoak nola ezpaitu gauzarik ia kostatzen zaionik nola padezitzea, ontan mostratzen dio finezarik andiena. Errezu ta alakoak kontu dela ofratzea kobrea gure Jaunari: Goardatzea beraren mandamentuak ori zillarra bekala; baña padezitzea ta sufritzea gogotik Jangoikoaren amores ori da urre fina ta diamante preziosoak ofratzea.

Orgatik geienenik laudatu zue Jesus onak San Juan Bautista, anima gaitzen imitatzeraa. Baña nola gizon pobreak eztuen urre ta diamanterik, ala kristio eriak eztu pazienziaren perfekzio gau. Goazen aitux atxekiak: Jauna, sufritzea zenbait baru, penitencia ta gauza onen trabajua, ori gogotik ere; sufritzea pobreza, desfortunak, nezesidadeak, eritasunak ori nekexko da, baña zer inen dugu? Bearko dugu: Jangoikoaren izenean dela. Baña sufritzea gaixtofikatuen desarrazioak, persekuzioak ta gauza goratutidanak malamente, ori nola nai du? Ezta posible. Ala dio, zeren falta duen karidadesko amorearen urrea. Bazue au San Juan Bautistak. Herodes ta Herodias bi urde gaiek sartu zute preso karzelean; zergatik ordea? Zergatik nai zituen sendatu, ondu eta salbatu. Ona pagatu ziote gaizkiareki, amorea odioareki. Alaere sanduak ziote karidade, konpasione ta salbazioaren zelo; eta ia pena zue aien galzeas, ezi bere ilzeas. Preso egotea sufrizen zue ongi. Ontan ere badire gradoak ala nola urrean. Lenbizikoa prezio ta aski dena da sufritzea pazienziareki bere trabajua naiz neketankara, ta zinkuria zenbaiteki, baña iraik ta odioik gabe: Zinkuria da sentimentu naturala, ta ezta gaixto: Ira ta odioa bekatu da: Ala nola zurratzen duelaik zaroas Nausiak txakurra, itzultzea au marmar ta ozka nausiain kontra, ori da gaixto, baña in dezan zinkuria urtikitzen zaiola oñetan, ortas ezta geratuko

nausia. Bigarren gradoa da obeago, sufritzea animosoki sentimenturaik gabe, ta onetsis ain ongi bere kontrarioa, nola deus in ezpalio. Irugarrena da sufritzea alegreki, ta pagatu naies gaizkia onareki, egines fabore egin dionai agrabio, ta eskatus Jangoikoai espezialki arren onetan. Auxe da urre ta diamante fin fina. Ditzosoa duena au; errezibiturik zerbait injuria, joain da bereala Jangoikoagana: Jauna, pixkatto gau biz orren amoretan, nik barkatzen diot, orrek barka bezo, ta in bezo ongi etc. Oh! zer ofrenda au, zein kuadrablea Jangoikoaren presenzian! Baña inpazienza, ira ta odioareki dena dela ofratzen diozuna, hozpindurik doaie.

Ikusagun San Juan Bautistak in zuena ta ikasagun. Katees loturik gorputza, baña libre zeuka gogo; ez solamente pazienza onean, baitaere ain sereno, animoso ta alegre, atzendurik bekala bere trabajuas, solamente oroitzen da berzeren onas bialis Jesusengana, ez eskatzera libra zezan karzeletik, bai galdegitera bazekiena berak ezaun zezaten guziek zela Jesus salbazalea. Baña exenplurik obena dugu Jesus bera baitan. Guruzifikatu zute Judio infameek, zergatik zen ona ta ongiegillea, pagatu ziotte amoreta odioareki, ona gaizkiareki; ta ez kontent guruzifikatuas, gero ere iten ziotte eskarnio makurtus buruak, barin bada Jangoikoaren Seme, zion gisan, libra dezala orai, jautsi bedi gurutzetik, ta sinestatuko diogu; berzeak ongitutu, ta bere burua ezin dezake salba. Ia agonian Jesus onak erran zue: Egariak nago. Jende noble gaiek paraturik kana baten puntan esponja bat enpapurik hozpinean eramaten ziotte agora. Hozpin fierratua ze aien biotzeko ira ta erruintasuna. Ez ala, ez ala Jesus onak, baizik ere atzendurik bekala bere penes, ia pena zuela aien galzeak, lenbiziko itz erran zuena goratuaskeros gurutzean izan ze au: Pater, ignosce etc. Aita, barka bezote, ezi eztakite zer iteunten. O Jesus, nork eztu konfiatuko berorren miseriak? Nola eztida barkatuko niri eskatzen diotelaik, nai ziotelaik barkatu aiei etzuteilaik eskatzen? Baña gure asuntorako, nork eztu sufritu naiko zerbait, sufritu zuelaik ala alako gaixtakeria? Orgatik xakinik sanduek zein orren gustorako den, alegratzen zire izateas zer sufritu ofratzeko berorri. Exenpluak dire ezin kontaala. Egun, bada, eztela irarik emastekiaren ira baño erruagorik, dio Espiritu Sainduak (Eccli 28), nola guzietan baita guzietatik, emasteki batek eman bear digu exenplu (Parra. P.2. pl. 39). Alargun noble bati zuen seme bakarra il ziotte puñaladaka. Pensa ama tristearen pena. Salan paraturik gorputza odoles beterik, ama zego urtzen negarres ta lamentus. Bitarteo ilzalea iges doaielaik justiziaganik laixterka, nola eztakiela sarzen da kuarto gartan berean. Lanze uste gabekoa. Eztuelaik berze erremediorik, paratzen da belauriko amaren alzinean; eskatzen dio Jesu Kristoren odol preziosoagatik nai badio barkatu ta anparatu. Zer inen ote du amaren doloreak lanze gontan? Zer inen zue zuetaik batek, agitu balekio alako lanzea? O Andre noble jenerosa! goratzen du biotza Jangoikoa gana, Jauna, errezi bez ene dolorearen sakrifizio gau. Eta berla jaiki ta sarzen du gizonoi leku sekreto altxatu batean. Ellegatzen da justizia, galdegiten du artas, billatzen du zoko guzietan, nion ezin aurki. Amak ez solamente eztu salatzen, baita ere defendatzen du. Joaten dire justiziako ministroak; eta andre ona, prebeniturik bolsa bat diru ta zaldi bat, joaten zaio: Tori bolsa gau, ta arturik beitian dagon zaldia, zoaz, ta goarda zaite, ta Jangoikoak lagun dezazula. Ezta mirik dezakenik alaba aski alako nobleza. Gau gartan zego desahogatzen bere pena, ta ofrezitzen Jangoikoai eskatus iaketa etzuen erremediorik ilak, salba zezan arima. Ontan ikusten du bere alzinean beterik erresplandores, edertasunes ta alegrias. O Ama, erraten dio, o ene Ama ona, baleki egin didan, mertxede akzione gorreki, nola penaetaik libratu nauen, nolako gloria eman didan, ez dezoket explika. Baña berorrek progatuko du emendik guti datorrela ni nagon lekura gozatzera, zeren nai duen premiata gure Jaunak

beragatik egin duen hazaña ainberze kuadratu zaiona. Erran ta desaparezitu ze. Erran bekala, andik guti eraman zue gure Jaunak Andre on gura bere gloriara, non dagon gozatzen bere Semearen konpañian sandu guzieki Jangoikoa eternidade guziko. Ala biz gureki ere. Amen.

Sermo in Dominica 3^a

Adventus.

De humilitatis bono

Et confessus est, et non negavit, et confessus est
quia non sum ego Christus. Joan 1.

Egungo ebanjelioak itzes itz dio ala: Bializuste Judioek Jerusalendik sazerdoteak, ta Lebitak San Juan Bautistagana galdegitera: Berori nor da? Ta konfesatu zue, ta etzue ukatu, ta konfesatu zue, ez nai zela ni Kristo. Eta galdetu ziote: Bada zer? Elias da berori? erran zue: ez naiz. Profeta da berori? errespondatu zue: Ez. Erran ziote bada: Nor da, eramateko errespuesta biali gaitutenei? Zer dio bere buruas? erran zue: Ni naiz boza klamatzen duenarena desertuan, zuzen ibilizaiste gure Jaunaren bideas, zion bekala Isaias profetak. Eta bialiak zirenak zire fariseoetaik. Eta galdegin ta erran ziote: Zergatik, bada, bataiatzen du, ezpada berori Kristo, eztare Elias, eztare profeta? errespondatu zue: Nik bataiatzen dut ures; baña zuen erdian egon da zuek ezauntzen eztuziena; ura da ene atzetik etorriko dena, ni baño len dena, zeñen oñetakoen lotzakia lazatzeko ezpainaiz ni digno. Au agitu ze Betanian Jordango ugaldearen berze aldean, non baizego San Juan bataiatzen. Onaraño da ebanjelioa, zeintaik da ageri, zein opinione andian zeukaten sandua, pensatu zutelaik ote zen Kristo. Baña sandua etze orgatik goratu bere gogoan. Ikasteko eska zagun grazia. Abe Maria.

Etze goratu banoki San Juan Bautista jendeen opinioneagatik; etze kana arin utsa, agotz edo ilauna aizeak dabilana gora bera, nolakoak baitire presumitu banoak dabiltzanak aizearen eizian, aizes bizi direnak kamaleonen gisara beti anhelatzen ta ansiatzen nola iduritu ongi munduari, nondik laudatukotusten gezurres bada ere (etze, emasteki fatuaren gisara, gozatzen baita laudario ta loxentxu falsues, erran zuen bekala batek iten zionai kargu zergatik iten zuen kaso, ta pagatzen zen ain kontent erran banoeki, laudario falsueki? Zer nai du? Zio, auda gure janaria ta erregaloea, zeñeki gizenzen garen: Miseria da, ta gaitz lastimagarria, ala nola aizesko hidropesia aundi aundia, baña falsuan, ez sano ta ez sendo. Alakoek eztuste ezaunzen beren buruak; duten gaizkia ezin kura ezaundu-faltas; galdu on duten puxka beren antustes, ta ez logratu munduko estimazio nai zuten gura ere azkeneko, baizik irria ta desprezioa. Emen eldu da ongi otsorraiak kontatzen den fabula. Arrapaturik otsorraiak gasta bat emenzego kontent arbola baten gañean pikoan zeukala. Ikusirik axariak, nai ta ezin kendu. Zer egin zue? joaten da arbolain bera, ta andik asten zaio lagoteatzen: O zein egaste galanta, elurra baño txuriago, ederrago ezi arrosa. Zoraturik gozos aitzen zego otsorraia. Segitu zue ark: Au litzake egaste guzien erregina, barin balu iduria bezain ona boza. Otsorraiak erakusteagatik bere boza, idiki zue pikoa, erori zekio gasta; istante arrapaturik axariak goratu zue irria gora: O bobozarra, guzia duzu eder, zenzu bazindu; protxun dakizula. Kontu gau egiatan atratzen da asko aldis, zeren apenas da nior, nori etzaion iduri ongi bere burua). Eta presumitzea duen onas da gaizki, ta enfadagarri, ta galzera botatzeko duen pixka; zer izain da presumitu banoa eztuena zeren? Eta errealki niork eztu zeren.

Humila berriz guziek naute, Jangoikoak eta gizonek. Jangoikoak humilai ematen dio bere grazia, eta jendeak bere estimazioaren inzensua, zeren ezi munduaren estimazioa darraiote atzetik iges iteuntenei beraganik, ta eskapatzen zaiote dabiltzanei arren atzean; ala

nola itzala segitzen bauzu, doaie alzina, ta itzulzen badiozu bizkarra, segitzen dizu. Ala da munduko honra, itzal bat deus guti balio duena. Miseria da arren atzean ibiltzea, ta miseria miseriain gañetik ori ere ez logratzea, ta banoan trabajatzea. Humillatus logratuzue publikanoak grazia ta alabanza. Antustetus galdu zue bata ta berzea fariseoak, diones Jesu Kristok ebanjelioan (Luc. 18) eta azkenean añaditu zue: humillatzen dena izanen da goratua, ta goratzen dena izanen da humillatua. Aski da berak errana, baña esperienziak ere erraten du egunoro. Ikusagun San Juan Bautistan. Konfesatu zue humil ta senzilki, ta etzue ukatu, ta konfesatu zue: ez nai zela ni Kristo. Konfesatu zue ia ere, etzela gauza kenzeko Kristoren oñetakoak: Oneki ta onengatik logratuzue izatea Kristoren onetsia ta laudatua beraren agos, ta andia beraren begietan, ezpaita andiagorik emastekienganik jaio direnetan. Orra San Juan berak eztu presumitzen, dela gauza laatzeko gure Jaunaren oñetakoak, eta gure Jaunak goratzen du gizon guzien gañetik; San Juan apalzen da gure Jaunaren oñetara, ta apalago ere; eta gure Jaunak apalzen du bere burua arren esku pera, izateko bataiatua aranganik. Dirudi pleituan bekala dabilala humilareki Jangoiko andia: Ura apaldu naies bere burua, gure Jauna arren goratu naies; zenbatenas ura ia apalzen, gure Jaunak ia goratzen. Quis sicut Dominus etc. ps. 112.) Dio Dabidek: Nor gure Jangoiko Jauna bekala, dagolaik gora, beirutzen baititu humilak zeruan ta lurrean? Goratus lurretik pobrea, ta loietik miserablea, kolokatzeko an goiti bere korteko prinziipe gaieki. Jenio gau du errege andienak apaldu zenak ganbelaraño ta gurutzerano, goratzea pobreak ta humilak. Bere korteko jaundiak dire arranzari, pobre, desetxatu, humil izanak. Humillatzen dena izain da goratua.

Kontra, berriz, andinaia, bere buruas presumitua, nor naiz ni? eztaike sartu ataria barna niolater. Ederki San Agustinek dio konparazio: Paraisoko ataria da apal, da prezio an sarzekos apaltzea burua, ezperen burua gora tieso doaienak golpatu ta eroriko da atzeko aldera, ta sartu ez (Cap. CI. p.3 cat. c.38). Eta berriz; mear du ataria; aunditua banidades ezin pasa, ezpada txikitzen (S.54 de Verb.D.) Aundidura gau ezta sano, bear du sanazekos penitenziaren erremedioa. Zenbat kalte ematen duen tumore gaixto gonek arimaren ta gorputzaren ondasunetan! Aundinai, dakiguna, ta bestizean, ez trabajazea, ponpaetan baitare honra nai, ta irri etc., lenik galzera botazen du on izanen zena etc. Gero eroriarasten du bekatuetan, ezi presumitua nekes mantenituko da grazian, espezialki kastidadean; eroriko da Jangoikoaren permisios inmundiziaren batean; gorazen dena izanen da humillatua. Gero eztu uzten ezaunzera bere gaitza; gero estorbatzen du konfesioaren erremedioa; ezi onaraño ellegatzen da presunzioa, eznai agertu ta konfesatu bekatari bere burua, eta bearko, sarzekos zeruan. Konfesatu zue San Juanek, ta etzue ukatu, ta konfesatu zue: ez nai zela uste duziena. Presumituak konfesatzentu bere on iduriak, baña ukatu, edo eznai konfesatu bere miseriak. Inik dago estimatzera, defendatzera ta diskulpatzera bere burua; ta segitzen dio azi gaixto gorrek konfesioan ere, zeñen mamia dago despreziaztean, akusatzean ta kulpatean bere burua. Pensa zer gaitzmota den presunzioarena, erremedio bakarra itzulzen duelaik beneno. (Ala gastigatu zio gure Jaunak obispo bati, (Apoc. 3.v.17). Diozu zarela aberats abasto deusen bearrik gabe; eta eztakizu zarela zu errumes, miserable, pobre,itsu ta deus gabe. Kolirioa edo ungendua para zazu begietan, ikusteko. Au da, humiltasunaren loias unta ezaunzeko zeure burua, ta joan gero garbitzera konfesioko iturrira, nola biali zuen Jesusekitsu gura Siloekora).

Eta, bada, gorrotagarria da Jangoikoaren ta jendeen alzinean presunzioa ta antustea, barin badu ezpadu zerbait ongi, ezpaitu bereganik, baizik Jangoikoak emanik, ta arrazioreki kenduko dio eman dionak, zeren berari zor zaion gloria ebasten baitio ladron

bekala presumituak. Humiltasuna berriz amable da Jangoikoaren ta munduaren begietan, ezi guziek ongi naute humila, ta Jangoikoak ematen dio bere grazia, ta orgatik on guziak dire humil, ta zenbatenas onago ta humilago. Izan gaitzen humil, lenik biotz barnean, ez estimatus geuren buruok, bai berzeak, ezi, bekaturen bat in badugu, ezta anitz paratzea guzien oñen pean, merejiginduealaik ondatzea infernuan; ta ezpadugu egin, ez antustetu, ez guri eskerrak, esker Jangoikoai goardatu baikaitu, ta banatzen bagara, utziko gaitu, or konpon: Ikusagun zein goapoa aizen. Bigarrenik agerrian, guziak tratatus atenzio ta errespetoreki; ez tristatus itentiguten agrabio-idurieki, ez alegratus honra ta laudarioeki; ez erran ta ez egin beñere deus, nondik datorzkigukuen estimazio. Alaber, joankeran ta jaintsitzean ez pasa dezenziatik; estali gorputza txukun, dezente, aski dena, exzesorik ta bear eztenkeriaik gabe. Dena eder, eder izanen da modestiareki ia; eder eztena eztu edertzen fantasiak, bai agertzen tatxak, ta gañetik presunzioa. (Presunzio fatuo gonek egunoro atratzentu modak iduriarazi naies obeki gorputz miserablea, onzi lurrekoa inmundizias betea. Onengatik ainberze moda ta monada! Monada zer nai du erran? Monoen gisara imitatzea berzeek iteuntena. Ori du monoak ta monak, imitatzea ikusten duen guzia. Ikusten bazaitu jaten, jan iduri inen du: Arraskatzen ikusten bazaitu, ark ere arraskatu bear du. Agerzen baituzu ortzak, ark ere bai. Ala da modaetan. Anitz mono ta mona da gure denboran. Ikusteunte damatela gorro? guk ere gorro; paratzeuntela pañolo nabarra? guk ere nabar; biloa, zinta, galzakorda, zapeta ala edo ola? guk ere gisa gartara. Orra monada. Bitarteo bakotxak dire irri iteuntenak sinpleza goietas, segitus dezenziaren tema). Irugarrenik akostunbratu bear gara humillatzera geuren buruok al guzian, despreziatus munduko ponpa, fantasia ta banidadea. Espezialkiro Jangoikoaren presenzian humillatu bear gara maiz ez solamente biotzas, baitaere gorputzas. Ona debozio on bat ta aisa egunoroko, nai bauzie ikasi. Bada silizio, disziplina, baru, penitentzia ta orazio luzeak ez egiteko, atratzen dire milla atxekia. Ona ontako eztaike izan atxekiarik. Zaudelaik bakarrik kuartoan ta edozein lekutan, pensaturik, egia den bekala, presente beira dagola Jangoikoaren Majestadea, adora zazu biotzaren ta gorputzaren erreberenzia andiarekin, paratus belauriko lenik, berla kopeta lurrean: Jauna, lurreko artto gonek adoratzen du berorren Majestadea; ez naiz ni ona, ez sandua, ez digno egoteko ere orren oñetan; naiz bekatari pobre bat, in bezada karidade admititzeas bere grazian orai ta gero bere glorian. Debozio gau usatzen zue maiz Maria Santisimak; nolako erreberenziareki! Baitare San Patriziok, San Simeon Estilitak ta berze asko sanduek. Elizak usatzen du Orzilare Sanduan, ta ordenatzean sazerdoteak, ta gañarakoan ezta agerrian konbeni egitea kostunbratzen eztena.

Azkenik humillatu bear gara konfesatzean geuren agos geuren kulpak akusatus geuren buruok, altxatu gabe, exkusatu gabe, botatu gabe niori kulp. Presumitu banoai latz iduri zaio ala deshonoratzea ta itsustea bere burua, baña ori da konfesioaren sustanzia, ta kondizio gorreki ofrezitu du gure Jaunak barkatzea ta salbatzea. Latz iduri zaio ori? Latzago idurilekioke infernuan erretzea mereji bekala. (barkatzen du Jangoikoak kontriziosko dolore amorosoaren birtutes konfesatu baño len, baña konfesatzeko intenzioareki, ezperen ez. Confitebor adversum me etc. Zio Dabidek, konfesatuko diot neure gaizki egina ene Jaunai, eta berorrek barkatu dida. Dirudi erran bear zuela: konfesatuko diot ta barkatuko dida; eztio ala, baizik konfesatuko diot ta barkatu dida; ongi dio, ezi ain barkatu naia da gure Jauna, ezi ikusiaskeros biotzean kontrizioa ta konfesatzeko intenzioa, eztu esperatu nai kunplituartaño, berladanik admitizen du grazian; baña orgatik bekatariai etzaio kenzen obligazioa kunplitzeko; ala nola eztaikelaik bataia,

paratzen da grazian kontrizio ta intenzioareki bataiatzeko; baña beti da preziso bataiatzea daikelaik). Konfesioa, bada, da bigarren bataioa, bataio nekoso barkatzeko bekatuak bataiatuas geros inikakoak. An garbitzen ta ederzen da arima Jesu Kristoren odolaren birtutes, zein paratu baitu bere itz errealareki sakramentu gartan. Infinizio bat milagros mostratu du egi eta fede gau Jangoikoak. Bat, kontatzen du Zesariok, (ap. Parra p.3. pl.3 de poenitencia) ellegatu zela konfesatzera beterik alkes, nai konfesatu ta ezin atrebitu. Exortatzen zue konfesoreak erratera, ark etzukela alkearen utses. Artu ze medioa eskribi zezkiela bekatuak; eskribiturik eman zitio konfesoreai, onek leitus bekala, berzea zoeie erranes baietz, ala zela, ta akusa zenzela guzietas. Oneki absolbitu zue konfesoreak, ta itzuli zio bere papela; baña au aurkitu ze ain garbi, txuri, nola ezpalitz eskribitu letrarik artan. Oneki entendatu zue gure Jaunak barkatu zitiola bekatu guziak ta admititu zuela bere grazian. Humillatzen dena izanen da goratua, dio Kristok. Inprimi bez biotzetan bere biotzeko humildade gau, gora gaitzan ellegatu arteo bizitzera bere grazian emen ta an bere glorian. Amen.

Sermo. In Dominica 4.
Adventus de Poenitentia

Praedicans baptismum poenitentiae in remiscens peccatum Luc. 3

Egungo ebanjelioan kontatzen da zer denboras San Juan Bautista Jesu Txistoren alzindaria gure Jaunaren mezus asi zen predikatzen prebenitzeko jendeak; eta zer predikatzen zuen. Predikatzen zue penitenziaren bataioa barkazeko bekatuak, (alanola zegon eskribiturik Isaias Profetaren libruan, boza klamatzen duenarena desertuan, prebeni zazie Jaunaren bidea, egin zuzen beraren sendak. Beiti-aldeak bete; oian ta aldapak apaldu; makurrak zuzendu; ta asperoak plau paratu; eta gizon guziek ikusikoute Jangoikoaren salbazioa, edo Salbadorea). Etorri ze Jesus Salbadore dibinoa, asi ze predikatzen erakutsis zerurako bidea, ta asi ze ura ere predikatus penitentia. Egize penitentia, ezi urbil duda Zeruetako erreinua (Math. 4). Igan ze Jesus zerura, biali ziote bere Apostoluei Espiritu Sandua joateko mundu guzia barna erakustera jende guziei; atra zire beterik Espiritu Sandus, eta guziei ta guzien partes lenbiziko in zuen predikua San Pedrok izan ze egiteko penitentia (Act. 2 v.38). Gauza notagarria da sines, irur predikari andien andienek munduan agertu direnek, irurek ain txusto ematea prinzipio klamatus penitentia. Zergatik ori? Zergatik igateko zerura ezpaita berze mediorik, baizik edo inozentia edo penitentia. Inozentia deitzen da mantenitzea grazia lenbizikoa bataioan errezibitua. Au galduas geros ezta berze erremediorik baizik penitentia edo penitenziaren bataioa, edo bigarren bataioa deitzen dena. (Ala erran zue Jesu Kristok: (Luc. 13) Ezpaduzie egiten penitentia, guziok galduko zarate. Zein gutitto bide diren goardatzen dutenak inozentia, au da bataioko grazia, galzen baita bekatu mortale bateki? Eta alaere dio San Anbrosiok, aisago aurkitu dut goardatu duena inozentia, ezi ez egin duena bear bekala penitentia (l.2. de poenitentia). Eta bada, ezin daike exkusa bietaik bat bekatuan erorias-geros, edo penitentia, edo pena sekulakoa; oiuiten zuen bekala Santo Tomas de Billanuebak aut poenitentium aut ardentium goazen ikasis zein den, ta nolakoa den penitentia egiaskoa. Ortako saluta zagun lenik Maria Santissima. Abe Maria.

Balitz bataiatuetan bear bekalako eskerra ta ajola ez galzeko grazia Jangoikoak emana bataioan, ezlitzateke berze erremedio-bearrik salbatzeko; baña Jangoiko onak ta miseriorden Aitak, zekien bekala askok eta askok bataiatuetaik ere galduko zutela grazia lenbiziko gura, utzi zue erremedio gero ere; ez ia uresko bataioa, zein ezpaitaie errezibitu bein baizik bizi guzian, baizik negarresko bataioa, bataio penaskoa, baita penitentia, deizen dena bigarren ola salbo atratzeko, ta ez ondatzeko sekulako perdizioaren itsasoan. Izenak diones, da penitentia pena izatea bekatues; biotzean, entenda, edo ariman; urrikimentu, sapite, damu sin sina ofendituas Jangoiko ona. Penitentia daike izan sakramentu edo sakramenturik gabe, solamente birtute; juntatzen delarik bekatuen konfesioreki ta sazerdotearen absoluzioareki, da sakramentu penitenziakoa edo konfesiokoa. Ori gabe delarik, da birtute bat sobrenaturala; ontas dardukat egun, noiz ta nola izanen den egiaskoa ta probetxal, ta noiz alfer.

Beñik bein penitentia edo pena izate gau bear da izan sines, aborrezitus bekatuak gogotik. Berze alde, sobrenatural. Sobrenatural den ezaunzeko. Da ezaunzea ia den penagoi motibo sobreanturales. Motibo sobrenaturalak dire dakizkigunak fedes solamente, ala nola penatzea bekatues, zeren aieki galdu den grazia ta gloriarako dretxoa,

ta esponitu den infernuko penetara, baitare bekatuen beren itsustasunagatik; alaber penatzea bekatues, zeren maite duen Jangoikoa. Au deitzen da dolore perfektoa edo kontrizioa. Lenbizikoa, berriz, inperfektoa edo atrizioa. Ta biok dire sobrenaturalak ta motibo sobrenaturales, zeren graziaren ta gloriaren galzea, infernuko penak, bekatuaren itsustasuna, ta Jangoikoaren ontasun amablea solamente daizke ezaundu fedearaki, au da, sinestatus Jangoikoak errebelatu duena ta Elizak erakusten duena. Kontra, berriz, pena izatea bekatues galduagatik honra, konbenienzia ta edozein ondasun lurreko, ori da motibo naturales, ta dolore naturala; eztu balio barkazeko. Exenplutako: erori da bat bekatuan, orgatik galdu du estimazioa, honra edo konbenienzia, edo alako ondasun zerbait lurreko; ortas du pena, orgatik dago negar ta negar; etzaio deus balio, zeren baita dolore natural utsa. Baña ez orgatik solamente, baizik galduagatik Jangoikoaren grazia ta gloria du pena, ori dolore sobrenaturala da, baña ez perfektoa. Konfesioareki bateo aski da barkatzeko, gabe ez. Eta ala il baledi dolore gorreki errezibitu gabe sakramenturik, kondena leike. Baña du dolore ofendituas Jangoikoa, solamente zeren amaten duen, zeren baita ain ona ta amablea, ezpaizue mereji ofenditzea; ori da dolore sobrenatural perfektoa, orreki sollik konfesatu baño len ere konfesazeko intenzioareki barkatzen dio Jangoikoak, eta il baledi kontrizio ta intenzio gorreki, sal baleike, naiz ilik sakramenturik gabe, ez nai-faltas, bai ezin erdetxis sakramentua. Eta orra erakutsirik, ilzeko lanzea agi balekio bati sazerdoteik gabe, zer in bear duen, izatea dolore ta pena ofendituas Jangoiko ona ta amablea solamente nor denagatik bera. Principium verae paenitentiae. Deus tangeiem cor hominis, illuminans et inflámans. Inspiravit in faci. Eius spiraculum vitae.

Penitentia edo pena sobrenatural izateas landara, bear da egon akonpañaturik irur lagun gebeki: Bat da esperanza barkatuko diola Jangoikoak; berzea da bekatuen aborrezimentu egiaskoa; berzea proposito firmea ez berriz admitizeko beñere. Kainek, Antiokok, Judasek izanzute pena ta urrikimentu bekatues, baña etzute logratu barkamentua, zeren penitentia gura etzen bear bekalakoa. Kristioetan guti bide da galzen denik esperanza-faltas; asko, berriz, penitentia falsua izanes, aborrezimentu ta proposito sin egiaskoaren faltas. Penitentia fina edo falsua izatean dago guzia. Goazen emanen zenbait señaile ezaunzeko balsamo gau.

Lenbiziko señaile konfiatzeko penitentia dela ona da aldatzea kondizios, au da, amateza birtutesko gauzak len nai etzituenak, ta aborrezitzea bizioskoak. Baña nola ezpaita aisa ezauntzea biotzaren estadoa, ezpada fuituetaik, orgatik señaile klaroago da emendatzea bizimoduan, goardatzen dela bekatuetaik ta bekatuetarako zebo ta bideetaik. Kontra, berriz, ez emendatzea deus lenagokotik, segitzea bide zabala, dibersio ta zebo tiratzen dutenak bekatuetara, señaile txarra. Eta ori agitzen bada konfesatuta laster, txarrago. Konparatzentu San Pedrok alakoak tzakurrareki, itzulzen baita jatera egotzi zuena. Canis reversus ad vomitum. Berze señaile on bat da ez solamente aipatzerakoan, baita ere gogor atzean bere lengo bekatuak ta gaizki egina, etorzea negar gabe. Oh! Señaile, sarturik daukala biotzean penaren arantzea, sentiarasten diolaik mogimentura guzietan. Kontra, berriz, sentidoik gabe erratea kulpak grabeak, nola ezpalire deus, señaile txarra. Ta txarrago egotea ondorean ain alegre, arro, ausart, nola ezpalu zertas penatu. Txarrago, berriz, da kontatzea ta zelebratzea goapeza ta habilidade bekala medioak eta moduak, zeñeki egin zuen gaizki egina. Berze señaile on bat da aditzea humil edozein erreprehensio eman dezon konfesoarek, kunplitzea puntualki penitenziak ta erremedio paratutionak, guzia guti iduri zaiola mereji duenaren aldean. Kontra, berriz, kexatzea konfessore prudenteas, burlatzea erran dionas, tratatzea eskrupoloso, inpertinente ta ertxitako, eztuela berriz arrapatuko, ta

alako tonteriak, señale txarra; ta txarrago ez egitea erran diona, baizik kontra. Oh zer sendatzeko ansia!

Berze señale on bat da egitea bere borondates zenbait penitenzia espezialki deskuidatzen den bakarretan; ala nola tropezatzen den abreari ematea ezporeas edo zurriagoas; arzea zenbait debozio ta medio on mantenitzeko onean, ta prinzipalki maiz akuditzea konfessore garrengana, nori agertu dion bere arima. Kontra, berriz, ez egitea ajolaik gauza ones, diolaik eztela obligazio, ez konfesatzea baizik ertxiduran ezin berzeas, señale txarra. Ta txarrago da ibiltzea aldaketan billatus lazoenak, ez dezon ezaun bere gaitzaren gaixtoa. Ezta ori sendatu naia sines. Berze señale on bat da konfesio jenerale egitea bere borondates, señale nai duela borratu ordurañoko guzia, ta asi berri berritan paratus ala nola muga bat diola, onaraño aski da, ta sobra da gaizki egina, emendik ezta pasatu bear: et dixi, nunc coepi: Kontu jaiotzen, edo bataiatzen dela berriro. Persegitzen zue bat deabruak bere bizimodu gaixto pasatuagatik. Sartu ze ura konbentu batean, baña an ere iten zio gerra. Baliatzen ze gurutzeas ta ur bedeikatuas; joaten ze gaixtoa, baña itzulzen ze. Konsejaturik errateko oius Abe Maria, ala eginik ark, iges egiten zue berzeak, baña ez betikos. Azkenean konsejatu zio sazerdote batek itea konfesio jenerale bat; prebenitu ze, ta zoeielaik egitera, erraten zio etsaiak: Nora zoaz? Ark: Noaie konfunditzera ni, ta konfunditzera i. Egin zuen instantetik gelditu ze libre bekatuen pizutik, ta deabruaren persekuziotik. (Parra p.3.pl.22). Digula Jangoikoak guziei bere grazia. Amen.

Sermo. In Dominica infra octavam
Nativitatis ultimam anni.
De jacturam temporis, et redimendis

Pu er autém crescebat et confortabatur etc. Luc.2.

Zoziela, dio ebanjelioak, aur dibinoa azis ta indar artus, entenda, gorputzean, beterik xakintasunes, ta Jangoikoaren grazia zegola berabaitan, entenda, ariman. Exenplu du kristioak joateko azis ta indar artus egunetik egunera grazian, birtutean ta xakintasunean. Kristioaren adina ezta kontatzen egun, eta urtekal, baizik xakintasun, birtute ta graziaren aumentuaren ariora. Doktrina guti dakien kristioa, aurra da oraño xakintasunean. Alakoei zio San Pablok: tanquam parvulis in Christo lac vobis potum dedi. Aur titikoei bekala kristiotasunean eman diziet edatera esnea. Zer esne? Doktrina fasil klaroa. Alaber, naiz xakinik asko doktrina, ezpada alzinatu grazian ta birtutean, anitz urte ta guti birtute. Aurra da ori ere eta baldin ondu bearrean gaixtatu barin bada, zartus ta txartus. Aurra baño aurrago da alakoa. Puer centum annorum morietur, dio Isaiasek, ilen da egun urtetako aurra. Nola dateke? Barin baitu egun urte, nola da aur? Eta aur barin bada, nola tu egun urte? Banoaie erratera nola. Egun urtetako ez orai, baño iruogei, berrogei eta ogei urtetako aur asko da munduan. Nor dire? Eztirenak azi birtutean urteeki. Goazen beiratus. Zenbat urte tuzu? Jauna, nik ogei, berzeak borrogei (sic) etc. Bai, ta zenbat birtute? Zenbat humildade, kastidade, karidade, pazienza etc? Ai ene, zein guti! Zein eskas! Bai ta eben partes añaditu badire bizioak ta bekatuak, etzara azi Jangoikoaren baizik deabruaren. Justoa ilzen bada ere goizik, dio Espiritu Sanduak (Sap.4) ongi doaie leku onera, ezi adin benerablea ezta kontatzen urteen numeroetaik; gizonaren zenzu ona da illeurdin obena, eta zarzutu obena da bizitza ona mantxa gabekoa. Eraman du Jangoikoak gaste, etzeien kutsatu malizian; zeren kuadrable zen Jangoikoaren begietan, orgatik eman dio prisa atrazeko gaixtakerien erditik. Gutti biziturik, fite bukaturik, bete du asko denbora. Guziok dire Espiritu Sanduaren itzak. Zeren Jangoikoaren kontuan urtees kaso guti, birtutees anitz iten da. Presentatu zelarik Jakob patriarka faraonen alzinean, (Gen. 47) galdegin zio erregek adinas. Errespondatu zue ark: Ene peregrinazioko egunak dire egun ta ogei urte, txipiak ta gaixtoak. Peregrinazio deitzen du emengo bizitza, zeren baikoazi pasatus bidanabar bekala mundu gontaik gure sortu-errira, baita Zeruko gloria. Bere urteak deitzentu txipiak, mostrateko obra on guti egin duela aietan; gaixtoak deitzentu, gaizki egintuenengatik. Ark ziona humildades, guk dezakegu erran egiaz. Goazen kontuak egines egun, delaik ia urtearen muga, atratzeko proposito emendatzeko ta deskitatzeiko urrengoan. Ortako lenik bear dugu salutatu gure Ama Santisima. Abe Maria.

Erreparasatukotut ene urte guziak berorren presenzian ene arimaren amarguran, zio Isaiasek (Isai,38): Recogitabo tibi omnes annos etc. Eta zergatik arimaren amarguran erreparasatu beartu, eztuenak egin anitz bekatu? Zergatik baizuzke obeki enpleatu. Al baleike bat in errege ta gal balez bere faltas eskaida, ez luke sentimentu amargoa? Bada errege baño ia in zeike bat, egines sanda; ta bazeike egin, ta ezta egin bere faltas; bada motibo du erreparasatzeko bere urteak amarguran diola: Ah! enpleatu banu ongi nere bizia! Nola nindegoken; ta nola nagon! Nindeike izan sandu, ta malogratu da eskaida! Bai ta ondu bearrean joan bada gaixtatus, ori baita doble desgrazia. Urte gaizki enpleatuak, urte gaixtoak, urte beltzak! Antiguasko jentilek pintatzen zute gizonaren bizia ardatz-ari bat,

elleskoan. Ortako finjitzen zute irur aizpa deituek, Klio, Latxesit ta Atropos errokatzen dutela gure biziaren aria, batak iduki erroka; berzeak egin aria; berzeak ebaki purexas. Deitzenzuste kontrako izenes Parkak, zeren barkazen eztioten niori. Ellesko arian klaro-eder adiarasten da gure biziaren delikatu auxkorra. Baña batzuenaria iten zute elle txuris, berze batzuenaria beltzes. Noren bizia izan bear zen fortunoso, arren aria txuri; ta noren bizia desgraziatu, aria beltz. Orai egiatan atras fikzione gau, nor ere bizi den ongi Jangoikoaren grazian, txuri eder da arren biziaren aria; nor gaizki bizi den Jangoikoaren desgrazian, zori gaixtoan jaioa da, beltz da arren biziaren aria, beltz urteak, beltz alako egunak. Exenplu dugu Babiloniako bi juez zar gaitan, kontatzen baita Eskritura Sagratuan. Beren pasione itsuaren kasos tentatu, ta ezin errenditu zutelaik, akusatu falsuki, ta sentenziatu zute injustoki arrikatzera Susana, ederra bezain kasta. Bazemate inozentea loturik ilzera erremedioik gabe mundutik. Deusek ezin balia, ta solamente goratzen zitue bere bi begi ederrak Zerura Jangoikoagana, baize testigo ta juez bere inozenziarena. Ia ia prestaturik arriak daudelaik, ara non atratzen den aur bat Daniel deitzen dena, oiuz diola: Ni libre naiz injustizia gontaik. O Israeldarrak, ain sinpleki dezakeziela sinesta zar gaixto goien gezurra? Nik atrako dut egia, betoz betoz ene presenziara, lenik bata, gero berzea, nik examinatukotut guzien alzinean». Ala egin ze: ekarri ziote bat; ta oni galdegin zio sebero aur andi garrek, «o zartua egun gaixtos, orai orren gain erorko dire orren bekatuak. Erran bezagu, ikusi badu gaizki egiten andregoi, non ikusi du?» Ark erran zue: Alako lekuan. Danielek orduan: Ederki gezurra erran du bere buruaren kontra. Sarri pagatuko du Jangoikoaren sentenzias. Ura apartaturik andik, ekarri ziote berzea; oni erran zio. Kanaanen kasta, ez Judakoa, pasioneak garaitu du; ala nola berzeak nai zute au ere engañatu, baña etzaiote baliatu. Orai bada erran bezagu, non ikusi du bekatu egiten? Ark erran zue: Alako lekuan: Diferente berzeaganik. Erran zio Danielek: Goapoki egin du gezurra bere kontra orrek ere. Ikusirik ain klaro guziek aien testimonio falsua arrikatzuste an berean, ta libre itzuli zute Susana honra andiareki. Gure asuntorako, orra emen aur bat andia, urte guti baña on txuri ederretakoa. Zarrak kontra. Notatzeko da lenbizikoai erran ziona, inveterate dierum malorum, zartua egun gaixtos, egun beltzes. Jangoikoak goarda. Baña errepara nork bere biziaren urteak eta egunak, ikusteko zerik ote diren.

Goazen ortara orai urtearen akabanzan. Zer adin du? Jauna, oraño aurra da amabi amalaur urtetan. Zuk diozu gorputzaren adinas, baña nik galdegiten dut arimarenas. Da mutiko, da neskako juiziosoa, sosegatua, humil, obediente, ongi inklinatua? Ongi; beras aurra delaik andia da. Baña da errebela, desobediente, arin, gaixtoa ta ikasi duena ia itz gaixtoak ta maldizioak erraten? Malo, goizik doaie zartus ta txartus ariman. Orai otsoko, sarri otso. Zer adin du? Jauna, gaste da oraño, adinaren florean dago. Arimas dardukat nik, erresponda ontas. Jauna, da mutil bat juizios betea, modestoa, erretiratua, ixila, guzia lana ta birtutea, guzien exenplu, aitetamen konsolu, ta aingiru bat bekalakoa bueno, ditxosoa irauten badu; gasterik zar benerealea da. Kontra berriz barin bada presumitu estimatua bere buruas, suber, arroitu-gille, aragiaren kofrakide, alkegabe, etc malo; gibelatu birtutean, alzinatu gaixtakerian; florean galdu da, berde ta ustel. Jauna, da donzella bat agitz modesta, presunziorik gabe, obediente, erretiratua etc bueno; irauten badu, ditxosa. Goizik onduda; floreak fruitu onak. Kontra berriz, barin bada guzia presunzio, alke guti, oñak arin, begiak libre, irria gora etc malo; mari bistako ezta deustako. Mundukoi, naiz zerbait iduri azaletik, arima itsusi, ustel urrin etc.

Zer adin du? Jauna, adin erdikoan ia zoriturik. Gorputzaren aldetik diozu; baña

galdeiten dut arimas. Gobernu onekoa biziorik gabe kuidatzen duena bere gauzes, haziendas, etxeas, familias; nori berea emanen, niori perjuiziorik in gabe ta inbidiarik gabe, pazienza onekoa, ez exzesorik ardoan, ez laminurian, ez mian etc bueno. Urte adiña birtute. Kontra berriz barin bada ajolakabe, bizioduna, maiteegi bere tripa, ta ez ongi nai proximoa, ta ala, malo; ezta onean azi arima urteen ariora. Zer adin du? Adinetakoa, alzinatua da; arima zer estadotan? Oh! Agitz onduda; ia desengañaturik eztu ia tratatzen, baizik ongi iltzeas, guzia pazienza, exenplu on ematea, konfesa komekatzea, orazio etc bueno. Espera dezake ongi atratzea kontuetan. Baña barin bada zar ta txar, bizioak ez kendu ta anditu badire, ezpada penitenziarik, ez pazienziarik, ez mejoria anitzik, sarri joan bear duelaik emendik; malo. Anitz urtetako aur ilen da zartua egun gaixtos. En fin nor bere adinean ezpadoaie ondus, ezpadu len baño ia karidade, humildade, kastidade, penitencia, pazienza ta ansia onerat, egun gaixtos azi da, gaizki enpleatua denbora trata bez deskitatzeas, ezperen nigar inen du, eztelaik erremediorik.

Urte gau ere ia alzina doaie, estado txarrean dago. Akabatu-urran da lengoen gisara ez itzultzekotan. Inarazi zogun testamentua. Ditzosoa nori usten dion anitz ondasun. Baña guzienei utziko diguna da anitz zor Jangoikoai; arzekorik ez; lengo zorrak ez pagatu, berriak añaditu. Ai nitas, erdetxiko da au kontuetan, ezpadida egiten grazia barkatzeas, edo ezpadut deskitatzen zerbait gisas. Badaike? Badaike Jangoikoaren grazias. Nola? Borratus penitenziasko negarres gaizki egiñak, ta emendatus, ta obeki bizitus. Nola asiko gara? Biotzetik aborrezitus Jangoikoaren ofensak, ta amatus bere Majestadea. Ezperen ebakiko du biziaren aria, pizatu, arin aurkitu, ta galduko gaitu. Kontatzen da Eskritura Sagraduan (Daniel.5.) Baltasar errege zegola arrats bates agitz beterik alegranzias maiean brindatzen, edaten, triunfazen bere aialdekoeki. Bitarteo ara non aurkaseko paretean agertzen den esku bat eskribitzen letra batzuk. Beira ia errege turbaturik, lotsaturik, koloreak joanik. Zer ote da au? Beto jakintsuak, lei bezadate diona an. Etorri zire, baña ezin entenda; ta errege ezin sosega. Jauna, erraten diote, bada presidarioetan mutil gaste bat duena Jangoikoaren dono, deizen dena Daniel. Aixtean aipatu duguna. Betor Daniel, erran zue erregek istante. Etorri ze mutikottoa; ta erregek erraten dio amoltsu: Daniel, aitu dut duzula grazia entendatzeko gauza sekretoak; eta leitu bear didazu zer dio letra goietan. Emanen dizut kollare urresko bat, ta berze asko gauza, ta izanen zara irugarren persona nere erreinuan. Danielek erraten dio sereno: Errege Jauna, berze bati eman bezkio bere presentak; nik alakorik gabe leitukotiot letra goiek. Irur itz dire, diote: Mane, Thecel, Fares. Lenbizikoak nai du erran, Jangoikoak daukala neurriturik berorren erregetasuna, ta bete dela. Bigarrenak, pizatu dutela berori balanzan, ta aurkitu dela arin. Irugarrenak, berzei emana dagola orren korona. Gauartan berean ilze sekulakos. Gure asuntorako da balanzan pizatze gura, ta atratzea arin, eztela erdexten kontua zor-adiña. Pasatus egunak, asteak, ilabeteak, urteak, ta beti ia bekatuak, eskas obra onak; nola atrako gara balanzan? San Hilarion ilzerakoan zego ikar ikar, ta erraten zio bere arimai: atra zaite ene arima, zertas zara beldur? 70 urtes kasi zerbitzatu diozu Kristori; ta eriotzeas zara beldur? Zer izain da nitas? Jauna, etzagula egin guri guk mereji bekala, bai mereji ez bekala barkazioa, grazia, ta gloria. Amen.

Sermo in Dominica infra octavam
epiphaniae summa, vitae Jesu Christi

Cum factus esset Jesus annorum duodecim etc. Luc.2.

kontatzen du egungo ebanjelioak, nola zelarik ia Jesus amabi urtetakoa, iganik Jerusalem bere Ama Santisimareki ta San Josefeki Bazkoaren zelebratzera urteoro bekala, ta itzulirik aiek ondorean, gelditu zekioten an mutiko dibinoa ustekabean, ta nola irur egunen buruan aurkitu zuten tenploan doktoreen erdian aditzen ta galdegiten, guziak zeuzkiela arriturik bere prudenzia ta errespuestaeki. Doktrina galanta ematen digu, nola bear diren azi gastettoak afizionatus tenplora ta doktrinara, ia adin gartaik. Oh! Ala galdurik gure gasteak aurkibaleites nola Jesus tenploan! Eskaida goneki nai dut egun eman notizia labur bat Jesusen bizitzas, iltzeas ta gañarakoes, xakiteko prinzipalenak berere, ta pensatzeko, ta ezaunzeko, ta amatzeko Jaun gau, zeintan dagon gure betiko ongi izatea. Da Jesus gure salbazale bakarra, Jangoikoaren Seme gizon egin zena gu salbatzeagatik, ta bizitzaren exenplu emateagatik. Da gizon dibino eder amable gura, Jangoiko dena bateo, zeintan ageri den Jangoikoaren ona. Da gure amazale apasionatu bere parerik eztuen gura, gure amores egin ta desegin zena ilartaño eriotze lotsagarri bateki, ez usteagatik gu kondenatzera eriotze perpetuoan. Da diona esposa sandak dela bere onetsia candidus et rubicundus etc. Txuria ta gorria eskojitua millareen artean. Txuria Jangoikotasunagatik; gorria gizontasunagatik. Txuria bere edertasun, prenda ta perfekzio infinitoen kasos; gorria bere amore geiegi digunaren kasos. Txuria, zeren baita ain amable; gorria, zeren baita ain gure amoros amante. Auda Jesus, zein barin bada norbait amaten eztuenik, biz madarikatua, dio San Pablok (1.Cor.ult.). Baña nola amatuko du eztuenak ezauntzen? Ezaunzeko bada nolapait, goazen aipatus beraren pausu prinzipalenak segi dan. Lenik saluta zagun bere Ama Birjina.

Nik sinestatzen dut Jangoiko Aita guzis poderoso zeruaren ta lurraren kriadorea baitan, dio Kredoak; eta Jesu Kristo arren seme bakar gure Jaunabaitan; auda dioguna: Zein konzebitu baize, edo gizon in baize Maria Santisimaren entraña sanduetan Espiritu Santi Jaunaren birtutes, edo Jangoikoaren milagros gizonkiren obrarik gabe. Au agitu ze orai duela milla ta zorzitan egun urte, Martxoaren ogeitaborzgarrenean Nazareten. San Gabriel aingiruak anunziatu zio donzella dibinai beraren sabel birjinalan obratu bear zen milagro gura; ta sinestarasteko erran zio nola beraren lengusua Santa Isabel, zena ia adinetakoa ta esteril, zoeien seigarren ilabetea, zeren ezpaita inposiblerik Jangoikoandako. Notizia goneki Maria Santisima egun gaietan bere seme dibinoareki sabel barnean joan ze bisitatzera Santa Isabel; eta eginzioneko diosalea, saltatu zekio gozoaren utses berzeari bere sabeleko aurra, baize San Juan Bautista, ezaundurik nor zen mintzatu zena, ta bereki zekarrana.

Gero erreparaturik San Josefek bere esposaren disposizioa, xakinki etzela beraganik, ta etxakin nondik edo nola; ezin sinesta gaizkirik alako personas, ta ezin uka, begis ikusten zuena. Ez akusatu naies Ama Santisima, nai izan zue utzi ta joan ixil ixila. Baña bear orduan desengañatu zue aingiruak, Josef, erraten ziola. Etzazula duda idukitzeas zeure esposa Maria, zeren berabaitan jaio dena da Espiritu Sanduaganik; ta jaioko den Semea deituko duzu Jesus, zeren bera da salbatuko duena bekatuetaik bere jendea».

Pasaturik bedratzi ilabeteak, jaio ze Jesus Maria Birjinaganik ain milagrosoki nola konzebitu zen, utzirik Ama ain oso mellarik gabe, ta eder flamante, edo ederrago ezi len, ala nola iruzkia pasazen den kristale batetik, autxi gabe ta mantxatu gabe kristalea. Jaio ze Belenen, etxola pobre batean; bestitu zue oial garbies Ama Birjinak, ta erreklinatu zue ganbela batean, ez izanes berze lekuri an. Zelebratu zute festa gloriako aingiruek jautsirik andik, eta aien abisus munduko humilek, artzai pobreek. Zorzigarren egunean, kunpliturik zirkunzizioaren legea, paratu ziote izena Jesus, zerutik manatu bekala. Amirugarren egunean ellegaturik Errege Magoek urrutitik, izar bates kidaturik, adoratu zute aur dibinoa nola erregeen errege andiena. Berrogeigarrenean lengo legearen konforme presentatu zue Ama Birjinak Seme dibinoa tenplo Jerusalengoan, non Simeon zar benerableak, izan zuenak errebelazio etzela ilen ikusi-arteo Salbadorea, ikusirik orduan ta ezaundurik Jangoikoaren argis, artu zue bere eskuetan gozoso, ta despeitu ze kontent mundu gontaik; ta erran zio Ama Santisimai: Ona, aurtto gau dago paraturik, anitzen erorzeko ta goratzeko Israelen; eta berorren arima herituko du doloreen ezpatak. Ain goizik xakin zue pasatu bearra.

Andik guti ekarri zio mezu aingiruak San Josefi eramateko Ama Semeak Ejiptora, ta egoteko an abisatuartaño berriro, zeren Herodes erregeak naiko zuen ilarazi aur dibinoa. Ejipton egon zire pobre-gisa. An pasatu zue aurzutua, diotenes, zazpi urteak arteo. Orduan, aingiruak mezu emanik itzulzeko Israela, il baize ia Herodes ta bere gisakoak ilarazi nai zutenak aur dibinoa, itzuli ze familia sandu gura Nazareta, non Ama Birjinaren etxetto pobrean bizitu ze Jesus, eman gabe ezauntzera bere Majestadea, ogei ta amar urtetara urbildu arteo. Denbora gontan guzian zer egin zuen eztio ebanjelioak, baizik kontatu duguna aixtean, nola gelditu zen tenploan amabi urtetakoa zelarik, ta nola itzuli zen gero Amareki ta San Josefeki, ta zegokioten obediente. Agredako Maria de Jesus benerableak ta berze autoreek badiote nola pasatu zuen denbora gura erretiroan, humildadean, obediengan, orazio ta penitengian gure salbazioagatik. Baña nik solamente ebanjelioak diona nai dut kontatu.

Jesusen alزندari bekala atra ze lenik San Juan Bautista prebenizera Jangoikoaren bidea predikatus penitengia. Jesus onak on guziaren exenplu emateko, nai izan zue beraren eskus izan bataiatua Jordango ugaldean. Idiki zire orduan zeruak Jesusen obsekiotan; jautsi ze Espiritu Sandua uso baten idurian; aditu ze Aita eternoaren boza erraten zuela: Au da ene Seme onetsia, zeintan baitut neure konplazengia. Eta San Juan berak ere ematen zue testimonio jendeei, nola zen Jesus bera baño ia, zeñen oñetakoen lotzakia lazatzeko ere digno etzela bera, ta bere eskuan zegola sardea aizeratzeko bere eulzia, nai baitu erran, dela mundu guziaren Juez soberanoa eman bear diotena guziei sentengia bakotxaren obren konforme. Prinzipalki mostratzen zuen eskuas nor zen, ziola: Ecce agnus Dei etc. Ona Jangoikoaren axuria, ona kentzentuena munduko bekatuak. Orgatik pintatzeunte San Juan axuri bateki saietsean mostratzen duela erias. Nai izan zue, alaber, Jaun dibinoak barutu berrogei egunes desertuan, ta barutu ze, ta gosetu ze gizon bekala; izan ze tentatua etsaiganik, emateko exenplu guri, nola bear dugun garaitu.

Ondorean gizon dibino gura manifestatu ze munduari guzien salbatzale ta amante ongiegille bakarra bekala. Nork dezake pinta persona gura ain manso, amable, onegia? Forma ain perfekto guzis? Aurpegia ain ederra, beiratze gura ain amoroso, itz gaiek ain suabe ta afable? Guziendako ze ona justoen ta bekatarien, abratsen ta pobreen, andien ta txikiendako. Azken irur urteak pasatu zitue erremediatzen gaitz jenero guziak, ala gorputzaren, nola arimarenak, garbitus leprosoak, argitus ituak, sendatus eriak, bizkortus

erdi-ilak, ta il-oztuak, libratus endemoniatuak, barkatus bekatuak ta bekatariak. Nior etzue uzten konsolatu gabe, zela gizonki, zela emasteki, zela on, zela gaixto, edozein jenerotan zela, nai zuena beraren faborea. Fabore egitea zer den, nolako amoreareki ordea, nolako grazia ta moduareki iten zitue? Prinzipalki enpleatzen ze salbatzen arimak, erakusten zerurako bidea exenplus eta itzes tenploan, etxeetan, karrika, plaza ta bideetan, kanpo, desertu, oian ta itsasoetan. Eskojitu zitue ortako amabi apostolu gizon pobreak, baña bete zituenak espíritus; ta irurogei ta amabi diszipulo; ta utzi zue plantaturik bere Eliza, ta ontan depositaturik bere doktrina, bere sakramentuak, bear diren medio ta erremedio guziak logratzeko salbazioa. Guzien gañetik bere pasio, eriotze ta odol preziosoaren tesoroa, bere amore betirokoaren prenda.

Alako jaun bat ain ona ta ongiegillea, errain didazie, etze arrazio bizitzea, urte ta jendamente milla ta milla? Bai zierto. Baña ilarazi zute, ta adinaren obenean, ogeitamirur urtetan, ta eriotze lastimoso lotsagarri bateki. Zergatik? Zergatik zen ona ta admitizen zituen bekatariak, ta nai zituen ondu guziak. Orgatik artu zioten oposizio hipokritek, sandu zirenek beren opinionean. Nola izan ze? Ortara noaie orai. Attendi, ta ikasi pausu principalenak berere pensatzeko, espezialki mezakoan, ta erretzen egoteko amores, konpasiones, kontriziones ta berze afektoes.

Eskriba ta Fariseo hipokritek beñik bein erresolbitu zute botatzea mundutik Jesus ona. Bere apostolu bat, deitua Judas Iskariote, eginik traidore joan zekioten ta ogeitamar dirutan ajustatu zue paratuko ziotela beren eskuetan axuri dibinoa; ta kunplitu zue Ortzegun Sandu gauean bekalakoan. Guziaz zekielaik igan ze Jerusalem Jesus; zelebratu zue azken afaria apostolueki; artan adiarazi zioten pasatu bear zuena gauartan ta biramonean, bere traidorearen perdizioa ere bai; nai baluke akorritu, eman zio ere bustirik ogia salsan. Egin zitue gero amoresko demostrazio ta exzesu andienak; garbitu zizkioten bere eskus oñak guziei, ta Judasi ere bai. Azkenean utzi zue betiko fundaturik aldareko sakramentua, ta berak ordenaturik sazerdoteak.

Gero atra ze Jentsemaniko baratze, oian baster batean zegonera. An paratu ze lurrean auspeska orazioan prebenitzeko pasatu bearzuenerako ta kongoja, tristura, ta agoniain utses odol-izerdia zerio lurreraño. Bitarteo Judas ta Judioak prebeniturik jendes, armas, zuzis ta instrumentu guzies eldu zire, ta len lenean traidorea. Onak eman zio besarka falsua, baize señaleara mostrapatzeko nori bear zuten eutxi. Etzue apartatu aurpegia Jesus onak; ta laburzeko, utzi ze lotzera ta eramatera preso Jerusalem, gaizkiegillerik andiena balitz bekala, tratamentu indignoeki.

Lenik presentaturik Anas pontifize izanaren alzinean, an ministroetaik batek eman zio bofetada bat bere aurpegian. Andik eramanik Kaifas pontifizearen palaziora, non baizeude etxideten bere etsai rabiosoak, ala nola otso gosetiax axuriei, ezin aurkitus kausa iduririk, ezin injeniatus ezeta testimonio falsus ere nola kondenatu justizia kolores, galdeginik Jangoikoaren izenean berai ia zen Kristo, zeran errespondatu zuen baietz, guziek jaikirik maltratatu zute milla maneras, lixtu botatus aurpegira, tiratus biloak, golpatus eskus ta oñes andik ta emendik. Azkenean bendaturik begiak jokatu zute eskarnios ta golpeka, erran zezala nor zen eman ziona. Berze pena bat ere izan zue an ellegatu zekiona biotzeraño, baize ukatzea San Pedrok lotsarriturik irur aldis, etzela beraren diszipulo, etzuela ezaunzen ere. Gauaren gañarakoan iduki zute loturik kalabojoan postura txoil nekosoan. Eta guardiek an ere berriro omen zute goitiko festa bendatus begiak, golpatus etc. O gure Jaunaren pazienza! Nornaiek nai duena inik, ain ixil alaere! Orgatik erran zue preso iterakoan, haec est hora vestra etc.

Biramonean atrarik kalabozotik presentatu zute Ponzio Pilatos presidenteari. Onek ezaun duzue ekarri ziotela inbidia-utses, deklaratu zue etzuela kausarik aurkitzen. Baña ezin errehabatus judioeki, biali zue Herodesengana. Onek jaintsiarazi ta tratara zizue fatuo ta ero gisa. Ala txufaturik irris, oiuis, txistus soldadoek itzuli zute Pilatosengana. Onek libratu naies proponitu zioten bietaik bat libre Bazkoagatik, zein nai zuten, Jesus edo Barrabas, baize ladron gaixto famatu bat. Aiek naiago izanzute au, ezi ez Jesus.

Gero lastimazeizengatik ilarazi gabe preso dibinoa, manatu zue azotatzea. Eta azotatu zute loturik pilare baten kontra inhumanidade ezin iagokoareki borz milla ta ia azotukaldis sei berdugoek. Nola zatikatu zuten, zenbat odol, zenbat oñaze, zer itxuratan paratu zuten, nork explika? Gero jarrarazirik alki batean, inguraturik soñetaik purpurasko manto zatar bat, buruan frinkaturik aranzesko ustai bat, ta eskuan paraturik kana bat zetro-itxuras jokatu zute irris ta eskarnios errege burlaskoa bekala, ellegatus banaka adoratzera iduri; ta bata kendu kana ta artas ematen ziola buruan aranzeen gañean, berzeak tiratzen ziola gargaju bat aurpegira, berzeak zaflon bat; ta guziek irria gora gure Jaunaren kostus. Zer iduri zaize festa gontas? Nola bide zeuden zeruko aingiruak ikusirik guzien errege soberanoa gisa gartan? Gero atra zue Pilatosek balkonera itxura gartan ikusi zezaten, ta lastima zeizen. Baña klamatzen zioten oiuis, ken bez kenbez, guruzifika bez. Deklaratu zue berriro etzuela aurkitzen kulparik; baña eginik itxurapena garbitzeas eskuak ures, etzuela parterik arren eriotzean, eman zue sententzia.

atra zute Isaak dibinoa sakrifikazeko oiianean; ermanarazi zioten soñean zura, zeintan il bear zuten pregon andieki. Asi ze prozesio lamentable gura; guzien erdian zoeie Jesus, baña ezin joan indargabeturik, odol-usturik, ta erdi ilik ia, erorzen ze auspeska gurutzearen pean. Orgatik beldurak il zekioten bidean, alokatu zute gizon bat ermateko gurutzea Jesusen atzetik. Ala nolapait ellegaturik kalbarioko oiianera Jesus ona josi zute gurutzeai esku oñetaik lurrean, gero goratu zute gorputzareki gurutzea airean; nolako pena ta oñazeeki, nork entenda? Ia etzezakete soporta kriaturek ainberze ainberze nola iten zen beren kriadoreareki. Ta ala ilun duze egerdis mundu guzian, arriak autxi zire elkarren kontra. Bitarteo Judioek oraño ere eskarnios zioten: Berzeak libratutu ta bere burua ez dezake libra. Jautsi bedi orai gurutzetik, ta sinestatuko diogu.

En fin irur ordus iraun duzue goatze gogor gortan akabatzen dolores. Il ondoan ere idiki zioten bularra lanza bateki. Gero ortzirik diszipuloen eskus, erresuzitatu ze bere birtute propios irugarren egunean. Gero berrogei egunes aparezituz batai ta berzeai, ta apostolu guziei utzi zue konfirmaturik bere Eliza edo kristiandadea, ta San Pedro artzai buru, emanik bere zeruetako erreinuaren giltzak. Berrogeigarrenean igan ze zeruetara, ta an dago jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean, grandeza ta Majestade bardinean, nondik etorko baita azken juizioko egunean onen ta gaixtoen juzgatzerara. Bitarteo dago orai zeruan erreinante agerri, ta sakramentu aldarekoan bateo presente ain errealki, baña altxaturik modu admirablean. Dago emen ala milagrosoki obligaturik amoreak, ez utzi naiak galtzera, salbatu naiak gu ain kario kosta gaizkionak. Dago berritzen kontino emen bere amore, ta fabore, ta pasionearen memoria, ezkaitzen atzen, ta balia gaitzan oraiko ta geroko, orai lograzeko anitz grazia, erregalo ta ondasun, anitz gloria gero.

Au da Jesus izenaren konforme tuena biotza ta obrak gureki. Au da Jesus on, eder, amableena bekala, gure amanterik andiena. Au da Jesus, zeñek nola obligatzen baikaitu korresponditzera amorean, ala seguratzen gaitu salbazioaren esperanzan. Ezta galduko daramana Jesusen izenaren marka firmaturik fede ta amoreareki. Au da Jesus, daukana bere eskuan on guziaren giltza, zeñek idikitzen badu, niork ezin ertxi, zeñek

erxten badu, niork ezin idiki. On guzia beraganik, ta bera gabe niondik ez memoriaik ere. Ilaskeros Jesus, San Pedro, balore iagoreki pasio-gauean baño, zoeie tenplora San Juaneki. Zego atarian pobre estropeatu bat jaiotzes, paratzen zutena an eskatzeko limosna. Ikusirik onek San Pedro ta San Juan eldu zirela, eskatu zioten limosna. Erran zion San Pedrok: «beira zaguzu guri». Ura zegokioten beira esperatzen limosna. Orduan San Pedrok etc Akt.3.

Sermo. In Domo 2^a:
Post epiphaniā:
De Miraculis Christi

Nuptiae facta sunt in Cana Galileae. Joan.2.

kontatzen du San Juanek egungo ebanjelioan, nola zeledatu zen Matrimonio bat, ta izan zirela konbit Maria Santissima ta Jesus bere diszipuloeki; eta faltaturik ardoa, Jesus onak bere Ama Santisimaren petizios itzuli zuela ura ardotan. Eta au izan zela bere milagroen prinzipio. Erakusten zaigu lenik matrimonioa Jangoikoak paratu zuena ta Jesu Kristok sakramentutara goratu zuena dela gauza ona, honratu nai izan zutelarik beren presenziareki Jesus ta Mariak. Bigarrenik, nola bear den artu estado gau ta bizitu ortan, konbidatus Jesus ta Maria, naut erran, enkomendatus biei orazio, bizimodu ta medio oneki, logratu naies azken fina, baita salbazio betirokoa. Irugarrenik, on dela ardoa Jangoikoak kriatua ongi usatzeko, baña obeago, ta bearrago matrimonioan ardo gark signifikatzen duena, baita karidadesko amorea bizikideena elkarrengana, au da, Jangoikoa gatik, Jangoikoa gatik. Milagro garren okasios nai dut kontatu zenbait in zituenetaik Jesus onak, eta modua, grazia ta afekto ona, zeñeki in zituen. Ala beraren bizia ta iltzea kontaturik laburkiro, ezaundurik zerbait bere jenio ta amore ona guregana, orai milagroak, ta aien zirkunstanziak aditus, ezaun dezagun obeki gure Jaunaren ona. Janari ona on da, baña obeago giso onareki. Ala Jesusek egina ta emana gure faboretan on da, baña borondate ta amore jenerosoaren salsareki obeago da. Goazen progatus. Lenik estima zagun Maria. Abe Maria.

Asi gaitzen itsasotik. Bein erran zio San Pedrori, baize arranzari pobre bat, botatzeko sareak (Luc.5.). Jauna, erran zio ark, gau guzian nekaturik eztugu deus arrapatu. Baña berorren manura edatuko dut sarea. Egin zue ala, ta ia ezezazkete atra sareak betearen utses, ta betezuste bi barkoak arraies: urteki baizekio arriturik sandua oñetan ziola: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria. Berze bein agitu ze berze ainberze (Joan.21). Eta nork daki zenbat aldis ia? Itsasoan garenas geros, bein bere diszipuloeki zegolarik itsas-onzian, agitu ze aizeen ta uren nastekazio andi bat, (Math.8) de manera ezi ia ia ez ondatu bai ondatu zebila onzia; Eta bere Majestadea lo. Aiek lotsaturik idatzari zute (sic), Jauna, libra gaiza, galduak gara. Jaun dibinoak amolsu erran zio: Zergatik zauste ain beldurti, fede gutitakoak? Orduan jaikirik manatu zue aizeei ta itsasoai, eta guzia pausatu ze. Berze bein zebiltza itsasoz gure jauna gabe diszipuloak, botatzen zuela aizeak onzia gora bera, nola pilota. Gau erditik gora agertu zekiote Jesus eldu zela oñes uren gañean (ib.14). Lotsarriturik aiek asi zire klamatzen. Jaun onak mintzatu zio amoroso: Idukazie konfianza, ni naiz, etzaistela lotsa. Orduan San Pedrok, Jauna, ori barin bada mana bez noaien orrengana uren gañean oñes. Zato, erran zio Jaun dibinoak. Bazoeie sandua oñes uren gañean. Baña mogiturik aize bat, asi zelaik ondazen oiuegin zio beldurrik: Jauna, libra benaza. Istante arrapaturik eskutik Jaun dibinoak erran zio: Fede gutitakoa, zergatik dudatu duzu? O Jesus, mertxede berze alde dela, nork eztu admiratzen ain jenio ta modu ona ta arrestia bereeki?

Pasa gaitzen itsasotik oian ta leku solletara. Segitzen zute araraño jendeek debozios beterik, ta atzendurik sustentuas; orgatik bein borz milla, kontatu gabe aurrak ta emastekiak, ase zitue borz ogi ta bi arraieki, ta sobratuetaik bete zire amabi esporta. (ib.14)

Berze bein laur milla zazpi ogireki. (ib.45.) Baña graziaren grazia da kariño ta piedade beratx gura: Lastima dut jendeas, baitaude iru egun gontan ene atzetik, ta usten baitut barurik, angabetuko dire bidean. Diszipuloek ziote, bialzeko an urbileko errietara, jan zezaten beren kostus, baña guzien Aita amorosoak beretik nai izan zitue mantenitu. O Aita ona, nork eztio naiko obeditu ta fiatu? Goazen errietara, non baita jende adiña nezesidade. Asi gaitzen leprosoetaik. Jausterakoan bein Jesus oianetik, paratu zekio leproso bat belauriko humil erraten ziola: Jauna, nai badu, banazake garbitu. Eskatu bezain laster ukitus bere eskuareki Jaun dibinoak errespondatu zio: nai dut bada, geldi zaite garbi. Ta erran ta egin. Istante garbitu ze arras. Manatu zio ordea presentatzeko sazerdoteai. (Math. 8.) Berze bein amar leprosoek urrutitik eskatu ziote oiús: O Jesus, urrikari bedi gutas. Ikusi orduko erran ziote Jaunak: Zoaste, presentazaiste sazerdoteei. Joaterakoan, nola etzekitela, aurkitu zire garbi libre guziak. Nork ikusi du mediku ain poderoso, ain amolsu, ain merkerik? Ikusagun itsuetan. Bat jaiotzes ala zena argitu zue untatus begiak bere lixtus ta autses in zuen loiareki, bialirik gero garbitzera Siloe deitzen zen iturri batera, ez bear bearres, baizik misterios. Famatua izan ze milagro gau, asko errateko eman ziotena fariseo inbidiosoei (Joan.9). Berze bidek eskatu ziote grazia bera. Jesusek galdegin ziote: sinesten duzie badezaketela egin? Aiek: Bai Jauna. Orduan ukitu zizkiote begiak, ziola: Eginbegizie zuren fedearen konforme. Istantean gelditu zire argiturik. (Math.9.) berze bat zego bide batean limosna eske. Aitu zue eldu zela Jesus Nazarenoa; ta asi ze klamatzen, o Jesus Dabiden Semea, urrikari bedi nitas. (Marc.10.) Askok erraten ziote, zegola ixilik. Baña ark ia oiú: Jesus, urrikari nitas. Gelditurik Jaun dibinoak manatu zue ekar zezatela pobre gura. Zeukalarik alzinean erran zio: Zer nauzu in dezazuten? Ark: Jauna, ikus dezaten. Jesusek: Bada ikusazu; zeure fedeak in dizu on. Istantean ikusi zue, ta segitu zue atzetik.

Bada espiritu gaixtoetaik libratu zituenak norktaki zenbat diren? Modu ona usatzen zuena da niri daramana atenzioa. Aita batek ekarri zio bere semea agitz tormentatua espiritu gaixtoaganik, ezin libratu zutena apostoluek. Jauna, erran zio Jaun dibinoai, al badezake zerbait, in bezagu mertxede. Agotik agora Jaunak: al badezakezu sinesta, guzia da posible sinesten duenai. Sinesten dut, Jauna, erran zue Aitak negarres, bizkor bez ene fede eria. Oneki libratu zio Jaun dibinoak perfektoki. (Marc.9.) berze bat itsu ta mutu zena libratu zue orroat. (Math.12). Murmuratzen baizute Fariseoek, botazen zituela demonioak demonioaren birtutes. O inbidiaren itsua! murmuratzen zute alaber, sendatzen zituela eriak jai-egunetan. O hipokritak! joan ze bein sinagogara, ta zego an gizon bat zeukana eskua arturik. Aiek zeude barronde beira ia sendatuko ote zuen jaiegunean. Zato erdira, erran zio Jaun dibinoak; eta aiei: Zillegi da jaietan egitea ongi, edo gaizki? Bizia ematea, edo ez? Aiek ixil. Orduan beiratus guziei triste aien itsutasunagatik, erraten dio gizonari: Edazazu eskuoi. Edatu zue, ta gelditu zekio sano ta sendo. (Marc.3.) Berze jai bates paratu ziote alzinean hidropiko bat. Galdegin ziote Jaun dibinoak Fariseoei: Lizito ote da kuratzea jaiegunean? Aiek ixil. Baña bere majestadeak sendatu ta biali zue istantean. Eta aiei erran ziote: Zeñek zuetaik, erorzen bazaio bere astoa edo idia butzuan, eztu atrako andik, naiz dela jai-egunean? Ta etziokete erresponda. (Luc.14).

Etzue berexten ez egunik, ez gaiz-jeneroik, ez personarik, guzietan guziei egiteko ongi. San Pedroren amaiarreba zego eri andi, ta eskua ukiturik, istante sendatu ze, ta xaikirik zerbitzatu zue maiean. (Math.8.) Berze emasteki bat amabi urtes kuran ibilirik, ta gastaturik medikueki zuen guzia debalde, zoeie jendearen ertean Jesusen atzetik, ta zio bere baitan: ellegatzen banaiz ukitzera solamente bestidurain kanton bat, sendatuko naiz. Ellegatu ze, ukitu zue, sendatu ze. (Marc.5.) berze bat emezorzi urtes egon zena

inklinaturik kurkurra ezin goratus burua, Jaun dibinoak ikusi zueneko erran zio: Emastekia, libre zara gaiz gortaik. Istante ark goratu zue burua ta boza laudatzeko Jangoikoa. (Luc.13) Kananea erris-kanpoko andre bat etorri, ta segitzen zio oius: Jauna, otoi urrikari bedi nitas. Jaunak ezeta itzik ere. Ark ia oiui atzetik. Diszipuloek erraten ziote: Jauna, despei bez, ezi beti dago oius atzetik. Errespondatu zue: Israelgo ardi galduen bila etorri naiz, ez erris kanpokoan. Bitarteo ellegaturik emastekiak belauriko erran zio: Jauna, fabora benaza. Jaunak, ezta arrazio humeen ogia artu ta ematea tzakurrei. Ark ontara, ba Jauna, txakurttoek ere jaten dute nausiaren maietik erorzen direnetaik. Orduan Jesusek: O emastekia, andia da zure fedea; egin bedi nola nauzun. Eta istante emen erran, ta an egin, sendatu ze etxean alaba, zeñendako eskatzen zuen Amak (Math.15) Gogorkara dirudi mostratu zekiola oni prinzipioan baña ze ones ori ere, progatzeagatik, ta premiatzeagatik beraren birtutea.

Ikusagun ia Jesusen ona iletsieki ta desauziatueki. Kapitan batek eskatu zio: Jauna, daukat mutiko bat perlesiaturik estado txarrean. (Math.8) Neurau joanen naiz, erran zio Jesusek, ta sendatuko dut. Berzeak: Jauna, ez naiz digno sar dadien berori nere etxean, baizik solamente erran bez itzes, ta sendatuko da nere mutikoa. Zoaz bada, erran zio Jaun dibinoak, ta egin bekizu nola sinetsi duzun. Eta ordu berean sendatu ze mutikoa. Berze Jaun errege-gisako batek eskatzen zio nai bazue joan arren etxera, baizeuka semea il zen ia. (Joan.4) Jaun onak erran zio: Ezpaituzie ikusten milagroak, eztuzie sinesten. Berzeak: Jauna, betor, il daien baño len nere semea. Zoaz zu, erran zio Jaun dibinoak, ezi ongitu da zure semea. Ala izan ze erran bekala. Berze bat ekarri ziote bere goatzean lauren erlean, ta sarturik tellatutik paratu ziote alzinean. Ikusirik alako fedea Jaun dibinoak erran zio perlesiaturik: Seme, barkatzen zaizkizu bekatuak. Murmuratzen zute Judioek: Nork dezazke barka bekatuak, ezpada sollik Jangoikoak? Jaun onak erran zue: Zein da aisago, erratea barkatzen zaizkizu bekatuak, edo erratea jaiki ta arzazu goatze ori soñean, ta zoaz? Bada, xakin dezazien dutela potestade gura, zuri erraten dizut, erran zio eriai: Jaiki zaite, arzazu goatzeoi, ta zoaz (Marc.2.) Erran bekala egin zue. Famatua izan ze berze batena, baizue ogei ta emezorzi urte eri zegola. Oni erran zio urrikariturik Jaun dibinoak, (Joan.5.) Nauzu izan sano? Ark: Nainuke, Jauna, baña eztut gizonik ortako. Jaunak orduan: Jaiki ta arzazu soñean zeure karretongoi, ta zoaz etxera. Istante ark sano ta sendo artu bere karretona, ta bazoeie. Jaieguna ze. Judioek erraten ziote: jaieguna da, ezta zillegi eramatea soñean karretongoi. Ark zio: bizkortu nauenak manatu nau. Eta etzekie nor zen mediku dibinoa. Onek aurkitu zue gero tenploan, ta erran zio: Orra sendatu zara; etzazula ia bekaturik egin, eztakizun agitu gaizkiago. Errezeta gau ematen ziote askoeri sendatuaskeros, baita señaie, asko gaitz datorrela bekatuen kasos.

Ikusagun ia bizten ta bizkortzen ilak. Prinzipio bat joan zekio: Jauna, oraietan il zaida alaba. Baña betor, ukitzeareki berroren eskuak, biztuko da. Joan ze Jesus ona, ta ikusirik jendea lamentatzen etxe gartan, atrarazi zue. Eztagola, zio, ilik neska, baizik lo. Burlatzen zekizkio baizekite ilik zegola. Sartu ze kuartoan Jesus, eta arturik ila eskutik manatu zio: Ea jaikizaite. Ta jaiki ze bizirik. Berze bat zeramate karrikan ortzitzeko, baize bere amaren seme bakarra. Ama zoeie akonpañatzen anitz jendereki. Jaun dibinoak ikusirik, ta urrikariturik erran zio: Ez dezala negarrik egin. Eta urbildu ta ukitu zitue andak; ta zemazkitenak detenitu zire. Orduan erran zio ilari: Mutil, zuri manatzen dizut, jaikizaite. Eta jarri ze txuxena, ta asi ze mintzatzen, ta entregatu zio bere amari (Luc.7.). Berze ila agitz famatua izan ze Lazaro Santa Martaren ta Magdalenaren anaia. Au eri zegolaik, bi aizpek biali ziote Jaun dibinoai erratera: Jauna, berorrek maite duena dago heri. Detenitu

ze Jaun dibinoa joan gabe zenbait egunes. Bitartean iltze Lazaro, ta orzi zute. Joan ze gero, ta bi aizpek, lenik bata, gero berzeak erran ziote: Jauna, egon baze berori emen, etze ilen nere anaia. Errespondatu zio Santa Martari: biztuko da zure anaia. Martak erran zio: Badakit biztuko dela erresurrekzioaren azken egunean. Erran zio Jesusek: Ni naiz erresurrekzioa ta bizitza. Sinesten duena nere baitan naiz ilik biztuko da, eta bizi ta sinesten duena nere baitan ezta ilen sekulan. Sinesten duzu au? Bai Jauna, erran zue ark, nik sinesten dut, zeren berori da Jesu Kristo, Jangoiko biziaren Semea, etorri dena mundu gontara. Galdegin zue lekuas, non orzi zuten. Manatu zue kentzeko arri gañekoa. Martak erran zio: Jauna, ia urrintzen asi da ila, ezi badu laur egun ilik. Erran zio Jaun dibinoak: Eztizut erran, sinestatzen bauzu, ikusiko duzula Jangoikoaren gloria? Gero egin zio oiur bat ilai. Lazaro, atoz kanporat. Eta bereala atra ze ila zena bere mortaxareki; ta Jesusen manura lazatu zute. (Joan (11)) Nork ezta ikusten milagro gebetan ez solamente Jesus gure salbazalearen podorea, baita ere amore, piedadea, modu ona ta ongi egin naia gizonei? Nork ezta konfiatuko bere on guzia ta salbazioa alako salbazalean? Au da Jesus, zeintas landara ezpaita berze nioren baitan salbaziorik, ezi ezta zeruaren pean berze izenik emanik gizonei, zeintan gaizken salba, erraten zioten bekala San Pedrok judioei (Act.4.). Zeñek ezpaute nai ezaundu beren itsutasunes, gauza guziek ia ezaundu dute, errateko ala San Gregorio andiareki (h. In evang. epiphaniae), ta daude klamatzen Jesus Jangoiko zeruek ezaundu dute, zeren jaio zelaik, biali zute izarra magoen ekarrarasteko; itsasoak ezaundu du, zeren utzi zue ibili zeien oñes arren gañean. Aizeek ta lañuek ezaundu dute, zeren errenditu zire obediente beraren manura. Eriotzeak ezaundu du, zeren utzitu libre eriak ta ilak, manatu duelaik bere Majestadeak. Lurrak ezaundu du, zeren ikaratu ze il zutelaik bere Majestadea gurutzean. Iruzkiak ezaundu du, zeren ilun duze beraren eriotzean. Arriek ere ezaundu dute, zeren zatikatu zire elkarren kontra egun gartan. Ezaun zagun guk ere, sinesta, ama, ta estima zagun konfiaturik ezkaituela utziko sekulakos.

Sermo Dominica 3^a
post epiphaniam.
De miraculis Christi
pro salute peccatorum

Si vis potes. Math.8.

kontatzen du egungo ebanjelioan, nola Jesus onari paratu zekion belauriko leproso bat eskatzen ziola: Jauna, nai badu, banazake garbitu. Eta gure Jaunak edaturik eskua ukitu zue erraten ziola: nai dut, garbi zaite. Eta bereala garbitu ze arren lepra. Eta Jesusek erran zio: Beira ez erran niori, baizik zoaz, ager zaite sazerdoteari, ta ofra zazu manatu zuena Moisesek. Orazio ederra du emen bekatariak: Jauna, nai badu, banazake garbitu, banazake salbatu. Baña, alaber, gure Jaunaren errespuesta da seguratzeko gure konfianza: nai dut, dio, ta in bedi. Potestade adiña dut borondate; podore bezanbat amore; nola eskua, ala biotza. Ikusi dugu azken platikan gure Jaunaren zenbait milagro gizonen fabore; ikusagun orai berze zenbait bekatarien alde. Zein beratx den ta liberal admititzeko bekatariak. (Ontaik arzen zute okasio murmuratzeko eskriba ta Fariseo hipokritek ziotela: Onek admititzentu bekatariak, ta jaten du aieki (Luc.15). Guk artu bear dugu motibo alegratzeko, estimatzeko ta baliatzeko beraren onas, ezi aien murmurazioagatik eztu aldatu jenios, ta kostunbres. Birjinaren Semea etorri da billatzera ta salbatzera galdu zena, erraten zio. Ongi daudenek eztute mediku bearrik, baizik gaizki daudenek. Eta ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak. Ortako kontatu zizkiote hume galduaren, drakma, ta ardi galduaren parabolak, ta zer kontentua duen jabeak aurkitu ondoan. Eta añaditu zue sententzia andi gau: erraten diziet ala izain dela Zeruan gozo, konbertizen den bekatari baten kasos, nola lauretan ogei ta emeretzi justoen kasos (Ibid. narra six (sic) parabolak). Eta itzes erraten zuena mostratzen zue obras). Goazen ikusis zenbait, salutatus lenik Ama Santisima. Abe Maria.

Jesus nai du erran salbazale. Izenain conforme du izana, jenioa ta ofizioa, baita salbatzea bekatariak. Nai badu, badezake, zio ark; eta nik diot, al badezake, nai du. Jesus berak dio: nai dut, ta dezaket. Beira progu errealak abasto. Biz len lena Santa Maria Magdalena. Bizi ze au xoraturik banidadeas, atzendurik Jangoikoas ta bere onas, proprioki ardi galdua bekala. Noizbait ere aiturik artzai dibinoaren edo txistua, baita inspirazioa biotz barnean, edo boza predikuren bates, aurkitu ze argiturik ezaumentua, mogiturik borondatea ain kontriziosko dolore andiareki, ezi ia niolateretxe sosega; ta xakin zuelaik zegola Jesus ona konbit Fariseo baten etxean, joan ze boladan arara, erreparatu gabe deustan; sartu ze kuartoan, paratu ze Jaun dibinoaren oñetan, asi ze negar ta negar, dio Ebanjelioak (Luc.7), erregatzen oin sandu gaiek bere negarreki, txukatzen biloareki, adoratzen, ta unjitzen nardo prezioso bateki. Jesus ona zego ixil ta geldi beira. Fariseoa zego bere baitan erraten: Au balitz profeta, bear luke xakin nor ta nolakoa den emastekigoi, baita bekatari. Jaun dibinoak ikusirik arren gogoa, mintzatu zio defendatus ta laudatus penitenteak iten zuena kontrizioaren utses, ta barkatzen zekizkiola anitz bekatu, zeren baizue anitz karidadesko amore. Eta bera erran zio: Barkatuak dire zure bekatuak. Maiekoek murmuratzen zute: Nor zen bera barkatzeko bekatuak? Baña Jaun dibinoak erran zio emastekiai: Zeure fedeak baliatu dizu. Zoaz bakean. Au da Santa Maria Magdalena, zein mediku soberanoak ain ongi sendatu zue, ezi ia instante gartaik utzi zue

eginik sanda.

Baña au, en fin, joan ze medikuaren billa, naiz deiturik beraganik; berze bat zego atzendurik ortas, sarturik guzia munduko tratu ta irabazietan, baize tratante ta publikano; dagolaik jarririk bere tratuen alkian, joaten zaio Jesus, beiratzzen dio, ta erraten dio: segi nazazu ni. Zer indarra duen Jesusen beiratzzeak ta itzak! Istante, guzia utzirik jaiki, ta segitu zio atzetik ark; ta orra istante eginik sandu, ta apostolu, ta ebanjelari; au da San Mateo (Math.9.). Urrutiago zego berze bat, ta ia sarturik munduko banidadean. Etze bera oroitzen bere salbazioas, oroitzeko salbazalea. Joan ze bide luzean, ellegatu ze nekaturik egerdis, jarri ze butzu baten pokalean. Ellegatu ze ur eske emasteki bat, zeñi eskatu zion trago bat Jaun dibinoak. Okasio goneki gutibana pobre garri agertu zio beraren bizimodu gaixtoa, de manera ezi arriturik ura ta itzulirik bere baitan, joan ze utzirik an ferrata edo butzatorea, ziudadea barna oius predikatzer ta deitzera jendeak ikustera Jesus. Nola etorri baizire, ikusi, aitu ta konbertitu baizire anitz. Nork erran bear zio etxetik atra zelaik emastekiari konbertitu bear zela predikari? Etzue deustan gutiago pensatzen berak ere. Baña fortunosa izan ze aurkitzeas nola etzekiela bere ta guzien salbadorea ain poderoso, ain piadosoa, ona ta amoltsua (Joan.4). (Luc.19). Zakeo, ze gizon txipi bat estudiantzen zuena mamonaren filosofian, naut erran, diru ta ondasun egitean. Estudiante ona bidezze fakultade gontan, ezi abratstuze. Onek, bada, nai zue ikusi gure Jauna pasatzerakoan nor zen, ta etzuke logra jendetzearen utses, ta bera txipiegi izanes. Zer egin zue? igan ze arbole batera baize bidean, nondik bear zuen pasatu, ikusteko andik. Lasterrago ikusi zue bera Jesus onak, ta ikusi ere zio biotza. Eta ala oiue egin zio: Ea Zakeo, jautsi fite, ezi egun zure aldi naiz. Jautsi ze ura instantean, ta eramane zue bere etxera kontent, ta zelebratu zue festa. Baña gustorit (sic) obenaeman zio, konbertitzean bera guzis onera, ta erratean: Jauna, nere ondasunen erdia biz pobreendako, ta noribaiti (sic) perjuiziorik in badiot, errestitu zio in nai diot laur aldis ia. Jaun dibinoak orduan: Zierto egun obratu da salbazioa etxe gontan, au ere baita Abrahamen hume. O Jesus, zein ona den bekatoriendako ere! Nolakoa bide da justoendako? Orra ark solamente nai zue ikusi pasatzerakoan. Eta Jaun ona iten zaio adiskide ta konbit beraren etxean. Nork eztu konfiatuko Jaun ain piadosoan?

Geiegis tratatzen zute, ta murmuratzen eskribek ta fariseok, emateko beraren kontra, eman bear ziotenas esker milla. Bein uste zute bai, arrapatuko zutela faltan. Ekarri zioze presa emasteki bat aurkitu zena adulterioan. Au presentaturik intenzio gaixtoareki erran zioze: Jauna, emasteki gau arrapatu da adulterioan. Gure legeak dio ilzeko arrikaturik alakoak. Berorrek zer dio. Intenzioa zeramate, erraten bazue arrika zeila legearen konforme, tratatzea bera krueltako. Erraten bazue barka zekiola, akusatzea etzuela kasorik legeas. Nola bide zegon pobre gura lanze gartan? Zer inen ote du Jaun dibinoak emen? Ikusazie: Itzik atra gabe kurtzen da, ta asten da eskribitzen lurrean eriareki. Aiek porfia erran zezala bere iduritua. Txutitzen da, ta erraten diote: Zuetaik nor ere dagon bekaturik gabe, ark tira bezo lenbiziko arrukaldia. Erran au ta kurtu ze berriz, ta eskribitzen zue. Aiek aiturik ori, joan zire joanes bata berzeain atzetik. Ta gelditu zire sollik Jesus ta emasteki gura. Txutiturik Jaun dibinoak galdegin zio: Non dire akusatzen zindutenak? Niork etzaitu kondenatu? Ark: Ez Jauna, niork ere. Orduan Jaun dibinoak: Bada, nik ere etzaitut kondenatuko. Zoaz, ta etzazula ia bekaturik egin (Joan.9). Zer injenioak, Jauna, ez galzeagatik bekatoriak! Bekatari zirenak bekataria in kontra; ta fabore berriz eztena bekatari, Jesus, atxuri dibinoa kenzentuen munduko bekatuak. Bekatuen etsai andiena, ta bekatarien adiskide obena. Ala nola amak aborrezitzen baitu humearen eritasuna, ta amatzen hume eria.

Zegolaik Jaun dibinoa iltzen gurutzean inguraturik penas, ia pena zue alaere arimen galtzeas, ezi bere iltzeas, malogratzen baize (sic) bere odol preziosoaren erremedioa ainberze kosta zekiona. Lanze gartan bi aldetaik gurzifikaturik zeuden bi ladronetaik batek erran zio: Jauna, oroi bedi nitas, doaielaik bere erreinura. Eztu berzerik nai. Istante agotik agora errespondatu zio: erraten dizut zierto, egun izanen zarela eneki paraisoan. Zein laster idiki zaion paraisoa ladron izanai anitz denboras! Alako ansia du salbatzeko Jesus onak! Solo falta ze salba zezkien Judioak gurzifikatu zutenak. Etze faltatu beraren aldetik; nai izan bazute berek nola berak, inik zego. Ez kontent madarikatu gaiek tratatuas ain gaizki ezin iagos, goratu ondoan gurutzean, lastimatu bearrean eskarnio iten ziote atxuri onegiai; eta alaere lastimaturik aien perdizioas axuri onegiak lenbiziko itza gurutzetik erran zue aien fabore au: Aita, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren. Zer ia erran daike, edo egin daike? Aiek porfia, Jesusek porfia! Aiek Jesusen kontra, ta beren kontra, Jesusek atzendurik bere injurias aien fabore! Aiek galdu nautela Jesus, Jesusek salbatu nailuzkela.

Progutako salbatuko zituela bere persegizaleak, nai izan bazute berek, da Lonjinos, zeñek Jesus onari ilaskeros emanik lanzada bat bularretik, andik atrazen odol ta urak ukitzeareki begietan, kobratu zue bista, diotenes, ta gero arimarena; ta orai dauka glorian bere konpañian. Nork eztu salbatuko salbatu zuelaik Lonjinos? Progu ona ere da Saulo, zeñek beterik iras kristiandadeain kontra, iganaskeros Kristo zerura, persegitzen zue bere indar guzieki. Atra zekio bidera Jesus, ta oiuegin zio: Saulo Saulo, zergatik persegitzen nauzu? Ark errespondatu zio: Nor da berori, Jauna? Jaunak, ni naiz Jesus zuk persegitzen nauzuna. Ark orduan: Zer nai du in dezaten nik? Jaun dibinoak erran zio zer in bear zuen; berak abisatu zue Ananias bataia zezala. Berak in guzia arren salbatzeko, zukelaik botatu fu bates infernura. Eta orra Saulo zena eginik San Pablo apostolu andia.

O Jesus, o Salbazale, o Mediku Soberano bere parerik eztuena. Borz letra ditu nonbrean, ta borz prenda Mediku dibino gonek. 1^a Habilidadade guzia sendatzeko eri-jenero guziak, iletsiak, ta ilak ere faltarik gabe. 2^a Grazia sendatzeko istantean ain perfektoki, nola ezpalitz eri egon sekulan; testimonio San Pedro, San Pablo, San Mateo, Santa Magdalena etc. 3^a deitu gabe niork, oroat, joatea bisitatzera eriak doaiik grazias amore andiareki. 4^a Berak errezetatzea, ta berak paratzea, ta berak aplikatzea erremedioak bere kostus, alegratzen dela nai dezan artu eriak sendatzeko seguroki. 5^a Sekulan aditu ez, ta adituko ere eztena, baita, berak sano ta sendo dagolaik artzea erremedioa sendatzeko eria; berak pasa pasioaren purga amargoa ta sangria andi gura sendatzeko zu ta ni. Bera il gurutzean, ezkaitzengatik gu il sekulakos. Beldur bagina kondenatzeas, ezpaikara digno igateko zerura, pensa etzela digno Jesus ere paratzeko gurutzean, ta paratu zela gure igategatik, ta eztuela nai malogra daien erremedio ainberze kostatu zaiona. Geurenganik galduak gara zierto, baña ain zierto Jesusen kasos salbo izain gara, nola baita Jesus Salbazalea. Amen.

Sermo. In Dominica 4^a
post Epiphaniam.
De navicula Ecclesiae Catholicae

Ita ut navicula operiretur fluctibus. Math. 8.

kontatzen du egungo ebanjelioan nola Jesus enbarkaturik itzas-onzi, edo barko batean segitu zuten bere diszipuloek, ta agitu zen nastekazio andi bat itsasoan de manera ezi barkoa estalzen ze urain bagades, eta bere majestadea zego lo. Joanik diszipuloek idatzarri zute Jauna, ziotela: Salba gaitza, ezi galdu al gara. Errespondatu zioten Jesus onak: Zergatik zarate beldur, fede gutitakoak? Orduan jaiki ta manatu zioten aizeei ta itsasoai, eta guzia gelditu ze sosegu andian. Arkitu zire jendeak ziotela: Nor da au, ta nolakoa, obeditzen baitiote aizeek eta itsasoak? Orra ebanjelioa. Goazen orai entendatus. Asis azkenetik, nor da au? Au da Jesus, gizon ta Jangoiko guzis poderosoa ta amorosoa. Goazengatik nabegazen konfiaturik beraren barkoan ta konpañian. Itsasoa da mundu gau. Nabegatzeta da emengo peregrinazioa ta biajea eternidaderat. Aize ta itsasoaren nastekazioa dire peligro, persekuzio ta tentazio agitzen direnak bizian deabruaganik, munduaganik ta aragiaganik. Itsasonzia edo barkoa daike entenda, edo kristio bakotxaren arima, edo kristiandade guzia, deitzen dela Eliza sanda katolikoa. Eta au proprioki da Kristoren barkoa, eta San Pedroren barkoa, zeren San Pedro señalatu zuen onen piloto ta kidari Jesu Kristok. Ikusagun nola den ta doaien barko gau. Lenik diosalea Maria Santisimai. Abe Maria.

Zer da Eliza, deitu duguna Kristoren edo San Pedroren barkoa? Da kristio fiel guzien kongregazioa, bil gura, saldoa, edo familia, zeñen buru baita Jesu Kristo, ta beraren ordes Aita Sandu Erromakoa. Demanera ezi Jesu Kristok berexi zue munduko guzietaik beregana saldo ta familia bat kidatzeko beraren bideas zerura, bere Ama Santisima, amabi apostoluak, ta len lena San Pedro, iruogeitamabi diszipulo, ta berze ministroak, ta gañarako kristio fielak. San Pedro da ala nola erreinuan bisorraia erregeren ordes, nola exerzitoan jeneral-burua, nola bere palazio errealean maiordomo maiora; onen partes doaz sartus segi dan Erromako Papa, Pontifize ta Aita Sandu deitzen direnak. Apostoluen lekuan obispoak, diszipuloen lekuan sazerdoteak, arimen kargudunak, berze ministroen lekuan berze sazerdotea, diakono ta gañarako eliza gizonak, eta orduko kristioen partes betiro ta leku guzietan diren ta izain direnak; guziek iten baitugu gorputz bat deitzen dena Kristoren gorputz mistikoa, Kristo buru, ta gu mienbro lagunak, baitio San Pablok, vos estis corpus Christi, et membra de membro (1.cor.12).

Auxe da deitzen ere dena Jangoikoaren etxea ta familia, diones San Pablo berak (Efes.2) kristio fielei: Ene anaiak, ia etzarate arrotz ta kanpoko, baizik sanduen lekukida da, ta Jangoikoaren etxeakoak fundatuak apostoluen ta profeten zimenduaren gañean, delarik, arri prinzipala Kristo Jesus. Eta nola familia gontaik batzuk baitaude ia glorian, berze batzuk purgatorioan, berze batzuk oraño munduan, orgatik estadoen ariora deitzen da irur izen-goitis: Eliza triunfantea, Eliza purgantea ta Eliza militantea. Eliza triunfantea dire kristio fiel daudenak glorian gozatzen. Eliza purgantea kristio fiel daudenak purgatzeko purgatorioan. Eliza militantea kristio fiel gaudenok munduan, non baita preziso peleetzea etsai espiritualeen kontra irabazteko triunfoa ta korona. Eliza gontaik da bide purgatoriora ta gloriara, ez berze niondik. Naut erran ezi solamente kristio fiela daikela salba mundu

guzitik. Badaike ere galdu bere kulpas, baña bera nor bada, bidean dago salbazeko Jangoikoaren grazias. Kristio fiel eztena berriz ezin daike salba, ta erremediorik gabe izanen da kondenatua, qui vero non crediderit, condemnabitur.

Zein dire, ta nola deitzen dire Elizatik kanpoan direnak, edo kristio katoliko fiel eztirenak? Batzuk infielak federa ellegatu eztirenak, edo bataiatu eztirenak ezi bataioa da ataria sarzeko Eliza gontan. Berze batzuk Judioak, eztutenak sinestatu nai etorri dela Kristo, bai etorriko dela. Berze batzuk apostatak fede kristioa utzi dutenak arras desertoregisa. Berze batzuk herejeak ukatzen dutenak artikulo fedesko bat edo berze. Berze batzuk zismatikoak ukatze dutenak obediencia Aita Sanduari. Azken irur jenero gebek dire bataiatuak, Jangoikoaren etxeko izanak, baña atra direnak. Eta ala nola itzultzen badire, ta eldu badire kristiotzera nondik nai ta noiz nai, admititzentuen gure Jaunak, ala iltzen direnak nonnai; ezpada fede kristio katolikoan, ondatzen dire infernuan. Au da Noen arka bekala dilubio unibersalean. Zorzi persona libratu zire arka barnean, gañarakoak galdu. Ala orai dire galduak Elizaren arkan goardatzen eztirenak, ezi onen barnean solamente daizke izan salbo izatekos, dio San Pedrok (1.C.3.).

Eliza katolikoa da San Pedroren barkoa, zeintan doaien gureki Jesu Kristo, zeñeki uniturik fedes ta karidades doaiena salbo izanen da, ezperen ez nion ere, ta nior ere ez mundu guzian. Jauna, Judioek ta gañarakoek ere bide diote ta ustebideute beren errelijionea dela egiaskoa, ta salbaziorako bide. Baña Jangoikoak dio kontra; ta nai duenak dezake ezaundu errelijione kristioaren ona, ta bakar prezisoa Jangoikoak paratua, asko señaile klaro dituenetaik. Zenbait erranentut orai.

1ª Onen prinzipioa ta plantazioa amabi gizon pobre ignoranteen medios, nola baizire apostoluak, baña agiz sanduak, armarik gabe, letrarik gabe, munduko enperadore, bizio ta bekatuen kontra. Nork eztakusa emen Jangoikoaren eskua? aurki lezakenak San Pedro Erromara joatean pobre humil, galdein balio: Nora, nora? etc. etc. Kontra, berriz, alke da beiratzea herejien prinzipioak, Mahoma, Lutero, Kalbino, etc.

2ª Onen ona, garbitasun ta santidadea. Doktrina sandua, lege ta mandamentuak sanduak, sakramentu ta berze gauzak sanduak, eta anitz persona ere bai sandu, beira espezialki konbentuetan, zer penitenzia, zer bizia damaten. Barin bada ere sobra kristio gaixto, eztu kulpaa Eliza Ama Sandak, Amak nai eztuela bortxa, dire ala hume gaixtoak. Kontra, berriz, Mahoma, Lutero ta berze askoen sektaek zenbat lizenzia emateunte aragiaren conforme? Aisa ze biltzea jende, utziaskeros suelto nola nai. Ezta ori Jangoikoaren.

3ª Kristiandadearen unione ta bat beti ta leku guzietan, izatea sustanzian, fede bat, lege bat, sakramentu berak, nola baitare saldo bat arzai baten pean. Kontra, berriz, herejeetan guzia aldaketa: Egun au, biar ura, nola sinesten ta egiten baitute nautena beren burutik, buru adiña opinione.

4ª Gure errelijione gau profesatu, erakutsi ta konfirmatua ainberze gizon sandu ta xakintsuek, ainberze doktoreek ainberze konzilio jeneraleek ta partikulareek etc. Herejeetan, naiz xakintsu iduri diren, sandu ez, pasione bai franko, suberbia, luxuria, ira. Beira obretara.

5ª Gure errelijionea aurkitzea erakutsirik ta mostraturik lengo asko profezia ta señaileeki Eskritura Sagratuetan, guziak ikusten baitire kunpliturik emen. Judioek sinestatzeunte Eskritura Sagratu testamentu zarrekkoa. Miragarri da nola eztuten ikusten ain puntualki agiturik Kristoren pasio ta gañarakoetan zeukana Jangoikoak erranik ta eskribiarazirik profeten medios. Itsu bear da izan ez ikustekos argia bezain klaro.

6. Kristio sanduen milagroak ainberze, ain klaro, ain andiak len ta gero. Zer ze ikustea San Franzisko xabier bat bere sotana zarrareki manatzen iruzkiai deteni daiela, ta detenitzen? Su jautsi daiela zerutik, eta jausten? Ilei jaiki daitzela bizirik, eta jaikitzen? Eta berze anitz alako, ta berze anitz sanduek alaber. Señale ongi naituela zeruetako Jaunak. Herejeetan ezta ikusi sekulan milagro egiasko bat; zenbait sorgindaria bai deabruaren artes; Ta franko petardo ta engañu ere bai Jangoikoaren permisos. Ezpaita orai kristioetan ere ageri milagrorik, diozu. Egia dirudi eztela ainberze nola len ageri, ezpide da konbeni, baña itenzusten gaien errelijione bera dugu, ta agian zenbait bide da orai ere lekutan.

7. Da komunikatzea kristio sandueki Jangoikoa, argitzea, erregalazea, animatzea, bizkortzea ta indarres betetzea despreziatzeko emengo honrak, ondasunak, gustoak, egiteko penitenzia andiak, pasazeko bizitza kontino trabajutan. Beira ainberze errelijioso ta ia errelijiosa orzirik bekala mundurako, ta ain kontent! Ain alegre! Beira berze anitz egon zeizkenak aisa beren etxean, ibiltzen nekaturik, izerditurik, sufritzen asko berzeren arimen onzeagatik. Nork paratzen du alako ansia biotzetan gure naturaleain kontrakoa? Jangoikoak.

8. Martir ainberze izana ezin kontaala fede kristioagatik. Eta nola martirioak? Eta nolako pazienzia, nolako arimo ta alegriareki tormentuen ta eriotzeen erdian? Nork faboratzen zitue? Jangoikoak.

9. Irautea munduan Kristoren saldo gau, naiz eginik odol kristios ainberze erreka. Naiz enperadoreek, herejeek, gizonek ta deabruak enpleaturik beren injenio, maña ta indar guziak akabatzeko saldotto gau. Debalde dabilta. Esku andi batek dauka, ta idukiko du etc.

Ortas dauka emanik bere itz erreala ta dio ezpaita faltako sekulan, lenago faltako dire zerua ta lurra. Galdegin zioten bere Majestadeak apostoluei (Math.16.): Nor diote gizonek naizela ni? Errespondatu zute: Jauna, batzuek diote dela Joan Bautista, berze batzuek dela Elias edo Jeremias, edo profetaren bat. Orduan gure Jaunak: Eta zuek nor diozie naizela ni? San Pedrok guzien partes errespondatu zio: Berori da Kristo Jangoiko biziaren Semea. Jaun dibinoak orduan: Zori onekoa zara zu, Pedro, ikasi baituzu ez aragi ta odol direnen errebelazios, baizik ene Aita zerukoaren errebelazios. Eta nik erraten dizut zuri, zu zarela Pedro, eta arri gonon gañean fabrikatuko dut nere Eliza, eta infernuko atariek eztute indarririk asko onen kontra. Eta zuri emanentizut zeruetako erreinuaren giltzak. Zuk lurrean lotzen duzun guzia, loturik izain da Zeruetan, ta zuk lazatzen duzun guzia lurrean, lazatua izain da zeruetan. Ebek dire itz erreal emanak San Pedrori. Baña egungo konparazioaren segi dan entendatus Eliza San Pedroren barkoan, ontan igaten ze askotan bere Majestadea ori beroi adiarasteko. Bein baño iagotan lograrazi zio arranzu agitz milagroskoa, arriturik San Pedrok erraten baizio: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria ni. Eta Jesu Kristok berari: Etzaitela lotsa, ezi zure arranzua ia izanen da arimena, mostratus zenbat eta zenbat arima sartu ta salbatuko ziren bere barkoan, au da, Elizan.

Baña askotan barko gau dabilate gora bera itsasoan aizeek. Ontan adiarasten dire persekuzio pasatzentuenak Elizak aldiska. Norenganik? Deabruaganik, lagun iten diotela deabruai munduak ta aragiak. Zer aize dire goratzen direnak kontra? Gizonen pasioneak: Subergia, kodizia, luxuria, inbidia, etc. Tenpestade bat goratu ze luxuriaren aizes Mahoma-denboran Elizaren kontra. Anitz kristio erori ta ondatu zire. Baña barkoa beti ur gañean. Berze tenpestade bat goratu ze Henriko Inglaterrakoaren denboran luxuria, ira, ta suberbiaren aizeen kasos. Ondatu ze Ingalterra geiena; baña barkoa beti ur gañean salbo.

Berze tenpestade bat goratu zute Luterok eta Kalbinok, bata fraile, berzea Apez, suberbiaren ta luxuriaren aizes deabruak eramanak. Galdu zire Alemaniako ta Franzia-ko zati andiak: baña barkoa beti salbo. Gure denboran ikustentugu profanaturik, tenploak, ostikaturik imajinak ta sakramentuak, desterraturik sazerdoteak, ta Aita Sandua bera eramanik prisionero bekala. Eta dirudi bitarteo lo dagola bekala gure Jauna. Klamatzeunte onak: Jauna, libra gaitza; galduak gara. O fede gutitakoak, dio, zergatik zarate beldur? Ezta ez ondatuko barkoa. Eta noiz den ordu manatuko diote aizeei ta itsasoai, ta geldiarazikotu. Bitarteo atratzen badire barkotik an ta emen asko, sartuko dire berze batzuk. Bat utzi, berze bat artu, da xokua.

Eta engañatzeko obeki deabruak pintatzen du persekuzioa on-kolores, bear direla erremediatu pobreak, libratu daudenak sopeaturik buruzagien oinpetan etc. Ortas eztu kulpa errelijioneak. Erremedia gaitzak, bego errelijionea. Sazerdoteok omen gara gaixtoak, kodiziosoak etc. Ezta dudarik sazerdoteen bekatues prinzipalki deshonoratzen dela errelijionea, ta andik arzen dela atxekia persegitzeko au. Baña naiz gaixto izanik sazerdoteak, zer kulpa du errelijioneak? Eta Kristoren ebanjelioak eta fedeak? agi daike pregonaria izatea gizatxar bat. Baña ezta orgatik usten lege ona ark pregonatua. Presentatzen dizute erregalo eder bat. Naiz kozinari ta zerbitzukoak ez izan eder, eztuzu usten erregaloa. Gu gara Kristoren pregonari ta ministro. Onak dire lege pregonatzen tugunak, sakramentu administratzentugunak. Gu gaixto izanagatik, utzi bear duzu ona ta ongi dagokizu salbaziorako? Baña motibo egiaskoa zergatik atratzen diren San Pedoren barkotik, ta Kristoren konpañiatik da pasioneen aizeen kasos. Nai bizitu libre, suelto, espezialki aragiaren konforme, ori ez permititzen errelijione kristioak; kunplitzeagatik pasioneak, autxi legeen freno. Gero etsitus goardatzetik legea ellegatzen dira faltatzera fedean; dakusate galduak direla ezpadire ontzen, delarik egia fedeak diona; eta onduko eztirela; erragun, diote, eztela infernurik, eztagola manaturik au ta ura, guziok direla apezen enbusteriak, ta ala. Eta lagun franko izateareki ta pasione propioak tiratzeareki, orra nola utzirik Kristo doazan perdiziorako bide zabalas. Joan zekizkio desertaturik asko, bizi zelaik ere. Eta gelditu zirenei erran ziote Jesus onak: Nauzie joan zuek ere? San Pedrok guzien nonbrean errespondatu zio: Domine, ad quem ibimus? Jauna, norengana joain gara? Bizitza sekulakoaren itzak ditu berorrek, eztugu nai utzi. Ala erran ta ala egin bear dugu guk ere, ellegatzeko Jesusen barkoan gloriako portura. Amen. Joan.6.

Sermo in Dominica 5^a
post Epiphaniam.
De justis et injustis

Simile factum est regnum coelorum homini,
qui seminavit bonum semen etc. Mat.13.

Egungo ebanjelioan dio Jesu Kristok parabola gau: agitzen da Zeruetako erreinuan ala nola gizon bati, zeñek eraiki zuen azi ona bere alorrean. Baña lo zeudelaik jendeak, etorri bere etsai edo enemigoa, ta eraiki zue zizaña gariaren ertean, eta joan ze. Azi zelarik belarra, eta eman fruitua, orduan agertu zire zizañak ere. Nirabe zerbitzukoek erran ziote nausiari: Jauna, etzue eraiki azi ona bere alorrean? Bada nondik ditu zizañak? errespondatu ziote: Gizon enemigoak egin du langoi. Nirabeek orduan: nai du goazin, ta bilzkigun? Nausiak: Ez, eztadien agi biltzean zizañak atratzea bateo zañetaik garia. Uzkizie biak azi daitzen igita-denboraraño; orduan igitarleei manatuko diotet: Bildu lenik zizañak, ta lotuzkizie paxuka erretzeko, eta garia billa ene granerora. Onaraño da ebanjelioa. Dirudi aisa-eder azaletik entendatzea nekazariak ere; baña onen mamia, au da signifkazioa zer adiarazi nai ote digun, ori ezta ain aisa. Baña Jesus onak berak artu zue ontzat explikatzea, apostoluek eskatzeareki berex. Aizagun. Eraiki duena azi ona, dio, da Birjinaren Semea, au da, Jesus bera. Alorra da mundua. Azi ona dire erreinuko humeak. Zizañak gaixtoaren humeak. Enemigo eraikituen ebek da deabrua. Igitad-denbora munduaren akabanza: Igitarleak aingiruak. Bada ala nola biltzen baitire zizañak, ta erretzen suan, ala izanen da munduaren akabanza. Birjinaren Semeak bialikotu bere aingiruak, ta bildukotuste beraren erreinutik eskandalo guziak, ta gaizki-egilleak, ta botakotuste susko lezera. Ibi erit fletus. Orduan justoez istargituko dute nola iruzkiak beren Aitaren erreinuan. Duenak bearri aditzeko adi bez. Guziok dire Jesu Kristoren itzak. Anitz, ta guzia inporta zaigu entendatzea ta goartzea. Goazen ortara, suponiturik lenik, zeruko erreinua mundu gontan deitzen dela Eliza edo kristiandadea San Gregorio andiaren ustes, ala nola berze munduan baita sanduen gloria. Goazen salutatzer Maria Santisima, eskatus bateo bear dugun grazia. Abe Maria.

Jangoiko andiaren alorra dela mundu gau, ta eraiki duena ontan dela Jesu Kristo, da klaro-eder. Orai azi ona deitzea onak erreinuko humeei zergatik? Zeren baitire Jangoikoaren humeak predestinatuak erreinatzeke errege gisa gloriako erreinuan Jangoikoareki. Zizañak, berriz, gaixtoaren humeak, zergatik? Zeren Aita bekala baitute deabrua bizi direnak arren konforme (Joan 8). Zizaña da zañen sitsa, edo zain galzen duena azi ona. Alakoak dire arima gaixtoak ta galzaleak Jangoikoaren alor gontan. Utrum ego, et tu? An semen bonum, an zizanium?.

Emen dire erreparatzeko laur edo borz gauza: 1^a Jangoikoaren alzineko eztela distinziarik, den noble edo komun, den ar edo eme, den sano edo eri, eder edo itsusi, aberats edo pobre, andi edo txipi, ta alakorik; baizik nolakoa den arima, edo biotza. Gizonek beiratzentute gizonaren kanpoko aldetik direnak; Jangoikoak barneko aldetik. Ori da inporta dena, ta ez gañarakoa. Alde gontaik arraziatzen du ederki San Agustinek beti bekala. (s.12. De Verb.D.) Gauza onak naituzu izan, ta zeurorrek eztuzu nai ona izan. Eztakusazu bear zarela alketu zeure gauza ones, barin bazara gaixtoa zeuroi? Zer gauza da nai zindukena gaixto? Ez bat ere. Nai zinduke ona osasuna, ona iduria, ona bolsa, ona

etxea, ona familia, ona konsortea, onak zerbitzukoak. Nai zinduke ona fama, ona alimentua, ona tresena, azkenean galzakorda ere nai zinduke ona. Ta alaere zeure arima eztuzunai ona! estima zazu otoi zeure arima ia ezi galzakorda. Zeure gauzak al baleizke mintza, erranen lizukete, ala nola zuk nai gaituzun gu onak, guk ere nai dugu jabea ona. Zure kontra kejatzen dire Jangoikoai ixil ixila: Jauna, berorrek emantio oni ainberze gauza on, eta berau da gaixtoa. Zer balio dio duen guziak, ezpadu berori? 2^a Arimak ain diferente direla, nola aurpegiak. Nekes aurkituko dire bi aurpegi guzis bardinak. Oroat bi arima. Baña solamente malizia grabeak edo mortalak, itzulzen du zizaña Jangoikoaren begietan; ala nola garia, naiz ez izanik ain auta nola berze bat, gari da. Baña aski ere da kulpak bat mortala, itzultzeko zizaña. 3^a da, zein diferente diren arima batzuk berze batzueganik Jangoikoaren alor gontan, diot, munduan, guziok garelaik aragis ta ezurres konponduak, guziek dugulaik bardin jaiotzea ta iltzea. Alaere o gauza miragarria! Batzuk ain ain suberboak, berze batzuk ain humilak. Batzuk ain kodiziosoak, berze batzuk ain liberalak. Batzuk ain luxuriosoak, berze batzuk ain kastoak. Batzuk ain asarre mendekosoak, berze batzuk ain bake, manso ta sufrituak. Batzuk ain onak ta sanduak, berze batzuk ain gaixto galgarriak. Batzuk bizi direnak erretiraturik laur pareteen ertean, orazio ta penitentzia kontinoan, berze batzuk ain arro suelto bizioen zebo guzietan. Batzuk ain Jangoikoaren beldur, ezi emanen baitute bizia ez iteagatik ofensa bat; berze batzuk ain ajolakabe, ezi egiteagatik emanen baitute diru ere. Batzuk en fin afanaturik onzeko berak eta berzeak, berze batzuk ain zoraturik gaixtazeko berak eta berzeak! Nork ezta adbertitzen diferentzia gau? Ta por konsigiente azken finarena? 4^a Deitze gura azi ona gari. Zergatik ote? Zergatik zerurako azi ona diren sanduek bear baitute pasatu emen gariaren gisara. Garia lenik botatzen da lurrean, ilzen da an, ta orzirik pasatu beartu neguko erauntsi, elur, ekaitz, otz ta itzotzak. Gero udako beroak sekatu arteo. Gero ebakitzea igitaias, gero eulzian oñen ta estrazien pean, aizerazea gero. Ta maian presentazekos, oraño bear da iotu errotan, oratu oraimaian, ta erre labean. Ala justoa presentazeko Jangoikoaren maiean bear da progatu asko maneras. Azkenik dena dela zuen alorretan, baña Jangoikoaren alor gontan dena da baitaiki azi ona mantenitu on, nai badu, ta itzuli ere bai zizaña, nai duelaik, ezi nai ezpadu berak, niork ez dezake galarazi. Eta nai badu, zizaña ere itzuli daiki gari.

Azi ona eraiki zuela bere alorrean, dio Jesu Kristok, zeren doktrina, legea, sakramentuak paratu zitue onak; ta gizona ere atra ze ona beraren eskutik. Baña lo zeudelaik jendeak, au da, deskuidatzeareki gizona, enemigoa ezpaizego lo ta ez deskuidaturik, etorri ta eraiki omen zue zizaña, au da, inspiratu bizioa ta malizia ariman. Ta ala gutibana doaie azi ona biurtus zizaña. Prinzipioan azibañolen ezta ezaunzen ongi; beldur, alke, ta hipokresiaren kapas estalirik disimulatzen da. Baña aziaskeros belarra, itz ta akzioneer fruitua emanaskeros, agerzen dire bizioen zizañak ere.

Jangoikoaren ministroek prokuratu zutenek mantenitzea Jangoikoaren azi ona, ta azitzea ongi persona aurzutuan ta gastezutuan, ikusirik gero galmendea, erraten diote: Jauna, etzue eraiki azi ona bere alor gontan? Bada nondik du zizaña gaixtoa? Gizon enemigoak egin du lan gaixtogo, dio bere Majestadeak. Ezta zer botatu kulpak Jangoikoaren gauzei, bai personaren ta deabruaren maliziei. Emasteki buruxola iratuak dio: O ardo madarikatua, ikusirik sobra edateuntenen desordenak. Baña gaizki errana da ori, ezi ardoa da Jangoikoaren kriatura ona, ta ezta ardoak kulpak, baizik gaizki usatzen duenak. Ezperen, oroat erran leike, madarikatua sua, zeren oneki erretzen diren etxeak eta arbolediak. Madarikatua burriña, zeren oneki ilzen diren jendeak. Madarikatua txokolatea, zeren onen kasos datozin etxeen kalteak. Madarikatuak emastekiak berak, zeren aieki iten

diren bekatuak. Baña, guziok dire gaizki erranak, zeren eztute kulpa Jangoikoak inikako gauzek, baizik gaizki usatzentuen personak deabruaren inspirazios.

Da erreparatzeko diola ebanjelioan: Gizon enemigoak in du langoi, ta explikazioan gero, enemigoa dela deabrua. Nola da au? Deabrua da enemigo, baña ez gizon. Nola dio, bada, gizon enemigoa? Adiarasteko zizañen lan gau deabruak iten duela, ez bakarrik, baizik gizonareki bateo. Deabruak inspiratu, gizonak admititu; orra gizon enemigoa beretako. Baña bere borondates. Ezi ezpalez nai berak, ezin gaixta lezake deabruak. Deabrua, dio San Agustinek, da ala nola tzakurra loturik katean; badezake in aunka, badezazke ortzak irrika. Baña ez dezake niolater egin ozka, ezpada urbilzen zaionai bere borondate propios. Orra nondik den zizaña Jangoikoaren alorrean. Gizon gaixtoa, dio agudoki San Agustin berak, bi gauza bekala direla gizon ta gaixto: gizon diodana egin du Jangoikoak, gaixto diodana in du gizon berak deabruareki bateo. Orra zizaña nondik den.

Goazen ikusis banaka. Subergia da lenbizikoa. Eztagokio au gizonari, baita lurreko animaletto bat miserablea, mortala, egun emen, ta biar ez ageri. Arimaren aldetik du Jangoikoaren imajina ta semejanza, ta eztu on pixkarik, ezpada Jangoikoak emanik. Baña bere bekatueki zer iten du? Borratu Jangoikoaren imajina, ta deabru itzuli itsustasunes. Eta alaere dezakela izan presunzio, banidade ta subergia? Unde ergo habet zizania? Nondik du zizañagoi? Nik errain dut. Kriatu ta paratu zituelaik Jangoikoak Adam ta Eba paraisoan nai zuten guziareki, solamente progazeko aien obediencia, debekatu ziote jatea arbola bakar batetik. Deabruak inbidias, galdu naies, sinestarazi ziote izanen zirela Jangoikoak bekala jaten bazute artaik. Petardo izanzute, baña beti alaere aien jenerazio guziai darraio ambizione ta andinai gura.

Ikusagun kodizian. Egun gara emen, biar edo etzi joatea dugu emendik. Bitarteo aski da prokuratzea zereki bizi ta estali; ta lograzen badugu ori, eman Jangoikoai graziak. Ezpadugu, eraman pazienzian, xakinik laster akabatuko dela emengo itekoa, ta betiko glorian izain dugula nai dugun guzia, ongi joaten bagara, ta ontas bear dela egin kaso. Baña bil ta bil emengo, nolana dela, ia ta ia beti goseak ta egarriak ondasun lurrekoes, beti emen bizi bearbalute bekala, unde habet zizania? Nondik zizaña gau? Deabruak itsutus arimaren begiak, ez oroitzeko Jangoikoas ta bizitza sekulakoas.

Ikusagun iran ta inbidian. Guziok gara elkarren anai-arrebak, diogulaik Aita Gurea. Kriatu gaitu Jangoikoak armarik gabe bizitzeko bakean ta amore onean elkarreki. Orgatik eztigu eman nola zezenei adarrak, nola arranoei piko tzorrotzak, nola artzei atzapar fuerteak, nola otsoei ortzak etc. Unde ergó habet zizania? Nondik da iratan ta inbidiazen zizaña? Deabruak digun odios gure galdu naies iten du emagun elkarren kontra, tiratzeko berak gure perdiziotik gananzia.

Ikusagun perezan edo nagitasunean. Trabajatzea biziaren atrazeko gana onean da obligazio, da arrazio, da probetxu. Trabajatzea arimaren onetan ta Jangoikoaren zerbitzutan logratzeko premio sekulakoa, probetxu, obligazio ta arrazio baño ia da. Unde ergo habet zizania? Nondik floxezaren zizaña? Deabruak kutsatzen gaitu arimaren perlesia ta ektika miserable gontas bizizeko alfer, edo ezin bai in, fintasunik gabe, karraiazeko ia trabaju, betetzeko bekatu, ta joateko mundu gontaik deus onik in gabe.

Ikusagun gulan. Jan edan prezisoa bear da mantenizeko bizia. Geiegia da gaixto gorputzaren, gaixtoago arimarendako. Dieta dela osasunaren Ama dio Doktore Maestruak. Bateo exkusatzen du anitz gastu; bateo iten da zerbait penitenzia bekatues. Gulak berriz kunpliarazis gusto txar bat dela geiegis, dela laminurias karioago den gauzas, eztu ematen osasun ta indar ia, baizik kenzen ta malgastatzen bear zena etxeko

mantenuaindako. Bada, ardoa bere moduan delarik gauza on, zenbat kalte ta desorden dakar? Unde ergo habet zizania? Deabruak guzietan nastekatzen du bere benenoa, in dezagun gaitz gauza onak gaizki usatus.

Luxurian ageri da geienik deabruaren lana, dominatzen baitu bizio gonek personetan ia ezi animaleetan. Eztu errespetorik ez estadoei, ez adinei, ez lekuei, ez gauzei. Au da zizaña galzen duena deusek baño ia Jangoikoaren alorra, ta deusek baño ia kondenatzen duena gizagendea. Ontako injeniatutu ta injeniatzentu egunoro ainberze zebo. Luxuriaren zebo dire moderia banoak; bestitze-modu indezenteak ia agertus kolkoak, ia zangoak. Onen zebo dire kanta desonestoak, itz maliziaskoak, konbersazio, komedia, danza, ta berze milla zebo kozinatzen dire luxuriaren sutegian. Unde ergo habet zizania? Nondik da zizaña gau? formatu zue Jangoikoak lurretik Adam ta Eba Adanen kostilla batetik. Ikusirik au erran zue Adanek Jangoikoaren inspirazio: Onengatik utziko du gizonak aita ta ama, ta biziko da bere andrearen konpañian. Ontan adiarazten da matrimonioaren estadoa, azitzeko humeak zerurako, paratu zuena Jangoikoak berak. Andik da afizionea elkarrengana. Baña Jangoikoak paratu zue bere neurri onean, auda, bizikidea bizikideareki, bat bateki, eta fin ones, au da azitzeko humeak zerurako. Pasazea neurrigoi, eta fin ongoi, ori da deabruaren lana. Item confusio, ne confiteatur. Non absorbeat me profundum, neque urgeat.

Zizañak dire ebek guziok, ta berze asko, baña propioki nola baitire zizañak galzen dutenak garia, ala dire arima gaixtoak galbidees, exenplu gaixtos, itzes, irris, eskarnios ta bere modus galarastentutenak kristio onak. O zer infernua! Ebetxek baitire zizañak deabruak eraikituenak Jangoikoaren alorrean galzeko eraizioa!

Vis, imus, et colligimus ea? Ikusirik ainberze perdizio, orduan ta orai Jangoikoaren ministroek dute zelo kendu naiak gaixtoak ta gaixtakeriak mundutik. Uzkizie, dio Nausi andiak, igita denboraraño. Beartugu adoratu Jangoikoaren juizio justoak, burua kurturik. Naiz ezin entenda, zergatik dauzkien bizirik gaixtoak? Orgatik bizi da gaixtoa, dio San Agustinek, edo on daiengatik bera, edo arren medios proga daien ta obedaiengatik ona. Ezpalitz gaixtorik, zer milagro litzake izatea bat ona? Gaixtoen ertean on izatea orixe da grazia ta habilidadea. Ezpalitz izan tiranorik, non lizazke martirak? Berze alde bereala il balezki gaixto guziak, zenbat gutiago lidoazke zerura doazin baño? Ala, ezi beti izan dire ta izanen dire alor gontan onak eta gaixtoak igitadenboraraño, baita munduaren akabanza.

Igita denbora, edo munduaren akabanza gau guziendako da munduaren azken egunean, ta bakotxaindako bera ilzen den egunean, ezi orduan kontu mundua akabatzen dela arrendako (ezi ia oroat da munduko, nola izan ezpalitz sekulan. Ala joan direnendako kontu akabatu dela mundua, ia ezpaitute itekorik emen, baizik an). Orduan, bada, manatuko diotela, dio, igitarleei, au da, aingiruei, biltzeko zizañak, ta lotzeko paxuka erretzeko suan, au da, infernuan; ta garia, baitire justoak, paratzeko zeruko erreinuan. Goazen entendatus. Aingiruak batzuk dire onak daudenak zeruan; berze batzuk dire aingiru gaixtoak desterratuak zerutik daudenak infernuan batzuk, berze batzuk or goitiko aire gortan, deitzen direnak espiritu gaixtoak eta deabruak. Onen bilzea zerura da aingiru onen itekoa; gaixtoen biltzea infernura da aingiru gaixtoena. Eta zer nai du erran lotzea paxuka? Suberboak superbeeki, luxuriosoak luxuriosoeki, ordiak ordieki, asarreak asarreeki, inbidiosoak inbidiosoeki, ladronak ladroneki, herejeak herejeeki etc. Ezi infernuan ere dire leku ta pena diferenteak kulpen ariora. Goazen orai erreparatus agitzen dena ta ikusten eztena.

iltzen da bat; ellegatu da arren igitatzeko denbora; prest daude igitarleak nausi andiaren manamendus. Emen usteunte gorputza lurreko; ta nola guk ezpaitakigu zein den azi ona, ta zein zizaña, oroat, orzitzen dugu gaixtoa nola ona komuniki. Ta agian ez ain honratuki ona, barin bada pobre. Baña an arima ona daramate aingiruek anitz enhorabuena ta alegranziaeki paraisora, baita gloria, ezpadu purgatzekorik. Baña barin bada zizaña, arima gaixtoa, prest daude infernuko igitarleak, aingiru gaixtoak. Emen gorputza eramaten da agian anitz honra ta ponpa, argi, akonpañamentu ta kantueki elizara. Ikusi duzu, dio San Juan Krisostomok, nola eraman duten gorputza emen jendeek? Nolako prozesio ta akonpañamentuareki? Bai; ta ikusi duzu nola an eraman duten arima infernuko ministroek? Ango prozesio ta akonpañamentu lamentablea? Ori ez. Bada, istantean arrapaturik nola leonek arima zori gaixtokoa, niork ezin dezakela libra, daramate loturik bere infernuko lezera, an erre ta errabiarasteko eternidade guzian. Eta gorputza ermanko dute azken igitadenboran, erresurrekzio-egunean. An izanen da nigarra ta ortzen karraskotsa, dio Jesu Kristok. Libra gaitza, otoi Jauna, alako desgraziatik. Amen.

(Luc.16). Kontatzen du bere Majestadeak, zela gizon bat abratsa, bestitzen zena purpuras ta olandas, eta erregalatzen zen egunoro goapoki. Zela ere pobre bat deitzen zena Lazaro llagas beterik, egoten zena abrats garren atarietan nondik emain zioten ogi kozkor bat sobratuetaik, eta niork etzio ematen. Solamente tzakurrek lamikatzen zizkiote bere llagak. Agitu ze iltzea Lazaro pobrea, ta eraman zute aingiruek paraisora. Iltze abratsa ere, ta orzi zute infernuan. Andik asi ze klamatzen naies alibio zerbait: Aita Abraham, biali bez Lazaro otoi otoi, freska dezadan mia ur tanta bates, zeren bainago erretzen ta tormentatzen su gontan. Errespondatu zio: Seme, oroi zaite zeure bizian pasatu zinduzala gustoak, ta Lazarok gaitzak; bada, orai au dago gozatzen, ta zu penatzen, ezta erremediorik. Eta ala etzue logratu alibio pixka gura ere. Eta ia dena eskatu zio bial zezan mundura Lazaro ematera angok berri bere borz anaia zituenei, etzeizen ellega aiek ere tormentusko leku gartara. Errespondatu zio Abrahamek: Baituste Eskritura Sagratuak eta predikariak, adi bezkite. Ark erreplikatu zio: Ez Aita Abraham, baña joaten balitz iletaik norbait aiengana, sinestatukoute. Errespondatu zio Abrahamek, Ezpaitute aditu nai Eskritura Sagratuak eta predikariak, eztute sinestatuko, erresuzitazen balitz ere iletaik bat. Guziau kontazen du Jesu Kristok bere ebanjelioan. Doktrina eskojituak eskarmentazeko berzeren buruan, eztakigun agitu desgrazia bera geuren faltas. Eta, bada, ikusi dugu Jangoikoaren alorrean zein den gari, zein zizaña; ikusi dugu bien azken fina; estudia zagun al guzia izatean onak. Eta ez segi geienen bideas, baizik gutienas, ezi grano eskojituak guti dire zizañen ta agotzen aldean. Eta anitz lagun izateak infernuan ezta alibiatzen pena. Obe dugu penatu orai guti bat oneki, gozazeko gero beti. Zer etzindukete inen lograzeko izatea emen errege edo erregina? Ori ezin daike logra, bai ori baño ia dena, baita on izatea, erreinazeko beti Jangoikoaren glorian. Amen.

Sermo in Dominica 6^a
post Epiphaniam.
De via ad vitam

Simile est regnum coelorum grano synapis. Math.13.

Egungo ebanjelioan dio Jesu Kristok, agitzen dela zeruetako erreinuan ala nola zeape edo moztazaren granoareki, zein delaik azi txipienetaik bat, aziaskeros egiten da baratze-belar guziak baño andiago ta arbola bat, de manera ezi zeruko egasteak egoten dire onen arramaetan. Berze parabola bat ere erran zue, oranzarena, zeñek artzizen, sasoitzen, ta goratzen baitu ore a guzia ta ogia. Oranza ta mostazaren parabolan signifikatzen da, sanduen ta xakintsuen ustes, doktrina erakusten duena ebanjelioak, edo kristio onaren bizitza ebanjelioaren konforme dena, zeintas dion San Pablok: Momentaneum hoc etc. (2 Cor.4). Gure oraiko momentu bateko trabaju pixka gonek dakarra gloria-montio eterno bat Zeruetan. Emen eraiki, an bildu, emen azaroa, an eraizioa; emen mostaza pikor bat, an arbola gora andi bat. Emengo orantz pixkareki iten da ango ogi erregalatu preziosoa. Oranza ere berez ezta gustosko gauza; baño emateunte probetxu. Ontan adiarasten zaigu diona Jesu Kristok, latz ertxia dela bidea daramana sekulako bizitzara. Oraiko humiltasun, trabaju ta ertxidurak dakarrala gloriako gozotasun, deskansu: Ta gusto naiadiña ezin iagokoa. Orgatik zio San Pablok: Oraiko trabajuak eztire gauza, ez bardin, ta ez digno geroko gloria emanen zaigunaren aldean. Non sunt condignae passionnes etc. (Rom.8). (Baña trabajurik batere gabe ezta logratzen, ta ezta ere arrazio logratzea gloria gura. Ezta izanen koronatu eztena pelean bear bekala. Mundu gontan ere komunkiro gauza kontrarioak edo datozi beren kontrarioetaik, edo aien atzetik. Gau ilun tristearen atzetik eldu da ongi egun argi alegrea. Neguaren atzetik uda, tenpestadeaskeros serenidadea, tristurain ta negarren atzetik goxoago da alegria, trabajuain atzetik deskansua. Nauzu gozatu deskansu ona? Trabaja ongi. Nauzu bildu eraizio andia? Eraiki, ta barratu abasto azaroan. Nauzu egin lo aisa? Goixtartu. Nauzu jan gustoreki? Barutu ederki, ezi San Bernardoren salsak, baita gose ona, goxo itzulzen du guzia. Edatea nauzu dakizun goxo? Ez edan, ta in egarri. Nauzu gora goratu fabrika? Apal beiti barna zimendua. Ta ala berze asko gauzetan.

Baña emengoes dena dela, arimaren itekoan ala agitzen da, diones fedeak. Humillatzen dena orai, izanen da goratua, gero bentzait. Mortifikatzentuenak orai naturale gaixtoaren inklinazioak logratuko du bizitzea Jangoikoaren erreinuan. Aborrezitzen duenak orai bere burua, aurkituko du bizitza sekulakoan. Trabaju pasazen duenak Jangoikoagatik izain du premio deskansu eternoa. Pelean duenak ongi korona; eraikitzen duenak negarres bilduko du alegranzian. Oraiko aranzeek dakarzkite geroko loreak eta arrosak. Oraiko penek ango gustoak. Kontra, berriz, emen aisa ta an aisa. Emen gusto, ta an gusto. Emen gloria ta an gloria. Emen nola nai, ta an ere bai, ezta aurkitzen alakorik Eskritura Sagratuan. Seme, erraten zio kondenatu bati Abrahamek, oroi zaite pasatu zinduzala gustoak zeure bizian, eta Lazarok penak, bada, orai au dago gozatzen, ta zu penatzen (Luc.16). Beras, berze aldera itzuli bear da emengo on edo gaitza). Ikusagun. Baña lenik saluta zagun Maria Santisima: Abe Maria.

Mostaza-grano preziosoa da Jesu Kristo gizon dibino gura; berak paratu zue ebanjelioko doktrina, ta bera paratu ze arren exenplu. Jautsi ze Zerutik lurrera, erakusteko

lurrekoei igaten zerura; ta ez kontent erakutsias itzes ta letras, bera paratu ze alzinean bidean segi dezagun. Ezi nor da Jesu Kristo? Da Jangoikoaren Semea, gizon egin zena, gu erredimitzeagatik ta bizitzaren exenplu emateagatik. Andia zelarik Jangoiko bekala, egin ze txipi; zegolaik jarri bere gloriako tronoan gora, gu iganarasteagatik arara, jautsi ze, humillatu ze eginik obediente eriotzeraño, ta gurutzeko eriotzeraño, dio San Pablok. Orgatik Jangoikoak goratu zue ta eman zio izen bat izen guzien gañetik, Jesusen izenera belaurika daien zeruan, lurrean ta infernuetan den guzia, ta mi guziak konfesa dezan gure Jaun Jesu Kristo dagola bere Aita Jangoikoaren glorian. Orra mostaza-grano xea azirik ta eginik arbola andia, zeñen arramen pean dagozken zeruko egasteak, aingiruak eta sanduak. Eta, bada, San Pablo berak dio, ezi Jangoikoak bere gloriarako berexi, eskojitu edo predestinatutuenak, nai duela egin daizen bere Semearen imajinaren konforme, beira zagun imajina gau emen pasatu zuen bizitzaren bidean.

Beñik bein zeikelaik egin gizon amarik gabe, nai izan ze egin bere Amaren, ta Ama pobre baten sabel birjinalan. Jaio ze etxetik kanpoan, Belengo etxola pobre batean pobre-aintzu. Joan ze iges Ejiptora bere Amaren besotan. An pasatu zue aurzutua pobre-gisa. Mutiko ta mutilzutua Nazareten obediente Ama Birjinai ta San Josefi. Bataiatu ze San Juan Bautistaren eskus, nola balitz bekatari. Barutu ze berrogei egunes, ibili ze irur urtes nekaturik salbatzen mundua, guziei ongi egiten, garbitzen leprosoak, sendatzen eriak, argitzenitsuak, erresuzitatzen ilak, libratzen endemoniatuak, ta prinzipalki barkatzen bekatuak, ta bekatarien atzean, ta aieki kontino, murmuratzen baizute ontas, zela bekatarien adiskide. Eztuzu ikusi bekatuen etsai andiagorik, ta bekatarien adiskide andiagorik. Eben salbatzeagatik utzi ze azkenean eramatera preso, nola balitz gaizkiegillerik andiena, lenik Anasen etxera, andik Kaifasenera, andik Pilatosengana, andik Herodesengana, andik berriz Pilatosengana. Lenbiziko etxean eman zioten bofetada bat aurpegian. Kaifasenean etxideten zegozkio nola otsoak axuriari bere etsai madarikatuak, ta nai aurkitu ta ezin aurkitu zerbait kulpa, edo kulpa iduri, eta zeren obligaturik konfesatu zuen nor zen, eutxi zekizkio guziak andik ta emendik golpeka eskus ta oñes, lixtukatu zute, tiratzen zizkiote biloak, bendatu zizkiote begiak, ta jokatu zute burlas ta eskarnios. Guzietara ixil Jesus onegia. Gau gura kalabozoan pasaturik agitz neketan, biramonean presentatua izan ze Pilatos juezaren alzinean. Onek bereala ezaun duzue etzuela kulparik, eta inbidia-utses ekarri ziotela gaixto gaiek, zeñeki ezin errehabatus biali zue Herodesengana. Onek zeren ezin atrarazi zion itzik, tratatu zue ero-aintzu, bestiturik manta txuri bates, ta ala milla burla, txistu ta laidoen ertean itzuli zute Pilatosengana. Onek proponitu zue Bazkoakara ustea libre Jesus edo Barrabas, baize ladron giza-ilzale bat, ta naiago izanzute gaixto gau ezi Jesus. Lastimarasteagatik madarikatu gaiek azotarazi zue, ta azotatu zute borz milla ta ia azotukaldieki usturik odoles ta aragis axuri dibinoa. Gero paraturik aranzesko ustai bat buruan, manto zar bat soñetaik, ta kana bat eskuan jokatu zute irris ta eskarnios errege falsua bekala. Gero sentenziaturik ilzera gurutzean, arturik bere soñean, ta ezin xaxis, erorka erorka en fin ellegaturik Kalbariora, an josi zute esku oñetaik itzeeki gurutzean, ta ala goratu zute airean. Nolako pena ta oñazeeki, ezin daike entenda. Alaere oraño ere iten zioten eskarnio gaixto gaiek. Eta Jaun dibinoa ixil egon zena orduraño, mintzatu ze orduan: Aita, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren. Azkenean irur ordus iraundurik agonian, ilze goatze penasko gartan. Gero erresuzitaturik bere birtute propios, igan ze zeruetara etc.

Zertako erran dut au guziau? (errespondatuko dut bereala. Lenik da erratea zertako pasatu zuen Jesus onak. Bere izenak dio, baita Jesus salbazalea, salbazeagatik gizagendea. Au zego eri desauziatua sekulakos. Jautsi ze sendatzera Mediku soberanoa Jesus: Borz

letratu izenean, ta borz prenda edo abantalla mediku dibino gonek: 1^a Habilidadea sendatzeko segurki eri-jenero guziak, ilak ere. 2^a bisitatzea deitu gabe eriak, ta errezetatzea doaiik grazias, orra ebanjelioko doktrinan ageri da. 3^a Berak bere kostus paratzea erremedioak; beira sakramentuetan. 4^a Bere eskus, ta bere ministroen medios, zein baitire sazerdoteak, aplikatzea eriei sendatzeko. 5^a Sekulan aditu eztena, berak sano dagolaik arzea erremedioa sendatzeko eri dagona, berak pasioaren trago amargoa ta sangria lotsagarria librazegatik esklaboa mereji zuena infernuko pena. Nork ikusi du alakorik?

Orai diot zertako erran dudau au guziau:) Tratatzeke imitatzeas bera, ta izateas beraren konforme gu ere, ezi salbatzekos bearko izan konforme. Praedestinauit conformes fieri. Jauna, nola da posible? Konforme guzis bardinean, ori ezta posible; baña bai prokuratzea bide beras segitzea nolapait atzetik. Ezi berak erakutsi, berak artu erremedioa guk bear ginduen, ta guk ezpadugu arzen, galduak gara. Gure ez erremediatzea dago izatean jaiotzes aundi naiak, gusto naiak ta aisa naiak. Erremedioa errezetatu zigu mostazaren xe, minkaitz ta erruan. Baña exenplu eman zigu bere humiltasun ta neke pena ain andietan bizian ta iltzean, nola erranbaligu obraeki: Auda bide erreala zerurako; emendik eztoaiena galzen da sekulakos.

Ea bada, Jesus doaie lenean, aldakan bere Ama Santisima, atzetik sanduak eta sandak, gizagendearen flore florea, prozesio eder luzitua. Pregona da au: Qui vult venire post me, abneget semetipsum, tollat crucem suam, et sequatur me: nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeei, ar bez bere gurutzea, ta segi benaza. Goazen entendatus pregon andi gau. Qui vult venire post me. Nai duenak etorri ene atzetik, entenda zeruko gloriara, bizitza sekulakora. Nork ezta naiko? Bada nai duenak ori, in bear du au. Zer? Abneget semetipsum, ukatu bere pasionei. Nola entenda au? Ala: Dio suberbiak: He goapo kanpa, burua gora, ez in kasorik buratsoas, zarragoas, niores. Uka bedi, dio Jesu Kristok, ez konsenti pasione gorreki. Dio luxuriak: Diberti, egin gustoak, goazen bide zabalas, nolanai suelto etc. uka bedi, dio Jesu Kristok. Eta ala iran, kodizian, gulan, perezan ta gañarakoetan. Tollat crucem suam, ar bez bere gurutzea. Zer gurutze? Trabaju bear dena kunplizeko Jangoikoaren manamenduak. Irur jenero trabaju daizke konta: Jangoikoaren eskutik direnak, proximoaren eskutik, ta bere eskus artu bear direnak. Jangoikoaren eskutik eritasun, plaga, desfortuna deituak, ta bear dire eraman pazienzian. Proximoaren eskutik desarrazioak, agrabioak, gaizki eginak etc. Eta preziso da sufrizea. (Daike defenda bere dretxoak arrazios ta justizias ere, baña ezta lizenziarik aborrezizeko gaizkiegillea, ilzenba gaitu ere. Beira ia ezten trabaju). Bere eskus trabaju bear dena da aixtean errana, errepugnatzea ta garaitzea nork bere pasioneak. Bat tentatzen du banidadeak, berze bat kodiziak, berze bat luxuriak. Au da lisiatua ardoan, ura laminurian. Batek du kolera pronto, berzeak mia, ta ala nork bere bizioak. Eta bearko errepugnatu ta emendatu. Ezta au gurutzea ta trabajua? Eta ori bizi guzian? Orgatik dio Jesu Kristok: ar bez bere gurutzea. Eztio nere gurutzea, ezi nola gindezake guk soporta ainberze nola berak? Baña ezin daike exkusa trabaju bear duena nork bere ariora librazeko ofenditzetik Jangoikoa. Eta agi daike aurkitzea bat obligaturik galzera bizia, ezperen kondenatzea. Exenplutako: nai baliote ukarazi fedea, edo galarazi kastidadea, edo inarazi edozein bekatu Jangoikoaren legearen kontra, zer in bear du lanze gartan? Eskapa, al badaike, eztelaik senti arimo askoreki emateko bizia, baña ezin eskapadaikelarik, alako ertxiduran in bañolen Jangoikoaren kontra galdu bear du bizia, ezperen da kondenatua. Orgatik bear diogu eskatu Jangoikoai ezdezala permiti aurki gaitzen alako ertxiduran, edo eman dezagula indar galzeko bizia beragatik. Baña, oh, zenbat bekatu iten diren debalde

eztaizkenak egin librazegatik ere bizia? Eta zenbat etzirenak kondenatuko ezipazire aurkitu alako ertxiduran, bide daude kondenaturik, zeren flakeatu ziren bear orduan? Ia ezten trabaju: ar bez nork bere gurutzea, dio Jesu Kristok, ta segi benaza. Klaro da au.

Orgatik asko kristio bizi dire engañatuak kontentatus egiteareki zenbait errezu ta debozio. Ebek on dire, baña ez aski gurutzegura gabe. Obligazioak kunpli ta debozioak ez utzi. Ezperen, errain digu Jesu Kristok erran ziotena eskribei ta fariseoei (Math.23 et15): Ah zuetas, hipokritak, amarrenzenduzienak menda ta deus guti balio dutenak, ta ez kunplitzen legearen prinzipalenak. Ebek in bear zire, ta aiek ez utzi. Ongi erran zue Isaiasek zuetas: Jende gonek ezpañes honratzen nau, baña beren biotza urruti eneganik. (Zenbat kristio-axal dire mota berekoak? Bella arat eta onat, errezu, meza, ori guzioi bai, baña aparta okasioetaik, utzi lagun gaixtoa, barutu ardoan edo laminuria usatuan, ori ez. Grazioso da kontatzen dena penitente bates manatze ziola konfessoreak penitenzian zenbait baru. Ark atxekia andik eta emendik, etzükela. Ots, bada zenbait limosna; ark etzükela. Ots, bada zenbait disziplina; ark: Ori bai, ori bai. Admiraturik galdegin zio: Nola zuen naiago penitenzia gau berzeak baño? Ark orduan: Bada, eztut neure eskus artu bear disziplina? Bada, min ematen duelaik, eman emeki. Orra nola nai zuen penitenzia trabajurik gabe). Ar bez bere gurutzea, dio Jesu Kristok, ta segi benaza.

Baña kristio falsu arras engañatuak dire eztutenak proposito firme sina, baizik terzianarien gisara, aldartes bai, aldartes ez. Orai goartuko gara guti bat, gero suelto nola nai. Eta ala beñere eztire on egiaz, solamente denbora aldi bates ez ain gaixto agerrian, baña beti gaixto biotz barnean. Ezta au segitzea gurutzeareki Jesu Kristo. Jauna, agi daike deskuidatzea bat denbora bates, ta gero akorritzea ta salbatzea. Bai, baña nola? Delarik penitenziaren pena ain biotzeskoa, ezi emenda daien ta supli dezan lengo falta penitenziaren trabajuas. Baña zenbat ikusten da, len zirenak suber presumitu, itzulzea humil; zirenak deshonesto, itzulzea kasto; zirenak otso axuri, ta otsorraiak uso? Zenbat ia ikusten da lengo azi ta kondizioeki? Len asarre, gero asarreago? Len ardozale, gero zaleago? Zenbait kondizio gaixto agian gutitu, baña berze batzuk añaditus? Eta kondizio gaixtorik batere eztaike sartu zeruan, ez eta bekaturik ere. Bear dire erremediatu, ezipada guzis obras, bentzait urrikimentuas, penas eta negarres. San Pedrok ukatu zue bere Maestru dibinoa pasio-gauean beldurak, baña akorritu zelaik ala urrikitu ze, ezi bizi guzian iraundu zio pena garrek demanera ezi diote negarrain utses in zekizkiola bi erreka aurpegian begien pean. Ta gero eman zue bizia guruzean konfesatzeagatik bere Maestru dibinoa. Baña agitu ze grazia bat ontan ere, adiarasteko bizi bear dugula noiznai duen, ta il ere bai, noiz nai duen bere Majestadeak. Inzute preso Jerusalem sandua, ta kristioen orazioen atenzios libratu zue Jangoikoak. Inzute preso gero Roman, ta kristioek injeniatu zue atratzea. Bazoeie libre sandua, ta bidean aparezitu zekio Kristo guruzeareki soñean: Jauna, nora doaie? etc, etc, etc.

Sermo in Dominica
septuagessimae.
De laborando tempestivè
in servitute Dei

Exiit primo mane conducere operarios in vineam suam. Math.20.

Luzekara da egungo ebanjelioa, baña onen mamia solamente berexiko dugu. Agitzen dela, dio Jesu Kristok, bere Elizan, ala nola etxe-nausi bateki, atra baize goiz-goizean alokatzera peonak edo langinak bere ardantzerako, ta ajustaturik alokairua, biali zitue lanera. Gero irur aldis atrarik garai diferenteetan, aurkiturik zenbait alfer, biali zitue aiek ere, emain ziotela arrazio zena. Egun-apalean ia berriz atrarik, ta aurkiturik berze batzuk alfer, erran ziote: Zer ai zarate ala alfer egun guzian? Zoaste ene ardantzera. Arratsean gero emanarazi zue alokairu osoa guziei, asirik azkenetaik ta lenbizikoetaraño. Ebek murmuratzen zute: ordu bates solamente trabajatu dutenak egintu bardin gureki, erman baitugu egunaren ta beroaren pizua. Nausiak erran zio ebetaik bati: Adiskidea, eztizut perjuiziorik egiten. Arzazu zeure alokairu ajustatua, ta zoaz Jangoikoareki. Nai badiot azkenekoai eman oroat, ez dezaket egin nereas nautena? Zure begia da gaixto, zeren ni naizen ona? Ala azkenak izain dire lenbiz, ta lenbizikoak azken. Ezi anitz dire deituak, baña guti eskojituak. Orra ebanjelioa. Orai goazen atras mamia. Etxe-nausi gau klaro da dela gure Jauna, zeñen majestadearen aldean mundu gau kontu dela etxe bat, ta txipia. Ardantzea Eliza, au da, Jangoikoaren familia. Peon ta langinak bere predikari ta ministroak beti izantuenak lanerako bere alokairuan. (Garai diferenteak, kontu direla munduaren adinak: goiz goiza, edo argi-astea Adanen denboratik Noeneraño, dio San Gregoriok; bigarren adina edo garaia Noen denboratik Abrahameraño, irugarrena Abrahamen denboratik Moiseseneraño, laugarrena Moisesen denboratik Jesu Kristoreneraño, borzgarrena Kristoren denboratik munduaren akabanzaraño. Azken sartu diren peon ta langinak dire Kristoren apostolu ta ministroak guti denboras anitz trabajatu dutenak, alokairu osoa tiratu dutenak. Eta ala azkenak izan dire lenbiz. Baitare zeren ia balio baitu ordu bates trabajatzeara intenzio ta gana onean Jangoikoaren estimazioaindako, ezi ez asko ordus fadorik gabe, epel epela, ez in bai in).

Baña nola gizon bakotxa baita mundu txipi bat, Jangoikoaren ardanzea beraren espiritua dezakegu entenda. Peon ta langinak beraren potenziak ta sentidoak. Lan in bear dena, ontzea persona, ortako garai diferenteak personaren adinak, zeñetan dagon Jangoikoa dei ta dei. Alokairua, grazia orai, ta gloria gero. Goazen ia beiratus agitzen dena. Baña eztakigula atzen egitea diosalea gure etxokandre Maria Santisimari. Abe Maria.

Zer ofizio duzu, adiskidea? Batek dio ezi nekazari, berzeak zurgin, berzeak argin, edo txastre etc. Baña ori diote bigarren ofizio artu dutenas; eta nik galdegiten dut lenbiziko ofizioas, jaiotzes dakargunas, baita nekazalgo espirituala. Guziok, bada, txipi, andi guziok gara nekazari espirituale Jangoikoaren ardanze gontan, zein baita geuren persona edo espiritua. Da Jangoikoarena ta geurena, zeren baita Jangoikoak guri emana lanzeko. Diferenzia bat aurkitzen dut konparazioan, baita, ezi landuaskeros ardanzea, langinak du bere alokairua, baña nausiak arren probetxua ta fruitua. Baña gure arimaren ardantzegotan guk tira alokairua, guk probetxua ta fruitua, ta nausi dibinoak solamente nai du onaren

honra ta gloria. Goazen orai lanera. Au erreduzitzen da ontzera espiritua edo arima, ekarzeko birtuteen ta obra onen fruituak zerurako. Bai ta zer lan in bear da? Asko lan ardatzean: ia poda, ia garbitzea, ia laia, ia otazena, atratzea belar ta karduk (sarzea morrioak, lurre berritzea, ongarrizatea, matxarde ta gañarako bear direnes suplitzea). Ezta lan gutiago ardantzeko espirituale gontan, eta ori kontino, kentzeko bizioen, kostunbre gaixtoen ta bekatu-jenero ain berzeen belar gaixtoak. Plantatzeko, azitzeko ta goardatzeko birtuteak, humildadea, miseriakordia, pazienza, kastidateko ta gañarakoak, guzien gañetik karidadea. Itz bates, ontzea edo egitea ona personai, ekartzeko Jangoikoaren amorearen ardo ona, mostratus au arimaren memoria, pensamentu ta afektoetan Jangoikoagana, egitean anitz obra on Jangoikoaren gustotan, trabajatzean, padezitzean, ta sufritzean Jangoikoaren amores ilartano.

Ortako, zein goizik asten den gure Nausi dibinoa, ta segitzen duen anitz aldis dei ta dei ontzera gizona anitz garaies, au da, adines! Borz berextentu ebanjelioan, ala nola gizonaren borz adin izan daizkenak, ezpadu eriotzeak auxten biziaren aria lenago: Lenbizikoa argi-astea, auda, mutikozutua, zazpi urtetaik amaborz edo amaseitaraño; ezi komunkiro ezta arkitzen ezaumentua lenago. Ezta deskuidatzen Jaun dibinoa lenagotik ere prebenitzeas ta deitzeas arima beregana, emanen konsejariak, erakustunak, gidariak onerako, baitare inspirazioak biotzera erraten diola, goarda zaite bekatuetaik, manteni garbi arima bataioko grazian. Izan zaite ona, baita habilidade ta ditxarik andiena. Ez segi munduko en gezurak eta en gañoak, ezi erorzen bazara infernuan, etzaitu niork atrako andik. Eta erorzeko an, aski da bekatu mortale bat, goar goartu zaite admititzetik mortale denik, obeuzu il milla aldis. Ala deitzentu bereak Jangoikoak goiz goizean, ezaumentuaren argi-astean.

Bigarrena zer garai, edo zer ordu da? Gastezutua, amaseitaik ogeitamar amiru urtetaraño, adin peligruso, inguraturik anitz tentazios, lagun gaixtos, okasios ta zebos, odola irakiten zañetan, zoritu gabe ongi ezaumentua, alde guzietatik bulkatzen munduak, demonioak ta aragiak en gañatus arrapatzeko lakioan. Ditzosoa nor ere libratzen den adin gortan! Baña ezta deskuidatzen Nausi dibinoa deitus beregana: Zer ai zara? dio. Uzkizu munduko banidadeak, Ejiptoko tipulak eta farraskak. Segi segi Jangoikoaren bidea. Emanentizu gusto obeak, manna zeruko. Arzazu estado obeki dagokizuna seguratzeko salbazioa, ezperen, gero urrikiak eta negarrak etc.

Iruigarrena zer ordu da? Egerdi, adin erdikoa ogeitamabi edo amirur urtetaik berrogeita zenbaitetaraño. Dei ta dei dagokio. Noiz arteo egoin zara deskuidaturik? Ordu da oroitzeko bizitza sekulakoas. Zaiaren bilzale ta irinaren barrazale, nai du erran, ez egon beti sarturik lurreko ondasun, iteko ta joanetorrietan, baitire zai. Kuida ia arimas, eternidadeas, Jangoikoas. Gasteagokoak eta aurrak doaz arrapatus zerua, eta zu beti lurrean sarturik, edo lurrera beira nola animaleak etc.

Laurgarrena egerditik bera arratsaldearen erditsutan, zer ordu da? Adinaren burusbera berrogei ta zenbait urtetaik iruogetaraño, noiz asten diren zañak gogortzen, indarrak gutitzen, laburtzen bista, urdintzen biloak etc. Oiuten du Nausi dibinoak. Ots, noiz izan bear da? zarbaildu da ia parete lurreksa, erorzera inklinatu da. Eriotzea asi da bialtzen bere mandatariak. Utzi utzi mundua nai etzaituena. Nik nai zaitut, atoz enegana, etc.

Borzgarrena arratsalde apalean, zer ordu da? Biziaren postrea edo ondarra, iruogei urtetaik alzina, eriotzearen bezperak. Oiu iten du Nausi dibinoak quid hic statis tota die otiosi? Zer ai zarate egun guzian, au da, bizi guzian alfer? Ea, ertxitus doaie plazoa,

urbildus eriotzea, gorputzaren etxe lurrekoan ageri da. Utzi naizaiste munduak; utzazie lenik zuek bera, ta emanzaiste Jangoikoai guzis. Lenago lenago bear ze, baña ondarttoak berere anitz negarreki malogratuas prinzipala. Oin bat ia obian. Zertan zauste? Badoaie soñatzera erretreta, ertxizera atarzia.

Orai azkenean naitut erabaki bi puntu: Lenbizikoa langin gaien kexa, zergatik edo nola den ematea nausiak alokairu bera asi zirenei berant? Da, zeren gure Jaunaren grazias, ta beren dilijenzia propios suplitu zuten lengo falta; ikusten dugu Santa Maria Magdalena, San Pedro, San Pablo, San Agustin ta berze asko deskuidatu zirenak izanes bekatarik len, orai ain sanduak ta honratuak Jangoikoaren etxean, nola in ezpalute bekaturik sekulan. Ontan da ageri gure Jaunaren ona, baitare aien penitenziaren fina. Nolako finezareki trabajatu ta padezitu zute anitz, ta nai zute ia ta ia Jangoikoaren amore puros? Berze alde zer kontriziosko pena erruak presatu ziote biotza? Zer negarresko errekek zerizkiote begietaik oroitzeas solamente ofendi zutela bere Majestadea? Eztiot bizi bat, zenbat bizi galdu naiko zute lograzeagatik al baleike ez ofenditua? Baña egina eztaikelaik izan ez egina, desegin zute negarres. Ordu bateko negar alakoek eztute balio ia ezi gure anitz egun ta urtetako zerbitzu epel puxkek?

Bigarren puntua da deabruak Jangoikoaren ontasunaren okasios parazen diotena buruan askoei, bada, gaizki egina daike erremedia urrikimentuareki; orai bizi gaitzen suelto nola nai, gero konbertituko gara. Miserikordioso da, edozein ordus konberti daien bat, admititzen du. Emogun orai denborai berea, gero emanen gara Jangoikoai. Zer da au, ene fielak, baizik erratea bekala, ofendi zugun Jangoikoa, zergatik baita miserikordioso? Izan gaitzen gu gaixtoak Jaungoikoareki, zeren Jangoikoa baita ona gureki. Gisa gontako sazerdote bati mintzatu zio bein hostiatik aldarean gure Jaunak amolsu: Zergatik tratatzen nauzu ain gaizki zuk ni, tratatzen zaitutelaik ain ongi nik zu? Goazen desengañatus. Beñik bein zer txarkeria ezta eman naia deabruari, munduari ta aragiari adinaren obena, biziaren floreak ta fruituak, eta gero Jangoikoari ondarrak, kozkorak eta farraskak? Berze alde nork dezoke seguratu, naiz izanik gero denbora, konbertituko dela bear bekala? Ortako bear da Jangoikaren grazia andia, ezta obligaziorik emateko alakoai, ta ezpadio ematen doaiik, eztaike konberti sekulan. Bear da ere aldatu biotza; aborrezitus amatzen zuena len, ta kontra. Ain aisa itzulzen da beltza txuri, anitz denborako afizionea kentzen istantean? eta egoin da deabrua deskuidaturik ertxitzeko bideak? Bizian gaixto, ta iltzean on, ori da Jangoikaren milagro. Ezta komunki agitzen dena; berze gau bai, nola bizia, ala iltzea, baitio San Agustinek. Berze alde nork dezoke niori seguratu egun bat ere? Biar biar; itz gau da galtzentuena asko. Biar biar latines da, cras cras, otsorraiaaren boza, dio San Agustinek. Gelditzen dire kanpotik beren otsorrai boza gorreki, ez izanes usoaren kurruka. Remansit fóris cum voce corvinâ, quia non habuit gemitum columbinum. Ondatuaskeros gizagende ta animalegende guzia dilubio unibersalean, Noe salbatu ze bere familiareki, ta zenbait animale ta egasteeki Jangoikoak inarazi zion arkan. Gero, atertuaskeros dilubioa, biali zitue arkaren leiatillatik ia usoa ia otsorraia, ezaunzeko sekatuote ziren lurrak. Itzuli ze usoa, ibiliaskeros errebolatus arat onat, ta ez aurkitus non frinkatu oñak, eta artu zue Noek bere arkara. Otsorraia, berriz, gelditu ze aragi zar xaten; ertxirik arka, gelditu zen kanpotik. Biz arima, ez otsorraiaaren gisa zebadaiena munduko gauza urrinzuetan, bai usoa bekala, eztelarik aurkitzen nion baizik arkan, onara eldu baita laster? Arka zer da? Konzienzia ona Jangoikoaren amorean ta anparoan. Ez deskuida nior duenik maite bere burua, eztakion ertxi ataria, ta gero negar eternidadean. Chrisorius clam<...> mori inducian vel usque mane, frustra. (reg. dial. l.4. c.38).

Sermo in Dominica
sexagesimae.
De verbo Dei audiendo

Exiit qui seminat, seminare. Luc. 8.

joan den igandean ardanze-lanaren, egun alor-eraikitzearen konparazioa paratu digu Jesu Kristok, baitezokete eman esker milla nekazariak, zeren ala baitauka biotzean ta memorian nekazalgora, honratzen delaik atras ontaik bere konparazio ta parabola geienak. Dio egungoan, atra zela eraikizalea eraikitza, eta eraikitzaerakoan erori ze grano bat bide-ondoan, eta oinpetan artu zute, ta txoriek jan zute. Berze bat lur kaskallu-arrizuan, eta jaio ta eartu ze humedade faltas. Berze bat larren ertean, eta larrek azi ondoan ito zute. Berze bat lur onean, eta eman zue batendako egun. Au erran, eta oiuiten zue: Duenak bearri aditzeko, adi bez. Gero bere diszipuloen petizios explikatu zue parabola gau ala. Eraikitzen dena da Jangoikoen itza. Bide ondoan da adizale ajolakabeetan, etorri deabruak ta kentzen baitote biotzetik, eztaitzen salba sinestatus. Kaskalluan da, noiz aditurik ere gustoreki, ezpaita barneratzen, au da, zañak ez egin barna, baizik axal axala, sinestatu berla gartan, ta tentazio-orduan faltatu. Larren ertean da, noiz aditu ta munduko iteko, ondasun, ta gustoan kasos itorik ezpaitu ematen fruiturik. Lur onean da, noiz aditurik biotz on onareki goardatzen baitute, ta ematen fruitu pazienzian. Onaraño da ebanjelioa: fruitu atratzeko, ikasagun prebenitzen biotz onaren lurra, errebitzen, goardatzen ta aziarasten Jangoikoaren itza. Goazen salutatus Maria Abe Maria.

kriatu zue gizona Jangoikoak bere imajina ta semejanza arimaren aldetik: imajina ta semejanza gau desfiguratu ta itsustu du gizon berak deabruaren intxas ta inspirazios bekatu ta bizioeki. Jangoikoak nola onesten baitu bere obra, eztakion galdu, beti dago naiak konberti daien beragana; eta nola konberti ze gau bear baita egin nai duelaik gizon berak Jangoikoareki bateo, dagokio dei ta dei kontino konbidatzen milla modus ta maneras. Prinzipalena da eraikitzea bere azi ona arren biotzean berriro. Konparatzen da orgatik eraikizaleareki: badezake eraiki, ta eraikitzen du asko aldis, gorputzaren sentidoes baliatu gabe, zuzenean biotz barnera, arkitus entendamentua, mogitus borondatea, inprimitus an biotzean nai duen gura; au deitzen da inspirazioa. Ta inspiratze gau da eraikitzaerik obena. Baña berze asko aldis inspiratzen ta eraikitzen du bere azi ona, bere itz dibinoa, gorputzeko sentidoen medios ikusiarazis ta sentiarazis bear dena, exenplu ones, eskarmentus, faborees, trabajues, ones eta gaitzes konberti daien. Baña sentido geien usatzen duena da adimentua, adiarazis andik bere itza. Orgatik da ebanjelioko oi u gura, qui habet aures audiendi, audiat. Duenak bearri aditzeko, adi bez. Fedea, baita sinestea, ta on guziaren zimendu ta prinzipio, eldu da aditzetik, dio San Pablok, (Rom. 10) eta aditzeta Kristoren itza dela medio. Aditzeta doaie lenean, atzetik darraizkio gañarakoak. Lenik aditu bearries, gero entendatu entendamentuas, gero abrazatu biotzas, gero konfesatu agoas, gero obratu on dena eskus, oñes ta bizi guzias.

Ala delarik, ta Jangoikoaren azia delarik beraren itza, predikatzea eraikitzea, ta eraiki gau azitzeko biotzean, bear delaik pasatu adimentutik aditus ongi; gaitz gaixtoa bide da sorreria espirituala. Jangoikoak goarda. Orgatik kristiatzera eldu denai elizara, sartu orduko an, bataiatu bañolen, sazerdoteak bi eries bere lixtus ukitzentio bearriak, diola: Epheta, nai baitu erran, idiki zaite adimentua, baita ala nola mostraptea, zein preziso den

salbatzekos adimentu ona izatea. Goazen bada kuratus sor espiritualak aditzeko ongi. Ortako bear da goartu aditubañolen, aditzerakoan ta aditu ondorean, ala nola maneaten baita lurra, eraiki baño len, eraikitzean ta ondorean.

Lendanik da artzea afizione ta estimazio Jangoikoaren itzai, delaik deitzen den bekala Jangoikoaren itza, eta gizonaren sustenturik obena. (Math. 4). Zer juizio iten da jateko apetiturik eztuen personas? Edo esnea nai eztuen aurras? Eztago anbat ongi, diozie, ta diozie ongi; baño obeki erran daike ori beroi dutenes desafekto ta oposizio Jangoikoaren itzari. Jai ta igandetan manatzen digu Elizak parrokoiei doktrinaren eraikitze gau; bakotxari manatzen dio aditzea bere bearrak eta probetxuak. Munduko eskolatarak akuditzen du egunoro ikastunak ikasteko emengo arteak. Arrazio da akuditzea zeruko eskola ta zeruko arte dibinora igandeoro berere. Egunoro aurrak arzen du esnea; ta andiak alimentua bizpiru aldis gorputzaindako: zer milagro da bein berere asteoro arzea arimaren esnea ta alimentua, baita Jangoikoaren itza ta doktrina, balio duelarik arimak anitz ia? Erosi zuelaik Kristok bere bizi, ta odolaren kostus? Joanaskeros aditzera, goazen prebenitus biotza intenzio ta ansiareki errezibitzeko an Jangoikoaren azia ontzeko bat, ta itzulzeko Jangoikoaren gustora. Jauna, erran, prest dago ene biotza, prest dago. Mana bez ta erakus bez bere ministroaren agos nai duena in dezagun. Eman bezo grazia errateko ongi, eta niri aditzeko ongi.

Aditzerakoan bear da egon geldi, ixil, attento, ala nola eldu balire berri onak Zerutik, ezi ori nai du erran ebanjelio berri onak. Ez galdu itzik, albas, baizik probetxaguziak, nola balire Zeruko azi pikorrek. Ez anitz errepara predikariain grazian, moduan ta mintzaeran; baizik artu ematen zaiona borondate ones. Eraikitzean errepara daikena da den gari ona, ez iten den kapatxas, edo zakuas. Gose ona duenak, janarias iten du kaso, ez platerain kalidadeas. Oroat edatean, biz ardo ona, ezi den pitxeras edo botellas, eztu anitz inport. Ikusten da iturriren bat dakarrana ur on garbia, duelarik kañua serpiente baten figuran. Nor da ain sinple errehusa dezan edatea orgatik? Alako iturri-gisa naiz ni ere; baño ematen dut doktrina onaren ur ona. Alaber, ez punturik arrapatu itzetan, ez artu punturik erreprehensioas; pensa erraten dela asko gauza, naiz ez agiturik emen, agitzen direnak munduan, ta agi daizkenak nonnai, eta eztaitzen agi. Ukitu badio bere lllagan, pensa paratu diola Jangoikoak agoan bere erremediotako; goazen emendatus, arrazio dauka, erran bear du, eta ez erremedioa itzuli beneno. Ez eman kurazaleain kontra, naiz usa dezan aldiska erreprehensioaren lanzeta, ezi badike asko lllaga beaustenak lanzeta sendatzekos, ezpaita aski ungendu leguna.

Aditu ondorean erreserba biotzaren despensan prinzipalenak berere bear-orduko; eta joanaskeros egon pensatzen berebaitan, eta ala nola errekonozitzen ta ausnartzen amentto bat edo berze; ezi emen aitu ta emen utzi, bearri batetik sartu ta berzetik atra da nola eraikitzea arean ta eskribitzea urean, alferlan; ta señale txar txarra, zeren ezi diones San Gregorio andiak egungo ebanjelioan, (in Breviario) oroat nola estomago gaixtos itzultzea jan dena da arras atzentzea errana. Bada, gelditzen ezpada alimentua, joan da bizitzeko esperanza. Laudatzea, edo tatxatzea predikaria, ura da alfer, au gaixto. Obe atra konbersazioan ala nola platerito spirituale bat, kontatus batek exenplua, berzeak arrazioa, berzeak konseju, erreprehensio ta gauza aitua, probetxatzeko elkar. Ala iten delaik, kontu eliza dela an, ta bakotxa predikari, ta aieki dago gure Jauna, ezi ala erran zue bere Majestadeak. (Math. 18). Non ere dauden bizpiru bildurik ene izenean, an nago ni aien erdian. Baña oben obena da kuidatzea egiteas erranak noiz ta nola datozin eskaidak; auxeda da propioki erorzea Jangoikoaren azi ona biotz onean, ta ematea fruitu abasto. Auxeda

propriki aditzea, ta señale on bat dela bat Jangoikoaren, zion bekala Jesu Kristok Jangoikoaren denak aditzentu Jangoikoaren itzak, baña zuek, erraten ziote judioei, orgatik eztuzie aditzen, ezpaizarate Jangoikoaren (Joan. 8). Aditzen zute bearries, naiz bai; ez egitea erranak da ez aditzea Jangoikoaren kontuko.

Alako adizale ez adizaleak irur motakoak aipatzentu ebanjelioak egun alorraren irur zati bekala, non galzen baita gure Jaunaren azi ona: lenbizikoa bideondokoa, baitire bidanabar aditzen dutenak, ajolaik gabe, denbora pasa, or konpon, nola nai, emen gorputza, gogoa arat onat. Aisa kenzen diote deabruak biotzetik azi ona ain axal gelditu dena. Oroat da ori nola ez aditzea. Bada señale, eztirela Jangoikoaren. Bigarrena lur kaskallu arrizua, au da jende kaskarina, buruxolak, inkonstanteak, terzianariak, perikonak ta perikak, palo guzietara iteuntenak, ia Jangoikoaren, ia deabruaren, goizean deboto-iduri elizan, arratsaldean lazo gaixtakerietan. Ezta barnatu Jangoikoaren azia, eztu zañak egin, eartzen da belarrean, ezta granatzera ellegatzen, alako aditzea ere anbat da nola ez aditzea. Señale eztirela Jangoikoaren sines. Irugarrena lur betea larres, au da biotz okupatua munduko afanazio, ondasun ta gustoeki. Larrak direla munduko afanazioak, sinesta leike, nornaiek erranik; baña ondasunak eta gustoak larrak eta aranzeak direla, nork sinesta, nik erran banez? dio San Gregorio andiak (hic) eta erran zue egi eta fedeak berak, eta dire erran bekala, eta noiz ellegatzen diren bekatura, orduan heritzen bekala, ta odolestatzen dute arima. Sofokatzen delaik azi ona, atzendus Jangoikoas lurreko gauza goien kasos, galtzen da arazo espiritualea, oroat nola ezpalute aditu. Beras, señale da eztirela Jangoikoaren. Kuida goardatzeas aditua, nola aditzeas Jangoikoaren itza gogo ta ansiareki. Onen medios ondu ta salbatu direnak dire ezin kontaala. Predikatzen zegolaik bein Jesus ona, emasteki batek goraturik boza erran zue: Zori onekoak, ditzosoak entrañak berori iduki zutenak, ta bularrak azi zutenak: baita nola erratea: Ditzosa berorren Ama. Zer errespondatu zio Jaun dibinoak? Antes bien, zori onekoak, ditzosoak aditzen dutenak ta goardatzen Jangoikoaren itza (Luc. 11). Kontra, beras, zori gaixtokoak; desditzatuak eztutenak aditu nai ta goardatu. Jakobo Bitriako Kardenaleak kontatzen du nekazari bates zuela oposizio aditzera Jangoikoaren itza. Ario gortara ze arren bizimodua. Il ta orzitzerakoan azken orazio gartan, non intres in iudicium etc. Santo Kristoak, soltaturik bi eskuak itzeetaik, tapatu zitue bi bearriak jende guziaren alzinean. Arritu zire guziak, eta sazerdoteak orduan, badakizie, erran zue, nola onek etzuen aditu nai Jangoikoaren itza; orgatik orai gure Jaunak, orai tapatus bearriak, mostratzen du eztuela aditu nai elizako orazioak onen fabore, ta eztuela erremediorik. Atra zute kanpora ta orzi zute an nola zamari edo tzakur bat (Parra p.3.pl.8 de baptismo). Digula gure Jaunak grazia aditzeko ta goardatzeko ongi beraren itza, bizitzeko bere hume onak bekala emen, ta ellegazeko goatzera glorian.

Sermo in Dominica
quingagesimae
de memoria passionis
de labor, de caecitate

Ecce ascendimus Jerosolimam etc. Luc. 18.

artu zitue amabi apostoluak bere gana Jesus onak, dio egungo ebanjelioan, ta erran ziote: Orra, orai goaz Jerusalem, ta kunplutuko dire profetek eskribiturikako guziak Birjinaren Semeas, zeren ezi entregatua izanen da jentilei, ta burlatua, ta azotatua, ta lixtukatua, eta azotatuaskeros ilen dute, ta irugarren egunean biztuko da berriro. Aiek etzute entendatu deus ere ebetaik. Eta agitu ze Jerikora urbil joaterakoan, zego an bidearen saietsean itsu bat eskean. Eta aiturik jendetzearen asotza galdegin zue zer zen. Erran ziote pasatzen zela Jesus Nazareno. Bereala klamatu zue: O Jesus Dabiden Semea, urrikari bedi nitas. Akar iten ziote lenekoek, zegola ixilik. Ark ia oi. Dabiden Semea, miseriordia nitas. Baraturik Jesus onak, ekarrarazi zue beregana; ta galdegin zio: Zer nauzu in dezazuten? Ark: Jauna, ikus dezaten. Jesus onak errazio: beira zazu: zeure fedeak baliatu dizu. Istante ikusi zue, ta segitzen zue bedeikatzen Jangoikoa, eta jende guzia, ikusirik au asi ze alabanza ematen Jangoikoai.

Orra ebanjelioa: klaro-aski dirudi azaletik; baña goazen ikusis mamia, baliadakigun salbaziorako, errepassatus itzak eta gauzak banaka. Ortako saluta zagun argiaren Ama Maria Santisima. Abe Maria.

Ea bagoaz Jerusalem, dio Jesus onak. Zertara, Jauna? Pasatzera prisioneak, desprezioak, azoteak ta eriotzea. Zein ongi dakien lendanik pasatuko duena. Ezta detenitzen alaere? Alaere doaie? Alaere doaie. Zergatik? pagatzeagatik Jangoikoaren justiziai gure partes; erosteagatik gure salbazioa bere biziaren kostus. Joain otegina gu beragatik, ta geurengatik ere? Ez naski. Zergatik ez? Zeren ezpaitiogu berai ta ez geuren buruei ainberze amore, nola digun berak guri. Baña zergatik ematen diote berrigoi apostoluei eta guri aien personetan? erresponda dezogun, goazen gu ere, segi ta akonpañña dezagun, ezpada gorputzareki pasatus ainberze, gogoareki berere pensatus ta errepassatus pasatu zuena gure amores. Zer milagro da errekeri dezagun Aita onak hume gaixtoengatik ainberze pasatu zuenak, errekeri dezagun, diot, oroï gaitzen, ta pena gaitzen beraren penes? Beti ere bai, baña espezialki orai Garizuma eldu delaik, erragun, goazen oroitus ta errepassatus, ta akonpaññatus biotzesko afekto ta negarreki gure Jesus onaren amoresko exzesosak. Lan gau da obligazio, da dezente ongi egina, ta da agitz probetxusko geurendako. Ea bada, goazen atras mundu gontako Babilonia gontaik, emengo ilunbe, atzendura, banidade ta engañuetaik.

akonpañña zagun Jesus penas betea, daramagulaik biotz barnean, zion gisara esposa sandak, fasciculus mirrae dilectus meus mihi etc. Ala nola mirrasko arramilleta bat, ene onetsia enetako, ene bularren erdian egonen da. Non dagon zure tesoroa, an dago zure biotza, dio Jesus onak. Bera biz zure tesoro guzia; zure petxo biz tenplo; zure biotza aldare, non asentaturik Jesus guruzifikatua, ofrazozun amore, konpasione, kontrizio ta afekto on guzien inzensua gau ta egun. Bil arara beraren kateak, sokak, azoteak, arantzeak, itzeak ta gañarako instrumentu doloreskoak. Egon an besarkaturik Jesusen oñeki Santa Magdalenaren gisara. Beira noizean noiz Jesus berai oñetaik bururaño: oin eskuak itzees

josirik, belaunak larranzirik eroraldies, bularra idikirik lanzas, gorputz guzia urraturik azotees, burua lastimaturik aranzees, begiak ilundurik eriotzeko penes, aurpegi eder gura ubeldurik, itsusturik, desfiguraturik golpes, lixtus, odoles, eta den guzia eginik doloresko erretrato bat. Zaude leitzen kontino libru gontan letra goiek. Zer letra dire? Amoresko letra klaro klaroak. Zer diote? Amatzen zaituela zu gloriako prinzipa Jaunak. Zenbat? Eztaike neurritu; baña pensa señaile goietatik. Errepasaturik ongi au guziau, arzazu Dabiden zitara, ta egon an soña ta kanta. Zitara da dolorea, negarra sonua, konfesioa kantua. Confitebor tibi in cithara etc. Konfesatuko diot zitaran, Jauna. Zer konfesatu, zer kantatuko diot? Berorren ona ta nere gaixtoa, berorren amorea ta nere desamorea, berorren faboreak ta nere etc.

Et ipsi nihil horum intellexerunt, eta apostoluek, dio ebanjelioak, etzutela entendatu Jesusek errana bere pasioas ta eriotzeas. Nolas, bada? Etzire oraño bete Espiritu Sanduas, eta gizon lurrekoei latz ta gogorkara zaigu trabajuen ta eriotzearen lekzioa. Eztugu nai entendatu. Ala, berze bein aipaturik Jesus onak nola padezitu ta il bear zuen, San Pedro gizagaizoak kariños ta konpaciones erran zio (Math. 16): Ez, Jauna, ez alakorik berorren Majestadean. Zer uste duzie erran ziola sanduari Jesus onak? Zoaz ene atzetik, Satanas; eztuzu entendatzen Jangoikoarena, bai gizonena. Orduan guziei erran zio: nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere buruai, ar bez bere gurutzea ta segi benaza. Nai duenak goardatu bere burua, galduko du; ta galzen duenak enegatik ark irabaziko du. Ezi zer probetxu du gizonak irabazteas mundu guzia, galzen badu bere arima? Edo zer emanen du bere arimaren truk? Ontan guzian adiarasten zaigu, salbatzekos, bearzaigula kostatu trabaju mundu gontan, eta agian iltzea ere bai, preziso delarik ez ofenditzeko Jangoikoa. Orgatik berze bein Jesus onak Taborko oianean agertu ziotelaik San Pedrori ta berze bie bere gloriaren mostra bat, xoraturik San Pedrok erran zue: Jauna, ongi gaude emen. Nai badu, inzkigun emen irur estalpe. Eta dio Ebanjelistak, etzekiela sanduak zer zerdukan (Marc. 9). Alaber, Santiago ta San Juanen Ama joan zekiolaik bere bi semeeki eskatzera jarriarazi zezkien bere bi gaiek bere Majestadearen bi aldetaik bere erreinuan, errespondatu zio Jaun dibinoak: Eztakizie zer eskatzen duzien. Badezakeze pasa nik pasatu beuten tragoa? Aiek erranik baietz, ori agindu zio (Math 20). Baña grazioso izan ze agitua San Pedroreki azkenean. Libratu zue bein Jerusalemene karzeletik il nai zuten bezperan. Gero, berriz preso, Roman libratu zute kristioek mañas. Libre ia, zoeielaik bidean, aparezitu zekio Jesus guruzeareki soñean. Galdegin zio sanduak: Nora doaie, Jauna? Jesusek: Noaie Romara izatera berriz guruzifikatua zuregatik. Entendatu bai, entendatu sanduak. Ta ala itzuli ze bere kartzelera ta iltze guruzifikaturik. Uste duzu, erran zio bein Jesu Kristok Santa Teresari, uste duzu irabaztea dagola gozatzean erregalo zerukoak? Ez, baizik amatzean, obratzean ta padezitzean. Nor ia amatzen duen Jangoikoak, arri ematen dio ia trabaju, ta eben ariora da amorea. Zertan dezakezut mostra obeki dizuten amorea, baizik ematean zuri neuretake autatu nuena, baitire trabajuak? Au da egi eta fedesko bidea. Nigar inzazu mundukoen perdizioas, baitabiltza beti nondik izan gusto ta aisa (In ej.vit.fin.avis. 1). Orgatik sanduak kontra beti in naiak penitenzia, ta izan naiak trabaju emen. Zeren ezi korona gloriakoa erdextekos da preziso segitzea Jesus trabajuen bideas.

Baña zertara eldu da ebanjelioko itsu gura emen? Adiarasteko gizagendearen itsutasuna ta erremedioa. Itsu da gizonen kasta, dio San Gregoriok (hic), klama bez ark bekala: Jesus Dabiden Semea, urrikari nitas, ikus dezaten. Ikusagun zenbait itsutasun andiak ariman. Bista labur guziek dugu, ezin ikusi ongi ta biziro arimaren on eta gaitzak, berze mundukoak gutiago, ta Jangoikoaren gauzak. Baña solamente itsutasun egiasko

zenbait aipa zangun. Bat da ainberzeko atzadura nola den Jesu Kristoren amoresko exzesoes guregatik, pasatu zituen penas ta eriotzeas. Nola eztute ikusten jendeek, pensazen ta estimatzen? Itsu daude munduko banidadeen edo itekoen loiareki. Berze itsutasun bat: ez ezaunzea bear dela pasatu, ta ez erresolbitzea pasatzera trabaju bear den guzia mortifikatus pasioneak, ukatus bere tirria gaixtoei, garaitus oposizio ta enbarazu guziak, goardatzeko bekatuetaik. Ezi klaro aski da, pasatu zituelaik Jesus onak alako tormentuak ta erioze berzeren bekatuen kasos, arrazio ta obligazio dela guk zerbait neke pasatzea goardatzeagatik aietai. Nola eztute ikusten au? Nola irestentute mortaleak ere ain aisa nola trago bat ur? Itsu daude fede faltas ta ezaumentu gabes.

Berze itsutasun bat: Ez kontu atratzea ta ezaunzea zein gaixto aborrezituak bide diren Jangoikoaren begietan gure bekatu gebek, ain aisa irris ta nolanai iten direnak; zeñen kasos Jangoikoak utzi zuen ala kastigatzera bere Semea zeren artu zuen bere gain pagatzea berzeren zorrak. Nauzu ongi pizatu bekatuen pizua? Guruzearen balanza da obena ortako. Zein pizu bide diren, ala akabarazi zutelaik axuri dibino gura! Nola ezta ikusten? Itsu daude borondates. Berze itsutasun bat andiagokoa (cer d n er rcea bat fragilid des) ba a defendatze gura beren gaizkiak ain bortizki, emate gura erremediatu nai dutenen kontra. Nork ala? Kristio deitzen direnek. Nai du sazerdote batek goardatu arimak, eztaitzen il Jangoikoaren begietan bekatuen zebo ta okasioetan. Aien ones dabila, ezi berak eztu irabazirik, ezpada arima indako dena kunplitus Jangoikoaren borondatea. Eta ala ere agitu da itzulzea asko lekutan moldegaizkiro ta beren kaltetan. Nola eztute ikusten? Itsu daude pasiones. Berze itsutasun bat, ez oroitzea ta ez kontuainatratzea nolako pena izanen duten, nola izan diren tratatuak bekatariak eternidadean, izan zelarik ain gaizki tratatua emen Jesus ona bekatariengatik. Nola etzaiote gogoratzen, Jesusen gain erori zire ainberze azote, pena, tormentu ta dolore, zelarik Jangoiko; nola kastigatuko nau ni, naizelaik gizon bekatari? Zeramatalaik Jesus guruzifikatzera, zeude negarres lamentatzen andre on batzuk injustizia gartas, ze nei erran ziote Jaun dibinoak: Etzaziela negar egin enegatik, bai zeurengatik ta zeuren humeengatik, ezi au iten bada zur berdean, zer inen da earrean? Nola eztute ikusten? Itsu daude. En fin bizi garenok guziok gaude bidanabar emen, biajes goaz, ta sarri joain gara emendik ta betikos, edo gloria eternora, edo su eternora. Berze alde arrisko ta peligro andia da, espezialki munduan ta oraiko denboretan; nola ezta ia beldur? Nola ain alegre ta ajolakabe infernu-pokalean? Itsu daude. O Jesus, urrikari bedi gutas. Zer nai digu? Jauna, ikus dezagun ongi dena den bekala, ezkaitzen lokartu eriotzean ta kondenatu sekulakos. Beira, dio, beira niri nere pasioan ta gurutzean sendatzeko, nola Israeldarrak beiratus serpientearen figura paloan: Nola Jesus berak ilik argitu zion arimaren ta gorputzaren bista bere odolareki idiki zionai bularra lanzas, inen digu grazias etc.

Explicatio bullae cruciatæ
pro vivis, ad rusticanos

Bula gurutadakoa da Aita Sanduaren konzesio edo emakida bat grazias, induljenzias ta pribilejios betea Españako erregeren ta onen erreinuetan bizi direnen faboretan, mantenitzeko gerra infielen kontra. Deitzen da gurutadakoa, zeren gerra gontako soldadeska deitzen zen gurutzada, baizemate soldadoek gurutze bat insigniatako. Utzirik orai konzeditzen duena doazinei gerra gartara soldado, jardukagun solamente ematen duenas laguntzen dutenei diruareki artus bula ta in bear dutenas irabazteko. Beñik bein grazia gebek solamente dire bizi direnendako gure erregeren erreinuetan, nongo nai direla; baña alakoei joanik ere erreinus kanpora, balio diote bulak induljenzien ta absoluzioendako, ez ordea jateko janari debekatuak. Bigarrena da preziso arzea bula errealki, ta ezta aski artzeko intenzioa. Eta nori artzen dioten berzeek, bear zaio xakinarazi artu diotela, ezperen ark ez dezake goza konzienzia onean. Irugarrena bear da asentatu bulan jabetu bear denaren izena, ta goardatu bula urteas; baña gal baledi ustekabea, eztire galzen orgatik bularen graziak. Laugarrena ta prinzipalena da ematea limosna señalatua; ta ustekabes eman edo tranpas gelditzen badu bula pagatu gabe, etzaio balio. Baña artuas geros fiara pagatzeko intenzioreki, balio dio, naiz gero ezin izanes niolater, geldi dakion pagatu gabe, nai eztuela bortxa. Urteas nai duenak dezazke artu bi bula, ta logratu graziak doble. Goazen ikusis ebek orai.

1. Lenbizikoa da induljenzia plenaria edo oso bat irabazteko bein bizian, ta berze bein eriotzeko orduan bula bakotxagatik; eta bear dio aplikatu konfesoreak, urteas noiz nai duen bula artu duenak; eta ala nai duelaik, erran bezo konfesoreai: Jauna, in bezada mertxede aplikatzeas bularen induljenzia, ezpadiote aplikatu lenago, ezi bula batengatik bein solamente daike aplika, ta berze bein iltzeko peligroan. Orai agi baledi konfesorik edo konfesoreik gabe iltzea, nola duen kontriziosko dolore, logratuko du induljenzia bera, ezpadu floxezas utzi konfesioa bularen konfianzan.

2. Bigarren grazia da Erromako estazio-egunetan ematea ango induljenzia berak bisitatzentutenei nonnai borz eliza, edo borz aldare, orazio egines Jangoikoai Elizaren onagatik, fedearen aumentuagatik, kristioen unione ta biktoriagatik infielen kontra. Itz bates: Aita Sanduaren intenziora. Aski da egiterakoan estazioak eramatea intenzio gau bere gogoan solamente. Baña in nai bauzu itzes ofrezimentua, in dezakezu asterakoan gisa gontara: Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean, Amen. Naitut egin estazio gebek eskatus gure Jangoikoai eman dezoten prinzipie kristio fiel guziera bakea ta biktoria infielen kontra, Eliza Ama Sandaren exaltazioa, fedearen aumentua, herejien akabanza ta nezesidade guzien erremedioa. Dut intenzio irabazteko induljenzia direnak; biz ene arima mindako, edo urliaren arima mindako, bearrean barin badago; ezperen, alakoain edo alakoaindako; ebek ezpaute bearrik, Jangoikoaren agradoko ta nere obligaziosko ia direnendako. Goazen orai. Eta zer dire estazioak etc.?

Estazioa, itzak diones, da baratzea, edo detenitzea. Deitzen da ala, zeren doazilarik bisitatzera elizak Roman, detenitzen baitire orazio egiten eliza gartan, non baita induljenzia; oroat diot aldarees, detenitzea orazio egiten aldare bakotxean, ori deitzen da estazio eta aldareen bisitatzeta. Eta ortako, batetik berzera aldatzean, bear da egin mostra-iduri bat bisitatzen duela aldare gura, edo dela itzulis alde gartara gorputza, edo burua, edo dela santiguatus asterakoan berex. Ezta señalatzen bulan zer orazio in bear den bakotxean;

zertako bai, auda, Eliza Ama Sandueren (sic) onerako, baña eztio zer orazio-gisa. Eta ala kunpli daike detenitus bakotxean egines orazio mentale, edo gogoas solamente, naiz ez erreza, baitaere egines orazio bokale, edo agos errezatus. Zenbat orazio in bear den, eztio ori ere. Baña iragazten dena delarik anitz, ezta arrazio izatea deus guti orazioa. Gure aizinekoetaik gelditu zaigu usantzas errezatzea borz Aita Gure ta Abe Maria aldare bakotxean; eta konbeni da ala egitea bakarrik itentuelaik estazioak batek; berzeeki bateo iten zuelaik, edo ori beroi, edo bentzait irur Aita gure, Abe Maria ta gloria. Bidanabar emen bego adbertiturik, baliosoago dela orazioa berzeeki bateo, ezi ez bakarrik; entenda, iten barin bada debozio berareki. Debozio bear dela noiznai, da klaro; ezperen debozio gabeko orazioa zertako duzu? Nola txintxaren soñua, nola kaskilla mampirik gabe, nola pitxera ardorik gabe, nola espiriturik gabe gorputza.

Prinzipalena irabaztekos induljenzia, beretako bentzait, da Jangoikoaren grazian egotea. Baña purgatorioko arimendako daikela izan balioso induljenzia, naiz eztagon grazian estazioak itentuen, diote zenbait autoreek, (Ap. concin. in fin. eius interpretes Josef Sanchez Laparra, unde pleraque horum) zeren baitoae induljenzia Elizaren nonbrean, ta baitaude arima gaiek disposizio onean. Baña beretako ez dezake irabazi induljenziarik dagonak Jangoikoaren desgrazian, edo bekatu mortalean, zeren barkatu gabe kulpa, niori eztakioke barka pena, ontako solamente baita induljenzia. Entendatzekos ongi, bear da xakin, bekatuan direla bi gaitz: Bat deitzen dena kulpa, baita Jangoikoai iten zaion agrabioa; berzea da pena, bear duena pagatu bekatariak emateko satisfakzio Jangoikoaren justiziai. Kulpa barkatzen da solamente konfesioko sakramentuareki, edo kontriziosko doloreareki ta konfesatzeko intenzioareki. Barkatuaskeros kulpa, geien komun gelditzen da zerbait pena pagatzeko emen edo purgatorioan. Baldin ezpalitz kontrizioa ain fina, errua ta andia, ezi arren kasos barka dezon gure Jaunak kulpa ta pena guzia, nola agitu baize Santa Maria Magdalenan ta agi baitaie dolore garren gisakoa lukena baitan, ezi orduan biotzeko penaren andia kontatzen dio Jangoikoak satisfakziotako. Gañarakoan pena gelditzen da ia edo gutiago. Pena zor diren geben pagatzeko dire orazioak, limosnak, obra onak, baruak, penitenziak, pazienza trabajuetan, prinsipalkiro konfesoreak manaturikako penitenziak. Baña bekatuak nolanai egiten, ebetaik sobra, penitenzia ez aski; beldur daike zor anitz ta andixkoetan erdetxiko gaituela Jangoikoak. Ortako, bada, dire induljenzia, barkatzeko pena edo penitenzia zor ginduena bekatuen kasos: plenariak direlaik, guzia gañarakoan, parte dion gura Aita Sanduak, b.g. Berrogei eguntakoa da barkatzea ainberze nola egines berrogei egunes penitenzia. Induljenzien emateko potestade gau dute obispoek bere neurrian, Aita Sanduak guzien artzai bekala neuririk gabe, nola San Pedroren ondorekoak, zeñi eman zition Kristok zeruko gilzak.

Ontaik da ageri nola bear den estimatu induljenzia geben tesoroa, ta prokuratu irabaztea al guzia geuren, ta purgatorioko arimendako. (estazioaldi bateki daikela beretako irabazi induljenzia, ta bateo purgatorioko arima indako egun gaietan zeñetan dion bulak atratzen dela arima; gañarakoetan solamente beretako edo arima indako; aplikatzen badu beretako, ia eztuela parterik arimak; arima indako aplikatzen badu, bera gabetzen dela artas, dio autore batek; (Idem.ib.) Entenda, eztuelaik egiten baizik estazio alde bat. Baña bi aldiz in balezki, bat beretako, berzea arima indako edozein egun estaziokoetan, biendako dezakela irabazi dio berak. Baña emanik ere arimai iragazten den gura, naiz gabe daien artaik persona, eztu orgatik galtzen tratuan, ezi arren partes du karidade iten duenaren merejimentua. Ortas landara, seguroago da beti ere irabaztea induljenzia arima indako, ezi ez beretako, zeren arima, diot purgatoriokoa, beti dago grazian, ta arri baliazeko, eztela

preziso estazioak itentuen egotea grazian da opinione; baña beretako baliatzekos, bera egon bear dela grazian, da zierto; eta ezta zierto dagola grazian bat beti, naiz uste duen baietz. Orgatik nai duenak irabazi beretako, prokura bez paratzea grazian, edo konfesatus, edo kontriziosko dolore artus konfesazeko intenzioreki, gañarako protxues landara, induljenziagatik ere. Baña edozein gisas, beti da on asibañolen erreztatzea biotzes kontriziosko akta. Goazen orai segitus bulan).

3. Irugarren grazia da amaborz urte ta amaborz berrogeieko induljenzia edozein egunetan, noiz obligaziorik gabe geuren borondates atra dezagun baru bat ta in dezagun otoiz Jangoikoai Elizaren onagatik; edo ezin barudaikelaik, baruain partes iten badu berze obra on bat parroko edo konfesorearen diskreziora otoitz garreki bateo. Ez entenda dela induljenzia gau egun bateko solamente, baizik nai dugun egun guzietako ta aldioroko. De manera ezi nai badut nik, eta zuk oroat, barutu debozios bat, bi, irur edo laur egunes, edo egun guzies aste batean, edo asteoro urte guzian, ta egun goietan in orazio Jangoikoai bere Elizagatik, guzietan ta bakotxean irabaziko dut induljenziagoi. O zenbat dezaken batek irabazi urte guzian, nor balitz! Atratzearreki zenbait baru zenbait egunttos, noiz eztuen obligatzen; edo ezpadaike barutu, errateareki konfesoreai edo parrokoai: Jauna, nik nainuzke irabazi bularen amaborz urte ta amaborz berrogeieko induljenziak, baña eznaike barutu, señala bezada zer egin baruaren partes, gero egiteareki señalatu gura nai duen aldioro. Baleukate purgatoriokoek eskaidagoi!

4. Laugarren grazia da lizenzia jateko arrautze ta esne-gende baru egunetan ta Garizuma guzian; baitaere aragigende, baña azken gau solamente konfesorearen ta medikuaren konsejus. Ezta entendatzen, nezesidade klaroa delaik, baizik delarik dudaskoa, orduan konsulta bi goiek. Eztu orgatik dispensatzen ez barutzeko daikena barutu arrautze edo aragigendereki.

5. Borzgarren grazia da fakultade bat eskojitzeko duenak bula edozein konfesore aprobatu, zeñek arren birtutes dezaken absolbitu beingoas bekatu ta zensura erreserbatuetaik Aita Sanduarendako, eta erreserbatuetaik obispoenganako ebetaik beti ta noiz nai duen konfesatu. Solamente herejiatik ez beñere. Ortako da on xakitea, sazerdote sumoek, edo goragokoek, nola baitire Aita Sandua, arzobispoak ta obispoak, erreserbatzentutela berenganako zenbait bekatu berex, zeintaik absolbitzeko fakultade eztuten utzi nai beren meneko sazerdoteei. Obispado gontan dire ogeitameka bekatu erreserbatu, eta sobra maiz agi daizkenak. Eta ia dena, naiz eztakien batek dagola erreserbaturik bekaturen bat ebetaik, ezaunzen badu arren grabedadea ta gaixtoa, beti gelditzen da erreserbaturik ta fakultaderik gabe konfesore komun arren absolbitzeko, ezpadu bularik bekatariak. Orai, bada, zenbat eta zenbat aldiz aurki leizke loturik bekala eskuak konfesoreak, deus ezin egin? Zenbat aldiz bear lukete penitenteek akuditu obispoagana, edo ark señalatuagana, libratzekos bekatuen lakiotik? Bularen medios orai zaizke absolbi normaiek, diot, konfesore aprobatuak. Beira ia ezten grazia.

6. Seigarren grazia da fakultade ematen duena aldatzeko edozein konfesore aprobatuak, oroat konfesiotik kanpoan, edozein boto, bella, edo promesa duen penitenteak; irur solamente ez, baitire errelijionean sarzeko botoa, kastidade goardatzekoa ta Jerusalem joatekoa. Ebetas landara, gañarakoak bularen birtutes dezozke edozeñi konfesoreak, dispensatu ez, baizik aldatu bardintsu den batean, (emanes gurutzadaren sokorrutan guzia, edo parte).

7. Azkenean komisario jeneralak Aita Sanduaren autoridades errebokatzentu berze grazia ta induljenzia diren guziak, ezpaitire balioso batere, ezpada artzen bula gau, eta au

arzeareki ta arzenduenaindako berritzentu guziak, irabazi dezazkela. Beira ia zenbat ondasun espirituale paratzentigun eskuan bula gonek, ta zein guti kostarik! Ikusi al baleizke begis, zer estimatzea? Baña fedes solamente daizke ikusi geienak, baitire arimarendako; etzagula au estima gutiago ezi gorputza. Onek ere partizipatzen du zerbait, ezi bularik gabe bearko luke pasatu aurrauze ta esne, ta gasta, ta alakoik gabe; bearko luke eman zenbait pausu, ta nekatu billatzeko absoluzioea askotan, kunplizeko promesak ta alakoak. Bulareki arimain ta gorputzaindako datozi abantallak; eta memoriaren amores paratzigun erkadan orai azkenean. Ona non tuzun: 1a. Induljenzia plenaria bat bizian, berze bat ilzean. 2a. Erromako estazioen induljenziak, nonnai eginik estazioak. 3a. Amaborz urte ta amaborz berrogeieko induljenzia egun gaietan guzietan, zeñetan nai duen batek barutu bere borondates, ta orazio egin Elizagatik, aldioro ori, ta eztaikena barutu, berze obraon bat iten badu konfessoreain diskreziora. 4a. Lizenzia jateko jan etzeizkenak bularik gabe. 5a. Fakultade absolbitzeko erreserbatuetaik konfessore edozeñek. 6a. Aldatzeko bellak ta promesak kruzadaren sokorrutan. 7a. Iragazteko berze induljenzia jenero guziak bulareki, ta ori gabe baterez. Berze zenbait grazia ere dugu bularen medios lograzeko aisago zenbait dispensa, ikus daizkenak bulan berean. Orai naut eman errespuesta erreparo paratzeuntenei, dirus logratzeas grazia goiek. Erreparotto gau iteuntanak eztakiziela iduritu direla kristiorik obenak, ez, naiz on kolores doaien erreparottogoi. Izaten dire komunkiro naiago dutenak lurreko irabazia ia ezi espiritualea, zaiaren bilzale, irinaren barrazale; bolsa suelto gorputz astoaren bizioetako, ta ertxi arimaren onerako; ainberze erreparo bi erreal usteko, naiz ainberze irabazirik tratuan, ta ain erreparo guti gastatzean malamente bearreztirenetan! Baña kexa ta argumentu prinzipalena iteunte herejeek, dirutruk ematen direla grazia espiritualak. Ona errespuesta: len lena, eztuela Aita Sanduak marabidi baten protxurik bula gontaik, ezi gure Jaunak eman diona berai grazias, grazias ematen du berak. Ain guti dute protxurik gañarako arzaiek, obispoek, parrokoek, sazerdoteek ta eliza-gizon batek ere. Baizik errege Jaunak solamente, ta erregek ere ez beretako, baizik mantenitzeko gerra infielen ta herejeen kontra kristio-gendearen faboretan. Ezi guziei dagokigu ongi gure kontrario gaien sujetatzea ta kontenitzea, ezperen, urra lezakete kristiandadea. Kristio guziek, beras, da arrazio laguntzea nork bere gisa iteuntenei gerra aien kontra. Eta nola gerra ezpaitaie egin jenderik ta dirurik gabe, ia ke ta ez goazen guziok gerrara, ta doazinen trabajuen kostus dugun probetxu guziek, gaudelaik geldi geldia geuren etxeetan, da arrazio, da konbenienzia, da obligazio lagundezoguten eskotatus berere zerbait diru, ia keta ez exponitus persona. Eta eskotegoi ze geuren protxutan, naiz ez orgatik emanik induljenzia ta alako grazia espiritualerik baña orai probetxu dugunas landara, gerra gartaik, dugu gañetik ainberze grazia espiritualeen irabazia bulatik. Diru ematen denaren fina da, gerra egines herejeen ta infielen kontra, mantenitzea ta aumentatzea fede kristioa. Au berau da Aita Sanduaren intenzioa ematean bula, ez diru atratzea, ezpaitu atratzen marabidirik. Herejeen ta infielen murmuratzea ezta milagro, ta motibo dutena da klaro. Baña garenok kristio Jangoikoaren grazias, gaudenok Jangoikoaren etxe ta familia gontan, zerura joateko bide bakar gontan, uni gaitzen Kristoreki ta elkarreki fedes ta karidades, kontrario guzien bortxa; goazen segitus Kristoren atzetik izanes onak beraren konforme, goartus gaitz guzietaik, goardatus mandamentuak, ta baliatus medio guzies igateko zerura; ezta izanen sobra guzi guzia, ta ez aski ere. Bai Jesus onaren merejimentuak, zeñen atenzios ematen da ematen den grazia orai, ta gero gloria. Amen.

Sermo in Dominica 1a
quadragessimae.
De tentationibus

Egun, Garizuma sanduaren lenbiziko igandean, erakusten digu itzes ta exenplus Jesu Kristok, nola bear garen armatu, nola peleatu, pasatzeko ongi oraiko biziaren bide gau, garaitzeko etsaiak ta infernua, ta arrapatzeko gloria sekulakoa. Aizagun ebanjelioa. Ductus est Jesus in desertum etc. (Math.4). Kidatu zue Jesus espirituak desertura, izateko tentatua deabruaganik. Eta baruturik berrogei egunes ta berrogei gaues, gero izan zue gose. Ta ellegaturik, tentazaleak erran zio: Jangoikoaren Seme bazara, mana zazu arri gebek itzuli daitzela ogi. Errespondatu zio Jesus onak: Eskribiturik dago, eztela ogis solamente bizi gizona, baizik Jangoikoaren agoko itz guzies. Orduan eraman zue deabruak zitude sandura, ta paratu zue tenploaren kaldur, edo kaskoan, ta erran zio: Jangoikoaren Seme bazara, bota zaite emendik bera, ezi dago eskrituran, manatu diotela zutas Jangoikoak bere aingiruei, ta artuko zaitute eskuetan, ez dezazun beaztopatu arriren batean. Errespondatu zio: Baitaere dago eskribiturik, etzazula tenta zeure Jangoiko Jauna. Berriz eraman zue oian gora gora batera, ta mostratu zizkio munduko erreinu guziak, ta aien gloria, ta erran zio: Ebek guziok emanentizut zuri, baldin adoratzen banauzu belauriko ni. Orduan erran zio Jesus onak: Goaie ordik satanas, ezi eskribiturik zeagok: Zeure Jangoiko Jauna adora zazu, ta berari sollik zerbitza zazu. Orduan utzi zue deabruak, eta etorri zire aingiruak ta zerbitzatzen zioten. Orre ebanjelioa. Ontan ikusten dugu deabrua tentatzen Jesus bera irur maneras, xakin naiak agian ote zen Jangoiko gizon sandu gura. Dugu Jesus, Jangoiko ta gizon egiaskoa dena, gizon bekala tentaturik gure exenplutako bekatuak gabe (Hebr.4.v.15.). Dugu desengaño, ez garela bekatariok lurrekook pasatuko gloriara sufritu gabe ta garaitu gabe tentazioak. Dugu eben garaitzeko exenplu ta doktrina dibinoa borz gauza in zituenetan Jesu Kristok, baitire: retiroa, orazioa, barua, eskritura sagratuaren alegatzea ta aingiruen asistenzia. Lenik erretiratu ze desertura, erakusteko bear garela erretiratu, apartatu bekatuen okasio, zebo ta galbideetaik; ori da len. Gero egon ze an orazioan, erakusteko bear dugula in orazio eskatus humilkiro gure Jaunai; ori da bigarren. Gero barutu ze berrogei egunes, erakusteko bear dugula egin penitenzia; ori da irugarren. Gero konfunditzeko Satanas, alegatu zue daukana Jangoikoak errebelaturik Eskritura Sagratuan, erakusteko eutxi bear garela fedeari firme; ori da laugarren. Gero aingiruek zerbitzatu zioten, erakusteko bear garela enkomendatu aingiru goardiakoei, atratzeko triunfante. Baña goazen klaratus tentazioen doktrina ignoranteen amores, estimatus len lenik guzien Ama Santissima Maria. Abe Maria.

Milizia dela gizonaren bizitza mundu gontan, dio Job sanduak, militia est vita hominis super terram. (C.7.) Milizia, dio, nola soldadeska, gerra ta pelea bat kontino. Berze batzuek entendatzeunte, dela gure bizi gau tentabide bat, au da, biaje bat betea peligros, persekuzios, tentazios, lakios eta galbides obiarano. Biaje gau iten du arima pobreak gorputzaren astokoan. Norata du biajea? Zerurat. Baña kontrarioak bidera atrarik dabilza nondik tropezarazi ta eroriarazi infernuan. Ia, beras, preziso da beti segitzea pleituan bekala, porfian ta pelean errenditu gabe, atrazekos ongi. Zer inporta da, atratzean ongi edo gaizki? inporta da betikos ongi edo gaizki izatea bat! Edo beti errege, edo beti erre! Edo igatea an gora izarren gañera, edo jaustea an bera infernuetara! Nork eztakusa bear den ajola, trabajua ta dilijenzia? Nork eztakusa zein aisago den igatea baño, jaustea,

ontako aski delarik ustea erorzeroa burusbera?

Kontrarioa nor da? Satanaz deitzen dena, edo deabrua, au da espiritu gaixto gura zerutik erori zena, len aingiru, orai deabru dena, ofizios duena tentatzea Jangoikoaren kontra gizonak al badezazke galdu, bera galdu den bekala. Ortaik zer probetxu du? Eztu probetxurik, baña kunplitu nai bere errabia ta inbidia; errabia Jangoikoaren kontra, inbidia gizonaren kontra. Du errabia, zeren Jangoikoak bera kondenatu duen; du inbidia, zeren Jangoikoak gizona maite duen, ta salbatu nai duen, ta eraman nai zeruko tronoetara, nondik bera ta bere lagunak bota zituen. Beti gerostik dago erraten bekala gutaik bakotxai erran ziona Jesu Kristori egun: bota zaite emendik bera, bota zaite infernura. Baña konsolu dugu, baitezokegu erresponda: Eztiat nai, bota adi i, baitakit ia bidea. Zeren ezi ezpadugu geurek nai, ezkaizke infernu guziak eroriarazi tentazioan. Berze konsolu bat da, ezpaitezake sekulan deabruak egin nai duen guzia; baitauka loturik tzakurra bekala Jangoikoak: Aunka egin ta ortzak irrika badezake, baña ez dezake in ozka, baizik ematen zaionai bere borondates. Permititzen dio Jangoikoak gure progutako tenta gaitzan, baña ez ainberze ezi ez dezokegun erresisti (1 Cor.10). Berze konsolu bat da, ezi baitago Jangoikoa beti beira, ta prest lagunzeko gizonai, ta eztio faltako sekulan, ez bada galdu nai gizon bera bere faltas.

Emen nainuke nik ikusiarazi pelea agitzen dena ta ikusten eztena tentazioetan. (Jangoikoak eztu nior tentatzen, dio Santiagok (C.1). Bakotxa da tentatua bere pasioneaganik. Baña berriz dio Eskritura Sagratuan (Deuter.13). Tentatzenaizte zeuren Jangoiko Jaunak, agerzeko ia onesten duzien bera sines. Baitare Abraham tentatu zuela Jangoikoak (Gen.22). Nola dateke ez eta bai goi? Gisa ontan: eztu tentatzen eroriarasteko bekatuan, ori ez; baña tentatzen du progatzeko ta errefinazeko arima). Nork tentatzen duen eroriarasteko bekatuan, ori da deabrua. Langoi deabruak iten du, baña Jangoikoaren permisios. Deabruak gure gaitzerako, Jangoikoak gure onerako. Deabruak gure galdu naies, Jangoikoak gure ondu naies; ala nola zirañak txuputzen du odola bere ase naies, baña medikuak usten du, atra naies odol gaixtoa ta sendatu naies. Ala, Jangoikoak deabruaren gaizkitik nai du atra ona. Emen orai da ikusteko pelea bien ertean:) Jangoikoa alde batetik, deabrua berze aldetik, erdian gizona. Au nai du beretako Jangoikoak, arrazio den bekala. Nai du deabruak ere beretako, arrazio guziaren kontra. Bietaik zeñi eman nai zaren, zure menean dago. Deabruak tiratzen du beregana, Jangoikoak ere bai beregana. Deabruak ez dezake bortxatu, baña ori nailuke; Jangoikoak dezake egin bortxa nai badu, baña eztunai baizik eman daien gizona bere borondates bere jabeai. Jangoikoak ofrezitzen dio trabaju pixka bat emen, ta gloria inmenso bat an; bitarteo bere eskua, bere amore, grazia ta asko ondasun. Deabruak ixil gerokoa, ta bitarteo emen anitz gusto, bizi goapoa, ondasun ta gauza. Guziaz gezurres. Nori emanen ote da gizon gau? Jangoikoak bereganatzeko baitu bere lagunak, aingiru goardiakoak, predikariak, konfesoreak, konsejari onak eta on guziak. Deabruak ere baitu bere lagunak, mundua ta aragia. Mundua dire mundukoia, banoak, exenplu gaixto emanzaleak. Oh zenbat! Ezlitzake anitz alaere, ezpalitz irugarren etsaia etxe barnekoa, deitzen dena aragia. Ontan adiarasten da persona bera biziaria Adanenganik, entenda, superbias, kodizias, luxurias, gulas, iras, inbidias, perezas. Jangoikoak paraturik dauzki bere zeboak salbatzeko, baitire: Ebanjelioak, Eskritura Sagratua, Sakramentuak, predikuak, mezak, rosarioak, prozesioak, kantuak etc. Deabruak ere baitu bere zeboak: --Jokuak, dibersioak, ardoa, emastekiak, liburu benenatuak, doktrina falsuak, komediak, danzak, kanta, modak, ta milla alako. Jangoikoak tentatzen du ones eta gaitzes beti onerako, baña espezialki mintzatus biotz

barnera, arkitus ezaumentua, mogitus borondatea ia sartus beldurra, ia eman es gusto, debozio, deseo ta afekto onak. Deabruak ere tentatzen du oniduris ta gaitz egiaaskoes, atzenarazis bear denas, ilundus entendamentua, afizionarazis gaizkietara etc.

Azkenean diot eztela posible kontatzea medio tuen guziak gure Jaunak tiratzeko beregana bere kriaturak. Baña imposible ere da entendatzea deabruak tuen moduak, mañak eta marañak galzeko gu. Bat du agitz usatzen duena, baita baliatzea geuren pasionees ala nola armes gure galtzeko. Eiziariak bekala paratzen baitu, arrapatzeko eizia, zebo gura zeinñetara baitaki dela ia afizionatua. Ala, deabruak tentatzen du bakotxa zertara duen ia pasione bereganik. Gastezutuan banidade, deshonestidade, desobediencia ta alakoetara. Berze adin batean kodizia, inbidia, odio ta alakoetara. Eta guziak, bein zebatu baditu kostunbre batean, artara. Nai duenak, beras, garaitu etsaia ta salbatu bere arima, prebeni ta para dilijenzia prinzipalena erremediatzean bere pasione edo kostunbre gura zeintara senti den ia lisiatua. Eta goardatu dena erorzetik Jangoikoaren grazias, eztaielas deskuida beñere, ez emateko leku etsaiari. Pelea, erresisti etc. Saepe tentat servire volentes Deo, magis quam suos: Et cur item malum ex quocumque defectu, bonum ex integro.

Erakusteko usatzen erremedioak tentazioen kontra, lenik da erakustea noiz konsentitzen den ta noiz ez. Zier to da, nioiz ere ezkaizkela niork eroriarazi tentazioan, ezpadugu nai. Baña ain zier to da, erorzeko artan, aski dela nai izatea biotzean, nai ez pasaturik iagotara, eta nai urrikiturik ere berla, egin ze bekatua. Oh! Zein aisa den! Jangoikoak goarda. Nork libra, ezperen? Galanki dio San Bernardok (De inter.dom.c.19.) animatzeko padezitzen dutenak tentazioen gerra, nai eztutela bortxa. Molesto da pelea, baña protxal, ezi barin badakar pena, dakarra ere korona. Ezta gaitzik sentimentuas, ezpada konsentimenturik. Noiz, ordeas, den konsentimentu ezaunarastea, da lana. Ezi ontan utsiteunte askok lazoegis, askok ertxiegis. Batzuek uste dute eztutela konsentitzen, ezpaute egiten edo determinatzen egitea gaizki gogoratua. Berze batzuek, berriz, uste dute, sentitu orduko tentazioa, in dela bekatua, nai ezipaute ere. Desengañazeko, bego betiko ikasirik, borondatean dagola guzia. Nai ezpada niolater e, ezta konsentimenturik. Baña nai badu nolapait, ori aski da izateko konsentimentu ta bekatu. Irur modus agi daike konsentimentu biotzesko gau: lenbizikoa, deseaten delaik gaizki gogoratua; bigarrena, nai ez deseatu, egoten bada gozatzen bere gogoan; irugarrena, nai ez deseatu ta ez gozatu, baldin sentituaskeros sentimentu desordenatua, egoten bada ajolaik gabe ta erresistitu gabe. Propono exemplum in tentationibus ira, et luxuria.

Goazen ia erakutsis zenbait erremedio. Lenik tentazioa bitartean. Zer inen dut, diozu, eldu zazikidalaik gogorazio gaixtoak? Lendanik ongi prebeniturik dagonak, aisa garaitukotu; gaizki usatuak, berriz, peligro andia du admititzeko. Zer prebenzio nai du lendanik, Jauna, eldu badire ustekabetzean? Egon beti gogo ta erresoluzio eginik ez admititzeko Jangoikoaren kontra denik niolater; lenago il. (eldu delaik bada gogora gauza gaixtoa, beñik bein aborrezitu sines, turbatu gabe. Itzuli Jangoikoagana ta erran biotz barnean: Jauna, goarda benaza. Ez nuke nai ofenditu orren Majestadea; oroat Ama Birjinai. Oroat aingiru goardiakoai. Erremedio ona ere da Frai Junipero benerableak iten zuena, (Chron.S.Franc.p.1.1.8.c.38) ertxi istantean arimaren atari guziak: Afuera, afuera, ezta emen lekurik. Nai du erran, atzentzea berla gogoratuas, paratus gogoa berze gauza batean, dela infernuan, dela zeruan, dela Jesus guruzifikatuan. En fin, diona Juan de Abila benerableak: Tentazioa zuregana, ta zu Jangoikoagana. Eta beti kuida aborrezitzeas ta errepugnatzeas biotzes. Ori da balio duena, eta ez muela, estul ta alako sinplekeriak.

Baña goardatzeko zitudade bat, ez solamente bear da peleatu ongi bear orduan,

baita ere bake denboran idukitzen da supliturik armas, murallas ta gañarakoes bear orduko. Gure arimaren ziudade gau artu naiak dabila beti otso infernukoa; beti bear da bizitu prebeniturik; baña bearordurik ertxiena da eriotzeko-ordua, noiz tentatzen duen gaixtoak al guzia, usten badio gure Jaunak. Ai eztenas goartzen lendanik! Nola? erakutsi digu Jesu Kristok: Erretiratus bekatuen zebo ta bideetaik; egines penitenzia nork bere ariora; baliatus Jangoikoaren egi eta fedees, ta aingiru goardiakoas; ta egines orazio humil Jangoikoai. Guziaren exenplu eman zigu Jesu Kristok. Baña guzien gañetik da erremedio obena, garaizeko tentazio guziak, Jesu Kristo bera. Sinesta nazazie, zio San Antonio Abadeak, lotsatzen da Satanas ikusteas piadosoen bijiliak, baruak, penitenziak, orazioak, baña espezialki Jesu Kristoren amore ardiente, zeñen gurutzearen señaile sollareki indargabeturik iges iten du. Zer tentazio da, zeñendako ezten on Jesus salbazalea? tentatzen zaitu suberbiak? beira zazu Jesus zein humil etc. Tentatzen zaitu kodiziak? beira zazu Jesus deus gabe. Tentatzen zaitu luxuriak? Beira Jesus zein beterik penas, ta alketuko zara etc. Tentatzen zaitu gulak? Beira Jesus eman diotela beazun ta hozpin bere egarrian. Tentatzen zaitu irak ta pazienza faltak etc.? Beira Jesus zenbat pena, zenbat pazienza! Eta zer kulpa zue? etc. Tentatzen zaitu inbidiak ta oposizioak proximoaren kontra? Beira Jesus guruzetik eskazen barkazio bere etsaien fabore. Zaude triste, duzu beldur anitz, esperanza guti, amore gutiago etc.? Beira Jesus guzien fiadore ta pagadore etc. Jesuseki besarka bizi, ta il gaitzen. Ala il dire sanduak etc. San Joan de Dios belauriko bereareki sei ordus il ondoan.

Sermo in dominica 2a
quadragessimae.
Praevia ad sacramentum paenitentiae

Et transfiguratus est ante eos. Math.17.

kontatzen da egungo ebanjelioan, nola Jesus iganik San Pedro, Santiago ta San Juanen konpañian oian gora batera, trasfiguratu edo aldatu zen iduris aien alzinean; aurpegia ain argi, eder nola iruzkia paraturik, eta tresenak ain txuri nola elurra. (Eta agertu zirela an Moises ta Elias jardukitzen berareki, San Pedrok erran zio: Jauna, on da gauden emen; nai badu, inzkigun irur etxe, berorrendako bat, Moisesendako berzea ta berzea Eliasendako. Mintzazerakoan estali zitue lañu argi batek, eta andik aditu ze boza bat ziola: Auda ene Seme onetsia, zeintan baitut neure konplazenzia ona. Berau adi zazie. Ta aditzeareki lotsaturik diszipuloak erori zire lurrean, eta ellegaturik Jesus onak ukitu zitue ta erran ziote: Etzaistela lotsa, xaiki ordik. Aiek goraturik begiak ia etzute nior ikusi, baizik sollik Jesus. Eta jausterakoan andik manatu ziote ez errateko niori bisionea, aliketa erresuzitatu arteo bera ilen ertetik. Onaraño da ebanjelioa, zeintan) dugu Jesu Kristo erakusten apostolu eskojituei bere majestade ta gloriaren mostra-iduri bat, altxatzen zena gizontasunaren humildadeas, baitare nola zen bateo Jangoiko ta Aita eternoaren Seme.

Ontaik arzen dut eskaida sakramentuetan altxatzen den grazia explikatzeko, espezialki penitenziako sakramentuarena, zeñen birtutes arima trasformazen baita; desgraziatik graziara itzulzen; itsusi zena edertzen; zikindurik zegona garbitzen; eri zegona sendatzen, ila bizten; deabruaren esklabela preso zegona libratutik, Jangoikoaren alaba egiten, kondenazioaren marka borratzen, ta infernutik atratzen bekala, ta zerurako markatzen baita. Ikas dezagun konfesatzen ongi, zein baita xakintasun bat balio duena ia ezi munduko xakintasun guziak. Baña egungoan solamente zer den penitenziako sakramentua, edo konfesiokoa; zein prezioso, ta preziso, ta aisa den; zer bear den sakramentuaren ta sazerdotearen aldetik, utzirik bere igandetako penitentearen aldetik bear dena. Baña guziek guzietako bear dugun Ama saluta zagun lenik Majestadea, graziaren Ama ta miserikordiaren Ama. Abe Maria.

Jesus onak, den bekala gure salbazale, salbatzeas beartugun guziak utzitigu bere Elizan, prinzipalena sakramentuak. Sakramentuak dire señale ageri sagratu sekretoak, paratutuenak emateko guri aien medios bere grazia ta birtuteak. Zazpi dire; ia etze bear, ta gutiago etze aski; zazpieki dugu bearradiña denbora ta estado guzietako, jaioskeros ilaraño. (Bataioan jaioberritzen bekala da arima zerurako, bekatutik graziara, ta markatzen da Jangoikoaren hume ta Jesu Kristoren ardi bekala. Konfirmazioan konfirmatzen da fedean, ta ematen zaio indar. Penitenzian edo konfesioan, oroat baita, sendatzen da eritasun ta eriotze espiritualeetaik. Komunionean alimentatzen ta erregalatzen da erregalo obenareki. Oliatzean seguratzen da biziaren azkena, kendus bekatuen erretoak, emanen indar, konsolu ta konfianza atrazeko ongi eternidaderat. Ordenan konsagratzen dire Elizako ministroak ta sazerdoteak. Matrimonioan ematen da grazia bizizeko ongi elkarreki bizikideak, ta azitzeko humek zerurako. Nori zer falta zaio ia, bera nor bada?) Zazpietan depositatu zue bere odol preziosoaren birtutea, ta obratzen dute signifikatzen dutena errealki, zierto, aisa aski, ta abasto gure disposizioaren ariora. Dire ala nola zazpi kanale graziarenak; nolako onzia damazun, ala atrako duzu. Bataioa da guzien len lenbizikoa ta

ataria bekala. Komunionea da guzien gora gorena, non dagon presente graziaren iturria ta justiziaren iruzkia, Jesus bera. Penitentzia edo konfesiokoa da iagotan bear dena. Goazen ikusis zein prezioso-preziso ta aisa-aski ere den. Asi gaitzen azken gontaik. Aisa aisa ezta berez, ezi bere agos konfesatzea nork bere miseriak, penatzea biotzean kontriziosko lanzetas, kunplitzea penitentzia ta gañarakoak eztire aisa aisa berez; orgatik deitzen da au bigarren bataio-gisa, bataio trabajoso. Baña dakarran irabaziaindako aisa da. Neke ta lazgara iduri leike, dio Tridentinoak, (C.5 de confes.) ezpaledi alibia probetxu ainberze ta ain andieki, ta konsolazioeki, zein ematen baitire dudarik gabe errezeitzeuntenei absoluzioa ongi. Latz dirudi konfesatzea kulpante bere burua? Latzago da kondenatzea sekulakos, eta ortatik libratzen gara konfesatus. Latz dirudi? Baña latzago da bekatuen presidioa, Jangoikoaren ira ta beldurak beti ibilzea, ta ezin eskapa. Eskapatzen da solamente presentatus geurok penitenziako tribunalean, palakatzen da Jangoikoa, ta deskargatzen da bat bekatuen pizu ta prisione gogorretatik, de manera ezi askotan segitzen du konzienziaren bake, serenidade ta alegranzia bat andia, dio Tridentinoak (Ib.c.3.de fructu). Krokota ze ladron famatu bat, zein baizebilza arrapatu naies. Pregonarazi zue enperadore Oktabianok, emanen zuela amar milla eskutu ekarzenzionari ladron gura. Aiturik onek au, salduri bere bizia dakusalaik, ta eztagola seguro nion, zer iten du? Krokota, erraten dio bere buruai, galduak gara; ezta berze erremediorik, presenta gaitzen enperadoreain oñetan; agian inen digu grazia. Joaten da, sarzen da palazioan; urtikitzen zaio oñetara: Jauna, emen dakarrat Krokota, bida premio ofrezitu duena. Non duzu? erraten dio enperadoreak. Eta ark: Emen, Jauna, ni naiz. Barka bezada. Lastimaturik enperadoreak, ez solamente barkatu, ezi ematentio amar milla eskutuak. Ala gelditu ze libre, ta seguro, ta aberats (Parra pl.3. de poenitencia). Jangoikoaren justiziatik nora eskapatuko gara? Bere miseriakordinaren tribunalera, baita konfesioko sakramentua. Praeoccupemus faciem eius in confessione. Ofrezitu du barkatzea enperadore soberanoak an. Nailukelaik ez aurkitu zer kondenatu an goiti, paratu du berze tribunale bat emen beiti etc.

2. (Bekatuak dire ala nola traizio bat bere Majestadeai, nai baluke ez barkatu, baizezake utzi barkatu gabe ta erremediorik gabe eternidadean, zeren ezi gizonak ere ez dezoke satisfakziorik asko eman sekulan. Nai izan zue grazias barkatu Jesus onaren kostus bataioan. Oneki egin zue asko mertxede Jangoikoak, naiz ezpalez utzi erremediorik berriz iten duenarendako bataiatuaskeros. Baña salbatu naies gu, disponitu zue geroko ere erremedioa, penitenziaren sakramentua, bigarren ola deitzen dena, ezkaitzen ondatu perdizioan). Entendatzeko ongi grazia gau, pensa ongi zer litzaken gutas, ezpaltiz erremediorik gerostik betikos, baizik iten duenak paga. Deskuidatu balitz bein bat, adio sekulakos. Ia esperanzaik ez eternidade guzian. Bizia triste pasatu, ta infernura betikos. Oh! Zer grazia in digun disponitzeas erremedioa! Bai, ta grazia gonon grazia da, ezpaita beingo solamente, nola bataioa, baizik zenbat aldis nai dugun errezeitu, aldioroko. Galdegin zio San Pedrok: Jauna, zenbat aldis barkatuko diot ene anaiari? Zazpi aldis? errespondatu zio: Eztiot, zazpi aldis, baizik zazpi amar aldis zazpis (Math.18) Baita nola erratea ezi eskatzeunten guzietan.

3. Grazia ere da ematea barkatzeko potestade gau gizon bekatariei, eztaitzen deteni berze bekatariaik ellegatzeko gizon bekatari denagana, nola baita edozein konfesore, baitezake egin, ezpadu ere egin asko bekatu. Etziote nai izandu eman potestadego aingiruei, baizik gizoni, nola bera ere ezpaize egin aingiru baizik gizon. Ilaskeros Jesus gu salbatzeagatik, ta erresuzitatuaskeros, erran ziot apostoluei: errezeit zazie Espiritu

Sandua; bekatu barkatzentuzienak izain dire barkatuak, ta retenitzentuzienak retenituak (Joan 20). Potestade gau doaie komunikatus sazerdoteei, ordenatus bekala lejitimoki kontino mundua mundu den bitarteo. Deitzen da ordenaren potestadea. Oneki bateo bear da izan jurisdizioaren potestadea, izatekos balioso absoluzioa. Bear dire juntatu batean bi potestade goiek, ordenarena ta jurisdizioarena, ala nola bi giltza idikizeko zerua.

Orai, bada, barkatzeko bekatuak, ori baita ala nola idikitzea zerua, laur lagun juntatzen dire konfesioes sakramentuan; bida ikusten direnak gorputzaren begis, berze biak arimaren begis. Bekatari penitentea, konfesoarea, Jesu Kristo ta Jangoikoa. Eta laurek in beaute beren aldetik logratzekos barkazioa: bekatariak biotzesko dolorea, agosko konfesioa ta obrasko satisfakzioa, gero errain dugun gisan; Kristoren ministroak emanen absoluzioa, Kristok aplikatus bere merejimentuen birtutea, ta Jangoikoak aprobatus absoluzioaren sententzia. Zeren ezi laur gebetaik bat falta bada, ezta barkazorik. Faltza bada penitentean disposizioa, naiz erran konfesoareak, nik absolbitzen zaitut, Jangoikoak dio, nik kondenazen zaitut. Oroat, ezpadu absolbitzen konfesoareak, edo ez sines, edo ez potestade lejitimoareki, deus ezta egiten. Bada, Kristoren merejimentuen birtutea dela obratzen duena sakramentu gontan ta gañarakoetan, nork eztaki? Axuri dibinoa, zio San Juan Bautistak, auda Jangoikoaren axuria kenzentuen munduko bekatuak. Odol dibino garren birtutes bizten, sendazen ta garbitzen dire arimak. Ala konsejatzen du San Franzisko Salesek in zagula kontu, gaudela konfesazerakoan Jesus guruzifikatuaren oñetan, ta dariola gure gañera bere odol preziosoa tantaka gure garbitzeko (Ap.Parra pl.14 de poenitentia).

kunplitzen da ongi Jangoikoak len ofrezitua ((Isai.12). Ona Jangoikoa bera ene salbazale, fiatuko naiz beldurrik gabe, zeren ene indarra ta ene alabanza da ene Jauna, ta enpeñatu da ene salbazioan). Atrako duzie ur alegreki salbazalearen iturrietaik. Eta berriz: (Zachar.13) egoin da patente abasto iturria Jakoben familiaindako. Zer iturri da au? O Jesus, salbaziosko iturria, zer litzake gutas, ori ezpagindu? Zenbat kañuetaik ematen duen ene salbazioaren balsamo preziosoa! Borz kañu borz lllagak; balsamo dibinoa bere odol preziosoa. De manera ezi sakramentu gartan, ene fielak, gure Jaunaren itz ta odol preziosoaren birtutes ematen da bekatuen barkazioa, ez gure indarres edo artes. Sazerdoteak paratzen du giltza, penitenteak disposizioa, baña Jesus onak bere itz ta odolaren birtutes obrazen du grazia.

4. Zer grazia, ordea? Zer mertxede ta ondasun prezioso guzis estimagarria! Oh! Balitz fede ezaunzeko gorputzaren ondasunak bekala, arimarenak! Balitz iturri bat lukena birtute, garbitus an, itzulzeko zarrak gaste, itsusiak eder; zenbat lidoazken artara boladan? Eta sakramentu gontan berritzen ta ederzen du arima Jesusen odolaren birtuteak; eta nola ezten ia estimatzen? Balitz balsamo bat, zeñeki untatus ken leizken lepra ta grano gaixto guziak, eta senda leizken eri-jenero guziak, biztu ta bizkor leizken iletsiak ta il-oztuak, nola estima gindezaken! Eta eritasun ta eriotze espiritualetaik atratzen du bizi ta bizkor arima balsamo dibino garrek sakramentuan; eta nola ezten ia estimatzen! Balitz giltza bat idikitzeke atari guziak, presondegi edozeñetaik atratzeko nauzuna ta noiz nauzun, etzindeizke deskuida. Eta deabruaren presondegian preso zegon arima libratzen da konfesioko sakramentuaren giltzaeki; eta nola deskuidatzen garen! Azkenean balego bat sarturik infernuan, etsiturik, desesperaturik betikos erremediorik gabe, nola baitaude an daudenak; eta biali balez Jangoikoak aingiru bat potestadeareki atrazeko andik libre konfesatu nai duena urrikiturik bere gaizki egina, oh! zer prisa, zein gogotik guziak konfesa leizken istantean oius ere! Eta bekatu mortalean dagon arima dago

kondenazioaren estadoan; ezpada erori infernuan oraño, ez berai eskerrak ortas; esker Jangoikoaren piedadeai, ezpaitu utzi erorzero; baña bere aldetik galdua ze sekulakos; bera markatu da kondenatuaren markareki. Jaun onak biali du bere aingirua, baita sazerdotea, potestadeareki libratzeko nai duena konfesatu ongi: Et quare moriemini, domus Israel? (Ezech.33). Eta zergatik galdu bear da kristiorik? Jangoikoaren itza ezin falta: Jesu Kristoren odolaren birtuteas ezin duda; bere ministroak nonnai; eta absoluzioa ematea ain aisa. Ia zer falta da, ezpada falta penitentean disposizioa? O ene Jesus ona, beñik bein eztaike nior keja berorres! O salbazale propia! O amore, o podore ta piedade geiegia gure on naies! Berorren kostus bizi gara bekatariorik esperanza onareki.

bizi zelarik munduan Jesus, zer ze ikustea nola libratzen zituen gaitz guzietarik ukitzeareki, edo itz bateki solamente? Zer ze ikustea, nola barkatzen zioten bekatariei ain amolsu, ain liberal? Eta orai du jenio bera, ta utzitu bere ministroak ta bere potestadearen giltzak Elizan betekos, ain eskunara salbatu naies guziok, geurok nor bagara! kontatzen du ebanjelioan aita batek zituela bi seme: Gasteena, arturik bere legitima, joan ze ordik orrat; galdurik guzia ta bera, gaizki bizitus, paratu ze nausi bateki zerbitzuan; ark biali zue hazienda beltzen goarda, ta zeuka goseak de manera ezi naizuelaik jan hazienda gaien farraskaetaik; ori ere etziote usten (Luc.15). Itzulirik akordura bere bearres zio: Ah! Zenbat nirabe dauden nere aitaren etxean aserik, eta ni emen iltzen goseak! Joanen naiz ene aitagana, ta konfesatuko diot ene gaizki egina. Joan ze bada; ta urrundarik ikusirik aita, bidera atrarik, artu zue besarka. Semeak erran zio: Aita, bekatu egin dut zeruaren kontra ta berorren kontra; ia ez naiz digno dei nazaten berorren seme. Ar benaza bere nirabeetaik bat bekala. Aitak bereala jaintsiarazi zue tresena obeneki, ta zelebratu zue konbita andi bateki festa, zeren ene seme gau, zio, ilze ta biztu da, galdu ze ta aurkitu da. Zer obeki mostratu zuke gure Jaunak barkatu naia bere hume galduei? Alaber, kontatzen du, (Luc.10) nola gizon bat jausterakoan Jerusalendik ladronek errobatu, golpatu ta erdi ilik utzi zuten. Pasaturik andik bi lagun etziote in kasorik; erris kanpoko batek bai, urrikariturik lotu zizkio lllagak olios ta ardos eginik; ta eramanik ostatu batera erran zio ostatariai: kuida zazu ontas, ta bear den guzia nik pagatuko dizut. Nor da erriskanpoko gau, ezpada Kristo jautsi zena zerutik gure billa? Eritu gura da bekataria; nori enkargatu dion kuratzea da konfesorea; baña bere Majestadeak prebenitu du erremedioa, ta kosteatzen du guzia. Ain kuidadoso bera gu sendatu naies, eta geurek eztugu deus in bear? Naaman Siriako Jaun andi bat lepras beterik joan ze Eliseo profetaren billa garbitu naies. Profetak biali zio erratera Jordango ugaldean (4 Reg.5) xautu zeila zazpi aldis, ta ala sendatuko zela. Ark futoska murmurazen zue manatuas, ta bazoeie etxerat. Mutilak erran zio: Jauna, gauza andi bat manatu bazio ere in bear zue bere onagatik, zenbat obeki gauzagoi? itzuli ze, garbitu ze ta sendatu ze. Ar zagun doktrina arimendako etc, etc.

Sermo in Dominica 3a
quadragessimae.
De examine conscientiae
et confessione

Et cum ejecisset daemonium, locutus est mutus. Luc.11.

Zegola Jesus, dio egungo ebanjelioan, botatzen demonio bat zena mutu, ta botatuaskeros au, mintzatu zela gizon mutua, ta arritu zirela jendeak. (Mutu gau itsu ere zela, dio Beda Benerableak diola San Mateok. (In Breviario hodie) Irur milagro in zituela batean Jesus onak: Bat botatzea espiritu gaixtofikatua; berzea itsuai ematea bista; berzea mintzarastea mutua). Mutu garrek signifikaizen du mutu bekala dena ez konfesatzeko ongi. Mututasun gaixtoa da ori (ta alakoa itsu ere izain da arimaren begietaik, zein baitire fedea ta ezaumentua. Bada, espiritu gaixtofikatua jabetu dela artas da klaro, ezi ark iten duen lana da lenik iluntzea ta itsutzea arima ez sinestatu ta ez ezaunzeko Jangoikoaren bidea; gero ertxitzea agoa ta lotzea mia ez konfesatzeko ongi bere gaizki eginak). Nork senda dezake eri-mota gau? Zerutik etorri zen mediku soberanoak, Jesus Salbazaleak. Betor (in bezki irur milagro batean: ken bezo biotzetik espiritu gaixto gura; argibezo arimaren bista, fedea ta ezaumentua) ta mintzarazi bez mutua, naut erran, erakus dezola ongi konfesatzen. Biotzas iten da sinestea justiziarako, dio San Pablok, (Rom.10) baña agoas konfesioa salbaziorako. Auxa da mintzo ta mintzaera propia palakatzeko gure Jauna, ta logratzeko bere grazia. Confitebor tibi in cithara Deus etc. zio Dabid errege sanduak: konfesatuko diot berorri zitaran, ene Jangoiko Jauna. Zer konfesatuko diot? Berorren ona ta nere gaixtoa; berorren amoreta ta nere desamoreta; berorren miseriak ta nere miseriak; berorren ongi eginak ta nere gaizki korresponditua etc. Zitaran au guziau; zer zitara da? Amar kuerdatako psalterioa, zeren amar mandamentuetaik iten baita konfesioa; ia, beras, konfesioan aurkitzen da ez solamente mintzo ta mintzaera ona, baitaere musika, sonu ta kantu ederra Jangoikoaren ta zeru guziaren gustorako. Musika penitentzia, negarra sonua, ta konfesioa kantua.

Balitz lurrean habilitade soñatzeko ta kantatzeko musika bat ain exzelentea, ezi lurretik zerurano adiarazirik palaka lezan Jangoikoa bera, ta danzarazi aingirua gozoz ta aleganzias, nork ez luke naiko ikasi, ta soñatu, ta kantatu maiz ere? Eta orra, nai duenak dezake ikasi, zeren ezi musikagoi proprioki da bekatiaren penitentzia. Nork erran du? Jesu Kristok berak, (Luc.15.) Ita dico vobis, gaudium erit coram angelis Dei super uno peccatore paenitentiam agente. Gozo ta aleganzia dute Jangoikoaren aingiruek, bekatari batek iten duen penitentzia. Beras, habilitade andia da penitenziaren musika gau, baita ongi konfesatzea. Eztuzie nai ikasi? nai duenak dezake aisa Jangoikoareki bateo. Amar kuerdataik soñatzen dela zitara gau erran dugu, auda amar mandamentuetaik konfesatzea. Baña ditu borz tono edo sonu preziso, ongi itekos; naut erran bear direla borz zirkunstanzia ongi konfesatzeko: 1a Konzienziaren examinatzea. 2a Pena ta urrikimentu surnaturala ofenditua Jangoikoa. 3a Proposito firmea ez berriz ofendizeko. 4a Bere bekatuak osoki konfesatzea. 5a Penitenziaren kunplitzeko intenzioa. Au berau brebeago errateunte askok ta Tridentinoak irurtan, baitire: Biotzesko kontrizioa, agosko konfesioa ta obrasko satisfakzioa. Baña ala diotelaik, kontrizioan sarzen da propositoa ere, ezi au gabe ezta kontriziorik, eta konfesioan entendazen da konzienziaren examina ere, ezi ezpada

examinatzen, nola ta zer konfesatuko du? Egungoan aski dugu explikatzea nola bear den examinatu konzienzia lenik, ta gero nola konfesatu bekatuak. Argi bear dugu ortako; goazen eskatzera argiaren amari, baita Maria Santissima. Abe Maria.

Konzienziaren examinatzea da prokuratzea oroitzeta bekatues, eta egiten da beiratus kuidadoreki mandamentus mandamentu, zer egin, zer erran, zer deseatu ta pensatu duen batek bakotxain kontra. Da ala nola eskudriña bat egitea arimaren etxeas, aurkitzeko barin bada kontrabandorik Jangoikoaren legearen kontra. Da ala nola ematea errepasso bat eskobas etxe guzia barna, bilzeko ta botatzeko leiotik edo ataritik zikintasun guziak; ala bear dire bildu bekatu eginak, botatzeko agoaren leio edo ataritik konfesioan. Da ala nola kontuen egitea, errepassatus urteak, ilak, ta egunak. Recogitabo tibi omnes annos meos in amaritudine animae meae. Nola in bear den erakusteko, bear da eman lenik zenbait adbertenzia: 1a Sekulan eztela egin ta ez eginen konfesio gaixtorik memoria-faltas, bai kuido-faltas. Ala paratuaskeros kuido dilijentea, zerbait atzenzen balitz, ezta orgatik gaixtatzen konfesioa; barkatzen dire atzenduak ere, solamente obligazioareki konfesatzeko oroitzen delaik. 2a bear duela denbora ia, ia bekatu, okasio ta galbide duenak, ta ia denbora duenak eztela konfesatu; alaber, gaizki konfesatus, beartuenak berritu konfesio pasatuak. Kontra, berriz, lasterrago ta aisago inen du guti duenak maiz ta ongi konfesazen denak; ala nola bilo guti duenak, ta maiz orraxtazen denak ezpaitu ainberze orraxa bear, nola bilo anitz ta nastekatua duenak. Oroat, oial zikin aspaldikoak, estrabille urrinzuak beaute ia denbora, lixua, ta eskoba, ta iteko, ezi maiz garbitzen denak.

3a Solamente dela obligazio examinatzeko bekatu gaiek, zein den obligazio konfesatzeko. Eta ala nola ezpaita obligaziorik konfesatzeko len ongi konfesatuak ta beniale klaroak, baizik nai badugu bai, nai ezpadugu ez; oroat, eben examinatzean ezta zer aflijitu, naiz eztaien oroitu guzietas, nai badu ere. Zertas den obligazio konfesatzeko, ta por konsigiente examinatzeko, dire bekatu mortaleak, ez len konfesatuak, gaizki konfesatuak, ziertoak ta dudaskoak beren numero, espezie ta zirkunstantzia diferenziantzentuteneki, baitare okasio proximoa, eta kostunbre duenaren argal edo usu, galdegiten badio bentzait ortas konfesoreak.

4a Ezpadaike atra mortaleen numeroa ta kontua txusto txustoa, aski dela guti gorabera, ori ere ezpadaike, atra kontua iloro zenbat, edo asteoro, edo egunoro zenbat bata berzeareki jenero bakotxean idurikal, adiarasteko bere arimaren estadoa alikako obekiena. 5a Mandamentu bakotxean joan berexis obraskoak, itzak eta biotz-barnekoak. Alaber, eman bada eskandalo edo galbiderik, eta ala joan bildus mandamentu bakotxean aurkitzen dena.

Goazen ia erakutsis forman. Arturik bear adiña denbora, bezperatik edo bezperagotik, alaber leku soill erretiratu, belauriko paraturik Jangoikoaren presenzian eskatu humil grazia examinazeko; ene Jangoiko Jauna, eznue bear ofenditu orren Majestadea, baña ofenditu dut sobra, bai, sobra; eman bezada argi ta su biotzera, ezaunzeko ta sentitzeko ongi ene gaizki guzia etc. Gero, oroiturik zenbat denbora duen azken ongi konfesatuaskeros, joan detenitus ta errepassatus mandamentu bakotxean faltatu duena, gogoratus non ta non izantuen okasio prinzipalenak berere. 1a Jangoikoa onetsi ta adora zagula guzien gañetik. Ontan examina errelijionearen kontra direnak, fede, esperanza ta karidadearen kontrakoak ere bai: Errelijionean, ia sakramenturik gaizki errezibitu duen gauza sagraturik, boto, errelikia, imajinarik gaizki tratatu duen; fedean, ia ukatu, edo dudan paratu duen fedesko gauzarik; esperanzan, ia faltaik edo sobraik izan duen; karidadean, ia faltatu dion Jangoikoai amore ta atenzio zor zaiona, iraik, furiaik,

blasfemiaik ta alakorik izan duen bere Majestadearen kontra. Egon bear da deteniturik, al badaike oroitu alako zerbaite. Ia eztuelaik uste badela ia, pasa bigarrenera. 2a Juramenturik banoan in etzagula. Examina emen ia in duen juramenturik falsuan, edo gauza gaixto grabes, edo maldizio graberik sines. Ortas landara nai baitu examinatu lebeak ere, bere esku du. 3a Jaiak ta igandeak goardazkigula. Examina emen ia trabajatu den notableki jaietan; ia galdu duen mezarik, edo zati andirik, edo desatento egon den bere faltas; ta zenbat aldis. Nai baitu lebeak examinatu, aiek berex. 4a Aitetamak honrazkigula. Examina emen ia odio, desprezio, desatenzio edo desobediencia graberik in duen buratsoei edo superioreei, ta zenbat, nai baitu lebeak, oroat. Alaber, superioreek beartuste ontan examinatu beren faltak matrimonioan, familian ta obligazio edozeintan. 5a Nior il etzagula. Examina emen irasko akzioneak lenik; gero itzketak; gero biotzeko deseo gaixto, inbidia, odio ta alako afektoak. Baitare exzesoa jan, edan ta berze gauzetan. 6a Luxuriasko bekaturik in etzagula. Examina ontan, oroat, akzione deshonestoak lenik; gero itz ta konbersazio torpeak; gero deseo, gozande ta afektoak, berexis zirkunstanzia diferente iteuntenak bekatura, baitare eman den niori galbiderik. Ta emen daike examina bedrazigarrenain kontra dena, baitio proximoaren bizikidea desea etzagula. 7a Deus ebatsi ezagula. Examina emen ladronkeria ta perjuizio eginak proximoei, baitare dena amargarrenain kontra, baitio proximoaren hazienda desea etzagula. 8a Niori falso testimoniorik erakitxi etzagula. Examina emen juizio gaixtoak, testimonio falsuak, sekreto agertuak, murmurazioak, gezurrak; berexis beti grabeak ta dudaskoak lebe klaroetaik. En fin, naiz nik erran eztuten zerbaite bekatu barin bada, ura ere bai. Ezamina gau daike egin zatika ere, aldi bates mandamentu batzuk, berze aldi bates berze batzuk. Errepetitu, alaber, berze egunean, ta bear den guzian, ta azkenik konfesatu-alzinttoan. Aldiro postrean enplea egiten alguzia kontriziosko akta penatus, ta barkazio eskatus nola erakutsiko dugun urbilen platikan. Goazen orai konfesatzera bekatuak, nola in bear den lan gau.

Doktrinak dio: Zer nai du erran, bere bekatuak enteroki konfesatzea? Erran bear direla bere bekatu mortale guziak konzienzian dauden bekala, ziertoak zierto bekala, dudosoak dudoso bekala, batere kendu ta añaditu gabe. Goazen berexis itzak. Erran bear direla, dio, entenda, bere agos, naiz ez galdegin. Bere bekatuak, dio, ez berzerenak; bekatuak, ez birtuteak, ez nezesidadeak, ez historia inpertinenteak. Mortale dio, zeren eben erratea baita obligazio prezisos, baña beniale klaroena solamente debozios. Guziak, dio, zeren bat altxatzen badu malizias, alkes, edo ajola gutis, batere eztuela presentatzen barkazeko, dio Elizak (Trid.s.14). Konzienzian dauden bekala, dio, nai du erran, diren bekala bere uste guzian. Ziertoak zierto bekala etc. Nai du erran, bai dena zierto bai, ez dena ez, ta dudan dena dudan. Batere kendu ta añaditu gabe nai du erran bear direla konfesatu ez ia ta ez gutiago diren baño. Erloju batek, ona izatekos, ez solamente beartu onak erruedak, baitare señalezallea, ta dandak ongi eman, ezi amabiak eman bearrean ematen baitu amarrak, ta edozein ordu dela trukaturik, obe da baterez. Penitenziaren erloju gontan examina, ta gañarakoak ongi eginik, miak ere eman beartu zuzen dandak, konfesatus kulpak direnak, ta diren bekala. Biziazen zaña da justoarene agoa, dio Espiritu Sanduak (Prov.10), baña gaixtoen agoak altxatzen du gaixtakeria. Nondik atra bear den gorputzaren gaitza ta odol gaixtoa, medikuek beira bezate. Arimaren gaitza, bekaturen benenoa agotik atra bear da; agotik in bear da sangria gau Jangoikoaren manamenduz, lograzekos bizia. (Trid.ib.c.5.) Munduko tribunale justizietakoetan progatzen badizute, edo konfesaten bauzu delittoa, kastigoo ta pena dezakezu espera. Baña Jangoikoaren miseriakordiasko tribunale gontan konfesatzen bauzu zeure agos, zara libre, ezpauzu

konfesatzen, zara kondenatua. Ango tribunaleas dio San Pablok, bear garela guziok presentatu errezibitzeko premio edo kastigo indugunaren ariora (2 Cor.5). An ellegaturik bekatu mortale soil bateki ere, dena dela, izanen da kondenatua. Zer egin du gure Jaun onak? Ez aurkitu naies orduan zer kondenatu, paratutu emen bere graziasko tribunalea ta juezak bere potestadeareki itz emanik, bekatu barkatzentutenak emen, izain direla barkatuak an. Quorum remiseritis etc. Beras, eztena presentatzen emen konfesatzera bere kulpak gelditzen da kondenatzeko an. Ala nola errege batek emanbalezo bere bisorraiari esku barkatzeko bere traidoreei, nola presenta daitzen humil konfesatus beren gaizki egina, ta eskatus barkazio, ezperen ez. Zer tonteria litzake ukatzea, bentzait balire xakinak? Osunako duke Napolesko bisorraia joan ze bein bisitatzera presidarioak, ta galdegines guziei banaka zer kulpas zeuzkiten an, guziek sandutzen beren buruak, batak ziola ezi testimonio falsuas, berzeak ezi desgrazias, berzeak ezi ustekabean, ta ala; ustes ala libratuko zituen. Azkenean batek errespondatu zio zen bekala egia: Jauna, ni, arrazioreki naukate emen, beti nitza gaixtoa, ta orgatik. Orduan bisorraiak, ola, ezta arrazio zu bekalako gaixto bat egotea emen ainberze onen erlean; zoaz emendik zu libre, geldibeites etc. (Parr.pl.21.) Ala gure konfesioaren grazia da geuren kontra ematea, aurkitzeko fabore Jangoikoa. Ala zio Dabidek: Confitebor adversum me etc. (Ps.31.) konfesatuko diot neure kontra nere gaizki egina Jangoikoai. Eta berla dio Jangoikoak barkatu ziola. Zenbat kuadratzen zaion konfesio humil egiaskoa! Gezurra, berriz, konfesioan da perdizioa. Ananias ta Safirai kargu eginik San Pedrok erran ziote: Eztioze gezur egin gizonei, baizik Jangoikoai; eta biak utzi zitue ilik an bere atsas (Act.5.). Alaber, goardatu bear gara berze bearreztiren atxekia, ta inpertinenzietaik konfesioan. San Pedro Damianok zio, (Ap.Parra pl.16. de paenitentia) batzuen konfesioak direla konfusioak, berze batzuenak defensioak, berze batzuenak ofensioak. Dire aien konfesioak konfusio, zeñek konfunditzen ta nastekatzen baitute ia ez ia bai, ingura minguraeki, ezin daikela ongi entenda. Aienak dire defensio, zeñek defendatzen ta diskulpatzen baituste beren buruak atxekia ta kausa-idurieki. Aienak ofensio, zeñek ofenditzen duten proximoa botatus oni kulpak, garbitus beren burua. Ene fielak, beti ere bai, baña prinzipalki konfesioan bakotxak konfesa bere kulpak, utzi berzerenak, eman bere buruaren kontra, itsustu berak bere burua ederzeko, ala nola zillargilleak auts loies funditzen baitu zillarra paratzeko garbi-eder, flamante. Akusatzea bere burua da konfesioaren grazia; ori erakusten digu Elizak Ni bekatorean paratzentigulaik agoan itz gaiek: Enea da kulpak, enea da kulpak etc.

Emagun ia zenbait adbertenzia egiteko ongi konfesioa. Balitz kontriziosko dolore fin andia, oneki guzia in leike ongi ta aisa, ala nola su ta lixu onareki aisago garbitzen diren oialak. Lenbiziko adbertenzia biz pensatzea ofenditu dugula Jangoiko andia, mereji dugula kondenazioa, ta goazila beraren oñetara, ez solamente urliai edo sandiai, baizik Jangoikoai berai konfesatzera geuren kulpak zeru guziaren presenzian. Ontas oroiarasten gaitu Elizak erakustendigulaik Ni bekatorea: Ni konfesatzen natzaio zeruetako Jaunari, Birjina Andre Mariari etc. Berze adbertenzia bat da, konfesatzea aldioro ilzeko bekala, ta joateko ematera kontuak Jangoikoaren tribunalean. Berze bat da sinestatzea ta pensatzea egi eta fede diona San Juanek (1.c.1.), konfesatzen baitugu geuren kulpak, fiela da ta justoa gure Jauna barkatzeko ta garbitzeko. Si confiteamur peccata nostra, fidelis est etc. Kontra, berriz, eztena konfesatzen, kondenatzen da ixil ixila zeikena libra konfesatus, dio San Agustinek, tacitus damnaberis qui poteras liberari confessus (Ps.66.) eta berriz Dabidek diona psalmoan: (68) ez nadiela erori butzu barnan, eta eztakidala ertxi gañetik butzuaren agoa, explikatzen du sanduak; butzu andia da gaixtakeria humanoaren gaixtoa.

Erorzen dena ontan, erorzen da butzu barnan; baña estado gortan konfesatzen badu bere gaizki egina, eztu oraño butzuak ertxi gañetik agoa. Baña ezpadu ajolarik konfesatzeas, ia butzuak ertxi du agoa. Zer da ertxi du agoa? galdu du konfesioa. Azkenean dilijenzia guziak in bear dire lenago ezi egin konfesioa gaizki. Infernuko otsoak arrapatzentu asko ardi kristio txintxurritik estorbatus konfesatzea ongi. Erresisti tentazio gorri medio guzies. Pensa badakiela Jangoikoak zure kulpaa, dena dela, eta eztaikela dispensa konfesatzea edo emen sekretoan, edo an guzien alzinean. Pensa badakiela demonioak ere, ta akusatuko zaituela Jangoikoaren tribunalean, ezpazara akusatzen emen zeuroi; baña akusatzen bazara, ia eztu ark akusazekorik, dio San Agustinek (S.66.de temp.) Pensa dela konfessorea ere gizon aragisko miserablea dakiena gure loi gonon berri, ezpadu egin egin dezakena edozein bekatu; ez dezakena aipatu aditua an, milla zati inen baute ere. Eta billa, nai bauzu, ezaun gabea, leku, garai, modu ta injenio guziak, nola konfesatu. Pensa zeruan dauden zenbait sandu erori zirela kulpaa alakoetan ez ezi andiagoetan, ta orai betiko libre daude alkaizun ta desonretik, zeren ordutto bates garaitu ziren. Pensa punzada emaintizunak emen ere konzienziak bizi guzian, ezpazara garaitzen beingoas; kontra, berriz, zer gozo ta deskansua betikos trabaju pixkatto baten kostus logratuko duzun glorian. Alde guzietaik dugu obligazio ta konbenienzia konfesatzeas geuren gaizkiak, direnak direla. (Milagros mostratu du Jangoikoak on gau, konfesarazis ta erresuzitatus ilak ere ortako, mantenitus etzeizen il ilzen zirenak. Bi urte zue eman zela batalla bat Ungriako kanpo batean, (Apud. Parra pl.2. de poenit) ta bideasko batzuek aitu zute ango kalabera ta ezurren ertetik erraten Jesus Maria. Urbildurik aurkitu zute buru bat gorputzik gabe, erran ziotena: Kristioa naiz ta Maria Santisimaren deboto. Bi urte du il nindutela emen konfessorik gabe, ta ez nindeien kondena, Maria Santisimak mantenarazi dida bizia, konfesa nadien. Betor konfessore bat. Etorri ze, aitu zue, absolbitu zue. Ta istante geldi ze kalabera mutu ila bekala. Leitzen dire anitz alako. Baña bizietaik bat nai dut kontatu animazeko konfesatzera (Ap. Para pl.19 ib.). Roman bi ezkonduiek ezpaizute humerik, logratu zute orazio ta obra onen medios izatea seme bat. Oh! Nola eztakigun zer den on askotan! Azis bekala seme gura, zoeie aumentatus buratsoen amoreaa arregana, de manera ezi epeldu zire Jangoikoaren zerbitzuan. Aitak ori erreparaturik, ta lenago zuela kuidatzea Jangoikoas ta bere arimas, andrearen lizenziareki, erretiratu ze leku soil batera. Ia bakarrik ama bere semeareki, aumentaturik urteeki amoreaa, geroago ta ia, azkeneko zertan baratu zen! konzebitu zue amak semeaganik. Bitarteo segitus obra onak agerrian, ziudade guziaren exenplu ze. Baña plazoa ezin exkusa; pasatus egunak, ellegatu ze, erdi ze, eman zue argira bere bekatuaren fruitua; eztiot ongi eman zuela argira, zeren ezi bere eskus il ta orzi zue bereala, gaindus bekatua bekatuain gañean. Disimulatu ze munduaren alzineko. Bitarteo Jangoikoaren permisios gizon-iduri bat abogatuaren nonbrean ze famatua Roman xakintsu miragarria bekala. Onek bein konsejuan erran zue zekarla gauza bat txoil inportazioskoa, baize milagro nola etzuen Jangoikoak galdu ziudade guzia an agitu zen bekatu baten kasos. Deklaratu zue an berean andre garren historia. Juezak arriturik etzeude sinestazekotan; baña arren porfiagatik deitu zute konsejura andre gura. Iten diote kargu delikto gaietas. Nola gelditu bide zen aditzeas bere maldadeak leku gartan! erran zue prudenziareki etzela ura gauza, errespondatzeko ain berla berla. Eman zezotela ortako denbora. Eman ziotte, señaletu ziotte eguna noiz itzuli. Atra ze andik, baña nola bide zegon arren biotza. Joan ze billatzera sazerdote bat Luzio deizen zena. Oni kontatu zio bere trajedia. Onek konsolatu zue al guzia; erran zio konfesa zeieela bere bekatu guzies kontrizio andiareki, ta enkomenda zeieela Maria Santisimari. Ala egin zue ere. Ellegaturik egun

señalatua, konfesaturik ongi ta enkomendaturik Maria Santisimai, joan ze konsejura. Bildurik zeude konsejuko guziak, ta jendetze andia berri aituaren kasos, eta puntual abogatu gura an. Paraturik erdian andrea, presidenteak erran zio akusazaleai, explika zezala zuena arren kontra. Ark etzue berzerik egiten, baizik beira ta beira egon ala nola arriturik ta ixil. Juezak: Ots, erran bez duena onen kontra. Orduan ere: Ezta au nik nion gaixto gura, ezi au da andre prestu sanda bat, eta defendatzen du Maria Santisimak. Eta au erran ta desapareztu ze abogatu falsu gura, baize deabrua. Guziak arritu zire, ta honratu zute aklamazio ta laudario andieki andre gura sanda bekala, zeñen kontra zen demonioa, ta fabore Maria Santisima. Orra zer egiten duen konfesio onak, ez solamente ez eman deshonerrik, baizik ia honra, ta prinzipalena, Jangoikoaren Ama Birjinaren aingiruen ta sanduen begietan edertasun ta grazia, prenda lograzeko gloria.)

Sermo in Dominica 4a
quadragessimae
De supernaturali
dolore et proposito

Et sequebatur eum multitudo magna,
quia videbant signa, quae faciebat
super his qui infirmabantur. Joan.6.

Egun kontatzen da ebanjelioan milagro gura, noiz Jesus onak borz ogis ta bi arraies eman zioten jatera abasto borz milla gizonen leku soil batean. Motiboa, zergatik segitzen zuen ainberze jendeak Jesus, dio zela zeren ikusten baizuste señaile edo milagro iten zituenak sendatzean eri zeudenak. Emendik arzen dut eskaida pasatzeko ikustera milagro ia ta andiago itentuenak Mediku soberano gonek sendatzean arima eriak, iletsiak ta ilak bere odol preziosoaren birtutes penitenziako sakramentuan, nautelaik berek. Nautelaik berek diot, zeren ez sendatzea guziak ta beti, da zeren nai eztuten berek. Doktore on batek erran zio bein sazerdote bati: Fortuna dute oiek arimen doktoreek, baituste erremedioak seguroak ta ziertoak, nolakoak baitire sakramentuak; ez gureak bekala, zein baitire inzierto zenbait aldis, ta ez aski sendatzeko eritasun guziak. Errespondatu zio sazerdoteak dotoreai: Egia da diona, baña ortako dute oiek fortuna, oien eri guziek nai izatea gogotik zierto sendatzea; guk kontra dugu desgrazia, ez nai izatea gure eri guziek gogotik sendatzea (Ala da egia: Gorputzeko eritasunak guziek sines aborrezitzen tugu, ta nai ginduzke sendatu; baña arimaren eritasunak ez guziek naitugu kendu, zeren eztitugun sines aborrezitzen. Penitenziako sakramentuaren erremedioa seguro ziertoa da sendatzeko edozein eritasun espirituale, au da, barkatzeko edozein bekatu dena dela, ezi obratzen du Jesusen odolaren birtutes. Baña zer ai gara, ezpadu aborrezitzen, baizik amatzen eriak bere eritasuna, suberboak bere suberbia, luxuriosoak bere luxuria, biziosoak bere bizioa, bekatariak bere bekatua?) Nola sendatu kontent dagona bere gaitzareki? Orgatik sakramentu penitenziarako disposizio preziso prezisoena da biotzesko dolorea, au da, urrikimentu fin bat ofendituas Jangoikoa, proposito firmeareki ez berriz ofenditzeko. Dolore ta urrikimentu gau da penitenziaren eta konfesioaren arima ta mamia bekala; emendik eman zaio izena ere, penitencia, baita penatzea edo pena izatea bekatues. Au gabeko konfesioa da arimaik gabeko gorputza, mamiarik gabeko azal edo kaskilla, ez sakramentu, bai sakrilejio. Penitentearen aktoen ertean lenbiziko lekua duela dolore gonek, dio Tridentinoak (S.14.c.4.) Eta ori gabe konfesatzea, dio San Gregoriok, dela nola medikuari erakustea bere gaitza edo lliga, ta ez nai izatea sendatu. Askok paratzen dute kuidado guzia examinatzean konzienzia, erratean bekatuak, kunplitzean penitencia. In bedi ori guzioi ordu onean. Baña lena len, baita dolore sina, aborrezimentua bekatuena biotz guzias. (para zagun konparanza bat adiarasteko. Agi bedi xakitea gordetzen direla oian edo sasidi batean otsoak galtzentiotenak haziendak. Prebenitzen dire armas, ta señaleturik eguna, biltzen dire, ta doaz aien billa erresakan; dabilta oiana barna batzuk, berze batzuk esperan. Aurkizentute, ikustentute. Ta orreki uste duzu itzulzen direla kontent? Ez, baizik orduan dire ia lasterrak eta tzakurrak, eta oiurak, eta tiroak, eta arroituak akabatu arteo an gaixtofikatu gaiek. Goazen aplikatus: Bekatuak dire arimen otso galgarriak. Eben erresaka ta agertzea da examinatzea ta konfesatzea. Obena da falta aborrezitzea damu andiareki

akabatu naies. Akabatzea da barkatzea. Ortako len lena eskatzen du Jangoikoak urrikidakigun, ezperen zergatik bear digu barkatu, naiz ezaundu, naiz konfesatu, naiz barkazio eskatu gaizki eginas, ezpagaude penaturik ortas, berriz ez itekotan?) Penatze edo urrikitze gau da bekatuen kontrabeneno lenbizikoa, ta ori gabe eztute balio gañarako erremedioek, ta ori gabe sekulan ezta eman ta ez emanen barkaziorik adin dutenei ezaunzeko gaizki egina. Nisi poenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis (Luc.13). Agi daike bear orduan ezin examinatus konzienzia, ezin konfesatus kulpak; ezin deus egin, eta alaere absoluzioareki dolore biotzeskoaren birtutes barkatzea bekatuak. Agi daike examinaik, konfesioik, absoluzioik ta deus gabe barkatzea solamente kontriziosko dolorearen birtutes konfesatzeko intenzioreki. Baña sekula bere bizian eztaike agi barkatzea niori doloreik batere gabe, naiz eman dezon absoluzioa Aita Sanduak berak. Ia, beras, ezten inporta ikastea nola den dolore ta urrikimentu bear den gau konfesazeko! Goazen explikatus (baña lenik estima zagun gloriako Erregina ta gure Ama Santissima Maria. Abe Maria).

Dolorea, urrikimentua, biotzeko pena ta negarrak dire proprioki bekatuendako, dio San Juan Krisostomok (H.5 ad pop.) eta ongi dagokio, gizon balienteenai ere penatzea ta negar egitea motibo gortas. Eta ortako sollik dire protxal, ta ez berzetako. Zoaste ikusis: galdu du batek dirutze andia; trizatzen da, iten du nigar. Ezta orgatik betetzen bolsa (deshonre bat izandu; iten du nigar; ezta orgatik kobratzen honra). Desgrazia du, iten du nigar; gelditzen da ain desgraziatu nola len. Eritzen, edo iltzen zaio amari humea; iten du nigar; orgatik eria eri, ila il gelditzen da. Baña bekatuen kasos galdurik grazia, heriturik ta ilik arima, penatzen bazaio, nigar iten badu bear bekala, guzia erremediatzen da. Bear bekala iten badu, erran dut berarias, zeren ezi ortako ere eztire protxal negar ta dolore mota guziak, ez geienak ere). Abasto dire negarresko balle gontan penak, doloreak, negarrak andik eta emendik ontas ta artas; baña bekatuen kasos ain txur, eskas aurkitzen dire, nola urrea lurraren aldean. Goazen urre gau berexis lurretik. Beñik bein barkazeko bekatuak edo konfesazeko eztute deus balio pena, dolore ta urrikimentu naturaleek. Zein dire natural? Direnak motibo naturales, ala nola galduagatik ondasuna, konbenienzia, honra ta edozein gauza lurreko penatzea bekatues eztu deus balio; natural da; naiz orgatik urtu daien negarres, etzaio barkatzen bekatuak. Bekatuetaik asko aldis segitzen dire kalte goiek; asko aldis darraizkio damuak, urrikiak eta negarrak. Eztaike fia eztiren negar bortak, banoak, inutilak. Zertas da penagoi? Da Jangoikoaren ofensas, edo bere kalte ikusten denas? Ontas barin bada, debalde da; Jangoikoagatik barin bada, ori da berzerik.

Dolorea, bada, bear da izan sobrenatural. Da sobrenatural dena motibo sobrenaturales, au da, solamente fedes dakizkigun motibo gaietas, ala nola bekatuaren gaizkiagatik, grazia ta gloria galduagatik, Jangoikoa ain ona ofendituagatik; ezi motibo gebek solamente fedeak erakustentu, orgatik deitzen dire sobrenaturalak, ta eben kasos penatzea bekatues deitzen da pena edo dolore sobrenaturala. Dolore gau bear da izan biotzean edo ariman, baña ezta preziso sentitzea, edo mostrapzea suspiro, negar ta alakoetan. Alakorik gabe agi daike izatea ainberze ta ia dolore an biotz barnean. Suspiro, negar ta alako mostrap batzutan dire etsaiaren astuzias, engañatzeko dituen. Berze batzutan dire hipokriten injenios ta itxurapenes. Geienetan dire naturale, zamur, beratx, negartis. Zenbaitetan dire Jangoikoaren donos ta mertxedes. Nori ematen dion, da fortunoso; estima bez anitz, nola prenda bat Jangoikoaren amorearena, Jangoikoak maite duelako bera, ta berak ere bai Jangoikoa. Deitzen da negarren donoa. Baña ori ez izanik ere, naiz seko ta gogor, daike izan biotzean urrikimentu ta dolore sin ta sendoa deitzen

dena apreziatiboa, noiz ta errealki aborrezitzen duen bere gaizki egina. Nola adiaraziko dut diferenzia gau? Kontu inzagun il dutela puñaladaka mutil prestu bat maite zutena ala aitak nola amak. Ama guzia da oi, negar ta marraka sentimenturas! Aita arriturik bekala negar txortarik gabe dago mutu, geldi, beira beira leku batera; badu orgatik amak adiña pena biotzean. Ario gartara ilik arima bekatueki, batek du sentimentura ta negargale; berzeak ori gabe du biotzean urriki sines ta sendoki, naiz ezin mostra. Balioso da dolore gau ain nola ura. Baña entenda, ezi dela bata dela berzea, bear dela juntatu bekatuen aborrezimentu egiaskoareki ta barkazioaren esperanzareki.

Dolore sobrenaturale gau da bi gisatara, bat deizen dena kontrizio perfektoa, berzea kontrizio imperfektoa edo atrizioa. Kontrizioa da amoresko dolore ta urrikimentu andi bat ofendituas Jangoikoa bera nor denagatik, zeren ofenditu duen jaun bat ain ona ta amablea, intenzioreki konfesazeko ta emendazeko. Atrizioa da beldurresko dolore ta urrikimentu andi bat Jangoikoa ofendituas, zeren bekatu gaixtoen medios galdu baitu grazia, zerurako dretxoa, ta bota baizuke infernuko penetara. Kontrizioaren motiboa da Jangoiko maitearen ontasun infinitoa ofenditua. Atrizioaren motiboa da bekatuaren itsustasuna, graziaren ta gloriaren galdua, ta infernuko penak merejitua. Klaroago: Bi gaitz itentu iten duenak bekatu mortale bat: Bata, Jangoikoa amatu bearrean agrabiatzea; berzea, bere burua pribatzea graziatik ta gloriatik, ta kondenatzea infernura. Orai, bada, azken motibo gebetaik mogitzen bada urrikitzera ofendituas Jangoikoa, ark du atrizio. Baña Jangoikoaren amore solles mogitzen bada, du kontrizio. Kontrizio gau, klaro-aski da dela obeago zeren amore noblearen humea baita, baitare zeren bakarrik barkatzentuen bekatuak konfesatubañolen konfesazeko intenzioareki ta obligazioareki. Eta ain bizi, fin ta fuertea izan daike, ezi barka dezan kulpa ta pena guziak arras, igateko istantean zerura purgatorioik gabe. Ala kontatzen du San Bizente Ferrerek emasteki galdu bat zegolaik aditzen predikari bat, baize sandua bera, alako dolore kontrizioskoak prensatu ziola biotza, ezi gelditu baize ilik zegon lekuan. Ta predikariak erran zue il zela kontrizioaren utses, eta bereala aitu ze boza bat zerutik ziola: Eztuzie zer eskatu orren arimagatik, zeurok bai enkomendazaiste berai, ezi dago ia zeruan. (Parra pl. 19 de poenit.) berze bates kontatzen du Aita Parrak, bi itz gebek erratean, Aita gurea, suspiro bateki il zela konfessorearen oñetan, ta bolatu zela arima zerura. (Ib.pl.10). Fr. Raimundo de Kapuak Santa Katalina Senakoaren konfessoreak eskatu zio sanda goni, erdetxi zezola Jangoikoaganik induljenzia bat plenaria. Sandak in ondoan orazio, mintzatu zio biramonean konfessoreai ponderatus Jangoikoaren ona ta gure gaixtoa alako maneran, ezi desegiten ze gizona kontriziosko dolores eta negarres. Sandak orduan orra non duen Jangoikoaren induljenzia plenaria. Emandezozke graziak (Ib.pl.11). Kontrizio gau, dolore amoresko gau, ta amore doloresko gau da preziso prokuratzea eriotzeko orduan. Gañarakoan anitz aldis bizian ere bai. Eta konfesazeko ere da konbeni prokuratzea; baña naiz ezten ain on, aski da atrizioa ere sakramentuareki bateo, nola duen bekatuen aborrezimentu fina ta barkazioaren esperanza.

2. Dolore, urrikimentu ta aborrezimentu gau bekatu mortale guzies bear da izan proposito firmeareki ez admititzeko berriz sekulan. In kontu an iltzen ta orzitzen tugula madarikatu gaiek gaizki agertuak, eztaien bizi aien arrazaik ere gure baitan. Iltze, ta ilorzitzeareki konparatzen du San Pablok bataioa (Rom.6). Oroat dezakegu erran penitenzias, baita bigarren bataioa. Edo ezpadugu erraten, nola baita errekonziliazioaren sakramentua, au da baketzeko Jangoikoareki, dela ala nola bakearen eskritura bat Jangoikoaren ta bekatariaren artean; eskribau edo sekretario-gisa konfessorea; Jangoikoak firmazen duela barkazioa, bekataria obligatzen dela ez berriz ofenditzera grabekiro

bentzait. Proposito gau bear da izan unibersale, firme ta efikaz. Unibersale nai du erran, bekatu mortale guzietaik goarzeko, ta denbora guzietan. Despeida bat bekala guziei ta betikos. Firme nai du erran, gogoaren erresoluzio sendo fuertearaki, naiago duela il lenago ezi admititu mortalerik. Efikaz nai du erran mostradaiena obraetan artus medioak ta erremedioak emendatzeko, errepugnatus kondizio ta kostunbre gaixtoeri, ta apartatus okasio ta peligro proximoetaik. Barin bada kontrizio edo atrizio egiaskoa, izain da proposito gau ere; eta au ezpada, ezta ez kontrizio ta ez atrizio egiaskorik. Dolore ta proposito gau preziso da aurkitzea ariman absoluzioa baño len; orgatik da konbeni prokuratzea konfesiora baño len. Nola inen dugu? Jauna. Nola izan dolore?

Orixe da itekoa, ta orren erakustea ere bai, ezi bear dela izan errateak zer balio du, ezpadugu erakusten nola logratu izatea dolore goiek? Bekatu guti edo baterez tutenek, sanduek, dute anitz dolore, pena ta negar berenes ta berzerenes; eta bekatarik daudenek beterik bekatus, nola sagarroiak punzikes, (ta nola pozios larrapoak) eta ezin penatu! Zertan dago au, jaunak eta andreak? Ez ikustean bekatuen gaizkia ongi arimaren itsutasunes. Garade lurreko animalettoak, eta nola baitugu lurreko gauza ageri direnetara afizione ta amore, ala eben galzeas dugu dolore. Baña Jangoikoaren ta arimaren gauzetara ez amore ta ez dolore, nola ezpaitugu ikusten begis. Begiek ez ikusi, gogoak ezin senti; da errefrana. Gal daiela dirua, hazienda, humea, osasuna etc. Orduan asko pena ta negar: Idia, edo mandoa, edo gauzaren bat galdurik, berla pena ta negar. Eta galdurik Jangoikoaren grazia ta gloria, galdurik Jangoikoa bera bekatu mortalaren kasos, irri alaere, ta penarik ez, negarrik ez. Bada, abasto izain dire noizbait penak eta nigarrak oraiko partes. Vae vobis, qui ridetis nunc, quia lugebitis.

Nola, bada, izain dugu kontriziosko pena, edo atrizioskoa berere? Dela au ere Jangoikoaren donoa ta Espiritu Sanduaren mogimentua, dio Tridentinoak (s.14.). Zenbat ia kontrizioa, delarik Jangoikoaren amorearen hume propia? Dire dolore sobrenale gebek ala nola zeruko su bat, zeñeki erretzen den biotza penas ofendituagatik Jangoikoa. Su gau ezta aurkitzen, itzalzen bai laster, gure loi gontan. Zer in bear dugu bada? Zer iten da, itzali delarik sua sukaldean? Billatu den lekutik. Bada, zeruko su gau zerutik billatu bear dugu, eskatus gure Jaunari: Jauna, ni bekatu iteko bai, baña ongi iteko ez naiz gauza, ezeta ere ezaunzeko ta sentitzeko gaizki egina. In bezada mertxede emateas su pixka bat biotzera erre dadien penas eta dolores ofendituagatik orren Majestadea. Eskatzea da len, baña ezta in bear ia? Bai, arrimatu materialeak ta sukaia, eta fu eman itxekitzeko sua. Ezta ala? Emen ario gortara. Eskatuaskeros Jangoikoai. Kontrizioaren sua, arrimatu sukaia materialak, ta fu eman. Materialak dire dolorearen motiboak. Fu ematea da konsideratzea ongi ebek. Motibo bat, egitea bera bekatua, auda, debekatua; lurreko artto batek desobeditzea, agrabiagea, despreziagea Jangoikoaren Majestadea! berze bat, fruitu atra duguna malogratus gindukena irabazi, ezpagindu egin. Berze bat galtzea leneko ongi eginen irabazi guziak. Berze bat galzea Jangoikoaren grazia ta oni darraizkion ondasunak, ta gloriarako dretxoa. Berze bat obligatzea bere burua infernuko penaetara. Guzien gañetik da kontrizioaren motiboa, jaun bat ain andia, ain amantea, ain ona ta ongi-egillea amatu bearrean ofenditua malamente! Zorzi dire zirkunstanziak pensa daizkenak ontan: Latines, Quis, Quid, Ubi, Per quae, Quoties, Cur, Quomodo, Quando. Euskaras borz N, ta irur K: Nork, Nor, Non, Noiz, Nola, Zer medios, Zenbat aldis eta Zergatik. Nork? Gizon miserable batek Jangoikoaren faborees inguratuak. Nor? Jangoiko andia, amantea, ona ta ongi-egillea. Non? Bere Majestadearen presenzian beira dagolaik. Noiz? Xakinaskeros asko justizia lotsagarriak bekatuen kasos aingiruetan, gizonetan, Jesus berabaitan. Nola?

Ez solamente ignoranzia kulpables, baitaere malizias ta ajolakabes. Zer medios? Jangoikoak emanikako potentzia, sentido, osasun, indar ta gauzen medios. Zenbat aldiz? Nork konta obra, pausu, itz, afekto, pensamentu ta mogimentu bear etzirenak prinzipiotik onaraño gau ta egun. Eta zergatik? Auda ia sentizeko, zergatik ofenditzen dugun Jangoikoaren Majestadea. Ez logratzeagatik korona, ondasun ta gauza andiak, baizik lurreko miseriengatik, ta azkenean pena sekulakoetara exponitus geuren buruok. Para zagun forman ikasteko obeki. Examinatuaskeros konzienzia, berze gisas eztakiena bego errepetizen Jesu Kristo ene Jauna etc. Detenitus, pensatus ta penatus itz prinzipaletan.

Duenak gexago fundamentu, in dezake, ez mias, bai biotz barnean, guti gora bera ario gontara: o ene Jangoiko Jauna, ni bekatu iteko banaiz, ta ez naiz gauza onetako. Eman bezada ezaumentu ta pena anitz gaizki eginas. Zer irabazi atra dut ene bekatuetaik? Nindeike izan sandu ta berorren adiskide maite, goardatus garbi, eder, libre; eta neure kulpas neure kontra nai izan dut ofenditu orren Majestadea, galdu orren grazia ta gloria, ta exponitu pena eternoetara. O desatinoa! Baña guzien gañetik dut pena berorri in dioten agrabioes. Confitebor tibi in cithara, Deus etc. Konfesatuko diot zitaran, ene Jangoiko Jauna, konfesatuko diot berorren ona ta nere gaixtoa, berorren amorea ta nere desamorea, berorren ongi eginak ta nere gaizki korresponditua etc. Quare tristis es, anima mea? etc. Zergatik zaude triste, ene arima? Ta zergatik turbatzen nauzu? Zer in bear du baizik egon triste ofendituaskeros Jaun guzien Jauna? Eta zer motibos? Munduko aize, ta loi, ta farraskeriengatik. Zer irabazis? Emen miseria ta desgrazia, eta an su eternoa. Ia duen asko motibo egoteko triste? Spera in Deo etc. Baña espera zazu oraño, konfesatuko diot dela ene konsolazale ta salbazalea, ta nere Jangoikoa. Esperatzen dut, zeren baita infinitoki ona, ezpaitu eginen nik mereji bekala. Baña emendik doblazen da nere pena, ezpainue ofenditu bear ain ona dena. O edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! O amore ta ontasun infinitoa, zein berant onetsi, zein gaizki korresponditu duten! Optimum est ante crucifixum miscere lacrimas cum eius sanguine etc.

Sermo in Dominica Passionis 5a
Quadragesimae.
De Satisfactione

Quis ex vobis arguet me de peccato? Joan.8.

Nork zuetaik akusatuko nau ni bekaturen bates? erraten ziote judioei Jesus onak. Egia erraten badiziet, zergatik eztidazie sinestatzen? Jangoikoaren denak aditzentu Jangoikoaren itzak; orgatik zuek eztuzie aditzen, ezpaizarate Jangoikoaren. Emendik judioak, desengañatu ta ondu bearrean, segitu ze itzulzea eri frenetikoan gisa medikuaren kontra, blasfematzea, deshonoratzea ta azkenean arriak artzea arrikatzeko. (Ala korresponditzen diote gizon billauek Jaun onari! Jaun onak amore, aiek desamore! Berak mertxede ta fabore, aiek ofensa ta deshonre. Ongi eginen ordañas arriak, ta arrukaldiak! Etzue permititu il zezaten arrika orduan, gurutzean bai gero bere denboran. Entenda dezagun bera ofrezitu zela pasiora ta eriotzera naizuelaik). Baña egun izan ze judioen desauziatzea erremedioik gabe beren kulpas. Eta egun asten du Elizak mostratzen lutoeki Jesusen pasio ta eriotzearen memoria konbidatus kristiook egitera penitentzia. (Ilze ia Jesus, erresuzitatu ta igan ze zeruetara, baña badiraute oraño beraren amore ta faboreek guregana; baña badirau ere judioen gisarako desamore ta esker gaixtoak gutartean). Ezpadugu nai desauziatuak izan aien gisara, adimi zagun penitenziaren erremedioa. Explikatuzie ia biotzesko kontrizioa ta agosko konfesioa, falta da obrasko satisfakzioa. Sakramentua, balioso gelditzeko, aski da eramatea konfesiora intenzio sina kunplizeko an manatzen zaion penitentzia. Gero ez kunplitzea litzake bekatu berria, ez lezake, ordea, galarazi konfesio pasatuaren ona, naiz faltalekioken perfekzio gura. Ala nola gizon bat gizon litzake naiz faltaturik besoa edo zangoa, baña falta andixkoa litzake ori ere. Ario gortara da ustea kunplitu gabe penitentzia. Eta ala bear da kunplitu noiz ta nola manatzen zaion, ta ezpada señalatzen noiz, len baño len. Baña geuren borondates ere in bear da penitentzia. Onen gañean ongi jardukizeko, billa zagun lenik grazia salutatus Ama Santissima Maria. Abe Maria.

Bekatu iteko goapo, penitentzia iteko flako, bada gure Jangoikoaren etxean alako franko. Zer ia penitentzia nai du, Jauna? Edo zergatik? Edo zer penitentzia da diona? Eztigu erran, penitentzia obena dela penatzea edo pena izatea biotzean Jangoikoaren ofendituas? Eta pena gorreki konfesatzea ta absolbiturik kunplitzea penitentzia? Ori guziori egin dugu, zer ia in bear dugu? Goazen errespondatus banaka. Beñik bein egia da ta zierto penitenziarik obena dela pena izatea biotzean, ta oneki konfesatzea; au deizen da penitenziaren sakramentua, ura penitenziaren birtute; ta biotzeko penitentzia dela ain obena ta ain preziso, ezi au gabe deus eztute balio munduko penitentzia guziek. Baña ala nola bekatu egitean biotza baita prinzipalena, ezi biotzak nai eztuelaik, ezta bekatuak; baña biotzareki bateo partizipatzen baitute bekatuan asko aldis arimaren potenziek ta gorputzaren sentidoeak, begiek, miak, eskuek ta gañarakoek; ala da arrazio akonpañña dezaten biotza penitenzian penatus ta pagatus emateko Jangoikoari satisfakzio. Satisfakzio gonon zor gelditzen da komunkiro, naiz konfesaturik ongi ta barkaturik bekatuak. Goazen entendatus. Bekatu guzietan da kulpas, ta da pena: Grabeetan kulpas da mortala, ta pena eternoa zor dena. Orain bada bat ongi penaturik ta konfesaturik, gure Jaunak barkatzen dio kulpas, ta pena eternoa ere bai, baña ontaik beti zerbait gelditzen zaio, gexago edo gutixago,

pagatzeko emen penitenzieki, edo purgatorioan susko pena bizieki. Baldin ezpadu batek edo batek agian kontrizio bat ain bizi fuertea, ezi biotzeko amargurak supli dezan berze penitenzien partes, ta barka dezan Jangoikoak kulpata pena. Baña gutitto, agitz gutitto dire dutenak kontriziosko pena ain andia. Eta lukenak ori ez luke prediku bearrik egiteko penitentzia; egin lezake bai sines al guzia. Gañarakoek in bear dugu emen, edo pagatu purgatorioan.

(Goazen konparazio bateki. Errege bati bere basallo batek in balio zenbait traizio, edo agrabio itsusi, eta urrikiturik paraturik belauriko negarres konfesatus bere kulpata eskabalezo barkazio, naiz erregek on izanes barkalezon, ezlitzake arrazio ta obligazio egitea berzeak zenbait demostrazio ta gauza on deskitazeko len gaizki eginak ta emateko satisfakzio erregei? Etzaizie iduri duela ark berze fiel izanak baño ia obligazio? Bada, errege da bere parerik eztuena gure Jangoikoa, gu beraren basallo. Denaren ariora dire andi ofensak itenzaizkionak. Naiz konfesaturik belauriko ta urrikiturik; zenbat negarreki inbideuzu langoi? Diot, bada, naiz bere Majestadeak barkatu dizun grazias onegi izanes, eztuzu mostratu bear fineza, obratus lenekoen kontra, egines justizia zeure buruas deskitatzeko ta satisfakzio emateko?). Egizie penitenziaren fruitu dignoak, oiua iten zue San Juan Bautistak. Biz pena ta penitentzia biotzean, baño zain gortaik atra bear dire fruitu onak, ta ez nola nai, baizik dignoak, korrespondienteak, kulpen ariora. Jauna, nik kunplitud penitentzia konfesoreak manatua, diozu. Da opinione komuna ia balio duela gauza manatuak penitenzian sakramentuaren birtutes, ezi ez gauza berak eginik bere borondates. Baña komunkiro penitentzia manatzen direnak oraiko denboretan eztire aski emateko satisfakzio osoa guzis. Eztakigu zenbat zor den kulpata baxatxagatik, ori Jangoikoaren balanzan piztzen da txusto txustoa, baño Elizako prinzipio gaitan seinalatzen ziren penitenziek ematen digute aditzera zerbait. Penitenteek bear zute egon elizaatarian sartu gabe funtzionetan. Baña nola? Jaintsirik zaku iduri bates, estalirik zilizios, ta autsa paraturik buruan. Penitenziako denbora bitartean etzeizke aurkitu konbita, ez festa ez dibersio ta alakoetan. Etzute ibili bear baizik oñes beti. Egun zenbaitetan bear zute barutu ogi ta ur solles; gañarakoetan etzute progatu bear ez aragirik, ez gauza erregalaturik, eztaere ardorik. Eta ia dena, denbora gartan guzian etziote usten komekatzera, ezipaze Bazkoan ta ilzeko orduan. Eta zenbat denboras iraundu bear zue? Batzuk irur urtes, borzes berze batzuk, eta zazpis. Eta zer bekatuen kasos? Juramentu falsu baten, edo blasfemiaren kasos, adulterio ta berze alakoen kasos, ezi agitz enormeak barin bazire bekatuak, bizi guzian egon bearko zue penitenzian; au guziau Eliza Ama Sandaren disposizios. Beira ia ez nion ongi, oraiko penitentzia ematen direnak eztirela aski pagatzeko pena guzia; berze alde bekatu benialeak kasi pausuoro itentugulaik, eta guziengatik zor pena, atra orai kontua (Parra de can. poenit.pl.24).

Nola, bada, konfesoreek seinalatzen zuten penitentzia ain laburrak? Ikustean geienan espiritu gutia, egiteko penitentzia; naiz izanik atrebenzia egiteko bekatu ain andiak nola lengoak, ezipada andiagokoak ere. Baña ustentute in dezkiten beren borondates penitentzia bear direnak, ta ezperen paga dezaten purgatorioan falta dena, paratus penitentzia ez asko andiak, beldurak doazan infernura penitentzia andien kasos, parabaleites. Nola da ori? Zeren utzikoluzketen askok kunplitu gabe, edo erretira leizke konfesatzen bear bekala ori bailitzake kondenatzea. Jauna, purgatorioan paga dezatela. Oh! Zer desatinoa! Dezakelaik paga merke aisago emen, nai izatea pagatu kario agiz nekes an! Nai izatea sufritu susko azote ikaragarriak an, daikelaik libra ellesko azote beratxagoeki emen. Ala nola nailukenenak presidio gogor bat ez pagatu naies zenbait erreal aisa dezakelaik. Beras, Jauna, ia baliobide

du emengo penitentzia guti batek, ezi ango pena andiagoak. Da zierto, zeren an ezta ia mereji edo irabazteko denbora, ta solamente satisfakzio arzen da penatuain utses. Emen da denbora merejizeko, ta eman daike satisfakzio asko maneras. Berze alde, ia estimazen da satisfakzio ematen dena bere eskus, bere borondates, alzinatzen delaik zorduna billatzera arzekoduna pagatzeko len baño len, ezi ez despatxua atra ondoan, karzelean sarturik, an dagolaik ezin berzeas penatzen. Au agitzen da purgatorioan, ura mundu gontan; ala da baliosoago. Mutil noble erregalatu azi zenbatek (Parra ib.) artu zue bizimodu ertxi penitente bat: adiskide mundukoek erraten ziote beira zezala bere buruai, delikatua zela etc. Errespondatzen zue: Orgatik bada, nola bainaiz delikatu, naiago dut emen pagatu, aisago delaik, ezi ez an purgatorioan edo agian infernuan. Xakina da monje sandu garrena, il baize abadearen bedeizioa errezibitu gabe. Aparezitu ze geroxago abadeai Jangoikoaren mezus eldu zela, señalazezon ark penitentzia zenbait falta in zituenengatik eritasunean. Zego ia mortaxaturik gorputza orzizeko. Abadeak ustes ematen zion penitentzia zeiken lebeena, erran zio: Biz zure penitentzia egotea purgatorioan orzi dezagun arteo zure gorputza. Baña berzeak lamentazen zela erran zue oius aitu baize konbentu guzian: o penitentzia miseriakordiarik gabekoa! O penitentzia miseriakordiarik gabekoa etc. De manera ezi urrikariturik eman zute prisa orzizeko len baño len. (Ib) Baña guk solamente dugu ajola, aragisko begis ikusten denas, arimaren begiak dauzkigu alfer bekala ez ezaunzeko ez kulpen gaizkia, ez pena zor dutenen andia. O eztatigula agi ezaunzea, denboraik eztelaik!

Jauna, sinesten dugu andiak bide direla gure kulpengatik zor diren penak, baña aitu dugu Jesu Kristo gure erredeñptoreak pagatu zuela guziengatik abasto. Ain abasto ezi milla mundu balire, guziendako ze sobra ta sobra pasatu zuena Jaun dibino garrek. Baña gloriako prinzipie jauna ikusirik daramatela justiziatzera zure partes zure kulpas, ain esker-gaitz fatua izanen zara, gelditu zaizen txostaketan zu bidean, akonpañatu ta segitu gabe bide beras? Ze arrazio klamatzea: Nerea da kulpa, eztu kulparik Jaun gorrek, biz libre penatik libre dena kulpatik. Nik nik mereji dut penagoi. Ori ezpada, segi berere atzetik ta partizipa beraren penitentzian. Zer desatinoa pensatzea, zergatik Jaun onak pagatu zuen ainberze bekariengatik, bear duela egon bekataria deus pagatu gabe! Kontu ohea litzake pensatzea, bada, Jangoikoak bere Seme Jaun Jesu Kristori pagarazi zio ainberze berzerengatik, nola ertxituko du bekataria bera paga dezan beregatik, ezpada baliatzen? Eta nola baliatuko gara? Egines penitentzia geuren aldetik, juntatzeko ala berea gureareki. Butzu andi bat satisfakzioen bildu du, eman digu butzatorea ta soka eskura, au da bere auxilioa ta grazia; nai dugu deus in gabe gozatu? Aizagun San Pablo (Rom.8): Espirituak berak ematen du testimonio gure espirituai, garela Jangoikoaren seme. Seme barin bagara, heredero ere bai, Jangoikoaren heredero ta Kristoren heredero-lagun; baña baldin berareki padezitzen badugu, gloriartzeko berareki. Nik, dio San Pablo berak, kastigatzen dut nere gorputza, ta sujetatzen dut zerbitzura, eztaien agi, berzeeri predikatu ta neurau galzea (1.Cor.9). Emendik da ageri obligazio duguna egiteko penitentzia: Lenik imitazeko Jesu Kristo; bigarrenik goardazeko bekatuetaik sujetatus gorputza ta pasioneak; irugarrenik irabazteko gloria eternoa, balio baitu infinito, ta arrazio baita zerbait kostatzea; laugarrenik emateko satisfakzio Jangoikoaren justiziai gure kulpengatik).

Goazen ia erabakis ortako indezazkegunak, baitire tiotenak bi berso gebetan, ora, operare, dato, puni te, fer quae ferenda. Sacra indulta tibi cura quot possis habenda. Orazioak, obra onak, limosnak, penitenziak, trabaju sufritzea ta induljenziak. Goazen banaka.

1. Orazioak entenda, ez solamente errezuak, errosarioak, estazioak ta alakoak, baitare arimaren afekto on guziak, espezialki amoresko ta kontriziosko aktoak, barkazio-eskatzeak ta proposito biotzeskoak. Galdegiten badidate zein den oraziorik obena? Obena berez da Aita gurea, baña ia on iten diona bakotxai da zeintan ia debozio duen; au da sustanzia, ezi eztago pasatzean anitz errezu axal axala, baizik anitz debozio izatean. Ortako dire obe afektoak biotzetik bakotxai atrazenzaizkionak. Orazio da meza sandua enzutea ere; baña urin ongi atrazeko pensa Jesusen pasioan. Kredoa erratea goiz, arrats, nailuke San Bizente Ferrerek. Baña kontriziosko akta sin sines eta maiz, eztakizula atzen.

2. Obra onak entenda ez solamente obligazioskoak, amar mandamentuetan manatuak, ta Elizakoetan, baitaere zenbait deboziosko, nola adizea doktrinak, asistizea elizako funzione, meza, bezpera, prozesio ta alakoetara, baña prinzipalki direnak Jangoikoaren ta proximoaren amores. Beti beira izatera geurok onak, ta egitera itentugun onak ongi. Zer balio du egitea gauza onak, ezpadire egiten ongi? Nekatu debalde ta aizeak eraman. Goarda banidadearen aizetik. Egin solo solo Jangoikoagatik eta gogotik; ezperen, izain dire kaskillak, azalak, ostoak mampirik gabe edo gorenas zillar pixka bat anitz eskoriareki ta guti balio.

3. Limosnak entenda ez solamente diru ta dirusari ematea beartsuei, baitare obra miserikordiasko gorporaleak, erien bisitatzea, ostatu ematea, bearretan laguntzea ta gañarakoak, baña prinzipalki espiritualeak: Eztakienai erakustea, ongi konsejatzea, korrejitzea, konsolatzea ta gañarakoak, ezi arimen onzeko ta salbatzeko dena da limosna obena, eta nior eztaike exkusa egitetik bat edo berze, barin badu karidade. Izan bear dugu biotza noble ta beratx, ta miserikordiasko entraña proximoeki, naiz gogortxago geuren burueki, ezi Jangoikoak berai zor dioguna traspasatzen du pobreen faboretan, ta ebei egiten duguna kontazen du berai egina balitz bekala. (Quod uni ex minimis meis fecistis, mihi fecistis. Orgatik Danielek erraten zue (C.4): Zeure bekatuak deskitazkizu limosnes. Eta Tobiasek (C.4): Etzazula aparta zeure aurpegia beartsu batenganik ere; orreki eztu Jangoikoak apartatuko bere begiak zureganik. Nola dezakezun, ala inzazu miserikordia; anitz bada, anitz, guti bada, guti, borondate onareki. Premio ona bilzen duzu bear orduko, ezi limosnak libratzen du bekatu guzietaik, ta eriotzetik, ta eztu utziko arima doaien ilunbera, ta konfianza andia ematen du Jangoikoaren alzineko. Bienabenturatuak miserikordiosoak, dio Kristok, ezi ebek aurkitukoute miserikordia (Math.5). Kontra berriz biotz gogorrak).

4. Penitenziak entenda, arimarenes landara, gorputzaren penak, baruak, mortifikazioak, ta edozein neke ta naigabe, egines justizia ta pagarazis bere pena parte duenari parte kulpan, baita gorputz gaixtoa. Ontas zio Jesu Kristok: Maiteegi duenak bere burua, galduko du, ta aborrezitzen duenak mundu gontan, goardatzen du bizitza sekulako (Joan.12). Eztio au aborrezimentus ilarasteko gorputza, ez; baizik mortifikatzeko ta kastigatzeko, nola duen mereji. Geien bekatuak iten dire, maiteegi izanes geuren buruok; eta oh zenbat, gorputz gaixtoen kasos! Eta alaere zenbat atxekia ez egiteko penitenziarik! Nor diren iteuntenak ia penitenzia, dire iteuntenak gutiago bekatu, eta delikatu direnak iteko penitenzia, eztire beldur iteko asko bekatu. Bada, ezta eskaperik, edo ez egin bekatu, edo egin bearko penitenzia. Eztaike pasa bekatua kastigatu gabe, dio San Agustinek, edo kastigatzen duzu, edo kastigatzen du, mundu gontan ezpada, berze munduan. Zer penitenzia nai du in dezagun, diote; asko penitenzia dugu geuren nekea, ta bizia ezin atra. Eta diote egia, ongi baliatzen badire, ofrezitus Jangoikoai beren nekeak, ta goartus bekatuetaik. Ezperen, zer grazia iten diote Jangoikoai beren nekees? Norendako

nekatzen dire? Ni beldur naiz askoen nekeak eramamentuela deabruak, ta berak ere bai azkeneko, pagatzeko alokairua infernuan nekea nekearen gain, pena penaren gain. Emen gaizki, an gaizkiago. Zergatik? Zeren eztuten artu nai Jangoikoaren atenzios neke pixka bat. Zer neke? Garaitzeko beren pasioneak ta goarzeko bekatuetaik, ori baita Jangoikoak len lenik manatzen duen nekea. Añadi, bada, neke tustenei beren buruen amores berze neke gau Jangoikoaren amores. Ala guziak artuko tiote Jangoikoak kontu onean; ezperen utzikotu pagadezkiotela deabruak, zeñi zerbitzatu dioten. Baña ongi aborrezitzen bauzu bekatua ta zeure burua, injeniatukouzu nola in penitenzia berze gisas ere, ia egones aldiska besoak zabaldurik gurutzearen forman, ia belauriko ta auspeska sekretoan, ia mortifikatus asko maneras. Barutzea da obena. Guk ezta posible, diote. Baietz diot nik, barutzea espiritualkiro, baita obeago. Nola da ori baruarazis begiak ikustetik, bearriak aditzetik, mia mintzatzetik, agoa jatetik ta edatetik bearreztirenak, besoak eta oñak danzatatik ta pasioneak beren zebo kuadrazen zaizkionetaik. Ala goardazen da kulpaetaik, ta ematen da bidanabar satisfakzio lengo zorreatik Jangoikoai.

5. Trabajuak sufritzea kontu dela kunplitzea penitenzia Jangoikoak paratzen duena, ezi datorren trabajua deabruaganik, datorren proximoaganik, ta nondik nai datorren, eldu da Jangoikoaren eskutik azkeneko ere, zeren bere Majestadeak manatzen du eramagula ongi. Alako eskutik bekala bear dugu sufritu bentzait pazienziareki. O sufri baledi gogotik ta alegreki! Anitz deskitatzen da ala zorretaik, ta agi daike exkusatzeta anitz purgatorio, edo guzia ere, joateko Zerura zuzen.

6. Induljenziak dire ala nola dispensazio bat Elizak emana bere tesorotik, iragaz dezan neke gutis kostatu bear zena anitz ia, ala nola berrogei eguntako indulgenzia; kredo bat edo Aita gure, edo salbe bateki irabaztea da irabaztea guti gorreki irabaziko zuena egines lengo penitenzia berrogei egunes, eta ario gontara. Da nola Jesu Kristoren, Maria Santisimaren ta sanduen tesoro gartaik ematea abasto nai duenai kostu gutireki. Da berzeren kostus abrastea bekala. Maite duena bere burua eztaiela deskuida irabaztean dezazken guziak, espezialki bekatu sobra ta penitenzia gutiegi indugunek. Penitenzia biotzean lenik, gero orazio, obra on, limosna, pena, pazienza ta induljenzien medios lograzeko Jangoikoaren grazia ta gloria. Amen.

Sermo in Dominica Palmarum.
De praxi meditandi
passionem Christi

Aste gau deitzen da Aste Sandua, zeintan nioiz baño obeki arrazio baita bizitzea sanduki, ta enpleatzea gauza sanduetan, espezialki erreparasazen gogoan Jesu Kristoren pasio ta eriotze pasatu zuena gure amores. Memoria egiten asten da egundanik Eliza Kristoren esposa, mostratus lenik palmen ta erramuen bedeizio ta prozesioareki, nola errezibitu zuten bere Majestadea triunfante, errege-gisa egun; admiratzeko ia nola andik borz egunen barnean eraman zuten preso, maltratatu, azotatu, ta ilarazi zuten. Ezta denboraik mintzazeko luze, baño lastima da ez xakitea pensatzen ta meditatzen ongi ta espazioreki pasio sandu gontan. Nai dut, bada, bidanabar bekala erakutsi, nola dezaken pensa den ignoranteenak ere, nai badu. Eta nai bear du mundu guziak, ezi gure amores pasatu zuenari ainberze ta ainberze, iaketa ez dezokegun paga sekulan dignoki, obligazio da oroitzea berere, ta erreparasatzen egotea, ta erretzen geuren barnean. Obligazioa da klaro. Arrazio ere dela ain klaro da, ezi al bagindezazke Jesus onari kuratu bere llagak, litzake arrazio, uste dut; bada, errebelatu zio Santa Jertrudisi, pensatzea pasioan, ta goartzea bekatuetaik dela enplastro bat paratzea bekala bere llegendako (Ap.claus p.1. Cath.c.15). Onen balioas dio Alberto M<...>ok, oroitzeak Kristoren pasioas ia balio duela ezi barutzeak urte guzian ogi ta ures (Ibid.) Probetxu atratzen denas dio San Buenabenturak, eztela deus ala obratzen duenik santidade guzia ariman, nola Kristoren pasioan pensazeak (Ibid.). Gusto ematen zaiona ontan gure Jaunari ageri da, beiratus zenbat nai duen oroi gaitzen ontas, ezi oroiarasteagatik gelditu da bere Majestadea bera presente sakramentuan, eta auda arren memoriale perenne bat, eta despeidan erran zue: Au iten duzien guzietan, egin zazie ene memoriatan.

Goazen ia ikasis nola egin bear den pensatze gau. Baña lenik, in bear dena beti lenean ta azkenean, prinzipioa ta fina, nondik asi ta non akabatu bear den. Beti asi bear da pensatus nor den pasatu duena ainberze, baita Jesus ona, gizon ta Jangoiko dena, guzis kulpa gabe, sandu, perfekto, eder, amablea, ta ain gure amantea, ezi gu ez usteagatik galzera, utzi baize, ofrezitu ta entregatu baize pagatzera gure partes, gure amores, gure on naies. Au da Jesus, zeñen atenzios ezipalitz, ezta joan ta ez joanen gizonetaik nior ere zerura sekulan. Fina, zeintan baratu bear den beti, da arimaren afekto anitz andietan. Espezialki irur afekto atra bear dire, irur itze bekala, zeñeki guruzifika daien arima Kristoreki, baitire irur edo laur K: Karidadea, konpasionea, kontrizionea, konfianza Nauterran, bear dela arima pensatus pasioa, itxeiki karidadean. Au da, amorean, amorostus alako Jaunas ain onas ta ala amatzen gaituenas. Bigarrena konpasionean, konpasionatus ta lastimatus alako penatzeas. Irugarrena kontrizioan, urrikitus ta damutus ofendituas bere Majestadea, ta eginas bekatuak, zeñen kasos ala izan zen tratatua Jaun dibinoa. Tintatus ala karidadesko, konpasionesko ta kontriziosko negarrak Jesusen odolareki bateo, kapaz dire garbitzeko ta edertzeko arima deabrua bezain likits itsusia zena. Ta arzeko konfianza beraren piedadean etc.

Orai nola bear garen egon pensatzen. Gaizke balia memorias ta imajinazioas, oroitus ta imajinatus dakiguna pasatu zuela. Ta gaizke ere balia begies ta imajina materialees, beiratus Kristo pintaturik ta erretrataturik. Lenbiziko moduan dezakegu segi oroitus ta pensatus zenbait pausu pasioaren, edo solamente bat aldian, ta egon artan

pensatzen nola, zer gisas ta zenbat pasatu zuen. Gero, aixtean erran bekala, erretzen amorean, konpasionean edo kontrizioan. Ortako on izain da paratzea nik emen memoriaindako erkadan, edo lixtan bekala pausu prinzipalenak: 1a Pasio-alzinttoan egin zuen orazioa ta odol-izerdia kongojain utses. 2a Judas traidoreak eman besarka, ta nola preso egin ta eraman zuten Jesus. 3a Nola Anasen etxean eman zio batek bofetada bat, ta Kaifasenean guziek tratatu zuten malamente asko maneras, bendatus begiak, lixtukatus, golpatu etc. Ta gau gañarakoan iduki zuten kalabozoan. 4a Nola biramonean presentatu zuten Pilatosi, ta onek ezaundurik ta deklaraturik etziola aurkitzen kulparik, biali zuen Herodesengana, ta onek tratatu zuen fatuo ta erotako. 5a Nola itzulirik Pilatosengana, onek ez galdu naies kulparik etzuen Jesus, proponitu zioten, zein bietaik nai zuten libre Bazkoakara, Jesus edo Barrabas, baize ladron bat; eskojitu zuten au, klamatus Jesusen kontra. 6a Nola azotatu zuten gorputz guzitik borz milla ta ia azoteeki batere humanidaderek gabe zatikatus aragi sandu gaiek, ixuris ainberze odol etc. 7a Nola koronatu zuten aranzees, paraturik soñetaik purpurasko manto zar zatar bat, ta eskuan kana bat zetro gisa, ta adonatu itxura in zioten burlasko errege bati bekala milla eskarnios ta modu indignos. 8a Nola sentenziaturik ilzera gurutzean, arturik au soñean, asi zuen Kalbariorako biaje gura, nola erorzen zen gurutzearen pean, nola aurkitu zuen Ama Santisima bide gartan etc. 9a Nola Kalbarioko aldapa gartan etzinarazirik gurutzearen gañean josi zuten itzeeki oin eskuetaik. 10a Nola gurutzeaturik goratu zuten airean, ta gelditu zen dilindaka irur itzeetaik. Oñazeak nork explika? 11a Nola oraño ere iten zioten eskarnio judioek, ta nola oraño ere Jaun dibinoa zegon aien fabore ziola itz lenbizikoa: Aita barka bezote, ezi ez dakite zer ai diren. 12a Nola egon zen irur ordus agonizatzen, itz erran zituenak, ta nola iltzen, nola ilun duzen egerdis etc. Alaber, Ama Birjinaren presente egotea etc.

Aisa aski da pensatzen egotea pausu batean edo berzean, ta mogizea kariño, konpasionen edo kontrizioa Jangoikoaren graziareki bateo, nai bauzu. Ezta xakin bear anitz gramatika, bear da solamente borondate ona, artu denbora puxka bat, sujetatu gogoia detenitzera ortan, nola egoten den bearreztirenetan. O zer kontua artuko dizien gure Jaunak, ezperen! Baña ain inutila barin bazara onerako, ezpaitakizu baliatzen memorias ta gogoas, ikasazu au berere, baliatzea imajines. Zoaz Kristoren imajina baten alzinera, edo arzazu eskuetan, nai bauzu; beira zazu goiti beiti atenzioreki ta erran zozu zeure buruai ez mias, baizik gogos solamente: Imajina gau, norena da? Nor da gizon pobre gau ala paratu zutena? ote da zenbait ladron traidore, edo giza-ilzale gaixtoren bat? erresponda zaite pensamentuan; ez, ez por zierto, ezta alakoetaik, baizik ene Jesus on ona ta onegia, Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Seme ederra, gloriako prinzipa, ta ene animaren esposo amorosoa. Zer bekatu egin zue paratzeko gisaontan, ene Jesus maitea? Etzue ta etzuke egin bekatu; nik egin dut ordea solera, ta maiteegi nindue ni bekatari gau; ni ez usteagatik galtzera, utzi ze gurutzeaturik, gaixtoagatik ona, lurreko txar batengatik gloriako Errege soberanoa etc. Ene fiela, sinestatzen ta pensatzen bauzu ongi egietafede gau, ezta noblea zure biotza, ezpada urtzen amores, konpasionen, dolores.

Berze bein nauzulaik azi konfianza ta amoreia, ellega zaite, beira zazu Jesus ala nola Jangoikoaren libru edo eskritura bat zerutik bialia, tinta gorria bere odol preziosoa, llaga adina letra. Zer letra dire? A, amoresko letrak. Zer naute erran? Amatzen nauela ni Jesus onak. Ezpanindu amaten, etze utziko ala tratatzera enegatik. Nork mundu guzian izan dida ainberze amore, ta indida ainberze fabore? Nola eztut amatu bear nik alako amazalea? amaten dut etc.

Berze bein nauzulaik bekatues sentitu pena, ellega zaite, beira axuri gura sakrifikatu zena bekatarien kasos. Beira burua lastimaturik aranzees inguruan. Beira begi eder gaiek ilundurik eriotzeas. Beira aurpegi gura itsusturik golpes, lixtus, odoles. Beira eskuak ta oñak josirik itzees. Beira bularra idikirik lanzas: Beira gorputz guzia urratutik azotees: Beira Jaun ona trataturik ainberze modu indignos. Eta zergatik? Ez bere bekatuengatik, bai nere ta berzeneengatik. Ah zein gauza gaixtoa bide diren bekatuak, zeñen kasos Jangoikoak permititu baizue kastigatzea bere Seme dibinoa, zeren atrazen pagatzera bekatarien partes! O bekatu madarikatuak! Nola eztut izan bear damu admitituas? Eta nola kastigatuko nau ni, ezpanaiz emendatzen, etziolaik barkatu bere Seme propioai?

Baña prinzipalki atra bear dena Kristoren pasiotik da geuren bizio eta pasione gaixtoen erremedioa, ezi Jesu Kristo gurutzean kontu dela iturri bat borz llaigen kañuetaik dariona balsamo preziosoa. Triste zaude? Zoaz, konsola zaite Jaun onareki. O Jesus, ia da berorrek pasatu duena; orren konpañian ta orren izenean biz nere pixka gau. Pazienziain bear zara? O Jesus, bida pazienza, balsamo gorreki legundu bez ene biotza sufri dezaten manso ta gustoso orren konpañian. Tentatzen zaitu deabruak suberbias, banidades, luxurias? Beira Jesus gurutzean, alketuko zara konsentitzeas. Deskonfianza eldu zaizu emendatzeas ta salbatzeas? Eutxi Jesusen oñetan, Jesus deizen da salbazalea; nai badu, sal banazake. Galdua naiz neure aldetik, baña, o Jesus, ori dela medio guzia esperazen dut orai, ta gero grazia ta gloria. Amen.

Sermo in Pascha,
cúm reconciliatur in oppido
pax quo vulgò etc.
dicitur charitates
pro more rusticanorum

Pacem relinquo vobis, pacem meam
ego do vobis, etc. Joann.14.

Egun, noiz sinesten dugun erresuzitatu zela Jesu Kristo ilen ertetik, ta noiz suponitzen dugun erresuzitatu direla arimak graziaren bizitzara kunpliturik Bazkoareki, ongi dago paraturik karitateen usanza antiguaskoa, egiteko bakeak elkarreki Jangoikoareki bateo. Zelebratu dugu Jesus onaren ilaria joan den egunetan; egun leitzagun testamentua egin zuena iltzen bezperan, orzegun gauean azken despeidan. Eskribau ta sekretario izan ze San Juan Ebanjelista. Aizagun attento: pacem relinquo vobis etc. Bakea usten diziet, ene bakea ematen diziet, munduak ez bekala, nik. Etzaiko iduri au gauza andia ignoranteai, baña ongi dakienai guzis andi preziosoa iduri zekio, ezi au manatu zue jaiotzean, au bizi guzian, au iltzerakoan. Jaio zelaik Belenen proklamatu zute aingiruek: Gloria Jangoikoai zeruetan, ta lurrean bakea borondate oneko gizonei. Bizian ta erresuzitatu ondoan beraren diosalea ze: Bakea zuei. Bialzeko mundus mundu bere apostoluak, enkargatu ziote: Edozein etxetan sarzaisten, lenbiziko itza: Bakea biz etxe gontan. Goardatzen du Elizak oraño ere, komekadura eramatean, erraten baitu sazerdoteak len lenik: Bakea etxe gontan, ta etxeko guzietan. Mezan komekatubañolen, baketzen ta besarkatzen zire lengo kristioak eta orai orren señaletan ematen da pazea eta kristio antiguaskoek dute oraño ere usanza ona, doazilaik komekatzera: Itzulzea aurpegia ta eskatzea barkazio guziei; eta da konforme erran zuenai Jaun dibinoak (Math.3). Ofratzen bauzu zeure presente aldarean, eta an oroitzen bazara duela zure kontra zerbait zure anaiak, utzi an zeure ofrenda, ta itzuli, ta bake zaite zeure anaiareki, ta gero ofra zazu. Azkenean gloria Zerukoa deitzen da Jerusalem, nai baitu erran vissio pacis, bakearen ikustea, edo ikustekoa. Eta balitz emen bake bear bekalakoa, gloria baten gisara litzake. Ikusagun ta ikasagun, salutatus lenik gure Ama Santissima Maria. Abe Maria.

Bienabenturatuak, zori-onekoak jende bakeskoak, dio Kristok (Math.5), zeren deituko dire Jangoikoaren humeak. Dire Jesus axuri mansogarri idurituak, eta dute predestinatuen markasiduri bat. Kristiandadearen prinzipioan, dio Eskriturak, guzien biotza zela bat, ta arima bat. Zer felizidadea! Ain konforme beti nola balire guziak bat! Etze orduan, au nerea, au zurea, itz otz gura, diones San Krisostomok, baizik guziena guzien; zuk nauzuna nik, nik nautena zuk, nerea zure ta zurea nere. Oh zer bizia ura! bear litzake ala orai ere, kristio egiaskoak bagina, garelaik guziok Kristoren gorputz bat ta elkarren mienbro lagun. Pensa, ezpaltiz diskordiarik batere, baizik bake ta konkordia sanoa familia guzietan ta erri guzian, zer Jangoikoaren bedeizioa? An legoke gure Jauna bera kontent, ezi ala ofrezitu zue berak. Bizpiru uniturik daudenean ene amores, an nago ni aien erdian (Math.18). Zer falta leike gerostik? Ikusagun gorputzaren konparazioan baitakar San Pablok (1 Cor.12) ta explikatzen baitu ederki San Agustinek (H.15. de verb.D.): Trabaju pasatzen badu mienbro batek, konpasionatzen dire mienbro-lagunak. Frinkatzen da oña aranze batean, berla dio miak: Ah! min artu dut. Oñetik mira diferenzia

doaie. Bere ago barnean dago mia; nola dio, artu dut min? Ez ori solamente, baizik berla kurzen da gorputz guzia, begiak aplikatzen dire ikustera non dagon aranzea, eskuak atratzera. Nola da au? Oh! Nola baitire gorputz bat, ta elkarren lagun, elkar asistitzen dire. Ala in bear luke kristioak kristioareki.

Jauna, bakearen gain asi ta pasatu da karidadera. Ala da, zeren edo biok dire bat, edo nola ama ta alaba, edo bentzait bata berzea gabe ezin aurki daike. Orgatik agian baketzea deitzen dute karitateak. Zer da karidadea? Da amatzea Jangoikoa guzien gañetik, ta proximoa Jangoikoagatik geuren buruok bekala. Orra iturri bat bi kañueki, edo su bat bi aldetara edatzentuen bere sugarrak. Amore bi gebek batera eldu dire, au da Jangoikoa. Ama Jangoikoa beragatik, ta proximoa Jangoikoagatik, ori da karidade. Ontaik da klaro eztirela karidade amore guziak, ta por konsigiente ez onak bake guziak. Amatzea elkar, ta unitzea gaizki egiteko, ez karidade ezi gerra, da Jangoikoaren kontra. Amatzea geuren irabaziagatik, ez karidade, ezi kodizia da. Amatzea zeren den aide, adiskide, edo grazian erori zaiguna, ezta gaixto, baña ezta karidade, baizik amore naturala. Amatzea bere prenda ta birtuteengatik amore birtuoso da; karidade izatekos, Jangoikoa bear da izan amorearen kausa, Jangoikoagatik, Jangoikoaren atenzios, Jangoikoaren amores amatus dena dela. Modua ere bear da amatzean; nola? Geuren buruok bekala. Beira zer nai zinduken zuretako; bada, ario gortara proximoaindako. Nai zinduke in edo erran dezazuten gaizkirik zuri? Ez. Bada, zuk ere ez in ta ez erran berzeari. Nai zinduke bear orduan in dezazuten fabore, ta on edozein? Bada, zuk ere lanzean egin proximoai. Oh! Zein gutik onesten bideuten proximoa sines bere burua bekala. Eta zierto da dugula lizenzia emateko geuren buruen kontra askotan, ezpaita ala zillegi proximoaren kontra. Orgatik agian antiguasko zarrek erraten zute doktrinan: Onetsi proximoa bere burua bekala, edo ia al badezake, ia. Goazen klaratus puntu gau: Ala nola amatzea proximoa, ezpada Jangoikoagatik, ezpaita karidade, ala maitatzea nork bere burua ezta karidade, baizik amore propioa, estorburik andiena Jangoikoaren bidean, zeintas dion Jesu Kristok (Joan.12): Bere burua maitatzen duenak galduko du, eta aborrezitzen duenak mundu gontan goardatzen du betiko bizitzarako. Eta onen gañean San Agustinek (Tr.51.in Jo): Sentenzia andia ta miragarria, nolako maneran den gizonaren bereganako amore galzeko, ta odioa ez galzeko. Gaizki maitatzen bazara, orduan aborrezitzen zara; ongi aborrezitzen bazara, orduan amaten zara. Ia, beras, bere amore propioa da karidadearen kontra; eta karidadearen parekoa da, berriz, odio sandu bat bere kontra. Nola? Errepugnatus jenioari, akusatus, mortifikatus, kastigatus, bere kontra emanen ta gogor izanes Jangoikoaren amoreagatik. Proximoen fabore, berriz, izanes beratx, benigno diskulpatus, lastimatus etc. San Pablok erraintigu karidadearen proguak (1.Cor.13): Caritas patiens est, karidadea da sufrtua pazienziareki: Benigno est, da benigno beratx jeneroso: Caritas non aemulatur, karidadeak eztu inbidiarik, au da, etzaio gaitz berzearen ona, bai alegratzen ortas, bereas bekala. Non agit perperam, karidadeak eztaki niori gaizkirik egiten ez obras, ez itzes, ez biotzes, ez tranpas, engaños, murmurazios, algos ta niolateko maneras, baizik ongi dezakena gogotik. Non inflatur, karidadeak eztaki subertzen, presumitzen, puntu arzen, baizik apalzen bere burua. Non est ambitiosa, karidadea ezta andinai, eztu despreziatzen nior. Non quaerit quae sua sunt, karidadea ezta berekoia, beretako beretako ez, baizik proximoendako ere dezakena eman ta egiten duena obra miseriakordiaskeotaik. Alter alterius onera portate (Galat.6). Lagundu elkar, bata berzearen karga eraman, ala kunplitukouzie Kristoren legea. Oreñes dio San Agustinek (l.89 quaest q. 71), pasatzeko ugalde andiren bat, paratzen direla erkadan, ta nola buruak baitute ain pizu adarketa gaien kasos, ez ondatzeko, paratzen

omen tuste bata berzearen anken gañean, ta ala pasatzen omen dute aisa guziek, lenbizikoa solamente doaie neketan; baña au ere deskansatzeko aldatzen omen da azkenera. Orra nola erakustendiguten animaleek ere. Bida bein aurkitu omen zire, bata alde gontaik berzea alde gartaik eldu zirela, zubi mear ertxi baten erdian, ezpaize lekuri saietsetik pasazeko, ezta itzulzeko ere gibela. Zer inenoteute? Aizazie ta ikasazie: Bata kurturik poliki paratze apal apala zurain kontra; ala berzea pasatu ze gañetik aisa, ta gero xaikirik berzea ere bai, ta ala biak libre. Zer izanen ze, asi bazire buldurka? Biak agian erori, ta biak galdu. Ala agitzen da diskordian.

3. Ellegatu gara ia karidadearen irugarren puntura: Nor bear dugun onetsi Jangoikoagatik. Ez solamente aidea, adiskidea ta ongi in diguna; ori kunplizen baitute judioek, jentilek ta herejeek ere; baitare onetsi beartugu ebek ere guk kristioek. Nola? Urrikaritus beren itsutasunas, deseatus ta eskatus, ta prokuratus al badezakegu datozin zuzenbidera. Eta kristio bekatar gaixtofikatuak ere bai? Baitare. Blasfemoak, suberboak, asarreak, urdeak, ladronak ta alakoak ere bai? Baitare, zeren baitire proximo. Nola dateke? Distinzioeriki; ez berengatik, izanes aien adiskide edo lagun gaizkietan, ori ez; bai Jangoikoagatik, lastimatus aien gaizkias, ta deseatus ta prokuratus on daitzen. Ala nola hume eriaaren amak, aborrezitus onen eritasuna, amatzen duen humea, ta ongitu nai duen. Onetsi beartugu geuren etsaiak; malamente gaizkinai ta iten digutenak? Erresponda, dire proximo, edo ez? Proximo dire, baña eztire akintzen proximo bekala. Ark ezpada, zuk egizu proximo bekala, ez galzekos zu oroat nola ura. Ortas dugu Jesu Kristoren manamendu espeziala, ego autem dico vobis, diligite inimicos vestros etc. (Math.5). Nik, dio, erraten diziet, onetsizkie zeuren etsaiak, in zozie ongi gaizki-naizaistenei, eska zazie persegitzenzaistenen fabore, izateko zuen Aita zerukoaren hume, atrarasten baitu bere iruzkia onen eta gaixtoendako. Ark ni ez ikusi nai, ta nik ura bear dut onetsi? Ark niri ainberze gaizki erran ta egin malamente, ta nik arri in bear diot ongi? Bai, izateko zu kristio ona, naiz gaixtoa den ura. Nola dateke? Jangoikoagatik, Jangoikoaren amores, atenzios ta errespetos. Eztute balio atxekiak. In bear da Jangoikoagatik. Berzea dena dela, traidore, gezurti, infamiazaile, ladron ta pensa ala pensa; baña Jangoikoa beti da on, mereji du; beragatik in bear da. Gerostik nautena ineunte gaixtoek desarrazioan, ta aiena ia, alaere, ta gu ezin mendeka. Goazen gutibana. Ezta debekatzen eskatzea ark bere dretxoa, naiz dela justizias. Debekatzen dena da gaizki nai izatea, manatzen dena da onestea biotzes alaere, ta medio justoes baliatzea. Erraz elkarren kontra pleituan, ta amatzea? Ezta erraz, baña preziso arimaren penan. Orgatik posible balitz, beti litzake obe konposizio mediano bat ere. Baña naiz gaizki indezaguten, naiz perjuizio, naiz emanka, bear diogute onetsi biotzes, ta barkatu injuria prezisoki, naiz lizito izanik eskatzea bear den satisfakzioa. Bear da agerrian ere mostratu eztiola odiorik, eztaizkengatik eskandaliza proximoak; ori ere bear da, baña ezta aski; bear da, alaber, onetsi biotz-barnean sinki Jangoikoagatik. Eztugu obligaziorik izateko nior adiskide berex, fiatzeko gure biotzak ta gauzak, ori ez; baña dugu obligazio onesteko guziak, ta ez niori gaizkirik iteko. Adiskide berex guti, baña guziak biotzes onets.) Jauna, nola, bada, diote lizito dela zenbait aldis iltzea ere proximoa? Diote ongi, ta ala da egia: lizito da iltzea juez lejitimoaren sentenzias; baitare gerra justoan; baitare defendatzeagatik batek bere burua, eztaikelaik defenda berze gisas. Lizito da lanze gebetan ezin berzeas, ez odios ta intenzio gaixtos. Entendazeko doktrina karidadearen gau ain prezisoa, para zagun bizpiru exenplu gauza andiagoetan, desengañazeko zer in bear den txipiagoetan. Goratu balida niri batek desonresko testimonio infame bat, saldutudala sakramentuak, errebelatu dudala konfesioa, edo berze alako gauza torperen bat, inbali da

eman da ere, utzirik, ia beñere meza ezin erran nezaken maneran; zer iduri zaizie nezakela egin, konzienzia salbo? Gorenas eskatzea errestitu zio, ta satisfakzio zor duena; baña negoke, ark in edo ez in zor duena; negoke ni obligaturik ez izatera odiorik, bai amatzera biotzes, ta barkatzera agrabioa Jangoikoagatik. Emagun heritu duela bat puñaladaka; iltzen dagonak bear dio barkatu agrabioa Jangoikoagatik, eta biotzes odiorik gabe ilzaleai, salbazekos, ezperen kondenatuko da erremediorik gabe. Atra kontua orai, zer obligazio den agrabio txipiagoetan; o biotz txar mendekosoak!

Jauna, gauza errua baita ori! Errua dirudi, baña kunpli daikena nai izateareki solamente, deusen perjuiziorik gabe, zeren ezi barkatzeak eztu iltzen, ta ez barkatzeak eztu libratzen ilzetik, ta ez dañu den txipienetik; erranik dago daikela eska justizias ere dañuen satisfakzioa odiorik gabe. Iago diot, ongi atrazeko ere justizian, dela protxal ez izatea odio, mendeku ta irarik; izatea berriz, kontra da, zeren odio ta iraren kasos erranes ta egines bearreztirenak deskitatzen dire, ta kulpan iten dire, ta eztiote orgatik justiziak ematen emain zioten satisfazioa, zeren artu duten beren eskus. Gauza errua dirudi amatze gau kontrarioak, baña erruagokoak agi daizke, ala nola nai baliote inarazi fedearen, edo kastidadearen, edo legearen kontra; ezperen bizia galdu, galdu bear da lenago ezi konsentitu. Emen alako peligroik gabe solamente duzu, biotz txarraren ira sujetatzea Jangoikoaren amores. Errukara dirudi, baña ezta atxekia exkusatzeko nior. Dio San Jeronimok: erran dezake norbaitek, eznaike barutu, ez dezaket eman limosna, ez dezaket au edo ura. Dezake agian erran, ez dezaket onetsi? ez dezaket barkatu? Errukara dirudi, baña erruago izain da bizitzea odioaren arrankura gorreki, ta konzienziaren inkierturaeki, ta gero deabrukei infernuan, ez nai izanes garaitu afekto txargoi Jangoikoaren amoreagatik. Errukara dirudi, baña Jangoikoai zor diozu anitz, ta eztiozu iragazten anitz arima nola sanduek, eztuzu pasatzen anitz martirio nola martirek, eztuzu egiten penitentzia anitz nola penitenteek, eztuzu asko obra on, trabaju ta merejimentu iragazteko gloria; ofra zozu Jangoikoai sikiera karidadearen urrettogoi. Errukara dirudi, baña Jangoikoak barkatutizu gexagokoak zuri, ta barkadezkizun naibideuzu oraño, ta dio expreso ebanjelioan (Math.6). Si dimiseritis, dimittet etc. Barkazen bauzie barkatuko dizie Jangoikoak, ta ezpauzie barkatzen, eztizie barkatuko. Errukara dirudi, baña agitz kuadrazen zaiona bere Majestadeai, ala baitio izain garela beraren hume maiteak. Errukara dirudi, baña Jesu Kristo il zena gure amores da manatzen diguna. Eta etzeien geldi manatzean itz solles, firmatu zue ilzerakoan gurutzearen katedra gartaik bere exenplu andiareki. Da imposible niork niori egitea injuria andiagokoak inzioztenak baño Kristori judioek, ezi kontent ilarasteas gisa gartan, goratuaskeros ere gurutzean, mostratzen zutelarik iruzkiak ta arriak ere sentimentura, aiek oraño ere iten ziote eskarnio. Baña, o Jesus onaren biotz noblea! Lastimaturik aien perdizioas ia ezi bere ilzeas, erran zue lenbiziko itza: Ene Aita, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren. Esperanza seguroa eman zigu, barkatu nai digula guziei, naizuelaik barkatu bere ilzaleei; baña exenplu andia ere bai, barkatzeko guk ere geuren agrabio deitzentugunak. Iteuntenek agrabio proximoai, espezialki on edo fabore zerbait in ziotenai, dire judio eskergaitzen gisarakoak. Eztiot orai deus ebetas; diotena da, naiz guk ez egin agrabiorik, naiz fabore eginik guk, alaere gure kontra badaude eskergaitzak, beardiotegu barkatu ta onetsi Jesusen amores. Ofratu bere Majestadeai amentto gau, barkatu gure kontrarioen fabore, ta berei zerbait ongi egin Jesusengatik. Ala iten duenak iten dio berai gusto, du señaile dagola beraren grazian, ta gloriarako dela eskojitua. Ala inzute sandu guziek. San Esteban Martir lenbizikoak arrikatzenzutenen fabore paraturik belauriko, eskatu zue barkazio oius. Santiago, Españako patrono, apostoluetaik lenbiziko

il zena Jesu Kristogatik, zeramatalaik ortako, bidera atra zekio gizon gura, zeñek in zuen preso, eskaturik barkazio; sandu jenerosoak besarkatu zue amoltsu, erraten ziola: Bakea da zureki. Eta biak bateo il ta igan zire triunfante gloriara. Bide beras joan zire Kristoren atzetik kristio zerura joan diren guziak, ezpaita posible kontatzea. Juan Gualbertok Jesu Kristoren amores barkaturik bere anaiaren ilzaleai, artu zue au anaiatako; sartu ze gero tenploan, ta adoratzean gurutzeta, Kristok inklinatu zue burua beragana amoreain señaletan. Zer diot ene Santa Teresas? goratu zioite asko testimonio ta persekuzio malamente, bein, ordea, bat txoil andia; ta ikusazien, dio sandak, nola eztuen gure Jaunak desanparatzen nai diona zerbitzatu (L.fundac.c.27.n.11), ain gozo andia sentizen nue, ezi ez nuke disimulatu; ta nainuke egin orduan nik, egin zuena Dabidek gure Jaunaren arkaren presenzian kontentuen utses, baize saltatzea ta danzatzea. Eta ez solamente zue odiorik ta sentimenturaik bere kontrarioen kontra, baizik ere amore espeziale bat aien alde ia. Dabid aipatu duguna bizitu ze Kristoren denbora baño len, baño espiritu berak kidaturik, segitu zue karidadearen bideas. Artxaiko pobre bat lenik, gero Saul erregeren soldado, zeren garaitu zuen Jangoikoaren izenean Goliat jigantea, persegitzen zue inbidia-utses erregek; asko aldis nai izan zue ilarazi, baño libratu ze Jangoikoaren probidenzias. Zabila igeska arat onat. Altxatu ze bein kueba batean; arren atzean segitus sartu ze nola etzekiela Saul. Inzitatzen zute lagunek Dabid il zezala an bere kontrarioa, ia ke ta paratu zion eskuetan Jangoikoak. Dabidek zio: goardatuko naiz paratzeas eskuak. Berze bein sartu ze Dabid Saulen kuartoan ixil ixila, zeudelaik lo bera ta bere goardiak; ez, ordea, egin gaizkirik, baizik artu arren lanza ta basoa, ta atra ze. Gero asi ze oius erraten, nola izan zuen eskaida ilzeko errege, ta barkatu zion. Aiturik erregek, ta arriturik noblezas, laudatu zue; ta erran zue: Or ezaunzen dut zierto izanen zarela zu Israelgo errege. Zertan ezaun duzue? Biotzaren nobleza gortan. Ezi barkatzea etsaiei da nobleza erreala. Merejitu zue ta logratuzue. Ain zierto logratuko du izarren gañean errege izatea duena karidade noblea. Alargun ama bati ekarri zioite ilik punaladaka bere seme bakararra. Pensa arren sustoa lanze gartan. Dagolaik negar ta negar ilaren aldakan, sarzen da laixterka ilzalea odolestaturik, iges justiziaganik, etzekiela nora zoeien. Lanzea da au ere. Zer inen ote du ama garrek? Aizazie txar mendekosoek. Jaikitzen da ta altxatzen du gizonoi etxearen zoko estalienean. Sarzen da gero justizia. Galde, errejistra, eskudriña, ezin aurki. Joan ondoan aiek, andre jenerosa, arturik bolsa bat diru joaten zaio ta erraten dio: Tori, arzazu au ta beitian dagon zaldia, ta zoaz Jangoikoareki. Bere Majestadeak asisti zaizala beti. O akzione jenerosoak, ezin daike aski pondera! gelditu ze bere lamentazioan ama tristeia gau guzian, ta eskatzen Jangoikoai: Ara non agerzen zaion bere semea glorioso: o ene ama, erraten dio, Jangoikoak in dezola milla grazia in didan onagatik. Baleki zer penataik libratu nauen in duen karidadeagatik, ta zer gloria logratu didan! Baña laster xakinen du, etorriko baita gozatzeri Jangoikoa in duenaren premiotan (Parra p.2.pl.39). Ongi egin naia guziei, ta espezialki gure kontra direnei, da Jesusen espirituaganik klaro. Kontra, berriz, jenio txarra, ez ongi onestea proximoa, ez barkatu naia, mendekatu naia da deabruaganik. Non pepercit, non parcam, erran zue bein il baten ilarian Kristok gurutzetik etc. Oh! Eztakizula agi juizio egunean etc. Barka zagun guziei gogotik. Barka dezagun Jangoikoak etc, etc.

Sermo in Dominica in albis.
Praescripta medicamentorum
seu receta ad perseverantiam

Quorum remiseritis pecata ...tur eis. Joan.20.

kontatzen du egungo ebanjelioak nola erresuzitaturik Jesus paratu zekioteen erdian diszipuloei, zeudelaik ertxirik atariak, ta erran zioten: Bakea zuei. Au erran ta mostratu zizkiote eskuak eta bularra. Jauna ikustearreki alegratu zire diszipuloak. Erran zue bada, berriz: Bakea zuei. Ala nola biali nauen ni ene Aitak, bialzenzaistet nik zuek. Au erran ta eman ziote ats ta erran ziote: errezihi zazie espiritu sandua, noren bekatuak barkatzentuzien, barkatuak dire, ta norenak detenitzen, detenituak. (Etzego an orduan Santo Tomas, ta erranik lagunek ikusi zutela Jesus, etzego sinestatzekotan ikusi gabe berak. Zorzi egunen buruan, guziak arreki zeudelaik, sartu ze Jesus idiki gabe ataririk, ta erran zue: Bakea zuei. Berla Santo Tomasi: Astazkizu ene llaga-kuntzean zeure eskus, ta sinesta. Sanduak orduan: o ene Jauna ta ene Jangoikoa! Jesusek: o Tomas, zeren ikusi nauzun sinestatu duzu; ditzosoak ikusi gabe sinestatu dutenak. Orra ebanjelioa. Nota daizke asko gauza gorputz gloriosoaren dotea sarzean noranai estorburik gabe. Jesus onaren kuido amorosoa berees; emate gura potestade barkatzeko bekatuak. Fedearen laudatzea ikusi gabe; ta guzien gañetik gure Jaunaren ona ta amolsua guzieki). Baña egungoan aipatuduenaskeros, orra bekatuen barkatzeko potestadea, potestade Jangoikoarena, propioiki, baña komunikatzen diotena bere sazerdoteei. Galdeiten baizute murmuratus judioek: Nork dezake barka bekatuak, ezpada sollik Jangoikoak? Erresponda, niork ez, berak ezi berez; baña beraren komisios bai ordenatuek ortako. Ala nola erregeri inikako traizioak, bere Majestadeak dezazke barka berez, nai badu; baitare beraren ordes bisorraiak, erraten balio oni: Zuk barkatzentuzunak izain dire barkatuak. Ori dugu emen.

Suponiturik ia Jangoikoaren grazias barkatutigula sakramentuaren medios, sendatu garela ariman, paratu garela beraren grazian, goazen tratatus perseberanziaren gain. Erran ziona Jesus dibinoak ogei ta emezorzi urtes perlesiaturik egon zenai, ta sendaturik ...ai istantean: Orra, sendatua zara; etzazula ia egin bekatuak urrengo... Eztakizun agitu gaizkiago. Beira, goartu errekaideak, izan ... Ta senda konstanteki. Ortako emagun egun zenbait errezeta. Saluta zagu lenik Ama Birjina. Abe Maria.

Asi ongi ta bukatu gaizki da Judas apostolu traidore garren desdita. (admititu zue Jesu Kristok bere apostolutako. Egon ze ura Jesu Kristoren eskolan ta konpañian zerbait denboras, aitu zue beraren doktrina, gozatu zue beraren presenzia, jan zue ogia beraren maian, ikusi zitue beraren milagroak, ta beraren potestades egin ere zitue zenbait berak. Zer baliatu zekio guzia, ezpada ia kondenaziotako bere konstanzia-faltas?) Ala, naiz barkaturik paratu zaren Jangoikoaren grazian, zer balioko du, ezpaduzu irauten? Bekatuetaik konfesiora, konfesiotik bekatuetara ingur ingur erabilzea, da inpioen perdizioa: in circuitu impii ambulat. Perikonak ta perikak palo guzietara iteuntenak, ia Jangoikoaren ia deabruaren; terzianari aldaketariak, naiz sano-iduri, eztire sano errealki. Egun sendatu, biar berriz heritu, beldur naiz zure bizias. Orra sendatua zara, dio Jesu Kristok, goarda erorzetik berriro, eztakizun agi gaizkiago. Plazer dut zure mejorias, baña beldur dut errekaideas. Goarzeko, ona zenbait medio edo errezeta, batzuk arimain barneko

aldetik, berze batzuk kanpoko aldetik. Goazen attenditus ongi geuren arimen amoreagatik.

1. Barneko aldetik lenbizikoa da ezaumentu ona, au da ala nola argia ikusteko onaren ona ta gaizkiaren gaitza. Ditxosoa ongi ezaunzen duena. Baña nola baktzak baitu bere entendamentua ia edo gutiago, ta arreaki bearko pasa, ala nola bista labur duena baliatzen baita begiordes edo anteojoes, billatus argi kanpotik, ta beirabeira egones ikusteko ongi, ala ariman ezaunzeko ongi, da lenik eskatzea argi Jangoikoai, ta pensatzen egotea espazioreki egietafedeak. Gure habilidade, xakintasun, iteko, ditxa ta felizidade andiena ta bakarra dela ona izatea Jangoikoaren begietan, bizitzea arren grazian ta amorean. Kontra, berriz, desgrazian bizitzea, izanes gaixto bat, dela tonteria, ta desdixarik andiena: (bear dugula izan edo Jangoikoaren edo deabruaren, ta gure eskuan dagola autatzea. Jangoikoak proponitzen digula orai trabaju pixka bat bulzaturik bere grazia onareki, ta anitz konsolazioeki; deabruak ofrezitzentigula emen anitz gusto, falsu ordea, gerokoa postrea ixil, baitire pena eternoak. Jangoikoa obeditzen dutela aingiruek, ta gizagendearen flore floreak len ta gero, ta doazela bildus zeruan betiko. Deabrua segitzeuntela jendeen farraskek, emen laur eguntako gusto iduriengatik penazeko eternidadean. Balego gure eskuan izatea errege edo erregina, inala inen ginduela ortako; eta gure eskutan dagola izatea glorian errege ta erregina koronatuak betiroko); bizi gau dela labur, ilzea segur, kontuak ertxi, sentenzia segi. Gloria edo infernua betikos, nola azaroa emen, eraizioa ario gartara an. Zer in bear du ezaumentu ona duenak, baizik kuidatu zerbitzatzeas Jangoikoa?

2. Da ere abantalla ezauntzea zertan dagon zerbitzatzea Jangoikoa, engañatzen direlaik asko, ustes dagon erreztatzean ta debozioetan. On da ori ere, baña eztago ortan sustanzia, baizik egitean Jangoikoaren borondatea edo bere Majestadeak nai duena. Guk nondik dezakegu xakin zer nai duen Jangoikoak, ezpada mintzazen? mintzatu da, utzi du manifestaturik bere borondatea amar mandamentuetan ta Eskritura Sagratuan. Eben guardatzea da Jangoikoai zerbitzatzea. Oneki bateo dire on debozioak ta errezuak; ebek ura gabe eztire protxal. Da ala nola ematea mia Jangoikoai, biotza deabruai, Jangoikoai azalak eta kaskillak, deabruai mamiak. Zerbitzatzea eztaikela kunpli zerbait trabaju gabe da klaro. Baña zer trabaju-gisa? (nork bere ofizio lurekoarenak? Ebek ere pasatu bear dire, baña bidanabar bekala ta ezin berzeas, mantenitzeko gorputza Jangoikoak eman diguna. Baña arimarenak biz beti len. Zaiaren bilzale ta irinaren barrazale, oiuiten ziote Benerable Juan de Abilak ai direnei beti gorputzaren, atzendurik arimas. Gorputzarena da zai, arimarena irin). Zer trabajatu bear da? Errepugnatzean pasioneei, suberbiai, kodiziai, luxuriei, gulai, irai, inbidiai, nagitasun ta epeltasunai, garaizeko mundua, demonioa ta aragia, preziso baita goardazeko Jangoikoaren legea. (Trabajugoi da guruze gura ziona Jesu Kristok: nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeei, ar bez bere gurutzea ta segi benaza. Gurutze gorreki joan dire ta joain dire zerurako direnak Kristoren atzetik prozesio luzitua). Klaroxago; bear da trabajatu ez iteko gaizkirik ez obras, ez itzes, ez biotzes, ta egiteko ongi, obligazio den bekala. Au berau berze gisas: Trabaja izateko ona persona, ez suberboa, ez kodiziosoa, ez luxurioso, ez guloso, ez asarrea, ez inbidioso, ez alfer nagi ajolakabea, baizik guzia kontra, ajustatus Jangoikoaren gustora arimarenak: Memoriak, pensamentuak, afektoak, ta gorputzarenak: Begiak, adimentua, mia, akzione, pausu ta mogimentu guziak. Lan andixkoa dirudi, baña Jangoikoaren graziareki ta usatzeareki aisatzen da: (baña beti da preziso kuidado, bizi garen bitartean, ezi egun anitz da, ta eskaida ta tentazio, ta aldarte asko, ta aisa aisa erorzea mortaleren batean dela agerrian, dela estalian, deskuidatzen balitz pixka bat. Ai ene Jesus! Eta ezta erremediorik,

eroriaskeros? Bai Jangoikoaren grazias, ta da deskitatzea penitenzias).

3. Bigarren medioa barneko aldetik da borondate ona izatea, au da, arima ona. Ala nola ez erizeko ain aisa gorputza, baita sano ta robusto izatea, (erituko da alaere noiz edo noiz, espezialki iten baitu exzesoa, baña kuidado ia bear du erikor denak. Ala da arimetan, ain diferente baitire nola aurpegiak. Bat da suber, bano, presumitu, berzea humil bere izates; bat berekoi, eutxia, biotz ximurra, berzea liberal beratxa; bat garbi, kasto aingiru bat bekala, berzea kontra. Bat guzia tripa, berzea kortes. Bat asarre mendekoso, berzea manso oneroa; bat beti nondik inen duen ongi, berzea kontra. Orai bada, nori fortunatu zaion arima ona, mantenituko da grazian aisago; baña deskuidatzen bada, bein edo bein eroriaraziko dute munduak, demonioak ta aragiak; eta kostunbre gaixtoa azitzen bada, inen da ain gaixto nola edozein. Sobra experienzia lastimagarri ikusi da, nola inklinazio onetako personak itzuli diren bekatarik itsusiak, axuriak otso, usoak otsorrai, ardi onak hazienda beltz, aingiruak deabru. Ala ezi nior eztaiera deskuida mundu gaixto gontan). Baña nork senti duen inklinazio ta pasione ia bereganik gaizki gontara edo artara, in bez ia indar bere aldetik ez errendizeko, ta garaitus garaitus pasionea, doaie kuratus, ta azis kostunbre ona, ta aisatus birtutea, ta ondus persona. Ikusi ere dire experienziak, nola guti guti joan diren erremediatus jenioak, ta otsoak itzulis axuri, otsorraiak uso, ezi Jangoikoareki bateo guzia da posible naiduenaindako gogotik.

4. Ortako irugarrena barneko aldetik da erresoluzio ta gogo firme baliente bat emendatzeko, ontara doaien bekala gure iteko ta irabazi guzia betiroko. Santo Tomas doktore aingiruai teologia ta xakintasun guziaren iruzkiari galdegin zio bein bere arrebak: Zer in bear dut salbazeko? Nai izan, errespondatu zio sandu xakintsuak; adiarazis ala, guzia inen duela nai duenak gogotik). Guziek diote nautela salbatu ta zerura joan, baña ez artu nai ararako bidea. Ori da nai ta ez nai nola perezosoen goizetan xaiki naia, otz dagolaik; ots, goazen xaikis, banoaie, ta geldi. Soldado kobardeak ere nailuke biktoria, baña peleetik eskapa. Ori ezta nai izatea gogotik. Anima animosoak naitu Jangoikoak, zio Santa Teresak, erresolbi daitzenak asi ta segitzera Jangoikoaren bideas demonioaren, aragiaren ta mundu guziaren bortxa. Len lenik egin erresoluzio ez admititzeko bekatu mortale denik, naiz galdu asko gauza, naiz pasatu trabaju, naiz murmurazio, naiz irri, naiz persekuzio. Gero egin klaroki on dena, nioren beldurrik ta errespetoik gabe; ez in kasorik zer iteunten berzeek, baizik zer bear duzun egin Jangoikoaren leges. Anitz mono ta mona dire leku gebetan. Zer iteunte monoek? Egon beira zer iteunten berzeek, ta imitatu. Ala etc. Beira Jangoikoai, ta kuida beti kuadratzeas bere Majestadeai, ta exenplu ona eman jendeei.

5. Laugarrena barneko aldetik da eskatzea edo orazio egitea Jangoikoai, in gaituenak gizon, in gaitzan on. Iago da izatea on, ezi gizon. Eta, bada, ezin egin gara geurok gizon, ain guti in gaizke on. Ni gabe deus onik ezdezakezie egin, dio Jesu Kristok; ala nola zarmenduak aiena gabe ezpaitezake eman fruiturik bereganik, ala zuek ere ez ni gabe. (Zerbait ongi in badugu, edo in badute anitz ongi sanduek, libratu badire egitetik asko bekatu, ezta zer ortas presumitu; ez guri eskerrak, esker Jangoikoaren graziai, Jesu Kristo dela medio). Dezakete agian begiek ikusi argirik gabe? Edo gorputza daike bizi atsik artu gabe? Bada, ain nola argia ta atsa da preziso Jangoikoaren grazia bizitzeko arima grazian. Prinzipalki kastidadeas dio klaro xakintsuak (Sap.8): ikasi nue ez nindeikela izan kasto, ezpadu ematen Jangoikoak. Eta Job sanduak zio: Nork dezake egin garbi konzebitua dena azi likitsetik? Sollik berorrek, Jauna (Job.14). Eta San Pablok zio: Gizon desdixatua ni; nork libratuko nau gorputz eriozko gontak? Jangoikoaren graziak, Jesu Kristo dela medio. Orgatik da preziso diona errefranak: Otoi Jainkoari ta eutxi kabikoari;

nai du erran, egin bere aldera ta eska Jangoikoai, ezi begiak erxten badire, ezta aski argia sollik ikusteko, ta aizea ere ez sollik, ezpauzu ats artzen. Eska, bada, maiz ta sinki: o Jauna, krianu nauena ta kristiatu, salba benaza. O Jesus, nai badu, banazake salba. Espezialki tentazioan bear orduan suspira biotzes: Jauna, goarda benaza, ez nuke nai ofenditu orren Majestadea, ez nazala utzi tentazioan erorzero etc. Orazioai indar emateko lagunak dire penitenziak, mortifikazioak, limosnak. Ori litzake eskatzea obra oneki.

6. Borzgarrena barneko aldetik da obeditzea Jangoikoaren bokazioari edo deiari estado arzean, ezi abantalla andia da salbazeko azertatzea estado ta bizimodu gura, zeintarako destinatu duen bakotxa guzien Jaunak; ala nola kontrako estadoa artzea utseginik baita enbarazu bizi guziko; ezkondu bear zena iten bada sazerdote, edo kontra; sartu bear zena erreljioso gelditzen bada Babilonia gontan, kontra oroat; nork eztakusa neke-gaitza? Jauna, nola xakin zein estadotarako nai duen bat gure Jaunak? Egin ortako bere otoitzak, penitenziak, limosnak, enpeña Maria argiaren Ama, ezi paratuko dio biotzean Jangoikoak zer zaion obe; ta baditu elizan bere ministroak konsejatzeko. Goazen ia seinalatus kanpotik bear direnen errezetak.

1. Lenbizikoa, ertxi etheko atari ta leioak bearrorduetan, eztaien sar pestea ta kutsatu ta il arima. Zer etxe diot? Zer atari ta leio? Zer peste? Arimaren etxea da gorputz luresko gau. Atari ta leioak onen sentidoak: agoa, adimentua, begiak. Beneno ta pestea zeintas dagon kutsaturik ta korronpiturik mundua, dire itz, ta exenplu, ta zebo galgarriak. Ebeki sarzen da eriotzea arimara leioetaik, intravit mors per fenestras nostras, aditus bearries, ta ikusis begies bearreztirenak, doaie kutsatus, iles, galdus arima. Perdiziorako bidea ona non duzien gradas grada: lenbiziko grada ikustea edo aditzea gaizki; oni darraio pensatzea; oni darraio gusto ematea; oni darraio konsentitzea biotzean; oni darraio egitea gaizkia; oni darraio kostunbratzea; oni darraio ajolakabetzea; oni darraio sendagalla izatea gaixtakerias; oni darraio ezin berzea; oni desesperazioa; ta oni kondenazioa. Ellegatzen da ontara asko aldis pasatu gabe ainberze grada, baña komunkiro aditzea ta ikustea da asiera. Ori gabe ere badu bakotxak asko eritasun bereganik; zer izain da añaditus kanpotik? Joan erreparatus nola doazen galdus gastetioak, ta ikusko da dionaren egia, zer erremedio? Goartzea al guzi.. Ikustetik ta aditzetik gaizki.

2. Bigarren errezeta, kentzea suari sukaiak, auda, apartatzea bekaturako zebo, bide ta okasioetaik, baitare alferkeriatik, baitare lagun gaixtoetaik. Ez fia erranes, au ezta bekatu, ura iteunte berzeek, guziek baute arima, ta alako atxeikiak. Nor fiatzen den ia, erorzen da lasterrago. Beldur dena goardatzen da. Dibersioak izatekos, biz dezenteak, honratuak, neurrituak modu, garai ta zirkunstanzia guzietan. Lagunak biz obenak elkar ontzeko, ezperen, apegatzen dire kondizio gaixtoak aisago ezi sarna ta edozein gaitz kutsusko. Aparta, aparta al guzian gizonkiak emastekietaik, emastekiak gizonkietaik; naiz munduak erakus dezan kontra, experienziak gaizke desengaña; pasionea da sobra, ta deabrua eztago lo. Errefran antiguaskoa da ebanjelio labur bat bekala: Gizonkia da sua, emastekia istupa, eldu da deabrua ta asten da fuka.

3. Irugarren errezeta, aditzea ongi ta maiz Jangoikoaren itza, ta joatea berritus propositoak onzeko ia. Leitzea, alaber, dakienak libru sanduetan; eta eztakienak, baita dakienak ere, Jesus guruzifikatuaren imajinan. Letra klaro ederrak dire llaga gaiek erakusten digutenak Jangoikoaren ona ta amoreta guregana, ta gure obligazioa, ta bekatuen gaizkia. Debozio goneki junta Maria Santisimaren debozioa, ta aingiru goardiakoarena, ta nauzun sandu ta sandaena, ezi guziak nola alegratzen baitire gure onas, daude edatzen beren eskuak guri dei ta dei faboratu naies igateko dauden lekura.

4. Laugarrenaren errezeta, maiz ta ongi konfesa-komekatzea, ezi sakramentu gebek dire graziaren ta salbazioaren instrumentuak eta kanaleak. An obratzen du beti Jesu Kristoren odolaren balsamo preziosoak, aumentatzen dio grazia grazian dagonai, ta eztagonai ematen dio, baldin ongi disponiturik ellegatzen bada. Azken miseria litzake itzultzea iturri gartaik mejoriaik gabe, edo gaizkiago zegon baño joan baño len. Ori agitzen da eztelaik disponitzen ongi. Orgatik ez solamente erran dut maiz konfesa-komekatzea, baizik maiz ta ongi. Goartu eztaien egin zeremonia-utses, edo itxurapenes, edo kostunbres epel epela, baizik aldioro ansia berriareki penaturik gaizki egines, ta ondu naies. Nola errain dut obekienik? Konfesa komeka gaitzela aldioro ilzeko bekala. Junta oneki paratzea nork bere buruai penitenziak falta itenduenetako, utzi bear duela txokolatea edo ardoa egunartan, onenberze Kredo zabaldurik besoak, edo auspeska etc. Eta kunpli erremisiorik gabe.

5. Ez ia luzazeko, borzgarren ta ..ken errezeta biz bizitzaren erlojua, au da, eramatea ongi ordenaturik egunak, asteak, ilabeteak, urteak; asentatus zer in bear duen egunoro, zer asteoro, zer iloro, ta zer urteoro. Bakotxak dezake disponi beretako iduri zaiona obeki. Baña ona zer in daiken jeneralki. Egunoro egunaren primiziak ofrazeko Jangoikoai, idatzarri ta len lena oroitzea Jangoikoas, eman esker milla biotzas, zeren ellegarazi duen bizirik egun gontara. Eskatu barkazio ofendituas; egin obren ofrezimentua, nola nai, gogoak erakusten dion bekala, itzik gabe oroat. Nai badu ala in dezake: Ene Jangoiko Jauna, nik berorren kriatura bekala, amatzen, estimatzen, adoratzen dut orren Majestadea. Ofrezitzen diot neure persona, neure obra, itz, pensamentu, afekto, ta gauza guziak, neure bizi guzia, iltzea ta eternidadea berorren gloriatan. Amen. Bida bere grazia andia, ez dezaten ofendi deustan. Daike erreza zenbait Aita gurea. San Bizente Ferrerek enkargatzen du erratea Kredoa goizoro ta arratsoro. Alaber, enkomenda Ama Birjinari, aingiru goardiakoari, eguneko sandueri. Baña ez beñere atzendu armatzeas ur bedekatuareki ta gurutzeareki, zeñatus espazio ta debozioreki. Eta egin agur andi bat Jangoikoai belaurikatus ta kurtus burua lurreraño: Jauna, nik adoratzen dut gogotik, bida otoi bere bedeizioa. Egunas santiguatu etxetik atratzean, edozein lanen asteen. Ofrezitu Jangoikoaren izenean bere lanak. Dezakenak on litzake egitea bisita bat sakramentuai, ez dezakenak ori, biali biotzetik goraintziak bekala afekto onak. Jan edan orduetan egin maiaren bedeizioa ta graziak. Noranai doaien ta dagon, iduki presente gogoan Jangoikoaren Majestadea, baitago leku guzietan; akostunbratu egitera maiz afekto onak biotz barnean, espezialki amoreskoak: Jauna, nik amatzen ta estimatzen dut nere biotz guziareki, arima guziareki, entraña ta indar guzieki gauza guziak baño ia; ia ezi ondasunak, ia ezi gustoak, ia ezi osasuna ta bizia etc. Arratsoro beiraaldi bat konzienziara ia nola pasatu den eguna, ta egin kontriziosko akta, erran Kredoa, zeñatu ur bedekatus bera; ta goazearen inguruan ere onda ur bedekatus ematea espiritu gaixtoen kontra, nola erakusten duen Elizak, ta Santa Teresak (in vit). Alaber, zein gauza ederra egunoro errosarioa familiareki, edo bakarrik. Asteoro dezakenak enzun Jangoikoaren itza ta doktrina, baita arimaren esnea ta alimentua. Iloro konfesatzea bekatuak biotzeko penareki, baita ala nola lixua egitea. Komekatzea ezta ain preziso, prezioso bai, baita komunikatzea, besarkatzea ta erregalatzea Jesus onaren gorputz odol preziosoeki. Urteoro zein on litzaken lixua jenerale bat, edo konzienziaren garbialdi bat urte guzikoa. Ario gontara ordena zazu biziaren erlojua azken orduraño. Gero gloria. Amen.

Sermo in Dominica 2a
post Pascha.
De Jesu pastore bono

Ego sum pastor bonus. Joan.10.

Zein manso, amoltsu, Jesus onak, axuri dibinoak, dion egungo ebanjelioan: Ni naiz artzai ona! Ala da egietafedea. Zer ia? Artzai onak ematen du bere bizia bere ardiengatik. Baña alokairuagatik dabilanak, ezpaita artzai, eztituenak ardiak bereak, ikusirik otsoa eldu dela, utzi ardiak ta iges iten du; ta otsoak galtzen ta urratzentu ardiak. Alokairukoak iten du iges, zeren alokairua nai duen ta etzaikon deus ardies. Ni naiz artzai ona, dio berriz ere; ta ezauntzentut nere ardiak, ta ezauntzen naute ni nereek. Nola ezaunzen nauen ni Aitak, nik ere ezauntzen dut Aita, eta ene bizia usten dut nere ardien onagatik. Baitut berze ardi batzuk ere, ezpaitaude saldo gontan; aiek ere beartut ekarri, ta aituko dute nere boza, ta inen da saldo bat, ta artzai bat. Orra egungo ebanjelioa. Entenda dezake nornaiek, Jesu Kristo dela artzai ona, ardiak kristioak, ardi-saldoa Eliza, baita kristio fiel guzien kongregazioa. Bai, ta zergatik dio, baituela berze ardi batzuk ere ekarri beartuenak saldo gontara? Zeren kristio eztirenetan oraño, baitire eskojituak zerurako, inen direnak kristio. Bai ta zergatik dio, inen dela saldo bat eta artzai bat? Zeren anitz artzai izanik ere an emenka, nola baitire obispoak ta parrokoak, paratu baitu guzien buru bat, au da, Aita Sandu Erromakoa, zeñen obedienziaren pean egon bear den kristio-gende guzia; ezperen ezlitzake saldo bat. Eta Aita Sanduaren obedienziara eztagona da zismatiko apartatua saldotik. Baña naiz Aita Sandua San Pedroren ondorekoa izanik Kristoren bikarioa lurrean, beti Kristo bera da buru lenbizikoa eztaikena falta sekulan. Animatzeko izatera ta irautera Artzai dibino gonon ardi gogotik, goazen beiratus beraren prendak ta abantallak; eskatus lenik bere Ama Santisimaren medios grazia. Abe Maria.

Gloriako prinzipie Jauna Artzai, gauza eder ikusgarria da! Eta balitz solamente an goiti zeruan aingiruen Artzai, etze ainberze admiratzeko; baña utzirik ango saldo eder gura, jautsi da gure beitiko mundu gontara gizon pobrettoen artzai. Non du zamarra? jaintsi ze gure naturaleza pobrearen zamarra pobrea bere naturaleza dibinoaren gañetik, ta ongi erorzen zaio; ta ikusazu Jangoiko andia gutartean, gutaik bat bekala gizon eginik. Bai ta arzai-makila non du? Ori da gurutzea, zeñeki garaitzen ta botatzen duen otso infernukoa, baitare zuzenarasten ardi errebelak. Ala mostratu zekio beti arzaiaren habituan agitz arresti amolsu erreklinaturik gurutzearen paloan, ardi batzuei oi u egiten, txistu berze batzuei (ap. Santa Theresa medit. pater noster pet...e.4). Zer txistu dire itentuenak? Oriek dire inspirazio amoroso bialzentuenak biotz barnera, argitus entendamentua, inzitatus borondatea, amorostus arima suabekiro. Itentu oi uak ere? Zer oi u? Sentenzia erratentuenak bere ebanjelioan. Aizazu oi u bat: Quid prodest homini etc. Zer balio dio gizonai, iragazten badu ere mundu guzia, baldin galzen badu bere arima? Aizazu berze oi u bat: Arcta est via, qua ducit ad vitam etc. Mear ertxia da bidea daramana bizitzara, ta gutik astatzeunte. Zabala da bidea daramana perdiziora, ta anitz doaz ordik. Anitz dire deituak, baña guti eskojituak. Nauzu berze oi u bat? Nisi poenitentiam egeritis etc. Ezpaduzie egiten penitentzia, guziok galduko zarate. Nauzu berze bat? Qui ex Deo est, verba Dei audit etc. Jangoikoaren denak, aditzentu Jangoikoaren itzak. Orgatik zuek eztuzie aditzen, ezpaizarate Jangoikoaren. Nauzu berze bat? Venite ad me etc. Zatoste enegana neketan

zaraten guziok, eta nik faboratuko diziet. Berze bat: nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeei, ar bez bere gurutzea, ta segi benaza. Berze bat: ni gabe deus ez dezakeze. Ni naiz bidea, ni ataria, ene medios sarzen dena salbatuko da etc. Ta berze asko oi u alako, ia konbidatus, ia meatxatus, ia konsolatus, ia erreprehenditus etc.

Goazen orai, ta nola kuidatzen ta erregalatzentuen ardi segitzen diotenak! Markatzentu bataioan, ezaunzen ta estimatzentu bereak bekala. Doaie alzinean exenplu oneki; goardatzentu bere indar ta industriaeki. Azitzentu bere lege, doktrina, errelijione ta on guzieki Elizako paraiso eskojituan. Sendatzen ta bizkorzentu bere sakramentuen balsamo preziosoeki; bada, nork erran nola konsolatzen, amorosten, animatzen ta esperanzas betetzentuen arimain barnean? Baña zer ia nauzu erran diguna baño? Bere bizia ematen duela ardiengatik? Beira gurutzean ilik artzai dibinoa guregatik. Zein arzaiek egin du alakorik bere ardiengatik, nola gure Arzai Jesus onak guregatik? Zein kario kostatu gaizkion! balio gindue ainberze guk? Eta ia ere egin du. Zer ia in zuke? Etzuke gizon sollak egin ia, baña nola baita Jangoiko ta gizon, ilaskeros erresuzitaturik bere birtute propios, gelditu da oraño bizirik gutartean, nola artzaia ardien erdian. Emit pretiosé, custodit studiosé, pascit copiosé. Angeli Pastores, sacerdotes, ... S. Vincent. Ferrer. Solamente orai, ezpaitago agerrian, baizik altxaturik amoroso bere sakramentuan. Artzai amantea, zein maitetuen bere ardiok! Baña zergatik ala altxaturik? Ezkaitzen lotsa bere gloriak ta majestadeak. Bai, baña ez ikusteareki geienek kaso guti egiten! bizkor bezate fedea, sinesta bizirotu ta ikuskoute. Obeki, ordea, balego agerri. O nola eztakigun zer zaigun konbeni! Eta nola leike atrebi ellegatzera ni bekalako bekatari pobrea? Dio Santa Teresak (Camino perfecio).

Baña ain errealki nola zeruan dago Jesus ona sakramentuan: Zer nai du? Segitu oraño ere bere arzaingoan, daudelaik eri bere ardiak, bizkortu; daudelaik triste, konsolatu; daudelaik beartsu, erremediatu; daudelaik beldurak, animatu; ta itz bates errateko, nola baita Jesus Salbazalea, salbatu. Zer nai du? Nola ezpaizeike il bein baizik errealki, nai du sakrifikatu egunoro mezan misteriosoki presentatus bere odol, eriotze ta llagak gure amores. Zer nai du? Sartu gure barnean janari-gisa, komunikatu, besarkatu, erregalatu gure arima. O Jesus, aixtean artzai, ta orai axuri, nola dateke? Amorearen milagroak dire. Du podore ta du amore, nai duena in dezake, ta nai du in dezaken guzia gure onagatik. O ezaun balezate kristioek duten ondasuna sakramentuan! Ezaunzeuntenak gozatzen dute. Nork? Ilik bekala daudenek mundurako, beren bizia baitago altxaturik Kristoreki Jangoikoan. Mortui enim estis, et vita vestra abscondita est cum Christo in Deo. Eztute munduko gustorik, ez nai ere, eta emen gozatzentute gusto soberano zoragarriak. Eztute munduko alegranziarik, ez nai ere, eta emen alegratzen dire gloriosoki. Eztute munduko afizioneik ta gauzaik nai, ta emen zorutzen dire amores Jesus onareki; berek maite Jesus, Jesusek maite berak; zer naute ia? Emen logratzentute bizitzako bear direnak ere, aski dute aipatzea bear orduan: o Jesus, nai badu, banazake erremedia ontan edo artan; nai badu emandezadake au ta berzea, ta berzea. Eta guzia ematen diote konbeni bada. Guzien gañetik bizitza bat deseagarria zerukoaren bezpera bekala, esperanza sano alegres betea. O Jesus, diote, ez nazala utzi galtzera, Arzai ona. Errespondatzen du: ez nazaziela utzi, ta etzaistet utziko. Maite nautenak maite tut. Ezta nior galduko nere faltas, ezpadiere berak galdu nai beren kulpas. O ene artzai ona, beira, otoi, arditto goni.

ikusi dugu zein Artzai ona den bere ardi oneki Jesus, ain ona, ezi eben amores utzi da iltzera, ta usten da jatera onaren utses; baña eztaien pensa solamente oneki dela ona, baizik galdueki ere bai; konparatzen da bera artzai bateki (Luc.15), zeñek galdu zekiolaik

egun ardietaik bat, utzi berzeak, ta artu zue nekea billazeko galdu gura; ta arkiturik, paratu zue bere sonetan (sic) ta itzuli ze alegre, ziola: Idazie enhorabuena aurkitu baitut ene ardi galdua. Ardi galdua da kristio gaixtoa, atzendua Jangoikoas. Billatzen du; ia oius, au da, prediku ta konseju onen medios; ia txistus, au da, inspirazio onak emanen biotz barnera; ia meatxus, au da, sartus bere iraren ta infernuaren izidura. Ia ere tiratus makila; zer da au? Makila dela gurutzea, ta gurutze da edozein trabaju. Ia, beras, tiratzea makilas arzai onak ardi galduai da bialtzea trabajua, desgrazia, eritasuna kristio gaixtoai akorri daien. Oh zenbat aldis datoizin trabajuak bekatuen kasos! Eta dire ala nola artzai onaren makilukaldiak goardazeko bere ardia, eta dire protxal ia ezi asko prediku, ezi ezta alako predikurik nola eritasun bat, ta sentitzea eriotzeain atzaparrak, ta infernuain ikaradurak. Iten dio mertextede ala ere artzai onak, itzularazis beregana ardi galdua arrapatuko zuena ezperen otso infernukoak. Eta zer da itzulzea soñetan arturik alegre? Salbatzea bere kostus kristio bekataria. O artzai ona, ardi gau ere salba otoi edozein gisas.

Salbatzekos, ardiak ere in bear duena badio ebanjelioan. Lenik ezaunzea bere arzaia, et cognoscunt me meae. Ezaun ze gau iten da sinestatus fedesko egiak, ta amatus gure Jauna. Ezaunzen da fede ta karidadeareki. Bigarrenik aditzea beraren boza, vocem meam audiunt. Aditzen da obeditus ta kunplitus beraren mandamentuak. Inzagun ala, ta segi gure artzai onai, ta infernuko otsoaren kontra eutxi beraren makilari, virga tua et baculus tuus ipsa me consolata sunt. Beti dabila ingur ingur deabrua gure galdu naies, baña espezialki azken pausu ertxi gartan. Klama artzai onari, eutxi bere makilari, eztugula berze esperanzarik, ezpada berabaitan. Ikusi da bere Majestadea asistitzen berzei ilzerakoan. Ditxosoa nor den artzai on gonon ardi ona. Ama bez, ta izain da amatua; logratuko du emen bizitzea beraren grazian, ta an glorian.

Sermo in Dominica 3a
post Pascha.
De modico labore huius
vitae pro aeterna

Modicum, et jam non videbitis me etc. Joan.16.

Kontatzentu San Juanek egungo ebanjelioan bere diszipuloei Jesu Kristok erran zitioten itzak azken afariaren postrean despeidan bekala: Orai guti bat eta ez nauzie ikusiko, eta berriz guti bat ta ikusiko nauzie, zeren bainoaie ene Aitagana. Etzutela entendatu, dio, zer adiarazi nai zuen itz gaitan. Ta explikatu zuela Jaun dibinoak ala: Sin sines erraten diziet pena ta nigar izain duziela zuek; baña mundua gozatuko da, zuek ordea tristatuko zarate, baña zuen tristura itzuliko da gozotan (Pena du emastekiak erdi bear duelaik, zeren ellegatu den bere ordua, baña libratuaskeros semeas, ia gelditzen da gozosa. Eta, bada, zuek ere orai duzie tristura, baña berriz bisitatukozaistet, ta gozatuko da zuen biotza, eta niork eztizie kenduko zuen gozoa. Orra ebanjelioa). Gutti bat gura dio San Agustinek dela denbora guziau, noiz doaien pasatus boladan oraiko bizia, zeñen trabaju ta nekepenen ondoreko ofrezitzen dioten apostoluei, ta on guziei gloriako gozo andiak, animadaitzengatik pasatzera ongi oraiko trabaju pixkak ango gloriaren aldean. Saluta zagun Maria. Abe Maria.

mereji du explikatzea ebanjelio gonek, ezi ongi entendaturik eman dezake bizitza sekulakoa, ta makur entendatus dezake atra bere perdizioa duenak ajola guti gerokoas, aiturik ezi oraiko bizi gontan Jangoikoarenak triste neketan, mundukoak gozoso alegre izain direla, naiz gero guzia itzuli berze aldera. Goazen, bada, entendatus zuzen (baña lenik lena, au da, ala justoen nola gaixtoendako eztela luze, baizik labur emengo biziaren plazoa. (Gizonaren bizia gorenas iruogitamar urte, bakotx batzuetan laurogei, andik alzina ezta baizik trabaju ta dolore, dio Dabidek (Ps.89). Kontu gontaik atra aurzutua, atra lo dagoneko denbora; zer gelditzen da?). Baña dela luze naiadiña, zer da eternidadearen aldean? Nola ur tanta bat itsasoaren aldean. Arara direnei emengoa iduri zaiote pasatu dela nola istupa pixka baten garra, nola oñastura bat, nola ezdeus bat, nola begien ertxi-idiki bat; baña zein inzierto da bizitzen den guti gau ere? Erdiak kasi doaz aurzutuan; berze batzuk gaste, ta adinik obenean, de manera ezi gutienak dire ellegatzen direnak zarzutura. Ezta zer galdegin nondik datorken eriotzea, baizik nondik eztatorken. Barnetik eta kanpotik, aize, ur, iruzki, bero, otz, jan edanes eta gabes, exzesos eta faltas, milla modus daike erori gure autsesko etxe gau, zein baita eriotzearen kafia, ta Jangoikoaren mertxedes da irautea irauten duena ere. Bitarteo, bekatariak daude ilzeko arrixko urbillagoan ofenditus Jangoikoa, zenek (sic) daukan gure bizia dilindaka ari bateki bere eskutik. Arrigarri da gizonaren tonteria ta atrebimentua ofenditzeas bere Majestadea, dezakelaik berartan utzi erorzera infernuko lezean. Bekatua ere dela eriotzearen akulloa, dio San Pablok (1.Cor.15) ekarrarasteko len baño len. Eta bekatari (Ps.54) mota bates dio Dabidek, eztirela ellegatuko bere egunen erdietara. Eta erran komuna ere da, goapo-naiak ta ardo ona laster akabatzen direla. Bai, ezi edozein jenerotan exzesosak dire laburzeko bizia. Baña niork ere ezta zer fiatu, ezi da bidro bat bezain auxkor, ta luzatu naies askotan laburzen da, ta kontuak atratzen zaudelaik gerorako, ustes urruti dagon eriotzea, egoin da atarian barronde emateko petardo betikos. Ala, dio ebanjelioan Jesu Kristok (Luc.12),

zegola aberats bat ideatzen egiteko granero berriak bere buruai ziola: He, bauzu asko ondasun asko urtetako, deskansa, jan, edan, erregala, diberti. Eta erran zio Jangoikoak: Tontoa, gau ontan atrakodie arimaire bilduak noren izain dire? Berze asko, berriz, ustekabetzean bulkatzentu emendik derepente. Argitu bai ta ilundu ez, edo ilundu bai ta argitu ez. Oh zer petardoa ezin daikena erremedia eternidadean, ezpazego ongi prebeniturik! Eta etzaio deus balio pensatzeak, eztituela bulkatu ala berei milla ta milla, bulkatzen badu bera. Baña trata zagun oraiko bizi bitartean.

Mundukoak gozoso, ta zuek pena ta tristura izain duzie emen, dio bereei Jesu Kristok. Ain bizi triste neke penaskoa bear dute izan orren zerbitzukoek, Jauna, ta mundukoek gozos betea? Goazen entendatus: Guziendako bada pena ta tristura, bada ere gozo ta alegranzia. Solamente ezi Jangoikoaren ekzute gozatuko, ez nai ere, mundukoen gozoetaik. Etzaizkieke orgatik faltako zerutik bear direnak, baña emengo iteko prinzipala da pena, neke ta negar. Borz kausas edo modus dute pena justoek: 1a Peregrino ausente egoteas, ta ezin ikusteas Jangoikoa eta, arrixkoak ellegatuko diren ezoten diren (sic) ikustera. Ai nitas! zio Dabidek, luzatu baita nere desterrua (Ps.119), ene sustentua negarrak gau ta egun, errateareki: Non da zure Jangoikoa? (ps.41). Ene anima dago egarriak ansias Jangoikoagana, noiz joanen naiz ta agertu Jangoikoaren presenzian? Gaitz gontas zego eri Santa Teresa ere, kantatzen zuelaik: bizi naiz ta ez enebaitan, ta alako biziain beira nago, ezi ez iltzeas iltzen nago. Zer idurizaizie pena gontas? 2en pena dute Jesu Kristoren penes ta eriotze pasatu zuenas. Oh zer negarrak ixurtzentuten ortas arima nobleek! San Franzisko Asis itsutu ze alako negarren kaso. 3n pena beren kulpes eta berzerenes, beiraturik ain guti estimaturik Jangoikoaren Majestadea. (5a da pasatzen duten trabajua izateas persegituak munduaganik, ezi apostolu guziek pasatu zute anitz trabaju fedeagatik, ta ori eman ziote aditzera Jaun dibinoak despedidan; eta Kristoren konforme bizi nauten guziek pasatukoute persekuzio, dio San Pablok (2 Tim.3). 4a da neke daramatena garaitzean beren pasioneak, ez admititzeko gustorik ta gauzarik Jangoikoaren legearen kontra. Orixe da gurutzea eraman beautena joan nauten guziek Zerura, ta daramatena justoek gogotik gure Jaunaren amores. Ikusituzu justoen penak?

Mundus autem gaudebit. Baña mundua gozatuko da, dio. Nola? Guzua kontra izanes, ajolaik ez bizitza sekulakoas, ain guti Kristoren penes, ain guti beren kulpes; gero elkar laudatus ta faboratus bide zabala barna, kunplitus demonioaren, munduaren ta aragiaren naikundeak; segitus deabruaren zazpi alaba gaien konbitak, batzuek subergia, kodizia berze batzuek, luxuria geienek, frankok gula, ira berze askok, inbidia kasi guziek, eta guziek pereza ta gana gaixtoa onera. Ala, nola nai bizitus suelto gogoaren konforme, orra mundukoen gozoa. Zuen tristura itzuliko da gozotan, dio bereei Jesu Kristok. Eta mundukoen gozoa ezta itzuliko tristuratan? Konsigiente da; ta erran zue lenago: (Luc.6) Ai zuetas irri itenduzienes orai, ezi inen duzie nigar. Oh! Gerokoa gero, diote, beñik bein orai pasa zagun ongi. O desatinoa, laur egunen gusto falsuengatik exponitzea betiko pena ezin soportadaizkenetara. Orgatik zio ederki gizon xakintsu batek (Señeri), bi karzel solamente bear zirela izan bekatariendako: Inkisiziokoa ta eroena. Gaizki iten badu ez sinestatus pena eternoak, da hereje; ori inkisiziora. Sinestatu, ta alaere egin; eroa da, ori eroen etxera. Baña oraikoa, oraikoa da nautena. Inzoguten gusto. Goazen alde gontaik progatus eztirela obeki, ta ez ain ongi ere gaixtoak, nola justoak oraiko ere. Zer? Gaixtoen gozoa da kontino batere nekepenaik ta naigaberik gabe? Eta justoen penak dire konsolurik gabe? Ah zer gezurra! Egia dena da justoen negarrak gozoago direla ezi gaixtoen gozoak. Aizagun birtutearen pribilejio zenbait (Fray Luis Granoda). 1. Bat da, ezi bizi delarik

Jangoikoa, ta delarik nausi ona ta bere zerbitzukoen amazalea, emanen baitiote bereei lurreko gauzetaik ere konbeni zaiotena, ta pazienza, ta arimo, ta konsolu ta alegria trabajuetan. Gaixtoei, orde, zer emain diote deabruak ones? 2. Berze bat da, Jangoikoak berees duen probidentzia espeziala ez usteko galzera, baizik onzeko ia ta ia, ta aisatzeko lana. Gaixtoak geroago ta ia gaixtatus ta galdus. 3. Berze bat da Espiritu Sanduaren grazia, argi ta su amorosoa ematen diotena justoei ezaunzeko, obratzeko ta padezizeko bear den guzia alegreki. Non dute alakorik gaixtoek? Berze bat da konzienziaren sosegu ta alegria; gaixtoek kontra. 5. Berze bat da justoen esperanzaren sana, naiz beldur zerbait izanik beren aldetik; baña garaitzen du konfianzak Jangoikoaren miserikordian. Gaixtoen esperanza esta sano; ta ezpadire emendatzen, azkeneko itzulzen da desesperazio tristean. 6. Berze bat da justoek duten libertade egiaskoa, libre pasioneen lokuretaik ta alkaizunetik, atrabaitezakete aurpegia nonnai. Gaixtoak preso bizi dire pasioneen sujezioan, ta naiz elkarri algo eman daitzen, ala nola ikusten duzien animaleak arraskatzen direla elkar; baña azkeneko bizioa ezta honratua. 7. Berze bat da, justoa naiz desprezia dezan munduak aldiska, bearrorduetan guziek naute, ta humillatzen dena izanen da goratua. 8. Berze bat da, justoen orazioak aitzen baititu Jangoikoak bere ta berzeendako ere; eta ezpaditu libratzen munduko gaitz-idurietaik, ematen baitiote grazia sufritzeko ongi, ta ala esku bates azotazen baitu; da amores, ta bere neurrian, ta bitarteo berze eskuareki dauzki besarka. 9. Berze bat da justoen iltze preziosoa Jangoikoaren besotan, justorum anima in manu Dei etc. Guzia duzu kontra gaixtoetan. Ia ez nion ongi, justoen penak ta negarrak gozoago direla ezi gaixtoen gozoak.

San Franzisko Xabier India gaietan zebila nekaturik pobre beartsu, baña deusen faltarik etzue, zuelarik fabore Jangoikoa. Iltze etxola soil batean, baña beterik konsolus, asistitzen ziola Jesu Kristok, zeñi zerbitzatu zion bizian. Henriko VIII. Inglaterako errege, bizitu ze beterik furias bere pasioneen kasos, ta ilze triste desdixatu, naiz bere palazioan. Nork ez luke naiago sandu garren suertea, ezi errege garrena? Baña desengañatzeko, Kristo berak kontatzen digu bere ebanjelioan (Luc.16) zela gizon bat aberatsa bestitzen zena purpuras ta olandas, ta erregalatzen egunoro ederki. Eta arren atarietan egoten zela pobre bat deitua Lazaro beterik llagas, nai lukena berzearen maieko sobratuetaik, ta niork etziola ematen. Tzakurrek bai, etorri ta lamikatzenzizkiotela llagak. Agitu ze iltzea pobrea, ta eraman zute aingiruek Abrahamen paraisora. Iltze aberatsa ere, ta orzi zute infernuan. Zegolaik tormentuetan, ikusi zue Abraham urruti, ta arren konpañian Lazaro. Ta asi ze klamatzen: Aita Abraham, miserikordia nitas, bial bez otoi, Lazaro, freska dezadan miau ur guti bateki, zeren bainago erretzen sugar gontan. Errespondatu zio Abrahamek: Seme, oroi zaite zeure bizian erman zinduzala onak, ta Lazarok gaitzak. Bada, orai au dago errekreutzen, ta zu erretzen. Eta ezta biderik bialzeko orrara. Orduan ark: bial bez sikiera ene etxekoengana, erran dezoten ene borz anaiei, eztatozin aiek ere tormentusko leku gontara. Errespondatu zio: Baituste Moises ta profetak, adi bezkite ebek. Ez, Aita Abraham, erran zue ark, baizik iletai norbait joaten bazaiote, ineunte penitentzia. Abrahamek orduan: Ezpaitute aitu nai Moises ta profetak, ezeta il bat joanik ere, eztute sinestatuko. Ala gelditu ze bakotxa bere lekuan. Entenda zagun beingoas betikos, nausi onari zerbitzazen diola zerbitzatzan dionak Jangoikoai, ta ofenditzen duenak bera ofenditzen duela Jaun andia. Entenda, alaber, trabajuaren denbora eztela baizik gutitto bat eta gutitto gontan ere eztigula faltatuko Jaun dibinoak, emanen arimaren ondasunak beñik bein, ta gorputzarenak konbeni bada, ezperen pazienza, arimo ta konsolazio; ta gutitto gau pasaturik, gloria montio bat bere aingiruen ta sanduen konpañian. Amen.

Sermo in Dominica. 4a
post Pascha.
De diversitate spirituum
veritatis et erroris

Cum autem venerit spiritus ille veritatis,
docebit vos omnem veritatem. Joan.16.

Konsolatzeko bereak Jesu Kristok bere despeidan zerurako, mintzatzen diote amorosoki: Banoaie bialdu nauena gana, ta niork zuetaik eztida galdegiten nora doaie? Baña zeren errandizieten au, tristuras bete da zuen biotza. Baña nik erraten diziet egia; konbenizaizie nere joatea, ezi ezpanaiz joaten, etzaizie emanen Espiritu Sandua konsolazalea, baña joaten banaiz, bialiko diziet. Cum autem venerit ille spiritus veritatis etc. Etorzen delaik egietafedearen Spiritu gura, erakutsiko dizie egietafede guzia. Ebanjelioaren mamia da au (zeintaik da ageri, egia eztagola solamente entendamentuan, baita ere borondatean; ez solamente mian, baita ere bizimoduan; ez solamente erratean, baitaere obratzean. Eta, oroat, kontrako aldera gezurra, engañua ta errorea. Egia espekulatiboa da erratea dena den bekala; egia praktikoa da obratzea ongi, ta arrazioaren konforme, ta Kristoren konforme, erran baizue: Ni naiz bidea, egia ta bizitza. Kontra, gezur espekulatiboa da erratea denaren kontra, ta gezur praktikoa da obratzea makur bear denaren kontra, zeren ala personak engañatzen ta galzen baitu bere burua. Orgatik zio Dabidek: O gizonen humeak, zergatik amatzen duzie banidadea, ta billatzen duzie gezurra? (Ps.4) Au da bekaturik engañatzen ta galzenaizena? (Engañu gau konfesatukoutela gaixtoek dio Espiritu Sanduak (Sap.5), ikustentutelaik onak ditzoso, ta berak desditzatu, aldaturik suerteak uste etzuten gisan; ebek, errain omen dute orduan, ebek dire aiek zeñetas irri iten ginduen noizbait. Guk zenzugabeek uste gindue aien bizia sinpleza ta honra gabe fina; eta orra nola orai diren kontatuak Jangoikoaren humeen artean, ta sanduen artean eben suertia. Ergo erravimus â viâ veritatis. Beras, utsin gindue egietafedearen bidea, ta justiziaren argiak etzigu argitu guri; ta ezaumentuaren iruzkia etze atra guretako. Nekatu gara gaixtakeriaren bidean ta perdiziokoan, ta Jangoikoaren bidea eztugu ikasi. Zer probetxu eman digute suberbiak, ondasunek eta gustoek? Guziak pasatu dire ala nola itzala. Desengañaturik, ala diotela infernuan bekatariek dio Espiritu Sanduak) Beras, gaizki egitea, ain nola pensatzea ta erratea kontra, da gezur ta engañu. Oroat, ongi egitea, ain nola pensatzea ta erratea dena den bekala, da egia (ta elkarri ematen dire eskuak bi egia gebek, ezi gaizki pensatze ta errateari darraio gaizki egitea, nola ongi egitea ongi pensatzeari ta erakusteari). Orai, bada, nola gezur guziaren aita deabruaren espiritua baita, ala egia guzia erakutsiko diotela egiaren Espirituak, Jangoikoaren Espirituak, dio egun Jesu Kristok. Bada, kontu erran diotela: Nik erakutsi dizieten guzia itzes ta obras erakutsiko dizie Jangoikoaren Espirituak sarturik zuen biotzetan, argitus zuen entendamentuak, inklinatus zuen borondateak onera; ala nola deabruaren spirituak erakusten dioten gaixtoai gaizki guzia inspiratus gaizki, ilundus entendamentuak, makurtus borondateak gaizkira. Ezkaitzen, bada, engaña ta galdu, goazen egun agertus Jangoikoaren Espirituak erakustentuen egia zenbait, ta gezur zenbait deabruaren spirituak erakustentuenak. Lenik billa zagun argi, salutatus Birjina Maria. Abe Maria.

Fedea da gizonaren salbazioaren prinzipio, zain ta zimendu, zein gabe ezta

salbaziorik, ta ez esperanzarik ere; zeñeki berriz obratus gañarako manatu duena Jangoikoak, ellegatzen da zerura gizona. Jangoikoaren Espiritua bada, baita egietafedearen espiritua, ta erakutsituena Kredoan, ebanjelioan ta Eskritura Sagratuan dauden egiak, ta proponitzentigunak Elizak, zein baita egiaren kolumna ta firmamentua. Espiritu dibino gura bera da inspiratzen duena biotzean sinestea gogotik, aisa eta firme, ta ziertoago, ezi gauza ikusten direnak begis, solamente zeren baitio Jangoikoak ta Elizak, naiz ezin ikusi, naiz ezin entenda asko misterio. Kontra, berriz, herejiak, enbusteriak, dudak ta tentazioak fedearen kontra inspiratzentuen da deabrua, gezurraren aita. Filii hominum usquequo etc. Gizonen humeak, oiuiten du Dabidek, noiz arteo biotzak pizu? Zergatik nauzie banidadea eta ibili gezurraren atzean?

Esperanza sana beldur onareki bateo, Jangoikoaren Espiritua da inspiratzen duena. Kontra, berriz, desesperazioa deabruaren espirituak paratzen du, baitare esperanza falsa, dela presumitus sopra bere buruas, dela sopra fiatus paratu gabe medioak. Noiz arteo egon engañaturik gezurres?

Karidadea nork dezake itxeki, ezpada Jangoikoaren Espirituak? Kontra, berriz, deabruaren espirituak inspiratzen du Jangoikoaren desamore, atzendura ta desestimazio ainberze nola baita munduan emengo banidadeen kasos. Noiz arteo itsuturik amatzen banidadea ta segitzen gezurra?

Alaber, Jangoikoaganako errespeto, ta beldurtasuna, ta alkea ez egiteko gaizki denik, onerako diren pensamentu, oroipen ta deseo guziak (ea obena da bizitzea ongi, ongi egotea konzienzia Jangoikoaren begietan, ezta Jangoikoa bekalakorik, ta maiteba gaitu berak, deus ezta inport gañarako guzias, betiko ongi paratuko gaitu; bera kontra barin badago, poderoso da, niork ez dezoke erresisti, fuerteki kastigatzentu pena eternoeki etc. Ebek ta alako gogorazioak) datozi Jangoikoaren Espirituaganik. Kontra, berriz, ajolakabe, atrebenzia ta lazotasuna, atzenzea bekatuen erresultas, inzitazioak asetzera pasioneak, ta alako guziak dire deabruaren espirituaganik galtzera botatzeko. Filii hominum, usquequo? Gizonen humeak, noiz arteo letargo mortalegoi? Zergatik nauzie izan engañatuak?

Agiturik deskuidatzea bat ofensaren batean, berla Jangoikoaren Espirituak ematen dio disgusto, pena, erremordimentu, inkiertura, zistakoak biotzera, botatzeko len baño len bekatuaren benenoa. Konfesa zaite, erraten dio, ta emenda zaite. Gaizki zaude ala, Jangoikoa daukazu asarre, arima ilik desgrazian, bazaike il derepente ta kondenatu betikos. Deabruaren espirituak kontra iten dio atzenarastera, eztela inport, badela denbora, berze franko bizi direla sueltoago, ta alako milla enbuste. Bada, trata bez konfesatzeas, an dire etsaiaren mañak kentzeko burutik, edo luzarasteko, apegatus perezaren lekeda, paratus egunetik egunera enbarazuak, ta atxekiak, ta erreparoak, ta alkea, ta alako lakioak; ta ala egon egon, geroago ta gaixtoago. Zenbat damazkien atrapaturik sare gebetan. Usquequo? Noiz arteo? Noiz arteo?

Jangoikoaren Espiritua da humildade, karidade, pazienza, mansotasun, bake proximoeki, obediencia ta gusto in naia buratsoei ta iagokoei, lastima pobreei ta menekoei, guziak tratatzea beraxki, ez nioren kontra egotea, ezpada bere buruaren kontra, zeren bekatari ezaunzen ta konfesatzen den. Kontra, berriz, subergia ta aundinaia da deabruaren espirituaganik; onek itxekitzen du iraren sua biotzean, inspiratzentu desobediencia, futotsak, erneguak, maldizioak, desprezioak, mendekuak, murmurazioak etc. Aunditzen dio gogo, ponderatzentio proximoaren eginak ta erranak agitz gaixto, eltxoak oianak adiña, beti sinestarasten dio daukala arrazio, ta eztela sufritu bear kulpa gabe. O deabruaren engañua! Delarik onaren grazia sufritzea kulparik gabe, ezi kulpareki ladronak

ere sufritzen du. Noiz arteo engañu gortan?

Jangoikoaren Espiritua da garbi naia, ta arima garbien amazale, inspiratzen du deshonestidade guziaren oposizio, alke ta lotsa, deabruaren espirituak lazatzentu lotsa eta alkearen frenoak gogoratzentu imajinazio inpuroak, pintatzentu ez ain gaixto nola diran, injeniatzen du zebatzeko anitz exenplu gaixto, dibersio, kanta, musika, da, moda, ta gauza, zeñeki itsuturik daramazkien perdiziora millaka jendeak. Filii hominum etc. Gizonen humeak, noiz arteo loiean sarturik biotza? Zergatik amatzen banidadea, ta billatzen duzie gezurra?

Jangoikoaren Espirituak inzitutzen du egitera limosna, ta al guzia ongi proximoeri erosis, ala zeruko gloria lurreko ondasunen kostus. Deabruaren espirituak gogortzen du biotza, ta ortzizen du kodiziaren obian sorrazis lastimari, atzenarazis Jangoikoas, arimas, bizitza sekulakoas. Usquequo? Noiz arteo biotza gogor?

Penitentzia, barua, tenplanza, mortifikazioa erakusten du Jangoikoaren Espirituak, librazeko bekatuetaik, emateko satisfazio eginikakoes, imitazeko Jesu Kristo, gizon animalea itzulzeko espirituale. Kontra, deabruaren espirituak inzitazen du zebatzera gorputza hazienda beltzen gisara; andik datoz exzesuak jan, edan ta desgaraietan; andik berze asko desorden. Usquequo? Noiz arteo?

Jangoikoaren Espirituak, su dibinoak bekala, mogiarasten du biotza onerako, afizionatzen, animatzen ta bizkorzen du naiz dela trabajuen erlean, eztaien errenditu, ta orren kasos guzia zaiote aisago onai, ta trabajuak ere zaizkiote gozo amore dibinoaren almibar dulzearen kasos, orgatik prinzipalki deitzen baita Espiritu Sandua konsolazale. Kontra, berriz, deabruaren espirituak ematen duelaik su ta afizione gaizkietarako, dakar tristura, enfado, gogaitz onerako de manera ezi gaizkiak in dezkiene gaizki, ta onak ez ongi, eta ala batetik dañu atrarik, berzetik ez dezan atra protxurik. Nondik al bada egotea bi irur ordu jokuan ta dibersioan gogotik; eta ordutto bat elizan ezin egon, ezpada bortxas neketan? Deabruaren espirituaganik. Oroat diot egiteas gauza onak, ez Jangoikoaren amore-utses, baizik banidades, edo berze fin makurres: Arroitu anitz ta itxaur guti. Aitzen edo ikustenzaitutelaik, orduan kontent, ezperen nagi gaña gaixtoan. Guzia eldu da deabruaren espiriturik galzeko ones eta gaitzes. Filii hominum etc. Noiz arteo mundukoi? Zergatik nauzie banidadea ta gezurra?

Baña zertan ageri den Jangoikoaren ta deabruaren espirituen diferenzia, da munduan bizi garenen bizimoduaren diferenzian. Guziok gara naturaleza batekoak, guziok aragis ta espiritus konponduak, guziok tugu arimen potenziak ta pasioneak ere bai, guziok dugu azken fina ta intenzioa ellegatzea izatera ditxoso guzis ta betikos gozatus Jangoikoa. Pensa orai, goazelaik guziok muga batera; edo nai dugulaik joan, zein bide diferenteetaik goazen! Muga edo terminoa bat, bideak diferenta elkarren kontrakoak. Bat edo berzea doaie utzinik. Zein ote da bide zuzena? Klaro da dela Jangoikoaren fede ta legearena. Klaro ere da bide gau gure pasioneendako dela ertxikara, ala nola zabal daramana perdiziora, erran baizue Jesu Kristo berak. Orai, bada, pensa alde bat ainberze emasteki bizi direnak ertxirik konbentuetan beñere atra gabe. Ainberze gizon ere bai kartujo, ta berze erretiratuak. Pensa berze alde, ainberze gizon ta emasteki mundu zabal gontan: Aiek okasioetaik apart, ebek okasios inguraturik; aiek orazio, penitentzia ta lan espiritualetan, ebek dibersio, gusto, danza ta bekatuen zeboetan; aiek dire Jangoikoaren Espiritus inspiratuak, ebek deabruaren astuzias injeniatuak. Guziek, aiek eta ebek nai biziaren postre bera, ona erresulta. Nola dateke? Jauna, ezta posible guziok izatea kartujo, errelijioso ta errelijiosa. Egia da ori, baño posible da guziek goardatzea Jangoikoaren legea; eta bearko

salbazekos. Aiek, bada, iten badute ainberze seguratzegatik, daudelaik libre munduko okasioetaik, okasioen erdian daudenek zer kuidoia bearko dute? Eta zer izanen da segitzeuntenes bide zabala, bekatuen zeboak? Nola naute ebek joan berze gaiek doazin lekura, segitus bide ain elkarren kontrakoak? Guziok gaizke salba, errelijiosoak ta ez errelijiosoak, baña guk bear dugu aiek baño kuidoia ia, zeren baitugu okasio ta peligro ia. Filii hominum, usquequo etc. Gizonen humeak, noiz arteo akordurik gabe? Zergatik amaten duzie banidadea, ta segitzen gezurra? Martires zio Santa Teresak iduri zekiola merke erosten zutela gloria betirokoa. Bera erresolbizeko bizimodu ertxira, iten omen zue kontu etzela au ainberze nola infernua, edo purgatorioa. Zer izanen da gutas ain guti itendugunes? Inzagun au berere, goarzea bekatuetaik, ta suplitzea biotzesko amorearen finezas falta dena obraetan. Egiaren Espirituak digula ezaunzea egia den guzia, lograzeko grazia ta gloria. Amen.

Sermo in Dominica 5a
post Pascha.
De oratione et circumstantiis

Si quid petieritis Patrem in nomine meo,
dabit vobis. Joan.16.

Egun, nola errogazioen bezperan, paratzen du Elizak prebenzios bekala ebanjelio zori-oneko gura, ta esperanza ones betea, Jesus onak erran zuena bere despeidan mundutik: Zier to zier to erraten diziet, eskatzen badiozie ene Aitari zerbait ene izenean, emanen dizie. (Orai arteo eztuzie deus eskatu ene izenean. Eska zazie ta izain duzie, izan daien zuen gozoa betea edo kunplitu. Ala dio San Juanek). Si quid petieritis Patrem in nomine meo, dabit vobis. Lenago kontatu zue San Lukasek, erran zuela Jesus berak, (c. 11.) erakutsi zuelaik Aita gurearen orazioa: Nik erraten diziet zuei, eska zazie ta emanaizazie; billa zazie ta aurkitukouzie; dei zazie ta idikikozaizie. Petite et accipietis etc. Jesu Kristoren errana da au, da beraren itz erreala ezin daikena falta; lenago faltako dire zerua ta lurra. Da egietafedea sinestatu bear dena firmeki, ta ezin para daikena dudun kunplituko ote den; lenago duda nezake argia ote den ilun, edo iluna argi. Ia, beras, zeren bear gara? Zer falta dakiguke, geurok nor bagara? Ondasun guzien iturria non den badakigu, dela Jangoikoa leku guzietan dagona presente. Giltza eskuan paratu digu Jesu Kristok, baita orazioa, edo eskatzea beraren izenean. Nola deskuidatzen gara? Oh Jauna, eskatu ta logra baledi! Guk asko aldis eskatu, ta eztugu logratzen. Nola dateke ori? Jesusek dio eskatu ta emain digula, zuek dioze eskatu ta eztiziela eman; Jesusek baietz, zuek ezetz. Nik badakit Jesusek diola egia, ta uste dut zuek ere eztiozela gezurra. Beras, zerbaitetan dago diferentzia, bide dago eskatze-gisan. Gilza gonek bide du bere maña; ezi badakigu, atariko gilza, izanik ere bere propioa, inguratzen bada kontrako aldera, eztela idikitzen ataria. Eskuieko aldera bear, ta zuk ezkerrekora indar, debalde ai zara, eztuzu idikiko gisa ortan. Badio gure giltza gontas klaroki Santiagok: Petitis, et non accipitis, eo quod male petatis (C.4.) eskatu ta etzaizie ematen, zeren gaizki eskatzen duzien. Beras, maña ta habilitadea dago ongi eskatzean. Au ikasten ta egiten badugu, fiadore da Jesus, etzaigu ukatuko eska dezaguna. Goazen, bada, ikusis. Ortako bear dugu grazia. Graziaren Ama da Maria Santissima; estima zagun aingiruareki. Abe Maria.

Guziok orazio iterakoan gara Jangoikoaren pobreak eskean gabilzanak, Nausi andiaren etxeko atarietan dei ta dei gaudenak, dio San Agustinek. Gure bearrak dire anitz, ezin kontaala, baña gure limosna-egillea ere da guzis poderoso ta aberatsa, ta piadosoa, ona ta liberala ainberze, ezi ezta pobretzen, ta ez nekatzen emanen; beti dago eman naiak, manazen digu eskatzagula, ofrezitzen digu emain digula, ta kexazen da ez eskatzeas ongi. Bere Seme bakar Jesu Kristok ematen digu itz, eskatzen badiogu zerbait beraren izenean Aitari, emanen digula, si quid petieritis Patrem etc. Eta ia dena, bere Aita kontazen du gure Aita; por konsigiente bera kontazen da gure anaia, ta ala erakutsi digu erragula berareki bateo Aita gurea etc. Jangoiko Aita gau inmensoa bekala dago leku guzietan, orgatik leku guzietan in daike orazio; baña espezialki tenploan, zein dio dela bere etxea ta orazioaren etxea, domus mea domus orationis vocabitur. Orai, bada, gure lastimarik andiena ezta pobre izatea, baizik ez naia eskatu, ta ez xakitea eskatzen. Goazen, bada, ikusis. Nork pensatu bear zue pobreek etzekitela eskazen? Badire eztakitenak; batzuk pobre suberboak,

berze batzuk pazienza gabeak, berze batzuk inutil-utsak. Bentzait Jangoikoaren etxeko pobreetan alako franko da. Orra zergatik eztugun errezibitzen, dagolaik emanzalea eman naiak, ta itz emanik emanen duela eskatzen badiogu ongi, dabit vobis.

Ortako irur zirkunstanzia bear dire goartu: Lenbizikoa zer eskatu; bigarrena noren medios eskatu; irugarrena nola eskatu bear den. Lenik diozen gartara, eskatu ta eztiziela ematen beti, diot ofrezitu duela ematea ez edozein gauza dena dela, ezi asko aldis guk eztakigu zer den on, zer zaigun konbeni; badaki, ordea, gure Aita zeruetan dagonak. Asko aldis guk eskatua etzaigu konbeni, orgatik eztigu ematen, ta ez ematean iten digu mertxede, ezi gauza gaixtoa baño obe da gabe ona. Ta emate gisa bat da ori ere; baño asko aldis eztelaik on gauza eskatua, arren partes ematen digu berze gauza bat on dena; eta ala orazio ongi iten dena beñere ezta alfer. Ofrezitu duena bada emain duela, da zer eskatzen dugun beraren izenean: si quid petieritis in nomine meo. Zer izen du? Jesus. Zer nai du erran Jesus? Salbazalea. Beras, beraren izenean eskatzen dena da solamente salbatzeko on dena, dion bekala San Agustinek. Ia, beras, lurreko gauzak, ondasun, eraizio, denbora-aldi, fortuna deituak, osasuna ta alakoak, eska beti kondizioareki: Jauna, konbeni bada, ta plazer badu. Zeruko gauzak, grazia, arimaren salbazioa, bekatuen barkamentua, argitasuna ta azertua Jangoikoaren bidean, kontrizioa, karidadea, humildadea, pazienza ta berze birtuteak, ta onak, oriek eska sueltoki.

Bigarren zirkunstanzia orazioan noren medios, in nomine meo dio, Jesus ona dela medio. Ezta berze izenik zeruaren pean, dio San Pedrok (In.act.Ap.) zeintan gaizken salba. Ezta berze nioren baitan salbaziorik, ez gauza onik, ez eta esperanzarik ere. Jesus, Jesus est solus unica salus: Jesus da sollik, nondik datorkigun on guzia. Jesus da gizon dibino on bakar gura, zeñen atenzios, zeñen amores eta medios gizenei Jangoikoak iten duen ongi. Ezpada Jesusen atenzios, eztu egin len, ez egiten orai, ta ez eginen gero sekula bere bizian. Orra bada, edozein eskatzean, eraman beti alzinean Jesus; Jauna, Jesus onagatik, otoi, Jesusen amoreagatik, Jesusen merejimentuengatik. Erreparatu dukeze nola Elizak prozesio ta errogazioetan daraman beti alzinean gurutzea. Biz bataio, an da gurutzea. Biz komekadura, an doaie gurutzea. Matrimonio zelebratzeko solemneki, guruzea len. Ilarian oroat; konjurioetan, gauzen bedeizio ta funzione guzietan gurutzea da instrumentu prinzipala. Erreparatu ere dukeze, nola orazio geienak bukatzentuen Elizak itz gebeki per dominum nostrum Jesum Christum, gure Jaun Jesu Kristogatik. Guzia da mostrazeko, gurutzean guregatik iltzen Jesus ona dela gure alzindari ta medianero bakarra. Enpeña zazu, bada, eskatzean edozein gauza.

Irugarren zirkunstanzia da modua nola bear den eskatu, edo egin orazioa. Orazio gau kontu dela soñu gozo bat Jangoikoaren adimentuan. Anitz tekla organoan, anitz kuerda zitaran, anitz boza da edozein musikatan. Eta bat makurzen bada, aski da gozagaizteko soñu guzia. Ala orazioaren ongi egitea Jangoikoaren gustorako, dago konformatzean anitz laguntza bear direnak ia arimaren ia gorputzaren aldetik, egiteko digno, atento ta debotoki, nola nai luken Elizak, digne attente, ac devoté. Lenbizikoa, konzienzia garbia; bigarrena fede bizia; irugarrena reberenzia humila; gero konfianza amorosoa; gero atenzio dilijenta; baitare gana ta antsia debotoa; ebei juntatzen badire biotzeko negarrak, gorputzaren mortifikazioak ta miserikordiasko obrak, errefinazen da orazioaren musika. Konstanzia da korona. Oh! errain didate, anitz tekla dire oriek, ikasteko guk. Baña gogotik naidunarendako ezta neke andia. Ezi ala nola musikara duenak afizione, lenbizian kuido pixka bateki baitoie ikasis, baño gero kostunbreareki aisa segitzen baitu. Ala da emen. Goazen banaka.

Lenbizikoa erran dut bear dela eskatzeko ongi Jangoikoai konzienzia garbia, zeren ezi klaro da, erdexteko erregeganik graziaren bat, obena dela grazian erorzea erregeri eskatzen duena. Oroat, Jangoikoareki, ezperen nola nauzu ai zaizan, barin bazaude beraren desgrazian? Zure kontra barin badago? Ezpadizu beiratu nai? Orgatik orazio egitekos bekatu mortalean dagonak, obena litzake konfesatzea. Baña ori ezpada, bentzait egin kontriziosko akto bat intenzioreki konfesazeko ta emendatzeko; ta len eska dezana biz bere-bekatuen barkamentua; ori gabe nola nai du logratu berze eskatzentuenak? Ala nola Erregeren semea il balu batek, joatekos eskazera erregeri zerbait grazia, eztoaiela eskuak odolestaturik; garbi bezki lenik, ta eskatu lenik barkazio maldade gartas. Bada, dio San Pablok, bekatu mortale egitea dela ala nola berriro kruzifikatzea Jangoikoaren Semea, rursus crucifigentes filium Dei. Garbitu, bada, konzienzia ongi, eskatzekos ongi; ori da lena. Dabit vobis, bonis.

Bigarrena da fede bizia, au da, sinestatzea bizirotu presente dagola errealki Jangoikoaren Majestadea gure aitzuten ta ikusten, nonnai gauden. Fede edo sineste gau da agitz preziso, ta balio du agitz, ongi egiteko orazio, zeren ezi nola baikara lurrekoak ta aragiskoak mogitzen garenak espezialki ikustetik, eta nola Jangoikoa delarik espiritu purisimo, ezpaitaie ikusi begis, falta gau suplitu bear da fedearreki sinestaturu ain nola ikus bagindez begis presente dagola.

Emendik berla dator irugarrena, baita reberenzia humila, ezi sinestaturuaskeros bizirotu presente dagola Jangoiko andiaren Majestadea gure aditzen ta ikusten, pensaturu bateo nor den bera, ta nor garen gu; bera guzis andi immenso, gu lurreko ar ta txinurri miserableak; bera guzien Jaun bere tronoan inguraturik argitasunes, gu beraren presenzian bekatari pobre ta presidario miserias beteak. Preziso da egotea humil, erreberente, alkegorriturik diogula: Ez gara digno goratzeko ere begiak zerura, baña aurki dezagun grazia orren begietan, minzatuko gara geuren bearres, garelaik autsa ta errautsa. Jangoikoaren izenean limosna, otoi, Jauna.

Segitu bear da humiltasunai konfianza amorosoa, ia zeren Jesus baitugu lagun, enpeñu ta fiadore, ia zeren baita bera gure amazale, ongiegille ta Aita bakarra. Orgatik dio: eskatzen badioze Aitari, si quid petieritis Patrem, emanen dizie. Beti bear gara egon deskonfiaturik geuren buruas, baña fiaturik Jesusen merejimentuan, ta konfiaturik Aita obenaren ontasunean. Segitzen da atenzioa, egones alert beira nor nori ta nola mintzatzen garen, zeren ezi emen gorputza ta gogoa barin badago barraio, nola bear du aditu alako orazioa, eztuelaik aditzen iten duenak berak? Erreza ta erreza, ta ezpauzu erreparatzen diozuna, da ori kaskilla mamirik gabe, txintxaren soñua sustanziaik gabe. Orgatik Aita gurearen orazioa delarik orazio guzietan den obena berez, ezta beti obena guretako, zeren ezten egiten bear zen atenzioareki. Obe da edozein suspiro, edozein itz atradaiena biotzetik sinki. Eta auda orazioan prinzipalenetarik bat gana ta antsia, edo debozioa, in daien iten dena gogotik; ezperen il ila iten bada gana gaixtoan, fadorik gabe, erdi lo, ta ala, alako orazioak dakar protxu baño kalte ia deskorteski galdus errespeto bear zena Jangoikoaren Majestadeai. Ala erreazaten zegon bati erdi lo, deabruak apareziturik utzi zio usai bat infernukoa bekala, erraten ziola: Alako orazioari alako inzensua. Pena andietan dagonak zein gogotik eskazen dion libratzea dezake nai libra? Ala beartiogu eskatu Jangoikoai dela arimaren, dela gorputzaren alde. Ori da orazio biotzeskoa, nolakoa nai duen Jesu Kristok.

Orazio-gisa gonek dezazke eraman, ta konbeni da eramatea irur aialdeko. Zein dire? Kontriziosko negarrak, penitenziasko mortifikazioak ta limosna edo obra miseriardiaskoak. Irur gebeki orazioa barin badoaie akonpañaturik, ezta itzuliko utsik.

Lena negarrak ofendituas Jangoikoa. Guk nai egin dezagun Jangoikoak eskatzen dioguna, eta guk ez egin berak manatua, nola nai dugu logratu, ezpada mostratus penaturik gaudela? Baña ikusirik gure pena, palakatzen da bere Majestadea. Ezpadu aitzen gure otoia, ikus bezki gure negarrak, ta inen du grazia, ezi otoiak beraxten du, baña negarrak obligazen du, dio San Agustinek. Bigarrena da mortifikazioa, orazioaren aizpa; onek ere ematen dio indar, eta dio Jesu Kristok, eztirela logratzen zenbait gauza, ezpada juntatu orazioa ta barua: nisi in oratione et jeyunio. Irugarren aialdeko obena dire limosnak ta obra miseriakordiasakoak, espezialki iten badire gure kontrarioen fabore, orduan da Jangoikoaren gustoko erregalo andia; oneki bazoazke seguro logratukouzula nai duzuna beraganik.

Onen konforme goazen forman paratus modua nola in orazioa. Goazen, erran zozu zeure buruai, goazen Jangoikoaren atarietara limosna-eske, mintzatzera bere Majestadeai, nai badigu in karidade ta grazia. Ortako prebenziorik obena litzake bizitza ona, arima sanduki goardatzea libre bekatuetaik ta kuadrable Jangoikoaren begietan. Baña ori ezpada ere beti, bentzait garbitu konfesioren edo kontrizioaren lixuan. Tenploan iten delaik, ellegatzean, pensa: Au da Jangoikoaren etxea, emen dago presente bere Majestadea. Atarietaratzean despei munduko iteko, joan etorri ta pensamentu guziak; erran: Beude kanpotik ni atra arteo, baña ni sartuko naiz berorren palazioan adoratzera Jauna Introibo in domum tuam etc. Artu debozioreki ur bedekiatua ta santiguatu, apartarasteko espiritu gaixtoak. Lekura ellegaturik biztu fedea edo sinestea, emen dagola Jaun guzien Jauna; zeñatu, egin kontriziosko aktoa ta adonatu biotz barnean bere Majestadea erreberenzia guziareki, eta niork ikusten etzaituelaik, gorputza ere kurtu lurreraño paratus auspeska lurrean diouzula: Jauna, nik lurreko artto gonek adonatzan dut berorren Majestadea. Oh! in bezada mertxede aurki dezaten grazia orren begietan. Amen. Gero in bere orazioa; itz guti, baña anitz atenzio, debozio ta biotzesko ansia konfianzareki. Sekulan ez egin prisaka, ezi ala eztaike egin ongi. Ain guti paratu irabazia errezatzean anitz. Ez, baizik guti ta ongi. Gutu itz, debozio anitz. Debozioa da mamia, itzak kaskillak. Obe da Aitagure bat pausatus itz bakotxean, bordatus bekala, edo xegatus, edo ausnartus, edo errekozitus, nola adiaraziko dut? Ezi ez asko errezu karreraka. Aitagure batean daike pasa ordu-kuarto bat, dagolaik bat bakarrik, ala petizio bakotxean gozatus; ta uste dut balioko dizula ia ezi asko pasaala pasa. Erreberenzia, atenzio ta debozio onareki junta beti Jesus onaren merejimentuak; eska beti Jesusen amoreagatik. Eta konfia logratukouzula. Berantzen badu ere, ez berantetsi, baizik segi konstante, zeren ezi asko aldis luz atzendu Jangoikoak ematea, progateagatik gure fintasuna ta konstanzia. Oraño ere ezpada idikitzen ataria, ezpada eldu limosna eskatua, prosegü otoitzak, añadi kontriziosko negar amorosoak, zenbait baru edo mortifikazio, zenbait limosna ta obra miseriakordiasako. Ala segitus, dudarik gabe emanen du Jangoikoak gauza eskatua. Baña ezpadu ematen, da señaile eztela konbeni, ta emanen du berze bat obeago dena, zeren ezi eztaike falta bere itz erreala obligatu duena Jesu Kristok seguratus, si quid petieritis etc. Zerbait eskatzen badiogu Aitari beraren izenean, emanen digula. Bada Jesus, ain zierto nola baita Jesus salbazalea, kunpli bez bere itz ta izenak diona, baita gure salbatzea, ematendigulaik emen bere grazia, ta an bere gloria. Amen Jesus.

Sermo in Dominicae 3a
post Pentecostem.
De pretio animae,
et gratiae apud Deum

Erant appropinquantes ad Jesum
publicani et peccatores. Luc.15.

Berri onak ematentigu egungo ebanjelioan Jesus onak bekatariei, nola garen humilak ta salbatu naiak. Urbilzen zekizkio, dio, Jesus onari bekatariak, aditu naies beraren itza. Eta murmuratzen zute fariseoek ta eskribek ziotela: Onek errebitzentu bekatariak, ta aieki bazkaltzen du. Jaun dibinoak erran ziote parabola gau: Balitu zuetaik batek egun ardi, ta aietatik bat galdu, ezlidoake utzirik lauretan ogeita emeretziak, billatzera galdu gura? Eta aurkitu ondoan, arturik soñean, itzuli leike alegre diola bere adiskideei: Idazie enhorabuena, zeren aurkitu baitut nere ardi galdu zena. Erraten diziet, bada, nik zuei, ala izanen dela zeruan alegranzia konbertitzen den bekatari baten kasos, ia ezi lauretan ogei ta emeretzi justo penitentzia bearrik eztutenen kasos. Berze konparazio gau ere paratu zue: emasteki batek izanik amar erreal edo moneda, galdu balez bat, ez lezake itxeki argia, artu eskoba, xautu ta billatu etxe guzia barna, aurkitu arteo? Eta aurkitu ondoan kontent erranlezokete lagunei: Idazie enhorabuena, aurkitu baitut drakma galdu nuena. Diot, bada, ala izanen dela aingiruen ertean alegranzia, bekatari batek iten duelaik penitentzia. Gauza andia da, beras, ta agitz inporta dena, itzultzea Jangoikoaren graziara. Kontra, berriz, Jangoikoaren desgrazian erorzea desdixta andia da, ta perdizio tristea. Goazen ikusis; baña grazia bear dugu. Grazias betea saluta zagun Abe Maria.

(urbiltzen zire bekatariak Jesusengana aditu naies señale ona, salbatuko direla. Jangoikoaren denak aditzentu Jangoikoaren itzak, dio Jesu Kristok. Salbazioaren erremedioa bearritik artzen da aditus, salbazeko arima. Murmuratzen zute fariseoek ta eskribek: Nores? Jesus onas. Zertas? Zeren errebitzentuen bekatariak. Eta zertara jautsi ze zerutik, ezpada bekatarien billatzeagatik? Eta elduzaizkionak apartarazikotu bereganik? Eztago ortako. Baña zer kalte dute ortas fariseo ta eskribek? Zergatik murmuratzeunte? Eztire aiek ere bekatari? Ta naiz ez, eztakioten ongi onzea bekatari direnak? Ah! Bekatari dire, ta mota gaixtokoak, bekatari presumituak sandu, pobre ta suberbo. Nork kuratu alakoak? Eztirelaik kontatzen heri, eztute ajolarik erremedioas ta erremediazaleas. Baña bekatari gañarakoak konfesatzen direnak bekatari, urbiltzen badire Jesusengana, Mediku dibino gonengana, aditzen baute bera, ta admititzen ta aplikatzen beraren errezetak; konfiabeites izain direla salbo. Ez naiz etorri, zio Jesus onak, deitzera justoak, baizik bekatariak, ezi eztute mediku-bearrik sano daudenek, baizik heri daudenek. Eta berriz: Birjinaren Semea etorri da billatzera ta salbatzera galdu zena).

Goazen orai ikustera zer den galtze gau, ta zer den aurkitzea ta salbatzea. Galtzea arima bat da erorzea bekatu mortalean, au da, erorzea Jangoikoaren desgrazian ta odioan, zeñi darraion kondenazio edo perdizio betirokoa. Aurkitzea da barkatzea, ta itzulzea Jangoikoaren graziara, zeñi darraion salbazio betirokoa. Ardi galdua, beras, da arima bekatuan ta Jangoikoaren desgrazian dagona. Oh! Zenbat dilijenzia iten duen Artzai onak arren onetan, billatzean aurkitu arteo, paratu arteo bere soñean, ta itzuli arteo bere saldora! inporta da, beras, agitz. Dratxma galdu gura, beras, da grazia galdua. Oh! Zenbat dilijenzia

dion in zuela galdu zuenak, itxekis argia, artus eskoba, xautus etxe guzia aurkitu arteo! Eta aurkitu ondoan zer alegranzia, ez solamente berak eta jabeak, baitare zeruko aingiruek! inporta du, beras, agitz. Orai klaro aski da argi gark signifkatzen duela Jangoikoaren auxilioa, eskobak penitentzia, xautzeak etxea examinatzea konzienzia ta konfesatzea, aurkitzeko grazia Jangoikoaren begietan. Goazen konsideratus inportazioa.

2. Zer da grazia? Leanoki mintzatus, grazia da agradoa Jangoikoaren begietan; da kuadratzea, edo kuadrable izatea Jangoikoai arima. Ala nola erraten den erregeren onetsias, adiskideas edo beraren gustoko personas: erori zaio grazian erregeri, lazki nai du ongi, maite du. Eta fortuna deitzeunte ori, ta fortunoso persona gura. Zenbat ia fortuna, zenbat fortunosoago da arima lurrean bizi dena ta aurkitu duena grazia gloriako Erregeren begietan? Zer ia daike desea! Eta nornaiek dezake logra, bera nor bada. Invenisti graciām apud Deum. Erran zio San Gabriele Maria Santisimai: Eztu zer izan beldurrik, zeren aurkitu baitu grazia Jangoikoaren begietan. Zeren beldur izan daike duena bere adiskide ta fabore Jaun guzis poderosoak? Zein da gauza indezokena gaitzik dagonai Jangoikoaren grazian? Ez mundu guziak, ta ez infernu guziak ere. Ala desafiatus bekala zio San Pablok: Si Deus pro me, quis contra me? Jangoikoa bada ene fabore, nor ene kontra? Zer ai gara kontatzen miseriak eta kejak andik eta emendik? Barin bagaude Jangoikoaren grazian, bagaizke konsolatu. Zio Dabidek orgatik: Banindego eriozearen ilunbearen erdian, eztut gaitzaren beldurrik, zeren ori dagon eneki (Ps.22) Eriotzetik aratago ellegazen da Jangoikoaren amorea ta faborea berzengana, nora eztaiken ellega berze niorena. Zerbitzatu zio errege bati soldado batek ongi beti, ta ain erori zekio grazian, ezi milla faboreen gañetik joan zekio bere Majestadea personan bisitatzera, konsolatzera, ofrezitzera bere podore guzia arren onetan. Ark erran zio: Jauna, ain ongi nainauenaskeros in bezada irur mertextede eskatu nai tiotenetaik bat: Lenbizikoa, ez nadien il ontaik. Bigarrena, ilzea ezpadaike exkusa, libra nazan sentitzetik eriotzeko aflikzioak eta penak. Irugarrena, despeitzen deneko ene arima, ostatu on bat mana dezon biaje gartan. Oh! erran zue Erregek, nik emen daiken guzia inen dizut, baña ezta araraño ellegatzen ene podorea. Beras, Jauna, nik galdu dut ene bizi guziko lana zerbitzatus niori Jangoikoas landara. Jangoikoa, ordea, errege obeago bekala, poderosoago ere da, baitezake ta nai baitu artu bere besotan, goardatu ta egin salbo bere onetsia bizian, iltzean ta ilondorean. Guzietako da on beraren amorea. Ditzosoa nor erori zaion grazian. Eta ditxa gau dezake logra den pobreenak munduan.

arri dezake gogoratzeak solamente izarren gañetik erreinante manatzen duen Jaun andiak zeruan, airean, lurrean, itsasoan, infernuetan, ta gauza guzietan nai izatea beiratu ta amatu gizon pobre bat dabilana lurrean, ta agian despreziatua munduaganik! Eta nai du bere Majestadeak, nai badu gizonak. Eta nork eztu naiko ditxa gau? O Jauna, nork aurki lezan grazia berorren begietan? Eta aisago daike ori ezi kuadratzea mundukoei. Dabiltza asko ingur ingur kuadratu naies mundukoei. Eta naiz logratu, zenbat balio du? Agian ez dezakete faboratu askotan, nai izanik ere. Agian aldatzen dire, orai adiskide, gero etsai; egun nai zaitute ongi, biar edo etzi gaizki; agian iltzen zaizkizu obenean, ta agian gabe ere, guziok goaz azkeneko ta niork nior ezin libra berze munduan. (Berze alde, nekosoago da kuadratzea mundukoei, ta imposible da guziei kuadratzea, inala inik ere. Zierto konbeni da prokuratzea guziei gusto egitea ta kuadratzea guzien irabazi naies Jangoikoaindako, nola iten zuen San Pablok. Baña guziei kuadratzea etzue logratu sanduak ere, ez Jesus berak ere, ezi askorenganik izan zire aborrezituak, persegituak ta maltratatuak. Doblon zorzikooas diote kuadratzen zaiotela guziei, ta ezta ori ere guzis egia, ezi badire zenbait kartujo ta

erreligioso despreziatzen dutenak. Baña dena dela doblonas, benzait personas egia da dela imposible gusto ematea guziei, zeren diferenteak dire gustoak gizonetan: Batek du gusto gaixtoa, berzeak ona. Gaizki bazabiltza, etzara kuadratzen onei; ongi bazabiltza, etzara gaixtoen gustorakoa. Ta ezin exkusa disgusto ematetik. Naiz onetan ere, bati kuadratzen zaio jenero bat, berze bati berze bat; ta oroat, aldartes au, aldartes ura. Eta ala ezin azerta ibiltzen guzien gustora beti). Baña Jangoikoa gusto onekoa da beti, ta ezta aldatzen. Kuidatzen bauzu izateas ona, ta kuadratzenzakizkio, zarena zarela gañarakoan. Nior ere eztu usten, ez utzi ta ez utziko ere sekulan pobres, itsusis, eris, malhurres, nola duen borondate ona. Eta ia dena, bekatar gaixtoa izanagatik ere, etzaitu utziko, nola konberti zaizen sines. Mundukoei naiz in diozuten asko ongi, bein iten badiozute gaizki, nekes maitatuko zaitute. Eta asko, bada, milla mertxede naiz in diozuten; bat faltatzen badiozute kulparik gabe, ez izanes, edo ezin egines; adio lengo ongi eginak, kontu sekulan in eztizutela, ia etzaitute nai. Baña nor aurkituko duzu maite zaituenik, ofenditzen bauzu amar, ogei ta berrogei aldis? O Jangoiko ona, bere parerik eztuena, normai atrebitzen da ofenditzera orren Majestadea! Eztakienak letrarik ta habilitaderik gañarakoan, badaki orren kontra! Deustako eztena ere, bada berorren ofenditzeko! Eta alaere, eta alaere prest dago beti orren Majestadea admititzeko bere grazian miserablea, noiz nai duen itzuli. Eta asko denboratako bekatuak ordu bateko negarren medios barkatzen ta borraztentio, ain nola inezpalitu sekulan! O ontasun infinitoa! Beira, fiolak, ia ezten aisago logratzea Jangoikoaren grazia, jendeena baño.

Baña itzuli gaitzen grazia gonon onera ta baliora. Venerunt mihi omnia bona pariter cum illâ, zio sanduak: Ondasun guziak eldu zaizkida graziareki bateo. Grazia gau da margarita prezioso gura, tesoro altxatua balio duena infinito, zeñen billa etorri zen merkatari dibinoa, ta erosi zuen bere biziaren ta odolaren kostus, ez beretako, baizik guretako. Grazia gau da arimaren bizitza, osasuna ta edertasuna, eta gala Jangoikoak erregalatua. Da propiki Jangoiko andiaren dono, bere argiaren errañu ederra, on guzien prinzipio, ta ondasun guzien andiena. Da gloriako prenda, pasaporte erreala zerurako, ta ango atarien giltza, zeñeki doaiena baita an errezibitua. Da Jangoikoaren joia bakarra, bere amorearen señaleara, salbazioaren baimendea, gloriako azia, ta gloria lorean bekala. Grazia da zerurako direnen marka, ala nola infernurakoena baita bekatu mortala. Bekatuan dagonak darama eskribiturik kopetan: Au da satanasen. Grazian dagonak darama letrero gau: Au da Jangoikoaren. Alako arima Jangoikoak dauka bere maitea bekala bere biotzean. Aingiruek daramate besotan. Maria Santisimak kontazen du bere hume onetsia; sanduek eta sandek beren anai-arreba igan bear duena gozatzerara Errege andienaren palazioan aien konpañian. Oh! Noraño daiken ellega den pobreena munduan berak nai badu! Eta nork eztu naiko, ezpada guzis fatuo? naiago nuke izan munduko menosena, pobre estropeatu deshetxatua, baña Jangoikoaren grazian, ezi ez desgrazian errege ta enperadore aundiena. Ikuste nai da mundu gontan ere abantalla, nola erregeak ta enperadoreak doazan Jangoikoaren adiskideen billa, logratzeko aien medios ez dezaketena berek; nola kurtzen diren sanduen naiz pobre izanen presenzian, nola San Pedro arranzari, San Isidro nekazari, ta alako ofiziale pobre izanen presenzian; nola aien ezur ilak, errautsak ta errelikiak adoratzentuten belauriko auspeska. Nimis honorati sunt amici tui, Deus. Agitz honrarastentu bere adiskideak, Jangoikoa.

Bada, bizi gontan ere pasatzeko ongi, eztuzu gauza obeagorik nola bizitzea Jangoikoaren grazian. Kuadratzen zaizu edertasuna? Zer gauza da ain ederra, nola arima grazian? Nauzu podore ta ondasun? Poderoso ta aberats da Jangoikoa, ta eztiote bere

onetsiei faltatuko beauten guzia. Amore nauzu? Zer amore da alakorik munduan, nola amatzea elkar, Jangoikoak arima ta arimak Jangoikoa? Gusto nauzu? Gusto ona du Jangoikoak. Seguranza nai zinduke. Zerk segura dezake bat, ezpada ongi egoteak Jangoikoareki? Konsolazio ta alegranzia deseaten duzu? Zerk dezake ala konsola ta alegra, nola konzienzia onak? Trabaju guzien erdian konsolazale ona duzu Jangoikoa maite zaituena. Justoen negarrak berak alegreago dire, ezi gaixtoen alegranzia. Bai zierto, zeren ezi onari Jangoikoaren graziak barnetik konsolatzen dio biotza, trabajuak dagozkio ataritik kanpoan dei ta dei. Gaixtoari kontra agitzen zaio, alegranzia axal, tristura sines biotz barnean, baitago benenaturik bekatuaren pozioareki. Azkenean ez dezakelaik gizonak gozatu emen gloria, gañarakos du daiken guzia, baita grazia gloriarako prenda, bezpera ta esperanza sana. O Jauna, errain du norbaitek, ezin orra xakin dagon bat Jangoikoaren grazian! Ori baleki, zora leike bat kontentus. Ala da, eztaike xakin seguro, ezpada Jangoikoaren errebelazios dagola grazian. Eta nork du kulpa, baizik bekatuak, ortas ere? Eta orra berze motibo bat penatzeko bizi guzian bekatu eginas, orren kasos beñere ia ezpaitaie seguroa itzulidala grazian Jangoikoareki. O bekatu madarikatua, zenbat kalte ematen luken! Ezpanu admititu bekatu mortalerik, banekie negola grazian, bainekie au eman zekidala bataioan; gerostik ia ezin daieke segura bere bizian. Baña prokuratu duenak egitea penitentzia bear bekala, konfesatus ongi, dezake konfia, naiz ez seguroki guzis, admititu duela berriro Jangoikoak bere grazian. Sakramentuaren aldetik segura daieke, zeren ain seguro nola bataioak, ematentu penitenziako sakramentuak grazia. Baña nola bear baita disposizio penitentearen aldetik, orgatik diot eztaikela segura, zeren ezpaitaie segura izan zuela bear den disposizioa. Disposizioas balego seguro, seguro legoke grazias. Baña bere inala in duenak konfesazeko ongi, konfia bez, ezi Jangoiko ona dugu, eztaike falta bere itza, konfia bez artu duela bere grazian, ta bego alegre.

Kontra, berriz, dakienak in duela bekatu mortale, ta eztuela egin penitentzia bear bekala, badaki dagola Jangoikoaren desgrazian. Nola daieke alegra, ezaunzen badu bere desdixta? Ikusagun au orai, ala obeki graziaren ona ezaunzeko. Bekatuan dagonak, galdurik Jangoikoaren grazia, dago beraren desgrazian, Jangoikoa du kontra. Eta Jangoikoa barin bada zure kontra, nor zure fabore? despeitu du ordu gaixtoan bere Majestadeak, nora joain da gizon desdixtatua? Jangoikoa gabe gizona; zer gauza tristeago daieke pensa? Botaturik beraren etxetik, atariak ertxirik, gelditzen da kanpotik soil desanparaturik infernuko otsoendako. Beira dezan gora, bera, alde guzietara, eztu nork anparatu; niork eztio idiki nai ataria. Pobre bati erxten badiote atari bat, idikizen diote berze bat. Baña niork ezpalio idiki nai, zer litzake artas? Eta zer izanen da bekatari pobreas, despeiturik Jangoikoaganik, ezpaita zerukoetaik nior trebe leku ematera? Dei sanduen atarietan: Ezta lekuri emen zuretake, diote. Dei aingiruen atarian: Ezta lekuri. Dei Ama Birjinaren atarian: Ezta lekuri. Niork eztu nai. Ala nola botatzen dutelaik erregeren palaziotik nirabe bat traidore aurkitua ta entregatzen berdugoaren eskuetan apartatzen baitute aringanik aurpegia indignaturik erregek ta erreginak, ta korte errealeko guziek; ala da desetxatua bekataria zeruaganik, niork eztiola nai beiratu ongi; ta gelditzen da Satanasen eskuetan. Galzeko betikos erremediorik gabe, ezta falta baizik ez dezan mantenatu nai bizia; usten badu il daien estado gortan, galdua da sekulakos. Ala agitzen da orai errealki bekatu mortale duenareki, ezpadu ere ikusten berak. Ala agituko da gero ikusten duela bere burua infernuko ministroen ta berdugoaren eskuetan. Orra Jangoikoa ofenditurik, ta ofendizalea galdurik, desplazer dutela sanduek ta Amabirjinak, tristura aingiruek.

Baña ilbañolen daike izan erremedio. Zer erremedio? Jesus salbazalea, Artzai ona datorren bere ardi galduaren billa, eta au ezaundurik bere perdizioa konberti daien Jangoikoagana, eta penaturik egintion ofenses biotz-barnean, konfesa dezkien bere agos, in dezon grazia Jaun dibinoak barkatzeas ta admititzeas berriro bere amorean. Ori nai du Jesus salbazaleak, orgatik jautsi ze zerutik ta eman du bere odola ta bizia. Orreki itzulzen da alegre, ta zelebratzen da festa zeruan aingiruen artean, dion bekala ebanjelioak). Ainberze inporta da arima baten salbazioa! Nola baita diferenzia, egotetik erretzen ta errabiatzen betiro infernuan deabruaren presidario, egotera erreinatzen triunfante glorian Jangoikoaren ta sanduen konpañian. Jangoikoaren aldetik etzaigu deus falta. Falta da geuren aldetik in dezagun inala ez galzeko grazia, galdu ezpadugu, ta galdu badugu, erreko brazeko galdua, ellegatzeko gozatzera alegranzia eternoak zeruko glorian.

Sermo in Dominica 4a Pentecostem.
De arte, qua labores nostri fructificent

Per totam noctem laborantes nihil cepimus, in verbo etc. Luc.5.

Dugu egungo ebanjelioan Jesu Kristo predikatzen San Pedroren barkatik. Akabatu ondoan predikua, manatzen dio sanduari botatzeko sareak. Errespondatzen dio: Jauna, gau guzian ibili gara trabajatzan, ta eztugu deus arrapatu. Baña berorren manura botako dut sarea. Bota zue ta arrapatu zue arraiketa bat agitz andia, de manera ezi San Pedro arriturik milagroas urtiki zekio oñetan erraten ziola: Jauna, aparta eneganik bainaiz gizon bekataria. Etzaitela lotsa, erran zio Jaun soberanoak, ezi emendik alzina zure arranzua izanen da irabaztea arimak. Orra ebanjelioa. Orai signifkazioa. Norknaiek daki San Pedroren barkak signifkatzen duela Kristoren Eliza edo kristiogendea; (ta San Pedro dela onen buru ta Kristoren bikario lurrean, zeñi guziok gauden obligaturik obeditzera. San Pedroren ondorekoak dire Aita Sandu Erromakoak, segitzen dutenak giltzen potestadean Kristoren ordes, ezpaitaika falta, mundua mundu den bitarteo, naiz konjura daien infernu guzia munduko gaixto guzieki ondatu ta desegin naies. Zu zara Kristo Jangoiko biziaren Semea, erran zio San Pedrok Kristori; eta Kristok San Pedrori: Zu zara Pedro, nai baitu erran arri firmea; ta arri gonon gañean fundatuko dut nere Eliza; ta infernuko atariak eztute indarrrik onen garaitzeko diña. Eta zuri emanentizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lotzen duzun guzia lurrean, lotua izanen da zeruan; ta zuk lazatzen edo libratzen duzuna emen, libre izanen da an. Itz andi gebeki adiarasten da potestade eman ziona. Goazen orai. Eztaike, beras, zeruan sartu eztena sartu San Pedroren barkan. Eta nor sarzen da, noiz eta nola? kristiatzen dena bataiatzen delarik). Gu, beras, gaude ia zori oneko barka salbaziosko gontan. Jangoikoari eskerrak. Trata zagun ia botatzeas sareak, obra onen arranzu ona lograzeko. Ikusagun zertan dagon ez deus arrapatzea len, ta ainberze arrapatzea gero, ikasteko nola in bear dugun. Estima zagun lenik gure Ama Santisima. Abe Maria.

Gau guzian trabajaturik deus eztugu arrapatu, zio San Pedrok bere arrantzu materialas. Arranzu espiritualas obeki dezakete erran bekatariek ori beroi. Gauak signifkatzen du bizimodu gaixtoa, ezi gaizkiegilleak dire argiaren etsai, dio Jesu Kristok, eztaitzengatik agertu beren gaizki eginak (Joan.3). Alakoek, dio Espiritu Sanduak (Sap.5) errain dutela berze munduan (justoes, ikustentutelaik beterik glorias, ebek dire zeñetas irri iten ginduen lenago, ustes beren bizimodua zen sinplekeria ta fina honraik gabe. Eta orra nola diren kontatuak Jangoikoaren humeen eta sanduen ertean). Beras, utsin dugu egi eta fedearen bidea, ta etze argitu guretako onaren argia. Nekatu gara gaixtakeriaren ta perdizioaren bidean, ta Jangoikoaren bidea eztugu ezaundu. Zer protxu eman digute suberbiak ta ondasun lurrekoen banidadeak? Guzia pasatu da ala nola kea ta itzala. Baiki emengo emengo bizitu zire; emengoa akabatu, berak joan emendik, deus ez biali alzinetik, ta an deus gabe aurkitu dire. Banoak dabilta munduko laudario ta honraren eizian nekaturik gau guzian, au da ilunbetan, ezpaitute ikusten banidadearen banidadea. Emagun honra dezkiela, estima, lauda ta gora dezkiela munduak airean gora. Eta gero? Jangoikoaren argira guzia deus ez. Eta botatzen baitu infernura, nola Luzifer suberboen alzindaria, deus baño gaizkiago, naiz emen lauda dezkiten il ondoan ere. Erran zena alako bates: Ai zutas, laudatzen baizaituste etzauden lekuan, ta zauden lekuan erretzen.

Kodiziosoak dabilta ingur ingur emengo ondasunen atzean, ala nola armiarmak telarañen fabrian. A minori usque ad majorem omnes avaritiae student, dio Espiritu Sanduak, txipi andi guziek kodizian estudiantzeunte. Oh zenbat estudiante mamonaren estudio gontan! Zenbat katedratiko irabazteko alas edo olas, tratu ta kontratu, ta jenero guzietan! Zenbat diskurso, idea, lan, kuido, afanazio! Eta gero? Dormierunt somnum suum etc. Pasatu beren itsutasunaren gaua, egin bere loa, ta idatzarri eskuak utsik berze munduan. Emen gelditu arka ta bolsa, etxe ta ondasunak berzeendako, ta berak an penetan. Luxuriosoak dabilta gorputz korronpitu, uts, likitsaren pasiones, fedearen ta ezaumentuaren argia ilundurik, artan okupaturik pensamentuak, artako edatzen sareak, galak, modak, kantak, konbersazioak, danzak ta berze milla injenio. Eta gero? Quem fructum habuistis etc. Zer fruitu atrazen da? Gorputza arrek jan ta arima deabruak eraman. Dabilta gulosoak triparen esklabo eginik, triparen petxero, nondik jan edo edan; eta asko geroago ta gaixtoago, espezialki ardoan ain lisiatuak, ezi da lastima bat. Zer atratzeunte arrantzua gontaik? Kredita galdu, galdu ondasunak, gobernu, ta burua askotan, ta karraiatu pobreza, miseriak, tripakominak, eritasunak ta eriotzea. Eta gero? Dabilta iraren ta inbidiaaren esklaboak beti itsuturik pasionearen suareki, humore gaixtoan, puntus beterik, gerran kontino tiro tiratzen, obras ezpada, mias, mias ezpada, biotzas. Zer atratzeunte? Ala nola granada errealak, su eman ta ezpaute heritzen beti norbait, berak beti gelditzen dire zatikaturik. Ala ebek. Eta gero? Dabilta perezoso, nagi, epel direnak onerako, beti aisa. aia munduko gusto, dibersio; ta jostaketaen atzean, jan edan, lo egin, diberti, denbora-pasa ta debalde bizi. Eta gero? Ez emen eraiki, ta an ezin bildu gauza onik. Alako guziek errain dute an: per totam noctem laborantes nihil cepimus. Gau guzian neketan ibilirik deus eztugu arrapatu.

Badire berze batzuk berze gisas trabajatzan direnak, ta alaere deus ez arrapatzen; naut erran, iteuntanak ongi, orazio, debozio, baru, limosna ta alako obra on; eta alaere deus ez arrapatzen: Nihil cepimus. Zergatik? Ez zergatik diren gaixto itentutenak, baizik zergatik itentuten estado gaixtoan, bekatu mortalaren estadoan; zergatik estado gortan dagolarik arima Jangoikoaren desgrazian, itentuen on guziak eztire balioso irabazteko gloria, falta baizaio grazia merejimentuen prinzipio, zain ta zimendu dena. Beras, estado gortan oroat da ez egitea oraziorik, barurik ta gauza onik? Ez por zierto, ezta oroat. Ezi ongi egitea, beti da on. Ez izanik ere balioso estado gortan merejitzeko grazia edo gloria, dire on alaere mogitzeko Jangoikoa ematera auxilio, entendamentura argi, biotzera kondizio, atratzeko estado gartaik. Eztiot dagonak mortalean ezdezala in orazio ta obra onik. Egin bez alguzia ongi; orreki agian Jangoikoak urrikariturik emanen dio grazia konfesatzeko ta paratzeko grazian. Diotena da desgrazian dagon bitartean itentuen obra onek eztiotela ematen dretxorik zeruratzeko; direla obra ilak, fruita artxoak. Diotena da, len lenbiziko prezisoen dena dela paratzea grazian salbazekos. Diotena da, joaten bada mundu gontaik paratu gabe grazian, joanen dela infernura, naiz munduko orazio, baru ta obra on guzieki; ta errain du an: per totam noctem laborantes nihil cepimus. Gau guzian trabajaturik deus eztugu atra.

Zer medio da egiteko arranzu ona, arrapatzeko ta iragazteko anitz? San Pedrok egin zuena, in verbo autem tuo laxabo rete: Sareak botatzea egun argis gure Jaunaren manura, ta beraren izenean. Au da obratzea ongi lenik egun argis, au da, graziasko estadoan, konzienzia onareki bekatu mortalerik gabe ariman. Grazian barin bazaude, kuadrable zara Jangoikoai, ta kuadrable zaio iten duzun on guzia. Pagazale ona da, emanen dizu batendako egun; eztuzu galduko tratuan, bai irabaziko anitz. Ezpazaude

grazian ez trabajatzekos banoan, kuida konfesatzeas ongi len baño len, bentzait artzeas kontriziosko dolore andi bat ofendituas, itzulzeko graziara, ori lena. Bigarrenena, sareak bota Jangoikoaren manura, in verbo autem tuo, au da, kunpli Jangoikoaren mandamentuak, nork bere obligazioak, eben atzetik debozioak. Irugarrena, arrantzu ona egiteko, da sareak bota maña edo injenio on bateti. In verbo tuo. Zer maña edo injenio? Zebo edo ungendu prezioso bat sareetan. Zer ungendu edo zebo? Jangoikoaren amorea. Goazen explikatuz. Naut erran, iten dugun guzia in bear dugula Jangoikoaren amores, Jangoikoaren izenean. Jaten edo edaten badut, biz Jangoikoaren izenean. Errezazen, orazio egiten, barutzen, edozein gauza espirituale iten badut, biz Jangoikoaren amores. Trabajutzen banaiz, biz Jangoikoaren izenean. Dibertitzen banaiz, biz Jangoikoaren amores. Guzia en fin, dela itzes dela obras, bidoeie Jangoikoaren amores, Jangoikoaren izenean, dion bekala San Pablok. Ortako agitz da on goizoro, idatzarriaskeros, ofratzea Jangoikoai bakotxak bere persona, bere obra, itz, afekto ta pensamentu guziak. Gero edozein lanen astean gurutzearen señailea egin: Aitaren ta Semearen ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen, goratus bateo biotza Jangoikoagana. Gisaontan bizitus Jangoikoaren grazian, goardatus Jangoikoaren mandamentuak, ta guzia egines Jangoikoaren izenean, beteko dire sareak arraies, au da, gizonas Jangoikoaren bedeizios, ondasunes etc. (Jauna, errain didate agian emen, lurreko ondasunetaik bentzait arrantzu ohea atratzeunte gaixtoek konzienziaik gabe ai direnek, justoek baño. Goazen emen gutibana, ezi da pausu bat au irristabera, pausu bat zeintan kasi irristatu ze Dabid sandua bera. Mei autem pene moti sunt pedes etc. (Ps.72.) Zergatik gaixtoek emen duten fortuna, pasatzen duten ongi ta nolana abasto. Justoak, berriz, trabajutan etc. Diot bada ontara lenik, dela au ere Jangoikoaren juizio justo sekretoetaik bat, eztagokigula guri erdextea guzis mundu gontan. Ikusko dugu zuen arrazioa bere Majestadeak ortako, goazelaik bere presenziara beraren argian. Diot ere ia, lurreko ondasun goiek eztirela propioiki ondasun. Ondasun propioak dire Jangoikoaren grazia, donoak ta birtuteak, fedea, esperanza, karidadea, humildadea, kastidadea, pazienza etc., ta birtutesko obra onak, zeren ebek iten dute ona persona. Kontra, naiz izanik abasto osasun, indar, hazienda, diru, ta berze ondasun deituetaik, daike izan gaixtoa persona. Eztire, beras, ondasun propioiki, eta dire komun ala gaixtoen nola onen, ezi badire gaixtoak aberatsak, ta oroat pobreak; badire onak ere aberats, ta oroat pobre. Diot ere, Jangoikoaren eskutik ala ondasunak, nola pobreza ta trabajuak direla mertextede, ematentuelaik gure on naies; ta ematea komunkiro ia trabaju onagoei da ia amores errefinatzeko arima gorputzaren kostus, ta emateko ia gloria, ia pazienza bekala. Ala nola erregek fiatzentioten gerra ta iteko andiagokoak soldado obenei, baitaki portatuko direla ongi. Bada, on barin badire, ta konbeni, lurreko ondasunak justoei emanen diote dudarik gabe. Zerbitzatzen dionak Jangoikoai, nausi onari zerbitzatzen dio; da ondasun guzien Jaun ta Jabe. Eta norendako tu, ezpada bere zerbitzukoendako? Baldin, erran bekala, konbeni bazaiote. Orai azkenean erran gartara, ezi gaixtoek atratzeuntela arrantzu ohea lurreko ondasunetaik, nainuke pensatu zenbait motibo tuenak Jangoikoak emateko gaixtoei ondasun: Lenbizikoa eben zeboa reki tiratzeko beregana, ta konbidatzeko emendatzera ta izatera onak; ikusteuntelaik zein ona den aieki bere Majestadea, ala laboratzentuena mereji gabe. Bigarrenena usteko abrastra gaixtoak da indezatengatik limosna, ta oneki purgatu bekatuak, ta logratu miserikordia, ezi limosna da guzietako on; ala Jaun onak guziok naitu salba daitzen, aberatsak limosna egines, pobreak pazienzian eramanes. Irugarrena da emateko abrats gaixtoei egintusten on puxken pagua edo premioa mundu gontan, zeren ezi apenas da nior eztuenik egin edo egiten zerbait ongi pixka; eta

nola gure Jaunak deus eztuen usten pagatu gabe, eta baitaki aiek kondenatuko direla, orgatik ematen diote emen premio-gisa ondasun lurrekoak. Baña nork izanen diote inbidia alako ondasunes kondenatu bear direnei? Obe bizitu pobre lazerioso ta salbatu, ezi ez abrats fortunoso ta kondenatu.

Baña aixtean erran bekala, onei eztiote ukatuko Jangoikoak emengo ondasunetaik ere aski dena, konbenizaiotenes. Billa zazie lenik Jangoikoaren erreinua ta justizia, dio Kristok, eta oiek guziok emanenzaizkizie obeagokoen gañetik (Math.6), ezi Aita da ta badaki zer bear dugun. Niork ere ta beñere eztu galdu, ta ez galduko on izanes ta ongi zerbitzatus Jangoikoai. Berze kausa batzuk badire pobrezarenak, edo pobretzeko: 1a. Ez izatea aski habil erne, aplikatua nor bere ofizioan, baizik nagi, floxo, utzi utzia, or konpon. 2a. Ematea sobra tripari ta soñari petxa pagatu bear diogute bigebei biziaren penan, baña ezin berzeas bekala biz ori. Baña iten bada bat lisiatua ardora, laminuriara etc., edo bestitzera banoki, nai dugula izan señoia ta markes, ta errentarik ez, zer naute agi daien? 3a. Ez izatea pagazale ona ta zorrain beldur, da izateko beartsu ta ez izateko nork sokorritu bear orduan; ezi pagazale onak aurkituko du non edo an. 4a. Askotan gaizki irabazia izaten da galzeko ongi irabazia ere, ala nola sagar ustelak ustelzen baititu sanoak. Batzuk abrasten dire tratugaixtos, ebatsis, egia da; eztiotet inbidiarik; baña berze batzuk pobrezen dire bide gortas; diona Espiritu Sanduak (Prov.11), batzuek emateunte berena limosnas, ta abrasten dire; berze batzuek sisatzen dute berzerena, ta beti miserian. 5n motiboa pobretzeko, da kentzea Jangoikoai berea, au da, amarren ta primiziak, ustes irabazi, galdu. Baitare izatea gogor proximoeki ta arimeki.

Sermo in Dominica 5a
post Pentecostem.
De interna justitiá,
et injustitiá

Nisi abundaverit justitia vestra
plusquam scribarum etc. Math.5.

Egungo ebanjelioan erraten digu bere kristioeri Jesu Kristok: Zuen birtutea edo ontasuna ezpada ia eskriba ta fariseoena, etzarate sartuko zeruetako erreinuan. Paratzen du exenplu iran: aitu duzie diotela nior ez ilzeko, ta ilzen duenak mereji duela pena. Baña nik erraten diziet duenak ira biotzean bere anaiaren kontra mereji duela pena, ta gaizki mintzatzen zaionak ia. Orreki da klaro dela gaixtoago iltzea, baña ez dela bear ainberze kondenatzeko, aski dela mias heritzea, aski dela biotz solles ere. Añaditzen du: Baldin ofratzerakoan aldarean oroitzen bazara duela zure anaiak zerbait zure kontra, utzirik an ofrenda, zoaz ta bake zaite zeure anaiareki lenik, ta gero ofratu. (Ontaik gelditu da Elizan kostunbrea besarkazeko sazerdotea ta diakonak, ta ematea guziei pazea komunione-alzinean. Beitixago parazen du exenplu urbilen mandamentuan. Aitu duzie erraten ez egiteko luxuriasko bekaturik, baña nik erraten diziet ezi solamente beiratzea deseatzeko gaizki, dela bekatu egitea biotzean. Zer nai du atra doktrina gontaik? Eskriba ta fariseoak hipokritak bekala kontentatzen zirela ez egiteareki bekaturik agerrian, ta ala makur entendatu ta entenderazi nai zute Jangoikoaren legea, etzuela iagotara obligatzen, baizik ez egitera maldaderik agerrian. Baña artara dio Jesu Kristok: Kontent dena orreki sollik hipokrita gaien gisa, ta eztena goardatzen itz gaixtoetaik ere, ta ia dena konsentitzetik ere ixil ixila biotz barnean, eztela zerurako. Adiarastea doktrina gau da oraiko itekoa. Saluta zagun lenik Maria Santisima. Abe Maria.

Ezpada zuen ontasuna ia ezi eskriba ta fariseoena, etzarate salbatuko, dio Jesu Kristok, ta arrazioreki, zeren ezi obra bat barin badoaie falsuan zimendurik gabe edo utsgune duela paretean, urratu ta eroriko da. Pilarea sendo izan bearrean, uts mamirik gabe barin badago barnean, ezta gauza xasteko pizu andia. Alako obrak, alako pilareak dire hipokritak, gañeko aldea on bistara iduri dutenak, ta barnekoa uts edo ustel. Ajola bai bekatu agerries, ta ajolaik ez biotz barnekoes, da falsuan bizitzea ta engañuan. Biotza da prinzipala, edo borondatea, baita oroat. Biotza nai du len lenik Jangoikoak. Edozeñek ere eztu estimatzen emana, ezpada biotzes gogotik; zenbat gutiago Jangoikoak, deusen bearrik eztuenak? Obra onak, ezpadire egiten biotzes borondate onareki, ia eztire onak sines: (obra gaixtoak ezpalire egiten borondates edo bere naies, ia ez lirazke bekatu). Ia, beras, on eta gaixtoen mamia ta arima bekala da biotz edo borondate on eta gaixtoa. Ia, beras, zer engañua ta falsedadea ezta kunplitu naia Jangoikoareki, goartus ez egitetik gauza gaixto agerriak, admititzentuelaik biotz barnean? Zer hipokresia ezta egotea kontent ez nior iltzeareki, ez luxuriasko bekaturik iteareki agerrian, konsentitzen baditu biotz barnean irak, odioak, mendekuak, deseo, afekto ta gozande likitsak? Ori da kunplitzea munduareki, ez Jangoikoareki; ori da kaso egitea jendeas, ta ez Jangoikoas, zeren ezi jendeek ikusteunten ageri dena, eta Jangoikoak beiratzten duen biotza. Baña eztaien nior ekiboka.

Goazen deklaratus noiz iten den biotzesko bekatu ta noiz ez. Dire arimak ain diferente nola aurpegiak, batzuk ain lazo, ajolakabe, ezi deus eztaukate bekatutako, ezpada

mostratzen kanpora, naiz dauden erretzen afekto gaixtos biotzean. Berze batzuk ain beldurti ertxiak, ezi gogoratu orduko gaizkia, naiezpaute ere, daukate bekatutako. Bear da, bada, xakin borondatea dela itentuen bekatuak; borondaterik gabe edo nai eztuela, bortxa eztela bekatuak; eztela bekatu sentitzea, baizik konsentitzea. Orai ezaunzeko noiz konsentitzen den, bego ikasirik, daikela agitu konsentimentu gau irur modus: lenbizikoa, deseaten dela biotzes gaizkia gogoratua; bigarrena, deseatu gabe dagolaik gozatzen edo gusto artzen gaitzki gogoratuan; irugarrena, sentituaskeros berebaitan desordenazio edo efekto gaixtoa, dagolaik errepugnatu gabe permititzen. Klaratzen da konparazio goneki. Ikusirik batek bere hazienda dañura urbil, dañuan konsentitze-gisa bat da sarrarazi naia artan; berze bat ikusirik sarzen, alegratzea ortas; berze bat da ustea dagon dañuan atrarazi gabe. Ario gortara da pensamentu gaixtoetan. Emendik da ageri sekulan eztela egiten bekatuak, nai eztuela batek, baña egiteko aski dela nai izatea edozein gisas. Nola, bada, eskriba ta fariseo hipokrita daike kontu libre bekatutik, zeren eztuen egin obras edo itzes, baldin admititu badu biotzean? Zer da inport ezion eman gorputza edo mia deabruari, eman badio biotza? Aski da ori kondenatzeko; ezi biotza galdurik, guzia da galdua.

kexatu zekizkio bein hipokrita gaiek Jesu Kristori, bere diszipuloei bazkaltzen zutela eskuak garbitu gabe. Errespondatu zue eztela orgatik mantxatzen gizona, bai biotzetik datozen gaizkiengatik, zeintas aiek etzuten ajolarik. O hipokritak, ongi erran zue Isaiasek zuetas: Jende gonek honratzen nau ezpañes, baña beren biotza apart eneganik (Math.15). Ai zuetas, eskriba ta fariseo hipokritak, kidariitsuak, gauza ageries kaso anitz ta andiagoe iteneztuzienak. Ebek bear lirazke kunpli, ta aiek ez utzi. Eltxoak pasatzen ez, ta kamelloak iresten tuzienak. Ai zuetas, hipokritak, garbitzenduzienak plater ta basoaren gañeko aldea, ta zeurok barnean beterik rapiñas ta inmundizias. Zarate ala nola obia txurituak gañetik, ta barnean beteak ilezures ta likitskerias (Ib.23). Zier to enfadagarria da jende mota gau; naute kunplitu azales ta kaskilles, mamirik gabe. Badezazkete engaña gizonak; engañatzen dire beren buruak; baña Jangoikoa ezin dezakete engaña, iten baitu eskudriña biotzes ta entrañes, scrutans corda, et renes Deus. Gizon malzur dobleduna abominatuko du Jangoikoak, dio profeta errealek (Ps.5). Erran zadazu, hipokrita, dio San Juan Krisostomok (H.45 in Math. in cert.), on barin bada on izatea, zergatik eztuzu izan nai nauzuna iduritu? Eta gaixto barin bada gaixto izana, zergatik nauzu izan eztuzuna iduritu nai? (Iduritzea barin bada itsusi, ederrago da izatea?) Judas apostolu traidorea ellegatu ze Jesusengana adiskide-idurian, eman zio apa falsua, baña biotza zerama betea malizias; alako fina izan zue! Biz Judas eskarmentu hipokriten, egin daitzen onak sinet ta sendoki agerrian ta barnean.

Sermo in Dominica 6a
post Pentecostem.
De viatico Jesu
in via ad aeternitatem

Misereor super turbam, quia ecce jam triduo
sustinent me, nec habent quod manducent etc. Marc.8.

Egun kontatzen digu ebanjelioak milagroa, nola Jesu Kristok zazpi ogis ta arrai pixka batzues ase zituen laur milla gizon ta sobratu ziren zazpi esporta-ogi. Baña niri errobatzen didana biotza da, Jaun dibinoaren biotz noble urrikariosoa beartsuen fabore. Lastimaturik nago jende gontas, dio, ezi ia irur egun gontan dabilta ene atzean, ta bialzen baitut barurik, angabetuko dire bidean. Misereor. Bide gau da emengo bizitza, baita biaje bat eternidaderako; biziaren akabanza da azken pausua joateko emendik betikos. Ongi joatean dago betikos ongi izatea. Inporta da infinito. Neke da ta inposible ere logratzea ditxagoi gizonak bere indarres; baña Jesusen atzean dabilanak irur egunes, ikusko du beraren faborea atratzeko salbo. Eztio faltako semeareki amak ere beterik grazias. Au bear dugu orai ere. Eska zogun. Abe Maria.

espera bezate berorren baitan, Jauna, dakitenek berorren izena, ezpaititu desanparatzen dabiltzanak berorren atzean, dio Dabidek (Ps.9). Gure Jaunabaitan oroat da izena nola izana. Zer da izena? Jesus. Jesus zer nai du erran? Salbazalea; zergatik bere izates, bere jenios ta ofizios duen salbatzea. Kondenatzen ere bidetu zenbait. Eztaike duda, baña eztaike orgatik deitu kondenazalea; zeren naiezlukelaik ta ezin berzes kondenatzen duen, ezin faltatus justiziara. Baña miserikordia nailuke egin guzieki berek nai balukete; eta ala berze obra guzien gañetik dire bere miserikordiasko miragarriak. Miserationes eius super omnia opera eius. Ala nola olioa beti likore guzien gañera igaten baita, bota dezazun ur edo ardo, bota zazu gero olio, ikuskouzu nola gelditzen den gañean. Bota, oroat, lenik olio, gañetik ur edo ardo, ikuskouzu alaere gañeratzen olio. Ala miserikordia. Miserikordia da miserien ta miserableendako. Nor dire ebek? Ebaren hume desterratuok negarresko balle gontan biajes eternidadera. Eta zer miseria? Kulpen ta penen miseriak, ta ainberze kontrario bidean.

Bitarteo zori onekoak billatzeuntenak Jesus, beraren atzean dabiltzanak irur egunes. Zer egun dire ebek? Bizitzaren irur estadoak: astea, erdia ta akabanza; edo adin gastea, adin erdikoa ta azken adina. Irur gebetan dabila nai Jesusen atzean etzaio faltako bideain pasatzeko sustentu, milagros bearbada ere, espezialki postrean, ezi dio Jesus onak: Lastima dut jendeas dabilanas ene atzetik irur egunes, ta usten baitut barurik, ez dezakete iraun bidean. O Jesus ona, ezkaitu usten barurik, ibilzeko biaje andi gau ematen digu sustentu ona. Zer sustentu? Ezta ogi solles bizitzen gizona, baizik Jangoikoaren itzas ere bai; itz gau da Kristoren doktrina, ematen diguna notizia fedesko egies, Jangoikoas, Jesu Kristos, Elizas, grazias, geroko bizitzas, eriotzeas, juizioas, infernuas, glorias ta berze egies. O nola ebeki mantenitzen den arima, gal eztaien, galduko zena ezperen! Sustentu ona ere da orazioa erakutsi diguna egiten lograzeko beartugunak. Sustentu ona ere da lege paratu diguna bizitzeko ta obratzeko ongi. Sustentu ona ere dire sakramentuak, graziaren kañuak ta instrumentuak; Kristoren etxeko hume markatzeko, bataioa; indar emateko, konfirmazioa; sendatzeko eritasun espiritualetaik, konfesioa; erregalatzeko miragarriro,

komunioa; seguratzeko biziaren postrea, oliatzea; arzeko bakotxak obeki dagokion bidea, ordena ta matrimonioa. Guzien gañetik sustentu ezin ohea, zerukoa, milagroskoa, ta alaber, Jaunari sollik dagokiona ematea da sakramentu aldarekoa, zeintan bere podore ta amore infinitoak eman dezaken obena ematen digun. Guzia guti iduriturik bera gabe, bera den guzia ematen baizaigu amorosoki geuren biotz barnera. Billa zagun fede bizia, ta oneki karidade ardientea; bi gebeki barin bagoaz maiz bizian errezibitzera sustentu dibino gau, gustatzen badugu bere gusto zoragarria, geroago ta ia zebatus, geroago ta ia indar artus joain gara ta pasatuko dugu ongi bidea angabetu gabe, aisa, eriotzeko orduraño.

Baña eriotzeko orduan, pausu ertxi gartan, noiz beti baño erneago baitabiltza gure etsaiak gure galdu naies, zer izanen da gutas? O Jesus, orren atzetik dabilana salbo izanen da. Lastima dut, dio, jendeas ene atzean dabilanas, ta usten baitut barurik, galduko dire bidean. Ez, ezkaitu utzi barurik, bera eldu zaigu edozein etxe, etxola ta lekutara bere sakramentuan; bera sarzen zaigu atariak barna ta petxoak barna, nola erran balez: Ona ni zueki, ez lotsa. Zer in dezake obekienik kristioak, baizik errezibitu amore guziareki Jesus pausu gartan, ta beraren eskutan utzi den guzia? Nork salbatuko zaitu, ene anima, ezpada Salbazaleak? Eta Salbazaleak nola etzaitu salbatuko? Multi dicunt animae meae, non est salus ipsi in Deo eius. Askok erraten diote ene animari: Eztu salbaziorik bere Jangoikoan. Tu autem, Domine, susceptor meus es etc. Baña berori, Jauna, da nere anparoa, nere gloria ta goratzen duena nere burua. Berori nere Salbazalea ta salbazioa. Salbazale da, ta salbaziorik ez? Lenago atzenduko da bere izenas ezi salbatzeas. Nai bauzu, bada, eri kristioa konsolatu, alibiatu ta seguratu eritasunean; nai bauzu ongi atra eriotzeko orduan, errezibitzeko goizik ongi Elizako sakramentuak, errezibi zazu debozio guziareki Jesus sakramentua, ta fia beraren miseriakordian eztuela desanparatuko billazen duena. Eztakit nik nola, nola egoten diren kristioak egon egon ain berantkor, nagi errezibitzeko sakramentuak eritasunean. Fedefalta bide da, tonteria ta itsutasuna; ezi sinesta ta ezaun balezate aien ona ta bere bearra, ezin leizke deskuida. Zereki daizke konsola, ezpada Jesus onareki? Ezi beraganik ezpada, ezta niondik zer esperatu onik, ez gorputzaren, ez arimaren. Jesus sollik da eman dezakena on guzia, grazia ta gloria.

Dominica 3a
post Pentecostem.
De zelo Jesu Christi
erga peccator etc.

Erant appropinquantes ad Jesum
publicani et peccatores etc. Luc.15.

Egungo ebanjelioa da guzis konsolagarria ni bekalakoendako. Dio ala: Zoezi ellegatus Jesusengana publikanoak ta bekatariak, aditu naies bere Majestadea. Eta murmuratzen zute eskribek ta fariseoek ziotela: Onak admititzentu bekatariak ta jaten du aieki. Jesus onak erran ziote parabola gau. Balitu zuetaik batek egun ardi, ta bat galdu aietatik, ezlidoake, utzirik lauretan ogei ta emeretziak larrean, billatzera galdu gura, aurkitu arteo? Eta aurkiturik para lezake soñetan kontent, ta etxera joan ta deiturik adiskide ta barridekoak erranlezokete: Idazie zori ona, aurkitu baitut ene ardi galduzekidana. Erraten diziet nik zuei, ala izanen dela zeruan alegranzia bekatari penitentzia iten duen batengatik, nola lauretan ogeitaemeretzi justo penitentzia-bearrik eztutenengatik. Eta zein emastekik balitu amar dratxma, ta galdurik bat aietatik, ez lezake itxeki kandela, ta garbitu etxea, ta billatu dilijent, aurkituartaño? Eta aurkituaskeros, dei lezazke adiskideak ta barridekoak, ta erran: Idazie enhorabuena aurkituas galdu nuen dratxma. Ala erraten diziet zuei, dio Jesu Kristok, aingiruen artean izanen da alegranzia, bekatari batek iten duelaik penitentzia. Onaraño da ebanjelioa. Ezplikatzeko ta atratzeko bear den fruitua, saluta zagon Ama Birjina. Abe Maria.

Erant appropinquantes etc. Len lenik da adbertitzeko bekatari gaien urbiltze gura Jesusengana aditu naies señale ona, sendatuko direla. Adimentutik asten da kurazioa; fides ex auditu etc. (Rom.10). Ala nola señalerik gaixtoena bekatarietan baita sorreria espirituala, au da, ez aditu naia Jangoikoaren itza; nork sendatu alako sor adimentu gaixtotakoak? Orgatik erran zioten Jesu Kristok judioei, sor gaixtofikatuei: Jangoikoaren denak aditzen du Jangoikoaren itza; orgatik zuek eztuzie aditzen, zeren ezpaizarate Jangoikoaren. Orgatik Kristo berak in zuen bekala sor bateki, sartzea bere eriak arren bearrietan, iten du sazerdoteak bataiatzera doaienari, lenbiziko sartu orduko tenploan, ukitus bere lixtuareki bi bearriak diola: Ephpheta, nai baitu erran, idiki zaite adimentua (Marc.7). Nai duenak bada salbatu, presta bez adimentua aditu naies Jangoikoaren itza, diola Samueleki: Loquere, Domine, quia audit servus tuus; Jauna, erran bez nai duena, ezi aditu naiak dago bere sierbo gau (1.Reg.3).

Et murmurabant scrivae etc. Bigarren notatzeko dena ebanjelioan da eskriba ta fariseoen murmuratze gura Jesu Kristos, zeren admititzentuen bekatariak. Beira zer tatxa! Obe zuendako, errain niote nik, ta guziendako ere, baikara guziok bekatari. Baña aiek etzire bekatari beren opinioean. Eskribak zire orduko xakintsu presumituak; fariseoak orduko erreljioso hipokritak, sanduak beren ustes; errealki bekatari, ta eznai ezaundu, eznai konfesatu beren buruak bekataritako! Eri mota-gaixtotakoak, nork sendatu alakoak? Ezeta Jesu Kristok ere, ezeta Jangoikoak ere. Prest zego Mediku dibinoa, erremedioak ere bai eskunara. Nik eztut gaitzik, dio eriak, eztut bekaturik; ia, beras, alfer dire alakoaindako mediku ta erremedio guziak. Ala zeikena libra ta salba, konfesatus bekatari bere burua, den bekala, gelditzen da bere presunzioagatik erremedioik gabe kondenaturik. (Ontara

kontatu ziote Jaun dibinoak parabola gau (Luc.18): Bi gizon joan zire tenplora, bata fariseoa, berzea publikanoa. Fariseoak txutirik tieso zio ala: Jauna, esker milla, ezpainaiz berze gizonak bekala ni, ladronak, injustoak, adulteroak, ala nola publikano gau ere bai. Barutzen naiz, itentut amarrenak etc. Ah! Zer kofesioa! Publikanoa, ordea, zoko batean paraturik etze trebe goratzera ere begiak zerura, baizik golpatus bularra zio: Jauna, miseriakordia ni bekatarias. Erraten diziet, au joan ze barkaturik grazian ura ez bekala etc.).

Quia hic peccatores recipit. Irugarren notagarria da grazioso, zertas murmuratzen zuten, Jesusen onegi izateas bekatarien fabore; onek admititzentik bekatariak. O Jesus onegia, bekatarien Salbazalea, ain on, beratx, piadosoa, ezi murmuratzen baitiote geiegis! Eztiot nik murmuratuko ortas, ezi ongi dagokida niri aiek kontazen zioten tatxa. O Jesus, nor eztu salbatuko nautenetaik izan salbo? Nik eztut ikusi nior ala aborrezitzen duenik bekatua, ta ala amatzen duenik bekataria, nola berorrek. Amak amatzen du seme gaizki dagona, ta aborrezitzen du arren gaitza; baña, en fin, eztu semeak gaitza bere borondates. Baña bekatuaren gaitza berorrek ainberze aborrezitzen duena du bekatariak bere borondates, bere kulpas; eta alaere ala amatzen bekataria Jesus onak? Biz bedeikatua alako ontasuna.

Quis ex vobis homo etc. Laugarren notagarria egun ardi gaien parabola. Ardi gaiek dire Jangoikoaren kriatura razionale guziak; utzi zituenak larrean dire aingiruak gelditu zirenak zeruan; ardi galdua da gizagendea. Etorri ze onen billa jabea, zeren jautsi ze zerutik Jangoikoa guregatik, ta egin ze gizon. Auxe da Jesu Kristo gure artzai ona, eman zuena bere bizia bere ardiengatik. Badu zamarraik? Bai, au da gure naturaleza artu zuena. Badu makilarik? Ori da gurutzea. Badaki egiten oiur ta fixtu ardiei? Baita tiratzen ere makilas. Fixtuak dire inspirazio onak; oiurak meatxu itentuenak. Makilas tiratzea da bialtzea trabajuak, eritasunak ta naigabeak gure salbatzeagatik, amores ta on naies. Eta ala eraman bear dire ongi alako eskutik bekala; ezi ezpalitz trabajurik, nola zuzendu ardi errebelak zuzen bidera? Amargo da mundua, negarresko ballea da betea trabajus ta miserias; eta alaere apegazen gaizkio, tiratzen gaitu bere banidadeetara. Zer litzake, goxo balitz trabajurik gabe? atzenduko ginazke Jangoikoas, bizitza sekulakoas, ta on guzias. Preziso da tiratzea paloas gure Jaunak bereganazekos. Eta zer da gure billa ibilzea? Paratzea bere legea, doktrina, sakramentuak. Aurkitzea da gu akordurazea ta konbertitzea. Soñean artuginduza eraman zuelaik gurutzea gure bekatueki. Bere etxera itzulzea izan ze igatea zerura. Ango alegranzia da zeren, konbertitzen den aldioro bat, kontatzen baitute lagun bat ia an.

Berera eldu da berze parabola ere. Emasteki garrek signifiktzen du Jangoikoaren miseriakordia. Amar dratxma gaiek aingiruen bedratzi koroak, ezi bedratzi koroetan daude errepartiturik, deitzen baitire aingiruak, arkanjeloak, tronoak, dominazioneak, prinzipadoak, potestadeak, birtuteak, kerubinak ta serafinak; amargarrena gizagendea. Au galdurik billazeko itxeki zue kandela. Kandela gau da Jesu Kristo, dio San Bizente Ferrerek (Dom. 3 post Trin.s.2), ezi nola kandelan baitire irur gauza: metxa, argizaria ta argia, Kristo baitan dire berze irur: gorputza, anima ta Jangoikotasuna. Garbitzea etxea da predikatzea doktrina zerukoa; eta ala aurkiturik ta salbaturik gizona, aingiruek, dio, iten dutela festa zeruan, eta au dio bi aldis ebanjelio berean, noiz ta bekatariak iten duen penitenzia. Beras, gauza andia bide da au, ala zelebratzeuntelaik zeruan goiti, emen beiti pasazen dena. Beras, kontrako aldera, itentuelaik bekatuak, eztaike erran kausazen diotela tristura? Beras, geurei etzaigu guti inporta egitea ongi penitenzia.

Eta zer da penitenzia? Itz berak diones, penitenzia da pena izatea, edo penatzea

biotzes Jangoikoa ofendituas. Barkatzekos bekatuak, ta arima grazian paratzekos, beartu irur gauza, baitire biotzesko kontrizioa, agosko konfesioa ta obrasko satisfazioa. Egia da ezi delarik kontrizio amoroso perfektoa, barkatzen diola Jangoikoak konfesiora baño len, baño konfesatzeko intenzioareki, ezi au gabe ezta barkaziorik, ezeta ere kontriziorik. Preziso da, bada, edozein gisas intenzioa konfesatzeko, ta por konsigiente gero kunplitzea intenziogoi, au da, konfesatzea errealki, denbora delaik. Konparaziotako: Grano gaixto bat kuratzen da, lenik ondus enplastro edo gauzaeki, gero idikis lanzetas ta atras apostema ta benenoa, gero aplikatus balsamo edo erremedio, ta lokurak sendatzeko llaga. Grano gaixto benenatuak arimarendako dire bekatu mortalak. Bear da lenik kontrizioaren birtutes ondu bekala, gero atra kanpora benenoa agotik konfesatus bekatuak, gero penitenziasko obraeki eman satisfakzio ta llaga sendatu bekala. Guziau bekatariain aldetik. Berze alde Jesu Kristoren odolaren balsamo preziosoa aplikatzen dena sakramentuan, ezi ezta izan ta ez izanen sekulan barkaziorik edo salbaziorik, ezpada Jesus Salbazalearen birtutes. Bear da ere mediku aplikadezokena, au da sazerdotea, Jesu Kristoren potestadeareki emandezona absoluzioa. Ala agizen da bekatariain barkatzea ta zerukoen alegranzia.

Ala bekatu mortalean zegon arima paratzen da Jangoikoaren grazian. Ilik zegona ta urrindurik Jangoikoaren alzineko bizten da, itsusi zegona edertzen da. Obispo sandu bati eman ziote kontu (In vit. Patr. Parra. varo), bi emastekies nola bizi ziren gaizki eskandaloreki. Etzue nai izandu egin bereala justizia, seguratu arteo egia zen. Jangoikoaren donoa zue ezaunzeko aurpegien mostraetaik arimen estadoen diferenzia, ematerakoan komekadura. Ellegatu zire bi gaiek, erreparatuzue sanduak ta ikusi zitue inguraturik erresplandorees; admiratu ze, erranbide ziotela gezurra aien kontra. Aingiruak erran zio: Egia ze erran zizutena, baño konfesatu dire ongi ta sakramentuaren birtutes paratu dire grazian.

Alaber, mortalean dagon arima da deabruaren esklaba, ta arren pozilga bekala. Paratzeareki grazian iten da Jangoikoaren hume maitea ta Espiritu Sanduaren tenplo. Len zego infernurakoen lixtan ango markareki; gero borraraturik au, eskribitzen da zerurakoen roldean Jangoikoaren markareki. Len kondenaziosko estadoan zego, gero salbazioskoan. Len berea kontazen zute demonioek, gero berendako arzen dute zeruko aingiruek. Begira ia eztuten motibo zelebratzeko alegranzias. Santa Ines de Monte Polizianoren bizian kontatzen da (Hist. Ord. Predicator.), kaballero batek iten zuela anitz limosna arren konbentuari; Sandak pagatzen zio orazioeki. Bein Jangoikoak sanda goni ikusiarazi zio infernua, eta emen zeudela deabruak prebenitzen leku bat, an su lotsagarri ta bertz andi bat, asko tenaza, garfio ta tormentazeko instrumentueki. Nai zue xakin norendako ote zen prebenzio gura. Erran zekio ezi kaballero garrendako, nonbratus bere izenas. Aflijitu ze sanda ta asi zekio negarres gure Jaunai: Da posible, Jauna, utzi bear duen alako penetan gure ongi-egille gura? Zergatik alako justizia? errespondatu zio: Zeren ogeitamar urte gebetan konfesaturik maiz, beñere ezpaita paratu ene grazian, zeren ezpaita ongi konfesatzen. Ia betetzen da plazoa joateko prebeniturik dagokion lekura, ezpada emendatzen. Sandak bereala deitu zue gizon gura, kontatu zio guzia alako itz ta demostrazioeki, ezi ark sinestaturik ta negarres beterik konfesatu zitue bere kulpak berzeetan ez bekala; eta andik guti iltze. Errebelatu zekio sandari konfesio garren medios libratu zela deabruen eskuetaik ta infernuko penetaik. O gure Jaunaren ona!

Guziareki dauka erranik bere ebanjelioan: Nisi penitentiam egeritis, omnes etc.; ezpadiue egiten penitentzia, guziok galduko zarate. Au dio bekatu mortalean erori direnei. De manera ezi bida dire solamente bideak gloriarako: inozenzia edo penitentzia. Inozenzia

da bekaturik gabe bizitzea bataiatuas geros; au galduas geros ezta berze erremediorik baizik penitenzia. Naiz nai duenak nai duena erranik, eztaike falta Jangoikoaren itza; lenago faltako dire zerua ta lurra. Ala oiu iten zue espiritu andiareki bekatariei Santo Tomas de Billanuebak, Balenziako arzobispoak: Aut poenitendum, aut ardendum; bear da edo egin penitenzia, edo betiko penetan erretzea. Eta, bada, nior ezta gure partes salbatuko ta ez kondenatuko, geurei dagokigu, ofendituaskeros Jangoikoa, izatea kontriziosko pena amoroso bat kontino, egunorosko ogia bekala, lograturik ala Jangoikoaren grazia, gozazeko aingirueki kantatus beraren miseriak betiko glorian. Amen.

Dominica 4a
post Pentecostem.
De piscatione spirituali

Per totam noctem laborantes nil cepimus etc. Luc.5.

Egungo ebanjelioa da au San Lukasek kontatzen duen gisan: Jendeak gaintzen zirelaik Jesusen atzean aditzeagatik Jangoikoaren itza, zego bere Majestadea Jenesaretko estankearen aldean; ta ikusi zitue an bi onzi edo barko, ta arranzariak zeude beiti garbitzen sareak. Igan ze, bada, San Pedroren barkora, ta apartarazi zue guti bat leorretik; eta jarririk predikatzen ziote barkotik jendeei. Ondorean erran zio San Pedrori: Tira itsas-barnerat ta bota sareak. Errespondatu zio San Pedrok: Maestru Jauna, gau guzian ibili gara nekaturik ta eztugu deus ere arrapatu; baña berorren manura botako dut sarea. Au eginik, arrapatu zute arraiketa andi bat, auxten baize sarea ere geiegis. Deiturik berze onzian zeuden lagunak, ebek lagundus betezuste bi onziak arraies, kasi ondatzen baizire. Ikusirik au San Pedrok, belauriko paraturik Jesusen oñetan, erraten dio: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekatari bat ni. Zeren ezi arriturik zeude bera ta guziak ainberzeko arraiketas. Jesus onak erran zio San Pedrori: Etzaitela lotsa; ia emendik alzina zure arranzua izanen da arimen edo jendeena. Eta onziak atrarik ta guzia utzirik, segitu zute bere Majestadea. -- Orra ebanjelioa-- ezin daike duda agitu zela errealki arranzu gura, kontatu bekala; baña zierto ere da, milagro gartan badela zerbait misterio, ta adiarasten da klaro-aski; lenik, igatean Jesu Kristo San Pedroren barkoan, ta andik predikatzean; ta azkenik, berari erratean izanen zela arimen arranzari. Goazen, bada, entendatus espiritualkiro, nola dezakegun, geuren onerako. Baña lenik Ama Birjinai egin zogun bere diosalea, eskatus grazia. Abe Maria.

Len lenik admiragarri dena da, orduko jende gaien afizionea aditzeko Jangoikoaren itza. Orgatik ain onak eta eder eskojituak zire kristiandadearen primizia gaiek, ezpaikara gu aien aldean digno deitzeko kristio, garelaik ain epel Jangoikoaren gauzetako, ta ain mundukoiak! Quomodo obscurati etc. Nola ilundu den kristiotasunaren urre gura, deslustratu den kolore eder gura! Fede berbera, doktrina berbera, legea, sakramentuak, errelijionea ta gauza guziak oroat; eta ain diferente bizimodua!

Bigarren admiratzeko dena da igate gura Jesu Kristo San Pedroren barkoan, an jarririk andik ematea guziei bere doktrina zerukoa. Zer uste dugu dela San Pedroren barka honratu gura, baizik Eliza edo kristiandadea? Zeñen buru delarik Jesu Kristo beti, egin zue bere bikario San Pedro ta arren ondorekoak. Nik erraten dizut, erran zio sanduari (Math. 16), zu zarela Pedro, eta arri gonon gañean fundatuko dut nere Eliza; ta infernuko atariak eztute indarririk izanen onen urratzeko diña. Au da barko gura zeintan dagon jarririk edo asentus presente kontino Jesu Kristo bera gureki munduaren akabanzaraño, ofrezitu zuen bekala (Ib.ult.) ez solamente sakramentuan duen presenzia erreallareki, baitare bere amoresko asistenzia, laguntza ta probidenziareki. Au da barko gura non sarzen ezten arraia, non bizi ezten persona eztaiken sartu zeruan, dena dela. Au da barko gura non bizi diren birtuteak, karidadea, humildadea, kastidadea, pazienza ta gañarakoak; non sollik ageri den santidade egiaskoa, Jangoikoaren konplazenzia, obra onak eta milagroak, ta berze nion ez. Au da barko gura, salbaziosko arka bakarra, zeintan solamente daiken salba gizona, ta zeintan eztaudenak ondatzen baitire dilubio unibersalean erremediorik gabe. Au

da barko gura, zein ondatu naies dabilzan beren indar ta injenio guzieki deabru infernukoak ta eben lagunak, herejeak, judioak, jentilak, kristio-bortak, gaixtofikatuak, biziosoak, suberboak, deshonestoak, gizagendearen farraskak. Libre libre bear dugu, diote; baña niork ezin libra Jangoikoaren sujeziotik. Libre diote, ta bitarteo eztuste utzi nai libre segitzeko Kristoren legea nautenak. Zer da au? Libertadearen atxekias nai lukete urratu errelijione kristioa, zeren eztuen permititzen libertadea egiteko gaizki; baña lenago urra lezakete zeruen fabrika, ezi mundutik kendu Kristoren Eliza ta errelijionea. Orai gutitto bat dago ixil, geldi, lo bekala gure Jauna; Ipse vero dormiebat (Math.1), baña azkeneko botakotu aiek infernura, ta geldituko da firme, tieso bere Eliza.

Eramazu itsasoan barna, erraten dio Kristok San Pedrori, ta edazkizu sareak arranzuko. Zer da au? Edatzea mundua barna predikatus Jesu Kristoren doktrina, irabazteko arimak zerurako. Grazioso da diona sandu gloriosoak: Gau guzian nekaturik ibili gara ta eztugu logratu txipa bat ere. Zer da au? Predikari pobreen lastima; erran ta erran, nekatu ta nekatu, ta debalde askotan; eztiot debalde dela berendako, ori ez beñere, ezi alokairu ona pagatuko diote nausiak faltarik gabe, baña debalde asko adizaleendako, ezpaita protxurik atratzen konbertitus onera, oroat nola ezpalezate aitu. Desgrazia gau agi daike agian predikariaren espiritu faltas, baña komunkiago adizaleen kulpas ta Jangoikoaren permisios, ezi aski da den Jangoikoaren itza ta egia, edozeñen agotik datorren. Eta Jangoikoas daudenak logratuko dire (Act. 13. v. 48). Alaere, Jauna, dio San Pedrok, berorren itzaren atenzios botako dut sare; in verbo autem tuo laxábo rete. Bota zue, ta ara non atratzen duen arraiketa andi bat milagroskoa. Zer da au? Da adiarastea Jangoikoaren grazia ta bedeizioareki eztela faltako arrai, nauterran, kristio anitz eta onak munduan non edo non. Atra dire len ta gero anitz Kristoren etxetik beren bizioen atzean. Orai berean doaz bandaka munduko itsaso gori barna suelto naies; utzirik Jangoikoaren bidea, zeren debekatzentigun bizioak, bekatuak, gaixtakeriak. (Aborrezizen tuste sazerdote onak, zeren pregonatzen duten Jangoikoaren legea, nola balego gure eskuan kentzea letra bat ere, tilde bat ere. Nai lukete ase pasioneak sueltoki, ta niork ez dezoten debeka, ezta ere itzik erran kontra; eta nola ori baita imposible Jangoikoaren ta Kristoren errelijionean, pasatzen dire erratera guzia dela gezurra ta apezten enbusteria ta engañua. Eta ala iten dire hereje ta ateista jangoikorik gabe, federik gabe, errelijionerik gabe, legerik ta errespeto onik gabe. Eta uste duzie bat batean ellegatu direla ortaraño? Ez, ezi kristio zirelaik ere, etzire anbateko kristioak. Asten da mandamentuen auxtetik pasatzeko galzera fedea ere. Zenbat bide da, kristio deituak oraño, daudenak ezbaiean, beren pasioneeki itsuturik? Bulkaldi guti aski dutenak segitzeko herejeen bidea?). Bitarteo ene kristio onak, zarate beldur akaba daien kristiandadea? Ez, ez pensa alakorik. Barratuko du sare non, noiz ta nola duen plazer gure Jaunak, ta inen da arrantzu andia San Pedroren barkora.

2. Barko gau entenda ere daike persona bakotxa, ezi mundu txipi bat da gizona. Arraiak, birtuteak, obra onak, merejimentuak, irabaziak zerurako. Itz gaiek: Gau guzian nekatu eta eztugu deus arrapatu. San Bizente Ferrerek paratzentu bekatarien agoan ilaskeros, idikitzentutelaik arimaren begiak (S.4. de Dominica 5 post Trinit.), ezi San Gregorio andiak diones: Begiak erxtentuenak kulpak, idikitzentu penak. Orduan, bada, erraten dute: Gau guzian trabajatu ta eztugu deus arrapatu. Au diotela dio, bizituas beti ilunbetan, gaizki ta neketan, banoan ta beren kaltetan. Ilunbea edo iluntasun arimarena da egietafedesko gauzen atzendura, ignoranzia ta akordu-gabea. Ezta iluntasuna mundukoas ainberze kaso egitea ta Jangoikoas ez? Ilunbetan aisa tropezatzen da, ta sarzen da loiean, ta ezta ikusten; ala arima atzendua Jangoikoas aisa erorzen da edozein bekatutan, espezialki

sekretoan ta luxuriaren loiean; orai niork ikusten ezkaituelaik dio: Ezta iluntasuna bizitzea bekatu mortalean arima, ta ain sereno jan, edan, lo egin ta gañarakoak? (Ezta iluntasuna? Dagolaik ilik arima Jangoikoaren desgrazian, Jangoikoa ematen sentenzia ta markatzen infernurako, deabrua eskatzen lizenzia eramateko, eriotzea aldakan, bekatuek irratzen ilarasteko, infernua idikirik esperatzen; alaere, dagolaik pokalean desdixatua ez erori bai erori, ez goartzea, baizik presumitzea, dibertitzea, irri egitea ta sendagalla? Ezpada au iluntasuna, ezta gau ilunik). Santo Tomas de Akino doktore aingiruak, teologiaren iruzkiak, zein baño xakintsuagorik apenas ikusi den munduan, erraten zue etzekiela nola arima, bekatu mortalaren estadoan zekiena zegola, zeiken alegra sekulan (Hos ss. in ej. vit. ad fin). Arrazioreki deitzeunte gau iluna bekatariek beren bizi pasatua: Trabajatu gara, diote, zeren pasatu duten gaizki ta neketan. Bai, ezi eztoakioke ongi duenai Jangoikoa kontra. San Pablok zio: Barin bada Jangoikoa gure fabore, nor gure kontra? Bekatariek erran beaute: Barin bada Jangoikoa gure kontra, nor gure fabore? Bizi ona damatela gaixtoek, bizi aisa, gustosoa, nai bekalakoa, kunplitus pasioneak, ibilis beren gogora; ta onek, berriz, trabajuak beti, mortifikatus, ertxitus, goardatus; ala uste dute boboek, axaletik beirazeuntenek. Baña kostatzen zaiote aiei ere kunplitzea gustoak, pagarasten diote eskotea deabruak emen ere. Zenbat dilijenzia, zenbat peligro, beldur, alke, desonre ta kalte kostazen da askotan gaizki egitea? Ikustentugu, diozu, alegre, arrullo, oiulari. (Onak, berriz, ixil, erretiratu, modesto, humil. Ala da munduan, baña bear litzake aiek humil egotea, ebek animoso, eztirela beldur atrazeko aurpegia nonnai; ta azkeneko agitzen da au ere, munduak estimatzea onak bear orduan ta ustea banoak. Baña en fin, ebek kontent ageri dire munduaren banderan). Nola da ori? Axal, falsuki ta sustanziaik gabe. Tarantula deitzen den sierpe bates kontazen da, heritzentueni komunikatzen diotela irriaren pasionea benenoareki, ta ala ilzen direla irris. Alakoa da gaixtoen irria ta alegranzia, daudelaik benenaturik bekatu mortaleki ariman. Bereki damate erioze ta kondenazioren sentenzia, naiz alegre agerrian. Nola daike au? Atzendus Jangoikoas, eriotzeas, ondorekoas; ertxis arimaren begiak; lokarrarazis konzienzia. Ezperen, goarzen badire guti bat idikis begiak ikusteko beren estadoa, zer trabajuak! Zer penak! Zer ai ta kongojak! Beira ilzeko peligroan direlaik. Baña ondorean ikusten da obeki, ta ala diote: Bizitu gara beti ilunbetan, gaizki ta neketan, banoan ta geuren kaltetan. Au orai. Egi eta fedea da egiten diren obra on guzieki, bekatu mortalean dagon bitartean, eztela deus irabazten zerurako, zeren falta delarik grazia faltazen da merejimentu guzia, ala nola galdurik zaña, arramak ez dezake eman fruitua, eztare zarmenduak matsa aienetik apart. Emen norbaitek agian errain du: Zertako egin beras, obra onik, dagolaik bat bekatuan, ezpada aieki irabazten gloriarik? Alaere in bear dire, lograzeko Jangoikoaren piedadea, barkazioa ta grazian paratzea, ta ez dezan kondena. Baña ilaskeros estado triste gartan, orduan baita erratea: Eztugu deus atra? Nihil cepimus. Debalde bizitu gara neketan ta geuren kaltetan. (Ala nola Baltasar erregea, zegolaik konbitan alegre oben obenean bere ustes, agertu baize paretean esku bat eskribitzen arren sentenzia irur letraetaik batean ziola: pizatu zaitute balanzan ta aurkitu zara arin obra ones. Gau gartan galdu zue erreinua, bizitza emengoa ta sekulakoa; ta erremediorik ez ia sekulan. Ala klamatzen dute kondenatuek: Ergo erravimus, uts in dugu betikos. Gau guzian nekaturik eztugu deus atra, baizik kondenazioa ta pena sekulakoak).

3. Alaber, itz gaiek, gau guzian trabajatu ta eztugu deus arrapatu, daizke aplika itentustenei obra onak ere, baldin iten baituste gaizki, edo floxezas, edo banidades, edo berze fin gaixtos. Ta ainberze daike izan floxeza edo fin gaixtoa, ezi ken dezon obra onari

merejimentu guzia, nola in-ezpalitz. Eta beti ere faltaren ariora galzen da ia edo gutiago. Sagar bat daike izan sanoa, daike izan barnetik ustela, ta daike izan artxoa. Sanoak balio du; artxoak ez ainberze; ustelak baterez, naiz duen kolore ona gañetik. Oroat, moneda bat daike izan urre fina ta pizukoa, ta pasazen da; falta dakioke zenbait grano, ta galzen du prezioetik ariora; ta daike izan moneda falsua, ta eztaike pasa. Ala obra onetan. Iten badire Jangoikoaren amore puros, dire sagar sanoak, urre finak; estimatzentu Jangoikoak. Baña iten badire gana gaixtoan edo banidades, fin gaixtos ta ala, pizatuko dire Jangoikoaren balanzan; examinatu bear dire Jangoikoaren juizioan. Solamente aurkiturik zerbait imperfekzione, ezta galtzen guzia bai arintzen ta gutizen estimazioa. Baña solamente in badire intenzio gaixtos, baterez Jangoikoagatik, fuera fuera, ustelak dire, urre falsuak on kolores. Eta zer izain da, baldin itzulzen badire beneno? Goazen juiziora, ikusagun. Zer dakarzu or? Jauna, ainberze errosario, ainberze meza, bezpera, prediku, limosna, baru etc. Para balanzan. Oni falta zaio ainberze grano, berze orri ainberze etc. Eta ala egunka ta berregunka kontatzentugunak emen, an apalduko dire erdia ta ia agian; ta agian deustaratuko dire arras. Zer dakarzu zuk? Ainberze konfesio ta komunione. Examinatu bear dire. Ongi eginak dire Jangoikoaren amores? Biba, balio dizute barkazeko bekatuak ta salbatzeko. In badire ajolaik gabe, iduripenes solamente, doloreik ta propositoik gabe, edo altxatus bekatu grabeak, beneno dire. Goaie eneganik madarikatua, dio Jangoikoak. Eta zer diogu gauza komunes, etxeko ta kanpoko lanes? Ah! Zenbat tesoro bildu zeiken, inbaleites bear bekala fin ones ta Jangoikoaren amores? Baña zenbatetan ezta fin onik, ta ez memoriaik Jangoikoas? Zenbat nastekatzen dire bekatueki? Eta ala nauzu irabazi Jangoikoaren alzineko? atra ze aldi bates konbersazioa sazerdote ta nekazari prestu baten artean; sazerdoteak zio: Zein ofizio senzilloa duten nekazariak salbazeko, nai baute, okasioik gabe niori perjuiziorik egiteko, nola duten merkatariek, errotazaiek, txastreek, berze ofizialeek, dabilatenek berzeren gauza eskuetan, baitezazke tenta kodiziak, ez ala nekazariak. Berze alde, neke dutena dezakete itzuli penitencia ta purgatorio; ta lastima zela aien kondenatzea. Nekazari juizioskoak zio: Eta zer mertxede iten diogu guk Jangoikoai? trabajatzen bagara, geurendako ai gara. Eta zenbat iduri zaio oroitzen direla Jangoikoas? Baizik lanera joan ta egon, nola idiak ta mandoak, oroitu gabe baden Jangoikorik. Sazerdoteak zio balio diotela intenzioak obligazioaren kunplitzeko, ta doble, baldin ofrezitzen badiote Jangoikoai. Nekazariak errespondatu zio: Bai, Jauna, baña ia baden ajolarik ortas? Berze alde, iduri zaio eztela nekazarietan perjuiziorik egiten niori? Badire inbidiak eta txarrieriak, konpasione guti berzeren alorra eta gauzas, sisatzea mugak, ixtikatzea berzeren alorrak pasatus berak eta abreak andik, daizkelaik pasa aisa aratxagotik, ustea suelto haziendak doazin dañuetara, mezkintasunak amarren primizietan. Non dire gero berze bekatu nasten direnak laneki? Itz desonesto itsusiak tenturik gabe, murmurazioak, ordikeriak ta alakoak? Ala explikatzen ze nekazari on gura. Sazerdoteak erran zue azkenean: Amigo, nik dardukat ofizioas solamente berez dela ona, baña gaixtoaindako guzia gaixto; ta desengañaturik nago, Jangoikoak salbatzen tuen bekala bereak beraren bideas doazinak edozein ofiziotan, oroat, alaber kondenatzentuela, ezpadoaz zuzen bideas, naiz direla nekazariak, infernutik infernura, neke andietaik andiagoetara. Beras, alakoek errain dute: Gau guzian trabajatu ta eztugu deus arrapatu, baizik kondenatu etc.

Zer erremedio? San Pedrok erakutsia: In verbo autem tuo laxabo rete, Jauna, orren manura, berorren izenean botako dut sarea. Au da San Pablok ere erran zuena: Edozein gauza egin dezazien itz edo obras, guzia egizie gure Jaunaren izenean (Coloss.3). Zer den

in bear dena gorputzaren ta arimaren, nola kuidatu bear den zaia ta irinas, au da, gauza lurrekoes ta espiritualees, nola arimari lenik, ta gero eman bear zaion gorputzari ere bear duena ezinberzeas; nola gizonkiak bere gisa, emastekiak bere gisa, beauten gobernatu emanen soñari ta tripari preziso dena ta dezente, presunziorik, laminuriaik ta exzesorik gabe; ori luze da explikatzea, ta ez oraiko). Orai solamente modua nola in bear diren obrak edo gauzak. Ebetaik batzuk dire obra biziak, iten direnak graziaren estadoan. Berze batzuk obra ilak, iten direnak bekatu mortalearen estadoan. Berze batzuk obra mortifikatuak, ebek dire egin zirenak grazian, baña gero il direnak erorzeareki mortalean. Irabazteko grazia ta gloria solamente dire protxal obra biziak, au da, grazian eginak. Ia, beras, grazian egotea persona da lenbiziko bear dena; ta por konsigiente, goartzea nastekatzetik obrak, lanak eta gauzak bekatueki, zeñeki guzia galtzera botatzen baita, oroat nola gisa baledi bazkaria benenos. Au suponiturik, goazen lanera, dibertitzera, jatera, edatera, lo egitera, bear den guzietara. Nola? Paraturik letrero bat kopetan. Explikatuko naiz. Lengo denboran sazerdote sumoak Jangoikoaren manamendus bear zue eraman kopetan loturik zinta edo plantxa bat, zeintan zegon eskribiturik letrero gau: Sanctum Domino, nai du erran, konsagratua Jangoikoai. Ala guk edozein gauza in dezagun, eramagun paraturik kopetan, au da, frinkaturik gogoan itz gau: Jangoikoa da len. Goaz lanera? Jangoikoa len. Goaz dibertitzera? Jangoikoa len. Goaz noranai ta edozeintara? Jangoikoa len. Au da, beti bere Majestadea, begien alzinean, ez ofenditzeko, baizik zerbitzazeko guzietan. Orai nork nai du ikasi itzulzen lurra urre, txipia andi, amar-errealekoa ogei otxineko? Amoreak iten du au espiritualki, ofrezitus Jangoikoai gure pixkak: Jauna, biz au berorren izenean, berorren amoretan. (Zoaz lanera: Jauna, orren izenean dela. Zoaz mezara edo predikura: Orren amoretan dela. Zoaz jatera, edatera, dibersiora: Biz berorren zerbitzutan. Duzu burukomin, gaitz edo trabajuren bat: Jauna, biz orren izenean. Gutitako naiz, baña dena orren amores dela. Oh! Nola irabazten den anitz amorearen kasos! Ala nola San Pedrok logratu baizue arraiketa andia, botatus sarea gure Jaunaren izenean, ala erraten zio Santa Teresak: Jauna, nik baño ia zerbitzu ta obra on inen du nornaiek; baña nik baño ia amorereki, ori ez, eztut permitituko.) (Similiter dic de patientia et impatientia in adversis, nil cepimus).

Azkenik da San Pedrok in zuena, urtikirik gure Jaunaren oñetan erratea: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria. Ezta au apartarastea, ez, baizik humillatzea bere burua, nola zenturionak: Jauna, ez naiz digno orren Majestadearen errezibitzeko. Nola Santa Isabelek: Nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea enegana ene Jaunaren Ama? Ontan erakusten zaigu nola estimatu Jesus bere sakramentuan. O biajanteak, zoaztenak bides eternidadera, etzaiztela atzen bitarteo daukazienas ala altxaturik bidean zeuren on guzirako. Ama, estima, adora, errezibi ta egin al guzia Jaunoni, izateko ongi bizian, ilzean ta ondorean. Santa Teresak erran zio bere monja bati zerutik (Avis.15): Zerukook ta lurrekook izan gaitzen bat garbitasunean ta amorean, guk gozatus, zuek padezitus; guk adoratus Jangoikoaren esenzia, zuek adoratus aldareko sakramentua. Eta erran zozute au ene alabei etc. etc. etc.

Dominica 5
post Pentecostem.
De internis, et externis

Nisi abundaverit justitia vestra plusquam
scribarum et phariseorum, non intrabitis
in regnum coelorum. Math.5.

Egungo ebanjelioan erakusten digu Jesu Kristok ala: Zuen justizia, birtute edo ontasuna ezparinbada ia ezi eskriben ta fariseoena, etzarate sartuko zeruetako erreinuan. Aitu duzie erraten nior ez ilzeko, ta ilzalea izain dela kulpante, mereji duena kastigo. Baña nik erraten diziet, asarratzen den guzia bere proximoaren kontra, dela kulpante; baitare erratentionak itz despreziosko grabeak, mereji duela infernuko pena. Gero segitzen du erakusten nola, naiz doaien bat ofratera aldarean, bear dela itzuli ta bakeak egin bere anaiareki lenik, ta gero ofratu. Eta bear garela izan dilijent baketzean kontrarioeki, so pena pagatzeko falta azken marabidiraño. Beitixago dio: aitu duzie erraten luxuriasko bekaturik ez egiteko; baña nik erraten diziet, beiratzeta solamente emastekiari, deseatus au, dela egitea luxuriasko bekatu biotzean. Doktrina gau erakusten zue Jesus onak desengañatzeko mundua engañatzen zutena eskriba ta fariseo hipokrita gaiek, anitz ajola iten zutenek ageridiren gauzes mundukoen begietara, ta batere ajolaik ez biotz-barnekoes, Jangoikoak sollik ikustentuenes. Baita falsukeria indignoa Jangoikoaren despreziotan ta arimen perdiziotan. Adiarasteko, saluta zagus Ama Birjina. Abe Maria.

Ezpazarate justoago ta onago sines eskriba ta fariseoak baño, etzarate sartuko zeruetako erreinuan, dio Jesu Kristok. Ortako xakin bear dugu nola ziren eskribak ta fariseoak. (Orduko xakintsu, erakustun ta errelijioso presumituak, erraten digu Kristo berak (Math.23). Moisesen katedran jarri dire aiek, erratendizieten guzia egizie, baña aien obraen conforme ez, ezi errateunte ta eztute egiten. Karga andiak ta ezin soporta daizkenak parazentute berzeren soñetan, eta berek ezta eri bateki ere nai mogitu. Iteunten guzia iteunte, ikusdezkitengatik jendeek. Alaber (Luc.12), dio: Goardazaiste fariseoen oranzaganik, zein baita hipokresia. Ongi deitzen du oranza, ezi nola oranzak oreka guzia alteratzen baitu, hipokresiak on guzia galzera botatzen du. Alaber, dakigu zirela inbidioso txarrak murmuratzen zutenak Jesu Kristos, zeren admititzen zituen bekatriak, tatxatzen zutenak beraren ongi-eginak; erraten zutenak milagro iten zituenak ere iten zituela deabruaren birtutes; zebilzanak beti arrapatu naies bere Majestadea itz batean berere. En fin, zire sanduak beren opinioean ta deabruak bekala errealdadean, etzutenak aitu nai egias, ta por konsigiente etzeizkenak kura). Nola ziren mostratu zue Jaun dibinoak berai in zizkieten meatxuetan (Ib. Math. 23): Ai zuetas, eskriba ta fariseo hipokritak, ertxitzen baituzie zeruetako erreinua jendeen alzineko, ta zeurok ez sartu ta berzeak ez utzi sarzera! Ai zuetas, kidariitsuak, galzeko zeurok eta berzeak (Ib. 15); erreparo anitz pasazeko eltxo bat, ta bitarteo iresten kamello bat! Ai zuetas, hipokritak, garbitzenduzienak plater eta basoaren gañeko alde, eta barnean beterik zaustenak rapiñas ta inmundizias! garbi zazie lenik barneko alde, izateko garbi gañekoa! Ai zuetas, baizarate ala nola sepulkro txurituak, jendeei eder iduri kanpotik eta barnean beterik ilen ezurres eta zikintasunes. (aldi bates hipokrita gaiek kargu inziote gure Jaunari, zergatik usten zituen bere diszipuloak jatera ogia, garbitu gabe eskuak. Jaun dibinoak obeki

erreprehenditu zitue aiek, zergatik ustenzusten jendeak auxtera Jangoikoaren mandamentua diona honrazeko ta faboratzeko Aita ta Ama. Hipokritak, ongi erran zue Isaias profetak zuetas Jangoikoaren partes: Jende gonek honratzen nau ezpañes, baña biotza urruti eneganik. Eztu mantxatzen gizona- agotik sarze den gauzak, bai agotik atratzen direnek, baitire forjatzen direnak biotzean: pensamentu gaixtoak, irak, deshonestidadeak, juramentu falsuak, murmurazioak ta alakoak; ebetxek mantxatzen dute gizona; eztu mantxatzen jateak garbitu gabe eskuak. Entenda daien batean zein hipokrita itsuak ziren, aski da ikustea in zutena Jesu Kristoreki; malizia ta inbidia-utsez entregatu zute preso bere Majestadea presidenteari, Ponzio Pilatosi. Eta berak etzire sartu justiziako salan eskrupulo fatuo bateki mantxatuko zirela sartus an, orgatik atra baize Pilatos aiengana kanpora; eta bitarteo etzute eskrupulorik prokuratzeas milla modus ta maldades ilarastea malamamente axuri dibino gura. Ia ikusia dago zer jende-mota ziren).

Beras, erratea Jesu Kristok gure ona ezpada ia aien ona baño, ezkarela sartuko zeruetako erreinuan, da erratea izan gai zela onak ez iduris solamente, baitaere sin sines; ez solamente ageridenes, baitare sekretoan; ez solamente mundukoen begietan, baitare Jangoikoaren presenzian ta biotz-barnean; ezperen kondenatuko gaituela Jangoikoak; ta Jangoikoak kondenatzenba gaitu, nork libratuko gaitu? Zer balioko du lauda gaitzan on ta sandutako mundu guziak? Goarda bekatu agerrietaik, baitaere okulto ta biotz-barnekoetaik, dio Jesu Kristok. Parazen du exenplu iran ta luxurian. Nior il etzagula, dio borzgarren mandamentuan; ta seigarrenean, luxuriasko bekaturik in etzagula. Explikatzen du doktrina Kristioak ala. Zer manatzen zaigu mandamentu gartan? Etzagula niori gaizkirik egin ez obras, ez itzes, eztaere biotzes. Zer manatzen zaigu berze gontan? Izan gaitzela garbiak eta kastoak obra, itz ta pensamentuetan. Orai, bada, naiz ezten akzionerik, ez itzik ere mandamentu geben kontra, zer ai gara orreki sollik, baldin biotza erretzen edo zebatzen bada iran edo luxurian? izanen da alakoa eskriben ta fariseoen gisara, gizonen begietan ona, Jangoikoaren begietan gaixtoa; gañeko aldetik eder, barneko aldetik itsusi, likits; Sodomako sagarra, kolore ta azala sano, barneko mamia autsa ta errautsa, bibora legun iduri bistara, barnean pozio ta beneno; bestiturik ardi-elles otso gosetia estalkumean. Egia da gaixtoago dela gaixto izatea obras, itzes eta biotzes, ezi ez biotz solles; baña au sollik ere gaixto aski da kondenatzeko arima. Txori-arrapazale mota bates kontatzen da kontentatzen dela jateas txoriari biotza edo burua, ta usten duela gañarakoa (Olaio magn. Parra.). Personan den guzia al badezake galdu, deabruak nai du; baña ezipadezake ori, kontent da galtzeas biotza, orreki galdu du sekulakos guzia. Deabruai eman biotza, ta Jangoikoai mia, eskuak ta gorputz guzia naiz bai, eztu Jangoikoak estimatzen. Falta da obena, dio, eztut nai alako emana; ta geldizen da guziareki deabrua. Errege Magoak joan zirelaik adoratzeri Jesus jaio berria, Herodesek erran ziote kortes iduri: Zoaste, billa zazie aurra, ta aurkitu ondoan gastiga zadazie, noaien ni ere ta adora dezaten. Mi ona mostratzen du, baña biotz gaixtofikatua zuela diote aur inozente ilarazi zituen gaiek, ilarasteagatik Aur dibinoa. Judasek ere eman zio besarka, erran zio agur Maestru Jauna, preso iterakoan, baña ikusirik zeuka arren biotz falsuaren traidore gaixtofikatua, ta ala erran zio: Adiskidearen mostra-iduri goneki traiziatzen duzu Birjinaren Semea? O ignoranzia! Obeki errain dut: O itsutasuna! Kontentatzea ez egiteareki gauza itsusi gaixtoak agerrian, admititzen baditu sekretoan edo biotzean! Kontent ez ikusteareki jendeek; baña ikusten du deabruak, ikusten du aingiru goardiakoak, ikusten du Jangoikoak... Gaixtoago dela agerrian ta sekretoan, dago erranik; baña zenbait aldis ia heritzen dutela arima admititzen direnek sekretoan, ta peligrosoago direla, dio Elizak (Trident. Sess. 14.c.5), ia zeren

aisago iten diren nioren errespatorik gabe; ia zeren anitz ia iten diren bere buruareki sollik, aski delaik istante bat, beti eskaida, berze dilijenziarik gabe, de manera ezi agerrian iten den batendako, inentu egunka ta berregunka biotz barnean, askotan ezin kontaala; ia zeren eztiren ongi ezauntzen; ia, en fin, zeren nekesago den izatea alakoes bear den dolorea ta propositoa konfesatzeko ongi, ta por konsigiente nekesago emendatzea.

Baña ezauntzeko noiz konsentitzen diren pensamentu gaixtoak biotzean, eman bear dugu doktrina, ezi lazoegis ta ertxiegis utsiten da ontan. Batzuei etzaiote iduri dela konsentitzea tentazioan, non ta eztuten determinatzen gaizki egitea; ta engañatzenuste beren buruak malamente, ezi ezta bear ainberze, izateko konsentimentu ta bekatu. Berze batzuei, berriz, iduri zaiote okurritu orduko pensamentu gaixtoa dela bekatu, naiezpaute ere; ta engañatzen dire. Ona, bada, egi eta fedearen doktrina. Borondatea da zeñeki iten den bekatua dena dela. Borondateak ezpadu nai, ezpadu admititzen edo konsentitzen, baizik aborrezitzen ta errepugnatzen pensamentu gaixtoa, ezta bekatu, naiz tentazio andia izanik. Kontra, berriz, borondateak nai badu, admititzen ta konsentitzen badu, da bekatu, naiz ez sentiturik tentazio andirik. Eta orra nola ezten oroat sentitzea, nola konsentitzea. Zer da, bada, konsentitzea edo konsentimentua pensamentu gaixtoan? Beñik bein deseatzeta gauza gaixto okurritu gura, klaro da dela konsentitzea ta bekatu. Berze alde, naiz ez deseaturik, egotea zebatzen edo plazer artzen borondatea pensamentu gaixtoan, ori ere da konsentitzea. Irugarrena da noiz ta sentiturik bere baitan tentazioa, usten duen errepugnatu gabe borondateak; anbat da ori nola konsentitzea. Ala nola ikusirik batek bere abrea dañuetan, uz balez geldi deus in gabe atrazeko, klaro aski da konsentitzen duela dañuan. Ezta ain klaro beti ezaunzea, errepugnatu duen edo eztuen aski tentazioari, edo deskuidatu den, edo errenditu borondatea. Eztaki askotan personak berak segurki, ta gelditzen da dudan, naiz examinaturik ere konzienzia. Obeki entendazeko doktrina gau, para zagun exenplu iran ta luxurian. B. g. Oroitzen da bat berzearen gaizki eginas, sentitzen du bere baitan naturalki; ezpada iagotara pasatzen, ezta bekatu oraño, baizik inperfekzione ta sandu eztelako señaile. Baña iraren suak arturik deseatzeta dio gaizkiren bat, edo alegratzen da ortas, edo egoten da an bere baitan erretzen odioan ta errenkorean arren kontra; ori guzioi da konsentitzea ta bekatu. Zer in bear da? Ez eman lekuri irari, errepugnatu, edo egin akto kontrarioak. Jauna, orren amores nai dut amatu ene proximoa, dena dela; eztiot nai gaitzik, in bezo ongi arri ere, ta niri ere bai etc. Bere ariora diot luxuriasko tentazioetan, ezi deabruak tentatzen duen bekala sobra iras ta odios, tentatzen ere du sobra amores; sobra gogorres oroat, oroat sobra beratxes, galtzeagatik arimak edozein gisas. Guzia da su ematea, ia ikatzesko sua, ia azufresko sua. Gogoratzenzaiolarik, bada, edo paratzen imajinazioan zerbait kastidadearen kontra, deseatzeta barin badu, edo naiz ez deseaturik, barin badago artan gogoa zebatzen ta gusto artzen, ala nola mormota inmundizian iraulka, edo sentituaskeros tentazioaren sua, barin badago ajolaik gabe ta errepugnatu gabe, deus dilijenziaik in gabe kenzeko bereganik, ala nola animale bat dagona geldi, arraskatzen dutelaik non duen atz, ori guzioi da konsentitzea, ta bekatu mortale. Zer in bear da bada? Errepugnatu, biotzes aborrezitus gauza debekatua; edo despeitu gogotik instantean, prokuratus borratzea memoriatik, edo paratus pensamentua berze gauzetan, dela Kristoren pasioan, dela infernuko penetan; edo itzuli Jangoikoagana sines: Jauna, goarda benaza, ez nuke nai berorrek nai eztuenik, etc. Da ere on enkomendatzea Ama Birjinai, aingiru goardiakoai ta nauzun sanduari; baitare paratzea belauriko, dagolaik bakarrik, apatzea lurra, golpatzea bularra, señaletzea gurutzearen señailea, edozein penitenzia egitea; baña prinzipalena lendanik goardatzea

ortarako diren zebo ta peligroetaik. Preziso dena ez erorzekos mortalean da, ez admititzea borondateak debekatua. Admititzen bada, naiz instante bates, da mortale; despeizen bada, da merejimentu.

Lotsagarri dire ta lastimagarri zenbait sanduek eta sandek pasatuzusten martirioak jenero gontan deabruaren medios, Jangoikoaren permisios triunfarasteko bere soldado balienteak aragi flakoan infernuaganik. Ain urruti egon zire errenditzetik, ezi naiago zute erre balezkite bizirik, zatika, ta tormenta balezkite milla maneras gorputzetan, ezi ez deabruaren tentazio gaiek sentitu. Ala dilijenziak ere inzuste miragarriak garaitzeko, batzuk sarzen zirela estanke izoztuan, nola San Patrizio, San Bernardo, etc.; berze batzuk lar eta maldaetan urtikizen zirela biluxirik, nola San Benito, San Franzisko, etc.; berze batzuk mortifikatzen zirela anitz barus, penitenzias, tormentus, nola San Pedro Alcantara, Santa Teresa, Santa Katalina de Sena etc. etc. Guziak enpleatzen zirela humildadean ta orazioan kontino Jangoikoai, goarda zezkien. Ezin zezokelaik paratu imajinazioan San Franzisko Xabieri, idatzarririk zegonean, pensamentu desonestorik deabruak, lotan inspiratu zio amets gaixto bat; baña sanduak lotan ere ainberze indar egin zue erresistitzeko, ezi odola saltaturik agotik eta sudurretaik, idatzarri ze lotsarriturik klamatzen Jangoikoai... Baña eskriba ta fariseo gaien gisara, kaso ia iteuntenak jendeen begies, ezi Jangoikoarenas, aisa arrapatzentu sekretoan ta pensamentu gaixtoen lekedan infernuko eixtariak. Ia dena, eztu deabru-bearrik eztuenak beiratzen Jangoikoai ta beldur izaten leku guzietan, ezi bera beretako deabru aski da. Erorzea aisa, ez aisa ezauntzea bere gaitzaren gaixtoas. Konfesatzea ongi nekes, nekesago emendatzea on presumituak munduaren begietan, okagarriak Jangoikoaren presenzian; ezpazarate eskriba ta fariseoak baño obeak, dio Jesu Kristok, etzarat sartuko zeruetako erreinuan. Ezin kontaala dire eskarmentuak. Kontatuko dut bat lastimatzen nauena leitzeunten aldioro (Claus. p. 3. Cath. c.2). Austrian ze estudiante bat noblea, humila, modestoa, birtuoso, guzien exenplu ta txoil amablea, ta ala amatzen zue partikularki bere maestruak, baize sazerdote bat. Zue bokazio sarzeko errelijjionean, ta sartu bear zuen bezperan, zelebrazzeko bekala despeida, disponitu zute buratsoek konbita andi bat musika ta danzaeki postrean. Ala, deabruaren inbidias Jangoikoaren festa andienak korronpitzen dire munduko festa urrintzueki, eman dakion deabruari honra ta gasto ia noiz eman bear zen Jangoikoai. Eliza Sandak paratutu mezak, kankak, prozesioak ta solemnidadeak, zeñeki honratu ta festejatu Jangoikoa egun goietan berexki; triposkeriak, banidadeak ta aragiaren konforme diren aleganziak nork nastekatutu? Ikusirik an bear etzirenak, ta gogoan sarturik, joanik guziak nor bere etxera, etzinze ura ere ia despeiturik joateko biramonean nobiziadora. Biramonean, argi zabaldurik, ura ez jaikitzen, bereak esperatzen akonpañatzeko; berantetsirik ia, deitzeunte bere izenas, ura ixil; tiratzeunte besotik, ura geldi sentidoik gabe, itz bates, ilozturik. Pensa jendearen aflikzioa etxe gartan! Zer lastima! Bitarteo, konsolatzen zire pensatus zerura joan bide zela ain gaste ona; aingiru bat ia, ziote. Bai, zauste beira. Xakinik desgrazia bere maestruak, ain maite zuenak, sentitu zue lazki; ezta berze erremediorik, erran zue, noaie aplikatzera meza sandua, por si akaso barin badu arima on garrek purgatzeko zerbaitto. Prebeniturik doaie sakristiarat; idirikir ataria sentitzen du erxten diotela berla; berriz idiki, berriz ertxi, ta ala irur laur aldis. Zer da au? sospetxatzen du dela berze munduko gauzaren bat. Nor da? dio. Jesu Kristoren izenean erresponda nor den ta zer nai duen. Errespondatzen dio triste: Ah! Aita, berorren diszipulo izana naiz, joan den gauean il dena. Sufrajio eske eldu zara? erraten dio ark: inen dizut al guzia. Orduan arimak: Ai, nitas! Deustas ezin balia, nagolaik kondenaturik sekulakos. Sazerdoteak ontara arriturik:

Nola da posible galzea ene mutikorik obena, guzien exenplu zinana ta malizia-gabea? Ark errespondatu zio: Egia da, ez nue galdu bataioko grazia bart-artano; baña bart, beñere ez bekala, emastekien dibersio gartan aiturik ta ikusirik bear etzirenak, gero etzinondoan paraturik imajinazioan, konsentitu nue gauza debekatuan. Loak arturik kontriziosko doloreik gabe, lo negolaik, zainbat lerturik, ito nau odolak ta idatzarri naiz infernuan kondenaturik Jangoikoaren justizias. Au erran ta desapareztu ze. Eskarmenta ez fiatzeko on izatean munduaren alzinean solamente, bai Jangoikoaren begietan, zeñek kondenatzenba gaitu, ezkaitu libratuko niork; eta niork ezkaitu galduko, arzenba gaitu Jangoikoak bere grazian orai, ta gero bere glorian.

Dominica 6
post Pentecostem.
De septem panibus
in via ad vitam

Misereor super turbam, quia ecce
jam triduo sustinent etc. Marc.8.

Egungo ebanjelioa kontatzen du San Markok ala. Zegolaik anitz jende Jesus onareki, ta etzutelaik zer jan, deiturik bere diszipuloak Jaun dibinoak, erran ziote: Konpasionen dut jende gontas, ia irur egun eneki direla, ta ezpaitute zer eman agora; eta bialzen baitut barurik beren etxera, angabetuko dire bidean, ezi batzuk urrundarik etorriak dire. Errespondatu ziote bere diszipuloek: Nondik da posible sustentatzea ainberze jende leku soil gontan? Jaun dibinoak galdetu ziote: Zenbat ogi tuzie? Aiek: Jauna, zazpi. Bere Majestadeak manatu zue jar zeien jendea lurrean; ta arturik zazpi ogiak, graziak emanik partitu zitue ta eman zizkiote bere diszipuloei eramateko jendeai, ta paratu ziote. Bazuste, alaber, arrai txipi ta guti batzuk; ebek ere bedeizioa emanik pararazi tiote alzinean. Eta jan zute, ta ase zire, ta goratuzuste sobratuetaik zazpi esporta, zirelaik jan zutenak laur milla bekala, ta despeitu zitue. Au da ebanjelioa. Entendazeko geuren protxutan arimaren alde, saluta zagun Ama Birjina, logra dezagun grazia. Abe Maria.

Admira lenik orduko jende gaien ansia gure Jaunaren atzean segitus deserturaño, atzendurik gorputzaren sustentuas, ezin apartatus beraganik irur egunen buruan ere (batzuek debozios ta karidades beragana, aditzeagatik beraren itz dibinoak; berze batzuek nezesidades, logratzeagatik osasuna, bista, mintzoa etc.; berze batzuek kuriosidades, ikusteagatik zenbait milagro; berze batzuek agian malignidades, dio San Bizente Ferrerek (S.1. Dom.7^a post fest. Ss. Trinit.), arrapatzeagatik itz batean edo berze. Eta laur milla gaiek, dio sandu berak, zirela kontatu gabe aurak ta emastekiak, baizire agian doble ta erredoble). Admira, alaber, Jesusen onegi, beratx, amorosoa guzien fabore. Niork etzio eskatzen jatera; bere diszipuloek ezeta aipatzen ere; eta bere Majestadea, guzien Aita ona bekala, beterik konpasionen, oroitzen da egiteas piedade ta miserikordia bearrean daudenei. Erakusten zaigu Jesu Kristoren jenio noble jenerosoa, ta beraren konforme izatekos kristioak bear duena izan bere proximoeki, miserikordia ta limosna. Auxe da bere humeen insignia; au daramana berea kontatuko du; au eztaramana despeituko du berzeren bekala. (Jauna, errain du pobreak, nola nai du guk in dezagun miserikordia ta limosna, ezpadugu geurendako bearradiña? Ezta nior iruzkiaren pean ez dezakenik egin miserikordia ta limosna zer edo zer gisas, nai badu. Beñik bein izatea biotzean lastima ta konpasionen beartsuas, nork ez dezake? Ori bai, diote guziek, biotzean bai; bada, limosna da ori ere. Baña biotzean barin bada, mostratuko da obratan; ezperen gezurra da badela biotzean. Obra miserikordiasakoak erreparatus, gorputzarenetaik lenbizikoa da erien bisitatzea ta asistitzea. Ori nork ez dezake, nai badu, pobreenak ere? uste dut nik asko pobre aurkitzen direla anparoik gabe bear ordutan, zeren berek eztuten egin nai dezaketena berzeeki. Egin zozu berzeari nai duzuna in dezazuten zuri. Bigarrena, goseak dagonai jatera ematea. Irugarrena, egarriak dagonai edatera ematea. Laurgarrena, biluxien bestitzea. Borzgarrena, kautiboen erreskatatzea, badezakete askok, nai baute; berze askok ezpadezakete, zenbatek ez dezakete. Seigarrena, pobre ta peregrinoei ostatu ematea. Ta

zazpigarrena ilen orzitzea? Goazen obra miseriakordiasako arimaren edo espiritualeetara. Lenbizikoa, eztakienai erakustea, askok dezakete. Bigarrena, konseju bear duenai ematea. Irugarrena, utsiten duenai korrejitzea, nor da ez dezakenik? Bada, laugarrena, injurien barkatzea. Borzgarrena, tristen konsolatzea. Seigarrena, proximoen faltak pazienziatan eramatea. Zazpigarrena, ilen ta biziengatik Jangoikoari otoitz egitea. Ebek guziok, guziek dezakete nai baute, ta beaute nai izan, logratzekos beretako gure Jaunaren miseriakordia.

bialtzen baitut barurik etxerat, angabetuko dire bidean, zio Jesus onak; eta ala zazpi ogis, emanik bere bedeizioa, egin zue milagroa asetzeas jende gura guzia, pasatzeko bidea aisa. Bide gau da bide duguna eternidaderako. Nola pasatu ongi, ezpa gaitu sustentatzen Jesus onak? Baña lastima dut ene pobrettoes, dio Jaun dibinoak, usten baitut barurik, angabetu, erori ta galduko dire bidean sekulakos. Orgatik gure amores, gure salbatu naies egiten du egunoro milagro gura; zazpi ogis sustentatzen du bere kristiogenea. Ogian entenda sustentu bear den guzia pasatzeko bizi gau sekulako bizitzaraño. Zazpi ogi gebek zein diren, noaie orai explikatzer, estimatzeko ta baliatzeko. Lenbizikoa, ogi korporala; bigarrena, ogi naturala; irugarrena, ogi espirituala; laugarrena, ogi sobrenaturala; borzgarrena, ogi dibinala; seigarrena, ogi sakramental; zazpigarrena, ogi finala. Goazen ia explikatuz bat banaka.

Lenbizikoa, ogi materiala edo korporala, au da, gorputzarena, eta ontan entendatzen da gorputzaren sustentatzeko bear den guzia. Nork ematen digu au, ezpada Jaun ta Aita dibinoak, zeñi erraten diogun Aita gurean, eman drazaguzu egunorosko ogia egun eta beti? Nork ekarrarastentio lurrai fruituak, aleak, animaleak eta gauzak, ezpada gure Aita onak sustentatzeko gu? Nork, berak ezpada, du habilidade gari pikorra lurrean erori ta ilaskeros, formatzeko andik belarra, andik kana, andik burua, andik ainberze gari pikor? Nork, berak ezpada, dezake berdarazi aiena, ekarrarazi panpano, osto, lore ta matsa? Oroat diot berze arboles eta plantes. Eta orra, delarik au ain milagro andia, nola zazpi ogis sustentatzea ainberze milla, eztugu ala admiratzen, ez estimatzen, ez eta ere agian erreparatzen komunkiro, zeren iten baitu kontino, bear ginduelaik orgatik estimatu ia. Portatzen garela dio Frai Luis de Granada benerealeak, ala nola hazienda beltzak, zein, dagokiote bitarte altsaia arbola gañetik botatzen janaria, baitaude aiek arbolain pean jan ta jan murruxkas, goratu gabe buruak ikusteko ongi iten diotena. Ala Jangoikoaren eskus eldu zaigu kontino jaten, edaten, bestitzen duguna; ta memoriaik ere ez emanzealeas! Kontent ezpagindez ofendi bera berak emanikakoe! Ezaundu, bada, ta estima Jaun ain ona, eztena nekatzen emanen merejietzugunei ere, ta otronzetean bedeika maia ta eman graziak kontino, Jesu Kristok erakutsi zigun bekala bere exenpluareki.

Bigarren ogia da ogi naturala, au deitzen dut nik gure biziaren konserbatzea kriatu gaituenak, ezi ezta aski bizi irauteko jatea solamente ta edatea, ezi kuida ezpalez kontino, uz balez bere eskutik instante bates gure biziaren erloju gau, geldi leike, akaba leike instante berean. Eztuzie erreparatu nola pendolain gisara pulsoa dagon pulsatzen kontino? Nola gauden kontino aspiratzen ta errespiratzen atsa barnera ta kanpora? geldi bedi ordu bates edo gutiagos ere, adio gure erlojua, adio gure bizi. Nork segiarazi naiz enpeñaturik munduko podore ta habilidade guzia? Nor da, bada, bizten gaituena? Nor ematen diguna aizea ats arzeke? Nor da paratu duena an goiti, ta ibiliarasten duena kontino iruzkiaren irringola eder gura argitzeko guri, berotzeko ta berze asko on egiteko? Utzirik orai berze infizio bat fabore itentigunak, ta infizio bat peligro debekatzenutenak, sustentatzeko gure biziaren bidrio gau autxi gabe asko denboras. Txoilitsuak gara, ezpadiogu anitz amore ta beldur Jaun soberano garri, zeñen menean gauden ia ezi amaren menean aurra

sabel barnean dagona. Zier to mantenitzea bizirik bere ofendizalea, ar desdixatua Jaun andi garrek, da ezin pondera, ezin erran daiken mertxede a. Zer kosta zekio mendekatzeta ar desdixatuas? Kentzeta bizia; ez ori ere. Aski luke ez ematea. Ta ematen dio ala ere, ta mantenitzen dio. Ez dezoke paga ar desdixatuak, emanik ere pulsaldi adiña atsaldi ta istante adiña esker milla milla.

Irugarren ogia da ogi espirituala arimarena, au da Jangoikoaren itza, diones Kristo berak: Non in solo pane vivit homo etc. Eztela ogis solamente bizi gizona, baita ere Jangoikoaren agoko itzas. Itz gontan entenda Jangoikoak bere Elizai errebelatution egi eta fede guziak. Ezkindekier lurrekoek nola kuadratu Jangoikoai, nola mantenitu arima bizirik ta bizkor Jangoikoaren grazian, nola logratu bizitza sekulakoa; erakutsi digu Jangoikoak berak mintzatus len bere aingiruen, bere sierbo ta profetaen medios, gero bere Seme Jaun Jesu Kristoren personan, orai bere ebanjelio, eskritura sagratu ta ministroen medios. Ia badakigu Jangoikoaren grazias zer sinestatu, zer eskatu, zer obratu, zer errezibitu bizitzeko ta ilzeko ongi. Ia badakigu nola libratu bekatu mortalearen eriotzetik, nola erdetxi barkazioa, nola garaitu demonioa, mundua ta aragia, nola erremediatu bizioak ta pasioneak, subergia, kodizia, luxuria ta gañarakoak, nola sufritu ta konsolatu trabajueta, nola amatu Jangoikoa, nola egin sandu ta fortunoso betikos. Esker Jesu Kristoren doktrinari; ogi ona da au; orgatik zio Jesu Kristok: Ene itzak dire espiritu ta bizitza (Joan 6). Orgatik San Pedrok erran zio berai: Jauna, norengana joain gara, ezpada orrengana? Bizitza eternoaren itzak ditu berorrek (Ibid.). Itz bizi geben birtutes egin dire anitz sandu, anitz mantenitu dire birjin, garbi, eder; anitz il dire martir glorioso, anitz bizi dire konstante bizkor Jangoikoaren grazian erori gabe bekatu mortalean. Beira ia eztiren arimaren ogi ta sustentu ona.

Laurgarren ogia da ogi dibinala, au da, Jangoikoaren inspirazioak arimain barnean, Jangoikoaren deiak ta biotzaren ukimentuak; argi ta su ematea gure espirituai onerako. Ia ezaunarasten digu Jangoikoaren bidea; ia sarzen digu infernuaren beldurtasuna; ia inzitutzen gaitu ta afizionarasten onera; ia paratzen digu pena amoroso bat ta negargale bekatuengatik; ia ematen digu arimo ta indar ez erorzeko tentazioan; ia, inspiratzen digu gana ta gusto, debozio, konsolazio ta alegranzia sana biotz barnean mantenitzeko grazian. Balego bat desganaturik ta erdi ilik, akorri balez norbaitek sustanziaren bateki, ala, dagolarik askotan gure arima erdi ilik, triste, nagi, angabeturik onerako, Jangoikoaren Espirituak bere inspirazioeki bizten ta bizkorzen du; ezperen, ezkara gauza errateko ere Jesus, ez eta izateko ere pensamentu on bat. Orgatik, barin bada gu baitan mogimenturik onera, guzia da Jangoikoaren inspirazios. Ia, beras, ezten arimaren ogi ta sustentu dibinala!

Borzgarren ogia da ogi sobrenaturala, au da grazia santifikantea, arimaren bizitza propia, on guzien zaña, bizitza sekulakoaren prenda, zeñeki doaiena da admititua glorian faltarik gabe. Jangoikoaren grazian ez, baizik desgrazian ilik ta urrindurik bekala Jangoikoaren alzineko dago arima dagona bekatu mortalean; ta orgatik deitzen da bekatu mortala, zeren ilzen baitu iten duenaren arima. Il gau biztea bereganik, dela imposible, klaro da; biztekos biztu bear du Jangoikoak, ofenditua denak. O! Milagro andia da Jangoikoak nai izatea biztu arima il dena bere kulpas! Milagro andia da gloriako Jaun erregeak artzeta bere grazian lurreko ar desdixatua, beraren ofendizalea! Bada, konserbatzeta bat bere grazian, goardatzeta erorzetik mortaleetan, au baita graziaren grazia! Ezi niori eztio zor obligazios; bere borondates iten du ta grazias, eta orgatik ere deitzen da grazia. Zer litzake gutas, ezpaligu nai barkatu ta goardatu bere grazian? Galduak ginazke

sekulakos bigarren eriotzean, baita kondenazioa. Grazia, beras, ogi ona da, ta ogi erregalatua.

Seigarren ogia da ogi sakramental ta sobresustanziala, au da aldareko sakramentuan ematen den ogi bizia, zeruko ogia, aingiruen ogia, erregalo erregalatua gusto on guziak dituen bere baitan, Jesu Kristo bera, ogi dibinoa oratu zena Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras, azi zena beraren bularretako esne birjinalas, ta erre zena gurutzeko eriotze ta pasioaren labea. Aingiruek eta sanduek gozatzen dutena berbera glorian aspertu gabe, gustoaren utses eternidade guzian, eman zaigu bideaskoei bere eskus, bere amores. An, orde, gisaturik ango gisa, emen emengo gisa; an agerri, emen estalian; an gloriako gustos betetzentuela, emen gure disposizioaren ariora. Konparazios, ogi materiala ta naturala dei badaike ala nola irin komunes egina, ogi espirituala irin-flores egina bekala; ogi dibinala ta sobrenaturala esneskoa bekala; sakramentale gau nola deituko dugu? Jesu Kristoren dibinidade ta humanidade, podore ta amore guziaren erregalo erregalatua. Zer gusto, zer probetxu ematen duen ezin daike explika.

Zazpigarren ta azken ogia da ogi finala, au da fin ona, biziaren ongi bukatzea, Jangoikoaren donoen korona; dono andi gura, deitzen duen bekala Elizak (Trid.), ezpadu ematen Jangoikoak, ezin izan gizonak, zeren ezi geurenganik ezpagaizke egon txutirik momentu bates, nola gaizke manteni azken punturaño? Eta artaik egoki pendiente eternidadea! Inkonstanzia da gizonaren faltas, baña perseberanzia Jangoikoaren grazias. Egia da komunkiro San Agustinek errana: Qualis vita, finis ita. Bizia nola, fina ala. Fiel da Jangoikoa, ezpaitu permitituko izan gaitzen tentatuak sufriala baño ia, dio San Pablok (1. Cor. 1), ta inen duela bear dena tentazioan. Jangoikoas fiatu bear gara, baña geuren burues ezin fia. Eskarmentuak gure frajilidadearen tugu denbora ta leku guzietan. Aingiruak erori zire zerutik; Adan ta Eba paraisotik; Judas apostolu izana amabietatik bat Jesu Kristoren konpañian, familian eta maian, andik ere eramane zue deabruak. Santidadearen dorre gora goratuak ikusi dire urraturik erorzen infernuraño. Zer izain da gutas, jaiki erori gabiltzanes? Jauna, lastima bedi gutas, ezpaitugu zereki sustentatu geuren flakeza, ta ustenba gaitu barurik, ezkaizke ellega, faltatuko dugu obenean. Jauna, edo ezdezala permiti agidakigun tentazio andirik, edo sustenta gaiza bere grazia andiareki, ogi finalareki. Persegitzen zue Jezabel erreinak Elias galdu naies; zebila iges Profeta desertuak barna. Nekaturik etzinze lurrean, ta etsiturik bekala eskatzen zue il zeien. Loak arturik, idatzarri zue aingiru batek Jangoikoaren mezu: Ea Elias, jaiki ta jan zazu, ezi bide luzea duzu oraño. Idatzarririk ikusi zue aldakan sutopil bat; au jan, ta onen indarrareki bizkor ellegatu ze Jangoikoaren oianeraño, dio Eskritura Sagratuak (3. Reg. 19). Inzagun geuren aldetik zerbitzatzeko gure Jaunari, ezi Nausi ona dugu; ezkaitu utziko galtzera. Itentu milagroak ere seguratzeko bereak. Ala gu ezipagina sobra errebelak ain Nausi onari. San Polikarpo zar benerealea nai zue apartarazi tiranoak Jesu Kristorenganik; blasfema zezala erraten zio ark. Baña sanduak errespondatu zio ederki: Lauretan ogei ta sei urte du zerbitzatzen nagola Jesu Kristori, ta bitarteo beñere eztida egin gaizkirik, baizik anitz ongi; nola nai du orrek orai uka dezaten nik ta blasfema dezaten ene Jangoiko ta nausi Jauna, ainberze fabore in didana? Orgatik konsziente eman zue bere bizia. Ditzoso ura, ta ditzosoak gañarakoak pasatu dutenak fiel konstante bide gau Jangoikoaren zerbitzutan; eztute urrikirik, ia seguraturik betikos daude gozatzen nauten guzia eternidadeko glorian.

(Perseberanzia konstantearen enenplu anitz, bizi luze trabajus betean paratutigu Jangoikoak, gaudengatik firme onean. Guzietatik bat aizagun. San Antonio Abadea

emezorzi urtetaik alzina bizitu ze monje penitenzian ta santidade andian. Ia zegolaik lauretan ogei ta amar urtetan, Jangoikoaren permisios gogoratu zekio ote zen nior berak adiña denboras zerbitzatu zuenik gure Jauna. Bazela bat errebelatu zio, ta bear zuela joan arren billa eremu gaietan. Berla biramonean asi ze joaten zar benerablea nora etzekiela, fiaturik Jangoikoan. Luze da kontatzea guzia, solo erraintut prinzipalenak. Irugarren egunean aurkitu zue San Pablo bere kueban. Besarkaturik elkar, ta salutaturik beren izenes, erran zio San Pablok: Ona non duzun billatu duzuna ainberze trabajureki; ona gorputz gau ia zarrain utses erorzera doaiaena, ta auts biurtzera. Berze konbersazio zenbait pasaturik, galdetu zio San Antoniok nola izan zen arren etorzea ta egotea leku gartan ainberze denboras. Kontatu zio San Pablok nola amaborz urtetako adinean erretiratu zela kueba gartan, non aurkitu zuen palma bat ta iturri bat; kuadraturik lekuas gelditu zela an sustentatus palma garren fruituas, ta bestitus arren ostoes, apartaturik munduko jende ta gauza guzietatik, baña konsolaturik Jangoikoaren faborees. Eztio berak, baña pensa zuek zenbat trabaju zen preziso pasatzea gizon batek leku soil gartan bakarrik uda ta negu, gau ta egun gabeturik gauza guzies! Ala dagolaik kontatzen, etorri ze otsorrai bat an ta utzi ziote alzinean ogi bat. San Pablok erran zio San Antoni: Biz bedeikatua gure Jauna sines piadosoa, sines misericordiosoa, biali baitigu bazkaria. Iruogei urte du ekarzen didala ogi-erdi bat; egun zure ongi etorriareki dakarra doble. Graziak emanik jan zute ogi gartaik biek, eta edan zute iturritik; gero pasatu zute gaua orazioan. Biramonean San Pablok erran zio: Banekie, Antonio, bizi zinala desertu gebetan; ofrezitu zida Jesu Kristok etorko zinala ene bisitatzera, ta orai biali zaitu orzitzeko ene gorputza, ordu baita doaien ene arima ene Jaunagana. Emen asi ze negarres San Antonio, etzezala utzi, baizik eraman bereki biaje gartan. Konsolatu zue San Pablok errateareki utzi zeuela Jangoikoaren eskuan ta zoeiela konbentura ekarzera San Atanasiok eman zion mantua inguratzeko arren gorputza. Au zio, ez zergatik zekion deus orzitzeas nolanai, baizik etzezan senti ainberze arren iltzea. San Antoniok, ez egoteareki presente. Arriturik au aditzen zionas, itzuli ze prisaka, ta konbentuan galdetzen ziotenei nondik eldu zen, errespondatu ziote: Ai ni bekatarias, baitut errelijiosoaren nonbrea solamente. Ikusi dut Elias ta San Juan Bautista desertuan, eta egiaz San Pablo paraisoan. Eta arturik manto gura, atzendurik sustentuas ta guzies itzuli ze bide beras prisaka beldurrak il zekion bitartean, nola agitu baize, ezi joaterakoan ikusi zue Sanduaren arima igaten zerura beterik glorias. Gero, ellegaturik, orzi zue gorputza leku berean bi leonek aztaparres in zuten zulo batean; eta arturik herenziatako San Pablaren tunika, palmaren ostos egina, esporta baten gisara eraman zue bereki, ta jai andietan paratzen zue gala andia bekala. Ilze San Pablo egun ta amirur urtetan; biziturik lauretan ogeita emezorzi bizimodu gartan. Eta San Antonio egun ta borz urtetan. Exenplu animatzeko sanduak perseberanziara, ta alkaizun guretako. Bigu Jangoikoak grazia ellegatzeko nolapait bere glorian. Amen.

Dominica 7
post Pentecostem.
De christianitate verâ,
vivâ, sanâ, firmâ

Attendite â falsis profetis, etc. Math.7

Egungo ebanjelioan kontatzentu San Mateok Jesu Kristoren itz propioak, bere aos, bere Majestadeak erran zituenak desengañatzeko mundu guzia, nai badu izan salbo. Lentxago erranik, zabala da ataria, ta lazoa bidea daramana perdiziora, eta anitz dire doazinak ordik. Zein mear den ataria, ta ertxia bidea daramana bizitzara, eta guti dire aurkitzen dutenak. Itz geben gañetik tio egungo itz ebek: Goartu zaiste profeta falsuetaik eldu direnetaik zuengana ardi-gisa jaintsirik, edo ardi-iduri gañetik, baña barnetik dire otso arrapariak. Beren fruituetaik ezaundukotuzie. Agian aranzeetaik datozi matsak, edo larretik bikuak? Ala arbola onak dakarcki fruitu onak, ta arbola gaixtoak fruitu gaixtoak. Ez dezazke arbole onak eman fruitu gaixtoak, eztare arbole gaixtoak eman fruitu onak. Fruitu onak ematen eztuen arbola ebaki ta botako da sura. Orra, bada, beren fruituetaik ezaundukotuzie. Eztire sartuko zeruetako erreinuan guziak niri erraten didatenak Jauna Jauna, baizik ene Aita zeruetan dagonaren borondatea iten dutenak, ebek sartuko dire zeruetako erreinuan. Segitzen du Jaun dibinoak seguratus, ezi naiz milagroak eta prodijioak egintusten asko despeitukotuela bereganik ordu gaixtoan, eztituela nai ezaundu bereak bekala gaixtakeri-egilleak. Zein klaro eder konparazio gebeki erakusten digun salbazioko bide erreala! Ikasteko ongi, goazen aingirureki salutatzera Ama Birjina. Abe Maria.

Beñik bein zerurako bide erreala nondik den, eztu ia zer galdegin kristioak, ezi erakutsi dio profeta egiaskoak, ezin engañadaikenak, ta ezin dezakenak engaña, Jesu Kristok andik etorri zenak, itz gaieki: Egiteuntenak ene Aitaren borondatea, aiek sartuko dire zeruetako erreinuan. Beras egitea Jangoikoaren borondatea da zerurako bide erreala. Zer dakigu ordea guk zein den Jangoikoaren borondatea, edo zer nai duen gureganik Jangoikoak? Deklaraturik dauka bere legearen mandamentuetan, ebanjelioan ta Eskritura Sagratuan. Ezta ain klaro xakiteko, zergatik deitzen duen bide ertxia; eta dirudi bide bat, alakoa ta ain preziso dena, konbeni zela izatea bide zabala; eta eztio ori, baizik infernurakoa zabal, ta zerurakoa ertxi dela. Nainuke entendatu nik au, ta entenderazi nola den. Elizako doktorak, zeñen doktrina Elizak deitzen baitu zeruko doktrina, diot, Santa Teresak atrako gaitu difikultade gontaik. Bere biziaren 35 kapituluan dio amorosturik Jangoikoas: O ene Jauna, nola den ezaun poderoso dela! Ezta billatu bear arraziorik orrek naiduenerako, ezi guk entendaala baño ia itentu posible gauzak, adiarasten digulaik klaro, eztela berzerik bear, baizik amatu berori sines, eta guzia utzi gogotik berorreatatik, aisatzeko guzia berorrek. (Ongi eldu da emen erratea, iduriarasten duela neke edo trabaju bere legean, ezi nik eztakusat nekegoi, Jauna, ta) eztakit nola den ertxi bidea daramana orrengana. Bide erreala dakusat dela, ez bide-xenda; bide bat zeintan sines asten dena doaie seguroago. Urruti daude pausu gaixtoak erorzeko, zeren okasioetaik dauden apart. Bide-xenda, ta txarra, ta kamio ertxia deitzen dut nik kontrako bidea: alde bat leze barna barna bat nora erori, berze alde burusbera bat irristakor, deskuida daitzeneko erorzen baitire ta galzen. Nork amatzen duen berorren Majestadea sines, egiaz, o ene ondasun

guzia, ura doaie seguro, bide zabal errealas doaie, urruti dago burusbera andik. (Tropezu iduri bat dueneko, edatzen dio berorrek eskua; ez dezaket entenda zeren beldur diren paratzeas perfekzioaren bidean. Berorrek entendarazi bezagu zein seguridade txarra damaten doazinak jendearen arira ainberze peligro klaroen ertean; eta dagon seguridade egiaskoa prokuratzean segitzea alzina Jangoikoaren bidean. Para begiak Jangoikoan, ezi ezta zer beldurrik izan faltadakigun iruzki gau ibilzeko ilunbetan ta galzeko, ezpadugu geurek usten bera lenik. Eztire beldur ibiltzea leonen ertean, baitire munduko zebo galgarriak, eta Janoikoaren bidean paratzen diote deabruak beldur itxura-penes etc.). Guziok dire sandaren itzak; ebetaik ageri da zabal, eder, aisa ta gustoso iduri zekiola Jangoikoaren bidea; kontra, berriz, mundukoena ertxi ta nekoso.

Jesu Kristok ere berze leku batean (Joan 14) dio: Ni naiz bidea, egia ta bizitza; nior ezta ellegatzen ene Aitagana, ezpada ene medios. Eta berriz (Joan 10): Ni naiz ataria. Ene medios sarzen dena salbatuko da. Ni etorri naiz logradezatengatik bizitza, ta logra dezaten abastoki. Eta berriz (Math. 11): Zatoste enegana trabajutan zausten guziak ta kargaturik, eta nik deskansatukozaistet ta bizkortu. Ar zazie ene bustarria zeuren gañean, ta aurkituko duzie zeuren arima indako aisura, zeren ezi ene bustarria da suabe, ta ene karga arin. Bustarri ta karga gau dela bere legea, klaro aski da; lege gau dela zerurako bidea da ere klaro; baña ezta ain klaro diona: aixtean ta orai, aixtean dela ertxi ta mear, orai suabe, arin, aisa. Nola entenda? Ala: Jangoikoaren amanteendako da suabe, aisa ta gustoso ere; munduko apasionatuendako da latz, ertxi, nekoso. Aski da amatzea Jangoikoa, dio Santa Teresak, aisatzeko guzia berorrek. Zatoste enegana, dio Jesu Kristok, eta nik deskansatukozaistet. Orai bada Jangoikoaren bidea Jangoikoaren amazaleendako da aisa, zeren berak bere graziareki laguntzen dioten. Orra lenbiziko arrazioa. Ezin saxis dago karga aur bat; lagun bezo jigante batek; aisa darama ia. Bigarren arrazioa da dioten amorea Jangoikoai, ezi amoreak suabetzen du dena latz. Karro bat doaie gogor ezin joanes arroituketan; untatu olios; legundu ta zaluituko da. Olia da amore; ama zazu sines Jangoikoa, ta aisa tiratukouzu bere legearen karroa. Zer diot aisa? Boladan airean doaz Jangoikoaren amazaleak, zeren arimaren egalak dauzkiten arin desenbarazaturik lurreko pasioneetaik. Ta orra irugarren arrazioa. Zer milagro da bidea zabal iduritza alakoei, doazilaik airean gora? Arimaren egalak dire entendamentua ta borondatea, ebek egatzen dire Jangoikoaren amore ta beldurtasunareki. Orai bada, zergatik bide bera da nekoso mundukoendako? Zeren bekatuen kasos indar guti duten onerako, ta eztuten mereji lagun dezoten ainberze Jangoikoaren graziak. Zergatik zaiote latz? Zeren falta duten amorioaren olia. Zergatik zaiote ertxi? Zeren nauten zerura joan beren pasione ta bizioeki soñean, ta ala ezin pasa. Orra zergatik doazan guti bide gontaik.

Attendite â falsis profetis etc. Goartuzaiste profeta falsuetaik, dio. Alakoak dire falsedadeen, engañuen ta gaixtakerien erakustunak. Ardi-gisa jaintsirik, ta direla barnetik otso arrapariak. Otso-jenero gaixto gaixtofikatua da au: otsoaren ortz, indar ta gosea; guzietan izan otso, ta ardi iduri! Jangoikoak goarda alako otsoetaik. Balire otso figuran ere, ez litzake ain gaixto; oi u iteareki artzaiek, aunka tzakurrek, agian eskapa leizke ardiak. Baña orai ardi iduritzeareki, urbilduko zaizkiote ardiak berak, usten diren ardi lagunak. Nor ote dire otso gebek ardi-gisa? Ardiak ebanjelioan deitzen dire Kristioak, eta prinzipalki onak. Ardiaren ellea, bestimenta edo iduria gañetik da kristioaren izena, ta onaren opinionea. Beras, eldu direnak kristio direlako atxekian, nola erejeak, edo onak usten diren lagun gaixtoak erakustera falsedadeak, engañuak ta gaixtakeriak, oriek dire otso galgarriak. Libertade, libertade pregonatzen dute; libre suelto bear dugu, diote.

Goartu, dio Jesu Kristok. Barin bada Jangoikoaren humeen libertadea, ori ordu onean dela. Zer libertade da ori? Libre bizitzea pasioneen, bizioen ta bekatuen presidiotik, zeren ezi prisione ta katea batzuk bekala dire pasioneak ta bekatuak. Preso daude, ta prisionero deabruaren apasionatuak eta bekatariak. Preso dago suberboa ta banoa munduko ponpa ta banidadeen amores. Preso dago kodiziosoa diruen ta ondasunen goses. Preso luxuriosoa aragiaren, golosoa triparen, asarrea iraren, alfer nagia bere ganaren prisionees. Ia eztauden preso diotelaik kargu iten diotenei, nainuke, baña ez dezaket erremedia. Alako pasioneetaik libratuas alegre kantatzen zue Dabidek (Ps. 115): Jauna, berorrek autxitu nere parisioneak; berorri ofratuko diot alabanzaren sakrifizio. Baña libertadea barin bada soltatzea Jangoikoaren legearen bustarritik, ori da infernuko otsoaren lana atrazeko Jangoikoaren bide ertxitik bide lazora perdiziorako. Goartu profeta falsuetaik, naiz datozin on iduris, dio Jesu Kristok. Naiz xakintsu iduri, naiz aide, naiz adiskide, naiz lagun, dena dela, otso da ardiaren elles jaintsirik. Naiz begia bezain, naiz oin ta eskua bezain preziso estimatua duzun, atra, ebaki, aparta, dio Jesu Kristok. Obe duzu oriek gabe sartu zeruan, ezi ez oien kasos galdu infernuan (Math.18).

Nola ordea ezaundu alakoak? Badio bere Majestadeak: Beren fruituetaik ezaundukotuzie. Eztu ematen larreak mats, ta ez biku maldak. Arbola onak fruitu ona dakar, gaixtoak gaixtoa. Eztire aski loreak eta ostoak; egon beira fruituei. Loreak dire mostra onak, ostoak itz onak ta errezuak, fruituak obra on, birtute egiaskoak humildadea, kastidadea, karidadea, pazienza, obediencia etc. Ezta ere aski ez ematea fruitu gaixtorik iduris; ezpada fruitu ona sines eta egiaz, ebaki ta botako da sura. Ezta ere aski erratea Jangoikoai Jauna, Jauna. Zer adiarazi nai du ontan? Ez fiatzeko debozio, errezu ta elizako gauzetan ere; ez konfesatze, komekatze ta alakoetan ere, baldin personaren kondizioak, akzioneak eta kostunbreak ezpadire konforme. Zer ia? Milagroak ere egitea eztela aski seguratzeko personas. Askok errain didate egun gartan, dio bere Majestadeak, Jauna, Jauna, berorren izenean profeziak errantugu, demonioak botatugu ta anitz prodijio obratutugu. Eta nik errespondatuko diotet orduan: Etzaistet beñere ezaundu; apartazaiste eneganik obratze duzienak gaixtakerian. Orai bada, dio Kristo berak, nork ere aditu ta egitentuen nere errana, da ala nola gizon bat xakintsua fabrikatzen duena bere etxea arri edo peñaren gañean, ta naiz etorri erauntsiak, ugaldeak, aizeak arren kontra, ezta erori, zeren fundaturik dagon arriaren gañean. Baña aitu nere erranak ta eztituena kunplitzen da gizon tontoa bekala, in duena bere etxea arearen gañean, ta erauntsi, ugalde ta aizeeki erori baita. O zein sendo naituen Kristok bere kristioak! Videbam Satanam etc (Luc. 10). Etorri zekizkio bein bere diszipuloak gogos beterik, ziotela: Jauna, orren izenera demonioak ere sujetatzenaizkigu. Jaun dibinoak errespondatu ziot: Beira nindego erorzen Satanas zerutik ausnarria bekala. Nola erran balez: Goartu etzaisten erori goratik, erori zelaik ura zerutik. Ez alegra sobra, zeren duzien potestade andia, bai zeren zuen izenak dauden eskribiturik zeruan. Gizonen ta aingiruen mies mintzatzen banaiz ere, zio San Pablok (1 Cor. 13), eta ezpadut karidaderik, naiz ala nola ezkila edo txintxa soñatzen dena. Barin banu ere profezia ta xakintasun guzia, ta ainberze fede, aldanezazken oianak leku batetik berzera, ta karidadeik ez izan, ez naiz deus ere. Eman banez ene ondasun guzia, ta naiz utzi gorputza ere erretzera suan, ta ez izan karidaderik, etzaida deus balio). Karidadea da amatzea Jangoikoa, ta orgatik kunplitzea manatzen duena. Ontan dago guzia. Au da zerurako bidea, eta doaiena bide gontaik sinki, egiaz, konstanteki, ori da salbo; nior ez berze gisas, naiz mundu guziak, naiz aingiru batek zerutik etorririk erakus balez kontra (Ad Galát.1).

Baña ez aingirua zerutik etorria, baizik zerutik botatua baita deabrua, da erakusten duena Jangoikoaren legearen kontra. Baitu Jangoikoak munduan bere ministroak erakusteko bide ona; baitu deabruak ere bere lagunzaleak erakusteko gaizkia, dio San Agustinek. Jangoikoak onen medios iten du on den guzia, deabruak gaixtoen medios gaisto den guzia (S. 85 de temp.). Eta berriz dio (S. 160 ib.): Kristoren mienbroak iten dire deabruaren aingiru. Nola berak baitire deabruaren, naituste eraman berzeak ere. Baña ori da billatzea ez kulparen patrono ta librazale, baizik penatan lagun (Ib p. 49), ezi niork ezin dezake defenda kondenatzen duena Jangoikoak. Deabruaren fuellajeak edo auspoak deitzentzu San Jemininok erakustun ta konsejari gaixtoak (Claus. p.4 cath. c. 36). Eta ala nola Jangoikoai indakioken zerbitzu ta gustorik andiena baita ontzea arimak, ta ori estimatzen ta premiatzen baitu ongi bere Majestadeak, ala disgusto ta agrabioik andiena da gaixtatzea berzeak, eta ori kastigatzen du agitz bere Majestadeak. Pensa nolako premia bide duten zeruan San Franzisko Xabierek, San Bizentek ta berze gizon sanduak enpleatu zirenek konbertitzen arimak! Pensa zer kastigoa duten Luterok, Kalbinok ta berze erakustun gaixtoek! Zego bat ilzerakoan klamatzen desesperaturik: Ni banoaie infernura, baña ai engañatu ninduenas S. Petrus + exenpl. Cantinpr. ap. Cl ib. c.35). Goartu profeta falsuetaik, dio Jesu Kristok etc.

Dominica 8
post Pentecostem.
De reddendâ ratione,
et praeveniendâ

Homo quidam erat dives, qui habebat villicum etc. Luc. 16.

Egungo ebanjelioan dio ala Jesu Kristok: gizon bat ze aberatsa zuena administrazale bat. Ontas kontatu ziote desegin zitiola beraren ondasunak. Deiturik beregana erran zio: Zer da zutas erran didaten gau? Emazu kontu zeure administrazioas, ezi ia ez dezakezu administratu. Ark zio bere baitan: Zer inen dut kentzen baitida nausiak administrazioa? ez dezaket landu lurra; alkezen ibiltzeas eskean. Badakit zer egin admiti nazaten beren etxeetan, botatzen nauelaik nausiak. Deiturik zordunak banaka, erraten zio bati: Zenbat zor diozu ene nausiari? Ark: Egun kantaro olio. Tori eskritura, direla berrogeitamar. Berze bati erran zio: Zuk zenbat zor diozu? Ark: Egun erregu gari. Tori balea, izan daitzela lauretan ogei. Eta nausiak laudatu zue arren habiltasuna bere alde. Nik ere zuei erraten diziet, eginzkizie adiskideak zeurendako emengo ondasun txarren medios, orreki errezibitu zaizaten bizi leku eternoetan, akabatzenaizielaik emengo itekoa. Orra ebanjelioa; entendatzeko bear dugu grazia. Ortako saluta zagus Ama Birjina. Abe Maria.

Gizon aberats gura dela Jesu Kristo bera daike entenda, ezi naiz bizitu zen pobre-gisa mundu gontan, da gauza guzien Jaun ta jabe. Administrazale gura entenda kristio bakotxa, zeñi emantion administrazioan ala gorputzaren nola arimaren ondasunak: memoria, entendamentua, borondatea, mia, begiak, bearriak etc; baitare elizako gauzak: fedea, doktrina, sakramentuak etc. Badaki nork eta nork malogratzentuten. Emazu kontu zeure administrazioas, dio. Au da deitzea bere juiziora, biziaren akabanza. Bitarteo administra ongi, dio; trata, goberna ongi nik emanikako hazienda; ez utzi galtzera, baizik irabazi artas. Zenbat urte edo denborarako? Nik deitu arteo kontuetara, dio; eztut deklaratu nai plazoa noiz beteko den, eztaien nior deskuida; agian lenago, agian berantxago etorriko naiz, ta uste eztuzien orduan, qua horâ non putatis; agian gastezutuan, agian zarzutuan, agian adinik obenean; ez berantegi, ezi laburra da biziaren plazoa, eta zenbatenas bekatu ia, peligro da datorren eriotzea lenago, ezi eriotzearen akulloa da bekatua, stimulus mortis peccatum est. Beira nola portatzen zaren gastezutuan, beira berze adinetan, ezi guzietas eman bear da kontu, ta ain presente egoin da len egina nola azkenekoa; por konsigiente, faltazen bada batean edo berzean, suplitu bear da gero falta gura. Beti da obligazio trabajatzeko; faltatu barin bauzu len, orai trabaja doble, oraiko ta lenagokoain partes. Ia, beras, o zenbat gaizken beldur izan nor bere administrazioas, irabazi bearrean galdu duela? Zer izain da, erraten badio nausiak berla gutaik bati: Emazu kontu zure administrazioas, ezi ia ezta ia denborarik.

Job sanduak, Jangoiko beraren agos laudatuak, zio ikar ikar: eldu delaik kontuen artzera ene Jangoikoa, zer inen dut? galdegiten didalaik, zer errespondatuko diot? nai badut kulpatu nere burua, galduko naiz neure agos. Daike agian atra justo gizona Jangoikoaren aldean? Edo garbi agertu jaio dena emastekiaganik? Nork dezoke erresponda millaendako bat? Dabid profeta errealek zio: Jauna, eztadiela paratu juizioan ta justizian bere sierbo goneki, zeren nior ezta atrako guzis justo orren presenzian, ezpadio egiten grazia. San Pablok zio: Deustas eznau erreprehenditzen nere konzienziak, baña

alaere eznago seguraturik, zeren juzgatu bear nauena da Jangoikoa. San Hilarion zego beldurrak ilzerakoan, erraten ziola bere arimai: atra zaite ene arima, zertas zara beldur? Iruetan ogeitamar urte ia zerbitzatu diozu Jesu Kristori, ta zara beldur eriotzeas? San Geronimok kolore-gaizturik penitenziain beldurrain utses zio: Nagon jaten, nagon edaten, nagon edozein gauza egiten, iduri zaida beti dagokidala soñatzen bearrira tronpeta gura: jaiki ilak, ta zatoste juiziora. San Juan Krisostomok zio: Ai nitas egun ikaragarri gartan! Ezi oroitzen naizen aldioro, ikaratzen naiz ta negarres suspiroka asten naiz. San Agustinek dio: Ain lotsagarria izain da egun gura, ezi aingiruek ere izain dute beldur. San Gregoriok dio: Justoek iteuntan guzian direla beldur, xakinik nolako juezaren alzinean bear diren presentatu. Zer in bear du kanabera flakoak, ala ikaratzen direlaik kolumna firmeak? Zer nere ta zure beldurra, diolaik, onat kontuetara? Redde rationem.

Plazoa kunpliturik, pasaturik denbora, ongi guti, gaizki sobra, ertxirik ataria, ia ezin itzuli gibela, egina egin, ta ia ezin erremedia! O nola nai ginduken orduan bizitua sanduen gisa? O nola nai ginduken utzi emen bekatuen kontrabandoa? Baña gureki joain dire geuren obrak, onak eta gaixtoak, nai badu ezpadugu. Bakotxak ermako du bere karga, dio San Pablok, ta azaroain ariora izanen du eraizioa. Emen geldituko dire gorputza, mundua, emengo ondasunak, banidadeak, eta gauzak; baña gure obra, itz, afekto, pensamentu ta omisione guzi guzien fardoa gureki presentatuko da an. Geldizaiste or, dio; baña aiek errain diote mintzatus bekala guziek batean, San Bernardok diones: Zuk in gaituzu, zureak gara, etzaitugu utziko, zureki goaz juiziora. O zer altxatu naia alako ta alako gauza gura, ta ezin altxa! Bat batean agertuko da Jangoikoaren argira gure biziaren tela guzia desplegatutik ain klaro nola sala bat emateareki guzitik iruzkia. Ona persona gau ta onen bizi pasatua. Oh! Zein ertxi aurkituko den an, emen lazo nolanai bizitu zena! Goiti Jueza sebero, beiti idikirik infernua; alde batetik bekatuak akusatzeuntela; berze aldetik demonioak tirrikaturik erman naiak; barnetik konzienziak erremorditzen, kanpotik arrazioak konbenzitzen, akabaturik denbora asten betiko eternidadea, ia ezin erremedia. Nora joain da bat? Ezin eskapa, ezin altxa, ah! zer propositoak an, bagindu orai dugun eskaida! Baña an nai duelaik ez dezake, zeren nai ezpaitu emen dezakelaik erremediatu.

Egungo administrazale gark zio, etzela gauza lanzeko lurra, alketzen zela eskazean ibiltzeas. San Bizente Ferrerek lanzeas lurra entendatzen du penitentzia, kastigatzea gorputz lurrekoa; ta ibilzea eskean, orazioa, baita eskatzea Jangoikoaren, Ama Birjinaren, aingiruen ta sanduen atarietan. O zenbat alako atxekia, ez dezaket in penitentzia, eznaike barutu, eztakit orazio egiten, alketzen naiz konfesa komekatzera maizago, berzeak ez, ta ni bai; nola nai du? Bitarteo bekatu egiteko guziok goapo, ori nornaiek dezake, habilidadegoi guziek dakite, ta asko ezta alketzen ere ortas, bentzait ez Jangoikoas eta aingirues. Nola inen da bada? Ark egin zuena izan ze gutitzea zorrak, egun zor zuena utzi berrogei ta amartan, ta laurogeitan. Ario gontara nolapait injeniatu bear dugu. Bizpiru gisatara okurritzen zaida. Badaki dakienak Aita gurea gure zorrak Jangoikoai direla bekatu eginak, ezi orgatik dio an: Barkadazkiguzu guri geuren zorrak etc. Orai, bada, ez solamente gutitzeko, baita ere kentzeko arras zor gebek lenbiziko modua da konfesatzea ongi dolore ta proposito sinareki; eta ainberze daike izan kontrizioa, ezi arren indarres ez solamente kulpak, baitaere penak barka dakizkion bati. Bada, praeoccupemus faciem eius in confessione; zorretan erori garenok alzina gaitzen konfesatzera geuren Nausiari. Neke iduri zaizu? Ortako barkatzentizu Jangoikoak zor andiak ere. Eta nork barkatzentu bere arzeakoak, solamente konfesatus zordunak bere zorrak? Neke iduri zaizu? Nekeago izain da pagatzea infernuko penetan eternidadean. Neke iduri zaizu? Bada konfesatzea duzu

dela emen, dela an, emen iten bada ongi, an libre da; emen ezpada egiten, an konfesatuko duzu; guziek xakineunte zure berri. Ala ez solamente juizioan aingiruen presenzian, baitare infernuan daude oius erraten beren bekatuak debalde; eta mundukoei ere aparezitu direnek deklaratu tiote bekatu emen utzizustenak alkes.

Berze injenio bat gutizeko zorrak da errealki gutiago bekatu egitea, konfesatuaskeros; len bazire egun, ia eztirela baizik gorenas berrogeitamar; intenzios batez, baña errealdadean ere eztaiel a gi ainberze nola len; geroago ta gutiago. Ezpada guzis libre, benzait arindu zorrak libratzeko guzis azkeneko. Berze injenio bat deskitatze ko da diona Jesu Kristok, facite vobis amicos de mammonâ iniquitatis; egitea limosna beartsuei, ezi firmaturik dauka eskrituran gure Nausi onak, pobreai iten zaiona berai iten zaiola, quod uni ex minimis etc. Ta berak arzen duela kontu onean, baña nola? Bat eman ta konta egun, centuplum accipietis. Usura ta irabazi andixkoa da au, ta lijito ez ezi agitz Jangoikoaren gustokoa. Zenbat beartsu erremediatzentuzun, ainberze adiskide an ta testigo atrako direnak zure errezibitzera ta alegatzera zure fabore aiei emana. Oh! Zer injenioa deskitatze ko ez ezi aberasteko ere Jangoikoaren presenzian. Zein urruti dagon pobretzetik nior egines limosna! pobretzen da ajola guti egines zorren pagatzeas, sobra eman es tripai ta soñai, gutiegi aplikatus lanera ta gobernu onera, baña ezta pobretzen eman es nori berea, ta pobreaki bear duena. Baña nola egin limosna eztuenak? Ezta nior eztuenik egiteko limosna zer edo zer gisas. Amalaur dire obra miseri kordiaskoak, batzuk arimaren, berze batzuk gorputzaren, eta guzia da limosna deskitatze ko tugun zorrak Jangoikoai. Oroat diot gañarako obra ones, eta prinzipalki sufritzeas trabajuak Jangoikoaren amores, balio digutela anitz emen ango kontuetarako, nor bagara.

Baña kontuetan ongi atratzeko mediorik obena da juntatzea geuren pixkak Jesu Kristoren merejimentu infinitoeki. Aux e da medianero bakarra Jangoikoaren ta gizonen artean. Jesus deitzen da ta Salbazalea, zeren salbatzen duen bere jendea beren bekatuet a ik. Bekatuak direla ik Jangoiko andiaren ofensak, etze posible ematea aietas satisfakzio gizon utsak; bear du izan Jangoiko ta gizon batean; alakoa da Jesu Kristo. Atra ze fiadore ta pagadore gure partes; eman zue satisfakzio abasto; bere odol tanta batek balio duela ik infinito, anitz odol ixuri zue. Ia, bada, kostua inik dago; ezta baizik baliatzea, ofrezitus Jangoikoai Jesusen pasio ta odol prezioso a, ta beragatik eskatu barkazio. Jauna, nik eztut mereji deus onik; mereji du ene partes Jesus onak; beragatik beraren pasio, eriotze ta odol preziosoagatik, beraren borz llagaengatik in bezada niri grazia ta miseri kordia. Justizia bearbada egin ene bekatues, egin ze aski ta sobra jesu sen baitan ene partes. Para balan zan ene kulpak ta beraren penak, ia pizatuko dute ebek ezi aiek agitzes. Jesusen kostus biz salbo bekatari gau. San Bernardo presentaturik bein Jangoikoaren juizioan bisione batean, akusatzen zute demonioek andik eta emendik galdu naies, etzeien izan admititua gloriako erreinuan, etzuela mereji. Sanduak errespondatu zue: Nik egia da eztutela mereji; baña ene Jaun Jesu Kristok mereji du bi dretxos ta titulos: bata da, zeren baita Jangoikoaren Semea, Jangoiko, gloriako errege, Jaun ta jabe naturalezas; berzea da, zeren irabazi baitu gizontasunes bere pasio, eriotze ta merejimentu infinitoeki. Bera kontentatzen da lenbiziko tituloas; bigarrenas iten dida niri donazio. Onen atenzios eskatzen dut grazia ta gloria. Erran zueneko joan zire iges etsai madarikatuak. Kalbarioko oianean zego guruzifikaturik ladron bat Jesu Kristoren saietsean. Jauna, erran zio, oroi bedi nitas, doaiela ik bere erreinura. Jaun dibinoak agotik agora errespondatu zio: Sines egia erraten dizut, egun berean eneki izanen zara paraisoan. Zein fite borratu zion bizi guziko kontua Jaun dibinoak! Nork eztu konfiatuko Jesusen baitan? igan zela ik zeruetara Jaun dibino a, erran

ziote despeidan bereei: eman zaida potestade guzia zeruan ta lurrean, usteko animaturik eta konfiaturik eztituela utziko galtzera bereak, ta dezazkela salba, eta nai ere duela. Onen señaletan orai berean dagolaik jarriarik Aita eternoaren eskuietako aldean, dauzka patente bere borz llogen kuntzeak, eta gauzki eskribiturik bekala gu bere oin, esku, ta bularrean, oroitzeko beti zenbat kostatu gaizkion, ta presentatzeko bere Aita eternoai gure salbazioaren prezioa, guk faltadugunain partes. Ia, bada, erratendigulaik gure Nausi soberanoak: Emazu kontu zure administrazioas, redde rationem, in bear duguna da konfesatzea gure faltak, baña alegatzea gure fabore beraren miserikordia ta Jesu Kristoren merejimentuak. Orgatik Elizak, doaielarik ilaren eske gurutzeareki, konsideratuz bekala Jaun soberanoa kontu artzen arimai, lenbiziko kantatzen dena da au: siniquitates observaveris Domine etc. Jauna, kontu artzen badu ertxiki gure gaizkies, nor daike libra? segitzen da gero eskatzen barkazio, quia apud Dominum misericordia etc. Zeren gure Jauna baitan miserikordia ta abasto erredenzione baita. Orren kasos eman dezagula barkazio, grazia ta gloria. Amen.

Dominica 9
post Pentecostem.
De lachrimis et causis 6

Videns civitatem flevit super illam etc. Luc. 19.

Egungo ebanjelioa kontatzen du San Lukasek ala. Urbil Jerusalem zoaielaik Jesus, beiratus ziudade gura egin zue negar onen kasos, ziola: ezaun bazindez zuk ere egun gontan zure onerako dena; baña orai altxaturik dago zure begiendako, zeren ezi ellegatuko dire egunak, noiz inguratuko zaituten zure etsaiek, ta ertxituko alde guzietatik, ta urratuko zaitute lurreraño, ta eztute utziko arririk elkarren gañean, zeren eztuzun ezaundu bisita elduzaizunaren eskaida ona. Gero, ellegatu zelaik tenplora, asi ze botatzen an zeudenak saltzen ta erosten, ziola: Eskribiturik dago, nere etxea dela orazioaren etxea; baña zuek egin duzie ladronen kubila. Eta zego egunoro erakusten tenploan. Orra ebanjelioa. Eta da adbertitzeko au agitu zela noiz ta errexitu zuten akonpañamentu, ta biba, ta aklamazio, ta laudario andieki Jerusalem Israelgo errege-gisa. Misterio andia da, beras, negar egite gartan Jaun dibinoak. Goazen entendatus nola dezakegun. Ortako saluta zagun Maria Santisima. Abe Maria.

Ezta leitzen Jesu Kristok irrik egin zuela beñere bere bizian, diones San Basiliok (Ap. Ludov. â Ponte Medit. 11 p.3). Eta dakigu negar egin zuela anitz aldis aurzutan, Lazaroin erresuzitatzean, sor ta mutu garren sendatzean, gurutzean ilzerakoan, ta San Pablok dion bekala, bere bizi mortalearen egunetan orazio egiten zue anitz aldis negarres (Haebr. 5); ta azkenean Jetsemaniko baratzean orazio egitean izerditu ze odoles, baize ala nola odolesko negar egitea gorputz guzia barna. Egun, ordea, bere aklamazio egunean, negar egitea admiragarri da espezialki. Klaro eder ageri da etzekiela apegatzen biotza munduaren laudario gaiei, ta etzela banoki alegratzen festa garreki, nasten zuelarik begietako negarres! ematen digu exenplu egoteko akordureki xoratu gabe alegranzias edo banidades okasioetan. Zer ze beiratzea Jesus Jaun dibino amable gura negarra zeriola bere begietatik bere triunfo-egunean! Berzeak aklamatzan, bera suspiratzen! Motibo andiak bidetu ortako; ta goazen orai beiratus.

Lenbiziko motiboa, ikustea Jerusalemgoen itsutasuna beren kaltetan, baizio sentimentuareki; o ezaun bazindez zuk ere, Jerusalem, zure onerako duzuna ta ezaunzen eztuzuna! Eztuzu ezaunzen eskaida on gau, noiz eldu zaizun bisitatzera zu zeure Jangoikoa! Itsutasun gau etze argi-faltas Jangoikoaren aldetik, ez, baizik beren bista-faltas, ez naies idiki ta argitu begiak. Itsutasun borondateskoa, iluntasun kulpablea, bat ignoranziarena, berze bat pasionearena, berze bat bekatuena. Irur goibel ilun gebeki itsuturik etzute ikusten ondasun eldu zekiotena. Orgatik erran zue Jesu Kristok (Joan 3): Hoc est autem iudicium, quia etc.; ontan dago juizioa edo kondenazioa; etorrik argia mundura, gizonek naiago baitute iluntasunak ezi ez argia, zeren gaixtoak diren beren obrak, ezi gaizki iten duen guziak aborrezitzen du argia, ta eztator argira, eztaitzen agertu bere gaizki eginak. San Joanen ebanjelioan ere dio lenbiziko kapitulan: Berebaitan zego bizitza, ta bizitza ze gizonen argia, ta argiak argitzen du iluntasunean, ta iluntasunak eztu artu bera. Ze argi egiaskoa argitzen diona mundu gontara datorren guziai. Munduan zego, ta mundua berak egin da, ta munduak etzue ezaundu bera. Bere propioetara etorri ze, ta bereek etzute errexitu. Baña errexitu zuten guziei eman ziote potestade izateko

Jangoikoaren seme. Beira ia zer kulpas duen gure Jaunak aien itsutasunas. Berak nai argitu, ta aiek ez nai errezibitu; orra zergatik iten duen negar Jesus onak; o ezaun bazindez zuk ere, dio. Adiarazin ai du, in zindezake negar zuk ere, dio San Gregoriok (Homilia huius dominicae).

Jerusalen gartan daike entenda kristiogendea, baitare kristio bakotxa; nola eztakiela, etorri zaio Jangoikoa ikustera. Bere etxean, au da, elizan opatu du fortunarik andiena, bere salbazalea, Jesus. O ezaun bazindez zuk ere, dio. Baña oh! Zenbatek eztuten ezaunzen itsutasunain utses! Ezta itsutasuna galtzea bere burua, daikelaik salba? Ezta itsutasuna berexi ondoan beretako Jangoikoak, markatu ondoan bere ardi, guzietas suplitu ondoan gloriarako, berak bere burua kondenatzea infernura? Ezta itsutasuna, Kristoren, Ama Birjinaren ta sanduen, banderan asentaturik plaza, aingiruen konpañiarako listaturik desertatzea bera deabruen ta kondenatuen bandara? Ezta itsutasuna ustea Jangoikoaren amoreka trukadan, zergatik? Munduaren, aragiaren ta emengo miserien amoregatik? Ain guti balio du bere Majestadeak? Ain guti inporta zaio kristioai beraren grazia orai, ta gloria gero? Orra, bada, zergatik iten duten negar Jesu Kristok, eta on guziak bekatarien amores, zelos ta on naies. Eta naitustelaik apartarazi perdizioaren bideetaik, ez kaso egitea ebek, despreziatzea, aborrezitzea erakustunak, beren kontra balire bekala, ezta au itsutasuna? Ala nola dagonak lostorditurik, paratzen dionai begietan argia erraten baitio: Ken, ken, aparta; eztu nai argirik.

O ezaun bazindez zuk ere, dio Jesu Kristok, in zindezake negar kontrizios. Pensa nola zinazken ta nola zaren. Zinazke sanduetaik bat, ta zara desdixatuetaik bat. Zinazke Jangoikoaren, Ama Birjinaren ta zeru guziaren maite, ta zara zeure kulpas miserable, desgraziatua. Zinazke bizi erori gabe mortalean berere, gozo, sosegu ta seguranza onareki zeure konzienzian, nioren alkerik eta beldurrik gabe zeruaren ta munduaren alizean; eta zikindu ta itsustu zara zeure kulpas, eta naiz lagunek algo emanik engañatus, bear zara alketu zerukoaren presenzian, ta pasatu bearkotuzu bekatuen ondoreko erresuminak, konzienziaren zistakoak, inkieturak ta zozobrak, beñere ia guzis etzara seguratuko paratu zarela grazian. Seguratu, ez por zierto, esperanza bai Jangoikoaren piedadean; baña ori ere in ondoan ongi negar. Bekatuendako dire negarrak, ebeki garbitzen da arima, ta argitzen da arimaren bista de manera ezi zenbatenas ia negar iteunzun, ia ezaundukouzu ta zenbatenas ia ezaunzen duzun, ia negar ineunzu; ala nola suan zenbatenas ia erretzen duen, ia argitzen du; zenbatenas ia argi, ia erre. Itsuturik beldurrak San Pedro, pasio-gauean ukatu zue mias bere Jaunas; beiratu zio bere Majestadeak, beiratze garreki argitu zio bista arimarena; ezaun duzue bere utsa, ta bizi guzian negar egin zue. Itsuturik zebila Santa Maria Magdalena; beiratu zio piadosoki Artzai dibinoak; ezaun duzue bere perdizioa ardi galduak, urtiki zekio oñetan, erregatu zizkio negarres. Dabid erregea itsutu ze beiratus gaizki; beiratu zio ongi Jangoikoak; ezaun duzue bere gaizki egin, garbitu zue negarres, fuerunt mihi lacrimae meae panes die ac nocte; ene sustentua gau ta egun negarrak, zio. Alako negarrek itzalzen dute infernuko sua ere arimain alde. Pena amoroso gau da señale ederra Jangoikoaren graziaren. Zori onekoak, dio, negar iteuntenak, ezi ebek izanen dire konsolatuak (Math. 5); ez solamente an, baita emen ere, ezi negar goiek dire konsolagarri, gustoso ta alegreago, ezi ez munduko alegranzia guziak. Ai zuetas, dio kontra berriz (Luc. 6), orai irri egitenduzienes, entenda, munduaren gisara, ezi nigar egineunzie. De manera ezi, ene fielak, bekatu inaskeros, darraio negarra; ezin exkusa, edo emen biotzes penatus, edo infernuan betikos de balde lamentatus.

Orra ia segiturik berze motiboa, zergatik Jesusek iten zuen negar Jerusalengoes,

baita kastigo ta pena izan bearzusten konpasiones; zeren ezi etsaiek, zio, inguratu, ertxitu ta urratuko zaitute arras, zeren eztuzun ezaundu eskaida on gau. Guzia agitu ze erran bekala, ezi Tito ta Bepasiano Erromako enperadoreen ordes gerra eginik ziudade tristegarri, alako gosea, kalamidadeak, miseriak, eriokintzak agitu zire an, ezi lotsarritzen baitu leitzeak ere. Jesu Kristo deklaratu zuelaik inozente Ponzio Pilato juezak, aiek porfiaturik: il bez, il bez, guruzifika bez; juezak erranik: Libre naiz ni justo gonon odoletik; aiek oiuz erran zute: Onen odola gure gain ta gure humeen gain. Erori zekiote gañean, ta darraiote oraño ere; ezi judio miserableak andik onat dabilta barraiaturik mundu ori barna an emenka, bere lekutik kanpoan erregeik gabe, tenplorik gabe, honrarik ta onik gabe Jangoiko andiaren kastigos.

Ariora kastigatzentu bekatuak kristiogendean ere, ta kristio bakotxean. Gure denboran progradu dugu Jangoikoaren permisios elizak urraturik herejeen eskus, elizako gauzak trataturik malamente, desterraturik sazerdoteak, asko familia galdurik, preso eramanik Aita Sandua (Ad Galliam hoc anno 1799 Pius VI), segitus gerrak gerrein gain, ainberze milla ta milla eriotze, mainur, lastima; ta norktaki zer izain den oraño ere? Ala Satanasek dirudi baiastatzen duela garia bekala kristio gendea, gure Jaunaren permisios garbitzeko grano. Zierto dena da bekatuak eztaizkela pasa kastigorik gabe, dela emen, dela an. Kulpari darraio pena, nola gorputzari itzala, Jangoikoaren errana da, (Genes. 4): Ongi iten bauzu, aurkitukouzu; baña gaizki iten bauzu, berla zure atarietan da bekatua. In bada, pagatu bear da; kulpen ariora penak ere, edo zeure eskus, edo berzeren eskus! edo mundu gontan, edo berze munduan. Baña izatekos, obeda emen, ezi emengoak pasagarri dire, pasatzen dire; infernuko penak eztaizke pasa, eternoak dire. O ezaun bazindez, dio Jesu Kristok, zer penak darraizkioten bekatuei, inen zinduke nigar zuk ere! O itsutasuna! Ain maite geuren buruok, ta alaere kondena gaizkela sekulako penetara geuren eskus? Egotera erretzen bizirik, ta errabiatzen eternidade guzian, ta alaere ain sereno egiten bekatuak? Eta ez ia ajola garbizeko len baño len?

Jesu Kristo zoeielaik Kalbariora maltraturik guzis malamente, segitzen zute prozesio triste gura Jerusalengo andre on batzuek, negarres, lamentatzen injustizia gartas. Jaun dibinoak erran ziotere bere penaen ertean: Jerusalengo alabak, etzaziela nai negar egin nitas ainberze nola zeuren burues ta zeuren humees, zeren ezi au iten bada zur berdean, earrean zer inen da? Orgatik ere Jaun dibinoak iten zue negar Jerusalena sarzean, ez solamente aien itsutasunagatik, ez solamente izanen zuten kastigoagatik emen, baitare prinzipalkiro sekulakoagatik infernuan. Motibo andiena ere zergatik pasio-alzinean izerditu zen odoles kongojain utses, dela diote, zeren naiz pasaturik berak ainberze pena salbatu naies guziok, alaere bear diren kondenatu ainberze ta ainberze infernuko penetara. Orgatik ere dire gizon sanduen trabajuak, dilijenziak, izerdiak predikatzen, exortatzen, guzia egiten libratu naies arimak pena gaietaik. Orgatik ere asko bekatari itzuli direnak akordura ta ezauntzera beren arrixkoa, desegin dire negarres eta penitenzias. Eztirenei goarzen orai ango penek idikiko tiote begiak negar egiteko debalde erremedioik eztelaik. Jangoikoak goarda. An agituko da diona San Agustinek (1.252 de temp.): Mundu gontan ofrezitu Jangoikoak bizia, ta eztutenek nai errezibitu, infernuan naiko dute eriotzea, ta ezin aurkitu.

Santa Teresak bere biziaren lenbiziko kapituluak kontatzen du, zelarik aur txipittoa erretiratzen zela bere anaia txipiareki leitzera sanduen biziak. Lotsatzenginduza lazki, dio, errateak leitzen giduen gartan pena ta gloria dela betiko; egotengina tratatzen ontas espazioreki, ta errepetitzen betiko, beti beti. Ontaik nai izan zue Jangoikoak geldi zekidan

inprimiturik biotzean egi eta fedearen bidea aurzututik. Dio ia an, iduri zekiola martirek erosten zutela merke seguratzea iltzeareki gloria betikoa, ta konzertatu zirela bi anai arrebak joatea eskean moro errietara degolla zezkiten an. Oh zein diferente diren geienen pensamentuak adin gartan! Ogeitamabigarren kapituluan eskribitzen du, asko mertxede inaskeros, gure Jaunak nai izan ziola erakutsi infernuan prebenitu zioten lekua, eramanik arara espirituan, sentitu zituela dolore ezin soporta daizkenak. Pintatzen du an ezin ponderatus zenbat eta nola; deus angoaren aldean emengo penak, ezta ere aitu ta leitu zituenak deus arren konparazioan; eta izate gura finik gabe, ta atertu gabe, ta desesperazio desesperatu gura. Denbora laburrean agitu zela dio, baña bizi baledi ere anitz urtes, iduri zaiola imposible atzentzea. Dio azkenean: Ni gelditu nitza ain iziturik, ta nago orai ere eskribitzerakoan, duelaik ia kasi sei urte agiturik, iduri baizaida falta zen zaidala bero naturala izidurain utses etc. An segitzen du eskribitzen gauza agitz propiak. Guri dagokiguna da ezauntzea egi eta fedea, ta negar egitea ez estimatuas ongi Jangoikoa, ta goardatzea ofenditzetik, naiz datozin milla gaitz, libratzeko betiko gaietaik, ta lograzeko gloria.

Dominica 10.
post Pentecostem.
De superbia et humilitate etc

Dixit Jesus ad quos qui in se confidebant etc. Luc. 18

Egungo Ebanjelioan kontazen du San Lukasek, nola Jesusek zenbait beren burues presumituei justoak zirelako, ta berzeak despreziaztenzuztenei, erran zioten parabola gau. Bi gizon joan zire tenplora orazio egitera, bata fariseoa ta berzea publikanoa. Fariseoak txutirik zio ala bere baitan: Jangoikoa, eskerrak ematentiot, ezpainaiz ni berze gizonak bekala, injustoak, ladronak, deshonestoak, nola publikano gau ere; bi baru itentut astean, ta duten guzien amarrenak. Baña publikanoa urrundani zegolaik etze trebe goratzera begiak ere zerura, baizik golpatuz bere bularra zio: Jauna, miseriordia ni bekatarias. Erraten diziet, au joan zela barkaturik grazian bere etxera, ura ez bekala; zeren ezi goratzen den guzia izanen da humillatua, ta humillatzen dena goratua. Onarano da ebanjelioa, zeintan da ageri Jangoikoak duela desplazer gure presunzioas, espezialki konfesatzean, ta plazer gure humildadeas. San Pedrok (1.3) ta Santiagok erran bekala (c.4), suberboei Jangoikoak erresistitzen diotela, ta humilei ematen grazia. Orgatik baizio Jesus berak: Ikasazie eneganik, bainaiz mansoa ta humila biotzes. Doktrina gau ikasteko, goazen eskatzera Maria Santisimari grazia. Abe Maria.

Ah zer orazioa, zer konfesioa egin zuen fariseo presumitu garrek! Errepara bortz edo sei gaizki-eginak: 1^a. Tzut tzuto egote gura tieso antustes. 2^a. Bere burua sandu kontatze gura, deus ez eskatu ta konfesatu gabe. 3^a. Graziak emaniduris bere buruain alabatze gura banoki. 4^a. Berzeak baño obetako bera juzgatzea murmuratus gañarakoes. 5^a. Abultatze gura bere on puxka gaiek konparatus berzeren gaizkieki. 6^a. Juizio gaixto egitea, ta desprezio berze guzies, ta orazioan zegon artas ere bai. Kontra berriz ontan errepara: 1^a. Egote gura aldaretik urrun. 2^a. Begiak apal, ez trebe izanes goratzera Zerura. 3^a. Golpatzea bularra kontrizioaren señaletan. 4^a. Bekatari konfesatzea bere burua. 5^a. Eskatzea barkazio humilkiro. 6^a. Itz guti atratzea, zuelarik barnean debozio anitz, niores etzuela konturik bere Jangoikoas ezi. Goazen orai konparatus.

Beñik bein fariseo garren txutirik tieso egotean adiarasten da presumitu banoen burua goratzea, antuste ta andinaia deitzen dena euskaras. Luzifer izan ze jendaki-gisa gonon alزنداري; ala zio ark (Esai.14). Zerurano iganen aiz, Jangoikoaren izarren gañean plantatuko dut nere tronoa, semejante izanen naiz gorenari. Baña infernuran botatua izan ze, deabru itzulirik itsusia aingiru ederra zena. Imitatzen du persona bano andinai suberboak, baitio bere gogoan tieso, nor naiz ni? Nor ni bekala? Deabruaren bekatua da au, dio San Bernardok (in declam.). Ia dio San Agustinek (s.21 de V.D.): Nondik presumitzen du ar miserableak biar il bear denak? Deabruas ere alketu bear du; zeren ezi ura barin bada ere suberbo, da espiritu inmortal. Baña zertas daike suberba gizona, dena autsa ta errautsa? Naiz suberba daien deabrua, ezta autsa ta errautsa. Eztagokio lurreko personai presumitzea; ta gaiz gau dator ezaumentu-faltas. Da itsutasuna, ta gaixtoago ere, eziitsuak eztu batere ikusten, baña presunzioak eztu ikusten dena den bekala, baizik iduriarasten dio eztena badela, ta dena den baño ia, gaixtoa on, itsusia eder. Da aizeko hidropesia, tumore espirituala; ezta anditasun egiasko sendoa, baizik aundidura falsa. Deitzen ere da fantasia, au da imajinazioa, zeren imajinatzen den gauza andi bat eztena

baizik itzalesko bulto iduri bat. Da juizio guti dutenen miseria, kalabera utsa, buru arin muñik gabekoa eztuena deus pizatzen. Beira garietan, burua txuxen tieso dagona señaile grano guti duela, edo baterez; granos ongi betea ikuskouzie burua inklinaturik bera. Oroat arboletan; arrama utsa tieso gora, arrama fruitus betea beitarat. Oroat personetan; banoa ezta protxal deustako; humila bai Jangoikoareki bateo. Arrazioa da klaro: Nior ezta ia, baizik dena Jangoikoaren begietan. Ura da sollik andi, nor ere baita kuadrable Jangoikoai, nor ere dagon beraren grazian. Orai bada aitutugu San Pedro ta Santiago erraten (supra), Jangoikoak suberboei erresistitzen, ta humilei grazia ematen diotela. Beras humilak dire andi Jangoikoaren estimazioan; ta ori da balio duena. Jesu Kristok erran zue klaro eder: Bienabenturatuak pobreak espíritus, ezi ebena da zeruetako erreinua. Pobreak espíritus dire humilak biotzes. Orai bada ala nola gure erregeren kortean diren Españako grandeak edo jaundiak, Jangoikoaren erreinuan dire Jaundi pobreak ta humilak biotzes. Orgatik publikano garrek iten zue ongi burua kur ta begiak apal egotean; goratuko du dezakenak. Nor gure Jangoiko jauna bekala, dio Dabidek (ps. 112), bizi dena gora goretan, ta beiratzentuen humilak zeruan ta lurrean? Goratus lurretik pobrea, ta ongarritik miserablea, paratzeko bere prinzipieki, bere korteko prinzipieki. Zergatik ote du jenio gau errege andiak? Onengatik: Nola ezpaita nioren ta deusen bear, nola guziok baikara beraren bear, nola on guzia baita beraganik, ta beraren menean, ta bera gabe guziok ezpaikara baterez, nai du bere emanen ordañas gure ezauntzea ta konfesatzea, bera dela guzia, ta berarena, ta gu geurenganik deus ez garela.

Da alaber notatzeko fariseo garren konfesio gartan, guzia izan zela kontatzea bere birtute-iduriak, ta bekaturik ez. Ori du presunzio ta suberbiaren gaitzak, eztu usten ezauntzera, ta gutiago konfesatzera duen gaizkia. Zertan dago geienei, espezialki emastekiei beren burua eder iduritzea? Presunzioan. Zerk iten du ikustea berzeren begian agozttoa, ta beren begian ez soliboa ere? Presunzioak. Nola da okatzea berzearen lixtuas ere, ta ez beren apostema ta likitskeries? Da beren burues presunzio ta amore sobra izanes. Orgatik ere da beti defendatzea beren burua, ta ezin azertatzea ematen bere kontra, ez konfesioan ere. Orgatik atxekiak, ingura mingurak, itz-nastekatzeak, orgatik altxatzea ere bekatu grabe direnak; eta alke sobra izatea ere da presunzio-sobras, edo humildade-faltas. Bada zer? Eztakigu zarela aragiskoa, konzebitua, ta jaioa inmundizian, ta ortara inklinatua jaiotzes? Ta ez aingiru zerukoa? Baña berak ez luke nai iduritu. Orgatik ere da ez admititu naia nioren erranik, eta ala gelditzea erremediorik gabe, nola llaga su anditua eztuena utzi nai uki dezaten niolatero kuratzeko. Orgatik zio San Bernardok (s.22 de in Vi.), obe dela bekatari humila ezi justo suberbo. Ala publikano gura aldaretik urrun egones, begiak apaldus, bularra golpatus konfesazen ze bekatari, ta gure Jaunak artu zue bere grazian, ta utzi zue fariseoa. Ala gu jaiotzes itsuak argitzen gaitu gure Jaunak, dio San Buenabenturak (ap. Rodrig. 12.t.3), paratus begietan loia, nondik garen, formatuak de manera ezi ezaundu gaitzen geurok lenik, ta gero adora zagun geuren salbazalea; baña suberboak ukatus bere gaitza eztu erremediorik. Jangoikoaren argiak ikusiarastentu faltak ariman. Orgatik sandu andienak humilenak.

Fariseo garrek konfesatu ta penatu bearrean bere gaizki egines etzue baizik abultatzen bere on-iduri gaiek banaglorias. Berze bizioes beldurtu bear gara bekatuetan, dio San Agustineek (ap. Rodr. ib.); baña banaglorias gauza onetan ere bai. Sagarrak erorzen dire laster, artxoak barin badire, sanoak ez ala. Barin bauzu biotza bano, ta an barnean zeure presunzioaren arttoa, onek ortxikatus botako du galzera guzia. Ezta señaile ziertoagorik pensatzeko eztela bat ona, nola berak presumitzea ona dela. Ala nola anitz

dakienak baitaki anitz falta zaiola xakiteko; eta guti dakienak, nola ezpaitaki zenbat falta zaion, ta zenbat xakiteko den, uste baitu anitz dakiela; ala zeruko teolojia onago dena da humilago, baña deus gutis kontentazen da presumitua. Da olloaren gisa, anitz karaka paratu orduko arrautzetto bat, ta ori ere berzeek eramateko; ala presumitua itxaur guti ta arroitu anitz; guzia kaskilla mamirik gabe. Arka bat utsik badago, inen du golpatzeareki arroitu ia, beteak ez ainberze. Diferenzia dena zagitik zagira da persona humilaren ta banoaren artean. Humila da nola zagi ardos betea pizu; banoa zagi arin aizes betea. Guzia iten du banidades, pagua du aizes. Sustanziaik ezta arren ongi-eginak, ala du premia ere. Anitz alako da oraiko kristioetan, anitz ezkila, anitz kanta, anitz prisa jende anitz doazan festetara, ikus gaizaten, xakin dezaten jendeek, bitarteo debozio guti, kaso guti Jangoikoas. Alako obra onak dire on? On iduri, on urrin; ala izain da irabazia ere. Oroitzen naiz kontu simple bates. Omenzago bat ostatu baten atarian, jaten ez baizik gozaten an ziren jatekoen atxonareki; atra ze ostalaria, galdetu zio: Zer ai zara emen? Ark: Emen nago sentitzen or barnetik eldu den atxon gau. Ola, ta debalde nauzu? paga zazu gustogoi. Ark atrarik bolsa ilarrosirik inzue diru arroitu; Orra pagaturik; ni gelditu naiz urrin sollareki, zu geldi zaite diru-arroituareki. Debozio-iduris nauzu kuadratu munduai? Bada pagua izain duzu ariora. Debalde trabajatzeta da ori, ta ala nola botatzeta ardoa kupela zulatuan, oroat baita botatzeta nola ixurtzeta. Kontu inzagun, eraiki garia, ta itzuli dela ilindia. Ala da obra onetaik izatea banagloria. Berze alde iten da agrabio Jangoikoai, egitean kaso niores beraren aldean, ta da Jangoikoai sollik zor zaion gloriaren ladronkeria. Ene gloria eztiot niori emanen, dio Jangoikoak; nik ezpadida ematen ere kenduko diot, dio suberboak. Orgatik bekatu gau da espezialki Jangoikoaren kontra. Deshonestoak bekatu iten du bere kontra, asarreak proximoaren kontra, baña banoak Jangoiko beraren kontra, dio San Bernardok (s.3 de nat.d.). Alaxe obra onetaik atrazen du beneno banoak; kontra berriz humilak bekatuetatik ere salbazio humillatus bere burua, konfesatus mereji duela pena, ta eskatus Jangoikoai barkazio ta miserikordia.

ez naiz berzeak bekala ni, zio fariseoak; zein arro-aundi ponparroia! Zer duzu ia berzeak baño? Gaixto barin bada duzuna ia, zer desatinoa ezta gloriatzeta gaixto denas? On barin bada, zer da eztzunik errezibitu? Ta errezibitu baduzu, nola gloria zaizke berzerenas, nola ezpazindu errezibitu? Baña iragarri da ikustea zer gauzes presumitzen duten burutxolek. Pasatus errebista munduko estado guziak barna, guzietan ikuskouzu presunzio. Presunzio errege ta Jaun andietan; presunzio jende komunetan; presunzio zarretan, presunzio gasteetan; presunzio xakintsuetan; presunzio ignoranteetan; presunzio aberatsetan, pobreetan, ta xitoetan ere bere ariora zer edo zertas. Batek presumitzen du birtuteas ta santidadeas, eta ori da gauza guzien balioso estimagarriena, baña ez presumitzeko. Berzeak presumitzen du entendamentu onas, xakintasunas, mintzaeras etc. Ta da ebastea Jangoikoai gloria zor zaiona. Berzeak du presunzio dignidadeas, berzeak ondasunes, berzeak osasunas, indarres, gorputzaren plantas. Oraño ia, izaten ere da presunzio burua ala edo ola eramateas, zangoa ala edo ola botatzeas, joankeras, laixter egiteas, saltatzeas, danzatzeas etc. Zer ia? Izaten ere da presunzio soñekoes, sonbrelluas, pañoloas, galzas, galzakordas, zapetas, milla simplekeries, lastima baita personaren entendamentua oietan okupatzeta. Gloriazekos gloria bedi Jangoikoan, dio San Pablok, au da izatean kuadrable Jangoikoai, onek sollik du balio, ta au ez geuren merejimentus, baizik Jangoikoaren grazias.

Presunzioaren alabak dire anitz, berzeren desprezioa, desobediencia, atrebimentua, galak, banidadeak, perdizio ta gaiz guziak, dio benerable Juan de Abilak (tr. 5 de la

visitacion), ala nola humildadetik on guziak. Presunzioa da buruko gaitza; burua gaizki, gorputz guzia gaizki. Humildadea gaiz guzien erremedioa Jesu Kristok manatua. Presunzioak bota zitue zerutik aingiruak; humildadeak goratzentu graziara ta gloriara gizonak. Luzifer superbeoen kapitan jeneralak galdu zue gizagendea kutsatus superbiaren benenos paraisoan. Jesu Kristok, humilen alزندariak, erremediatu zue erakutsis humildadea itzes eta obras. Subergia da erreproboen, infernurakoen seřalerik andiena, dio San Gregoriok (34 mor.), ala nola humildadea zerurako eskojituen seřale seguroena. Justoa ere suberbatzen bada galduko da. Bekataria ere humillatzen bada salbatuko da. Ezin daike falta Jesu Kristok errana: Qui se exaltat humiliabitur; qui se humiliat, exaltabitur. Amen.

Dominica 11.
post Pentecostem.
De surdis et mutis

Adducunt ei surdum et mutum etc. Marc. 7.

Egungo ebanjelioan kontatzen du San Markok, ekarri ziotela Jesus onai bat sor ta mutu, eskatus para zezola bere eskua. Eta apartarazirik jendeaganik paratu zizkio bere eriak arren bearrietan, ta lixtus ukitu zio mia Jaun dibinoak. Eta goraturik begiak zerurat eman zue suspiro bat, ta erran zio, ephpheta, nai baitu erran, idiki zaite. Ta istante idiki zekio adimentua, ta lazatu zekio mia, ta mintzatzen ze ongi, ta manatu ziote ez niori errateko. Baña zenbatenas ia manatzen zioten, ia publikatzen zute, ta ia admiratzen ziote, ziotela: Guzia egin du ongi; sorrei adimentu eman diote, ta mutuei mintzo. Au da ebanjelioa; entendazeko saluta zagun Maria Santisima. Abe Maria.

Sor ta mutu materialki zela gizon gura da klaro, (baña Jesusen suspiratze garrek, eta berze dilijenzia gaiek mostrateunte). Signifikatzen duela berze sorreria ta mututasun gaixtoagoko bat, baita arimarena. Sorreria spirituale gau da fede ta obedienziaren falta, ez aditu naia egi eta fedeak, Jangoikoaren itzak, ta inspirazioak. Mututasun espirituala da ez idiki naia agoa egiteko orazio ta konfesazeko. Sor izateari darraio mutu izatea; ta ala dena niork ez dezake salba, ezpada Jangoiko denak. Sor gebek onerako baute orgatik adimentua txintxo gaitzerako, aditzeko serpientearen txistuak, itz eta inspirazio beneratuak. Mutu gebek agoa suelto dute mintzatzeko gaixtakeriak. Daramate adimentuan ta mian deabrua debekatzen diotena aditzeta ta mintzatzea bear bekala salbatzeko (Sor ta mutu gura etze berez joan Jesusengana, berzeek eraman zute; sor ta mutu espiritualak ez leizke erremedia sekulan, ezpalezazke eraman bere gana Jangoikoak bere eskus, edo berzen eskus). Baña lastimagarri dena guzien gañetik da baita anitz esku apartarasteko Jangoikoaganik perdiziorat, ta guti itzularasteko Jangoikoagana. Eta aisago delaik gaixtatzea gaixto batek amar on, ezi amar onek ontzea gaixto bat, zer izanen da direlaik amar, ogei ta ia gaixto gaixtazeko on baten aldean? Zer inen du sor ta mutu denak oraiko munduan? Segi segi gidari galduen atzean, ta guziak joan eroris infernuko lezean. Vae mundo â scandalis.

Jangoikoaren denak aditzentu Jangoikoaren itzak, erraten ziote Jesusek judioei, ta orgatik zuek eztituzie aditzen, ezpaizarate Jangoikoaren. Da egi eta fedea ezin falta daikena; ta arrazioak ere, ta experienziak ere erakusten du. Munduak xoratzen, demonioak engañatzen, aragiak itsutzen, lagunek inzitutzen, okasioek ta peligroek konbidatzen gaitzera, bereganik gaizki inklinaturik, nola daike izan salbo? Or dago Jangoikoa salbatuko duena, aditu nai badu; baña ezpadu aditu nai, ia etzaio gelditzen erremediorik onerako niondik, guzia da gaitzerako bereganik, berzeenganik, alde guzietatik. Zori onekoa sano dagon arima, garbia, ona, sandua, libre Jangoikoaren ta munduaren begietan. Beatus vir qui inventus est sine macula. Nor da ori, ta laudatuko dugu; quis est hic, et laudabimus eum. Jangoikoaren jendakitik da, logratuko du Jangoikoaren bedeizioa. Baña emagun dagola bat gaizki suberbiaren hidropesias, kodiziaren etikas, luxuriaren lepras, gularen tripako minas, iraren inflamazioas, inbidiaren ikerizias, perezaren perlesias, estropeaturik espiritualki ta ezindurik onerako, mutu, itu, ta guzis gaizki, oraño ere baldin ezpada sor, barin badu adimentu ona, badaike erremedia, ta erremediatuko da; baña ezpadu adimentu

ona, desauzia daike. Inik dauka tratu eriotzeareki, pakto infernuareki. Kontatzen du kardenale Jakobo de Bitriakok (ap. Parra p.3 pl.7), nekazari bates alako oposizioa zuela Jangoikoaren itza aditzera, ezi niork etzuke joanazi elizara, zekielaik doktrina bazela, ta ustekabetzean an zegolaik, asten baze predikurik, ura atrazen ze guzien eskandaloreki. Bizimodua ta kostunbreak zitue ariora, nola lur landu gabeak baitakar asuin, kardu, lar ta belar gaixto. Ellegatu zekio eriotzea, eramanik ortzizera, ta azkenean orzitzeko erraten baita orazio bat, Non intres etc. Erraterakoan, guziak beira zeudelaik, Kristoak atrarik itzeetaik eskuak tapatu zitue bearriak. Lotsarriturik guziak, ixildurik kantua, erran zue sazerdoteak: Badakizie guziek oposizio zuena miserablegonek aditzera Jangoikoaren itza, orgatik gure Jaunak tapatzentu bere bearriak eztituela aditu elizako orazioak onen faboretan. Ikusteunzie. Bada klaro ageri da eztuela Jangoikoak nai onen arima, ta utzi diola deabruai erman dezan, erman dezala gorputza ere. Ta ala atra zute elizatik kanpora tzakur bat bekala.

Egungo sor ta mutu gura eramanik Jesusengana, Jaun dibinoak lenik apartarazi zue jendeaganik, mostrazeko bear dela apartatu okasio ta peligroetaik arima eria sendatzekos, zeren ezi bakarrik obeki ezaunduko du bere gaitza, obeki oroituko da Jangoikoas, obeki konfesatu ta nigar inen du bekatues, ta libre egonen da kutsatzetik. Suspiro bat egin zue Jaun dibinoak mostratzeko sorreria ta mututasun espiritualaren gaitzaren andia, ta sendatzekos bear dela klamatu biotzeko suspiro ta otoitzeki Jangoikoagana; ezaaien agi, ala nola berak eztuen nai izan aditu Jangoikoaren boza, ta konfesatu bere kulpak, Jangoikoak ere ez dezan ukatu bere adimentua ta grazia. Bazuke deus alakorik gabe sendatu Jaun guzis poderosoak, baña adiarazi nai zigu mertxedearen andia; sarzean eriak bearrietan bialtzea biotz barnera espiritu sanduaren doaiak, inspirazioak, ta auxilio dibinoak, argitus entendamentua, mogitus biotza. Lixtus ukitzean mia komunikatzea xakintasun ta grazia desahogatzeko biotza afekto onetan, Jangoikoaren amore, laudario, esker milla, deseo, proposito, petizio ta prinzipalkiro konfesatzean bere kulpak ongi.

Guzien gañetik da notatzeko errate gura manatus Jaun soberanoak, ephpheta, idiki zaite adimentua aditzeko, ta agoa konfesatzeko. Zeremonia gau lixtuareki usatzen du elizak Jesu Kristoren gisara bataiatu bear denareki lenbiziko sarze delaik tenploan, mostratzeko aditzetik datorrela fedea ta fedearen konserbatzea, ta fedearen konforme bizitza. Predikatzen bein zegolaik Kristoren majestadea miragarriro Jangoiko bekala, emasteki batek jendearen artetik goraturik boza erran zue: Zori oneko sabela eraman zuena berori, ta bularrak azi zutenak. Errespondatu zue Jaun dibinoak: Zori onekoak dire antes bien aditzeuntenak Jangoikoaren itza, ta goardatzeuntenak. Zer ia erran daike? Orgatik pobre gura libratu zeneko sorreriatik, libratu ze mututasunetik. Aditu zuen istantean asi ze mintzatzen ongi. Ala nor ere libratzen den arimaren sorreriatik, nor ere den Jangoikoaren itzaren adizale ona konbertituko da biotzean, ta mintzatuko da ongi konfesioan lograzeko erremedio ta salbazio guzia. Mintza bedi, Jauna, zio Samuelek, ezi aditzen dago berorren sierbo gau (1 Reg.2). Nindego, dio Dabidek (ps. 118). Nindego agoa zabaldurik, ta atsa erretiraturik aditu naies berorren manamentuak. Ene ardiek aditzeunte nere boza, dio Jesu Kristok; eta duenak bearri aditzeko aditzeko (sic), adi bez (Math. 11 hoc; illud Joan 10). Ezta bizi gizona ogi solles, baitaere Jangoikoaren agoko itz guzies, erran zio deabruari (Math. 4). Orgatik ala nola apetitu ona izatea baita osasunaren señaile, ta kontra ez izatea, ala ez aditu naia Jangoikoaren itza señaile mortala da, ta aditzeko afizionea señaile ona bizi dela ta bizkor arima, edo bentzait bizkortuko dela. San Agustinek dio ausarki eztela señaile

andiagorik batere predestinazioaren, nola aditzea gustoreki Jangoikoaren itza (1 de predes. c. 25 ap. Claus. p. 3. cath. c. 67). Testigo ona da sandu bera, zein zebilalaik erreoren ilunbetan, akuditus bere Ama Santa Monikaren konsejus aditzera San Anbrosio, ala predikatzean nola konbersazioan, ellegatu ze ezaunzera zuzen bidea, ta izatera elizako argi exzelentea. Testigo ona da San Juan de Dios, zeñek aiturik bein Juan de Abila benerablearen prediku bat, aldatu ze alako maneran, ezi berladanik mostratu zue santidade andia logratu bear zuena, ta paratu zue egun berean zimendu firmea. Testigo San Franzisko de Borja, zeñek aditurik benerable bera berze aldi bates, utzirik munduko grandeza egin ze Jesu Kristoren sierbo humila, ta andiago santidadeas, ezi ez izan zen ta izan zeiken guzia munduan. Testigo San Antonio Abadea, San Franzisko ta berze infinizio bat, zein aditus ta pensatus ebanjelioko sentenziak, heriturik biotzean ala nola susko saeta batzueki amorostu zire Jangoikoas, ta bizitu zire lurrean zerukoak bekala. Baña nork kontra banaka Jangoikoaren itzaren prodijioak? Aski da erratea au duela bere Majestadeak medio prinzipalena egiteko bere sanduak. Fides ex auditu. Aditus sinestatzen da, sinestatus obrazen da, obratus salbatzen da. Azkenean eztaien gaizki entenda, bego adbertiturik ez solamente dugula adimentu buruan aditzeko itz materialak agotik datozinak, baita ere biotz barnean adizeko Jangoiko beraren itz dibinoak, baitire inspirazioak, zeñeki bere Majestadeak predikatzen dion bakotxai biotzera bakantasunean milla modus ta maneras. Oh! Ezkartzela izan sor itz barnekoebetara, ezi despreziatzea ebek da despreziatzea predikari dibinoa Jangoikoa bera. Etzitue despreziatzen San Franziskok, zeñek sentitu orduko gogorazio on bat, gelditzen ze, xegatzen zue, estimatzen ta probetxazen zue. Jangoikoak digula probetxatzea guri ere lograzeko bera bere glorian.

Dominica 12.
post Pentecostem.
De amore Dei et proximi.

Beati oculi, qui vident quae vos videtis. Luc. 10

Egungo ebanjelioa da au. Erran ziote Jesusek bere diszipuloei: Ditxosoak begiak ikusten dutenak zuek ikusten duziena; ezi erraten diziet asko profetek ta erregeek nai zutela ikusi zuek ikusten duziena, ta etzute ikusi; ta nai zutela aditu zuek aditzen duziena, ta etzute aditu. Eta ara legejakintsu bat xaiki ze progatzera gure Jauna, galdegines: Maestru Jauna, zer in bear dut logratzeko bizitza sekulakoa? Jesusek erran zio: Legean zer dago eskribiturik? Nola leitzen duzu? Ark errespondatu zio: ama zagula gure Jangoiko Jauna biotz guzias ta arima guzias, ta indar guzies, ta intenzio guzias; eta geuren proximoa geurok bekala. Orduan Jesusek: Ongi errespondatu duzu; egizu ori, ta biziko zara. Ark bere burua sandutu naies galdegin zio: Eta nor da nere proximoa? Ontara kontatu zio Jesusek: gizon bat eldu ze Jerusalendik Jerikora, ta erori ze ladronen eskuetan, zeñek kendurik zeraman guzia golpatu zute, ta utzirik an erdi ilik gizonoi, joan zire. Agitu ze pasatzea bide beras sazerdote bat, ta ikusirik naiz bai pasatu ze alzina. Gisa berean lebita bat aldakan egonik, ta ikusirik joan ze aurrera. Baña samaritar bat ellegaturik bides zoeielaik, ta ikusirik pobre gura urrikaritu ze; ta urbildurik lotu zizkio llagak egines olios ta ardos; eta paraturik bere abre gañean eraman zue ostatura kuratzeko, ta ostatariai eman zitio bi diru erraten ziola: Izazu kontu ontas, eta suplitzen duzun guzia nik pagatuko dizut itzultzen naizelaik. Irur gebetaik zein iduri zaizu portatu zela proximo bekala gizon garreki? Ark: Jauna, egin ziona miserikordia pobreari. Jesusek orduan: Zoaz bada, ta egizu gisa berean. Au da ebanjelioa. Entendatzazeko, saluta zagun goizeko izarra, iruzkiaren Ama Maria. Abe Maria.

Ditxosoak bizitu zirenak Jesusen denboran ta lekuetan, ikusi ta aditu zutenak gizon dibino gura, zeintan agertu zen Jangoikoaren ona. Ditxosoak, baña ez guziak, ezi asko judio, eskriba ta fariseo ikusirik eta aiturik ere etzire baliatu eskaidas, ta gelditu zire ain desdixatu nola len, ta desdixatuago ere, ezi alakoes erran zue Jesus berak: Ezpanitza etorri, eta mintzatu berei neuronek, ez lukete ainberze kulpa, baña eztute atxekiarik. Ezpanitu egin obrak niork in eztuenak, etzute ainberze kulpa, baña orai ikusirik aborrezitzen naute ni, ta nere Aita (Joan. 15). Kontu berean sarzen dire zutenak eskaida ikusteko ta aditzeko, eta ez nai baliatu. Au da kondenatzeko juizioa, dio Jesus berak (ib. 3), argia etorririk mundura, naiago baitute gizonen iluntasuna, ezi argia, zeren gaixtoak diren beren obrak, ezi gaizki obratzen duenak aborrezitzen du argia, eztaien agertu bere gaizki egina. Etzire ain desdixatu lengo profeta ta justo gaiek, nai zutelaik, ezin ikusi ta aditu baizute Jesus presente personan, ez ellegatuas beraren denboran; baña ikusi zute espirtuas sinestatus etorriko zela, ta aditu zute daiken gisan obratus, ta bizitus legearen konforme. Kontu gontan sar gaizke gu obeki, nai badugu, baitakigu bizitu ta il zela guregatik Jesus, eta depositatu duela bere doktrina elizan, segizen badugu bere exenplua ta doktrina. Baña guzien gañetik zire ditxoso apostolu ta kristio denbora gartakoak, izan zutenak fortuna ikusteko beren begis Jesus bera, ta aditzeko beraren agotik zeruko itz gaiek. Segitus ebanjelioa.

Zer in bear den zerura igateko erran zue xakintsu garrek, ta aprobatu zue Jesus

onak, inzazu ori ta salbatuko zara, au da onestea Jangoiko jauna biotz, arima, indar ta intenzio guziareki; eta proximoa bere burua bekala Jangoikoagatik. Au da karidadea bere bi egaleki. Au da zerurako eskalera bi saietsekoeki, zeintan sarzen diren amar mandamentuen amar gradak, zeren amar mandamentu gebek enzerrazen dire bidetan, dio doktrinak. Lenbizikoa Jangoikoa onetsi guzien gañetik. Bigarrena proximoa geuren buruok bekala; amore gau falsua barin bada, auxten da eskalera, eztaike igan ala zerura. Amore sina ta fina bear da Jangoikoai lenik biotz guziareki etc. Gero proximoari geuren buruei bekala. Nola da au? nai dugulaik egin ta agi dakion proximoari ongi, ala nola geuren buruai. Zer nai zinduke arren lanzean in dakizun zuri? Bada ori beroi zuk in zozu arri. Proximo da gizon den guzia; onen bearrak ta amazeko modua pintatzentu Jesus onak lanze edo parabola gartan. Goazen orai ikusis ori.

Gizon erori zena ladronen eskuetan da edozein dena Adanen hume; Jerusalengo bidea da oraiko bizia, eternidaderako biajea. Ladronak bidean dire arimaren etsaiak, mundua, demonioa ta aragia. Erorzea eben eskuetan da konsentitzea tentazio gaixtoetan. Ondasun errobatzentutenak Jangoikoaren grazia, donoak ta birtuteak, karidadea, humildadea, kastidadea, pazienza, etc. Golpatzea da heritzea arimaren potenziak, iluntzea entendamentua ignoranzias ta erroreer, flakatzea biotza erresistitzeko pasionei, ta eben aumentatzea. Zenbat bekatu, ainberze golpe; ta ala gelditzen da erdi ilik arima indarrrik gabe bidean. Pasajero pasatzen direnak kasorik in gabe erorias dire ainberze mundukoi eztutenak ajolaik arimaren gaitzes ez berenes, ez berzerenes, ta ainberze eztirenak erremediatzeko. Samaritano piadoso garrek signifikatzen du Jesu Kristo, etorri baize bide beras gizon eginik; etorri ze, jautsi ze, urbil duze bekatariengana urrikarioso. Kuratzentu gure llagak bere kostus; olio ta ardoa daizke entenda inspirazio amoreskoak ta beldurreskoak, algoak eta meatxuak, piedadeak eta kastigoak, onak eta gaitzak bialtzentuenak gure onerako. Paratzea abre gañean da kargatzea gure kulpak eta penak bere gurutzean, pagatzeko berak ta libratzeko gu. Ostatuan paratzea da elizan paratzea; emen bere Majestadea da prinzipalki kuidatzen ta kuratzen gaituena; baña ostatari enkargatua da Aita Sandua eliza guzian, obispoak beren partean, ta sazerdoteak bakotxa berean. Curam illius habe, erraten dio bakotxai, kuida zazu ontas, nik pagatuko dizut guzia.

Agitz da erreparatzeko ta estimatzeko enkargu gau. Mostratzen du beraren amore andia, ezpaitu niolater utzi nai gal daien arima kostatu zekiona bere odola ta bizia. Mostratzen ere du zenbat inporta den kuratzea, ez gutiago baizik gloriako bizitza sekulakoa, ta infernuko pena eternoetaik libratzea. Baña zereki ta nola kuratuko dugu? Ortako utzi du depositaturik elizan botika jenerala; emen sakramentuen erremedioak obratzen dutenak beraren odol preziosoaren birtutes; emen bere eskritura sagratuak, bere ebanjelioa ta doktrina. Curam illius habe; kuida, dio, ta kura zazu arima eritua medio ta erremedio al guzies. Sazerdoteen instrumentu prinzipalena da espiritu ta bizi onas landara mia. Enkargatzen dizut Jangoikoaren ta Jesu Kristoren partes, dio San Pablok (Tim); predika zazu Jangoikoaren itza, porfia mugonez mugaitzez, arraziatu, exortatu, errogatu, erreprehenditu pazienza ta doktrina guziareki; ezi ellegatuko da denbora, noiz eztuten naiko sufritu doktrina sana, baizik beren deseeen konforme izaintuste montonka erakustun gustora mintzatuko direnak, ta egia ezna aditu ta naikotuste falsedadeak. Baña zu zaude dilijent, trabaja guzietan, ebanjelariain lana egin, zeure ofizioa kunpli. Guziok dire Kristoren pregonariaren itzak, ta dirudi mintzo zela oraiko denboras, noiz segitzen diren gogotik libre lazoen engañuak perdiziorako, ta etzaiote goxo egia kura dezazkena ta

salba, ala nola eriai etzaion goxo lanzeta, naiz ortan dagon arren sendatzea. Baña gorputzes eri direnek naute sinki sendatzea, ta ori da abantalla andia; baña arimas eri direnek, borondatesko eriek askok eztute ezaunzen eri daudela, askok eztute nai sendatu, daude gustoso bere eritasunean, ta ala doaz baratzera eriotze eternoan infernuan.

Alaere Jesu Kristo beti enkargatzen bere ministroai, curam illius habe, zuk kuida il etzaienta ta galdu sekulakos. Zer in bear du enkargatuak, baizik egia erran, naiz askoeri etzaienta goxo, ta ez protxal? Onetsis eria, gaizetsis eritasuna, dio San Agustinek (s.15 de verb. 3), naiz etsai iduri, da adiskide diona egia sendatzeagatik arima. Zer gauza ain piadoso, nola medikua lanzetareki? Nigar egiten du ebaki bear denak, ta ebakitzen da. Nigar iten du erre bear denak, ta erretzen da. Ezta ori krueldade. Kruel dirudi llagaren kontra sendatzeagatik gizona, ezi usten bada geldi lлага, iltzen da gizona. Zenbat obeago da erreprehenditu ta sendatzea, ezi ez ixil egones ustea galtzera? (ib. 16) Askotan itzulzen dire frenetikoak medikuaren kontra, baña ez orgatik medikuak usten du kuratzea, baitaki eztakitela miserableek zer ai diren. Orai dute desplacer, baña gero itzulzen direlaik akordura, ikusirik beren buruak libre perdiziotik, plazer izain dute. Zer nai du gureki? diote galze direnek. Zeren galzen zaren, nai zaitut aurkitu ta salbatu, dio San Agustinek (l. de post. 9). Ala nai badut galdu, orri zer zaio? Ala nai bauzu ere galdu, obeki nik eztut nai, etzaitut utzi nai galzera. Edozein gisas Kristoren ministroari dagokio egitea al guzia kuratzeko; logratzen bada, fortuna; ezpada logratzen, pazienza. Ezin libratu badu ere berzea, libratu du bere arima; nik pagatuko dizut, dio Jesu Kristok.

Nor iduri zaizu guzietatik izan dela proximo egiaz eritu garrendako? erran zio Kristok xakintsu garri. Ark: Jauna, egin ziona miseriakordia, samaritanoai, errespondatu zue xakintsuak. Jesu Kristok orduan: Ongi erran duzu; imita zazu ongi errana gure proximo miseriakordioso ongiegille ta mediku obena dela Jesu Kristo; mediku jautsi zena zerutik gure sendatzeagatik; mediku bisitatzen gaituena grazias; mediku disponituen erremedioak bere kostus; mediku sendatzentuena eri jenero guziak ta ilak ere; mediku bizkortzen gaituena gu heritus ta iles bera; berak pasatu pasioaren trago ta sangria penoso gura gu ongi ikusteagatik; beraren llagak gure osasuna, beraren penak gure onak, beraren iltzea gure bizitza. Nork ikusi du alako medikurik? O Jesus, zein ona! Zein amoroso! Nork eztu amatuko alako amazalea? Amore digunaren mostrak, borz llagak etzitue utzi nai izandu borra zeizen glorian ere; bera ez atzenzeko gutas, eta beras gu ez atzenzeko, beirazkigun maiz ta adorazkigun gurutzeko imajinetan. Leitu maiz libru gortan; zer letra dire aiek? Amoresko letrak. Zer diote? Amaten gaituela geiegi ere Jesus onak. Zer eskatzeunte? Gure amorearen errespuesta, edo korrespondenzia ona. Ala seguratzten da osasuna, salbazioa ta bizitza sekulakoa. Ezperen malogratu medikuaren finezak, ta eria galdu sekulakos. Eta norena izain ote da kulpa? Eztu niork izanen infernuan ere arraziorik emateko Jesusen kontra, ezi aski ta sobra egin du salbatzeko guziak; eztena salbatzen berea du kulpa.

egin bez bakotxak bere aldetik obligazio duena; eta nai duenak xakin zein den Jesus onaren gustorik andiena egiteko, da beraren gisa arimen ongitzea ta salbatzea. Ontan progatzen da obekienik diogula berari amore. Ala San Pedro progatu zue amorean, usteko bera enkargaturik bere saldo kristioas igan baño len zerura. Pedro, erran zio, amaten nauzu? Ebek baño ia? (Joan. ult.). Errespondatu zio sanduak: Berorrek daki amaten dudala. Jesusek: Bada kuida nere axuries. Berriz galdetu zio: Pedro, onesten nauzu? Ark: Bai, Jauna, berorrek daki onesten dudala. Kuida ene axuries. Berriz ere galdegin zio: Pedro, maite nauzu? tristatu ze sandua galdetzeas irur aldis ala, ta errespondatu zio: Jauna,

berorrek daki guzia, berorrek daki maite dudala. Jaun dibinoak orduan: Bada kuida nere ardies. Ezamina gontan ageri da Jangoikoaren amorearen progu erreala dela proximoen amore; eta amatzean Jangoikoa ta amatzean proximoa dago lege guziaren suma. Eta au da zerurako bidea; ala logratzen da bizitza sekulakoa. Hoc fac, et vives. Jangoikoak eman dezagula ongi kunplitzeko grazia, logratzeko gloria. Amen.

Dominica 13.
post Pentecostem.
De curatione lepra spiritualis

Occurrerunt ei decem viri leprosi etc. Luc. 17.

Egungo ebanjelioan kontatzen da amar leprosoek bidera atrarik Jesus onari oius eskatu ziotela: Jesus erakustuna, izan bez miseriakordia gutas. Ikusizituenekeo Jesusek, erran ziote: Zoaste, agerzaiste sazerdoteei. Eta agitu ze, joaterakoan garbitu zire. Aietaik bat ikusirik garbitu zela, itzuli ze oius laudatzen Jangoikoa, eta urtiki ze beraren oñetan eskerrak ematen, ta au ze samaritarra. Jaun dibinoak erran zue: Eztire amar garbitu direnak? Eta bedratziak non dire? Ezta itzuli denik ematera gloria Jangoikoai, ezpada erriskanpoko gau. Eta oni erran zio: Xaiki ta zoaz Jangoikoareki, ezi zeure fedeak salbatu zaitu. Orra ebanjelioa entendatzeko, ta probetxu atratzeko billa zagun grazia salutatus graziaren Ama Maria. Abe Maria.

Amar leproso gaiek gorputzeko lepra zute, ta artaik izan zire garbituak; baña adiarasten zaigu arimaren lepra, ta ontaik garbitzeko modua. Arimaren lepra San Agustinen opinionean daike entenda espezialki doktrina falsua, ala herejeen, nola kristio-borten gaitz kutsuskoa zikintzen duena kristiandadearen lustre garbi ederra. Ebanjeliokoak zeude apart urruti jendeetaik, klamatu zute Jesus onari: O Jesus erakustun egiaskoa, miseriakordia gutas. Eta manatuak izan zire presentazeko sazerdoteei. Bada orra adiarazirik erremedioa librazeko arimaren lepratik; lenbizikoa apartatzea erakustun gaixtoen konpañiatik; bigarrena klamatzea orazioan Jesus onari argi gaitzan Jangoikoaren bidean; irugarrena akuditzea beraren ministroengana, baitire sazerdoteak, desengaña gaizaten egi eta fedeariki ebanjelioaren conforme. Lepra jeneralki da edozein bekatu, baña prinzipalki luxuriarena, zein baita gaitz apegatzen dena jaiotzes ere naturalki Adam ta Ebaganik bekatu orijinalareki bateo. Solamente Jesu Kristo ta Maria Santisima izan zire konzebituak libre; Jesu Kristo, zeren baize Jangoiko, ta konzebitu baize gizon Ama Birjinaren entraña sanduetan espiritu sanduaren birtutes; Maria Santisima Jangoikoaren Ama eskojitua bekala Jangoikoaren pribilejio berex bakan espeziales; San Juan Bautista, Jeremias ta berze zenbait bakotx izan zire santifikatuak ta libratuak amen sabel-barnean jaiotzeko libre mantxa gartaik Jangoikoaren grazias. Gañarakoak guziak konzebitu ta jaio dire bekatu orijinalareki kutsaturik, ta ezta nior libre mantxa gortarik ezeta egun bateko aurre ere, dio eskriturak. Eta garbitzen da bataioko sakramentuan Jesu Kristoren odolaren birtutes ur ta Espiritu Sanduareki, eta ezpada bat berriro jaiotzen ur eta Espiritu Sanduaganik, eztaike sartu zeruetako erreinuan, dio Jesu Kristok. Baña naiz garbiturik ere mantxa gartaik bataioan, dio Tridentinoak, gelditzen dela bataiatuan konkupiszenzia, auda bekaturako inklinazio gaixtoa ta sukaia, zeñi bear den errepugnatu kontino bizkorki ez kutsatzekos berriro. Orgatik zio Job sanduak, gizonaren bizitza lur gañean dela gerra ta pelea kontinoa; eta San Pablok, eztela izanen koronatu eztena peleetzen legearen conforme; eta San Agustinek (s. 55 de temp.), kristioen batalla guzien ertean gogorrenak direla kastidadearenak, zeintan egunorokoa delaik pelea, argal da biktoria.

Experiencia dezake mundu guzia desengaña, nai badu goartu, eztela afizione, bizio, pasione ta inklinaziorik ain komun pegakor fuerterik, nola aragiarena. Jangoikoak kriatu zuelaik gizonkia lurretik, emastekia Adanen kostillatik, eman zio aditzera

matrimonioaren medioa azitzeko gizagendea, eta orgatik erran zue emastekias Adanek: Au da ezur ene ezurretaik, ta aragi ene aragitik; onengatik utziko du gizonak bere Aita ta Ama, ta biziko da bere emastearen konpañian. Ia ontaik ageri da Jangoikoak paratu zuela gizonki ta emastekiaren inklinazioa elkarrengana, baña ongi ordenaturik ta bere neurrian bat bateki azitzeko humeak zerurako. Baña zer agitu ze? Deabruak desordenatu zue guzia; inklinazio naturale ongi ordenatu ta neurritu gura bearradiña konserbatzeko gizagendea, biziatsu ta desordenatu zue bere maliziaren benenoareki, ez konserbatzeko baizik galzeko gizagendea. Orain bada Jangoikoaganik da inklinazio natural moderatua; deabruaganik arren desordenazio, exzesu ta geiegia; au da bizio ta lepraren gaitz kutsuskoa doaiena pasatus jenerazioz jenerazio; bitartean gelditu da, ta ezin nior dispensa Jangoikoaren legea, luxuriasko bekaturik in etzagula, proximoaren bizikidea deseatu etzagula. Ia beras libratzeko luxuriaren lepratik ezten bear kuido ta tentu andia, ia ezten prezio peleetzea bizkorki demonioaren, munduaren ta aragiaren kontra, dagolarik espiritu gaixto gura kontino inspiratzen bere maliziaren benenoa, mundua berriz beterik leproso kutsatzen dutenes begi ta bearrietaik ere ikusis ta aditus solamente, ta aragia azkenik ain biziatsu, ain prest kutsatzeko bereganik ere. Infelix ego homo etc. zio San Pablok, gizon desdixatua ni! Nork libratuko nau gorputz eriozko gontaik? Badio berak, gratia Dei etc. Jangoikoaren graziak Jesu Kristoren medios. Baña berex ta klaroago tugu erremedioak egungo ebanjelioan. Lenbizikoa, steterunt â longe, urrutu apart biziatsu okasio, peligro ta lagun gaixtoetaik. Bigarrena, levaverunt vocem, klamatzea orazioan Jesus onai. Irugarrena, ostendite vos sacerdotibus, agertzea geuren buruok sazerdoteei konfesioan. Explikatus banaka.

Len lenik aparta kutsatzeko peligroetaik. Ene humea, dio Jangoikoak (proverb. 1), esnestatzen ta algo ematen badizute bekatariek, etzozutela obedi. Erraten badizute zato gureki, ene humea, etzaitela akonpañia aieki, aparta zure oñak aien bideetaik. Dire Jangoikoaren itzak. Eta Jesu Kristorenak ebek (Math.18): Zeure eskuak edo zeure begiak ematenbaizu galbide, atra, ebaki, aparta zeureganik; obe duzu oriek gabe sartu zeruetako erreinuan, ezi orieki infernuan. Da erratea, ain adiskide ta ain prezio barin bauzu nola eskua ta begia norbait ematen dizuna galbide, aparta, aparta. Doktrina gau entenda prinzipalki gizon ta emastekien komunikazioan. Jenero gontan iges egitea da medio propia logratzeko biktoria, dio San Agustinek, baitaere San Pablok, fugite fornicationem. Iges eginik ere ezta guti mantenitzea libre garbi eder arima kutsatu gabe luxuriaren lepras, zer izain da sartu okasioetan? Baña iges egitea delarik prezio, ezta aski; bear da klamatu biotzas orazioan egungo leproso gaien gisara: Jesus, miseriordia nitas. Edo berze garren gisa: Jauna, nai badu, banazake garbi. Errespondatu zio: nai dut, garbi zaite. In ze erran bekala. Ala erran zue jakintsuak: ikasi dut eznaikela izan garbi berze gisas, ezipada emanen Jangoikoak (Sap. 8). Eta Job sanduak: Nork dezake egin garbi azi likitsetik formatua, ezipada berorrek sollik? (c. 14) Lore eder gau eztakar bereganik gure lur gaixto gonek; izatekos gizonak, eman bear du zerutik Jangoikoak erregalos, ta konserbatu bere eskus. Jangoikoaren milagro andia izan ze goardatzea irur mutil gaste gaiek Babiloniako labean, bilorik ukitu gabe suak. Andiago da goardatzea mundu gaixto gontan, kutsatu gabe arima luxuriaren lepras. Bada kutsatuaskeros garbitzea ori baita Jesus onaren lan ona! Ortako ixuri zue ainberze odol axuri dibinoak txuritzeko arreki arimak. Idurizaizie agian gaizki errana, txuritzea odolas; baña ala dio San Juanek errebelatu zekiola (Apoc. 7): Ebek garbitutuste beren galak, eta txuritutuste axuriaren odolean. Baña odol gonon birtutea prinzipalki aplikatzen da konfesioko sakramentuan. Ta orra irugarren medioa,

konfesatzea; ta ori adiarazi zue errateareki: Zoaste, agerzaiste sazerdoteei. Ori zego manaturik lege zarrean, materialki. Ori dago manaturik lege berrian espiritualki. Bazuke Jesu Kristok kuratu ori gabe, ta errealki joanbañolen, garbiturik aurkitu zire ala amar gebek, nola berze gura, baña alaere etziote dispensatu joatea, baizik manatu ziote agerzea sazerdoteei. Ontan signifikaizen da askotan kontrizioaren birtutes konfesazeko intenzioareki barkatzentigula Jangoikoak bekatuak, baña alaere eztingula dispensatzen konfesatzea. Trabaju da, alke da, agertzea nork bere arimaren lepra; baña trabaju ta alkegoi pasatzea da preziso bere kulparen penan, ta arimaren onagatik. Izan gaitzen, dio San Pedro Krisollogok (s. 3a) izan gaitzen bekatar geuren agoko konfesios, atra gaitzengatik libre Kristoren barkazios. Baña dio berak: Bekatua admitiarasten digu geuren frajilidade naturaleak; ta konfesatzean estorbatzen digu alkeak bekatuari datxikonak; ez alketzen gaizki egiteas, ta alketzen gara konfesatzeas; beldur gara errateas ezkarenok beldurtu egiteas (s. 34). Bekatuak berak baño gaixtoago da eginaskeros ukatzea, dio San Krisostomok (h. 20 in Genes.) eta berriz dio San Krisostomok (h. 20 in Genes.); eta berriz dio (de paenit. t.5): Agian eztaude arimain barnean bekatuak, ta eztitu ikusten Jangoikoak, zeren eztituzun konfesatzen? Zer protxu da ez konfesatzeas? Agian altxa zaizke Jangoikoai? Ezpaituzu ere erraten, badakizki, presente dauzki; baña erraten baituzu, borratzentu berak, nola in ezpalire. Nork akusatzen duen bere burua egintuen bekatues, dio San Agustinek (s.3 dom.1 quadr.), ura eztu zertas akusatu deabruak juizioko egunean, barin badu bateo dolore ta emendatzea. Eta berriz (in pr. 50), egin duzu bekatu, zer ai zara diskulpatus? egin da, ez defenda. Prest zego Jangoikoa ematera barkazioa, zeurorrek erxten diozu ataria defendatus. Eta berriz (in pr. 65), etorri zara medikuagana, sano kontatzen zara; ia ezta erremediorik zuretako, betikos eri geldituko zara. Konfesa zaite eri, lograzeko erremediatzea. Eta berriz (in pr. 66), altxatzen bazara ez konfesatus, ez konfesatus kondenatuko zara. Beldur zara konfesatzeas etzaizkelaik altxa juezai, naiz ez konfesa. Kondenatuko zara ixildus zindeizkena libra konfesatus. Pintatzen du ederki sandu gloriosoak desgrazia gau Dabiden itz gaien explikazioan (ps. 68), neque absorveat me profundum etc. Jauna, ez nadiela erori butzu barnean, ta eztadiela ertxi butzuaren agoa ene gañean; dio, butzu barna dela gizonaren gaixtakeria. Artan erorzen dena barna erorzen da. Baña alaere konfesatzen baitu bere gaizkiak, ezta oraño ertxi butzuaren agoa arren gañean. Baña ala dagolaik ezpadu ajolarik atratzeas, ertxi du butzuak bere agoa arren gañean. Nola ertxi du bere agoa? Zeren ertxi baitu arren agoa, galdu baitu konfesioa. Konfesioak justifikatzen du, konfesioak bekatuen barkazioa ematen du, barkazioaren esperanza guzia dago konfesioan (5.3.dom. quadr.). Noren bekatuak barkazen tuzien izain dire barkatuak, norenak ez, ez; erran zue Jesu Kristok sazerdoteei, ite ostendite etc.

Azkenean bataioko grazia galduaskeros ezta berze erremediorik baizik konfesatzea bere gaizki egina dolore sobrenaturalareki, al badaike konfesa, ta ezpadaike, bentzait konfesatzeko intenzioa kontrizio perfektoareki; sakramentu gau deitzen da bigarren ola atratzeko salbo arima, ta bigarren bataioa garbitzeko arimaren lepra mortala; eta da preziso garaitzea subergia ta alke geiegia agertzeko Jangoikoaren ministroari nork bere miseria lograzeko Jangoikoaren miserikordia. Uste dut nik, balego nornai gorputzean lepras beterik, ta seguraturik garbitu leikela agertzeareki sazerdoteai bere gaitza, ez lezakela deustan errepara bere burua ikusteagatik sendaturik. Bada nola ezta egin bear berze ainberze libratzeagatik lepra espiritualetik, eta pena eternoetaik? Obligazio gau mostratu du Jangoikoak asko milagros, manatus bere sanduen medios, ta aingiruen, eta Maria Santisima beraren medios, ta erresuzitatus ere ilak konfesatzeko beren kulpak. Alaber

eskarmentuak ere dire ezin kontaala. San Felipe Neri enpleatu ze bizi guzian aditzen konfesioak, ta il zen egunean ere. Jangoikoaren argis ikusten zitue biotzetako pensamentuak ere; berak abisatzen zitue ustenzustenes zela alkes, zela malizias, zela atzenduras, zela edozein gisas konfesatzeko. Ezaunzen ere zitue gañeko iduritik arimen estadoak, ta espezialki honestoak atxon onetik, ta usai gaixtotik deshonestoak. Zein aurpegi itsusia dakarren, erran zio bati; erretiratu ze ura, ta eginik zenbait kontriziosko akta, itzuli ze, ta sanduak erran zio: aldatu da aurpegis azken egonzenetik onat. Konfesazen ze bat gaizki; ta sanduak ezaundurik erran zio negarres: Zergatik etzara konfesatzen osoki? arritu ze ura, ta joanik andik konfesatu ze ongi; gero itzuli zelaik, orai bai, erran zio sanduak, diferente iduri duzu lenekotik. Berze bat konfesatu ze sanduareki zeremonias; sanduak absolbitubañolen erran zio: Espiritu sanduak erran dida konfesatu duzun guzia dela gezurra. Lotsatu ze arras berzea, ta trukatu ze alako maneran, ezi konfesio jenerale bat egin ta sartu ze erreljioso. Berze bati ere erran zio: Zuk altxatu duzu alako ta alako bekatua; konfesazkizu, ezpauzu joan nai infernura. Señora bat asarraturik berze bateki etze ia joaten konfesatzera sanduagana nola len, zergatik erreprehenditzen zion odio gura. Gau bates sentitu zue eman ziotela bofetada andi bat, ta bateo erran ziotela: Noiz arteo iraundu bear du odio gortan? itzuli ze akordura, ta argitu orduko joan ze bere lengo konfessore sanduagana konbertiturik. Berze bati logratu zio Jangoikoaganik orazios seme bat; au gero amalaur urtetakoa zelarik heritu ze, ta iltzen jarri zelaik biali zute sanduaren eske; au zego orduan meza erraten, ta akabaturik joan zeneko iltze mutikoa. Sanduak milagrosoki biztu zue; ilak bizturik ia mintzatu zio: Aita, bekatu bat atzendu zekida, ta nai nue konfesatu. Bereala aitu zue konfesios, ta absolbiturik egon ze kontatzen berze munduko berriak ordu erdi bates bekala. Azkenean sanduak galdeturik ia nai zuen il, erran zue baietz, joateagatik zerura, non baizeude bere ama ta arreba. Sanduak erranik: Zoaz Jangoikoareki, ilze berriro. Bada zenbat, galduaskeros santidoak itzularazi zitue akordura konfesatzeko? Ala Jangoikoak agertu du klaro zein preziso den konfesatzea garbitzeko arima, paratzeko grazian emen, ta an bere glorian. Amen.

Sermo Dominica 14.
post Pentecostem.
De serviendo uni Domino Deo

Nemo potest duobus Dominis servire. Math. 6

Egungo ebanjelioan dio Jesu Kristok ala: Niork ez dezake zerbitzatu bi nausiei, zeren ezi edo bata gaizetsi ta berzea onetsiko du, edo bata aguantatu ta berzea despreziatuko du. Ezdezakezie zerbitzatu Jangoikoai ta mamonai. Orgatik erraten diziet etzaistela egon afanaturik zer jan, ta zer jaintsiko duzien. Agian anima ezta ia ezi janaria? Eta gorputza ia ezi tresena? Beira zeruko egasteak, ezpaitute eraikitzen ta ez igitatzen ta ez biltzen graneroetan. Eta zuen Aita zerukoak mantenitzentu. Eztuzie ia balio zuek, aiek baño? Eta nork zuetaik dezake añaditu ukondo bat ia bere talluari diskurritus? Bada bestimentas zergatik zauste afanaturik? Konsidera kanpoko azuzenak nola azitzen diren; eztute trabajatzan ta ez errokatzen; baño diot Salomon bera ere bere gala guziareki etzegola jaintsirik ain ongi nola ebetaik bat. Bada kanpoko belar bat, egun dena, ta biar sura botatzen dena Jangoikoak ala bestitzen badu, zenbat ia zuek fede gutitakoak? Etzaustela bada afanaturik kabilatzen, zer janen dugu, edo zer edanen dugu, edo zereki bestituko gara. Ezi ortan paratzeunte gogoa mundukoek. Badaki zuen Aitak oriek guziok beartu ziela. Beras len lenik prokuratu Jangoikoaren erreinua, ta beraren justizia, eta oriek guziok emanenzaizkizie gañetik. Orra ebanjelioa. Eztaien gaizki entenda, bego xakinik, eztela emen erreprehenditzen trabajatzeara sendoki atratzeko gorputzaren sustentua, ez, baizik sobra afanatzea, exzesoa, kuidado ia paratzea gorputzaren ezi arimaren. Gizona da jaioa trabajurako, ta Adan gizon lenbizikoari Jangoikoak eman zio sententzia: Zeure kopetako izerdis atra beauzu zeure ogia. Baña alako maneran bear da prokuratu bizitza gorputzarena, eztaien sobra afana, baizik egin inala. Konfia Jangoikoan, dei Jangoikoari, ta eutxi kabikoari. Jangoikoa len, gero gañarakoa. Ikasirik au, segitzeko saluta zagon Ama Birjina. Abe Maria.

suponitzen da egungo ebanjelioan gizon jaio denak mundura preziso duela zerbitzatzea bietaik bati, edo Jangoikoai edo Jangoikoaren kontra denai; eta nola zerbitzuak baitakar trabajua, beras eztaixe exkusa trabaju ia edo gutiagotik, eman daien Jangoikoai, edo eman daien kontrarioai. Biei bateo ezin eman, dio Jesu Kristok; ezdezakezie zerbitza Jangoikoai ta mamonai. Mamona deizen omen dire lurreko ondasunak eta gananzia (Aug. hom. hui. dominicae). Ezpadaixe zerbitza ondasun ta gananzia lurrekoei Jangoikoareki bateo, zenbat gutiago munduai, demonioai, aragai, bizioei ta bekatuei? itz bates, Jangoikoaren kontra denai eta orra desengaño andi bat emanik dabilzanei erdikal ta aldian bekala, ia Jangoikoaren, ia kontrarioaren. Suponiturik au guziau, aipa zagon zer den zerbitzatzea. Zerbitzatzea da nausiaren borondatea kunplitzea, manatzen duena egitea, arren gogora ibiltzea, trabajatzeara, etc. Orai ia oiutuen du Eliasek: Noiz arteo zabilzte maingika bi aldetara? Zuen nausi barin bada Jangoikoa, segi au; berzerik barin bada, segi ura. Ebanjelioan pintatzen du Jangoikoaren nausi ta aita ona, gutas duen probidenzia, bear dugun konfianza, ta izain dugun gananzia; baño erresolbitzeko arras ematera Jangoikoai bere zerbitzuko, noaie paratzera klaro erkadan zenbait motibo obligatu bear gaitutenak.

1ª. Bera nor denagatik, Jangoikoa guzien jaun ta jabea, zeñi zerbitzatzen dioten

serafinek, aingiruek, zeruek, iruzkiak, izarrek, ta gauza guziek gogotik, ta demonioek ere nai baute ezpaute. Jaun bat ain amablea ta admirablea, ezpaita mirik explika dezakenik. Ongi dagokigu zerbitzatzea bere Majestadea zeñi zerbitzatzea ta erreinatzea. Ditxosoa nork zerbitzatzen dion, nausi onari zerbitzatzen dio. Bera baitan aurkituko du nai duen guzia. Kuadratzen zaizu grandeza ta Majestadea? Ain errege andia da, ezi guzia beraren aldean kontu deus eztirela, ta bere pajeak ta zerbitzukoak itentu ia ezi munduko enperadoreik andienak. Kuadratzen bazaizu podorea, ain poderoso da, ezi solamente nai izateareki egintu diren gauza guziak, ta in dezazke millaka ia ere, ta oroat desegin, nai badu; ta beraren podores lurreko gizon pobre batek dezake nai duena, ta ez dezake erresisti infernu guziak. Kuadratzen bazaizu ontasuna, ain ona da ta noblea niork deseala ta pensaala baño ia neurririk gabe eztena ukatzen den pobreenai ere. Kuadratzen bazaizu benignidadea ta miserikordia, ain benigno ta miserikordioso da, ezi ofenditu duena anitz denboras ere admititzen du negar guti baten medios bere grazian. Kuadratzen zaizkizu ondasunak? Ain aberatsa da, ezi da ondasun guzien iturria, ta niork eztu deus ere onik ezpada bera emanik, ta ezta pobretzen emanek, ta itzul dezake nai badu loa urre, arriak perla prezioso. Kuadratzen zaizu liberaltasuna? Ain liberal da, ezi eman naiak dago beti enfadatu gabe emanek, ta kejatzen da gure ez eskatzeas. Kuadratzen zaizu edertasuna? Ain ederra da ezi beraren ikustean dago sanduen gloria, ta ezin daizke aspertu beira egones eternidade guzian, ta bere edertasunaren erraiñu bateki itzuliko zaitu ederrago ezi iruzkia. Kuadratzen zaizu erregalo ta gusto? Ain gustoso erregalatua da ezi tanta bat txastarazirik munduko trabaju guzien erdian sanduei, zoratzentu kontentus, ta gustoaren utses ez lezake senti erre balezkite ere bizirik bitartean. Kuadratzen zaizu amore? Ain amoroso amante da, ezi bereak tratatzentu kariño miragarriareki, ta dauzki bere besotan, ta bere biotzean, ez usteko sekulan, ezpadute berek usten lenik. Kuadratzen zaizu? Baña noiz akaba? Pensa nauzun guzia, ta guzia aurkitukouzu Jangoikoan. Tontoegi ezpazara, naiko diozu zerbitzatu.

2^a. Kriazioagatik, zeren Jangoikoak kriatutuen zeruak, lurra ta gauza guziak, baitare gu bere imajina ta semejanbara. Berak emana dugu arima ta gorputza; berak emana dugu memoria, entendamentua, borondatea; berak emanak begiak, eskuak ta sentido guziak; berak emana den guzia gure baitan barnetik eta kanpotik. Nekazariak bere alorrean plantatzen badu planta bat, dretxo du arren fruituetara, naiz Jangoikoa den ekarrarasten diona fruitua. Zenbat ia gizonaren obra, itz, afekto, pensamentu ta gauza guzietara du dretxo Jangoikoak, ta guziok bear dire enpleatu beraren zerbitzutan? Ezperen ladronkeria iten zaio.

3^a. Konserbazioagatik, zeren kriatu bekala, konserbatzen baikaitu Jangoikoak gu kontino bizi guzian emanek atsa, argia, sustentua, indar ta gañarakoak, falta balezagu istante bates, istante gartan baikinazke ilak. Eta orra istante adiña fabore, atsaldi bezanbat obligazio; eta orra gure esker gaixto desatinatua ofenditzea Jaun gura, zeñen menean gauden ia ezi amaren menean aurra daramana sabelean. Konta onen gañetik goardatzea infinizio bat iltzeko peligroetaik, sendatzea eritasunetaik, etc. Nola dezakegu ofendi bere Majestadea? Nola beraren mertxedes bizi ta zerbitzatu beraren kontrarioai?

4^a. Preserbazioagatik, zeren preserbatze gaituen anitz bekatuetatik, eta agian libratu kondenatzetik mereji zuena kondenatzea. Jangoikoaren milagro andia da mantenitzea bere besoetan botatu gabe infernura gizon eskergaitza iten diona asko ofensa. Utzi balu erorrera, ta gero andik atra, estima lezake. Bada ainberze da ez ustea erorrera, nola erori ondoan atratzea; ta ala infernutik atrea bekala ango markareki bear du ezaundu bere burua kondenatua bekala bereganik, ta estimatu ta zerbitzatu ia Jangoikoa libratu duena.

5^a. Erredenpzioeagatik, zeren erredimitu baiginduza Jangoikoak, gu galduak ginalaiek. Zer da erredimitzea? Da erreskatatzea berea pagatus kostua. Baña nola? Au da arrizuen duena normai ongi pensatzen badu. Gizona galdu ze deabruai obeditus, ta Jangoikoa ofenditus; eta ofenditua bera bere karidade geiegiagatik jautsi ze bere tronotik, egin ze gizon, nausi andia esklabo bestiturik gure zamarras, ta ia dena, bekatariain semejanzas, pagatzeko bekatarien partes libratzeko esklabo billau bekataria; bizitu ze trabajutan, iltze pena andietan, utzi ze preso lotzera, maltratatzera, lixtukatzera, azotatzera, gurzifikatzera, ta akabatzaera indignoki. Pensa ia etzegoken ongi bere glorian, utzirik or konpon zeila bere ofendizala, nai bazue galdu gal zeila! Pensa ia eztiogun obligazio serafinek baño ia gizonen, honraturik beraren aikotasunas gureki, ta libratu beraren kostus.

6^a. Bokazioagatik, zeren deitu, berexi, ta markatu gaituen bere kristio, bere etxeko hume, ta onetsi erregalatutako. Zoaste kontatus ontan sarzen diren mertxede ta fabore andiak, paratu gaituelaik salbazioko bidean bear dugun guziareki beti ongi izateko, utzirik ainberze ta ainberze perdizioaren dilubio unibersalean. Pensa zer ia mereji ginduen guk aiek baño. Pensa obligazio berex duguna kristioek estimatzeko ta zerbitzazeko Jangoikoa.

7^a. Justifikazioagatik, zeren justifikatzeko nai dugulaik utzitigun medioakabasto, au da, sakramentuak barkatzeko bekatuak, ta itzulzeko bere graziara. Bekatu mortale bat admititu orduko personak, zezake istantean dretxos kondena. Jangoikoak eztunai izandu, baizik utzi bere odolaren birtutea sakramentuetan borraratzeko gure kondenazioaren sententzia, ta salbatzeko, noiznai urrikiturik itzuli gaitzen gure gaizki egin konfesatus. O nausi ona ta onegia gaixtoendako ere!

8^a. Alimentu erregalatu ematen digunagatik bere maiean gañarakoen gañetik. Zein da au? Bere gorputz ta odol preziosoa altxaturik ogi ardoen idurian. Nausi obenak munduan eztu egiten ia, baizik jarrarastea esklaboa bere maiean ta janarastea berak jatentuen erregaloetaik. Non da alako nausi, alako arzai, alako aitarik edo amarik azitzen ta erregalatzen duenik bere esklaboa, ardia edo humea bere gorputz ta odol propioeki? Alakoa da sollik Jesus. Ô res mirabilis! Gauza admirableak! jaten du Jaun ona esklabo humil ta pobreak!

9^a. Predestinazioagatik, zeren predestinatu gaituen bere gloriarako. Au zierto eztaike xakin, bizi garen bitartean; baño daike esperatu señaileen konforme, iten digunak ainberze fabore, inedigula guzien korona, baita gloriaratzea bere denboran. Emanendigunaren prenda ederra da eman diguna, bere odola pasioan, bere bizia gurutzean, bera den guzia sakramentuan. Naibaginduza utzi galtzera, bazuke justoki askotan; orai dakusagu konserbatu, preserbatu, kristiatu, faboratu gaituela, da señaile salbatu nai gaituela. Zierto dena da zerbitzatzen dionak eztuela galduko bere alokairu ona.

10^a. Laur azken finengatik, logratzeagatik iltze ona, juizioan sententziaa ona, infernuko pena eternoetaik libratzea, ta gozatzea Jangoikoa bere glorian. Au guziau niork ez dezakegu eman, ezpada sollik Jangoikoak. Beras bear diogu berai zerbitzatu beragatik eta geurengatik. Baña eztakiongatik niori gogoratu zerbitzuonen probetxuak datozila gero solamente, ikuskigun datozinak presentean.

1^a. Birtutearen ona, ezi ona beti da on, ezpalitz ere ez premiorik, ez kastigorik. Ongi eginas ezta urrikirik, ez beldurrik, ez alkerik. Ongi egiten duena atra daike sueto noiznai ta nonnai zeruaren ta munduaren alzinean.

2^a. Probidenzia amorosoa Jangoikoak duena ones bere zerbitzukoek, ezpaizaiote kenduko bilo bat ere burutik gaitzes; eta naiz permiti zenbait trabaju munduan, guzioi da

aien onetan. Gaitzak ere on, zer ia daike desea?

3^a. Espiritu sanduaren grazia, amore ta agrado dutena Jangoikoaren begietan. Zuk maite Jangoikoa, ta Jangoikoak maite zu, zer ia nai dezakezu? Etzaitela beldurtu, Maria, erran zio San Gabriele, zeren aurkitu duzu grazia Jangoikoaren begietan. Jangoikoa barin bada ene fabore, nor ene kontra? zio San Pablok.

4^a. Zeruko argitasuna ematen zaiotena, eztabiltzan itsuturik ilunbetan mundukoen gisara, baizik ezaunzeko ongi Jangoikoaren bidea, munduaren banidadea, ta gauzan (sic) diren bekala, ta ala manteni daitzen konstante zerurano.

5^a. Jangoikoaren konsolazio, gozo ta alegrian komunikatzen direnak biotz-barnean aldizka dulzatzeko trabajuak, de manera ezi alegregeago dire onen negarrak ere, ezi gaixtoen dibersio ta kontentu guziak. Ia ez tuten konsolazale ona, konsolazentuelarik iltzerakoan ere. Zein guti ala alegriaren diren mundukoak iltzerakoan.

6^a. Konfiantzaren sanidade, sosegu ta alegria Jangoikoaren presenzian, esperantzareki maite tuela bere Majestadeak. Oneki konsolatzen dire emengo trabajuetan. Zein kontra gaixtoak, ezpaitaizke sosega, ezpada ertxis begiak, ta atzendus bere gaitza! Konfianza sano seguro dutena onek salbatukotuela beren Jaunak; au da ala nola zeruko atxon bat sentiarasten diotena arara baño len. Kontra berriz gaixtoen konfianza banoa da, ta azkeneko hozpintzen da, ta eriotzeko tranzean sentiarasten diote infernu-urrian bat aflikzio, ta kongoja, ta desesperazioetan.

8^a. Onen libertade egiaskoa, au da libre bizitzea munduko pasioenen ta gauzen prisioneetarik. Agidaiaena agi, datorrena datorla, joandaiena joan, ez tute tristura sopra. Kantatzeunte Santa Teresareki: Deusek etzaitela turba, deusek etzaitela lotsa; guzia pasatzen da, Jangoikoa mudatzen ezta; Jangoikoa duenari deus etzaio falta, Jangoikoa sollik aski da; pazienziareki guzia erdexten da.

9^a. Aditzea Jangoikoak bere sierboen otoizak, ta faboratzea bear-orduetan. Guzia dezaket indar ematen didanareki, dio San Pablok. Guzis poderoso bekala da duena bere fabore guzis poderoso. Guzietan akuditzeunte Jangoikoagana, humeak aitagana bekala, ta Jangoikoak iten diote bear den guzia.

10^a. Jangoikoak bereei asistitzea lurreko gauzetan ere, ta azkenik eriotzeko lanzean bearren bearrenean. Arzentu aien arimak bere besotan, justorum anima in manu Dei sunt etc. Ta eztiote gaizkirik eginen eriotzeak ere. Bake ta sosegu onean lokarzen dire Jangoikoan, eta ori da sanduen iltzea. Berzerik ezpaltz ere, solamente onengatik bear ginduke autatu zerbitzatzea Jangoikoari. Kontra izain dute guzia, zerbitzatzendiotenek kontrarioari. Jangoikoak digula azertatzeko grazia.

Diot bada berriz ere, zerbitzatzen dionak Jangoikoari, Nausi onari zerbitzatzen dio. Adiskide ona du duenak adiskide Jangoikoa, ta amatzentu bere amazaleak, bere eskutik dauzki ta bere biotzean; bitarte ez biziak, ez iltzeak, ez onek, ez gaitzek ez dezokete gaizkirik egin sekulan. Exenplu dugu on izan ta izanen direnetan munduaren printzipiotik azkenetako, naiz aien bizian aldizkaturik gustoak eta penak, onak eta gaitzak, ala nola tela bordatuan lore ta kolore diferenteak, beti idukitu bereki Jangoikoak, ta azkeneko atratu ongi, ta segurutu betiko deskansuan eta glorian. Zoaste beiratus jenerazio jenerazio Jangoikoarenak, Noe dilubio unibersalean, Josef Ejipton, Moises desertuan, Tobias kautiberioan, Dabid desterruan, Jonas itsasoan balearen sabel-barnean, Job estrabillean, Daniel leonen kubilan, Susana arrikatzeke peligroan, San Pedro ta San Pablo karzelean, martirak beren martirioan, konfesoreak beren bizimodu sanduan, birjinak beren erretiroan, ta sandu guziak munduaren desprezioan, ta Jangoikoaren beldurtasunean nola triunfante

atratur beren Nausi onak, ta koronaturuen glorias aingiruen ta gizonen alzinean. Kontra berriz banoak ta gaixtoak bizitu direnak deabruaren, aragiaren ta munduaren konforme, ez tire pasatu emen trabajurik gabe, ta orai daude penatzen erremediorik gabe, pagatzen diotela beren nausi infernukoak zerbitzu egin tormentuen soldatari egi eternidadean. Jangoikoa egin gaizala gu bere zerbitzuko. Amen.

Sermo in Dominica 15
post Pentecostem.
De modo moriendi
et resurgendi spiritualiter

Ibat Jesus in civitatem, quae vocatur Naim, etc. Luc. 7.

Egungo ebanjelioa da au: Zoeie Jesus Naim deitzen zen erri batera, bere diszipuloen ta jendetze andiaren konpañian; eta urbildu zelaik portalera, ara non aurkitzeunten il bat zeramaten orzitzera bere amaren seme bakarra, ta ama alarguna zoeie negarres akonpañamentu andiareki. Jaun dibinoak ikusirik ta urrikariturik joan, ta erran zio: Ez dezala nigarrrik egin. Eta ellegatu ze, ta ukitu zue atauta, eta zeramatenak gelditu zire. Erran zio ilari: Mutila, zuri erraten dizut, xaiki zaite. Eta jarri ze ila zena, ta asi ze mintzazen; ta entregatu zio bizirik bere amari. Guziak lotsarritu zire, ta laudatzen zute Jangoikoa ziotela: Profeta andi bat agertu da gutartean, eta Jangoikoa etorri da ikustera bere jendea. Orra ebanjelioa. Entendatzeko arimaren alde, ta probetxu atratzeko, goazen salutatzer gure Ama Santisima Maria. Abe Maria.

Ezta dudarik, Jesus onak gure bizitza denak anitz il biztu bide zituela; baña solamente irur kontatzen dire ebanjelioan gure doktrinatako; bat sinagogako prinziipe baten alaba amabi urtetakoa mortaxaturik zegolaik bere kuartoan; berze bat egungo mutil gau zeramatelak karrikan orzitzera ia; berzea Lazaro laur egun zuela orzirik ia, ta urrintzen asirik. Espiritualki entendatus, eriotzea arimarena da bekatu mortala; ila da dagona mortalean ta Jangoikoaren desgrazian. Biztea da itzultzea graziara bekataria. Diferenzia da bekatarietan, il gaiek adiarasten dute. Lenbizikoak mortaxaturik bere kuartoan oraño adiarasten du erori dena bekatu mortalean sekretoan; bigarrenak karrikan adiarasten du bekatari gaizki egiten duena eskandaloreki agerri, edo askok dakitelaik; irugarrenak urrintzen osirik obian adiarasten du bekatari dena kostunbres ajolaik gabe ia. Ikusteko da nola hume desgraziatuak joaten diren gaixtatus ta galdus batetik berzera, geiago ta ia. Baitaere nola gure Jaunak konbertitzentuen naituenak.

Bataiatzean aurra, baita bigarren jaiotze espirtuala zerurako, zelebrazen da aleganzas, ta arrazioreki, zeren paratzen den Jangoikoaren grazian, ta markatzen den Kristoren markareki bere etxeko, ta iltzen balitz estado gartan, doaie arima zerura segurki; da egi eta fedea. San Franzisko Xabierrek Indietara joanik etzue logratu bere nege (sic) ta dilijenzen fruitu anitz denbora-aldi bates. In zuena ze aur ilzenarenak arrapatu ta bataiatu; anitz alako biali zitue zerura, ta aiei enkomendazen ze sandua, logra zezaten Jangoikoaganik beren aitetamen, aideen ta lekukideendako argi ta grazia konbertitzeko zuzen bidera; ta eskribitzen zue andik millaka legoak pasatu zituenak ta ia ere ongi enpleatutako ematen zituela, iragaziagatik solamente aurtto gaiei arimak. Eta ala natural izanik sentitzea aitetamek aurren iltzea, ezta sobra sentitu bear bataiatuaskeros, xakinik doazila zerura Jesu Kristoren merejimentus, zeñen birtutea aplikatzen zaioten bataioko sakramentuan. Baña gelditzen direnes emengo bizirako baleki batek zer izanzen den denborareki, ez alegratu beti, bai tristatu leike iagotan, joanen baitire gaixtatus ta galdus mundu gaixto gontan. Guziek iteunte errenunzia ta despedida Satanasenganik, arren obra ta ponpa guzietatik; baña zenbatek faltatzen dute gero itza? Guziei ematen zaiote pañolo txuria, ta kandela itxekirik bataiatu ta berla graziaren señaile; baña zenbatek mantxatzen,

zenbatek itzaltzen dute gero? Nola agitzen den, ikusten da egunoro.

Zenbait baktx Jangoikoas daudenak zerurako, logratu dutenak arima ona onera emanak, Jangoikoaren beldurdunak, alkekorrak, modestoak, oposizio dutenak munduko banidadeetara, ta afizione Jangoikoaren gauzetara, alakoak Jangoikoaren graziareki bateo, buratsoen ta sazerdoteen kuidoareki agitzen da mantenitzea bataioko grazian. Ditxosoak, zori onekoak! Quis est hic et laudabimus? Nor da alakoa, ta laudatuko dugu? Baña añarakoetaik milagros aurki daike bat edo bat erorzen eztena zer edo zertan; geienak erorzen dire; lenik bere naturale ta inklinazio gaixtoaren kasos; gero buratsoek ajola guti ta maña gutiago izanes atratzeko onak; gero aitus, ikusis ta segitus adinkideak ta alzinatuagoak malizian, ezi gure desgraziatako denbora ta leku guzietan baitu deabruak bere Ministroak ala gizonki, nola emastekietan, zeñek laudatus munduko banidadeak, despreziatus birtuteak, lazatus bidea, pintatus bizioak ta dibersio benenatuak kolore on idurieki, eskarnio egines birtuosoes, deitus izen goitiei simple, eskrupuloso, santurron ta ala, predikarien itzak direla pondera zio, gaixtoak goapo, gaixtakeriak gasteria; en fin itz ta exenplueki birtutea oinpetan, bizioak andetan gora eramanes triunfante arrullo; asten da gastettoa inbidia-gisa bateki ala naies bera ere. Doaie alketus obediencias, humildadeas, erretiroas; eztu indarrik garaitzeko lagun gaixtoen algoak, irriak ta desprezioak. Asten da presumitzen bere buruas, galzen obediencia buratsoei, soltatzen gutibana beldur ta alkearen frenoak, lenik sarzen peligroetan, gero bekatu klaroetan, txipiagoetan lenik, andiagoetan gero; ta ala doaie egines egines gaixtakeriara, de manera ezi prinzipioan lotsatzen ze gogoratzeas ere, geroxago ez ainberze, geroxago guti edo baterez, geroxago etzaio deus, ta azkeneko sendagalla du gaizkias. Zoaste beiratus infernurako eskalera. Ikustea ta aditzea da lenbiziko grada, oni darraio gogoratzea, oni kuadratzea, oni konsentitzea, oni egitea, oni kostunbrea, oni sendagalla, oni ia ezin berzea, oni desesperazioa, oni kondenazioa. Ala arima iles beterik dago mundua, batzuk il ta berrian oraño, berze batzuk doazinak sarzera kostunbrearen obian, berze batzuk ustel urrindurik artan. Baña infernuan sartuartaño, beti baita erremedio Jesusen birtutes, goazen ikusis nola bizten diren il gebek. Orduan in zuenetik atra kontua.

Beñik bein itzultzea bere graziara arima Jangoikoaren desgrazian dagona da Jangoikoa beraren grazia graziosoa, ez gizonaren habilitadea, ala nola ilaren biztea ezpaita aren habilitades, baizik Jangoikoaren piedades. Ezpaze ellegatu an Jaun dibinoa, zer izanen ze il gartas? Ila il geldituko ze sekulakos, ortzi ta ustelduko ze. Oroat bekataria bereganik eztaike sekulan paratu grazian, joain da gaixtatus ta galdus geroago ta ia baratu gabe infernuraño, ezpalezo Jangoikoak eman nai bere eskua jaikizeko grazias doaiik, mertxedes, limosnas, karidades mereji duenaren kontra. Ezi, nork dezake obliga Jangoikoa admititzera bere grazian bere ofendizalea ar miserable eskergaitza? Baña, Jauna, bere Majestadeak ofrezitu omen du admititzea bere grazian bekataria, noiznai konberti daien ongi urrikiturik. Egia da, baña ezpazue nai ofrezitu bere borondates, niork etzioke atra itza. Ofrezitu du, baña ezta orgatik grazia gutiago admititzea. Ofrezitu du, konbertitzen bada ongi urrikiturik; baña eztaike ala konberti bekataria, ezpadu konbertitzen Jangoikoak, ala nola ilak ezpaitzezake bilatu ta errogatu biztu dezakena.

Orduan Jaun dibinoa bera atra ze bidera, ikusi zue ila atautean, ta ama negarres, ta mogitu ze miserikordias. Ala orai nori nai duen etorzen da bisitatzera, beiratzan du ilik bere kulpas, beiratzan du negarres ama, auda Eliza Ama Sanda, zeñen atenzios askotan iten du humeeki miserikordia mereji etzuen. Bizteko il gura Jaun onak ukitu zue eskuas atauta, ta gelditu zire zeramatenak. Ala bizteko arima, ukitzen du arimaren atauta, baita

gorputza, agian eritasun, maltur ta eskarmentueki, bentzait biotza bai beti bere eskuareki, ta detenitzen dire pasioneak zeramatenak infernuan orzitza. Orduan erran zio ilai: Jaikizaite. Jaiki ta jarri ze ura, ta asi ze mintzatzen. Ala arima ilai adiarasten dio bere boza, au da bere inspirazio itentionak biotzera; oneki itzulzen da akordura, jarzen da asentus pensatzen ongi bere gaizki eginak, ta mintzatzen da, au da, konfesatzen da dolore bear denareki. Orduan entregatu zio amari bere semea bizturik, ta alegratu ze ama. Ala Eliza Ama Sandari itzultzentio bere hume kristioak ondurik, ta alegratzen da orreki ama sanda. Ezperen naiz hume asko ta kristio anitz diren, ezpadire onak, barin badaude ilak Jangoikoaren begietan, ori ezta baizik ia penarasteko Eliza Ama Sanda. Orduan guziak arritu zire, ta laudatzen zute gure Jauna. Ala biztean arimak, admiragaitzen gure Jaunaren ontasunas, podoreas ta piedadeas; lauda zagun, zeren baita ain ona garaitzen duena gure gaizki guzia bere onareki.

Ezin kontaala dire exenpluak. Egungo ama semeen gisara espiritualki agitu ze Santa Monika San Agustinen amareki. Semea zebila galdurik errores errore, bizios bizio, herejias herejia. Ama guzia ze konsejatzea, erreprehenditza, negar egitea arren onagatik. Eskapatu zekio Erromara lenik, Milana gero. Segitu zio ama onak itsasos arat, ta ezin ekarri zuzen bidera. Milanen akuditzen zue San Agustinek aditzera San Anbrosio obispoaren predikuak. Ori ikusirik ama onak, ia esperanzareki bazeikela oneratu, eskatzen zio milla otoi ta negarreki San Anbrosiori konberti zezola semea al bazezake. Sanduak aldi bates erran zio: bidoeie Jangoikoareki, andrea, ezi ezta Jangoikoak utziko galzera alako negarren humea. Guziareki, naiz ia erdi-desengañaturik, au etze akabatzen erresolbitus; aliketa bein zegolaik kabilatzen, adiarazi zion Jangoikoak boza bat erraten ziola: Arzazu ta leizazu. Artu zue aldakan zeukan librua San Pablarena, ta lenbiziko aurkitu zuena leiturik desengañatu ze arras, ta bataiatu ze San Anbrosioren eskus adinaren ogeitamirur urtetan. Esker Jangoikoaren piedadeai billatu ta tiratu baizue ain fuerteki beregana. Fuerteago egin zue San Pablareki, au beraren kontra zebilan denbora berean. Baña aizazie konbersione bat agitua, denbora anitz eztuela. Kontatzen du aita Alonso Andradek (gr. 7 ss. 14) San Franzisko de Borja bizi zela Erroman, joan zekiola mintzatu naies Italiako predikari famatu bat nai zuena ai zezan espazioreki ta berla, inporta zela anitz. Sanduak ezin artu zue denboraik libre, baña bere lekuan biali zio aita Diego de Akosta, zeñei deklaratu zekio predikari gura gisa gontan: Ni naiz bekatari bat bizitu nai zena asko urtes errenditurik pasioneai, emendatzeko esperanzarik gabe ta desesperaturik bekala Jangoikoaren miseriordias, eztela enetako salbaziorik. Baña Jangoikoaren ontasuna ere ibili da pelean bekala ene gaixtotasunareki errenditu nauen arteo beregana orai errain dioten gisan. Ustentut alde bat eman tidan inspirazioak biotzera, baitire numeroik gabe. Noaie kontatzera berze medioak. Bein nebilalaik mula batean, atra zekida bidera hazienda beltz itsusi bat; nik emanue prisa, baña ark ia, ta erdetxirik mula eroriarazi zue, ta ni golpatu arrigarri. Anitz egunes kuran egonik oñazeeki, ta oroiturik infernuko penes beldurtu nitza, baña pasaturik egun gaiek, oroa nola len itzuli nitza ene bizioetara. Denbora puska bat pasaturik infernuko bideas noeie neurau predikatus berzeei zerurako bidea, egun bates predikatu nue Jangoikoaren miseriordiaren gain, ta nolako amoreareki admititzentuen bekatariak galduenak. Akabatu nuelaik predikua, xaiki ze jendearen artetik gizon bat luze, flako, lerden, koloregaitz bat, ta enegana urbildus oiuegin zue: Predikari Jaunareki itz bat nainuke. Nik sor eginue nere burua, ta prisaka joan nitza neure etxera; segitu zida ark alako porfiareki ezi naiz ertxirik ataria nik nekaturik negolako atxekiareki, ezin libratu nitza arren porfiatik; sartu zekida ene quartoan, urtiki zekida oñetan, asi ze konfesatzen

anitz penareki, bere bekatuak ez, baizik nereak in nituen espezie, numero, zirkunstantzia guziaki, ta azkenean erran zida ene llagarik andiena, baize galdua esperanza salbazioaren. Gelditu nitza arriturik ikusten nuela arren konfesioan neure konzienziaren estadoa kabalki; aditzeas ura ia izerdi zeridala, ezi ez predikuen neke pasatuas. Alaere kunplitzeagatik konfesoreain ofizioa, asi nitza animatzen konfia zezala Jangoikoaren miseriakorian, andiago baita gizonen bekatu guziak baño: Ala nagolaik exortatzen, xaiki ze ura, bideze Jangoikoaren aingiruren bat, ta erran zida: Bada gizon gaixtoa, nola ezta berorrek egiten erraten duena berzei? Nola agrabiatzen du Jangoikoaren dolorea ta piedadea deskonfiatus gisa ortan? Beira kastigoari, ezpada emendatzen. Au erran ta desapareztu ze. Gelditu nitza ikar ikar, triste, humoreik gabe ez jateko, ez nioreki tratatzeko; negar egiten nue penaren beldurres ia ezi Jangoikoaren amores. Zenbait egun goartu nitza bekatu egitetik, baño gero okasioak garaiturik erori nitza; berriro atzendurik guzietas segitu nue frenorik gabe. Eztakit nola sufritu zidan gure Jaunak; baño badakit, zeren baita infinitoki ona. Ikaratzen naiz oroitzeas ere nola eman nitzan bizioetara, berdin kondenatua nitzala, deskitatu naies mundu gontan. Ezta numeroik ta ez mirik kontatzeko ene gaizki eginak denbora gartan. Alaere ez nindue desanparatu ene Jaunaren piedadeak; zegokida deitzen, konbidatzen, tiratzen beregana. Egun bates meza erraterakoan, erraten bainue munduaren atenzios, mintzatu zekida hostiatik amoroso ala: Zergatik tratatzen nauzu ain gaizki zuk ni, tratatu zaitutelaik ain ongi nik zu? saltatu zekida biotza barnean itz gebeki; asi nitza negarres, in nue proposito ez ofenditzeko berriz; baño iraun duzue okasioraño, ta ez ia. Ia iraundu du ene Jaunaren pazienziak. Oraietan ellegatu da ene atarira mutil bat bere ezpatareki zintan, kapareki soñean, eskua altxaturik bulto bateki kapapean. Galdegin du nitas, sartu zaida kuartoan, ta kendurik kapa agertu du kaliza hostia konsagratuareki, ta beiraturik indignazio andiareki niri, bainego belauriko ta bera txutirik, erran dida: Gizon gaixtoa, ta kristio gaixtoa, ezaunzen duzu Jaun daukaten gau ene eskuetan? oroitzen zara egintzun faborees? Zenbat aldis, ta zenbat medios nai izan zaituen bereganatu? Zenbat aldis barkatu dizun bizia gorputzaren emendatzeko arimarena? Ni nindego mutu lotsarriturik. Aingiru gark obligatu nau errespondatzera. Erran diot: Oroitzen naiz, Jauna. Ark orduan: Bada ezta ia denboraik aliketa etzaren baliatu emanzaizunas orai arteo; Jangoikoak manatzen du akaba daitzela emen zure maldadeak zure biziareki. Erran ta egin, hostia utzirik kustodian atra du ezpata, goratu du emateko golpea. Nik emen, Maria Santisimagatik, jaun orren amagatik otoi otoi, ez nazala il, ezi ematen diot itz firmea oraingoan emendatzeko betikos. Detenitu da oneki, ta erran dida: Solamente enpeñu gorrek libratuzinduzke; bizia barkatzen dizut, ta ematen zaizu plazo berria kunplizeko ofrezitu duzuna. Ezpaduzu kunplitzen, kastigo eternoa izanen duzu. Au erran ta utzi nau; ta ni etorri naiz lotsaturik etxe gontara konsultatza ene erremedioas sanduareki erresolbiturik ez atratzeko emendik, nai banau admititu bere konpañian. Sanduaren konsejus sartu ze bere errelijione batean, non egin zue penitentzia bizi guzian, ta akabatu zue sanduki Jangoikoaren grazias. Ontan ta berze exenplu infinitoetan ageri da zein deus gutia den gizona bereganik konbertitzeko onera, ta zein andia neurritik gabeko Jangoikoaren piedadea ta podorea bizteko arima ilak paratus bere grazian. Egin bez gureki ere piedade poderoso gau admititzeas emen bere grazian, ta an bere glorian.

Sermo in Dominica 16.
post Pentecostem.
De hydropisi spirituali

Et ecce homo quidam hydropicus erat ante illum. Luc. 14.

Egungo ebanjelioak dio ala: sartu zelaik Jesus fariseoen prinzipen baten etxean larunbatean jatera ogia, aiek zegozkio beira oartzen. Hidropiko bat zego beraren alzinean; eta Jesusek galdegin ziote: Zillegi ote da kuratzea larunbatean? Aiek ixil. Baña Jaun Dibinoak artu ta sendatu zue, ta biali zue. Eta erran ziote aiei: Zeñek zuetaik, eror balekio astoa edo idia butzu batean, ez lezake atra, edo utzi lezake atra gabe len baño len larunbate egunean? Eta etziokete ontara erresponda. Kontatu ere zue konbidatuei parabola gau aditzera emanen nola zebiltzan arrapatu naies goragoko lekuak. Konbidatua zarelaik bodetara, etzaitela jarri lenbiziko lekuan, eztaien agi konbit izatea zu baño iagokoren bat, ta ez dezazun erran konbidatuzaitenak, utzozu oni lekugoi, ta orduan alketurik jautsi ondarrera. Baizik konbit zarelaik, jarri zaite azken lekuan, datorrelaik etxeko nausia erran dezazun: Adiskidea, igan zaite gorago. Orduan izain duzu honra konbidatuen alzinean, zeren ezi goratzen dena izanen da humillatua, ta humillatzen dena goratua. Orra ebenjelioa, zeintan urratutik hipokresia ta birtute iduri falsua, erakusten zaigu birtute sendo egiaskoa ta humildadea. Ikasteko saluta zagus Maria. Abe Maria.

Larunbata zute jai andia judioek, ta debekatua zute artan trabajatzeari. Hipokrita gaiek beren presunzio ezin soportatus Jesusen santidade ta potestadea egiteko ainberze milagro, zebiltza injeniatzen nondik eutxi tatxatzeko beraren ongi eginak, ta ezin aurkitu falta egiaskorik, tatxatzen zute etzirela ongi goardatzen jaiak. Zergatik ote? Zergatik sendatzen zituen eriak jaiegunean. Beira zer tatxa! Etzekio trabajurik kostatu, solamente ukitzeareki ta ori gabe ere, solamente errateareki usten zitue sano ta sendo. Ala ere hipokrita presumitu inbidioso gaiek ziote: Ezta gizon gau Jangoikoaren partetik, ezpaitu goardatzen jaieguna. Orra zer desgrazia duten sandu presumituek, beren baitan ez ikusten kulpa andiak eta klaroak, eta berzeen baitan birtuteak ere ta ongieginak kontatu kulpatako; ta aunditu inbidiaaren bekaiareki. Orgatik len ere sendatu baño len esku eartu bat, galdetu ziote ia bazeiken senda jaiegunean. Aiek ixil gelditurik, biali zue sano, ta erran zue: Ongi egitea beti da zillegi, jaiegunean ere. Egun oroat hidropiko garren okasios konbenzitu zitue, etzutelaik erreparoik goratzeko beren asto edo idi eroria butzuan, bai zebiltza erreparo paratzen gizon gaizoaren libratzean, naiz zen milagros.

Bereala pasatu ze sendatzera aien hidropesia espiritual, baita gaitz gaixtoagokoa. Zer da hidropesia espiritual? Presunzioa, antustea, andinaia; zeren ezi ala nola gorputzaren hidropesia ezpaita anditasun sendo egiaskoa, baizik aundidura falsu dañoso ures edo aizes, ala presumitu andinai banoak eztire andi sines, baizik aundituak beren banidadearen aizes. Gaiz gonek arrapatzentu kalabera uts zenzu gabeak, ezi buru juizioskoak ezaunduko du anitz ia duela zertas humillatu, ta deus ez zertas presumitu, ta barin badu zer bait ongi, ezaunduko du eztuela ori bereganik, baizik berzeek emana, ta zor duela ia orgatik emanzaleai. Zer duzu eztuzunik errezibitu? dio San Pablok; ta errezibitu bauzu, zergatik gloriatzen zara, nola ezpazindu errezibitu? Nor ezpada kalabera utsa, daike gloriatu berzeek emanen, ta zorres? Miserien miseria da bizitzea kontino aize utses, aizearen eizian ibiltzea afanaturik bizi guzian, ta postrean gero eskuak utsik agertu an! Ala

agitzen zaie banoei. Pizatu zaitute balanzan, erran zio Danielek Baltasar erregeri, ta aurkitu zara arin. Ori du banoak; gaizki egineki deus ez iragazten, galzen ezi; ongi egineki ere ez iragazten, zeren guzia daraman banidadearen aizeak. Erranen zaio, recepisti mercedem tuam, guzia in duzu banidades, tiratu duzu zeure alokairua, aizea. Goazen berzela pizatus; ainberze errosario, ainberze debozio, ainberze gauza on, baña mamirik gabe kaskill utsak. Kaskilla da gañetik ageri dena; mamia da sustanzia; zerk xan diote sustanzia ta mamia obra on goiei? Banidadearen arrak. Zer nai du gureganik Jangoikoak? Agian gure gauzen bearrean dago? Ez, baizik nai du gure borondatea, iten duguna dena dela in dezagula beragatik ta beraren amores. Ori da sustanzia; baña ezpauzu egiten Jangoikoagatik, baizik munduagatik, eztut nai azal solla ta kaskilla, dio Jangoikoak, zoaz, paga dezazula munduak. Noiz arteo lurrean sarturik biotza? dio Dabidek (ps. 4). Zergatik nauzie banidadea, ta billatzen duzie gezurra? Zertan dago gezurra? Iduritzean gañetik ongi, ta egotean barnetik gaizki. Kolore on, ta barnetik ustel. Baña gezurra nai du, ta gezurres iten zaio kunplimentu. Errepara, ezi banoek eztute arzekorik Jangoikoan, ezpaitute egin beragatik; munduaren honragatik indute; nola pagatzen diote munduak? Gezurres ta engañus, zeren ezi munduak ikusirik direla bano, despreziazentu. Honra nai zute, ta aurkitzeunte desprezio; nai zute laudario, ta iten diote irri ta eskarnio. Ala Jangoikoaganik eztute zer esperatu. Munduaganik esperazen zute honra, ta gezur in diote; ezi honra da itzalain gisa, segitzen dio iges iten dionai, ta segitzen dionai eskapazen zaio alzina.

Etzaitela jarri lenbiz, dio Jesu Kristok, ezpauzu nai bota zaizaten azken. Jarri zaiten azken, para zaizaten gorago, zeren goratzen dena izanen da humillatua, ta humillatzen dena goratua. Humillatzea da gaitz guzien erremedio, suberbazea guzien beneno. Da bat ladron, luxurioso, asarre ta bekatari edozein gisas; humilla bedi konfesatus ongi urrikiturik bere gaitza, orra erremediaturik. Baña naiz honesto, bakesko, limosnagille ta berze gisas justo iduri, barin bada suberbo, presumitu, bano, galzera bota du bere on-iduri guzia. Sentido gontan zio San Bernardok obe dela bekatari humila, ezi ez justo suberboa (s. 22 de modo viv.). Pensa orai zer perdizioa den bekatari ta presumitu, pobre ta suberbo! Jangoikoak goarda. Nork sendatu gaitz gau? Nior ezta atrebizen korrejitzera suberboa, berak eztu admititu nai korrekzioa, ezeta ere ezaundu nai bere gaitza, sano ta sendo kontatzen da, nola daike kura?

Berze alde goratzen dena izanen da humillatua, dio Kristok, ta eztaike falta berak errana: Eskarmentu izanen du; eroriko da; suberbatzea ta presumitzea da erorzeko bezpera ta prebenzioa. Buruko bahidoa ematen dionai bekala, espezialki leku goran, eroriaraziko du. Buruko bahido espirituala da prebenzioa. Luxuriaren loiean erorzea da presumituen desgrazia komunki (Greg. ap. Claus p.2. Cat.c.13.). Eta zierto humildaderik gabe ezta kastidade segurorik, zerengatik kastidadearen goardia da humildadea, ta humilei ematen diote Jangoikoak grazia, dio eskrituran (1. Petr. 5.). Gaitz guzien erremedioa dugu konfesioko sakramentuan. Da preziso barkatzekos bekatuak humillatzea akusatzera bekatari bere burua, ta deklaratzera bere agos bere miseriak. Nork eztu ikusten mediorik obena ontako dela humil izatea, ta estorburik andiena izatea suberbo presumitu? Aunditurik suberbias ezin pasa atari mearretik, dio konparazios ederki San Agustinek (s. 54 de verb. D.). Klamatzen du zateenak bide zerurako, sarzaiste atari mearretik. Nai sartu, ta ezin sartu; estorbatzen dio aundidurak. Eta zenbatenas aundiago, gutiago. Beras txikitu bedi aundidura; ar bez humildadearen edari amargoa. Berze konparazio bateki ere dio au berau sanduak (ap. Claus p.3 Cat.c. 98 et 99.): Paraisoko ataria da apal, nai badu sartu, apal burua, ezperen burua tieso golpatu ta eroriko da gibleko aldera, ta ez sartu. Ontako

Jangoikoaren semea jautsi zena zerutik erakustera zeruko bidea, ontako utzi ze despreziatzera, milla manera indignos tratatzera ilartaño gurutzean, erakusteko Jangoikoak humillaturik eztaien izan suberbo gizona, dio San Gregoriok (l. 34 mor.). Kontra berriz Luzifer, suberbiak botatu zue zerutik, ta berak botarazi zitue Adam ta Eba paraisotik andinaies. Jangoikoak ta Jesu Kristok senda gaitzala hidropesia gontaik.

kontatzen da Eskritura Sagraduan, errege Asueroren ministro lenbizikoa Aman, zegolaik nai zuen guziareki, etzeikela sosega alaere, zeren Mardokeok etzion egiten kortesia pasatzerakoan. Bere andrearen konsejus disponitu zue urkatzea Mardokeo biramonean, ta ortako pararazi zue urkabean ongi gora. Agitu ze gau gartan leitzea erregek bere lengo denborako historiak, aietan nola Mardokeok libratu zion bizia traidoreen eskuetaik. Galdegin zue erregek zer premio eman zekion Mardokeori fineza garrengatik; baterez, jauna, errespondatu zio. Ellegaturik palaziora Aman, eskatzeko lizenzia urkatzeko berzea, sarrarazi zue erregek, ta galdegin zio, zer honra in dakioke erregek honratu nai duen bati? Ark ustes bera zen, ta ez berzerik nai zuena erregek honratu, errespondatu zio: Jauna, berorren majestadeak honratu nai duen persona bestiarazi bez gala errealeki, ta paraturik buruan korona, ta iganik erregeren zaldian, eraman bez prinziperen batek frenotik plazak ta karrikak barna pregonatus, ala da honratua nai duena erregek honratu. Orduan Asuerok: Zoaz bada, ta inzazu intzazu erran duzun guzia mardokeoreki. Bearko zue egin, ta egin zue manatu bekala. Pensa arren konfusionea! Etze ortan baratu. Atrarik zeuka manamendu ilarasteko judioak, baña Ester erreina enpeñaturik erregereki, kontaturik pasatzen zena, ta Amangura zela gaixtakeria garren autore, ez solamente logratuzue libratzea bere jendakia, baitaere kastigatzea Aman. Ta ala izan ze urkatua berak paratu zuen urkabean Mardokeorendako. Orra goratua humillaturik, ta humila goraturik (Esther 1). Erran zuena Maria Santisimak bere kantiko gartan, deposuit potentes de sede etc. Apaldutu poderosoak beren tronotik, ta goratutu humilak. Berso gau nai zue borrarazi Jobiniano enperadoreak; baña Jangoikoak emendatu zue burla piadoso bateki arren antustea. Sartu ze enperadorea bañatzera bañu batean utzirik bere tresena errealak; ebek ta arren iduria artu zue aingiru batek, ta ala joan ze palaziora. Bañutik atra zelaik, an ez ageri nior, ez bere tresenaik ere, baizik zar pobre batzuk, aurkitu ze arriturik etxakin zer egin; ez biluxirik egotekos, bestitu ze zatar gaietas, joan ze palaziorat, zela enperadore; ango irriak ta eskarnioak etc. Aliketa ongi eskarmentaturik, desertura joanik, ango monje sandu batek konsolaturik errateareki Jangoikoaren probidenzia, humillatu zelaik itzuli zio aingiruak bere insignia etc. Humilla guziok Jangoikoaren esku-pean. Amen.

Sermo in Dominica 17.
post Pentecostem.
De charitate in Deum,
et proximum

Magister, quod est mandatum magnum etc. Math. 22.

Egungo ebanjelioan kontatzen da nola bildurik fariseoak Jesusengana, aietarik batek legearen erakustunak galdegin zion: Maestru jauna, zein da mandamentu andia legean? errespondatu zio Jesusek: Onetsi edo maita zazu zeure Jangoiko jauna zeure biotz guzias, zeure arima guzias, ta zeure gogo guzias. Au da mandamentu andiena ta lenbizikoa. Baña onen gisakoa da bigarrena, onetsi ta maita zazu zeure proximoa zeure burua bekala. Bi mandamentu gebetan dago lege guzia ta profetak. (Eta bildurik zeuden fariseoei galdegin zioten Jesusek: Zer idurizaizie Kristos? Noren seme da? Aiek: Dabiden seme. Jaun dibinoak orduan: Nola bada Dabidek deitzen du Jaun diolaik; erran zio Jaunak ene Jaunari: jarri zaite ene eskuietako aldean, paratu arteo zure etsaiak zure oin petan? Bada Dabidek deitzen badu bere jaun, nola da Dabiden seme? Eta etziokete itzik erresponda ontara, ta etzire trebe andik al zina galdegitera deus. Onaraño da ebanjelioa. Elizak, orai egieta fedearen kolumnak ta firmamentuak, errespondatzen du fariseoen partes, dela Kristo Dabiden jaun eta seme, Jangoiko ta gizon bekala Jangoikoaren seme Jangoiko, ta Dabiden etorkitik gizon konzebitu zena Ama Birjinaren entrañetan, il zena gurutzean, erresuzitatu, igan zeruetara, ta an dagona jarriarik Aita eternoaren eskuietako aldean). Orai ikasteko karidadearen mandamentu andi gaiek, goazen salutatzerara Birjina Maria. Abe Maria.

galdegiten du legearen maestruak mandamenturik andienas, ta Jesu Kristok errespondatzen du artas ta arri datxikonas. Dio: Mandamentu andiena, onetsi Jangoikoa biotz guzias, arima ta gogo guzias; onen urbilena, onetsi proximoa geuren buruok bekala. Ezpadiote galdegiten ontas, zergatik añaditu du? Desengañatzeko, ezpada onesten proximoa, eztaikela onetsi Jangoikoa. Karidadea da bat, baña bi mandamentu ditu, bat Jangoikoaren alde, berzea proximoaren alde. Amore bat da bi besoeki; batareki besarkatzen du Jangoikoa, berzeareki proximoa. Jangoikoa bera denagatik, proximoa Jangoikoagatik, Jangoikoa guzien gañetik, proximoa geuren buruen gisara. Jangoikoa da guzien prinzipio ta fin dena; proximoa gu bekala gizon dena, espezialki kristioa. Jangoikoaren amatzean ezta neurriarik paratzen, baizik al guzia, biotz, arima ta gogo guzias; proximoaren amatzean neurria da geuren buruen gisara; neurri bera guretako ta proximoaindako, au da, nola nai dugun in dezaten gureki lanze berean, in dezagula guk proximoareki, ta ez dezogula arri egin eztugunanai indezaguten guri. Baña prinzipalena ta prezisoena, karidade izateko proximoaren amorean, da amatzea Jangoikoagatik, ez berze motibos. Orgatik amatzea Jangoikoa da len, ta amatuaskeros Jangoikoa, amatuko du proximoa Jangoikoagatik. Goazen bada ikasis mandamentu andi gura. Onetsi zazu Jangoikoa biotz guzias, arima guzias, ta gogo guzias.

Zer da onestea? Da ongina izatea, maitatzea ta estimatzea bere Majestadea, deseatus bera ongi guzia, alegratus beraren ones, tristatus beraren agrabioes. Zer da onestea biotz guzias? etc. Onestea amore sin, sendo, perfekto osoareki. Onen proguak dire irur: afektoak, obrak ta trabajuak Jangoikoaren amores. Klaroago; lenbiziko progua,

arimaren enpleatzea Jangoikoan memoria oroitus beras ta beraren ones; entendamentua pensatus Jangoikoan ta berari dagozkionetan; borondatea artus afizione bizia beragana, mostratus amoresko afekto, ansia, laudario ta alakoetan maiz. Bigarren progua, enpleatzea bizia obratzen Jangoikoak nai duena, trabajatzen beraren zerbitzutan goardatus beraren ofensaetaik. Irugarren progua padezitzea Jangoikoaren amores, galdus beragatik bearbada ondasunak, honra, gustoak, ta bizia ere. Ori nai du erran onestea biotz, arima ta gogo guzias.

Orai mandamentu andi gau exerzitzeko egunoro kristioak nai badu, ona erakustera noaie zer in dezaken noiznai, baña espezialki goizean jaikiaskeros. Zeñatu ta oroitu ta beiratu Jangoikoa presente dagon bekala, ta belauriko paraturik lenik kurtu burua lurreraño auspeska adoratus bere Majestadea arima ta gorputzareki. San Bizente Ferrerek enkargatzen du erratea goizoro kredoa, ta oroat arratsoro. Baña lenbiziko mandamentu andien garren conforme oben ta baliosoenak dire amoresko afektoak ala guti gora bera. O ene Jangoiko Jauna, nik lurreko ar pobre gonek amatzen, estimatzen, onesten dut orren Majestadea biotz guzias, arima guzias, gogo, entraña ta indar guzies. Amatzen dut gauza guziak baño ia berorren Majestadea, ia ezi gustoak, ia ezi honra, ia ezi mundu guzia, ia ezi ondasunak, ia ezi gustoak, ia ezi honra, ia ezi mundu guzia, ia ezi neure bizia. Amatzen dut, ta alegrozen naiz orren on guzias, alegratzen naiz ama dezaten, Ama Birjinak, serafinek, aingiruek ta arima on guziek. Amatzen dut, ta deseaten dut amatzea ezin iagos, ta ama dezaten kriatura guziek zeruan bekala lurrean ere. Amatzen dut, ta damu dut ez amatuas neuronek, ta berze asko arima desagradezituek. Barkatu, Jauna, miserikordia ta grazia. (Biba Jangoikoa, biba Jesus, biba Maria, biba Jangoikoaren legea etc.)

1. Deitzen da ta da andiena ta lenbizikoa mandamentu gau, zeren Jangoikoaren amorea edo karidadea baita birtuterik andiena ta lenbizikoa dignidades. Orai gelditzen dire fedea, esperanza ta karidadea, irur gebek, dio San Pablok, baña andiena da karidadea, ala nola metaleetan urrea, elementuetan sua, zeruetan enpireoa, izarretan iruzkia, aingiruetan serafinak. Au da zerurako bide erreala, zeintara datozin berze mandamentuen bide-xendak. Au da Jakob en eskale gora gura, zeñen goi enean dagon Jangoikoa, zeñen medios bere Majestadea jautsi zen gizonengana, ta gizonak igaten diren Jangoikoagana. Au da birtute noble gura unitzen duena Jangoikoareki gizona, iten duena Jangoikoaren adiskide, aide ta hume onetsia, ta berextentuena onak gaixtoetaik, axuriak antxumeetaik, salbatu bear direnak erreproboetaik. Fedea sollik ezta aski, esperanza sollik ere ez, obra onak ere karidaderik gabe eztire protxal, milagro egitea ere ezta seña le seguroa. Karidadea bai da marka erreala, Jangoikoaren selloa ta pasaportea, zeñeki doaienai faltarik gabe idikiko zaio zeruko ataria.

2. Da alaber lenbiziko ta andiena gure obligazios, zeren ezi biotz dugunaskeros, nor bear dugu amatu ezpada Jangoikoa? Eta ezin pagadezokegulaik berze gisas zor dioguna, zein obligatuak gaude amatzera sikiera?

3. Da ere lenbiziko ta andiena probetxuan, zeren au gabe deus eztutelaik balio gauza guziek, oneki deus gutik ere balio du anitz. Au da pobreen aberasteko injenioa; ala nola zer eman eztuen pobreak erraten baitu, emen eztu izanen berze erregalorik, baizik borondate ona; ala eztiogunek egiten Jangoikoai zerbitzu anitz, in bear duguna da amatu anitz. Obras naiz pobre garen, izan gaitzen aberats amores. Amoreak urrestatzen ta preziazentu gure obrak; anitz obra naiz bai, ezpada karidadeik, ilak dire, deus balio eztute, karidade gutireki guti balio dute, baña karidade andiareki balio dute anitz. Ezta pobre Jangoikoaren alzineko diona anitz amore; Jangoikoa dago arreki. Aberats deitzen da

duena arka urres betea, zenbat obeki da aberats duena arima amores betea? Jangoikoas betea dago alakoa, ezi Jangoikoa da karidade, ta dagona karidadean dago Jangoikoan, ta Jangoikoa arren baitan, dio San Juanek. Supli bada faltatzen duguna gañarakoan, supli amoresko afekto anitz ta andieki.

4. Da ere lenbiziko ta andiena Jangoikoaren agradoan, zeren ezi karidadea edo da grazia bera, edo graziareki unitua de manera ezi dagona karidadean dago grazian, da kuadrable Jangoikoaren begietan. Nor legoken zierto amatzen duela Jangoikoa, legoke zierto dela Jangoikoaganik amatua. Ezi Jangoikoak errana da, ego diligentes me diligo, nik amatzentut amatzen nautenak ni. Amatzea batek Jangoikoa da señale etorri dela arregana Jangoikoaren espiritua, ezperen ez lezake ama. Caritas Dei diffa per Spiritu.

5. Da ere lenbiziko ta andiena felizidades ta ditxas, zeren ezi zer nai dezake batek mundu gontan? Bere adiskide izatea Jaun guzien Jauna. Bada ori seguru du, baldin segurki amatzen badu. Zer gozoa bizian? Zer konfianza iltzean? Ala nola karidade edo amore gau ez duena ezin daiken salba, ala au duena ezin daike kondena. Zer felizidade, zer ditxa ezta fedeak diona, ezi edozein ordus konberti daien bat amatus Jangoikoa, naiz sobra denboras biziturik bekatuan, alaere admititzea bere grazian Jangoikoak, zeren artu dion amore?

6. Da ere lenbiziko ta andiena suabidadean ta gustoan, zeren ezi pensatzea solamente amatzen badu arimak Jangoikoa, amatzen duela Jangoikoak arima barin bada ain gozo, zer izanen da errealki amatzea ta amatua izatea? Amore gonon alimbar dulzea da dulzazenzizkiotena sanduei trabajuak ta penitenziak, atrarastenzizkiotena negar gozosoak, saltarasten kontentus, kantarasten alegranzias, ta mila erokeria sandu inarasten. Amore gau da ungendu prezioso kuratzentuena biotzeko lllagak ta tristurak. Da ardo jeneroso orditzen duena zori onean arima deseatzeko trabajuak, eritasunak ta martirioak Jangoikoagatik, ta egoteko eben ertean kontentago mundukoak baño beren kontentuen ertean. Pensa zer suabidadea, suabe itentia laik tormentuak ere, ta eriotzea ere!

7. Da ere lenbiziko ta andiena indar ematean, ta pazienza. Testigo onak dire martir gloriosoak. Zer ematen zio te ainberze arimo, indar ta pazienza? Amoreak. Zer da kausa tristatzeas gu ta kejatzeas edozein trabaju pixkas? Amore-falta. Eztiot Jangoikoaren amoreak, baizik amore naturalak, ta amore biziosoak ere, zer ezta inarasten? ama batek zenbat trabaju eztama bere humeagatik? Zer desatinoetara ezta exponitzen pasionatua amore desonestos? Afizioneak eiziara, dibersiora, jokura zenbat rato gaixto ezta pasarasten? Bada nork errain du Jangoikoaren amoreak eztuela obeki indar pasarasteko trabajuak gogotik? Admiratzen gara gu in zutenas San Franzisko Xabierek, ta berze sanduek. Da zeren falta zaigun aiek zuten amore. Gaude gu alkes, beldurres, gana gutis iteko bear direnak. Ori da amore-faltas, ezi onen suak aisa desegitentu agotztto goiek.

8. Da ere lenbizikoa ta andiena aisuran, zeren aisa eder da amatzea Jangoikoa nai duenak. Badaike izan atxekia ez barutzeko; ez penitenzia iteko, ez trabajazeko etc. Baña ez amatzeko zer atxekia daike alega? Edozein garaies, edozein lekutan, naiz preso, naiz eri, naiz lanean okupaturik gorputza, daike amatu Jangoikoa, dagolaik libre biotza. Amoreak aisatzen ere tu nekeak. Egia da amorearen su gau eztela itxekiko biotzean, ezpadu ematen beretik Jangoikoak.

9. Da ere lenbizikoa ta andiena perfekzioan, zeren amore gonek garbitzen du arima bekatuetatik, kentzentu inperfekzioneak, bizkortzen ta ederzen du arima, sandutzen du persona. Da birtute ta obra on guzien zaña ta bizitza. Karidade edo amoreik gabe eartuak dire birtuteak, obra ilak, nola arramak eta fruituak galzen baitire galduaskeros zaña. Zaña

da karidadea. Onek ernarasten, bizten, sustentatzen ta fruitus betetzentu birtuteen plantak. Karidadeak dakar humildadea, azitzen du miseriakordia, goardatzen du kastidadea, mantenitzen du pazienza ta gañarakoak. Nor den duena ia karidade, ura da sanduago.

10. Da en fin lenbizikoa ta andiena inportanzian, zeren mandamentu guziak erreduzitzen dire karidadearen mandamentura. Anitz dire mandamentuak gauza manatuen diferenzian, baña guziak dire bat karidadearen zañean, dio San Gregoriok. Guzien fina da karidadea. Guzia erreduzitzen da amatzera Jangoikoa. Ama zazu, ta nai zuna inzazu, dio San Agustinek (1 Joan 4. tr.7.). Da on guziaren zimendu ta korona. Da orazio graziaren, ta geroko gloriaren prenda. Da zeñen bi egaleki egazen den arima zerura. Ama zazu Jangoikoa biotz guzias, arima guzias, ta gogo guzias; eta logratukouzu Jangoikoa ta nauzun guzia denboran ta eternidadean.

Motiboak amatzeko Jangoikoa dire infinito ezi kontaala; baña bi iturrietara daizke erreduzitu. Lenbizikoa Jangoikoa, nor den izatea bere baitan; bigarrena ain ona izatea guretako. Lenbizikoa ain amable izatea bere Majestadea; bigarrena ain gure amazale amante izatea. Lenbizikoa beraren prenda ta onen immensidadea; bigarrena guri digun amorearen geiegia. Biz bedeikatua Jaun ona, baitu plazer amatzeas mereji gabe guk. Eta guk nola eztugu amatuko ainberze mereji duena? Da noble, da poderoso, da aberats, da liberal ta bizarro, da miseriakordioso, da ona, da ederra, da pensa daiken baña ia amable; ta orren gañetik amaten gaitu gu bere pobreok. Nola dezakegu ez amatu guk? Amore gonon sukaiak beira Jesu Kristoren humanidadean. Beira ainberze figura nola artzen duen gure amores. Beira aur txipitto pobre gisa erreklinaturik ganbela batean. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira desterraturik aurzutuan Ejipton etxes etxe eskean. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira gero ogeitamar urtetan peregrino mundu mundu salbazalea ain amable guziei ongi egiten ta erakusten salbatzeko. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira preso eginik, ta presentaturik juezen alzinean gaizki egille andia bekala. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira preso eginik, ta presentatuik Juezen alzinean gaizki egille andia bekala. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira bere etsaien erdian Jesus nola otsoen erdian axurittoa, golpaturik, lixtukaturik, begiak bendaturik, tiraka biloetaik, golpeka alde guzietatik burla ta eskarnioen erdean. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira bestiturik manta txuri bates erogisa, ta irris, txistus, oius jokaturik Herodesen etxean. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira loturik kolumna baten kontra, ta azotaturik borz milla ta ia azoteeki zatikaturik aragi sandu gura ta usturik odoles. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira gloriako errege propia jaintsirik purpura zatar bateki soñetaik, aranzes koronaturik burua, ta kana bat eskuan zetrota, alki batean jarrarazirik adoraten eskarnios errege burlasko gisa. Zer iduri zaizu figura gontas? Beira Isaak onegia bere guruzeareki soñean ezin xaxis, ezin ibilis erorka bidean. Gero etzinik arren gañean agos gora jositzen itzes esku-oñetaik; gero goraturik artan agonizatzen ta il zen. Zer iduri zaizu figura gontas? Gero erresuzitaturik triunfante igan ze zerura; baita iduri zaizu bazeikela aurki gu gabe? O amazale dibinoa! Beira sakramentu admirablean altxaturik alimentu-idurian gure betiko on naies. Zer iduri zaizu figura gontas? Alaere bear ze paratu mandamentua amatzeko guk gure Jauna?

Gaixtoago dena da alaere ezpaitiogu amore bear-zena. Nork bada, edo zerk ebasten dio Jangoikoai zor diogun amore gau? Edo zerengatik eztugu amaten? Batzuek munduaren amoreagatik, lurreko ondasun, dignidade ta gauzen amoreagatik, geienek aragiaren amoreagatik. Bitarteo desestimatzen da Jangoiko andia, eta deabruak iten du baza, doaie pasatus mundua, iles personak, emen gelditurik banidadeak, arimak doaz joanes ta errezibitus berea sekulakos. Maite bauzu zeure burua, onetsi, ama ta estima zazu

zeure Jangoiko Jauna zeure biotz guzias, arima guzias, gogo, entraña ta indar guzies.
Amen.

Sermo in Dominica 18.
post Pentecostem.
De paralyti spirituali

Et ecce offerebant ei paralyticum
jacentem in lecto. Math. 9.

Egungo ebanjelioan kontatzen du San Mateok, igan zela Jesus itsasonzi edo barko batean, ta itsasoa pasaturik joan ze bere ziudadera; ta ara non presentatzen dioten perlesitu bat etzinik bere goatzean. (Eta San Markosek a aditzen du sartu zutela urraturik tellatua andik, ezin sartus ataritik jendetzearen utses.) Eta Jaun Dibinoak ikusirik aien fedea, erran zio perlesiatuai: Konfia, ene humea, barkatzen zaizkizu bekatuak. An zeuden eskriba zenbait asi zire erraten beren baitan: Onek blasfemia dio. Eta Jesusek ikusirik aien gogoak erran zioten: Zergatik zauste pensatzen gaizki zeuren biotzetan? Zein da aisago, edo erratea, barkatzen zaizkizu bekatuak, edo erratea, jaiki zaite ta zoaz? Bada xakin dezazien duela Birjinaren semeak potestade barkatzeko munduan bekatuak, erraten dio perlesiatuai, jaikizaite, arzazu zeure goatzeoi, ta zoaz zeure etxera. Eta jaiki ze, ta joan ze erran bekala. Jendeek ikusteareki alako gauza lotsarriturik laudatzen zute Jangoikoa, eman diotena alako potestadea gizonei. Onara o da ebanjelioa. Entendatzeko geuren probetxutan, billa zagun grazia, salutatus Maria Santissima. Abe Maria.

Lenbiziko erreparatu bear dena da eri garren, ta bere aide ta adiskideen ansia ellegatzeko Jesusengana, etzela aski bere goatzean eramatea, ezin sartus ataritik, idiki baizute tellatua sarzeko andik Kristoren alzinera. Ontan erakusten zaigu arimaren eritasunetan bear ginduken dilijenzia billatzeko Jesu Kristoren sakramentuen erremedioa, len lenik konfesioarena, baita barkatzeko bekatuak, eritasun espiritualak, naiz zerbait kosta. Nora damazie eri gaixogoi gisa gortan? erranziokete aiei. Bere kuartoan obeluke egon geldi geldia. Zer ai zarate or ala urratzen tellatu ori? Oh! erresponda lezakete, gaitza duenak ona nai; ta emen dago mediku ta erremedio guzia. Oh zenbat egiten den, diot nik emen, sendatzeko gorputz eria, ta zein guti ajola arima erias! Guzia dago fede ta ezaumentu guti izatean. Bekatu edoze neki eritzen da arima, mortalareki iresten da benenoa ta ilzen da arima, paratus Jangoikoaren desgrazian, ta kondenazioko estadoan de manera ezi atratzen bada estado gortan, sekulako galdua da, ta alaere ain prisa guti, ain ajola guti, ainberze erreparo joateko erremedioaren billa! Ainberze nekaitz ustutzeko arimaren benenoa konfesioan!

Dilijenzia gau bear da beti ere, ba a bearrago eri-denboran. Oroitzea len lenik arimas eta Jangoikoas. Artzea kontrizioaren pena, desahogatzeko konzienzia. Orreki paraturik Jangoikoaren grazian, aisago da kuratzeko gorputza ere, Jangoikoa bera eginen da kurazale. Ba a bearrenas atzendurik konfianza guzia paratzen bada lurreko mediku ta medizinaetan, arrazioreki utzi dezake Jangoikoak; or konpon; eta nork edo zerk dezake kura nior, Jangoikoa barin badago kontra? in beazuna da, nai bauzu sendatu, errebitzea garai onean Elizako ordenamentu deitzen direnak, konfesioaren purga, komunionearen balsamo dibinoa, ofrezitzea ongi enpleatzea bizia, luzatu nai badizu, apartatzea alako ta alako galbideetaik, eta ala eskatzea gure Jaunai osasuna, konbeni bada; ta oneki bateo lurreko erremedioak, ezi ebek ere kriatutu, ta disponitutu Jangoikoak. Emen daike ere adberti eztela konbeni fazilki tenturik ta konsultarik gabe arzea bellak edo botoak; ori alde

bat. Berze alde eztela medio obena errekatatzeko Jangoikoaganik osasuna, ofrezitzea joatea alako sandu edo sandara, an enzutea edo erranarastea mezaren bat. Eztiot nik ori dela gaixto, baizik eztela obena, eztela anitz balio duena, espezialki festa-egun, dibersio ta alako eskaidaetan. Beldur naiz bella-iduriak arzen direla atxekia kunplitzeko gogoaren arinkeriak. Eta prezio gortan ain merke nauzu eman dezazun osasuna Jangoikoak? Orgatik dio ongi Kenpis Benerableak: Guti obetzen dire eritasunetik, ta anitz peregrinatzen dutenak gutitan santifikatzen direla. Bellarik obenak dire biotzesko proposito sinak emendatzeko bizimodua, apartatzeko banidade gontaik ta artaik. Ala ikusirik Jangoikoak nai duzula bizia ongi enpleatzeko, emain dizu osasuna. Ezperen, zer obligazios edo zer motibos? Edo zer arrazios? Pensa ongi doktrina gau.

Orai bekatuak askotan direla kausa eritzeko gorputza ere, eta ez sendatzeko eritasunetaik, Jangoikoak asko paratzentuela eri bekatuen kasos, eta eztituela nai bizkortu, libratzeko bekatuetaik, adiarasten da eskrituran ta egungo ebanjelioan. Zertako eraman zute eri gura? Zertako urratu tellatua? Zertako presentatu Jesusen alizean? Klaro da ezi librazegangatik perlesiatik. Bai, ta zer iten du lenik? ta zer erraten du? Konfia, ene humea, barkatzen zaizkizu bekatuak. Jauna, osasuna nai ginduke guk, ta berorrek dio bekatuen barkazioas. Bai, zeren lenik da kentzea kausa kenzeko efektoa. Kendurik bekatuak kenduko dizut eritasuna. Ez kenzekos bekatuak, obe duzu eri egon. Oh! zenbat aldis eritasuna da obe ez solamente bizitzeko libre bekatuetaik, ez solamente salbatzeko, baitaere egiteko on eta sandu. Eri nagolaik, obeki nago, zio Santa Teresak. Eta berze sandu batek eritasunak ta oñazeak deizen zitue Jangoikoaren miserikordiak. Eta guziek kontatzen zute eri-denbora feraiak obena bekala irabazteko anitz grazia ta gloria. Bai, ezi ezta Jangoikoa lurreko nausi miserableen gisa, bear baituste beren zerbitzukoak sano ta sendo; Jangoikoa deusen bear ezten bekala, oroat dezake zerbitza eriak nola sanoak; ta obeki eriak, ezi Jangoikoa zerbitzatzea da egitea Jangoikoaren borondatea, ta au in dezake eriak sufritus, kostoso bai baña baliosoago. Eznago deustako, dio eriak, nainuke osasuna zerbitzazeko Jangoikoa, errezatzeke, konfesa-komekatzeke, predikatzeko etc. Guziok dire atxekiak ta amore propioaren engañoak. Nai egin bere borondatea, ez Jangoikoarena. Jangoikoaren borondatea da orai zauden eri goatzean pazienziareki. Kunpli zozu gustogoi, ta zerbitzatu duzu. Cuartoa orduan da eliza, goatzea aldare, ofrezitu amorosoki bere trabajua, ta ezta alako errezu ta deboziorik. Berze alde osasun-denboran bada asko tentazio ta okasio ofendizeko Jangoikoa. Eri dagonak gana guti du asko munduko banidadeetarako; solamente du peligro pazienzia. Pazienzia barin badu, bekatu guti, ta anitz merejimentu in dezake Zerurako. Purgatorio gontan gorputzaren kostus errefinatzen dire arimak; bekataria onzen ta onak obetzen dire. Orgatik eri luze-egones zue esperanza ona sanda gloriosak. Ala ere ezta debekatzen kendu naia eritasunak, nola ken daitzen bekatuak.

Guzietako da gure Jesus ona; presenta bekio humil bekataria goatzean bada ere, barkatukotio bekatuak dudarik gabe, ta emain dio osasuna ere, konbeni bada. Eskandalizatu zire hipokrita gaiek; baña seguratzeko gu bekatuen barkazios, erran ziote aiei: Zein idurizaizie aisago? Barkatzea bekatuak edo sendazea perlesia? xakin dezazien bada dezaketela ura, inen dut au. Istante jaikiarazirik goatzetik sano ta sendo ermanarazi zio bere goatzea soñean. Zer diferenzia aixtean ezin mogitus etzinik goatzean, ta orai azkar oñes goatzeareki soñean. Alako prodijioak itentu ariman ere Jesus onak. Bai, baña zein ote da arimaren perlesia? Perez, dio San Buenabenturak (diet. salm. t. 1. c. 7) au da onerako desgana, gogaitza, enfadoa, epeltasun, floxeza, ajola gabea etc. Ezi guziok eldu dire batera. Nola perlesiak kentzen baitu indarra ta mogimentua, ala perezak edo gana

gaixtoak eztu usten egitera deus onik, ta egiten duena ere ez ongi. Goatzea zeintan dagon etzanik epel debozio gabea da kostunbre gaixtoa konzienzia falsuareki. Gaitz gaixtoa da, ta nekes daikena kura, ezpada Jesus onaren grazias. Asten da floxatus onean; segitzen da egines axial axala nolanai espirituik gabe kostunbres, zeremonias edo itxurapenes; aumentatzen da utzis utzis guti guti egun au, biar ura, eztela inport; doaie gaizkitus geroago ta ia, admititus gutibana gaizkiak, au zer da inport? Eskrupuloak dire, ta sinple zak, ta ala. Doakio kendus onerako gustoa, sartus gaitzerako inklinazioa, betes arima bekatus, bera ajolakabetus, ta ala kostunbre egines, sereno bizitus Jangoikoaren desgrazian uste eztuela. Orra konzienzia falsa, goatze eriozkoa. Jangoikoak goarda. Perlesia mortala, Jesu Kristok senda bez.

konparatzen da perezoso nagi floxoa burriña zokoan dagonareki erdoitzen baita, lur soroareki betetzen baita kardus ta belar gaixtos, ur geldiareki korronpitzten baita, tresena utziareki jaten baitu sitsak, estudiante floxoareki ezpaitu ikasten, baizik gaiztakeria. Guziok dire San Buenabenturaren konparazioak. Pereza edo perlesia espirituale gonon kalteak, lenik pobreza, gero bileza, dio Espiritu Sanduak, arrikatu dute perezosoa loiesko aris, ta idi-boñigas (Eccli. 22.) errateko eroriko dela inmundiziasko bekatuetan, zeintara inklinatzen baitu perezak; gero barneko perdizioa, ezi deseo gaixtoetan zebatzen da alferra; gero berze bizioen azitzea ariman, ezi orgatik da Espiritu Sanduaren errana, pasatu nitza perezosoaren alorretik, eta guzia zego beterik asuñes; gero desonre emengoa ta angoa ezi mereji du despezia dezaten deustako bekala debalde jaioa debalde bizi dena. Mereji duen erreprehensioa pintatzen du sandu berak konparazio gebeki. 1. Bidea luze ta denbora guti delaik, egotea nagi da erreprehendizeko, ala guk dugu biaje luzea Zerurano, ta plazoa labur, baita bizi oraikoa. 2. Da ere erreprehenditzeko deskuidoa, daudelaik esperatzen bat maestruak edo Jaun andiak, ala gure esperan daude aingiruak ta sanduak. 3. Alaber delarik konbidatua dignidade andira, gu ala gara konbidatuak dignidade andienara. 4. Alaber enbarazu anitz delaik bidean, ta peligro ez ellegatzeko mugara, gaixto da pereza; ala guk dugu anitz tentazio ta peligro. 5. Alaber ba erori delaik leku gaixto peligraskoan deskuidatzea jaikitzeke da gaixto, estado gortan dago dagona bekatuan. 6. Alaber da erreprehenditzeko floxeza plantatzean, eraikitzean, ta gañarako lanak egitean bere denboran. Denbora gurea egiteko azaro espirituala da orai, gero da bilzeko eraizioa azaroain ariora, ta etxakin noiz ertxiko den plazoa. Beras ezta egoteko deskuidaturik nagi ta perezoso, ezpadu nai agi dakion petardo sekulako.

Perlesia zartua espezialki neke da kuratzea; ala perlesia espirituala, baña bizi den bitarteo, badu erremedio, nai badu; ura da gorputzaren gaitza, erremediatzea eztago solamente nai izatean; berze gau da borondatearen gaitza, erremediatzea dago nai izatean gogotik. Nai izateko ta animatzeko noizean noiz su eman bere buruai pensatus, zer ai gara? Zertara etorri gara? Zertan gaude? Deus guti onik egin dugu orano: bizia da labur; badoaie pasatus; eldu da eriozea, berla kontu ertxia, gero eternidade betikoa; nola iten dugun, ala aurkituko dugu. Berze batzutan, ea bide onas joan dire sanduak eta sandak, doakiote segitus gizajendearen flore florea, farraskak dire munduari apegatzen direnak, infernuan baratzen direnak; obe dut segitu Maria Santisimaren ta on guzien bandera. Berze batzuetan, gauza goapoa da bizitzea libre bekatuetaik oraiko ta geroko; auxa da habilidadea, au ditxa ta felizidade guzia, ta nere eskuan dago. Ertxi gaitzen guti bat orai, ta betiko ongi. Berze batzuetan, lurreko arttoa izanik ere nai genuke izan Jangoikoaren adiskide onetsia nor banaiz. Bada zer ai naiz? obe dut Jangoikoa ezi guziak. Nai badut gusto, nai badut ondasun, nai badut honra, nai badut alegria, nai badut amore ta fabore, ta

seguridade, ta satisfakzio, nauten guzia ta ia ere da Jangoikoa. Eta maitatuko nau maitatzen badut. Zer in bear dut bada? Berze batzutan suspiro biotzeskoak gora, O edertasun ain antiguaskoa, ta ain berria, zein berant ezaunzen duten! O ontasun infinitoa, zein berant onesten duten! O amore, o ene Jaun onaren amore geiegia enegana, zein gaizki korresponditzen dioten! O bizitu banitza sanduetaik bat bekala beti! Nola nindegoken, ta nola nagon! Ala utziko dut pasatzera bizia? Jauna, in bez eneki bere milagroetaik bat. O ene Jaun obena, nor litzaken berorrrena! Guzien gañetik beiratzea Jesus gurutzean da su itxekitzeko ariman mogiarasteko onera, o Jesus, berori manera gortan salbatzeagatik ni, eta ni ain epel eta nagi! Ezpadut ajolaik berori nor denas, nola eztut kasorik amore didanas? Zer letra dire ikustentudanak gorputz sandu gortan? Amoresko letrak dire, klaro eder diote amatzen nautela niork ez bekala. Nola nik eztiot errespondatuko amorean? O amore geiegia Jesusena, gloriako errege utzi ze ilzera gurutzean, ez usteagatik galtzera ni infernuan! O ene desamore indignoa, ezpaitut deus egin ta pasatu nai beragatik! Ala itxekis sua orazioan, daike sendatu arimaren perlesia de manera ezi len zegona etzanik floxezaren goatzean, gero dabilan bizkor animoso dilijent Jangoikoaren bidean.

bear dugu bada perlatiko espiritualeek akuditu Jesusengana senda gaitzan. Solamente beiratzea ere imajinan da protxal. Errebelatu zio Santa Jertrudisi bein ala, beti ta noiz beiratzten duen batek ene imajina gurutzean debozioreki, nik miserikordiosoki beiratzten diot berai amoresko afektos (Blos in mon.). Zer izanen da konsideratus ongi? monje bat nobizio zelaik zoeie iges konbentutik trabajuen beldurres. Agertu zekio bidean gure Jauna, ta galdeginik iges egiteko motiboas, erakutsi zitio bere llagak: beira zazu zenbat pasatu nuen nik zuregatik. Gogor ta beltz iduri zaizun ogia busti zazu ene odolean, ta ikusikouzu zein goxo den. Oneki gelditu ze ura kontent, eta len etzezakena soporta, andik alzina zerama gogotik eta aisa. (Disc) San Pedro Apostolua inzute preso Jerusalem, baña kristiandadearen orazioen atenzios Jangoikoak libratu zue aingiru baten medios. Gero berriz inzute preso Erroman, baña orduan etzue nai gure Jaunak libratu, baizik pasa zezan martirio beraren amores. Kristioek injeniatu zute atrarastea karzeletik ixilkias. Bazoeie sandua libre bere bideas kanpora. Agertu zekio gure Jauna bere gurutzeareki soñean. Arriturik San Pedrok galdegin zio: Jauna, nora doaie gisa ortan? errespondatu zio Jaun dibinoak: Noaie Erromara berriz guruzifikatua izatera zuregatik. Entendatu zue apostoluak, ta itzuli bai itzuli instante bere karzeler ta eman zue bizia animoso gurutzean gure Jaunaren amores. San Pedro M. zego desterraturik kulparik gabe, ta denborain buruan asi ze tristatzen ta joan ze Kristo guruzifikatuaren oñetara; an suspiros ta negarres erran zio: Jauna, nola ezta itzulzen ene fabore? Dakielarik berorrek inikako mertxede baten okasios naukatela desterraturik ta deshonoraturik gisaontan ainberze denboras eta nere kulparik gabe? errespondatu zio guruzetik: Eta nik, Pedro, zer kulpa nue paratzeko gurutze gontan? Ikasazu padezitzen kulparik gabe. Gelditu ze sandua guzis konsolaturik ta animaturik pasazeko ia ta ia, bear baze. Baña gure Jaunak entenderazi zue sanduaren inozenzia. Ez gindezake akaba, nai baginduzke kontatu erremediatu diren guziak Jesus guruzifikatuaren birtutes. Au da botika unibersala sendatzeko eritasun ta eri-jenero guziak. Emen logratzen da osasun ta indar espiritualak. Emen ematen da anitz konsolu, arimo ta grazia, prenda logratzeko gloria sekulakoa. Amen.

Sermo in Dominica 19.
post Pentecostem.
De nuptiis animae

Regi, qui fecit nuptias filio suo etc. Math. 22.

Egungo ebanjelioan dio Jesu Kristok, agitzen dela Zeruetako erreinuan, entenda Elizan, ala nola errege bati, zelebratu baizitue bere semearen bodak, eta biali bere mutilak deitzera konbidatuak bodetara, ta etzute nai etorri. Berriz biali zitue berze mutil batzuk erratera, prebeniturik dagola bazkaria ta guzia prest, datozila bodetara. Baña aiek etzute ajolaik, ta joan zire bata bere lureko itekoetara, berzea bere trabajuetara, ta gañarakoek arrapaturik arren mutilak deshooratu ondoan ilzuste. Erregek aiturik au, ta beterik iras biali zitue bere tropak, ta galdu zitue gaixto gaiek, ta aien erriari su eman zio. Orduan erran zio: berei: Bodak prebeniturik daude, baña zirenak konbit, etzire digno; zoaste bada bide goiek barna, ta aurkitzen tuzien guziak konbidazkie bodetara. Aiek joanik bilduzuste aurkituzusten guziak, onak eta gaixtoak; ta bete ze maia jendes. Sartu ze gero errege ikustera maiekoak, ta ikusi zue an gizon bat ez jaintsirik bodetako tresenareki, ta erran zio: Adiskidea, nola sartu zara emen bodetako tresena gabe?. Ura ixil; orduan erregek bere ministroei manatu zio: Au esku ofetan loturik, bota zazie ilunbean; an izanen da negarra, ta ortzen karratskotsa, zeren ezi anitz dire deituak, baña guti eskojituak. Onaraño da ebanjelioa, zeintan enzerratzen dire misterio andiak. Entendatzeko billa zagun argia, eskatus Maria Santisimari. Abe Maria.

Ebanjelioko errege gau da errege guzien errege Jangoiko andia. Onen seme bakar naturala da Jesu Kristo Jangoiko den bezan bates Jangoikoa Jangoikoaganik, argia argiaganik, Jangoiko egiaskoa Jangoiko egiaskoaganik. Onen bodak ta desposorioa da len lenik bere naturaleza dibinoaren ta humanoaren unionea batean, au da, Jangoikoa, gizon egitea, ta gizon guzien aide bekala, honratus ta faboratus ala gizagendea ia ezi aingiruak ta kriatura guziak, Zeruen pean ta gañean direnak. Berze desposorio-gisa bat da egin duena Jesu Kristok bere elizareki edo kristiogendeareki, egin baita ala gorputz bat gureki, bera gure buru, ta gu beraren mienbro, bera aien ta gu zarmendu. Au egiten da bataioko sakramentuan, non kristiatzen diren arimak, ta unitzen Kristoreki, ta Kristoganik deitzen dire kristio markaturik beraren karakter edo marka espiritualareki, zein eztaiken borratu sekulan ez Zeruan ta ez Infernuan ere. Berze desposorio-gisa bat da admititzea ta paratzea bere grazian arima bekataria; au egiten da espezialki konfesioko sakramentuan beraren odolaren ta gure kontrizioaren birtutes. Berze desposorio-gisa bat da komunioneke sakramentuan, non komunikatzen baita gure arimareki bera, ta berareki gure arima. Ene gorputza ta odola jaten ta edaten duena dago enebaitan, dio, ta ni berabaitan. Berze modu miragarri batean ere desposatzen da arima sandueki orazioan, mundu gontan unitus espiritua spirituareki, faboratus ta erregalatus gloriako gusto-idurieki emen, ta ango ondasunak txastarazis emen arara baño len. Desposorio perfekto azken ditxoso zori onekoa da glorian, non komunikatzen baitio arimai bere gloria, grandeza, erregalo, gusto, alegria ta on guzia, ezin ia desea ta pensa daiken gisa. Angoaren bezpera bekala, prebenzio ta azia bekala da desposatzea emen fedes bataioan, grazias sakramentuetan, amores komunionean ta kontenplazioan; guzietara guziok gara konbidatuak: lenbizikoak dire fedearen ta graziarenak.

An goitiko Zeruetako erreinuan nola zelebratzen den desposorio betikoa, zer konbita, zer bazkaria egiten den eternidadean, ezta mirik explika dezakenik. Baña Eliza emengoa ere deitzen da Zeruetako erreinua, zeren baita Kristo erregeren familia, ta zeintarik solamente doazin doazinak erreinu gartara; emen ere prebenitu du bazkari erreala, zeintan konbidatuei paratzentioten plater edo erregalo miragarriak. Lenbizikoa bere itz ta doktrina dibinoa, mandamentu ta konseju soberanoak salbatzeko arima. Bigarrena sakramentuak, espezialki aldarekoa, non Jesus bera ematen den janari ta edari-gisa txastarasis Jangoikoaren dulzetasuna bere iturrian bekala. Irugarrena arimaren barneko inspirazioak, konsolazioak, gozo ta gusto amorosokoak. O gure Jaunaren ona gureki, nola nai gaituen! Zein ongi tratatzen gaituen! Eztugu atxekiarik ia, ezpagara salbatzen.

Ebanjelioko konbidatuek etzute estimatu erregeren konbita beren iteko ta tratuengatik, ta gaixtoago dena; batzuek persegitu ta ilzuste beraren mandataria. Mutil mandadari gebek dire Jangoikoaren ministroak, predikari ta pregonari bialiak mundua barna konbidatzeko federa kristio eztirenak, ta graziara kristio gaixto direnak. Beñere ezta faltatu, ta ez faltatuko munduan nork predikatu ta konbidatu Jangoikoaren ordes. Baña askok eztute ajolarik Jangoikoaren konbitas ia lureko banidadeen, ia ondasunen, ia gusto debekatuen kasos. Jangoikoa prest, admititzeko bere palazioan, konbita prebeniturik, ataria idikirik, bere ministroak oius kontino dei ta dei jendeak beren probetxutako, ta ebek itsuturik munduko banidadeen aize, lur, loi ta inmundizietan, eztute nai progatu, ta ez progatuko Jangoikoaren konbita! Ia dena, itzulzen dire predikarien kontra, nola ezpalire mintzo aien on naies! Eben beldurrak egon bear dugu? diote: ebek bear digute manatu? Ez por zierto; solamente in bear da kaso bere onas, ta Jangoikoaren errespetoas. Zer kalte dute predikariek? Bere kalte du bakotxak. Predikariak aien onetan, ta aiek eben ta beren kontra! ellegatu zaiote kastigoa erremediorik gabe.

Erregek zio: Bodak prestaturik daude, baña konbidatuak etzire digno; zoaste kanpo goiek barna, ta aurkitzen tuzien guziak deizkizie; ta ala bete ze maia. Ontan adiarasten da, naiz faltaturik an emenka dela fedean, dela birtutean, eztela faltako munduan Jangoikoaren familia; eztirela faltako kristioak eta onak non edo an. Ezpaduzu nai zuk eta berzeak eta berzeak, naiko dute Jangoikoaren eskojituek salbatu bear direnek. Maian jarriaskeros konbidatuak, sartu ze errege ikustera, ta ikusirik an bat ez bear zen dezentian paratu zue preso kalabozoan. Adiarasten da ontan ezi naiz izanik bat kristio, naiz sarturik Kristoren etxean ta familian, naiz jarriak beraren maian, naiz gozaturik beraren doktrina, ebanjelioak ta sakramentuak, ezpada mantenitzen Jangoikoaren grazian, botatua izanen dela infernura ain nola herejea ta infiel. An izanen dire urrikiak, negarrak, ta ortzen karraskotsak. Oh! Jangoikoak goarda; eta geurok ere goarda gaitzen, denbora delarik, ezi bein galduaskeros, ezta erremediorik ta esperanzarik ere ez eternidade guzian. Eta niork eztu pagatuko berzearen partes, niork eztu libratuko, niork eztu ajolaik izanen galduas, berak pagatuko du ta egoin da an kalabozo gartan ernegatzen ta errabiatzen kontino ezin sufritus, ta ezin eskapa. Onak zeruan gozatzen, munduak len bekala segitzen, ta ura beti penatzen aldatu gabe, deskansatu gabe. Akabaturik mundua, aldaturik gauza guziak, milla millon urteren buruan oroitzen eztela noiz sartuzen, alaere ain berri nola lenbiziko egunean beti berartan. O bizi desdixatua! O errabia! O desesperazioa! Nailuke il, ta ezin ill, eriotzeko pena guziak baño iagokoak eramaki, ta ezin akaba! al baleike il ta akabatu beingoas, konsola leike agitz: baña munduan bizia ofrezitu, ta etzutenek nai errezibitu, infernuan billatzeunte eriotzea ta ez dezakete aurkitu. Nor, sinestaturik egi eta fede gau, ezta goartuko?

akabatzen da ebanjelioa itz lotsagarri gebeki: Multi sunt vocati, pauci vero electi.

Anitz dire deituak, guti eskojituak. Zeñetaik ote naiz ni? Gutietatik edo anitzetatik? Zier to, jaio garenok mundura atra bear gara izateko edo agitz ditzoso, edo agitz desditzatu; edo errege koronatuak izarren gañean, edo Deabruaren presidario tormentatuak Infernuko lezean. Eta guti direla eskojituak galdu bear direnen aldean, dio gezurrik erran ez dezakenak. Eta guk eztugula mereji ditxa gura, badakigu, ezpadu Jangoikoak egin nai grazia ta miseriakordia, aski delarik bekatu mortale bat kondenatzeko gizona. Ia beldur izateko den, ongi pensa baledi! Baña utzirik Jangoikoaren eskuetan beraí dagokiona, esku onetan baitago, ta orgatik bear baitugu izan konfianza beraren aldetik, bereak gaituelarik, kristiatu ta deitu gaituelarik; in bear duguna da geuren aldetik niolater e ez ofenditzea, ta alguzia amatzea, estimatzea ta zerbitzatzea. Bi bandera bekala dire munduko kanpo gontan, autatzeko zein nai dugun segitu, zeintan lixtatu ta asentatu plaza. Bandera batean da errege Jesu Kristo; berzean Deabrua, zeñen aialdeko diren mundua ta aragia. Beira zer pagua duten azkeneko bataren ta berzearen segizaleek. Beira nor den bata, nor den berzea, eskojitzeko.

Baña gerokoas ajola guti barin bauzu, delarik inporta dena infinizio, beira oraikoa ere naiz bai. Oh! Gauza andia da arima garbi libre eramatea, Jangoikoaren ta munduaren alzinean, bere majestadeareki ongi egotea, ta desposatzea fedes eta amores. Nai bauzu biotzaren sosegu, konsolu ta alegria? eman zaite Jangoikoai. Nai bauzu gozatu bizi ona ta gustosoa? eman zaite Jangoikoai. Nai bauzu seguro egon, datorrena datorla? Eman zaite Jangoikoai. Nai bauzu honra, osasuna, ondasunak etc.? eman zaite Jangoikoai, ezi guzien jabe da, ta on badire zuretake, emanentizu; ezperen, sufrizeko pazienza, arimo ta alegria. Guzia agitzen da kontra Deabruaren zerbitzuan de manera ezi emengo ere gaizkiago pasazeunte zerbitzazendiotenek gaixtoai; eta alaere daikela izan zerbitzatu nai dionik pasiones, eramateko bizia neketan, ta errebizizeko soldata su eternoan? Eta ain guti daizkela izan nautenak zerbitzatu Jangoikoai, seguratzen diotelaik geroko gloria ta korona betikoa, eta emengo ere konbeni den guzia? premiorik gabe ezto niork zerbitzatzen Jangoikoai, seguro du premia, naiz egia izanik beargindiokela zerbitzatu gogotik premiorik gabe ere, bizi bear bagindu ere arnastaka bizi guzian; aski baita nor den bere Majestadea, ta obligazio dioguna emateko gusto. Erakus bezagu Napolesko donzella noble batek, kontatzen duenes Parrak (p.1.pl.17.). Aita zue kaballero, baña jokari; onek akabatu zitue ondasunak laster, ta bizia ere bai atzetik. Gelditu zire ama alabak miserien heredera. Alaba estado arzeko adinean ia, baña doterik ez, ez eta zer erman agora. Ze aingiru bat idurian, baña serafin bat ariman. Pensa ain eder ta pobre ta bakar zegolaik, zenbat peligro ta tentazio armatu zion infernuak? Baña erresolbitu zue ilzea goseak lenago ezi atra bizia honestidadearen kostus. Ama ze gaixtoena porfiatzeko bere alabai atratzea bizia edozein gisas lenago ezi il goseak. Konfia zagu Jangoikoan, erraten zio alaba onak, ta etzagula ofendi; bagaizke erremediatu, nai badu, ta ezpada konbeni ori, konbeni da iltzea ez ofenditzeagatik. Salbeites diren pixka guziak. Saldu zire, gastatu ze prezioa, ta len bezain berri nezesidadea; ta len bekala amaren porfia infamea. Baña donzella konstanteak erran zue: sal bedi goatzea. Saldu ze, ta gero beraren tresena guziak, gelditurik solamente bear zena prezisoki estalzeko gorputza. Akabaturik eben prezioa ere, orai ia, erran zio amak: Zer erremedio izain duzu, ezpaduzu egiten nik errana. Orai ikusko du, errespondatu zio donzella prestuak, ta purexa bateki beraren alzinean ebaki bere buruko bilo ederra ta eman zio. Ar bez, ta ikus bez atra dezaken zerbait oneki; eta dena dela, bizia utziko dut lenago ezi ofenditu Jangoikoa. Atra ze ama, ta Jangoikoaren probidenzias aurkitu zue Kontxako Prinzipe ta Prinza; bereala nai ziote erosi bilo gura, solamente galdeiten diote,

il zenbaitena ote zen. Amak orduan negarra zeriola: O Jaunak, ojala balitz ila onen jabea ez ikusteko ainberze desditxa. Bizi da, baña ez ilzeko eztu ia berze erremediorik, baizik emanaididatena onengatik. Beto, nai baute ikusi, ezi eztago urruti; ta kontatu ziote agitu guzia. Lastimaturik joan zire arreaki, ta aurkitu zute donzella sanda besarkaturik Kristo guruzifikatuaren oñeki, ta erdi biluxirik. Lastimaturik ikustear itxura gartan, bereala paraturik dezente sartu zute beren kotxean, eramane zute beren palaziora, ta idukirik an ongi maitaturik denbora zati bates, gero bere birtutearen atenzios ta aiek eman zioten dote onareki ezkondu zute kaballero prinzipale bateki ongi bizi guziko. Nor da konfiatu duenik Jangoikoan, nori etzaion baliatu? Eztu ezta desenparatuko bereak, eman gabe konbeni dena emen ta eternidadean (item aliud de uxore in extrem. Claus p.2.Cath.c.2.4).

Dominica 20.
post Pentecostem.
De fide integrâ,
et requisitis ad gratiam

Egungo ebanjelioan kontatzen da, zela gizon prinzipale bat errege-gisakoa, baizeuka semea heri Kafarnaunen. Ark aiturik eldu zela Jesus Judeatik Galileara, joan ze beragana, ta eskatzen zio zetorrela ta senda zezola bere semea, ezi il-urran zego ia. Jesusek erran zio: Ezpaituzie ikusten señaileak eta prodijioak, eztuzie sinestatzen. Erran zio jaun garrek: Jauna, betor, il daien baño len nere semea. Erran zio Jesusek: Zoaz, zure semea bizi da. Bazoeielaik ia gizonoi, etorri zekizkio bere mutilak kontatzera bizi zela bere semea. Galdetu zue ordua, noiz eman zuen ohera. Aiek: Jauna, atzo zazpietakoan libratu ze kalenturatik. Ezaun duzue aitak zela ordu gura bera, zeintan erran zuen Jesusek bizi zela arren semea. Eta ala sinestatu zue berak, eta beraren familia guziak. Orra ebanjelioa, zeintan len lenik da ageri, sinestatzea edo fedea dela on guzien prinzipio ta zimendu. Ezplikazioa emain digu San Bizente Ferrerek, ematendigulaik Maria Santisimak grazia. Abe Maria.

In bear dugu nekazari edo baratzezaiaaren gisara, nai duelaik eraiki azi ona, edo plantatu planta onak, lenik moldatzen ta prebenitzen baitu lurra. Lur ona ta fruitu-emallea da ebanjelioko historia, moldatzen da mogitus ta explikatus andiona. Zergatik deizen duen gizon gura, errege ez, baizik errege-gisakoa, da zeren solamente manatzen zuen zitude batean; ezi anitzetan manatzen zutenak zire errege. Orain eskatzean ark bere seme erriaren osasuna, erraten dio Jesusek, ezpaituzie ikusten señaileak eta prodijioak, eztuzie sinestatzen. Au da erreprehenditza fede-faltas. Zergatik ote? Ezi San Gregoriok diones, dirudi sinestatzen zuela eldu zenak eskatzera senda zezala, ezi etzio eskatuko osasuna, ezpazue sinestatu zela salbazale, edo osasunaren emanzale. Baña arrazioreki da erreprehenditua fede gutias; au ageri da lenik eskatzean zetorrela sendatzeko, ezi sinestatu bazue Jangoiko zela, bazuke xakin eztela lekuri non eztagon Jangoikoa, ta etzuela joan bearrik sendatzeko arren semea. Etzue beras bear-adiña fede, naizuelaik presente gorputzaren presenzias. Obeki egin zue zenturion garrek gure Jaunari erranik: Jauna, perlesiaturik dago ene mutikoa etxean, ta estado txarrean. Ta gure Jaunak erresponditurik: Joanen naiz neurau, ta sendatuko dut. Ark erran baizio: Jauna, ez naiz digno datorren berori ene etxera, baizik solamente erran bez itzes, ta sendatuko da nere mutikoa. Ark zue fede osoa sinestatus Jesu Kristok presente edo ez presente gorputzes bazukela sendatu nolana. Orgatik ez erreprehenditu ezi laudatu zue gure Jaunak ura ziola: Zierto eztut aurkitu ainberze fede Israelen. Egungoaren falta bigarrena ageri da Kristoren itz gaitan, ezpaituzie ikusten señaileak eta prodijioak, eztuzie sinestatzen. Fedea da sinestatzea ikusi gabe, aditzetik Jangoikoaren itza. Beñere eztugu ikusi Trintate, alaere sinestatzen dugu. Sinestearen birtute gau nondik sartu da gure biotzean? Ez begietaik, ez agotik, ez berze sentidoen medios, baizik adimentuaren medios aditus Eskritura Sagratuan diona. Oroat in bear da Jesu Kristoren milagroeki, sinestatu firmeki, naiz ez ikusi. Gizon garrek aditu zue asko, nola Kristok itz solles sendatzen zituen erriak, erresuzitatzen ilak etc. Alaere etzue sinestatzen ikusi gabe, orgatik erreprehenditzen du bere Majestadeak. Ontaik ageri da, dio sanduak, mereji dutela askok erreprehenditza egungo egunean, diotelaik, zer daki batek paraisoas ta infernuas? Ezta nior itzulzen andik kontatzera. Erran bear zaiote ebei arri

errana, ezpaituzie ikusten señalearak etc. Ezi aditutuzie egietafede goiek Profeta, Apostolu, Ebanjelari ta Kristo beraren medios, guzia utzi baitu errebelaturik Eskritura Sagratuan, baitare Lazaro, San Pablo ta San Juan ebanjelariaren medios, ikusi ta kontatu baitigute. Nainuke ikusi, diote. Aditzea bear da, ez ikustea, zeren ezi begiak daizke engaña, ez ordea Eskritura Sagratua. Ala ark ere nai zue ikusi; betor, Jauna, zio, il daien baño len nere semea.

Baña Jaun soberano piadosoak alaere nai izan zue libratu ez solamente arren semea eritasunetik, baitaere Aita ta arren familia guzia infidelidadetik. Erreparatzeko da gure Jaunaren jenerosidade liberala. Etzue ark eskatzen baizik gorputzaren ona semearendako, ta Jaun dibinoak sendatzen du ez solamente seme gura gorputzean, baitaere ariman bera, bere Aita ta familia guzia. Orra ebanjelioaren alor edo baratzea landurik. Orai goazen eraikis azi ona geuren arimen protxutako. Zazpietakoa libratu zela eritasunetik ura, dio. Ogei ta laur ordu tu egun naturalak; zergatik ain txusto zazpietakoa izan ze, ta ez oron batean, edo bi, irur, edo laur, edo zorzietakoa! Ez pensa in zuela misterioik gabe ordu gartan. Egin zue mostrazeko, arima salbatzekos perfektoki, bear direla zazpi obra penitenziasko, ala nola zazpi orduak.

Lenbizikoa edo oronbata da bekatuen ezauntzea edo examinatzea; ezi bekatari miserablea ezaumenturik gabe kontu dagola gauasko ilunbean; lenbiziko asten delaik examinatzen konzienzia ta ezaunzen bere miseria, kontu dela argi-astea; Zer egin dut? dio. Zenbat bekatu? Zenbat miseria? Auxe da lenbiziko ordua, zeintas zion San Pablok: Ene anaiak (Rom.13.) ordu da ia idatzarzeko lo gaixtotik, ezi urbilago da orai gure sendatzea ezi ez sinestatu ginduelaik. Pasatu da gaua, urbil duda eguna, goazen utzis iluneko lanak. Egotea bekatuan deitzen du loa. Lo dagona ezta baliatzen sentidoas; erdi ilik dago. Ala bekatuan dagona, erdi ilik dago, bizirik gorputza, ilik arima. O zenbat egunes, ilabetes, urtes egoten diren lo suberbian, edo kodizian, edo luxurian, edo iran asko? Bada ala nola argi-astea idatzarzen duen nausiak nirabea: Ots goazen, argia da; ala apostoluak guri: ordu da idatzarzeko ia.

Bigarren ordua da kontrizio biotzeskoa Jangoikoaren errespetos, ezi penatzea solamente galduagatik ondasun, honra ta alako gauza lurrekoak da dolore naturala ta ezta aski sendatzeko arima bekatuetatik; baño penatzea ofendituagatik Jangoikoa, zeren galdu duen grazia ta gloria, ori da atrizio sobrenaturala, ta konfesioareki bateo aski da, ta konfesioik gabe ez. Penatzea ofenditua Jangoikoa, zeren baita ain ona ta amablea intenzioareki konfesatzeko, ori da propioki kontrizioa, ta konfesatubañolen barkatzentu bekatuak, ta paratzen du arima sano grazian, naiz beti gelditzen den obligazioa konfesatzeko. Dixi, confitebor etc. ps.31 erran nue, dio Dabidek, konfesatuko dut neure kontra ene injustizia Jaunari, eta berorrek barkatu dida nere bekatuaren gaizkia. Eztio, konfesatu dut, ta barkatu dida, baizik konfesatuko dut, ta barkatu dida konfesatubañolen. Zergatik? Zeren baizue kontriziosko dolore amorosoa intenzioreki konfesazeko.

Irugarren ordua da agosko konfesioa; zereki daike konpara? Sangriareki, zeñeki atratzen baita odol gaixtoa sendatzeko benenoa agotik, ore autem confessio fit ad salutem, dio San Pablok, agos iten da konfesioa salbatzeko. Ezta aski biltzea bekatuak memorian examinatus, ezta aski ezauntzea aien gaizkia, ezta aski penatzea ere, bear da ustutzea kanpora konfesatus, ala nola kuartoa daukanak beterik ongarris, dio sanduak, ezta aski biltzea zoko batera, ezpadu botatzen kanpora. Ala konzienzia examinatus ikusten da den gaizkia, kontrizioareki biltzen da eskobareki bekala, baño agoaren leiotik botatzen da konfesatus: orreki arima len zena espiritu gaixtoen kubila, egiten da espiritu sanduaren

tenplo. Penosokara da ordu gau, baña dakar konsolazio ta gozo andia ondorean. Amak erditzeko lanzean pena du, dio Jesu Kristok, zeren ellegatu den arren ordua, baña erdiaskeros seme bates, ia eztu memoriarik ere penas gozoain utses. Erditzeareki daike konpara konfesatzea; ondorean gozo, berartan pena, baña ezin exkusa. Prinzipalkiro aurra ilik barin badago, atra bear da, ezperen ilen du ama. Aur ilaren ariora sabelean da bekatu mortala ariman; preziso da atratzea konfesatus, edo sekulako galtzea kondenatus.

Laurgarren ordua da emendatzea, edo emendatzeko proposito firmea. Zer ai gara ezaundus, penatus ta konfesatus, ezpagara emendatzen? Ontara eldu da guzia, ala nola pulsatzea eria, lanzetas pikatzea ta sangaratzea sendatzera: au ezpada segitzen, guzia da alfer. In duzu gaizki ofenditus Jangoikoa, heritus zure arima. Ea baratu or, ordik ez pasa; emen da muga; emendik alzina bizimodu berria: zena bano biz humil, zena deshonesto honesto etc.

Borzgarren ordua penitentzia egitea, ala satisfactorioa emanen Jangoikoai, satisfazio pasatuas, nola medizinala artus erremedioak goarzeko urrengoan. Idikirik llaga lanzetas, ta atrarik barneko dañua, oraño ezta aski; bear da gañetik enplastroa edo pegadoa sendatzeko guzis; ori bekala da penitentzia satisfactorioa. Baña zer ai da orreki, ezpada goartzen berritetik llaga? Ortako dire penitentzia medizinalak, apartatzea okasioetaik, goardatzea sentidoak, maiz konfesa komekatzea etc.

Seigarren ordua konfesioari darraizkion obligazioen kunplitzea, injurien barkatzea, bageak egitea, dañuen errestituzioa dela honran, dela haziendan; ori gabe ezta sendatzen arima; ala nola gelditu balitz llagain barnean zur, edo burriña, edo alako estorburen bat, naiz kura oriek atra gabe, falsuan doaie kura, kuratzekos ongi, preziso da aien atratzea. Errenkorea biotzean da burriña llagain barnean; berzeren honra edo hazienda itzuli bearra kontu dela agotza begian, edo zur puska aragian. Non dimittitur pectum, nisi restitatur ablatum. Ezta barkaziorik, ezpada bakerik ta errestituziorik.

Zazpietakoan sendatu ze egungo heri gura perfektoki; zazpigarren ordua, dio sanduak, da komunione sagratua, Jesu Kristoren gorputz ta odol preziosoan erregalaoa, Zeruko medikuak disponitua bizkortzeko arima. Konfesioa da barkatzeko bekatuak, komunionea alimentatzeko ta erregalatzeko arima. Konfesioan sendatzen da, komunionean konbalezitzen ta bizkortzen da. Konfesioan logratu du bizia ta osasuna; komunionean seguratu ta indar artu. Nork konta amen dibino garren efekto guziak, ongi arzen bada? ematen du ez solamente grazia, baitaere grazia guzien iturria, baita Jesus ona. Aumentatzentu birtute guziak, ta aien indarrak. Komunikatzen du argi entendamentuari, ta su borondateari onerako; itxekitzen ta errefinatzen du karidadea edo amorea; betetzen du gustos, debozios ta kontentus; doaie kendus bizioen, afizione gaixtoen ta kostunbreen indarrak; barkazentu berez bekatu benialak; baitaere penak zor direnak bekatuengatik; inspiratzen du penitentiaren donoa urrikitzeko ta barkatzeko bekatu mortale andiak ere; goardatzen du asko maneras erorzetik mortaleetan. Azizen du esperanza gozo bat gloriarako, zeñen prenda baita; desposatzen ta unitzen du arima Jesuseki, in me manet, et ego in eo. Zer ondasun eztatorke unione gontaik, barin bada disposizio? Gure gorputzari ere ellegatzen zaizkio efekto onak, biotzaren zabaltzea ta aleganzia, aurpegiaren serenatzea, kolorearen edertzea, begien modestia, miaren tentua, akzione guzien moderazioa; ardore gaistoaren freskatzea nola intz dibino bateki; ta azkenean Kristoren gorputzareki duen komunikazioaren medios dretxo-gisa bat erresuzitatzeko gure gorputza glorioso azken egunean.

Azkenik diona ebanjelioak da, gizon gura konbertitu zela, ta bere familia guzia.

Ontan ageri da obligazio duena ez solamente gorputzaren onas, baitare familia guziaren arimen salbazioas etxeko buru denak, ezpaitu aski on izatea beretako solamente, bear baitu izan guziendako ere itzes, obras, zelos, dilijenziak ta exenplu ones. Guziareki askotan eztu logratuko guzien ontzea; ori da Jangoikoaren lana, gurea da prokuratzea modu guzies. Ezpada logratzen alaere, zer in bear da? Akuditu Jesu Kristogana orazio egines, ta limosnak, ta mezak, ta penitenziak negarreki fin gortara. Jesu Kristos landara ez atzen Maria Santisimari enkomendatzeas. San Andres Korsino logratu zute Jangoikoaganik orazioen kostus aitetamek, ta ofratu ziote Jangoikoai, ematen baziote. Eman ziote Jangoikoak; eta amak zemalaik oraño sabelean enkomendatzen zio bere Majestadeai Maria Santisimaren medios. Baña libratu bear zuen bezperan amets egin zue zeramala otso bat, zein gero joanik elizara itzulzen zen axuri. Jaio ze aurra, azi zute kuidado guziareki, baña alaere lagun gaixtoeki kutsatu ze gaixtakerian; nai zute buratsoek itzularazi onera ones eta gaitzes; etze protxurik: desobediencia, ausardia ta errespuesta gaixtoak zire logratzenzustenak. Egun bates alkegabe utsa mostratu zelaik geienik bere amareki, erran zio onek: Zierto, zara otso gura nik amets in nuena neramala; baña oraño ere esperanza dut Jangoikoak itzuliko zaituela axuri. Akorritu ze sema itz gaieki, ta galdeturik humil ia zer amets zion. Kontaturik amak agitu guzia, ta nola ofrezitu zuen Jangoikoai ta Ama Birjinai, ark belauriko paraturik negarres eskatu zio barkazio, ta biramonean sartu ze errelijioso Karmesen, ta egin ze sandu (in ej. Vit.). Jangoikoak egin gaizala gu ere. Amen.

Dominica 21.
post Pentecostem.
De pietate divina in nos,
et nostrâ in fratres

Assimilatum est regnum caelorum homini Regi,
qui voluit rationem ponere cum servis suis. Math. 18

Zegolaik Jesu Kristo bekatariei barkatzearen gain, San Pedrok galdegin zio: Zenbat aldis barkatuko diot ene anaiari? Zazpi alditaraño? Jaun dibinoak erran zio: Ez zazpi aldis, ezi baita iruetan ogietamazazpi aldis ere. Orduan kontatu zue egungo ebanjelioaren parabola. Zerueta erreinuan edo elizan agitzen da ala nola errege batek nai zituelaik egin kontuak bere zerbitzukoeki. Aurkitu ze bat zor ziona amar milla ta ziento; ta etzuelaik nondik pagatu, manatu zue nausiak salzeko bera ta bere gauza guziak pagatzeko. Ark belauriko paraturik auspeska eskatzen zio: Jauna, ar bez pazienza eneki, ta guzia pagatuko diot. Urrikaturik nausiak utzi zue libre, ta barkatu zio zor zuena. Andik atrarik nirabe gark aurkitu zue bere lagun bat zor ziona berai egun marabidi, ta arrapaturik sofokatu nai zue erraten ziola: paga zak zor dukena. Onek belauriko paraturik eskatzen zio: Idukazu pazienza, ta pagatuko dizut guzia. Ark etzue nai, baizik joan ta sarrarazi zue karzelean, pagatuartaraño zor ziona. Ikusirik alako gauza berze nirabe lagunek kontatu ziote nausiari. Orduan deitu zue beregana, ta erran zio: Sierbo gaixtoa, nik barkatu nizu zor guzia zuri, zeren eskatu zindidan; bada etze arrazio urrikaritzea zu zeure lagunas ala nola ni urrikaritu nitzan zutas? Asarraturik orduan entregarazi zue berdugoei paga zezan arteo zor guzia. Ala nere Aita Zerukoak ere inen du zueki, ezpadioze barkatzen biotzes nork bere anaieri. Au da ebanjelioa, zeintan erakusten zaigun kristioei, nola bear garen onetsi ta barkatu elkar elkarren anaiak garen bekala dugunak guziek aita bat, Aita gurea Zerueta dagona, ta Ama bat ere bai guziek; au da Maria Santisima Jangoikoaren ama. Enpeña zagun logratzeko bear dugun grazia. Abe Maria.

Ebanjelioan aditzera eman nai duen nausia da Jangoikoa. Bere zerbitzukoak gara bizi garen gizon guziok. Kontuak artzea da juizioa egitea emateko sententzia. Zortiogunak dire beraganik errezibitutugun faboreengatik obligazio tugunak, ta geuren bekaturen kasos añaditzentugunak; guri proximoek tigutenak dire agrabio ta falta intigutenak. Barkatzekos guri Jangoikoak, beardiogutela guk barkatu proximoek, suponitzen da; ta ori suponiturik eskatzen diogu Aita gurean, barkadizkiguzu guri geuren zorrak ala nola guk barkatzenbaitiogute gu zor gaitusteneri. Barkatzen badiogute, barkatuko digula guri geiago ere, adiarasten du barkatu zionak ainberze lenik sierbo gaixto garri. Au bekala da kristio deitua erruin txar billaua dena gogor proximoareki, mantenitzen diona errenkore, eztiona nai barkatu agitzes gutiago barkatu diona baño berai Jangoikoak. Etze diferenzia txipia barkatzetik barkatzera; beñik bein nausiak sierboai bai, ta sierboak lagunai ez. Nausiak amar milla talento, sierboak egun marabidi ere ez. Arrazioreki izan ze kastigatua.) Ikusagun zor dioguna gure Jaunai, ikasteko barkatzen proximoek milla ta milla aldis gutiago direnak.

Goazen kontuetara paratus kargua ta deskargua: beraren faboreak karguan, gure zerbitzuak deskarguan. Lenbiziko faborea, kriatu gaitu bere imajina ta semejanzara, emantigu arima, ta gorputza, ta eben potenziak ta sentidoak, indarrak, habilidadeak, ta on

den guzia gure baitan barnetik eta kanpotik. O zenbat zor diogun alde gontaik. 2a. Konserbatzea mantenitus kontino bizi eman diguna, ezi momentu bates uz balez, ilak gina berartan. Beras zenbat istante bizi garen, berze ainberze fabore dire. 3a. Probidenzia duena gutas, kriatu baititu gure zerbitzuko zeruak, ta lurra, ta ebetan diren gauza guziak. Berak manaturik, aldiskatzen dire gauak ta egunak, udak ta neguak, otzak ta beroak, ta denbora-aldi guziak. Beraren ordes iruzkia dabila kontino ain ordenaturik; ilargiak itentu bere birtuteak lurreko gauzetan: aizeak ematen digu ats arzeko, aireak egasteak, lurrak animaleak, aleak, ta fruituak, itsasoak arraiak, iturriek urak, ta diren guziek zerbitzatzen digute bere gisa Jangoikoaren probidenzias. Nor da numeroik kontazeko ontan itentigun faboreak? 4a. Bokazioa, au da deitzea ta berextea gu infinizio bat jendeen ertetik bere saldo, bere etxe ta familiarako, zein baita Eliza. Kristiatzea gu geienak ez bekala, oh fabore ezin daikena paga ta ez pondera! Zoaz orai kontatus elizan tuzun medioak ta erremedioak, legea, doktrina, sakramentuak, ta gañarakoak. 5a. Ez kontent oneki guziareki, destinatzea bere aingiruak, bere korte errealeko Prinzipe andi eder gaiek gure goardiatako. Erregeen humeendako billatzen dire azizale gizon prestuak; baña nork ikusi du prinziipe jauna señalatzen pobrearen aialdeko? Au egin du Jangoikoak eman es guri aingiru goardiakoa.

6a. Jangoikoaren Majestadea presente dagona leku guzietan egotea prest kontino noiznai aditzeko gure otoiak, beti guri beira, beti faboratzeko ta egiteko ongi; guk negar bat, itz bat, afekto on bat in orduko dela elizan, dela etxean, dela kanpoan, dela lanean, edo itsasoan, dela egunas, dela gauas, berla an bere Majestadea egiteko zer nai dugun, konbeni bada. 7a. Jangoikoaren inspirazio kontinokoak, deitzen direnak auxilioak edo grazia auxilianteak, argitus entendamentua, mogitus borondatea, apartarasteko gaitzetik, inklinarasteko onera, nortaki zenbat mañas, modus ta maneras? 8. Sufritzea bere Majestadeak bekataria, ez kondenatzea istante berean, goardatzea ilzetik ta kondenatzetik bere ofendizalea, daudelaik onen kontra kriatura guziak arrazioreki, Deabruak lizenzia eske eraman naiak, eriotzea tirrikaturik akabatu naiak, ta bekatari bera prisa ematen ortako, ezi eriotzearen akullo edo ezpore da bekatu bakotxa, diones San Pablok (1 Cor.45) eta Jangoikoa sollik ta ofenditua izanik goardatzen ta etxideten, zenbat denboras! Zenbat egun! Zenbat aste, ilabete, ta urte ere! Nork entenda ongi fabore gonon andia? estima gidezake eroriaskeros infernuan atrabaginduza andik; eta atratzea bezanbat edo ia da ez ustea erorzer! 9a. Justifikazioa, au da Jangoiko ofendituak bere ofendizalea ez esperatzea solamente, baitare konbidatzea bere graziara, ematea eskua itzulzeko, barkatzea ta admititzea bere grazian ta amorean, noiznai konberti daien ongi urrikiturik bere gaizki eginas konfesatus bere kulpa; ori guzioi ordu bates oroat anitz urtetako bekatues geros, ain merke, ain aisa! O gure Jaunaren ona gureki!

10a. Ta andiena erredepnzioea, au da guzien gañetik Jangoikoa bera gizon eginik ofrezitzea erreskatatzeko gu ta salbatzeko bere kostus. Zer Jangoikoaren grazia, zer amorea, zer pasioea, zer faborea da au guregana? jautsi ze bere tronotik bere karidade geiegis; egin ze gizon, ta agertu ze gutartean gutaik bat bekala, gure lagun, gure aide, gure anaia gizontasunes. Ta ez gindeitzen lotsa bere Majestadeas, agertu ze pobre-gisa humil, manso, amable ta afable etxola batean, ama pobre baten besotan, ta ganbela batean; ia afizionarasteko gu beregana geuren onerako, deklaratu ze gure amante apasionatu. Zer senblante amorosoa! Zer itz suabeak! Zer ongi egitea guziei jenero guzietan! Zer admititzea, barkatzea ta billatzea bekatariak! Ainberze ezi murmuratzen ziote ortas. Ia dena, bekatariain semejanza artu zue, in similitudinem carnis peccati. Ez kontent bestituas bere Majestadea gure naturalezaren zamarra pobreas, paratu zue gañetik bekatarien zatarra.

Au da, erraten zue San Juan Bautistak, au da Jangoikoaren axuria kenzentuena munduko bekatuak. Ori ongi baña nork paratu dio axuri goni antxume-larrua? Eta ongi erorzen zaio au ere amorearen kasos. Pagatuko du axuri onegiak. Pagatu zue guregatik. Ikusazie ia preso eramaten loturik sokas eta kateas! Soldado armatuen erdian gaizki egille andi bat bekala. Ia proklamaturik iltzea mereji duela, bendaturik begiak golpes, lixtus, irris ta eskarnios jokaturik itsu desdixatu bat bekala. Ia manta txuri bates inguraturik oius eta fixtus zelebaturik ero ta fatuo-gisa. Ia azotes urraturik infame bat bekala, ta postrean jarriarik alki batean, korona arantzesko bat frinkaturik buruan, soñetan manto zar bat, eskuan kana bat zetrotako burlaturik errege falsu bekala. Ia sentenziaturik iltzera gurutzean, soñean arturik zur pizu gura doaiela ezin joanes erorka. Ia etzinik gurutzean jositzen dutela itzeeki esku oñetaik, ta goraturik airean dagola agonizatzen beterik penas eta oñazees, ta alaere eskatzen an bere etsaien fabore aien on naies. Ia en fin ilik manera gartan gloriako errege gu salbatzeagatik. Onegi uste duzie akabatu dela guri ongi egitea? Ez, ezi dagolaik Zeruan erreinante, gu gabe ezin aurki daike. Injeniatu zue nola bateo egon gureki altxaturik sakramentuan, ofratzeko gure faboretan bere pasio ta eriotzea egunoro, ta sarzeko gure biotz barnetan erregalatzeko gu ta salbatzeko nolanai dela.

Kargu andixkoa eldu da kontuetako: goazen paratus deskargua. Zerbitzu andiak intiogu? Zerbitzu baño ia ofensa geienek. Deskargatu bearrean aumentatzen da kargua. Baña emagun baitugula zenbait zerbitzu eginak; zenbat dire ebek zordiogunaren aldean? Berze alde egunoro dugu obligazio zerbitzatzeko; naiz zerbitzaturik ongi, eztugu egiten ia obligazioa baño, ori gorenas. Eztire suplitu bear egunak, ta deskritu faltak? Nola inen dugu? Berze alde gure on pixkak zenbat faltaeki dire eginak? Ia floxezas, ia banidades, ia berze fin makurres? Anitz eskoria du zillar gonek, anitz grano falta urre gonek. Berze alde zerbait ongi iten badugu ere, eztugu egiten geuren indarres, baizik Jangoikoaren grazias, ezi ezkara kapaz izateko pensamentu on bat geurengandik, dio San Pablok, baizik Jangoikoak emanen. Eta niork ez dezake erran Jesus ere, ezpada Jangoikoaren grazias. Orai bada zerbait ongi iten badugu, esker Jangoikoai inarasten baitigu. Zein ongi erraten zion San Agustinek: Jauna, on intudanak ta gaizki ineztudanak, berorren fabore kontatzentut. Exenplutako: Ezpadut egin ainberze bekatu nola berze batek, ori Jangoikoak in didan faborea da. In badut zerbait ongi, dela orazio, dela prediku, dela penitenzia, limosna ta edozein alako, ori Jangoikoak in didan faborea da; ezpazida egin, eznie eginen, ezpazida eman, eznie izanen. Eta ala kontua ongi atrarik, gure zerbitzu pixkak dire Jangoikoaren fabore berriak. Berak ezpadigu ematen, eztugu zereki pagatu; ta ematenba diogu, arreki zerbait pagatu, ta berriz zorretan sartu.

Ia beras paraturik aurkasean kargua ta deskargua, erdetxiko digu aisa amar milla talento. Nai badu egin justizia gogorra, zer izanen da gutas? Den sanduenak ere eztu naiko justiziara, eztio atra naiko despatxurik Jangoikoai kobratzeko erdexten duena; baizik apelatuko du beraren miserikordiara, beti in dionak ongi, azkenean in dezola obeki, zeren ezi beraren faboreak direnak deitzentu gure merejimentu ta irabazi. Eta premiatzentuelaik gure merejimentuak, zer iten du baizik koronatu bere faboreak? Len ongi bizitzeko eman grazia, ta azkenean gloria gozatzeko, baita grazia guzien grazia. Den obenak konfesatuko du eztiola zor Jangoikoak, pagatu diola geiegi ere asko maneras. Pagu ona, premio andia da mostrazea Jangoiko andiak lurreko pobre bati bere amorea, goardatzea bekatuetaik, egitea on eta sandu, ezi au Jangoikoaren lana da ia ezi gizonarena. Baña guk bekatariek zer in bear dugu, baizik klamatu humilki: Jauna, pazienza iduki bez nereki, ta barkatu. Orai konfiaturik beraren ontasun infinitoan, beraren itz errealetan, ta infinizio bat

experientziaetan, baitakigu barkatutuela bekatu anitz ta andiak ordu bateko negar ta konfesioaren medios, guri ere barkatuko digula, edo barkatu digula, in bear duguna da egitea gusto bere Majestadeai barkatzeas guk ere proximoei direnak direla, ia keta ori manatzen digun ordañas bekala.

Baña goazen berexis zer den manatzen diguna, ta zer consejatzzen diguna: zer den manamentu, ta zer conseju. Manamentua beti da preziso denas egitea. Consejua da obeago denas, baña preziso ez. Orai bada ondasun, honra edo gauza itzuli bear diguna proximoak guk barkatzea, ez dezagun itzuli, ori gorenas da conseju, barin bada obeago, baña eztigu manatzen ori; ta ala daike eska justizias ere bekaturik gabe, karidadean faltatu gabe. Alaber etzaigu manatzen guziak izatea adiskide fiatzeko sekretoak, ta ala; baizik daike ez fiatu, ta goartu, naiz len izanik fidande. Manatzen zaiguna da amatzea biotzes Jangoikoagatik kontrarioak ere, ta mostratzea agerrian amorearen señale komunak kristioari kristioak in beartionak. Eta ala naiz pleituan dabiltzan, naiz in dion agrabio klaroa, bear dio izan amore biotzean, bear dio barkatu injuria, bear dio deseatu ongi sines, ta gaizkirik ez niolaterere, naiz bitarteo segi dezaken bere dretxoa bide ones. Jauna, gauza latza baita elkarren kontra pleiteatzea, ta bitarteo elkar amatzea. Latz da, baña posible; orgatik sanduen conseju ona da konposizio mediano bat egitea. Jauna, nola da posible amatzea kontrario klaroa, intenzio gaixtos desarrazioan dabilana ene kontra, in didana dañu malamente, deshonne, emanka etc. Klaroki arima gaixtoa dena. Posible da Jangoikoareki, ta bear da Jangoikoagatik. Alakoak amatu beartugu, bereak beren buruak baño obeki, barkatus agrabioa, deseatus aien ona etc. Expreso dio ala Jesu Kristok: Nik erraten diziet, onetsizkizie zeuren etsaiak, in zazie ongi gaizki naizaistenei, eska zazie persegitzezaistenen fabore. Onetsitzea onak ongi iten digutenak infielek ere iteunte. Iduki presente egungo ebanjelioa, barka dezagun Jangoikoak amar milla, barkatu guk bat edo berze. Ezperen errain digu arri bekala, nik barkatu ainberze, ta etze arrazio zuk barkatzea pixkagoi? Au delaik gure Jaunaren gustoa, zeintan dagokigun salbazioa, in bear duguna da, dugulaik zer barkatu, alegratu ta egin zerbait ongi ofendizaleai obeki berze bati baño, ta ofratu Jangoikoai estimatuko baitu ia ezi urre guzia, ta ia ezi asko debozio, baru, penitencia etc. Alaber egunoro egin orazio espezialki gure kontra daudenen faboretan, in dezoten ongi Jangoikoak. San Juan Gualbertori il zio bere anaia bakarra berze batek; au billatu ta aurkitu zue ezin eskapa zekion lekuan. Ilzaleak eskatu zio barkazio Jesu Kristogatik. Berla ark erretiraturik arma barkatu zio, ta besarkatu ze ta artu zue bere anaitako ilaren partes. Sartu ze tenploan, orzilarre sandua baize, adoratzea gurutzea, ta ellegatzerakoan, Kristoak inklinatu zue burua beragana, aprobazen zuela egin zuena. Berze batek kontra etzio nai izandu barkatu bere kontrarioai; tema gorreki iltze; baña kantatzerakoan Parce mihi Domine, Kristoak bi eskus tapatu zitue bi bearriak ziola: Non pepercit, non parcam. Etzue nai izandu barkatu, nik ere eztiot nai barkatu. Eztaike ordea sufri alako desarrazioa. Ortan dago bada barkatzearen grazia, ezperen ezlitzake barkazekorik. Desarrazio andiagoa ze ofenditzea Jangoikoa, ta alaere barkatu digu; ezta arrazio barkatzea guk ere desarrazio txipiagoak? Garaitu suberbia ta seberidadearen puntuak Jangoikoaren atenzios, eman dezagun guri ere barkamentu, grazia ta gloria. Amen.

Dominica 22.
post Pentecostem.
De doloris, et de serviendo
temporalibus et Deo

Consilium inierunt, ut caperent
Jesum in sermone. Math. 22.

Egungo ebanjelioa da au: Fariseoek inzute batzarre arrapatzeko Jesus itzen batean. Ortako bialtzentute beren diszipuloak galdegitera: Maestru Jauna, badakigu ongi-erralea dela, ta Jangoikoaren bidea egietafedean erakusten duela, ta eztuela nioren ta deusen kupidarik, ezpaitu beirutzen personen gorabera, erran bezagu, zer iduri zaio? Zillegi da ematea Enperadoreai tributoa, edo ez? Jesusek ezaundurik aien malizia erran ziote: Zergatik tentatzen nauzie, hipokritak? Erakutsadazie moneda bat. Erakutsi ziote. Orduan Jesusek: Norena da imajina au, ta gañeko letreroa? Aiek: Enperadorearena. Orduan Jesusek: Emozie bada Enperadoreari Enperadorearen dena, ta Jangoikoai Jangoikoaren dena. Onaraño da ebanjelioa. Orai atratzeko bear den fruitua, saluta zagun Maria Santisima. Abe Maria.

Ebanjelio gontan lenbiziko eldu dena begietara da Jesus onaren on onegia, ta Fariseoen arima gaixtoen gaixtoa. Ezin aurkitu zute faltarik bere Majestadearen bizimodu, akzione, ta exenpluetan, ezin erresponda beraren doktrina sanduari itzik; ta zer iteunte? Ikusagun al badezakegu arrapatu deskuidarte bat mintzatzean, ia atrako diogun itz bat Enperadorearen desgustutan, akusatzeke ta galtzeko. Ah zer intenzioa! O arima txar malignoak! Etzekiote baliatu beren astuzia benenotsua. Emozie, erran zue, berea enperadoreai, ta Jangoikoai berea. Eta alaere gero klamatzen zute infameki: Au aurkitu dugu galdu naies gure jendea debekatzen duela pagatzea Enperadoreai trebutuak. Guziaz izanes berak gaixto-utsak, ta ez emendatu naies. Zergatik sendatu nai zituen, emagun medikuaren kontra. Zenbat obeago ze ezauntzea beren gaitza, ta medikuaren ona ta on naia? Ta erran, egia dio, arrazio dauka, gure onetan dabila, emenda gaitzen? Ori ez. Betiko exenplu berebaitan utzi zue Jesu Kristok arimen kuidazaleendako, bizitzea ongi ta erakustea ona sueltoki; ta ondorean sufritzea persekuzioak orgatik. (Ezta diszipuloa maestraua baño ia, erran zue (Math. 10) ta mutila ere ez nausia baño ia. Ni persegitu banaute (Joan 15) persegitukozaiste zuek ere. Au iteunte ezaundu-faltas ni ta nere Aita. Mediku espiritualak ez dezake utzi errateko egia, ta askotan eriak itzultzen zaizkio kontra. Ez nai sendatu, ta billatzen dute zer tatxatu medikuan, ta aurkitzen baute, kontent errateko, berak ere iten du au ta ura ta berzea. Delarik egia, naiz gaizki eginik agian predikariak, eztela orgatik diskulpatzen nioren gaizkia, zeren Jangoikoa baita juzgatu bear gaituena, ta admititzen eztuena gaizkirik batere. Ni emenda naiela, ta an konpon daiela bera, erran bear luke adizaleak. Baña eztela emendatuko bera, eman medikuaren kontra, Fariseoen gisara, atra faltak diren txipienak ere, ponderatu ebek, ta bere andiagoak pasa; tatxatu ongi eginak ere direla intenzio gaixtos, ta azkenean arrapatu deskuidarteak itzetan. Bitarteo ajolarik ez emendatzeas, bai persegitzeas emendatu nai duenak.

Bigarren ikusten dena da Fariseoen biotz faltsu doblatua galdeiterakoan gure Jaunai loxentxatus itxuras aborrezizen dutena biotzes. Bi aurpegitako gizonak, aixtean mostratzen kontrario ezin ia, ta orai adiskide iduri laudatzen. Oroat erran daike bi mi, ta bi

biotzetakoak, in corde et corde locuti sūnt: biotz doble malizias beteak. Agos bedeikatu, ta biotzes madarikatu. (ps. 64) Abominazio ta abominable dela gizon falsikina, ta biotz makur doblea Jangoikoaren alzineko dio Espiritu Sanduak (Prov. 3 et 11) eta San Bernardok dio (s. ad Cler): Niork eztu ia mereji ira nola etsai finjitzen denak adiskide. Nor da gaixtoago, edo ageri dena gaixto, edo finjitzen dena on? Ezta au, doblatzen duelaik gaixtakeria añaditus gezurra? (apol.) Itzak legun, baña benenoa lagun. Mias lamikatu, baña biotzas ozkatu. Laudatzea dute agos galdunailuketena gogos. Maestru Jauna, erraten diote, dakigu dela egi-errallea, ta erakusten duela Jangoikoaren bidea egieta fedean, eztuela niores ajolarik, ezpaitu beiratzten personen itxurari; da erratea, guzia erakusten du dena den bekala nioren pasioneik ta beldurrik gabe. Ontan guzian ziote egia, ta aipatzentute Jaun dibinoak zituen prendak, ta predikari onak izan beardituenak, baitire xakintasuna, santidadea, egi eta fedea, libertadea ta zelo pasioneik gabe. Ikusi dugu aien mia itxuras on; ikusagun biotzeko benenoa; zillegi da ematea Enperadoreai trebutua, edo ez? nai zute aiek, ta uste zute errespondatuko zuela ezetz. Orregi joan ta akusatzeko zela errebel Enperadoreain kontra. Au berau da oraiko hereje ta bekatarik galduen intenzioa ta injenioa, deskreditatzea ebanjelioaren pregonariak, Jangoikoaren bidea erakusten dutenak sueltoki, berek eztutelaik aitu nai, ta aiek ezin egia utzi errateko, taparastea agoak alegatus gezurres, ta iduriarazi direla gobernuaren ta jendearen kontra. Gezur andia da, ezi Jangoikoaren bidea, ta Kristoren legea publikatzea guzien fabore da, baña deabruak orduan, ta orai, ta beti erresistitzen du bereen medios, estorbatu naies. Fielak, kristio onak izatea zeren kontra da? Zer kalte eman dezake?

Aizagun ia Jaun dibinoaren doktrina exzelentea. Ikusirik moneda bat, ta artan Enperadorearen imajina ta letreroa, erran zue: Reddite quae sunt Caesaris etc. Emozie nori berea, Enperadoreai berea, berea Jangoikoai: Enperadoreai diruak, ta Jangoikoai euren buruak. Itz gebetan da ageri badaigela ta bear dela kunplitu munduko superioereki, ta bateo Jangoikoareki. Xakitea berexten noiz ta nola munduko gauzak, noiz ta nola Jangoikoarenak, noiz ta nola lurrekoak, noiz ta nola Zerukoak, noiz ta nola gorputzarenak, noiz ta nola arimarenak, orixe da itekoa, ta iteko luzea. Orai jeneralki adberti betiko, Jangoikoa dela len ta azken; por konsigiente beraren kontra denik eztaikela egin ez Enperadorearen, ez Erregeren, ez mundu guziaren, ez gorputzaren ta biziaren atenzios edo amores, ezi niork ez dezake mana ta ez obliga Jangoikoaren kontra, niori ez dezokegu obedi, ta ez zerbitzatu biziagatik ere Jangoikoaren kontra; ezi ori litzake deabruari gusto ematea, ta etzue erran Jesu Kristok: Emozie deabruari berea. Suponiturik zimendugoi, eman bear zaio lurreko superioerei berea obeditus ta errespetatus Jangoikoaren eskupean; gorputzari berea trabajatus, ta kuidatus aski dena biziaren sustentatzeko dezenteki, ezi eman digunak arima ta gorputza, eztaikelaik au mantenitu jan ta edan, jaintsi, ta gañarako bear direnak gabe, manatu digu prokuratzea bizimodua. Ala Adani desterratu zuelaik Paraisotik erran zio: Zeure kopetako izerdias atrakouzu zeure ogia. Arima da len, baña gorputza ere bear. Arimaren astokoa bekala da gorputza, kuidatu bear da ontas ere. Agitz erreprehensio mereji dute jende alfer floxoek maltrabajek, ta oroat edo ia jan nai, eta San Pablok paratzen diote penitenzian: Eztuenak trabajatu nai, ezdezala jan (2. Tess. 3.). Bentzait arrazioreki darraiote nezesidadea ta dieta, ia ke ta bizi aisa nauten nekatu gabe; ezperen langinen kostus antzatzten dire ala nola erlategian erlafaunak erleen kostus. Gizona jaio da trabajurako, dio Job sanduak (5) ta bear du nork bere gisa. Ori ere da ematea nori berea; baitare dilijent izatea pagatzeko zorrak, ezi pagatzentuenak zorrak artzeko iten du, ta pagazale onak aurkituko du emanzale bear-orduan. Ezta pobretzen nior izanes pagazale

on, bai trabajari gaixto ta zor-pagazale gaixtoago izanes, ta bitarteo soñai ta tripai oroat edo ia emanen. Ezta au ematea nori berea, baizik berzerena. Azkenean nork bere obligazioak kunplitzea superiooreki, menekoeki, proximo guzieki da nori berea ematea.

Baña guzien gañetik da ematea Jangoikoai berea, Quae sunt Dei, Deo. Itz gau entenda daike amarren eta primizies, baitire lurreko ondasun ematentigunetaik beretako berexituenak Jangoikoak mantenitzeko ala bere ministroak, bere kultoa, sakrifizioa, sakramentuak, doktrina ta gañarako bear direnak arimen salbaziorako. Ala Jangoikoai berea ematen dio itentuenak ongi amarren eta primiziak. Ukatzen dio, ta kentzen dio Jangoikoai berea eztionak ongi pagatzen trebutu gau; eta eztaki nola uste duen irabazi kendus Jangoikoai, ezi mendeka daike bere Majestadea anitz maneras, ia manatus lurrai ez emateko aleak, ia Zeruai, iruzkiai, lañuei kausatzeko plagak, ia bialis personei malhurak ta eritasunak. Amarretaik bat ez emanen Jangoikoai, agian etzaiote berei gelditzen izan bearzutenetik amarretaik bat. Orgatik zio Jangoikoak Ajeo Profetaren agos (c.1): eraiki duzie anitz ta bildu guti, jan ta ez ase, edan ta ez indartu, estali ta ez berotu, ta ala irabazia kontu bota duela zaku zulatuan. Ia naies gutiago itzuli da; etxean sartu, ta andik aizeratu. Kontu berriz ongi egitentustenei ofrezitzentu bedeizioak an, ta Malatxias Profetaren (c.3).

Baña diolarik, emozie Jangoiakoai berea entendatu bear da, emozie zeuren burua, ezi San Agustinek diones, Jangoikoaren dirua ta moneda da gizona. Ikusagun moneda gau nolakoa den emateko Jangoikoai berea bekala, ta admititzeko Jangoikoak. Moneda ona izatekos ta ez falsua, bear dire zenbait gauza, oroat personan. Bat da eramatea Erregeren imajina edo insignia, ezperen eztaike pasa. Personan bear da Jesu Kristoren imajina, au paratzen zaio bataioan errezibitzen delaik Kristoren fedea, iten delaik Kristo nai baitu erran Kristoren gizona. Bearrere du letreroa monedak; letrero gau ariman da karakter edo marka espiritualea inprimitzen dena bataiatzean; oneki distingitzen da kristioa gañarako guzietaik, naiz infernura joanik an ere. Cuius est imago hac etc. Norena da imajina ta letrero gau? Kristorena. Emozie bada berea falta gabe. Monedan bearrere da metale ona, dela urre edo zillar. Jangoikoaren monedan, baita gizona ezta aski imajina ta marka, au da kristio izatea, fede izatea, bear du izan urre. Zer nai dut erran? Amorea edo karidadea da urre: bear du izan amore edo karidade ala Jangoikoaren nola proximoaren. Ezperen naiz kristio, kristio gaixtoa da, moneda falsua, ezta pasatzen Jangoikoaren erreinuan. Monedak alaber izan bear du bere bulto edo forma aski dena, ogei otxinekoak ia, amarrekoak ez ainberze, ta ala gañarakoek, baña ezpadu bakotxak bere gisa aski den dirua, ezta lejitimo. Jangoikoaren moneda kristioan zein da forma ta neurri txusto preziso dena baliatzekos? Ori da amar mandamentuen, edo Jangoikoaren lege guziaren obserbanzia. Batean sollik faltatzen bada, ia eztaike pasa. Orgatik eraman zelaik markatzera moneda gau bataioan, galdegin zekio: Zer eskatzen diozu Elizai? Fedea, erran zue. Eta fedeak zer emanen dizu? Bizitza sekulakoa. Nai bauzu, erran zio sazerdoteak, nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goarda mandamentuak. Moneda urreskoan bentzait bearrere da pizu txustoa; ezperen falta duen grano adiña galduko da prezioetik. Ta ainberze falta dakiok, ezi eztaien pasa. Moneda kristioan zein da pizua? Humildadea edo intenzio ona; oneki balio dute gure birtuteek ta obra onek prezioa diren ariora. Baña iten badire banidades edo intenzio makurres, arintzen dire Jangoikoaren alzineko, eztute balio ainberze; ta ain banidade puros edo intenzio makurres iten badire, ezi solamente munduagatik iten dire, ta ez Jangoikoagatik, eztu estimatzen monedagoi Jangoikoak, eztu deus balio. Monedaren azkeneko zirkunstanzia oso izatea inguruan. Moneda kristioan ori da perseberanzia. Nork dirauen konstante perseberatzen duela onean azkeneraño; au

izanen da salbo, dio Jesu Kristok. Ori da bizitza kristioaren korona. (San Vicente Ferrer)

Emozie Jangoikoi berea, quae sunt Dei, Deo. Emozie bere moneda kristioa, duena bere imajina ta letreroa, au da bataioko fedea ta marka. Duena metale ona urrea da, au da karidadea; duena forma sufizientea, au da legearen obserbatzea; duena bere forma, au da humildade ta intenzio ona. Dena en fin oso inguruan, au da perseberanzia. Guzia bear da, ezi ezta Jangoikoa pagatzen itz solles, ezta kontent fede utsas. Nai du ama dezagun biotzes ta obra ones. Nai du ere iten dugun ona in dezagun beraren atenzios, ta humil izan gaitzen ezaundus ta konfesatus berarena dela, ta berari zor diogula dugun on guzia. Azkenean ala nola bere Majestadea beti ta kontino baita ona gureki, gu ere eman gaitzen berari, ta manteni gaitzen beraren zerbitzuan akabatu artaño. Lapurrak ta txurtxarrak dire partitzeuntenak beren bizitza oial pieza bat bekala, zati gau munduaren, berze gau geurendako, ta azkena Jangoikoaren; ezi ori iteunte diotenek, orai dibertitu ta gozatu mundua, orai bildu ondasun, orai ala ta orla, ta gero emanen gara Jangoikoi. (Floreak eta fruituak berzeei, ondarrak ta kozkorak Jangoikoi!) Alakoak izanen dire salbo? Eztute mostrarik. Gero dionak dio ia. Kras kras da otsorraiaren boza, dio San Agustinek. Gelditzen da arkatik kanpoan otsorraia bekala, zeren eztuen itzuli nai usoa bekala. Asirik ere ongi, ezta aski, ezpada akabatzen ongi; zer izanen da gutas? Eskarmentu lotsagarria da Judas urkaturik bere burua, atrarik erzeak lurreraño, ta Deabruak eraman arima, izan zelarik amabi Apostoluetaik bat eskojitua, bizitu zena Jesu Kristoren konpañian, konbersazioan ta maian, izan zuena bere Majestadeak emanikako potestadea, ta egin zituena milagroak ere. Oh! gure Jaunak gauzkiela bere eskutik bereak bekala kontino, ta eman etzagula grazia bizitzeko ta ilzeko bere grazian, graziak emandezkiogun bere glorian.

Sermo in Dominica 23.
post Pentecostem.
De medico divino

Domine, filia mea modo defuncta est,
sed veni, impone etc. Math. 9.

Egungo ebanjelioa da au: Prinzipe Jaun batek ellegaturik Jesusengana adorutzen zue erraten ziola: Jauna, oraietan iltzaida ene alaba. Baña betor, para bez bere eskua arren gañean, ta biztuko da. Jaikirik Jesus bazoeie arren atzean bere diszipuloeki. Eta joaterakoan ara non emasteki bat zegona ia amabi urte gaietan odoljarioareki, ellegaturik atzetik ukitzen dion bere soñekoaren kanton bat. Erran zio berebaitan: ukitzen badut solamente beraren tresena, sendatuko naiz. Eta Jesusek burua itzulirik ta beiraturik erran zio: konfia zazu, ene humea, baliatu dizu zeure fedeak. Eta ordu gartaik gelditu ze sana. Eta ellegaturik Jesus Prinzipe garren etxera, ta ikusirik an jendea genasirik zebilala, erraten zue: Apartazaiste, ezi neskagoi eztago ilik, baizik lo. Eta irri iten zute, ta burlatzen. Baña atrarazirik jendea, sartu ze bere Majestadea, ta arturik eskutik, ta erranik, jaikizaite, biztu ze; ta famatu ze milagro gau leku gaietan guzietan. Orra ebanjelioa, ta bi milagro bata baño berzea andiago, adiarasteko guri zein mediku ona den Jesus, sendatzen baititu ilak ere. Propioki Jesus, nai baitu erran salbazalea. Estimutzen ikasteko, goazen bere Ama Santisimagana. Abe Maria.

Jesus onaren milagroak etzire solamente ongi egiteko aiei, baitare erakusteko guziei; eta ala milagro bezain misterio dire. Goazen erreparatus banaka, asis lenbizikotik. Emasteki pobre garren miseriak ezin kuratuak amabi urtes gastaturik zuen guzia medikuetan protxuri gabe, aliketa joan zen arteo mediku berri dibino zerutik etorriagana, signifikatzen du arima bekatiaren lazo urratua niork ezpaitezake erremedia, baizik gure Jaunak. Gastatzentu malamente potenziak eta sentidoak, malenpleatzentu biziaren egunak, ez kuratu naies, baizik zebatu naies eritasuna. Eta ontan dago diferenzia gorputzaren ta arimaren eritasunetan, gorputzarenak baitire nai eztugula bortxa, arimarenak borondateskoak: gorputzarenak eztire beti kuratzen nai izanik ere; arimarenak kura daizke nai izanaskeros. Baña o gure itsutasuna! Ezta nior nai eztuenik sendatu gorputzarenetaik, eta bada asko ta asko arimarenes ajolaik eztutenak. Ezi gure Jaunaindako ain aisa da sendatzea ebek nola aiek.

Erreparatzeko dire emasteki gartan zenbait birtute; lenbizikoa fede andia ta konfianza ain seguroa, naiz xakinik etzezakela niork senda, alaere ikasirik nor zen Jesus, zein ona ta poderoso, gogoan sartu zekio sendatuko zuela medizinaik gabe, eskus ukitu gabe, itzik atra gabe, solamente ellegazen baze bera ukitzera beraren bestidurain kanton bat. Gero arren humiltasuna ta erreberenzia ellegatzean ez alzinetik, ez agerri, baizik atzetik ta ixilkias bekala. Erakusten zaigu ellegatzea espezialki komunionean, al guzia fede, al guzia konfianza, al guzia humiltasun ta erreberenziareki. Emen ezta ukitzen Jesusen bestimenta, baizik errezibitzen bera den guzia geuren barnera. Bai, ta alaere nola ez kara guzis sendatzen? txurtu zaio amore, edo podorea egiteko ongi? Ez, baizik gure disposizioa ellegatzerakoan da txur fedes, konfianzas, humiltasunes ta gañarakoes.

añaditzen du San Lukasek, galdegin zuela gure Jaunak: nork ukitu nau? errespondatu ziola San Pedrok: Jauna, jendeak geiegiaren utses ertxitzen du, ezpaitaie

pasa, ta galdegiten du: Nork ukitu duen? Bai, erran zue Jesusek, norbaitek ukitu nau, ezi badakit eneganik atra dela birtute. Orduan emastekiak humil konfesatu zue agitu guzia. Ontan berriz ematen zaigu aditzera diferenzia ellegatzetik ellegatzera Jesusengana. Ainberze jendeek ertxitzen, ta kontu etzutela ukitzen; bai pobre garrek bere sendatzeko ansiareki. O zein ansia gutireki errezibitzen dugun komekatzean, etzaigulaik komunikatzen ia birtute beraganik! Kontu zeremonia bat dela. Adiarasten ere zaigu, nola nai zuen Jaun Dibinoak, konfesa zezan emastekiak berak agitua. On da humiltasuna, on da alkea, baña oneki bateo bear da konfesatu bere miseria, loriatzeko ta honratzeko gure Jaunaren miseriakordia. Zegolaik ura humil, alketurik ta beldurrak konfesatzen guzia zen bekala, gure Jaunak amoroso despeitu zue: Konfia, ene humea, zeure fedeak baliatu dizu. Fedeas alabatzen du, zein ezpada ere aski bakarrik, baña da on guziaren zimendu ta prinzipio; eta falta bada fedea, ezta gauza onik. Zertan dago izatea ain beldur guti Jangoikoas, ta ainberze ofensa gure denboran? Egotean fedea ilik edo erdi-ilik, ez sinestatzean biziro fedesko egiak. Zertan dago ez izatea ia kontrizio, ez baliatzea obeki sakramentues, ez aurkitzea orai ainberze sandu? Fede-faltan, ezi leneko Jangoikoa ta Jesu Kristo da orai.

Goazen ia ikustera berze milagroa, ilaren biztea bere kuartoan. Ze Prinzipa Jaun baten alaba, ta alaba bakarra, ta maitea, ta ongi kuidatua, ta erregalatua. Guziareki etzio izan atenziorik eriotzeak, iltzue bere adinaren florean, amabi urtetan, niork ezin estorba, ez buratsoek, ez aideek, ez medikuek, ez gastetasunak, ez deusek ere. Desengaña gaitzen eztela zer fiatu ez adin, ez estado, ez konbenienziaetan. Arren fortuna izan ze aurkitzea mediku bakar gura zezakena sendatu eriotzetik ere. Baitare izatea aita bat ain kuidadosoa joateko mediku soberanoaren bila. Ezi ilak berak deus etzuke egin bizteko. Oroat duzu arimaren eriotzean; ilaskeros arima bekatu mortalareki, berez edo bereganik eztaike biztu, ez eta ere izan pensamentu onik ezpada Jangoikoaren grazias. Iltze gisa gau bakotxaren eskuan dago, biztea ez, baizik Jangoikoaren eskuan, nai badio in grazia.

Aitak eskatu orduko bereala Jesus joan ze ilaren bisitatzer; zein benigno, zein humil ta amoroso! Eztago ilik, erran zue, baizik lo, zeren gure Jaunarendako ain aisa ze biztea, nola idatzartzea. Eskutik artu ila, ta erran zio: Jaikizaite; ta jaiki ze, ta ibili ze oñes, ta jatera emateko manatu zue. Nor da mediku ain poderoso gau ematen duena bizia ta osasuna ilei ere? O Jesus salbazalea, bisita balez maiz ene arima. Erran bezo, jaikizaite, ta jaikiko da, ilik balego ere. Alako medikua bear dut nik. Zori onean dela, ongi etorria dela, plazer duen guzian. Maizago ta obeago. Ezdezala permiti sekulan il daien arima gau. Irur il biztu zituela Jesus onak leitzen da Ebanjelioan. Bat egungo neskatto gura bere etxean; berze bat Naimgo mutil gura zeramataleik ortzitzera karrikan; berzea Lazaro ortzi ta urrintzen asiaskeros. Lenbizikoak signifikatzen du arima ila biotzesko bekatu solles, ta sekretoan admititues; bigarrenak arima ila bekatu agerries; irugarrenak arima ila dagona bekatuen batean kostunbres. Guzien mediku da Jesus. Alaber irur eriotze-jenero kontatzen dire prinzipalak: Bat eriotze gorporala edo gorputzarena, despeitzen delaik arima; berze bat eriotze espirituala edo arimarena, galzen delaik Jangoikoaren grazia; berzea eriotze sekulakoa edo perpetua, kondenatzen duelaik Jangoikoak betikos, zeñengatik eskatzen den letanian. A morte perpetua libera nos Domine, eriotze perpetuotik libra gaitza, Jauna. Eta guzietaik libratzeko da Jesus.

Eriotze perpetua ta eriotze espirituala dire gaixto lotsagarrienak, baña bagaizke libra erorzetik ebetan nai badugu Jangoikoareki bateo, ta erortzen dena erortzen da bere kulpas. Eriotze gorputzarena ez dezakegu exkusa goiz edo berant; ta kulparik gabe agi daike ezi iltzea ezta kulpa, pena bai Jangoikoak paratua bekatuen kasos. Kulpa litzake

iltzea bere eskus, edo exzesos, edo berze gisas, ta debekatu zigu Jangoikoak borzgarren mandamentuan, nior il etzagula, ezi ezkara geure biziaren jabe; ta erraten den bekala, litzake Jangoikoai eskua edekitzea ezi beraren eskuan dago kentzea guri bizia noiz duen plazer. Oroat diot deseitzea bere buruari iltzea iras edo tristuras bekatu da. Orai badaike desea iltzea Jangoikoak nai baluke, lenik libratzeagatik emengo trabajuetaik, bigarrenik ez ofenditzeagatik ia Jangoikoa, irugarrenik ez ikusteagatik beraren ofensak, laugarrenik joateagatik goatzera Jangoikoa bere glorian. Lenbizikoa da inperfekto, bigarrena on, irugarrena obeago, ta laugarrena sandua, beti entenda dagolaik konforme nai duenareki Jangoikoak.

Orai zergatik iltzentuen Jangoikoak asko aur eta gaste, ustentuelaik berze batzuk, ori da bere juizioen sekreto barna. Aurak iltzea bataiatu da grazia ta mertextede. Andiagoak agian ilzentu aitetamen kulpengatik sopra maite izanes, ta gaizki azis. Agian beren bekatu propioengatik, eztaiztan gaixtatu ia. Agian ilentu onak gaste, eztaizten joan gaixtatus. Agian oroat ustentu onak onzeko berzeak. Agian oroat ustentu gaixtoak on daitzen; ta ala ezin guk entenda Jangoikoaren juizioak, solamente bai direla txuxenak ta sanduak. In bear dena da gaiz delaik il beti, beti kuidatu bizitzeas ongi; orreki noiz nai eldu da ongi ilzea. In bear duguna da mediku soberanoa Jesus anitz estimatu, orreki biztuko gaitu konbeni bada bizitzea, au ezpada konbeni, iltzea izanen da jaiotzea bizi obero bizitzeko ditzoso. Maria Magdalenak ta Martak zute anaia Lazaro, ta guziek agitz maite Jesus. Ausente zegolaik Jesus, agitu ze heritzea Lazaro. Bere aizpek biali zute mandatari bat Jesusengana errekaite goneki: Ecce quem amas, infirmatur. Jauna, berorrek maite duena dago heri. Gure Jauna detenitu ze egun zenbait, bere heri gura bisitatzera joan gabe. Bitarteo au iltze. Bazuke zegon lekutik ere sendatu Jaun Dibinoak, baña luzatuzue sendatzea eria, bizteagatik ila. Il ta orziaskeros, ellegatu ze mediku dibinoak. Bi aizpek ikusi orduko erran ziote ala bata nola berzeak: Jauna, ori emen egon baze etze ilen ene anaia. Erran zue mediku soberanoak: erresuzitatuko da. Martak erran zio: Badakit, Jauna, erresuzitatuko dela azken juizioko egunean. Mediku dibinoak: Ni naiz erresurrekzioa ta bizitza; sinestatzen duenak ene baitan, iltzen balitz ere, biziko da, eta bizi ta sinestatzen duten guziak ene baitan, eztire ilen sekulakos. Sinestatzen duzu au? errespondatu zio Martak: Bai, Jauna, sinestatzen dut, ezi berori da Jangoiko al guziaren semea, mundu gontara etorri dena. Berla erresuzitatu zue. Maite duenak bere burua, prokura bez adiskide izatea Jesus mediku dibinoak, libratuko du gaitz korporale, espirituale ta eternoetaik, emanen dio grazia ta gloria. Amen.

Sermo Dominica 24.
post Pentecostem.
De fine mundi

Cum videritis abominationem desolationis
stantem in loco sancto etc. Math. 24.

Egungo ebanjelioan Jesu Kristok aipatzen du lenik Jerusalemaren akabanza, gero mundu guziarena. Señaleak bataren ta berzearen adiarastentu; Jerusalemaren azkena paratzen du an: Ikustenduzielarik galmendearen abominazioa dagola leku sanduan, orduan iges egin bez dezakenak deskuidorik gabe. Abominazio gau leku sanduan zer ote den, disputatzen dute expositoreek; baña dena dela, eztadudarik dela galdus tenploari errespetoa ta erreberenzia, sentitzen baitu Jangoikoak guzien gañetik; ortas asarraturik axuri dibinoak bota zitue tenplotik sal-erostunak. Zer inen zue, ikusirik gauza indezenteagokoak? leku bat berexi du bere Majestadeak beretako, baita tenploa; guzietan iten dire bekatuak; barkatu bear lirazke tenploan. Barkatu ez ezi, aumentatzen badire an, ori da galmendearen abominazioa. Galdu ze, urratu ta akabatu ze Jerusalem gerras, pestes, sus, eriotzees lastimosoki. Galdu ta erraustu zire Pentapolisko ziudadeak azufresusko erauntsis. Galdu ta akabatu ze mundua; zorzi persones landara, dilubioaren ures. Galdu ta akabatu bear da arras sus azkenean. Kontatzea nola, ebanjelio ta Eskritura Sagratuen konforme, da egungo itekoa. Saluta zugun lenik Maria Santisima. Abe Maria.

paratu du Jangoikoak gizona munduan, ez egotes, baizik bidanabar ta ostatus bekala; eta ala guziok goaza joanes, ta akabatus emengo, nor bere aldian. Ia sei milla ta zazpi milla urte gontan doaie segitus orden gau, jaio batzuk, ta il aiek, jaio berze batzuk, ta il ebek; ta ala kerro kerro guziok; ta nior ezta gelditzen akabatu gabe. Akabatzea gu, baikara aragiskoak, ezta milagro. Akabatzen dire palazio ta dorre, ta muralla arriskoak; akabatzen dire burriñak eta bronzeak; akabatzen dire arbolak, plantak, animaleak, arraiak eta gauza guziak; akabatus doaie ta akabatuko da mundu gau ere. Gloria ta infernua dire eterno, ta ala batera nola berzera bildus doazi. Gloriara Jangoikoaren eskojituak, infernura erreproboak. Ia beras emengo gau ezta baizik bide bat bietaik batera, bakotxa bizi den ariora. Bizitzea ongi da beras inporta dena sollik; gañarakoa guzia pasatzen da; ta mundua bera pasatuko da. Noiz ta zer egunes akabatuko den, niork eztaki, dio Jesu Kristok. Nola eztuen akabatu ia Jangoikoak, admiratzeko da, direlaik ainberze Jangoikoaren ofensak! Len akabatu-urran zue bekatuen kasos dilubioareki. Noizbait akabatuko du arras suareki; eta ia ez dezakela anitz iraun, dezakegu pensa, gaindu delaik ainberze malizia ta gaixtatu geieki mundua.

Ala nola eritasunes akabatzeko person bat, baitire señaleak urrutiagokoak ta urbilagokoak. Zarra da, diogu, txarrik dago, il zen da, ez dezake anitz iraun; ala dezakegu erran munduas; zartu da, txarrik dago etc. Señale bat dio Kristok eta San Pablok, goratzea anitz profeta falsu, (Math. 14 et 1. ad Timot. 3) bizios beteak ta engañazaleak; noiz ia orai baño? Ainberze hereje, ainberze kristio falsu, ainberze doktrina kontrako! Berze señale bat, abundatzea ta gaingatzea gaixtakeria, ta oztea karidadea, au da, Jangoikoaren ta proximoen amore. Berze señale bat, galmendearen abominazioa tenploan. Noiz ikusi da ainberze nola gure denboran? Guti balitz bekala tratatzea errespeto gutireki tenploak, atrebitzea ebastera sakramentua ere ainberze lekutan! Kristio deitzen direnek ere! Zer

errain dut herejeen profanazio ikaragarries? Berze señaile bat, gerrak, jendeen goratzea elkarren kontra, pesteak, goseak, terremotoak lekutan. Baña ebek guziak eztire baizik prinzipio doloreen, dio Jesu Kristok (ib. v.8). Gerorat izain dire tribulazio andiagokoak, ta azkenean ikusi ezten bekalakoa sekulan mundua mundu denas geros. Eta ezpaleitez laburtu egun gaiek, ezleike nior salba. Baña eskojituen amores laburtuko dire, dio bere Majestadeak.

etorriko dire Kristo falsuak inentustenak milagro-iduriak, ta prodijio andiak engañatzeko, posible balitz, eskojituak ere. Guzien gañetik goratuko da Anti-Kristo, nai du erran Kristoren kontrarioa, izain dena judio madarikatu bat, gaizki jaioa emasteki urde batenganik, guzia betea malizias, bizios ta arte gaixtos. Deabruaren laguntzareki ellegatuko dena izatera errege poderosoa sujetatukotuena berze erregeak. Persegituko du kristiandadea tormentus, eriotzees, promesa ta premio andies ere bai, ta milagro andi-idurieki de manera ezi ortan aurkituko da kristiandadea beñere baño iagoko ertxiduran. Baña eztu utziko Jangoikoak denbora luze; irur urteterdi erreinatuko du solamente. Bitarteo bialikotu gure Jaunak paraisotik Enotx eta Elias, baitauzki an erreserbaturik il gabe orduko. Aiek desengañatuko dute jendea Jangoikoaren itz eta milagro propioeki; animatuko dire kristio onak egotera konstante, konbertituko dire judioak fede kristiora; azkenean bi sandu gaiek ilarazikotu Anti-Kristoak Jerusalem; baña erresuzitatukotu Jangoikoak, ta iganentu Zerura; ta Anti-Kristoa galduko du, ta infernura botako du Jesu Kristok bere agoko atsareki. Ondorean batzuen ustes iraunen du munduak oraño zenbait egun; berze batzuen ustes zenbait urte (Barrad. t. 3.1.9.c.7).

Urbildus doaielaik azken eguna, iruzkia ilunduko da, ilargiak eztu emanen argirik, izarrek eroriko dire zerutik, Zeruetako birtuteak edo aingiruak ikaratuko dire, eta lurrean jendeen angustia andia izanen da, itsasoaren nastekatu ta arroitu lotsagarria, gizonak konfuso arriturik ta erdi ilik beldurak agituko denaren mundu guziari. Zeruak eta lurra turbatu ondoan, asiko da sua barratzen, erretzen ta errausten gauza guziak. Bialikotu gero Jangoikoak bere aingiruak, ta adituko da munduaren laur kantonetan azken tronpeta garren sonua diola: Jaikizaiste ilak, ta zatoste juiziora. Orduan itzuliko dire arimak beren gorputzetara, ta aragiaren erresurrekzioa eginen da erresuzitatus il guziak Jangooikoaren podores orai tugun gorputz ta arimeki; eta bilduko gara Josafatko zelaiean, airean onak, lurrean gaixtoak. Zeruak idikirik, agertuko da len lenean Jesu Kristoren gorputza. Orduan goratuko da jendeen lamentua ta negarra. Gero ikusko dute nola eldu den Jesu Kristo bera Majestade, birtute ta gloria andiareki aingiru guziek akonpañatzen dutela, eta jarriko da bere tronoan, ta humillatuko dire berari Zerukoak, lurrekoak ta infernukoak beraren presenzian.

Berexiarazikotu onak eta gaixtoak elkarrenganik ala nola ardiak antxumeetaik berextentuen artzai batek; ta ardiak paratukotu bere eskuitako aldean, antxumeak ezkerrekoan. Agertuko dire gure konzienzien libruak, au da, ikusiarazikotu guziei ta bakotxai guzien ta bakotxaren akzioneak, omisioneak, itzak, afektoak ta pensamentuak, onak eta gaixtoak patente guziak batere altxatu gabe. Agertukotu bere probidenziaren juizio sekreto justoa egintuen faboreak ta gauzak, gure karguak ta korrespondenzia ona ta gaixtoa. Guzia klaro manifestaturik erreplika eztaiken gisan, emanen du bere sentenzia betirokoa, justoeri lenik. Zatoste ene aitaren bedeikatuak, ar zazie posesio zuendako prestaturik dagon erreinuas munduaren prinzipiotik eternidade guziko. Gero gaixtoei: Apartazaiste eneganik madarikatuak su eternora, baitago prestaurik deabruaren ta bere aingiruendako. Oneki lurra idikirik, jautsiko dire andik lurrain barrenera, non baitago

infernua, padezitzen egoteko atertu gabe eternidade guzian, Jangoikoak ertxiko du ataria ez idikitzekos sekulan. An geldituko dire zori onekoak triunfante kontentus eta kantus zerura, non biziko dire alaber eternidade guzian, nauten gloria ta gusto guziareki. Au da emengo bizi labur gonon erresulta, sekulakos gelditzea agitz ongi, edo sekulakos agitz gaizki. Oraiko denbora pixkak dakarra atzetik eternidadea. Oraikoa pasatzen da, ura ezta pasatzen. Zori onekoa seguratzen duena gerokoa. Desdixatua galzen duena ura oraikoagatik. Berritu ta edertuko dire zeruak ta lurak sanduen errekreotako. Sanduen gorputzak bestituko dire laur dote gloriakoes: Klaridades, ajilidades, sutilezas ta inpasibilidades. Gozatuko dute sentido ta potencia guzieki naiadiña, ta ia ezi daikena emen explika, edo entenda. Kontra berriz zori gaixtokoek penatu guzieki etc. Jangoikoak eman dezagula bizitzea alako maneran, ezi ellega gaitzen gozatzer bere Majestadea glorian.

Sermo in festo
Purificationis Beatae Mariae.
De ea, de Jesu, de Simeone

Postquam impleti sunt dies purgationis Mariae secundum legem etc. Luc. 2.

Irur izenes, eta laures ere deitzen da egungo festibidadea: lenik Ama Birjinaren purifikazioa, zeren egun Ama Birjinak kunplitu zuen purifikazioaren legea; baitare Jesus aur dibinoaren presentazioa tenploan, zeren egun presentatu zuen legearen konforme seme dibinoa; baitare Simeon justoare bideratzea, edo fortuna aurkitzeas, ta errezibitzeas Jesus ta Maria tenploan. Deitzen ere da Kandelera, bentzait euskaras, edo zeren Ama Santisimak eraman zuen kandela; (Agredako benereableak dio, ezi bida) edo zeren bedeikatzen diren egun kandelak, eta aieki eskuetan akonpañatzentugun Ama Semeak prozesioan; edo zeren kandelak signifkatzten duen Jesus bera, zein arturik Simeonek eskuetan deitu baizue argia argitzeko jendeei, lumen ad revelationem gentium, ta arreki besotan despeitu baize gozoso mundu gontaik, iltzeko zori onean. Orgatik agian len paratzen zekio ilzerakoan Kristioari eskuan kandela gau itxekirik akabatu arteo iles, mostratzeko il nai zuela Jesu Kristoren fedean, unionean ta anparoan. Baña aizagun lenik ebanjelioa, gero explikatu, ta atrazeko doktrina gure Jaunaren gloriatako ta geuren probetxutako.

bete zirelaik, dio, Mariaren egunak purgazio edo purifikaziokoak Moisesen legearen konforme, eraman zute aur dibinoa Jerusalem presentatzeko Jaunari, nola dagon eskribiturik Jaunaren legean, ezi mutiko len jaio guziak deitu bear direla Jaunari konsagratuak, edo sanduak; baitare ofratzeko leges manatua, baize usatortola pare bat, edo bi usakume. Eta Jerusalem ze gizon bat deitua Simeon, gizon justoa, ta Jangoikoaren beldurduna, zegona etxideten Israelgo konsolazioa, ta Espiritu sandua zego arreki; eta izan zue errebelazio, etzuela ikusiko eriotzea, ikusibañolen Jaun Jesu Kristo. Eta etorri ze Espirituaren birtutes tenplora, eta zeramataleik Jesus egiteko leges usatzen zena, artu zue berak bere besotan, bedeikatu zue Jangoikoa ta erran zue: Nunc dimittis etc. Orai, Jauna, despeitzen du bere sierbo gau bakean bere itzaren konforme, zeren ikusi baitut neure begis berorrek biali duen salbadorea, jende guzien alzinean paratu duena nola argi bat argitzeko guziei, eta Israelgo, bere puebloaren gloriatako. Orra ebanjelioa, zeñen explikatzeke, ta aplikatzeko geuren probetxurako, estima zagun geuren patrona Maria Santissima. Abe Maria.

Ebanjelioan dugu lenik Maria, azkenik Simeon justoa, ta erdian Jesus guzien salbadore ta argi ederra. Maria presentatzen duela Jangoikoai bere semea, Jesus presentatzen dela bere naies bera, Simeon duena fortuna errezibitzeas amaren eskuetaik bere eskuetara salbadorea. Mariaganik asi gaitzen. Zer dio Marias? bete zirela purifikazioko egunak Moisesen legearen konforme. Ez entenda niolater bazuela Mariak zer purgatu edo purifikatu, ez por zierto, zeren ezi konzebitu zue Birjin Espiritu Sanduaren birtutes; erdi ze birjin Jangoikoaren milagros; por konsigiente etzue purifikazio-bearrik. Zergatik dio bada Mariaren purifikazio-egunak? Errepara nola añaditzen duen Moisesen legearen konforme. Zeren Mariak (erdibañolen, erditzean ta erdiaskeros beti birjin gelditu zenak guzis garbi eder, ama ta birjin nior ez bekala) nai izan zue bere borondates ta humildades goardatu obligaziorik gabe lege paratu zuena Moisesek berze amendako, baize, konzebituaskeros gizonkiaren obras, emasteki erdi zena semeas egotea erretiraturik

berrogei egunes, deitzen baizire purgatzioaren edo purifikazioaren egunak. Erretiro gau goardatu zue Ama purisimak ez nabarmenzeagatik ta altxatzeagatik humildadearen estalkiareki bere dignidadea ta graziak. Berrogeigarren egunean, egun bekalakoan eraman zue presentatzeko tenploan bere aur dibinoa. Lege gau ere zute Judatarrek; eta naiz debozios, agian imitatzeagatik Ama Santisima, usatzen duten ama kristioek elizara atratzea, ezta ori zeren obligatzentuen lege garrek, eta gutiago berrogei egun gaien obserbanzia, ezi ia ezta alako legerik. Orai nolako afekto, karidade, humildade ta erreberenziareki presentatu zuen Mariak bere persona ta bere seme dibinoa, nork dezake explika? Zein kuadrable agertu zen Jangoikoaren ta zeru guziaren begietan aurora gau bere iruzkiareki, nola entenda?

Bada Jesus bera nola ofrezitu bide zen Trintate sanduari gizonengatik? Zein ongi iduri zuen Jangoikoaren begietan axuritto garrek gure naturalezaren habitu pobreareki? beiratu zue Jangoikoak Zerutik, dio Dabidek (ps. 13) ikusteko bazen gizonen humeetan duenik ezaumentu ta estimazio Jangoikoas. Guziak atra dire zuzen-bidetik; ezta nork egin ongi, ezta bat-berere. O gizagendearen galdua! Baña konsola gaitzen, ezi egun agertuko da bat guzien partes gusto, estimazio ta honra ematen diona Jangoikoai. O zein amante Jangoikoaren ta gizonen mostratu zen Jesus dena Jangoiko ta gizon! O nolako amoreareki ofrezitu zuen bere bizia ta odola Jangoikoaren gloriatan, ta gure salbaziotako! Nola atrazen arzera bere gain gure kulpak ta pagatzera gure partes! Ona ni gizonen partes, dio, nago prest ematera satisfakzio neure kostus guzien kulpengatik. Karga ene gain kulpak eta penak; biz libre ene aide ta anaiak gizonak. Ebek bizidaitzengatik eternoki, il nai dut nik gogotik ere. Ala ofrezitu ze gure Jesus ona, gure amante apasionatua, sandua gaixtoengatik, inozentea kulpanteengatik! O kulpa fortunoso, dezakegu erran Elizareki fortunatu baizaio alako erredenptorea! O bekatarien fortuna, aurkituas alako fiadorea ofrezitu dena pagatzera aien partes! Bekatariak ebanjelioan deitzen dire antxume; ezta alakoetaik gure Jesus, baizik axuri oneki manso amablea; baña bekatarien amores artu zue gañetik antxume-larrua, naut erran, bekatarien semejanza, in similitudinem carnis peccati, pagatzeko, bekatari balira bekala; eta itxura gartan presentatu ze bere aita eternoari aingiruen presenzian. Eta agitz ongi dirudi traje garreki ere zein pararazi dion amoreak. Oh! nola bide zeuden admiraturik aingiruak ikustetas beren errege ain humil ta txipitto gizonei dioten amorearen kasos! Oh! nola zuten inbidia sandu bat gizonei, zeren etzen egin aingiru, baizik gizon! (Hebr. 2) Aingiruek baño ia obligazio digu gizonek estimatzeko gizon berri gau guregatik ala ofratzen den gau. Nola ikustetas ere Aita eternoak bere seme dibinoa gizon bekatarien trajean, eben kontra zuen ira konbertitu zuen miserikordian eben fabore beraren atenzios! Nola palakaturik Jesus onaren presentatzeareki ain amoroso abogatu-aintzu, errateko ala, utzi zituen erorzera eskutik bere iraren lanzak! Nola kuadraturik arren ontasunas ta karidadeas erran zuen: Au da ene seme onetsia, zeintan baitut neure konplazenzia ta gusto betea! Ia ene Jesusen humeak, kuadratzeke Jangoikoai, aingiruei, sanduei, zeru guziai, ta logratzeke andik nauzien guzia, ikasidukezie Ama Birjinaganik, zein den ofratu bear duzien ofrenda eskojitua, baita Jesu Kristo. Edozein grazia eska dezazien, dela arimaren, dela gorputzaren, dela bizirako, dela eriotzeko, dela betiroko, eska beti Jesu Kristogatik, beraren atenzios, beraren medios, ezi ezpada medio gones, ezta nondik esperatu gauza onik sekulan. Orgatik Eliza Ama Sandak, ongi dakienak bekala, bere orazio guziak itentu Jesu Kristogatik, au da, Jesu Kristoren atenzios etc. Ta egun eskatzen duena da, ezi presentatua izan zen bekala tenploan gure naturalezareki, gu ere purifikaturik arimak izan gaitzen presentatuak bere

Majestadeari glorian Jesu Kristo beragatik.

Irugarren duguna konsideratzeko egun da Simeon justo garren ditxa, aurkitzeas Maria Santisima bere seme dibinoareki besotan, eta errezibitzeas au bere eskuetan. O zar venerablea, nork egin du aurtzai adin gortan? Eta nork erakutsi dio kantatzen despeida mundutik ain alegre ta kontent? Espiritu Sanduak, paratu zionak biotzean Jesusenganako amorea, ansia ta ikusi naia, berak seguratu zio etzela ilen ikusi gabe, berak erakutsi zio egun zela ikusteko eguna, berak joanarazi zue tenplora, berak mostratu zio, au da Ama, au da Semea. Pensa, artu zuelaik Amaren eskuetaik aur dibinoa, nola saltatu zekion biotza barnean zoraturik amores! Nola bete zen agradezimentus, erreberenzias, gozos ta alegrias! Nola zerizkion begietaik negar gozoak! Baña dakien bekala grazias luzatu zaiola bizia ikusi arteo Jesus ona, ia orai ikusiaskeros, badagoke etsiturik iltzeas bereala. Eztu alaere pesadunbrerik eta beldurrik? Alaere ain alegre-zoro eriotzearen presenzian? Eta zer zaio eriotzeas? Jesus eta Maria fabore tuelaik, goardatuko da eriotzea gaizki egitetik. Inen diona da idikitzea Paraisoko ataria. Goazen bada kantatus dio, alegre despedida, nunc dimittis servum tuum, Domine. Orai despeitzen du, Jauna, bere sierbo gau bakean, itz eman zidan bekala, ikusi baitute nere begiek berorrek Jesus guzien argitako biali duena. Argi goneki aisa ta seguro sartu ze Eternidadeko atarietan barna. Ditxosoa bera sines!

Ikasi bear dugu ontaik ongi iltzen, au da, gure mundu gontako iteko guzia bukatzen ongi, logratzeko betiroko ongi izatea; baita lanik andiena bekala, guzia inporta dena. Artara doaie irabazi edo galdu, guzia ta betikos. Ai ene! Zer izanen da nitas? Illumina oculos meos, etc. Eskatzen zue Dabid sanduak: Jauna, argi bez ene begiei, ez nadien deskuida eriotzean, ez dezan erran nere etsaiak, garaitu dut, irabazi diot. Berriz dio berak oroiturik lanze gartas: Circumdederunt me dolores mortis etc. Eriotzeko doloreek inguratu naute, infernuko peligroek arrapatu naute. Nola eskapatuko da ainberze inguraldien ertetik? inguraldi bat gorputzaren gaitzek eta doloreek; berze inguraldi bat arimaren aflikzioek; berze inguraldi bat bekatu eginek; berze inguraldi bat Jangoikoaren juizioek; berze inguraldi bat deabruen astuziek eta lakioek; berze inguraldi bat infernuaren beldurrek. Lanze errua da au! O ene arima, erraten zio bereai San Bernardok, (ap. Claus. p.2 Cath. c. 68.). Zer inen duzu atratzerakoan bizi gontak? Nork akonpañatu, ta lagun inen dizu bide gartan? Nork defendatuko zaitu? (Bide garren arrixkoak pintatzentu Elizak defuntoen mezako ofertorioan beiratus arimak bides bekala, Domine Jesu Christo etc. Gure Jaun Jesu Kristo, libra bezki arimak infernuko penetaik, ta leze barnatik libra bezki leonaren agotik, ez dezkiene iretsi tartaroak, eztaitzen erori ilunbean, baizik San Migel abanderatuak presenta dezkiela argi sandu gartan.) Ene fielak, bide ta biaje lotsagarria mostrapzen zaigu sekulan ibilietzuguna, ta ez ibiliko ere berriz; bein ongi pasatzen badugu, betiko ongi; bein tropezatzen bagara an, galdu sekulakos. Zer inen duzu, ene arima? Badio sandu berak, clamavi ad te, Domina, berorregana klamatzen dut, eta diot berori dela nere esperanza, o Maria. Eznekie nora errekurritu, zer esperatu ta nola salbatu, dio sandu berak, ezpanitz enkomendatzen guziau Maria Santisimaren grazian (Cl. (Conc. 2. c. 37)

Erremedio obena ongi iltzeko bat da Maria Santisima bere kandelareki. Zer kandela? erran digu Simeonek, jende guziei argitzeko argia dela Jesus; lumen ad revelationem gentium. Eta bada zerbait mostra iduri konparatzeko Jesus kandelareki, diones San Bizente Ferrerek in S. Purif. ad fin 26.17 ezi kandelan tuzu irur gauza: argizaria, metxa, argia; ala berze irur Jesusen baitan: gorputza, arima ta dibinidadea. Argizagia in kontu dela gorputza, metxa arima ta argia dibinidadea. Orai bada kandela dibino gau ematen badizu Ama Birjinak, naut erran, faboratzen bazaitu ta itzulzen badu

zure fabore bere Seme dibinoa Maria Santisimak eriotzeko orduan, badezakezu kanta Simeoneki despedida alegre, bazaizke joan kontent eta seguro mundu gontaik eternidadera, ezi lagun onak tuzu biderako; kidatu ta argituko dizute gloriarano. Ortako ala nola bizi guziko egun guziak baitoaz erreduzitus egun gartara, guzia bear da izan prebenitzea fin ona, bukatero ona; eta enkomendatu maiz Jesus onai ta Ama Birjinai, ta konbeni da akostunbratzea goiz, arrats ta mai-ondoreko orazioetan errezatzea Aita gure bat ta Abe maria bat iltze onbategatik. Orgatik Elizak ariaditu zitue Abe Marian itz gaiek: Santa Maria Jangoikoaren ama, zuk otoitz egizu gu bekatariengatik orai ta gure eriotzeko orduan. Amen Jesus. Ama Birjinaren deboto zen obispo bat eritu ze grabekiro egungo festaren alzineko egunetan. Eskatzen zio osasuna zelebratzeko festa solemneki, baña etzio konzeditu. Ellegaturik bezpera, berriro eskatu zio grazia bera, baña etze konbeni orano. Egun berean goizean eskaturik, ain guti. Beraren etxea zego Elizari datxikola eta prozesioa pasatzerakoan kantatzen zutela antifona xakina, adorna talamum tuum Sion etc. Nai baitu erran: adorna zazu zeure gela edo ganbara, errezibi zazu Kristo errege, argi berria, etc. Bitarteo eriak ikusi zue bisiones zeruko Birjin agitz ederren prozesio bat eldu zela beragana, ta azkenean bat ederrena aur bateki besotan. Bidek asi zute antifona gura boza admirableeki. Obispoa jarri ze dezenia guziareki, ta ellegatzerakoan itz gaitara, errezibi zazu Kristo erregea etc. Ama Birjinak paratu zio eskuieko eskuan bere aur dibinoa erraten ziola amorosa: orai ene hume onetsia, errezibi zazu Kristo erregea, ta besarka zazu Maria eta zoaz elizara sano, zelebra zazu festa, ta predika zazu agitua. Istantean sano ta sendo jaikirik joan ze elizara, ta guziak admiraturik zeudelaik, akabatu zue solemnidadea, predikatu zue fabore errezibitua; eta andik guti joan ze mundu gontaik Zerura, non besarkatzen baitu obeki Kristo ta Maria. (Specul. magn. V.B. Maria. exempl. 44) Oh! Digula guri ere limosnas alako grazia ta gloria. Amen.

Sermo in festo Annuntiationis
Beatae Mariae Virginis.
De Jesu et Matre eius

Fiat mihi secundum verbum tuum. Luc. 1.

Egungo misterioa deitzen da Anunziazioa, zeren anunziatu zion Aingiruak Maria Santisimari, zela Jangoikoaren amatako eskojitua. Deitzen ere da Jesu Kristoren enkarnazioa, zeren egun enkarnatu edo gizon egin zen Jangoikoaren Semea. (Auda beraren festa guzien festa prinzipala, prinzipioa, zimendu ta iturria bekala, ezi ontaik segitu ze jaiotzea egerri-egunean, gero zirkunzisia ta deitzea Jesus, gero epifania edo erregeek adoratzea, gero presentatzea tenploan kandelera-egunean, gero pasioa, erresurrekzioa, zerura igatea, Espiritu Sanduaren bialtzea, ta Gorputz Kristiren festak; baña len lena da enkarnazioa, agitu baize egun.) Egund destilatu zute zeruek esti ta esne mundu guzia barna, jautsi zelaik gloriako Prinzipe jauna bere karidade geiegiagatik guregana, ta jaintsi zuelaik gure naturalezaren zamarra pobrea gure amores. Egund da egund bat guzia betea Jangoikoaren milagros, amores eta fabores ezin kontaala: Jangoikoa gizon! Gizona Jangoiko! Lurreko emasteki bat Jangoikoaren ama! Ama ta birjin! Gu guziok Jangoiko-gizonaren aide naturalezas, anaiak ta arrebak bekala, ta por konsigiente Jangoikoaren hume eskojituak, ta Ama Birjinarenak ere bai. Quis loquétur potentias Domini? Egund agitu ze prodijio gura, zein aipatzerakoan San Juanen ebanjelioan belaurikatzen baita mundu guzia, et verbum caro factum est. Eta berboa egin ze aragi, au da gizon, ta bizitu ze gutartean beterik grazias ta egi eta fedes; baita dioguna apostoluen Kredoan, zein konzebitu baize Maria Santisimaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras, ta birtutes, baita explikatzen duena mezako Kredoan, erranik, zein gu gizonengatik ta gure salbazioagatik jautsi ze Zeruetatik, berla belaurikatus guziok, baitio: et incarnatus est de Spiritu Sancto, eta enkarnatu ze, edo aragis bestitu ze Espiritu Sanduaren birtutes, ex Maria Virgine, Maria Birjinaganik, et homo factus est, eta gizon egin ze. Ontan in digun fabore, honra, erregalo, ta erremedio admirablea estimatzeko guk zer in dezokegu? monje bat zego tzut tzuta kantatzerakoan et incarnatus; Deabruak eman zio erreflon bat erraten ziola: Desagradezitu, nola ez aiz kurtzen aiturik egin dela gizon Jangoikoa iregatik? egin bazue alakorik enegatik, kur kurra adora nezakek nik sekula guzian (Spec. magn. tit. Dam. ex 17). Fortunosoak gu, mereji ginduelaik Jangoikoaren ira, eldu baizaigu bere Majestadea geuren lekura geuren trajeareki amoroso betetzera gu ondasunes! Onen memoriatan agradeziturik Elizak soñatzentu egunoro goizean, egerdian, arratsean Abe Maria ezkilak salutatzeko Jangoikoaren Ama irur Abemarias. Lenbiziko dandan erraten da Angelus Domini nuntiavit etc. Euskaras: Jangoikoaren aingiruak mezu emanik, konzebitu zue Mariak Espiritu Sanduaganik. Bigarren dandan: Ecce ancilla Domini etc. Euskaras: Ona Jangoikoaren eskla, in bedi nereki zuk erran bekala. Irurgarren dandan: Et verbum caro etc. Euskaras: Eta Jangoikoa gizon egin ze, ta gutartean bizitu ze. Azkenean Gloria Aitari ta Semeari ta Espiritu Sanduari len bekala orai eta beti. Amen. Kristio debotoek ez ori solamente, baizik ogei ta laur aldis egunean ogei ta laur ordu direnengatik estimatzen dute ordu ditxoso gura, zeintan izan zen konzebitua Jesu Kristo Ama Birinaren entrañetan, salutatus Ama Dibinoa Abe maria bateki, erlojuak danda ematerakoan; eta nai bauzu euskaras, aitu orduko danda, erran: Jangoikoaren Ama ederra, biz bedeikatua ordu gura,

zeñetan alako iruzkia ekar diguzun mundura. Amen. Abe Maria, ta gloria. Gero: Zuk, Maria, estima zazu Jangoikoa betiko glorian, ta ez permiti ofendi zagun jaun bat ain ona sekulan. Egungoan delarik imposible nik ongi explikatzea misterio gonon miragarria, Jangoikoa ain bera jaustea, Maria ain gora igatea, Jangoikoa Mariaren seme, Maria Jangoikoaren Ama egitea, solamente azitzeko gure debozioa ta konfianza alako Ama-Semeengana, nai dut kontatu lenik, berla joan explikatus Ebanjelioa llano llanoa. Ori biz predikutako egun. Eta asi gaitzen salutatus aingiruareki Maria. Jangoikoak salba zaizala Maria, grazias betea, Jauna da zureki, etc.

Kunpliturik denborak, ta ellegaturik egun ditzoso gura, zeukana bere eternidadetik predestinaturik Jangoikoak, biali zue San Gabriel Aingirua Galileako ziudade Nazaret deitzen zenera, birjina batengana, zein baizego desposaturik Josef deizen zen gizon bateki, Dabiden etorkitik, eta Birjinaren izena Maria. Errepara, ezi kontatus noaiena dela Ebanjelioa itzes itz. Eta sarturik aingiruak egin zio diosalea itz gebeki: Agur, edo Jangoikoak salba zaizala grazias betea, Jauna zureki, bedekatua zu emaste guzien artean. Aiturik turbatu ze itzebetara Birjina, eta zego pensatzen diosale gau zerik ote zen. Erran zio aingiruak: Etzaitela beldurtu, Maria, ezi aurkitu duzu grazia Jangoikoaren begietan. Orra orai konzebitu beazu sabelean, eta izan seme bat, ta deitu beazu Jesus. Au izanen da andia, ta deituko dena gorenaren semea, ta emanen dio Jangoiko Jaunak Dabid erregeren tronoa, ta erreinatuko du Jakoboen familian betikos, ta bere erregetasunaren mugarik ezta izanen. Orduan Mariak aingiruai, nola izanen da ori, ezi gizonkirik eztut ezaunzen? Aingiruak errespondatu zio: Espiritu Sandua etorriko da zuregana, ta Altisimoaren birtuteak obratukodu zurebaitan; orgatik ere zukanik jaioko den sandua deituko da Jangoikoaren semea. Eta orra Isabel zure aidea ere dago seme bateki sabelean, ta doaie seigarren ilabetean, naiz izanik zarra ta esteril. Zeren Jangoikoaindako ezta batere inposiblerik. Orduan Mariak: Ona Jaunaren esklaba, egin bekida zure itzaren konforme. Orra Ebanjelioa segi dan.

Orai explikatus, len lenik ikusgarri da enbajada garren bialtzea: nork nori? Trintate Jaun poderosoak donzella pobretto bati amalaur amaborz urte zituenai, zegonai desposaturik zurgin pobre bateki, erretiratua bere etxettoan, gutik ikusten, gutiagok ezaunzen zutena, munduko es guti estimazen zutena, zeren bere bizia baize egotea sollik bere zokoan. Ezta inport, naiz kasorik in ez dezon munduak, iten dio Zeruak, ta estimatzen du perla altxatu gura ia ezi munduko erregina guziak, ia ezi direnak guzia ponpa, aize ta luma. O mundu fatuoa, nola eztuken estimatzen birtutea, baita duena balio bakarrik!

Enbajada garren fina ze eman zezan Birjina berak bere baimendea obrazeko Jangoikoak arren baitan milagro andi gura. Bazuke bere Majestadeak, klaro da, egin nai zuena ori gabe, baña etzue nai, baizik naizuelaik donzella dibinoak, baita au ere mostra zenbat estimatzen duen kriadura noble gura, ta zenbat fiatzen den berabaitan.

ellegatzen da enbaxadore soberanoa gauaren silenzioan, dagolaik Maria Santisima, ez lo, bai orazio andian. Sarzen da kortes erreberente, nola bere ta guzien erregina eskojituagana, egiten dio salutazioa, erakutsi bekala Trintate Jaunak ezi Abemariaren orazio gau Jaun guzien Jaunak disponitu zue, naiz erran zuen San Gabriel Aingiruak, Ave gratia plena; agur, edo Jangoikoak salba zaizala, grazias betea, Jauna zureki, bedekatua zu emaste guzien artean. Goazen banaka; Agur, latines Ave, Jangoikoak salba, ama, estima, bedeka zaizala. Ave, bakea biz zureki, alegra ta gloria zaite Jangoikoan. Ave Eba kontrako aldetik, zeren Ebak in zuenaren kontra iten du Mariak. Ebak ekarrizitigu miseriak, Mariak miseriak; Ebak kulpa, Mariak grazia; Ebak kondenazioa, Mariak

salbazioa; Ebak penak, tristurak ta negarrak, Mariak erremedioa, konsolua ta alegranzia. Ongi agertua, zori onean jaioa Maria etc.

Grazias betea, barnetik eta kanpotik, guzia ederra, agraziatua, garbia, sanda, noblea, perfekta, bere parerik eztuena, amablea guzis. Betea fedes ta esperanzas, ta karidades, ta pazienzias, ta humildades, birtute, prenda, ta dono guzies. Betea ia ezi sandu guziak, ia ezi Aingiruak ta Serafinak, ia ezi den ta izan daiken guzia Jangoikoaren pean. Dominus tecum.

Jauna da zureki, nioreki ez bekala; zureki duela bere amore ta konplazenzia osoa; zureki bere delizien jardin ta paraisoan bekala; zureki bere palazio, trono, sagrario ta Zeru bizian bekala, zeñen aurrean dagon asentaturik, au da Jangoikoaren tenplo konsagratua: Jauna zureki zure arimaren potentzia, ta gorputzaren sentido guzietan; memorian, ez oroizeko baizik Jangoikoas; entendamentuan, ez pensazeko deus ezpada beraren; borondatean amazeko sollik bera; begietan, adimentuan, agoan ta gañarakoetan, eztaien senti deus on eztenik. Jauna zureki guzian, guziori egoteko Jainkostaturik, ta izateko beraren gusto ta gloriatako kriatura guzien gañetik. Bedeikatua zu etc.

Aiturik salutazio ain honraskoa, gelditu ze turditurik ixil guti bat pensamentuan, mostratus laur birtute: alke birjinala, humiltasun andia, prudenzia ta ixiltasun juizioskoa. Prosegitu zue aingiruak: Ne timeas, Maria, etc. Etzaitela lotsa, Maria, zeren ezi aurkitu duzu grazia Jangoikoaren begietan. Ez zerutik, ez lurretik, ez infernutik, ez niondik eztuzu deusen beldur izan bear, zeren maite zaitu guzien gañetik guzien Jaun guzis poderosoak. Zuk nauzuna nai du, nai eztuzuna zuk, berak ere ez. Segitzen du Aingiruak mezu ematen, nola izan bear duen seme bat. Baña nolakoa? Jesus, Jangoikoaren seme dena berze alde, ta errege andia izanen dena, ta betiroko. Zer dio ontara donzella soberanak? Nork etzue pensatuko berartan saltaturik biotza alegranzias, bereala instantean emanen zuela baimendea nolanai, edozein gisas? Baña ez ala, baizik izateko ere Jangoikoaren Ama, errege andienaren Ama, badu zerbait erreparo. Zer erreparo? Birjinidadea, edo entereza birjinala konserbatu naia. Eta ala errespondazen dio Aingiruai. O zer doktrina au, estimazeko ia birjinidadearen lorea birjin direnek, ta kastidadearena gañarakoek! Baña konsola bedi Birjina eder-garbiena; kunplituko zaio bere intenzioa, ezi ori beroi nai du Trintate guziak, eta orrenganik jaio nai duen Jangoikoaren Semeak, ta Aingiruak ere bai. Ala ofrezitzen dio Jangoikoaren ordes milagro andi gura izateko Ama ta Birjin bateo Jangoiko andiaren podores ta bere Espiritu Sanduaren birtutes.

Orduan ia Maria Santisimak ematen du bere baimendea: Ecce ancilla Domini, fiat mihi secundum verbum tuum. Ona Jaunaren esklaba, egin bedi nereki zuk erran bekala. Irur birtute berex agertu zitue itz gebetan: Lenbizikoa obediencia ta erresignazio perfekto bat Jangoikoaren manura; bigarrena humiltasun sendoa deitzen dela esklaba, delarik eskojitua erregina ta Ama; irugarrena fede andia, sinestatus segurki inen zuela Ama gelditurik birjin perpetuo. Erran zuelarik itza, obratu ze bera baitan enkarnazioko misterioa. Jangoiko guzis poderosoak Maria Santisimaren odol garbitik formatu zue gorputz bat; kriatu zue ez deusetaik arima bat; arima ta gorputz gau elkarreki uniturik unitu zitue bereki Jangoikoaren semeak Trintateko bigarren personak; eta len zena Jangoiko sollik, gelditu ze Jangoiko ta gizon eginik Ama Birjinaren entraña sanduetan. Milagro andi gau egin ze Trintate guziaren obras, baña usatzen da erratea Espiritu Sanduaren obras, zeren baita amoresko obra, ta amorea attribuitzen baita Espiritu Sanduari. Ez orgatik pensa niork dei ote daiken Espiritu Sandua Jesu Kristoren Aita, ez por zierto, ala nola obratuagatik etxe bat arginak, eztaike deitu etxe garren aita argina. Jesu Kristo bada

konzebiturik Ama Birjinaren sabelean da Jangoiko ta gizon batean, au da persona bat sollik dena Trintateko bigarren persona dibinoa bi naturalezaeki; Jangoiko bekala du Aita Aitaeterno aamarik gabe jenerazio eterno gartan; gizon bekala du Ama Ama Birjina aitarik gabe jenerazio milagroso agitu gontan denboras; baña deitzen da ta da Jangoikoaren Ama Maria, zeren baita Ama gizon Jangoiko denarena persona batean. Egietafede gau deklaratu zue Elizak Efesoko Konzilio jeneralean Nestorio herejearen kontra, zeñek ukatzen baizio Ama Birjinai bere gloria duen andiena, baita izatea ta nonbratzea Jangoikoaren Ama. Andik onat sinestatzen da, paratuak direla Abe Marian Elizaren ordes azken itz gaiek, Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk etc. Amatasunaren gloria andi goneki juntatzen da birjintasunaren gala ederra, baita bateo Ama ta Birjin eder gloriosa, bere parerik izan ez ta izanen ere eztuena sekulan. Misterio soberano gau agitu zeneko etxea, Ama Birjinaren sortuetxea Jangoikoaren probidenzias Aingiruek eraman zute Nazaretetik lenik Dalmaziara, gero emendik berriz Italiara, non Loreto deitzen den lekuan paraturik baitago tenplo andi baten barnean, nora doazin peregrinoek progatzen duten Ama Santisimaren asistenzia, espezialki mogitzeko biotzak kontriziora. Baña beraren persona gorputz ta arima dago zeruan bere Seme Jaun Jesu Kristoren eskuietako aldean.

aitu dugu nola egun egin zen gizon Jangoikoa ta Jangoikoaren Ama egizen Maria. Dugu ia Jangoikoa gutaik bat bekala gutartekoa; dugu geuren naturaleza, gorputz ta odol berekoa gloriako Jauna; dugu geuren aide ta anaia amantea guzis poderoso. Dugu beraren Ama propioa Maria gure lur gontakoa, ta gure guzien Ama biotzes. Dugu bere ardiareki axuria. Nork eztu admiratzen ta estimatzen Jangoikoaren ona gureki, ainberze amore ta fabore mostrapatean guri merejietugunei? Nork eztu amatuko Jesus gure salbazale amoroso apasionatu gau? Nork eztio esker milla Maria Santisimari, zein dela medio baitugu ainberze fortuna? Guzien gañetik nork eztu aziko biotzean konfianza andi bat, izanen delako salbo? Zer gana duen gure galzeko gure Jaunak, itentigulaik alako fineza amoreskoak, ezin desea ezin pensaleizkenak geiegi izanes? Kondenazioaren partes salbazioa, odioaren partes amore, kastigoen partes ematen erremedio, erregalo ta fabore! Bota bearrean gu infernura Aingiru gaixtoeki, nola imitatu baitugu gaixtakerian, aiek bota ta gu ez; ori ezta anitz; biali digu bere seme propioa jaitsi daien gure aragis, ta libra gaitzan bere kostus. Eztio barkatzen bere seme propioari, barkatzeagatik guri. Entregatzen du semea, libratzeagatik esklaboa; gaixtoa eztaien gal, ona atra bedi fiadore paga dezan. Eta orra egun arturik gure trajea, emen naukazie, dio, ona ni zuen amores, ta salbatu naies. O Jesus, eztatik galduko ote naizen, baña badakit, agitzen balitz desgraziagoi, eztela izanen berorren faltas; badakit amatzen badut berori nik eznauela utziko galzera berorrek ni. Nago desesperaturik bateo, ta seguraturik; desesperaturik neureas, baña seguraturik berorrenas. Ni bekatari naiz, baña Jesus salbazale.

(Zierto agrabio andia iten dio Jesus onari deskonfiatzen duenak salbazioas, delarik Jesus salbazale. Zer bada? Zertas zara beldur? Edo dezaken, edo nai ote duen? Dezake ta nai du salbatu, ta ezta berze itekos jautsi zerutik lurrera. Balego iturri bat abasto emen, ta klama banez, nork nai du edan? Ez litzake motiborik gelditzeko egarriak, ezpada berak eznai izatea edan. Bada klamatzen dut: Nork nai du salbatu? nai duena betor; salbazioaren iturria da Jesus. Nai bauzu ongi Jesus, salbo zara. Nik klamatzen dut sollik? Bere Majestadeak klamatzen du obeki, si quis sitit, veniat ad me. Duenak egarri salbazioaren, betor enegana. Ah Jauna, eztut dudarik Jesusen onas, baizik neure gaixtoas. Eta zer da gero? Zein zarate ia, zu gaixto, edo Jesus on? Berze gisas, zure gaixtoa, edo Jesusen ona da ia? Zuk in duzu bekatu, gizon bekala, baña Jesusek iten du grazia Jangoiko bekala. Zuk

naski pasatukouzu gaixtos beraren ona? Gaixto zarela, diozu; ori beroi da salbazeko Jesusek, ezi dio, ez naiz etorri justoen bila, baizik bekatarien. Bisitaturik San Felipe Nerik eri bat utzi zue konsolaturik, ta despeitu ze. Joaterakoan ia karrikan ezaun duzue Jangoikoaren argis deabruaren persekuzio ta arima garren peligroa. Erran zue sanduak lastimaturik: Ah pobrettoa, ah pobrettoa; itzuli gaitzen, ezi bear andian dago. Itzuli ze, ta aurkitu zue kasi desesperaturik. Asi zekio arturik Kristoa animatzen konfiatzera; ark zio ura zegola ia kondenaturik. Sanduak: bada norengatik etorri ze Jaunau Zerutik, ta ilze? Ark: bekatoriengatik. Sanduak: eta zu nor zara? Ark: ni bekatari gaixto bat. Sanduak: Beras zurea da paraisoa, zurengatik etorri ta il delaik. Ala animaturik biali zue paraisora. Naiz bekatu ta deabru guziak kontra, Jesus maite bauzu, triunfante atrako zara; Biba Jesus.)

Eta non dago bere Ama Santissima? Edo zergatik nai izan zue izan Ama? Ezi ala nola egizen gizon amaganik aitarik gabe, bazeike oroat egin amarik gabe. Zergatik bada eskojitu zue Ama Maria? Oh zer gana duen guzien salbatzeko edozein gisas. Nai zue bere muduko etxe andi gontan izan daien Ama ere ekartzeko beregana, hume onak bekala, gaixtoak ere. Eztu miserikordia ia amak semeak baño; ia duela erratea litzake blasfemia. Amak duen miserikordia andia, semeaganik du nola iturriagatik: semeaganik apegatu zekio piedadea, bere entrañetan idukias bedratzi ilabetes, ta bere konpañian ainberze urtes; baña alaere amaren nonbrea nola baita guzia piedade, beratx ta miserikordia; eta nola Jesus naiz Aita izanik infinitoki miserikordioso, Juez ere baita; biz, dio, biz Ama ere, orreki eztirenak trebe ellegatzera enegana zuzenean, doazin lenik ene amagana, eztakidan galdu hume bakotxik ere. (Orgatik izan da eskojitua Maria miserikordiaren Ama, diote San Krisostomok ta San Anselmok (Claus. de dolor. Virg.), salba dezkie Amak bere piedades ta miserikordias salba etzeizkenak justizias. Eta zerbait gisas dago obligaturik bekatariei Maria, ezi eben okasios egin ze Jangoikoaren Ama, ezi ezpalitz bekataririk, etze agian gizon eginen Jangoikoa, ta por konsigiente Jangoikoaren Ama ere ez Maria. (Anselm. ib. 2. conc. c. 50) Beira ia eztigun obligazio? Baña borondate digu ia, zeren digun bere seme dibinoak, zeñi kostatuginan ainberze pena ta eriotzea gurutzean, zegolaik aldakan beira Ama ona. An egin ze gure ama ere, hume doloreskoen Ama, ta miserikordiaren Ama. An ikusi ta aitu zue nola Jesus onak eskatu zuen barkazio bere Aitari bere kontrario gaiendako erran zuelarik lenbiziko itza gurutzetik: Aita, barka bezote, ezi eztakite zer ai diren. An azken atsetan utziginduza gu enkargaturik bere Ama Santisimari hume bekala San Juanen personan, erran ziolaik gurutzetik: Ona zure semea; eta guri bere Ama gure Amatako, erranik: Ona zure Ama. Eta akabatu zelaik iles, ilze inklinaturik burua bere Amaren aldera, nola erran balezagu, dio Hugo Kardenalak (ap. Claus. p. 2 Cath. c. 68): Ene Amari beira, onen medios eska, au da miserikordiaren depositoa. Eta gurutzearen ezkerreko aldean bear dela pintatu Maria Santissima, dio San Bernardok, bekatarien anparoagatik. (ap. Cl. p.2. conc.c.38) Ama dibinak berak errebelatu zio Santa Brijidari: Ni naiz Ama bekatarien emendatu nautenen (Cl. p.2. Cath.c.63). Itz gau añaditu zue, entenda dezagun, ezpagara nai emendatu, eztela fiatu bear beraren debozio-idurian, ezi ori litzake engaño bat, baizik izan debozio ta bateo emendatzeko deseo. Zoaie bat gaixtakeriara, ikusi zue karrikan pasatzean Ama Birjinaren imajina bat, okurritu zekio erratea itz gura, monstra te esse Matrem, monstra bez dela Ama; errespondatu zio imajinatik, Monstra te esse filium, monstra zuk zarela humea. Berze alako batek erran zio: O miserikordiaren Ama, otoiz egin bez enegatik. Gauza prodijiosoa! Imajinan triste sebero mostratus begitarte erran zio: Zuek bekatariek deitzen nauzie

miserikordiaren Ama, ta bitarteo zeuren bekatueki etzarate baratzen egines miseriaren ta tristuraren Ama. (Cl.2.Conc. c.50) Baña deboto fina denak konfia bez eztiola faltako, espezialki bear orduan (San Juan de Diosi aparezituri ilzerakoan txukazen zitio amorosa aurpegiko izerdiak, erraten ziola, au da ordua, zeintan beñere eztioten faltatzen neure debotoei. Oroat errebelatu zio Santa Brijidari, ta Blosiori. (Cl.2 Cath. c. 68) Baña bekatariak ere nai badu emendatu, konfia bez, aliketa sartuartaño infernuan. Egun erakusten dida Elizak guzietako erremedio, gizon eginik Jangoikoa, Jangoikoaren Ama Maria, ta bekatarien Ama; zer nai dezaket ia? tentatzen banau deabruak suberbias, edo luxurias, edo iras, edo bizio edozeintas, or daukat Ama Santisima, or daukat Seme dibinoa. Bear badut ezaumentu, dolore, grazia konfesazeko ongi ta emendazeko, badakit nora joan.) Dela gorputzaren dela arimaren, dela oraiko, dela geroko, mediku onak ditut; joanen naiz Amaganik Semeagana, Semeaganik Amagana. Eternidadeko iteko andi gartan, dakitelaik beautela emendik atra sekulako infernura, edo sekulako gloriara, xakin eztutela mereji gloria, ta infernua bai, zer izanen da nitas? Aranze gau frinkaturik biotzean nola kuratu? Ezta berze erremediorik, baizik ungendu bat. Zer ungendu? Juntatu Ama Birjinaren esnea, ta Seme dibinoaren odola, orra ungendu admirablea. Sosega utzirik bere burua bien eskuetan; ala joan eternidadera. Kontazen du Pedro Kluniazensek gizon bat ilzeko tranzean ia ia zegola desesperazeko guzia lotsarriturik, zeren demonioek ekarririk libru andi bat, non zeuzkiten asentaturik arren gaizki guziak sofokazen zute kongojas. Suspiratu zue Ama Santisimagana, zeñen deboto izan zen. Bereala agertu zekio bere Semeareki besotan, konsolatu zue, erran zio: Ona ene seme Jaunonengatik barkatuak dire zure bekatu guziak. Desaparezitu zire Espiritu gaixtoak, serenatu ze gizonoi, ta ilze gozo andiareki. (ap.cl. Cath. 2. c.68) Utzi gaitzen oraidanik orduko bere besotan, ta erragun Elizareki Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk otoiz egizu gu bekatariengatik, orai ta gure eriozeko orduan. Amen.

Sermo in festo Ascensionis
Domini nostri Jesu Christi

Egun zelebratzen dugu sinestatzen ta konfesatzen duguna Kredoaren artikulo gartan, igan zela zeruetara Jesu Kristo, ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean. Au berau signifikaizen da itzaltzeareki zirioa ebanjelioaskeros, despeitu ta desaparezitu dela mundu gontaik Jesus argi egiaskoa etorri zena argitzera munduko gizon guziei. Aizagun despedidako Ebanjelioa, zeñeki San Markos ebanjelariak bukatzen duen bere historia sagratua. Zeudelarik, dio, ameka apostoluak jarririk maian aparezitu zekiote Jesus azkenean, ta eman ziote erreprehensio bat izanas biotz gogorrek sinestatzeko beraren erresurrekzioa; ta erran ziote: Joanik mundu guzia barna predika zazie Ebanjelioa kriatura guziei. Sinestatzen ta bataiazten dena salbatuko da, baña eztuena sinestatzen, kondenatuko da etc. Azken itzak dire ebek: Jesus gure Jauna mintzatuas geros aiei, igan ze Zerura, ta dago jarririk Jangoikoaren eskuietako aldean. Eta aiek joanik predikatu zute leku guzietan, lagundus gure Jaunak, ta konfirmatus doktrina milagroeki. (Luzeago epistolan kontatzen du San Lukasek (Act. 1) gure salbadorearen joatea Zerura; nola bere pasio ta eriotzeaskeros agertu zekioten bizirik berrogei egunes apostoluei emanasko progu egietafedearen; nola azkenean jarririk maiean manatu zioten ez apartazeko Jerusalemik, aliketa bete arteo Espiritu Sandus, ofrezitu bekala; nola bear zuten izan beraren testigo ta predikari munduaren azken basterreraño; ta nola gero bere gaieki atrarik kanpora (in ej. evang. ult) ta goraturik eskuak eman zioten bedeizioa, ta aiek beira zeudelaik zoaien iganes zerura bere birtute propios; nola azkenean altxatu zekioten aien begiei lañu bateki? Nola bi aingiru jaitsirik erran zioten: Zertan zauste ala beira zerurat? Jesus gau zuenganik igan dena zerura, ala etorriko da, nola ikusi duzien igaten.) Onen gañean lenik berexi bear dugu sinestatu bear dena; gero joan xegatus konsiderazioareki, atrazeko gusto ta probetxu; azkenean erakutsi nola bear dugun igan Jesusen atzetik gu ere, ongi izatekos. Eztakigula atzen salutatzea gure Jesusen Ama Maria. Abe Maria.

1. Sinestatu bear dena egungo misterioan da au: Jesu Kristo gizon dibino gura, gure amazale apasionatu gura, gure salbazio, gure ondasun ta gure esperanza guzia dena, jautsi zena zerutik lurrera igateagatik gu lurrekoak zerura, gure amores ta onginaies egin zena gizon milagrosoki, ta jaio zena Birjina Mariaganik, bizitu zena munduan ogei ta amirur urtes bizitzaren exenplu ematen, zerurako bidea erakusten, ta on guzia egiten, pasatu zuena pasio doloreskoa, ta il zena guruzifikaturik gurutzean, gero ortzirik gorputza obian, ta jautsirik arima linboetara an zeudenen libratzera, irugarren egunean erresuzitatu zena bere birtute propios berriro bizirik, berriz juntatus bere arima ta gorputza gloriosorik ez berriz ilzekotan, eta ala glorioso erresuzitaturik aparezitu zena berzei berrogei egunes, usteko bere Eliza guzis seguraturik anitz progeki, egun berrogeigarren egunean sinestatzen dugu bere birtute propios igan zela bere gorputz ta arimareki zeruetara, ta an dagola jarririk Aita Eternoaren eskuietako aldean, duela podore ta Majestade bera Jangoiko den bekala ta gloriako errege soberanoa.

2. Orai konsideratzeko dena da agitua iganbañolen, (zeñen memoriatan agian da kostunbre leku gebetan errezatzea txutirik berrogei Kredo egun) pensa nola detenitu zen bere Majestadea lurrean aparezitus maiz konsolatzen bere Ama Santisima, bere apostolu, ta kristio berri gaiek, konfirmatzen bizian erakutsirikako egietafedeen sinestean, eta prebenitzen despedidako geldiz zeizen konformidade onean beraren ausenziaren penan ta

tristuran, seguratus beren salbazioas ta zeruratzeas bere denboran, ta bitarteo bere anparoas ta asistenzias, ta Espiritu Sandu emain ziotenas bizitzeko, trabajatzeko ta padezitzeko alegreki ta animosoki ilartaño. (Banoaie, erraten ziote ala nola Aita edo Ama amoroso batek bere hume erregalatuei, banoaie prestatzera zuendako leku zeruan, ta berriz etorriko naiz, ta ermakozaitet nereki, ni nagon lekuan zaustengatik zuek (Joan 14). Nola erran balez, noaie idikitza zeruko atariak ene gizonendako; alegraziaite, ezi ordu delaik, ermakozaitet ene konpañiara. Eta berriz, orai guti bat, ta ez nauzie ikusiko, ta guti baten buruan ikusiko nauzie zeren banoaie ene Aitagana. Orai neke ta tristura guti bat pasatukouzie, mundua zoraturik dabilan bitarteo bere aleganziaetan, baña zuen tristura itzuliko da gozotan, eta niork eztizie kenduko gozo gura. (ib. 16) Nola erran balez, orai trabaju pixka bat, gero deskansu eternoa, orai pelea, gero triunfoa ta korona; orai azaroa negarres, gero eraizioa alegrias; orai bidea ibili neketankara, gero mugara ellegaturik errepausa ta gozo guzia nai bekala; orai negu pixka bat, gero uda eternoa.

Eta berriz, (ib. 14) etzaistet utziko desanparaturik, banoaie, baña gelditzen naiz zueki. Eman zaida podore guzia zeruan ta lurrean, (ultim Math.) zoaste erakustera jende guziei; eta orra zueki nago beti munduaren akabanzaraño. Nola dago? Ez solamente guzieki bekala ematen ta konserbatzen bizitza ta indarrak; ez solamente justoeki bekala grazias ta amores; ez solamente obentto eskojitueki bekala probidenzia espeziales erregalatus ta faboratus miragarriro; baitare ain errealki nola zeruan presente sakramentuan, naiz altxaturik ikusi eztaiken gisan. Azkenean, maite banauzie, alegratu bear zarate ni joateas ene Aitagana; ta konbenizaizie noadien ni, ezi ezpanaiz joaten, ezta etorriko zuengana Espiritu Sandua, ta joaten banaiz, bialiko diziet. (Jo. 16) Zein aita edo zein amak daki tratatzen ain amorosoki bere humeak? Azkenik atra zituen bere konpañian oian batera; an in zitiote amorearena azken demostrazioak, utzi ze adoratza bere llagen señaile prezioso gaies despeidan bekala; pensa San Pedro, San Juan ta berze sandu gaien amoreta ta doloreta, itzak eta negarrak lanze gartan! Zer besarkatzea ta apatzea oin sagratu gaiek! Zer eskatzea bere Majestadearen azken bedeizioa betikos! Goraturik eskuak eman ziote bere bedeizioa. Goratu zitue zerurat, mostrazeko bere ematea zela ez lurreko, baizik zeruko ondasunen; bi eskuak goratu zitue, mostrazeko beraren bedeizioa zela bete abundante grazia ta gloriako ondasunes. Oh! ditxosoa logratzen duena Jesusen bedeizioa! Eztaike ia desea.

Gero zoeie iganes airean gora bere birtutes, guziak zeudelaik beira. Konsideratzeko da guzien Jaunaren podorea igate gartan, nioren ta deusen bearrik gabe; eta lurrean gelditzen zirenen begiak eta biotzak joate gura atzetik. Zer aien aklamazioak ikustas triunfante ala igaten Jesus ona! Zer deseoak, ansiak eta suspiroak joan naies beraren konpañian, posible balitz! Zer alegria alde bat Jaunaren glorias, ta berze alde tristura amorosoa ezin segitzeas! Bada lañu garreki altxatu zekiotelaik, zer aien pena! Da ere pensazeko bi Aingeru gaien jaustea ta erratea, zertan zeuden ala beira beira, eta oroiarastea juizioko egunas nola etorriko den guzien juzgatzera.

Iganik ia ta desaparezturik lurrekoen begietaik, daike pensa Zeruko aingiruen errezibimentu ta akonpañamentua gizon dibino garri, aien, gure ta guzien errege denari! Nolako bibak ta aklamazioak, kantak, laudarioak ta musikak Jaun andiaren obsekiotan! Ango alborote ta tropelia ongi ordenatua konbidatus elkar, ta alzinatus a porfia festejatu naies errege berri gura! Klamatze gura, dion bekala Dabidek (ps. 23): Idiki, Prinzipeak, zeuren atariak, gorabeites atari eternalak, ta sartuko da gloriako Errege Jauna. Nor da gloriako errege gori? Jaun fuerte ta poderosoa, birtuteen Jauna bera da gloriako Errege.

Idikirik orduan gure Erredentorearen medios atari gaiek, beti orduraño ertxirik egon zirenak gizonendako, sartu ze gure Jaun dibinoa bere akonpañamentuareki arzera posesio bere tronoas Jangoikoareki bateo. Adoratu ta adorazen dute aingiruen koro guziek sandueki. Orra ia gure gizontasuna goraturik Jesu Kristoren personan guzien gañetik. Orra Jesu Kristo gure aide ta anaia, gure aragi ta odol berekoa egin zena, guregatik jaio, bizi ta il zena, guregatik erresuzitatu ta igan zena Zeruetara, orra eginik Gloriako errege guzis poderoso egin ta desegin dezakela nai duen guzia goiti ta beiti, zeruan, airean, lurrean, itsasoan, infernuetan.

3. Zori onean dela, o Jesus, bizi bedi ta erreina bez eternidade guzietan. Zori onak ematen gara geurei ere, baitugu gloriako errege Jesus gure amazale bakarra ta andiena, guregatik ainberze egin ta padezitu duena. Nola etzaigu etorri bear konfianza ararako gaituela gu ere dugunok beraren izena, fedea ta marka? Nola daike atzen salbatzeas Jesus? Lenago atzenduko da bere izenas, nai baitu erran salbazalea. Izenas landara an dauzki bere llogen markak patente oroitzeko ta presentazeko bere Aita Eternoari gure faboretan. Llaga gaiek dire gure salbazioaren prendak. Konfia, ezi ia indar dute gure bekatuek baño, insignia gaiek. Ene humettoak, erraten digu San Juanek (1. c.2) Au eskribitzen diziet, ez dezazien bekaturik egin, baño naiz egin balez norbaitek, ez deskonfia, ezi Jangoikoaren alzineko dugu abogatu Jesu Kristo justoa, ta bera da logratzeko gure bekatuen barkamentu, eta ez solamente gure bekatuen, baitaere mundu guzikoen. Alako fiadorea dugu an.

Baña berze alde nori etzaiko eldu beldur, beiraturik bere buruai nolakoa den, admititua izateko sanduen konpañian? (Espezialki dakielarik ezi bietaik bat edo berze dela preziso agitzea, edo erreinatzea an goiti zeruan, edo erorzea beiti infernuan, ta egotea an erretzen ta errabiazten eternidade guzian?) Nor ezta ikaratzen, xakinik fedes Jangoikoaren palazio gartan eztela admititzen gauza mantxaturik (Apoc. 21) eta diona San Agustinek (s. 2. ...) xakin bear dugula guziek, Kristoreki eztela igaten subergia, ez kodizia, ez luxuria; biziorik batere eztaikela igan gure medikuareki; ta direla bizioak ta bekatuak ala nola prisioneak ta kateak estorbatzen digutenak araratzea, ta beitirat tiratzen infernura. Orai estado gontan, bi extremo geben erdian, konfianzaren ta beldurraren gorabera gontan nori etzaio itxekitzen deseo ta ansia ellegatu naies gloria gartara? Nork eztu suspiratzen Dabideki, quemadmodum desiderat cervus etc. Ala nola oreñak anhelatzen baitu iturrira, ala ene arimak berorregana, ene Jangoikoa. Noiz ellegatu, ta agertuko naiz orren presenzian? (ps. 41) Edo ellegatuko ote naiz noizbait? O Jesus, berori dago Zeruan, ni lurrean orai; emendik guti zer izanen da nitas? Nork ia, ene fielak, eztu naiko injenioren bat igateko an gora? Baña nola daike igan lurreko animalettoa berez? (Ararako kriatu du gizona Jangoikoak, ta ura da gizonaren azken fina, ta ori adiarasten digu ematen digun figuran ere, ezi gañarako animale guziak formatutuelaik agos bera lurrera beira, gizonari paratu dio aurpegia gora beira dezan zerura.) Eztaike igan berez, bai Jangoikoareki bateo. Jangoikoak edatus bere eskua, ta gizonak juntatus berea. Jangoikoak eman es grazia, ta gizonak paratus diligenzia. Ori ala delarik, in bear duguna da diona errefranak, dei Jangoikoari, ta eutxi kabikoari. Nai du erran, eskatzeko Jangoikoai, ta egiteko nork bere aldetik bear dena. Zer egin bear da? Jesus igan ze pasaturik pasio ta eriotzea gurutzean, segi dezkigun beraren pausuak, dio San Pedrok (1. c.2) pregonatu du bere Majestadeak (Luc. 9). Nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere pasioneei, ar bez bere gurutzea ta segi benaza. Ukatzegoi da errepugnatzea; gurutzea da trabaju bear dena kunplitzeko Jangoikoaren legea. Lege gau dago amar mandamentuetan; orra non duzun amar

gradatako eskalera igateko zerura. Nai baituzu egalak egatzeko, bi egalak dire bi amoreak; Jangoikoaren amorea guzien gañetik, ta proximoaren amorea Jangoikoagatik. Ori egizu, ta salbo zara, dio Jesu Kristok: hoc fac et vives. Luc.10. Ebetaik bat autxirik, eztaike pasa niolaterre zerura. Eta ezta erremediorik, auxten bada? Bada bat, baita penitentzia. Oneki emendatzen, ta erremendazen da.

Baña nor daike segura goardatzeas legea ongi, ta egiteas ongi penitentzia? Nork dezake pasa eskaleragoi erori gabe, ta eroririk nola itzuli sano ta sendo, ezpadio edatzen eskua gure Jaunak? Orgatik da eskatzea humilki bere Majestadeai, nai badigu in graziagoi Jesu Kristoren atenzios. Larrapoa nola daike bolatu airean gora? Ain imposible da gizon lurrekoa igatea gloriara bereganik, ezpada Jangoikoaren grazias Jesu Kristoren medios. Orgatik Elizak mezan eskaturik bigarren mementoan purgatoriokoengatik, añaditzen du golpe bat emanen bularretan. Nobis quoque peccatoribus, nai baitu erran, guri ere bekatariei berorren miseriorden geiegian esperatzen dugunei digna bedi ematea zerbait parte ta konpañia bere sandueki, zeñen ertean admiti gaitza ez beiratus merejimentua, baizik emanen barkamentua Jesu Kristo gure Jaunagatik. (Eta Jesu Kristo berai diona himno gartan: Tu Rex gloriae Christe etc. Berori da gloriako Errege Kristo; berori libratu naies gizonok nai izan ze egin gizon Birjinaren sabelean, berorrek garaiturik eriotzea idiki zitue Zeruko erreinuak sinestatzendiotenendako; berori dago jarririk Jangoikoaren glorian berean, ta etorriko da guzien Juez; berorri bada eskatzen diogu fabora gaitzan berei bere odol preziosoareki erori gaituenei, ta in bez izan gaitzen kontatuak sandueki gu ere gloria eternalean.)

Imajina gaizke egungo festan gaudela bekala zeruko atarian ala nola pobreak sentitzen an barneko alegranzia ta festa, naiak gozatu guk ere, ta ezin atrebi deitzera atarian fuerte. Noizbait ere asten zarela dei ta dei, negar ta negar, Jangoikoaren izenean limosna bat pobretto goni. Nor da? erraten dizute. Zuk: Naiz pobre miserable bat neure kulpas, naiz gloriako erregeren aide naturalezas, ta erosia beraren odol preziosoas. Beraren amoreagatik otoi otoi admitibenazate or nonnai limosnas. Ezaundurik nor zaren, erraten dizute, ola ta zergatik desertatu zina etsaiagana, utzirik zeure errege ta Aita amorosoa? Zoaz, dizula ark zeure soldada. Egiada, diozu, egin dut desatino andia, ortas dut damu, barkazio eske nago. Leku pixka bat niri ere otoi, ene Aitaren etxe gontan. Errespondatzen dizute: Emen eztaike sar gauza mantxaturik; au da sanduen paraisoa; zu etzara sandu; emen eztu lekuri ez suberbiak, ez luxuriak, ez irak etc. Diozu: errenunziatzen dut bizio guzietatik; solamente nai dut Jangoikoa ta Jangoikoak nai duena. Diote: Ezta aski erratea, proguak eman bear dire. Eztut eskatzen, diozu, neuregatik, baizik Jesus onagatik. Ori izanen da, diote, noiz asko negar in duzun. In negar ongi gaizki eginas. Ala usten zaitute. Ia beras in negar, eska etc. Jesus zerura igateko despeitu zen lekuan utzi-emen zitue bi oñen kuntzeak zein ageri diren klaro egun berean, ta eginik ere tenplo bat an, ezin estali omen zute leku gura, ain guti egin tellaturik alde gartan, nondik pasatu zen igaterakoan. Kuntze gaiek zein aldetara zeuden erreparatzeagatik, joan ze San Ignazio bigarren aldian leku sandu gaietara. (ap. Abreu.) Gañarakoak bisitaturik, ellegatu zelaik arara peregrino bat itxeki omen ze ainberzeko ansian ikusi naies Jaun Dibinoa, ezi ia etzue nai bizi ta klamazen zue negarres eraman zezan mundu gontaik. O Jesus! O ene amorea etc. Itz gebeki despeitu zekio arima, ta aurkituemen zire eskribiturik arren biotzean. O ene amorea Jesus etc.

Sermo in festo Pentecostes.
De igne Spiritus Sancti

Egun deitzen da Espiritu Sanduaren Bazkoa, zeren egun kunplitu zen Jesu Kristok ofrezitua, bialiko zuela Zerutik Apostolu ta diszipuloengana Espiritu Sandua. Egun bada zeudelaik guziak leku batean, agitu ze bat-batean arroitu bat Zerutik; eldu zen bekala aize erru bat bete zuena etxe guzia. Eta bakotxaren gañean agertu ze ala nola mi susko bat, eta guziak bete zire Espiritu Sandus, ta asi zire mintzatzen asko mintzo jenerotan Espiritu Sanduaren birtutes. Atra zire andik beterik ausardias, xakintasunes, Jangoikoaren amores ta zelos, ta asi zire predikazen, ta admiratzen, ta konbertitzen jendea. (Act.2) Misterio gontan dugu ikasteko, nor eta zer den Espiritu Sandua; gero beraren efektoak.

Espiritu Sandua da Jangoiko ta Trintateko irugarren persona dibinoa prozeditzen duena Aitaren ta Semearenganik. Da Espiritu purisimo gorputzik gabekoa, ta da sandua obratzen duena ariman santidade guzia. Dago leku guzietan Jangoiko bekala, baña espezialki Zeruan, non manifestazen duen ta komunikatzen sanduei bere gloria, eta munduko justoen arimaetan, deitzen baitire beraren tenplo, ematen grazia, amore, ta gañarako efekto soberanoak. Nola prozeditzen den Aitaren ta semearenganik, neke da entendatzea, ta nekesago explikatzea; guretako aski da erratea, ezi amatus elkar Aita ta Semea, prozeditzen edo espiratzen dela Espiritu Sandua, zein orgatik deitzen da ere amorea edo karidadea; ta Jangoikoaren amoreso obrak atribuitzen dire Espiritu Sanduari, naiz diren Trintate guziarenak; ala nola enkarnazioko misterioa diogun obratu zela Espiritu Sanduaren obras, naiz izan zen Aitaren ta Seme beraren obras ere. Espiritu Sandu gau deitzen ere da espezialki Paraklito, baita konsolazale ta abogatu, zeren konsolatzen duen miragarriro arima ta faboratzen amorosoki. Deitzen ere da propiki Jangoikoaren donoa, ta on guzien iturria konparazios. Da Espiritu ikusi eztaikena aragisko begis, baña mostratu da gure on naies ia usoaren idurian, ia lañu, ia aize, mi ta suaren idurian, adiarasteko gaudenes, aragis bestiturik efektain zituenak ariman. Bai ta zer prebenzio bear da errezibitzeko Jangoikoaren Espiritu dibino gau? Badio Ebanjelioan Jesu Kristok: Si quis diligit me etc. Nork ere amaten nauen ni, dio, ark goardatukotu nik erranak, ta arregana etorriko gara, ta arren baitan egonen gara. Beras amorea da prebenziorik obena, nola efekto lenbizikoa ere baita amorea. Suak su itxekitzen du. Su da Espiritu Sandua ta amorea. Suaren konparazios ikusi beartugu zenbait efekto itentuenak ariman. Saluta zagun lenik amorearen Ama Maria. Abe Maria.

Espiritu Sandua Jangoikoaren su amorosoa ematen da egun lenbiziko kristioen biotzetara, eta ofrezitu da, eta prest dago ematera gure biotzetara ere, gu nor bagara, ta prebenitzen bagara; et ad eum veniemus. O dono deseagarria! Baña zein ote dire motiboak mogitzen dutenak bere Majestadea egitera alako faborea? Irur usten dut: lenbizikoa beraren ontasun, amore ta onginaia guri; bigarrena Jesu Kristo gizon dibino garren merejimentuak, zeñek irabazi zuen guretako; irugarrena gure bear andia, ezpaikara gauza errateko ere Jesus, ezpada Espiritu Sanduaren grazias. Eta zer fines eldu da? Berze irur pensatutut: Lenbizikoa, Kristok egin zuen lana konfirmatzeko gure baitan sarturik biotzera Espiritu Dibinoa, an konsolatus, animatus, erakutsis ta inarazis on guzia. Bigarrena, emateko testimonio Jesu Kristoren fedeas ta doktrinas bere sanduen agos mundu guziaren alzinean ausarki. Irugarrena desengañatzeko mundua, ta erreprehenditzeko, ezpaute sinestatu ta ondu nai paratus testigo ta fiskaletako bere sanduak.

Eta zein dire efekto itentuenak biotzean? Itz bates. Deabruaren espirituak itentuenaren kontra dire itentuenak Jangoiko Espiritu sandu gonek. Nork konta guziak? Zenbait atrakotugu suaren konparaziotik.

1^a. Suak lenik zur busti edo humedo dagonai doakio kendus humedadea; ala Espiritu Sanduaren suak len lena du bizioen ta bekatuen loa ta lekeda desegitea biotzean, ta atrarastea biotzetik kontriziosko negarrak ofendituas Jangoikoa. Oposizio fuertea dute urak eta suak elkarreki; iagokoa dute bekatuak ta Espiritu Dibinoak. Eztaizke biak bateo aurki biotz batean; edo urak itotzen ta itzalzen du sua, edo suak garaitzen ta sekatzten du ura. Orai bada senti baduzu biotzean oposizio fuerte bat bekatuen kontra, ta sentimentura amoroso fin bat ofendituas Jangoikoa atrarasten tizuna biotzesko negarrak, señale etorri dela zuregana Espiritu Sandua. Admiti, estima ta goarda Jangoikoaren dono andigoi. Kontra etc.

2^a. Sua doaie berotus ta eartus egurra itxekitzeko; ala Espiritu Sandua doaie berotus biotza, au da afizionarazis Jangoikoagana ta Jangoikoaren gauzetara, penitenzia, orazio, limosna, konfesio, komunione ta obra on guzietara. O zer diferenzia arimatik arimara! Batzuk ain lisiatuak banidade ta gaixtakerietara! berze batzuk ain emanak onera! Nola den diferente Espiritu dominatzen duena bat, edo Deabruaren espiritua, edo Jangoikoaren Espiritua. Nai bauzu xakin zein espiritu jabetu den zure biotzas, beira onen afizioneak.

3^a. Suak duena ia da itxekitzea ta erretzea; ori beroi Espiritu Sanduaren suak, baita amore. Nola itxekitzen ta erretzen du? Amorostus Jangoikoas arima. Nola ezaunduko da? Ala nola su delaik, goratzen baitire ke, edo txindi, edo garrak; ta berotzen baitu edo erretzen urbilzen zaion gauza; ala arima Jangoikoaren amorearen suas artua egoin da oroitzen ta pensatzen maiz Jangoikoas; orra ke on bat; desaogatuko da maiz afekto ta ansiatan Jangoikoagana. Orra txindi amoreskoak; inen du inala ongi Jangoikoagatik; orra sugarrak; ta prokuratuko du ontzea tratatzentuenak; orra berotzea ta erretzea. Ikusten duenak berebaitan alakorik, badezake sinesta etorri zaiola Espiritu Sandua. Kontra etc.

4^a. Suak alaber argitzen du. Espiritu Sanduak obeki. Nola? Emanes desengañu ta ezaumentu munduko banidadees, ikusiarazis emengo deus guti balio duena, ta eternidadeko gauzen egi eta fedea. O zein atzendurik gerokoas bizi diren asko! Zein xoraturik ta itsuturik munduko itxurapenes! Zer da au? Ilundura barratu dena mundu guzian. Betor Espiritu Sanduaren argia; argi bezote gure biotzei ikusteko dena den bekala. Kontra Deabruaren Espirituak.

5^a Sua da alaber gauza ederretaik bat, ta ederzen du itxekitzen duena. Ala ikusten da zena ikatz beltza itzulzen dela brasa ederra; zena egur edo burriña itsusi erdoitua, gori eder flamante. Obeki Espiritu Sanduaren amoresko suak garbitzen ta ederzen du arima; doakio erraustus bizioen ta imperfekzioen itsustasun ta erdoiak. O zer kuido do pararasten dion ez admitizeko gaizki denik! Nola beldur ta alkearasten duen bekatues! Nola apartarasten duen okasio, peligro ta galbideetaik! Nola notarasten dion faltarik txipiena, ta borratzen penitenzias len baño len! O zein arima ederrak sanduenak! Zergatik? Zeren artuak zeuden Jangoikoaren Espiritu amorosoaren suas. Kontra etc.

6^a. Suak alaber du bere inklinazioa gorarat, gora kea, gora garra. Ala Espiritu Sanduak gure espiritua tiratzen du gora Zerurat; gora pensamentuak, gora afektoak ta goraintziak. Suspiratzen dio maiz, o noiz ellegatuko naiz gozatzer Jangoikoa? Edo ellegatuko ote naiz? Quid mihi est in coelo etc. Zer balio du emengoak angoaren aldean? O nere esperanza! Ta o nere beldurra! Kontra etc.

7^a. Suak alaber asko ongi iten du; oneki erremediazen gara otz garelaik, oneki erretzen, egosten, gisatzen dire ogi ta janariak, ta berze asko probetxu iten du. Ala Jangoikoaren amoresko suareki konsolazio eldu da, ta ansia iteko al guzia Jangoikoaren gogos iten den guzia da agitz balioso; ori gabe naiz trabaja, naiz kanta, naiz erreza, naiz predika, naiz egin edozein gauza, eztu deus balio, aizeak darama, debalde nekatu; baña Jangoikoaren amores iten denak, naiz guti den, balio du anitz; lurra biurzen da urre.

8^a. Suak iten du ere arroitu kontrarioen ertean, ala Espiritu Sanduaren suak animarasten du gizona, atrarasten dio aurpegi, ta gorarasten boza mundu guziaren kontra ere bearbada, defendatzeagatik Jangoikoaren fedea, erakusteagatik zuzen bidea, erreprehenditus gaixtakeriak. Ikusi ze au klaro egun Apostoluetan.

9^a. Sua da alaber elementu erru ta fuertena; urean bizi dire arraiak, airean egasteak, lurrean animaleak ta gauzak; baña suan ez dezake iraun bizirik deusek ere. Guziei erresistitzen du, ta asko errausten du. Ala Jangoikoaren amoresko sua da agitz fuerte ematen duena arimo ta indar trabajatzeko, padezitzeko ta sufrizeko anitz. Nondik zue San Franzisko Xabierek ainberze indar erabilzeko ainberze neke ta eriozeko peligroen erdian? Nondik sandu guziek egiteko ainberze penitenzia ta gauza on? Nondik martirek ainberze pazienza, arimo ta alegria pasatzeko pena lotsagarriak, nola balire erregaloak? Espiritu Sanduaren suaganik. Animazale ta konsolazale ona zute. Exemplum trium puerorum.

Sermo in Dominica
Santisimae Trinitatis.
De mysterio altissimo

In nomine Patris, et Filii et Spiritus Sancti. Marc. ultimo

Trintate Jaun poderosoa, nondik guzia, norengatik guzia, ta norengana baitator guzia, da egun zelebratzen duguna, misterio gora gorena, zein ezin dezaken gizonak konprehendi mundu gontan. Munduak izan duen entendamenturik andiena, San Agustin gloriosoa, konprehenditu naies zebila diskurritzen, ta kontenplatzen paseatus bidanabar itsasbasterrean, ta gure Jaunak nai izan zue desengañatu bisione goneki. Aur bat zego an atratzen ur itsasotik kontxa bateki, ta botatzen an lurrean in zuen zulotto batera. Sanduak ikusirik galdegin zio: Zer ai zara or, aurtto? Aurrak: Nago emen biltzen itsasoko ur guziak zulo gontara. Bada eztakusazu ori dela imposible? erran zio sanduak. Eta aurrak agotik agora: Inposibleago da konprehenditzea orrek bere entendamentuareki pensatzen dagon misterioi. Erran ta desaparezitu ze, eta sandua gelditu ze desengañaturik humil humila. An goiti glorian bere Majestadeak eman dezagula ikustea nola den, ezi munduan eztaike ongi, ta eztigu ere manatzen entendatzea, bai solamente sinestatzea firmeki, nola errebelatu dion bere Elizari, ta Elizak erakusten digun guri. Ontako ere bear dugu grazia; lograzeko enpeña zagun Maria. Abe Maria.

Nor da, edo zer da Trintate? Itz gonek nai du erran irurtasuna, ta misterioa dago izatean Jangoiko bat bakarra irur personatan, eta irur persona Jangoiko batean. Bat izatean irur, ta irurak bat. Trintate bada da Jangoikoa. Aita ta Semea, ta Espiritu Santi Jauna, irur persona distinto, ta Jangoiko bat egiaskoa. Ezta oroat deitza Trintate, nola deitza Jangoiko, zeren ezi persona bakotxa iruretaik edozein da Jangoiko, baña bat sollik ezta Trintate, baizik irurak batean dire Trintate. Aita da Jangoiko, ta ezta Trintate; baizik Aita ta Semea ta Espiritu Santi Jauna batean dire Trintate. Orai emen bear da goratu lurretik gogoa, ta ez pensatu lurreko gauzen gisara, ezi Jangoikoa ezta gorputz, ezta gauza materialeren bat, ez, baizik espiritu purisimo, ezin daikena ikusi, aitu edo ukitu gure aragisko sentido gebeki. Emen lurrekoetan ikusiaskeros irur persona, preziso dire irur gorputz, eta ezaizke irurak bat izan. Ez alakorik pensa Jangoikoan niolaterere, ez memoriaik ere. Emen lurrekoetan aituaskeros Aita, edo Seme, berla gogoratzen da. Bata lenago, geroago berzea gorputzen jenerazioen ariora. Ezta alakorik Jangoikoan niolaterere, ez memoriaik ere. Ezta an lenago ta geroagorik, ezta jenerazio gura pasatzen dena, baizik betikoa, eternoa, kontinokoa, eztena akabatzen. Beti Aita dago enjendratzen Semea; eta naiz ezten emengo gisara an, alaere, emengo nonbreak usatzentugu etxakines nola deitu berze gisas, ta ala lenbiziko persona deizen dugu Aita, bigarrena Semea, irugarrena Espiritu Santi Jauna, nolapait ere adiarazi naies misterio gora gura. Ontan sinestatu bear duguna erraten digu Elizak San Atanasioren sinboloan itz gebeki. Quicumque etc.

Au da, dio, fede katolikoa, benera dezagun Jangoiko bat irurtasunean, ta irurtasuna batean, bateratu gabe personak, ta berexi gabe sustanzia. Zeren ezi bat da Aitaren persona, berze bat Semearena, berze bat Espiritu Santi Jaunarena; baña Aitaren ta Semearen, ta Espiritu Santi Jaunaren Jangoikotasuna da bat, bardin gloria, ta Majestadea igoalki eterno. Nola Aita, ala Semea, ala Espiritu Santi Jauna. Inmensoa Aita, inmensoa Semea, inmensoa Espiritu Santi Jauna, baña alaere ez irur eterno, baizik eterno bat; eztaere irur

inmenso, baizik inmenso bat. Alaber guzis poderoso Aita, guzis poderoso Semea, guzis poderoso Espiritu Santi Jauna, baña alaere ez irur guzis poderoso, baizik guzis poderoso bat. Ala Jaun Aita, Jaun Semea, Jaun Espiritu Santi Jauna, baña alaere ez irur Jaun, baizik jaun bat. Zeren ezi ala nola egi eta fede kristioak obligatzen gaituen konfesatzera persona bakotxa berez Jaun ta Jangoiko, ala erratea irur Jaun edo Jangoiko debekatzen digu Errelijione katolikoak. Aita niorenganik ezta ez egina, ez kriatua, ez enjendratua. Semea aitaganik da, ez geina, ez kriatua, baizik enjendratua. Espiritu Santi Jauna Aitaren ta Semearenganik, ez egina, ez kriatua, ez enjendratua, baizik prozeditzen duena. Bat beras Aita, ez irur Aita. Bat Semea, ez irur Seme. Bat Espiritu Santi Jauna, ez irur Espiritu Santi Jaun. Eta Trintate, edo irurtasun gontan ezta deus lenago edo geroago; deus ez andiago edo txipiago; baizik irur personak dire igoalkiro eterno, ta bardin elkarreki; de manera ezi erran bekala, battasuna irurtasunean, ta irurtasuna battasunean bear da beneratu. Nai duenak bada izan salbo, ala sinesta bez Trintates. Guziau dio sinbolo gartan.

Onen conforme doktrina. Nor da Jangoikoa? Jangoikoa da Espiritu purisimo bat, infinitoki ona, poderosoa, sabioa, justoa, prinzipiorik ta finik gabe, prinzipio ta fin gauza guziena. Nor da Trintate? Trintate da Jangoikoa bera, Aita, ta Semea, ta Espiritu Santi Jauna, irur persona distinto ta Jangoiko bakar bat egiaskoa. Nor da Aita? Aita da Trintateko lenbiziko persona, enjendratu zuena seme bat igual esenzian ta distinto personan. Nor da Semea? Semea da Trintateko bigarren persona, enjendratua dena Aitaganik. Nor da Espiritu Santi Jauna? Espiritu Santi Jauna da Trintateko irugarren persona, prozeditzen duena Aitaren ta Semearenganik. Orai zer den prozeditze gau, ta enjendratze gura ezta guretako xakitea emen. Aita Jangoiko da? Bai. Semea Jangoiko da? Baitare. Espiritu Santi Jauna Jangoiko da? Baitare. Beras irurak dire Jangoiko, ta irur Jangoiko? Irurak dire Jangoiko, baña ez irur Jangoiko, baizik Jangoiko bat. Nola irurak direlaik Jangoiko, eztire irur Jangoiko, baizik bat? Zeren irurek baitute naturaleza bat, podore bat etc. Aita da Seme? Ez. Semea da Aita? Eztare. Espiritu Santi Jauna da Aita edo Seme? Eztare. Zergatik? Zergatik baitire distinto personetan. Izate gau personak distinto, ta Jangoiko bat irurak, nainuke mostratu zenbait konparazios; baña ezta urbil daikenik milla legoa-bides. Sagarrena paratzeunte batzuek, direla artan irur gauza, zaporea, atxona, kolorea, eta sagarra alaere bat. Baña ezta ikustekorik. Berze batzuek gure arimarena, baititu irur potencia: memoria, entendamentua, borondatea, ta arima baita bat. Baña ezta ellegatzen. Berze batzuek iruzkiarena, non baita su, argi ta beroa, alaere iruzkia bat, baña ezta bardin. San Juanek parazen du berze konparazio bat Bataioko Sakramentuan (1 Joan. 5), obratzen baitute an Jangoikoaren Espirituak, urak, ta Kristoren odolaren birtuteak, ta irurak baitire bat; baña ezta au ere plau Trintateko misterioareki; ezeta bakotxik ere Zeruan ta lurrean. Milagroskoak bekala, dire obenak mostrazeko misterio gau. Santa Klara Monte Falkoren petxoan aurkitu ziren irur bolatto gaiek guzis bardinak figuran, kolorean, pizuan, pizatzen zuela batakin ainberze nola berzeak, eta nola biek. Ellegatzen garelaik, ellegatzen bagara, ikustera glorian Trintate Sandua, irurtasun admirable gura batean, ezaunduko dugu nola den konparaziorik gabe. Bitartean emen lurrean sinestatu bear dugu firmeki, naiz ezin konprehendi, montañatar ignorante on garren gisara, zein nai zue engañatu hereje batek porfiatzen ziola etzeikela izan Jangoiko bat bakarrik, izanik irur persona, ta bakotxa Jangoiko. Ura firme, ala diola fedeak, naiz ez guk entenda; herejeak porfia, ark porfia; ark arraizio-iduris ta itzes, onek fedearen egias; etzuketalaik ixilarazi, zer egin zue? artu zue eskus kapusaiaren alzialdea, inzitio irur pliege; galdegin zio: Zenbat dire ebek? Ark: Irur. Berla despregaturik, orra nola diren bat. Oneki despeitu zue bereganik. Andik gelditu da

erratea, izazgiñaren (sic) fedea. Fedearaki junta esperanza, ellegazeko bere graziaren medios gloriara: fede ta esperanzareki junta karidadea amatus ta estimatus Majestade soberano gura biotz guziareki. Ona guri dagokigun trintate bat emen, fedea, esperanza ta karidadea, sinestatzea, esperatzea, amatzea ontan enplea gaitzen kontino. Berze trintate bat, memoria, entendamentua, borondatea, au da oroitzea Jangoikoas, pensatzea artan, nai izatea nai duena berak. Ala logratuko dugu berze trintate bat glorian, baitire bisionea, konprehensionea, fruizionea, au da, ikustea, konprehenditzea ta gozatzea betiro Jangoiko andia, Trintate soberano gura, Aita ta Semea, ta Espiritu Santi Jauna bere Aingiruen ta Sanduen konpañian bizitza sekulakoan. Amen.

Sermo in festo Corporis Christi,
vel in Dominica infra Octavam

Memoriam fecit mirabilium suorum etc. Psalm. 110.
Homo quidam fecit caenam magnam etc.

Desposorio andi baten festibidade ta konbite andira gara egun konbidatuak. Errege ta erregina andiak dire desposatuak, bere ariora da bazkaria ta festa. Eztugu beras lekuri an guk, diote pobreek. Bai zierto, ezi Errege gonon korteko Jaundiak dire arranzari pobre izanak, San Pedro, San Juan, Santiago, ta alakoak. Eta manaturik dauka expresoki berex sarrarasteko bere konbitazen salan pobreak ta estropeatuak (Luc. 14) Nor da erregegoi ain andia ta ain humanoa? Ori da Jesu Kristo gloriako errege. Nor da erregina gura ain ditxosa? Ori da Eliza, baita kristio fiel guzien kongregazioa edo familia; ta por konsigiente arima kristio fiel bakotxa. Nondik dagokio kristio-gendeai, ta gutiago arima bakotxai izatea erregina? Erregeren grazias, nai baitu desposatu bereki. Eta Erregereki desposatua ezta ia erregina? (Noiz billatu, noiz artu zue Jesu Kristok esposa gau? Jautsirik Zeruetatik egin zelaik gizon, ta fundatu zuelaik Eliza, iganbañolen Zerura. Ditxosa Eliza, ditxosa arima aurkitu duena grazia alako Erregeren begietan! Edo agitz bideze ederra, edo agiz aberatsa; ekarri bide zio dote andia? Etze ederra, bai itsusia txoil deabruaren gisara, bekatuen kasos, ta belztua infernuko tintas. Etze aberatsa baizik miseries, dote ekarri ziona izan zire miseriak, kulpak, penak ta gaitz guziak abasto, de manera ezi kargeria eder goneki soñean gurutzearen gañean zeramala ikusi ze joaten ezin joanes erorka erorka esposo dibinoa Kalbariorako bidean.) Zerk mogitu zue bada arzero alako esposa? Bere ontasun propioak, bere karidade infinitoak, ez irabazteagatik berak, bai egiteagatik guri ongi, atratzeagatik gu deabruaren eskupetik, pagatzeagatik ofensak faboreeki ta gure desagradezimentuak grazia berrieki, logratzeagatik guretako mereji ginduen penen partes donoak, kondenazioaren truk barkazio ta infernuaren truk grazia ta gloria, ta guzia bere kostus. O esposo grazioso!

Ezta beras desposorio gontan doterik, arha ta erastunik? Ezta kontraturik? Bada guzietaik suplitus bere Majestadeak odol prezioso, pasio ta eriotzearen merejimentuak, desposaturik utzituenak Elizan. Erastuna fedea, arhak legea, kontratuak doktrina Kristioa ta Ebanjelioa. Gisaontan gloriako Erregek arzen du Eliza ta arima kristioa bere esposatako, ederrak itsusia, aberatsak pobrea, onak gaixtoa, guzien Jabeak guzien bear dena, ederzeco, aberasteko, onzeko, betezeko grazias ta glorias. Ezta konsumatzen edo kunplitzen osoki desposorio gau, bizi gontan baizik gloriako bizitza sekulakoan, non ikusten ta gozatzen baita bere Majestadea osoki agerian, baña bitarteo emen asirik ematen da gozatzeraren emen daiken gisan arima onai, ta ematen dio gloriarako prenda, ta zelebratzen du konbita andia arren amores. Onen ikustera goaz orai; baña logra bezagu lenik grazia. Maria. Ave Maria.

Gloriako errege, ta ene arimaren esposo! O Jesusen amore ta fabore geiegia! Eta ain kontent dago bere Majestadea desposorio gontas ezi zelebratzen du konbita prezioso, amoroso ta gustoso bateki. Goazen ikusis. Memoriam fecit mirabilium suorum etc. Bere amoreen, ta faboreen, ta miragarrien memoria, bilgura, ta suma bat egin du Jaun miseriakordioso ta miseriakordia-egilleak; zein da? Escam dedit timentibus se. Bazkari bat disponitu du bereendako, zer bazkari da au? Aldareko sakramentua, bere milagroen andiena, bere ongi-egin guzien obena, bere amoreen azken errestoa ta korona. (Deus guti

dirudi gorputzaren bistarako; gusto ta sentidoendako; ezpaita erregalogoi astoko gonendako, baizik arimarendako; fedear ikusten da sinestatus Jangoikoaren erranera ta konzienzia onas gozatzen da amatus alako amazalea. Baña fedea da len, edo sinestea; eta sinesta bagindez bizi, guzia logra gindezake mai gortan. Goazen bada aipatus solamente sinestatu bear direnak orri eta lanean diona San Juan Krisostomok, eztirela gizonaren birtutes edo habilidades obra milagrosko iten direnak nai gortan; baizik Jangoikoaren podorearen birtutes; eta egin zituenak an Jerusalem azken afari gartan, egitentuela orai ere aldarean. Gu garela beraren ministro ta mutil beraren atzetik, baña bere Majestadea dela nausi bekala obratzentuen milagroak, naiz ez ageri.

Au supositurik, sinestatzen duguna da, hostian ta kalizan konsagratuaskeros dagola presente errealki milagrosoki Jesu Kristoren gorputz ta odol preziosoa dibinidade ta humanidade guziareki, ta Jesu Kristo bera guzia ain zierto erreal, nola Zeruan; solamente ezi an baitago egotemodu natural ikusi daiken gisan, emen egotemodu sobrenaturales ikusi eztaiken gisan. An dago jarririk edo txutirik, nola duen plazer; emen dago altxaturik sakramentuan, nola dezaken ta nai duen; oroat txipian, nola andian, eta bateo milla ta milla lekuetan. Eta noranai doaien sakramentua, doaie an Jesus bera, eta faltaturik sakramentua, faltazen da beraren presenzia; baña autxi, parti, busti edo erreagatik sakramentua, ezta orgatik auxten, partitzen, busti edo erretzen Jesus sakramentua. Ia beras badakusazie eztela oroat Jesus sakramentua, nola sakramentua. Zer da bada sakramentua? Da señaile sagratu sekreto bat ageri dena, mostrazen duena berze gauza bat ageri eztena. Eta ala aldarean agitu den hostia gura, (ta oroat kalizas diot), da sakramentu aldarekoa. Ezta ori Jesus, baña orrek mostrazen du an dagola, dagon bekala ikusten eztena Jesus modu miragarrian. Ikusagun ia nola in zen, ta iten den milagro gau.

Jesus gure salbazale amante apasionatuak, jaio zen istantetik alzina beti ibili zenak gure on naies ilartaño, ellegaturik arrats gura, noiz asi bear zuen bere pasio doloreskoa akabatzeko biramonean gurutzean, zekielaik, dio San Juanek, zekielaik eldu zela bere ordua pasazeko mundu gontaik bere Aitagana, cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Onetsi zituelaik bereak, azkenerat (sic), onetsi zitue, dio, baña eztio zenbat, edonola, imposible izanes erratea; baña ortan berean mostrazen du onetsiginduzala ezin iagos. Ikusten zue il ondoan igan bear zuela Zerura berak, ta bereak gelditu bear zirela munduan; naiz egin, trabajatu ta padeziturik gure amores ainberze, naiz utzirik Elizan bere merejimentuen tesoro inmensoa, bere exenpluak, doktrina, medio ta erremedio guziak gure salbazeko, etzio sufritzen biotzak, bera joan, ta gu emen geldizea bera gabe. Ta ala injeniatu zue gelditzea betiko naiz ez agerrian, despeidan bekala egin zue amorearen azken fineza lengo fineza guzien memoria bat bizia betekos. Garbiturik bere eskus oñak Apostoluei ta jarrarazirik maian gero arturik ogi bere esku sanduetan, goraturik begiak Zerura, bedeikatu ta erran zue: ar zazie ta jan zazie ontaik guziek, ezi au da ene gorputza. Oroat gero kaliza arturik erran zue: ar zazie ta edan zazie ontaik guziek, ezi au da ene odola. Eta nola gure Jaunaren erratea baita obratzea, kriatu zituen bekala gauza guziak errateareki solamente, ala istante gartan ogi ta ardoaren sustanzia aldatu ze Jesu Kristoren gorputz ta odolaren sustanzian, gelditurik solamente ogi ardoen iduria, gustoa, kolorea ta berze akzidenteak beren sustanzia gabe. Alaber ordenatu zitue Apostoluak sazerdote, emanik potestade ordenazeko ta egiteko au berau, mundua mundu den bitarteo erraten ziotela: Au egiten duzien aldioro, egizie ene memoriatan.) Ala kunplitu zue bere amorearen suaren egarri ansioso gura, ezin itzali zutena bere pasioko tormentu ta penen ugalde andi gaiek, erran zuena afal alzinean: Deseos deseatu dut jatea zueki bazkoa gau

pasiore baño len. Ala bere podore, xakintasun ta ontasun guzien kostus montiatus milagroak milagroen gain, gu maiteegi izanes, gureki gelditzeagatik, guri beti ongi egiten egoteagatik, utzi zue fundaturik aldareko sakramentua, konbita sagratu gau, non errezibitzen baita Kristo bera, non berritzen baita bere pasioaren memoria, non arima betetzen baita grazias ta ematen baizaigu geroko gloriaren prenda. Ala gure arimen esposo dibinoak zeledratu zue ebeki desposorio amoreskoa. O Jesus! O amore apasionatua ta zein guti ezaundua munduaganik, ta gaizki korresponditua! O zein gutik ezaunzen ta korresponditzen duten bear bekala! Eztakite, Jauna, eztakite geienek, zer ondasun dugun sakramentu aldarekoan. (Zer litzake munduas, falta baledi iruzkia? Zein ilun geldi leiken guzia! Eta Elizaren iruzki ederra da sakramentu gau. Naiago nuke falta leien ura, ezi ez au. Biziaren ongi pasatzeko, eriozeko pausuan ongi atrazeko, nora joain gara, ezpada berorregana, Jesus ona ta ene arimaren amoreta? Bada noren eskuan daude Zeruko ta Infernuko giltzak, baizik berorren eskuan? Ezta pikorrik ere izanen admititua Zeruan, ezpadarama orren pasaporteia, edo baimendea. Eta kaso iten dionak emen, aurkituko du an. Desdixatuak eztiotenak kasorik; galduak dire. Omnes qui elongant se â te peribunt.) Ditzosoak goart iteuntenak orai, ta estimatzen bear bekala.

Eta bada fede dugunek dakigu emen daukagula Jesus salbazalea gureki, estima zugun, ta balia gaitzen. Irur estado-gisatan beira dezakegu: Lenbizikoa, sakramentuan bekala gau ta egun kontino sagrarioan edo aldarean; bigarrena, mezako sakrifizioan ofratzen dela egunoro mai artan; irugarrena, komunionean ematenzaigula erregalo nai dugun guzietan: (goazen beiratus banaka. Lenik egotegoi kontino ain humil amoroso gure konpañian desterru gontan gure lekukide ta lagun eginik edozein erri txipitan ere, barin bada ezpada nork egin kaso, eta bakarrik geienean. Ori zekielaik agituko zela gelditu ze, aurki gindezaken nai dugun guzietan, kunplitus ala ofrezitu zuena igaterakoan Zerura San Markosen Ebanjelioaren azken itz gaitan. Et ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi, eta ona ni zueki nago egun guzietan, mundua akabatu arteo. Ditzosoak fortunatu zirenak ikustera Jaunau bizi zelaik, diozu. Eta orduan ikustekos, bear zindue joan zegon lekura; orai aurkitzen duzu ain zierto errealki nonnai pausu guti emanik. Zer falta zaizu baizik ikustea? Baña supli bez sinesteak edo fedeak. Fede bizia ekarzu, ta deus etzaizu falta. Orduko podorea ta amoreta du orai ere, naiz altxaturik dagon. Orduko ofizioak itentu orai ere ixil ixila, Maestru, Artzai, Mediku, Ongiegille, Salbazale, ta zer nauzun, ta bearzun. Orduan bezain orai dago klamatzen ixil ixila, Venite ad me omnes etc. Zatoste enegana trabajutan zaraten guziok, eta nik faboratukozaistet. Egia da au, edo gezurra? Ain egiada nola Ebanjelioa. Bada nora goazi geuren tristura, beldur ta bearretan? Invenit passer sibi domum etc. Txoriak aurkitu du kafia, non paratu bere txitak; au da, arimak errefujioa, non seguratu bere aflikzioetan; erranen diot: O Jesus, ori da ene salbazalea, ar benaza bere egalpean etc.

Bigarrena beira Mezako sakrifizioan, baita bere pasio ta eriotzearen memoria bizia. Zer iten du an? Ezta iltzen, ezta padezitzen errealki; baña presentatzen ta ofratzentu bere pasio, eriotze, lliga ta pena pasatuak gure amores. Zer da ikustea axuritto amable gura ain manso, humil, amoroso sazerdote indigno baten alzinean ta eskuetan? O fede bizia, non zara? Nola eznaue amorosten ni, ta ni bekalakoak? amorosten du bere Aita eternoa, baitio konsagratzen den aldioro, Ecce filius meus dilectus etc. Ona ene seme onetsia, zeintan baitut neure konplazentzia. Amorosten du bere Ama Birjina berriro; amorostentu serafinak, aingiruak ta sanduak. Bai ta ezpagindu axuritto gau munduan, zer litzake munduas? Mezan bada ofratzen da Jesus ona, emateko Jangoikoai honra, plazer ta

eskerrak gure partes. Ama Birjinai ta Zerukoei gozo berria; lograzeko purgatoriokoei alibio ta libranza. Mundukoei on guzia, justoei graziaren aumentu, bekatariei barkazio, barkatuei satisfazio, ta guziei konbeni zaiotena jenero guzietan. Oh! tonto eztena eztaielá deskuida ofratzerakoan Jangoikoaren axuri dibinoa aldarean; in bedi partizipante etc.)

Beira irugarren estado-gisan, komunionean: emen eze ezta gobernatu bear gorputzaren sentidoes, bistas, gustoas ta gañarakoes, ezpaitire kapaz sentitzeko ondasun gonon sustanzia, baizik solamente gañeko iduriutsa. Emen ondatzen da entendamentua ere, eztaike ellega. Nori gogoratu, nork pensatu, zeikela izan gure Jesus ain ona, ezi eman zeien janaria gizonai? Eta ezta gezurra, ezta pondera zio, baizik egi eta fedea sinestatu bear dena ain zierto ta ziertoago ezi iruzkia dela argi, zeren erran baizue bere Majestadeak: ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza; eta lenago: ene gorputza da egiaz janari, ta ni naiz ogi bizia Zerutik jautsia. Eta janarasteko gogotik, zio: jaten duena biziko da betikos. Eta ezpaduzie jaten, eztuzie izanen bizitzarik zeuren baitan. Sinestatzen badugu au, ezin baitaie duda, hereje ezpagara, nola ezta admiratuko, amorostuko ta zoratuko biotza kontentus? (Aixtean fortunoso zindio zela persona zukena aitu edo ikusi Jaunau. Eta zer fortuna etze izanen errehibitzea bere Majestadea zeure etxean? Tratatzea, ta adoratzea? Eta orra emen eldu zaizu bere Majestadea, ta sarzen ez solamente etxean, baitaere zeure barnean. Dezakezu trata, adonatu ta besarkatu amorosoki nola nauzun, barin bauzu fede bizia,) zeren ezi zer da komekatzea? Da komunikatzea Kristoreki arima, ta Kristo arimareki modu admirablean. Zer da komekatzea? Da desposatzea arima pobreareki gloriako errege bera. Zer da komekatzea? Da biak elkar ala nola besarkatzea ta unitzea miragarriro, dion bekala Jaun Dibinoak, in me manet, et ego in illo, ene baitan dago bera, eta ni bera baitan. Zer da komekatzea? Da erregalatzea gloriako Jaunak arima lurrekoa, ez ango zenbait erregaloeki, baizik an den obenareki, baita berbera.

Bai ta nork explika zer probetxu, zer gusto ematen dion arima onari erregalo dibino gonek? Arima gaixtoari, mortalean dagonari, indignoki jaten duenari eztio gustorik, eztio protxurik ematen; berak bere kulpas iresten du kondenazioa bere kontra. Baña grazian doaienari, ala nola janari onak estomago ona duenai iten dion gorputzean, iten du bere ariora janari dibino gonek ariman. Sustentatzea, azitzea, indar ematea, ta gusto bat ezin ohea. Gusto gau sentitzeko geiago bear da grazian egoteas landara, au da arimaren estomago onas landara, errekozitu bekala fede bizi ta karidade ardienteareki, ta xegatu konsiderazio ta afekto biotzeskoeki. O zer gustoa orduan! erran bezate Santa Teresak, San Franzisko Xabierek ta alakoek. Zer gusto du bada? Ez por zierto aragiaren edo munduaren gustorik, baizik gusto espirituala, Zeruko gusto sobrenaturala; kastidadearen gusto ona, ezi ogi gau da Aingiruen ogia, Zeruko ogi bizia konzebitua Espiritu Sanduaren birtutes Ama Birjinaren entraña sanduetan, ta beraren esne birjinalas oratua. Zer gusto du? Humildadearen ta pazienziaren gustoa, ezi maneatu ta errea da ogi gau trabajuen ta desprezioen labeen beti ganbelatik gurutzeraño. Zer gusto du? Amorearen gusto espeziala, ezi suak su, amoreak amore itxekitzen du; dakusalaik bada arimak bere esposoa ain ederra, ta ain beraren amante, amorosten da bere Majestadea, ezi gloriako errege ta ene arimaren esposo orrek amatzen duelaik ene arima, zer milagro da arimak berori amatzea? Ala atrarastentio kontriziosko negar amorosoak ofendituas. Zer gusto du? On guziaren ta salbazioaren gusto, ezi Jesus deitzen da salbazalea, zeren bere gustoa baita salbatzea. Zer gusto du? Esperanza gozoaren gusto, gloria-gusto, gloria-urritin, ezi ango giltzak bere eskuan ditu, da bere adiskideen adiskide, ta nai badut bera nik, nai nau berak ni, ta nai banau berak, salbo naiz, infernu guziaren bortxa; eta sakramentu gau ematen dida emanen

didan gloriaren prenda bekala. Eta oh! Zein salbatu naia den, ezi edozein etxe ta etxolaetara eldu zaigu eriotzeko peligroan biatiko bekala salbatzeko pausu gartan akonpañazeko ta eramateko gu bere besoetan. Biz esker milla milla, ta laudario, ta amore, ta gloria, ta bedeizio alako amazaleari. Ikusi duzie nola gure Jesus onak bere jaiotzean, bizitzan, pasioan ta eriotzean in zituen miragarriak berritzentuen aldareko sakramentuan. *Memoriam fecit mirabilium suorum etc.*

Orgatik Elizak bere esposak agradeziturik zekebratzen du bere esposo dibinoa, beti ere, baña prinzipalki festa gontan, daramala karrikas karrika triunfante solemnidade guziareki, honra dezan Jaun soberano gau Zeruak ta lurrak, eta konfundi daitzen beraren presenzian demonioak, herejeak, infielak, ta gaixto guziak. Festa gau paratu zue Aita Sandu Urbano IV. milla berregun ta iruogei ta laurgarren urtean, izanik ortako lendanik zenbait abisu zerutik ta lurrean asko milagro sakramentuaren medios. Gero andik berrogei ta zenbait urte Bienako Konzilio jeneralean manatu ze prozesio solemnea, ta eramatea sakramentu admirablea triunfoan bekala, daiken ponpa ta debozio guziareki. (Guk aldiritar pobrettoek suplitu bear dugu falta dena biotzesko afektoen fintasunareki, festejatus Jaunai, nola errain dut? Ala nola txakurtto nobleak bere nausia. Eztigu faltatuko zerbait otapur bere maietik. Oroï gaitzen Kananeas imitatzeke. Ze au erris kanpoko emasteki pobre bat joan zena gure Jaunaren billa bearres. Eta aurkiturik karrikan zoeiela bere Majestadea anitz jenderen ertean, eta ura etzeikelaik ellega, asi zekio klamatzen oius: O Jauna, izan bez miseriordia nitas. Etzio errespondatzen itzik Jesus onak berarias. Ark segi klamatzen: Miseriordia, Jauna. Jesus alaere ixil. Ark oius porfiak. Apostoluek erran ziote: Jauna; despei bez, zeren oius eldu da atzetik. Bitarteo nolapait ellegatu ze pobrettoa, ta belauriko humil eskatu zio grazia. Jaunak errespondatu zio sebero-iduri: Ezta arrazio humeen ogia ematea tzakurrei! Andre humilak erran zio: Bai Jauna, bai, ezi txakurttoek ere jaten dute Nausiaren maietik erorzen diren otapurretaik. Zer agitu ze? Jaun dibinoak egin zio grazia eskatzen zuena. Ikusagun eskatzen ta porfiatzen humil, ezi berbera dago sakramentuan, naiz altxaturik; egin naiak dago grazia, naiz disimula dezan.) Urtiki gaitzen bere maipera nola bere txakurttoak. O Jesus, miseriordia nitas. Nobis quoque peccatoribus etc. Niri ere bekadari pobre goni apur bat bere maietik, otoi otoi. In bezada limosna admititzeas ni ere bere sandueki emen berorren grazian. Eta an berorren glorian. Amen.

Sermo in festa
Nativitatis Domini nostri
Jesu Christi per narrationem

Et peperit filium suum primogenitum etc. Luc. 2.

Egerri deitzen da euskaras egun gau ta urrengoak, ala nola egun berri. Bide da, edo zeren egunak luzatzen omen diren, itzultzeareki iruzkia, zeren jaiotzeareki mundura Jesu Kristo iruzki dibinoa pasaturik egun zarrak ta ilunak bekatuen kasos Adanenganik onarañokoak, egun gizon berri Jangoiko dena agerturik kentzeko bekatuak, asten baitire egun berriak argiagokoak; orgatik ere arrazioreki egundanik asten dire kontatzen urteak kristiandadean. Aski dugu ematea doktrina egun agituarena sinestatzeko; ta kontatzea historia brebeki, nola agitu zen, ontzeko arimak. Egun bada kunplitu ze diona Kredoan, jaio zela Jesu Kristo Maria Birjinaganik. Nai du erran, ezi Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa, izan zena konzebitua milagrosoki Maria Santisimaren entrañetan Espiritu sanduaren birtutes (Martxoaren ogei ta borzgarrenean), egun, abenduaren ogeita borzgarrenean, beterik bedratzi ilabete, atra zela mundu gontako argira, estregatu gabe ta mellarik in gabe amaren birjinidadeai; ala nola iruzkia pasatzen den kristale batetik, autxi ta mantxatu gabe kristalea, ala jaio ze Jesus Maria Santisimaganik, gelditurik Ama Birjin, nola erdibañolen, oroat erditzean ta erdiaskeros beti birjinik. Milagro gau ze konsigiente lenekoari, ezi nola konzebitu baizue bere sabeleko fruitu bedeikatua Jesus aragisko pasioneik ta mellaik gabe, arrazio ze argira eman zezan doloreik, miseriaik ta dañurik batere gabe, gelditurik antes bien konsagraturik, ta honraturik Birjin Ama garbi-ederrago ere len baño. Alako semeari zegokio ongi Ama alakoa: semea Jesus Jangoiko ta gizon bateo; Maria Santisima ere bai Ama ta Birjin bateo. Bere sabeleko fruitu bedeikatua Jesus; onen konforme Ama grazias-betea bedeikatua andre guzien artean. Planta eder gonek eman zue fruitu ederragoa, erori gabe lorea, au da Birjinidadea. (au da lore ta gala erreala, zeñeki erregalatu zuen Jangoikoak bere maite bakarra berex, izan zeien Ama ta Birjin, nior ez bekala. Baitu lagunak berze birtuteetan segitzen dutenak urrutitik bada ere, karidadean, humildadean, pazienzan, kastidadean, ezpada ere alako perfekzioareki; baña ezta lagunik izatean Ama ta Birjin bateo. Ori da sollik Maria Santisimaren pribilejio erreala, alakorik ikusi ez ta ikusiko eztena sekulan. (Laur jenerazio-gisa ikusi dire, mundua mundu denaskeros, erreparatuzue San Agustinek (ap. Barrad. t.1. l.5. c.5.) Bat da komuna egunorokoa, gizon ta emastearen medios; berze bat gizonik ta emasterik gabe, Adam lenbiziko gizonarena, formatu baizue Jangoikoak lurretik. Berze bat gizonaganik sollik emasterik gabe, au da Ebarena, formatu baizue Jangoikoak Adanen kostillatik. Falta ze laurgarrena, Emasteaganik sollik gizonik gabe. Au da Jesu Kristorena, zein eman baizue bereganik Ama Birjinak Jangoikoaren podorearen milagros guzien erremediotako.) Egerri bekala da. Guzia berri egun. Berri da jaio dena, gizon ta Jangoiko bateo, Jaun admirablea ta aur amablea, gora ta apal, andi ta txipi, guzis poderosa ta guzis amoroso. Berri da Ama ere, ama ta birjin, erdi ta oso, flore ta fruitu bateo. Berri da jaiotze-modua ere milagroskoa. Berriak dire gañarako zirkunstanziak ere berritzeko mundua. Goazen ia kontatus nola: inen dugu grazia graziasko egun gontan grazias beteak. Zori onean dela, Maria Jangoikoaren Ama ta Birjin ederra; berorren eskuetan dago ondasun guzia. In bezagu pobrettoei limosna ta grazia. Abe Maria.

Jesu Kristo egun jaio dena da gure esperanza guzia, gure ondasun ta salbazio bakarra, zein barin badut fabore, salbo naiz, zein ezpadut, debalde da guzia. Beras inporta da xakitea kristioak nola izan zen beraren etorzea mundura. Bere karidade geiegiagatik, zeñeki onetsi ginduzan Jangoikoak, biali zue bere seme bakarra gure gorputz bekatiaren semejanzen, dio San Pablok; eta Elizak dio Kredoa, Jangoikoaren Seme gau guregatik ta gure salbazioagatik jautsi zela Zeruetaik, et incarnatus est de Spiritu Sancto etc. Eta enkarnatu edo aragis bestitu zela Espiritu Sanduaren obras Maria Birjinaganik ta egin zela gizon. Au agitu ze Martxoaren ogeita borzgarrenean, erran bekala, bialirik ortako San Gabriel aingirua anunziatzera Maria Santisimari, nola inen zen langoi, ezaundu gabe gizonkirik, Jangoikoaren podores, zeñendako ezpaita inposiblerik. Sinestarasteko ori obeki, erran zio nola Santa Isabel beraren aideak ere konzebiturik seme bat, zein baize San Juan Bautista, zegon ia seigarren ilabetean, naiz izanik zarra ta esteril.

Mezu goneki andik guti joan ze Maria Santisima Jangoikoaren Ama in berri bisitatzera Santa Isabel, bizi baize montañan. Ellegatu ta mintzatu zeneko Ama dibinoa salutatus sanda gura, saltatu zekio oni aurra kontentus bere sabel barnean, eta ezaundurik sandak Jangoikoaren argis exklamatzue: Bedeikatua zu emaste guzien artean, eta bedeikatua zure sabeleko fruitua. Eta nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea ene Jaunaren Ama enegana? Ditxosa zara sinestatu baituzu, ezi kunplituko dire zure baitan errantizunak Jangoikoak. Orduan Ama Santisimak erran zue kantiko famatu gura kantatzen dena egunoro bezperetan, asten baita Magnificat etc. Ene arimak laudatzen du Jauna, ta ene Espiritua alegratu da ene salbazale den Jangoikoan; zeren beiratu duen bere esklabo gonon humiltasuna, ezi orgatik ditxosa deituko naute jenerazio guziek. Zeren ezi gauza andiak egintida poderoso denak, etc. Irur ilabete bekala egon ze etxe gartan Maria Santisima, jaioartaño San Juan Bautista. Ondorean itzuli ze bere sortu-etxera ta errira, baize Nazaret, bere esposo sanduaren konpañian, baize San Josef. Bitarteo etzekie oraño sanduak agitu zen milagroa bere esposaren sabel birjinalan; baña pasatus bekala egunak ta ilabeteak, zoeie nabarmendus Maria Santisimaren amatasuna. Eta sanduak erreparaturik pasatu zue turbazio andia; ezin sinesta gaizkirik alako lagunas ain sandas, baña ezin uka begiek ikusten zutena, zegola aurdun. Xakin etzela beraganik, etxakin nondik ta nola. Zer inen zue gizagaizoak? Akusatu etzue nai; esperatu ere ez, libratu arteo. Determinatu zue ausentatzea, utzirik ixil ixila, Jangoikoak lagun dakiola. Ontan dagolaik, aparezitu zekio Jangoikoaren aingirua erran ziona: Josef Dabiden semea, etzazula duda idukitzea zeure esposa Maria, ezi bera baitan jaio dena da Espiritu Sanduaren milagros; eta emanen du argira seme bat, zeñi paratuko diozu izena Jesus, zeren salbatuko baitu bere jendea bekatuetaik. Errebelazio goneki desengañatu ze, ta seguratu San Josef bere esposa dibinoaren dignidadeas; eta nork erran nolako amore ta erreberenziareki asistitu zion andik alzina? Kunplitus ia bedratzi ilabeteak jaiozeko aur dibinoa.

Admirazeko da Jangoiko andiaren probidenzia, nai izatea egin bere lenbiziko entrada munduan ain humil pobre, munduko konbenienziarik gabe, ez palazioaren batean, ez bere amaren etxe pobrean berere, baizik bere etxetik urruti besterrian, etxola uts batean! Konsola daizen pobreak ta neketan direnak emen, alako exenplu ta konpañiareki, ta eztatzen fia direnak aisa nolanai. Atra ze, dio egungo ebanjelioak, Augusto Enperadoreaganik manamendu bat lixtazeko mundu guzia; ta zoezi ortako guziak nor bere lekura, nondik zuen etorkia. Zoeie San Josef ere Galileako Nazaretdik Judeara Dabiden ziudadera, baize Belen, baizekarra bere etorkia Dabiden familiatik, bere esposareki, ia erdizeko egunetan. Pensa biaje luze gau estado gartan; astoko humil batean guzien

erregina, San Josef oñes alzinean; bideko trabajuak egunas ta gauas, doazilaik pobre gisa gure peregrinoak! Ellegaturik Belena guzia baizego beterik jendes, etze izan ostaturik gure peregrino pobreendako, ta erretiratu zire an erris kanpoan zen etxola batera. Emen izan ze Jesu Kristoren sortuetxea. Agitu ze, dio ebanjelioak, emen zeudelaik, betetzea Maria Santisimaren egunak emateko argira bere semea, ta eman zue ta inguratu zue oiales, ta erreklinatu zue ganbela batean, ezpaize berze lekuri an. Eta arzaia zeude inguru gartan kuidatzen beren saldoak; eta aparezituri Jangoikoaren aingirua argitasun andiareki lotsatu zire agitz. Erran zioze aingiruak: Etzaistela lotsa, ezi ematen diziet berri andi alegre bat, izanen dena jendeguziarendako, jaiobaizaizie, egun, salbazalea, au da Kristo Jauna, Dabiden ziudadean. Eta au izain duzie señaile: aurkituko duzie aurra oiales inguraturik ta paraturik ganbelan. Eta de repente aingiru garreki juntatu ze tropa da andi bat, laudatzen zutela Jangoikoa ta erraten: Gloria Jangoikoai Zeruetan, ta lurrean bakea borondate oneko gizonei. Eta desaparezitu ondoan aingiruak, arzaiek zioze elkarri: Goazen Belena ta ikusagun agitu den gau Jangoikoak mostratu diguna. Joan zire prisaka, ta aurkituzuste Maria, ta Josef, ta aurra paraturik ganbelan. Eta ezaundu zute au zela errebelatu ziotena Jangoikoak. Eta aditu zuten guziak admiratu zire. Eta Maria Santisimak goardatzen zue guzia, konsideratus bere biotz- barnean. Eta itzuli zire arzaia laudatzen Jangoikoa aitu ta ikusi zutenas.

Ebanjelio egungoak dire ebek. Berri onak ematentigute, pobreei espezialki, ezi errege jaio dena guk berra bekalakoa da, pobreen, humilen ta neketan direnen adiskide. Oh! Zein amante, apaldu delaik gure naies bere gloriako trono gorenetik ganbelaraño! Ain andia ta ain txipi Jesus, ori enegatik. Badakusat zergatik, amorosteagatik ni. Egun bada emateko ongi otoitza, biztu beartugu irur birtute teologaleak; fedea, sinestatus bizi gure Jesus onaren amoresko exzesoa jaiotzean aur guregatik; esperanza, esperatus jautsi denak ain beiti iganen gaituela ain goiti, naiz eztugun mereji; karidadea guzien gañetik, amatus entraña guzieki alako amazalea. Eta Santa Rosa Limakoa imitatus, bestitu bear dugu aur dibinoa espiritualkiro. Maindrekoak biz bedratzi Kredo, bedratzi ilabetes egon zenagatik bere Ama Santisimaren entraña sanduetan. Mantillak berze ainberze Aita Gurea ta gloria Patri bere jaiotzearen memoriatan. Paxak biz, berze ainberze amoresko afekto al guzia fin finak, erraten diogula gogotik ala guti gora bera, o ene Jesus, ene amore guzia, ongi etorria dela, nik amatzen ta estimatzen dut ene biotz guziareki, ene arima guziareki, ene entraña ta indar guzieki, gauza guziak baño ia, ia ezi ondasun guziak, ia ezi gusto guziak, ia ezi mundu guzia, ta bizia etc. Alaber imajinatus gaudela ikusten bere ganbela garren kulan nola nigar egiten duen gure bekatuengatik, akonpañatu bear dugu egines zenbait kontriziosko akto amoroso penaturik ofendituas jaun bat ain ona. Eta abrigatzeko bekala ganbela garren otz ta gogortasunean, zer inen dugu? Agotz ta lastoen partes zenbait limosna, edo baru, edo mortifikazio, edo egones belauriko ta besoak zabaldurik gurutzearen forman, edo auspeska adoratus paraturik kopeta lurrean, edo berze zerbait penalidade. Edozein gisa, ama, estima, bedeika Jesus ona, ta konfia beraren onagatik admitituko gaituela orai bere grazian, ta gero bere glorian. Amen.

Sermo in festo Visitationis

B. Mariae etc.

De eius Patrocinio

Ut audivit salutationem Mariae Elisabeth,

exultavit in gaudio etc. Luc. 1.

Egungo misterioa agitu ze Martxoaren azkenean, edo Aprilaren prinzipioan, jaiobañolen San Juan Bautista, noiz San Gabriel Aingiruak salutaturik Maria Santisima, ta anunziaturik Jangoikoaren mezus erdi bear zela Birjin, ta onen sinestarasteko erranik beraren lengusua Santa Isabel ere zoeiela seigarren ilabetean aurdun, naiz zen adinetakoa, Ama Birjinak sinestaturik, ta konzebiturik Jangoikoa gizon bere entraña sanduetan Espiritu Sanduaren birtutes martxoaren ogeitaborzgarrenean, andik fite joan zen prisaka montañara bisitatzera sanda gura. Ellegaturik egin zio diosalea, dio egungo Ebanjelioan, ta agitu ze, aitu orduko Santa Isabelek Maria Santisimaren diosalea, saltatu zekio gozos aurra sabel-barnean, ta bera bete ze Espiritu Sandus, ta exklamatuzue: Bedeikatua zu andre guzien artean, ta bedeikatua zure sabeleko fruitua. Eta nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea enegana, ene Jaunaren Ama? Ezi orra zure mintzoa aditu deneko, saltatu da bozkariundes ene aurra ene sabelean. Zori onekoa zu sinestatu baituzu, ezi kunplituko dire zure baitan zuri Jangoikoak erranikakoak. Orduan Maria Santisimak erran zue: Magnificat asten den kantiko andi gura laudatus Jangoikoa. Orra ebanjelioa. Fruitu atrazeko saluta zagun Ama Santisima. Ave Maria.

Zori onekoa ditxosoa normai den logratzen duena mintza daien beraren fabore Maria Santisima Abogada bekala. Eztu galduko pleitua, badezake espera salbazioaren sententzia, orai grazia ta gero gloria. Ikusi duzie nolako indarra duen Ama Birjinaren bozak saltarasten baitu aur jaio gabea ere kontentus. Alegria zaite zu ere, ene arima, logratzen bauzu alako Abogada Jangoikoaren presenzian. Itz guti leitzen dire ebanjelioan erranak Andre dibinoak. Ixila ze ta modesta; baña mintzatu zenetan, milagroak agitu zire. Mintzatu ze San Gabrieli anunziatu zionai izan bear zela Jesusen Ama: Nola izanen da ori, ezpadut ezaunzen gizonkirik? Eta bereala aingiruak seguratu zio milagroa izanen zela Espiritu Sanduaren obras eta birtutes. Mintzatu ze azkenean emateko baimendea, Ecce ancilla Domini. Ona Jangoikoaren eskriba; egin bedi nereki zure itzaren konforme. Eta bereala agitu ze milagroa gelditzeas Jangoikoa gizon eginik beraren sabel birjinalan, ta bera Jangoikoaren Ama ta birjin batean. Mintzatu ze egun Santa Isabeli, ta bereala bete zitue Ama Semeak Espiritu Sandus ta grazias. Mintzatu ze bere Seme Jaunai amabi urtetakoa zelaik geldituzekiolarik tenploan ustekabean: Ene Seme, nola in duzu ala gureki? Zure bila ibili gara beterik penas. Eta bereala Jaun Dibinoa itzuli ze berareki etxera, ta zegokio obediente. Mintzatu ze Kanako bodetan pobreen amores: Ene Seme, eztute ardorik; eta bereala Jaun Dibinoak bere Amaren atenzios itzuli zue ura ardotan. Ilzerakoan Jesus ona gurutzean, aldakan zego txutirik Ama ona, eztio ebanjelioan mintzatu zen mias, baña mintzatu ze biotzeko penes ta begietako negarres; eta bereala Jaun Dibinoak eskatu zue bere etsaiendako barkazio, ladron gaietaik bati ofrezitu zio paraisoa egun berean, berze askori eman zioten konbertitzeko grazia eta guri utzi zigu gure Amatako bere Ama San Juanen personan: Ecce mater tua; eta gu beraren humetako: Ecce filius tuus. Ala nai zue Ama Santisimak. Pensa orai nola nai duen, nola inen duen bere aldetik ezkaitzen gal bere

doloresko humeok ainberze kostatu gaizkionok!

Gurutzearen oñean gure Ama eginik ainberze doloreeki, uste duzie agian utzi edo atzendu gaituela orai dagolaik glorian? Andik itzulzentu bere begi miserikordiasko gaiek guregana. Andik deitzen, konbidatzen, exortatzen gaitu. Andik oroitzen da gutas ia ezi gu beras, eta geuren burues ere. An asko aldis, zu atzendurik bizi zarelaik kondenaziosko estadoan, ta Jangoikoa eman naiak sentenzia zure kontra, deabrua eske ta eske justizia, eriotzea lizenziain beira zure akabazeko, ta idikirik infernua esperatzen, Ama Santisima dago abogatzen ta klamatzen piedade ta miserikordia. O zenbat aldis libratubide gaituen, naiz gu ez oroiturik! Zenbat infernura joan bearrak bide daude munduan oraño, zenbat glorian, zeren mintzatu den aien fabore gure abogada? Orgatik, dio ongi San Anselmok, orgatik dela eskojitua Ama Santisima, salbadezkiengatik piedades ta miserikordias ez dezazkenak salba Jangoikoak justizias. O Maria, Maria, Jangoikoas geros gure esperanza bakarra! O Maria, aipatzeas ere konsolatzen da nere biotza esperanzareki. Maria, borz letra dire firmatzeko ene salbazioa. Maria, lenbiziko letra M. Mater, Ama. Bigarren letra A. Advocata, Abogada. Irugarren letra R. Reconciliatrix, bakezalea. Laugarren letra I. Illuminatrix, argizalea. Borzgarren letra A. Amans, amantea, amazalea, amorosa. Qui te invenerit, inveniet vitam etc. Nork ere aurkitzen duen bere fabore Maria, aurkituko du bizitza, salbazioa ta ondasun guzia. Nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea enegana Maria? zio Santa Isabelek, ta nai zue erran etorri zekiola berareki ondasun guzia. Venerunt mihi omnia bona pariter cum illâ. Bisita iten dionai, ta diosalea biotz barnean, salta dakioke biotza kontentus. Sed unde hoc mihi? Zierto, nior eztu usten bisitatzeko pobres, eris, itsusis gorputzean, nola duen arima ona (Andrad. grad. 30. SS.11. n.2.) Flandesen ze gizon bat agitz deboto Ama Birjinaren, errezaen ziona errosario osoa egunoro. Bisitatu zue Jangoikoak eritasun luze itsusi bateki progatzeko arren pazienza. Gorputz guzia aunditu zekio, usteldu zekizkio ezpañak alako llaga likits urrin zueki, ezi niork etzue urbildu nai. Desanparaturik gizagaizoa guzien ganik munduan, etzue desanparatu Zeruak. Pazienza andiareki segitzen zue bere debozioan, gogotikago, urbildus bekala eriotzea. Bein agertu zekio bere aingiru goardiakoa: Zato eneki, erran zio, nai dizut mostratu zure deskansuaren lekua. Eraman zue paraiso eder batera, iduri baizekio arri gloria Zerukoa. Berze arbolen ertean erakutsi zio bat zituen egun ta berrogeitamar arrosa txuri, ta amaborz gorri agitz eder fragrante, errosario errezaen zituenen premiotan. Andik eraman zue palazio andi batera, non ikusi zuen gloriako erregina, zeñek mintzatu baizio amorosoki: ellega zaite enegana, ene sierbo fiela, beauzu errezibitu ene besarka mereji duzuna. Besarkatu zue Ama Santisimak; bereala erran zue: Ezta arrazio ago ta ezpain enpleatzen direnak ere errosarioan, dauden llagaturik gisa ontan, ezta ere kuratzea berze medizinas, ezpada nere zañetakoas ta erran ta egin, esnetatuko zizkio bere bularretako esneareki, utzirik sano eder guzis, ta lengo usaiaren partes, atxon zeruko bat errespiratzen zutela. Baña ariman eman zion konsolua, ezta mirik explika dezakenik. Itzulirik bere akordura bisione gontaik ezaun duzue fabore egin ziona Ama dibinoak, ta eman zitio esker milla milla. Ago ta ezpañetaik atratzen zekio atxon bat alakoa, ezi errecreatzen ta admiratzen zitue guziak. Ellegaturik obispoagana milagro gonon fama, informatu ze ta publikatu zue exortatus mundu guzia Ama Birjinaren deboziora.)

Orai bada ala laboratzen duenak gorputzaren onetan, nola uste duzie iten duela arimaren alde? Nola presentatzen, nola mintzatzen da Jangoikoaren alzinean bere debotoen fabore? Eta nola uka dezake semeak ta alako semeak grazia eskatzen diona Amak ta alako Amak? Emengo tribunaleetan ezta permititzen emastekirik mintzatzea abogada-gisa nioren

faboretan, beldurak nonbait makur daien justiziaren bara emastekiaren idurias, mintzoas, negarres. Baña Jangoikoaren tribunalean ezta alako legerik bere amarendako; au presentatzen da ederrago ezi iruzkia, mintzatzen da amorosoki, ta bearbada mostratzentio bere Seme Jaunari bular birjinalak, zeñeki azi zuen aurra zelaik. Badaki, bearbada, belauriko ere paratzen lograzeko nai duena. (kontazen du Zesareok (ap. Claus. p.2. Cath. c.11) gizon noble bat abrats izana pobreturik bere buru gaixtos, itzulzeagatik leneko estadora, bere mutil sorgin baten konsejus ofrezitu zela deabruari errenegaturik Jangoikoas. Deabruak erran zio zela preziso errenegatzea Jangoikoaren Amas ere. Ontan egon ze konstante etzuela eginen alakorik sekulan. Mutilak porfia ia zer zekion despeitzea emasteki bat, despeituas geros Jangoikoa. Baña ark firme seguratu zue etzuela despeituko Maria Santisima. Ala deus logratu gabe itzuli ze triste, berze miserien gañetik, ukatuas Jangoikoa. Sartu ze eliza batean. An belauriko egon ze negarres lamentatzen gau guzian goizeraño. Jangoikoaren probidenzias ellegatu ze goiz goizean arara berze gizon bat, nori ark saldu zition ondasun guziak; ikusi zue lamentatzen nola zegon, esperatu zue beira zertan baratukozen. Aldarean ze Ama Birjinaren imajina bat bere Semeareki besotan. Aitu zue nola Amak Semeari erraten zion klaro: Urrikarizaite, ene Seme maitea, urrikari bekatarik gontas. Semeak apartatzen zue aurpegia. Porfiatzen zue Amak eska ta eska, Semeak sebero errespondatu zue: Gizon gonek ukatu nau ni, ta zer inen diot? Orduan ama xaikirik katedratik, ta artan paraturik aur dibinoa, paratu zekio belauriko humil: Ene Seme Jauna, barka zozu ene amores, otoi otoi etzadzula ukatu grazia gau. Orduan beiraturik bere amari begi amorosoeki errespondatu zio: Ene Ama, beñere ezin ukatu diot deus ere, ta orai ere orren atenzios barkatzen diot guzia. Pasaturik lanze gau, bazoeie konsolaturik pobre gura; ta ona berze prodijio bat! Berze erran duguna zegola beira joan zekio atzetik, eta erran zio: Jauna, badakit agitu zaion guzia. Eta orai nai badu artu esposatako ene alaba, izaintu dotetako saldu zizkidan ondasun guziak. Zelebratu ze matrimonioa, eta orra gizonoi abrats fortunoso instante bates, ta ia dena, barkaturik ta emendaturik. Eta guziau Ama Santisimaren medios. Oh! Bedeika...)

Seguraturik gure on guzias, logratzen badugu abogada Maria Santisima, orai trata zagun logratzeas nola ta zer medios. 1ª. Da arzea debozio beragana, au da afizione, amore ta kariño fin bat biotzeskoa; onen birtutes berari plazer ta gusto eman naia guzietan; por konsigiente goardatzea ofenditzetik grabekiro bentzait, espezialki nioren amore deshonestos, ezi agrabio andia iten zaio ontan, amatzean gorputz ustelkorra beraren edertasunaren aldean, ta da debozioaren benenoa ori, zeñeki bateo eztaike aurki ura. Len lena bada da goardatzea ofensaetaik, ta deskuidatzen balitz bein edo bein, garbitzea biotzesko negarres ta konfesio humilas. 2ª. Egunoro enkomendatzea berari; ezkaitzen deskuida, elizak abisatzen gaitu ezkilaren mias, soñatus argi-ezkilak, egerdi, ta ilunezkilak, zeñetan ordenatu du errezatzea irur Abe Maria aldioro, txutirik larunbate arratsean ta igande guzian, gañarakoetan belauriko duenak kortesia bear dena. Latines erraten diren itzak dire ebek: Lenbiziko dandan Angelus Domini nuntiavit etc. Euskaras, Jangoikoaren ordes aingiruak mezu emanik, konzebitu zue Mariak Espiritu Sanduaganik. Ave Maria. Bigarren dandan, Ecce ancilla Domini etc. Euskaras, Ona Jangoikoaren esklabela, in bedi nereki zuk erran bekala. Ave Maria. Irugarren dandan, et verbum caro etc. Eta Jangoikoa gizon egin ze, ta gutartean bizitu ze. Ave Maria. 3ª. Da erlojuak ematean orona, errezatzea Ave Maria, kontriziosko akta labur bateki. Nai duenak erran dezake ala aitu orduko orona. O Jesusen Ama ederra, biz bedekatua ordu gura, zeñetan alako iruzkia ekarri zigun mundura. Amen. Ave Maria. Gloria etc. Zuk, Maria, ama bedeika Jangoikoa istante

guzietan, ta ez permiti ofendi zagun jaun bat ain ona sekulan. Amen. 4^a. Da egunoro enkomendatzea iltze onagatik, biziaren bukatero ona logra dezagun, errezatus Salbe edo Abe Maria. Ez atzendu ontas graziak ematean otronzeetan. 5^a. Egunoro errosarioa, posible barin bada, belauriko ezpadaike, ibilis bidanabar. Da errosarioa ala nola arrosa-lorees erregalatzea ta koronatzea gloriako erregina. Maite duena eztaielat deskuida, ezi ordaña ona seguro du; eta iten bada familiareki etxean, desterratzen dire andik lotsaturik Espiritu gaixtoak, jausten dire aingiruak ta Jangoikoaren bedeizioak. 6^a. Asteoro baitago konsagraturik Ama Birjinai larunbata, artan beraren amoretan egin ia memoria edo goraintzi, obra on, edo limosna, edo baru, edo bisita elizan, edo etxean beraren imajina zenbaiten alzinean mostratus afekto anitz. Batzuek dute debozio errezazeko zazpi Abe Maria beraren doloreen memorian; berze batzuek bedratzi, sabel birjinalan bedratzi ilabetes Seme dibinoa iduki zuenaren memoriatan. 7^a. Konfesa-komekatzea maiz beraren obsekietan, espezialki beraren festaetan ofrezitus berai bere Seme Jauna errezibitua komunionean. 8^a. Ama Birjinaren honratuko diren meza, kanta, letania, salbe, prozesio ta alakoetan asistitzea ta akonpañatzea amore andiareki, ala nola festejatzen Ama Dibinoa hume onak. 9^a. Alistatzea beraren kofradian kofrakide ta etxeko hume bekala. Au da ala nola paratzea bat Ama Birjinaren mantuaren pean anpara gaitzan nola olloak txitak egalpean, ta markatzea, ta firmatzea beraren amante espeziale, maita gaitzan gu ere berak, ta asisti gaitzan beti ere, baña espezialki ilzeko tranzean Ama bekala, ta azkenik segura dezagun betiko salbazioa, San Franzisko Sales gastea zelarik, gorputz ederrean ederrago arima, kabilatus predestinazioaren sekreto andi gartan, Jangoikoas bazego, salbatuko zela, ezperen, guzia debalde zela, zoeie konsumitus kongojas. Bein Ama Birjinaren kapillan ol batean leitu zue San Agustinen orazio gura, Memorare, ô piadosissima etc. Oroï bedi, o piadosissima Birjina Maria eztela sekulan aditu nior ere akuditu duenik berorren anparora, berorren faborea eskatu duenik izan dela desanparatua. Ni konfianza goneki animaturik berorregana eldu naiz, Birjinen Birjin Ama, berorren presenzian nago suspiratzen otoi ta otoi, ezdezala desprezia ene otoiza, o Jangoikoaren Ama, baizik adi bez piadosa ta kunpli bez. Amen. Erran zue orazio gau bere entraña guzieki, ta bereala sentitu zue bañatzen biotza alegria sano bateki, ta erorzen zirela beraganik ala nola eskama bazuk. Ezaun duzue izar obenaren bisita, desterratu baizitio tristurain iluntasunak ain miragarriro. Badakit nik nork daraman aranze bera frinkaturik biotzean. Ezin atra mundu gontan. Zer inen da? Ez sentitzeko arren zistakoen agoniak, aurkitu dut ungendu bat propia, zeñeki estalirik, etxakin doaien kuratus; azken egunean agertuko da, ta agian kuraturik. Zer ungendu? Jesusen odolas ta Ama Birjinaren esneas konpondua. Bisitabeza Semeareki Amak bere sierbo gau, kuraturik guzis kantatzeko alegre Ama Semeen miserikordiak eternidadeko glorian. Amen.

Sermo in festo
Assumptionis B. Mariae.
De eius Patrocinio in morte

Maria optimam partem elegit,
quae non auferetur ab eâ. Luc. 10.

Egungo ebanjelioa kontatzen du San Lukasek ala: sartu ze Jesus kastelu batean, eta Marta deitzen zen andre batek errezibitu zue bere etxean; ark zue aizpa bat deitzen zena Maria, zein jarririk Jesusen oñetan zego aditzen beraren itza. Baña Marta lan egiten ta prebenitzen bear zirenak. Joan zekio au ta erran zio: Jauna, ezta kasorik, utzi bainau bakarrik lanean ni ene aizpa gorrek? mana bezo bada lagun dezadala. Errespondatu zio Jaun Dibinoak: Marta, Marta, afanaturik zabilta, ta turbaturik asko itekoetan. Errealiki bat sollik da preziso. Mariak eskojitu du parterik oben-obena, zein etzaion kenduko. Orra Ebanjelioa paratu duena Elizak egungo festan. Zer ikusteko duen bata berzeareki, dudatuko du agian norbaitek. Goazen entenderazis. Bi aizpa gaiek zire Santa Marta ta Santa Maria Magdalena, biak onak. Signifikazentute bi bizitza Jangoikoaren etxean, bata ona, berzea ohea, oraikoa ta gerokoa. Marta langin itekosak oraiko bizitza trabajus betea. Mariak geroko bizitza ta deskansu gloriakoa. Eta nola egun Maria Santisima igan baize emengo trabajuetaik deskansatzera ta gozatzera sekulako glorian, ongi eldu da erratea, Maria optimam etc. Mariak eskojitu du parterik oben obena, zein etzaion kenduko sekulan. Baliadakigun, emozkiogun enhorabuenak salutatus aingeruareki. Ave Maria.

Egungo festa, Ama Birjinaren festa guzien korona, pensatzeko ongi, pensatu beartugu irur misterio zelebratzentugunak: Lenbizikoa, Ama Birjinaren iltzea munduan. Bigarrena, beraren sartzea glorian. Irugarrena, beraren koronatzeta guzien erregina Jangoikoaren erreinuan. Ilaskeros Jesu Kristo gurutzean, ta erresuzitaturik iganes geros Zeruetara, beraren probidenzias gelditu ze bere Ama Santisima, munduan Elizaren konsolu, anparo, doktrina ta exenplutako. (bizitu ze ogeita urte bat bere Semea ilaskeros, ta bere adinaren iruetan ogeitamar urte, zenbait egun gutiago, diones Agredako benerableak (p. 3. c.19. n.742). Nola bizitu zen, nola zerbitzatu zion Jangoikoai, ta faboratu zion Elizai, nola sandutus instantetik instatera beti kontino ia ta ia, noraño igan zen santidadean, ezta mirik explika dezakenik, ez gizon ta ez aingiruenik.) Etzue mereji iltzea, guk bekala; libre izan baize bekatu orijinaletik, mortale ta benialeetaik, libre ze alaber bekatuen penatik, baita iltzea. Baña nola bere Seme Jauna ofrezitu baize iltzera bere borondates, ofrezitu ze Ama Santisima ere. Etze il eritasun gorputzaren, baizik Jangoikoaren amoreain indarres. Lenik anunziatu zio aingiruak, noiz bear zen atra desterru gontaik; gero Jangoikoaren probidenzias ta milagros mundu guzitik etorri zire apostoluak Jerusalem astitzera guzien Ama onaren despedidan. Azkenean jautsi ze Zerutik bere Seme Jauna, zeñen eskuetan enkomendatu zue bere arima. Usten dut baxotxai pensatzeta apostoluen despeitze gura, bedeizio eman ziotena, arima noble garren afektoak etc., etc.

Bigarrena da pensatzeta arima garren igatea Zeruetara Jesu Kristoren eskuetan, aingiruen akonpañamentuak, aklamazioak, laudarioak, gloriaren alegranzia berria ta festa andia egun gartan, Trintate Jaun poderosoak an egin zion errezibimentu dignoa. Sinestatzen da alaber, Jangoikoak erresuzitatu zuela gorputz birjinale gura il ta irugarren egunean itzulirik arima gorputzera igateko gorputz ta ariman Zerura Ama Santisima. (Irur

egun gaietan, dio San Juan Damaszenok, iraundu zuela aingiruen musika ta kantua gorputz birjinala honrazeko zegon lekuan. Irugarrenean idikirik obia, ikusteko ellegatu etzirenek lenago, ia etze ageri gorputz sandua an, ta ez senti lengo musika ere; ta ontaik ezaundu zute bere Seme Jaunak, gizon egin zenak Maria Santisimaren entraña sanduetan, nai izan zuela honratu bere Ama Santisima erresuzitaturik berze ilen eguna baño len.) Pensa zein gloriosa eder miragarri agertu zen Jangoikoaren ta Zeruko guzien begietan kriadura eskojitu bakar bere parerik eztena! Nola akonpañatu ta festejatu zuten aingiruen errejimentuek! Nola bestitu zen galas korte erreale gura guzia prinzipalki egun gartan! Ango aparatoa, angok grandezak; angok bibak ta exklamazioak, ta musikak, ta kanta soberanoak! Zein triunfante sartu bide zen Erregina andia bere Seme Jaunaren eskuieko aldean! Zein trono gora, eder, admirablean paratu bide zuen aingiru guzien gañetik bere Ama Santisima!

Irugarrena da pensatzea nola koronatu zuen Trintate Jaun poderosoak Maria Santisima dagokion korona errealareriki guzien Erregina bekala. Aitak bere alaba eskojitua, Semeak bere Ama propia, ta Espiritu Sanduak bere esposa onetsia! Erreinu gartan guziak dire errege ta erregina gloriosoak ia ezi emengo errege ta enperadoreik aundienak milla aldis, naiz ziren emen pobre humil desetxatuak. Erregeen ziudadea da ura propioki; baño norbait bear da izan buru. Ori da Jangoiko andia, errege guzien errege, ta Jaun guzien Jauna. Baña plazer izan zue paratzeas erregina ere, alako erregeri dagokiona. Au da sollik Maria Santisima guzien gañetik duena esku ta podore manatzeko, egiteko ta desegiteko nai duen bekala Zeruan, airean, lurrean, itsasoan, purgatorioan, infernuan ta Jangoikoak erreinatzen duen guzian erreinatzen du bere Amak. Alegra gaitzen gizonen jenerazio guzia, zeren jenerazio gontaik baitute kriadura guziek errege Jesu Kristo, ta Erregina Maria Santisima. Jangoikoari esker milla milla, eta Ama dibinari milla ta milla enhorabuena.

kantatu zue berak egin zelaik Jangoikoaren Ama lurrean, Magnificat anima mea etc. Ene animak bedeika ta laudatzen du ene Jauna, ta ene espiritua alegratu da ene Jangoiko ona baitan, zeren beiratu duen bere esklabo gonon humiltasuna, orra bada onengatik ditxosa deituko naute jenerazio guziek, zeren gauza andiak egintida poderoso denak. Egun kunplitu da osoki, goratu duelaik ain gora gora Jangoiko andiak bere eskojitua, bere biotzeko onetsi bakarra, bere begietan dena eder inkonparablea, bere amoreen kariño ta konplazenzia betea Maria Birjina Jangoikoaren ama propia, ta guzien erregina. Zori onean dela. Bizi bedi ta erreina bez eternidade guzian. Egun agertu da Zeruan San Juanek bere errebelazioetan zion señaile edo milagro andi gura. (Apoc. 12) andre bat errebestiturik iruzkias, bere oñen pean ilargia ta buruan korona amabi izarres. Zein ongi dagokion gala erreala, ta guzien gañetik korona! Ama, klama ta proklama bezate San Migelek ta aingiru guziek; biktorea bezate Zeruek ta izarrek, festeja bezate kriadura guziek, honra bez Trintate Jaunak paratu dionak bere eskuan bere erreinuko zetroa ta potestade guzi guzia.

Alegra gaitzen alaber, dio Elizak egun, alegra gaitzen guziok Jangoikoareki festa gontan Maria Birjinaren honratan, zeñen asunzioeas gozatzen diren aingiruak laudatus bateo Jangoikoaren Semea. Alegra gaitzen lurreko desterratuok ere, naiz ausentatu den gure negarresko balle gontaik gure Ama Santisima, baitakigu dela beraren gloriatako ta gure onerako. (Zori onean dela, o Maria. Berori da Jerusalengo gloria, Israelgo alegría, gure puebloaren honra, gloriaren gloria, munduaren esperanza, ta gizagendearen flore florea.) Erregeren konforme da erregina ere, gure lur gontaik trasplantatua Zeruan. Errege gontas zio Dabid Profetak (ps. 112): Nor gure Jangoiko Jauna bekala bizi dena gora

goraetan, ta beiratzten diotena humilei Zeruan ta lurrean? Goratus lurretik pobrea, ta loietik miserablea, paratzeko an goiti bere erreinuko prinziipe gaieki. Jenio berekoa da erregina ere, poderosa bezain piadosa, eder aberats gora goratua, baña desetxatu pobreen amazale amorosa. Ezta aldatu jenios, naiz aldatu den estados: lurrean humila ta pobreen anparoa zena, oroat da orai glorian, ta ia ere an, duelarik alaber potestade ia, ezi diones Elizak, orgatik eraman du Jangoikoak mundu gontaik, enpeña daien konfianza iagoreki beraren presenzian. Andik beira dago, ta ikusten gu pobre lurrekoen nezesidadeak, an presentatzen da Jangoikoai mintzatzen, abogatzten, eskatzen gure faboretan. Astitit Regina â dextris tuis etc. (ps. 44) zio Dabidek, paratu dela txutirik erregina Jangoikoaren eskuieko aldean urresko gala preziosos jaintsirik anitz bordaduraeki. Bordadurak bere birtute ta merejimentu exzelenteak: urresko gala bere karidade amorosoa; txutirik paratzea da sokorritzeko, ta mostratzen du abogadaren ofizioa, dio San Agustinek (ap. Claus. conc. p. 2. c. 115) Andik bialzentu bere ministroak aingiruak, ta badaki jausten bere Majestadea ere emateko limosna lurreko pobreei. Egin da gloriako erregina ta etxokandrea, izateko Jangoikoaren limosnera andia errepartitzeko abastoki ango ondasunetaik, plazer duen bekala. Badaki ori Elizak, orgatik erraten dio Salbean: Jangoikoak salba zaizala Erregina, miserikordiaren Ama etc. Zierto, da motibo konfiatzeko segurki gizon lurrekoak, baitire Zeruetako Errege ta Erregina Kristo ta Maria gizagendetik goratuak. Aski podore ta amore du Jesu Kristok faboratzeko gizonen; baña beldur bagina ellegatzeko Aita on gonengana, paratu digu ama ere, Amaren nonbreak ere ematen baitu arimo ta konfianza. Oh! Zein gogotik duen Jangoikoak guri ongi egin naia, gure salbatu naia!)

Ea bada egun da grazien eguna; ezipagara trebe eskatzera Jangoikoai aurkez aurke: beira dago etxideten Maria Santisima Erregina miserikordiaren Ama, gure bizitza, dulzetasuna ta gure esperanza, eztakiena despeitzen nior utsik ordu gaixtoan. Dei ta dei beraren atarian pobre-aintzu, ta klama Jangoikoaren izenean limosna bat. Ala nola bidean zegon itsu garrek klamatzen zuen gure Jaunari: O Jesus Dabiden semea, izan bez miserikordia nitas. (Luc. 18) erraten ziote askok zegola ixilik; baña ark ia oiui: Jesus, miserikordia nitas. Jaun Dibinoak galdegin zio: Zer nauzu in dezazuten? Ark: Jauna, ikus dezaten. Bereala erran ta egin. Itzuli zio bista perfekto. Nori baiti iduri dakioke alfer zela galdegitea zer nai zuen. Zer nai du itsuak baizik ikustea? Ezta alfer galdegitea, da misterio; ezi bada asko itsu ain itsutuak munduko miseria geben amores, ezi ansia guti baitute ellegatzeko ikustera gloriako ikustekoak, ta prinzipaleetaik bat Maria Santisima. Klama bada egun: O Maria gloriako erregina, miserikordiaren Ama, miserikordia nitas, ellega nadien ikustera Jangoikoa bere glorian, ta berorren edertasuna. Petizio andixkoa da, lurreko artto bat ta bekataria igan naia ain gora; baña gure limosnera erregina, inik dago ematera limosna andiak. Au ere emanen du, ongi eskatzen dionai. Janua coeli, Zeruko ataria deitzen du Elizak letanian, zeren Maria Santisima dela medio sarzen baitire Zeruan sarzen direnak. Dei zagun guk ere: agian idikiaraziko du guretako ere.

Baña arara baño len pasatu bear da pausu ertxisko bat lotsagarria, au da eriotzeko lanzea, lanze arrixkatua, zeintan gorputzaren neke-penak direlaik asko, deus eztire arimarenen aldean. Biziaren plazioa bete urran, guzietas kontu eman bear, Juez soberanoa beira, sarri aitu bear sententzia betirokoa, despeiturik munduko gauzak, bekatu guziak atratzen bidera, deabruak inguraka gure galdu naiak, eta obra on guti. Nork libratuko gaitu? Libratuginduzken Jauna, ura ofenditu sobra; ai nitas! O nere arima, erraten zio San Bernardok bereai, (ap. Claus. p.2. cat.c.68) Zer inen duzu atratzerakoan bizi gontaik? Nor izain duzu lagun biaje gartan? Nork defendatuko zaitu? Berorregana klamatzen dut, Ama

Santisima, erran dut, berori da ene esperanza. Ez nekie nora akuditu, zer esperatu, nola salbatu, ezpada enkomendatus naizen guziau Maria Santisimaren graziari, dio Sandu berak. (ap. Cl. p.2. Cath. c.37) kontazen da, errege inglaterrako batek xakin zuela nola bere basallo batek nai zuen ilarazi benenos. Joanzekiolarik au ematera edatera, xaiki erregek ta segitu zuela ezpata buluxiareki. Berzea laisterka iges doaielaik, fortunas sarzen da kuartoan, non baizego erregeren Ama, urtikitzen zaio oñetan; burua paratzen dio altzoan; ellegatzen da errege; goratzen du ezpata arren ilzeko. Amak erraten dio: Ene semea, barka zozu traidore goni; mereji zue iltzea; baña balia bekio amaren anparoa. Detenitu ze errege ta utzi zio bizia libre amaren atenzios. (Claus. 2. conc.c.88) Orai bada gure eriotzeko orduan ez solamente da beldurzeko Jangoikoaren justizias, baita ere deabruen persekuzioas, ta gañarako zirkunstanziak. Non altxatuko zara, arima pobrea? Elizak erakusten dizu, Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk otoitz egizu gu bekatariengatik orai ta gure eriotzeko orduan. Amen. Ditzosoa nor ere anparatzen duen Ama Santisimak!

Jesu Kristo iltzela gurutzean, inklinaturik burua, diote ebanjelariak; ta Hugo kardenaleak dio inklinatu zuela, bere Ama zegon aldera nola erran balez, onen medios eska zazie grazia, au da bekatarien errefujioa beti ere bai, baña espezialki iltzerakoan. (ap. Claus. p.2.Cath.c.68) Nik, erran zio Maria Santisimak berak Blosiori, nik zerbitzatzen didatenei ongi bizian, nai diotet asistitu ilzerakoan Ama piadosisima bekala, ta anparatu, ta konsolatu.(ibid.) Santa Brijidari alaber erran zio bere debotoen amores: Ni atrakonat zaiote bidera eriotzeko orduan, izan dezaten alibio ta konsolu tranze gartan ere.(ibid.) San Juan de Diosi zegolaik agonian izerditzen Ama Birjinak bere eskus txukatzen zitio izerdiak erraten ziola: Au da ordua, zeintan ene amazale debotoei beñere eztioteten faltatzen. (Cl.p. 2 Conc.c.37) Nork ez luke nai alako enfermera? Lograzeko da orai ongi amatzea ta zerbitzatzea. (San Pedro Armengol urkatu zute moroek, baña Ama Birjinak zazpi egunes mantenu zue bizirik urkabea, de manera ezi bere laguna joan zelaik jaustera bere ustes gorputza orzitzeko, sanduak mintzatu zio inzezola erreberenzia Ama Santisimari presente zegonai asistitzen. Memoriatako gelditu zekio lepoan señailea, ta etzeike atzen bere ongiegille soberanas, ta ezin aipa zezake nigarrik in gabe; ta nonnai zegon, Abe Maria ezkilak soñatzean belaurikatzen ze kortes; bein ugalde baten pasatzean, soñaturik, belaurikatu ze, ta urak partitu zire utzirik idor lekua txutitu arteo sandua. (flos Ss. in ej. Vit.) Señaletaik bat salbatukodirenena da izatea debozio anitz Ama Birjinai, dio Benerable Maestro Juan de Abilak (tr. 4 de la Presentacion de Maria): eztiozu? gaitz aski duzu, asko on falta zaizu. Naiago nuke egon larruik gabe, ezi Ama Birjinaren debozioik gabe. Ala ezta nior sanduetaik eztionik izan debozio Ama Birjinai, ta nior ere ez, nori eztion asistitu Ama Dibinak. Inposible da kontatzea guziak. Bizpiru solamente egungo festari dagozkionak. San Jazintok amaten zue Ama Birjina hume onak ama ona bekala. Bein bera zegon ziudadera urbildurik Tartaroak, artu zue sanduak aldareko sakramentua joateko iges. Zoeielaik ia, Ama Birjinaren imajina arrisko andi ta pizu, aldarean zegonak mintzatu zio: Jazinto ene semea, nola usten nauzu ni? Eraman nazazu zeure konpañian, ez nazaten ultrajatu emen etsaiek. Sandua exkusatzen ze pizuagatik. Erran zio imajinak: ar nazazu, ezi ene Semeak emain dizu grazia. Artu zue ta eraman zue ain arin nola kana bat, eta bateo sakramentua. Eta bere denboran errebelatu zekio eramako zuela Zerura Asunzio-egunean, zeintan ilze gorputza, despitzeareki arima ikustera festa gau glorian. San Estanislao de Kostka adinaren emeretzigarren urtean, Nobizio zelarik konpañian, ain amante Ama Birjinaren, ezi deitzen zue bere Ama Santisima, eskribiturik karta bat humeak Amari bekala eraman zezan mundu gontaik zelebrazera beraren festa gau Zeruan,

logratuzue, etorririk Ama Birjina bera, entregatzea beraren eskuetan arima jai gonen bezperan. San Esteban Ungriako errege Maria Santisimaren deboto andia eraman zue alaber Andre Dibinak bere egun gontan, zein Ungriakoek beren erregeren manamendus deitzen dute señora andiaren eguna. Baña ebek ta alakoak zire sandu, diozu. Egiada, orgatik errezibitu zute bizi onaren fruitua iltzean ongi; ta ala bada nai dugu aien ilzea, prokura zagun aien bizimodua nolapait. Eztire orgatik falta faboreak sandu etzirenei eginak Ama Santisimak lanze gartan. Zenbatei logratu diote kontrizioa garai gartako? Zenbatei konfesarazi tiote bekatuak etzustenak konfesatzen? Berak manaturik konfesoreei joateko aditzera. Ilaskeros ere kontatzen dire biztutuenak konfesatzeko, etzeizen kondena. Orai solamente nai dut kontatu demonioek erran zutena Maria Santisimas, nai etzutela bortxa. (Garcés cart. de favor. 19) Santo Domingo errosarioaren pregonari andiari ekarri ziote bein hereje bat espiritu gaixtos betea konjuratzeko. Sanduak manatu ziote Jangoikoaren ta Ama Birjinaren izenean erresponda zezotela galdegitenziotenera. Lenik, zenbat eta zergatik sartu ziren gizon gartan? errespondata zute, ezi amabortz milla. Eta zergatik mintzatu zen gaizki Ama Birjinas. Eta Ama Birjinaren debozioak ezta egia logratzentuela Jangoikoaren piedadeak? Egia da, konfesatu zute. Galdeginik berze gauza zenbait, galdegin ziote gero noren beldur ziren geienik Jangoikoas landara? Etzute erran nai, baña apareziturik an Maria Santisima, ta emanik urresko bara bateki endemoniatuati erranarazi ziote: O infernuaren enemiga, ta gure konfundizalea, zergatik jautsi da gu tormentatzeko? Ia ez dezakegu erresisti. Aizazie Kristioak: Maria Jangoikoaren Ama gorrek du podore defendazeko ta anparatzeko bere debotoak libratuak pena eternoetaik. Au da iruzkia bekala desegitentuena gure enredoak ta lakioak. Ai gutas! Naiz bortxas konfesatzen dugu nior bere deboto egiaskoetaik eztela kondenatzen, irauten badu debozioan. Beldur ia diogu, ezi Zeruko sandu guziei, zeren guziak baño poderosago baita; orgatik bere debotoak ez dezazkegu garaitu geuren indar ta astuzia guzieki. Eta geien sentitzen duguna Luzbelen lagunek da ezi beraren anparora akuditzen duten guziek konfianzareki eriotzeko orduan, logratzen baitute salbatzea, ta askotan Jangoikoaren justizia ta probidencia ordinarioas landara. Baldin Maria gonek ezpalezki urratu gure indarrak, engaña ta gal gindezake Kristiandade guzia. Eta gure pena andiareki manifestatzen dugu, perseberatzeuntenetaik alabatzen bera errosarioaren debozioareki nior ere eztela kondenatzen, zeren erdexten diote beren kulpen kontrizio, auxilio ongi konfesatzeko, ta Jangoikoaren piedadeaganik barkazio. Pregon gau eman zute Infernuko Espiritu gaixtoek gizon garren agos; eta Sanduak jendeai errezarazirik errosarioa an berean, errezatu bitartean, joan zire atras sutxinarrak eta brasak bekala pobre gartaik. Milagro goneki ura ta berze anitz hereje ta bekatari konbertitu zire. Orra ikusirik nola Maria Santisima koronaturik guzien erregina den ez solamente manatzeko leku ta gauza guzietan, baitaere piedade, grazia ta ongi egiteko guri, Aingiru ta Sandu ta Sanda guziek baño ia berak bakarrik. Ama, estima, lauda, bedeika bezate kriatura guziek Jangoikoareki bateo, ta guri digula grazia ellegatzeko ikustera bere eternidadeko glorian. Amen. Amen. Amen.

Sermo in festo Nativitatis
B. Mariae Virginis.
Aurorae mysticae

De quâ natus est Jesus, qui vocatur Christus. Math. 1.

Egungo ebanjelioan kontatutu San Mateok Jesu Kristoren jendakiaren aizinekoak, ellegatu artaño Maria Santisimagana, zeñenganik jaio ze, dio, Jesus deitzen dena Kristo. Ebanjelio gau paratu du Elizak egungo, noiz zelebratzen dugun Maria Santisima beraren jaiotzea, entenda dezagun zer ondasuna egin dion munduari Jangoikoak jaioarastean Maria, eskojitu zuena eternidadetik izateko beraren Ama propia; nolako Ama den izan zuena alako Semea; nolako planta den ekarri zuena alako fruitu bedeikatua; ta nolako aurora edo argi-astea atra duena alako iruzkia. Arrazio andiareki Elizak beterik gozos egun erraten dio: Zure jaiotzeak, o Birjina Jangoikoaren Ama, gozo ekarri du mundu guziari, ezi zureganik atra ze justiziasiko iruzki dibinoa, Kristo Jesus gure Jangoikoa, zeñek deseginik maldizioa, eman digu bedeizioa, ta desterraturik eriotzea, ekarri digu bizitza sekulakoa. (erran bazue San Gabriele, San Juan Bautistaren jaiotzean anitz alegratuko zirela, zeren sandu gau baize Kristoren alزندari ta paje bekala prebenitzeko bidea, zenbat obeki daike alegra mundu guzia Birjinaren jaiotzean, delarik Jangoikoaren Ama propia eskojitua? jaio zelaik Jesus iruzki berri dibino gura, kantatu zute aingiruek: Gloria Jangoikoai Zeruetan, ta bakea lurrean borondate oneko jendeei. Bada bere ariora egun kanta ori beroi, jaio delaik iruzki garren aurora ederra Maria.) Balego biajante bat arrapaturik gauak eremu batean, lar eta peña, eta pausu gaixto, eta baseizien arrixkoen erdian, nora joan eztakiela ilunbetan, zein triste ta lotsagarri, zein luze idurilekioken gau gura? Nola legoken ansiatzen eguna? Nola berantetsirik errepeti lezaken, noiz argituko du? Bada zer kontentua beiratzean argiastea? Ala bada gizagendea zego erreoren ta ignoranzien, ta bekatuen ilunbean, demonioen eskupean. Sekulako perdizioaren arrixkoan klamatzen zute onek: O! Noiz etorko da egun gura! Noiz iruzki dibinoa argitu bear digunak Zerurako! Egun jaio da aurora dibinoa, atzetik dakarra iruzki dibinoa, alegra gaitzen. Ta zelebratzeko bear bekala festa gau, emogun ongi-etorria salutatus Aingiruareki. Ave Maria.

Grazia, justizia ta santidade guziaren iruzkia delarik Jangoikoa, iruzki gonon aurora edo argiaren begia da Maria, zeren ezi ala nola aurora baita iruzkiaren urbilena, ta arren errañu ta erresplandore goizekoa, ala Maria da Jangoikoaren urbilena, ta arren errañu brillantea. Da Jangoikoaren Ama alako Semea dagokion bekalakoa: Semea da ia Ama baño, baño artas landara ezta nior Zeruan ta Lurrean ainberze nola Maria Jangoikoaren podore ta xakintasunaren milagro sines andia, dio San Juan Krisostomok, ta ain Jangoikoari iduritua daiken bezan bates, nola iruzkiari Aurora. Lenbiziko ikusi zuelaik San Dionisio Areopajitak, alako maneran admiratu ze, ezi ezpalez fedeak erakutsi eztela baizik Jangoiko bat, sinestatuko-emen zue Jangoiko zela Maria. Ezta Jangoiko, baño Jangoikoas landara da pensa daiken ta eztaiken gauzarik ederrena ta perfektoena. Aurora ezta iruzkia, baño artas landara da gauzarik argiena. Aurorak du zenbait propiedade, ala Mariak. Goazen beiratus.

1. Aurora argitus bekala, doazi desagertus Zeruko izarrak ageri zirenak gauas, zeren arren argia baita andiago ezi ebena. Ala Maria Santisimaren aldean eztire

konparazeko Sandu ta Aingiru guziak, zeren guziak baño sandago baita sollik Maria. Mare deitzen da latines itsasoa; itsasoan bilzen dire ur guziak, ta ezta gaingatzten itsasoa, dio Eskriturak. Ala grazia guzien ugaldeak biltzen dire Marian, dio San Buenabenturak (spec. v.c.3.) Aingiruen graziaen ugaldeak bilzen dire Marian: Marian Patriartxen, Profeten, Apostoluen grazien ugaldeak; Marian Martiren, Konfesoreen, Birjinen ugaldeak. O zein graziasko itsaso andia! Multae filiae congregaverunt sibi divitias; asko alabek, au da, kriaturek bildutuste ondasunak, dio Espiritu Sanduak, baño zuk pasatutuzu guziak. O Maria grazias betea. Ia grazia izan zue Mariak jaio zen lenbiziko puntuan, ezi sandu guziek biziaren azken egunean. En fin, ainberzekoa da Birjinaren perfekzioas, dio San Bernardok, ezi Jangoikoak sollik dezake entenda. (s.19 in Cantic.) Nauzu xakin nolakoa den Ama? dio San Lukeriok (ap. Cl. p. 2. Cat. c.53.) Ikasazu lenik nolakoa den Semea.

2. Bigarren iten duena goiz-argiak, edo aurorak da desegitea gauaren iluntasunak, ta erretirarastea baseziak, ladronak, gaizki-egilleak argiaganik iges. Gure aurora dibinoak ekarri zue argi egiaskoa argitzen duena gizon guziaz datorrenai mundu gontara; ta orai berean logratzen du argitasun biotzetarako, ezaun dezagun Jangoikoaren bidea, ta deabruaren lakioak ta astuziak. Zer litzake gutas? dio San Buenabenturak (ubi supra) Zer in gindezake oraiko biziaren ilunbe gontan, ezipagindu argi eder gau? Goiz-argia da Maria gauaren ta iruzkiaren ertean, Jangoikoaren ta gizonen ertean. Maria, dio San Bernardok (h.2.sup.missus) nai duela erran itsasoko izarra; ta dela izar noble gura Jakobenganik sortua, zeñen errañuek argitzen duten mundu guziaz, goiti ta beiti lurbarneraño. Au da, dio, izar exzelente gura itsaso gonon gañean paratua gure bearres. O zabilzana beti peligroan, ez aparta begiak izar gonon argiaganik, ezipauzu nai onda zaizen. Goratzen badire tentazioen aizeak, aurkitzen badire tribulazioen ugarriak, beira izarra, dei Maria. Baldin bekatuen geiegias turbaturik, juizioaren beldurres lotsaturik asten bazara ondatzen tristuran ta desesperazioan, beira ta dei Maria. Peligro, angustia ta dudasko gauzetan pensa Marian inboka Maria. Ez aparta agotik, ez utzi biotzetik. Nola aipatzeas solamente izen gau, doazan iges infernuko ladronak, pausuoro dire exenpluak.

3. Aurorak alaber dakar intza freskatzen ta ezatzentuen plantak. Intz espirituala da grazia auxiliantea ontzeko arimak. Eta nork eztaki Maria dela aurkitu duena grazia Jangoikoaren begietan? Bera dela grazias betea? Ala deituaskeros aingiruak, oraño ere beragana etorriko zela Espiritu Sandua, erran zio: Zertako uste duzu? dio San Bernardok. Ontako: Zegona len beterik grazias, gero zegon mukuru ta in zezan gaingas guretako; beraren abundanziatik logra dezagun guziek bear duguna, kautiboak erreskatea, eriak osasuna, tristeak konsolua, bekatariak barkazioa, Aingiruak alegria, Jangoikoak gloria. Maria, dio San Maximok (h. in ram. palm.) dela Manna ta Zeruko zebo bat dulceago eztia baño Kristio-gende guziarendako. (Zenbait aldis lasterrago iten du ongi Jangoikoak, aipatus Mariaren izena, ezi Jesus berarena, dio San Anselmok (de excelsis) bide da egiteagatik grazia bere Amari, zein guzia baita piedade ta miserikordiaren esnea. Orgatik, dio sandu berak, orgatik eskojitua izan ze eternidadetik, salba ez dezazkenak Jangoikoaren justiziak, salba dezkiene Ama Birjinaren piedadeak ta miserikordiak.) Nork konta salbatu direnak Ama on gonon medios? Nork explika nola Jangoikoak tiratzen duen beregana bekatariak ere Maria Santisimaren debozioaren zebo dulcearen medios? Nola debozio goneki azitzen dire arimak Zerurako? Nola inz goneki seguratzen ta konserbatzen den kastidadea espezialki? O aurora dibinoa, ezipalitz zuregatik, zenbat lokar leizken eriotzean, erreoren ta ignoranzien ilunbean, idatzarzeko infernuan?

4. Alaber aurorak edo goiz-argiak dakar alibio ta konsolu eriei, eta guziei, ezi nornaiendako pizuago da gaua. Maria Santisima jaio da aurora dibinoa bekala ongi egiteko eri-jenero guziei, ta espezialki ariman eri direnei. Sanduak eta Sandak kontatzen dire Abogatu señalatuak, bat jenero bateko, berze bat berze bateko; baña sandu guzien erregina Maria guzietako. Guziek baño ia podore du, ta ia amore. Zier to, Andre dibina, erraten dio San Bernardok (s.2.sup.Salve) zu beiratzzen zaitutelaik, eztut ikusten baizik miserikordia, ezi miserableengatik in zara Jangoikoaren Ama; zure ofizioa da miserikordia ta ongi egitea. Guziendako zara amable, guziendako afable, guziendako kuadrable, xakintasunaren asentua, klemenziaren ugaldea, Jangoikotasunaren errañua; ezta nior, norengana ezten ellegatzen zure ona, erraten dio sandu berak. (med. sup. Salve) Eta berriz: Nork eztu esperatuko zure baitan, fabore iten diozutelaik desesperatuei ere? (ib.) Eta berriz dio ausarki: (s.2 in Pentecostem) ixil bez zure miserikordia, barin bada nior oroitzen denik faltatu diozula bear orduan eskatuaskeros. O konfianza ditzosoa, o errefujio seguroa! dio San Anselmok, Jangoikoaren Ama ta gure Ama! Orgatik letanian deiturik Maria goizeko izarra, dio berla: Salus infirmorum, erien osasuna, ora pro nobis, otoitz egizu guregatik. Bekatarien errefujioa, aflijituen konsolazalea, otoitz egizu guregatik. Irur estado direlaik gizonarenak, bizian, iltzean ta ilondorean, dio San Bernardok, (s. de verb. Apoc.) iruretan Maria Santisimak faboratzentu bere humeak amaten dutenak bere ama bekala. Ama goni ofrezitu bear dire humeak berak, beren amek ofrezitu beartuste Ama goni jaiobañolen ere, ta jaio ondoan presentatzentutelaik tenploan ta gero maiz bizi guzian. Ama Santisima gonon debozioa bear da izan esnea, zeñeki azi bear diren humeak ariman txikizututik. Ezta aurkituko sandurik edo sandarik azi denik debozio gabe; ta ezta numeroik kontatzeko fabore egintiotenak Ama Santisimak jenero guzietan. Ilzeki dalaik Ama, nitzalaik amabi urtetakoa etc. (Santa Teresa, in vit. c.1.n.3.)

(Baña sandueri egitea eztirudi ainberze admiratzeko; aizagun bizpiru eginak debozio ziotenagatik, naiz eztauden deklaraturik sandu. Kontatzen du Aita Garzesek, (cart. de fav. 16.) zela Españan donzella debota bat errezatzen ziona errosarioa egunoro. Ze jendaki nobleetaik, ta ezkondu zute militare bateki. Gerran il ziote senarra Moroek, ta bera eraman zute kautiba, erditzeko egunetan ia. An eskriba gisa zerbitzarasten ziote beren neskatoei Jaun kruel batzuek konpasionerik gabe ia ezi balitz tzakur bat; ta gauas etzinarasten zute estrabillean animaleen ertean. Ellegatu zekio erditzeko denbora, erretiratu ze bere estrabillean. An bakarrik doloreeki, ta etxakin bere buruas zer egin, klamatzen zue suspiros ta negarres Zerura, ene Ama Santisima, miserikordiaren Ama, ez nazala desanpara. Egin bez piedade bere eskriba goneki: (ta etzitue oraño bete amasei urte, lastima iagotako.) Etzekio faltatu Ama Santisimaren piedadea. Agertu zekio, garbitu zizkio begietaik negarrak; libratu ze seme bates milagros bekala; ia gozos iten zue negar; baña berla gogoraturik etzela sazerdoterik leku gaitan bataiazeko aurra, zue pena berria. Konsolatu zue ortas ere Ama Dibinoak, zeren beraren petizios agerturik an Jesus berak sazerdote gisa bataiatu zue ta paratu zio izena Mariano. Amabitxi izan ze Maria Santisima; ta ala bataiatutik entregatu zio bere aurra Amari konsolatus, ta enkargatus pazienza ta konstanzia bere debozioan, ofreziturik libratuko zuela Jesus onak presidio gartaik. Gelditu ze sana ta sendo, zein konsolaturik eta agradeziturik Maria Santisimari, eztaike pondera. Egerri-gauean bekalakoan agitu ze au; ta aurrain kuna izan ze ganbela bat, nola Belenen. Egon ze kandelera eguneraño graziak ematen, ta errosario errezatzen. Egun gontan apareziturik Jesus Dibinoak erran zio: Ea, disponi zaite atratzeko elizara kristioen gisa. Jauna, errespondatu zio ark, nola dateke, ezpada emen ez elizarik ta ez sazerdoterik

errateko meza? Nik, erran zio, ermako zaitut eliza eder batera, non ikusiko baituzu gauza miragarriak: segi nazazu. Atra ze bere aurrareki besotan Jesusen atzetik, ta bereala aurkitu ze eliza andi baten atarietan. Atra zekizkio errezipitza Santa Ana ta Santa Maria Magdalena, zeñek arturik eskutik kidatu zute Zeruraño. An errezipitu zue amorosoki Maria Santisimak; eman zio bere eskua, ta eraman zue aldare nausira, non Jesu Kristok zelebratu zue meza Pontifikal. Ofertoriokoan ofrara zio kandela bat, ta gero komekatu zire Maria Santisima ta bera gure Jaunaren eskutik. Nork pondera arima garren konsolazioa? Ondorean akonpañatu zue Ama Santisimak atariraño; an despeitu zue kariño andiareki exortatus segi zezala errosarioaren debozioan, ta berla aurkituko zela libre. De repente aurkitu ze Santiagoko elizaren erdian, baize bere sortuerria. Bizitu ze gerostik erretiraturik beti, ta paraturik gogoia Zeruan; ta ilzerakoan asistitu zio presente Maria Santisimak, ta eraman zue arima Zerura. Bere semea Mariano alako Amabitxiaren xaxia bekala bizitu ze sanduki agitz deboto Ama Birjinaren ta izan zue gisa berean fin ditxosoa.)

(kontatzen du alaber artzaiesa pobre bates okupatzen zenas goardatzen zenbait ardi, zezaken guzian erretiratzen zela hermita batera, non baize Ama Birjinaren imajina bat ez bear bezain dezente adornaturik (ib.c.20.) Pena zue pobreak ikustas ain pobre imajina gura, nailuke adornatu, baña etzue zereki. Iten zuena ze erreztatzea errosarioak agitz gogotik. O gloriako erregiña, erraten zio, nik al banezake adornatu nola nauten, in nezake, baña pobrea naiz, ta ez dezoket berzerik egin, baizik ofrezitu errosario gebek ene afekto guziareki. Ala enpleatu ze zenbait urtes; ilzeko eritasunak artu zuelarik, pasatzen zire biajes ermita gartaik bi errelijioso: bata gelditu ze atarian deskansatzen; berzea aratxago arbola baten pean erreztatzen. Bereala ikusi zue

etorzen birjina gloriosoen prozesio eder bat: eldu zire biranaka, ellegatu zire ura zegon lekura, ta egin ziote diosalea. Prinzipalen eldu zena erreina-gisa koronaturik, zego manto eder bateki adornaturik arrosa txuris ta gorris. Galdegin zio humil errelijiosoak nor zen? ta zer gisas akonpañamentu luzitu gura? errespondatu zio: Naiz Jangoikoaren Ama ta zuen Abogada; ene akonpañatzen eldu direnak dire gloriako birjinak. Goazi erritto gortara ene deboto batengana, zeñek bere errosario ta Abe Marieki indida manto ta korona gau. Au erran ta desapareztu zen. Ta errelijiosoa joan ze erratera lagunai, zein aurkitu zue oroit informaturik pasatzen zenas. Biak joan zire prisaka urbilen errira, ta ezin aurkiturik eri billatzen zutena, atra zire ia, ta atratzean gizon batek kidatu zitue etxola erdi-urratu batera, non aurkitu zute pobre gura, ez pobre, zeren, naiz agotzeskoa zuen bururdikoa, aldakan zegokio Maria Santisima asistitzen amorosoki, ta zeukana eskuan prebeniturik korona loresko bat koronatzeko despeitu orduko arima. Aituzuste alaber aingiruen musikak, zeñen bitartean despeiturik arima ditxosa gura eraman zue gloriara bereki Ama Santisimak.) berze bat kontatzen du (ib.c.20.SS.3). Artxaiko pobretto bates Tarazonako obispadoan, zein gauero itzulzen ze amareki erreztatus errosarioa. Amak enkargatzen zio balia zeila debozio gontas edozein bearretan. Amirur urte zituelaik, aurkitu ze mutikoa bere andieki desertu batean gauera urbil, arrapatu zuelaik tenpestade ta ar-erauntsi andi batek. Barraiatu zekio saldoa, ta bera erretiratu ze peña baten pean; ta an erreztatu zue bere errosarioa. Aterturik tenpestadea gelditu ze gaua agitz ilun. Alaere atra ze bere ardien billa ezin deus ikusis. Ibilis ibilis zoeie ia ia erorzeria peña batzuk bera, eman bazue pausu bat alzina. Apareztu zekio inguraturik argitasunes Ama Santisima: Nora zoazi? erran zio ark, bere ardien billa zoeiela. Orduan Ama Santisimak, etzaitela afliji, ezta galduko; biar egun argis aurkitukouzu. Orai zato, zaude etxola gontan biar arteo. Gelditu ze an lo; biramonean ikusi zue saldo guzia aldakan; ta arriturik nai zio eman graziak bere ongiegilleai; baña

etzue aurkitu etxolain erretoik ere; ta ezaundurik Ama Birjina zela in ziona faborea,
aumentatu zue debozioa errezazeko errosarioa. Eta guk ikasagun amatzen ta lograzen
aurora eder gau, lograzekos iruzki dibinoa ikustea bere glorian. Amen.

Sermo pro confraternitate
Santisimi Rosarii Beatae Mariae.
De eo

In psalterio decem chordarum psallite illi. Psalm. 32.

Ainberze da Elizak Maria Santisimari dion amore ta estimazioa, dakielarik ortas duela plazer Jangoikoak, ezi numeroik eztuten bekala bere patrona ta Ama Santisimak inikako faboreek, dire alaber ezin kontaala Elizak berari egition demonstrazioak beti, utzizionaskeros Jesu Kristok ilzerakoan bere Amatako. Ecce mater tua. Ala noranai ellega daien Jesu Kristoren fedea, atzetik doaie Ama Birjinaren debozioa. Meza Sanduan zenbat aldis aipatzen da Maria, ta egiten da beras memoria honra andiareki? Ofizio dibinoan alaber maiz iten zaio orazio, espezialki asterakoan ta akabanzan. Beraren imajinak dauzki honraturik tenplo guzietan, asko aparezituak ta milagroskoak; ta Elizaren intenzios ezlitzake etxe kristorik, ta guti bide da, Maria Santisimaren imajinaik gabe. Tenploak fabrikatuak ta konsagratuak beraren honratan dire aunitz ta aunitz munduan. Denboraetaik beñik bein asteoro konsagratu dio larunbata; egunoro goizean, egerdian ta arratsean soñatzen dire ezkilak salutatzeke Maria Santisima. Urteas zelebratzentu beraren anitz festa: Konzepzioa, Jaiotzea, Presentazioa, Desposorioak, Anunziatioa, Bisitazioa, Expektazioa, Purifikazioa, Doloreak, Asunzioa, ta berze asko en emenka. Bada orazio-gisak, prozesioak, kankak, letaniak ta berze memoriak nork konta?) Guzien ertean errosarioaren festa paratu zue Sastallaren lenbiziko igandean, zeren Maria Santisimaren interzesios erdetxizen biktoria andi bat Lepantoko itsasoan turkoen kontra San Pio Kintoren denboran, ta egun artan berean, zeintan errosarioaren kofrakideek egiten zuten prozesio solemnea kantatus errosarioa. Baña errosarioaren debozio gau da guzien famatuena, ta ontas nai dut orai emen zerbait notizia. Saluta zagun lenik Maria Santisima. Ave Maria.

Praepositio Rosarii Auctor quis, quid et quales fructus eius.

Errosarioa, itzak diones, da nola arrosadia, au da, Ama Birjinai bere gustoko arrosa espiritualees, azuzenes eta lorees erregalatzea bekala arramilleta edo korona. Bere zenbait debotoei paratzen ziotenei imajinetan lorees koronak, bere Majestadeak erakutsi diote naiagotuela berze lore misterioso gebek, ta ikusi ere da, errezatzerakoan errosarioa, atratzen azuzena ta arrosen idurian Aitagureak ta Abe Mariak koronatzeko Maria Santisima. Len lenbiziko inbentatu zituena joaten bagara billa, aurkituko dugu dela Jangoikoa; ezi Aita gurea inbentatu ta erran zue bere ago sanduas Jesu Kristok Jangoiko ta gizon egiaskoak. Abe Maria berriz parte erran zue San Gabriel aingiruak, parte Santa Isabelek, parte Eliza Ama Sandak; guziek ordea Jangoikoaren ordes ta inspirazio. Autore grabeek diote usatzen zela ia Elizaren prinsipioetan errosarioa; gero desertuetako Monje ta Anakoreta Sanduek; andik itzuli zute ziudadeetara San Agustinek, San Jeronimok, San Ambrosiok eta Inghaterran prinsipalki Beda benereak. Baña oraiko forman ta formalidadean errosarioa nork lenik inbentatu, ta predikatu zuen Maria Santisimaren manamendus izan ze Santo Domingo Guzman, beraren biotzeko sandua. Franziaoko Tolosan, ta inguru gaietan hereje arima gaixtoek barratu zute Ama Birjinaren agrabiotan

herejia berri bat ziotela, etzela jaio Jesu Kristo Maria Birjinaganik, edo etzela gelditu Ama Birjin erdiaskeros; Jangoikoaren ta bere amaren inspirazioa atra ze Santo Domingo aien kontra; eta nola aiek agrabiatzen zuten gloriako erregina, sanduak injeniatu zue ordañas bekala honra zezaten kristioek kantatus ta erreztatus errosarioa; eta onen medios Jangoikoak orduan obratu zue ainberze milagro, ta obratutu gerostik ere, ezi ezpaita numeroik. (Bat izan ze, ezi bildurik egun milla hereje kristioen kontra, sanduaren konsejus Simon de Monforte atra ze milla oñeskoeki, ta zorzitan egun zaldiskoeki, lenik konfesa-komekaturik; eta urratu zute jendetza gura guzia, ilik armas ogei milla, ta berze asko itorik ugaldean; ta kristioetaik etzire faltatu baizik sei edo zazpi soldado. Orreki, ta berze anitz milagroeki, bere prediku, orazio, negar ta penitenziaeki, ta Jangoikoaren graziareki iragazi zitue egun milla arima Jangoikoaindako.

Baña itzulis asuntora.) Errosario osoa da amar Abe Maria amaborz aldiz erreztatzea, ta amar bakotxain alzinean Aita gurea. Edo egun ta berrogeitamar Abe Maria ta amaborz Aita gurea, erran dugun gisan. Partitzen da irur partetan, au da, irur berrogeitamartan borz Aita gureareki; eta ala guk erreztatzen duguna komunki, borz amarrekoea, ezta baizik errosario-parte bat, edo errosario txipi bat. Alaber iruretan partitzen dire meditatzeako misterioak, gozosoak, dolorosoak ta gloriosoak. Misterio gozosoak dire: 1^a. Jesu Kristoren enkarnazioa Ama Birjinaren entraña sanduetan. 2^a. Ama Birjinaren bisitazioa Santa Isabeli. 3^a. Jesusen jaiotzea. 4^a. Ama Birjinaren purifikazioa, edo aur dibinoaren presentazioa tenploan. Ta 5^a. Aurkitzea tenploan mutiko dibinoa galdu zekiolaik. Misterio doloreskoak dire: 1^a. Jesu Kristoren orazioa ta agonia Jetsemaniko baratzean pasio-alzinean, ta preso arzea. 2^a. Beraren azotatzeta loturik kolumnan. 3^a. Aranzees koronatzeta. 4^a. Gurutzeta soñean eramatea Kalbariorako bidean. Ta 5^a. Gurukufikatzea ta iltzea gurutzikaturik. Misterio gloriosoak dire: 1^a. Jesu Kristoren erresuzitatzeta. 2^a. Beraren igatea Zerura. 3^a. Espiritu Sanduaren etorzea Apostoluengana. 4^a. Maria Santisimaren iltzea ta igatea Zerura. Ta 5^a. Beraren koronatzeta guzien erregina. Gisa gontan bordaturik, Aita gureak ta Abe Mariak misterio gaien memoriareki dire munduko lore, azuzena, ta arrosa guzien arramilleta, ginalda, ta korona guziak baño kuadrableago Ama Birjinari, ta bateo Jesu Kristori ta Jangoikoari.

6^a. Deitzen ere da errosarioa Psalterio Marianoa, edo Maria Santisimarena, Dabiden psalmoen gisara, ezi Dabid errege sanduak konpondu zitue egun ta berrogeitamar psalmo, ta kantatzen zitue amar kuerdatako psalterioan, orai usatzen direnak ofizio dibinoetan. Berze psalterio gau konponzen da egun ta berrogeitamar Abe Maries, ta berexten da Aitagureareki amarres amar. Zein kuadrable zaion musika gau Ama Santisimari ta Jangoikoari eztaike pondera. Akonpañatzen gaitutela aingiruek errezazerakoan errosarioa da egia proguata; ta iges doazila espiritu gaixtoak soñu goneki. Balak eta saetak dire aiendako Abe Mariak. Saul erregea inkietatzen zue espiriu gaixtoak. Erremedioa ze soñatzea Dabidek zitara arren presenzian; orreki alibiatzen ze Saul. Zitara obeagokoa da errosarioa, au soñatu bitartean dela elizan, dela etxean, dela karrikan, dela kanpoan, eztute an itekorik deabruiek. Ia dena, Jangoikoa bera dagolarik asarre palakatzen da soñu goneki. Zizeron abogatu famatuas kontatzen da mintzatu bear zuela gizo baten fabore. Juezak artu zue erresoluzio kondenatzeko gizon gura, nai zuen guzia erran zezan abogatuak. Ortako joan ze konsejura zeramala firmaturik sentenzia eskuan. Baña abogatuaren arrazio ta mintzaera eleganteak ala desengañatu ta xoratu zue, ezi bitartean erori zekio eskutik sentenzia, ta kondenazioaren partes segitu ze barkazioa. Munduaren kontra zego asarre Jangoikoa ta armaturik irur lanzas eskuan kastigatzeko. Enpeñatu ze

Maria Santisima eskatus miserikordia ta paratus fiadore-gisa Santo Domingo ta San Franzisko erremediatzeko mundua. Bereala palakatu ze Juez soberanoa; ta Ama Santisimak eman zio Santo Domingori enkargua predikatzeko errosarioa, erremedio eskojitua bekala, bekatarien konbertitzeko ta lograzeko barkazioa. Progratu zue sanduak milagro askoeki ezin kontaala. * Orai solamente nai dut kontatu errelijioso Kartuxo bati eginikako errebelazioa. Arratsalde bates konpletas geros zegolaik errezatzen errosarioa, eraman zue gure Jaunak espirituan Palazio andi batera, non ikusiarazi zion bere Majestadea, akonpañamentu andiareki, ta eskuieko aldean Maria Santisima. Jaun soberanoa ikusi zue armaturik susko lanzes bota naiak munduaren kontra. Aitu zue Ama Dibina erraten ziola: Ez, ene Seme maitea, ez dezazkizula galdu bekatari pobreak; emozute denbora konfesatzeko. Errespondatu zio: Ni naiz justo, ta in bear dut justizia. Eztuzu ikusten nola obratzen duen munduak? ellegatu da gaixtakeria azken puntura. Etzazula estorba justizia egitea. Erreplikatu zio Amak: Eskribiturik dago: asarratzen zarelaik, oroituko zarela miserikordias. Jaun Soberanoak orduan: Egia da, baña alakoa da oien itsutasuna, ezi ezpaitute ajolaik eskatzeas ere miserikordia. Amak: Arrazio daukazu, baña beira zazu nik eskatzen dizutela aiendako, deizen bainaiz Miserikordiaren Ama. Orduan Jaun Dibinoak: eska zazu, ene Ama, nai duzuna, ezi eztizut deus ukatuko. Ea bada, ene semea, erran zio, naiz dagon mundua beterik gaixtakerias, nik bialiko dut erremedio bat kurazeko bekatariaik nai baute ongi artu. Orai eskatzen dutena da errezatzen didatenak belauriko errosarioa bere meditazioeki eztaitzela il gaizki, ta zuk beira dezozutela piedadereki salba daitzen. Orduan Jaun Dibinoak utzirik lanzak eskutik, eman zio Amari besarka amoroso bat, ziola: O ene Ama ona, ezta arrazio ukatzea zuri deus ere. Edozein grazia nai dezazun errosarioain debotoendako, mana zazu nola nauzun. Korresponditu zio Amak kariño berareki; ta itzuli ze bere baitan errelijioso admiraturik ikusi zuenas. Biramonean aparezitu zekio Maria Santisima bera, ta manatu zio segi zezala errosarioaren debozioan, ta egin zezala berzeek ere imita zezaten. Ori predikatu ta eskribi zezala salbatzeko anitz arima bereareki bateo. Eta errain diozute, errosarioagatik tusten induljenzia anitzes landara, nik konzeditutotietela berriak errezatzeuntenei belauriko ta grazian. Eta konstante irauten dutenei debozio gontan, biziaren akabanzan emain diotet indulgenzia plenaria. Kunpli zazu nik errana, ta premiotan koronatuko zaitut gozos ta glorias. Kunplitu zue ark, erakutsis obras, itzes ta letras. Despatxatu ze grazia gau Maria Santisimaganik bere Anunziatio egunean, milla laur egun ta iruetan ogeitaemeretzi garren urtean, dakarran gisan Aita Garzes Benerableak. (cart. de favor 18 SS. 2)

Erremedio deitu zue errosarioa Maria Santisimak berak; ta aski da berak erratea. Por konsigiente nezesidade lurrekoetan ofratu Errosarioaren arrosa gebek Maria Santisimari; emanen du konbeni dena. Eritasunendako errosarioa errezeta andia. Azertatzeko estado arzean, errosarioas erdetxiko duzu argitasun: peligro, beldur ta tristuratan eutxi errosarioai. Deabruaren tentazioetan errosarioa arma propia; garaitzeko pasioneak, balia errosarioas. Logratzeko kastidadea, errosarioa belarrik obena; ilzeko ongi prenda eskojitua errosarioaren debozioa. Obligazeko Maria Santisima, erregalo ona errosarioa; ta duenak fabore Maria izanen du Jangoiko, ta eztaike ia desea.

Seguratzeko erremedio gonon ona, lenik da prokuratzea bizitzea mortalerik gabe berere: alaber da prebenitzea errezatzeko kontriziosko aktoareki; gero konsideraturik noreki mintzatzen garen, goardatzea erreberenzia, atenzio ta debozio al guzia. Alaber akonpañatzea debozio gau zenbait obsekioeki Maria Santisimaren gustotan, dela baru, dela limosna, dela konfesio ta komunione, ta espezialki da Maria Santisimaren amores

ustea zenbait okasio ta gauza, zeintara dugun afizione.) Alaber sarzea beraren kofradian, baita au ala nola listatzea beraren familian, ta beraren hume bekala. Beato Alario de aupeeri errebelatu zio Ama Birjinak, kofrakide errosariokoek dutela hermandade Zerukoeki; ta admirazen zelaik ura ortas, erran zio Ama Santisimak: Zergatik eztuzu sinestatzen Zerukoak direla errosarioko kofrakideen hermano? iten duzielaik zuek ene debotoek iteuntena Zeruan Bienabenturatuek. (Garces ib. c. 20) Berze alde zenbat ezta balio komunikazio edo partizipante izateak ainberze errosarioetan, nola errezazenbaituste kofrakide lagunek? Berze alde ainberze induljenzia, nola baita kofradia gontan, zenbat apenas ote den berze batean munduan, ezi dire ezin kontaala. Flandesen ilze emasteki bat, ta aparezitu ze bere adiskide bati eskatzera pararazi zezala errosarioaren Kofradian. Galdegin zio biziak, zergatik deseatzten zuen ori ainberze ansiareki? errespondatu zio arimak: Amaborz urte egon bear nue penatzen Purgatorioan, eta listatzeareki Kofradia gontan, libratuko naiz berla, ainberze errosario errezatzen dutenen medios kofrakideek, zeintan diren partizipante kofrakide ilak. Egin zue ark manatua, ta andik egun guti aparezitu zekio ematera graziak, zoeiela gloriara, non enkomendatuko zuen bera Jangoikoai. Kontazen du Aita Garzesek. (ib.c.44.). Baña ia da kontatzen duena berak (c. 5.) Alexandra deitzen zen bates, zein Santo Domingoren predikuen kasos sartu ze errosarioaren Kofradian, ta errezatzen zue errosarioa; baña bateo ze bana ta mundukoia; arren kasos bi mutil desafiaturik biak gelditu zire ilik. Aien aideek xakinik arren okasios izan zela desgrazia gura, il zute bera, ta zenbat errogatu zioten utzezatela konfesatzera lenik Jangoikoagatik, Mari Santisimagatik, ezin logratuzue; ta burua edekirik botatu zute butzu batera. Pasaturik zenbait egun, Jangoikoaren inspirazios ellegatu ze Santo Domingo butzu gartara, ta oiu egin zio: Alexandra, Jangoikoaren birtutes igan zaite. Istante burua paraturik butzu-pokalean konfesatu ze, ta komekatu ze, ta eman zitio graziak sanduari konseju eman zionas errezazeko errosarioa ta sarzeko Kofradian, baliatu baizekio salbazioa. etc. (vide sequentia ib.) Balia gaitzen medio gontas iraun gaitzan Maria Santisimak bere hume, ta logra dezagun orai grazia, gero gloria. Amen.

Sermo in Dominica infra octavam
Nativitatis Beatae Mariae.
De hoc dulcissimo Nomine
et nomen Virginis Maria

Luc. 4. Videsis pag. 25.

Egun zebratzen du Elizak Maria Santisimaren izen dulzearen festibidadea. Biali zue, dio Ebanjelioak, biali zue San Gabriel aingirua Jangoikoak Galileako ziudade batera, deitzen baita Nazaret, birjina batengana, zein baizego desposaturik Josef deizen ze gizon bateki Dabiden etorkitik, et nomen Virginis Maria, eta Birjinaren izena Maria. Ez debalde adbertitzen du au ebanjelariak, zeren ezi Ama birjina baitan guzia da estimagarri, dulce ta amable, izena ere. Izen gau da Zerutik etorria, Jangoikoak berak erakutsia, baitaki paratzen gauza guziei izenak dagozkietenak ongi. Ala bada beraren Ama eskojitua deitzen da Maria, eta da deitzen dena. Nola izena duen, ala du izana ere. Gu komunkiro deitzen gara ez garena. Ni deitzen naiz Joakin, ta ez naiz Joakin; berze bat deitzen da Pedro ta ezta Pedro. Asko deitzen dire Maria ta eztire Maria. Orgatik Maria Santisimaren errespetos Ungrian ez omen zute permititzen nior deitzea Maria. Italian kontra, Franzian ta Españan debozios komun egin da izen andi gau. Baña sollik Maria Santisimak betetzen du izengonen signifikazioa ta birtutea. Ikusteko eta ikasteko goazen lenik salutatus aingiruareki. Ave Maria.

Ezin pensa ta ezin aipa ere daikela Maria, dio San Bernardok, (de prec. et laud) erregalatu ta amorostu gabe arima ezaunzen ta amatzen duena Ama Santisima. Baña ezaunzen ezpada, ezin ama, ta amatzen ezpada, ezin senti erregalo ta debozio dakarrana. Goazen bada ezaundus. Maria, dio San Ambrosiok, (l.5. de inst. virgin) nai duela erran, Jangoikoa ene jeneraziotik; eta ala da errealki, zeren beraren entrañetan egin ze gizon milagrosoki, beraren sabel birjinalan bestitu ze gizontasunas, beraren aragi ta odolletik ditu bere aragi ta odola gloriako errege soberanoak. Maria, dio San Buenabenturak nai duela erran itsasoa, itsaso amargoa, ta esnesko itsaso dulzea. Amargoa, dolore andi erru inmenso pasatu zituenengatik bere Seme Jaun Jesu Kristoren pasioan. Esnesko dulzea, bere jenio beratx onegi amorosoagatik guziei ongi egiteko. Itsasoa berriz bere merejimentu, birtute ta graziaen montioagatik numeroik eta neurririk gabe. Ugalde guziak sarzen dire itsasoan, grazia guzien ugaldeak, aingiruen, Patriarken, Profeten, Apostoluen, Martiren, Konfesoren, Birjinen ta Sandu guzienak biltzen dire Marian. Beira zein itsaso andia.

Maria, dio San Juan Damaskok, nai duela erran Señora, manazalea ta Erregina, ezi errealki egin zelaik Jangoikoaren Ama, egin ze gauza guzien Señora soberana, mana dezakena, egin ta desegin, nola duen plazer, leku guzietan, Zeruan, airean, lurrean, itsasoan, infernuan; ta nonnai den Jangoikoa Errege, Erregina da Maria. Maria, dio Santo Tomas Doktore aingiruak berzeeki, nai duela erran argia, eta argi-eginzalea, ezi propiki da aurora ta goizargia ekarri zuena mundura iruzki berri obena, ta dibinoa Kristo Jesus, argitzeko jendeei Zerurako bidean. Maria deitzen du Elizak letanian stella matutina, goizeko izar ederra, ta San Bernardok Maris stella, itsasoko izarra; ta agitz ongi dagokiola izen gau Birjin Amari, zeren ezi ala nola izarrak despeitzen baitu bereganik argi-erraña bere kalterik gabe, ala Birjinak argira eman zue bere seme dibinoa galdu gabe birjinidadea.

Eztio errañuak izarrai gutitzen argitasuna, ezta ere Semeak Amari bere entereza birjinala. Au da bada izar noble gura Jakobeganik sortua argitzen duena goiti ta beiti infernuetaraño. Au da izar exzelente gura paratua itsaso andi gonon gañean gure bearres, beira dezogun, dei ta eska dezogun emengo peligro, angustia, duda ta bear guzietan. (in off. Brev.)

Maria berze batzuek berexten ta explikatzen dute letras letra, borz letra dituenetan, aurkitus bakotxean beraren propiedade bat. Lenbiziko letra M, Mater, Mediatrix, au da, Ama ta Medianera, nior ez bekalakoa. Bigarren letra A, Auxiliatrix, Advocata, Auxilio ta fabore iten diguna, ta gure Abogada mintzatzen dena gure onagatik Jangoikoaren presenzian. Irugarren letra R, Restauratrix, Reconciliatrix, au da, gure erremediazalea, ta paratzen gaituena Jangoikoareki bakean, grazian ta amorean, ala nola Ama onak palakatzen duelaik Aita asarre dagona, ez dezan kastiga hume errebela, baizik admiti grazian. Laugarren letra I, Illuminatrix, Imperatrix, Invicta, au da, argi egiten diguna, ta enperadora niork garaitu ez dezakena. Azken letra A, Amatrix, au da amazale amantisima. Niork ere Zeruko sanduetaik eztigu ia amore, nola podore ere ez, Jesu Kristos landara. Jesu Kristok bere lenbiziko izenean, baita Jesus, ditu borz letra, Maria Santisimak berze bortz. Jesus salbazaleak ematen digu salbazioa. Maria bere Amak erremedioa. Ala nola, San Bernardok dio (ap. claus. p.2. Conc. c.51) Ala nola Jesu Kristok bere borz lлагаeki erremediatu duen mundua, ala Mariak borz letra dituen bere izenareki lograzen du barkazio bekatariei.

Ilzerakoan Jesus gurutzean, aldakan zego txutirik Maria Santisima, nai lukela il berareki bateo guregatik. Etze konbeni, baizik joanik Jesus, gelditu bear ze Maria gure konsolutako. Orgatik San Joani erran zio gurutzetik: Ona zure Ama; nitas landara konsolurik obena biz ene Ama Maria. Eskribitzentiziet gauza gebek, zio San Juanek gero, (1. c. 2) ez dezazien ofendi Jangoikoa; baña agiturik norbaitek ofenditzea, ez deskonfia; abogatu dugu Aitaren alzineko Jesus; eta añaditzen du emen San Anselmok, baitare Semearen alzineko bere Ama Maria. Eta zierto ezta noreki konparatu Maria, ezpada bere Seme Jaun Jesus onareki. Jesus aipatzeas ere konsolatzen da biotza. Jesuses landara Maria aipatzeas erregalatzen da arima. Ongi erran zue San Buenabenturak dela Maria Jangoikoas geros gure esperanza bakarra, post Deum sola spes nostra. Baña oraño nainuke erran nik emen zerbait gexago. Zer noaie erratera? Aita da Jesus, eta Aita ona, piadosoa ta amorosoa; guziareki humeak zerbait gaizki inaskeros ikusten dena da Aitaren beldurras akuditzea amagana. Zerbaitengatik Jangoikoak nai izan zue ez usteagatik galzera gu niolater, ustea gure Amatako bere Ama Maria. O konfianza ditzosoa! dio San Anselmok; o errefujio seguroa! Jangoikoaren Ama ta gure Ama Maria! Nork eztu konfiatuko Marian? Fiel da ia ezi Mikol. Benigna ia ezi Abisag. Dilijenta ia ezi Rut. Baliaenta ia ezi Judit. Ta miserikordiosa ia ezi Abigail. Maria.

Izen gau da gozo aingiruendako; lotsagarri deabruendako; justoendako konsolagarri; ta bekatariendako salbaziosko. Goazen ikusis. Aingiruek ekarri zute izen gau Zerutik. Izen gau zeramate bere aingiru goardiakoek estanpaturik insignia ta gala ederra bekala. Izen gonon amores aingiruek igaten ta ofratzentuste Zeruan kristioen Abemariak; eta aditzeas kantatzen edo errezatzen alegratzen dire. Kantikoen libruan galdegiten zute irur aldis: Quae est ista? Nor da au? Nor da au? Nor da au? Bada zer? Etzekite zela Maria? Bai. Bada nola daude galdes? Sandu batzuek diote, ezi admiraturik Maria Santisimaren edertasunas, grazias ta santidadeas. Baña Rikardok dio galdegitea irur aldis dela errespondazekiotengatik irur aldis izen dulce gura Maria, Maria, Maria da. Orgatik maiz errezazen dutenak errosarioa, edo kantatzen, iten diote gusto Aingiruei, eta

juntazen dire alakoen konpañian. Beira zein medio ona ekarzeko etxera Zeruko aingiruak eta bedeizioak.

Kontra berriz aingiru gaixtoendako, zein baitire deabruak, lotsagarri da guziz Maria Santisimaren izena; eztuzu alako artilleriarik, alako bala ta bonbarik aien kontra. Beren enemiga deitzen dute Maria; ezin dezakete erresisti beraren presenzia, ezeta izena aipatzea ere. Xakina da nola Saul trabajaten zuen espiritu gaixtoak; erremedioa ze soñatzea Dabidek arpa edo zitara; oneki desterratzen ze Espiritu gaixto gura. Psalterio gark signifikatzen du Maria Santisimaren psalterioa, au da errosarioa, konponzen baita egun ta berrogeitamar Abe Marias, nola ura egun ta berrogeitamar psalmos. Soñu gontara eztaike erresisti espiritu gaixtoa, bereala doaie iges. Jeriko deitzen zen ziudade garren murallak erori zire solamente soñarasteareki Josuek tronpetak. Infernuko atariak ikaratzen, arritzen, trastornazen dire soñatus Mariaren salutazioa. Papagaio bati erakutsi ziote erraten Abe Maria; nornai ikus zezan sarzen kuartoan, edo pasazen karrikan, bereala Abe Maria, Abe Maria. Agitu ze bein ustea idikirik kaiolaren ataria. Atra ze kanpora, ta bereala arrapatu zue txorixa zaleak, ta bazema atzaparretan airean gora. Kostunbre zuenaren gisa erran zue Abe Maria; ta gauza admirablea! Istantean erori ze xorixanzalea lerturik; ta gelditu ze papagaioa libre, (Klaus. Barron etc.) erakusteko guri honratzen Maria Santisima, erranes Abe Maria, nonnai sarzen garen, ta aurkitzen dugun. O zein kostunbre ona au! Baña oraiko presumituak beldur naiz alketzen diren errateas Abe Maria. Kuidado, eztaien alketu Maria Santisima ere alakoes! Jesu Kristok bentzait erran zue expreso, nor ere alketzen den nitas ta nere itzes, artas alketuko da Birjinaren Semea datorrela bere Majestadean (Luc. 9). Bada bekatuen peligroan inbokatzea Maria duzu erremedio bat exzelentea garaizeko tentazioak ta tentazaleak. Lagun gaixto batek, sorgin endemoniatuak eramane zue bereki bat desertu batera, non iten zioten deabruari anitz festa ta erreberenzia. Lenbizikoa ze ofrezitzea bere arima. Ofrezitu zio ark ere; baña fite urrikiturik, ta tristuras beterik aien danza, triska ta irri-abarren erdian, oroiturik Ama Birjinas erran zue suspiro bateki: O Maria Santisima. Aipatu zueneko, iges inzute andik guzi guziek instantean; ta gelditu ze bakarrik, ta itzuli ze graziak emanen Ama Birjinai konfesatzera bere kulpala baño len.

Justoendako dela konsolagarri Maria aipatzea ere, erran bezate biotzek konsolatzen baitire Ama on goneki. Beraren debozioa da esnea ta eztia bekala, zeñeki azizen duten esperanza gozoa, Zerurako direla. Beren trabaju, tristura ta aflikzioetan Maria da, nori klamatzen ta akuditzen duten lasterka, nola humeak amagana lotsamenturan. Infinitio bat exenplu da; bates oroitzen naiz orai, San Franzisko de Sales mutikoa zelarik ofrezitu zio Maria Santisimari kastidadea botos. Agitz ederra ze ariman bekala, idurian ere; orgatik asko maneras tentatu zute lagun gaixtoek, ta emastekiek deabruak bateo; baña guzietaik atra ze triunfante. Deabruak egin zio gerra berze alde batetik, paratu zio gogoan, ezpazego Jangoikoas arren salbatzea, etzeikela salba, debalde zela. Kabilazio goneki galdurik loa, apetitua, gusto guzia, zoeie konsumitus kolore gaizturik ta desfiguraturik gizagaizoa. Etziokete kuratu gaitza lurreko medikuek; billatu zue nork kuratu. Bein Ama Birjinaren presenzian urtikirik negarres eta suspiros erran zio biotz guziareki: O Maria, oroi bedi nior akuditu duenik berorregana eztela aditu sekulan izan dela desanparatua. Nik akuditzen dut. In zueneko orazio gau, sentitu zue erorzen zekizkiola gorputz guzitik ala nola eskama edo zolda batzuk; itzuli zekio biotzera alegria, aurpegira koloreak, ta guzia bete ze konsolus, ala nola kalabozotik atra balitz iruzkira.

Da ere Maria Santisimaren izena salbaziosko bekatariendako. Lenbiziko Amak,

baize Eba, galduginduza guziok. Bigarren Amak, baita Maria, salbatzen gaitu. Orgatik Aingiruak salutatzerakoan erran zio: Ave gratia plena, Agur grazias betea. Ave da Eba kontrako aldera; Ebaren kontra egiten du Mariak. Ebak ekarri zigu eriotzea, Mariak bizitza. Eba bekatuaren autora, graziaren autora Maria. Eba da noren kasos ondatu den bekatuaren dilubio unibersalean gizagendea. Maria da Noen arka salbazioskoa, nora biltzen direnak izanen dire salbo. Beldur zara egintuzun bekatuen kasos? Zoaz Maria Santisimagan; dei, suspira, klama, o Maria, o miseriardiaren Ama. Galarazi nai zaitute demonioak, munduak ta aragiak? Eskapa nola txita olloaren egalpera, o Maria goarda benaza. Suberbiak, banidadeak edo presunzioak engaňatzen zaitu? O Maria ederra, sanda andia ta humila, ez nazala desanpara. Senti duzu ira, errenkore ta odioaren sua? O Maria karidadearen Ama. Tentatua zara aragiaganik? O Maria purisima, nai badu, goardanazake garbi. Amore lurrekoak okupatu nai dizu biotza? O Maria bere parerik eztena, berori da ene amore guzia Jangoikoas geros. Nai zinduke ondu, ta etzaitute usten pasioneek? O Maria mostra bez eneki dela Ama. Eztuzu ezaunzen ta ez sentitzen ongi bekatuaren gaitzaren gaixtoak? O Maria goizeko izar ederra, argi bezada. Nai zinduke egin konfesio on bat? Akudi ala nola hume erori, zikindu ta heritu dena Amagana, o Maria o Ama ona, izan bez piedade nitas. Zeruan izarrak adiña dire salbatu direnak Maria Santisima dela medio, ezperen galduko zirenak sekulakos. Nola nik kontatu guziak? Ez erdiak ere? Ez kuartoa ere? Memoriatako biz Santa Maria ejipziaka bat. Ze emasteki galdua ta galzalea. Gurutze sanduaren egunean zoezi jendeak Jerusalengo tenplora adoratzer; joan ze ura ere beterik banidades erakustera bere burua. Ia sarzerakoan tenploan, detenituzue Jangoikoaren eskuak atarian. Prosegitzen zue sartu naiak, ta ezin; iten zue indar, debalde. Ia porfia, debalde. Akorritu ze, ta ezaun duzue Jangoikoaren abisu gura, nola zen indigna. Zer inen du? Goratzentu begiak Maria Santisimaren imajina batera, o Maria, klamatzen du; o Maria miseriardiaren Ama, egin bez eneki oraingoan, ezi aldatuko dut bizimodua. Istante sentitu ze libre sarzeko tenploan; sartu ze, ta asi ze negarres; ta atrarik andik joan ze desertu batera segitzeko penitenzian akabatu arteo bizia, sarzeko glorian ia eginik sanda. Esker Maria Santisimari. O Maria, izenaren konforme du izana. Et nomen Virginis Maria, Birjinaren izena Maria, Jangoikoaren Ama, ta Señora, ta itsasoa, ta itsasoko izarra, argi eginzalea; MARIA, medianera, abogada, remediazalea, inbenziblea ta ama amablea, amantea amorosa, aingiruei gozo ematen diotena, infernukoei beldur ta lotsa, justoei konsolu, bekatariei barkazio eta guziei bere deboto direnei Jangoikoaren grazia emen, ta an gloria betikos. Amen.

Sermo in festo
omnium Sanctorum.
De vita aeternâ

Vidi turbam magnam, quam dinumerare nemo poterat. Apoc. 7

Egun zebratzen du Elizak sandu guzien festa, zeren ainberze dire sanduak Paraisoan, ezi naiz zebraturik urteas egunoro banaka, ta naiz egunka, ta millaka, eztire aski egun guziak guzien zebratzeko, zeren San Bizente Ferrerek diones diola San Jeronimok, atra zuenak ongi kontua, solamente martiretaik zebrabaleites egunoro borz milla, naiz ez sarturik Patriarkak, Profetak, Apostoluak, Konfesoreak, Birjinak ta gañarakoak, ezlirazkela aski izanen urteasko egunak. Orgatik bada egun zebratzentugu bateo Zeruan diren Aingiru, Sandu ta Sanda bienabenturatu, ditzoso, zori oneko ta jenero guzietakoak Jangoikoaren konpañian; ta arrazio andia da ortako dio sanduak, ezi an Zeruan iten bada festa aingirueki, penitencia iten duelaik emen bekatari batek, dion bekala Jesu Kristok, (Luc. 15.), arrazio da zebratzea guk lurrekoek Zerukoan, Jangoikoaren eskojitu fortunoso gaien ditxa ta gloria, deitzen dena bienabenturanza eternoa, ta bizitza sekulakoa, baita gizonaren azken fina, ta Kredoaren azken itza; bizitza sekulakoa zer nai du erran? Oraiko bizi gonon ondorean badela berze bizitza bat betirokoa, edo Jangoikoaren grazian ilzen direnak biziko direla secula seculorum Zeruko glorian, kontra berriz desgrazian ilzen direnak biziko direla infernuko penetan secula seculorum; baña bizitza lotsagarri zori gaixtoko gau Elizak eztu deitzen bizitza, baizik perdizioa ta eriotze perpetuoa, eskatzen duelaik litanian, â morte perpetuâ libera nos, Domine. Eriotze perpetuotik libra gaitza, Jauna. Ontaik librazeko ta ura logratzeko, bear delarik lenik Jangoikoaren grazia, ta gero geuren diliencia, emagun zerbait notizia bizi-ondorekoas. Jauna, nior ezta etorzen andik ango berri kontatzera, diozu, baña engañatzen zara, ezi asko etorri dire Zerutik ta Purgatoriotik, ta Infernutik ere bai adiarastera biziei ilen suerteak, ta guzien gañetik Jesu Kristok Jangoiko ta gizon denak, ta Zerutik jautsi zenak eman digu ango berri abasto salbatu naies gu. Goazen errepasatus; lenik saluta zagun Ama Birjina. Ave Maria.

Zori onekoak logratu dutenak bizitza sekulakoa glorian, zori gaixtokoak erori direnak infernuan. Gurea dago ikusteko oraño; oraño gaude bi suerte goien erdian; zeintarako ote gara? Zazpi milla urte du ia ia, badirela jendeak munduan; beti joan dire iles iles ta joanes emendik, ta baratu dire batzuk an goiti Zeruan, berze batzuk beiti Infernuan betikos; gu ere bagoazi joanes. Non baratukote gara? O bizitza sekulakoa! pensa baledi ongi, ezgindeizke deskuida; ezgindeizke bizi bizi garen bekala oraiko oraiko solamente, baizik geroko geroko; ez ginduke ainberze ajola emengo joanetorries ta goraberes, baizik betiko gartas, ezi dion bekala Jesu Kristok, Quid prodest homini etc. Zer balio dio bati, naiz irabazi balez mundu guzia, galzen badu bere arima? Gauza guzietan beira fina, edo ondorekoa. Joan omen ze bat feria batean dendas denda ikusis gauzak; ellegatu ze batera, baizego ur garbi garbia, ta artan jarririk zar venerable bat. Oni galdetu zio, zer zuen salzeko? errespondatu zio: Nik saltzen dutena da xakintasuna; ikusagun, zio erostunak. Berzeak: Tori, zeure itentuzun guzietan beira fina edo ondorekoa. Eskriba zazu sententzia gau etxeko atari ta pareteetan. Joan ze ura, ta bereala eskribitu zue erran bekala. Andik egun guti etorri zekio barbera afeitatzera. Onak bitartean leitzen du sententzia gura,

iteunzun guzietan beira ondorekoa. Asten da turdizen ta detenitzen. Erreparatzen du gizonak. Zer du? erraten dio: Ark orduan: Jauna, barka bezada, konfesatzen diot egia; berorren etsaiek diru emanik eldu nitza intenzioreki ilzeko berori orai berean; baña leitzeareki sentenzia gura, iduki nau Jangoikoak bere eskutik. (Parra p.1 pl. 12) Orra emen nola batai baliatu zekion bizia, ta berzeai ere bai agian, pensatzea azken fina, edo ondorekoa.

balia dakiguke bizitza sekulakoa pensatzeas oraiko biziaren ondorekoa, ala nola ez pensatzeas agi daike galzea sekulakos. San Felipe Nerik aurkiturik mutiko bat jendaki ta injenio anditakoa, bere petxoain kontra arturik besarka erraten zio: O ene mutikottoa, orai estudiatu ta atrako zara xakintsu famatu. Eta gero? Gero errenta andiak, honrak, dignidadeak. Eta gero? Gero bearbada Obispo edo Kardenale. Eta gero? Gero agian Aita Sandu ere bai. Eta gero? Eta gero? Gero il emengo, ta an edo secula seculorum gozatu, edo secula seculorum penatu. Kontatzen du ene Santa Teresa gloriosak bere biziaren libruan, aurttoa zelarik erretiratzan zela bere anaiatto bateki leitzera Sanduen biziak; nola ikusten baintue, dio, pasatuzusten martirioak Jangoikoaagatik, iduri zekida agitz merke erosten zutela joatea gozatzera Jangoikoa, eta deseatzan nue nik gogotik ilzea ala. Lotsatzengina leitzerakoan pena ta gloria direla betikos. Ontas egotengina tratatzen elkarreki denbora andian, ta erraten, ta errepetitzen, betikos, betikos, betikos, ta konzertatu zire bi anai arrebak joateko Moro-errietara, an ebakitzeareki buruak fedeagatik seguratzeko betikoa. Obeki pensatzen zue sekulako bizian sei urtetako aurra zelaik, ezi askok sei aldis seietan. Goazen bada gu ere pensatus bizi gura.

Arren aldean emengo bizitza kontu ez deus bat dela, kontu amets bat edo figura bat pasatzen dena brebekiro, eztela bizitza egotes, baizik bidanabar, ta ostatus bekala goazelaik biajes eternidadera. Emengo on eta gaitzak pasagarri dire, angoa ezta pasatzen, zein aldetara erorzen den, an egon ta egon beti beti aldatu gabe sekulan Jangoikoa Jangoiko den bitarteo. Solamente duena emengoak da, baitezakegu ontan irabazi, betiko ongi izatea ez deskuidatzeareki, ala nola deskuidatzen bagara emen, baitezakegu galdu sekulakoa. Ezta deskuidatzeko, ezi bizi labur gontaik istante bat ere eztugu seguro, ta bizi guzia ezta baizik iltze bat kontinokoa. Kontino goaz iles iles, ta urbildus azken mugara, ta iltzea deitzen dena da akabatzea iles. Baña entenda ongi egi eta fedea, ezi ezta iltzen ta eztaik il sekulan gure arima edo espiritua. Planta, arbola ta animaleen arima aiek akabatzeareki akabatzen da, zeren aienganik duen bere izatea ta bizitza, baña gure arima razionala da espiritu bat Jangoikoak kriatua bere imajina ta semejanzara; onen bizitza ezta gorputzaganik, eztago gorputzaren menean, ta gorputza gabe bizi daike ta biziko da. Gorputzak baitu bere bizitza arimaganik, ta au atratzeareki ilzen da gorputza; baña gorputza ere ezta iltzen betikos, baizik Kredoan dion bekala aragiaren erresurrekzioa, erresuzitatuko da Jangoikoaren podores azken juizioko egunean itzultzeareki gorputz berera arima bera, akonpañazeko elkar glorian edo penan, nola akonpañatu ziren bizian ongi edo gaizki egitean. Baña arimaren erresurrekzioa ezta erraten, zeren arima ezpaita iltzen, baita inmortal. Jauna, artu dugu doktrinan bekatu mortala deitzen dela mortale, zeren iltzen duen iten duenaren arima. Nola da ori? Eztio iltze naturalas, ori baita imposible, baizik iltze sobrenatural desgraziatuas, zeren kentzen baitio Jangoikoaren grazia, baita bizitza obena, ta paratzen baitu Jangoikoaren desgrazian. Jauna, nola erraten da bada il da urlia, il da sandia, ezpada iltzen arima? Zeren berexten baita gorputzaganik arima, ta gelditzen baita ilik gorputza, ta ia persona mundu gontako oroat baita nola izan ezpalitz, aliketa azken juizioko egunean juntatu arteo elkarreki gorputz ta arima berriro, ez

berriz iltzekotan. Jauna, ta bitarteo zer iten da arimas? Nora doaie? Non dabila? Ori nai dut explikatu orai. Jangoikoaren juiziora doaie istantean ematera bere biziaren kontu, ta aitzera sententzia betirokoa. Andik doaie irur lekuetaik batera, edo Purgatoriora, edo Infernura, edo Zerura. Utzirik aur bataiatu gabe ilak, baitoaz linbora, non eztuten penarik, ezpada ez ikustea Jesus.

Ortako da xakitea gure mundu lurreko gonon barnean direla laur leku, leze edo toki fabrikatuak Jangoikoaren eskus. Bat da deitzen zena Abranen senoa, edo linboa, nora len depositatzen ziren arima sanduak, nora jautsi baize Jesu Kristo ilaskeros, an zeuden arima Patriarka Profetaen atratzera, gero berrogeigarren egunean iganik bere Majestadea Zerura igan baizitue bere konpañian. Orduraño ertxirik zeude Zeruko atariak mundukoendako, naiz sanduenak izanik ere, egon bear zute seno gartan etxideten Jesu Kristo guzien erredenptore ta salbadorea. Leku gau dago orai ia utsik. Berze lekua da erran dugun linboa, non dauden bataiatu gabe il direnen arimak, ta berze bekaturik gabe, baizik bekatu orijinala edo jaiotzeskoa Adanenganik heredatua. Berze leku edo lezea da propioki deitzen dena infernua barren barrena, baitago munduaren bola gonon biotzean, edo barneko aldearen erdian. Araraño lur gañetik dela milla berregun ta borrogeitameka leguabide, dio Agredako benerableak, (p. 2. 16. n. 1459.) eta il direnak Jangoikoaren desgrazian doaz arara istantean botatuaskeros Jangoikoaren sentenzias ala nola zentellak edo ausnarriak. Ura da ala nola Jangoikoaren justiziaren kalabozo ikaragarria, non deskargazen duen bere ira guzis poderosoak kondenatuen gañean eternidade guzian erremediorik ta esperanzarik gabe. Leku ilun triste garren horrorea, ango su bizia, ango penas, ta demonioen tormentatzea, ango kondenatuen ezin soportatzea ta errabiatzea, ai kontinokoak, ixikirituak, lamentuak, desesperazioak, konfusionea nork explika? Nork entenda? Iltzea litzake an konsolu andia; baña eriotze guziak baña pena andiagokoak, ta ezin il! Cuarto ordu bates ezin sufri daizken penak padezitzen kontino beti beti, ta ala egon ta egon, ta egon bearko eternoki! O desesperazioa! Santa Teresari erakutsi zio Jangoikoak leku gura, ta ain lotsarriturik gelditu ze Sanda, ezi eztakiela dio nola explikatu, ta asko urteren buruan oroitzeas ere ikaritzen zekizkiola pulsoak. Zer izanen da progatzea? Quis poterit habitare de vobis cum igne devorante? Nork zuetaik dezake aguanta su gura, ta pena gaiek? Eta au ezta dudasko gauza, baizik egia fedeskoa ain zierto nola den Jangoikoa; eta eztu libratzen ez sinestatu naiak, eztu libratzen ignoranziak, eztare errateak ez nue uste. Oh nola atrebizen garen ofendizera Jangoikoa! Goarda etc.

Berze lekua da deitzen dena Purgatorioa; zeren an purgatzan diren arimak. Nonnai ta nolanai dezazke purgatu Jangoikoak, baña komunkiro an iten du. Arara doaz arimak ez ain gaixtoak nola infernura doazinak, ta ez ain onak nola Zerura doazinak, baña onak ta justoak grazian joan direnak, dutenak ordea zerbait bekatu beniale barkatu gabe, edo bekatu mortale barkatuen pena zerbait pagatu gabe. An pagatzen dute padezitus su bortitza, ta ezin ikustea Jangoikoaren aurpegia bitarteo. Demonioen medios kastigatzentuela Jangoikoak diote batzuek, berze batzuek ezetz; baña zierto dena da sentitzeuntela demonioek, ta nai dutela estorbatu aien libratzea, ta sufragatzea. Bitarteo arima sanda gaiek badute zenbait konsolu ta alibio beren pena andi gaitan; bat da seguranza eztezaketela gal Jangoikoaren grazia ta ellegatuko direla ikustera bere glorian; berze bat, bialzen baitiote Jesu Kristo ta Ama Birjinak noizean noiz, espezialki egun andietan zenbait refrijerio, berze bat munduko fielen sufragioak baliatzen baizaizkiote, prinzipalki mezaren sakrifizioa, zeintan ofratzen baita Jesus salbazalea.

Zerura en fin doaz arima sandak purgatu direnak guzis edo munduan penitenziaki,

edo purgatorioan peneki, ezi den mantxarrik txipienareki eztaike sar leku eder gartan, zeintan diren grandeza, miragarri ta ondasunak ezta mirik explika dezazkenik. Ura da paraiso, korte, palazio ta errekreio prestatu duena Jangoiko andiak errege guzien erregeak gozatzeko bere eskojitueki eternidadean. Arren aldean emengo erregeen fabrikarik ederrenak kontu txinurrien kubilak, edo txorien kafiak. Lekua da goren gorena Zeru guzien gañekoa deitzen dena Enpireo, ilargi, iruzki ta izar guzien gañetik. Ain zabal andia omen da ezi itsasoko area pikor guziak, balitz ere bakotxa ain andia nola mundu gau, kabilizke guziak barnean. Ain eder miragarria, ezi emengo urre, perla ta diamanteak kontu lur puskak angoen aldean. Orain an gozatzen dena nola explika? Aisago da logratzea, ezi explikatzea. Gloria esenziala dago ikustean, konprehenditzean ta gozatzean Jangoikoan, zeñeki duten nai duten guzia, ta naieztutenik batereez eternidade guzian. Ango konpañia deseablea da lenik Jangoikoa, gero Jesu Kristo, gizon dibino gura, gero Ama Birjina, gero Aingiruen irur jerarkia, ta bedrazi koroetan errepartituak, deitzen baitire Aingiruak, Arkanjelak, Prinzipadoak, Potestasdeak, Birtuteak, Dominazioneak, Tronoak, Kerubinak ta Serafinak. Espiritu soberano gaiek ezin kontaala, ta guziak diferente, bata baño berzea ederragoa. Gero mundutik iganak Patriarkak, Profetak, Apostoluak, Martirak, etc. Gizagendearen flore florea, guziak eder glorioso, guziak Errege ta Erregina koronatuak, nor bere insignieki, Martirak espezialki, Doktoreak ta Birjinak bere aureolaeki, guziak xakintsu ia, ondasunes ta gustos beterik nauten adiña. Gorputzak ere erresuzitatuaskeros egoin dire adornaturik laur doteeki, klaridadeareki ederrago ezi iruzkia, ajilidadeareki arinago ezi pensamentua, sutilezareki, baitezazkete pasa murallak aisago ezi argiak kristalea, ta inpasibilidadeareki ezin izan penarik. An ezta miseriaik, ez eritasunik, ez naigaberik, an ezta pasatzen denboraik, guzia da egun bat klaro ederra gauik gabe; ezta an iruzki bearrik, guziak dire iruzki, ta Jangoikoak guzia betezen du bere argitasunas. An ezta inbidiarik, ez pasionerik batere, ain maite elkar guziak, nola nork bere burua. Zer izanen da tratatzea ta besarkatzea andieneki amorosoki pobrettoak, ia ez pobre? Bada ango erregaloak, ta errekreazioak, ta musikak, ta kantak, ta gustoak, ta ikusgarriak, ta gozo gozoak nork explika? Ura baita bizi ona ta sekulakoa!

Ia ene fielak arara naies galdegiten dute, ia anitz diren an admitituak, ta nolakoak? Beñik bein pobres, itsusis, eris, malderres, ta munduko desetxatu izanes ezta errehusatuko an Jangoikoak beirazen baitu solamente arimen kalidadea. Len lenak kontatzentu pobreak, diolaik: Bienabenturatuak pobreak gogotik, ezi ebena da Zeruetaiko erreinua. Ezta an munduko legea pasatzen. Eskojitutenak eternidadetik Jangoikoak, direnak direla, aiek dire ango. Diren anitz, badio San Juan ebanjelariak ikusi zuela jendetze andi bat niork ezin kontaala, Vidi turba etc. Jesu Kristok berriz dio, anitz direla deituak, baña guti eskojituak. Mear dela ataria ta ertxia bidea daramana bizitzara, baña gutik astazen dute. Nola da au? Jesu Kristok dio direla guti, ta San Joaneke direla anitz ezin kontaala. Jesusek ezin gezurrik erran, ta San Joaneke ere bear dugu sinestatu egia diola. Nola konpon daike? Ala: Dire anitz berez, baña guti dire kondenatuen aldean. Eta au da diona Jesu Kristok, anitz doazila perdiziorako bide zabalas, bide salbazioskoas guti berze gaien konparazioan, naiz diren anitz errealdadeak ala nola, dio San Bizente Ferrereke arturik eskua bete area pikor, anitz dire berez, baña guti dire itsasbasterreko area pikorren aldean. Oroat dio San Agustineke, eulzi batean granoak anitz izanik ere, guti dire agotzen ta ilaunen aldean. Granoak dire eskojituak Zerurako, agotz ta ilauna infernuko.

atra daike ere kontua idurikal arrazios ta experiencias. Zerura eztaike joan, ezpada Zerurako bideas. Bi bide erakustentigute Aita Sandueke: Inozenzia ta penitenzia. Baña biok

batera eldu dire, ezi penitentzia da pena izatea gaizki eginas, au da bidea utseginas, ta emendatzea, au da itzulzea bide zuzenera. Inozentzia da mantenitzea bataioko grazia; ontaik doazi aur bataiatuak ilzen direnak; ebek segurki doaz gloriara Jesu Kristoren merejimentus, zeñen grazia ematen zaioten bataioko sakramentuan. Orgatik aurren ilaria zelebrazten du Elizak alegiareki. Bide beras doaz bere oñes bekala adinetakoak mantenitzen dutenak lenbiziko grazia gura goardatus mandamentuak, ezi orgatik erran zekiote bataiatzerakoan: nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goarda mandamentuak. Orai bada zenbat eta zenbat ia da eztirenak bataiatuak munduan? Eta bataiatuetaik ere zenbat eta zenbat ia da eztirenak mantenitzen grazia gartan? Aski delarik bekatu mortale bat arren galzeko, ta ortako pensamentu gaixto bat konsentitzea aski delaik ta ain aisa delaik? Joan beiratus adines, estados ta jende jenero guzies. Zenbat da atzadura Jangoikoas? Zenbat ignoranzia? Zein fede guti, ta zein ila komuniki? Nornaiek daki bekatu egiten, nornai da ortako gauza ta trebe, naiz deus gutitako den gañarakoan. Pensa bekaturako inklinazioa zein fuerte! Pensa irur etsaiak Demonioa, Mundua ta Aragia zein kontino inzititzen gaizkira. Pensa zein triunfante dominatzen duten suberbiak, kodiziak, luxuriak, gulak, etc. Zein gutitto bide diren libre bizio guzietatik! Zenbat erreinatzen duen maliziak, espezialki gure denbora triste gontan! Ia beras ote dire anitz doazinak inozentziaren bideas? Klaro aski da ezetz.

gelditzen da penitentzia emendatzeko uts egina ta itzulzeko bidera. Nork pensatuko zue? San Ambrosiok, izanik Sandu Doktore ain juizioskoa, utzi zue erranik, aisago aurkitu zuela goardatu zuena inozentzia, ezi ez in zuena penitentzia bear bekala 1.2.c.10. de Ah! zenbat penitente-iduri doaz egitera konfesioa ala nola zeremonia bat ajola gutireki! Zenbat alketzen dire agertzeas bekatar beren buruak? Zenbatek konfesaturik batzuk ustentuste berze batzuk, agian larriagokoak? Zenbatek diskulpatzentuste beren buruak akusatu bearrean? Bada biotzeko pena bizi fin gura bear dena prezisoki barkazekos bekatuak erresoluzio firmeareki ez iteko berriz sekulan, zenbatetan falta da? Pena gau ezta gorputzaren pena, arimarena da, ezta preziso sentitzea, ezta ere negar egitea, baña ezaunzera ematen da. Goazen konparazio labur bateki: ilzen zaizu humea, edo adiskidea; ez ainberze. Galzen zaizu idia, mandoa, dirua. Oh zer pena! Ezta gorputzaren pena, arimarena da, baña oh nola ezaunzen duen duenak! balia bez arrazioak; bear zinduke izan ainberze pena ofendituas Jangoikoa, nola galduas idia, dirua, etc. Alke da erratea. Baña zenbatek eztute ainberze ere? Eta zenbait bada nailuketenak izan barkatuak, ta ez nai utzi bekatuak. Ortako dabilta ingura mingura, arat eta onat, billatus injenioak engañazeko beren buruak, bitarteko idukis an barnean afekto bekatura, orai ezpada, gero itzulzeko. Alako disposizioan naiz absolbiturik Aita Sanduak, anbat balio du nola garbitzea tintas. En fin, penitentzia sinaren progu obena da emendatzea; zena suber, itzulzea humil, zena luxurioso, kasto etc. Ala iten duenak konfia bez doaiela Zerura penitenziako bideas, ezperen ez fia. Ea bada guziek nai ginduke izan sanduen konpañian glorian, goazen ararako bideas, ta beti, egun espezialki, eska ta eska grazias ta limosnas, dei ta dei Jangoikoaren atarietan Jesu Kristoren amores, nobis quoque peccatoribus partem aliquam etc.

Sermo in festo Patrocinii
Beatae Mariae Virginis.
Dominica Novembris

Beatus venter, qui te portavit. Luc. De eius patrocinio.

Egun zelebratzen du Elizak Maria Santisimaren patrozinioaren festa konzeditu zuena indulgentzia plenariareki Aita Sandu Alexandro VII, Españako Errege Felipe laugarrenaren petizios, zeren progatu den beraren patrozinioa, edo anparoa, ta bere Majestadea mostratu den gure Patrona bear guzietan, espezialki gerraetan. Patrona bear bekalakoa, ta ezin ohea bere seme Jaun Jesu Kristos landara. Egungo Ebanjelioan laudazeko Jesu Kristo zegolaik predikatzen, goratu zue boza emasteki batek jendearen ertetik ziola: Ditxosoa sabela eraman zuena berori, ta bullarrak azi zutenak; baita nola erratea: Ditxosa, zori onekoa alako semearen Ama. Ala, ene fielak, laudatus Ama laudatu zue Semea, eta guk oroat, zeren Amaren honra da Semearen honra, ezi Semeagatik da Ama den bekalakoa, eta Semeagatik du duen on guzia. Egunai dagokio aipatzea Ama Santisimaren patrozinioaren ona, edo zein Patrona ona den Maria. Beraren gloria da, baña gure probetxu: lenik saluta zagon. Ave Maria.

San Juan ebanjelistak seguratzeko gure konfianza Jesu Kristoren patrozinioan ta anparoa dio: Abogatu dugu, edo patrono Aitaren alzineko Jesus bere Semea; eta San Anselmok añaaditzen du: Baitare Semearen alzineko dugu Abogada ta Patrona bere Ama. Jesus, dio San Pablok, da medianero edo bitarteko Jangoikoaren ta gizonen arteko bakar bere parerik eztuena; ala da egi eta fedea, zeren baita Jangoiko ta gizon bateo; beras imposible da aurkitzea gizonak Jangoikoaren alzineko alako mediorik, nola dena gizon ta Jangoiko. Au supositurik, ontas landara non aurkituko dugu Abogada ta Patrona obeagorik, nola beraren Ama? Ingura mundu guzia, pasa Zerura, errepasa ango Sandu ta Sanda guzien lista, beira Aingiruen errejimentuak, eztuzu aurkituko alakorik bat berere. Zer diot bat berere? Emagun enpeña daitzela guziak prozesioan, Sanduak ta Sandak, ta aingiruen bedratzi koroak alde batetik logratzeko fabore bat, berze aldetik presentatzen dela sollik Maria Santisima, diot ezi sollik Maria Santisimak obeki logra lezakela ezi guziek. Eta ontan ezta pondera zio-errestorik ere, ezi en fin aiek dire Jangoikoaren adiskideak ta zerbitzukoak, direnak direla, baña Maria da Ama ta erregina. Begira zenbat abantalla daraman guziei.

Patrono edo Patrona izateko guzis ona ta bear bekalakoa, bear du izan biotz jenerosoa, ta esku poderosoa, naut erran, bear duela izan amore ta podore, piedade ta potestade, nai dezana ta in dezakena ongi, ezi nai badu ta ezpadezake, zer balio digu? Berriz barin badezake ta ezpadu nai, zer ai gara? Maria Santisiman aurkitzen da bear den guzi guzia faltarik gabe. Du amaren biotz amoroso piadosoa, ta erreginaren esku guzis poderosoa; dezake egin, ta nai du egin ongi guzia. Sandu batzuk dauzkizie zenbait grazietako berex, ala nola terzianen sendatzeko Santa Eufemia, aginetako minaren Santa Apolonia, begietako Santa Luzia, bularretako Santa Ageda, buruko minaren San Luis Gonzaga, txintxurriko minaren San Blas, ezur ta zañen minen San Babil, San Urbano, hidropesiaren San Eutropio, ar-erauntsi ta lurreko fruituen San Pedro Martir, San Gregorio, gauza galduen San Antonio Padua, animaleen San Anton, ta ala berze asko ondasunen Patrono kontatzentuzie berze asko sandu berex, edo zeren sandu gaiek

padezitu zuten jenero gartan, edo zeren progatu den aien faborea artan, edo eztaikit nik zergatik, ezi uste nue ta uste dut Sandu edozeñek, denaskeros Jangoikoaren adiskide, duela grazia logratzeko edozein ondasun konbeni bada. Baña Maria Santisima nork errain du dela ontako edo artako, baizik guzietako? Nork paratuko dio muga, edo tasatuko dio graziaren neurri Jangoikoaren amari, ta gloriako erreginari? Berze sanduek eta sandek, eta Aingiruek logratzekos bear da izan Jangoikoaren zerbitzuko nirabe onak bekala; baña Maria Jangoikoaren etxean da etxokandra ta señora giltza guziak dituen. Trintate Jaun Poderosoak eman dio potestade guzia Zeruan ta lurrean, Aitak estimatzen du bere alaba eskojitu bakarra bekala, Semeak bere Ama propia bekala, Espiritu Sanduak bere esposa maitea bekala. Orgatik nork duen Maria ezta bear ia. Den bekala sandu guziak baño ia poderosa, dio San Agustinek, ala da ere guziak baño ia kuidadosa gure faboretan. Ezta Jangoiko Maria, baña Jangoikoarenpean Aingiru ta Sandu guzien gañetik gorena ta obena da.

Orgatik arrazioreki beren Patrona kontatzen dute estado ta jenero guzietakoek a porfia. Birjinek berea daukate, zeren baita Birjinen Birjina; ta eztakiokete ukatu; ezkonduak beretako kontatzeunte, zeren izan zen Matrimonioaren honra San Josefeki, ta daukate arrazio. Alargunek eztute nai utzi berenganik, zeren bizitu zen alargun biziaren azken zatian; ta nork para dezokete pleitu? Bada sazerdoteek dugu gloria ta sendagalla, gure Patrona ta Ama dela, zeren berak konzebitu zuena sabelean, iduki zuena besotan, azi zuena bularretan Jesus bere sabeleko fruitu bedeikatua konsagratzen baitugu aldarean ta baitamagu eskuetan; ezta ofiziorik beraren ofizioari ia iduri ta urbilzenzaionik, nola sazerdoteena. Bera Jesusen Ama, gu Ministro, bera unide, gu aurrai, gozatzen dugu berak emana eskutik eskura bekala. Zoaste orai beiratus errelijiones errelijione, guziek defendatzeunte dutela Patrona Maria, beraren mantuaren pean daudela diote guziek. Bernardoek eman ziola San Bernardori bere bularretako esne birjinala nola bere seme propiari. Dominikoek eman ziola Santo Domingori bere errosarioa eskutik eskura ta predikatzeuko enkargua. Karmeskoek berak erregalatua dutela habitua ta eskapularioa. Merzedekoek dutela beren fundadora. Franziskoek San Franzisko presentatu ziola Jangoikoi Maria Santisimak palakatzeko bere Majestadea, ta parazeko munduan erremedio. Eta gisaontan guziek alegratzeunte arrazio andieki Maria dutela Patrona. Eta zierto zierto ezta gauza onik, zeintan eztuen paratu bere eskua Mariak. Ain entremetitua da on guzietan! Ederki San Bernardok dio, ezi Jesu Kristo delarik Elizaren edo kristiandadearen gorputz gonon buru, lepoa dela Maria, zeñen medios datorkigun on guzia. Gaixtoak solamente, ta bekataria bide daude Maria Santisimaren patroziniotik apart? Admirazaiste beraren onas ta amableas: gaixtoek eta bekatariek ere, naiz utzirik Jangoikoa bekatueki, oraño ez lukete utzi nai Maria, ta apenas aurkituko da bekataririk eztionik zerbait debozio-iduri, naiz dela falsuan. Baña Maria Santisima bekalakorik ezta nior bekatariendako ere, ezi defendatzentu asko aldis Jangoikoaren iratik, berei bialzen tiote inspirazioas biotzera onzeko, ta milla modus Ama onaren gisara enpeñatzen da Aita onaren ta hume gaixtoen erdian, itzuli daitzen bakera ta graziara. Oh Maria, zer litzake giza gendeas, ezpalitz ain zabal andia berorren patrozinio ta anparoaren mantoa! Ongi San Juanek ikusi zue Zeruko señaile andi gartan. Zer señaile? Mulier amicta sole, andre bat errebestiturik iruzkias, eta bere oin petan ilargia. (Apocalipsis) Andre gau da Maria; ilargia da Eliza; iruzkia da andre gonon mantua, zeren ala nola iruzkiak edatzentuen mundu guzia barna bere errañuak ta argitasuna, ala Mariak bere anparoaren mantoa edazen du guzietara.

Baña egungo festaren okasioa izan ze espezialki, zeren gerraetan faboratu duen Maria Santisimak gure España. Nork konta fabore egintionak beti, baña berexki moroen denboran? Lenbiziko sartu zirelaik Moroak Españan jabeturik geienas persegizen zute Don Pelaio erretiratu zena Asturiasen, kueba batean, milla gizoneki, fiaturik Ama Birjinaren patrozinioan. Moroek inguratu zute, ta tiratzen ziote arri ta saeta erauntsi bat kuebara; baña o Maria Santisimaren prodijioa! Arri ta saeta guziak itzulzen zire tirazaleen kontra ta ilzenzuste berak. Ikusirik prodijioa atra zire kristioak kuebatik animoso, ta urratuzuste moroak, ta ilzuste ogei milla, ta gelditu zirenak bizirik oian batek atrarik zañetaik galdu zitue geienak. Kueba gartaik gelditu zekio memoriatako izena Santa Maria de Kobadonga. Bada Nabas Tolosako batallan, non il baizuste kristioek berregun milla moro, solamente ogeita borz kristioen eriotzeareki, deizen dena gurutzearen triunfoa, parte andia izan zue Maria Santisimak, zeñen imajinak bere presenziareki urratu zue Moroena tropa fuerteen, ta andik asi ze Kristioen Biktoria. Berze askotan ere libratutu Maria Santisimak bere kristioak; ezpada agitu guzietan, ezta Patrona dibinaren faltas, baizik edo zeren etzen konbeni, edo zeren etzuten kristioek mereji. Baña arimaren batallaetan demonioen kontra lotsagarria da nola exerzito bat ordenatua Maria bereen faboretan. Jangoikoak berak adiarazi zio infernuko serpienteari Maria Santisimaren podorea tarren kontra. Engañatu zuelaik ark Eba, ta Ebak Adan desobeditzeko Jangoikoai, erran zio serpienteari Jangoikoak: zeren in duken langoi, etsai paratuko diat emasteki bat, ark autxi ta ixtikatukodik buruoi. Nor da logratu ta logratzen duena biktoria gau, ezpada Maria Santisima? Gure bizi guzia lur gañean da gerra kontinoa, dio Job sanduak; ezpa gaitu errendizen beti, ta eroriarasten bekatuetan demonioak bere bi laguneki, munduareki ta aragiareki, nori eskerrak, ezpada Maria Santisimari? Azkenean biziaren akabanzan batalla andi baten beira gaude ta beldurak, zeren artara doaielaik guzia, ura galduas geros, sekulako galdu, ta ongi atraskeros artan, sekulakos ongi, orgatik orduan gure etsai madarikatuak xakinik ia eztuela izanen berze denboraik tentatzeko, an enpleatzentu bere indar, injenio, maña ta deabrukeria guziak galarasteko arima andik edo emendik edozein gisas, usten badiote; baña goardatukotu bereak Jesu Kristok, Aingiruek ta Sanduek; eta non dago Maria Santisima enfermera dibina? Ezta deskuidatuko seguratzeko bere debotoak. Orgatik Elizak añaditu du Abe Marian petizio gura, Santa Maria Jangoikoaren Ama, zuk otoiz egizu gu bekatariak etc. Orgatik Jesu Kristok ilzerakoan utzi zigu bere Ama gure Amatako San Juanen personan, errante ziolaik: Ecce mater tua; ona zure Ama; eta despeitu zue bere arima inklinatus burua, eta Ama zegon aldera, diote, erakusteko guri nora bear dugun akuditu ilzerakoan, nola erranbaligu, onen medios eska zazie miseriordia. Nik, erran zio Blosiori Maria Santisimak berak, nik zerbitzatzen didaten guziei nai diotet asistitu, anparatu ta konsolatu eriotzeko orduan Ama bekala. Gaste bat persegitzen zute lazki ilzerakoan Espiritu gaixtoek presentatus libru andi bat, zeintan zeuden asentaturik arren gaizki-egin guziak. Klamatzen zue pobreak Ama Santisimari, zeñek agerturik bere Semeareki besotan konsolatu zue tristea, erraten ziola: Ona nere Seme Jaunonen medios barkatuak dire zure bekatuak. Oneki desaparezitu zire espiritu gaixtoak, ta ilze alegreki eria. (ap. Claus. p. 2 Cath. c. 68.) Nork lograzen duen Ama Birjinaren patrozinioa, logratuko du grazia ta gloria.

Sermo in festo Conceptionis
Beatae Mariae Virginis.
De Privilegiis Mariae

Tota pulcra est Maria, et macula
non est in te. Ex officio Ecclesiae.

Egun zelebratzen du Elizak lenbiziko istante prezioso gura, zeintan Maria Santisima izan zen konzebitua bere amaren sabelean bekatu orijinalerik gabe, grazian ta santidadean Jangoikoaren mertxede ta pribilejio espeziales. Oraño eztu Elizak deklaratu artikulo fedeskoa bekala egia gau, baña sinestatzen du piadosoki, ta zelebratzen du alegreki; eta misterio gontan Maria Santisima dauka bere Patronatako gure Españak. Entendazeko zer den zelebratzen duguna, bear da xakin lenbiziko gure aita ta amak, Adam eta Ebak, desobeditus Jangoikoai in zutela bekatu, ta bekatu gura darraiotela aienganik datozin gizon ta emasteki guziei jenerazios. Au da deitzen dena bekatu orijinala jenerazios edo jaiotzes dakarrana eldu denak mundu gontara Adam ta Ebaren kastatik, zeñeki eztaiken sartu Zeruan, ezpada garbitzen Jesu Kristoren odolaren birtutes bataioan edo berze gisas. Ontaik libre izan zela beti Jangoikoaren Ama, ta gloriako erregina Maria Santisima, da zelebratzen duguna. Pribilejio erreal prezioso andi gau fundatzenda izatean Maria Jangoikoaren Ama eskojitua; naut erran, bere Seme Jesus Jangoiko-gizonaren atenzios goardatu zuela berex lendanik libre mantxa gartaik izan bear zena alako Semearen Ama. Orgatik egun paratzen da ebanjelio gura, noiz Jesu Kristori zegolaik predikatzen, erran zion oius emasteki batek jendearen ertetik: Zori onekoa, ditzosoa sabela, non egon zen berori, ta esne eman zioten bularrak; baita nola erratea, zori onekoa, ditzosa alako Semearen Ama. Beatus venter etc. Orgatik ere egungo ofizioan kantatzen dio Elizak Ama Santisima goni, tota pulcra es Maria etc. Guzia zara ederra, Maria, eta mantxarik ezta zure baitan. Guzia ederra len ta gero alde guzietatik; ederra gorputzean, ederra ariman, ederra jaio baño len, ederra jaioaskeros bizi guzian, ederra glorian. Goazen ikustera edertasun gau salutatus lenik Aingiruareki. Ave Maria.

Guzia ederra dela Maria Santisima. Zein ederra bide da, eskojitu zuelaik eternidadetik Jangoikoak guzia presente daukanak, denbora guzietan izanen ziren kriatura guzien artean beretako berex! Eta in zukelaik nola nai zuen, nor duda du egin zuela zeiken ederrena? Inbañolen mostratu zioten bere Aingiruei señaile batean. Zer señaile? Dio San Juan ebanjelistak (Apocal.) señaile andi bat agertu zela Zeruan, au da, emasteki bat errebestiturik iruzkias, oñen pean ilargia eta buruan korona amabi izarres. Atrazaiste, asten da itz gebeki egungo meza, atrazaiste Siongo alabak, au da, arima sandak Zerurako eskojituas ta ikusazie zeuren erregina laudatzen dutena goizeko izarrek, zeñen edertasuna admiratzen baitute iruzkiak ta ilargiak, eta zelebratzen kontentus Jangoikoaren hume guziek; asko alabek bildutuste ondasunak ta graziak, baña berorrek, Maria, guziei darama anitz abantalla, ezi Adanen humeen artean da ala nola aranzeen ertean azuzena. Deabruai ere mostratu zio, engañatu ondoan onek Eba serpientearen medios desobeditzeko Jangoikoaren mandamentua, erran baizio bere Majestadeak: Etsaitasun paratuko diat ire ta emastekiaren, ire ta arren kastaren artean. Ark txatxakatukodik ire burua. Nor da emasteki gau, ezpada Maria? Onen kasta nor, baizik Jesu Kristo? Au da bigarren Adam Zerutik etorria, Maria bigarren Eba. Borz milla ta ia urte jaioabañolen notifikatu zio triunfo iragazi

bear ziona, ta egun eman zue prinzipio.

Egun bada kriatu ta formatu zue bere esku poderosoas Jangoikoak Maria, bere Majestadeai dagokion bekalakoa, prestatus ta adornatus gorputz ta ariman gala ta grazia, dono ta pribilejio andieki. Laurara dezazkegu laburtu memeoraiindako:

1^a. Legardatzea bekatu orijinaletik, santifikatus arima gura lenbiziko instantean. Iruzkiari, in zuen bezain laster, eman zio argia. Aingiruak, Adam ta Eba izan ziren bezain laster, izanzute grazia; ala Maria Santisima izan zeneko, izan zue grazia; eta nola iruzkia etzen egon argirik gabe istante bates ere, ala Maria ere ez graziarik gabe. Etzue ukitu bekatuaren itzalak beñere. Maria ta bekatua ain daude urruti, ezi lenago argia ta itzala izain dire elkarreki. Jesu Kristok erredimitu zitue gañarakoak libratu lengo bekatuetaik, baña bere Ama Santisima goardatus etzekion ellega bekaturik. San Juan Bautista, Jeremias ta berze bat edo bat santifikatu zitue Jangoikoak amen sabeletan, jaiobañolen. Gexago ze arrazio egitea bere Ama Santisimareki, au da, ez permititzea uki zezan mantxarrik den txipienak sekulan. Guziek inzute bekatu Adanen personan; ezta guzien artean sarzen Maria, baita guzien gañetik guzien Erregina. Guziek pagatu ta pagatzen dute bekatuaren petxa maldiziosko humeak bekala. Baña libre da, ta ez petxera erregeren Ama Erregina. Guziak jenerazios izan dire deabruaren sujeto ta Jangoikoaen iraren hume, aliketa logratuartaño barkamentu Jesusen odolaren birtutes. Maria Santisima egon zela deabruari sujeta Jangoikoaren iraren hume instante bates ere, ezin dezaket sinesta, erran zuelaik Jangoikoak aspalditik, autxiko ziola onek arri burua. Dena dela gañarakoes, libre libre dire Jesus ta Maria, Errege ta Erregina; ura dretxos, au pribilejios. Etzue ez serpienteak, etzue benenatu autxi bear ziona beraí burua. Etzue ez Jangoiko andiak, etzue permititu desgrazia gura bere Ama Santisiman. Iruzki obena da Jesus, iruzki gonon aurora edo argi-astea da Maria berari iduritua garbitasunean, grazian ta Santidadean ia ezi sandu ta sanda guziak. Guzia ederra mantxarrik gabe, Jerusalengo gloria, Israelgo alegria, gizagendearen honra, on guziaren gala ta florea, lur bedekatua, libre ta sandua, Jesusen paraisoa, Jangoikoaren maite bakarra, bere Majestadearen arka dignoa, Zeru animatua, ta guzis poderosoaren obra miragarria. Bekatues tratatzen delarik eztut aipatu nai Maria, dio San Agustinek, ezi Jangoikoaren honra da bere Amaren ona.

2en. Pribilejioa libratzea bekaturako pasione, sukai ta zain gaixtotik. Gaitz gau gelditzen da bataiatuetan ere, naiz kendurik bekatua. Baña Maria Santisimak etzue izan alako bizio ta inklinazio-errestorik ere. Beraren gorputz ta arima egon ze beti ongi ordenaturik onera, inklinaziorik gabe gaitzera. Nai zuena Jangoikoak nai zue gusto andienaki Maria Santisimak, eta potentzia ta sentido guziak zegozkio obediente nai zuenera. Emendik segitzen da Pribilejio

3a. Baita konfirmatzea grazian Ama Dibina alako maneran, ezi bizi guzian etzue admititu, ta ez permititu berebaitan faltarik ez grabe ta ez leberik beñere, ez obras, ez itzes, ez pensamentus, ez omisiones, ez deskuidos ere. Eta egietafede gau eztiote solamente sanduek, dio Elizak artikulo fedeskoa bekala. (Trid. de justificatione) quemadmodum de Beata Virgine tenet Ecclesia.

4en. Pribilejioa betetzea istante gartaik grazias arima eder gura. Jangoikoaren jakintasunak prebenitzen zue etxea beretçako, sapientia aedificavit sibi domum. Bear ze izan al guzian conforme. Doktoreek diote izan zuela lenbiziko instantean ia grazia, ezi Aingiru ta Sandu guziek beren azken perfekzioan. Fundamenta eius in montibus sanctis ps. 86. Beraren zimenduak oian sanduen gañean; zerengatik non akabatzeunten sanduek, andik asten da Maria Santisima. Diligit Dominus portas Sion etc. Gure Jaunak

estimatzentu Siongo atariak, au da, Maria Santisimaren prinsipioak, Jakoben palazio guzien gañetik. Da, zeren Maria Santisima zen eskojitua Jesusen palazio, tenplo ta sagrariotako. Salomon Erregeak fabrikatu zuenak Jerusalemgo tenplo famatu gura, manatu zue paratzeko zimenduan arri prezioso andi batzuk, lapides grandes, lapides pretiosos (3. Reg. 5) Dirudi zela prudenzia-guti, ta galzera botatzea ainberze tesoro, bear zutelaik egon lur-pean. Etze oroat berze edozein arri komun zimendutako? Ez, zeren tenplo gark signifikaetzen zue Maria Santisima; arren zimenduak Maria Santisimaren konzepzioa ta prinsipioa bere Amaren sabelean; arri prezioso gaiek Maria Santisimaren grazia eder preziosoa bere konzepzioaren lenbiziko instantean.

Jangoiko andiak kriotzeko Zeruak, lurra, aingiru, gizon ta gauza guziak lenbiziko ideatu zuena bere estimazioan izan ze Jesu Kristo gizon dibino gura, dena Jangoiko batean; urbilena bere Ama Santisima; eta ala kriotura puro direnetaik Maria da lenbizikoa, eta guzien gañetik bete zue grazias, ala nola Jesu Kristo bere ariora, dio San Geronimok (in lect. officii hod.). Orgatik egungo epistolan Elizak paratzentu Maria Santisimaren agoan xakintasunaren itz gaiek (Eccli. 24): Ni atra nitza Jaun gorenaren agotik len lenbiziko sortua kriotura guzien alzinean. Nik jaiotarazi nue Zerueta argi betirokoa. Nik pueblo ta jende guzietan daramat abantalla. Eta berze gaiek: (Prov. 8.) Jauna jabetu ze nitas bere bideen prinsipioan in baño len gauzarik. Eternidadetik naiz prebenitua, in baño len mundua. Oraño etzire abismoak, eta ni konzebiturik nindego, entenda, Jangoikoaren biotzean. Errege len, urbilena Erregina. Errege Jesu Kristo, erregina Maria Santisima. Ala ikusi zue Dabidek Erregina gau Erregeren eskuietako aldean urresko galareki, ta berze anitz bordadura, flore ta adornueki alde guzietatik. (Astitit Regina â dextr. ps. 44.) adornu gebek dire beraren birtute, dono ta grazia-jenero guziak; gala urreskoa karidadearen ta amore fin gura, zeñeki amatu zuen sollik Jangoikoa: zinto erreala, zeñeki erregalatu zuen egun Jangoikoak garbitasun edo pureza inkonparable gura, zeñen kasos beñere etzuen, eztiot konsentitu, ez eta ere sentitu ez gorputzean ta ez ariman tentazio-errestorik kontra.

Bekatu orijinale jaiotzes guziek dakargunaren efekto ta dañu prinzipalena da aragiaren bizio ta desordenazioa, deitzen dena bekatuaren legea ta sukaia. Ontas kutsaturik dago gizagende guzia; ta ez galzekos bear da eskatu Jangoikoai ta peleatu kontino errepugnatus. Kutsu gontaik libre izan ze Jesu Kristo, zeren konzebitua izan zen Maria Santisimaren entrañetan Espiritu Sanduaren birtutes; eta Maria Santisima ere bai, zeren beraren Ama Birjin izan bear zenagatik, Jangoikoaren grazias izan zen konzebitua bekatu orijinalaren mantxarrik gabe. Atra daike kontua emendik, zein preziosoa bideden kastidadearen birtutea Jangoikoaren begietan. Baña prezioso bekala da ere kostoso; ta orgatik ain txur ta eskas aurkitzen da mundu gaixto gontan. Logratzeko tesoro ta lore eder gau (ezpaitakar gure lur gonek, ezpadator Zerutik) lenbiziko medioa da kentzea sukaia, apartatus begiak, adimentua, pensamentua ta bera den guzia luxuriaren zebo ta bideetaik, ezi kutsa daike ez solamente tratatus, baitaere ikusis, aitus ta pensatus; eta eztena goarzen, eztaike libra, ezpada milagros; eta bere aldetik in nai ezpadu batek, ezta arrazio libratzea Jangoikoak milagros. Artas landara berze asko medio ta erremedio bada; baña bi prinzipalak, bi debozio gebek, Jesu Kristori bere sakramentuan ta Maria Santisimari bere konzepzio garbian. Orgatik kastidadearen ta errelijionearen etsai madarikatu garrek, Lutero herejeen gaixtoenak erraten zue: Festa bakotxik ere eztut ala aborrezitzen, nola konzepzioaren ta Korpus Kristiarena. Zergatik ote? Zeren nola bera baize luxuriaren urdazai, ikusirik debozio geben medios asko erremediatzen direla; ori ze erremedioa, orgatik zue oposizioa. Baña ori beroi bear da izan desengañu kristioari, arzeko debozio,

sakramentuari lenik, gero Ama Birjinai bere konzepzio garbian, señaile medio ona dela bizizeko garbi ta kasto, ziolarik alako oposizioa aragisko deabru garrek. Andaluziako Apostolu Juan de Abila benerableak agitz enkargatzen zioten aragiaren tentazioak artzea ta kunplitzea sines zenbait deboziosko obsekio ta orazio biotzeskoak Ama Birjinai bere konzepzio garbiaren honratan; eta dio dela gauza progatua experiencias medio goneki anitz goardatu direla biktorioso garbi ta libre su gartaik. (* ap. claus. p. 2. conc. conc. 10.) Orazio gau dezake egin nornaiek: O Ama kstisima Birjina Maria, bere birjinidade sanduagatik ta bere konzepzio garbiagatik garbi goarda bez, otoi, nere biotza ta gorputza (ta arima) Aitaren, ta Semearen, ta Espiritu Sanduaren izenean. Amen. Eta azken-itx gebetan egin irur gurutze biotzaren gañean. Au berau, ta irur Abe Maria errezatzea belauriko ta auspeska Ama Birjinaren konzepzioaren honratan, etzin baño len, da remedio ona goardatzeko aragiaren bekatuetaik. Da ere debozio ona, nonnai ta noreki nai aurki gaitzen, erratea klaro Ave Maria purissima, ta errespondatzea sin pecado concebida; lotsaturik desterratzen dire espiritu gaixtoak, alegratzen dire aingiruak, ta honra ta gusto ematen zaio Maria Santisimari. Oroat beiratzean Ama Birjinaren imajinaren bat, Ave Maria purissima. Kostunbre on gau zue San Bernardok beiratzean imajina edozein, salutazeko humeak Ama bekala, Ave Maria; eta bein korresponditu zio amorosa imajinaren agos, Jangoikoak salba zaizala, Bernardo ene humea. (Parra p.2. pl.7) Maria Santisimari erran zio San Gabriel Aingiruak: Zuk aurkitu duzu grazia Jangoikoaren begietan; lenbiziko itza, Agur grazias betea; betea ez solamente azkenean, baita ere lenbiziko instantean ta ain betea, ezi baitu guziendako; ain garbi-ederra, ezi komunikatzen diote bere deboto amazaleei kastidadearen grazia. Bizi zelarik munduan apegatzen omen zioten beiratzen ziotenei graziagoi. (Santo Thomas 3. dis. 3 q.1.art.2q.1.ad.4.) Zenbat obeki orai dagolaik Zeruan? ama zagun bada, ta saluta zagun: Agur grazias betea, agur Jangoiko Aitaren Alaba, agur Seme Jangoikoaren Ama, agur Espiritu Sanduaren esposa, agur Trintate Sanduaren tenplo ta sagrario ederra, agur Birjina purisima bekatu orijinalen mantxarik gabe konzebitua; itzulizkizu zeure begi miserikordiosoak gureganat etc.

Sermo in Nativitate
Domini nostri Jesu Christi.
Natus es Maria Virgine

Ex symbolo Apostolico. D Vilesis pag. 20.

Egun gau ta urrengoak deitzen dire gure euskaras Egerri, oroat baita nola egun-berri; edo zeren orai asten diren luzatzen egunak; edo zeren egun gontaik astendi-ren kontatzen urteak Kristiandadean; edo zeren munduaren egunak egungoraño baizire egun zar ilun tristeak, eta egun jaiotzeareki gloriako iruzkirik obena Jesus Jangoiko-gizona, berritu baitire egunak argi eder alegre guziendako. Egun da eguna, noiz kunplitu zen Kredoak diona, jaio zela Jesus Maria Birjina-ganik. Erragun lenik sinestatu bear duguna fedes artikulo gontan; gero modua ta zirkunstanziak nola agitu zen; gero nola baliatu ta probetxatu bear garen.

1. Sinestatu bear duguna da Jesu Kristo Jangoikoaren Seme Jangoiko dena, ta konzebitu, aragis bestitu, edo gizon egin zena Maria Santisimaren entrañetan. Espiritu Santi Jaunaren obras ta birtutes Mar-txoaren ogei ta borzgarrenean, pasaturik bedratzi ilabete Amaren sabel Birjina-lan, egun Abenduaren ogeitaborzgarrenean jaio zela Maria Birjinaganik. Zer nai du erran jaio zela? atra zela mundu gontako argira. Zer nai du erran Maria Birjinaganik? Ama Santisima gelditu zela erdibañolen bekala, erditzean ta erdiaskeros beti birjin oso eder donzella Jangoikoaren milagros. Milagro gau ze konsigiente lenekoari, ezi nola in baize Ama, konzebitu ta izan baizue bere sabeleko fruitua Jesus gizonkiaren obrarik gabe Espiritu Sanduaren birtutes, ala erdi ze doloreik gabe, ta bere enterezaren mellarik gabe; nola baizeuka lendanik ofreziturik Jangoikoak Isaias Profetaren agos, Ecce Virgo concipiet, et pariet filium, Orra Birjin konzebitu ta erdiko da seme bates. Seme gau da Jesus, Birjina- gau Maria. Alako Semeari, zegokio alako Ama; Semea gizon ta Jangoiko bateo; Ama berriz Ama ta Birjin. Jaio ze Jangoiko bekala edo gizon bekala? Gizon bekala? Baña daike erran jaio zela Jangoikoa, zeren jaio baize gizon bat Jangoiko dena; ala nola daiken ta bear den erran Maria Jangoikoaren Ama, zeren baita Ama gizon batena, zein bateo den Jangoiko.

Egun bada Maria Santisimak, bedekiatua denak emasteki guzien artean, nola aranzeeen ertean azuzena, eman zue argira Jesus bere sabeleko fruitu bedekiatua, galdu gabe birjinidadearen lorea. Egun Jesus justiziasko iruzki dibinoa, Zeruko lore ederra jaio ze Maria Birjinaganik milagrosoki, ala nola gero ibili zen oñes itsasoan idiki gabe urak; nola atrazen obiatik glorioso mogitu gabe gañeko ar-lauza, nola sartuzen Apostoluen kuartoan idiki gabe ataria; nola egunoro pasazen den kristale batetik iruzkia, autxi gabe ta mantxatu gabe kristalea. Egun dakusagu gora bera admirable bat, Jangoikoa an goiti ain gora, ta emen ain bera! Jaun guzis andi poderosoa, ta emen aur txipi guzis amorosoa! Ongi etorria dela Jesus ona, ene amore, ene salbazio ta ene ondasun bakarra, ongi etorria dela ain goratik ain bera goratzeagatik ni an gora. Ain andia ta ain txipi, Jesus, ori enegatik, badakusat zergatik, amorosteagatik ni. Zori onean dela alaber Maria, Ama berria, alako Semearen Ama alakoa, gizagendearen gloria, Jangoikoas geros gure esperanza bakarra, poderosa, piadosa, amorosa. Ave Maria.

2. Erranik egi eta fedearen sustanzia Jesusen jaiotzean, orai modua ta zirkunstanziak nola agitu zen. Atra ze, dio Ebanjelioan, manamendu bat enpera-dore

Augustoganik, paratzeko listan mundu guzia. Onen kasos zoezi guziak nor bere errira listatzera. Joan ze Josef ere Nazaretdik Belena, Dabiden ziudadera, zeren baize Dabiden etorkitik, paratzera listan bere esposareki, baizego erditze-ko egunetan. Pensa gure Jaunaren probidentzia, etorriaskeros mundura, nai izatean jaio ez solamente pobre-gisa, ez bere Amaren etxean berere, baizik erriskanoan! Pensa alaber peregrino gaien humiltasun, trabaju ta gañarakoak pobre bekala ain bide luzean, neguaren biotzean, ta Ama Santisimaren estado gartan! Ellegaturik Belena, jendes beterik zegolaik, ezin aurkitu omen zute ostaturik gure peregrinoek, naiz billaturik asko denboras etxes etxe, eta naiz izanik an asko aide ta ezaun, de manera ezi bear izan zute joan erri-basterrean zen etxola pobre batera, zein Jangoikoaren probidentzias baizego utsik. Au izan ze palazioa, non jaio zen mundura gloriako Prinzipe soberbioa.

segitzen du ebanjelioak: Eta agitu ze, an zeudelaik, betetzea erditzeko egunak Maria Santisimari, ta eman zue argira bere Seme bakarra, ta maiolatu edo inguratu zue maindrekoeki, ta erreklinatu zue ganbela batean, zeren ezpaizute lekuri etxola gartan. Ebanjelioak dio au, ezi ezpalez erran ebanjelioak, nork sinesta gorenaren apaltze air. Geiegia? An goiti errebestiturik Majestades guzien errege poderoso. Emen beiti inguraturik oiales eta paxes aur txipi amoroso! An argisko tronoan guzien gorenean. Emen animaleen ganbelan! An festejatzeuntela Serafinek ta Aingiru guziek. Emen Maria ta Josefes landara iten diotela konpañia idi batek ta asto batek! Jauna, zergatik nai izan zue jaio ainberzeko humiltasun, pobreza ta deusgabea? Nork entenda gure Jaunaren ideak? Baña beraren lizenziareki zenbait dezakegu pensa:

1^a. Nola baita Jesus salbazale ta mediku soberanoa Zerutik eldu dena sendatzera, ta gizagendea egoki galdurik aundi naies, aisa naies ta gusto naies, erakusteko bere exenpluareki erremedioa.

2^a. Konsolatzeko ta animatzeko pobre onak ta humilak munduaganik desetxatuak, mostratus eztagola gure ona izatean munduko grandeza, ondasun, gusto ta gauza, baizik arimaren kondizio oneki izatean kuadrable Jangoikoaren begietan; au barin badu, ikazkin bat dela errege Jangoikoaren estimazioan, ta Errege ori gabe ikazkin.

3^a. Mostrazeko ala bere Majestaderen grandeza sendo sineskoa. Munduko andiek, nola ezpaitire sines andi, beartuste palazioak, goardiak, aparatoak, armak eta burrunbak, ezperen lirazke ain deus-guti nola gu; baña gure Errege berri gonek ez du alako bearrik, ori-gabe da guzis poderoso andi, naiz ageri den aur txipitto paxaturik ta etzinik ganbelan. Joan beiratus.

segitzen du ebanjelioak: Inguru gartan zeudela arzaiak beren saldoen kuidatzen, ta Jangoikoaren aingirua agerturik, ta guzia beterik argitasunes inguruan, lotsarritu zirela, ta erran ziotela Aingiruak: Etzaistela lotsa, ezi berri andi bat ematen diziet jende guziarendako, jaiobaizaizie egun salbazalea, baita Kristo Jesus Dabiden ziuadetan. Eta au izain duzie señale, aurkituko duzie aurra maiolaturik ta paraturik ganbelan. Eta derepente juntatu ze Aingiru garreki Zeruko soldadeska tropa bat laudatzen zutela Jangoikoa, ta kantazen zutela, Gloria Jangoikoai Zeruetan, eta munduan bakea borondate oneko gizonei. Pensa nola, naiz dagon ain humil aurtu gau etxola ta ganbela pobre gartan nola mogiarastentuen bere Zeruko errejimentuak proklamatzera bere Majestadea. Pensa proklamatzeten dutena, Jangoikoai gloria ta biotz oneko gizonei bakea. Bake gau da barkazio ematea Jangoikoak, admititzea bere grazian, ta oneki nauten guzia, sosegatu arteo biotza aur dibino garren medios. Nor dire borondate edo biotz onekoak? Ongi nautenak eta gogotik. Pensa alaber artzai pobre gaien ditxa, ustentuen bitarteo Herodes, Fariseo,

Eskriba, mun-duko xakintsu ta andiak beren loan ta letargoan. Nai duena logratu, biz humil ta erne aditzeko Jangoikoaren deia.

segitzen du Ebanjelioak: joan ondoan Aingirua, erraten zirela elkarri arzaiek: Goazen Belena, ta ikusagun agitu dena; ta Jangoikoak errebelatu diguna. Joan zire prisaka ta aurkitu zute Maria, ta Josef, ta aurra paraturik ganbelan. Eta ikusirik ezaundu zute, ta kontatu zioten guziei, arritu zire; ta itzuli zire kontentus beterik laudatzen ta bedeikatzen Jangoikoa. O artzai ditzosoak! Nork ez luke nai ia izan aietatik bat, ezi ez Erromako Enperadore bera? Zer erran, zer egin zuten etxola gartan, nola adoratubide zuten aur dibinoa, nola mintzatu zioten Ama Santisimari ta San Josefi, nolako gozo ta konsolua senti bide zuten, eztio ebanjelioak, pensa bez bakotxak.

3. Eta orai nago ia aitzen ta ikusten biotz zenbait diotela beren baitan: oh! aurkitu banitza ni Belenen! Zein gogotik ekarnezazken neure etxera Jesus, Maria ta Josef? Ta eman nezoketen nuen guzia? Nola adoranezaken ganbela gura? Nola festejanezaken aur dibinoa? Bai, beti deseo banoak, in nezake au ta ura; bitarteo ez gein dezakena. Badezake nai duenak egin langoi emen ere orai ere. Nik erakutsiko diot nola. Errain didate, al dakigu eztela posible orai, dagolaik Jesus glorian ta gu lurrean. Nai bide digu erran egiteko pobreai inen gindiona berai. Ezta pensamentu gaixtoa, ene fiela, ori ere, ezi bere Majestadeak errana da: iten diotena nere pobreetaik bati, neuronitendazie. (Math. 25.) Baña ortas landara diot daikela errezibitu, aduratu, festejatu Jesus bera Belengo ganbelan. Errain didate dardukatela aduratzetas biotz barnean gogos ta afektos. Ori ere bai; baña ia ere, berbera dezakezu logra presente errealki, ta ain errealki nola Belenen. Goazen ia erakutsis nola.

Belen nai du erran domus panis, ogiaren etxea. Zer etxe da au? Tenplo sandua. Zer ogi? Zeruko ogia, aingiruen ogia, ogi bizia, Zerutik etorria, Jesus bera, jaio zena Maria Birjinaganik, oratu zena beraren entraña sanduetan, asi zena beraren esne birjinalas, an erreklinatu ganbelan, ta gero erre zena amoresko sus bere pasioaren labean. O sazerdoteen dignidade benerablea, zeñen eskuetan ain nola Birjinaren entrañetan enkarnatzen baita Jangoikoaren semea! dio San Agustinek. Aita Antonio Ruiz de Montoia errebestizerakoan zelebratzeko meza, agertu zekio Ama Birjina, eta akonpañatu ta asistitu zio amabitxi gisa Mezako guzian. (Parra. p.3. pl.l.ord.) Berze sazerdote bat Ama Birjinaren debotoa agitz tentatzen zue demonioak sakramentu gonon egi eta fedean. Eskatzen zio Ama Santisimari libra zezan. Bein bada mezakoan sagraiskeros desaparezitu zekio hostia konsagratua. Turditurik asi ze bila, beira arat, beira onat, ta nion ez ageri. Eskatzen zio bere Ama Santisimari goraturik begiak Zerurat; ta ikusi zue Andre Dibinoa bere aur dibinoareki eskuetan beiratzen ziola amorosa, ta erraten ziola: Tori ene seme gau nik azi nuena, ta zuk oraietan konsagratu duzuna, ta errezibizen duzuna sakramentuan; etzazula duda. Orra usten dizut. Au erran ta desaparezitu ze Ama Birjina, ta gelditu ze hostia len bekala aldarean. (Ibid.)

Aldareko maia beras kontu dela Belengo ganbela gura, non paratzen den milagrosoki, baña errealki Jesus ona. Ala nola orduan aur gartan altxaturik zegon Jangoikoaren podore ta grandeza guzia, ala sakramentuan duzu Jesus bera naiz altxaturik modu admirablean. Zer ze ikustea aur andi gura ain humil, manso, amoroso ganbela gartan? Zer da beiratzea Jesus bera aldarean ain amoroso, manso, humil gisa gartan? Zer falta zaizu nai bauzu aduratu, festejatu, gozatu ain ongi emen nola an? Ezin ordea ikusi begis, ta ez sentitu gustoas, diozu. Eta noizko du entendamentua ta fedea kristioak? Solamente gorputzeko begies ta sentidoes gobernatzea gelditzen da animaleendako.

Gorago bear du igan kristioak sinestatus firmeki fiaturik Jangoikoaren itz errealean, zeren ala errebelatu duen Jangoikoak, naiz ezin ikusi gure begiek, naiz ezin senti gure sentidoek, naiz ezin konprehendi gure buruxolek. Aski da Jangoikoak erratea sinestatzeko nik; eta ala fedearaki ikusten da, ta debozioareki sentitzen ta gozatzen da. San Luis Franziaiko errege abisatu zute nola hostian Bein agertu zen aur eder bat, nai bazue joan ikustera. Bidoezi, erran zue, bidoezi fede guti dutenak, ezi nik eztut ikusi bearrik sinestatzeko gure Jaunaren presenzia, diolarik Jangoiko berak.

Nainuke ikusi beraren forma ta bestimentak, diozu; eta bere Majestadeak ematen dizu ez ikustea, bai errehibitzea, sartzea, besarkatzea zeure barnean. Oh! aurkitu banitza Belenen, diozu. Orreki zer naiko zindue? Egon an belauriko ganbelain alzinean. Ia ez? uz balezada eskua edo oña adoratzeraz, oh! Eta ia ez? Etzindue naiko izan aurzai? Etzindue naiko artu besotan ta besarkatu amorosoki iruzkitto eder gura? Oh! Nai bai, baña ori sobra da. Bada ekarzu fede bizia, ta ori baña ia emanen zaizu aldareko maiean, non usten baita jatera Jesus ona onegiaren utses. Zer da komekatzea? Komunikatzea amoroso miragarriro Jesus arimareki, arima Jesuseki. Zer da komekatzea? Erregalatzea Jaun dibinoak bere gorputz ta odol preziosoeki pobre lurrekoa. Zer da komekatzea? Desposatzea ta besarkatzea gloriako errege ene arimareki ta ene arima gloriako erregereki modu admirablean. Au egi eta fedea da; baña fede guti, disposizio gutiago izateareki ezta saltatzen biotza kontentus, amorios ta admirazios. Oh! Balira fede ta disposizio andia, zer gustoak, zer amore zoragarlak senti leizken! Galde sandu guziei; galde Santa Teresai, zein komunki gelditzen ze komekatu aldioro sentidoek gabe nola balego Zeruan guzia inguraturik argitasunes. Bein erauntsi andiak zirelaik, erran ziote egun gartan bearko zuela gelditu komekatu gabe. Ezeta erauntsi balez ere lanzak, errespondatu zue, ta joan ze, ta egon ze komekaturik bi ordu bete bete, etzekiola iduri kuarto-ordu bat. Pensa zer paratzen bide zen biotz barnean Jaunareki!

Baña eztire gauza gebek gu bekatariendako. Guk in bear duguna egun da adoratzeke ta artzeke espirituareki Jesus jaioberria, prebenitzea arimaren oialak. Nola? Garbitus ederki. Nola garbitzen dire? Lixua onean ur beros. Zer ur da au? Negarren ura. Non berotzen da? Suan. Zer su da au? Amorea. Nola itxekitzen da amorearen su gau? Fu emanen, au da eskatus ta pensatus ongi egun agitua. Bi motibo izaten dire itxekitzeko amorea norbaitengana. Lenbizikoa izatea persona guzis ona, ederra, perfektoa faltarik gabe. Bigarrena izatea gure fabore amante ongi nai gaituena. Bada bi motibo gebek tugu jesusen baitan konparaziorik gabe, ezi non da nior ain eder, on, amablerik, nola Jesus? Non da nior ain ongi nai gaituenik nola Jesus? galdegiten dio Elizak Ama Birjinari: Qualis est dilectus tuus? (In officio dolor. cant. 5) Nolakoa da zure seme onetsia? O emastekien ederrena, nolakoa da zure onetsia? errespondatzen du: Dilectus meus candidus et rubicundus etc. Ene onetsia da txuria ta gorria, eskojitua millaetan. Explikabeza-gu: Txuria da Jangoikotasunas, gorria gizontasunas; txuria bere edertasun ta perfekzio guziengatik, gorria gizonei digun amore andiagatik. Txuria da, zeren baita guzis amablea, gorria da zeren baita gure amante amazale bakarra. Beira nola digun amore-utses, egin ta desegiten den. Zegolaik ongi glorioso eder bere gloriako tronoan, guri digun amore geiegiagatik jautsi da, ta jaintsirik gure natura-lezaren zamarra-pobrea jaio da pobre gisa, ta utzi da ganbelan, ta utziko da gero preso Jerusalenen, kolumnan, gurutzean, ta orai aldarean. O Jangoikoaren axuritto ederra, ta zein maite gaituen! Zenbat figura aldarasten dion amoreak! Ia Jangoiko dena ikusteunzu aur txipitto! Ia ikuskouzu desterraturik peregrino iges jaio ta denbora labur! Ia mundus mundu gure billa salbatu naies! Ia bekatari gaixto

baliz bekala preso azotaturik, maltrataturik ta ilik palo batean! Akabatzeareki bizia etzaio akabatu amore! Iganik ere Zerura ezin gureganik aparta; injeniatu du nola gelditu gure konpañian. Beira zer figuran, sarzeko gure biotzak barna, erregalatzeko, erremediatzeko ta salbatzeko bere gizonak.

Zer ai dire mundukoak ezpaitute ezaunzen ta estimatzen beren amazale, salbazale ta ondasun bakarra! Zer ai dire kristioak beraren izena ta marka damatenak fortunas, ezpaitute amatzen ia? (Jangoikoa dago beira Zerutik, dio Dabidek ps. 13. Gizonen humeetara, ikusteko ia baden ezaunzen ta estimatzen duenik bere Jauna. Guziak, dio, makurtu dire zuzen bidetik, ezta nork egin ongi, ezta bat berere.) Kontent, ezpagindez ofendi bere Majestadea. Baña amatzeko ez, ta ofenditzeko bai guziek habilidade! Zer ai dire joanbeautenak Zerura Jesus onaren kostus? Eztuzie amatuko zuek berere? Eztuzie utziko munduko engañuak, loiak eta farraskak? Zuen amores gloriako errege aur txipitto ganbela batean. Eztiozie emanen leku zeuren biotzean? Ea bada goazen konbidatzera, ta festejatzeko nolapait, Santa Rosa Limakoaren ariora, prestatu ikusgarriak bestitzeko aurtto gau gure entrañetako telaeki. Maindreko edo oial txuriak biz amoresko afektoak, dozena bat berere egun guzian, ala edo orla, o ene Jesus, nik amatzen ta estimaatzen dut biotz guziareki, arima guziareki, entraña ta indar guzieki, ia ezi gauza guziak, ia etc. Eta mantillak zereki inentioigu? Kontriziosko aktoeki: O ene Jesus; O edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! O amore ta ontasun infinitoa, zein berant onetsi duten! Eta zergatik trukatu dut orren Majestadea? damu dut biotzes, dut damu milla aldis etc. Eta paxak? Paxak dire proposito finak. Jauna, ezpanaiz ere gauza egiteko anitz zerbitzu andi, bentzait ez dezatela ia ofendi; nainuke bizitu berorren gustora. Ematen diot itz goardatzeko bekatuetaik etc. Eta poxa buruko? Ori da Kredoa; errezatu zenbait aldis egunas, erreparatus ta detenitus itz gaietan, zein konzebitu baize Espiritu Sanduaren obras, jaio ze Maria Birjinaganik. Eta Ama Santisimari eztiozu deus eman nai? Zenbait lore berere? Loreik obenak dire Abe Mariak. Amatzen ta estimatzen duena Jesus guzien gañetik ezta galduko; amatzen eztuena galdua da, ezi nior ere ez len ta ez gero ezta izan salbo ezpada Jesusen medios. Ama zazu ta emain dizu bere amorearen prenda, esperanza alegre bat, bizizeko beraren grazian, ta gero gozatzeko beraren glorian. Amen.

Sermo in festo Circumcisionis.
De modo salvandi

Nomen eius Jesus. Luc. 1.

Zorzi egun jaiorik zuelaik aur dibinoak pasazeko zirkunzizioaren lege lengoa, deitu zute beraren izena Jesus, zein deitu zuen Aingiruak, konzebitua izan zen alzinean Maria Santisimaren entrañetan, dio Ebanjelioak. Izen gau eternidadetik paratu zio Jangoikoak, predestinatu zuenak bialtzea mundura bere denboran salbazeko gizonak. Eta ala da egiaz deitzen dena Jesus, nai baitu erran salbazalea, zeren salbatu ginduzan gure bekatuetaik ta Deabruaren eskupetik. Izenain konforme du izana; izenak erraten dio nor den; izenak mostratzen du bere jenioa, ta ofizioa, baita salbatzea bekatariak. Baña eztelaik bekatari bera, zergatik sufritzen du bekatarien martirio gura, ta ain goizik? Mostratzeko bere odol inozentearen progu erreareki digun amorea ta gure salbatu naia. Eztu bekatuik batere axuri dibinoak; eztu, baña badu. Nola da au? Bere bekatu propioik eztu, Baña bere gain artutu gureak, pagatzeko gure partes. (Gure bekatuek zeukate ofenditurik Jangoikoa; beraren justiziak naigiduza kastigatu, beraren miseriak naiginduza salbatu; eta ala pleituan bekala zeude justizia ta miseriak. Eskatzen zue miseriak barkazio gizonendako; justiziak eskatzen zue satisfakzio Jangoikoaindako. Au ez ematen gizonak, ura ez eman nai Jangoikoak au gabe. Nola konponduko da pleitu gau? jaio ze Jesus Jangoiko gizona lurrean, beiratu zio Zerutik justiziak, eta bereala konpon duze miseriak. Justitia et pax osculata sunt. (Ps. 84) Nola? Jangoiko-gizon gau paratzeareki Jangoikoaren ta gizonen bitarteko: Jangoikoai eman zio satisfakzio naiadina, ta gizonak barkazio guzia. Nola au? Artus bere gain gure zorak, ta pagatus gure parte). O axuri onegia, zure kostus bizi gara bekatariok, zure medios bear gara salbatu salbatzekos; eta zuregatik ezpalitz, nior ere, nior ere ezin leike salba. O Jesus, biz gureta Jesus, au da, gure salbazale. Zierto, ene fielak, beraren aldetik ezta faltako, ezpada faltatzen geuren aldetik. Zer in bear dugun ortako, egun urtearen egun lenbizikoan explikatzea ongi eldu da. (Enpeña zagun Ama Birjina, logratzeko bear dugun grazia. Ave Maria.)

Irakurketa garbiko hitza da, esanahia «txaneta», «txanoa» izan daitekeelarik. Baina, behar bada zuzenena «paxa» idatzi beharrean «poxa» idatzi duela pentsatzea litzateke.

Orrialdearen beheko aldean, «Ama eum amore, more, ore, re» idatzia.

Egun urtearen egun lenbizikoan ematen dire elkarri, edo obeki errateko, deseaten dire urte anitz eta onak, deseatus eman dezoten gure Jaunak anitz fortuna, ondasun ta gauza lurreko. Deseateas ori solamente bere feligresei Aita Espirituale ongi naituena ezta kontent, ezpaitago ere ditxa egiaskoa logratzean gauza goiek. Kontu direla zai, ia deseaten diotet nik irin. Beatum dixerunt populum, cui haec sunt; beatus populus etc. (Ps. 143) Nik deseatzentietet urte onak sines, anitz urte egiaz. Zein urte dire onak? bizitzen direnak grazian ta santidadean. Zein dire anitz urte? Urte eternoak glorian. Itz bates, diona Jesus salbazalearen izenak, salbazioa. Au eman dezake doaiik gure Jaunak bakarrik nori nai duen, nola ematen dioten aur bataiatuik doazinei, berek deus in gabe, solamente Jesu Kristoren merejimentu bataioan aplikatzen zaizkioten birtutes. Ori gabe gizonak bakarrik ez dezake logra, ta ez mereji logratzea. Komunkiro aures landara gañarakoetan gure Jaunaren grazia ta gizo-naren dilijenziak, biek bateo obratzen dute salbazioa, ta ez bata berzea gabe; ala nola gure bistak ez dezake ikusi, ezpadu argi

kanpotik; eta argi izanik ere, eztu ikusiko, erxten baditu begiak: ala gizonak gure Jaunaren grazia gabe deus ez dezake onik, eta grazia izanik ere, ezpada laguntzen, zer balio dio? Ea bada ezta deskonfiatu bear Jangoikoaren grazias. Prest dago nola iruzkiaren argia argitzeko: ia trata zugun in beardugunas geuren aldetik logratzeko salbazioa.

Doktrina kristioan erakusten zaigu. Zertako jaio da gizona? Ezauntzeko, amatzeko ta zerbitzatzeko Jangoikoa munduan, ta gozatzeko glorian. De manera ezi gizonaren azken fina da Jangoikoas gozatzea an; ta ortako medioak dire ezauntzea, amatzeta ta zerbitzatzeta emen. Ezauntzea iten da fedea, amatzeta biotzas, zerbitzatzeta bizi-modu onas. Eta guziau erreduzitzen da izatera kristio ona, bizitus gure Jaunaren gustora biotz barnean ta agerrian. (galdegiten du Profeta errealak, (Ps. 23). Nor iganen da Jangoikoaren oianera? Edo nor egonen da beraren leku sandu gartan? errespondatzen du; esku ta biotz on garbitakoa, eztuena errezibitu banoan arima. Nai du erran, libre bizi dena bekatu agerietatik, biotzekoetaik ta omisioneetaik ere bai. Bi bide Zerurako paratzentute, baitire edo inozentia edo penitentia. Inozentia dago mantenitzean Jangoikoaren grazia bekatu mortalerik gabe. Penitentia dago penatzean, konfesatzean, ta Jangoikoai satisfakzio ematean. Baña biok batera eldu dire, ezi penitentia ezta berzetako, baizik utzinaskeros itzultzeko zuzen-bidera: ta doble lan da, ezi gaizki egin desegin, ta bear den ona egin bear da. Suplitu leneko faltak ta kunplitu presenteko obligazioak.)

Jangoikoaren bide gau nola bear den ibili, erakusten digu klaro gure katatximak, diolarik, zenbat gauza xakin beartuen kristioak ezaumentura ellegatuaskeros, baitire laur, zer sinestatu, zer eskatu, zer obratu ta zer errezibitu. Ona non dugun karroza-iduri bat joateko Zerura, inguratzen baita laur erruedaeki; au da, sinestatus Jangoikoaren egi eta fedeak, eskatus auxilio beartugunak, obratus gauza manatuak ta errezibitus beraren sakramentuak. Bi errueda prinzipalenak dire sinestatzea ta obratzea, au da fedea ta obrak: ebei lagun iteko dire berze bi erruedak, baitire orazioak ta sakramentuak. Baña brebeago ta klaroago erakusten digu Jesu Kristo berak ebanjelioan (Math. 19) galdegin zio batek: Maestru ona, zer in bear dut logratzeko bizitza sekulakoa? errespondatu zio: nai bauzu sartu bizitza sekulakoan goarda mandamentuak. Ebek dire ala nola amar begitako zubia pasatzeko gloriara ta ez ondatzeko infernuko ugaldean. Ebek dire ala nola amar orokiatako eskalera igateko Zerura; sponiturik zimendua, baita Jesu Kristoren fedea. Zimendu gau gabe ezta protxal eskalera gura, eta oroat eskalera goi gabe ezta aski sollik zimendugoi. Orgatik eldu delaik kristianatzera bat, galdegiten dio Jangoikoaren Ministroak: Zer eskatzen diozu Elizari? errespondatzen da, ezi fedea; eta fedeak zer ematen dizu? Bizitza sekulakoa. Erraten dio: Bada nai bauzu sartu bizitza sekulakoan, goarda mandamentuak. Nola erranbalezo, fedea da zimendu eztaikena falta; baña daikena ibili bere oñes, euxi legearen eskalera, ezperen ezin igan Zerura. Eta ez solamente ori, baizik ere amarretaik bat autxirik, ezin pasa. Amarrak bitan bilzen dire, au da, onestean Jangoikoa guzien gañetik, ta onestean proximoa Jangoikoagatik. Auxa da karidadea bi egaleki bolatzeko gloriara. Onetsi Jangoikoa ta proximoa bear bekala, ta salbatuko zara.)

Jarraian ulertzen ez den zerbait ezabatua.

Klaro klaroa aizazu. Dago zure salbazioa ez eta baibatean. Zein dire? Ez egin gaizkirik, ta bai egin ongi: Declina â malo, et fac bonum. Beras zure estudio, dilijenzia ta habilidade guzia biz ez egitea gaizki denik niolateri, ta egin on dena ongi, au da, bear den intenzio ta zirkunstanzia guzieki. Ia ontaik bi desengañu atra beartugu; lenbizikoa, eztirela aski gure salbazeko solamente errazuak ta debozioak. On dire lagunzeko, baña ez aski sollik. Obligazioak kunpli ta debozioak ez utzi. Bigarrena, ertxi ta lazara dela

salbazioaren bide gau, ta gutik astatzeuntela, diones Jesu Kristo berak. (Math. 7.) Nola dio bada bere Majestadeak berak, ene bustarria da suabe ta ene karga arin? (lb. 44) Dio, beraren amore ta graziagatik, zeren amorearen ungenduak edo olioak suabetzen du guzia, ta graziaren indarrareki aisa da guzia. Dago aur bat ezin xasis pizu bat; lagun bezo jigante batek, arin ermako du ia. Bada afizioneak ta amoreak itentu miragarriak. Ama bati zerk arintzentio bere humeareki daramazkien trabajuak? Amoreak. Eixtariai, jokariai, langinai zerk aisatzen tiote buelta gaixtoak eta nekeak? Afizioneak. Ala artzen dutenei amore Jangoikoagana, suabe zaiote beraren bustarria ta arin karga. Gañarakos nola baitago gizona biziaturik ta inklinaturik gaitzera, orra zergatik zaion ertxi Jangoikoaren bidea. Bizi guzia emen da pelea kontino bat, dio Job sanduak. (C. 7.) nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeei, ar bez bere gurutzea, ta segi benaza, dio Jesu Kristok. (Marc. 8.) Bizi guzien da preziso ibiltzea dilijent errepugnatzen kontrarioei.

Irur kontrario edo etsai tugu, demonioa, mundua ta aragia. Lenbikoa da aingiru gaixtoa Zerutik erori zena, ta digun inbidia-utses beti dabilana ingur ingur, nondik ermako gaituen bere lekura, norktaki zenbat injenio, maña, ta marañaeki paratus pensamentu gaixtoak, sinestarazis gezurak ta engañuak. Beira ezten bear dilijenzia ta konstanzia. Mundua dire emengo banidade, itxurapen, ta gustoetara afizionatuak. Laudatzentutenak bekaturako zeboak, konbidatuko zaitutenak bide zabalerat itzes, exenplus, milla modus ta maneras. Beira ezten bear arimo ta birtute sufritzeko ez joatea guzienak doazin bideas, aiek bai ta zu ez, ta gero ez mogitzeko mundukoen erranes, irries, eta burles? Eta bearko. Irugarrena da aragia, ta ontan adiarasten da persona guzia bekatu orijinalaren kasos lisiatua gaitzera deabruaren benenoareki. Onen azi gaixtoa da ageri zazpi bizioetan, suberbian, kodizian, luxurian, gulan, iran, inbidian, ta perezan. Nork ia, nork gutiago, azi-jenero gebek senti dugu guziek geuren lur gaixto gontan. Eta da preziso egotea kontino ala nola nekazaria alor gaixtoan txorratzen ez usteko azitzera etc.)

Jarraian «etorri» hitza ezabatua.

Baña guzia erratea eztelaik posible, solamente nai dut aipatu komunago direnak ebetan, goar daitzen nai direnak izan salbo. Gasteak len lenik kuida izateas humil, obediente, modesto, ixil ta juiziosko. Ez afizionatu sobra ardo edatera, ezi ardo edateak exzesoa zarbailtzen du persona, galzentio koloreak ta freskotasuna, turbatzen du burua, ustutzen du bolsa, desonratzen ta inutilzen du gizona beardirenetako, ta bitarteo inarasten du alkegabe, oiulari, desatento etc. Nork estimatzen du ardora emana? Irri egiteko bai, baña ez gañarako. Alaber jokuan ta dibersioan goarda modua, ta dezenia; ez egones, ta ez ibilis gauas desgaraiean. Guzien gañetik kuida honestidadea, baita guzien, baña espezialki gasteen flore ederra, honra ta gala Jangoikoaren ta munduaren alzineko. Emasteki donzella apartatu bear da gizonkien aurkintzetik al guzian; bear da izen erretiratua, langin, birtuteskoa, begiak apal, mia ixil, ta guzia modesta; ez afizionatua dan-zaetara, jendetze ta bullaetara. Nondik datorkioten ainberze afizione agertzeko plazaetan gizonkien artean, pensatus piadosoki, bide da presunzios ta banidades, eta kuadratu naies jendeei. Zenbat ia estimazio logra leike izanes juizio anitz, birtute ongi ta presunzio guti? Bitarteo barin badoaz betes bekatus, naiz biotzeskoes solamente, zer lastima? Eta zer, asten badire alkegabekten ta galtzen opinione ona? Ortaraño ez izanik ere, kargurik asko inen dio Jangoikoak emasteki miserableai, zeñen kasos erori den norbait tentazioan biotzes. Oh peligro peligrosoa da kuadratunaigoi jendeei! penatuko zaiote zenbaitei ta kostatuko kario eder usten dut.

Estado artuek ala gizonkiek nola emastekiek doblatutuste obligazioak; eztute aski

bizitzea ongi berendako solamente, beaute bizi berzeendako ere. Utzirik alde batera egungoan obligazio dutena bizikideek elkar onesteko, asisti, lagundu ta faboratzeko al guzian, beaute kuidatu zaias ta irinas, naut erran, lurreko gauzes ta Jangoikoaren gauzes, ezi nola eman digun Jangoikoak arima ta gorputza, biendako bear direnes kuidatu bear du kargudunak. Trabaja nork bere ofizioan aplikazioreki; kuida haziendas, idies, animalees ta gauzes, obligazio den bekala, baña de manera ezi eztaien atzen arimaren itekoes, baizik Jangoikoa beti len. Izan dilijent pagazeko primiziak, amarrenak ta nori berea. Goarda inbidiatik ta nioren perjuiziotik. Ardoan tentu andia, sustentazeko diña ta ez zebatzeko pasio-nea. Presunziorik ez sekulan, ezpada presunzio sandu bat maneatzeko itz, akzione, ta bizimodu guzian ederki Jangoikoaren ta munduaren alzinean. Guzien gañetik goarda izatetik floxo ajolakabe, ezi ori da galzeko bere burua, konzienzia, honra, familia, etxea ta guzia. Etxokandreak bear du lagundu familiaren gobernuan, kuidatus espezialki etxe-barnean; fuera presunzio ta gula, ez emateko bear baño ia soñai ta tripai. Ematea bear-adiña ala soñai, nola tripai da zenso perpetuo bat Jangoikoak paratua ezin daikena exkusa; baña pasatzea dezenziatik presunzios ta laminurias da petxa billano bat deabruak paratua guzia gañera botazeko. Honestidadeas erranik dago; kontra denik eztaiel aipa ere. Ira ta inbidia ez permiti azi daitzen, baizik pazienza, ta karidadea. Ez entremetitu berzeren joanetorrietan; estudia ez jardukitzeko ta ez aitzeko nioren kontra denik. En fin, koronazeko para kuidado guzia, ez dezaten ez jendeek ez Jangoikoak aurki gure baitan bearreztenik; eta izan gaitzen sines ta egiaz onak konstante ilartaño. Amen.

Orai naitut aipatu zenbait medio laguntzeko bizitzen ongi, suponiturik Jesusen grazia, zein gabe ezpaitaie izan salbaziorik. 1^a. Arzea anhelu ta erresoluzio baliente bat izateko ona ta ez admitizeko bekatu denik niolater. Ortako pensa eztela bizi-modugoi triste, penoso, disgustatu, deshonorresko desdixatua, nola usten duten munduaren esklaboek, baizik munduan den alegreena, gustosoa, honratu, ditxosoa eta ez ain nekoso nola usten den komunki; neke andixagokoak, pasazen dire deabruaren zerbitzuan. Jangoikoaren zerbitzura ere iten da persona, laguntzen du beraren graziak; eta non da beraren amorearen ardoa, konzienziaren ona, gloriaren esperanza gozoa etc. De manera ezi ustentusten Ejiptoko tipula, borru ta farrasken partes ematen diote gure Jaunak manna Zerukoa bide gontan. 2^a. Medioa pensatzea ez luze bizitza, baizik labur, ta deus guti, ta agian gutiago uste den baño, ta eternidadearen aldean momentu bat, animatzeko irautera onean. 3^a. Noizean noiz erratea bere buruai, ea, bizia doaie pasatus, emendik guti joan bear eternidadera. Zer ai zara? Zertara etorri zara? etc. 4^a. Oroitza Nobisimoes, edo azkenekoes, eriotzeas, juizioas, infernuas ta glorias. 5^a. Denbora ta leku guzietan oroitza presente beira dagola Jangoikoa aitzen ta ikusten gure onak ta gaixtoak. 6^a. Artzea kostunbre eramateko ongi ordenaturik denbora; egunoro goizetan ofrezitus Jangoikoai bere persona ta ongi bizitzea; egunas edozein lanen astean santiguatus ta ofrezitus; edozein okasioren alzinean prebenitus goartzeko; arratsoro erreparasatus konzienzia, nola pasatu den; asteoro leitus edo aditus Jangoikoaren itza al badezake; iloro konfesatus ta komekatus ez bidanabar ta zeremonias, baizik aldioro ilzeko bekala; eta bear orduan konzienziaren eskudriña bat jenerala urtetik urtera, edo noiz konbeni zaion, ala nola emasteki txukunak itentuen txurigendearen lixtuas, salaren eskobatzea mantenitzeko garbiago, ta noizean noiz errepasso bat etxe guziai. 7^a. Prinzipalenetik bat, apartatzea okasio, peligro ta zebo gaixtoetaitik, ezi ori iten ezpada, ezin daik manteni grazian arima anitz denboras. 8^a. Mortifikatzea sentidoak, begiak, bearriak, mia ta jeneralki joatea beti bere gorputzaren ta jenioaren kontra, ezi maite duenak galduko du, ta aborrezitzen duenak

mundu gontan, goardatuko du sekulakos, dio Jesu Kristok. (Joan 12.) 9^a. Eskojitzea konpañia onak noreki akonpañatu, ezi apegatzen dire elkarri kondizioak, ta gaixtoak aisago; sanduareki inen zara sandu, dio Profeta errealak, (Ps. 17) ta gaixtoareki gaixto. 10^a. Ez ibiltzea jendearen arira, dion bekala Santa Teresak, segitus ardien gisa nora doazin berzeak, on bada gaixto bada, ez, baizik beira zer nai duen Jangoikoak, zer den on, zer zaizun konbeni, ta ori egin, ori segi, iten baute ezpaute berzeek. Ez fia errateareki berzeek ere iteunte, baizik izan arimo joateko bide onas konstante, naiz irri egin, naiz murmura mundukoek. Bide gortarik pasatu zire Sanduak. 11^a. Konsolatzea maiz ta animatzea pensatzeareki; bazaizkela izan sandu zu ere, ta Jangoikoaren maite, ta ellegatu goatzera glorian. Ah! ezpanitza beñere deskuidatu! Asi ta segitu banu prinzipiotik bear bekala! Ah! nor litzaken sanduetaik bat! Eta baneike izan, nai banue. 12^a. En fin, bizia labor, eriotzea segur, juizioa segi, gloria edo infernua beti. Emengo azaroain ariora ango eraizioa. Anitz zor, guti pagatu, presenteko obligazioak bear kunplitu, lengo faltak bear suplitu. Zer ai gara? OJesus, egin bez bere izenagatik logra dezagun salbazioa. Amen.

Sermo in festo Epiphaniae.

De adorando Jesu, et minerando

Et procidentes adoraverunt eum. Math. 2.

Egungo festa deitzen da itz griegos Epifania, nai baitu erran Manifestazioa, edo deklarazioa, zeren Jesus jaio zena manifestatu zen egun amirugarren egunean. Erdaras ta euskaras deitzen dugu Erregeen eguna, zeren uste den errege zirela irur gaiek etorri zirenak adoratzera Jesus erregeen errege. Nola izan zen dio Ebanjelioak itz gebeki. Jaio zelarik Jesus Judako Belenen Herodes erregearen denboran, ara non Magoak etorri ziren iruzkiaren sortaldetik Jerusalem ziotela: Non da jaio dena Judatarren errege? Ezi ikusi dugu beraren izarra sortaldean, ta eldu gara adoratzera. Aiturik au, Herodes turbatu ze, ta Jerusalem guzia arreki. Eta bilarazirik sazerdoteen Prinzipe ta xakintsuak galdegin zioten non bear zen jaio Kristo. Aiek erran zioten: Ezi Judako Belenen, zeren ala baitago eskribiturik Profetaren medios: eta zu Belen Judako lurra, etzara txipiena Judako prinzipaleetan, ezi zukanik atrako da kidaria gobernatuko duena Israelgo pueblo nerea. Orduan Herodesek deiturik apart Magoak galdegin zioten kuidaoreki denbora, noiz jaio zen izar ikusi zutena; eta bialzen zituela Belena erran zioten: Zoaste ta informazaiste ongi non den aurra, ta aurkitzen duzielaik gastiga zadazie niri, noaien ni ere adoratzera. Aiek aitu ondoan errege atra zire ta ara non izar ikusi zuten gura sortaldean zoekioten alzinean aliketa baratu zen arteo, aurra zegon lekuaren gañeko aldean. Ikusirik izarra, alegratu ziren gozo agitz andiareki. Eta sarturik etxe gartan aurkitu zuten aurra bere Ama Mariareki, ta belauriko auspeska paraturik aduratu zuten; eta idikirik beren kofreak ofratu zioten urre, inzensu ta mirra. Eta izanik gero lotan errebelazio, ez itzulzeko Herodesengana, berze bide bates itzuli ziren beren lekura. Orra ebanjelioa ta misterio zelebratzen duguna. Orain bear dugu joan erreparatus prinzipalenak, ta atras doktrina geuren onerako. Saluta zagan lenik goizeko izar ederra ta gloriako erregina Maria. Ave Maria.

Len lenik erreparatzeko da gure Belengo aurto gura oialttoa inguratua ta ganbelan erreklinatua, zerik bideden, mogiarastentuelaik goiti ta beiti izarrak ta erregeak beraren obsekioan. O aur andia, amablea ta admirablea, nork lezaken logra orren beiratze bat amoreskoa?

Bigarrenik errepara Jangoikoak biali zuen izar gura deitzeko beregana bere espirituak; ta zenbatek agian ikusi, ta agian entendatu zuten, ta zein gutik obedi zuten! Ala doaie kunplutus oraño Jesu Kristok errana; anitz direla deituak ta guti eskojituak; anitz etorko direla iruzkiaren sortalde ta sartaldetik, ta jarriko direla Abraham, Isaak ta Jakobeki Zerueta erreinuan, ta erreinueo humeak botako direla kanporat penetara. Azkenak izain direla lenbiz, ta lenbizikoak azken. Urrutikoak eldu billa, ta urbilekoak ajolarik ez! Izar gura da Jangoikoaren inspirazio amoroso, deitzen duena beregana arima, argitus entendamentua ta mogitus borondatea onerat. Ezkaltzela deskuida, ez malogra eskaida.

Irugarrenik errepara errege gaien debozioa, ta ansia aur baten billa; prebenitze gura presentak; paratze gura bidean ain biaje luzean; joate gura segitus beira beira izarra; onen altxatze gura, sartu zeizen Jerusalem ta informa zeizen ain eskritura sagratuetaik. Sartu an ta galdetze gura ausarki berze errege baten kortean: non da jaio dena Judioen errege? Ontara turbatze gura Herodes. Zergatik turbatzen da? Beldur ze edeki zezon bere korona. Baña etze Jesus eldu kentzera, baizik ematera korona gloriako eternoa.

Laugarrenik Jerusalengo sazerdote ta xakintsu gaien itsutasuna beren kontra; xakinki Eskritura Sagratutik, non bear zen jaio Jesus, berek erakusten berzeei, ta argi ematen berzeei, ta berak geldi ajolaik gabe! Eta ia dena, gero ikusi ta ezaundu zuketelaik beren erdian, iruzkia bezain klaro, itsatu zire argiareki, ta etzire baratu ilarazi arteo gurutzean! Ario gartara dire kristio gaixtoak, konfesatzen ezauntzeuntela Jangoikoa, eta akzioneer ukatzen gaizkiago ezi Jentilek; baña ia imitatzentute letradunek; erakutsi berzeei ona, ta berak ezpadire on. Oh! Jangoikoak goarda.)

Borzgarrenik errepara Herodesen malizia ta falsukeria benenatua, erratean: Zoaste, billa zazie ta gastiga zadazie joateko ni ere adoratzer. Arren biotz dañatua agertu zue aur inozenteen odolak, ezi ilarazi naies aur dibinoa ilarazi zitue aur inozente bi urtetaik bera ziren guziak Belenen ta inguru gartan. Baña Jangoikoa niork ezin engaña: ta joanik Ejiptora bere Amareki ta San Josefeki iges utzi zue burlaturik Herodes; entenda dezagun, oroat zeikela libra; gero ogeitamirur urtetan gurutifikatzer utzi zelaik gure amores, baña ofrezitu zela bera zeren berak nai zuen ala. Nork imitatzen du Herodes, diona adoratu nai duela, mias ori, baña biotzas galdu nai duena? Hipokritak, on kolores itentionak Jangoikoai ofensak, prinzipalki tenploan.

Seigarrenik errepara irur gaien konstanziak segitzean gure Jaunaren billa, ta izarra in agertzea berriro, ta kidatzea etxolaraño, ta baratzea an gañeko aldean, ala nola erran balezote: Ona, emen dago billatzen duziena, tesoro altxatua, ondasun guzia, Jangoiko den aur amablea. Entenda dezagun, konstante perseberatzen dutenei Jangoikoaren bidean, mostratzen ta ematen zaiotela amoroso gure Jauna, ez solamente glorian, baita emen ere grazias. Eta zer nai dezake ia batek, logratzen badu Jangoikoa bera? Segi, segi onean; etzaizu urrikutuko. Deusek etzaitela turba, zio bere buruai Santa Teresak, deusek etzaitela lotsa; guzia pasatzen da; Jangoikoa aldatzen ezta; pazienziareki guzia logratzen da. Duenari Jangoikoa deus etzaio falta; Jangoikoa sollik aski da.

Zazpigarrenik errepara dion gura ebanjelioak emen, invenerunt puerum cum Maria Matre eius, aurkitu zutela aurra bere Ama Mariareki, perla bere kontxareki. Zein elkarren aide diren Ama ta Semea, ain urbil dire bataren ta berzearen debozioa. Nai duenak ongi Jesus, naiko du Maria Santisima; ta nai duenak ongi Maria, naiko du alaber Jesus; ta aurkituko du bere fabore ala bata nola berzea, billatzen badu. O ditxosoa, nork ere bear orduan aurkitzentuen Jesus ta Maria. Noiz? Eriotzeko orduan, Jesus eskuieko aldetik, Maria ezkerreko aldetik. Ia eztu berzerik bear; guzia aurkitu du duenak errege ta erregina. Dei sanduen atarietan, dei aingiruen atarietan, dei ta dei, klama ta suspira, Jangoikoaren izenean limosna bat pobre goni, Jangoikoaren amoreagatik, otoi, otoi. Ezta errespuestarik bereala: etxi guti bat; beira daude zer nauten Erregek ta Erreginak. Ebek diote baietz? mostratzen dire fabore? Ia gerostik guziak fabore, sanduak, aingiruek, Zeru guzia.

Eztio ebanjelioak, baña daike pensa, ellegatuaskeros etxola gartara, nolako admirazios bete bide ziren errege gaiek beiratus alako palazioa, etxola erdi urratu gura! Kuna erreala ganbela gura! Ainberzeko pobreza ta deus gabea! Ain humil Ama, ain humil Semea, baña bateo ain Majestades beteak! Pensa espezialki beiratus aur inkonparable gura, nolako errespeto, amore, gozo, ta afekto on guzies beterik ontzat eman zuten biaje ta neke pasatua, ditxoso kontatze ziren aurkituas, ta gloria-iduri bat senti zuten beren baitan!

Irur gauza inzustela, dio ebanjelioak; lenbizikoa, paratzea belauriko auspeska beraren presenzian, arimaren ta gorputzaren erreberenzia guziareki. Bigarrena, adoratzea, ez lurreko errege bekala solamente, baizik erregeen errege Jangoiko bekala, naiz aur gorputzean. Irugarrena idikirik kofreak ofratzea bere Majestadeai presentak beren

biotzeko afektoeki, ta negarreki begietan dudarik gabe. Presentak izan zire irur, ta misteriosoak: urrea, erregeri bekala; inzensua, Jangoikoai bekala; ta mirra, gizon mortaleai bekala; mostratus ala adoratzan zuten ura zela Errege soberanoa, Jangoiko egiaskoa, ta gizon mortalea.

Orai usten dut nik ene adizaleetaik norbaitek nai lukela egin Errege gaien gisara gure Jaunareki adoratus auspeska, ta ofratus urre, inzensu, ta mirra, barin baleki nola. Ezta gaitz ikastea, nai badu aduratu, dela beraren imajinan, dela nonnai fedearreki espirituas, eta gorputzas ere bai. Ezta baizik gogoratzea presente bere Jangoikoaren Majestadea, niork ikusten eztuen lekuan, paratu belauriko, lurrean kopeta, erreberenzia guziareki, ta erran: O ene Jangoiko Jaun andia ta bakarra, nik lurreko artto miserable gonek adoratzan dut gorputz ta arimareki. Eman bezada, otoi, bere bedeizioa, ta aurki dezaten grazia berorren begietan. Amen Jesus.

Bai ta zer ofratuko diot, edo nola, barin banaiz pobrea? Biotz ona duenak, andik dezake atra, nai badu, urre, inzensu, ta mirra ain ona ta estimagarria, nola errege gaiena. Ezi biotza da kofre espirituala, on edo gaixtoa nola den, ta nola nai duen baktzak: gaixtoa barin bada, andik urrearen partes atratzen da lurra ta loia, baitire kodiziasko afektoak; inzensuaren partes ongarria, baitire luxuriasko usaiak, mirraren partes gañarako miseriak ta bekatuak. Ona barin bada, izain du urre fina, inzensu gozoa, mirra preziosoa.

Goazen ikusis ta ikasis. Urrea metaleen preziosoena, suareki lur barnean formazen, ta suareki errefinatzen dena. Zer da au, baizik karidadea edo amorea. Espiritu Sanduaren suas iten duena biotzean? Inzensua da Arabiako arboletto baten nigarra, suan errerik goratzen duena kee atxonzua, ta ofratzen dena solamente Jangoikoaren honratan. Zer da ori, baizik deseo, ansia ta afektoak Jangoikoagana amorearen suaganik goratzen direnak? Mirra da berze arbola bateko nigarra atratzen dena idikis armas azala, ta duena birtute konserbatzeko usteltzetik gorputz ilak. Au da propioki penitenzia ta kontriziosko nigarra, bizten ta sendatzentuen arima ilak ere. Ofrazkiozu bada amoresko afektoak, ta ofratu diozu urre. Ofrazkiozu deseo onak, ta ofratu diozu inzensu. Ofrazkiozu kontriziosko negar amorosoak, ta ofratu diozu mirra.

Ona forma, nola indezokezun presenta: urrea lenik. O ene Jesus amoroso, amante amablea, nik ofratzen diot ene amorearen urre guzia. Amatzen dut nere biotz guziareki, nere arima guziareki, nere entraña ta indar guzieki. Amatzen dut ia ezi gauza guziek, ia ezi neure osasuna ta bizia, ia ezi mundua, ta Zerua, ta pensa daiken ta eztaiken guzia. Amatzen dut ezin iagos, ta nainuke bizi ta il orren amores. Amen. Amen.

Ona inzensua. O ene Jesus, zer eman edo in dezoket nik, naizelaik ain pobre ta ez deustako? ar bez ene borondatea ta deseoak. Deseatzen dut ez ofendtzea sekulan beñik bein. Deseatzen dut obratzea ta padezitzea lazki berorren zerbitzutan. Deseatzen dut, ama, estima, ta zerbitza dezaten berori kriatura guziek. Deseatzen dut neuronek eta guziek ama dezagun nola Serafinek, nola Ama Birjinak etc.

Ona mirra. O ene Jesus, amatu bearrean anitz, ofenditu dut sobra bai sobra. Gaizki korresponditu diot guzis: atzendu dut, utzi dut, trukatu dut berori malamente. Eta zergatik? Ai ene Jesus, damu dut sines, dut damu milla aldis. O ezpanu ofenditu sekulan! O il banitza lenago sikiera. Barka bezada: proponitzen dut ez berriz ofenditzea. Misericordia, ta grazia. Amen.

LIZARRAGAREN SERMOIAK - 4

Avenduarén 2an purgatorioco arimen memoria

1. (Kredoaren itz lenbizikoa Jangoiko Aita guzis poderoso, zeruaren ta lurraren kriadore, azken itza bizitza sekulakoa, adiarazteko, ezi Jaun andiak kariatutuenak gauza guziak, guzien Jaun ta Jabeak inen duela justizia zerbitzatzen dutenei ta ofenditzen dutenei, ta daukala erreserbaturik aiendako premio eternoa ta ebendako pena eternoa. Pena eternora direnak deitzen dire kondenatuak. Premio eternoa logratzen dutenak deitzen dire sanduak, bienabenturatuak, zori onekoak. Orgatik laur dire gizonaren azkenekoak edo nobisimo deituak: Eriotzea, juizioa, infernua ta gloria. Eriotzea da gorputzetik arima berextea, noiz gorputza gelditzen den ilik sentidorik gabe erresurrekzioko eguneraño, orgatik baitio Kredoan aragiaren erresurrekzioa, zeren aragia edo gorputza baita iltzen dena proprioki, ta gero erresuzitatzen dena edo berriro bizten, itzultzeareki arima, zein ezpaita iltzen proprioki beñere. Juizioa deitzen da kontu artzea bizimodu pasatuas ta sentenzia ematea Jangoikoak. Bietas dio San Pablok: Statutum est etc., dagola dekretaturik gizonen iltzea bein ta orren atzetik juizioa. Infernua deitzen da lurraren barren barrenean ta zerutik urrunenean Jangoikoak fabrikaturik daukan presondegi edo kalabozo ilun lotsagarri gura, non penaraztentuen berak kondenatuak su eta tormentu errueki deabruen eskus, zein baitire bere justiziako ministroak eta berdugoak. Gloria deitzen da proprioki bizitza sekulako ditzoso gura gozatzen dutena Jangoikoaren eskojituek eginik errege ta erregina koronatuak beraren ta aingiru onen konpañian zeruen zeru goren gorenean, deitzen baita enpireo, ta Jangoikoaren korte ta palazio, ta paraiso erreala. Laurebetas oroï gaitzela, dio Espiritu Sanduak, ta eztugula sekulan ere bekaturik eginen. Memorare novissima tua etc. Bizi emengoa labur; eriotzea segur; kontuak ertxi; sentenzia segi; gloria edo infernua beti; beti ebek memorian iduki.

2. Orai, bada, Jesu Kristok zeruetara iganik idikias geros ango atariak, ustu ze Abrahamen senoa deitzen zena ta paraisoa, non len zeuden erreserbaturik patriarka, profeta ta berze arima sandak, nora Kristo il ondoan jautsi zen, an zeuden arima sanden atratzera; gerostik onat, (aur bataiatu gabe ta berze bekaturik gabe doazines landara, zein baitoaz aurren linbora) gañarakoak irur estado gisatan atratzen dire emendik: Batzuk bekatu mortalean Jangoikoaren odioan, iran ta desgrazian, alakoak doaz infernura sekulako galduak; berze batzuk doaz Jangoikoaren grazian garbi eder onetsiak guzis, alakoak doaz gloriara zuzenean; berze batzuk ez ain gaizki nola aiek ta ez ain ongi nola ebek, baizik ere grazian bai, baña dutela kulpa leberen bat, edo berze barkatu bearra, edo barkatuen pena ta satisfakzio zerbait pagatu bearra, ezi bekatu guzietan dire bi gaitz, kulpa eta pena. Kulpa barkatzen da penitenziako sakramentuas, pena ere bai, baña ez guzia beti; ta pagatu bearko satisfakziosko obraeki, penitencia, orazio, limosna, obra on, trabaju, pazienza, induljenzia ta alakoeki. Orai, bada, badagoke grazian bat, naiz izanik zerbait kulpa lebe, naiz zor zerbait pena; baña nola baitakigu egi eta fedez, glorian sartu eztaikela pagatu gabe azken marabidiraño, ta garbitu gabe motarik den txipiena ere, orgatik da preziso sinestea, zerura baño len alakoak purgatzentuela Jangoikoak berze munduan. Eta langoi ta lekugoi deitzen da purgatorio, ta ortan detenitzen diren arimak purgatorioko arimak, Jangoikoaren grazian sandak, salbazioko karreran, zerurako bidean ta gloriara joateko seguraturik daudenak. Eta naiz bitarteko dauden neke-penatan, dire Jangoikoaren eskojitu maiteak, sanduen lekukide ta lagun izain direnak; orgatik sanduen festibidadearen atzetik Elizak urbilen egunean iten

du memoria purgatorioko arimen, ta bialtzen sufrajio, gloriartzeko len baño len, ta bitarteo alibiatzeko pena gaietan. San Odilon monje kluniazenseen abadeak, diote, paratu zuela arimen funtzionegoi bere errelijioan, ta bereala Eliza guzian Aita Sanduak milla ta zenbait urtetan; baño berreun urte lenago Malario Fortunatok paratzen du sanduen ofizioaren atzetik arimena, baita señaletan iten zela ia orduko ere. Arimen memoria egitea mezan ia kristiandadearen prinzipiotik usatua da apostoluen tradizio; eta kristiandadea paratubaño len ta len egiten zela orazio ilengatik, klaro dio eskritura sagratuan. Famatua da nola Judas Makabeoak bialti zuen Jerusalem amabi milla zillarezko dratxma, ofratzeko sakrifizio ilengatik. (Libro 2. Machab.12.), eta akabatzen du itzebeki: Beras gauza sandua ta protxugarria da orazio egitea ilengatik, libre laza daitzen bekatuetaik.

3. Bi egia fedesko tugu emen; bat, badela purgatorio ta purgatzan direla arimak glorian sartzeko; berzea, arima gaiei balio diotela bizien sufrajioak, libratzeko ta alibiatzeko. Progatzen da ori klaro Eliza Ama Sandak duen kostunbre usatuareki enkomendatzeas ilak apostoluen denboratik onaraño; baitare eskritura sagratuko testimonioeki aita sanduek explikatzen duten gisan. San Pablok diona korintotarrei lenbiziko kartaren irugarren kapitulan: Zimendua dela Kristo Jesus edo beraren fedea. Beira dezala bakotzak nola obratzen duen zimendu gonon gañetik; baldin agotz, belar, lasto paratzen badu, ori erraustu suan ta bera salbo atrako dela, baño pasatus suan. San Agustinek explikatzen du bekatu benialees pagatzen ta purgatzan direnes purgatorioan. (H.16 de s.s.41 de sanctis). Alaber, diolarik Jesu Kristok, Espiritu Sanduaren kontra erraten duenai blasfemia etzaiola barkatuko ez mundu gontan ta ez berzean, atratzeunte San Gregoriok, San Agustinek ta berze doktoreek, badirela zenbait bekatu barkatzen direnak berze munduan. Zein dire ebek? Benialeak, zeñengatik ezten arima kondenatzen, bai purgatzan purgatorioan. Eta kulpak purgatzan badire, zenbat obeki pena zor direnak pagatus ango suan faltatu zena emen? Egia gau deklaratu ta konfirmatu dute anitz Konzilio Probinzialeek Afrikan, Españan, Alemanian, Franzian, Italian; baitare jeneraleek, Lateranenseak, Florenziakoak ta azkenik Trentokoak. Eliza guziaren usanzas fede ematen dute San Dionisio Areopajitak, San Juan Krisostomok, San Agustinek ta berze sanduek orazio, sakrifizio ta sufrajio iten zuztenek, ta eskatzen zuztenek berendako. San Agustinen ama Santa Monikak iltzerakoan enkargatzen zue in zezatela memoria beras aldarean. Anitz dire historia kontatzen direnak purgatoriotik aparezitues eskatzera sufrajio; eta naiz zenbait diren kontu banoak ta engañuak, baño franko dire sinestatzeko egiaskoak, nola kontatzen dutenak San Gregoriok, San Pedro Damianok, San Bernardok, Santo Tomasek, Suriok, Santa Teresak, Santa Brijidak etc. etc.

4. Asentaturik egi eta fedetako badela purgatorio, erragun non den ta nolako penak tuen. Klaro da Jangoiko guzis poderosoak nonnai dezakela purgarazi arima, baño leku ordinario komuna da lur-barnean infernuaren saietan batean, non pasaztentioten bi pena-jenero zor dutenaren ariora. Lenbiziko pena da pribaturik idukitzea, ta debekaturik ikustetik Jangoikoaren aurpegia, deitzen baita dañuaren pena, baita agitz penaraztentuena ezauntzeareki ia emen baño klaroago, zein on den Jangoikoaren ona, ta beraren gozatzea, ta beren kulpas debekatzen zaiotela; ala nola neska aldiritar bat destinatua izateko errege andi eder baten esposa ta erregina, arren palaziora joan bearrean baleukate detenituri kalabozoan bere faltaz. Berze pena-mota da sentidoaren pena, sentiarazten diotena suaren ta berze tormentuen erruareki, zein, sanduek diotenez, da erruago eta sentigarri penosoago, ezi munduko pena ta martirio guziak, ala diote San Gregorio andiak, San Agustinek, Bida benerealeak, San Anselmok ta San Bernardok. Eta Santo Tomas doktore

aingiruak añaditzen du, purgatorioko penak direla erruago ezi martir guzienak, baitare ia ezi Kristo berak bere pasio doloreskoan pasatu zituenak, zeren ezi ango su gura da infernuko su-jenero berbera. Orgatik San Agustinek prediku batean dio ala: erranen du agian norbaitek, guti zaida detenitzeas ni purgatorioan, nola ellega naienez zerura. Niork, ene anaia maiteak, niork ere ezdezala ori erran, zergatik purgatorioko su gura erruago da ezi pena guziak munduan ikusi, senti edo pensa daizkenak; eta nola dagon eskribiturik juizioko egunas, egun bat milla urte idurituko dela. Eta nork daki, su gartan pasatuko duen denbora izanen den egunen, edo ilabeteen, edo urteen denbora? Orai eztuenak iduki nai eri bat sollik ere suan, nola ezta beldur izateas tormentatua su bizi lotsagarri gartaz, naiz dela denbora gutiz? Orgatik bakotxak bere indar guzieki kuida bez libratzea mortaleetaik ta deskitatzea benialeak obra oneki, eztadien geldi deus konsumitu bear denikugarreki. Guziok dire sandu juizioso garren itzak. Onen konforme kontatzen da, ezi heri on bati nekatu zenari egonez anitz denboraz oñazeeki goatzean, bere aingiruak Jangoikoaren ordeiz eman ziola autara, zein nai zuen, edo ala heri egon oraño urte batez, igateko gero berla zerura, edo berladanik joan purgatoriora irur eguntako. Arrek autatu zuela au; eta eramanik espirituan arara, ia iduri zekiola ordu adiña urte etc. Orai emen dudatzen da, ia purgatorioan ere diren tormentatuak demonioen eskus. Doktore batzuek diote baietz, berze batzuek ezetz. Zierto dena da arimen atratzea purgatoriotik, eta aiei emendik sufragatzea, sentitzen dutela demonioek, ta estorbatzeko iteuntela inala.

5. Zierto ere da egi eta fedez daizkela pena gaiek alibiatu zerukoan ta lurrekoen medios. Fundatzenda egia gau Kredoaren artikulo gartan, Eliza Sanda Katolikoa ta sanduen komunioa, au da, Elizan, zein baita kristio fiel guzien kongregazioa ta familia, zeñen burua den Jesu Kristo, kristio fiel guziak direla partizipante elkarren obra onetan. Kristoren erreinu deitzen den Eliza edo familia gontaik eztire apartatzen ez zerukoak ere ta ez purgatoriokoak ere; sollik infernukoak daude apartaturik betikos. Purgatoriokoek, bada, senti dute aldartez alibio zerbait; lenik egoteaz seguro daudela Jangoikoaren grazian, ta ez dezaketela galdu, eta pena gaiek akabatuko direla, eta ellegatuko direla gloria eternora goiz edo berant. Eta ala, naiz penak diren erruak, pasatzentute pazienza ta konformidade andiareki. Gero beren bisitak iten omentiete aingiruek, beren guardiakoek espezialki. Gero faboratzentute sanduek, prinzipalki Maria Santisimak. Ortas landara mundutik Eliza Ama Sandak laguntzen diote orazios, sakrifizios, sufragios. Sufragiorik andien ta preziosoena da mezakosakrifizioan ofratzen den axuri dibino gura, zein paratu zelaik guzien fiadore ta pagadore, eta pagatu zuelarik abasto pasio ta eriotzeareki gurutzean, aldareko mai gartan presentatzentu bere burua, bere lllagak, penak, gorputza, odola, ta merejimentuak guregatik; eta nola purgatoriokoak baitaude ongi disponiturik, gozatzen dute pagamenta an ofratzen dena, beren ariora. Emen errain du agudoren batek, mezan ofratzen den axuriak balio duelarik infinito, nola eztire meza bateki libratzen arima guziak, zeñengatik ofratzen den? Zeren Jangoikoaren justiziak admititzen duen satisfakzio gartaik onenberze bakotxaren bere neurri txustoan, ez balio duen diña berebaitan. Baña guziek baño balio diote ia arrek sollik, zeren baita ofrenda kuadrableena Jangoikoari. Orgatik sartu da Elizan kostunbrea, juntatzeko fielek ofrenda dibino garreki beren ofrajeak; eta da guzis antiguasko debozio usatua (Tobias)

6. Berze sufragio balio diotenak aiei aplikatus dire balio diotenak bakotxai obratus, eta tuzu bildurik berso gebetan: Ora, operare, dato, puni te, ferque ferenda. Sacra indulta tibi cura quot possis habenda. 1a orazioak. 2a obra onak. 3a limosnak. 4a penitenziak. 5a trabaju sufrituak. 6a induljenziak. Eta entenda ongi ongi, ezi naiz batek egin ta eman

arimendako alako obra onak, dela aplikatus, nola satisfakzioak, dela suplikatus, nola orazioak ta sufragioak, eztuela orgatik galtzen tratu-gisaontan, baizik irabazten. Entendatzeko obeki da ikastea, gure edozein obra onetan Jangoikoaren graziareki direla irur efekto, fruitu edo probetxu. Lenbizikoa da merejimentua, au da merejitzea ia grazia ta agrado Jangoikoaren begietan, ta segi dan dretxo ia gloriaren. Ontan eztu berze niork ere parterik, baizik iten duenak beretako merejitzendu. Berze efekto edo fruitua da inpetrazioa, au da logratzea arreaki berze edozein gauza. Irugarrena da satisfakzioa, auda zorren pagamenta. Bi gebek daizke aplika ta eman arimendako; eta emanaskeros klaro da ori gabe gelditzen dela. Baña zer da gero, barin badu orgatik karidadearen merejimentua, kuadratzea Jangoikoai ia ta ia dretxo gloriara? Eta berze alde esperanza ere ona, arimek zerura joan ondoan itzuliko diotela ordaña ona. Iduri zaida niri sufragioen egite gau dela ala nola eraikitzea lur onean, edo azaro ona egitea. Barraiatutuen granoak gabe gelditzen da, baña ortako du eraizioaren esperanza. Klaroago: Baleude presondegian erregeren humeak, eztituela utzi nai Aitak atratzera, pagatu arteo zor dutena; ta zierto balitz, andik atra ta bear dutela erreinatu Aitareki, ta ortako ematea nornaiek kuadratzen zaiola erregei ere, ez solamente aiei, lanze gontan ematea batek dezaken guzia ezlitzake galtzeko, baizik irabazteko. Bada, lanze berean gara; errege zerukoaren humeak eta maiteak dire purgatorioko arimak; zierto da andik atra ta izan bear direla errege ta erregina zeruan; zierto ere da ematea aiei ortako dela txoil kuadrable Jangoikoai ere. Zer ai gara? Nola eztiogute eginen eginala sufragio ta gauza? Beldur gara galtzeas? Ezta pellik. Edo irabazia iduri zaigu guti? Gutiena da batendako eun; eta ori emen munduan; eta esperanza gloria eternoaren, geurok nor bagara. Edozein limosnatan da ori; obeki arimen limosnan.

7. Arimei iten zaioten limosna-gisa gau alde guzietatik da on. Alde bat, zeren baitire agitz pobre nezesidade extremoan daudenak, ezin irabazi deus, ezin adiarazi ere guri beren lastimak. Berze alde dire pobre onak eta sanduak, ezi asko sandu kanonizatu direnak elizan, pasatu dire purgatorioko suas, nola San Seberino, nola San Paskasio, zeñen dalmatikak sendatzen emen heriak, ta bera an purgatzen suan, nola berze asko. Berze alde dire pobreak sarri abratstuko direnak bete bete, nai adiña. Orai berean andik ere badakite ongi egiten beren ongiegilleei, bentzait bai Jangoikoak aien partez. Eta zerura doazelaik, zer eztute eginen? non da fedea? Edo sinesten badugu au, non da karidadea? Edo non da kodizia? Ezi abrats andi poderosoeri eman naia kodizia dirudi; eta aiek ezpadire, izanen dire abrats andi poderoso Jangoikoareki. Berze alde agian asko an, zeñei dioguten obligazio, edo zeren gure buratso, aide, maestru edo kargudun izan diren, edo gure karguko izanak, zeñeki faltatu dugun, edo gure adiskideak, ezaunak edo kideak, agian gure faltaz daudenak an. Berze alde bide dire asko atzenduak an, eztutenak nior enkomendatzentuenik. Berze alde nezesidade gura delarik extremo, ta iten zaioten limosna ain ona ta protxugarria, guziek dute posibilitade egiteko, nior eztaike exkusa ezizanes, ezi ezta bear bolsa andirik, baizik biotz prestu beratxa, sokorritzeko arla edo orla. Sokorritzentuenak orai emendik dezake espera ilen dela ongi, atrako dela ongi juizioan ta admitituko dutela glorian, zeren an izanen baitu anitz bere fabore. Kontra berriz eztuena ajolarik aietas, bera ere utziko dute atzendurik. Eta zer izanen da eztuenas nork anparatu bearren bearrenean? Atra bear da emendik prinzipalki bizitzea Jangoikoaren beldur onareki, ezi kulpa lebeak ala kastigatzen baditu, nola inen du grabeas justizia? Miseremini mei, miseremini mei, saltem vos etc.

Sermo I:
Praeparatorius ad
missae explicationem

Ego sum panis vivus, qui de coelo descendi. Joann. 6.

edatzen badugu bista mundu guzia barna, ikusteko zer agitzen den an ta emen, ta baster guzietan, zertan okupatzen diren Adanen humeak, baldin ezpada arriskoa gure biotza, urturik negarretan etorriko zaigu begietara, ta utziko gaitu ezin beiratus lastimaren utses ainberzeko trastornua ta makurtasuna. Batzuk dabilta zoraturik beren arimen kontrako itekoetan; bertze batzuk nekaturik bearrestiren gauza banoetan; bertze batzuk okupaturik enplegu bidenabarko ta bigarren lekuko diren goietan; geienak atzendurik bearren bearrenas, ta guti oroitzen direnak ortas, au da, Jangoikoas ta Jesu Kristo bere seme bakar gizon egin zenas gizonengatik. Lurrekoak izanes, neke bazaiote beiratzea zerura, oroitzea an dugunas, lurrera beira bezate, oroitzeko emen dugunas. Ikusikotut, dio bein Dabid Profetak (Ps. 8), ikusikotut, Jauna, orren zeruak, orren erien obrak, illargia ta izarrek berorrek fundatutuenak. Zer da gizona, zeren ala oroitzen baita artas? Edo gizonaren humea, zeren ala beiratzten baitio? Berze bein konbidatzen gaitu berriz guziok lurrera beiratzeko; gureki birtuteen Jauna, dio (Ps. 45), gure errezibizale Jakoben Jangoikoa. Zatoste, ta ikuskizie gure Jaunaren obrak, paratu dituen prodijioak lurraren gañean. Nola erran balez: Neke bazaizie zerura gora beira egotea, beira bera, prodijiorik asko da lurrean berean ikusteko. Zer prodijio! Dominus virtutum nobiscum. Birtuteen Jauna gureki egotea, jautsirik zerutik guregana gure amorios. O prodijioen prodijioa! Ta zein guti beiratua!

Au egin zue Jangoikoak noiz ta etorriarik ardi galduaren bila, gizagendea baita, gure Artzai dibinoa Jesus eramateko bere soñean zerura, in baize gizon, arturik bere gana gure naturaleza, edo erran badaike jaintsirik gure gorputzaren zamarras; et incarnatus est. Bizitu baize gutartean ogeitaamirur urtes, nekatu baize ardi galduen bila egines dilijenzia guziak ortako; ta azkenean ixuri baizue bere odol dibinoa ta eman baizue bere bizia gurutze batean, pena, tormentu, injuria ta ignominia infinizio baten ondorean, Jangoiko denak gizon bekatariengatik, justoak injustoengatik, Jaun goren gorenak gu txinurri txarrengatik. Ongi iten du, bada, profeta errealak konbidatzeas munduko guziak atzendurik bekala daudenak gauza gebetas, diolaik: Birtuteen Jauna gureki. Zatoste ta ikuskizie Jangoikoaren obrak, paratu dituen prodijioak lurrean. Emen agian noribaiti etor dakioke pena ez izanas fortuna bizitzeko Jesus bizi zen denbora gartan. Zenbatek diote agian, nainuke ikusi nere Jauna ibiltzen, predikatzen, ongi egiten munduan? Nainuke ikusi beraren aurpegia, tallea, tresenak, oñetakoak. Etze ellegatu Dabid ere ikustera gorputzaren begis, baizik espirituari; ta alaere betetzen da alegranzias, debozios, agradezimentus. Ura bizitu ze Jesus etorribañolen, gu ondorean; bada, guk dugu ia motibo alegratzeko, laudatzeko ta agradezitzeko Jesus Jangoiko gizonak eginikako prodijioak lurrean.

Gu gara nor prinzipalki garen konbidatuak ikustera. Guri erraten zaigu: Dominus virtutum nobiscum, birtuteen Jauna gureki; Susceptor noster Deus Jacob, gure errezibizalea, gu bere besotan bekala artzen gaituena, ta bere bularretan bekala azitzen gaituena da Jakoben Jangoikoa. Benite et bidete opera Domini, zatoste ta ikuskizie gure Jaunaren obrak, quae posuit prodigia super terram, paratutuen prodijioak lurrean. Nola

dateke ori, Jauna, dakigularik fedes Jesus zerutik jautsi zena, il ondoan erresuzitaturik igan zela zeruetara, ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuieko aldean? Ori litzake baldin bizitu bagina gu denbora gartan edo etorri barin baze Jesus gure denbora gontan. Esta zer kexatu; Jaun berak guri digun amorioagatik injeniatu zue bere xakintasun ta podorio infinitoareki etzekigun deus ere falta sustanzian alde gortaik, baizik gozaginezazken betiro bere Majestadearen presenzia erreala, bere odol, pasio ta eriotzearen fruituak. Zerengatik zekiellarik ellegatzen zela bere ordua pasatzeko mundu gontaik bere Aitaeternoagana, onetsirik bereok beti, azkenerat onetsiginduza berexki egines amorioaren azken demostrazioa daiken adiña, utzis prenda bat, zeintan biltzen diren bere inikako fineza guziak batean. Au da eukaristia deitzen duguna, grazia ona propioki, ta sines ona. Au seguratu zigu betiroko fundatus meza sanduaren sakrifizio miragarria, zeñen medios gure Artzai ona Jesus, il etzeikena errealki bein baizik guregatik, sakrifikatzen baita misteriosoki egunoro ta manera batean enkarnatzen, jaiotzen, iltzen ta desegiten bekala baita berri berritan. Au da prodijio gura, zeñen medios guzien gañetik ematen baitigu jatera ta edatera bere gorputz ta odol preziosoak. Au da Profeta errealak berak dion memoria gura: *Memoriam fecit mirabilium suorum misericors et miserator Dominus*, egin zuela, dio, bere marabilla guzien memoria, bilgura eta zifra bat gure Jaun miseri-kordio-soak ta miseri-kordia-egilleak; *escam dedit timentibus se*, eman diote alimentua beraren beldur direnei. Au da bere ongiegin guzien korona, bere guganako amorioaren ondasunen erauntsia, bere milagro ta prodijio guzien andiena, zeintan botatu baizue bere xakintasun, podorio ta amorioaren azken erretoa; obra, zeintan ageri baita Jangoikoaren andia.

nekatzen badire, bada, Jangoikoaren ministroak oius exortatzen gizon beti inklinaturik lurrera beira daudenei goratzeko begiak, biotzak, atenzioak gora zerurat, ta ezin logra; nik Dabideki konbidatzentut beiratzera lurrean dutena: *Venite, et videte opera Domini*, zatoste, ta ikuskizie gure Jaunaren obrak, quae posuit prodigia super terram, paratutuen prodijioak lurrain gañean. Atxekia atratzen bazute, gora urruti dagola zerua, gora dagola Jangoikoa, nekatzen direla gora beira, ia estute balio atxekia goiek, lurrera ia etorri zaigu zerua, errateko ala: *Lurreraño apaldu da Jangoikoa. Dominus virtutum nobiscum*, birtuteen Jauna gureki, *susceptor noster Deus Jacob*, gure erre-zibizalea Jakobena Jangoikoa. Bezino perpetuo egin zaigu erri guzietan; emen plantatu du bere kortea, bere palazioa, bere maia, bere ondasunen iturria. Noiznai dugun, emen franko dugu audienzia; noiznai dugun gaizke egon errege andiareki konbersazioan; noiznai dugun, jarri gaizke berareki maiean; noiznai dugun, erre-zibi dezakegu geuren etxe gebetan; noiznai dugun, atratzen zaigu fiadore, abogatu, bitarteko gure fabore; noiznai dugun, sakrifikatzen da bizirik guregatik ofratus bere gorputza ta odola berri berritan. Ezneuka arrazio errateko beira dezagula lurrerat? Ikusteko emen Jangoikoaren prodijioak? Aurkitzeko sobra ta sobra motibo maitatzeko Jangoikoa?

Guziau dugu izateas meza sandua, zeñen prodijioen itsasoa ikustera konbidatzenaiztet urrengo platikaetan, zerengatik ezipada ikusten, esta estimatzen ondasuna, naiz dela andia. O meza sandua, zein guti zaraden estimatua, izanik daiken gauzarik andiena? Nola da ori? Ikusi-faltas, ezaundu-faltas. Agitzen zaio menditar bati aurkitzea lurrain moldatzerakoan diamante bat agitz balioa, baña estalirik loies argitu gabe, ta etzaio iduri den adiña, ezipadiote erakusten arren balioa, agian deus gutiren truk utziko du india bat balio duen gauza; baña erakus bezo zillargille bati, onek desengañatzen du. Ala gertatzen zaigu meza sanduaren tesoro goneki, geuren lurrean, geuren etxean,

Elizan aurkiturik, ezpaitugu ezaunzen onen balioa, nola estalirik baitago begi korporalegebendako; ta orgatik, ta kaso guti eginagatik xakiteas zein balioso den, guti estimatzen baitugu infinito balio duen gauza. Nik, bada, kunplitzeagatik ere Konzilio Trentokoaren mandamentua, baita deklaratzeko maiz meza sanduaren misterio ta gauzetaik jai ta igandetan, nainuke joan deklaratus gutibana ta nolapait meza sandua zer den, zertako den, nork paratua den, zer probetxu dakarzkien, nola enzun bear den, ta gero emendik pasatuko naiz aipatzera sakramentu aldarekoaren ta komunionearen gauzak; adbertiturik oraidanik betiko, ezi errain duten guzia estela izanen aski beñere, zerengatik ez nik ezi niork ere ez dezake erran den adiña asunto gontan, baita ala nola itsaso bat ondar gabekoa. Baña esta arrazio orgatik ustea deus erran gabe; ezpadaike ustu guzis, estugu orgatik utzi bear atratzeko zenbait tanta al daiken gisan.

Egun ez berzerik, baizik prebenitu biotzak ta idiki ataria sartzeko Jangoikoaren tesoroen artxibo gontan, zeñeki sollik baikara aberatsak espiritualkiro ta fortunosoak errealki, barin badakigu probetxatzen. Non fecit talitér omni nationi, estu ala egin Jangoikoak jende guzieki, nola kristioeki, zeñei beren Jangoikoa ematen baizaiote ain liberal, ezi lagun ez ezi, bizitzaren alimentu in zaiote beren desterru gontan. Ego sum panis vivus, qui de coelo descendit. Ni naiz dio Jesu Kristok, ni naiz ogi bizia zerutik jautsi nai zena. Fortunosoak Adam, Noe, Abraham, Isaak, Jakob, Moises, ta lenbiziko Aita Sandu gaiek baizukete jarduki Jangoikoareki ala nola adiskideak adiskideareki. Fortunosoak bizi ziradenak Kristoren denboran, baizukete ikusi beraren aurpegia, aditu beraren boza, errezibitu beren etxetan, jan ta edan beraren konpañian, apatu oin dibino gaiek. Fortunosoak berexki apostoluak gozatu baizute ain urbiletik Jesusen presentzia amablea. Guzien gañetik fortunosa Maria Santissima, zeñen Seme in baize, zeñen sabel birjinalen enkarnatu baize Jangoikoaren Semea Jangoikoa. Baña gu ere fortunosoak, zeren mezaren medios baitugu geureki ura berbera; eta sazerdoteen, fortunas arriturik berexki dio San Agustinek: *Ô veneranda sacerdotum dignitas, in quorum manibus velút in utero virginis incarnatur filius Dei! O sazerdoteen dignidade benerablea, zeñen eskuetan nola Birjinaren sabelean enkarnatzen baita Jangoikoaren Semea! Zer falta zaigu, nere fielak, ezpada ikustea gorputzeko begis? Ori da falta, ezi gañarakoan ain errealki daukagu emen guk, nola judioek Jerusalem, nola apostoluek, nola Ama Birjinak. O fedea, non zara? Zu sollik bearzaitugu, fede bizia. Oneki ikusten da. Orai ikusten dugu, dio San Pablok, ala nola hispilu batetik, klaroki ez orai, gero ikusko dugu aurkez aurke (1. Cor. 13). Orai edaturik dago kortina begien alzinean, gero goratuko da kortina ta agertuko da estalirik dagona. Alaere esta fortuna andia? Ala nola balego bat erregeren aposentuan, baleki zierto an dagola errege kortinaren berze aldean, aitzen, atenditzen, estimatzen duela, naiz ez agerturik bere aurpegia; ori dugu elizan ta berexki mezakooan; orgatik egoten dire bitarteo aingiruak erreberente asistitzen ta laguntzen inguraturik daukatela erdian sazerdotea, dio San Juan Krisostomok (1.6 de saco). Eta sandu gau zegolaik zelebratzen meza, aingirus beterik ikusten zue eliza San Nilok. San Gregoriok dio (Dial. 1.4. c. 58): Nork kristio fieletaik dezake dudatu konsagratio-orduan sazerdotearen itzen birtutes idikitzen direla zeruak ta presentatzen direla elizan aingiruen kuadrillak? Esta motiborik gabe soñatzea txintxa ta ezkila ordu gartan. Sandu gonek zelebratzerakoan Santa Maria Maior deitzen den eliza batean Bazkoa egunean, erran zuelaik: *Pax Domini sit semper vobiscum*, aingiruek errespondatu ziote: *Et cum spiritu tuo*. Ezi orgatik da kostunbre zelebratzen duelaik Aita Sanduak eliza gartan, ez errespondatzea korutik itz gaietara (Ap. Parra p.2 pl. 22). Santa Brijidak ikusi zitue espiritu zerukoak atomo-adiña zebilzala egatzen eliza barna.*

Santa Katalina Boloniakoak ellegatzean santus, aitzen zitue kantatzen ain dulzekiro aingiruak, ezi iduri baizekio zegola glorian. Orgatik dio sazerdoteak pefazioan, «Jangoikoaren Majestadea laudatzeuntela aingiruek, adoratzen dominazioneek, errespetatzen beldurtasunareki potestadeek». Orgatik dio, «kantatzen dugu orren gloriako himnoa aingirueki, trono ta dominazioeki, ta zeruko tropaen soldadeska guziareki». San Eutimiok ikusten zitue aingiruak zerbitzatzen sazerdoteai mezan, bestitzen ta buluxten, konpontzen belak, ematen binajerak etc. Oroat dio San Antoninok, San Prokulo ta Landon obisposes, asistitzen ziotela mezan aingiruek. Ala utzi dire ikustera aingiruak zenbait aldis, pensa dezagun naiz ez ikusi egoten direla beti misterio andi garren erreberenziatan, ta ikas dezagun gizonen fabore fabrikatu zen prodijio gura estimatzen. Dominus virtutum nobiscum, birtuteen Jauna gureki; O gure fortuna! Susceptor noster Deus Jacob, gure errebizibale, gure anparo, alimentatu ta azitzen gaituena Jakoben Jangoikoa. Venite et videte opera Domini, zatoste munduko desterratu miserableak, zatoste ikustera tenploan Jangoikoaren obrak, quae posuit prodigia super terram, paratutuen prodijioak mundu gontan non estelaik oraño garai gozatzeko Jangoikoa, posible ta konbeni den adiña usten da gozatzera bere tenploan. Billa emen, estima, honra, maita, goza gure Jauna gisa ontan ellegatu arteo ikustera glorian.

Sermo II:

Quid sit missa, et ad quid

Hoc est corpus meum, quod pro vobis tradetur;
hoc facite in meam commemorationem. Luc. 22.

Ellegaturik bein Kristoren Majestadea Samariako ziudade batera jarri ze butzu edo iturri baten aldakan; bitarteo ellegatu ze arara emasteki fortunosa bat ur eske, aurkitu baizue an ustekabetzean bere erremedio, ondasun ta ditxa guzia, bere salbazioa, bere salbazaleareki. Jaun dibinoak eskatu zio ur trago bat; emastekiak erran zio nola izanik Judatarra eskatzen zion berai, baize Samariakoa; zerengatik bi jende gaiek etzute tratatzen elkarreki. Jaun onak erran zio: O bazindeki Jangoikoaren donoa edo mertxede! Ta nor den mintzatzen dizun gau! Emendik segitu ze erakustea, erremediatzea, salbatzea arima gura. Baña gure asuntorako, gure desterru triste gontan tenplo sanduan aurkitudugunas ustekabekiro, erran dakiguke bakotxai: O bazindeki Jangoikoaren donoa! Eta nor den aldarean daukazuna! Baña ignoranzias orai ere, itsutasunes ta ajolagabes agitzen da ez goart egitea, ala nola Judatar anitzek orduan zeukatelaik beren artean ezpaizute estimatzen. Igorrizuste mandatariak San Juan Bautistagana galdegitera Kristo ote zen bera. Ez naiz ni, zio sanduak; zuen erdian egon da zuek ezauntzestuziena, zein nere atzetik etorriko da, ta ni baño len da (Joan. 1.), zeñen zapeten lotzakia laatzeko ere ez naiz gauza ni. Berze egun bates ikusirik Jesus eldu zela bera gana, erran ziote San Juan Bautistak: Ona Jangoikoaren axuria, ona edekitzentuen munduko bekatuak. Au da norengatik erran nizien, nere atzetik etorriko zela, baña ni baño len dela. Orai San Juan Bautistak ez, baizik Eliza Ama Sandak erraten digu Jesus sakramentatuas. Ecce agnus Dei, ona Jangoikoaren axuria. Ecce qui tollit peccata mundi, ona edekitzentuen munduko bekatuak. Estakigun akitu Judioei bekala, geuren erdian egoki ta ez estimatzea, ez ezauntzea, ez goart egitea ondasun inmensoa duguna eukaristian, nai dut adiarazi nolapait. Orrek, Maria, ekarri zuena mundura, alako Amak alako semes, erdetxi bezagu, otoi, ezauntzeko grazia. Abe Maria.

Ó si scires donum Dei! O ezaun bazindez Jangoikoaren donoa ta mertxede ta nor ematen zaizuna aldareko maiean! deitzen da eukaristia, baita oroat nola grazia ona, ta zein ona! Bi gisatara daike beiratu, nola sakramentu, ta nola sakrifizio: Sakramentu bekala da prinzipalki alimentatzeko arima, ta ortako aski da bietaik bat bakarrik, edo kaliza konsagratua, edo hostia konsagratua, ta ala noiznai da sakramentu, delaik hostia konsagratua gau ta egun. Sakrifizio bekala da prinzipalki ofratzeko Jangoikoai, ta ala solamente da iten den bitarteo meza sanduaren akzione gura, ta ortako dire preziso biak, au da, hostia ta kaliza konsagratuak, zerengatik izatekos sakrifizio sakrifikatu bear da errepresentatus Kristoren iltzea ta odolaren ixurtzea gorputz dibino gartaik bere pasioan, ta au errerepresentatzen da mezakoan paratus hostia berex ta kaliza berex, baña biak dire preziso paratzea presente, ezperen litzake sakramentu, baña ez sakrifizio, ez meza. Jauna, estago Kristo bera guzia hostia konsagratuan? Bai. Estago bera alaber guzia kaliza konsagratuan? Bai. Bada, zertako biak? Izateko sakrifizio, errerepresentatzeko beraren pasio ta eriotzea, ta ofratzeko Jangoikoai. Hostia sollean esta sakrifizio ofratu bear dena Jangoikoai; baña sakramentu osoa da hostia sollean, ta ala aski da ta oroat da komekatzeko, ta alimentatzeko arima, zeren hostia sollean ere baitago Kristo guzia. Klaroago. Presentatzen da aldareko maiean axuritto bat, ziona San Juan Bautistak: Ecce

agnus Dei, ona Jangoikoaren axuria Jesus Ama Birjinaren esneareki azi zena, axuri ona, dibinoa, dulce delizioso; zenbatenas presentatzen den hostia sollean gure arimen alimentatzeko deizen da sakramentu; zenbatenas presentatzen den hostian ta kalizean erre-presentatus bere pasio ta eriotzea ofratzeko Jangoikoai, deitzen da sakrifizio, uskaras meza, latines misa, ta hebreos misatx; itz gonek nai du erran ofrenda borondateskoa, edo gauza bat borondates ofrezitzen dena; latinesko itzak misa, nai du erran bialia edo igorria. Ala akabatzerakoan meza sazerdoteak itzulirik puebloagana aurpegis dio: Ite, misa est, nai baitu erran, zoaste, igorri da edo bial duda. Zer? Klaro da, ofrenda borondateskoa, axuri Dibinoa Jesus guregatik bere borondates ofrezitu zena. Baña ezkartzela detenitu izenean, utzirik azala, goazen mamira, diot explikatzeraz mezaaren prinzipioa, sustanzia ta finak.

Meza sanduaren sakrifizio miragarria fundatu, instituitu ta imini zue Jesu Kristo berak Ortzegun Sandu arratsean, bere eriotzearen bezperan, kontent ezipaliz bekala bein solamente iltzeas guregatik, utzi gabe Elizan modu sakrifikatzeke ta ofratzeke bera anitz aldiz misteriosoki, baña errealki, dirauen bitarteko munduak. Ortako lenik apostoluei garbitu zitiote oñak bere esku dibinoeki; ortako zelebratu zue lenbiziko meza bere Majestadeak apostoluen presenzian; ortako ordenatu zitue sazerdote; ortako eman ziotue potestade zelebratzeko berek, ta ordenatzeko berze sazerdoteak; ortako erran ziotue: Hoc facite in meam commemorationem egin zazie au nere memoriatan. Baña guzia dio Trentoko Konzilio sanduak (S. 22. c.1. et 2). Aitzeko da, itzik galdu gabe. Dio ala: zerengatik leneko testamentuan sazerdozio Lebitikoaren imperfekzioain kasos ezpaize kunplimentatu osorik, diones San Pablo apostoluak, izan ze preziso, ala ordenatzen zuelaik miseri-kordien Aitak Jangoikoak jaiki zeien Meltxisedetxen ordenain ariora berze sazerdote bat, au da, Jesu Kristo gure Jauna, zeñek zezazken perfekziora ekarri santifikatu bear ziren guzi guziak. Gure Jangoiko ta Jaun gau, bada, naiz ofratu bear barin baze ere bein eriotzearen medios bere Aita Jangoikoai, alaere nola ezpaize akabatu bear bere eriotzeareki beraren sazerdozioa, azken afari gartan, entregatzen zuten gau berean, usteagatik Eliza bere esposari sakrifizio bat bisiblea edo ikusgarria, gizonen naturalezari dagokion gisa, zeñeki erre-presenta zeien odolesko sakrifizio gura bein sollik in bear zena gurutzean, ta arren memoria geldu zeien munduaren akabanzaraño, ta arren birtute salbazioskoa aplika zeien egunoro itentugun bekatuen barkaziotako, deklaritzen zela sazerdote Meltxisedetx ordenain ariora betiko paratua ofratu zitio bere Aita Jangoikoai bere gorputza ta odola ogiaren ta ardoaren espezie edo iduriaren pean, ta entregatu zitiote erre-zibitzeko gauza beren akzidenteen pean apostoluei, zein orduan ezartzen baizitue testamentu berriko sazerdote; ta aiei ta aien ondorengoei sazerdozioan manatu ziotue ofratzeko itzebeki: Au egin zazie nere memoriatan ala nola betiro Eliza Katolikoak entendatu ta erakutsi baitu. Zerengatik zelebratu ondoan Bazkoa zarra, zein israeldarrek iten baizute Ejiptotik ateratze garren memoriatan, instituitu zue Bazkoa berria, baita bera ofratzeko Elizak sazerdoteen medios señaile ikusgarri gaien pean bere mundu gontaik Aitagana joatearen memoriatan, noiz ta erredimitubaikinduza bere odola ixuris; ta libratubaikinduza tenebren potestadetik, ta aldatubaikinduza bere erreñura. Au da ofrenda garbi gura estaikena mantxatu ofratzeuntenen indignidade edo maliziagatik, zein Jangoikoak Malatxias profetaren agos erranik baizeuka ofratu bear zizaiola garbi leku guzietan beraren izenai, zein izanen zen andia jendeen artean, au da zein klaro aski adiarasten baitu San Pablo apostoluak eskribitus korintiotarrei diolaik estaizkela izan Jaunaren maiaren partizipante zikindu direnak Deabruen maiean partizipante izanes, maia entendatzen duelaik aldarea bietan. Au da signifikatzen zutena lengo sakrifizioek,

bateratzentuenen ondasun guziak signifiktzen zirenak aietan guzien konsumazio ta perfekzioa den bekala. Guziok dire Konzilio Sanduaren itzak.

An berean bigarren kapituloan dio ezi Mezan iten den sakrifizio dibino gontan kontenitzen ta sakrifiktzen dela odol ixurtzerik gabe Jesu Kristo berbera ofratu zena bein odol ixuris gurutzearen aldarean, ta orgatik dela sines palakatzeko Jangoikoa ta erdexteko miserikordia ta grazia, zerengatik bat eta berbera da hostia sakrifiktzen dena, berbera da orai ofratzen duena sazerdoteen zerbitzus, zeñek orduan ofratu baizue bere burua gurutzean, diferente delaik ofratze gisa solamente; ta gurutzean ofratze garren fruituak logratzen direla abastoki aldarean ofratze gonon medios. Guziau dio Konzilio Sanduak. Zer ia daike erran? Onen konforme zer da meza edo mezaren sakrifizioa? Da sakrifizio bat solemnea, zeintan ofratzen baita Jesu Kristo Aita eternoari ogiaren ta ardoaren akzidente edo idurietan sazerdotearen eskus aldarean Majestade gorenaren honratan. Goazen argitus ia tesoro gau, erabakis itzak bat banaka. Da sakrifizio beñik bein, ta sakrifizio deitzen da ofrenda iten dena Jangoikoai gauza bat iles edo erres edo aldatus, bere majestadeari pagatzeko zor diogun honra ta agasajoa Jaun goren ta bakarrai bekala guk bere esklaboek ta beraren menean gaudenek. Barin baliz konparaziorik lurreko gauzetan, erran nezake ezi ala nola Jaun andi bati pagatzen den petxa, tributoa edo presenta mostratzeko arren sujeziora daudela, ta beren Jaun errekonozizeuntela, ario gortara direla Jangoikoai gizonek ofratzientioten sakrifizioak. Kristo etorri baño len sakrifiktzen zitiote Jangoikoai animaleak, idiak, ariak, axuriak ta alakoak, iltzenzustelaik Jangoikoaren tenploan beraren honratan, palakatzeko beraren Majestadea, erdexteko piedade, miserikordia ta bear zen guzia. Baña Kristo etorriaskeros utziak dire sakrifizio gaiek, zerengatik Kristo bera axuri dibinoa sakrifikatu ze gurutzean Jangoikoai munduagatik ixuris bere odola, ta utzis bere bizia palo gartan. Baña nola ezpaize arrazio ta ez bear ere iltzea berriz Jaun dibinoa gisa gartan, arren truk utzi zue ondoreko ta betiko fundaturik meza sanduaren sakrifizioa, zeintan berri zeien aldioro bein egin zen gura, solo berze gisa batera; an agerrian, ta emen estalian; an padezitus ta odol ixuris ta iles errealki, emen ori gabe ofrezitus ango pasio ta eriotze gura; baña an ta emen Kristo berbera presente errealki, naiz ez ageri. Klaro da dela sakrifizio gau lengo sakrifizio gaiek baño baliosoagokoa, zer du zer ikusi? Da solemnea, publikoa, ta jenerala, naiz dela errezatua meza, ta aparato gutireki ageridenes, naiz in daien egunoro, naiz aplika daien berengatik, zerengatik doaie Eliza guziaren izenean, ministro publikoaren medios, ta sazerdote prinzipala ta prinzipalki ofrezitzen duena beti da Kristo bera presente, naiz estalian; eta dudarik gabe aingiruek ere solemnizatzen dute beren asistentiareki beren erregeren inguruan. O nork luken fede bizia misterio andi gartan!

Eta zer ofrezitzen da? Erranik dago: Jesu Kristo berbera gurutzean ofrezitu zena berze gisa batean, berdugoan eskus an ikusten zuela mundu guziak, sazerdotearen eskus aldarean estalirik ogi-ardoan akzidentearen beloareki gure begietarako, baña ikusten du emen ere bere Aita eternoak bere Seme ona, axuri inozentea presentatzentziona guregatik bere dolore, bere llaga, bere odol, bere eriotze eraman zituenak an. Orgatik dago aldarea goraxago ezi elizaren gañarakoa, signifiktzeko Kalbarioko oian gura. Orgatik sazerdoteak, paraturik beitiko gradan, iganbañolen aldarera, erratentu itz gaiek: Emitte lucem tuam et veritatem etc., Jauna igorri bezki bere argia, ta bere egia, ebek ekarri ta iganarazi naute orren oian sandura. Orgatik bear litzake asistitu meza-bitartean ala nola beira balego bat Kristo guruzifikatzen ta guruzifikaturik zeukaten bitarte gartan kalbarioan, ala nola baizeude an asistitzen gurutzearen aldakan Ama Birjina, Juan Ebanjelista ta Santa Maria Magdalena. Eta nori ofrezitzen da? Bere Aita Jangoikoai, ezi naiz komunkiro

erraten bada ere errateko meza bat alako sanduai edo sandai, esta ofrezitzen aiei meza, baizik Jangoikoai aien izenean, memoria ta honratan, paratzentugulaik Kristoren atzetik gure medianero, otoitz in dezaten guregatik zeruan aiek, zeñen memoria iten baitugu lurrean guk, dion bekala Konzilio Sanduak (Ib. c.3), eta mezaren ofrezimentuak. Ogi-ardoan akzidenteen beloareki ofrezitzen da, deus galdu gabe bere baliotik orgatik, ta bateo egines guri ortan konbenienzia, ezi ager balez an bere Majestadea zein sazerdoteek izain luke ausardia artzeko eskuetan? Nor trebe leike urbiltzera? Ez eta ere asistitzera? Eta berze alde zer balioko zue fedeak, ikusiaskeros begis fedearen misterio deitzen dena? Berze alde nola imini baizue ez solamente ofratzeko Jangoikoai, baitaere komekatzeko fielak, ala ze konbeni disponi zezan alimentuaren idurian. O Jangoikoaren xakintasun gora ta barna! Da ere notatzeko ezi sazerdotea dela ofrezitzen duena mutil-aintzu ta ikustendenes, baña Jesus berak prinzipalki ofrezitzen duela bere burua misterio gontan, berak itentu ango milagroak; eta orgatik naiz indigno den sazerdotea, sakrifizioa da oroat sandua, baliosoa, kuadrablea Jangoikoaren begietan hostiaren ta sazerdote prinzipale ofratzen duenaren aldetik; eta au da berze marabilla bat, presentatzea Jesus obediente bekala edozein sazerdoteran bozara, naiz dela au indigno bat nola Judas. Baña estago onen menean sakrifizio andi garren santidadea bein inaskeros, zerengatik Jesus bera da ofrezitua artan, ta berak ofrezitzen du prinzipalki; bera da hostia, ta bera sazerdotea; bera ofrenda ta bera ofratzen duena, Majestade supremoaren honratan; honra dignoa alako Jaunari dagokiona, zein bekalakorik ezpaitezoke eman munduak. Baña sartu gara ia aipatzera zer fines edo zertako den meza sandua, eta erratekos zerbait da preziso erreserbatzea berze platika bateko. Biz aski egungo aipatua zer den meza, sakrifizio solemne bat, zeinean Jesu Kristo ofratzen baita bere Aita Jangoikoai ogiaren ta ardoaren idurien pean sazerdotearen eskus majestade supremoaren honratan. Da munduan den gauzarik andiena. Entendatu da. Esta entendatuko osokiro, baizik glorian.

Sermo III:
De missâ ad quid

Unus mediator Dei et hominum
homo Christus, qui dedit redemptionem
semetipsum pro omnibus. 1.ad Tim.3.

kontatzen du San Juan Ebanjelistak Jesusen diszipulo onetsiak, beraren bularretik gozatu zuenak Zeruko doktrinaren esnea, beraren sekretario fielak, zeñi errebelatu baizizkio bere barreneko sekreto altxatuenak, kontatzen du, bada, sandu gonek bere errebelazioen libru gartan ikusi zuen gauza bat zeruan; ikusi nue, dio (c.5), tronoan jarririk zegonaren eskuieko eskuan libru bat eskribitua barnetik eta kanpotik, zazpi selloeki sellatua. Eta ikusi nue aingiru bat gallardoa pregonatzen zuela boza andi bateki au: Nor da digno artzeko librua ta laatzeko arren zazpi selloak? Eta niork ez zeruan, ez lurrean, ta ez lurpean etzuke idiki librua, esta beiratu ere. Eta ni nindego negar ta negar, zeren ezpaize aurkitu nior digno idikitzeke libru gura; eta ellegaturik enegana zar gaietaik batek erran zida: Etzazula nigar egin, orra biktorioso atra da Judako jendakitik leona, Dabiden zaña idikitzeke librua ta laatzeko arren zazpi selloak. Eta ikusi nue, ta ara non zegon tronoaren erdian axuri bat txutirik ila bekala, eta joan ze, eta artu zue jarririk zegonaren eskutik librua; ta idiki zuelarik, an zeudenak urtiki zire axuriain alzinean, zeuzkitelaik nork beren zitarak ta ontziak beterik aromas, zein baitire sanduen orazioak, ta kantatzen zute kantiko berri bat ziotela: Digno da berori, Jauna, artzeko librua ta idikitzeke arren selloak, zeren il baize, ta erreskatu baikaitu bere odolaren kostus Jangoikoaindako jendaki, pueblo ta nazione guzietaik, ta in baikaitu gu erreinu ta sazerdote gure Jangoikoaindako, ta erreinatuko dugu lurrean. Emendik segitu ze bedeikatzea, laudatzea, honratzea guziek axuria, ta tronoan jarririk zegon Jangoikoa. Bedeizio, honra, gloria ta potestadea sécula séculorum. Amen. Bisione notablea izan zue au, nere fielak; zer adierazi nai duen azertatzea esta neretako, baña gure asuntora artzen dut emendik eskaida mintzatzeko neure gisa. Iduri zaida libru gura dela erakusten diguna ikasi bear ginduken xakintasun gorena ta bakarria mundura jaioas geros, erreduzitzen baita xakitera honratzen Jangoikoa ta salbatzen geuren arimak. Eta zerengatik etzekien au egiten munduak, daike erran ertxirik zegola libru gura, aliketa etorriartaño Kristo gure erredimitzera ta bizitzaren exenplu ematera, idiki ta erakutsi baizue ongi kostarik, Jangoikoari eskerrak. Baña nori etzaiko sartu gogoan errate gura, ikusi zuela tronoaren erdian axuri bat txutirik ila bekala? Gure Jesus dulce ematen duela aditzera ontan, klaro dirudi; baña axuri-gisa, txutirik bateo ta ila bekala, non da ala? Nere ustes meza sanduaren sakrifizioan. Zer axuri mansoago daike pinta? Ila bekala dago, zeren baitago errepresentatzen an bere pasio ta eriotzea. Txutirik bateo, zerengatik emen aldarean presentatzen delaik ila bekala, an zeruan presentatzen da txutirik tronoan eskatzen on guzia. Emendik darraio ez solamente berai ainberze laudario, baitare Jangoikoai anitz honra, ta guri anitz bedeizio. Baita ziona San Pablok: Unus Mediator Dei et hominum homo Christus Jesus. Bat bakarria da Jangoikoaren ta gizonen artean medianero edo bitartekoa Kristo Jesus, qui dedit semetipsum redemptionem pro omnibus, eman zuena bere burua erreskate edo preziozako guziengatik. Paratuko dut, erran zio Noei Jangoikoak, nere otsadarra lañuetan, izan daien nik munduareki in duten ajustearen señaile; au izan ze propioki Jesu Kristo goraturik gurutzean dilindaka irur

itzeetaik Kalbarioan; ta ber bera da, alaber, aldarean medianero Jangoikoaren ta gizonen artean, nori berea emateko ala Jangoikoai nola gizonei, solamente Jangoikoai zor zaiona, gizonei mereji etzutena. Aipaturik daukat zertako den meza sandua, explikatzeke bear dugu grazia. Graziaren Ama Santissima, Jangoikoaren maiteena, zeruaren alegria, munduaren konsolazalea, guzien errefujioa, eman bezagu, otoi, bear dugun grazia. Abe Maria.

Erranik dela meza sakrifizio bat solemnea, zeintan ofratzen baita Jesu Kristo bera bere Aita Jangoikoai ogi ardoen idurien pean sazerdotearen eskus aldarean. Erranik dela munduan den gauzarik andiena, edo mintzatzeko Konzilio Sanduaren itz grabeekei, konfesatu bear dugu prezisoki ez dezaketela Kristoren fielek tratatu berze obra bakotxik ere ain sandu ta dibinorik, nola miseterio lotsagarri gau berau, zeñeki hostia biziarasten gaituena ta baketu ginduzana Jangoikoareki sakrifikatzen baita egunoro aldarean sazerdoteen medios (Ib. decr. de observ.). Zertako ordea, edo zer fines fundatu zue Kristok? erran zue orduan berean: Hoc facite in meam commemorationem, au egin zazie nere memoriatan. Baña propioki mintzatus, ez solamente Kristoren pasioa ta eriotzea, baizik pasio ta eriotze gaien memoria, errepresentazio, barin badio egi eta fedea Kristo bera presente errealki sakrifikatzen dela bere misterio gartan? explikatuko naiz: Or munduko trajediaetan errerepresentatzeunte enperadore edo errege baten hazaña andi bat. Komediante batek iten du arren persona-iduri, berze batek berze batena. Zer da ori? Da errepresentazio utsa. Baña presenta baledi teatroan enperadore edo errege gura berbera errealki, ta errepresenta balez berak hazaña len egin zuen gura, litzake errepresentazio ez utsa, baizik errealdade ere bai; zeren egin zuena bera baizego presente errerepresentatzen len egina. Jangoikoaren Seme Jesu Kristok erregeen erregek egin zuen hazañarik andiena izan ze padezitzea ta iltzea gizagendeagatik, ta orai ta beti du plazer bere personan errealki presente aldarean, baña berze figura batean errerepresentatzeas ta berritzeas egunoro hazaña andi gura, de manera ezi mezan presentatzen den aldioro axuri dibinoa, presentatzentio Aita Eternoari guregatik eraman zituen neke-penak, pasio ta eriotzea, erakustentio esku, oin, buru, bular ta gorputz guzian in zizkioten lllagak, alegatzen dio odol dibino ixuri zuena. Badakite ori, ta ikusteunte zerukoek, ta lurrekoek ere xakin ta estimatezatengatik, eman da ikustera figura gortan milagros zenbait aldis. San Migel egun bates enzuterakoan meza Beata Anjela de Fuljinok, eskaturik aingiruen prinziipe garri mostra zezon gure Jauna forma gartan, zeintan nai duen honra dezagun mezaokan, erran zio aingiruk: beira zazu gure Jauna eskatzeunzun gisan; ta goraturik begiak ikusi zue hostian beterik lllagak, ta odoles ta guruzifikaturik (Parra p.2 pl.24). Berze bati ikusiarazi zio guruzifikaturik Kristo, odola zeriola ta guzia zoeiela bildus kalizain barnean (Ib.). Baldurnan, Alemaniako erri txipi batean, meza ematerakoan, erori zekio sazerdoteai kaliza nola etzekiela, ta Jangoikoaren milagros formatu ze odol preziosoareki pintura gau korporaleetan, erdian Kristo gurutzean bekala, inguruan beronika batzuk mostrazen zutenak aurpegi dibinoa odolestaturik ta koronaturik arantzees. Lotsarriturik, sazerdoteak an berean altxatu zitue korporale gaiek arri baten pean. Pasaturik anitz denbora, ellegaturik sazerdote garri iltzeko plazoa, zegolaik iltzen luzaro ta ezin iles, guziak arriturik nola zirauen ainberze, berai ere, arriturik ontas, gogoratu zekio ote zen au, zeren altxatu zuen Jangoikoaren prodijio gura; bereala deklaratu zue agitua, ta iltze instante. Aurkituzuste leku gartan korporalak forma gartan, ta segiturik berze anitz prodijio, Aita Sandu Eujenio IV. Manatu zue bula bateki 1445 urtean adornatzeko al zeiken obekienik eliza gura, non konserbatzen baita errelikia dibino gura (Ibid). Anitzetan ikusi da hostia sanda aldaturik figuras, odol jariten, ta odol

kolore, nola Biterbon, Darokan ta berze asko lekutan. Adiarasten zaigu dela meza sandua Kristoren pasio ta eriotzearen memoria ta errepresentazio bizi bat, ta ori beroi adiarasten digute sazerdotearen ornamenta sanduek, zeremonia sagratuek, ta ainberze gurutze formatzen dituenek misterio gartan. Bego, bada, ikasirik dela sakrifizio gura pasio ta eriotzearen memoria, errepresentatzea ta berritzea.

Orai zertako den edo zer fines. Bi itzes daike erran: Zertako izan baize Kristoren padezitzea ta iltzea gurutzean, artako da orai berritzea ta errepresentatzea mezan aldarean bere ariora. Baña erreplikadezakedate berla, Jauna, fedesko gauza barin bada, ezi emateko Jangoikoai gloria bear zen guzia, ta salbatzeko mundua ta milla mundu balitz ere, aski zela Txistoren odol tanta bat, eta gurutzean ofrezitu zuen sakrifizioa izan zela guzietako abasto ta geiegi, zertako da orai berriz aldarean iten den sakrifizioa? Dirudi arren deskredita ta deshohoretan (sic) dela askitu ezpaz bekala ura. Herejeek afirmatzen zute au, zeñen errorea konfunditu ta kondenatu zue Konzilio Sanduak (S. 22. c.2 et Can. 4). Errespondatzeko galdain bear dut nik ere gauza bat. Baleuzki batek berregun milla dukat beretako, baña guziak paraturik kaja errealean, litzake aberats? Bai, zeren baitu berregun milla dukat. Esta ezpalezake kobra anitz urtes litzake abrats? Ez, zerengatik ortako izateas landara bear luke kobratu duenetik. Entenda orai; Kristoren pasio ta eriotzeagatik bildu ze guretako tesoro bat immensoa, infinizio bat fruitu, baña fruitu gaiek gozatzen ta aplikatzen dire meza sanduaren medios, cuius oblationis, cruentae, inquam, per hanc uberrimé percipiuntur, dio Konzilio Sanduak (Ib.). Gure ondasunen kaja erreala da Kristoren pasio ta eriotzea, giltza idikitzeke ta gozatzeko da meza sandua. Ia orai ikusgarri da zertako den meza ta zer fines.

Ikusteko obeki beira zangun Jesu Kristo axuri dibinoa sakrifikaturik aldarean Jangoikoaren ta gizonen bitarteko paraturik, zeruaren ta munduaren ertean emateko bear den guzia zeruai, munduai, Jangoikoai gizonei. Ala berexteareki aisago ikasiko da zertako den meza sandua. Asi gaitzen zerutik, Jangoikoaganik. Alde gortaik da meza len lenik emateko Jangoikoai honra ta gloria zor zaiona munduaren ta gizagendearen partetik. Bekatari deskortesez galzen diote honrragoi desobeditus, txinurri txar bi oñetakoez ukatzen diote errespeto bear zaiona Majestade gorenai. Gaizki gaude, ezpazaio suplitzen honra ta errespeto faltatu zaiona. Zer inen dugu, bada? Zer emain diogu ordañas? Ofratukotiogu ariak, idiak ta alakoak? Etzaio kuadratzen orietaik ia bentzait sollik. Holocaustis non delectaberis (Ps. 50). Ofratuko tiogu geuren biotzen afekto guziak, gorputzaren ta arimaren indar guziak, itzak, obrak, nekeak, bizia ta eriotzea? Bai, baña estire aski sollik. Ofratukotiogu apostoluen zerbitzuak, martiren odola, konfessoreen lanak, birjinen palmak? Bai, baña estire aski sollik. Ofratukotiogu Ama Birjinaren graziak, birtuteak, merejimentuak? Bai, baña estire aski sollik; zerengatik ala nola errege andi batek ia senti bailezake ostiko edo erreflon bat emanlezokena abeltzai batek, ezi estima bailezake ogeitaamar milla agur inlezozenak ark berak, naiz edekirik lurreraño txapela, ta ezlekiokoe iduri honra gau desonra gura adina, ala gizagendeak Jangoikoai inikako injuriak ordaintzeko diña esta honra eman dezoken guzia aski. Jesus Jangoiko ta gizon denak ematen dio gure partes bear den adiña bere sakrifizio gartan, oneki bateo, ta onen atenzios daizke admiiti gure deus gutiak. Orra mezaren lenbiziko fina, Jangoikoaren honra ta gloria, ezi orgatik deitzeunte latreutiko sakrifizio gau.

Da ere emateko Jangoikoai eskerrak gizagendearen partes Jangoikoak giza-gendeai inikako mertexteengatik, zein baitire anitz eta andiak, ia ezi berze kriatura guziei, ia ezi aingiruei, naiz izanik ebek naturaleza goragokoak. Errebelatu ze aingiruen zati bat,

estiote barkatzen, estitu erredimitzen Jangoikoak, baizik botatzentu infernura instantean. Desobeditu zio gizagendeak Adan ta eba baitan, ta estu nai alaere galdu gizagendea, nai du erredimitu grazias. Itz batez, etze Jangoikoa egin aingiru, ta egin ze gizon. Konta emendik tugun benefizioak, eta zer eskerrak itzultzentzigu? Esker gaixtoak, ez estimaziorik egiten, ez kasorik, ez memoriaik geienek, baizik atzentzea, baizik ofensak, baizik bekatuak. Zenbait bakotx barin badire agradezituak, zenbat da ori ainberze benefizioen aldean? Zer inen dugu, bada? Quid retribuam Domino pro omnibus que retribuit mihi? Zer emanen diot Jangoikoai berak niri emanengatik? Calicem salutaris accipiam. Axuri dibinoa sakrifikatzen dena mezan, auda esker dignoa, grazia ona, ezi orgatik deitzeunte sakrifizio gau eucharistico.

Da ere plazer emateko Jangoikoai zeñi plazer ematea guzietan ez solamente da obligazio, baitaere probetxu ta irabazi geurendako. Zer dagokioke obeki gizon lurrekoai, guzien bear denai, bereganik deustako estenai, nola ongi etortzea Jangoiko andiareki, kuadratzea, plazer egitea alako Jaun bakarrai? Guziareki geienek naiago dute obeditzeagatik beren pasione ta apetitu irrazionaleei desplazer egitea Jangoikoai beren kaltetan, Jangoikoa desgustatu ta berak gaixtatu ta galdu. Nolako usai okagarria uste duzie igozeuntela an gora bekatuek Jangoikoaren alzineko? Ezpaliz erremediorik, ezpalez beira berze norbaitengana, ia ez lezake soporta. Paratzen dio Elizak aldareain gañean sakrifikaturik bere axuri inozente, sandu, onetsigarria. Aparta bez, erraten dio, bere aurpegia gure bekatuetaik, avérte faciem tuam á peccatis meis (Ps. 50). Beira bez gure Jauna, ta berriz ta berriz beira bez bere Kristoren aurpegira. Aspice Deus, et respice in faciem Christi tui (Ps. 83). Beiraten du zierto orai ere, orai ere erraten du, hic est filius meus dilectus, in quo mihi bene complacui (Math. 3). Au da nere Seme onetsia, zeintan baitut konplazenzia. Noen sakrifizioagatik barin badio eskriturak, gozatu zela Jangoikoa suabidadearen atxon garreki (Genes. 8); nolako atxon fragrante miragarria igaten da mezako sakrifizio gartaik? Ta ori eskatzen du Elizak ere gure eta mundu guziaren onagatik igan daien, ofratzerakoan kaliza. Cum odore suavitatis ascendat.

Jautsirik Jangoikoa ganik apalago, len lena da Ama Birjina. Nork dezake duda bere Seme Jaunaren sakrifizio andi gonek kausatzen diola Ama andigarri gozo ta gloria berria? ikusten duelaik bere axuri dibinoa bere bular birjinalaetan azi zuena errepertitzen ta enpleatzen bere tesoroak gora bera? Aisa da entendatzeko gauza gau leitzen badugu kontatzen dena libruetan ia jautsirik bere tronotik dignatu dela Andre dibina laguntzera sazerdoteai mezakoan (Parra. p.2. pl.23), ia edekirik hostia sagratua erakusten diola bere besoetan aur dibinoa errateareki zela konsagratu zuena bera; ia egiten duela berze bateki amabitxi mezakoan aldakan egones bitartean guzian (Id. p.3. pl.1. de Ordine) kontatu gabe orai iten zuena apostolueki, bizi zelaik, misterio gonon deboziotan (Agred. p.3 myst. civ.); aingiruei, alaber, ematen diote gusto, zein baitakigu direla txoil ederretsiak misterio gartara asistitzen, akonpañatzen ta goardia iten baitiote dilijent erreberente. Sanduei ere honratuko dela dio Elizak: ut illis proficiat ad honorem. Jautsi gaitzen lur-pera, non baitago purgatorioa. Nondik doakiote alibiorik andiena, ezpada aldaretik? An paratzen da guzien fiadore ta pagazalea Jesus; an presentatzen da prezioa pagatzeko arimen zorrak. Orgatik Elizak ordenatu du in daien memoria aietas ere mezakoan. Igan gaitzen lur gañera; emen ofratzen da sakrifizio andia, eta delaik aski betetzeko ondasunes zerua ta purgatorioa, utziko du utsik mundua? Ez, baizik ere guzien onerako da, justoei amentatzeko grazia ta merejimentua, orgatik deitzen baita sakrifizio gau meritorio; bekatariei erdexteko piedade, miseriordia, grazia ta barkamentua, orgatik deitzen baita propiciatório; ia barkaturik

daudenei kulpa bezan bates emateko zereki pagatu pena zor dutena, orgatik deitzen baita satisfactorio; ta guziei logratzeko bedeizioak zerutik bear diren gauza ta jenero guzietan, orgatik deitzen baita impetratorio; itz bates da sakrifizio gau gozatzeko betiro ta kontino Kristoren pasio ta eriotzearen, ta gure erredenzionareen fruitua, eskatzen duen bekala Elizak: Deus qui vobis sub sacramento mirabili etc, itzulirik euskarara baitio ala: O Jangoikoa utziziguna sakramentu miragarrian bere pasioaren memoria, agindu bezagu, otoi, urrikariturik gutas, benera dezkigun orren gorputz ta odol preziosoen misterio sagratuak alako maneran, ezi senti dezagun bere erredenzionareen fruitua kontino geuren baitan. Baña fruitu gonon gain itz eginen dut berze aldi bates.

Orai bildus erran duguna zer fines ta zertako den meza, erakutsis, bidanabar nola beauten ofrezitu enzutera doazinek, errain dut nola iteunten neuronek, meza-azlinean in baitezake oroat guti gora bera nornaiek. Nik ala erraten dut: O Jangoiko andia, aurki bez, otoi, bere sierbo gonek grazia orren begien alzinean, ta mintzatuko naiz nere Jaunari, naizelaik autsa ta errautsa. Enzutera noaien meza sandu gau, zeintan sakrifikatzen baita Jesu Kristo bera, ofrezitzen diot Jesu Kristo beraren pasio ta eriotzearen memoriatan, emateko berorren majestadeari honra ta gloria guzien Jaun andiari bekala; baitare itzultzeko eskerrak berorri berorrek guri inikako mertzedeengatik; baitare plazer egiteko berorri bere seme onetsiaren sakrifizio gontan, gizagendeak ainberze ofensa ta desplazer itentiotenen ordañas; alaber, Ama Birjinaren honra, plazer ta esker-millatako; baitare aingiruen ta zeruko sandu ta sanda guzien gloria berritako. Alaber, purgatorioko arima gaixoen sufrajio ta alibiotako, berexki N. Edo N., ta orren agrado, ta nere obligazio iagoko direnen faboretan; alaber, mundu guziaren erremediotako, aumenta dezoten justoei grazia ta merejimentua, egin dezan bekatarieki palakaturik anitz piedade ta miserikordia; paga daien orren justizia guk zortiogun penengatik, eman dezagun bear dugun guzia arimen ta gorputzendako, ta en fin logra dezagun kontino abasto pasio ta erredenzionareen fruitua. Ofrezitzen diot fin gaien guziendako, zeintako fundatu baizue Kristok, ta nai baitu Eliza Ama Sandak. Balia bezagu osokiro demanera ezi ellega gaitzen emen duguna estalian ikustera aurkez aurke glorian.

Sermo IV:

De primâ parte missae

et essentiali,

consecratione

Accipite et comedite, hoc est corpus meum.

Bibite ex eo omnes, hic est enim sanguis meus. Math.26.

Goazen segitus Jesusen fineza miragarrien itsaso ondar gabea bildu duena aldarean. Erakutsirik dela meza sakrifizio bat solemnea, zeintan Jesu Kristo ofratzen baita Aita Eternoari ogiaren ta ardoaren akzidente konsagratuen pean sazerdotearen medios majestade gorenaren honratan. Orai erragun mezaren zati prinzipalena ta esenziala, baita konsagrazioa. Iten da konsagrazioa santus akabatuaskeros, hostia goratubano lentsago, ogiarena, ta kaliza goratubano lentsago, ardoarena, sazerdoteak lenik goraturik begiak zerurat, botarik bedeizioa Jesu Kristok in zuen bekala, erratentuelaik ia ez bere partes, baizik Jesu Kristo beraren partes ostiaren gañean itz andi gaiek, auda nere gorputza, ta kalizaren gañean, au da nere odola, gañarakoei. Ebek deitzen dire konsagraziosko itzak; eben birtutes konbertitzen da ogia Kristoren gorputz preziosoan, ta ardoa Kristoren odol preziosoan. Zer zego lentsago hostia gartan? Ogi guti bat. Erratentu itzak arren gañean, ta erran orduko esta ia an ogirik, baizik Kristoren gorputz prezioso arren lekuan. Ogi dirudien gura esta ogi sustanzian, baizik Kristoren gorputz prezioso, erreala, egiaskoa ogiaren akzidente pean; ogiaren kolore, zapore ta iduri sollak dire sentidoeki ukitzen direnak, baña esta ogiaren sustanziarik ia an, baizik milagrosoki ta errealki Kristoren gorputz prezioso dibinoa ain segurki nola baitago zeruan; zeruan dago egotemodu naturales jarriarik edo txuririk nola nai duen, ta aldarean dago egotemodu sakramentale miragarrian, errealki ordea, zein ezpa dezakegu ere explikatu osokiro itzes, guziareki dela Jangoikoari posible, dezakegu erdetxi fedear argiturikako entendamentuareki, bear dugu sinestatu konstanzia guziareki, dio Tridentinoak (S. 13 c.1). Egia da deitzen dela ebanjelioan ogia, baña ogi bizia, zeruko ogia, aingiruen ogia, espirituaren ogia.

Zer zego kalizean lentsago? Ardo guti bat. Errandize itzak? Bada, erran orduko esta an ardorik sustanzian, baizik Jesu Kristoren odol prezioso; ardoaren kolore, urrin, gusto ta iduri sollak dire sentidoeki sentitzen direnak, baña esta ardoaren sustanziarik an; baizik akzidente goieki Kristoren odol prezioso. Hostian itzen birtutes paratzen da gorputz dibinoa ta kalizan itzen birtutes odol dibinoa, zerengatik estute deklaritzen ia, baizik lenbizikoek, «au da nere gorputza», berzeek «au da nere odola»; baña nola Jesu Kristo erresuzitatu baize gloriosorik ia ez berriz iltzekotan, ta baitago bizirik, orgatik hostian gorputzareki bateo dago bere odola ere, ta kalizan, alaber, odolareki bateo dago gorputza ere, ta bietan, alaber, arima ere elkarren unione naturale garren kasos; alaber, Jangoikotasuna ere bai, berze unione miragarriagatik, zeñeki baitaude xunto bi naturale zak, dibinoa ta humana, Kristoren personan; alaber, Aita ta Espiritu Sandua Seme dibinoareki Trintate guzia elkarren unione inseparableagatik, zeñeki irur personak baitire Jangoiko bat. Ala ainberze dago hostian nola kalizan, ta kalizan nola hostian, ta bietaik bakotxean ez gutiago bietan baño, ta bietan ez ia bakotxean baño; eta orra zein klaro ageri den errezibitzen duela ainberze komekatzen denak hostia sollareki, nola komekatzen denak hostia ta kalizareki, zerengatik ark ere errezibitzen baitu Kristo guzia, osorik; eta fruituaren

aldetik bear da konfesatu, salbatzeko bear den graziarik batere etzaiotela gutiago ematen errezibitzeuntenei hostia sollean, dio Tridentinoak (S. 21.c.3.). Zertako den, bada, paratzea hostia ta kaliza mezakoan, erranik dago dela errepresentatzeko sakrifizio gartan gurutzeko sakrifizio gura, ta odolaren ixuria bere gorputzetik bere pasioan. Alaber, daike erran ala ere presentatzeko konbita bat perfektoa janari ta edari gisan. Añadi egotea bateo zeruan ta munduan ainberze lekutan, nola baita sakramentu. Añadi irautea beti, dirauten bitarteo akzidenteek nonnai. Añadi, oroat, egotea zati txipian nola andian, naiz zatiturik akzidenteak bera oso gelditzea. Añadi<...> Baña nork konta milagro angoen montioa? Obeda beneratzea arriturik ixil ixila, ta arritzeko pensatzea Jangoikoaren besoaren podorioa ta biotzaren amorioa agertzen duena misterio andi gartan. O Maria, Ama berria, Ama ta Birjina ederra guzia; berorri zor diogu Jangoikoas landara mai gortako erregalo zerukoa, baita berorren sabeleko fruitu bedeikatua Jesus, berorren bularretako esne birjinalas oratuzen ogi bizia, ezauntzeko ongi ta estimatzeko dugun ondasun gau, erdetxi bezagu bear dugun grazia. Abe Maria.

Podorioa ta amorioa dire neurriak, zeñeki neurtu bear diren Jangoikoaren marabillak aldareko misterioan. Bata berzeareki xunto bear da, nai ta al. Emagun dezakela batek au edo ura; zer da orreki, ezpadu nai? Emagun nai duela, zer da gero, ezpadezake? Au agitzen da gutartean elkarreki; ez ala aldareko obra miragarrian, non Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoak agertu baizue bere podorio ta amorio dibinoa, edo Trentoko Konzilioaren erranaren gisa: Non erauntsi bekala baizitue bere gizonen ganako amorioaren ondasunak (S. 13 c.2). Zezake ta nai zue. Amorioa baliatu ze podorioas fabrikatzeko bere marabillen memoria, bilgura ta zifra gau, bere milagro in zituen guzien andien gau. Beras, amorioa duelaik ain andia, ta podorioa ain inmensoa, nolakoa bide da obra gau, non enpleatu baititu biak? aitu duzie agitzen dena konsagratzean hostia ta kaliza Kristoren ordes ta birtutes. Nauzie agian entendatu nola? Ona San Ambrosioren erresposta: Ipse dixit, et factum est, berak erran ta egin da (L. 4 c.4 de sacram), zerengatik Kristoren itzak dire iteuntenak sakramentu gau. Ararañoko guziak dire ematea Jangoikoai laudario, ta egitea puebloagatik, errege ta gañarakoengatik orazio; baña ellegatzen delaik konsagraziora, ia ez bere itzak, baizik Kristoren itzak erratentu sazerdoteak. Kristo da sakramentuaren auktore, beraren birtuteak obratzen du. Estire, dio San Juan Krisostomok (H. 60 ad pop.). Estire birtute humanoarenak lan gebek; azken afari gartan egin zituenak berak egintu orai ere. Gu ai gara ministro-gisa, baña santifikatzen ta aldatzentuena da berbera. Estaiela atzen beñere bein errana, ezi sakrifizio andi gartan lenbiziko ofratzen duena edo ofrazale prinzipala dela Jesu Kristo bera, ikustenestena presente egonik; ofrazale ez ain prinzipala ta bigarren lekukoa sazerdotea ikusten dena, ala nola bere zerbitzuko pajea atzetik doaiena erregerendako presentareki, doaielaik nausia lenean.

Au sinestaturik, aisa da sinestatzeta milagroen milagro gura, naiz ezin entenda zuk eta nik nola. (bear dugu xakin, dio San Gregoriok (H. 26 in Evang.), ezi Jangoikoaren lana barin badaike konprehendi gure arrazioareki, estela miragarri, eta fedea estuela meritorik, noiz ta arrazio humanoak ikusiarasten duen klaro gauza. Zierto egiten duelaik Jangoikoak gauza bat, esta arrazio bearrik, dio San Agustinek (Ep. ad volus.3). Emagun dezakela Jangoikoak zerbait ge ezin entendadezakegula konfesatu bear duguna. Alako gauzetan arrazio guzia da podorio egiten duenarena. Asko gauza naturalees ere estaike eman arrazioa nola, baña orgatik esta dudarik direla (L. 21 de civ. D. c.4 et 5). Zer admiratzeko da ezin erdextea arrazio-humanoak Jangoikoaren prodijio andi gonon modua?

Ezpalezake Jangoikoak egin ia guk entendaala baño, ezlitzake guzis poderoso. Norbaitek galdegiten badizu nola, dio San Krisostomok (H. 24 in Joan.), tapa zozu agoa Jangoikoaren itz edo testimonioareki, baita demostrazio ta progu andiena ta seguroena. Zenbatenas gutiago entendatzeunten, ia sinestatzen dut, zio Santa Teresak elizako doktorak (In ej. vita), zeren ezin erdextea guk da señaile Jangoikoaren lana dela). Esta ikusten; orgatik da fedea ikusi gabeko gau zain sinestatzea, zeren Jangoikoak errebelatu baitu, ta Elizak erakusten baitu. Nork errandik iri? erran zio tiranoak aur titiko bati mintzatu zenai milagros egi eta fedearen alde, San Roman zeukatelaik martirizatzan. Niri erran dida nere Amak, Elizak, ta nere Amai Jangoikoak, erran zue aur garrek. Esta ikusten? Estu bear ere fede duenak. Bidoezi, erran zue San Luis Franziaiko erregek, kontatu ziotelaik agertu zuela Kristok bere presenzia sakramentuan klaroki bein, nai bazue joan ikustera; bidoezi federik estutenak, edo guti dutenak, ezi nik estut ikusi bearrik, ikusirik baño firmeago sinestatzen dut, zeren baitio Jangoikoak. Esta ikusten? Gorputzaren begis ez, bai arimaren begis. Arimaren eskuieko begia da fedea, dio San Buenabenturak, nola ezkerreko begia (Diet. sal. t.5. c.3). Artas ongi aski ikusten du fede bizia duenak ezpadezake ere klaroki arrazioas konprehendi. Esta orai klaro ikusteko denbora arrazioaren begiareki. Orai, dio San Pablok, ikusten dugu hispilu baten medios ta ilunkara; au da fedearen medios, baña gero aurkez aurke (1. Cor. 13). Orai estalirik akzidenteen beloareki, gero bere klaridade guzian manifestu gloriako tronoan; ala nola dagolaik bat etxideten errege beraren antesalan, dakielaik zierto dagola bere majestadea kortinatik berze aldean, beira noiz atrako den edo emain dion ikustera sartzeko lizenzia. Gloria da gure Jaunaren sala erreala, nora usten baititu sartzera bere eskojituak bere denboran; bitartaño gaude ala nola etxideten, antesala da tenploa non errealki baitago bere Majestadea, baña estalirik kortinas esta oraño lizenziarik sartzeko ikustera; baña entendamentu ta fede duenak honra bez, adora bez, onetsi bez Majestade bera, presente, ain apaldurik sakramentuan, non ematen baizaigu geroko gloriako prenda. Esta ikusten? Zer da gero? Ori beroi da amorio digunaren traza, ta guretako konbenienzia, ezi nola atrebigindeizke beiratzen begi mortaleeki? Nola bearrago dutenak, bekataria diot, leizke ellega adoratzera, mintzatzera, eskatzera, errezibitzera, agerrian balego bere Majestadea? Orai ez ikusirik obeki gaizke urbildu, ta ori nai du.

Esta ikusten? Orgatik prinzipalki misterio gau deitzen da fedearen misterioa, mysterium fidei, misterio sekreto, barna, estali, miragarria; ta orai da fedearen denbora, fedearen indarreki iragazteko eskaida. Berze misterioetan bear dugu sinestatu ikustenestuguna, baña ontan, kasi erratera nindoaie ikustendugunaren kontra; baña ez, baldin ongi beiratzen bada. Zerengatik begiek ikusten dutena dire ogiaren ta ardoaren akzidenteak, ta ebek an daude; baña pasatzen badire akzidenteetaik itera juizio substanzias, ia utsiten dute, zerengatik daudelaik an ogi ardoen akzidenteak, esta ogi ardoen substanziarik, baizik akzidente gaien pean Kristoren gorputz ta odol preziosoen substanzia. (Orgatik Santo Tomas doktore aingiruak bein dio estirela engañatzen gure sentidoak, bista, gustoa, ukiña, usma, ut sensus â deceptione reddantur immunes (Opusc. 57 in offic. festi.), berze bein dio, engañatzen direla adimentuas gañarakoak, visus, gustus, tactus in te fallitur, sed auditu solo tutó creditur (In rhytmo ad euchar. post praepar. missae). Zenbatenas iteunten juizio direla an ogiaren ta ardoaren gustoa, kolorea, urrina ta itxura, ortan estire engañatzen, ala da; baña ordik iten baute juizio dela an ogiaren edo ardoaren substanziarik, ortan engañatzen dire, zerengatik esta alakorik an. Itxurain kontra; edo berzerik da substanzia; dirudi ogi, dirudi ardo, baña esta ez ogi ta ez ardo,

baizik gorputz ta odol dibinoak. Pintatzeunte batzuek fedea donzella baten itxuran, bendaturik begiak, eskuan kaliza bat, ta hostia arren gañean. Klaro da dela ori misterio gonengatik, zein bear baita sinestatu begiak ertxirik, ta arriturik bidanabar Jangoikoaren amorio poderoso ta injeniosoas gure onerako.

pintatzen dute berze batzuek fedea erreina triunfante baten gisara, korona buruan, eskuan katea bat urreskoa, zeñeki loturik prisionero baitauka prinziipe bat, ta oin petan borz soldado ilik bekala. Erreina da fedea koronatu, zeren onek du balio Jangoikoaren alzinean, ta ez xakintasunak ta presunzioak zeruko gauzetan. Konfesatzen diot, nere Aita, zio Kristok, zeren altxatutuen gauza gebek jakintsu ta presumituetaik, ta agertutioten txipittoei. Ala, nere Aita, zeren ala baitu plazer berorrek. (Math. 11). Zori onekoa zu, zeren sinestatu baituzu, erran zio Santa Isabelek Maria Santisimai, ta Maria Santisimak emanen Jangoikoai eskerrak ta laudarioak erran zue: Zeren beiratu baitu poderoso denak bere eskriba gonon humiltasunai, orgatik zori onekoa deituko naute jenerazio guziek. Gauza andiak egin ditu nereki dezakenak, ta beraren miseriakordia jendamendes jendamende da beraren beldur direnendako. Andinaiak botatu ditu bere asentutik, ta goratutu humilak (Luc. 1.). Al badezakezu sinesta, erran zio bati Jesu Kristok, guzia da posible sinestatzen duenai (Marc. 9). Ikusteunzie nola Jangoikoaren bidean fedea edo sinestea den erreina triunfatzen duena? Nor ote da prinziipe prisionero daukan ura? Ura da entendamentua kautiba bear dena fedeari Kristoren obsekiotan, dion bekala San Pablok (2 Cor. 10). Borz soldado il gaiek oin petan nor ote dire? Gorputzaren borz sentidoak, zeñetas ia ezi iles ajolaik esta in bear fedearen misterioan. Bistari naiz iduriturik ogi, usmari ogi, gustoari ogi, koloreain, urrinain ta zaporeain akzidenteengatik, ez kasorik egin sentido goietas fedearen aurkintzean, kontu direla ilak. Solamente ezi niri iduri zaida adimentuaren sentidoa estela ongi kontatzea il-aintzu, zerengatik adimentutik dator fedea; fides ex auditu, aditza berriz Kristoren itzaren medios, auditus autem per verbum Chrsti (Rom.10). Egin kaso solamente adituai Kristoganik, au dela bere gorputza. Ori da fedea, ori diote amar Konzilio Jeneraleek, ori dio Eliza Ama Sandak, ori dio San Pablok, ori diote laur Ebanjelioek, ori dio Jangoikoak. Aski da Jangoikoak erratea sinestatzeko bere amorio guzis poderosoaren milagro andi gau aldareko sakramentuan.

Beras, erragun ia Salomoneki arriturik, dugulaik ark baño kausa ia guk kristioek arritzeko, beras pensatu bear da bizi dela sines gure lekukide Jangoikoa munduan? Bada zeruak ta zeruen zeruek ezpadezakete kabitu orren Majestadea, zenbat gutiago etxe gonek? (3. Reg. c.8). Ecce ego vobiscum sum usque ad consummationem saeculi. Orra, dio Jesu Kristok, zueki nago munduaren akabanzaraño (Math. ult.). Ezin leike sinesta, ezipalaz ainberze beraren podorioa, xakinduria, ontasuna ta amorioa gure alde. Baña orai bai sinestatzen dut, zerengatik ori baita Jesu Kristo Jangoiko biziaren Semea; ain andia ta ain txipia! Ain gora ta ain apal! Andi gora zeruko glorian, ain txipi apal eukaristian! Ezauntzen dut amorio dibinoaren jenioa ta injenioa, eman guzia ta guti iduriarazi; ez, mundukoek bekala, anitz arroitu ez deustako. Orra berze gisasko erregaloo gure Jaun onak, Amen batean balio duena zeru guziak adiña! Estu erreduzitu ortara nezesidadeak, baizik karidadeak. Karidade garrek, zeñek erreduzitu baizue jaiotzera aur Belengo portalean. Au da Jangoiko andia ta aur txipia bateo ikusi zena, zeinengatik erran baizue Ebanjelariak Ama Birjinak: eman zue argira bere Seme bakarra, ta inguratu zue oialetan, ta erreklintatu zue gabela batean, zeren ezipaizute lekuri etxola gartan (Luc.2). Karidade geiegi berak erreduzitu zue usterakastiga zezaten ta para zezaten gurutzetan nola balitz ladron bat gure ongiegille bakarra dena. Karidade berak erreduzitzen du orai ere dagolarik

gloriako errege triunfante zeruan, egotera bateo gure alimentu-gisa miragarriro eutxaristian. Jaiotzeas intze kidari, iltzeas gure Erredenptore, eukaristian janari, glorian glorifikadore. Ezkaitu guti onesten guregatik iten duelaik ainberze. Amante dibinoa, nola dagon belo gorreki estalirik gure amorios, gure onginaies, gure erdian, ta guk ez estimatzen, ta kasi ez erreparatzen! Nola disimulatzentu ala bere errañuak iruzki dibinoa? Nola dauzki preso bere sugarrak hostia txipi gortan? O nere arimaren esposo amorosoa, estaltzen du aurpegia, baña heritzen du ala nere biotza. Estut ikusten argitasun duena, baña sentitzen dut berotasun debozioskoa. Estitut ukitzen nere eskus orren llogen kuntzeak Santo Tomasek bekala; baña fedeas beiratzentut, ta diot: O nere Jauna ta nere Jangoikoa. Pensa bitarteo, nere fielak, gure fortuna duguna, bagindeki ezauntzen, ô si scires donum Dei! Zer mertxede aia urbil egotea, ta aia perenne gureki? Zer exzesu amorioskoa sartzea zeruetako Jauna gure luresko etxola gebetan alimentu-gisa komekatzean? Estakit zer erran sazerdotearen ditxas, zeñen eskuetan enkarnatzen baita Jangoikoaren Semea nola Ama Birjinaren sabelean. Ô si scires donum Dei! O baleki Jangoikoaren donoa! sazerdote bat Ama Birjinaren debotoa ze tentatua misterio gonon fedean; klamatzen zue Ama obenagana erremedio eske. Egun bates meza erratean desaparezitu zekio alzinetik hostia konsagratua. Emen izan ze asustatzea, bilatzea, ta ez ageri. Emen klamatzea sinki bere Amagana; goratu zitue begiak, ta ikusi zue Ama dibina bere Seme dibinoareki besotan; beiratu zio amorosa ta erran zio: Tori, au da nik argira eman nuena gelditurik birjin, ta zuk oraietan konsagratu duzuna, zeure eskuetan idukitzen ta zeure barnera errebitzen duzuna. Ona usten dizut estima zazun. Erran au ta desaparezitu ze gelditurik solamente korporaleetan hostia len bekala (Parra de Ordine pl.1). Zer idurizaizie? Estiot orai deus gure zeruko etxokandreas, baizik gure nagusi dibinoas; tratatzentut ongi bere zerbitzuko nirabeak? Bai, ta gañarako fielak ere. Nor gure Jangoiko Jauna bekalakorik? Gorena delaik apaltzen baita goratzeko bere gana lurretik bere pobrettoak. Orai bai, orai bai doaki da azis esperanza, baneikela ellega izatera bere eskojitu gaietaik bat ni ere glorian. Badakusat zein deskonforme dirudien ni bekalako bat aiek bekalakoen ertean paratzea, ain apal bat ain gora; baña badakusat ere berze gauza arriziosko gau, alako Jauna ala apaltzea, ain gora dena ain apal gelditzea; guregatik da, badakit, ta erran ere zuela: ez naiz etorri deitzera justoak, baizik bekatariak (Math. 9). O gloriako prenda, ezkaitzala utzi sekulan; bitarteo, nere fielak, onetsi, adora, honra ta kontenta zagun al guzian Jaun bat alakoa misterio gontan. Bitarteo ezpada ia, bentzait ez ofendi, ez eman desplazerik, eskergaitzak. Aia gaixtoa da gureki Jaunau? Ainbertze gaitz egin digu? O! Sobra ere ona da. Nor litzaken orrena guzis orai ta beti, oraiko bizian ta betiko glorian!

Sermo V:
De miraculis per verba
consecrationis

Milagro in zituenak Kristo gure Jaunak dire obra dibinoak, zein ikusis gora daien gizonaren entendamentua entendatzera Jangoikoaren andia, dio San Agustinek (Tr. 24 in Joan.). Baña adbertitzen du sanduak admiratzen garela batzues ia, ez zerengatik diren andiago, baizik zeren agitzen diren argalago. Paratzen du konparazioa gobernatzean ta mantenitzean mundua guzia Jangoikoak ekarrerazis aziei ta plantei fruituak egunoro, ta milagro egin zuen gartan Kristok asetzeas bein borz ogis borz milla gizon. Au baño milagro andiagokoa da ura, dio, ta alaere artas esta nior admiratzen, ontas admiratzen dire gizonak, ez zerengatik den andiago, baizik argalago, de manera ezi egunoroko uso edo kostunbreagatik gauzarik andienak etzaizkigu iduri ain miragarri; eta au da egia ia, zenbatenas gauza den espiritualago, ta ikustenestena begis. Orra meza sandua gauzarik admirableena, ta Kristok eginikako milagroen andiena, diones Santo Tomas doktore aingiruak (Opusc. 57). Artan obratzentu Jangoikoak montioka prodijioak, ta estire admiratzen. Zerengatik? Zerengatik egunorokoak baitire, ta ixil ixila agiturik ikusten ezpaitire. Baña ikusi edo ez ikusi, estire orgatik milagroak andiago edo txipiago errealidadean. Sines andiak dire milagro agitzen direnak konsagrazioko itzen birtutes. Nainuzke adiarazi nolapait; baña fedearen misterioa da au prinzipalki. *Mysterium fidei*, fedear ikusi bear da; fedea len lenik biztu bear da; alfer mintzatuko naiz fede guti edo ila dutenendako. Jangoikoaren itza da, zeintan fiatu bear dugun, egia gontan obeki ezi begis ikustean, zeren begiak bagaizke engañatu, Jangoikoak ez. Egia da beras, ta ain egia ezi aisago nezake duda bizi ote naizen, ezi ez egia ote den, ala zio San Agustinek (Ap.claus. p.1 cath. c.12). Zimendu gonon gañean goazen itz egines. Ortako orrek Maria Elizaren illargi ederra, iruzki dibinoaren arka birjinala, argiaren Ama, zeruko ataria, zeru bizia mundu gontan, bigu, otoi, anitz grazia. Abe Maria.

Quis loquétur potentias Domini? Nork aipatu gure Jaunaren obra andiak? *Auditas faciet omnes laudes eius?* Nork adiarazi beraren gauza laudagarriak? zio Dabidek (Ps. 105) ta ez errepetitzen du San Juan Krisostomok mezako misterioain gañean. (H. 60 ad pop.). Borz dire konsagraziosko itzak, ta nork konta ebei darraizkion milagroak! Zer litzake ikusi bagindez begis an agitzen dena instante gartan sazerdotearen mintzora zeruan ta lurrean? Nork kristioetaik duda dezake, zio San Gregoriok (Dial. 1.4.c.58), konsagrazioko ordu gartan sazerdotearen bozara idikitzen direla zeruak, Jesu Kristoren misterio gartan presentatzen direla aingiruen koroak, juntatzen direla goitikoeki beitikoak, zerukoeki lurrekoak eta gauza bisible ta inbisibleetaik egiten dela bat? Lentxago kasi bakarrik zego sazerdotea aldareain alzinean, aldarean etzego baizik ogi ta ardo guti bat. Erratentu itzak, ta instante jausten da Jesu Kristo, paratzen zaio eskuetan, eta nola errege dagon lekuan baitago bere korte erreala ta zentinelak, aldare-inguru guzia betetzen da aingirus, dion bekala ikusi zituenak asko aldis, San Juan Krisostomok (1.6 de sacer.). De manera ezi ez lezake uts-egin erran lezakenak dela orduan ta Jaunau presente dagon guzian eliza ala nola zeruko antesala edo zeru bat txipitto, ta aldaregaña ala nola errege andienaren tronoa. Orgatik dio arriturik sandu berak: Garai gartan uste duzu orañik zaudela lurrean mortaleen artean? Etzara antes bien aldatzen gogoareki gloriara instantean? (Lib.3 de sac.). Guzia dago ez ikustean; sinesta bagindez ain bizi nola ikusten diren

gauzak, arriturik egonen ginazke ala nola pobre bat erregeren palazioan goardia errealean ta Jaun andien erdian.

Zoeie bides Jakob, ta arturik kanpoan etzinze an; lo zegolaik inzue amets, beira ikusten zegola eskalera bat luzea lurretik zeruraño ellegatzen zena, ta zebilzala artan jausten ta igaten aingiruak gora bera, ta goiengan zegola Jangoikoa; idatzarzen da lotsarriturik. Zer da au? erraten du: Sines Jangoikoa dago leku sandu gontan, ta nik eznie. Zein lotsagarria den leku gau! Errealki esta emen berzerik, baizik Jangoikoaren etxea ta zeruko ataria. Balego orai ebetan Jakob, ar nezake eskutik ta erran nezake: Betor Jakob, betor nereki tenplora; ura ze amets bat, emen egi eta fedes ikusko du ez eskalera, ez jausten ta igaten aingiruak solamente, baizik presentatzen aldare gañean Kristoren majestadea inguraturik aingirus, ta ez bein solamente, baizik ere emen sazerdoteak borz itz aipatzentuen aldioro. Au baita leku sandua, emen, emen baitago an baño obeki Jangoikoaren etxea, ta zeruko ataria. Aingiruen jautsi igatea emen dezake ikusi. Orgatik sazerdoteak sagra akabatuta berla iten du orazio gau: Supplices te rogamus etc. Humilki otoitz egiten diogu Jaun guzis poderoso, mana bez eramateko present gebek bere aingiru sanduaren eskus berorren gorako aldarera, bere majestade dibinoaren presenzian, bete gaitzen zeruko bedeizio ta grazia guzies erreizibitzendugunek aldare gontaik bere Seme Jaunaren gorputz odol dibinoa.

bukatu ondoan Salomonek Jerusalengo tenplo famatu gura, joan ze jende guziareki ofratzera Jangoikoai artan sakrifizio. Zeudelaik belauriko orazio egiten, ikusi ze jausten zerutik sugar bat miragarria, konsumitu zuena aldarean zegon guzia. Birtute dibinoaren demonstrazio andia agertzeko ontzat artzen zuela ofratu ziotena! Zer du zer ikusi angoak emengoareki, noiz ta sakrifikatzen delaik axuri dibinoa, aipatzen tuelaik sazerdoteak itz andi gaiek, ez sua, bai suaren ta gauza guzien Jauna jausten baita, ta destruiturik ogi ardoen sustanzia aien akzidenteen pean gelditzen baita beraren gorputz ta odol preziosoen sustanzia sakrifikatze Jangoikoai ta sustentatzeko arimak. Eta au esta kostu anitzes, baizik zenbait itz erranes Kristoren ordes. O birtute miragarria!

Elias profetas kontatzen da jautsiaz zuela bi aldis sua zerutik, ta berartas kontatzen du Santiagok, ezi zelarik gu bekala gizon mortala ta pasiblea, egin zuela orazio ez eurtzeko, ta etzuela eurtu irur urteterdis; berriz egin zuela orazio eurtzeko, ta eman zuela euria zeruak ta bere fruitua lurak, de manera ezi emen atra ze egia San Agustinek gero errana, justoarean orazioa dela zeruaren giltza (S. de Tob. 226 de tempe); por konsigiente justoarean eskuan edo mian daudela ango giltzak. Giltza gebek expresoki eman zitio Kristok San Pedrori, ta orden sagratuaren medios edozein sazerdotei, ez solamente zeren absolbitus idikitzen baititio arimai zeruko atariak, baitaere zeren konsagraziosko itzen birtutes zerutik jautsiazasten baitu zeruetako Jauna. Eliasek Jangoikoaren grazia espeziales ertxi-idiki barin bazue zerua, izan ze bera sandu izatearen atenzios; baña sazerdotea da edo esta sazerdote? Barin bada, arrizaiste ontas nere fielak, barin bada sazerdote, naiz dela gaistoa ta indignoa, noiz-nai erran dezkie konsagraziosko itzak intenzioreki, ogiaren edo ardoaren gañean, bereala ta beti presentatzen da an errealki Jesu Kristo faltarik gabe; lenago faltatuko dire zerua ta lurra.

Zer milagroa kontatzen duena Eskriturak Josue pueblo eskojituaren kapitan jenerale gartas? (Jos. 10). Garaiturik pelean gabaondarrak igesai eman zutenak, segitzen ziotelaik ark atzetik arras urratu naiak, beldurrak iruzkia lenago sartu zeien, goratu zue eskua ta boza zerurat, ta erran zue: Etzaitela mogi, ezeta ere zu ilargia. Erran bekala gelditu zire iruzkia ta ilargia zeruan, ta dio Eskriturak ala: Obediente Deo voci hominis, obeditu

zuela Jangoikoak gizonaren bozara. Zenbat obeki daike erran obediente dagola Jangoikoa gizonaren bozara aldarean? Noiz ta arturik eskuetan ogia, ta goraturik begiak zerura sazerdoteak erraten baititu itz gaiek ixil ixila, gelditzen estire iruzkia ta ilargia, baizik iruzkiaren ta ilargiaren Jaun bera obediente paratzen baizaio eskuetan. Ia da ura baño, ia delaik gauza kriatuak baño guzien kriadorea.

Gauza miragarriak leitzen dire zenbait sanduenak. Zer litzake ikustea Santa Isabelen erranera ogiak itzultzea arrosak? San Nikolas Tolentinoren bozara platerean zegon abea errorik egatzea aireak gora? S. Gregorio Taumaturgoren manura oian bat bere zain, peña ta arbola guzieki aldatzea lekutik lekura? San Bizente Ferreren oiura, gizon bat dorretik eroria airean gelditzea? San Franzisko Xabieren erranera ia sendatzea eriak, ia biztea ilak, ia berze alako mila gauza miragarriak? San Pedroren itzal sollera despeitzea eritasunak? Esta denboraik kontatzeko guzien milagroak, ta esta zeren. Beira Moises solamente bere bara garreki egiten prodijioak, ia itzultzen serpiente batean, ia bara berean nola len; ugaldeak paratzentu odoletan, betetzen du Ejipto guzia ia eltxoes, ia urapoes, ia langostas, nai duelaik erauntsiarasten du kazkaragarra, nai duelaik iluntzen du eguna, itz bates nai duen guzia. Bara prodijiosoa errealki? Famatua da prodijio gura, noiz ta atrarik Ejiptotik Jangoikoaren mezus Israelgo puebloa, segiturik ejiptotarrek atzetik arma ta aparato andiareki, ellegaturik itsasbasterrera, ia etzutelaik eskaperik ez alzina ta ez gibela, alzinetik ur inmensoak, gibeletik ejiptotarrak, goratu zue Moisesek bere bara, ta ukitu zue itsasoa; instante idiki ze bide zabal bat erdi erditik, pasatu artaño israeldarrak oñes idorrean bide berri gartaik, zeudelaik bitarteo urak bi aldetaik tieso nola bi muralla kristaleskoak pasmaturik bekala, aliketa pasaturik berze basterrera txipi-andi guziak, sarturik ia orduko bide berartan ejiptotarren tropa, Moisesek edatu zue berriz bara, ta itzuli ze itsasoa len bekala, ta ondatu zue arras tropa gura eskapatu gabe arimaik. Famatua da, alaber, prodijio berze gura, noiz ta egarriak zeudelaik desertuan israeldarrak, nion ezin aurkitus ur tanta bat ere, Moises berak ukitu zue bara gartas peña bat, zeintaik atra baize bereala iturri bat abasto nai adiña. Admiratzen gaitute prodijio gebek, bakan agitzen baitire; baña errealdadean estire konparatzeko agitzen direneki egunoro meza sanduan, noiz ta aipaturik sazerdotearen mias itz andi gaiek, Jaun soberanoa gauza guzien Jauna presentatzen baita aldarean.

Eraunstea zerutik manna goizoro desertuan israeldarrei izan ze Jangoikoaren doai graziosoa, zeñengatik baizio Dabidek psalmoan: Panem coeli dedit eis, zeruko ogia eman ziote Jangoikoak, panem angelorum manducavit homo, aingiruen ogia jan zue gizonak. Lenbiziko txastatu zutelaik ziote admiraturik: Zer da au? Nere fielak, zer du zer ikusi manna garrek zeruko erregalo dibino goneki? Baña eznoaie ortara. Manna gura etzute noiznai; bear zute bildu atrabañolen iruzkia, ta berriro goizoro ezi galtzen ze biramoneko. Emen noiznai erran dezkie konsagraziosko itzak sazerdoteak, an dauka Jangoikoaren Semea Jesus eskuetan, zeruetako prenda, Ama Birjinaren esneas oraturikako ogi erregalatua. Arritzeko gauza da nola obratu zen enkarnazioko misterioa. Igorririk Jangoikoak aingiru prinzipa bat donzella batengana eskatzera bekala onen baimendea izateko Jangoikoaren Ama. Proponitzen dio aingiruak, erreparo imintzen du donzella Santisimak; ematen dio satisfakzio aingiruak, geldituko dela birjin naiz izanik Ama; ia orduan ematen du bere baimendea: Ona Jangoikoaren eskriba, egin bedi nereki zure itzaren conforme. O itz miragarriak! erran orduko bereala Jangoikoaren Semea izan ze konzebitua beraren entrañetan Espiritu Sanduaren birtutes Jangoikoaren milagros. Zori onekoa Maria, ta bedekatua emaste guzien artean, zeren Jangoikoa baita zureki! Zertara

dakarrat au? Adiarasteko ala nolapait konsagraziosko itzen birtutea, zeñengatik baitio San Agustinek: Ô veneranda sacerdotum dignitas, in quorum manibus velut in utero virginis incarnatur filius Déi! O dignidade venerable sazerdoteena, zeñen eskuetan enkarnatzen bekala baita Jangoikoaren Semea, ala nola Birjinaren sabelean. Esta au izatea Jangoikoaren Semearen aurzai bekala, Amas geros? Pasa gaitzen Nazaretdik Belena. An jaiorik ikusi zuelaik bere eskuetan Ama Birjinak Seme dibinoa, zer alegria! Nor legoken an? Nork inlezoken festa aur garri? Nork luken ditxa, estiot artzeas besoetan, baizik solamente apatzeas esku dibinoa! Zer diot orai emen? O fedea non zara? Laur itz erran orduko ematen zaida eskuetara ura berbera, adoratzeko, errezibitzeko, emateko. Ikustea sollik da falta, ezi gañarakos ain errealki dut emen nola an. Orgatik fedearen billa nabila. Aski delaik Jangoikoaren itza sinestatzeko, milagros ere erakutsi du Jangoikoak egia gau asko aldis. Kontatzen du Parrak (Pl. 4 de Euch.), mila iru egun ta lauetan ogei ta amabigarren urtean, Balenziako erreinuan, Monkada deitzen den erri bateko sazerdotea zegola dudas beterik ote zegon ongi ordenaturik, zeren ordenatu baize Zisma-denboran, ta ala zebila ordenatu naiak berze obispo baten ganik. Baña Jangoikoak atra zue dudatik prodijio gebeki. Egerri egun bates erraten zegolaik meza, enzuten zue andre batek bere alabatto bateki, laur urteterdi baizitue. Akabaturik meza, aurttoak etzue joan nai, ta porfiatzen zio amai etzezola utzi sazerdoteai barrideko aurra zeukana bereki. Uste zue zela an barridean lentsago jaio zen aur bat, zeñi artu zion afizione. Amak erraten zio etzela alakorik, aurak baietz; baña amak eraman zue tiraka etxera nigarres nai etzuela bortxa, ta desengañatzeko erakutsi zio barrideko aur ziona; oneki sosegatu ze. Biramonean berriz mezara joanik, goratzean hostia, asi zekio alabattoa alborotaturik erraten amai: Ara ara non daukan, ikus bez. Baña ark etzue ikusten. Kontatu zio sazerdoteai zer agitzen zen. Onek eskatu zio nai bazue ekarri mezara urbilen egunean. Ala egin zue, ta oroat agitu ze; eta arturik sazerdoteak gero aparte, galdegin zio ia zer ikusi zuen. Neskattoak zio ikusi zuela aurtto bat lazki ederra betetzen zuena argitasunes eliza guzia. Alaere seguratzeko ia, berze egun bates eramanik bi hostia aldarera, konsagratu zue bata ta ez berzea; arturik konsagratua eskuieko eskuan, ta ezkerrekoan berzea, deiturik aur gura galdegin zio zer ikusten zuen. Aurak bereala erran zio: Jauna, esku gartan dauka aurttogoï ain ederra. Eta berze gontan? galdegin zio mostratus ezkerrekoa. Ortan, zio ark, dauka oblea bat. Progu bera egin zue aldatus hostiak esku batetik berzera anitz aldis, ta beti ark konfesatus ikusten zuena klaroki. Beterik konsolus sazerdotea, ta admirazios jendea, zeren Jangoikoak inozente garren agos erakusten zuen egi eta fedea. Au berau da arritzeko ia, delarik indigno sazerdotea, nola usten den alakoaren eskuetan Jaun dibino-onegia. Kontatzen du Santa Teresa birjin admirableak bere bizian lanze gau itz gebeki: ellegatu nitzalaik bein komekatzera, dio, ikusi nitue bi demonio figura txoil abominableareki. Iduri zaida sazerdote triste garren lepoa inguratzen ziotela adarreke, ta ikusi nue nere Jauna majestade errandutenareki, paraturik esku gaietan, zein klaroki, ageri baize zirela beraren ofendizaleak, ta entendatu zue zegola arima gura bekatu mortalean. Eman zida lotsadura batek ain andiak, ezi estakit nola izan zen posible komekatzea. Erran zida Jaun dibinoak berak otoitz egin nezala arreatatik, ta permititu zuela entenda nezangatik konsagraziosko itzen indarra, ta nola Jangoikoak estuen usten egoteko an, naiz gaixto izanik sazerdotea (Ib.). O nork luken arimaren bista edo usma ona, sentitzeko Jaun andiaren presenzia erreala misterio gartan, nola San Franzisko Borjak, nola berze anitz sanduek, ezauntzen baizute sartu orduko edozein elizatan bazen edo ez sakramenturik! Beata Sibilina de Pabia, Santo Domingoko monja bates kontatzen da amirur urtetaik alzina itsu izan zela; baña noiz

ta aurkitzen zen, naiz ustegabeen sakramentuari urbil, ezaunzen omen zue alako dulzetasun sentitzen zuenareki ariman, ta oroat sentitzen omen zue zoielaik komekadura karrikan. Bein eskaturik parrokia bateko apetxau nai komekadura eri batendako, ark etzeuka forma konsagratu, ta disimulatzeagatik uts bat uts andiagoareki, zerama forma bat konsagratu gabe. Aiturik txintxa, belaurikatu ze erreljiosa itsu zorioneko gura adoratzeko Jaun andia sakramentuan; baña etzue sentitu deus lenagoko dulzetasun gartaik. Aflijitu ze asko, deitu zue sazerdote gura, galdetu zio ia egun gartan eraman zuen sakramentua edo ez, zerengatik eztut sentitu Jaunaren presenziaren efektoak, nola lenekoetan. Aurkitu ze konfuso sazerdotea, ta konfesatu zio egia zen bekala (Parr. ib. pl. 5.). Bada, itsuei ere ala sentiarasten bada presente sakramentuan, zer da inport dagon estalirik akzidenteen beloareki gure begietara, dakigulaik fedes an dagola errealki, naiz ez ikusi? O Jesus dulce amorosgarria; nion ez andiago txipian baño monstratzen dena, zer milagroak, zer prodijioak gureki egon naies! Bear gaitu agian orrek gu deustako? Eta ia inen zue bearbaginduza zerbaitetako? Etze posible izanen ainberze ere egitea gure bear baliz. Orai delaik guzis poderoso, ta amantea guzis, dezaken ta nai duen bekala iten du. Nor da ori, ta nor gara gu? in bedi jabe gure arimen, ta onetsi bedi, zerbitza bedi, kontenta bedi beroi gu garen guziareki, aliketa il ta eraman gaitzan arteo gloriara.

Sermo VI:

De secundâ missae parte,
Oblatione

Omnis pontifex ex hominibus assumptus
pro hominibus constituitur in his quae sunt ad Deum,
ut offerat dona et sacrificia pro peccatis. Haebr.5.

Aipaturik mezaren parte prinzipalena ta esenziala, baita konsagrazioa, segitzen da bigarrena, baita oblazioa edo ofrezimentua. Erranik dago dela meza sakrifizio bat solemnea, zeintan ofratzen baita Jangoikoai bere Semea Jesus aldarean.

Nori ofrezizen den dela Jangoiko Aita; nor ofrezizen den dela Jesus; ta ofrezizen duen prinzipala edo ofrazale prinzipala Jesus bera. Bera sazerdotea ta hostia; bera ofrenda ta ofrazalea. Baña beraren atzetik ofrazale bigarren lekukoa da sazerdotea ikusten dena. Onek beraren disposizio iten du beraren oblazioa ta ofrezimentua mezakoan, ta ortako da prinzipalki elejitua ta ordenatua, diones San Pablok: Omnis pontifex ex hominibus assumptus pro hominibus constituitur in his quae sunt ad Deum, ut offerat Deo dona et sacrificia pro peccatis. Edozein pontifize edo sazerdote gizonen artetik atrea gizonen labore paratzen da Jangoikoaren ganako gauzetan, ofrezizeko Jangoikoai presentak eta sakrifizioak bekatuengatik.

Noiz prinzipalki iten duen oblazio edo ofrezimentu osoa da konsagratu ondoan ogi-ardoak, ia Jesu Kristoren gorputz-odol preziosotan konbertiturik ta goraturik adora dezkie jendeak, utzirik gorporaleetan, geroxago kurturik sazedoteak erraten baitu orazio gura: Supplices te rogamus, omnipotens etc. Baita euskaras: Jangoiko guzies poderosoak, eskatzen diogu humilkiro berorri, mana dezan eben eramateko bere aingiru sanduaren eskus berorren aldare goien gortara bere Majestade dibinoaren presenzian, beteak izan gaitzen zeruko bedeizio ta grazia guzies errezibitzen dugun guziok aldaretik orren Seme Jaunaren gorputz ta odol sakrosantoa. Jesu Kristo gure Jaun beragatik. Amen. Egiten ere da naiz ez ain prinzipalki ofrezimentua hostiarena berex, kalizarena berex lenago ofertoriokoan; ta, alaber, garbitu ondoan eripuntak, itzulirik ta kurturik aldareain erdian, erraten duelaik sazerdoteak orazio gura: Suscipe Santa etc. Errezibi bez, Trintate Sandua, berorri ofratzen diogun oblazio gau, Jesu Kristo gure Jaunaren pasio, erresurrekzio ta zerura igatearen memoriatan, eta Maria Santisima beti Birjinaren honratuko, San Juan Bautistaren eta San Pedro ta San Pablo apostoluen, ta eben ta sandu guzien honratuko, izandaian aien gloria ta gure probetxu, ta aiek guregatik digna daitzen enpeñatzeas zeruan, zeñen memoria guk iten baitugu lurrean; Jesu Kristo gure Jaun beragatik. Amen. Baña erran bekala, prinzipalki iten da oblazioa, hostia ta kaliza goratu ondoan. Entendatzeko zer ta zertako iten den, ta nork iten duen, bear dugu grazia. O Maria eman diguna zer ofrezitu Jangoikoai ainberzeko presenta, bear bekalakoa, akonpañatzeko gure aldetik bear den ezaumentu ta afektoareki logra bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Jangoikoa beti ondasun-egiten munduai, beti eman ta eman, gizonen, ta esta arrazio ta obligazio munduak ere ta gizonen eman dezaten zerbait Jangoikoai dutenetik? Baña zer dute emateko? Deus ez onkirik berenganik. Guziaz dator Jangoikoaganik; zerbait ongi barin baute, guzia dute beraganik. Baña naiz bai, naiz berak emanetaik ofratu bear zaio zerbait kuadrakiona bere majestadeai. Quid retribuam Domino pro omnibus quae

retribuit mihi? Zio Dabid erregeak: Zer itzuliko diot nere Jaunai berak niri eman tidan guziengatik? Calicem salutaris accipiam; artuko dut Salbadorearen kaliza. Artuko dut. Zer da au? Zer emain zuen, zio, ta orai, artuko dut. Emate-modu ona da artzea. Artuko dut beraganik emateko berai, ezi ezperen estut zer eman. Artuko dut salbadorearen edo salbazioaren kaliza ofratzeko berai. Zer adiarazi nai ote duen itz gontan, entenda bezate jakintsuek; guk orai dugulaik meza sanduaren sakrifizioa, artan hostia ta kaliza, estugu dudarik zer dezakegun artu ta eman Jangoikoai erregalo emandakioken kuadrableena, bere Seme Jaun Jesu Kristo, Jangoiko ta gizon egiaskoa, beronen gorputz ta odol preziosoak ogi ta ardoen akzidenteen pean. Au da presenta, munduaren aldetik; berak emana da baña gurea bekala kontatzen dugu ez solamente zeren guregatik ta guretako igorri zuen Jangoiko Aitak, baita ere zeren bera bere egin zen gure anaia, gure lagun, gure fiadore ta gure gauza guziak, baitare zeren plazer izan zuen artzea gure naturaleza eginik gizon egiaskoa, zeren jaio zen gure mundu gontan, zeren bizitu zen gutartean, ta zeren iltzen guregatik; baitare zeren ain bere gu, ta ain gure bera kontatzen baita, ezi gureki egotea, dio, direla bere deliziak: Delitiae meae esse cum filiis hominum (Prov.8). Eta San Mateok bere Ebanjelioan azken itz paratzentuenak dire Kristok bere despedidan zerura igateko erran zituenak apostoluei, ta aietan guri: Et ecce ego vobiscum sum omnibus diebus usque ad consummationem saeculi, eta ona zueki nago egun guzietan mundua akabatuartaño.

Beras, Jaun ona arrazioreki kontatzen dugu geurea bekala, nola gorputzak burua. Zerutik igorri zigu Aita eternoak zerukoa bekala; guk Aita eternoai itzultzen diogu lurretik ia lurrekoa bekala, dena zeruko ta lurreko gala; eta ortako ere Jaun berak, nola ezpaliz kontent bein emanis satisfakzio ta alako satisfakzioa guregatik bere biziaren ta odolaren kostus, utzi zue fundaturik meza sanduaren sakrifizioa, finka seguroan bekala tesoro inmensoa, izan dezagun betiko zer ofratu Jangoikoai bere gustoko presente bakarra. Au da, alabañare, ura bera, zein presentatu baizue Ama Birjinak tenploan purifikazio-egunean; ura bera, zeñen gañera jautsi baize Espiritu Sandua uso baten idurian Jordango ugaldean, ura bera, zeñengatik aitu zen Aita eternoaren boza ziola: Au da nere Seme onetsia, zeintan baitut ene agradoa edo konplazentzia. Eta boza gau daike pensa errepetitzen duela egunoro ikusten duelaik ofratzen zaiola mezakoan. Ala pagatzen diogu osokiro zor diogun tributoa, nola majestade gorenai basallo ta kriatura bereak garenek, ta guzis obligatuak. Ala presentatzen zaio gizagendearen aldetik Jangoikoai presenta bat balio duena ia ezi honra ta gloria eman diotena birjinek, konfesoreek, martirek, apostoluek ta izan diren sandu eta sanda guziek, ia ezi eman ziona Ama Birjinak, izanik ere ain andia neurri gabekoa. Meza sanduan dugunagatik gizonen dezakegu in sendagalla presentatzen zaiola gizagendearen aldetik Jangoikoai presenta ohea, ezi aingiruek dezoketen naiz juntaturik guziek ofrezitu, au berau ezpada, zeintan ofrezitzen baita Jesu Kristo Jangoikoa ta gizon dena, aingiruen ta gizonen errege soberanoa.

Aurkiturik ia presente dignoa, Jangoiko andiari dagokiona, ta bere majestadeai presentadakiokena, bear da billatu nork dignoki presenta dezon bere eskuetan: Ortako da, errain duzie, sazerdotea gizonetaik artua, ta konsagratua ortako, ofratzeko Jangoikoai donoak ta sakrifizioak gizonengatik, zion bekala San Pablok (Supr.). Da ala nola munduaren aldetik enbaxadore bialia Jangoikoai ta Jangoikoaren aldetik beraren aingirua ta ministroa gizonengana; da Jangoikoaren ta gizonen artean bitarteko paratua ofratzeko Jangoikoai gizonen presentak, ta ekartzeko gizonen Jangoikoaren bedeizioak, ta ofizio gau iten du mezakoan, noiz ta jaintzirik ornamenta sagratues presentatzen baita aldare-alzinean, ta egoten baita berex guzietaik guzien partes, daudelaik guziak atzetik belauriko denbora

gartan, ura txutirik Jangoikoaren aurrean ofratzen ta itz egiten Jangoikoai, anitz kortesia, anitz agur ta zeremoniaeki presentatzen baitio Jesu Kristoren gorputz ta odol preziosoak. Dignidade andia, fortuna ezin iagokoa, baleki korresponditzen! Baña presenta bezanbat erreparatzen da persona, zeñen eskuetaik eldu den presenta. Edozeñek ia estimatzen du gauza bat amorio andiareki ematen diolaik bere adiskideenak, bere biotzeko onetsiak, ezi ez gauza bera ta naiz iagokoa, ematen diolaik berze batek adiskide estenak. Presentaren ariora biz presentatzen duena ere, ona, kuadrablea, gustorakoa, ezperen alde batetik du plazer, berzetik desplacer errezibitzen duenak; errain du, presenta ona, baña ez ala persona. Noreki igorri duten? Eman on, baña ez esku onetaik. Erregeri nai badio in erreinuak presenta bat, autatzen du persona ere dignoa, nork presenta dezon eskuetan. Au baliz traidore bat; eztiot ainberze, balitz traidore izan bat len, naiz orduan ez; estiot ainberze ere, balitz traidore izanain kastatik, da klaro ez leikela errege kontenta ainberze ere, balitz traidore izanain kastatik, da klaro ez leikela errege kontenta ainberze presentas. Aldarean iten zaion presenta Jangoikoai gizagendeagatik da bere gustorakoa guzis, estaike baizik kontenta bere majestadea alde gortaik noreki igortzen diogu? Sazerdoteareki. Ai barin bada traidore! Nola esta okatuko esku gaietas? Jauna, ezdezala permiti, otoi, agi daien alakorik nitas. Baña naiz ona izanik sazerdotea, da Adanen humea ta bekataria guti edo ia. Bear litzake bilatu presentaren gisara bat guzis dignoa, Jangoikoaren biotzekoa, kuadradakiona guziak baño ia, izateko alde guzietaik perfekto erregaloea, kontenta daien osokiro bere Majestadea.

Quis inveniet? Nork aurkitu? O Jesus on ona, konsolu gau ere eman digu. Ontaraño da digun amorioa, ezi ezpaitu permititu deus faltadakigun. Bera bera ofrezitzen da, bera presenta ta bera presentazalea; bera ofrenda ta bera ofrazalea, bera hostia ta bera sazerdotea. Anitz sazerdote joan dire eginas, dio San Pablok (Haebr. 7), zeren iltzeareki joan baizire emendik lenekoak; baña Jesus, zeren bizi baita betiro, du sazerdozio betikoa. Orgatik beti dezake salba, ellegatzen delaik bere personan Jangoikoagana, bizi delaik beti otoitz egiteko guregatik. Alako pontifizea bear gindue guk, sandua, inozentea, garbia, berex dena bekatarietaik, ta zeruak baño gorago egin dena.

Ia bada, fielak, gu nor bagara, etzaigu deus falta, dugulaik alako presenta aldarean, ta alakoa presentatzen duena Jangoikoai guregatik. Ez nuke nai geldizaisten solamente begis ikusten den gartan mezakoan, au da sazerdotea txutirik ofratzen hostia ta kaliza, baizik pasazaisten alzinago fedeareki ta afektoareki estimatzera an sazerdote eterno gura presente naiz estalirik ofratzen berak bere burua. Estu ofratzen sazerdote ageri denak ere? Bai, baña ministro-gisa ta atzetik bekala, ezi Jesus da prinzipalki ofratzen duena bere sakrifizioa nausi-aintzu. Konparaziotako, erregeri presentatzeko erregalo bat, erreinuak bial balez persona bat erregeren semeagana, ta onek arturik bereki, ta bere atzetik enbajadore gura, ta sarturik erregegana presentabalezo arreki bateo erregaloea, da klaro erregeren semea litzakela presentazen ziona prinzipalki, berzeak ez ain prinzipalki, ta ala erregek naiz ez kuadratu enbaxadore garren itxuras, in lezake kaso bere semeas ta iten duenas. Esta konparatzeko, baña zerbait gisas adiarasteko agitzen dena mezakoan, non Jangoikoai presentatzen baizaio ofrenda garbi gura, estaikena mantxa ofratzeuntenen indignidade edo maliziagatik, dio Tridentinok (S. 22 c.1). Alde bat zeren ofrenda gura baita Jesu Kristoren gorputz ta odol preziosoa, berze alde zeren Jesu Kristo bera len ofrezitu zena gurutzean, baita orai ere ofratzen dena aldarean sazerdoteen ministerios, diones Tridentino berak, (Ib. c.2) delarik diferente solo ofreziz ze-gisa.

Inaskeros, bada, konsagrazioa mezan, beira egon bear dugu Jesu Kristori presente

aldarean, egi eta fedea den bekala, ofrezitzen guregatik bere burua, bere gorputz ta odol preziosoa, bere bizia, pasioa ta eriotzea. Ala nola egon baize gurutzean sakrifikaturik agerrian, beterik zauris, odoles, oñazes, bere figura propioan ematen Jangoikoai satisfakzio guregatik, ala emen, berze figura batean estalian, odolik ixuri gabe ta oñazerik gabe dagola ofratzen bere Majestadeai orduko pena ta pasioen merejimentuak. Beira ala nola Jangoikoaren axuri onegia estado gartan mostratzen bere llogen kuntzeak, alegatzen bere amorioaren finezak, eskatzen guretako Jangoikoaren piedadeak, graziak, bedeizioak ta ondasun guziak; erakusten ain onetsiak gaituela, ezi berriro eman lezakela bizia guregatik bear baliz. O Jesus gure fiadore ta pagadore bakarra, alde guzietaik egin gara ondasundunak orren kostus. In omnibus divites facti estis in illo (1. Cor. 1). Alde guzietaik gindeude beterik zorres geuren faltas; zor Jangoikoai bera denagatik; zor ofenditudugunagatik; zor mertxede erreizibitutugunengatik; zor ere bai esperatzentugunengatik, ta deus ez pagatzen, baizik añaditzen zorrak berritus ofensak. Zer litzake gutas, ezpaledi ofrezitu guregatik gure erredenptorea sakrifikaturik gisa ortan? Ala ematen dio Jangoikoai honra dignoa guk galtzendiogunagatik errespetoa. Ala ematentio esker onak gure eskergaistoen truk; ala ematen dio plazer kunplitua ainberze desplacer gutaik dituenen partes. Ala palakaturik Jangoikoak bere Semearen onegias barkatzentigu bekatuak eta penak, ematentigu graziak, ta ondasun beartugunak. Ala senti dezakegu geuren baitan perenne ta kontino Kristoren erredenpzonearen fruitua, nai badugu. Baña Jangoikoai berea ematea da lenbizikoa; gerostik guzia lidoake ongi. Nola emain diogu ordea?

arima bat Jangoikoaren amorios zoraturik zegona (Segner. chr. instr. p.1. disc.12) desaogutzen ze, ansia gebetan. O Jauna, banitu milla mi laudatzeko orren majestadea! Banu biotz bat egun millon biotz adiña litzakena maitatzeko berori! Nere eskuan baleude kriatura guziak, guziak paratzeko orren oñetan! O al banezake honra sanduek, aingiruek ta on guziek adiña! Ala zegolaik bein, erran zio Jangoikoak: Nere humea, konsola zaite, meza batek sollik ematen dida ainberze gloria nola deseatzeeunzun, ta ia ere. Eta zierto, Eliza triunfante guziak ordena balez honratzeko Jangoikoa enbaxada bat agitz solemnea, zeintan lidoaken len lena Ama Birjina, atzetik apostoluak, martirak, konfesoreak, birjinak ta gañarako an diren guziak aingirueki bateo ofratzera Jangoikoai beren birtute, merejimentu ta ondasun guziak; berze aldetik, berriz, Eliza militanteak igor balez sazerdote bat den pobreena erratera meza bat, meza gau sollik litzake honratzeko ta kuadratzeke Jangoikoai ia ezi akonpañamentu gura guzia, zenbat ere baita ia Jesu Kristo Jangoiko ta gizon dena ta ain humil ofrezitzen dena mezan. Nola esta kontentatuko guzis Jangoikoa ikustas ala bere Seme bakar onetsia? Eta gu nola ezgara zoratuko amorios ta agradezimentus Jaun alakoagana? Nola estugu ofratuko bateo gure biotzak, afektoak ta ondasun tugun guziak? Nere Jesus dulce onegia, axuri dibinoa, guregatik ain desegiten dena, ia aur txipittoa itzulirik Belenen ta erreklinaturik ganbela batean, ia nekaturik bizi guzian, ia zatikaturik bere pasioan, ia azkenean ilik gurutze batean; zer ia in bear zue? Eta egin zue ia ere. Triunfante dagolaik bere glorian, oraño apaltzen da egotera ta ofrezitzera ain humil mezako sakrifizioan, guzia guregatik. Nor esta amorostuko amante alakoas? Nor esta urtuko beiratzas gisa gartan berori korporaleetan, nere alzinean ta nereak bekalako eskuetan? Nork duenik fede ta biotz, estio izanen amorio? Bada, esta atxekiarik, aski ona da, ongi amablea da berori; ta ez dezakete baizik onetsi arima onek. Biz alakoetaik bat nerea enpleadaiena orren maitatzen, zerbitzatzen, honratzen, kontentatzen al guzia emen, atra daien arteo berorren goatzera glorian.

Sermo VII:

De 3^a missae parte,
communione

On guziaren propietadea da komunikatu naia bere ona, bonum est communicativum sui, da erran komuna jakintsuen artean. Delarik, bada, Jangoikoa on guziaren iturria, ta bakarrik ona bereganik, nion ezpaitaie izan onik, ezpada Jangoikoaganik, da beras komunikatu naia bere ona nior ez bekala; edo guziak baño ia. Argatik, diot, ongi iteagatik izan zue plazer kiatzeas zerua ta lurra, aingiruak eta gizonak, eta gauza guziak, ez bear izanes. Argatik ere egin ze gizon, juntatus bi naturale zak, dibinoa ta humanoa persona baten, de manera ezi ia erran daie ta da egi eta fedea, Jangoikoa dela gizon ta gizona Jangoiko. Dirudi ia etzaikela pensa berze modurik komunikatzeko bere ona gizonai, baña bai aurkitu zue Jangoiko onak nola. Au da komunione sakramentala, uskaras deitzen baitugu komekatzea, baita oroat nola komunikatzea edo elkarreki unitzea Jesu Kristo arimareki, arima Jesu Kristoreki, iten baita errezibitus beraren gorputz odol preziosoak sakramentuan ematentigunak alimentu gisa. Nauzie aitu komunikazio gonon modu miragarria? Aizazie Kristo bera diola (Joan. 6), qui manducat meam carnem et bibit meum sanguinem in me manet et ego in illo, jaten duenak nere gorputza ta edaten duenak nere odola, nere baitan dago ta ni arren baitan. Zer daie aitu ia? Baña aizazie oraño: Sicut missit me vivens Pater et ego vivo propter Patrem, et qui manducat me, et ipse vivet propter me. Nola igorri bainau ni nere Aitak bizi denak, ta ni bizi naiz nere Aitagatik, ta jaten nauena ni, ura ere biziko da neregatik. O Jangoikoaren ona, ta nola komunikatzen den gizonai! Nori gogoratu alakorik, ezpazue berak injeniatu?

Bada, aipatu dugu ia mezaren parte prinzipala ta esenziala, baita konsagrazioa, bigarrena ere bai zein baita oblazioa, orai irugarrena, zein baita komunionea. Au egiten da, konsagratu ondoan hostia ta kaliza, egon ondoan presente Jesu Kristo an sakrifikaturik ofrezitzen bere Aita eternoai, ondorean erreserbatzen duelaik sazerdoteak bere barrenean; ezi esta meza solamente konsagratzeko ogia ta ardoa, ta paratzeko aldarean presente gure Jauna; esta ere solamente ofrezitzeko Aita eternoai sakrifikaturik bere Seme onetsia, baita ere prestatzeko gure arimen alimentu espirituala, ogi bizia, zerutik etorria, aingiruen ogia, ta errezibitzeko geure baitan. Au iten du sazerdoteak azkenerat eskuetan arturik hostia sanda, erranik humilkiro irur aldiz «Jauna, ez naiz digno sar dadien berori nere etxe gontan, baizik solamente erran bez itzas, ta sendatuko da ene arima», gero errezibitzen duelaik hostian, gero kalizan Jesu Kristoren gorputz ta odol preziosoak janari ta edarigisan, gelditzen delaik beterik Jangoikoas ta beraren sagraio bizia eginik. Bada, erranik dago estuela substantzian gutiago errezibitzen komekatzen denak hostia sollean, aipa zangun alimentu dibino gonon miragarria mogitzeko guzien biotzak ta neurea ia korresponditzera alako Jaun onai gure alegiñas. Ortako bear dugu orren grazia, Maria, zori onekoa, oius erran zio emasteki batek Kristori zegolaik predikatzen: Zori onekoa sabela jasi zuena berori, ta berori azi zuten bularrak. Zori onekoa Maria, anitz errezibitu ta ongi korresponditu zuena. Estugu errezibitzen guti guk ere, naiz ezpadugu korresponditzen ongi. Ezauntzeko errezibitzen duguna ta ikasteko korresponditzen orren ariora, gure Ama dulzissima, erdetxi bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Qui manducat etc. in me manet, et ego in illo. Joann. 6.

(Arriturik Elizak Jangoikoaren semearen apaltzeas izatera konzebitua Ama Birjinaren entraña sanduetan, erraten dio: Berori da Jangoiko Aitaren Seme eternoa. Tu Patris sempiternus es filius, berorrek naizuelaik artu bere gain libratzea gizona, etzue izan horreik edo lotsarik egoteko Birjinaren sabelean, non horruisti virginis uterus. Au dio Birjina gloriosa garreatik, zeñen gorputza arima prestatu baizitue Trinitate Sanduak, izan zeien Kristoren etxe ta sagraio dignoa. Orgatik aitu duzie aixtean andre gura goratzen oiua emateko zori ona. Orgatik Santa Isabelek erran zio erran ziona lenago aingiru San Gabriele: Bedeikatua zu andre guzien artean. Orgatik Andre andiak berak beterik esker andiareki erran zue kantiko gura: Magnificat anima mea Dominum; nere arimak laudatzen du nere Jauna, ta ene espiritua alegratu da nere Jangoiko ona baitan, zeren beiratu baitio bere eskriba gonon humiltasunai, orra ia onengatik zori-onekoa deituko naute jenerazio guziek, zeren gauza andiak egintu nereki poderoso denak. Arrazioreki, Ama miragarria. Baña zertara dakarrat nik au? adiarazi naies Jangoikoaren benefizio geiegia iten diguna komekatzean, ezi ezpada ere ainberze nola Jangoikoaren Ama izatea, ta bere entrañetan konzebitzea, da bentzait berebaitan errealki errezibitzea, idukitzea ta gozatzea modu admirablean Jaun gura bera, zeñen ama baita Ama Birjina, zein zori-oneko andre gorrek iduki baizue bere sabelean, zein eman baizue argira, zein azi baizue bere bularretan. Estugu obligazio imitatzeke agradezimentuan? Estiot deus orai sazerdotearen ditzas, zeñen ofizioa ia urbiltzen baita Ama Birjinarenari, konsagratuik dagolaik bera, konsagratzentuelaik bere mias ogi ardoak, itzultzentuelaik Kristoren gorputz ta odolean, dabilala bere eskuetan, ofrezitzen, goratzen, artzen, eramaten ta ematen duela. Ai ene Ama Santissima, alketurik nago berorren aurkintzean, ikusirik nola zen ori ta nola ni tratatzeko Jaun berbera. Badakit mereji duela ongi tratatzea, ezi Aita eta Ama onen humea da. Baña tratatzeko aski ongi, bearlizake serafin bat gutienezan.

Orai, ordea, solamente dardukagu komunioneas, bere barnera errezibitzeas Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Semea gizonak edo emastekiak. Zer da persona humanoaren barrendegia, baizik pasione gaixtoen ta malizien mindegia? Bekatu in duela edo in dezakela; ezi alkabo sanduen sanduena da aragiskoa; ta alako ostatura zeruetako Jauna? Eta zer, barin badago bekatu mortalean arima? Jesus ta Satanas leku batera, zeintan Satanas den jabe, nausi ta jaun! O Judasen arimak alakoak! Nola diren trebe sarrarastera Birjinaren semea alako lekuan! Nola usten den beroi, ene Jesus onegia! ez dezake debeka? Bai, ta ala ere usten da, nola balego loturik preso! Nork dauka preso? Bere amorioak guregana. O amorio dibinoa, ta zein fuertea zaren, ain preso daukazulaik guzis poderosoak, estaien erresisti, naiz sar dezaten ago indignoan, ta biotz inmundoan. Baña estirudi arrazio ala preso idukitzea lanze goietan Jesus onegia beraren ainberzeko agrabiotan. Zertas nagon arriturik, nola estiren agitzen anitz ia eskarmentu komekatze indignoetan! Jateuntela beren kondenazioa erraten dida San Pablok; baña agerrian ere zenbait aldis nola ikustenesten kastigoa? Baut uste orgatik anitz lazeria emengoak eldu direla ez ainberze berze bekatuengatik, nola komunione indignoengatik. Estu permitituko alako maldaderik bere sierbo gonon baitan, uste dut, Jauna. Baña utzagun horre gau, lazkatzen da bat aipatzeas ere).

Jardukagun komunione ez indignoas. Nola nai da gauza andia persona humanoaren barnean sartzea Jangoiko dena. Fortunoso konta leike bat, baldin iaio zelarik Jesus Belenen, ellegatu baze ezpada ere baizik ikustera atari-pokaletik iruzki berri gura bere ganbela gartan; bada ere, utzi baginduze urbiltzera beragana? Zer, emanbaligu

eskuttoa apatzeko? Zer, dignatu baledi egotera gure besotan? Erreklinatzera gure bularretan? O Jesus dulzea, zer gutiago dugu sakramentuan, bagindu fede bizia? Bazue San Lorenzo Justinianok, zeñek egerri-egun bates meza erratean ikusten zue aur dibinoa aldarean, zeintas amorosturik zego erregalatzen, gozatzen, urtzen negarretan egon ta egon. Meza-lagunzaleak tiratzen zio kasulla segi zezan meza. Banoaie, zio sanduak, baña nola utzi aur gau ain galant, eder, amorosoa? Zenbatek, dio San Krisostomok (H. 60 ad pop.), errain dute orai: Nainuke ikusi beraren edertasuna, beraren tallea, beraren soñekoak, beraren oñetakoak? Orra ikusteunzu bera, ukitzeunzu, erreizibitzeunzu berbera. Eta zuk ikustea nai zindue, ta berak ematen dizu ikustea baño ia, sarzea zeure barnean. O fedea, non zara? Zu gabe deus guti iduri zaiote, naiz duten guzia. Esta errealidadean diferenziarik, baizik orduan ikusten baize gorputzaren begis, ta orai arimaren begis. Ortako da berze diferenzia bat sakramentuaren alde, orduan baizego an aur ta mortale zelarik, orai dago emen ia glorioso triunfante dagolaik zeruan. Fedea du balio, nere fielak. Ukitu zitiolaik Santo Tomas apostoluak erieki llogen kuntzeak Kristori erresuzitatu ondoan sinestatu zue ta erran zue: Nere Jauna ta nere Jangoikoa. Zer erran zio Jaun dibinoak? Tomas, zeren ikusi nauzun, sinestatu duzu, zori-onekoak ikusi gabe sinestatu dutenak.

Zer arrizioa! Zer lotsa! Zer humiltasuna ta agradezimentua, ikus baledi Jesus bere majestade ta idurian sartzen gure etxe gebetan! Zer exklamatzea: O nere Jauna ta nere Jangoikoa! Eta ain egia da sartzen dela, nola ikus baledi. Balia bez egiak emen. Ah gorputz lureskoa, zenbat estorbu iten dioken arimai ontan ere! Balego arima libre lur pizu gontaik, zer ansiak! Zer afektoak sakramentu gonon aurkintzean! Ontan ematen da alabañare ura berbera, zeñi erran zion zenturion garrek: Jauna, ez naiz digno sar dadien berori nere etxean, aski du erratea itzes. Ura berbera, zeintas zion San Juan Bautistak: Nere atzetik eldu dena ni baño len da, ta ez naiz ni gauza lazatzeko beraren oñetakoen lotzakia. Ura berbera, zeñi erran zion San Pedrok humilkiro: Jauna, aparta bedi enegandik, zeren bainaiz gizon bekataria ni. Ura berbera zein zeukalaik egungutitako aurra bere sabel birjinalan Maria Santisimak joan zelaik Santa Isabelen bisitatzera, saltatu baize bozkariundes San Juan Bautista bere amaren sabelean, ta exklamatu baizue onek: Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea nere Jaunaren Ama enegana? Ura berbera, zeñi erran zion San Pedrok humilkiro: Jauna, aparta bedi enegandik, zeren bainaiz gizon bekataria ni. Ura berbera zein zeukalaik egungutitako aurra bere sabel birjinalan Maria Santisimak joan zelaik Santa Isabelen bisitatzera, saltatu baize bozkariundes San Juan Bautista bere amaren sabelean, ta exklamatu baizue onek: Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea nere Jaunaren Ama enegana? Ura berbera, zeñen oñak erregatu baizitue negarres Magdalenak, zeñi ofratu baiziotte urre, inzensu ta mirra irur Magoek adonatu zutelaik; zein transfiguratu baize Taborko oianean, zeñengatik aitu baize Aita eternoaren boza gura: Au da, nere Seme onetsia, zeintan baitut nere konplazenzia. Ura berbera, zeintas baitio Kredoan zein konzebitu baize Ama Birjinaren entrañetan Espiritu Sanduaren obras jaio zela Birjina Mariaganik, pasatu zuela pasio doloreskoa Ponzio Pilato juezaren manuaren azpian, guruzifikatu zutela, il zela, orzi zutela, jautsi zela linboetara, irugarren egunean erresuzitatu zela ilen ertetik bere birtute propios, igan zela zeruetara, ta an dagola jarriarik Aita eternoaren eskuieko aldean, nondik etorko baita ilen ta bizien juzgatza. Alako Jauna bere gorputz, arima, odol humanidade, ta dibinidadeareki, Aita ta Espiritu Sanduareki, ta bere ondasun guzieki eldu zaigu komekatzean, ta ematen zaigu alimentu gisa.

Quis loquétur potentias Domini? Nork erran gure Jaunaren obra podorioskoak?

Eta nork prodijio amorioskoak? Zein artzaiek azitu bere ardiak bere gorputzaren aragi ta odolareki? Zer diot, artzaiek? Anitz Ama dire pasatuaskeros erditzeko doloreak entregatzen baituste beren humeak berzei azitzeko. Baña estu alakorik egin gureki gure Jaunak, dio San Krisostomok (Ibid.), baizik ere berak bere gorputz ta odolareki azitzen gaitu. Berak kriatu, berak erredimitu ta berak alimentatu. Bera da gure Aita ta Ama ta guzia, misterio gontan prinzipalki. Ezkaintzela, bada, nagi izan, dio sandu berak, mostratudigulaik ainberze kariño ta honra. Estuzie ikusten nolako ansiareki jokatzen diren aur titikoak bularretara? Ainberze ta iagokoareki ellega gaitzen gu ere mai gontara, non alimentatzen baikaitu bere humettoak bekala Kristok bere amorioaren erregalo andienareki. Zori onekoak kontatzentugu izan zutenak ditxa ikusteas, mintzatzeas, tratatzeas Jaun goneki bizi zelaik. Zori onekoak publikano ta bekatari gaiek, zein admititzen zituela, ta aieki bakaltzen zuela Jesus onak, murmuratzen baizute eskribek ta fariseoek. Zori onekoa Zakeo gizon txipitto gura, zeñek naiak ikusi ta ezin ikusi jendetzearen utses pasatzean Jaunau, zer egin zue? igan ze arbola batera ikusteko andik; baña Jaun onak ikusten zionak bekala biotza, eman zio pretensio zuen baño ere ia. Zakeo, erran zio pasatzean, ots, fite jautsi, zeren zure etxeko aldi naiz egun. Jautsi ze instante, errezibitu zue alegre, ofrezitu zue animoso ondasunen erdia pobreei ta perjuiziorik in bazio noribaiti, errestituzioa laur doble. Etxe gontan in da salbazioa egun, erran zue Kristok. Zori onekoa andre Kananeatar gura, zein eskatzera joanik bere alaba batendako osasuna, Jaunonek itzik ez errespondaturik, ark segitzen zue oius ta otoies; apostoluek eskaturik despei zezala, zeren enfadatzen zituen oius atzetik, Jaunonek erranik etzela etorri baizik Israelgo ardi galdu zirenen bila. Ark alaere segi, adoratu zitio oñak, eskatu zio erremedioa. Jaunonek erran zio: Esta ongi humeen ogia artu ta botatzea tzakurrei. Ark, bai Jauna, zerengatik txakurttoek ere jateunte nausiaren maietik erorzen diren apurretaik. Orduan Jaun onek, o emastekia, andia da zure fedea; egin bedi nola nauzun, ta ordu berean sendatu ze berzea. Ongi, ongi, ezi obe dire Jaunonen maieko otapurrak munduko obenak baño. Zer izain dire bere erregalo prinzipalak? Zori onekoak bi aizpa gaiek Maria ta Marta, errezibitu zutenak ainberze aldis beren etxean, aitu, mintzatu, adoratu ta zerbitzatu zutenak. Zori onekoak Galileako Kana deitzen zen erri gartako nobio gaiek, zeñen bodetara konbit izanik Jesus, bere Ama Santisima ta apostoluak, faltaturik maieko ardoa, itzuli baizue ura ardotan Jaunonek Ama Santisimaren medios. Zori onekoak berze anitz gozatu zutenak Jaunonen konpañia ta komunikazioa mundu gontan. Etzaitela trista ez jaioas denbora gaietan, jaio zara denbora onean aski, barin baduzu fede, Jaun bera dezakezu goza, tratatu, komunikatu komunionean, ta urbilagotik, nola baita idukis zeure biotzaren ondoan. Salbo ikustea begis, gañarakoan zeurek emazie sentenzia, zein den ia tratatzea kanpotik edo komunikatzea barnetik Jesus onareki.

San Juan Ebanjelaria izan zue apostoluetaik maiteena Birjinaren semeak ura ere birjin zena bekala, ta iltzerakoan enkomendatu zio gurutzetik bere Ama Birjina beira zezon bere ama propioi bekala. Zer fineza! Estakit alaere ez ote den ia bezpera arratsean egin ziona, idukitzean maiean erreklinaturik bere bular dibinoan. Noizko tugu arimaren begiak? Ikusagun ebeki gure Jesus ona gure petxoain barnean komekatu garelaik, nola sala batean; zerk debekatzen digu erreklinatzea beraren besotan, ta erregalatzea amorosoki berabaitan diogula: Jauna, ni orrena guzia, ta ori nerea orai ta beti? San Agustines leitzen da kontenplazioan bein ikusi zituela bere bi aldetaik Jesus ta Maria ematen ziotela agora irraka, Ama Birjinak bere bularretik esnea, Seme dibinoak bere kostadoko lllagatik odola; zein gozoro bide zegon agoa zabaldurik sandu gloriosoa? Bisioa izan ze au; errealdadea

da komunionean erregalatzen gaituela bere gorputz-odolaren erregaloareki; para bez arimak agoa Jesusen bularreko lllagan, goza bez an gure Jaunaren amorioaren fineza. Eta baldin amarenak tiratzen badu xakin bez erregalo gura Ama Birjinaren esneas oratua dela. Manna igorri ziote len israeldarrei Jangoikoak zerutik; ainberze abantalla darama onek arri, nola errealidadeak iduriari, nola itzalai gauzak. O konbita prezioso ta miragarria, exklamatzen du doktore aingiruak (In off. corp. chr.), osasungarria ta suabidade guzis betea, zeñen kasos txastatzen baita dulzura espiritualala bere iturraman. Aingiruen erregaloa gusto guziak dituen berebaitan. Ni naiz ogi bizia, zio Kristok, jautsia zerutik emateko jaten dutenei bizitza sekulakoa; ez manna jan zutenak bekala, il baizire. (Joan. 6.). Zer idurizaizie? Erregalatzentu ongi Jesu Kristok bere humeak? Pelikano deitzen den abe gartas kontatzen da ezi pikoareki heritus bere bularra, ta atras bere odola, oneki bizkortzentuela bere humettoak. Agian kontua da au; baña gureki da egi eta fedea, ezi heriturik lanzareki Jesusen bularra, dugula orai zereki bizkortu beraren odolaren kostus beraren humettoek. Pasio erruaren labeen erre ze ogi gau, tormentu ta eriotze doloreskoaren prensan atra ze ardo gau. Ederki kostarik berai, aisa eder guri ematen zaigu agora erregalo bat balio duena Jangoikoak adiña.

Hei mihi, quot ad salutem nobis viae! Ai ene, diot emen San Krisostomoreki (Ibid), zenbat bide gure salbatzeko! Egin ta padezitu sobra ta sobra, ta ondorean sartu geuren baitan; ezpagina errenditzen berai kanpotik in digun bateria amorioskoai, bentzait orai barnetik ai delaik, ez dezogun erresisti. Etzuke egin ia, ez egitera bortxa iragazteko naiestutenak ere. Ala nola errege amante batek iragazteko pobretto baten borondatea, eman ondoan anitz ondasun, egin ondoan anitz fineza bere personan, pasatu ondoan anitz pena ez dagozkionak errege bati, azkeneko zelebra balez arreki desposorioa. Pobre gau da gure arima, errege gura da Jangoikoaren Semea, zenbat estio eman ta egin? Zer estu pasatu etzegokiona Jangoikoai solamente logratzeagatik gure arima? Ia azkenean zelebratzen du oneki desposorio espiritualala komunionean, ezi orgatik dio komekatzen denas: In me manet et ego in eo, nere baitan dago ura ta ni arren baitan. Ia nola daike erresisti arima bere Jaunai ala persegitzen duenai amorios? Nola esta itxekitzen amorioa arima baitan? Nola estu senti deus nobedaderik, ain nola deus guti balitz errezibitu duena? Eta gloriako erregaloa izaki. Ah! Esta gorputzaren sentidoeki gozatzeko, da arimaren azitzeko ta erregalatzeko, naiz egia izanik ezi zenbaitetan arimaren debozioain utses sentidoak ere direla partizipante esposo dibino garren efektoetan, ala nola desposatzen delaik errege, esposa da prinzipalki faborezitua, baña arren etxeko aide, nirabe ta guziei ellegatzen zaiote zerbait. Andik datorzkiote zenbaitei negar dulzeak, kontentu zoroak, ansiak gora, ta agian desmaio amorioskoak. Andik deseatzeta komunionea ia ezi gauza guziak mundu gontan. Andik amorostea Jangoikoas paraturik memoria, entendamentua, borondatea ta guzia bera baitan, padezitu ta il artaño beragatik. Testigo Santa Teresa de Jesus, komekatzean baizitue bere esposo dibinoaren erregalorik andienak; eta bein geldiarazi nai zutelaik joatetik komekatzera, zeren euria zereunsan, erran zue, ezeta balego ere bide guzia beterik lanzas, ez nindeike detenitu joateko. Testigo Santa Katalina de Sena ta Santa Lutgardis, zeñei debekaturik komekatzea ain maiz, bata zoeie akabatus, ta akabatuko ze penas, ezpaziotte eman lizenzia segitzeko; berzea eritu ze lazki. Testigo San Estanislao Kostka itxekitzen baize komekatzean ainberze, ezi ze preziso ur otzes tenplatzea bularra, etzeien akaba amorioaren suas, eta bein eri zegolaik hereje baten etxean, pena guti iltzeas ta ainberze zue ezin komekatzeas, ezi negarres ta otoies obligatu zue Ama Birjina urrikariturik jaustera zerutik ta ekartzera komekadura, ta oneki bateo osasuna. Testigo San Felipe Neri, San

Franzisko Borja, San Felix ta berze anitz; baña nor ez sanduetaik? Testigo Santa Juliana Falkoneri, zein ilzerakoan etzue berze penarik, baizik ezin komekatzea egozgale zuenagatik. Eskatu ta erdetxi zue ekar zezon sazerdoteak hostia konsagratua aplikatzeko petxora solamente. Au in zeneko desaparezitu ze hostia ta iltze sanda serena alegre guzis. Gero aurkitu ze forma sagratua barnetik apegaturik biotzaren ondoan monstatzen zuela Kristo gurutzifikatuaren figura. Testigo neskatto gura, zeñi ematerakoan komunionea San Hilariok, erakutsirik forma sagratua, erran zio: Au da zure esposo dibinoa. Ala itxeki zekio arri karidadearen sua biotzean, ezi an gelditu ze ilik aldare-alzinean. Testigo Imelda deizen zen aurtto bat, zeñi etziotelaik eman nai komunionea adin gutiegis, zegolaik atzeragotik gaixottoa beira komekatzen berzeak, inbidia sandu bateki suspiros, ansias, negarres komekatu naiak, zer agitu ze? Hostia sanda bera joan ze boladan, baratu zekio buruan, andik agora pasaturik ta biotzera andik, guzia beterik amorios; aur zori oneko gura lo dulce batean bekala, despeitu zue arima arimen esposo dibinoaren besoetan. Esta posible kontatzea guzia asunto gontan. Biz aski erratea, on guziak direla komunionea afizionatuak ia edo gutiago, nola duten fedea ta karidadea, entendamentu onareki ta biotz nobleareki.

Zer diote ontara lurreko satitsuek? errain dute il ta bi ordu gabe, arimak gorputzetik berex ikusten duelaik, nolako eskaida izan zuen sakramentu goneki salbatzeko nai izan bazue, errezibitus bere barnean jueza sentenzia eman bear duena. Orai estute entendatzen euskara gau. Batzuek itsuturik, ta sarturik gogoa bekatu, gaixtakeria ta inmundizietan; esta aiendako ia ezi tzakurrendako aingiruen ogia, birjinen esposoa. Nolite sanctum dare canibus. Berze batzuek dutela entendamentua al rebes, astaletan begiak, lurreko tratu, okupazio ta joanetorrietan guziak, ta arimaren, Jangoikoaren ta salbazioaren itekoa estute entendatzen. Berze batzuek, ez gaixto ere, baña guti pizatzen ikustenestena begis ta ez sentitzen sentidoes, fedea labur, amorioa Jangoikoai epel, ta ala erdikal nai ta eznai, oroat komekatu, oroat utzi, zeren estakiten ongi dena bistara, usmara, gustora deus guti da; arimak bear luke in guzia Jangoikoaren argiareki. Bitarteo gutienak dire, naiz oben obenttoak, estimatzeuntenak orren fineza gau, nere Jesus dulzea, nere arimaren esposo amantea, nere konsolu betea desterru gontan, nere gerokoaren esperanza ta gloriako prenda; zein kaso guti iten den orren ainberzeko finezas munduan! Zertan ote dago? Ah Jauna! Sentidoen neurrias neurtzen dugu guzia, ezpada anitz bulto, arroitu, aparato, etzaigu iduri anitz. Orrek guti iduriarazi ta eman anitz; baña gizonen ez nai adbertitu! Jaun andia, nola txikitu da ainberze? Bere amorioaren artifizioa da au, komunikatzeko gureki. Zer nai du etortzeareki ene barnera? Nere biotza nai du, ta nere amorioa. Jauna, nor da ori ta nor naiz ni? Posible da orrek, nai zuela ni, ta nik ez berori? nai dut, Jauna, gauza guzien gañetik ene biotz guziareki, ene arima guziareki ta ene indar guzieki. Orrena naiz orai ta beti. Ni orrena ta ori nerea. O edertasun ain lenekoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! Zein berant onetsi duten! Orren eskojituen bandatik naiago dut, ezpada ere baizik orren mai pean egon txakurttoa bekala jaten orren maieko otapurrak, ezi ez mundu guziko gauzak. Nor litzaken orren onetsietaik bat? Nork luken biotz bat bear bekalakoa? Nork lezazken ekarri guzien biotzak konsumi daitzen amorioaren suan berorren obsekietan? Nork lazazken debeka orren ofensa guziak, ezi esta arraziorik ofenditzeko jaun bat ala onesten gaituena! Nere ordes ez lezake niork ofendi, nere Jaun ona. Ez al dut ia bentzait neuronek ofendituko sekulan. Zer? Ain gaixtoa izan da berori nereki? Alaere ezin fia gure baitan. Ar bez nere biotza berorrek, ta nere persona; zerbitza bedi pobretto gontas nai duen bekala. Aski dut nik ta kontent naiz, aurkitzen badut orren begietan grazia, baita prenda

seguroa erdexteko gloria.

Sermo VIII.

De institutione missae

quoad essentiam

et circumstantias

eman diolarik errege batek memoriatako ta bere amorioaren señaletan noribaiti diamante edo perla prezioso bat, onek ez solamente estimatzen du alako Jaunaren prenda bekala, baitaere inguruan emanik bere gastona edo engastea urres edo zillarres alikako obekiena goardatzen du bere tesoro prinzipalena bekala, egiteko artas gala ta sendagalla okasioetan. Errege andiena da Jesu Kristo. Perla preziosoa balio duena infinito da meza sandua; au bere amorioaren señaletan utzi zio memoriatako despedidan mundu gontaik Eliza bere esposa onetsiai. Onek estimatzen ta goardatzen duen bekala balio duenaren ariora, gastondu edo engastatu du ederki inguruan. Naut erran ezi meza bere esenzian fundatu ta utzi zuela Jesu Kristok Elizai; Eliza gero joan dela añaditus anitz zirkunstanzia, zeremonia, orazio ta gauza; ebek deitzentut perla garren gastona, engastea ta adornua. Fundatu zue meza Jesu Kristok azken afari garren ondorean, Jerusalengo zenakulo gartan, apostoluei oñak garbitu ondoan bere esku dibinoeki, arturik gero esku gaietan ogia, goraturik begiak zerura, bedeikatu ta erran zuelaik: Au da nere gorputza; alaber, arturik baso batean ardoa ta bedeikaturik, erran zue: Au da nere odola, gañarako itzeki; manaturik apostoluei jan ta edan zezatela aietaik, ta alaber, egin zezatela au beraren memoriatan. Hoc facite in meam commemorationem. Baize, oroat, nola ordenatzea apostoluak sazerdote ta ematea potestade ordenatzeko ta konsagratzeko. Orra aipaturik mezaren prinzipioa edo fundazioa bere sustanzian. Gero nork zer añaditu zuen aipatzea esta gaizki eldu egungo, explikatu ondoan ia len mezaren parte prinzipalenak, konsagrazioa, oblazioa ta komunionea. Bada, Kristo il ondoan, bere Ama Birjinak anitz egintzue asteko zelebratzen meza elizan, orai ere beragana joan bear dugu. O Elizaren anparo ta Ama egiaskoa, sazerdoteen patrona espeziala, guzien konsolu bear bekalakoa denbora guzietan, orai ere orren bear gara, eman bezagu, otoi, bere grazia. Abe Maria.

Hoc facite in meam commemorationem. 1. Cor. 11.

Tridentinoa mezaren gain eman zuen dekreto gartan asten da itz andi gebeki: Zenbat kuido paratu bear den zelebradadiengatik mezaren sakrifizio sakrosantoa errelijionearen gurte ta benerazio guziareki, aisa dezake pensa edozeñek konsideratzen badu deitzen dela madarikatua eskritura sagratuan ura, zeñek ere iten baitu Jangoikoaren lana deskuidoreki. Eta prezisoki konfesatzen badugu ezdezakegula tratatu Kristoren fielek berze lan bakotxik ere ain sandu ta dibinorik, nola misterio lotsagarri gau berau, zeñetan hostia bizi-emalle gura bera Jangoiko Aitaren graziara itzuli ginduzana sakrifikatzen baita egunoro sazerdoteen eskus aldarean, klaro aski da alaber, paratu bear dela industria ta dilijenzia guzia ontan egin daien biotzaren garbitasun ta pureza interiore, ta debozioaren ta piedadearen mostra exteriore al daiken andienareki. Espiritu beras beterik Aita Sanduak lengo denboretan joan dire ordenatus mezaren alde anitz zirkunstanzia ta gauza bear direnak; zenbait erranentut, ez ainberze gelditzeko memorian, nola inprimitzeko mezagana bear den estimazioa ta errespetoa biotzean.

Esta dudarik ezi San Pedrok apostoluen prinzipte bekala erran zuela lenbiziko meza

iganaskeros Kristo zerura, eta diones Agredako serore venerableak Maria Santisimaren bizian, egin zue adbertiturik ta eskaturik Ama dibinak, prebeniturik alaber, bere esku birjinalleeki lekua, maia, mantelak, ta gañarako bear zirenak zelebartzeko dezente ta dignokiro bere axuri dibinoaren sakrifizio admirablea, zekien bekala obeki ezi mundu guziak, ta aingiruek baño ere obeki, nola bear den tratatu Jaun andia naiz txikiturik ala bere naies misterio gartan. Ama dibina, berori izan da, ta da, ta izanen da beti sazerdoteen Amabitxi, erakustun, alzindari, exenplu ta hispillu argi ta garbia moldatu ta kidatu bear gaituena aldareko ofizioan prinzipalki. San Pedrok berze orazio in zituenen ertean dakigu paratu zuela mezan Pater noster edo Aita gurearen orazioa Kristok erran zuena bere ago sanduas, orazio guzietan den obena, guzien mamia, sustanzia, suma ta korona; orgatik etzeike falta mezan. San Klemente lenbizikoak ordenatu omen zue kanon edo sagra deitzen dena ta ornamenten konsagratzea mezarako. San Esteban lenbizikoak ornamenten bedezioaren forma, ta estaitzen usa baizik elizan. San Zefirinok etzeizela usa kaliza ta patena zureskoak, baizik bidro edo kristaleskoak. San Urbano lenbizikoak izan zeizela urreskoak edo zillarreskoak. San Silbestrok korporalak izan daizela ligus eginak, aldareak edo arak arriskoak ta konsgratuak. San Felix Aita Sanduak zelebartzzea martiren errelkien gañean. San Melkiadesek argien etxekeitzea mezakoa. San Soterek zelebartzzea barurik ta ez ustea inperfekto edo akabatu gabe meza. San Zelestino lenbizikoak mezaren alziñeko psalmo erraten den gura grada beitikoa, introitoa ere bai, graduala ta ofertorioko ta komunionekeo antifona labur gaiek. San Damasok, Confiteor Deo etc. Edo San Ponzianok batzuen ustes. San Gregorio andiak erratea bedratzi aldiz kirie eleison, Christe eleison, nai baitu erran: Jauna, iduki bez miserikordia; Kristo miserikordia, baitare Pater noster erranaskeros dion orazioa, libera nos, quae sumus etc. libra gaitza, otoi Jauna, lengo, oraiko ta geroko gaitz guzietaik, etc. Dominus vobiscum erratea da apostoluen denboratik onat, baita diosala iten duena puebloai sazerdoteak, ala nola aingiruak erran zion Maria Santisimai: Dominus tecum, Jauna zureki, ala salutatzen du sazerdoteak puebloa. Dominus vobiscum, Jauna zueki, baita salutatzeko itzkuntza usatzen zena apostoluen denboran. San Alejandro lenbizikoak ordenatu omentzue epistola ta ebanjelioa, ontara txutitzea San Anastasiok. San Markos Papak Kredoaren kantatzea zenbait egunes; gerostik señalatu da noiz ta nola. Adberti ezi len Zosimo Papa denboraraño meza guziak kantatzen zirela, ta errezatzea sortu dela debozioa gutituas. San Alexandro erran dugunak, alaber, hostia deitzen dugun ogia izan zeien orantzik gabekoa, ta ardoari ur gutitto bat nastea; alaber, zenbait itz konsagratu baño lentxago, ta geroxago. Eutikianok Papak ofertorioa. San Telesforok, Gloria in excelsis, aingiruen himno gura lentxago aipatu bear nuena. San Leon lenbizikoak izensatzea, orate fratres, ite missa est, ta berze itz batzuk. San Jelasio prefazioa. Xisto lenbizikoak Sanktus ta difuntoen memoria. Inozenzio lenbizikoak pax Domini sit semper vobiscum, nai baitu erran, Jangoikoen bakea biz beti zueki, ta pazearen ematea guziei mostratzeko ezi baketu bear dela guzieki erreizibitzekos gure Jauna. Serjio lenbizikoak agnus Dei erratea komekatu baño len, nai baitu erran: Jangoikoaren axuria kentzentuena munduko bekatuak, izan bez miserikordia nitas; berla bakeagatik iten den orazio gura, nere Jaun Jesu Kristo, erran ziotena berze apostoluei, bakea usten diziet, nere bakea ematen diziet, ez dezala beiratu ene bekatuei, baizik bere Elizaren fedeari, eta au berorren borondatearen konforme baketzeas ta unitzeas digna bedi Jauna, bizi ta erreinatzen duena Jangoiko Aitareki, Espiritu Sanduaren bat tasunean sekula guzietan. Azkenean San Juanen Ebanjelioa San Pio borzgarrenak (Bur.haec.flos. ss.)

Gisaontan Elizako buruak joan dire adornatus, batak gauza bateki, berzeak berze

bateki meza sanduaren obra miragarri ta Kristoren milagro guzien andien gau. Gisaontan Elizako ofiziale ta langin sumoak joan dire labratus ta moldatus kontxa ta engaste korrespondiente perla prezioso gonendako; ta kostatu denetik ere daike atra kontua anitz balio duela, ezi anitz balio du kostatzen denak, anitz, ezpadire enganutzen tratuan. Estire engañatu Aita Sanduak, ez ezi Kristo bera tesoro gau usteagatik bildu bilduttoa, Eliza bere esposa onetsiai, kostatu zekio ogei ta amirur urte ta ia trabajutan pasatzea, pasio ta eriotze doloreskoaren sufritzea. Beras, alako-finean fundatuaskeros meza sandua, ainberze denbora enpleatu da, ainberze ofiziale sartu dire, ainberze injenio ta santidade sumoek, Espiritu Sanduaren argiareki bateo, inala egin dute usteko orai daukan perfekzioan ta forman meza sandua, barnetik eta kanpotik izatean ta idurian alikako obekiena; beras, gauza andia da, obra perfektoa da, balio du anitz, estaike duda. Esta ontan deus ere sobra, ez deus ere falta. Esta itzik inportatzen estuenik; esta zeremoniarik zerbait signifikatzen estuenik, esta gauzarik bere misterioa estuenik. Itzak, batzuk gora, apal berze batzuk erratea, eskuak ia juntatzea, ia zabaltzea, ia goratzea, ia beitzitza; ainberze gurutze ta bedeizio formatzea, begien goratzea aldiska, buruaren kurtzea, batzutan txutirik, berze batzutan inklinaturik egotea, belaurikatzea, aldareai apatzea; ia eskin batera, ia berzera joatea; puebloagana itzultzea aurpegis noizean noiz; azkenean ornamenten forma ta kolorea ere, ta gañarako den guzia an, guzia dago inguraturik misterios, signifikatzen ta errepresentatzen dire anitz gauza ta andiak, zein guziak beneratzea da preziso, baña guziak jakitea esta erraz, guziak explikatzea da neke, ta denbora laburrean da imposible. Alaere obe delarik zerbait baterez baño, ainberze gauzetaik zenbait bakotx explikatu nainuke, ta orai mezarako ornamenta, materia ta instrumentu prinzipalenen signifikazioa.

Sazerdoteak bestiturik ornamenta sagratueki diferente mundukoetaik, errepresentatzen du Jesu Kristo bera Jangoiko ta gizon egiaskoa; baña gu ez bekalakoa santidadean, bekaturik gabekoa, inozentea, garbia, sandua, grazias ta birtutes betea, ta ala izanik bekatarien figura artu zuena ta bekatarien pena zor zutena pagatzeko gure partes. Konsagraturik dago sazerdotea, ta konsagraturik ornamentak, zeren sagratuak, sanduak, dibinoak baitire gauzak an in beartuenak, ta zeren berexia baita ellegatzeko sakrifikatza bere eskus axuri dibinoa, ta presentatzeko Jangoikoai aldareko maian. Estaltzen du ornamenta gaieki bere gizatasun bekataria Jakobek in zuen bekala erdexteko bere Aita Isaakganik bedeizioa, ezdezangatik beiratu Jangoikoak nor den, baizik nor errepresentatzen duen, zer ofizio iten duen ta zer presenta ofratzen duen. Doaie errenobatza aldarean misteriosoki Kristoren pasio ta eriotzea, ta ala bestiduraetan ematentu aditzera pasioko insigniak Kristori paratu zizkietenak Jerusalem. Lenbizikoa, paratzen du buruan oial bat, zeñeki inguratzen baititu lepoa ta soñak, deitzen baita amito, signifikatzen du belo gura, zeñeki estali baiziot aurpegia ta begiak Kristo gure Jaunai burlatzeko ta golpatzeko ausarkiago. Bigarrena, paratzen du alba, signifikatzen du soñeko txuri gura, zein paratu baiziot Herodesen ordes tratatzeko ero-aintzu. Irugarrena, paratzen du gerruntzean zinguloa, signifikatzentu sokak ta kateak, zeñeki lotu baizute in zutelaik preso. Laugarrena, besoan manipulo deitzen dena, signifikatzen du eskuen lotzea prinzipalki kolumnara azotatzeko. Borzgarrena estola soñetaik, signifikatzen du lotzea Kristo lepotik ermateko gurutzea soñean. Seigarrena, kasulla, signifikatzen du purpura imini ziotena burlasko erregei bekala, ta gurutzea ere bai eraman zuena soñean. (Ex manipo flor. et cato scolap.).

Aldareko mantel ta korporaleek signifikatzeunte Kristoren mortaxa ta oialak zeñetan inguratu baizute beraren gorputz ila. Kalizak, obia ta patenak obia gañeko ar-

lauza. Hostiak izan bear denak gatzik eta orantzik gabekoa, signifkatzen du Kristoren pureza ta santidadea; alde batetik legun, berzetik markareki izatea da adiarasteko dela Kristo Jangoiko ta gizon; legun den alderdia aldarerat errepresentatzeko Jangoikotasuna, ta dela ikusietaikena begis; marka duen alderdia puebloagana mostrapzeko bere gizontasuna ta guregatik artu zuela, ta alde gortak zeikela ikusi, ta ikusi zela munduan. Materia sakrifizio gartako dire ogia ta ardoa, baitire alimentu komunak; nork estu ontan erreparatzen Kristoren gureki komunikatu naia? Ain llano, ain komun, ain aisa ematen zaiguna? San Agustinek aurkitzen du berze signifkazio bat paratzean bere gorputz ta odolaren sakramentua ogi ta ardoaren idurian, eta da sanduen konpañia, unionea ta bakea, zerengatik ogian bateratzen dire anitz gari-pikor xegaturik, ta ardoa iten da anitz mats-pikor bateraturik (H. 26 in Joan. in offic. corps Chr.). Klaro aski adiarasten da unione ona. Orgatik explikatzen omen du San Pablok: ogi bat guziek, diot Kristioek, jatea, guziok izatea gorputz bat. O piedadearen sakramentua! exklamatzen du sanduak. O unionearen señailea! O karidadearen lotzakia! (Ib. fer. 2). Berze alde nork estaki zenbat bear den pasatu ellegatzeko izatera garia ogi, matsa ardo? Bata bear da igitatu, eulzitu, aizeratu, io, iralki, oratu, erre; berzea ondu aienean, ebaki, bildu, istikatu ta purgatu. Ongi adiarasten zaigu ontan Kristok pasatu zituen trabaju, desprezio, tormentu, pasio ta eriotzearen errua ellegatzeko ematera guri aldareko maiean bere gorputz ta odol preziosoen erregaloo. Aisa gozatzen dugu humeek Aitak prebenitu diguna nekeen utses. Ur gutitto bat nastekatzea ardoari kalizan iten da, zeren Kristok ala in baizue, signifkatzeko odol ta ura atra zena Kristoren bularretik il ondoan heritu ziotelaik lanzareki; baitare bi naturaleza dibino ta humanoaren bateratzea Kristoren personan, baikara Kristioen unionea Kristoreki beren buruareki bekala. Bedeikatzen da ura gurutzearen señaileareki adiarasteko Kristoren pasio ta gurutzeagatik daizkela saldu glorian jendeak, ezperen salba ezkindeizkela. Guzia bedeikatzea, ta guti bat solo botatzea kalizara da mostrapzeko erran zuena; anitz deituak, guti eskojituak. Errekiem mezan esta bedeikatzen ura, mostrapzeko purgatorioko arimak daudela Jangoikoaren grazian betikos, ta seguro dutela sartzea glorian. Geldi gaitzen emen oraiko.

(Guzia ongi ta etzeike baizik ongi; aski da nork disponitu duen, Jesu Kristok prinzipalena, ta gañarakoa Eliza Ama Sandak Espiritu Sanduaren argiareki. Baña, Jauna, ezpaliz atrebenzia, nainuke galdetu gauza bat; sakrifizio andi garren ofrazale prinzipala beroi dela badakit; nor ordea autatu ditu urbilen ministrotako? Balire serafinik gorenak artako, jautsileizkenak ofratu bear den aldioro izatera arren ministro, ezlizake sobra ta ez aski ere merejiduenaindako. Baña orai ministro paratutuela gizonak ikusten dut, ta bekataria bekatu in dutenak edo in dezaketenak. Zer da au, Jauna? O, ezauntzen dut ontan ere berorren amorio geiegia gizonengana; ez dezagun izan atxekiaik niondik ez komunikatzeko gure Jangoiko-gizonareki. Karidade garrek berak, zeñek obligatu baizue artzera gure naturaleza ta egotera aur txipittoa bekala Birjinaren sabelean, obligatu ere du uster a bere gorputz ta odola gizonen eskuetan. Baña Birjina garreki egina ongi enplegatua, zeren baize serafin guziak baño garbiago, sanduago ta ederragoa; baño zer dute zer ikusi gizon lurrekoek tratatzeko beren eskus alako Jauna? Eta nor naiz ni, baitut ofizio bera? San Juan Bautista zein baño andiagorik ezpaita jaio emastekietaik zego erraten, ta egia zio etzela digno lazatzeko berorren zapeten lotzakia, nik zer errain dut? Nere mias konsagratzen, nere alzinean idukitzen, nere eskus tratatzen axuri dibinoa, gloriako gala ta alegria dena! Zer da au? Bisitatu zuelaik Ama Birjinak (sic) Santa Isabel, zegolaik onen sabelean San Juan Bautista sei ilabetetan, sentitzeas solamente ori eldu zela Ama birjina

baitan, asi ze ura saltatzen bozkariundes karzela ilun gartan. Ene arima, nola etzara zorutzen amorios ta gozos, ikustetas Jangoiko guzia ain txiki, ain humil, ain manso nola axuritto bat amablea aldarean ta nere eskuetan? erran ziona berorrek Samariako emasteki garri aurkitu ta mintzatu ziolaik butzu garren pokalean: Ô si scires donum Dei, et quis est etc. O bazindeki Jangoikoaren donoa ta nor den zureki dagona! O baneki ongi ezauntzen ta agradezitzen duten eskaida ta fortuna, ez nezake truka mundu guziagatik. Zori onekoak begiak, mia, eskuak, persona ain urbil tratazen dutena Jangoikoa! Nola, nola humillatzen da ainberze orren majestadea? Eta Jesus ona, onegia, dulce, amablea; estut nik ori bekalako adiskiderik aurkitu, ta ori, estutelaik nior ainberze ofenditu. Zer litzake ezipagindez ofendi? Ez, ezdezala permiti bere ministroetan orren ofensarik, graberik bentzait niolater. Aski da berzeek ofenditzeuntena malamente. Berorren ministroek bularra oponitu bear dugu, ez dezaten heritu nausiaren biotza, naiz gu il gaitzen orgatik. Baña jendeareki sazerdotea ere itzultzen baliz nausiaren kontra, o indignidadea! O lastima! Tu quóque, fili mi? Zuk ere bai, nere humea? Si inimicus meus maledixisset mihi, sustinuissem utique, nere etsaia ene kontra itzultzea banezake soporta, tu veró homo unaminis, dux meus etc. (Ps. 54), baña zuk nereki bat bekala egina, nik kidari ezarria, nere etxekoa, nereki alimentatzenzinana janari dulceas? Ditxa andia tratatzea zeruetako Jauna aldarean, baña esta normaiendako, ez eta normai ere ortako. Bokazio fina estuena geldi atzeratago, ezi ones on obeago estaike izan den baño tratatzea ala gure Jauna, baña kuidado nor ellegatzen den gaizki. Sazerdote bat desonratu zuena bere korona heritu zue Jangoikoak buruan kanzer itsusi lotsagarri bateki, ezpaizeike atra jendeen alzinean. Ellegatu ze San Makariogana erremedio bila, zeren baize sandua Jangoikoaren adiskide, ezi barin bada ere Jangoikoa ofenditua, Jangoikoa da ta ez berzeik, erremedio eman bear duena, plazer badu. Sanduak ezaun duzue kausa, ta erran zio ura zuela, zeren ellegatu zen indignoki aldarera. Alaere otoi, penitencia ta nekes erdetxi zio sanduak Jangoikoaganik sendatzea; baña kondizioareki etzala ellegatu bear sekula berriz aldarera bere bizian (Ribad. in ej. vita). Inozenzia, garbitasuna, santidadea errezibitzekos axuri dibinoa inozente garbi sandua. Orrek, Jauna, eman bear digu guzia, orrek betiko grazia, orrek betiko gloria).

Sermo IX:

De significationibus aliquot
eorum quae in missâ

Hoc facite in meam commemorationem. 1. Cor. 11.

Manatzen gaitu Tridentinoak arimen kardugunei deklaratzeko maiz mezaren misterioetaik bat edo berze, prinzipalki jai ta igandetan, estaien agitu txipittoek ogi eskatu ta ez izatea nork eman (S. 22. c.8). Bada, ontan gaude; aipaturik ia meza sanduko ornamenten ta instrumentuen signifkazioa, goazen sartzera meza beraren sancta sanctorum dibino lotsagarriaren barnean. Ala nola eramanik batek berze bat ikustera erregeren palazioa, erakutsirik kanpotik ikusteko dena: Tori, au da fatxada, ura da erregeren kuartoko balkona, berze gura galeria, zer arriak eder! Zenbat urre! Zein galanki guzia! Erranbalezo gero: Zato orai, sar gaitzen ikustera barneko aldetik, baña kortesia, errespeto ta tentureki, ezi usten du ikustera erregek nola in daien goardatus bere majestadeari zor zaion erreberenzia. Ala mintzatzen naiz adiarazi naies nolapait mezaren fabrika errela gonon andia. Goazen ikusis zerbait, ezi guzia esta gure begiendako. Iduki presente dela sakrifizio bat zeintan Jesu Kristo bera sakrifikatzen baita, eta egiten dela beraren pasio ta eriotzearen memoriatan. Hoc facite in meam commemorationem.

asten da korua kantatzen introitoa, izaten baita komunkiro Dabiden psalmoetaik, ta signifkatzentu lengo patriarken, profeten, ta gizagende guziaren deseoak ta ansiak zer orrengatik mundura Jangoikoaren Semea Jesu Kristo gizon eginik. Atratzen da sakristiatik sazerdotea errebestiturik errepresentazen duela Jesu Kristo enkarnatu zena Ama Birjinaren entrañetan. Ellegaturik grada beitikora iten du erreberenzia mostratus Kristoren gizontasunak adoratzen duela Jangoikotasuna ia dena bekala; ezi orgatik zio berak bein, Pater major me est, nere Aita ia da ni baño; au da, gizon naizen aldetik (Joan. 10). Berze bein dio, ego et Pater unum sumus, ni ta nere Aita gara bat, au da, Jangoiko naizen aldetik. Gara bat, bi persona baña Jangoiko bat. Formatzen du gurutzearen señalear sazerdoteak; signifkatzten du ango iteko guzia ala berritzea Kristo guruzifikatuaren pasio ta eriotzea. Formatzen du paratus irur eri andienak kopetan, andik tis bularren pera, signifkatzten du Trintate guziaren ordes jautsi zela Jesu Kristo. Berla formatus gurutzearen besoak ezkerreko soñetik eskuiekora monstatzen du Kristoren merejimentuengatik aldatzen dela arima bekatutik graziara, ta munduko desterru triste gontaik zeruko gloriara.

Erratea Judica me Deus etc. Da sazerdotea prestatzea igateko aldarera eskatus Jangoikoai bere asistentzia; estela trebe berze gisas, ta Kristoren aldetik dezake signifika bere Aita Eternoai egiten ziona orazioa mundu gontan. Erraten duelaik Confiteor Deo, baita Ni bekatorea, konfesatzentu sazerdoteak humilki bere kulpak, ta estela digno igateko aldarera, ortako eskatzen diolaik Jangoikoai barkazio; ta Kristoren aldetik dezake signifika inozente, sandua zelaik artu zituela bere gain gure kulpak emateko satisfakzio justizia dibinoai bere baitan. Igaten da gero aldarera ta apatzen du erdian eskatus berriro libra dezan bekatu guzietaik, ta dezake signifika egin zuen biajea Ama Birjinak bere Semeareki sabelean bisitatzen Santa Isabel ta santifikatzena Bautista. Bada, apenas mintzatu zen Ama Dibina, saltatu ze bozkariundes ura Amaren sabelean ta errezibitu zue grazia; mintza bedi orai ere Jangoikoaren alzinean gure fabore Ama Santissima grazias betea, ta erdetxiko du

guretako ere grazia. Abe Maria.

Paraturik ia aldare alzinean sazerdoteak inzensu eman bear delaik, inzensatzen du gurutzea, imajina ta aldarea, baita signifikatzeko gure afektoek, ta orazioek igan bear dutela gora Jangoikoagana, ta ia akabatuak direla lege zarreko sakrifizioak sakrifizio andi goneki. «Kyrie eleison» ta «Christe eleison» errateak eskatus gure Jaunai miserikordia signifikatzentu bedratzi ilabete in zituenak Kristok Ama Birjinaren sabelean. Koruan kantatus akabatzerakoan doaie aldarearen erdirat sazerdotea; signifikatzen du Ama Birjinaren joatea Belena erditzeko egunetan. Gloria in excelsis Deo, baita aingiruek kantatu zutena Kristoren jaiotzean, da onen signifikatzeko, ta ontaik Jangoikoai etorri zen gloria ta munduari probetxua. Asten du sazerdoteak, segitzen du koruak, nola an bat asi zuenareki juntatu baize berze aingiruen tropa. Au akabatzean formatzen du sazerdoteak gurutzearen señailea monstratzeko Kristoren astea padezitzen ta odol ixurtzen bere zirkunzizioan. Dominus vobiscum, itzultzeak signifikatzen du amorio gura, zeñeki errezibitu baizitue Magoak adoratzera. Librura joateak, joatea presentatzera tenploan aur dibinoa.

Epistola da signifikatzeko San Juan Bautistaren predikazioa Kristoren alزندari gisa. Ebanjelioak Kristo beraren predikatzea; guziok txutirik egotea artan da erakustea prest gaudela aitzera, sinestatzer ta defendatzer beraren itza. Kredoa da gure fedearen testimonio publiko eman zutena apostoluek ta guk ere emanai duguna; ortako da konbeni erratea bakotxak debozioreki bere baitan. Ofertoria iten du orduan puebloak monstratus bere aldetik nailirazkela Jangoikoai ofratu an ofratzera doaien axuri dibinoareki bateo berak beren arimak, beren afekto ta gauza guziak, balia dezan Jangoikoaren gloriatako, beren arimen ta berzenen probetxutako. Ofratzen du sazerdoteak hostia ta kaliza signifikatzeko Kristok ofratu zuela ogi ardoen espezetan bere gorputz ta odol preziosoa. Garbitzea eri-puntak da klaro aski monstratzea bear dela garbitu grabe ta lebeetaik gozatu bear duena mai gartako erregalao, ta Kristoren alde nola bataiatu zen San Juanen eskus ta nola apostoluei garbitu zitioten oñak bere esku dibinoeki. Orazio segitzen direnak dire berriro ofratzea Jangoikoai sakrifizio gura, eskatzea puebloai lagun dezan ortako; de manera ezi kuadra dakion Jangoikoai, ortako segitzen du ixil ixila egiten otoitz beraren Majestadeai, signifikatzen duela Kristok egin zituen baruak ta orazioak berrogei egunes. Prefazioa ta santus kantatzeak signifikatzen du triunfoa, alegranzia ta festa, zeñeki errezibitu baizute Jerusalemen Erramu igandean bekalakoan. (Haec et illa excerpta sunt ex manipulatio florum frai Joan Nieto).

asten da Kanon deitzen dena, ta erraten da ixilik monstratzeko misterio gaien sekreto inefable, barna ta lotsagarria. Goraturik lenik begiak ta eskuak zerurat, kurtzen da sazerdotea ta asten da otoitz egiten Jangoikoai signifikatzeko egin zuen orazioa Kristok Jetsemaniko baratzean beterik aflikzios ta kongojas. Aldareain apatzeak adiarasten du Judasen apa falsu gura. Irur gurutze egiteak irur entrega in zirenak preso artu zutelaik Kristo, zerengatik entregatu zue Jangoikoak guri digun amorio geiegis, Judasek kodizias, Judioek inbidias. Eskuak zabaldurik prosegitzeak adiarasten du preso inaskeros guzia izan zela padezitzea pena arrigarriak atertu gabe. Memento lenbizikoan, zein baita eskatzeko bizi direnengatik, egotea ixil sazerdotea, juntaturik eskuak, kurturik burua, ertxirik begiak ta agoa da monstratzea nola egon zen Kristo bere pasioan, burua kurtu zue imini ziotelaik katea lepoan, eskuak juntatu zitue lotu zizkiotelaik sokes, apal begiak ta ertxirik agoa egon ze humil ainberze injuria iten ziotelaik, ala nola ardia iltzera damatenean, ta axuria motxaleain eskupean. Gero segitzean eskuak zabaldurik daike signifika azoteen tormentu

arriziosko gura; paratzean eskuak hostiain ta kalizain gañean korona arantzesko garren paratzea buruan; borz gurutze egiteak bortz estazio in zituenak, lenik Anasen etxera, andik Kaifasenera, andik gero Pilatosengana, andik Herodesengana ta andik berriz Pilatosengana. Eri-punten garbitzeak, garbitzea bere eskuak Pilatos gaixtoak eman zuelaik sententzia injustoa ilarasteko gurutzean Kristo gure Jauna. Artzea hostia eskuetan, goratzea begiak, bedekitzea, kurtzea ta erratea konsagraziosko itzak, guziau da Kristok egin zuena gau gartan, ta, alaber, da memoria Kristok pasatuzuenarena kalbarioraño. Goratzea hostia ta kaliza iten delaik adora dezan mundu guziak, da, alaber, oroiarastea nola goratu zuten josirik gurutzean Jaun dibinoa. Ezkilaren soñatzeak abisatzen gaitu adora dezagun desagrabiatzeko in zizaizkion agrabioak zegolaik dilindaka gurutzean. Bularretan golpe ematea delaik eskatzeko miserikordia, da ere mostratzeko kriatura guzien sentimentura Kristoren eriotzean, iruzkiaren iluntzea, tenploko beloaren urratzea, lurraren ikaratzea ta arrien zatikatzea elkarreki.

Sazerdoteak ondorean iten duen orazioak signifiktzen du in zuena Kristok bere etsaien faboretan. Borz gurutze formatzentuenek hostia ta kaliza gañean Kristoren borz llaga prinzipalak. Kurturik iten duen orazioareki daike kontenpla Kristoren borz llaga prinzipalak. Kurturik iten duen orazioareki daike kontenpla Kristoren dolorea enkomendatzean San Juani bere Ama Santisima. Apatzean aldarea hozpin ta beazunesko edari eman ziotena, bi gurutze formatzentuen gaietan hostia ta kaliza-gañean, Kristoren gorputz ta arimaren oñazea elkarrenganik despeizerakoan. Bere gañean formatzen duen gartan lanzada eman ziotena bularretik il ondoan. Memento bigarreanean, baita il direnengatik eskatzeko, daike pensa Kristoren enkomendatzea, bere arima iltzelarik. Bularreko golpean urrikimentua, zeñeki zenturionak ta berze anitzek iltzen ikusi zutenek konfesatzen zuten Jangoikoaren Seme. Irur gurutze formazen dituen gaietan irur ordu in zituenak bizirik gurutzean; gero hostia sanduareki kalizain gañean berze irur orduak ilik egon zena gurutzean; berze bietan kalizatik beregana aipatus Aita ta Espiritu Sandua, biek konkurritu zutela Kristoren pasioan, baña padezitu gabe berek, Jangoiko bekala; paraturik gero hostia kalizain gañean bien goratzean, Kristoren triunfoa ta exaltazioa bere obediencia izan zuenagatik eriotzeraño ta gurutzesko eriotzeraño.

Pater noster edo Aitagurearen orazio famatu gura, Kristok erakutsia ta tuena zazpi petizio klaroki erratea mezan da memoria zazpi itz gurutzean erran zituen gaiena, ta erakustea kristiok garela heredero Kristok iragazirikako merejimentuen. Berla eskatzen da libra gaitzan gaitz guzietaik ta digun bakea, klaro da noren atenzios. Gero zatitzea hostia sagratua irur zatitan da erakustea Kristoren gorputzaren jautsia gurutzetik, ta zerukoan, lurrekoan ta purgatoriokoan onerako dela sakrifizio gura. Erdi bata osorik paratzen da eskuieko eskuas patenan, entenda gozatzeuntela zerukoek osorik faltarik gabe; berze erdia paratzen da berze aldetik edekirik pixka bat, entenda purgatoriokoek dutela bai grazia, ta izain dutela seguroki gloria, baña falta zaiotela zerbait purgatzea logratzeko gloria gura; berze zatitto garreki eginik iru gurutze kalizain gañean sarzea gero kalizean, entenda mundukoei gelditzenzaigula gerra trabajoso munduaren, deabruaren ta aragiaren kontra, baña gureki egoin dela Jangoiko ta gure alde Kristoren odol prezioso, nai dugulaik. Agnus Dei etc. Da euskaras, Jangoikoaren axuria kentzentuena munduko bekatuak, izan bez miserikordia gutas. Au irur aldiz erratean pensa apostoluen tristura irur egun gaietan; erraten da irugarrenean, eman bezagu bakea; daike pensa irugarren egunean erresuzitatu zela Jaun dibinoa. Orazio gaietan daike pensa Ama Santisimaren soledadea ta ansiak bere semearen ikusi naies erresuzitaturik. Paztea ematean, pensa bakea asentaturik dagola

Jangoikoaren ta gizonen artean axuri dibino garren kostus. Komekatzean pensa Kristoren orzitzea. Estiot orai deus izan bear diren afektoes ordu gartan. Errain da noiz erakusten duten meza enzuteko modua. Komunione ondoreko antifonak signifikatzen du apostoluen alegria erresuzitatu ondoan Kristo. Dominus vobiscum errateak orduan, signifikatzen du errate gura Kristok aparezitu zekiotelaik: Bakea zuei. Orazio gaiek Ama Birjinaren ta apostoluen esker onak ikusias glorioso, triunfante Jaun Dibinoa. Joatea aldare-erdira, apatzea aldarea ta itzultzea Dominus vobiscum da ala nola Kristoren despeida igateko zerura. Ite missa est, nai baitu erran, zoaste, meza errana da edo igorri da ofrenda, kontu aparezitu zekioten aingiruak Kristo igan ondoan erran ziotena: Nola zauste arriturik zerura beira? Jesus igan den gau berau etorriko da. Bereala itzuli ta kurturik iten duen orazio garrek kuadra dakion Jangoikoai gure zerbitzu in dioguna, ta sakrifizio gura gure onetan izan daien signifikatzen du apostoluek Ama Birjinareki in zuten orazioa prebenitzeko errezibitzera Espiritu Sandua. Bedeizio ematen denak puebloari Espiritu Sanduaren etortzea. Azken Ebanjelioak, apostoluen astea predikatzen Ebanjelioa mundua barna. Ta emen bukatzen da meza (Ibid).

misterio gebek ta anitz ia enzerratzentu meza sanduak; ebek errantut sollik in dadien juizio nolapait, zein gauza andia bideden aldarean iten den gura, Jangoikoaren marabilla guzien memoria, zifra ta bilgura, Kristoren jaiotze, bizitza ta eriotzearen ta ganarako misterioen errepresentazio bizia, Eliza Ama Sandaren prenda ta tesoro prezioso estimatuena. Estut erran gelditzeko memorian ta segitzeko ain txusto manera gartan meza-enzutean, ez ezi ori neke litzake ta ez ain protxal. Obekiena ta aisago da edo akonpañatzea bere gisa gogoareki sazerdotea an itentuen orazio, akzione ta gauzetan, edo meditatzea Kristoren pasioan, noiz ta zenbat nai duen pausu baxotxean, ta zeintan ia debozio duen, artan ia, ta orroat meza-bitarte guzian batean animatus, ta itxekis afektoak Jaun ain onagana, ain gure ona naia, ezi erran badaike, desegiten bekala baita gure onagatik. Axuri dibinoa, Jesus dulce amablea, non da gure ezaumentua, ezpaitugu erreparatzen, ta gure biotza ezpaita urzen agradezitus, onetsis, ansiatus gure alako amazallea? Ala paratzen zaiguna aldarean? Non da fedea berere? Sinestatu alako fineza Jesus onak guri iten diguna, ta alaere guk ez kasorik berorres? Arrazio ones bear gindue ibili ingur ingur andik eta emendik, nondik logratu berorren grazia, kariñoa ta onginaia. Pensatzea sollik berebaitan batek, agian banazake onetsi nere Jaunak ni, nola baita andi bezain ona; agian badezake konta bere onetsietaik bat txinurri gau ere; da pensamentu bat betetzen duena konsolus biotza, ta atrarastentuen begietaik negar gozoak. Zer ia nauzie, ene arima, ez emen, ez an, orai ta beti, baizik maita zaizan guzien Jaunak? Ori barin bauzu, irri inzazu munduko alegranzies, gustoes ta joanetorries. Eta orai ikusten dut Jaun andia arimen esposo amantea, ez kontent bein iltzeas neregatik, jausten berriro zerutik, egoten aldarean ain humil amoroso, sakrifikatzen Jangoikoai, usten nere eskuetan, sartzen nere baitan, betetzen Jangoikoas bere artto gau, ta dezaket duda onesten nauela? Eta zein da gauza, zertas dezaketen duda beraren aldetik? Bera ematen ta zer estida emanen? Guzia esta ia bera baño. Jauna, nork luken ezaumentu ona ta biotz noblea! Arrazioreki onesten zute ta dute on guziek; ta ez dezake baizik onetsi berori nornaiek, ezpada txoil itsua ta eskergaitza. Orrek onesten gu ta guk ez berori? Jangoikoak bai N., ta N. Ez Jangoikoa? onesten dut ta nai dut gauza guziak baño ia, nere Jaun ona. Kondenatu bear banitza ere, onetsi nai dut, obligazio dut, ta ontan ongi iten dut. Kondenatzen banaiz, esta izain orren faltas, baizik nere kulpas. Onetsi bear dut; au izan bear da nere enplegua ilartaño. Berorrek iduki bez preso nere biotza. In bezada grazia gau, oneki izain dut seguro bere gloria. Amen.

Sermo X:

De fructibus missae,
nominatim impetratione

In omnibus divites facti estis in illo. 1. Cor. 1

Aipaturik meza sanduaren izatea, finak, parteak ta zirkunstanziak zerbait gisas, eldu da erratea beraren balioa, fruituak ta probetxuak. Ia berladanik ezauntzen dut sartzera noaiela itsaso esnesko dulce zoragarrian, baña andian, ondargabekoan, inmensoan. Aurra naiz, ta nere entendamentua da kontxatto bat txipia, ta alaere nai dut ustu itsaso gau ain andia? Zer ai zara aurra? erran dezake edozeñek; estakusazu ori dela imposible? Badakusat; baña alaere nola baitagokida ematea Kristoren humeei doktrinaren esnea, atra nai dut itsaso gontaik zenbait tanta. Itsasoan urak bezanbat, dire mezan graziak, fruituak ta ondasunak, zerengatik an ixuri bekala ditu Jesu Kristok bere gizonengana duen amorio dibinoaren ondasunak, an dago santidadearen autorea ta graziaren iturria, perenne, guzietara emateko duena abasto. Zerura, lurrera ta lurperaño barratzen du bere inmensidade preziosoa ta prezio inmensoa. Trintate Sanduari ematen dio honra, eskerrak, ta plazer dignoa, Jesu Kristori nai duena baita bere pasio ta eriotzearen memoria, Ama Birjinari obsekio bere gustorakoa, aingiruei ta sanduei gloria ta gozo berria, purgatoriokoei alibio ta konsolurik obena, justoei graziaren aumentua, bekatariei bekatuen barkatzeko medioa, barkatuei kulpas bezan bates penaren satisfazitzeko ondasun, guziei modu erdexteko Jangoikoaren benefizio espiritualak eta tenporalak jenero guzietan.

Entendatzeko mezaren balioa ta fruituak esta medio obeagorik, nola ikustea arimaren begieki Jesu Kristoren pasio doloresko ta odolesko itsaso gorri inmenso gura, zeñen memoria ta errepresentazio bizia baita meza, ta ala nola giltza idikitzeko merejimentu infinito bildu zituen gaien estankeas barra daitzen guzien onerako, demanera ezi erratea edo enzutea meza bat ongi, da egitea Jaun iltzen gura guziengatik, il baledi bekala berriro nere edo zuregatik sollik; ala aplikatzenaizkigu, merejimentu gaiek. Bat da ta berbera hostia ta ofratu zuena gurutzean, ta ofratzen duena aldarean sazerdotean eskus, delarik diferente sollik ofratze-modua, dio Tridentinok (S. 22. c.2) (Illud Parra. p.2 pl.24); ta gurutzeko sakrifizio garren fruituak gozatzen direla abastoki mezako sakrifizioaren medios. Sakrifizio gau, utzirik orai dena Jangoikoaren alde honra, esker ta plazer emateko errenobatus pasioaren memoria, gure faboretan da, ta deitzen da inpetratorio, propiziatorio ta satisfactorio, mintzatus teologoen itzkuntzas, ta dakarzkigu irur fruitu prinzipalak inpetrazioa, propiziazioa ta satisfakzioa; lenbizikoa da erdextea zerutik ondasun-jenero guziak; bigarrena palakatzea Jangoikoa barkatzeko bekatuak; irugarrena pagu ematea beartuengatik zor dugun penas. Aski dugu lenbizikoa explikatzeko egun, ta ori ere ezin dezakegu, ezpazaigu ematen grazia. Orren eskuetara gure begiak daude beira, Ama Santissima eman ziguna aldarean dugun axuri dibinoa; alako Amak alako Semea, Birjin Amak Seme Jangoikoa. Gure fortuneak gizagendetik atreas Maria, bagindeki baliatzen! Ainberze eman digunak emanen digu baliatzeko grazia. Abe Maria.

Denbora ta lege guzietan usatu dute gizonak ofratzea Jangoikoai sakrifizio erdexteko beraganik nai zutena edo bear zutena. Fortuneak gu, baikaude alako lege ta denboran, non baitugu ofratzeko Jangoikoai sakrifizio bat daramana lengo sakrifizioei ainberze abantalla, nola errealidadeak iduriai, nola iruzkiak itzalai. Geurok nor bagara,

estaike izan bear gaixtorik, ezi dugu pensa daiken mediorik obena erdexteko nai duguna edo bear duguna. Bear gaixtorik estaikela izan diot, ezi badire bear onak ere. Exenplutako, osasuna-bear da bat, berzea ondasun-bear, onek bear du au, berzeak berze gura; eskazen diote Jangoikoai; Jangoikoak daki ezi ematen badiote batai osasuna inen dela gaixto, berzeai ematen badio ondasun atzenduko dela Jangoikoas, ematen badiote au ta ura nai dutena aziko dutela subertia, banidadea, bizioa ta gaixtakeria; itz bates, etzaiotela konbeni ematea eskatua salbazioaindakoa, orduan izana baño obe du gabea edo bearra, alako bear goiek deitzen bear onak. Alakoetaik ezkaizala libra Jangoikoak. Amen. Bear gaixtoak deitzen salbatzeko on diren gauza gaien bearrak edo gabeak. Ebetas diot estaikela izan bear gaixtorik gu nor bagara. Jauna, nola dateke ori egia, gaudelaik negarresko balle gontan, desterru triste gontan aies ta negarres bata andik, berzea emendik zer edo zertas? entendatuko nauzie konparazio goneki: kontu inzagun goazela ikustera presidio bat, non dauden penatzen presidarioak anitz maneras: Batak ai, berzeak ai, an lamentu, emen marraka, saiets guzietaik kexatzen; leku tristea dioze; alakoa da mundua; presidario gaixoak dioze; alakoak dire mundukoak. Ontan gaudelaik, ellegatzen da erregeren Seme Prinzipe Jauna; sarzen da urrikarioso, erraten diote amoroso: Ea, arimo, emen nago ni, ta emen egon nai dut zueki; esta baizik eskatu baktzak zer nai duen, logratuko dut Aita erregeganik bear den guzia. Ezleike alegra jende gura; edo obeki errateko, dei leike ongi ia presidio leku gura, non baitago erregeren Seme Jauna?

Itzuli gaitzen geurengana. Gure patria da an gora, andik etorriak dire gure arimak; desterruan gara orai ta negarresko balle gontan. Baña arimo, ezi gureki dago Jangoikoaren Semea Jesu Kristo, deitzen gaitu guziok, venite ad me omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos; zatoste ene gana guziok neketan zaratenok, eta nik erremediatukozaistet. Ondasun guziak an goratik datoz argien Aitaganik, baña erdexteko medio seguroa dugu beraren Seme dibinoa presentatzen dena mezako sakrifizioan. Zer dezakegu ukatu beardugunik? Proprio filio non pepercit etc., bere Seme propioai etzio barkatu, baizik entregatu zue (Rom. 8) gu guziengatik, nola etzitigu berareki eman gauza guziak? Baita erratea emanzitigula guziak emateareki bera. Ez dezakegu eska gauza andiagorik emana baño, zeren guzia baita gutiago bera baño. Erdexteko mertxedeak erregerenganik konbeni da memorialareki bateo presentatzea zenbait erregalo kuadrakiona, eta baldin ortas landara bere biotzekoa balitz persona entregadezona memoriala ta erregaloo, orduan seguro doae pretensioa. Fielak, naituzie erdetxi mertxedeak Jangoikoaganik? Prebeni meza sanduko erregalo kuadratzen zaiona guzien gañetik, presenta memorialak, otoiak, afektoak mai garren gañean, persona entregatzentuena bere gorputz ta odolareki bateo. Jesu Kristo da Jangoikoaren Seme onetsia, Jangoiko dena; diot, ezi ezpada gure aldetik estorburik, estaikela utzi logratzeko, ez dezoke ukatu bere Seme dibinoai Jangoikoak, in lezoke agrabio ukabalezo. Konbeni ere da erregeganik logratzeko, autatzea eskaida bat ona, edo noiz diren bere Semearen esposorioak edo noiz jaio den prinzipte herederoa edo noiz agitu zaion nai zuen felizidadea. Niork eskatu gabe ere, dute kostunbre erregeek alako okasioetan monstatzea beren bizzaria eginen graziak. Konparatzeko balitz, zer eskaida ohea eskatzeko Jangoikoai nola mezarena, noiz jaiotzen bekala baita Jesu Kristo sazerdotearen eskuetan; noiz desposatzen baita arimeki; noiz berritzen baita gurutzeko obra ta triunfo andi gura? Enpeñu onek anitz dezakete; an enpeñatzen dire Kristoren merejimentuak. Kausa onak alegatzeak balio du; an alegatzen da Kristoren ontasuna; modua ere, zeñeki eskatzen baita, inporta da; an eskatzen du modu miragarrian axuri mansoa eginik ta il-aintzu monstratus

bere lllagak guregatik eginak. Badezake utzi logratu gabe eskatua? Barin bada gauzarik Jangoikoak emanez dezakenik, bada Kristok logra ez dezakenik.

Bere Ama Santisimas leizen da ezi enpeñaturik bekatari baten fabore, eta ezin logratu bere Semeaganik, paratu zekiola belauriko erakutste bularrak, zeñeki azi zuen. Instante agindu omen zio grazia eskatzen zuena. Mezan Jesus bera paratzen da Aita eternoari ain humil presentatzen bere pasioa ta eriotzea, gorputz ta odol preziosoa gure faboretan. Zer inen du aita baten biotzak, ta alako aita batenak, baizik eman eskatzen dion guzia? Orgatik sanduek zekitenek bekala ongi, mezan zute beren konfianza erdexteko zer nai zuten, edo birtuteak, edo arimo ona padezitzeko, edo lurreko gauzak oroat, konbeni bazire. Guzia enkargatzea sazerdoteei oroi zeizen aietas mezako sakrifizioan, presente dagolaik axuri dibinoa. Joan ze bein Porfirio, Gazako obispoa, enperadore Arkadiogana eskatzera gauza bat ongi latza erdexteko, baña ellegatu ze eskaida onean, noiz ta jaiorik enperadoreai seme bat baizemate bataiatzera; bataiatu ondoan paratu zio eskuttoan aurrai memorialea, zein arturik gero aita enperadoreak, ta leiturik, etziola bere semeari ukatuko lenbiziko grazia eskatzen ziona, konzeditu zue arren atenzios guzia eskatu bekala. Pasa gaitzen aita batetik berze batengana, seme batetik berzeagana, zer du zer ikusi? Baña alaere presentatze gura Jesus mezan dela, iduri zaida presentatzea bere Aita Jangoikoai gure memorialak bere eskus, ta estaikela itzuli utsik, bentzait beraren aldetik. Sinesta, ezi eskaidarik obena mezakotan prinzipalkiro hostia ta kaliza goratzean, ta ondorean dagolaik presente axuri inozente gura aldarean. Mundu guzia alaere beterik bearres ta beartsues, eta munduan egoki guzien erredemptorea, bere eskuan tuena gauza guziak ta biotza ere eman naiak! Nola da au? Medius vestrarum stetit, guem vos nescitis. Ez ezauntzean, ez estimatzean gure erdian dagona. Ori ezipaliz, dion bekala San Pablok, guzietan abrats ginazke berabaitan. In omnibus divites facti estis in illo.

prebenitu du gaitz guzien erremedioen botika, ta alaere badiraute gaitzek? Prest dago ta eskunara ondasun guzien arka, ta alaere dabilta asko neketan, kargaturik arimaren ta gorputzaren miseries? Jangoikoen etxea daukagu eskunara, idikirik kontino atariak, prinzipalkiro meza bitartean, ta sakramentua patente dagon guzian, Jangoikoaren Seme Prinzipa Jauna, gure amante ongigille urrikariosa atarira atrarik bekala dago etxideten bere pobreak erremediatu naiak, dago deitzen amolsuki, venite ad me omnes etc.; zatoste enegana guziok neketan zaratenok, ta miseries kargaturik zaustenok, eta nik erremediatukozaistet. Prinzipalkiro ellegatzen garelaik meza ta komuniora, kontu errezibitzen gaituela besarka ta jarrarasten gaituela bereki bere maiean, bere besoen ertean, bere bularretan; eta alaere ain pobre miserable ariman ta gorputzean? Zer da au? Edo esta konbeni eskatzen dioguna edo estiogu eskatzen gogotik konfianza ta konstanziareki. Bidoezi, bada, ellegatus pobre-gisa Jangoiko andiaren atarira, agertus beren miseriak, eskatus erremedioa. Zaude pobre lurreko ondasunetaik eta bear bizitzeko? Egin dilijenziak, txurtu gastuak, biziorik gabe ta alaere ez aski? Domine, ad quem ibimus? Nora joain zara? Guzien Nausi ta Aitagana, mezakotan espezialki, erran zozu: eman bezagu egunorosko ogia. Oculi omnium in te sperant etc. (Ps. 144). Jauna, guzien begiak orri beira ta orrek guziei ematen diote alimentua, nola den konbeni. Idikitzen du bere eskua, ta betetzen du bedeizios arima duen guzia. Eska, segi, porfia, humil ta konstante; emanen dizu bear dena ta pazienza, konsolu ta biotz andia. Zaude eri? Edeki kausak, goarda tentu ta erregla. Alaere ez aski? Domine ad quem ibimus? Nora joain zara? Ona guzien mediku soberanoa, solamente ukitus eskuas, tresenas, itzalas sendatzen duena, sana me Domine, et sanabor (Jerem. 17.), senda benaza orrek, Jauna, ta sendatuko naiz. Inen du bear barin

bada, ezperen emain du konformidadea ta alegria. Zaude triste aflijiturik desgrazias, desonreas, naigabeas? Domine, ad quem ibimus? Nora joain zara? Ad Deum, qui laetificat juventutem meam, zio Dabidek (Ps. 42), joanen naiz Jangoikoaren aldarera, Jangoikoagana, alegratzen baitu nere gastetasuna. Santa Brijidari errebelatu zekio judioen erran komuna zela: Goazen Mariaren Semeagana, alegra gaizen. (In grat. gr. p.389). Erran zozu Dabideki: Redde mihi laetitiam salutaris tui, itzuli bezada, Jauna, bere salbaziosko alegria, ta konfirma benaza espiritu prinzipale andi bateki. Ori barin bada ene fabore, nor nere kontra? (Rom. 8).

Baña arimaren aldetik dire anitz ia miseriak, delaik seguroago erremedioa, nai baute. Eta nola estute nai? Betoiz, dei, eska Jangoikoaren atarian pobre gisa, dagolaik Jesus etxideten, biotz ta esku nobleareki eman naiak. Zaude bekatu mortalean edo beldurak ote zauden; ah tristea! Dei gogotik, klama nigarti, Jangoikoaren izenean limosna bat, ta esta zer erran in al badezake, ezi badezake segurki ta nai du. Jauna, otoi, aurki bez bere sierbo gonek grazia orren begietan. Au da grazia santifikantea, zein bear baitugu ia ezi bizitza bera, ta zeñen logratzeko baita meza sanduaren sakrifizioa, errain dugun bekala urbilen aldian. Bear dugu, alaber, grazia auxiliantea, efikaza ta finala, baita perseberanzia Jangoikoaren doai andia. Dei atarian sendoki pobre-utsak bekala, Jangoikoaren izenean limosna bat. Jauna, ori gabe deus ez dezakegu; iduki gaiza bere eskutik, ta biz orren eskua gureki. Bear dugu arima ta gorputza plau Jangoikoaren borondatearen neurrira. Dei Jesusengana, Jangoikoaren izenean limosna bat. Jauna, aski da garen berorren sagrario ta kustodia, berorren odolareki erosiak. Bigu arima propioki Jangoikoaren imajina ta semejanzara, memoria firmea, entendamentu argia, borondate txuxena, biotz noblea ta gorputza ere obediente espirituai guzietan. Berze alde, anitz bizio ta pasione, birtute guti, zer ai zara? Zato atari gontara, non ematen baita erremedio. Zaude eskas humildades, anditurik banidade ta suberbiaren aizes hidropiko-aintzu; nora joain zara? Non obeki pega dakizuke humildadea, birtute guzien zimendua ta goardia, ondasun guzien ekarlea, ta Jangoikoaren beraxteko predarik obena, mezan baño, zeintan Jangoiko dena ain humil baitago erakusten obras ziona itzas: ikasazie eneganik, bainaiz mansoa ta humila biotzes? Nola daike antustetu ar miserablea, beirutzen badu Jangoiko andia ain apaldurik lenik ganbelan, gero gurutzean ta orai aldarean, guziau erakusteagatik gizonai humil izaten? humilla zaite beraren alzinean lurreraño, eska zozu Jangoikoaren izenean limosna bat. Jauna, ez nadiela izan pobre ta suberbo; edeki bez eneganik suberbia on guzien benenoa, gaitz guzien iturria. In benaza humil biotzes, ez nadien galdus akaba. Zaude eri kastidadean, itsusturik lepra infernukoas edo beltzturik afekto ta pensamentu indignoen keas? Ah tristea, nora joain zara, ezpada mai gartan presentatzendenagana, baita Birjinen Semea, Birjinen esposoa, aingiruen ogia ta arima garbien erregalao. Ez igan gora ala, baizik txakur ezkabiadun bat bekala mai petik ainkurias, ala zuk, etzarella trebe goratzera burua, mostratus zeure miseria erran zozu, Jangoikoaren izenean: limosna bat, Jauna, nai badu, garbinazake; ezperen eznaike orren besarkara ellega komunionean. Eta niork ezin eman lustre eder gura orrek ezpada; orrek bai. Jauna, goarda bez garbi, luzitu eder bere sagrarioa, baita nere petxo. Zaude txur pazienza ta serenidades? Eta bear agitz ebek mundu gontan trabajuen mindegian. Nora joain zara? Mezan beira zazu Jesus sakrifikaturik bere borz llogen iturrietaik dariola pazienziaren edari osasungarria. Klama, Jangoikoaren izenean, limosna bat. Jauna, esta arrazio sollik berorrek padezitzea, orreki bateo nainuke nik ere eraman orren gurutzea. Bida otoi martirei ta sanduei eman zioten erokeria dibino gura, zeñeki ez dezaten in kasorik munduko erranes, goraberes ta

joanetorries, baizik solamente berorren ofenses.

Noiz akabatu, erratekos dezakeguna logra meza sanduan? In omnibus divites facti estis in illos. Gauza guziak tugula bera baitan, dio San Pablok, ala gorputzain, nola arimaindako beartugunak. Emen lurreko fruituak, honra, osasuna, alegria, fortuna ta on den guzia gorputzendako; emen grazia, xakintasuna, onerako inklinazioa, bizioen garaitzea, birtuteen eraizioa arimendako; emen humildadea, kastidadea, serenidadea ta pazienza; emen laur birtute kardinalak, prudenzia azertatzeko geuren ta berzeen gobernuan, justizia edo txuxenbidea ez makurtzeko ezker edo eskui ia ezi iruzkia bere karreran, fortaleza edo arimo andia ez turbatzeko deustas, tenplanza arreglatzeko obrak, itzak, afektoak ta pausu guziak; emen fedearen argi ta bizitasuna, esperanzaren alaitasuna segitzeko bizkor zeruko bideas; emen karidadearen fintasuna proximoen alde, ta guzien gañetik Jangoikoaren alde amorio sendoa ta jenerosoa. Nola esta itxekiko sutan biotza Jangoikoaren amoriosko labe gortan? Jangoikoak ala onesten gizona, ta gizonak estu onetsiko Jangoikoa? Jangoikoak guzia ematen gizonai ta gizonak estio emanen Jangoikoai biotza berere? O gure Jesus amoroso, pobreak ta miserableak bagara, esta orren faltas, baizik geuren kulpas, ezpaikara eldu orren etxera limosna eske, ori dagolaik eman naiak. Zergatik nai gaitu ainberze? Zer atrako du gureganik? Zer emain diogu guk? Pobreen moneda, borondate ona, afekto ona. Estugu berzerik. Baña, ai Jauna, au ere estiogu ematen askotan. Ain pobre miserable mota gaixtokoak gara, ezi borondate ta afekto ona ere estugu izanen, ezpadigu berorrek ematen. Biotz bat izaki ta ori txipia, ta artan bateo naitugu mundua ta Jangoikoa. Esta aski, sollik Jangoikoa betetzeko gure biotza? Jauna, estagola guk eman beira, ar bez berorrek dretxo duen bekala, ta onetsi bedi gure biotzareki, erre ta konsumitu gaitzen orren amorios berorren gloriatan. Amen.

Sermo XI:

De 2º fructu missae,
propitiatione

Advocatum habemus apud Patrem,
Jesum Christum justum; et ipse est propitiatio
pro peccatis nostris, etc. Joan. ep. 1.c.2.

Fruitu andia iduritu zaigu meza sanduarena inpetrazioa, au da erdextea ondasun espirituale ta korputzaren bear direnak. Bekaturik estelaik ariman, ori guzioi esta ainberze; izanik Jangoikoa ain ona ta ongillea, bere adiskideendako tu ondasunak, ta dago eman naiak; baña direlaik bekatuak asarratzen dutenak ta lotzen bekala tiotena miseriakordien eskuak bere jenioaren bortxa, orduan da lana. Ortako da bigarren fruitua ta obena, propiziazioa, baitakar meza, au da palakatzea, beraxtea ta mogitzea Jangoikoa izatera piedade bekataries. Birtute gau duela meza dio expresoki Tridentinoak itzebeki (Ses. 22 c.2): Eta zeren mezako sakrifizio dibino gontan baitago, ta sakrifikatzen baita odol ixurzerik gabe Kristo berbera, ofrezitu zena bein odol ixuris gurutzearen aldarean, erakusten du Konzilio Sanduak, sakrifizio gau dela egi eta fedes propizatorio edo palakagarri, ta onen medios agitzen dela, baldin biotz onareki, fede egiaskoareki, beldurtasun ta erreberenziareki urrikiturik bagoaz Jangoikoagana, erdextea miseriakordia ta aurkitzea grazia auxilio opotunoan. Zerengatik gure Jaunak palakaturik ofratzeareki meza, konzeditus penitenziaren grazia ta donoa, barkatzentu delito ta bekatu andiak ere, ezi bat eta berbera da hostia, berbera ofrezitzen dena orai sazerdoteen eskus ofrezitu zena len gurutzean. Guziau dio Konzilio Sanduak arturik San Pablaren itz gaietaik (Hebr. 7): Gure Jaunak, zeren baitirau betikos, du sazerdozio eternoa, ezi beti dezazke salba doazinak beraren medios Jangoikoagana, beti bizi delarik enpeñatzeko gure faboretan. Alakoa bear gindue guk pontifizea sandua, inozentea, garbia; edo San Juan Ebanjelariaren itz gebetaik: Advocatum habemus apud Patrem Jesum Christum justum. Abogatu dugu Aitaren alzineko Jesu Kristo justoa, et ipse est propitiatio pro peccatis nostris, ta bera da palakatzen duena gure bekatuengatik. Au egiten du ez solamente zeruan mintzatus ta monstratus bere llaigen kuntzeak gure onetan, baitaere aldarean sakrifikatzen ta ofratzen delaik. Estimatzeko ondasun gau bear dugu ezaundu, ta ezauntzeko bear dugu grazia. Orrek, Ama dulzissima, aurkitu zue grazia Jangoikoaren begietan, ainberze ezi orrenganik nai izan zue jaio Jangoikoak eginik gizon, grazia emateko guri. Bigu orai ere bear duguna. Abe Maria.

Xakiteko meza sanduaren fruitu propiziazio deitzen denaren balioa, bear ginduke xakin lenik bekatu mortaleen gaixtotasuna; gero eben kalteak ta perdizioa, azkenik Jangoikoa asarre idukitzea bere kontra; zerengatik mezan ofrezitzen denak kontrapizatzen ta garaitzen du bere ontasunareki bekatuen gaixtotasuna: orra lena. Debekatzentu aien kalteak: orra bigarrena. Palakatzen ta baketzen du Jangoiko asarratua: orra irugarrena. Asi gaitzen lenetik. Estaike agi ta ez gogoratu gauza gaixtoagorik bekatua baño, ez pobreza, ez desonreak, ez desgraziak, ez gerrak, eritasunak, pesteak, eriotzeak ta infernua bera ere. Guziau junto esta ain gaixto nola bekatua, eta propioki gaixto ere esta, bekatuak ezipalaz. Bekatua da propioki gaixto guzis, zeren baita Jangoikoai iten zaion desobediencia, agrabio ta ofensa; eta traizio-gisa bat Jangoikoaren kontra. Piza bedi persona

agrabiatuaren dignidadea pizatzeko agrabioaren gaixtotasuna. Gaixto da agrabioa edozeñi, superioarei gaixtoago, superioe goragokoai gaixtoago; ta ala iganes dignidadearen ariora. Beras ezin gaixtoago da Jangoikoai iten zaion agrabioa, zeren infinito-inmensoa baita beraren dignidadea. Bada, orai estelaik, gutartean bentzait, estimatzen ainberze obsekio edo zerbitzu bat, nola sentitzen baita agrabio bat, exenplutako erregek ez lezake ainberze estima anitz agur ta kortesia, nola senti bailezake erreflon bat emanbalezo batek; non aurkituko da obsekiorik kontra piza dezakenik bekatuai? Zierto ezi sandu guziek, aingiru guziek ta Maria Santisimak Jangoikoai egintioten obsekio ta zerbitzu guziek junto estute pizaten ainberze nola bekatu mortale batek iten dion agrabioak. Au da egia, ta ala delarik, ta bat ez ezi infinizio bat bekatu iten delaik munduan, bat sollik estaikelaik errekonpensa dignoki, nola errekonpensatu ainberze?

Imposible ze kriatura guziendako, baña Jangoikoaren Semea, Jangoiko ta gizon dena batean, ofrezitu ze bein gurutzean ta egunoro aldarean, ta orra emanik errekonpensa dignoa, ezi Jangoikoa barin bada agrabiatua, desagrabiatzen duena ere Jangoiko da; eta agrabioak adiña pizaten du desagrabioak. Ojala, zio San Bernardo dulzeak, ojala, Jauna, para balezki balanzan alde batetik bekatuak, zeñeki merejitu baitugu orren ira, ta berze aldetik pasioa guregatik berorren Seme inozenteak pasatu zuena, dudarik gabe onek piza lezake ia ta dignoago litzake onen kasos itxuridezkion gure gain bere miseriak, ezi ez aiengatik detenitzeko iran bere piedadeak (S. de pass. Domini). Orra lurreko errege bati in bagindio traizio, ezin gindezake aurki ordaiña dignorik; orai guziek Jangoikoai in diogun traizioaren ordain dugu Jesus aldarean ofratzen dena. O! Agitz balio du axuritto dulce garrek, kentzen baititu munduko bekatuak! Zer konplazenzia ematen bide dion Jangoikoai, dulzatzten diolaik munduko bekatuen samintasuna? Nolako atxon fragrantea igaten bide den sakrifizio gartaik, estiolaik usten sentitzera gure kulpen usai infernala? O kulpa fortunosoak, kantatzen du alegre Elizak Bazkoa-bezperan, o kulpa fortunoso, baitu alako erredenptorea! Zori onean dela, Adanen humeak, bekatariak, zeren ain biotzean sartu baizaio Jangoikoai gure ondu naia, ta galtzera ez utzi naia, ezi Jangoikoaren Semea bestiturik gure naturalezas egin baita gure alizindari ta bekatariain idurian, estaitzen gal bekatariak! Orra Jangoikoai bere kriatura guzien erlean eskergaitz txarrena atra zaio gizona, baña gure konsolutako gizonetaik bat du kriatura guziek baño ia gusto ematen diona, Jesus dibinoa! Berorri esker. Gu gaisto bezain ona, ta onago da berori. Arrigarria da bekatuen gaistotasuna, baña ia da bekatuengatik biktima sakrifikatzen denaren ontasuna. Ori ez izatera, zer litzake munduas ta gizagendeas?

Asarrarastea Jangoikoa du bekatuak, ah zer lana! Pensa errege andi bat indignaturik, suturik, etsaturik traidore txar baten kontra. Nork palaka? Nork detenitu? Igan gaitzen gora. An dago Jaun-goikoa erregeen errege indignaturik arrazioreki bekatariain kontra, au da guzis poderoso inmensoa armaturik txinurri baten kontra. Txinurri txarra, zer inen duzu? Non altxatuko zara? Zer eskudo paratuko duzu dezakenik erresisti Jangoikoaren irai? Nork faboratuko zaitu? Si Deus pro nobis, quis contra nos? oiu iten zue San Pablok, Jangoikoa barin bada gure fabore, nor gure kontra? Bekataria, zuk berze aldera itzul zazu sentenziagoi, Jangoikoa barin bada ene kontra, nor ene fabore? Kontrario izatea edozein gaisto, da kontra izatea superioea gaistoago; kontra izatea errege, gaistoago; bada, zer izain da kontra izatea Jangoikoa? Orduan klaro da bere kontra tuela sandu ta sanda guziak, kontra aingiruen bedratzi koroak, kontra Maria Santisima Jangoikoaren Ama, kontra gauza kriatu guziak, ta arrazio den bekala beren kriadorearen alde. Bakarrik ainberze tuzulaik zeure kontra, zer ineunzu, txinurri txarra? Ah! beira baledi

ongi, dagolaik bat bekatu mortalean, zeruko guzien odioan, niork estuela nai ikusi ere, guziak okatzen direla artas nola larrapo itsusias; naiz lauda dezaten bere gisako galduek, nola sosega? Nola lokartu? Nola bizi? Zentzu duten guziak solamente beldurres Jangoikoa ote duten kontra, solamente altxatzeas gutitto bat aienganik Jangoikoak aurpegia progutako, estaiske konsola, aien alimentua dire gau ta egun negarrak Dabideki (Ps. 41). Eta bekataria estu nigarrik? Itsua da ta orgatik, ezi ikus balez ongi zer den Jangoikoa etsai indignaturik idukitzea, ezin leike konsola baketuartaño. Bitarteo bizi den instante adiña milagro dire Jangoikoaren pazienziarenak, ez galtzeas txinurri txarra sekulakos.

Norbaiten atenzios itentu milagro gebek Jangoiko andiak? Noren ote? Ageri da ezi aldarean presentatzen zaion bere Seme onaren ta onetsiaren atenzios. Errebel bekataria lurretik, Jangoikoa beterik indignazios zerutik, aiek ofenditzen, Jangoikoa armaturik meatxatzen, paratzen da bitarteko erdian Jesus Jangoiko ta gizon dena; eta Jangoikoai palakatzen dio bere ira justoa ez dezkien galtzera bota, gizonei logratzen diote urrikimentuaren donoa konfesa dezkiten beren kulpak erdexteko barkazioa (Trident. suprá). O zenbat aldis, nekaturik Jangoikoaren gizonak, predikariak, konfesoareak ta sanduak, ezin logratu baktea bekatarieki Jangoikoa ta Jangoikoareki bekataria, meza sanduko sakrifizioaren birtutes agitu da konbertitzea ebek ta palakatzea Jangoikoa? Zer da au edo zerengatik? Ez aiengatik, klaro da, ezpaitute mereji, baizik bere Seme dibinoagatik, zein ikusten baitu sakrifikaturik aldarean presentazientiola bere llagak, pasioa, eriotzea, gorputz ta odol preziosoa, estaitzengatik malogra; zer in bear du Aita alako baten biotzak, baizik beraxtu, ikusiaskeros ain zatikaturik bere axurittoa? Gaistoengatik enpeñatzen da ona, ta onagatik du piedade gaixtoes. O zer den abogatu ona izatea! Antonio, oradore andi bates kontatzen da, ezi defendatzen zuelaik bein Akilio, mogitzeko juezak izatera konpasiene, urratu ziola alzinetik xupona ta atorra, erakusteko bularrean errezibitu zituen zaurien kuntzeak. Oroat Julio Zesaren tresena berze batek agertu omen zue zulaturik puñaladas ta odoles beterik erakusteko nola il zuten malamente (Colon. Rhet. 1.2. c.3 SS. 3). Ia egin zue alako demostraziorik gabe Zizeronek, solamente mias mintzatus Q. Ligario baten fabore, zeñen kondentazera erresolbiturik joan omen ze konsejura Zesar ta aun diote zeramala eskuan firmaturik sentenzia, baña aitua aitua abogatu exzelente garren mintzaera elegantea, erori omen zekio lurrean sentenzia, xoraturik arren itzes, arrazioes, afektoes ta eleganzias (In argo orats pro Ligar. cum not P. Petisco). Gure abogatu Jesus dibinoas dio San Pablok (Colos. 2), ezi gindeudelaik ilik geuren deliktoetan, biztuginduzala Jangoikoareki barkatus delikto guziak, borratus gure kontra eskribiturik zegon sentenzia, ta autxi zuela erditik frinkatus gurutzeain kontra. Berriro iten du lan gau aldareko maiean paratzen delaik abogatzen gure fabore, ez mintzatus, baizik monstratus bere amorioa gure alde, bere obrak, bere nekeak, bere marabillak, ain humil, ain dulce, ain amable, ain amorosgarri, ezi kuadraturik ezin iagos, bere Aitai kentzen zaio biotzetik ira, ta erorzen zaizkio eskutik lanzak zeuzkienak gaixtoen kontra. Ondatu zuelaik ures mundua, erran zio Jangoikoak Noeri urrengoko: paratuko dut uztargia lañuetan, ta izain da señaile bakearen nere ta munduaren artean. Ura ikusteareki oroituko naiz bake indugunas. Uztargi edo arko iris bakeskoa len ta gero da Jesus ona, len gurutzean, orai aldarean; ura ikusteareki oroitzen da admititzeas mundua bere grazian edo bakean. Biz, bada, gure otoitza beti, Jauna, ez beiratu gure bekatuei, Aspice, Deus, et respice in faciem Christi tui; beira bez, Jauna, ta berriz beira bere Kristoren aurpegira, beraren atenzios aurki dezagun guk ere grazia orren begietan. O ene fortunoso, balego pobretto gau orren grazian! Orrek maite ni, ta nik maite berori! Zer ia nainuke? Esperanza sollak betetzen du alegrias biotza; baña

deseoaren ariora du beldurtasuna; ai otenago? Ta inguratzen du biotza tristuras. Zer inen dut? Dabiden exenplua segitus galdeginen diot nere arimai: Quare tristis es anima mea? Zerengatik zaude triste ene arima? erranen diot: Spera in Deo, esperanza Jangoikoa baitan; erranen diot: Introibo ad altare Dei, iganen gara Jangoikoaren aldarera, gure Jangoiko, gure alegrazale denagana; Jesus aldarean presentatzen denak palakatuko du, baketuko du ta eginen du gure adiskide bere Aita Jangoikoa (Exempl. quid. libers ob miss. ab alio audit. Andrad. gr. 19. SS.7).

Irugarren dakarratena bekatuak dire kalteak ta perdizio guzia. Etzaziela pensa zeuren kalterik gabe ofenditzeunziela Jangoikoa, eskergaitzak; konta, konta irabazi atratuzienak ofenditzetik Jaun andia. Baña oraño estuzie ezaunduko guzis dagon bitarteo gorputzaren loi goneki itsuturik arima; il ta biramonean ikusko duzie. Baña ala nolapait berere estaike utzi ezauntzeko naiz emen irabazi txarrak atra daizkela asarratus Jangoikoa, deskarga baitezake bere ira gaixtoen kontra kalamidade, plaga ta lazeriatan. Ain beso laburra ta flakoa uste duzie duela Jangoikoak? Zer kostako zaio galtzea gu bekalako txinurriak, nai badu? Kriatura guziak, demonioak, elementuak, lurra, ura, aizea, sua, animale, planta, zeruko ta kanpoko gauza guziak dagozkio obediente prest zeñu batera. Nola libratuko zara? lotsa dezake errege baten irak artzen duelaik gogotik mendekatzea traidore txarras. An dire tormentuak, suak, makinak, berdugoak, tristearen gain, ta niork ezin libra; iltzea len baño len alibio. Jangoikoaren irak segitzen du eriotzetik aratago ere, ta erruago. Ai ene Jauna, ikaratzen naiz pensatzeas ere. Atra zazie kontua emengo kastigoetaik, erauntsi gaisto, plaga, eritasun, peste ta kalamidadeetaik, ukitzen gaituelaik beraren eskuak, ta ori ez miserikordiarik gabe. Zeri eutxiko zarate, kontra dagolaik Jangoikoa? He, bil jende, presta armak, injenioak, matxinak al badezokeze erresisti; betoz orduan lengo adiskide gaiek inzitatu edo lagundu zizienak gaistakerietan. Gorabaites libratzeko Jangoikoaren iratik algo-emanzale gaiek, irri iten zutenak Jangoikoaren ministroen erranes, zirela sinple zak, zirela maniak, artu oposizio ta ala. Aurkitzen zarate lanzean desanparaturik guzietaik, Jangoikoa asarre, konzienzia inkieto, arima triste. Esta milagro. Beira zerura, azkeneko arara bearkoute apelatu artas atzendurik bizi zirenek ere. Eta ezpaute nai sanduek, edo ezpadezakete logra? Guziareki ez desespera; oraño bada nora apelatu, meza sanduan sakrifikatzen den axuritto garrengana. Kastigatu zuelaik Jangoikoak Israel, bialirik serpienteak, zeñen ozkes baizoezi iles jendeak erremediorik gabe; apelatu zue Moisesek Jangoikoagana erremedio billa. Jangoikoak manatu zio gora zezala palo batean serpiente bat bronzeskoa, zeñi beiratzeariki herituek logratuko zutela sendatzea. Ala izan ze; serpiente bronzesko sendazale gura da klaro etzela serpiente egiazkoa, ta etzaukela ere izan sendatzeko birtuterik, ezpalio eman Jangoikoak zerbaitengatik. Zergatik ote? Zergatik errepresentatzen baizue Kristo gurutzearen palo gartan goraturik serpiente idurian, ez egiaskoa, au da, ez izanik gaixto ta bekatari, alaere bekatari gaixto baten gisara bi ladronen erdian. Berbera presentatzen ta errepresentatzen da mezan azken erremedio solla bekala libratzeko gu Jangoikoaren kastigoetaik: Orgatik otoi ta errogatiba guziak koronatzen dire meza sandareki, zerengatik an dagon gure Jauna bera barin bada ere ofenditua, alaere esta bera bekalakorik erdexteko piedadea ofenditzeuntenen onerako. Ala gurutzean paratu zutelaik ere judioek, lenbiziko itz erran zuena an izan ze aien fabore: Aita, barka bezote, ezi estakite zer iteunten.

O ene Jesus ona, ta zein ona den! Guruzifikatzen ta ofenditzeuntenendako ain ona delarik, zer litzake maita bagindez ta zerbitza bagindez medianoki berere? Eta zer inen du Jangoiko Aitak, baizik detenitu bere justiziaren ezpata, ikusiaskeros bere Seme onetsia

paratzen dela bekatarien alde brokel edo eskudo gisa, ez dezan deskarga? Figura gaitzen letanietan, guk eskatus bekala, doazila sanduak paratus erk erka Jangoikoaren alzinean, lenik Maria Santisima, berla aingiruen errejimentuak; gero patriarkak, gero apostoluak, gero martirak, pontifizeak, doktoreak, sazerdoteak, konfesoreak, birjinak ta an diren guziak, alegatus nork bere zerbitzu eginak Jangoikoai; berze aldetik sollik presentatzen dela Jesus mezan dagon figura gartan alegatus bere gorputz ta odolaren prezioa. Diot ezi guzien gañetik atendituko duela, ta guziengatik ezpalez ere egin grazia, in lezakela bere Seme onagatik. Au da, dio, nere Seme onetsia, zeintan baitut nere konplazenzia. Amorosturik ala bere Semeas urrikaritzen da gutas, ta erorzen zaio eskutik ezpata. Guzia da piedade ta grazia. Gure Jesus da guretako, uz nazazie erratera berak imini zuen konparazioa, ala nola ollalokain gisa biltzen baititu bere txitak egalen pean; bada, berak beretako ekarri zue konparazio gau, esta zer despreziatu. (Math. 23). Ollalokan errepara daizke zenbait propiedade onak txiten amorios, ia dilijenzia ta kuidado duen gura, ia karaka-gisa bat deitzeko beregana, berze gisa bat emateko xateko aurkitu duena, berze gisa bat senti duelaik mirua abisatzeko, berze gora ta erruagoko bat peleatzean tzakur ta edozeñen kontra txiten defentsan, baña prinzipalena edozein peligro ta trabajutara xartzeko gura, ta flakatzeko txiten fabore ta onagatik. Ikusazie gure erredenptorea heriturik ta akabaturik penas, eta orai berean exponiturik anitz desatenzio ta irreberenziatara ez usteagatik galtzera gu. O gure anparo ta konsolu guzia, Jesus, orren kostus bizi gara bekatoriok; onaren kostus libre gaixtook. Arrazio litzake maita dezagun ta zerbitza dezagun ilartaño gure librazalea, libratzen gaituena bekatuen gaitz ta kalteetaik, Jangoikoaren iratik, ta darraizkion kalamidadetaik, itz bates palakatzen ta adiskidezen duena guregana Jangoikoa. Zer litzake gutas ezipagindu berori? Dretxo du enpleatzeko bere gustora gure potenziak ta gauza guziak. Esta arrazio ofenditzea deustan ainberze ongi iten diguna. Esta ori gaixto guretako, estugu, bada, guk ere izan bear ingrato. Orrengatik ezipalitz, zenbat leudezke ia infernuan, daudenak orai zerurako esperanzareki? Estugu, estugu tesoro gaixtoa meza sanduagatik, bagindeki estimatzen arimaren onak oroat nola gorputzarenak. Zer inen ginduke atra bagina infernuko karzeletik mezaren birtutes? Ta kontu atra garela ezkaituenoi utzi sartzera, mereji bagindue. Bada, sinesta axuritto garri zor diogula. (Zego mutil bat preso desesperaturik (Andrad. g. 9.19. SS.6) blasfematzen Jangoikoas guzieki delaik ona, arrendako zela gaixtoa, deitus demonioak eraman zezaten ta berze alako desatinoak; preso-lagunek konsejazen zute ongi, baña etze baizik su ia ematea; deiturik erreljioso bat nekatu ze debalde. Azkenean eskatu zio enzun zezala berere meza atratzen zena kapillan. Enzun zue, ta ala aldatu zekio biotza, ezi ia oiuz ta negarres konfesazen zue bere kulpak; eta Jangoikoaren miseriakordia iagos izan zue fortuna libratzeas karzeletik biramonean. Ez, eztugu zer botatu niori kulpak; gure perdizioa geurenganik, baña gure salbazioa Jesusenganik. Akaba zagun San Juanen itz gebeki: Nere humettoak, au erran diziet etzazien egin bekaturik, baña norbaitek iten badu, abogatu dugu Aitaren alzineko Jesus etc. Estaiela neka ongi egines, aliketa manteniturik beti Jangoikoaren grazian, sartuartaño bere glorian.

Sermo XII:

De 3º missae fructu,
satisfaccióne

Bekatariendako ondasun andi bat aurkitu ta aipatu gindue meza sanduan, baita palakatzea Jangoikoa logratzeko barkamentua ta grazia; baña esta aski ori sollik; bear da eman Jangoikoaren justiziari satisfakzio bekatuengatik barkaturik ere. O bekatu madarikatuak, zenbat kalte ta iteko dakarrazen! Jakin bear da ortako direla bekatuetan bi gauza, au da, kulpa ta pena. Kulpa barkatzen da konfesio onaren medios, baña geien komun gelditzen da pena ia edo gutiago pagatzeko emen edo purgatorioan txoil ezpadu kontrizio bat ain andia, ezi arren atenzios barka dezon Jangoikoak kulpa ta pena guzia, ezpaita erraz; eta ala erratea estela barkatzen kulpa beñere barkatu gabe pena guzia, dauka kondenaturik Tridentinoak. (Ses. 14. c.8.). Argira para zagun; du batek bekatu mortale bat; ark duen bekala kulpa mortala, mereji du ta pagatuko du pena eternoa, joaten bada estado gartan. Konfesatzen du ordea bere kulpa kontrizio extraordinario agitz andiareki; Jangoikoak barkatuko dio kulpa ta pena, nola leitzen baitugu zenbait bakotxes. Konfesatzen du ordea kontrizio edo atrizio aski denareki izateko balioso sakramentua; arri barkatzen zaio kulpa guzis, baña pena eternoa aldatzen zaio pena tenporalean, auda, pena pagatus akabadaiken batean nekesago edo aisago, kontrizio gutiago edo ia izan duenaren ariora. Onen neurritzeko neurria dago Jangoikoaren eskuan. Guk ez dezakegu neurritu txusto txustoa; eta ala naiz paraturik ta kunpliturik penitenziak idurikal grabeengatik grabeak, lebeengatik lebeak, eta aien ariora naiz deskitaturik pena korrespondiente, alaere edozeñek dezake sospetxatu bereas zorretan gelditzen dela oraño, prinzipalki direlaik anitz bekatuak, ta berexki gure denbora triste gebetan, noiz konfesoreek alde bat estute paratzen lengo penitenzien erdiak ere, eta berze alde asko ta asko ala gizonki nola emasteki dire bekatu iteko goapo, ta penitenzia iteko flako; ta berze alde Kristok erran bekala, (Math. 24), abasto delaik malizia, anitzen karidadea otz edo epel, egiten duten pixka ere estoaie Jangoikoaren atenzio ta amorio puros, baizik munduak ikus dezan; añadi gañarako faltak atenzioan, debozioan ta berze zirkunstanzietan, orgatik baitire arin ta guti balioso obra onak. Añadi berze anitz kulpa lebe, deskuido, imperfekzione, zeñetan justoa ere zazpi aldiz erorzen dela, baitio Espiritu Sanduak (Pr. 24). Zer atratzen da emendik? Kulpak grabeak edo lebeak anitz, satisfakzioa guti ta ez anbat perfekto; beras nai bada ezpada, anitz zor izan bear da Jangoikoai. Nola pagatu izanik ain pobre ta deus gutitako gizona? He, ortako ere dugu fiadore ta ondasun meza sanduan; ikusteko ta estimatzeko ongi, orrek o Maria zori onean jaioa, ekarriziguna alako salbazalea Jesus, erdetxi bezagu grazia. Abe Maria. egin zue bekatu Dabid erregek, bialtzen dio Jangoikoak Natan profeta ikusiarazi dezon ta erreprehendi dezon bere kulpa, ta ezaundu ta konfesatu ondoan kontrizioareki, absolbi dezan artaik, baita iten duena konfesoreak Kristoren birtutes. Ellegatzen da Natan, aipatzen dio ta paratzen dio begien alzinean bere gaizki egina; Dabidek instante konfesatzen du ongi urrikiturik, peccavi Domino, bekatu egin dut Jangoikoaren kontra. Bereala Natanek erran zio: Bada, Jangoikoak ere barkatu dio berorren bekatua, esta galduko, baña alaere... Zer baña, profeta sandua? barkatu badio ia kulpa, zer baña da ori? Bai dio, barkaturik dago kulpa, baña pagatu bear du arren pena, eman bear da satisfakzio. Ots, bada, bekataria, errege andi gura, ta ain sandua gañarakos, ezpada libre pagatzetik pena, naiz barkaturik kulpa, zer nauzu zuk? Gaixtakeria guzia, dela andi dela txipi,

kastigorik gabe estaike pasa, dio San Agustinek (In psalm. 58) edo zeurorrek kastiga zazu, edo kastigatuko duangoikoak faltarik gabe. Nauzu ez dezan kastiga? Bada, zeurorrek kastiga; zerengatik in duzu gauza bat estaikena utzi kastigatu gabe. Ots, bada, aizazu, deies daude zure konzienziaren atarian. Nor da?angoiko andiaren justizia. Zer nai du? Zer manatzen du? Redde quod debes, paga zor duzuna. Anitz bekatu, anitz zor. Esta guti barkatua kulpaangoikoak; bakotxagatik onenberze multa; guzia sumaturik anitz da paga emen; berzela sartuko zaitu purgatorioko karzelean, non exies inde, donec reddas novissimum quadrantem, etzara andik atrako pagatu gabe guzia azken marabidiraño. Bada, esta berze erremediorik, paga. Emen dire bekatariain sustoak, nik gastaturik bearrestengerietanangoikoak emanikako hazienda ta fakultadeak, memoria, entendamentua ta borondatea, zer inen dut? Quid faciam? baliatuko naiz Kristok erakutsirikako orazioas, barkadezakiguzu guri geuren zorrak. Ori ongi, ta orrengatik barkatzen duangoikoak zerbait aldioro, baña orreki bateo eskota. Zer inen dut? Quid faciam? aloka naikeangoikoaren zerbitzuan eta obra oneki joan deskitatus; baña zenbat dezaket? Orain arteoko obra onek ezpideute inportatzen erdis erdi bekatuek adina. Zer inen dut? Quid faciam? baliatuko naiz elizako tesorotik konzeditzenaizkigun induljenzies. Bai, baña ortako esta bear deskuidatu lanzeetan ta egin bear dire ongi dilijenzia manatzen direnak, ta berze alde ez egon alfer, neure aldetik pagatzeko neure lanes, ezi alferrak estu mereji induljenzia. Zer inen dut? Quid faciam? Neure aldetik trabajatus ta induljenzieki lagundus bearko dut injeniatu pagatzeko, naizelarik ain pobre ta eskas birtutes.

apelatuko naiz, bada,angoikoaren justiziaganik miseriordiagana, patientiam habe in me, et omnia reddam tibi. Jauna, iduki bez nereki pazienza, ta etxiden bezada, ta guzia pagatuko diot. Baña pagazale gaistoak promesa franko, itzak aisa, gezurrak abasto. Nola sinestarazi, ikusten delaik ezi zenbatenas bizia luzatus, kulpak doazila añaditus ta zorrak montiatus. Zer inen dut, bada? Quid faciam? Kabilatu ala ta ola, ta guti pagatu. Ez ote da erreparatuko non dagon tesoro bear dugun guzia, guretako despositatua, artzeko noiznai ta nai dugun guzia, emateko satisfakzioangoikoaren justiziai? Agerrian aski dago. Beira bekatari tontoak; ta esta zer agrabiatu deituagatik tonto bekatariak, ezi estaike agi tonteria andiagorik nola ofenditzeaangoikoa dealde; dealde diot? Estiot ongi. Irabazi ederrak atratzentuste. Zer irabazi? Quem fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis? (Rom. 6.). Zer fruitu atra duzie gauza gaietan, zeñetan orain alketzen baizarate? Emengo kalte, ango kalte,angoikoa asarratu ta beren buruak galtzera botatu. Baña aixtekora itzuli gaitzen. Beira, bekatari tontoak, aldareko mai gartara; an presentatzen da Jesus gure fiadore ta pagadorea, ta bereki bateo presentatzen du bere pasio ta eriotzearen prezio inmensoa, balia gaitzen bear dugun guzian. Lotsagarri da, zierto,angoikoaren justiziaren despatxua; baña ez desesperatu, ez deskonsolatu, bada nondik pagatu, ia entzunes meza sandua, ia erranarazis, ia ofrezitus iten gara partizipante satisfakzio inmenso eman zuen garren, eta ala dezakegu paga Kristoren kostus; ortako disponitu du.

Gure bekatues kargatu ze gurutzeareki pagatzeko bere gorputz dibinoan, dio San Pedrok (1. C.2); eta Isaiasek dio (C.53): Sines gure eritasunak sufritu zitue berak, ta gure doloreak eraman zitue berak, au da, guk merejiginduzanak. Heritua izan ze gure gaixtakeriengatik, akabatu ze gure maldadeengatik. Gure bakearen disziplina beraren gañean, eta beraren oñazeen kostus sendatu gara. Gure guzien gaixtakeria paratu zueangoikoak berabaitan. Ofrezitu ze bera, zeren nai baizue itzik atra gabe, ala nola ardia daramatelaik degollatzera, ta ala nola axuria baitago mutu motxaleain eskuetan. Eta orain ere berri berrian sakrifikatzen da egunoro aldarean, guzia guregatik. Gure Jesus dulce onegia,

orren kostus ats arzen dugu bekatariek esperanza konzebitus gaizkela aurki libre noizbait bekatuen zor gaistoetaik, izanagatik alako fiadorea. Baiki ofenditua ta agrabiatua da Jangoikoa. Jangoiko bear ze izan emanzezona satisfakzioa. Artzeko-duna Jangoikoa zorduna. Gizona, pagazalea Jangoiko ta gizon dena. O Jangoikoaren axuria edekitzentuen munduaren bekatuak, guk kulpata orrek paga, guk zor ta orrek paga; Aita onak hume gaixtoengatik, Jaun onak esklabo txarreatatik, Jangoiko andiak gizon ingratoengatik, agrabiatuak agrabiazaleengatik; estela aski logratzea kulpen barkamentua, eman ere bai penen satisfakzioa. Ala nola... Baña non aurki daike konparazio urbil daikenik anitz legoa-bides? Baña zerbait gisas adiarazi nai; ala nola erregeren etxeko traidoreak sentenziaturik azken penara daudelaik, Prinzipe Jauna bakarra ta Aitaren onetsia enpeña baledi osokiro libratzeko miserableak. Aitak erranbalezo: Estaike, nere Seme, estaike eman gabe satisfakzio justiziai; Semea ofrez baledi bere personan pagatzera pena aien partes, ta errealki paga balez; esta bardin alaere, zerengatik naiz andiago prinzipegura, litzake gizon utsa gizonengatik, emen Jangoiko-gizona da gizon bekatarientatik, deustako bear estituenengatik, eta aña zirkunstantzia ezi traidoreengatik padezitu zuen pena traidoreek berek ematea. Gizonengatik il zena il zute gizonek!

Baña, ene Jesus Jauna, ortaraskeros, guregatik pagatu naizuenazkeros, pagatzeas zor etzuen eskerr milla diot; baña Jauna, aski barin baze orren suspiro bat, zertako ainberze pena? Askia barin baze orren odol tanta bat, zertako ainberze erreka? O amorioaren exzesoa! Guti balitz bekala guk in bekatuak, ta orrek padezitzea penak, bearbaño ia padezitzea erranestaiken gisa, nola esta arritzeko gauza? Abasto, geiegi, neuririk gabe eman du prezioa libratzeko traidoreak! Kario eder pagatutu gure kalteak. Abasto kulpak, abastoago grazia. Grazia diot, zerengatik guzia egin du grazias, mereji ezkinduenen libratzea ta ainberze kostarik libratzea! Etzue balio ainberze gizagendearen izate guziak. In duenak paga, erraten da, emen pagatu du inestuenak, gaistoengatik justoak pagatu du, zenbat ordea? Gu nor bagara, bagatozke seguro kontuetara. Anitz da kargua, geiago da deskargua. Askia ze azotukaldi bat, eramantu ia ezi borz milla. Askia ze odol tanta bat, ixuri zue guzia. Askia ze pena bat, sufritu zue infinizio bat, ta azkenean eriotzea palo batean. Berak pagaturik daude ongi gure zorrak, borra bedi justizia dibinoaren despatxua gure kontra zena, egin bedi erditik ta josi bedi gurutzearen kontra. Guziau egin zue Jesu Kristok, testimonio ematen du eskribano zerukoak, San Pablok (Colos. 2.). Ori guzioi errain didate eldu dela ongi Kristoren pasio ta eriotzeain alde; baña mezaren gain dardukagularik zertara eldu den? Bein pagatu bazue askia ta sobra, zer nai du orai disponituas meza? Berriro emen presentatzen da axuri dibinoa; berriro ofrezizentu bere lllagak, azoteak, itzeak, penak, odola, eriotzea ta pasio guzia. Zertako? Estaien alfer izan aplikatu faltas bakotxai. Meza da kaña atratzeko itsaso gartaik bakotxak; giltza idikitzeke ta barratzeko tesoro gartaik; aldarea da maia, non presentatzen baita prezio inmenso gura, meza da libranza partitzeke guziei bere dilijenziaren ariora, erraten duenai onenberze, aplikatzen dionai ainberze, enzuten duenai ainberze, ainberze oni, ainberze arri; zerengatik utzirik Kristok erran bekala prezio askia ta sobra, gozatzekos bear du bakotxak egin bere aldetik zerbait; orgatik daike konpon ematea Kristok satisfakzio askia ta sobra guziendako, ta alaere anitzei ez baliatzea beren faltas, ezi esta arrazio Kristok sollik pagatzea guretako ta guk deus ez egitea probetxatzeko, ala nola naiz izanik tesoro bat andia giltzapean, logratzekos zerbait in bear da, nola bilatzea giltza, joatea, idikitzea, eskuak aplikatzea.

Anitz modu da logratzeko Kristoren pasioaren fruitua, nola orazio egitea Jangoikoai, obra onak egitea, padezitzea Kristoreki, errezibitzea sakramentuak, baña

aisena ta seguroena meza sandua ofrezitzea. Singularki balio du gure absoluziotako, dio San Gregoriok (H. 37 in Evang.), aldareko hostia sagratuak ofreziturik biotzeko afekto onareki, zerengatik au ilestaikena berriz errepresentatzen da misteriosoki padezitzean berriz guregatik. An kontatzen du nola izan zen bat sokorritua karzelean milagrosoki meza sanduaren birtutes; emendik daike entenda zer sufrajioa den purgatorioko karzelean dauden arimendako. Klaro aski da entendatzeko estela sufrajio obeagorik sakrifizio gau baño, ezi orgatik Elizak paratu du ilengatik mementoa mezan. Lurperaño ellegatzen da onen fruitua; eta da fedesko gauza Tridentinok deklaratu (S. 25) errezibitzen dutela alibio arima gaiek fielen sufrajioeki, baña geienenik meza sanduaren sakrifizioareki. Iruzkiak barratzentzu anitz leku ta jendeetara bere errañuak, baña munduaren erdia argitzen duen bitartez usten du ilun berze erdia, ta ala emen egun argi delaik kontrako berze aldean dute gaua, ta an argi delaik emen iluna; eta beñere estu bialtzen argirik lur barnera. Ez ala meza sanduan presentazen den iruzki dibinoak, baizik bateo barratzen du bere birtutea mundu guzia barna, ta bateo edatzen du purgatorioko kalabozaok barna. O, esta ellegatu ta ez ellegatuko atari gaiek barna errefrijerio obeagorik, ta ez ain onik ere, nola axuri dibinoaren odol preziosoa ofratzen dena aldareko maian. Au da alimentua, zeñeki kentzen baita aien gosea ta egarria. Au da erauntsi zerukoa, zeñeki itzalzen baita aien sua. Emendik doakiote piedadesko ugaldea, zeñek dulzatzen baitiote pena gaien amar gura edo samintasuna. Emendik tesoroa pagatzeko erresta guzia. Emendik instrumentua lazatzeko aien prisioneak. Emendik likore preziosoa garbitzeko mantxa guziak. Emendik pasaporte ta libranza usteko pausua libre zerura. Emendik urresko giltza idikitze atari zerukoak. Testigo arima etorri direnak eskatzera mezaren sufrajioa, ta ondorean ematera graziak. Testigo mezaren medios daudenak zeruan, baitira ezin kontaala. Bat edo berze kontatuko dut.

Jenoban ze andre pobre on bat, zeñi gerra batean erman zioten kautibo zuen seme bakarra. Dirutze andia bear erreskatatzeko ta ez izaki niondik, asi ze eskean al bazuke bildu. Aurkiturik karrikan sazerdote bat, oni ere eskatu zio berzeei bekala limosna, alegatus bere nezesidadea. Sazerdoteak erran zio barka zezola, ezi etzuela zereki mantenitu egun gartan. Andre onak urrikariturik eman zio mezasari bat, baize bildu zuen guzia, erran zezan meza bat arimen fabore. Joan ze bereala ta erran zue, ta andre ona enzun ondoan bere meza bazoeie karrika barna eskean. Aurkitzen du persona alzinatu-iduri venerable bat, onek paratzen dio eskuan karta bat: ar bez, entrega bezo karta gau urbileko merkatari gorri, emanen dio bear duen guzia. Doaie, entregatzen dio merkatariari, au leitus bekala zoeie asustatus ta aldatus koloreak. Andrea, erraten dio, nork eman dio karta gau? Ark, jauna, nik estut ezaunzen, baña da gizon venerable adinetako dirudien bat. Orduan merkatariak, eta ezaun lezake, ikus balez arren pintura? Bai Jauna, zio ark, ezaun nezake. Eraman zue kuarto batera, non baizeuzkie buratsoen, atxunen ta aizinakoen pinturak kuadroetan. Bereala beiratu orduko andreak erran zio señalatus bat erias: Au da karta eman didan aren iduria. Ia arriturik orduan, merkatariak erran zio negarra begietaik zeriola: Ori da nere aita onetsia, baitu amalaur urte il zela, ta orrek erranarazi duen mezagatik libratu omen da purgatoriotik. Instante eman zio gogotik diru bear zuen guzia libratzeko bere semea. Orra exenplu gontan ageri da meza baten birtutes libratu zela bata purgatoriotik, berzea kautiberiotik.

Berze exenplu bat. Kontatzen du Bledak (Ap. Andrad. gr. 19. ss.8.) zirela bi sazerdote erreljioso agitz adiskide ta agitz onak. Ilzerakoan bata konsolatu zue Jangoikoak errebelatus zela predestinatuetaik zerurako, baña bear zuela pasatu

purgatoriotik, ta etzela andik atrako aliketa erran zeien arteo meza bat arren fabore. Gelditu ze arrigarri konsolaturik; deitu zue bere adiskidea, kontatu zio errebelazioa, eskatu zio etzeiela deskuida errateko meza sandua il orduko len baño len. Berzeak ofrezitu zio baietz, gogotik ere, ta etzela atertuko egitetik sufrajio al guziak aliketa izan arteo zerbait prenda libratu zelakoaren. Asistitu zio kontino azken atserano ta iltzelaik baize argi astean, instante jautsi ofrezitzera meza sandua arren faboretan. Akabatu orduko agertu zekio berzea bizi zeneko forman ta habituan, ta erran zio: Nola, o nere adiskidea, estuzu kunplitu eman zindidan itza, utzi bainauzu padezitzera ogei ta ia urtes penak purgatorioan? Arriturik nago, erran zio ark, nola diozun alako gauza, zerengatik seiak zire il zinalaik, bereala erran dut meza ta oraño estire zazpiak; eta zure gorputza ortzi oraño, ez nuke kunplitu nere itza puntualago. Aiturik au ilak erran zio: Bai, sinestutzen dut diozuna, baña penaren andiak iduriarazi dida ain luze denbora laburgoi. Nik ematentizut eskerrak ta ofrezitzen dizut pagatzea zerutik, nora bainoaie Jangoikoaren miseriordiagatik gozatzerá betikos. Gelditu ze laguna ongi konsolaturik, ta erakutsirik pena gaien erruas ta meza sanduaren balioas.

Nori eskerrak ondasun andi gonengatik, baizik Jesu Kristo gure Jaun ta Aita onai, disponitu baitu ongi kostarik berai guretako sakrifizio gontan bear dugun guzia emateko osoki satisfakzio Jangoikoaren justiziai gure bekatuen zorreatik. Guzietas suplitu gaitu paratzeareki mai sandugoi, ta ortan bera presente sakrifikatzen dela guregatik, beraxten duela bere Aita Jangoikoa gure alde, erdextentuela gure bekatuen barkamentua, grazia ta ondasun beartugunak, ematen duela satisfakzio gure partes ta gure onagatik iten duela daiken guzia. Zer ia egin bear du? Alaere estutela estimatuko, ta ez kasorik eginen munduko eskergaitz itsuek? Alaere estutela zerbait sufritu-naiko beren probetxuagatik ta Jaunoni plazer emateagatik? Alaere dezaketela ofendi beren kaltetan jaun bat ain ona? Bada, estute izain arraziorik kexatzeko infernuan Jaunonen kontra, ala nola ezpaitu orai ofenditzeko deustan ere. Jauna, nere bizia biz orren kontentatzea hume onaren gisa. Ezdezala berzerik permiti berorrek bere pasio ta eriotzeagatik, estaien malogra ene baitan ainberze odol prezioso enegatik emana; onen atenzios aurki bez nik orren begietan grazia orai ta gero ta beti ta azkenean zeruko gloria. Amen.

Sermo XIII:

De partitione fructuum missae

Hic est sanguis meus novi testamenti (Math. 26).

Aipaturik ia meza sanduaren fruituak, orai errepartizioa. Da meza herenzia dibinoa Kristok utziziguna iragazirik bere odol preziosoareki. Testamentu berria ta eterno Jangoikoaren humeen faboretan, eta dio San Juanek bere ebanjelioaren lenbiziko kapituloan: Kristo errezibitu duten guzi guziei eman diotela esku izateko Jangoikoaren hume, au da, beraren fedea dutenei. Alakoendako da testamentu gau, Kristoren odol preziosoarena, hic calix novum testamentum est in meo sanguine (Luc. 22), edo odol prezioa testamentu berriarena, hic est sanguis novi testamenti; da berria zerengatik alakorik etze izan ontaraño, ta oneki akabaturik lengo figurak, asi zire errealdadeak. Eternoa deitzen da, zerengatik beñere ezpaita akabatuko ontan disponitua. Testamentuan bear dire izan mandak, herenzia, herederoak ta kabezaleroak kunplitzeko testamentuegillearen borondatea. Kabezalero gisa dire sazerdoteak, zeñen eskus iten baita egunoro erreparti zio gau. Herenzia da Kristoren pasioaren merejimentuen tesoro inmensoa; herederoak dire ilak eta biziak, ezi guziendako da abasto. Esta ematen niori guzia, zeren delaik infinito tesoro gau, nior esta kapaz errezibitzeko guzia, ta ematen zaio bakotxai bere disposizioaren ariora. Bakotxaren baitan dago Jangoikoaren graziareki bateo disponitzea errezibitzeko nai duen adiña. Zer fortuna lurreko ondasunetan balego bakotxain eskuan artzea erregeren artxibotik nai adiña? Fortuna gau dugu emen espiritualkiro. Estuenak atratzen anitz ondasun meza sandutik, bere falta du; ala nola balitz argi andi bat, iruzkia adiña, itxekitzeko argia nork beretako, itxekirik ere infinizio bat argi andik, ark ez luke deus gutiago, baña erman lezakenak argizari-tortxa andi bat, argi ia atra lezake ta gutiago ermaten zuenak zerilla me bat. Berze konparazio bat: Balitz gari-montio Pirineoko oianak adiñako bat, itz bates, sekula ustuetzeiken bat, zaku andia zeramanak atra lezake gari ia, ta txipia zeramanak gutiago. Berze konparazio bat: iturri bat balitz zekarrana likore prezioso bat perenne, nork luken onzi ia ta andiago, ar lezake ia, ta nork gutiago, gutiago. Eta beldur badaike akabatzeas lurreko iturri den andiengan, esta alako beldurrik Jangoikoaren eskutik datorrela. Ala kontatzen da eskritura sagratuan (4 Reg. 4), ezi alargun pobre batek agertu ziola zer trabajutan aurkitzen zen Eliseo Profetai, nola arzekodunak nai zition edeki bere bi semeak zerbitzazeko; Eliseok erran zio: Zer nai du in dezoten nik? erran bezada, zer du bere etxean? Ark erran zio: Estut baizik olio guti bat. Joan, bada, erran zio sanduak, eska bezki an jendeei itzultzeko onzi anitz, ta ertxirik atariak bere bi semeeki, ta atra bez olio gartaik. Joan ze ta egin zue erran bekala; humeek eman onziak ta berak bete olio gartaik ta etze txurtzen olio beñere. Bete zirelaik ia onzi guziak, eskatu zue berze bat; erranik etzela ia, orduan gelditu ze olio milagroso gura. Zer, agian nekatu ze eman esdo pobretu ze emateko ia Jangoikoaren eskua? Ez baizik faltatu ze non iduki beraren bizarria. Meza sanduan fabrikatu du bere gizonen ganako amorioaren ondasunen iturri bat perenne agortuestaikena. Ea pobre espiritualean ta tenporalean garenek, prebenitu onziak, disponitu arimak, ezi niork ez dezake errezibitu ia, baizik nola duen disposizioa; anitz disposizio duenak, anitz; guti duenak, guti. Solamente emen gure konsolutako ta ezperen konfusiotako bear da adbertitu estela nior geldituko eskas ezin aurkituagatik, nola nai duen gogotik; borondatearen izatean dago guzia; prest dago

asistitzeko Jangoikoa ta eskatzeko bere Ama Santisima. O limosnera dibina, biotz noblea, esku liberala, zeruko tesoroetaik eman naiak dagona ta eman dezakena nai duen guzia, eman bezagu abasto grazia. Abe Maria.

Munduko ondasunes pobre izatea agi daike bere faltas, baitaere naiz ori estela, zeren etzaizkion konbeni ta ez on; baña on direlaik aietas ta ondasun espiritualeotas pobre izatea da bere faltas, bere faltas, dugularik meza sanduan medio erdexteko guziak, diot on direnak, gu nor bagara. Irur fruitu prinzipalak berexitugu: Propiziazioa, baita erdextea piedade ta barkazio bekatues; inpetrazioa, baita erdextea gañarako bear den guzia, ta satisfakzioa, baita pagua bekatuen penengatik; ta irurok dezazke logra nai duenak, baña estire logratzen asko aldis nai faltas. Beñik bein satisfakzioaren fruitua estu logratzen Jangoikoaren desgrazian dagon arimak, zerengatik barkatu gabe kulpa, estaike satisfakzio penarena logra. Ain guti merito deitzen dena, baita graziaren aumentua, zerengatik estaike aumenta grazia esten lekuan. Berze bi fruituak propiziazioa ta inpetrazioa, au da erdextea Jangoikoaren piedadea, ta ondasun zenbait espirituale ta tenporale dakartzki meza sandak bekatiendako ere, ezperen ai tristes! Zer litzake aietas, baldin ezpalez aldareko axuritto garrek detenitu Jangoikoaren ira ta logratu beraren piedadea merejiestutenendako? Eta egia izanik ere mezan iten den orazio publikoan estirela sartzen exkomekatuak, herejeak, jentilak, judioak, ezpadire expreso aipatzen, baña opinione obenean daike aiengatik ere otoiz in mezan (bentzait partikularki ta sekretoan bai), konbertidazkien gure Jaunak. Grazian daudenak logratzentuste mezaren fruitu guziak, ta ferbore, debozio ta disposizio ia dutenek, ia berzeek baño, bardin badire gañarakoan; zerengatik meza bakotxean, ala nola zenbatenas bat ia urbiltzen den su andi batera, ia berotzen baita, ala zenbatenas batek ia konkurritzen duen mezaren akzione andi gartara, ia parte atratzen du; ia enzuten duenak, estuenak baño; ia laguntzen duenak, ia erraten edo zelebratzen duenak. Guzien da sakrifizio gau, ezi orgatik dio sazerdoteak, orate, fratres, ut meum ac vestrum sacrificium etc., orazio egizie, ene anaiak, izan daien nere ta zuen sakrifizio gau kuadrable Jangoiko Aita guzis poderosoaren alzinean; baña parte espeziala du sazerdote berak, ofratzen baitu ministro publiko, lejitimo ta urbilekoa bekala guzien nonbrean, ta ala erraten du ofrezitzean hostia: errezi bez Aita Jangoiko sandu, guzis poderoso, eternoa, hostia garbi gau, zein ofrezitzen baitiot, nik berorren zerbitzuko esklabo indigno gonek berorri nere Jangoiko bizi ta egiaskoa den orri, neure bekatu, ofensa ta deskuido innumerableengatik, eta emen presente dauden guziengatik, baitaere kristio fiel guziengatik, ilen ta biziengatik, probetxa dezagun niri ta aiei salbazioko bizitza sekulako. Amen. Bigarren lekuan, bada, sartzen dire presente asistitzeuntenak meza sandura; ta irugarren lekuan kristio fiel guziak, biziak eta ilak, mezaren fruitu parte jeneralean. Baña guzien gañetik daramana parterik andien ta prinzipalena, heredero lenbizikoaren gisa da ura zeñendako aplikatzen baita meza.

Au baita beras iruzki dibino egiaskoa, berzea baño obeago ta prezisoago dena munduan, barratzentuen bere errañuak, argiak ta sugarrak alde guzietara, ezpaita nior, nori estakioken ellega, berak nai badu. Baña erxten baitu begiak, paratzen baitu estorbuak, ta orgatik badago ilun entendamentua, otz borondatea, ta malder arima, kexa bedi bere buruas, ezi esta iruzkiaren faltas. Au baita paraisoko ugalde gura, andik edatzen dena mundu guzia barna ta lurperaño, erregatzeko Kristoren odolaren birtutes jardin espiritualak, baitire arimak. Ezpada itzalzen pasione gaixtoen sua, ezpadire azitzen birtuteen plantak, afekto sanduen loreak ta obra onen fruituak, nork du kulpa? Ez por zierto gure Jaunak, paratu baitu ortako medio ederra elizan, meza sandua. Au baita

graziasko erauntsi preziosoa, ondasun ta faboreen itsaso betea, estaikena txurtu sekulan. Barin bazaude alaere pobre ta ear arima, da zerengatik estuzun ajolarik baliatzeas; Jangoikoak nai, Jesu Kristok ortako utzi, sazerdoteak nonnai, mezak asko mundu guzian, aldioro errepartitzen grazia ta ondasun zerukoak, ta errepartitzen bakotxain borondatearen neurrira, zer ai zara miserable-utsa? Nola estuzu prebenitzen arimaren arka? Nola etzoazi prisaka, laixterka, boladan partizipatzera Jangoikoaren bizarria? Estu pensatuko gezurra pensatzen duenak doaielaik aldarera sazerdotea mezakotan, doaiela idikitza zeruetako tesoreria, lazatzera itsaso graziaskoaren presa, nork nai duen gozatu. Egi eta fedea pensatuko du pensazen duenak ordu gartan doaiela paratzera presente ta patente Jesus salbazioaren, santidadearen, graziaren, ta gloriaren, ta on guziaren iturria, bere borz llogen kañuetaik edatera emanai diotena egartsuei bere amorioaren deliziak. Klamatzan zuela, dio Ebanjelioak, (Joan. 7) jai-egun andi batean Jesusek txutirik, norbaitek barin badu egarri, betor ene gana ta edan bez. Au omen zio Espiritu Sandu eman bear ziotenagatik. Zer modus propiokiago mezan baño dezake komunikatu bere espiritua, dagolaik ain franko. Nik, dio Jangoikoak Apokalipsiko libruan, emanen diot egarri denai ur biziaren iturritik grazias ta doaiik (C.21). Egun gartan, baita oroat nola denbora gartan, dio Zatzarias profetak (C.13), egonen da patente iturria Jakobon familiaindako. Denbora gau da gure denbora, familia gau kristiandadea, iturri gau Jesu Kristo sakrifikatua aldarean. Len israeldarrei kentzeko egarria, ukitus bara milagroso garreki Moisesek peña bat, atra zue Jangoikoak iturri bat abundantea; qui convertit petram in stagna aquarum, peña garrek signifikatzen du Jesu Kristo, petra autém erat Christus, zein heriturik gurutzearen palo gartan egin ze odolesko iturri saludablea, ainberze kañuetaik ematen duela, nola baitire lliga in zizkietenak. Iturri gau plantatu du bere etxean, elizan idikizen da mezako sakrifikoan, ain errealki ta egi eta fedes nola goratu zutelaik gurutzearen palo gartan, nola estugu logratuko eskaida edo etorris personan al badaike, edo bentzait deseo ta ansia ta afektoeki, suspiratus aldareko iturri gartara, zion bekala Dabidek: Ala nola oreñak deseatzan baitu uresko iturria, ala nere arimak anhelatzen du orrengana, ene Jangoikoa; egarriak dago ene arima Jangoikoagana, iturri bizia baita, noiz joanen naiz ta agertuko naiz Jangoikoaren presenzian? (Ps.) konsola bedi arima bitarteo, ellega bedi maiz Jangoikoaren etxera mundu gontan, berexki presentatzen delaik aldarean, agertzen duelaik bere amorioaren esnesko iturri delizioso erregalatua, ala nola amak agertzen duelaik bularra, ezpaita detenitzen aur titikoa, ala estaiela deskuida arima meza bitartean joateko gozatzera Kristoren ondasun ta dulzurak bere iturraman.

ikasi dukeze ia kristio fiel guziak direla partizipante meza sanduaren ondasunetan, bekatarriak ere zerbait, ia daudenak grazian, ia enzuteuntenak meza, ia laguntzen dutenak, ia aiek norendako aplikatzen den; berex usten dut sazerdotea ain urbil ellegatzen dena Jangoikoagana; eta guzien ertean ark ia, zeñek duen disposizioa obeago, garbitasuna, debozioa ta afektoa ia. Ongi entendaturik ezi mezaren fruitu edo balio substantziala duena Kristoren birtutes estaikela gal ministroaren gaixotasunes; berze alde nola baita elizaren ministro publiko elizaren nonbrean zelebratzen duena ta orazio-itzen duena, alde gontaik ere ain balioso da gaixtoak erraten duen meza, zeren Jangoikoak beiratzan baitio elizai, zein baita sanda beti ta kuadrablea beraren begietan. Egia da ezi sazerdote gaixtoak bere aldetik estu mereji ainberze nola onak; baña sazerdote-burua, ofrazale prinzipala ta ofratzen dena guzia baita bat, Jesus Jauna, axuri dibinoa, au da an atenditua, ta onen atenzios idikitzen du eskua Jangoikoak barratzeko bere bedeizioak. Ezpaduzu logratzen mezaren medios au edo ura edo ez ia, da edo zeren etzaizun konbeni edo zeren etzauden

disponiturik errezibitzeko, edo arima gaizki izanes, edo ansia gutis; iturri ondasun guziena gutartean, eskunara giltza, eman naiak Jangoikoa ta alaere gu ain pobre miserable! Zer da au? Jangoikoak eman nai ta pobreak artu eznei! Eznei, diot, zerengatik logratzeko bear diren kondizio ta dilijenzia arrazioskoak ez paratu nai izatea, kontu dela ez logratu nai izatea. Exenplutako, dei balez erregek donzella pobre bat palazio errealer, nauzu bizi emen ene alaba-gisa? Gozatu nere erreinuko ondasunak, nere maieko erregaloak? Tori, ona zuretako tuten galak, preziosidadeak ta gañarako gauza errege batek eman dezazkenak zuretako, nai bauzu, kondizio bateki, utzi beartu zula orai arteoko txarrerriak ta kondizioak, paratus afektoa enebaitan ta portatus alaba bekala. Nai dut, Jauna, erran lezake; baña ikus bagindez gero oroat nola len, utzirik palazioa, karrikak barna, balsas balsa, asetzen ogi-kozkorres ta farrastas, nai etzuela erregeren emana erran gindezake. Ala dugu emen; eman nai du Jangoikoak arimai mezaren medios ondasun zerukoak, kondizioerki ez usteko munduko jan edan ta gauza bear direnak, baizik solamente exzesoa ta lurreko afizioneak ta txarrerriak, Jangoikoaren hume-gisa portatus ta onetsis bere majestadea. Au estute nai askok; beras ondasun gaiek ere ez. Ongi nio, bada, Jangoikoak eman nai ta pobreak artu eznei. Filii hominum, usquequó gravi corde? oiuiten du Dabid erregeak: Gizonen humeak, noiz arteo pizu biotzes? Guzia lur ta loi? Ut quid diligitis vanitatem etc. Zergatik nai duzie banidadea, ta billatzen duzie gezurra? Banidade da lurreko ondasun, gusto, honra ta gauza guziak pasatzen baitire aizearen gisa, ta gezurra, zerengatik usten baitute engañaturik deus gabe azkeneko. Onetsi zazie, billa zazie Jangoikoa leku guzietan, baña espezialki tenplo sanduan ta meza-bitartean, non baitio dituela bere deliziak egotean gizonen humeeki. Argitu, bada, arimaren begiak, atra noizbait lurreko loietaik, ustu biotza emen beitiko txarrerrietaik, imini Jaun dibinoa baitan, eta ikusko da zenbat logratzen den mezagatik, ala gorputzain nola arimain. Baña ezpada atenziorik ta estimaziorik daukagunai aldarean, ezpadiogu kasorik egiten presentatzen delarik, barin bagoaz bera utzirik gogoareki munduko banidadeetara, esta zer admiratu protxurik ez atratzeas. Irur emasteki zeude bein enzuten meza bat (Ap. Parra. p.2 pl.26 Andrad. gr. 19 SS.9) ta bitartean sazerdoteak ikusi zue Jangoikoaren argis batai paratzen ziola aingiru batek korona bat lore txuris izarrek adiña argitzenzutenes, berzeai arrosa gorri ederres, gero berzeai ikusi zue deabru bat etorri zekiola aforru batzueki, ta ematen ziola aieki buruan, ta figuratzen ziola danza bat alzinean ta ark plazer artzen zuela ortan. Akabaturik meza ta deiturik irurak bat banaka, galdegin ziote zertan egon ziren pensatzen meza-bitartean. Lenbizikoak erran zio egon zela pensazen nola Jangoikoa apaldu zen izatera gizon eta aur txipittoa gure onagatik; bada, nik, erran zio sazerdoteak, ikusi dut aingiru bat zuri paratzen lore txuri ederres korona bat buruan. Berzeak erran zio egon zela pensatzen Kristoren pasioan ta korona aranzesko gartan, ta ainberze oñaze ta odol nola sufritu baizue guregatik; bada, nik, erran zio, ikusi dut aingiru bat paratzen zuri korona bat arrosaskoa. Galdeturik irugarrenak erran zio egon zela enfadaturik mezaren ain luzeas urte bat iduritu zekiola, ta bear zuela erosi aforru bat ta joan danza batera, zeintara zen konbidatua. Deklaratu zio sazerdoteak ikusi zuena, nola dibertitu zen deabrua arreki bitartean. Baiki zertaik ere onak atratzen duen probetxu, artaik kalte atratzen du gaixtoak; nolakoa duen arimaren disposizioa bakotxak, ala nola janari onak on iten dio estomago onai ta gaitz gaixtoai. O meza sandua, zein gauza ona ta ezin ohea emandigukena gure Jaunak! Bagindeki ezauntzen ta baliatzen, probetxu ona inlezaguke ariman, ta bearbada gorputzaren alde ere bai. Xakina da nola San Isidoro zerbitzuan zegolaik goixtarzen zen meza enzuteko al bazuke lanera baño len; eta akusaturik ortas bein akar egiteagatik nausiak arrazioareki etxiden ziola aldapatto batean,

nondik ikusiarazi zio Jangoikoak bi aingiru zeudela bi idipareeki lan egiten, ta Isidoro erdian. Zer kaltea! San Felix de Kantalizio ikusi ze bateo meza enzuten ta alorrean lan egiten. Xakina da alaber bi ofiziale gaiena, zeñek biek ofizio berbera izanik, bata ze abrats, berzea pobre. Onek galdegin zio non aurkitzen zituen ondasunak. Biar erakutsiko dizut, erran zio berzeak, nai bauzu nereki etorri. Kontent xaiki ze ura goizik joateko berzeareki aurkitzera diru-meatzea; etorri ze berzea, ta kidatu zue elizara, an enzun zute meza ta itzuli zire etxera. Ark uste zue nonbait bidezuela okupazio, ta etxidenzio biramonean. Biramonean oroat erman zue elizara, entzun meza ta itzuli etxera, itzik erran gabe. Au da burla bat, zio onek. Itzuli zelaik ura biramonagokoan, erran zio onek enfadaturik: nai baut mezara joan estut zure bearrik, bear dutena da erakus dezadazun non aurkitzeunzun ondasun-tegia; erakusten dizut bada, erran zio ark, ezi emendik eldu zaida niri fortuna, ezpaitut usten egunik bilatu gabe guzien jabe ta Jauna bere etxean (Ap. Parr. p.1. pl.18). Egia da estela egin bear solo lurreko ondasungebengatik, esta ere eskatu bear bearrestirelaik, esta ere kodizias, esta ere paratu gabe dilijenzia naturalak, ezi ori litzake tentatzea Jangoikoa. Inala egin ta eskatu Jangoikoai mezan prinzipalki, noiz baitago gure Jauna prest aditzeko gure otoiak; eta bearbada, milagrosoki ere konsolatuko gaitu. Kastelako erregeren jenerale bat inzute preso kontrarioek, ta paraturik karzelean Lisboan etxideten zego eriotzea ala edo ola; bitarteo goardiek goart inzute egunoro presoaren maiean agerzen zela ogi ta ardo ta bela bat itxekirik. Eta naiz ongi ertxirik bide guziak ta paraturik estorbatzeko dilijenziak, segitzen zue prodijioak. Abisaturik erregek nai zio erranarazi nork assistizen zion; ark etzekiela. Tormentus atrara zinai ziote egia; ark zio bidezela Jangoikoaganik agian bere andrearen otoies. Igorzeunte xakitera Sebillara, non bizi baize, ta xakin zute ezi preso inzutenetik egunoro enzuten meza, ofratzen kandela bat Ama Birjinaren aldarean, ta zenbait pobreei ematen ziotela limosna ogi ta ardo arreatatik. Orra karzeleko ogiak, ardoak ta kandelak. Au ikusirik libratu zue erregek (Claus. conc. 4. c.16). Zatoste enegana, oiuiten du Jesusek mai gartaik, trabajutan zaustenok ta kargaturik miserias, ta nik konsolatukozaistet. Ondasun guziak tugu mezan daukagun axuritto gartan; baña ezpalitz ori ere, aski da nor den bera, ondasun guzien iturria ta ondasun guziak baño obeagokoa. Berori aski da sollik, ohea da Jangoikoa guziak baño. Naiago dut berori guziak baño. O aurki banez grazia orren begietan! Zer nainuke ia? Ori bada ene fabore, nor nere kontra? Orreki nai dut ta orren baitan daukat nere gogoa, ilzen banau ere. Ori da nere anparoa mundu gontan, nere konsolua eriotzean ta nere deskansua glorian. Amen.

Sermo XIV:

De honore, gratitudine
et complacencia Dei ex missâ

Gauza andia ta probetxugarria da meza sanduaren sakrifizioa, nere fielak. Entendatu dukeze dakarzkion fruituetaik munduai ta purgatorioai, bekatariei, justoei, beartsuei ta guziei jenero guzietan; baña ori baizik ezpalekar, faltalekioke obena. Gorago gorago edatzentu bere ondasunak, gloriaraño, pasaturik sandu ta sanda guziak, aingiruen bedratzi koroak ta Ama Birjinaren primazia edo lenendea, Trintate Jaunaren tronoraño, ezi niork ez bekala ematen dio honra ta gloria, eskerrak ta konplazenzia. Aipatu dugu au lenago ere, baña esta kalte aipatzea berriro gure konsolutako. Estu obligazio ertxiagorik gizonak, edo obeki errateko, estu berze obligaziorik, baizik honratzea, esker ematea ta kontentatzea guzien Jaunangoikoai, ta alaber deus estu berai obeki dagokionik ori baño. Baña, ah, gure gaixakeria ta tonteria, ezpaitugu deus gutiago kunplitzen ori baño, ta por konsigiente ai gara geuren kaltetan. Gaixtoak eta tontoak; badaike edo, izan gaisto izan gabe tonto? Esta tonteria ukatzea berea Jangoikoai? Bai, ta ezin andiagoa. Jangoikoa agrabiatu ta geurok galtzera botatu. Protxu on dakigula ezipagara tonto; esker aldareko axuritto garri suplitzen baititu gure faltak ongi, emanen Jangoikoai gure partes honra, esker ta plazer anitz. Ikusagun. Maria gure Ama dulzissima, kriaturarik obena ekarriziguna alako erredenptorea mundura, ori da Jerusalemgo gloria, ori Israelgo alegria, ori gure puebloaren honra, Jangoikoaren eskojitua, bere Seme Jauna adiña ez, baña urbilena, honratu, agradezitu ta kuadratu diona perfektoki guzien gañetik; ezta admiratzeko aurkitzea ainberzegrazia beraren begietan. Esperanza dugu orren medios guk ere aurkitu grazia. Abe Maria.

Ni barin banaiz zuen Aita, dio Jangoikoak Malatxias profetaren agos (C.1), non da zor zaidan honra? Eta zuen Jauna barin banaiz ni, non da zor zaidan beldurtasuna? Honratu bearrean desonratzen dute, ta errespetatu bearrean despreziazen dute. Desagrabiatu naies inbentatu dire Jangoiko beraren ordes sakrifizioak, ta izan dire denbora guzietan. Len ofrazen zizaizkio sakrifizioan animaleak, idiak, ariak, axuriak; pasatu da aien denbora ia, ia enfadaturik bekala materialidade gaietas dio: Zertako tut zuen sakrifizio goiek? (Isai. 1.), zuen inzensua abominazio zaida. Arrazioreki, ezi esta inzensurik asko ken dezakenik Jangoikoaren ofensen abominazioa. Orgatik dio ongi Dabid profetak: Jangoikoaindako sakrifiziorik obena da espiritu aflijitua, biotz kontritoa ta humillatua estu despreziatuko Jangoikoak. Eta zierto etze berze erremediorik orduan. Orai oneki bateo dugu Kristoren sakrifizio dibinoa lengo guziek baño ia balio duena, ia honra, laudario ta gloria ematen diona, ezi ez solamente animale gaien iltzeak, baitaere apostoluen, martiren, konfesoreen ta birjinen ta guzien erreinaren zerbitzuek, ta gauzek baño ere, naiz juntaturik aingiruenak aieki. Obligatuak gara ematera Jangoikoai Jaun sumoai bekala honra ta adorazio gorena, ta mostratzera ori kulto latria deitzeuntenaren aktoeki, nolakoak baitire itzes botoak, juramentuak, orazioak, kantak, obras prozesioak, ofrendak, argiak ta alakoak, señailees belaurikatzea, auspeskatzea ta berze asko modus erreberenziatzea. Guziak pasatzentu mezaren akzione garrek, zeintan ain humillatzen baita Jangoiko beraren Semea, ta sakrifikatzen baita Jangoikoaren honratan axuri eder gura, de manera ezi, honra goneki suplitzen da osoki guk faltatzen dioguna, ta deskitatzen bekala da ainberze ofensa montioaren agrabioa. O gure Jesus, ori ezipagindu, zer litzake gutas?

Arrazio ze akaba zezan ia gizagendea mundu ontan, ala galzen ziona errespetoa. Baña bearrik dugu berori guzien partes honratzen duena dignokiro. Entendatzeko zerbait mezaren gauza andi estimagarri dena da, bisione izan zuena enperadore Henriko II Erroman. Ikusi zitue aingiruak prebenitzen aldarea ta itxekitzen belak; bereala atra ze Kristo bera errebestiturik pontifikales, bi aldetaik San Lorenzo ta San Bizente diakonogisa; gero agertu ze Maria Santisima iruzkia baño agitzes argiago ta ederrago akonpañaturik birjines ta aingirues; gero segitzen zire San Juan Bautista patriartxen koroareki; gero San Pedro ta San Juan berze apostolueki, gero San Esteban martireki, gero San Martin konfessore sandueki; entonatu zute aingiruek introitoa zeruko melodia bateki; kantatu ondoan ebanjelioa, apatu zute librua lenik Ama Birjinak, gero sanduek ta azkenean manatu zue andre andiak eramateko enperadoreai. Akabatzean meza igan zute ofrenda dibinoa zerura presentatzeko Aita eternoai akonpañaturik jende gura guziaganik, betetzen zela gloria berriro alegranzia admirableas, gelditurik enperadore sandua konsolu ta gozo erranestaikenareki (Andrad. gr. 19. SS.4).

Garade alaber txoil obligatuak ematera Jangoikoai eskerrak ainberze on intigunengatik, ezi betea dago lurra Jangoikoaren miseriakordias, eta kriaturik gizonak ta paraturik emen apalago ezi aingiruak, aingiruei baño ia amorioaren demostrazio in diote gizonei, ezi eman diote aingirubana goardiatako, ta Jangoikoa bera egin ze, aingiru ez ta gizon bai gizonengatik; ta utzirik galtzera erremediorik gabe aingiru errebelatu zirenak, gizonak desobediente izanik bere Majestadeai, nai izan zitue erredimitu bere kostus Jangoiko humanoak. Eta gerostik unat ere ofenditurik asko aldis barkatzen digu. Jauna, zer da gizona, zeren ala oroitzen baita artas ta estimatzen baitu ala? Eta zein ona da berori guretako, ezi ofenditzen dugulaik ere faboratzen baikaitu? Guk nior ez ofenditzen ia, ta guri niork ez faboratzen ia Jangoikoak baño. Zer litzake ezpagindez ofendi? Zier to onesten gaitu gu ia ezi guk berori, ia ezi guk geuren buruok. Santa Isabel Ungriako erreinak deseatzzen zuelaik onetsi Jangoikoa lazki agitz, eskatu zio edeki zezola afekto naturale zuena humeei ta aideei. Konzeditu zio Jangoikoak. Oneki arima gura guzia itxeki ze arras Jangoikoaren amorioan. Bein erran zio bere konfessoreai: Niri iduri zaida eznauela onesten Jangoikoak ni ainberze, nola nik Jangoikoa. Bego ixilik, erran zio konfessoreak, Jangoikoak onesten du Jangoiko gisa, eta ala ia onesten du berori ark, ezi ez bera onesten baitute sandu ta sanda guziek. Pondera zio iduriturik erran zue: sinestatuko dut nik ori, noiz ta aurkaseko arbola gura zanetaik atrarik aldatzen den ugaldearen berze aldera. Erran ta egin, instante aldaturik agertu ze berze aldean ain oso, fresko ta loratu, monstratus onesten gaituela Jangoikoak Jangoiko gisa anitz ia pensa dezakegun baño (Parr. p.2. pl. 2.).

Bada, agradezimentuaren legea da naturala, animaleek ere goardatzen dutena beren ongi-gilleeki; ez ordea gizonek Jangoiko onareki. Ala geratzen da Isaiasen agos (C.1): Humeak azi ta goratutut, ta aiek despreziatu naute ni; idiak ezauntzen du bere jabea ta astoak bere nausiaren ganbela, eta Israelek ez ni. Bada, suplitu bear da falta gau. Nondik? Edo nola? Or dago gure Jesus, bere misterio miragarrian suplituko baitu gure partes. Jauna, au barin bada fabore berria ta grazia ona iten diguna Jangoikoak grazia guzien konpendio, bilgura ta korona, zer pagatze-modu da aumentatzea zorrak? Eta demanera ezi ez dezokegu niolaterre paga. Nola paga dezokegu Jangoiko ain on bati onetsi baikaitu gu jaio baño len ere? Jangoiko ain on bati, zeñek onesten gaituenagatik emanaskeros dugun izatea, bizia ta mundua, ematen baizaigu azkenean bera? Eta ori errezibiturik esker gaistoak gureganik! Baña ala da Jangoiko onaren kondizioa, eman es benefizio berriak

pagatzen da lenagokoes. Benefiziorik andiena da au, ta oneki pagatutako ematen da; zerengatik misterio gartan gure Jesus ona ofrezitzen zaio esker emateko gizonek zordiogunagatik. Jangoikoaganik gure gana karraiatzen dago ondasunak, eta gureganik estuelaik zer itzuli baizik esker-gaistoak, bera ofrezitzen da bere merejimentu guziarki korresponditzeko Jangoikoai, estaien neka ongi egines ingratoei. Q. Terenzio senadore romanoa presidario zeukatelarik Kartagon, erreskatatu zue Eszipion afrikanoak; ark etzue aurkitu berze modurik mostratzeko bere agradezimentua Eszipioni, baizik joatea kautibogisa oñes triunfoan, sartu zelarik au triunfante Roman (Parr. p.2. pl.23). Arrazio guzis beargina eman preso Jangoikoai, intigun mertxedeengatik; estugu egiten guk, baña gure partes gure Jaun Jesukristo presentatzen zaio preso bekala mezan. Bada, plazer ematea gure Jaunai geuri dagokigu alde bat, ta berze alde zor diogu ezin ia, ezi zertako dauka munduan gizona, ezpadio emanai plazer bere majestadeai? Baña alaere ikusteunzie zein gutik garaitzentusten beren apetituak kontentatzeagatik Jangoikoai. Ikusteunzie zenbatek desplazer ematen dioten beren bekatu itsusieki, eta zer zer fruitu atratzen da? Ah! Klaro aski da, ezpaliz gaistakeria itsu galgarria. Balitz ezaumentu ona ta geuren buruei amorio egiaskoa, fortunarik asko dugu baitezokegu plazer eman ta kuadratu Jangoiko andiai, nai badugu. Zer ditxa, zer dignidadea sanduena, baizeude Jangoikoaren kariño ta amistanza ain deseagarrian, aietas kuadraturik Jangoikoa ta aiek Jangoikoas elkar nai zirela, nola bi adiskide onetsiak! Estaike leitu inbidia on bat gabe Jangoikoaren fineza aieki, zeren aiek ere kuidatzen baizute kontentatzea berai guzietan. Ontara baleike ellega nornai obeki ezi izatera errege; ta obeluke ezi ez izan errege. Baña naiago dute askok desplazer egin Jangoikoai ta plazer beraren ta beren etsaiari, eta galdu betikos. Zer onki daike espera, daukatelaik etsai beren kontra Jangoikoa? Ai, ezi solamente pensatzeas otedagon edo ezotedagon ene kontra, kontentu iten ote dioten edo ez ote dioten, ikaratzen da ene biotza. Zer erremedio? Ellegatu gure Jesusen maipera txakurttoak bekala, al badezakegu kontenta beragatik; egon an humil ezauntzen indigno garela. Errandezakeguke, esta arrazio humeen ogia ematea zakurrei. Bai, Jauna, erran zогun humilkiro, txakurttoek ere jateunte maipen nausiaren maieko apurretaik. Erreplikadezakeguke, esta arrazio nik zuen mantenitzea nere etxean ta nere maietik, eta zuek zerbitzatzea nere ta zeuren etsaiei nere desplazer ta zeuren kaltetan. Zer errain diogu ontara? Jauna, ez beira gure txartasunai, beira bez bere Seme Jaun Jesusen ontasunai ematen baitio plazer kunplutua guzien partes. Beronen atenzios aurki dezagun grazia guk ere orren begietan, erreplikadezakeguke: Esta arrazio zuek niri ez egin nai plazer ta nik zuei egitea, zuek ez egin nai nik manatzeuntena ta nik egitea zuek nauziena. Zer errain dugu ontara? Jauna, beira bez bere Seme Jaunari sakrifikaturik aldarean, zein humil! Zein ona! Zein inozente, sandu, dibino amablea, axuritto prezioso! Desplazer ematen dioguna bekatariek, garaitzen du plazer andiak beregatik duenak. Kuadratu zekizkio Abelen primiziak, Meltxisedtxen presentak ta Abrahamen ofrenda; zenbat ia bere Jesusenak! Abelek ofratu zizkio axuri irrazionalak naiz obenak; Jesusek bera den guzia axuri razionale dibinoa. Meltxisedtxek ogi ta ardo; Jesusek ogi ta ardoaren idurian bere gorputz ta odol prezioso. Abrahamek bere seme propioa Isaak, baña Jesusek bere persona, berorren seme onetsia, Isaak inozentea sakrifikaturik egiareki.

Errandezakeguke: Nik emana duzie ori guzioi, ta orreki guziareki etzarate goardatzen ofenditzetik ni, naizena ain ona zueki. Zer errain dugu ontara? beira bez bere Seme Jaunari sollik. Au aurkituko du justo, guzis gaixtoen ertean. Lenago zelarik ainberze gizonen malizia, ezi obligatu baizue ondatzera mundua dilubio unibersalareki, Noek aurkitu zue grazia Jangoikoaren begietan. Zu aurkitu zaitut justo ene presenzian, erran zue;

ta gero ondatu ondoan mundua, goratu ziolarik aldarea Noek, ta ofratu ziolarik sakrifizioa, plazer izan zue artas, ta ofrezitu zio paratzea uztargia lañuetan bake ta piedadearen señaile gizonen fabore; ura ikusteareki etzituela berriz galduko. Beira bez gure aldareetan sakrifizio kuadrableena, beira bez bere seme onetsia, zeintan baitu konplazentzia; ta onen atenzios in bez gureki grazia. Zierto da gauza indignoa ofenditzea jaun bat ain ona; ona bere baitan ta ona guretako. Alaere ofenditzen ainberze! Ah lastima! beira bez berriro bere Seme Jaunai aldarean; berriro dago eskatzean oroat nola zegolaik gurutzean. Aita barka bezote, ezi estakite zer iteuntan. Ala iduri zaida niri ta ala da ezi igaten delaik alde batetik munduko maliziaren usai gaistoa kausatzen diona Jangoikoai nazka ta goragale, gure erratemodura, berze aldetik igaten dela bere Seme Jaunaren sakrifizio garren atxon suabe miragarria, plazer ematen diona ezin iagos, ta orgatik gaizkela soporta bekatoriok, ezperen ai! Orgatik Elizak, ongi dakienak bekala, akabatzentu orazio guziak itz gaieki, Kristo gure Jaunagatik; Jesu Kristo bere Semeagatik. Orgatik bere konfianza guzia paraturik dauka mezaren sakrifizioan, zeñeki bateo ta zeñen medios kuadra dakizkion gure zerbitzuak, otoitzak ta afektoak. Ala bein meza entzuterakoan Santa Jertrudisek ikusi zue Kristo bera ofrezitzen bere sakrifizioa, ta ofertoriokoan beraren biotza bularrain gañean paratzen zela aldare urresko argi baten gisara, ta aingiru goardiakoek ekarzenzustela aldare garren gañera egaste txuri-eder batzuk, baizire onen orazioak ta afektoak. Gero Jaun dibinoak goraturik eskuak bere Aitagana ofratzen zizaiola bera, bere biotzean zeuzkien ofrenda gaieki, ta Aita eternoak errezibitzen zuela plazer anitz ortas (Parra p.2. pl.25). Mezan dugu, bada, zereki honratu Jangoikoa gizonek, zereki eman eskerrak bere mertxedeengatik, ta zereki egin plazer ainberze ofensen truk. Balia gaitzen ongi idukitzeko kontent gure Jaun andia. O gure Jesus dulzea, gure esperanza ta errefujio bakarra, posible da, orrek nai duenarik, orren medios guk ere aurkitzea grazia Jangoikoaren begietan, posible da guk ere kontentatzea bere majestadeai. Ori balitz egiareki, o gure ditxosoak! Inbidia diotet arima on gaiei, zeñek Jangoikoareki baitute bere kontentua, ta aieki Jangoikoak. Estiotet edeki nai ditxagoi, baizik nainuke izan nik ere aiek dutena. Konsola zaite, ene arima, ezi prokuratzen badugu guk kontentatzea Jangoikoai, Jangoikoa kontentatuko da gutas; guk berai plazer iten badiogu, bera kuadratuko da gutas. Ain ona da! Eta zergatik estiogu plazer eginen? Ain gaizki dagokigu? Edo ain guti mereji du? Da gure Jangoiko bakarra, gure Aita, gure ongiegille sumoa; da guzis ona ta amablea ta amatzen gaituena. Ainberze gaitz egin digu? Estigu egin gaitzik, baizik ongi guzia. Eta alaere estiogu naiko egin plazer? Baña, zer in dezokegu pobre deus gutitako garenek? Ezin iragazi arimak beraindako, ez padezitzen beragatik, ez inpeditzen beraren ofensak, deus ez egiten iten zutenetaik sanduek! Zertas dezakegu kontenta? Bentzait onetsi biotzes ta ez ofenditu geurek. Onetsi bai Jauna, onetsten dut, ta ez nuke nai ofenditu ain onetsigarri dena. Gaizki errateko nainuke mutu izan, gaizki aitzeko sor, gaizki ikusteko itsu, gaizki iteko ta pensatzeko inpeditu ta ezindurik egon; ojala ta gañarakoan onerako solamente entregu ta habil. Ojala niork ezpalez ofendi, ta guziek plazer in balezote, Jauna. Baña, o itsutasuna! Ainberze ofensa! Ain guti adiskide Jangoikoaren! Ta beren kaltetan! Baikei galdu beaunenendako esta erremediorik! O nork paralezoketen ezaumentu ona ta inklinazio ona! Guziei inporta zaigu anitz Jangoikoa kontent idukitzea. Eta ain guti ajola ontas? Jauna, beira bez gureki dagon Jesus bere Semeagana. Beraren atenzios in bezagu ongi merejiestugunei ta ase gura bezagu bere grazia emen beti ta bere gloria an bizitza sekulakoan. Amen.

Sermo XV:

De alio fructu missae,
memoria passionis Christi

arbola bat balitz munduan ain ederra ta probetxuemallea, ezi artaik lurrekoek, artaik zerukoek, artaik lurpean direnek luketen fruita bere gustorakoa ta naiadiña, ta urte guzian ta aspertu gabe beñere, zer arbola miragarria ura! Alakoa da meza sandua, zeintaik fruitu atra dezakete lurrekoek, miseriakordia bekatariek, grazia justoek, satisfakzio zor dutenek, ondasun jenero guziak beartsuek; fruitu alaber lurpekoek, au da, sufragio arima purgatoriokoek; fruitu alaber zerukoek, sanduek, aingiruek, Ama Birjinak alegria ta gloria berria, Jangoikoak honra, agadezimentu ta plazer guzia, aipatu dugun bekala. Aipa zagun orai berze fruitu bat guzien prinzipio ta korona, baita Kristoren pasio ta eriotzearen memoria. Guziaz galtzera bota zue bekatuak, Jangoikoa asarratus, zerua tristatu, mundua kondenatu; gero Kristok padezitus ta iles guregatik erremediatu zue guzia. Lan andia, mertxede inmenso estimagarria! Etze arrazio atzentzea. Ortako zer erremedio? Meza sandua, zein baita memoria ta errepresentazio bat bizia lan ta mertxede garrena, ta ez memoria ta errepresentazio utsala, baizik berritzea bekala egunoro egin zen gura bein, aplikatzeko guziei nori bere fruituak. Orgatik enkargatu zue au Jesu Kristok, sendoki ziola: Au egiten duzien aldioro egizie nere memoriatan. Etze aski predikatzea predikariek? Ez. Etze aski pausu gaiek pintaturik bistara paratzea? Ez. Etze aski pausu ta estazioak ibiltzea? Ez. Berak, berak presente mezako sakrifizioan, nai izan zue errepresentatu ta berritu lan andi gura. Esta komedia batean bekala, batek erregeren papela iten duela, ez, ezi ori da iduris sollik; emen errege berbera da errerepresentatzen duena bere hazañarik andiena, Kristo berak bere pasio ta eriotzea, sakrifikatzen delaik berriro ez agerrian ta odol ixuris nola len, baizik estalian misteriosoki, baña errealki ogi ardoen akzidentearen pean. Milagro gau naiz aipaturik len ere, on da aipatzea anitz aldis. Maria doloresko Ama, ongi ikusi ta sentitu zuena gurutzearen aldakan bere Seme onaren pasio ta eriotzea, ikusteko guk ere ta sentitzeko ongi aldareko maiean, eman bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Zer arrizioa ikustea Jangoikoaren semea iltzen gurutze gartan bi ladronen erdian! Nornai arrituko ze ikusis arimaren begieki nor zen ura, ta gorputzaren begieki padezitzen zegona. Pasa gaitzen kalbariotik tenplora, gurutze gartaik aldareko maiera, ezi an egin zena emen errerepresentatzen da, ta berbera da an sakrifikatu zena ta emen sakrifikatzen dena. Baña ezkaitu arritzen ainberze emen, zerengatik an ikusi zeikena arimaren ta gorputzaren begis, emen solamente arimaren begis daike ikusi, au da, entendamentuareki ta fedearaki. Argitu, bada, ebek ikusteko ongi; beñik bein Kristo bera ain errealki nola an presente ogi ardoen idurien pean, baita milagroen milagroa. Estu emen padezitzen errealki, esta iltzen, estu ixurtzen bere odol dibinoa an bekala, baña errerepresentatzen digu ori paratus hostia ta kaliza berex, ta itzen birtutes gorputza hostian ta odola kalizean, dagolaik errealki Kristo guzia bietaik batean edozeintan; baña alaere biak paratzen dire signifiktzeko ixuri zuela bere odola pasio lotsagarri gartan. Sakramentuaren ta sakrifizioaren diferentzia ontan dago: Ezi sakramentu izateko aski da hostia konsagratua sollik edo kaliza konsagratua sollik, bietaik bat, edozein, zerengatik sakramentuaren izatea dago iduri gaien pean egotean presente errealki ta miragarriro Jesu Kristo guzia; baña sakrifizio izateko biak bear dire prezisoki, zerengatik sakrifizioaren izatea estago presente egotean Kristo, baizik errerepresentatzean bere eriotze ta odol ixurtze gura agitu zena Kalbarioan. Orgatik ortzilara

sanduan, zeintan ezpaita konsagratzen ardoa, esta mezarik edo sakrifiziorik propioiki, naiz dei daien ala, zeren nolapait zeren oroiarasten gaituen Kristoren eriotzeas. Au propioki iten da konsagratus ogia ta ardoa egunoroko mezaetan bekala. Au aditzera eman zio Jangoikoak B. Isabel Eskonaujienseri enzuterakoan bein meza, ikusiarazi baizio Kristo gurutzifikaturik bekala kalizain gañean, zeriola odola gorputzetik kalizara, gelditurik gora gorputza (Parr. p.2. pl.24). Ala San Migel egun bates eskatu zio aingiruen prinzipi goni B. Anjela de Fuljinok monstra zezola mezan gure Jauna figura gartan, zeintan nai duen beraren Aita eternoak honra dezagun an; ta erran zio: beira zazu; beiratu ta ikusi zue hostian beterik llagas ta odoles gurutzifikaturik bekala (Ibid.). Au adiarasten digute gurutze izan bear denak aldarean prezisoki, ornamenta sagratuek ere bai, ta mezako zeremoniek eta gauzek.

Dugu, bada, meza sanduan Jesu Kristo estaikena il berriz, berritzen lan andi gura egunoro, monstatzen duela gisa ortan etzaiola falta amorio guregana iltzeko ere berriz ta berriz, ori bear balitz. Baña esta bear, zerengatik eriotze gura izan ze aski ta sobra erredimitzeko mila mundu, ta orduko merejimentuak dago orai errepertitzen egunoro mezaren medios. Errepresentatzen du axuri dibinoak bere fineza gura berze fineza goneki. Dago erakusten ala gizonei, nola Jangoikoai zenbat nai gaituen. Gure aldera dezakegu konsideratu paratzen delaik aldarean erraten digula bekala: Ikusazie egin ta padezitu nuena zuengatik, ene doloresko humeak; beira zenbat odol ixuri nuen, zein pena andiak eramane nituen; beira nere llagak zuen amorios errezibituak. Zer ia egin bear nue? Baña etze biziareki bateo akabatu nere amorioa; prest nago galtzera berriz ere bizia bear balitz, etzaistengatik galdu zuek. Baña esta orren bearrik, bear dena ta daikena, iten dut oraño. Emen presentatzen naiz biktima sakrifizio gontan; emen bildurik dauzkit nere fruitu guziak; ellegazaiste enegana pobreak trabajutan zaratenak, ta nik konsolatukozaistet. Ona osasuna ta salbazioa, nere llagen iturrietaik abasto dator naiduenaindako; edan zazie dirurik kosta gabe zuen arimen erremedioa ta bizitza; eta zerengatik galdu bear zarate? Erredimitu zindustet neure odolaren kostus; ona berriz ofrezitzen dut etzaistengatik galdu. Ellegazaiste grazian mantenituzaratenok, seguratzeko ta aumentatzeko grazia. Ellegazaiste bekatu mortalaren benenoa iretsiduzienok, libratzeko ortaik ta paratzeko grazian. Ellegazaiste pena anitz zorduzienok, erdexteko zereki pagatu nere kostus. Zueki ta zuendako nago sakrifikaturik aldare gontan; nior esta galduko baizik bere faltas nere gogoaren bortxa.

Jangoikoaren aldera dezakegu konsideratu paratzen delaik aldarean, Jesus dibinoa ofrezitzen zaiola bera den guzia, presentazientiola bere neke pena guziak guregatik eramantuenak, ta erakustentziola bere borz llagak, erraten diola bekala: Nere Aita, orrek bere karidade geiegiagatik, zeñeki onesten baititu gizonak, igorri nindue mundura, eta ni neure naies humillatu nitza eginik obediente eriotzeraño, ta gurutzesko eriotzeraño justoa injustoengatik; nere gain arturik eben bekatuak pagatzeko ebek mereji zutena nik neure baitan, orai ere berriro emen sakrifikaturik orren axuri onetsia bekala, presentatzen naiz orren ta gizonen erdian bitarteko-gisa, ta ofrezitzentiot berorri nere gorputz ta odola, nere llagak, nere penak, nere pasio ta eriotzea eben fabore nik, bainaiz orren seme bakarra Jangoiko bekala ta eben anaia gizon bekala. Neregatik, nere Aita, beira bezote piedade guziareki berorren hume ta nere anaia direnei, naiz ezpaute ere berek mereji, nik mereji dut ebendako. Nik ematen diot berorri honra ta gloria guzia eben partes, ezpaitute honratzen bear bekala; ebek berorren ongi-eginak pagatzen baitiote esker gaistos, nik ematentiot esker dignoak; ebek desplazer iten badiote beren kaltetan itsuek, nik egiten diot plazer ta

gusto betea. Ez beiratu bekatarien-gaistakeriai, beira bez nere ontasunai ta berorrek niri didan amorioai ta nik ebei diotetenai. Ez egin, Jauna, eben bekatuen ariora, baizik gure piedade ta miserikordia andiaren gisara. Abel inozente garren odolak eskatzen zue oius Kainen kontra justizia; nere odolak eskatzen dio oius bekatarien fabore miserikordia. Ongi kostarik erredimitu nitue; estaitzela gal gure gogoaren bortxa, estaien malogra nere odolaren prezio inmensoa. Beren perdizioa berenganik eldu zaiote, orrek naituelaik salbatu, aiek estiote nai obeditu; nik erakutsirik kidatzentutelaik bizitzaren bidetik, aiek eztidate nai segitu, ta doaza perdizioaren bideas itsuturik ainberze ta ainberze infernuraño. Aita, diot orai ere aldaretik nola erranbainio gurutzetik: Aita barka bezote, ezi estakite zer iteuntan. Argi eman bezote entendamentuei, inklinazio ona borondateei, ezaundezaten ta onetsi dezaten berori nereki. Bekatuengatik zor duten penaindako ematen diot satisfakzio, ta pagu mai gontan. Alaber, ene atenzios naukatenaskeros bereki munduan, merejitu bear diot eman dezoten arimen ta gorputzendako beartusten auxilioak. Beira bez Eliza nere esposaren onagatik, non baititut nere doktrina, nere sakramentuak, nere merejimentuen tesoroa depositaturik, konserba daien floreziente, ta aumenta daien. Estado guzietan espezialki beira bezote onei obe daitzen ta gaixta ez daitzen. Kuadratzen zaio errege, prinzipa ta superiore onen zela orren gloriaren, bada, iduki bezki berere eskutik, ta gida bezki beti onerat. Kuadratzen zaio sazerdote ta errelijioso onen zerbitzua orren honratan ta arimen probetxutan, bada, iduki bezki bere eskutik ta aumenta bezote orren amorioa, birtute ta santidade guzia. Kuadratzen zaio birjinen honestidade ta purezaren fragranzia, bada, iduki bezki bere eskutik ta konserba bez konstante nere saldoaren porzione luzituen gau, kristiandadearen florea ta nata, gizagendearen lustrea ta gala. Kuadratzen zaio ezkondu onen dilijenzia gobernatzean familiak ta azitzean humeak zerurako; bada, iduki bezki bere eskutik, ta santifika bezki berak ta beren humeak ta familiak. Aita in bez ongi guzia munduai neregatik.

Baña zer aitu naiz, nere fielak, adiarazi naiak nola iten duen abogatuaren ofizioa Jesusek mezan gure faboretan, semper vivens ad interpellandum pro nobis, eztaikelaik explika? Aski ze erratea presentatzentziola bere pasioa ta eriotzea, bere santidadea ta merejimentuak guregatik. Argatik ere nai izan zue konserbatu erresuzitatu ondoan, ta igan zerura bere borz llogen kuntzeak mostratzeko bere Aita eternoai gure salbazioaren prezioa, dio San Ambrosiok (L.10 com. in Luc. c.24. in Breviar. fer.3. post Pasch.). Zeruan mostratzen bere llagak, aldarean sakrifikatzen berri berritan, ta ofratzen bere korputz ta odol preziosoak, zer inen du bere Aitak baizik eskatzen diona Seme onak? alde batetik munduaren maliziak asarratzen, berze aldetik bere Semeak sakrifikaturik mezan errepresentatzen padezitu duena munduagatik, zer inen du? Posible da palaka daien. O meza sandua! O sakrifizio miragarria! Zuregatik ezi zer litzake munduas? Axuri dibinoa, Jesus inozentea, berorri eskerrak baitago gureki, ofrezitzen baita bekatariengatik, ezperen zer litzake ebetas? Abrahamen denboran zoezi Jangoikoaren aingiruak atratzera Sodomatik Lot, Abrahamen anaia, zerengatik nai zue erraustu zeruko suas erri gaixto gura. Deklaratu zio Abrahami; Abrahamek erran zio: Jauna, galdu beartu onak ere gaixtoeki nasteka? Balire 50 on, estiote aiengatik barkatuko guziei? Bai, errespondatu zio gure Jaunak. Ark orduan, eta balire 45? Baita oiengatik ere. Jautsi ze berrogeitara; gero ogeitamartara; gero ogeitara. Azkenean erran zio: Jauna, barin badire sollik amar, ebengatik barkatuko diote guziei? agindu zio baietz; baña ez aurkiturik ainberze ere, galdu zue azufresko su erauntsi bateki Sodoma. Elizan, zein baita kristioen kongregazioa, dagon bitarteo gutartean Jesus sakramentatua, estire faltako onak guti edo anitz, emen ezipada, an. Badabilke malizia urain

bagaden gisara goratus, anditus, gaindus; ia alde batean kristiandade zati bat galdus, ia berze zati bat berze alde batean; kuidatuko du Jaunonek supli daien berze leku batean. Badaike agi ia ia ondatzera bekala guzia iduri daien. Estute indarrik aski infernuko atariet; defensore ona dugu sollik ere gure Jesus sakramentatua, beronengatik sollik obeki ezi amar ta berrogeitamar onengatik barkatzen digu Jangoikoak guziei.

Esta nork jaiki ta deteni dezan berorren ira justoa, non est qui consurgat et teneat te, Isaiasek zio (c.64). Orai zer diot nik? ote da gure denbora triste gebetan, erreinante dagolaik malizia humanoa, ta asarraturik Jangoikoa deskargatu naiak bere ira, ote da anitz ain onik jaiki ta detenidezaketenik? Ah, ez ia errateagatik, diot Kristok ziona: Anitz deituak, guti eskojituak. Baña ditxa gurea da, baitugu munduan bat detenitzen diona bere beso omnipotentea ezkaizan kastiga, au da gure Jesus presentatzen dena mezan aldare gañean. Uz nazazu, erraten zio Jangoikoak Moisesi (Exod. 32), uz nazazu, asarra dadien ene furia pueblo gaixto gorren kontra. Zer errana, nere fielak! Ain ona da Jangoikoa ezi usten da garaitzera on baten birtutees, otoies ta negarres, baleuka bekala preso amoriosko grilloeki; orgatik dio, uz nazazu. O zenbat aldis uste dut daudela amoriosko pelea gontan Jesus ta bere Aita eternoa! goratzen duela Jangoikoak besoa kastigatzeko mundua, ta Jesus paratzen zaiola sakrifikaturik aldarean ez dezan kastiga. Uz nazazu, ene Seme onetsia, erraten dio Aitak. Estut utziko, erraten dio Semeak, inartaño grazia enegatik. Eta zer makines, zer armes baliatzen da logratzeko triunfoa? Bere pasioa, bere eriotzea, bere gorputz ta odola, bere borz llagak presentatzentionak alzinean, ebek dire arma biktoriosoak. Aialdeko ona dugu sines, edo obeki errain dut, alzindari ta eskudo ona, axuri sakrifikatzen dena aldarean. Ez nazan kastiga Jangoikoaren justiziak, ez nazan kondena, zer inen dut? Ala nola txakurtoak ikusten duelaik nausia azoteareki eskuan, ta ezpadaike eskapa, sarzen baita maipean edo beraren oñetan, ala nik nere penetan ta berexki kondenazioaren beldurtasunean, billatuko dut errefujioa Jesusen mai gontan; berdin ezin eskapa Jangoikoaren eskutik. Eta Jauna, ori da etorri bear duena onen ta gaixtoen juzgatza, edo berzerik esperatzen dugu? Beroi da ta ez berzerik. Beras, konsolu da eman bear baitigu sententzia eman duenak guregatik bere bizia, ta ofrezitzen denak guregatik egunoro sakrifizioan. Baña ezin falta justiziai. Zer inen dut? Lurreko justiziatik iges doaza tenplora gaizkigilleak, ta baliatzen zaiote; bada, Jangoikoaren justiziatik iges sartuko naiz itsu itsua Jesusen llagetan. Oian gorak oreñendako, dio Dabidek (Ps. 103), baña sagarroien errefujio da arria. Arriak signifikatzen du Jesu Kristo, sagarroiak bekataria. Bada, altxatuko naiz Kristoren bularreko llagan, estaliko naiz odol prezioso garren iturraman. O Jesus, biz neretako Jesus, salbazalea, salba benaza.

Ikusteunzie zer fruitua mezarena berritzea Jesusen pasioa gure salbatzeko! O ene Jesus dulzea, guzia orren kostus bear da izan? Ikusirik guk iten duena orrek gure salbatzeagatik, ezlitzake arrazio guk ere geurengatik penatzea zerbait ta laguntzea berorri? Guk kulpa guzia, ta axuri inozenteak bakarrik bear du eraman karga guzia? Eta gu aisa aisa? Berriro sakrifikatzen Jesus, berriro errepresentatzen bere pasio ta eriotzea, ta gu egoin gara beira deus egin gabe? Bentzait estiogu agradezituko biotzes? Estugu naiko sufritu zerbait pena idukitzeagatik kontent gure erredenptore ta medianero bakarra? Jesusen armak borz llagak, eta guk nai dugu aisura, gusto ta nai bekala guzia? Ez, ez; pasa zagun zerbait pena plazer emateagatik gure Jaunoni, ta probetxatzeko beronen penak. Baña zer iten da? Esta erreparatzen desplacer egitean ta malogratzean ainberze fineza. Jesus sakrifikatzen bera bekatarien fabore, ta bekataria indignoki berritzen beraren penak ta kruzifikatzen bekala berri berritan, baitio San Pablok (Hebr. 6): Zer lastima egitea

ofensarik alako jaun baten kontra! Eta zer errain dut egitenzaizkiones bere tenploan, bere presenzian ta bere personan ere bai komunione indignoeki? Meza-bitartean egoteas desatentoki? Guziau ta ia zekie agituko zela Jaunonek, ta alaere etzue utzi fundatzeko bere fineza guzien memoria gau. Jauna, bigu ezaumentu ona, ta ezpadazokegu paga mereji duen adiña, bentzait biotzesko afektoeki korrespondi zogun, ta ofensarik ez, ofensarik ez sekulan. Asisti bezagu berorren graziak aliketa ellegatuartaño ematera eskerrak glorian. Amen.

Sermo XVI:
De modo audiendi
missam duplici

aurkitu delaik urre-zillarresko meatze bat andi-abastoa, guzia da injeniatzea ta lan egitea atratzeko al guzia. Aurkitu dugu meza, meatze dibinoa, zeruko tesoro es betea; orai ikasagun atratzeko-modua. Indiak tugu arima indako mezan, zer ai gara, ezipadakigu nola baliatu? botika bat dugu artan unibersala gaitz guziendako, Kristoren gorputz ta odol preziosoas suplitua, pensa balio duen ongi. Zer da gero, ezipadakigu nola usatu? Onen xakitea dago xakitean erraten ta entzuten meza bear bekala. Nola erran bear den estagoki da niri erakustea, baizik ikastea. Erakusten du Tridentinoak itz grabeeki: ez litzake gaisto aipatzea aziarasteko errespeto andia munduan den gauzarik andiengarri, ta estakion niori iduritu anitz kuarto bat eterdi, ta naiz orduerdi bat ere zelebratzeko dignokiro. Baña niri dagokidana da erakustea nola bear den enzun. Len lenik ikasi bear da ezi den bekala zenbait egunes obligazio enzuteko meza, dela oroat ongi enzuteko, ta au entendatzen da suponiturik Jangoikoaren ta Elizaren mandamentu guzietan, in bear dena egitea ongi, ezperen litzake arimaik gabeko gorputza bekala, ta mamerik gabeko kaskilla, azal solla, iduri utsa, moneda falsua, ta alakoareki estela pagatutako ematen Jangoikoa da klaro, estelaik sinplea. Orgatik ez entzutea, obligazio delaik, den bekala bekatu mortale, da, alaber, gaizki entzutea, diot guzis gaizki edo zati notablean, ezi esten bekala baizik beniale ustea mezaren zati lebea, ala faltatzea debozioa zati lebean, edo desatenzio guti dena, solamente da beniale, zerengatik kunplitzen da obra bere substanzian naiz inperfekzioe zerbaiteki. Doktrina gau entendatu bear da, ez bere borondatearen kontra faltatzen delaik debozioa, eginik dilijenziak, paraturik intenzioa sinki ta medioak ez faltatzeko; alaere faltatzen baita esta orduan kulparik, baizik faltatzen delaik bere borondates, edo floxezas edo deskuidos. Itz bates, delaik bere faltas, orduan da kulpa ia edo gutiako konforme den desatenzioa. Eta emen da adbertitzeko ezi obligaziorik estenean entzuteko, estelarik kulpa ez entzutea, alaere entzuteraskeros da kulpa faltatzea erreberenzia ta atenzio gauzak mereji duen gartan. Exenplutako: Bere esku duelaik batek joan edo ez joan erregeren funzioe batera beraren presenzian, ez joatea esta kulpa, baña joanaskeros goardaraziko diote erreberenzia funzioeai ta erregei dagokiona. Ala emen errege andienaren funzioe sagratua da meza, presente dago bere majestadea, zure eskuan dago joatea edo ez joatea, diot asteregunean, baña entzuteraskeros, in bear da ongi; ta oroat diot gañarako deboziosko errezues ta gauzes. Jauna, beras, obeda ez entzutea meza, ez errezatzea errosarioa, ez itea prozesioak ta deboziosko gauzak? Diot ezi gauza goien egitea ongi, obe dela klaroki ustea baño, zeren ematen zaio Jangoikoai honra ta plazer, ta arimai probetxu; egitea naiz zerbait inperfekzioeki ere obe dela deus baño, ezi beti zerbait on gelditzen da. Baña ainberzekoa barin bada desatenzioa ta irreberenzia ezi piza dezan ia ezi gauzak balio duena, edo zerbitzu baño ia agrabio in dezon Jangoikoai, orduan baterez obeda; ala nola erregei asistitza, mintzatza, agur egitea on da, baña bidanabar ori beroi iten badu moldegaitz, itsuski ta anitz deskortesieki, naiagoko du baterez, alako zerbitzua baño. Ongi egitea da ala nola obra guzien arima. Ikasagun, bada, mezaren ongi entzuten. Ortako bear dugu grazia. O grazias betea Maria; orrek sollik asistitu ta zerbitzatu zio dignoki Jangoikoaren bere Seme Jesusi, bada, bera dugu mezan, Aitetama onen humea da, ta mereji du ongi tratatza ta asistitza; onen ikasteko erdetxi bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Estakiten bekala askok zer den meza sandua, estakite entzuten ere. Xakin bezate, bada, doazenek mezara dela au mundu ontan izan daiken gauzarik andien andiena, sakrifizio bat solemnea zeintan ofrezitzen baita Jangoikoai Jesu Kristo bera, ogi ardoen akzidenteen pean, bere majestadearen honratan, berritzen delaik misteriosoki beraren pasioa ta eriotzea. Nola entzunen da ongi? Asistitus presenzia korporal ta moralareki, diote teologoek. Presenzia korporalareki nai du erran egon bear dela presente gorputza elizan edo meza erraten den lekuan, edo bentzait urbil naiz atarian, estaikelaik ia, de manera ezi in dezan gorputz bat barnekoeki goartus zertan doaien meza. Esta preziso ikustea, eztaere aitzea zeilebratzen dagona, ezperen ez lezakete kunpli itsuek ta sorrek. Obe dela ikustea ta aitzea diote, baña ori erran bear du debozio ia edo gutiangoak. Batzuek ia debozio senti dute ikusis eta aituz; ala da obe aiendako. Berze batzuek ia debozio dute egones begiak ertxirik ta bildurik beren baitan; ala da obe aiendako ta libratzen dire anitz distrakzio edo gogoain arlotazio datoiznetaik beiratzetik. Presenzia moralareki nai du erran oroat nola intenzio, atenzio ta debozioreki. Intenzio ona aisa da aski dena, au da entzuteko meza sandua gauza bat sagratua bekala, zeñeki honratzen baita Jangoikoa. Esta preziso kunplitu naia elizareki. Atenzioa bear da exteriorea ta interiorea; exteriorea da gorputzaren aldetik geldi, ixil, modesto egotea, ta onen kontra da jardukitzea, enredatzea, arat onat beira egotea prezisoki estorbatzen baitute arimaren atenzioa. Alaber lo, errekostaturik ta berze edozein modu gaistos galtzea erreberenzia bear dena. Atenzio interiorea da arimaren edo gogoaren enplegaturik idukitzea Jangoikoaren gauzetan.

Zertan, bada, egon bear da pensatzen mezakoan, edo zer in bear da? Irur egotemodu edo mezaenzuteko manera erranentut, bata aski dena, berzea obexagoa ta berzea oben obena. Aski dena txustoki da asistitzea atento, naiz ez entendatus, baizik beiratus gauza gura gauza andi bat bekala, bere aldetik honratu naies Jangoikoa artan kristio-gisa. Alakoak daizke imajinatu an, ala nola Belengo portalean baizeude idia ta astoa erreberente beneratzen beren Jauna ganbela gartan; eta dezokete erran Jangoikoai ta edozeñek oroat, dagolaik etxakin zer egin, seko ta ezin deboziorik aurkitus, ut jumentum factus sum apud te, et ego semper tecum, baizio Dabidek (Ps. 72): Jauna, astoko bat bekala nago emen orren presenzian, ta alaere nik orreki nai dut beti; homines et jumenta salvabis, Domine (Ps. 35); gizonak ta astoak salbatukotu orrek Jauna. Eta gisaontan segi animatus bere burua honratu naiak Jangoikoa naiz ala. Ontara daike ellega errezatzea edozein orazio, dela Kredoa, dela Salbea, dela errosarioa, dela estazioa, dela examinatzea konzienzia, dela berze edozein debozio in daikena estorbatu gabe ikustea zertan doaien meza. Solamente konfesazea ta meza enzutea bateo estaike. Gañarako debozio estorbatzenestutenak atenditzea mezari, in daizke bidanabar, ezi elkarren aide dire debozio guziak.

Bigarren modua mezaren entzuteko da obexagoa, joatea akonpañatus zeilebratzen dagona, bentzait zenbait orazio ta gauza klaro aisenetan, egines guk ere gure aldetik ario gartara nola iten ere baitu sazerdoteak, au da, diolaik Confiteor Deo, erran guk ere, Ni bekatorea, Kredoa diolaik guk ere bai, ofratzean hostia ta kaliza ofratu guk ere, goratzean adoratu, Pater Noster diolaik errezatu Aita gurea, komekatzen delaik gu ere bai deseos, ta ala. Ikasagun modu gau egun, utziko dugu berze aldi bateko obena baita meditatzea Kristoren pasioan. Egun goazen akonpañatus zeilebratzen duena. Len lena beti mezara bañolen, pensa zoazila munduan den gauzarik andien andien era, zeñetan idikirik par en par zeruak, ta jautsirik Jesu Kristo berriro sakrifikatzen baita misteriosoki ta berritzen baitu padezitu zuenaren memoria. Ta ala kontu in zazu kalbarioko oianera zoazila ikustera

iltzen gurutzifikaturik gizon Jangoiko dena gizon bekariengatik. Bearbada onen kasos lengo eliza geienak iten zire aldapetan; bentzait aldareak gorago dire elizaren gañarakoa baño; mezak bentzait da zierto errepresentatzen duela Kristoren iltzea kalbarioan gurutzean. Konbeni da ellegatzea asibañolen meza prestatzeko arima. Sartubañolen elizako atarietaik alzina, despei munduko itekoak ta gauzak gogotik, nola ezpalitz berze itekorik munduan, baizik au, ta errealki esta berzerik ordu gartan guretako, eta nola balitz biziaren azkena ura, ura enzun ta il berla. Dezoke erran bere gorputzaren astoai ta sentidoei erran ziotena Abrahamek, igaterakoan oian gartara sakrifikatzer a bere semea Isaak bere mutilei: geldi zaizte zuek emen asto oneki, guk in bitarteko sakrifizioa. Duenak iagotako talento, dezake imajina aldarean dagola Moisesek ikusi zuen malda gura, sugarretan zegona ta ez erretzen. Banoaie zio ark, banoaie ikusadan bisione andi gau. Bazoeie ta Jangoikoak oiuegin zio maldatik: Moises, Moises, etzaitela ellega onara; edekizkizu oñetakoak, ezi zu zauden lur gau lur sandua da. Estali zue Moisesek aurpegia lotsatuain utses. O guk ere begis ikusi bagindez iten dena aldarean, zer lotsamentura! Sarzerakoan elizan daike erran Dabidek ziona: introibo in domum tuam etc. (Ps. 5); sartuko naiz, Jauna, berorren etxe sanduan, adoratuko dut bere tenploan beldurtasun onareki.

Sarturik ia ta armaturik gurutzearen señaile ta ur bedeikatuareki paraturik belauriko bere lekuan modesto, ixil, geldi, erreberente, gurt-eginik an dagon Jangoiko andiai, lenbizikoa beti bekala da egitea kontrizioaren akta gogotik. Berla erran dezoke: Jauna, aurki bez bere sierbo gonek grazia orren begietan, ta mintzatu natzaio nere Jaunai, naizelaik autsa ta errautsa. Berla bizturik fedea, animaturik debozioa Jangoikoagana, eskaturik grazia entzuteko meza ongi, bear dio ofrezitu bere aldetik Jangoikoai sakrifizio gura. Aski da gogos solamente erratea: O guzien Jangoiko Jauna, ofrezitzen diot nere aldetik sakrifizio gau fin gaietako, zeñendako fundatu baizue Kristok, ta orai ofrezitzen baitu elizak. Dezakenak edatu ia, erran bezo: Jauna, ofrezitzen diot sakrifizio gau, zeintan berritzen baita Kristoren pasioa ta eriotzea, beraren memoriatan, ta berorri plazer, graziak ta honra emateko, Maria Santisimari egiteko obsekio, aingiruei ta sanduei añaditzeko gloria, purgatorioko arimek emateko sufrajio, mundu guziai erremedio, bekatariei barkazio, justoei graziaren aumentu, gure bekatuen penengatik satisfakzio, ta erdexteko beartugun guziak arimain ta gorputzain, logratzeko kontino Kristoren pasio ta eriotzearen fruituak. Itz bates, gauza gaietako guzietako, zeintako utzi zuen Kristok ta ofrezitzen baitu Eliza Ama Sandak. Berexki eskatzen diot meza gonon medios au ta au, berorri ongi iduri bazaio. Nainuke enzun alikako obekiena, ta nola nai duen orrek ta Eliza Ama Sandak entzun dezaten. Fabora benaza nere Jangoiko Jauna; kida benaza eskutik Jesu Kristo ene redentorea; akonpana benaza ene Ama Santisima Maria; goarda benaza ene aingiru goardiakoa; sanduek eta sandek lagun bezadate, emateko Jangoikoai plazer ta gloria, ta nere arimai erregalo ta probetxu guzia. Amen.

atrizen delaik sazerdotea errepresentatzen baitu Jesu Kristo, kontu atratzen dela Kristo bera. Mezaren astean zeñatu sazerdoteareki, ta erran, Ni bekatorea etc. Edo Jesu Kristo ene Jauna etc. Igaten delaik aldarera kontu doaiela Jangoikoaren alzinera mintzatzera mundu guziaren partes. Segitu eskatus barkazio ta miserikordia gloriarano. Gloriakoan lauda zazu Jangoikoa zeure gisa. Orazioetan eskatu zuk ere eskatzen duena sazerdoteak. Leitzean epistola ofrezitu kunplitzea manatzen dizuna gure Jaunak bere legean ta doktrinan. Ebanjeliora txutitu presentatzen zarela bekala Jangoikoai animoso, prest sinestatzeke, segitzeko ta defendatzeko etsai guzien kontra beraren fedea ta honra, naiz dela biziaren kostus. Kredokoan errezzatu zeure euskaran Kredoa atenzio ta debozio

onareki. Ofratzean hostia ta kaliza, ofrazkiozu zeure aldetik zuk ere zeure arima ta gorputzareki bateo. Garbitzentuelaik eri-mokoak eska zuk ere garbi zaizan guzis, de manera ezi ongi iduri dezazun Jangoikoaren begietan. Orate fratres diolaik, egizu orazio eman dezon Jangoikoak bere ministroari grazia ongi egiteko lan gura, ta zeurorri ongi asistitzeko zerutik etorko den Jaun garren presenzian. Santus asterakoan goratu bear da gogoaz zerura, nola an kantatzen dioten guzien Jaunari, nai zindukela zuk ere honratu Jaun andia. Memento lenbizikoa da biziengatik, ta ura da garaia eskatzeko Jangoikoai bere buruagatik, Elizagatik, bere urbilekoengatik, ta estado guziengatik. Bakotxa injenia daike eskatzera zer ta nola nai duen, bere gisa. Nai duenak nere gisa, nik ala iten dut. Lenbizikoa, enkomendaturik arima edo gauza, zeñendako aplikatzen baita meza, segi ala guti gora bera: Jauna, bere Seme Jaun Jesu Kristo sakrifikatzenagatik emen, oroi bedi, otoi, nitas. 1^a, eman bezada nere bekatu guzien barkamentu osoa ta grazia berorren begietan de manera ezi nik kuadra dezoten berorri ta orrek sollik niri; ori nere, ni orrena beti. 2^a, egin benaza bere biotzaren neurritza guzis, arima ona, biotza noblea, gorputza obediente doi-paratua orren borondatearen konforme, arimaren ta gorputzaren fakultadeak bear bekala, memoria firmea, entendamentua klaro, borondatea txuxen, sentido guziak habil orren zerbitzuko. 3^a, atra, urra, edeki bezkida pasione, bizio, inklinazio ta kondizio gaisto guziak, ta planta bezkida ta azi enebaitan sendoki birtuteak, humildade bat sina ta egia skoa zimendu bekala on guziaren. Alaber arimaren ta gorputzaren kastidade perfektoaren donoa aingiru baten gisara; alaber karidade ta amorio andi bat berorregana, maita dezaten ori sollik guzien gañetik; alaber pazienza ta serenidade bat inalterablea; baitare fede bizia, esperanza sana, kontrizio perfektoa, proposito konstantea, ferbore kontinua, prudenzia, justizia, fortaleza, tenplanza, zelo ardientea, orren beldurtasun hume onarena, biotzaren alegria ta ase orren baitan, munduaren desprezio osoa ta gañarako beartudanak. 4^a, eman bezada grazia efikaza ez dezaten ofendi deustan, baizik ere bai plazer egin guzietan, onetsi dezaten, obra dezaten ta padezi dezaten orren zerbitzutuan. 5^a, bida, otoi, grazia finala ta perseberanzia beti mantenitzeko orren grazian, bizian ta iltzean. 6^a, azkenean eman bezada leku bere sanduen konpañian glorian. 7^a, alaber eman bezada konbeni bada au ta au; bakotxak zer nai duen espezialki. Oroi bedi, Jauna, nere aidees, adiskidees ta obligazioskoes etc. Ta bakotxak aipa dezazke zein naituen enkomendatu. Oroi bedi nere etsaies ta eman bezote anitz grazia, bedeizio ta ondasun zerutik. Oroi bedi Eliza guzias, Aita Sanduas, obispoes, arimen kargudunes, sazerdotees, errelijosos ta eliza gizon guzies, izan daizen sanduak nausiaren ariora bere ministroak, ta sandu dezkiten berzeak. Oroi bedi erregees, prinzipes, justizies ta superiore jenero guzies, zerbitza dezoten berek berorri, ta berzeak zerbitzarazi. Oroi bedi estado guzies, birjines, alargunes, ezkondues, justoes eta gaistoes, guzietas, eman bezote bear duten guzia etc. Berexki oroi bedi emen presente gaudenes. Paratu dut ala mementoa, ez ain txusto iteko ala, baizik bide emateko nola dezaket in bere gisa. Memoriaindako: lenik bere burua ta persona, ontan arimarena len, gero gorputzarena; gero bere propioak ta obligazioskoak; gero etsaiak ta kuido ez atzendu ontas; gero eliza-gendeas; gero superiorees; gero estado guzies ta naituen persones. Aisa daike enplea denbora gura gisa ontan.

Konsagraziokoan biztu fedea itz gaien birtutes jausten dela Kristo bera, animatu biotza, mogitu afektoak, admirazioa, humiltasuna, agradezimentua, amorioa Jaun garregana. Goratzean hostia ta kaliza adoratu biotzaren indar guzieki ta gorputzaren erreberenziaeki. Ondorean da egotea debozio guziareki bat, nola pobretto bat dagon dagolaik presente errege bere kortearaki. Emen, emen bear dire itxei arimaren afektoak

axuri dibino garren alde. Emen nai duenak in dezazke fede, esperanza, karidade ta kontrizioaren aktak. Emen amorioa, eskerrak, laudarioak, bibak, baitare otoitzak Jaun garri. Bigarren mementoan, baita ilengatik, dezake akonpaña sazerdotea eskatus arimen fabore, lenik buratsoen, aideen ta obligazioskoengatik; gero adiskide, ezaun, leku ta adinkide izanengatik; gero bearrago direnengatik ta naituenengatik, aipatus nor ta nor nai duen ermandezazkien gloriara gure Jaunak. Nobis quoque peccatoribus diolaik, erran, Jauna, guri ere bekatariei berorren miserikordietan esperatzen dugunei in bezagu leku bere sanduen konpañian, ez guk merejidugunagatik, baizik bere ontasun infinitoagatik. Pater noster diolaik, erreztatu gogotik Aita gurea. Ia emendik alzina prebenitu komekatzeko espiritualki edo deseos. Egin kontriziosko akta finki. Eskatu barkazio humilki diolaik Agnus Dei. Artu deseo ta ansia andia, balitz bat digno, errezibitzeko biotzaren erdian Jaun andia ain txipi egiten dena guregatik, axuri dibino, manso, inozente, amable gura, aingiruen erregalo gura, zeruko ogi bizia Ama Birjinaren bularretako esneas oratua, erranes biotzaren ondarrean itz gebek edo berze alako batzuk: O Jesus dulce maitagarria, nor litzaken digno orren errezibitzeko bere baitan? Nork luken sanduen garbitasuna ta Ama Birjinaren disposizioa admititzeko berori biotzean besarka ertxi, sekula desegin ez leiken bateki? Erran sazerdoteareki: Jauna, libra benaza nere erruintasun guzietatik bere gorputz ta odol sandu geben atenzios, ta egin bez nagon beti firme orren mandamentueki, ta ez nadien aparta beñere orrenganik. Gero erran humilki irur aldis: Jauna, ni ez naiz digno orren majestadearen errezibitzeko, baizik solamente erran bez itzes, ta nere arima izain da sana ta salba. Gero errezibitu deseos, au deitzen da komunione espirituala; gero eman Jangoikoai eskerrak, ta errezibitu belauriko ta kurturik Jangoikoaren bedeizioa; ta azken Ebanjeliora txutiturik ofrezitu berriro defendatzera ilartaño Jangoikoaren fedea ta legea. Ondorean erran: Biz alabatua ta bedeikatua aldareko sakramentu sandua; ta eman nolapait eskerrak eskatus ellega zaizan ematera bere glorian. Orra nola daiken enplea mezaren denbora prezioso gura, barin bada Jangoikoaren ta bere arimaren amoriorik. Bada, arrazio da izatea amorio Jangoikoai, ta Jangoikoai dionak, dio bere arimai. Badiogute amorio; baña nola? nekerik gabe nai ginduke. Nor da ezliokenik egin nai plazer Jangoikoai? Baña bateo nai liokete egin bere buruai. Nor da naiezluzkenik Jangoikoaren erregaloak ta ondasun datozinak aldareko mai gartaik? Baña bateo nailuzkete gorputzaren aisurak ta gustoak. Nai lukete zerbitzatu Jangoikoa ta tiratu zerbitzatzeuntenen soldata, baña lanik ez, bortxarik ez. Nai lukete Jangoikoaren adiskide, baña bateo munduaren, demonioaren ta aragiaren ere bai. Bateo Jangoikoa ta mundua estaike; bateo Jangoikoa ta demonioa estaike; bateo Jangoikoa ta aragia estaike. Bat edo berze autatu bear da berex, ta erresolbitu neke zerbaitetara Jangoikoagatik ta arimagatik. Zer uste duzie zerbitzatzen diotenak etsaiak direla beti aisa ta naigaberik gabe? Ez. Bada, zerbitza Jangoikoai baita nausi ona, neka daike zerbait Jangoikoagatik, logratzeko beraren grazia emen, ta gero an anitz gloria. Amen.

Sermo XVII:

De tertio et optimo modo
audiendi missam

Humiliavit semetipsum factus obediens usque ad mortem,
mortem autem crucis. Philip. 2.

Zer lastima, asko ta asko kristioek ezpaitakite zer iten den ta zer in bear den meza! erran dugu dela meza sakrifizio bat, zeintan ofrezizen baita Jesu Kristo ta bere pasio ta eriotzearen memoria ta errepresentazio bat bizia berak presente egiten duena, de manera ezi Jerusalem agitu zena berritzen da aldarean, sakrifizio berbera, ofrezizen duena berbera da angoa ta emengoa, moduan da diferente, ezi an izan ze agerri ta doloreeki, emen estalian ta doloreik gabe, baña oroat da substanzian. Ala delaik, zer gisas daike asisti obeki, nola erreparasatus gogoan pasio doloresko gura, zeintas oroiarasten baikaitu Kristo berak meza? Au da entzute-modurik obena. Goazelaik, bada, elizara entzutera meza, kontu goazela Jerusalem ta Kalbarioko oianera ikustera padezitzen ta iltzen Kristo gure Jauna prebenitzea aldarea, misala, kaliza, ornamentak; kontu dela prestatzea sokak, azoteak, gurutzea, itzeak, lantza ta berze instrumentu doloreskoak. Humillatu ze Jesus obediente eginik eriotzeraño ta gurutzeko eriotzeraño; dio San Pablok: Ikusazu aldarean axuri dibino gura bera obediente, humil; kontu ikusten duzula paraturik gurutzean. Irur gisatara daike in meza pasioaren memoria: edo segitus gogoareki estazioak ta pausuak banaka meza misterioen arioren, batean au, berzean ura, ta ala segitus errenkadan; edo ori gabe pensatus pasio guzian, meza-bitartean, lotu gabe orai au, orai ura, baizik sueto detenitus noiz ta zertan nai duen; edo solamente pensatus pausu batean edo bitan meza guzian, eta modu gau da aisago ta protxugarriago. Baña irurak erakutsi naitut laburki. Gure Ama Santissima penas, beterik egon zena gurutzearen aldakan, bigu ango misterioak ongi pensatzeko grazia. Abe Maria.

(Lenbiziko modua pensatzeko pasioan segitus pausuak loturik meza misterioeki, orai au, orai ura, latz da ta esta bear; baña dezakenak ala ta nai duenak, prestatuak daudelaik ia mezarako gauza guziak, dezake pensa nola prestatuzusten judioek ministroak, armak, sokak, linternak iteko preso gure Jauna. Atratzean sazerdotea sakristiatik aldareain beitiko gradara, Jesusen atratzea zenakulo gartaik Jetsemaniko baratze gartara. Erratean kurturik confiteor Deo, Jesusen egote gura auspeska orazio egiten ta odoles izerditzen. Igatean ta apatzean aldarea, Judas traidoreain alzinatze gura, ta apatzea Jesus preso egiteko señaile bekala. Doaie librura, pensa daramatela Jesus preso Jerusalem. Leitzen du introitoa, pensa mintzatzen dela humilki Jesus Anasen etxean ta ematen diotela bofetada inhumano gura. Irur aldis Kirie eleison errepitetzean, pensa irur aldis ukatze gura San Pedrok bere maestru dibinoa. Itzultzean Dominus vobiscum, Jesusen beiratzeta barkatzeta piadoso gura San Pedroi. Leitzetan orazioak ta epistola, akusatze gura preso inozentea Kaifasen alzinean. Pasatzean aldare erdira, andik joatean Ebanjelioko alderdira, andik berriz itzultzean erdira, pensa Jesusen eramatea lenik Pilatosengana, andik Herodesengana, andik berriz Pilatosengana. Agertzean kaliza ta hostia, ta ofratzean, pensa Jesusen buluxte gura azotatzeko, ta beraren ofrezitze gura pena andi gartara ta nola azotatu zuten kruelki arrigarri. Estaltzean kaliza, nola koronatu zuten arantzes burlasko errege-gisa, dena erregeen errege egiaskoa. Garbitzean eskuak, nola Pilatosek deklaratu zuen

inozente kulpa gabea. Orate fratres erratean, Pilatosen erran gura, ecce homo, ona gizon au. Orazio, prefazio ta santusean, judioen erreplikak Jesusen galtzeko ta Pilatosen emate gura sententzia iltzeko gurutzikaturik axuri inozentea. Sagra bitartean Kalbariorako bide penasko gura ta gurutzean joste gura irur itzeeki esku-õñetaik. Goratzean hostia, nola goratu zuten gurutzearekin ta nola zegon dilindaka Jesus ona arbola go gor gartan. Goratzean kaliza, nola zerion odol sagratua gorputz dibino llagatu gartaik ainberze. Ondorean pensa nola egontzen irur ordus bizirik gurutzean, erran zituen itzak ta eraman zuen agonia penatua. Gero hostiain partitzean, arimaren atratze gura, gelditzen zelaik ilozturik gorputza. Komekatzeraño, lantza da eman zioten gura il ondoan, ta odol ta urain atratze gura kostadoko lлага gartaik. Komekatzean, gorputz dibinoaren ortzitzea obia gartan. Garbiturik, kaliza estaltzean, Jesusen erresuzitatzea biktorioso. Dominus vobiscum ta orazioetan, Jesusen agertzea erresuzitaturik ta mintzatzea bere Ama Birjinai ta Santa Magdalenai ta apostoluei. Erratean berritz (sic) Dominus vobiscum ta ite missa est edo tokatzen dena, Jesusen despeida mundu gontaik ta igatea zerura. Bedeizioan, Espiritu Sanduaren bialtzea apostoluei. Azken Ebanjelioan apostoluen predikatzea munduan ta fedearen barratzea alde guzietara. Ebek dire pasio sanduaren meditazioak errepertiturik mezaren misterioetan; baña leitzen estakienaindako neke da segitzea orden gau erran bekala, ta ez ain protxal, zeren estaike ala berotu biotza ainberze okupatus memoria ainberze gauzetan).

nai duenak dezake, segitu gabe ordengoi, pensatu mezan asi ta bukatu arteo Jesusen pasio guzia, nola lenik fundatu zuen gau gartan mezaren sakrifizio miragarria; nola gero despeitu zen bere Ama Santisimaganik; nola orazio egin zuen odolesko izerdiareki aflikzioaren utses baratze gartan; nola Judasek eman zion apa traidore gura, ta lotu zuten preso ta eraman zuten indignoki Anasen etxera; nola an eman zion batek bofetada kruel gura; nola andik eraman zuten Kaifasen etxera; nola ukatu zuen irur aldis San Pedrok beldurrak; nola ezin konpondus akusazio itxura-onekorik, tratatu zuten emanka, listuka, irri ta eskarnio-jenero guzieki, bendatus begiak, erran ta egines mila maldade; nola utzi zuten loturik kalabozo ilun zikin gartan, ta berritu zizkioten injuriak ministroek; nola biramon-goizean bildurik judioek, ta presentarazirik alzinean, eraman zuten presentatzera Pilatosen tribunalean; nola onek ezin aurkitus kausarik kastigatzeko, ta ezin errehabatus judioeki, biali zuen Herodesengana; nola onek tratatu zuen ez gaixto bekala, baizik ero bekala; nola bi juezek inozente deklaratuaskeros, alaere azotatua izan zen inpioki borz milla ta ia azotukaldis; nola utzirik giza-itxuraik gabe, koronatu zioten burua arantze zorrotzesko uztai bateki, ta inguraturik purpura zatar bateki ta paraturik eskuan kana bat zetro-gisa, jokatu zuten irris, eskarnios, injuries, golpes, burlasko errege bekala; nola Pilatosek atra zuen balkonera itxura gartan, ta alaere oiuiten zioten: kruzifika bez, kruzifika bez; nola anitz aldis deklaraturik juezak etzuela aurkitzen kausarik, alaere eman zuen sententzia ilarasteko eraman bear zuen gurutzean; nola paratu zioten gurutze pizu gura soñean; nola pregonatu zuten sententzia; nola zoeien erorka; nola aurkitu zuen bere Ama Santisima bide gartan, ta gañarako agitu zena; nola biluzirik edarazi zuten ta josi zuten gurutzean irur itze andi gaieki; nola goratu zuten; nola egontzen irur ordus õñaze inkonparableeki akabatzen; nola mintzatu zen Jangoiko Aitai, barkazio eske judioendako, ta berze itz gaiek; nola azkenean iltzen Jangoikoaren Semea, Jangoiko ta gizon dena, zerukoan ta lurrekoan errege soberanoa, kulparik in ez ta in ere etzukea, guregatik, guregatik, guregatik.

Au guziau daike konsidera meza bakotxean, baña nere ustes sopra da, ta ala obeki

iduri zaida irugarren modua, baita meditatzea pausu bat edo bida prinzipalena, edo bein bat, bein berze bat, akonpañatus biotzeko afekto bizi ferborosoeki. Exenplutako (ta ez enfada aipatzeas ainberze pasio sandua, ezi da arrazio frinkatzea biotzaren ondarreraño Jangoikoaren exzesu amoriosko gura, atzenestaiken gisan ats arzen dugun bitartean). Bein, bada, nai bauzu, Judasen traiziatze gura, nola izanik apostoluetaik bat faboratua, doktrinatu, erregalatua Jesus onaren ta bere Ama Birjinaren konpañian, konbersazioan ta maiean, egin ondoan milagroak ere Jesusen birtutes, ellegatu zen saltzera ain itsuski; nola Jaun dibinoa ori zekielaik, berari erran ziolaik gau gartan berean ere, joan zen leku gartara, ta ez berze noranai; nola apostolu infamea eginik gaixtoen alزندari ellegatu zekion ematera apa falsu gura Jesus onai entregatzeko; nola Jesus onegiak etzuen apartatu aurpegia; nola admititu zuen ain manso; nola erran zion emekiro: Adiskidea, zertara etorri zara? apa baten medios entregatzen duzu Birjinaren Semea? Nola utzi zen egitera preso; nola lotu ta eraman zuten erdi arrastaka indignoki, axuri inozentea ixil sereno zoeiena. Ongi pensaturik au, berla sortuko dire biotzean afektoak, ia beldurtasuna, zer izan daiken zutas, ikusirik Judasena, ta errain diozu: Nere Jesus dulzea, nik ez nuke nai traiziatu, ez por zierto; lenago galdu bizia. Baña zer da persona aragiskoa? Posible da traizia dezaketela nik oraño bekatu mortallareki? Nik berori? Posible da, ta aisa ere, usten banau. Ez nazala utzi, otoi Jauna. Ia etorko zaizu Jesusenganako amorioa ta konpasionea, Jauna, zer kulp du berorrek? Zer in diote Judasi ta judioei? Gaizkirik ez, baizik onki anitz. Alaere ain nola gaizkigillerik andiena tratatzen dute! Nola estu debekatzen? Nola estu usten ilik oñetan Judas gaisto gura? Ah ene Jesus, nor leiken joan preso orren partes? Ia itzulirik zeuregana begiak, etorko zaizu bekatuen sentimentura, ta negargale diozula: Judas traidorea, adiskide-idurian saltzen Jangoikoa! Ni naiz Judas gura, kristio deitzen, Kristoren eskolan ikasi, Kristoren gorputz preziosoas alimentatu ta berze asko mertxede errezibitu, ta alaere ofenditu! O itsutasuna! Nere entendamentua non zina, itzuli nitzalaik nere Jaunaren kontra? Nola deus ezpaltiz? Ia gogoratuko zaizu pazienza, zertas naike ni kexa, ikusirik Jesus axuri inozentea ala trataturik? Ta bere diszipulo baten medios?

Berze bein dezakezu konsidera azoteen tormentu gartan. Nola arrapaturik Jaun dibinoa berdugoek, au da, axuria otsoek, eraman zuten moldegaizki patina gartara alegranzia arro bateki. Nola biluzirik lotu zuten pilare bateki eskuetaik. Nola asi ziren deskargatzen golpe ta golpe indar guzieki; ikuskouzu ia markaturik ta ubeldurik gorputz birjinale gura, formatu den ederrena, ia idikitzen lllagak alde guzietatik, ia jariten odola irraka, ia egiten an emenka balsak, ia erorzen aragi-zatiak, ia agertzen kostillezurak. Aitukotuzu bitarteo endemoniatu gaiek mostratzen ta erraten furiak, erronkak, blasfemiak Jesus onegiaren kontra; beiratuko diozu aurpegira, zein itxuraik gabe ia, ta zein ixil sereno! oroituko zara zer Aita eta Amen humea den, nola bide dauden aiek bitartean, ta aingiruak arriturik. Nai ezipazindu ere, mogituko zaizu lastimaren afektoa beragana; berla ira bat bekala berdugo gaien kontra, baña itzulikouzu zeure kontra, pensaturik zu zaradela kausa. Ellegatuko zara humil humila ta errain diozu: Ai ene Jesus amorosoa, orrek ainberze pena, ta nik izaki kulp! Ask da, Jauna, ask da; goardatuko naiz egitetik ofensarik berriz. Ezdezala permiti, ezdezala utzi galtzera nere arima ain kario kostatu zaiona, eta ala etc.

Berze bein dezakezu pensa gurutzeko tormentuan, ermate gura bere soñean, etzite gura zur gartan, frinkat ze gura esku oñetaik, itze andi gaiek zurain kontra malluen golpeeki, goratze gura airean dilindaka irur itze gaien menea, egote gura akabatzen penas, mintzatze gura etsaien fabore lenik, gero bere amai, gero berze itzak, iltze gura eriotze

infame doloroso garreki Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Semea, jaio diren guzien sandu, inozente, eder, amableena. Aisa da, au ongi pensaturik, biztea afektoak, ia konpasionea, ia admirazioa, ia amorioa, ia kontrizioa ta propositoak, beiratus noizean noiz aldarera, dagolaik an axuri ain gaizki tratatu zutena bera. Mintzazakizkio lastimaturik biotza, Jauna, da posible orren gain erori bear zutela gaixtoen pena guziek? Gaixtoak libre ta ori il aiengatik? Berori ofenditua, ta berori ofendizaleen onagatik akabatzen gisa gartan? Zuzkelaik kastigatu aiek, ta berori gelditu libre? Nork estu onetsiko Jaun bat ain ona? Delaik ain ona gureki, gaixtoak garelaik ta ofenditzen dugulaik, zer litzake onak bagina, ta ezpagindez ofendi? Jauna, itze gaieki josi bez nere biotza orreki, dagon ilartaño.

Daik, oroat, enzun ongi meza, Ama Birjina-egunetan espezialki, meditatus beraren pena ta doloreetan, nola zegon aldakan aitzen malluen golpeak; nola ikusten zuen bere biotzeko prenda beterik penas ta ezin alibia; nola partitzen zekion biotza mintzatzen zelaik gurutzetik ilzerakoan; nola erorzen zekizkion odol tantak buru gañera; nola il zekiolaik bere bakarra gelditu zen ain soil ta triste, nola faltaturik iruzkia mundutik, eta ia ere; nola ikaratu zekion Amari biotza, idiki ziotelaik Semeari lanzas bularra; nola jautsi zuten gurutzetik gorputz dibinoa; nola artu zuen bere besoetan ain llagaturik, ain itsusturik, ain arras mudaturik bere Seme onetsi ona, ainberze kuidadoreki azi zuena. Zer biotzaren ansiak, zer begietako nigarrak, zer aiotsak ta itz lastimagarriak! Estaike baizik beraxtu biotza ongi pensaturik au guziau. Mintzazakizkio afektoeki ala Amai nola Semeai.

Bitarteo ez geldi pensatzen solamente pena izan zituenak judioenganik, pasa ikustera orai ere iten zaizkion ofensak, zeintas baitio San Pablok dela ala nola berriz kruzifikatzea bere majestadea (Hebr. 6). Ori iten diote ez solamente judioek, baitaere jentilek, baitaere herejeek, baitaere kristioek, ta agian sazerdoteek ere. Pasa konsideratzera sakramentu andi gartan iten zaizkion ofensak. Ia ez dezake padezitu, estaike il berriz; baña kristio gaixtoek iten diote inala, xakinik kruzifikatu ta il zela bekatuengatik, alaere iten baituste bekatuak, nola ontzat eman balezate Kristoren iltzea. Lonjinosek etzio kausatu oñazerik lanza garreki, zeren orduko ilik baizego Jaun dibinoa, baña edozeñi iduri zaio akzione indignoa ura. Gisa gartara da kristioek ofenditzea ilaskeros guregatik (sazerdoteenas estiot deus, baizik erranestaikela. Lenbiziko sazerdoteak zire apostoluak, aietaik batek traiziatu zue. Maldade lotsagarria! Baña baldin arrek berak gero, azotatzan zeukatelaik Jaun dibinoa, joan ta edeki balio berdugo bati eskutik azotea, ekarrak onat, ta asi balitz ematen bere indar ta errabia guziareki; edo oroat kruzifikatzerakoan, arturik mallua esku bates, itzea berze bates eskuan edo oñetan, jaintsirik apostolu-gisa, nor ezleike irrita? Posible ze orduartaño ixil egon zen axuri dibinoak, orduan desapega zezkien ezpañak errateko, tu quoque, fili mi? Zuk ere bai, ene humea? Bada, kruzifikatzea berriz bekala barin bada bekatu mortale egitea, au sazerdoteak egitea da nola apostoluak kruzifikatzea). Eta zer diogu sakramentu gartan iten zaizkion injuries? Proprioki dela diona San Pablok (Hebr. 10): Ostikatzea Jangoikoaren Semea, ta oin petan ibiltzea beraren odola. Ala nola eraman bazinduzate batek azotatu zuten lekura, erakutsirik ark: Tori, au da lekua, ona odol balsak, zu asi bazina oinkatzen; edo eramanik Kalbariora jautsi ondoan gorputz ila, erranbalizu: Tori, au da Jesusen gorputza, zuk tirabazindezo ostikoa. Bada, fiela, emen erraten dizu Kristo berak: Au da nere gorputza, au da nere odola, ta ez ilik ia, baizik bizirik ez iltzekotan berriz. Zer ai zara injuriatzen duzulaik emen berriz? Au baita bigarren pasio ta eriotze-gisa judioena baño sentigarriago dena, ongi beiraturik; zerengatik agitz sentitzeko delaik pasio ta eriotze gura, konsolatzen bekala gara, ikusirik artaiek etorri zen probetxua munduai. Baña zer probetxu dator ultrajatzetik bere

sakramentuan? Au da pena konsolu gabekoa. Pensa ongi mezakoan padezitu zuena len, ta sufritzen duena orai, ezi paratuko zaizu biotza desaogatu naiak afekto-gisa gebetan; Jesus on amablea, zer porfia-mota da au, orrek in bear diola ongi len ta gero gizonai, ta gizonak orri ofensa beti! Ezpalitz bekala aski padezitzea ta iltzea bein, egunoro berritzen gure erredenpzonearen obra andi gura, eta guk alaere ez onesten, alaere ofenditzen! Berorren onegi izateas arzen dugu eskaida ofenditzeko ia. Agian gindeizke atrebi ofenditzera ainberze, kastiga balezki ofensak mereji bekala? Nork estorbatzen du? Bere ontasunak. Gure fabore ori beti, ta gu orren kontra? Axuri dibinoa, zein malamente den ofenditua? Ez, ez ia ofensarik, baizik onetsi ta zerbitzatu berori indar guzieki, nere Jaun dibinoa, ellegatu arteo eskerrak ematera berorren glorian.

Serm. XVIII:

De primo effectu missae,
eucharistia et reali praesentia

Et ecce ego vobiscum sum usque
ad consummationem saeculi. Math. c. ulto.

Itsasoan nabegaturik anitz legoa, beti gelditzen zaio nabengateari berze anitz nabegatzeko ia alde batera, ia berzera. Kanpo bat zabal dibisa-ala ta ia balitz enpedraturik diamantes, topazios, esmeraldas, rubies ta diren perla mota guzies, naiz joanik atratzera bat autatus obenak, autaturik eta bildurik ere asko, beti gero ere beira balez atzerat, ikus lezazke anitz gelditu zaizkiola exzelenteak, deseagarriak. Arbola bat esta, baña balitz lurretik zerurario gora, ta barratzentuen bere arramak mundu guzia barna, alde guzietatik lores ta fruitus den guzia bete betea, naiz bildurik al guzia batek anitz egunes, gero ere geldilekioke zer bildu arbola gartan. Botika bat balitz irur laur lekoa-bide luze, ta zabal berze ainberze, estantes edo tokis estalirik pareteak, basos ta erredomas estanteak, ta aietan munduan diren erremedio-mota guziak, naiz joanik artifize bat explikatza aien birtuteak ta ondasunak egun bates, bidas, ogei ta berrogeies, ta iagos ere, beti itzuli leike etxera utzirik zer edo zer explikatu gabe. Balitz... Baña zertako ia konparazio? Aski dire ebek adiarasteko nautena, baita meza sanduaren gain ia erranik ere ez nik, baizik kerubin batek ere, beti bear dela gelditu labur, gutiago dela erranikakoa, anitz ia erran gabekoa; zerengatik da meza sandua nola ondasun espiritualeen itsaso andia, Jangoikoaren marabilen preziosidadees eraikirikako kanpo inmensoa, arbola miragarria fruitus betea lurretik zerurario, botika dibinoa bizitza sekulakora erremedioak abasto dakarzkiena, obra bat zeñen fabrikatzeko apostus bekala inala in baizute Jangoikoaren podorioak, amorioak, xakintasunak ta aberastasunak. Obra bat ainberze balio duena nola Jesu Kristo berak, ezi Jesu Kristo bera dugu presente mezaren medios. Mezaren sakrifizioa eginik, gelditzen da sagraioan sakramentua, baita hostia konsagratua, ta ontan Jesu Kristoren prezentia erreala, ez egun bateko, ez urte bateko, ez anitzetako, baizik guzietako munduau akabatu arteo; ecce ego vobiscum sum omnibus diebus etc.

onen gañean dugu egun mintzatzea. Sakramentu gau deizen da eutxaristia, gure euskaran grazia ona, ezi grazia ongi ona ta sines ona iten digu presente gureki egoteas modu admirable gartan. Ezi au da egi eta fedea, konsagrazioko itzen birtutes destruiturik ogiaren substantzia, paratzen dela akzidente gelditzen direnen menean Jesu Kristoren substantzia, ain erreal nola baitago zeruan, naiz berze modu batera an. Da, alaber, egi eta fedea, konserbazen dela beraren prezentia sakramentu gontan, konserbatzen diren bitarteo akzidente gaiek galdu gabe, eta Eliza Sanduak duelaik kuido berritzeko aldiska beti; beti daukagu presente Jaun ona faltarik gabe, aliketa juizio-eguna datorren arteo. Da zierto ezi falta baledi sakramentua, edo konsumituagatik edo gerra edo hereje edo desgrazia zenbaitengatik, falta leikela Kristoren prezentia leku gaietan. Baña nola au ezpaita agituko leku guzietan bateo, baizik munduaren akabanzaren desgrazia gartan, ordurario da seguro egotea gureki Kristo munduan ain errealki nola zeruan. Aski berak emanikako itza: et ecce ego etc.

Mertxede gonon andia aipatzeko ta estimatzeko bear bekala, orrek Maria gozatu zuena ta ekarri diguna iruzki obenaren prezentia, eman bezagu, alaber, ezauntzeko ta

estimatzeko ta baliatzeko grazia. Abe Maria.

Zer litzake munduas ez izatera iruzkia? Ilunbea guzia ta tristura. Bada, iruzkia baño ia da iruzkiaren Jauna eta Jabea. Zer litzake gutas ez izatera beraren presenzia ta konpañia? Desanparo ta deskonsolu utsa. Ala asten naiz progatzeko dugun ondasunaren andia Jesus gureki izatean, ezpaitaie ezaundu obeki nola ikusis falta inenligukena. Egon ze mundua Jaunonen presenzia gabe zenbait milla urtes; baño seguraturik etorriko zela, ta esperanza goneki tenplazten ze lengo patriartxen, profeten ta justo guzien deskonsolua; alaere etzire baizik aien deseoa, ansiak, suspiroak ta otoiak zetorreatatik len baño len. Ojala idiki balezki zeruak ta jautsi baledi, ziote bein (Isai. 64). Berze bein: igorri bez, Jauna, bere axuria munduas dominatu bear duena (Ib. 16). Berze bein: Zeruak igorri zazie, intz preziosoa gañeko aldetik, ta lañuek erauntsibezagute justoa, idiki bedi lurra, ta ekar bezagu Salbadorea (Ib. 45). De manera ezi ze ta deizen ze deseatua jende guzienganik (Aggai 2). Bada, nork erran Abrahamen senoa zeuden sandu gaien deseoa ta klamoreak, zetorreatatik guzien librazalea? ellegatu ze noizbait ere denbora, jautsi baize zerutik ta jaio baize Birjinaganik Jaun au, kantatu zutelaik aingiruek gloria Jangoikoai ta bakea borondate oneko gizontei. Bizitu ze ogei ta amirur urtes, portatu ze Jangoiko ta gizon zen gisara Palestinako alde gaitan; eta gañarakoek? Aitu, bai, beraren doktrina, baño ez ikusi majestadea. Zer biotzeko mina bide zute urrutikoek ez ikusias, xakin zutelaik gero, Jangoikoa gizon eginik ibili zela munduan aien denboran? Zer bide, zer neke etzute artuko, xakinik egia, ellegatzeagatik ikustera, tratatzera ta komunikatzera Jangoiko humanoa? Baña azkeneko iltze guziendako, ta itzuli ze mundutik zerura. Zer tristura ta deskonsolua ordukoek gozatu zutenek beraren konpañia? Esta mirik explika dezakenik. Bada, ondorekoek ezaundurik gauzaren egia, zer ansia ezin gozatuas? O, erran dezakete, jaio bagina gu denbora gartan? O! iraundu bazue bizirik gure denboraraño? Tratatzeke aurkez aurke ta agos ago zeruetako Jaun berareki? Erregek utzirik beren koronak, diote joainlirazkela beraren paje ta mutil; Aita Sanduek zerbitzatuko lioketela gogotik edozein ofiziotan; guziok daude naiak adoratu beraren oñak, apatu beraren eskua, aitu beraren mintzo, ikusi beraren aurpegi deseagarria. Zer ez luke emanen ta eginen pobreenak, izateagatik ditxa ukitzeas beraren tresenain baster bat? O gure desfortuna, errain dute agian zenbaitek, ez bizituas denbora gartan!

Konsola gaizke, konsola gaizke, zeren injeniatu zue Jaun berak guri digun amorioain utses, nola egon gureki orai ere ta beti. Zer injenio da au? Au da eutxaristia, aldareko sakramentua, iltzen bezperan fabrikatu zuena, utzirik potestade elizan egiteko ori beroi, zeñen medios baitago ta egonen baita gure tenploetan ain errealki nola Belenen ganbela gartan, ain nola bere Ama Birjinaren besoetan, ain nola Jerusalemene egon zen, ta ain nola baitago zeruan. Ni banoaie, erran ziote apostoluei an biziaren azkenerat, baño zeren au erran dizieten, tristuras bete da zuen biotza; etzaistet utziko soil desanparaturik; banoaie ta eldu naiz zuengana (Joan. 14). Nola dateke joan ta etorri bateo? Igan zerura ta gelditu munduan? Inposible iduri zuena egin zue posible Jesusen amorio injeniosoak ta poderosoak. Nola, orai ikusia dago: Zeruan Aita eternoaren eskuieko aldean bisible egote-modu naturalean, eta lurrean sakramentaturik tenploetan egote-modu miragarrian, baño egiaskoan. Esta begis ikusten, baizik fedes. Orai, dio San Pablok: hispilu baten medios ta belo bateki, gero aurkez aurke (1 Cor.13). Hispilu gau da fedea, belongoi dire akzidente gaiek, zeñeki baitago estalirik amante dibinoa. Agertu da zenbait aldis ia figura batean ia berzean seguratzeko fede gutitakoak; baño fede ona dutenendako aski da beraren itza. Zebila apostoluen itsas-onzia aize kontrarioareki bein arat, bein onat gora-beran; gauaren

azkenerat zoeie Jesus aiengana ibilis itsasoan oñes (Math. 14). Aiek ikusirik turbatu zire, ta ziote fantasmaren bat bidezela; ta oius asi zire beldurrak. Jesusek mintzatu ziote: Konfianza idukazie, ni naiz, etzaistela lotsa. San Pedrok berla erran zio: Jauna, ori barin bada, mana bez natorren ni orrengana uren gañean. Zato, erran zio Kristok, ta bazoeie San Pedro oñes uren gañean, baña mogiturik aize erru bat, ta asirik ondatzen, beldurtu ze, ta klamatzen zue: Jauna, salba benaza. Jesusek berla arturik eskutik erran zio: Fede gutitakoa, zergatik dudatu duzu? Eta ona, ni zueki nago, dio Jesu Kristok, et ecce ego vobiscum sum, egun guzietan mundua akabatu arteo, omnibus diebus usque ad consumationem etc. Fede gutitakoak, esta fantasma, da errealdadea, estaike dudatu, da egi eta fedea Jesu Kristo berak errana, amar konzilio jeneraleetan Elizak deklaratu, lengo ta geroko Aita Sandu ta doktore guziek konfirmatua, anitz martiren odolareki seguratu, ta infinizio bat milagro patente klaroeki sellatua, de manera ezi ezpalego ere ain klaro Jangoikoaren testimonioa, aski lirazke gañarako testimonioak, proguak ta arrazioak konbentzitzeko gizon entendamentu-onekoak, ezi gaixtoendako paloa da arraziorik obena. Baña bear da sinestatu, zeren erran baitu Jangoikoak ta ala erakusten baitu Elizak. Sinesta zagun Jangoiko omnipotenteari, dio San Agustinek (Ep. ad volus), ta emagun dezakela Jangoikoak egin zerbait guk ez dezakeguna guzis erdetxi.

O Jangoiko andia, deustan ez ain andia, nola txipian, diot txipitzean ain gutitaraño, bere majestadea! Ergóne putandum est quód veré Deus habitet super terram? Beras, pensatu bear da bizi dela errealki ainberzeko Majestadea lurrean? Si enim coelum, et coeli coelorum te capere non possunt, quanto magis domus haec? Bada, zeruak, ta zeruen zeruek ezpadezakete kabitu orren Majestadea, zenbat gutiago etxe gonek? (3. Reg. 8) Noraño apaldu den! apaldu ze lenik zeru-kaskotik birjina baten sabelera, andik egotera gabela batean erreklinaturik aur txipitto, de manera ezi len deitzen zena magnus Dominus et laudabilis nimis, Jangoiko andia ta laudagarria guzis, gero in ze Jaun txipitto ta maitagarria guzis, parvulus Dominus et amabilis nimis, dio San Bernardok. Apaldu ze artzera bekataria in iduria, ta ala bizitzera munduan 33 urtes. Apaldu ze uster preso gaizkigille bat balitz bekala, golpatzera, burlatzera, azotatzera ta iltzera guruzifikaturik bi ladronen erdian. Eta orai ere apaltzen da bere Majestadea egotera gureki hostia txipi gartan. O Jangoikoaren amoriosko exzesu geiegia! O gizonen ditxa inkonparablea, balekite ezaunzen dutena sakramentuan! Herejeek disputatzen zute egi eta fede gonon gañean San Antonio Paduakoareki; sanduak proponitu ziote, konbentzitzeko, nai bazute apostatu etzuela ukitzen sakramentua, baizik errespetatzen aietarik baten mulak ere. Iduki zute jan gabe irur egunes, ondorean ekarririk sakramentua sanduak, manatu zio mulari in zezon erreberenzia, bitarte herejeak ematen zio oloa gabelara; baña mulak, aiek baño juizio obeagoareki utzirik oloa, joan ze adoratzera Jaun sakramentatua (Rib. in ej. v.). San Gregorio andiak ematerakoan komekatzera bein andre bati, erratean itz gaiek corpus Domini nostri Jesu Christi, ikusi zue irri egiten zuela ark; galdeturik zergatik iten zuen irri, erran zue zeren deizen baizue Jesu Kristoren gorputza ark egin zuen ogia. Sanduak eskaturik Jangoikoai desengaña zezan, ikusi zue hostia sanda itzulirik aragi-zati baten figuran (In ej. v.). Alako demostrazioen memoriak mantenitzen dire anitz tenplotan kristiandadean, Darokan, Biterbon, Baldurnan ta nik estakiten asko lekutan. Midelburgen konbertiturik bein hostia sagratua aragi fresko eder baten figuran, trasladatzerakoan prozesioan Koloniako ziudadera (Parr. p.2. pl.23) kolokatzeko ango errelikario zelebraz gartan, elizan sartzean guziak zeudelaik beira, erretiratu zire bere kabo errelikia an ziren guziak, utzirik leku prinzipalena guzien errege denarendako. Etze ontan paratu, baizik ere

paratu ondoan bere lekuan, guziek berriz ta berriz egin ziote agur ta erreberenzia. Benerable Pedro Saabedrak aitzen zuen aldioro meza San Diegoren sepulkroan, ia goratzerakoan hostia sanda sentizen zue arroitu kajain barnean, jaikitzen zen bekala gorputz sandua adoratzera gure Jauna. Benerable Frai Maurizio Dominikoas, leizen da ezi zeukatelaik arren gorputza elizan ilaria egiten, goratzean hostia ta kaliza, bi aldiz idiki ta ertxi zituela begiak ilak. Oroat leitzen da San Paskuales. Napolesen, non goardatzen baita anpolla batean San Estebanen odol guti bat, dagolaik au gogorturik arria bekala gañarakoan, paratu orduko aldarean meza erraterakoan, ikusten da urtzen ta irakiten fresko berria bekala (Parr. haec ibid.). Esta au guziau anitz, jautsi delaik Ama Birjina bera aingerus akonpañaturik zerbitzatzera misterio gartan? (Ibid.).

An dago alabañare axuri dibino gura, zeñi beira baitaude zerua ta lurra, zeñen edertasunai beira egones ezpaitaizke ase aingeruak. Bada, guretako dago prinzipalkiro, beira estugun obligazio honratzeko al guzia? Probetxuas errain dugu berze aldi bates, orai obligazio diogunas. Ah! Etzagula utzi gure erdian dagolaik atzendurik bekala kasorik in gabe. Ezpada ia, egon berere maiz, erreberente ta afekto onareki beraren presenzian. Ezpada ia, bentzait inzagun bakotxak Dabiden gisara, erran: ut jumentum factus sum apud te et ego sempér tecum, ala nola asto bat egin naiz ni orren presenzian, Jauna, ta ni orreki beti. Esta zer nior agrabiatu konparazioas, ezi Jangoikoa kexatzen da Isaiasen agos, estugula ainberze ere egiten: Humeak, dio (C.1), azitut, ta gora igan ditut, ta ebek despreziatu naute ni. Idiak ezauntzen du bere jabea, ta astoak bere nausiaren ganbela, baña nere puebloak ni ez. Exenplua ikas dezakegu Belengo portalean, non bi animale attento gaien erdian egon baize Jaunau ganbelan erreklinaturik berotzen zutela bere atsareki zezaketenas. Esta, bada, gure desonra konparatzea animale garreki, ta Jangoikoak nai dezala egietan atra daien errana, ala nola astoa egin naiz orren presenzian, ta ni beti orreki. Solamente ezi atsaren obsekioa izan daien gutan afektoaren fineza. Bada, Jaunonek dio: Bere deliziak edo erregaloak direla egotea gizonen humeeki (Prov. 8). Zer milagro litzake paratzea guk gure afekto guziak jaun onen baitan? Izatea gure biotzaren zentroa, enplegua ta errepausa guzia Jaunau daukagunaskeros gure erdian? Berzerik ezpada; eta zer berzerik emain diogu pobre miserableek deus gutitako garenek? Bada, berzerik ezpada, sikiera pobreen moneda, borondate ona; afekto ona ofensarik gabe. Ezpadiogu eginen zerbitzu andirik, nola apostoluek, nola martirek, nola sanduek, bentzait etzagula ofendi, etzogula in desplazerik, ta onetsi zagun biotzes. Baña berriz kexatzen da (Math.15): Pueblo gonek honratzen nau ezpañes, baña biotza urruti daukate eneganik; zenbait errezu pixka baizik ez, bitarteo obena falta, biotza; bitarteo ofensak egiten errealki. Kristio itxuraskoak, hipokritak; itzkuntza bat eldu zaida agora, errain ote dut? Erran bear dut: kristio muxixarkoak, laur erre zueki kunplimentu in nai diotenak Jangoikoai, utzi gabe ofensa egiaskoak. Ain sinpletako daukate Jangoikoa, uste baitute pagatzen dela errezu utses obra onik gabe, nola aurra txotxos? Biotza munduai, demonioai ta aragiai, ta mia sollik Jesu Kristoi? mostratu digun amorioa esta itxuraskoa, utsa, baizik erreala, egiaskoa ta geiegia. Nola korresponditu nai diogu itxures? Filii hominum, usquequó gravi corde? Gizonen humeak, noiz arteo pizu biotzes? Zerengatik nai duzie banidadea, ta billatzeunzie gezurra? Banidadea ta gezurra da guzia, ezpada onestea ta zerbitzatzeta ta kontentatzea gure Jauna, zerengatik ala pasaturik bizia lo batean bekala, idatzarririk eriotzeareki, deus esta aurkitzen, baizik erresulta gaixtoa, perdizio sekulakoa. Quaerite Dominum etc., billa zazie gure Jauna aurki daiken bitarteo, inboka zazie urbil dagon bitarteo. Nere Jaun amorosoa, neregatik dagona sakramentu miragarrian, nork estio izanen amorio? Ta emanen plazer al

guzia, ezpada bateo esker-gaitza ta zenzu gabea? Estiogu artan egiten mertxede berorri, baizik geuren buruei. Alaere, estimatzen du borondate ona ta afekto ona. Bada, au berere pobre aintzu eman bear diot. Biz berori nere biotzaren jabe, nere afekto guzien enplegua, nere plazer ta kontentu guzia, nere bizitza, nere esperanza, nere guzia ta gloria. Amen.

Semo XIX:
De beneficio mansionis
Christi in eucharistia

Ubi est thesaurus tuus,
ibi est et cor tuum. Math. 6

Beras, bear da sinestatu gure Jaunak errealki duela bere habitazioa munduan? bear da ta badezakegu sinesta, ezi ongi progaturik dago. Sinesterik ezpada, estiot deus egun, ezi aldareko marabilla gau berexki da fedearen misterioa, fedearaki ikusten da, gozatzen da ta iten da guzia emen, ta federik gabe deus ezkara ari. Baña barin bada fede, sinestatzen barin bada, nola esta admiratuko ta amorostuko bat alako Jaun ain on onegias ta ongigilleas? Zure tesoroa non dagon, an dago zure biotza, dio Jaunonek, ubi est thesaurus tuus, ibi est et cor tuum. Jauna, ori entendatu bear bide da noiz ta sinestatzen ta ezauntzen baita den ondasuna, ezi errealki gure tesoro propioa ta bakarra da berori, ta alaere munduan egon zela, dio San Juan Ebanjelariak, (C.1) ta munduak etzuela ezaundu eta estimatu, bere propioengana etorri zela, ta bereek etzutela errezibitu. Eta berze San Juan Bautistak erraten ziote: Zuen erdian egon da zuek ezaunzen estuziena (Ibid). Eta alako zerbait agitzen zaiola munduai orai ere beldur naiz, baitago zeruko tesoroa, guzien Jaun Jesu Kristo, ta berareki Aita ta Espiritu Sandua gure tenploetan, eta ezpaita ongi ezaunzen ta estimatzen. Balitz sakramentu gau solamente Erroman, litzake estimatzeko, ta araraño joan leizke munduko erregeak ere ezaumentu ona gauzas luketenak, obeki ezi Sabako erreina gura ikustera Salomon sumoaren jakinduria, baita bere Seme dibinoa. Orai duelaik bere habitazioa ez solamente Erroman, ez solamente eliza andi-ederretan, baitaere erri ta eliza txipietan, da gutiago estimatzeko agian? Zerengatik sopra den ona, zerengatik usuago iten digun mertxede, orgatik gutiago estimatu bear da? O egunoroko kostunbrea! O fedearen iltasuna! Eta nola kentzen diozen gauzarik andienai zor zaion estimazioa ta admirazioa? Gaitz gau sendatu naiak mintza gaitzen berriro Kristoren egotearen gain gureki bere sakramentuan. Ama dibina, kriaturaik ederrena, munduaren honra, gizagendearen lorea, Jangoikoaren biotzeko prenda, zeñen sabel birjinalean, zeñen besoetan egon baize dignoki ta nion baño obeki estimaturik gure Jesus ona, eman bezagu dugun tesoro gonon ezauntzeko ta estimatzeko ongi anitz grazia. Abe Maria.

Berri on bat noaie ematera, gure erregek nai duela paratu bere palazioa ta kortea gure erri gontan, ta ori gure onginaies, guri ongi egiteagatik. Alegra gaitzen, bada zeren. Alegrabagindeizke, au ala balitz gure Españako erreges, zenbat arrazio iagoreki gaizke alegra, egia delaik zeruko errege Jesu Kristo gure Jaunas? Eta dio berak: Ecce ego vobiscum sum, ona ni zueki nago egun guzietan munduau akabatuartaño. In balez erran duguna Españako erregek, zer jendearen arrizioa! Zer gure estimazioa! Zer ematea guri zori onak guziek! Fortunosoak zuek, errainligute, ain biotzean sartu bazaizkiote erregei. Eta orai erregeen errege Jesu Kristo, zeñen aldean aiek baitire nola txinurriak, Jaun gura, zein laudatzen baitute zeruko izarrek, zeñen edertasunas arritzen baitire iruzkia ta ilargia, zein baitago jarrikerubinen gañean, zein baitabila aizeen egalen gañean, zeñek baitauka irur erietaik dilindaka mundua, zeñen tronoa zeru goiena, ta oñetako peaña munduaren makina, zein itz bates baita Jangoiko andia, inmensoa, guzis poderoso, aberatsa, ona, sollik sandua, sollik Jauna, sollik gora, zeñen majestadeaindako labur eskas baitire zeruak

eta lurra. Berze itz bates ura berbera zein etorriko baita azken juizioko egunean onen ta gaistoen juzgatzeraz, ura berbera da egotes dagona gure elizaetan sagrario ta urna txipietan ogiaren akzidenteen pean. Arritzeko ta estimatzeko da guzis egotea, ta egote-modua, ain humil, ain eskunara, ain txipitto ta deus guti iduri duela.

arritu zire aingiruak ikusi zutelaik Jaunau jaiorik Belengo portalean ta bi animaleen erdian, erreklinaturik agotzetan, palazio erreala in truk etxola moldegaitza, kuna preziosoain lekuan ganbela, zeruetako trono ta grandezain orde oialak eta paxak; eta ia dena, mundukoetaik niork kasorik iten etziola bere Ama ta San Josefes landara, ezpazire artzai pobre batzuek, ta aiek ere aingiruen mezuagatik. Aingiruek eman ziote mezua, ola arzaia, berri andi bat guzis alegrea, jaio dela Belenen munduaren salbazalea. Ezaunzeko au ermazie señaile, aurkitukouzie aur bat maiolaturik edo oialetan inguraturik, ta erreklinaturik ganbela batean. Nere fielak, idurizaizie señaile gau munduaren salbazaleari dagokiona? Eta ala ze egia. Elkarri iduri direnak dire Belengo ta aldareko misterioak. Berbera da ango ta emengo Jauna; an aur-aintzu, emen hostia txipi baten idurian; an kunatako ganbela bat, emen tronotako urna txiki bat; an aurren oialttoetan inguraturik, emen korporale pobreetan paraturik, ta kontent balire garbi; an lurrekoetaik guti akonpañazale, artzai gaiek sollik lenbizian, gero etorri zekizkio adoratzeraz irur Erregeak, baña beti zegozkio beira plazer in naiak presente an aingiruak, San Josef eta Ama amante amable gura mundu guziak baña ia balio duena. Emen, naiz beti dauden aingiruak, askoetan bakar dago lurrekoetaik, gauetan klaro da; askotan dagozkio bere presenzian debozio ta erreberenzia gutireki; batzuk bekatu mortaleeki ariman, berze batzuk egiten irreberenzia ta desplazer bere Majestadeai. An jaiorik errezibitu zue birjina eder garrek bere esku birjinale garbietan, deskansatzen ta gozatzen zela Jesus Jauna arimagarren santidade inkomparablean. Baña aldareetan orai egia delaik jaiotzen dela bekala meza aldioro, askotan errezibitzen da esku indignoetan, ta sarrarasten da arima gaistoetan, deabruen kubiletan. Uste zindute agitz ia zela agitu zena Belengo etxola gartan, ezi agitzen dena gure elizetan. Ikusteunzie berze alde diferenzia gau ain arrigarria? An bazue otza, pobreza, erakaitz ta desanparo andia; lurrekoetaik, diot: zer da gero, suplitzen bazue guzia Ama dibina garren graziak? Emen trabaju gaien lekuan sufritzentu askoen ofensak, baitire gaistoago, ta ezpide dira anitz suplitzen dutenak, nior ez bentzait Ama gura bekalakorik milla legoa bides. Bere Majestadearen aldetik esta gutiago emen iten duena; eta guretako ainberze da, ikusteas landara. Egunoro adi daike kasi berri andi gura, jaio dela munduaren salbazalea; eta non? Ez ziudade batean solamente, baitaere erri gontan ta berze gartan ta berze gaietan, nonnai zeblebra daien meza sandua. Esta joan bear urruti ikusteko, urbil aski izaten da eskaida; eta ezpalitz ere zeblebratzen mezarik egun bates edo berze, esta orgatik usten aurkitzeko erreserbaturik sagrarioan Jaun dibinoa, gure arimen esposo amante ona.

O, erraten zue arima esposak kantareetan: Nork eman lezadan, nere anaiatto maitea, aurki zaizadan nere Amaren besotan bakarrik besarkatzeko biotz guziareki? Quis mihi det etc. (Cant. 8). Arima, Jesus onaren naiak, ansias zaudena, ona, ona non daukazun Eliza Ama Sandaren besotan ongi-eskunara, ta ongi bakarrik askotan, nai bauzu besarkatu ta sartu zeure biotzean. Zierto ezi ikusirik Jaunau, esneko aurra, zegolaik bere Ama Birjinaren besotan, eskatu ta emanbaligu, ezin kabi leike petxoain barnean biotza bozkariundes ta kontentus; eta arrazioreki. Baña o fedea, non zara? Zure bear gara orai ere. Fedeariki ikus dezakegu, elizan Jesus bera ematenzaigula ain amoroso, ain aisa, ain merke, ain kontino noiznai dugun, eta eskatu gabe ere, daukagu beti perenne sagrarioan. Abrats fortunoso kontatzen dire zenbait tenplo, zeren baituste sanduen errelikiak. Ongi

iteunte, baña ia da sanduen sandua, eta ez solamente errelikia edo gorputz ila, baizik bera bizirik bere gorputz, odol, arima, humanidade ta dibinidade guziareki dugu sakramentu miragarrian. Anitz estimatzeko litzake bere gurutze garren zatitto bat nork luken; ia bere gorputz propioaren errelikia bat; deusengatik ez lezake truka. Bada, ia dugu, bera guzia baitugu hostia sagratuan. Gloria gaitzen desterratuak mundu gontan dugun tesorora, zeruak adiña balio duenas.

Zenbat erregek nai zute ikusi ta aitu zuek ikusten ta aitzen duziena, ta etzute logratu? zio Kristok apostoluei (Luc. 10). Eta sines ditxa deseagarria da aiek zutena gozatzeas ain kontino zeruetako Jaunaren konpañia ta konbersazioa. Zer diogu emen kristioes, baitezakete gozatu Jaun beraren presenzia ta konbersazioa ain urbiletik sakramentu gonon medios? Ikustea begi korporaleeki, aditzea bearrieki da falta; gañarakos fede ta ezaumentu barin bada, dezakegu aitu, dezakegu ikusi, dezakegu mintzatu, dezakegu gozatu errealki miragarriro emen ere. Noiz arteo egoin gara sentido animale geben menea? Noiz enpleatu bear dugu aingiruen bista, ta adimentu duguna, au da adimentu ta bista espirituala arimarena, arrazioa ta fedea? galdetzen bazue norbaitek orduan Jesu Kristos, apostoluek erakusten ziote non zegon. Orai guziek dakite non dagon Jesu Kristo, barin badakite doktrina. Orduan San Juan Bautistak alزندari-gisa zue kargu monstratzeko; ona, zio, Jangoikoaren axuria, ona edekitzentuena munduko bekatuak. Orai dorretako ezkilek, elizetako pareteek ta lanparek mostratzen digute: Ona non dagon Jangoikoaren axuria, ecce agnus Dei. Orduan aldatzen ze erri batetik berzera, zeren baize preziso berzeetan ere predikatzea Ebanjelioa, ta orgatik logratzekos Jaunonen presenzia bear ze segitu ta ikasi non ostatazen zen. Ala bein San Juanen bi diszipuloek galdegin ziote berai: Jauna, non bizi da? Eta Jaun berak erakutsi ziote: Venite et videte, zatoste ta ikusazie (1 Joan.). Orai niora atra gabe dezakegu aurki, ta badakigu non bizi den, venite et videte, zatoste ta ikusazie Jangoikoaren etxea, zerengatik erri guzietan du, erri guzietan da bezino perpetuo. Orduan etzute batzuetan aisa logratzen, ia zeren baizego ausente, ala Martak orziaskeros bere anaia Lazaro, Jaunau ellegaturik, erran zio: Jauna, ori emen egon baze, etze ilen ene anaia, ez. Ia jendetze andia in kasos, ala nola Zakeo gizon txipi gura ikusi naies, igan baize arbole batera, ta eri gura sartu baizute idirikik tellatua, ezin berze gisas; ia judioen beldurres, nola Nikodemus joaten baize gauas Jaunonengana; ia ere konzienzia propioaren kasos, nola Magdalena ez atrebitus aurkasetik urtiki baizekio oñetara atzetik zegolaik jarririk maiean. Orai guzien erdian daukagu Jaunau gauas ta egunas ongi sollik askotan, nioren beldurrik gabe gaizke ellega, eta geuren konzienziak ezkaitzan lotsa sobra Jaun dibinoaren aurkintzean, dauka paraturik beloa, dago estalirik gure on naies. Vere tu es Deus absconditus (Isai. 45).

erran daike Dabidek diona (Ps. 123): Magnificavit Dominus facere nobiscum, gauza anditako daukala gure Jaunonek, anitz estimatzen duela gureki gure alde egotea. Elejitu du Sion, au da tenplo sandua, bere habitaziotako (Ps. 131). Au da, dio, nere deskansua betikos, emen egonen naiz, zeren au elejitu baitut. Elejitu dut, erran zio Salomoni (Paralip. 7), ta santifikatu dut leku gau, egoteko emen nere izena, nere begiak ta nere biotza egun guzietan. Zer ontasun andiagokoa, dio San Buenabenturak (In expos. missae) nola dignatzea gure Jauna egotera kautibo ta preso bekala aldarean? Nork dauka preso gisa gortan? Bere amorioak guregana. O kristio fortunosoak, bagindeuzki argi arimaren begiak! Estiote ala egin nazione guziei, ta ez bati ere (Ps. 147). Zerengatik esta berze nazione bakotxik ere dituenik bere Jangoikoak ain urbil beregana, nola gure Jangoikoa baitagokigu guri presente (Deuter. 4). Galdu zekiolaik bere Ama Birjinai, Jaun

au amabi urtetakoa zelaik, billaturik aide ta ezaunen ertean etzue aurkitu, baizik tenploan. Tenplora zue bere joan etorria anditu zelaik ere, prebenitzeko bekala ia ordutik geroko habitazio perpetua. Zeruan dago, ta estaike andik ausenta, baña posible balitz andik faltatzea, ikasirik dauka Ama Birjinak non bilatu, tenploan, tenploan falta gabe. Gozatzen dute, ta goza bezate ordu onean zerukoek Jaun au; baña lurreko desterratuek ere gure negarresko balle gontan daikenes gozatzen dugu; aiek agerrian, guk estalian, baña ain errealki presente emen nola an. Estaike, beras, eliza bakotxa deitu gloria bat txipittoa ta zeruko antesala? O gure Jaunaren dignazioa! Ta o gure felizidadea, al badezakegu entenda! Nolako Aita, nolako Jaun ta errege dugun ain ongi ta amolsuki admititzen gaituena bere palazioan ta maiean ere. Alexandro andias kontatzen du Q. Kurziok gauza andia ta berzenganako piedadearen señaile bekala, ezi bein arturik bera bere tropareki ekaitz andi batek kanpoan, sua eginik zegolaik berotzen jarririk bere silla errealean, ellegatu zela soldado bat len zerbitzatu ziona errege kontrarioai, otzak pasaturik, ezin jasis armak, ta kasi bistarik ta akordurik gabe. Urbildu zelaik sura, jaiki ze errege ta jarrarazi zue bere sillan; ura berotzeareki itzulirik akordura, ta erreparaturik zegola txutirik errege, ta bera jarririk arren sillan, jaiki ze instante lotsarriturik. Etzaitela lotsa, ikasazun nolako erregei zerbitzatzen diozun, ezi len zinduenaren sillan jartzeas zindue biziaren pena, ta orai nereki eman dizu bizia. Baña kontu aur kontuak ebek gure errege sumoak iten duenaren aldean gureki. Nor gure Jangoiko Jauna bekala bizi baita goien goienean, ta beiratzen baitiote humilei zeruan ta lurrean? goratzen duelaik lurretik beartsua ta loietik pobrea? (Ps. 112) Kolokatzeko prinzipeeki, bere puebloko prinzipeeki, emen beñik bein bere presenzian ta maiean korte txipi gontan aingiruen ertean, eta gero an gloriako palazio eder gartan agerrian ango prinzipeen konpañian. Porfia sandu bat bekala artu duela dirudi gure amorio digunaren utses, ezkaituela nai utzi bere konpañiatik, nola gu gabe ezpaleike ongi. O Jesus, ainberze, ainberze nai gaituela orrek gu? Gu orrek? Nor da ori? Ta nor gara gu? Ori Jangoiko andia, inmensoa, omnipotentea, nioren bear estena; gu txinurri txarrak, guzien bear ta deustako ezkarenak. Alaere zierto nago, ezkaitu utziko pobres, nola diogun borondate ta afekto ona. Eta zer in bear dugu baizik izan alako Jaunai? Ezpagara txoil eskergaitzak ta juizio gabeak? Nere Jesus maitagarria, esta, esta ori gaixto guretake. Balitz biotz ta juizio onik, onetsi gindezake ilartaño; baña askok al rebes daukate biotza ta juizioa; naiago dute lurra, naiago dute banidadea, naiago dute inmundizia. Baña ongi dagokida orrenganatzea. Naiago dut berori ezi guzia; ia nai dut ezi ondasunak; ia nai dut ezi plazer guziak; ia nai dut ezi honrak; ia nai dut ezi munduko persona guziak; ia nai dut ezi osasuna; ia nai dut ezi bizia. Deus eztut nai ori ezpada ta orrengatik. Biz berori nere ondasun, plazer ta honra guzia. Ori nere osasuna, nere bizia, nere grazia ta nere gloria. Amen.

Sermo XX:
De triumpho amoris
in eucharistiae institutione

Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joan. 13.

Mertxedeak anbates ia estimatzen dire, zenbates amorioa den ia zeñeki in baitire. Ezpada ikusten itentuen baitan amorioa, edo afekto ona edo guti ikusten bada, guti estimatzen dire, naiz berze alde izanik mertxedeak aski andiak; eta berriz afekto onareki eginak direlaik, txipiak ere andi idurizaizkigu, ta andiak andiago. Eta ala errateunte, obe dela ogi ta ardo sollik borondate onareki, ezi ez erregalo andiak borondaterik gabe edo gutireki. Jaun andia, ongiegille amorosoa, nor ori bekalakorik? ez dezakegu alega atxekiari niondik, ez estimatzeko orren mertxedeak gure alde, prinzipalki aldareko sakramentu miragarrian iten diguna; mertxede geiegia ta amorio geiegiareki egina! Gure miseria da ezpaitezakegu aski ezaundu ta gutiago explikatu. San Juan Ebanjelaria asten delaik kontatzen misterio gonon fundazioa, deklaratu naies Jesusen amorioa gure gana, dio, ezi bazkoa-alzinean zekieliarik Jesusek ellegatzen zela bere ordua pasatzeko mundu gontaik bere Aita eternoagana, onetsi zituelaik beti bereak, azkenerat edo azkeneraño onetsi zituela. Cúm dilexisset suos in finem dilexit eos. Zer explikazio da ori, ebanjelari sandua? Onetsiginduzala bizian ta onetsiginduzala azkenerat. Baña nola edo zenbat? Ongi zekie eskribitzen zuena ebanjelari agilak, ta bearbada oroitu ze ontas eskribitzerakoan, erran nai zue nola ta zenbat, baña ezin explikatus den adiña, gelditu ze errateareki, onetsi beti ta onetsiginduzala azkenerat. Itz gau entendatzeunte batzuek azkenerat, au da azken mugaraño, ezin iagos. Edozein gisas da klaro erran nai duela onetsiginduzala ordu gartan ezin explika ta ezin konprehendi daiken amorioareki, fundatzerakoan sakramentu miragarria. Alaere nai batek erran zerbait, ez konprehenditzeko den adiña, baizik juizio iteko ala nolapait agitz andia dela, ta mogitzeko biotza onestera jaun bat ain ona. Itsasoko izar ederra, gure munduko ilunbe gonon ilargi klaroa, Maria, grazia, otoi, grazia. Abe Maria.

Jauna, zer da gizona, zeren oroitzen baita artas? Edo gizonaren humea, zeren beiratsen ta estimatzen baitu ala? erraten du Dabidek arriturik Jangoikoak duen amorioas gizonagana (Ps. 8). Justoa da Jangoikoa ta miseriakordio bere baitan bardin; iten du justizia faltatu gabe miseriakordiari; iten du miseriakordia agrabiatu gabe justizia, baña alaere gizonaren alde obretan agertzen da ia miseriakordia, miserationes eius super omnia opera eius (Ps. 144). Egin zue Jangoikoaren ofensa aingiruak, ta bereala iten du justizia Jangoikoak erremeriorik gabe. Egin zue gizonak ofensa ta Jangoikoak iten du miseriakordia, naiz kunplitu ere bai justiziareki osokiro; baña nola? Jangoikoa bera egiteareki gizon, ta padezitzeareki, ta satisfakzio emateareki gizonagatik. Esta au amorio espeziala gizonaren alde? Badakite ori aingiru izanek, orai deabru direnek, ta emendik dute inbidia ta errabia ezin asegarria. Eta andik bear luke gizonak kontentu ta esker guzia. Jauna, orrek ainberze amorio gizonai? Gizona, kriatura apalagokoa aingirua baño, parte espiritu, parte lur, alde batetik aingiruen, berzetik animaleen aide iduritua; ta alaere ainberze nai Jangoikoak? Gizonagatik kriatu zeruak ta lurra, gizonain goardatzeko destinatu aingiruak, gizonagatik jautsi zerutik bere Majestaadea! Zer ia? Gizonagatik il Jangoiko-gizona! Zer iduri zaigu? Esta au kunplimentusko amorioa, diot sines, progu

ederrak dire bere obrak, bere nekeak, bere izerdiak, bere negarrak, bere pena andiak, bere kateak, azoteak, arantzeak, itzeak, gurutzea, lantza; progu ederra bere eriotze doloreskoa. Estu niork alakorik egin kunplimentu utses; ezeta ere ainberze padezitu niork niorengatik naiz amorio egiaskoa izanik. Solamente zuke ori Jangoiko gisa amatzen gaituen Jesu Kristok.

Baña berze progu erreale bat ere eman zue, progu guzien korona, zifra ta selloa bekala utzi zuena seguraturik betiko bere odol preziosoaren birtutean, ta depositaturik Elizan, au da, bere gorputz ta odolaren sakramentua, zeintan ixuri baititu bere gureganako amorioaren ondasunak. Au baita sines onestea gizona! onetsi zituelaik bereak, onetsi zitue azkenerat ta azken mugaraño. Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Anitz ze etxidetea gizona, aingirua ez bekala, bekatu egin ondoan; anitz ze bera egitea gizon ta padezitzea gizonengatik. Baña ikusirik gizonaren eskergaitza, ikusirik gaizki enpleaturik bere pasio ta eriotzea guzienetan, ikusirik gizonak berek edekitzen ziotela bizia, ta gau gartan berean entregatuko zutela preso ta akabatu biramonean, alaere gelditzea sakramentaturik presente gizonen konpañian, au zer da? Etzekio atzendu San Pablori aipazea zirkunstanzia gau, in quâ nocte tradebatur, entregatua zen gau berean. Ikusirik, alaber, gero ere inen zizkioten ofensak, injuriak ta irreberenziak sakramentu gontan. O gizonen ingratitudea! Zierto esta kriaturaik ia faboratu duenik Jangoikoak, baña esta ere kriaturaik ingratoago denik Jangoikoai; alaere porfiatzea ongi egiten alakoei! Egitea ongi pobre apal deus gutitako direnei Jangoikoaren amorioaren nobleza da; baña ingrato izanei ta izain direnei, ori xakinik, egitea ongi gauza fuertea da, amorio geiegia da, ta alaere egin zue segitzeko egiten beti. Fuertea da eriotzea bekala amorioa, dio eskritura sagratuak (Cant. 8). Eta jentilak, guzia garaizen du amorioak (Virgil. Eglog.). Justizias etzue gizonak mereji alakorik, baizik kastigoa, baizik kondenazioa, baizik deabrueki infernua, baña Jangoikoaren amorioak ta miserikordiak iragazi zute triunfoa gure alde. Zori onean dela.

Ala niri iduri zaida pleituan bekala zeudela gau gartan Kristoren bular jeneroso garren barnean, alde batetik bere amorioa ta miserikordia, berze aldetik bere justizia. Amorioa aitzen nagola iduri zaida mintzatzen gisa gontan. Nik obligatu dut Jangoikoa kriatzera gizona bere imajina ta semejanzara, ta gauza guziak, laguntzeko iragazten gloria. Eta galdu zelaik bere kulpas miserablea, nik obligatu dut jaustera zerutik, egitera gizon Jangoikoa ta iltzera erremediatzeagatik ura. Gaur asi ta biar akabatuko da trajedia gau. Oneki gelditzen da ongi gizona; baña erresuzitaturik igateareki Kristo zerura, nola geldituko dire pobrettoak? Baute merejimenturik asko bere pasioan, medio ta erremediorik asko Elizan; baña Kristoren presenzia ezpadute, obena falta dute. Zer ai dire aita gabe humeak, arzaia gabe ardiak? Badezokete beiratu zerutik ere, egia da, ta memoriatako badezoket utziarazi bere gurutzea, bere itzeak ta arantzeak, bere zenbait errelikia ta prenda. Baña agian pobreek ezin lezazkete logra, ta logratuak naiz bai, guti zaida, eznago kontent oneki sollik. Bera, bera geldi bedi sakramentuan bere gorputz ta odol sagratueki bizirik errealki presente, ezi ongi kostarikako humeak ongi azi ta kuidatu bear dire. Geldi bedi tenplu guzietan non ere konsagra daien, niork eta nion eta nioiz ez dezan aurki faltarik. Eta estaitzen erretira lotsas agerrian gelditzen bada, geldi bedi estalirik akzidentean beloareki. Eta izan dezaten afizione ta ansia bizitzaren sakramentura, para bedi ogi ta ardoaren idurian, baitire gauza geien usatzentustenak.

Garaiturik amorioak, bazoeie Kristo ia fabrikatzera milagroen milagro gura, zeñen medios geldi zeien bere Majestadea errealki presente munduan gizoneki. Baña ara non bere justizia, gure mintzatze-gisara, asten den alegatzen kontra ario gontara. Aingiruei

etzizaiote barkatu in zuten bekatua, gizonei bai. Arrazio ze ezezaten berriz ofendi Jangoikoa. Ofenditu zute alaere. Eta zer kastigo eman zekiot? Beroi bere karidade geiegiatik jautsi ze ta egin ze gizon. Etzute onetsi bear bere Jauna ainberze onesten dituen? Baña beira zer eskerrak! Gaizkigillerik andiena bekala tratatzeunte ilarasteas infameki; gaur ineunte preso, biar akabarazikoute tormentus gurutze batean. Etze ia arrazio galzea lenago gizagendearen arraza guzia, ezi ez ustea edekitzera Jangoikoai bizia? Alako ingratoen ertean gelditu nai du? Ain ongi joan zaio ebeki orai-arteo? Guzia barka bekiote, naiz bai; ia naski estute ofendituko emendik alzina? Oroat nola deus onik in ezpaliote. Zenbait on izain da kristioetan. Biz ia ta ia. Nai baitu aiek konsolatu ta erregalatu, in dezake zerutik, gelditu gabe ainberze traidore txarren ertean. Gelditurik sakramentuan, ongi izatera, bear lukete onetsi ta honratu aingiruek baño ia gizonek, zeren baitute obligazio ia. Baña zer ineunte? Jentilek, judioek, herejeek ultrajaturikote al guzia. Kristioengana dago amorioa, ebenganik esperatzen da agradezimentua. Ah! Bear bai; baña zein gutik estimatu ta honratuko duten bear bekala? Zenbatak estiote inen kasorik ia ezi ezpalitz oreazati bat? Zenbatak galduko diote erreberenzia elizan berean? Zenbatak sartuko dute ago indignoetan, nola tzakurrek? Esta aski barkatuz orai artaño? Esta sobra bein azotatzea, kruzifikatzea, iltzea orren Majestadea? Libre beti bekatariak, ta axuri dibinoaren gain karga guziak? Esta arrazio; estute mereji; estaiela geldi. Ala zio justiziak.

Miserikordiak berze aldetik ezaundurik justiziaren arrazioa, estute mereji, zio, egia da, baña Jangoikoak ones garaitu bear du gizonen gaizkia. Egin duenak amoriosko exzesoa iltzeas gizonengatik, korona bez fineza finezareki beiratu gabe zer duten mereji. Aiek estakite zer iteunten. Orrek egin bez estaien malogra ainberze arimaetan odol ixuri duena. Ortako zer medio ain onik, nola berori gelditza sakramentaturik, ta sartzea ala aien baitan? in diote ta inen diote anitz indignidade; baña zeruek eta lurak admiratuko du orren ontasuna iten baitiote ongi indignoei ere; eta Eliza bere esposa bentzait beti fiel izanen da. Egin bez piedade guzia beiraturik solamente bere ontasunai gelditus bere hume ongi kosta zaizkioneki munduak dirauen bitarteo, naiz gero in dezan justizia eskergaitzeki. Ala abogatzan zue miserikordiak gure fabore. Aitzen zitue Jesu Kristok bi aldetaik arrazioak, ta garai gartan bere amorioai utzi zio esku emateko sententzia pleitu gontan, ezi bere amorioain ordes nai zue obratu beti, ta ia orduan, cūm dilexisset, dilexit. Amorioak bereala eman zue sententzia miserikordiaren alde ta gure fabore, geldi zeila sakramentaturik gizonen ertean. Arritu zire aingiruak Jesusen erresoluzio gontas bere amorio geiegiagatik gizonengana, ta guri ematentigute zori onak orgatik, ala guk bagindeki estimatzen ainberzeko ondasuna ta amorioa, zeñeki ematen baizaigu! Amorioa da Jangoikoa, Deus charitas est, ta au ezin garaitu zute gure bekatuen erauntsi guziek, aquae multae non potuerunt extinguere charitatem. Guzia garaitzen du amorioak, eta azkenean Jangoiko dena bera preso, kautibo ta prisionero bekala paratu du aldarean. Preso dago. Nork paratu du? Bere amorioak gure gana. Estaike libra? Estaike. Nork debekatzen dio? Bere amorioak. O amorioaren indarra lotzen baitio eskuak Jangoikoai berai! O amorioaren triunfo miragarria ageri dena misterio gontan! Ikusazie emen Jangoikoaren marabilla guzien memoria ta korona, bere fineza guzien errestoa, bere podorio, xakintasun ta ontasunaren azken demostrazio perfektoa, zeñen medios Jesu Kristo dagona zeruan baitago, alaber, bateo errealki gure erdian; erakusten digula, zeruan ere, aingiruen ta sanduen konpañian ere ezlegokela txoil kontent, ezpalu injeniatu nola egon bitarteo gureki gure desterru triste gontan, ta leku guzietan, non baita sakramentu. Au guziau, izanik gu garenak, ain gaistoak, ain indignoak! Ongi on onegia da nonbait ori, Jauna! Ongi onesten

gaitu bereok len ta gero! Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Ongi sartu gaizkio bere biotzean! Zer ia egin bear zue? Edo erran bez, zer ia in zuke?

Eta guk, nere Jesus maitagarria, arimen esposo amantea, desterratu geben konsolu, erregalo ta anparo guzia, eta guk estugu onetsiko ta honratuko gure aleginas bere sakramentu gortan? Orrek gu bai, ta guk ez berori? Batzuek epelkiro tratatzeuntela, berze batzuek ajolaik gabe esta oroitzen ere, berze batzuek galtzen diotela erreberenzia, ta berze batzuek indignoki errezibitzeuntela? Zer da au, nere Jaun dibinoa? Aingiruek kasi digute inbidia, ikusirik ain amorosturik gutas orren Majestadea, ain humano, ain gozagarri, ain gure nai! Eta guk despreziatzen ondasun gau zeruak adiña balio duena? Estugu ezauntzen, estugu ezauntzen ongi zer den aldareko sakramentua! Erran bai doktrinan or dagola Kristo gure Jauna ain errealki nola zeruan, baña erran ezpañes ta ez sentitu biotzas, ezi senti baledi biziro dena, nola gindezake ofendi? Nola gindezake atzendu ere? Lastima da nior galtzea dugulaik ori gure erdian; baña lastima ia da alaere deskontent idukitzea, desplazer egitea alako Jaunai. Ez, ez tigu gaitzik egin berorrek guri, esta gaixtoa izan guretako. O nork lezaken eman oi u bat adidaena mundu guzia barna: Adanen humeak, estima zazie, onetsi zazie, kontenta zazie Jangoikoa daukaziena presente eukaristian. Ez naiz admiratzen San Ignazio, San Felipe Neri, Santa Teresa, Santa Katalina de Sena ta berze sanduak bizi zeizen paraturik biotzak, afektoak, ansiak hostia txipi gortan, zoraturik bekala amorios orrengana. Admiratzen naiz lurreko satitsues nola estuten begirik ikusteko bein edo bein or altxatzen den tesoro inkonparablea. Admiratzen naiz arima ez gaixtoes, nola estuten senti ia afekto, arimen esposo dulce amanteagana belo gorreki estalirik dagonagana. Noiz arteo egoin gara atento solamente gorputzaren sentido materialegebei? Noizko tugu arimaren begiak? Orrek gu kriatu, orrek guregatik egin zerua ta lurra! Esta aski. Ori jautsi zerutik, ta egin gizon gure gisakoa! Esta aski. Ori ibili gure billa, bizitu 33 urtes munduan, erakutsi zerurako bidea, plantatu Eliza, utzi medio ta erremedio guziak gu salbatu naies! Esta aski. Orrek padezitu arrigarri, ixuri bere odola, eman bere bizia guregatik! Esta aski. Zer ia nai du gure deseoak edo berorren amorioak? Ia oraño ere. Guzien gañetik gelditu presente errealki sakramentuan alako modu miragarrian; ta alaere estugula onetsiko biotz guzias? Eta zertako dago biotza bularrain barnean? Zer edo zer onetsi gabe estagoke; baña onesten duen gura ezpada Jangoikoa, zer ai gara? Ori ezpada, nere Jesus, nik onesten dutena, zer ai naiz? Ezi orren baitan aurkitzen dire pensa daizken ta estaizken motibo ta prenda guziak amorosteko biotza, au ezpaliz txarra guzis. Zer kuadrazen zaizu biotz humanoa? Nobletasuna? Noblea da Jesus, ta ain noblea, nola Jangoikoa on guziaren prinzipio dena. Abrastasuna? Aberatsa da ta ain aberatsa, ezi bere eskuan dauzki ondasun guziak zerukoak ta lurrekoak, gorputzarenak ta arimarenak. Majestadea ta poderioa? Andia da ta poderoso, ainberze ezi eskas dire beraren kabitzeke zeruak, ta guzia dagokio obediente goitien ta beitian. Xakintasuna? Xakintsua da ta ainberze ezi kerubinak ere dire ignorante beraren aldean. Edertasuna? Ederra da ta ain ederra, ezi serafinak estaizke aspertu beira. Ontasuna? Ona da, ta ain ona, ezi nior esta bera bekalakorik, ta bera sollik da ona. Afabletasuna? Afablea da ta ainberze, ezi pobreenai ematen da amoroso, ta arzen du besarka. Berzea baitan ikustea amorio gure gana da tiratzen duena agian biotza? Eta nork digu ainberze amorio nola Jaunonek, guregatik desegiten baita errateko ala? Ia ikus daike ganbela batean aur, ia ilik gurutze batean biktima guregatik, ia orai azkenean axuri inozente aldarean, ta gure alimentu ta erregalo mai gartan. Iruzki dibinoa, otoi, argi-errañu bat entendamentuetara argi daitzen, estakigun agitu pasatzea bizia erreparatu gabe or dugun tesoroa. Su amorioskoa, txindi bat biotzetara, bizi gaitzen orren amaten,

estimatzen ta plazer egiten, ezi ez ala izatekos estut estimatzen bizia. O edertasun ain lenekoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! Zein berant onetsi duten! Berant ezaundu, berant onetsi, ta deustako ez izaki, zer inen dut ia orai? Ezin erakutsi izerdiak ta odol ixuria orrengatik; ezin mostra lllagak orrengatik sufrituak; ezin alega arimak orrendako iragaziak; ezin presenta zerbitzu eginak. Zer inen dut? Esta berze erremediorik; pobreen moneda, borondate ona, afekto ona, deseo ona. Zer inen dut? Ofensarik ez sikiera, onetsi biotzes, ta kuidatu plazer egiteas nere posibilidadeain gisara. Zer inen dut? Konbidatu mundu guzia onestera Jaun alakoa, noblea, aberatsa, andia, poderosoa, xakintsua, ederra, ona, ongigillea, amablea ta amantea. Sazerdote Jaunak, onetsi zagun gure Nausi ona, gure axuri dibinoa, gure erregalo, honra ta korona; birjinak, baizarate urbilenak, Elizaren lorea ta gala, Kristoren saldoaren porzione luzitu-preziosoena, onetsi zagun birjinen esposo maitagarria, on guziaren iturria, biotzaren gozo betea; alargunak, onetsi zagun miseriakordien Aita ta konsolu guziaren Jangoikoa; ezkonduak, onetsi zagun trabaju guzien deskansua, kuidado guzien errepausa, bear dugun guziaren emanzalea. Jauna, ori gurea, gu orrenak, orrek gu onesten, bada, guk ere bai berori onetsi, estimatu, honratu, kontentatu nai dugu. Biz au gure bizia, gure gustoa, gure ansia, gure honra ta gure gloria. Amen.

Quid mihi est in coelo? Et â te quid volui super terram? Deus cordis mei etc. Ps. 72. Jauna, berorrek in benaza bere; in benaza arima eskojitu noble gaietaik bat enpleanadiena orren amatzen ta orri plazer ematen. Jauna, biz orrena guzis guzis pobretto gau. Ezpanaiz deustako ere, ezpadut ere deus balio, ongi kosta natzaio, ongi kario erosi nindue. Neregatik ezpada, estaien nereki galdu prezio pagatu duena; bere odol preziosoagatik, bere bortz lllagengatik etc.

Sermo XXI:
De praecipuis miraculis
in eucharistia

Venite et videte opera Dei,
quae posuit prodigia super terram. Ps.45.

Jesusen amorioa da triunfatzen duena eutxaristian. Baña zer intzuke ez izatera podorio duena? Biak bateo juntaturik, amorio infinito ta podorio inmensoa, fabrikatu ze eukaristia, obra prodijios betea. Zatoste, zio Dabidek munduko guziei, zatoste ta ikuskizie Jangoikoaren obrak, munduan egin dituen prodijioak. Zein dire oriek, Dabid sandua? Badio: autxiko du arkoa edo tiruztaia edo ballesta; zatikatukotu armak ta errekotu suan brokelak. Esta ia? Badio: Libre zaustelaik, ia atendi ta ikusazie ni naizela Jangoikoa; ensalzatuko naiz jendeen artean, ta ensalzatuko naiz munduan. Esta ia? Badio: Birtuteen Jauna gureki, gure anparazalea Jakoben Jangoikoa. Esta bear ia. Au da prodijioen korona. Noiz kunplitu ze perfektoki au? Noiz ta etorririk mundura Jangoikoa gizon eginik, azkenean fundaturik aldareko sakramentua, ontan gelditurik baitago errealki betikos gureki. Bizi zelaik mortale, galdeturik bere Majestadea non zuen bere habitazioa, errespondatu zue itz gaieki: Zatoste ta ikusazie (Joan. 1). Eta orai tenplu-barnetik dio ori beroi: Zatoste ta ikusazie nere habitazioa; baita oroat nola erratea: Zatoste ta ikusazie Jangoikoaren obra ta prodijio in duena munduan, prodijioen andiena, prodijios betea, ta prodijio inikako guzien memoria, bilgura edo suma. Aski da egotea artan guzien obrazalea; baña ortas landara obratzentu berri berritan egunoro. Bein enkarnatu ze Birjinaren entraña sanduetan, emen enkarnatzen bekala da egunoro sazerdotearen eskuetan. Bein jaio ze Belengo portalean, emen jaio zen bekala da egunoro aldarean. Bein zirkunzision jaio ta zorzigarren eguneko ixuri zue odol tierno berria, emen presentatzen da axuri dibinoaren odolareki egunoro kaliza. Ogei ta amirur urtes bizitu ze ikusgarri munduan obratus anitz milagro. Emen dago ia mila zazpitan egun ta ia urte gontan, ta egonen da sekula guzian obratus anitz prodijio. Prodigio andia barutzea, Jangoikoa nekatzea, izerditzea. Emen dago ofrezitzen egunoro orduko irabaziak. Egiten zue orduan orazio egunas eta gauas, predikatzen zue doktrina zerukoa; beira zazu emen ere orazio egiten gau ta egun, ta predikatzen biotzetara ixil ixila. Izerditu ze bein, odoles pasio-alzinean. Emen zenbait aldis ikusi da odolestaturik hostia sagratua. Preso inzute orduan judioek, orai dauka preso bere amorioak. Orduan sufritu zitue golpeak, eskarnioak, azoteak, aranzeak, gurutzea. Orai egiten zaizkio emen asko irreberenzia, ofensa ta injuria. Bein ilze gurutzean, emen errepresentatzen du egunoro mezan iltze gura. Orra nola den obra gau bere prodijioen memoria ta suma. Zatoste, bada, ta ikuskizie Jangoikoaren obrak, egin dituen prodijioak munduan.

Baña egun, ebek utzirik, aipatukotugu solamente milagro errealetaik prinzipalena agitzen direnak sakramentu miragarrian. Maria Ama, dulce amablea, estu munduak ainberze ondasun ori gabe, baizik ori dela medio; ori ezpaliz, zer litzake munduas? Ori da mendortz argi eder alegrazalea ekarri zuena mundura iruzki dibino gau. Onen milagroak aipatzeko ta estimatzeko bear bekala, orrek orai ere eman bear digu grazia. Abe Maria.

Zatoste ta ikuskizie Jangoikoaren obrak, munduan egin dituen prodijioak, berexki sakramentu aldarekoan. Zatoste prebeniturik sinestatzeko firmeago, ta beneratzeko

humilkiago estuziena entendatzen edo erdexten, zerengatik ori beroi da señaie
Jangoikoaren obra dela, ta andia, ezi esta bear humildade anitz, baizik juizio ezauntzeko ta
konfesatzeko, dezakela ia egin Jangoikoak, ezi ez guk erdetxi, eta estirela andienak guk
erdetxidezazkegunak. Jangoikoak egin du ta errebelatu du, Elizak ala sinestatzen du ta
erakusten du; aski da arrazio gau gu seguratzeko. Estuzu erdexten nola au nola ura, zer da
orreki? Esta au nere buruaindako, errazu. Ain laburra du naski Jangoikoak eskua, edo ain
loturik dauka, egin ez dezaken baizik zuk erdetxiala? Etzaitela izan pobre suberra, tonto
presumitua; fia Jangoikoaren itz eta podorioan. Irur milagro prinzipalak aipatu naitut.
Lenbizikoa da konsagrazioko itzen birtutes ogi ta ardoaren substantzia destruitzea, ta
paratzea aien lekuan ta aien akzidenteent pean Jesu Kristoren gorputz ta odolaren
substantzia erreala, propioa, egiaskoa; eta sustanzia bat berzean aldatze gau da deizen
duena Tridentinoak Aita Sandueki transubstantzikazioa. Jauna, bada, an esta ageri
mudanzarik, len bekala iduri dute. Egia diozu, iduri dute len bekala, baña estire len bekala;
iduris bai, auda kantidadean, kolorean, urrinean, zaporean, baña ez, baizik agitz diferente
errealidadean. Nola da au? Jangoikoaren milagros berak erran ta egin da: Ipse dixit et facta
sunt. Nik estakit berze errespuestaik. Etzaistela arritu, ezi gauza naturaleetan ere agitzen
zaigu au berau. Ausnarrias kontatzen da agitu dela erraustea dirua bolsaren barnean ongi
ertxirik zegona, ta bolsari mellarik egitea. Ikusi omen da desegiten arras ezpata bere
magian zegona ukitu gabe magia. Alaber, sekatzeta ausnarri berak kupela bateko ardoa,
utzirik sano ta oso kupela. Ta en fin, iltzea personak errealki utzirik biziaren iduria
perfekto, nola baitiote Kardanok ta Titelmanok. Lemnosko islan zeudelaik afalzen
igitarlebazuk alorrean, utzi omen zitue ausnarri batek ilozturik guziak, bakotxa artu zuen
posturan, bata jaten, berzea edaturik platerera eskua, berzea goraturik zagia, berzea irris
ortzak agerturik, ain nola baleude bizirik (Ap. Claus. p.3. cath. c.40). Galdeiten dut nik
orai, nola in zituen ausnarriak gauza gaiek ain iduriain kontra? Bada, ezpa dezakegu
erdetxi natural den gauza, zenbat gutiago eutxaristiako milagro sobrenaturala? Esta gure
buruaindako erdextea, baizik sinestea.

Begiek ikusteunte ogiaren ta ardoaren kolorea, gustoak ta usmak, aien zaporea ta
urrina, fedeak ordeak ikusten du Kristoren gorputz ta odolaren substantzia. Etzazula segi
sentidoei idurituas, iteko juizio errealidadeas, ezi sentidoak daizke engaña, fedeak ez.
Matsokoak zire iduris pintatu zituenak Zeuxis pintore famatuak ain bizi, ezi engañaturik
txoriak joan zire pikatzera ustes ziren mats egiaskoak. Txoriak engañatu zitue onek, baña
berau engañatu zue Parrasio berze pintore batek apostu zuenak berareki, zeñek in obeki.
Pintatu zue ol batean kortina bat ain bizi ta propioki, ezi etorririk Zeuxis ikustera bere
kontrarioain lana, galdeturik non zen, aiturik an zeukala ol gartan, joan ze idekitzera
kortina bere ustes, ta aurkitu zue zela pintatua. Rubens, alaber, pintore famatuak pintatu
zue Klara Eujenia Austriako artxidukesaren erretratoa ain propiki, ezi paraturik leku
ilunkara batean, ikusirik artxidukeak diosala egin zio ustes zen bere esposa bera (Parr. p.
3. de euch. pl.5). Klaro da konparazio gebek estutela ikustekorik eukaristiako
milagroareki, baña errantut solamente adiarasteko ezi arteak iduriarazi badezake estena
badela, nola Jangoiko andiaindako esta izanen posible paratzea bere gorputz ta odol
prezioso ogi ardoaren iduriaren pean? Iduritzea ogi estena ogi, ardo iduritzea estena ardo,
da gure fedearen triunfoa, sentido guzien bortxa arrazioak ezaun dezan egia, orgatik
espezialki, misterio gau deitzen da fedearen misterioa. Berzeetan sinestatzen dugu
ikustenestena; ontan kasi ikustendenain kontra, baldin ikusten denas in baledi juizio
substantzias, baña esta propioki ikustendenain kontra, zerengatik ikusten dena solamente

dire ogi ardoen akzidenteak, ta oriek an dire, orieki ordea ogirik ta ardorik ez, baizik gorputz ta odol dibinoa, zeñetan aldatu baitire itzen birtutes, Jangoikoaren milagros. Egi eta fede gau konfesatzen ta errespetatzen dute naiestutela bortxa deabruak ere, ikusten baita experiencias Darokan ta nonnai. Erresistizen ze konjurio guziei bat zegona emasteki batean Kanbraien. Egun bates Deana, akabatu orduko meza, joan ze konjuratzera. Deabruak erran zio: Zein ongi armaturik eldu den errezibitu duen ogi garreki! Zer ogi? erran zio Deanak: Ezpada baizik ogi errezibitu dutena mezan, ezadiela atra, baña barin bada errealki Kristoren gorputz ta odol preziosoa, beraren birtutes atraadi berla. Berla erran orduko atra ze madarikatua (Parra ibid.).

Misterio gonien itzal bat bekala ze Moisesek ikusi zuen malda gura sugarretan erre gabe, sugarra barin baze nola etzue erretzen? Edo ezpazue erretzen nola ze sugarra? Ogiaren gusto, urrin ta kolore; ardoaren ere bai, nola estire ez ardo ta ez ogi? Baña ikusagun Moisesen bara prodijioso gura. Ia edatzen du ta itzultzen da serpiente; ia artzen du ta itzultzen da bara. Goazen itsaso gorrira; edatzen du Moisesek bara ta partitzen dire bi aldetara urak, zein bi aldetaik zeude pasmatu-aintzu, ala nola bi muralla ureskoak tiesos, pasatzerakoan israeldarrak. Nola daude ain tieso urak direlaik likido jariten direnak? Milagro gau bekala izan ze ibili zelaik Kristo oñes uren gañean. Berze aldera berriz obiako ar-lauza, atra zelaik obiatik gorputz dibinoa, mogitu gabe ta ukitu gabe arria. Zer in zekio arriai bere gogortasun ta sendargoa? Badakit estirela ongi eldu milagro gebek adiarasteko sakramentuaren milagro exzelentea, ta dardukatela entendatzen estuten gauzan; baña ontas dut plazer, ezpaitaizke kabitu gure buru txarren kapazidadean Jangoikoaren marabillak. Alaere exenplu gaiek zerbitza dezakete seguratzeko gure fedea sinestatzean ogi-ardoen substantziaren aldatze garren milagroa, gelditurik lengo akzidente berberak sakramentu miragarrian.

Berze milagroa da egotea akzidenteak sujetorik gabe, au da, ogi ta ardoaren akzidenteak beren substantzia gabe. Zertan, bada, sustentatzen dire? Zerk dauzki? Nola diraute? Goazen klaroago. Akzidenteak deitzen dire kolorea, zaporea, urrina, kantidadea edo andi txipia. Nork edo zerk ditu ebek an? Ogiak ta ardoak ez, ezi an estaike erran, ogi gau edo ardo gau da txuri edo gorri, gustoso, atxondun, andi-txiki, anitz edo guti, zerengatik ia esta an ogirik ta ez ardorik batere. Estitu Kristoren gorputz ta odolak ere akzidente gaiek, ezi estaike erran dela aien aiora txuri edo gorri, gustoso, atxondun, andi-txipi, Jaun garren gorputza eta odola, ezi disparte litzake pensatzea beraren kolorea, zaporea, urrina ta kantidadea dela ura. Norenak dire? Ogi ardoarenak. Non dire ebek? Estaude an ia. Nola daude bada, aiek? Ori da milagroa, Jangoikoaren poderio infinitoaren birtutes daude. Naturalki destruituaskeros ogi-ardoen substantzia, destruitu bear zire aien akzidenteak, ala nola urratuaskeros paretea joan da gañeko tintura. Baña emen edekirik edo aldaturik ogi ardoen substantzia, diraute eben akzidenteek milagrosoki. Entendatzeko, intzagun kontu duela batek ainberze habilidade, ezi autxirik golpe bates lanpara gorren kuerda ta basoa, alaere geldiarazi lezan olio ta ura bere argiareki airean deus gabe oraiko figura berean. Arrigindeizke guziok, ta urbildurik ikustera Jesus, nola dagoke olio ta ur gau? erran gindezake: Lanpara kendu dute, onzia autxi dute, nola dago bada olio gau, ur gau ta argi gau airean? Badakusat konparazioain laburra, adiarasteko sakramentuan iten den milagroa. Baña zer inen dugu, ezpada konparazio aski denik? Bada, ala da egia. Paratu ze ogia ta ardoa, konsagratzen dire; esta ia ogirik eta ardorik an. Ikusteunzuna da ogiaren edo ardoaren kolorea, gustatzeunzuna da aien zaporea, ukitzeunzuna da aien kuantidadea; ta aien substantziarik ez, baizik adimentuari sinesta, au da, aditu dugunai,

Eliza Ama Sandari Jangoikoak errebelatu diola, Kristo bera dagola sakramentu gartan ain errealki nola zeruan. Ala itsutu zelaik Isaak, manaturik Esau seme andienai zoeiela eiziara ta eizia ongi konpondurik ekar zezola emateko orreki berai azken bedeizioa. Ura joan ondoan, Rebekak deiturik seme berzea, baize Jakob, maiteago zuena, bestitu zue Esauen tresenes, ta estalirik eskuak antxume-larrueki sarrarazi zue aitagana humerri konpondu zuenareki, arrapatzeko aitaren bedeizioa, sinestarazirik Esau zela; eta ala agitu ze errealki. Isaakek sentitu zue Esauen tresenen fragranzia, jan zue eraman ziona, astatu zitio eskuak, mintzatu zio ta galdegin zio; aitu zue arren boza ta erran zue: Boza Jakoben boza da, baña eskuak Esauen eskuak dire. Ta ala dio eskriturak, etzuela ezaundu zela Jakob, nonbait ezpide zio sinestatu sines adimentuai, ziolaik: Boza, Jakoben boza da. Gure asuntorako, lanze gontan Isaak laur sentidoek engañatu zute: Begiek, esta admiratzeko itsu zegolaik; usmak, zeren sentitu zuen Esauen tresenen fragranzia; gustoak, zeren uste zue eizia zela jaten zuena; eta eskuen astatzeak ere bai, zeren larru gaieki uste zue zirela Esauen esku bilozuak. Sollik adimentuak etzue engañatu: Boza, Jakoben boza da. Esta au ere konparazio kabala, baña entenderasteko ezi sakramentu gontan estaiela in kasorik laur sentidoes, baizik borzgarrenas, adimentuas; ez begies, zerengatik begiei hostia sagratua iduri dakioke ogi, ta esta ogi, usmai oroat, ta esta, oroat astatzean, oroat gustatzean. Baña fides ex auditu, fedea dator aditzetik; auditus autém per verbum Xpti. Aditzea berritz da, Kristoren itza dela medio, ain seguro baita, nola Jangoikoa, zeren Jangoiko baita bera, engañatu estaikena ta ez dezakena.

galde gindezake emen norbaitek, zergatik faltaturik ogiaren sustanzia, estiren faltatzen akzidenteak? Zergatik paratzen delaik hostian errealki gure Jauna, gelditzen diren bateo ogiaren iduria, gustoa ta alakoak. Ala disponitu zuenak daki guzis, baña guk pensa dezakegu dela, izateko ala nola belo sagratu bat estal dezana gure begi eriei sancta sanctorum lotsagarri admirable gura, Jesu Kristoren majestade soberanoa. Izan daitzen lañu bat bekala altxatzen duena gure Jaunaren gloria, ezkaitzengatik sopra lotsarritu beraren presenzian. Izan daitzen itzal misterioso bat konteni dezana iruzki dibino garren argitasun inmensoa, ezkaitzan itsatu, ta izan dadien gure fedea fede ta balioso, sinestatus ikustenestuguna. Izan daizen ala nola parete edo kortina berariaskoa, zeñen berze aldetik dagon gure arimen esposo dibinoa, disimulaturik bere majestadea, humil, llano, amante gisa, gure naiak, gure otoitzen aditzen, gure bearrak ikusten, gure amorioa konbidatzen. Ain andi ta ain txipi! Majestade ain lotsagarria, ta errebozaturik akzidenteen belo txuri garreki! Fedea, non zara, ezpaita urtzen biotza ikustean hostia txipi gura begis, ta fedes an okultatzen den Jaun gure amantea? deseatzten zuen bati ansia andieki joatea mundu gontaik ikustera Jangoikoa, Santa Teresak apareziturik erran zio: konsola zaite, ezi guk ikusten duguna glorian da zuk ikusten duzuna aldarean, distinzio goneki, ezi guk ikusten dugu gloriako argian, zuek fedearen argian ta irabaziareki (Parra ib.). Begiak estimatzen tut geienik, zio sanda batek; eta zergatik uste duzie? Ikusteagatik, zio, hostia sagratua, zeñen ikustea baizue erregalo andia, ta ezin ikusia izanen bailekio pena andia. Eta errealki Jangoikoak zenbaiteti estiote utzi ikustera hostia sandua aldartes (Parr. Andrad.). Sibilina de Pabiak, berriz, itsu izanik ikusten zue, au da, ezaunzen zue non zen sakramentua (Parr. ib). Atra gara bidetik; itzul gaizen.

Berze milagro bat da egotea bateo ez solamente zeruan egotemodu naturalareki, baitaere munduan, sakramentu gau dela medio, anitz lekutan errealki presente gorputz ta arimareki, estelaik orgatik anitz Kristo, emen bat, an berze bat, ez, baizik bat bakarra ta berbera osorik, sakramentua den guzietan. Leitzen dugu San Franzisko Xabieres, San

Antonio Paduakoas ta berze zenbait sandus, aurkitu zirela bateo bi leku diferenteetan. Nola izan ote zen ori diskurritzea bego teologoendako; nik fedes dakitena da Kristo dagola ainberze lekutan, nola baita sakramentu, errealki guzietan. Estut ere aurkitzen konparazio kabalik, baña nolapait adiarazi nai. Alemanian zego espiritu gaistoekei emasteki bat (Andrad. gr. 5. SS. 14). Bein pasatzean karrikatik komekadura belaurikatu ze adoratzeko, zerengatik deabruak ere errespetatzeunte guzien Jauna sakramentuan; berze guziak, alaber, paratu zire belauriko, solamente, judio bat gelditu ze tzut tzuta, joanik emastekiak, edo arren eskus deabruak eman zio bofetada bat ederra, ziola: Desdixatu txar ingratoa, nola estiok egiten erreberenzia eure Jaun ta Jangoikoai, zein baitoaie sakramentu gartan? Ark errespondatu zio: Ori egia balitz, ainberze Jaun ta Jangoiko lirazke, zenbat baitire meza erraten direnak munduan, ezi guzietan diote dagola beren Jaun ta Jangoikoa. Orduan emastekiak arturik an aurkitu zuen baia bat, ta paraturik iruzkiaren parean, erran zio: Estuk ikusten zenbat lekutaik pasatzen den iruzkia, ta diferente dirudien, ta alaere estela baizik bat? Ario gontara, naiz presente paraturik gure Jauna meza guzietan, estuk baizik bat. Ala erakutsi zio deabruak sakramentuaren egi eta fedea iruzkiaren konparazioareki, baña esta konparatzeko iruzki bata berzeareki. Leike erran ere, nola iruzkia bat izanik agertzen baita anitz ontzi ureskoetan, borobil guzia bakotxean, ala. Baña klaro da diferenzia. Ala nola ene boza orai anitzen adimentuetan baitago, bat izanik boza; baña estu zer ikusi onek milagro garreki. Orai eldu dire millaka prodijioak, nola kabitzea Jesu Kristoren majestadea ain hostia txipian; nola egotea batean ainberze nola bietan ta guzietan, txipiagoan oroat nola andiagoan; zati anitz eginik ere hostia, ez zatitzea, baizik aurkitzea osorik Kristoren Majestadea zati guzietan, nola hispiluaeren zatietan ageri baita osorik aurpegia oroat nola osoan, baña iduris da au, sakramentuan da errealidadea; ta berze asko prodijio ezin erdetxi ta ezin erabakidezazketenak nik. Galdeiten didanai nola au, nola ura? Ona errespuesta: Ipse dixit et facta sunt, berak erran ta egin da. Quis loquétur potentias Domini? Nork erabaki gure Jaunaren obra prodijiosoak?

Nere Jaun eta Jangoiko andia, ainberze milagro! Ainberze prodijio guri egiteagatik ongi! Eta ain guti estimatzen ta erreparatzen guk! O hostia sandua, guziori milagro ta milagro! O amen preziosoa zeruak adiña ta Jangoiko adiña balio duena! Nere Jesus onegia, nere arimaren esposo amantea, nere axuri dibinoa, nere prisionero amorioskoa, noraño apaldu da? Zoraturik bekala dirudi dagola digun amorioaren utses! Barkatu, Jauna, itza, ezi tontoturik ta lelaturik nago orren presenzian beiratus orren amorioaren exzesok, orren biotz noblearen marabillak. Baña norengatik? Gizonengatik, eta neregatik ere bai. Estakit zer erran, ta ez zer erran duten; baña etzaida deus, nola biotzak dakien amatzen alako amazallea. Eta zer in bear du baizik amatu? Orrek bai ni, eta nik ez ori? Esta arrazio. Kantatu nai dut Santa Teresareki: Jesus nere prisionero aldarean emen dago. Zer in bear dut? Ni ere nago Jesusen amoros ero. Ain andia ta ain txipi Jesus ori neregatik, badakusat zerengatik, amorosteagatik ni. Barin badut biotzik, Jesus, nai dut ilartaño ori ia guziak baño, ori nai dut bakarrik. Ezpadezaketa entenda, Jesus, anbat nola den, alaere orreki emen astoko gau egonen da. Fedeak supli bez, ene fielak, ezpadezake erdetxi entendamentuak, ori da zerengatik geiegi iten duen guregati Jangoikoak. Oroitu egin zuenas jaiotzean utzi baize erreklinatza ganbela batean; gero azotatzera kolumnan, gero iltzera gurutzean. Ura in zuenak inzue au ere. Apaltze arrigarria da hostia bateraño, baña goratze geiegia da gu zeruraño, artaika dator onen esperanza, ezi apaldu da goratzeagatik gu. O ain zierto nola Jesus eukaristian, banindego ni bere glorian! Amen.

Sermo XXII:

De commodo nostro

ex praesentiâ Dei in eucharistia

Si Deus pro nobis, quis cóntra nos?

Qui etiám proprio etc. Rom. 8.

San Pablo apostoluak karidadearen sua dariola erromakoei eskribitzen dioten kartan erratentu itz gebek: Jangoikoa barin bada gure fabore, nor gure kontra? Zeñek bere seme propioai ere ezpaizio barkatu, baizik entregatu baizue gu guziengatik, nola dateke etzitigula eman berareki gauza guziak? segitzen du desafiatus gauza guziak bera Kristoreki estutela apartaraziko dion amoriotik. Baña gure asuntorako errate gura, ezi Jangoikoak emateareki bere semea eman zigula guzia. Non daukagu Jangoikoaren seme Jangoikoa? Orra sakramentu aldarekoan. Beras zer falta zaigu? Guzua dugu ta izateko bide, nai badugu. Enkarnatu zelaik Jangoikoa deitu zena Jesus gizonain salbazalea, gizagendeak kriatura guzien alzinean ta aingiruen beren alzinean, in zuke sendagalla gureki dela Jangoikoa, gure alde, gutaik bat bekala. Bada, oraño gloria gaizke ezkaituela utzi, naiz iganik zerura gelditu baita sakramentuan, zein orgatik deitzen baita enkarnazioaren extensioa edo edatzea, zeren fabore ordukoak egines prosegitzen baitu emen. Zer konbenienzia guretako! Gisaontan alzinatu ze gure salbazalea usterá medio betetzeko ondasunes gu aseartaño biotzaren deseoak. Alzinatu ze, diot, guk eskatu baño len, Aita on dibino amante bere pareik estuenaren gisa etxiden gabe eskatu arteo humeek, prebenitzera gure on guzia denbora guzietako bere testamentu berriko gorputz, odol sagratueki, guk desea ta pensagin dezaken baño obekiago ta obekiago. Bedeika dakiola ain ona baita. Konbenienzia dugun gonen pensatzeko ongi grazia bear dugu. O aurkitu zuena Jangoikoaren begietan grazia, ta ainberze ezi eskatzen zuelaik igor zezan mundura Jangoikoak bere semea, beroi baizeuka autaturik beretako, deitzen zelaik Jangoikoaren eskalaba, Jangoikoak deizen baizue bere Ama. O zein ongi estimatu zuen tesoro fiatu ziona? Bada, bera dugu eutxaristian, erdetxi bezagu dugun ona ezaunzeko ta baliazeko grazia. Abe Maria.

Zein egia den ezi gure Jaun Jesu Kristok obeki nai gaituela gu, geurek baño ere, eta au da ageri sakramentu utzi zigun gortan. Kontu inzagun berzela aurkitzen garela Jerusalengo zenakulo gartan ortzegun sandu arratsean, ta San Juan ebanjelistak adbertitzen digula dagola ia gure Aita dibinoa Jesus despedidan, ellegatzen dela ordua, quia venit hora eius, eta bere eskura utziak dituela gauza guziak, quia omnia dedit ei Pater in manus, eta, alaber, beti ta orai espezialki nai gaituela ongi, cum dilexisset, dilexit. Por konsigiente egitera doaiela testamenta, diola berak eska zagula ta emanen digula, petite et accipietis. Ots, bada orai zer nai dugu? Zer eskatuko diogu? Agian lurreko ondasunetaik? Agian graziak, donoak, birtuteak? Agian bere merejimentu bildutuenak? Anitz da, baña utzagun bere eskura, fia gaitzen nai duena digula berak. Aizagun diona testamentuan: ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza. Ar zazie ta edan zazie, au da nere odola. Eta ez kontent bein sollik emateas, usten du probidenzia beti emateko erregalo bera, ordenaturik ortako apostoluak, ta utzirik potestade ordenatzeko ondorean ere sazerdoteak, ta manaturik egiteko au berau beraren memoriatan in mei memoriam facietis. Gisaontan bateo utzi digu lurreko ondasun, grazia, birtute ta bere merejimentuen logratzeko-modu, usteareki bera

bere gorputz ta odolareki mai gartan. Nori gogoratuko zekio alako gauza? Ongi zio San Pablok, bera emateareki guzia eman digula, quomodo non etiam cum illo omnia nobis donavit? Ia eman digu, deseatu ginduken baño.

Baña etzagula egun aipa alimentuaren ona, baizik bere presenzia ta konpañia ematendigunaren konbenienzia. Bera gureki egotea gauza andia, ta egotemodua ere bai. Guzia izanik, bera ezpagindu, falta zekigu obena; orai bera dugulaik deus etzaigu falta gu nor bagara. Ongi adbertitu zue ebanjelistak, sciens quia omnia dedit ei Pater in manus, zekiela Jesusek guzia eman ziola eskura bere Aitak, entenda dezagun geldituaskeros bera den guzia bereki ekar duelaik bere eskua, beterik daukala ondasun guzies, ta idikirik ere bai eman naiak, barin bada artu nai duenik, ezi dion bekala Baltasar Albarez benerebleak (Ap. Parr. pl.2. euch.), Santa Teresaren konfessoreak, etzizaizkio gelditu etxean atzendurik bere miseriak begi gaiek, bere amoriosko biotz noble gura, bere piedadearen entrañak. Da klaro apaldu dela ontaraño goratzeagatik eroriak gaudenak miseriatan, ala nola erorzen delaik humea kurtzen baita ama goratzeko ura. Da klaro gelditu dela desterru gontan, negarresko balle gontan, gure hospitale gontan erremediatu naiak gure bearak, eritasunak, lazeriak eta negarrak. Oius dago arimei: Venite ad me omnes, qui laboratis etc. Zatoste ene gana trabajutan zaratenok, eta nik konsolatu ta erremediatukozaistet. Orai dio Santa Teresak komekatzeas, bada, len solamente beiratze bateki bidanabaritsuak argitzen, itz bateki ilak bizten, ta tresenain ukitze bateki eriak sendatzen zituenak, zer estu orai eginen ertxiki uniturik biotzean ta ariman? Bada, bere ariora eskatzen dionai tenploan beraren presenzian. Ezauntzeko ongi ongi gonon ona, pensa gure estado txarraren gaitza mundu gontan zeruaren ta infernuaren ertean, trabajurako jaioak, arimainaldetik bekatu bideak, gorputzaren aldetik inklinazio gaistoak ta berze miseriak, ain atzenkor inporta denas! Ain itsu banidade ta engañuetan; alde bat lur-karraio nola presidarioak, naut erran, lurreko gauzetan okupaturik, mantenitzeko gorputzen asto gebek, berze alde, o zenbat! sinplaturik kasi bizi guzian armirmauen gisa fabrikatzen sarea uli arrapatzeko, anni nostri sicut aranea meditabuntur, au da, emengo honra, ondasun ta gusto banoen eizian inguraka. Eta bitarteo batzutan ezin logra, berze batzutan logratu ezin goza nola nai; ezi laster eldu da eskoba urratzeko armirmau-sarea, naut erran eldu dela edo eritasuna, edo desgrazia, edo zer edo zer, desegitera gure fortuna-iduria. Deus gutiena da au. Arima pobrea nola dabila peregrina etsaies inguraturik, engañatzeuntela andik eta emendik, ia jaiki, ia erori; zenbat ignoranzia! Zenbat falsedade ta makurtasun! Ezpaitire ongi ikusten gauzak munduan gorputzaren loian ta munduko banidadeen lañuain kasos! Arima animatzen dena ere zerurat, non baitu bere patria, ia dago ferboroso, ia epel, ia bizkor, ia nagi, ia zerbait iduri, ia deus ez, ia triste, ia alegre, guzia aldaketa. Bitarteo zerua goiti, bidea ertxi, astatzen gutik, anitz deituak, guti eskojituak, eta justoa doi doia salbatuko barin bada, zer izanen da bekatarias? Nora joanen gara, Jauna? Domine, ad quem ibimus? Jesus salbazalea gure erdian. Gatozin beragana; berareki konsola. Aingiru bana eman digu goardatzeko, ala nola erregeak humeei beren aioak kuidatzeko, diferenziareki ezi guri eman baitigu geurok baño naturaleza goragokoa dena, aingirua. Baña esta oneki ere kontentatu; bere Majestadea bera gelditu zaigu gure erdian goardatzeko berak bere odolareki erosiak.

Goazen konparazio bateki. Presidio batean daudenek presidario, ai balezate erregeren seme prinzipa jaunai eman zaiola esku egiteko nai duen grazia aiei, libratzea salbo presidiotik denbora beteartaño, gañarakoan nai duen guzia, ta balekite prinzipa jauna agitz dagola apasionaturik aien fabore, ta orren progu onak emantuela, ageri da zer

kontentua luketen! Bada, zer, ai balezate aien amorios aiengana etorri naiak dagola bizitzas? Zer, balekite dagola prebenitzen etxea ta gauzak aien lekuan? Zer, aitzen zutelaik, eldu da ia? Zer, ikusterakoan sarzen dela afable amoroso ematen esperanza onak? Zer aleganzia! Zer zori onak! Zer bibak ta eskerrak! Zer gero ia gelditurik egotes progalezatelaik ain humil humano ematen sartzeko lizenzia, aitzen aien otoitzak, ematen errespuestak, egiten graziak, tratatzen, mintzatzen ta erregalatzen lagun, adiskide, anaia, Aita, nai zuten guzia bekala? iduri zaigu orai naski zerbait erran dugula adiarasteko dugun ona ta konbenienzia egotean presente gure erdian zeruetako prinzipie heredero ta errege Jesu Kristo bera? Eta deus esta ura onen aldean. Ainberze abantalla darama onek arrei, nola Jangoikoak gizonai, baita infinito. Berze alde nola daike pensa ainberze amorio, humiltasun ta afabilidada, nola mostratzen baitu misterio gontan? Bada, ongi eginak emen nork konta? O baginduza arimaren begiak argi ikusteko ondasun duguna! Zierito, auta gindezake bi gaitzetaik bat izatera, auta gindezake falta leien mundutik iruzkia lenago ezi sakramentu aldarekoa, non baitugu justiziaren iruzki konsolagarria. Ah gure tristeak, ez izatera Jaun dibino gau gureki! Baña orai ongi gaude, nai badugu ta nor bagara. Gureki Jangoikoa. Biba.

kontu inzagun gindeudela ez desterruan solamente, baizik kastelu batean inguraturik etsaies alde guzietaik kordonean, ertxirik atariak, ezin nior atra, arturik pausu guziak, ez ogirik, ez urik, ez deusik sartzeko an. Barnean indar guti, alimentuak akabatus, beldurrak gau ta egun ia etsaien suagatik, ia geuren bearragatik, batzuk ilik, iltzera berze batzuk, guziok ia ikar ikar eriotzearen beira, ta etsaiei errenditzeas ere estela protxurik, baizik galdu barkaziorik gabe. Zer pena ta aflikzioa! Estado gontan ala gaudelaik ellegatzen dela errege propioa indar andieki, oiuiten digula barnekoei: He nere humeak, alegra, emen nago ni zuen salbatzeko, idiki atariok; erraustukotut nik zuen etsai guziok, ta erremediatukotut zuen bear guziok. Fielak, bada mirik explika dezakenik ginduken alegría ta agradezimentua lanze gartan? Bada, artan gara espiritualkiro. Kastelu gura da mundu gau, inguraturik arimaren etsaiek, miseriak abasto barnetik eta kanpotik, ilik batzuk, iltzera berze batzuk bekatu mortallareki, guziok sekulako perdizioaren ta kondenazioaren arrixkoan. Ai ene Jauna, zer izain da nitas? Ala gaudelaik etorri zaigu Jaun dibino gau, gelditu zaigu, ta dago ta egonen da gureki Jesus Salbazalea izenean ere daramala salbazioa. Konsola gaizke, ezi nonnai gauden jaun oneki, ongi gaude ta ongi joain zaigu, ala nola bera gabe nonnai gaizki. Glorian ezpalezate goza Jaunonen presenzia, ia gloria ezlitzake gloria; eta emen dakitenek baliatzen ongi Jaunonen presenzias, emen bizi dire gloriako gisara. Adan eta Ebaren hume desterratuak, zer ia dezakegu desea, fede barin bada? Ikustea begis. Oraño esta denbora.

Gañarakoan, ala egotea bera estalirik ain humil, ain apal, ain deus guti iduriarazirik, bere Majestadea esta baizik gure konbenienzia. Zer balio luke zure fedeak, ikus baledi? dio San Buenabenturak (In praep. Miss. c.2). Adorazin dezake nai ezpazindu ere. Eta nola sufritu begi mortaleek ainberze gloria? Nola errezibitu bere forma propioan? Nola nik artu, iduki, eraman nere eskuetan? Orai apaldurik ta disimulaturik bere Majestadea daukagu emen kontino. Pobreena daike ellega bera gana gau ta egun noiznai. Estute debekatzen goardiek, baizik konbidatzen. Esta atzekiarik emen, dagola okupaturik, estaikela orai egon, itzul daiela geroago, baizik noiznai dugun guk, ematen digu audienzia, arzen gaitu ongi, aitzen gaitu amoroso. Zer admiratzen zara ontas, dagolaik bera alzinaturik deies: Venite ad me omnes. Zatoste enegana trabajutan zaraten guziok. Bekatuek lotsatzen zaitute, ta Jangoikoaren juizio justoeck, zerurako ote zaren edo

infernurako? Zato Jaunonengana, sar zaite begiak ertxirik bere bularreko llagan, andik suspira: O Jesus, biz neretako Jesus, salbazalea salba benaza; estaiela gal orren odolaren kostus erredimitu zen arima? Triste zaude? Zato Jaunonengana, redde mihi laetitiam salutaris tui etc. Itzuli bezada, Jauna, bere aurpegiaren alegria. Persegitzen zaitute gaizki erraneki edo akzione txarreki? Zato Jaunonengana, Jauna, ori bada ene fabore, nor nere kontra? Bida biotz andi sereno altera estaiken bat deustas ere, baizik orren ofenses. Jauna, trabajutto gau ofratzen diot bere pasioareki junto, ia nai badu, bida sufrimentu ta patxorra ona. Bizi zara neketan edo ondasun-faltas, edo bake-faltas, edo eritasun, desgrazia ta edozein miseriain kasos? Zato Jaunonengana, eska erremedioa, konbeni bada, ezperen pazienza, ta konsola zaite apatus beraren llagak, ta errepasatus beraren pasio ta eriotzea. Arimaren aldetik zaude beterik bearres? Zato Jaunonengana, o nere arimaren esposo dibinoa, orren esposa ta orren tenploa da nere arima. Esta arrazio ain itsusi, ain pobre us dezan bere esposa ta tenploa, dezakelaik edertu ta abrastu. Humildadea zaizu falta? Zato Jaunonengana; Jauna, suberbiarik ez ezdezala permiti enebaitan. Pobre ta suberbo? Ez, aski tut berze gaitzak, guzien korona gabe. Jangoikoa humil, ta ni ez? erakus bezada humil izaten kuadra dezoten sikiera humiles. Kastidadearen bear zara? Zato Jaunonengana leproso garren gisara, ta erran zozu: Jauna, nai badu, garbinazake. Igorri bez ene arima ta gorputzera intz zerukoa, ez dezaten ez aipa, ez pensa ta ez senti inpureza errestorik, baizik orren tenplo bekala nagon guzis garbi-eder aingiruen gisara. Pazienza txur duzu? Berze edozeiñen bear zara? Zato ondasun guzien iturrira. Edo estuzu sinestatzen dezakela erremedia? Edo estakizu eskatzen bear duzuna? Azken miseria da ez xakitea eskatzen, ez xakitea erraten «au bear dut, Jauna, in bezada karidade emateas». Baña au erakusko dugu berze aldi bates. Bitarteo erran zozu bentzait: Jauna, nik estakit eskatzen. Orrek daki zer bear duten.

Nola nai dela estaike uka dugula konbenienzia andia egotean presente Kristoren Majestadea, eta geuren faltas garela beartsu, ezpaitugu estimatzen den bekala gauza. Edo agian laburrago du eskua edo biotza bizi zenean baño? Estaike erran. Bada baliatu dugun eskaidas. O Jauna, orri plazer, geurei probetxu eman dezakegu orren estimatzean, obligazio dugun bekala, ta deskuidatzen gara? Estugu eginen kasorik hostia txipi gortan dagonas? Ah zer urrikia il ta biramonean! Ez naiz arritzen sanduak bizi zeizen paraturik biotzak, begiak, afektoak, gusto guziak hostia sandu gortan, zekiten bekala ongi zer dagon or; iten zute obligazio zuten bekala, ta ongi zegokiotena, naiz ezpazute ere egiten beren probetxuagatik, baizik berorren plazer ta amoreagatik. Zertas nagon arriturik, Jauna, da nola daukaten atzendurik bekala, ta bentzait ez anitz estimaturik asko fielek. Estute, estute ezauntzen ongi, badakit, baña ezaundu ez ezi, dirudi estutela ere sinestatzen zenbaitek. Baña nik berorren eskojitueki nainuke estimatu sakramentu gontan alegiñas. Alegratzen naiz baitire arimak ongi estimatzen dutenak. Ongi iteunte, ta alaere ez ainberze nola mereji duen orren Majestadeak. O banitz ni ere alakoetaik bat? Irri egin nezake munduko banidade ta alegranzia falsues. Estire bizi gustorik gabe orrenak, Jauna, naiz diren munduaren alesta despreziatuak, atzenduak ta desdixatu deituak. Asko gusto dute berorren baitan. Eta zer noaie erratera? disgustoik gabe bizi direla orrenak, zerengatik trabajuak ere dulzatzen zaizkiote orren amorioareki; naiagonuzke aien nigarrak, ezi ez mundukoen irriak ta alegranziak. Jauna, o agi baledi, nik onestea ori ta orrek ni, ori nere ta ni orren, zer nainuke ia? Jauna, egin bez nola dezaken ta nai duen. Nere borondatea da nik ta guziek zerbitza, honra, estima ta maita dezagun indar guzieki mundu gontan, prosegitzeko maitatzen ta gozatzen eternidadeko glorian.

Sermo XXIII:
De confidantia
in Jesu sacramentato

Venite ad me omnes, qui laboratis etc.
et ego reficiam vos. Math. 11.

Nola estigu eman guzia emateareki bere Semea Jangoikoak? dio San Pablok (Rom. 8), baita erratea guzia eman digula berareki. Bada, bera dugu presente aldareko sakramentuan perenne, admititzen gaitu emen guziok ta noiznai dugun, eta ia dena, deitzen gaitu amoroso: Venite ad me omnes, Zatoste ene gana guziok, qui laboratis et onerati estis, neketan ta kargaturik zaustenok, et ego reficiam vos, eta nik erremediatukozaistet. Orai nik nere buruareki diskurritzen dut ala; bada, esta gezurra daukagula tenploan berbera deitzen dena Jesus salbazalea, jautsi zena zerutik, jaio zena Belenen, bizi zena Nazareten, predikatu zuena Palestinan, il zena Jerusalem. Esta gezurra gelditu dela ongi egiteagatik munduai, ta dagokigula konbidatzen egin naiak. Esta gezurra len adiña podorio ta amorio duela orai ere, etzaikola txikitu eskua, ta ez urritu biotza. Diot bada nik orai, nola da ainberze miseria arimen ta gorputzen oraiko gure denbora triste gebetan? Nola estire erremediatzen? Nola estire orai ikusten len bekala Jaunonen marabillak bearrorduetan? Erratea estirela bear orai da atxekia falsua, ezi zertako eskatzen da ezpada bear? Erratea ezpide dela konbeni da atxekia komuna estaltzeko geuren falta, ta anitz aldis esta egia. Erratea ez dezakela da blasfemia. Erratea estuela nai da Jaunonen gain botatzea geuren faltak. Zertan ote dago, bada? Ez eskatzean ta ez ongi eskatzean; ezi ongi eska baledi, orai ere emanen luke ain ongi nola len. Gure Jaunau eman naiak dago, sinesta, balitz nork eskatu ongi. Testigo dire azken denbora gebetako sanduak, San Ignazio, San Xabier, San Franzisko Borja, San Pedro Alcantara, San Felipe Neri, Santa Teresa, Santa Magdalena de Pazzi ta berze anitz, agian bizi direnetaik ere zenbait, logratzen zutenak nai zutena jaun onenganik, aski baizute paratzea belauriko aldare-alzinean, berla inik grazia. Santa Teresas oroitzen naiz obeki, nola leitu berria baitut beraren bizia, nola akuditzen zuen Jaunonengana propioki esposak esposoagana bekala, espezialki iragazteko arimak. Ikusten bazue persona entendamentu ta letradun bat kuadratzen zekiona, berla bere esposoagana, Jauna, au ona da gure adiskidetako, iragazi bez, berla sandu eginik. Bada bere fundazioetan nola asistitzen zio? Oroat lureko auxilio, diru, alimentu bear zituenetan? De manera ezi Jaun dibino gonek erran zio: Zuk nere esposa bekala kuida nere gauzes, nik kuidatuko dut zurees. Biz alako arimak ta ikusko dire alako finezak. Zer diot alako arimak? Nik dakit merejiestutenei ere ematentiotela eskatuak gogotik; ain ona ta eman naia nola baita! Zer litzake onak bagina medianoki berere? Baña sinesta, nere fielak, asko beterik miseria espiritualees, ongi aurkiturik beren miserieki, esta oroitzen ere jaun ontas ia ezi balego ilik, esta eskatzen ere. Batzuk, berriz, miseria beretan edo oroat tenporaleetan azkenik Jaunau, ta nola ezpaita ikusten begis, estiote eskatzen negarres, gogotik, kontino, itz bates, ez ongi. Ez ongi eskatzea daike agi asko berze faltagatik, egun sollik konfianzarena erremediatu nainuke, al banezake, erakutsis bear dugula iduki konfianza seguroa Jaun sakramentatua baitan, ain nola balebila bizirik ta ikus bagindez. Orrek, Ama dulzisima, sentitzen duena gure konfianzaren gutia bere Seme Jaun sakramentatua baitan, dakien bekala zenbat nai duen ta dezaken ongi egin, bigu gauza

gonen ikasteko ta obratzeko grazia. Abe Maria.

Ebaren hume desterratuak negarresko balle gontan, nola da ainberze ai, negar ta miseria, daukagulaik eskunara erremediazalea? Gorputzari dagozkionetan daike erresponda agian estela konbeni; baña berze askotan, eta bentzait arimari dagozkionetan zer daike erresponda? Nik diot estela nai gogotik libratu, zerengatik edo ezpaita eskatzen, edo gaizki eskatzen baita. Gaizki eskatzeas edo dilijenzia gañarakoak in faltas, edo arima garbitu faltas, edo atenzio, intenzio ta debozio-faltas ez naiz arritzen, zertas arritzen naizen da gaizki eskatzeas konfianza-faltas kristio fiel sinestatzuten dutenek sakramentu gonon egia; ezi fedea salbo, konfianza estaike falta, de manera ezi fedeari ain segurki darraio konfianza, ezi ia biok bat bekala daizke konta. Ala San Pedrori urain gañean joaterakoan Kristorengana, asi zelaik beldurtzen ta ondutzen ta klamatzen, erran zio Jaunak: O fede gutitakoa, zergatik dudatu duzu? Baize oroat nola erratea, konfianza gutitakoa. Ain zierto da izanaskeros fede izanen dela konfianza. Nola, bada, falta daike konfianza gau Jesus sakramentatua baitan? Faltatus fedea, ta ez berze gisas. Ala barin bada, gauden ixilik; zertako gastatu lixurik ta atsik, ezpada federik? Ezi kristioen sazerdote naiz ni, ta mintzatzen naiz fede dutenendako. Badakusat asarratuko direla, erraten badiogute federik estutela; eta ez dezaket berzerik erran konfianzarik estutenei. Baña azkeneko errain didate bautela konfianza ere. Etzagula porfia onen gañean; baña ikusirik pobre zan, desgrazian, eritasunean, tristuran ta espezialki arimaren bearretan edo estela eskatzen Jaun sakramentatuai, edo azkenik eskatzen dela, edo epel, nagi ta alfer bekala, ageri da, ez dezakete uka duten konfianza, barin baute, daukatela il ila, bada, nik ere ez dezaket baizik erran fedea ere ilkara dutela. Beras, nere lan guzia biz egun biztea fedea, animatzekos konfianza.

Ots, bada, fielak, sinestatzenduzienak dagola Jesu Kristo sakramentuan ain errealki nola zeruan, sinesta bizirola dela ura berbera deizen dena ta dena salbazalea, ura berbera, zeintak baitio Ebanjelioak atrazen zela birtutea ta sendatzen zituela guziak (Luc. 6). Ura berbera, zeintas baitio San Pedrok estela berze nioren baitan osasun edo salbaziorik, beras landara (Act. 4). Ura berbera, bere agos erran zuena: eman zaida potestade guzia zeruan ta lurtean (Math. 28). Ura berbera, zeintas baitio San Pablok, bialdu zigula Jangoikoak bere karidade geiegiagatik guregana (Efes. 2). Ura berbera, zeintas baitio mezako Kredoan, jautsi zela zeruetatik gu gizonengatik ta gure onagatik. Ura berbera seguratzen diguna onesten gaituela gu berak ala nola bera bere Aitak (Joan. 15). Eta duda eldu bazaize ote duen poderio ta amorio bera misterio gontan, aizazie San Juan diola: Azken ordua ellegatzen zekiolaik, zekiela Jesusek guzia zeukala bere eskuan, ta beti onetsiginduzanok onetsiginduzala azkenerat ezin iagos; au da fundatzean sakramentu gau (13). Zer ai gara, bada, pobre miserias beteok ellegatzeko ondasun guzien iturrira, Jangoikoaren etxe ta atarira, idikirik baitago, ta ataripokalean bera ondasunes beterik eman naiak, zulaturik eskuak, idikirik bularra dei ta dei kontino, venite ad me, zatoste enegana. Zatoste; nora? Ez urruti, baizik aski urbil ta aisa aski tenploraño. Norengana? Neregana, bainaiz zuen Aita miseriakordiaskoa ta konsolazio guziaren Jangoikoa, ongi kostarik progatudzietena amorioa. Nor deitzentu? Erregeak naski, ta gizon andiak? Omnes, guziok, qui laboratis, trabajutan zaratenok, et onerati estis, ta kargaturik zaustenok. Zertas? Miserias. Zeñes? Arimaren ta gorputzarenes. Eta zer emanen digu? Et ego reficiam vos, eta nik erremediatukozaistet. Ain egia da au nola ebanjelioa; bada fede barin bada, nola esta izanen konfianza?

aipatu zuelaik Kristok misterio gau biziaren medizina bekala, zenbait diszipulo

apartatu zekizkio; San Pedrori berze zenbaiteki erran ziote Jaunak: Nauzie zuek ere joan? San Pedrok ongi zekien bekala errespondatu zio guzien partes: Jauna, norengana joain gara? Baize erratea bekala gero erran zuena: Esta nora joan, esta berze nioren baitan osasunarik, baizik orren baitan. O kristio ignoranteak, delaik trabaju, naigabe ta alakorik arimaren edo gorputzarenik, dabilta ingur ingur medio guzien billa andik eta emendik, ta bitarteo estirela oroituko ere guzien erremediazaleas? Estiot estaitzela para medio justoak; diotena da estaiela atzen lenbizikoas, baita Jaunoni eskatzea. Eta zer errain dugu baliatzen direnes eritasunean berexki dilijenzia superstiziosoes edo sospetxaskoes? Alako osasuna bezain nainuke gabea. Protxun dakiotela zenbait aldis irabaziak. Eritu ze Okozias errege Israelgoa, ta biali zitue mandatariak konsultatzera Belzebub Akarongo Jangoiko falsua, ia bazeiken atra eritasun gartaik. Elias Jangoiko berdaderoaren mezus atra zekiote bidera, ta erran ziote, esta agian Jangoikorik Israelen joateko Akarona? Bada, au dio Jangoikoak: Esta jaikiko igan den goatzetik errege. Au bidoeie erranik itenestutenendako kasorik daukatenas sakramentuan, ta medio alaxekoak paratzentustenendako. Numquid non est Deus in Israël? Esta agian Jangoikorik Israelen? Konfianzarik esta, diot nik. Emen orai oroiturik gauza bates kasi eldu zaida negargale, oroiturik diot anitz sinpleen beldurras eri daudelaik errizibitzeko sakramentuak, nola kausatzen baliote eriotzea eman bear diotenak bizia, nola sarzen delaik Jaunau ataritik sar baledi atzetik eriotzea. Modu ona da au izateko konfianza! Beldurrak datorkioten biziaren autorea, nola ezpaliz obe il bearbada il berorreki, ene Jesus amablea. Baña orren errezibitu edo inbokatu faltas badaike agi iltzea ilen etzena errezibitu edo inbokatu barin bazue garai onean. Nere arimaren esposo dulzea, ori izanen da nere biziari, ori nere eriotzean, ene anparo, konsolu ta erremedio guzia. Aurki bez grazia pobretto gonek orren begietan.

Jauna, baliatzen gara sandues geuren bearretan, bella arara, bella onara. Estiot edeki nai gauzai nik bere balioa; bellek anbat balio dute, zenbat den arimaren afektoa ta irabazia. Badezakete ere deus guti balia, ta kalte eman ere bai, iten direlaik kuriosidades edo banidades edo ibili naies. Baña ez, estela ala. Alaere zenbat obeago da oroitzea ixil ixila, ta errekurritzea Sagrarioan altxaturik dagon Jesusengana baita sanduen sandua? Ta ortako in bella apartatzeko bekatu gartaik edo galbide gartaik, kentzeko bizio gura, prokuratze birtute gura, egiteko obsekio gau ta berze gau? Alako guti. Sanduei eskatzea on da, zenbat obeago sanduen prinzipioai ta buruai? Nirabeak dire aiek, adiskideak ta bitartekoak Jaunonen aldean, esta obe nausia bera? Arramas arrama ibili, ta kasorik ez biziaren arbolak? Onak dire sanduak, baña esta alako sandurik nola Jesus sakramentatua. Estado ta ofizio guziek dituste sandu bereak, nola Aita Sanduek San Silbestro, San Gregorio ta berze anitz; obispoek San Martin, San Ambrosio ta berze anitz; sazerdoteek San Jeronimo, San Felix ta berze anitz; errelijosok beren fundadoreak, ta errelijioneko sanduak; erregeek San Fernando, San Kasimiro, San Luis etc. Teologoek San Agustin, Santo Tomas etc. Filosofoek San Dionisio, Santa Katalina etc. Estudianteek San Luis Gonzaga etc. Abogatuak San Ibon; medikuek San Kosme ta San Damian; musikoek Santa Zezilia; eskolako maestruak San Kasiano; eskribanoek San Anselmo, San Marin; kapitaneak San Maurizio; soldadoek San Sebastian; nekazariak San Isidoro; pintoreak San Lukas; arranzariak San Pedro; eixtariak San Eustakio; zillargilleak San Eloi; zurginek San Josef; egunzaleak San Sebero; txastreak San Gutmaro; zapetainak San Krispin; zelagilleak San Gualfardo; ikazgiñak San Alexandro; arzaiek San Simon, pobreak San Serbulo, ezkonduak sandu bereak, alargunek estado gontakoak, birjinek birjinak. Ortas landara tugu nork bere izeneko sanduak, ta geuren debozioskoak. Enkomenda gaitzen aiei ordu

onean, baña lenik eta azkenik guzien koro nai, zein baita Jesus gure patrono, medianero ta Aita obena ta bakarra.

Sandu guziek direnagatik Jangoikoaren adiskide, edozein grazia erdexteko dire; alaere edo gure aprehensioagatik, edo experienziagatik uste dugu duela batek grazia ontako, berzeak artako, nola buruko-minen kuratzeko San Germano, begietakominen Santa Luzia, aginetako minen Santa Apolonia, bularretako minen Santa Ageda, txintxurrikoen San Blas, atsain Bida benereblea, odol joateain San Jeronimo, gotain San Gregorio, ezurretakoen San Urbano, kostadoko oñazeain San Mauro, biotzeko minain San Albano, San Amadeo, Santa Teresa, disenteriaian San Bernardino, errabiain San Bernardo ta Santa Kiteria, humoreen San Babil, terziaien Santa Eufemia, kolikain San Adelredo, hidropesiaian San Eutropio, etikain San Anselmo, perlesiaian San Serbulo, apoplejiaian San Andres Abelino, maldeijadain San Teofanes ta San Pio B., sarnain San Lazaro, ta ala gañarakoen. Alaber, sorginderien kontra San Benito, duendeen kontra San Ignazio, lotsain kontra San Bartolome, suain kontra San Floriano, pestearain kontra San Sebastian ta San Roke, animaleen gaitzen San Leonardo ta San Anton, denborain San Fermin, lurreko fruituen San Pedro M., tenpestadeen Santa Barbara. Baña ausarki edozein sanduri daike enkomendatu edozein nezesidadeetan, edozeñek erdetxi dezoke nai duena on bada, gogotik eskatzen bazaio. Non usten dut guzien Ama Santisima? Barin bada gauzarik Jangoikoak emanez dezakenik, bada bere Amak logra ez dezakenik. Baña niori agrabiorik in gabe diot guzien gañetik dela Jesus sakramentatua, ezi guziek beaute eskatu ematekos, baña sakramentuan dago eman bear duena eskatu gabe niori, zerengatik or dago Jesu Kristoreki Aita ta Espiritu Sandua.

Guziek erraten diogute: Ora pro nobis, otoitz egin bez guregatik, baña Jaunoni, miserere nobis, izan bez miserikordia gutas. Berze abantalla bat du guzien gañetik Jaun sakramentatuak, ezi sanduak daudelaik zeruan andik aditzen gaitute noiz nai duen gure Jaunak, eta munduan solamente tugu aien imajinak, edo gorenas errelikiak eta gorputz ilak. Baña sakramentuan ez imajina, ez errelikia, ez gorputz ila, baizik Jesus bera bizirik daukagu, ta aditzen gaitu plazer duelaik bere Majestadeak. Zer diot? Kasi erran dut, guk plazer dugulaik, guk nai dugun guzietan; ezi orgatik alzinatzen da konbidatzera: Venite ad me omnes, zatoste enegana guziok. Biz, bada, ordu onean debozio sanduei, biz konfianza aien baitan, baño ia ta ia Jaun sakramentatua baitan. Zer da au, fielak? Anitz estimazio erregeren adiskideei, ta ain guti errege berai? Agian esta ohea guziak baño? Agian estago aski llano? Agian estago gure naiak? Agian da emanez dezakenik? O! Solamente nainuke beira dezagun fedeariki ala nola begieki, bizi zelaik mortale, eskatzeko eskatuko gindion bekala orduan, ikusirik iten zuena bear-jenero guzietan. Ortako joan bear nue aipatus beraren ongi-eginak, ta zein aisa, azitzeko gure konfianza; baña utziko dugu berze aldiko.

Oraiko aski da errana dugula sobra motibo izateko orren baitan konfianza guzia, ene Jesus salbazale bakarra poderoso ta piadosoa. Nor ori bekalakorik? Nork indida niri orrek adiña? Ah! Ni nor banitz, izan nezake nauten guzia orren baitan. O nere biotzaren zentroa, nere afekto guzien enplegua, nere bear guzien erremedioa orai ta beti, ta nere gerokoaren esperanza bakarra. Norengana joain gara? Orrengana itzuli ta biur ibili bear dut, ezi estut nora joan, orrek usten banau, eta orrek ezpadida ematen, niork estida emanen, ta estut nai ere emandezadaten orrek naiestuena. Nai izan bez idukitzea ni bere etxekoa bekala, Jaun andiak pobretto bat bekala karidades, solamente berorren begietan grazia nainuke. Anitz da eskatzeuntena, ni bekalako bat goratzea izatera alako Jaunaren adiskide gauza dindekabe desbardina da; baña gisa berean da orren Majestadea apaltzea

onaraño, bada, konfianza dut apaldu denak ainberze goratuko nauela ni ere bizitzera bere
grazian orai ta gero bere glorian.

Sermo XXIV:
De ratione fructum ferendi
ex Santissimo sacramento

Usque modó non petiistis
quidquam in nomine meo. Joan. 16.

Iturri abasto perenne bat geuren etxean, ta egarriak? Ondasun guzien arka aldakan, ta pobre? Jaun dibinoa, ori gure Aita, gu orren humeak; Aita ain aberats, ta humeok ain beterik miseries orren atarietan? Estirudi ongi, ta ala da errealki, bada, orrek edo guk dugu kulpá. Zer erran dut? Nork izain du arimo gogoratzeko ere otedagoken orren faltas gure miserien irautea, ikusirik egin ta padezitu duena guregatik? Ikusirik beroi dagola gure onginaies gureki tenplo gebetan? Geuren faltas, geuren faltas, da gure perdizioa. Uste nue nik orai arteo etzela pasatzen nezesidaderik, badelaik nork nai duen ta dezaken erremedia. Uste nue erraten dena, barin bada nork eman izain zela nork artu on dena; barin bada emanzalerik izanen zela eskazale. Orai desengañatu naiz ikusteareki eman naiak emanzealea, ta ez nai eskatu miserableak. Eska zazie, ta emanenzaizie, dio Jesu Kristok. Zerbait eskatzen badioze ene Aitari ene izenean, emanen dizie (Joan. 16). Beras, nere fielak, edo engañatzen gaitu Jesu Kristok gezur egines, edo guk estugu eskatzen, ongi bentzait. Da klaro: Lenago sinestatuko dut sua dela otz, ura idor, argia ilun, ta estena badela, ezi eskatuaskeros ongi Jangoikoai bere Seme Jesusen izenean estigula emanen. Orañik estuzie deus eskatu ene izenean, erran ziozte apostoluei azken arrats gartan, usque modo non petiistis quidquam in nomine meo. Orra zertan dagon gure miserable izatea. Bada, egia da sakramentuan dagola Kristoreki Trintate Sandua. Egia da eskatzen badugu ongi bear duguna emanen digula. Beras, inporta da ikastea eskatzen. Konfianza bear dena aipatu gindue azken platikan, orai berze zirkunstanziak. O bekatarien errefujioa, aflijituen konsolazalea, kristioen anparoa, guzien Ama egiaskoa, ikasteko baliatzen Jesusen onas bigu anitz grazia. Abe Maria.

Pobre izan ta etxakin eskatzen da azken miseria, eskaturik ere esta guti aurkitzea pobrezatik atratzeko diña; ori da mundukoetaik, baña Jangoikoai eskatuaskeros bere Seme Jesusen izenean, ain seguro da logratzea, nola iruzkia atraskeros argitzea, ezpadio gezurra egi eta fedeak, si quid petieritis Patrem in nomine meo dabit vobis. Beras, gure lan guzia da erakustea eskatzen. Betozi munduko pobreak, eta guziok gara pobreak garenaskeros gizon mortalak, betozi, bada, guziok Jangoikoaren atarietara; deies dago, etxideten dago; goardian dauden aingiruak atarietan, dio San Agustinek, daude sarrarasteko, ez ertxitzeko. Au nai du gure salbazalearen atariak, egotea beti beterik deizale oportuno inportunoos (S. 171 de temp.). Dei bada, ta eska Jesusen izenean limosna. Esta nior izanen despeitua uts; lenago faltako da zerua ta lurra. Nola, bada, esta beti logratzen eskatua? Zeren ezpaita eskatzen ongi Jesusen izenean; Jesus salbazalea; esta beñik bein Jesusen izenean, estena on salbatzeko arima, ta orduan ez ematea da mertxede. Exenplutako: eskatzen dio humeak aitai trago bat, zein aitak baitaki dela beneno, humeak ezpaitaki; ematea orduan litzake ilarastea, ez ematea da mertxede. Esta ala? Gisa berean agi daike eskatzen diren lurreko gauzetan, agian on da ematea, agian ez; gure Aitak Jangoikoak badaki, guk ez; on bada, emain du, ezperen, obe ez eman; b.g. Eskatzen da osasuna, ondasuna, fortuna; on delaik emain du; baña agian ikusten du Jangoikoak ematen badio osasuna, bekatarari inen dela ta

galduko dela; ematen badio ondasun ta fortuna, inen dela suberbo ta bizioso; guk zer dakigu? Eta ori dakien aita onak estio ematen. Baña errazie, ez emate gau esta ematerik obena? Bai sines, eta geurek bagindeki ori nai ginduke, ori eska gindezoke. Jauna, ez dezadala eman, etzaidalaik konbeni. Eta ala da egia beti ematen duela eskatzen dena Jesusen izenean, au da salbatzeko dena; bi itzes, beti iten du guk nai duguna edo naiko ginduenaxakitera zerik den.

Berze zirkunstanzia eskatzeko ongi Jesusen izenean da konzienziaren ona, ezi esta eskatzea Jesusen izenean aipatzea mias, ta traiziatzea biotzean, edo traiziatzeturik barkatu gabe joatea. Ala nola erregeren seme onetsia il duten traidoreak joatea eskatzera berze grazia bat dauzkitelaik oraño eskuak edo tresenak mantxaturik odoles, esta ongi. Bada, egin duenak bekatu mortale, baita Jangoikoaren kontra traizio bat ain traidorea, errateko Santa Teresaren itzkuntzareki, ta San Pablok diones, kruzifikatzea berriro Jangoikoaren semea, nola eska dezake Jesusen izenean daramalaik ariman mantxagoi ain itsusia? Dakigu, zio ebanjelioko itsuark (Joan. 9), estituela aditzen Jangoikoak bekatariak, baizik bere Majestadearen borondatea iteuntenak. Bada, zer? Bekatariek ez dezokete deus eskatu Jangoikoai? Bai, baña lenik bekatuen barkazioa urrikimentu, humiltasun ta afekto bear direneki; eta guziendako, alaber, au da zirkunstanzia irugarrena, biotzaren afekto ta ansia, ta debozio korrespondiente. Ezperen egon elizan, asistitu mezan, joan prozesioan, ta biotza ez mogitu afektoeki Jangoikoagana, ta agian ez oroitu ere Jangoikoaren palakatzeas, baizik ala egon berzeeki bateo presente gorturas, ta ez ia, ori da eskatzea? Ta gero estigula ematen Jangoikoak eskatua? iten dire prozesioak, errogatibak, mezak euriagatik, osasunagatik, edozein beardenagatik. Soñatzen dire ezkilak, aitzen dire kantuak, ta agian iten dire penitencia-iduriak. Ori ikusten da; eta ikusten da anitz itxurtzen negarrak? Bada, ala fede, ezi Jangoikoaren adimentuaindako txintxoago dire negarrak, ezi ez errezak eta kantak eta ezkilak eta arroitu guziak baño. Lenago aitzentu negarrak, ezi oiua, dio San Agustinek (de Job.). Orazioak beraxten du, negarrak beartzen du. Jauna, esta bear agertu ta iduriarazi, baizik altxatu. Nola esta ori erraten gañarako demostrazio agerien? Esta bear, baña dolore andia estaike altxa, nai bada ere. Barin badoaie eskatzera erregei ama bat grazia bere hume sentenziaturik penara dagonaindako, ez dezazke deteni negarrak atzendurik eskrupulo goietas doloreain andiareki. Zer gaixto litzake eskatzean Jangoikoai saltatzea negarrak afektoaren utses, naiestuela bortxa? Baña estiot bear dela ori; diotena da bear dela biotzaren afekto dagokiona eskatzeai; ezperen da eskatze iduri-utsa.

Baña eskatzen badiozu Jangoikoai Jesusen izenean on dena konzienzia garbiareki, afekto, ansia, konfianza ta konstanziareki, fiadore ni, baña ez ni, Jesusen itza fiadore emanen zaizula dudarik gabe, ain ongi orai nola bizi zelaik Jaunau bisible. Aitubideuzu zer gauzak logratzenzusten emen sakramentuaren alzinean Santa Teresak, San Franzisko Xabierrek ta berze sanduek, ta agian arritu zara ortas; bada, ni ia arritzen naiz nola ematentigun guri grazia eskatuak eskaturik ain epel, ain fadorik gabe! Nonbait ongi eman naiak dago Jaun ona! Zer litzake bagina zerbaitto agradezituak, ta eskabagindezo ongi bear duguna? Ortako, bada, gatozin Jaunonen presenziara biztu aldioro fedea emen dagola Trintate Jauna bera Jesu Kristoreki, naiz lenbiziko lekua duen sakramentuan beraren gorputz ta odol preziosoak, ala nola bodako maiean lenbiziko lekua ta atenzioak baitamazkite esposoak ta esposak, naiz dauden an konbit presente andiagoko personak, naiz sazerdoteak, naiz errege bera, zerengatik funzione gura baita honratzeko nobioak; ala mai gontan, non baitago Kristo arimen esposoa, lenbiziko atenzioa darama bere humanidade sagratuak misterioain kasos, baña berareki presente dago Jangoikotasuna ta

Trintate guzia, ia baita. Gatozin, bada, gure Jaun Jesu Kristogana misterio gontan sinestaturik duela esku egiteko naituen grazia guziak, ta emen duela eskaida propia egiteko, ta egin naiak dagola. Pensa gaizke geurok ala nola pobreak limosna eske eldu garenak; edo ala nola txitak olloaren egal-pera biltzen garenak; edo ala nola txakurtoak nausiaren mai pean sartzen garenak eman nai badigu zerbait bere maietik; edo ala nola sagarroiak espiritualki altxatzen garenak Kristoren llogen tokian, zion bekala Dabidek: Oian gorak, oreñendako; arria edo peña, signifikatzen baitu Kristo, errefujio sagarroiendako (Ps. 103). Edo hume gaixto izanak bekala itzultzen garenak Aitagana; edo en fin, pensaturik artu zuela Jaunonek gure arima bere esposatako au izanik infiel presentatzen dela bere esposoaren presenzian, alketurik bere gaizki eginas ta fiaturik Jaun onaren onas.

Belaurikaturik, ta zeñaturik beti len lenbizikoa kontriziosko akta: O ene Aita dibinoa, ona orren hume gaixto gau. Gaizki portatu naiz zeruain kontra ta orren kontra; barka bezada, otoi; ez naiz digno dei nazan bere seme, egin benaza bere esklaboetaik bat bekala. Solamente nainuke aurkitu grazia orren begietan, ta egin berorri plazer gauza guzietan. Amen. Agertu gero nork bere bearrak, ta eskatu erremedioa ain gogotik, nola ikus balez Jerusalem ta leku gaietan. Ortako oroiazikotiziet zenbait ondasun in zituenak batai ta berzeai, izan dezazien konfianza, ta eska dezozien nola aiek. Arimaren bearrak dire lenbizikoak. Ofenditu duzu Jangoikoa? Ah! Gaizki egina, baña ez deskonfia. Oro i zaite Jaunonek ekarri zuen bekala zerutik bere izena Jesus salbazalea, ekarri ere zuela jenioa salbatu naia bekatariak, de manera ezi orgatik murmuratzen zute eskriba ta fariseoek ziotela: Onek errezibitzentu bekatariak, ta bazkaltzen du aieki (Luc. 15). Eta Jaunonek erraten zioite aiei: Sano daudenek estute mediku-bearrik, baizik gaizki daudenek. Ez naiz etorri deitzera justoak baizik bekatariak penitenziara (Ib. 5). Paratu zioite artzai baten konparazioa, zeñek izanik egun ardi, eta galdurik bat, ia estituen utziko lauretan ogei ta emeretziak larrean ta joanen galduaren bila, ta aurkitu ondoan artu soñean ta itzuliko dela alegre ortas? Ala izain da zeruan alegranzia aingirueki, konbertitzen delaik bekatari bat. Alaber, kontatu zioite seme prodigoaren historia, nola eskaturik aitai bere porzionea, joanik urruti, ta guzia galdurik, gose ta miseriain utses itzuli zen akordura ziola: Zenbat nirabe ene Aitaren etxean daude ogia abasto dutela, eta ni emen ilik goseak? itzuli zela, ta urrutitik goarturik Aitak, ta atrarik bidera laixterka, artu zuela besoen ertean amoroso, semeak erran ziola: Aita, bekatu egin dut zeruain ta orren kontra, estut mereji deitzea berorren seme. Bereala Aitak jaintsiarazi zuela seme-aintzu, ta zelebratu zuela konbita andi bat alegranzias, zeren il zen gura biztu zen ta galdu zena aurkitu zen (Ib. 15). Zoaste ta ikasazie, zer nai duen erran Jangoikoak diolaik, miseriordia nai dut ia ezi sakrifizioa.

Errealki ebanjelio guzian esta deus ia ageri, nola Kristoren jenio dulce, beratx, onegi, urrikaroso ta esneskoa bekala bekatarien konbertitzeko, ta konbertituen admititzeko, monstratzen ziotelaik berze alde, eskriba ta fariseo presumitu, hipokrita, kruelei seberidade bat mansoa. Bi gizon, erran zioite berze bein, igan zire tenplora, bata fariseoa, berzea publikanoa. Fariseoak txutirik erraten zio Jangoikoai: Jauna, eskerrik anitz, zeren ezpainaiz ni berze gizonak bekala injustoak, adulteroak, ladronak, ala nola publikano gau; barutzen naiz bi aldis asteen, itentut guzien amarrenak. Publikanoa, berriz, an urruti zego etzela trebe goratzera begiak zerura, baizik golpatus bularra zio: Jauna, piedade niri, bekatari bainaiz. Bada, diot ezi au joan zela grazian bere etxera ura ez bekala, ezi goratzen dena izain da humillatua ta humillatzen dena goratua (Luc. 18). Berze bein ekarri zioite Jaun dibinoari emasteki bat aurkitua adulterioan, ta erran zioite: Jauna,

Moisesen legean daukagu manaturik arrikatzeko au bekalakoak. Orrek zer dio? Jaun ona kurturik lurrera asi ze eskribitzen eriareki autsean; eta porfiatzen ziotelaik pobre garren kontra, txutitu ze ta erran ziote: Zuetaik nor ere dagon bekaturik gabe, ark tira bezo lenbiziko arrikaldia, erran ta berriz kurturik eskribizen zue lurrean. Aiek bata berzeain atzetik joan zire joanes andik; eta txutitu zelaik ikusirik bakarrik emastekia erran zio: Non dire akusatzenezindustenak? Etzaitu niork kondenatu? Ark, ez Jauna, niork ere. Jesusek orduan: Bada, nik ere etzaitut kondenatuko, zoaza ta ia etzazula nai egin bekaturik ia (Joan. 8). Ikusi duzie gure Jaunonen piedade noblea? Oneki deitu zue San Mateo zegolarik bere tratuen alkian jarririk, ots, jaiki ta zato ene atzetik; eta bereala guziak utzirik segitu zio. Piedade berareki deitu zue Zakeo igan zen gura arbola batera ikusteagatik pasatzean gure Jauna. Jaunak erran zio: Ea Zakeo, jautsi bereala, ezi egun zure etxean bear dut. Jautsi ze, errezibitu zue alegre ta konbertitu ze. Piedade berareki garbitu zitio oñak Judas traidoreai traiziatu zuen gau berean, eta judio gurutzifikatuzutenengatik eskatu zue gurutzean: Ene Aita, barka bezote, ezi estakite zer ai diren. Ala nai izan bazute aiek konbertitu! Piedade berareki salbatu zue bi ladronetaik bat bere gurutzetik gurutzera eskatu ziona: Jauna, oroi bedi nitas doaielaik bere erreinura. Errespondatu zio: Sines diot, egun izain zara nereki paraisoan. Oroat inen zio berzeari eskatu bazio orokat. Piedade berareki soldado idiki zionai lanzareki bularra eman zio arimaren ta gorputzaren bista. Piedade berareki barkatu zio San Pedrori bere inkonstanzia ta ukatzea. Piedade berareki konbertitu zue San Pablo zoaielaik persegitzera kristioak; Saulo, Saulo, zergatik persegitzen nauzu? erran zio. Eta ark obediente, humil ia, erran zio: Jauna, zer nai du in dezaten nik?

Zertako exenplu ia? Biz aski agertzeko munduai Jaunonen piedadea bekatarieki Magdalena, zein bekatari zelaik ta emana guzis banidadeai, egun bates, edo aituagatik Jaunonen itza edo ikusiagatik beraren persona ta santidadea, nola nai dela ukiturik biotza ta aldaturik derepente, dagolaik Jaun dibinoa jarririk maiean fariseo baten etxean, ura ansiosa laixterka boladan eldu da bere medikuaren bila, ta kontrizioaren utses erreparatu gabe konbitan, garaiean, deustan, sartzen da kuartoan deitu gabe, itzik erran gabe, bi begiak bi negarresko iturri eginik ta apaldurik alkeareki bere bekatuen itsustasunagatik. Goartzen du non dagon bere Jesus, bere salbazalea; urtikitzen zaio oñetara belauriko, asten da erregatzen negarres, txukatzen biloas, adoratzan paraturik agoa: itzik batere, guzia kongoja, suspiro, negar ezin ases, guziak beira ixil, gure Jauna geldi ikusten ardi galdua ia aurkiturik bere oñetan, loies erdoitu zen zillarra garbitzen bere negarreki. Fariseoak zio bere gogoan: Au balitz profeta, xakin lezake zer emasteki den ori. Kristok errespondatu zio pensamentura defendatus bere penitenta, egin ziola onek ark baño ia fineza, ta zeren onetsi zuen anitz, barkatu zizaizkiola bekatu anitz. Eta itzulirik onengana eman zio absoluzionea, erran zio: Zeure fedea salbatu zaitu; zoaza bakean. Joan ze ia berze bat eginik; ia etzizaio gelditu banidade-errestorik, mundua ia aborreziturik solo Jangoikoarengan zeuka bere gogoa, ia etze apartatzen Maria Santisimaren konpañiatik, gurutzearen ondoan berareki egon ze konstante, ta ia dena, ortzi ondoan Jaun dibinoa beraren obiatik etzeike aparta Magdalena aliketa apareziturik glorioso mintzatu zion arteo berak. Gero erretiraturik desertura an bizitu ze orazio ta penitenzia kontinuoan igaten zutela aingiruek egunoro zerura aitzera ango musika. Ikusteunzie Jesusen piedadea, ta nola bekatari bat egin duen sanda guzien kapitana? Sobraxko zebatu naiz asunto gontan, erakutsi naies gure Jaunaren piedadearen andia.

Ofenditu barin bauzu, bada, Jaunau, oroi zaite egin duenas len, ta lenekoa dela

orai, ta zato beraren presenziara lenik, gero bere ministroaren oñetara. Barin bauzu dolore, barkazioa duzu seguro. Eznaute lotsatzen ainberze bekatu anitz ta andiek, nola dolore deus gutiak. Beti ta beti bekatu egiten ta ez emendatzen, ortako esta piedaderik; baña urrikiturik beingoas emendatzen bazara, fiela da Jaunau barkatzeko ofrezitu bekala. Ilik daukazu arima bekatu mortale sekretoren bateki? Publiko ere egin duzu? Kostunbre gaixtoan usteldu bekala zara? Alaere ez desespera; eska zozu Jaunoni erremedioa. Oroi zaizke nola prinzipie garren alaba ila erresuzitatu zuen bere kuartoan; Naimgo mutil gura karrikan ortzizera zematelaik atautean; ta Lazaro ortzirik ta urrintzen asirik laur egunen buruan. Konzienziak aflijitzen zaitu tristuras, beldurres, ta inkietures? Zato Jaunonengana erremedioain bila. Oroi zaizke nola nasirik itsasoa ondatzera zoeielaik itsasonzia, zeintan lo baizego Jaun dibino gau idatzarri zuten apostoluek ziotela: Jauna, salba gaitza, galduak gara; nola jaikirik Jaunonek erran zioten: Fede gutitakoak, zergatik dudatu duzie. Bereala manaturik itsasoai ta aizeei, sosegatu ze guzia. Tentatzen zaitu etsai infernukoak? Zato Jaunonengana eskatzera biktoria. Oroi zaizke nola botatzen zituen gorputzetaik demonioak. Egizu ala nola Kananeak; au joan ze Kristoren atzetik oius: Miserikordia niri, Jauna, zeren demonioak gaizki tratatzen du nere alaba; zuk errazu, nere arima. Gure Jaunau ixil alzina, ark segi oius; apostoluek despei zezala, ez alaere oraño Jaunonek. Ellegatzen da andre gura oñetara, eskatzen dio grazia. Jaunonek erraten dio: Esta arrazio humeen ogia ematea tzakurrei. Bai Jauna, ark, zerengatik txakurttoek ere jateunte nausiaren maietik erorzen diren apurretaik. Zoaza, erran zio orduan, in bedi nauzuna. Au erran, ta etxean sendatu ze berzea instante berean. Zeure pasioneek galdu nai zaitute? Zauze ezin garaitus? Zato Jaunonengana. Oroi zaizke San Pedros nola asi zelaik oñes ur gañean Kristogana, aizea mogitzeareki beldurturik ondatzen zela, oiuegin zion: Jauna, goarda benaza; eta Jaunonek arturik eskutik atra zuen libre ain aisa. Edo oroi zaizke berzela dionas Ebanjelioan, eriak zusten guziek ekarzenzizkiotela, zeren beraganik atratzen zen birtutea ta sendatzen zituen guziak. Banidades edo suberbias andituxerik zauze? oroi zaizke hidropiko gartas, zein sendatu baizue ukitzeareki, galdeturik lenik eskribeti, ia zillegi zen jaiean sendatzea, ta akar eginik hipokresiagatik ezi astoa edo idia eroririk butzuan atrako zutela jaiean, ta murmuratzen zutela sendatzeas gizona. Lotu zaitu kodiziak? presenta zaite Jaunonen alzinean ala nola gizon gura zeukana earturik eskua, zeñi erran zio: atra zaite erdira, edazazu eskuoi; edatu zue ta sendatu ze. Baze doktrina, balitz denbora. Bizio desonestoak galtzen zaitu? Belaurikaturik Jaunonen presenzian adora zazu leproso garrek bekala, ta erran zozu alketi, humil, gogotik: Jauna, nai badu, garbinazake. Errespondatuko dizu arri bekala: nai dut, garbi zaite. Inkietatzen zaitu irak? oroi zaizke San Markosek kontatzen duen endemoniatu gartas, (C.5) etzezaketela domatu ez grilloeki, ez kateeki, auxten zituela guziak, oius zebilala, ta zatikatus bere burua, ezi ira da San Krisostomoren ustes demonio borondateskoa, erotasun deseata, ezaumentuaren ilundura, ta alakoa da deabruaren jugete ta ofizina (S. de Mansuetudine t.5). Baña ura bezain aisa dezake Jaunonek au ere libra. Inbidia kontu dela begien ta biotzaren gaitza, ezin ikusi proximoaren ona. Bada, oroiturik sendatu zituen issues, ta eri gisa gartakoes eska zozu Jaunoni erremedioa. Pereza, baita gogoaren nagitasun ta desgana onerako, arimaren lekeda, ta lakioa, ta proprioki perlesia espirituala guziek ia edo gutiago padezizeuntena aldartes bentzait, ia ez usteko bizioa, ia ez iteko ona, ia iteko berant ta gana gaixtoan, au, au bear da ken dezagun eskatu gogotik. Oroi gaizke Jerusalengo pizina gartas, zeñen borz atariko leorpeetan zego eri, itu, ear miserable, kantidadea etxideten noiz mogituko zen ura, zerengatik aingiru bat jausten ze, ta mogitzen ze ura, ta lenbiziko jausten zena

sendatzen ze. An zego pobretto bat ogeitaamezorzi urte gartan eri zegona. Jaunonek erran zio: Nauzu sendatu? Jauna, errespondatu zio ark, estut gizonik jautsinazanik piszinara mogitzen delaik ura, ezi ni joan orduko alzinatzen da berze bat. Erraten dio Jaunak: Jaikizaite, arzazu zeure goatzeoi soñean ta zoaza emendik; ala egin zue (Jo. 5). Ala erran zozu zuk ere Jaunoni: Jauna, nainuke ondu, nainuke ongi egin, baña estut ortako gizonik, estida lagundu nai gorputz gaisto gonek. Erranen dizu: Jaiki, artu karretona ta joan; au da, bizkortu espiritua, gora bedi gorputzain kontra, inarazi ona. Lurreko ondasunetako ere Jaunonengana akudi oroiturik nola mantenitu zituen borz ogireki borz milla persona. Emen billa zazu erremedioa eritasunain, emen azertua estado artzean, emen fortuna tratuan, haziendan, eraizioan, guzietan. Emen zeure sekulako fortuna; Domine, ad quem ibimus? Jauna, norengana joain gara? Etorririk ia bat mundura, il bear, joan bear eternidadera, salbatu edo kondenatu bear prezisoki, ezin exkusa bat edo berze, salbatzekos bear kunplitu Jangoikoaren legea ta borondatea guzis, kondenatzeko aski bekatu mortale bat. Arrixko lotsagarria! Ta ezin itzuli atzerat. Domine, ad quem ibimus? Jauna, norengana joain gara? Jesus gure salbazale emen daukagunaingana. Berri on bat, ene fielak, daikela zu bekalako bat, ni bekalako bat, den pobreena daikela izan Jaunonen adiskide onetsia ta onetsizalea. Berze berri bat, estela faltatuko Jaunonen aldetik, nola guk nai dezagun. Jauna, zer da au? Naikela izan orren adiskide ni, ta ez nuke nai izan bear? Oroitzen naiz San Pedros, nola galdegin zion irur aldiz: Pedro onesten nauzu ni? errespondatu zio: Jauna, orrek daki onesten dutela. Berriz, Pedro, onesten nauzu? Berriz ark: Orrek daki onesten dutela. Irugarren aldian: Pedro, onesten nauzu? tristatu ze gizagaizoa, beldurrak nola ukatu baizue len proposito andiak in ondoan; errespondatu zio humil: Orrek guzia daki, ene Jauna, orrek daki onesten dutela. Errespuesta bera eman nainioke nik ere sines egiareki, orrek daki onesten dutela. Au ezpalitz egia, zer errain dut? Orrek daki onetsinainukela sines ta guzis. Au ere ezpalitz egia, estut zer erran baizik, orrek daki onesteko obligazio dutela. Jauna, bida arima, biotza ta gorputza bearbekalakoak. Jauna, neurau guziau in benaza bere biotzaren araura, ta berorrek nola nai duen ala, onetsi dezaten ta plazer in dezoten obligazio duten bekala. Zertako bizi ez onestekos ta plazer ez egitekos berorri? Nere Jauna, gauza guzies dena dela, au estaiela agi, ori ez onestea edo desplazer egitea. Jauna, kondenatu bear banitz ere, esperanza orren baitan dut ezetz, baña agi baledi ere, onetsi bez pobretto gonek ori, egin bezo plazer, biz, posible barin bada, orren adiskide aurkidezatena grazia orren begietan. Fortunosoa erdetxi duena fortuna gau, ezpaitaie ia desea! Noreki daike trukatu? Estut mereji, baña dut obligazio onesteko nere Jaun ona. Biz au nere enplegua mundu ontan, ta gero glorian. Amen.

Sermo XXV:
De oratione dominicâ
ante Santissimum

Sic ergo vos orabit, Pater noster,
qui es in coelis etc. Math. 6.

Lastima andia da, izanki emen geureki zeruan den obena, ango errege bera ta gloria glorias betetzen duena, ta alaere gu miseries beterik aurkitzea! Eta au xakin faltas eskatzen. Erakutsi gindue azken aldian nola eskatu nezesidadearen ariora, baña batzuek alaere agian estute xakinen zer erran gure Jaunonen presenzian, ezpada erreztatus Aitagurea. Eta Jangoikoai naidagokiola xakin dezaten erreztaten ori ere. Batzuen sendagalla anitz erreztatzea mias, guti mogiturik afektoa; ta engañu da ezi afektoaren neurrias neurritzen da erreztuaren balioa. Ia balio du Aitagure batek, zer diot Aitagure batek? petizio batek sollik balio du ia afekto andiareki, ezi ez anitzek afektorik gabe, edo deus gutireki, ezi esta gure Jauna pagatzen dena itz soilles. Mintzatzen banitz ere gizonen ta aingiruen mies, ta karidadeik ez izan, naiz ala nola txintxa soñatzen dena, dio San Pablok (1. Cor. 13.). Aita gurearen orazioa da ez gizonen ta ez aingiruen mias, baizik Jangoiko gizonaren agos erakutsia. Zuek, erran ziote apostoluei Jesu Kristok, ala inbeauzie orazio «Aita gurea zeruetan zaudena etc.» Orazio laburra, baña birtute guzies betea, deitzen du San Ambrosiok (Ap. Claus. p.2. cath. c.16). Ebanjelioaren brebiarioa edo suma Tertulianok (Ib.). Deus estaikela aurki estuenik kontenitzen orazio gonek, dio San Agustinek (Ib.). Zenbat efikazkiago erdetxiko dugu eskatzen duguna Kristoren izenean, eskatzen badugu beraren orazioareki? dio San Ziprianok (Ib.). Baña entenda, doaielaik akonpañaturik biotzaren afektoareki, borondatearen suareki; su gonon itxekitzeko egurra bekala, edo sukarri obena bekala konsideratzen du Santa Teresak, ta ortako modurik obena errepartitzea, berextea ta xegatzea zazpi petizioak bat banaka. Sandak errepartitzentu zazpiak astearen zazpi egunetako asirik astelenetik konsideratzeko egun baxotxean petizio baxotxa, sinesta dezazien nik niona estagola anitz erreztatzean, baizik erretzean biotza anitz Jangoikoarenganako afektoaren suan. Baña nik zazpiak nainuzke erreduzitu platika gontan doktora sandaren doktrina zerukoaren araura; solamente adbertiturik ezi Kristok erakutsi zuela eskatzeko Aita eternoai, zein bere Semeareki ta Espiritu Sanduareki dagolaik aldareko sakramentuan, artuko dut lizenzia akomodatzeko itzak oroat Jaun sakramentatuai, segitus sanda explikazioan. Sanda guzien sanda da lenbizikoa, Maria, gure Ama dulzissima, nolako afekto, nolako ansieki erraten zue berorrek orazio gau? erakus bezagu biotzera komunikatus bere karidade andi gartaik, eta eman bezagu ikasteko maneatzan ongi grazien iturriaren giltza gau anitz grazia. Abe Maria.

Lastima da, diot berriz ere, etxean izatea ondasun guzien iturria borz llogen kañuetaik ematen duena biziaren likorea, ta alaere ilik batzuk, ez il bai il berze batzuk, ta miserable geienok egotea! Nik, diote, estakit zer egin ta zer erran, nola mintzatu, nola eskatu Jaun sakramentatuai. Alke dakiotela. Balitz mintzatzea erregei edo Aita Sanduai, berzerik litzake, baña Jangoikoai nork estaki, naiestuenak ezi? Estire bear itz konponduak; etzaio kuadratzen anitz jarduki, orantes nolite multum loqui (Math. 6), esta bear itzik ere, aski da biotzaren afektoa eskatzeko Jangoikoai. Alaere etxakin? Esta, esta galtzen joku gontan xakin-faltas, bentzait ezin ikasis ez, baizik nai-faltas. Ez argi faltas, su faltas, ez

teologia-faltas, baizik karidade-faltas. Joan zekio bein frai Gil, San Franziskoren lego senzillotto gura, San Buenabenturai, ta erran zio: O asko fortuna dute oiek teologoez baitakite nola zerbitzatu ta plazer egin Jangoikoai; baña guk ignoranteek zer in dezakegu. Ah frai Gil, errespondatu zio sanduak, atsotto sinple batek dezoke kuadratu Jangoikoai ia ezi teologiako maestru batek, maitatzen badu anitz bere Majestadea. Au aitu zueneko atra ze bozkariundes beterik baratze batera, ta goraturik begiak ta biotza zerura erran zue oius: Atsotto sinplea, maita zazu anitz Jangoikoa ta xakineunzu ainberze nola frai Buenabenturak. Erran orduko gelditu ze airean goraturik amorioaren indarres. Ontara eldu da ongi ziona denbora bates San Agustinek. Zer da au? letra gabeak goratzen dire ta arrapatzen dute zerua, eta gu emen geuren letraeki arrastaka lurrean ta loiean! Baña atra naiz ia bidetik; itzuli gaizen.

Estakitela eskatzen! Estakite errezatzen Aita gurea? ikas bezate, bada, xegatus, detenitus, erregalatus petizio baktotxean, nola erakusten baitu Santa Teresak, zeñek errepertiturik zazpi eguntako zazpi petizioak, petizio baktotxean ematen dio Jangoikoai bere titulo edo izen berexa: lenbizikoan Aita, bigarrenean Errege, irugarrenean Esposo, laugarrenean Artzai, borzgarrenean Redentore, seigarrenean Mediku, zazpigarrenean Juez. Ellega, bada, ta erran Jaunoni, Aita gurea zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena. Pensa bez gizonak bere Aita dela Jangoikoa gauza guzien Jaun ta Jabea, eta bera dela Aita gonon hume. O zein ona den Aita gau neretako, kriatu bainau ni, utzirik berze infizio bat, obeki nik baño zerbitzatu ziotenak. Ojala garen guziok bagina ain onak eta sanduak, alako aita baten humeak bekala, zeñetan santifika, honra ta glorifika daien orren izena mundu guzian. Alegatzen naiz mostratu baitute ainberze martir, konfessore ta birjinek direla berorren humeak; ongi egin. Tristatzen naiz ofenditzeuntenas hume ingratoek, eta neuronek prinzipalki. Aita noble amoroso, humea txar indignoa! Naiz alaere esperanza dut eznauela desanparatuko ain Aita onak. Sendagalla dut ori baita nere Aita. Ikusteunten zerua da nere Aitaren etxea; sakramentu gau da nere Aitaren erregaloa; eskritura sagratua da nere Aitak igortzen didan karta; bestizen dutena, jaten dutena, alegatzen nauena guzia eldu da nere Aitaren eskutik. Trabajuak ere ta tentazioak nere Aitak disponitzentu nere onerako; bada, «santifika bedi zure izena». Biba alako Aita Jangoiko gisa ona, amablea infinitoki.

segitzen da «etorri bedi zure erreinua», Errege andia; erreina bez berorrek gure arimaetan orai graziaren medios, ta gero para gaiza gu bere gloriako erreinuan. Urratua biz ta akabatua sekulakos munduaren, demonioaren ta aragiaren erreinua; sollik ori errege biz guretako, ta guk ez dezagula nai berzerik baizik ori. Guk pensa zagun orren Majestadeas ta orrek gutas, nola erran zion Santa Katalina Senakoari eta berze bati: Zuk kuida nere gauzes, nik kuidatuko dut zurees. Kuida zagun bada goarda daien fidelidade guzian bere erreino gau, baikara gu; gure bularra beraren palazio erreala, biotza tronoa, zeintan jarri daien bere Majestadea, arimaren potenziak errege gonon paje zerbitzukoak, sentido ta gañarako guziak basallo obedienteak. Nolakoa da arrazio izan daien persona, zeñen ariman erreinatu bear duen Jangoikoak? Jauna, orrek ordena bez guzia bere poderio erreareki. Nik pregonatuko dut erreinu gontan: Biba errege. Biziaren pena, barin bada nior infiel, traidore Jaun erregei.

Irugarren petizioan konsidera Jaunau gure arimen esposo amantea. Aita ta errege bekala obligazio da kunplitzea beronen borondatea zeruan bekala lurrean ere, baña esposo bekala amorosten du arima nai izan dezan kunplitu gogotik eta gustoreki. Pensatzeas ezi erregeen errege dignatzen dela deitzera ta izatera nere arima pobretto gonon esposo,

apalzen dela ainberze ain gora dena, ain poderoso, ain jakintsua, ain aberatsa, ain eder, noble, bere parerik estuena, ta berze alde ain humil, ain txipi, ain eskunara, ain afable, ain humano ta ain amable, estaike baizik sortu deseo andi bat kunplitzeko beraren borondatea, plazer egiteko gauza guzietan. Pensa arimaren pobre desbardina izateko Jaunonen esposa: Jauna, nondik niri ainberze ondasun, nola baita orrek nai izatea ni bere esposatako? Orrek ni onestea? Ni bilatzea? Ni erregalatzea? Agerrian dago ez nai zela gauza, ain pobre, ain eri, ain txar, ain itsusi? Baña, alaere orrek nai banau, zer in bear dut baizik erran nik, kunpli bedi orren borondatea, orrek nola nai duen, ala. Jauna, emen esta deus onik; doteak, prendak, galak enebaitan nailuzkenak berorrek paratu bearkotu; bitarteo emen egonen naiz orren ofetan nola Magdalena alkes ta penas beterik ez enpleatuas nuen guzia berere, baita borondatea amaten esposo bat ain amablea. Deabruaren eskriba nitza, atra nindue bere odolaren kostus bere esposatako, erranbaitezoket orgatik: Sponsus sanguinum tu mihi es, odolesko ta doloresko esposoa da ori neretako (Exod. 4) Emendik dator nere dotea, nere ondasun, prenda ta gala guziak. Alako trukada egin zue berorrek, ene esposo amoroso, artu berorrek gure gaitzak, emateko guri bere onak. Au guziau egia izanik, sinestatzen duenak, zer biotzeko mina estu izanen ikusteas alako esposoa loturik kolumnan, zatikaturik azoteas, ta gero iltzen gurutzean? Zer lastima ikusteas dela oraño ere ofenditua? Nola estire urratuko esposaren entraña sentimienturas, zeren iten zaizkion bere esposari ofensak? Bada, alegratu bear du esposaren ones, ta tristatu beraren gaitzes, au berere in bez nere arimak, esposa onaren leges. Jauna, o ezpalez niork ere, niork ere ofendi! O plazer in balezote ta zerbitza balezote guziek! Naiz neke, naiz pobreza, naiz eritasun, naiz miseria, naiz il ere, nola nai duen berorrek, bentzait orren ofensarik ez. «kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere».

segitzen da konsideratzea artzai bekala alimentatu bear duena bere saldoa. Aita, errege, esposo denas geros, artzai ere bear du izan, auda, beartu alimentatu arimak bere hume, basallo ta esposak, orgatik erran dezokegu «eman bezagu gure egunorosko ogia». Ogi gau deitzen du San Mateok supersustanziala; eska zogun, bada, prinzipalki arimaren ogia, grazia, doktrina, birtuteak, sakramentuak ta berexki sakramentu aldarekoa, aingiruen ogia, axuri dibinoa, erregalo zerukoa. Artzai ona eman zuena bere bizia bere ardiengatik; Artzai ona atra gaituena infernuko otsoaren ortzetaik bere pasioaren kostus; Artzai ona azitzen gaituena bere gorputz ta odolareki. Nork ikusi du alako artzayik sekulan? Artzai ta axuri bateo. Zein gauza miragarria ikustea gure Artzai ona eginik axuri gure erdian, ta gure alimentu gure barnean? errepresentatu zekio bere sierba bati Jaunau Artzaiaren trajean begitarte humil arresti bateki, erreklaturik gurutzeain-gañean ala nola zaimakillan, deitus ardi batzuk, txistu egines berze batzuei. Gurutzeareki soñean ikustea kontu daramala ardi galdu zena aurkiturik bere bizkarrean. Guruzifikatzea kontu erretzea dela axuria gure alimentutako. Artzai-gisa artzen gaitu bere gana ta sartzen gaitu bere entrañetan; axuri-gisa sartzen da bera gure entrañetan. Zer ia nai du gizonak, baizik alimentatu Jangoikoas? Bete Jangoikoas? Jangoikoa enkarnatzea, gizon egitea da mertexte miragarria; bada, orai gizonak errebitzea Jangoikoa beregana esta ala nola Jangoiko egitea ta Jangoikoareki bateratzea? O zenbat obligazio imitatzeke bera! Apegatzeko beraren kondizioak ta santidadea! Guziau diogu diogulaik, eman bezagu eguneroko ogi supersustanziala.

segitzen da, «barkabez kigu guri geuren zorrak ala nola guk barkatzen baitiogute gu zor gaitusteneri», pensatzen dugula emen gure erredeñtore. Zer? Estugunai barka dezagun obeki ere guk barkatzen dugun baño? Bai; baño bear dugu pensatu eskatzen

dugula au Kristoren konpañian, Kristok gureki, guk Kristoreki, ezi ala diogu Aita gurea. Bada, bere Seme dibinoak barkatu bekala barka dezagula, ongi kunplitu izanen da barkazioa. Baña orgatik suponitu bear da guk ere barkatzendiogutela gure etsaiei, ezperen zer ausardia ezlitzake eskatzea barka dezkgigula guri andiagokoak, ezpagindu nai barkatu guk txipiagokoak? Emen daizke ekarri gogora pasatu zituen penak gure erredenptoreak, ta gerostik onat alaere egintiozun ofensak. Ah zer modua pagatzeko zorrak, berriro kruzifikatzea, beti kruzifikaturik idukitzea bekala itze gogorreki Jaun dibinoa! agertu zekio bere sierba bati kruzifikaturik, ta erran zio kentzezkiola irur itze, zeñeki daukaten kruzifikaturik gizonek: itzebata desamorea beraren ontasunai ta edertasunai, berzea esker-gaistoa beraren ongieginei, ta berzea gogortasuna beraren inspirazioei. Edekitzenbaitidazu ebek irurok, geldituko naiz josirik berze irureki, amorio infinito bat zuengana, agradezimentu ene Aitai itentizien onengatik ene atenzios, ta entraña beratxak zuen errezibitzeko neregana. Barkabezkgu bada gure zorrak, prinzipalki ez permiti gauden bekatu mortalean.

Ezkaitzala utzi tentazioan erorzero, segitzen da seigarren petizioa Mediku dibinoai bekala. Erikor gu, etsaiak anitz, peligroa kontino, ta askotan ez ezauntzen ere, goartzen gutiago; Jangoikoaren eskua bear da ez erortzekos zer edo zertan. Eri miserableak, lllagatuak oñetaik bururaño agerzaiste Mediku zerutik etorriaren presenzian, senda zaizaten lengoetaik ta libra zaizaten errekaideatik. Sendagalla iten du ofizio gontas gure Jaunonek: ez naiz etorri, zio, deitzera justoak, baizik bekataria penitenziara; estute Mediku-bearrik ongi daudenek, baizik gaizki daudenek. Ain gure ongitu naia da Mediku gau, ezi deitu gabe ere bera alzinatzen da deitzera eriaik, naiz pobreak, ezi grazias kuratzentu guziaik; bera pagatzen da ta bere etxetik paratzentu medizina. Zer medizina ordea? Bere odolaz eginak. Nere arima, nork ikusi du alako medikurik egundaño? Bera lllagatu, kuratzeko zu! iturri bat ze paraisoaren erdian partitzen zena laur ugaldetan erregatzeko lur guzia. Paraiso dibinoa Kristoren humanidade sagratua, biotzaren erditik amoriosko iturri gura ikusten dugu jariten borz odolesko iturrietaik, borz lllaga gaietaik diot, sendatzeko ta garbitzeko arima nai duen guzia. Gure aldetik solamente nai du konfesatzea gaitza pena biotzeskoareki ta proposito sinareki. Sendatu zara, dio, beira etzaiten erori berriz, estakizun agi gaizkiago (Joan. 5). Jauna, erresponda zozu, «ez nazala utzi tentazioan erorzero. Libra benaza gaitzetik».

Auda azken petizioa, zeintan beira dezagula juez bekala gure Jauna, dio Santa Teresak. Gaitz gau da proprioki pribatzen gaituena graziatik eta gloriatik. Esta eskatzen libratzea gaitz tenporaleetaik, baizik zenbatenas diren okasio ofenditzeko Jangoikoa, eta alde gontaik ain gaitz izan daizke ondasunak, osasunak, honra, konbenienziak, ta ala, oroat, eskatzen da libra gaitzan ebetaik ere ta edozeintaik gure perdizioaren okasio izandaikenetik. Prinzipalki eskatzen dugu libra gaitzala bekatutik ta kondenazioaren sentenziatik. Nola erranbagindezo: Jauna, libra gaitza, ezdezala permiti bizi gaitzen bekatuan ta orren desgrazian mundu gontan, ta berzean ezkaitzala kondena. Gure Aita amantea, gure Errege andia, gure Esposo amorosoa, gure Artzai liberala, gure Erredenptore ona, gure Mediku inkomparablea, gure Juez miseri-kordiosoa, eskatzen diogu eskatzeko erakutsi zigun guzia orazio gontan, baña guzien gañetik guzien korona, libra gaitzala bekatutik, orren desgrazia, ira ta sentenzia kondenazioskotik; eman dezagula bizitzea bekatutik gabe, bentzait mortalerik gabe orren grazian, orri plazer egiten beti mundu gontan, ta gero gozatzea orren ikusten ta laudatzen eternidadeko glorian. Amen.

Sermo XXVI:
De gratitudine nostra
pro eucharistia

Cognovit bos possessorem suum, et asinus praesepe
Domini sui, Israel autem me non cognovit. Isai. 1.

Aipaturik ia Jaun sakramentatua gureki egotean iten digun mertxede, dugun konbenienzia ta baliatzeko modua, ordu da aipatzea gure aldetik eman bear dioguna. Zein da lenbiziko eskatzen diguna, guk geien zor dioguna ta gutienik kunplitzen dioguna? Begietara eldu da agradezimentua ta amorioa. Deus ezin eman gure Jaunai, ta borondatearena berere estiogu emanen, amorioa ta agradezimentua? Aski da entendamentu izatea, aski da begiak izatea ikusteko obligazio gonon ertxia. Predikatuko digu andre batek: Zer diot? aur batek predikatuko digu gauza gau bere amaren sabelean, jaiobañolen, mintzatzen asi baño len. Eznoaie kontatzera atso-konturen bat, baizik Ebanjelioak dakarran historia kantatzen duena Elizak Ama Birjinaren bisitazio-egunean. Enkarnatu zeneko Jangoikoaren Semea Ama Birjinaren entraña sanduetan, bereala Ama dibina joan ze bisitatzera Santa Isabel, zeukana bere sabelean San Juan Bautista ia zazpigarren ilabetea. Ellegatu ze arren etxera Ama andia, sartu ze, mintzatu ze; ta mintzatu zeneko ezaundurik Bautistak nor zen ta zekarran tesoroa bereki, bereala ezin disimulatus agradezimentua, asi ze saltatzen bozkariundes bere presondegian. Eta bere ama Santa Isabel ere bai beterik Espiritu Sanduas, agradezimentus eta alegrias mintzatu zekio ala Ama Birjinai: Bedeikatua zu emaste guzien artean, eta bedeikatua zure sabeleko fruitua; eta nondik niri ainberze ondasun, nola baita etorzea enegana nere Jaunaren Ama? Bada, orra aitu deneko zure mintzoa, asi da saltoka nere aurra bozkariundes nere sabelean. Au da agitu zena orduan, aplikatzea aisa da, ala imita bagindez. O bedeikatua andre guzietan, bada, berorren sabeleko fruitu bedeikatua Jesus da duguna eukaristian, izan gaitzen ongi agradezituak, bigu grazia. Abe Maria.

Beiraturik alde guzietatik zer dezoken gizonak itzuli Jangoikoai egintion mertxedeengatik, ikusten dut ezi borondate libre utzidionaren enplegua dela itzulidezokena, ezi gañarako guzia zertako du bere Majestadeak? Betea dago. Gure borondatearen bearrik ere estu, klaro da, ezi guk nai edo ezna, ain poderoso, andi ta Jangoiko geldituko da; baña alaere plazer du enplega dezagun borondate gau beraren amatzen ta agradezitzen. Eta emen bidanabar ikusten dut au dela gauza aisenik eman edo egin dezakeguna, aski delaik nai izatea. Berze gauzetan, dio San Jeronimok (l.1. com. Math. 5), dezake gizonak atra zerbait atxekia dena dela, baña amorio izateko estaike exkusa nior. Errandezadake norbaitek: Eznaike barutu, eznaike konserbatu birjin, ez dezaket guzia eman limosnas; baña dezake erran agian: ez dezaket onetsi? Zerengatik ontako estire oñak nekatu bear lasterka, ez eskuak ere lan egiten; etzaigu erraten: Zoaste iruzkiaren sortaldera, ta aurkitukouzie karidadea, itzuli sartaldera, ta aurkitukouzie amorioa. Geuren barnean dago, biotzean, eskatzen zaiguna, amorioa ta agradezimentua. Ikusi dugu aur andi gura saltazen bozkariundes, amorios ta agradezimentus, zeren etorri zekion bisitatzera Maria Santisima ta Jesus beraren sabel birjinalan. Eta gure bisitatzera etorria ikusten dugu, ta gureki egotera perenne Jesus bera, ez ia aur bere Ama Birjinaren sabelean, baizik erreduziturik ogiaren akzidente goien pean, estalirik belo txuri gorreki.

Nola ezkara saltatzen, zoraturik amorios, agradezimentus ta kontentus? Nola estiogu erraten: Nondik Jauna guri ainberze ondasun, nola gure konpañian egotea berorren Majestadea?

Ondasun anitz duen bates erraten da: Ainberze du ezi estaki zer duen. Errealki guzia dugu misterio gontan, baña estakigu zenbat dugun, ez solamente izanain utses, baita ere estimazio ta ezaumentu faltas. Idiak ezaun duzue bere jabea, dio Isaiasek (1), ta astoak bere Nausiaren ganbela, ta Israelek ez bere Jauna. Au agitu ze jaio zelaik Kristo, ta orai agitzen da daukagulaik presente aldarean. Dugu entendamentu, dugu fede, zer da falta? Borondatea, amorioa, agradezimentua. Bada, ez ia aur garrek, baizik idiak eta astoak ere dezakegute predikatu. Baña bego animale bizien predikua geroxagoko. Gauza zenzugabeek dezakegute predikatu amorio gau gure Jaunagana. Moisesen bara gura, lañu pilare-gisa zoeien gura israeldarreki, ta gero arka testamentuko gura solamente zire Jangoikoaren presenzia ta asistentziaren señaileak, eta gure sakramentu andi gonon figurak ta itzalak. Alaere beira aien aurkintzean idikitzen itsasoa bi aldetara, usten kortes leku ta bide erditik leor daudelaik bi saietsetaik urak tieso arriturik bekala erreberente; beira Jordango ugaldea erretiratzen atzerat pasatzerakoan; beira oianak ta aldapak mostratzen kontentu ta agradezimentu. De manera ezi 113 psalmoan dio Dabidek: Itsasoak ikusi ta iges egin zue, Jordan itzuli ze atzerat. Oianak saltatu zire alegranzias ariak bekala, ta aldapak ardien axuriak bekala. Galdegiten diote, nola ezaumentu balute: Zer duzu itsasoa zuk, zeren in baituzu iges? Eta zuk Jordan, zeren itzuli baizara atzerat? Oianak zergatik saltatu zarate arien gisa, eta zuek aldapak axurien gisa? Berak errespondatzen du: Jangoikoaren presenziagatik mogitu da lurra, Jakoben Jangoikoaren presenziagatik, zeñek peñak eta arriak baitaki itzultzen urresko iturritan. Nola estire alketzen gizonak eta kristioak ia, ez estimatzeas itsasoak ta ugaldeak adiña, oianek eta aldapek adiña, gure Jaunaren presenzia erreala ta espeziala sakramentu miragarrian? ai bezkite txoriak berere, baitute txintxoago boza.

ikusten dugu, dio San Maximok (H. 2. de grat. post cib.), nola egaxte txipitto goiek goizoro argidezaneke Jangoikoak, kantatzen dioten alborada nork bere gisa diferenteki, batak arla, berzeak orla, eta jatera bañolen ia ke ta mintzatus ez dezaketen, kantus beren pikoan suabidadeareki festejatzen ta alabazen duten beren kriazalea, de manera ezi arri iduri zaio obeki emantiola eskerrak, zeñek dulzeago kantatu baitio, eta nola au berau iteunten egunain buruan. Beira zazie zeruko egasteei, zio Kristok, respicite volatilia coeli. Orgatik sinestagarri da kontatzen duena Maria Agredako serore benerableak, ezi zoeielarik Jaunau aur txipitto zenean bere amaren besotan Ejiptora, etorzen zirela bandaka txoriak kantatzera esker milla milla beren ta gure Jaunai. Erleak dezazkegu ekarri egasteen ertean predikatzer sakramentuai in bear diogun estimazioa. Kontatzen du Aita Alonso Andradek (Itin. gr. 5. SS.11), eskribitzen duela Pedro Kluniazensek berai kontatu ziona Klaramonteko obispoak agitua bere feligres bati, nekazari bati. Zitue onek erle batzuk, zein baizoezi txurtus denborain kasos. Erremediatzeko konsejatu zio sorgin batek ar zezala hostia konsagratua komekatzean, ta sar zezala naza batean. Artu zue, joan ze, ta paraturik nazaren pokalean, fu bateki sartu naies barnera, erori ze lurrean. Kurtu ze goratzeko ta egiteko berriro dilijenzia bera, baña alzinatu zekizkio erleak, zein atrarik tropa baten gisara paratu zire Jaun sakramentatuaren inguruan, ta arturik erdian kortesia andiareki eraman zute prozesioan bekala nazara mormorots dulze agradezitu bateki. Arriturik itzuli ze rustikoa bere etxera pensatzen agituan, beldurrak zetorkion zerbait kastigo zerutik, eta lurretik ere bai, xakiten baze egin

zuen. Turditurik pensamentu gebeki itzuli ze arturik butzatore bat ur, ta ito zitue erleak bere maldadearen testigoak bekala. Gero asirik atratzen estia, atra naiak forma sagratua, aurkitu zue esti-orratze baten ondarrean, zer? Ez ia hostia, baizik aurtto eder amable bat artizarra baño argiago. Jesus dulze onegia, nola den ain ona gaistoekei ere? Baña o gizon ingratoaren inhumanoa! artu zue ark ortzizeko lurpean; eta Jaun dibinoa sentitzen zuela arren erien ukitzea ia ezi gurutzean itzees josia, desaparezitu zekio usten zuela beterik tristuras ta ikaraduras kruela. Joan ze etxera, ta segitu zio Jangoikoaren irak erauntsis berain ta bere familiain gain kalamidadeak, eritasunak ta miseriak, ta ia dena, arreatatik beraren errian ere bai, de manera ezi andik fite il zire habitante guziak, ta erraustu zire etxe ta heredaje guziak gelditu gabe erriain itxuraik ere. O aitu bazue erleek predikatu ziotena exenpluareki! Aizagun guk, ta berze kaso bat ere bai kontatzen duena San Antonino Florenziakoak (Ib.); berze ainberze in omen zue berze nekazari batek kodiziagatik, baña oraingoan erleek labratu omen zioten estis ta argizagis sakramentuai kapilla ta sagrario-iduri bat ezkildorre-gisa bateki, ta sei aldis egunoro egoten emen zizaizkio ematen aldiska Jaun sakramentatuai musika bat miragarria, kantatus beren koruan laudario dibinoak, ta etorri zelaik nausia aitzera, arren kontra eman zutela beren extenen armaeki mendekatus Jaun soberanoaren ofensa, eta ura lotsarriturik itzuli omen ze errira nolapait, ta kontaturik apetxau nai, au jende guziareki joanik prozesioan, ikusirik prodijioa, ekarri emen zute elizara, non goardatu baize forma sagratua memoriatako. Zein ongi predikatudiguten erleek agradezimentua gure Jaunagana?

Ia orai nola erakustendiguten arraiek? Estut kontatuko nola jendeek ez, ta arraiek bai buruak atrarik ur gañera aitu zuten Jangoikoaren itza San Antonio Paduakoak predikatu ziotena izateko Jangoikoai agradezituak, ta kurturik buruak konfesatzen bekala arrazio zela despeitu ziren. Estut erranen ebanjelioko lantze gura noiz ta nekatuaskeros gau guzian San Pedro arran zan protxurik gabe, Jaunonen manura botarik sarea bete zen arraies ezin xasala. Estut erranen nola eskatu ziotelaik enperadoreaindako tributoa, San Pedro berak Jaunaren manus botarik hamua atra zuen arrai bat, zeñen barnean aurkitu zuen moneda bear zuena. Esta au pagatzea arrai garrek Jaunai zor dion agradezimentua moneda gartan? Estut erranen nola San Franzisko Xabier Nafarroaren gloria ta Indietako apostolu ta iruzki berriari, bein itsasos zoeielarik, ustekabetzean eroririk Santo Kristoa urean, ekarri zion agoan kangrejo edo karamarro batek, ta presentatu zion eskuetan alzina ia pasatu ondoan ia ezi berrogei milla. Zer ze joate gura karamarroa ures ur, bere Santo Kristoareki agoan, burua atrarik ur gañera, ainberze bidean, baizik predikatzea guri Kristoareki zor diogun amorioa ta agradezimentua Jaunoni? Baña aipa zagun solamente sakramentuareki intusten demostrazioak arraiek. Kontatzen du frai Jaime Bledak (Ap. Andr. ib. SS. 9), agitua Balenziako erri Alborai deitu batean, ezi arturik apetxaunak sakramentua komekatzeko eri bat zeukana berze erritto Almazera deitu batean, pasatu bear zuela erreka bat, zein aldarte gartan zoeie ain sendo ezi eramaten zue apetxauna uraren indarrak. Zebilalaik ez ito bai ito, soltatu zue eskuetaik kofrettoa, zeintan baizema sakramentua, ta atra ze bera nolapait, alegre alde bat bere bizia libratuas, triste berze alde galduas tesoroik obena. Ellegaturik errira kontatu zue desgrazia negarres; atra zire billa ta aurkitu zute baster batean kofrettoa; emen izan ze alegria, baña bereala tristura ikusirik kofrea utsik. Berriro asi zire billa, eta ia esperanza galdurik, ara non ikusten diren bi arrai igaten urain kontra, goraturik buruak, idikirik agoak, erakusten bi forma sagratuak. Gelditu zire etxideten noiz errezibituko zioten norbaitek, baña ez atrebiturik arranzariak deitu zute apetxauna, zeñek aiturik au, paraturik roketea ta estola akonpañaturik jendes

tortxaeki eskuetan joan ze, ta o gauza miragarria! Arrai atento gaiek ez solamente egon zire geldi denbora gartan guzian idikirik agoak, baizik ere ellegatu zeneko sazerdotea, atra zire idorrera entregatzeko forma sagratuak. Errezibitu zitue ain txuko, nola urean egon ezpalire; eraman zitue bere eliza propria, ta kofrettoa berzera, ta guzia konserbatzenemen da orai arteo benerazio andian. Narbonan, alaber, kontatzen da ogei urteen buruan ekarri zuela forma sagratua arrai batek, zeñi eman zion zeboan sakrilego batek (Ib. SS. 9). Ikusi duzie arraien fineza?

Ikusazie azienda xeak monstratu zuena bein. Babieran ze artzai bat senzilloa ta agitz sakramentu gonon deboto, ezi ezin joanes nai zuen guzian meza enzutera ta komekatzera. Zer egin zue? Bein komekatu zelaik goardatu zue formaren erdia idukitzeko bere konsolutako bakantasunean, ta ez izanes berze errelikario preziosoagokorik, paratu zue makillan formatu zuen zulotto batean alikako dezenteena bere ustes. Egunoro anitz aldis belaurikaturik adoratzan zue, jaietan prinzipalki ia, ta sentitzen zue bere debozioaren fruitua ariman. Berze makilla bat usatzen zue saldoaindako, eta bein tiraturik au txuxentzeko ardiak, fortunatu ze ematera berze makilai, ta erorzea lurrean sakramentuareki. Emen izan ze arren lotsamentura, aiotsak, negarrak, golpatzea bularra, eskatzea miserikordia bere deskuidoagatik. Ellegatu ze ikar ikar goratzera, ta agitu ze prodijio bat, ezi kurtu zelaik goratzeko, lurra makillareki zoeie beittitus, ark edatzen besoa, ta beitiago lurra, de manera ezi etzuke erdetxi artzera. Bereala bildurik hazienda guzia paratu ze inguruan belauriko adoratzan guzien Jauna. Klamatzan zue zeruai artzaiak negarres. Jautsi ze errira, eman zio kontu apetxau nai, onek obispoai, ta joan zire solemnidade guziareki lekura, non baizego hazienda konstante erreberenziatzen Jaun sakramentatua. Ellegatu zeneko obispoa, igantze lurra makillareki, zein arturik eraman zue elizara, ta leku gartan egin ze tenplo bat memoriatako, nora akuditzen baitute fielek, ta ermateunte barnatu zen lur gartaik obratzen baititu prodijioak. (Andrad. ib. SS. 10.) Xakina da nola San Franzisko Asiskoak erakutsi zion axuri bati joaten mezara ta egoten erreberenzia andiareki elizan; emanik ura gero berze persona andi bati, deskuidatzen baze au joateko elizara, axuriak abisatzen zue be ta be ta saltos, ta asko modus.

Betor azkenik predikatzen sakramentu gonon debozioa Lisboako txakur bat kontatzen baitu aita Parrak (P.1. pl.7) zeukala admirazios beterik España joan den jendamendean. Santa Justinaren Parrokian zue pastelgille batek txakur bat medianoa, kolore gorraska, mantxak txuri, deitzen zutena Tudesko. Mereji du señaleak ere ematea txakur batek ain nobleak gure Jaunareki. Aitu orduko parrokian ezkila edo txintxa komekadurain atratzeko, bereala nonnai zegon asten ze, kontentus saltatzen ta ainkuria egiten; zoeie lasterka, ta ematen zio inguraldi bat elizai; au egin ta itzultzen ze etxera eginartaño bigarren señalea ia atratzen zelaik gure Jauna. Orduan joaten ze ta anitz festa, salto ta demostrazio egin ondoan arzen zue leku palioain alzinean, ta an zoeie humil erreberente akonpañatzen. Ellegatu orduko eriaian etxera, gelditzen ze atari-pokalean komekatuartaño eria, ta gisa berean akonpañatzen zue itzultzean elizara, ta etze apartatzen ertxiartaño Jauna sagrarioan. Asi ze jendea erreparatzen txakurttoaren debozioan, inzuste dilijenziak detenitzeko, dibertitzeko edo engañatzeko animaletto fiela, baña etzute balio. Kenduzuste sakristiako monazilloak, ote zeiken joan aiengatik; baña oroat. Ertxi zute anitz aldis, baña aitu orduko danda, asten ze atzaparres, ortzes, saltos, ainkurias ta modu guzies atra naiak ain lastimosoki, ezi obligatzen zitue idukitzera, ta libratu orduko bereala atsanditurik ta agoa idikirik laixterka erdexten zue prozesioa, nonnai zoeien, ta oneki sosegatzen ze. Gañarakoan ez ogi, ez aragi, ez edozein gauza emanik etzeike sosega.

Mansottoa ze bere izates baña etzue zer orgatik niork deskuidatu gure Jaunaganako erreberenzian. Gau bates ala zoeielaik akonpañatzen komekadura, gizon bat zego lo karrikan; jokatu zekio Tudesko ta atrara zizkio loak; etze baratu ozkatus ikusi zuen arteo paratzen belauriko; orduan bereala bere lekura. Berze bein zoeie zaldun bat; etze jausten egiteko erreberenzia Jaun sakramentatu pasatzen zenai, baña arin jautsiarazi zue Tudeskok aunka, atzaparka, ozka zaldiai ta zaldunai niork debekatu etzukela paratu zen arteo belauriko berzea; berla bere lekura. Oraingoan autxi zio zaldiak beso bat txakur gaixoai, baña ez alaere detenitu, baizik irur kidallen gañean segitu zue Jauna erreserbatu arteo sagrarioan. Orduan, ez len, utzi ze kuratzera. Berze bein beterik zegolaik jendes eliza, zerengatik txakur garren predikuarik kausatu zue anitz debozio jendea baitan sakramentuagana, zegolaik, bada, beterik jendes eliza, zego txutirik emasteki bat lela; erreparatzen du Tudeskok, joaten zaio guzien soin ta buruen gañetik, ozka ta ozka; jendeak erran zio belaurika zeila, egin zue, ta instante ain geldi Tudesko. O animale prodijiosoa, ausarki zaizke izan gure maestru sakramentuarenganako agradezimentuan. En fin, Ortzegun ta Ortzilare sandu batzues animaletto on gau egon ze asistitzen presente sakramentuaren presenzian ogeitalaur ordus mogitu gabe ta amenik jan gabe, etzukelaik niork apartarazi andik ez egunas ta ez gauas. Zer prediku ia nauzie? Ia orai esta ongi eldu aipatzea serafinek eta kerubinek eta gañarako aingiruek monstatzen duten erreberenzia gure Jaun sakramentatu goni! Nolako amorioa dioten, nolako agradezimentua! Eta gizonek estiogu izanen, dagolarik gizonengatik sollik? Eta zergatik deitu bear gara razionalak? Zertako dugu entendamentua? Ah! erraten zue San Agustinek bere adinaren ogei ta amirur urtetan bataiatu zelarik bere konfesioen libru gartan: Zein berant ezaundu duten edertasun ain antiguaskoa ta ain berria! Zein berant onetsi duten! Guk zer diogu, nere fielak, aspaldian kristio deitzen garenek? Estakigula pasa bizia ezaundu gabe dugun ona hostia txipi gartan? onetsi gabe anitz gure Jauna, ezkaitzela akaba? Ene arima, onetsi zazu amorosturik zeure esposo amorosoa, etzaitela izan eskergaitza. Esta onetsi bear premioagatik, baña estu niork onesten premiorik gabe. Zer ditxa, zer fortuna, zer premio ohea, nola Jaunonen onetsia izatea? Eta ori da posible? Zu bekalako bat daike izan gure Jaunaren onetsia? Bai. Onesten bauzu zuk bera, berak onetsiko zaitu zu. Beraren aldetik esta faltatuko, ezpada zure aldetik faltatzen! Bada, zer ai zara? Zer onesteunzu? Esta nior Jangoikoa bekalakorik. Da noblea, da poderosoa, da aberatsa, da ederra, da ona, da amablea parerik gabe. Onetsi zazu guziak baño ia. Emastekietaik Ama Birjina, gizonkietaik Jesu Kristo gizon bekala, baña Jangoiko bekala estaike nioreki konpara. Alaere zein humano ta amorosoki tratatzentu bere onetsizaleak! Beira arima gaiek, San Franziskoak, Santa Teresak, Santa Katalinak ta alakoak. Eta ez naiz arritzen ainberze iten zitioten erregaloes arima gaiei. Alabañare, zire arima nobleak ta ongi korresponditzen ziotenak; zertas arritzen naizen, ez ainbatekoei ere ainberze ongi egiteas. Zer litzake, bagindio amorio ta agradezimentu dagokiona? Ene arima, ezkaitzela izan tontoak; utzagun mundu itsua bere banidadeeki. Alda gaitzen eskojituen bandara; obe dugu Jaunau guziak baño. Zein berant ezaundu duten edertasun ain aspaldikoa ta ain berria! Zein berant onetsi duten ontasun parerik gabekoa! Berant delaik, emagun prisa; onetsi zugun berere falta zaigun bizi-zatian biotz guziareki. Estut estimatzen bizia ez onestekos ene Jauna. Jauna, konbeniengo dirudi litzakela bekatues negar egitea, ezi aipatzea nik amoriosko erregalo gebek; baña amorioik gabe ezin izan kontrizioik; berze alde estut mereji amatzea ori, baña obligazio izaki. Amatzen dut ta amatu nai dut orai ta beti, bizian ta eternidadean. Amen.

Sermo XXVII:
De gratitudine
in eucharistiam â ratione

Ignem veni mittere in terram, et quid volo,
nisi ut accendatur? Luc. 12.

Animale ta gauza zenzugabekoek erakutsi digute amorioa ta agradezimentua gure Jaunagana. Falta ze erakutsizaguten deabruet. Baña sollik aiek dire inkapaz amatzeko gure Jauna, zeren baitire gaixto utsak, ta ona guzis gure Jauna. Aien gisarakoak dire sinestatzen bai ta amatzen estutenak. Zuk sinestatzen duzu bat bakarrik dela Jangoikoa, dio Santiagok (C.2), ongi iten duzu, demonioek ere sinestatzen dute ta beldur diote. Au dio desengañatzeko estela aski sollik fedea, deabruet ere baitute; bear dela amorioa ta agradezimentua aiek izanez dezaketena. Fedeari darraiona baita erreberenzia ta errespetoa Jaun sakramentatuai, ori deabruet ere erakus dezokete kristio desatentoei nai baute ikasi, zerengatik estire aiek ebek bekala trebe galtzera errespetoa Jaun andiaren presenzian. Kontatzen du Jakobo de Borajinek, bein sorgin baten deiera etorri zekiola demonioa mutil eder baten idurian koronaturik lorees (Ap. Andr. gr. 5. SS. 14); zegolaik arreki jolaxean, pasatzen ze sazerdote bat zeramana estalirik bularrain kontra sakramentua eri batendako. Demonioak edeki zue burutik korona, ta belaurikaturik egin zio agur andia lurreraño. Itzuli zelaik komekadura eman ondoan sazerdotea, etzue ark egin ainberze erreberenzia, baña inklinatu zue burua ta errespeto mostratu zio. Sorginak galdegin zio kausa, ta ark erran zio: egin diot aixtean ainberze agur, zeren baizema sakramentua, eta eskribiturik dago borraratu ez dezaketena nik, in nomine Jesu omne genuflectur etc. Jesusen izenera belaurik zeruetan, lurretan ta infernuetan den guzia. Gero itzultzean zema utsik kaxa, non egon baize sakramentua, ta eskribiturik dago, adoravimus in loco, ubi steterunt pedes eius, adoratu dugu lekua, zein ukitu baitu bere oñes. Eta ala naiestutela bortxa inarasten didate erreberenzia. Naute ia doktrina desatentoei? bear lukete egin ziona monje bati. Zego au atenziorik gabe mezan, ta kantatzerakoan itz andi gaiek Kredoan, et incarnatus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine, et homo factus est, enkarnatu ze Espiritu Sanduaren birtutes Maria Birjinaganik, ta gizon egin ze. Ark esta paratu ere belaurik lurrean. Etorri zekio demonioa ta eman zio bofetada bat zartots andiareki, erraten ziola bateo: Esker-gaitz itsusia, kurradi lurreraño, gogotik ere, ezi neregatik Jangoikoak in bazue alako fineza, egonen nuta pegaturik lurrai sekula guzian.

Beras, ez solamente errespetoa, baitaere agradezimentua erakusten digu Jaun gonengana, zeiniek misterio gontan berritzen ta edatzen du enkarnazioaren benefizioa. Baña arrazios egun mostratu bear dugu obligazio gau. Maria dulzissima, kriatura agradezituena Jangoikoai. Arrazioreki Jangoikoak orren baitan montiatu zue ainberze grazia. Bada, auda eskatzen duguna, grazia. Abe Maria.

Zein da gauza Jaun sakramentatuak geienenik eskatzen diguna, guk geien zor dioguna ta gutien pagatzen dioguna? Amorioa ta agradezimentua. Eskatzen diguna geienenik au da beñik bein, ezi ainberze ongi inaskeros, berzerik ezpadezake ere atra gureganik, amorioa bentzait ta agradezimentua nai du, arrazio den bekala. Galdegiten badiogu San Basilioreki, ad quid venisti? Jauna, zertara etorri da? Zer nai du? Errespuesta emanik dauka, ignem veni mittere in terram et quid volo nisi ut accendatur? etorri naiz su

ematera munduai, ta zer nai dut baizik itxeki daien? Su ematera? Bai. Zer su da au? Espiritu Sanduaren sua, karidadea ta amorioa Jangoikoagana. (Suaren propietadeak dire berotzea, edekitzea eskoria ta erdoia burriñai, paratzea, naiz dela ikatza, brasa, urrea bezain gori ta ori, argitzea ta gora igatea. Ario berera karidade edo amorioaren propietadeak; berotzen, bizkortzen ta animatzen du biotza; garbitzen du lurreko afekto txarren eskoria ta erdoietik. Argi eder paratzen du Jangoikoaren begietan, ta goraturik emengo banidadeetaik). Au da su eskatzen duena Elizak egunoro Jangoikoai itxeki dezan gure biotzetan. Ignem sui amoris accendat Deus in cordibus nostris. Auda sua zeintas baitio diolaik: Ure igne Sancti Spiritus renes nostros etc. Jauna, erre bezki gure gerriak ta biotzak, Espiritu Sanduaren suareki, plazer eman dezogun berorri gorputz kastoareki ta biotz garbiareki. Au da sua itxeki zena apostoluen biotzetan jautsi zelaik Espiritu Sandua susko mien figuran. Auda sua, zeintan baitaude erretzen serafinak Jangoikoaren presenzian, ta zein Santa Teresaren biotzean itxeki baizue serafin garrek heritu ziolaik susko dardo urresko garreki. Esta zer lotsatu aitzeas suareki konparatzen amorioa, zerengatik delarik eriotzea bezain azkar ta errua deusek garaitu ez dezakena, da alaber, dulce, gozo, deseagarria; baña agitz txur, ikustendenes. Arreki bateo estaike aurki munduko amorioa, ta ez gauzarik Jangoikoai desplazer ematen dionik; baizik ere sugarreki bat utziko da iltzera lenago ezi ofenditu grabeki gure Jauna. Eta ori esta guzia; ezi su gau artu duen biotzai solo kuadratzen zaio Jangoikoa, ez dezake atzendu guzis beñere, desaogatzen da afekto, ansia ta suspiroetan zerurat, urtzen zaio gozoro biotza negar dulceetan, berak ez ezi, berzeek ere ofenditzea jaun bat ain ona, bizirot senti du arimaraño; injeniatzen ta itentu obra on ta lan dezazken guziak Jaun garren zerbitzutan, padezitzentu beragatik trabajuak, murmurazioak, persekuzioneak pazienziareki. Eta anitz bada amorio garren sua, alegreki pasazentu trabajuak, ta naiago du izan pasatzeko, gabe baño; eta berriz munduko banidadeak, dibersioak ta alegranziak ez dezazke dijeritu. (Jauna, ori dirudi erokeria. Bai, auda erokeria zerukoa, dibinoa, miragarria, deseagarria. O nork luken! Baña altxaturik dago munduko jakintsu ta prudenteetaik, ta errebelatzen da txipittoei. Ala zor atzendu Jangoikoaren amorioaren ardo jeneroso garrek, ezi garaiturik inklinazio naturala, Jangoikoai plazer iteagatik aborrezitzen tu aisurak, gustoak, erregaloak, ta besarkatzen da trabajueki, au da, Kristoren gurutzeareki, berak pregonatu zuenaren gisara: nai duenak etorri ene atzetik, uka bedi bere naikundeai, ar bez bere gurutzea ta segi benaza.

Emen ia aitzen nauten zenbaiti iduridakiokete sentenziatzen tugula bizitzera gustorik gabe beti Jangoikoaren amazalleak. Zer diot ontara? Bai ta ez. Lurreko gusto animale debekatuak gabe, ori bai; zeruko gusto espirituale egiaskoak gabe, ori ez; demanera ezi esta baizik aldatzea gustos. Mundukoai kuadratzen zaizkio banidadeak, danzak, triposkeriak, inmundiziak. Jangoikoarenai birtuteak, penitenziak, obra onak ta honestidade guzia. Ark nai du aisura ta pasioneen asetzea; onek nai du trabajua ta Jangoikoaren kontentu solla; ura dabila kontent infernurako bideas; au doaie alegre zerurako sendas. Zein kontentago? Zein alegreago? O diferenzia! Niri iduri zaida ala nola dabilala deabrua munduko ignorante aurren engañatzeko brindatzen eskuan daraman katuli bateki, gañetik gastanbera-baño iduri bat, ondarrekoa guzia pozio samin fierratua; ta erosten diote sinpleek ongi kostarik, pagatzeuntela, ez gero solamente, baita emen ere. Testigo honra galduak, desastreak, negarrak, konzienziaren inkieturak, tristurak, ikaradurak. Jangoikoak berriz emen brindatzen du trabajueki, korona ondorean, baña bitarte bere amorioaren tragoeki bizkortzen ta erregalatzen du de manera, ezi edozeñek dezazke pasa, ta batzuek guti sentiturik, ta berze batzuek alegreki ere. Orai entendatzen dut

Kristoren bi erran gaien bateratzea. Bein dio: Ertxia da bidea daramana bizitzara; berze bein: Nere bustarria da suabea, ta karga arina. Eta klaro da bere bide, bustarri ta kargan entendatzen dela bere legea; baña esta ain klaro nola daiken bateo izan ertxi edo latz, eta bateo suabe ta arin. Nik ala uste dut; ertxi ta latz naturale gaistoaindakoa, onaindako pasagarri, ta karidadearen medios suabe ta arin. O karidadearen indarra! O Jangoikoaren amorioaren almibar miragarria, zeñeki negarrak dire dulze, trabajuak suabe ta eriotzea bera gozo. Aitu dut jardukitzen norbait daiken ellega persona bat deseatzera ta alegratzera iltzeas; baña ebidenteki ainberze martir, birjin ta sanduen exenpluek mostratzen digute baietz. Zer da inport errepugna dezan naturaleza eriak bere ganik? garaitzen du, ordea, graziak, triunfatzen du Jangoikoarenganako amorioak. Gustoen gain ginderduka, Jangoikoarenek edo mundukoek zuten ia. Badu zer ikusi! Estagoke gozoro ta kontent bekataria, ezpada ezaundu faltas; eta Jangoikoaren amazalleai, berriz, zer etzaio izanen gustoso, gustoso zaikolaik eriotzea bera? Egia da, au dela amorio andi espezialaren efektoa, baña guzietan bear dena ta iten duena da admititzea eriotzea, bearbada, ez desplacer emateagatik Jangoikoai).

Baña barratu naiz sobrax; itzuli gaitzen amorio eskatzendigunera Jaun sakramentatuak: Su ematera munduai etorri naiz, dio, ta zer nai dut, baizik itxeki daien? Non ia misterio gontan baño errespiratzen, despeitzen ta barratzen du amoriosko su dulze gau biotzetara, nai baliz egin kaso? Eta nola daike utzi in gabe kaso ainberzeko fineza, delaik ezaumentu? delaik fede? Kristio fiela, ezpadizu errobatu biotza, ezpadizu itxeki amoriosko sua Jaunonek jaioarik aur ta erreklinaturik ganbela batean, estare loturik kolumna batean, estare ilik gurutze batean zuregatik, nola ez sikiera orai dagolaik erreduziturik hostia txipi batera iruzki dibinoa guzia? Guzia amoriosko sua? Ala dio San Krisostomok, beterik dagola maigoi su espirituales, ta altxaturik dauzkiela or bere amorioaren sugarrak (S. de S. Filog.). Ala Santa Franziska Romanak ikusten zue kustodian ala nola labe bat sugarretan. Ala dezakegu konsidera guziek, presentatzen digula bere bularra idikirik sartu nai gaituela bere biotzean. Et quid volo, nisi ut accendatur? Eta zer nai du, baizik itxeki gure biotzetan berearen amoriosko sua? Ah! Nork lezaken ongi ezaundu gauza, ezleike baizik itxeki amorioan ta agradezimentuan. Gure Jauna neregatik ala sakramentuan! Eta ni ain epel beraren presenzian! Ez ikustea begis da kausa gure epeltasunaren; delarik egia ezi estalirik egotegoi beroi dela bere amorioaren artifizioa amorostu bear gaituena, beras, ia, ezi balego bere majestade ta argitasun guziareki agerrian, ezgindeizke ellega, ezkindezoke beiratu ere. Orai egiten du milagro andi kontino bat estaltzeas bere errañuak ta grandeza, ala nola errege andi bat tratatu naies artxaiko pobre bateki joan balekio bere etxolara utzirik insignia errealak ta paraturik zamarra bat, etzeien lotsa artxaikoa ellegatzeko, mintzatzeko ta besarkatzeko ere errege. Aituestena majestade lurrekoek, ikusazie Majestade goiengan; estalirik ta disfrazaturik gure arimen naies! Arimen esposo amantea, estalkigoi zergatik daukan estida erranen, ene Jauna, zergatik? Nere arimain billa eldu da bere gana artzeagatik. Zertan dago? Berla arbeza, berant da berladanik. Kontu, nere fielak, dagola gure biotzen atarian disimulaturik, errege dei ta dei, ecce sto ad ostium et pulso (Apocal. 3). Ona ni, dio, atarian deies. Norbaitek aiturik ene boza, idikitzen badida ataria, sartuko naiz bera gana, ta afalduko dut berareki, ta berak nereki. Arima nola esta idatzartzen galdegitera berere, nor da? Zer nai du? Aizazu, praebe fili mi, cor tuum mihi (Prov. 23). Idazu niri zeure biotza, nere humea. Au dio zeruko ta lurreko Jaun ta Jabeak. Estu bear, klaro da; baña in lezake ia, bear balu? Eta deskuidatuko naiz ni, eta nior emateko? Baña bai, askok estiote idiki nai ataria; estute

nai bere esposotako Jesus. Kodiziosoak dio: Nik naiago dut iragazi zerbait, ezi ez komekadura. Luxuriosoak dio: Nik naiago dut inmundizia, ezi ez hostia gura. Alferrak dio: Nik naiago dut aisura ta dibersioa, ezi ez sakramentua. Banoak dio: Nik naiago dut munduai ongi iduritzea, ezi ez Jaun sakramentatuaren amoria. Ala diote ez mies, baizik obres; eta ala erxten diote biotzaren ataria ta usteunte kanpotik esposo dibinoa, estutelaik kasorik egiten beraren finezes, estiotelaik amoriorik ta agradezimenturik.

Eta zuk, ene arima, zer diozu ikusirik Jaunonen karidade geiegia gure gana, ta amorioa amorioareki pagadezogula eskatzendigulaik? Zer erran beauzu baizik ziona San Agustinek (Confes. 1.10). Quid tibi sum ipse, ut amari te jubeas â me, et nisi faciam, irascaris mihi, et mineris ingentes miserias? Nor edo zer naiz ni, Jauna, orren aldean, manatzeko orrek niri onetsi dezatela berori, ta ezpadut egiten, asarratzen baita ene kontra ta meatxatzen bainau miseria andieki? Parvane ipsa est miseria, si non amem te? Ez onestea bera, da agian miseria txipia neretako? Orrek zer kalte du nik ez onestea? Agian nere orrenganako borondatearen menean dago orren grandeza? Agian nik ez onetsiagatik izain da pobre edo beartsu Jangoikoa? Ah! Neretako sollik da kaltea ez onestea ta probetxua onestea; baña probetxu edo kalte, agian esta aski orrek manatzea? Agian estu berorrek mereji? Agian estut nik obligazio? Kriatura guziek bedeika, o porfia Jaun andia, baña gizagendeak lenean bear du eraman amorio ta agradezimentuaren bandera, zerengatik gizonagatik in baita gizon Jangoikoa, gizonagatik il baita gurutzean, ta gizonagatik baitago sakramentuan. Gizonaren premiotako dago Jangoikoa zeruan, gizonaren lagun egin ze bizi zelaik munduan, gizonaren prezio il zelaik, ta gizonaren erregalo ta konsolu dagolaik aldareko maiean. Ditxosoko gizona, zein sartu zaion Jangoikoai biotzean! Dabidek ikusirik artxaiko len bere burua, ta gero errege Jangoikoaren grazias, zio: Nor naiz ni, Jauna, dignatu baita goratzera ni onaraño? Zer dezoke erran Dabidek berorri ainberze mertxedeon ondorean? (2 Reg. 7) Eta zerengatik Dabidek ofrezitu zion Jonatasen seme bati, Mifibozet deitzen zenai, inen ziola miserikordia ta janen zuela ogia beraren maiean beti; erran zio ark: Jauna, nor naiz ni, dignatzeko berori beiratzera ni bekala tzakur il bati? ikus bez gizonak bere burua goraturik, ez errege, baizik Jangoikoaren etxeko aide ta bere proprio-gisa jatera beraren mai errealean. Ikus bez Jangoikoa apaldurik izatera bere arimaren erregalo, ta proprioki esposo. Esta arrazio izatea bentzait biotzesko amorio ta agradezimentu andia Jaun alakoai? ez naiz admiratzen San Felipe Neris kontatzen denas, ezi Jaunonenganako amorioaren utses ezin kabitus biotza bularrain barnean zabaldu zekiola autxirik eta goraturik bi kostilla. Ez naiz admiratzen San Luis Gonzagas, beti baizego buruko mines Jangoikoaren amoriosko suaren indarres, eta ezpaizezake aparta gogoa bera ganik instante bates ere, manaturik ere, nai bazue ere. Ez naiz admiratzen San Estanislao Kostkas, paratzen baize sutan komekatu aldioro, preziso baize bustitzea bularra ur otzes, alaere errenditzen baize amoriosko desmaio dulceeki. Ez naiz admiratzen Santa Magdalena Pazzis ibiltzeas zoraturik bekala transitos transito, ta errateas aurkitzen zituen guziei: Arima, amatzen duzu amorea? amatzen duzu amorea? Soñatzeas ezkilak, oiuka egoteas dorretik: ama zazie amorea, ama zazie amorea. Amorea deitzen zue Jesus bere esposo amorosoa. Ez naiz admiratzen berze sanduen ta sanden ansies Jaunonengana, egin naias, padezitu naias ta il naias Jaunonengatik, ilere baitire zenbait solo amorioaren gaitzas. Admiratzen naiz gure epeltasunas, nola dugulaik fede bera, estugun karidade bera. Aiek, orde, zire sanduak, erraten dugu exkusatako. Eta zer? Estugu guk Jaun bera? Ezkaude etxe berean? Estugu jaten ogi bera? Estugu obligazio bera? Estugu nai premio bera? Edo etzeukate arrazio onesteko jaun bat alakoia? Edo iten ziote mereji duen baño ia?

Edo gureganik estu mereji ainberze? Guri estigu egiten mertxede bera? Ta mostrapzen amorio bera? Bada, zer ai gara gu eskergaitz txarrok? Ezpada ainberze egitea ta padezitzea Jaunonengatik, bentzait biotz sollas iten dena onestea, agradezitzea! O gure arimen esposo amantea, nola ixurtzentuen bere amorioaren ondasunak pagatzenestiotenei sikiera afektoareki? Erratenestiotenei esker milla ere? Guk dakigu mereji duela orrek onestea, ta guk dezakegula onetsi, dela arrazio, dela obligazio, berorri plazer, geuren buruei probetxu inen diogula, ta alaere estugula onetsiko gauza guziak baño ia? Zer biotzak dire ebek? Edo zer onesten dugu ori ezpada? Jauna, nor litzaken orren adiskide onetsizaleetaik bat? Nork luken aien biotzaren nobleza? Bada zierto, niork ere, niork ere estida niri egin orrek adiña ongi. Niork eznaue onetsi ainberze; bada, lege guzies dut obligazio onesteko nik ere berori guziak baño ia. Senar-emaste elkar ongi onetsiak prisionero ermanzuste Ziro erregeren soldadoek; presentarazirik erregek bere alzinean senarra, galdegin zio zer emanen zuen libratzeagatik bere esposa. Ark errespondatu zio emanen zuela bizia. Erregek izan zue piedade ta biak utzi zitue libre. Galdetu zio gero senarrak emasteai, zer iduritu zekion erregeren Majestadeas, palazioas ta grandezas. Errespondatu zio emaste fielak: ez dezaket erran deus, ezi estut erreparatu deustan, zerengatik nere begiak, atenzio ta afekto guziak eramantu ofrezitu denak iltzera enegatik (Ap. Claus p.2. cath. c.4) Ez ofrezitu, baizik eman du bere bizia gure arimen esposo amanteak guregatik; eta kautibo ta prisionero bekala dago oraño gure amorios. Esta arrazio paradezazkigun begiak, biotzak, atenzio ta amorio guzia berabaitan? Arrazio baño ia da, Jauna; baña esta aurkitzen gauza onik gure baitan, ezpadu orrek paratzen. Su ematera munduai etorri dela dio, ta estuela berzerik nai baizik itxeki daien. Eman bezu sugoi ene biotzai itxeki daien noizbait. Zein goizik orrek ni, ta zein kontino onetsi nauen! Zein berant nik, ta zein nekes onesten duten berori! Gauza zoragarria da esperanza salla dezakela orrek onetsi ni bekalako bat! Eta zierto izaki onetsiko nauela onesten badut nik berorri! onesten dut, bada, ene Jaun onetsigarria; nainioke egin plazer guzietan. Au biz ene bizia, ene kontentua, ene honra ta ene gloria. Amen.

Sermo XXVIII:
De ingratitudine nostra
in eucharistiam

Filios enutrivisti et exaltavi,
ipsi autem spreverunt me. Isai. 1.

Gure Jaun sakramentatuak lenbizikorik eskatzen ta guk geienenik zor dioguna dela amorioa ta agradezimentua progaturik dago. Orai au dela gutienik pagatzen dioguna. Onen progatzeko aski da ikustea gure ingratitutea edo esker-gaitza. Ontan konta daizke laur grado; lenbizikoa, ez ezauntzea ongi egina; bigarrena, ez korresponditzea; irugarrena, atzentzea; laugarrena, korresponditzea gaizki egines ta agrabioes. Lenbizikoas, baita ez ezauntzea, beñik bein zenbat dire estakitenak ongi zer den sakramentu aldarekoa; zer dagon ortan, zer fines dagon, ta zer disposizio bear den errezibitzeko ta baliatzeko; lastima bat baita. Utzirik alakoak ignoranteen saldoan, dakitenek ere dagola sakramentuan Jesu Kristo ain errealki nola zeruan estute ezauntzen, diot ausarki, estute ezauntzen ongi mertxede gonon andi geiegia; au da, errekonozitzen, pizatzen, estimatzen den adiña, baita ia borondatearen, ezi ez entendamentuaren falta. Zenbat doaz elizara, egoten dire emen, atratzen dire ain epel, ain ala nola etxe komun bat balitz? Non egon zara? Elizan. Gogoratu zaizu an dagola zeruan den obena? Aingiruak daudela inguruan aldareai? itxeki zaizu amorioa, agradezimentua, erreberentzia, beldurtasuna ta alako afektoak? Zertan egon zara? Komekatzen. Eta etzara arritu pensatzeas nolako bokadoa artu duzun? Jangoikoaren erregalo guzien mamia ta nata? Zer arrotza sartu zaizun zure lurreko etxola gortan? Zer amorioa! Zer marabilla! Nola aingiruak egon zaizkizun beira inbidia sandu bateki zure ditxas? Kontu griego dardukatela zenbaitendako. Joan, jarri belauriko, idiki agoa, errezibitu forma, egon guti bat zerengatik dauden berzeak, goartu gabe deus, ezin pasatus denbora! O! Au da ezauntzea benefizioa? Nondik niri ainberze ondasun? Zio Santa Isabelek arriturik ta zoraturik bekala sentitzeas ere Bautista saltatzen bere sabelean etorri zekiolaik bisitatzera Jangoikoaren Ama. Baña aiturik nor zen eldu zena egon baze serena geldi sukaldean, datorla barna, ongi etor dela, ta ez ia; aitzen? Ori da Jangoikoaren Ama; badakit. Jangoiko guzia dauka bere sabel birjinalan; badakit; ta alaere ain epel. Ezkindue erranen etzuela ongi ezauntzen mertxede? aplika bezate konparazioa; geienek ala iteunte. Jauna, sopra apaldu da bere Majestadea. Gutu iduriarasten du anitz ongi itendigulaik. Munduan dago, berorrek egina da mundua, ta munduak estu ezauntzen, zio San Juanek (C.1). Bada, zer da korresponditzeas? Onen ikusteko goazen eskatus grazia. O Ama Santisima, guzien partes berori da ongi agradezitu ziona gure Jaunai; kriatura guzien nata, munduaren honra, gizagendearen gala ta gloria, lurreko ta zerukoen flore ederra, sanda, perfekta, bere parerik estuena, Jangoikoaren biotzeko perla amablea, in bez gureki grazia. Abe Maria.

Estela ongi ezauntzen Jangoikoaren benefizio andi gau ageri da, estela ongi korresponditzen nork dezake duda? Korrespondenzia onaren zaña dago biotzean, ta mostratzen da kanpora obra onen fruituetan. Erretzen dago biotza Jaunonenganako amorioan? Bada, ala nola suai darraion berotasuna, amorio gartaik segituko dire afektoak, ansiak, deseoak Jaunonengana. Ala nola suak baitu naturalki erretzea, ala Jaunonenganako amorioak dakar enpleatzea mia, eskuak, oñak, persona ta bizia egiten ta

padezitzen Jaunoni plazer eman naiak. Amorioak obratzen du, barin bada, dio San Gregoriok, edo ezpadu obratzen, amorio esta. (H. 30 in evang.). Ar bezo bada bakotxak neurria Jaunoni dion korrespondenziai, dion amoriotik, ta onen efektoetaik, auda laudario, honra ta obsekioetaik, obra on ta trabaju eramatentuenetaik Jaunoni plazer emateagatik. Non dire ebek? Edo zein guti dire? Anitzek dezazkete mostra odol edo izerdi ixuriak Jaunonengatik? Sufritutuste anitzek irriak, desprezioak, injuriak Jaunoni kontentatzeagatik? Zertan dardukagu alfer? Bentzait guti kosta dena, komekatzea ansiareki, bisitatzea maiz bere tenploan, honratzea, laudatzea, esker ematea, agur egitea, finezareki iteunte anitzek? Askotan usten da soil nior gabe; askotan bisitatzen delaik ere iteunte kostunbres, ikusiagatik berzeak, ta epel epela. Askotan egoten dire tenploan gorputza, kanpoan gogoa, berantetsirik berla, enfadaturik, nekaturik, atra naiak atarira beira, ezin pasatus denbora, afekto bat igortzenestiotela, baizik senti dutela molestia Jaunonen presenzian. Beterik komedien, zezenen, jokuen, danzen ta banidade munduko en lekuak, pasatzen zaizkiote orduak sentitu gabe, zer da au? pagatzen da diru, usten da lana, egoten da neketan ere gozatzeagatik banidadea; emen alakorik gabe apenas dezazke ekarri beregana Jaun sakramentatuak, bentzait iduki ez gogotik anitz denboras. Zer litzake kosta baledi diru asistitzea elizako funtzionetan nola munduko zenbaitetan? Aietara biltzeko esta bear ezkilarik, ezeta klarinik ere; tenplora bilarasteko inbentatu zire ezkilak, soñatzen dire, deitzen, konbidatzentuste munduko sor borondateskoak, ta ezin adiarazi. Ikuskotuzie batzuk joaten gure Jaunaren obsekiatzera, berze batzuk segitzen dibersioan; ain ilik dago fedea! Ain itzalirik karidadea! Ala korresponditzen da gure Jaunonen fineza etorrias zerutik lurrera, ta emen egoteas guregatik! Zer erranen dugu biltzen gaituelaik aingiruaen tronpetaren soñuareki Jaunonek Josafatko zelaiera kontu ta kargu egitera eskergaizkeria gontas?

Irugarren gradoa da atzentzea ongi-egina. Esta anitz ongieginain truk oroitzea ontas. Gutik inen dizute ongi estutela nai berzerik baizik oroi zaizen; iten balizu norbaitek, ezlitzake anitz oroitzea artas. Bada, orai zenbatenas aisago baita oroitzea, itsusiago da atzentzea. Itsuskeria gau da iten dena egunoro gure Jaunareki. Gabiltza inguraka, inguraka, jaiki, bestitu, jan, edan, pasatu eguna munduko joan-etorrietan, etzin, lo egin, berritz jaiki, bestitu etc. Ta beti ontan. Eta bitarteo asko dire estirenak oroitzen asko denboras dagon edo estagon Jesu Kristo gureki munduan, adoratzeko, maitatzeko, ta tratatzeko berareki. Ala nola balego etorririk errege guregatik errira, errikoak balidoezi arat onat, kasorik in gabe erreges. Kontu estagola gloriako errege zenbaitendako munduan! Bego ez joatea egitera bisita bat. Aiturik ere sagrao ezkilak, estute dauden lekutik ere eginen memoria bat guzien Jaunas. Jaiak ezpalire, ah zenbatei joan lekizkiote ilabeteak osoak (sic), ta estakit urteak, atzendurik Jaunones. Ajola guti luketela dirudi zenbaitek ezpalitz ere sakramenturik munduan; oblivioni datus sum, dio (Ps. 30). Atzendurik naukate ila bekala; eta berriz dio Jeremiasen agos (2): Agian daike atzendu esposa bere galas eta insignias? Baña nere puebloa bai atzen duda nitas infinizio bat egunes. Eta berriz (18): Nork aitu du alako gauza lotsagarriak, nola baita atzentzea nitas ene puebloa? Erramu egunean errebitu ondoan Jaunau Jerusalemen triunfoan ainberze palma ta bibaeki, arratsaldeko aurkitu ze bakarrik etzuela niork konbidatu arzera amen bat. Judioen deskortesia gonon gisarakoa da anitz kristioena, denbora aldi bates edo funziioneain berrian zerbait debozio-iduri, denborain buruan deus ez. Tristura izan ze agitu zena Kristoren prisionean, lentsago zeudelaik berareki maiean apostolu guziak, orduan iges eginik guziek utzi zute bakar bakarra. Baña orduan alabañare izan ze eriotzeain beldurrak;

orai esta alako beldurrik, ta iges guziak kasi guregatik preso bekala dagon Jaunaganik. Eliza bere esposa onetsiak disponitutu jaiak; berexki sakramentuaren festibidadea Urbano IV, prozesio solemnea konzilio Bienakoan Klemente B, aprobatu, konfirmatu ta laudatu baizue Trentokoak, gero orai dugun Aita Sandu Pio VI manatu zue Oktaba osoa. Ontas landara Iruñeko obispo Don Juan Lorenzo Irigoien ta Dutari, sekulako memoriain digno denak, ordenatu zue iloroko Minerba, edo sakramentuaren funtzioea zelebrazteko igande batean agerturik kustodian sakramentua mezakoan, ta bezperetakoan platika, orazio mentale, estazio ta prozesioareki, erdetxirik ortako Aita Sanduaganik indulgentzia plenaria konfesa-komekaturik asistitzen dutenendako eskatus Elizaren exaltazioagatik, fedearen aumentuagatik ta prinzipie fielen unione ta biktoriagatik. Ezpalitz alako irabazi ta ezporeengatik lo legoke askoen memoria Jaunonengana; eta alaere estago biziagi, bentzait aldarteka. Bada, gure Jaunonek estu aldarterik ongi egiteko, baizik betiro, kontino ta konstante dagokigu ongi egiten.

Baña orai zer errain dugu eskergaitzaren laugarren gradoas, pagatzeas Jaunonen ongi-egina injurieki, ofenseki ta sakrilejioeki ere? Estu, bada, alakorik mereji gureganik Jesus dibino gonek, ezpaitigu in gaitzik, ongi baizik. Ala Jonatasek erraten zio Saul bere Aitai: Ez dezala bekaturik egin bere sierbo Dabiden kontra, zerengatik ark estio berorri gaizkirik egin, ta arren obrak agitz dire onak orren alde (1. Reg. 19). Bere bizia paratu du arrixkoan orrengatik, il du Filisteoa, ta Jangoikoak arren medios obratu du ondasun andia Israelen. Ikusi du berorrek, ta alegratu da. Zergatik, bada, nai dio egin agrabio kulparik estuenai? Berze aldera itzuli bear dugu emen petizioa, ez ia Aitai bere sierboagatik, baizik sierboari Aitagatik; etzazula, sierbo eskergaitza, egin bekaturik zeure Aitain kontra, zerengatik estizu berak zuri gaizkirik egin, bere obrak agitz onak izan dire zure alde. Jaunonek beronek erran ziote au berau judioei arrikatu nai zutelaik bein: Asko obra on egintiziet, ebetaik zeñengatik arrikatzen nauzie? (Joan. 10). Ah! Eskergaitzak estu bear kausarik ofenditzeko, aski du bere biotz txarra ortako. Ona pagatzen du gaitzareki ta desamoreareki amorea. Eta ala da andiago txarkeria. Ezpanitza neurau etorri, ezpaniote egin berze niork inestioten benefizioak, etzute bekaturik, baño orai estute atxekiarik (Joan. 15). Ontara eldu da ziona Santa Teresak, desagradezituei kalte ematen diotela mertextearen andiak (Exclam. 3). Kristo etorri baño, etze ain andi, itsusi, lotsagarri ofenditzea Jangoikoa, nola orai ikusi ondoan Jangoiko bera aur jaiorik ganbela batean, ta ilik gurutze batean, ta gure alimentu eginik aldarean. Bein utzi ze bete zezaten penas gorputz guzian, idiki zezkioten esku oñetan eta bularrean bortz llaga andiak, bortz iturri bekala, nondik zerion odola abasto. Orai, berriz, sakramentuan kontu dagokigula ematen bere bularretik likore dibino gura, nola esnea amak humeai. Balitz, bada, hume bat ain eskergaitz txarra, ezi joka leiken ozka ta atzaparka azitzen duen amaren kontra, zer itsuskeria! Alakoa ta iagokoa da ofenditzea kristioak gure Jauna, nonnai ere bai, baño espezialki tenploan ta sakramentuan berean. Arrizioa da nola itzuli ziren judioak Jesusen kontra, etzutelaik ikusi ta ez aitu gaizkirik egiten, baizik ongi beti erakutsis zeruko bidea, barkatus bekatariei, sendatus eriak ta biztus ilak; eta baldin ebetaik zenbait barin baze Jesusen kontra, au da arri zio ia. Bardintsu dirudi kristio bataiatuak, konfesatuak, komekatuak ofenditzea bekatu mortalareki Jaun bera bere odolareki erosi, garbitu ta alimentatutuena. Mi gartas, zeintan paratu baita hostia sandua anitz aldis, erratea itz torpea, maldizioa, injuria, murmurazioa, blasfemia ta alakoak! Petxo gartan, zeintan ostatatu baita gloriako Jauna, admititzea amorio desonestoak, pensamentu, intenzio ta deseo likits okagarriak, inbidiak, odioak ta alakoak! Gorputz gartan, zein izan baita sagraio axuri

birjinale dibinoaren, permititzea ta egitea inmundizia mortalak! Jesus Jauna, orren pazienziaren andia! Bada, zer diot galtzeas erreberenzia tenploan? Zer komekatze indignoas? Estakit noreki konparatu alakoak, ezpada Judaseki. Estu ikusi munduak eskergaitz itsusiagorik Judas baño. Jaunonek egin bere apostolu, iduki bere konpañian ta maiean, eman potestade, honra ta zuen ondasun guzia, ta alaere ark saldu, traiziatu ta entregatu Jaunau, besarka bat emanik señaletako? Pensatzeko gauza da agitu zena gau gartan. Zeudelaik afaltzen amabi apostoluak gure jaun oneki, Jaunonek erran ziote sentimentura andiareki triste: Zuetaik batek traiziatuko nau ni. Birjinaren Semeak joatea du mundu gontaik, eskribiturik dagon bekala, baño ai artas, zeñek traiziatuko baitu! Obeluke ezpalitz jaio alako gizonik. Gelditu zire lotsarriturik apostoluak ikar ikar zekitelaik etziola gezurra zenak egia bera. San Pedrok ikasi naiak nor ote zen, keñu egin zio San Juani galdegiteko bere Majestadeai. Galdeturik erran zio: Nereki bateo bustitzen duena platerean ogia, ura da traiziatuko nauena. Ura izan ze Judas, zeñek eginik judioen alzindari, preso egiteko aingiruen erregea, señaletzeko nor zen, ellegaturik eman zio besarka erraten ziola: Agur Maestru Jauna. Etzio ukatu aurpegia Jaun onak, baizik erran zio: Adiskidea, zertara etorri zara? besarka bateki entregatzen duzu Birjinaren Semea? Daike izan traizio idurituagorik komekatze indignoas?

Nor esta asarratzen Judasen kontra? Baña esta bakarrik, baitu lagunak. Estaude Judas guziak infernuan; etze bein solamente egin traizio gura. Berriro paratzen da maia egunoro, berriro zelebratzen da afari gura, berriro ellegatzen da Judas, berriro erraten du Jesu Kristok, zuetaik batek salduko nau ni. Berriro usten da preso; berriro ematen dio besarka traidorea Judas traidoreak. Berriro erraten dio Kristok: Adiskidea, zertara etorri zara? Besarka goneki traiziatu beazu Birjinaren Semea? Berriro arrapatzeunte judioek, zeren sarzen baitute beren entraña ta biotz zikinetan indignoek ta iresten dute axuri dibinoa otso gaistofikatuek, estutelarik debekatzen bere aingiruek, geldi dagolarik, naiz asarre, bere Aita eternoa, negarres bere Ama Birjina. Agitu da judioek, jentilek ta herejeek oinpetatzea hostia konsagratuak, zatikatzea, botatzea animaleei, loiera ta sura ere, jostea puñaladaka, jaritea odola, ta zerbitzatzea aietas superstizione, sorginderia ta erranestaizken infamietako, ta azken gau kristio deituek ere, lazkutzen baitire biloak solamente pensatzeas. Ezpada au adiña komekatze gaistoa, urbil dabila, ta pensa ezi kristioak izatea egiteuntenak, dela sentiarasteko arimaraño. Filios enutrivi etc. Humeak azi ta honratutut, dio, ta ebek despreziatu naute ni. Nora ia itzuliko da Jaun dibinoa, baldin bere etxeko humeak barin badiere traidore? Bere etxean berean, bere presenzian berean, bere maiean berean iten badiote traizio bat ain traidorea, nola baita iduriarazis munduai debozio, sarrarastea berori beren arima gaistoetan? O nere Jaunaren pazienza! O gizonaren ingratitude itsusia! goarda bez bere sazerdotea maldade gontaik ez ezi, baita ere edozein bekatu mortaletik, txastatuas geros aingiruen ogia egin denaskeros ene arima orren esposa. Ezpada erretzen ta konsumitzen orren amorioan (ojala agi baledi ala, ta ala bear litzake) bentzait ofensa graberik ez sekulan, bekaturik ez beñere. O zein gauza gaistoa den bekatua, aski izan baize edekitzeko bizia Jangoikoai ainberze doloreeki! (Santa Teres. excl. 10). Zein dagon ebetas inguraturik ene Jauna! Nora joain da, non ez dezaten atormentatu? O kristioak, denbora da defendatzeko zeuren Errege, ezi guti dire gelditu zaizkion basallo fielak. Eta gaistoago dena, monstratzen zaizkionak adiskide agerrian, traiziatzen baitute sekretoan, ezpaitezake ia aurki noren baitan fiatu. O adiskide egiaskoa, zein gaizki pagatzen dion berorri traidore itzultzen zaionak! Zer da au, nere Jauna (Ib. 12), guzietako baikara beldurti, solo ez orren ofensetako? Eta orren kontra doazelaik noren

kontra doaz, baizik beren buruen kontra? Zer inen diogute eratu direnei gisaontan? Alakoei beren gaitzak ematen omen diote indar, ala orren kontra joateko erakerian erori direnek, jende eria, orren kontra enpleatzeunte beren furia, iten diotelaik orrek ongi guzia. O nola zen preziso izatea orrek duen amorioa sufritzekos ainberze desatino! Jauna, diote ez dezaketela garaitu pasione txar bat, ez utzi gusto labur bat, ez kendu okasio gaisto bat, ta oriek berek nola duten indar ta ausardia ofenditzeko orren Majestadea, ta kargatzeko beren gain orren ira! O frenetiko espiritualak zeuren borondates, itzuli akordura. Beira orai manso geuren Jaunau, ez malogra dugun eskaida. Ongi dagokigu etortzea ongi jaun oneki. Jauna, ene desea da orren kontentatzea; mereji bez nik amatzea berori sines, bizi beardenaskeros bizi orrendako. Ori aski da sollik. Nere onetsia neretako, ta ni beraindako. Nork luken ditxa izateas orrena, ta ori nerea? Orrek ni nai banau beretako, nik nai dut berori neretako. Ala iduri zaida, ta estela dudarik, nere nai izateas, orren nai izateas bai beldurak dagola bat. Baña o zein berze gisas den gauza! Geureas, geureas bear da izan beldur, ez orrenas, ezi orren aldetik esta faltako sekulan, nere Jauna, nere Aita, nere guzia, onesten bainau ia ezi neuronek nere burua. Orren ordes esta galduko pobre gau; ori dabila ene salbatu naies, ezpanezo nik estorba. Jauna, triunfa bez orren piedadeak, amorioak ta graziak. Ar bez posesio ene biotzas, arimas, gorputzas, potenzies eta sentidoes; goberna bez nola nai duen persona gau guziau, in daien enebaitan osoki orren borondatea, dela onean, dela gaitzean, solamente estakidala agi bekatuaren gaitza; solamente bizi ta il naiela orren amorioan ta grazian beti gozatzeko bere glorian.

Sermo XXIX:

De iudicio ob eucharistiam

Nunc autem excusationem

non habent de peccato suo. Joan. 15.

aumentatzen direlaik donoak, anditzenere dire donoen karguak, dio San Gregoriok talentoen ebanjelioaren gañean, eta nori ia eman dion emen Jangoikoak, ia kontu eskatuko diola an. Dono guzien gañeko donoa da eman diguna aldareko sakramentuan, kargua inen digu ario berera, nola korresponditu ta probetxatu dugun. Estirudi ongi eldu dela aipatzea tristurasko gauzarik sakramentu gonon aurkintzean, non guzia baita erregalo, dulzetasuna, amorio, grazia ta miseriakordia Jaunonen gizonen. Baña Jaun berak instituitu zuen gauartan aipatu zue Judasen desditxa ziola: Zuetatik batek entregatuko nau, baña ai entregatzen nauenas; obe zue ezpaliz jaio. Alaber, San Pablok kontatu ondoan nola utzi zigun Kristok gure arimen alimentutako bere gorputz ta odol preziosoak, dio berla: Jaten ta edaten duenak indignoki, egiten da gure Jaunaren gorputz ta odolaren reo, auda, izanen da kastigatua, oroat nola il balez Kristo bera. Eta berla berriz dio: iresten duela sententzia ta kondenazioa bere kontra. Bere ariora entenda gaizki korresponditzeas ta desestimatzeas Jaunonen presente egotea emen. Lastima utsa da salbazalea bera gure erdian egon ta gu ez salbatzea, salbazioaren iturria etxean iduki ta salbazioa ez segi, baizik kondenazioa; eta Jangoikoaren mertxederik andiena itzultzea gizonaren juizio ta kondenaziotako, baita azken miseria, zeintatik libratzea eskatzen baitu sazerdoteak komekatze-alzinttoan Elizaren ordes: Jauna, orren gorputzaren errezibitzea estakidala agitu niri juizio ta kondenaziotako, baizik erremedio guziaindako. Zerk inen digu probetxu, baldin salbazioaren iturritik atratzen badugu kondenazio? Baña estaitzen deskonsola arima onak, bego adbertiturik, ezi gure Jaunak bere aldetik nai duela salba daitzen guziak, ta onen progu ona da egin ta padezitu duena guziengatik, ta progu guzien korona sakramentu miragarria; beras, bere gogoaren bortxa kondenatzen duela kondenatzen dena; beras, kondenatzen denak ia estuela atxekiarik ta ez nori bota kulpak, baizik bere buruai, zeren kondenatzen baita, kasi noaie erratera bere naitas, ta orgatik bere kondenazio iagotako itzultzen duela gure Jaunaren amorioaren azken demostrazio gau. Ezauntzeko ta goartzeko ongi, orrek, Maria, gure abogada ta esperanza, bere deboto biotzeskorik nior galtzera ustenestuena, in bezagu karidade emateas bere eskua ta grazia. Abe Maria.

Dela posible kondena dadien kristio bat daukana emen ain eskunara, ta errezibi dezakena bere barnera ere noiznai duen Jesu Kristo bera gure Juez dena? Posible da. Agi daikela emen orai dagon axuri gau ain manso, dulce, amoroso itzuli daien leon, brabo, asarre, suturik gure kondenatzeko? agi daike. Kristio bat alimentatzen dena Kristoren gorputz odol preziosoes, arren eskuak, agoa, mia ta persona daizkela ellega izatera infernuko suaren sutillite, zebo ta alimentu? Daizke ellega, baña bere faltas, bere faltas. Jaio zelarik Jaun dibino gau mundura, kantatu zute aingiruek gloria Jangoikoai goitietan ta lurrean bakea borondate oneko gizonen. Bakea da Jangoikoaren amorioa, amistanza, grazia, miseriakordia, salbazioa ta on guzia. Nori? Borondate oneko gizonen. Errepara estiola ondasun, honra ta zirkunstanzia anitzako gizonen, ez memoria oneko, ez entendamentu ta xakintasun anditako gizonen, baizik borondate oneko gizonen, au da, nautenei ongi, Jangoikoak nai duena nik ere bai, Jangoikoak naiestuena nik ere ez. Orai,

bada, Jangoikoak nai du salba zaitezen, orgatik etorri ze zerutik lurrera, orgatik iltze, orgatik dago aldareko sakramentuan. Falta da zuk nai dezazun ongi Jangoikoak nai duena; Jangoikoak erraten dizu, salbatzeko etzazula egin au ta au ta berze gau, egin zazu ura ta berze gura. Baldin zuk ezpauzu nai Jangoikoak manatzen dizuna, naiago bauzu nai duena munduak, demonioak, aragiak, kontu nai estuzula salbatu, zeren ezpaituzu nai salbatzeko medioak. Zer atxekia dezakezu alega? Nekea ta trabajua? Ola, beras, deus nekatu ta trabajatu gabe nai duzu gloriako palma ta korona. Orra zertara eldu den askoen errate gura: nai dut salbatu, nai dut gloriara joan; nola ordea? Bere gisa, in gabe Jangoikoak nai duena. Arrazio ote da egin dezoten Jangoikoak gustoa salbatzeas ta gloriara eramateas, berek estiotelaik in nai Jangoikoai gustoa gauza arrazioskoetan, zeren zerbait neke zaioten? Zerbait neke diot, zerengatik sekula esta ellegatuko milla legoa bideeki Jaunonek eramane zuen trabajura berengatik. Esta bardin guk goardatzea Jaunonen legea geuren arimengatik, nola Jaunau jaiotzea gizon, ilzea ta sakramentuan egotea guregatik. Au in duelaik guregatik bearrezkaituenak, beragatik guk ta geuregatik estugu inen zerbait, naiz kosta? Guzia Kristoren kostus? Guk estugu egin nai deus? Estiot ongi; guk nai dugu guzia egines Kristo gure Jaunaren kontra? Eta gisaontan nola gaizke salbatu, justizia salbo, nai badu ere? O zer juizioa!

Juezaren aldetik zierto ezkaizke egon deskontent, ezi ongi gure fabore da, eta emanbalekigu autara nor nai ginduen gure jueztako, ez gindezake auta berze nior baizik duguna, Jesu Kristo Jangoiko ta gizon, gure anaia gizontasunagatik, gure Aita Jangoikotasunagatik, gure erredentore kosta gaizkion pasioagatik, ta gure esposo sakramentu gonene komunioneagatik. Asko motibo du, justizia salbo in al badezake egiteko grazia posible dena gureki, ta eginen du estakizkion malogra bere anaiak, humeak, esposak, erredimituak, ainberze kostatuak. Eta guk ere dugu eskaida propia noiznai, baña berexki komekatzean errekabatzeko beraganik sentenzia zori onekoa. Urtikigakizkion oñetara paraturik agoa oñeko lliga gartan, ta ertxirik begiak, ta gogotik, ta humil, ta nigarti erran zogun anitz aldis: Jauna, ori da juzgatu bear gaituena, edo berzerik esperatzen dugu? Jauna, bada, deitzen nauelaik kontuen artzera, ez nazala bota galtzera. Ene anaia, berorrek in nai izandu zigun mertxedeagatik, ene erredentorea, ene Aita, ta ene arimaren esposo amante amantea; au da nere pena, ez nagan kondena, otoi, otoi, nor denagatik ez nazala aparta bereganik. Baña ezpagara baliatu nai okasioas, ezpadugu memoriaik ta ajolaik eskatzeas berere, ezpadiogu iten estimaziorik, zer diot? iten baitiogu ofensak ta agrabioak noiznai, ta nonnai ere, ta agian bere sakramentuaren aurkintzean ere, zer dezakegu espera? Zer atxekia dezakegu atra? Baña zer kulpas du Jaun onegiak? Gurea da kulpas guzia.

Negar egin zue Kristok Jerusalem, ez ezauntzeas zuten fortuna izatean bere Majestadea. Lastimatzen ze judioen itsutasun borondateskoas: Ezpanitza neurau etorri ta mintzatu, zio, etzute bekatuak, baña orai estute atxekiarik bere bekatuas, nunc autem excusationem non habent. Ala meatxatzen zioten anitz aldis inen zekiote karguareki: Ai zutas Korozain, ai zutas Betsaida, ai zutas Kafarnaun! Ta ala konparatus Tiro ta Sidoniareki, ninibetarreki ta Sabako erreinareki, ia kargu inen zaiotela dio, zeren galtzen duten ain eskaida ona, nola baitute izateas bereki Jonas ta Salomon baño ia dena. Ikaratzen naiz pensatzeas nola presentatu bide ziren Jesus beraren presenzian izateko juzgatuak Kaifas, eskriba, fariseo ta berdugo ultrajatu zutenak bere Majestadea. Zer erran zukete? Etzutela uste bera zela? Baña estu balio atxekia gorrek, zerengatik preso zeukatelaik beren alzinean, galdeginik Jangoikoaren partetik ia bera zen Kristo Jangoikoaren Semea, errespondatu zue baietz, ta ikusiko zutela bere denboran jarriarik lañuen gañean anitz

potestade ta majestadereki. Ezpazute uste, zerengatik etzute uste? Zerengatik bere borondates itsutu baizire maliziareki. Eta zer errain dute kristioek? Esta aurkituko iruzkiaren pean nazione fortunosoagorik judatarrek eta kristioak baño, nai bazute baliatu beren Jaunaren presenzias. Judatarrek etzutela uste, eta kristioek zer diote? Ona non daukaten preso bekala bere naies Jaun bera prisionero amorioskoa; barin badire kristio ez dezakete alega etzutela uste, zerengatik sinestatu bear dute dagola presente sakramentuan ain errealki nola zeruan. Zer ai dire ezpadiote plazer egiten? Zer, ofenditzen baute? Kristoreki kruzifikatuzusten bi ladron gaiek Kristoren kontra zire lenbizian, baño gero bata ezaundurik eskatu zio humilki: Jauna, oroi bedi nitas doaielaik bere erreinura. Kristok erran zio: Sines, bai sines diot, ezi egun berean egoin zarela nereki paraisoan. O ladron fortunoso, zein fite arrobatzen duzun paraisoa! Baña, ai, deskuidatu bazina gexago! Lonjinosek idiki zio lanzareki bularra Kristoren gorputz ilari; saltatu zekio begietara odol dibinoa, logratuzue gorputzeko bista, ta arimarena ere bai, zerengatik ezaun duzue nor zen Jaun gura ta ala orai dago ikusten zeruan glorioso alan zeatu zuena emen lurrean. O Jesusen piedadea! O gizonaren fortuna! Nork estu izanen konfianza orren baitan, ene Jesus onegia, sendatzen duelaik, salbatzen duelaik, ta bere gloriara eramaten duelaik inpio sartu ziona lanza bularrean il ondoan? Klaro da lanza garrek etziola sentiarazi gorputz dibinoai, ilik baizego ia, (beraren Ama Santisimari bai, an baizego konstante, sentiarazi zio arimaraño pena bortitza, eta mendeku piadoso bateki Ama onak eskatu ziola Jangoikoai argi zezkion gizon garri gorputzaren ta arimaren begiak berari eman zion penagatik, dio Agredako venerableak (Mist. civ. D.) baño, klaro da gizon garrek egin zuela barbaridade inhumanoa heritzean lantzareki gorputz ila, ta Jangoikoai ofensa andia, eta alaere bular noble gartako odolak salbatu zue. Ikusteunzie gure Jesusen ona? kuadratzen zaida exenplu gau. Lonjinos bekala da kristioa traspasatzen diona bekatu mortalaren lanzareki Kristori biotza il ondoan beragatik. Estio oñazerik kausatzen ia, baño injuria bai, ta ira justoa. Alaere ona non duen idikirik bular noble dibinoa, brindatzen bere odolaren medizina ta balsamo miragarria. Balia bedi ongi, para bez arimaren agoa lliga garren agoan gozatzeko biotz dibinoaren deliziak, zeñek erregalatzen baititu bere gorputz odol preziosoaki beraren ofendizaleak, amatus amatenestutenak. Zer in lezake ama balezate?

Beñik bein Jaunonek egin du geiegi ere gure onagatik, geurek ez dezakegu deseatu ia, ezpagara ontzen ala, esta exkusarik, ezpadugu onesten Jangoikoa ia, esta barkaziorik. Zer exkusa, zer barkazio zue Judasek, galdurik konbenienzia zuena Kristoren konpañian? Baldin Ama Birjina ta San Josef logratu zutenak Jaunonen konpañia ta konbersazioa ainberze urtes, izan bazire ingrato, etzire izan, ez por zierto, baño izan balire, zer exkusa lezakete alega? Pensa, bada, gozatzen dugula beraren konpañia, konbersazioa, ta ia dena, komunionea ainberze denboras. Miragarri da nola ezkaren afizionatzen beragana, nola izan gaizken ingratoak. Zierto ezi kargu ertxia inenzaigula, malogratzen bada gure baitan Jaun sakramentatuaren betiko fineza gau, alako eskaida nola baitugu, ainberze komunione, ainberze odol prezioso erreizibitzen duguna. Komunione bat litzake aski egiteko gu sandu, gu nor bagina; zer in da ainberzeetas? Ilze sazerdote bat meza berria erranik, bat sollik lena ta azkena; eta venerable Juan de Abilak erran zue aiots bateki: Ah! Konturik asko emateko eraman du berze mundura. Zer errain dut neure buruas, bat ez ezi, ainberze ta ainberze erran ondoan? Etzio gaizki zionak ikusko dela an zein pizu den kasulla, ta ez ain arin nola uste baita komunki pizatu-faltas. San Juan Krisostomok kontatu ondoan Jaun sakramentatuaren finezak exklamatzen du ala: Hei mihi! Quod ad salutem nobis viae? Ai

nitask! Zenbat bide tugun salbatzeko! Dirudi bear zela alegratu izateas ainberze bide salbatzeko; nola dio, ai nitask? Ongi dio, humil ta beldurti sanduak, zerengatik alegratu bear garenas logratzen bada, ezpada logratzen tristatu bear gara; ezi orgatik añaditzen du: Et horum nil nos à malis avertit, ainberze egin gure Jaunak, ta guziareki gara gaixtoak. Ô tenebras! Ô indolentiam! (H. 61 ad pop.). O iluntasuna! O zenzu gabea! Zer ia in bear zue gure Jaunak inestuenik? Orai esta goartzen, esta ajolarik egiten, Jaunau ere ixil dago. Goartuko gara noizbait, eta gure Jaunak ez dezala permiti agi daien au galduaskeros, kargu itendigulaik gogorkiro gauza gontas.

Jauna, estaiela izan berori nere lotsamenturatako, non sis tu mihi formidini (Jerem. 17). Berori baita ene esperanza aflikzioaren egunean, spes mea tu in die afflictionis. Jauna, norengana joain gara? Dugun konsolu guzia da berori, ta berori itzultzen bazaigu kondenazio iagotako, zer izanen da gutas? Ori izan da beti bere debotoen anparoa ta seguridadea. Bein Santa Klarain konbentura sarzeko zeudelaik soldado barbaroak, ermanarazi ze sanda eri zegon bekala atarira sakramentuareki bateo, ta an egin zio orazio gau: Jauna, ezdezazkiela utzi bestien eskuetan arima konfesatzen dutenak berori. Ta Jaunonek bereala erran zio: Etzaistela lotsa, ezi nik goardatukozaistet beti. Erran bekala, etsaiak batzuk erori zire muralla-bera, itsu gelditu zire berze batzuk, ta iges joan zire zeizken guziak. Jauna, bada, diot nik ere, ezdezazkiela utzi infernuko bestien eskuetan arima konfesatzen dutenak berori. Berori da, zeñen alzinean bein berze bat eroririk auspeska, beterik tristurak, esperanza ta beldurraren ertean baizio: O baneki perseberatuko dutela! Berla errespondatu baizio: Zer inen zinduke ori xakinik? Egizu bada orai orduan in naiko zinduen, ta seguro-aski zaude (Kemp. l.1. c.25). Ori da Jauna, zeñek Santa Teresa bere esposa fielai bere trabaju ta turbazio andien ertean serenatzen baizio instantean biotza, solo errateareki: Ni naiz, etzaitela lotsa. Ori da Jauna trabajuak ta eriotzeak dultzatzentiotena bereei, ta gloria-iduri bat ematen diotena mundu ontan ere egintioten karizia, erregalo ta mertzedeen medios. Biz testigo aipatu dugun sanda nere biotzeko gau, zeñi aldi bates Jaunonek amorosteko ia arima noble gura, emanik bere eskuieko eskua, ta edaturik itzeetaik bat erran zio: Ia emendik alzina ene esposa bekala zelatu bear duzu ene honra; ia zurea naiz ni guzia, ta nerea zara zu guzia. O nere Jesus ona, eta zein ona den onesten dutenendako! Zeren truk ez luke nai batek alako fineza? naiago nuke au ezi munduko erregalo, ondasun ta gauza guziak. Bada, biz arimak ark bekala onesten dutenak Jaunau, eta esta izanen eskasago Jaunonen eskua orai ere, ezi lenekoa da ain piadosoa, ain ona, ain ongigillea. Baña naiago bauzu mundua ezi Jaunau, naiago bauzu lurra, banidadea, inmundizia, ezi Jaunonen amorioa, zer nauzu? Emen miseriak eta an miseriak; emen asi ta an segi. Ezpauzu utzi nai kulpa Jaunonen amorioagatik, zer espera dezakezu baizik pena, Jaunonek nai ez lukena? Baña ezin exkusa, justizia salbo. Zuk orai despreziatzen duzu, estiozu amorioik, ez estimazorik, ez memoriaik ere kasi, zer nauzu presentatzen zarelaik izatera juzgatua? Zaizkelaik onetsis Jaunau, izan emen ongi ta an obeki? Jauna, ez nadiela ni izan ain eskergaitz neure kontra, ez dezaten onetsi nere Juez dena. Eta zer iteko dut munduan, baizik ori onestea? Zertara etorria naiz? Zertako bizi naiz? Estut estimatzen bizitzea, ezpada onesteko nere Jauna. Onetsi nai dut, Jauna, ezpalitz ere infernua, ezpalitz ere gloria.

Sermo XXX:
De devotione in eucharistiam
eiusque praestantia

Inveni quem diligit anima mea,
tenui eum, nec dimittam. Cant. 3.

kontatzen da eskritura sagratuan zebilala esposa amantea bere esposo onetsiaren bila afanaturik guzieren galdes artas, eta noizerebait aurkiturik bere gura, aurkitu dut, zio gozosa, aurkitu dut ene arimak onesten duena, daukat ia preso, ta estut utziko sekulan. Inveni quem diligit anima mea, tenui eum, nec dimittam. Nor da esposa gau, baizik Eliza edo arima kristioa? Ezi esposoa dela Jesu Kristo da klaro. Jaio zelaik mundura, etorririk magoak urrutitik galdegiten zute: Non da jaio dena judioen errege? kidatu zitue izar berri brillante batek Belena, ta gelditu ze etxola pobre baten gañean erraten ziotela bekala: Emen dago guzien errege. Jautsi zire, aurkitu zute, ikusi zute, adoratu zute aur dibinoa. Ditxosoak aiek! billatzen du nere arimak ere, non da ene esposo onetsigarria? Fedearen izar brillanteak kidatzen nau Belena. Belen da, oroat, nola ogiaren etxea; ogi bizi, dibinoaren etxea da tenploa; emen, emen aurkitu dut ene arimak onesten duena, daukat preso amoriosko grillo ta kateeki, ta estut ia utziko sekulan. Itz ebetan erakusten zaigu debozio izan bear dioguna sakramentu miragarriai. Utzirik ia eskergaitza ta orgatik izain den juizio lotsagarria, trata zagun izateas debozio arimen esposo amante goni. Ama dulzissima alako Semea ekarri diguna, ta orai sakramentuan presentatzen zaiguna gure arimen esposotako, nork luken ditxa izateas beraren ta orren agradokoa? Da posible nai gaituten gu bekalako txar batzuk? Eta zierto izaki nai gaitutela oiek, guk nai baitugu oriek. Estugu nai izan bear guk? Bai, ene Ama dulzissima. Bada, mereji dute, arrazio da, ta guk dugu obligazio, kunplitzeko ongi bigu otoi bere grazia. Abe Maria.

Eta bear da itz egin izateko debozio Jaun sakramentatuai? bear da, eta kontent, baldin ala berere arbagindezo debozio bear litzakena. Egoten naiz ni pensatzen, nola aurkitzen direlaik Jesus Jaunabaitan pensa daizken motibo guziak, nola estuten onesten anitz alaere askok; zertan otedagon au. Onesten dire personak eta gauzak motibo guti edo batere estutenak, nola, bada, estute onesten guziz guziek onetsigarria dena guziz? Estakit zer erran, ezpada ez ikustea begi gorputzekoeki. Ain materialak dire asko, ezi gorputzeko begis ikustenestutenak estiote mellarik egiten, nola animaleei. Ala izatekos zer dugu ia animaleek baño? Zertako deitzen gara razionalak ta kristioak, ez baliatzekos arimaren begies, ezkerrekoas, baita entendamentua, ta eskuiekoas baita fedea? Ebetas ezpada baliatu bear, debalde dardukat, zerengatik gure izate guzia dago sinestatzean ikustenestirenak. Esta ikusten Jangoikoa, esta ikusten infernua, esta ikusten gloria, esta ikusten arima, estire ikusten grazia, birtuteak, itz bates esperatzentugun guziak. Baña orgatik esta in bear ajola arimas, Jangoikoas, infernuas, glorias ta gañarakoes? gisa berean esta ikusten gure Jaun sakramentua begi materialeeki; eta ala ikusi arteo barin bazaude onesteko, estut erran nai itzik; baña sendagalla iten bauzu gizon razionala kristio izateas; balio badu arrazioak ta fedeak, diot ez dezakezula utzi izateko debozio Jaun sakramentatuai, zeren mereji baitu gure Jaunak, zeren zorbaitiogu guk, zeren ongi baitagokigu, ta zeren au baita deboziorik obena.

Debozio ona da purgatorioko arimei zaiotena, zerengatik zenbat libratzentuzun

pena gaietaik limosna, penitenzia, meza, orazio, estazio ta gañarako sufragioen medios, berze ainberze abogatu izaintuzu an glorian mintzatuko direnak Jangoikoaren alzinean zure fabore, eta guzien gañetik Jangoikoa bera izain duzu fabore, zerengatik beraren alaba onetsiak dire arima gaiek, eta bere justziaren txuxenagatik kastigatzen baitu ere, kuadratzen zaio izan daitzen igordezotenak limosnas pobre gaiei zereki pagatu justiziai Kristoren merejimentuen birtutes. Orgatik zio San Agustinek (Ad. fr. erem. s. 44) estela oroitzen leiturik il dela gaizki nior ere piedadesko obra goietaik in duenik; arrazioa ematen du, zeren alakoak baitu anitz bitarteko ta fabore an. Debozio ona sanduei ta sandei zaiotena, baitire gure anai-arrebak, gure lekukideak, gure naturaleza berekoak, baña zori onekoak, guzietaik eskojituak oben obenttoak, beregana bildutuenak Jangoikoak bere korte ta paraisora, munduaren lorea, gizagendearen nata, sazerdoteetaik perfektoenak, ezkonduetaik justoenak, birjinetaik ederrenak, estado guzietaik autatuak; berze alde, gu ongi nai gaitutenak, gutas kuido dutenak, edatzentutenak beren palmak guregana gure naiak, gure deitzen, konbidatzen, animatzen, laguntzen; berze-alde, Jangoikoaren adiskide onetsiak aitukotuenak eskatu orduko; berze alde, Jangoikoak ala nai duelaik, ai gaizkete andik onaraño instantean, naiz solamente gogoan otoitz iten badiogute. Esta grazia jenerorik edozeñek logra ez dezakenik, baña nai duenak dezoke batai eskatu grazia bat, berzeai berze bat. Gorputzendako badakizkete zein zertako autatu; bada, gisa berean arimendako dezoket eska batai au, berzeai ura. Nai dut fedea, esperanza, karidadea? An dauzkit apostoluak. Nai dut pazienza, serenidadea ta arimo andia? An dauzkit martirak. Nai dut kastidadea? An dauzkit birjinak. Nai dut bekaturik gabe bizi grazian, birtute ta obra ones adornaturik? An dauzkit sandu guziak. Xakintasunaindako doktoreak, munduaganik desapegatzeko errelijioso izanak, banidadeen aborrezitzeko ain humil izanak, guzietako guziak. Debozio ona bere izeneko sanduai, kuidatuko baitu espezialki izen bera duenas estaien gal ta joan infernura bere izenekoa; estu utziko ark, bera ezpada galdu nai.

Debozio ona angiruai zaiotena, zein izanik gu baño naturaleza goragokoak, ta Jangoikoaren soldadeska ta goardia erreala, baitire, alaber, guregana apasionatuak deabruen kontra, ez gaitzaten gal inbidioso gaiek aingiru izanek; ta galdu direnek, ezpaitute berze onik, baizik mendekatu gure baitan albagaizkete galdu gu ere. Jangoikoak orgatik ikusirik gure indar gutia, señalatu digu bakotxai geure angiru goardiako, eta aingiruek iteunte gogotik ofizio gau. Prudenteak dire, indartsuak dire, gure amanteak dire, sentitzentuste gure gaitzak, alegratzen dire gure ones; goardatzen, kuidatzen, zelatzen gaitute gau ta egun lanze, peligro ta okasio guzietan atzendu gabe beñere gutas. Aien ordes nior ezleike malogra, ta aien gogoaren bortxa galzen da galzen dena. Itz bates: Ia nai gaitute ezi guk geuren buruok. Nork estio izanen debozio bere aingiru goardiakoai? Debozio ona txoil Ama Birjinai, zein baita Jangoikoaren Ama propia, ta gure Ama unibersala, ain maite duena Jangoikoak ezi deus estu nai datorkigun ezpada pasatzen beraren eskuetatik (Bern. s. 3. in vig. nat. D.); ain ederra, ain noblea, ain poderosa, ain piadosa, ain perfekta, ain sanda, ain Jangoikoaren gisakoa, ezi bein ikusi zuelaik San Dionisiok, arriturik erran zue sinestatuko zuela Jangoiko zela Maria, ezpalez desengañatu fedeak estela baizik Jangoiko bat bakarra. Lastima da izan daien gizonkirik, emastekirik, zarrik, gasterik, aurrik debozio estionik Ama Birjinai; bentzait esta sandurik eta sandarik bakotxik ere onestenestuenik Maria Santisima. Ala, nere fielak, purgatorioko arimetan, barin badiozie debozio, aurkitukotuzie adiskide agradezituak, sanduetan enpeñu andiak, aingiru goardiakoan tutore fiela, Ama birjina baitan Ama dulzea, esta Ama bekalakorik,

bego Ama berex, o! Ama beti da Ama.

Baña goraxago iganzaiste; pasatu ondoan guzietaik, dio esposak, aurkitu dut ene arimak onesten duena, paululúm cúm pertransissem eos, inveni quem diligit anima mea. Daukat preso ta estut utziko, tenui eum, nec dimittam. Nor da ori, arima sanda? Au da nere esposo onetsigarria, Jesus Jangoiko ta gizon egiaskoa, Ama Birjina ere baño ia da; esposoagatik utziko du Aita eta Ama, baño emen esta utzi bear, ezi Amareki bateo daike logra esposo dibinoa. Baña nola logratu dagolaik ain gora bere trono argisko gartan? Ea, ez lotsa, arima pobrettoa, zu etzindeizkelaik igan ain gora, bera jautsi da ain bera. Belenen, ogiaren etxean, naut erran tenploan, sakramentu miragarrian daukazu ogiaren akzidenteen pean estalirik Majestadea ta disfrazaturik amoros-gisa. Jesus nere prisionero aldarean omen dago; zer in bear dut? Ni ere nago Jesusen amoros ero. Daukat preso, estut utziko; bera nere eta ni bere, bizi guzian ta gero ere, elkarrenak ia betiko. Debozio gau deitzen da debozio? Esta baizik obligazio. Zer biotz da, edo daike izan estuenik onetsiko alako Jauna? Ezaumentu nainuke eta fede, ezi gerostik eznezake baizik onetsi. Zer onesteunzie gizonen humeak, zer onesteunzie? Banidadeen banidadea, ta guzia banidade, ezpada onestea Jaunau, ta beroni sollik zerbitzatzea (Kemp. c.1. l.1.). Baña onestea biz borondateskoa, estiot niori bortxarik egin nai, estut nai niork onetsi dezan Jaunau, ezpadio asetzen gogoia, edo ezpadu aurkitzen jaun onen baitan kuadratzen zaion guzia eta ia. Zoaza pensatus zer kuadratzen zaizun, zerk kausatzen dizun amorio, ia baden ori jaun onen baitan. Kuadratzen zaizu edertasuna? Ederra da Jesus gizonen hume guzien gañetik, beraren idurias arriturik daude iruzkia ta ilargia, ta aingiruak estaizke aspertu beira. Kuadratzen zaizu nobleza? Noblea da nola Jangoikoa ta nobleza guziaren prinzipioa, ez solamente bere etorkis, baita ere kondizios ta biotzes. Kuadratzen zaizu podorioa ta Majestadea? Errege da ain poderosoia, ezi berain keñu batera errenditurik daude zerua, lurra ta infernuak; bere manura daude serafin ta aingiru guzien errejimentuak, ta beraren aldean pajeak adiña estire lurreko erregeak. Kuadratzen zaizu aberats? Aberats da ainberze ezi da ondasun guzien iturri perennea, eskuieko eskuan arimaren ondasunak, ezkerrekoan dauzki gorputzarenak. Instantean dezake egin pobrea abrats, txipia andia, itsusia galant, tristeia alegre, desdixatua ditzoso. Bizarria kuadratzen zaizu? Bizarroa da pobretuestaikena bekala emanen, ta naiago du eman ia ta ia. Beraren bazara, zureak dire zeruko ta lurreko ondasunak. Kuadratzen zaizu xakintasuna? Bera da xakintasun guzia, ta daki erakusten berei estudiatu ta nekatu gabe instantean, nola kentzea iluntasuna igortzeareki argia. Agian kuadratzen zaizu arresti-humano afable; ainberze da, txipienari eldu zaio bere etxera, bere estomagora. Eta nola, ordeia, tratatzentu bereak? Esta aitarik, esta amarik, esta anaia, esta esposorik tratatzen duenik amolsuago bere alaba edo arreba edo esposa, nola Jesusek arima. Beiratze soil bateki betetzen du erregalos ta kontentus alako maneran, ezi estu senti ia penarik deustas, trabajuak dulce, eriotzea goxo ta deseagarri iten dio. Txasta zazie ta ikusazie zein suabea den gure Jesus amorosoia.

Ontasuna kuadratzen zaizu? Onegia da ainberze, ezi estaike ia desea ta ez pensa. Aurkitu duzu nior zure partes il denik, edo il nai duenik? Bada, Jesus il da errealki zuregatik, Jangoikoa gizonagatik, andia txipiagatik. In bazindu zuk bati ez ainberze, baizik fineza alako-iduri bat, ta ura gero izan ingrato, barka zindezoke? Bein bai agian; baño anitz aldis? Ona gure Jesus onak ofenditzen dugulaik bera ilaskeros guregatik, barkatzen digu alaere konfesazeareki gure kulpia, bein ta berriz eta berriz, beti ta noiz konfesatzen diogun ongi urrikiturik. Ain ona delaik gaistoeki, zer litzake onak bagina? Eta goazen, ori uste duzu sollik? Berze ondasunak nork emanak tuzu baizik Jaunonek? Eri egon bazara, nork

sendatu zaitu, baizik Jaunonek? Osasuna izan bauzu, nori eskerrak, baizik Jaunoni? Ala goazke errepasatus on-jenero guzietan. Bekatu mortale bat in bauzu, nori zor diozu ez egotea infernuan mereji bekala? Ezpauzu egin edo ez anitz, nori eskerrak? in bauzu zerbait ongi, Jaunonen grazias izan da. Bere donoak deitzentzu merejimentu gureak. Jauna, erran zogun San Agustineki: Intudan onkiak ta egin estudan gaizkiak, orren mertxede kontatzentut. Eta zein da Jaunonen jenioa ta ofizioa, baizik beti ongi egitea? Zer bulkaldia ematen didan emen ene biotzak aipatzeko zenbait benefizio berex egintidanak neure bizian, ala gorputzaren, nola arimaren? Baña beude bakantasuneko. Baña guzien alzinean ta guziek erran dezaketena da: Nork egin dida ainberze ongi, nola nere Jesus onak? Bada, niork ez nau onetsi ni nola berak, nior estut onetsi bear nik ere nola bera. Ikustea amorioa gure gana berzea baitan, prinzipalki barin bada persona andia, izaten da grillo urresko bat aprisionatzentuen biotzak. Ikusazie, bada, Jesusek izanik Jangoiko andia digun amorioa guri, ta emanbeites preso biotzak berai.

Baña ginderduka debozio izateas bere sakramentuan, zer kasora eldu dire berze gañarako benefizioak? eldu dire kasora, baña nola atzenzen baitire lengo ongi eginak, ta nola presentekoek ta gerokoen esperanzak mogitzen baikaitu ia, alde gontaik ere estaike aurki debozio obeagorik sakramentuarena baño. Zerk ematen dion Jangoikoai ia honra, ta gure arimai probetxu ia, ura da deboziorik obena, zerengatik bi txanga gaietan, diot Jangoikoaren honratzean ta arimei probetxatzean, itzultzen da iteko guzien makina. Ikusazu, bada, fiela, emen gure Jauna, ez urrikiturik ongi-egines, baizik beti ongi egiten berri berritan. Dagokida presente kontino etxideten nere naiak, eldu zaida nautelaik neuregana esposo amante-gisa; zer in bear dut baizik izan debozio, barin badut juizio ta fede? Baneki onesten nauela ni nere Jaunak, banezake utzi onesteko nik nere Jauna? Bada, emen ikusten dut onesten nauelako progua, esta milagro nik onetsi dezaten. Ontan honratzen da gure Jauna bere personan, logratzen da arimaindako grazia ta gloria, tontoa ezpanaiz, estut utziko onetsi gabe. Biz debozio ordu onean arimei, sanduei, aingiruei, Ama Birjinai; baña guzien gañetik Jaun sakramentatuari. O, esta alako deboziorik munduan. Jangoikoak agitz estimatzen du honra daien bere Majestadea dagolaik ain humil sakramentuan; berze alde, au da medio galanta kentzeko bekatuak, azitzeko birtuteak, logratzeko salbazioa. Bada, zer ai gara? Ezkaitzela deskuida. Sentenzia eman bear diguna bera daukagu emen, ta daukagu ain humil, amoroso. Urtiki gaitzen maiz, ta goza gaitzen beraren oñetan, nola Maria Magdalena. Onak zue aizpa bat deizen zena Marta; zori onekoak biak, zerengatik merejitu zute errezibitzea beren etxean zeruetako Jauna. Maria bereala akostunbratu bekala jarri ze gure Jaunaren oñetan aitzen beraren itza, urtzen beraren amorioan. Marta aize dilijent afanaturik prebenitzen bazkaria Jaunarendako. Kejatu zekio Marta bere aizpagatik: Jauna, ikusten du nola nere aizpak utzi nauen bakarrik lanean, erran bezo lagun dezadala. Marta, Marta, erran zio Jaunonek, afanatzen zara anitz gauzetan, bat sollik da nezesario. Mariak autatu du obena, ezpai zaio kenduko. Ongi iten zue Martak ere, ezi bear da lan egin ta enpleatu nor bere itekoetan Jangoikoaren zerbitzutan; baña ez atzendu obenas, au da, paratzeas Jaunonen oñetan, amatzeas, erregalatzeas ta plazer emateas, den bekala gauza bakar gura bear duguna. Aurkitu dut ene arimak onesten duena, daukat preso ta estut utziko. Quid mihi est in coelo, et â te quid volui super terram? Zer dago neretako zeruan, ta zer nai dut lurrean, ezpada berori, ene Jaun dibinoa, ene esposo amantea? Orrek onesten ni, ta nik ez berori? onesten dut guzien gañetik, ta au ezpalitz egia, segun den gure biotzaren txarra, au bentzait egia da, nainukela onetsi. Estiot ontan faboreik egiten, neretako da mertxede orren onestea. Eta orai, emen

eldu zaida gogora lenbizian erran dudana, nola direlaik orren baitan onesteko motibo guziak, alaere askok estuten onesten? Nola ain guti diren onesten dutenak osokiro! Ain atzendurik bearren bearrenas beren kaltetan. Ala pasa bizia, ala joan mundu gontaik goartu gabe! Eta arima on izan zeizkenak! O lastima! Jauna, ez nadiela ni izan tonto gaietaik, baizik ere, naiz ezpanitz salbatu bear, (badut esperanza orren baitan, nola baita ain onegia) baña agi ezpaledi ere, bentzait onetsi, bai orren Majestadea, emen al guzia, zerengatik orrek mereji baitu, ta nik obligazio baitut. Zertako biotza? Zertako arima? Zertako bizitza, ez onestekos gure Jaun sakramentatua? Gure esposo dulzea, gure erregalo, gure tesoro ta guzia? Ene biotza, onetsi zagun gure Jesus ona. Ene arima, ene entrañak, ene zain ta fakultade guziak, onetsi zagun gure adiskiderik obena. Omnia ossa mea dicent, Domine, quis similis tibi? Jauna, ene ezur guziek diote, nor ori bekalakorik? Bidoeie mundua munduaren atzetik, segi bez xoroak xoroa lurreko banidade, alegranzia ta kontentu falsuetaik. Guk Maria Santisimareki, sandu ta sandaeki, gizagendearen porzione eskojituareki onetsi zagun gure Jaunau, emogun plazer ta erregala gaitzen beroneki bizi guzian ellegatuartaño ikustera ta goatzera glorian. Amen.

Sermo XXXI:

De devotionis in eucharistiam,
probatione et praxi

Dilectus meus mihi, et ego illi. Cantic. 2.

Konparaturik arima kristioa esposareki, ta esposoareki Kristo sakramentatua San Pablok dionaren gisara: Despondi vos uni viro virginem castam exhibere Christo, desposatuzaistet Kristoreki zuek presentatzeko berai zuen arima, nola birjin kasta garbi bat. Aipatu gindue arimak bear dion amorioa ta debozioa bere esposo bakar amanteari bekala, inveni quem diligit anima mea, aurkitu dut onesten duena nere arimak, tenui eum, nec dimittam, daukat ia firmekiro, ta estut utziko. Orai ia debozioaren progua ta praktika. Dilectus meus mihi, et ego illi; nere onetsia neretako ta ni beraindako, dio arima esposak amorosturik bere esposo dibinoas. Baña estu eroain tratua egiten, estu galdu trukadan; Jesus Jangoiko dena zuretake, eta zu deus guti zarena Jesusendako? Esta bardin batain ta berzeain irabazia. Alaere alzinatuago dago Jesus komunikatzeko arimai bera dena ta duena, ezi ez arima entregatzeko Jesusi bere deus gutia. Ain ona ta liberala da esposo dibino gau! errendi zaite bada ene arima ainberzeko amorioai ta ontasunai, entrega zaite berai zaren guzia erreserbatu gabe pixkarik ere, erran zazu egiareki sines ta gogotik: Dilectus meus mihi, et ego illi; nere onetsia neretako, eta ni beraindako. Orrek, Jauna, onesten banau ni, nik onesten dut berori; berori nai dut sollik, ta aski dut. Baña ezin fia itz solles; goazen ikusis zenbait progu eman beartuenak bere debozioaren, ta zertan monstratu bear duen arimak, segitus desposatuen konparazioa. Baña gure esposo dibinoaren amak, xakin zuenak estimatzen ta tratatzen mereji bekala Jesus dibinoa, erakutsi bear digu guri ere mostratzen debozioa Jaunoni. O grazias betea, alako semeari zegokion ama digna, bigu, otoi, guri ere bear dugun grazia. Abe Maria.

Nere onetsia neretako, ta ni beraindako, dio Jesus sakramentatuaren deboto den arimak. Erratea baizik ezpada, esta progu aski. Errezu pixka batzuetan fundatzeunte batzuek debozio guzia, baña engañua da. Jauna, Jauna erraten didaten guziak estire sartuko zeruetako erreinuan, dio Jesu Kristo berak (Math.7). Eta eskriba ta fariseoei erran ziot: O hipokritak, ongi erran zue Isaiasek zuengatik, pueblo gonek honratzen nau ezpañes, eta biotza urrun daukate enegandik (Ib.15). Eta berriz: Ai zuetas, eskriba ta fariseo hipokritak, amarren itenduzienak mendas, anisas eta komioas, eta ustentuzienak inportazioskoagokoak; ebek egin bear da, ta aiek ez utzi. Kidariitsuak, eltxo batengatik maunka usatzen, ta bitarteo kamelloak irestentuzienak. Zer da au? Da erratea iten dela anitz-kaso gauza exteriore aises ta txipies, ta ajolarik ez larries, nekosoagoes. Beterik dago mundua alako hipokrita engañatues ta engañazalees; laur errezu ta exterioridade egin kunplimentus, laur debozio-iduri pasatu axal axala, ta bitarteo erreinante subergia, kodizia, luxuria, ira edo berze bizioren bat, in gabe garaitzeko dilijenziak, estutela nai mortifikatu deustan, ez utzi lagun gaistoak, ez goardatu sentidoak, ez kendu okasio ta peligroetaik. Sinpleak deitzen zuten goardatzen direnak, ta sinpleza goartze gura. Baña errealki sinpleak diren direnak debozio-iduri exterioreetan goartu gabe bekatuetatik ta bekatu-bideetatik. Sinpleza dena da ajolaik ez Jangoikoaren ofensatara tiratzeunten pasionees, okasioes, gauzes, ta gero soña erru ezkilak, itxeiki ainberze kandela, eraman eskapularioa, errezatu bizpiru kanta edo orazio memorias, ta alako materialidadees, kontriziorik ta

propositorik gabe emendatzeko. Itz bates, Jangoikoagana mia ta azal gañekoa; kontra biotza ta substantzia. Alako debozioes pagatzen baliz Jangoikoa, trebe naiz erratera simple litzakela; ala nola errege pagaleikena sonbreluak edo txapelak edekirik kortesia egiteas traidore traiziatzendagokiotela dakienak.

Bada, Jauna, gaixto dire errezuak ta deboziosko gauzak? Ez por zierto, baizik ezpada bateo prokuratzen ontzea arima, ta Jangoikoai plazer egitea, diot estaikela fia, ala nola erregei eginagatik kortesia, emanagatik egun onak, ta anitz agur ageri denean, ezpazaio kunplitzen manatzen duena, ezpaita kontentatuko; ala nola induzituagatik, pintatu ta estaliagatik etxea, zimenduak falsuan badoaz, pareteak utsgunean, guzia urratzera etorko baita, ala. Beras, Jauna, esta konbeni erreztatzea, debozioak egitea, bekatuan badago arima? Konbeni da, ta in bear dire intenzioreki atratzeko estado gortaik, ta logratzeko Jaungoikoaren eskua ortako; baña prokuratzen ezpada au, ark estu balio, edo deus guti. Ikusi bear dugu deboziorik obenean, sakramentu sanduaren debozioan. Goazen klaro; debozioa, nere fielak, berze birtuteak bekala, dago biotzain edo arimain barnean, naiz monstatzea iten bada gauza exterioreetan. Daike izan ura guti mostraturik estelaik preziso monstatzea, eta daike ere mostratu agerrian dena barnean, ta konbeni da au askotan exenplu ona emateko bere menekoei, ta proximo guziei, baita ere zerbitzatzeko Jangoikoai arima ta gorputzareki estalian ta agerrian. Baña beti ta noiz esten biotzaren ta arimaren barnean, desengaña, monstatzea errezu ta alako gauzetan da debozio-iduri, ta ez ia. Debozioa bere esenzian da biotzaren edo borondatearen prontitudea edo fruntasuna gure Jaunaren agradoko gauzetara. Senti duenak, bada, bere baitan deseo, ansia, afizione ta anhelu kontentatzeko Jaunoni, ark dio debozio. Señale onak egotea in naiak zer edo zer Jaunonen obsekioan, guzia guti iduri zaiola, alegratzea izan daien honratua, tristatzea ofenses, egon naia Jaunonen presenzian, gusto artzea komekatzeas, oroitzea kanpoan ere jaun ontas, igortzea biotzetik afekto onak eta alakoak. Exenplutako, agitzen zaiona afekto duenai berze noribaiti, baitago nondik gusto egin, ikusi naiak, mintzatu naiak, zerbitzatu naiak, laudatzen ausenzian ere, oroitzen maiz, ta ala.

Emendik ageri da debozioaren benenoa dela bekatu mortala, ezi nola daike konpon onestea gure Jauna, ta ofenditzea grabeki? Nola dezaket egin gaixtakeria gau ta ofenditu nere nagusia? zio Josef Ejiptoko garrek. Eta oroat emen, zer balio dute gañarako debozio-iduriek, iten badiozu traizio bat ain traidorea, nola baita bekatu mortala? (Berexki sakramentu gonon kontra da admititzea kulpas desonestorik. Egiten da komekatzean bat tenplo ta sagrario Kristoren; dirudi ongi zikin daien desonestidades? Omnis immunditia nec nominetur in vobis, dio San Pablok (Efes.5), inmundiziarik estaiela aipatu ere zuen baitan. Eskojituen ogia deitzen da sakramentu gau, ta aingiruen ogia, ta Birjinak azizentuen ardoa; eta errealki emen dagona da Birjinaren Semea ta Birjin bera, Birjinen esposo garbia, axuri inozentea erregalatzen ta gozatzen dena azuzenen ertean. Garbi eder naitu korporalak, sagrarioa, kustodia ta baso sagratu guziak, ta bere ministroak ere naitu kastidadearen boto solemneareki konsagratuak; bada, bere ariora garbi eder bere deboto guziak. Estuzu aitu dela komunionea ala nola arimaren desposorio espirituale bat Jesus sakramentatuareki? Jesus esposo, arima esposa dei daizkela? Bada, ala nola esposak galtzea fidelidade ofrezitua esposoi, izatea traidora infiel infamea bailitzake gauzarik sentigarriena esposoaindakoa, ala emen. Nere onetsia neretako, ta ni beraindako, erran zue arima debotak; bada, estagokio ongi inmundizia ain guzis aborrezitzen duena Jesus onak. Zein gaizki iduri duen Jesusen esposa izan den arima erorzea infernuan? Bada, gaizkiago dirudi erorzea inmundizian. Ezeta ere admititzea afektorik, berze niorengana etzaiko

permititzen arima fielai, zeren baita Jesusen agrabio nior onestea beraren konparazioan, ta beraren agrabiotan. Biotz gartan, zeintan ostatatzen ta bizitzen baita Jesus bera, estaike admiti afekto bearrestenik; eta agitzen balitz deskuidorik ontan, garbitu bear da negarres ostatua kuadratzekos esposo dibinoai, ezi Jangoikoaren arka ta Dagon estaudezke batean).

Paraturik debozioaren zimendua ez ofenditzea grabeki bentzait gure Jauna, baizik plazer ematea al guzian, mostratzen da debozio gau berze anitz maneras. Estiot deus meza enzuteas, zeren baitago erranik; estare komekatzeas maiz ta ongi, zeren erranen baitugu gero. Diot in dezokegun obsekioas ala elizan nola elizatik kanpoan. Zer kosta da aitzen delaik sagrao ezkila goratzea biotza, adoratzea gogotik gure Jauna? Zer kosta da naiz dela gauas, naiz dela egunas noizean noiz egitea memoria Jesus onas? Ta igortzea biotzetik (ala nola mundukoek elkarri goraintziek) afektoak Jaunoni, ia amorioskoak, ia petizioskoak, ia humiltasun, ia konfianza, ia esker, ia deseos, propositos ta alakoak. Zerengatik ortako solo bear da debozio Jaunoni; solo bear da nai izan; esta bear mandataririk, esta letrarik ere, esta itzik ere. Biotza ikusten du, aitzentu biotzaren oiua baitire afektoak, mogitu gabe mia; ta ori nonnai in daike, ta niork sentitu gabe, naiz sukaldean ta elzeen ertean an dabila Jangoikoa, dio Santa Teresak (L.fundac.c.5), naiz lanen ertean, zerengatik eskuek iteuntan bitarteo bere lana, oñak dabilizan bitarteo nora bear den, biotza daike okupa gure Jaunabaitan; nork estorbatzen du, nai badu? Estuzie aitu edo progatu noizbait nola demonioak edozein leku ta itekoetan, naiz elizan ere, ta meza enzutean ere, paratzentietela buruan pensamentu gaietaik, zeintara duten pasione? Bada, gaitzerako dezakena deabruak, ez dezake onerako gure Jaunak? Diot gogoratzea beraren finezak, itxekitzea afektoa beragana, ta atratzea afektoaren ansiak nonnai ta noiznai? O balitz afekto bear bekalakoa!

Berze obsekio indezozkegunetaik da bat akonpañatzea noranai doaien gure Jauna edo prozesioan edo komekadurain, honratu naies bere aldetik afektoaren fiñareki, pensatus doaiela gure errege amablea an, ta inguraturik daukatela erdian aingiruek andik eta emendik ajent, akonpañatzeuntela alaber lurrekoek ere, eta nik ere bai guzien rehus bekala, kontent alaere aurkitzen badut grazia beraren begietan, beiratu nai badida amolsuki urrikiturik bere pobretto gontas atzetik darraionas, ala nola errege bolsa eskuan daramanari emateko darraizkion beartsuak. Kristioa, sentitzen bauzu atratzen elizatik gure Jauna, etzaitela deskuida, esta galtzeko lanzea. Dabid erregek akonpañatzen zue arka gura, baize sakramentu gonon figura, alzinean saltoka alegranzias, izanik errege andi bat, baña deus guti Jaunonen aldean. Goatemalan atratzen zelaik Jaunau prozesioan, benerablee Pedro de San Josef gizon sandu garrek, paraturik bere kapa pertika batean joaten ze len lenean tieso fantasia sandu bateki absorto, ain beterik bozkariundes, ia goratus, ia lurreratus bere bandera, ta egines alako demostrazioak, ezi guziei ematen ziotere amoriosko suaren debozio ta admirazio (Parr.p.1.pl.7). Korpus Kristiren ortzeguneko prozesioan akonpañaturik Jaunau Ferdinando II enperadoreak tortxa andi bateki eskuan, erresultatik atra zekio anditsu bat beso gartan. Kuratu bitartean ellegaturik igandeko prozesioa, erraten ziotere: Eskusaturik dago orren Majestadea joatetik akonpañatzera, daukalarik ain gaizki besogoi. Berze besoa daukat sano, errespondatu zue, in bear diot agasajo gau nere Jaunai. Ala egin zue (Ib.). Berze majestade batek akonpanatzean (sic) oroat errezen zuelaik iruzkiaren beroak, erraten ziotenei paratzeko goardasola, errespondatu ziotere: Zauste geldi, ezi egungo iruzkiak estaki egiten gaitzik. Ze zerengatik baize andiagokoa debozioaren sua erretzen ziona biotza.

Debozioaren berze mostra bat da asistitzea puntual, ansioso, erreberente sakramentuaren funzoneetara, fedea bizturik, ala nola ikus baledi aldioro idikitzen par en

par zerua, ta presentatzen atari pokalean zeruetako Jauna gure amorios in naiak grazia ta grazia. O Adanen hume erdiitsuak, osoki ezpada ere, zein guti naituzien zeuren buruok, ain ajola guti iteunzielaik eskaida tuzienes honratzeko guzien Jauna! Zeuren kaltetan da ajolagabegoi. Estuzie ezaunzen dagona zuen erdian, ezperen ezin deizkete deskuida honratzean, asistitzean, zerbitzatzean Jaun andia. Esta usten ikustera gorputzaren begis, baizik arimarenes; erxtentuelaik aiek eriotzak, ikusko du arimak nor zen kasorik in etzion gura; eta zer diot alketzen direnes asistitzera elizako funzoneetara beldurrak dei dezkiten hipokrita fatuoak kristio falsuek? Ziertoki deus ere onik esta egin bear ikusi ta lauda gaitzatengatik, ezi ori fatuedade banoa da; baña, alaber, deus ere onik estugu utzi bear murmuratuagatik fariseoek, ezi litzake fatuedadea ori ere, ta birtute-falta. Zer? Ain soldado delikatuak zarate, alketzen baizarate Jangoikoai goardia egiteas ta asistitzeas? Gauza gaixtoes alketu bear da, ez ones. Nor ere alketzen den nitas ta nere itzas, dio Kristo berak, artas alketuko da Birjinaren Semea etorzen delaik bere Majestadean (Luc.9). Ain lotsakor zarate, ezi ezpaituzie arimorik padezitzeko zeuren erregegatik irri bat, despreziotto bat, itz bat berere? O zer nirabeak azitzentuen bere etxean gure Jaunak! Zuen beira badago konbertitzeko gaixtoak! Zerbait inenzindukete bearbazinate oponitu bekatarien troparen kontra, usten duzielaik zuzenbidea zeurek ain aisa, beldurrak galdu zerbait estimazio! Baña esta galzen errealdadean, zerengatik bear baute beren etxeko edo gizon edo andre, ikusten duguna da juiziodunek billatzeuntela kristio debotoa, zeintas irri iteunten banoek, ta banoa berriz ta irrigillea usteuntela bere antustearaki. Eta zer diot alakoes elizarako afizionea, debozioa ta asistencia deitzeuntenes sinpleza, ta sinpleak iteuntenak? Diot estela sinpleza honratzea bere aldetik Jaun andia; estirela sinpleak ala iteuntenak. Ezperen, sinpleak zire sandu eta sanda guziak, sinpleak dire aingiruak orai berean honratzen daudenak Jaunau; eta zuek sollik xakintsuak juizios beteak. Begira estakizien agitu diona Espiritu Sanduak errain dutela gero justoen persegizaleek. Zer errain dute? Hi sunt quos habuimus aliquando in derisum etc. (Sap.5). Ebek dire, zeintas irri egiten ginduen. Guk zenzugabeek uste gindue eben bizia sinpleza ta honrarik gabe fina, eta orra nola diren kontatuak Jangoikoaren humeen artean, ta sandueki da aien sortea. Ergo erravimus â viâ veritatis; beras guk utsin dugu egiaren bidea. Jangoikoak goarda gaitzala desengaño berantegi gontaik; bada, desengaña orai, ezi banidadeen banidadea, ta guzia da banidadea ezpada amatzea gure Jauna, ta berari sollik zerbitzatzea.

Debozioa, zertan daiken iagotan monstra ta enplea, da bisitatzean maiz sakramentua ta egotean ongi denbora prezioso gaitetan. Nik, Jauna, estakit zer erran, edo zer egin, nagolaik sakramentuaren alzinean. Errazu estuzula nai xakin; errazu estakizula onesten gure Jauna, ezi onesten duenak ongi xakinen du zer erran ta egin. Ikusteuntelaik denborain buruan persona bat agitz onetsia, badakite zer erran ta egin; eta jaun oneki ez, estelaik bear itzik, baizik afekto ona sollik. Erran, bada, ori beroi gogotik: Jauna, nik estakit zer erran edo egin orren presenzian. Gaizki egiten badakit, ongirik ez; urrikari bedi nitas; eta segi ontan. Jauna, errain dida berze batek: Ni egoten naiz zezpalo bat bezain seko elizan, ta nion eznaute ia inkietatzen pensamentu bearrestirenek. Ez lotsa, baizik anima zeure buruai ala nola arraundus edo errematus urain kontra, sinestaturik ia kosta delaik balio duela ia ta kostatu gabe estaikela zerbitza Jangoikoai. Gorputz gaixtoa da arimain kontrarioik andiena, ta aldartes estu in nai gauza onik; asto gaistoain gisa lanetik iges, bide txuxenetik aparta tiratzeko bokado bat edo berze debekatutik. Laguntzen dio deabruak, espezialki tenploan, malogratzeko eskaida; baña zuk klama gure Jaunai, inzita zeure buruoi, erran gorputzai: Ots asto gaistoa, obedi zak Jangoikoai gauden emen honratzen

bere Majestadea. Okasio goietan da orazio ona Dabiden gura: Jauna, asto bat bekala naiz orren presenzian; deus ez dezaket onik, alaere orreki nai dut.

Jauna, errain dida berze batek, nik estakit zer erran, ezpada errezatus. Esta gaixto errezatzea kredoa edo Aita gurea, edo berze orazio dagozkionak ongi sakramentuai. Baña nola gauza komun usatuek ezpaitute mogitzen ainberze, enkargatzen dut estaiela erreza anitz, baizik guti ta ongi, ezi estago irabazia xoku gontan anitz pasatzean, nola tantoak balire, baizik biotza debozioan itxekitzean. Orgatik asko aldis erran dugun bekala, obe da Aita gure bat detenitus itz bakotxean, xegatus ta gozatus, ezi ez asko pasatus karreraka, ta azkeneko ain otz ta seko biotza. Erakutsirik dago nola errezatu Aita gurea batek bere bakantasunean: Aita gurea, sines Aita ezin ohea, ainberze on in diguna; Aita onegia, baña gu hume ez onak; alketurik nago ain hume gaistoa Aita ain onaren presenzian; barka bezada etc. santifika bedi zure izena, guziek honra, lauda, zerbitza ta maita bezate; ojala niork ezpalez ofendi etc. Eta ario gontara segitus; deizke ere noiznai errezatu fede, esperanza, karidade ta kontriziosko aktak dakizkien bekala bakotxak.

Baña modurik obrena da meditatus bakotxak, ta itxekis debozioaren sua bere baitan, ta prorunpitus afektoetan, ala nola brasero batean inzensua erretzen delarik baitoiaie kea ta atxona iganes gora, ala pensatus edo Kristoren pasioan, nai bauzu, edo Kristoren benefizio gontan konsideratus ia Aita bekala, ia errege gisa, ia esposo aintzu, itxeki daike biotza ta desaogatu afektoetan. Lenbiziko iteuntena nik beti da kontriziosko Aita eskatus barkazio; gero itz gebek: Jauna, aurki bez, otoi, bere sierbo gonek grazia orren begietan, ta mintzatuko diot nere Jaunari, naizelaik autsa ta errautsa. Meditazioa gero, gero afektoak konforme diktatzentuen biotzak; ta zeintan ia debozio senti den, artan deteni ia. Eta esta bear itz estudiaturik, baizik nolana, nola den gogotik, bein ala bein ola. Fedea nauzu? Ara afekto bat; Jauna, sinestatzen dut emen dagola presente; ojala ain errealki egotera zeruan ni ellega banindedi. Esperanza? Onat Jauna, ori sollik da nere esperanza, ori sollik aski da, ta orrek ezpadu ematen, deus esta. Karidadea? Maite dut Jauna biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki. Kontrizioa: estut berze penarik baizik ori ofendituas, jaun bat ain amablea. Propositoa: lenago edozein gaitz ezi ez ofenditu berriz. Beldurtasuna: ez nazala kondena, otoi; justizia iten badu, galdua naiz, ez estut eskatzen justizia, baizik grazia. Humiltasuna: ez naiz digno egoteko ere orren presenzian, ez dezaket deus onik. Eskerrak: Jauna, esker milla, milla intidan faborees, ontas prinzipalki. Petizioa baita eskatzea, nork estaki? Ikusirik zer bear duen, Jauna, au ta au bear dut, in bezada mertzede, otoi. Deseoak, pobreen moneda, bear dire izan andiak, nainuke plazer egin nola sanduek, nola aingiruek, nola Ama Birjinak. Apuntatutut afekto gebek memoriaingatik ez iteko guziak, ta ala ain labur, baizik detenitzeko bakotxa artan, zein diktatzen dion biotzak. Karidadea edo amorioa da propiena konsideraturik nola bere esposoa Jesus arima garbiak diola, nere onetsia neretako, ta ni beraindako. Ori sollik nai du ene arimak, zerengatik ori sollik da sandua, ori sollik gorena, ori sollik maitagarria, ta orrenganik da nion barin bada onik. Berorrendako eginginduza gu, Jauna ta inkieta dago gure biotza, sosegatu arteo orren baitan. Alfer dabilza arat onat onesten au ta dena, esta sosegatzen biotza, baizik orren baitan. Dezake alaber batek animatu bere burua, pensatus ezi agian Jaunonek badidala niri amorio, nai nauela ongi bearbada, eta señaile gebek baietz diote. Ala barin bada, zer ia nai du ene arimak? Nere Jauna nik onetsi, ta nere Jaunak onetsi ni, nere onetsia neretako ta ni beraindako, estut bear ia. O ala izan daiela, ene Jauna, emen orren grazian, eta an glorian.

Santa Teresa Jesusen esposa ta Elizako doktoraren kopla batzuk, zein eraturik

bekala amorio zionas Jangoikoak berai, ta berak Jangoikoai, konpondu baizitue ansiaturik
il naiak ta joan naiak emendik bere esposoagana; itzulitut euskarara nolapait ez ongi,
mostratu naiak arima garren debozioa (In.v.lib.fund.fin).

bizi naiz ta ez enebaitan,
Ta alako biziain beira nago
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Jangoikoaren amorea,
zein gabe eznaiken bizi,
Da paratzen duena preso
Jangoikoa ta libre ni;
Alako ansiak tut ikustetas
Nere preso nola dagon,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

O zein luze den bizi gau,
Desterru gau zein tristeia!
Non baitago bereaganik
Ausente arima pobrea;
Zer pena ala egotea,
Ta egon bearra oraño ia?
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Zer bizi da, non Jangoikoa
Estaiken guzis gozatu?
Gozatzeagatik nainuke
Len baño len akabatu.
Eriotza non zara? Zato
Gero baño berla obeago
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Ausente Jangoikoaganik
Bizitzea zer bizi da?
Il bear badut ikustekos
Iltzea nere bizia da;
Il nai dut bizitzeagatik
Ta ain nai dut ezin geiago,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Ilbeautelako esperanzak
Konsolatzen nau zerbait,
Esperanza goneki ala
Ats artzen dut nolapait;
Esperanza kunpli bedi
Ez espera berantago

Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Jangoikoak onesten ni,
Nik Jangoikoa onesten dut,
Elkar nai ta gozatzekos
Berze mediorik estut,
Baizik iltzea; betor iltzea
Betor, noiz artaño dago?
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Amorioa eriotza bekala
Fuerte senti dut, Jesus,
Erretzen, penatzen ala
Bainago amoriosko sus,
Zein dulce eriotza litzaken!
Zato eriotza lasterrago,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

bizi bat eman daikena
Nere Jauna, zuregatik,
Arren galtzea da iragaztea
Jangoikoa zu biziagatik.
Zer trukada! Bizia baño
Jangoikoa dut ain naiago,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Esta bizia zureganik
Bizitzea ausente, da pena,
iltze bat da luze neke
pensa daiken andiena;
Lastima dut nere penas,
Ez berandu Jauna ia,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Sakramentuan preso ikusteak
Jesus konsolatzen nau,
Baña ain ona ta ain amablea
Nere esposoa, da au berau
Ezin gozatzea ta ikustea
Nola nauten, penosoago
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Ai Jesus, ta gal dezaket
Ori oraño bizi banaiz,
Ez, ez permiti, otoi, Jauna,
Pensatzeas ikaratzen naiz;

Ori gabe ez naike bizi,
Orrengana noiz joain naiz?
Berant aski da, ta ez utzi
ez nazala berantago,
Ezi ez iltzeas iltzen nago.

Serm. XXXII:

De reverentiâ in templo

Pavete ad sanctuarium meum, ego Dominus. Levit.26.

Aipaturik debozio bear dioguna sakramentu sanduai, orai erreberenzia zor zaiona beraren tenploai, bera presente dagon lekuai. Jangoiko andiak, eman dionak gizonai lurra ta emengo gauzak, nai izan zue erreserbatu beretako leku guzietatik tenploak ala nola egun guzietatik jaiegunak, ez zerengatik estiogun zor atenzio, amorio ta zerbitzu denbora ta leku guzietan, baizik zerengatik egun batzues berexki, ta leku sanduan prinzipalki nai baitu izan honratua gureganik. Zeruetaik autatu du gorena, enpireoa, ala nola bere kortea, palazio ta trono erreala, non egin dezan ostentazio ta sendagalla bere Majestade ta grandezas, ta non serafinek, kerubinek, aingiruek ta gizonen emengo aldia zori onean akabatu dutenek ikus dezaten glorioso ta kanta dezoten gloria eternidade guzian. Bitartaño desterru gontan etze arrazio falta zeien leku berex propioa, non biajante peregrino garenek egin dezogun honra, kortesia ta agur emengo gisa dezakegues. Orgatik Dabidi prestatzi zio bear zena egiteko tenploa Jangoikoai arren seme Salomonek egin ziona gero, nola bear zen erakutsirik Jangoikoak berak. Au da Jerusalengo tenplo famatu gura. Estu mereji errespeto gutiago, baizik geiago edozein tenplo kristioenak. Artan egia da egiten zue Jangoikoak ostentazio bere presenzias aditzeko gizonen otoitzak; baña gure tenploetan errealki presente dago bere personan, Jesu Kristo bera, Jangoiko ta gizon dena, por konsigiente Trintate Sandu guzia. Artan ofratzen zekizkio animaleak idiak, ariak, axuriak sakrifizioetan; emen ofratzen zaio axuri bizi dibinoa zeruak baña ia balio duena. Artan ze ortako aldarea, sua beti itxekirik sazerdoteen kuidados, onzi andi bat ures beterik deitzen zena itsasoa bronzeskoa, katedrak, kandeleroak, maiak, proposizioneko ogiak, inzensua ta sakrifizioendako bear ziren instrumentuak. Barren barrenean zego deizen zena santa sanctorum; auda lekuri sanduena estalirik belo andi bateki, an zego testamentuaren arka, ta onen barnean bi ol gaiek, zeñetan Jangoikoak eskribiturik bere amar manamentuak eman baizizkio Moisesi, baitaere manna urresko onzi batean, baitaere Moisesen bara prodijioso gura, ta legearen librua. Arka garren gañean propiziatorioa bi kerubinek beren egaleki estaltzen zutena Jangoikoaren tronoa bekala, nondik Jangoikoak igortzen baizitue bere errespuestak eta miseriak (Barrad.in ev.t.2.1.3.c.13). Itzalak baizik etzire aiek, ta figurak ta memoriak gure tenploetan dugunarenak. Sar gaitzen, baña ez komunki bekala goartu gabe, sar gaitzen ikustera dena emen. Ortako saluta zagun lenik Maria Jangoikoaren tenplo bizia, Trintate Jaunaren sagrario eskojitua, zeru ta trono dibinoa, guzia edertasun, guzia argi, guzia Jangoikoaren amore, santidade ta grazia; bada grazia. Abe Maria.

Zauste lotsaturik nere santuarioan, dio Jangoikoak; pavete ad sanctuarium meum. Adoratuko dut bere tenplo sanduan beldurtasunareki, adorabo ad templum sanctum tuum in timore tuo, dio Dabidek; eta Jesu Kristok: Nere etxea da orazio ta otoitz egiteko etxea, domus mea domus orationis est. Zer etxe da, bada, au ain sandua, respetablea ta lotsagarria? Sar gaitzen ikustera; goazen pasatus emen diren ofizinak. Ura da bataiarria non garbitzen baitire errealki arimak. Berze gura konfesonarioa, non ematen baitire bekatariei sentenziak, nola Jangoikoaren tribunalean. Emen pulpitoa, nondik notifikatzen baitire Jangoikoaren manamentuak ta abisuak; goiti korua, non kantatzen baitire

Jangoikoaren alabanzak; beiti obiak, non baitaude gure alzinekoen ezurrak abisatzen gure fina. Alzinago aldareak, non beneratzen baitire sanduak gure gisakoak izanak naturale zan, berze gisakoak birtutean ta dilijenzian. Beiti aldareko maiak, non ofratzen baita Jangoikoai axuri dibinoa, ta ematen baita alimentutako kristioei. Alde batean sakristia, non baitaude bestimentak ta instrumentu sagratuak administratzeko sakramentu ta gauza sanduak. Estaiela geldi goartu gabe Kristo guruzifikatua, baitago erakusten digun amorioa ta pasatu zituen penak guregatik. Au erakusten du imajinan; ikusagun errealidadean. Erdiko sagrario ta urna gura da sancta sanctorum egiaskoa, testamentu berriko arka, propiziatorio dibinoa; beloaren berze aldetik, arka garren barnean dago, ez manamentuen bi olak, ez Moisesen bara, manna ta legearen librua, baizik sakramentu miragarri sakrosanto dibino gura, zeintan estalirik akzidente gaieki baitago Jesu Kristo bera, legearen emanzalea, guzien Juez Soberanoa, manna inkomparablea, aingiruen ogia, ogi bizia zerutik jautsi zena, ta Ama Birjinaren entraña sanduetan enkarnatu zena Espiritu Sanduaren birtutes. Da au egia, edo kontua, edo ametsa? Ain egia da nola Jangoikoa baita Jangoiko. Bada, zer erreberenzia beaute goardatu emen gizonak, Jangoikoa dagon leku sandu gontan?

Ikusagun Jakob ametsetan. Doaielarik bides arturik gauak kanpo batean etzitenda lo egiteko; ikusten du ametsetan eskalera bat luzea ellegatzen dena bera dagon lekutik zeruraño; ta artan dabilzala jausten ta igaten aingiruak, ta eskale-buruan dagola Jangoikoa. Idatzartzen da lotsarriturik; zer da au? dio; bere Dominus est in loco sancto isto, et ego nesciebam, sines gure Jauna dago leku sandu gontan, eta nik ezniekie. Lotsagarria da leku gau, sines emen esta baizik Jangoikoaren etxea ta zeruko ataria. Lokar daike Jakob berriro, ezi ametsa da ori. Baña estago lokartzeko beterik sustos ta erreberenzias. Eta esta betetzen lotsamenturas kristioa tenploan, non ez ametses, baizik fedes ikusten baitu eskalera espirituala, ta jausten ta igaten aingiruak, zeren emen presentatzen baita aingiruen Jauna errealki? Estu zer erran eta nik ezniekie, ezi kristio barin bada, xakin bear du. Leku guzietan bear zaio errespeto Jangoikoai baitago leku guzietan esenzias, presenzias eta potenzias; baña espezialki zeruan ta elizan, zerengatik prinzipalki baitago zeruan ta aldareko sakramentuan. Ala nola gure arima dagolaik gorputz guzian, alaere erraten baita dagola prinzipalki buruan ta biotzean, ario gontara Jangoikoa leku guziak okupatzentuen prinzipalki dago zeruan, nola buruan arima, ta tenploan, nola arima biotzean. Tenploagatik erran zue: autatu dut leku gau paratzeko emen nere biotza ta begiak (Paralip.2.c. 7.Segner.chr.p.3.d.4).

Jentilek dezakegute erakutsi erreberenzia, zerengatik goardatzen dute andia beren Jangoiko falsuei tenploetan. Sarzen gara, zio Senekak, tenpluetan modestias beterik joaterakoan sakrifizio egitera, apaltzentugu begiak, kurtzen dugu burua, biltzen dugu gañeko tresena, ta agertzen dugu alikako humiltasun guzia. Lengo alemanak etzire trebe sarzera beren idoloiei konsagraturikako oianetan, ezpaze inguraturik grillos ta kate pizues, signifikaeko edo obligazio andia, edo esklabitude ertxi profesatzen ziotena, ala dio Kornelio Tazitok. Sarazenoak etzire sarzen beren tenploetan ezpaze oin urtuxirik, ala dio Lirak. Griegoak ofrezitzaerakoan sakrifizio beren Jangoiko falsuei etzire garbitzera sudurrak, ta ez txintxurria, ezta ere lixtu botatzera, ez inpeditzeagatik atenzio ta silencio unibersale eskrupuloso goardatzen zena, ala dio Arianok (Segn.s.23 quadr.). Alexandro andia sakrifizio ofratzen zegolaik bein asistitzen zio paje noble batek oni erori zekio brasa bat inzensariotik besora, ta errerik tresena ta aragia ezurreraño, alaere etzue ez txinkarrik ta ez mugimenturik egin, ez turbatzeagatik erregeren debozio falsu gura, ala dio Balerio M. Pasa gaitzen Jangoikoaren tenplu Salomonek in zion gartara. Zazpi urte kosta ze

fabrikatzea, zebilalaik urre ta zillarra ain abasto nola arriak kanpoetan materialak ezin iagos, trabajariak arrigarri anitz, iruogitamar milla gizon eramateko soñes kargak, laurogei milla atratzeko oianetaik arriak, bere ariora iteko zurgendea, ta iru milla ta sei egun sobrestante. Nork erran tenplo garren grandeza ta preziosidadea? Baña orai solo dardukat erreberenzias. Etze aitu mallu-koska bat tenplu barnean egiterakoan. Egin ondoan paraturik lurrean, besoak zabaldurik Salomon egin zue orazio ziola berze anitzen ertean: O Israelgo Jangoiko Jauna, esta ori bekalakorik nior ez zeruan ta ez lurrean. Beras, sinesta daike bizi dela Jangoikoa gizonen lurrean? Bada, zeruak ta zeruen zeruek ezpadezakete kabitu orren Majestadea, zenbat gutiago nik fabrikatu dioten etxe gonek? Bitarteo zego pueblo guzia auspeska lurrain kontra, etzirelaik trebe sazerdoteak ere sarzera tenploan, baizego beterik Jangoikoaren Majestadeas. Au da tenplu gura, zeñi goardarasteagatik zor zekion errespetoa, bota baizitue Jesu Kristok azotukaldis atriotik salzaleak ta eroszaleak, ta lurrera irauli maiak ta katedrak, ziola: Eskribiturik dago, nere etxea da orazioaren etxea, ta zuek in duzie ladronen kubila. Pasa orai kristioen tenpluetara.

Zer erreberenzia bear da tenplu kristioetan, non ez solamente dago espezialki presente Jangoikoaren Majestadea, baitaere Kristo Jangoiko gizon denaren sustanzia errealki ain nola zeruan? Zer da gero izanagatik tenploak txipiago? Edo egonagatik estalirik belo gaieki Jaun ona? Orgatik ainberze errespeto zor zaio, ta ia amorio. Disimulaturik bere Majestadea dago gure on naies, baña orgatik errege da, ta bere inguruan daude bere goardia errealak, aingiruak, ikusten ezpaitugu ere guk. Ikusten zitue San Krisostomok. Ala dio San Nilok, eta San Gregoriok. Eta zeruan ikusi bazitue San Juanek egun millaka asistitzen, eta San Rafaelek erran bazue: Ni naiz Jangoikoaren alzinean txutirik gauden zazpi prinzipteak bat; emen daike pensa daudela soldado zerukoak kurturik, erreberenzias, ikusirik ain humil apaldu beren erregea besarka; ala nola prinziptea jausten delarik zalditik, ezpaita nior kortesanoetaik estuenik paratzen oña lurrean. Tenploan egotera apaldu da Jesu Kristo, bateo beraren atenzios jausten dire prinzipte paraisokoak. Eta bitarteo, lurreko ar txarrak estio goardatuko erreberenzia? Bein sollik egon baze Kristo gure elizan, orgatik sollik zor gindio leku goni errespeto, ta bear gindue apatu lurra non imini zituen bere oñak, dion gisan Dabidek: Adorabimus in loco, ubi steterunt pedes eius. Eta errealki zenbait nazioneetan da errespetatua erregeren katedra errege bera bekala, solamente zeren artan jarririk egon den errege Jauna. Zenbat arrazio iagoreki leku sandua, non baitago zeruetako errege? Esta ikusten? Eta zer da inport sinestatzen bada? Balego bat erregeren kuartoan xakinik dagola errege kortinaren berze aldetik, baut uste legokela erreberente; kortina bekala dire akzidente gaiek, orieki estalirik dagola dio Kristok: Ecce ego vobiscum sum, ona ni zueki nago.

Zegolarik Moises Orengo oianean, ikusi zue malda bat sugarretan etzela konsumitzen. Banoaie, zio, ikusadan bisione andi gau, zergatik ez ote den errausten malda gura. Bazoeie, ta joaterakoan egin zio oiur maldatik gure Jaunak: Moises, Moises, etzaitela ellega onara, edekizkizu oñetakoak, ezi zu zauden lurra lur sandua da. Ni naiz Abrahanen Jangoikoa, Isaaken Jangoikoa ta Jakoberen Jangoikoa. Estali zue Moisesek aurpegia, ezi etze trebe goratzera ere begiak. Malda garrek signifikatzen du sakramentu dibinoa; amoriosko sutan dago an Jesus perenne; kontu elizan sarzerakoan oiuiten dizula andik: Urlia, urlia, deteni zaite pensatzen non zaren, leku gau leku sandua da. Kenzkizu oñetakoak, au da, lurreko afizione, pensamentu ta gauzak. Zeru bat txipia da tenploa, beira zer iteunten zeru goitikoan aingiruek ta guziek, ta egin emen ario gartara. Aitzen duzu prefazioan kantatzen: Majestatem tuam laudant angeli, Jauna, orren Majestadea laudatzen

dute aingiruek, adorant dominationes, adoratzen dute dominazioneek, tremunt potestates, ikaturik beneratzen dute potestadeek. Columnae coeli contremiscunt et pavent ad nutum eius dio Job sanduak, zeruko pilareak ikaratzen ta lotsarritzen dire beraren keñu batera. Alako Majestadeain presenzian, nor ezpada ero- utsa, esta egonen modesto, erreberente berere, naiz ez dezan mostra Jaunak dena? izan da lanze noiz tenplora urbil, erreka batean arroitu iten zutelaik urapoek, manaturik sandu batek ixiltzeko gure Jaunaren atenzios, ixildu baizire arriak bekala. Zer ia, agitu zena baño itsas-gorrian? Edaturik Moisesek bara gura, egin baize derepente karrika bat itsasoain erditik, erretiraturik bi aldetara urak, baizeude tieso arriturik bekala muralla-aintzu, pasatu bitarteo israeldarrak. Zer ia, agitu zena baño Jordango ugaldean, paratu orduko oñak sazerdoteek arkareki urbasterrean, bereala berexi baizire urak, beitikoak segitus bera, ta goitikoak gelditurik ala nola oian andi bat kristaleskoa. Motiboa zein ote da? galdegiten diote Dabidek berei, ala nola balute entendamentu: Zer duzu zuk itsasoa, iges iteko ala? Eta zuk Jordan itzultzeko atzerat? Oianak saltoka nola ariak, ta aldapak nola axuriak? Jangoikoaren presenziagatik alteratu da lurra, dio berak (Ps.in exitu). Bara ta arka gura zire sakramentu gonon itzalak; ta alaere ainberze errespeto mostrazen diote gauza insensibleek, zer da arrazio in dezagun persona razioneek sakramentu beraren aurkintzean? Orgatik San Martin egoten ze tenploan beti kolore gaitz lotsaturik errespetos; eta ala egoin ginazke guziok bagindu ezaumentu bizia. Pavete ad sanctuarium meum, ego dominus.

aurkitu bagina Belengo portalean xakinik egia zena, zer arrizioareki egoingina beira misterio gura, Jesus ganbela batean, aldakan bere Ama Birjina, berze aldetik San Josef, idia ta astoa aratxago adoratzen beren Jauna, artzañak zebratzen festa, gloria kantatzen aingiruak, belauriko errege magoak ofratzen present errealak? O fedea, non zara? Etzaizket aurkitu. Fede duenak badaki au dela Belen, emen zebratzen dela misterio gura; Jesus bera dugula emen berze traje batean. Taborko oianean transfiguratu zelaik Jesus, San Pedro zoratu ze admirazios ta kontentus etzekiela zer zerdukan. Nere kristioa, billa zazu ta ekarzu fedearen argia, ta ikusko duzu aldaregoi dela Taborko oiana bezanbat, or transfigurutzen da bera. Jerusalemgo zenakulo gartan lenbiziko fundatu zuelaik sakramentu miragarri gau, egon bagina, zer lotsa! Zer silenzioa! Zer arrizioa! Bada, mai gura da au, au misterio bera, presente Kristo bera, etorriko dena azken egunean ilen ta bizien juzgatzer. In kontu deituak garela Josafatko zelai gartara, ta biltzen garela an aingiru, deabru ta gizon mundua mundu denaskeros izan direnak; jausten dela juez sumoa, ta jartzen dela bere tronoan Majestade guziareki, inguraturik potestades, beterik justizias. Ai ene, ta zer beldurra! Zer sentenzia! Zein ixil, erreberente, uzkur egoin garen! Orai, orai nainuke fedea, fielak, zerengatik emen dugu ango juez bera eman bear diguna guziei sentenzia. Orduan sebero majestuoso, orai humil amoroso, orduan leon, orai axuri-aintzu. Baña gu zer ai gara? Tonto ezpagara, erreberenziatuko dugu orai, ezkaitzan kondena orduan. Kontu elizan gaudelaik gaudela zeruko antesalan, ta aitzen tugula andik aingiruak ta sanduak laudatzen gure Jauna. Ario gartara egin zogun alguzia honra. Jauna, ori da gure Jaun ta Juez eternoa, ezkaitzala kondena. Orri dagokio erreberenzia, honra, manua, birtutea ta gloria secula seculorum. Amen.

Sermo XXXIII:

De irreverentia in templo

Domus mea domus orationis vocabitur,
vos autém fecistis illam speluncam latronum. Joan.2.

Nori gogoratu ezi Jesus dena axuri manso esneskoa ta onegia guzia bear zela ikusi iras beterik ta emanka azote bateki noizbait? Bada, ikusi da. Noiz ote? Agian nai zutelaik arrikatu judioek? Ez. Agian in zutelarik preso, edo eman ziotelaik bofetada, edo azotatu, edo kruzifikatu zutelaik gaistofikatuek? Ez. Antes bien, dio Isaiasek, ardia bekala utziko zela ermatera eriotzera, ta axuria bekala moxterakoan egonen dela ixil ixila. Noiz, bada, asarratu ze ainberze? Aizagun kontatzen San Juan Ebanjelista (C.2): Urbildurik judioen bazkoa, igan ze Jesus Jerusalem, ta aurkitu zue sarzerakoan tenploan zeudela salzen idiak, ardiak ta usoak, ta jarririk dirubilzaleak; ta eginik azote bat korda batzueki, bota zitue guziak tenplutik, bota zitue lurrera diruak eta maiak, ta usosalzaleei erran ziote: Kenzkizie ordik oriek, ta etzaziela egin nere Aitaren etxea tratuaren etxea. Eta ez bein solamente egin zue au, bai bi aldis ere ta ia, diones Barradas expositoreak. Bigarren bota zituelaik, erran ziote: Eskribiturik dago, ezi nere etxea dela orazioaren etxea, eta zuek in duzie ladronen kubila (Mat.21). Eta ez dezazien pensa exkusatzeko zeuren desatenzioak tenploan, ura zela agiz enormeagokoa, diote expositoreek etzeudela salzaleak tenplo-barnean, baizik atarian ta atrioan. Zer salzen zute? Salzenzuste ofratzeko bear ziren gauzak. Estirudi ainberzeko bekatua egiteko gure Jaunak ainberzeko demostrazioa. Baña ainberzekoa iduritu zekio guzia dakienai pizaturik santuarioko balanzan. Etze mostratu asarre arrikatu nai zutelaik, preso egin, golpatu, azotatu ta il zutelaik, eta bai ikusi zuelaik galtzen errespetoa elizai, saldu-erosis gauzak, in daikena berze lekuetan. Zer inen zue ikusi bazitue egiten nion inestakena? dio Bida benereak. (H.7 quadrag.tom.7). Eta zer orai, dagolaik bera presente kontino sakramentuan, orduan etzena orai? Dugu doktrina ikasteko erreberentzia tenploan, ta irreberentziaren gaizkia. O Maria Jangoikoaren tenplo bizia bear bekalakoa, eman bezagu bear dugun grazia. Abe Maria.

Gauza deseagarria den bekala idukitzea batek Jangoikoa bere fabore, adiskide amolsu, da alaber gauza lotsagarria idukitzea bere kontra asarre alako Majestadea. Ab irâ tuâ libera nos, Domine, Jauna, bere iratik libra gaitza. Nork du indarririk soportatzeko Jangoikoa iras beterik azoteareki eskuan emanka? aitu duzie zer motibos artu zuen ira ta azotea orduan; eta estaike pensa aldatu dela jenios orai. Desatento, moldegaitz irreberente direnek tenploan ai bezate, Jangoikoa dago asarre azoteareki eskuan aien kontra. Indar andia du, besoa luze, eskua pizu, azotea erru; esta faltako kalamidade ta miseria mundu gontan ere. (Estakit ala den egia, baña niri bentzait ala iduri zaida goartu dutenes neure experientzia pixkareki, ezi irur bekatu-mota kastigatzentuela mundu gontan ere gure Jaunak komunki: bere sakramentuen profanazioa, bere sazerdoteen ta ministroen persekuzioa, ta bere tenploen deserrespeto ta agrabioa. Niri bentzait ala iduri zaida erdextentuela Jangoikoaren azoteak mundu ontan ere, beñik bein sakramentuen profanazaleak, indignoki errezibitzentutenak, zerengatik ala nola judioei erori baizaiote bere alzinekoek bota zuten maldizioa Kristoren ilarastean ziotela: Onen odola biz gure gain ta gure humeen gain; ala emen odol garren birtutea obratzen duena sakramentuetan, ta gaixki konfesatzen ta komekatzen direnek malogratzeuntena kargatzen dute beren gain.

Alaber, kondizio gaixtos ta sendagallas bekala dutenak ematea beti sazerdoteen kontra, errepugnatzea, desobeditzeaitsu itsua prinzipalki zelosoei, arrapatzen ta heritzentu goiz edo berant Jangoikoaren eskuak mendekatzeko bere ministro estimatzentuenen agrabioa. Oroat diot galtzendiotes errespetoa tenplo sanduai. Zerbait motibo berex adberti daike bekatu gebetan ia ezi berzeetan sentitzeko gure Jaunak, eta da ezi berze bekatuak gaixto izanik ere, barkatu naies Jaun onak paratutu sakramentuak, sazerdoteak ta tenploak, nora goazin erremedio billa; orai, bada, gaizki baliatzea eskergaitzak, erremedioa itzultzea beneno, non kendu bear ziren, an aumentatzea bekatuak da sentigarriago. Baña dardukagu tenploarenas).

Tenploan egitea zenbait gauza in daizkenak berze lekutan izan daizke bekatu tenploaren kasos ezlirazkenak kanpoan, ala nola irri, arroitu, enredo, jarduki, beiratzeta gisa gontakoak estagozkionak leku sanduai. Eben mortale edo beniale izatea atra bear da irreberenziaren notable andi edo guti izatetik. Orai bekatu direnak nonnai, elizan dire andiago batzuk, doble berze batzuk; b.g. murmurazioa nonnai delaik bekatu, elizan da andiago lekuain kasos, esta orgatik doble, au da, bi bekatu, baizik bat andiagokoa. Baña borzgarren, seigarren ta zazpigarren mandamentuen kontra dena, nonnai delaik bekatu, elizan da doble, au da, bi bekatu; b.g. eriotze edo emanka bat nonnai da bekatu justiziaren kontra, desonestidade bat kastidadearen kontra, ladronkeria bat justiziaren kontra, baña orietaik edozein, elizan da berze alde sakrilejio errelijionearen kontra; eta balitz publiko, geldi leike eliza biolaturik edo zikindurik de manera ezi estaiken artan zelebratu errekonziliatuartaño obispoak. Beude horrore gebek aparta, ezi oriek gabe ere aski dire berze ofensak, zeñeki kristio falsuek asarratzen baitute gure Jauna tenploan. Kristio falsuak deitutut, zerengatik barin badiote ere dutela fede, da fede ila, edo itzalia, edo ez bizi aktuala, ezi au izatera nor atrebi leike galtzera errespetoa Jaun andi goni, zeñen izenai belaurikatzen baitire zeruko, lurreko ta infernuko guziak? Zer atenzio erreberentea moroek beren mezkita gaietan? Nolako errespetoa guziek erregeren edo Aita Sanduaren palazioan ta salan? Bada, moroen mezkita propioki estire baizik zapoen, sugeen ta deabruen kubilak. Erregeen palazioak gure Jaunonen tenploen aldean kontu txinurrien kubilak, edo karakolen kontxak; eta gu guziok gure Jaunonen aldean kontu txinurriak jigante baten aldean, eta erregeak kontu txinurri andixagokoak. Pondera zio iduriko zaiote au tontoei, baña esta ellegatzen den adiña, ezkara ainberze ere Jaunonen aldean, nola txinurriak baitire jigante baten aldean.

Nola, bada, Jauna, edo zergatik da trebe gizona galtzera errespetoa berorri, berorren etxean ta presenzian? Badakusat, zerengatik estalian baitago, ta ain apalduarik orren Majestadea, de manera ezi nondik bear zuten artu motibo ia agradezitzeko, onesteko ta errespetatzeko berorren majestadea, andik artzeunte ia atrebenzia ofenditzeko. Zer senti lezake erregek, baldin ellegaturik, bere amorioak obligaturik pobre baten etxera, oni ongi iteagatik, ez erregeren Majestadean, baña zekielaik ark errege zela galbalezo indignoki errespetoa? Inglaterrako errege rekaredo bates kontatzen da eizian zebilalaik apartaturik akonpañazaleetaik estakit zer gisas, ellegatu zela ofiziale baten etxera gauetzates, eman gabe ezaunzera nor zen. Arrats gartan disputa batean etxeko nausiak eman zio bofetada bat, sufritu zue ixil erregek. Biramonean itzulirik bere palaziora deiarasten du gizonoi; presentatu ondoan bere tronoaren alzinean, erraten dio sebero: Ezauntzen nauk? (Ap.cl.p.1 cat.c.2) Zer lotsamentura bidezuen ark ikusirik zela errege bera nori egin zion emanka. Ark alaere bazue zerbait atxekia etzekiela zen errege. Guk esta atxekiagoi ere, zerengatik dakigu dela zeruetako Errege dagona guregatik ain estado humilean sakramentuan.

Etzaitela deteni ostatuaren pobre zan, ez adozatzeko orgatik ain ongi nola zeruain barnean. Zierto ezi elizetako sueloak bear lirazke zillarresko plantxes enlosatuak, bobedak urre fin mazizos, pareteak guziak esmeralda, diamante ta perla preziosoes, aldareak, kustodiak ta instrumentu urbilekoak ez emengo, baizik zeruko materia zenbaites. Alaere ezlizake etxea digno duen arrotz Jangoikoaindakoa. Ez deteni dakarran trajean, ezpaita Majestadearen gisara, baizik ogiaren akzidentearen beloareki disimulaturik. Para atenzio guzia nor dena baitan. Oroitu goitiko trono ta tribunale gartas, eta Jaunau dela juzgatu bear gaituena; erran bere buruari San Bernardoreki: Ia, ia presentatuko naute nere Juez sumoaren presenzian ematera kontu nere bizi guzias, ta erraten diotelaik neregatik, ona gizon au ta onen obrak, zein humil, uzkur lotsarriturik egonen naizen! Zer inen dut lanze gartan? Nork dezoke erresponda millendako bat? Oraidanik Jauna, lotsaturik nago, justizia egin bear, ta justizia salbo nola naiken salba? Estut berze esperanzarik baizik orren ontasun infinitoa badezakela aurki bide nola salbatu bere sierboa. Jauna, nai badu, banazake salbatu; Jauna, otoi ez nazala kondenatu; bentzait goardatuko naiz galtzeas erreberenzia emen bere sakramentuan. Maldade gau bentzait ez, ez nik, ene Jauna.

Aski da ofenditzen dena gure Jauna berze lekutan, ofenditu gabe leku sanduan. Baña ah! Quanta malignatus est inimicus in sancto! Zenbat malignidade forjatu duen etsai gaixtoak leku sanduan! Inbidias beterik zeren Jangoikoa den honratua emen, injeniatu du nola eman dakion berari ere honra Jangoikoaren agrabiotan. Esta leku ta gauza onik, zeintan estuen nasi etsaiak bekatuaren pozioa. Zer leku sanduago Jerusalengo tenploa baño? Bada, an paratu zitue sal-eroszaleak. Zer gauza obeago Jesusen azken afari gura baño? Bada, an ere izan zue Judas. Zer ia bere iltzea baño? Bada, ere zue ladron gaixtoa ezkerreko aldetik. Ala esta elizarik, esta funzionerik, non estuen prokuratzen deabruak beretako bere aldare ta inzensu-gisa, ta adorazio-iduria. Presente elizan gorputza, ta gogoia kanpoan bearrestiren gauzetan; belauriko belaunak, jarririk ezpadago, ta memoria, entendamentua ta borondatea berzeetan. Mias errezzatu, ta gogoas paseatu karrikak, etxeak, itekoak ta aun banidadeak; estidazie erranen norendako doaien oraziogoi? Parte bentzait deabruaren. Berze batzuk gogoia ez ezi, sentidoak ere barraturik egoten dire, begiak beira arat onat kuriosidades, mia jardukitzen, berak irris, inmodesto, ibildari galtzen ta galarasten erreberenzia Jangoikoai. Estidazie erranen nor honratzen duten alakoek? Etsaia bai bentzait. Berze batzuk lo. Zer da au baizik inzensu ofratzea deabruai? Erdi lo errezzatzen zegon bati utzi zio deabruak usai bat agiz pestilentea ziola: Alako orazioai alako inzensua. Idatzarri, animatu, egin dilijenziak mortifikatus gorputzaren asto gaixtoa. Bein, koruan lo zegon monje bati eman zio Kristo guruzifikatuak golpe bat ain erru, ezi gelditu ze ongi eskarmentaturik. Berze batzuk arrotu egiten oñes edo eskues, edo estuliduri borondateskoes; eta ezin erreprehendi, zeren atxekia prest daukate naiz gezurreskoa. Estute engañatuko Jangoikoa; eta deabruak ere badaki noiz iten dioten berari gusto, pagatzeko bere denboran. Berze batzuk moldegaizki ta indezenteki jaintsirik, edo banoki berzela, tenploa ere iteuntelaik banidadeen eiziatzeko lekua. Au baita deabruai inzensu ematea. Estiot deus gauza ta demostrazio gaixtoagokoes elizan; lotsatzen naiz aipatzeas ere. Zer Jangoikoaren ira! Numquid domos non habetis? Estire berze lekuak, nai badire egin gaixtakeriak? Aut ecclesiam Dei contemnitis? (Cor. 11). Edo estuzie berze irriegitekorik baizik tenploas? Errealki esta lekurik non daiken ofendi Jangoikoa, baña ofenditzen baliz berze lekutan, bentzait tenploan ez; Jangoikoak goarda ofenditzetik tenploan, non ongi izatekos logratu bear baitugu ofensen barkamentua.

mostratu du Jangoikoak bere ira asunto gontan anitz aldiz. Lege zarrean Nadab ta

Abiuk zerengatik inzensarioan paratu zuten kanpotik sua manatuaren kontra, atrarik suak derepente an berean erraustu zitue. Sugarrek, dezake signifika afekto desonestoa biotzaren inzensarioan tenplo sanduan. O Jangoikoaren pazienza andia, ezperen lezazke erraustu alakoak! Ozak, zerengatik edatu zuen eskua detenitzeko arka saiestu zutena karroan idiek, berartan utzi zue ilozturik Jangoikoak. Heliodoro joanik erregeren mezus idikitza tenploko artxiboa, zego an soldadoeki atratzeko ta ermateko dirua. Ontan dagolaik, agertzen da zaldun bat urresko armaeki lotsagarri; zaldiak bi besoeki jokaturik, bota zue lurrera Heliodoro; berla bi mutil gasteek azotatu zute ederki an berean etzelaik nior trebe defendazera tristeia; sazerdoteak bai iten zue orazio Jangoikoai izan zezon piedade. Orduan bi aingiru gaiek aterturik azoteak, erran ziote Heliodoroi: Esker emozu Oniasi, ezi orren atenzios ustendizugu bizia, konta dezazun Jangoikoaren prodijioa. Itzuli ze Heliodoro erregegana ongi eskarmentaturik, ta erraten zio, naizuelaik igorri berriro: Jauna, barin badu traidoreik, ura igor bez, ezi ongi kastigaturik itzuliko zaio baldin eskapatzen bada bizirik, zerengatik Jangoikoaren birtutea dago leku gartan. San Alberto Karmeskoaren elizan galdurik erreberenzia soldado batzuek, guziak il zire derepente berartan, ta idikirik sanduaren sepulkroa edo kaxa, ikusi ze korputza belauriko eskatzen bekala justizia Jangoikoai desatentoen kontra. Xakina da San Narziso Jeronakoaren milagroa, artu zutelaik ziudade gura franzesek galdurik erreberenzia leku sanduai, atra ze sanduaren sepulkrotik uli kantidade bat, zeñek pikatus desatentoei egin zute estrago andia. Jentilek ere orgatik diote erreberenzia tenploai. Testigo Roma, non sarturik Alariko kruela bota zue bando usteko libre tenploak. Eta ala iten zirelaik karriketan, plazaetan, etxeetan eriotzeak, ladronkeriak, maldadeak, ellegatu orduko eliza-atarira gelditzen ze tigre gaien furia. Araraño ellegatzen ze, ez aratago, dio San Agustinek (Segn.). Bada, malizia humana, aski da arrapatubaititik leku guziak, beude libre elizak berere. Jangoikoaren etxeak dire; Jangoikoaren etxeai dagokio santidadea. Nere etxea, erran ziote Kristok judioei, da orazioaren etxea, eta zuek itzuli duzie ladronen kubila. Ixil badago gure Jauna orai, dago biltzen ta anditzen ira kastigatzeko beingoas bere denboran; baña bitarteo ere badaki kastigatzen ixil ixila osasun, fortunak, haziendan, alor, ardantze ta gañarakoetan, zion bekala Agjeo profetak (c.1). Respexistis ad amplius, et ecce factum est minus, anitz uste ta guti itzuli da, sartu etxean ta aizeratu dut andik nik. Zer motibos? dio exerzitoen Jaunak, zeren desertu itzuli baita nere etxea; ezpaita ajolarik artas. Orgatik debekatu diotet zeruei ez dezaten igorri intzik, ta lurrai ez dezan eman fruiturik. Deitu dut estirilidadea (sic) lurrain gañean, oian, gari, ardo, olio ta lurreko fruituen gañean, ta animaleen ta jendeen eskuetako lan guzien gañean. Guziau dio profetak. Beras, maite baitugu geuren buruok, goarda zagun atenzio ta erreberenzia guzia Jangoikoaren etxean, honra zagun gure Jauna bere tenploan, itendigunes geros alako mertestede nola baita gureki egotea emen. Emen dago gure tesoroa, emen bego gure biotza. Aurkitu dut onesten duena nere arimak, daukat firmeki ta estut utzik. Nere onetsia neretako ta ni beraindakoa, orai ta beti, ta sekulako glorian.

Sermo XXXIV:
De reverentiâ erga
Domini sacerdotes

Nolite tangere Christos meos. Ps. 104.

Erranik ia tenplo sanduari zor zaion erreberenzia Jaun sakramentatuaren kasos, orai bere sazerdoteei bear zaioten errespetoa Jaun beraren atenzios, zerengatik gure Jaunaren honrari dagokio izan daitzen errespetatuak ala bere tenploak, nola bere ministroak, baitire tenplo biziak ta ortako konsagratuak berexki ordena sagratuareki, kastidadearen boto solemneareki ta sakramentuaren tratamentu usuareki. Bi gauza daizke konsidera sazerdotea baitan; bata gizatasuna, zein baitu komun berzeeki, gizona da alabañare berzeak bekala; berzea da duen estadoa, konsagrazioa edo korona, nolanai dei daien, baita Jangoikoaren grazia espeziala, zeñen aldetik gizon baño ia baita sazerdotea ta aingiruak adiña, ia ezpada, diones San Bernardok: Praetulit vos angelis atque anchangelis (sic) (In declams). Banago ontan, ezi sazerdoteak berak lenbizikorik bear duela errespeto izan bere estadoai, bizitus bizitza aingiruena, duen bekala aingiruen dignidadea, izanes pensamentu nobleak ta akzione errealak, daraman bekala korona, mostratus Kristoren imajina, iduri ta atxon ona leku guzietan, den bekala Kristoren ministro, ta deitzen den bekala Jangoikoaren Kristo unjitua, ezi estire ongi batean estado andia ta persona txarra, dignidade exzelentea ta bizitza indignoa, korona erreala ta akzione billaua. Badakit au, ta alaber, berzeetan gaixto dena gaixtoago dela sazerdotea baitan, ta agian gaisto estena berzeetan gaizki dirudiela arren baitan. Badakit au guziau, ta neure kontra nagola mintzatzen, ezpainaiz errealdadean konforme dignidadeai. Baña guziareki estaike deserrespetata sazerdotea, naiz gaixtoa, zerengatik gaixto izatea du gizontasunagatik, ez sazerdozioagatik; naiz gaistoa, bereki dauka beti estado sandua, korona ta konsagrazioa; au bear du honratu mundu guziak naiz desonra dezan duenak berak. Ala nola asto batek balema bere gañean errelikario prezioso bat, edo kustodia sagratua, naiz utzi balez animale zenzu gabeak erorzeraz loiean, ere beargindio egin erreberenzia. Sazerdote arimen kargudunek doble honra mereji dute, zeren Jangoikoaren ministro diren, ta zeren arimen artzai ta aita diren, arturik beren gain kuidatzen baitute kontu emanbeautenek bekala aietas, dio San Pablok (Hebr. 13): Esta motibo txipia ori ongi beiraturik, ezi ongi kostarik du honra indakiona, eta estakit, estakit nola den nai duenik artu berzeen arimen kargua, berearena aski duelaik jasteko, ezpaliz gure Jaunaren probidenzias. Baña utzagun au, ezi erorzen zaizkida biotzaren egalak ikusirik nora sartu nai zenitsu itsua. Guziaz dezake erremedia gure Jaunak. Jardukagun solamente sazerdoteari zor zaion errespetoaren gain. Birjin Ama gloriosa eder galanta, sazerdoteen patrona espeziala, hispilua, kidaria, kapitana, anparoa, honra ta gala, noren Ama beroi, arren ministroak gu, ori lenean alzindari, gu atzetik paje, orrek erman zuena bere sabel birjinalan, guk baitamagu eskuetan; nola estitu onetsiko ta kuidatuko bere sazerdoteak, Ama dibina? aurki bez onek orren begietan grazia. Abe Maria.

Jangoikoaren etxean dire anitz mansionen edo estado diferente. Sazerdoteak dire nola urbileko ministroak, sekretarioak, goardia de korps ta bere maieko zerbitzari propioak ta konsagratuak. Sines ezi ofizioaren gisara ta neurrira izatekos sazerdoteak, ordenatu bear zire kerubin ta serafin gorenak, eta orduan ere ez lirazke ministroak bardin

ta ofizioa den adiña sandu; baña Jangoikoaren Seme gizon egin zenak, gizonetaik nai izan zitue atra bere sazerdote ta ministroak. (Agerrian dago bear lirazkela ebek izan guzien erlean Jangoikoaren argiareki autatuak, obenak, sanduenak gorputz ta ariman; eta oraño alakoak izanik ere, apaintzekos medianoki diren ofizioendako, bear lirazke anitz denboras purgatorioan purifikatu, garbitu, edertu, luzitu zillar ta urre guzien gañetik, de manera ezi ezlekioten gelditu lurreko erresabio ta urrinik deusere. Jangoikoaren ta gizonen erdian paratzen da sazerdotea nola balitz Jangoikoa baño gutiako, baña gizon baño ia. Bi aldetara bear du bere atenzioa: Jangoikoagana, presentatzeko dignoki berain alzinean, mintzatzeko berareki munduaren faboretan, jarritzeko beraren maiean, konsagratzeko, ofratzeko, errezibitzeko, eskuetan ibiltzeko ta administratzeko Jangoikoaren axuria. Gizonengana, absolbitzeko bekatuetaik, bataiatzeko, ezkontzeko, bedeikatzeko ta sandutzeko mundua al badezake, erakusteko Jangoikoaren bidea, konsejatzeko on guzia, erremediatzeko gaitz guzia, tratatus oneki ta gaistoeki iragazteko guziak Jangoikoaindako, ta bitarteo mantxatu gabe bera deustan ere, baizik ala nola iruzkia pasatzen delaik ur eta loi eta anitz inmundizietatik gelditzen baita ain eder, argi ta garbi nola len. Orgatik ala Jangoikoaren nola gizonen aldetik santidade andia eskatzen dio sazerdoteai bere ofizioak; orgatik au mostratu zio San Franzisko Asiskoari Jangoikoak, erredoma kristalesko likore klaro bates beterik eskuan zekarran batean, motarik ta errauts pixkarik gabe, orgatik ezpaize atrebitu sandua ordenatzera sazerdote, baizik gelditu baize diakono bizi guzian. Ai nitas, ene Jauna, ezpadu usatzen miserikordia andia nereki Jangoiko gisa!

Baña bidetik atra naiz. Itzuli gaitzen). Zor diogu Jangoikoagatik anitz errespeto bere sazerdoteai. Jende guziek errearen ilunbean dabilzanek ere tuste beren sazerdoteak, naiz falsuak, falsuak tusten bekala Jangoikoak, sakrifizioak, zeremoniak ta gauza errelijioneke-iduriak. Alaere ofizioagatik honratzentuste sazerdoteak arrigarri. Faraon Ejiptoko erregek honratu zitue sazerdoteak ala, ezi egin zituelaik petxero bere erreinukoen lur guziak, sollik utzi zitue libre sazerdoteenak. Etiopiek ainberze autoridade eman ziote sazerdoteei, ezi eben botoareki botazenzuste beren tronotik erregeak ere. Erromako errepublikan zuzkete sazerdoteek kendu senadoaren dekretuak, ta kastigatu ere senadoreak, eta sazerdoteen errespuestak zeuzkite nola zeruko sentenziak. Jermanian ze kostunbre ez nior justiziatzeko, aprobatuartaño sentenzia sazerdoteek. Atila tirano kruel gura zoeie Italia guzitik barna egines mila galte; atra zekio bidera San Leon bestiturik ornamenta sagratueki, mintzatu zekio, ta bereala itzuli ze humil atzerat sazerdotearen errespetos. Alexandro andia, mundua arritu zuena, siluit terra in conspectu eius, joan ze Jerusalem asarraturik urratu naies guzia, baña atra zekiolaik bidera sazerdote sumoa, jautsi ze Alexandro zalditik ta belaurikatu zekio erreberente. Alakoa da jentilek emandiguten exenplua.

Ikusagun zenbait kristioena. Xakina da Teodosio enperadorearen exenplua, nola etzuelaik nai San Ambrosiok utzi sartzera elizan, ark obeditu zion humil, ta admititu zion ongi eman zion erreprehensioa ta penitenzia. Pipino Franziko erregek akonpañatu zue oñes, frenotik zeramala Aita Sanduaren zaldia. Konstantino andiak, konzilio batean obispo Jaunen aurkintzean etzue nai izandu jarri jarriartaño guziak, ta azkenean jarri ze apalena, deizen zituela sazerdoteak bere Aitak, ta presentaturik bere Majestadeai anitz memoriale aien kontra, autxi zitue leitu gabe guziak utzirik Jangoikoaren tribunaleko sazerdoteen kulpak; ta zio ezi ikus balez bat gaizki egiten, estaliko zuela bere manto erreallas, etzeien desonra sazerdotea. Rodolfo Kondeak, zaldi gañean zoeielarik, ikusirik oñes zoeiela sazerdote bat komekadurareki, jautsi ze bera ta iganerazi zue sazerdotea, ta

akonpañatu zue estriboaren ondotik joatean ta itzultzean. Ala pagatu zio gero Jangoikoak ain ongi, ezi paratu zio korona inperiala buruan. San Antonio abadeak aurkitzen zuelaik sazerdote bat, ezarzentze belauriko ta etze jaikitzen errezibituartaño arren bedeizioa. San Franzisko Asiskoak zio, ezi aurkitzen balitu bateo angiru bat ta sazerdote bat, sazerdoteari lenik apatuko ziola eskua, ta gero inen ziola aingiruai erreberenzia. Zer admiratzeko da au, aingiruek berek emandigutelaik exenplu? San Franzisko Salesek ordenatu ondoan bat mezas, ikusi zue au gero elizatik atratzean, deteniturik kunplimentu egiten bekala noribaiti, zein ezpaize ageri. Deitu zue bere gana ta galdegin zio zer aitu zen eliza-atarian. Sazerdote berriak erran zio nola gure Jaunak egin zion grazia ikusteko bere aingiru goardiakoa, zein beti zoeielaik eskuieko aldetik, ta sartzen ta atratzen lenean, egunartan ordenatu orduko sazerdote, aldatu zela ezkerreko aldera aingirua, ta etzuela nai izandu atra alzinean len bekala, ta orgatik egon zekiola bera errogatzen kortesias. San Juan Krisostomok ikusten zitue aingiruak mezakoa zerbitzatzen sazerdoteai humil, erreberente, inguruan. Maria Santisimas leitzen da bere bizian belauriko paratzen zela lenbiziko sazerdote gaiei, ta eskatzen ziotela bedeizioa. Beti goardatu zue kostunbre gau San Pedroreki, mintzatzen ziolaik eriotzeko orduan ere. Zer ia erran daike, nere fielak?

Errespetatzentugu elizan, aldarean, konfesonarioan ta bearrorduetan. Errain didate batzuek: Baña gañarakoan zer dute ia guk baño? Dute karakter ta korona ta konsagrazioa, naiz elizan naiz kanpoan. Eta zer hipokresia da, ta traizio disimulatua, honratzea elizan desonratzeuntena kanpoan? Apatzea eskua ezpañes, ta gero injuriatzea persona mies? Emen honratuiduri, ta an despreziatu? Merejidutelako atxekia atratzen dute; baña kristio onak berexi beartu personaren faltak ta estadoaren abantallak, ta estadoagatik barkatu personai, tratatu ongi Jangoikoaren Kristoa, baita sazerdotea. Nolite tangere Christos meos, dio Jangoikoak. Etzazkiziela ukitu nere Kristoak. Beras, utzi beartugu in dezaten nauten guzia, kendezaguten geurea, ta oinpeta gaizaten, eta geldi ixil? Estiot ori; ojala ezpaliz beñere diskordia biderik. Beira bedi, den gauza, zeintan estuen irabazirik, ala nola erreprehenditzean bizioak ta desordenak, zelatzean Jangoikoaren legea, ta egitean arimen alde direnak; ezi alakoetan nola ezpaitu kodiziaren edo pasione zerbaiten sospetxarik, eman bear zaio arrazioa geien komun, zerengatik fielen librua da sazerdotearen agoa, andik ikasi beaute Jangoikoaren bidea. Baña nola bizi baikara lurgaisto gontan beterik pasiones, erroreos, ignoranzies, balitz diskordia-bide emengo gauzengatik, prokuratu bear da bakean konpontzea, ta au ezpadaike, orduan nezesidade utses, intenzio biotz ta modu onareki segitu nork bere deretxoa. Ori esta debekatzen, baizik injuriak, desprezioak, tratamentu gaixtoak, ezi ebek estute ontzen pleiturik. Jenios, ordea, dutenak ematea sazerdoteen kontra, bada ezpada kausa, txarkeries ezpada, murmurazioes ta iskindees dute, erragun klaro egia, dute deabruaren jenioa, zerengatik deabruak estu berze onik baizik oposizio kontinuo sazerdoteari, nola baituste ofizioak ere kontrarioak alderen alde; sazerdoteak du prokuratzea Jangoikoaren honra, mutilak nausiarena bekala, deabruak berriz prokuratzea Jangoikoaren ofensak; sazerdoteak salbatzea arimak, deabruak galarastea; sazerdotea arimen artzai, deabrua otso gosetia. Milagro da izatea kontrario sazerdoteari deabrua? Baña, milagro maliziarena bekala kontrario izatea kristioa. Au da ala nola Jangoiko beraren kontrario izatea. Ia ere diot, da nola munduaren ta bere buruaren kontrario izatea, zerengatik munduaren ta beraren onerako paratua da sazerdotea. Pensa zer litzaken munduas, zer litzaken bakotxas, ezpaliz sazerdoterik? bear du sazerdotea jaio orduko, bear du bizi guzian, bear du iltzerakoan, bear du il ondoan. Figura gaitzen mundua ta gizagendea sazerdoterik gabe. Guzia ala nola iruzkirik gabe, ilunbe lotsagarria,

desertu tristea ta gizagendea litzake nola animale-saldo bat konfuso, nasi desordenatua.

Goazen gutitto bat erreparasatus sazerdotearen ofizioak puebloan. Estugu erranen gezurrik erraten badugu direla errietan sazerdoteak ala nola berze ainberze aingiru lurrekoak, berze ainberze enbajadore Jangoikoarenak, berze ainberze persona Kristoren ordes ta ordañes paratuak. Igan ze bera zerura, utzi zitue sazerdoteak bere lekuan. Nork kristiatzentu jendeak? Sazerdoteak. Nork itentu sakramentuak? Sazerdoteak. Nork konjuratzentu deabruak ta tenpestadeak? Sazerdoteak. Nork bedeikatzentu gauzak? Sazerdoteak. Nork presentatzentio Jangoikoai munduaren partes laudarioak, sakrifizioak, orazioak? Sazerdoteak. Nork karraiatzentu zeruko ondasunak? Sazerdoteak. Nork notifikatzen ta adiarastentu Jangoikoaren borondateak, doktrina ta bideak? Sazerdoteak. Jaio da bat? Berla billatzen da sazerdotea sartzeko elizan, markatzeko Kristoren ardi, entregatzeko Jangoikoai. Doaie anditus? Kontino bear du sazerdotearen dilijenzia, estaiien animaletu, ta ikas dezan zertara den etorria mundura. Artzeko bide konbeni zaiona, nork kida dezake ark baño obeki azertuan? ezkontzen bada, sazerdoteak ematen du bedeizioa. Ilzen delaik asistitzen dio sazerdoteak, ta niork eztu il nai sazerdoterik gabe aldakan. Il ondoan sazerdoteek honratzeunte gorputza, ta enkomendatzeunte arima. Zer diot konfesioko ta komunioneke sakramentues bizi guzian beartugunes? Lenbizikoa ain preziso, ezi baita bigarren ola, ta bakarra, zeintaik daiken eutxi libratzekos erori dena bekatu mortalean. Eta nork dezoke eman ezpada sazerdoteak? imajina zagun doaielarik bat oian erte batean, eriotzeak aurkitzen duela; beiratzen da tristea ia eternidadeko atari-pokalean sartzeko ta ez atratzeko, bein joanaskeros betikos dela, ezin itzuli onat berriz; ongi joaten bada, betikos ongi; gaizki badoaie, gaizki betikos; ta bekatu mortale soil bat dela aski galtzeko secula seculorum. Errepasatzen du konzienzia ta aurkitzen da bekatu mortalean, edo dudan. Emen da beldurra, kongoja, lamentatzea, ai nitas! Ai nitas! Sekulako galdua! Doaie iles konsolurik gabe. Pasatzen da andik zaldun bat, jausten da, ikusten du iltzen dela, galdeiten dio, aitzen du tristurain kausa, ezin erremedia; solamente konsejatzen dio izan dezala kontriziosko dolorea konfesatzeko intenzioreki balitz posible; oneki usten du; doaie alzina. Ark ainberze peligro ta beldurrain ertean ezin senti amoriosko dolore noble gura; ah giza tristea! pasatzen da errege bat akonpañamentu andiareki; ofrez dezoke anitz lurreko gauza, baña ezin libra pena gartaik, esta erremediorik; alzina ura bere bideas, ta au infernurat; falta zaio solamente despeitzea arima. Ontan ellegatzen da oñes sazerdote pobre bat, urbiltzen da, aizen du, animatzen du Kristoren partetik ta ematen dio absoluzioa. Ikusazie gizonoi konsolaturik, arima libre, burlaturik deabruak, idikirik gloria, nora baitoaie arren medios ezperen joan bear zuena infernura. Auda egi eta fedea, nere fielak. Idurizaizie dela estimatzeko Jangoikoaren sazerdotea?

Baña igan gaitzen gorago. Da estimatzeko sakramentu aldarekoa, zeintan baitago ain errealki, nola zeruan Kristo bera? Ta errezibitzen baitugu nai dugulaik? Eta nori zor diogu, baizik sazerdoteei, zeñei sollik eman bazaiote konsagratzeko potestadea? Ezpalez kostunbreak edeki gauzen admirazioa, zer litzake ikustea bat txutirik ta berze gisas jaintsirik, daudelarik guziak, naiz Jaun andiak ta erregeak beitiago ta belauriko mezakoan? Zer esta konsagratzea, eskutatzea, errezibitzea ta administratzea gure Jauna? Eta au iten du sazerdoteak. Beraren eskutik bear du errezibitu erregek, erreinak, mundu guziak. Beras, estimatzeko da ta errespetatzeko persona duena alako dignidadea. Etzazkiziela ukitu nere Kristoak, dio Jangoikoak; eta berriz (Zachar. 2), ukizenzaistenak zuek ukitzen du nere begiaren ninia. Estimazkigun bada gure Jaunagatik beraren ministroak; estima zagun

guzien gañetik bere Majestadea, zeñi baitagokio alabanza ta honra, grazia ta gloria. Amen.

Sermo XXXV:

De eucharistiâ ut animae cibo

Caro mea vere est cibus,

et sanguis meus veré est potus. Joan. 6.

Zatoste ta ikuskizie Jangoikoaren obrak, lurrean egin dituen prodijioak, zio Dabidek (Ps. 45). Baña nola ikusi beartugun, dio San Pablok, destruitus presunzio guzia goradaiena Jangoikoaren xakintasunaren kontra, ta sujetatus preso edo kautibo entendamentu guzia Kristoren obsekiotan (2. Cor. 10); zerengatik ain andi arrigarriak dire Jangoikoaren obra batzuk, ezi ez dezazke konprehendi gure entendamentu laburrak, ta estu berzerik in bear alakoetan, baizik humil paratu Jangoikoaren eskuaren pean, sinestatus itsu itsua firmekiro, dezakela Jangoikoak obratu ia, ezi guk entendatu, ezperen ezlitzake guzis poderoso, dio San Agustinek. Eta Santa Teresak berriz, dio, ezi fedeak diona guk ezin entendatzea, ori beroi dela señale Jangoikoaren obra dela, eta motibo sinestatzeko firmeago, ezi entenda bagindez. Begira Jesu Kristoren marabilla guzien memoria, bere milagro guzien andien gau, diot sakramentu aldarekoa, zein neurtu nai badugu gure entendamentuaren kontxa txipiareki, andiago nola baita ezin kabi daiken gisan kontxa gortan; lenik arrituko da gizona, gero badaike pasa ez sinestatzera erdexten estuena. Nor esta arrituko aiturik dagola Jesu Kristo guzia forma txipi batean ain errealki nola zeru andi gartan? Eta ala da egia. Pasatzen bada gero aitzera jan ta edan bear duela gizonak Kristo beraren gorputz ta odol preziosoa, nai badu entendamentu laburrak erdetxi nola, badaike trastorna ta liluratu, ala nola dorre gora baten kaskoan dabilana izanik buru flakoa. Ala agitu zekiote Kristoren diszipulo batzuei beren burues sobra presumitzen zutenei, lenbiziko aipatu ziotelarik misterio gau Jaunak, bitarteo firme zeudelaik San Pedro ta berzeak fiaturik solamente Jaunonen itzaren egi eta fedean. Erran ziote, bada, Jaunonek bein, nola baitakar San Juanek bere ebanjelioaren seigarren kapituloan: Ni naiz bizitzaren ogia, neregana eldu denak estu izanen gosarik, ta enebaitan sinesten duenak estu izanen egarririk ... Ni naiz ogi bizia zerutik jautsi nai zena; jaten duenak ogi gontatik biziko da beti, eta nik emain duten ogia da neure gorputza munduaren biziagatik. Eta porfiatzen zutelaik elkarreki judioek, nola eman zezaken jateko bere gorputz propioa, erran zue: Sines, bai sines, erraten diziet ezi ezpaduzie jaten Birjinaren Semearen gorputza ta edaten beraren odola, estuziela izanen bizitza zeuren baitan. Jaten duenak nere gorputza ta edaten duenak nere odola, du bizitza sekulakoa, ta nik biztuko dut azken egunean. Nere gorputza egiaz da janari, ta nere odola egiaz da edari. Jaten ta edaten duenak nere gorputza ta odola, dago enebaitan, ta ni berabaitan. Ala nola biali bainau ni nere Aita biziak ta ni bizi bainaz nere Aitagatik, ala jaten nauenak ni biziko da ori ere neregatik. Auda ogia zerutik etorria, ez ala nola zuen alzinekoak jan manna ta il baizire; ogi gau jaten duena biziko da sekulakos. Aiturik itz gebek anitz bere diszipuloetaik asi zire murmuratzen: Gauza errua da diona, nork dezake aditu? Kristok erran zue: Nere itz errantizietenak dire espiritu ta bizitza. Andik anitz diszipulo joan zire beraren eskolatik; Jaunak erran ziote amabiei: Nauzie zuek ere joan? errespondatu zio San Pedrok: Jauna, norengana joanen gara? Orrek ditu bizitza sekulakoaren itzak, eta guk sinestatu ta ezaundu dugu ori dela Kristo Jangoikoaren Semea. Eta guk ere, ene fielak, San Pedroren atzetik sinesten dugula fede firmeareki misterio gau ain miragarria, fiaturik gure Jaunaren itz dibinoan, ematenzaigula

gure alimentutako, txasta zagun ta ikusagun zein suabea den gure Jauna; admira gaitzen ta estima zagun erregalo gau pensaala baño iagokoa. O Maria, ori da lur bedeikatua eman diguna ogi dibino gau, ori zarmendua ekarri zuena matsa, nondik atra den ardo jeneroso gau, bigu, alaber, ongi artzeko grazia. Abe Maria.

Nork adiarazi gure Jaunaren ongi-eginak gure alde? Ez kontent kriatuas, konserbatuas, konsagratuas kristio, erreskatatuas bere biziaren kostus, ta konsolatzeas bere presenzia errealki sakramentu aldarekoan, dignatzen da alimentatzera ta erregalatzer bere gorputz-odol preziosoeki! Arritzeko da beiratzea alako Jaunaren Majestadea presente errealki ain apal, ain humil, alako forman, edozein elizatan, sagrario txipi batean, naiz pobre ta naiz indezente ere. Oraño ia arritzeko da sartzea persona humanoaren barrendegian, den geienas baita aragiskoa, ta agian inmundo-indignoa! Zer da diotena? Da zenbait kontu zar sukaldetakoa? Da zenbait iduripen edo pondera zio-utsa? Ez, baizik egi eta fede puro, klaro erreala, ain zierto nola Jangoikoa baita Jangoiko. Bada o gizonaren atzenkor, ta zenzu gabea! Nola esta bat zorutzen kontentus, urtzen amorios, desegiten agradezimentus? O gorputzaren lur pizu gaixtoa, zenbat estorbu iten dioken arimai, ez dezan ikusi, admiratu ta estimatu alako fineza, zein den adiña ezpaita mirik explika dezakenik, esta juntabaleites ere batean aingiruen, kerubinen ta serafinen miak? Jangoiko guzia gizonaren alimentu ta erregalo! Esklabo pobre deus gutiak jaten miragarriro bere Jauna! kriatura bat betetzen Jangoikoas, bateratzen Jesus berareki! O gure Jaunaren ona, zer ez dezakegu espera orrenganik? Zer estigu emanen ematenzaigularik berori guziori gisa ortan? O konbita preziosoa, dulzea ta gustos betea, non gozatzen baita dulzetasun guzia bere iturraman! ez naiz arritzen sanduen ta sanden goseas, ansias ta zoratasun amorioskoas erregalo goneki, ezin daike egin berzerik, ezaunduaskeros ongi egia dena. Arritzen naiz kristio geienen epeltasun ta desganas; badakusat kausa, beti lurrean sarturik, pensatzeuntena lur, deseatzuntena lur, zeren ikustenestutenak lurreko begieki mella guti edo batere iten diote; alfer kasi arimaren begiak; eskuiekkoa, baita fedea, ilunkara, ezkerrekkoa, baita entendamentua, lostorditurik bekala, Jangoikoaren argia ez abasto, zeren ezpaitute prokuratzen. Gisaontan ez gustorik, ez goserik, ez admirazorik, ta apenas ajolarik estute erregalo dibino gontas, janari prezioso gontas, zeñen naiak, zeñi beira baitaude aspertu gabe aingiruak. Ezpauzu nai baliatu arimaren begies, estiot deus; neurtzen bauzu bistara edo idurira, esta baizik amen bat, ta ori txipia, baño ain baliosoa errealdadean, ezi lurrean estugu zereki konparatu, da zeruko delizia guzien mamia ta sustanzia. Eta Jangoikoak berak enpeñaturik bere podorio, xakintasun ta ondasun guzieki eman bear digula dezaken obena, ez lezake aurki zer eman obeagokorik niolater. Ô si scires donum Dei! O ezaun bagindez Jangoikoaren erregaloa!

Onen mostratzeko kontatzentu ebanjelioan bi parabola (Math. 22 et Luc. 14). Lenbizikoan dio ala: Da semejante zeruetako erreinua errege bati, zeñek zelebratu baizitue bere seme prinzipearean bodak, ta konbidatu zitue anitz persona. Berzean dio ala: gizon batek prestatu zue afari bat andia, ta konbidatu zitue anitz persona. Bi parabola gebek ain elkarri idurituak dire, ezi Maldonadok dio direla biok bat; baño komunki uste da direla bida, ta bi alditan erranak. Bietan konbidatuak eskergaitz nagi, atxekiosoak izan zire, ajola guti inzute konbitas beren tratu, lan ta joanetorriengatik; ta asarraturik, Jaunark despeitu zitue ordugaixtoan aiek ta deitu zitue pobreak, itsuak, malderrak. Eben izan ze fortuna. Sakramentu aldarekoan bateratzen dire bi parabola gebek, zerengatik emen Erregen Errege Jangoikoak zelebratzentu bere Seme Jesusen bodak arimareki; emen dugu afari ta konbit andi gura; gizona deitzen da afari gontan konbidazalea, errege artan, emen Kristo da guzia

batean, delarik Jangoiko ta gizon, errege ta esposoa, eta bera, alaber, konbidazalea, ta konbita ta erregalo guzia. O gure Jaunaren marabillak! Boden zelebrazioa deitzen da edo desposarioa, zerengatik komekatzen den arima unitzen du bereki gure Jaunak; in me manet, et ego in eo, enebaitan dago, dio, ta ni bere baitan. Deitzen da afaria, zerengatik azken gau gartan fundatua da, eta zeren ala nola afariaskeros ezpaita berze otronzerik, baizik loaren deskansua; ala, komunionekeo erregaloaren gañetik esta deus, baizik gloriako deskansu eternoa. Artako ere da prenda konbita gau, futurae gloriae nobis pignus datur. Lurrekoen konbitak, otrontzeak, erregaloak ta prebenzioak, onen aldean kontu txinurrien joanetorriak ta prebenzioak.

kontatzen da eskritura sagratuan, Asuero egun ta ogeitazazpi probinzietako errege zenak egin zuen konbita famatu gura ostentatzeagatik sendagalla bere gloria erreinukoaren ta podorio andiarena. Konbit zire erreinuko andi guziak lenbiziko lekuan, gero korteko jende txipi andi guziak, ainberze aparato, urre, zillar, ziriku, fabrika ta gauza maien paratzeko; gero ain prezioso ta abasto biandak, ardoak ta edariak, nola zegokion ain errege andi bati; zerbitzua puntual guzia baktxaren gustora, zer nai zuen ta nola. Iraun duzue egun ta laurogei egunes. Zer da au guziau? Baizik arrotu iduri anitz ta deus guti substantzian. Gure Jaunaren konbita gau deus guti da iduris, ta infinito sustanzian, ta dirau mundua mundu den bitarteo. Eta zer du zer ikusi Asuerok Jesu Kristoreki, zein baita zeruko ta lurreko errege? Konbita gartaik esta errestorik, ta il zire jan zutenak; jaten duenak ongi ogi bizi gau biziko da sekulakos. Artaik jan zuenak aldatu zue parte bere sustanzian, parte superfluidadean. Ontaik jaten duena aldatzen da Kristoren kondizioetara, ta errebestitzen da Kristo beras. Sartu gara ia ain barna, ezi estaki batek nola explikatu, baizik arriturik exklamatu, nori gogoratu bear zekio jan ta edan bear zuela gizonak Jangoiko gizonaren gorputz ta odola? Ala unitu bear zela gizona Kristoreki? Bialibalezo bati zeruko erregalo gaietaik txastatzera desterru gontan, zer bozkariundea? digna baledi uster a de zogun bere oña edo eskua edo bularra, zer urtzea amorios? Bada, ertxitu balez bat bere besoen ertean Jaun dibinoak, zer azoratzea kontentus ta kariños? Eta guziau gutiago da ezi unione miragarria, zeñeki unitzen baitu bereki arima komunionean. Zereki daike konpara? Orai oroitzen naiz nola egon zen bere Ama Birjinaren entraña sanduetan. Birjina ditxosa, Maria parerik estuena, orrendako sollik da, orri sollik zegokio Jangoikoaren enkarnatzea ta azitza berorren sabel birjinalan. Pribilejio gau usten dut berex; gañarakoan (barka bezada Ama dibina, ezin adiarasteak kausatzen dida erratea diotena), gañarakoan berorren sabel birjinalan egon zena bera esta egoten dena ene barnean? Berorren besoetan egon zena bera esta egoten dena ene eskuetan? Bera da errealki, naiz berze gisa batean; ala bear dut sinestatu arimaren penan. Bada, zein ona da gure Jauna ematen zaiguna alimentutako bera? Zer iduri zaigu konbita gontas? Zerik da erregalo gau ain extraordinarioa? Zer amorio da ura obligatu duena unitzera gureki bera, ta berareki gu gisaontan?

Eta estakigula iduritu kostatu zaiola guti. Gutti kostatu zekio egitea zerua ta lurra, animaleak, egasteak, arraiak, plantak eta gauza guziak; gutti kostatu zekio krietzea aingiruak eta gizonak. Erran ta egin, ipse dixit, et facta sunt. Baña ez ala emateko bazkari gau, baizik kosta zekio onen prebenitzea, beñik bein bedratzi ilabetes azitza bere Ama Birjinaren entraña sanduetan, jaiotza pobreza ta desabrigo andian, bizitzea ogei ta amirur urtes neketan ta beti lanean, ta azkenean padezitza pasio, ta eriotze lotsagarri bortitza. Eta fundatu bazue ere otrontze gau bere eriotzeain bezperan, izan ze onen birtutean. Au izan ze ala nola erretza ogi gau tormentu ta doloreen labeen; ala nola prensatza mats dibino

atratzeko ardo prezioso gau bizkortzeko gure arimak. Orgatik zio Dabidek egin zuela gure Jaunak bere marabillen memoria bat, *memoriam fecit mirabilium suorum*, au da marabilla bat enzerratzen ta koronatzentuen marabilla guziak bere baitan. Zein da au? *Escam dedit timentibus se*. Ematea janari gau beraren beldurdunei. Au emanartaño ezin sosegatu ze gure Jaunaren amorioa ta ansia guri onginaia. Orgatik azken afari gartan erran ziote apostoluei: *Desiderio desideravi hoc pascha manducare vobiscum*, deseos deseatu dut bazkoa gau jatea zuen konpañian; zertako? Usteko amorioaren azken fineza ta ongiegin guzien korona. Lenbiziko milagroa in zuelarik itzulis ura ardotan, erran zio bere Ama Birjinai: *Nondum venit hora mea*, oraño esta ellegatu nere ordua. Baña kontatzeko ebanjelariak nola itzuli zuen ogia bere gorputz preziosoan, ta ardoa bere odol preziosoan, adbertitu zue zekiela Jaunonek ellegatu zela bere ordua, *sciens Jesus quia venit hora eius*. Ordu zori-onekoa guretako, zeintan brindatu ta eman baizigu zeruetan den obena, zein baño ia ematekorik ezpaitu Jangoikoak berak. Bi zirkustanzia estimatzen dire erregalo iten direnetan, erregaloaren andia ta borondatearen afektoa. Gure Jaunak egin digun erregalo gontan dugu gauza ezin andiagokoa, ta dugu emana afekto ezin iagokoareki.

Despedidan mostratzen du amanteak amorioaren fineza; despedidan Jesus gure amante inkomparableak eman zigu amorio digunaren progurik oben obena, ziolarik ogiaren ta ardoaren sakramentuan: ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza; ar zazie ta edan zazie, au da nere odola; errabaligu (sic) bekala: ez dezaket, estakit, estut zer ia eman, ar nazazie neurau zuen alimentu ta erregalotako. Zer ia eman bear zigu, ene arimaren esposo amantea? O amen preziosoa, o trago miragarria, zeintan artzen baitugu Jangoikoaren ondasun guzia bateo! Nork ez lezake estima, konbida balez errege andi batek, ta parabalezo bere podorio, bere xakintasun ta dilijenziak izan duken preziosoen ta oben guzia? Eta ori egin du gureki gure Jaunak. Ibilirik mundu guzia, pasaturik itsaso guzia, ikusirik aize guzia, errejistraturik zeru guzia alderen alde, ezin aurkitu du Jangoikoaren podorio, xakintasun ta dilijenzia guziak gauza obeagorik, zereki erregalatu gu bere pobrettook. Esta alabañare gauza obeagorik bera baño. Manna igorri ziote israeldarrei, Eliasi sutopil bat milagrosoa, Daniel alimentatu zue leonen tegian, berze asko erregalatutu Jangoikoak zerutik miragarriri; baña guzia da gutiago sakramentu gonon aldean, zein ain aisa baitezake goza gizonak! Zein ongi deitzen den eutxaristia, au da grazia ona! O grazia ta zein ona! Estaike truka Jangoikoaren berze erregalo guziengatik au, zeintan gozaten baita bera. O nork luken fede bizia, debozio ardientea, dispozizio bear bekalakoa! Jesus nere arimaren alimentu ta erregalo! Zer ia nai du mundu gontan? Gizonen humeak, noiz arteo ain pizu biotzes! Zergatik nai duzie banidadea ta billatzen duzie gezurra? Biz zuen gose ta egarri guzia mai gontara, ezpauzie nai izan tontoak. Ez kasorik egin sentidoes, fedeak triunfatu bear du, sinestatzen dugula ain poderoso dela Jangoikoa, ezi baitezake egin, ta ain ona ezi nai baitu egin obra gau, zeintan ematen baitigu guk desea ta entendaala baño ia. O ene arimaren esposo amantea, zer estut esperatuko berorrenganik delarik ain ona on ez gareneki? esperatzen dut aurkitzea grazia orren begietan emen, ta ikustea gero ta gozatzea orren edertasuna glorian. Amen.

Sermo XXXVI:

De materiâ eucharistiae et cur

Accepit Jesus panem, ac benedixit. Math. 26.

Nolako alimentua ta erregaloe eman zigun Jesu Kristok eukaristian nai izan dugu aipatu azken platikan, orai materia zeintaik in zuen sakramentu dibino gau. Sakramentua jeneralki esta berzerik, baizik señalet bat ageri dena, signifikaetzen baitu zerbait ageriestena. Sakramentu guzietan autatu zitue gure Jaunak gauza materiale batzuk mostra zezatenak konbenienteki iteuntena aiek ariman; b.g. Bataioko autatu zue ura, signifikaetzeko garbitzen duela arima bataioak, nola urak gorputza. Urak garbitzea gorputza esta sakramentu, baizik gauza naturala; baña bataioan urak ukitzen du gorputza, ta Kristoren birtuteak arren medios garbitzen du arima, ta ortan dago sakramentuain izatea, gauza bat iduri begietara ta berze bat, sekretoan, barnean, ariman, obratzea. Konfirmazioko sakramentuain materiatako autatu zue olio ta balsamoa signifikaetzeko indarra ta grazia ematen duena arimai sakramentu garrek konfirmatus fede errezibituan. Ario gontara berze sakramentuetan.

Aldareko sakramentuan autatu zue materiatako ogia ta ardoa, signifikaetzeko ezi ala nola ogiak eta ardoak alimentatzen baitu gorputza, ala aien akzidenteen pean paratzen den axuri dibinoak alimentatzen duela arima, baña abantalla andiareki. Suponiturik ezi ogi edo ardoas landara berze edozein janari edo edari estela aski ta ez balioso egiteko sakramentu gau, suponitu bear da, alaber, eginaskeros sakramentua, estela an ez ogirik ta ez ardorik errealidadean, baizik aien akzidenteak sollik Kristoren gorputz odol preziosoan substantziareki; orai diskurritu bear dugu gure gisara zer motibos edo fines etzuen nai izandu autatu berze gauza preziosoagokoren bat materiatako, baizik solamente ogia ta ardoa ain komun ta ordinario direnak? egin zuenak daki ongi zergatik egin zuen ala. Baña guk ere dugu lizenzia diskurritzeko peligratu gabe fedean, itxekitzeko geuren debozioa alde gontaik ere. Ama dulzissima piedadearen esnes betea, karidadearen dulzetasunas ta miseriakordiarene suabidadeas. Ama dibina Semearen gisarakoa, orri beira gaude limosna eske nai badigu eman bear dugun grazia. Abe Maria.

Bizarriaren grazia da anitz ematea ta anitz aldiz, guti iduriarazirik; esta alakoa mundukoena; gure Jaunarena bai, alakoa da. Ia ikusirik dago kausa bat, zeñengatik egin zuen eutxaristiako sakramentua ogi ardoetan, baitire ain komun ta ordinario. Orrengatik berorrengatik, zerengatik baitire ain ordinario ta komun, dio Santo Tomas doktore aingiruak, eskojitu zituela gure Jaunak sakramentu gonene materiatako, errezi bi gindezaken aisa ta maiz guti kostarik balio duena infinito. Paratu bazigu materia agitz prezioso batean, ala nola Kleopatra ero garrek atra baizue plater batean perla bat ogei ta borz milla dukat balio zuena, zer pobre leike ellega gozatzera sakramentu gonene deliziak? Baldin Justiniano banoaren gisa nai izan bazue prebeni zeien konbite gontako sala bat bere konbiteendako ark zuena bekalakoa, guzia urrestaturik, bobedak, sueloa ta pareteak, guziak urresko plantxes estalirik, urreskoak maiak, katedrak urreskoak; plater ta zerbitzuko instrumentu guziak urreskoak, zenbat naiz errege izanik leizke ellega txastatzera aingiruen erregalo gau gisa ortan? Ez ala, baizik komunikatu naies bere amorioaren ondasunak guziei, gelditu ze ogi pixka baten idurian ellega zeizken pobreak, aberatsak, andiak, txipiak, nornai, guziak beragana atxekiarik gabe. Zelebratua da Asueroaren konbita gura, zeren ain berzeei ta bere

ziudadeko guziei txipi andiei eman zioten jatera ta edatera anitz egunes. Admiratzen da Alexandro andiaren konbita gura, zeintan izan zituen amar milla persona bere maiean. Eta Benzeslao Bohemiako erregeren bodak, zeintan eman zioten jatera egun milla personei Pragako ziuclidean. Beude, beude atzerat konbita gaiek: Presente dugu konbita bat, zeintan egun milla, berregun milla, ta millon arima baitaizke sustenta ta erregalatu amen baten, ta ogi guti baten iduriaren medios. Ain aparato gutireki, ain aisa eskunara erregalorik andiena? Au baita portatzea Jangoiko gisa.

Bigarren motiboa, zeñengatik autatu zituen materiatako ogia ta ardoa, da zeren ebetan fundatzen diren ondasun guziak. Trabajatzen dute gizonek, ta galdegiten badiogute zergatik, errain digute ezi atratzeagatik ogia bizitzeko. Ogia baizik ez? Ogian entendatzen da sustentua, bestitzea, konbenienziak, guzia. Orgatik Aitagurearen orazioan diogu emandra zaguzu egunorosko ogia; ta zer eskatzen dugu petizio gontan? eman dezagula mantenimentu konbenientea gorputzendako, ta graziarena ta sakramentuena arimendako. Orgatik, bada, autatu zue sakramentu gonon materiatako ogia ta ardoa, adiarasteko ia ontan eman digula bear dugun guzia. Aun Isaak zarrak eman ziolaik bere bedeizioa Jakob seme gasteenari, gero etor zekiolaik Esau seme zarrena eskatzera bedeizioa, erran zio Aitak: aseguratu diot ia zure anaia Jakobi ogia ta ardoa, zer emandezakezut ia zuri, nere seme? Frumento et vino stabilivi eum, et tibi, fili mi, ultra quid faciam? Nola erran balio berzeai: eman diot emateko den guzia, etzaida deus gelditu zuretako. Ala da, ezi dionak ogi ta ardo, dio gizonaren bizitzeko bear den guzia; eta ogi-ardoen idurian Jesus da arimaren sustentu kunplitua, ezpaitaie ia dese.

Irugarren motiboa da zeren ogia prinzipalki baita janari guziei daramana abantalla, guzien zimendua bekala, ogirik gabe deusere kasi ezpaita kuadratzen, ta ogiak ezpaitu enfadatzen sanoa ez egun, ez biar, ez beñere; beti ogia nai dugu. Parabeites janari-gisa guziak maiean, ogirik ezpada, kontu deus estela. Ogiak ematen du ongi janari beroareki, otzareki ere bai, akonpañatzen du dulzea, tenplazen du samiña, guzietara iten du berzeek ez bekala; inter ferculat praestat. Paratua bada Jaun onak sakramentu gau ogiaren idurian, da estaien nior aparta kuadratu faltas, ta entenda zagun, ogia on den bekala guzietarako gorputzaren alde, dela sakramentu gau ere arimaren alde, ezpada falta disposizioa. Nauzu orazio egin? ematen du ortako sakramentu gonek debozioaren su dulzea. Onen alzinean zitue Santo Domingok bere extasis ferborosoak, San Franzisko Xabierek emen deskansatzen, indar ta ats arzen zue bere nekeen ertean. San Franzisko Borjak onara zue bere errekursoa zazpi aldiz gutiena egunoro, ta ezaunzen zue bazen edo etzen sakramenturik edozein elizetan. Santa Teresak, San Luis Gonzagak eta guziek emen zituste beren deliziak ta negar gozoak. Nauzu estudiatu? Nauzu ikasi? Sakramentu gontan aurkituko duzu argi ta zapore. Emendik atra zue Santo Tomas doktore aingiruak argitasun gura zeñeki gobernatu baizue bere pluma orai argitzen duena mundu guziai. Emendik atra zue Santo Tomas de Billanuebak, San Buenabenturak, Santa Teresak su deboziosko gura ageri dena beren libru ta itzetan. Orgatik zio San Franzisko Salesek estela prediku obeagorik nola emengo suaren argira estudiatzen dena. Orgatik zio Suarez eximioak meza erraten etzuen egunean seko senti zuela ala espiritua nola pluma. Dudatan zaude azertatu naies? Triste edo turbaturik ilun gogoa? Iruzki gonon argiak alegrarazi ta azertaraziko dizu. Emen Santa Teresa bere turbaziorik andienetan komekatu orduko aurkitzen ze ain serena, alegre, animosa, desterratzentuen gisa goizeko iruzkiak gaueko iluntasunak. Azertatzeko estadoaren elekzioan konsulta sagrarioaren alzinean. Logratzeko pazienza, sar zaite Jesusen llagaetan. Kastidadea nai bauzu, humildadea, karidadea ta birtute guziak,

ogi dibino gonek azitzentu ariman pegatus bere kondizio nobleak. Bizi guzian on, ta ilzerakoan bearrago duzu alimentu gau. Martirak prebenitzen zire kordiale goneki, sandu guziek naute pasatzeko eternidadera otamen gau, orgatik deizen baita biatiko, au da, biderako probisioneak. Jangoikoak berak aingiruei manatu izan diote emateko au zenbait sanduei, nola San Ramoni, San Estanislao Kostkari, ta berze batzuei. Abisatutu zerutik sazerdoteak, eramateko eri zeudenei, nola San Honorato, erman zezon San Ambrosiori. Orgatik elizan da prezepto komekatzeko eritasunean. Ain guzietarako da on ogi zeruko gau, ezi eriotzearen samintasuna ere dulzatzen du. Manaturik Eliseok egosteko elze batean belarrak, jatera emateko profetei; egosi ondoan atrarik ain samin, aurkitu ze ezi etzeike pasa, ta erran ziote: Jauna, erioa elzean. Ark manatu zue botatzeko irin guti bat, ta solamente oneki dulzatu ze guzis (4. Reg. 4). Eltze gark signifiktzen du proprioki gure gorputz lurrekoa, erioa da itzak diona, samin da ta lotsagarri; zer erremedio? Irin guti bat, au da, irines iten den ogitik transustanziatuik au konsagrazioko itzen birtutes, ta eginik ia ogi bizia ta bizi-emanzalea dulzatzen duena eriotze naturala ere. Ikusteunzie zein ongi signifiktzen den ogiaren kondizioetan sakramentu gonon paratua artan ta onen exzelentzia guzien ertean?

Guzien gañetik kuadratzen zaida misterio adbertitu zutena San Agustinek ta Santo Tomasek paratuan sakramentu gau ogi ta ardoaren materian, baita karidade ta unione kausatzen duena Kristoren ta gure ertean, ta kristio guzien ertean elkarreki; orgatik deizen baitu San Agustinek piedadearen sakramentua, unionearen señailea, karidadearen lotzakia. (H. 26 in Joan.). Ala nola ogia egiten baita anitz gari-pikorres ta ardoa anitz mats-pikorres bateraturik guziak, ala izanik anitz kristio unitzen gara Kristoreki, ta elkarreki sakramentu gonon medios, ta iten gara gorputz bat bekala guziok, buru delaik Kristo, gu mienbro-lagun. Zer unione andiago nola alimentu arzendugunarena geuren gorputzareki? Alimentua itzultzen da gorputzaren substantzia. Arimaren alimentu goneki, alaber, iten da unione bat miragarria, diferenziareki ezi artzen duenak ezpaitu itzulzen Kristo bere baitan, baizik bera aldatzen baita Kristobaitan. Beras, komekatzen dena iten da bat bekala Kristoreki? In me manet, et ego in illo, dio, ene baitan dago, ta ni berabaitan. Dio berriz: Sicút missit me vivens Pater, et ego vivo propter Patrem, et qui manducat me, et ipse vivet propter me, ala nola biali nauen ni nere Aitak, eta ni bizi bainaiz nere Aitagatik, ala jaten nauen ni, biziko da neregatik. Beras, arima gorputzareki bekala unitzen da Kristo arimareki? De manera ezi erran daiken dela arimaren arima ta arimaren bizitza, erran dezaken komekatzen denak San Pablok ziona: Vivo ego, jam non ego, vivit vero in me Christus, bizi naiz ni, ez ia ni, baizik ene baitan bizi da Kristo. Dire ebek gauzak entendaestaizkenak txoil, ta entendatu bear direnak fedearen konforme.

konparazio gebeki ikusagun entenda dezakegun zerbait. Ala nola urrea urturik ixuri baledi urna batean, ia guzia urre iduri baileike, ala nola ikaz bat sar baledi su andi baten barnean, ia ikatza ez ikatz, baizik su flamantea bailitzake. Ala nola, ta au da San Zirilo Alexandrinoren konparazioa, (Breviar. oct. corp. Xpti.) ala nola argizari urtuan ixuri baledi berze argizari bat, guzia nasirik bat iten baita; edo nola orantzak, ortzitzen baitu oreka guzia; ala dago Kristo gure baitan ta gu Kristobaitan sakramentu gonon medios; de manera ezi dio berze San Zirilo Jerusalengoak: Iten gara, errateko ala, Kristoren gorputzekoak ta odol-berekoak, aideak elkarrenak. Ia estaike erran ia; ta ala obeda admiratu gure Jaunaren ontasunas, digun amorioas ta bereganatu naias. Aitu duzie ia zergatik den fundatua ogi-ardoaren materian sakramentu dibinoa, baita adiarasteko ain aisa, llano ta komun eman nai zaigula gure Jesus ona, nola janari ta edari ordinarioa;

adiarasteko bera baitan dugula gure bizitza espiritualaren sustentu prinzipala; adiarasteko berabaitan dugula ondasun guzien bilgure, bear guzien erremedioa, gusto ta erregalo guzien iturrama. En fin, adiarasteko unione nai lukena gure Jaunak, eta guk bear duguna berareki, aparta ezkaitzen gisan, ez emen ta ez berze munduan, ez orai ta ez gero, ta ez sekula guzian. Ikusteunzie nolako amena ta tragoa ematen digun, ta ain iduri gutian? Nola alimentatzen gaituen bereok gure Jaunak?

Bada, alimentu onareki azitzen denak bear luke azi alimentuaren gisara ongi, ezpaliz estomagoa gaistoa. Ala arima ona balitz bein komekatuaskeros ta unituaskeros Kristoreki, Kristoren gisara izan bear litzake sandu perfekto kostunbre ta bizimoduan. Ia ez gizonak, baizik Kristok manatu ta gobernatu bear du sartu den biotz ta arima gartan. En fin, kristioak bear du errepresentatu akzione ta gauza guzietan Kristo bera, zeñeki unitu baita. Esta dezente izan daien errebel Jangoikoaren kontra sentido edo potenzia baktotxik ere. Zein gauza itsusia biotz bat konsagratu dena Kristoren presenziareki okupatzea amorio ta afizione txarretan! Zein indezente da mi gura zeintan paratu baita hostia sanda, enpleatzea murmurazio, maldizio ta itz gaistoetan! Zein indigno gorputz, arima ta persona izan dena Jesusen tenplo ta sagrario, itzultzea inmundiziaren tegi! Axuri dibinoas azi, ta izan otso! Pesteduneki komunikatzea aski izaten da kutsatzeko; eta komunikatzea ain urbil Kristoreki, sanduen sanduareki, esta aski apegatzeko santidadea, birtuteak ta kondizio onak? Santa Magdalena de Pazzi aurra zelaik ere, solamente ikusteagatik komekatzen joaten ze elizara, ta bere ama komekatzen zen egunean etzuke apartarazi bere aldakatik, erraten ziolaik aurttoak sentitzen zuela Kristoren atxon bat arren baitan. Zer izanen ze, komekatzen zelaik bera? Santa Klararen monja bat, B. Koleta deizen zenak, zio estimatzen zituela begiak solamente ikusteagatik sakramentuaren akzidente gaiek, ortan senti baizue konsolu ta erregalo andia. Zer izanen ze, errezibitzen zuelaik berebaitan? Santa Teresak apareziturik erran zio zegon bati ansiaturik ikusi naiak Jangoikoaren aurpegia: Zerengatik aflijitzen zara, daukazulaik egunoro aldareetan? Guk zeruan ikusten duguna berbera da zuek beiratzeunziena hostia sandan; diferenzia da ezi zuek fedes, ta guk klaro; baña duzie abantalla ontan, baitezakeze aumentatu merejimentua, guk ez dezakeguna ia. Estima, honra ta adora zagun, bada, bere sakramentuan gure Jaun ona, ain andi izanik ain txipi iten dena. Maita zagun gure arimen esposo amantea, ain disimulaturik ainberze ongi iten diguna. Konsola gaitzen berareki desterru gontan, ellegatuartaño ikustera klaro eternidadeko glorian. Amen.

Sermo XXXVII:
De maximo miraculo
divini amoris communione

Accipite et comedite, hoc est corpus meum. Math. 26.

Beras, pensatu bear da errealki dagoela Jangoikoa tenplo gontan, zio Salomonek fabrikatu ondoan tenplo famatu gura Jangoikoai, bete zelarik beraren Majestades; eta añaditu zue: Bada, zeruak ta zeruen zeruek ezpadezakete kabitut orren Majestadea, zenbat gutiago nik fabrikatu dioten etxe gonek? Aplikatuginduza itz gebek kristioen tenplo materialeetara, zeñetan propioki baitago Jesu Kristo; ez solamente Jangoikotasunes, baitaere gizontasunes bere gorputz, odol, arima ta guziareki. Orai aplikazkigun komekatzen denaren aragisko tenploari, non sartzen baita Jaun soberano bera guzia. Beras, sinestatu bear da Majestade andi gura kabietaikena zeruetan, sarzen dela nere ta zure etxola aragisko txar gebetan! Zuk eta nik, ta berzeak, eta berzeak jaten dugula Kristo guzia sakramentuan? Eta nola dateke ori? Gure Jaunaren milagroen utses. Alakoak dire beraren lan miragarriak, ezi direlarik egiak, ta ain egiak nola Jangoikoa dela Jangoiko, beartugularik sinestatu, ezpaitezazkegu konprehenditu guzis, baizik arriturik estimatu, agradezitu ta amatu. Nere Jaun andia nere aragisko etxola txar gontan! O Jangoikoaren prodijioa, milagroa ta portentoa! Nork adiarazi? Nork xarretxi? ikus lezakenak errege poderoso bat enpleaturik guzia ar baten fabore, fabrikatzen obra andiak, okupatzen bere tropak, exponitzen bere persona erreala, ta egiten erran ezin daizkenak argatik, pensa lezake edo sinplaturik zegola errege gura, edo afizione extremo bates arturik animaletto garrengana. Beira Jangoikoa zeñen aldean gizona ezpaita ainberze nola txinurri bat, nola ar bat, nola barz bat erregeren aldean; beira diot erregeen errege enpleaturik gizonaren fabore fabrikatzen zerua ta lurra, ta gauza guziak gizonarendako, okupatzen bere aingiruak gizonaren goardatzeko, jausten bere Majestadea bere personan, bestitzen gizonaren naturalezas, exponitzen ta ematen bere bizia gizonagatik. Ia da in duena errealki Jangoikoak gizonagatik, ezi finjitu duguna iten zuela errege garrek arregatik. Bada, estaike erran sinplatu dela edo estakiela zer ai den gure Jangoikoa; erran bear da, beras, dagola prendaturik afizione ta amorio extremo bates gizonagana. Badu zer ia egin guregatik Jangoikoak? Baita egin ere badu ia; azken extremo amorioarena, ogiaren ta ardoaren idurian ematea gizonai bera den guzia. Emen ia goazen ez erabakis, baizik admiratus portento gau. Ama dulzisima, len lenbiziko izan zuena bere entraña sanduetan Jangoiko guzia, andik eman zuena argira jaintsirik humanidadeas, ellegatzeko gu ere noizbait errezibitzera estalirik ogiaren akzidenteen beloareki, bigu ongi estimatzeko ondasun gau orren gisara anitz grazia. Abe Maria.

Enkarnatuas Jangoikoa erran zue San Pablok: Semetipsum exinanivit formam servi accipiens, ustu zela bere Majestadeas Jangoiko andia arturik sierboaren forma. Ta ala da, ezi Jangoikoaren Majestadeareki zer ikusteko dute aurraren ezindeak, nigarrek, maiolatzeak, faxatzeak, ganbelan erreklinatzeak? Zer ikusteko dute Jangoikoaren soberaniareki sierboaren ta gaistoaren desprezioek, prisioneek, ostikoek, bofetadek, azoteek ta gurutzeko eriotzeak? Eta guziau pasatu zue Jaun andiak guregatik. Baña aien gañetik orai zer errain du San Pablok, eta zer guk ikusten dugularik ez ia Belenen jaiorik aur ta erreklinaturik ganbelan, ez ia Jerusalemene preso gaizkigille-gisa, azotaturik ta ilik

gurutze batean, ez ia solamente elizan sakramentaturik ogi-ardoen akzidenteen pean, baizik ere sarturik edozein pobreen barrendegian, eta likits batenean ere bai agian? kantatzen du arriturik Elizak: Tu ad liberandum suscepturus hominem non horruisti virginis uterum, Orrek, Jauna, arturik bere kontura libratzea gizona etzue izan horrore ta lotsa egoteas Birjinaren sabelean. Kanta bez arri zio iagokoareki: Ô res mirabilis! Manducat Dominum pauper servus, et humilis. O gauza miragarria! jaten du bere Jauna sierboak, pobreak eta humil-apalenak. Ezi egotetik egotera doaie anitz diferenzia, egotetik Birjina eder garbi garren sagrario eskojituan, egotera gizonki edo emasteki edozeñen barrendegian, eta zer, balitz deabruen kubila ta bekatuen ofizina? Pasatzerakoan Belengo portaletik erranbaligu aingiruak artzaiei bekala: Au da jaio dena, munduaren salbazalea; zer admiratzea! Orai, komekatzean notifikatzen digu Jangoikoaren aingiruak, sazerdoteak, au dela ura berbera, corpus Domini nostri Jesu Christi etc. Nola ezkara admiratzen ia ta ia?

Kaifasen ta Pilatosen etxeetan, ta Kalbarioko oianean ikusi ze gizon bat gizonen oprobrio eginik, azotees, tormentus ta tratamentu gaixtos itxura gaizturik arras; alaere zeike ezaun gizon zela. Bai, ta beira zindeudelaik erranbazizu aingiru batek bearrira: Tori, ala ikusteunzun gizongoi gure ta zuen errege soberanoa da; zer arrizioa! Goazen andik elizara; beira komekatzean paratzen hostia sanda onen eta gaixtoen agoetan, beira iretsirik judas baten barnean, biotz traidore garren aldakan, ia ez gizonen oprobrio solamente, ezi gizonain itxuraik ere estu ageridenes, amen bat sollik da ageri dena, bai baña aizazu zer dion Kristo berak: Ego sum panis vivus, ni naiz ogi bizia zerutik jautsinitzana. Enkarnazioan, bada, ustu barin baze bere Majestadea arturik sierboaren forma, eukaristian ustu da bere Majestadetik, ta sierboaren forma artu zuenetik ere, ta deus gutitara, ogi pixka baten formara erreduzitu da. O prodijio guzien prodijioa, Jangoikoak sollik in zukena, ta aingirueki gizonak admiratu bear duguna ixil ixila. Zeruan ta lurrean kabituestaiken Jangoikoa jasten du gizon baten miak, enzerratzen du gizon baten estomagoak! Estu kasi deus iduri; egia da, baña ortan dago prodijioa, apalzea Jaun garren Majestadea ontaraño, kasi deus iduriestuen gisan.

Estire konparatzeko Jangoikoaren obrak gizonen obraeki, ta ala Jangoikoa gizon egitea, aur mostraptea, preso, azotatu ta ila izatea, esta konparatzeko erregerik andienaren apaltze ta urkatzeareki. Infinito da diferenzia, zerengatik Jangoikoa beti da Jaun-goiko bere parerik estuena, ta erregerik andienak, berriz, gizon lurrekoak dire. Guziareki, aitu balitz ere erregeren bat utzi dela azotatu ta urkatzera pobretto batengatik, ezpaita aditu sekulan; baña noiz edo non aitu dukeze oraño, niork eman diola jatera ta edatera noribaiti bere gorputza ta odola bizirik? Au Jangoiko sollaren lana da, ezin ikusi ta ezin aitu daikena berze niores. Zein arzaiek, dio San Krisostomok, azitu bere ardiak bere aragi ta odolareki? Ama onak bai azitzen du bere humea bere bularreko esneareki; abantalla anitz darama oni azitzeak gorputz ta odolareki. Amak berze alde estu bear beretako ematen duen esne gura, eta berak humeai emateas bekala mertxede iten dio humeak berai tiratzeas. Eta zer mertxede du Jesu Kristok, bera guk errehibitzeas? Plazer du alaere azitzeas gu bere gorputz propioareki ta bere zañetako odolareki. O Jesus, o Aita eta Ama, eta guzia guretako ezin obea. Leitu dugu ama batek mantenitu duela bere bularreko esneareki bere aita zarra karzelean zegoena sentenziaturik akabatzeraz goseak. Biziaren penan etzioke niork eraman amenik ere; ikustera zoezinak errejistratzuzte goardiek; estama deus? Pasa alzina. Bisitatzen zue bere alaba onak, lizenzia zue ortako, baña jatera emateko. Errejistratzen zute ia bazeman deus jatekorik; estama deus, pasa alzina. Bitarteo zeude arriturik nola zirauen gizonak bizirik jan gabe. Zer da au? Ziote. Nola bizi da? Ezpadio

ematen jatera bere alabak? Errejistraturik berriro etziote deus aurkitu. Etzema deus, baña bazema, zemazkie bularrak beterik karidades ta esnes. Noizerebait erreparatu zute alabaren ingenio karitatiboa, nola zegon esne ematen bere aita, eginik aita alabaren aur titikoa, ta aitaren unide alaba. Kuadratu zaize karidade gau, iagokoa da iten diguna Kristok eukaristian. Leitu dugu libratu duela emasteak senarra karzeletik, aldaturik tresenak ta sortean, gelditurik emastea senarrain lekuan jaintsirik gizon gisa, ta atrarik senarra libre emastearen treseneki. Leitu dugu nola inguraturik ziudade bat kordonean gerrako-etsaiek, ta pregonaturik edekitzeko biziak barneko guziei, solamente emanik lizenzia emastekiei atratzeko libre kanpora arturik nai zutena beren soñean, ikusi zirela atratzen bakotxak soñean bere konsortea, orgatik barkatu baiziotu guziei etsaiak. Leitu dugu porfian ibili direla bi adiskide, bietaik bat il bear zelaik, berzea libre joan, autara zutelaik, ibili direla, diot, porfian biak il naiak bata berzeagatik; bata: Zoazi zu libre, ni ilen naiz; berzeak: Ez baizik nik nai dut il, zu geldi zaite libre. Leitu dugu il dela gustoso inozentea libratzeagatik kulpantea. Guziau adiña ta ia egin du guregatik Jesu Kristok, gure Aita, gure esposo, gure adiskide ta redentore bakarrak. Guzien gañetik, ordea, leituestena berze niores azitzea bere gorputz ta odolareki bere onetsiak, au leizen ta ikusten dugu iten duela gureki eukaristian. Ar zazie, dio, ta jan zazie, au da nere gorputza. Ar zazie ta edan zazie, au da nere odola. Accipite et comedite etc.

Agitubañolen aitu bagindue erraten gauza gau, bear gindue sinestatu ala izanen zela, aski da berak erratea; baña arriturik gindeudezke pensatzen, nola edo zer gisas. Judioek ikusi zute egiten asko milagro, sorrak aditzen,itsuak ikusten, eriak sendaturik, ilak bizturik; ta alaere aitu zutelaik erraten: Nik emanendizieten ogia da neure gorputza; asi zire murmuratzen elkarreki: Nola dezakegu onek eman bere gorputza jateko? konfirmatu zue berriro bein errana: Ezpaduzie jaten Birjinaren Semearen gorputza, estuzie izanen bizitza zeuren baitan (Jo. 6). Orai ia ikusia dago nola, sakramentu niork pensatuko etzuen gonon medios. Baña esta orgatik guti admiratzeko, ezi Elizak au espezialki deitzen du fedearen misterioa. Mysterium fidei. Ofrezitubaligu bere zerbait errelikia edo memoria. Ia; ofrezitubaligu bialtzea noizean noiz serafin bat zerutik ango zenbait erregaloeki guretako. Ia; ofrezitubaligu jaustea bera urteoro bizpiru aldis, jarzea gureki maiean, ematea bere eskus erregaloren bat. Ia diot; ofrezitubaligu noiznai ginduen etorzea gure konpañiara ta ematea konbersazio; aisa gindezake sinesta progatutugunek mertxede andiagokoak, nola baitire iltzea ta padezitzea guregatik. Baña ofrezitzea bere gorputz ta odola jateko ta edateko da gauza bat progatzen duena ongi bateo bere podorio infinitoa ta bere amorio inmensoa. Erran bez arrazioreki Konzilio Tridentinoak, ixuri bekala zituela emen bere gizonenganako amorioaren ondasunak.

Nori gogoratuko zekio pobreenak zukela errezibitu ta iduki bere barnean Jesus bera, Ama Birjinak iduki zuena bedratzi ilabetes bere sabel birjinalean? Eta ala da egia. Erregek erman dezakezuke abantalla lurreko ondasunetan, baña ontan ez. Zer noaie erratera? Sanduei intioten erregaloak zerutik gure Jaunak, ia aparezitzea gisa batera ta berzera, ia mintzatzea amolsuki, ia txastarastea an gorako delizietatik zenbait tanta, finezak dire zoragarriak. Baña au gabe aiek ez lirazke ainberze, ta guziak baño ia estimatzen zute au, ta guziak baño ia da sustanzian. Zer falta da baizik ikustea begis, ta sentitzea sentidoes? Zakeok nai zue ikusi gure Jauna, baña etzuke txipiegi izanes. Igan ze arbola batera, deitzen baita sikomoro, ta euskaras biku-fatua; an ikusi zue gure Jaunak, ta deitu zue: Zakeo, ots fite jautsi ordik, ezi egun zure etxean bear dut. Jautsi ze, errezibitu zue alegre, ta egun berean obratu ze salbazioa etxe gartan. Orra ark etzue nai baizik ikusi, ta

gure Jaunak egin zio ia, ostatatzea beraren etxean. Propiki eldu da exenplu gau komunionekeo. Nork estu nai ikusi gure Jaunaren edertasuna? Baña normai da txipiegi emen dagon bitartean, ez dezake ikusi. Zer in bear du? Igan biku fatuora, auda, oinpetatu munduko gauzen banidadea, izan fede itsua, ta ala errezibitu gure Jauna; obratukodu salbazioa arren ariman. Gisaontan dezozke apa oñak, nola Magdalenak; dezozke uki llogen kuntzeak, nola Santo Tomasek; daike erreklina beraren bularretan, nola San Juan; ta dezake errezibitu Jaunonen besarka, nola aur gaiek, zeñetas baizio: Uzkizie aurrok datozin enegana, ezi alakoena da zeruetako erreinua; eta besarkatu ta bedeikatzen zitue. Zerk debekatzen du kristio fiela, nai badu komekatu ondoan urtiki Jesusen oñetan fede biziareki, eutxi tieso, ta erran ziona Jakobek: Non dimittam te, nisi benedixeris mihi, estut utziko non ta ez nauen bedeikatzen, non ta estidan agintzen sekulako salbazioa. Ortako zer eskaida ohea, ura baño? Bazindu pleituren bat biziaren gain, ta izan eskaida mintzatzeko erregei, baizezake dispensa justizia ta sentenzia, ta egin grazia, estima zindezake. Orai duzu pleitu sekulako biziaren gain, Jesu Kristok eman bear du sentenzia, dezake egin grazia, ta ez solamente duzu eskaida mintzatzeko berai, baizik bera alzinatzen da sartzera zure etxe barnean, nola ordea? Zure arimaren esposo bekala. Zer ia nauzu? Zer ia daike mundu gontan?

Deseagarri ta admiragarri dire sanduei gure Jaunak itentioten erregaloak mundu gontan ere; sobra geiegi honratutu bere adiskideak, o Jangoikoa, dio Dabidek, nimis honorificati sunt amici tui, Deus; eta berriz dio: Miragarria da Jangoikoa bere sanduetan. Baña ia admiratzen naiz iten digun erregalo gontas aun sandu ezkarenei, ezi ongi egiteas ongi korresponditzen diotenei ez naiz arritzen, baña ain ona izatea on ezkareneki, ainberze ongi egitea ainberze ofenditzen dugune, au baita arritzeko. Zer litzake onak bagina? Ekarzie aldarera sanduen fedea, aien debozioa, aien amorioa, aien birtutea, ta esta zer inbidiarik izan aien erregaloek, ezi guzien korona da komunioea, non unitzen baita arima Jesu Kristoreki modu miragarrian, ta propioki errateko iten da beraren esposa. Ala balitz ezaumentu ta afekto bear bekalakoa! San Hilariok zue alaba bat espirituala Jangoikoai guzia emana; sanduak erraten zio zeukala arrendako esposo bat guzis perfektok ta nai bekalakoa. Ezaundu naiak zego ura; ta egun bates manaturik presta zeila komekatzeko, prestatu ze, ta ellegaturik gradara komekatzeko, sanduak agerturik hostia sanda erran zio: Auxe da zure esposo dibinoa bere parerik estuena, Jangoikoaren ta Birjinaren Semea; oneki bear da unitu zure arima, ia deustara afizioneik geldiestakizun gisan. Au erran ta komekatu zue, ta ainberzeko amorioak artu zio biotza, ezi an berean akabatu ze bere esposo dibinoaren besarkan, ta egatu ze arima zerura gozatzera perfektoki sekulakos. O ditxosa! Biz nere arima ere alakoa, ojala! Bentzait beldurraren ta esperanzaren ertean sartuko naiz beraren bularreko llogan itsu itsua, ta errain diot: O nere Jauna, ta nere Jangoikoa! Auda bere amorioaren milagroa, onengatik estaiela kondena arima errezibitu duena. Nere jueza da ene esposo, nere esposoa da ene juez, izanik ain amoroso, ez nau galduko, ez, ez. Amen Jesus salbazalea, Amen.

Sermo XXXVIII:
De causâ cibationis eucharistiae.
Santificatione nostra

Nisi manducaveritis carnem filii hominis,
non habebitis vitam in vobis. Joan. 6.

ikusi dugu azken platikan Jangoikoaren amorioaren milagroa. Komunionean, egun ikusagun motiboa edo zer motibos egin duen milagro gau. Bere Majestadearen gloria da motibo lenbizikoa Jangoikoaren obra guzietan, ta gloria andia du ongi egitean bere kriaturei. Ala erraten diogu aingiruen himnoan edo glorian mezakoan: Gratias agimus tibi propter magnam gloriam tuam, esker ematen diogu bere gloria andiatatik, bai ta arrazioreki, zerengatik bere gloria da gure ona. Beras komunionearen milagroaren motiboa gure aldetik da guri ongi egi naia, komunikatzea guri bere ontasuna, eta ori dio izenak ere, ezi komunionea anbat da nola komunikatzea. On guziaren jenioa da ori, eta nola Jesus baita on guzien obena, prinzipioa ta kausa, komunikatzeagatik bere ona guri, beira zer injenioa injeniatu duen, azken injenioa, ezin obea, ezin propioagokoa. Errepara Jangoikoaren demostrazio amoriosko gizonagana. Onendako fabrikatu zitue zeruak eta lurra ta gauza guziak. Onendako errepartitutu denborak, egunak, gauak, udak ta neguak, ta disponitutu gauza guziak faltarik gabe. Onendako destinatutu aingiruak egiteko goardia, ta izateko aio, erakustun ta kidari bekala. Onendako imini ta publikatu zue bere legea solemnidade andiareki xakin zezan nola bizi ta plazer egin Jangoikoai, ta salbatu bera. Onendako igorri zitue len profetak, eta denbora guzietan gizon sanduak. Onendako egintu infinizio bat milagro ta benefizio; eta estute azken lekua kastigoek, zerengatik dire ontzeagatik gizona, ta alde gortatik benefizio eskojituak. Onengatik jautsi ze bere Majestadea zerutik bere personan, ta egin ze gizon, padezitu zue, ta iltze gizonagatik. Estaike erran onetsituela gizonak, ia ezi aingiruak? manera batean erran daike diona sandu batek: Dilexisti me plusquám te, quia mori voluisti pro me; onetsi nau ni bere burua baño ia, zeren nai izan baizue il neregatik. Heritu nai izan ze mediku soberanoa sendatzeagatik eri ingratoa. Azkenean ez usteko mediorik ontzeko ta salbatzeko gizona, beira Jangoiko gizona sartzen gizonaren barnean komunionean. Da konsideratzeko ongi motibo gau; baldin, Ama dulzissima, berorrek ain ona, ain ongi nai gaituena, ain guk bear bekalako Ama den orrek erdexten badigu bear dugun grazia. Abe Maria.

kriatu zue gizona Jangoikoak bere imajina ta semejanza perfekto sandu defektorik gabe, eta gizonak usatus gaizki utzi zion libertadea, egines bekatuak, bekatuetaik azis kostunbre gaixtoak, desenfrenatus pasioneak, dominatus kondizio gaixtoek, erreinatus bizioek, desfiguratu ta galdu zue imajina ta semejanza gura, eta Dabidek dion gisa, homo cüm in honore esset, non intellexit, paraturik honran gizonak estu entendatu, auda, esta portatu entendamentu duenaren ariora, comparatus est jumentis insipientibus, et similis factus est illis, bardinduda animale zenzugabeeki ta egin da aiei iduri duena, zerengatik subergia, luxuria, ira, gula, inbidia ta berze gañarako pasione desordenatuak ia dire deabruen ta animaleen propietadeak, ezi Jangoikoarenak. Ezi zer ikusteko dute Jangoikoaren santidadeareki bizio goiek? Eta zertan da gizona iduritua Jangoikoai borron goieki? Orai, bada, erreformatu naiak Jangoikoak bere imajina ta semejanza gizona baitan, bera den bekala garbi, puro ta perfekto guzis, nailukelaik izan

daïen oroat gizona bere ariora, orgatik eginaskeros bear zen guzia, egin ze bera gizon ta agertu ze gizontasunean gure maestru, kidari ta exenplu, adiarazi ta ikusarazirik ala, nola bear ginduken izan guk, au da Kristoren imajinak ta imitazaleak utzirik gizatasun zarra ta errebestiturik berrias (Colos. 3).

Ortako ikusazie azken injenio berria, sartzea alimentu-gisa gure baitan, nola erratenbaligu: Ezpada aski zuen ontzeko orai arteo egina, biz aski neurau etorzea zuen bakotxain barnera, orreki ni nagolaik zuen baitan ta zuek enebaitan, uniturik elkarreki batean bekala, ia etzaisten izan lenagokoak, baizik aldazaisten Kristo-iduri batzuetan, ia ez dezazkizien izan zeuren kondizio zarrak, jenio ta propiedadade gaixtoak, baizik apegadakizkizien nere jenioa, kondizioak ta propiedadadeak. Nola onduko zarate, ala ezpazarate? finjitu zue Anakreontek gezur bat, ezi amorioak tiraturik bati biotzera bere susko saetak guziak ustuartaño bere armategia arras, etzuketalaik alaere errenditu biotz gura, azkenean zer egin zue? Amorioa bera sartu omen ze biotz gartan, ta ala errenditu omen zue. Gezur gau egia atra ote daike misterio gontan? Bentzait Jaunonen aldetik bai, ezi bere lengo fineza guziak dire berze ainberze amoriosko saeta gure biotzera tiratuak. Komunionearena da bera guzia gure biotzean sartzea. Zer ia in bear zue gure ontzeko, ez egitera bortxa? Eta errepara, ezi ezkindeitzen deskuidatu errezibitzeko, paratu digu biziaren pena, ezpadugu errezibitzen, diolarik: Nisi manducaveritis carnem filii hominis non habebitis vitam in vobis, ezpaduzie jaten Birjinaeren Semearen gorputza, estuzie izanen bizia zeuren baitan. Nai duenak bizi, errezibi bez Jaun sakramentatua, bera da bizia. Nai duenak ondu ta santifikatu ta salbatu, errezibi bez Jaun soberanoa, bera da ontasuna, santidadea ta salbazioa, bidea, argia, zeruko ataria, gloriako prenda.

Nola esten aski injenio amoriosko egiteko gu beraren konforme kondizioetan? Zein txarra den gizona, ezpazaio pegatzen Jesusen kondizioetaik komunionekeo unione miragarriaren medios? Zer metale edo kastako biotza, edo arima da ura su andi gonon labeen estena urtzen, ederzen, luzitzen, erreformatzen? Nork explika unione andia arimarena Jesuseki komunionean komunikatzeko beraren kondizioak? aitu gindue San Zirilo Jerusalengoa, ziola iten garela komunionean gorputz ta odol batekoak Kristoreki, erran badaike, Kristo eramanzale ta naturaleza dibinoaren partizipante (Cath. mystag. 4). Aitu gindue Alexandriakoa, ziola ezi ala nola argizari urtu bat berze bateki juntaturik guzia bat in baileike, ala emen Kristobaitan arima, ta Kristo ariman dago. Ala nola orantzak penetratzen baitu oreka guzia, diote San Zirilo berak (L. 4 in Joan. c.17) eta San Gregorio Nisenok (C.37), ala nola ura nastekatzen ta bat egiten baita ardoareki, dio San Paskasiok (C.12 de corp.), ala nola burriña suan goriturik argitzen ta errezen baitu su gisa, dio San Juan Damaszenok (L de fide c.14), ala nola txertatzen baita plantagai bat arbola batean, bizten ta azitzen baita arren substantziatik, dio Santo Tomas de Akinok (Opusc. de sacram. c.20. Omnia haec ap. claus p.3 cath. c.42), ala nola urre urtuan sarturik eskua, edo berze mienbroren bat, bereala itzuli baileike urreskoa, dio San Krisostomok (H. 61 ad pop.), ala nola zarmendua dagolaik uniturik aienareki baitakarra fruitu anitz, gaudela bera baitan, ta bera gure baitan, dio Jesu Kristok, ta ala dagola komekatzen dena (C.6 et 15). Nola bada, nola ezkara egiten Kristori idurituak zerbaitetan berere komekatzen garenok ainberze aldis? komunione bat sollik aski da egiteko bat sandu, zio Santa Magdalena de Pazzik, eta nola ainberze komunione estire aski sandutzeko gu? Zer fruitu atra da errezibitzetik ainberzetan Kristoren gorputz preziosoa? Anberze odol dibino nola malogratu da gure baitan? Arritzeko gauza da alimentatzea zeruko erregaloareki, ta ain lurkoi, malder ta gaitz egotea! Axuri dibinoareki ain maiz komunikatzea, ta otso gelditzea! Kristoren sagraio

izatea, ta pasione, ta bekatuen presidario! Jauna, libra benaza.

Jaun sakramentatuaren intenzioa ta deseoa da santifikatzea, edertzea ta abrastea ostatua non den errezibitua, nola esta kunplitzen? Nork du culpa, baizik geurek? Bataioan solamente urak Kristoren itz ta birtuteareki garbitzen du arima errealki, ta egiten du sanda, naiz aurra izanik bataiatzen dena, ta bereganik disponiestaikena, baña estorburik paratu ere ez; nola estu egiten au berau komunionean Kristo berak errealki guregana eldu denak bere personan bere birtute guziareki? Da preziso konfesatzea parazen diogula estorbu gure aldetik, ta zein diren errain dugu gero, ezi Kristoren eskua esta txikitu, ta ez txartu biotza. Bizi zelarik Jaunau munduan pasatzerakoan karrikatik, andre pobre batek eri zegonak amabi urte gaietan, zio bere gogoan: Baldin ellega banindedi ukitzera nere eskuas jaun orren tresena, senda nindeike instantean; ellegatu ze, ukitu zue, sendatu ze. Orai ez tresena ukitu, baizik sarzen dugularik bere Majestadea geuren barnean, ezkara sendatzen ariman! Zenturionak eskaturik bere mutilaindako osasuna, erranik Jaunonek bazoeiela bera, ta sendatuko zuela, ark erreplikaturik etzela digno errezibitzeko bere etxean beraren Majestadea, aski zela itzes erratea, oneki sendatuko zela; erran zue Jaunak itza, an erran, ta berzea sendaturik aurkitu ze bere etxean. Orai ez solamente itzak, baizik bere presenzia errealak, ez solamente gure etxean, baizik gure gorputzain barnean estu sendatzen gure arima! San Pedroren itzalak pasatzean, ukitzen zuena sendatzen ze istante berean, orai ez itzalak San Pedrorenak, baizik Kristoren gorputz egiaskoak ta bere presenziak betetzen gaituelaik ezkaitu bizkorzen! Sanduen ezur ilek eta errautsek emateunte erremedio eriei askotan, eta Kristoren ez errelikia sollak, baizik gorputz preziosoak, ez ilik, baizik bizirik, ez solamente adoraturik kristale baten gañetik, baizik geuren barneraturik estigulaik erremediatzen arima, zer errain dugu? Kristori botakotiogu kulpak? Esta arrazio. Gurea, gurea da culpa guzia.

Geien komun alimentuaren gisa azizen da persona, ezpadu estomagoa gaistoa. Alimentu ain onas azitzen gara, nola ezkara onak? pegatzen da batai berzearen sarna, biak junto egoteas, edo atsa komunikatzeas; eta estela pegatuko ona, oroat, nola gaitza? Badakit aisago dela gaisto batek gaistatzea amar on, ezi amar onek ontzea gaisto bat. Baña Jesu Kristo denak milla ta guziak adiña ta ia, nola ezkaitu ontzen? Bentzait etzuke injeniatu medio obeagorik pegatzeko guri bere ontasuna, pureza, humiltasuna, karidadea ta gañarako birtuteak, gu nor bagara. Akonpañatzea bata berzeareki aski bada komunikatzeko kondizioak, ezi diones errefranak, erran zadazu noreki zabiltzan, ta erranen dizut nor zaren; ta Espiritu Sanduak ere dio: Sanduareki izanen zara sandu, gaixtoareki gaixto. Nola esta askiko unitzea Kristoreki komunionean komunikatzeko beraren kondizioak? O, esta erremediorik arrendako, norendako esten erremedio gau erremedio. Benenoain kontra da triaka, eta bekatuaren kontra Kristo sakramentua. Estu ikasiko gauza onik estuenak ikasten duelarik alako Maestraua petxoain barnean, paraturik katedra biotzaren gañean. Testamentuko arka, baize sakramentu gonon figura, paraturik dagon Jangoiko falsu garren tenploan, biramoneko aurkitu ze Dagon eroririk, ta errausturik lurrean. Dagon da bekatuetarako pasionea ta afizionea, oni tenplo iten dio bere petxoan bekatariak; baña komekatzen delaik paratzen du artan Jangoikoaren arka, sakramentu dibinoa; nola esta ia urratu ta desegin pasione gaixtoa alako Jaunaren aurkintzean? Zier to da gauza lotsagarria egon den biotzean birtuteen Jauna admititzea berriro bekatua beraren etsayik andiena, ez dezakena soporta. Quae conventio Christi ad Belial? oiuiten du San Pablok: Zer ikusteko dute Kristok ta Belialek batean? Quo societas luci ad tenebras? Nola daizke konpon argia ta ilunbea? Datorrelaik gau iluna, dio Dabidek,

(Ps. 103)) orduan da baseizien ta animale itsusien itekoa; baña atradaieneko iruzkia, estalzen dire aiek ta jaikitzen dire razionalak beren itekoetara. Altxatzen dire artzak, leonak, otsoak ta alakok beren kubila ta estalkumeetan, sugeak, serpienteak ta larrapoak beren toki, edo sasi, edo arrertetan; argia dute kontra. Bada, Kristo delarik justiziaren iruzkia, au sortuaskeros gure barnean, bidoezi ordu gaixtoan bekatuak, desterrabeites gogo ta afekto gaixtoak Jaunonen errespetos.

Kristio-iduriei Jangoikoa ta deabrua juntatunaitutenei, grazia ta bekatua, ona ta gaixtoa, Jangoikoaren gauzak ta beren apetituak, erdikal dabilzanei ia Jangoikoaren, ia deabruaren, oiuiten diote berriz San Pablok: Non potestis mensa Domini participes esse et mensa daemoniorum, etzaizkete izan partizipante gure Jaunaren maiaren ta demonioen maiaren, auda erregalo dibinoen ta apetituen plazer gaixtoen. Komekatu, ta alaere egin bekatu? Txastatu aingiruen ogia, ta segi aragiaren inmundizia? Zer da au? Orai aldarean sandu gisa, gero berze leku batean ofenditzen Jangoikoa deabru-gisa? Bat edo berze, komekatzekos ez egin bekatu, edo bekatu egitek os ez komekatu. Komekatzen bazara, gure Jaunaren sagrario iten zara; zoazi bestitus graziaren galas, adornatus birtuteen edertasunas. Estagokizu ongi bizioen itsuskeria. Ikusteunzu zein humil Kristo datorren zuregana, urra zazu suberbiaren ta banidadearen andidura utsa; ikasazu humiltasuna. Ikusteunzu zein liberal gure Jauna ematenzaigula guzien gañetik bera; il zazu kodiziaren zizain aseka begoi, in bekizu biotz noblea. Ikusteunzu dela Birjinaren Semea, ta Birjinen esposoa Jesus errezibitu duzuna; ia estadiela aipa ere inmundiziarik zurebaitan, ez memoriarik, ez arrastorik ere. Izan zaite garbi, eder beraren tenplo bekala. Aingiruen ogis erregalatzen zarenai inbekizkizu aingiruen kondizioak. Ikusteunzu zein sufritua Jesus ez solamente len bere bizian, baita orai ere bere sakramentuan. Zer ai da ira, odioa, mendekua, gaiznaia ta alako afekto txarrak biotz kristioan? Baña guzien gañetik ikusteunzu Jaunonen karidadea, zein amoroso, zein ongigille, aun gaixtoeki! Zer litzake, onak bagina? Karidadearen sakramentua da au, amoriosko sua; su gau sartu zeure biotzean, ta etzara senti itxekirik Jangoikoaren amorioan? Karidade daiken andiena egin gure Jaunak zuri, ta zuk mantenituko duzu odioik, inbidiaik, deseo gaixtoik niori? Alakorik barin bada da zeren estiozun Jaun oni anitz amorio. Au berere estakidala falta niri. Jesusek maite nau ni, nik ere maite Jesus, nai dut amoriosko sus erretzen egon beti. Jesus egin zaida nere esposo guzia amoroso, ezpanaiz guzis faltoso, izanen naiz ni ere bere. Neretako da Jesus, ta ni naiz Jesusendako, naizelaik ain errehus, ez naiz berze niorendako. Ala bear da izan presunzio sandu bat ez apaltzeko emengo txarrerietara, gara delaik Jangoikoaren tenplo biziak, ta gaizkelaik unitu Jesus berareki komunionean; o zer ditxa! Ta zein gauza andia, ezaun bagindez! Emen, emen iten dire pobreak abrats, txipiak andi ta deustako etzirenak guzietako. Emen dago sanduen fabrika ta ofizina, ta zeruraño igateko injenioa. Emen egin zire sandu sanduak, ta lurrean bizi zirelaik gorputzes, arima zeruan zeukate tratatus jaun oneki nola adiskide batek berzeareki, erregalatzen zituelaik Jaunonek modu miragarrian. O gureitsuak, ezpaitugu ezaundu nai non dagon gure on guzia! Zoraturik lurreko banidadeeki, in gabe kasorik gure Jaun ain onas, ta ain nai gaituenas! Biz nere erregalo ta amorio guzia orreki, ene Jauna, emen, aliketa erman nazan artaño ikustera berorren edertasuna bere glorian.

Sermo XXXIX:

De effectibus communionis dignae

Qui manducat hunc panem, vivet in aeternum. Joan. 6.

Erranik motiboa, zeñengatik gure Jaunak ideatu baizue komunionea, baita egiteagatik gu bere gisarakoak, humilak, mansoak, garbiak, sufrituak, indartsuak, sanduak eta perfektoak; ikusagun orai ortako duen birtutea, beiratus ariman itentuen efektoak, ez guziak, baizik prinzipalena; supositurik beti arimaren disposizio bear dena, zeñen ariora baitire efektoak, ala nola jan edan materialak ere estomagoaren ariora protxatzen baitu anitz, edo guti, edo baterez. Galantki itz gutis dio Santo Tomas doktore aingiruareki konzilio Florentinoak, (Ap. Parra pl.7. de euch.): Omnem effectum, quem cibus materialis facit quantum ad vitam corporalem, quod scilicet sustentat, auget, reparat, et delectat, hoc totum facit hoc sacramentum quantum ad vitam spiritualem. Jan edan materialak iten duen guzia gorputzaren bizitzan, iten duela sakramentu gonek arimaren bizitzan, baita sustentatzea, amentatzea, errekoatzea ta deleitatzea edo gusto ematea. Sustentatzen du beñik bein arima sakramentu gonek, zerengatik doakio mantenitus bizitza espirituala, osasuna ta indarrak komunikatzen dion graziareki. Jaten duenak ogi gau biziko da eternidaderako, dio Kristok, qui manducat hunc panem vivet in aeternum. Eta ala nola gorputz bat jan gabe flaka baileike lenik, ta indar gabetu, gero desgatanu, ta azkenean il ere baileike, ezi erranain gisa biziaren pena du jatenestuenak; ala sakramentu gau ezipaledi errezibitu, ezleike manteni arimaren bizitza, baita grazia, erran zuen bekala berak: Ezpaduzie jaten Birjinen Semearen gorputza, estuzie izanen bizitza zeuren baitan, zerengatik arima lidoake epeldus debozioan, angabetus onerat, inklinatus galtzerat, ta gaixtatus eroriartan bekatu mortalean, ta Jangoikoaren desgrazian, baita arimaren eriotzea. Orgatik mantenitzea erori gabe mortaletan asko aldis zor diogu alimentu dibino goni, zeñek gure barnean obratzen baitu aborrezimentua bekatuetara ta amorioa Jangoikoagana. Odolik estuten animaletoes dio Aristoteleseki dutela bizia txoil laburra, eta ala ere erlea bizitzen omen da asko odoldunak baño ia. Zertan ote dago? Mantenitzean janari ain salubreak, nola baita estia; zenbat obeki mantenituko du arima bizirik janari zeruko gonek, baita Jangoikoaren delizia, erregalo ta dulzetasun guzien mamia? Alimentu sanoak sano azitzen du gorputza, ezipada estorburi jaten duena baitan. Zer alimentu sanoago daie pensa au baño, baita ogi bizia, Jesus bera gure salbazalea? Estomagoaren faltan dago ez sendatzea, ta sendo azitzea arima sakramentu goneki, ala nola batzuk ez sustentatzen, baizik eritzen ta iltzen baitu alimentu onak; ala nola estia dena erlea baitan dulce sano, itzultzen baitu armirauak beneno ta pozio, baño onen gain geroago. Orai segi zagun estomago onaren konparazioa, onek janari txoil diferenteak itzultzentu odol ta aragitan, ta gañarako bear direnetan bizitzeko. Ario gontara da espirituali alimentu goneki, baño berze aldera, ezi emen alimentuak itzultzen du bere baitan janzealea; au doae egines alimentuaren kondizioetara, diot Jesusen jenio ta borondatera, kendus munduko gustoetarako afizioa, aborrezitus banidadeak, despeitus bizioak, iles bekatuen sukaiak, afizionatus onerat, gusto artus Jangoikoaren gauzetan, plantatus birtuteak, argitus ezaumentua, zuzendus borondatea, ta itxekis biotzean Jangoikoarenganako amorioaren sua. Ala doae mantenitus ta konserbatus grazian, ala nola berze aldera agitzen baita joatea iles, eroris, galdus gutibana. Ezpagara il, erori, galdu gu, esker alimentu dibino goni,

sustentatu baikaitu ariman. Adiarasteko berze efektoak, ats ar zagun gutitto bat, goazelarik diosala ematera gure Ama dulzisimai, gure biotzen konsolu, alegria ta esperanza denai erratendiogulaik Abe Maria.

Nola gauza guziak mundu ontan baitire galkorrek ta akabatzen direnak, guziak bere izates doaz zartus, galdus, akabatus, ta laster akaba leizke ezpaliz prokurutzen konserbatzea ortako Jangoikoak utzituen medioeki; ala gure bizitza ere izanik mortala, doaie bere ganik eriotzera, ta akaba leike laster, ezpalitz konserbatzen ta sustentatzen janari ta edariareki, artus bere denboretan, ortako disponitu baititu Jangoikoak. Arima da inmortal akabaestaikena eriotze erreal egiaskoareki; baña gal daike eriotze moralareki, zein baita Jangoikoaren desgrazian bizitzea kausatzen duena bekatu mortalak, ta ontara bereganik ez, baña bai naturalezaren bizioagatik dago inklinaturik, ta eroriko da, ezpada prokurutzen sustentatzea ta konserbatzea ortako diren medioeki; bat dela erran dugu komunionearen alimentua arturik bear den denboretan. Ala sustentatzen du, sustentat; baña ez ori solamente, baitaere aumentatzen ta azitzen du arima, nola janari gorporalak gorputza, auget. Onen medios doaie gorputza azis, anditus ta azkartus itzultzen delaik alimentua gorputzaren substanzian; ario gontara doaie sakramentu goneki arima azis, anditus ta indar artus grazian, birtutean ta santidadean, ez itzulis janari gau arimaren substanzian, baizik berze aldera itzulis arima janari gonon kondizio ta gisara. Berze diferenzia bat ere bada ezi alimentu gorporalareki gorputza solamente adintsu bateraño daike azi ta anditu, andik alzina kontent konserbatzeas estadoa, ta au ere estaike azkeneko. Alimentu dibino goneki esta ala, baizik beti ta beti doake azis ta anditus arima birtutean, munduan dagon bitarteo; eta zein exzelenteki ordea, gu nor bagara? Anitz medio tugu elizan aumentatzeko birtuteak, baña zein alakorik, nola komunionea, non unitzen baita birtuteen Jaunareki arima? Orgatik experiencias zio Santa Magdalena Pazzik: komunione bat sollik ongi egina aski dela itzultzeko sandu persona. Komunionean azi ta anditu zire sanduak ain andi ukituartaño buruareki zerua, bizitus gorputzareki lurrean ta gogoareki zeruan, oinpetan arturik mundua, eginik andiago ezi mundua, ta Jangoikoaren imajina dignoak, beterik Jangoikoas ta bateraturik Jangoikoareki, zelarik aien arimen arima Jangoikoa, ta berak Jangoikoaren zeru animatuak; baizezakete erran San Pablareki: bizi naiz ni, ez ia ni, baizik enebaitan bizi da Kristo (Gal. 2). Orgatik iten baizuste gauza propioiki Jangoikoarenak, miragarriak lurreko jendeen begietan. Noraño daiken ellega gizon lurrekoa! Gu komekatu ta komekatu, ta alaere ain erikor, ain malder, ain arrastaka beti gabilzanok lurreko txarrerietan, ezkarenak ontzen, ta Jangoikoaren kondizioetara egiten komekaturik anitz aldis, alimentaturik Kristoren gorputz ta odolareki, geurei, geurei bota gaitzen kulpa, ezi geurek imintzen dugu inpedimentua, zerengatik komunioneak bereganik du azitzea ta aumentatzea santidadea, auget.

Irugarren efektoa da erreko-bratzeara arima. Eriturik gorputza ta sendaturik gero erre-medioeki, gelditzen da indar gutireki; gero alimentu onareki bere erre-glan doaie konbalezitus, erreko-bratus ta indarretan paratus. Ario gontara arima eriturik ta ilik ere bekatu mortalareki sendatu bear da konfesiorearen sakramentuan, ortako paratu baizue Jesu Kristok; baña naiz sendaturik ere, estire berla kentzen bekatuen errelikiak ta efektoak; gelditzen da arima konbaleziente gisa indar ez ainberzeeki nola bekatu inbañolen, ia lisiaturik gaitzera, ta aisago erorzeko, ezpada goartzen. Erremedio bat da komunionea erreko-bratzeko, reparat. Doaie bizkortus arima, itzalis pasionearen sukaia, gutitus gaitzerako inklinazioa, añaditus onerakoa, barkatzentu bekatu benialeak, ta preserbatzen du erorzetik mortaleetan. (Bere izates sakramentu gonek du aumentatzea grazia ariman, ta

ala nai du ellega daien arima paraturik ia grazian; baña dio Santo Tomas doktore aingirua teologoeki, ezi egonik bat bekatu mortalean oroitzenestela artas, estiola konzienziak erremorditzen, estuela ezauntzen, ellega baledi ala komekatzera dolore onareki, orduan sakramentu gonek barkalezokela mortale gura ere, entendatzen da orgatik beti gelditzen zaiola obligazio konfesatzeko oroitzen delaik artas). Ekarzu mai gontara deseo ona, gose ta egarri sandu bat; ikusko duzu zer prodijioak! Zer indarrak garaitzeko tentazioak, irauteko firme, konstante grazian. Baña epel epela kostunbres ta zeremonias bekala ansiarik gabe komekatzen bazara, esta milagro ez ikustea mejoriarik zeure baitan. Oroat diot agitz argal ta ezinberzeas bekala komekatzeas. (esta ere atxekia ona, usteko komunionea erratea baituela faltak, estela aurkitzen digno. Au da humildade falsu bat, lakio paratzen duena deabruak. Gisa ortan, dio San Zirilo Alexandrok, noiz izanen zara digno? Ezi faltengatik barin bazara indigno, ta faltak izaki beti, beti egonen zara komekatu gabe (L. 4. in Joan. c.17. breviar. oct. corp. Christi). Baña izazu gogo ona, bizi zaite kuidadoreki ta ongi, ta errezibi zazu gure Jaunaren bedeizio gau, zeñek, sinesta nazazu, ez solamente eriotzea, baita eritasun guziak ere desterratzentu; zerengatik Kristok dagolarik gure baitan ematen du gure etsai andienaren tirania, azkartzen du piedadea, itzaltzentu gogoaren perturbazioak, sendatzentu eriak, erreko-bratzentu dañu izanak. On da humil izatea, baña aski dena, ta oneki bateo ellega. Humildades erraten zio San Pedrok: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria; baña ala ere etzeike gure Jaunaganik aparta. Ez naiz digno sar dadien berori nere etxean, erraten zio zenturionak, baña orgatik nai zue gogotik errezibitu; ta ala nai du Elizak paratzentigularik agoan itz gaiek komekatubañolen, baña alaere dio desea lezakela errezibi dezaten fielek meza guzietan (Trident.). Naiz frajil ta erikor bekala eroriagatik zenbait faltetan, humillatu ta animatu erremediatu naies ellegatzera mediku dibinoagana). Zer inen duzu apartatus? Ia erori ta galdu. Omnes qui elongant se â te, peribunt (Ps. 72). Obe ellegatu humil alkegorriturik beragana leproso garren gisa ezin atrebitus goratzera begiak diogula: ez naiz digno, baña eri egoki ilzeko peligroan sekulako, ta sendatu nai; nora joanen naiz? Orren mai pera orren txakurtoa bekala nai badida eman bere maietik sendatzeko. Aizagun San Franzisko Sales (Intr. vi. dev. p.2. c.21), dio ala: Mundukoek galdegiten badizute zerengatik komekatzen zaren ain usu, erresponda zozute ezi ikasteagatik onesten Jangoikoa, garbitzeagatik nere imperfekzioetaik, libratzeagatik nere miserietaik, konsolatzeagatik nere aflikzioetan, indar artzeagatik nere flakezetan. Erran zozute bi jende-motaek beautela komekatu maiz: Perfektoek, zerengatik egonaskeros ongi disponiturik gaizki in lezakete ez ellegatzeas perfekzioaren iturrira; ta imperfektoek, joateko ikasis perfekzioa. Fuerteek ez flakatzeko, ta flakoek fuertetzeko; eriek sendatzeko, ta sendoek ez eritzeko. Zer klaroago erran daike fielak? Reparat.

Baña ez solamente du birtute komunioneak sustentatzeko, azitzeko ta erreko-bratzeko arima, baita ere deleitatzeko, edo gusto emateko. Lurreko janariak on badire sendoen sustentatzeko ta azitzeko, agian estire on eri egonen erreko-bratzeko; on badire ortako ere, agian estire on gustoaindako. Nekes aurkituko da janari bat sanoen, erien ta konbalezienteendako dena igoalki saludable, ta bateo gustoso. Eta esta egia gustoso den guziak on iten duela; antes bien askotan gaitz iten du, botatzen duela obiara gorputza ta infernura arima. Emen dugu janari bizia gusto guziak dituen, ta bateo on guzia iten duena ongi artzen bada. Erregalatua da Kristoren ogia, dio Elizak, Pinguis est panis Christi, ta emanen tiote erregeei deliziak, et praebebit delitias regibus. Zuk estuzu senti baizik ogiaren gustoa; ori da agoan senti dena; esta in bear kasorik ortas; erregalo

gau espirituala da, arimaindako da, arimareki gozatzen da; memoriareki oroitus, ta entendamentuareki pensatus zer den, ta borondateareki estimatus, amorostus, zoratus ainberzeko erregaloareki. Gizonain parte prinzipala da arima razionala, ta oneki bateo fedea, barin bada kristio. Ezpada gobernatzan baizik agoaren gustotik, esta distingitzen animale brutoetaik. Zenbat bideden gelditzen direnak azal gortan pasatu gabe mamira, diot errealdadera, zein agoareki ez, baizik entendamentu ta fedeariki distingitzen baita! Pensa zeruetan den obena dela errezibitzen duzuna; nola etzara beteko gustos ta konplazenzias? Nola esta ondatuko biotza amorioan, admirazioan ta gozoan? eman balezazu agora bere bularretako esnea Ama Birjinak, ta bere kostadotik odol preziosoa Jesu Kristok, zer zoratzea gozos? Bada, noizko da entendamentua? Noizko fedea? Ama Birjinaren esneas oratua da ogi bizigoi, Kristoren kostadotik atrea da tragogoi, barin bauzu fede. Nola etzara zoratzen kontentus? Orgatik zire sanduen ta sanden desmaio ta kordegabetze amoriosko dulze gaiek, ikusirik beren erregalo eginik Jesus bera! Asko berze erregalo iten tiote berei Jangoikoak baña au da andiena, ta ontan bardin gara guziok Jangoikoaren aldetik; gurea da falta, ezpadugu sentitzen erregalo gonon dulzetasun gozoa. Nere Jauna nere barnean! Nere arima desposatzen Jesuseki! Ta ez naiz zoratzen kontentus! Zer gusto ia naidut, barin badakit zer den au? Aingiruek inbidia bekala didate nere ditxas, arriturik dago zerua. O zer delizia au, barin baneki!

Berze gisas daizke entenda komunionearen efektoak erreparatus birtutes birtute. Humiltasuna, lenbizikoa erakutsi zuena bizian ziolarik: Ikasazie eneganik, bainaiz beratxa ta humila biotzes, orai estanpatzen du biotzean unitzeareki gu berareki. Nola daike egon suberbiaren andidura uts, banoa, ar itsusi txar bekatarian, ikusiaskeros ain humil Jangoiko andia? Kodizia desterratzan du, ta azitzen miserikordia errezibitzeak Jaun gau jaioa portale Belengo gartan, erreklinatua ganbela gartan, bizi ta il zena pobreza guzian, etzuela non erreklinatu burua, delarik gauza guzien Jabe. Bera ematen zaida komunionean; estut obe bera lurreko ondasun-iduri guziak baño? Txoil txarra da biotz gura estena desapegatzen lurreko gauzen afizionetik, gozatus ondasun gau ain andia. Bada, pureza ta kastidadea enjendratzen du komunioneak, non desposatzen baita arimareki Birjinaren Semea Jesus, Birjinen esposo garbi-ederra, azuzenen ertean erregalatzen den axuri dibinoa, eskojituen ogia, ta Birjinak itentuen ardoa. Zelatzen du iraun dezan gorputz ta arimaren garbitasun guzian komekatzen dena maiz, bere sagrario ta bere paraiso-gisa, kentzentu pensamentu gaixtoen karduk ta subialeak, usten du bere graziaren intz freskoa konserba dezana floreziente. Ira, bada, itzaltzen du alaber, ta doaie azis pazienza ta serenidadea sakramentu gonek. Emen Jesusen odol, llaga ta doloreeki egin zen medizina aplikatus, mansatzen da kolera, dultzatzen da jenioa ta nobletzen da biotza. Gula iltzen du janari dibino gonek txastarazis bere deliziak. Inbidia despeitzen du komunikatus karidadearen esne dulzea. Pereza ta epeltasuna desterratzan du emanen ferbore, arimo ta ansia onerako. Itz bates, kausatzen du alke, aborrezimentu ta horrore bekatuai, delaik ain kontrario sakramentu gau bekatuai, nola argia iluntasunai. Ecce agnus Dei etc. Erraten du sazerdoteak komekatzerakoan: Ona Jangoikoaren axuria, ona kentzentuena munduko bekatuak. Sar bedi maiz iruzki gau zuregana, ongi izatekos, desaparezitu beaute bekatuen iluntasunek. Ama Birjina egun bates, komekaturik Santa Jertrudis, ta errezibiturik anitz erregalo zerutik, bera zego humil, beterik lotsas, iduri zekiolaik bere inperfekzio ta faltengatik zela indigna, ta etzukela ongi korresponditu (Ap. Parr. pl.7 de euch.). Orduan gure Jaunak beiraturik amolsuki berai konsolatzeko, itzulirik berla bere Ama Birjina ta sanduengana, erran ziote: Etzaizie iduri emendatututela nik ongi aski arima gonon defektoak, errezibitu

nauelaik sakramentuan? errespondatu ziote guziek: Aski ta abastoki ere emendaturik daude. Gure Jaunak erran zio berai: Kontent zaude? errespondatu zio sandak: Kontent nitzake Jauna, baldin ez lengoak solamente, baita urrengoak ere desegin balezki da, zerengatik ezauntzen dut aisa faltatuko dutela nik zer edo zertan. Orduan bere Majestadeak erran zio: Bada, emanen nazaizu alako maneran, ezi ez solamente libratuko zaitut lengo faltaetaik, baita urrengoetaik ere. De manera ezi ongi izatekos, gure Jaunak obratu zuen erredenzpionea ta erremedioa bere pasio ta eriotzeareki; bear ginduke joan logratu kontino komunionearen medios, ala nola eskatzen baitu Elizak sakramentu sanduaren orazioan: Jangoiko Jauna, utzi diguna bere pasioaren memoria sakramentu miragarrian, eman bezagu, otoi, grazia beneratzeko bere gorputz ta odol preziosoaren misterioak alako maneran, ezi senti dezagun bere erredenzioaren fruitua kontino geuren baitan. Amen. Esta faltako beraren aldetik, gu nor bagara. Emen eldu da ongi kontatzen duena Santa Teresak bere buruas (In addito ad vit. n. 2). Dio ala: Erramu egun bates komekatu orduko gelditu nitza suspensio andi batean de manera ezi ez nuke ere pasatu forma, ta neukalarik agoan, errealki iduritu zekida, neure baitan itzulinitzalarik zerbaitto, ago guzia bete zekidala odoles, ta nere aurpegia, ta neurau guziau estalirik odoles ain bero nola ixuri balu orduan gure Jaunak, ta ze geiegi sentitzen nuen suabidadea ordu gartan. Erran zida gure Jaunak: Nere humea, nik nai dut protxu in dezazun nere odolak, ta etzaitela beldur falta dakizun nere miserikordia. Nik ixuri nue anitz doloreeki, ta zuk gozatzen duzu suabidade andiareki. Ojala guri ere protxu ona in dezagun komunioneak, ona den bekala ango erregaloa, zein ellega gaitzen gozatzer glorian.

Sermo XL:
De impedimentis
effectuum communionis

Ideó inter vos multi infirmi, et imbecilles. 1 Cor. 11.

Esta balsamo ta medizinarik bat ere ain preziosorik guziei bardin erremedio ematen diotenik; estare janari ain onik guziei bardin protxuiten diotenik. Zein den obena da, zeñek ia ta aisago bizkorzentuen komunki artzeuntenak. Abantalla deseagarria litzake janés sendatzea, sentitus bateo erregaloaren gustoa ta erremedioaren efektoa. Eta zer litzake, balitz janari bat ez solamente sustentatzen, azitzen, bizkortzen ta deleitatzén duena, baitaere zarrak gastetzen, itsusiak edertzen, pobreak abrastén, ta desdixatuak fortunoso itentuená? Balitzake nork billatu alako janari miragarria; bada, alakoa da komunionekeo janari bizi espirituale zerukoá ta dibinoá, sustentatzen du arima, azitzen du grazian, bizkortzen du birtuteetan, deleitatzén du potenzietan, berritzen ta gastetzen du Jangoikoaren begietan, edertzen itsusi zegona, ta abrastén ta fortunatzen pobre miserable zena espiritualki. Orgatik Elizak sazerdoteái igateko aldareko mai gartara paratzentio agoan itz gaiek: Introibo ad altare Dei, sartuko naiz Jangoikoaren aldarera, ad Deum qui laetificat juventutem meam, Jangoikoagana berritzen ta alegratzen baitu nere gastetasuna. Baña itzuli gaitzen lenbiziko erranera, esta balsamo ta janaririk guziei bardin oniten diotenik. Oroat diot balsamo ta janari gontas izanik ain preziosoa, nola zerukoá, nola Jangoikoa bera, desbardin itentuela efektoak batean ta berzean. Batai protxuiten dio guzis inartaño sandu; berzeái ematen dio eriotzea ta kondenazioa: Mors est malis, vita bonis, bizitza da onendako, gaistoendako eriotza. Ebek dire indignoki jateuntenak, zeintas baitio San Pablok: Judicium sibi manducat, jateuntela juizioa ta kondenazioa beren kontra, eta berriz: Reus erit corporis et sanguinis Domini, mereji dutela pena oroat nola il balezate Kristo bera, ac si Christum occiderit, punietur (Gloss). Ezdezala permiti gure Jaunak izan daitzen anitz alakoak. Gutiago berze alde bide dire guzis sandu iten direnak komunietik probetxatus janariain konforme, gizon espiritualak ta Jangoikoarenak osokiro. Estardukat ebetas, ta ez aietas; esta ere txoil argal komekatzen direnes, zeñei agitzen baizaiote Dabidek diona: Percusus sum ut fœnum, doazela egines belar autxi eartua bekala, et aruit cor meum, biotza seko ta gogor. Zerengatik? Quia oblitus sum comedere panem meum, zeren memoriaik ta ajolaik estuten jateas alimentu dibinoá (Ps. 101). Uzkgun ebek ere. Jardukagun maiz medianoki komekatzen direnes, ta aski ontzen estirenes; aietas, zeñetas dion San Pablok direla anitz. Ideó inter vos multi infirmi et imbecilles, orgatik zuen artean anitz daude erikor ta indar gutireki. Orgatik; zergatik? Au ikustera goaz orai. Ama dulzisima, erien osasuna, salus infirmorum, bekatarien errefujioa, refugium peccatorum, afljituen konsolazalea, consolatrix afflictorum. Orrek emana dugu alimentu dibinoá, orrek eman bezagu protxuindakigun bere eskua ta grazia. Abe Maria.

Orgatik zuen artean daude anitz eri ta flako espirituán, dio San Pablok. Zergatik? Zein da inpedimentua? Nola delarik egia dagonari grazian komunioneak aumentatzen diola grazia, nola estire abrastén grazias komekatus ta komekatus? Nola estire guzis ontzen? Nola estire urratzen pasioneak guzis? Nola diraute beti, mortaleek ezpada ere, benialeek, faltek, inperfekzioneek zer edo zertan? Zerk kausatzen du? Zertan dago? Errezibitzen maiz Jesus salbazalea, birtuteen Jauna, santidadearen autorea, graziaren iturria; eta alaere ain

birtute guti? Ain grazia txur? Ain santidadea eskas? Zein uts arin humildades! Zein guti desapegaturik kodiziatik! Zein malder inperfekto kastidadean! Zein faltoso pazienzia! Zein ezbaiean tenplanza! Zein epel karidadea! Zein nagi debozioa! Ainberze inkonstanzia, jaiki-erori, ta gora bera kanen gisa! Alimentuaren aldetik estago falta; guziak in lezazke sandu bereganik ain nola San Luis Gonzaga, nola Santa Teresa, nola Santa Katalina de Sena, nola sandu guzienak mai gontan sandutu zirenak. Beras, gure disposizio-faltan dago. Ala mostratu zio bein Jaunonek Santa Katalina Senakoai konparazio eder goneki. Bazindeuka zuk, ene humea, kandela bat itxekirik eskuan, ta baletosi guziak artan itxekitzera beren kandelak, etzue errepertituko guziei argia ta sua, deustan txurtu gabe zure argia? Da klaro. Baña zetozonek balekarte batakerillatto bat, berzeak zirio andi bat, etzaizu iduri ia su ta argi erman dezakela ekarri zuenak kandela edo zirio andia, ezi ez zerilla txipia? Da ere klaro; bada, ala agitzen da nere sakramentuan. Graziareki errezibitzeuntenak guziek errezibitzeunte graziaren amentu; baña batzuek ain guti, ain eskas errezibitzea kausatzen du beren disposizio laburrak, ezi ematera prest dago iturria (Ap. Parr. pl.8). Nere ustes ni grazian ellegazen naiz, erran dezake norbaitek. Ori ongi, ori aski da ez iteko sakrilejio, ez iresteiko kondenzazioa, eta amentatzeko ere bai grazia zerbait; baña joateas landara grazian ezpada amentitzen disposizioa, esta ere amentatzen irabazia ta fruitua. Gorputzaren alimentuaren konparazio daike entenda obeki. Dire batzuk, zeñi gaitz iten dioten jan onak; berze batzuk dire lazki ongi artzentuenak, gizontzen ta indarres betetzentuenak. Berze batzuk dire iltzen ere ez jan onareki, baña iragazten ere estutenak anitz. Pasa gaitzen arimara. Jan on goneki iltzen ta galtzen direnak dire bekatu mortalean ellegatzen direnak. Mehoratzen ta indarres betetzen direnak dire ellegatzen direnak grazian, ta disposizio geiagokoan berze alde. Anitz iragaztenestutenak, baizik ala beti erikor, baña iltzenestirenak dire bekatu mortalerik gabe grazian doi doia ellegatzen direnak, in gabe ia dilijenzia disponitzeko ia. Ontan dago falta. Ikusagun.

Lenbizikorik ez kuidatzean akabatzeas iles pasione txarrak, inklinazio makurrak, afizione bearrestirenak, banidadeak, kuriosidadeak, dibersio peligrosoak, amorio lurrekoak, miaren lazotasuna, floxezak ta alakoak. Bekaturik batere ez grabetik ta ez leberik in gabe bizitzea neke da gure lur gontan. Maria Santisimas sinestatzen du Elizak bizitu zela inperfekzionerik batere gabe Jangoikoaren pribilejio espeziale. Ta ala estiot nik erori dena falta baten edo berzean estaiela ellega komekatzera, estiot nik falta bat edo berze egin dela inpedimentu atratzeko fruitu anitz ere komunioetik, ongi sentitu ta aborrezituaskeros. Diotena da ezi falta goietarako afektoa gelditzen bada biotzean, naiz lebe izanik, ez kuidatzea korrejitzeas dela inpedimentu ez on egiteko janari dibinoak bearradiña, ala nola estomagoan jarraizkolaik bati zerbait naiz dela guti, ta estorbatzenestiona jatea ta edatea, alaere baita kausa ez gizontzeko ta azkartzeko, dagolarik kolore gaitz ta pizu desenbarazatuartaño kausa gartaik, ala emen bere ariora. Eldu da Jesus biotzera, aurkitzen du ilik ez, traidore ez, baña apegaturik beraren gustoko estiren txarrerria batzuetara, ta por konsigiente afekto epel gutireki beragana, estu an egiten nai luken adiña grazia; ala nola ellegaturik errege pobre baten etxera ongiegin naies, aurki balez au erregeri estagozkion inklinazio ta kondizio batzueki, naiz ez traidore, ez lezoke egin ainberze; eta arrazioak ere ematen du. Zuk diozu estela mortale, ta orgatik estuzu utzi nai dakizuna estela gure Jaunaren gusto; zabiltza txurrerian Jangoikoareki, ta nauzu Jangoikoak in dezan zureki bizarria ainberze nola arima nobleeki? Alor maldas, kardus ta alakoes dagonean atra daike garia, baña ez ain abasto, ain andi, ain sendo, nola ongi ongi garbituan ta landuan. Novate nobis novale, zio Jeremiasen agos Jangoikoak (C.4); berritu,

landu ta garbitu ongi alorra, et nolite serere super spinas, ta etzaziela eraiki larren gañean. Alor gau da gure arima, larrak dire bekatu lebeak ta afekto txarrak, ale preziosoa da sakramentu dibinoa; fruitu anitz ematekos garbi arima lar goietaik. Israeldarrei atra ondoan Ejiptotik etziote Jangoikoak erauntsi manna, aliketa akabatu zuten arteo Ejiptoko irin guzia. Nai baduzu gozatu manna dibino gonon dulzurak, ta fruituak abasto, zoaz akabatus ariman altxaturik dagon Ejiptoko irin guzia, au da, munduko afizioneak ta txarrerriak. Eman zaite Jangoikoai osokiro, ta Jangoikoa emanen zaizu liberalki, ezperen eskas bazabiltza ta txur Jangoikoareki, esta milagro Jangoikoak ere eskas dezan bere esku liberala zureki. Zuk ez nai egin txoil guzis Jangoikoaren gustoa, eta Jangoikoak in bear du zurea faltarik gabe? Errelijioso bati komekatzean sentiarasten zio gure Jaunak gusto bat zerukoa bekala miragarria. Izan zue bein ark berze bateki itzketa aldi bat, baña ain lebea, ezi izanik Jangoikoaren beldurdun etze oroitu ere konfesatzeas. Urbilen komekaaldian gusto garren truk sentitu zue disgusto samin erru bat. Ezaundurik kausa, konfesatu ta emendatu zue, baña ia etzue berriz txastatu erregalo lenekoa, entenda zagon zer estorbua diren bekatu benialeak ere komunioneke fruituendako.

Berze estorbu bat da konsiderazio-falta ellegatzean komekatzera, ez detenitzea oroitzen ta pensatzen nor den ta norengana eldu den hostian dagona. Ain barraturik gogoa, ta agian bista ere! Emendik segitzen da biotza epel egotea, ez lotsarik, ez humiltasunik, ez amoriorik, ez ansiarik ta afekto onik sentitzea, edo deus guti. Zer da au, baizik gordinik jatea, xegatu gabe irestea ogi gura? Esta milagro fruiturik eta gustorik ez sentitzea, edo guti. Otsa izanik janzale andia, alaere beti emen dago lerden, flako, zeren iresten baitu xegatu gabe janaria. Janari dibinoa arimaren janari da, arimareki bear da xegatu konsideratus fineza guzien andien gau. Jesus neregana ta gisaontan! Ain deus guti iduri duela! Eta ain egia baita, nola egiarik andiena! Ala itxekitzen zire arima noble gaiek amorioan, humiltasunean ta afekto on guzietan! Ala urtzen zekizkiote biotzak negar dulzeetan! Eta ala gure Jaunak betetzen zitue erregalos ta probetxus. Mannak omen zitue erregalo guzien zaporeak, baña sentitzekos agoan nai zuen gustoa, lenik bear zue gogoan pasatu bianda gusto gartakoa. Zer gauza eder gustosoago Jesus baño errezibitzen duguna hostia sandan? Baña ellegatu zeremonias bekala, idiki agoa, artu mi gañean hostia nola balitz oreka guti bat, barnatu gabe fede ta konsiderazioareki artan enterratzen dena; zer milagro da ez sentitzea beirlirazken fruituak? O nork luken sanduen bista arimarena! Bada, estugunaskeros, da preziso ala nola bista labur duena egotea beira beira gauzaren mamia pensatus ta errepensatus, geldiarazirik ortako sentidoak ta potenziak. Emen litzake lotsarritzea, humillatzea, estimatzea, amatzea ta zoratzea bekala admirazios. Aizagun Santa Teresa Elizako doktora, nola erakusten digun diolarik bere biziaren 38 kapituloan (N. 13): Ni ellegatzen nitzalarik komekatzera, ta oroitzen nitzalaik ikusi nuen Majestade agitz andi gartas, ta beiraturik bera zela zegoena sakramentu sanduan, (eta anitz aldis nai du gure Jaunak ikus dezaten hostian) lazkatzen zekizkida biloak, ta guziau iduri zekida deustaratzen nitzela. O nere Jauna! Eta ezpalez estali bere grandeza, nor leike atrebi ellegatzera ainberze aldis juntatzera gauza bat ain itsusi-txar-miserablea ainberzeko Majestadeareki? Bedeikatua biz, Jauna, ta lauda bezate aingiruek ta kriptura guziek, ala neurritzen baititu gauzak gure flakezareki, ezkaitzan lotsa orren podorio andiak, gozatzean ain mertxede soberanoak, de manera ezi gozatzerare ere ezgindeizken atrebi jende flakoa ta miserablea bekala. Beitixago (N. 14) dio: O pobreen ondasuna, eta zein admirableki dakien sustentatzen arimak, eta ikusi gabe, ebek ainberzeko ondasunak, gutibana doakizkio mostratus orrek. Nik ikusteuntelaik majestade bat ain andia disimulaturik ain

gauza gutian, nola baita hostia, andik onat arriturik nauka xakintasun ain andiak, ta estakit nola nere Jaunak ematen didan arimo ta indar ellegatzeko beragana; ezpalezada eman iten didanak ainberze mertxede, ezlitzake posible disimulatzea ta ustea erran gabe oius ainberzeko miragarriak. Guziok dire sandaren itzak. Guk ez kasorik egines baizik ikustendugunas begis, orgatik ain guti protxazen gara komunioneas.

Irugarren falta da diona Santa Teresak, zeren Jaun andia, errege liberala, ta Jangoiko guzia errezibiturik geren barnean, ezpaikara baliatzen eskaidas. Askok estute enpleatzen ordu-laurden bat ere obsekiatzen ta agasajatzen arrotz dibinoai geldi-erretiraturik komekatu ondoan, baizik kasi amenareki agoan doaz kanpora deskorteski Judasen gisa. Berze asko, naiz egonik gorputzareki tenploan, gogoa, afektoa, arima ta ansia guzia estaukate Jaun garreki bear zen bekala, baizik doakiote bearrestirenetara, utzirik arrotz dibinoa atzendurik, in gabe agasajo, ta eman gabe ere agian ongietorria. Ala nola etorririk errege gure etxera etxeko nausia balidoeie arat edo onat, ta balebila paseaketan. Arima da nausi etxe aragisko gontan, non dabila? Nora doaie? Etorrizaikolaik bere etxera zeruetako Jauna? Ah zer eskaida malogratzen den! Ura da denbora errekabatzeko guzien Jaunaganik ondasun guziak, zio nere Santa Teresak, ta ez ginduke galdu bear instante bat ere egun on gartaik, aldarte prezioso gartaik, noiz dagon ain urbil arima bere Jaunari. Particula diei boni non te praetereat. Bedeizios bete ze Obededonen etxea, zeren an egon zen testamentuaren arka sakramentu gonon figura. Zer ondasunak Zakeoren etxean egones Jaunau artan? Samariako emasteki garrek zer etzue logratua aurkituas ustekabetzean, ta egoteas jaun oneki konbersazioan bidanabar? Fortunosa Marta errezibitu ta agasajatu baizue bere etxean ta maiean Jaunau! Fortunosa Magdalena baizego beraren oiñetan aitzen Jangoikoaren itza! Fortunosoak gu, bagindeki logratzen eskaida duguna! Ain eskunara zeruetako tesoroen giltza, ta giltzaduna; gu alaere ain miserable! Ondasunen iturria geuren barnean, ta ain seko ta utsal gu! Su dibinoa petxoan, ta gu ain epel? Goazen erremediatus impedimentuak, baita kendus pasione ta afekto txarrak, pensatus errezibitzen dena, ta logratu eskaida gura erdexteko oraiko grazia, ta geroko gloria.

Sermo XLI:
De praeparatione
ad communionem convenienti

Probet autém seipsum homo,
et sic de pane illo edat. 1. Cor. 11.

ordu da ia ellega gaitzen mintzatzera komekatzeko disposizio bear denas. Delarik egia komunionean errezibitzen dela Jesu Kristo bera; delarik egia ere komunioneak obratzen duela ariman onen disposizioaren ariora, ageri da klaro bear dela artako disposizioa. Probet autém seipsum homo, oiuiten du San Pablok. Proba bedi ta presta bedi gizona, et sic de pane illo edat, eta ala jan bez ogi dibino gartaik. Baña nolako disposizioa nai du? Bida dire: Bata preziso prezisoa ezin niolaterre falta daikena, Jangoikoaren grazian arima, ta barurik gorputza, eta konzienzian bekatu mortalerik duena konfesatzea lenetik, ta estela aski kontrizioa daikelarik konfesatu, dio Tridentinoak. Berze disposizioa da konbenientea, on litzakena. Bego asentaturik estaikela disponi gizona, sakramentu gonek mereji luken adiña; esta aski ortako gizona. Baña gizona baitan kabi daikena aipa zagun, Kristo bera eldu da komunionean, sartzen da ta egoten da gure baitan ain errealki nola egon baize Ama Birjinaren entraña sanduetan, ain errealki nola baitago orai zeruan. Prestatzea arima ortako manatzen zaigu guziei, ta niri dagokida erakustea nola; baña estakit aski. Bear lirazke ortako kerubinen entendamentuak, ta serafinen miak adiarazi ziotenak. B. Anjela de Fuljino, Margarita de Kortona ta berze arima txoil garbiei, zeñek beren pureza ta santidadearen gañetik oraño izanzute zer añaditu perfekzione komekatzeko. Bear lirazke Kristo beraren ezpain dibinoak, erakutsi ziotenak Santa Katalina Senakoari, Santa Matildisi, Santa Jertrudisi ta berze zenbaitei komekatzen. Bear litzake Aita eternoaren mintzo soberano gura erakutsi ziona Santa Magdalena Pazzisi prestatzen bizi zelarik gorputz mortalean espiritu solla bekala, ta lurrean zeruan balego bekala. Bear dugu bentzait maestra, kidari, hixpilu ta erregla Maria Santisima. O, Jesu Kristo eldu da neregana komunionean, nik bear dut izan beraren tenplo. Beras, prestatzea ongi da arrazio. Lan andia da, erran bear dugu Salomoneki. Attonito zegolaik Salomon ideatzen Jangoikoaren tenplo famatu gura, ezin kabituz entendamentu andi gartan bearlirazken grandezak, edertasunak, adornuak ta perfekzioneak, erran zue: Opus grande est, lan andia da, neque enim homini praeparatur habitatio, sed Deo, zeren ezi esta au prestatzea palazioren bat gizon batendako, baizik Jangoikoarendako. Lan andia da. Naiz utzirik ilbañolen bere Aita Dabidek tenploain egiteko sariak, alaere kostatu zekio Salomoni zazpi urte fabrika gura; judioek ziote ezi berrogei ta sei (Joan 2. v. 20). Trabajazen zutelaik artan jendetze andiek, 70000 gizon eramateko kargak, 80000 atratzeko ta moldatzeko arriak oianean, ta ontas landara 3300 sobrestante manatzeko langinei; ta berze alde zur ebakitzen ta moldatzen enpleatzen zire 30000 gizon, illoro 10000. (3. Reg. 5). Nork erran tenplo garren preziosidadeak, urre, zillar ta arri preziosoen balioa? Estaike konta geiegis. Eta guzia etzekio iduri aski izateko Jangoikoaren tenplo digno ta paratzeko artan testamentuaren arka gura. Eta ala in ondoan zio: Beras, sinestatu bear da Jangoikoa bizi dela leku gontan? Bada, zeruek ta zeruen zeruek ezpadezakete kabitu orren Majestadea, zenbat gutiago etxe gonek? Orai, bada, aragi ta ezurresko gizon bat izateko tenplo bizia ta dignoa, zeintan sar dadien errealki Jesu Kristo Jangoiko ta gizon dena, ta

bateo Trintate Sandu guzia, nolako disposizioa litzake konbeni? Au baita lan andia.

Noe justoari kostatu zekio egun urte fabrikatzea arka salbatzeko dilubio unibersalean bera bere familiareki, eta guri ordu bat, ta agian orduerdi bat iduri zaigu asko prestatzeko biotzaren arka munduain Kriadore ta Salbadoreaindako? Moisesi manatu zio in zezala testamentuaren arka zur usteletzeikenes, urrestaturik barnetik eta kanpotik urre fin fines depositatzeko artan manna, legearen olak ta bara prodijioso gura. Gure petxo da orai arka depositatzeko manna dibinoa ta lejisladore sumo guzis poderoso. Beira konbenilitzaken izatea inkorruptiblea kastidades, urrestatua karidade fin fines. Bizi guzia labur da, naiz luzeena, prestatzeko bear bekala; ta ortan enpleatzea da iteko ona, edo San Luis Gonzagaren gisa igandeoro komekatzen zelaik, irur egun alzinekoak enpleatzen baizitue prestatzen, irur ondorekoak esker ematen, ala guk biziaren erdia prestatzen, berze erdia esker ematen. Ala dakigu sandurik andienak etzeizkela kontenta egin ta eginik al guzia ere, beti kontatzen zirela indigno erreizibitzeko Jaunau. Santa Teresa andi garrek, zein desposatu baizue bereki Kristo gure Jaunak, emanik arhatako (sic) bere itzeetaik bat, erranik: Ia emendik alzina zelatuko duzu nere honras nere esposa propria bekala, ia zuk solo kuida zazu nere gauzes ta nik kuidatuko dut zurees, zeñeki en fin tratatzen baizue ain kontino ta amanteki nola adiskide batek bere adiskide onetsiareki; sanda gonek, bada, izanik ain sanda, erraten zue (In vit. c.38. n. 14): Bada, zer sentituko du ni bekalako miserable batek abominazionees beteak gastatu duenak bizia ain beldur gutireki Jangoikoai, ikusteas orai ellegatzen ain Majestade andiaren Jaun gonengana, nai duelaik ikus dezan nere arimak? Nola agoa ainberze itz mintzatu duena Jaunonen kontra daike junta gorputz glorioso purezas ta piedades bete garreki? Ah! Ezi ia aflijiarasten ta sentiarasten dio arimai ez ongi zerbitzatuagatik amorio mostratzen dionak alaere ainberzeko edertasunaren aurpegi garrek, ezi ez lotsatzen baitu Majestade ikusten duenak berabaitan. Au zio Santa teresa batek: Zer erran dezakegu berzeek?

Esta zierto beiraturik ongi fedearen argiareki gauza gonon andia, juntatzea arima Kristoreki komunionean, estaike baizik arritu. Zer du zer ikusi gizon bekatarik pobre frajil miserableak Jesu Kristo sanduen sandu ta Jangoiko denareki? Iruzkiareki loiak? Ta Majestade soberanoareki gure miseriak? Goazen paratus zenbait konparazio. Baña esta urbil daikenik milla legoa bides ere; txarrak dire guziak gauza gonon aldean. Alaere goazen. Perlareki bear du korresponditu kontxak. Perla bat guzis prezioso estago ongi zuresko edo luresko kontxa batean. Bada, Jesus delarik zeruetako perla infinito balio duena, nola dagokioke ongi aragisko kontxa, nolakoa baita gizonaren petxo, den sanduenarena ere? Errelikia andi bat esta paratzen kaxa moldegaitz itsusi batean. Jesusen errelikia ez emen, baizik Jesus bera bizirik depositatzen da enebaitan, esta errelikarioa edo sagnariora bear bekalakoa, ta estaike izan ere. Goazen berze gisas. Errege andi bati gogoan para balekio joatea artxaiko pobre baten etxolara, naiz onek prestatutrik etxola alikako obekiena, zer litzake Majestadearen erreizibitzeko? Bada, Jesusen aldean kontu personarik andiena dela artxaiko bat pobre miserablea, ta iten diogu grazia konparazioan. Zer inen du pobrettoak digno denik erreizibitzeko Majestade gorena? Baña deskontent nago konparazio gebeki, ta ezin aurki zerbaitetan iduridakiokenik. Ia oneki dezakegun adiarazi zerbaitto. Enperadore andi bati sar balekio gogoan donzella pobretto bat eskean dabilana, ta oneki desposatu nai duela, ta onen etxetto atoasko, txar, erdi-urratuan zelebratu bear dela desposorioa, zer lezake egin aski denik erreizibitzeko dignoki esposo andi gura? Jesus sakramentuan da enperadore soberanoa desposatzen dena espiritualki; arima da nai duena esposatako pobrea, deus estuena, ezpazaio ematen limosnas; luresko etxetto txar, erdi-

urratua da gorputz mortala; ontan sarzen da Jaun dibinoa zelebratzera desposorio admirable gura. Zer inen dut aski denik moldatzeko dezenteki berere? O Jesus, nor norengana!

Ezaumentu goneki zio San Juan Bautistak etzela digno lazatzeko ere Jesusen oñetakoen lotzakia ere, ta joan zekiolaik Jordana bataia zezan, etze trebe, ziola: Ori eldu da neregana? Ezaumentu goneki zio San Pedrok: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria. Ezaumentu goneki zio Santa Isabelek, nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea nere Jaunaren Ama neregana? Ezaumentu goneki etze atrebitu San Franzisko Asis ordenatzera sazerdote. Ezaumentu goneki beldur zire komekatzeas, edo komekatzen zire beterik beldurres, humiltasunes, erreberenzias San Buenabentura ta berze anitz sandu, izanik sandu. Zer inen dugu bekatariek? Pensa nola Maria Santisima izateko Jesusen sagrario dignoa prestatu zuen Trintate Jaunak. Zenbat grazia, birtute, pureza, edertasun ta perfekzione bildu zue arima andi gartan! Enpeñaturik Jangoiko guzia bere podorio, xakintasun, bizarria ta ondasunek, adornatzeko dezenteki izan bear zuen Ama. Zein ederra, garbia, perfekta, exzelenta! Alako Semeari alako Ama! Pensa orai ezi entraña birjinale gaitan egon zena bera dela errezibitzen duguna komunionean; nola da arrazio disponitzea? Ojala, zio Eusebio Nierenberg venerableak, ojala errezibitubañolen sakramentu gau, in balezada Jangoikoak mertzede paratzeas purgatorioan purgatzeko mantxa guzi guziak, ta egoteko prebeniturik aldareko maiera igateko, oroat nola zeruko palaziora! Ongi litzake Santa Margarita Ungriako erreina bekala barutzea ogi ta ur solles bezperan, pasatzea gau guzia orazioan, ta egun guzia ixil, mutu Jaun garren obsekiotan, ta bizi guzia ere bai erregla andian. Ongi litzake errelijioso venerable Gregorio Lopez gura bekala prebenitzea komekatzeko beti ta aldioro, oroat, nola il bear balitz komekatu ta berla. Ongi litzake erretzea amorioan ta urtzea negarretan garbitzeko ostatua Jaun gonendako, nola Santa Katalina Jenobakoa ta berze anitz (Parr. pl.9). Ongi litzake desegitea bat, posible balitz, gorputz lurreko gontaik, ta itzultzea espiritu solla kerubin, edo serafin baten gisara; ta ezlitzake sobra, ta ez aski ere.

Baña estaikenaskeros aldatu naturalezas, zer inen du arimak desposatzeko ain Jaun andiareki? Eginlezakena aixteko donzella pobre garrek errezibitzeko enperadore gura: para lezake garbi, txukun ta dezente alegiñas bere pobreza, bere persona ta etxettoa; prokura lezake falta zena suplitzea humildades ta borondate onareki, agradezimentu ta deseo andieki. Pobre gau da arima desterraturik bizi dena peregrina lur gaixto gontan; baña daike konsolatu, ezi bere etxera eldu zaio zeruetako Jauna esposo-aintzu artzera bere esposatako. Zerk obligatu du Jaun dibinoa egitera alako fineza? Gure aldetik esta predarik, edertasunik edo gauza onik obligazetzen, ezpada miseria ta bear guzia. Bere jenio noble jenerosoak dakarra ontaraño. Zer ineunzu nere arima errezibitzeko Jaun alakoa, alako esposo bere parerik estuena. Beñik bein zeure pobre zan mantenitu dezenia daiken guzia de manera ezi bizi guzia izan daien prebenzio bat kontinoa komekatzeko, edekis desplazer in dezoken guzia, ta paratus plazer emandezokena Jaun onai, kontenta daien bere Majestadea zutas, ikustenzaituelarik naiz pobre, txukun, honratu, dezente. Au esta egun bateko lana, baizik bizi guziko itekoa. Kejatzen ze San Juan Krisostomo kristio gaietas, ustezutenes ezi komunioneain errezibitzeko Bazkoan, aski zela garizumako berrogei eguntako prebenzioa, ta erraten ziote ia burlatzen ziren Jesu Kristos (H. 61 ad pop.). Zer erranen zue gaixtakeriak iten, erraten, pensatzen daudenes bezperaraño, ta biramonean denbora gutis pasatzen direnes konfesonariotik aldarera, ta andik fite gaixtakerietara? Naiz Jangoikoaren grazias barkaturik bekatuak, aien usai-errestoak estire

kentzen ain berla berla. Estakite, estakite alakoek ongi, zer den komekatzea. Zer litzake ago urrintzuareki apatzea errege? Estardukat disposizio prezisoas ez iteko sakrilejiorik, aski baita bekatu mortalerik gabe joatea; dardukat disposizio konbenienteas, geiagokoas. Ala nola aixteko esposa pobre gura ezkabias balego itsusturik, errezibitzeko esposo imperiala, ezleike kontenta artaiek garbitzeareki doi doa; etxiden lezake edekiartaño señaile, erresto guziak, ta paratuartaño garbi, eder guzis, etzeien niolatre deskontenta Jaun enperadorea: Bada, andik alzinga o, nola goarda leiken kutsatzeas? Estu, zio San Krisostomok (Ib. et s. de S. Filog.), estu jaiak egiten ellegatzea digno; baizik arimaren ontasunak ta purezak. Oneki ellega beti, au gabe beñerez. Komekatzeko denbora esta jaia edo zeledridadea, baizik konzienzia garbia ta bizitza bekaturik gabekoa. Entenda zagun, bada, ezi jaioak garen bekala onesteko ta zerbitzazeko Jangoikoa emen, ta gozatzeko gero glorian presentaturik digno jarritzeko ango maiean, ala bitarteo bizi guzian prestatzea dugu, ta egotea digno presentatzeko mai erreale gontan, emen baita zeruko antesala, ta ematen baita gloriako prenda; ta emengo estena digno, esta izanen ango ere.

Bada arima, pobre bai baña fortunosa, zaizkena desposatu enperadore sunmoareki komunionean, goazen bizitus garbiro geuren pobre zan. Atra zañetaik bekatua, baita deabruaren azia, ta gure esposo dibinoak ez dezakena soporta. Urruti, urruti bentzait mortaleetaik eriotzetik baño ia. Benialeetaik joan garbitus daiken adiña, ta ezpadaike libra erorzetik batean edo batean, bentzait batetara ere ez izan afizioneik, gutiago kostunbreik. Ez maldizioz gille, ez desobediente, ez suber edo bano, ez asarre, ez berekoi, ez gezurti, ez izan murmurazale. Inmundiziarik ez aipatu ere, ez memoriaik ere. Garbi ezkabia itsusi gortaik arras. Inbidiaren tiña fuera, fuera gularen itsuskeria, ta en fin bizio guzien gaixtoa. Ken, ken gaizki iduridakioken guzia gure esposo dibinoai. Joan bildus limosnas bada ere birtuteen adornuak, karidade ardiente, fede bizia, esperanza firme, humildade egiaskoa, kastidade perfektoa, pazienza ta serenidade animosoa, ontasun guzia. Lazki da lore naia gure esposoa, baitio bere buruas: Ego flos campi et lilium convallium, ni naiz kanpoko lorea ta zelaletako lili ederra. Axuria deitzen da, qui pascitur inter lilia, azuzenen ertean azitzen dena; tulcite me floribus, dio bere gustora egotekos gure baitan prestadezogula arimaren gela beterik birtuteen lorees, stipate me malis, supliturik obra onen fruitues. Itz bates diot: Nola zerua sollik baita Jaunonen habitazio dignoa, biz arima zeru bat bekala. Ortako ageri da beñere estaikela izan dilijenziarik sobra, ta guzia guti dela; ta ain guti nola baita!

Baña zer inen da? Aixteko pobre garren gisa, falta dena supli borondatearen humiltasunes, agradezimentus ta deseo ones. Arimen esposo amantea, ori eldu da neregana desposatzera bereki nere arima. Jesus Jauna, nere arima esta digna desposatzeko berorreki, nere etxe lurreko gau eztagokio orren Majestadeai; emen esta baizik pobreza, miseria ta bear guzia. Baña orrek barin badu borondate neregana, borondate ona dut nik ere orrengana. Borondate ona, au bai aurkituko du enebaitan. Zer in bear dut baizik izan borondate, amorio ta agradezimentu guzia alako Jaunai, eta nik? Ori neregana? Ori neregana? Baneki ezi errege andi batek didala borondate, ta nai duela etorri nere etxe ta konpañiara, zora nindaike kontentus. Bada, erregerik andiena esta txinurri bat adiña orren aldean, zein baita zeruko ta lurreko errege; ta alaere nai dukela nere arima bere esposa? O ene ditxa! Orra, estire oroitzen nitas, ta esta bear ere, lurreko andiak, nitas guziau bainaiz miseria; eta alakoas oroitzen da, ta nai du beretako Jesus Jaun soberano dulce onegiak! Jauna, ni ez naiz gauza deustako orren aurkintzean; baña orrek nai banau ni, nik zer in bear dut baizik nai izan berori? supli bez borondateak falta dudana. Oroitu, nere fielak,

komekatzean konparazio gontas, nai duela enperadore sumoak esposatako pobretto bat, au da, Jesus Jaunak ene arima. Nola au esta itxekiko amorioan? Nere arimain billa eldu da, bere esposa artzeagatik, Jesus ar bez berla berla, berant da berladanik. Jesus, ori neretako, ta berorrendako ni, ojala bat inik gauden betikos elkarreki. Orai grazian, gero glorian. Amen.

Sermo XLII:

De dispositione convenienti,
necessaria et de sacrilegio

Probet autém seipsum homo. 1 Cor. 11.

ordu da mintza dezagun disposizio prezisoaren gain komekatzeko de manera ezi estaien egin sakrilejiorik. Baña lastima iten zaida kontentatzeas orreki kristioa, ez atratzeareki diot eriotzea bizitzaren maietik, dezakelaik atra bizitza ta anitz bizitza, ta ortako etorri delaik Jaun dibinoa, ego autém veni ut vitam habeant, et abundantius habeant. Estaiela kontenta gutireki, eman nai diotelaik anitz. Nor kontenta leike janik janari on prezioso bat solamente ez iltzeareki, balego tatxatu erikor, ta ez il bai il, zeikelarik arras sendotu ta bizkortu? prebeni bedi ia ta ia, progatzeko alimentu gonon prodijioak. Apostoluei, naiz garbi egonik garbitu zitiote oñak; sazerdoteak garbiturik eskuak sakristian, garbitzentu eri-mokoak aldarean. Lengo denboretan diakonak oiuiten zue komekatzera zoezinei: Sancta sanctis, gauza sanduak sanduendako. Guziau da erakusteagatik Elizak Kristoreki nai gaituela prebeniturik sanduen gisa, ia ezi aski dena doi doia. San Mateok dio etzuela Kristok egiten, ta San Markosek etzukela egin anitz milagro bere sortuerrian. Etzukela dio gure errate gisara, ez dezaket egin au edo ura, estelaik arrazio egitea. Etzuke egin milagrorik bere patrian, au da, etze arrazio in zezan, agian zeren lekukideak ta ezaunak bekala etzioten aski debozio ta ferbore. O zer milagroak iten zituen sanduetan sakramentu gonek! Gure baitan ez dezake egin, auda, esta arrazio egitea, zeren ezkaren disponitzen sanduen gisa, baizik ala epel epela. Disposizioaren ariora obrazen dute sakramentuek. Graziaren ta santidadearen iturria da au, perenne abasto ematen du ainberze orai nola len; baña onzia txipi daramanak ez dezake anitz atra. Ustu arima afizione ta pasione txarretaik, libra bekatu benialeetaik errezibitzekos anitz grazia komunionean. Suak artzen du laster ta sendoki materiale seko prestatuan, ez ala ezean. Su ematera etorri omen da Jaunau, ta zer nai du baizik itxeki daien? Baña ezaturik edo loiestaturik badago biotza munduko gustoeki, nola paratuko da Jangoikoaren amoriosko sugarretan? Manna izanik zerutik bialia zapore miragarriak zituena, alaere etziote egiten bearradiña probetxu ta gusto israeldarrei baizeude lisiaturik Ejiptoko elze, baratxuri ta tipuletara. Bear da kendu ez gaisto dena solamente, baitare gaistoaren erresabio guzia logratzekos Jangoikoaren deliziak kunplituki. Biotz erdiareki gure Jaunagana datozi asko; nola naute obra dezkien marabilla bereak biotz gartan, zeñen erdia baitamate munduak, demonioak ta aragiak? Emendik aisa da errespondatzea hereje luteranoei, baitiote estagola Kristo sakramentuan, ezi balego, inenginduzala sanduagokoak. Eskuan dago errespuesta, ezi egonik ere dagon bekala errealki Jesu Kristo, ta errezibiturik komunionean, estituela guziak iten sandu, zeren estorbatzen baitu efektoa gure disposizio-faltak. Ala nola erregeren maiean erregalatua izanik ere bat, ezpada ongi azitzen, zeren berze alde jaten duen lur, ikatz, gal zina, zer kulpak du mai errealak? Mai erreala da au, aingiruen ogia jaten da emen, emen betetzen da Jangoikoas gizona; ezpazaio iduritzen Jangoikoai santidadean, gizonak du kulpak, ez maiak, ez komunioneak. Disponi bedi ia ta ia despeitus banidadeas, kendus kulpak, erraustus pasioneak, afizionatus ta entregatus Jangoikoai beingoas, ta ikusko da zer irabaziak! Baña estaien bentzait agitu biziaren maietik atratzea eriotzea, juizioa ta kondenazioa, aipa zagun disposizio preziso preziso dena falta gabe. Maria

Santisima Jangoikoaren biotzaren neurrira egina, iruzki obenaren artizarra, gure Ama dulzsisima, Ama amablea, amatua, amantea, amorosa, erdetxi bez guretako bear dugun grazia. Abe Maria.

Enperadore andi batek disponi balez joatea aldiritar pobretto baten etxolara artzera bere esposatako pobretto gura, zeñi baizio borondate, errezibitzeko jaun bat alakoa, nola prebenituko ze etxea ta persona izanik ain pobre? Irur prebenzio-gisa ikustentut: Bata imposible dena, berzea dena posible ta konbeni, berzea, berriz, posible ez ezi, preziso ere bai, ta ezin exkusa daikena. Prebenitzea alako Majestadeari dagokion diña da imposible, ain etxe txar ta persona ain pobrean. Prebenitzea ordea bere ariora, dezenia guziareki, billatus alhaja ta adornu aurki daizkenak, lekuan, eskatus bada ere, ori da posible ta konbeni. Preziso dena da, duen pobreza paratzea txukun ta garbi falta gabe. Pobre garrek balezake erran: Enperadore Jauna eldu zaida, nainuke errezibitu berai dagokion grandezareki, baña nondik dezaket nik ori, nere etxea ain txarra delaik, ta neurau ain pobre? Esta posible. Ontan egia zio, baña erran balez: Nik ez izaki zereki alhajatu, billatu bear eskatus paratzekos dena dezenia onean, ori zaida nekoso. Ontan etzio ongi, atxekia txarra zue, ezi agradezitua balitz, nekegoi artu bear zue gogotik ere alako Jaun ta ala onesten duenagatik. Baña gutien gutiena bentzait paratzea txukun ta garbi kendus errauts ta zikintasun ofendi dezakena Jaun gura; ez egiteko ainberze sikiera Jaun garren atenzios ta amorio mostratzendionaren korrespondenzias, ortako estu exkusarik. Klaro da dela zenzu gabea, ta eskergaitz itsusia, ta mereji duena despei dezan Jaunark ordu gaistoan.

pintatu dut agi daikena Jesu Kristoren komunione sanduan. Au da enperadore dibinoa dignatzen dena etorzero gure desterru ta aldirita (sic) pobre gontara, gure lurreko etxola txar gontara artzera bere esposatako gure arima, zeñi baitio ainberze borondate kostatu zaion bekala infinito. Prebenitzea mereji duen bekala esta posible. Prebenitzea dezenia ta adornu espirituale izandaizkeneki gure leku ta gorputz gontan, eskatus Jangoikoai, Ama Birjinai, aingiruei, sanduei, prokuratus, trabajatus prestatzeko arima fede, esperanza, karidade, kontrizio, humildade, pazienza, penitenzia, kastidade, konstanzia ta berzeeki, ori da posible ta konbeni, ta ala iten dute arima noble agradezituiek, ta ala in lezake gure arimak ere, ezpalitz eskergaitza bere esposo Jesus onegiareki. Baña prebenitzea berere garbi ta txukun bere pobre zan, ori da preziso estaikena dispensa. Eta au da erakusten duena doktrinak diolaik: Zenbat gauza bear dire ongi komekatzeko? Emen errateunte bida, gorputzaren aldetik barurik joatea, arimaren aldetik Jangoikoaren grazian, edo ala, gorputza barurik, ta arima garbirik. Baña ala diotenak suponitzeunte komekatzera doaienak badakiela ta sinestatzen duela zer errezibitzera doaien, ta doaiela por konsigiente bear den debozioareki. Explikatus berexago, diot bear direla ongi komekatzekos laur zirkunstanzia gutiengan. Lenbizikoa, entendamentuaren aldetik ezauntzea ta sinestatzea zer errezibitzen den, baita Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa. Bigarrena, borondatearen aldetik debozioa, estaien pasa mai gartara ain epel ajolakabe nola mai komunetara. Irugarrena, arima guziaren aldetik Jangoikoaren grazian joatea, auda, bekatu mortalerik gabe bentzait. Ta laugarrena, gorputzaren aldetik baru naturala, jan ta edan gabe deus gauerditik alzina. Onen gain esta anitz erran bearrik, ezi guti faltatzen da ontan. Ezaumentu, fede ta debozioan da ia ta gutiago; zerbait erran da ia, ta erranen da oraño. Joateas arima garbirik edo Jangoikoaren grazian jardukagun brebekiro egungoan.

Garbi edo Jangoikoaren grazian dago arima ilik estagona bekatu mortalareki Jangoikoaren begietan, naiz izanik zenbait kulpas lebe, ebeki ellegatzea esta izanen sakrilejio, naiz izanik zerbait desatenzio. Baña bekatu mortale bateki ellegatzea

komekatzera da sakrilejio lotsagarria, ta arreki senti dena ariman bear da lendanik ellegatu konfesioaren sakramentura, ta esta aski kontrizioa konfesorik gabe ellegatzeko komekatzera, diones Konzilio Tridentinoak San Pablaren itz gaien gañean: Probet seipsum homo, proba bedi edo presta bedi gizona; probazio edo prebenzio gura da preziso, estaien nior ellega, naiz idurituri ere duela kontrizio andia, konfesatu gabe alzinetik, txoil ezpada lanze ertxi batean, noiz duen prezisio komekatzeko, ta konfessoreik ez. Bi zirkunstanzia juntatu bear dire izateko zillegi komekatzea kontrizio sollareki konfesorik gabe: Lenbizikoa preziso izatea komekatzea, ezi ezpada prezisiorik, utzi bear da komunionea konfesaestaikelaik; bigarrena, ez izatea konfessoreik neke edo kalte andirik gabe; eta ala aurki baledi bat komunionea maiean ia, ta in balez an, edo oroï baledi bekatu mortale egin bates, nola baitago ia komekatzeko prezisioan, ta ezin konfesa infamiaren notagabe, leike ellega komekatzera kontriziosko dolorea izanik biotzean konfesatzeko intenzioareki len baño len. Alako lanze ertxies landara da preziso konfesatzea, arimaren penan, ezperen da sakrilejio, komekatzen da gaizki, jaten du indignoki Kristoren gorputza, ta bere kontra juizioa iresten du, ta kondenazioa; iten da Kristoren gorputz ta odolaren reo, au da kulpante, nola il balez Kristo.

Bekatu andi temerarioa, Judas traidorearen bekatua! Erregeri iten zaio agrabio desobeditzean beraren edozein lege edo manamentu, baña erregeren persona berai agrabiatzea eskuak paratus, traiziatu, ta ala deitzen da lesa Majestadearen delitua. Ario gontara baña konparaziorik gabe, auxtea edozein mandamentu Jangoikoaren, da Jangoikoaren agrabio ta ofensa, baña komekatzea indignoki da bere personan agrabiatzea ta berritzea bekala bere gorputz dibinoan judioak in zizkioten zauriak. Eta Aita Sanduek aurkitzentuste komekatze indignoan zirkunstanzia anditzen dutenak bekatua ia ezi kruzifikatzean Kristo Kalbarioan, zerengatik berdugo gaiek kruzifikatu zute Kristo bizi zelaik munduan iltzeko, gaixto gebek despreziateunte orai dagolaik erreinatzen glorian. Eta norinai idurituko zaio agrabio andiagokoa despreziateunta errege dagolaik jarri bere trono errealean, ezi ez dabilalaik peregrino ezaundu gabea oian batean. Aiek etzute ezaundu, ongi bentzait ez, ezi ezaundu bazute, etzute kruzifikatuko gloriako Jauna, dio San Pablok (1 Cor. 2), kristio komekatzen direnek diote sinestatzeuntela Kristo dagola sakramentuan ain errealki nola zeruan. Orduko iltze gartaik atra zue gure Jaunak anitz probetxu, nola baita erredimitzea mundua, ta dulce deizen da orgatik gurutze gura, dulceak itze gaiek, zeren artan zoeie Jangoikoaren borondatea ere. Orai komekatze indignoari estarraio probetxu pixkaik ere niorendako, baizik guzia kalte, estaie dei dulce gurutze gau, esta berze alde egiten ontan zeruaren borondatea, baizik ere sentitzen du arimaraño Kristo berak, sentitzen du Aita eternoak, sentitzen du Ama Birjinak, sentitzeunte aingiruek, ta sentitzen du zeru guziak eta munduak; eta niondik esta atxekiarik exkusatzeko.

Agian, gauza munduan den andienaindako, nolakoa baita komekatzea, anitz da eskatzen dena, baita garbitzea arima konfesio on bateki? komekatzen dena desposatzen da espiritualki ta unitzen da Kristoreki; anitz da manatzea jainsteko bodetako, gala, baita grazia? Ebanjelioko errege garren semearen bodetan, konbit zirenetaik bat ikusirik maiean bodetako tresena gabe, asarratu ze errege, akar egin zio: Nola sartu zara emen gisa ortan? Ta kastigarazi zue gogorki, botaturik maietik. Zer izanen ze, joan baze ain moldegaizki esposa bera? Kristoren esposa da arima, komunionea da bodetako konbita, bodetako gala grazia; au gabe nola sartu zara emen? Dio asarraturik Jangoikoak komekatzen denai bekatu mortalean. Goazen llano llanoa beiratus bekatu gonon temerarioa. Nork estaki

bekatu mortalea dela monstruo ta peste gure Jaunaren kontrario aborrezituena, len edeki ziona gorputzaren bizia, ta orai heritzen diona biotza? Bada, nolako gauza arrigarria da biotz batean paratzea bekata ta Kristo sakramentatua? Bekatuan dagona deabruaren esklabo da; ia ere erran zue Kristok Judasengatik azken afari gartan: *Unus ex vobis diabolus est* (Joan. 6). Beras, indignoki komekatzen denak obligatzen du Kristo juntatzera deabru bateki. Au da zierto ezi deabruaren etxean sarzen dela Kristo sarzen delarik bekataria in biotzean. Eta etxe gontan deabrua da nautsi, deabruak ditu giltzak, deabruak manatzen du bere etxean bekala; Kristo egoten da an kanpoko bekala; pensa zein deskontent! De manera ezi pensaturik gauza gau, ellegatu zire batzuk erratera ezi ukitu orduko bekataria en ezpañak hostia sandas, kentzen dela andik Kristoren Majestadea ez sarzeagatik alako petxoan. Auda erre bat fedearen kontra, baña adiarasten duena sakrilejio garren izugarria. Dirau, bada, presente hostian, naiz barrendegi gaixtoan, naiz ain deskontent ezi naiago bailuke egon loiean (Segner. chr. p.3. d. 10. n. 11). Estu denbora anitz, ezi erre zibiturik batek komunionea bekatu mortaleki ariman, instante oñaze batek ain erruak, ain zorrotzak asi zue tormentatzen barrendegian, ezi ezin suportatus atra ze tenplotik bereala, ta egotzi zue zoko batean hostia sanda; egotzi orduko joan zekio arras oñazea, mostraturik oneki gure Jaunak naiago zuela egon zoko indezente gartan, ezi ez arren barnean.

Nola dagoke, bada, Jaun dibinoa Birjinaren Seme garbia petxo bekatarian? Deskontentago ezi egon zelaik preso judioen eskuetan. Orduan erran zue lendanik: Orra, orai goaz Jerusalem, ta Birjinaren Semea izanen da entregatua gaixtoen eskuetan. Orai dio berze ainberze komekatzera ellegatzen direlaik indignoak. Orduan erran zue Judasengatik maiean: Zuetaik batek traiziatuko nau ni, nereki ogia jaten duenak; ta geroxago erran zio apostoluei: Urbil eldu da traiziatuko nauena. Eta berai ellegatu zekiolaik ematera apa falsu gura, erran zio: Adiskidea, zertara etorri zara? Besarka goneki entregatzen duzu Birjinaren Semea? Zer konsiderazioa au, nere fielak, komekatzera indignoki atrebitzen direnendako, kapaz balire konsideratzeko iten dutena! Kontu komekatzeko maiaren alzinean paratzen direlaik, erraten duela aldaretik gure Jaunak: Zuetaik batek traiziatuko nau ni, jaten duenak nereki mai gontan. Kontu erraten diotela bere aingiruei: Ona urbiltzen da traiziatuko nauena. Kontu berai agoa idikitzerakoan erre zibitzeko hostia erraten diola: Adiskidea, zertara etorri zara? Besarka goneki traiziatu beazu Birjinaren Semea? Eta sines, ene fielak, solo gogoratzeas ikaratzen dire entrañak, nola in ondoan bati Jesus dibino, dulce, onegiak, ainberze mertxede, sakrifikatu ondoan gaixtoengatik axuri on inozentea, ematen zaigulaik, erregalotako, juntatzen duelaik bereki arima esposo dibinoak bere esposa onetsia bekala, nola daiken kabitu biotz humanoan traizio bat ain traidorea, nolakoa baita bekatu mortaleki ariman erre zibitzea, baita ain bat nola entregatzea Jesus etsayik andienaren eskuetan! Baut uste gogotikago utzi leikela berriz paratzera judioen kalabozoan, eta gurutzetan ere, ezi ez alako ostate indignoan, alako arima gaixtoan. Eta usten da alaere askotan ixil ixila, estuelaik beti kastigatzen berla presentean ta agerrian, nola baitirudi bear litzakela eskarmen tarasteko arima gaixto atrebituak. Anitz urte estuela (Sein. ib. n. 21) ikusi zue arima on batek Jangoikoaren permisos enzuten zegolaik meza zelebrazen zuena sazerdoteak bekatu mortalean, ikusi zue, diot, nola zen tratatua gaizkiegi Jesus ona aldare gartan, zermatela bekala axuri inozenta arrastaka degollatzera, tristaturik zeudelaik aingiruak geldi inguruan, ta alegranzias deabruak. Lastimaturik arima garrek erran zio Jaun dibinoai biotzetik: Da posible utzi daikela tratatzera gisa ortan ain ixil, geldi, debekatu gabe, ene Jaun onegia? errespondatu zio: Ene humea, etzaitela arritu, ezi

indignoki errezibitzen nauenaren bekatua da ain horribilea, ezi emen esta penarik aski arren kastigatzeko; orgatik geien komun erreserbatzen dut berze mundurako. Bada, zer ira bildus bide doaien Jangoikoarena ar txarra bere kontra? Juizioa, edo kondenazioaren sententzia iresten duela bere kontra dio San Pablok: *Judicium sibi manducat*. Eta daike konta presenteko estadoan arima kondenatua bekala, Jangoikoaganik aborrezitua, Ama Birjinaganik despeitua, aingiruen ta sanduenganik botatua ordu gaixtoan, ta deabruaren eskuan utzia. Erreaki erregeren seme prinzipe heredero bakarra, aur txipittoa delaik, ta guzien kariñoen errobazalea, norinaii ematen dena besotara amoroso, arturik moldegaitz batek kruelki bota balez butzu inmundizias beterik dagon batera, zer jendearen lastimak! Zer andien oiua! Eta zer errege ta erreinaren indignazioa, aiturik alako indignidadea? Zer pena litzake aski alakoaindako? Nork izan lezoke konpasionerrestorik, naiz zatika ta errezetzen bizirik? Orai, bada, erran lezakete guziek: Orai, bada, prinzipe heredero bakarra ta aur bat ain eder galanta guziok amorosturik gauzkiena, niori gaizkirik itenestiona, nor naian besotara, oroat pobre nola abratsai eutxizen zaiona besarka, zezakela moldegaitz gorrek bota inmundizia gortara? Noreki dardukat? Nor da moldegaitz gura? Arima gaixtoa. Butzu inmundizias betea da mortalean dagonaren barrendegia; eta berori ain amolsuki ematen dena norinaii nor da? Esta ori Jesus Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Seme bakar, ta eternidadeen prinzipe herederoa? Ain eder galanta, ezi serafinak ta zeruko guziak xoraturik baitagozkio kontino aurpegira beira ezin aspertus? Eta moldegaitzak alaere dezakela bota bere barren inmundio gartara! Eta zer gaizki egin dio arri ta niori arren Majestadeak? Ezpada gaizki amoriogoi ain geiegia usten baita, eldu baita ar dezagun nornaiek ain llano besarka! O Jesus ona, zein ongi pagatzen dioten orri alako fineza ain amorosgarria! Ezdezala permiti, ez nuke nai bentzait, ta estut eginen dakitelaik bentzait errezibitzea bekatuan, gañarakoes zer den, au bentzait ez. Ai triste gartas, zeñek ere errezibitzen duen indignoki. Atsaña egonen dire arren kontra zeruetako errege ta erreina, ta ango andi guziak. Kristoren odola egonen da klamatzen berain kontra. Eta arreki firmaturik, kondenazioa jabetzen da arimas Satanas bereas bekala, etxideten tirrikaturik noiz emanen zaion eramateko lizenzia. Ala, Judases dio ezi amen gura artu orduko sartu zela Satanas arren baitan. Post buccellam introivit in eum Satanas. Arrena ze len ere, baña orduan, artu zue posesio perfektoa. Kontatzen du bere bizian Santa Teresak itzebeki lanze gau (C.38. n.15. et retro serm. 5). Ellegatzean bein komekatzera, ikusi nitue arimaren begieki klaroago ezi gorputzekoeke bi demonio figura abominableareki. Iduri zaida inguratzen zutela adarreki sazerdote pobreaken lepoa. Eta ikusi nue ene Jauna erran nuen Majestadeareki paraturik esku gaietan, ematera zokidan forma gartan, ta entendatu nue zegola arima gura bekatu mortalean. Zer izanen ze, Jauna, ikustea orren edertasuna alako figura ain abominableen ertean? Zeude aiek lotsarriturik bekala orren presenzian, iduri baizue gogotik inlezaketela iges, orrek utzi balezki. Eman zida ainberzeko turbazioak, ezi estakit nola komekatu nitzan; eta gelditu nitza beldur andiareki, iduri zekidala ezi balitz Jangoikoarena bisione gura, etzuela permitituko bere Majestadeak ikus nezan estado gaixtoa zuena arima garrek. Jaun berak erran zida otoitz in nezala arima garrengatik, ta permititu zuela entenda nezangatik konsagrazioko itzek duten birtutea; eta nola naiz gaixto izanik sazerdotea, paratzen den an Jangoikoa, ta ikus nezan beraren ontasun andia ustean bere etsaiaren eskuetan nere ta guzien onagatik. Entendatu nue ongi zenbat ia obligatuak dauden sazerdoteak izatera onak, eta zein gauza gaixtoa den errezibitzea indignoki Sakramentu Sandua, ta ain jaun ta jabe iten den demonioa mortalean dagon arimaren. Guziok dire Doktora Sandaren itzak. Beras, ditxa andia den bekala komekatzea ongi, da

desditxa gaizki komekatzea. Gure Jaunak goarda gaitzala ontaik ta in gaitzala bere biotzekoak. Amen.

Sermo XLIII:

De praxi ante communionem.

Et de actibus virtutum elicied

In sole posuit tabernaculum suum,
et ipse tanquám sponsus. Ps. 18.

Iruzkian berean paratu du bere tabernakulo erreala gure Jaunak, dio Dabidek, eta bera ala nola esposoa. Iruzki gau da propiki sakramentu aldarekoa, eta an paratu du bere egotea arimen esposoak. Kuadratzen zaida konparatzea komunionea desposorio espirituale dibino bateki, zeñetan arima pobrettoa desposazen baita Jesus errege andienareki. Fortunosa, baldin barin badaki disponitzen ongi kuadratzeke esposo alakoari, ta abratsteko beingoas. Disposizio prezisoa gorputzaren aldetik erran dugu dela barurik joatea, ezi gorputza delarik arimaren etxea naiz lurrezkoa ta txarra, beñere estaike apaindu ain ongi, nola baitagokio alako Majestadeai. Baña baru naturalean berere dagon disponitu du Elizak, sartu gabe deus jatekorik edo edatekorik komekatubañolen. Arimaren aldetik bodetako gala, baita grazia santifikantea. Berze alde entendamentuaren aldetik ezauntzea zer errezibitzera doaie; ta borondatearen aldetik debozio ta afekto korrespondientea. Baña arima onak esposa agradezituak bekala, estu kontentatu bear doi doia aski denas. Apaindu naiko du bere etxea ta bera alikako obekiena plazer emateko esposo dibinoai. (Eta ala estaliko du gorputza al dezaken dezenia ta txukuntasunik obenean fantasiarik gabe, solamente zerbitzatu naiak gure Jaunai gorputz ta arimareki, ta ongi iduritu naiak sollik beraren begietan ala exterioreas nola interioreas; ezi munduko boda ta festa egunetan kuidatzen badu banidadeak adornatzeas gorputz miserablea, arrazio baño ia da komunioerako adorna dezan humilki debozioak, naiz niork ez ikusi baizik nere Jaunak, zein sollik nai ta bear baitut, zerengatik komunioneke eguna da neretako boda eguna, Bazkoa ta festa eguna. Baña arimarena da prinzipala; au kuidatuko du apaintzeas prinzipalki lenetik ta urrundarik anitz birtuteeki ta birtutesko obraeki, baitaere komunione-bezperan ta goizean birtuteen aktaeki). Goazen erakutsis nola; estu guti inportatzen ikasteak. Pobretto bat konbidatua balitz zelebratzera desposorioa errege andi bateki, informa leike ansiosa, ta estima lezake ikastea nola prestatu etxea, ta bere persona errezibitzeko Jaun andi gura. Pobrettoa da gure arima, ta konbidatua zelebratzera desposorio espiritualea gloriako prinzipie herederoareki, Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Seme bakarrareki. Jangoikoaren lana da ongi prestatzea; orrena, Ama Birjina, logratzea ortako bear ta eskatzen dugun grazia. Abe Maria (dispositio remota et proxima).

1ª. Bego adbertiturik dardukatela egun ez ainberze disposizio obligazioskoas, nola debozioskoas ta borondateskoas, zelebratzeko desposorio dibinoa Jesus onareki, baita komunionea. Pobretto erran dugun garrek errezibitzeko errege beraren esposo izan nai zuena, ez solamente bear luke garbitu bere etxea ta persona zikintasun likits okagarrietaik, baitaere kendu errauts guziak, paratu katedrak ta maiak, adornatu pareteak ere alfonbres ta eskaies, ta bere persona txukun ez ezi, eder lezake edergarri zezazken guzieki, naiz billaturik andik eta emendik. Gure Jaun Jesu Kristoren errezibitzeko dezenteki grazia da edergarri lenbizikoa; ortas landara kastidadea ez solamente arimarena, baitaere gorputzarena. Grazia barin bada bodetako gala, kastidadea uste dut dela zinto ederra, edo erastun prezioso, ezpadugu erraten dela txuritzea, luzitzea ta argitzea bekala gure

Jaunaren sagrario bizia. Eta zer au baño gauza dezenteagorik errezibitzeko aingiruen ogia, Ama Birjinaren Semea ta Birjinen esposo garbi-ederra, zeñek nai baitu iruzkia bezain argi flamante bere sagrarioa? In sole posuit tabernaculum suum; jenio gau da ageri eskojitzean bere amatako Birjina Maria, konserbatzean Ama ta Birjin asko milagroen kostus, ez permititzean niolatero amatasunaren mantxa naturala bekaturik gabe ere izan zeikena, permititu zuelaik izatea preso, golpatua, azotatua ta gurezifikatua. En fin, disponitzean izan daitzen bere ministro manejatua bear dutenak konsagratuak kastidadearen boto solemneareki, ta libreak inmundizia guzien kutsutik, zeñen erresabio edozein, naiz kulparik gabe agi daizkenak estire dezente gure Jaunaren sagrario-gisa errezibitu bear duena baitan, de manera ezi agitzen balitz lotan ere, ta naigabe zerbait ilusione edo deabruaren edo miseria humanoaren kasos, egun gartan ustea komunionea konsejatzan da erreberenziagatik sakramentuari. Konsejatzan da, diot, manatzen ez, kulpa grabarik estelaik (konsejatzan da, alaber, komekatzeko abstenitzea matrimonioaren lizenziatik. Dardukat komekatzeko disposizio borondateskoas, debozioskoas obeagos ta dezenteagos; obligazioskorik esta ontan guzian, kulparik estelaik); baña kulpa izan balitz materia gontan, orduan ez debozio borondatesko, baizik obligazio prezisoa da komekatubañolen garbitzea biotzesko negarres konfesioko bataioan. Au suponiturik, ta suponiturik kuidado bat prudente kontinoa konserbatzeko garbi gure Jaunaren sagrario ta esposa izan bear direnak, baitire gorputza ta arima, goazen ikasis nola errezibitu esposo zerukoa dezenziarik obenean, segitus beti desposorioen konparazioa, Jesus esposo, arima esposa.

2ª. Oroiturik, bada, komekatzeas alako egunean, pensaturik errezibitu bear duena nere arima pobrettoak dela Jesus bera gloriako prinzipio soberanoa ain andia ezi arren aldean emengo prinzipioak baitire pajeak ta lakaioak anitz ditxas; ain poderoso ezi baitezake ibili ta bota gora bera mundu guzia ain nola pilota, nai duen guzia itz bates; ain abratsa, ezi ezpaita nion ondasunik berak emana estenik, ta ezpaita deus ere txurtzen infinizio bat emanagatik; ain liberala, ezi beti dago eman naiak, ta solamente kexatzen da gure ez artu naitas; ain noblea, ezi beraganik du prinzipio nobleza guziak, eta bere etsaiei ere iten diote anitz ongi ilartaño aiengatik; ain ederra, ezi beraren edertasunas admiraturik daude iruzkia ta ilargia, dagozkio xoraturik kontino beira serafinak, eta utzi baledi ikustera infernuan den bekala, ia ez lezakete senti pena pixkarik ere kondenatuek; ain ona ezi nioren bearrik estuelaik baitago barkatzen bere traidore txarrei, sobra on izanes, guk bekatu ta bekatu, ta berak barkatu ta barkatu, ta on guzia egin gaixtoei ere; zer litzake onak bagina? Ain amoroso amablea, ezi nere arima ere nai du artu bere esposa; ain andiak, ain txarra, Jangoiko denak ni bekalako miserablea! Orra, munduko andiek estute kasorik zutas ta nitas, eta zeruetako Jaunak bai. Pensamentu gebeki itxekiko da amorioa ta deseoa alako Jaunagana. Orrek nai banau ni, Jesus ona, nik nai dut berori. Dela posible Jaun alakoak nai dukela bere esposatako nere arima? Sines, nik nai badut bera. Eta zer in bear dut baizik nai izan? Mertextedeak sobratzen zaizkida. Nai dut, Jauna, nai dut, ta ori sollik nai dut, ta nior ez berzerik, ezpada orrengatik ta orrendako. Nork estu nai izan bear alako Jauna? Niork ez nau nai ainberze ni nola berorrek, estutelarik nior ofenditu ainberze nola berori nik. O edertasun ain antiguaskoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! Zein berant onetsi duten! Alaere esta nekatu etxidenes! Alaere nai du etorri neregana! Betor, betor, ar bez posesio nitas betikos; ona ni, guziau orrena naiz ta orrendako.

Au da, nere fielak, sakramentu gonon gose ta egarria deitzen dena ta ainberze enkargatzeuntena Aita Sanduek egiteko anitz probetxu. Ala nola aur titiko gosetiak anitz denboras egon denak edan gabe, elduzaiolaik ama, tiratzen baitu ansiareki esnea, da San

Krisostomoren konparazioa, ala ansiatu bear dugu sakramentu gonon grazia. Unus sit nobis dolor hâc escâ privari, au biz gure sentimentura bakarra, ura gabe egotea. Urbildus doaien bekala komekatzeko denbora, da arrazio aumenta daitzen ansiak ariman amorosturik bere esposo dibinoas beragana ellegatu naiak. Baña bitarteo batek itzuli beartu begiak beregana; nor naiz ni, eta zer etxe da nere gau errezibitzeko Jaun alakoa? Orrek, Jauna, nai nauela esperanza dut, ta señaile onak, baña ni ez izaki digno; nola bear dut errezibitu etxe txar gontan, ta neurau ere izanik ain txarra? Pensamentu goneki eldu da humillatzea ta astea errejistratzen konzienziaren zokoak garbitzeko al guzia, ez egunean solamente, baizik bezperatik ere; eskatus entendamentuain argitasun ezauntzeko Jangoikoaren ofensak, ta borondateain su sentitzeko biotzesko negar amargoeki; eta naiz egia izanik konfesioak barkatzen duela atriziosko dolore sobrenaturalareki, au da, penaren beldurres, alaere konbeni da beti prokuratzea kontriziosko dolorea, zeren ofenditu baitu jaun bat ain ona, diola: O Jauna, orai ere ofenditu du traidore gonek orren Majestadea. Etzue orrek ala mereji eneganik; estida orrek gaizkirik egin ofenditzeko nik berori; barkatu, Jauna, barkatu. Pensamentu gebeki etzin, eskatus Jangoikoai, Ama Birjinai, sanduei grazia ongi konfesa-komekatzeko biramonean.

Ellegaturik eguna, idatzarri orduko lenbiziko pensamentuak biz nola bear duen errezibitu esposo dibinoa, ta gauza andia dela ongi prestatzea. Jaiki goizik, bestitu dezente, garbitu eskuak eta aurpegia, ta orrostatu; al badaike, guzia, aixtean erran bekala, mostratu naies Jangoikoai zerbitzatu nai diogula gorputz ta arimareki; formaturik gurutzearen señailea atra etxetik, utzirik berze kuidado guziak itzuliartaño; joan modesto ixil nora tiratzen duen bere debozioak edo obligatzen duen miseriak, naut erran, konfesatzeko alke geiegiak, ezi medio guziak artu bear dire ez iteko konfesio gaixtoa, ta duenak zerbait erreparatu konfesatzeko bateki, bila bez berze bat; ta izan dezake norbaitek bere miseriain kasos, naiz ez dezan izan erreparogoi berze batek, nola ezpaitut nik, zerengatik nori nai konfesa nadien, ni konfesatzen natzaio zeruetako Jaunari. Baña banu, lenago in nezake milla dilijenzia ta gauza, ezi ez egin konfesio bat gaixtoa pizatzen baitu ainberze nola Kristoren odola malogratzea. Ellegaturik elizara erreberente, paraturik belauriko, zeñaturik ta kontriziosko akta eginik, despei munduko gauza guziak kanpora, manatu sentidoei daudela atento, bear bekala Jangoiko andiaren presenzian: Begiak ertxirik edo apal, edo noizean noiz aldarerat beira, burua, eskuak, oñak, guzia geldik; utzi kondizio gaistoak, exkusa exkusa daizken arroitu ta sinplekeria edo gaistakeria guziak tenplo sanduan. Pensa ziona Santa Teresak, gaudela Jangoikoa ta ni bakarrik, eta zierto estut berze niores anitz ajola. Nik erratentiot prinzipioan itz gebek: aurki bez, Jauna, bere sierbo gonek grazia berorren begietan, ta mintzatuko diot nere Jaunari naizelaik autsa ta errautsa. Eskaturik berriro grazia ezauntzeko ta sentitzeko ongi bere kulpak, ta examinaturik berriro konzienzia, enpleatzen da gañarako denboran egiten kontrizio ta amoriosko aktak, ez memorias pasatus, baizik atras biotzaren ondaretik senti duela finki arimartaño desplazer emana alako Jaunai, ia ezi urratu balitz munduaren makina; eta errealki au ezlitzake ain sentitzeko nola baita ofenditzea guzien Jauna. O ain nola baita egia dioten gau, konsumi baledi ene biotza ene Jaunaren amoriosko sus ta kontriziosko dolores!

Konfesaturik ia, esta preziso, al baleike ere, kunplitzea berla berla penitenzia, ezpadiote manatzen ori, baizik orduan da ordua animatzeko biotza ta itxekitzeko anitz amorio, deseo, ansia ta afektotan, oroiturik komunionekeo desposorio miragarrias, ene arima ene Jesusen esposa, ene Jesus ene arimaren esposo. Emen da humillatzea bat, agradezitzea, amatzea, deseatzeta, eskatzeta ta desahogatzeta borondatea, iaketa estuen berze

ematekorik baizik borondatea. Zimendua da fedea, baita ikusi gabe sinestatzea; au biz lenena, esta zer egon ikusi beira, ikusi gabe bear da fiaturik Jangoikoaren itzan, seguroago ezi begien bistan. Ala nai du Jangoikoak, au da Jangoikoaren bidea, humilla gaitzen burua kurturik beraren obsekiotan sinestatzeraz ikusten ez ta entendatzenestuguna ere. Jauna, erran zio batek, asisti benaza al badezake zerbait. Errespondatu zio Kristok: al badezakezu sinesta zuk, guzia da posible sinestatzenduenaindako. Erran bezo arimak: orreki, Jauna, sinesten dut, bizkor bez nere sineste eria. Gauza geiegia da au, ori neregana etorzea, baña ortako da Jangoikoaren lana, Jangoiko gisa portatzen da; sinestutzen dut ia por lo mismo ezi gutiago dezaken xarretxi nere entendamentutto txarronek. Sinestutzen dut eldu dela enegana komunionean errealki sines; ojala ain errealki ni gloriara banindedi. Gero humillatzea. Baña, Jauna, nor da berori, ta nor naiz ni? Berori Jaun guzien Jauna, ta ni lurreko animalettoa. Bai ta ezpalitz baizik txikitik andirako diferenzia, nonbait ere litzake, baña ori sandua, ni bekataria, ori nere ongigille amantea, eta ni eskergaitz gaixtoa. Jauna, ez naiz digno ellegatzeko berorregana. Agitu izan daike noizbait Jaun andiren batek artzea beregana pobretto bat, zena ordeaz fiela, agradezitua, ona; baña infiel, traidora, adultera izana nork dezake soporta? Alakoa izan da ene arima. Esta berori gaixtoa izan nereki, gaixtoa ni bai berorreki. Emen beldurtasunaren akta. Jauna, beldur naiz neure kulpas atra dezaten biziaren ta graziaren maietik eriotzea ta kondenazioa. Ai nitas, baldin ofenditzen bada berori, ni orregana ellegatzeas! Ai baldin sartu ondoan berori nere baitan, sentiturik bekatuen usaia, apartatzen badu eneganik asarre bere aurpegia! Zer inen dut, bada? Ezpanaiz ellegatzen orregana, ezin salba, ta berriz ellegatzen banaiz gaizki, galdua naiz. Zer inen dut? Emen eldu da esperanza. Jauna, enea ikusia dago. Eneganik ez dezaket espera gauza onik, baizik miseria, baizik perdizioa, ez nuke esperatu niondik, ezpalitz berori ain ona, ta onago ezi ni gaixto. Orren baitan daukat esperanza. Orrek ikusirik nere deus gutia, in bearko du guzia, orrek eman dono gau ain andia, ta orrek onen errezibitzeko disposizioa. Baña guzien gañetik amorio ta deseosko afektoetan enpleatu bear da ordu gartan. Jauna, erran bear da, emen estu deus aurkituko, baizik borondate ona. Onesten dut berori biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki gauza guziak baño ia, ta onesten dut berori bakarrik, zeren mereji baitu, delarik ain ona ta onesten nauelaik ainberze orrek ni. Nior estut ia agrabiatu ori baño, eta alaere niork eznaue onetsi ia orrek baño. Zer izanen ze izan banitz agradezitu fiela, in didalaik ainberze ongi naizelaik ingratoa? Deus ez nitzalaik kriatu nindue; galdu nitzalaik erredimitu nindue bere biziaren kostus; barkatzen dida askotan gero ere, ta orai ematen zaida ene arimaren esposo-gisa, deustako ez nai zelaik, ta bearrez nauelaik! Bada, orren Majestadeak onesten badu pobretto gau, zer in bear du pobretto gonek baizik onetsi orren Majestadea? O edertasun ain lenagokoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! Zein berant onetsi duten! Ai ene Jaun amorosoa, nola da nior ofenditzen duenik? Ain gaixtoa izan da ori nereki, izateko ni orren kontra? Ta neure kontra? Ene arima, onetsi zazu zeure esposo amantea. Uzkiu munduko ignoranteak banidadearen atzetik. Gure iteko guzia mundu gontan da onestea Jaunau. Estakigula pasa bizia miserableki askoei bekala ezaundu gabe inporta dena. Ar bez, Jauna, den guzia enebaitan. O nork luken sanduen ta Ama Birjinaren disposizioa errezibitzeko! O nor ur leiken amorios, agradezimentus, ansias, deseos? Jesusek maite nau ni, nik ere maite Jesus, ai amorio gonon sus erre ta il banindedi! Alako afekto-gisaeki ellega bere orduan aldarerat, aingiruen erdian Jesusengana, ala nola pobretto gura andiek arturik eskutik ellega baileike erregegana besoak zabaldurik etxideten zagonagana. Erranik Ni Bekatorea etc. Ta ni ez naiz digno etc. Idiki zerbait agoa, atra pokalera mia, errezibitu

artan forma sagratua, ta geldi, emeki, pasatu barnera debozio guziareki; bildu berebaitan guzia, eman ongietorria ta eskerrak denbora-zati on bates garaitus naturale gaixtoa ta atra naia. Anitz ze errateko onen gañean; baña berze platika bat eskatzen du. Orai erranain gisara paratu estudio, trabaju ta dilijenzia guzia disponitzeko ongi, ezi ontan dago iragaztea anitz Jangoikoaren grazia, baita prenda erdexteko gloria. Amen.

Sermo XLIV:
De gratiarum actione
post communionem

Quid retribuam Domino pro omnibus
quae retribuit mihi? Psalm. 115.

Benefizioa ta agradezimentua elkarri darraizkio, ala nola azaroa ta eraizioa, ongi izatekos. Bada, ala nola bailitzake naturaleza desaraudea, ezpalez aziak ekarri fruiturik, ala da txarrerria ta bide gabea ez ongigilleai eskerrak ematea. Jangoikoaren beneficio andiena gizonari indezokena da komunionea, zeintan desposatzen baita Jesu Kristoreki arima; litzake au txoil zenzugabe, esker gaitza, ezpalezkio ematen esposo dibinoai eskerrak, merejituenak ezpadaike, bentzait daizkenak. Jangoikoaren benefizioen azaroa egiten da arimaren agradezimentuaren ariora, ta ala ikusiaskeros arima agradeziturik biotzes benefizioei gure Jaunak, nola ezpaitezakegu pagatu berze gisas, kontentatzen da, ta doblatzen ta erredoblatzentu mertxedeak. Orai, bada, dio Santa Teresak (Via perfs n.7. c. 34), gure Jauna zebilalaik munduan, solamente ukitus beraren tresenak sendatzen bazitue eriak, zer duda daike inentuela milagroak dagolaik ain gure barnean, barin badugu fede bizia, ta emanen digula eskatzen dioguna, bada geuren etxean dago? Ezi estu bere Majestadeak gaizki pagatzen ostatua, tratatzen baute ongi. Egia dio, nere sanda gloriosa; dakigu ebanjeliotik, ezi bein errizibiturik fariseoaren etxean garbitu zuela bere bekatu guzietatik Magdalena, joanik arren aizpa Martaren etxera ostatus erresuzitatu zuela aien anaia Lazaro, ta bi aizpak egin zituela sandak; konbidaturik bere burua Zakeo garren etxera obratu zuela salbazioa artan. Jarririk butzuaren pokalean konbertitu zuela Samariako emasteki gura ur, eske etorririk aurkitu zuena an, salbazioaren iturria. Gelditurik San Pedoren etxean sendatu zuela kalenturatik arren amaiarreba. Sinagogako prinzipiaren etxean sarturik biztu ta jaikiarazi zuela arren alaba mortaxaturik zegona, karrikan berriz Naingo alargun garren semea atautean zeramaten ortzitzera. Itz bates, guziek nai zute ellegatu ukitzera beraren zerbait gauza, quia virtus de illo exi bat et sanabat omnes, zerengatik beraganik atratzen ze birtutea, ta sendatzen zitue guziak. Nola, bada, orai urbilagotik sartzen delarik ez gure etxean solamente baizik gure barnean Jesus bera, ezkaitu guziok sendatzen ta salbatzen? Gure disposizio-faltas; ori esta zer erran ia, erranik dago. Berze kausarik ere bada diona Santa Teresak, ez egitea errezibimentu ona, ez ematea eskerrak; kunplitu orduko Elizak manatuareki egotea orduain beira berantetsirik, berla joan naiak etxera, ta bota naiak bekala bereganik arrotz dibinoa, baitirudi alakoek beren munduko joanetorrien kasos emateuntela prisa len baño len ez dezoten okupatu etxea gure Jaunak (Ib.). Eta askok, berriz, tenploan naiz deteniturik zerbaitto gorputza, ta ontan Jaun sakramentua, arima usteunte kanpoan dabilala pensatus bearrestenkerietan, dagolaik bitarteo aien barnean Jaun ona atzendurik utzia bekala, oblivioni datus sum. Zer milagro da ezdezazkien obratu bere milagroak alako arima deskortes ingratoetan? Ala nola errege andi bat joanik bere amorio-utses artzera bere esposatako pobretto bat onen etxolara, au utzirik errege or konpon, balidoeie arat onat noranai zuen paseaketan; erregek senti lezake arrazioreki deskortesia ta esker gabea, ta berzea geldi leike asko ondasun gabe, zein baizemazkie Majestadeak prestaturik eskuan arri erregalatzeko. Eldu da Jesus komunionean beterik amorios ta ondasunes ene arima gonon etxera, baita gorputz

lurreskoa; arima nai du artu bere esposatako, ta erregalatu ikusgarri preziosoes ta gloriako arha dibinoes Jangoiko-gisa; arimak ezpadio kasorik egiten, nork du kulpa gelditzeas pobre miserable? Beras, inporta da ikastea nola eman errezibimentu ona ta eskerrak komekatu ondoan. Au da nere egungo itekoa. Maria Ama dulzissima, niork baño obeki zekiena agradezitzen Jangoikoaren benefizio egin ziona etorzeas berorregana; ez dezagun malogra betekos ongi izateko eskaida, baita komunionekeo denbora; eman bezagu anitz ezaumentu, anitz nobleza ta anitz grazia. Abe Maria.

O fede bizia, non zara? Non aurkituko zaitut? Obligatua naiz erratera au, ikusirik nere ta ni bekalako askoen epeltasuna, prisa ta kanpora-naia komekatu ondoan. (Kristio garen guziek diogu sinestatzen dugula Kristo bera guzia bizirik dagola aldareko sakramentuan ain errealki nola zeruan, ta komekatzen garelaik errezibitzen dugula geuren barnean. Gure sineste edo fede gau bide da iluna, erdi itzalia ta ila, ezperen in gindezoke errezibimentu ta agur gogotikago, ta enplea gindezake denboraaldi urresko prezioso gura ansia iagoreki berantetsi gabe; antes bien, beldurak akaba daien fiteegi, ala nola pobretto batek estima bailezazke instante gaiek, noiz dagon errege berareki etorririk beraren etxetora bisita egitera dion amorioagatik. Zer arren ongietorriak ta eskerrak ematea! Zer humillatzea bere burua! Zer oñen apatzea! Zer borondatearen erakustea! Zer afektoak! Zer deseoak! Zer ofrezimentuak ta gauzak! Baña emen ikusirik batzuk atra naiak kasi amenareki agoan, berze batzuk atzendurik ta goartu gabe daukatena beren barnean, berze batzuk estakitela zer egin, ta geienak ain epel alteratu gabe Jangoiko andiaren etorriagatik berengana, zer in bear dut, baizik exklamatu,) fede bizia non zara? Ezi au balitz, ezleike kabitut biotza petxoain barnean, afektoak aurki lezake zer erran ta egin, ta ezlekiguzke iduritu luze, baizik labur instante eder gaiek. Zer inbidia dioteten sanduei ta sandei materia gontan! Nere Santa Teresa, arima andi noble jenerosa, nork luken orren fedea ta oni darraion karidadea? kontatzen du sandak persona bates, bereas uste dut nik (Ib. n. 5. et 6), eman ziola gure Jaunak fede bat ain bizia, ezi aitzen zituelaik zenbait persona erraten nai luketela bizitu izandu Kristo munduan ageri bizi zen denboran, irri iten zuela bere baitan, iduri zekiola ezi dugunaskeros ain errealki sakramentuan, zer zizaioten ia. (An ematentut arrazioak nola esten konbeni guretake ikustea begis, (N.7). Dio ia (N. 6): Dakit persona gontas, asko urtes, naiz ezpaze ere anitz perfekta, komekatzen zelaik prokuratzen zue bizkortzea fedea ez ia ta ez gutiago baizik ikus balez gorputzaren begis gure Jauna sarzen bere ostatuan, desokupatzeko gauza exteriore guzietatik alegiñas, ta sartzeko berareki, nola sinestatzen baizue egiareki sarzen zela Jaunau bere ostatu pobrean. Prokuratzen zue biltzea sentidoak, guziek entenda zezatengatik ainberzeko ondasuna; diot etzezaten estorbatu arima ezauntzeko. Konsideratzen ze beraren oñetan, ta negar egiten zue Magdalenareki, oroat nola ikusi balez begi korporaleeki fariseoaren etxean, eta naiz etzezan senti deboziorik, fedeak erraten zio ongi zegola an. Zerengatik ezpaitugu geuren buruok egin nai boboak, ta itsutu entendamentua, estaike duda estela au imajinazioaren errepresentazioa, ala nola konsideratzen dugulaik gure Jauna gurutzean edo pasioaren berze pausuetan, errerepresentatzen baitugu nola pasatu zen. Au, ordea, pasatzen da orai, ta da egia osoa, ta esta zer joan urruti billa; baizik, bada, dakigu konsumituartaño estomagoak ogiaren akzidenteak dagola gureki Jesus ona, etzagula galdu ain eskaida ona, ta ellega gaitzen beragana).

Gauden, bada, dio beixago (N. 8), gauden gogo onean berareki, etzagula malogra ain eskaida ona negoziatzeko, nolakoa baita komekatu ondoreko denboraaldi gura. Begira ezi au da arimaindako probetxu andia, ta zertan baita agitz zerbitzatua Jesus ona, egitean

guk berari konpañia. Eskatzen badiogu beiraturik beraren imajina bat, boberia iduri zaida ustea denbora gartan beraren persona geureki daukaguna. Errezibitu orduko gure Jauna (N. 9), ertxi gorputzaren begiak, idiki arimarenak, ta egon biotzera beira. Orra nere fielak, doktora sandaren doktrina, zein kanonizatu baitu Elizak zeruko doktrina bekala, ta eskatzen baitio Jangoikoai azi gaitzala arren alimentuareki. Coelestis eius doctrinae pabulo nutriamur (In orate S. Teres. in breviar.).

Aski litzake errana ikasteko portatzen ongi arrotz dibinoareki, arimaren esposo amanteareki komekatu ondoan. Baña au berau nere mintzaeran obeki entendatukoute ene fielek, errateareki klaro ta llano (lenik, ezi komekatu ondoan dela arrazioaren konforme detenitzea zerbait denbora; ta berla, denbora gau nola bear den enpleatu. Suponiturik egi eta fedea dagola Kristo sakramentatuan akzidenteak alteratuartaño, ta ebek estomago batek lasterxago, berze batek berantxago alteratzentuela, konbeni da ez jatea bentzait lurreko janarietaik ordu-kuarto bat pasatu arteo guti gora bera sakramentuaren erreberenziagatik, ta onengatik, alaber, detenitzea tenploan zerbaitto berere, ta ez atra kasi berla kanpora deskorteski, erran baitaie alakoengatik soña daitzela ezkilak aien atratzean, zeren baitamate Sakramentu Sandua bereki. Edo egin zuena arima on batek ikusirik sazerdotea prisaka instantean atra zela meza erran ondoan, belauriko paratu baizekio alzinean, ta galdeturik zergatik iten zuen, erran baizio: Ez orrengatik, baizik bere petxoan daraman Jaun sakramentatuagatik. Alke da ibiltzea ain txur neurzen denbora, egoteko gure Jaunareki etorrizaigulaik geuren etxe lurreko gontara ongi egin naiak arimai bere esposai bekala. Bere Majestadeak zuke izan erreparo gu bekalako txarreki egotean, ta arrazioreki zeike egon gana gaixtoan, despeitu naiak, joan naiak gureganik; baña guk logratu rik ainberzeko ditxa nola baita etorzea errege guzien erregea guregana, berantetsi ez ezi, beldurak egon bear gindue zegon guti denbora. Fedea, non zara? diot berriz ere. Eta non da amorioa ta agradezimentua? Ebek baleude ariman, ez luke erakutsi bearrik nola enpleatu denbora gura, aski zue egotea ikusten, amaten, agradezitzen, adorutzen ta erregalatzen Jaun garreki, itzik erran gabe, erreztatu gabe, txoil ezpada Aitagurea emeki gozatus petizio bakotxean, ta ori ere, mia mogitu gabe, gogoareki solo).

Baña enplea bez bakotxak nola erakusten dion debozioak; nik Santa Teresa ene amabitxiaren doktrinaren gisara, erakutsi nai diotet nere humeei nola enpleazeunten nik; agian noribaiti kuadratuko zaio ala egitea. Estut itzik egiten mias batere, ezpada eskapatzen bat edo bat ustekabean. Ertxirik begiak, bildurik neure baitan prokurutzen dut biztea fedea, ta oneki beirazen dut neure lurreko etxe txar gontan Jesus bera begitarte piadoso, arresti, dulce, onegi, amorosoareki, ta bateo Jaun soberanoaren Majestadeareki. Urtikitzen nazaio oñetara nola Santa Magdalena, apatzentiot llaga gaiek, ematen diot ongietorria, eskerrak ta afekto guziak nolanai, gogo sollareki guzia, manera gontan edo alakoan. Ongi etorria dela, ta ordu onean neretako, ene Jesus dulzea, Aita ona, esposo amantea, Jangoiko andia ainberze apaldu dena, ene erregaloea, ene amorioa, ene gloria, ene gauza guziak. Adio erraten diotet munduko guziei, sekulakos geldibeites beren banidadeareki; obe da ori neretako guziak baño, ongi dagokida niri urbiltzea orrengana Maria Santisimaren ta eskojituen bandan. Ene Jaun ona, aurki bez grazia bere sierbo gonek berorren begietan, ta mintzatuko natzaio, naizelarik autsa ta errautsa. Nondik niri ainberze ondasun, nola etorzea nere Jauna enegana? Nor da ori, ta nor naiz ni? atzen duda agian bere Majestadeas ta grandezas, etorri baita nere etxe lurreko indigno txar gontara enegatik? Estaki agian nor naizen ni? Naizela ar bat pobrea ta miserablea orren aldean? Alaere banitz sikiera fiel, agradezitu, konstantea; baña dakielarik ofenditu dutela askotan traidore txar, ingrato

bekala, etorri zaida alaere? Doaien orren Majestadea arima nobleengana, Santa Teresa, San Luis Gonzaga, San Felix, apostolu animoso, sazerdote prestu, birjina garbi-eder ta alakoengana, ori ongi, Jaun onegia; baña enegana? Enegana? Etze aski jaiotzea gizon neregatik? Erakustea itzes ta exenplus zerurako bidea? Ematea bizia, ixurzea bere odola, errezibitzea llaga gebek neregatik, eldu baizaida beroi ematera niri den guzioi, artzera ni beretako? Besarkatzera ta unitzera bereki gisaontan? Ala mendekatzen da bere traidore txarres? Ala pagatzentu gure txarkeriak benefizio berries? Zein ona den nereki Jesus, ez nai zelaik ni orreki izan ona, baizik gaixtoa! barka bezada, otoi, otoi, ene gaizki zerbitzatua. Daukat esperanza admitituko nauela bere grazian, ikusirik alako amorioaren mostrak.

Quid retribuam Domino pro omnibus quae retribuit mihi? Zereki paga dezoket nik nere Jaunai ainberze ongi egina? Zer dezake espera eneganik, ezpada ofensa, ezpaitut deus onik, ezpadu berorrek paratzen? Ezdezala permiti, Jauna, ofensarik ia sekulan enebaitan, aski da ofenditua orai arteo. Esta arrazio ofenditzea alako Jauna. Arrazio bai ze egitea ta padezitzea anitz izan daiengatik honratua ta zerbitzatua ene Jauna munduan; arrazio ze ematea neure odola ta bizia, estaiengatik ofendi orren Majestadea. Ditxosoa ni akaba banindedi orren zerbitzutan; kario aski saltzen nue neure bizia. Baña deus gutitako naizenas geros, bentzait neuronek ez dezatela ofendi. Naiago dut il ezi ez admititu orren ofensarik. Au da nere intenzioa ta obligazioa. Eta bitarteo gauza andirik inezdezaketelarik orren zerbitzutan, bentzait borondate ta afekto ona. Onesten dut biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki, ta onesten dut bakarrik berori, zeren mereji baitu, zeren zor baitiot, zeren ain ona baita berebaitan ta nereki, zeren ofenditu dutelaik ere nik ori nior baño ia, alaere iten baitida orrek niri niork baño ia ongi. Omnia ossa mea dicent, Domine, quis similis tibi? Nere ezur guziek ta ezur-muñek errain dute: Nor ori bekalakorik, ene Jauna? Nindukelaik kondenatu, naiago nau erregalatu. Bereganik botanindukelaik ordu gaixtoan, eldu da neregana ta artzen nau bere gana. Bada, orrek onesten badu pobretto gau, zer in bear dut nik baizik onetsi berori? Ori da nere Jaun ta jabe ta guzia; ni orren sierbo ta amazale perpetuo. Guziak balidoas ere orrenganik aparta, nik orreki nai dut beti bizian, iltzean ta il ondoan. Jauna, ar bez posesio nitas bereas bekala, in bez nai duena nere gorputz ta arimas, ta biotzas, ta potenzies ta sentidoes. Mana bez ta zerbitzarazi bedi emen den guzias bere gustora. Amen.

Eta iake ta etorri den pobreagana eman naiak ondasun, eskatu bear diot, ta estut utziko agindu dezadan artaño. Non dimittam te, nisi benedix etc. 1^a Bekatu guzien barkamentu osoa, ta grazia bere begien alzinean. 2^a Grazia efikaza ta finala bizitzeko ta iltzeko bekaturik gabe orren gustora. 3^a Grazia, alaber, poderosoa egiteko ta padezitzeko anitz ta gogotik orren zerbitzutan ilartaño orrengatik. 4^a egin dezan erreforma bat perfektoa neure personan, barnetik eta kanpotik, biotz bat orrenain gisarakoa, espiritu bat rektoa, memoria firmea, entendamentu argia, borondate noble-jenerosoa, ta gorputza ere sentidoeki obediente, doi-pasatua orren zerbitzuko, ta neurau-guziau gizon bat orren gogoaren konforme guzietan. 5^a Desegin ta urra dezkiela enebaitan bekatuen zañak, pasione ta kondizio gaixtoak, planta dezkien ta azi dezkien birtuteak, fede bat bizia, esperanza bat sana ta sendoa, karidade bat ardiente perfektoa. Alaber, humildade bat egiaskoa, pazienza ta serenidade bat alteraestaikena mundu guziagatik ere, kastidade bat aingiruena, batere inklinaziorik ta memoria pixkarik gabe miseria humanoetara, estaien deslustratu berorren sagrario gau, ez solamente mantxa zerbaiteki, esta ere pensamentuen keareki; alaber, prudenzia bat kabala, orren beldurtasun bat filiala, arimo andia, alegria

zerukoa, munduaren desprezio ta desapego perfektoa, zerurako anheloa ta on guzia. Emen, nere fiela, estakizula atzendu eskatzea berexki erremedioa bearrago duzun garrena, ta alaber, ofrezitzea inen duzula dilijenzia gau ta berzea; eta kunplitu falta gabe. Emen, alaber, dakioke eskatu lurreko ondasun gebetaik, edo osasuna, edo fortuna, edo ongi atra daien ontan edo artan, zer bearrago duen bakotxak, baldin konbeni bada. Emen, alaber, eskatu bear dio nork bere propio obligaziosko aide, adiskide ta enkomendatuengatik; ta ez atzendu purgatorioko arima pobre gaietas, zeñengatik eska dakion plazer baitu Jaun berak.

Azkenerat inbokatzen da Ama Santisima. Ama dibina, ofrezitzen diot komunione gau, ta ontan bere Seme Jaun bera, zein ezauntzen zuen bekala ongi, tratatu baizue dignoki berorrek, ez nik ordeala, zeren bainaiz miserable-utsa. Logra bez, otoi, izan nadien kuadrable Ama Semen begietan. Inbokatzen dire, alaber, deboziosko sanduak erdetxi dezoten izatea fiel agradezitua beti alako Jaunari aien gisara. Azkenean eskatzen zaio bedeizioa: nere Jaun maitagarria, eman bezada, otoi, bere bedeizio amorioskoa, ta nere salbazioaren baimendea. Ez naiz despeitzen, orreki ibiliko naiz daukatela nere memorian ta biotzean; orrek ere ez nazala utzi beñere. Ori nerea, ni orrena orai ta beti. Amen. Zenbat inporta den grazian ongi ematea komekatu ondoan, exenplu dire sandu eta sanda guzienak errezibitzen baizituste ordu gartan arimaren probetxu ta erregalorik andienak. Solamente ezi nekerik gabe estaike naturale gaistoaren kontra, bentzait prinzipioetan; gero, akostunbratus aisatzen da ta gustoso ere iten da. Jangoikoak digula abasto grazia, ta ondorean betiko gloria. Amen.

Sermo XLV:
De oratione dominicâ
post communionem

Pater noster, qui es in coelis. Math. 6.
Pater, peccavi in coelum, et coram te, etc. Luc. 15.

Azken platikan erakutsi nai gindue nola arimak komekatu ondoan bear dion egin bere esposo dibinoai errezibimentu ona, eman ongi-etorria, eskerrak, afektoak, petizioak etc. Baña iteko gau ongi egitea estago entendamentuaren menean, edo anitz xakitean, baizik borondatearen finezan, ta anitz amatzean. (Arima barin bada txarra, munduari apegatua, lureko afizioneer loiean sartua, debalde da jardukitzea; loi garreki estaike itxeki Jesusen amorioaren sua. Israeldarrak atra ondoan Ejiptoko kautiberio gogorretik, Jangoikoak bere eskus alimentazen zituelaik zeruko erregalo, manna deizen zuten garreki miragarriain utses, alaere suspiratzen zute Ejiptoko baratxuri, porru ta farraskengatik, lisiatuak egones ia kostunbreareki alimentu txar-zikin gaitara. Oroat, arimak ezpaitu despeitzen arras munduaren afizione txarrak, estu sentituko ta ez estimatuko manna dibino gonon erregaloo. Nori kuadratzen zaion mundua, estakioke kuadratu guzis Jangoikoa. Estute ikustekorik gusto bata eta berzeak elkarreki. Badire arima batzuk ez munduari guzis, estare Jangoikoari guzis emanak; baizik biak, nailuzkete konpondu biotz batean. Nailuzkete gusto debekatuak, ta ez lukete nai bekatua. Nai lukete segitu mundua, ta ez ofenditu Jangoikoa. Emendik dator segitzea bateo beren konfesioak, komunioneak ta gauza espiritualak, ta bateo munduko banidadeak, danzak, alegranziak ta bide zabalaren basterrak. Au estela bekatu, ura estela bekatu, berzea estela bekatu, ta ala bekatuen atari-pokalean dabilta ingur ingur, ala nola debekatu baliote sarzea pastelerian zale denai, balebila an urbil atarirat, ezpadezake janaren gustoa, urrina berere. Arima txarrak, estaike gozatu bateo mundua ta Jangoikoa, ta erresolbituartaño uster a mundurako afizioneer, esta sentituko sakramentuaren erregaloo, zeren ezpai zaio amorio osoa.

Baña arima nobleak, Jangoikoai emanak, estu bear andirik nik erakus dezoten nola portatu komekatu ondoan, zerengatik biotzean gure Jaunai dion amorio finak erakutsiko dio zer erran ta egin; ala nola errege andi bat etorririk pobretto batengana beterik kariños, uzirik Majestadearen mostrak llano ta afable, aisa pobretto agradezituak zezoke erakutsi bere agradezimentua, etziolaik estorbatzen errespetoak. Errege andi gau da Jesus datorrena arima pobrettoagatik beterik kariños, utzirik grandeza-iduri guziak, llano, afable, amoroso. Goardiek estute izitzen, ezpaitire ageri; estu nai lotsa dezan bere Majestadeak, baitauka estalirik akzidentearen beloareki. Emengo erregeen etiketa, kunplimentu ta zeremoniaik estu gastatzen, zerengatik gure Errege andi gonon erregetasuna estago txotxes armatua, dion bekala Santa Teresak. Deusei ez dezake estorba arima, nai badio mintzatu errege andi goni, bere etxean dauka deus guti iduriarasten duela. Zer erran estakiela, edo utsinen duela mintzatzean, esta zer alegatu, zeren estu nai baizik borondatearen amorio ona; au barin bada, estaike utsik egin, ta bear bearres esta mintzatu bearrik, aski du egotea amaten bere esposo dibinoa, ta urtzen amorioaren suan, ala nola inzensua brasaetan; au kuadratzen zaio, ta konsumi baledi ala bizia, zer ditxa! Ojala. Eta estakit amorioaren su gau nola esten itxekitzen ariman, izanik nobleza pixka bat; ezi zuetaik edozeñek ikusirik diola: Aita Sanduak edo erregek amorio anitz korrespondi lezoke, uste dut. Bada, oroitzeas,

pensatzeas, ikusteas arima pobretto batek, diola amorio Jesus berak, ta ainberze ezi beragatik il baize, ta berai orai ematen baizaio esposo-aintzu, nola estu onetsiko Jaun onegia? Nola esta egonen guzia erretzen, urtzen, konsumitzen amorioaren suan?). Bada, au da grazien ematerik obena. Baña nola suak baitu desaogatu naia zenbait afektotan, ta su gau itxekitzen baita pensatus ta meditatus ala nola emanegur, eta zenbaitek ezpaitakite deus egiten baizik erreztatu ordu gartan, egun nai diotet erakutsi erreztatzen Aita gurea, ta orreki ematen graziak komekatu ondoan. Ama Santisimak erdetxi dezagula guziei azertatzeko anitz grazia. Abe Maria.

Estakiela nola mintzatu gure Jaunari errezibitu ondoan, errain du agian norbaitek, estuela xakintasunik aski. Erran balez estakiela nola mintzatu Españako erregei, baletozkio bere etxera, ezneike admira. Baña Jaun zerukoai ain disimulatu-estalarik biotzera eldu zaionai ez? Estelarik itz bearrik? Aski delaik afekto ona? Etxakin alaere nola? Esta au ainberze entendamentuaren itekoa, nola borondatearena. Ez erran estuzula xakintasunik aski, baizik estuzula federik ta karidaderik aski. Ez erran estakizula mintzaten, baizik estakizula amatzen, zerengatik lan gonon ongi egitea estago erretorikan, estago arroitu, kantu, ezkila ta alako demostrazio exterioreetan, baizik an biotzaren barnean, ixil ixila amorosturik gure Jaunas beraren maitatzean ta agradezitzean. Itz pikorrik ere ez inagatik, barin badiozu afekto anitz, ta agian atraraziartaño begietaik negarrak, ori baita xakitea mintzaten gure Jaunai, ori baita erretorika dibinoa oiua obeki aitzen duena Jangoikoak. Baña Aita gurea bentzait aldakizu? Bada, oneki sollik nai dizut erakutsi mintzaten Jaun dibinoai errezibitu ondoan, kondizioereki ez akabatzeko baizik bat komunione bakotxean, sobra delaik bat aldian, obe baita petizio bat edo bida aldioro, eta aski neretako bentzait. Solamente ezi orazio gau bear da joan segitus, nola errain dut? Gutika edo urrupaka bekala, edo ala nola bordatus. Explikatuko naiz. Biz tela bat prezioa raso, liso; bordatzen du artan ofiziale onak emen lore bat, an berze bat, ia arla, ia orla, gorris edo azules edo beltzes, nola erakusten dion arteak ta bere gusto onak. Kontu, bada, tela prezioa gau dela Aitasurearen orazioa, ofizialea, arima debota, bordadurak biotzeko afektoak; ebek doaie añaditus arren gañetik an emenka. Ortako, dakiten bekala dituela zazpi petizio, joan detenitus ta ats artus bekala petizio bakotxean, eta Santa Teresaren obraetan eskribitzen den ariora, joan konsideratus ta beiratus gure Jauna Aita bekala lenbiziko petizioan, baita «Aita gurea zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena». Bigarrenen, baita «etorri bedi zure erreinua», Errege bekala. Irugarrenean Esposo bekala diolaik, «kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere». Laugarrenean Artzai bekala, diolaik: «eman dezaguzu egunorosko ogia egun eta beti». Borzgarrenean Erredentore bekala «Barkadazkiguzu guri geuren zorrak» etc. Seigarrenean Mediku bekala: «Ezkaizazula utzi tentazioan erorzer». Zazpigarrenean Juez bekala «Libra gaizazu gaitzetik». Amen. Baña esta inport ez oroituagatik erkada gontas, nola beti oro daien afekto andiareki errateas gogoan biotzak manatzen diona. Ala dakioka mintzatu, edo era gontara gure Jaunai, errezibitu ondoan berze gisas estakienak obeki.

Aita gurea zeruetan zaudena, ta orai nere barnean, ongi etorria dela diot milla amorios. Zerutik noraño jautsi den txar gonengana! Aita ona hume galduaren atzetik eldu da billa; nere Jesus, nere Janoikoa, ene arimaren naias etorri zaida. Ez naiz portatu ni alako Aitaren hume gisa prestuki, baizik txarkiro; baña alaere Aitaren entrañak, Aitaren amorea, Jangoikoaren nobleza esta enfadatu ez billatzeko hume ingrato, prodigo, galdua, bainaiz ni. (Emen daike oroitu bat kontatzen duenas Kristok ebanjelioan (Luc. 15), aita batek zituela bi seme, ta gasteenak erran ziola aitari: Aita, eman bezada tokazen zaidan

porziona. Eman zio aitak, ta semea joan ze urruti ordik orrat, ta desbaratatu zue guzia bizitza desordenatu arro bateki. Eta gero? Gosea ta miseria. Bere bearres xarrize zerbitzuan ango gizon bateki, zeñek igorri zue hazienda beltzen kuidatzera, eta nai zue tripa bete aien ezkur ta farraskaeki, ta ori ere etziote usten. Itzulirik bere akordura erran zue: Ah! Zenbat nirabe daude nere Aitaren etxean ogia abasto dutela, eta ni emen iltzen goseak! Jaiki ta itzuliko naiz nere Aitagana, ta erranen diot: Aita, bekatu egin dut zeruain kontra ta orren kontra. Ia ez naiz digno dei nazaten berorren seme. Admiti benaza bere nirabeetaik bat bekala. Oneki bazoeie, ta oraño urruti zegolaik, ikusi zue bere aitak, eta lastimaturik atra zekio lasterka bidera ta artu zue besarka. Semeak erran zio: Ene aita, bekatu egin dut zeruain kontra ta orren kontra; ia ez naiz digno dei nazaten orren seme. Aita onak manatu ziote mutilei, bereala bestia zezatela estola edo gala prinzipalareki, para zezkiotela erastuna erian, ta oñetan oñetakoak, ta disponitzeko konbita bat andia, zeren hume gau ila ze ta biztu da, galdu ze ta aurkitu da. Oroiturik arima kontu gontas, ta konsideraturik bera dela hume prodigo gau, ta Jesus bere Aita ona, kontuin dezake komekatzean alzinaturik bere piedadeareki botatzentiola besoak lepora ta artzen duela besarka Aita onak hume gaistoa. Erran bezon onek: Aita, bekatu egin dut zeruain kontra ta orren kontra, baita ere neure kontra, ezi estut probetxurik atra apartatuas orrenganik. Malogratu dut orrek emanikako hazienda, memoria, entendamentua, borondatea ta gañarako fakultadeak). Mereji nue ezindezan admiti bere etxean, ta alaere admititzen nau bere besarkan. O Aita ona, Jangoiko gisa portatzen da. Ni ezpanaiz ere portatu hume gisa, ori estaike atzen dela Aita, Aitaren entrañak mostratzentu nereki; ez nua mereji admitinin dezan bere zerbitzuko nirabe aintzu; eta agian admititzen nau, bentzait nai nau admititu etxeko hume bekala ta bestiarazi nai nau bere graziaren galareki, ta neregatik zebratzen du konbite gau ain miragarria, berori in baita nere alimentu. O ene Jesus, ia ez solamente ikusten dut orren baitan Aitaren amorioa, baitaere Amaren kariñoa ta piedadea, zerengatik kristiatu ninduelaik konzebitu nindue; il zelaik gurutzean ainberze doloreen ertean, erdi bekala ze nitas, ta orai komunionean azizen nau bere bularretan. Nola estut onetsiko nere Jauna ainberze onesten nauena? Estu ia munduak zer galdegin nitas. Elegi abjectus esse in domo Dei mei magis quam etc. Naiago dut nere Jangoikoaren etxean naiz zokotto batean, naiz errehus azkena bekala limosnas ta karidades, munduko errege baño, nola aurki dezaten grazia orren begietan, nola orrek onetsi nagan. Posible da onetsi dezakela ni nere Jaunak? Onesten nauelako señaie onak dire ebek, ta zierto izanen da, onesten badut nik berori. Eta orrek onesten banau ni, zer in bear dut nik baizik onetsi berori, nere Aita, nere Jangoikoa, nere guzia? Amen.

«santifika bedi zure izena». Biz bedeikatua, honratua, alabatua zeruan ta lurrean jaun bat ain ona. Nere zain ta ezur ta gauza guziek errain dute: Nor ori bekalakorik? enplea bedi nere bizia orren zerbitzatzen, honratzen ta maitatzen azken atseraño. Ojala orren obsekiotan ixuri baledi nere odola azken tantaraño! Amen.

«etorri bedi zure erreinua». Errege soberanoa, erreina bez ene baitan, arrazio den (sic) bekala; ar bez posesio nitas bere gauzas bekala. Ene bularra biz orren egoteko sala edo aposentu- gisa; ene biotza orren trono jarritzeko. Ar bezki nere etxe gonon giltza guziak, gora bez bere bandera, inprimi bez ene biotzean bere izena Jesus marka bekala, ezaun dadien norena naizen ni ta ene baitan den guzia. Pregonari gisa eman nai dut pregon gau, biba Jangoikoa, biba Jesus gure errege absolutoa. Biziazen penan estadiela nior errebela orren kontra, antes bien, gure bizia bego prest emateko orren defensatan, ta estaien izan ofenditua. Amen.

«kunpli bedi zure borondatea zeruan bekala lurrean ere», ene esposo dibino amoroso. Orrek nai badu nere arima, nork dezake debeka? Nor naiz ni errepugnatzeko? Orren disposiziora nago guzis. In bez nitas nai duena bereas bekala orai ta beti. Nik aski dut aurkitzea grazia orren begietan. Aurkitu dut amatzen duena nere arimak, daukat firmeki ta estut utziko. Nere onetsia, ori neretako ta ni berorrendako. Baña Jauna estadiela fia ene baitan, oroat itzuliko naiz traidore infiel orren kontra. Oroat utziko dut ez deusengatik. Orgatik iduki bezki preso bereki nere biotza ta nere arima, nere potentzia ta fakultade guziak. Zeditzen dut orren eskuan orrek emanikako libertadea, estadien egin nik nautena, baizik orrek nai bekala. Tratu gau in ta firmatu nai dut orreki, ezdezala balia deusek orren kontra daienak, dela goarturik, dela goartu gabe; baizik ene akzione, itz, deseo ta pensamentu guziak doazan orren gusto ta gloriarako. Atsaldi guzietan da nere intenzioa errebokatu, desegin ta errekonpensatu naia orren kontra agitu ta agi daien guzia munduan, ta alaber, aprobatu ta ofratu naia orren gustora egin ta egiten duten guzia Ama Birjinak, aingiruek ta on guziek. Biz solamente orrek nai duena beti, ene esposo dibinoa. Amen.

«eman bezagu egunorosko ogia egun eta beti», ene artzai ona, azitzen ta erregalatzen nauena bere gorputz ta odol preziosoeki. Bizi guziko denboran, ta espezialki eriotzeko orduan ogi dibino gau estakidala falta. Alaber, orren doktrina ta sakramentuen ogia, ta guzien gañetik orren graziaren ogia, au da, orren begietan kuadrable izatea ni, orri ematea nik agrado, plazer ta kontentu egun eta beti. Nola dezaket izan arimorik disgustatzeko nik ardi txar gonek artzai alakoai, ala erregalatzen nauenai? Non aurkituko dut alako jaberik edo nausirik ala tratatukonauenik? Konsumi ta urtu bedi ene biotza orren amorioaren suan. Amen.

«Barkadazkiguzu guri geuren zorrak ala nola guk barkatzenbaitiogute gu zor gaitusteneri», ene erredenptore dibinoa. Orri plazer iteagatik, barkatzen diotet edozein gisas agrabio in didatenei. Aiendako berexki eskatzen diot bedeizio anitz, ondasun ta grazia. Esta anitz barkatzea nik ta deseatzea ongi nere kontra direnei ta izan direnei, ikusiaskeros berorrek egina nereki, ainberze ofensa egin ondoan nik orren kontra. Barkatu, Jauna, barkatu, eznezake izan esperanza, ezpalitz berori ain ona, ta onago ezi baitezaket nik entenda. Deus estut balio nik neureas, baña deus baño ia kostatu natzaio berorri, eman baitu enegatik bere bizia. O amorio dibinoa, libratzeagatik eriotzetik esklabo infiel, traidore, txarra, ilarazi duzu kruelki Jangoiko den gizona! Nik kulpata berorrek pena! O kulpata afortunatua, aurkitu baitu alako erredenptorea! O ene Jesus onegia, nork egintio llaga goiek oin eskuetan ta gorputz-guzian? Nork ixuriaz dio ainberze odol prezioso? Ene kulpak; baña oneki bateo berorren amorioak neregana. Egin da ia kostua, estaiela malogra. Klamatzen daude orren llaga ta odola piedade neretako, barka dezkidan nere bekatuak. Ea Jauna, geldibeites borrorrik sekulakos. Amen.

«Ezkaizazula utzi tentazioan erorzero», mediku berria solo naiareki sendatzen duena jenero guzietan. Konbeni bada, ezdezala permiti tenta nazan etsaiak; bentzait edozein gisas ez utzi, Jauna, irri egin dezan kalte zerbait eman. Ecce quem amas, infirmátur. Ona orrek onesten duen gau eri dago, oñetaik bururano esta sanidaderik emen, orrek ezpadu ematen; beti ez erori, bai erori; ezkaintzala utzi erorzero beñere. Mediku ona, beroi eritu zena ta il ere bai, sendatzeagatik ni. Utzi zue bere gorputz ta odolaren balsamo prezioso, ta orai ere aplikatu zaida; sollik bear da nai izatea. Jauna, nai badu, sendanazake; sendatu zue balsamo goneki Lonjinos, idiki ziona bularra lanzareki. Injuria bat ain andia iten dion ingratoa sendatzen duelaik, zein merke sendatzen duen gure mediku

dibinoak! Ezkaizala utzi erorzera suberbiaren hidropesian, kodiziaren etikan, luxuriaren ezkabian, iraren inflamazioan, gularen apoplexian, inbidiaren tiñan, perezaren perlesian. Biz aski nor egon den emen, Jesus salbazalea, obratzeko sanidade guzia. Amen.

«Libra gaizazu gaitzetik», juez soberanoa, beñik bein sekulako kondenazioaren gaitzetik. Jauna, ez nazala kondena orren sagrario izan naizena. Non dimittam te, nisi benedixeris mihi. Estut utziko agindu dezadan arteo nere salbazioaren baimendea. Jesus, izan bedi enetako Jesus, Salbazalea, salba benaza. Alaber, libra benaza bitarteko kulparen gaitzetik. Gañarako gaitz mundukoetaik ere libratzekos niork, orrek bear nau libratu, ta ala eskatzen diot; baña gañarakoes zer den, bentzait orren desgrazian erori ez nadiela beñere. Naiz pobre, naiz persegitua, naiz eri, naiz berze gisas miserable banitz bizian, orrek ala nai duelaik, baña beti orren grazian, Jauna, elkar onesten garela, nik ori, orrek ni orai ta beti. Amen Jesus. Ario gontara dakioke eskatu Elizagatik, aide ta adiskideengatik; ta ez atzendu ofratzeas komunionea Ama Birjinai, ta enpeñatzeas sanduak. Eta azkenean eskatzeas gure Jaunari bere bedeizioa. Guziei digula. Amen.

Ikusteunzie nola Aitagure bateki daiken kunpli. Eta sobra ere dela beingo. Fielak, guzia dago biotzaren afektoaren neurrian; eta itz batean dagoke bearbada beti, nola doakion etxekis biotza; ta ori nai du, ta ez anitz jarduki, ta afekto guti. Zer diot anitz jarduki? gauza batean dagoke bat anitz denboras, ta joan etxekis ta anditus afektoaren sua biotzean; ta ala da obe, al badaike, ala nola ama bat nori il zaion hume keritua, beti artan dagolaik pensatzen, baitoakio anditus sentimentua. Gauden, bada, egon ta egon pensamentu gartan; zeñek ia mogitzen digun afektoa komekatu ondoan, b.g. ontan, ene Jaunak onesten banau ni, nik onesten dut ene Jauna, ta onetsi bear dut, ta onesteagatik nai dut betiko gloria.

Sermo XLVI.

De Petend. gratias â Domino

post commun. ab exempl. benef

Pertransiit benefaciendo, et sanando omnes. Act. 10.

Komekatu ta komekatu, ta alaere ez abastu espirituan, egia izanik errezipitzen dugula Jesus bera, zertan dago? Edo estiogu eskatzen, ongi bentzait, edo txurtu da Jesusen ongi egiteko podorioa edo borondatea. Da herejia au erratea; beras, dago ez eskatzean ongi. Au erakutsi bear dugu egun, diot eskatzea ongi, ikusis gure Jaunonek egin zituen ondasunak errezipitu zutenei bere bizian. Itz gutis dio San Pedrok, pertransiit benefaciendo, et sanando omnes, pasatu zela ongi egiteas ta sendatus guziak. Lenbizikoa norengana etorri zen ta nork errezipitu zuen mundu gontan, izan ze bere Ama Santisima, grazias betea. Zein liberalki ta Jangoiko-aintzu pagatu zion ostatua. Begira andre dibina gura beterik Jangoikoas, ala nola kristalesko urna bat non enzerra zeien iruzkia; zein argi utzi zue! Zein eder! Zein perfekta! Zein Jangoikoai iduritua daikenes naturaleza mortalean, ia ezi serafinak. Baña errepara bateo nola prestatu zen bere aldetik kriatura exzelente gura! Nolako ostatua eman zion! Zer errezipimentua! Zer agradezimentua! Zer tratamentua! Alke gaitzen gu, errezipitzen dugulaik arrotz bera, ezpaitiogu prestatzen alako ostatua, ezeta mila legoaen diferenziareki ere. Klaro da zergatik estugun logratzen mila zatitaik bat grazia. Ama dulzisima, kriatura guzien erreina, munduaren gloria, gizagendearen honra ta gala, Jangoikoaren biotzaren neurrira egina, eskojitua guzien ertean, perfekta, bakarra, bere parerik estuena; oroi bedi gutas, dugunes fortuna errezipitzeko Jaun bera, estakigun falta disposizio, agradezimentu ta bear den guzia kontenta daien arrotz dibinoa, ta obra dezan gure baitan ere anitz birtute, anitz ondasun ta anitz grazia. Abe Maria.

Lenbiziko bisita egin zuena Jesusek konzebitua izan zeneko Ama Birjinaren entraña sanduetan, izan San Juan Bautistari, zein baizego, alaber, bere Ama Santisima Isabelen entrañetan. Bisita gonon probetxua ageri zekio sanduai bere santidade inkomparablean. Aurra zelarik, baiziotte artas, aur gau andia da Jangoikoaren presenzian; eta Jesus berak gero erran baizue, emastekietatik jaio direnetan esta atra andiagorik Juan Bautista baño. Baña errepara sanduak iten dion errezipimentua, ta mostratzen dion agradezimentua, saltatzen baita bozkariundes bere amaren sabelean. Amak zio: Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea neregana nere Jaunaren ama? Humeak salto gaieki zio: Nondik niri ainberze ondasun, nola etortzea nere Jauna enegana? Ikasazu, fiela, ain seko, ain epel egoten zarena errezipitu ondoan Jaun bera, ikasazu estimatzen faborea, ematen ongietorria ta eskerrak. Ikusikouzu zein liberal den errege soberanoa. Esta zer erran bere jaioberrian, aurzutuan ta mutilzutuan in zizkioten faboreak artzaiei, errege magoei, sazerdoteei, Ejipto guziai, ta persona guziei izan zutenei ditxa ikusteko, errezipitzeko edo tratatzeko gure Jauna. Goazen atras Ebanjeliotik zenbait lanze, noiz izan ziren faboratuak ditxas logratu zutenak berari errezipitzea edo ellegatzea beragana; orreki konserbatzentugulaik memorian lanzeak, oroi gaitzen portatzeas gu ere ario gartara.

Lenbiziko milagroa egin zue Kana Galileako erri batean bodabazuetan, nora joan baize konbidaturik, naiz pobreak ziren desposatuak; obenean faltatu ze ardoa, Ama Birjina onegiak erran zio bere Seme Jaunai: Estute ardorik. Jaun dibinoak manatu zue betetzeko ures tinaja batzuk, ta atratzeko andik; atra ze ardo bat miragarria milagroskoa bekala.

Oroiturik ontas kontu egizu komunione sagratua dela desposorio bat espirituala, Jesus esposo, zure arima esposa. Abrats esposoa, pobre esposa; obenean errezipitu ondoan Jaun andia, faltatzen zaizu bereganako amorioaren ta debozioaren ardoa, bearlitzakena izan falta gabe, ezi amatzeko da jaun bat ala amaten gaituena, eta au iten da borondate sollareki, afekto ona izateareki, nai izateareki; ta izan zindezake ezpazina pobre ez ezi, miserable ere bai; bada, konfesa zozu zeure miseria: Jauna, estut ardorik, estut amorio ta debozio andirik. Nola baita gauza ona, estut esta gauza onik enebaitan. Ama dibina, enpeña bedi egin dezan milagro gura orai ere, itzultzea ura ardotan, nere epel-otza amorio ardientean, zora nadien ikusirik ain nere arimas amorosturik guzien Jauna. Inen du, inen du, zu nor bazara.

Ikusagun gure Jauna berze etxe batean ongi egiten. Fariseo batek konbidatu zue bazkaris. Admititu zue Jaun dibinoak, joan ze, jarri ze maian, oben obenean ara non sarzen den emasteki bat zena bekataria zitudanean, dio Ebanjelioak (Luc. 7), eta paraturik Kristoren oñetan atzeko aldetik asi ze erregatzen oin dibino gaiek negarres, txukatzen bere buruko biloareki, ta untatzen ungendu prezioso bateki. Nolako dolorea bidezuen etzuelaik erreparatu ez konbitan, ez garaiean, ez jendetzean billatzeko bere mediku soberanoa sendatu bear zuena! Berzeak bazkaltzen, ura konfesatzen! Berzeak trago edaten, ura negar egiten. O penitenta admirablea! Baduke izan asko imitazale kulpan, ez ala penitenzian! Alkerik ez anitzik askok bekatu egiteko, bekatuen okasioetan paratzeko, ta alke anitz ongi egiteko, penitenzia egiteko. Jaun dibinoa zego beira bere ardi galdua bere oñetan erremediatzen, perla loiestatua loietaik garbitzen negarreki. Fariseoak murmuratzen zue bere gogoan Kristos, ustes etzekien nor zen; au balitz profeta, xakin lezake nor ta nolakoa den emastekigoi, baita bekatari. Nai oi du gaistoak kruel izatea berzeendako. Baña Jesus onak ikusirik arren gogoan pasatzen zena, erreprehenditu zue amolsuki bera, ta defendatu zue bekatari sanda, erraten ziolaik onek egin ziola ark baño ia fineza, ta barkatzen zekizkiola anitz bekatu, zeren onetsi zuen anitz bere Majestadea; eta itzulirik emastekiai erran zio: barkatzen zaizkizu bekatuak. Zeure fedea salbatu zaitu. Zoaza bakean. Zer exenplua au! Ta zer eskaida komekatu ondoan imitatzeko! Nola iten baizue Santa Teresak, ta in dezake edozein arimak paratzen delaik gogoareki Jesusen oñetan Magdalena bekala, apatzentiola oin dibinoak, erregatzen negarres, txukatzen biloes, untatzen ungendu preziosoas. Ungendu prezioso gau da biotzeko amorioa gure Jaunari, biloak kontu direla konsiderazio ta afektoak, negarrak dire negar kontrizioskoak. Erran bezo arimak apegaturik agoa oin gaietan, ona non duen bere ardi galdua, zeñen billa ibili baita. Non ibilaiz ni atzendurik nere Jaun onas, malogratus denbora, talentoak, guzia. Zein berant ezaundu duten edertasun ain lenekoa ta ain berria! Zein berant onetsi duten! Ala iten badu arimak, posible da barkadezkion kulpa guziak Jaun onak ain ongi nola Magdalenai orduan, ezi ezpada gutiago gure debozioa, esta txurtu gure Jaunaren piedadea ta potestadea.

Nauzie ikusagun konbidatzen bere burua berze etxe batera? Ze publikano bat Jerikon nai zuena ikusi solamente gure Jauna pasatzean, ta etzuke jendetzearen utses, bera txipi izanes. Igan ze arbola batera ikusi naies. Gure Jaunak ikusirik bera ta beraren biotza, oiuegin zio: Ots Zakeo, jautsi laster, ezi zure etxeko aldi naiz egun. O gure Jaunaren ona, alzinatzen da egitera ongi eskatubano ia ere! Ark solo nai zue ikusi ta logratzen du sar dakion bere etxean barna. Jautsi ze laster, ta errezipitu zue gozoso arrotz dibinoa. Eta ageri dadien Jesus dela salbazalea, gizon orrek ia konbertiturik arras, dio: Jauna, nere ondasunen erdia ematen diotet pobreei, eta noribaiti in badiot perjuiziorik, errestituzioa

laur doble. Erran zue gure Jaunak, sines ezi egun obratu da salbazioa etxe gontan. O itz deseagarriak balio dutenak ainberze nola gloriak! O nork lezazken aditu arimaren barnean, emen dagolaik gloriako Jauna! izanen da erreizibitzen badugu nola Zakeok. Anitz erakusten digu gizontto garrek. Lenik ikusi nai garreki Jesus, deseo, ansia ta anhelu izan bear duguna Jangoikoagana; gero txipitasunareki erakusten digu ezi garen bekala txipi birtutean, ezpaikara deustako geurenganik, ala ezaundurik ta sinestaturik humilla gaitzen. Gero jendetzaren utses ezin ikusi ta igateareki arbolara erakusten digu bear garela apartatu munduko naspilla, alegranzia ta arrokerietaik, ta igan munduaren gañera despreziatus ta artus oñen pean emengo banidadeak, murmurazioak ta eskarnioak Jangoikoagatik, ezi gozatu bateo mundua ta Jangoikoa estaike. Guzien gañetik erakusten digu karidadea ematean pobreei ondasunen erdia, eta errestitu zio laur-doblean obligazioen kunplitzea; ezperen zer ai gara engañatus geuren buruok errezus ta debozio-iduris? Debozioak ez utzi, ta obligazioak kunpli. Alakoengana konbidatuko da Jesus bera, ta obratukodu salbazioa aietan.

Maria ta Marta izan zire bi aizpa agitz faboratuak gure Jaunaganik. Sartu ze bein Jesus kastelu batean, eta Marta deizen zen andre batek erreizibitu zue bere etxean. Onek zue aizpa bat Maria deizen zena, zein baizego Jesusen oñetan aditzen beraren itza. Martak kuidatzen zue etxeko lanes, eta joanik Jesusengana erran zio: Jauna, estu kasorik nitas utzi bainau bakarrik ene aizpa orrek zerbitzuko itekoetan. Jesusek errespondatu zio: Marta, Marta, okupatzen zara afanaturik anitz gauzatan; bat sollik da bear dena. Mariak autatu du lanik obena etzaiona kenduko. Au dio Ebanjelioak. Estu erreprehenditzen kuidatzea moderatuki bizitzeko bear diren gauzes, baña adiarasten du lenbizikoa ta obena dela arimaren itekoa, zeintas bear baita kuidatu sollik bere intenzios, eta gañarakoas bidanabar ta ezin berzeas. Nork estu admiratzen gloriako Jaunaren apaltzea konbersatzera ain grazia onean edozeiñeki afekto ona dioteneki? Ain ongi pagatu zue egin zioten erreizibimentu ta agasajoa, ezi orai zeruan duten glorias landara, logratu zute bizitzea emen beraren grazian, ta berze anitz fabore espeziale. Ausente zegolaik bere Majestadea, bein igorri zio te mezu, nola zegon eri beren anaia Lazaro. Ecce quem amas, infirmatur. Jauna, orrek onesten duena dago eri. Gure Jaunak berarias utzi zue pasatzera denbora il ta ortziartaño Lazaro; ondorean joan ze, eta ikusi zueneko Martak bere etxean erran zio: Jauna, ori emen egon baze, etze ilen nere anaia; baña naiz orai ere badakit emanen diola Jangoikoak berorri nai duen guzia. Errespondatu zio Jaunak: Zure anaia erresuzitatuko da. Bai Jauna, erran zio Martak, badakit erresuzitatuko dela azken egunean. Jesusek: Ni naiz erresurrekzioa ta bizitza; enebaitan sinestatzen duena ilik ere biziko da, ta bizi ta sinesten duena enebaitan, esta ilen sekulakos. Sinestateunzu au? Bai Jauna, erran zio ark, sinestatzen dut, zeren ori baita Kristo Jangoiko biziaren Semea, mundura etorri dena. Joan zire Lazaro ortzi zuten lekura, ta kenarazirik obiako ar-lauza, oi u bat egin zio Jaun andiak: Lazaro, ator kanpora. Instantean jaiki ze ila bizirik bere mortaxareki, zein edekirik zebila sano ta sendo, ta jarri ze maian berzeeki. Ikusteunze gure Jaunaren marabilla erreizibitzeunten bere adiskideeki? Bada, ordukoa da orai ere, bagina gu aiek bekalakoak. Bauzu zer erran nai bauzu. Erran zozu: Jauna, orrek onesten duena eri dago, ene arima. Il balitz beñere bekatu mortaleren bateki, errozu: Jauna, ori egon baze emen, etze ilen ene arima. Iduki banue presente orren Majestadea, orren amorioa ta orri dioten obligazioa. Baña oraño dezoke egin oi u bat biztuko duena: Lazaro, ator kanpora. Desdixatu miserablea, atra zaite bekatuaren estado txarretik. O Jauna, bai, biztu bez ene arima, ezarri bez, konserba bez, segura bez betikos bere grazian. Amen.

Baña etzue joan bearrik etxeraño, bidean ere, karrikan ere aski zue nai izatea egiteko marabillak. Testigo zenturiona, eskatu zio onek senda zezon bere mutiko bat txarrik zegona. Jaunak erran zio: Neurau joanen naiz ta sendatuko dut. Ark erran zio: Jauna, ni ez naiz digno orren Majestadearen errezibitzeko, baizik solamente erran bez itzes, ta sendatuko da nere mutikoa. Jesusek erran zio: Zoaza, ta egin bedi sinestatzeunzun gisan. Eta ordu berean sendatu ze mutikoa. Izazu, fiela, zuk ere humiltasun ta fede bera, progatuko duzu grazia bera espiritualki. Testigo kananea. Segitzen zio bidean oius: O Dabiden seme Jauna, izan bez miseriordia nitas; alaba bat daukat estado txarrean. Itzik etzio errespondatu Jaun onak. Berzeak segitzen zio ala ere oiui ta oiui; noizerebait ellegaturik adoratu zue ziola: Jauna, otoi, anpara benaza. Orduan errespondatu zio: Esta ongi humeendako den ogia botatzea tzakurrei. Andreak erran zio humil: Bai Jauna, ezi txakurttoak ere jateunte nausiaren maieko apurretai. Jaun onak orduan erran zio: Emastekia, andia da zure fedea, egin bekizu nola nauzun. Ta ordu berean sendatu ze arren alaba. Urtiki bedi arima Jesusen oñetan txakurto gisa maipean humil ansiosa; eginen zaio grazia. Ellega banedi solamente ukitzera bere kaparen kanton bat, senda nindeike, zio berze batek amabi urtes izan zuenak miseria bat; ellegatu ze, ukitu zue, sendatu ze. Ontara dio Santa Teresak: Zenbat obeki senda leike arima komunionean errezibiturik Jaun dibinoa bere barnean, fede balitz ta dispozizio bear dena? Leproso garrek urtikirik oñetara, erran zio konfiaturik: Jauna, nai badu, garbinazake. Nai dut, erran zio Jesusek, geldi zaite garbi. Erran ta egin instantean.

Noiz akabatu kontatzekos guziak kontaestaizkenak? Biz guzien koronatako lanze gura noiz konbertitu baizue Samariako emasteki gura, oroitzen ere etzelaik, ustekabetzean ur eske joan zelaik. Jarri ze iturripokalean egerdi bates nekaturik ibilias arimen bila Jesus. Eta an iragazi nai zue bat izan zena agitz fortunosa. Ellegatu ze emasteki bat ur eske. Eskatu zio Jaun dibinoak trago bat ur. Emastekiak erran zio: Nola orrek, izanik Judatarra eskatzen dida edatera niri, naizelaik berze nazione batekoa? Zerengatik judioek etzute tratatzen jende gaieki. Jesusek erran zio: Bazindeki Jangoikoaren mertxede, ta nor den eskatzen dizuna edatera (Joan. 4), agian zeurorrek eska zindezoke berai, ta emanenzizu ur bizi salbazeko dena. Jauna, erran zio ark, butzu gau dago barna, orrek estu zereki atra ura, nola emandezadake dion bekala? errespondatu zio Kristok: Esta ur gonon gisara nik ematen dutena, edan ta gero berriz egarritzen baita; da graziaren ura emanen duena bizitza sekulakoa. Jauna, urgoi bida niri, erran zue ark; eta Kristok, adiarasteko bear zuela egin penitenzia, deklaratu zitio bere bekatuak ta zeraman bizimodu txarra. Alketurik ia emen, ta arriturik, emastekiak aldatu zue konbersazioa, ia non ta nola bear zen adoratu Jangoikoa, ta etorzen zelaik Kristo, ark erakutsiko ziotela guzia. Ori naiz ni, erran zio Kristok, ni mintzatzen nagonau emen zureki. Ia orduan admiraturik guzis, ta konbertiturik arras emasteki ori, utzirik an kantaro edo ferrata, joan ze zitudadea barna predikari ta misionera adiarasten jendeari aurkitu zuela Kristo deseatua. Lanze gonon konsideratzeas zue plazer Santa Teresak, eta zierto ongi eldu da komekatu ondoreko errate gura Jesusek bati: Bazindeki Jangoikoaren mertxede, ta nor den zureki dagona! Erratea arimak: Jauna, bida niri ere ur bizi gortai, o salbazioaren iturri dibinoa, graziaren butzua, gloriako erregaloea, zein baño obeagorik ezpaitezake prebenitu Jangoikoaren podorio guziak. Egin bez ene barnean graziasko iturri bat, nondik atra daien kontino perenne birtuteen, ta obra onen, afektoen, ansien ta anheloen ugoaia bizitza sekulakoraño. He fielak, bauzie exenplu konsideratzeko ta imitatzeko komekatu ondoan, nai bauzie oroitu Maria Santisimas, nola iduki zuen bere entraña birjinaleetan; edo San Juan Bautistas, nola saltatu zen

bozkariundes sentitu zuelaik eldu zela an; edo Kanaako bodes, eskatzeko itzul dezan espirituaren oztasuna amorioaren ardoan; edo Magdalenas, egoteko Kristoren oñetan negarres; edo Martas, erakusteko anitz afekto gure Jaunai; edo Lazaros, eskatzeko atra gaitzan bekatuen obiatik graziaren bizitzara; edo zenturionas, humillatzeko ezkarela digno errezibitzeko bere Majestadea; edo Kananeas, egiteko geuren buruok bere txakurttoak bekala mai pean eskatzen, ta etxideten eman dezagun bere apur deseagarri gaietaik; edo berze miserable gartas, eutxitzeko gure Jaunai sinestaturik solamente ukitzea bere tresenain kanton bat aski dela gure sendatzeko; edo leprosoas, egoteko erraten bere Majestadeai: Jauna, nai badu garbinazake, nai badu manso in nazake, nai badu humil in nazake, nai badu karidades betenazake, nai badu sal banazake; edo en fin, Samariako gartas, eskatzeko digula zerurako bizitzarako graziaren ur preziosoa. Ezpada gure aldetik faltatzen, esta falta gure Jaunonen aldetik potestadea ta borondatea emateko emen abasto grazia, ta an sekulako anitz gloria. Amen.

Sermo XLVII:
De exemplo benefictiae
Jesu pos resurrectionem etc

Beati qui non viderunt et crediderunt. Joann. 20.

erakutsi naiak tratatzen gure Jaunareki komekatu ondoan, atratzeko biotzeko afekto bear direnak, nola humiltasuna, petizioak, esperanza, agradezimentua ta amorioa Jaunonengana, ekarritugu exenplutako Maria Santisima, San Juan Bautista, Magdalena, Marta, zenturiona, kananea ta berze zenbait izan zutenak fortuna tratatzeas bere Majestadeareki bizi zelarik munduan. Baña atzendu zekigu lanzerik obena ta propiena, baita beraren jaiotzea ta erreklinatzea Belengo ganbela gartan aur titiko-aintzu, zeñen konsiderazioa eldu da txoil ongi komunioneke, bi misterioek elkarreki duten aiko ta semejanzagatik, ezi an ikusi baze Jangoiko andia jaierik aur txipi ta fajatua ganbela gartan, emen dator ogiaren akzidenteekei estalirik amen baten bultoan. An ikusi baze Birjina eder garren eskuetan adoratzan zutela artzai pobre gaiek, emen dator sazerdote baten eskuetan, ta sarzen da edozein pobretoren bularrean, adoratzentela arimak ta gure barneko gauza guziek; an txikitto, eder, amorosgarri; emen txipiago orañik, ta ezin amableago. Bada, onen konforme daike konsidera komekatzen dena artzai fortunoso gaietaik bat bekala, edo an zegon astoko gura bekala gure Jaunaren alzinean arriturik ainberzeko prodijio miragarrias, gure Jaunaren ainberze apaltzeas ta txikitzeas gure arimei dioten amorioagatik. Daike urtu amoriosko afektoetan diola agradeziturik humil, Jauna, asto bat bekala nago ni orren presenzian estakitela zer erran edo egin ikusirik neregatik iten duena ta ezin erdetxi dezaketena. Jesus Jauna, nor da ori, ta nor naiz ni neregatik orrek egiteko alako fineza extremo geiegiak? estimatzen dut, laudatzen dut, adoratzan dut ta maitatzen dut biotz, arima, zain ta indar guzieki. Naizen guziau orrena naiz orai ta beti. Amen. Nere arimain billa eldu da beregana arteagatik, Jesus, ar bez berla berla, berant da berladanik. Egun alaere dut intenzio aipatzeko nori ta nori aparezitu zekioten erresuzitatu ondoan, nola errezibitu ta estimatu zuten fortunoso faborezituak izan zirenek, ikasteko guk ere egiten ario gartara elduzaigularik komunionean. Ama dibina guzien ertean eskojitua, Jangoikooganik guziak baño ia faborezitua arrazioreki, fedearen, humildadearen, amorio ta agradezimentuaren, ta birtute guzien exenplua, erdetxi bezagu, otoi, imitatzen ikasteko bear dugun grazia. Abe Maria.

Jangoikoak egitea kriatura lurreko batzuei bere amorioaren demostrazioak gauza andia da; au berau egitea ofenditu dutenei ia da; baña gaistoeki ere izatea ain ona, gaizki iteuntenei ongi egitea, beti ta beti zer edo zertan ofenditzen prosegitzeuntenei guti edo ia beti ta beti egotea mostratzen amorioaren señaileak, da gauza bat progatzen duena ederki gure Jaunaren ontasun inmensoa. Au da atratzen zuena akordutik nere Santa Teresa, zoraturik Jangoikoaren amorios, ziola negar dulzeen ertean: Onetsidezazkien nere Jaunak, ta erregala dezkie sanduak arima noble gaiek, ori ongi, baña ni naizen au ain erruin txarra! Sandak ziona humildades guk erran bear dugu egiareki, errezibitzendugunek sakramentu dibinoa, amen zeruko gura, erregalo prezioso gura, zein baño andiagorik ezpaitezake egin Jangoikoak bere poderio guziareki. Zer ia bera baño? Bisita deseagarri gura zeñeki konsolatzen baikaitu Jesusek negarresko balle gontan. Nor? Kriatura lurreko miserableak solamente? Baita ere ofenditu dugunok ere; baita ere ofenditzen dugunak zer

edo zertan kontino. Konpara zagun bisita gau Jesusek bere Ama Birjinai, Magdalenai ta apostoluei in zizkieten bisitaeki apareziturik erresuzitatu ondoan.

Estio Ebanjelioak, baña estaike orgatik duda aparezitu zekiola bere Ama Santisimari len lenik erresuzitatu ondoan glorioso Jesus. Nola bete bide zuen konsolus biotz noble gura, baña lastimaturik zegona guzis bere Seme Jaunaren eriotze erruareki! Zer diosala eginbide zion! Zer itzak! Zer amorioaren kariziak eta prendak! Guziaz ongi enpleatua ze, ta zori onean dela ain kriatura on eskojituan. Nola korresponditu bide zion Ama agradezituak! Zer esker millak ta ongi etorriak! Zer humillatzea bere burua autseraño! Zer amoriosko ansiak, anheloak, suak, garrak! Imita, otoi, agradezimentuan, ene fielak, geuren Ama dibina, ezi esta benefizio txipiago etorzea Jesus sakramentaturik gure gana, ongi beiraturik alde guzietatik, zerengatik ura ze ama bear bekalakoa ta mereji zuena ezin iagos; gu bekatarik txar ingratoak, pena ezpada deus mereji ezkinduenak. Alakoengana ala etorzea da gutiago? Niri ia iduri zaida. Jesus onegia, ongi egiteas onei ez naiz arritzen dagolaik beti ongiegin naiak. Arritzen naiz ainberze ongi egiteas bekatarik txar ingratoei! Zer litzake bagina onak ta agradezituak? Non aurkituko dut ain adiskide amante ongigillerik? Arriturik nago nola gure biotzek estuten ia onesten orren Majestadea, onesten gaituena gu niork ez bekala! Ene biotza, onetsi zazu etc.

Lenbizikoa nori agertu zekion erresuzitatu ondoan glorioso kontatzen duena ebanjelioak izan ze santa Maria Magdalena; bekatarik sanda, noble, fortunosa gau, ain osoki beingoas konbertitu ze, ezi fariseo garren etxean Jesusen oñak erregatuaskeros, negarres ia biotza, pensamentuak, afektoak, guzia berriturik, etzekio gelditu len zenaren larranjerik ta errestorik batere. Aborreziturik mundua ta banidadea, eman ze Jangoikoa ain sines, ezi beti segitzen zue beraren doktrina, exenpluak ta pausuak Ama Santisimaren konpañian, ta lagun egin zio konstante Jesusen pasioan ta ilzerakoan txutirik gurutzaren aldakan, ezin apartarazizuketela oin dibino gaitaiek ez judioen injuriek ta meatxuek, ez eta goardien lanzek eta ezpatek ere. O Jangoikoaren graziaren milagroa ain guzis ta ain konstante emasteki baten konbertitua! il ondoan bere Jaun onetsia, ortzi ondoan ere gorputz dibinoa, an zeuka beti biotza, non baizeuka bere tesoroa. Igande goiz goizean ilun zegolaik oraño, joan ze obiara ta aurkitu zue edekirik gañeko ar-lauza. Itzuli ze San Pedro ta San Juanengana kontatzera nola etzen an ageri gorputz dibinoa. Berriz itzuliarazi zue bere amorioak obiaren lekura, ta zego an negarres. Bi aingeru aparezitu zekizkio, ta erran ziote: Zergatik iten du nigar? errespondatu zue: Zergatik eraman baitute ene Jauna, ta estakit non paratu duten. Aiek erranik ere erresuzitatu zela glorioso, alaere etze sosegatzen ikusi gabe bere Jaun onetsia. Aparezitu zekio bere Majestadea ezauntzera eman gabe nor zen; erran zio: Andrea, zergatik iten du nigar? Nor billatzen du? Ark ustes zen hortelanoa edo baratze garren kuidazalea, errespondatu zio: Orrek kendu badu, erran bezada non paratu duen, ta nik ermako dut. Erran zio amolsu bere Majestadeak: Maria. Itz goneki sollik ezaundurik bere Jauna, ta zoraturik amorios ta kontentus, urtiki zekio oñetara adoratzeke ziola: Ene Maestru Jauna. Konsolatu zue Jaun dibinoak abastoki mereji zuen bekala. Kontu egizu komekatzean agertzen zaizula Jesus; urtikizakio oñetan, baña biotzaren amorio, ansia ta anhelo guziareki bera gana. Proga zindezazke gure Jaunaren deliziak, naiz izanik noizbait bekatarik, nola konfesaturik ta sentiturik ongi emendatu zaren beingoas betikos nola Santa Magdalena. Baña erdikal ai bazara, ia Jangoikoaren ia deabruaren, ia onerat ia gaitzerat, ain fite nauzula gure Jauna, ain fite bere kontrarioa, estuzu zer esperatu gure Jaunaren erregalaoa, zeren estiozun ematen biotz guzia. O arima txarra, o bizi miserablea! nai du konpondu batean Jangoikoa ta mundua, ta estu gozatzen

ez bata ta ez berzea. Desengaña beingoas; ia balio du Jangoikoak ezi gauza guziek. Quid mihi est in coelo etc. Zer dut nik zeruan, Jauna, ta zer nai dut munduan, ori ezpada? Ori sollik da ona, ori sollik guzia, ori sollik deseagarria; ori sollik nai dut; orren begietan aurki bez pobretto gonek grazia.

Alaber, aparezitu zekiate bere diszipulo zoezinei Emausa jardukitzen Jesusen pasio ta eriotze agitu zenaren gañean. Urbildurik aiengana bidean bidesko-gisa ezauntzarik eman gabe, galdetu ziote Jaun dibinoak (Luc. 24): Zer konbersazio duzie ori elkarreki, baizauste ala triste? errespondatu ziote: Bada, zer? Ori sollik da peregrino Jerusalemene, ezpaitu aditu agitu dena an egun ebetan? Zer? Jesus Nazarenoas poderoso zenas obra ta itzetan Jangoikoaren ta jendearen alzinean kondenatu ta ilarazi baitute gurutzean. Eta guk esperatzen gindue berak bear zuela erredimitu Israel; ta iru egun du agiturik gauza gonek. Eta andre on batzuek lotsatu gaitute joanik obiara ta ez aurkiturik arren gorputza, etorri baitire diotela ikusitustela aingiruak ere, ta erran diotela bizi dela; eta gutaik zenbait joan dire monumentura, ta aurkitu dute ala dela nola erran duten andre gaiek, baña bera estute aurkitu. Orduan erran ziote berak: O tontoak eta geldiak biotzes sinestatzeko profetek eskribiturik utzi zuten guzia! Etze preziso padezitzea ori guzioi Kristok, ta ala sartzea bere glorian! Berla explikatu zizkiote eskritura sagratuen egi eta fedeak. Bitarteo urbildu zirelaik kastelu gartara geldiarazi zute bereki; eta jarri ondoan maiean, arturik ogia bedekatu zue ta eman ziote. Emen idiki zire aien begiak, ta ezaundu zute, baña bera desaparezitu zekiate instantean. Gelditu zire arriturik ziotela elkarri, etzego gure biotza erretzen debozioaren suan mintzatzean ta explikatzean eskriturak bidean? Berla jaikirik ordu berean itzuli zire Jerusalemara, ta aurkituzuste ameka apostoluak bildurik ziotela erresuzitatu zela gure Jauna errealki, ta aparezitu zekiola San Pedrori. Eta bi gaiek kontatu ziote agitu zekiotena bidean, ta nola ezaun duzuten ogiaren partitzean. Exenplu gontan erakusten zaigu zein on den meditatzea Kristoren pasioan konpasione amoroso bateki. Ondorean konbidatzea gure Jauna geurengana erraten diogula, nola aiek, mane nobiscum, Domine etc. Jauna, geldi bedi gureki, otoi. Konbite gau egiten zio Santa Teresak komekatzean Erramuigandean bekalakoan urteoro pensaturik nola egun gartan judioek errezibitu ondoan Jesus errege egiaskoa erramu ta palma, ta anitz biba ta festaeki, gero ezpaize izan bat berere konbidatu zuenik bere etxera, baizik deskorteski guziek utzi baizute joatera ziudadetik kanpora goseak. Au pensatus Santa Teresa komekatzen ze Erramuigandean beti ogei ta amar urtes konbidatzen zuela beregana bere esposo dibinoa, egines konsiderazio bobo batzuk, dio sandak, ta kuadratu bide zekizkiola gure Jaunai, zerengatik egunoietaik batean komekatzean sentiarazi zio agoan suabidade bat miragarria, iduri zekiola beterik zeukala odol sagratuas bero beroa ta erran zio gure Jaunak: Ene humea, nik nai dut protxu on in dezazun nere odolak, ta etzazula beldurrik izan falta dakizun nere miseriordia. Nik ixuri nue dolore andieki, eta zuk gozatzen duzu gusto andiareki. Ongi pagatzen dizut plazer egiten zindidana egun gontan (In ej. vit. in fin. n.2). Konbida bez, bada, arimak afekto guziareki Jesus Jauna ain deseagarria; erran bezo: geldi bedi nereki, ene Jaun ona; ene bularra biz orren sala ta sagraio erreala; ene biotza orren silla. Guziek utz balezate ere, nik konbidatzen dut ene barnera, orren disposiziora dago nere etxetto gau naiz pobrea. Berzerik ezpada, orrek nai duen bekala, adornatuko diot loreas berere, fulcite me floribus, karidadearen arroses, kastidadearen azuzenes, pazienziaren klabeledines, penitenziaren bioletes. Ori nerea, ni orrena orai ta beti. Amen.

aparezitu zekiate, alaber, apostoluei, ta erran ziote: Bakea zueki, ta erakutsi zizkiote eskuak eta bularra, ta eman ziote Espiritu Sandua ta bekatuen barkatzeko potestadea utzi

zituelaik beterik gozos. Etzego an orduan Santo Tomas, ta etzue nai sinestatu berzeen erranera ikusi zutela erresuzitaturik gure Jauna; zorzi egunen buruan paratu zekiote berriz guzien erdian, ta egin ziote diosala amoroso, ta erran zio Santo Tomasi: Zato, ukizkizu nere esku-oñetako llagak ta sar zazu zeure eskuoi ene bularreko llagan; ta etzaitela izan sinestagaitz, baizik fiel. Sanduak erran zio beterik kontentus: Ene Jauna ta ene Jangoikoa. Orduan Kristok: zeren ikusi nauzun sinestatu duzu, Tomas, zori onekoak ikusi gabe sinestatzen dutenak. Dugu doktrina komekatzean datorkigulaik gure Jauna, bizteko fedea ta adoratze gogoareki beraren llagak, gaudelaik erraten kontentus ta amorios anitz aldis: Ene Jauna ta ene Jangoikoa, ene amorioa, ene erregaloo, ene gauza guziak. Zer ia nai dezaket ori barin badut? Nainuke kontent dagon ori nereki, ezi ni kontent nago guzis orreki; orrenganik aparta nadien ezdezala permiti, ez bizian, ez iltzean, ez il ondoan.

aparezitu zekiote, alaber, San Pedrori ta berze diszipulo batzuei arranzuan zeudelaik, noiz ta gure Jaunaren manus botaturik sarea, in baizute arranzu bat prodijioso. Ondorean examinatu zue San Pedro egiteko Elizaren buru, papa ta artzai unibersale, ta examinatu zue karidadearen lekzioan galdegiten ziola: Pedro, maitatzen nauzu ni ebek baño ia? errespondatu zio San Pedrok: Bai Jauna, orrek daki onesten dutela. Erraten dio: Bada, kuida nere axuries. Berriz galdegin zio: Pedro, maitatzen nauzu? errespondatu zio: Bai Jauna, orrek daki onesten dutela. Bada, kuida nere axuries. Berriz, oraño ere galdegin zio irugarren aldian: Pedro, onesten nauzu? tristatu ze sandua irur aldis galdegite gontas, oroiturik agian, nola len ere anitz ofrezimentu egin ondoan ukatu zuen irur aldis. Errespondatu zio humil ta sinki: Jauna, orrek guzia daki. Orrek daki onesten dutela nik berori. Orduan Jaun onak adiarazi zio nola utzi bear zuen bizia beraren fede ta honragatik.

Zori onekoak, milla aldis diot, zori onekoak gizonki gaiek ta emasteki gaiek izan zutenak fortuna tratatzeas Jesus onareki, gozatzeas Jangoiko beraren, ain humano amable denaren konpañia ta konbersazioa! Baña ezkaintzela deskonsola gu ere; gureki ere nola tratatu, injeniatu du. Etzaigu guzia falta, edo obeki errateko, deus etzaigu falta, ezpada ikustea; baño ortako aizagun egi eta fedea, beati qui non viderunt et crediderunt, zori onekoak, dio, ikusi gabe sinestatzen dutenak. Gure aldetik falta da fedea, falta da prestutasuna, falta da amorioa aiek zutena. Amoros gaitzen gure Jesus onegias nola Santa Magdalena, egin negar biotzes gaizki bizituas, despei mundua bere banidadeeki beingoas, desea, ansia, anhela Jangoikoa sollik sollik baita ongi egiten ta eginen diguna. Izan zagun memoria ta konpasione bere pasio ta eriotze pasatu zuenas guregatik axuri inozenteak; adorazkigun bere llagak amorios ta admirazios beterik Santo Tomaseki diogula: Ene Jauna ta ene Jangoikoa. Eta guzien gañetik San Pedroreki izan gaitzen examinatuak ta aprobatuak gure Jaunaren amorio egiaskoan ilartaño beragatik. Ojala balitz ala. Ene Jauna, nainuke erran San Pedroreki: Egia balitz, orrek daki onesten dutela berori pobretto gonek. Eta ezpadiot egia ontan, Jauna, orrek daki nainukela onetsi biotzes. Au ere ezpalitz egia, egia da au bentzait, orrek daki bear dutela onetsi. Jangoikoa da egiten duena gure baitan nai izatea ta kunplitzea. Egin bez nai izan dezaten onetsi, ta onetsi dezaten errealki, nola bear den, oraidanik asi prosegitzeko bizi guzian ta eternidadeko glorian.

Sermo XLVIII:

De frequentia

communio sacramentalis

Exi cito in plateas, et vicos civitatis etc.

Exi cito in vias et saepes etc. et compelle intrare,
ut impleatur domus mea. Luc. 14.

Aipaturik ia komekatzearen gauza andia, ortako disposizio bear dena, ongi etorria ta graziak emateko modua gure Jaunai errezibitu ondoan; egun aipatu nai dut zein usu edo argal den konbeni komekatzea. Gure aldetik ezpalitz faltarik, ageri da gure Jaunaren aldetik nai lukela errezibi gindezan usu ta maiz bere erregalo prezioso gau ainberze kostatu zaiona gure on naies, ta zeintara konbidatzen gaituen mila amores. San Lukasen 14 kapituluaren kontatzen du parabola bat, nola gizon batek prestatu zuen otrontze bat andia, ta deitu zituen anitz. Garai zelaik ez ageri konbidatuak, ta biali zue mutila deitzera. Aiek atra zute atxekia ez joateagatik, batak erosi zuela heredaje bat, ta ikusi bear zuela; berzeak erosi zituela idiak, ta progatu bear zituela; berzeak ezkontzen zela, ta orgatik etzeikela joan. Asarraturik Jaunark manatu zio mutilari: Zoaz berla erriko plazak ta karrikak barna, eta pobreak,itsuak, malderrak ta ezinduak ekartzazu onat. Egin zue erran bekala, ta orain baze leku maiean. Zoaz, erran zio, bideak ta esiak barna, ta obligatzazu etorzero, bete daiean nere etxea. Ezi diot sines, konbidatu gaitaie niork ere estu txastatuko nere otrontzea. San Mateoren 22 kapituluaren kontatzen du parabola bat errege baten semearen bodes gisaberekoa, ta zenbaiten ustes berbera; solamente ezi an dio ia, bazkaltzerakoan sartu zela errege ikustera maiean jarririk zeudenak, ta ikusi zuela an bat bodetako tresenaik gabe, ta erran ziola: Adiskidea, nola sartu zara emen bodetako tresena gabe? Ura gelditu ze ixil; ta erregek manatu zue botatzeko andik ura, oin eskuetan loturik ilunbe batera. Parabola gebetaik da ageri gure Jaunaren aldetik desoea gatozin bere mai erreale gontara, konbidatze gartan anitz jende, gero bilarastean karrika ta bideak barna, ta obligatzean etorzero. Ageri da, alaber, nor estuen nai datorren, au da, graziaren gala gabe dagona, ta naiz konbit izanik, estimazenezutenak munduko tratu, afizione ta bizioengatik; alaber, da ageri nai duela gatozin, non ta estugun bekatu ta bizio mortale goietaik, naiz izanik zenbait miseria nai eztugunak, ezi zerbaitengatik dio deitzeko pobreak, malderrak, ezinduak ta alakoak. Onen konforme zein usu edo argal ellegatzea den konbeni neurtu bear da bakotxaren disposizioaren neurriareki. Emateko zerbait argitasun, orrek, Maria, goizeko izar ederra ta iruzki obenaren mendortz argia ta garbia; Ebaren humeen anparo, konsolu ta alegria; propiki Ama egiaskoa, bigu bere grazia. Abe Maria.

Estaike duda komunionean ematen zaigun janari ta erregaloa dela Jangoiko guziak eman dezaken obena, ezi esta deus gutiago, baizik bera, ogi bizia ta bizi emanzalea. Nola daike, bada, dudatu errezibitzean usu ta maiz? Baia daike dudatu geuren disposizioaren kasos, zerengatik gorputzeko janarietaik ere batek, naiz izanik preziosoa, bati iten dio gaitz, berze bati probetxu, ta berze batean estaike ezaun iten dion gaitz edo probetxu, estomagoaren kalidadearen gisara. Ala erregalo dibino goneki batzuek iresteunte eriotzea, juizioa ta kondenazioa; beren kulpas indignoki errezibitzeuntenek, dio San Pablok, qui manducat et bibit indigné, iudicium sibi manducat et bibit. Komekatzekos gisa ortan, estiot maiz ez ezi, ez eta beñere, ez eta Bazkoetan ere. Berze batzuek naiz errezibiturik bekatu

mortalerik gabe, ta maiz medianoki, estute senti bear zen meioria ariman, beti erikor, malder, faltoso zer edo zertan. Au zer da? Ainberze aldis alimentu dibinoa arzen, ainberze odol Kristoren aplikatzen, ta alaere ez sendatzen guzis? Ez azkartzen birtuteetan? Ain guti pazienza, ain imperfekto kastidadea, ain eri humildadea, ain epel Jangoikoaren amorioa? Bada zerbait estorbu arimaren dispozizioan, edo lendanik ala nola kulpa lebeen kostunbre ta afizioneak, edo komekatzean berean ansia ta debozio-falta, epeltasun ta nagitasun sobra. Gorputzaren alimentuak ongi artzea bat dagoke bi gauzetan: bata da estomago ona, berzea gose ona, ezi goseik gabe estomago ona naiz bai, esta protxal agiz janaria; eta estomagoa on ezpadago, naiz gose iduri duen, gaixtoago da berriz janaria. Ario gontara iduri zaida niri komekatzeko, arimaren dispozizio ona beñik bein, ta gero gure ona, auda, deseo ona bear dela, ta emendik daike in iuzio konbeni ote zaion maizago edo argalxago ellegatzea. Estaike anitz fia dispozizio on gartan, diot protxatzeko anitz, ezpadu anitz deseo, ansia ta debozio, au deizen dut gose espirituala. Eta gutiago berriz daike fia gose gontan, diot komekatzeko deseo ta ansia gontan, ezpada ongi ona dispozizioa, baita prinzipalena. Senti dena bada arimaren dispozizio ta gose onareki, konbeni da komeka daien maiz ontzeko ia; eta ondus bekala dispozizio ta deseo gura, maizago. Auda erregla seguroena, meioria senti duenaren ariora artzea alimentu dibinoa meioratzen duena, oroat, nola doktoreak manatzen baitio konbalezientei segitzeko alimentu gura zeñek progatzen dion ongi.

Jauna, bada, nola Elizako mandamentuan estio baizik urtean bein berere komekatzea, edo lenago barin bada eriotzeko peligrorik? Ontara diot ori dela komekatzeas obligazios, iten ezpada bailitzake bekatu mortale, eta nola mandamentua baita kristio guziendako, on komun, sandu batzuk, gaixto baitire berze batzuk, aski iduritu zaio Elizai dela obligatzea jeneralki guziak komekatzera bein urtean, ta eriotzeko peligroan. Baña nik estardukat obligaziosko komunioneas, baizik debozioskoas, eta ez guziei, baizik konbenizaiotenei. Mana balez Elizak komekatzea maiz, agi leizke anitz bekatu mortale ia kristio txarretan, batzuk ez komekatus, berze batzuk gaizki komekatus. Orgatik alde bat estagongatik alfer Elizan sakramenturik andiena, bein berere nai du errezi bi dezagun guziek falta gabe. Berze alde estakiongatik galdu erreberenzia zor zaiona, estu obligatu nai errezi bitzera baizik bein, gañarakoan usten duelaik bakotxain deboziora errezi bitzea nai badu iagotan, nai luken bekala Eliza Ama Sandak. Elizaren deseo gau da ageri errate gartan, urtean bein berere, erranbalez bekala, nik nainuke nere Jesusen humeek errezi bidezaten anitz aldis Jesus bera sakramentaturik, arimen esposo amantea, erregalo zerukoa, bere bularreko esne dulzea, alimentu soberanoa, balsamo prezioso miragarria; baña iagotan ezpada ike logra, bentzait bein berere. Ala nola ama amanteak hume eriai ta ergelai konsejatzan baitio amolsuki ar dezan medizina doktoreak utzi diona seguroa sendatzeko, ta ezpadezoke arrarazi naiadiña, erraten baitio: Ots nere humea, arzazu bein berere bizia eman bear dizuna, ots urrupa bat berere. Estakiziela iduritu gaizki konparazioa; ama gau propiki da Eliza, humeak kristioak len azkar-sendo zirenak, gero eritus, maldertus ta ergeldus joan dire. Lenbizian etzute manatu bearrik Elizako hume noble andi gaiek, Kristoren amorios beterik, oinpetan arturik mundua, Jangoikoa sollik zeukatelai biotzean, memorian ta mian, ansiaturik bizitza sekulakora, despreziaturik emengo bizitza, iltzera prest, ta il naiak zeuden bekala beti; beti zeramate bereki, edo zeukate beren etxetan sakramentu sandua errezi bitzeko noiz naizusten ilarazi fedeagatik.

Eliza primitiboan, dio San Eutxerik (V. 20. c.16. de euch.) floreziente zegolarik fede kristioaren debozioa, disponitu ze komeka zeizen fielak egunoro; orgatik San Anakletok ordenatu zue ala: Sagra akabatu ondoan komeka beitez guziok naiezpaute

atrarazi dezkiten elizako atarietaik kanpora, nola apostoluek ere ordenatu baizute, ta goardatzen baitu Erromako Eliza Sandak. Gero txurturik fedearen ferborea, komekatzen zire solamente igandeoro, ta onen memoriatan ematen da orai ogi bedekatua. Geroago txurturik ia ferborea, San Fabian Aita Sanduak ordenatu zue ezi iagotan ezpaze bentzait irur aldis urtean komeka zeizela guziak, xakitera erresusurrezioaren ta Espiritu Sanduaren Bazkoetan ta Egerrietan. San Soter Papak ordenatu zue bear zela komekatu Ortzegun Sanduan. Geroago, maliziaren abundanziagatik oztu zelarik anitzen karidadea, Inozenzio III manatu zue Konzilio Jeneralean komekatzeko urtean bein berere, au da Bazkoan, txoil ezpazaio iduri obe sazerdote propioaren konsejus denbora zatiren bates luzatzea; ezperen bizian estadiela utzi sartzera elizan, ta il ondoan estadiela ortzi eliza-lurrean (In c. Omnis utriusque etc.). Estiot deus aurren komekatzeko debozioas lengo denboretan, aipatzen baitu Tridentinok. Ikusi duzie nola joan den, anditus bekala malizia, txurtus komekatzeko debozia Elizako humeetan; debozia txurtus, ta arimak txartus; baña estaike duda Eliza Ama Sandaren intenzioa, deseoa ta ansia dela izan daitzen bere humeak alakoak, ezi mereji dezaten egunoro komekatzea. Expresoki dio Tridentinok: Optaret quidem etc. Nai ta deseoa lezake Konzilio Sanduak, meza guzietan komeka leizen presente dauden fielak ez solamente espiritualki, baitaere errezibitus sakramentua errealki. Orra klaro Ama onaren deseoa.

Guziareki, pizaturik San Agustinek sakramentuari zor zaion erreberenzia ta miseria humanoaren ezindea, dio ala: Egunoro komekatzea estut laudatzen, esta ere erreprehenditzen; igandeoro komekatzera bai exortatzen ta konsejatzen dut, baldin arima barin badago bekaturako afektorik gabe (Lib. de eccl. dogm. c.53). Errepara, estio bekaturik batere gabe; gisa ortan nor ta noiz leike ellega? Zerengatik Espiritu Sanduaren errana da zazpi aldis eroriko dela justoa, ta jaikiko dela (Prov. 24). Diona da bekaturako afektorik gabe, au da, naiz faltaturik zer edo zertan, estagola afizionaturik ta lisiaturik batera edo berzera, baizik aborrezitzentuela biotzes falta itentuen bakotxak ere. Baña konbentuen klaustroen barnean ezpada, gañarakoan munduko Babilonia gontan, miserien tegi gontan, negarresko balle gontan, banidadearen ta maliziaren mindegi gontan gutienak bide dire estutenak afektorik edo kostunberrik, ia inkieturetan, ia gezur edo murmurazioetan, ia banidadeetan, ia jan edanetan, ia aisanaiean, ta alako makurtasun ta imperfekzioneetan. Estiot orai bekatu grabeas, baizik lebeas, iltzen ez, baña eritzen bai, ta itsusten dutenes arima. Alako arimes dardukat, estaudenes, bein edo bein ezpada, ilik Jangoikoaren begietan, baña eri ta malder bai maiz; estaudenes izosturik Jangoikoaren amorioan, baña bai epel nagi; estaudenes eder guzis motarik gabe, estare itsusi guzis, baizik deslustraturik maiz grano gaixto batzueki, zerengatik bekatu benialeek ala deslustratzeunte arima, nola grano gaiek gorputza; ala gure Jaunak mostratu zio bere sierba bati bere arima aurtto baten itxuran, ez ilik, baña beterik granos; kolore gaitz, itsusitto, miserable, arritu ta asustatu baize bera ikustas beras. Arima erikor malder gebetas; eta norena esta ala mundu gaixto gontan? Ainberze exenplu gaisto, okasio ta peligroan ertean? Ebetas, bada, zer iduri zaigu? Zein usu edo argal den obe komeka daitzen? Gure Jaunai goardatu bear erreberenzia bateo, ta bateo berendako prokuratu bear erremedioa. Ez faltatu bear batai ta ez berzeai, eta ellegatzen badire maizegi, beldur ez izateas Jaun andiai bear adiña erreberenzia, ta ezipadire ellegatzen maiz aski, beldur estaitzen senda ta il ere daitzen. Nola astatu erdia, ez geiegi ta ez gutiegi? Ori dagokio konfesore prudenteai neurtzea bakotxai, diradelaik arimak ain diferente kalidadean, nola aurpegiak. Emendik jeneralki neurtzeko idurikal, dirudi neurri ona ellegatzea komekatzera

ez argalago iletik ilera baño, estare usuago amabortzetik amabortzera baño. Senti bada gose ona, diot gure Jaunaganako deseo, afizione, anhelo anitz, ellega bedi amabortzetik amabortzera, ezperen iletik ilera, ezi ia luzatzea, ezpada zerbait motibo partikulares, dirudi dela amorio guti izatea Jangoikoai ta bere arimai. Manatu zio Jangoikoak Moisesi berze gauzen ertean bere tabernakulo gartako fabrika zezala mai bat urreskoa paratzeko artan proposizioneko ogiak. Zenbat zire ebek? Amabi. Zer pizutako? Diote ezi amirur libra ta erdi bakotxa. Beras, maia bideze andia ta zabala? Ez, baizik bi ukondo luze ta bat zabal. Nola zuzke iduki ainberze ta ain andiak ziren ogi gaiek? Paratus bi erkadatan bata berzeain gañean, emendik sei, andik sei. Zergatik ala? manatzen zue gure Jaunak paratzeko ogiak bero, ta konserbatzeko beroa ura ze modurik obena (Ap. Claus. p.3. cath. c.44. n.7). Ogi gaiek signifikatzen zute aldareko ogi bizi dibinoa. Iloro bein komekatus amabi eldu dire urtean komunioneak bata berzeain gañetik, estaien oztu Jangoikoaren amorioa, ta zerurako afizionea ta memoria, ezi ezperen utzis-komunionea, doaie atzendus Jangoikoas, arimas, bizitza sekulakoas, ta afizionatus munduko banidade ta engañuetara, azkartus etsaiak, indar artus bizioak, ta ines bekala mudatus arimaren gustoa, len kuadratzenetzekizkionak kuadratzen zaizkiola gero: Ejiptoko tipulak, baratxuriak, borruak ta farraskak, zeren estuen txastatzen maiz aski aingiruen ogia, gloriako erregaloea. Gustáte, et vidéte, quoniam suavis est Dominus, dio Dabidek; txasta zazie ta ikusazie, ezi suabea da gure Jauna; eta txastarasten badizie bein edo bein bere suabidadea, etzaizie kuadratuko berzerik baizik bera. Besarka ar benaza bere besarkan, dio arima fielak, osculetur me osculo oris sui, zerengatik obeak dire beraren bularrak, ezi ez ardorik jenerosoena, quia meliora sunt ubera tua vino; errege Jaunak sarrarazi nau bere ardo-tegian, ta ordenatu du enebaitan karidadea, introduxit me Rex etc. (Cantic). O nori eman lezaken bere ardo gartaik trago bat, urrupa bat; ia zoraturik Jangoikoaren amorios igan leike munduaren gañera, ta eman lezoke ostiko bat munduai, ta ezleike kontenta gutiagoreki, baizik sollik Jangoikoareki. Ardo goneki orditurik zori onean sanduak egin zire mundua baño andiago, emen gorputza, ta zeruan zeukate arima; gozo zekizkiote emengo trabajuak ta eriotzea bera Jangoikoagatik. Zer ai gara gu arrastaka beti lurrean?

Ellega, ellega maiz Jesusen bularretara txastatzera eskojituen erregaloea ta Birjinak azitzentuen ardoa. Frumentum electorum, et vinum germinans Virgines. Ala ebek bear lukete ellegatu maizago, konserbatzeko birjinidadearen gala, purezaren fragranzia, kastidadearen lore ederra. Esta orgatik komekatzeko neurri emana ain txusto betiko bardin, baizik ere aldiska bere gose sanduak, edo nezesidade geiagokoak inzitutzen badu, ellega daike maizago. Eta ez egin kasorik ontan, baizik Jangoikoas ta bere arimas. Erraten badizute, dio San Franziskok Salesek, erraten badizute mundukoek zergatik komekatzen zaren ain maiz, erresponda zozute ezi ikasteagatik onesten Jangoikoa, garbitzeagatik zeure inperfekzioetaik, libratzeagatik zeure miserietaik, konsolatzeagatik zeure aflikzioetan, indar artzeagatik zeure flakezaetan. Erran zozute bi jende-motaek beautela komekatu maiz: perfektoek, zerengatik egonaskeros ongi disponiturik, in lezakete gaizki ez ellegatzean santidadearen iturrira, ta inperfektoek, ikasteko perfekzionea. Indartsuek ez ellegatzeko heritzera, ta heriek egiteko indartsu (Introd. â la vid. dev. p.2. c.21. apud Parr. de euch. pl. 12). Bear dena kuidatu da usten delaik estaien utzi floxezas, ta erreizibitzen delaik estaien egin presunzios, edo gaizki berze gisas, baizik humilki, ezaundurik ezkarela digno. Zakeok eman zue prisa erreizibitzera bere etxean gure Jauna; zenturiona, berriz, erretiratzen ze etzela digno erreizibitzeko alako Jauna bere etxean; biek orgatik zute afekto ona, biek nai zute, biak zire humilak. Arimak azertatu nai badu nere ustes, eginaskeros inala bere

aldetik, konfesa bedi indigna zenturionaren gisa, ta fiaturik Jangoikoaren ontasunean errezibi bez ansiosa Zakeoren gisa. Ain ona da gure Jauna, ezi eldu da gogotik pobreagana ere, nola den borondate ona. San Buenabentura zego meza laguntzen, komekatu naiak ta etzela atrebitzen. Zer agitu ze? Aldareko hostiatik zatitto bat bere kabo etorri zekio agora, bete baizue gozos ta dulzuras. San Anbrosio eri zegolaik, Jangoikoak berak abisatu zue Berzelisko obispoa, erman zezola komekadura. Bi errelijioso Franziskoei etzelaik nork eman komekadura, eman ziot Kristok berak (Cl. p.3. cath. c.39. etc.). Aingiruek anitz aldis indute ofizio gau Jangoikoaren mezus anitzeki (P.4. c.4. et 5). Guziaz da señaile nai duela Jaun dibinoak etorri bere arima fielengana, zeñen onagatik in baitu sakramentu bat ain miragarria.

Estaiela entenda konsejatzin dela maiz komekatzea egiteko kostunbres axial axala ta epel epela, baizik aldioro ferbore ta dispozizio berri daiken guziareki; oroat, nola ura balitz azkena, ta joan bear balitz eternidadera komekatu ta berla, ez estimatus gutiako, baizik ia zenbatenas iagotan eldu den guregana; animatus biotza agradezitzera ain liberal ematen zaigun Jaun onari, diogulaik sikiera, berzerik ezpada borondate ona, sikiera afekto ona. Estugu, bada, obligazio guti. Baña nola baita gauza ona afekto ona, eta gurebaitaik ez izaki gauza onik, orrek, Jaun amorosoa, gure arimaren amorean eman bezagu bere amorioaren ardo gortaik urrupa bat, zeñeki zora gaitzen zori onean ta akaba gaitzen orren zerbitzuan ta grazian. Amen.

Sermo XLIX:

De communione spirituali
et visitatione Santissimi

Arrazio ones arima razionala Jangoikoaren imajina ta semejanzara kriatua, ezpalez tiratu lurrerat gorputz lurreko pizuak, bear litzake egon suspiratzen, ansiatzen, anhelatzen beti bere Jangoikoagana, ala nolaugarra beti baitoaie gora gora bere zentrorat. Baña orai, Jangoikoak egindigunaskeros mertxede jaustas bera, ta paratzeas bere tronoa gure erdian tenploetan, onara bear lirazke itzuli gure arimaren deseak, ansiak eta anhelak, ala nola baitio Dabidek 41 psalmoan: Iturrira naiak doaien bekala oreña, ala ene arimaren ansiak dire orrengana, Jangoikoa. Ene arima egarritu da Jangoiko iturri bizira naiak. Noiz ellegatuko naiz agertzera Jangoikoaren presenzian? Nere ogia zire neure nigarrak gau ta egun, erratendidatelaik egunoro: Non dago zure Jangoikoa? Ontas oroitu naiz, ta desaogatzen dut nere arima, zerengatik pasatuko naiz tabernakulo admirablearen lekura, Jangoikoaren etxeraño. (Eta 83 psalmoan dio: Zein deseagarriak orren tabernakulo sanduak, birtuteen Jauna; desmaiatzen da orren etxerako ansiaren utses nere arima. Nere biotza ta nere gorputza ere alegratzen dire Jangoiko biziarengana naiak; zerengatik txoriak aurkitu du beretako etxea, eta usa-tortolak beretako kafia, non paratu bere humeak. Nere ustes erran nai du, arimak aurkitu duela beretako egoitza ta zentroa, non sosegatu bere afektoak, ansiak eta kuidoak, altaria tua, tua, Domine virtutum, orren aldarea, birtuteen Jauna, nere errege ta nere Jangoikoa. Zori onekoak bizi direnak orren etxean, Jauna, laudatzen berori egonen dire sekula guzietan. Zori onekoa gizona, nork ere baitu orrenganik bere laguntza; disponitutu iganbideak bere biotzean negarresko balle gontan. Jangoikoaren bedeizioareki joain da birtutes birtute ikusiartaño jaun guzien Jangoikoa Sionen. Jangoiko Jauna, adi bez nere otoitza. Gure anparazalea Jangoikoa, beira bez ta berriz beira bez bere Kristoren aurpegira, zerengatik obe da egun bat orren palazioan, ezi milla berzeetan. Naiago dut egon naiz apal nere Jangoikoaren etxean, ezi ez bizitu bekatarien palazioetan, zerengatik miseriakordia ta egia nai du Jangoikoak, grazia ta gloria emanen du gure Jaunak. Estu utziko ondasunik gabe bizi direnak inozenzian. Zori onekoa esperatzen duena orren baitan, birtuteen Jauna). Guziok dire Dabiden itzak; eta alakoak dire arima noble guzienak, dioten amorioagatik Jangoikoai bakarrik, arrazio den bekala, baitaude egatu naiak beragana, eta bitarteo konsolatzen baitire gozatus maiz maiz Kristoren gorputz preziosoa bere sakramentuan. Baña amorios erretzen, deseosko egarriak itotzen daudenek, ta ezin ellega ain maiz nola nauten iturrira, diot komekatzera, zer ineunte? Onen erakustea da egungo nere itekoa. Birjin Ama dulzea, bere Jesus onaren amazaleen amazalea, ainberze ondasun ekarriziguna, bigu, alaber, gozatzeko alde guzietara anitz grazia. Abe Maria.

Nonnai dagon gorputza, arara bilduko dire agila, zio Jesu Kristok (Math. 24). Nik nere aldera entendatzen dut, ezi beraren gorputz prezioso dagonari sakramentuan joan direla, urbildu ta ellegatuko direla ansioso arima nobleak agilen gisa lurreko txarrierietatik despeiturik gora gora egatzen direnak zerurat. Baña ellegaturik errezibitzera gorputz dibinoa komekatzean, ongi daude gozatzen gloriako erregalorik obena. Eta maiz komekatzeareki ia gozatzen dire. Baña ezin beti, ezin kontino gozatu; naiz urbil egonik iturrira ezin beti ellega. Zer inen da? medio bat da, diona Tridentinoak komunione espirituala (S. 13. c.8). Irur komunione-gisa distingitzentu Konzilioak: Bata sakramentale-

utsa, berzea sakramentalta ta espirituala bateo, berzea espirituale-utsa. Komunione sakramentale-utsa da errezibitzea sakramentua graziarik gabe dispozizio gaixtos; Jangoikoak goarda alako desgraziatik. Komunione sakramentalta ta espirituala bateo da errezibitzea ongi disponiturik sakramentua graziareki. Komunione espirituale-utsa da errezibitzea grazia sakramenturik gabe, diot errezibitu gabe forma sagratua. Nola da ori? Gogo solles deseatus, gose biotzeskoareki Jesus sakramentatua fede bizi ta karidade ardienteareki. Au deitzen du komunione espirituala, ta jatea deseos ogi zeruko gura, zeñen fruitua ta probetxua sentitzen baititu ariman.

O komunione estimagarria au, in daikena edozein ordus, edozein lekutan, etxean, kanpoan, elizan, nonnai, naiz okupaturik dagon bat, naiz eri, naiz ez baru, aski delarik konzienzia onareki fede bat bizia, karidade edo amorio bat egiaskoa, ta deseo fin bat unitzeko Jesus onareki, ezpaita berzerik bear. Eta gisa gontan nai duena daike komekatu egunean anitz eta anitz aldis, au da, amoriosko deseos gure Jaunagana. Benerable bates kontatzen da ezi naiz beterik zeruko faborees, bisionees ta miragarries, alaere etzelaik trebe komekatzera egunoro sakramentuareki, suplitzen zuela komekatus espiritualki ainberze, ezi bizi guzia omen ze komunione espirituale kontinoa, eta gure Jaunak mostratu zue kuadratzen zekiola. Bein elizatik kanpoan zegolarik, aiturik txintxa goratzeko gure Jauna, instante paratu ze belauriko bere amoriosko deseo gaieki bereganatzeko Jaun dibinoa, eta idiki zekio elizako paretea derepente ikus zezan ta adora zezan hostia sanda, ta berla itzuli ze ertxitzera len bekala, gelditurik solamente idikiaren marka bat prodijioaren memoriatako (Parr. de euch. pl.ult.). Berze bates kontatzen da, ezi ala erretzen ta konsumitzen zegola sakramentuaren amorio ta deseoen suan, ezi ezpazio erakutsi konfesoreak komekatze-gisa gau, iduri baizekio etzeikela bizi; eta ala komekatzen ze espiritualki egun aldis egunas, ta berze egun aldis gauas (Ibid. illud de v. Joanna â cruce, hoc de v. Agatha â cruce). Santa Jertrudis bein eri egones, etzeikelaik komekatu berzeeki bateo sakramentalki, egin zue deseos zuken obekiena, eta gure Jaunak erran zio ezi guziek baño ia grazia logratu zuela berak gisa gartan. Klaro da ezi komekatus errealki grazia ia logratzen dela ezi solo komekatus espiritualki, bardin badire dispozizioak gañarakoan, zerengatik komunione errealean obratzen du sakramentuak, eta komunione espiritualean solo arimak; baño ainberze izan daike deseoaren fineza, fedearen bizitasuna ta amorioaren sua onen baitan, ezi erman dezon abantalla errezibitzen duenai sakramentua epelkiro, zerengatik Jangoikoak estimatzen duen prinzipalena da biotzaren nobleza, borondatearen fintasuna, afektoaren andia; eta jenio gau dute geienek.

Nonnai, bada, ta noiznai komeka daike bat deseosko komunione gisa goneki, dagolarik Jangoikoaren grazian, edo prokuratzen delaik paratzea kontriziosko doloreareki; baño eskaidarik propiena da mezakoan, komekatzen delarik sazerdotea errealki, entzuten dagona komeka daike deseoareki. Nola egin erakutsiko dio bere afektoak duenari andia ta fina, estelarik bear ori baizik, esta itzik ere; baño nik ezin erakutsi itzik gabe. Diot, bada, ezi nai duelaik arimak komekatu espiritualki, daikela enplea afekto gebetan edo alakoetan. Nere Jesus dulzea, Jangoiko ta gizon egiaskoa, Jangoikoaren Ama Birjinaren Semea, arimen esposo amantea ta amablea, ene arimaren amoreta, sinestatzen dut dagola orren Majestadea sakramentu gortan; bizkortu bez nere fede eria; nainuke sinestatu bizi ta seguroago ezi ikusi banez begieki egi eta fede gau iruzkia baño ziertoago dena. Eta dagola guregana etortzeagatik. O gizonaren ditxa, baitezake errezibitu berebaitan zeruetako Jauna! O nere fortunoso, posible balitz orrek nai izatea etorri enegana! Baña ni ez naiz gauza; esta noble aski ene arima, txarra da ene biotza, ta gorputz gau lurrekoa ta inmundizias

betea. Nola nai izan bear du etorri ofendituduenagana? egin diotelaik traizio bat ain traidorea? Estut plazer orri eginas desplacer. Etzue orrek mereji izatea ofenditua; ez nue ofenditu bear nik bentzait, galduko banue ere bizia milla aldis. Baña guzia makur egiteko, ofenditu dut Jauna neure kaltetan. Negar inen dut bizi guzian onengatik. Ah gaizki egina! barka bezada, Jauna, eta nai badu etorri enegana, nik nainuke errezibitu, berorrek disponitzen duelaik bere ostatua. Ona nere arima, nere biotza, nere bularra, neurau guziau orren dispoziziora. Betor, betor nai badu, bere pobretto gonengana, emen estu aurkituko berzerik, baizik borondate ona. O ene arimaren esposo amantea, orrek nai badu ene arima, ene arimak nai du berori; berori nai dut bakarrik, eta nai dut ia ezi mundu guzia, nai dut ia ezi gloria guzia, nai dut ia ezi kriatura guziak, ia ezi adiskideak, aideak ta buratsoak, ia ezi sandu ta sanda guziak, ia ezi aingiruak, ia ezi Ama Birjina, ezpaitezaket ia pondera. Naiago dut ezi ondasunak, ezi honrak, ezi gustoak, ezi osasuna, ezi bizia bera, ezi sekulako salbazioa. Ojala banu nik Santa Teresaren biotz noblea, sandu guzien birtuteak, Ama Birjinaren pureza ta santidadea errezibitzeko bere gustorako ostatuan etc. etc.

Alaber, suponiturik nai duela etorri gure Jaunak guregana, ezpalitz estorburik gure aldetik, dezake batek imajina Jesus aur amorosoa bekala bere Ama Birjinaren besotan, eta Ama onak eskintzen diola bere biotzeko prenda gura, eta Jesus bera mostratzen zaiola kariñoso joanlekiokela, bera nor balitz. Zer in bear du batek, baizik apaldu bere burua autseraño, ta estimatu, ta agradezitu, ta onetsi, ta deseatu milla amores ere alako Jaun amablea ainberze apaltzen dena? Nor naiz ni, etorzeko berori neregana? Estaiela fia enebaitan, ezi oroat traizia dezaket. Aparta bedi enegandik, bainaiz gizon bekataria ni. Baña nai badu etorri, disponi benaza berorrek nola nai duen. Emen esta gauza onik, ezpadu berorrek paratzen. Nai badu etorri, nik nainuke errezibitu gogotik ere. Eta zer desea dezaket, baizik berori bakarrik? Berori duenari zer falta zaio? O nork lezaken artu, besarkatu, adoratu berori, apegadezadan bere amorioaren sua, ama dezaten biotz guziareki, arima guziareki ta indar guzieki, urtu, konsumitu, erraustu, desegin ta akabatu arteo su dulce gortan? Orrek onesten banau ni, nola estut onetsiko nik berori? Jesusek onesten ni, nik ere onesten Jesus; ai amore gonon sus, erre ta il banindedi. Arimen esposo amantea ene arimain billa eldu da; bere gana arteagatik, Jesus, ar bez berla berla, berant da berladanik. Iduki benaza bereki, orrena naiz orai ta beti. Amen.

Erakutsirik Jesus sakramentatuaren ganako debozioaren desagotzeko modu bat, komekatu gabe errealki, komekatzea espiritualki edo deseo sollareki; orai berze modua, baita bisitatzea maiz, ta afekto andiareki sakramentua. Maiz bisitatzea, al badaike, da arrazio ta on. Baña iten delaik naiz brebekiro, biz ferbore guziareki, bizturik fedea ta karidadea. Dezake nai duenak errezatu Santisimoaren estazioa, edo Aitagure bat, edo ia; solamente ezi beti tiratu bear da berotzera biotza, eta orgatik obe da errezu guti, ta konsideratu ongi itz bakotxa, ta biztu afektoa. Orgatik ere geien komun obe da errezatzea, baña erratea biotzetik eldu dena, bein arla, bein orla, debozioak diktatzen dion gisa. Jendeen alzinean esta konbeni egitea demostrazio berri extraordinariorik, naiz bakar dagolaik, nai badu kurtu zenbait aldis apegatus kopeta lurraia kontra erreberenzias. Gañarakoan belauriko, galdi, ixil, modesto, attento mintza biotzas; biotzas, ezpada baizik bizpiru itz, aiek sinki. Lenbizikoa beti kontriziosko akta, biztu ondoan fedea nor dagon emen. Gero nai badu nik errateunten gau: Jauna, aurki bez bere sierbo gonek grazia orren begietan, ta mintzatu natzaio naizelaik autsa ta errautsa. Gero mintza dakioko biotzeko afektoeki, bein mostratus fedea, bein esperanza, ia karidadea, ia admirazioa; humildadea beti, ta petizioak, aita bati zezoken bekala humeak, oroat, nola ikus balez begis, ario

gontara edo nolanai bakotxak.

Ona fedearen akta bat: Jauna, sinestatzen dut dagola emen orren Majestadea ain errealki nola zeruan. Sinestatzen dut, naiz izanik ain gauza andia ta erdetxi ez dezakena nere entendamentu txarrak, zerengatik orrek baitio, ta egin baitu gauza gau, eta ene Jangoikoak dezake egin ia ezi baitezake orren Joakinek entenda. Zenbatenas gutiago dezaketen entenda, firmeago sinestatzen dut; señaile, au dela Jangoikoaren gauza. Ojala ain zierto ni ellega banindedi egotera zeruan, nola ori baitago emen, Jaun ona. Ona humildadearena; Jauna, emen nago ni orren presenzian astoko bat bekala, estakitela zer egin ta erran. Ona non naukan urtikirik bere oñetan seme prodigo gau; Aita, bekatu egin dut zeruain kontra ta orren kontra; ez naiz digno dei nazaten berorren seme; egin benaza bere nirabeetaik bat bekala. Ona konfianzarena: Jauna, esta jautsi debalde zerutik lurreraño; etzue debalde padezitu eriotze gura ain kruela; estago debalde orai emen. Ene arimagatik au guziau; bada, Jauna, egin bez nitas nai duena; daukat konfianza salbatuko nauela, ta admitituko, ta konserbatuko nauela orai bere grazian ta gero bere glorian. Ona admirazioarena: O gloriako Errege soberanoa, noraño jautsi den! O Jangoikoaren ta Ama Birjinaren Seme Jangoikoa Jesus, noblea, ona, ederra, amoroso, dulce, maitagarria, bere parerik estuena, nola dagon akzidente goien pean! Ain andia ta ain txipi! Ain gora ta ain apal! Ain admirablea ta ain amablea! Jauna, dagolaik zeruan kortejaturik gloriako jende eskojitu, serafin ta kerubin, aingiru ta arima noble gaien guzien goienean, nai dukela egon gure desterru triste gontan gureki, ta sufritzen asko desatenzio, ta esker gaixto! Ain ongi aurkitu ze gizoneki bizitu zelaik mortale? Jaiorik etxola batean, erreklinaturik ganbela batean bi animaleen erdian, gero iges joanik Ejiptora, ez ezaundurik ta atzendurik kasi guzien ganik, azkeneko preso eginik, golpaturik, gaizki trataturik, azotaturik ta ilik infameki gurutze batean gizonen eskus, nola balitz gizonen etsai galgarria, eta alaere plazer du gizoneki egoteas? Alaere ainberze onesten gaitu gizonok?

Baña amorio ta agradezimentuaren afektoak izan beartiogu geienik. Jauna, pobretto gonengatik barin badago emen, emen nauka beretako. Mostrak dire onesten nauela orrek ni, bada, nik zer in bear dut baizik onetsi berori? onesten dut biotz, arima, zain ta indar guzieki. Orrena naiz orai ta beti. Ene arimaren esposo dulzea, ene amore zoragarria, iruzki eder disimulatua, estalirik badauka ere bere aurpegia, heritzen du ene biotza. Nor berori bekalakorik? Ofenditu nik berorren Majestadea ta alaere ainberze ongi egiten orrek niri? Nior estut agrabiatu nik ori adiña, ta niork eznau onesten orrek adiña. Nola estut onetsiko guziak baño ia? onesten dut ia ezi mundu guzia, ia ezi etc. Jauna, zer nai du egoteareki gisa ortan? Nere arima. Bada, ar bez duten guziareki. Guziek ofendi balezate ere, nik ez, ez, Jauna. Goarda benaza estakidan gerta admititzea traizio bat ain traidorea. Nigar egin bear dut kontino ez onetsias alako Jauna bear bekala. O edertasun ain lenekoa ta ain berria, zein berant ezaundu duten! Zein berant onetsi duten! Jauna, nork dauka preso gisa ortan? Bere amorioak gure gana. Bear gaitu agian deustako? Ez. Zer nai du, bada? Gure amorioa. Arrazio da: Jesus ene prisionero sakramentu gortan dago; zer in bear dut? Ni ere nago Jesusen amoros ero. Petizioak in beartiogu, zer nai dugun, konfianza guziareki, den bekala guzien Jauna, espezialki eska bere grazia ta gloria. Amen.

Sermo L:
De viatico, et Santissimo exposito
vener<...>do praecipue

Surge, comede; grandis enim tibi restat via. 3 Reg.19.

Bizi guzia bear ginduke enpleatu, ta anitz estela estimatzen, honratzen ta gozatzen gure Jaun sakramentatua, itendigunaskeros mertzede inkomparablea egoteas gureki azken juizioko eguneraño, de manera ezi desterratuak gaudenek gloriatik negarresko balle gontan izan dezagun tenploa bidenabarko zero txipi bat bekala, eta gloria-iduri bat gure Jaunaren honratzea ta gozatzea emen sakramentuan. Eta sines obligazio delarik au gurea, da alaber, probetxu andia; eta plazer iten bazaio ontan gure Jaunai, estiogu eginen debalde, ezi ongi pagatuak atrako ginazke. Ah! Esta amatu bear gure Jauna paguagatik, baña amatzen duenik esta nior pagu ona gabe ta irabazi andia gabe. Prinzipalki, orde, eriotzeko peligroan maite duenak bere arima, bear du estimatu ta gozatu gure Jauna. Gozatu deizen dut errezibitzea. Emen berla negargale eldu zaida ikusirik asko kristioen edo ajola gutia, edo nagitasuna, edo ezpadugu erraten, beldurtasuna errezibitzeko sakramentuak eritasunean. Eskatzera alzinatzen direnak baitire gutienak, geienek bear baitute norbaitek konsejatzea, zenbait egoten baitire luzatus luzatus gerorat, naiz abisaturik, eta anitz aprehensioak arturik orgatik. Eta agian agian zenbait beldur direnak iltzeko errezibituaskeros sakramentuak, iltzen dire errezibitu gabe, ta errezibitu-faltas garai onean, sendatuko zirenak errezibitu bazituste. O deabruaren engañuak galarasteko ez solamente arimak, baitaere gorputzak, ez solamente bizitza sekulakoa, baitaere emengo bizitza. O kristio-iduriak, tontoitsuak aldeguzetara. Ene Jesus amorosoa, ene bizia, ene amore, ene ondasun guzia, dela posible daikela izan nior erreparo duenik errezibitzeko orren sakramentuak, ta berori komekaduran, beldurrak il? Ordu onean betor eriotzea orrek dakarrana ongi errezibitzeuntenei! Eriotze gura obe da ezi bizitza. Il bear badugu, il gaitzen ori errezibiturik, orren besotan. Baña biziaren amante bagara, nola gabiltza igeska, nola estugu antes bien ematen prisa eskatzeko ansiaturik datorkigun egitera bisita dotore dibinoak, biziaren emanzaleak? Jauna, orreki bizi ta orreki il nai dut nik bentzait; eta ondasun izangindezakenaren adiarastea da ene egungo itekoa. Ama dulzisima, gure anparo, konsolazalea, enfermera dibina ta kuidazalea orai ta gure eriotzeko orduan, orduko, ta oraiko, ta betiko logra bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Da Jangoikoaren mandamentua Elizak notifikatzen diguna errezibitzeko sakramentu aldarekoa eriotzeko peligroan, ezi paratuaskeros Jaun dibinoak sakramentu admirable gau sustentatzeko arima, emateko indar ta gusto espiritualak, nioiz obligatzekos obligatzen gaitu biziaren azkenerat, noiz ainberze bear baitugu prebenitzeko eternidaderako biaje gura, zeintara doaien guzia, atratzen bada gaizki, betiko gaizki; atratzen bada ongi, sekulakos ongi. Orgatik orduko komunionea deitzen da biatiko, nai baitu erran, bjaierako probisione edo prebenzioa. Eta zein propiago ta obeago, nola garbitu ondoan konfesioareki arima, errezibitzea eternidadeen prinziipe Jauna, gloriako giltzak bere eskuan dauzkiena? Orgatik ez komekatzea tranze gartan, edo luzatzea berantegi, notableki, da bekatu mortale, iten delarik adbertenziareki bere borondates, edo ajola gutiegis. Estardukat ainberze komekatzeas orduan, nola garai onean ta goizik komekatzeas. Estut erreprehenditzen ainberze ustea komunionea peligro gartan, nola

egotea berantartatzen. Esta nere intenzioa exortatzea komekatzea eritasun grabean, ezi zein kristio entendamentu duenik izanen da estuenik nai errezibitu amen zeruko gura, zeintan baitaki, zeintan, hereje ezpada txoil, sinestatzen ta konfesatzen baitu errezibitzen duela Jesu Kristo bera ilen ta bizien juzgazalea, ta andik fite eman bear diona sekulako sententzia? Estut uste, nere feligresetan bentzait, dela nior ain zenzugabe tontorik bere kontra.

Nere intenzioa, bada, da in nauten ta inbeauten gura akonsejatzea egitera garai onean, akonsejatzea alzina daitzen eskatzera, berantegi baño fiteegi naizbai, ortan diren konbenienziengatik arimaren ta gorputzaren. Konfesioren asten da garbitzeko arima ta deskargatzeko konzienzia; segitzen da komunionea desposatzeko arima Jesus arimen esposo dulzeareki, bizkortzeko, erregalatzeko ta animatzeko pobrettoa tranze gartan. Bada, nork estakusa zein den arintzea bat bekatuen karga zorigaistoko gartaik len baño len, ta gelditzea desaogaturik kuido prinzipalenetik, eta obeki errateko, bakarretik, gorputzaren osasunaindako ere? Zer? Idurizaizie direla bekatuak almadraka ellesko mullituak, eta konzienzia gaixtoa dela goatze bedatxa sosegatzeko ederki arrixko gartan? Gogoratze gura: Ai ilzen banaiz, infernura noaie! Ai eta agian ilen naiz ontaik! Fielak, barin bada zenzurik, da preziso alakoa dagon aprehensios ta kongojas inkieto desasosegaturik eritasunean, aliketa inartatzen konfesioa bere satisfakziora, ala nola preso eriotzesko kausa duena, ia bukatu-urran delaik, bailegoke ikar ikar edozein giltza edo atariain arrotu sentitu orduko, ai! eldu ote dire notifikatzera sententzia? Estado gontan ellega balekio erregeganik libranza, zer kontentua! Ezleike deskuida logratu naiak, al balezake logra. Libranza gonon gisarakoa ta iagokoa da sazerdotearen absoluzioa Jangoikoaganik duen potestadeareki konfesio on baten gañetik. Bada, nola daike deskuida juizioduna? Eta logratuak garai onean zer abantalla protxatzeko gorputzaren erremedioek ere sosegatuaskeros kuido andienetik? Bada, etortzea Kristo bera ezkerreko eskuan dakarrala gorputzaindako osasuna, eskuiekoan arimarena, eman dezakena nai badu, eman nai duena eskatzen dionai ongi, ta emanen duena ziertoki on barin bada, esta abantalla sendatzeko? Guzua iten andik ta emendik sendatzeagatik, eta obenas atzendurik azkeneratzen? Etzue ala egiten Santa Agedak. Bularra ebaki ziotelaik bere martirioan, agertu zekio San Pedro mediku-aintzu. Sanda etze nai utzi kuratzera, ziola, beñere etzuela egin erremedio lurrekorik gorputzaindako, baizik bere esposo Jesu Kristok itz bateki erremediatzen zuela guzia. San Pedrok erran zio: Etzaitela berdur nitas, ene humea, naiz Kristoren apostolu berak biali nauena zure sendatzera. Au erran ta gelditu ze sana ta konsolaturik sanda. Estiot nik estaitzela egin erremedio naturalak, baizik estaiela deskuida errezibitzeko mediku obena, Jesus sakramentatua, ezi gorputzaindako ere da konbeni errezibitzea garai onean; orreki ezpada bat sendatzen, señaile etzela konbeni, gure aldetik esta falta, ezi konbeni bada, sendatuko du bisita garreki solamente.

Baña arimarena da prinzipala, ta onengatik da ia konbeni errezibitzea sakramentuak goizik. Konfesioa beñik bein, sentidoak bizi, potenziak erne daudelaik; ezi alaere gorputzaren eritasun, molestia, neke ta fadogabeareki, esta guti egitea ongi. Zer izanen da geroago, baldin lostorditurik burua, pizaturik neketan gorputz guzia, ilundurik entendamentua, flakeaturik memoria, gana gaixtoan balego borondatea? Erregeri eman bear zaizkion kontuak estire usten atratzeko burua ta guzia gaizki dagoneko. Bada, ain guti doaie konfesio ongi edo gaizki egitean? Estoaie gutiago, baizik sekulako ongi edo gaizki atratzea ilzen baliz, ta erremediorik gabe utsiten bada. Bere ariora diot komekatzeas, ezpada ere bear ontako ainberze nola konfesatzeko, alaere in daiela noiz ta bereganik batek

dezoken egin errezibimentu ona, eman eskerrak, eta biztu afektoak izpiritu ta gogo guziareki. Zoeie Elias profeta iges erreina Jezabel gaixtoaganik nai baizue ilarazi, ta ibilirik egun bat desertuan, ia enfadaturik bere bizias, eskatu zio Jangoikoai akaba zezan; ta etzan ze lurrean lo. Jangoikoaren aingiruak ukitu ta idatzarri zue, ta erran zio: Surge, comede, grandis enim tibi restat via, jaikizaite ta jan zazu, zerengatik bide luzea falta zaizu oraño. Idatzarririk ikusi zue bururdikoan sutopil bat ta baso bat ur. Jan eta edan zue; eta berriz loak arturik, berriz idatzarrarazirik, berriz jan ta edan zue, ta alimentu garrek eman zion indarrareki ellegatu ze Jangoikoaren oian Orebgoraño. Jezabel gaixtoan entenda etsai gaistoa, persegitzen du arima eriotzeraño, eta ia tranze gartan; esta lokartzeko, esta deskuidatzeko. Prestaturik gure Jaunak ogi zerukoa, jan zazu, dio, ezi bide luzea, biaje andia duzu zer egin eternidaderaño. Ogi bizi garren birtutes daike ellega Jangoikoaren zeruko oianeraño, ezperen erorileikena tentazioan ta kondenazioan.

Eriotzearen begitarte lotsagarria, zirkunstanziak ta efektoak latz, samin, erruak badire gorputzaindako, estire goxo, dulzeak arimaindako, ezpaitu dultzatzen dezakenak. Nor da au, baizik Jesus dulce sakramentatua? Eliseoren mezus disponiturik otrontze bat kanpoko belarres bere adiskideendako, egosi ondoan aurkitu ze samin fierratua etzeikela soporta; Jauna, erran ziote berai, eriotzea elzean. Manatu zue nasteko irin guti bat, ta oneki sollik aurkitu ze gozo ta gustoso Jangoikoaren milagros. Eriotzea elzean da gure luresko gorputz goni etortzea eriotzea; bere izates samin fierratua, ta Jangoikoaren kontra bizitu bada, gaistoago, mors peccatorum pessima, bekatarien eriotzea guzis gaixtoa, dio Dabidek (Ps. 33). Eta Eklesiastikoak (C.41): O eriotzea, dio, zein samiña den zure memoria gizon bere emengo ondasuneki laketetsirik dagonaindako! Zer izanen da pasatzea, ain samin barin bada oroitze solla? Iltzea ezin exkusa, pasatu bear sarri, juizioa berla, kontuak ertxi, jueza justo, sentenzia segi, zerua gora, infernua beiti, aingirua andik beira, deabruak emendik, konzienziak inkietatzen, niork ezin konsola Jangoikoak ezi, zer izain da zutas ene arima? Lanze gogorra, trago samiña, ezpadu dulzatzen Jesus ogi bizi dibinoak. Errezibi bez, bada, kristioak disposizio ta ansia guziareki lanze gartan eriotzearen Jaun dena iltzeko obeki ta aisago beraren besotan bekala. Iltzerik fortunosoena sanduetaik San Josefek iduri zaida niri izan zuela, asistitzen ziotelaik bi aldetaik Jesus ta Mariak presente errealki. O iltze deseagarria, nork nai ez luke? Baña daikena berere etzazula malogra, Maria memorian ta afektoan, ta Jesus errezibi errealki komunionean. Au eska Jangoikoai bizi guzian, au desea, ta prokura gogotik iltzeko peligroan, tonto estenak bere kontra, eta garai onean ta prebenzio onean.

Ia ia juiziora doaie arima, ia ia kontuak eman ta aitzera sentenzia. Nola esta ikaratuko gizon lureskoa? Baña bi konsolu andiak tugu: bata izatea juez Jesus, berzea baitezakegu ekarrarazi geuregana alzinetik. Nork izanik pleitu inportaziosko bat, izanik esku autatzeko, ez luke nai juez sentenziatu bear duena izan leien bere aita edo esposo ongi apasionatua? Eta xakinik dezakela egin nai duena, al baleike egon berareki lentxago, al balezake ekarri bere etxera etorri naiak zegona bekala, nola ez lezake deitu, admititu, mintzatu, errogatu bere fabore milla modus? Bada, pleitu dugu sekulako bizitzain gain, sentenzia gartaik segitu bear da gure sekulako ongi, edo sekulako gaizki izatea. Ia ia ikustera doaie kausa, esta milagro ikaratzea animosoena, estutelaik baliatu bear deus ez indarrek, ez itzek, ez otoiek, ez nigarrek, ez deusek, baizik obra onek. Baña ez desespera, ezi juez dugu Jesus gure Aita, esposo ta erredenptore amantea guregatik bere bizia eman duena, de manera ezi autara emanik, ez gindezake auta jueztako berze nior baizik bera. Ortas landara bizi guzian kasi noiznai dezakegu errezibi geure baitan, eta biziaren mugan

ere bai, mintzatzeko, eskatzeko ta errekabatzeko berareki ezkaizala kondena. In bez, bada, arimak dagolarik bere akordu guziareki, orduan da ordua enpleatzeko potenziak, afekto ta ansia guziak jaun arreki. Jauna, erran dezoke errezibitu ondoan, ene arimaren amorea, anparo, konsolu ta esperanza, ene Aita, erredenptore, esposo ta gauza guziak, badakusa ene peligroa ta bear-bearra. Iltzeas ere beldur naiz, egia da, ene Jesus ona, baña ia lotsatzen nau iltzeari darraionak, juizioak. Zer izanen da nitas? Sarri presentatu bear berorren presenzian aitzera orren karguak ta sentenzia. Nola, nola agertuko da ni bekalako bekatar txarra? Zeruak estire garbi orren presenzian, ta bere aingiruetan aurkitu zue maldade, zer izain da nitas? Nondik nai arrapatuko nau, nondik nai aurkituko du kondenatzeko kausa, nai badu. Estut esperanzarik atratzeko ongi neure merejimentuetan. Jauna, iten badu justizia errigurosoa, kondenatuko nau erremediorik gabe. Estiot eskatzen justizia, baizik grazia ta miserikordia. Orren baitan dut esperanza estuela naiko galdu ene arima ainberze kostatu zaiona. Injeniatuko du berorrek nola salbatu ni ere, nai badu, ezpanaiz ere digno. Jauna, nai badu, sal banazake. Nere Jesus, nere salbazalea, salba benaza. Admiti bez arima eskojitu noble gaien ertean errehus txar gau, naiz dela guzien azkena. O ene Aita, erredenptore ta esposo obena, otoi, otoi ez nazala kondena; berorren ama, zeñi ezpaitezoke deus ukatu, paratzen diot enpeñu ta medianera. Kriatura eder, noble, exzelente garrek dion amorioagatik, eman dion plazeragatik, bere bularreko esne birjinale artu zuen garrengatik, ez nazala utzi galtzera ni bainaiz biena; berorrek gurutzean errezibitu zituen borz llaga gaiengatik, bere azoteen ta korona aranzeskoaren pena dolorosoengatik, bere pasio ta eriotze sufritu zuenagatik, ainberze odol prezioso ixuri zuenagatik ene salbatu naies; amore andi gonengatik, zeñek obligatzen baitu orren Majestadea egotera sakramentu gortan ta etorzera ene gana; ez nazala kondena. Orren eskuetan usten dut nere arima; orren baitan daukat esperanza ez nai zela izanen betikos konfunditua etc.

Ario gontara dakioke mintzatu arima bere barren barrenean bere esposo ta juez Jaunai tranze gartan. Baña estagola beira orduraño arzeko amorio, ta mostratzeko estimazio, ta egiteko petizio guzien Jaunai gure amores amen baten formara erreduzitu denai, ta kontino dagonai gure desterru gontan gure salbatu naiak. Kontino, bada, amatu, estimatu ta honratu bear du emen nai duenak gozatu an, eta gure bizi guzia enpleatu bear da ontan, ta izain da ongi enpleatua. Prinzipalki bisita, meza ta komunione maiz ta gogotik in bear direnes landara; patente agertzen delaik sakramentua, ta atratzen delaik elizatik prozesioan edo komekadurain, bear da manifestatu kristioen kariñoa ta estimazioa Jaun soberanoai, nola balitz Bazkoa ta festa-eguna guretako ura, imitatus bentzait, pasatu ezpadezazkegu aingiruak gure Jaunaren kortejatzean, diogulaik obligazio ia ezi aingiruek, ezi etze Jangoikoa egin aingiru, gizon bai; estago aingiruengatik emen, gizonengatik bai. Bada, gizonen humeak, noiz arteo biotz pizu, motela? Zergatik nai duzie banidadea, ta zabilzte gezurra in atzean? Forma txipi batean dago gure biotzen, afektoen ta pensamentuen zentro ta enplegu izan bear duena. Amen batean dugu gloriak adiña balio duena, au, au onetsi, estima, billa ta desea zagun bizi garen bitartean. Jauna, ain andi delaik ain txipi mostratzen dena, berori nainuke nik nere alde, ta kontent nitzake. Berori sollik obe dut ezi zerua ta mundua; aski dut berori. Berorrek ongi nai banau, etzaida deus gañarako guzias; berorrek salbatzen banau, niork eznazake kondena. O nork luken ain deus guti iduri duen gorren baimendea! Tu es qui venturus es, an alium expectamus? Jauna, esta berori esperatzen duguna? Edo berzerik esperatzen dugu etorko dela guzien juzgatza? Berori da, ta ez berzerik; bada, berori bear dugu honratu, onetsi ta estimatu bizi guzian; berori da gure oraiko amorio ta erregalo guzia, berori gure gerorako esperanza; berorri biz

bedeizioa, honra, agadezimentua ta gloria orai ta beti, secula seculorum. Amen. Amen.
Amen.

SEQUUNTUR ALIQUÓT SERMONES
SALUTI DE EÂDEM EUCHARISTIÂ
IN VARIIS ANNI FESTIS

Sermo 1:

In dominica infra octavam

Ascensionis D. De praesentiâ et

amore Domini in nos

in Augusto sacramento

Cúm autém venerit paraclitus, ille testimonium

perhibebit de me. Joann. 15. Caetera in 14.

Beti gure Eliza Ama Sanda, ama ta maestra amantea bekala dagokigu berritzen urteas bere denboretan Kredoan, sinestatzen dugun misterioen memoria. Sinestatzen dugu Kredoan Jesu Kristo Jangoikoaren Seme bakar gure Jauna konzebitua izan zela Ama Birjinaren entraña sanduetan, Espiritu Sanduaren obras, ta au oroiarasten dugu Elizak martxoaren ogeitaborzgarrenean Ama Birjinaren Anunziazio-egunean. Sinestatzen dugu, alaber, jaio zela Birjina Mariaganik, ta au oroiarasten dugu abenduaren ogei ta borzgarrenean, Egerri- egunean. Sinestatzen dugu, alaber, pasatu zuela pasio doloresko Ponzio Pilato juezaren manuaaren azpian, gurutzikatu zutela, il zela, ortzi zutela etc., eta au oroiarasten dugu Aste Sanduan, prinzipalki Ortzegun ta Orzilar Sanduetan. Sinestatzen dugu, alaber, erresuzitatu zela ilen ertetik bere birtute propios, eta au oroiarasten dugu Bazkoa-egunetan. Sinestatzen dugu, alaber, igan zela zeruetara ta an dagola jarririk Aita eternoaren eskuietako-aldean, eta au oroiarasten dugu Joan de Salbatore egunean, ta oktaba gontan. Au ala delarik, zer da zeletzen duguna eliza gontan funzione gontan? (Minerva) zeletzen dugu Kristo bera presente errealki sakramentu aldarekoan. Bada, nola eldu da ongi bata berzeareki? Zerura igatea aldarean egoteareki? Aita eternoaren eskuietako aldean jarririk egotea emen sazerdoteen eskus erabiltzeareki? igan bada zerura, nola gelditu da emen? Emen gelditu bada, nola igan da? Barin badago jarririk Aita eternoaren eskuietako aldean, nola dago errealki sakramentu gontan? igan da ta gelditu da; an dago ta emen dago, errealki an ta errealki emen; diferenziareki ezi an dago egotemodu naturale ikusgarrian, emen egotemodu sakramentale ikusietaikenean, baña ain errealki emen nola an. Au da milagro guzien milagroa; au da Jangoikoak guri digun amorioak garaitu duen inposiblea; au da fedearen misterioa, zeintas eman duen testimonio Espiritu Sanduak, Kristok zion bekala, cúm venerit paraclitus, ille testimonium perhibebit de me, datorrela Espiritu Sandua, ark emanen du testimonio nitas. Au da egia Kristok errana, apostoluek predikatua, amar Konzilio Jeneraleek erakutsia, doktore ta Aita Sandu guziek probatua, Eliza Katoliko guziak beti sinestatua ta zeletzena, infinizio bat milagroek konfirmatua. Onen gain itz egin bear dugu egun. Maria Elizaren ilargi ederra, fedearen antortza argia, guzien Ama amantea, eman bezagu grazia. Abe Maria.

Jangoikoaren obrak estire neurtzeko gure entendamentuaren neurriareki. Ezlitzake anbateko Jangoikoa, ezpalezake egin zuk eta nik eta gizagende guziak entendaala baño ia. Neurritu bear dire bere besoaren ta biotzaren andi inmensoareki. Orra, gizonaren entendamentu txarttoai lenbiziko beiratzean iduri zaio inposible bekala egotea Jesu Kristo bateo zeruan ta lurrean, ainberze lekutan non ere baita sakramentu, naiz dela berze modus emen ezi an; egotea bateo glorifikatzen aingirua ta sanduak bere presenzia ikusgarriareki, ta bateo erregalatzen emen arima pobrettoak bere presenzia erreale berareki estalirik sakramentuan. Eta ala da egi eta fedea. Eta nik, Santa Teresareki, zenbatenas gutiago

entendatzen duten, ia sinestutzen dut señaile dela Jangoikoaren obra au. Zer da inport ez erdetxiagatik zuk eta nik? Agian sollik erdetxi dezakeguna guk, dezake egin Jangoikoak? Estugula erdexten. Eta zer da gero? Estugu erdexten, zerengatik andiago baita Jangoikoa gu baño. Ote da, bada? Humilla gaitzen Dabideki, ta kontent diogula: Ut jumentum factus sum apud te, et ego sempér tecum, astoko bat bekala eginik nago orren aldean ni, Jauna, eta ni orreki beti. Amen, ala biz.

Ain zierto da dugula gure Jesus errealki sakramentuan presente, ezi ain zierto nainuke nik egon zeruan, ez ia. Ikusi duenak, edo sinestutzen duenak Jangoiko guzia gizon eginik donzellatto baten entrañetan, jaiorik aur txipitto beraren eskuetan, ta bularretan, erreklinaturik ganbela batean, gero preso eginik ta loturik Jetsemaniko baratzean, bofetada bates beziturik Anasen etxean, mila eskarnios jokaturik Kaifasen etxean, ero-aintzu trataturik Herodesen etxean, azotaturik ta arantzees koronaturik Pilatosen pretorioan, ilik azkenean infameki Kalbarioan bi ladronen erdian gizon galgarriena bekala. Sinestutzen duenak, diot, au guziau Jangoiko denas, zer du ez sinestatzeko gelditu dela aldareko sakramentuan? Baña badu, ezi gauza latz gogorra da gelditzea munduan gizonen ertean, gizoneki ain gaizki joan ta joanenzaikolaik. Ala da, ta alaere bear dugu sinestatu gelditu dela, nola baita egia. Zergatik? Zergatik bere Majestadeak ala nai baitu ta baitezake; zergatik inmensoa baita bere podorioa, ta geiegia bere amorioa guregana. Estida berze arraziorik ematen San Pablok etorzeko Jangoikoaren Semea mundura: Propter nimiam caritatem suam, quâ dilexit nos Deus, filium suum misit. Bada, bereok beti onetsiginduzalarik, azkenerat onetsiginduz, dio San Juan Ebanjelistak: Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Len in bazitue marabillak gure onginaies, despedidan egin zue bere marabilien memoria ta azken errestoa, memoriam fecit mirabilium suorum. Guzien arrazioa esta berzerik, baizik Jangoikoaren podorio ta amorio inmensoa gure gana. Zer estu eginen Jangoiko batek amoros dagonak gure arimes? Guzia guti iduri zekio, ezpaze gelditu bere Majestadea gureki betikos, ezpazekigu eman janarigisa bere sakramentuan. Jesus ona, ia pobretto gonek badezake espera igatea ain gora gora, maiz izanik ain txipia, ikusiaskeros Jangoiko bat ain andia apaldurik ain beiti ontaraño! Ainberze apaldu da goratzeagatik gu ainberze Jauna, ezdezala utzi galtzera ainberze onesten duen arima. Ikusagun.

(Joan. 14) Despedidan apostoluei egin zioten prediku luze gartan, zer aietan guri, berze itz amoriosko andien ertean erran zue: Estaiela turba zuen biotza. Sinestazen duzie Jangoikoan, enebaitan ere sinesta zazie. Ene Aitaren etxean dire anitz mansonie; banoaie prestatzera zuendako leku, eta naiz joanik ta prestataturik zuendako lekua, berriz eldu naiz artzera zuek enegana, zaustengatik zuek ni nagon lekuan. Ikusteunzie fielak, nola dion doaiela ta eldu dela. Beitixago dio: Non relinquam vos orphanos, etzaistet utziko humezurtz edo guras gabe (sic), veniam ad vos, etorriko naiz zuengana. Itz ebetan mostratzen du bera dela gure Aita eta Ama diña, onesten gaituela aiek diña, ta ezkaituela utziko bere presenzia gabe. Nola? Badio beitixago, vado et venio ad vos, banoaie ta eldu naiz zuengana. Zer da au? Oroat nola, banoaie ta gelditzen naiz. Nagolaik zeruan nere Aitareki, egonen naiz munduan zueki; zeruan errealki, munduan errealki; zeruan ageri ikusinazaketen gisan, munduan estalirik sakramentuan; zeruan goza nazaten angoek osokiro, munduan goza nazazien emengoek emen daiken obekienik. O Jesus onegia, gure Aita, gure Ama, gure esposo, gure anaia, gure bizitza, gure guzia, zein ongi nai gaituen! Zein ongi kuidatzen ta erregalatzen gaituen! erran zue expreso: Sicút dilexit me Pater, et ego dilexi vos, nola onesten bainau ni nere Aitak, ala nik ere onestenzaistet zuek. Erran

daike ia? Bada, amorio gonon progua eman du: Niork estu amorio ia, baizik emanartaño bere arima bere adiskideengatik. Zuek zarate ene adiskideak. Ia etzaistet deituko esklaboak, adiskideak bai deitzaistet. Guziok dire Jesusen itzak.

Baña zerengatik adiskide on gaiek ez solamente nai zuten izan presente beraren Majestadea, baitaere ikusi begieki beti, prosegitzen du (C.15): Eta orai, zeren errandizieten banoaiela, tristuras bete da zuen biotza; baña erraten diziet egia nik, konbeni da zuendako joatea ni, ezi ezpanaiz joaten, esta etorriko zuengana Espiritu Sandua, ta joaten banaiz, igorriko diziet. Jauna, diot nik orai, gelditzen bada berori errealki sakramentuan, zer falta in dezokete Espiritu Sanduak? Ondasunik asko dute berorreki, guzia baitute. Egia da, baña esta, oroat, izatea nola ezauntzea, eta gure Jesus onak ez solamente nai du izan dezagun, baitaere goza dezagun ondasuna; eta nola gelditzen baita estalirik ta disimulaturik sakramentuan, ikusi bearrestela begieki, baizik espirituareki, etzagun izan alfer ondasuna ezaundu gabe ta gozatu gabe, nai du datorren Espiritu Sandua, cūm autem venerit Paraclitus, etorzen delaik, ille testimonium perhibebit de me, ark emanen du testimonio nitas. O nere fielak, arimaren bista labur dugunak, ongi bear dugu Espiritu Sanduaren asistenzia, estaien agi izan ondasuna, ta ezin logra ezaundu-faltas. Sobre ondasundun gara, baña fede bizia falta. Ezin ikustea begis etze anitz inport, fede bizia balitz. Zori onekoa zu, erran zio Santa Isabelek Ama Birjinai, sinestatu baituzu. Eta Santo Tomasi, ukitu arteo eskus Kristoren llaga-kuntzeak sinestatu nai etzuenai, erran zio Kristo berak: Zeren ikusi nauzun sinestatu duzu, Tomas, zori onekoak ikusi gabe sinestatu dutenak. Zori onekoak gu, sinesta bagindez ikusirik bezain sinki Jesusen amorioaren exzesu gau guregana. Jesus gureki, Jesus ain humil guregatik, Jesus ala gisa ortan nola gelditu den, Jauna!

Nondik guri ainberze ondasun, nola baita egotea gureki, etorzea guregana Jaun guzien Jauna! Ain txipiei ain andiak, amorio bat ain geiegia! Berze finezen gañetik zu gelditzea gureki gure erregalotako! Dio Jaunonek bere Ebanjelioan (Math. 18): Birjinaren Semea etorri da salbatzera galdu zena. Zer idurizaizie? Balitu batek egun ardi, ta aietak bat galdu balekio, ez lezazke utzi laurogei ta emeretziak larrean, ta ezleike joan galdu zen garren billa? Eta aurkitu ondoan, paraturik soñean, darama artegira kontent aurkituas. Kristo bera dela artzai gau da klaro, egun ardiak aingiruak eta gizonak, ardi galdu zena gizagendea; onen billa etorri ze utzirik aingiruak zeruan, aurkitu ta soñean eramatea bekala da bere kostus pasio ta eriotzeareki erredimitzea. Baña ia ere bada. Orai egotea sakramentaturik ta sarzea gure baitan da alimentatzea bere ardiak bere gorputz ta odol propioeki. Quis pastor oves suas propriis membris nutrit? Dio San Krisostomok. Zein artzaiek azitu bere ardiak bere gorputz ta odolareki? Artzai ona da gure Jesus, ala erregalatzen gaituena. Dirudi etzela kontent egonen zeruan ere, ezpalitz gelditu gure erregalotako emen gisaontan. Vado et venio ad vos, zio despeidan, banoaie ta eldu naiz zuengana, nola aurki ezpaleike gu gabe. Zer ia? Ogi ardoen idurian gelditzea estalirik ze komunikatzeko ia gureki, ta etzeien nior exkusa lotsas edo berze atxekias? Zer ia? Eriak ere estaitzen priban ondasun gontak, ontzat artzen du joatea karrika goiek barna, ta sartzea edozein etxe edo etxola pobre naiz ta moldegaitzean. Zer ia? Ia nauzie? Baña, bada ia ere, ta geiena, baita gelditzea xakinik injuria asko inen ziotela bere presenzian, ta bere sakramentuan, ta askok sartuko zutela beren petxo indignoetan. O Jesusen amorioa arimengana, anitz urek etzuket itzali, etzezagun in ainberze ongi nola ematea bera den guzia guri.

Pensa, fielak, ainberzeko amorio digun gau, eta nork nori. Bitarteko nik atra nai dut

suspiro gau San Krisostomoreki: Hei mihi, quot ad salutem nobis via! Ai ene, eta zenbat bide tugun salbatzeko! Zeruan dago prestatzen lekua guretako nai badugu; sakramentuan dago lagun iteko bidean. O nere Jesus dulzea, niork ez nau onetsi nola orrek, nior estut bear onetsi nola ori; onesten dut gauza guziak baño ia; ori da nere ondasun guzia mundu gontan, ori nere gozoa ta korona sekulako glorian. Amen.

Sermo 2:

In feria V. caenae Domini De obligatione
et utilitate devotionis in eucharistiam

Cum dilexisset suos, qui erant in mundo,
in finem dilexit eos. Joan. 13.

lanze bat ongi extraordinarioa agitu dena kontatu nai diziet predikatzen asibañolen. Esklabo batek ongi estimatuak ta tratatuak erregeren palazioan agitu da egin dezon bere Majestadeai traizio bat guzis itsusia. Justiziak arrapatu nai duelaik, iges joan da ordik orrat miserablea. Xakinik erregek non dabilan ta nola, urrikariturik biali du bere seme propioa, prinzipie jauna, arren eske itzuli dadien bere palaziora ta graziara. Prinzipie jauna joan da bila, ainberze nai zue berak ere! Ta aurkitu du eremu batean pobre desdixatua, etzanik lurrean, desastraturik ta miserias beterik oñetaik bururaño; itz bates, erioaren itxura eginik. Kontent aurkituas, artzen du besarka prinzipie biotz nobletakoak, akorritzen du bere atsas, konsolatzen ta animatzen du itz ones, paratzen du bere soñean ta darama palaziora. Bitarteo justiziak eskatzen du kastigatzeko mereji duen bekala; preso da, sar bedi kalabozoan; lotzen dute, sartzen dute. Baña enpeñu arturik erregek ta prinzipieak libratzeko, justiziak erreklamatzeko du estaikela libra eman gabe satisfakzio osoa, ezi ura baño iagokoak izan direla kondenatuak kausa beragatik. Zer arrazio den libratzea ta honratzea gizatxar gura. Baña o amorioa, zein zaren indartsua! Eriotzea bezain. Prinzipie jaunak arturik ia porfia libratzeko esklabo traidore izana, ajustatzen da ezi au libratzekos, bere altezak pagatu bear duela pena. Ongi da, dio, naiz bai, obligatzen naiz, eta aita erregeganik ere logratzen du baimendea. Erran ta egin. Doaie kalabozora, ea nere gizona, erraten dio, zuk bear zindue izan justiziatua, baña ni agindu naiz zure partes pagatzera pena. Zu zoaz libre, ilen naiz ni. Ni urkabera, zu palaziora, alegra zaite. Solamente otoi, otoi, izan fiel emendik alzina, ezperen ni il ta zu galdu, ta guzia malogratu.

Zego bitartean jendea karrikan, beira zertan baratukozen trajedia gura. Erran bekala, prinzipie Jaunak lazatu ta edekitio grilloak traidore garri; ta au doaien bitarteo libre erregeren palaziora, ura loturik atra dute, ta jaintsirik sentenziatu-gisa, ta erman dute iltzera, usten duela erregek lastimaturik korte guzia, oius jendea, negarres arriak ere, ta beira dagolaik bere ama erreina. Azkeneko, eskaitzen detenitu sobra, prinzipie jaun onegia barkaziorik gabe ilerazi dute, infameki akabaturik tormentus bere adinaren lorean. Nor ta norengatik! Ah lastima! O amorioa!

Eta non agitu da ori, jauna? Bada, zer? Estuzie entendatu? Haec autem est parabola. Esta, esta munduko erregeren baten semeareki agituau, da figura bat pintatu dutena adiarasteko agitua Jangoikoaren Seme ta eternidadeen prinzipie den Jesu Kristoreki, zein entregatu zue Aita eternoak eriotzera, libratzeagatik esklabo traidore izana, baita gizagendea. O kulpa fortunoso logratu zuena alako erredentptorea, kantatzen du Elizak. Gaixtoa libre ta sandua il. Guk obenak ta Jesusek penak. Gaur asitze trajedia, ta biar akabatu ze. Zein ongi dion ebanjelariak! Cúm dilexisset suos, qui erant in mundo, in finem dilexit eos, onetsiginduzalaik beti bereok, azkenerat onetsiginduzala; noraño? Ezin iagos. Baña nola estut pintatu aldareko sakramentuaren ongi egina? Ezniekie nola, diot egia, ez dezazket aurkitu zereki konparatu. Eta zer ikusteko du sakramentu aldarekoak Kristoren pasio ta eriotzeareki? Anitz, ezi orgatik bataren ta berzearen memoria iten du

egun Elizak. Bata da berzearen korona. Misterio gonon gain mintzatzeko itz bakotxa bearlizake izan susko saeta erretzeko biotz kristioak gure Jaunaren amorioan; baña bular otzetik estaizke atra sutan itzak, ziones sandu batek (S.Tom. Villan.). Or dago Jesus, guzia su amorioskoa, goribezki gure biotzak labe gortan. Ortako orrek, Maria Jangoikoaren Ama digna, iruzkiaren sagrario luzitua, Trintate Jaunaren tenplo bizia bere gustorakoa, enpeña bez bere grazia etc.

Azkenerat egin zitue gure Jaunak amorio digunaren demostraziorik andienak. Aipatus solamente ebek, pasatuko gara mostratzera sakramentuan gelditu zaigun Jesus onari bear diogun debozioaren obligazioa ta probetxua. O Ortzegun Sandua, sines sandua! O arrats zori onekoa guretako, noiz egin zuen guregatik guk desea-ala ta pensa-ala baño ia Jangoiko ta gizon den Jesus gure amanteak. Gaur fundatu zue meza sandua, orgatik deitzen baita kalizaren jaiteguna (sic), natalis calicis, eta gaur asi ze padezitzen bere pasioaren tragedia. Au xakinik bere Majestadeak, etzezaten utzi kristioek atzenzera denborareki bere amorioaren exzesu gura, utzi nai izan zue betiko frinkaturik arren memoria fineza berri batean, fineza guzien koronan. Garbitu ondoan apostolueri oñak bere esku dibinoeki, arturik ogia ta ardoa, goraturik begiak zerura, emanik Jangoikoai eskerrak, bedeikatu, partitu ta eman ziotu guziei, erraten ziotela: ar zazie ta jan zazie, auda nere gorputza; ar zazie ta jan zazie, auda nere odola anitzengatik ixuri bear dena bekatuen barkaziotako. Au egizie nere memoriatan. Ontan ez solamente eman ziotu potestade konsagratzeko ogia ta ardoa, baitaere manatu ziotu berritzeko ala bere pasio ta eriotzearen memoria. Etzekio atzendu San Pablori adbertitzea zirkunstanzia gau kontatzerakoan misterio gonon asiera (1. Cor. 11) itzebeki: Nik nere Jaunaganik artua ta ikasia dut zuei entregatu ta erakutsidizietena, zerengatik gure Jesus Jaunak, traiziatua edo entregatua izan zen gauean, arturik ogia ta emanik graziak, partitu ta erran zue: ar zazie ta jan zazie, au da nere gorputza, zuengatik entregatuko dena; egizie au ene memoriatan. Alaber kaliza ere, afalduaskeros erraten ziotela: Kaliza gau da testamentu berria nere odolean, au egizie edateunzien aldioro ene memoriatan, zerengatik jaten ta edaten duzien aldioro ogi gau ta kaliza gau, oroiaraziko duzie Jaunaren eriotzea, datorren artaño.

Errepara nola beti dion in daiela gure Jaunaren memoriatan, entenda daien zein elkarri darraizkionak ta idurituak diren Kristoren pasioa ta aldareko misterioa, diren bekala Kristoren fineza extremoak. Misterio gau beiratu daike sakramentu bekala ta sakrifizio bekala: Sakramentu bekala da prinzipalki, egoteko presente gureki ta alimentatzeko miragarriro gure arimak, ta ala da aski edo hostia, edo kaliza, bietaik edozein bakarrik, zerengatik edozeintan dago Kristo guzia presente errealki; baña izateko sakrifizio, baita deitzen duguna meza, bear dire biak, hostia ta kaliza, zerengatik biak berex paratze garreki errepresentatzen da Kristoren odol-ixurtzea, pasioa ta eriotzea; argatik definitzen dute batzuek meza Kristoren pasio ta eriotzearen memoria, ta errepresentazio bat bizia, berze batzuek sakrifizio bat solemnea, zeintan ofrezizen baita Jangoikoai Kristo bera ogi-ardoen akzidenteen pean. Eta ala da prinzipalki ofratzeko Jangoikoai. Da fedesko gauza Tridentinoak deklaratu (Hic), bat eta berbera dela hostia edo ofrenda ofrezitua len gurutzean ta orai aldarean, ofrezitu zuena bere burua an, ofrezitzen dela emen sazerdoteen eskus, sollik ofrezitze-modua delaik diferente. Una eademque est hóstia, idem offerens etc. Ezi an ofrezitu ze agerrian odol ixuris, padezitus ta iles judioen eskus kruelkiro; emen estalian, odolik ixuri gabe, padezitu ta il gabe, errealki ta humilki sazerdoteen eskus. Sustanzian esta diferenziarik; demanera ezi orduko prisione, katea, soka, azote, aranze, gurutze, itze, golpe, injuria, tormentu, oñaze ta pena-neke guzien merejimentuak eta balioa

bildurik emen aldare-gañean, ofrezitzen dio berriro Jesus berak bere Aita eternoai, ta iten du aplikadakizkigun ta goza dezkiGUN kontino bere pasioaren fruituak abastoki, eta mostratzen du afektoan prest dagola berriz ta berriz padezitzera ta iltzera errealki bear balitz guregatik; eta efektoan ere sufritzen du oraño ere anitz injuria bere sakramentuan judioenganik? Bere kristioenganik, ia galzen diotelaik erreberenzia, ia errezibitzeuntela indignoki. Judioen kastatik direla iduri dute alako kristioek. Etzaistela egin judioen lagun, ene fielak, ultrajatus bere sakramentuan ere Jesus ona. O Jangoikoaren axuri inozente, onegi, dulce, dibinoa, estutela estimatuko kristioek berere orren ona guretako? Gurutzean ilik tormentuen utses, ta orai ilik bekala aldarean ain humil ofrezitzen guregatik, ta guk ez estimatzen? Bego ixilik asunto gau emen negar egiteko bakantasunean, ta segi zagon lenbizikoa.

Eta zertako ofrezitzen da? Suponiturik gure erredentporea Jesus dela, medianero edo bitarteko bakarra Jangoikoaren ta gizonen, zeruaren ta lurraren, diot dela barratzeko ongi guzia zeruan ta lurrean Jangoikoai ta gizonei, bakotxai bere ariora. Baña berexis len lenik, da emateko Jangoikoaren Majestadeai honra ta gloria zor zaiona gizonen partetik, ezpaitiogu kunplitzen guk ongi. Da emateko bere Majestadeai eskerrak intigun mextxedeengatik, guk itzulzentiogun esker gaistoen truk. Da emateko Jangoikoai plazer ta kontentu, ainberze desplazer ta ofensa guk itendiogunen ordañas. Alaber, jautsirik beixago, da emateko Maria Santisimai ere honra, eskerrak, plazer, zori ona ta obsekio zor dioguna guk ekarri zuenagatik mundura alako Semea, ezi nork du duda, paratzen den aldioro sakrifaturik aldarean axuri dibinoa, errezibitzen duela honra ta erran dugun guzia kunplitu ki Ama andiak? Alaber, da emateko aingiruei ta sanduei alegria berria ta gloria akzidental; alaber, purgatorioko arime i alibio, konsolu ta libranza; alaber, da karraiatzeko ondasunak mundu guziaindako, justoendako graziaren ta merejimentuen aumentua, bekatoriendako Jangoikoaren piedadea izan daitzen barkatuak ta admitituak Jangoikoaren grazian, barkatuendako satisfakzio, zereki pagatu zorzusten penak, beartsuendako beartusten on guziak ala arimaren nola gorputzaren; guziendako bere pasioaren fruituak. Itz bates, artako da aldareko misterioa, zertako baita Kristoren pasioa. Guziau sakrifizio den bezan bates, sakramentu bezan bates egoteko perenne gure konpañian, konsolatze ko ta faboratzeko negarresko balle gontan, ta sarturik geuren baitan alimentatzeko, erregalatzeko, unitzeko gu bereki, ta ala azitzeko digno izateko presentatuak glorian. Gisaontan guzietan aberats egin gara berabaitan, dion bekala San Pablok. In omnibus divites facti estis in illo (1 Cor. 1); de manera ezi galdegindezaguke guri Jesus onak, quid ultra debui facere etc. (Isai. 5). Zer ia in bear nue zueki, ezpaitut egin? Da preziso erresponda dezogun: Aski, Jauna, ta geiegi ere egin du gureki, gu nor bagara; ia estugu atxekiarik.

Gaude ia bigarren puntuan, baita obligazio duguna ta probetxua izatean debozio Jaun sakramentatuai. Baña ezkaitzen engaña debozio idurieki, entenda estardukatela errezatzeas estazioa, enzuteas meza, bisitatzeas sakramentua, asistitzeas gure Jaunaren funziometara, ta komekatzeas ala nola nai. Debozioa berze birtuteak bekala dago biotzean, mostratzen da bai akzione exterioreetan, eta ebek onak direlaik dire arren efektoak ta humeak bekala, ezi ezpadire barnetik atratzen, estire baizik azalak ta kaskill-utsak deus balioestutenak Jangoikoaren alzinean, diones San Pablok, si linguis hominum loquar et angelorum, charitatem autem non habeam, factus sum velút aes sonans (1 Cor. 13). Mintzatzea gizon eta aingiruen mintzoeki naiz bai, ezpada karidaderik, oroat da nola txintxaren soñua. Jangoikoa da espiritu, ta adoratzeuntene k adoratua beaute espiritu ta

egiareki (Joan. 5). Eta gizonak gorputz ta arima duenaskeros, bieki bear badu zerbitzatu, au da, arimaren afekto ta gorputzaren akzione ta erre zueki; beti entenda gauza exterioreak bear direla egin espiritu onareki, zein baita nola aien arima biztentuena. Eta naiz on izanik estazioak, errezuak ta bisitak espiritu onareki eginak, dire on ez andiak; ez naiz kontent alakoeki sollik, diotelaik izan bear diogula debozio Jaun sakramentatuai. Alakoak ere bai, baña geiago nai dut.

Debozioa bere sustanzian, zañean edo mamian da borondatearen inklinazio, afizione, anhelo edo ansia bat Jaunonengana, ta bere gustorako gauzetara. Da ala nola sutto bat arimain barnean, Jangoikoak itxekitzen duena; da klaro, ezi on da, ta geurenganik estugu gauza onik. Geurenganik bai gaixtakeriara prest, baña onera ez, ezi ori bagindu, nola gindezake ez onetsi Jaun andi gau ainberze onetsi ta ongi in diguna? Mila zatitaik bat alako ongieginen ta amorioaren mostratu bazigu persona munduko desastratuenak, ar gindezoke afekto. Jesus onai ez, zergatik bailitzake on, ta onik ez izaki geurenganik. Su gau, bada, erran bekala, Jangoikoak itxekitzen du biotzan; eta ala nola sua ezpaitaie beti guziz altxa, mostratu gabe edo beroan, edo kean, edo sugarrean, edo erretzean, ala debozio gau desaogutzen da afekto, errezu, bisita, komunione ta alakoak egitean. Baña erran bekala estire señaierik obenak; pasatu bear da erresoluzio andi batera egiteko plazer Jaunoni dezaken guzietan, ta ez egiteko desplazer deustan ere, naiz kosta dakion neke, naiz munduaren eskarnio, naiz kalte lurrekoetaik edozein, naiz bizia ere. Onen señaieak dire oroitzea anitz Jaun onetsias, in naia kontino zer edo zer beraren kontentatzeko, alegratzea on ikusten ta aitzen duen guzias, tristatzea errealki, ta negargale izatea, delarik agrabiatua. Señaieen korona da padezitu naia beraren obsekiotan; ala nola hume on batek kariño liokenak bere Aita onai, berak in balezoke gusto al guzian, ta alegra baileike honra dezaten berzeek ere, trista baileike agrabialezaten, ta para baileike defendatzera bere Aita, naiz biziaren peligroareki. Aisa da entendatzeko, ezpada ain aisa ere kunplitzeko. Eta onaraño bear ze ellegatu gure debozioa Jaunonengana. Urruti daude ontaik munduaren amazaleak, banidadeen ta bide zabalaren segizaleak ta gorputzaren esklaboak. Baña nik egia diot, obligazio dute ta dugu guziek izateko alako debozio fin biotzeskoa ta sendoa gure Jesus sakramentatuai.

Baña dirudi apartatuxe nai zela prinzipaletik, baita izatea debozio misterio gontan. Emen, bada, prinzipalki, bear dugu honratu, non baitago ain humil, emen, kasi erran dut, ia ezi bere gloriako tronoan; ezi errege dagolarik bere solioan inguraturik goardies, bear da honratu ta onetsi; baña aurki bazindez bere Majestadea zeure etxera etorririk zure amorios llano humil artzera zu beregana, ta erakustera zuregatik eramantuen nekeak, penak ta zauriak, dirudi onetsi ta honratzeko zinduela motibo espeziala. Nor dago, bada, etxe gontan gure desterru gontan? Ez gutiago dena, baizik errege guzien errege. Ene Jesus Jauna, ene arimaren amoreta, ene arimaren bila etorri da artzera beregana, ain humil, ain txipi, ain deus guti iduri duela. Estaltzen du aurpegia, baña heritzen du biotza. Estut ikusten, baña gogoratzen da neke penak, lllagak, ta eriotzea enegatik eramantuenak; nork estu onetsi ta honratuko misterio amoriosko gontan? Fielak, egotea alako figuran, esta izanes txipi bere Majestadea, baizik izanes geiegi digun amorioa. Baña erran nainioke gauza bat kuadra balekio: Jauna, dirudi ezi balego bere Majestadea ostentatzen inguraturik podorios, honralezaketela itsuek ere. Orai sobra apaldu da, deus guti iduriarasten du. Nik badakit au dela bere amorioaren artifizio berri, injeniosoa; guregana akomodatzegatik, gure apaltasuna ikusirik, apaltzen da ala nola ama beittitzen baita emateko aur txipiai esnea; ezi balego nere Jauna bere grandeza, argitasun ta majestadeareki, ezin lezake N. artu bere

eskuetan, ezin leike atrebi pobrettoa errezibitzera bere petxoan, esta ere bekatari miserablea egotera orren presenzian. Baña digun amorio geiegiak erreduziarazi du forma txipi batera, guti ostentatu ta eman anitz, zeruan den oben obena, Jesus, amen batean? Sobra apaldu da, Jauna; despreziatuak dire orren donoak, estuste estimatzen ta ez ezauntzen itsuek lurrera beiratzeko, baizik begirik estutenek, bizia pasatzen dutenek goartu gabe gure Jaunaren miragarria ain forma txipian, ta duten eskaida munduan. O itsutasuna! O engañu lastimagarria! Ala bizi, ta ala il.

Non dardukat au nik? Kristioen ertean baitiote sinestatzeuntela aldareko sakramentuan; nola baita egia artan dagola Jesu Kristo, balitz egia sinestatzeuntela bear bekala, nork ez lioke anitz debozio? Sinestatzeunte bai, baña ala il ila, ta estut urrikirik erranas estutela estimatzen ta estutela ezauntzen geienek aski, gaudelaik beira ain debozio guti ta erreberenzia guti sakramentu lotsagarriaren lekuan ta presenzian. Ikustas Jangoiko dena aur Belenen, preso, azotaturik ta ilik gurutzean Jerusalem, nor ezleike bete admirazios, debozios, amorios, afekto ones gure Jaunagana? Bada, ikusazu aldarean aurraren baño forma txipiagoan. Ikusazu preso bekala sakramentuan; ikusazu mezako sakrifizioan presentatzen bere pasioko penak. O Jangoiko andia, deustan ez andiago txipian baño! sinestatzen badugu ainberzeko fineza, non dago debozioa? Niork estigu egin ta estiguke ere egin ainberze ondasun ta ain modu onean; bada, onetsi bear ginduke guk berori guziak baño ia. Da klaro obligazioa.

Probetxua ain klaro da erraten badiogute ilzerakoan alegratuko direla izanas debozio Jaun sakramentatuai, errezibiturik lanze gartan bere Majestadea, ilen direla aisago ta obeki beraren besoetan bekala; ala nola Simeon, seguraturik zegona etzela ilen ikusi gabe bere eskuetan salbadorea, presentatu ziolaik Ama Birjinak aur dibinoa, artu zuelaik sazerdoteak, despeitu baize mundu gontaik beraren bedeizioareki, ziola alegre, nunc dimittis servum tuum etc. Orai, Jauna, bialzen nau orren Majestadeak ni bere sierbo gau bakean. Erraten badiogute il ondoan alegratuko direla izanas debozio Jaunoni, ikusteuntelarik beren Juez dela emen onetsi ta honratu zutena, espera dezaketela sentenzia ona, ta berak salbatzen baitu, niork estituela kondenatuko; etzaiote anitz mogitzen biotza an urrutiko gauzas bekala. Oraiko, oraiko nai dute plazer, deskansu, ondasun, gusto. Bada, oraiko ere zer medio obeago nola izatea debozio Jesus sakramentatuai? Nora joain gara bearretan erremediatzera, konsolatzera aflikzioetan, deskansatzera neke ta penaetan, eta gusto billa disgustoetan? Domine, ad quem ibimus? Estire debotoen plazer ta ondasunak mundu gontakoak, baizik obeagokoak. Nai bauzu munduko plazer bano ta gaixtoetaik, etzara on Jangoikoaren etxeko; estire zuretaiko Jangoikoaren deliziak. Gozatu mundua ta gozatu Jangoikoa estaike. Bata utzi bear da logratzekos berzea. Egia da Jesusen debotoei manatzen zaiotela artzea gurutzea, eramatea trabajuak. Baña diot, ote dire trabajurik gabe bekatariak? Jangoikoaren eskuan dago kaliza bat ardo puroarena beterik nasis, dio Dabidek (Ps. 74); saiestu du arat eta onat, baña esta ustu ondarra; bibent omnes peccatores terrae, edan beaute lurreko bekatari guziek. Pondera beren alegranziak, plazerak ta kontentuak nauten adiña, txastatukoute kaliza garren ondar samiña. Trabajuak izaintuste emen ere, ta agian andiagokoak onek baño, bentzait konsolu gabekoak. Onei, berriz, txastarasten badiote trabajuen kaliza gure Jaunak, pasagarri dakiote, ia bialzendiotenaren eskuagatik, ia dioten amorio onagatik, ia ere zeren aldiska dulzazentioten berak zenbait an gorako erregaloen urrupaeki. Testigo Santa Teresa, zein bere trabaju andietan etorririk sakramentuaren alzinera, aurkitzen zue deskansu, konsolu ta indar andiangoendako ere. Ala iduri zaida niri, debotoen nigarrak ere gozoago direla ezi

mundukoen alegranziak. Zereki daike konsolatu estena konsolatzen Jesus onareki bere amoriosko itsaso delizioso gontan? Esta, esta Jesus bekalako adiskiderik. Onetsi zazie Jesus sakramentatua, erran dugu orai arteo; orai ia erran daike: Onetsi zeuren buruak, onetsi zeuren arimak, ezi onesten dutenek ez dezakete baizik onetsi Jesus sakramentatua.

O ene Jesus ona, ene arimaren amorea, ainberze amorio mostrapzen diguna, guk ezauntzen dugu egin duela sobra ere guregatik, mereji duela onetsi dezagun ilartaño, dugula obligazio, ta elduzaigula probetxu; guziareki estugu onetsiko bear bekala, zeren gauza ona baita, eta gauza onik ezpaitugu geurenganik. O amoriosko suaren iturria, su gau itxeki bez ene biotzean sendoki, erre ta konsumi daien nola inzensu-pikor bat orren obsekiotan. Emengo ene zerua biz orren tenploa, emen orren presenzian ene asea, gozoa ta gloria emengoa orren medios, ezpaitut berze niondik esperanzarik, orren medios eternidadeko gloria.

Sermo 3:

In dominica infr. Oct. Corpus Christi.

De institutione Festi

Homo quidam fecit caenam magnam. Luc. 14.

O nork luken fede bizia ikusteko begis bekala gure Jaunak gureki egin ta egiten duena! Nondik asi edo non akabatuko dugu kontatus? kontatuko dugu guretako egin zuela mundua, ta gure zerbitzuko gauza guziak? Guretako fabrikatu zuela zeru eder gura, gloriako palazio andi gura? Esta au geiena. Kontatuko dugu kariatuginduzala geurok bere imajina ta semejanzara, gure bearrik etzuelaik, guri ongi iteagatik solamente? Esta au ere geiena. Kontatuko dugu konserbatzen gaituela naiz mereji ezpadugu ere, zerbitzarazis gure onerako iruzkia, ilargia, izarrak, zeruak, lurra, itsasoa, aizea, egasteak, animaleak, arraiak, lurreko fruitu ta gauza guziak? Esta au ere geiena. Kontatuko dugu? Baña nola ta zertako kontatu berze benefizio kontaestaizkenak? Batek darama ene atenzio guzia. Ez kontent gure Jangoikoa eginas guregatik, ta emanas gure on naies gauza guziak beras landarakoak, bera eman zekigu, bera egin ze gizon bigarren personan. Aitak etzio barkatu bere Seme proprioai, baizik entregatu zue guregatik, bere amorio geiegi digunagatik guri; biali zue bere Semea. Seme bera ofrezitu ze bere borondates, ta enkarnatu ze, ta bizitu ze gutartean. Espiritu Sanduak konkurritu zue, zerengatik beraren birtutes izan ze konzebitua Birjinaren entrañetan. Darama, alaber, ene atenzioa Jangoikoaren humillatze garrek izatera preso gizatxarren eskus, izatera golpatua, azotatua, gurzifikatua ta ila gizontasunean axuri manso bat bekala guregatik. Darama, en fin, nere atenzioa gelditzeak bere Majestadea sakramentu admirablean, ain bulto gutian errege guzien errege, amen batean oben obena aurkitzen dena glorian. Au da deitzen dutena Aita Sanduek enkarnazioaren extensionea, zeren egin zigun faborea enkarnatzeas edatzen baitu ontan mundua mundu den artaño. Nainuke adiarazi marabilla gau. Au da erran nautena nik, ezi bein enkarnatu zela, bein jaio zela, bein bizitu, padezitu, ta il zela gizon eginik Jangoikoa munduan. Bein egina, guziendako da ta betiko, baña denbora gartakoek izanzute ditxa gozatzeas urbilagotik; gerokoek ez ginduke izan, ezpaze bizitzen gure denboraraño. Bada, zer egin zue? injeniatu zue sakramentu aldarekoa, zeintan presente daukagulaik bere Majestadea, kontu gure denboran enkarnatzen, jaiotzen, bizitzen, padezitzen ta iltzen dela gure probetxuaindako, ezi fineza gaiek guziak ikustentugu bildurik ontan; orgatik dio Dabidek, *memoriam fecit mirabilium suorum*, memoria bat edo suma bat egin du bere marabilla guzi guziena; zein da? Escam dedit timentibus se, erregalo eman diotena beraren beldur direnei. Au deitzen du Santo Tomas doktore aingiruak, Kristoren pasioaren memoriale perennea, lengo figuraen kunplimentua, egintuen milagroen andiena, ta beraren joanas mundutik tristatu direnendako konsolu singular edo bakarra (In opusc. 57). Au deitzen du Tridentinoak Jesu Kristoren gureganako amorioaren ondasunen erauntsia, *divitias sui ergá homines amoris velút effundit*. Au deitzen du Elizak eutxaristia, oroat baita nola grazia ona, ta zein ona! Orgatik ain alegre ta solemneki zeilebratzen du festa gau Elizak, nola zeilebrabaleites Kristoren festa guziak batean. Kontu festa gontan zeilebratzen dugula beraren enkarnazioa, jaiotzea, zirkunzisia, izenarena, Erregeen adorazioa, Erramu igandekoa, Ortzegun Sandukoa, pasioa, erresurrekzioa, zerura igatea; itz bates guziak. Kontu, alaber, Maria Santisimaren festa guziak ere zeilebratzen direla egun, ezi guziak izan zire Jaunonen

kausas, ta honratzeas Jaunau honratzen da bere Ama Santisima. Aipatu orduko betetzen da dulzuras arima; zori onean etorri ze mundura alako kriadura, ain noblea, ederra, perfekta, bere parerik estuena; Maria da ori, guzien erlean eskojitua, Jangoikoaren biotzekoa, ain agraziatua ezi aurkitu zue grazia Jangoikoaren begietan, ta ekarri zigu ain grazia ona nola eutxaristia. Bada, o graziaren Ama, in bez gureki ere grazia orai. Abe Maria.

gizon batek prestatu zue afari bat andia, dio egungo Ebanjelioak, homo quidam fecit coenam magnam. Gizon gau da Jesu Kristo, gizon berria, ikusi etzena, bere parerik estuena, Jangoiko ta gizon dena bateo. Afari andia da eukaristia; afari deitzen da, zeren azken otrontzea da afaria, ta oneskeros segitzen da loaren deskansua; otrontze dibino gau prestatu zue azken gauean, ta ain prezioso erregalatua ezi onen gañetik esta deseatzekorik, baizik eternidadeko gloriaren deskansua. Anitz benefizio len eginak, kriadura mundua, zerua ta geurok, konserbatzea, erredimitzea, fundatzea Eliza, ustea bere merejimentuak guretako, paratzea doktrinak, legeak, sakramentuak, kontu direla Jangoiko onaren erregalo preziosoak; au, ordea, guzien korona, postrea ta azken errestoa; bere gorputz ta odol preziosoa ematea modu miragarrian, bera egitea gure alimentu, unitzeko gu bereki komunionean. Afari andia sines! Gauza miragarria! jaten du bere Jauna pobreak, esklaboak, humilak! Erregalo inmensoa, zein baño obeagorik ezpaitezake eman Jangoikoak! Fedeak iten digu falta. O nork luken fede bizia! Onak azi lezazke gure baitan esperanza, karidadea, agradezimentua, humildadea ta birtute guziak.

Fede gonon medios Eliza gure Ama Sandak, ikusirik Jaunoni zor dioguna, ta ezin pagadezokegula, naiak erakutsi munduai ta zeruai bere agradezimentua Jaun sakramentatuagana, mila modus disponitu du honratzea bere Majestadea. Artako dire lanparak kontino, ta argiak edozein funtzionetan. Artako sazerdoteak, baso sagratuak, ornamentak, inzensuak, kantuak, errezuak, orazio ta erreberenziak, ta gañarakoak tenploetan. Artako egun guziak urtean, ta prinzipalki igandeak ta jaiak. Elizaren debozio guzia, dio Eskoto benerableak, ordenatzen da sakramentu gontara. Kasi sakramentu guziak konsumatzen dire eukaristian, dio Santo Tomas Akinok. In daien festa sanduei, prozesio, funzione gisa bat edo berze, guziak koronatzen dire mezareki, edo zelebratzen dire sakramentu andi gonon presenzian. Ortzegunak dire berexki iteko memoria lenbiziko instituzioas. Prinzipalkiango Ortzegun Sandu eguna da, zelebratzeko egun gartan bekalakoan, egin zuena Kristo gure Jaunak azken afari gartan, garbituaskeros oñak apostoluei, konsagratu zituelaik bere Majestadeak ogia ta ardoa, ta eman ziotelaik apostoluei potestade konsagratzeko. Baña naiz egiten den egun gartako mezan menzione espeziala onen fundazioas, dio Santo Tomasek (Opusc. 57), gañarako egun gartako ofizio guzia da Kristoren pasioaren, zeñen benerazioan baitago okupaturik Eliza denbora gartan. Eta zelebratzeko fielek zeledade guziareki sakramentu ain andiaren instituzioa, Urbano IV disponitu zue memoria gau egitea Espiritu Sanduaren Bazkoaren oktaba ondoreko lenbiziko ortzegunean bere oktabareki, zeren, dio sanduak, urte guzian gozatzen dugunok sakramentu gau salbaziotako, zeleda dezagun espezialki onen instituzioa denbora gartan, zeñetan Espiritu Sanduak utzi baizitue diszipuloen biotzak erakutsirik, ezauntzeko osoki sakramentu gonon misterioak; zerengatik orduan izan ze noiz fielak ere asi ziren usatzen sakramentu gau. Eta akudidezatengatik fielek ansia iagoreki honratzera gure Jauna, konzeditu zue Aita Sandu erran dugunak irabazi espiritualak, baitire induljenziak asistitzeuntenei elizako ofizioetara egunean ta oktaba guzian (In breviar. fer. 6. post corp.). Aita Sandu garrek paratu zue, bada, festa gau milla berregun ta iruogei ta bizpirugarren

urtean, orai duela borz egun ta ogei ta irur edo laur urte. Ze agitz deboto misterio gonon guziek bear ginduken bekala, eta bere debozioaren sua desaogutzen ta mostratzen du ontako atra zuen bula gartan, zeñen itz guziak baitire ala nola sugarrak itxeki dezaketenak edozeñen biotza. Prinzipioan adiarasten du Jesu Kristoren amorio ta bizarria inmensoa paratzean sakramentu aldarekoa, onen dulzetasuna, preziosidadea ta abantalla berze fabore guzien gañetik. Mostratzen du bere gozoa ta deboziosko negargalea konteni ez dezakena, ta dirudi estaikela ase ponderatus gure Jaunaren fineza misterio gontan. Erditsutan dio bear dugula kontino zelebratu Jaunonen memoria, eta naiz egunoro mezan egiten bada ere memoria gau urte guzian, konbeni dela zelebratzea berex solemneago urtean bein konfunditzeko herejeen erokeria, baitare suplitzeko festibidade goneki urteasko faltak debozio gontan. Dio ere ia, ezi bera ellegatubañolen izatera Aita Sandu, xakin zuela errebelatu zekiotela zerutik zenbait personei zelebratu bear zela festa gau Elizan. Akabatzen du konzeditus induljenziak, ta exortatus zelebratzera debozio guziareki. Ortako ere, baña santidadeak manaturik, konpon duzue Santo Tomas doktore aingirua errezatzeko ofizioa ta meza egungebetakoa agitz ongi.

Diona Aita Sanduak, errebelatu zekiotela zerutik zenbait personei paratu bear zela festa gau, da zerengatik Flandesko ziudade Lieja deizen zen batean, zelarik Arzediano Jakobo Pantaleon, ellegatu zena gero izatera Erromako Aita Sandu deitu zena Urbano IV orai dioguna; denbora gartan, bada, Liejan bizi ze donzella bat guzis birtuosa deizen zena Juliana de Montekornelio. Oni, bada, bere orazioen ferborosoenean errepresentazen zekio ilargi bat agitz argi-ederra, baña falta zekiona saiets batetik zatitto bat. Erreparatuzue ontan sandak, ta errespondatu zekio zerutik ilargi gura zela Eliza, zatigarren falta egoteko guzis perfekta zela, ezi paratu bearra Elizan festibidade bat zelebratu bear zena aldareko sakramentuari solemnidade andiareki. Errebelazio gau ikusten egon ze ogei urtes donzella, sanda bezain humila, niori erran gabe. Aliketa gero errebelaturik Jangoikoak gisa ontako bisione bat berze donzella bati, zein deitzen baize Isabel, orduan lenbizikoa animatu ze erratera ikusi zuena. Examinaturik guzia serioki gizon andiek, ta progaturik zela Jangoikoaren errebelazio egiaskoa, Roberto Liejan obispo zenak orduan, paratu zue festa gau bere obispadoan, milla berregun ta berrogeigarren urtean (Parra haec p.1. pl.7). Andik guti, ango Arzediano erran duguna goraturik San Pedroren katedrara berri gebeki, ta denbora gaietan sakramentu andi gonon fedetako agitu ziren milagro batzueki, eta berze donzella sanda Eba deizen zen, ta Lieja berean bizi zen instantzia ta otoieki, Aita Sanduak azkeneko ere manatu zue kristiandade guzian zelebratzeko sakramentuaren festa solemne gau, erran bekala 1262 urtean. Prozesio iten dena manatu zue, ta konfirmaturik festa gau berriro Klemente B. Bienako konzilio jeneralean 1306 urtetik 1311 arañ. Alaere pasatu zire zenbait urte plantatu gabe osokiro leku guzietan, aliketa Juan XXII manaturik publikatzeko Klementeren ordenanzak 1317 urtean asi ze kristiandade guzian zelebratzen festa gau prozesio ta gañarako solemnidade guziareki (Haec Parra ibid. at Andrade ait bullam Urbani ann. 1264. Itin. gr. 5. SS. 6).

Manatzeko Urbano IV festa gau eman ziote, alaber, motibo zenbait milagro agituek denbora gaietan. Darokako korporaleena agitu ze 1239 urtean, Otxallaren 23: Don Berengel de Tenza, errege Don Jaimeren tropaen jenerala zegolaik meza enzuten komekatzeko berze laur personaeki, preziso izan zue ustea meza ta atratzea peleatzera moroeki, zein etorri baizire derepente. Sazerdoteak, zein baize Darokako parrokia San Kristobalenaren kargudun ta deizen zena Mateo Martinez, artu zitue korporalak, ta aietan borz forma konsagratu zituenak, ta altxatu zitue peña baten pean, etzeizen ellega moroen

eskuetara. Ebek garaituak, bota zirelaik iges andik, atra zitue korporalak ta aurkitu zitue formak odoletan pegaturik korporaleei, mostratzen diren bekala egungo egunean (Andrib). Au agitu ze 25 urte lenago paratubaño festa; eta au paratu zen urte berean, berriz, Olibetoko ziudadean, edo Baronioaren ustes Bolsenan, agitu ze sazerdote batek zelebratzerakoan meza, ta konsagratu ondoan, astea dudatzen gure Jaunaren presente egotearen gain sakramentuan. Duda goneki, ez ongi sinestatzen, estare ukatzen zuela guzis, segitu zue meza, ta ellegaturik partitzera hostia kalizain gañean, atra ze artaik ainberze odol, ezi busti ta gorritu zitue korporalak, patena ta beraren eskuak ere, uki zezan ta sinesta zezan Santo Tomasek bekala, ikusi gabe sinestatu bear zuena sinestagaitzak. Arriturik, etzekiela zer egin gelditu ze, ta igorri zue erratera obispo jaunai, zein etorririk bereala, artu zitue korporalak odoletan, ta mostratu zitue jendetza andi etorri zenari milagroaren famareki. Sazerdoteari manatu zio akaba zezala meza, ta eman zio mezu Aita Sandu Urbano diogunai, zeñek manaturik obispoai ermateko beraren presenziara korporalak, pontifizea Erromako korte guziareki urtiki ze lurrean adoratzeko anitz debozio ta negarreki ikusteari berriro ixurtzen Jesusen odola fresko gure onagatik. Manaturik goardatzeko tesoro gura agitu zen tenploan, kardenaleen konsejuareki atra zue bula urbilen Lastallaren laugarrenean, manatus in daien Korpus Xptiren festa kristiandade guzian, aipatu bekala aixtean (Andra. ib. Alii Orbitelo. Alii Viterbo).

Konzilio Tridentinoak aprobatu ta laudatu zue gauza ederra bekala, zelebra daien urteoro egun bates festibidade gau, ta eraman daien triunfante prozesioan Jaun sakramentatua karrika ta leku publikoak barna. Azkenean, orai dugun Aita Sandu Pio VI joan den urtean, 1776, manatu zue erran daien sakramentu sanduaren meza ta ofizioa oktaba guziko egun guzietan Españako erregeren dominio guzian. Gisaontan Eliza gure Ama Sandak erakusten digu agradezimentua gure Jaun sakramentatuai, estugun bekala gauza obeagorik munduan. O afari andia, zeintan amen batean ematen baizaigu glorian den erregalorik andiena, Jesus bera! Kontent zire lege zarrean testamentuko arka ta manna garreki, baizire sakramentu gonon figura; zenbat obeki gaudezke gu kontent, baitaukagu geureki zeruetako Jauna? Fede bizia bagindu, konta gindezake mundu gontako zerua, tenplo sandua, ta ezkindeizke deskuida, baizik anhelatu aingirueki honratzera ta festejatzera guzien Jauna presente daukaguna, ezi estugu obligazio gutiago aingiruek baño, baizik ia, ezi estago aingiruengatik, baizik gizonengatik. Eta nor da eman bear diguna sekulako suartearen sententzia baizik Jaunau? Beras, tonto ezpagara, geurei dagokigu honratzea al guzia. Jaun ona, nere afekto, fakultade ta itz guziak biz orren amoriotan. Neurau ut jumentum factus sum etc. Asto bat bekala orren presenzian, ta orreki beti orren grazian. Amen.

Sermo 4:

In adem. Dominica

De Amore Christi in Eucharistia

Homo quidam fecit coenam magnam. Luc. 14.

Ala nola aldareko sakramentu sandua baita bere Elizan Kristok paratu duen sakramenturik andiena, ala da preziso Elizako humeek estima dezagun ta ager dezagun gure agradezimentua dezakegun demostrazio guziarki. Estugu alabañare emen deus gutiago, baizik Jesu Kristo bera presente ain errealki nola zeruan. Zer ia nauzu? Ikustea. Baña esta oraño denbora ortako; fedearaki ikusi bear da. Mostratu du gure Jaunak bere presenzia errealararen egia gau asko milagroeki, prinzipalki festa gau paratu zen jendamentean. Berze milagroen ertean, Darokan, Bolsenan ta berze lekutan agitueta; orduan izan ze noiz Franzian San Luis zelarik errege, erratean meza sazerdote batek palaziora urbil kapilla batean, goratzerakoan hostia, utzi ze ikustera artan aurtto bat iruzkia baño ederrago, admirazios ta amorios bete zuena jendeguzia. Berbera dago kontino an, solamente altxaturik lurreko begietara. Gure begiak, zeñeki bear dugun beiratu an, dire arimarenak: Ezkerrekoa arrazioa, eskuiekoa fedea. Au barin bada bizkor, esta gorputzeko begieki ikusi bearrik, nola baizio orduan errege sanduak konbidatu zutelaik ikustera: Bidoezi, bidoezi fede gutitakoak ikustera begis, ezi nik ikusten dut egunoro fedearaki. O au bagindu, guzia ginduke. Bada, zer? Estardukat kristio fieleki? Bai. Federik ezpaute, sinestenezpaute, debalde dardukat. Baña bai, baute fede, solamente ilkara, eri, epel geienek. Bizkor bez gure Jaunak. Ellegatu zekio bere Majestadeai gizon bat grazia baten eske, ziola: Jauna, al badezake sokorri benaza. Jesusek erran zio: al badezakezu sinestatu, guzia da posible sinestutzen duenai. Ark bereala negarres erran zio: Jauna, sinestutzen dut (Marc. 9), aumenta bez nere fede gutia. Credo, Domine, adjuva incredulitatem meam. Erreparazeko da itza incredulitatem meam, nere fede-gabea, diolaik berze alde sinestutzen duela. Ala sinestatzeunte askok, dute fede, baña fede guti ta fede gabe iduri duela. Aumenta bez, bada, Jauna, gure fede gutia, ezi fedearaki guzia da posible; federik gabe edo gutireki deus guti daike. Bada, ain andia da sakramentu gau ain guti iduri duelaik, aumenta bez gure fede gutia logratzeko fruitu daiken guzia. Orrek, Maria, fedearen kolumna, Elizaren ilargi ederra, kristioen Ama, gure ondasun guzien kanalea, baliadakigun bearradiña emen dugunak, enpeña bez bere grazia. Abe Maria.

Afari andia deitzen da Ebanjelioan amen gau, zeintan ematen zaigun Jangoiko guzia, ta gizontasun guzia Kristorena. Ezin egon beti munduan agerrian, ta injeniatu zue egotea estalian; akzidente goien pean! Ezin il bein baizik gurutzean, ta injeniatu du nola sakrifika daien egunoro mezaokoan! Ezin iduki guziok bereki uniturik beti probidentzia presentean ta injeniatu du komekatzen direnak unitzea bereki sakramentuaren komunionean! Baitire irur fineza estimagarriak gozatzentugunak afari andi gontan. Goazen ikusis lenbizikotik. Bagindu autara deseatzeko zer nai dugun, ura emateko guri Jangoikoak mundu gontan, zer eska gindezake alakorik, nolakoa baita emen duguna, Jangoikoak emana eskatu gabe? Eskaturik au ta ura ta berzea, ta guziak ontas landara, ta emanik guziak, alaere faltako zizaigu zerbait beti, edo obeki errateko guzia, ezpagindu duguna. Baña orai, dugularik Jesu Kristo bere gorputz, odol, arima, humanidade ta dibinidad guziareki, ta bateo Aita ta Espiritu Sandua, ia zer zaigu falta? Fortunosoak

kontatzen dire dutenak beren elizetan sandu edo sanda zenbaiten errelikiak, ezurrak ta autsak. Tesoro andia uste dute sanduren baten gorputz ila, ta arrazioreki. Bada, zer litzake balute Ama Birjinaren gorputz birjinale garren zenbait errelikia? Ez lezakete truka munduagatik ere. Bada, Kristo iltzen gurutze garren zatitto bat, arantze gaietaik bat, ta itze gaietaik nola estima leike? Zer litzake bagindu beraren gorputz ta odolaren errelikia bat ikusgarria? Bada, entenda zagon, fede barin badugu,itsuak ezipagara, ura guzia baño ia dugu, baitugu ez errelikia edo gorputz ila, baizik Kristo guzia bizirik, ain errealki nola zeruan. Dugunas ezipagaude zoraturik kontentus da zeren estugun fede bizkorra. Utzi balu sakramentua solamente Erromako Elizan, Erroma konta leike txoil afortunatua, ta guziok joangindeizke arara gogotik ikustera ta adoratzera kosta zeiena kosta. Eta orai, zeren aumentatu duen faborea Kristok utzi duelaik eliza guzietan, gutiago estimatzen dugu? Sendagalla dute korteek izateas bereki errege. Alabatzeko batek Roma erran zue: O, an dago Aita Sandua. Zeruain aldean kontu txinurrien kubilak direla Roma ta korte guziak, zeren baitago zeruan, ikusten ta gozatzen baita errege guzien Errege Jangoikoa, ezi an ezipalego dagon bekala, ia zerua ezlitzake zeru, baizik desertu, ta desterru; ta zeren dagon an bere Majestadea dagon bekala, orgatik da an gloria. Bada, orai ain errealki nola zeruan, dago Kristo, dago Jangoiko guzia elizetan mundu guzian, solamente falta da ikustea ta gozatzea an bekala. Emen, fedes solamente daike ikusi, ta emengo gisara goza daike; nai dugulaik konbersatu berareki, beti dago prest, beti llano; barin bagaude triste, konsolatzeko; eri bagaude, sendatzeko; barin bagaude pobre, abrusteko; edozein bear barin bada, erremediatzeko arimarenak segurki; gorputzarenak konbeni bada, ezi dago beterik eskua ta zabaldurik biotza gure onginaies; onen alegria, bekatarien errefujio, desesperatuen esperanza, ta guzien Aita dibino amoroso erraten digula: Ecce ego vobiscum sum, ona ni zueki; ta konbidatzen gaituela, venite ad me omnes etc., zatoste enegana trabajutan zaraten guziok, ta nik erremediatukozaistet. Esta au ala nola paratzea mundu gontan zeru txiki bat, ta gloria iduri bat emen daikenes? Kexa gaitzen geuren fede gutias.

Baña ez solamente dago presente kontino gureki, baitaere sakrifikatzen da misteriosoki egunoro mezan guregatik. Iltze bein errealki gurutzean, ia ezin il daike berriz, jám non moritur. Baña erakusteko etzaiola falta borondatea bear balitz il egunoro guregatik, egunoro berritzen du gurutzeko sakrifizioa aldarean, diferente moduan, oroat dena sustanzian, solâ offerendi ratione diversâ, baitio Tridentinoak. Kriatu ondoan Jangoikoak gizagendea, ikusirik esker gabe itzuli zela au, urrikitu zekiola Jangoikoai kriatua, dio eskriturak, orgatik igorri baizue dilubio unibersala. Ondorean, palakaturik Jangoikoak erraten dio Noeri ez berriz galtzeko gizagendea, paratuko duela bakearen señailea lañuetan, uztargia edo arko iris. Aumentaturik gizagendea berriro, ta berriro Jangoikoaren ofensak, berze dilubio unibersale bateki nai izan zue garbitu, au da, gizon eginik bere Majestadea, bere pasio ta eriotzearen dilubioareki. O gure Jaunaren miseriordia inmensoa! Baña egin zue ia amoriosko exzesu gura; orai ia zer ia nai du egunoroko sakrifizio goneki? Nola ezipaitire atertzen ofensak, paratu bakearen señailea, ezkaitzan bota galtzera, presentatu arko iris edo uztargi dibinoa aldarean, axuri inozente amablea, zein ikustearaki palaka daien bere Majestadea palakatzen den bekala, ezi mereji ginduelaik ia orai ofenditus, ainberze fabore errezibituaskeros, susko dilubio galgarria, alaere bere axuri amable gonon atenzios beti dago bialzen benefizioen erauntsiak. O zein gauza ona den aldeguzetara gure Jesusen sakrifikatzea aldare goietan! Jangoikoaren Majestadeai gure partes ematen dio honra, agradezimentu ta konplazenzia dignoa;

berritzen du bere leneko ongi eginen memoria ain preziso dena; Maria Santisimari kausatzen dio gloria, kontentu ta obsekio berria; zeruko aingiruei ta sanduei alegria; purgatorioko arimei alibio ta libranza; mundukoei erremedio bear den guzia, justoei graziaren aumentu, bekatariei barkamentu, barkatuei satisfakzio, guziei ondasun guzien erdexteko medio. Itz bates da obratzea bekala berriro gure erredenzionearen benefizioa. Dirudi estaikela erran ia; baña aizagun eben gañetik iten duena sakramentu gonon medios.

ematen digu jatera ta edatera bere gorputz ta odol propioak modu miragarrian, baña egiaskoan. Nor leike ellega pasatzera ere gogoan alako gauza, bere podorio ta amorio infinitoak ezpaligute ikusarazi misterio gontan? Afari andi bat prestatu zue gizon batek, dio Ebanjelioan. Zer gizonak? Gizon Jangoiko denak, ezi berze niork etzuke alakorik. Ar zazie, dio, ta jan zazie, au da nere gorputza. Ar zazie ta edan zazie, au da nere odola. Quis loquétur potentias Domini? Nork erran gure Jaunaren prodijioak? O gauza miragarria, kantatzen du Elizak, jaten du bere Jauna pobreak, esklaboak ta humilak! (In hymn. sacris solemn.). Zein zoraturik kontentus gindeudezken ikustas sartzen gure etxean errege etorririk amorio ones? Eta orra non sarzen zaigun ez errege mortala, baizik eternoa; ez geuren etxean, baizik geuren barnean; ez amorio ones nolanai, baizik amorio geiegis. Zein sartu zaion biotzean gure Jaunai gizona sarzenzaiolaik berai bere Majestadea biotzaren ondora! O konbita prezioso deseagarria bere parerik estuena munduan, aliketa sartuartaño zeruain barnean! Fedea, non zara? Zure bear gara. Ezi sinestatzen badugu gozatzen dugun erregaloea, ezkaizke egon bete gabe amorios Jangoikoagana. O amen exzelenta balio duena Jangoikoak diña! Gustáte et videte quoniam suavis est Dominus. Txasta zazie ta ikusazie, ezi suabea da gure Jauna. Esta au txastatzeko ta ikusteko agoaren gustoareki; oneki txastatzen dire lurreko erregalo txarrak; au zerukoa nola baita, txastatzen ta ikusten da espirituaren gustoareki, fedeariki ta konsiderazioareki.

ez naiz admiratzen erregalo gonon suabidadeas zoraturik egoteas Santa Teresak, Santa Katalinak ta alakoak; gusto ona zute. Eta zuri agian etzaizu anitz iduri. Tonto ezipazara, ezaun dezakezu zertan dagon. Zeruko edozein delizia txasta bazindez, gal zindezake berla emengo gauzen afizionea, gauza txarttoena bekala. Esta, bada, zeruko edozein delizia delizia gau, da an den oben obena; estalirik akzidenteen beloareki ematen da, ezperen. O baña errealidadean ez dezake ia eman Jangoikoak berak. Iganbazindezate zu egunoro zeru pokalera aditzera ango musika, nola Santa Madalena; inprimibalezkizu Kristok bere bortz lllagak, nola San Franziskori; eman balezazu Ama Birjinak bere bularretako esnea, nola San Bernardori; edanarastenbalizu bere kostadoko lllagatik Kristok, nola Santa Lutgardisi, ezlezakezu eman ainberze, nola ematen baitizu komunione batean, dio autore batek. Ardias. Nola ia gizona esta ematen guzis Jangoikoai? Nola biotz garrek dezake berzerik nai, baizik gure Jauna? Nola ia agoa, mia, eskuak, oñak ta gizonaren barneko ta kanpoko fakultade guziak estire enpleatzen Jaunonen plazera egiten? Nola ezkara urtzen amorios Jaunonen presenzian? Nola da posible ofenditzea? Zer atxekia daike atra dezakena balia? Ezpada sobra on izatea gure Jauna? Ta sobra ongi egitea? Baña au antes bien bear litzake izan motibo, ez ofenditzeko, bai onesteko bere Majestadea.

gogoratzen zaida konparazio bat, ta biotzak manatzen dida errateko emen ongi eldu bada, ezipada. Aurkiturik Belengo portale gartan zindeudelaik beira iruzkitto berri gura Ama Birjinaren besotan, eskin balezazu, eman balezazu Ama onak bere biotzeko prenda gura zeure eskuetara, aur dibinoa bera baletorkizu amoroso, irrikos irrikos, ta eutxibalekizu besarka, uste dut mogi leikela zure biotza, zure arima, zure afekto guziak maitatzera aur andi gura ain llano ta kariñoso mostratzen zekizuna. Eta litzake esker gaitz

extremoa agrabiatzea bere Majestadea. Balia bez, bada, arrazioak, ezi esta deus gutiago iten diguna sakramentu aldarekoan. Aitu duzu dagokigula emen presente kontino bere Majestadea errealki. Aitu duzu sakrifikatzen dela bera egunoro mezan guregatik. Aitu duzu ematenzaigula agora ta geure barnera eginik gure erregalo miragarria. Zer ia in bear zue Jesus onak? Bada, niork eznau onesten ainberze ni, nior estut nik ere onetsi bear, baizik berori, ene Jesus Jauna, ene arimaren amoreta ta on guzia. Ezpanaitz (sic) gauza bere paje gisa akonpañatzeko, ta defendatzeko ene Jauna, bentzait bere txakurto-gisa bere mai-pean kontent mostratuko diot agradezimentu ta afekto guzia, ta inen dut aunka ene Jaunaren obsekiotan. Ortako ere ezpanaiz gauza, ezpanago aldartean, egotea berere inen dut orren presenzian asto bat bekala. Ut jumentum factus sum apud te, et ego semper tecum. Astoko bat bekala nago orren alzinean, Jauna, baña alare orreki beti nai dut nik. Ori biz ene gozoa, ene bizia ta ene gloriako prenda. Amen.

Sermo 5:

In Dom. infr. Oct. Corp. Christi 5.

De beneficio eucharistiae

et nostra ingratitudine

Homo quidam fecit coenam magnam. Luc. 14.

gizon batek, da parabola Kristok dakarrana egungo Ebanjelioan, gizon batek prebenitu zue bazkari andi bat, ta konbidatu zitue anitz artara. Ellegaturik bazkal-ordua, biali zue bere mutila abisatzera konbidatuak zetozila, ezi prest zegola guzia. Aiek asi zire atxekia atratzen ez joateko, batak erosi zuela heredaje bat, ta joan bear zuela ikustera, berzeak erosi zituela bortz idipare, ta progatu bear zituela; berzeak ezkon duzela, ta orgatik etzeikela joan. Asarraturik nausiak erran zio mutilai: Zoaz plaza ta karrikak barna, ta ekartzkizu aurkitzentuzun pobre,itsu ta malder guziak. Egin zue mutilak, ta alaere baze leku maiean. Zoaz, bada, bide ta esiak barna, erran zio nausiak, ta sarrarazizkizu onat diren guziak, bete daien nere etxea; ezi diot sines, konbit ziren gaietaik niork estuela txastatuko nere bazkaria. Au da egungo Ebanjelioa, zeintan da ageri Kristok prestatu duen arimen bazkari gonon andia; da ageri beraren amorio liberala guregana, ta da ageri gure nagitasun ta esker gaitza. Goazen alaere progatus agerrian dagona. Orrek Maria zeruetako etxokandre eskojitua, zeñen entraña birjinaletan konzebiturik bere bularretako esneas azi baize erregalo duguna mai gontan, entendatzeko ta estimatzeko dignoki erdetxi bezagu grazia. Abe Maria.

Gure arimes, trebe naiz erratera diotena, baita egia, gure arimes amorosturik bekala ikusten dut gure Jesus Jauna. Gure arimengatik jautsirik zeruetatik, eginik gizon, ematen bere bizia, aski ezpaltz bekala, egin du obra bat bere marabilla guzien memoria, baita ematen digun bazkari andi gau, memoriam fecit mirabilium etc. Obra bat ezin iagokoa, zeñengatik baitio San Agustinek ezi Jangoikoak izanik guzis poderoso, etzuketela ia eman, izanik guzis jakintsu, etzekiela zer ia eman, ta izanik guzis aberats etzuela zer ia eman. Alako erregaloea da ematen diguna sakramentu aldarekoan! Gorputzaren begietarako esta gauza andia, hostia txipi bat da, amen bat da guzia, baña amen bat zeruak adiña balio duena; ontan, alabañare, enzerratzen da Kristo Jangoiko ta gizon den guzia. Etorri ze Jaun dibinoa mundura, ta joan bear zue mundutik. Ikustea bere Majestadea logratu zutenak, ez despeitu nai, zerbait memoria edo prenda utzi gabe. Ikusi etzutenak, baikara ondoreko guziok, ez pribatu nai beraren presenziatik, al zeiken gisan; ta zer egin zue? Amorio guziei digunak manatu zio utzi zezala munduan ordukoak ta gerokoak maite zituelako señaile, testimonio ta progu bat klaroa ta espeziala. Mintzatzeko emengo-gisa, diskurritzen zue bere jakintasun infinitoak zer utziko ote zuen bere ondasun inmensoetaik emateko bere amorioari satisfakzio kunplutua. Bazezake utzi asko ta asko miragarri, baña guziak utzirik bera gabe, faltako zekigu obena. Erresolbitu zue ustea bere gorputz ta odol preziosoak, gelditzea bere Majestadea errealki sakramentuan; orreki eman digu proprioki guzia faltarik gabe, quomodo non etiam cum illo omnia nobis donavit?

Eta misterio gonon kasos erreparatzen dut abantalla bat duguna guk, etzutena bizitu zirenek Kristoren denboran, ta da ezi logratzekos bere Majestadearen presenzia bear zute aurkitu ain txusto erri batean edo berzean, non zebilan Kristo. Orai atra gabe nior kasi bere erritik, aurkitzen da an ta emen, ta sakramentu den guzietan. Orduan San Juan

Bautistak alزنداري-gisa zue kargu mostratzeko eriareki ecce agnus Dei, ona Jangoikoaren axuria, ecce qui tollit peccata mundi, ona kentzentuena munduko bekatuak. Orai laur ebanjelio, eskritura sagratu, amar konzilio, Aita Sandu ta infinizio bat milagroen gañetik ezkilek bere otsareki, lanparak bere argiareki monstراتzen digute sakramentuan Jesus bera, ta sazerdoteak berexki ematerakoan komunionea goraturik eskuan hostia sanda, diola itz bereki, ecce agnus Dei, ecce etc. Orduan San Felipek ezaundurik Jesus kontatu zio bere adiskide Natanael deizen zen bati: aurkitu dugu Jaun deseatua, zeintas eskribitu zuten Moisesek ta profetek, Jesus Nazaretgoa. Nazaretdik datorke gauza onik? erran zio ark; eta onek: Zato ta ikusazu. Joan ze, ikusi zue, ezaun duzue, konfesatu zue. Orai fedeak dio: Zato ta ikusazu erri den txipienean sakramentu barin bada, Jesus Nazaretgoa, Birjinaren Semea. Orduan jentilek ikusi naiak Jesus mintzatu zio te San Feliperi, San Felipek San Andresi, ta biek kidatuzuste gure Jaunaren presenziara. Orai alako mediorik gabe ellega zaizke edozein garaies beraren presenziara, ta dezokezu mintzatu: Ene Jesus ona, aurki bez bere sierbo gonek grazia orren begietan, ta mintzatuko natzaio naizelaik autsa ta errautsa. Orduan San Juan Bautistaren diszipulo batzuek galdetu zio te bere Majestadeai: Jauna, non bizi da? Ta bere Majestadeak erakutsi zio te, venite et videte, zatoste ta ikusazie. Orai berak erraten digu: Venite ad me omnes, zatoste enegana guziok, ecce ego vobiscum sum, ona ni, zueki nago sakramentuan. Orduan asi zuelaik konbersazioa Samariako emasteki fortunosa garreki iturrian, batetik berzera erran zuelaik ark: Kristo etorzen delaik, ark erakutsiko digu guzia; errespondatu zio te bere Majestadeak: Ni naiz ori, zureki mintzatzen nagona. Orai berberak erraten digu ixil ixila: Ona ni, zueki nago mundua mundu den bitarteo. Orduan Judasek entregatzeko Jesus judioen eskuetan, erran zio te aiei: Nori ere nik ematen dioten besarka, ura da, arrapa zazie, ta erman akordureki. Orai esta alako dilijenzia bearrik, bere amorioak dauka preso sakramentuan, ta ia dena, esta ausentatzen, naiz errezibitu nauten indignoki, naiz desprezia ta ultraja dezaten. (Aipatudugunaskeros uz nazazie emen negar egitera guti bat. Ene Jesus dulze onegia, ene arimaren amorea, ene axuritto manso amorosoa, etzue, bada, orrek gaitzik mereji. Guziak orren kontra, judioak estirela aski, kristioak ere. Ain eskergaitz zenzu gabeak dire! Nik estiot prestatuko ostatu dagokiona; ezin alabañare; ojala. Baña bentzait traiziatu ez, ultrajatu ez, esta nere intenzioa. Orai itzuli gaitzen bidera). Orduan fortunoso ze logratu zukena asisti zezon presente bere Majestadeak, deiturik eri zegolaik iltzeko peligroan; orai eri dagonai etorko zaio noiznai komekaduran presente bere Majestadea.

diferenzia bat alegatuko didazie ordutik oraikora, ezi orduan begis ikusten baize, orai ez; baña ortara dugu abantalla ezi orai dezakegu errezibi geuren barnean, ta orduan ez. Orgatik dago estalirik ogiaren idurian, baita gure onagatik, ezi balego agerrian bere Majestade ta argitasunareki, nor leike atrebi ellegatzera; espezialki bekatariak, bearrago dutenak, lebilazke igeska igeska. Fineza andiago iduri lezake etorzea errege pobrettoagana disfrazaturik burrunbarik gabe, etzeien lotsa pobrettoa. Beira zazu Jesus arimaren esposo dibinoa ogiaren idurian sartzen zure biotzean barna. Zer nai du gisa ortan ene Jesus amorosoa? Zer nai du? Ene arimain billa eldu da, beregana artzeagatik, Jesus, ar bez berla berla, berant da berladanik. Manna biali zio te israeldarrei desertuan erregalo zerukoa bekala gusto guziak zituen; ia da manna aren autore, ark signifiktzen zuena: Jesus ogi bizia zerutik jautsia, Birjinaren esneas oratua ta pasio erruaren labea erre. Esta agoaren gustoas sentitzen dena, baña arimari gusto guziak emanentio. Kuadratzen bazaio humildadea, orren gustoa du, ezi humil dago ezin iagos emen Jangoikoa. Nai badu pazienza, ori errespiratzen dago ainberze pasatu zuenaren memoriareki. Kastidadea

gustatzen bazaio, auda eskojituen erregaloea, ta Birjinak azizentuen ardoa Birjinaren Seme Jangoikoa. Nai badu karidadea, non obeki daike goza, nola amoriosko sutegi gontan, baitago mostratzen amorio ta karidade infinitoa? Eta ala zoazkete diskurritus birtutes birtute. Guzia aurkituko da emen.

ikusidugu zer baitto bazkari gonon andia. Ikusagun emanzalearen liberalidadea. Konbidatzen gaitu guziok, venite ad me omnes, zatoste enegana guziok. Eta estaien pensa solamente abrats andi poderosoak deitzentuela, dio qui laboratis et onerati estis, neketan ta kargaturik zaustenok, et ego reficiam vos, eta nik alibiatu ta errekreaturikozaitet. Ebanjelioko parabolan ere ongi adiarasten du, deitzean karrika, plaza ta bideetako pobreak, erriak, malderrak; deitzeas erran dut? Obligatzeas sartzera beteartano bere etxea. Et compelle intrare, ut impleatur domus mea. Ontan ere da ageri estela preziso preziso izatea perfektoak eta sanduak serafinen gisara ellegatzekos mai gontara, nola den humildade andia ta borondate ona, ezi da bizkortzeko erikorrak, ta libratzeko miserietaik. Bekatu mortala sollik da zeñeki estaiken niolateren errebitu sakramentu gau, arren barkatzeko preziso da alzinetik konfesioa; benialeetaik ere garbitzea konfesioan konbeni da, baña geldibaleites ere ebetaik zenbait ariman, nola esten afektorik aietara, nola aborrezi daitzen biotzes, ellegaturik ala komunioera barkatzentigu Jaun onak. Bi jende-motaek beaute ellegatu, dio San Franzisko Salesek (Introd. ad vit. dev.): Perfektoek añadizeko perfekzioak, ta imperfektoek libratzeko imperfekzioak; indartsuek ez heritzeko, ta erikorrekin sendatzeko. Beti erman sendatu naia, nola nai baitu Jaunonek ere sendatu mundu guzia, ta ezpaitu orgatik desetxatzen pobre miserableak. Ain liberal da gure Jauna! Sobra liberal dena deitzen da erderas manirrotu, euskaras daike erran esku urratu; eta nork estaki gure Jesus ona utzi zela urratzera edo zulatzeras eskuak gurutzetan itzeeki? Ta ez eskuak solamente, baita oñak ere; ez solamente esku-oñak, baita ere bularra il ondoan lanza garreki? Jesus salbadorea, borz lllagak borz iturri salbazioskoak; ezipadugu erraten bera dela iturri bat borz kañuetaik ematen duena abasto salbaziosko ura. Zuen guzia emanik gurutzetan, orai den guzia ematen da sakramentuan. Etze kontent iturri-gisa emateas bere ondasunak; bera sarzen da, iturria guzia geuren barnean. Zer ia eman dezake emanaskeros bera duen guziareki Jesus Jauna? Zer ansia duen ikusteko gu ongi, deus faltarik gabe, gure arimen esposo dibinoak? Diote jendeek borondate onak duela balio, naiz gutixago eman; emana bezain nautela emanzalearen borondate ona. Emen Jesusek ematen digu anitz, ta borondate andiareki. Eman on ta biotza on.

Ikusirik bazkari gonon andia, ta ematendigunaren liberala, ikusagun gure nagitasun ta eskergaitza. Parabola egungoan konbidaturik atxekiak ez joateko konbitara. Au kontatu zue Kristok adiarasteko agitzen dena aldareko bazkari andi goneki, baizekie bere Majestadeak. Bazkari espirituala prestatzen zue, ta bazekie gose guti izanen zutela ontara persona lurkoi, pizu, mundu gontakoe. Atxekia atra zutena Ebanjelioko konbidaturik, bata granja erosi zuena, berzeak haziendak, berzeak ezkontza egin zuena, da errateko ezi munduko alzinamentu, andinai ta banidadekin alde batetik, berzetik ondasun lurrekoek, ta berzetik gusto ta naikunde bizioskoekin kentzeuntela erregalo dibino gontarako gosea, estimazioa ta agradezimentua, delarik egia ezi ontan sollik daikela logra honra, ondasun ta gusto egiaskoa. Nork lezaken eman oi bat adi daikena mundu guzian? Filii hominum, usquequó gravi corde? Gizonen humeak, noiz arteo biotzak pizu pegaturik lurrai? Ut quid diligitis vanitatem, et quaeritis mendacium? Zergatik nauzie banidadea, ta zabilzte gezur ta engañuaren atzetik? gauza bat dago munduan sollik bear dena, ta gutik estimatzeuntena bear bekala. Nola baitago ain disimulaturik, ta ain guti iduri duela, nola emen guzia in bear

baitu fedeak, eta guk fede guti ta kaso anitz begis ikusten direnes, argatik da ain guti ansia Jaun sakramentatuagana, guzia bearzigulaik eraman arrazio ones. Baña daukat orai ere atratzen dela egiatan ziona San Juanek Kristoren lenbiziko egoteas munduan; in mundo erat et mundus per ipsum etc. Munduan zego, ta berak egina da mundua, ta munduak estu ezaundu; bere propioetara etorri ze, ta bereek etzute errezibitu. Eta berze San Juanek errana, medius vestrum stetit quem vos nescitis. Zuen erdian dago zuek ezauntzen estuziena. Ain guti kaso, ain guti amorio, ain guti ansia bisitatzeas ta errezibitzeas zeruetako Jauna! Eta esta au kejarik andiena; bisitatzean iten zaizkion desatenzioes, errezibitzean iten zaizkion sakrilejio indignoes, nork estu nigar eginen? Ene Jesus dulzea, ene arimaren amorea, zer dute beti orren kontra, orduan judioek, orai kristio deitzen direnek? Ain gaixtoa da berori? Ain gaixto da ematea den guzia guri amen batean? Ultrajatzeko arima txarrek orren Majestadea? Alaere berori ain ixil? Nik orren mutil bekala estut nai gal dezkien, bai enmenda dezkien alako atrebitu desatentoak; nainuke ez dezaketen ultraja orren Majestadea, ez dezaketen idiki agoa errezibitzeko indignoki. Amen. Ortako ezin dezaketen eman pausurik aldarerat. Amen. Ezin daizken mogi bere lekutik ortako. Amen. Guziei bai indignaskeros ain fineza andia, bigu ezaumentu ta agradezimentu dagokiona. Amen. Guziek emen bizi bitarteo, ama, estima ta honra zangun orren Majestadea. Berorri biz bedeizioa, laudarioa, eskerrak, festak, agasajoak, honra ta gloria secula seculorum. Amen. Amen. Amen.

Sermo 6:
In eâdem dominica.
De beneficio eucharistiae
et de gratitudine nostra

Homo quidam fecit coenam magnam. Luc. 14.

gizon batek prestatu zue bazkari bat andia, dio egungo Ebanjelioak. Gizon gau da Jangoiko ta gizon dena; bazkari andia sakramentu aldarekoa, zeintan enpleatu baititu bere gureganako amorioaren ondasunak. Egin zue Asuerok, egun ta ogeita zazpi probinzietako errege zenak, bere erreinuko prinzipale guziei ta bere korteko jende guziei konbita bat iraundu zuena egun ta laur ogei egunes aparato, burrunba, luzimentu ta erregalo zuen guziareki, egines bere podorioaren sendagalla. Nork konta ango urre, zillar, marmol, tapizeria, perla, edertasunak? Nork pinta ango zerbitzu ta erregaloak, janari ta edari preziosoak? Badio zer bait eskriturak; baña guziareki, konbita gura, onen aldean kontu txinurrien konbita. An prestatrazi zuena ze Asuero gizon lurrekoa, zeintas ezpaita deus gelditu emen baizik ezurak ta izenaren otsa. Emen da Jesu Kristo Jangoiko ta gizon, errege ta sazerdote eternoa. An ze errege egun ta ogei ta zazpi probinzietako, orai deus ez; emengoa da, izan da ta izanen da zeruetako ta lurreko errege bakarra. An mostratu ze liberal Asuero, emen bizarro mostratzen da Jesu Kristo. An eman zire erregaloak, baña lurrekoak, laburrak, ustelkorrak; emen erregalo zerukoa, bizia, eternoa. An iraun duzue egun ta laurogei egunes konbitak; emen dirau munduaren akabanzaraño. An eman ziote Asuerok bere gauzetaik, baña etze eman ta etzeike ere bera; emen ematen da Jesu Kristo bera gure arimen alimentu ta erregalotako. Estaiela, bada, aipatu konbite gura, ta ez berze lurrekorik batere onen aldean, ezpaitu ikustekorik.

Jangoikoak berak israeldarrei, atra zituelaik Ejiptotik, igorri ziote desertuan milagrosko alimentu bat deitu zutena manna. Au esta baizik figura ta itzal bat kristioei emanikako alimentu dibinoarena. Manna garrek zituela diote gusto guziak, baña agoan zegon bitartean. Manna dibino gau da arimaren, ta dituen gustu on guziak konstante, iraupentsu betiko. Manna gura jan zutenak il zire; au jateuntenak biziko dire sekula guzian, dio Kristok berak. Fineza andia ze alaere igortzea Jangoikoak zerutik gizon lurrekoei alimentu erregalatua; fineza andiago da bere Majestadea bera egotea kontino gure desertu gontan eginik gure alimentu ta erregalo. Zein artzaiek alimentatutu bere gorputz ta odolareki bere ardiak? Sollik gure Artzai dibinoak, guregatik bizia emanaskeros orai baitago ogi bizia eginik gure erregalatzeko sakramentuan. Ongi beiraturik gauza gau, arrazio da ongi estimatzea. Ortako Ama Santissima dignoki ezaundu, estimatu, agradezitu ta tratatu zuena bere Seme dibinoa, baita emen duguna bera, logra bezagu anitz grazia. Abe Maria.

Ausarki diot ia egin duela Jangoikoak gizonengatik, ezi ez aingiruengatik. Egitea gizon bere Majestadea da digun amorio espezialaren progu exzelentea. Bada, zer da iltzea gizonengatik? Balitz alaere gizagendea kreaturetaik agradezituena, ezlitzake ainberze; baña ingrato izanik gu, alarere guregatik ematea bizia, amorio fuertea da. Bada, zer diot ondorean egin duenas? Fabrikatzeas sakramentu gau emateko guri bere gorputz ta odola alimentu gisa? Da finezaren azken muga, nondik estaiken aratago pasa. Infinitoa da alabañare, Jangoikoaren podorioa ta amorioa ontan agertzen duena, ta noraño gure

entendamentua ezpaitaie ellega. Baña naiz ezin ellega, ezaundurik alaere dela gauza bat admirablea Jangoikoaren apaltze gau guregana gisaontan, bear luke egon bateo sakramentu gonon alzinean ala nola arriturik ta xoraturik legoken bekala artxaiko bat, ikusirik erregeren Majestadea beraren etxolara sarturik berai mostratzen anitz kariño ta egiten anitz karizia, ain llano ta amolsu, nola balitz bere kide bat. Emen eldu zaida gogora Dabiden erran gura, pensaturik nagola misterio gonon aurkintzean Belengo asto gura bekala Jangoikoaren kuna ganbela garren alzinean: Jauna, beira beira nago arriturik asto bat eginik orren presenzian, baña alaere orreki beti nai dut. Ut jumentum factus sum apud te, et ego semper tecum.

Bego tontoturik zori onean entendamentua; borondatea, ordea, ta biotza nola dagoke petxoain barnean alteratu gabe, ta mostratu gabe afekto agradezitua Jaun alakoai? Aixteko artxaiko garrek, naiz xoraturik, erran lezoke errege besarka zeuka nai: Jauna, orren Majestadea etxola gontan? Orren Majestadeak ainberze niri? Ta ezpaleki ori ere erraten, bentzait ezlekioke kabitu biotza petxoan kontentus, bozkariundes ta agradezimentus. Atralekizkioke aurpegira koloreak, ta begietara nigarrak gozoro. Lenbiziko bisita egin zuena Jaunonek mundura, etorririk konzebitua izan zeneko bere Ama Birjinaren entraña sanduetan, izan ze San Juan Bautistagana, baizego, alaber, bere Amaren sabelean sei ilabetetan. Diosala eginzioneko Ama Birjinak sanduaren amai, sandua asi ze saltatzen kontentus zegon lekuan, ezaunzen zuen bekala ta sentitzen gure Jaunaren presenzia. Nola emen, Jaun beraren presenzian, estire alteratuko arima, zain ta barneko guziak bedeikatzer ta laudatzer gure Jaunaren amorioa ta injenio amoriosko gau gure on naies? Zion bekala Dabidek motibo gutiagoreki, benedic, anima mea, Domino, et omnia, quae intra me sunt, nomini sancto eius etc. (Ps. 102). San Pedrok ikusirik Jaunau itsasoan, ezin erresistitus biotzaren ansiai Jaunonengana, asi ze joaten oñes bere Majestadeagana (Math. 14). Au ze San Pedro, zeñek urtikirik beraren oñetara erran baizio: Jauna, aparta bedi eneganik, bainaiz gizon bekataria (Luc. 5); ezi daike ongi konpon ezauntzea humilki batek estela gauza egoteko Jaunaren presenzian, ta alaere dion amorioagatik beroneki egon naia beti, nola San Pedro.

Eta sines zer dugu mundu miserable gontan, apegatzeko biotza, enpleatzeko pensamentuak, afektoak eta ansiak, ezpada Jangoikoa? Beras, landarako guzia akabatzen da, deusek ezin ase ta sosegatu guzis bizian ere, ta guziek usten ta desanparatzen iltzean, ta gero niork ezin libra Jangoikoaren eskuetaik, barin badoaie gaizki. Beras, banidadeen banidadea, ta guzia banidadea, ezpada onestea Jangoikoa, ta berari sollik zerbitzatzea ta kuadratzea. Orai, bada, nork luken Jaunau eskunara, al balezake aurkitu agrado beraren begietan? Bada, leku guzietan dago ikusten guzien biotzak; baña prinzipalki dago aldareko sakramentuan Jangoikotasun ta gizontasun guziareki. Zer ai gara, ezpadiogu prokuratzen iragaztea borondatea? Ezpadugu ezauntzen, estimatzen ta honratzen al guzia? Ezpada berari apegatzen gure biotza bere afekto guzieki? Esta Jaunau juzgatu bear gaituena ta eman bear diguna sentenzia? Edo berzerik da? Berzerik barin bada, estiot deus, berze gura billa; baña egia barin bada ziona San Pedrok (Act. 4), estela berze nioren baitan aurkituko salbaziorik, estela berze izenik zeruaren pean gizonei eman denik, zeintan gaizken salba, beras, esker gaixtoa ez ezi, tonteria ere da ez onestea ta estimatzea Jaun sakramentatua. Esta Kristo iganaskeros zeruetara, ta an dagonas geros Aita eternoaren eskuietako aldean, esta, diot, sartu an ta ez sartuko nior izanestionik debozio Jaun sakramentatuari, ezaumentura ellegatuaskeros. Beras, maite duenak bere burua, ez dezake baizik estimatu sakramentu salbazioskoa. Aingiruek, bere goardia errealek bekala, iten diote emen

zentinela ta agur andia guzien errege gorenai, ain apal ta humil dagonai. Estugu gelditu bear atzeratago gizonen beraren debozioan, ezi etze emen gelditu aingiruengatik, baizik gizonengatik. Esta gure fina ta iteko guzien muga, ellegazea ikustera Jangoikoa bere glorian aingiruen konpañian, sandu, sanda ta eskojitu guzien bandan? Bai, bada, bitartaño zer ai gara ezpadugu estimatzen emen bere Majestadea eskojituen bandan gozatzeko an? Zerengatik an gozatzenteen estimatu dute emen; emen da ala nola zerurako antesala, emen betetzen da grazias arima, mens impletur gratiâ, emen ematen zaigu geroko gloriaren prenda, et futurae gloriae nobis pignus datur (Antifona ad Manificat (sic) festo Corp. Christi). Emen bear da izan gure bitartañoeko gloria daikenes emengo gisa. Deseatzen zue arima batek ansia guziareki ellegatzea ikustera Jangoikoa. Aparezitu zekio Santa Teresa ta erran zio: Zertas kongojatzen zara ainberze, ikusi naiak Jangoikoaren aurpegia, daukazarik egunoro aldarean zure konsolutako. Guk ikusten duguna zeruan, berbera da zuek beiratzeunziena hostian, diferenzia goneki ezi guk ikusten dugu gloriako argiareki, zuek fedearen argiareki, ta meritoaren irabaziareki, ta oneki dezazkeze aumenta gozoak ezdezazkegunak guk ia emen (Parra de sacro euch. pl.5. p.3). Esta debozio obeagorik irabaziindako ere, ta ala bere irabazia du honratzen duenak Jaun sakramentatua, zein estaike honra irabazi andia gabe, ezpada ere ain ongi honratzea irabaziagatik, baizik bere Majestadeak mereji duenagatik.

honra zagun geure aleginas, exenplu eman ta ematen digute munduko persona eskojitu oben obenek. Fernando Enperadore I akonpañatzen zue sakramentua prozesioan, komekadura ematean, ta noiz nai, agerturik bere buru erreala, ta lorees koronaturik kantatzen bidanabar. Onek oroiarasten dida errege Dabiden debozioa, baizoeie soñatus arpa, ta saltatus bidanabar, zoraturik zori onean testamentuko arka garren alzinean, zein ezpaize baizik sakramentu gonon figura bat. Zer inen zue bizitu baze gure denboran dugulaik testamentu berriko arka, ta ontan presente errealki Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoa? Fernando II imitatus Rodulfo bere atxuna, berze ainberze egin zuena. Zebilalaik eizian desertu batean, aitu zue txintxa baten soñua; galdeturik zer zen, ta aiturik zoeiela komekadura kaserio pobre batera, instante zaldiai ezporeas emanik, joan ze malda ta peñak barna aurkitzera; ellegatu orduko jautsi ze zalditik, ta oñes akonpañatu zue sazerdotea ta gure Jauna etxola pobre gartaraño. Eman ondoan sazerdoteak eriari komekadura, erraten dio animatzeko: Bi errege etorri zaizkizu etxera: Jesu Kristo errege guzien Erregea ta Fernando Boemiako erregea; eta onek, kunplitzeko guzis, ixuri zue bizarroki urrea. Felipe II Españako erregek bere tropareki akonpañatzen zue, agerturik burua, tortxareki eskuan, prozesioan zoeielarik sakramentua. Urrikariturik ministroek bero andi bat zegolaik bein, erran ziote permiti zezan bere Majestadeak paratzea goardasola. Errespondatu zue grandeza errealareriki: Egungo iruzkiak estaki gaitzik egiten; ta ala prosegitu zue bukatuartaño prozesioa. Sebastian Portugaleko erregek, oroat, oñes akonpañatzen zue komekadura, ta ez lotsatzeagatik bere presenziareki etxeakoak, gelditzen ze atarian. Pedro Araguako erregek, zegolaik errezibitzeko Aita Sanduaganik korona, nai izan zue koronatu gari-burus, zerengatik zion bekala, ezpaizitue estimatzen ainberze munduko urre, zillar ta perla guziak, nola gari buru gaiek, zeren aietatik datorren materia konsagratzeko sakramentua. Benzeslao Boemiako erregek berak, bere esku errealeki lanzen zue alorra, eraikitzen, igitatzen ta iotzen zue garia; oratzen ta erretzen zue ogia zeintak in bear zen sakramentua. Franzisko I Franziko erregek, erremediatu naiak herejia ta erroreak, eginarazi zue prozesio bat sakramentuareki, zeintan bere Majestadea joan ze oñes tortxareki eskuan; ondorean egin ziote platika bat andiei, ta azkenerat, negarreki begietan,

erran zue ezi baldin bere seme bakarrak, Henrikok, segitzen bazue erreik, bereala edekiaraziko ziola bizia sakramentuaren honratan. Nork konta gañarako errege ta prinzipie andiak esmeratu direnak debozio andi gontan? Errege sanduak, klaro da, bear zirela distingitu ontan, San Fernandoak, Santa Luisak, San Estebanak, San Kasimiroak eta berzeak. Gisa berean erreinak, Santa Isabel biak Portugalekoak ta Ungriakoak, Santa Margarita Eskoziakoak ta berzeak. Nola kontatu estado guzietako sanduak, obispoak, sazerdoteak, konfesoreak, birjinak distingitu zirenak debozio gontan? Nola kontatu doktore sagratuen obrak misterio gonon gañean? Guzien ertean Santo Tomas doktore aingiruaren debozioa, ta Santa Teresa doktora Serafikaren su amorioskoa? Bada, milagroak debozio gonon kasos agituak dire numerorik gabe. (Guzien ertean da notatzeko txakur batek iten zuena Portugalen, kontatzen baitu Parrak p.1. pl.7). Geldi gaitzen ia ezin erranes guzia, ta ez erdia ere; baña desengañaturik, ezi dugun obligazioas landara, probetxu andia ere dugula estimatzeas, honratzeas ta festejatzeas Jaun sakramentatua. Intzagun ala, zeren mereji baitu gure Jaun onak; aski da nor den ta nola egiten duen gureki. Imitazkigun arima noble, eskojitu, sandu gaiek, izan dezan orai ere nork estimazen duen, ezi Jaunau berbera da orai, ta ain liberala emateko grazia ta gloria.

Sermo 7:
De obligatione in eucharistiam
et in devotione nostrâ

In Dominicâ 18 post Pentecost.
Ecce offerebant ei paralyticum jacentem in lecto. Math. 9.

Dugu egungo ebanjelioan Kristoren Majestadea sendatzen perlesias eri zegon bat, ta dugu egungo egunean mediku dibino gau aldarean sendatu naiak gure arimen perlesia. Orduan egin zuena bera dago emen ere, biotza ain noblea, eskua ain poderoso duena, nola orduan; eta estire falta, orduan bekala, perlesiatu bat gorputzean, orai perlesiatuak ariman. Bada, o mediku dibinoa, orduko potestadea ta borondatea du orai ere, orduko-gisa aurkitzentu perlesiatuak orai ere; bada, egin bez orduan bekala milagro bat, kendakigun guzieri arimen perlesia. Eta zein ote da arimaren perlesia? Debozio-falta, nagitasuna edo pereza, zerengatik ala nola gorputzaren perlesiak inpeditzen baitu mogitzea eskuak, edo oñak, edo berze mienbro arrapatzentuenak, ala perezak edo nagitasunak kentzen digu biotzaren afiziona, gana ta ansia gauza onetarako. Beras, nik, Jesusen mutil bekala estut libertaderik autazeko egungo asuntoa; presente dagolaik sakramentua, ta delaik munduan ta erri gebetan ainberze arima perlesiadun, nagi, debozio ta ansia gabe sakramentuagana, diogulaik guziek obligazio ezin iagos. Agrabio in nezoke nere nausi onari, ezpane z prokura erremediatzea nere aldetik perlesia gau ain lastimosoa. Estiot zerbitzatuko debalde, ongi pagaturik nauka, ta ez dezaket izan perezarik iteko inala, dagolarik beira presente bere Majestadea. Baña zer in dezake gizon miserableak, ezpadio asistitzen bere Jaunak? Ortako billatuko dut enpeña bat ona. Orrek, Maria, guzien Ama ona, guk bear bekalakoa, enpeña bez bere grazia. Abe Maria.

Lenbiziko debozioa ta andiena da sakramentu sanduaren debozioa, zeñetan beneratzen baitugu ez imajinan edo idurian, baizik errealdadean presente, Jesu Kristo Jangoiko ta gizon egiaskoaren Majestadea, ta berareki Aita eternoa ta Espiritu Sandua, baita erratea Trintate guzia. Motiboa da beraren ontasun infinitoa, manifestatzen dena prinzipalki misterio gontan. Au bizi sinestaturik konsidera baledi ongi, nork ez lezoke izan debozio biotzeskoa? Goazen, nere fielak, konsideratus gutitto bat. Nor dago hostia txipi gontan? Ez errelikia edo figuraren bat, ez lurreko erregeren bat, ez sanduren bat, ez Ama Birjina. Ia ta ia dena dago, zeruko ta lurreko Jauna. Zerk dauka ala prisionero-gisa? Bere amorioak guregana. Zer nai du? Guri ongi egin, gu bereki unitu. Bear gaitu gu zerbitetako? Deustako ere ez; guk zer in dezokegu, ezpada agrabio geurenganik, errealki in ta itenbaitiogu asko. Ta alaere dago? Dago ta egonen da azken juizioko eguneraño, zeren ala baitu gusto bere Majestadeak, onesten gaituenak bere biotzaren noblezagatik solamente, guk mereji gabe. Balia bez, bada, arrazioak. Barin badiogu debozio Ama Birjina Pilarekoai, Kaminokoai, Aranzazukoai ta alakoei, zeren dagon tenplu gaitan beraren imajina bat aparezitua. Barin badiogu debozio sandu bati, zeren dagon arren gorputz ila edo errelikia elizaren batean; ta alakorik gabe ere barin badiogute debozio aingiruei ta sanduei, zeren baitire Jangoikoaren adiskide ta gure medianero, zenbat ia arrazioreki bear diogu izan aingiruen, sanduen ta Ama Birjina beraren buru denai, ta presente dagonai errealdadean? Balego errantugun eliza gaitan Ama Birjina bera personan dagon bekala zeruan, nola gindoazke guziok boladan adoratzer a gure Erreina

soberana? Bada, zein andia ta amablea den erreina gau, infinitoki andiago ta amableago Jesus sakramentatua, errege guzien errege ta Jaun goikoa.

Alaere kuadratzen zaida gure erreina ta Ama amablearen konparazioa, zeren ezpaita berzerik obeki adiarazi dezakenik dioguna. Zenbait sandu ta sanda fortunoso zori onekoei, agertuzaiotenei Ama Santisima mundu gontan, nola arrobatu diote biotzak? Nola utzitu amorosturik bere Majestadeas? Oroitzen naiz San Ildefonso Toledoko arzobispo izanas, zeñek zerengatik eskribitu zuen Maria Santisimaren birjinidadeas, ta defendatu zuen herejeen kontra birjin izan zela erdibañolen, erditzean ta erdiaskeros, premiatu zue Ama Santisimak bere kapellana bere donzella baten medios beñik bein. Santa Leokadia Toledoko patronaren egun bates, juntaturik klerezia obispoareki, kortea ta jende guzia errege Rezekintoreki sandaren tenploan zelebratzera festa, ellegaturik obispoa orazio egitera sandaren sepulkroan, derepente goratu ze gañeko arlauza, ta atra ze Birjina sanda, ta edaturik eskua obispoagana erran zio: Zuregatik, o Ildefonso, bizi da nere erreinaren gloria, zeruetako leku goienean dagonarena. Au erran ta itzuli ze bere sepulkrora. Ez kontent erreina andia demostrazio amoriosko gau eginas bere sazerdoteari, berze egun bates jautsi ze bere Majestadea zerutik, jarri ze obispoaren katedran, ta etzelarik au trebe goratzera ere begiak errespetoaren utses, erreina andiak mintzatu zio amorosa: Ildefonso, ene hume onetsia, zeren defendatu baituzu nere birjinidadea afekto onareki ta goardatu baituzu zeurea kuido guziareki, etorri naiz zure konsolatzera ta erregalatzera kasulla gau, zein paratu bear duzu nere festibidade prinzipalenetan. Au errateareki utzi zio kasulla bat agitz preziosoa, alako eskuetaik etorria bekalakoa. Nolako dulzura uste dugu, nolako debozioa itxeki zekiola sanduai biotzean? Zer errain dut alako faborees zerutik sanduei egines ala Ama Birjinak, nola Jangoikoak berak?

Eta zer uste duzie, agian fabore gaiek zirela andiagokoak ezi ez iten diguna guziei sakramentu gontan? Emen nainuke izan habilidade sinestarasteko egia gau, argia bezain klaro dena, etzirela ain andiak ere, naiz ziren extraordinariogokoak. Orai bere karidade geiegiagatik ain ordinario, usu, maiz ta kontino iten nola baitigu au, etzaiote iduri tontoei ainberze, delarik infinitoki ia. Berze alde ere bai, zeren ezpaitute ikusten begis; baña sandu gaiek berek baleukate autara errezibitzea fabore gaiek au gabe, edo fabore gau aiek gabe, auta lezakete au aiek gabe, lenago ezi aiek au gabe. Esta zer dudatu ontan, zeren Jesu Kristo bera errealki ematea ia da ezi eman dezaken guzia beras landara. Ikusi edo ez ikusi esta sustanziarako; aski da xakitea bera dela, ta ori badaki fede barin badu ta kristio barin bada. Errege baletor gure errira, ezleike geldi ez txipirik ta ez andirik joan gabe ikustera. Zer den kuriosidadea! Baña bere Majestadea ezpaledi utzi nai ikustera, baizik egon kortina baten berze aldetik aitzen guzien memorialak, ongiegin naiak, ori ziertoki xakinik, ez leizke izan baizik tonto-utsak ezlezaketenak akudi kortinaren aldakara honratzera errege ta eskatzera mertxede. Zeruetako Errege Jauna dago emen errealki, baña estalirik akzidenteen kortina gorreki; ez nadiela izan ni ain tonto, ezi ez dezaten estima, adora ta eskatu, naiz ez ikusi, dakitelaik ikusis baño seguroago dagola presente, aitzen ta ikusten nauela bere Majestadeak. Zer biajeak Santiagora, Erromara, Jerusalena adozatzera apostoluen errelikiak, ta Kristoren pasioaren memoriak. Emen ez Santiagoren, edo San Pedro ta San Pablaren gorputzak, ez pasioaren memoria utsak, baizik padezitu zuena bera dugu bizirik errealki sakramentuan. Juan de Abilak bere diszipulo bati Jerusalena joan naiak zegonai erran zio: Estaukazu emen eutxaristia? padezitu zuenaren memoria materialak ez, lekua ez, baña bai padezituaren memoria bizia, ta padezitu zuena bera.

Santa Teresak humildades erraten zio gure Jaunai iten zizkion faboreengatik:

Jauna, ezdezazkiela galtzera bota bere donoak ixuris ain merejietuen batean. Niri ere gogoratzen zaida sobra ongi errezibitus gutiago estimatzen tugula ingratoek. Bein edo bein digna baledi jaustera mundura bere Majestadea, uste dut estima gindezakela anitz, eta anitz arrazioreki. Orai egotea kontino ia da, ta estugu ia estimatuko? Nori gogoratu zekiokoe ametsetan ere ellega zeikela denbora, noiz egonen zen gureki gure desterru gontan Kristoren Majestadea kontino? biziko zela bai bere denboran bazekite lengo Aita Sanduek, ta ala deseaten zute suspiro ta ansia guzieki. Baña il ta erresuzitatu, ta igan ondoan zeruetara, injeniatuko zuela bateo egotea gureki lurrean, nork bear zue pensatu? Eta orra nola dagon sakramentu den tenplo guzietan. Begiek estute ikusten, ikusten du fedeak. Fede barin bada, nola estire debozios urtzen biotzak? Nola estire onara enkaminatzen pensamentu ta afekto guziak? Erroman solamente balitz aldareko sakramentua, Erromara bear ginduke joan arrastaka ere adoratzeagatik. Zer errain dut errezibitzeas geuren barnean? Zer errain dut etortzeas bere Majestadea etxe pobreenetara? O fede bizia, non zara? O kostunbrea, nola kentzen diozuten gauzarik andienei ere admirazioa? Nola esten ia debozio, agradezimentu ta amorio Jaun sakramentatuai? Nola ainberze epeltasun ta pereza? O perlesia lastimagarria! Jauna, senda bez, otoi, il daitzen baño len desdixatuak; estaien agi bizitzea ta iltzea ezaundu gabe ta estimatu gabe duten ondasun andia.

aitu orduko mezaren, edo minerbaren, edo sakramentuain festaren señailea edo ezkila, bear ginazke alteratu bozkariundes, amorios, deseos, honratu naies gure Jauna. Serafinek dudarik gabe, presentadaieneko hostia sagratua, asistitzen diote tinel andik eta emendik guzien Errege sumoai bekala bere goardia errealek. Nola daude nagi mundukoak, ebengatik paratzen delaik, ta ez aiengatik? Jangoikoa alzinatzen gure billa gure naies, eta gu ain nagi billatzeko ta estimatzeko Jangoikoa? Elizako buruek konzeditzentuste induljenziak asistitzeagatik alako funtzionetara; gure Jaunak mereji du ta izain du gusto, guk diogu obligazio, ta atrako dugu probetxu; nola ezkara ansiatuko gure Jaunaren presenziara geuren onagatik ere bidanabar? O, esta alako sandurik guri faboratzeko, nola sandu guzien sandua, Jesus sakramentu gontan dagona! obe nuke guzi guziak baño ene alde ta adiskide ain deus guti iduriduengoi. Emen, emen bear lirazke gure biotzak erre ta konsumitu amoriosko afektoeki, nola inzensua suan Jaunonen obsekioetan. Emen bear litzake izan gure errefujioa ta errepausa munduko miseria ta joanetorri edo goraberaen ertean. Emen gure konsolua aflikzioetan, gure alegria tristuraetan, gure erremedioa malhurrerietan, gure bear dugun on guzia gaitz guzietan. Emen gure gerokoaren logratzeko medioak ta dilijenziak, zeren baita gloriako prenda, ta gloriaren jabea ta emanzalea. Emen gure desaogatzea, humeak aitareki bekala, sekulako suertearen arrixku ta beldurtasunean. Emen gure humillatzea bere maipean bekala, gure eskatzea beraren oñetan, gure porfiatzea salba gaitzan. Domine, ad quem ibimus? Jauna, norengana joanen gara? Tibi derelictus sum pauper, guzienganik desanparaturik, pobrettoa ni, utzia nago berorren eskura; orphano tu eris adjutor, humezurza gonon anparo guzia ene Jesus ona. Dum veneris judicare, noli me condemnare. O ene Jesus juzgatu bear nauena, ez nazala kondena. Ô Jesus, esto mihi Jesus, o ene Jesus, biz enetako Jesus salbazalea, salba benaza. Inveniat servus tuus gratiam in oculis tuis, aurki bez bere sierbo gonek grazia berorren begietan. Biz berorren eskojituen bandatik au ere bat. Naiz guzia galdu, berori biz ene ondasun guzia; ori nere, ni orren orai ta beti. Ne permittas me separari â te, ez dezala permiti aparta nadien ni orrenganik beñere. Porfiatzeak asunto gontan estu enfadatzen Jesus onegia. Eta ala dagoke bat egon ta egon, porfia ta porfia humilki: Jauna,

ni ez naiz deustako ta estut deus balio; baña orren Majestadeak deus baño iagotan erosi nau, eman baitu neregatik bere bizia ta odol preziosoa ainberze tormenturen kostus; Jauna, bere pasio ta eriotzeagatik, bere odol ixuri zuenagatik, bere borz lлага gurutzean errezibitu zituenengatik, bere Ama Birjinak eman zion esneagatik, sakramentu gontan mostrapen digun amorioagatik, ez nazala utzi galtzera ni, neregatik ezpada, estaiengatik malogra orrek egin e fabore. Jauna, orrek in bez guzia doaiik ta grazias. Alaxe porfia, ene humeak, posible da in dezan grazia. Berzerik ezpadakizu, edo ezpauzu fadorik, imajina zaite txakurtto bat bekala zeure nausiaren mai pean, ta eska zozu eman dezazun zenbait apur bere maietik bereai bekala. Edo berzela figura zaite ala nola jaun andiek zezaketen iduki pobre ezindu bat karidades, ala zauzkiela zu Jaunonek bere etxean karidades, errehus estropeatu balia estaiken bat bekala, ta erran: Jauna, Jangoikoaren izenean limosna bat. Azkenean au berere ziona Dabidek: Ut jumentum factus sum apud te, et ego semper tecum, asto bat eginik nago orren alzinean, eta ni beti orreki. Ori da ene bizia ta ene gloria. Amen.

Sermo 8:
De ingratitudine in Deum,
nominátim in eucharistia

Multa bona opera ostendi vobis, propter quod
eorum opus me lapidatis? Joann. 10.

Nai izan zutelaik judioek arrikatu Kristoren Majestadea, erran ziote axuri manso dibinoak emekiro: Multa bona opera ostendi vobis, anitz obra on egin diziet, propter quod eorum opus me lapidatis? Aietatik zeñengatik arrikatzen nauzie? Oroat baita nola erratea: Nik eginikako gaizkiagatik ez nauzie arrikatzen, zeren estiziet egin gaizkirik ez anitz, ta ez guti, baizik ongi beti, ta anitz ongi. Nondik dator, bada, porfia gau ene kontra? Judioak zire aiek, ikusagun kristioetan alako zerbait ote den. Pleituan bekala dabilala dirudi bekataria-reki Jangoikoa ta Jangoikoareki bekataria. Jangoikoak a porfia, onetsi ta ongi in bear diola bekatariai, ta onek esker gaistos pagatu bear diola Jangoikoai. Jangoikoak nondik salbatuko duen bekataria, bekataria-k nondik ofenditu Jangoikoa ta galdu bere burua. Jangoikoak abasto mertzedeak, bekataria-k montonka bekatuak. Nork ikusi du alako pleitu-gisarik? Parte bata bere kontrarioain fabore ongi egin ta egin ia ta ia; kontrarioa berriz bere ongigilleain kontra ta bere kontra kontino? Ta ala da ageri emen.

Beira Jangoikoa bere eternidadetik onaraño onesten gizona, ta ongi egiten. Ezpalitz bekala aski kriatua doaiik bera, ta beraindako zerua ta lurra, ta gauza guziak, beira Jangoikoa gizon eginik padezitzen ta iltzen gizonagatik. Estire ebek progu txipiak digun amorio andiarenak. Klamatzen daude gauza guziak Jangoikoaren amorioa gure gana, baña klaro arrigarri dago klamatzen bere pasioa ta eriotzea; klamatzen daude beraren nekeak, izerdiak ta penak; klamatzen prisioneak, azoteak, arantzeak, itzeak ta gurutzea; klamatzen daude amorio andigoi beraren borz llagak ta odol ixuri zuena. Aski ta sobra ze au garaitzeko bekataria-ren porfia, baleki ezauntzen ta estimatzen; baña mertzede gonon ta berze infinito-en gañetik beira sakramentu aldarekoa, non baitago bere Majestadea ain humil ta preso bekala. Nork edo zerk dauka or gisa ortan ain andia, ain txipi, ta prisionero-gisa orren Majestadea? Aitzen nago ta ikusten ezi amorio geiegi digunak. Propter nimian charitatem suam. Gizagendea ia ongi izatekos bear litzake errenditu bere Jaunaren ainberzeko finezai, diola Santa Teresaren ariora: Jesus ene prisionero sakramentu gortan dago; zer in bear dut? Ni ere nago Jesusen amoros ero. Baña zein berze gisas iten duten geienek! Ikustera goaz. Orrek, Maria, munduaren gloria, kriatura eskojituen eskojituena, guzien partes ongi korresponditu ziona gure Jaunai, ezaun dezagun ta emenda dezagun guk geuren esker-gaitza, logra bezagu anitz eta anitz grazia. Abe Maria.

Amorioa amorioareki pagatzen bada, amorio inmensoa digulaik guri gure Jaunak, guk ere beargindioke izan gure Jaunai amorio infinito-a. Baña au estelaik posible biotz humanoan, bentzait bear diogu izan posible den amorio guzia, ta guziei baño ia, pagatzekos gure posibilidadeain gisara medianoki, ia ke ta estaiken osoki ta mereji duen adiña. Obligazio gau klaroago da ezi argia bera. Eta kunplitzen da? Non ageri da amorio bat oso ta perfektoa gure Jaunagana? Badateke izan non edo non, batean edo batean, baña ain txur da, ezi estaltzen dute munduko bekatuen montioek guzia arrapaturik daukatene-k. Orgatik nai banuke mintzatu guk Jangoikoai diogun amorioaren gain, faltako zekida

materia. Materia edo asunto abasto dugu gure eskergaitz, desamorio ta korrespondenzia gaixtoan. O balida ene Jaunak birtute ongi ikusiarasteko gure ingratitueda gure Jaunareki, ta ontan iten den txarkeria ta desarrazioa! Irur grado kontatzentio Senekak: 1^a Ez ezauntzea ta ez korresponditzea mertxedeak ongi; 2^a Atzenzea mertxede errezibitues; 3^a Mertxedeak injuria ta agrabioeki pagatzea. Guziau iten du munduak gure Jaunareki. Goazen ikustera.

Ez ezauntzeas ta korresponditzeas kunplituki estiot deus, zerengatik gure gorputzaren mienbro guziak balire biotz, ta ebeki guzieki onetsi bagindez ere, mila bizi bagindu, mila arima, mila gorputz, ta mila aldis, ta infinizio bat mila ta mila aldis emanbagindezki ebek guziok gure Jaunagatik, alaere ezkindezoke korrespondi kunplituki; estiot gure Jaunaren mertxede guziei, esta ere den txikienai, erran badaike txiki mertxede egin duena Jangoiko andiak. Zerengatik beraren oroitze bat gutas, beiratze bat guri, da mertxede balio duena infinito. Beraren odol tanta bat estaike paga munduko guzien odol guziareki. Beras, estaike paga bardin; ez eta ere eskatzen ori gure Jaunak, baizik dezakeguna, ezauntzea ta korresponditzea. Gutu dezakegu, baña dena dela, guzia zor diogu gure Jaunai. Arimaren aldetik dugun memoria, entendamentu ta borondateareki oroitu, pensatu ta onetsi bear ginduke sollik Jangoikoa ta beraren agradoko dena. Gorputzaren aldetik ikusi, aitu, mintzatu, jan, edan, bizitu ta ats artu bear ginduke Jangoikoaren zerbitzuko solamente. Gizontasun guzia bear litzake urtu ta desegin Jangoikoaren amoriotan. Amorio andia zio San Pedrok, utzi baize kruzifikatzera gure Jaunagatik. Amorio andia zio San Bartolomeek (sic), utzi baize desollatzera bizirik, San Lorenzok tostatzera trilletan, San Klemente Anzirakoak martirizaturik ogei ta zorzi urtes infinizio bat tormentus. Amorio andia zio San Felipe Nerik, autxi ta goratu baizekizkio bi kostilla biotzeko afekto andiaren utses. Amorio andia San Franzisko Xabierrek, egin ta padezitu zuenas landara gure Jaunagatik, biotzeko afektoaren sua ezin sufritus atratzen baize kanpora gauas desaogatzera beiratus zerura ziola: Aski da, Jauna, aski da. Amorio andia zio San Luis Gonzagak, ezpaizezake aparta pensamentutik gure Jauna, naiz manaturik egiteko, naiz prokuraturik ere, ala baizego buruko min kontinoareki pensatuain utses Jangoikoa baitan. Amorio andia zio San Estanislao Kostkak, erretzen baizego Jangoikoaren amoriosko su bizian, desmaiatzen baize suabekiro aldarteka, espezialki komekatu ondorean, baize preziso oial bustis tenplatzea bularra, etzeien konsumitu sugarreki. Amorio andia zio Santa Teresak, Santa Madalena Pazzik, Santa Klarak ta berze asko martir ta sandu gloriosoek iltzea gure Jaunagatik baizeukate nola erregalo ta gustorik andiena, ansiaturik padezitu naiak, il naiak, akabatu naiak beraren zerbitzutan.

Eta au guziau idurizaizie anitz korresponditzeko Jangoikoaren amorio digunai? Anitz ze persona humanoak dezakenaindako, baña guti bardintzeko gure Jaunaren amorioa, ala nola urtanta bat itsasoaren aldean, nola su txindi bat iruzkiaren aldean. Aiek alaere korresponditu ziole bere alegiñas. Guk, ordea, nola korresponditzen diogu geienek? Zer egin ta padezitu dugu gure Jaunagatik? Zer progu amorioarenak emantiogu? Ah! Kontent kunplibaleites nonbait or obligazioskoak; ezi debozioskoetan txoil aisa ezpadire, kosta badire zerbait, berla diote, estut obligaziorik. Eta bazue gure Jaunak obligaziorik iltzeko guregatik? Bazue obligaziorik gu kriatzeko, ta konserbatzeko, ta barkatzeko guri ofenditurik ere? Badu obligaziorik alimentatzeko gu bere gorputz ta odol preziosoeki? Eta iten du. Au ezaundurik nork dezake erran estiola gure Jaunari obligaziorik? Beldur dire sobra eGINEUNTELA, ta artzeko anitzetan gelditurik estakioten paga? O zein txurki dabilztan Jangoikoareki? Baña ain txur ezi obligaziosko ekspresoak ere bekatuaren penan direnak estire kunplitzen. Orra ingratituedaren lenbiziko gradoa, ez korresponditzea mertxedeei.

Bigarren gradoa dela mertxedeas atzenzea zio Senekak. Esta, bada, gauza andia oroitzea ongigilleas ta ongieginas. Nornaienganik ar gindezazke prezio gortan ondasunak; eta ori ere estugu egiten gure Jaunareki ingratoek. Beraren mertxedeas inguraturik gaude; zerua ta lurra, ta gauza guziak dagozkigu oiuz Jangoikoaren ona guretako; tugun fakultade ta mienbro guziak, bizi garen instante guziak, pulsoaren golpe guziak, atsaren errespira zio guziak dire berze ainberze fabore itentigunak, ta ezkara oroitzen itentigun Jaunas. Gabiltza ingur ingur, jaiki, bestitu, jan, edan, ibili arat onat munduko itekoetan, etzin ta berriz jaiki, bestitu etc. ta beti ala. Zenbat dire estirenak oroitzen graziak emateas goizean ta arratsean? Zenbatei doakiote egun bat eta berze bat eta berze bat in gabe memoriaik Jangoikoas? Eta Jangoikoaindako etorri mundura, Jangoikoak iduki munduan, alaere daizkela bizi asko atzendurik beras, ain nola sotoan laur atzeko animaleak? Guzien gañetik sakramentu aldarekoa dagokigu mostratzen gure Jaunaren amorio geiegia guregana. Jaiak, funzioneak, tenploak berak, ta ezkilak ere daude pregonatzen Jaun andiai zor dioguna. Guziareki, zenbait ain sor, ezi jaiak ere sisatzen, ebasten ta galtzen tiote gure Jaunai beren lurreko itekoan, edo agian gaixtakeriendako. Zein ongi paratu zuen Jangoikoak irugarren mandamentuan itz gura: Memento ut diem sabbati sanctifices, oroi zaite santifikatzeas jai-eguna. Ezperen asko agian bizi leizke atzendurik gure Jaunas, ain nola ezpalego bizirik bere Majestadea. Ia esta zer erran alakoei debozios komekatzetas maiz, akuditetas komekadurain akonpañatzera, asistitzera minerba-arratsaldetan, bisitatzera astregun ta garai bakarrago dagonetan. Oblivioni datus sum, erran dezake gure Jaunak aldartes: Atzendua bekala utzi naute ta naukate nere fielek. Ausente dagon adiskideas adiskidea oroitzen da, eta gu ez askotan gure Jaun dibinoas adiskiderik obenas, presente egonik ere. Ikusazie zer amorioa diogun, zer ingratitude txarra!

Irugarren gradoa omen da mertxedei ofensa ta agrabioeki korresponditza. Posible da gauza gau biotz kristioetan? Ain posible ezi komun ere da, ain komun nola bekatua. Posuerunt adversum me mala pro bonis, et odium pro dilectione meâ, itzulitdate ongien pagutan gaizkiak, ta ene amorioaren korrespondenziatan aborrezimentua. Jauna, estut nik aborrezitzen Jangoikoa, errain duzu; sinestatzen dut, baña ofenditzen bai asko gisas. Bada, pagatzentiozu gaizkieki onak. Hume ingratoek gezur in didate, dio, filii alieni mentiti sunt mihi. Ikusten da komunkiro humeek estustela onesten ainberze guratsoak, nola guratsoek humeak. Esta ainberzetan ikusten, baña zenbaitetan bai estiotela afektorik buratsoei, ebek ermanzusten nekeak, inzusten finezak aien aurzutuan, azitzean ta alzinatzean, aiek korresponditzentiotela utzis desanparaturik, despreziatus ta gaizki tratatus. Zer da au? Humeek gezur egitea buratsoei, burlatzea eben esperanzak. Au dio Jangoikoak iteuntela bere Majestadeareki bere aiora elizako humeek, bear zutelaik onetsi, zerbitzatu ta plazer egin, desplazer ta ofensa iten baitiote. Filii alieni mentiti sunt mihi. Hume gaixtoak, kristio pintatuak, itxura-utsak, non ikasi duzie alako doktrina? Alako korrespondenzia? Zoaste idien tegira, astoen lekura, ikusko duzie nola idiak ezaunzen duen bere jabea, ta astoak bere nausiaren ganbela, cognovit bos possessorem suum, et asinus praesepe Domini sui. Zoaste leonen, tigreen, otsoen, artzen, ta baseizia guzien kuebetera; ikusko duzie humeen kariñoa ta onginaia bereei. Zakurrak izan daizke gure maestru fidelidadean ta agradezimentuan nausiei ogi edo basalo kozkorbatzuengatik. Eta guk estugu eginen berze ainberze gure Jaunagatik, bere bizia eman, ta orai bere gorputza ta odola ematen digunagatik?

Eta segibalekigu probetxu ofenditzetik gure Jauna, alaere agitz gaixto litzake, baña ez arritzeko ainberze nola orai ofenditzen dugulaik geuren kaltetan. Ezi oiuiten du San

Pablok: Quem fructum habuistis in illis, in quibus nunc erubescitis? Zer fruitu atra duzie gauza gaietan, zein aipatzea ere alke baita? Eta jentilak balire, edo judioak, edo herejeak ofenditzeuntenak, ez lezake ainberze senti, dio bere Majestadeak. Si inimicus meus maledixisset mihi, sustinuissem utique. Baña orai nere propioak, etxeak, humeak ogi dibino bizi dulze gau jateuntenak itzultzea nere kontra, da sentigarri ezin iagos. Goazen judio-errira, aurkitukotugu ofenditzeuntela Jangoikoa; pasa herejeetara, aurkitukotugu ofenditzen Jangoikoa; itzuli jentiletara, an ere ofenditzen Jangoikoa. Ongi izatekos kristioen ertean bear luke egon seguro ofensaetaik bere Majestadeak. Gatozin kristioetara, emen ere Kristo beraren etxean ta familian ofenditua da bere Majestadea. Errepasa adin guziak, kondizio ta estado guziak; guzietan aurkituko dire ofendizeuntenak Jaun ona. Zer porfia da au, ene fielak, gure Jaunaren kontra probetxurik gabe? Jonatasek erraten zio Sauli: Ne pecces in servum tuum David, ezdezala bekaturik egin, Jauna, bere sierbo Dabiden kontra, nihil enim mali tibi fecit, zeren ezi ark estio berorri gaizkirik batere egin. Emen erragun berze aldera, etzazula, sierbo txarra, bekaturik egin zure Jaun Jangoikoaren kontra, zeren ezi estizu berak zuri gaizkirik batere egin. San Polikarpo zar zartua zeramataleik martirizatza, erraten ziote jentilek ernega zezala Kristo ganik. Sandu benerableak erran ziote: Laurogeita sei urte du nagola munduan zerbitzatzen Jesu Kristori, ta beñere eztida gaizkirik egin oraño batere, nola dezaket ofendi? Ez, ez alakorik. Añadi emen, gaizkirik batere in ez ezi, ongi guzia indida beti, guziek baño ia, nola, bada, dezaket ofendi? Nola, bada, ofenditzen nauzie? dio Jesu Kristok; multa bona opera ostendi vobis, anitz gauza on egin diziet nik zuei; propter quod eorum opus me lapidátis? Zein ongiegin gaietaik, zeñengatik arrikatzen nauzie? Zeren jautsi nitzan zerutik zuen salbatu naies? Zeren padezitu nuen ta il nitzan zuen amorios? Zeren nagon orai kontino sakramentuan zuen konsolu ta erremediotako? Zeren nagon prest ematera nai nauenai errezibitu? Ain gaizki idurizaizkizie obraebek, ofenditzen bainauzie? Ea, emogun ia, fielak, errespuesta. Jauna, estugu motiborik ofenditzeko, baizik onesteko gauza guzien gañetik. Estugu ofenditzen kausa dugunes, baizik ingratoak izanes. Gurea da kulpa guzia. Barka bezagu ta emenda gaitza berorrek, korresponditu, onetsi ta zerbitza dezogun eskojitueki guk ere, akabatuartaño bizia orren obsekiotan, ellegatzeko apatzera orren oñak glorian. Amen.

Koplatto batzuk emen azkenean
nolanai Jaun sakramentatuari
mostratzeko borondatea

Sakramentu gortan dago
Jesus nere prisionero;
Zer in bear dut? Ni ere nago
Jesusen amoros ero.
Ene arimain eske dago
Bere gana artzeagatik.
Jesus, ar bez berla berla,
Berant da berladanik.
Ene arima, non zabilta,
Arat onat galdurik?
Atoz, emen Jesus dago

Zutas amorosturik.
Jesus ona, zuk bekala
Nainauenik nik estut,
Zu sollik nik ere, bada,
Zu nai zaitut, ta obe dut.
Banidadeen banidadea
Arat onat gora bera,
Emen sollik aurkitzen dut
Arimaren gozaera.
Adio mundua ta mundukoak
Zeuren plazer banoeki,
Zu nerea, ni zurea
Jesus, gauden elkarreki.
Jesusek nai banau ni,
Nik ere nai dut Jesus,
nai dut bizi, nai dut il
Zure amore gonon sus.
Zein berant onetsi duten!
Ai! Jesus, berantegi.
Prisaka ta doble onesten
bear dut ia asi ta segi.
Ala nai dut, o nork luken
biotz noble bear dena
izan daien Jesus nere
Eta ni, Jesusena.
Zuk nai bauzu, nik nai dut.
Jesus o zurea banitz!
nai dezazu bai Jesus,
Zorko dizut esker anitz.
nai duzula zuk pobrea
Dut esperanza, Jesus.
Ardi gau estaien galdu,
Naiz izanik errehus.
Ene naiak ta ene billa
jautsi zinan zerutik;
Neketan bizi ta il zina
Penas akabaturik.
Bilatu ta erosi nauzu
Infinito kostarik;
Eznauzu utziko nagolaik
Zure oñetan botarik.
Zeruan zaude, ta emen zaude,
Ain andia ta ain txipian,
Iruzki berria ta ederra
Ogiaren idurian.
sartzen zara gisa ortan

Ene arimain barnera.
nai duzula zuk pobrea
Badezaket espera.
Zergatik ta nola ainberze
Marabilla egin duzu?
Ez debalde nik uste dut,
gisa ortan zaude zu.
Ariman esposo amantea
Amorostu nere arima;
Zutas nauzu gisa ortan,
Noiz dezaket aski estima?
Amante gisa zaude bai
Estalirik aurpegia,
Ala ia heritzen nauzu,
Ene Jesus onegia.
Nor zara zu? Nor naiz ni?
Ene arimain amorea,
Segitzen ala zuk ni,
Ain andiak, ain pobrea!
Zer nauzu emen? Ene arima
Erre nauzu, o su bizia,
Zer ai zara? Ez, ez lastima.
erre zazu, otoi, guzia.
Jangoikoaren axuria,
Zu nere, ta ni zurea,
Ogiaren iduria,
Ta erregalo ezin obea.
Maite zaitut ezin iagos
Ia ezi nere bizia,
Ia ezi lurra ta zerua,
Ta ia ezi den guzia.
Aita, esposo, Jaun ta juez
Zu zara ta nik nautena,
Jesus, otoi, zuk ni ez,
ez nazazula kondena.
Karidades ar nazazu
Pobre gisa zure etxean,
Astoko gisa ganbelan,
Txakurtto gisa mai-pean.
Eskojitueki inzazu
Nitas, o Jesus, memoria.
Zure grazia beti idazu,
Orai grazia, gero gloria. Amen.

Joakin Lizarraga